

ONOMASTICON VASCONIAE

*II*

PATXI SALABERRI ZARATIEGI

ESLABA  
ALDEKO EUSKARAREN  
AZTERKETA  
TOPONIMIAREN  
BIDEZ



EUSKALTZAINDIA

Lan honetan Oibar haran gehieneko (Lerga, Eslaba, Ageza, Zare, Ezporogi, Moriones), Galipentzu eta Uxueko toponimia aztertu da, aski poliki eta aski sakonki. Inguruko herrietakoa ere (Tafallatik Oibarreraino, ingurua eginez) ikertu da, baina ez horrenbesteko sakontasunez.

Helburu nagusiak hiru izan dira:

1.-Eskualde honetako euskararen berri jakitea: testurikez dagoenez gero, bertako euskararen gainean zerbait jakiteko bide nagusia (ia bakarra) toponimiaz baliatzea da. Erran bezala, herriz herriko azterketa sakona egin da lehenik, eta hemendik ateratzen ahal ziren hizkuntz ondorioak atera dira gero.

2.-Muga-eskualdea izan den honetan euskara noraino zabaltzen zen ikusten ahalegindu da egilea, toki-izendegian eta dokumentazioan oinarri harturik. Gure hizkuntza herri bakoitzean zein mendetan galdu zen zehazten ere saiatu da.

3.-Toponimian azaltzen diren hainbat izen, posposizio (hauek ere izenak dira baina) eta abarren balioa finkatu nahi izan da, elkarrekiko duketen aldea edo ẽitea ikusiz.

Lana sei urtetako ahaleginen emaitza da: lehenik artxibategiko lana egin da hiru bar urtez, gero herrietara jo da agerietako leku-izenak zer neurritan gordetzen ziren, non zeuden kokatuak, nola ebakitzen ziren, aurkientza bakoitza nolakoa zen eta abar jakin nahian. Honen ondoren (ez honekin batera, zoritxarrez), datuak ordenagailuan sartuz joan da Salaberri jauna: behin denak sartu ondoren, informazioaz baliaturik toponimo bakoitzaren etimologia egin da, zuzen edo oker, bakoitzari zegokion kokalekua zein zen ere esan da aurkientza bakoitzak zein beste aurkientzarekin mugatzen duen zehazturik; dermio bakoitzaren barruko azpidermioek zer izendatzen duten ere aztertu da...

Hau guztiau egin aitzinetik toponimian arrunten diren atzizkiez autorerik ezagunenek zer erran duten iruzkindu du ikerleak datuak aintzat harturik, iritzia emanetz... Azkenean euskararen eta erdararen arteko muga finkatzen saiatu da, bai eta euskara herri bakoitzean noiztsu (zer mendetan) desagertu zen esaten ere.

Azkenez ondorio linguistikoak atera dira.

Lanaren bukaeran izen-aurkibide zabal samarra sartu du egileak, bilatze-lana errazte aldera, eta eskualde osoa harrapatzen duten bi mapa handi ere bai. Tartean, lanaren barruan, beste lau mapa ageri dira: Eslaba aldea, Nafarroan, euskararen muga Erdi Aroan, euskararen muga goragoko herrietan, Bonaparteren garaia arte edo.









---

---

ONOMASTICON VASCONIAE

---

---

*11*





---

---

ONOMASTICON VASCONIAE

---

---

11

PATXI SALABERRI ZARATIEGI

ESLABA  
ALDEKO EUSKARAREN  
AZTERKETA  
TOPONIMIAREN  
BIDEZ

75  
E. I. E.



---

---

EUSKALZAINDIA


---

---

1994

LIBURU HAU NAFARROAKO GOBERNUAREN  
HIZKUNTZA POLITIKARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN  
BABESAZ ARGITARATU DA

ESTA PUBLICACION HA SIDO REALIZADA BAJO LOS AUSPICIOS  
DE LA DIRECCION GENERAL DE POLITICA LINGUISTICA  
DEL GOBIERNO DE NAVARRA



Liburu-sortaren zuzendaria/Director de la colección: E. Knörr  
Aholkularigoa/Consejo asesor: Euskaltzaindiaren Onomastika Batzardea/Comisión de Onomástica  
de la Real Academia de la Lengua Vasca:

*Buru:* Endrike Knörr

*Buruorde:* Alfonso Irigoien

*Idazkari:* Mikel Gorrotxategi

*Kideak:* Ricardo Cierbide

José Antonio González Salazar

Andrés Iñigo

José María Jimeno Jurío

José Luis Lizundia

Jean-Baptiste Orpustan

Patxi Salaberri

Juan San Martín

José María Satrustegi

© Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBAO  
Tel. 94-415 81 55

Legezko Gordailua/Depósito Legal: NA. 1.117-1994  
ISBN: 84-85479-72-6

Fotokonposaketa/Fotocomposición: Nagraphic, S.L. Pamplona/Iruñea

Moldiztegia/Imprenta: GraphyCems. Morentin (Navarra)

Eraketa/Diseño: Enric Mir i Malé

*Nire familiari,*  
*Nire herriari*



## 1. GURE EREMUA

Lan honetan Nafarroako Ekierdialdean dauden Galipentzu eta Uxue eta hauen ondoko Oibar haraneko herri gehienak hartu dira aztergaitzat. Kanpo gelditu dira, ordea, ibarburu den Oibar herria eta bailararen alderdi menditsua den Bizkaia, lehena oso goiz erdaldundu zenez ekarpen gutxi egin ziezaiokeelako darabilgun gaiari, hots, eskualde honetako euskararen ezagutzeari, eta bigarrena beste ikerlari baten helburu delako<sup>1</sup>. Dena den, lan honetan Oibar herriko toponimiaren azterketa sakona egiten ez badugu ere, bertako dokumentazioa ongi miatu dugu, bai eta orain bizirik dauden toki-izenak bildu, zeregin hau euskararen mugen nondik-norakoaren berri izateko garrantzizko iruditu baitzaigu.

Inguruko herrietako toponimiaz ere baliatu gara xede bera lortzeko, toki guztietan gure ezagutza berdina ez den arren. Tafallako toponimia, kasu, aztertua eta argitaratua dago<sup>2</sup>, bai eta San Martin Unxekoa<sup>3</sup> eta Olibaldekoa ere<sup>4</sup>, neurri batez bederen. Lan hauetaz gainera, herri horietako artxibategi-datuak ere erabili ditugu. Kontuan hartu ditugu, halaber, Beire, Erriberri, Pitillas, Santakara, Melida, Murillo el Fruto, Zarrakaztelu, Kaseda, Zangoza eta Ledeko materialak, hizkuntzaren muga geografikoak finkatu ahal izateko beharrezko genituen z gero.

Gure eskualdearekiko mugakideak diren Urraulbeiti, Irunberri, Ibargoiti, Orba eta Nafarroako beste alderdi batzuetako toponimoak ere mintzagai hartu ditugu sarritan. Izan ere, ezinbesteko deritzagu, etimologia egiterakoan, beste alderdi batzuetako toponimia ezagutzeari, hasiera batean opaku diren izen asko herri mordoxka bateko aldaerak ikusi eta aztertu ondoren garden bilaka daitezkeelako. Askotan adierazlea da etimologia egiteko argitasuna ematen diguna; beste askotan, ordea, adieraziari eskertu beharko diogu erraztasun hori emana.

---

1 Masu Nitra ikertzaille japonarra, ari omen da, aspaldi handi honetan, Bizkaiko hiztegi eta toponimia biltzen.


2 Jimeno Jurío, THET.

3 Fco. Javier Zubiaur Carreño, "Toponimia de San Martín de Unx (Navarra)", CEEN, 27, 1977, 415-462. orr. eta "Toponimia de San Martín de Unx según los amojonamientos de la villa en el siglo XVI", CEEN, 29, 1978, 255-271. orr.


4 TCO, Ricardo Cíerbide-Graciliano Herrero, CEEN, 46, 1985, 5-85. orr., eta TCO-II, id., 47, 1986, 91-164. orr.

Hona hemen, esandakoaren argigarri, gure alderdiak Nafarroan duen tokia eta alderdi horretako herriak biltzen dituzten mapak:

## NAFARROA



## Gure alderdiko herriak







## 2. LANAREN HELBURUAK

Lan honen helburu nagusiak hiru izan dira:

1-Alderdi honetako euskararen deskribaketa egitea, fonetika-fonologia, morfologia, joskera, hiztegia (semantika) eta prosodia mailako ahalik eta puntu gehien argitzeko. Ongi dakigu, alabaina, toponimia oso tresna eskasa dela tokian tokiko euskararen berri izateko.

Guztiarekin ere, gure ikerketa euskalkia ongi ezagutzeko aski izan ez den arren, toponimiaren bidez fonetika-fonologiaren mailako puntu ugari argitu ahal izan ditugu, eta beste horrenbeste esan daiteke morfologia eta semantika (hiztegi) mailez. Azentuaketaren inguruko xehetasun batzuk biltzea ere izan dugu, eta ezbairik gabe joskera da galduan atera den arloa. Maila honetan ezin izan dugu ezer argitu hitz ordenaz, eta esaldiak taiutu eta antolatzeke moduz, gure alderdian ez baitzaizkigu sekulan azaldu beste eskualde batzuetan arruntak diren erlatiboak perpausetan jatorria duten toponimoak, adibidez.

Beste alde, aukeratu dugun eskualdearen hizkuntz batasuna (euskara batasuna) eztabaidagarria izan daitekeela badakigu. Guk, maiz aski, “gure alderdia”, “gure eskualdea”...eta antzeko esakerak ibili ditugu, aztertzen ditugun herri guzti horiek osotasun itxi batean biltzen ahalko balira bezala. Mintzamolde honen arrazoia erositasunean bilatu behar da beste ezertan baino areago.

2-Eskualde honetako euskara noraino zabaltzen zen, euskara eta erro-mantzearen (ez bakarrik gaztelaniaren) arteko mugak zein ziren, zein herritan finka zitezkeen argitzea.

Toponimiaren azterketaren bidez euskararen muga azken mendeetan non egon den nahikoa zehaztasunez esan daitekeela uste dugu. Besterik da, ordea, euskalduna izan den herri batean euskara noiz (zein mendetan) galdu den esatea.

Batzutan (gutxienetan) aurkitu ditugun agiriak garbi erakusten digute euskara halako herritan halako urtetan? mintzatzen zela. Bestetan (gehienetan) euskal topo-

---

5 Kasu hauetan ere gauzak ez daude erabat garbi: badakigu noiz mintzatzen zen baina ez noiz utzi zitzaion mintzatzeari. Guztiarekin ere, agiriak pista onak ematen dizkigutela ezin uka.

nimo kopuruak, berandu arte toki-izenek atxiki duten euskalduntasunak, toponimo horietan (zeharka bada ere) islatzen diren euskararen ezaugarri fonetikoek<sup>6</sup> eta bestek adieraziko digute euskara noiztsu arte hitzegin den herri batean.

Bigarren ikerbide hau, hala ere, ez da arriskugabea, aintzat hartu behar baita notari gehienek erakusten duten euskal izenekiko axolagabekeria, eskribau askok azaltzen duten itzultzeko zaletasuna<sup>7</sup>. Gainera, hizkuntzaren galtze-abiadaren berririk izan gabe, galtze-prozesu horretan parte hartu duten faktoreak eta abar ezagutu gabe zaila da galera hori erabat zer garaitarako (zer mendetarako) burutu den esatea. Hortaz, agiririk ez dagoenean, hemen ematen diren datak 'cum mica salis' hartu behar dira, gure ziurtasuna oso gutxi gorabeherakoa denez gero.

3-Hasieran bigarren mailakoa zen baina gero, ariaren poderioz nagusi bilakatu den beste helburu bat toponimian azaltzen zaizkigun hainbeste izenen balio eta adiera finkatzea eta zehaztea izan da. Hemen generiko eta posposiziorik arruntenak hartu ditugu aztergai, morfema bakoitzak multzoko beste kideei buruz zer diferentzia aurkezten duen ikusi nahian.

Honekin batera, eta lan honen xede nagusia eskualdeko euskararen ikerkuntza izan den arren, gaurko toponimia neurri handi batean erdalduna ere bildu dugu eta mapetan kokatu, toponimia aztertzen denean mapak, gure irudiz, ezinutzizkoak baitira.

6 Adibidez, n-ren atzean ch azaltzea, egun izen hori [θ]-z ebakitzen delarik.

7 1534eko Nafarroako despoblatuen zerrendan (NAO, Comptos, 550, zkia.), Uxuen Otrollos el chico eta Otrollos el grande ageri dira. Hau euskararen galtze goiztiarraren islatzat jo lezake norbaitek, baina, batetik, badakigu hurrengo mendean gure hizkuntza oraindik bizirik zegoela, eta bestetik, XVIII. mendearen bukaeran ere herri honetako toponimioen artean Otrollostxiki eta Otrollosandi aurkitzen ditugu.

### 3. METODOLOGIA

Lan hau burutzeko bi baldintza ikusten genituen beharrezko: artxibategien miaketa sakona batetik, eta egungo eguneko toponimia biziaren bilketa bestetik. Lehen zeregina ezinbestekoa da toponimoen etimologia ikertu nahi denean, agiri zaharrek orain desitxuraturik eta itsusturik dauden hainbat leku-izenen jatorriaren berri ematen baitigute.

Honekin batera, eskualdeko euskararen egoeraren berri emango ligukeen agiriren bat aurkitzeko esperantza ere baguen, eta arlo honetan guk nahi adinako argitasunik ateratzerik izan ez dugun arren, ezin esan dezakegu gure ahaleginak erabat elkorrak izan direnik, aurrerago ikusiko dugunez.

Eguno toponimia biziaren bilketa lana ere derrigorrezkoa genuen, toponimoak mapetan kokatu ahal izateko lehenik, eta agirietan ediren izen askok sortzen zizkiguten zalantzak argitzeko gero. Izan ere, leku-izen baten etimologia egiteko, gutiz gehienetan, izen horrek nolako errealitatea izendatzen duen jakin behar dugu, bestela huts egiteko arriskutan egongo baikara. Halaber, toponimo baten egungo ebakerak historian zehar jasan duen bilakaeraren berri ematen digu, eta agirietako grafiak zuzen interpretatzen laguntzen du. Adibidez, Eslabako gaurko **Sabizabal** [s̺abiθáβal] eta **Sirgun** [sírgún] ahoskerak dokumentazioko j-dun aldakien azpian [s̺] genuela ematen dute eza-gutzeroa, ez [y] edo [x]. Hau garrantzi handikoa da gauza askotarako, aldaera batua zuzen aukeratzeko, besteak beste.

Arakatu ditugun artxibategiak hauek izan dira:

**Protokolo artxibategia (PRA):** Barasoain (axaletik), Erriberri (axaletik), Irunberri (axaletik), Kaparroso (axaletik), Kaseda, Oibar eta San Martin Unxeko notari-goak. San Martin Unxeko hipotekak.

**Iruñeko Eliz barrutiko artxibategia (IEA).**

**Lergako eliz artxibategia (LEA)<sup>8</sup>**

**Oibarko udal artxibategia (OUA)**

**Uxueko eliz artxibategia (UEA)**

**Uxueko udal artxibategia (UUA)<sup>9</sup>**

8 Artxibategi honetako materialak José María Jimeno Jurío ikerleari zor dizkiogu.

9 Gaingiroki baizik ez dugu miatu. Artxibategi honetatik ateratako datuak, gutiz gehienetan, herrikide eta adiskide dugun Mikel Burgiri zor dizkiogu.

Informatzaile izan ditugun lagunak berriz, honako hauek dira:

**Ageza:**

Clemente Barriain Sola. Nekazari ohia. 1926an sortua. Eslabakoa.  
José Egea Otano. 1915ean sortua. Nekazari ohia.  
Pilar Inda. Etxekoandrea. 1926an sortua.

**Aldea, Epaiz, Lerga:**

Juan Iriarte Etxapare. 1911n jaioa. Nekazari ohia.  
Ignacio Iriarte Marco. 1949an sortua. Nekazaria.

**Eslaba:**

Jesús Barriain Ojer. Nekazaria, 1924ean sortua.  
Rafael Barriain Sola. Nekazaria. 1923an sortua.  
Clemente Barriain Sola. Nekazari ohia. 1926an sortua.

**Ezporogi:**

Fernando Sagüés Iriarte. Nekazaria. 1919an sortua.

**Galipentzu:**

Demetrio Arive Reta. Igurai ohia. 1913an sortua.  
Marcelino Ferrer Zubiat. Nekazari ohia. 1921ean sortua.

**Leatxe:**

José Jaime Arizcuren. Nekazaria. 1920an sortua.  
Vitorina Cabodevilla Urbicain. Etxekoandrea. 1930ean sortua.  
Elicio Ojer Beorlegui. Nekazari ohia. 1925ean sortua. Morioneskoa.  
Justo Sola Irigoyen. Nekazari ohia. 1908an sortua.

**Moriones:**

Miguel Artoleta Tiebas. Artzaina. 1941ean sortua.  
Elicio Ojer Beorlegui. Nekazari ohia. 1925ean sortua.

**Oibar:**

Romana Arbeloa Goieneche. Etxekoandrea. 1925ean sortua.  
Santos Sabalza Alzueta. Nekazari ohia. 1915ean sortua.

**Uxue:**

Bautista Aldunate Ugalde. Nekazaria. 1926an sortua.  
Lucio Berrade Burgui. Artzai ohia. 1921ean sortua.  
Esteban Berrade Bustinze. Nekazaria. 1923an sortua.  
Juan Burgui Mateo. Artzain ohia. 1898an sortua.  
Hermenegildo Salaberri Bustinze. Igeltsero ohia. 1921ean sortua.  
Soledad Zaratiegi Aiesa. Etxekoandrea. 1925ean sortua.  
Gumersindo Zaratiegi Aiesa. Nekazari ohia. 1928an sortua.

**Zare:**

Braulia Goñi Janáriz. Etxekoandrea. 1918an sortua.  
Jesús Irigoyen Mateo. Nekazari ohia. 1918an sortua.  
Casimiro Pérez (de Iriarte) Jiménez. Nekazari ohia. 1912an sortua.

Hauetaz gainera, Oibarko Ana Lanas Arbeloak eta Zareko Manolo Apestegui Goñik laguntza izugarria eman digute informatzaileak bilatzen eta jendearekin harremanetan jartzen, eta Jose María Jimeno Jurío bilduta zituen datu asko utzi dizkigu. Gure herrikidea den Mikel Burgi euskaltzale jatorriare ere eskerrak emateko beharrean gaude, berau izan baitzen Uxueko toponimiaz arduratzera eraman gintuena eta geroenean ere ahal izan duen laguntza guztia eman diguna. Bestalde, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren datu-baseari esker, gure alderdiko toki-izenak argitzen lagundu diguten hainbat lekutako toponimoen berri jakin dugu.

Artxibategietako eta ahozko bilketaz landara, azken katastroko mapak eta zerradak ere erabili ditugu, egoki iruditu zaigun herrietan. Galipentzu eta Uxueko udalerrietan barrena sakabanaturik dauden gorroteak oso baliagarri dira dermioen mugak finkatzeko orduan, eta hori dela eta, bi herri hauetan ez dugu mapa katastralak erabiltzeko premiarik izan. Oibar haraneko herriek, oro har, udalerrri txiki samarra dute, eta honen ondorioz gorroteak ere oso gutxi dira, herria edozein dermiotatik hurbil dagoenez bertan egonaldi luzerik egiteko beharrik ez zegoelako. Alderdi honetan, hortaz, katastro mapak erabili behar izan ditugu, lagungarri moduan, zenbait toki-izen ongi kokatzeko edo dermioen arteko muga finkatzeko, lehentasuna beti bertako informatzaile adituek izan duten arren. Gainera, mapa katastralek arazo ugari sortu dizkigute, dermioak usu tokiz kanpo daudelako, nahasketa handia sortarazten dutelarik.

Mapa hauetaz gain, Nafarroako Diputazioak 1975ean argitara emandako 1:10.000 eskalako mapa erliebedunak ere ibili ditugu, hauetan, katastroetan ez bezala, toponimoak kokatzeko horren garrantzizkoak diren errekek, muinoak, mendiak...eta beste garbi agertzen direlako.

Leku-izenen lantzeari dagokionez, lekukoak agirietatik atera eta ordenagailuan sartu ditugu, horretarako Joaquín Ezpeleta lankideak prestatu zigan fitxa bereziaz baliatu garelarik. Fitxa honetan "aldaera batua" (aldaera normalizatua), "aldaera" (agiri bakoitzeko lekukotasuna), "urtea", "artxibategia", "notaria", "notarigo-herria", "erreferentzia" (hots, karpeta, kartoia edo liburua, orriaz gainera, zehazten ahal zenean), eta "testuingurua" arloak agertzen dira, hasiera batean beharrezko iruditu zitzaizkigunak, alegia. "Aldaera batua"-n toponimo baten aldaki ezberdinak ikusita hautatu dugun forma estandarizatua sartzen dugu. Jakina denez, toponimoek itxura ezberdin franko aurkezten dituzte, eta aldaki guzti horiek ordezkatzeko dituen forma bat aukeratu beharra dago, bestela datuak sailkatu, erabili<sup>10</sup>, eta mapetara pasatzea ezinezko gertatzen baita. Forma batu hori aukeratzeko izan ditugun erizpideez ikus hurrengo atalean dioguna.

Ondorengo pausua gure alderdiko toponimian sarrienik azaltzen diren toponimoen azterketa egitea izan da. Honetarako gaia landu duten autorerik ezagunenen eritzia aipatzen dugu lehenbizi, eta gure eskualdeko toponimo horietako bakoitzak dituen ezaugarri bereziak iruzkintzen ditugu gero. Atal berezia eskaini diegun atzizkiak honako hauek dira: **-aga**; **-ain**; **-as** / **-az**, **-es** / **-ez**, **-iz**, **-os** / **-oz**, **-us** / **-uz**; **-di**, **-doi**, **-dui** / **-tui**, **-du**; **-eta**, eta **-tze**, **-tza**. Gure alderdian azaltzen diren **-ana** (Erlosiana Uxuen), **-ino** (Aurino Galipentzu eta Uxuen), **-ona** (Artaxona > Artaxo- Galipentzun), **-eka** (Bartasteka Galipentzun) atzizkiak bakanka baizik ez ditugu aurkitzen, eta zein bere herrian ikustea egokiago iruditu zaigu.

<sup>10</sup> Jimeno Jurío jaunak ere Iruñerriko toponimia bildu duenean aldaera batu bat hautatu behar izan du, honetarako erabili dituen irizpideak garbiegi ez badaude ere.

Gero herriz herriko toponimiaren azterketari ekin diogu, eta sarrera bakoitzean toponimoaren etimologia argitzen ahalegindu gara lehenik, ditugun aldaera ezberdinetan eta adierazten duen errealitate fisikoan oinarriturik, usu askotan, arlo honetan arrunta denez, hipotesi hutsean gelditu bagara ere. Ezpezifikoa lagun eginez azaldu ohi diren generikoek zer izendatzen duten ikusten, eta dermio bakoitzak zein beste dermioarekin mugatzen duen zehazten ere saiatu gara.

Herriz herriko toponimiaren azterketa burututakoan "gure alderdia" deitu dugunaren inguruko herrietako toponimia euskalduna bildu eta analizatu dugu, euskararen eta erromantzearen arteko muga antzina nondik nora zihoan ikastearren. Gero beste horrenbeste egin dugu gure eskualdeko herrietan, egindako toponimia azterketan eta aurkitutako agiritan oinarriturik.

Azkenik, gure alderdiko euskara nolakoa zen ikusten ahalegindu gara, toponimoz toponimoko ikerketan atera ditugun argitasunak aintzat hartuta. Hizkuntz azterketa honen bitartez alderdi horretako hizkeraren fonetika-fonologia, morfologia, eta semantika (hiztegia) arloetako ezaugarri batzuen berri izan dugu, baina joserik eta prosodia mailak ia ukitu gabe gelditu dira. Honen arrazoiak, gorago esan moduan, toponimia den ikerbidean berean bilatu beharra dago, aipatu bi eremu horietan<sup>11</sup> honen emaitzak bereziki eskasak baitira.

<sup>11</sup> Euskara galdu den gurea bezalako eskualdeez ari gara. Euskarari eutsi dioten tokietan prosodia mailan ere emaitza politak lor daitezke.

#### 4. ALDAERA BATUAK AUKERATZEKO ERABILI DIREN ERIZPIDEAK

Gure eskualdeko toponimo euskaldunek, euskararen desagertzearen ondorioz itxuraldaketa arin edo sakonak jasan dituzte sarri asko. Itxuraldaketa hauek hizkuntz-ordezkapenaren aspaldikotasunarekin daude loturik ia beti<sup>12</sup>, baina badira toki-izena aldarazten duten bestelako arrazoiak, hala nola luzera eta erdaldun batentzat duen zailtasuna. Adibide moduan Uxueko **Mantxiriturrieta** aipa dezakegu; hau **Manchil yturrieta** zen oraindik ere 1726an<sup>13</sup>, Uxueko euskara bizirik zegoela susma dezakegun garaian, baina orain oso desitxuraturua dago, eta hitzun ezberdinen artean eta are hitzun berarengan zalantzak izaten dira izen hau ebakitzeko: **Mantxantxurreta**, **Mantxintxurreta**...

Aldaera batuak aukeratzeko orduan erizpide finko batzuk izan behar direla bistako gauza da, bestela batzuetan batera eta bestetan bestera joka daitekeelako ohartu ki nahiz oharkabeen. Guk hemen *Nafarroa. Toponimia eta mapagintza* lanean<sup>14</sup> proposatzen direnak erabili ditugu, egokiak direlakoan, bai toponimo euskaldunak eta bai erdaldunak normalizatzerakoan, azken hauek ere anitz aldiz itxuraberritzeko premia baitute, hein handi edo txikian.

Leku-izen erdaldunen artean bi multzo dira maizenik normalizatu beharrean egoten direnak: jatorriz **-ado-z** bukatzen direnek osatutakoa (**El Cerrau**-ren gisakoak), eta antzina bi osagarrien artean **de** preposizioa zutenek osatzen dutena (**La Fuente Pedro**, **El Camino Busa**-ren tankerakoak). Hala ere, eta pentsatzekoa zenez, toponimo erdaldunek askozaz buruhauste gutxiago eman dizkigute, aldaera batua aukeratzekoan, euskaldunek baino.

Leku-izen euskaldunen aldaera batua aukeratzeko orduan eskuetatzen zaizkigun arazorik larrienetako bat txistukariak ordezkatzeko dituzten zenbait grafiak sortzen dutena da, ez baita garbiegi ageri, batzuetan, azpian dagoen soinua zehazki zein den.

---

12 Euskara bizirik dagoen herrietan ere toponimo askok nolabaiteko itxuraldaketa jasan dute, batez ere luzeak direnean. Alabaina, toponimoaren formaren iraupena ulergarritasunarekin ohi dago loturik, eta Nafarroako toki askotan ikusten denez, toponimo anitzek desitxuraketa euskararen galtzapenarekin bateratsu gertatzen da.

13 UEA, 14. kap-lib., 330. or.

14 Nafarroako Gobernuak, Iruñea, 1991, 37-63. orrialdeak. Beranduxeago bigarren argitalpen zuzendu eta osatua aterata da.

Hau egun [x], [θ], [sj] eta [č]-z ebakitzen den toponimo mordoxka bati dagokio: **Mendijuri** [mɛ̃ndixúri] Leatxen (**Menditxuri** [mɛ̃ndičúri] Oibarren) **Jautu** [xáutu] Zaren, **Rotasiar** [rótašjár] Eslaba eta Lergan... Hauetako gehienak dokumentazioan grafema ezberdinekin idatzita agertzen dira (ikus **Grafia kontuak** atala), baina denek azpian soinu sabaikari bat zutela garbi dago, etimologiak eta oraingo ebakerak erakusten duten bezala.

Batzuetan kontua aski garbia da: Eslaba eta Lergako egungo **Rotasiar**, adibidez, antzinako **Errotaxar** baten isla argia da (cf. Uxuen musiarra [mušjāfa] < muxarra pizti-izena), baina beste batzuetan arazoa ez da horren garbia: Oibarren, esaterako, gaurko **Menditxuri**, **Mendichuri** idatzia aurkitzen dugu 1703<sup>15</sup> eta 1719an<sup>16</sup>, **Mendixuri** 1591n<sup>17</sup>, **Mendijuri** 1592an<sup>18</sup>, eta **Mendisuri** 1683<sup>19</sup> eta 1685ean<sup>20</sup>. Toponimo bera (jatorriz, adieraz eta leku-izendatzez) Leatxen **Mendijuri** [mɛ̃ndixúri] da orain, 1592an<sup>21</sup> bezala; 1593an **Mendi xuri** edo **Mendijuria** zen<sup>22</sup>, 1634<sup>23</sup> eta 1773an<sup>24</sup> **Mendiguri**, 1647an<sup>25</sup> **Mendicuri**, 1752an<sup>26</sup> **Mendizuri**, 1691n<sup>27</sup> **Mendisuria** eta 1705ean<sup>28</sup> **Mendichuri**.

Lergako **Rotasiar**-en jatorrizko forma ezberrik gabe aipatu **Errotaxar** hori zen arren, **Errotazar** ere ediren dugu (1769<sup>29</sup>, 1801<sup>30</sup>), eta honek aldaera estandartzat zein aldaki aukeratu behar den erabakitzerakoan zalantzak sortzen ditu. Honelakoetan egungo forma bizitik hurbilen zegoen aldaera zaharra aukeratu dugu, jatorra bada, alegia, erdararen eraginari zor ez bazaio.

Sarri askotan aspaldiko ohizko formaren eta orain erabiltzen den izenaren artean diferentzia zerbait izaten da, egungo toponimoa desitxuratua ohi baitago, arinki baizik ez bada ere zenbaitetan. Honelakoetan toponimoa "birreraiki" egin dugu, toponimian bildua dagoen euskal hizkuntza eta kulturaren ondarea begiratzeagatik. Esaterako, Galipentzun gaurko **Rezendia** [rɛθɛndía] edo **Arrezendia** [ārɛθɛndía] **Ardantzeandia** bezala sartu dugu, izan ere agiri zaharretan azaltzen den toponimo euskaldun gardenaren oinarrian dagoena hau baita. Berdin jokatu dugu, beste adibide bat aipatzearen, herri bereko gaurko **Rekadaiza** [rɛkadáɰa], **Rekadeiza** [rɛkadéɰa], **Rekadiza** [rɛkadíθa]-rekin. Kasu honetan dokumentazioan zeharo garbi azaltzen zaigun **Errekagaitza** bezala eman dugu, nahiz agirieta, esperatzekoa zenez, tz-rik ez den agertzen.

15 PRA-Oibar, 30. k.

16 Id., 36. k.

17 Id., 5. k.

18 Id., 6. k.

19 PRA-Kaseda, 2. k.

20 Id., 3. k.

21 PRA-Oibar, 6. k.

22 Id., 7. k bis.

23 Id., 23. k.

24 Id., 69. k.

25 Id., 25. k.

26 Id., 57. k.

27 PRA-Kaseda, 6. k.

28 PRA-Oibar, 30. k bis.

29 PRA-San Martin, 49. k.

30 PRA-Oibar, 87. k.



Herri bereko **Melenas**, ordea, dagoen-dagoenean utzi dugu, behin dokumentatzen den eta itxuraz euskaldunagoa den **Meleas**-en kaltetan. Honelakoetan egungo izena eduki dugu kontutan batetik, eta aldaera bakoitzak dokumentazioan duen aspaldikotasun eta maiztasuna bestetik. Hiru aldagai hauen arabera erabaki dugu kasu bakoitzean eman beharreko aldakia zein zen. Hau aintzat harturik, Galipentzun **Mele-****nas** hobetsi dugu, baina **Lejua**, egun ibiltzen den **Lejuga** baztertuz.



## 5. GRAFIA KONTUAK

Airtzineko atalean esan dugun bezala, beharrezko iruditu zaigu toponimo bakoitzari forma estandar bat ematea, toponimo horiek aztertu eta mapetan sartzeko izen ber baten aldaki ezberdin guztiak forma beraren azpian sartzeari nahitaezkoa baita. Zeregin honetan gorago azaldu ditugun erizpideei jarraiki gatzazkie (ikus aurreko atala).

Erizpide horiek, halere, ez dira aski. Honetaz gain ezinbestekoa iruditu zaigu, aldaera batua finkatu eta hizkuntz azterketa zuzena burutu ahal izateko, toki-izenen aldaera ezberdinek aurkezten duten grafia aztertzea, batik bat euskaraz arruntak izanik gaztelaniaz erabiltzen ez diren hotsen kasuan.

Gainera, euskarak bizi izan duen egoerarengatik (eta berezko bilakaeraz ere bai) euskalki batetik bestera, eskualde batetik bestera (bai eta herri batetik bestera), zenbait fonemak ebakera ezberdinak dituzte (/j/ adibidez, tokien arabera [y], [ʃ], [x]... ahoskatua), eta honen ondorioz erabilitako grafemak ere ezberdinak izan direla dirudi. Beste batzuetan berriz, grafema ezberdin multzo batek gauzatze fonetiko bera ordezkatzeko du (ikus beheago).

Hona hemen gure eskualdeko toponimoetan ohizkoak diren grafemarik korapilotsuenak:

Ç: Honen bidez hortz-hobietako [c] eta [s] soinu bizkarkariak eman izan dira aditzera. Gaur tz idatziko genukeenaren ordeztasun, adibidez, Morionesko **Ariçabaleguia**-n (1642)<sup>31</sup> dugu, Uxueko **Ayçandia**-n (1606)<sup>32</sup>, **Ayçandieta**-n (1632)<sup>33</sup>...eta beste hainbatetan. Igurzariaren ordeztasun, Eslabako **Çaçuburu**a (1645)<sup>34</sup> edo **Çacualdea**-n (1584)<sup>35</sup>, eta **Lergako Çalduburu**-n (1584)<sup>36</sup> ageri da.

---

31 PRA-Oibar, 24. k.

32 Id., 12. k.

33 PRA-Kaparroso, 57. k.

34 PRA-Oibar, 25. k.

35 Id., 3. k.

36 Id.

Hortz-hobietako igurzkari eta afrikatu bizkarkariak, c edo z grafemen bidez ere eman izan dira guk miatutako dokumentazioan. [s] emateko, esan bezala, ç, z eta c-rekin txandakatzen da, baina bakarrik XVI eta XVII. mendeetan. XVIII.ean, idazkera ofizialaren eraginez, hitz hasieran beti z aurkitzen dugu lehenago ç, c edo z-z izkiriatu-rik ikusten genituen toki-izenetan. Hemen erabakiorra izanzen zen c-ren [k] balioa; izan ere, c + a, o edo u idatziz gero, [ka], [ko] edo [ku] irakur zitekeen, eta nahasketa-bide hau saihesteko z ibiltzen hasi zen aldi oroz, ç eta c bazterturik.

Bokal artean ere (hitz barruan beraz) XVIII. menderako -z- idazteko joera nasusitu zen, eta ez dugu ç bat ere aurkitzen, baina bai zenbaitetan -c-, are [k]-rekin nahasteka zitekeenean ere: **Zacua** (Ageza, 1719)<sup>37</sup>, **Zacu** (Uxue, 1825)<sup>38</sup>... [c] emateko XVIII. mendean ez dugu ç topatzen, baina bai c (cf. Lergako 1775eko **Unceberri**<sup>39</sup>), z (**Ardanzetavidea Oletan** 1756an<sup>40</sup>), eta **ch** (**Anchandieta Uxuen**, 1771n<sup>41</sup>).

**G**: grafema honekin, eskuarki, bi soinu ezberdin ordezkatu izan dira guk aztertu dugun dokumentazioan: [g] (edo [g]) belare ahostuna, eta [x] belare igurzkari ahoskabea.

Lehena emateko g erabili izan da, baina bakarrik a, o eta u bokalen aitzinean, gaurrengoko gaztelaniaren idazkeran bezala: **Gazteluondoa** (Lerga, 1587)<sup>42</sup>, **Yguraymendicoa** (Lerga, 1593)<sup>43</sup>... E eta i bokalen aurrean, egun bezala, gu ibili izan da: **Arteguibela** (Ageza, 1594)<sup>44</sup>, **Iturriuibela** (Ezporogi, 1715)<sup>45</sup>, **Larragueta** (Uxue, 1602)<sup>46</sup>... Bada, alabaina, salbuespen bat edo beste: **La Rageta** (Uxue, 1630)<sup>47</sup>.

Belare igurzkari ahoskabea ordezkatzeko, adibidez, gorago aipatu Leatxeko **Mendiguri-n** (1634, 1773)<sup>48</sup> aurkitzen dugu (**Mendijuri** [mëndixúri] gaur). Hau, dena den, ez da segurua, egun **Mendixuri** [mëndišúri] idatziko genukeena ere izan baitezakegu **Mendiguri-ren** azpian.

**Ch**: digrama honen bitartez, gehienetan, sabaiaurreko afrikatu ahoskabea ematen da aditzera: **Echaberri** (Eslaba, 1602)<sup>49</sup>, **Echeondoa** (Ezporogi, 1604)<sup>50</sup>, **Echon-**

37 PRA-Kaseda, 19. k.

38 PRA-San Martin, 84. k. Adibide hau, hala ere, ez da segurua. Ikus Uxueko toponimia aztertzean dioguna.

39 Id., 52. k. Kontua da garai honetarako c horrek euskal [c] gabe ordez erdarazko [θ] adieraz zezakeela.

40 Id., 43. k.

41 Id., 50. k. Kasu honetan ere ez dakigu [c] ala [ç] genuen, lehena delako susmoa dugunagatik. Izan ere, fetxa honetarako Uxueko euskara galdua egonen zen, eta beraz **Anchandieta** [ãnçandjéta] ebaki zitekeen (cf. Uxueko bereko **Andrebutxo**, **Andremutxo** < **Andrebutzu**), sabaiaurreko afrikatuaz, nahiz **Antzandieta** [ãnçandjéta], egun **Anzandieta** [ãnθandjéta] esan ohi dena. Edozein modutan, garbi dago beste batzuetan **ch** [c] hortz-hobietako bizkarkari afrikatuaren ordez dagoela: **Ardanchezarra** (Mories, 1610), **Buchuquieta** edo **Buchuqueta** (Eslaba, 1642 eta 1644)...

42 PRA-Oibar, 3. k-bis.

43 Id., 7. k.

44 Id., 8. k.

45 Id., 34. k.

46 Id., 10. k.

47 PRA-Kaparrosa, 33. k.

48 PRA-Oibar, 23 eta 69. karpetak.

49 Id., 10. k.

50 Id., 11. k.

doa (1582, Zare)<sup>51</sup>, Echepea (1718, Zare)<sup>52</sup>, Yturrichiqui (Leatxe, 1593)<sup>53</sup>, Elquechiquia (1692, Eslaba)<sup>54</sup>, Zazuchia (Eslaba, 1567)<sup>55</sup>...

Ch-ren bidez, gainera, eta gorago esan bezala, tz [c] ordezkatzeko ahal da, gurutze, ardantze, butzu eta antzeko beste osagarri batez horniturik dauden toki-izenen aldaketan garbi ikus daitekeen moduan.

J: guk aztertutako herrietan bi talde daudela esan daiteke. Lehendabizikoan Galipentzu eta Uxue ditugu: hemen j- bada, baina beti [y] edo [x]-tik heldu dela: Juan < Jaun, Juan < Juan. Herri hauetan, Oibar alderdian agitzen denaz bestalde, zarra edo zuri hitzek, elkartuetan, ez dira sabaillkatzen, eta beren horretan diraute (cf. Muga-zuria Uxuen, Errotazarra Galipentzun).

Bigarren taldean Ageza, Eslaba, Ezporogi, Leatxe, Lerga, Moriones, eta Zare daude. Hemen, lehen taldekoetan ez bezala, -jarra, -juri edo Jubingoa aurkitzen dugu, s, ss, ss, ch, c edo z- grafemak dituzten aldakiekin batera.

Beste batzuetan aldizkatze grafikoa s / j / x-dun aldaeren artean gertatzen da. Hau da, esaterako, Eslabako Xauzgun eta Agezako Arrixauzkuneta edo Zareko Jautu(arana) toponimioen kasua. Eslaban Jauzugunea dugu 1652an<sup>56</sup>, Siaizgun 1752an, Siauzgun 1753an<sup>57</sup>, Sausguneta 1756an<sup>58</sup> eta Sirgun [širgún] orain. Agezan Arrijausguneta dugu 1594ean<sup>59</sup>, Arrijausguneta 1596an<sup>60</sup>, Arrisauzquineta 1706an<sup>61</sup>, eta Arrijausquineta 1701ean<sup>62</sup>. Zaren Sautu dugu 1584<sup>63</sup> eta 1610ean<sup>64</sup>, Xautuarana 1582an<sup>65</sup>, Jauta- edo Jautu- 1592az geroztik, eta gure egunotan Jautu [xáutu] esaten da.

Arazoa orain grafia guzti horien oinarrian zer dagoen argitzea da. Gure irudiko, hemen [š] sabaiaurreko igurzari ahoskabea dugu maiz, gaurko Sabizabal, Sirgun (Eslaba) eta Rotasiar (Eslaba eta Lergan) bezalako formek frogatzen dutenez<sup>66</sup>. Beste ba-

51 Id., 3. k.

52 PRA-Kaseda, 18. k.

53 PRA-Oibar, 7. k-bis.

54 PRA-Kaseda, 6. k.

55 PRA-Oibar, 2. k-bis. Kasu honetan, hala guztiz, tiki edo ttipi ahoskera dugula pentsa ere daiteke, baina ez dugu uste honela den. Bestela tiki eta tipi ere agertuko ziratekeen (cf. Morionesko 1530eko Elizatoguibela, eta 1703ko Elizatoa), seguruenena.

56 PRA-Oibar, 26. k.

57 PRA-San Martin, 41. k.

58 Id., 43. k.

59 PRA-Oibar, 8. k.

60 Id., 9. k.

61 PRA-Kaseda, 13. k.

62 Id., 10. k.

63 PRA-Oibar, 3. k.

64 Id., 16. k.

65 Id., 3. k.

66 Dokumentazioa Jauguicabal (1614) (Jaurizabal 1702 eta 1717an)-ek ere gauza bera idarokitzen du, oraingo Sabizabal-ekin erkatzen dugunean, alegia, j- grafemaren azpian anitzetan sabaiaurreko igurzkaria genuela.

Mitxelenak, Iruñean 1609an sarituriakako olerkiak aztertzen ari delarik, honela dio (TAV, 117. or.): "En el v. 47 *jauturic* estará, claro está, por *xauturic* ("bien purificado con el llanto"): cf. *xauro*, v. 63, "con pureza, limpiamente". Es, Pues, inexacta la afirmación de FHV, p. 171 nota, según la cual no hay confusión gráfica de *x-* y *j-* en estas poesías. En interior de palabra, es completamente seguro que *beregitzean*, v. 146, está por *bexexi-*".

tzuetan, alabaina, euskararen barruan ere [š] > [x] pausoa gauzatu ahal izan da, Leatxeko Mendijuri-n, kasu<sup>67</sup>.

[š] emateko s eta j erabili dira, bai eta, inoiz edo behin, x ere. Eslabako toki-izenari dagokionez, gainera, **Siaizgun** eta **Siauzgun** aldakiak eriden ditugu, ikusi bezala, soinu bera emateko<sup>68</sup> gure ustez.

Behin edo beste txandaketa j eta y grafemen artekoa da, Morionesko **Jaugia** (1530)<sup>69</sup>, **Yauguia** (1592)<sup>70</sup>, eta **yaurea** (1811)<sup>71</sup> aldaeretan ikus daitekeenez (**Auria** [aʝría] orain). Honelakoetan, antza duenez, ahoskera [y] zen, eta j ere soinu hori emateko erabiltzen zen.

**X**: Grafema hau [x] edo [š] emateko ibili izan da. [x] genuen, adibidez, erdarazko **baxo**, **debaxo**, **viexo** eta antzekoetan XVI eta XVII. mendeetan, hizkuntza honetan ordurako [x] bilakatua zena emateko<sup>72</sup>. Cf. Zareko **El Cascajo** (1582) / **El Cascajo** (1703)<sup>73</sup>.

**X** letrak aipatu ditugun **Arrixauzkuneta**, **Xauzkunea** eta **Xautuarana**-n ezezik, beste toki-izen mordoxka batean ere badu [š] balioa. Esate baterako, “Uxue” izena, Agezan, x-ez izkiriatura topatzen dugu 1547an (**Uxue bidea**)<sup>74</sup>, baina s edo ss-z beste batzuetan: **Usuebide** (1536)<sup>75</sup>, **Usobide** (1588)<sup>76</sup>, **Ussobidea** (1586)<sup>77</sup>, **Ussue bidea** (1603)<sup>78</sup>. Eslaban ere antzeko egoera aurkitzen dugu: **Uxuebidea** daukagu 1644ean<sup>79</sup>, baina **Ussobidea** 1688an<sup>80</sup> eta **Usobidea** 1705ean<sup>81</sup>. Lergan, azkenik, **Uxuebidea** dugu 1550ean<sup>82</sup>, baina **Usueco oyanondoa** 1592an<sup>83</sup>. Adibide hauetako s / ss / x txandaketak x [š] genuela pentsarazten digute (ikus Uxueko Uxue sarreran dioguna).

67 Cf. NHI-n informatzaile izan zen Ihaurretako Salvador Carrica *Eskujuri* jaunaren bigarren deitura, zalantzarik gabe esku + xuri-tik.

68 Gaurregun [j] ahoskatzen ez dakitenek, soinu hau ebakitzen saiatzen direnean, bere horretan emateko gauza izan ez eta [lj]-ren bitartez lortu nahi izaten dute ebakitze zuzena. **Siaizgun** grafia, gure iritziz, antzeko zerbait litzateke; soinu hori nola idatzi ongi jakin ez, eta hortik si-ren erabilera. Cf. gainera **Rotasiar** < **Errotaxar**.

69 PRA-Oibar, 2. k-bis.

70 Id., 6. k.

71 Id., 93. k.

72 Menéndez Pidalek dioenez (MGHE, 113. or.), XVI. mendearen hastapenerako x-k ahoskera belarea zuen, hau da, gaurko gaztelaniaren j [x] bezala ahoskatzen zen. Alarcos Llorachen arabera, ordea, /s/ (< /š/, ž/) sabaikariak XVI. mendean zehar atzeratuz joango ziren, eta erabateko belaretzea XVII. mendean gauzatuko zen (*Fonología Española*, Gredos, Madril, 1991, 4. argitalpena, 268-272. orr.). Dokumentazioan, dena dela, x ez zen sarri, euskal toponimoetan gutxienez, belarearen adierazle (ikus gorago).

73 PRA-Oibar, 3 eta 30. karpetak.

74 Id., 2. k.

75 Id.

76 Id., 4. k.

77 Id., 3. k-bis.

78 Id., 11. k.

79 Id., 24. k.

80 PRA-Kaseda, 4. k.

81 Id., 12. k.

82 PRA-Oibar, 2. k.

83 Id., 6. k.

SS, S, C, Z:

Ts [č] emateko grafema ezberdinak ibili izan dira; hauetako batzuek beste soinuren bat emateko ere balio zuten. Otso izena *ss*, *s*, *cs* edo *z-z* idatzita azaltzen da Agezako Otsazulooa toponimoan: *Ossazulooa* (1605)<sup>84</sup>, *Ocsazulooa* (1620)<sup>85</sup>, *Osazulooa* (1693)<sup>86</sup>, *Ozazulooa* (1770)<sup>87</sup>. Hemen garbi dago aurreneko aldakiek behintzat [č] emateko erabili direla, nahiz *ozazulooa*-n asimilazioa gertatu den<sup>88</sup>, itxuren arabera. Uxuen *Ossalarraña* dugu 1604ean<sup>89</sup>, eta *Ossa laraña* 1628an<sup>90</sup>.

Saihetsa posposizioa otsoa baino askozaz ere arruntagoa da. Eskuariki *-s-* edo *-ss-* izkiriariua edireten dugu XVI. mendean eta XVII. mendearen hasieran: *Nobeleta saiezza* (1592)<sup>91</sup>, *Nobleta saesa* (1594)<sup>92</sup> dugu Agezan, *Joandelebolayosayssa* (1584)<sup>93</sup> Eslaban, *Gaztelussaessa* (1604)<sup>94</sup> Lergan, *Pino saessa* (1596)<sup>95</sup> Morionesen, eta *Piquetasaesa* (1590)<sup>96</sup>, *Picuetasaesa* (1605)<sup>97</sup> Zaren. Hortik aurrera, ordea, *-z-*, *-c-* edo *-ç-* idatzirik azaltzen da, honen arrazoiak argiegi ez daudelarik: *Nobleta Çayeça* (1649)<sup>98</sup> dugu Agezan, *Joandenebelayo sayeza* (1633)<sup>99</sup> eta *Joandenebelayo sayeça* (1650)<sup>100</sup> Eslaban, *Pino sayeça* (1610)<sup>101</sup>, *Pino ssaeza* (1721)<sup>102</sup> Morionesen, eta *Dolareta sayeza* (1680)<sup>103</sup>, *Picotasaieza* (1642)<sup>104</sup>, *Picota Saeza* (1683)<sup>105</sup> Zaren.

C, Z-ren bitartez, bestalde, gaurrengungo hortz-hobietako igurzkari bizkarkari ahoskabea eman ohi da aditzera, gorago esan dugun bezala.

84 Id., 15. k.

85 Id., 20. k.

86 PRA-Kaseda, 7. k.

87 PRA-Oibar, 68. k.

88 Mitxelena (FHV, 283. or.) asimilazioaren inguruan honela diosku: "son muy frecuentes las palabras vascas con dos sibilantes, que normalmente son del mismo punto de articulación: *isats*, *itsaso*... *zezen*, *zintz*" eta aurreraxeago: "Esto ya supone que se han producido muchas asimilaciones en cuanto al punto de articulación, lo que puede probarse con ejemplos indiscutibles". Ematen dituen adibideen artean *frantses* / *Frantzia*, *insensu*, *intsensu* edo *sin(h)etsi* (< *zin* + *etsi*) aipa daitezke. Dena den, 1770erako Agezako euskarak galdua edo galtzeko zorian egon behar zuen, eta beraz hizkuntza honen barruko asimilazioaz pentsatu baino hobe genuke, segurasko, euskal toponimoaren desitxuraketatzat hartu.

89 PRA-Oibar, 11. k.

90 PRA-Kaparroso, 31. k.

91 PRA-Oibar, 6. k.

92 Id., 8. k.

93 Id., 3. k.

94 Id., 11. k.

95 Id., 9. k.

96 Id., 49. k.

97 Id., 12. k.

98 Id., 26. k.

99 Id., 23. k.

100 Id., 26. k.

101 Id., 16. k.

102 Id., 37. k.

103 PRA-Kaseda, 1. k.

104 PRA-Oibar, 24. k.

105 PRA-Kaseda, 2. k.

S-ren bidez gorago aipatu den hortz-hobietako afrikatu apikari ahoskabeaz gainera, ahoskune bereko igurzkaria ere ematen da aditzera agiritan. Hau **San** aposizio ugarietan ikus daiteke hobekiena, edo oraingo euskaraz [s] izanik, lehen ere [š] zutela segurua den hitzetan: Uxueko **Vasendia** (1534)<sup>106</sup>, **Basandia** (1603)<sup>107</sup> (< **baso** + **handia**), **Basandia** orain; Galipentzuko **Vayllescura** (1335)<sup>108</sup>, **Valescura** 1688an<sup>109</sup>, **Valescura** [baleškúra]<sup>110</sup> (< **valle** + **obscura**) gure egunetan...

[š] emateko **ss** grafia ere edireten dugu maiz: **Ressoreta** (< **Erresoreta**) 1720an<sup>111</sup> Agezan, **Resoleta** [řešóléta] orain; **Guessalyturria** 1586an<sup>112</sup> Zaren (**Guesalyturri** 1591n)<sup>113</sup>...

Batzuetan, herskari ahoskabe baten aurrean ez dagoenean ere, s aurkitzen dugu **z**-ren ordez; hau, itxuraz, euskal [s]-k erdarazko ordain zehatzik ez izateari zor zaio. Eskribauak, aditzen zuena transkribatu nahian, batzuetan (gehienetan) **c** edo **z** jarriko zuen, eta beste batzuetan (gutxienetan) **s**: **Çasuguibela** (1591)<sup>114</sup>, **Cazuguibela** (1529)<sup>115</sup>, **Sassuguibela** (1720)<sup>116</sup> Agezan; **Zazuchipia** (1567)<sup>117</sup>, **Çaçuchieta** (1606)<sup>118</sup>, baina **Sacuchieta** (1651)<sup>119</sup> Eslaban; **Çamiquj** (1592)<sup>120</sup> baina **Samiquipau-sua** (1605)<sup>121</sup> Lergan...eta abar luze bat.

**Ss**-ren bitartez, azkenez, (eta **s**-ren bidez ere bai behin edo beste) sabaiurreko igurzkari ahoskabea ([š]) ordezkatu izan da sarri, gorago esan den moduan.

#### Laburtuz:

Soinuak	Grafiak
g [g]	g (a, o eta u aurrean), gu (e eta i aurrean).
j [x]	x, j, g
s [š]	s normalki, baina <b>ss</b> ere bai, batzuetan.
ts [č]	<b>ss</b> , s, eta agian <b>c</b> , <b>z</b> ere bai, baina azken hauek ez dira bat ere seguruak.
tx [č]	ch
tz [c]	z, c, ç, ch
x [š]	x, <b>ss</b> , s, j eta behin bederen <b>ch</b> .
z [s]	z, c, ç normalean, eta s ere bai, batzuetan.
y [ŷ][y]	y, j, edo i.

106 NAO, Comptos, 550. zkia.

107 PRA-Oibar, 11. k.

108 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. orrialdea.

109 PRA-Kaseda, 4. k.

110 Beste ebakitze batzuk ere baditu toponimo honek. Ikus Galipentzu.

111 PRA-Oibar, 36. k.

112 Id., 3. k-bis.

113 Id., 5. k. Bigarren adibide hau ez da lehena bezain argia, **gezal** aldaera ere ezaguna delako. Cf., gainera, gure eskualdeko **Gezari**.

114 PRA-Oibar, 25. k.

115 Id., 2. k-bis.

116 Id., 36. k.

117 Id., 2. k-bis.

118 Id., 12. k.

119 Id., 26. k. **Zazu** duten toponimoen s horretan erdarazko **saso**-ren eragina ikus daiteke, baina beste askotan ez dugu eredu erdaldunik parean.

120 Id., 6. k.

121 Id., 12. k.



## 6. GURE ALDERDIKO LEKU-IZENETAN OHIZKOEN DIREN ATZIZKIAK

Sail honetan gure eskualdeko toponimian sarrienik azaltzen diren atzizki toponimikoen azterketa egingen dugu, horietako bakoitzaren inguruan autorerik ezagunek esan dutena aipatuz eta iruzkinduz aurrena, eta gure alderdiko toponimoetan duten balioa ikusiz gero.

### 6.1 AGA ATZIZKIA

Atzizki hau aztertu duten ikerlariak mordoxka dira, eta esperatzekoa zenez, denak ez datoz bat duen jatorri eta adierari buruz. Hona hemen banan-banan, autorerik ezagunenen eritziak:

*Albert Leon* izan zen atzizki honen eta pluraleko bukaera den **-ak**-en artean zerikusi zerbait izan zitekeela ohartu zen lehena:

“il serait possible qu’il y eût identité entre l’élément ag du suffixe -aga qui exprime une idée d’abondance, et la désinence -ak caractéristique du nominatif pluriel”<sup>122</sup>.

*Azkue*-k, bere hiztegi ezagunean<sup>123</sup>, **-aga** “sufijo muerto que denota lugar” dela dio, eta parentesi artean c txiki bat idazten du, euskalki guztien ondare dela adierazteko.

*Mitxelena*-ren arabera<sup>124</sup> **-aga** ez da sekulan apelatiboekin eratorpen-atzizkitzat erabili, eta kasu batzuetan garbi dago lekua baizik ez duela adierazten (**Andrearriaga**-n, adibidez, edo are garbiago **Arespacochaga**-n). Toponimian, eta beti ikerle honen ustetan, **-aga** oso arrunta da interpretagaitzak diren zenbait oinarriekin (**Adurriaga**, **Berreteaga**...). Pertsona edo saildu-izenekin ere azal daiteke, eta batzuetan badirudi izen batzuei balio berezirik gabe eransten zaiela (**Feloaga**).

122 H. Gavelek aipatzen du, EPB-ko 339. orrialdean.

123 DVEF.

124 AV, 36-37. orr.

FHV maisu-lanean Mitxelenak **-aga** atzizkia eta pluraleko **-ak** morfema erlazonaturik egon daitezkeelako Leon (eta Gavel)-en teoria onargarrizat jotzen duela dirudi, baina egia esan, ez du erabaki finko bat hartzen:

“Esta relación (**-aga** eta **-ak**-en artekoa) podría entenderse en el sentido de que *-a-ga*, conservado en los nombres de lugar, es precisamente la forma más antigua de *-ak*, generalizado en la declinación. Es, en efecto, extraño que este suf. sea el único usado en toponimia que de otro modo no tendría una correspondencia en el léxico común. Esto encuentra cierto apoyo en el hecho de que ante *-aga*, como ante los sufijos de declinación, la vocal final del tema no sufre cambio ni caída (*Harriaga*, no *Harr-*, *Arteaga*, no *Arta-*, etc.), pues lo mismo ocurre con un suf. que es común a la toponimia y a algunos casos del plural: *-eta* en (*H*)*arrieta* y (*h*)*arrietan*, etc. Con todo, el valor de plural de *-aga* aparece muy oscurecido en algunos nombres de lugar”<sup>125</sup>.

Autore berak beste ikerlan batean<sup>126</sup> **-eta** atzizki ezagunarekin erkatzen du mintzagai dugun **-aga**, eta honako ondorio hauek ateratzen ditu:

**-aga / -eta** banaketa osagarrian daude; alegia, ezin daitezke<sup>127</sup> hitz berean biak ager.

**-bai -aga** eta **bai -eta** izenaren bukaeran aurkitzen ditugu beti, baita txikigarri bat azaltzen denean ere: **Arrileunaga**, **Basanoaga**<sup>128</sup>.

**-aga**, **-eta** bezala, ez da toki-izenetatik kanpo erabiltzen.

**-aga-k**, **-eta-k** ez bezala, ez du kide segururik euskal deklinabidean. Hemen FHV-n onargarrizat hartzen zuela zirudiena dudazkotzat jotzen du:

“Hay, además, una diferencia manifiesta en la condición de uno y otro sufijo: mientras *-eta*, aunque no *-keta*, tiene clara representación en la declinación vasca, precisamente en los casos locales de plural, *-aga* carece en ella de correlato seguro. Es cierto que es comparable a *-ak* < *\*-ag*, manifiesto en el plural recto y subyacente a varios casos oblicuos no locales, y yo mismo me inclino a aceptar la comparación, pero esto no pasa de ser una hipótesis” (145. or.)<sup>129</sup>.

**R. de Rijk**<sup>130</sup> ere mintzo da **-aga** atzizkiak, iragaitzaz bada ere. Hizkuntzalari honek **-aga-k** “batzutasunaren adierazlea den **-ag** (**-ak**) harekin” zerikusirik ez duela dio, eta honetarako Mitxelenak aipatzen dituen bi puntutan oinarritzen da:

125 238. or.

126 “Toponimia, léxico y gramática”, FLV, 3, 1971, 241-267. orr., PT-en birrargitaratua, 141-167. orrialdeetan.

127 Uxuen Larrageta dugu, itxuraz lahar, **-aga** eta **-eta-z** osaturik. Azken hau, dena den, Fonteta bezalako toponimo batean, edo **placeta**, **segureta** eta antzekoetan ageri den erromantzeko **-eta** atzizki txikigarria ere izan daiteke (Ikus Uxueko toponimia aztertzean dioguna).

128 Zaldunaga Uxuen, Zaldinaga Eslaban, biak Zaldinoaga-tik (ikus bi sarrera hauek).

129 “Notas lingüísticas a «Colección Diplomática de Irache»” (PT, 87-118. orr.) izeneko artikuluan ere **-aga** atzizkiaren eta artikuluko pluralaren arteko harremanak zalantzan jartzen ditu, oraingoan indar handiagoz, irudiz:

“El suf. (**-eta**), aunque sea probablemente un antiguo colectivo de origen latino-románico, se ha introducido, como se ha dicho, en los casos locales de plural en la declinación vasca. En topónimos, nunca parece llevar artículo: no hay nombres en *-eteta* en la parte occidental del país, como los hay en *-olea*, de *-ola* + *-a*. Lo mismo ocurre con **-aga**, suf. en que un análisis **-a-ga** (artículo + índice de plural) es por lo menos dudoso lo mismo que a la inversa, **-ag-a** (colectivo + artículo).. Una adición ms. al Diccionario de Azkue indica que en Esteribar **aga** «paraje» vive como voz suelta” (113. or.).

130 “Euskal morfologiaren zenbait gorabehera”, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo, 1981, 83-101. orr.

1.-Atzizki hau gauza bakar bat adierazteko erabilia da: **Arespacochaga**.

2.-Bizkaieraz, **-aga** eta **-ag** atzizkiek ez dute jokabide berdina: **Oleaga**, baina **olaak**.

Ateratzen duen ondorioa zera da, **-aga**-k lekuaz besterik ez duela adierazten. Alabaina, atzizki honek elkarketaren arauci men egiten ez dienez (**Iturriaga** baina **Iturralde**, **Iturburu**), **Iturriaga**, **Iturri+aga** gabe, **Iturria+ga** dela ondorioztatzen du, alegia, lekua adierazten duen atzizkia ez dela **-aga**, **-ga** (hasierako a hori "mugahizkia" da) baizik, hau da, "lokatiboan" aurkitzen den atzizki berbera.

**Caro Baroja**-k ere ukitu du gai hau behin baino gehiagotan bere idazlanetan. 1945ekoa den *Materiales* ezagunean<sup>131</sup> Schuchardti jarraikiz **-aga**-k jatorri zeltiarra duela dio, eta antroponimo bati erantsirik Galietan makina bat jabego eta herrixka-izen sortarazi dituzten **-acus**, **-aca** atzizkiekin erlazionaturik dagoela. Autore honen arabera **-ca**, **-aca** hondarkia duten **Lesaca**, **Mundaca**, **Gabica**, **Barandica**, **Ercoreca**... eta beste zelteraz baliatuz azal daitezke:

"Juzgo que incluso uno de los sufijos nominales más corrientes en la toponimia es de origen celta. Creo probable que «-aga» esté en relación con los sufijos «acus», «-aca» mediante los cuales, poniéndolos tras un nombre personal, se han formado en las Galias multitud de nombres de propiedades y aldeas. Es cierto que en vasco «-aga» indica hoy lugar en el sentido más lato: «Arriaga»= sitio de piedras, «Elizaga» = sitio de la iglesia, etc. Este sufijo tiene hoy día una vida muy fuerte. Pero es interesante notar que hay nombres vascos, de pueblos sobre todo, en que existe una desinencia «-ca», «-aca», como «Lesaca», «Mundaca», «Gabica», «Barandica», «Ercoreca», que recuerda la que ostentan los de varias ciudades cántabras y que podríamos explicar por el celta"

Caro Barojaren ustez **-aga** **-aca**-ren ahostuntzearen ondorena baizik ez da:

"La generalización del sufijo «\*aca» y su sonorización han podido tener lugar en una época en que otros muchos sufijos se generalizan (como el ya recordado «-eta» de origen latino) y en que la «ka» interna da «g», contrariamente a como le ocurre si es inicial en un periodo arcaico, en que no se sonoriza..."

Honek gaztelaniarako balio dezake, baina euskal fonetikaren bidez azaltzen neke da, hizkuntza honetan bokal arteko herskari ahoskabeek zeuden-zeudenean irauten baitute.

1980an argia ikusi zuen beste lan batean ere ukitzen du gai hau, oraingo honetan jatorriaz deus esaten ez duelarik, ordea<sup>132</sup>:

"«Aga» es un sufijo que unos consideran locativo singular (equivaldría a *el*). Otros lo traducen por «lugar de» y puede ser, así, abundancial"

Aurreraxeago, lan berean, Donemiliagako "Reja" deritzaneko **Harrizauallaga** aztertzean behinola **Ø** / **-aga** / **-eta** txandaketa gertatu zela dio (**Zabala** = **Zabalaga** = **Zabaleta**)<sup>133</sup>:

<sup>131</sup> *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamankako Unibertsitatea, 1945, 203-204. orr.

<sup>132</sup> HGPV, 158. or.

<sup>133</sup> Id., 174. or.

"«*Harrizauallaga*» «*Arriçabala*» hay en la lista calagurritana. Vale tanto como sitio de la piedra ancha. Si se reduce a «*Arrizala*» como comunmente se hace, parece que el nombre debe aludir al dólmen famoso. Mas no hay que pensar que «*Arrizala*» es contracción. En un tiempo parece que, en efecto, han fluctuado «*zabala*», «*zabalaga*», «*zabaleta*» (equivalentes) y «*zala*» (es decir prado o pastizal) hasta fijarse el nombre compuesto con este último elemento. En 1106 surge «*Harreizalmeta*» que parece una forma intermedia pero en que surge, ya, «*zala*»".

*Jimeno Jurío*-k ere<sup>134</sup> atzizki-aldizkatzea gertatzen dela dio, baina ez da *-aga* eta *-eta*-ren esanahia sakontzen saiatzen. Autore honek erdaraz *Campanas* deitzen den herriaren euskal izena zein den zehaztu nahian dabilela, *Arrizaval*, *Arrizabala* edo *Harrizabalaga* bezala dokumentatu ohi dela dio, eta behin bederen *Arrizabaleta* itxu-rapean ere azaltzen dela.

*Manuel Agud* eta *Antonio Tovar*-entzat<sup>135</sup> *-aga* izen deskribatzaileei itsastean zaien atzizki multzokaria da, zerbaiten ugaritasuna dagoen tokiei ezartzen zaiena: *alzaga*, *saratsaga*, *arteaga*... Autore hauen arabera, *-ak* pluraleko morfemaren adierakidea da.

## 6.2 AGA ATZIZKIA GURE ESKUALDEAN

Atal honetan *-aga* atzizkiak gure alderdiko toponimoetan duen balioa ikusten saiatuko gara, alegia, aurreko atalean aipatu autoreek dioten moduan leku hutsa adierazten duen edo lekuarekin batera ugaritasuna, pluraltasuna ere ematen duen aditzera.

Garbi dago toki-izen bat *-aga* atzizkiak nahiz gabe ager badaiteke *-aga*-ren balioa ez dela ugaritasuna adieraztearena izanen, eta beraz honelakoetan berrekailuak oinarriari leku balioa eransten diola pentsatu beharko dugu, hots, toponimoen multzoan sailkatzea duela xede. Adibidez, *udarea* zuhaitza edo fruitua den bitartean, *Udareaga* udareondo bat edo gehiago dagoen eremua izanen da, sekulan ez zuhaitza.

Gure alderdian *-aga* / Ø txandakatzea honako toponimo hauetan ediren dugu:

Motxiturriaga / Motxiturria Agezan, *Artezabalaga* / *Artezabalagaña*, *Artezabalaondo*, *Artezabalagaña*<sup>136</sup>, *Buztiñaga* / *Buztiña*, *Buztinea*, *Erbiñaga* / *Erbiña* eta *Santuzabalaga* / *Santuzabal(a)* Eslaban, *Arriurdinaga* / *Arriurdina* Lergan, *Udareeztiaga* / *Udare ezitia* Morionesen, *Larziaga* / *Larzia* Uxuen, *Aristuziaga* Uxuen / *Aristuzia* Galipentzun<sup>137</sup>.

Pare guzti hauetan, alabaina, *-aga*-dun aldaerak arruntagoak dira, eta Ø duten forma batzuk aldi bakar batez baizik ez dira dokumentatzen. Guztiarekin ere, honelako txandakatzeak gure eskualdetik kanpo ere azaltzen dira, eta hortaz badirudi atzikiaren funtzio bakarra, gorago esan moduan, lekua adieraztea dela, izena toponimoen multzoan sailkatzea.

Orain *-aga* atzizkiak horniturik dauden toponimoen herriz herriko azterketa egingen dugu, beren jatorria eta nondik norakoa hobe ikustearren:

134 "Arrizabalaga (Campanas) y Artederreta (Carrascal)", FLV, 53, 1989, 75-85. orr.

135 DEV-I, 1989, 303. or.

136 Ikus, hala ere, Eslabako toponimia aztertzean izen hauetaz dioguna.

137 Ikus Galipentzu.

**Ageza:**

**Lakuaga:** laku eta aga-z osaturik dago. Hemen lakua 'lago' gabe, toki urtsua, ura darion lurra edo horrelako zerbait dela uste dugu<sup>138</sup>. Kasedan eta bestetan azaltzen den **padul** (< **padule** < **palude**)-en euskal ordaina izan daiteke **laku**, normalean honen baliokidea eta orobat, jatorrikidea, euskaraz **padura**, **madura** edo **fadura** bada ere. Alabaina, gure eskualdean izen hau ezezaguna da<sup>139</sup>, **laku**-z osaturikako leku-izenak bat baino gehiago diren bitartean.

**Motxiturriaga:** **Mussiturria** idatzia aurkitzen dugu 1060an<sup>140</sup>. Mitxelenaren arabera<sup>141</sup>, **musitu** 'urdindua', 'lizundua' da<sup>142</sup>, eta **Musiturria** \***Musitu iturria**-tik atera ahal izan da, haplogiaz. Hemen arazoa da **musitu** izenondoa bada, **iturria**-ren atzean agertu behar zukeela, ez aurrean, baina honelakoak ere ugariak dira toponimian (cf. **Gorrarian**, **Gorrimendi**, **Zorroztarria**...<sup>143</sup>).

**Udareaga:** udare 'udareondoa' eta **-aga** ditugu hemen.

**Eslaba:**

**Arrizutaga:** harri izena, **zut**<sup>144</sup> izenondoa, eta **-aga** ditugu toponimo honetan.

**Artezabalaga:** arte zuhaitz-izena, **zabal** izenondoa, eta **-aga** ditugu hemen.

**Buztiñaga:** **buztina** ezaguna eta **-aga** dira izen honen elementu osagarriak. Hau, gure iritiz, Ezporogiko **Buztintza**-ren, Leatxeko **Buztinea** edo **Buztintze**-ren eta beste toki batzuetako (Asiain, Izkue, Lizasoain...<sup>145</sup>) **Buztinet**a-ren baliokidea da.

**Erbiñaga:** herri, **biña** 'ardantzea' eta **-aga**-z osaturik egon liteke, baina hau ez da inondik ese segurua. Galipentzun **Erbiña** dugu (ikus sarrera hau) eta Zaren, **Biñero** (1582)<sup>146</sup>, **Biñedo** (1592)<sup>147</sup>, **Viñaru** (1634)<sup>148</sup> eta **Viñeru** (1768)<sup>149</sup>.

**Iturritzabalaga:** **iturri** izena, **zabal** izenondoa, eta **-aga**-z osaturik dago.

**Sagarraga:** **sagarra** 'sagarrondoa' eta **-aga** ditugu hemen.

138 Ikus IGI-en dioguna.

139 Erromantzeko **padul**, halaz ere, ugaria da inguruko herrietan: **La Padul** dugu Ledea (PRA-Oibar, 39. k., 1726) eta Esan (id., 78. k., 1796), **Las Padules** (PRA-Kaseda, 1. k., 1681) edo **Los Padules** (id., 45. k., 1818) Kasedan, **La Paduleta** herri honetan (PRA-Oibar, 21. k., 1625) eta Oibarren (id., 34. k., 1715), eta **La Padulnueva** azken honetan (id., 2. k-bis, 1570az geroztik)...

140 Lacarra, VM, 34. or. Historialari honek Agezako ("Ayesa"-ko) toponimoak Esakotzat ("Yesa"-kotzat) hartzen ditu, oker, bistan denez.

141 AV, 153. or. Araban **Musitu** herria eta **Musiturri** toponimoa dugu. Ikus TA, 355.or.

142 Ikus, gainera, VN-ko "musido" eta "musir" sarrerak.

143 Zehaztasun gehiagorako ikus Ageza herriari eskainitako ataleko **Motxiturria** eta **Motxiturriaga** sarrerak. Hau, halaz ere, zorrozteko harria izan daiteke zenbait kasutan.

144 Ezin da jakin, zuzenean behintzat, **-aga** eranstean zaion izenak artikulurik baduen ala ez. Ø / **-aga** txandakatzea aurkitzen dugun kasuetan berrekailurik gabeko forma eskuarki mugatzailez horniturik egoten da, eta beraz honelakoetan ere artikulua bazuela susma daiteke.

145 Ikus Jimeno Jurío, TCPCO.

146 PRA-Oibar, 3. k.

147 Id., 69. k.

148 Id., 23. k.

149 PRA-Kaseda, 21. k.

**Santuzabalaga:** toki-izen honen hasierako santu-, santo, satu- edo sandu-hau latineko saltu 'zaldu'-ren eratorria den \*sautu baten ondorengo mozorrotua izan daiteke, bi errekaen elkargunetik gertu baitago (cf. Uxueko Zautelu, Zareko Jautu eta Jautuarana, eta azken honen 1763ko Santuarana aldaera<sup>150</sup>). Ikus, dena den, Eslabako toponimia aztertzean dioguna.

Santuzabalaga-rekin batera Santuzabal aldaera ere azaltzen da, eta izan ere hau da egun bizirik dagoena. Hortaz, badirudi Santuzabalaga-k ez duela, oraingo hone-tan bederen, plural baliorik.

**Zaldinaga:** zaldi abere-izenaz, -noa atzizki txikigarriaz eta -aga-z osaturik zegoen Zaldinoaga-tik atera zen egungo Eslabako Zaldinaga (ikus Uxueko Zaldunaga sarreran dioguna). Mintzagai dugun atzizkia, -eta bezala, ez da maiz agertzen abere-izen bati zuzenean loturik, baina honelakoak ere badira (cf. Olatzagutiko Azkoneta).

### Ezporogi:

**Ipagaraga:** Morionesen agertzen den Iparraga (< ipar + -aga = Iparrage-rria) bera (ikus sarrera hau) zela dirudi.

### Lerga:

**Arriurdinaga:** harri izena, urdin izenondoa, eta -aga<sup>151</sup>-z osaturik dago toponimian makina bat aldiz aurkitzen dugun hau.

**Labeaga:** labe izen ezaguna eta -aga ditugu hemen.

**Moraga:** more 'idoia, baltsa' eta aga-z<sup>152</sup> osatua egon liteke, baina hau ez da inolaz ere segurua.

---

150 PRA-Oibar, 62. k.

151 Jimeno Juríok, Galarko Arriurdineta eta Arriurdinetacoa-z ari delarik (TCPCG, 252. or.), honela dio: "Piezas en el término (que) afrontaban «con el camino que vamos al monte». Al comienzo de dicho camino, en las afueras del pueblo, hubo una zona con abundancia de tufas (margas)". Patziku Perurenak, "Urdina, kolore nahasi hotza" izeneko artikulua interesgarrian (*Navarra hoy* egunkarian agertua, 1989ko Urriaren hamabostean) urdina kolorearen balioa euskaraz zein den zehazten ahalegintzen da, aldi berean gu hemen aztertzen ari garen toki-izenaren gainean informazio dexente ematen digularik. Aipua luzea da, baina merezi duelakoan aldatzen dugu hona: "Toponimian berean, urdiñola, urdiñaran, urdintzu, urdiñegi, harriurdiñeta, aitzurdintza eta beste aurki daitezke. Hauetarik bi azkenekoak bakarrik harturik, ederki ikusiko dugu urdinaren eremu semantikoa zeinen nahasia eta zabala den. Goizuetan, Añarbeco urtegia egiteko Gorostingo gainean urratu zuten harmailari bertako artzai batzuk harri nabarreta esaten omen zioten, eta beste batzuk berriz, harri urdiñeta. Hortaz, urdina eta nabarra inoiz nahasi egin bide zituzten. Azkuek berak urdin hitzaren lehenbiziko apezioaren adibidetzat honako hauxe dakarki: "beste asko, karekizko arri urdin ederra ematen dutenak". Graciano Andiakak ere, Arantzazu aldeko Aitzurdintza harmailari begira, hala egin zion galde handik zebilen Ladislao Odriozolari; ea urdina zer kolore moeta ote zen, eta honek, "urdina da kolore zuri naastua" erantzun omen zion (pasadizo hau Aita Villasantek bildu zuen, ez Graziano Anduagak, *Aitonaren uzta*, Itxaropena, Zarautz, 1961, liburuko 28. or.). Argibide hauetatik atera litekeenez, gazteleraz piedra caliza esaten zaiona, harri urdina zatekeen euskal usuario zaharrea".

152 Mitxelena ("Notas lingüísticas a «Colección diplomática de Irache», PT, 87-118. or.) more-ren nafartasun ia erabatekoa azpimarratzen du: "si no exclusivo, sí muy característico de la toponimia navarra, en una extensión cuyos límites habría que fijar, es el elemento More- inicial siempre o casi siempre". Aurrerago, eta L. de Eleizalderen zerrendez baliaturik elementu toponimiko honek Nafarroan duen hedadura ikusi ondoan, bere inguruan duen "iluntasuna" edo argitasunik eza gogorarazten digu: "sería temerario afirmar incondicionalmente que todos ellos, y en particular los que empiezan por mora- estan formados por un mismo y único elemento". Geroago, eta ondorio gisa edo, toponimia den gordailuan aurki daitezkeen hainbeste hitz zaharretako bat dela diosku: "se trata pues, de uno de tantos arcaísmos salvados solo por la onomástica, y más precisamente, por la toponimia".

**Odiaga:** hodi(a) 'errekastoa' izena eta -aga dira toponimo honen bi osagaiak.

**Sagarraga:** sagar 'sagarrondo' eta -aga ditugu hemen. Intxaur, sagar, udare, hur eta antzekoen zuhaitz-balioaz ikus Lergako Urretako erreka sarrera.

**Udareaga:** udare 'udareondo' eta -aga ditugu toponimo honetan.

**Zuloaga:** zulo eta -aga-z osaturik dugu toponimian sarritan azaltzen den hau.

#### Leatxe:

**Berdeaga:** itxuraz berde izenondoaz eta -aga atzizkiaz osaturik dago, baina izen baten beharrean dagoela irudi luke<sup>153</sup>.

**Gesalaga:** gesal 'ur gazia', 'gatz', 'gatz asko duen lurra' eta -aga ditugu hemen. Gesal-en jatorriaz ikus Agezako Gezari sarreran dioguna.

#### Lerga:

**Erlaskiaga:** baliteke erle-ren eratorri bat izatea, baina ez dakigu benetan hala den. Barasoainen ere dokumentatzen da<sup>154</sup>.

#### Moriones:

**Iparraga:** ipar izena eta -aga ditugu franko hedatua dagoen Iparragerria ezagunagoaren baliakidea den honetan.

**Udareeztiaga:** udare 'udareondo' izena, ezti izenondo ezaguna, eta -aga atzizkia dira toponimo honen hiru elementu osatzaileak.

#### Uxuen:

**Aizpeaga:** haitz 'harri', pe 'behe', 'azpia', eta -aga-z osaturik dugu<sup>155</sup> (cf. Galipentzuko Sopenas).

**Aliaga:** ez dakigu zein izan daitekeen honen etimologia. Aragoagoiengan ere azaltzen da (ikus Uxueko toponimia aztertzean sarrera honetan dioguna).

J. M<sup>o</sup> Iraburu Mathieu ere arduratu da aztergai dugun toki-izenaz, "En torno al topónimo «Morea»" (FLV, 12, 1972, 321-343. orr.) izeneko artikuluan. Lan honetan, eta Eleizalderen zerrendetan azaltzen diren morea guztiak ikusitakoan, ondorio mordoxka ateratzen du; guri gehien interesatzen zaizkigunak lehendabiziko biak dira. Hona hemen:

a- "Que en mi sentir, morea es un hidrónimo cuyo campo semántico, que podríamos decir actual, va desde morea = laguna, hasta morea = tierra húmeda pero apta para el cultivo; pasando por gradaciones hidrométricas tales como terrenos de charcas, pantanosos, aguanosos, de manantío y otros de fronteras igualmente inciertas".

b- "Que las moreas coinciden en ser hoyadas, vaguadas, depresiones o terrenos bajos en relación a otros inmediatos que representan un declive o una ladera vertiente y filtrante sobre la morea. Es decir, que suelen ser lo que los geógrafos llaman piedemontes".

Gure eskualdean, aztertzen ari garen Lergako Moraga-z landa, Uxueko Moratea eta Morape daukagu.

153 Berde huts-hutsa Leatxetik hurbil samar dagoen Irunberri herrian ere aurkitu dugu: "una cassa sita...en el barrio berde de ella" (PRA-Irunberri, 1. k., 1704). Leatxetik oraindik hurbilago dagoen Ibargoitiko Izkon ere ediren dugu antzeko bat (Berdaga, PRA-Oibar, 25. k., 1648).

Erdaraz ere berde kolorea ezaguna da, Valverde (< valle v̄r̄l̄de) arruntean ikus daitekeenez. Caro Barojak (HGPV, 213. or) Villaverde toponimoa iruzkintzerakoan honela dio kolore honetaz:

"Entre las notas caracterizadoras de una villa recién fundada, la de la «verdura» ha sido una de las más tenidas en cuenta en el acto de bautizarla".

154 PRA-Barasoain, 1. k., 1543; id., 4. k., 1622.

155 Jimeno Juríok (TCPCG, 327 eta 376. orr.) Aizpe bildu du Getzen, eta Aizpea (Peñape orain) Zubitzan. Hemen Uxueko toponimo bera daukagu, baina lekua adierazten duen -aga-z gabetua.

**Andiaga:** euskarazko **handi** izenondoarekin lotu behar dela garbi dago. Izan ere, Uxueko **Andiaga**-ren iparraldeko isuriari **Mendiandia** esaten diote Epaizen (Lergan)<sup>156</sup>.

**Arbolaga:** **arbola** 'zuhaitza' eta **-aga** dira toponimo honen bi osagaiak. Uxuen bertan **Zuaizkieta** dugu.

**Aristuziaga:** argi dago bukaeran **-aga** berrekailua dugula. Hasieran **haritz** zuhaitz-izena izan dezakegu, baina tarteko elementuak ez dira horren argiak. Etimologia hau izan liteke: **haritzu** (< \***hariztui**<sup>157</sup>), **-tze-** ugaritasunezko atzikitik ateratako **-zi-** (cf. Uxuen arruntak diren **artazia**-k, dudarik gabe \***artatzea**-tik atereak, edo \***Lartzea**-ga-tik irten bide den **Larziaga** herri berean), eta **-aga** atzizkia.

**Besolaga:** hau behin bakarrik aurkitu dugu (1629an<sup>158</sup>), eta baliteke \***Gesalaga** baten desitxuraketa izatea (cf. **Pieza del Gesal** edo **Petringesala** Uxuen bertan).

**Bikuaga:** **biku** 'bikuondo' eta **-aga** ditugu hemen.

**Dorrondiaga:** antza denez, **dorre** 'torre' izena, **handi** izenondoa, eta **-aga** atzizkia dira honen hiru osagaiak (ikus Uxue).

**Ezkirriaga:** behin bakarrik agertzen da, eta ez dakigu **ezki**-rekin zerikusirik baduen.

**Itzaga:** **ihi** landare-izenaz eta **-tza** atzizki multzokariaz osaturik dagoen **Itza** 'ihi ugari dagoen lekua' (cf. **Buztintza** Ezporogin) eta **-aga** ditugu hemen. Ikus, alabaina, Uxueko toponimia aztertzerakoan honetaz dioguna.

**Larrageta:** honen oinarria itxuren arabera **laharra** da, ez **larre** 'euntzea', azken honetatik **Larreaga** aterako baitzen, ez **Larraga**. Amaierako **-eta** euskal **-eta** atzizkia dela dirudi, baina Mitxelenaren arabera (ikus gorago) **-aga** eta **-eta** atzizkiak toki-izen berean elkarren segidan ez dira azaltzen, eta beraz **-eta** txikigarri erromantzetako hartu beharko dugu<sup>159</sup> (ikus Uxueko **Larrage** sarrera), apika.

Antsoain zendea, Iruñetik gertu, 1532az gerotzik gutxienez **Larrageta**-tzat dokumentatzen den herrixka dugu, baina izen hau XIII. mende arte **Larraga** da, hots, Tafalla eta Lizarraren arteko herriaren izen bera, azkeneko hau **Tárraga**-tik atera ez bada bederen. Antsoain zendeako herriaren izena 1268an **Lerraga** da, eta 1592 eta 1606an **Lerragueta** (cf. 1299an Uxuen aurkitzen dugun **Podio de Larague**)<sup>160</sup>.

**Larziaga:** hau **lar** 'lahar', **-tze** ugaritasunezko atzizkia, eta **-aga** bukaeraz osaturik dagoke. Tarteko elementua, dokumentuetako alderetako **-ci-** alegia, **Aristuziaga**-n azaltzen den berbera dela uste dugu.

**Osinaga:** **osin** 'lezea', 'putzua' eta **-aga** dituzkegu hemen. **Osin** 'asun' ere izan liteke, baina Lergan erdaraz oraindik ere **asun** ibiltzen dutenez<sup>161</sup>, gisakoena Uxuen ere aldaera bera edo antzeko zerbait erabiltzen zela pentsatzea da, eta **osin** 'putzua' dela<sup>162</sup>.

**Txindilotxaga:** toponimo honen lehen osagaian Azkuek behenafarrerarako ematen duen **txindil** 'dilista' elementua izanenezake<sup>163</sup>. Orain ezezaguna den honen

156 Cf., Andimendia euskaraz, edo Sierra de Andía erdaraz.

157 Ikus **-dui** atzizki multzokariari eskaini atalean izen honetaz eta antzekoez dioguna. **Ariztu** (cf. **Aristu** deitura arrunta) **haritz** eta **-zu-z** osaturik dagoela ere pentsa daiteke, baina **Artadu**, **Ezpeldu** eta antzekoak uste honen kontra mintzo dira argi eta garbi. Ikus gure **DAON**.

158 PRA-Kaparroso, 32. k.

159 **Placeta**, **segureta**, **fonteta**, **ereta**...eta abarretan agertzen den bera.

160 NHI, 148. or.

161 Iribarren, VN.

162 Beste aldeak, **Usunbeltz** dugu Bizkaian, **Usunbiribila** eta **Usufieta** Leatxen, **Ligusufieta** Zaren, **Lixufieta** Eslaban, denetan **osuin** dugularik, \***usuin** ez bada. Ikus sarrera horietan dioguna.

163 Azkuek behenafarrerakotzat ematen duen arren, Iruñerriko toponimia biltzen duen Jimeno Jurforen obretan ere agertzen da izen hau. Esaterako, **Arlegin**, **Chindila**, **Chindileco erreca**, **Chindila arçeco** bidea dauzkagu, eta **Ezkirrotzen Chindilaçeta** (TCPCG, 44 eta 213. orr.).



lehen agerraldia nahikoa berandukoa denez gero (1631koa)<sup>164</sup>, ordurako toponimoa itxuraldatzen hasia zela kontu egin dezakegu<sup>165</sup>, eta jatorrizko elementuak, hein batez, hasierako gardentasuna galtzen ari zirela. Osagaiak, honen arabera, **txindilatze** 'txindilerria' eta **-aga** izan litezke, alegia, txindil-landa dagoen tokia.

Etimologia hau, alabaina, ez dago bat ere garbi: tarteko **-och-** hori azaltzeko **\*txindilatzeaga** > **\*txindilatzaga** > **\*txindilozaga** (disimilazioz) segida gertatu dela suposatuta behar genuke. Baina, honela bada, zergatik atera da kasu batean **Aristuziaga** edo **Larziaga** eta **Txindiloxaga** bestean?. Morionesen **Txindilatzea** dugu, eta Uxueko izen honentzat eman azalpena oso dudazkoa dela uste dugu<sup>166</sup>.

**Udareaga**: ikus **Lergako** izen bereko sarrera.

**Urteaga**: **Mitxelenak** dioenez<sup>167</sup>, izen hau **urte**-rekin erlazionatu behar da, hots, **Zuberoako** euskaraz 'uholdea' adiera duen hitzarekin, eta hau, antza denez, **ur**-ekin.

**Longidako Meotzen** ere bada (edo bazen behinik behin) **Urtiaga** bat<sup>168</sup>. **Urtaza** eta **Urtazu** ere ezagunak dira<sup>169</sup>, eta **Urtadia**<sup>170</sup> ere bai. **-Dia** atzizkia gehienbat zuhaitz eta landare-izenek erantsita aurkitu ohi dugu<sup>171</sup>, baina luraren kalitatearekin zerikusia duten izenekin ere agertzen da, baita 'lur urtsua' adiera dutenekin ere: cf. **Aezkoako lintsaduia** 'lintsak', 'lintzurak' izen arrunta<sup>172</sup> eta **ibar honetako Ariako Istilduia**<sup>173</sup>.

Ez dugu uste Uxueko **Urteaga** oso toki urtsua denik, nahiz bertan iturri bat gutxienez baden, baina hau ez da **urt(e)** osagaia bide duten beste toponimo batzuen kasua: **Bidankozeko Urtazarana**, esaterako, **Zelaigibelea**-tik jaisten den erreka baten izena da, eta **Murilloko Urtanda**-n ere bada erreka, sekeroa izan arren.

**Zaldunaga**: **zaldi** abere-izena, **-no** atzizki txikigarria, eta **-aga**-z osaturikako jatorrizko **Zaldinoaga**-tik atera da toponimo hau, **Eslabako Zaldinaga** bezala, baina bilakaera ezberdinez<sup>174</sup>. **Eslaban Zaldinoaga** > **Zaldinuaga** > **Zaldinaga** izan da bilakaera hori, eta Uxuen berriz **Zaldinoaga** > **Zaldinuaga** > **\*Zaldiunaga** edo **\*Zalduinaga** > **Zaldunaga**.

Toponimo berak bi auzo herritan bi modutara eboluzionatzea ez da bat ere gauza bitxia, tartean sarri asko berezi-nahia izaten denez gero (cf. **Leatxeko Mendijuri** / **Oibarko Menditxuri**).

### 6.3 AIN ATZIZKIA

Atzizki honetaz ikerle batek baino gehiagok hitz egin badu ere, gai hau ukituta arrakasta gehien izan duena, zalantzarik gabe, **Julio Caro Baroja**<sup>175</sup> izan da. Autore

<sup>164</sup> **Chindilochaga** idatzia ageri da. **PRA-Kaparroso**, 57. k.

<sup>165</sup> Uste dugu, gure eskualdean behintzat, fidagarriagoak, jatorragoak direla, orohar, toponimoen XVI. mendeko aldaerak XVII.ekoak baino.

<sup>166</sup> **Urraulbeitiko Arripodas** herrian Uxueko toponimoarekin zerikusirik izan dezakeen **Chingolaz** aurkitu dugu 1710ean (**PRA-Irunberri**, 3. k.): "otra Pieza...en el termino llamado chingolaz".

<sup>167</sup> **AV**, 157. or.

<sup>168</sup> **Luis Maria Mujika**, "Longidako toponimoak", **CEEN**, 51, 1988, 115-164. orr.

<sup>169</sup> **AV**, 157. or.

<sup>170</sup> **Lizarran**. **Jimeno Jurío**, "Toponimia de Estella", **III Onomastika Jardunaldiak**, argitaratu gabeko lana.

<sup>171</sup> **Iturmendiko 1776ko Urteagadanakogaña** ere (**Nicolás Arbizu**, **TI**, 272. or.), hasierako **urtea**- hori **urtea**-ren orde ez badago, elementu hau landare edo zuhaitz hartzearen alde mintzo dela dirudi, erlatibo-toponimo hauetan **urtea**, **haritza**...eta beste zuhaitz-izenak oso arruntak direlako. Hau, alabaina, ez da erabateko araua. **Lesakan** ere **Urteaga** edo **Urtiaga** dugu (**Esparza**, **DTN**, 215. or.).

<sup>172</sup> **Azkue**, **APIM**, 295. or.

<sup>173</sup> **DAON**, 42. or.

<sup>174</sup> **Txikigarriaren** eta **atzizkiaren hurrenkeraz** ikus **-aga**-ri eskaini atalaren hasieran dioguna.

<sup>175</sup> **Materiales**, 59-82. orr.

honen eritziz, **-ain** atzizkia, askotan, eta batez ere toponimo nagusietan azaltzen denean, latineko **-anus** (edo akusatiboko **-anum**)-en ondorengoa da.

Bere uste hau arrazoitzeko Frantziako **-ain** edo **-an**-ez bukatutako leku-izenak dakarzkigu gogora, hauek, bere eritziz, "fundi" erromatarren izenetako **-anus** atzizki latinoaren emaitza baitira. Euskal Herriko **-ain** atzizkiak zera dio, ezin daitekeela beti izan, Arrandiagak uste zuenaz bestalde, **-gain** izen-atzizkiaren ondorengoa. Dirudienez, **-ain** daramaten herri asko "behean"<sup>176</sup> daude, ez mendi gailurrean. Hala ere, zenbait kasutan **-ain** **-gain**-etik atera zitekeela aitortzen du, belarearen ezabaketa jasan ondoren<sup>177</sup>.

Autore honentzat, bada, **-ain**-ez bukatzen diren toponimo nagusiak antroponimoetan oinarri duten "fundi" erromatarren "**-anus**"-dun izenen emaitza dira, antroponimo horiek bertakoak (euskaldunak edo akitaniarrak) nahiz latinoak direlarik<sup>178</sup>.

Autore berak, geroagoko beste lan batean<sup>179</sup>, herri-izenetan azaltzen diren **-ain**, **-an** eta **-in** atzizkiak loturik, erlazionaturik daudela idarokitzen du. Hiru horietako lehena **-an(o)**-tik atera da, eta hau, bere aldetik, **-anu**-tik, eta adibide edo frogatzat euskarazko izen arrunt batzuk ematen dizkigu: **kapitain** < **capitán**, **albain** < **hílván**, eta **apain** < **apaño** < **apannu**, leku-izenak ezezik: **Cornellán(o)** (< **Cornellano**), **Sempruñan(o)** (< **Sempruñano**?). Azken hauetan, eta euskal hiztegi arrunteko hitzetan (erdararikako aipatu maileguetan) agitzen dena ikusita, arrunta litzateke, C. Barojaren ustez, i baten agerpena (alegia, **Cornellain** edo **Senpruniain** bezalako formak sortzea).

Hortaz, badirudi hemen ez dituela oso kontutan hartzen Mitxelena *Materiales*-en argitalpenaren ondoren egin zizkion kritikak (ikus beherago), eta **-ain**-ez bukatutako toponimoak akusatibotik eratorri nahi dituela. Guztiarekin ere, eta esanak esan, genitiboaz ere baliatzen da **Belaskoain**, **Gendulain** eta **Paternain**-en moduko izenak azaltzeko, berak dioenez hauentzat ez baita egokia lehen **-ain**-ez eta orain **-in**-ez bukatzen diren eta latineko **-inus** amaieran jatorria duten izenak azaltzeko proposatzen duena (**Flavinus** > **Lain** Penintsulan; **Morentinus**?? > **Morentain** > **Morentin**).

Beraz, **Belaskoain**, **Gendulain** eta **Paternain**-en modukoentzat **-ani** edo **-i** genitibo-bukaera duten oinarriak proposatzen ditu, hemen **i**-ren agerpena metatesi bati zor litzaiokeelarik (**Belascoani** > **Belaskoain**, **Paternani** > **Paternain**??). Azkenik, euskaraz **-an-** / **-ain-** / **-añ-** zailantza izan dela dio, eta honen ondorioz Erdi Aroko agirietan **-ain**-en ordez bestelako bukaera batzuk azaltzen direla, arruntena, alabaina, **-y-** dun aldaera (**-ain?**) bada ere.

*Koldo Mitxelena*<sup>180</sup> ados azaltzen da Caro Barojak *Materiales*-en azaldu teoriarekin, baina ukitu garrantzizko bat egiten dio: **-ain**-ez bukatutako toponimoak **-anurik** gabe (honek **au(n)** emango bailuke), **-ani** genitibotik eratorri behar dira. Honek, hizkuntzalari errenteriarren hitzetan, "gogobeteko etimologia pila handi bat ematen digu".

176 Berak "en bajo" dio, aipaturiko liburu horretako 66. orrialdean.

177 Eta gertatu ere honela gertatu da Nafarroako hainbat toki-izenetan.

178 Azken hauek dira ugarietak, antroponimo iberiko pare bat ere aipatzen duen arren.

179 HGPV, 207-328. orr.

180 AV, 38-40. orr.

Bestalde, Nafarroan **-ani** atzizkiak hasiera-hasieratik **-ai** eman du, su-durkaritasun-arrastorik bat ere gabe (**artzai** < **ardi** + **zani...**)<sup>181</sup>, baina **-ain** bukaera duten herri-izenek ez dute **n-rik** gabeko aldaerarik (ahoskera zaharra, dirudienez, **-añ**, **-eñ** zen), eta beraz Caro Barojaren teoria ez da ulertzen bukaerako kontsonante su-durkaria (Amatriain, Garinoain....)<sup>182</sup> nondik atera den:

“Los nombres de poblaciones navarras en *-ain* no tienen variantes sin *-n*: su pronunciación antigua debió ser *-añ*, *-eñ*, como en suletino, a juzgar por grafías como *As-sieng*, año 1110, *Beeriaang* 1097, *Machirreng* 1098, cf. *Domezain* (Soule), en 1193 *Domesang*, etc. Lo mismo si se parte de lat. *-anum* que del gen. *-ani* (*Apellidos*, núm. 18), el resultado *-ain*, *-añ* sería normal en suletino, pero no en alto-navarro meridional”.

Hortaz, eta laburtuz, Mitxelena itxuraz Barojarekin ados badago ere, honen teoriari gutxienez bi oztopo handi aurkitzen dizkiola esan dezakegu. Gainera, ez du inolaz ere baztertzen mintzagai dugun atzizkiak etorki ez-latinoa duela dioen hipotesia, hau “oso defendagarritzat” jotzen du eta.

Bestaldetik, eta Bonaparte eta Lekuonaren kontra, irakasle errenteriarrek ez du uste **-ain** atzizkia euskal genitibotik heldu denik<sup>183</sup>, genitibo **-aren** baita gaurreguanean ere, eta ez **-ain**. Izan ere, **-aren** > **-ain** aldaketak Nafarroarako (edo Nafarroaren zati baterako) balio lezake, baina ez Gipuzkoa edo Zuberoarako<sup>184</sup>. Gainera, aldaketa hori euskaraz oso zaharra dela frogatu behar genuke, gutxienez **-ain** atzizkia toponimoetan azaltzen den aurreneko lekukotasunen garaikoa, eta egia esan, **-ain** genitiboak ez du halako zahar-itxura handirik<sup>185</sup>.

Mitxelenak **-aren** > **-ain** eratoritzeko aipatzen duen beste arazo bat semantikoa da. Izan ere, **-aren**-ek badu artikulua, eta hau, gure autorearen hitzetan “(es) cosa difícil de explicar tratándose de antropónimos”<sup>186</sup>. Guztiarekin, hau ez da, gure irudiko, gainditu ezinezko oztopoa, euskaraz mugatzailea duten pertsona eta saildu-izen zaharrak arruntak baitira<sup>187</sup>.

181 Galipentzun, ikusiko dugunez, **Zenborain** leku-izena dugu, **Zenboroz**-ekin batera (**Zenbroz** [θemb̥r̥oθ] egun), baina 1335ean **Domingo arçaya** izeneko laguna bizi zen herri honetan.

182 FHV, 144. or.

183 Eugenio Arraizak ere defendatu du tesi hau azken urteotan. Ikus bere “\*-Ain\*-ez bukatzen diren euskal toponimoak”, FLV, 48, 1986, 225-249. orr.

184 Bi herrialde hauetan ere azaltzen dira **-ain** atzizkia duten herriak: Beasain, Orendain... Gipuzkoan, eta Garindein, Espes-Undurein (Garindañe, Ezpeize-Undüreife euskaraz) Zuberoan.

185 Adibidez Iruñeko katedralako XIV. mendeko kodizean agertzen diren euskarazko lerroetan **Jangoicoaren** dugu (Ikus TAV, 57-59. orr.). Iruñean 1609an saritutako olerkietan ere **Jaungoycoaren** eta **nequearen** irakurtzen ditugu (TAV, 115. or.). Juan de Beriaynek ere **-aren** ibiltzen du XVII. mendean (TCOM): **Andre dona Mariaren** sabelean (7. or.), **obiaren gañean** (12. or.), **Iaungoyco eguiazcoaren** baytan (17. or.), **Iaunaren** contra (40. or.), **Virgina Mariaren** baytaric (74. or.)...

Lizarraga Elkanokoak berriz lurrain ondarrean (DCC, 34. or.), **eternidaderáco** zubiain **passátzean** (DCC, 178. or.), **Eta vici gucían** oroát cé **ollárrain** cántua **aditzea**, nola **ástea negárrain** música (UIGPL, 36. or.)... erabiltzen ditu, **arruntagoak** diren **guizonquiarén** ta **emastequiarén** **comunicacios**, **iruzquiarén** **árguia** (DCC, 35. or.), **guizaguendearén** **primiciac** (DCC, 37. or.), **ayenaren** (DCC, 76. or.), **Jordángo** **ugaldearén** **zúbian** (DCC, 177. or.), **elizac** **doa(ci)** **laic** **ilarén** **ésque** (UIGPL, 16. or.), **azquén** **orduárén** **beira** (UIGPL, 17. or.)...eta besteren aldamenean, eta beraz badirudi **-aren** > **-ain** aldakuntza XVIII. mendean gauzatu zela edo gauzatzen hasi zela. Honek, dena den, azterketa sakona eskatzen du.

186 AV, 40. or.

187 Gure eskualdean, esaterako, artikuludun hagionimoak aurkitu ditugu **Leatxen** (ikus herri honetako **Done Xurio** eta **Sandiandere** sarrerak). Ikus gainera, Yon Etxaideren “Euskal pontizen zahar batzuk aztarri-

*Alfonso Irigoyen* hizkuntzalaria ere arduratu da **-ain**-ez akitzen diren toponimoz<sup>188</sup>. Autore honen ustez, **-ain**-ez horniturik dauden toki-izen batzuetan **-gain**-en laburketa izan dezakegu, eta beste batzuetan antroponimia latinoko **-anu**-ren oinordekoa den **-ano**-ren **-ani** dobletea, ez ezinbestean gorago aipatu autoreek nahi zuten bezala genitibotik eratorritako forma. Izan ere, euskaltzain bizkaitarrak dioenez, bai antroponimia latinoan eta bai gerokoan ere arruntak dira **-ano** (< **anu**) eta **-ani** dobletea duten izenak, azken honek latineko genitiboarekin zerikusirik ez duela nahitaez. Adibide moduan **Garceani**, **Garseani** / **Garsiano** aipatzen ditu, hiruak jatorriz euskalduna zen **Gartzea** / **Garzea**-ren gain taiutuak.

Erdi Aroan gaurregun **-ain**-ez akitzen diren izenek aurkezten duten amaiera bustia (*Makirreng*, *Sansoang*...) azaltzeko zera dio, jatorrizko **-ani** bukaera **-añ** bilakatu zela, hiztun erdaldunen artean ohizkoa zatekeen **-e-z** bukatutako forma gertatzeko bideak itxen zirelarik. Gero euskaldunen ahotan \***Lukiañ** > **Lukiañ**-en moduko pausoa burutuko zen, hau da, azken kontsonante sabaikariaren despalatalizazioa gertatuko zen, eta honekin batera dokumentatua dagoen **Lukian** aldaera ere agertuko zen.

Irigoyenen arabera, **-ani** indarrean zegoen oraindik Erdi Aroan, bestelako atziki patronimikoak bezala, eta bertako izen jatorrei ere erantsi zitzairen. Bukaera hau duten toponimo batzuk, halaz ere, oso zaharrak izan daitezkeela aitortzen du, Luquín adibidez<sup>189</sup>, herri-izen honek ez baitu aurkezten erromantzez ohizkoa den **-ki**-ren txistukaritzea.

Euskaltzain bizkaitarrak antzinako formen finkapena proposatzen du hutsak eta espejismoak baztertzeko. Espejismo horien artean Caro Barojaren **Veranianu(m)** > **Beriañ** aipatzen du, Iruñerriko herrixka hau **Beherian** edo **Beeriang** (< **Beheri-**) baita *Becerro Antigo de Leire* delakoan<sup>190</sup>. Datu hauek onartezin bihurtzen dute Caro Barojaren ustezko iturri latino hori.

#### 6.4 AIN ATZIZKIA GURE ESKUALDEAN

Gure eskualdean **-ain** atzizkia duten bost toponimo txiki eta nagusi bat aurkitu ditugu: **Gardelain** herri-izena Bizkaian, **Azterain** eta **Baluriañ** Eslaban, **Zenborain** Galipentzun, eta **Indurainzabala** eta **Makirriain** Morionesen. Ondoan dagoen Orba ibarrean dokumentatzen den **ain**-dun toponimo mordoxka ikusita, harrigarria da gure alderdian bukaera hori duten bost toponimo besterik ez topatzea<sup>191</sup>.

Eslabako bi izenei dagokienez, biek itxuraz bukaera berdina dute, baina leku-kotasun zaharretara jotzen badugu, **Azterain**-ek beti amaiera bera aurkezten duen bitar-

katuz" izeneko artikulua (*Euskera* XXX, 1985-2, 513-525. orr.) eta Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* (Iruñea, 1985, 58. or.). Dena den, mugatzailea **-ain**-dun toponimo guztietan azaltzen dela pentsatzeari soberaxko deritzagu.

188 "Sobre el origen de los patronímicos y de ciertos topónimos terminados en **-ain**, **-ein**, sul. **-añe**", in DRPLV-II, 193-203. orr.

189 Alfonso Irigoyen bizkaitarrak Luquín idazten du, azentua azken sibalari jartzen duelarik, eta telebistan ere Javier Lukín deitzen diote txirindulari nafarrari, baina Nafarroan guk beti **Lúkin** aditu dugu, **-jai** > **-i** bokal laburketarako egokiena azentua bokal sabaikarian duen aldaera izanagatik. Kasu berean dago, adibidez, **Morentiañ**-etik atera den **Moréntin**.

190 Ikus Ricardo Cierbide tafallarraren ICT-II, FLV, 25, 1977, 117-152. orr.

191 Ikus L. de Urabayenen "Notas al gráfico de la extensión en Navarra de los nombres de pueblos terminados en **-ain**", RIEV, 16, 1925, 150-152. orr. Ikus, halaber, Jimeno Jurforen "Topónimos navarros con sufijo **-ain**", FLV, 48, 1986, 251-281.

tean **Baluriain** modu batera baino gehiagotara agertzen dela ikusten da. Lehenarentzat Caro Barojaren azalpenak balio dezake, alegia, Iruñerriko herriaren kasuan bezala, toponimo hau ere "asteriani"-tik erator daiteke. Zernahi gisaz, Eslabako **Azterain** mendi baten izena da (**Monte de Azterain** dokumentazioan sarritan), eta beraz **-gain**-ekin lotzeak ez dirudi zentzugabekeria, nahiz ez dugun **\*Azter(a)gain**-en modukorik ediren. Itza zendeako Atondo herrian kasko baten izena den **Aistrango** daukagu, eta horrekin batera **Eztera mendia**, non **-ain** amaiera **mendia** izenaz ordezkatu dela irudi baitu<sup>192</sup>, **\*Ezterainmendia** bezalako zerbaiten desitxuraketa ez bada bederen.

Bigarren toponimoa "valeriani", "valuriani" edo horrelakoren batean oinarri zitekeen, baina lekukotasunik zaharrenak **baluriarana** (1534)<sup>193</sup> eta **balluriarana** (1593)<sup>194</sup> dira, XVII. menderako lekuko gehienek bukaeran **-ain** badute ere: **baruriain** (1637)<sup>195</sup>, **baluriaña** (1633)<sup>196</sup>, **baluriani** (1693)<sup>197</sup>, **baluriain** (1681)<sup>198</sup>. Hortaz, kasu honetan behintzat argi dago **-ain** ez dela latineko edo Erdi Aroko **-ani**-tik heldu<sup>199</sup>, euskal **-arana** batetik baizik. Mitxelenak dioenez<sup>200</sup>, **haran** hitza batzuetan **-arain** itxurapean agertzen da (**astiasuaran** / **astiasarain** < **Asteasu** + **haran**), eta hau izan liteke gure toponimo honentzako azalpena, **\*baluriarain** aldaera aurkitu ez dugun arren<sup>201</sup>. Gainera, hasierako **Bal-** edo **Ball-** (**balluri arana**, 1593) bukaerako **harana** horren kide erdaldua izan daiteke (Cf. **Balarata** Ageza eta Galipentzun, **Valladana** Oibarren<sup>202</sup>).

**Gardelain** herri izena ere **-ani** atzizkitik abiatuz azaldu beharko genuke. Oinarrian dagoen izena, Caro Barojak dioenez<sup>203</sup>, **Gardel** da, Arabako **Gardelegi**-rekiko<sup>204</sup> alderaketatik ondorioztatzen ahal denez. Alabaina, oinarrian **Gardel** ezezik, **Gardela** edo **Gardele** ere egon daitekeela uste dugu guk, **Gardelain** azaltzeko arazorik ez legokeelako, ez eta **Gardelegi** (< **Gardela** nahiz **Gardele** + **egi**) azaltzeko ere (cf. Iruñerri, Es-

192 Jimeno Jurío, TCPCI, 114 eta 127. orr. **Eztera**, dena den, 'errot-kanalea', 'errotetxea' ere izan daiteke. Ikus J.M\* Azpirozzen "Azkue jaunaren itzegia osatzeko, Napparroako Leitzen bildutako itz-bilduma" artikulua, *Euskera*, XII, 1967, 5-24. orr.

193 PRA-Oibar, 2. k.

194 Id., 7. k.

195 Id., 23. k.

196 Id.

197 PRA-Kaseda, 7. k.

198 Id., 1. k.

199 Nolanahi ere, lehen esan bezala, hiru toponimo hauek txikiak dira, hots, ez dira toponimo nagusi edo herri-izenak (despoblatuak ote?), Caro Barojak azaltzen dituen izenak ez bezala.

200 AV, 50-51. orrialdeak.

201 Eslaban berean lehen agerraldietan **tasteran** (PRA-Oibar, 3. k-bis. 1587), **tastaran** (id., 7. k., 1593), **trastaran** (id., 7. k-bis, 1593) eta aurrerago, 1644. urtean, **trastarain** itxurapean agertzen den toponimoa dugu. Honen lehen osagaia garbi ez egon arren, badirudi bukaera **-aran** 'haran' hitzarekin identifikatzea, eta beraz hemen ere Mitxelenaren oharra egiaztatzen dela. **Baluriain** aurreko **\*Baluriarain**-etik atera zitekeen, haplologiaz.

**-Aran** > **-ain**, **-an** bilakaera jasan duten toponimoen artean **-ain** bukaera horren arrunta den Orba ibarreko Orisoingo **Ayztun aran** (PR-Barasoain, 3. k-bis, 1600), **Ayztunarana** (id., 5. k., 1628) > **Asturiain** [ástúrjain], Benegorriko **Salutarana** (PRA-Tafalla, 27. k., 1584) > **Salutran**, **Salutrain** 1710ean (PRA-Barasoain, 34. k. 1710) eta orain ([salutrájn]), eta Olatzagutiko **Erbitiarana** (PRA-Altsasu, 19. k., 1696), **Erbitearana** (id., 21. k., 1714) > **Erbitiain** (1915eko katastroa) > **Erbitian** [er'bítjan] aipa daitezke.

202 Hau Aragoienera azaltzen den **Ballarana**-rekin identifikatu daiteke, d/r nahasketa eta elkar-trukea arrunta baita. Gatzen Lacasta, *El euskera en el Alto Aragón*, argitaratu gabeko lana.

203 *Materiales*, 71. or.

204 **Garde**-rekin lotua, antza. Ikus HGPV, 167. or.

tellerri, Toloserri...). Aldaketatxo honen iturria J. M. Lacarraren lan batean<sup>205</sup> azaltzen den Ziraukiko 1283ko Gardelamendia edo Gardalamendia (cf. Gardelain / Gardalain), Nuinen bizirik dagoen Kardelamendi [kār̄ḏelamēndi] (Gardelamendi 1686an<sup>206</sup>; Cardelamendisayeza 1709an<sup>207</sup>) eta historialari beraren beste lan batean<sup>208</sup> aurkitzen dugun Gardele Acenarz izenetan bilatu behar da. Gardele honen eratorria da, dudarik gabe, Jimeno Jurfok<sup>209</sup> dokumentatu duen XI. mendeko Blasco Gardeleiz apezpiku iruindarraren eta mende bereko Tota Gardeleiz Ihaurrietako biztanlearen<sup>210</sup> Gardeleiz “deitura”.

Gure ustez, izen hauek (hauetan eta aurreko horretan oinarri bera dugula irudi baitu) abiapuntua Gardel gabe Gardela edo Gardele izan daitekeela frogatzen dute, Gardel balitz Ziraukin \*Gardelmendia izanen baikenuke, ez dokumentatzen dena, hau ere posible izanagatik. Nolanahi ere, Gardel eta Gardele / Gardela izen beraren aldaeratzat har daitezkeela uste dugu, eta Gardelain / Gardalain izenean bata zein bestea egon daitekeela aitortu beharra dago<sup>211</sup>.

Galipentzuko Zenborain toponimoa aldi bakar batez dokumentatu dugu, 1635ean<sup>212</sup>, Cenborayn itxurapean, eta ez dugu oinarririk bat ere -arana-tik heldu dela esateko. Hemen L. M. Mujikak<sup>213</sup> Untzitibarko Zenborain<sup>214</sup> herriaren izena azaltzeko proposatzen duen Sempronius izen latinoaren eratorria den Semproniani batez pentsa genezake<sup>215</sup>. Gainera, Mujikak Sempronius-en eratorrien artean aipatzen dituen Arabako Cemproña (< semproniana?) eta Nafarroako Zenborain (< Semproniani)-en ondoan<sup>216</sup> Zenboroz dugu Galipentzun (Zenbroz [θemb̄r̄oθ] orain). Caro Barojak sembus-en antzeko zerbaite proposa daitekeela dio<sup>217</sup>.

Alabaina, Zenborain-en jatorria Semproniani gabe, beste bat dela pentsa ere daiteke. Izan ere, Lacarraren aipaturiko artikuluan<sup>218</sup>, 1283. urtean Çemborriuarr (zenbor + ibar, antza) izeneko dermiaoa agertzen da Ziraukin, eta honek Zenborain-en oinarrian Semproniani gabe \*zenbor egon daitekeela esan nahi du<sup>219</sup>. Zenborain eta Zenboroz azaltzeko honek duen oztopoa \*zenbor horren bukaerako dardarkari anizkuna da, baina agiri berean \*Zenbor-ekin zerikusia izan dezakeen Çambora ageri da:

205 "Documento de Irache (1283) referente a Cirauqui", FLV, 17, 1974, 166-182. orr.

206 PRA-Ihaben, 38. k.

207 Id., 40. k.

208 VM, 33. or. Honela dio testuak (Leireko "Becerro"-ak): "...De uilla que est in finem de illa ualle que dicitur *Oxxsaganía*, Acenar Fortuniones et Galin Blasc...Arioale Sanz et Fortes Meiz, *Gardele Acenarz*." (bigarren kursiba gurea da).

209 "Pamplona y sus nombres", FLV, 57, 1991, 55-76. orr.

210 Lacarra, VM, 34. or.

211 Cf. Gardel Jakan, XIII. mendean, Manuel Alvar, *Onomástica, repoblación, historia (Los «Establimentz» de Jaca del siglo XIII)*, Institución «Fdo. el Católico», Zaragoza, 1971, 105. or., eta Kardiel Ihaurrietan XI. mendean (Oneca Kardiel, Kardiel Blascones), Lacarra, VM, 34. or.

212 PRA-Oibar, 23. k.

213 LEEE, 242-250. orr.

214 Puii herrian ere azaltzen da Zenborain (PRA, Kaparroso, 21. k., 1617-1618) : "assi mesmo...en los terminos del lugar del pueyo entre los dos Rios de Zidacos y cenborayn una pieca..."

215 Hala ere, kontuan hartu behar dugu Mitxelena FHV-ko 293. orrialdean dioenez, (Untzitibarko) Zenborainen Erdi Aroko aldaerak Cembozain, Cepozain, Zenbozain zirela. Guztiarekin, Cemborain forma 1268rako agertzen da, eta orokorra bide da horrez geroztik. Ikus NHI, 189. or.

216 LEEE, 246. or.

217 *Materiales*, 71. or.

218 "Documento de Irache...", 168. or.

219 Orbako Garinoain herrian Cemborrayn dugu 1631n (PRA-Barasoain, 4. k., 93. zkia.), Zenborraín edo Zenboráin orain.

“En Çambora una pieça que se atiene con la pieça de Sancha Sandora”

Harrigarria da, ezbairik gabe, dermio-izenaren eta jabearen deituraren artean dagoen eite eta irudia.

Morionesko **Indurainzabala** nahikoa modu nahasian aurkitu dugu: **Indurain**-ekin batera<sup>220</sup>, **Undurer**- (1592)<sup>221</sup>, **Undurain**- (1721)<sup>222</sup> eta **Zindarain**- (1772)<sup>223</sup> agertzen dira, eta forma guztien oinarrian **Indurain**- egon daitekeen arren, lanak izanen genituzke **Zindarain**- bezalako bat **Indurain**-etik eratorri nahi bagenu. Azken hau, Caro Barojaren arabera<sup>224</sup>, Bordeleko inskripzio erromatar batzuetan azaltzen diren **Inderca**, **Indercillus** izenen lehen osagaiarekin erlaziona liteke, baina hau ez dago sobera garbi. **Indurain** beraz, antroponimo batetan oinarritutako toponimoa litzateke, eta **Indurainzabala** ‘Induraingo zabaldua’.

Alfonso Irigoyenek<sup>225</sup> Zuberoako **Undurein** (**Ündüreiñe** euskaraz) aztertzean toponimo honen azpian asimilazio bokalikoz **Indura** izenetik atera den **Ündüra** (< **Undura**) eta **-ani** atzizki patronimikoa (ez latineko genitiboa, sorburua, lehen jatorria alegia, horixe den arren) dugula dio, eta itxura guztien arabera Morionesko **Indurain** (**Undurain**- 1721ean, esan bezala) Iparraldeko toponimo bera da.

**Makirriain** toponimoari dagokion bezainbatez, Caro Barojak Nafarroan bi **Makirriain** daudela (bata Ezkabarten eta bestea Orban) gogoratu ondoren **Macer**, **Macerianum** izen latinoaren gain moldaturik dagoela dio. Joan Corominesek **\*Macriniani** proposatzen du izen honen iturrizat, zalantzaz bada ere<sup>226</sup>.

Zernahi ere den, eta laburbilduz, guk C. Baroja eta Mitxelenaren tesia onartzen dugu, nahiz tesi honek, bigarren ikerleak aipatzen duenez, arazoak badituen (arazoa, lehen ikusi moduan, **\*-zani** > **-zai** baina **-ani** > **ain** aldakuntza da. Beste arazo bat, gure ustez, **-ain**-dun izenetako askok, “fundi”-en jabeen izenetan oinarritzen bagara, inolako azalpenik ez izatea da). Dena dela, Alfonso Irigoyenen proposamendua ez da alde bat uztekoa, eta **-ain**-dun toponimoetako batzuk genitibotik gabe **-ano**-ren dobletea den eta euskaldunon artean atzizki bilakatu zen **-ani**-tik atera zitezkeela pentsa daiteke.

Bestaldetik, eta Caro Barojak ez bezala, toponimo nagusiak eta txikiak ez direla horren zorrozkiro bereizi behar uste dugu, zeren, adibidez, aipaturiko Oibar haraneko izenetako batzuk toponimo nagusi zenbaitekin bat baitatoz<sup>227</sup>, eta gisakoena, gure irudiz, denentzat etimo bera proposatzea da.

Azkenik, diogun argibiderik ez duten **-ain**-dun toponimo horietatik batzuk azaltzeko **haran(a)** hitzean<sup>228</sup> oinarritzen ahal garela, batez ere elkartuaren lehen elemen-

220 **Jndurainçabala**, PRA-Oibar, 19. k, 1616.

221 **Undurerçabala**, id., 6. k.

222 **Undurain Zabala**, id., 37. k., 1721.

223 **Zindarainzabala**, PRA-Kaseda, 24. k., 1772.

224 *Materiales*, 73. or.

225 "Sobre el origen de los patronímicos y de ciertos topónimos terminados en *-ain*, *-ein*, sul *-añe*", in DRPLV-II, 193-208. orr.

226 "De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos", FLV, 12, 1972, 299-319. orr.

227 **Azterain**, **Zenborain**...hemen posibilitate bat dermio hauek despoblatuak edo "fundi" izana da, baina ez dugu honen frogarik bat ere.

228 **Arain** aldaeran alegia.

tuaren azken silaban -Ci (kontsonantea + i, alegia) agertzen denean. Honelakoetan, **baluriaran(a)** > **baluriain**-en ikusi dugunez, erraza da \*-riarain > -riain laburketa gauzatzea, eta badaiteke azalpenik ez duten -ain -dun toponimo horietako batzuk bide honi jarraikiz argitu ahal izatea.

## 6.5 AS / -AZ, -ES / -EZ, -IZ, -OS / -OZ, -US / -UZ BUKAERAK

Bukaera hauetaz arduratu zen lehen euskal autorea, dakigula, *Larramendi* andoainarra izan zen. Honek dioenez, **Rodríguez**, **Martínez**, **Pérez**, **Sánchez** eta beste patronimiko erdaldun ezagunek euskararen instrumentalean izan zezaketen iturburua<sup>229</sup>.

*Aingeru Irigarai*-k Ochocoiz (< Ochoco), Cecondiz (< Cecondi), Adameyz (< Adame), Jacueiz (< Jacue) eta beste patronimiko batzuetan azaltzen den -z (bokalaz ez du deus esaten) euskarazko instrumentalekin lot daitekeela dio<sup>230</sup>, Campiónek proposatu bezala, arestian ikusi dugunez teoria hau Larramendirengandik heldu bada ere<sup>231</sup>. Patronimiko horiek azaltzen diren herrien euskalduntasunaz berriz, honela dio:

“A propósito de este inciso, añadiremos que el lector superficial, al repasar estas copiosas Listas (Carrascoren lanaz ari da) de nombres en -ez, -iz, puede llamarse a engaño si descarta, sin más, la Vascofonía de los pueblos correspondientes. Pues en muchos de los que documentalmente conocemos su condición vascófona tres siglos después, y aún posteriormente, encontramos en esas listas de vecinos únicamente antropónimos en -ez, -iz”.

*Julio Caro Baroja*-ren arabera<sup>232</sup> -iz-ez bukatzen diren toponimoen iturria -icus, -icius, -cius amaiera duten patronimikoen genitiboan bilatu beharra dago. Gero “arau” hau zabaldu eta analogiaz -iz-ez bukatutako ez landara -az, -ez, eta -uz-ez bukatutakoak ere sortuko ziren.

Autore honen ustez zaila da herri-izenetako -iz bukaera, zenbaitek proposatu duten bezala, euskal **haitz** ‘harkaitz’ hitzetik atera izana. Atzizki hau duten izenen hedadura geografikoari dagokionez, batik bat Araban, Bizkaian eta, -ain atzizkiak gertatzen zen moduan, Nafarroako Erdialdean agertzen direla dio. -Iz / -iza pareez, berriz, genitibotik heldu den -iz atzizki hutsaz nahiz atzizkiak gehi artikulua osaturik daudela uste du, bigarrena latineko -tia-tik ere atera zitekeen arren.

Beste alde, eta beti J. C. Barojaren eritziz, -oz bukaera duten izenak<sup>233</sup> ez dira euskarazko hotz izenondoarekin lotu behar, ez eta, Nafarroako ekialdeko eta iparraldeko -otze aldaeran oinarrituta, ugaritasuna adierazten duen -tze berrekailuarekin ere. -Oz bukaerak Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian duen maiztasuna, -ain-ekin agitzen den bezala, oso txikia da Nafarroan duenaren aldean.

Jatorriaz den bezainbatez, herrialde honetan (Nafarroan) edireten ditugun -oz-ez amaitutako toki-izenak, -iz, -az, -ez eta -uz-ez amaitutakoak bezala, patronimikoekin lotu behar direla uste du: adibidez, **Munoz**, **Ilurdoz**, **Izanoz** eta **Uztarroz** toponimoak **Muno**, **Ilurdo**, **Izani** eta **Ahostar** izenetatik atera ahal izan dira. Autore

229 Alfonso Irigoyenek aipatua, LVRLOCM-eko 15. or.

230 UGDEN, 118-128. orr.

231 Esan bezala, Irigoyenen lanetik atera dugu instrumentalekiko lotura Larramendik proposatzen duelakoa, baina, egia esan, bertan (Irigoyenen lanean, alegia) ez dago oso garbi teoria hori Larramendirena berarena den ala aipatzen ere den Astarloarena, honek ere ontzat hartzen omen zuen eta.

232 *Materiales*, 102-109 eta 125. orr.

233 Id., 110-113. orr.



honen eritziz, ez dago garbi zergatik aurkitzen ditugun batzuetan *-iz* edo *-oz*-dun izenak, eta beste batzuetan *-ain*-dunak (cf. *Urdaniz* / *Urdanoz* / *Urdiain*).

*Gerhard Rohlfs* hizkuntzalariak garrantzi handiko artikulua batean<sup>234</sup> *-ós* eta *-ués*-ez amaitzen diren toponimoak aztertu ditu, euskarazko *-otz(e)*, *-ots* eta erromantzeko *-ost* (Pirinioez haraindian), *-ueste* (Pirinioez honaindian)-rekin lotuaz. Autore honek dioenez, *-ós* aldaera Akitanian, Aran ibarrean, eta Pallarsgoienean agertzen da, eta *-ués* Jakerrian bereziki, eta neurri txikiagoz eskualde honen bi aldeetan, mendebaldetik Iruñerriaraino iristen delarik (hemen *-oz*-dun toki-izenekin nahasten da).

Rohlfsen arabera argia da *-ós*, *-ués*-en eta euskarazko *-otz(e)*-ren arteko lotura, Nafarroako *Gallués* / *Gallotze*, *Navascués* / *Nabaskotze*...eta antzeko kideetasunek frogatzen dutenez<sup>235</sup>. Ikerle hau bat dator Caro Barojarekin Menéndez Pidak *Araotz*-entzat proposatzen zuen *-otz* 'hotz' azalpena arbuizatzerakoan. Honetarako ematen duen arrazoia oinarrien nabartasun gaitza da:

"Il est hors de doute que l'ingénieuse hypothèse de Menéndez Pidal ne peut être soutenue. C'est l'immense variété des radicaux qui l'exclut. Est-il concevable que l'idée de 'froid' (basque *otz*) puisse se rattacher à des centaines de radicaux? Le maître lui-même dès son premier article sous-entendre qu'il pouvait s'agir aussi d'un suffixe"<sup>236</sup>.

Rohlfsen ustez, aipatu atzizkiak dituzten toki-izenak antroponimoetan oinarriturik daude, hau baita toponimo horien oinarrien nabartasun izugarria azaltzeko modu bakarra. Hau oso garbi ikusten da, beti ere autore honen eritziz, oinarri horiek beste eskualde batzuetan guren baliakideak diren bestelako atzizki batzuek lagunduta (*-anu*, *-ascu* eta *-ate*-k lagunduta bereziki) aurkitzen ditugunean. Antroponimo horiek etorki galiarrekoak dira gehienbat, baina latinoak, hispaniarrak eta akitaniarrek ere badira.

Atzizkiaren jatorriari buruz zera dio, *-ós* dutenentzat *-ossu* proposa daitekeela, eta *-ués*-dunenentzat *-osse* edo *-ossi*<sup>237</sup>. Jatorrizko atzizki hauek Galiako antzinako onomastikaren barrukotzat jotzen ditu:

"Quelle peut être l'origine de notre suffixe? Il est entendu qu'il n'appartient pas au latin. Il doit être antérieur à l'arrivée des Romains. Or il est remarquable de constater l'existence d'un suffixe *-ossu* dan l'ancienne onomastique de la Gaule. Celui-ci a été employé dans la formation de certains anthroponymes..."

*-ós* / *-ués*-en eta euskarazko *-oz*, *-otz(e)*-ren arteko lotura ez du garbi ikusten, azken hauentzako azalpena ezin baitu, itxuraz, Galiako onomastikan bilatu. Zernahi gisaz, bi sailen arteko kideetasuna argia da, gorago esan moduan:

"Il est plus difficile de porter un jugement sur les relations qui existent entre *-ús* (*-ues*) et la termination *-oz* ou *-otz*, *-otze* des territoires de langue basque. Aucun doute n'est permis quant à l'identité de nos desinences, lorsque nous constatons que des localités

234 "Sur une couche préromane dans la toponymie de Gascogne et de L'Espagne du nord", RFE, XXXVI, 1952, 209-256. orr.

235 Rohlfs-ek *-otze*-z bukatzen dituen herri-izenok *-oze* edo *-oxe*-z amaitzen dituzte Nafarroako euskaldunek: *Apardoxe* edo *Apardoze*, *Galoze*, *Nabaskoze*, *Nardoze* edo *Nardoxe*...Beste batzuen euskarazko formak ez dakigu nondik hartu dituen: *Sagotze* (*Sagüés*)-rena, adibidez. Toponimo hauen lekukotaun historikoez eta euskarazko ebakeraz ikus NHI.

236 "Sur une couche...", 216. or.

237 *Zangoza* hauen femeninoan legoke oinarriturik, *-ossa*-n, alegia.

situées près de la limite basco-romane qui dans leur forme romane se terminent en *-ós* ou *-ués*, auprès des Basques ont un nom en *-oz* ou *-otze*”

Hortaz, Rohlfsen euskarazko *-otz(e)* Aragoagoieneko *-ués*-ekin eta Akitaniako *-ós*-ekin lotzen du, baina ez du zehazten euskarazko atzizkiaren jatorria zein den, esan moduan atzizki honen sorburua Galiako onomastikan bilatzea baztertzen baitu, antza duenez.

Bestalde, *-ués*-ez amaitutako toponimoak ez ditu formaz antzekoak diren eta alderdi bertsuan (Nafarroan bederen) aurkitzen ditugun *-és*, *-iés* (erdaraz) / *-aize*, *-(t)ze* (euskaraz)-z bukatutako toponimoekin lotzen: *Ustés* / *Ustaize*, *Uscarrés* / *Uskartze*, *Biniés* / *Bintze*, *Arboniés* / *Arbontze*... Hauek *-(i)es*, *-eze* edo *-(i)esse* bukaerak izaten dituzte lekukotasunik zaharretan: *Ustes*, *Uscarreze*, *Arbon(i)esse*<sup>238</sup>...

*Koldo Mitxelena* ere arduratu da aztergai ditugun atzizkiez hain ezaguna den *Apellidos Vascos* liburuan<sup>239</sup>. Obra honetan *Ardanaz*, *Aranaz*, *Idigoras*, *Iribas* eta beste hainbat leku-izenetan azaltzen diren *-a(t)z*, *-a(t)s* bukaerez bakar-bakarrik maiztasun handikoak direla dio, beste azalpenik eman gabe. *-I(t)z* atzizkiak mintzo denean bertan balio eta garai ezberdinetako “formazioak” biltzen direla nabarmentzen du. “Formazio” horien artean, beste autore batzuek aztertutakoak aipatzen ditu:

1-Tz-*ez* akitzen diren beste atzizki batzuen kidea izan daiteke *-i(t)z*, beste horiek bezala, ugaritasuna adierazten duela: *Othaitz* (*Oteyza*), *Olaitz*...

2-Lehenik *Aranak* eta gero J. C. Barojak azpimarratu dutenez, antroponimoen gain taiuturikako *-ici* (< *-icus*) genitibotik erator daiteke zenbait kasutan: *Albeniz* (*Albinici* < *Albinus*), *Apellaniz* (*A(m)pelici* < *Ampelius*)...

3-Aspaldi ez duela beste toponimo edo deitura batzuen eratorriak sortzeko erabilia izan da: *Aldama* / *Aldamiz*, *Arrona* / *Arroniz*, *Orba* / *Orbaiz*...

Laburpen moduan berak biltzen dituen izen gehienek euskal azalpenik ez dutela dio, ez eta, nahitaez, azalpen latino-erromanikorik ere.

*-Otz* bukaerari dagokionez<sup>240</sup>, Mitxelenak batzuetan *hotz* izenondoarekin lot dezakegula (*Araoz*, *Iturrioz*, *Berrospe*...), baina gehienetan esanahi hori ez duela uste du (*Almandoz*, *Azpiroz*...). Ikerle honek dioenez, *-oz*-ez bukatu herri-izenek mendebaldeko muga bat dutela dirudi, behinolako lurralde baskoiaren barruan. Erromantzez *-oz*-*dun* izenek azentua ezkerretatik hasita bigarren silaban eramanez ohi dute (*Madóz*, *Oróz*, *Uztárroz*, *Vidángoz*), baina hau ez dator bat *-ués*-*ez* bukatutako forma diptongatuek dutenarekin (*Navascués*), ez eta erronkarierazko azentuaketaekin (*Nabaskóze*, *Uztarróze*<sup>241</sup>) ere.

Irakasle errenteriarrek *-o(t)z*-en ondoan *-os* amaiera ere agertzen dela dio (*Gallos*, *Obanos*, *Ubillos*...), eta azken toponimo honen aldaeratzat *-us*-*ez* bukatutakoa ere biltzen du (*Ubillus*, alegia). Bere ustez, *-us* hori hizkera arrunteko *huts* izan liteke<sup>242</sup>.

238 Ikus NHI.

239 41-42, 62, 108-109. orr.

240 AV, 144-145. orr.

241 Zaraitzuko azken euskaldunen ahotan herri-izen hau *Uztárroz*, *Uztárroze*, *ústarzè*, *Ustárze* da. *Bidangoze*-k honek baino azentuaketa dantzariagoak ditu. Ikus honetaz, NHI, 124-125. orr.

242 AV, 161. or. Honela dio Mitxelenak *-(h)uts* sarreran:

“«vacío» «mero, puro, simple». Eleizalde (*Ind. el.* 24) propone esta etimología para *Zarauz* «jaro puro»; cf.

Gure alderdian, ikusiko dugunez, mordoxka dira -os (ez -ós) duten toponimoak, bereziki Galipentzu eta Uxuen, eta -as (ez -ás)-ez bukatzen direnen aldamenean azaltzen dira, nahiz ez aldaera gisa. -Os / -oz / -us / -uz txandaketa Uxueko Munos-en baizik ez da dokumentatzen, eta gainerakoetan beti amaiera bera ohi dugu.

*Menéndez Pidal* eta *Antonio Tovar* ere arduratu dira -z-z akitzen diren patronimiko eta toponimoez<sup>243</sup>. Autore hauek 1962a baino lehen gaia ikertu duten hizkuntzalarien eta beraien eritziei gainbegiratu egin ondoren zera diote, -az, -ez, -iz, -oz eta -uz atzizkiez gainera, bukaeran -e duten aldaerak ere dokumentatzen direla, beharbada -ace, -ece, -ice, -oce eta -uce atzizki exotikoaren latintzearen ondorioz. Aipatu atzizki horietaz hornitutako izenek aurkezten duten azentu-aldagarritasuna agian iberikoari leporatu beharko zaiola diote, zeren hau eta euskara hizkuntza bera izanik (sic), azken honen erdi eta mendebaldeko euskalkietako intentsitate txikiko azentuaketa suposa baitaiteke harentzat ere.

Autore hauen arabera, -iz amaiera nagusi azaltzen zaigu Bizkaian, eta oso urria da Araba eta Gipuzkoako toponimian. Nafarroan ere frankotan aurkitzen da, baina herrialde honetan nagusitasuna -oz-i dagokio. Azken bukaera hau, izen euskaldunetan agertzen denean, hotz izenondoa izan daitekeela diote, beste autore batzuen eritzia berenganatuz. -Tz eta -z-ren aldamenean zenbaitetan hauen artikuludun aldaerak izan daitezkeen -tza eta -za ere edireten ditugu.

-Z atzizkiaren etorkiaz den bezainbatez, -az, -ez eta -uz Jesukristorene aurreko lehen mendeko Ascoliko brontze ezagunean azaltzen diren -es, -as eta -us-dun izenen ondorengo direla uste dute. Akitaniako inskripzioetan aldiz -is bukaera ageri da, dirudenez latineko hirugarren deklinabideko -is genitiboaren bukaeraren eraginez. Eragin honek azalduko luke, aipatu bi ikerlari horien arabera beti ere, zergatik Erdi Aroko lehen lekukotasunetan patronimiko-bukaerarik arruntena -iz den, eta ez -az edo -oz.

Honela bada, -z patronimikoaren jatorria hizkuntza iberikoan bilatu behar da, gero, izen bakarra erabiltzeko kristauen eta germaniarren ohiturengatik, IX. mende arte "ezkutuan"<sup>244</sup> bezala egon bada ere. Hemendik aitzina, ordea, gero eta maizago azalduko da, ezagutzen dugun maila iritsi arte. Iberikoaren -es bukaera euskarazko instrumentalarekin egon liteke erlazioatua, jatorria hizkuntza mediterraneotar batean bilatu behar den arren<sup>245</sup>.

Gai hau aztertu ere duen *Alfonso Irigoyen* irakaslearen ustez<sup>246</sup>, -z atzizkiaren eta euskarazko instrumentalaren arteko lotura ez da frogatzen erraza, eta aurreko bi autoreek ematen dioten mediterraneotar jatorria egiaztatzen zaila eta are ezinezkoa da<sup>247</sup>. Autore honen arabera, -i(t)z, -(t)z (bai eta -in(t)z ere dokumenturen batean. Hau, dena den, -itz-ekin nahastuko zen aurrerago)-ez amaitzen diren izenak latin bulgarrean arrunta zen

*Arcauz, Echauz (Echaut, Echaut)*. La cualidad de la silbante supone, sin embargo, una grave objeción. Sería más hacedero buscar (*h)uis* en *Ubillus, Ubillos*, por ejemplo".

Toponimo honetaz ikus Galipentzuko Inbilos sarreran dioguna.

243 "Los sufijos españoles en «-z», y especialmente los patronímicos", BRAE, XLII, 1962, 371-460. orr.

244 "En estado latente" diote ikerlariok.

245 "El sufijo -z, que ha sobrevivido hasta hoy, no es de origen vasco, sino adoptado por la lengua vasca, la cual sirve para ilustrarlo. El sufijo procede de una lengua mediterránea que ha dejado derivados, principalmente topónimos, en regiones alpinas y contiguas de Italia, Suiza y Francia". "Sufijos en «-z»...", 448. or.

246 "Sobre el origen de los patronímicos...".

247 Id., 199. or.

-o, -onis hirugarren deklinabideko izen (**Lupo**, **Luponis** kasu)-en genitibotik eratorri behar ditugu. Adibidez, **Enekoitz Enneconis**-etik atera dela dio, gure hizkuntzan arruntak izan diren bokal arteko -n-ren galtzeaz eta hitz bukaerako frikariaren afrikatzeaz.

-O(t)z-ez bukatzen diren izen batzuek ere jatorri bera dute, -oitz > -otz laburketa ere burutu delako. Bide honetatik azaldu behar da **Aio** izenaren genitiboa den **Aionis** patronimikotik eratorritako **Aoiz** (**Agoitz** euskaraz) eta honen dobletea den **Aoz**, eta beraz garbi dago, **A**. Irigoyenen aburuz, o(t)z-ez amaitzen diren toponimoetako batzuk behintzat -oi(t)z-tik atera direla.

Hizkuntzalari honen arabera inskripzioetan agertzen diren i-z bukatutako izen batzuk ez daude genitiboan, ordurako deklinabidea hizkuntza mintzatutik desagertua zelako, nominatiboan baizik. Honek, analogiaz, zenbait izenen -i-z bukatzen diren dobleteak sortarazi ditu, eta adibidez **Sanço** (< **Sanctio**)-ren aldaera adierazgarria den **Sancho**-ren ondoan **Sanchi** dobletea aurkitzen dugu, eta honekin batera erromantzez arrunta den -e duen **Sanche** aldaera. Hondar honetatik **Sancheiz** eta **Sanchez** atera bide dira, gero -e-dun dobleteak patronimikorako espezialdu direlarik<sup>248</sup>:

“...*Sánchez*, prototipo que acabó por imponerse abrumadoramente en castellano, llegando a establecerse firmemente la bajo del punto de vista histórico falsa ecuación: *Sanchez* igual a patronímico de *Sancho*. Dicho de otra manera, los dobles en -e se especializaron para el patronímico, deshaciéndose así la dicotomía, por lo que, en rigor, tampoco es cierto que históricamente hablando haya existido sufijo alguno de forma -ez como formante de los patronímicos, aunque actualmente sea sentido así por los hablantes con rara unanimidad y se haya llegado a aceptarlo por estudiosos de la antroponimia. Ramón Menéndez Pidal hablaba incluso de cinco sufijos: -az, -ez, -iz, -oz, -uz...”

Gorago aipatu dugun **Enneconis** genitibotik eboluzio erromantzez **Ennecones** atera da, eta azentu ondoko bokala erori ondoan, **Enecons**. Azken honetatik eta dokumentatua ez dagoen arren **\*Enecos** atera zitekeen, hots, -os-ez bukatutako izen bat. Gainera, eta Irigoyenek ematen dituen adibideak ikusita, -(t)z atzizki patronimikoa edozein oinarri-ri itsats zekiokela irudi luke. Honela bada, **Annaia** (< **anaia**)-tik, -az bukaera duen **Annaiaz** antroponimoa atera zen<sup>249</sup>, alegia, gero toponimo bihur zitekeen giza-izena, eta hortaz amaiera hori duten toki-izenen jatorria ere patronimikoan bila daiteke.

Euskaraz patronimikoak sortzeko genitiboa ere erabili da, Irigoyenek dioenez. Honen arabera **Mitxelena**, **Martinena**, **Martikorena**...eta beste patronimikoak izanen ziren aurrena, eta famili-izena gero. Baieztapen hau egiteko Mitxelenak biltzen duen 1125eko **Lope iaun Ortire** semea-n oinarrizten da, hau bestela esanda **Lope Ortiz** izango bailitzake<sup>250</sup>.

## 6.6 AS / -AZ, -ES / -EZ, -IZ, -OS / -OZ, -US / -UZ GURE ALDERDIAN

Orain aipatutako bukaera horiek dituzten gure eskualdeko toponimoak ikusi eta aztertuko ditugu:

<sup>248</sup> **Sanchi**-tik -iz, -is-ez akitzen diren izenak atera direla dirudi, hots, **Sanchiz** eta **Sanchis**-en modukoak.

<sup>249</sup> LVRLOCM, 20. or.

<sup>250</sup> Mitxelena iritzi berekoa da: “El sufijo -(r)ena marca alguna vez la descendencia: *Sanso Urraquarena* “Sancho el (hijo, etc.) de Urraca”, TAV, 36.

**Ageza:**

**Garroiz:** leku-izen hau Lacarraren lan batean aurkitzen dugu<sup>251</sup>, eta hemen ere zalantzazkotzat jo beste biderik ez dago, “Yesa” herriko toponimotako hartua da eta. Alabaina, aurrerago herri berekotzat jotzen diren toponimoak Agezakoak dira, ez Esakoak, eta hortaz aztergai dugun hau ere Agezakotako har daiteke.

Mitxelenaeren arabera, **gar** ‘sugar’-ekin zerikusia izan dezakeen **garro** izenez eta **-iz** atzizkiak osaturik dagoke toponimo hau, eta Irigoyenen eritziz **Garro** izenaren genitiboa den **\*Garronis**-etik atera dateke<sup>252</sup>.

**Epaiz:**

**Abaiz:** izen hau euskal toponimo mordoxkaren osagarria da, bai Epaizen bertan, bai Lergan, eta bai Eslaban: **Abaizbidea** (Eslaba), **Abaizgibel** (Eslaba), **Abaizko pausua** (Eslaba), **Abaizpausua** (Lerga), **Abaitzabal** (Lerga edo Epaiz)... baina gure irudiz, herri honen jatorrizko izen euskalduna hasiera batean **Apaiz** zen eta gero **Epaiz**<sup>253</sup>.

Mitxelenaek dioenez<sup>254</sup>, euskal hitz arruntak diren **apaiz**, **apez** **\*apaez**-etik atera dira, eta hau, bere aldetik, **abbas**-etik, latineko geminatu ahostunak herskari ahoskabe bilakatu direlarik gure hizkuntzan (cf. **apal** ‘behera’ Zaraitzu eta Erronkariko euskaraz, **ad uall(em)**-etik, eta **Apatamonasterio** bezalako toponimoak)<sup>255</sup>. Bukaera, dena dela, ez da sobera garbia, aipatu izen horretan orokorra den igurzkairen ordez afrikatua espero baitzen (cf. **bortitz**, **gorputz**...eta beste)<sup>256</sup>.

**Apaiz** eta **Epaiz** aldaerak Epaizen bertan eta Eslaban, Epaizko mugan, dagoen **Paizaran** [pa̞iθar̞an] toponimoaren aldaki ezberdinetan edireten ditugu: **Barranco de Epayzarana** (1587)<sup>257</sup>, **Epayzarana** (1593)<sup>258</sup>, **Apayz coarana** (1605)<sup>259</sup>, **Apayzarana** (1645)<sup>260</sup>, **Apazaran** (1703)<sup>261</sup> (ikus Eslaba). **Paizaran** aferesidun aldaera 1614ean dokumentatzen da aurreneko aldiz (**Payzarán**, Eslaba). Gure ustetan **Epaiz** aldaera goizen agertzen dena (1587an, ikusi bezala) izan arren, frankotan aurkitu dugun eta itxuraz disimilazioz sortua den **Apaiz**-en aldaera besterik ez da (ikus, dena den, Eslabako izen bereko toponimoa aztertzean dioguna. Cf. **Estuziaga** < **Astuziaga** < **Aristuziaga** edo **Estabidea** < **Astabidea** Uxuen, **Estalorra** < **Astalorra** Morionesen). **Abaiz** euskal toponimoetan agertzea izen ofizialaren eraginari zor zaiola uste dugu.

251 VM, 31. or.

252 STPVN, 67-70. orr.

253 **Epaiz** [epájs] Irañetan ‘sutarako egur saila’ da, baina garbi dago aztergai dugun herri izenak honekin inolako zerikusirik ez duela. Ikus DEV-III-ko **Epaiz** sarrera.

254 FHV, 229. or.

255 Bilakaera honen arrazoia euskaraz bokal arteko **-b-** herskaririk ez izateari leporatu behar litzaioke irakasle erreterriarraren aburuz:

“La cuestión de si en vasco. ant. se distinguía una *b* oclusiva de una *b* espirante, como en cast. -aunque en éste la distinción no se limitaba a la posición interior-, que preocupaba a R. Menéndez Pidal (*Introducción al estudio de la lingüística vasca*, p.23), habrá de contestarse a mi entender negativamente. En la carencia de una *-b-* oclusiva intervocálica he tratado de fundamentar la correspondencia vasco. *-p-* : lat. *-bb-* que se observa en *apaiz*, *ap(b)ez* (más *S aphastia* y una serie de topónimos) y *V zapatu* «sábado». Quizá podría añadirse *at(h)orra para -dd-*”, in “La sonorización de las oclusivas iniciales”, SHLV, 207. or.

256 Gure eskualdean **apez** zen hitz arrunta (cf. Uxueko **Apezalorra**, **Apeztegiarra**, Galipentzuko **Apeztegiarra**, Eslabako **Apeztegiarra**...).

257 PRA-Oibar, 3. k-bis.

258 Id., 7. k.

259 Id., 15. k-bis.

260 Id., 25. k.

261 PRA-Kaseda, 11. k.

Julio Caro Barojaren ustez<sup>262</sup>, **Abaiz** **Abaici**-tik heldu da, alegia, izena (zein ore?) gehi **-icus** atzizki latinoaren genitibotik atera da. Autore honen iritziz, dokumentatzen den **Abayza** izena **Abaiz** eta euskal artikuluz legoke osatua<sup>263</sup> (cf. Uxueko **Abaiz** / **Abaiza**).

**Abaitzabal**: **Abaiz** 'Epaiz' herri-izena, eta **zabal** ezaguna ditugu hemen.

**Epaizaran**: **Epaiz** 'Abaiz' herri-izena (ikus **Abaiz**) eta **haran** 'ibarra' dira toponimo honen bi osagaiak.

**Eslaba**:

**Abaizbidea**: **Abaiz** 'Epaiz' herri-izena (ikus gorago) eta **bidea** ezaguna ditugu hemen.

**Abaizgibel**: aurreko toponimoko **Abaiz** 'Epaiz' bera dugu, eta **gibel** 'atze' posposizio ezaguna.

**Abaizko pausua**: **Abaiz** 'Epaiz' herri-izena (ikus gorago) eta **pausua** izen arrunta ditugu toponimo honetan.

**Epaizaran**: **Epaiz** 'Abaiz' herri-izena eta **haran** 'ibar' ezaguna ditugu hemen (ikus **Epaizko** **Abaiz** sarrera).

**Epaizko harana**: Aurreko toponimo bera da (cf. **Eslabako** bereko **Aldemuga** / **Aldeko** muga).

**Larruz-**: toponimo hau beti posposizio<sup>264</sup> batez hornitua azaldu zaigu: **Larruzkain**, **Larruzgibel**, **Larruzkaingibel**. Izan dezakeen azalpen etimologikoa iluna da guretzat.

**Ozteriz**: lehenbiziko agerraldietan **t**-ren aurreko **z**-ri eutsi badio ere, 1687rako<sup>265</sup> toponimian hain arrunta den herskari ahoskabe aurreko **z** > **s** pausoa burutu dela dirudi. J. C. Barojaren arabera<sup>266</sup> **ostericus** izen latinoaren genitiboa den **ostericit**-tik atera da.

**Santa Criz**: dermio honetan herrixka edo "vila" erromatar baten zaharकिन aurkitu dira. Dirudenez, **kriz**, **Kris** edo **Kri** azaltzen den tokietan Historiaurreko edo Antzinateko poblatuen zaharकिन ere agertzen dira.

Izen honen sorburua latineko **Sancti Quirici** genitibotik atera den erromantzeko **Sanquirce**-ren ondorengo batean bilatu behar da<sup>267</sup>, seguru asko azken bokala galdu zuen \***Sanquirz**-en moduko batean (cf. **San Pelai** Eslaban bertan). Gero, irudi

262 *Materiales*, 99-138 eta 162. orr.

263 Id., 108. or.

264 Lan honetan posposiziotzat hartzen ditugunak, edo hobe esan, posposizio deitzen ditugunak hauek dira: **aitzin**, **arte**, **aurre**, **barren**, **bitarte**, **bea** edo **pea**, **gaina**, **gibela**, **goiena**, **ondoa** alde batetik; **agerria**, **bazterra**, **burua**, **hegia**, **saihetsa**, **zelaia** eta **zokoa** bestetik.

Miren Azkaratek (HEE, 392-401. orr.) berriz, eta Villasantek eta Azkuek idaroki baizik egiten ez duten ideia batean oinarriturik, tradizionalki posposiziotzat (**aitzina**, **aldea**, **azpia**, **barna**, **gaina**, **gibela** eta **ondoa**, besteak beste) ezagutu izan direnak hitz elkartuak direla dio:

"...Era berean, *mahai gainean* aditzlagunaren ardatza, *mahai gain* izen elkartua dela esan dezakegu, bai bait dira zenbait arrazoi halako baieztapena egiteko"

Labur-beharrez, ematen dituen arrazoietakoa lehena besterik ez dugu aldatuko hona:

"1-*Gain*-ek (eta sail berean sartzen ditugun *atze*, *aurre*, *azpi* etabarrek) ez ditu lehen ikusitako kasu-markak (-tik, -ra, -n) bakarrik hartzen: (15) mahai gainak gustatzen zaizkit, (16) mahai gain horri garbitu on bat ez litzaioke bat ere gaizki etorriko... Adibide hauetan, *mahai gain*-ek izen elkartu bezala jokatzen duela ikus dezakegu, izen sintagmaren ardatza osatzen du eta. Areago, izen horren ondoren izenondoa ere azal daiteke, euskal izen sintagmaren egiturak erakusten digun legez: (18) mahai gain garbiak gustatzen zaizkit".

265 PRA-Kaseda, 4. k.

266 *Materiales*, 105-106. orr.

267 Ikus Menéndez Pidalen MGHE, 207. or.

duenez, **San Ciriaco**-ren ondorengoekin nahastu da, **San Quiriaco**-ren irudikoei sorrera emanaz. **Santa Cruz**-ekin ere nahastu da, biek duten soinu-eitearengatik, eta honen ondorioz hamaika aldaera ezberdin edireten ditugu han-hemenka<sup>268</sup>. Eslaban **San Criz**, **Santa Criz** edo **Santa Cruz** aurkitzen ditugu dokumentazioan, eta egun **Santa Criz** [šantakrĩθ] erabiltzen da.

**Zangozabidea**: **Zangoza** hiri-izena eta **bidea** ditugu toponimo garden honetan (ikus Eslabako toponimia aztertzean dioguna). Lehenaren etimologiari dagokionez, Rohlfs<sup>269</sup> **Sanga** antroponimoaz eta **-ossu**, (**-osse**, **-ossi**) atzikiaren femeninoa den **-ossa**-z osaturik dagoela uste du.

#### Ezporogi:

**Larratza**: ikus **-tze / -tza** atzizkiei eskaini atalean honetaz dioguna.

#### Galipentzu:

**Alboz**: leku-izen honen lehen agerraldian, 1335. urtean, **Aluuez** dugu, diptongo eta guzti, geroko lekukotasun guztiek diptongoaren ordez **-o-** bokala duten arren. Lehendabiziko horretan, itxura guztien arabera, eskribauak erdal ohiturari jarraituz edo, [ó] aditu eta **-ue-** idatziko zuen, tradizio bikoitzeko toponimo baten aurrean ez bagaude behinik behin. Beste posibilitate bat, erromantzeko etimo bat euskaratu dela pentsatzea da, alegia, euskararen fonologi-eredura egokitu dela<sup>270</sup>. Toponimoaren etimologiari dagokionez, honela mintzo da Mitxelena **Alboheta** toponimoaren **albo** oinarriaz<sup>271</sup>:

“además **albo** es muy poco frecuente en la toponimia vasca, y menos aún como elemento inicial: en las listas de Luis de Eleizalde, RIEV 13 (1922), 122, no hay más que **Alboniga** en esta colección (San Millán de la Cogollakoan alegia) y **Alborrione**(?), nombre de aspecto nada antiguo de un caserío de Munguía”.

Rohlfsen teoriari jarraikiz **Alboz** **Albus** antroponimoan oinarritu behar genuke seguru asko<sup>272</sup>, jatorrizko forma **\*Albosse**-ren moduko bat litzatekeelarik. Kontua, dena den, ez dago zeharo garbi, goitiago esan moldean. **Aubous** toponimoa aztertzen ari dela honela dio aipatu autoreak:

“*Aubous*, *Aubos*...représente l’anthroponyme *Albus*, attesté dans des inscriptions d’Espagne... Le même radical est postulé par *Aubac* (Gard), *Auby* (Nord) et *Albate* (Lombardie)”<sup>273</sup>.

268 Etxauri herrian **Santa Cruz** aldea dugu 1706an (PRA-Etxauri, 49. k.), **Sanquiriacobidea** 1760an (id., 66. k.) eta 1869an (id., 119. k.), **San Quiriáldea** eta **Sancriveidea** 1817an (id., 92. k.), **Sancriveidea** 1856an (id., 108. k.), **Sanciriacobidea** 1860an (PRA-Iruñe-Uharte, 49. k.), **San Quiriacoaldea** 1870ean (PRA-Etxauri, 170. k.), **San Quiriavidea** 1871n (id., 121. k.), **Sancricovidea** eta **San Quiricoaldea** 1872an (id., 122. k.), eta **San Quirividea** 1876an (id., 126. k.), besteak beste. Datuok Etxauribarko toponimia bildu eta aztertu duten Mikel Etxegarai eta Mikel Melerori zor dizkiegu.

269 “Sur une couche...”, 221. eta 246. orr.

270 Hau da herri bereko **Poiluengo** (IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. org., 1335) toponimoarekin gertatu zena. Hemen **Poi** (< pōd̥lu) eta **Iuengo** (< löngu) osagaiak ditugu, euskarazko **Mendiluze** edo. XVI. menderako **Pollungo** (PRA-Oibar, 2. k., 1546) eta **Pollungo** (id., 9. k., 1596) azaltzen dira, eta aurrerago euskararen eredu fonologikoari egokituago dagoen **Pollungu** (id., 13. k., 1608. Ikus Galipentzuko toponimia aztertzean **Pollungu** sarrean dioguna).

271 “Onomástica y Población...”, 68-69. orr.

272 Cf. Uxueko **Erripazarreta**-ren **Erripazurieta** aldaera eta honen kide erdalduna den Los Arcosko **Ripa alva**. Ikus Uxueko toponimia aztertzean dioguna.

273 “Sur une couche...”, 230. or.

**Inbilos:** leku-izen honen u-dun aldaera bakarra lehen lekukotasunekoa dugu, baina gure eritziz garbi dago beste herri batzuetako **Ibilos**, **Ibillos**, **Ubilla**, **Ubillos** eta **Ubillos**-ekin lotu behar dela. Osagaiak beraz, ur eta bil 'bildu' dira, lehen elementuak beste izen arrunt eta toponimo batzuetan bezala (cf. **Ibero** herri izena / **U(r)beroa(ga)** toponimo zabaldua) u- > i- bilakaera pairatu zuelarik, beharbada **ib(a)i**-ren eraginez (ikus Galipentzu toponimia aztertzean **Inbilos**-ez dioguna).

**Ubillus**-en (ikus gorago) bukaera euskarazko **huts** izan daiteke Mitxelenaren arabera, eta hortik atera zitekeen -os aldaera, baina gure eritziz hau ez dago bat ere garbi (cf., dena den, **Munos**, **Munus**...**Uxuen**)<sup>274</sup>. Izan ere, Orreagako 1284eko saroheen artean **Hegança Ubilotssa** aurkitzen dugu<sup>275</sup>, eta ez dugu duda egiten **Ubilotsa** hau aztertzen ari garen toponimo bera (jatorriz eta adieraz, ez tokiz) dela. Sarohe honen izenak duen afrikatua, gainera, bat dator Galipentzuko toki-izenean eta honen kideak diren beste herri batzuetakoetan ageri den bukaerako afrikatuarekin (ikus Galipentzuko toponimia aztertzean dioguna), artikulua -o(t)s-ez amaiturikakoetan sekulan aurkitu ez badugu ere (bai **Ubillos**-n eta honen modukoetan). Gure ustez, nahiz kontua garbi ez dagoen, **Zareko Armillos** ere aztergai dugun honekin lot liteke (ikus aitzinago).

**Melenas:** hau bukaeran beti -s duela azaltzen zaigu<sup>276</sup>. Bokal arteko sudurkariari dagokionez, gehienetan -n-dun aldaerak dokumentatu arren behin behintzat (1617an) euskaraz hain ezaguna den bokal arteko n-ren erortzea jasan duen aldakia azaltzen da<sup>277</sup>, eta beste batean -n- edo ø-ren ordeztasunaz -r- duena<sup>278</sup> (1596an). Etimologiaz ezin izan dugu argitasunik atera.

**Valdarras:** Kasedan errepikatzen den toponimo honetan \***Val de Arras** baten laburpena dugula dirudi. Izan ere, oso ugariak dira gure alderdian **val(de)** lehen osagaitzat duten dermioak: **Valdecañuelos**<sup>279</sup>, **Valdecomun**<sup>280</sup>, **Valdejares**... Bigarren osagaia (-**arras**) iluna da guretzat.

**Valdejares:** lehen osagaia, aurreko toponimoko **val de** bera da (cf. egungo **Portillo de Jares**). Bigarrenak erromantzezko **jaro**, **jara** toponimian arruntarekin izan lezake zerikusia (cf. euskaraz arrunta den **zara**, **txara**, **xara**, **zaraka**, **txaraka**...). Bukaerako -(e)s horrek plural erromantzea irudi du (cf. Leatzeko **Zugarketa** > **Los Zugarres**). Honetan oinarriturik euskarazko \***Xaraketa** edo antzeko zerbaitez bazegoela kontu egin daiteke, eta gaurko **Jares** horretatik atera dela. Guzti hau, alabaina, balizkako kontu hutsa da.

**Burgin Sinares** (izen ofiziala) / **Txares** (izen herrikoia) deitu erreka dugu, eta baliteke aztertzen ari garen Galipentzuko leku-izena honekin lotua egotea. Bilakaera hau izan zitekeen: **Sinares** > \***Siars** > \***Xares** > **Jares** (Galipentzu), **Txares** (Burgi) (ikus Agezako **Mutxiturriaga** sarrera). **Sinares** zer den edo nondik heldu den ordea, ez dakigu.

**Zenboroz:** -ain-dun toponimoez mintzatzean esan bezala, **Zenboroz** \***Semproniani**-tik erator daitekeen **Zenborain**-en alboan aurkitzen dugu. L. M. Mujikaren arabera, erro berari erantsitako atzizki ezberdinen ondorio lirateke **Zenborain** eta **Zen-**

274 Iturenen **Pagobil**, **Pagobilla** edo **Bagobil** toponimoaren aldaeren artean **Pagavillos** dugu 1733an (Iturengo udal artxibategia), **Pagallus** 1777an (PRA-Donztebe, 126. k.), eta **Pagabillos** 1790ean (id., 157. k.), eta baliteke aztertzen ari garen bukaera (atzizkia?) bera izatea. Seguru egoteko, ordea, pareko adibide mordoxka izan behar genuke. Malerrekako datuok Andrés Iñigo iturendarrari zor dizkiogu.

275 Mitxelena, TAV, 37. or.

276 Egia esan, 1635ean **Melena** dokumentatu dugu, baina hau erabateko salbuespena da (eskribauaren okerra ote?). Iku Galipentzuko toponimia aztertzean izen honetaz dioguna.

277 Cf. **Torrano** > **Dorrao**, **Undiano** > **Undio**, **Zolina** > **Zolia**...

278 Hau notariaren hutsen bat ez bada galdutako -n-ren arrastoa izan liteke.

279 **Bal de Cañuelos** dugu Kasedan 1766an. PRA-Oibar, 63. k.

280 **Baldecomun** azaltzen da 1807an, PRA-Kaseda, 40. k., hau ere Kasedan.



boroz. Azkenekoaren kasuan, C. Barojak dioenez, **-icus**, **-icius** bukaerez pentsatu behar genuke, euskal **-oz**-en iturri gisa. Hortaz, **Zenboroz** \***Sempronius** batetik eratorri behar genuke autore honen arabera. Ikus, alabaina, gorago esan duguna.

Rohlfsen teoria aintzat harturik, \***senporosse**, \***senporossi**, \***senborosse**, \***senborossi**-ren antzeko zerbeit eman behar genuke toponimo honen oinarritako, baina esan bezala, kontua ez dago zeharo garbi.

#### Leatxe:

**Igaraz**: **igara** 'errota' dugula suposa daiteke (ikus Morionesko **Errotaxarra**-n dioguna), baina gure alderdian beti **errota** edireten dugu. Beste aldetik, ez dugu sekulan \***Errotaz** edo \***Errotatze**-ren moduko toponimorik ediren inon<sup>281</sup>, eta gainera **Igaraz** mendi baten izena zela badakigu, toki eskasa errota batentzat. Azkenik, inguruko herrietako toponimiak ere **igara** 'errota'-rekiko balizkako lotura hori etetera garamatza (ikus Leatxeko toponimoa aztertzean dioguna). Aralarren **Igaratza** izeneko portilua dugu (**igaro**-tik?)<sup>282</sup>.

#### Lerga:

**Abaizmuga**: **Abaiz** 'Epaiz' herri-izena (ikus Epaizko **Abaiz** sarrera) eta **muga** ezaguna ditugu hemen.

**Abaizpausua**: **Abaiz** herri-izena eta **pausua** ditugu toponimo honetan (cf. Eslabako **Abaizko pausua**).

#### Moriones:

**Moriones**: etimologia iluneko toponimoa da dokumentazioan maiz **Muriones** formapean azaltzen den hau. Ikus, dena den, Morionesko toponimia aztertzean **Moriones** sarreran dioguna.

#### Uxue:

**Abaiz(a)**: ikus Epaizko **Abaiz** sarreran dioguna.

**Beraiz**: honen jatorria, J. C. Barojaren ustetan<sup>283</sup>, **Veraicus** izen erromatar dokumentatuaren genitiboan (**Veraci**-n alegia) bilatu beharra dago. Ez dakigu hau honela den, baina toponimoa kokatua zegoen alderdian (**Aitzandiet**a-ko aldabean) **haitz** eta **peña** elementuez osaturiko leku-izen bat baino gehiago aurkitzen dugu (**Aitzandiet**a bera, **Arteko haitza**, **Fuente de la Peña**...), eta **Beraiz**-en bukaerako **-aiz** hori ere **haitz** izan liteke. **Beraiz** olaibarko despoiblatu baten izena ere bada.

**Berros, los**: hemen euskaratikako **berro** 'labaki' izena, eta erdarazko plural-gilea ditugu. Ikus honen inguruan Uxueko bereko **Berage** toponimoa aztertzean dioguna.

**Besos**: toponimo honetan ez dugu sekulan **-oz** edo **-us** bukaera duen leku-kotasunik ediren. Etimologia iluneko izena da guretzat, eta Nafarroan forma berarekin berriz dokumentatu ez badugu ere, Manuel Alvarrek aztertu dituen Jakako *Establimentz* direlakoetan ere **Michel de Bescos** azaltzen da, XIII. mendean<sup>284</sup>. Autore honen arabera,

281 El Molinaz eta Los Molinazos ordea arruntak dira. Ikus gainera Zareko **Bidatza** aztertzean dioguna.

282 DIMV, 41. or.

283 *Materiales*, 105. or.

284 "Onomástica y población...", 104-109. orr. **Besos** herri-izen gisa ere azaltzen da dokumentu berean: "offero et dono...in villa quae vocatur Bescos, palacium cum sua hereditate, et in Villa Nuga palacium cum sua hereditate", 112. or.

Jakerriko **Bescós de Garcipollera**-rekin lotu behar da deitura hori, azken hau bere aldetik *Bissico* (< \**Bisos*?) izen zeltiarrarekin erlazionatu behar delarik. Honela dio:

“Bescos. Aunque hay una aldea de Boltaña con el mismo nombre, creo que se trata del actual ‘Bescós de Garcipollera’, pueblecito muy cercano a Jaca, y citado con alguna frecuencia en los documentos de la comarca. La etimología del topónimo remontará al nombre celta *Bissico* (\**Bisos*), que tiene abundantes herederos en la región pirenaica, incrementado con el sufijo *-os*, conocido en los alrededores de Jaca (Bescós, Barós)”

Uxueko toponimoa, dena den, **Beskos** [béskoš] ebakitzen da, azentua aurreneko silaban duela, **Otróllos** [otróloš]-ek bezala.

Uxueko izenaren oso antzekoa da Andrés Iñigok Iturenen bildu duen egungo **Bizkótsa**, **Beskoz** (sic) edo **Bescoz** 1928ko katastroan, **Bescoz** 1882koan, eta 1786an<sup>285</sup>. Honen azentuaketa bat dator aipatu Pirinioetako **Bescós**-enarekin, bistan denez.

**Bigas**: honen etimologia zein izan daitekeen ez dakigu. Beti hortz-hobietako apikaria izaten du bukaeran<sup>286</sup>. Toki-izen hau [bígaš] ebakitzen da, azentua hondar-aitzineko lekunean duela, **Mostrákas**-ek bezala (cf. **Béskos**, **Otróllos**).

**Matxaz**: bukaeran beti **-az** duela azaldu zaigu. Etimologiaz ezin izan dugu argitasunik atera. **Bígas** edo **Béskos**-ek ez bezala, honek azentua hondar silaban dauka: **Matxaz** [mačás]. **Matxaz Medios**, **Bigas** eta **Mostrakas**-en artean dago, **Beskos**-etik ez oso urruti.

**Medios**: ez dugu sekulan dokumentazioan aurkitu, eta itxura erromantze garbia du, bukaerako **-os** horrek nahasketarako bide ematen badu ere. Gure irudiz, baliteke erdarazko **medio** ‘erdikoa’ izatea, bere kokalekuak etimologia hori ahalbideratzen duenez. Edozein moduz, azentua lehen silaban darama ([médjoš] ebakitzen da).

**Mostrakas**: etimologia iluneko leku-izen honek bukaeran beti **-as** dauka, 1715eko **Mostraca**<sup>287</sup> alde batera uzten badugu behinik behin. Galipentzuko **Alboz** toponimoaz mintzatzerakoan ikusi bezala, lehen agerraldian, 1534eko despoblatuen zerrendan<sup>288</sup>, diptogondun aldaera azaltzen da (**Muestracas**), nahiz gaurregun azentua azkenaurreko silaban duen ([moštrákaš] ebakitzen da). 1633an<sup>289</sup> berriro diptongoz hornitua agertzen da, eta hortaz badirudi aurren lekukotasuna ez dela halabeharreko kontu hutsa, edo eskribauaren apeta, errealitate fonikoan oinarritutako zerbait baizik.

Diptongoaren arrazoia seguru aski azentuan bilatu beharko dugu, hau da, diptogodun aldaera hori **Muéstrakas** ebakiko zen (cf. **Alboz** / **Albues** txandaketa Galipentzun, **Albóz** / **Albués** itxura guztien arabera). **Muéstrakas** / **Mostrákas** bikotean zaharrena zein den jakitea zail da, alde batetik euskarak goranzko diptongoak hausteko dituen bideetako bat monoptyngaketa delako, eta beraz lehenetik bigarrena atera zitekeelako, eta beste aldetik **Muéstrakas Mostrakas**-en kide erdalduna izan daitekeelako. Ez dugu ahantzi behar, gainera, azentuaketa ere alda zitekeela, eta toponimoak gaztelaniaz nagusia den azentuaketa paroxitonoa har zezakeela.

Nolanahi den ere, leku-izen hau Oibarko **Las Mostacas** [lašmoštákaš]-ekin lot daiteke, bai eta, apika, **Saratsa**<sup>290</sup>, **Aizkorbe**, **Errotz**<sup>291</sup>, **Izurdiaga**<sup>292</sup>, **Satrustegi**, **Arakil**-

285 PRA-Donetztebe, 137. k.

286 Irunberrin Uxueko honen irudikoa den **Vigues** aurkitu dugu 1708an (PRA-Irunberri, 3. k.).

287 PRA-San Martin, 30. k.

288 NAO, Comptos, 550. zkia.

289 PRA-Kaparroso, 57. k.

290 Jimeno Jurío, TCPCI, 343. or.

291 PRA-Arakil-Hiriberri, 85. k., 1721.

292 Id., 71. k., 1713.

Urritzola eta Irañetako **Ostraka**-rekin, Larunbeto **Ostakazelaia**<sup>293</sup>, Egiarretako **Utraka**<sup>294</sup> edo **Putraka**<sup>295</sup>, eta Imotz-Muzkizko **Ostraka** edo **Austraka**-rekin. Jakina denez, hasierako lekunean zalantza asko dago euskal hiztegian (cf. **mospel** / **ospel** 'oiheski', 'maskuri', **muspel**, **nospel**, **suspel** / **uspel**, **uzpel**...), eta bukaerako -s azaltzeko analogiara (cf. **Beskos**, **Otrollos**, **Medios**, **Bigas**, **Muelas**...) nahiz erromantzearen eraginera jo liteke laguntza eske.

Urritzolako **Ostraka** aziendentzako hostoak metatzen diren belarrez eta sasiz betetako zelaia da. Satrustegin ere **Ostraka** ardi eta ahuntzentzat ebakitzen ziren adarrek in erlazonatzen dute, eta Irañetan etxeen artean zozketatzen diren hosto-sailak dira. Muzkitzen sasiz eta zuhaitz txarrez beterikako tokiak da **Austraka** edo **Ostraka**. Cf. edozein modutan, **sastraka** hitz arrunta.

**Muelas**: toponimo erromantzea da hau (cf. Uxueko bereko **Retuerta** zaharra), muinoak duen **hagin** itxuraren ondorena. Gero zokoa, portilua, idoia eta abar erantsiko zitzaizkion, alorren eta besteren kokagunea hobe zehazteko<sup>296</sup>. Azalpen honek duen oztopoa bukaerako -s da, eta beharbada artikulurik eza, baina ez dugu ahaztu behar erdaraz -s eranstejo joera dagoela, gutxienez euskal jatorrizko toki-izenen kasuan (cf. **Iturrizar** > **Turruzales** Uxuen berean). **Logiak** ere izan zezakeen zer esanik.

**Munos**: 1534ekoa den lehen agerraldian **Munos** dugu<sup>297</sup>, baina aurrerago bestelako aldaerak ere agertzen dira: **Munoz** (1602)<sup>298</sup>, **Munuz** (1606)<sup>299</sup>, **Muñoz** (1628)<sup>300</sup>, eta **Munus** (1733)<sup>301</sup>. Ikusten denez, -os- ez bukatutako aldaeraren ondoan, -oz- ez eta -us- ez amaitzen direnak ere baditugu<sup>302</sup>. Cf. Nafarroa Behereko **Bunus** herri izena, **Bunuze**, **Bunos** XIV-XV. mendeetan<sup>303</sup>.

Toponimo honen etimologiari dagokionez, badirudi lehen aipatu ikerleek diotenean oinarrituz **Munos** / **Munoz** **Munioiz**-etik eratorri behar dugula, eta hau, bere aldetik, \***Munionis** (< **Munius**)-etik. Honekin bat letorke, gainera, sudurkari sabai-kariak hornitua edireten dugun **Muñoz** aldaera.

Dena den, agiritan azaltzen diren mugak eta erreferentziak aintzat hartuta, badakigu gaurko **Santa Maria la Blanca** ermitatik hurbil zegoela, muinoak ugariak diren goi-lautadan, eta beraz ezin da osotara baztertu euskarazko **muino**, **muino**-rekiko lotura. Uxueko mugakide den Lergan, adibidez, **muino**-ren eratorria bide den **Muniko**-**korrotx** dugu (ikus sarrera hau).

Beste aldetik, eta esan bezala, **Munuz** eta **Munus** itxurapean ere edireten dugu, eta hortaz, etimologia lehen begiratuan zirudien bezain garden eta agirikoa ez dela ondoriotu beharko da. 1603an, gainera, aztergai dugun toponimoarekin zerikusia izan lezakeen **Munuculeta** azaltzen da<sup>304</sup>.

293 PRA-Ihaben, 1729, 69. k.

294 Utraca idatzia, PRA-Arakil-Hiriberri, 71. k., 1715.

295 Putraca idatzia, PRA-Asiain, 174. k., 1794.

296 Araban ere, San Roman de Campezo herrian, bada **La Muela** izeneko mendi bat (Gdo. López de Guereñu, TA, 351. or.).

297 NAO, Comptos, 550. zkia.

298 PRA-Oibar, 10. k.

299 Id., 12. k.

300 PRA-Kaparroso, 33. k.

301 PRA-San Martin, 34. k.

302 Mitxelena, Galipentzuko **Inbilos** aztertzean esan bezala, **Ubillos** / **Ubillus**-en (AV 161. or.) (h)uts proposatzen du bukaeraren iturrizat.

303 Orpustan, TB, 76. or.

304 PRA-Oibar, 11. k.

**Otrollos:** gaurregun dermio bakarra bada ere, 1534eko despoblatuen zerrendan<sup>305</sup> bi **Otrollos** agertzen dira: **Otrollos el Chiquo** eta **Otrollos el Grande** (cf. **Urteaga lalta** eta **Urteaga labaxa**).

**Beskos-en** kasuan bezala hemen ere beti **-s-dun** aldaera dokumentatzen da. Formaz ari garela ezin aipatu gabe utzi leku-izen honen itxura arrotza, tartean **-tr-** multzo bitxia<sup>306</sup> aurkezten baitu. Hau, agian, azentuaketaren ondorioz burutu sinkopari zor izango zaio, abiapuntuztat **\*Oterollos**, **\*Otorollos** edo horrelakoren bat hartzen bada. Edozein modutan, Uxuen **Otrollos-en** ondoan **Otroperitzu** dugu, bai eta **-tr-** multzo bera duen **Mostrakas** ere. Gainera, eta goitixeago esan dugun moduan, Nafarroako eskualde batean bederen **Ostraka** toponimoa aski zabaldua dago, eta adibidez **sastraka** izena arrunta da, **-tr-** multzoa gorabehera.

**Sandimas:** 1534eko despoblatu zerrendan<sup>307</sup> agertzen da. Hasierako **Sandi-hori** latineko **Santi**-tik atera den euskarazko **Sandi-** (cf. **Sandiandore** Leatxe eta **Lergan**, **Santitisi**, **Sanditisi** Galipentzun...) izan liteke, baina kontua ez dago bat ere garbi (ikus **Uxue**). Cf., dena den, herri honetako **Bigas** eta **Mostrakas**.

### Zare:

**Armillos:** Menéndez Pidal eta Antonio Tovarrek aipatzen duten<sup>308</sup> **Armilloz-**ekin pareka daiteke, baina ez dugu uste, aipatu autore horiek diotenaren kontra, honen oinarria antroponimo bat denik.

Gure irudiz **Armillos** Galipentzuko **Inbilos** (**Unbilos**, **Emilos**, **Enbilos**...) eta beste toki batzuetako **Urbillos**, **Ubillos**, **Ubilloa**, **Ebilots**, **Ibilos**... eta besterekin lot liteke, besteok bezala hau ere bi ubideren elkargunean baitago (ikus **Zareko** toponimia aztertzean dioguna). Oztopo nagusia (zinez handia), oraingo **Armillos** aldakia 1592rako<sup>309</sup> agertzea da, baina ez zaigu ezinezko iruditzen **\*Urmillos** (< **\*Urbillos**) batetik atera izana, ustezko **\*u** > **a-** pausoa zeri zor dakiokkeen ez dakigunagatik.

**Armillosbidea:** **Armillos** toponimoa eta **bidea** izen arrunta ditugu hemen.

**Bidatza:** gure ustez **bide** izen arruntaren eratorri baten aitzinean gaude oraingoan. Izan ere, **bidatza** bide mota bat izendatzeko erabiltzen zen **Zaren**, bide horrek nolako ezaugarriak zituen (alegia, handia, txikia, estua, zabala...zen) ezin esan deza-kegun arren. Atzizkia ugaritasunezko **-tze** edo **-tza** gabe **aldatz** edo **larratz** izenetan dugun bera izan liteke<sup>310</sup>, **bidatza-k** itxuraz behintzat bide bakarra izendatzen zuelako, ez bide multzoa, eta bukaerako **-a** hori euskal artikulua.

**Bidazparrena:** aurreko leku-izenean dugun **bidatz** eta **barrena**-ren txistukari ondoko aldaera den **-parrena** ditugu hemen.

**Errengaitz:** itxuraz **Zaren** agertzen diren **Rengayz(a)** (1634)<sup>311</sup>, **Erren gaica** (1650)<sup>312</sup>, **Errengaiza** (1683)<sup>313</sup>, **Regaiza** (1708)<sup>314</sup>, **Recaniza** (1723)<sup>315</sup>, **Guerrengaiza**

305 NAO, Comptos, 550. zkia.

306 Euskal fonetikaren ikuspuntutik bitxia.

307 NAO, Comptos, 550. zkia.

308 "Sufijos en «z», especialmente los patronímicos", 432. or.

309 PRA-Oibar, 6. k.

310 **Larratz** izena **Larratze** da edo izan da beste alderdi batzuetan, 1397az geroztik gutxienez (ikus AV, 120. or.). Gure eskualdeko erdaraz **larraza** azaltzen da, **-a** eta guzti, eta bertako toponimian oinarriturik ezin dugu jakin **larratz** ala **larratza** genuen (Mitxelenak **larratz** ematen du). Edozein moduz, badirudi atzizkiak ez zuela balio multzokaririk, eta **-tze** eta **-tza**-tik bereizi behar dela.

311 PRA-Oibar, 23. k.

312 Id., 26. k.

313 PRA-Kaseda, 2. k.

314 PRA-Oibar, 31. k.

315 Id., 38. k.

(1762)<sup>316</sup>, **Guerrangariz** (1733)<sup>317</sup>, **Garrangariza** (1769)<sup>318</sup>, **Guerrengariz** (1733)<sup>319</sup>, **Guerran gariz** (1815)<sup>320</sup> eta gaurregungo **Garrangariz** [gãrangáriθ] izen beraren alda-kiak dira<sup>321</sup>. Ikusten denez, hasieran herskari belarerik ez duten aldaerak XVII. mende osoan zehar eta XVIII.aren hasieran agertzen dira, eta herskaria dutenak 1733-tik aurrera. Hortaz, banaketa kronologiko osagarrian daudela esan daiteke, eta bata ageri den garaian bestea ez dela azaltzen.

**Errengaitz \*Erregugaitza** (cf. Galipentzuko **Errekagaitza** eta Leatxeiko **Erregumaiorea** toponimoak, edo Zareko bereko **Barranco de Jautu**-ren ondoko oraingo **Regandia**, irudiz **\*Erreguandia** edo **\*Errekandia** batetik aterea. Ikus Zareko toponimia aztertzean dioguna) baten desitxuraketaren ondorioztat har daiteke. Aintzat hartu beharra dago toponimo honen XVI. mendeko lekukorik ez dugula, eta guk ediren orduko itxuraldatuxea egon zitekeela. Aintzat hartu behar da, berebat, dermio hau Río de **Ordokia** deitu errekarren alde batean barrena hedatzen dela (ikus Zare).

**Mañuelas**: leku-izen hau azaltzen den ia aldi bakoitzean aldaera bana edireten dugu: **Manuelas** (1592<sup>322</sup>, 1596<sup>323</sup>), **Mañuela** (1591<sup>324</sup>, 1705<sup>325</sup>), **Muñuelas** (1608)<sup>326</sup>, **Mañolas** (1632)<sup>327</sup>, **Mayolas** (1633)<sup>328</sup>. Etimologia iluna da guretzat, baina Uxueko **Mostrakas** eta Galipentzuko **Melenas** dakarzkigu burutara.

**Zangozabidea**: ikus Eslabako izen bereko toponimoa aztertzean dioguna.

## 6.7 DI, -DOI, -DUI / -TUI / -DU ATZIZKIA

**Uhlenbeck**-ek **-tegi**-rekin lotzen du atzizki hau, eta **Schuchardt** ados bide dago eritzi horrekin<sup>329</sup>. **Azkue**-k izenekin azaldu ohi diren erator-atzizkien artean sartu ondoan<sup>330</sup> duen banaketa geografikoa egiten du, baina sobera zehaztu gabe.

**Mitxelena**-k<sup>331</sup> toponimian oso ugaria dela dio, batez ere landare-izenekin. Aldakien banaketa geografikoari buruz, **-dui** mendebaldeko bizkaieraz eta hegoaldeko goi-nafarreraz ibiltzen dela (edo zela) dio irakasle errenteriarrek, eta **-doi** ekialdeko euskalkietan agertzen dela. Aezkoako euskaraz eta Arabako toponimian bi aldaerak batera

316 Id., 61. k.

317 Id., 50. k.

318 PRA-Kaseda, 22. k.

319 PRA-Oibar, 50. k.

320 Id., 95. k.

321 Arrunta da euskalki ezberdinetan kontsonantedun eta kontsonanterik gabeko aldaeren arteko txandaketa duten hitzak azaltzea:

“Por ello, a pesar de que el vasco - al menos reciente - no es una lengua prefijante, la inicial de cada forma nominal llegó casi a ser considerada como algo modificable, si era consonántica, y como un hueco susceptible de ser llenado por distintos pseudo-prefijos, si era vocálica. El resultado es que la inicial es la posición de máxima inseguridad para la reconstrucción comparativa” (FHV, 252-253. orr.).

322 PRA-Oibar, 6. k.

323 Id., 9. k.

324 Id., 5. k.

325 Id., 30. k-bis.

326 Id., 13. k.

327 Id., 23. k.

328 Id., 23. k.

329 Agud eta Tovarrek aipatzen dute, DEV-III-ko -Di sarreran.

330 MV, 81. or.

331 FHV, 107-108. orr.

azaltzen zaizkigu. Ikertzaille beraren eritziz, **-di**, **-doi** edo **-dui**-tik atera da, eta azken hauek tarteko kontsonante bat izan zezakeen **do.i** silababiko zaharrago batetik<sup>332</sup>.

**P. Lafitte**-k<sup>333</sup> atzizki multzokarien artean sartzen du, eta Aita **Villasante**-k<sup>334</sup> toponimian oso ugaria dela eta **s** eta **z**-ren atzean **-ti** bilakatzen dela dio.

**Joan Coromines**-ek Pirinioetako zenbait toki-izenen sorburutako hartzen du, eta gorago aipatu Uhlenbecken eritzia arbuiatzen du, alegia, ez du uste **-tegi**-rekin lotu behar denik<sup>335</sup>.

**Caro Baroja**-k<sup>336</sup> ez dio garrantzi gehiegirik ematen atzizki honi, apika latinarekin lotzerik ez dagoelako, eta 'muchedumbre' adiera duela esatera mugatzen da.

Gure eskualdean **-dui** da aldaera nagusia, eta Murillo el Frutotik (lekuko bakarra dugu) Zareraino hedatzen da. **-Di** ere azaltzen da baina bailararen ekialdean dagoen Leatxera eta goiko aldean dauden Bizkaiko herrietara mugatzen bide da. Guztiarekin ere, ez dugu azken herrixka despoblatu hauetako informazio gehiegi, eta ezin dugu seguritatez mintzatu.

Kontuan eduki behar da azken herri horiekin mugatzen duten bailaretan **-di** dela aldaera bakarra edo aldaera nagusia, eta hortaz ulertzekoa da Oibar haranaren bazterreko herrietan ere aldaera hori agertzea<sup>337</sup>.

#### Ageza:

**Onbordua**: honen osagaiak **onbor** 'enbor' eta **-duia** dira. Azkueren arabera<sup>338</sup> **onbor** iparraldeko goi-nafarreraz eta lapurteraz erabiltzen da, eta 'enbor botaiia' adiera dauka. Iturenen **Ombordia** azaltzen da 1739an<sup>339</sup>, eta herri honetan **onborra** 'enborra' gabe, zuhaitza moztutakoan lurrean sartua gelditzen den zatia da, motzondo, alegia.

#### Bizkaia:

Oibar haraneko alderdi menditsua den honetan atzizki multzokaria duten bi toki-izen ditugu, biak Sabaitza herrian: **Otadia**<sup>340</sup> eta **Juncari**<sup>341</sup>. Hauetan ikusten denez, **-di** da hemengo aldaera, Oibar haraneko gainerantzeko herri gehienetan gertatzen denaren kontra, baina esan bezala, Leatxe, Ibargoiti eta mugakide dituen Orba ibarreko herriekiko adostasunean.

332 Baieztapen hau egiteko atzizkiak erronkaria eta zubereraz duen azentuan oinarritzen da.

333 *Grammaire basque*, Elkar, Donostia, 1978, 34. or.

334 PVCD, 66-67. orr.

335 Ikus DEV-III, 636-637. orr., eta ETC-I, 82-85. orr.

336 HGPV, 166. or.

337 Atzizki honen aldaerek Nafarroan duten hedaduraz eta bestez ikus gure DAON. TDI-n ere mintzo gara berrekailu honetaz, datu gehiago emanez.

338 DVEF. Ikus, orobat, DEV-IV-ko **Enbor** sarrera.

339 Iturengo udal artxibategia. Bertako seme den Andrés Iñigori zor diogu informazio hau.

340 PRA-Kaparroso, 43. k., 1648.

341 1894eko katastroan.

**Eslaba:**

**Artadua:** hemen *arta-* (< *arte*) zuhaitz-izena eta *-dua* ditugu. Toki-izen honen berezitasuna atzizkian datza: ikusten denez, gehienetan ez bezala oraingoan *-dua* dugu, ez *-dua*. Honen arrazoiak izen hau sarritan elkarturik erabilia izateari zor zaioko, **Artadu(a)** huts-hutsik oso gutxitan azaldu arren posposizio batez lagundua maiz edireten baitugu: **Artadualdea**, **Artadubarren**, **Artaduburua**, **Artadugibela**, **Artaduondoa**...eta hau da, nonbait, tarteko *-i-* hori erorarazi duena<sup>342</sup>. **Artadua**-rekin batera, eta honen ordainetan, **La Lecinosa** agertzen da Eslaban, eta hau proposatzen den etimologiaren alde mintzo da, ezbairik gabe.

**Kapardoia:** behin bakarrik aurkitu dugu, 1706an<sup>343</sup>. Bukaera *-doia* da oraingoan (ikus Galipentzuko **Zamakidoi** sarrera, atal honetan bertan), eta ez Eslabako beste toponimoetan aurkitzen dugun *-dua* edo honen aldaera den *-du* (xehetasun gehiagotarako ikus herri honetako toponimia aztertzean honetaz dioguna).

Atzizki hau landare-izeni edo "harri" (edo "lur")-en eremu semantikoko izenei eransten zaienez, kasu honetan "kapar"-en esanahia Azkueren hiztegian edireten dugun bigarrena dela uste dugu, 'zarza' alegia. Cf., gainera, Ihaurrietako **Capardoya**<sup>344</sup>, Urraulbeitiko Arripodas herrian agertzen den **Caparivar** toponimoa<sup>345</sup>, edo hurbilago, Galipentzuko **Kapalarraña** eta **Kaparreta**.

**Lardua:** lahar landare-izena eta *-dua* bide ditugu aldi bakar batez dokumentatzen den honetan (ikus Eslaba). Irunberrin ere **Lardua** ageri da<sup>346</sup>, eta Gazolatz eta Saguesen **Lardia**<sup>347</sup>.

**Lezkadui:** honen osagaiak *lezka* eta *-dua* dira. J. M. Iribarrenen arabera<sup>348</sup> **Lezka** 'anea; planta tifácea, cuyas hojas se emplean para hacer asientos de silla' da. Tuterarrak Gares, Malerreka, eta Baztangotzat jotzen du hitz hau, baina beste toki askotan ere ezaguna da, Oibar haranean<sup>349</sup> eta Uxuen, adibidez. **Lezkadua** leku-izena, hortaz, Uxuen<sup>350</sup> aurkitzen dugun **Lezkairu**-ren baliokidea dateke, bai eta Uxuen, Galipentzun eta Agezan gutxienez agertzen den **Lezkatzeara**-rena ere.

**Lizarduia:** *lizar* zuhaitz-izenaz eta *-dua*-z osaturik dago.

**Zumaduieta:** zume 'mimbre' eta *-dui* atzizkiak osatutako **Zumadua** 'El Vergal' (cf. **Zumadua** Zaren), eta *-eta* atzizkia ditugu toki-izen honetan. Garbi dago, horrenbestez, bi berrekailu ditugula hemen.

**Ezporogi:**

**Lezkadua:** ikus Eslabako **Lezkadua**.

**Ukarandua:** bukaera atal honetan mintzagai dugun multzo edo ugaritasun atzizkia da, eta oinarriak Azkuek bizkaiera osorako eta Etxarri-Aranazko gipuzkerako eta Lhandek Iparraldeko euskalkietarako ematen duten **okaran** 'harana' hitzaren aldaera

342 Ikus, alabaina, DAON-en dioguna.

343 PRA-Kaseda, 13. k.

344 PRA-Otsagabia, 5. k., 1693.

345 PRA-Irunberri, 4. k., 1712.

346 PRA-Oibar, 10. k., 1826.

347 Jimeno Jurío, TCPCO, 289 eta 418. orr., hurrenez hurren.

348 VN.

349 A. Reta Janárizek EHZE-n Eslaban eta Lergan ibiltzen dela dio.

350 Iruñean ere bada Soto de Lezkairu izeneko toponimo eta auzoa.

dateke, guk miatutako hiztegieta agertzen ez den arren. Hortaz, badirudi **Ukaran-duia**-k okaran edo haranondo multzoa, ugaritasuna adierazten duela<sup>351</sup>.

Lizarduia: ikus Eslaba.

### Galipentzu:

**Idoia**: idoia izena 'poza' 'charco' da Mitxelenaren arabera<sup>352</sup>, eta 'lohia', 'lokatza' edo 'baltsa' Sarasolaren ustez<sup>353</sup>. Gure eskualdean bal(t)sa-rekin batera aurkitzen dugu (cf. Bal(t)saldea Eslaban), baina garbi dago euskarazko izen "jatorra" idoi zela (Idozabal Leatxen, Balsa de Idoitxiki Uxuen... Cf. Sotoeta Lergan, baina Zalduburu herri berean, Sototxikia Epaizen, Zaldua Eslaban...). Nafarroako beste eskualde batzuetan ere idoia edireten dugu (cf. Irañetako Ganbeletako idoye), baina baltsa oso sartua dagoela ezin uka (ikus Galipentzuko Balsa alta sarreran ematen ditugun adibideak).

**Idoia**-ren jatorriari dagokionez, irakasle erreteriarrek ez du zuzenean esaten hasierako *i-* hori zer izan daitekeen. Alabaina, AV-n<sup>354</sup> *ih* osagaia duten deiturak aztertzen ari denean *idoi*-ren kidea izan daitekeen Iratxeko **Yhidia** aipatzen du, eta beraz badirudi *ihidoi* bezala interpretatzen duela, nahiz esan moduan, zuzenki ez duen esaten, guk dakigula bederen.

Alfonso Irigoyentzat, ordea, **idoia ur** 'agua' izenaren elkarketako *u-* formaren aldaera da *i-*, eta adibide paralelotzat Hiribarrenen *iholde* 'uholde' aipatzen du:

"...si tenemos en cuenta que *ur*, 'agua', como primer miembro de composición puede aparecer tanto en la forma *ug-* como en la de *ub-*, además de *u-*, cfr. *Ubao* y *Ugao*, < de *ur* + *ao*, 'boca de agua', tratándose de nacedero de arroyo, e incluso como *i-*, si tenemos en cuenta las variantes *idoi* / *udoi*, con sufijo colectivo *-doi* aplicado a sustantivos referidos a seres inanimados, el segundo de ellos escasamente documentado, cfr. mi trabajo *Las leng. de los vizc.*, §§44, 93, 104, 106, véase §§67 y 68, y que Hiribarren en su obra *Escaldunac*, Bayona 1853, p. 7, emplea *iholde* por el más generalizado *uholde* o *ugolde*, 'diluvio'. En Astigarraga, Guipúzcoa, se registra un caserío como *Ubarburu*, cfr. Nomencl. Guip., con *buru*, 'cabo de...', que es semejante a *Ibarburu*, véase §48"<sup>355</sup>.

Gure ustez, alabaina, **idoia**-ren oinarrian *ih* landare-izena dukegu, atzizki multzokaria gehienbat landare-izenekin azaltzen delako. Egia da bestelakoekin ere ager daitekeela (cf. **harridoia**, **maldadoia**...<sup>356</sup>), baina bereziki lurrarekin, lur-motarekin lot daitezkeen izenak izaten dira hauek. Hala eta guztiz ere, Irigoyenen ustea ezin da erabat baztertu, Aezkoan **lintsa** 'padura' izenean oinarritutako **lintsadui** dugulako<sup>357</sup>. Irigoyenek aipatzen duen *u-* / *i-* txandaketa **ur** izenaren eratorrietan aurki dezakegu (cf. Galipentzuko **Inbilos**), eta bestelakoetan ere bai (cf. **lito** / **luto** edo Nafarroako eskualde batean ugaria den **Lixauzi** toponimoa, dudarik gabe **lur** + **xauzi** 'luizi'-tik aterea).

351 Alfonso Irigoyenek **okaran** izenean **oka-** (**olka**, **elka**, **elge**, **ozka**, **koska**) izan dezakegula uste du. *Symbolae*, 1014. or.

352 AV, 103. or.

353 HLEH.

354 99. or.

355 "Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica", 229-230. orr., ETTVC.

356 Ikus gure DAON. Artikulu honetan diogunaz bestalde, orain **maldadoia** Eslabako **Larduia**-ren antzekoa izan daitekeela uste dugu, adieraz den bezainbatez. Cf. Elkanoko Lizarragak ibiltzen duen **malda** 'laharra': "Milagroáú significatzenúe Orebgo oiánean Moysésec icusizuén maldagárrec sugarretan, ta ez errétzen: eta Jangoioc oiuiaciónac Moysesí etzaitela urbildu onará; quenzquizu zeure oñetácoac, ezi lurráú lúrr Sándua dá. Maldagúra dá María..." , DCC, 138. or.

357 Azkue, APIM, 295. or.



**Legaztui:** itxuraz **legar** 'grava' izena dugu, ugaritasuna adierazten duen -tz(e) atzizkia (cf. **Intxausti**<sup>358</sup>), eta txistukari ondoan ahoskabetu den **-dui-ren -tui** aldaera. Nabarmentzekoa da lekune honetan sarri asko herskari ahostuna aurkitzen dugula han-hemenkako toponimian: **Arizdoia, Sarasdia, Urrizdibarrena...**<sup>359</sup>

**Zamakidoi:** hemen Nafarroko ekialdeko bailaretan edireten dugu **-doi** aldaera dugula dirudi, baina gure ustez aurreko **\*Zamakidui** batetik ateratako aldakia besterik ez da hau (cf. Eslabako **Lezkadui** > **Lezkadoi, Lizkadoi**; aurreko **\*Kaparduia** batetik atera bide den herri bereko **Kapardoia**, edo Uxueko **Ardui, Ardoi** bilakatua zenbaiten hizkeran). Izan ere, **Zamakidoi** 1773an dokumentatu dugu estraineko aldiz, aski berandu hortaz, Galipentzuko euskara galdu eta toponimo euskaldunak itxuragaiztotu prozesu bete-betean zeudenean.

Oinarriari dagokionez, derragun **zamaki** bere horretan ez dela inon ere azaltzen, guk dakigula behintzat. Azkuek Zaraitzuko behenafarrerakotzat jotzen duen **zamina** 'sauco' dakar, eta gure ustez bide honetatik bilatu behar da **zamaki** oinarriaren azalpena. Zaraitzun berean eta Aezkoan ere **zamuka** aurkitzen dugu toponimian (ikus Lergako **Zamakidu**). Oibarko toponimiari esker badakigu zuhaitz mota hau ezaguna dela gure eskualdean, aipaturiko herri horretan **El Sabuco**<sup>360</sup> toponimoa agertzen baita, **Linares del Sabuco**<sup>361</sup> eta **Rio del Sabuco-ren**<sup>362</sup> alboan.

Hortaz, baliteke **Zamakidoi zamaki** 'sauco' eta **-dui-tik** ateratako **-doi-z** osatua egotea<sup>363</sup>. Ehunak (lihoa eta kalamua batez ere) tintatzeko erabiltzen zen **zumaque** landarearen izenarekin ere erlaziona genezake **zamaki** (ikus Lergako **Zamakidu** eta **Zamiki**), kasu honetan mintzagai dugun **Zamakidoi** eta Lergako **Zamakidu** erdarazko **zumaquera**-ren ordain liratekeelarik.

#### Leatxe:

**Elordia:** hemen Uxue, Galipentzu eta Oibar haraneko gainerako herrietan ez bezala, **-dia** aldaera dugu, bailara honetako Bizkaian bezalaxe. Oinarria **elorri** gardena da.

#### Lerga:

**Arantzeduia:** **arantze** 'elorri'<sup>364</sup> izena eta **-duia** atzizkia ditugu toponimo honetan.

358 FHV, 295. or.

359 Ikus DAON-n dioguna.

360 PRA-Oibar, 30. k., 1703. Toki-izen hau bizirik dago oraindik.

361 Id., 74. k., 1785.

362 Id., 22. k., 1658.

363 Beste kontu bat litzateke **zamuka** (eta **zamiki**) eta **sabuco, sauco** (< **sabucus**) jatorrikideak ote diren argitzea, hau da, euskal hitza latinetik ote datortzen ala ez ikustea. Corominesek, L'Empordà-ko **La Muga** ibai izenaz ari delarik, honela dio (ETC-I, 68-69. orr.):

"D'altres vegades, error cardinal, no es tenen en compte les formes antigues i documentales: s'ha repetit pertot que el nom de riu *La Muga* a L'Empordà és el basc *muga* 'borne', 'límite', però la forma antiga *Sambuca*, testificada moltes vegades, correspon al modern *Muga* per una evolució fonètica i morfològica perfectament normal en català, i aquest *Sambuca* ens porta per camins molt diferents, possiblement cap al nom llatí del 'sureau' (*sambucus*)".

Txomin Peillenek ("Andoze ibarreko leku izenak") oinarrian izen hau duten toponimo beraren Saiküdó i eta Sabükidó i aldaerak biltzen ditu Zuberoan:

"Ligiko etxe bati ligiarrek Saiküdoi diote, alta *doi*, baso atzizkia bada, *Saikü* ez da ezer zuberoraz; Santa Grazin ordea ikasi dut, etxe hori, beren herritik ligiar hurbilena dena *Sabükidói* esaten diotela, beraz herri berekoek dituzte izenak itxuraldatzen".

364 I. Sarasolaren arabera (HLEH) **arantza** edo **arantzea** 'zenbait landaretan sortzen diren ziri zorrotzetako

**Lizarduia:** ikus Eslaba.

**Txaparduia:** honen osagaiak txapar 'chaparro'<sup>365</sup> izena eta -duia dira.

**Zamakidu:** Galipentzuko **Zamakidoi** aztertzean esan bezala, \*zamaki 'sauco?', 'zumaque'? eta -dui atzizkiaren aldaera laburtua den -du-z(cf. **Artadu** Eslaban) osaturik dukegu toponimo hau. Eslabako aipatu toponimoan ez bezala, kasu honetan bukaerako bokalerdiaren galera sabaikari disimilazioari zor lekiok (cf., hala ere, \***Zamaki-dui-tik** atera bide den Galipentzuko **Zamakidoi**). Ithurrietan **zamuka** oinarria duen **Zamuca** arana dugu 1772an<sup>366</sup>, eta Orbaizetan **Zamucadua** 1784ean<sup>367</sup>.

### Moriones:

**Izpikudua:** izpiku oinarria Azkuek Erronkarirako eta Lesakarako ematen dituen **Izpiko** (< spicum) eta **Izpika** (< spicam<sup>368</sup>) 'espliego' bera da, edo bestela esan, bizkaierakotzat jotzen duen **izpiliku**-ren kidea. Azken hau, antza denez, latin berantiarreko sp̄cūlum-etik atera da, hau bere aldetik spicum 'buruxka'-ren txikigarria delarik.

Lacoizquetak<sup>369</sup> erdarazko **espliego**-ren euskal ordaintzat **izpikua** ematen du Bertizaranerako, eta aldaera hau Orba ibarreko Orisoainen eta Urraulbeitiko Geretzen ere erabiltzen zen, bi herri hauetan ediren dugu **Izpikudia**<sup>370</sup> eta **Izpikudua**<sup>371</sup> toponimoek frogatzen dutenez. Uxuerekin muga egiten duen Santakara herrian erromantzeko **El Espligar** ediren dugu 1707an<sup>372</sup>.

### Uxue:

**Ardui:** harri-ren elkarketako aldaera ohi den **har-** eta **-dui** ditugu toponimian oso zabaldua dagoen honetan.

**Lizarduia:** ikus Eslaba.

### Zare:

**Zumadua:** zume landare-izena eta **-dua** ditugu hemen (cf. Eslabako **Zumaduieta**).

bakoitza', nahiz 'elorrria' izan daiteke. Egokiena bigarren esanahia ('elorrria') dela uste dugu, eta beraz **Arantzedua** Leatzen agertzen zaigun **Elordi**-ren sinonimoa dateke.

Guztiarekin ere, baliteke **arantzea-k**, 'elorri' gabe, Lhandek (DBF) eta Mitxelena (OEH) ematen dioten 'prunier', 'ciruelo' edo 'haranondo' esanahia izatea, nahiz gu eritzi horretakoak ez garen, 'fruitondo' adiera hori Iparaldeko euskalkiei baizik ez dagokiela irudi duenez gero.

365 Iribarren arabera (VN) "zuhamu txikiari edo erregai gisa erabiltzen den sasia"-ri esaten zaio Erronkari eta Zangoza aldean. Gure eskualdeko adieraz ikus Galipentzuko **Lecino** sarreran dioguna.

366 PRA-Otsagabia, 44. k., 51. zkia.

367 PRA-Auritz, 53. k.

368 G. Rohlfs, "La influencia latina en la lengua vasca", RIEV, 24, 1933, 323-348. orr.

369 DNEP.

370 PRA-Barasoain, 1. k., 1540.

371 1790ean **Izpicudia** dugu (PRA-Irunberri, 83. k.), baina lehenago, 1697an, **Izpicudua** agertzen da (PRA-Otsagabia, 20.k., 17. zkia.).

372 PRA-Kaparros, 102. k.: "llegaron al parage que llaman el espligar".

## 6.8 ETA ATZIZKIA

*Schuchardt*-ek atzizki hau erdarazko *-eda*-ren kide dela eta euskaldunek latinetik hartu zutela uste du. Aurrerago hitz-astraktuen sorkuntzarako (*gogoeta*, *hizketa*...) erabiliko zuten<sup>373</sup>.

*Azkue*-k DVEF-en aniztasuna adierazten duen makina bat toki-izenen bukaera dela dio, eta adibide moduan *Arrieta* 'pedregal', *Oleta* 'lugar en que hay fábricas', eta *Arteta* 'encinal' aipatzen ditu. Autore honen arabera, *-eta* e bokal eufonikoaz eta ta atzizki azaturik dago<sup>374</sup>.

*Julio Caro Baroja*-k Schuchardti jarraituz *-eta* toki-izen askotan agertzen dela dio<sup>375</sup>, batzuetan aniztasuna eta lekua aditzera ematen duelarik (*Elorrieta*, *Astigarreta*, erdal "Acebeda", "Avellaneda"-ren parean), eta bestetan batez ere lekua (*Zubiet*a 'sitio del puente'). Autore honek beronek, beste lan batean<sup>376</sup>, leku-ugaritasunezkoztat jotzen du:

"El sufijo «eta» se considera que tiene un valor locativo plural y puede traducirse por «los». López Mendizábal lo considera como «de menos extensión que -aga»

Lan berean Ø / *-aga* / *-eta* atzizkien baliokidetasuna azpimarratzen du (ikus gorago), azken atzizki honen ezlatinotasunarekin batera:

"El topónimo (*Bagoeta*), sería, pues, a medias vasco, aún admitiendo, como personalmente estoy inclinado a admitir, que «-eta» no es de origen latino, como ha sostenido Schuchardt alguna vez"

*Koldo Mitxelena* ere lan batean baino gehiagotan arduratu da berrekailu honetaz<sup>377</sup>. Egiten dituen baieztapenik garrantzizkoenak hauek dira:

1.-Batzuetan pertsona-izenekin agertzen da: *Mariaeta*, *Sansoheta*.

2.-Txistukari atzean *-keta* azaldu ohi da, nahiz *ariceta* toponimo oso goiz dokumentatzen den<sup>378</sup>. Hau da, izan ere, jokaera berdintsua duen *-aga* atzizkitik bereizten duen ezaugarria.

373 Agud eta Tovarrek biltzen dute, DEV-IV-ko *-Eta* sarreran.

374 Id.

375 *Materiales*, 136. or.

376 HGPV, 159. or.

377 AV, 87. or.; FHV, 238 eta 528-529. orr.; FLV, 3, 1971, 241-267. orr., gero PT-en (141-167. orr.) birrargaratua.

378 Irakasle errenteriarrek dioenez *-keta* / *-eta* bikotea azaltzeko bi bide ezberdin daude. Lehenaren arabera, hasierako kontsonantea irekierarik handieneko testuinguruetan galdu dateke, *-kizun* / *-izun*, *-kunde* / *-unde* eta beste zenbaitekin gertatzen den moduan. Bigarrenaren arabera, *ametz* lexematik abiatuz, adibidez, *ametz-eta-n* genuke, gero interbersioz *\*ameztetan*, eta hemendik disimilazioz, *amezketan* aldaera aterako litzateke (PT, 145. or).

*Azkue* (APIM, 187. or.) honela dio gai honetaz ari delarik:

"tz-ri oa ezartzean tz goriek t galdu ta z-ri datxikola k gelditzen da: *Ametz* «quejigo»tik *Amezkoa* «territorio de quejigos» bezala, *Aetz* ta *Giputz* eta oa gontatik *Aezkoa* ta *Gipuzkoa* sortu zaizkigu. Tz-k berezkoa du egokitasun gori: *Baratzari* (baratzeko gauza) *barazkari* da, geienak laburtuz *bazkari* badiogu ere; *atzazal* (corteza de dedo) *azkazal* «uña» da, aitz ta ondo *azkondo*; otz ta irri itzez itz «frío» «pequeño» *ozkirri* «fresco», itz ta era (manera de palabra) *izkera* bezela"

Halere, autore honen arabera salbuespenak ere badira (id., 183. or.):

"Itz anitzetan k gori, z-ren urtaren etorriarren, ezta tz-ren umea izaten: batzuetan g izaten da bere iturria, bertze batzuetan k" (*Azkoitia*, *Izketa*...)

3.-Sarri askotan txistukari ondoko **-keta** aldaera (**Abalcisqueta, Hereñuzqueta, Lacoizqueta...**) beste atzizki bati jarraitzen zaiola irudi du.

4.-**Aga** atzizkia daramaten toki-izenekin gertatzen denaren antzera, **-eta** daramatenek ez dute azken bokalaren erortzea jasaten, eta hortaz euskal elkarketa eta eratorketan indarrean dauden arauak ez dute balio bi bukaera hauentzat. Esan genezake, beraz, deklinabide edo flexio-atzizkien gisara jokatzen dutela, ez eratorketa atzizkiek egiten duten moduan.

5.-**Eta** eta **-aga** banaketa osagarrian daude, hau da, ezin daitezke, salbuespenak salbuespen, hitz berean batera azaldu.

6.-Bai **-eta** eta bai **-aga** izena eta izenondo osatutako izen sintagma bati laguntzen azaltzen badira, ordena beti hau da: izena - izenondoa - atzizkia: **arte + eder + eta**.

Beste atzizkien kasuan ez da honela gertatzen. Esaterako, **Pagadigorria** aurkituko dugu baina ez **\*Pagagorridi(a)**; alderantziz, **Lurgorrieta** ager daitezke, baina ez **\*lurr-eta-gorri(a)**, nahiz gero badiren **Legarreta çelaya, Legarreta berria** eta horrelakoak, baina hau besterik da.

Txikigarriak azaltzen direnean ere **-eta** edo **-aga**-ren aurrean jartzen dira, ez atzean: **Artanoeta, Basanoaga**<sup>379</sup>.

7.-**Aga**-rekin suertatzen den antzera, (k)**eta**-dun izenek ez dute erabateko "sustantibotasunik", toponimiatik kanpo bederen<sup>380</sup>.

Atzizki honen jatorriari dagokionez, Mitxelenak duda egiten du latinetik hartua ote den, lehenago Gavel-ek bezala<sup>381</sup>:

"...desde Schuchardt se piensa, aunque quedan graves dificultades, que procede del lat. **-eta**, pl. del colectivo **-etum**"<sup>382</sup>

"El suf. (-eta), aunque sea probablemente un antiguo colectivo de origen latino-románico, se ha introducido, como se ha dicho, en los casos locales de plural de la declinación vaca"<sup>383</sup>

"siempre se ha pensado, y no es sólo por el sonsonete, que **-eta** tiene que ver con rom. **Fresneda**, en 1025 **Frasceneta**"<sup>384</sup>

**Lafon** erabat jatorri latinoaren kontra dago<sup>385</sup>. **Luis Mari Mujika**-k, aitzitik, **-eta** "botaniko eta lokatiboa" latinez partizipioa den **-etum**-en **-eta** pluraletik heldu dela uste du, eta "ekintza, oparotasuna, kolpea, etab." adierazten duen **-eta**, **-keta**-tik berezi beharra dagoela, hau **-itus / -ita** partizipio irekitik atera baita<sup>386</sup>. Autore honek dioenez,

**-Keta** atzizkiaren kasuan batzuk **tz + eta** segidatik atera diren arren (**Amezqueta, Azqueta, Arizqueta...**), badira **k tz**-tik sortua ez dutenak ere:

"Bertze guztiak **z** gabeak (dira): **arilketa, araketa, berriketa...** eta abar. **Keta** gonen **k ezta tz**-tik sortua" (183. or.).

379 Hau da, izan ere, Eslaba eta Uxueko **Zaldinoaga** toki-izenean gertatzen dena.

380 "Si **-aga** no existe fuera de los nombres de lugar (no creo que **izaga** 'juncal' y algún otro posean más realidad que la de figurar en las páginas de algún deccionario), tampoco los nombres en **-(k)eta** tienen plena sustantividad, si no me engaña mi sentido de la lengua. Lo normal es que sean empleados en un caso local, sobre todo en inesivo, tanto en la conjugación como fuera de ella: cf. **elhaketan, erhogoan** en Oihenart, etc." (PT, 145. or.)

381 Gavelen iritzia DEV-IV-ean bildua dago.

382 FHV, 248. or.

383 FLV, 1, 1969, 1-59. orr., gero PT-en argitaratua, 87-118. orr.

384 "Toponimia, léxico y gramática" (PT, 145. or.). Cf. Oibarko **Frajineta** bizia.

385 DEV-IV, **-Eta** sarrera.

386 LEEE, 275-277. orr.

lehenak, bigarrenak ez bezala, ez du kontsonante epentetikorik hartzen eskuarki, salbuespenak badiren arren (Amezketak, Sarasketak...)<sup>387</sup>.

## 6.9 ETA GURE ESKUALDEAN

Hona hemen, herriz herri sailkatuak, gure eskualdean -eta atzizkia duten toponimoak:

### Ageza:

**Ardantzebarreneta:** *ardantze* 'mahasti', *barren* 'beheren', eta -eta-z osaturik dago, eta 'behereneko ardantzealdea' adiera dauka, beti ere horren behean ez zeuden beste ardantze batzuekiko erkaketaz.

**Ardantzebarrenetakoiturrieta:** *Ardantzebarreneta* toponimoa (ikus aurreko sarrera), -ko leku-genitiboa, eta *Iturrieta* ditugu hemen (azken honetaz ikus *Iturrieta* sarrera), eta 'Ardantzebarreneta-ko iturri-lekua' esanahia duela dirudi.

**Arizketa:** *haritz* zuhaitz-izena eta -eta-ren aldaera den -keta ditugu toponimo honetan, eta itxuraz 'hariztia', 'harizti-tokia' adiera dauka.

**Arrixauzkietak:** *harri*, *xau(t)zi* edo *xau(t)si* 'erori', eta -kietak 'eta' dira 'harriak erortzen diren tokia' esanahia duen toponimo honen hiru elementu osatzaileak.

**Arrixauzkuneta:** aurreko bera da, baina oraingoan aipatu elementuez gain *gune* (*kune* usu txistukari ahoskabe ondoan) 'lekua' ere badugaririk. Adiera bera da, 'erortza' alegia.

**Biroeta:** ez dakigu zer egon daitekeen honen oinarrian. Baliteke Zareko *Miruaitzeta*-ren baliokidea litzatekeen \**Mirueta* baten itxuragaiztotua izatea, baina hau oso dudazkoa da.

**Cruz de Gurutzeta:** *gurutze* izena eta -eta berrekailua ditugu hemen. Erdarazko generikoak argitzen duenez, *gurutze* bakarra dugu<sup>388</sup>, ez *gurutze* asko.

**Erlaiondoeta:** *Erle* intsektu-izena ikus liteke oinarrian, apika, baina ez dago garbi zein den toponimo honen etimologia.

**Errekineta:** *errekin* 'erretako oihan-puska' izenaz eta -eta-z osaturik dago egungo *La Quemada*-ren baliokidea den hau (ikus Ageza).

**Iturrieta:** *iturri* eta -eta dira leku-izen garden honen bi osagaiak, eta itxuren arabera *Ardantzebarrenetakoiturrieta* bera dugu. *Iturri* bakarra dago orain inguru honetan, baina euntzea edo larrea zenez, badaiteke lehen gehiago izatea.

**Kaskallueta:** *kaskailu* 'harri txikia' izenaz, eta -eta-z osaturik dago, eta 'harri txiki ugari dagoen lur meharra' adiera du.

**Nobeleta:** *nobela* 'ardantze landatu berria', 'plantado' eta -eta dira honen bi osagaiak.

**Olibeta:** *olibo* 'olibondoa' eta -eta ditugu hemen, eta 'olibo multzoa' adiera bide du oraingoan.

**Tipulatza:** *tipulatze* 'tipulerria', 'tipulabaratzeta' izena eta -eta dira honen osagaiak. *Kaskailueta*-n ez bezala, oraingo honetan berrekailuak ez bide du aniztasun baliorik, toponimo hau *Tipulatza* bezala ere edireten baitugu.

**Txipueta:** *txipu* 'makala' izena eta -eta ditugu hemen. Aurreko \**Txipueta* batez ere pentsa daiteke, testuinguru horretan -oe- > -ue- pausua arrunta bailitzateke

387 Guk ez dugu uste hau esan daitekeunik, arruntena -eta den arren -keta (eta -kietak) aldaera duten toponimoak asko eta asko direlako, eta beraz garbi dago ezin dela, salbuespenak horrenbeste izanik, salbuespenez mintzatu.

388 Izan dugu, berriki arte. Orain ez dago honelakorik bertan.

(cf. **Kiñueta Zaren**, kino-tik). Esanahia 'txipudia' da, hots, 'txipu-multzoa' edo 'txipubasoa'.

### Eslaba:

**Arrimukurueta**: **harri**, **mukuru** 'mordo', 'pila', eta **-eta-z** osatua dago<sup>389</sup>, eta 'harri-pila dagoen tokia' edo 'harri-pilak' adiera izan dezake.

**Artamaldeta**: **arte** zuhaitz-izena, **malda** 'aldapa', eta **-eta** ditugu hemen.

**Butzueta**, **Butzuketa**, **Butzukieta**: **butzu** 'putzu' eta berrekailuaren hiru aldaerak diren **-eta**, **-keta** eta **-kieta** ditugu leku-izen honetan. Ez dakigu putzu bakarra adierazten zuen ala bat baino gehiago.

**Donpedroren saratsa**: **don** aposizioa, **Pedro** giza-izena, **saratsa** zuhaitz-izena, eta **-eta** dira honen osagaiak. Dirudienez ez du aniztasuna adierazten, honen aldean **Don Pedroren saratsa** ere aurkitzen dugu eta. Hasierako **Don** horri dagokionez, erdarazko errespetuko tratamenduko hitza izan daiteke, baina egun Eslaban **San Pedro** hagianimoa bizirik dugunez gero, ezin erabat baztertu euskarazko **Done** 'saindu'-tik heldu delako ustea.

**Dorreta**: **dorre** 'eraikuntza garaia eta meharra' izena eta **-eta** ditugu honetan. Despoilatua bide denez, dorre bakarra adieraz dezake, hots, erdarazko **Torre** edo **Torraza**-ren ordaina izan daiteke.

**Ezpeleta**, **Ezpelketa**, **Ezpelkieta**: hemen **ezpel** zuhaixka-izena eta aztergai dugun atzizkiaren hiru aldaerak ditugu, **Butzueta**-n bezalaxe.

**Karkareta**: Eslabakoa ere den **Kaskallueta**-ren desitxuraketa ez bada ez dakigu zer izan daitekeen dokumentazioko **Carcareta**.

**Kaskallueta**: ikus Agezako izen bereko sarrera.

**Lixuñeta**: **liho**, **osuin** edo \***usuin** 'osin', 'putzu', eta **-eta-z** osatua dago beste toki batzuetako **Ligobutzueta**, **Liñoputzueta** edo **Zareko Ligusuñeta**-ren baliakide den hau.

**Olibeta**: ikus Agezako izen bereko sarrera.

**Sarioederreta**: **sario** 'sarohe' izena, **eder** izenondoa, eta **-eta** dira honen elementu osatzaileak. **Sario**-ak azienda larriak sartzen diren herstegei naturalak izaten dira, gehienetan erreka ingurutako ezponda eta aldapez hertsia egoten direlarik (ikus **Morionesko Sariozarreta**-n dioguna).

Beste alderdi batzuetan 'larre' edo 'euntze' adiera ere izan dezake izen honek (ikus Eslabako toponimia aztertzean **Sarioederra** sarreran dioguna). Nafarroan hedadura gehien duen aldaera hauxe (sario) dela esan daiteke. Honekin batera **sarobe** (Leitza, Malerreka, Mezkiritz), **saroi** (Burunda), **sare** (Aranatz, Ergoiena), eta **saure** (Zaraitzu) edireten ditugu, besteak beste.

**Sarioederreta** 'sario ederra dagoen lekua' edo da hemen, honekin batera, arestian aipatutako **Sarioederra** ere bai baitugu.

**Sortengoeuntzeta**: honen bukaeran **euntze** 'larre' izena eta **-eta** atzizkia izan genezake, baina kontua ez dago garbi, honen aldamenean **Sortengortea** eta **Sortengorteta** ere dokumentatzen dira eta. **Sortengo**- zer den ere ez dakigu; tarteko **-go**- hori leku-denborazko genitiboaren ozen ondoko aldaera izan daiteke, baina hau ez da segurua.

**Sortengorteta**: aurreko sarreran esan bezala, aski nahasirik dago toki-izen hau, honekin batera aipatu **Sortengortea** eta **Sortengoeuntzeta** ere ageri baitira. Toponimoaren bigarren zatian **gorte** 'korrak' eta **-eta** izan genezake, baina **Sortengortea** ere diren dugu, eta jakina denez **ertea** Nafarroako eskualde zabal batean **arte** 'artekoa',

389 Artaxon **Armucurueta** dugu 1594ean. PRA-Urrotz, 4. k-bis, 183. zkia.

'erdikoa'-ren aldaera da. Zernahi gisaz, **Sortengortea** ere azaltzeak ustezko aniztasun babilioa kentzen dio mintzagai dugun **-eta-dun** aldakiari.

**Zazutxipieta, Zazutxikieta:** zazu 'kaskailu asko duen goi-lautada', **txipi** edo **txiki** izenondoa, eta **-eta** atzizkia ditugu hemen. Nafarroako beste toki askotan ere **txipi** / **txiki** aldizkatzea aurkitzen dugu, toponimo ber batean. Atzizkidun aldaeren ondoan berrekailurik ez duten aldaerak ere baditugu (**Zazutxipia, Zazutxikia** alegia), eta hortaz oraingo honetan ere garbi dago **-eta-k** lekuaz besterik ez duela adierazten.

**Zerradogibeleta:** **zerrado** 'hormaz hertsirikako lur-eremu landua (ardantzeta...)', **gibela** 'atzea', eta **-eta** ditugu hemen. Honekin batera **Zerradogibela** ere edireten dugu, eta beraz berrekailuak lekua adierazten duela pentsatu beharko dugu.

**Zumadieta:** ikus **-dui** atzizki multzokaria aztertzean esan duguna.

### Ezporogi:

**Azpilkueta:** baliteke **haitz** izenaz (az- aldaera arrunta da elkarketan), **bil** 'biribil' izenondoa, **-ko** atzizki txikigarriaz (cf. Aizcoa Añezkarren 1671n, Peña de Ascoa 1740an<sup>390</sup>), eta **-eta-z** osaturik egotea, baina herri berean **Los Bojales** dokumentatzen denez gero, **\*Ezpelkoeta**-tik atera dela suposatu nahiago dugu (cf. **Ezpeleta, Ezpelketa, Ezpelkoa** Eslaban, **Ezpelecoeta**<sup>391</sup> eta **Espelcua**<sup>392</sup> Sabaitzan), hau da, **ezpel** zuhaixka-izenaz, **-ko** txikigarriaz, eta **-eta-z** osatutakotzat hartu nahiago dugu, kontua erabat garbi ez dagoenagatik.

**Korraleta:** **korral(e)** 'gorte' izena eta **-eta** ditugu hemen. Cf. Leatxeko antzinako **Auntzenkorraleta** eta egungo **Korraleta**.

**Ormaxarreta:** **horma** 'pargeta', 'murrua', **-xar** 'zahar', eta **-eta** ditugu toki-izen honetan.

**Trenboleta:** etimologia ilunekoa da hau guretzat.

**Txipueta:** Agezan aurkitu dugun **Txipueta** (ikus Ageza) eta **baraztea** dira honen bi osagaiak.

### Galipentzu:

**Azkonobieta:** **azkon** 'azkonar', **hobi** 'zulo' eta **-eta** ditugu 'azkonar zuloa(k) dagoen / dauden lekua' adiera duen honetan.

**Bardazeta:** ez dakigu zehazki zer dugun hemen,aldi bakar batez agertzen baita. Baliteke **barda** 'sastrika'<sup>393</sup>, **-tze** ugaritasunezkoa eta **-eta** izatea (cf. Agezako **Ti-pulatzeta**), baina baliteke, orobat, **\*Baratzeta** baten desitxuraketa izatea, besteak beste<sup>394</sup>.

**Iexarreta:** behin ediren dugu, XIV. mendean, eta ez dakigu zer izan daitekeen.

**Iturrieta:** ikus Agezako izen bereko sarrera.

**Kaparreta:** **kapar** 'sasi' izenaz eta **-eta** berrekailuaz osatua dago.

**Kisueta:** **gisu** 'galtzina', 'karea' izenaren aldaera den **kisu**<sup>395</sup> eta **-eta** atzizkia ditugu hemen.

390 Jimeno Jurío, TPCPA, 94.or.

391 PRA-Kaparroso, 4. k., 1648.

392 1894eko kat.

393 Uxuen gorteeetako edo etxeetako korraleetako hormen gainean jartzen diren adarrak dira bardak.

394 Longidako Aos herrian "una viña en la parte llamada **Bardacea**", "Endreçera llamada **Bardaçeaga**" dugu 1594ean. PRA-Urrotz, 4. k-bis.

395 **Kisua, Gisua** edo **galtzina** (hondar hau erdal itxuraz) aurkitzen dugu eskualde honetan.

Azkueren arabera (DVEF), **gisu** edo **kisu** hau 'karea' da, baina **kisukintza** 'oficio de hacer yeso' dela dio. Larramendik (DT) cal hitzaren euskal ordaintzat **care** eta **qisua** dakar, eta "Hyeso"-ren ordainetan qui-

**Larrañetako iturria, Larrañetako mendia:** hemen bakarrik sekulan aurkitu ez dugun **Larrañeta** espezifikoa dugu, leku-genitiboaren **-ko** morfema, eta **iturria** eta **mendia** generikoak. **Larrañeta**, bistan denez, **larrain** eta **-eta-z** osaturik dago, baina ez dakigu **larrain** bakarra ala **larrain** bat baino gehiago adierazten duen.

**Larregureneta:** **larre** izena<sup>396</sup>, **guren** 'eder', 'on' izenondoa, eta **-eta** atzizkia ditugu honetan. Izenondoaren adieraren inguruan ikus Galipentzuko toponimia aztertzean dioguna.

**Larreta:** **larre** 'euntze' dugu berriz hemen, eta **-eta** atzizkia. Antza denez, berrekailuak tokitasuna adierazten du oraingoan, **Larreta-n**, egun bederen, **larre** bakarra baitago.

**Liatzeta:** **liho** landare-izenaz, **-tze** ugaritasunezko atzizkiaz, eta **-eta-z** osaturik dago Añezkarko Liokieta-ren baliakide den hau<sup>397</sup>, edo hobe esan, **lihatze** 'liguerrri' eta **-eta-z**. Erdarazko **Los Linares-en** ordain euskalduna da Nafarroan oso zabaldua dagoen hau (ikus Galipentzuko toponimia aztertzean dioguna).

**Meazukoerreketa:** **Meazu** toponimoa, **-ko** leku-genitiboa, **erreka** izena, eta **-eta** ditugu hemen. **Meazuko erreka** ere badugunez, eta **erreka** bakarra denez, ez dago dudarik oraingoan ere batekotasuna adierazten dela.

**Mugaleta:** berandu ageri da, eta baliteke lehenagoko \***Mugarr(i)eta** batetik atera izana.

**Olibeta:** Ageza eta Eslabako **olibo** eta **-eta-z** osaturikako **Olibeta** izan genezake hemen, baina Olivako monastegiarena zen Uxueko **La Oliveta**-ren moduko txiki-garri erromantze bat ere bai. Artikulu erdaldunaren presentzia honen alde mintzo da (ikus Galipentzu), froga erabatekoa ez den arren.

**Ormakieta:** horma 'pareta', 'muru', eta **-kieta** ditugu Uxueko erdarazko **Los Cerrados-en** eta beste toki batzuetako **Zerradoeta**-ren baliakide datekeen honetan (ikus Galipentzuko toponimia aztertzean **Ormakieta-n** dioguna. Ikus, halaber, **Morioneko Cerrado** sarrera).

**Zabaleta:** **zabal** 'zabaldia', eta **-eta-z** osaturik dago Eslabako **Zabalea**, **Lergako Zabala**, eta Agezako **Zabaltza**-ren kide dirudien hau.

#### Leatxe:

**Abeta:** behin bakarrik ediren dugu eta ez modu argian<sup>398</sup>. Antza denez, **habe** 'zutabe, zuhaitz, gapirio, zurkaitz...' izena<sup>399</sup> eta **-eta** atzizkia ditugu hemen, baina behin bakarrik aurkituak segurtasunez mintzatzea galerazten du. Cf. Uxueko **Abeaga**. Ikus herri honetako **Santa María la Blanca** sarreran dioguna.

---

sua eta iyelsoa. Nafarroan (edo Nafarroako eskualde zabal batean, gutxieneko kontuan), dena den, kisia 'karea' da. Orotz-Betelun (B. Urtrasun, TOB, 342. or.) ere kisu dugu Kaisulapeta toponimoan, eta hau erabat gardena ez bada ere, erdarazko iruzkinak ("hornos antiguos de cal") zalantza guztiak desgertarazten ditu. Mezkitritzen **Kisulabeko oihan** eta **Kisulabeko oihanburu** ditugu, eta hauek ere kare-labeak ziren (Orreaga Ibarra, MT, 336. or.). Malerrekan ere kisia 'karea' da.

396 **Larre** gure alderdian **euntze**-ren esanahikidea da, eta **belar fina** duten toki urtsuak izendatzeko erabiltzen da. Hau dela eta, artzainek oso maite dituzte beren artaldeentzat.

Dena den, beste toki batzuetan izen honen adiera diferentea da: Baztan aldean **belaie** hesitua dagoen **belardia** den bitartean, **larrea** hesitu gabe dagoena da, eta **belarra** hauetan ez da **belaie**-tan bezain ugaria. Iruñerrian **larrea** **belardia** da, baina ur asko izatea ez da beharrezkoa, itxuraz, Baztanen ez den era berean.

397 Jimeno Jurio, TCPCA, 127. or.

398 PRA-Oibar, 23. k., 1634.

399 Ikus DEV-Ieko (H)abe (1), Habe (2) eta Abe sarrerak.



**Arankoeta:** haran 'ibar', -ko atzizki txikigarria (cf. *Arearendikoa* eta *Iguraimendikoa Lergan*)<sup>400</sup>, eta -eta leku-ugaritasunezko amaiera bide dira aldi bakar batez ediren dugun toponimo honen osagaiak.

**Auntzenkorraleta:** ahuntz abere-izena, genitiboaren morfema (plurala?), korrale 'gorrea', eta -eta ditugu leku-izen honetan.

**Berroberrieta:** berro 'labaki', 'nobare', berri eta -eta ditugu hemen. Erdaraz *La Artica nueva* dokumentatzen dugu.

**Berrozarreta:** berro, zahar eta -eta ditugu aurrekoari kontrajartzen zaion honetan. Aurreko hori ez bezala, plurala bide da hau (cf. erdarazko *Las Articas viejas*).

**Butzuandietza:** butzu 'putzu', handi eta -eta ditugu hemen. 'Putzu handia dagoen lekua' edo da, *Butzuandia* ere agertzen baita.

**Errotaxarreta:** errota izena, -xar 'zahar' izenondoa, eta -eta ditugu toponimo honetan. *Errotaxarra* ere azaltzen da, toki bera izendatzeko, antza, eta beraz atzizkiak lekua adierazten duela ondorioztatzen beharko dugu.

**Garziaginenkorraleta:** Garzia deitura, ginen ezezaguna, korrale 'gorrea' eta -eta ditugu toponimo honetan. Elementu ezezagun horri dagokionez, badaiteke eskualde honetan arrunta den *Gil* deitura<sup>401</sup> eta genitiboaren -en bukaera izatea. Honela izatekotan 'Garzia Gil izeneko norbaiten gorrea edo gorreak' litzateke leku-izen honen esanahia.

**Gatzarrieta:** gatzarri 'azienda xeheei gatz ematen zaien harria' eta -eta ditugu hemen. Gatzarriak, artaldeko ardiak bezala, bat baino gehiago izaten dira normalean, eta hortaz honek balio plurala duela suposa daiteke.

**Kaskallueta:** ikus Ageza.

**Korraleta:** korrale 'gorrea' eta -eta ditugu *Auntzenkorraleta* edota *Garziaginenkorraleta*-ren kide (ondorengo) izan daitekeen honetan.

**Nabeta:** naba (ikus *Eslabako Nabarana*) eta -eta-z osaturik dago. Bukaera, oraingoan, erromantzeko atzizki txikigarria ere izan daiteke.

**Nobeletaondoa:** Nobeleta toponimoa (ikus Ageza), eta ondoa ditugu hemen. *Nobelondoa* ere azaltzen denez, *Nobeleta*-k 'nobela-lekua' adierazten duela kontu egin dezakegu.

**Olibeta:** ikus Ageza.

**Otaxarreta:** ote fitonimoa, -xar 'zahar' eta -eta dituzkegu oraingo honetan, goitiago aztertu *Errotaxarreta*-ren desitxuraketa hutsa ez bada behintzat.

**Usufñeta:** osuin (\*usuin?) 'osin, putzu' eta -eta dira honen bi osagaiak.

**Zalduzarreta:** zaldu izena, zahar izenondoa eta -eta ditugu hemen.

**Zarikieta:** zarika 'saratsa' edo 'isatsa'<sup>402</sup> eta -eta-z osaturik dagoela irudi du, baina *Zareko* toponimia aztertzean ikusten den moduan, gure alderdian *saratsa* (cf. herri horretako *Saratsea*, *Saratseta*) eta *utsasa* erabiltzen ziren (cf. herri bereko *Utsaskieta*, *Utsaskietarana*), eta beraz *zarika* ere azaltzea bitxi samarra iruditzen zaigu. Alabaina, *zarika* zenbait tokitan 'zumea' da, eta badaiteke hemen ere esanahi hori izatea.

Corominesen arabera euskarazko *zarika* izen zeltiar batetik [saltco-tik] atera da, katalanerazko *salic* bezalaxe:

<sup>400</sup> Txikigarri hau duten toponimoak ugariak dira toponimian. Adibide moduan honako hauek aipa daitezke, besteak beste: *Aiscogayna* (Artaitz, herriko eliz-artxibategia, kontuak, 12. or.), *Lizarcoa* eta *Oyancoa* (Idoate, 1594, PRA-Urrotz, 4. k-bis), *Liçarcoeta* (Untzu, 1650, PRA-Asiain, 89. k.), *Sagarcoeta* (Indurain, id.), *Ychaurcoeta* (Ezkabarte-Makirriain, 1651, PRA-Asiain, 89. k.), *Zabalcoa* (Ibiltzieta, PRA-Otsagabia, 5. k., 1696).

<sup>401</sup> Cf. Jimeno Juriok ("«Zendeak» «gorreak» y otras realidades...") aipatzen dituen Artaxonako *Gile gorrea*, *Gille gorrea* edo *Gilin gorrea* eta *Gile Olibadia* toponimoek. Hemen, alabaina *Gil(l)en* (Guillermo) antroponimoa ere izan dezakegu.

<sup>402</sup> AV, 164. or.

“Un altre nom de planta encara: el cat. *salic* ‘espècie de saule, *Salix purpurea*’ és evident que no pot venir del ll. *salix*, per raons fonètiques, sinó del celta *salico-* (irl. ant. *sail*, *sailech*); quant al cat. i arag. *sarga*, *sarguera*, i basc *zarika* ‘*Salix amygdalina*’, sembla tractar-se d’una forma ibero-basca presa del mateix mot cèltic, que va a arribar al romànic per conducte de l’iber”<sup>403</sup>

Bestela, \***Zariketa** > **Zarikieta** pausoa azaltzeko egon daitezkeen arazoak aise gaindi daitezke aintzat hartzen badugu, batetik, gure alderdian **-eta**-ren aldaera den **-kieta** arrunta dela, eta bestetik, honen antzeko prozesua jasan duen **Zarikegi** / **Zarikiegi** herri-izena ere hor dugula (cf. gainera, **Luberri** / **Lubierri** Urbanan). Azken kasu honetan lehena da zaharrena<sup>404</sup>; herriaren izen herrikoi eta euskalduna den **Zarikai** (< \***Zarikei** < **Zarikegi**) ere diptongorik ez duen aldaeraren aitzinatasonaren alde mintzo zaigu, itxuraz.

**Zugarketa**: **zugar** zuhaitz-izena eta **-eta**-ren aldakia den **-keta** ditugu hemen.

### Lerga:

**Aitzetako aldapa**: hemen **haitz** ‘barga’, ‘harri’, leku genitiboaren **-etako** pluraleko hondarkia, eta **aldapa** generikoa izan dezakegu, baina **Aitzeta** espezifikoa, **-ko** leku-genitiboa eta **aldapa** generikoa ere bai. Bigarren kasu honetan **Aitzeta** **haitz** eta **-eta**-z osaturik legoke.

**Arridokieta**: **harri** izena, **idoki** ‘atera’, ‘kendu’, ‘erauzi’ partizipio-adjetiboa, eta **-eta** ditugu toponimo honetan. Adiera ‘harri aterea dagoen tokia’ edo ‘harri erauziak dauden tokia’ bide da.

**Mondakieta**: hemen latineko \***montana**-ren moduko batetik atera zitezkeen **monda** ‘aldapa’, ‘toki aldapatsua’, eta **-eta**-ren aldaera den **-kieta** izan genezake agian (ikus Galipentzu), baina hau ez da bat ere segurua.

**Oletabidea**: **Oleta** herri-izena, eta **bidea** arrunta ditugu hemen. **Oleta**, bere aldetik, **ola** ‘artzain-etxola’, ‘burdinola’ eta **-eta**-z osaturik dago, eta beraz honen kide erdaldundua den **Olleta** ezin da, inondik ere, **oilo** hegazti-izenarekin lotu. Aldaera honen tarteko kontsonante bustia ukipen-eremuan egoteari zor zaiola irudi du (ikus Lergako toponimia aztertzean **Oletabidea** sarreran dioguna).

**Sotoeta**: hemen **zaldu**-ren baliakidea den erdaratikako soto izena, eta **-eta** dugu.

**Udarelurreta**: **udare** ‘udareondo’, **lur** eta **-eta** dira honen hiru osagaiak. Kontua, halaz ere, ez dago zeharo garbi, honen aldamenean **Udareluzea** eta **Udareluze**-ta ere aurkitzen ditugu eta.

**Udareluzeta**: **udare** izenaz, **luze** izenondoaz, eta **-eta**-z osaturik dago. **Udareluzea** ere badugunez, aurrekoa honekin identifikatu beharko dugu, ez hau horrekin. Berrekailurik gabeko aldaera ere ageri da, eta hortaz garbi dago **-eta**-k toki hutsa adierazten duela.

**Urretako erreka**: **Aitzetako aldapa**-k bezala honek ere bi interpretazio ezberdin izan ditzake: **hur** ‘hurritza’, **-etako** leku-genitibo plurala, eta **erreka** izan ditzakegu, nahiz **hur** ‘hurritza’-z eta **-eta** bukaeraz osaturik dagoen **Urreta** espezifikoa, leku-genitibo singularraren **-ko** morfema, eta **erreka** generikoa.

### Moriones:

**Aiareta**: aldi bakar batez dokumentatu dugu, eta ez dakigu zer izan daitekeen.

403 ETC-I, 75. or.

404 Ikus Jimeno Juríoren TCPCI, 193 eta 289. orr.

**Aritzandieta:** haritz zuhaitz-izena, **handi** izenondoa, eta **-eta** atzizkia ditugu hemen.

**Astalorraldeta:** asto-ren apofonia jasandako elkarketako **asta-** aldaera, **alor** 'soro', **alde** 'inguru', eta **-eta** dira toponimo honen elementu osatzaileak. **Astalorra** eta **Astalorraldea** ere baditugunez, badirudi honen adiera 'Astalorra deitu soroaren ingurua' edo 'asto-soroaren aldamera' dela.

**Buraleta:** erdarazko **bural** 'buztintze' eta euskarazko **-eta** atzizkia dituzkegu hemen.

**Sariozarreta:** sario 'sarohe' izena, **zahar** izenondoa, eta **-eta** dira toponimo honen hiru osagaiak. **Sario**-ak aziendak (larriak bereziki) hersteko zerraki naturalak izaten dira. Paretaz itxirik ere egon daitezke, Leteko **Sario** bezala<sup>405</sup>.

**Uxue:**

**Aitzandieta:** **haitz** 'malkor', 'harri' izena, **handi** izenondoa, eta **-eta** ditugu hemen. **Aitzandia** ere agertzen da, eta erdaraz **La Peña**, eta beraz tokiaz besterik ez duela adierazten gauza argia da.

**Aizketa, Aizkieta:** **haitz** 'harri', 'harkaitz' eta **-eta**-ren aldaera diren **-keta**, **-kieta** ditugu toponimo honetan. Itxuraz, oraingo **Canterica de las Piedras**-ren ordain euskalduna da, eta beraz hemen **-eta**-k balio plurala daukake.

**Areatzeta:** harea 'legarra' izena, **-tze** ugaritasunezkoa, eta **-eta** dugu hemen. (cf. **Tipulatzea / Tipulatzeta** Agezan).

**Azpieta:** toponimo honek bi interpretazio ezberdin izan ditzake: **haitz** + **bi** + **-eta** nahiz **haitz** + **pe** 'behe' + **-eta** (bigarren hau "bitxiagoa" da. Cf., halaz ere, **Uxue**-ko bereko **Aizpeaga**-ren aldaera den **Azpiaga**).

**Burnizirieta:** **burni** 'burdina', eta **ziri** 'cuña', 'clavija', 'makila', 'haga' izan litezke **-eta**-rekin batera ageri diren elementuak. Lehena 'burdina' dela segurua da, honekin batera **burnia**, **burrina**, **burruña**...eta beste azaltzen direlako. **Ziri** izena naha-siago dago, **zubi** eta **zuri** ere dokumentaturik egoki.

**Eripazarreta:** **erripa** 'aldapa zuta', 'erreka edo ugalde baten ertzeko aldapa zuta' izena, **zahar** izenondoa, eta **-eta** ditugu hemen. **-Zarreta**-ren orde **-zurieta** eta **-zubieta** ere aurkitzen dugu, baina zaharrena lehena da (ikus **Uxue**).

**Etxeandieta:** **etxe**, **handi** eta **-eta** ditugu leku-izen honetan. **Etxe** baten izena zen, eta hortaz balio singularra zuela kontu egin daiteke. Alabaina, auzo batena ere bazen, eta pluraltaz berdin-berdin har liteke.

**Gortederreta:** **gorte** 'korrale' izena, **eder** izenondoa eta **-eta** dugu toponimo garden honetan.

**Larrageta:** ikus **-aga**-ri eskaini atalean dioguna eta **Uxueko Larrage** sarrera.

**Makarreta:** ez dakigu zein den toponimo honen oinarria, atzizkia gardena bada ere. Baliteke **malkar**, **malkor** 'barga', 'erroitz', 'amildegi'-rekin lotua egotea, edo **malkar**, **maxkar** 'lur meharra'-rekin, baina hau uste erdi (edo erabat) ustela izan daiteke.

**Mantxiriturrieta:** bukaeran **iturri** eta **-eta** dugula garbi dago, baina ez dago horren garbi **Mantxir(i)**- hori zer izan daitekeen. Badaiteke honen oinarrian **Matxin** 'Mattin' pertsona izena izatea, baina ez dugu honen frogarik<sup>406</sup>.

405 Id., 234. or.

406 Ihaurrietan **Manchiturria** azaltzen da 1775ean (PRA-Otsagabia, 45. k.), eta ibar bereko Izizen **Mainchi varrea** dugu 1677an (Id., 17. k.): "(en) Mainchi varrea afronta con regacho que baja de San Pelay", eta Igarin **Manchobia** 1680an (Id., 18. k.): "Rigacho que pasa por la villa llamado Manchobia". Baliteke guzti hauen azpian **Mantxo** antroponimoa egotea, hau, deitura moduan bederen, ezaguna baita Hegoaldean. Iparraldean **Mantxo** izengoitia bide zen Erdi Aroan, eta 1350eko **Manchotegui** etxe-izenean azaltzen da. Ikus, J. B. Orpustanen "Arteko kontsonante bat", *I Onomastika Jardunaldiaren agiria*. *Toponimia*. Gasteiz, 1986ko apirila, 307-318. orr.

**Mantxiriturria** ere dokumentatu dugu, baina leku-izena (*eta*-dun aldaera) bizirik dagoenez gero, badakigu kasu honetan balio plurala duela, elkarren ondoan dauden bi iturri izendatzen baititu<sup>407</sup>.

**Mugazurieta**: *muga* izena, *zuri* izenondoa, eta *-eta* berrekailua ditugu hemen. Dokumentazioan arruntena eta egun bizirik dagoena **Mugazuria** da, eta badirudi *-eta*-k ez duela lekuaz besterik ezer adierazten.

**Munuzuleta**: ez dakigu seguru zein diren toponimo honen osagaiak. Lehen begiratuan *munu*, *muno* edo *mur* 'gain', *zulo* eta *-eta* ditugula irudi du; *-oe-* > *-epausua* ez da oztopo (cf. *soro* bide duten Agezako **Erresoreta** eta Oibarko **Soreta**). Alabaina, **Munos** (ikus sarrera hau) eta honen aldaerak baditugu, eta hauekin batera **Muñukukulua**, **Muñurumeta** eta beste, eta beraz kontua ez dago zeharo garbi.

**Nobeleta**: ikus Agezako izen bereko toponimoa.

**Oliveta, la**: itxuraz Ageza eta Eslabako **Olibeta** bera dugu, hots, *olibo* 'olibondoa' eta *-eta*-z osaturikako toponimoa, baina badakigu alderdi hau **La Oliva** deitu monastegiarena izan zela, eta beraz honen txikigarritako hartu beharko dugu. **La Oliva**-k zerikusia izan dezake *olibo*, *oliba*-rekin, eta alde honetatik **La Oliveta** ere erlazionatua legoke hitz horiekin, baina lotura hori zeharkakoa litzateke, ez zuzena.

**Ormaizkieta**: Mitxelenak dioenez<sup>408</sup>, *-(k)eta* bukaeraren aurretik, batzuetan, beste atzizki bat dagoela irudi du: **Lakoizketa**-n, adibidez, *lako-*, *-iz-* eta *-keta* genituzke. **Ormaizkieta**-ren bi aldaerak **Ormaizquieta** (1604)<sup>409</sup> eta **Orbizquetta** (1732)<sup>410</sup> dira, eta agian *\*Orbaizkieta* jo liteke jatorrizko formatzat. Azken hau, bere aldetik, **Orba**-ren eratorria den **Orbaitzeta** (< **Orbaitz** + *eta*)-ren kidea litzateke.

Uxueko toponimoan, hortaz, **Orbaitz** eta *-kieta* berezi behar genituzke, hau da, **Orba** gehi beste toponimoen eratorriak sortzeko erabili izan den *-i(t)z* atzizkia alde batetik, eta *-eta*, *-keta*-ren aldaera den *-kieta* bukaera bestetik.

A. Irigoyenen iritziz, Nafarroako **Orbaibar Orbe** apelatibo hedatuarekin lotu beharra dago, 1197ko testu batean aipatu bailararen izen euskalduna (**Orbaiuar**), **Vallis Orbe** (genitiboan), eta **Valdorba** elkarren ordainez agertzen baitira. Aipatu lotura horrek badu alabaina zailtasun zerbait, beti ere Irigoyenen arabera. Izan ere, *-a*-z bukatzen da nafar bailara-izena, izan euskaraz elkartueta lehen osagaia izatearen ondorioz; **Orbe**, aitzitik, elkarketako lehen osagaia denean *-t*-z bukatu ohi da, **Orbe**-ren bigarren elementua den *behe* 'beheko aldea, zolua'-ri dagokionez (cf. **Beterri**)<sup>411</sup>.

Dena den, **Ormaizkieta**-ren oinarrian hainbeste toki-izenetan agertzen den *horma* 'parea', 'muru', 'hodia' ere izan genezake<sup>412</sup> (cf. Galipentzuko **Ormakieta**. ikus Morionesko **El Cerrado** toponimoan dioguna).

**Zuaizkieta**: *zuhaitz* 'arbola' eta *-kieta* ditugu Uxueko bereko **Arbolaga**-ren kide dirudien honetan.

## Zare:

**Atalaieta**: *atalaia* 'muinoa (?)' (ikus Eslaba) eta *-eta* dugu hemen. Erdaraz **El Atalaya** ediren dugu behin<sup>413</sup>, eta badirudi *atalaia* bakarra dugula.

407 **Mantxiriturria** bitan aurkitu dugu bakarrik, eta irau duen aldaera, esperatzekoa zenez, *-eta*-duna da. Atzizkirik gabeko aldakiaren zergatia bi iturburuon emanak berehalakoan bat egitea izan daiteke, edo agian horietako bakoitza bakarka hartzea, baina ez dugu uste arrazoia hondar hau den.

408 AV, 108-110. orr.

409 PRA-Oibar, 11. k.

410 PRA-San Martin, 34. k.

411 "Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica", ETTVC, 221-224. orr. Honen arabera *\*Orbetibarra*-ren moduko zerbait behar luke, ez dokumentatzen den **Orbaibarra**.

412 AV, 141. or.

413 PRA-Oibar, 8. k., 1594.

**Baratzeta:** baratze izenaz eta -eta-z osatua dago.

**Buraleta:** erdarazko **bural** «buro» ugari dagoen tokia, 'buztintzea', eta -eta dugu toponimo hibrido honetan.

**Dolaretza:** **dolare** 'mahats-aleak, sagarrak...berauen zukua ateratzeko zapa-tzen diren tresna', 'delako tresna dagoen tokia'-z, eta -eta-z osaturik dago.

**Dorreta:** dorre izenaz eta -eta-z osaturik dago.

**Dorrondeta:** dorre izena, ondo posposizioa, eta -eta bide ditugu toponimo honetan. **Dorrandeta** ere aurkitu dugu behin<sup>414</sup>, eta beraz ondo gabe **handi** izenondoa dugulako ustea ez da osotara baztertzekoa, baina eskuarki **Dorrondeta** agertzen denez gero, aipatu etimologiari eutsi behar zaiola uste dugu (ikus Zare).

**Gesaliturrieta:** **gesal** 'ur gazia', 'gatza', 'gatz asko duen eremua', **iturri** eta -eta dugu hemen. **Gesaliturri** ere azaltzen da, eta iturrien kasuan arruntena bakarria izatea denez, -eta-k hemen batekotasuna adierazten duela garbi samar dago (cf., halere, Uxueko **Mantxiriturrieta**-n esan duguna).

**Gurbitueta:** ez dakigu **gurbitu**- zer izan daitekeen. Erdararikako **kulpitu** 'pulpito'-rekin erlaziona daiteke, toponimian **Pulpitu** eta **Pulpito** ezagunak baitira (ikus Zare), baina **Urbitueta** aldaeran oinarri harturik **Lergako Ubitarte**-rekin ere lot liteke. Kontua, alabaina, ez dago bat ere garbi.

**Kiñueta:** **kino** ([kíno], alegia) 'quiñón'<sup>415</sup> eta -eta dugu hemen. \***Kiñoeta** > **Kiñueta** pausua arrunta da (cf., adibidez, **Zuloeta**-tik atera den **Ibargoitiko Zulueta** herri-izena), bereziki azentua egun bezala hondar-aitzineko silaban zihoala onartzen bada<sup>416</sup>.

**Ligusuñeta:** **ligo** edo **ligu** (cf. **liguerri** 'lihatze'), **osuin** edo \***usuin** 'osin', 'putzu', eta -eta dira beste toki batzuetako **Liobutzueta**-ren kide den toponimo honen osagaiak (cf. **Eslabako Lixuñeta** eta **Leatzeko Usuñeta**).

**Matureta:** ez dakigu zein izan daitekeen honen jatorria. Bukaeran aztergai dugun atzizkia duela irudi du.

**Miruaizeta:** **miru** hegazti harrapariaren izena, **haitz** 'harri', eta -eta dira toponimo honen osagaiak. Toki bera izendatzeko **Haitzeko mirua** ere badugunez, berrekailuak lekua besterik adierazten ez duela dirudi.

**Piketa:** toponimo honetan Uxueko antzinako (**Pitillaskoa** da egun) **Pikarana**-n dugun **pika** 'aldapa xuta' izena izan genezake, eta -eta atzizkia, baina **Pikotsaietsa**, **Pikotazarra**, eta **Pikuetasaietsa** ere baditugunez, baliteke hauetako baten hasierako elementuaren orde egotea. Guztiarekin, **Piketa** behin baino gehiagotan ediren dugu, eta aparteko izentzat hartu behar dela uste dugu.

414 PRA-Kaseda, 2. k., 1683.

415 Azkuek **kiño** 'sel', **quiñón**, 'porciones de terreno comunal repartido entre vecinos' bildu du Aezkoan (APIM, 179-301. orr.).

416 **Kiño** hitza eta adierazten duen lur-zatiketa oso zabaldua egon da Nafarroan (ikus, adibidez, Jimeno Juríok Iruñerrian biltzen dituenak). Uxuen ordea, ez dugu honelakorik sekulan edireten toponimian, eta gaurrengun erdaraz ere guztiz ezezaguna da "quiñón" hitza. Honen hedaduraren berri izateko ikus J. M. Iribarrenen VN.

Erdarazko **quiñón**-etik euskarazko **kiño**-rako bilakaera hau izan bide zen: **quiñón** > \***kiñoi** (cf. **Quinoia** Puiun; THET, 171. or.) > **kiño** (sabaikari disimilazioz). Jimeno Juríok **Quiño** (THET, 171. or.), **Quiñoa** eta honen eratorria den **Quiñueta** dokumentatzen ditu (TCPCG, 93. eta 106. orr.), bai eta **Quiñoa**-ren aldaera jatorra dirudien **Guinoa** ere. Azken aldaki hau, dena den, erabat isolatua dago.

Guk gure eskualdearen ondoan, Orba ibarreko Oleta herrian **Quiño** andia ediren dugu (PRA-Ojibar, 25. k., 1646), eta ibar bereko Santsoainen **Quiñueta** (PRA-San Martin, 87. k., 1830). Erroibarko Mezkitz herrian **Kiñota** dugu orain, **Quinoia** 1767an, **Quiñoeta** 1807an (Orreaga Ibarra, MT, 335. or.).

**Kiñoa** (eta **Giñoa**?)-rekin batera **kiñu** ere aurkitzen dugu (cf. **puntallo** > **puntallu** gure alderdian) han-hemenka. Cf., adibidez, Urraulgoitiko Adoain herriko **Quiñumearra** (PRA-Otsagabia, 20. k., 1694). Itzagaondoko Indurainen **kiño** (edo **kino**) nahiz **kiñu** (edo **kinu**)-tik atera ahal izan den **Quinueta** dugu 1594ean (PRA-Urrotz, 4. k-bis).

**Pikulangorteta:** ez dakigu zein den toponimo honen lehen osagaia; bigarrena berriz **gorte** izan daiteke. Honekin lotura zerbait izan dezakeen **Perongortea** ere ediren dugu, eta hemen ere Ø / -**eta** aldizkatzea dugula dirudi.

**Puieta:** **puiu** edo **puio** 'gaina', eta -**eta**-z osaturik dago. Oinarriaren jatorrizko hondar bokala -**u** nahiz -**o** izan zitekeen; 1641ean **Pujueta** ediren dugu<sup>417</sup>, baina hau lekuko bakarra da, eta aurreko \***Puioeta** baterik ere atera zitekeen. **Puieta**-rekin batera **Puio** ere azaltzen da, eta mintzagai dugun toponimoak **puiu** bakarra adierazten duela se-guru samarra da. Egungo **Puieta** [puyéta]-k erdaraz "cantera" deitu ohi dena (mendiko luzea) izendatzen du (inguruko lurra ere bai. Ikus Zare).

**Puietasaietsa:** **Puieta** toponimoa eta **saihetsa** ezaguna ditugu hemen. Azken honen adieraz ikus Zareko toponimia aztertzean dioguna eta **Dermio** baten zatiketa atala.

**Salobreta:** erdarazko **salobre** 'gesal'-ez, eta -**eta**-z osaturik dago. Ere muza bala da, eta aniztasun balioa izan dezake.

**Saratseta:** **sarats** 'sauce' zuhaitz-izena eta -**eta** ditugu toponimo honetan. Hasiera batean arbola bakarra izendatzen zuela garbi samar dago, honekin batera (honen ondoren, hobe esan) **Saratsea** ere agertzen da eta.

**Utsaskieta:** **utsas** 'isats' landare-izena eta -**eta**-ren aldaera den -**kieta** ditugu hemen.

Toponimo guzti hauen azterketatik honako ondorio hauek atera ditzakegu:

1.-Gehien azaltzen den aldaera -**eta** da.

2.-Txistukari ondoan ere ager daiteke -**eta**:

-**Bardazeta** (Galipentzu)

-**Miruaizeta** (Zare)

-**Saratseta** (Ageza)

3.-**Keta** batzuetan txistukari atzean aurkitzen dugu:

-**Arizketa** (Ageza)

-**Aizketa** (Uxue)

-**Ormaizkieta** (Uxue)

4.-**Keta** beste batzuetan ez-txistukari ondoan agertzen da:

-**Butzuketa** (Eslaba)

-**Ezpelketa** (Eslaba)

-**Iturriketa** (Sabaitza)

5.-Gaia ukitu duten autoreek aipatzen ez duten -**kieta** aldaera ere aurkitzen dugu geure eskualdean<sup>418</sup>:

417 PRA-Oibar, 24. k.

418 Hemendik kanpo ere bai: cf, adibidez, Antsoain zendeako Añezkarko 1661eko Lioquieta, Ligoquieta 1819an (Jimeno Jurfo, TCPCA, 127. or.). -**Keta** / -**kieta** aldizkatzea Iruñerriko Zizur zendeako Zarikegi / Zarikegi izenean aurkitzen dugunaren modukoa da, antza (Jimeno Jurfo, TCPCC). Tarteko -**ki**- hori atzizkitzat ere har genezake Ameskoetan (L. Lapuente, TAM, 407. eta 408. orr.) eta inguruetan agertzen diren Gurbeki, Intxaurki, Iturriki, Kortaki, Mendiki, Torreki, Zalduki, Zufitxarki...edo Uzkitako Andrekialdapa (PRA-Oibar, 100. k., 1823)-ren moduko toponimoetan oinarri harturik (ikus Uxueko Txorria sarreran dioguna). Narkuen Saukigaina dugu 1689an (PRA-Artabia, 5. k.) Saukieta 1698an (id., 9. k.), eta Elizarkieta 1685ean (id., 3. k.).

Nolanahi den ere, eta gure alderdiko izenetan gutxienez, -**kieta**-ren ondoan zenbaitetan -**keta** ere azaltzeak atzizki ber baten bi aldaera direla pentsarazten digu.

A-Txistukari atzean:

- Haizquieta (1602)<sup>419</sup>, Ezquieta (1634)<sup>420</sup> Uxuen.
- Arrijauskieta (Ageza, 1530)<sup>421</sup>
- Ormaizkieta (Uxue)
- Utsaskieta, Utsaskietarana (Zare)
- Zuaizkieta (Uxue)

B-Ez-txistukari ondoan:

- Buchuquieta (Eslaba, 1642)<sup>422</sup>
- Espelquieta (Eslaba, 1684)<sup>423</sup>
- Mondakieta (Lerga)
- Ormakieta (Galipentzu)
- Zarikieta (Leatxe)

6.-Keta eta -kieta elkarren aldaera gisa azaltzen dira:

- Ezquieta (Uxue, 1634) / Ezqueta (1631)<sup>424</sup>
- Ormaizquieta (Uxue, 1604) / Orbizquetta (1732)

7.-Eta, -keta eta -kieta elkarren baliakidetzat edireten ditugu:

- Bucueta (Eslaba, 1656)<sup>425</sup> / Buchuqueta (1644)<sup>426</sup> / Buchuquieta (1642)

(ikus gorago).

- Ezpeleta (Eslaba, 1596)<sup>427</sup> / Ezpelqueta (1635)<sup>428</sup> / Espelquieta (1647)<sup>429</sup>

(Eslaba).

8.-Behin edo beste, Mitxelenak dioenez<sup>430</sup>, beste atzizki bati jarraitzen zaiola irudi du:

- Ormaizquieta (1604), Orbizquetta (1732) (Uxue) (ikus gorago).

9.-Aniztasuna / batekotasuna

Ikusi ahal izan dugunez, -eta (-keta, -kieta) atzizkiak aniztasuna adierazten du batzuetan, eta honekin batera, C. Barojak dioen bezala, lekua: Aizketa (Uxuen), Berrobe-rieta (Leatxen), Buraleta (= Los Burales, Zaren), Kiñueta (Zaren. Cf. hor barnako Los Quiñones ezaguna), Liatzeta ('Los Linares', Galipentzun), Olibeta (Ageza, Eslaba...)<sup>431</sup>.

Beste anitzetan, ordea, -eta (-keta, -kieta) atzizkiak -aga-k maiz bezala toki huts-hutsa adierazten du, toponimoak izendatzen duen entitatea bat bakarria delarik.

419 PRA-Oibar, 10. k.

420 IEA, 345. kart., 13. zkia.

421 PRA-Oibar, 2. k-bis.

422 Id., 24. k.

423 PRA-Kaseda, 2. k.

424 PRA-Kaparroso, 34. k.

425 PRA-Oibar, 27. k.

426 Id., 24. k.

427 Id., 17. k.

428 Id., 23. k.

429 Id., 25. k.

430 AV, 114. or.

431 Cf., gainera, Etxalekuko Errikogaztañeta, itxura guztien arabera 'herriko gaztainadia' adiera duena.

Hau segurua da -eta-dun eta gabeko toki-izenak agertzen zaizkigun kasuetan (kasu gehienetan, ez denetan. Cf. Uxueko **Mantxiriturria / Mantxiriturrieta**). Honelakoetan -eta atzizkiaren eginkizuna oinarria izen arrunta ez dela ezagutzera ematea litzateke:

- Aitzandia / Aitzandieta (Uxue)
- Ardantzebarrena / Ardantzebarreneta (Ageza)
- Astalorralde / Astalorraldeta (Moriones)
- Bidezarra / Bidezarreta (Eslaba)
- Butzuandia / Butzuandieta (Leatxe)
- Errotaxarra / Errotaxarreta (Leatxe)
- Gesaliturri / Gesaliturrieta (Zare)
- La árrega (Murillo), Larrage (Uxue) / Larrageta (Murillo, Santakara, Uxue)<sup>432</sup>
- Meazuko erreka / Meazukoerreketa (Galipentzu)
- Monda / Mondakieta (Lerga)
- Mugazuria / Mugazurieta (Uxue)
- Puio / Puieta (Zare)
- Saratsa / Saratseta (Zare)
- Sariozarra / Sariozarreta (Moriones)
- Sortengortea / Sortengorteta (Eslaba)
- Zazutxikia, Zazutxipia / Zazutxipieta, Zazutxikieta (Eslaba).
- Zerradogibela / Zerradogibeleta (Eslaba)...

Beraz zera ondoriozta dezakegu, -eta-k usu askotan tokitasuna markatzen duela, eta hortaz, aniztasuna edo batzutasuna gabe, batekotasuna adierazten duela. Hau da, adibidez, Agezako **Cruz de Gurutzeta**-n daukaguna, gurutze bakarra zela garbi da-kigunez gero.

## 6.10 TZE, -TZA ATZIZKIAK

*Mitxelena*-ren arabera bi atzizki hauek ugaritasuna adierazten dute: **Artaza**, **Elorza**, **Aldaz**, **Iharce**...<sup>433</sup>. Ez dago garbi, autore honen iritziz, biak atzizki beraren aldaerak diren ala jatorri ezberdinetako bukaerak, baina, dena dela, txandaketa hitz berean gertatzen denean, -tza mendebaldeko euskalkietan agertuko da, eta -tze ekialdekoetan<sup>434</sup>. Batzutan -z hutsa ere aurkitzen dugu, azkeneko bokalaren erortzearen ondorioz, eta beraz **Aldaz**, **Ardanaz**...eta bestetan atzizki hau dugula pentsatu beharko dugu, hizkuntzalari erreteriarren ustez beti ere.

-Tza mendebaldeko atzizkia agiritan azaltzen den aurreko -ça(h)a, -za(h)a batetik atera dela badakigu<sup>435</sup>, eta -tze aditz-izenkiak (hartze, etortze...) sortzen dituen berrekailu bera izan liteke, Mitxelenaren iritziz.

*Caro Baroja*-k<sup>436</sup>, Arabako toponimo nagusiak aztertzen ari delarik, -tza atzizkia ugaritasunezkoztat hartu ohi dela dio, eta Arabako leku-izenetan sarri agertzen

432 Ikus, halaz ere, Uxueko toponimia aztertzean **Larrage** sarreran dioguna.

433 AV, 155. or.

434 Halaz guztiz, eta segituan ikusiko dugunez, ekialdekoztat jo behar den gure eskualdean -tza ere agertzen da, orokorra -tze izanagatik.

435 Menéndez Pidalek aipatu zuen aurrena, *Curso de Lingüística* izeneko lanean 1921ean. Ikus FHV, 111. or., eta TAV, 24-30. orr.

436 HGPV, 162-165. orr.



dela. Autore honek aztertu duen "Reja de San Millán" delakoan **-zaha** itxuraz ageri da, gorago esan moduan, euskaraz **-tza** eta gaztelaniaz **-za** idatzi ohi dena.

Gure eskualdeko herrietan atzizki honetaz horniturik dauden toponimo hauek ediren ditugu:

### Ageza:

**Ardantze:** hemen oinarri hau daukaten toponimo guztiak sar ditzakegu: **Ardantzeartea**, **Ardantzebarrena**, **Ardantzebarreneta**, **Ardantzebarrenetakoiturrieta** eta **Ardantzezarra**. Ikusten denez, oinarria **ardan-** (< \*ardano) 'ardo' da.

**Euntzeberri:** toponimo honetan **euntze** 'larre' izen ezaguna eta **berri** ize-nondoa ditugu. Lehen osagaia, Mitxelenak dioenez, latineko **fenu** 'heno'-ren eratorri irregular batetik atera zitekeen<sup>437</sup>. Eboluzioa, autore honen hitzei jarraikiz, hau izanen zen: **fenu** > \*feũ > \*feun (\*feuntze), eta hemendik hasierako **f** > **p** aldaketaz (cf. **falso** > **paltsu**, **feria** > **peria**) \*peun (\*peuntze)<sup>438</sup>.

Hau izan daiteke, beraz, gaurregun Euskal Herrian dauzkagun **euntze** eta **pentze**-ren jatorrizko forma. Hemendik, **eu** > **e** laburketaren bidez ekialdeko **pentze**<sup>439</sup> aterako zen (cf. \*eulitxo > **eltxo**, **euskara**, **euskera** > **eskara**, **eskera**...) eta hasierako kontsonante ezpainbikoaren erortzeaz (cf. **biku** goi-naf., **fiku** meridio., **fiko** lap. / **iko** bizk, edo **biro**, **biru** goi-naf., **erronk.**, **zarait.**, **firu** behe-naf., **bizk.**, **p(h)iru** goi-naf., **behe-naf.** / **iru** bizk.<sup>440</sup>) Nafarroako **euntzea**<sup>441</sup>.

Ateko **Beuntza** izena ere aztertzen ari garen **euntze** / **pentze**-rekin erlazio-natua dagoke, hizkuntzalari errenteriarraren iritzi<sup>442</sup>. Jatorrizko \*feuntze-tik \*beuntze atera zitekeen (**Beuntze** [béynçè] nahiz [beúnçe] ebakia bertan<sup>443</sup>, bokal-armoniaz irudiz), hasierako ezpain-horzkariaren ahostuntzeaz (cf. **berme**, **besta**...), eta hemendik, **-tze** eta **-tza** elkarren baliokideak izanik, \*Beuntze > Beuntza pausoa gauza zitekeen (cf. Ezporogiko **Buztintza** / **Leatxeko Buztintzea**).

Esanahiari dagokionez, Mitxelenak aipatzen dituen 'pastizal', 'prado'-z gain, 'zaldua' adiera ere izan dezakeela dirudi, J. Juríoren arabera<sup>444</sup>:

"Por distintas zonas del 'campestre' (de Artajona) hubo prados: 'Prado que ban a la fuente nueva'(1554); 'Prado de Saragorria'(1554); 'Prado de las heras'(1537, 1530); 'Prado de los pozos'(1545), 'Prado grande'(1539), 'Prado pequeño'(1530), 'Prado redondo'. Los tres últimos aparecen también en vascuence: **EUNZE ANDIA**, **EUNZE CHIQUIA** (1530, 1554, 1559), **UNÇE** o **EHUNCE BIRIBILLA** (1527-59). La voz **EUNTZE** aparece interpretada en Iruñerria y la Navarra media con multitud de variantes, entre ellas: 'Ainzu, Anchu, Anzu; Eunce, Eunche; Inchu, Inzu; Onze, Unse,

437 FHV, 492. or.: "En euntze, etc., 'pastizal', no está excluido que nos hallemos ante un derivado irregular de lat. **fenu** 'heno', con el sufijo vasco **-tze**, comparable a cast. **Henares**, bearn.of. Féas, irregular a causa de la conservación de -u: \*enu, pasando por el diptongo **eu** nasalizado, acaba en **-eun** ante consonante".

438 Honen oztopoa zera da, **pentze** ibiltzen den ekialdeko eskualdeetan **f-** > **p-** aldakuntza ez dela Gipuzkoan bezain arrunta, eta ezpainhorzkaria ongi gordetzen dela (FHV, 262. or.).

439 Nafarroa Garaian Zaraitzu, Aezkoa, Erroibar eta Esteribarren (ez bailara osoan) erabiltzen da (edo zen). Ikus Ana M<sup>a</sup> Echaide, EENEL, 102. or.

440 Mitxelena, FHV, 269. or.

441 Honetan eragina izango zuten, beharbada, **b-** / **Ø-** aurkez dezaketen pareek, alegia, **uztarri** / **buztarri**, **(h)orma** / **borma**...eta antzekoek.

442 Hala ere soroa da orain bertan (Beuntzan) 'prado' adieraz ibiltzen den hitza (ikus Echaideren EENEL, 102. or.).

443 NHI, 138. or.

444 "«Zendeak», «gorteak»...", 752. or.

Unze, Unzu', y tiene un significado concreto: 'soto' o 'prado' de propiedad comunal cuyas hierbas fueron destinadas a pastos para el ganado mayor. Suelen ser conocidos por el paraje o por un adjetivo: 'Andi, txiki; berri, zar; luze, mear', simultaneando a veces 'Euntze' y 'Soto' (Eunze andia; Soto andia)<sup>445</sup>.

**Lezkatzea:** Uxueko lezkatzea-z mintzatzerakoan esan dugunez, toki-izen hau Lezkaduia edo Lezkairu-ren baliokidea da, alegia, lezka asko dagoen tokia izendatzeko erabiltzen da.

**Tipulatzea:** hemen tipula izena eta -tze ditugu. Erdarazko El Cebollar-en adierakidea da, eta 'tipula-landa', 'tipulerria' esanahia du.

**Zabaltza:** zabala 'eremu zabala, irekia' eta -tza atzizkia ditugu hemen. Harrigarria da, -tze eta -tza beti atzizki beraren mendebal eta ekialdeko aldakiak badira behintzat, herri berean biak agertzea, baina gure alderdiko toponimia aztertuta bikoiztasun hau horren bitxia ez dela ikusten da.

#### Aldea:

**Aldeko euntzea:** Aldea herri-izena, leku-denborazko genitiboaren singularreko morfema den -ko, eta euntzea 'larrea' ditugu toponimo honetan.

#### Eslaba:

**Areatzea:** harea 'legarra', 'hondarra' eta -tzea ditugu 'harea asko dagoen tokia' adiera duen honetan.

**Artatzea:** -dui bukaera aztertzerakoan ikusi bezala, artatzea Eslabako bereko Artadua (< \*Artaduia)-ren baliokidea da, alegia, arte-basoa izendatzen du. Ikusiko denez, Artatzea generikotzat ere ibiltzen zen gure eskualdean (ikus Uxueko toponimia).

**Euntzea, Euntzeberri, Euntzegutia, Euntzeluzea:** Euntze 'larre' (ikus Agezako Euntzeberri sarreran dioguna) izen ezaguna eta berri, gutia 'txikia' eta luzea izenondoak ditugu toponimo hauetan.

**Tipulatze:** ikus Agezako Tipulatzea sarreran dioguna.

#### Ezporogi:

**Areatzea:** ikus Eslabako izen bereko sarrera.

**Buztintza:** hau aldi bakar batez aurkitu dugu, baina -tza atzizkia argia da. Adiera erdarazko Ezporogiko bereko El Bural eta Leatxeko Buztintzea-rena bera da, alegia, 'buztin ugari dagoen tokia'. Hortaz, hemen berriz ere mendebaldekotzat jotzen den -tza dugu, orokorra den -tze-ren alboan.

**Larratza:** Mitxelenaren arabera<sup>446</sup> 'lantzen ez den lurra' adiera duen larre-ren eratorria da. Atzizkia aztertzen ari garen ugaritasunezko -tza / -tze izan liteke (Larratze, Larratzea aurkitzen ditugu Nafarroako beste toki batzuetan, baina gure eskualdean beti Larraza dugu, Larratza alegia, bukaerako -a horrek artikulua irudi duela, hau segurua ez den arren), baina garbi dago larratza-k lurtsail bakarra izendatzen duela, ez lurtsail

445 Euntze-ren iparraldeko muga, dirudienez, Ultzama ("el prado llamado eunceandia", dokumentatzen da 1582an, PRA-Ihaben, 1. k.), Larraun eta Arakilgo Murginduetan jarri beharra dago (Echaide, EENEL, 102. or.). Hemendik beheiti, ordea, gure eskualderaino (hau barne) iristen da, zenbait tokitan behintzat larre-ren aldamenen ageri delarik. Nafarroako mendebaldean, Estellerriko zenbait haranetan, eutze, eutza, euntza aldaerak genituela dirudi. Cf. Lukingo 1621eko "prado de euçecabala" (PRA-Arroitx, 9.k.), Barbaringo 1627ko "prados de euçeta" (id., 12.k.), Ekalako 1710eko euzagaina (PRA-Artabia, 20.k.), eta San Martingo 1696 eta 1703ko Eu(n)zagaina (id. 16. eta 18. karpetak).

446 AV, 120. or.

mordo bat, eta beraz baliteke izen honetan **aldatz** 'aldapa'-n edo **Zareko Bidatza**-n aurkitzen dugun atzizki bera izatea. Izan ere, **bidatza** izen arrunta zen, eta bide bakarra adierazten zuela dirudi (ikus **Zare**).

**Zabaltza**: behin bakarrik ediren dugu, aski modu nahasian, eta ez da segurua.

### Galipentzu:

**Ardantzeandia**: hemen **ardantze** izena (ikus **Ageza**) eta **handia** izenondoa ditugu, bistan denez.

**Aristuzia**: hau Uxuen agertzen den **Aristuziaga** dermio bera da, Galipentzuko aldakian **-aga** bukaera azaltzen ez bada ere (ikus Galipentzuko toponimia aztertzean **Aristuzia**-n dioguna eta **-aga** berrekailuari eskaini ataleko Uxueko **Aristuziaga** sarrera).

**Gisutzea**: toponimo honen osagai gardenak **gisu** 'kare' izena eta **-tzea** atzizkia dira. Oinarriaren esanahiari buruz, ikus Galipentzuko bereko **Kisueta**, **-eta** atzizkiari eskaini diogun atalean.

**Gisutzea** / **Kisueta**-n ageri den ahostun / ahoskabe bikoiztasun hau, Mitxelenaren arabera<sup>447</sup> hizkuntzan **bekatu** / **pekatu** bezalako pareak izateari zor zaio, alegia, honelako bikoteek hizkuntzan justifikazio etimologikorik ez duten hasierako herskari ahoskabeak agertarazi dituzte, etimologikoki zuzenak diren ahostundunen ondoan. Hau da, izan ere, zaharragoa den **gisu**-ren aldamenen **kisu** aldaera aurkitzearen arrazoia.

**Lezkatztea**: **lezka** landare-izena (ikus **-dui** atzizkiari eskaini atalean Eslabako **Lezkadiu** toponimoa aztertzean dioguna) eta **-tze** atzizkia ditugu hemen.

**Otazeatze**: toponimo hau behin bakarrik ediren dugu, eta ez oso modu argian. Ezer segururik ezin esan badaiteke ere, oinarrian **ota-** (< **ote**) landare-izena izanenezake (cf. Eslaba eta Agezan izen arrunt gisa erabiltzen den **otabera**), eta aztergai dugun atzizkia errepikatua, errorez agian.

**Tipulatzea**: ikus Agezako **Tipulatzea**.

### Leatxe:

**Buztintzea**: **buztin** 'arcilla', 'buro' izena, eta **-tzea** atzizkia dugu Ezporogiko **Buztintza**-ren baliakide eta jatorrikide den honetan.

**Gai(t)ze**: behin bakarrik dokumentatu dugu, eta neke da bere jatorriaz deus esaten. Agian **gatz** izenarekin lotu behar genuke (cf. **Salinas** erdaldunen ordain euskaldun diren **Getze** eta **Jaitz**), baina guzti hau iluna da guretzat.

**Korteko euntzea**: **korte** 'gorte', 'korrale' izena, leku-denborazko genitiboaren **-ko** morfema singularra, eta **euntzea** 'larrea' (ikus Agezako **Euntzeberri**) ditugu hemen.

**Sorgineuntzea**; **Sorginen euntzea**: **sorgin** izen ezaguna eta **euntzea** (ikus Ageza) ditugu lehen aldaeran, eta izen horiek eta genitiboaren pluraleko morfema den **-en** bigarrean.

**Zalduko euntzea**: **zaldu** 'soto' ('euntze', 'larre' ere bai, ordea, eskualde batean. Ikus Agezako **Euntzeberri**) ezaguna, leku-denborazko genitiboaren singularreko hondarkia den **-ko**, eta **euntzea** ditugu hemen.

### Lerga:

**Areatzea**: ikus Eslaba.

<sup>447</sup> FHV, 240. or.

**Euntzeberri, Euntzezar, Euntzeguti:** euntze 'larre' izena eta berri, zahar eta guti 'txiki' izenondoak ditugu hiru toponimo hauetan.

**Moriones:**

**Ardantzexarra:** ardantze izena eta elkartuaren bigarren osagaien azaldu ohi den -xarra 'zaharra' izenondoak ditugu hemen.

**Beltzuntzea:** Mitxelenaren iritziz<sup>448</sup> beltz izenondoak dugu, eta (g)une-ren eratorria bide den -untzea (-un + -tzea?). Ikus Moriones.

**Tipulatzea:** ikus Ageza.

**Txindilatzea:** txindila 'dilista' izena eta -tzea atzizkia ditugu 'txindilerria', 'txindilsoroa' adiera duen toponimo honetan.

**Uxue:**

**Areatzeta:** Eslaba, Ezporogi eta Lergan aurkitzen dugun Areatze 'hareadui' izena eta -eta atzizkia dugu hemen.

**Arritzea:** harri izena eta -tzea berrekailua ditugu toponimo honetan. Uxueko bereko Ardui 'harridi'-ren adierakidea da.

**Artatzea:** ikus Eslabako izen bereko sarrera.

**Beltranlarratza:** hemen Beltran antroponimoa dugu, eta larratz(a) izen ezaguna (ikus Ezporogiko Larratza sarreran dioguna).

**Itzaga:** ikus -aga bukaerari eskaini diogun atalean toki-izen honetaz esandakoa.

**Larratzandia:** Beltranlarratza toponimoaren larratz(a) bera eta handia izenondoak ditugu hemen.

**Larziaga:** ikus -aga berrekailuari eskainitako atalean honetaz dioguna.

**Lauzatzea:** lauza 'hartzabala' izenez eta -tzea atzizkiak osatua dago.

**Zare:**

**Larrazas (de Iribarren, de Irigoien):** Ezporogiko Larratza toponimoaren plural erdalduna da (ikus sarrera hau, Uxueko Beltranlarratza eta Zareko bereko Bidatza, azken hau -as / -az, -es / -ez...eta besteri eskainitako atalean).

**Zaldunardantzea:** zaldun 'aitonen seme' eta ardantzea (ikus Agezako izen bereko sarrera) ditugu toponimo polit honetan.

## 7. DERMIO BATEN ZATIKETA

Euskal toponimian oso arrunta da dermio bat -aitzina, -gibela, -goiena, -barrrena... eta antzeko izenez jarraitua aurkitzea. Honen arrazoi garbia alderdi ber baten barruko eremu ezberdinak bereizteko beharra da, usu askotan dermioak zabalak baitira, edo dermio txikia izanik ere poblazio-gune baten (baserri, auzo edo herri baten) ondoan egotean bereizteko behar gorria baitago. Gure ustez, dermioaren nolakoa ere zatiketa errazten edo oztopatzen duen faktorea da, alderdi menditsueta beti eskualde lauetan baino toponimo gehiago egoten delako, bai eta, honekin batera, toponimo horiei laguntzen dieten izen (posposizio) gehiago ere<sup>449</sup>.

Uxuen, kasu, askoz toponimo gehiago aurkitzen ditugu herri ondoko bi sakanetan (Aldabea-etan) hemendik kanpo baino, eta gure alderdiko beste herrietan eta Nafarroako beste eskualdeetan ere beste horrenbeste gertatzen dela uste dugu, baserririk ez dagoenetan behinik behin. Halaber, toponimo gehiago edireten ditugu despoblaturak egon diren La Sierra aldean honelakorik izan ez den Lerga, Epai, Eslaba eta Galipentzuko mugetan baino. Hemen dena den, bada aintzakotzat hartzeko hirugarren faktore bat: luraren jabegoa, alegia, herri-lurak diren edo jabego pribatuak, honek ere eragina izan baitu maiz.

Lehen bereizketa herrian bertan burutzen zen, arestian esan bezala, leku txiki samar baten alderdi ezberdinak adierazteko zegoen premia gorriarengatik. Izan ere, gure eskualdeko herrietan etxe mordoxka zegoen, eta hauek autonomiarik ez zuten<sup>450</sup>, are

449 Orohar honela gertatzen da, eta toponimo gehiago edireten ditugu Iruñerrian, adibidez, Olibaldean baino. Halaz ere, Tutererriaren moduko eskualde lau batean erregadioak toponimia izugarri aberatsa sortarazi du zenbait herritan, eta beraz orografiak toponimoen ugaritasun edo urritasunaren errudun ohi den arren, bestelako faktoreak ere hartu behar dira aintzat.

450 Gure eskualdearekin mugatzen duten Ibargoiti eta Urraulbeitin, eta Nafarroan iparralderago dauden haran guztietan gertatzen denaz bestalde, gure etxeek ez dute aparteko izenik, nahiz eta batzuetan, etxea zerbaitengatik berezia bada, izena baduen (cf. *Etxeandiet*a edo *Dorreberria* Uxuen).

Gure alderdiko etxeen izenak antroponimoak izaten dira (izen, deitura edo izengainekoa), eta ez dute inoiz aipaturiko Nafarroako beste alderdi horietan duen genitiboaren edo leku-genitiboaren morfema atzean. Leatxen, hala ere, San Juan de Jerusalem Ordenak zuen etxeari *Ordenakoa* edo *Ordenekoa* esaten zitzaion, eta *Zarkume* izena edo, hobe esan, izengoitia zuen baten etxeari *Casa de Zarkume* edo *Casa de Zarkumerena* deitzen zioten.

Ibargoitiko herrietan honako etxe izen hauek ditugu, besteak beste: *Izkon Ayzperena* (PRA-Kaseda, 6. k., 1692), *Aispe* (id., 13. k.1706), *Ansorena* (PRA-Oibar, 74. k., 1786), *Arozarena* (PRA-Kaseda, 26. k., 1774), *Abintzaon Meozena* (PRA-Oibar, 56. k., 1748), *Olcozena* (id., 75. k., 1788), eta *Zabaltzan Biurrun* edo *Biurrunena* (PRA-San Martin, 1760) eta *Loperena* (id., 45. k., 1760).

beharrezkoago bilakatzen zen **hiria** auzotan eta karrikatan banatzea eta bereiztea<sup>451</sup>. Hemen, partiketa hori batez ere **-goien(a)**, **-arte(a)** eta **-barren(a)** posposizioak (gehiago ere badira, baina hauek dira inportanteenak)<sup>452</sup> itsatsiz lortzen zen, herriaren goiko, erdiko eta beheko auzuneak izendatzeko<sup>453</sup>.

Gai honetaz ari garela gogoratu behar dugu herri gehienak toki estrategiko aldapatsuetan daudela eraikiak, eta (ia) beti izaten dela goiko alde bat (eliza, gaztelua eta hilerria ohi daude bertan), tarteko bat, eta beheko bat. Honela bada, euskara berandu

Urraulbeitin, Tabarren, **Arguingorria** (PRA-Oibar, 51. k., 1737) eta **Arguiñarena** (id., 120. k., 1848) ditugu, Atripodasen **Fernadorena** (PRA-Irunberri, 2. k., 1706), eta Geretzen **Sastrearena** (id., 3. k., 1706).

Orba ibarrean dirudienek gauzak nahasiago zeuden: bailara honetako Oletan, adibidez, ez dugu bat ere etxe izenik aurkitu ahal izan; Leotzen, aldiz, hiru opatu ditugu: **Apezarrena** (PRA-Oibar, 117. k., 1844), **Miguelena** (id., 103. k., 1830) eta **Pieresena** (id., 23. k., 1634). Guztiarekin ere, aitortu behar dugu ibar hau ez dugula gehiegi aztertu, eta gauzak zehazki nola diren ez dakigula.

Nolanahi ere, gai hau oso interesgarri iruditzen zaigu, eta azterketa sakonago baten behar dagoela uste dugu. Halaber, interesgarria litzateke arrazoiak bilatzen saiatzea, alegia, etxeek izena izatea edo ez izatea zeri zor dakioken ikertzea. Agian, eta hipotesi moduan diogu, etxeen "autonomia"-ren ondorio izan liteke, hots, etxe batetik bestera dagoen tartearen ondorio, zeren gure eskualdean etxeak elkargainka dauden bitartean, Ibargoiti eta Urraul (eta Nafarroako beste alderdietan ere berdin), bereizago, elkarrengandik aparteago daudela dirudi, hau ere, batzuetan, erlatiboa den arren.

451 Auzo banaketan garbi ikusten da lehen hiri hitzak 'herri' adiera zuela, 'hiri, villa' ezezik. Erabilera hau bizirik egon da oraintsu desagertu den ertronkarieraz. Estornés Lasak bere *Ertronkariko uskara* liburu polita (Añamendi, Donostia, 1968) bailarako euskaldunei eskaintzen die, honela:

"Simona Anaut Andréarri eta Ertronkari'ko Irietan Uskáraren árima sálbatu deinér eta oraino uskaraz ele-erraitan dein gizon-emazte guzuer eskeintan dabéi libro kau gogo onez"

Jarraian egiten duen itzulpenean letra larriz markatutako adizlaguna "en los pueblos del Valle" iraultzen du gaztelaniara, iri-ri 'pueblo' adiera emanez.

Berrikiago Fidela Bernart Uztarroztarra honela mintzo zen:

"Bai, badiezu hogeita...hoitairor edo laur urte ni naguela keben (Iruñean). Xoaitan gitun hidiara...en el verano; xoaitan gitun hidiara, bai" (*Nafarroako euskaldunen mintzoak*, Euskalerria Itratia-Matías Múgica, Nafarroako Gobernuak argitaratutako lana, Iruñea, 1990, 87. or.).

452 Hiri-rekin azaltzen diren beste elementu batzuk hauek dira: **buru** (Iriburu), **garai** (Irigarai, ikus behehixego), **gibel** (Irigibel, Aizkorben); **ondo** (Iriondo; ikus Leatxe), **zabal** (Irizabal, Arakil-Ekain, kasu), **-aga** atzizkia (**Iriaga**, **Idiaga**, Aizkorben)...

453 Juan de Beriaynek **hiria** 'pueblo' adieran erabiltzen du, baina guk euskaraz **herria** 'populua' esango genukeena esateko:

"Eliza sanduac guri adicera emateagatic cembat deuociorequi, eta erreuerenciarequi, eta cer viotzeco garuitazunarequi bear duen Sacerdoteac erran, eta hyriac ençun, escacendio laun goycari (sic)..."

Gaztelaniaz honela dio:

"...con que pureza de coraçon deue el Sacerdote dezir, y el pueblo oyr, el Santo Euangelio pide a Dios..."

(TCOM, 53 eta 47. orr., hurrenez hurren).

Ez beti, halaz ere:

"Andic denbora auzin passatu eta etorriciraden lagunac, hiricoec ('herrikoek', alegia) ycuscitusten bezala erran cioten..." (TCOM, 114. or.).

Gavelek hiri-k antzina latineko **villa**-ren adiera zuela uste du:

"...*hiri* ou *iri*, mot qui veut dire aujourd'hui «ville» ou «bourg», mais devait signifier anciennement la même chose que le latin *villa*, c'est-à-dire «propriété rurale de quelque importance», et aura passé, à une époque relativement moderne, sous l'effet de causes identiques, par les mêmes changements de sens que ses équivalents romans *villa*, *vielle* ou *viale* et *ville*".

Oinohar batean zenbait herritan etxe batzuek **hiri** osagaia dutela dio, etxe-multzoan duten kokagunearn arabera:

"...on a fait remarquer que dans certains villages, tels que Lichans, plusieurs noms de maisons comportant l'élément *hiri* semblent se rapporter à la situation qu'elles occupent dans l'agglomération"

Dena den, hau halabeharren fruitu izan daitekeela dio, etxeek bertako lehen biztanleen famili-izena har zezaketelako:

"Mais peut-être n'y a-t-il là qu'une simple coïncidence, ces maisons ayant pu, comme il arrive souvent au pays basque, recevoir et garder le nom de famille de leurs premiers habitants" (EPB, 58. or.).

arte mintzatu den gure eskualdeko herrietan behintzat **Irigoi**(a), **Iriarte**(a) eta **Iribarren**(a) zatiketa egiten zen, Nafarroako beste eskualdeetan (eskualde askotan bederen) bezala, erdaraz **Barrio alto** edo **Barrio de arriba**, **Barrio de medio**(s), eta **Barrio bajo** edo **Barrio de abajo** esaten zena aditzera emateko.

Guztiarekin ere, herri guztietan ez ditugu hiruak aurkitu, gutxienez ez euskal itxuraz, baina herri batean bat edo bi agertzea herri horretan azaldu dugun auzo partiketa bazela ziurtatu ahal izateko nahikoa dela uste dugu, honetan herriaren taimainak eta "aldapatasuna"-k ere eragina bazuten ere. Adibidez, Eslaban, **Irigoi**ena eta **Iriarte**en besterik ez dugu aurkitu euskaraz, baina hau aski dugu \***Iribarrena** bat ere bazela seguru egoteko, batez ere horien aldamenean **Barrio bajo** eta **Barrio de abajo** edireten dugulako.

Aipatu ditugun hiru posposizio horiek (-**goi**ena / -**arte**a / -**barrena**) herriaren hiru alderdi nagusiak izendatzeko erabiltzeaz landa, beste izen (posposizio nahiz generiko) mordoxka batekin batera, dermio zabal baten alde ezberdinak adierazteko ere ibiltzen dira. Hiruak toponimo ber bati erantsita gutxitan ediren ditugu hor barna, eta gure eskualdean sekulan ez, herrietan ez bada. Alabaina, honek ez du esan nahi hiruak batera erabiltzen ez zirela (edo ez direla), dokumentazioan hiruak toponimo berari itsatsirik ediren ez ditugula baizik.

Exenplutako, Eslaban **Gezari** toponimoa dugu, eta honekin batera dermio beraren alderdi ezberdinak adierazten duten **Gezarigoiena** / **Gezari** arriba eta **Gezaribarrena** / **Gezari** abajo<sup>454</sup>, besteak beste. Agezan ordea, **Gezari** alto, **Gezari** bajo eta **Gezari** medio ditugu, eta euskarazko ordainak ez baditugu ere, pentsatzekoa da bazela \***Gezariarte**-ren moduko bat, bereziki Eslaban **Gezarigoiena** eta **Gezaribarrena** ditugula ikusita.

Hiru posposizio hauek gehienetan aldapan dauden dermioetan aurkitzen ditugu, "aldapatasuna" batetik bestera asko aldatzen bada ere.

Caro Barojaren arabera -**goi**ena 'gaina', 'gailurra' da, baina gure alderdiko toponimian garbi ikusten da eritzi hau okerra dela, -**goi**ena aipatu adiera horietatik garbi bereizten delako (ikus -**gaina**). Honela dio autore honek:

"«Goyen» vale tanto como alto, cima, eminencia, y se halla componiendo muchos nombres conocidos como «Irigoyen» (opuesto a «Iribarren»), «Echegoyen» (opuesto a «Echabarren») etc."<sup>455</sup>

Lan berean, oinohar batean Mitxelenak 'parte superior'-tzat hartzen duela dio, eta gure alderdiko toponimian bederen<sup>456</sup> horrela dela garbi dago, gorago esan moduan.

454 **Barrena**-k (gure eskualdeko) toponimian beheko alderdia adierazi ohi du, ez hizkera arruntean bezala barnekoa, barrukoa. **Urbasa**-n, ordea, azken adiera hau dauka, Satrustegiren arabera ("Planteamiento general de la etnografía de Urbasa", 57. or.):

"**Barren** se refiere al campo central o zona interior de un paraje: *Saibarren*, *Bardoitza barrena*".

**Goiena** ikerle beronek dioenez mendi gorak izendatzeko erabili ohi zen:

"Las características de un terreno montuoso como el que nos ocupa (**Urbasa**) ofrece el panorama de cotas relativamente altas y máximas, extremo que llega a reflejarse en la toponimia: *Maldarrietako goiena*, *Mendiribeletako goiene*, ambas referencias registradas en Zudaire" (57. or.).

455 HGPV, 169. or.

456 Neke da eskualde bateko toponimiaren azterketan oinarrituta atera daitezkeen ondorioak Euskal Herri osora zabaltzea, baina egia da, gure eskualdeko toponimia, Iruñerria bitartekoa, Iruñerrikoa eta are

-**Artea**-ren formari dagokionez, gure eskualdean Nafarroako beste eskualde batzuetan bezala maiz **-arte**a itxuraz edireten dugu, **-arte**a-**rek**iko txandaketan eta garai beretsuan<sup>457</sup>. Inoiz edo behin, gainera, **-orte**a ere dokumentatzen da, baina forma hau oso berandu azaltzen da, eta euskararen galtzearen ondorengo desitxuraketa dela garbi dago.

-**Barrena**, beste alde, bere horretan ediren dugu Zareko **Bidazparrena**-z beste kasu guztietan. **-Goiena**-z den bezainbatez, gure eskualdean ez dugu txistukari ondoko **\*-koiena**-ren lekukorik. Bi posposizio hauek sarri aurkitzen ditugun **-burua**, **-gaina** eta **-pea**-tik bereizi behar ditugu, kontzeptu ezberdinak bideratzen dituztelako, aurrerago ikusiko denez.

Orain **-goiena**, **-arte**a eta **-barrena**-rekin batera azaldu ohi diren (denak batera azaltzea oso zaila da, halaz ere) beste posposizio batzuk aztertzeraz igaroko gara:

#### **-Agerria:**

Posposizio honekin batzuetan oinarriak adierazten duen alderdi aldera ematen duen eremua adierazten da: **Iparragerria**, adibidez, iparrera ematen duen mendisuria da, eta **Iguzkiagerria** aldiz hegoaldera ematen duena, norabidea ere alda daitekeen arren, hein batez. Honelakoetan, erdarazko **cara**-ren baliokidea da (**Carasol**, **Caracierzo**)<sup>458</sup>.

Beste batzuetan, ordea, esanahia zertxobait aldatzen dela dirudi. Adibidez Agezako **Gezariagerria**-ren bitartez **Gezari** aurreneko aldiz ikusten den **El Saso** edo **Zazua**-ko alderdi bat adierazten zela irudi du<sup>459</sup>.

#### **-Aizina / -gibela:**

-**Aizina** izena **Leatxeko Etxateazina** eta **Lergako Indusialzina** toponimoetan baizik ez dugu aurkitu, eta seguritatez esan daiteke kontrako duen **-gibela** baina askoz gutxiago azaltzen dela, ez arrazoirik gabe, ordea, aurrerago ikusiko den moduan.

Formari dagokionez, **-aizina** eta **-alzina** edireten ditugu garai berean toponimo berari erantsita, eta beraz badirudi bikoiztasuna zegoela bai **Leatxen** eta bai herri honetatik urrunxko dagoen **Lergan**. Afrikatzearen frogarik ez dugu, baina esan denez (ikus **Grafia kontuak atala**), **c**, **ç** eta **z** grafemen bidez sarri hortz-hobietako afrikatua ematen

---

Nafarroako beste eskualde batzuetakoa elkarren oso antzekoak direla, aldeak alde, eta posposizioen alorrean baterako balio duenak besteetarako ere balio dezakeela.

457 Iruñerrian ere **-arte**a / **-erte**a txandakatzera edireten dugu: **Arданzerte**a edo **Arданze** **erte**a dugu Atondon eta Saratsan, azken herri honetan **Arданze** **arte**a-rekin batera; **Bargaerte**a Eritzen, **Camiovide** **erte**a Atondon; **Erreca** **erte**a edo **Errecarte**a Otxobin...(TCPCI, 116, 316, 150, 124, eta 265. orrialdeak, hurrenez hurren).

**Ertea**, Mitxelena dioenez (FHV, 69-70. orr.) goi-nafarreraz erabiltzen da, eta indukzioz azaldu beharra dago:

"Muchos ejemplos de permutación de vocales, en especial los de *a* con *e*, son debidos a fenómenos de inducción, tanto de asimilación como de desasimilación, producidos por las vocales próximas".

458 Lehen adiera honetan **hegia**-ren (cf. **Opakoegia**, **Opakuegia** 'iparragerria', 'opakua') eta **aldea**-ren (cf. **eguzkialdea** 'egutera') esanahikidea da.

459 Itza zendeko Otxobi herrian **San Miguelagarra** edo **San Miguelagarro** toponimoa bildu du Jimeno Juriok (TCPCI, 277. orr.). Autore honek dioenez, aurrez aurre Aralarko San Migel duen Otxobiko mendia dugu hau, eta beraz ez da zaila asmatzen aurreko **\*Sanmigelagerri**, **\*Sanmigelagirre** edo **\*Sanmigela-gerru** batetik atera dela, herri-etimologiaz.



da ezagutzera, igurzkaria ezeze, eta Oibar aldean ere afrikatadun aldaera izan genezake. Hau, alabaina, ez da inolaz ere segurua, Elkanoko Lizarragak adibidez beti *alzina* 'aurrera', *alzinean*, *alzinetik*, *alzineko* (*alcinéco*), *alzinaldea* (*alcináldea*), *alcinatu*... erabiltzen baitu<sup>460</sup>, eta gure alderdian antzeko zerbait agitzen zela suposa daiteke. Juan de Beriaynek, ordea, *aurrean* ibiltzen du eskuarki, baina behin edo beste *aitzina* (*aytzina*) 'aurrera' ere bai<sup>461</sup>.

**-Gibel**, beste aldetik, **-aizina** baino askoz arruntagoa da gure alderdiko toponimian, eta txistukari baten ondoan noiz edo noiz hasieran herskari ahoskabea duen forma azaltzen denagatik, normalena herskari ahostuna duen aldakia aurkitzea da, baita txistukari ondoan ere (cf. *Abaizgibel* edo *Larruzgibel* Eslaban)<sup>462</sup>.

Orain, posposizio hauetako bakoitzaren maiztasunaren arrazoiak aztertzea igaroaz, derragun erreferentzi-puntutzat beti herria hartzen dela, hiztuna bizi den lekua, eta horregatik, toponimo bat aipatzen denean, herritik ikusten dena, edo hobe esan, herri aldera ematen duen alderdia adierazi nahi izaten da, hots, delako dermio horren aurrekalde edo aitzinaldea. Alferrrikakotzat jo izan da, gutiz gehienetan, toponimoa **-aizina** posposizioaz hornitzea, aitzinalde hori aditzera emateko aipaturiko toponimo soila ibiltzea aski baita.

Atzeko aldea, gibelaldea izendatzeko aldiz, ezinbestekoa izan da beti toponimoari **-gibela** itsastea, bestela nahasketa sor zitekeelako. Eslaban, adibidez, *Artadualdea*, *Artadubarrena*, *Artaduburua*, *Artadugibela* eta *Artaduondoa* aurkitzen ditugu *Artadua* dermioaren zati ezberdinak aditzera emateko, baina ez dugu sekulan edireten **\*Artaduaizina**-ren gisakorik, hau izendatzeko *Artadua* aski baitzen, itxuraz.

#### Aldapa:

*Aldapa* sarritan oinarriari zuzenki lotua agertzen da: **Burlonaldapa**, **Mu-rualdapa** (Lerga), **Santamarinaldapa** (Ageza). Beste toponimo batzuetan beti leku-denborazko genitiboaren laguntzaz burutzen da oinarriaren eta *aldapa*-ren arteko lotura: **Buztineko aldapa** (Lerga), **Errotaberriko aldapa** (Galipentzu), **Santakrizko aldapa** (Eslaba). Hirugarren sail batean, azkenez, zuzenean nahiz **-ko**-ren laguntzaz lotzen direnak ditugu: **Aranaldapa** / **Araneko aldapa**, **Indusialdapa** / **Indusiko aldapa**, **Iturrotzaldapa** / **Iturrozko aldapa** (Lerga).

Esanahiari dagokionez, garbi dago *aldapa* erdarazko *cuesta* edo *costera*-ren adierakidea dela: **Santamarinaldapa** / **Cuesta de Santa Marina**, **Costera de Santa Marina** (Ageza); **Santakrizko aldapa** / **Cuesta de Santa Criz** (Eslaba). Hortaz saihetsaren baliakidea (neurri batez behintzat) ere badela ondorioztatu beharko dugu.

#### Aldea:

A. Irigoyenen ustez, **alde** eta honen aldaera den **aldai** latin bulgarreko **\*altana**-tik atera dira:

<sup>460</sup> Hauekin batera *atzétic* eta *atzerat* ibiltzen du.

<sup>461</sup> *Aitzin*-en banaketa geografikoaz ikus *Mitxelaren* OEH-ko *Aitzin* sarrera.

<sup>462</sup> *Interesgarria* litzateke *aitzina* / *aurrea* eta *gibela* / *atzea*, *ostea*...eta besteren banaketa geografikoa ikusi eta hizkera arruntean ibiltzen diren aldaeren hedadurarekin erkatzea.

“de la misma manera que *alde*, ‘lado’, con variante residual *aldai*, y *alden*- en *aldendu*, ‘separarse, marchar’, procede del latín vulgar a partir de *\*altana*, derivado de *altus*, *-a-*, *-um*, adquiriendo el sentido general de ‘costado’, cfr. vizc. *aldean*, ‘a cuestras’, como *soimean*”<sup>463</sup>

Gure irudiko, **aldea** zenbaitetan ‘aldaia’, ‘aldapa’, ‘aldatsa’ izan daiteke (Aldea herri izenean, kasu), baina neke da onartzen hau latineko *\*altana*-tik atera dela (ikus Ezporogiko **Aldaiondoa** sarreran dioguna). Posposizio gisa azaltzen deneko balioa hizkera arrunteko ‘alderdi’, ‘albo’, ‘aldamen’ da, baina halaz ere adiera berttua duen **ondoa**-tik bereizi behar bide da, oinarri berari erantsita alderdi bana adierazten baitute bi izenok (ikus **ondoa** azertzean dioguna).

**Aldea** gehienetan zuzen-zuzenean elkartzen zaio oinarriari: **Artadualdea** (Eslaba), **Astalorraldea** (Moriones), **Txirrialdea** (Eslaba)... baina behin edo beste *-(e)ko* leku-denborazko genitiboak lagundurik ere azaltzen da: **Erbiñako aldea**, **Labeko aldea** (Galipentzu). Azken hau, dena den, “labetto aldea”-tako ere har daiteke, *-ko* hori txiki-garrizat joaz, baina lehena oso argia da.

### Bazterra:

Izen hau erdal **esquina**-ren ordaina da: cf. Lergako **Errekinbazterra** / **Esquina de Errekina** bikotea. Gure alderdian guxtitan ediren dugu, beti lehen osagaiari zuzenean erantsia, bestetan azaltzen den leku-genitiboaren laguntzarik gabe, alegia: **Aranbazterra**, (Ageza, Lerga), **Itxudurbazterra** (Leatxe), **Txaparbazterra** (Moriones). Esanahiaz den bezainbatez, dermio baten ertza edo albo bat izendatzen duela dirudi, J. M. Satrústegui<sup>464</sup> dioen moduan:

“Indica la franja periférica o un extremo lateral del lugar de referencia: *Bidoiza bazterreko siets geina*, que más que toponimo resulta una completa descripción. *Elkebasterra* en las listas amescoanas. *Urbasako baztarra*”

**Bazterra** ez dugu sekulan **zokoa**-rekiko txandaketan aurkitu, eta bataren eta bestearen adierak ezberdinak direla dirudi. **Zokoa**-ren esanahiaz ikus aurrerago dioguna.

### -Bea, -pea:

Posposizio honek bi aldaki dauzka: kontsonante ahostuna duena (**be**), eta kontsonante ahoskabea duena (**pe**). Hau batzuetan ingurune fonikoak inposaturikoa bada ere (Uxuen, esate baterako, **Aizpeaga** < (h)aitz + **be** + **-aga**), beste batzuetan berezko gauza da (**Ezpondabe** Eslaban / **Ezpondapea** Morionesen), eta beraz posposizio honek bi aldaera libre (arestian aipatu direnak) dituela esan dezakegu.

Bi aldaera horiek ez daude geografikoki banatuak; Uxuen esaterako biak ditugu: **Aldabea**, **Buzakabe**, **Drindabe**, baina **Morape**<sup>465</sup>. Eslaban ere aldaera ahoskabe-dun eta ahostuna aurkitu ditugu: **Bidapea** baina **Ezpondabe**. Gainontzeko herrietan, berriz, beti herskari ahoskabea duen aldaera azaltzen da<sup>466</sup>: **Zerradopea** (Lerga), **Guruzepea** (Ageza), **Etxepea** (Zare), **Elizapea** (Ezporogi), **Alorrandipea** (Leatxe).

463 “Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica”, 202. or., ETTVC.

464 “Planteamiento general...”, 57. or.

465 Leku-izen hau, dena den, ez da oso adibide ona. Ikus Uxueko **Morape** eta **Moratea** sarreretan dioguna.

466 Antza denez, kronologikoki lehena **behe** da; gero, eta txistukari ondoko kokapenaren ondorioz, honen aldaera hutsa den **pe** orokortuko zen eta noranahiko egin.

**-Bea, -pea-k** 'azpia' adiera du, eta sarritan **gaina**-ri kontrajartzen zaio, baina ez beti, azken honek beste balio bat ere izan dezakeelako, aurrerago ikusiko denez. Hor-taz, **Ezpondabe** edo **Ezpondapea** 'ezpondaren azpia' da, **Bidapea** 'bidearen azpiko aldea', **Zarebidegaña** (Moriones), edo **Oibarbidegaña** (Leatxe) **Zarebidea** eta **Oibarbi-dea**-ren (hots, Zareko eta Oibarko bideen) gaineko aldea diren bezala. Garbi dago, horrenbestez, **-pea** eta **-barrena** diferenteak direla, lehenak zerbaiten azpia adierazten duen bitartean, bigarrenak dermio baten behereneko alderdia izendatzen baitu.

### Berokia:

Izen honek 'babes-lekua', 'toki beroa', 'soingainekoa' adierak ditu Mitxe-lenaren arabera<sup>467</sup> hizkera arruntean, eta lehen bi horiek dira toponimian ere ohi ditue-nak. Hizkuntzalari errenteriarrek **berogi** aldaera ere biltzen du, baina gure alderdian bederen **berokia** da forma bakarra. Noizean noiz leku-denborazko genitiboaren bidez lotzen zaio oinarriari (cf. **Txutxuko berokia** Lergan), baina ohizkoa zuzeneko lotura da (cf. **Txutxuberokia**, **Jaundonepetriberokia**...Lergan).

**Berokia**-k eskuarki oinarrian aipatzen den alderdiko toki babestua, toki beroa adierazten du<sup>468</sup>, eta erdarazko **abrigo**-ren kide dela garbi dago (cf. Lergako **Txu-txuberokia**, **Txutxuko berokia** / **Abrigo de Txutxu**).

### Bidea:

Honek arrunki oinarriak ezagutzera ematen duen tokirako kamioa edo xenda adierazten du, baina Zaren dermio baten barruko bide ezagun baten zatia ere eman deza-ke aditzera, erdaraz behinik behin. Adibidez, **Camino de Kiñueta Camino bajo de Ca-seda** delakoaren **Kiñueta**-ren barruko zatia dugu, eta **Camino de Dolareta** berriz bide beraren **Dolareta**-ren barneko puska<sup>469</sup>.

**Bidea** gure eskualdean ia beti oinarriari zuzenean lotua ediren dugu: **Abaizbi-dea** (Eslaba), **Agezabidea** (Moriones), **Galipentzubidea** (Zare), **Pelaubidea** (Leatxe)...baina bi aldiz leku-denborazko genitiboaren laguntasunean ere agertzen da: **Errotaz-zarreko bidea** (Eslaban, **Errotazarbidea**-rekin batera), eta **Usuñetako bidea** (Leatxe).

Nafarroan barrena, dokumentazioan, arruntena oinarria eta **bidea** zuzenean itsatsiak aurkitzea dela egingo genuke, leku-denborazko genitiboaren eta adlatiboaren morfema duten toponimoak ere sarri agertzen diren arren (cf., azken hauen artean, Gal-lar-Ezkirozko **Mutiloabidea** eta **Mutiloara bidea**<sup>470</sup>). Adlatiboaren morfema duten toponimoak gutxituz doazela irudi du, bai eta, hauekin batera, zuzenean loturik daudenak, gure egunotako joera **-ko** erabiltzea delarik.

467 OEH.

468 Txomin Peillenek honen adierakidea den **Bellope** 'berope' biltzen du Zuberoan ("Andoze ibarreko leku izenak", 96. or.). Honela dio autore honek:

"Etxaldearen erditan *Bellopéko erreka* pasatzen da (Bellope: berope, leku babestuei esan ohi zaiete Zuberoan, beste *Bellope* bat badago Santa Grazin)".

469 Guztiarekin ere, ez da gaitz izanen zati guztiei **Camino bajo de Caseda** izena ematen dien hiztunik aurkitzen, Zareko bereko erreguen izenekin agitzen den moldean. Azken kasu honetan hiztun batzuek deizio bakarra erabiltzen duen bitartean, beste batzuek dermioan dermioko izena ibili ohi dute urbidea adierazteko.

470 Jimeno Jurío, TCPCG, 229. or.

**Bidea**-ren hasierako herskariari dagokionez, kasu batean ez beste guztietan aldaera ahostuna agertzen da, baita txistukari ahoskabe ondoan ere (cf. Irangoteko **Usunbelzbidea**<sup>471</sup>). Salbuespena Zareko 1602ko **Armillaspidea**<sup>472</sup> da, baina toponimo honetan ere arruntena herskari ahostuna dugu (ikus **Zare**).

#### Burua:

Txistukari atzean behin bakarrik azaltzen da, Leatxeko **Igarazburua** toponimoan, eta ikusten denez ahostuntasunari ongi eusten dio.

Gure alderdian garbi baino garbiago ageri da **burua** erdarazko **alto de, cabezo de, cabezal de...** eta antzekoen kidea dela, eta dermio bateko 'gaina', 'mendikoa', 'muinoa' adierazten duela, altuera batetik bestera dextente aldatzen den arren. Adibidez, Eslabako **Artaduburua**-k **Artadua** dermioko muino txikia adierazten zuen, eta Zareko **Auzalorburua**-k **Auzalorra** (**Campo de la Villa** egun) deitu eremuko muino orain desagertua (dena berdindu baitzuten, ardantzea landatu aitzinean). Alde honetatik **-gaina**-k zenbaitetan duen balio bera (ez **-pea** 'azpia'-ren kontrakoa) duela irudi du (alderik bai ote?).

Hortaz, oso garbi dago **-goiena**-k ez bezalako esanahia duela: Eslaban esaterako **Gezari abajo** (antzinako **Gezaribarrena**)-n dagoen **Alto de Gezari** izeneko muinoa (513 metro) dugu, eta segurua da hau dokumentazioko **Gezariburua** bera dela. **Gezarigoiena**-k, aldiz, dermio honen goreneko alderdia adierazten du, ez mendiko bat.

#### Erreka, erregua:

Gure alderdian **erreka**-k erdarazko 'barranco' adiera izan ohi du ('acequia' esanahia ere badu noizean noiz), eta hau baino ubide handiagoak aditzera eman behar direnean **erregua** aurkitzen dugu (río erdaraz), baina ez herri guztietan, ez eta generiko moduan ere. Dena den, **erreka** erdarazko río-ren baliakidea ere izan daiteke, Morionesko **Loiaerreka** (**Río de Loya** erdaraz) edo Ezporogiko **Baserrekandia** (**Río de la Magdalena** Morionesen, **Río Tejería** Zaren)-n adibidez. Alabaina, lehen kasuan normalena **Loiaerreka** da, eta bigarrenetan ikusten denez **erreka**-k **handia** izenondoa darama aldamenean (cf. **Erreka handia** 'Urumea' Goizuetan<sup>473</sup>).

**Erreka** eskuarki **-ko**-ren arartekotzaz lotzen zaio oinarriari: **Araneko erreka**, **Olibetako erreka** (**Ageza**), **Meazuko erreka** (**Galipentzu**)...baina morfemarik gabeko izen bat ere badugu, hain zuzen ere **Loiaerreka** 'río de Loya' gisa azaldu ohi zaigun **Loiaerreka**.

#### Gaina:

Izen hau bi modutara agertzen da: mugatzailerik ez badu ia beti **-gain** itxuraz aurkitzen dugu, eta artikulua lagunduta dagoenean **-gaña** formapean. Hau da arau orokorra, baina badira (arau gehienetan bezala) salbuespenak. Lehena mugatzailekun aldaerari dagokio: hau bi aldiz **-gayña** itxurapean ediren dugu, eta behin **-gaiña** bezala,

471 PRA-Oibar, 28. k.

472 Id., 10. k.

473 Honetaz TDI-n mintzo gara.

baina gure irudiko hau grafia kontu hutsa da, eta **-iña** edo **-yña-k** [ɲa] ordezkatzen dute<sup>474</sup>.

Beste aldetik, eta mugatzailerik gabeko formari buruz, gehienetan **-gain** agertzen bada ere behin **-gañ** aurkitu dugu, eta beste behin **-gan**. Azken hau oso berandu dokumentatzen da (1834ean), euskara galdu eta toponimoak itxuratxartzen aspaldian abiatuak zirenean, eta ez dugu uste euskarazko ebakeraren islatzaile denik. Beraz, eta laburtuz, eskualde honetako aldaerak **-gain** eta **-gaña** (< **-gain** + a) ohi dira. Hau berau da beste toki askotako goera.

Behin edo beste, txistukari ondoren, herskari ahoskabea duen aldakia ere aurkitzen dugu. Honelako bi kasu besterik ez dugu: **Larruzkain** eta honen eratorria den **Larruzkaingibel** (hondar hau aldi bakar batez dokumentatzen da), biak Eslaban. Gainera, **Larruzkain**-en ondoan herskari ahostuna duen **Laruzgayn** (1648)<sup>475</sup> aldaera ere ageri da, eta beraz txistukari ahoskabe ondoan ere herskari ahoskabea ezinbestekoa ez dela esan daiteke.

**-Bea**, **-pea** aztertzean esan denez, **gaina** batzuetan zerbaiten gaineko aldean dagoena da, eta aipatu **-bea**, **-pea** horren kontrakotzat jo behar da horrelakoetan. Beste zenbaitetan aldiz, erdarazko 'alto', 'pic'-en kidea da; Araban, adibidez, **Alto de Ganalto** tautologikoa dugu, eta Zuberoan **Beligaña** eta **Otsogorrigaña**, eta berdin beste herrialdeetan<sup>476</sup>. Lergako **Urkabegaña** ere modu horretara ulertu behar da, alegia, "urkabea, urka, dagoen gaina, mendia" gisa (cf. Uxueko eta bestetako **Urkamendia**). Eslaban **Ozteriz** dermioko 504 metroko mendikoari **Ozterizgaña** esatan zitzaion antzina eta **Alto de Ozteriz** orain.

Batzuetan **gaina-k** ohi dituen bi adierak nahasten bezala dira. Esaterako, Eslaban mendiko baten izena den **Boiugain** (hots, **boiu** 'pueyo' eta **gain**) genuen lehen, **Alto de Boiugain** orain. Hemen ikusten den bezala, muino bat dugu, baina beste aldetik dokumentatu ez dugun **\*Boiupea** bati ere kontrajar zekiokeen, **Boiuondoa** eta **Boiuarte**a baditugunez gero.

### Harana:

Izen hau gehienetan oinarriari zuzenean loturik edireten dugu: **Arrizutagara** (Eslaba), **Baltsarana** (Ezporogi), **Dorretarana** (Eslaba) **Lakuarana** (Galipentzu), **Leatxearana** (Moriones)... baina leku-denborazko genitiboaren laguntza duela ere agertzen da: **Garandako harana** (Galipentzu), **Zalduako haran handia** (Eslaba)... Beste batzuetan bi modutara azaltzen da: **Epaizaran** / **Epaizko harana** (Eslaba), **Lakuarana** / **Lakuko harana** (Galipentzu)...

Interesgarria da, **harana** aztertzerakoan, honen eta bere sinonimoa bide den **ibarra**-ren arteko berdintasun-desberdintasunak finkatzea, edo behintzat finkatzen saiatzea. Izan ere, gai honetaz arduratu diren autoreek ez dute argitasun handirik atera, eta bion arteko aldea agertarazten saiatu direnean ez dute asmatu. Julio Caro Baroja, adibidez, honela mintzo zaigu **haran** eta **ibar**-ez<sup>477</sup>:

474 Ikus Gure alderdiko euskara atalean dioguna.

475 PRA-Oibar, 25. k.

476 Ezin konta ahal adibide aipa litezke puntu honetan.

477 HGPV, 125. or.

“«Valle» en vascuence, «aran» o «ibar», parece ser entidad que está por encima, hasta cierto punto, de otras divisiones, como, por ejemplo, la navarra de «cendea»...”

Orri azpiko ohar batean bien arteko aldea zehazten saiatzen denean honela diosku:

“«aran» parece ser el valle de montaña ante todo: «ibar» parece un valle fluvial o vega mas frecuentemente. En Alava «ibarra» es voz que sale con frecuencia en escrituras de los siglos XVII, XVIII y XIX”

Gure ustez autore honek ez du asmatu, erreferentzi-puntutzat gure alderdiko toponimia hartzen badugu behintzat, Oibar aldean **haran**-ak bakarrik mendiko bailarak ez direlako. Aitzitik, toki zelai eta lauetan azaldu ohi dira (ez beti, jakina), erreka baten inguruko eremua adierazten dutelarik.

**Ibar**, beste alde, Galipentzun baizik ez da azaltzen, huts-hutsa (**Ibarra**), **zabala** lagun duela (**Ibarreko zabala**), edota, aski bitxia dirudiena, **harana**-rekin batera (**Ibarreko harana**). Kasu honetan **Ibarreko haranak** eta **Ibarreko zabala**-k **Ibarra**-ko erreka inguruko alderdia ematen dute aditzera, lehenak bailara, eta bigarrenak bailara horren zabalgunea.

Aintzakotzat Nafarroako bailaren izenak hartzen baditugu ere ez dirudi Caro Barojak proposatzen duen bereizketa egokia denik. Esaterako, **Bertizarana**-n bada erreka, **Esteribar**-en bezal-bezala, eta ez dugu uste lehen hori bigarren hau baino askoz menditsuagoa edo goragokoa denik. Egia da **Aranguren**-en erreka txar batzuk besterik ez dagoela, baina **Ibargoiti**-koak ere ez dira izugarri horietakoak. Azken bailara hau, bestalde, lehen hori baino gorago dago, izenak berak adierazten duenez, eta hortaz ez dugu uste Caro Barojaren aipatu ustea ontzat har daitekeenik.

Mitxelenaaren arabera, **haran** Iparraldeko tradizioan orokorra da (baina ez zuberoraz), eta Hegoaldeko literaturan adibide bakan batzuk besterik ez dugu, Azkue arte. Honen hiztegia argitaratzearekin ordea, ohizko bilakatu bide zen mugaz honaindian ere<sup>478</sup>.

Jose Maria Satrustegik argitara eman dituen Mitxelenaaren eskutitzen artean bada ohar-bilduma moduko bat<sup>479</sup>, eta bertan ikusten ahal den bezala, hizkuntzalari ospetsua zena **le(i)ze** eta **osin**-en arteko aldea zehazten ari delarik **haran** eta **ibar**-en arteko desberdintasunaz ere mintzo da, bidenabar:

“Casi seguramente, *le(i)ze* y *osin* no eran sinónimos (aún ahora, creo, cuando se habla de simas profundas *en el agua* no se emplea más que *osin* y Azkue añade, dato que no he podido confirmar, que *osin* es «mar» en Iciar). Del mismo modo que, aunque esto es más difícil de probar, *haran* e *ibar* no significaban ambos «valle» a secas”.

Hemen garbi ikusten da **haran** eta **ibar** ez direla osotara elkarren adierakideak, baina ez, ordea, aldea zertan datzan. Ura izatean edo ez izatean agian?, hau da, errekarik izatean edo ez izatean? Zernahi gisaz, eta esan bezala, gure alderdian kasu batean ez beste guztietan **haran** dugu toponimian, eta seguru asko hau izanen zen hizkera

478 OEH.

479 “Materiales para la colección epistolar de Luis Mitxelena”, FLV, 54, 1989, 243-275. orr.

arrunteko hitza. Hortaz, **haran** Iparraldean ezezik, Hegoaldean ere (Ekialdean bederen) erabiltzen zela ondorioztatu beharko dugu<sup>480</sup>.

### Hegia:

Izen hau gutxitan agertzen da gure alderdian: **Aritzabalegia** dugu Morionesen, **Opakoegia** Leatxen, eta **Opakuegia** Eslaba eta Zaren. Lehen toponimoan -egia 'hegia' den ala 'tegia' ez dago bat ere garbi, eta beraz azalpen honetatik kanpo utzi beharko dugu. Gainerakoetan -egia 'hegala', 'mendi-isuria' da, eta agerria-ren laguntzaz taiututako **Iparragerria**-ren esanahikide diren **Opakoegia** edo **Opakuegia** sortu ditu.

### Iturria:

**Iturria** izena gehienetan huts-hutsik edo izenondo edo posposizio batez lagundurik azaltzen da gure eskualdean (**Iturria**, **Iturriberrri**, **Iturrialdea**...), baina bazuetan dermio ezagun bateko eremu txiki bat ematen du aditzera, hain zuzen ere iturburua bera eta honen aldameneko lurrak, Nafarroako eta Euskal Herriko beste leku askotan bezalaxe.

Formari dagokionez, oinarriari zuzenean lotua nahiz -ko-ren laguntasunean edireten dugu: **Artaxoiturria** (Galipentzu), **Indusiturria** (Lerga). **Larrañetako iturria** (Galipentzu), **Ardantzabarrenetakoiturrieta** (Ageza).

### Mendia:

Honek gure alderdian 'gaina' adiera ohi zuen: **Mendi Agezan**, **Urkamendia** (Alto del Guarro egun), **Sulumendi** (Alto de Sule orain) Uxuen...baina behin edo beste 'sierra' adiera ere izan du (cf. **Sierra de Aldeko mendia Aldean**)<sup>481</sup>. Galipentzun, gainera, erdarazko **cantón** edo **cantera** 'muino, mendiko luzea'-ren baliakide izan zitekeen (ikus herri honetako toponimian aztertzean **Larrañetako mendia** sarrean dioguna).

Formaz den bezainbatean, oinarriari zuzenean erantsia egon daiteke (**Arizketamendia** Agezan, **Sulumendi** Uxuen), baina -ko-ren bitartekotzari ez dio muzin egiten: **Anduko mendia** (Lerga), **Larrañetako mendia** (Galipentzu).

Toponimoaren lehen osagaitzat ere sarritan aurkitzen dugu: **Mendiandia** Epaizen, **Mendiebakia** (Galipentzu), **Mendigorria** (Uxue), **Mendibil**, **Mendixuri** (Leatxen, **Mendixuri** Oibarren), **Mendizabala** (Moriones)...

### Muga:

Izen honek gehienetan auzo herri-bateko mugaldea izendatzen du, baina behin bederen dermio baten mugaldea adierazten du, Leatxeko **Pelaumuga** 'Pelau dermioko muga' toponimoan.

480 Toponimian agertu arren, eguneroko hizkeran **ibar**, **bailara** edo beste zerbait erabil zitekeen, halaz ere. Larrasquetek, adibidez, honela hitz egiten digu **aran**-ek Zuberoan duen presentziaz:

"inconnu aujourd'hui, mais conservé dans les noms de pays, de maisons, de familles" (OEH-n aipatua).

Lhandek ere antzeko zerbait diosku DBF-n, baina oraingoan Iparraldeko hiru euskalkiak aintzat harturik: "val, vallon. Le mot se conserve surtout dans les noms propres: *Aranburu*, *Aranederr*, etc."

481 **Sierra**-ren euskarazko ordaina eskuarki **bizkaia** izan dela dirudi, Leatxeko **Bizkaia** toponimoa aztertzean diogunez.

Formari dagokionez, ia beti zuzenean lotua agertzen da: **Beiremuga, San Martinmuga** (Uxue)..., baina behin gutxienez -ko-ren arartekotza duela azaltzen da, nahiz honetan ere lotura zuzena duen aldaera ere badaukagun: **Aldeko muga / Alde-muga** (Eslaba, Lerga).

#### -Ondoa:

Posposizio honen formari dagokionez, oinarria bokalez bukatzen denean bokal laburketa gauzatzen da batzuetan, baina beste batzuetan ez, eta ez dirudi horrelako lege finkorik dagoenik. Agian lehen lekukoek (XVI-XVII. mendekoek) bokalak dauden daudenean gordetzeko joera erakusten dutela esan liteke, geroagoko lekukotasunek maiz forma laburtuak dituzten bitartean.

Adieraz den bezainbatez, oinarrian azaltzen den eremuaren aldameneko alderdia ematen duela ezagutzera esan daiteke, baina guretzat behintzat ez dago garbi aldamenekotasun hori zertan datzan, ez eta **aldea** posposizioa duten toponimoetatik zertan bereizten den, aldea badela garbi dagoenagatik.

Eslaban, esaterako, gauza bat zen **Artaduondoa** eta beste bat **Artadualdea**, eta Nafarroako beste herri batzuetan<sup>482</sup> ere gisa bereko bereizketak aurkitu ditugu. Aezkoa-Hiriberrin, adibidez, **Beragua** dermioa dugu, eta honen barruan **Beraguarria** eta **Beraguarana** azpidermioak, gutieneko kontuan. **Beraguarria**-ren barrenean, alderdi ezberdinak adierazten dituzten **Beraguarraldea** eta **Beraguarrondoa** ditugu, baina zorixarrez ez dakigu bion arteko aldea zertan dagoen.

#### Pausua:

Izen honek erreka bat zeharkatzeko sakontasun gutxiko leku aproposa ematen du aditzera, eta gutiz gehienetan bideen eta erreken elkargunean aurkitzen dugu. Gure alderdian beti **pausua** azaltzen da, baina han-hemenka oso ugariak dira pausu zaila, pausu txarra adierazten duten **Pausugaizto**, **Pausugaitz** edo **Pausutxar** (**Malpaso** erdaraz)-en modukoak.

**Pausua** latineko **passu**-tik nahiz erromantzeko **paso**-tik atera zitekeen, mailleguetan -o > -u aldakuntza ohizkoa izan baita (cf. **portillo** > **portillu**, **puntallo** > **puntallu**...). Edozein kasutan, euskarazko diptongoa sekundariorzat hartu behar dela dirudi<sup>483</sup>, euskaraz arruntena alderantzizkoa den arren (cf. **aulki** > **alki**, **auspo** > **aspo**...), aipatu hizkuntza horietako hitzetan diptongorik ez baitago.

Euskara batuaz **pausoa** ibiltzen da gaurregun, baina nafarrak ziren Juan de Beriaynek eta Elkanoko Lizarragak toponimian edireten dugun **pausua** ibiltzen zuten 'urrats' adieraz<sup>484</sup>. Muzkiko testuetan ere **pausu** dugu<sup>485</sup>.

482 Gehienetan seguruenik, baina gu ezagutzen ditugun datuetan oinarrituta mintzo gara, gisa denez.

483 Ikus Mitxelenak FHV-ko 95-96. orrialdeetan dioena.

484 "...eta onen conforme eguinentugula gueren pausuac, eta Sacerdoteac Euangelioa erranes acabatu,..."; "...eneac dirade munduan ybilducenean eguincituen pausu guciac, sufruticituen afrontuac, eta injuriac..." (Juan de Beriayn, TCOM, 56 eta 73. orr.); "Alabér goatzeric chsaiquitzean armátu belaurico auspésca paraturíc éscá Jangoicoaren bedeicioa. Alabér echétic atratzean, librátzeco pausu ta estropézu gaichstoetáic" (Joaquin Lizarraga, DCC 88. or.); "goácen aipátus bere viciarán pausu principalénac seguídan..." (UIGPL, 44. or.).

485 "oñequi ivillegadelaric pausu onetan, escuqui iteintugularic obra onac", "Textos Vascos del Siglo XVIII en Tierra de Estella", Manuel Lekuona, FLV, 15, 1973, 369-390. orr.



Oinarriari zuzenean loturik edireten dugu batzuetan (**Udareagapausua** Agezan, **Tastaranpausua** Eslaban...), eta leku genitiboaren arartekotzaz nahiz gabe beste batzuetan (**Indusigibelpausua** / **Indusigibeleko pausua** Lergan).

#### Portilua:

Erdarazko **portillo** 'ateka', 'ataka', 'harrate', 'harrarte'-ren kide euskalduna da hau gure alderdian. **Portilu** erdarazko aipatu izen horretatik atera da, bukaerako -o itxi delarik, maileguetan sarri agitu ohi denez (cf. **puntallo** > **puntallu**).

Izen hau gehienetan oinarriari bitartekorik gabe eranstean zaio: **Aranportillua** (Ageza), **Arroiaportillua** (Lerga), **Bartastekaportillua** (Galipentzu)... Eslaban -ko-dun toponimoa ere azaltzen da, morfema hori ez duen aldaeraren aldamenen: **Dorretako portilua** / **Dorretaportillua**.

#### -Saietsa:

Formari dagokiñon bezainbatez, notatzekoa da aurkezten duen aldaera ezberdin mordoak: -ssaessa, -saessa, -sayesa, -sayessa, -saiessa, -sayeça, -saieca, -ssaecha, -saecha, -saissa, -saesa, -saeza, -çayeça... euskara galdu ondoren sorturikako aldaera desitxuratuak aipatu gabe. Aldaki guzti hauen jatorrian -saietsa eta -saetsa zeudela dirudi, eta hauetatik aterako ziren aurrerago gainerakoak.

**Saihetsa** Azkueren arabera 'lado', 'costado' da, eta toponimian ere esanahi hori berori du lehen begiratuan, alegia, **bazterra**-ren antzeko zerbait adierazten duela irudi du. Guztiarekin, toponimiaren azterketa sakonago batek erdarazko **costalado**, **costalada**, **cuesta**, **ladera**, **costera**-ren adierakidea dela ikustarazten digu: Morionesen, esaterako, **Atalaiasaietsa** daukagu, eta **atalaia**-k, jakina denez, mendi(ko)ak izaten dira.

Agezako **Nobeletasaietsa** erdarazko **Ladera de Nobeleta** edo **Cuesta de Arana** (Nobeleta eta Arana-ren artean dago aldapa)-ren baliakidea da, eta Zaren **Dolaretasaietsa** erdarazko **Costalado de Dolareta** aldaparen kidekoa dugu, euskara beteko ordaina, alegia. Lergako **Gaztelusaietsa** erdarazko **Costalada del Castillo**-ren euskarazko baliakidea da, eta gaztelua kokatua zegoen gaineko malda ematen zuen aditzera. Leatzen, azkenik, **Magdalena** ermita dagoen gaineko aldapari **Cuesta de la Magdalena** esaten zaio egun, eta **Costalado de la Magdalena** edo **Ladera de la Magdalena** aurkitzen ditugu dokumentazioan, euskarazko **Magdalenasaietsa**-rekin batera.

Hortaz, -saihets Lergan arrunta den **aldapa**-ren antzekoa da adieraz, biak zeharo elkarren kideak diren ez badakigu ere<sup>486</sup>.

#### Zabala:

Formari dagokionez, **zabala** sarri askotan bakarrik azaltzen da, beste deusen laguntzarik ez duela. Honelakoetan eremu lauak adierazten ditu, eta erdarazko **El Llano**, **Los Llanos**-en baliakidea da.

Beste batzuetan beste oinarri bati atxikirik aurkitzen dugu, alderdi baten alderdi laua adierazten duelarik. Gehienetan oinarriari zuzenean lotzen zaio, bestelako bi-

<sup>486</sup> Cf. Oihenarten 402. atsotitza: "Saiheskia lauda ezak, ordokia eure ezak", *Atsotitzak eta neurritzak*, Herri Gogoia, Donostia, 1971, 76. or.

tartekotzarik gabe: **Abaitzabal** (Epaiz), **Akirazabal** (Uxue), **Indurainzabala** (Mori-ones), **Xaugizabal** (Eslaba), **Santsoainzabal** (Lerga)... Beste batzuetan, ordea, leku-denborazko genitiboaren morfema ere azaltzen da oinarriaren eta **zabala**-ren artean: **Garandako zabala**, **Ibarreko zabala** (Galipentzu).

Adieraz den bezainbatean, **zabala**-k alderdi lauak adierazten ditu, arestian esan dugunez, baina lautasan hori batetik bestera franko aldatzen dela ezin daiteke uka. Uxuen, esate baterako, **Akirazabal Aguilar** deitu mendiaren azpiko aldea dugu (bi hauen arteko etimologi-loturaz ikus Uxueko toponimia aztertzean dioguna), alegia, mendia zelaitzen den gunea, bertan muino, aldapa, erreka eta erreka ugari dauden arren. Galipentzun aldiz, **Garandako zabala** eta **Ibarreko zabala** **Garandako harana** eta **Ibarreko harana** deitu haran edo sakanak zabaltzen ziren alderdiak genituen, hau da, bi aldeetako horma moduko mendiko luzeak ("cantera"-k alegia) bukatu ondorengo alderdi zabalak, "pareta"-rik gabekoak.

#### Zelaia:

Gure eskualdean zelaia behin bakarrik dokumentatu dugu, Eslabako **Eodezelaia** toponimoan, eta segurua da egungo euskara orokorrean duen 'laua', 'lautada' adiera zuela, oraingo **El Ilano**-k ordezkatu baitzuen.

Kontzeptu hau bideratzen duen izena **zabala** izan ohi da, baina azken honek zenbaitetan horren zelaia ez diren alderdiak ere izendatzen ditu, eta beraz batzuetan errankideak badira ere, beste batzuetan bien artean alde zerbait badela esan daiteke, laua zelaia delarik. Dena den, zelaia-ren adibide bakarra izaki eta, ezin dugu segurtasunez mintzatu.

#### Zokoa:

Formari dagokionez, notatzekoa da Zare eta Uxueko hiru toponimoek txokoa gabe, zokoa dutela, hots, igurzkarri bizkarkaridun aldakia.

**Zokoa** erdarazko rincón-en baliakidea dela segurua da, toponimo gutxitan aurkitu badugu ere. Adibiderik garbiena egun **Rincón de Zonbolozoko** bilakatu den Uxueko agiritako (**Rincón de**) **Sulunbategoko** da. Adibide gutxi izateak, ordea, orokortzea eragozten digu, bai eta **bazterra**-ren baliakidea den ala ez ikustea ere (ez dirudi. Ikus **Bazterra**).

#### Zuloa:

**Zuloa** erdarazko hoyo edo hoyada-ren baliakide euskalduna da, baina generiko moduan oso gutxitan aurkitu dugu gure alderdiko toponimian. Kasurik garbiena Uxueko **Abaizko zuloa** da.

Atal honekin bukatzeko derragun batzuetan azpidermio baten zatiketa ere egiten dela, alegia, dermio baten zatiketaren ondorioz sortu diren puska horietako batzuetan beste zatiketa bat egiten dela. Agezan adibidez **Arizketa**, **Arizketagibela** eta **Arizketamendia** ditugu, eta azken honen zatiketaren ondore diren **Arizketamendigaña**, **Arizketamendiandoa** eta **Arizketamendipea** ere azaltzen dira dokumentazioan.

## 8. AGEZAKO TOPONIMIA

Abadía (casa de), (era de), (pieza), la:

Orain urte batzuk direla apeztegi berria eraiki eta zaharra saldu zuten. Dokumentazioan 1808an **Casa de Apeztegui** ageri da<sup>487</sup>, eta beharbada hau bera zen 1801eko **Casa de la abadía**. Edozein moduz, Agezan **Apestequíá** deitura oso arrunta da (cf. **Baztan** deitura, [baštán] ebakia bertan), eta baliteke aipatu etxe-izena deituratik atera izana.

**Pieza de la Abadía** bat baino gehiago zegoen Agezan (orain jabego pribatukoak dira guztiak), denak oso txikiak (erreguneurri bat edo bikoak). Badakigu haue-tako bat **El Saso**-n zegoela, beste bat **Parrala** igarota, **Mendi** ondoan, **Errekandia** deitu alderdian<sup>488</sup>:

“una pieza...en el termino de el Barranco Andía teniente a pieza de la Abadia, y Camino que ban â Sanguesa” (1788)<sup>489</sup>

“otra pieza mas abajo de parrala cerca del Mendi que afronta con pieza de la Abadia” (1801)<sup>490</sup>

**Era de la Abadía** elizaren ondoko, **Barrio de arriba**-ko apezlarraina da.

Abejar, el:

Toki-izen hau ere nahikoa arrunta da, dudarik gabe erleek zuten garrantzia-rengatik. **El Abejar** Ageza, Leatxe eta Oibarren aurkitu dugu. Galipentzun **Barranco de las Abejas** dugu, eta San Martinen **La Abejera** eta **La Hoya de La Abejera**<sup>491</sup>. Euskaraz, Ezporogin **Erlategitxar** edo “el colmenar viejo” azaltzen da (ikus sarrera hau).

---

487 PRA-Oibar, 92. k.

488 Baliteke hemen bi apezalor ezberdinen aitzinean egotea.

489 PRA-Oibar, 75. k.

490 Id., 87. k.

491 PRA-San Martin, 43. k., 1755, eta PRA-Kaparroso, 57. k., 1633, hurrenez hurren. Gaurregun Uxuen abejera ibiltzen dugu ‘erlekofoina’ edo ‘erlategia’ adieraz.

El Abejar herritik gertu dago, **San Miguel** eta **Zabala**-ren artean. Izena antzina bertan zegoen erlategiari zor zaio.

**Alto de Ayape, el:**

Gaurko **El Alto de Ayape** [ayápe] **Gezari bajo**-n (cf. Eslabako **Gezari-barrena**) dago, **Balarata**-ko mugan. **Ayape XVIII.** mendean bizi izan bide zen **Andrés Aiape**-ren deitura besterik ez da, beste batzuetan bezala (cf. Uxueko **Fuente de Juan de Igal**) dermio gisa irau duena:

“en el terno de Balarata, Junto a la misma pieza del mendia de Andres Aiape..., y de la parte de Sada, al Camino que ban à Caseda los de Eslaba” (1790)<sup>492</sup>

Aipu honetan ikusten den moduan, el mendia erdarazko el alto-ren adiera duen izen arrunta da.

**Anica, casa de:**

Hemen, dirudienez, txikigarriz hornituriko **Ana** emakume-izenaren aurrean gaude:

“...una casa que llaman de Anica” (1770)<sup>493</sup>

**Apeztegui, casa de:**

Izen hau oso berandu aurkitu dugu (1808. urtean), eta horregatik erdarazko **Casa de la Abadía** gabe (ikus gorago) **Apeztegui** deitura zuen norbaiten etxea zela uste dugu:

“...y camino que se ba a casa de Apeztegui”<sup>494</sup>

**Aguilar (alto de), (balsa de), (chopera de), (fuente de), (mendi de), (saso de):**

**Aguilar** toki-izena oso zabaldua dago Nafarroan, eta 'arranoak egoten diren, bizi diren tokia' adiera du. Gure alderdian **Kaseda**<sup>495</sup>, **San Martin**<sup>496</sup> eta **Uxuen** ediren dugu, **Agezan** ezezik. Beti leku gorak izaten dira, mendiak, arranoek, antza, ez baitute zelaian bizitzeko zaletasun handirik. Honen baliokide euskalduna beste zenbait lekutan azaltzen den **Arranotegia**<sup>497</sup> da, edo Eslabako **Arranomendia**<sup>498</sup>.

492 PRA-Oibar, 76. k.

493 Id., 68. k.

494 Id., 92. k.

495 "otra pieza...en el termino del monte de Aguilar", id., 60. k., 1759.

496 "Ms otra (pieza)...en el Cavezo de Aguilar", PRA-San Martin, 62. k., 1792.

497 Ziraukin azaltzen da, 1283. urtean: "En Arranotegua una pieza que se atiene con la pieza de Domingo Bona et con las landas" ; J. M<sup>a</sup> Lacarra, "Documento de Irache (1283) referente a Cirauqui", FLV, 17, 1974, 165-182. orr. **Aguilar** erdaldunaren euskal ordáinez ikus Galipentzuko **Bartaquilar** sarrera.

498 Herri honetan **Aguilar**-ik azaldu ez arren.

Uxueko **Aguilar** alderdi menditsua da, eta **Akirazabal** honen azpiko aldean dagoen alderdi lau samarrari esaten zaio. Hau, ezbairik gabe, latineko **aquila**-tik ([akila] euskarak hartu ordurako) ateratzen den **akira** eta **zabal**-ez osaturik dago (ikus sarrera hau).

Agezan **Aguilar** [akilār] esaten da, eta dokumentazioan **Aguilar** eta **Aguilar** batera azaldu arren, garbi dago lehena dela jatorrizko eta bertako forma. Bokal arteko herskari ahoskabearen iraupena Nafarroako erromantzearen eraginari zor dakiok<sup>499</sup>, baina euskararen eragina ez da alde bat uztekoa (cf. aipatu Uxueko **Akirazabal**).

**Aguilar** herritik kilometro batera dago, eta gehiena laua izan arren, dermioaren erdian **El Alto de Aguilar** deitu ohi den gaina dugu. Gure informatzaileak dioenez, lehen arranoak **Aguilar**-ko iturrian dagoen txipudira (ikus **La Chopera** eta **La Fuente del Chopar** sarrerak) joaten ziren, gaez, atsedean hartzera.

Agezan **alto** edo **monte** esateko erdaraz ere **mendi** izen arrunta ibili izan da, eta gaur (**El**) **Mendi** bertako dermio bat (mendi bat, jakina) besterik ez bada ere, dokumentazioan garbi ikusten da **mendi** edozein gain izan zitekeela, **Aguilar**-koa, kasu:

“otra pieza...en Aguilar con su mendi” (1774)<sup>500</sup>

Gainaren ondoko **Balsa de Aguilar** duela hogeitauko edo hogeitabost urte egokitu zuten, baina izan, askoz lehenagokoa da. Guk 1647an aurkitu dugu estraineko aldiz:

“haber gastado limpiando la balsa de aguilar...”<sup>501</sup>

Dokumentazioko **Saso de Aguilar**<sup>502</sup> ez da orain erabiltzen; are gehiago dena, Agezako dermioa sakonki ezagutzen duen gure informatzaileetako baten arabera<sup>503</sup>, lur hau ez da bat ere kaskailutsua, zazuak harri mota honetaz brokatuak egoten badira ere.

499 R. Cierbidek (PDNR, 39-40. orr.) ahoskabea duen adibide pare bat ematen digu, baina ia beti ahostuna azaltzen dela dio.

Angeles Libanok (*El Romance Navarro en los Manuscritos del Antiguo Fuero General de Navarra*, Institución Príncipe de Viana-CSIC, Iruñea, 1977, 96. or.) ere bokal arteko herskari ahoskabeak ahoskuntzen direla dio, salbuespen bat edo beste izan arren:

“Yndurain cita también algunos casos con sorda conservada, pero no las considera suficientes para atribuir como característica del navarro antiguo el mantenimiento de la consonante etimológica latina, rasgo que quedó relegado a una zona pirenaica franco-española”.

Menéndez Pidakle (*Orígenes*, 251-252. orr.) Aragoako agiritan zenbaitetan gorde egiten dela, eta oraindik ere honen hondakin biziak badirela dio:

“Dado el latinismo notarial, no sabemos hasta qué punto la sorda, en los más viejos diplomas aragoneses, refleja una lengua latinizante o más bien una pronunciación popular. Pero los documentos en romance del alto Aragón contienen muchos ejemplos populares: *arrigatura* < rġgatorġa ‘regadera’, *pasatuaras* ‘pasaderas’, *lopo*, *lopera* (cf. Uxue), *capaña*... Hoy esta conservación de la consonante sorda se observa en abundantes restos que sobreviven:...*álica* ‘aguila’, ...*artica*... En el partido de Jaca se acumulan topónimos con la sorda conservada, como *Nocito*, en otras partes Nocedo...*Aquilué*, sinónimo de Aguilera... En Aragón la conservación de la oclusiva sorda tuvo antes bastante extensión fuera de la región de Jaca y Boltaña...”.

Kontsonante ahoskabearen iraupena euskarari zorko balitzaio, ez genekike zergatik bokal arteko albokoa ez den dardarkari bakun bilakatu, Uxueko **Akirazabal**-en agitu moduan (ikus sarrera hau).

500 PRA-Kaseda, 26. k.

501 PRA-Oibar, 25. k.

502 Id., 9. k.

503 José Egea jaunaren arabera.

Alabaina, eta beste iturri batetik, dermio honetako bazter batean edo zazu txiki bat babela jakin dugu, eta hau izan daiteke dokumentazioan ageri dena.

**Aquilar-ek Aranportillua, Euntzeberri, Erresoreta, eta Lakuaga-ekin** mugatzen du.

**Arana (balsas de), (barranco de), (fuente de), (junto al barranco de), (junto al fresnal de), (prado de):**

**Harana** 'ibarra' (ikus Galipentzuko **Ibarra** sarreran dioguna) dugu hemen, bistan denez. Lehenengoz 1060. urtean agertzen da dokumentazioan, **aranea** itxuraz<sup>504</sup>, eta oraindik ere bizirik dago (larána] esaten da), ia hamar menderen ondoren.

**Las Balsas de Arana La Fuente de Arana** ondoan daude, Galipentzuko mugaren alboan; **Barranco de Arana Barranco de la Presa** bera dugu, baina lehen dermio horretan azekia bilakatzen da, hots, sakontasuna galtzen du. Euskarazko **Ara-neko erreka**-ren kide erdalduna da:

“otra viña en la endrecera llamada Junto al barranco de arana” (1598)<sup>505</sup>

**La Fuente de Arana** aipatu idoiien aldamenen dago, eta zaharra izan ba daiteke ere, ez da dokumentazioan sekulan azaltzen (ikus **Gesaliturria** sarrera).

**Arana**-n duela mende batzuk lizarrak baziren, 1592ko **Junto al fresnal de Arana** lekuko:

“ytten otra piª en la endrecera llamada Junto al fresnal de arana”<sup>506</sup>

Orain urte batzuk ere baziren lizarrak **Prado de Arana**-n, errepidea baino pixka bat gorago, iturri txiki baten ondoan, baina bota egin zituzten. Euntzea errepidean hasi eta erreka ondotik hedatzen da, lehen **Onbordua**-raino iristen zelarik:

“en la endrecera llamada onborduya Junto al prado de arana” (1585)<sup>507</sup>

**Cuesta de Arana** alderdiko euntzearen eta **Nobeleta**-ren artean dago, eta dokumentazioko **Ladera de Nobeleta** edo **Nobeletasaietsa**-ren esanahikidea dela dirudi (ikus **Nobeleta** sarrera).

504 Lacarra, VM, 35. or. Mitxelenak, Isastik bildurikako salbea aztertzen ari dela, honela dio otoitz horretan ageri den “negar ybarr onetan, malcozo arane onetan” lerroa iruzkintzean:

«En 4 sorprende que “en este valle de lágrimas” haya sido traducido dos veces, jugando con la sinonimia de *ibar* y *arane*, *negar* y *malco*, y aunque por “valle” fuera de este texto sólo se halla (*h*)*aran*, *arane* no es una errata, pues en Isasti, p. 167, se lee (de acuerdo con los mss.): “*aramburu* se llama la casa de la cabeza del valle, porque *aranea* significa valle, y *burua* cabeza” (TAV, 164-165. orr.).

Edozein moduz, badirudi **Aranea**-k \***Aranean**-etik atera behar izan duela, inesiboaren partiketa faltsu baten ondorioz.

505 PRA-Oibar, 7. k.

506 Id., 6. k.

507 Id., 3. k-bis.

Arana-k Galipentzu, antzinako Iturrieta (ikus sarrera hau), Txipueta, Aranportillua, Nobeleta, Onborduia, Kanpobarrena eta Balarata-rekin mugatzen du.

#### Aranbazterra:

Arana-ko bazterra zatekeen hau, alegia, La Presa ondoko, Araneko erreka eta Errepidea edo Camino Real-en arteko angelua (cf. Lergako Arana eta Aranbazterra):

“una pieza en aranbazterra” (1693)<sup>508</sup>

#### Araneko erreka:

Erdarazko Barranco de Arana-ren adierakidea da, alegia, gorago Barranco de la Presa deitzen den erreka adierazten du:

“mas otra pieza en Araneco erreca...que afrontta con...Barranco Concejil” (1774)<sup>509</sup>

Araneko erreka Errepidea-raino iristen zela badakigu:

“Mas en el termino de Aranacoerreca una pieza...que afronta con...Camino Real” (1808)<sup>510</sup>

#### Aranportillua:

Gauregungo Aranportilla [arãmpõrtiʎa] edo Lanportilla [lãmpõrtiʎa] Arana toki-izenaz eta portilua ‘atea’-z osatutako toponimoaren desitxuraketaren fruitu dira. Ataka gaurko errepide berrian (karreteran, alegia) dago, Cabodevillaren gortearen ondoan, Ageza eta Galipentzuko bidegurutzeen artean. Bertan batzen dira gainerakoan Nobeleta-k bereizten dituen Arana eta Aranportillua:

“en la endrecera llamada en aranportillua” (1587)<sup>511</sup>

Artikularik gabe ere frankotan agertzen da leku-izen hau, 1781ean<sup>512</sup> eta 1894eko katastroan, adibidez.

Rera Janárizek Amportilla aldaera biltzen du, eta latineko ante portella proposatzen du etimotzat. Hau, alabaina, oinarririk gabeko etimologia dela garbi erakusten du dokumentazioak.

Aranportillua-k Txipueta, Lakuaga, Aquilar, Euntzeberri eta Nobeleta-rekin mugatzen du, Arana-rekin ezezik.

508 PRA-Kaseda, 7. k.

509 Id., 26. k.

510 PRA-Oibar, 92. k.

511 Id., 3. k-bis.

512 Id., 72. k.

**Ardantzeartea:**

**Ardantze** ‘mahasti’ eta **artea** ‘ez goikoa ez behekoa, baizik erdikoa’ ditugu leku-izen honetan:

“yten otra biña en ardanze artea” (1576)<sup>513</sup>

**Ardantzebarrena:**

**Ardantze** izena eta **barrena** posposizioa ditugu hemen:

“ytten una piª en ardançebarrena” (1596)<sup>514</sup>

**Ardantzebarreneta:**

Aurreko bera da, eta beraz, hainbestetan ediren dugun **Ø / -eta** txandakatzea berriz ere azaltzen dela esan dezakegu. Badakigu **Galipentzubidea**-ren inguruan zegoela:

“una biña...en el termino...llamado Ardanzebarreneta...afrota con camino que ban de Ayessa a Gallipienzo” (1552)<sup>515</sup>

Gure ustez, **Kanpobarrena** aldea zen hau, errepide berriaren eta **Galipentzuko** mugaren arteko eremua.

**Ardantzebarrenetakoiturrieta:**

**Ardantzebarrena** edo **Ardantzebarreneta**-ko iturrien inguruko eremua adierazten zuen:

“...en la endreçera llamada ardançebarrenetacyturrieta” (1587)<sup>516</sup>

Badaiteke toponimo hau beste batzuetan **Iturrieta** itxurapean azaltzen dena izatea, kokalekuak bat baitatoz, eta formaren aldetik arazorik ez baitago.

**Ardantzezarra:**

**Ardantze** izena eta **zaharra** izenondoa ditugu hemen. **Euntzeberri**-n zegoen:

“otra pª en la misma endreçera de eunçeberria u ardançecharra” (1596)<sup>517</sup>

**Arginerreka:**

Ikus **Harginen erreka** sarrera.

---

513 Id., 2. k-bis.

514 Id., 9. k.

515 Id., 2. k.

516 Id., 3. k-bis.

517 Id., 9. k.



**Arizketa:**

**Haritz** zuhaitz-izena eta **-eta**-ren aldaera den **-keta** atzizkia ditugu toponimo honetan<sup>518</sup>:

“ytten otra pieça en arizqueta” (1598)<sup>519</sup>

**Arizketa** hutsa 1598an baizik ez dugu ediren; gainerakoetan posposizio baten laguntasunean (**Arizketagibela**) edo beste izen bati erantsia (**Arizketamendia**) agertzen da. Toponimo guzti hauek garbi adierazten dute lehen Agezako udalerriko alderdi batean gutxienez haritzak ugariak zirela, nahiz gaurregun gutxi batzuk besterik ez dagoen han-hemenka.

**Arizketagibela:**

**Arizketa**-ren atzeko aldea zen. Atzetasuna, esan moldean, beti herria erreferentzi-puntutzat hartuta finkatzen da (ikus **Dermio** baten **zatiketa** atalean dioguna):

“otra piª en arizqueta guibela” (1642)<sup>520</sup>

**Arizketamendia:**

**Arizketa** dermioko mendia zen, itxura guztien arabera gaurko **Almendi**, **El Mendi** edo **Mendi**:

“otra piª en Arizquetamendia” (1596)

Izan ere, **Arrixauzkuneta** aipatu **Mendi** horren ondoan zegoen, eta badakigu **Arizketamendiondoa** **Arrixauzkuneta** bera edo alboko eremua zela:

“y mas una piª en arriJausguneta o Arizqueta mendiondoa” (1591)<sup>521</sup>

**Arizketamendigaña:**

**Arizketa** mendiaren gailurra zen (cf. Eslabako **Iturburumendigaña** eta **Iturrimendigaña**):

“otra (pieza) en ariscotamendigaña” (1632)<sup>522</sup>

518 **Harizko** 'haritz gaztea' eta **-eta**-z osatutakotzat ere har liteke, **harizko** han-hemenkako toponimian arrunta baita. Cf. Eslabako **Ezpelkoa** / **Ezpelketa** parea. Agezan, halaz ere, ez dugu **-eta**-rik gabeko aldaerarik. Aurreko **\*Aritzeta** batetik atera dela pentsa ere daiteke, interbertsioz, baina beste kasu barzuetan, bokal ondoan adibidez, ezin proposa daiteke horrelakorik (cf. **Butzuketa** Eslaban).

519 PRA-Oibar, 7. k.

520 Id., 24. k.

521 Id., 24. k.

522 Id., 23. k.

**Arizketamendigibela:**

**Arizketamendia**-ren gibekeko alderdia zen. Ez dakigu **Arizketagibela**-rekin identifikatu behar den edo bi toponimook eremu ezberdinak adierazten zituzten:

“otra pi<sup>a</sup>...en arizquetamendi guibela” (1594)<sup>523</sup>

**Arizketamendiondoa:**

Esan bezala, **Arrixauzkuneta** edo honen alboko eremua zen, **Mendi**-ren ondokoa beti ere:

“ytten otra pi<sup>a</sup> en Arizquetamendi ondoa” (1592)<sup>524</sup>

**Arizketamendipea:**

Aipatu mendi horren beheko alderdia zen:

“otra pieza en Arisquetamendipea” (1720)<sup>525</sup>

**Arrixauzkiet:**

**Harri**, \***xau(t)si** edo \***xau(t)zi** (ikus Eslabako **Xauzgun** toponimoa) eta -**kieta** ‘-eta’ ditugu 1530ean ageri den honetan:

“otra pi<sup>a</sup> en el termjo llamado arriJausquieta affr...con pi<sup>a</sup> de la abadía”<sup>526</sup>

-**Jaus**- hori [xaʝs] edo [xaʝs] ebaki bazitekeen ere, **Arrixauzkuneta**-n eta beste toponimo batzuetan oinarrituta, [šauš] edo [šauš] ebakitzen zela uste dugu (ikus **Grafia kontuak** atala).

**Arrixauzkuneta:**

Aurrekoa bera da adieraz, baina ez formaz, honetan **harri**, \***xau(t)si** edo \***xau(t)zi** eta **-eta**-z gainera (**-kieta** aldaera aurreko **Arrixauzkiet**-n), **gune** (kune gehienetan, txistukari ahoskabe ondoan ohizkoa denez. Cf., halere, Eslabako **Xauzgun** toponimoa, **Sirgun** [šīrgún] ahoskatua orain ‘tokia’ ere azaltzen denez gero. Toponimo honen adiera, hortaz, ‘harriak erortzen diren lekua’ edo da, eta gure egunotan ere harri-erortzak ugariak dira alderdi honetan, duela bost mende ziratekeen bezala:

“otra pi<sup>a</sup> en arriJausguneta...que afrenta con camino puco” (1594)<sup>527</sup>

“otra pi<sup>a</sup> en la endreçera llamada arriJauscuneta” (1596)<sup>528</sup>

“otra pieza...en arrisauzquneta” (1706)<sup>529</sup>

523 Id., 8. k.

524 Id., 6. k.

525 Id., 36. k.

526 Id., 2. k-bis.

527 Id., 8. k.

528 Id., 9. k.

529 PRA-Kaseda, 13. k.

Mitxelenak txistukari apikari eta bizkarkarien arteko txandakatzea partizipio eta aditzoin batzuetan gertatzen dela dio (ja(u)n(t)zi / jauntsi; eran(t)zi / erantsi...), itxuraz ohiturazko partizipioan n + txistukaria multzoa herskari aurrean egoteagatik (eranzten, jaunzten...)<sup>530</sup>. Aztergai dugun leku-izen honetako aldizkatzea ere bizkarkaria, zenbaitetan behintzat, txistukariaren eraginez ahoskabetu den **-kun(eta)**-ren aurrean egotearen ondorena izan daiteke.

**Arrixauzkuneta Mendi** ondoan zegoen, gaur **El Calvo** deitzen den eremuaren alboan, Zangoza, Oibar, eta Kasedako bidearen aldamenean<sup>531</sup> (ikus **Calvo** sarrera).

“otra pieça en arrijauzkuneta...que afrenta con...Camino Real” (1605)<sup>532</sup>

Lergako **San Gines**-ko merkatura zihoan **Merkatubidea**-rekin ere mugatzen zuen:

“una pieça en arrijauzgunetta dco mercatubidea” (1620)

Aipatu ditugun aldaera horietaz landa honako hauek ere agertzen dira: **Arri Jausguineta** (1647)<sup>533</sup>, **Arrijauzquineta** (1695)<sup>534</sup>, **Arrixauzquineta** (1701)<sup>535</sup>, eta **Arrisauqueneta** (1823)<sup>536</sup>.

#### Arteaga:

**Arte** zuhaitz-izena eta **-aga** atzizkia ditugu 1060an azaltzen den honetan<sup>537</sup>. Arteak oso ugariak dira eta izan dira aztertzen ari garen alderdian, eta ugaritasun honen isla dira **arte**-dun toponimoak (cf. Eslabako **Artadua** eta eratorriak, **Morionesko Arte**, **Artealdea**, **Uxueko Artabakoitz**...).

#### Artegibela:

Hemen berriz ere **arte** zuhaitz-izena dugu, eta **gibela** ‘atzea’:

“otra pi” en Arteguibela” (1594)<sup>538</sup>

#### Artekoa:

Hau **\*Arteko alorra**, **\*Arteko ardantzea**...edo horrelako sintagma baten laburpena dateke<sup>539</sup>. **Arte** ‘tarte’ nahiz ‘arte’ zuhaitz-izena izan daiteke:

530 FHV, 285. or.

531 Egun **Camino de Aibar** Oibartik Lergara doan errege bideraino esaten zaio, eta errege bidetik aurrera **Camino de Caseda**.

532 PRA-Oibar, 15. k.

533 Id., 25. k.

534 PRA-Kaseda, 8. k.

535 Id., 10. k.

536 PRA-Oibar, 106. k.

537 Lacarra, VM, 35. or.

538 PRA-Oibar, 8. k.

539 Alegia, izen multzoko izenaren ezabatzearen fruitua.

“Mas en el tero de Artequa una pieza” (1777)<sup>540</sup>

Guk gure eskualdean aztergai dugunaz lekora, honako hauek ediren ditugu, besteak beste: **Pieza de Lizarrekoa**, **Arankoetakoa**, **Euntzekoa**, **Galtzadakoa**, **Casa de Ordenakoa** eta **Zarebidekoa**, denak Leatxen<sup>541</sup>.

Alabaina, -koa bukaera Eslabako **Ezpelkoa**-n eta Lergako **Areamendikoa**, **Iguraimendikoa**-n edireten dugun atzizki txikigarria ere izan daiteke.

**Artiga del Monte**, la:

Ez dago sobera garbi hau toponimoa zen ala izen arrunta:

“y tambien la artiga del monte... Junto a la ermita de santamarina” (1608)<sup>542</sup>

**Artiga** edo **artica** euskarazko **berro**-ren erdal ordaina zen (ikus Leatxeko **Berroberrrieta** eta **Berozarreta**, Galipentzuko **Beragu** eta Uxueko **Berage** eta **Los Berros**).

**Arzamuka**:

Aldaera batutzat izenburuan ageri dena hartu badugu ere, ez dakigu hondar kontsonantea herskari belare ahoskabea den ala hortz-hobietako txistukari bizkarkaria. Izan ere, bi aldiz aurkitu dugu: **arzamuca** formapean lehen aldian (1776an<sup>543</sup>) eta **arcamuca** itxuraz bigarrenean (1804<sup>544</sup>). Bi lekukotasunotan garbi ikusten da dardarkariaren ondoko kontsonantea txistukaria dela, baina ez bukaerakoa zehazki zer izan daitekeen.

**Ategarate**:

Hemen, aski harrigarriro, **ate** ‘portilua’-ren errepikapena dugu. Osagaiak beraz **ate** eta **garate** dira, azken hau bere aldetik **gara(i)** ‘goia’, ‘goialdea’, ‘gaina’<sup>545</sup> eta **ate** ‘portilua’-ren elkarketaz moldatua dagoelarik.

540 PRA-Kaseda, 29. k.

541 Gure eskualdetik kanpo ere prozedura arrunta da: **Aldapacoa** (Atondo), **Arbecoa** (Eritze), **Arratecoa** (Lete), **Bertacoa** (Aldaba), **Bordacoa** (Eritze), **Bustinecoa** (Aritz) (J. Jurío, TCPCI, 115, 149, 210, 44, 170 eta 82. orrialdeak, hurrenez hurren).

542 PRA-Oibar, 16. k.

543 Id., 70. k.

544 Id., 89. k.

545 ‘lau haberen gaineko bihitegia’ ere bai. Cf. Leatxeko **Garaizarra** eta Morionesko **Garaiondoa**.

Mitxelena (AV, 92. or.) **garai**-ren oinarritzko forma dokumentatua **garai** bera dela dio, eta alde bat uzten du beste autore batzuek proposatzen duten **gara**-.

Alfonso Irigoyenek (“Sobre el origen de las palabras vascas *alde, oste, garai y usa*”, (DRPLV-II, 155-166. orr.) **garai** **aldai** eta **ostai**-rekin alderatzen du, hiruek jatorri latinoa dutela baieztatuz. Autore honen arabera, apelatibo arrunta den **garai** (cf. **Garai** Bizkaian) **Garaio** (Araba) eta **Garaioa** (Aezkoa, Nafarroa)-rekin lotu behar da, denon sorburua latineko \***calaneu(m)** delarik. Hau bere aldetik, **cala** (cf. **Calagorris**, **Calagorris** / **Garagorris**...) ‘ensenada pequeña’ eta **-neu(m)** artzizkiaz osaturik legoke.

Alabaina, artikulua aspaldi samarrekoa da (1974ekoa, itxuraz), eta geroztik egilearen **garai**-ren jatorriaren gaineko seguritatea asko urritu da, berak lanaren eranskinean garbi azaltzen duenez:

“De cualquier modo la hipótesis en relación con *garai(o)* ofrece menor consistencia que la de las otras palabras estudiadas (*alde-aldai, oste-ostai, usa*) por no señalarse ejemplos paralelos en cuanto a su terminación en *-ai(o)* procedentes de añadir el señalado sufijo, pues, de ser así, habría que admitir que constituiría un caso aislado sin otras fuentes de comparación” (163. or.)

**Ategarate** [átegaráte] Cerro Mandurro izeneko gainaren eta Oibartik Lergara doan errege bideko **Portillo de Gezari**-ren ondoan dago, eta beraz beldurrik gabe esan dezakegu oraingo honetan orografia bat datorrela guk proposaturikako etimologia-rekin. Itza zendéako Sandaña (despoblata) eta Saratsan Agezako dermioarekin ageriko zerikusia duen **Garate** edo **Garatea** dokumentatzen du Jimeno Juríok<sup>546</sup>. Ikerle honen arabera **Garatea** gain bateko portilua zen jatorriz:

“Si originalmente designó el portillo (617 ms.) por el que el camino del monte pasa entre los montes Ollarko (E) y Sandaña (O), hoy lo aplican a un altozano con pinos, entre Sarasa y Sandaña.”

Agezako egungo **Ategarate** dokumentazioan sarritan artikuluz horniturik azaltzen da:

“otra bina en Ategaratea” (1547)<sup>547</sup>

“otra pieza en artegaratea” (1695)<sup>548</sup>

“una pieza...en Arttegaratea” (1720)<sup>549</sup>

Azken bi lekukoak aintzat hartuta, jatorrizko forma **arte** zuhaitz-izenaz eta **garate**-z osaturikakoa dela suposa liteke, eta gero dardarkari disimilazioz oraingo forma atera dela. Guztiarekin ere, lehen lekukoek (1547ko aipatu **Ategaratea**-k eta 1574eko **Atagaratea**-k<sup>550</sup>) ez dute **-r**-rik, eta oraingo aldaera biziak ere ez, eta beraz **arte**-dun bi aldaera horiek sekundarioak direla garbi dago. 1894eko katastroko **Antegarate** aldaki desitxuratutzat hartu beharko dugu, **a(r)te**- > **ante**- pausoan herri etimologiak ere eragina izan bazezakeen ere.

**Ategarate**-k **Balarata**, **Onbordua**, **Usobidea**, **El Saso** eta **Gezari**-rekin mugatzen du.

**Ayesa**:

**Aiesa** lehen aldiz XI. mendean (1059an) azaltzen da, **Aiessa** (1088) eta **Agessa** (1087)-rekin batera<sup>551</sup>. **Agessa** formaren azpian oraingo **Ayesa** izen ofiziala ezkuta zitekeen, baina euskarazko **Ageza** (edo honen aitzindari bat) ere bai, antza.

Etimologiari dagokionez, G. Bähr eta K. Mitxelenaren iritzia<sup>552</sup> zuzena dela uste dugu, eta **Aiesa** toponimian ‘aldapa’, ‘malda’ adiera duen **aiher** (bestela ‘joera’, ‘gorroto’...) en eratorria izan daitekeela, **Ageza** herria mendi mazelean kokaturik baitago,

Nolanahi ere, **garate** ‘gaina’ dela garbi dago. Arakil-Uharten, kasu, 1071’5 metroko mendia da **Garate** [garáte] edo **Gaate** [gaáte] (cf. Agezako toponimoaren ebakera). Aezkoa-Hiriberriko **Garategaina** (1916ko katastroa, **Garatéina** orain) ere mendi baten izena da, bukaerako **-gaina** horrek erakusten digunez.

546 TCPCI, 309 eta 311. orr. **Garatea**-k ugariak dira toponimian.

547 PRA-Oibar, 2. k.

548 PRA-Kaseda, 8. k.

549 PRA-Oibar, 36. k.

550 Id., 2. k-bis.

551 Ikus NHI, 191. or., EHZE-ko 472-473. orr., eta Corona Baratechen *Toponimia Navarra en la Edad Media*, CSIC, Huesca, 1947.

552 AV, 38. or. eta OEH.

aldapan. Ai(h)erza-tik abiatzen bagara<sup>553</sup>, gertatu den aldaketa fonetikoa -(t)arzun > (t)asun atzizkian edo Elorzu > Elosu, Elosu toponimoan gertatu den bera izan dela kontu egin dezakegu<sup>554</sup>, eta bilakaera horren ondorioz Ayesa atera dela.

Herriaren izen ofiziala Ayesa bazen ere, Galipentzu eta Morionesko lekukoek alderdi honetako euskaldunek ibiltzen zuten aldaera Ageza<sup>555</sup> zela erakusten digute<sup>556</sup>. [g] hori, Agoitz (<\*Aioiz < Aionis<sup>557</sup>) eta beste izen batzuetan agertzen den g antiyod bat besterik ez dela uste dugu, formarik zaharrena Ayesa delarik. Bilakaera, hortaz, hau izan zitekeen: \*Aierza > Aiesa > Ageza. Azken hau jatorri euskaldunekoa den baina erdal izen ofizial bilakatu zen Aiesa-ren "euskalduntze"-tik aterako zen (hitz barruko txistukaria dela eta, cf. gesal / gezal, Gezari, Isaba / Izaba...). Zernahi gisaz, hortz-hobietako txistukari bizkarkaria -rz- multzotik zuzenean ere atera zitekeen, erdarazko -s- tik igaro gabe. Cf. buzuntz 'makala' erronkarieraz, burzuntz-etik, edo gentozen, \*gentorzen-etik<sup>558</sup>.

Ayesa-ren oinarrian, dena den, antroponimo bat dagoela ere pentsa daiteke, A. Irigoyenek Ayegui eta Aya-rako proposatzen duen jatorria onartzen bada<sup>559</sup>. Autore honen arabera, Estellerriko herriaren izenaren osagaiak Aio antroponimoa eta -egi '-regi' dira. Gipuzkoako Aya-n berriz, aurreko Aio horren aldera bide den Aia genuke.

Ayesa-rako, beraz, Aio antroponimoa proposa liteke, eta zer den garbi ez dagoen Esa (Leireko monastegiaren ondoan dagoen Yesa bera ote?<sup>560</sup>). Guztiarekin ere,

553 Mitxelenak Ayerza biltzen du, besteak beste, AV-en.

554 Ikus honen inguruan FHV, 361-365. orr. Hala ere bada arazo bat, zeren dirudienez ahier + tza badugu (cf. Artatza, Oteitza...) -rtz- multzo hori gehienetan, Mitxelenaren arabera (FHV, 362. or.), gorde edo -st-ra pasatzen baita, baina ez -s-ra, -rz- multzoaren kasuan usu agitzen den moduan, -rs- delarik lehen urratsa. Hortaz, esperatzekoa zena Aiesta da, ez Aiesa:

"También es notable la alternancia interdialectal de rz o rtz con st, llevada a la Toponimia, de *bortz* y *bost* cinco, *bertze* y *beste* otro, *erze* y *este* intestino, *ortzirala* y *ostirala* viernes. *Sagasta* nombre de un barrio de Abadiano viene indudablemente de *Sagartza* manzanal, como *Ayesta* (*Ajesta*) nace de *Ayerza*, *Ayarza*" . Azkue, MV, 8. zkia., 30. or.

Orain, Aierza-tik abiatzen bagara, ez legoke horrelako arazorik.

555 Edo Agetza, ausaz.

556 Agueça bidea 1641ean Galipentzun, eta 1650ean Morionesen (ikus bi herri hauetako Agezabidea sarre-ra).

557 Alfonso Irigoyen, "Sobre el origen de los patronímicos y de ciertos topónimos terminados en -ain, -ein, sul. -añe", DRPLV-II, 193-203. orr. Autore honek, Aionis izena ageri den inskripzio erromatar bat aztertzen ari dela, honela diosku:

"...con *Aionis filius*], siendo *Aionis* genitivo de *Aio*, nombre de persona bien documentada en la epigrafía de época romana de Hispania y que continuaba vigente en la Edad Media con forma exactamente igual, hoy apellido..."

eta aintzinxeago:

"curiosamente dicho patronímico dió lugar al nombre de la localidad navarra de *Aoiz*, forma con caída de [j] así como también de -n- intervocálica, que en pronunciación vasca es *Agoitz* portando en este caso -g- antiyod..." (195. or.)

Irigoyenek beste adibide batzuk ere ematen dizkigu liburu bereko "Algunas cuestiones relacionadas con la [j] en lengua vasca" artikuluan, 1-38. orr. Horien artean Baigorriko oligua (< oliyua) 'olioa', Igantzi, (<\*Iyantzi) herri-izena, eta igaz (< iaz, iyaz) aipa daitezke, besteak beste.

Autore hau Ayesa / Ageza izenaz DRPLV-III lanean arduratu da. Ikus "Nafarroako Aiesa toponymoa euskaldunen artean Ageza forman ere erabili izan dela dirudi" artikuluxka, aipatu liburuko 161-162. orrialde-etan.

558 Ikus FHV, 362. or.

559 "Las hablas vascas de Tierra de Estella y su onomástica", in DRPLV-III, 163-192. orr.

560 Ikus NHI, 183. or.

Ageza edo Ayesa maldan kokatua egotea nahikoa adierazgarri iruditzen zaigu, eta gorago eman etimologia (hots, aiher + (t)za) hobetsiko genuke guk.

### Balarata (portillo de):

Balarata da 1537ko eta 1597ko lehen lekukotasunetan agertzen den aldaera; honen ondoan **Malagatta** (1705) eta **Balagata** (1776) ditugu, agian herri-etimologiaz, eta **Balareta** (1747) disimilatua:

“en el...termjo llamado balarata” (1537)<sup>561</sup>

“otra pieza en Malagatta” (1705)<sup>562</sup>

“otra pieza...en Balagata” (1776)<sup>563</sup>

Galipentzun gainera, **Balarate** eta **Baladata** ditugu (toponimo honen etimologiaz ikus Galipentzuko **Balarata** sarrera).

Agezan orain **Balagata** [balagáta] edo **Malagata** [malagáta] erabiltzen dira, hau da, XVIII. mendean agertzen diren aldaki berak.

Balarata-k Galipentzuko **Balarata** eta **Las Fuentes**-ekin (ikus sarrera hauek), **Kanpobarrena** (**Kanparrena** orain), **Arana**, **Onbordua**, **Ategarate** eta **Gezari** (bajo)-rekin mugatzen du. Hemendik igarotzen zen lehen Zangozatik Epaiz eta **San Gines**-a zihoan bidea:

“una pieza...en...Balareta theniente...a...Camino Real q se ba a Abayz” (1747)<sup>564</sup>

1597rako agertzen den **Portillo de Balarata** oraingo errepedean (eta aipatu bide horretan seguru asko) dago, **Cuesta de Gezari**-tik hurbil:

“otra piª en el portillo de balarata”<sup>565</sup>

### Barrankoandia:

Zalantzarik gabe **Errekandia** (**Rekandia** edo **Rakandia** gaur) bera da. Osagarriak, esan beharrik ez legoke, **barranko** ‘erreka’ eta **handia** ‘dira’, eta badirudi bizitza errealik izan ez duen toponimo hibrido baten aitzinean gaudela, alegia, **Errekandia** orokorraren itzulpen kaskar baten aitzinean:

“una pieza...en el termino de el Barranco Andía teniente a pieza de la Abadia, y Camino que ban a Sanguesa” (1788)<sup>566</sup>

561 PRA-Oibar, 2. k-bis.

562 Id., 30. k-bis.

563 Id., 70. k.

564 Id., 54. k.

565 Id., 9. k.

566 Id., 75. k.

**Barrio alto, el:**

Egungo **Barrio de arriba** euskarazko **Irigoi**-en (ikus sarrera hau) ordaina da, eta pilota-jokutik goiti hedatzen den auzoa izendatzen du:

“una casa en el varrio alto” (1799)<sup>67</sup>

**Barrio bajo, el:**

Gure egunotan **Barrio de abajo** deritzan auzoa frontoitik (eta udaletxetik) beherantz luzatzen da:

“la casa...en el barrio bajo” (1786)<sup>68</sup>

**Barrio de abajo, el:**

Ikus **Barrio bajo** sarrera.

**Barrio de arriba, el:**

Ikus **Barrio alto** sarrera.

**Barrio de medio, el:**

Euskarazko **Iriarte**-ren ordain erdalduna da. Gaurregun ez da erabiltzen, baina badakigu **Irigoi** eta **Iribarren**-en artean zegoela, eta beraz pilota-jokuaren inguruko etxeek osatzen zutela:

“una casa...en el barrio de medio” (1555)<sup>69</sup>

**Barués, el:**

**El Bargüés** [bãrgwés] **Ategarate** eta **Cerro Mandurro**-ren arteko lur-zati txiki bat da. Lehen ardantzeak zeuden bertan, eta garbi dago mahats-mota bat adierazten duen **barués**-ekin identifikatu beharra dagoela (ikus **Zareko** izen bereko sarrera). Gaurregun izen hau atzenduxe dago.

**Bidertxi:**

Honen osagai gardenak **bide** eta **ertxi** ‘estu’, ‘mehar’ dira:

“otra (viña) en el término de Biderchi” (1830)<sup>70</sup>

567 PRA-Kaseda, 36. k.

568 PRA-Oibar, 74. k.

569 Id., 2. k.

570 PRA-Kaseda, 51. k.



**Bidertxiburua:**

**Bidertxi**-ko gaina adieraz zezakeen honek, alegia, 'bide estuko gaina', baina 'bide estuaren goreneko aldea' ere bai. **Bidertxi**, dirudienez, **Kanpobarrena** eta **Iturrieta** aldean zeuden ardantzearako bidea zen, Galipentzu eta **Nobeleta** aldera zihonana:

"otra pieza...en el terno llamado Videerchiburua thene a...Camino que ban a Nobleta" (1736)<sup>571</sup>

**Biroeta:**

Ez dakigu aldaera batua ongi aukeratua dagoen, ditugun lekukoak aski nabarrak direlako: **Virotea** (1770)<sup>572</sup>, **Berta** (1770)<sup>573</sup>, **Virgueta** (1777)<sup>574</sup>, **Virueta** (1793)<sup>575</sup>, eta **Borta** (1823)<sup>576</sup>. Hauek berandukoak direnez, ordurako itxuratxartuxea zegoela suposa dezakegu (cf. Morionesko **Biroetako alorra**<sup>577</sup>).

Etimologia iluna bada ere (\***Mirueta**-ren moduko batetik atera da?), badakigu nontsu zegoen:

"una viña...llamada la viña grande en el termino de Borta...afta con camino de Galipienzo y Camino de Uxue" (1823)

**Bizkarranportillua:**

Honen osagai gardenak **bizkar**, **haran** eta **portilua** dira. Lehen izena, I. Sarasolak dioenez<sup>578</sup> 'giza gorputzaren atzeko aldea, besaburuetatik gerrira' edo animalien 'gainaldea, lepotik isatsera' da, eta hedaduraz 'mendi baten gainaldea, bereziki zabala deanean'. Alfonso Irigoyenek<sup>579</sup> 'loma' iraultzen du, seguru asko Azkueren hiztegian orokortzat jotzen den 'loma en los montes' definizioari jarraituz.

Zernahi gisaz, badakigu portilua zela eta gain edo bizkar baten ondoan zegoela:

"otra pieza...en Viscar aran portillua que afrontta con...cerro concejil" (1770)<sup>580</sup>

Baliteke **Ategarate**-ko **Cerro Mandurro** izatea (ikus bi sarrera hauek).

571 PRA-Oibar, 45. k.

572 PRA-Kaseda, 22. k.

573 PRA-Oibar, 68. k.

574 PRA-Kaseda, 29. k.

575 Id., 35. k.

576 PRA-Oibar, 106. k.

577 Artikutzan **Biureta** dugu gaurregun, **Aranchoco Virueta** 11792an. Mikel Errondo, "Artikutzako toponimia...", 122. or.

578 HLEH.

579 IG, *Euskera*, 33, 1988-2, 651-658. orr.

580 PRA-Kaseda, 22. k.

**Borraz (viña de la casa de:**

Dokumentazioan **Borraz** (1710<sup>581</sup> eta 1770<sup>582</sup>) eta **Bornas** (1720<sup>583</sup>) aldaerak aurkitzen ditugu. Gaurregun Agezan ez dago izen honetako etxerik.

**Boyerál (carasol de), el:**

El Boyeral herritik La Cruz de Gurutzeta, El Coscojar, Santa Agata, Santa Marina eta Tastaran-eraino zabaltzen da. Eremu hau auzalurra da, eta agezarrek aziendak (abelgorriak eta ahuntzak) eramaten zituzten bertara larretzera. Honengatik deitzen diote El Boyeral (ikus Galipentzuko izen bereko sarrera) edo El Vedado (ikus Uxueko El Vedado).

El Boyeral berez izen arrunta da, eta gure eskualdeko herri gehienetan agertzen da, denetan toponimo bilakatu ez bada ere. Euskaraz idibelar baten gain taiutua<sup>584</sup> dirudien Idibelarmuge [idiβelãrmúge] dugu Gulibarko Larunbe herrian.

**Calvario, el:**

Toponimo hau oso arrunta da Nafarroan. Gure alderdian erdal aldaeraz besterik ez dugu: El Calvario Eslaba, Leatxe, Lerga eta Uxuen, El Calvario viejo Kaseda<sup>585</sup> eta San Martinen<sup>586</sup>, El Calvario nuevo eta Barranco del Calvario azken herri horretan<sup>587</sup>, eta Junto al Calvario Zaren.

Beste zenbait tokitan posposizio euskaldun batez hornitua agertzen da, euskaraz erabiltzen zelako seinale: Calvario aldea<sup>588</sup>, Calvario bidea, Calvario gaña, Calvario ondoa, Calbariopea<sup>589</sup>... Zenbaitetan hasierako belare ahoskabea ahostundu dela ikusten dugu, euskarazko arau fonologiko zahar eta jator bati jarraikiz: Arbizun, esaterako, aurreko \*Galbarioeta batetik atera den Galbayoóta dugu<sup>590</sup>.

Gurutzebidea Agezan elizatik hilerrira, eta hilerritik atzera elizara egiten zen duela urte batzuk arte, Camino de arriba de Sada-n barrena. Antzina, alabaina, beste ibilbide bat zuela irudi du:

“otra (pieza)...debajo el Camino de Eslaba pasado el Calvario” (1786)<sup>591</sup>

---

581 Id., 5. k.

582 PRA-Oibar, 68. k.

583 Id., 36. k.

584 \*Hiribelar ere egon liteke honen oinarrian.

585 PRA-Oibar, 66. k..

586 PRA-San Martin, 35. k., 1735.

587 Id., 45. k., 1759 eta 58. k., 1788, hurrenez hurren.

588 Itza-Eritzen, J. Jurío, TCPCI, 151. or.

589 Zendea bereko Otxobin, TCPCI, 254-255. orr.

590 Cf. Mendibururen “galvario”: “ill-cera daramaten ardia bezain issill, ta humill igan cñian galvarioco mendiara;...”, *Jesus-en Bibotza-ren Devocioa*, Iruñea, 1751, 364. or.

591 PRA-Oibar, 74. k.

**Calvo (pieza de la casa de), (mendi de):**

Egungo El Calvo [elkálbo] Mendi-ren azpian dago, Oibartik Lergara doan bide aldera, Erresoreta-ko mugan, behinolako Arrixauzkuneta-ren ondoan (ikus sarre-ra hau).

Hemen, Alto de Ayape aztertzean ikusi gertakari bera dugu, alegia, bertan ondasunak zituen agezarraren izena bilakatu da tokiaren izen. Izan ere, Calvo inguru honetan lurak zituen Agezako etxe baten izena zen (cf. Eslabako Kalboren korrale-sarralde), azken hau, bere aldetik, nagusiaren deitura edo goitzenetik heldu zelarik:

“otra (pieza)...en Arrisauquineta, que afronta con pieza de la casa qe llaman de Calvo, y Camino que se ba a Caseda y Sanguesa” (1788)<sup>592</sup>

“otra (pieza)...en el mendi que llaman de Calvo” (1790)<sup>593</sup>

Bigarren aipuan ageri den el mendi hori euskarazko mendi(a) da, egungo Almendi (< El Mendi) edo (El) Mendi bera.

El Calvo Erresoreta, Txurruta eta Udareaga-ren artean dago.

**Camino bajo de Eslava, el:**

Antzina Eslabara joateko bigarren bide bat ere bazela irudi du, apika Camino de Gezari edo Gezaribidea bera:

“...y otra pieza en el camino baxo deslaba” (1617)<sup>594</sup>

**Camino de Abaiz:**

Camino de Usobidea bera zen. Errepidea-tik Balarata-n barrena zihohan (ikus Agezako bereko Balarata eta Eslabako Errepidea eta Camino de Abaiz a Sanguesa sarrerak).

**Camino de abajo de Sada, el:**

Agezako eta Zareko Lausitu-n zehar doa.

**Camino de Aibar, el:**

Herritik behialako Arrixauzkuneta-n zehar, Errepidea edo Camino Real-era doa. Hemendik aitzina Camino de Caseda esaten zaio.

Honen hastean, Errekandia ondoan, bada ate bat, Oibarko eta Zareko beheko bideak bereizten diren gunean, antzina Lausituportillua zeritzana:

592 Id., 75. k.

593 Id., 76. k.

594 Id., 19. k.

"otra pieza en Lausitu portilua...que afrontrta con...Camino que se bá a Aybar"  
(1774)<sup>595</sup>

**Camino de Aquilar, el:**

**Errepidea-tik Aquilar-en gaindi Lakuaga aldera doa:**

"otra piª en el Camino de aquilar" (1596)<sup>596</sup>

**Camino de arriba de Sada, el:**

**San Miguel-en barrena doa, Zareko El Monte eta Lausitu-ren erdira.**

**Camino de Arteta, el:**

**Cruz de Gurutzeta-tik, Ageza eta Morionesen arteko mugatik, Artetara doa.** Loiara ere bide honetatik ateratzen zen adar batetik joaten zen orain urte batzuk arte.

**Camino de Caseda, el:**

**Ikus Camino de Aibar sarreran esan duguna:**

"otra piª...en la endreçera llamada camino de Caseda" (1593)<sup>597</sup>

**Camino de Errekandia, el:**

**Herritik Errekandia-ra doa.**

**Camino de Eslava (debajo de), el:**

**Camino de Eslava Zabala eta El Saso-ren gaineratik, Gezari alto-n zehar, Eslabako Gezari (antzinako Gezarigoiena) eta Tastaran artera sartzen da. Debajo del Camino de Eslava-k bide honen azpiko aldea adierazten zuen:**

"en el termino llamado debaxo el camino deslava..." (1588)<sup>598</sup>

**Camino de Eslava a Caseda, el:**

**Alto de Ayape-ren ondotik zihoan, Balarata-n gaindi (ikus lehen sarrera hori). Eslabako Errepidea-rekin identifikatu behar dugula dirudi (ikus Alto de Ayape sarrera).**

**Camino de Ezprogui, el:**

**Cruz de Gurutzeta-tik Ezporogi aldera doa.**

---

595 PRA-Kaseda, 26. k.

596 PRA-Oibar, 9. k.

597 Id., 7. k-bis.

598 Id., 4. k.

**Camino de Gallipienzo (junto a), el:**

La Presa-ren hurbiletik, **Onborduia** eta **Arana**-ren artetik lehenbizi, eta **Balarata** eta **Kanpobarrena**-ren erditik gero, Galipentzuko **Balarata**-ra doa:

“...la otra pieza en la endrèçera llamada camino de Galipienzo...” (1586)<sup>599</sup>

**Ardantzabarreneta** aztertzean ikusi moduan, bidea dermio horretan barrena zihoan (eta doa, toponimoa galdu arren). Euskaraz **Galipentzubidea** esaten zitzaiola badakigu (ikus sarrera hau).

1593ko **Junto al Camino de Gallipienço**-k euskarazko **\*Galipentzubide**-ondoa baten itzulpena irudi du:

“otra pieza en la endrèçera llamada Junto al camino que ban a gallipienço”<sup>600</sup>

**Camino de Gezari:**

Oibartik **Lergara** doan bidea da, **Gezari**-tik **Eslabako** mugaraino. Euskarazko **Gezaribide**-ren baliokidea zen.

**Camino de Irigoien:**

**Irigoien** edo **Barrio alto / Barrio de arriba**-ra zihoan. Agian gaurko **Camino de la Fuente**-rekin identifikatu behar genuke:

“una cassa...camino de yrigoien” (1650)<sup>601</sup>

**Camino de la Ermita de San Juan:**

**Pérez Olloren** arabera<sup>602</sup> **Igual de Soria** apezpiku bisitatzailleak **San Juan** ermita bota, eta materialekin **Santa Marina**-koa berritatzeko agindua eman zuen 1802an.

**San Juan Muga de Sada**, **Merkatu** eta **Aquilar**-en artean dago, **Camino de Caseda** eta **Zareko** mugaren artean (ikus **San Juan** sarrera). 1591ko **Camino de la ermita de San Juan** ondoko **Aquilar**-etik ermitara zihoana da:

“y la tercera...en aquilar...que afronta con el Camino que ban a la ermita de San Juan...” (1591)<sup>603</sup>

**Camino de la Fuente, el:**

**Barrio de arriba**-ko **Barrio de la Fuente**-ra doa:

599 Id., 3. k.-bis.

600 Id., 7. k.-bis.

601 Id., 18. k.

602 EN, 47. or.

603 PRA-Oibar, 5. k.

“una huerra...endrecera llamada el Camino de la fuente” (1602)<sup>604</sup>

**Camino de la Iglesia, el:**

San Andresi eskainita dagoen elizako bidea da:

“una era...afrentada con camino que ban a la yglesia” (1613)<sup>605</sup>

**Camino de la Muga de Sada, el:**

Hasieran Camino de Aibar eta gero Camino de Sada deritzana da Muga de Sada-ra doan hau.

**Camino de Lerga y Eslava a Sangüesa:**

Eslabako Errepidea la alta edo Zangozabidea-ren jarraipena da, hots, Agezako Camino Real edo Errepidea (ikus Presa sarrera).

**Camino de Loia, el:**

Santa Agata-tik, gailur-gailurretik, Eslaba eta Morionesen arteko mugara doa, eta hemendik Loiara. El Caracierzo-n barna doan Camino de Arteta-tik ere joan daiteke Bizkaiko desoblatura, antza.

**Camino de Moriones:**

Camino del Caracierzo-ren adierakidea da. Ezporogiko mugatik beretik, El Caracierzo-n zehar, Morionesen Iparragerria edo Iparraga (Iparragagoiena) deitzen zen alderdira zihoan.

**Camino de Motxiturriaga, el:**

Motxiturriaga-ra zihoan:

“otra pieza...en el camino de Mochiturriaga” (1720)<sup>606</sup>

Motxiturriaga gaur ezezaguna da, baina badakigu Usobidea eta Galipentzubidea-ren artean zegoela (ikus Motxiturriaga sarrera), eta hortaz baliteke bide horietako bat eta aztergai duguna bera izatea, hein batez bederen.

**Camino de Nobeleta, el:**

Errepide berria egiteak bide honen zati batzuen ezabaketa eragin zuen, baina ez zen osotara desagertu. Bideak Nobeleta guztia gurutzatzen du, aipatu errepide berri horren paretik:

---

604 Id., 10. k.

605 Id., 8. k.

606 Id., 36. k.

“...asta el camino que ban a Nobleta” (1596)<sup>607</sup>

#### Camino de Sada, el:

Bi dira Zarera doazen bideak (ikus gorago):

“una pi<sup>a</sup> en el camino de sada” (1596)<sup>608</sup>

#### Camino de San Juan:

Camino de Aibar (Camino de Caseda Errepidea igarota) izan daiteke, lehen aipatu Camino de la Ermita de San Juan ez bada behinik behin.

#### Camino de San Miguel, el:

Camino de Nobeleta bera da. Errepide ondoko, Llano de San Miguel-en aldameneko ermitara zihoan (ikus San Miguel sarrera):

“Yt una p<sup>a</sup> en zabala camjo de San Mgl” (1563)<sup>609</sup>

#### Camino de Sangüesa, el:

Antza denez, gaurko Camino de Aibar bera zen:

“otra pieça...debajo el camino de Sanguesa” (1605)<sup>610</sup>

#### Camino de Sangüesa a Eslava, el:

Camino de Lerga y Eslava a Sangüesa zen, Errepidea, alegia:

“otra viña...en el Camino de Uxue teniendo al camino que ban de Sanguesa a eslava” (1650)<sup>611</sup>

#### Camino de Santa Agata, el:

El Coscojar-en gaindi zihoan bide hau hastean, eta gero eskuinera egiten zuen, goiti, Santa Agata aldera. Orain ezabatua dago, neurri batez.

#### Camino de Udareaga, el:

Gaurko Camino de Oradiaga aztertu dugun Camino de San Miguel bera da. Egungo egunean bidea zeharo utzia dago eta ez da ibiltzen (ikus San Miguel sarrera).

---

607 Id., 9. k.

608 Id.

609 Id., 2. k-bis.

610 Id., 15. k.

611 Id., 18. k.

**Camino de Ujué, el:**

(Camino de) Usobidea-ren esanahikidea zen. **Motxiturriaga**-n barna (edo paretik) zihoan:

“una vina...en...mochiturriaga...afrentada...con el Camino Real que ban Enzia Uxue”  
(1582)<sup>612</sup>

**Camino de Usobidea:**

Gaurko Camino de Usobidea (Sobedeia [šòbēḏéa] ebakitzen da) dokumentazioko Camino de Ujué bera da. Egun **Errepidea**-ko **Gezariportillua**-n bukatzen da, baina antzina **Portillo de Balarata** dagoen eta **Eslabako Errepidea**-ren luzapena den errege bidera atera behar zuen. Hemendik aipatu auzo herri horretako **Errepidea** edo **Camino de Tafalla**-tik **Epaiz** aldera joango ziren, eta despoblatutik, **Eslabako Uxubidea**-tik zetozenekin bat egindakoa, **Uxueko lurretan** sartuko ziren, herri honen eta **Epaizen** arteko **Facería**-tik (ikus **Uxueko Camino de Eslava** sarrera).

Zernahi gisaz, agezarrak azken hamarkadetan<sup>613</sup> ez dira bide honetatik joaten **Uxuera**; **Camino de Eslava**-tik auzo-herrira joaten dira, eta **Eslabatik Epaiza**. Antzina, ordea, **Usobidea Zangozatik Epaiza** zihoan bidearekin elkartzen zela dirudi:

“una viña...llamada la viña grande que afronta con el Camino que se va a Gallip y Camo de Usobidea” (1775)<sup>614</sup>

**Camino de Zabala, el:**

**Camino de Usobidea**-ren hasiera da.

**Camino del Caracierzo:**

**Iparrera** begira dagoen **Moriones** eta **Ezporogiko mugako El Caracierzo**-ra doa (ikus **Caracierzo** sarrera).

**Camino del Carasol del Boyeral, el:**

**Herritik eguzkialdean zehar mendi gailurreko Cruz de Gurutzeta**-raino doa.

**Camino del Coscojar, el:**

**Camino** edo **Senda del Coscojar** herriko **La Fuente**-n hasi, eta **Santa Mari**-na-n barna, **idoiaren paretik**, **Eslabako bidearekin** elkartzera doa.

---

612 Id., 3. k.

613 1915ean sortua den José Egea jaunak ez du gaurkoaz beste biderik ezagutu, eta beraz oraingoa aspaldixkoa dela esan dezakegu.

614 PRA-Kaseda, 27. k.



**Camino del Molino de Gallipienzo:**

Errota hau Eslaba eta Galipentzuren arteko mugako **Molino de Unzue** (ikus sarrera hau Eslaban) izan zitekeen, baina testuingurua ikusita Agezatik Galipentzuko Aragoa ugaldeko goiko errotarako bidea dela uste dugu (ikus Galipentzu):

“otra pieza en aranportilloa...theniente a...camino que se ba al Molino de Gallipienzo” (1720)<sup>615</sup>

**Camino Real (de Tafalla):**

Zareko mugatik dator Agezara, eta udalerrri guztia zeharkatu ondoren Eslabara sartzen da, **Gezari**-tik (ikus azken herri honetako **Zangozabidea** edo **Camino de Sangüesa**). Antza denez, bazen **Ategarate**-tik Eslabako **Errepidea** aldera zihoan adar bat. Hemendik, Epaiz eta Lergako **Txutxu** eta **San Gines**-en zehar, **San Martin** eta **Tafallara** joaten ziren (ikus Eslabako **Camino de Errepidea** eta Lergako **Camino de Tafalla** sarrerak).

**Camino Real viejo:**

Aurreko bera da:

“otra pieza en Aguilar tente a Camino Real viejo” (1829)<sup>616</sup>

**Caracierzo, el:**

Esan bezala, Ezporogi eta Morionesko mugako elutsa da, eta azken herri honetako **Iparragerria** eta **Iparraga(goiena)**-rekin identifika daiteke. Gaurregun pinuz beterik dagoen mendi mazel honek gailurreko **Santa Agata**-rekin mugatzen du.

**Carasol, el:**

**Santa Agata** mendiko eguzkialdea da (ikus **Boyerak** sarrera).

**Carretera, la:**

Ez dakigu seguru zein errepede zen 1894eko katastroko **Carretera** hau, baina herritik **Lizarra-Nabaskoze** errepedera doana izan daiteke.

**Cascajar, el:**

XI. mendean baizik dokumentatzen ez den **Kaskallueta**-ren ordaina dela dirudi (cf. Eslabako **Kaskallueta** edo Galipentzuko **Kaskallu**). **El Cascajar**, jakina, **cascajo** ‘kaskailu’ asko dagoen tokia da.

Itxura denez, **La Rea** baino pixka bat beherago zegoen, **Camino de Nobeleta** ondoan, bertan bideak konpontzeko kaskailua atera ohi zen muino bat baitago:

615 PRA-Oibar, 36. k.

616 PRA-Kaseda, 51. k.

“en el termino llamado el Cascajar” (1588)<sup>617</sup>

**Cementerio, el:**

**Camino de arriba de Sada-n dago** (ikus El Calvario sarrera).

**Cerro Mandurro:**

Egungo **Cerro Mandurro** [θ̄̄rom̄d̄ũ̄ro] izena ez da dokumentazioan agertzen, eta gure informatzailetako batek idarokitzen duenez, Agezako norbaiten sasizena izan zitekeen.

Alabaina, gain baten izena denez gero, baliteke euskarazko mendi-rekin zerkusia izatea, baina honela ez balitz ere, bere euskal etorkia segurua dela uste dugu, agerietan azaldu ez arren (cf. Uxueko **Makarreta**): Orbako Leotzen **Mendiurrun** dokumentatzen da 1629an eta 1634ean<sup>618</sup>, **Orotz-Betelun Mendiurru**, **Menyurru** edo **Mendiurrun** dugu<sup>619</sup>, **Eguaratsen Menduro**<sup>620</sup>, **Beuntzan Mendúrre**, **Imotzen 921 metroko gaina den Mendurro** [m̄̄nd̄ũ̄ro] daukagu **Muzkitzen**, **Mendarro** [m̄̄nd̄ã̄ro] **Lata-san**, eta **Mundarro** [m̄̄nd̄ã̄ro] **Goldaratsen**, azken biak gain bera izenda dezaketelarik, herriak mugakideak izaki. **Goldarazko toponimoa Mendarrua** edo **Mendarrogoiti** zen 1800ean<sup>621</sup>, **Mendarro** (“cerro comun” zela dio agiriak) 1826an<sup>622</sup>, eta **Mandarro** 1829an<sup>623</sup>.

**Cerro Mandurro Ategarate-ren barruko gaina da**, **Portillo de Gezari-ren** aldamenekoa, eta badaiteke lehengo **Bizkarraranportillua** toponimoan ageri den **bizkar hori** bera izatea.

**Cofradía del Santo Rosario (junto al nozal de la):**

Hemen **nozal nogal-en ordez dago**, baina hau ez da eskribauaren okerra, aldaera dialektala baizik<sup>624</sup>:

“otra viña Junto al noçal de la confraria” (1594)<sup>625</sup>

**Kofradiak bi moldetakoak izan zitezkeen**: batzuk **lanbide bereko kideen artekoak** ziren (**zapataginen elkargoa**, kasu), eta **helburu nagusitzat merkatal abantailak erdiestea zuten**, **materiala merkeago erostea**, **adibidez**. **Beste batzuk laguntza-erakundeak** ziren: **elkartekidea behartsua bazen**, **gaixoardietan beste kideek zaintzen zuten** edo **laguntzen**, edo **kofradiako norbait hiltzen bazen**, **ehorzketa** eta **hil ondoko elizkizunen ordainketa elkargoko kideen bizkar gelditzen ziren**<sup>626</sup>.

617 PRA-Oibar, 4. k.

618 PRA-Barasoain, 5. k. eta PRA-Oibar, 23. k.

619 B. Urtasun, TOB, 339. eta 345. orr.

620 F. de Leizaola, “Toponimia del Valle de Atez”, AIO, 409-421. orr.

621 Indice de Gravámenes, Goldaratz (Ollakarizketan Garcia Mendiurrucoa dugu XIII. mendean. TAV, 35. or.).

622 Id.

623 Id.

624 Cf. San Martingo **El Nozal de Torres** (PRA-Oibar, 3. k., 1587), edo **Eslabako Pieza del Nocedo** (ikus sarrera hau).

625 PRA-Oibar, 8. k.

626 Informazio hau, beste anitz bezala, adiskide eta irakasle dugun J. M<sup>a</sup> Jimenorengandik jaso dugu.

Agezako kofradia (**obraría** esan behar genuke, toponimian behin baino gehiagotan azaltzen den izena errekuperatuz<sup>627</sup>, edo honen aitzindaria den **kobraría**<sup>628</sup>) bizirik dago oraindik, eta bere funtzioa aipatu bigarren hori da, alegia, ehorzketa eta hil ondoko mezen ordaintzea. Kobrarikideak, gainera, herriko “zulogintzaile” edo lurperatzaileak dira, urtean lau, zotz eginda.

**Corral (campo de), el:**

Oso berandu aurkitu dugu<sup>629</sup>, eta gaurko **El Corralico** izan daiteke.

**Corralico, el:**

**El Saso** barruan dagoen lurtsaila da. Izena bertan dagoen gorte hondatuari zor zaio.

**Corraliza:**

Izen honetaz ikus Galipentzu eta Uxueko **Corraliza** sarrerak. Agezan udalerriz guztiko belarrak batera saltzen ziren, “corraliza” bakar batean.

**Coscojar, el:**

Corominasek dioenez<sup>630</sup>, hitz hau jatorri hispaniarreko **cusculium**-en ondorengoa den **coscojo**-ren eratorria da. **Coscojo**, “agalla producida por el quermes de la encina roja” da, eta **coscoja** aldiz, “mata que produce la grana”. Aurrekoen eratorria den **coscojal** ere aipatzen du, eta definiziorik eman ez arren, “coscoja” multzoa edo ugaritasuna adierazten duela segurua da.

Iribarrenen arabera<sup>631</sup>, **coscoja** artearen antzeko zuhaitz txiki-mozkotea da Erribera aldean, eta metrorainoko bago gaztea Mendialdean. Uxueko gure informatzaile baten arabera<sup>632</sup>, bertan **chapparro** esaten zaionari deitzen diote **coscojo** mendialdeko artzainek, eta Agezako gure informatzaileek esandakotik ere ondorio bera atera daiteke. Alabaina, Zaren **El Chaparral** eta **El Coscojar** ditugu, elkarren ondoan, eta ez dirudi erabat gauza bera direnik<sup>633</sup>, herri honetan behintzat.

**El Coscojar Camino de Eslava**-tik goiti hedatzen da, **Tastaran** eta **Eslabaino**, herri honetan ere sartzen delarik (oihana, ez toponimoa):

627 Cf., adibidez, obrari **guibela** Burlatan, 1728an. Jimeno Jurío, ETB, 81. or.

628 Gofierrin aurkitutako sei testuetako hirugarrenean azaltzen da: “Confesoreac erraten badizu confesatu, eta comulguetu zaicela illen lembisico Iguendetan, Errosarioco Cobrarien indulgenciec irebastaco, edo illen iru guerren Iguendean Santissimoaren Cobrarico indulgencie irebasteco, erraten duzu, maicegui dela dembor aoyetan confesacea”. Francisco Ondarra, “Gofierrin aurkitutako beste sei testu”, FLV, 57, 156. or.

629 1894eko katastroan.

630 DCELC.

631 VN.

632 Lucio Berrade Burgui artzain jubilatuaeren arabera.

633 Mirxelenaren “Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el Príncipe Bonaparte” artikuluan (SHLV, 298-319. orr.) **chapar** Erronkarin **arech**-en aldamenen azaltzen da, frantseseko **chêne**-ren ordaintzat. Leatzeko **El Monte de Aritzandieta**-n txaparrak baziren, eta honek frogatzen bezala balio ez badu ere, **txapar** eta **haritz**-en arteko lotura idarokitzen duela ezin daiteke uka. Ikus, dena den, Galipentzuko **Lecino** sarreraren dioguna.

“y sobre otra pieça en el coscojar con su corral y artegaia” (1639)<sup>634</sup>

**Gezari alto, El Saso, Santa Marina, El Boyeral eta Tastaran-ekin muga-tzen du.**

**Coseras:**

Izen honen bidez, J. Juríoren arabera<sup>635</sup>, herri baten ondoko eremua adierazten da, herriari berari eta honen dermioari kontrajartzen zaiela. Gure alderdian izen hau, edo aldakia duen **Corseras**, **Eslaban**, **Galipentzun**, **Kasedan**, **Lergan**, eta **Uxuen** aurkitu dugu, Agezan ezezik.

Leatxen ediren dugun **Iriondoa** (< hiri + ondoa) honen ordain euskalduna izan daiteke (ikus sarrera hau).

**Cuesta del Fraile, la:**

**Errekandia**-tik hilerrira doan bidearen gainean dago, Zareko goiko bidean. Kontatzen dutenez, eskean zebilen fraile bati boltsa erori zitzaion aldapa honetatik, eta hortik izena<sup>636</sup>.

**Chopar, fuente del:**

**Chopar Chopera**-ren esanahikidea da, eta **txipu** multzoa adierazten du (cf. **Txipueta**). **La Fuente del Chopar Aquilar**-en dago, **La Chopera**-n, eta dokumentazioa **La Fuente de Aquilar**-ekin identifikatu behar dela irudi du.

**Chopera, la:**

Ikus aurreko eta ondoko sarrerak.

**Chopos, los:**

Eskribau eta notarien erdaltzaletasuna ezagututa, euskal toki-izen baten itzulpena besterik ez dela pentsa daiteke, honen alboan dokumentazioan maiztasun handikoa den eta oraindik bizirik dagoen **Txipueta**<sup>637</sup> baitugu.

“ytten otra piª...en los chopos” (1598)<sup>638</sup>

**Aquilar**-en **La Chopera** izeneko txipudia dago (edo hobe esan, zegoen, berriki arte) eta baliteke azken hau eta aztergai dugun **Los Chopos** bat eta bera izatea.

**Depósito de las Aguas, el:**

Herriko iturriaren ondoan dago.

634 PRA-Oibar, 23. k-bis.

635 “«Zendeak», «gorteak»...”, 748. or.

636 Euskaraz fraile osagaia duen Frailesoro dugu Iturmendin. Ikus Nicolás Arbizu Gabirondoren TI, 267. or.

637 Eta honen eratorriak diren Txipuetarana eta Alto de Txipueta.

638 PRA-Oibar, 7. k.

**Eras:**

Herriaren aldirietan zeuden, auzalurrean, eta nagusiaren etxearen izena hartzen zuten.

**Erauso:**

Behin bakarrik ageri da, 1088. urtean, **Erahusso** itxurapean<sup>639</sup>, eta Esa herriko izentzat jotzen da, ez Agezakotzat. Alabaina, lan berean azken herri honetako toponimoak lehen horretakotzat joak daudenez gero, pentsatzekoa da hemen ere “Yesa” eta “Ayesa” nahasiak daudela.

Etimologiari dagokionean, Mitxelenaren ustez<sup>640</sup> izen honen bukaerako -sso ([š] sabaiaurreko igurzkariz ahoskatua, antza) **Artajo** (< **Artaxo**) edo **Irujo** (< **Iruxo**)-n dugun atzizki bera da, batzuetan behintzat -tsu, -zu-ren aldaera dena. Oinarri edo elementu nagusia “azaltzen zaila” da, irakasle errenteriarraren esanetan.

**Erlaiondoeta:**

Baliteke Erlaiondoeta izenaren barruan **erle** osagaia izatea, baina hau ez dago inola ere garbi. **Ondo** posposizioa eta **-eta** atzizkia ere baditugu, irudiz:

“yten otra pº en erlaiondoeta” (1538)<sup>641</sup>

**Ermitas, pieza de las:**

Ez dakigu zer ermitaren alorra zen, baina bai **Leonkoa**-n (ikus sarrera hau) zegoela.

**Errekandia (barranco de):**

**Erreka** izena eta **handia** izenondoa ditugu egun **Rekandia** [rɛkaɲd̪a] nahiz **Rakandia** [rakaɲd̪a] deitzen den honetan:

“una piª...en la endreçera llamada erreca andia” (1591)<sup>642</sup>

Zarera (behetik), Oibar eta Kasedara doan bideak (bakarra da hasieran, gero bitan banatzen bada ere) erreka hau gurutzatu behar zuen, eta horren handia denez, jendeak maiz arazoak izaten omen zituen ubidea zeharkatzeko<sup>643</sup>.

**Barranco de Errekandia Barranco de Parrala**-rekin elkartzen da **Udareaga**-n, azken dermio honen izena daraman errekarri hasiera emanez.

**Errekandia**-k **Mendi, Lausitu**, hilerriarekin, eta **Parrala**-rekin mugatzen du.

639 Lacarra, VM, 31. or.

640 AV, 150. or.

641 PRA-Oibar, 2. k-bis.

642 Id., 25. k.

643 Erreka-zolaren sakoneragatik, ez ur-kopuruagatik, hau, tamalez, urria izaten baita, erauntsia ez delarik.

**Errekineta:**

Toki-izen hau oso berandu ediren dugu (1831n), eta dokumentuan azaltzen den aldakiak (Raquineta-k, alegia) hasierako bokalaren aferesia aurkezten du, beste toponimo askotan (cf. Resoreta, Recaldea, Rotazarra, Repidea...) agitzen den moduan. Raquineta aurreko \*Errakineta batetik atera da, eta hau jatorra izan badaiteke ere, lehenagoko \*Errekineta batetik eratorri behar dela uste dugu (cf. Mondacoerrequina Lergan, 1594ean, Mondacoerraquina bilakatua 1761ean):

"otra pieza...en...Raquineta" (1831)<sup>644</sup>

Agiriak zenbat eta beranduagokoak izan, hainbat joera handiagoa ohi dago erreka, errota edo errege bezalakoak hasierako bokalik gabe azaltzeko. Esaterako, Errekandia 1591 eta 1594eko agerraldietan (lehendabiziko bietan beraz) hasierako bokalaz horniturik aurkitzen dugu, baina hurrengo agerraldietan hasierako e- hori ez da ageri.

Esanahiaz den bezainbatez, erabili ditugun hiztegiek erre aditzarekin erlazionatzen dute, jatorriz dagokion bezala. Lhandek<sup>645</sup> 'combustible' dela dio, eta I. Sarasolak<sup>646</sup> 'beroa sortzeko erabiltzen den gaia'. Azkuek<sup>647</sup> adiera honetaz gain, 'hormiguero', 'rotura en los campos' nahasgarria dakar, eta frantsesez 'fournache, tas d'herbes que l'on fait brûler dans les champs'. Dena den, hizteigile eta gramatikari famatuak bere *Morfología Vasca* ezagunean<sup>648</sup> -kin atzizkia aztertzen ari delarik errekin izena biltzen du, eta gipuzkera, bizkaiera eta lapurteraz 'erregai' esanahia duela dio, eta erronkarietaz 'oihan erre' dela.

Errekineta Agezako bereko egungo La Quemada-ren ordaina da, adieraz eta agian tokiz ere bai. Lergan Errekina, Errekinbazterra, eta Mondako errekineta ditugu, Sabaitzan Errekineta<sup>649</sup>, eta antzeko toki-izenak ongi ezagunak dira Nafarroan<sup>650</sup>. Aldean La Quemada dugu, Melidan (Bardean) eta Kadreitán bezala<sup>651</sup>. Beste toki batzuetan El Quemado<sup>652</sup> edo Las Quemadas<sup>653</sup> dauzkagu.

644 PRA-Oibar, 103. k.

645 DBF.

646 HLEH.

647 DVEF.

648 8. zkia., 108. or.

649 Requinetas azaltzen da herri honetako 1894eko katastroan.

650 Iruñerrian ere agertzen da: Requin dugu Galar-Zubitzen (J. Jurío, TCPG, 417. or.), eta Erraquin(a) bidea eta Erraquineta Izun (J. Jurío, TCPG, 196. or.). Añorben \*Errekin-etik atera den Rekin dauka, Sagasetan bezala (Eleizalde, LVTV). Aezkoan Paco de Errakinetas dugu Orbaran, eta honekin batera Errea, Erreaburua [ēreaβúrwa] eta Erreapea [ēreapéa]; Erroibarko Mezkitz herrian Errekinxarreta dugu (Orreaga Ibarra, MT, 327. or.). Etxarrentxulon, azkenik, Rekiñeta bildu du Eleizaldek.

Beste toki batzuetan izen honek -kin-en baliokidea izan daitekeen -ki atzizkia bide du (cf. adabaki / adabakin; iragazki / iragazkin...): cf., adibidez, Eguarasko Errekiet (Rekieta, Rekieta iturri, Errekietako iturri); Fermín de Leizaola, TVA, 416. eta 419-420. orr.

651 *Las Bardenas Reales* (liburua eta mapa), Jesús Elósegui eta Carmen Ursúa, Nafarroako Gobernuak argitaratua emandakoa, Iruñea, 1990. Melidan 1667an azaltzen da (PRA-Kaparrosa, 75. k.).

652 Gulibarko Aginaga eta Larunben, eta Arakil-Hiriberrin aurkitzen dugu. Honekin lotua Burlata herri-izena dugu Iruñe ondoan, eta Errea Esteribarren. Ikus Jimeno Jurioren ETB, 41-42. orr.

653 Bidankozen. Bizirik dago.

**Errepidea:**

Hemen ere, aurreko bi toponimoetan gertatzen denaren antzera, hasierako bokala duen aldaera dugu 1587an, bokal hori galdu duen 1592ko aldakiaren ondoan. Egungo esanahia 'bide zabala, beribilak ibil daitezten prestatua' da, Sarasolak dioenez<sup>654</sup>, eta lehen bestelako berebil edo ibilgailuak ibiltzen baziren ere errepedeetan barrena, bide-zabalak ziren ibilitako haiek, bide arrunten aldamenean behintzat.

Toponimoaren osagaiak errege eta bidea dira, elkarketan ohizkoa den moduan hiru silaba edo gehiagoko lehen osagarriaren azken bokala galdu, eta ordurarte ahostuna zen bokal arteko -g- [g] ahoskabetu egiten dela<sup>655</sup>. Gero, lehen elementuaren kontsonante gortu hori erori egiten da, bigarren osagaiaren lehen kontsonantea ahoskabeturazi ondoren (cf. Erreparatzea < errege + baratzea).

Errepidea erdarazko Camino (Real) de Tafalla-ren ordain euskalduna da, hots, karreteraren paretik udalerria gurutzatzen duen errepidea:

"una viña...en...onborduya...afrentada...con el Camino Real llamado Errepidea" (1587)<sup>656</sup>

Edozein modutan, errepidea edozein errege bide izan daiteke, eta 1587ko agiriko Errepidea Galipentzukoa zela pentsa ere daiteke, nahiz guk ez dugun horrela uste.

**Erresoreta:**

Hemen errege, soro 'alor' izenak eta -eta atzizkia ditugu<sup>657</sup>. Hiru osagai hauen elkarketatik \*Erretsor(o)eta-ren moduko zerbaitek atera behar zuela dirudi, baina ez dugu honen lekukotasunik. Erresoreta ere, bere horrela, ez dugu inoiz aurkitu, hone-tatik hurbilen daudenak 1593ko Erresoretara<sup>658</sup> eta 1710eko Arresoretara<sup>659</sup> direlarik.

Honelakoetan ohizkoa den gisan, aferesia jasandako aldaerak ere maiz aurkitzen ditugu dokumentazioan:

"ytten otra piª en resoreta...que afruenta...con Camino Real" (1592)<sup>660</sup>

Egungo Resoleta [r̄ēsóléta] 1782an ediren dugu aurreneko aldiz<sup>661</sup>. Udareaga, El Calvo, Aquilar, Euntzeberri eta Merkatu-rekin mugatzen du.

654 HLEH.

655 Halarik ere, Mitxelena (AV, 85. or.) Nafarroako Foru orokorreko "en la cayll que dize el bascongado erret bide" aipua dakar, eta bai erretzubi toponimoa ere, beste batzuen artean. Beraz, errege-tik \*errek gabe erret daukagu elkarketa aldakitza. Honela mintzo zaigu gai honetaz irakasle errenteriarra: "...no se ve por qué una de las fuentes de *t* entre miembros de compuesto no ha de ser la aparente: *d* y *g*, al quedar en final de sílaba perdieron como implisivas su sonoridad, y se confundieron en -*t*" (FHV, 238. or.).

656 PRA-Oibar, 3. k-bis.

657 Arakil-Uhartzen 1893ko katastroko Erregosoro (< \*Erregosoro, Erregosoro?)-tik atera den Erresoro [r̄ēsóro] dugu egun.

658 PRA-Oibar, 7. k-bis.

659 PRA-Kaseda, 15. k.

660 PRA-Oibar, 6. k.

661 Id., 72. k.

**Euntzeberri (barranco de), (prado de):**

Toponimo honetan euntze 'larrea' izena eta berri izenondoa ditugu:

"otra piª en la misma endreçera de eunçberria u ardançecarra" (1596)

Lehen osagaiaren inguruan ikus -tze / -tza atzizkiei eskaini atalean esan duguna.

Agezan, Eunceberria dugu 1594ean<sup>662</sup>, Eunçberria 1596an<sup>663</sup>, Unzuberrria 1774ean<sup>664</sup>, Onceverria 1790ean<sup>665</sup>, eta Onceberri 1894ean<sup>666</sup>. Informatzailengandik Onzeberri [õnθeβēri] eta Entxeberri [ënçβēri] bildu ditugu. Zabaldueña lehena dela (cf. Eslaba eta Lergako Onzeberri) segurua da<sup>667</sup>.

Euntzeberri Oibartik Lergara doan errege-bidearen azpian dago, eta Erresoreta, Udareaga, Nobeleta, Aranaportillua eta Aquilar-ekin mugatzen du. Barranco de Euntzeberri gorago Barrango de Udareaga deitu erreka bera da.

**Fajetas, las:**

Fajeta faja-ren txikigarria da, 'mendi mazel zut batean lantzen ahal den lur zerrenda luze estua' Eslaba aldean, Iribarrenen arabera<sup>668</sup>. Lehen aldiz 1894eko katastroan ediren dugun Las Fajetas-ek herri ondoko lur zati txiki bat izendatzen du (ikus Punta-llua).

**Fontaza, la:**

Hau, itxura denez, Agezako Iturri-ren edo honen antzeko baten baliokide erdalduna da, zehazki zeinena den ezin esan badezakegu ere. Hemen handigarriz hornitutako fuente-ren eratorri baten aitzinean gaude, La Carreraza, La Peñaza, La Viñaza...eta bestetan bezala:

"otra huerta Junto a la fontaza" (1642)<sup>669</sup>

**Frontón, el:**

Ikus Juego de Pelota eta Plaza sarrerak.

**Fuente (barrio de), la:**

Irigoien edo Barrio de arriba-ko iturria da:

662 Id., 8. k.

663 Id., 9. k.

664 PRA-Kaseda, 26. k.

665 PRA-Oibar, 76. k.

666 Kat.

667 Eta beharbada bakarra ere bai. Izan ere, ez dakigu Entxeberri guk eragindako (Euntzeberri esanda) aldaera ez ote den. Dena den, José Egea jaunak behin eta berriz errepikatu zuen, inoiz duda egin gabe.

668 VN.

669 PRA-Oibar, 24. k.



“...calle puca que ban a la fuente y monte del dicho lugar” (1593)<sup>670</sup>

**Barrio de la Fuente**, bere aldetik, aipatu iturri horren inguruko etxeek osatzen dute:

“una casa...en el barrio de la fuente” (1820)<sup>671</sup>

Hemen hasten da **Iturzarra** (ikus sarrera hau) deritzan erreka, eta beraz du-darik ez dago iturriaren jatorrizko izena hauxe dela.

**Fuente de Baztan, la:**

Ikus **Fuente del Barranco** sarrera.

**Fuente del Barranco, la:**

**Barranco de Parrala** hasten den gunean dago iturri hau, herriaren beheko aldean. **Fuente de Baztan** ere esaten zaio, etxe honen baratze batean dagoelako.

**Fuente del Huerto de la Loya:**

El Coscojar-en azpian dago, **Camino de Eslava**-tik hurbil. **La Loya** Agezako etxe baten izena da.

**Galipentzubidea:**

**Galipentzu** aldaera batutzat hautatzeko dokumentazioan dauden erreferentzia ugarietan ezezik, Zaraitzu eta Aezkoako lekukotasun bizieta ere oinarritu gara, bi bailara hauetan artzaingoak sortzen zituen hartuemanen ondorioz bizirik baitago oraindik ere **Galipentzu** [galipéncu]<sup>672</sup> izen euskalduna.

**Galipentzubidea** erdarazko **Camino de Gallipienzo**-ren ordain euskaldun argia da, agiritan batera azaldu ez arren:

“ytten otra piª en galipencu videª...que afuenta con...Camino Real” (1592)<sup>673</sup>

**Garroiz:**

**Gar** ‘sugar’ izenarekin zerikusia izan lezakeen **garro** eta **-iz** atzizkiak (ikus berekailu honi eskainitako atala) osaturik egon liteke Mitxelenaren arabera<sup>674</sup>. **Garroiz** (**Garroitz** ebakia, seguru asko) Iruñe ondoko Ezkabarte ibarreko **Garrués** herriaren izenaren jatorrizko forma ere bada, A. Irigoyenen eritziz<sup>675</sup>. Autore honen ustez, \***Garro** pertsona-izanaren genitiboa den \***Garronis**-etik aterea da, euskaraz arruntak diren bokal

670 Id., 3. k.

671 Id., 99. k.

672 Hau da, gainera, Euskaltzaindiak proposatu duena. Ikus NHI, 192. or.

673 PRA-Oibar, 6. k.

674 AV, 92 eta 108-110. orr.

675 STPVN, 67-70. orr.

arteko sudurkariaren erortzeaz, eta -s > -tz pausoaz (cf. *corpus* > *gorputz*, adibidez). Edozein modutan, Agezako Garroiz 1088an baizik ez da dokumentatzen<sup>676</sup>.

### Gesaliturria:

*Gesal* 'ur gazia'<sup>677</sup>, 'gatza', 'gatza duen lurra' eta *iturria* dira toponimo honen bi osagarri aski ezagunak. *Gesaliturria* zein iturri den seguru ez dakigu, hidronimo hau galdua baita orain, baina gure informatzaileak dioenez, Zareko mugari hurrant dagoen Fuente de la Muga de Sada edo Barranco de Arana-n, Galipentzuko mugaren aldamenean dagoen Fuente de Arana izan zitekeen, biek baitute gatza:

"ytten otra pieça en Guessaliturria" (1586)<sup>678</sup>

Agezan toponimo honetako *gesal*-en alboan, *Gezari* ere azaltzen da balio beraz. Harrigarria da herri berean bi aldaerak agertzea, eta harrigarria da, orobat, *Gezari* forma, gure eskualdean (eta hemendik kanpo) ere beti *gezal* edo *gesal*<sup>679</sup> azaltzen delako.

*Gesal*, *Gezal* eta *Gezari*-ren artean beste aldetik, Nafarroako Ekialdeko eta ondoko herrialdeetako euskal izenaren bukaerako -ri-ren eta erdal izenaren bukaerako -l-ren artean dagoen aldizkatze bera dago (cf. *Berari* / *Beral*, *Biotzari* / *Bigüezal*, *Erronkari* / *Roncal*, *Igari* / *Igal*...<sup>680</sup>). Txistukariari buruz ere balegoke zer esana (cf. *Ayesa* / *Ageza*, *Isaba* / *Izaba*...), baina hemen gauzak nahasiago daude.

### *Gezari* (barranco de), (costera de), (cuesta de), (portillo de):

Ezbairik gabe aurreko toponimoko *gesal* eta honen aldaera den *gezal*-ekin lotu behar dugu *Ageza*, *Eslaba* eta *Galipentzun* agertzen den *Gezari* leku-izena, dermio honetan *gesala* baitago, hots, *lurrak gatz asko baitauka*.

*Gezari* ([gɛθáɾi] ebakia orain)-ren ondoan bitan (behin *Agezan* 1586an, eta beste behin *Eslaban* 1652an) *Gaizari* aurkitu dugu, eta diptongodun aldaera hau *Gezari*-ren sorburutzat har litekeen arren (cf. *ai* > *e* pausoa frantsesez, euskarako -*ai*- / erromantzeko -*e*- txandakatzea: *Orzaize* / *Osses*, *Osés*; *Ustaize* / *Ustés*... edo euskararen barruan zenbaitetan gertatu bide den *ai* > *e* pausoa: *Larrenpe* [lārēmpɛ] *Arakil-Ekain*, itxura guztien arabera aurreko \**Larrainpe* batetik aterea), *Gezari* lehenago agertzen da eta orokorra da dokumentazioan, bizirik dagoen aldaera izateaz gainera, eta beraz jatorrizkotzat jo beharko dugu (cf. gainera *gezal*, *gesal* zabalduarekiko erlazioa)<sup>681</sup>:

676 Lacarra, VM, 31. or.

677 *Gesal* izena oraindik ere bizirik dago. Cf., adibidez, *Arakil-Uharteko Arzuetako gesala* [ārswétako gɛšalá] toponimoa.

678 PRA-Oibar, 3. k-bis.

679 Gure eskualdean bigarren hau da gehienetan azaltzen dena, batzuetan *gezal*-ekiko txandaketan. Jimeno Jurfok *Guessar*, *Gueçaibar*, *Gueçaui andia* eta *Gueçaui chipi* biltzen ditu *Galar-Getzen* (TCPCG, 343. or.).

680 Ikus NHI, 24. or.

681 Ikus *Lergako Jaundonemikendi* sarreran dioguna. Alabaina, *Caro Barojaren* iritzia aintzat hartzen bada, zaharrena *Gaizari* dela pentsatu beharko dugu. Ikerle ezagun honen arabera *Kessalla* despoblatu-izena latineko *caesa*-ren eratorria den *caesalia*-rekin lotu behar genuke, ez *gezal*-ekin (HGPV, 250. or.). *Gezari* azaltzeko *caesalia*-tik abiatzen bagara, euskaraz \**gaezaria* izango genuke lehenik, hasierako bela-rearen ahostuntzea, latineko -s- > euskarazko -z- pausoa, eta bokal arteko -l- > -r- gertatu direlarik, latinetikako maileguetan ohi denez. Guk, esan bezala, *Gaizaria* ere dokumentatu dugu, baina -a-dun aldaerak aski berandukoak dira, eta itxuraz bederen bukaerako bokala euskal artikulua da.

“una pieza...en los termos de ayessa termjo llamado guezarij” (1536)<sup>682</sup>

“...en la endrecera llamada gaiçari Junto al mojon deslaba” (1586)<sup>683</sup>

**Barranco de Gezari**<sup>684</sup> Eslabako Tastaran-etik Galipentzuko El Riachoraino luzatzen da, baina ibilbide gehiena (azken zatia Galipentzu barruan dago) Eslabako lurretatik egiten du, ez Agezatik (ikus Gezaribide sarrera). Bi herrion arteko muga, dena den, Gezari-n dago, hein handi batean:

“en la parte llamada guesari...allaron un mojon...que estava Ronpido Junto a una mata que llaman artiputio” (1614)<sup>685</sup>

1798ko Costera de Gezari gaurko Cuesta de Gezari bera da, Alto de Ayape-ren magaleko aldapa edo Zazu / El Saso-ren eta Gezari-ren artekoa<sup>686</sup>:

“una pieza en la costera de Guezari” (1798)<sup>687</sup>

Portillo de Gezari<sup>688</sup>, bere aldetik, euskarazko Gezariportillua-ren erdarazko ordaina da, eta Oibartik Lergarako bideko ataka adierazten duela dirudi, Ategarateko Cerro Mandurro-ren albokoa, alegia.

Gezari-k Eslabako eta Galipentzuko Gezari (Lezari bilakatua azken herri honetan), Balarata, El Saso eta El Coscojar-ekin mugatzen du.

#### Gezari alto:

Gezari-ren goiko zatia da, El Coscojar-en azpiko aldekoa. Eslaban honen antzekoa den (ez erabat berdina) Gezari arriba dugu bizirik, eta agiritan Gezarigoiena agertzen da.

---

Dena dela, Gaizaria-tik abiatzen bagara, amaierako -a hori euskal artikulutzat hartu zela suposa dezakegu, beharbada elkartetan (cf. Gezaribarrena, Gezarigoiena...Eslaban, Gezaribidea Agezan) maiz azaltzearen ondorioz. \*Gaezari(a)-tik Gaizari-rako urratsa ere ez litzateke harritzeko (cf. *apæz* > *apaiz*), batez ere -e- txistukari baten ondoan dagoela aintzat hartzen bada (cf. *pisu*, *pizu* < *peso*...). Gaizari > Gezari-n, azkenik, aipatu ditugun herri-izen horietan edo *apaiz* > *apez*-en dugun monoptongaketa bera genuke.

Teoria honen oztopo nagusia, dena den, latineko *ae*, *oe* diptongoak euskaldunek ezagutu zuten latinean monoptongatuak egotean datza. Honela mintzo zaigu Mitxelena puntu honetaz (FHV, 104. or.):

“En préstamos no parece haber caso alguno en que el diptongo latino *ae* (y *œ*) se haya conservado como tal, lo que se debe sin duda a que en el latín que conocieron los vascos se había monoptongado ya: *vasc. gezi* ‘dardo’, lat. *gaesum*”

Arabako Kessalla hori Mitxelenaren iritziz beste toki askotako *gesal* bera da, l geminatua L gogor baten adierazle baizik ez delarik. (FHV, 322. or.).

Zernahi gisaz, eta esan bezala, Gezari toponimoa izen arrunta den *gesal*, *gezal*-ekin estuki lotua dagoela irudi du, eta beraz batari dagokiona besteari ere badagokioke. Mitxelenak FHV-ren eranskinean *gesal* oso zabaldua dagoela dio, eta oso zaharra dela, eta Corominasek ematen duen *agua sal* jatorriaren ordezkari *aque sal* proposatzen ahal dela (560. or.).

682 PRA-Oibar, 2. k.

683 Id., 3. k-bis.

684 Cf. Kasedako Barranco del Salado. PRA-Kaseda, 45. k., 1818.

685 Artiputio izena gaurregun ezezaguna da Agezan.

686 Bi Cuesta de Gezari daude egun.

687 PRA-Oibar, 84. k.

688 Id., 9. k.

**Gezari bajo:**

Galipentzu ondoko alderdia adierazten du, Gezaribide edo Camino de Gezari-tik auzo-herri horretako mugarainokoa. Hortaz, Eslabako Gezari abajo edo honen baliokide euskalduna zen Gezaribarrena bera dela esan dezakegu, adieraz eta zabalera.

**Gezari medio:**

Gezari alto eta Gezari bajo-ren arteko eremua da, Gezaribide-ren gaineko aldekoa.

**Gezariagerria:**

Gezari toponimoa eta agerria 'agirian dagoena' ditugu hemen, eta 'Gezari ikusten den alderdia' adiera duela uste dugu. Honen arabera, El Saso edo Zazua-ko Gezari-ren ondoko aldea zatekeen:

"ytten otra piª en gueçariagerria" (1593)<sup>689</sup>

**Gezaribide:**

1815eko agirian duguna Guezavide da, baina hau gure irudiz erdarazko Camino de Gezari-ren kidekoa zatekeen \*Gezaribide baten itxuratxartze arina besterik ez da:

"una pieza en Guezavide que afronta con...barranco de Guezari" (1815)<sup>690</sup>

**Gezariportillua:**

Erdarazko Portillo de Gezari-ren ordain euskalduna da (ikus Gezari sarrera):

"una viña en gueçariportillua" (1594)<sup>691</sup>

**Gindertea:**

Euskaraz aski ezaguna den inda<sup>692</sup>, Uxue eta Epaizko Drinda<sup>693</sup>, eta Artaxona-Orbako Dinda<sup>694</sup>-ren aldaera den Oibar haraneko ginda (cf. Eslabako Barrenginda) 'bidexka', 'bide-zidorra' eta artea-ren aldaera den ertea (ikus Dermio baten zatiketa atalean dioguna) dira toponimo honen bi osagaiak.

Esanahia 'ginda edo indaren erdialdea' (hots, ez barrena eta ez goiena) edo 'bi indaren bitartea' izan zitekeen, besteak beste:

689 Id., 7. k.

690 Id., 95. k.

691 Id., 8. k.

692 Ikus AV, 105. or.

693 Esteribarko Idoin ere Drinda dugu, Drindakoa toponimoan (Agoizko hipotekak, 3. liburukia, 944. or.).

694 Cf. Artaxonako Barrenginda, J. Jurio, EETA, 375. or., edo Amatraingo Dindaertea (PRA-Oibar, k.2-bis, 1538). Oletan Drunda dokumentatzen da (PRA-San Martin, 49. k., 1770; Drundagaña, PRA-Oibar, 25. k., 1646), Zaraitzuko Ibiltzieta herrian bezala (PRA-Otsagabia, 5. k., 80. zkia., 1771). Uzta-  
rozzen Drunda bizirik dugu oraindik.

“una cassa...en la endrecera llamada guindertea” (1614)<sup>695</sup>

**Ginebral, el:**

El Vedado bera da hau.

**Gurutzepea:**

Cruz de Gurutzeta-ren azpiko aldea izan zitekeen:

“otra pieza en guruzepa” (1695)<sup>696</sup>

**Gurutzeta, cruz de:**

Gaurregungo Cruz de Brutxeta [břučéta] dermioa Ezporogi eta Agezaren arteko mendi gailurrean dago, bidean, orain urte batzuk arte gurutzeta zegoen alderdian. Agezako toponimoan edireten dugun g- > b- pauso bera gertatzen da Itzako Gurutzetaga-n, euskara galtzearen ondorioz izena opaku bilakatzen denean: Guruceaga dugu 1595ean, Guruchaga 1758an, baina Buruchaga 1879az geroztik<sup>697</sup>.

**Harginen erreka:**

**Hargin**, genitiboaren morfema plurala den -en, eta erreka dira honen osagaiak.

Lehen lekukotasunetan (**Arguinen erreca**, 1583an<sup>698</sup>, **Arginenerreca** 1596an<sup>699</sup>) genitibo plurala azaltzen bada ere, aurrerago gauzak ez daude horren garbi, ez baitakigu, forma usteldu eta desitxuratu batzuen aurrean gauden ala genitibo singularraren aldakien aurrean: **Arguinanerreca** (1710)<sup>700</sup>, **Arguiñanerreca** (1720)<sup>701</sup>, **Arguiñaren erreca** (1774)<sup>702</sup>.

Beste batzuetan toponimoaren itxuragabetzeak seguruak dira: **Aguinanerreca** (1723)<sup>703</sup>, eta batez ere **Arinrenca** (1829)<sup>704</sup>. Behin bederen, 1781. urtean, Ar-

695 PRA-Oibar, 18. k. Honela deskribatzen du J. M. Jimeno Jurío jaunak Artaxonako Barrendinda aipatu artikuluan:

“antiguo camino en las afueras de la villa, hoy calle con el nombre oficial de «Mayor», popularmente conocida por Barrendinda”.

Amatriaingo **Dindaertea** auzo baten izena zela segurua da:

“...en el barrio llamado dindaertea”

Agezako **Gindertea** beste batzuetako **Barrio de medios edo Iriarte** bera izan daiteke.

696 PRA-Kaseda, 8. k.

697 Jimeno Jurío, TCPCI, 195. or.

698 PRA-Oibar, 3. k.

699 Id., 9. k.

700 PRA-Kaseda, 15. k.

701 PRA-Oibar, 36. k.

702 PRA-Kaseda, 26. k.

703 Id., 38. k. Kasu honetan aezkeraz, baztaneraz eta hegoaldeko goi-nafarreraz gertatzen den -aren > -ain pausoaz ere pentsa liteke. Izan ere, 1748an sortu zen Joaquin Lizarraga Elkanokoaren lanetan maiz aurkitzen dugu forma hau, jatorrizkoa den -aren-en aldamenean, eta beraz gure eskualdean ere euskara desagertu aitzinetik aipatu aldakuntza gauzatu zela suposa liteke. Seguru egoteko, ordea, honelako adibide mordokka behar genuke, eta zoritzarrez honetaz besterik ez dugu.

704 PRA-Kaseda, 51. k.

**guinerreca** ediren dugu<sup>705</sup>, eta lekukoa berandu samarrekoa denez, ez dakigu **Harginen erreka**-ren aldaera jator baten aurrean (**Arginerreka** elkartuaren aurrean, alegia) gauden edo halabeharrez euskal izenarekin bat datorren itxuratxartzea den:

“una pieça...en la endreçera llamada Arguinen erreca” (1583)

“otra pieza...en el termino de aguinaierreca teniente...y Camino de Eslava” (1723)

Interesgarria da, hemeñ, **-gin** atzizkiaren aldaeren azterketa egitea, bokal erdiaren ondoan sabaikaltzea segurua den arren (cf. **-gaña** guztiak), i bokal osoa denean gauzak ez baitaude horren garbi. Izan ere, izen honen lehen lekukoek ez dute bustitze horren aztarnarik, eta 1781eko **Arguinerreca**-k ere ez. Tartean 1720an **Arguiñanerreca** dugu, eta 1774ean **Arguiñaren erreca**, 1723ko **Aguinainerreca**-ren alboan. Hortaz, eta laburtuz, ez dakigu in bustitzen zen ala ez, **in** > **ñ** segurua zen arren.

**Arginerreka** edo **Harginen erreka Barranco de Zabala** osatzen duten bi errekaetako bat zen, **Camino de Eslava** gurutzatzen zuela badakigu eta:

“otra pieza...en Arguiñaren erreca que afrontta con...Camino de Eslava” (1774)

**Iglesia, la:**

Ikus **Camino de la Iglesia** sarrera.

**Iriarte, barrio de:**

Esan moduan, erdarazko **Barrio de medio** (ikus sarrera hau) orain ezezagunaren ordain euskalduna zen:

“una casa...en el barrio llamado yriarte” (1588)<sup>706</sup>

**Iribarren:**

**Hiri** ‘herri’, ‘villa’ eta **barren** ‘behe(rene)ko alde’-z osaturik dago erdarazko **Barrio bajo** edo **Barrio de abajo**-ren baliakidea den hau:

“la cassa que...tienen y poseen...en la endreçera llamada yribarren” (1583)<sup>707</sup>

**Irigoién (barrio de), (lecino de):**

Erdarazko **Barrio de arriba**-ren izen euskalduna da (ikus aurreko biez eta honetaz **Dermio** baten zatiketa atalean dioguna):

“una cassa...en el barrio que llaman Yrigoién” (1705)<sup>708</sup>

705 PRA-Oibar, 72. k.

706 Id., 4. k.

707 Id., 3. k.

708 Id., 30. k-bis.

**Iturrartea:**

Iturri-ren elkarketako aldaera ohi den itur- eta artea dira izen honen osagai argiak. Itxuren arabera, gaurko La Fuente-ren ondoko eremua zen:

“una era...en yturartea” (1648)<sup>709</sup>

**Iturrieta (balsa de), (prado de):**

Iturri izena eta -eta atzikia ditugu hemen. Galipentzuko mugako alderdi bat izendatzen zuen (cf. Las Fuentes auzo-herri horretako Agezako mugan), hain zuzen ere gaurko Fuente de Arana eta Balsas de Arana derizten iturri eta idoiengurukoa:

“una pi\* Junto al mojon de Gallipienzo y en la endrera llamada Yturrieta” (1592)<sup>710</sup>  
 “otra (pieza)...en Yturrieta ó Arana” (1823)<sup>711</sup>

Hortaz, Balsa de Iturrieta Balsas de Arana horietako batekin identifikatzeko, eta Prado de Iturrieta Fuente de Arana-ren inguruko larrea zela pentsa daiteke, hau da, Galipentzuko Prado de Balarata bera zela:

“haber gastado limpiando la balssa de yturrieta” (1647)<sup>712</sup>  
 “en el termino de Gallipienzo afronta con...prado qe llaman Yturrieta” (1823)<sup>713</sup>

**Iturritxiki:**

Iturri izena eta txiki izenondoa ditugu toponimo garden honetan. Ez dakigu non zegoen:

“assi bien otra pieza en el termino llamado yturrichiqui” (1533)<sup>714</sup>

**Iturzarra (barranco de):**

Iturri eta zaharra-z osatua dago gaurregun Barranco de la Ituzarra [ituθãra] edo Barranco de la Utizarra [utiθãra] bilakatu den hau:

“otra guerta de una coartalada en yturricarra” (1649)<sup>715</sup>  
 “otra Huertta...sitta en yturzarra” (1720)<sup>716</sup>

Erreka herriko iturrian (La Fuente-n alegia) sortzen da, eta honela deitzen zaio azken etxeetaraino. Hemendik beheiti Barranco de Parrala izena hartzen du. Garbi dago, hortaz, Iturrizarra hasiera batean iturriaren izena zela, eta gero bertan sortzen den erreka izendatzera igaro zela.

709 Id., 25. k.

710 Id., 6. k.

711 Id., 106. k.

712 Id., 25. k.

713 Id., 106. k.

714 Id., 2. k-bis.

715 Id., 26. k.

716 Id., 36. k.

**Iturzarraldea:**

**Iturzarra**-ren ondoko eremua adierazten zuen honek:

“una huerta en yturriçar aldea teniente a Cassa de...y Camino” (1620)

**Izkoarra, pieza de:**

Izkon sortutako norbaiten alorra zen, antza<sup>717</sup>. **Usobidea**-n zegoela badakigu:

“otra (pieza) en usovidea mas arriba del Camino de Uxue, que la llaman de Yzquarra” (1790)<sup>718</sup>

**Jaundonejoanisgibela:**

Erdarazko **San Juan**-en baliokide euskalduna den **Jaun Done Joanis** (ikus izen honetaz **Lergako Jaundonejoanizgibel** sarreran dioguna) eta **gibela** ‘atzeko aldea’ posposizioa dira hagianimo honen bi osagaiak:

“ytten en el terº del dho lugar llamado Juandonejoanizguibelea otra pieça” (1631)<sup>719</sup>

**Jaundonejoanisgibela San Juan**-en zegoen, mugako errekaaren alboan:

“ytten otra piª en la endreçera llamada Juandenejoanizguibela...que afuenta...con...el barranco y mojon de sada” (1592)<sup>720</sup>

**Juego de Pelota, el:**

**La Plaza** edo **El Frontón** bera da. **Juego de Pelota** deizioa Oibar haranean eta Uxuen gutxienez bizirik dago oraindik adineko jendearen artean.

Nafarroan euskaraz **Pilotaxokua** erabili izan da, eta egun **Abaurregainean pilotaxokua** [pilótašókua] izen arrunta da oraindik, oker ez bagaude.

**Kanpobarrena (entrada de):**

**Kanpo** ‘alorra’ eta **barrena** ‘behekoa’, ‘beherenekoa’ ditugu toponimo honetan (cf. **Kanpobarrena Zaren**, **Campo abajo Kasedan**, **Campobajo Kabanillasen**). Izan ere, egun **Kanparrena** [kãmpãréna] bilakatu dena udalerrriaren behereneko alderdian dago, Galipentzuko muga bertan, **Balarata** eta **Arana**-ren artean.

XVI-XVII. mendeetan forma osoa azaltzen da:

“una pª faytia...endecera llamada Canpobarren” (1598)<sup>721</sup>

717 Izco deitura arrunta da (edo izan da) Agezan.

718 PRA-Oibar, 76. k.

719 Id., 23. k.

720 Id., 6. k.

721 Id., 7. k.



1818an Kanporrena desitxuratua dugu<sup>722</sup>, eta 1894eko katastroan egun indarrean dagoen forma.

Reta Janárizek, oraingo aldaera desitxuratua hartzen du egiten duen etimologiaren oinarri, eta hortaz ondorio okerretara iristea ez da harritzekoa. Autore honen arabera<sup>723</sup>, *kampa* 'campo', *arren* 'de la' (sic) atzizkia, eta -a artikulua dira aztergai dugun honen osagaiak.

Antzina Kanpobarrena bat baino gehiago zegoela irudi du, edo bakarra bazegoen gaur baino hedadura handiagoa zuen, 1592ko agiri batean ikusten den moduan Kanpobarrena-k Prado de Lakuaga-rekin mugatzen baitzuen, gaurregun erdian Arana (Iturrieta edo Ardantzabarrenetakoiturrieta ere bai, lehen) eta Txipueta sarzzen diren bitartean<sup>724</sup>:

"ytten otra piª en Canpobarrena...afrenta con...prado conçegil de laquaga" (1592)<sup>725</sup>

Kanpobarrena-k orain Arana, Onborduia eta Balarata-rekin mugatzen du.

#### Kapanaxarra:

*Kapana* 'etxola' (ikus Leatxeko *Kapana* sarreran dioguna) izena eta -xarra 'zaharra' izenondoa ditugu 1630ean baizik aurkitu ez dugun honetan<sup>726</sup>:

"otra piª en la endrecera llamada Capanaxarra"

#### Kaskallueta:

1060an azaltzen da<sup>727</sup>, *cascalvieta* itxuraz. Antza denez, 1588ko El Cascajar-en euskal ordaina da (ikus sarrera hau).

#### Kostarangurbea:

Toponimo honetan bi elementu ditugula dirudi, bigarrena konposatua delarik: *kost-* ezezaguna batetik, eta *Uxue* eta *Oibar* aldean bizirik dagoen *arangurbe* izan daitekeena bestetik. Bigarren hau "amelanchier vulgaris" deitu landarea eta honen fruitua da<sup>728</sup>, eta *aran* eta *gurbe* elementu ezagunez osatua dago. Hasierako *kost-* hori zer den ez dakigu, baina agian *gorosti-*ren aldaera edo laburdura batez pentsa liteke (cf. *kolostia* Leatxen eta *Uxuen*):

"ytten otra piª en Costaran gurbea" (1594)<sup>729</sup>

722 Id., 98. k.

723 EHZE, 478. or.

724 Oker baten aitzinean ere egon gaitetzke, honelakoak ugariak ez badira ere.

725 PRA-Oibar, 6. k.

726 Id., 11. k.

727 VM, 35. or.

728 Javier Irigaray Imaz, "Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (IX). Ujué", FLV, 29, 1978, 367-382. orr. Honela dio autore honek:

"vasc. *arangurbe* es denominación (inérita) que se conserva únicamente - además de en Ujué- en el vecino valle de Aibar, la Vizcaya incluida; en el vocablo entran en composición vasc. *aran ciruela* & vasc. *gurbe*, *poma*, alusión al pequeño fruto comestible de este arbusto".

729 PRA-Oibar, 8. k.

**Lakuaga (alto de), (prado de):**

**Laku** 'toki urtsua'<sup>730</sup> (ikus Galipentzuko **Lakuarana** edo **Lakuko harana** eta **Uxueko Laku**, **Lakubeli** eta **Lakumulatu** sarrerak) izena eta **-aga** leku-atzizkia ditugu hemen. Honekin (etimologiarekin alegia) bat dator alderdi honetan larrea izatea, larreak gure eskualdean beti uretan aberatsak diren tokietan egoten baitira:

"ytten otra piª en Canpobarrena...afronta con...prado conçegil de laquaga" (1592)<sup>731</sup>

Hemendik hurbil, Galipentzuko **Prado de Balarata** eta **Larreta**, Agezako bereko **Prado de Arana**, **Prado de Euntzeberri** eta **Prado de Txipueta**, Galipentzuko **Larreta**, eta **Zareko Prado de Mandaputia** eta **Larreandia** edo **El Prado grande** ditugu, besteak beste.

**Lakuaga** [lãkuãga] lehen aldiz 1060. urtean agertzen da<sup>732</sup>, eta beraz tradizio handiko toponimoa dela esan daiteke. Dokumentazioan batzuetan, herri-etimologiaz, **La Cueba** itxuraz agertzen da<sup>733</sup>, eta inoiz edo behin **Cuaga** gisa ere bai, hasierako la hori artikulutzat hartzen delarik<sup>734</sup>.

**Alto de Lakuaga** Galipentzuko mugaren hurbileko gaina da, eta **Prado de Lakuaga C-132** errepidearen eta gainaren arteko euntzea. **Kanpobarrena** aztertzean esan moduan, **Lakuaga**-k lehen dermio horrekin mugatzen zuela dirudi, gaurko egunetan tartean **Arana** eta **Txipueta** sartzen badira ere.

**Lakuaga**-k **Txipueta**-rekin ezezik, **Aranportillua**, **Aquilar**, **Muga de Sada** eta Galipentzuko lurrekin ere mugatzen du.

**Lakuagabarrena:**

**Lakuaga**-ren beheko aldea zen, Galipentzuko muga aldea:

"una pieza faitia en lacuaga barrena...affronta...con muga de gallipienzo" (1550)<sup>735</sup>

**Lakuagagoiena:**

**Aquilar** eta errepidearen alboko alderdia zen:

"otra pieza en lacoaga gojena" (1642)<sup>736</sup>

730 Ikus honetaz gure IGI. Irunberrin toki urtsua aditzera ematen bide duen (ondoan edo hurbil Refuentes dago) **Lakua** daukagu: "otra viña en el terno de Lardin y paraje llamado laqua...que afronta a senda que pasa a Refuentes y por arriva a otra senda que sigue al alto de Lardin" (PRA-Kaseda, 27. k., 1775). Bidankozeko **Lakuaga**-n berriz, **Bintze** edo **Viniés**, **Viñés** deitzen den erreka sortzen da. Uztarrozen (Eleizalde, LVTV) eta Urzainkin (T. Urzainqui, "Aplicación de la encuesta...", 59. or.) ere bada **Lakuaga** ize-neko aurkientza.

731 PRA-Oibar, 6. k.

732 **Lacuega** formapean, Lacarra, VM, 35. or.

733 PRA-Oibar, 74. k eta 84. k., 1786 eta 1798.

734 1894eko katastroan, adibidez.

735 PRA-Oibar, 2. k.

736 Id., 24. k.

**Lausitu (barranco de), (fuente de), (llano de):**

Honen etimologiaz ikus Zareko izen bereko leku-izena. Reta Janárizek, oraingo Ausito aldaeran oinarrituta, **hauts** izenaz eta **-itu** atzizkiak osaturik dagokeela dio<sup>737</sup>, baina etimologia honek zeharo ahazten du izenak hasieran izan duen albokoa, eta baztertu beharrekoa da.

Orain Ausito [aúsíto] deitzen dena **San Miguel** mendiaren azpian dago, Zareko muga eta **Txurruta**-ren artean:

“otra faytia...en los terminos del dho lugar llamado Lausitu” (1583)<sup>738</sup>

“en la parte de avajo de Laucitu se topo el octavo mojon” (1682)<sup>739</sup>

“otra pieza...en...Lauchitto” (1765)<sup>740</sup>

**Barranco de Lausitu**-k bi herrion arteko muga egiten du, baina ez da Zareko **Barranco de Lausitu**-rekin nahastu behar, gero biek, Galipentzu eta Zareko mugan bat egiten badute ere.

Dokumentazioko **Fuente de Lausitu** dermio honetan dagoen **Fuente de Txurruta** izan zitekeen:

“otra pieza alado de la fuente de Lausitu” (1774)<sup>741</sup>

**Llano de Lausitu** Zareko mugan dago, herri horretara Agezatik doazen bi bideen artean:

“otra (pieza) en el llano de Anchitto” (1792)<sup>742</sup>

**Lausitu**-k Zareko mugarekin, **Pinar de San Miguel**, **Errekandia**, **Txurruta** eta **Merkatu**-rekin mugatzen du.

**Lausituportillua:**

● **Lausitu** toponimoa eta **portillua** izen arrunta ditugu hemen. **Lausituportillua** Zareko beheko bidea eta Oibarkoa bereizten diren guneko harrate modukoa zen:

“otra pieza en Lausitu portilua...que afrontta con...Camino que se bá a Aybar” (1774)<sup>743</sup>

**Lavadero, el;**

**Garbitokia Barranco de Iturzarra** deitu errekan egon da orain urte gutxi arte.

737 EHZE, 478. or. ●

738 PRA-Oibar, 3. k.

739 PRA-Kaseda, 1. k. Zare eta Agezaren arteko mugen berrikusketa-agiria.

740 PRA-Oibar, 66. k.

741 PRA-Kaseda, 26. k.

742 PRA-Oibar, 77. k.

743 PRA-Kaseda, 26. k.

**Leonkoa:**

Behin bakarrik aurkitu dugu, 1695ean:

“otra pieza en Leoncoa...teniente a...pieza de las hermitas”<sup>744</sup>

Lehen begiratuan **León** pertsona-izenaz eta honelakoetan ‘etxea’ adiera duen leku-genitiboaren morfemaz osaturik dagoela dirudi, baina badakigu gure alderdian etxeek ez dutela berezko izenik izaten (ikus **Dermio baten zatiketa** atala). Gainera, itxura guztien arabera leku-izen baten aurrean gaude, ez oikonimo baten aurrean. Oztopo hau, halaz ere, etxeak alderdi honetan alor bat edo lur zerbait zeukala pentsatzen bada gaindi liteke, agian.

Zernahi gisaz, -ko ‘etxe’ adieran mendebaldean erabiltzen da batez ere, gutxienez izen berezi eta deiturekin<sup>745</sup>; ekialdean, aldiz, genitiboa erabiltzeko joera dago<sup>746</sup>, eta ez dirudi **Leonkoa** ‘Leonen etxea’ denik.

**Lescar (prado de), (prado de la fuente de), el:**

Ikus hurrengo sarrera.

**Lezkatzea:**

**Lezka** landare-izena<sup>747</sup> eta -tzea ugaritasunezko atzizkia ditugu hemen:

“otra faytia en...lezcecea” (1588)<sup>748</sup>

Gure eskualdean Galipentzun eta Uxuen ere aurkitu dugu **Lezkatzea**, bigarren herrian **Lezkairu**-rekin batera, eta Eslaba eta Ezporogin balio bera duen **Lezkaduia** dugu.

Agezako 1588ko **Lezcecea El Lescar** edo **El Liscar** bilakatu zen XVIII eta XIX. mendeetan, Eslaban antzinako **Lezkadui El Lezcal** bilakatu den bezala. **Dermio** hau Galipentzuko mugan zegoen, **Pollungu** ondoan:

“otra (pieza) en...Gallipienzo...que afronta...con el Liscar” (1776)<sup>749</sup>

Hortaz, gaurko **Lakuaga Txipueta** edo agian antzinako **Iturrieta**-n zegoela pentsa daiteke. **Lezkak**, jakina denez, toki urtsuetan edo putzuen inguruan sortzen dira, eta beraz ez da miresteko **Lezkatzea**-n iturria eta larrea izatea:

744 Id., 8. k.

745 Ikus Euskaltzaindiak honetaz dioena, *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I*, Bilbo, 1987, 59-60. orr.

746 Nafarroan -ko, Aldabekoa, Apeztegiakoa, Dorrekkoa, Iturrikoa, Larratzekoa... eta antzekoetan azaltzen da batez ere, eta -ena izen, goitizen, deitura, lanbide-izen eta abarrekin: **Juangorena**, **Kisuskillearena**... Batzuetan genitiboa eta leku-genitiboa batera azaltzen dira, genitibo hutsa duen formaren aldamenen: **Garchicorena** / **Garchiconecoa** (Atondo), **Mearrarena** / **Miarrenecoa** (Eritze); **Orzaizena** / **Orzaizenecoa** (Aritz)... (Jimeno Jurío, TCPCI, 144, 171, eta 102. orr.). Dena den, -ko ere azaltzen da adiera honekin: cf. **Juan de Iribarrengo** Elkanon (IBCJL, 83. or.).

747 ‘Anea’, ‘carrizo’ Iribarrenen arabera. Uxue aldean erdaraz ere lezka esaten da, eta carrizo besterik da.

748 PRA-Oibar, 4. k.

749 Id., 70. k.

“otra pieza en el termino de Lescar...afrenta con el Prado del mismo Lescar” (1830)<sup>750</sup>

Iturria ere bazen bertan:

“...al prado de la fuente del mismo Lescar” (1830)<sup>751</sup>

**Linar, el:**

**El Linar (de Echandi)** “Casa de Echandi”-ren azpian dago, **Camino de San Miguel** eta **Barranco de Parrala**-ren artean. Dokumentazioko **Los Linares**-ekin identifikatu behar den ez dakigu<sup>752</sup>.

**Linares, los:**

**Los Linares Odi(alde)a** deitu erreka-ondoa zegoen (ikus **Odi-aldea** sarre-  
ra), lihatzeak beti ubide baten (edo putzu edo iturri baten) aldamenean ohi baitira, eta daitekeena da egungo **El Linar** bera izatea, edo azken hau beste horien barruan edo al-  
boan egotea (cf. **Eslabako El Linar / Los Linares**).

**Loya, viña de:**

1723an azaltzen den honi **La Viñica de Loya** esaten zaio orain, txikigarri eta guzti.

**Ardantzea Usobidea** edo **Camino de Ujué**-ren ondoan dago, **Barranco de Zabala**-ren aldamenean, eta agirian ikus daitekeenez **Loia** herriarena zen:

“ottra viña...en el terno de usobidea tente a senda y viña del lug. de Loia”<sup>753</sup>

**Llano de arriba, el:**

**Gaur Los Rellanos del Monte** deitzen direnak, edo hauetako bat, izan daite-  
ke 1792an agertzen den hau (ikus **El Boyeral** eta **El Monte** sarrerak):

“ottra (pieza) en el llano de arriba” (1792)<sup>754</sup>

**Manantíos:**

1894eko katastroan azaltzen da, eta ez dakigu ez non zegoen ez eta **Iturrieta**  
edo antzeko beste batekin identifikatu behar den ere.

**Mendi (pieza de), el:**

**Mendia** izen arruntzat hartua zen **Agezan**, eta mendi bat baino gehiago izen-  
datzen zuen. Badakigu **Alto de Ayape**-ri honela deitzen zitzaiola:

750 PRA-Kaseda, 51. k.

751 Id.

752 **Linar(es)**-en euskarazko baliakideez ikus **Eslabako Lixuñeta**, **Galipentzuko Liatzeta**, **Leatxe**ko **Leatxe**, eta **Zareko Ligusuñeta**, besteak beste.

753 PRA-Oibar, 38. k.

754 Id., 77. k.

“en el terno de Balarata, Junto â la mendia de Aiape, tente, de la parte de arriva, â la misma pieza del mendia, de andres Aiape...” (1790)<sup>755</sup>

**Gaurko Mendi** [mëndi], **El Mendi** [elmëndi], edo **Almendi** [almëndi], **El Mendi**, **La Mendia** edo **Mendia** da dokumentazioan (ikus **Abadía** sarrera):

“otra pieza sobre la mendia de Miguel de Subiza” (1695)<sup>756</sup>  
 “una pieza...en el termino de Udariaga llamado mendia” (1734)<sup>757</sup>

Dokumentazioko **Mendi(a)** hori aztergai duguna den, ordea, ez dakigu, esan bezala izen arruntzat hartzen baitzen.

**Mendi Udareaga**, **Erresoreta**, **Txurruta** eta **Errekandia**-ren artean dago, eta egun mendiaz gainera inguruko lurra ere izendatzen ditu. 1734eko aipu horretan ikusten den gisan, lehen **Udareaga** barrukotako jotzen zen **Mendi**.

Hemen zegoen, duela urte batzuk arte, **Agezako** mando eta zamarien hilerria.

#### **Merkatu:**

**Gaurko Merkatu** [mèrkátu] edo 1703ko **Mercatua**-k aurreko **Merkatubidea**-ren laburdura moduko zerbaite dela irudi du, ez baitugu **Merkatu(a)**-n merkatuak egiten zelako berririk (ikus **Merkatubidea** sarrera).

**Merkatu** Zareko mugan dago, aipatu **Errepidea**-ren bi aldeetan, eta **Lausitu**, **Txurruta**, **Erresoreta**, **Aquilar** eta **San Juan**-ekin mugatzen du:

“una pieza...sita en el termino de Mercatua” (1703)<sup>758</sup>  
 “terno llamado mercatu debajo la Hermita de Sn Juan” (1783)<sup>759</sup>

#### **Merkatubidea:**

Esan moduan, **Merkatubidea** egungo **Merkatu**-ren aitzindaria dukegu:

“otra piª en mercatubidea” (1597)<sup>760</sup>

**Merkatubidea**, itxuraz, **Lergako San Gines**-ko bentako merkatura zihuan bidea zen, hau da, **Lerga** eta **Eslabako Camino de Tafalla** bera:

“ytten...otra pieça en mercatu videa...afrentada con Camino Real” (1586)<sup>761</sup>

Zaren ere bide bera adierazten duen **Merkatubidea** ediren dugu (ikus **Zareko** sarrera hau).

755 Id., 76. k. Genero aldizkatze hori ulerterraz samarra da: batetik **mendia**, gaztelaniazko ia femenino guztiak bezala, -a-z amaitzen da, eta bestetik izen horren gaztelaniazko ordaina (el monte) maskulinoa da.

756 PRA-Kaseda, 8. k.

757 PRA-Oibar, 44. k.

758 Id., 30. k.

759 Id., 73. k.

760 Id., 9. k.

761 Id., 3. k-bis. Ikus **Arrixauzkuneta** sarrera.

**Mochuelo canta:**

Dokumentazioan orokorra den euskarazko **Motxilukantoa**-ren ordaina da:

“una pieza en el termino llamado mochuelo canta...” (1585)<sup>762</sup>

**Mojón de Eslava, el:**

Auzo-herri horrekiko muga **Gezari, El Coscojar, Tastaran** eta **Santa Agata**-n barrena hedatzen da. 1586ko agirikoa ordea **Gezari** aldea da:

“en la endreçera llamada gaiçari Junto al mojon deslaba” (1586)<sup>763</sup>

**Mojón de Gallipienzo, el:**

**Balarata, Kanpobarrena, Arana, Txipueta, Lakuaga** eta **Muga de Sada** hartuko zituen honek, irudi duen moduan egungo **Muga de Gallipienzo**-ren erabat kidea bazen bederen. Antzina aipatu dermio horietaz gainera **Iturrieta** ere bagenuen bertan (ikus sarrera hau).

**Mojón de Sada, el:**

**Muga de Sada, San Juan, Merkatu, Txurruta, Lausitu** eta **San Miguel** hartzen ditu Zareko mugak. Orain ezezaguna den **Jaundonejoanisgibela** ere (ikus sarrera hau) alderdi honetan zegoen.

**Monte (artiga de), (rellanos de), el:**

**El Monte, El Boyeral** edo **El Vedado Monte de Santa Agata, Cruz de Gurutzeta** eta **Santa Marina**-ren artean dago. **Los Rellanos del Monte** (ikus Llano de arriba) mendi honetan dauden hiru zabaldiak dira: lehena herri ondokoa da, bigarrena tartekoa, eta hirugarrena **Cruz de Gurutzeta**-raino iristen dena. 1608an agertzen den **La Artiga del Monte** (ikus sarrera hau) **Santa Marina** ondoko labaki edo berroa zen.

**Motxilukantoa (llano de):**

Toponimo polit honetan motxilu (mochelu, mochilo eta mochulu ere ageri dira) ‘mozolo’, eta kanttoa ‘kanta’, ‘kantua’, ‘kantatzea’ ditugu, eta ‘mozoloaren kantua’ edo ‘mozoloak kantatu zuen edo kantatu ohi duen tokia’ (cf. Artikutzako Txorikantari eta honen eratorria den Txorikantariko erreka, Choricantariaga 1827an eta Choricantarico erreka 1916an<sup>764</sup>, Tafallako Galloscantan edo Leotz eta Pitillasko Cantagallos<sup>765</sup>) adierazten du:

“ytten otra piª en mochilocantoa” (1597)<sup>766</sup>

“otra pieza en mochelucanta” (1657)<sup>767</sup>

762 Id., 4. k.

763 Id., 3. k-bis.

764 Mikel Erriondo, “Artikutzta, toponimia actual y antecedentes históricos”, FLV, 51, 1988, 119-142. orr.

765 Jimeno Jurío, THET, 116. or.

766 PRA-Oibar, 9. k.

767 Id., 28. k.

**Motxilu** erdarazko **mochuelo**<sup>768</sup> (cf. **Mochuelo canta sarrera**)-ren euskalduntzearen ondorioa da, eta bilakaera hau izan da, nonbait: **mochuelo** > **motxelu** (goranzko diptongoaren monoptongaketaz<sup>769</sup>) > **Motxilu** (herskari sabaikariaren eraginez. Cf. **machete** > **matxite**<sup>770</sup>). 1605ean, gainera, diptongoaren beste monoptongaketa bat duen **Mochulu** azaltzen da, baina forma hau erabat isolaturik dago:

“otra pieça en mochulucanto” (1605)<sup>771</sup>

Ez dakigu non zegoen, baina bai bertan zabala zegoela:

“otra pieza en el llano de Mochilucanta” (1692)<sup>772</sup>

Hau dela eta, **Llano de arriba**-rekin edo **Rellanos del Monte** horietako batekin identifika liteke, edo herri ondoko **Zabala**-rekin, baina hau balizkako kontu hutsa da, frogarik ezean.

### Motxiturria:

Toponimo hau **-aga** atzizkirik ez duela bakarrik XI. mendean agertzen da. Gainerako guztietan berrekailu horretaz horniturik aurkitzen dugu:

“unam terram que est in loco qui dicitur in basconea lingua Mussiturria” (1060)<sup>773</sup>

Jatorrizko forma, ikusten denez, **Muxiturria** da, gero hasierako bokala ireki<sup>774</sup> eta sabaiaurreko igurzakaria afrikatu delarik<sup>775</sup>. **Muxiturria**, bere aldetik, **\*Musiturria** zaharrago baten aldaera izan liteke, **musitu** ‘lizundu’, ‘urdirindu’<sup>776</sup> eta **iturria**-z osatua

768 Honen etimologiaz ikus Corominasen DCELC.

769 Txillardegik dioenez (*Euskal Fonologia*, Ediciones Vascas, Donostia, 1980, 56. or. eta hurren.), hau da euskaraz “anormalak” diren goranzko diptongoak ezabatzeko dituen hiru errekurtsuetako bat. Beste biak epentesia eta azentu-aldaketa dira.

770 FHV, 68. or.

771 PRA-Oibar, 15. k-bis.

772 PRA-Kaseda, 6. k.

773 Lacarra, VM, 35. or.

774 Ez beti halere: **Muchuturriaga** dugu 1710 eta 1720an. Dena den, XVI. mendeko lehen lekukoek -o dute, eta beraz XVIII.eko hauek itxuratxartzen hasitako aldaeratzat jo beharko ditugu. Harrigarria da, nolahi ere, kontsonante sabaikari baten aitzinean bokala irekitzea. Bestela u > o pausoa (edo hobe esan, u oso irekia ebakitzea) arrunta da gaurregun Nafarroako zenbait hizkeratan (Basaburua, Leitza...): **duzu** > **dozo**, **dut** > **dot**; **motekoa** ‘mutikoa’ Berueten...

775 [s] eta [ç]-ren arteko txandakatzea oso ezaguna da hitz hasieran (euskalkiak bereizten dituzten ezaugarrietako bat da. Ikus FHV, 190. or.), eta hitz barruan ere sarri gertatzen da. Bilakaera hau batzuetan gaztelaniak eragina izan da, baina beste anitzetan barne gertakarizat aitortu behar dela garbi dago: cf. **Sagarmin** / **Xagarmin** / **Txagarmin** Nuinen, **Xixibiko** / **Txitxibiko** ‘xibinko’, ‘xubingo’ Burgin, **Sinares** (izen ofiziala) / **Txares** (izen herrikoia < \***Xares** < \***Siars**, bokal arteko sudurkariaren erortzeaz), herri berean (cf. Galipentzuko **Valdejares**); **Sustapea** (1892ko katastroan) / **Xustapea** (orain) / **Txustapea** (orain) Bidankozen; **Ijurieta** ofiziala Gulian / **Txurieta** Ziako Hipólito Goñiren euskaraz (< \***Xurieta** < \***Ixurieta**); **Txebillenea** orain Beuntzan, euskaraz / **Sebillereña** 1854ean (Beuntzako hipotekak), **Sebillenea** 1861ean (id.); **Kitxulabe** [kiçulábe] Etxarrenchen, aurreko \***Kixulabe** baretik (cf. **Quisulabe** 1894eko katastroan); **Pelotaxuko** [pelotaçúko], **Pelotaxuku** [pelotaçúku] Arakil-Ekain, dudarik gabe aitzinagoko \***Pelotaxoku** baretik; **Paxakadie** edo **Patxakadie** Zarrantzen (cf. **Paxakéta** Muzkitzen eta Beuntzan)...

776 **Musitu** (**Mussitu** 1025ean. PT, 159. or.) Arabako herri baten izena ere bada.



dagoela onartzen bada behinik behin<sup>777</sup>. Iturria izatea, agian, ez doa etimologia honen kontra. XI. menderako, bestalde, haplologia gertatua zela onartu behar genuke, proposaturikako etorki hori ontzat hartuz gero.

### Motxiturriaga:

Esan bezala, **Motxiturria** eta **-aga-z** osaturik dago (ikus aurreko sarrera). Egun desagertu bada ere, badakigu **Galipentzubidea** eta **Usobidea**-ren artean zegoela:

“una biña en el temjo llamado mochiturriaga...affr con senda Real que ban de ayessa a gallipienzo” (1576)<sup>778</sup>

“una vina...en...mochiturriaga...afrentada...con el Camino Real que ban Enzia Uxue” (1582)<sup>779</sup>

Hori dela eta, **Barranco de Zabala**-n dagoen **Fuente de Usobidea**-rekin identifika daitekeela uste dugu.

Aipatu aldaera horietaz landa, 1710<sup>780</sup> eta 1720an<sup>781</sup> **Muchuturriaga** dauka-gu, 1781ean **Mochiturriaga**<sup>782</sup>, eta 1818an **Muchiturriaga**<sup>783</sup>.

### Muga de Eslava, la:

Ikus **Mojón de Eslava** eta **Gezari** sarrera.

### Muga de Gallipienzo, la:

Ikus **Mojón de Gallipienzo** sarrera.

### Muga de Sada (barranco de la), (fuente de la), (puente de la):

**Muga de Sada Mojón de Sada**-ren baliokidea izan daiteke, hau da, Zarekiko muga guztia izenda dezake, baina honetaz gainera **Muga de Sada** aparteko dermio bat ere bada, hain zuzen ere Zareko (batez ere) eta Galipentzuko mugen ondoan dagoena.

**Muga de Sada**-k Zare, Galipentzu, **San Juan**, eta **Lakuaga**-rekin mugatzen du; bertako iturriari, esperatzekoa zenez, **Fuente de la Muga de Sada** deritza:

“otra pieza en el termino de Mandaputia (Zare)...q afronta con la fuente de la muga de Sada...y...cequia, q pasa la agua de la fuente de Aquilar” (1752)<sup>784</sup>

777 Ikus AV, 153. or. Cf., halaz ere, Etxalekuko (PRA-Ihaben, 1. k., 1609) eta Guliako (PRA-Asiain, 1793, 174. k.) **Usiturria** hidronimoa.

778 PRA-Oibar, 2. k-bis.

779 Id., 3. k.

780 PRA-Kaseda, 15. k.

781 PRA-Oibar, 36. k.

782 Id., 72. k.

783 Id., 98. k.

784 Id., 64. k.

**Barranco de la Muga**, Zareko mugako erreka da, alegia, gorago **Barranco de Lausitu** deitzen den berbera (ikus **Lausitu sarrera**). **Puente de la Muga de Sada**, azkenik, **San Juan**-en dagoen Zareko muga-mugako **El Pontarrón** bera da.

**Nobeleta (cerro de), (ladera de):**

**Nobela** izena eta **-eta** atzizkia ditugu hemen (cf. **Uxueko Nobeleta**). **Nobela**, Jimeno Juríok Burlatako **Nobeleta** aztertzean dioenez<sup>785</sup>, latineko *novella* 'ardantzere landatu berria' da<sup>786</sup>, eta *novale* 'labakia'-tik atera den **nobare**-tik bereizi behar da<sup>787</sup>.

Autore honen arabera, **Nobla** aldaera sinkopatua oso arrunta da Nafarroako Erdialdean<sup>788</sup>; Agezan, **Nobeleta XVI.** mendean azaltzen da ia bakarrik, eta orduan ere **Nobleta**-rekin aldizkatzen da. Hurrengo mendeetan eta gure egunotan **Nobleta** forma laburtua aurkitzen dugu beti ([*nobléta*] ahoskatua gaurregun)<sup>789</sup>:

“una viña en Nobleta” (1547)<sup>790</sup>

“otra pieca faytia en nobeleta” (1588)<sup>791</sup>

1791ko **Cerro de Nobleta**<sup>792</sup> Agezatik C-132 (Lizarra-Nabaskoze)-ra doan errepede berriaren eta Lergatik Oibar eta Zangozara doan **Errepidea**-aren elkargunean dago, angeluan.

1801eko **Ladera de Nobleta Cuesta de Arana** eta **Nobeletasaietsa** bera da:

“una pieza...en la ladera de Nobleta”<sup>793</sup>

**Nobeleta-k Onborduia, Arana, Aranportillua, Euntzeberri, Udareaga, La Rea** eta **Usobidea**-rekin mugatzen du.

785 ETB, 80. or. “¿El Nombre de Los Arcos según el fuero de Estella?” (FLV, 55, 1990, 55-63. orr.) izeneko artikuluan ere mintzo da gai honetaz: “La sufijación vasca «-eta» a voces de origen latino es normal. Un ejemplo cercano lo tenemos en el nombre del barrio estellés *Novelata*, cuyo primer componente es la palabra latina *novella* ‘viña recién plantada’, ‘majuelo’, que a su vez deriva de *novellus*, *-a*, *-um*, diminutivo de *novus*. «Nobeleta» equivaldría a «los majuelos», circunstancia ampliamente constatada durante el siglo XIII en la documentación referente al término estellés”.

Guk IGI-en **nobela** ‘labakia’ edo ‘luberría’ zela esan genuen, oker, bistan denez. Reta Janárizek ere “ez du baztertzen” **Nobleta** toponimoa noval ‘campo recién roturado’ izenez osaturik dagoelako posibilitatea, baina gaztelaniaren eraginez sorturikako \***Nabeta**-ren desitxuraketa ikusi nahiago du. EHZE, 479. or.

786 Cf. “in Nouella Aurquia, in terminato uidelicet de Arinçano”, Mitxelena aitapua, “Notas lingüísticas a «Colección Diplomática de Irache»”, PT, 93. or.

787 Cf. aurreko lan berean azaltzen den “dos piezas Nouare uidean”, Mitxelena “en el camino del noval” itzulia, 107. or.

788 Hau alderdi honetako Hegoaldeko goi-nafarreraren azentu azkarrari leporatu behar zaio, antza.

789 1811n ere (PRA-Oibar, 93. k.) **Noveleta** dugu, baina fetxaren berandukortasunak halabeharreko zerbituen aurrean gaudela pentsarazten digu.

790 PRA-Oibar, 4. k.

791 Id., 2. k.

792 Id., 76. k.

793 Id., 87. k.

**Nobeletabarrena:**

Nobeleta-ren beheko alderdia zen, Arana eta Aranportillua elkartzan direnekoa (ikus *Senda del Molino* sarrera):

“en la endreçera llamada nobletabarrena” (1587)<sup>794</sup>

**Nobeletasaietsa:**

Nobeleta toponimoa eta saihetsa ditugu hemen:

“ytten otra pieca en nobeleta saiessa” (1592)<sup>795</sup>

Esan bezala, erdarazko *Ladera de Nobeleta* edo *Cuesta de Arana* bera zela uste dugu (saihetsa-ren balioaz ikus *Dermio* baten zatiketa atalean dioguna).

**Odialdea:**

Hodi ‘erreka’, ‘errekastoa’ eta aldea ‘aldamena’-z osaturik dago<sup>796</sup> (ikus *Morioneko Odialdea*). Agezako *Odialdea* ere, *Morioneskoa* bezala, *Los Linares*-en zegoen:

“un pedaço de Pieza en los linares y parte llamada odialdea...affrenta con...barranco” (1638)<sup>797</sup>

**Olibeta:**

*Olibo* ‘olibondoa’ eta -eta atzizkia ditugu toponimo honetan. Beste batzuetan *La Presa* izenpean azaltzen den bera dela dirudi:

“otra...en Oliveta, ô la Presa” (1788)<sup>798</sup>

*Olibeta* toki-izena arrunta da gure alderdian, eta *Eslaba*, *Galipentzu*, *Leatxe* eta *Morionesen* ere aurkitu dugu. Uxueko *La Oliveta*-k beste jatorri bat duela uste dugu (ikus sarrera hau).

*Antzinako Olibeta*-ren ondoan bertan *olibondo*-errenkada bat izateagatik *La Rea* izena hartu duen eremua dago (ikus sarrera hau), eta baliteke bi toponimook alderdi bat bera izendatzea.

**Olibetako erreka:**

*Aurreko sarrerako Olibeta*, -ko leku-genitiboa, eta *erreka* ‘erregua’ dira izen honen hiru osagaiak.

794 Id., 3. k-bis.

795 Id., 6. k.

796 Mezkitzen tautologiko samarra dirudien *odiako erreka* edo *Regata de odia* dugu. *Orreaga Ibarra*, MT, 344. or..

797 PRA-Oibar, 23. k-bis.

798 Id., 75. k.

**Olibetako erreka** gaurko **Barranco de La Presa**-rekin identifika daitekeela uste dugu (ikus **Olibeta** sarrera):

“Mas otra pieza en olibetaco erreca que afronta con Barranco” (1774)<sup>799</sup>

### Onbordua:

**Onbor** ‘enbor ebakia’-z eta **-duia** atzizki multzokariaz osaturik dago (cf. **Zonbordi** Getadarren<sup>800</sup>, **Txonbordoi** Uritzen<sup>801</sup>, **Onbordi** Iturenen<sup>802</sup>, **Onbordi** eta **Onbortegi** Lesakan, **Onbordiko erreka** Igantzin<sup>803</sup>, **Onbordua** [òmborđúya] Aezkoako mendietan, eta hauen ildokotzat jo daitekeen **Goizuetako Enborretako lepoa**<sup>804</sup>):

“la dha biña en el temjo llamado onborduya” (1563)<sup>805</sup>

Gaurregun erabiltzen den **Enbordua** [èmborđúya] aldaera desitxuratuxea 1820an aurkitu dugu aurrenekoz, behin euskara desagertuz gero:

“otra (viña)...en emborduya” (1820)<sup>806</sup>

Reta Janárizek egungo aldaeran oinarrituta toponimo honetan **borda** ‘gortea’, ‘baserria’ eta ugaritasunezko **-doi**, **-dui** ikusi uste du, baina dirudienez ez daki atzizki hau ez dela sekulan azaltzen **borda**-ren eremu semantikoko izenekin<sup>807</sup>.

**Onbordua**-k **Arana**, **La Presa**, **Ategarate** eta **Balarata**-rekin mugatzen du.

### Onborduiabarrena:

**Onbordua**-ren beheko alderdia zen, **Balarata**-ren ondokoa edo:

“una vina en el termino de Ayessa en onborduya barrena” (1635)<sup>808</sup>

### Otsazuloa:

**Otso** animalia-izenaren elkarketako aldaera izan ohi den **otsa**- eta **zuloa** izenak ditugu toponimo honetan. Otsoak joan den mende arte oso ugariak izan ziren Oibar haranean eta Uxuen, eta ugaritasun honen ondorio dira Agezako toponimoa, Eslabako

799 PRA-Kaseda, 26. k.

800 1892ko kat.

801 1914eko kat.

802 1739, Iturengo udal artxibategia. Mitxelenak “De fonética vasca. La aspiración intervocálica” (in SHLV, 190-202. orr.) izeneko artikuluan Oihenarten **zumpur** ematen du **enbor**, **enpor**, **onbor**, **zunbor** eta “besteren baten” jatorrizko forma bezala. FHV-n herskari belare / txistukari edo txetxekari txandakatzeaz ari dela **konbor** aipatzen du batetik, eta **anpor**, **enbor**, **enpor**, **onbor**, **onpor**, **zunbor** eta **zunpur** beste-tik. Sail honetako zaharrena belaredun aldaera litzateke; hemendik bustidura adierazkorraren bidez txistu-karidun aldaera aterako zen, eta honetatik azkenik, hasieran Ø duten formak.

803 DTN, 116. or.

804 L.F. Echeverría Salaberría, “Goizuetako toponimia, Artikutzakoa ezik”, FLV, 51, 1988, 77-118. orr.

805 PRA-Oibar, 2. k.-bis.

806 Id., 99. k.

807 EHZE, 479. or. Ugaritasunezko atzizkiak dituen oinarrien gainean ikus gure DAON.

808 PRA-Oibar, 23. k.

**Barranco de los Lobos, Galipentzuko Portillo de los Lobos, eta Uxueko Lopera eta Otsalarraña**<sup>809</sup>.

**Otsazuloa** herriaren ondoan zegoen:

“una pieça Juntto al dco lugar y endreçera llamada ossazuloa” (1605)<sup>810</sup>

**Camino de Eslava-ren** alboan:

“otra (pieza)...que llaman ozazuloa que afronta con...Camino de Eslaba” (1770)<sup>811</sup>

Izen hau azkeneko aldiz, eta aski itxuraldatua, 1818an ediren dugu, euskara galdu ondoan gertatu ohi den aldaketa jasan duela:

“otra pieza...en el termino de Ozazulba”<sup>812</sup>

Aipatutakoez landara, **Ocsazuloa** (1620)<sup>813</sup> eta **Osazuloa** (1693)<sup>814</sup> aldaerak ere aurkitu ditugu.

**Palacio:**

**Palacio**, harrigarriro, ez zen herriko eraikuntza bat (cf. Agezako bereko **La Torre**, Lergako **Jauregizar**, Eslabako **Palacio** eta **Dorre(ondo)a**, Uxueko **Dorreberria** eta **La Torre nueva...**), **Nobeletasaietsa**-ko (edo ondoko) alor eta ardantzez brokatu-kako alderdia baizik:

“en la pieça que el tenia en la endreçera llamada el palacio” (1592)<sup>815</sup>

“ytten otra viña en palaçio u nobleta saessa” (1597)<sup>816</sup>

Daitekeena da, halaz ere, aipatu jauregi horrek **Nobeletasaietsa**-n ondasunak edukitzea, eta leku-izena horren ondorea izatea.

**Parrala (barranco de):**

**Parrala** [paˈraˈla] **parral** erdaldunaren euskaratzearen fruitua da, erakutsian denez. **Parral**, bere aldetik, **parra** ‘mahatsondo’-ren eratorria da, eta Corominasen arabera<sup>817</sup> ‘balatua’ edo ‘baratzea’ adiera zeukan aragoieraz.

809 Azken hauetaz, dena den, ikus Uxueko toponimia aztertzean dioguna.

810 PRA-Oibar, 15. k.

811 Id., 68. k.

812 Id., 98. k. Cf. Eslabako **Aitzuloa** > \*Aizúlwa > Aizulba (> Izulba > Izúrba). Ikus sarrera honetan gertakari honetaz dioguna.

813 Id., 20. k.

814 PRA-Kaseda, 7. k.

815 PRA-Oibar, 6. k.

816 Id., 9. k.

817 DCELC.

Gure alderdian ere **parrala baratzea**-ren adieratik oso hurbil zegoela uste dugu, parralak, baratzeen antzera, herrian bertan edo aldirietan ohi daudelako (cf. Eslabako **El Parral**), ubide, iturri, edo putzu baten inguruetan:

“en la endrecera llamada parrala...affrontada con...barrancos concejiles” (1583)<sup>818</sup>

**Barranco de Parrala** herriko iturrian hasten den **Barranco de Iturzarra**-ren jarraipena da, hots, beheitixeago **Barranco de Udareaga** izena hartzen duen urbide bera. Errekaren inguruan, esperatzekoa zenez, **Parrala**-ren barrukotzat jotzen diren baratzeak daude.

Garai batez toki “debekatua” izan zen dermio hau, **Udareaga** bezala:

“ytten sea vedado el barranco de Parrala y udareaga” (1608)<sup>819</sup>

**Parrala**, **Parralea** edo **El Parral** toponimoa ugaria da gure eskualdeko toponimian. Guk, mintzagai dugunaz landara, **Parralea** eta **El Parral** ediren dugu Eslaba, Ezporogi eta Leatxen<sup>820</sup>. 1603ko **Parralla** aldaera grafia kontu hutsa dela dirudi (cf., dena den, Erriberriko egungo **La Parralla**. ikus **Senda de Udareaga**).

**Parrala**-k **Errekandia**, **Mendi**, **Udareaga** eta **San Miguel**-ekin mugatzen du.

#### **Parralaldea:**

**Parrala**-ren inguruko lurak adierazten zituen:

“una uerta en...parrala aldea” (1606)<sup>821</sup>

#### **Paso, el:**

**Lausitu**-n zegoela badakigu, eta beraz **Txurruta**-ko errekek eta **Zareko** beheko bideak elkar gurutzatzen duten puntua izan daiteke. Dena den, dokumentazioan aldi bakar batez aurkitu dugu, eta orain ez du izen berezirik<sup>822</sup>:

“en la misma endrecera (**Lausitu**-n) Junto al passo” (1614)<sup>823</sup>

#### **Pedrugal, el:**

**Ategarate**-n dago, **Barués**-en aldamenean. Izena alderdi hau harridia izatearen ondorena da (ikus **Galipentzuko Pedrocal** sarrera).

818 PRA-Oibar, 3. k.

819 Id., 13. k.

820 Nabarmendu behar da Agezan bizirik iraun duen aldaera **Parrala** euskalduna den bitartean, Eslaban lehengo **Parralea** itzuli, eta **El Parral** erdalduna gorde dela.

821 PRA-Oibar, 12. k.

822 Egia esan, dugun lekuko bakar horrek ez du, baitezpada, izen berezia izan behar, eta lasai-lasai har liteke izen arruntzat.

823 PRA-Oibar, 18. k.

**Peña, pieza de la; viña de la:**

**La Pieza de la Peña** behin bakarrik aurkitu dugu, 1788an, eta ez dakigu ziur Agezakoa ala Zarekoa zen:

“otra (pieza) en el mismo termino (**Prado de Sada**-n) llamada la pieza dela Peña”<sup>824</sup>

Zernahi gisaz, bi herrion arteko muga aldean behar zuen.

**La Viña de la Peña Zabala**-ren barruan dago, **Camino de Eslava** ondoan, haitz baten alboan, eta hemendik izena. Lehen harri asko ateratzen zen harrobia ere bada bertan.

**Pieza del Enebro, la:**

Egungo **La Pieza del Ginebro La Pieza del Enebro** da 1781ean, eta ezau-garri dialektalak gutxituz (eta ez ugalduz) doazenez gero, garbi dago **La Pieza del Ginebro** esaten zitzaiola XVIII. mendean, eta agiriko aldaera hori notariaren kontu dela (cf. **La Pieza del Ginebro Uxuen**). **Usobidea**-n dago:

“otra (pieza)...en Usobide q llaman la del Enebro” (1781)<sup>825</sup>

**Pieza del Ginebro, la:**

Ikus aurreko sarrera.

**Pinar, el:**

Ikus **San Miguel** sarrera.

**Plaza (barrio de), la:**

Agezako plaza eta pelota-jokua bat bera dira. **Barrio de la Plaza**, berriz, honen inguruko etxeek osatzen dute:

“una casa sita...en el varrio de la plaza” (1723)<sup>826</sup>

**Pontarrón, el:**

**El Pontarrón** edo **El Puentarrón** Zareko mugako errekek eta errepideak elkar gurutzatzen duten tokiko zubia da (ikus **Muga de Sada** sarrera. Ikus, orobat, **Galipentzuko** izen bereko sarrera). Honelakoetan ohizkoa den moduan, inguruko lurrei ere **El Puentarrón** deitzen zaie.

---

824 Id., 75. k.

825 Id., 72. k.

826 Id., 38. k.

**Pozos, los:**

El Linar-en azpian dago, **Barranco de Parrala**-n. Seguru asko lihoa garbitzeko beharrezkoak ziren putzuekin (cf. Eslabako Lixufieta eta Zareko Ligusufieta) erlazionatu beharko dugu.

**Presa (barranco de), (pieza de), (puente de), fá:**

Egun **La Presa** ez da toki-izena, baina gorago **Barranco de Zabala** deitzenari **Barranco de la Presa** esaten zaio inguru honetan, eta errege bidean dagoen zubiari **El Puente de la Presa**. Zubi honen azpian ur-jauzi bat dago, eta orain uharkarik ez badago ere, **La Presa** izenak garbi erakusten du lehen bazela bat.

Zubia **Galipentzubidea**-ren eta **Lerga-Eslabatik Zangoza** aldera doan errege bidearen elkargunean (bidegurutzean) dago, behialako uharka zegoen tokian hain zuzen ere:

“...en la endreçera llamada presa...afrentada con Camino real que ban los de lerga y es-laba a Sanguesa” (1587)<sup>827</sup>

**Puntallo:**

**Ikus Puntallua.**

**Puntallua (llano de):**

Orain **Puntallo** [puñtájo] deitzen dena **Puntallu** edo **Puntallua** da dokumentazioan:

“otra pi\*...en la endreçera llamada puntallu” (1603)<sup>828</sup>

**Puntallo** egun (eta **puntallua** lehen) bi bideren arteko triangelu moduko lurtsaila da, hots, puntan bukatzen dena<sup>829</sup>. Dermio hau herri ondoan dago, **Las Fajetas**-en. Eremu laua da, eta hortik 1687ko **Llano de Puntallua**:

“otra pieza en el llano de Puntallua” (1687)<sup>830</sup>

**Puntallo** edo **Puntallua**-k **Parral** eta **Parrala**-k bezala, ugariak dira gure alderdian eta inguruetan. Guk honako hauek aurkitu ditugu: (**El Puntallo** Ezporogi, **Galipentzu**, **Leatxe**, **Lede**<sup>831</sup> eta **Oibarren**<sup>832</sup>; **Puntallu** Ageza eta **Zaren**, eta **Puntallua** Agezan. **Murillo el Fruton El Puntallo**-ren jatorrikidea den **El Puntajo** dugu (cf. **Kaskallu**, **Cascallo** / **Cascajo** edo **Galipentzuko Ondallu**<sup>833</sup> / beste toki batzuetako **Ondajo**)<sup>834</sup>.

827 Id., 3. k-bis.

828 Id., 11. k.

829 Izen hau ez Iribarrenek VN-n, ez Reta Janárizek EHZE-n biltzen ez badute ere, bizirik dago, guk eman adieraz, Oibarren eta Zaren gurxienez. Galipentzun ere adiera beraz azaltzen da toponimian.

830 PRA-Kaseda, 4. k.

831 PRA-Oibar, 23. k., 1634.

832 Id., 2. k-bis, 1570.

833 Ikus sarrera hau.

834 “otra pieza...en la puen del Robre llamado el Puntajo”, PRA-Kaparros, 77. k., 1671.



**Puntazorrotza:**

Egun ezezaguna den toponimo honen bi osagaiak **punta** 'punta', 'puntan bukatu' rikako mendiko edo muinoa' izena, eta **zorrotza** izenondoa dira, eta Lergako **Muni-kotxorrotx**-en antzeko balioa duela uste dugu (ikus sarrera hau. Ikus, orobat, Moriones-ko **Orozki** sarrera)<sup>835</sup>. **Puntazorrotza Mendi** eta **Camino de Aibar**-en ondoko mendiko txorrotx txikia zen:

"yten otra piª en punta zorroza" (1530)<sup>836</sup>

**Quemada, la:**

Dokumentazioko **Errekineta**-ren (ikus sarrera hau) ordaina izan daiteke (ikus Lergako **Errekineta** eta **La Quemada** sarrerak). **La Quemada El Carasol**-en dago, **Santa Agata**, **Tastaran** eta **El Vedado (El Boyeral)**-ren artean.

**Rea, la:**

**La Rea** [laṙea] edo **La Rea del Herrero** errepide berria eta **Usobidea** berizten diren gunean dago. Izen honek, lehen begiratuan irudi duenaren kontra, ez du zerikusirik euskaraz hain arrunta den **larrea** 'euntzea'-rekin<sup>837</sup>, eta erdarazko **la rea** 'lerrokada', 'errenka'-ren bidez azaldu behar da, lehen bertan olibo errenkada bat baitzegoen.

**Saleras, las:**

**Las Saleras Gezari**-ko errekan zeuden, Eslabako mugan:

"otra pieza en la muga de Eslava theniente a Barranco y a las Saleras" (1720)<sup>838</sup>

Gatzarriak bertan egon omen ziren orain urte batzuk arte.

**San Andrés (calle de):**

Agezako eliza **San Andresi** eskainia dago, eta **Calle de San Andrés** eliza dagoena da.

835 Bidankozen **Punta de Gayarre**, **Punta de Landa** eta beste ditugu bizirik, eta Pirinioez haraindian **Urrúxtérri phüntá**, **Andiozgáñ phüntá** eta **Burgiári phüntá** ditugu Andozen (Txomin Peillen, "Andoze ibarreko leku izenak", FLV, 1991, 57, 89-105. orr.). Autore honek dioenez **phünta** gailur zorrotza duten mendiak izendatzeko ibiltzen da Zuberoan.

Arakil-Uharten **Aitzpuntaxorrotx** [ajcpúntačoroč] dugu; Iturmendin **punta** edo **puntia** generiko arrunta da, goian aipatu adieraz: **Itsasiko puntia**, **Galartzako punta**...(azken hau 647'8 metroko gaina da).

836 PRA-Oibar, 2. k-bis.

837 Hau da, izan ere, Reta Janárizek (EHZE, 479. or.) proposatzen duen etimologia.

838 PRA-Oibar, 36. k.

**San Juan (basílica de), (campo de), (cascajo de), (ermita de):**

**San Juan** euskarazko Jaundonejoanisgibela (ikus sarrera hau) toponimoko Jaun Done Joanis-en erdarazko ordaina da. 1586ko Detras de SanJoan-ek euskal toponimo osoaren itzulpena dirudi:

“Ytten otra pieça detras de SanJoan”<sup>839</sup>

1588ko Cabe San Juan<sup>840</sup>, bere aldetik, aurkitzerik izan ez dugun \*Jaundonejoanisondoa baten erdal baliakidea dateke.

Ermita Camino de Caseda ondoan zegoen, La Chopera-tik hurbil, oraingo Campo de San Juan-en, dokumentazioko Saso de Aquilar-en aldamenean:

“otra pieza...en el termino llamado de la Basilica de Sn Juan, teniente a...camino q van a Casseda” (1752)<sup>841</sup>

1802rako hondatua zegoen (ikus Santa Marina sarrera), eta Igual de Soriak botatzeko agindua eman zuen<sup>842</sup>.

San Juan-ek Zarerekin, Merkatu, Aquilar eta Muga de Sada-rekin mugatzen du.

**San Miguel (junto a la basílica de), (llano de), (monte de), (pinar de):**

**San Miguel** Ageza eta Ezporogiko mugetatik hurbil dagoen Zareko ermita da; honen azpiko mendi-mazelari El Pinar de San Miguel esan ohi zaio orain Agezan, eta El Monte de San Miguel deitzen zaio dokumentazioan:

“se subio por el prado arriva...acia el monte de San Migl” (1687)<sup>843</sup>

Guztiarekin ere, Agezan bada beste San Miguel bat herritik oso hurbil. Azken alderdi honetako ermita 1802rako hondatua zegoen (ikus Santa Marina sarrera), eta horregatik urte horretan Igual de Soriak botatzeko agindua eman zuen<sup>844</sup>. Eraikuntzaren azken hondakinak oraindik ere ikus daitezke, herritik gertu, errepidearen (behialako Galipentzubidea-ren) alboan:

“una pieza...en el termino qe llaman junto a la Vasilica de Sn Miguel teniente a...caminos publicos el uno para Gallipienzo y el otro para Udareaga” (1752)<sup>845</sup>

1624ean azaltzen den Llano de San Miguel ere bizirik dago oraindik, eta Usobidea eta Galipentzubidea-ren arteko zabaldea izendatzen du:

“una (pieça)...en el llano de san Miguel” (1624)<sup>846</sup>

839 Id., 3. k-bis.

840 Id., 4. k.

841 Id., 64. k.

842 Ikus Pérez ollo, EN, 47. or.

843 PRA-Kaseda, 1. k.

844 EN, 47. or.

845 PRA-Oibar, 64. k.

846 Id., 20. k.

**San Miguel-ek Udareaga, Zabala, Usobidea eta Nobeleta-ekin mugatzen du.**

**Santa Agata (monte de):**

**Santa Agata** [sàntágata] edo [sàntágata] Agezako ermitetako bat zen, Pérez Olloren arabera<sup>847</sup>. Lergako toponimia aztertzean diogun bezala (ikus herri honetako **Sandagata** eta **Santa Agueda** sarrerak) **Santa Agueda**-ren erdaratikako ordain euskalduna da.

**El Monte de Santa Agata** Agezako gailurrik gorena da, eta Eslabako lurrekin, **Tastaran**, **El Boyeral**, **La Cruz de Gurutzeta**, **San Miguel** eta **El Caracierzo**-rekin mugatzen du.

**Santa Marina (balsa de), (basílica de), (calle de), (costera de), (cuesta de), (ermita de), (monte de):**

Ermita honen zaharriak oraindik ere ikusgai daude, **Camino del Coscojar** ondoan dagoen **Santa Marina** alderdian. 1915ean sortua den gure informatzaileetako batek beti gaur bezalatsu ezagutu du, eta beraz aspalditxotik hondatua dagoela esan daiteke.

1608an “ermita” deitzen zaio (ikus **Artiga del Monte** sarrera), eta 1801ean “basílica”<sup>848</sup>. 1802ko dokumentu batean<sup>849</sup> ongi ikusten da zein zen garai hartako ermiten egoera, eta zer-nolako arazoak zeuden **Santa Marina**-ren inguruan. Aipua luzea da, baina merezi duelakoan aldatzen dugu hona:

“...que teniendo este lugar tres Hermitas dedicadas la una a San Miguel Arcangel y la otra a San Juan Bautista ambas derruidas de mucho tiempo a esta parte, y la tercera de Santa Marina, todas ellas en despoblado que dan nombre a los respectivos terminos donde se hallan, solo la ultima de ellas se mantiene en el dia por la particular debocion que profesan a dha Sta Marina asi los de este pueblo, como los de fuera de el y particularmente los del Reyno de Aragon que bienen con mucha frecuencia a cumplir los votos que hacen; pero como se halla situada la Hermita en un parage alto, y escabroso, son muchos los que dejan de subir a el por lo penoso del Camino y lo que es mas, que muchos forasteros que unicamente vienen a visitar la santa, se buelben sin verla, por que aunque hay Hermitaño que tiene la llave y cuida la Hermita, no se acomoda a confiar aquella, escarmentado que en dos ocasiones le han robado quanto tenia en ella...resuelven (agezarrek)...podría hacerse una nueva Hermita dentro de este dho lugar...dandole el nombre de dha santa, y al paso colocar con la debida decencia las efixies de San Miguel y San Juan en memoria de las Hermitas...”

Azken proposamen honek ez zuen arrakastarik izan, antza, egun **Santa Marina**-ko ermita bakarra aipatu hondatutako hori delako.

**Santa Marina**-ren aurreneko erreferentzia 1592koa da:

“una pieza tras de santamarina”<sup>850</sup>

847 EN, 47. or.

848 PRA-Oibar, 87. k.

849 Id.

850 Id., 6. k.

Aipu honetako **Tras de santamarina**, 1632ko **Tras de Santamarina beza-la**<sup>851</sup>, euskarazko **Santamarinagibela**-ren (ikus aurrerago) itzulpena da.

**Balsa de Santa Marina Camino del Coscojar** eta ermitaren hondakinen arteen dago; **Costera** edo **Cuesta de Santa Marina**, berriz, euskarazko **Santamarinaldapa**-ren baliokide erdalduna da, eta herriaren, **Zabala**-ren eta ermitaren arteko malda adierazten du:

“otra casa vecinal sita en el mismo lugar al pie de la Cuesta de Sta Marina” (1788)<sup>852</sup>  
 “un corral...en dha costera de Sta Marina” (1792)<sup>853</sup>

**Calle de Santa Marina**, pelota-jokutik ezker aldera dagoen kalea da, eta **Monte de Santa Marina**, azkenez, **Santa Marina** ermita dagoen mendia.

**Santa Marina**-k **Zabala**, herria, **El Boyeral** eta **El Coscojar**-ekin mugatzen du.

#### **Santamarinaldapa:**

Esan bezala, erdarazko **Cuesta** edo **Costera de Santa Marina**-ren ordain euskalduna zen:

“ytten otra piª...en Santamarin aldapa” (1598)<sup>854</sup>

#### **Santamarinagibela:**

**Santa Marina**-ren atzeko aldea izango zen hau, erreferentzi-puntutzat beti herria hartzen delarik:

“una pieça faytia en santamarinaguybel” (1605)<sup>855</sup>

#### **Saso (detrás de), el:**

**Saso** edo **zazu**-ak kaskailu asko duten goi-lautadak dira Nafarroan. Agezako **El Saso** herriko dermiorik handienetakoa da, eta **Zabala**, **El Coscojar**, **Gezari**, **Ategarate** eta **Usobidea**-ekin mugatzen du.

Lehenengoz 1060an dokumentatzen da<sup>856</sup>, eta geroztik bizirik iraun du orain arte.

**El Saso** euskarazko **Zazua**-ren ordain erdalduna da, eta **Detrás del Saso Zazugibela**-rena (ikus **Zazua** eta **Zazugibela**):

“otra pieza...en el termino q llaman detras del sasso” (1752)<sup>857</sup>

---

851 Id., 23. k.

852 Id., 75. k.

853 Id., 77. k.

854 Id., 7. k.

855 Id., 15. k.

856 Lacarra, VM, 35. or.

857 PRA-Oibar, 64. k.

**Seierena:**

Lacarrak<sup>858</sup> Esakotako hartzen du toponimo hau, baina honekin batera azaltzen diren gehienak Agezakoak (ez Esakoak. Erreparatu bi herrion erdal izenek duten antzari) direla badakigunez gero, gisakoa da Seierena ere Agezaketzat jotzea.

Historialari nafarraren 1060ko lekukoaz besterik ez dugu, eta beraz zaila da etimologiaz mintzatzea. Itxuraz sei zenbatzailearekin lot liteke (cf. Eslabako Amikarrren toponimoa, Amicagarren 1637an, edo Uxueko Los Cuatro Cuartos), baina ez dakigu lotura honek funtsik baduen.

**Senda de Aibar:**

**Camino de Aibar zela dirudi:**

“otra pieza en arriJausquineta...teniente al camino Rl qe ban a Sang<sup>a</sup>...y a senda q ban a aybar” (1647)<sup>859</sup>

**Senda de Eslava:**

**Camino de Eslava edo Camino de Gezari izan zitekeen hau:**

“una viña...en usobidea...teniente a...senda conçeçgil que ban a eslaba” (1657)<sup>860</sup>

**Senda de Eslava a Moriones:**

**Santamarinagibela-n barrena igarotzen zen:**

“ytten otra pi<sup>a</sup> en Santa marina aldapa digo guibela...que affrenta con...senda puca que ban los deslaba a moriones” (1594)<sup>861</sup>

**Senda de Gallipienzo:**

**Camino de Gallipienzo edo Galipentzubidea bera da:**

“una biña en...mochiturriaga...affr...con senda Real q ban de ayessa a gallipienzo” (1576)<sup>862</sup>

**Senda de Gezari:**

**Senda de Gezari eta Camino de Gezari bide ezberdinak direla dirudi. Bi-dezigorra El Saso edo Zazua-tik igarotzen (edo abiatzen) zen:**

“la tercera (pieça) en...el saso...que afrenta con...senda que ban a gueçari” (1601)<sup>863</sup>

858 VM, 35. or.

859 PRA-Oibar, 25. k.

860 Id., 28. k.

861 Id., 8. k.

862 Id., 10. k.

863 Id., 10. k.

**Senda de Ripodas, la:**

Bide hau, lehen begiratuan pentsa daitekeenaren kontra, ez zihoan Urraulbeitiko Arripodas (“Ripodas” erdaraz) herrira, Galipentzuko **Ripodas** dermioan (ikus sarre-ra hau) zegoen goiko errotara baizik, eta beraz **Senda del Molino de Gallipienzo** eta **Camino del Molino de Gallipienzo**-rekin identifikatu beharra dago.

Aragoa ugaldeko errota horretara **Camino de Nobeleta**-n barna joaten zen, antza:

“otra biña en nobleltabarrena...que afrontta con...senda que ban a Ripodas” (1612)<sup>864</sup>

Hemendik, **Iturrieta**-n zehar, errotara doan Galipentzuko **Camino de los Molinantes**-a aterako zen (ikus **Senda del Molino de Gallipienzo** sarrera).

**Senda de Udareaga:**

**Parrala**-n barna doan **Camino de Udareaga** bera genuen:

“una piª en parralla que afrenta con senda qe ban açia Udareaga” (1603)<sup>865</sup>

**Senda del Molino, la:**

Galipentzuko errotara zihoan (ikus hurrengo sarrera):

“otra viña en...nobletabarrena...que affrenta con...senda que ban al molino de la parte del prado de arana” (1593)<sup>866</sup>

**Senda del Molino de Gallipienzo, la:**

**Senda de Ripodas** edo **Camino del Molino de Gallipienzo** bera da, alegia, herri horretako errotara zihoana:

“ottra (pieza)...en nobeleta thente a...senda q ban al molino de Gallipienzo” (1781)<sup>867</sup>

**Suertes, las:**

Herri-mendia den **Cerro Mandurro**-n dago. Zotz eginda Agezako auzoen artean zortzi urtetarako banatzen ziren lur-pusketan bilatu behar da izen honen jatorria (ikus Galipentzuko **Las Suertes**-en eta **Zareko Kiñueta**-n dioguna).

**Tastaran:**

Eslaban bezala **Trastan** [tráštán] ebakitzen den hau ez dugu sekulan Agezako dokumentazioan aurkitu, baina herri honetan ere erabilia da.

---

864 Id., 17. k.

865 Id., 11. k.

866 Id., 7. k.

867 Id., 72. k.

**Tastaran**-en etimologiaz ikus Eslabako **Tastaran** sarrera eta **-ain** bukaerari eskaini atalean dioguna. Kokaguneari dagokionez, **Tastaran**-ek Eslabako **Tastaran**-ekin, **El Coscojar** eta **Santa Agata**-rekin mugatzen du.

#### Tipulatzea:

**Tipula** barazki-izena<sup>868</sup> eta **-tzea** ugaritasunezko atzizkia dira 'tipula-bara-tzea' adiera duen<sup>869</sup> toponimo ezagun honen bi elementu osagarriak. Gaurregun ezezaguna bada ere, badakigu erreka ondoko baratzea zela, eta beraz **Parrala**-n edo inguruan zegoela suposa daiteke:

"una uerta...dentro del (sic) endrecera llamada tipulaçea" (1612)<sup>870</sup>

#### Tipulatzeta:

Aurreko bera da, oraingoan **-eta** leku-atzizkia erantsi zaiolarik:

"una huertta en ttipulaçeta que affrenta con huerta...y barranco" (1614)<sup>871</sup>

Gure eskualdean honako herri hauetan azaltzen dira **tipula** edo **cebolla** osagaia duten toponimoak: **Tipulatze** Eslaban, **Tipulatzea** Galipentzu eta Morionesen, eta **El Cebollar** azken honetan, **Tipulatzea**-ren erdarazko baliakide moduan.

#### Torre, la:

**Barrio de arriba**-n (behalako **Irigoi**-en) dagoen teilatuturik gabeko dorre garaia da.

#### Txipueta (alto de):

Leku-izen honen bi osagaiak **txipu** 'makala'<sup>872</sup>, eta **-eta** leku-atzizkia dira (cf. Ezporogiko **Txipueta**baratzea toponimoa):

868 Jakina denez, latineko *cepulla* 'tipula txikia'-tik atera da izen hau. Hasierako herskariaren bilakaeraz ikus FHV, 260. or. eta Oñederra, EFP, 67. or. Lehen bokalaren hersketa ustezko kontsonante sabaikariari leporatu beharko diogu, edo agian hurrengo silabako bokal irxiari (ikus Mitxelena, "El Elemento latino romance en la lengua vasca", PT, 195-219. orr.).

869 Lete eta Otxobiko **Tipulabaratzeta** toponimoa (J. Jurío, TCPCI, 235 eta 283. orr.) honen adierakidea dela dirudi. Bidankozen **Tipulerria** (cf. Liguerría 'lihatzea', edo *Erizkizundi Irukoitza*-ren 384. orrialdean aipatzen diren *oloérrria*, *zalkérrria*, *añaguérrria* 'zekalerría', *gariérrria*...eta beste) toponimoa ageri da, ez-bairik gabe gauza bera aditzera emateko. Gulibarko Oriain herrian **Tipulatzea** (PRA-Atarrabia, 1782, 100. k.) eta **Tipulatzeta** (PRA-Asiain, 1645, 50. k.) azaltzen dira, eta Iturmendin **Tipulasoro** dugu (N. Arbizu, TI, 271. or.).

870 PRA-Oibar, 14. k.

871 Id., 18. k.

872 Basaburuan (Udabe eta Beramendin gutxienez) **txipue** [čípue] esaten dute. Aezkoan ere, Bonaparteren arabera ("Un vocabulario...", 311. or.) **txipu** erabiltzen da, eta Altsasun berriz **txipuba** (Kandido Izagierrek bildu eta L. Oñederrak aipatua, EFP-ko 266. or.). Orba ibarrean ere **txipu** erabiltzen zela idarokitzen digun **Txipueta** dugu Santsoain herrian (PRA-San Martín, 87. k., 1830): "Mas otra pieza...en el termino de chipueta qe afronta con...sendero qe bá Guezur yturri" (sic). Urraulbeitiko Tabar herrian berriz **Zipua** (Cipua idatzia) dugu 1848an (PRA-Oibar, 120. k.).

Iruñerrian \***Zipueta**-tik atera bide den **Sipueta** aurkitu du Jimeno Jurfok Azterainen (TCPC, 137. or.): "Pieza en ese lugar afrontaba «a cequia que baja del molino»" (cf. **Zopadia** eta **Sopadigaña** Muru-Azterainen. TCPC, 370. eta 372. orr.), Gazolatz, Baternain eta Zarikiegiko **Chopodi**-ren ondoan (TCPC, 278, 395, eta 463-464. orr.).

“otra pieza en...chipueta...afronta con...moxon de Gallip<sup>o</sup>” (1774)<sup>873</sup>

Orain gutxi arte Txipueta-n txipudia zegoen, eta beraz toponimoaren jaiotzearen arrazoia zein izan den ulertzen erraza da. Gaurko Txupeta [čupéta] aldaera desixuratua 1894eko katastroan aurkitu dugu lehen aldikoz.

Alto de Txipueta lehengo Iturrieta-ren eta Senda del Molino de Gallipienzo-ren ondoko gaina zen (ikus sarrera hauek):

“otra pieza en Yturrieta que llega asta el alto de Chipueta y en medio tiene una senda q se ba al molino de gallipienzo” (1695)<sup>874</sup>

Txipueta-k Galipentzuko lurrekin eta Arana, Aranportillua, eta Lakuagarekin ere mugatzen du. Behinolako Iturrieta ere inguru honetan zegoen.

#### Txipuetarana:

Txipueta toki-izena eta harana ‘ibarra’ ditugu hemen. Gehienetan ez bezala, Txipueta-n ez dago errekarik, baina bai bi gainen arteko “harana”<sup>875</sup>:

“una pieza...en el terno deste lujur llamado chipueta Arana” (1712)<sup>876</sup>

#### Txurruta (barranco de), (fuente de):

Iribarrenek dioenez<sup>877</sup>, txurruta ‘errekastoa’, ‘ur-jauzia’, ‘ur-jauzi txikia’ da Erronkaribarren, txurrusta (cf. Leatxeko Txurruta baina Txurrustagaña) ‘ur-jauzia’, ‘ur-jauzi txikia’ Agoitzen<sup>878</sup>, eta ‘ubidea’, ‘ur-korrontea’ Otsagabian. Agezako Txurruta aipatu adiera horiekin lotu behar da, jatorriz iturri eta erreka izena bide zelako, gero hizkera den hedatzearen ondorioz inguruko lurrak ere izendatzera igaro delarik<sup>879</sup>:

---

Oloibarren Txipudi [čipúdi] dugu Ultzurrunen eta Artetan, eta Lakuntzan ere txipu azaltzen da 1699ko Chipudia (PRA-Etxarri Aranatz, 41. k.) eta 1723ko Chipudia goiena-n (Id., 60. k.). Txipu-k aldamenen txipo aldaera dauka, Agoizko 1765eko Chipoa-n (IEA, 10. zkia., 1097. or.), Irañetako txipoa [čipoa] izen arruntean, eta Iltzereko txipodie toponimoan ikus daitekeenez. Azken aldaera honetaz honela mintzo zaigu J. P. Duvoisin bere *Laborantzako liburua* ezaguneko “zuhamu motez” atalean: “*Burzuntzari* ematen diote asko izen: *zur-xuria* deitzen dute hainitzek, Probenziarrek (gipuzteak alegia) *makala*, *Nafartarrek txipoa*. Zolagunak ditu lakhet. Nahiz beratza den, burzuntzak badu on handia, zeren lanik eman gabe laster heldu baita”, Euskal Editoreen Elkarte, 1986, 168. or. Azpimarra gurea da.

873 PRA-Kaseda, 26. k.

874 Id., 8. k.

875 Erdaraz “val” deituko genukeena, alegia.

876 PRA-Kaseda, 16. k.

877 VN.

878 Churrutagaña dugu herri honetan 1765ean (IEA, 10. zkia., 1098. or.), eta Churuta aldea (Txurrutaldea, alegia) ondoan dagoen Meotzen 1591n (PRA-Urrotz, 3. k.). Agoiztik hurbil dagoen Lizoainbarko Janaritzen ere Churruta agertzen da 1765ean (IEA, 10. zkia., 1056-1060. orr.).

879 Honekin lotu behar ditugu Orba-Makirriaingo Txorrota: “ytten otra huerta...en la parte llamada Chorrotta que afronta con huerta del dcho Palacio y con regacho que vaja de dho termino” (PRA-San Martín, 45. k., 1759), Murillo el Frutoko La Chorrotta (PRA-Kaparrosa, 64. k., 1652), Iruñerriko zendeetako Txorroka, Txorrokoa, Txurroka eta Zorrota...(ikus Jimeno Jurioen lanak), Arangurengo Txurruta (iturri eta erreka Zolian, iturri eta dermioa Gongoran), Oloibarko Zorroka [θořoka] (Olló eta Ultzurrunen), Arakilgo Txarruka (Zuhatzu, Ihabar eta Hiriberrin), eta Imozko Txorroka (Latasan), besteak beste.



“Mas otra (pieza) en el termino de Churruta, tenente...a...Camino que ba a Caseda” (1806)<sup>880</sup>

**Barranco de Txurruta** [čuřúta] **Lausitu**-ko **Fuente de Txurruta**-n sortu-takoan **Zare**ko mugaren paretik jaisten da, **Ageza** barrutik, eta **Camino Real de Tafalla**-ren alboan **Zare** eta **Agezaren** arteko mugatik heldu den **Barranco de Lausitu**-rekin bat egiten du.

**Fuente de la Txurruta** ur anitzeko iturria da, gure informatzaileak dioenez, hainbesteraino non, idorte urteetan, agezarrek bertara jotzen baitute ur bila (ikus **Lausitu** sarrean esan duguna).

**Txurruta**-k **Errekandia**, **Lausitu**, **Zare**, **Merkatu**, **Calvo** eta **Mendi**-rekin mugatzen du.

**Udareaga** (barranco de):

**Udare** ‘udareondo’ izena eta **-aga** ditugu hemen:

“otra pieza debajo de Mendia o udareaga” (1774)<sup>881</sup>

Garbi dago udareak ugariak izan direla gure eskualdean eta inguruetan: **Udareaga** dugu **Lerga**, **Oleta**<sup>882</sup> eta **Uxuen**; **Udareeztia** eta **Udareeztiaga** **Morionesen**, eta **Udareluzea**, **Udareluzekoa**, **Udareluzeta** eta **Udarelurreta** **Lergan**.

**Barranco de Udareaga Errekandia** eta **Barranco de Parrala**-ren batzearen ondorena da. Agezako lurak gurutzatu ondoan Galipentzuz sartzen da, **Barranco de Bartasteka** izena hartuz. Herri honetan **El Riacho** deitu errekan isurtzen du ura:

“ytten sea vedado el barranco de Parrala y udareaga” (1608)<sup>883</sup>

**Egungo Oradiaga** [orađjága] metatesia nozitutako aldakia 1829 ediren dugu estraineiko aldiz (1894eko katastroan, halaz ere, **Uradiaga** agertzen da):

“otro campo en el termino de oradiaga” (1829)<sup>884</sup>

**Dermio** honek, bere luzean, **Parrala**, **Errekandia**, **Mendi**, **Erresoreta**, **Eunzaberri**, **Nobeleta** eta **Llano de San Miguel**-ekin mugatzen du.

**Udareagapausua**:

**Udareagapausua** orain ezezaguna da, eta honen ordaina izan litekeen **\*Paso de Udareaga** ere ez da erabiltzen. Hala guztiz, pentsatzekoa da **pausua** **Lerga-Eslabatik**

---

Pedro de Zabalak, gainera, Otsagabikotzat jotzen duen **Txirrista** ‘errekastoa’, eta behenafarrera eta erronkariakotzat hartzen duen **Zurrusta** ‘urjauzia’ biltzen ditu. “Toponimia vasca. Hidrografía (continuación)”, BRSVAP, 1957, 295-312. orr.

880 PRA-Kaseda, 39. k.

881 Id., 26. k.

882 PRA-Oibar, 2. k., 1535.

883 Id., 13. k.

884 Id., 111. k.

Zangoza aldera doan errege bideak eta Barranco de Udareaga-k elkar gurutzatzen duten puntuan zegoela:

“otra pieza en udarreagapausua” (1642)<sup>885</sup>

**Usobidea (barranco de):**

Aldaera batutzat **Usobidea** aukeratu dugu, gaur eguneko **Sobede**a [sóβedéa]-n oinarrituta, baina izen honen -ss- eta -x-dun aldaerek garbi uzten dute, gure ustetan, txistukaria sabaiaurrekoa zela (ikus **Grafia kontuak** atala eta Uxueko **Uxue** sarrera).

Izen honen lehen lekukoa 1536koa da:

“en los temjos de ayessa termjo llamado usuebide”<sup>886</sup>

**Uxue-**, **ussue-** eta **usue-** XVI. mendean zehar eta 1603an aurkitzen ditugu bakarrik; gero hauen aldaerak diren **uxu-**, **usu-**, **uxo-** eta **uso-** azaltzen dira beti:

“una viña en uxue bidea...afrentada con Camino Real” (1547)<sup>887</sup>

“un pedaço...en...Ussue bidea” (1603)<sup>888</sup>

Guztiarekin ere, gaurko aldaki itxuragabetuaren oinarrian dauden **Uxubidea**<sup>889</sup>, **Ussobidea**<sup>890</sup> eta **Usobidea**<sup>891</sup> ere oso goiz agertzen dira (1570, 1586, eta 1588an).

Izen honen bilakaera, itxuren arabera, hau izan zen: **Uxuebidea** > **Uxubidea** (herri-izenaren bukaerako bokalaren ezabaketaz, elkarketan usu agitu ohi denez) > **Uxo-bidea** (herri etimologiaz agian. Aintzat hartu behar da, halaber, euskarazko u bokal belarea gaztelaniazkoa baino irekiagoa dela, eta esan bezala u-ren [u] eta are [o] ebakerak ohizkoak direla Nafarroako zenbait hizkeratan) > **Usobidea** (herri etimologiaz?). Bilakaera honen alde mintzo da 1804eko **Osobidea**<sup>892</sup>, baina ez 1841eko **Zubidea**<sup>893</sup> eta 1844eko **Subidea**<sup>894</sup>.

Nolanahi ere den, garbi dago aztergai dugun toponimoak hasierako bokalaren aferesia jasan zuela (cf. **Sunbel** [súmbél] orain, lehenagoko **Usumbelz**, **Usunbeltz**-etik). Egungo forma 1894eko katastroan ageri da aurrenekoz.

Zalantzarik ez dago **Usobidea** Uxueko bidea zela:

885 Id., 24. k.

886 Id., 2. k.

887 Id., 2. k.

888 Id., 11. k.

889 Id., 2. k-bis.

890 Id., 3. k-bis.

891 Id., 4. k.

892 Id., 89. k.

893 “una viña...en Zuidea...lindante a caminos que dirigen á Gallipienzo y Ujue”, Id., 116. k.

894 Id., 117. k.

“otra viña...en Usobidea que afronta de la parte de abajo con el camino de Uxue” (1776)<sup>895</sup>

Egun, alabaina, Uxuera beste bide batetik joaten da (ikus **Camino de Ujué** eta **Camino de Usobidea** sarrerak).

**Usobidea Camino de Usobidea**-ren inguruko lurak dira; dermioak **Zabala**, **El Saso**, **Ategarate**, **Onbordua**, **Nobeleta** eta **Llano de San Miguel**-ekin mugatzen du. **Barranco de Usobidea** bidearen albotik tarte batez joan ondoren **Barranco de Zabala**-n amaitzen den erreka da.

**Vedado**, el:

**El Boyeral**-en adierakidea da, hots, herrikoazienda larrirentzako (ahuntzak ere sartzen ahal ziren, baina ez bestelakoazienda xeheak) hertsirikako mendi-zatia ematen du aditzera (ikus **Uxue**).

**Viña de las Hoyas**, la:

**El Saso**-n dago, **El Corralico** ondoan. Leku-izen berria da, eta oraingo ardantzea landatzeko egin behar izan zituzten “hoya” edo zuloetan du oinarri.

**Viña grande**, la:

**Usobidea** alderdian dago, bidearen alboan. Lehen ardantzea eta olibadia zen, eta orain alor bilakaturik da (cf. Galipentzuko **Ardantzeandia** toponimoa). Dokumentazioan ikusten den gisan, antzina **Biroeta** desagertutakoaren barruan zegoen (ikus sarrera hau), **Usobidea** eta **Galipentzubidea**-ren erdian:

“una viña...llamada la viña grande en el termino de Berta...afronta con Camino de Galipienzo y camino de uxue” (1788)<sup>896</sup>

**Zabala**:

Aurreneko aldiz 1530ean aurkitu dugu:

“...en el termjo llamado Cabala”<sup>897</sup>

**Zabala** [θabála] herritik hurbil dago, Eslabako bidearen azpian, ardantzeak hasten diren gunean. Izenak berak adierazten duenez, eremu zabal-laua da (cf. **Lergako Zabala** eta **Eslabako Zabalea**, besteak beste).

**Barranco de Zabala** dermio honen ondoko alderdi menditsutik jaisten diren errekaetok sortzen dute, eta **La Presa**-ra iristean **Barranco de la Presa** izena hartzen du, gure eskualdeko eta kanpoko hainbat errekaekin agitzen den moduan dermio batetik beste batera igarotzean izenez aldatzen duelarik.

895 Id., 70. k.

896 Id., 75. k.

897 Id., 2. k-bis.

**Zabala-k** El Coscojar, Santa Marina, Llano de San Miguel, Usobidea eta El Saso-rekin mugatzen du.

**Zabaltza:**

Behin bakarrik dokumentatu dugu, eta egun ez da erabiltzen. Osagaiak **zabala** 'eremu laua', 'alderdi menditsu baten ondoko eremu irekia', eta **-tza** ugari-tasunezko atzizkia dira, eta balioa **Zabala**-rena bera dela dirudi (cf. Eslabako **Zabalzi-gar**). Izendatzen zuen alderdia ere **Zabala**-k izendatzen duena izan daiteke:

"otra pieça en çabalça" (1620)<sup>898</sup>

**Zagalesmendia:**

Toki-izen "bitxi" hau **Cagales mendia** zen 1591n<sup>899</sup> eta **Cagalos mendia** 1657an<sup>900</sup>, eta bigarren osagaia argia den arren, lehena zein den ez dakigu, ez baitugu uste erdarazko **zagal** 'artzaina'-ren plurala denik, toponimo hibridoak urriak ez izanik ere. **Zaga** 'gibela' + (A)l**os**mendia, (A)l**es**media bezala ere interpreta genezake.

**Zazua:**

Erdarazko **El Saso**-ren euskarazko baliokidea da:

"una viña...en el terno del lugar de Ayessa y en el llamado Zacua" (1719)<sup>901</sup>

**Zazugibela:**

**Zazua** 'goi-laurada kaskailutsua' eta **gibela**-z osaturik dago. **El Saso** edo **Zazua**-ko **Camino de Eslaba**-ren ondoko alderdia zen hau:

"una pieça...en el termino de Zazuguibela theniente a...Camino que ban a Eslava" (1732)<sup>902</sup>

**Zazusenbela:**

**Zazu** izen ezagunaz eta zer den ez dakigun **senbela**-z osaturik dago:

"ytten otra pieça en el termino llamado çaçu senbela" (1588)<sup>903</sup>

**Zazusenbelagibel:**

Aurrekoaren atzeko aldea adierazten bide zuen honek:

"ytten otra pieça en...çaçu senbelagive" (1588)<sup>904</sup>

898 Id., 20. k.

899 "una pieça en Cagales mendia", Id., 25. k.

900 "una pieça en Cagalosmendia", Id., 28. k.

901 PRA-Kaseda, 19. k.

902 PRA-Oibar, 43. k.

903 Id., 4. k.

904 Id.

**Ziardoia:**

Behin bakarrik azaltzen da, 1060. urtean<sup>905</sup>, eta **ziaurri**<sup>906</sup> izenaz eta **-duia** (**-doia** garai hartan?) atzizki multzokariaz osaturik dagoela dirudi (cf. Burundako **Ziordia** herri-izena).

---

905 Lacarra, 35. k.

906 Lacoizquetak **ziorria** 'intsusa', 'sabuka' dela dio (DNEP, 101. or.); Azkuek **ziaurre** 'yezgo' aipatzen du (DVEF), eta Mitxelena **zeaurri** 'yezgo' ematen du zaraitzuerarako ("Notas fonológicas sobre el salacenco", PT, 221-234. orr.), **ziaurre** goi-nafarrerako, **ziaurdi** aezkerarako, eta **ziorri** bizkaierarako. Gipuzkeraz **zinurri**, **ziñurri** eta **ziaurri** landare-izenak direla dio (FHV, 97. or.).

Izen honek toponimo asko sortarazi ditu, hauen artean Odieta **Ziaurritz** herri-izena, edo Ollo herriko **Ziaurritea** (PRA-Asiain, 127. k., 1740), **Ziaurritz** (id., 174. k., 1793).



## 9. ALDEKO TOPONIMIA

Aldea (barranco de), (caracierzo del barranco de), (cascajo de), (fuente de), (huertos de), (monte de), (prado de), (puente de), (revuelta de), (sierra de):

Despoblatu hau “Corral del Ginebral” deritzan gortetik hurbil zegoen, **Ginebral** dermioko aldaparen hasieran. Duela urte batzuk arte dorrea aski gora altxatzen zen, baina harria aprobeztatze aldera eraitsi bide zuten. Aldaparen hasieran (edo bukaeran, jakina, nondik begiratzen den) egote horrek **Aldea** [aldéa] izena **aldabea**, **aldapa** eta antzekoen osagarri datekeen **alde** ‘malda’, ‘aldaia’ (ikus Uxueko **Aldailarrea** sarrera)-rekin lotzera garamatza. A. Irigoyenen ustez latineko **\*altana**-tik atera da<sup>907</sup>:

“**Alda**, térm. de Zalla, 1863, “llosa y térm. de Carranza, 1860”, comparable a “**Aldana**, cuesta de Santurce, 1863”, “barrio de Zaramillo (Güeñes)”, este último mostrando la forma sin caída de -n- intervocálica, de dónde procede **aldai** y **alde**, sul. **althe**, formas vascas conocidas, del bajo lat. **\*altana**, existiendo también **aldendu**, ‘separarse’, participio formado con suf. -tu, cuya forma no perdió la -n- por no quedar ésta en posición intervocálica al caer la vocal final como primer miembro derivado....también coexiste la variante **Aldape**, donde el segundo elemento aparece claro como -pe, variante apuesta de **behe** ‘parte baja’....”

Aezkoa-Hiriberrin **Aldaia** dugu 1785ean<sup>908</sup>, eta **Aldea** 1916ko katastroan eta egun ([aldéa] ebakia), eta bailara honetan **zelaia** > **zelea** edo **Donaya** (1916ko katastroa), **Donayaldeco iruzquialdea** (1783)<sup>909</sup> > **Donealdea**-ren antzeko pausoak gertatu direnez gero, **Aldea Aldaia**-tik eratorri behar dela dirudi. Gure eskualdean ez dugu aldakuntza hori aurkitzen, eta ai > e gertatu delako frogarik ez badugu ere, ez dugu dudarik egiten bi izenok zerikusia badutela jatorriaren eta adieraren aldetik<sup>910</sup>.

Nolanahi ere den, garbi dago **Aldea**-ren bukaerako -a artikulua zela: cf. **Aldeko harana**, **Aldeko kaskailua**, **Aldeko mendia**... eta beste. Aurren aldiz 1079an ediren dugu, **Aldea** formapean:

907 “Sobre toponimia de las Encarraciones”, ETTVC, 56-57. orr.

908 PRA-Auritz, 53. k.

909 Id., 51. k.

910 Ikus Uxueko **Aldabea** eta **Aldaidarrea** sarrerak.

“quadam villa que apellatur Aldea villa que vulgariter dicitur Aldea”<sup>911</sup>

Idoateren arabera<sup>912</sup> 1534erako despoblatur zegoen, eta izan ere badirudi hala zela, 1570eko agiri batean hau aurkitu baitugu:

“en los temjos del lugar desolado de aldea temjo llamado aldeco eunzea...affr con...prado del dho lugar desolado de aldea”<sup>913</sup>

**Barranco de Aldea Fuente de Santa Coloma**-n sortu eta Lerga eta Aldearen artean muga egiten duen erreka da, beste modu batera **Barranco de Aldeko harana** itxurapean agertzen den berbera. **Caracierzo del Barranco de Aldea Murugibel** eta errekaen arteko oihezkoa da.

Dokumentazioko **Cascajo de Aldea**-k despoblatur honetako kaskailua adierazten zuen, hots, gure hizkuntzan **Aldeko kaskallua** deitzen zena, oraingo **El Saso de las Ilarrerías** seguruenara:

“yten dos viñas...la una en Zugala y la otra en el Cascajo de Aldea” (1708)<sup>914</sup>

**Fuente de Aldea** aipatu erreka horretan dago, “**Corral de Blanco**” gortearen parean. **Sierra de Aldea** euskaraz **Aldeko mendia** deitzen zena da, alegia, **Aldeko eremu menditsu guztia (Monte de Aldea, San Clemente, El Chaparral...)**. Badakigu, XVIII. mendeko agiri batek erakutsita, alderdi honetako belarra saldu egiten zela:

“habiendose detterminado...rearrendar la yerba de la sierra del termino de aldea con la del Monte de arriba de sttâ coloma...” (1776)<sup>915</sup>

**Monte de Aldea San Clemente** eta **El Ginebral**-en arteko mendia da, eta itxuraz bederen ez da **Aldeko Mendia** edo **Sierra de Aldea**-rekin nahastu behar. **Prado de Aldea** Eslabako errepidearen eta **Saso de Las Ilarrerías**-en artean dago, **El Castellano** eta **Eslabako mugaren** erdian, eta euskarazko **Aldeko euntzea**-ren ordain erdalduna da (ikus sarrera hau).

**Puente de Aldea Biguri**-ko xubingoa da, zenbaitetan **Puentico de Biguri** deitzen den bera:

“una pieza...en el terno de lerga llamado Viguri Junto a la puente de aldea” (1713)<sup>916</sup>

**Revuelta de Aldea** zubi honetatik hurbil dago, **Eslabako errepidean**, **El Llano de Vitoria** eta **El Castellano**-ren artean.

### Aldeko euntzea:

**Aldea herri-izena**, -ko leku-denborazko genitiboa, eta **euntzea** ‘larrea’ ditugu hemen. Oraindik ere bizirik dagoen **Prado de Aldea**-ren baliokide zehatza da:

911 Lacarra, VM, 35. or.

912 “Poblados y despoblados o desolados de Navarra”, PV, 108-109, 1958, 310. or.

913 PRA-Oibar, 2. k-bis.

914 IEA, 1456 kart., 2. zkia., 6. or.

915 PRA-San Martin, 52. k.

916 PRA-Kaseda, 16. k.



“en los temjos del lugar desolado de aldea temjo llamado aldeco eunzea...affr con prado del dho lugar desolado de Aldea” (1570)<sup>917</sup>

#### Aldeko harana (barranco de):

**Aldea, -ko eta harana-z** osatua dago. Aldeko erreka inguruko alderdia zela uste dugu, **Cadenas-tik Santa Coloma-rainoko harana**. XIX. mendean bizirik zegoen:

“una pieza en...Muruguibel...afta...a camino viejo que va á Artealdea y a camino que va a Aldequarana” (1594)<sup>918</sup>

“...y á la muga de la Aldea y Barranco de Aldecorena” (1820)<sup>919</sup>

#### Aldeko kaskailua:

**Aldea, -ko eta kaskailua** ditugu erdarazko **Cascajo de Aldea**-ren euskarazko kidea den honetan:

“otra pieça en aldeco cascallua” (1594)<sup>920</sup>

#### Aldeko mendia, sierra de:

**Sierra de Aldea** sarrera aztertzean esan denez, **Aldeko mendia (Aldea + -ko + mendia ‘zerra’)** **Sierra de Aldea**-ren baliokide euskalduna da. Dugun lekuko bakarrean baliokidetasun hori oso garbi azaltzen da:

“el señorío de Aldea con sus tierras y yerbas y aguas...correspondientes a la sierra llamada Aldeco mendia” (1757)<sup>921</sup>

Seguraski gaurko **Monte edo Montico de Aldea eta Sierra de Aldea edo Aldeko mendia** ezberdinak ziren, lehena txiki samarra den bitartean bigarrenak Aldeko eremu menditsu osoa adierazten zuela irudi baitu.

#### Auzalorra:

**Auzo**-ren elkarketako aldaera den **auza-** eta **alorra** ezagunak ditugu hemen. **Auzalorra** udalerrriaren goiko aldean zegoen, gaurko **El Chaparral** aldean seguruenik, **Eslabako Erbiñagaburua**-ren parean:

“...y digo que los de eslabla llaman a su termino en esta parte orbinaga burua y los de aldea auçalorra” (1648)<sup>922</sup>

Hemen zegoen **Eslaba, Lerga eta Aldearen arteko mugarría, gure ustez Eslaba eta Lergaren arteko fazeriaren azpian:**

917 PRA-Oibar, 2. k-bis.

918 Id., 8. k.

919 PRA-San Martin, 82. k.

920 PRA-Oibar, 8. k.

921 PRA-San Martin, 44. k.

922 PRA-Kaparroso, 43. k.

“en lo alto del monte y cerro que llaman los de lerga<sup>923</sup> orbinagaburua y los de aldea Azalorra...la qual (lehen mugarría) también dibide los terminos de aldea y eslabá” (1648)<sup>924</sup>

**Balsa, hoyo de la:**

**El Hoyo de la Balsa Llano de Vitoria eta Eslabako mugaren arteko zuloa da.**

**Cadenas (caracierzo de), (fuente de), (paso de), (pozo de):**

**Cadenas [kađénaś] Barranco de Aldea-n dago, Monte de Aldea-ren azpiko aldean, “Corral de Blanco”-tik gertu, Sagarraga gainean. Caracierzo de Cadenas Caracierzo del Barranco de Aldea-ren Cadenas aldeko eremua da; Paso de Cadenas Camino de los Huertos de Aldea eta Barranco de Aldea-k elkar gurutzatzen duten gunean dago, eta Pozo de Cadenas errekan dagoen putzu sakona da.**

Izen honen jatorria zein den ez dakigu; agian beste toki batzuetako La Cadena-rekin lotu behar genuke, hau da, herri batetik bestera pasatzeko igaro beharreko katea eta zergarekin<sup>925</sup>. Dokumentazioan ez dugu sekulan aurkitu.

**Calera, la:**

**Artetako Galtzinalabe-ren<sup>926</sup> edo Nafarroako beste toki batzuetako kisulabea-ren<sup>927</sup> ordaina bide da izen hau. Eslaban ere La Calera dugu bizirik orain.**

**Dermio honek Las Ilarrerías, El Castellano eta El Saso-rekin mugatzen du. Biguri-tik jaisten den erreka beste aldean dago, honen eta La Revuelta de Aldea-tik datorren bide baten artean. Aurreneko aldiz 1897ko katastroan ageri da.**

**Camino de los Huertos de Aldea, el:**

**Cadenas-en barrena Aldera doan Camino de Jaun Done Salbatore-ren jarraipena da.**

**Camino del Barranco de Aldea, el:**

**Hoyada de San Clemente-n zehar doan bidea da, alegia, Camino de Jaun Done Salbatore eta Camino de las Huertos de Aldea-ren jarraipena.**

923 Garbi dago notariak huts egin duela, **Erbiñaga**, eta beraz **Erbiñagaburua** ere, Eslabako toponimoa baita, ez Lergakoa, muga egon arren.

924 PRA-Kaparroso, 43. k.

925 Jimeno Jurfok, Beriaingo **La Cadena** toponimoaz ari delarik, honela diosku:

“Aunque el nombre parece aludir al antiguo felato que hubo no lejos del arranque del camino de Garitón, los vecinos llamaban «las Cadenas» a un campo sito entre el desaparecido camino del alto de la Cruz y Gazarripe” (TCPCG, 119. or.)

926 1894eko katastroa.

927 Cf. **Kisulabexarraldea** Abaurregainean eta Orbaran.

**Camino del Monte de Aldea, el:**

**Jaun Done Salbatore, Sagarraga eta Cadenas-en gaindi, Hoyada de San Clemente-ra** doan bidea izan zirekeen, hemendik **Monte de Aldea** hurbil baitago:

“la yerba de muruguibel en el lugar por el camino que ban al monte (?) de aldea y comenzando en el lugar a Sarga” (1545)<sup>928</sup>  
 “...camino del monte de aldea” (1764)<sup>929</sup>

**Campo de los Postes, el:**

Aldean dago, **Llano de Vitoria**-ren azpiko aldean. Toponimo berria da, eta argindarra herri batetik bestera eramateko jarri ziren zutoinei (bost edo sei omen zeuden bertan) zor zaie.

**Castellano, el:**

**El Castellano** toponimo berria da, eta jatorria izen horretako Gaztela aldeko haizean bilatu beharra dago (cf. **gastelaizea** Aezkoan<sup>930</sup>). Dermio hau **Irazar** aurrean dago, **Biguri**-tik jaisten den errekaren eta goian dagoen **Aldeko Prado de Aldea** eta **El Saso Las Ilarrerías**-en artean.

**Cuesta del Alcorce, la:**

Eslabako errepidetik, **Biguri**-tik, **Llano de Vitoria** eta **Ginebral**-era igotzen den lasterbidea da.

**Chaparral, el:**

**El Chaparral La Quemada** azpian dago, **Santa Coloma, San Clemente** eta Eslabako mugaren artean.

**Ginebral, el:**

**Monte de Aldea** eta **El Llano de Vitoria**-ren artean dago. Hasieran aipatu “**El Corral del Ginebral**” gordea alderdi honetan dago.

**Ilarrerías (saso de), las:**

**Egungo Las Ilarrerías** [lašilañerías] beste zerbaiten desitxuratzea dela dirudi, seguru asko euskarazko **ilarra** edo **ilarrea**<sup>931</sup> landare-izena osagai duen toponimo batena, **Reta Janáriz**-ek proposatzen duen moduan<sup>932</sup>. **Prado de Aldea**-ren azpian dago, Eslabako mugaren eta **El Castellano** eta **La Calera**-ren artean.

928 PRA-Oibar, 2. k.

929 PRA-San Martin, 46. k.

930 Azkue, APIM, 288. or.

931 Iribarrenek aipatzen du azken hau, VN-n.

932 EHZE, 493. or. Honela dio autore honek:

“*Ilarrerías*. De un \*«ilarregia», de «ilar» «brezo», suf. abundancial «-egi», y art. «-a», con «-s» romance, es decir, «el brezal». Se ha producido un trueque de «-g-» en «-r-» por influencia progresiva”.

El Saso de las Ilarrerías Prado de Aldea (behialako Aldeko euntzea)-ren azpiko lur kaskailutsuari esaten zaio, eta euskarazko Aldeko kaskailua izan daitekeela uste dugu.

#### **Irazar:**

**Irazar** [iraθá̃r] ez dugu sekulan dokumentatu, eta beste zerbaiten desitxuraketa izan liteke, eskualdeko toponimian aurkitzen dugun \***Irizar** batena adibidez. Dena den, Leatxen lehenagoko **Idozabal** (< **Idoizabal**) batetik atera den **Irozabal** dugu, eta daitekeena da Aldeko izen honen oinarrian ere idoi izatea, \***Idoizar**, alegia. **Ira** edo **Iratze**-rik ez dago, dakigula, alderdi honetan, eta ez dugu uste lehenago ere iratze askorik izan denik, eta beraz ezin dugu, Reta Janárizek egiten duen moduan, toponimoa bide honetatik azaldu<sup>933</sup>.

**Irazar**, El Saso, Barranco de Aldea, Biguri, eta Bideondoa-ren artean dago.

#### **Llano de Vitoria, el:**

El Llano de Vitoria El Ginebral-en azpian dago, Eslabako errepidearen ondoan. Izen honek berri-itxura handia du, baina ez dakigu zeri zor zaion (antroponimo bati?, hiri-izenari?).

#### **San Clemente (ermita de), (hoyada de):**

**San Clemente Santa Coloma, El Chaparral, El Monte de Aldea** eta Eslabako mugaren artean dago; **Hoyada de San Clemente Barranco de Aldea**-ren ondoko zuloa da. Esan zigutenez, bertan ez dago ermita aztarnarik, baina dokumentazioari esker badakigu bat izan zela, erreka ondoan, eta 1775erako hondatua zegoela:

“...terno de Aldea donde dicen Sn Clemente qe afrontta a la Hermita al prntte derruida a barranco concegil y...” (1775)<sup>934</sup>

#### **San Pedro:**

Aldeko eliza saildu honi eskainia zegoen. 1715ean emakume bat ito zen erreka-kako putzu batean eta hemen lurperatu zuten:

“(la enterraron)...en el cementerio de la iglesia rural y titular de san pedro del dicho lugar de aldea”<sup>935</sup>

---

Andian **Ilarral** eta **Ilarregi** ditugu, eta *Erizkizundi Irukoitzea*-ko 384. orrialdean **ilarrerria** izen arrunta biltzen da (cf. **oloerria**, **tipulerria**...).

933 EHZE, 494. or. Honela dio autore honek:

“*Irazar*. De «iratzte» «helecho» (der. de «ira» «helecho»), y tal vez sufijo romance «-ar»”.

Cf., dena den, **iratzte**-ren eratorria bide den Orba ibarreko **Iraxeta** herriaren izena.

934 PRA-San Martin, 52. k.

935 LEA, G. Sarasa, 44. org.

**Santa Coloma (barranco de), (fuente de), (monte de):**

Santa Coloma Lergako Artealdea eta Aldeko bereko **El Chaparral**-en artean dago. Goiko aldetik Lerga eta Eslabaren arteko fazeria izan zen **Monte de arriba**-rekin mugatzen du, eta behetik, Aldeko **San Clemente**-rekin.

**Barranco de Santa Coloma** izen bereko iturrian sortu, eta **Biguri**-ra iritsi aitzinxeago **Barranco de Sagarraga**-rekin elkartzen dena da. "Corral de Blanco"-ren parean dagoen **Fuente de Aldea**-tik **Sagarraga**-ko errekarrekin batu bitarte **Barranco de Aldea** izena hartzen du.

**Santa Coloma** izena beste herri batzuetako **Santa Colomba** bera da.

**Saso, el:**

Lergako mugako goi-lautada kaskailuz betea da. **Biguri**, **Areamendikoa**, **Aldemuga**, **Irazar**, **Aporpari** eta **Lizarduia**-rekin mugatzen du. Honen ordain euskalduna **zazua** da gure eskualdean (cf. **Zazu** Uxuen eta **Eslaban**, **Zazua** Agezan, besteak beste).



## 10. EPAIZKO TOPONIMIA

### Abaitzabal:

Toki-izen honen aldaera batua moldatzerakoan txistukari afrikatua hobetsi dugu, nahiz ez dugun soinu afrikatuaren froga erabatekorik. Dena den, eta Mitxelenaren irakaspenei jarraikiz<sup>936</sup>, tz-z idaztea erabaki dugu.

Izen honek zer alderdi adierazten zuen zehazki ez dakigu, baina garbi dago **Abaiz** edo **Epaiz** herrixkaren ondoko edo Epaizko bertako eremu zabala (**Las Huertas de Abaiz?**) izendatzeko erabiltzen zela:

“una pieça...en...abayzçal” (1605)<sup>937</sup>

### Abaiz (barranco de), (carasol de), (huertas de), (monte de):

**Abaiz** [abá̃iθ] izenaz ikus -as / -az, -ez, -is / -iz, -os / -oz, -us / -uz bukaerei eskaini diegun atalean dioguna.

**Barranco de Abaiz** Lergan **Barranco de Txutxu** deritzanaren jarraipena da. Eslaban beste erreka batzuen ura bildu ondoren Galipentzun sartzen da (**El Riacho** deitzen zaio hemen), eta herri honetan bide luze samarra egindakoan Aragoa ugaldean isurtzen du ura. Eslaban, gure egunotan, **Barranco de Abaiz** esaten zaio, Lergan bezala, baina 1587an **Barranco de Epayzarana** aurkitu dugu (ikus herri honetako **Epaizaran** sarrera):

“...en un puntalejo Junto al baranco que dizen de Abayz en un pradico y Junto al Rio” (1648)<sup>938</sup>

**Carasol de Abaiz** errekaen ondoko eguzkialdea da, Uxue aldera ematen duena. **Huertas de Abaiz** direlakoak ere ubidearen aldamenen daude, **Malliturri** eta

---

936 AV, 30. or. eta FHV, 350-351. orr. Lehen liburuan honela dio:

“cuando las consonantes que quedan en contacto son dos silbantes...en general resulta una africada cuyo punto de articulación coincide con el de la primera silbante”.

937PRA-Oibar, 15. k-bis.

938 PRA-Kaparroso, 43. k. Epaiz eta Eslabaren arteko mugen berrikusketa.

Casa Sierra-ren artean. Monte de Abaiz Uxuerekin mugatzen duen oihezki guztiari deitzen zaio, Mendiandia-tik Eslabako mugaraino.

Arrinzal, el:

Ikus Larrainzar sarrera.

Artola, la:

La Artola [laɾtóla] Carasol de Abaiz-en dago, El Sotico eta Tekerrenke aldean. Oibarribar eta Uxuen ezaguna den artola 'kamila modukoa'-rekin izan dezake zerikusia izen honek, baina ez genuke zeharo baztertu nahi ardi eta ola 'etxola'-z osaturik egon daitekeelakoa<sup>939</sup>.

Burunda, hoyo de:

Burunda [burúnda] Uxueko muga dago, Mendiandia eta La Facería-ren artean.

Izen honen etimologia ez da nahi bezain garbia: Arabako Foronda eta Nafarroako Burunda-rekin erlaziona liteke (cf. Furundarena deitura. Cf., gainera, ferme > berme, eta sudurkari aurreko o > u hersketa) latineko frons, frondis 'follaje'-ren eratorria den fronda 'landaretza ugariko tokia'-ren eratorritako hartuz, baina lekukotasun zaharrik ez izateak seguritatez mintzatzea galerazten digu.

Beste azalbide bat Reta Janárizena izan daiteke: autore honek buru izena eta ondo 'aldamena' posposizioaren "aldaera" omen den onda proposatzen ditu toponimoaren osagaitzat. Bigarren zatiari dagokiona ontzat har daiteke, euskara galdutakoan burutu desitxuraketaren fruitu gisa: cf. Talaionda Eslaban, Atalaiondo-tik, edo Balatuenda Leatxen, Nobeletaiondo-tik, Aldaionda Murillo el Fruton, \*Aldaiondo-tik. Oztoporik handiena lehen osagaiari dagokio, gure alderdian behintzat Muru- azaldu ohi baita hasierako lekunean, ez Buru-, salbuespenak badiren arren (ikus Lergako Muru sarrera).

Hirugarren azalbidea, eta gure irudiz egiantzik handiena duena, dokumentazioko Drinda-rekin lotzen duena da. Izan ere, aurkitu ez dugun \*Drunda aldaera geneukala onartuz gero oso erraza litzateke lehenbizi horzkari-disimilazioz \*Brunda atezatzea, eta hemendik gero bokal anapititiko baten sartzeaz edo herri-etimologiaz (Arabako mugako Burunda-n oinarriturik agian) egungo Burunda. Lergaren mugakidea den Orba ibarreko Oleta herrian Drundagaña dugu 1646. urtean<sup>940</sup>, Drunda 1770ean<sup>941</sup>, La Brunda gaurregun.

Camino de Andiaga, el:

Mendiandia-n barrena Uxueko Andiaga-ra doa.

939 Cf. Artolatx (Artolás bilakaturu egun) Lizasoainen (J. Jurío, TCPCO, 213. or.), Artola, Artolabildua, Artolagoena Ameskoetan (L. Lapuente, TA, 400. or.).

940 PRA-Oibar, 25. k.

941 PRA-San Martin, 49. k.



**Camino de Gallipienzo, el:**

Epaiztik Eslaban gaindi Galipentzura doa.

**Camino de Tafalla, el:**

Galipentzu eta Ageza-Eslabatik Epaiz eta Lergan barna (Txutxu eta San Gines-etik) San Martin eta Tafallara doa (edo zihoan, gaurregun ezabatuxe dago eta).

**Campo de la Fuente, el:**

Casasierra igarota dago, hegoaldera, erreka-ondoan. Izenaren sorrera bertako iturrian bilatu behar da.

**Campo de los Pastores, el:**

Artzainak franko ibiltzen omen ziren hemen barna, eta horregatik sortu omen da toponimo itxuraz berri hau.

**Campo del Batueco, el:**

Casasierra-n dago irudiz berria den hau. Izena bertan dagokeen (ez dakigu baden) ur usaitsuko iturriren bati zorko zaio. **Fuente del Batueco (Iturrusaitu)**-ren modukoak ugariak dira Nafarroan zehar.

**Campo grande, el:**

La Calera azpian dago, **Barranco de Aldea**-ren ondoan. Cf. euskarazko **Alo-rrandia** ugariak.

**Casasierra (paso de):**

Epaizko lurretan, herrixkatik hurbil dagoen gorteari eta inguruko lurrei deitzen zaie **Casasierra** [kaʃaʃjêra]. Pausua gorteari hurren dago, Lergan **Barranco de Txutxu** deitzen den errekan.

**Drinda, cerro de:**

**Drinda** izenaz ikus Agezako **Gindartea** eta Uxueko **Drinda** sarrerak. Mendi hau Uxue eta Epaizen arteko mugan zegoen, eta itxura guztien arabera gaurko (**Hoyo de**) **Burunda**-rekin identifika daiteke (ikus sarrera hau):

“la dha muga catorce caminando siempre endrecho para un Cerro muy alto que le llaman de drinda” (1648)<sup>942</sup>

**Encinal, el:**

**Larrainzar (El Arrinzal)**-en ondoan dago, **Barranco de Casasierra**-z beste aldean. Izena berria dela dirudi, bertan arte anitz izatearen ondorena.

<sup>942</sup> PRA-Kaparroso, 43. k.

**Epaizaran:**

Egungo Paizaran [pa̞iθarán] aurreko Epaizaran-etik atera da. Epaiz eta haran-ez osaturik dago (ikus Eslabako Epaizaran sarrera eta Epaizko bereko Abaiz). Barranco de Txutxu-ren jarraipena den Barranco del Carasol de Abaiz-etik hurbil dago Epaizaran, Eslabako mugan, herri honetako aipatu Epaizaran-en ondo-ondoan.

**Facería, la:**

La Facería Epaiz eta Uxueren arteko fazeria da, larrerako ibiltzen zen elkarrekiko lur-puska alegia. Valdecontienda ere deitu izan zaio (ikus sarrera hau). Gaurrengun zuhaitz eta zuhamuxkaz estalia dago, eta zeharo utzia.

**Facero, el:**

Aurreko bera da:

“assi en el dho monte en el facero que esta billa de Abayz tiene con la billa de Uxue” (1652)<sup>943</sup>

**Larrainzar:**

1593an aurkitu dugu aurren eta atzen aldiz:

“...una pieça en LarrayCar”<sup>944</sup>

Osagaiak larrain eta zahar direla dirudi (cf. Larrainzarra Eslaban), eta Epaizko gaurko El Arrinzal [ela̞rĩnθál] bera delakoan gaude. Azken dermio hau Barranco de Txutxu-ren jarraipena den Barranco de (el Carasol) de Abaiz-en ertzean dago.

**Mendiandia (alto de), (cerro de):**

Mendi izena eta handia izenondoa ditugu hemen, bistan denez. Mendiandia [mẽ̞ndjãndía] Uxue, Lerga eta Epaizen arteko mugako mendia da:

“...caminando para arriba por el Cero de mendiandia...en la cumbre y lo mas alto ala vista de la Yglesia Real de nuestra Señora de Uxue se allo una piedra...la dibision de los terminos de abayz y Lerga y tambien de abayz y Uxue” (1648)<sup>945</sup>

Uxueko aldeari, mendi honen hegoaldeko isuriari, **Andiaga** deritza (ikus sarrera hau)<sup>946</sup>. Malliturri (Uxue eta Lerga), Las Huertas de Abaiz eta Hoya de Burunda (Epaiz)-rekin ere mugatzen du.

943 Id., 45. k.

944 PRA-Oibar, 2. k.

945 PRA-Kaparroso, 43. k. Orain Lergakoa da, Epaizko gainerako lur guztiak bezala.

946 Mendiandia toponimo arrunt samarra da. Gure eskualdearen ondoan, Orba ibarreko Leotz herrian ere azaltzen da (PRA-Oibar, 103. k., 1830): “...en el termino de mendiandia, confinante por la parte de Sabai-za a...”.

**Monte demarcado; Monte marcado, el:**

Edungo **Monte marcado** dokumentazioko “monte demarcado” arruntaren kidea da, eta ‘zuhaitzik ezin motz daitekeen mendia’ adiera du. Izan ere, eta gure informatzaileak dioenez, bertara zuhaitzak moztera sartzea debekatua zeukaten (ikus Uxueko El Vedado sarrera).

**Monte marcado**-ri lehen **Monte de Abaiz** esaten bide zitzaion (ikus **Abaiz** sarreraren dioguna).

**Mosquera, la:**

Lergako gure informatzailearen arabera **mosquera** ‘ardiak edo behiak beroaldietan biltzen diren zuhaitz multzo trinkoa’ da. Izen hau, erakutsian dagoenez, bertan izaten diren euli-pila handiei zor zaie. Euskaraz **abaroa** erabiltzen da Arakil-Uharten ideia bera aditzera emateko<sup>947</sup>; Aezkoan, berriz, **itzalaldea** da aztergai dugun erdarazko izen horren euskarazko baliakidea.

La **Mosquera Caracierzo de Abaiz**-en zati txiki bat da.

**Muga de Eslava, la:**

Eslabarekiko muga osoari deitzen zaio honela, baina bereziki Eslabako errepetetik Aldeko “Corral del Ginebral”-erainoko zatiari.

**Perrería, alto de:**

**Perrería** [p̄er̄er̄ía] **Facería** ondoko elutsa da, **Hoyo de Burunda** eta **Facería** artean dagoena. Beste zerbaiten itxuragaiztotzea dateke, baina ez dakigu sorburua zein den.

**Pikeroaren berroa:**

**Berro** izenaz ikus Uxueko **Berage** eta **Los Berros** sarreretan dioguna.

**Pikeroaren** izenlaguna garrantzizkoa da guretako, genitiboaren singularreko hondarkia -aren dela argi ageri delako. **Pikeroa**-ren esanahiari dagokionez, Uxuen oraindik ere erabiltzen den **piquera** ‘erlategi-zirrikitia’ erdaldunaren euskalduntzea izan zitekeen, edo agian, lehenagoko \***piquero** batena.

Alabaina, Uxuen orain urte gutxi arte “rebaño del pique” izeneko udal-artaldea izan da (ikus herri honetako **Carnicería** sarrera), eta badaiteke Epaizko **Pikeroa** horrelako artalde baten artzaina izatea. Honela balitz, **Pikeroaren berroa** ‘udal-artaldearen artzainaren labakia’, edo ‘udal-artzaina artaldearekin joaten den labakia’ besterik ez litzateke. Etimologia azaltzeko beste bide bat gaztelaniako **piquero** ‘pika(lantza)-dun soldadua’-rekin lotzea da:

“En los terminos y muga de las villas de eslava y Abayz llamados los dchos terminos el de Eslava Caldinaga y el de Abayz piquero aren berroa” (1648)<sup>948</sup>

947 Ikus AV, 36. or., eta Azkueren DVEF.

948 PRA-Kaparroso, 43. k.

**Resiembra, la:**

**Casa Sierra** aldean birrerein zuten alor txiki bat da. Ez omen da dermio izena, alegia, ez dago zeharo finkatua.

**Sierra, la:**

**Oraingo Monte marcado** bera dugu, hau da, Eslaban **Zaldinaga** eta Uxuen **Sarria (de Zaldunaga)** deitzen den bera.

Hemen zegoen Epaiz, Eslaba eta Uxueren arteko muga:

“en lo alto de la sierra de Abayz eslava y uxue se allo un mojon biejo...que hacia la disibission de los terminos de Abayz eslaba y Uxue” (1648)<sup>99</sup>

**Sotico, el:**

El Sotico erreka ondoan dago, **La Artola** eta **Sototxikia**-ren ondoan.

**Sototxikia:**

**Sototxikia** [sótočikía] (cf. euskarazko Puiuko **Sotilua**, Uxueko **Zautelu**, eta erdarazko Epaizko bereko **Sotico** edo Uxueko eta bestetako **Sotillo**) erreka ondoan dago, **El Sotico** eta **Tekerrenke**-ren alboan. **Soto** ‘zaldú’ oso sartua zegoen euskal toponimian, **zaldua** (eta **sautua** edo **xautua**) ere oso bizirik egon arren, eta askotan aurkitzen dugu hor-hemenka. Urrutira joan gabe, hortxe dugu **Lergako Sotoeta**.

**Tekerrenkle:**

**Egungo Tekerrenkle** [tekeřénkle] edo **Tekerrenke** [tekeřénke] beste zerbaiten itxuratxartzea dela uste dugu, agian **erreka** osagarria zuen izen batena, dermio hau errekatik hurbil samar baitago. Azken katastroan **Tequerrende** ageri da, baina hau honelako zerrendetan pilaka biltzen diren desitxuraketetako bat besterik ez dela irudi du.

**Torre, caracierzo de la:**

Epaiz herrixkaren ondoko elutsa da, herriaren eta **Barranco del Molino**-ren artekoa. Ezpelez betea dago.

**Valdecontienda:**

**Facería** edo **facero**-ren adierakidea da (ikus **Lergako** eta Uxueko **Valdecontienda** sarrerak):

“las mugas que dibiden los dhos terminos (Uxuekoa eta Epaizkoa) y tambien las que ay en el termino comun de anbas en los llamado (sic) bal de contienda” (1648)<sup>99</sup>

---

949 Id.

950 Id.

## 11. ESLABAKO TOPONIMIA

**Abadía, casa de la, pieza de la:**

**Casa de la Abadía** izeneko apez-etxea eliza eta pilota-jokuaren ondoan dago, **Barrio de arriba** edo **Irigoiena**-n. Alorra berriz, Galipentzuko mugako **Molino de Unzue** (ikus **Unzue** sarrera) edo **Molino viejo**-ren gibelean zegoen.

**Abadía de Abaiz, piezas de la:**

**Euntzeluzea**-n zeuden alor hauek, **Euntzeluzea**-ko **Aldemuga**-n:

“Mas otra (pieza)...en Aldemuga, ó, Alteluzea afrentta a piezas de la Abadia de Abaiz” (1824)<sup>951</sup>

**Abaiz (barranco de), (paso de):**

**Abaiz** izenaz ikus **-as / -az, -es / -ez, -iz...** atzizkiei eskaini atalean dioguna. **Paso de Abaiz** euskarazko **Abaizko pausua**-ren erdarazko kidea da; **Camino de Abaiz** edo **Abaizbidea**-ren eta **Barranco de Abaizgibel**-en elkargunean dagoen egungo **Paso de Abaizgibel** bera izan zitekeen:

“una pieza...en el passo de abayz” (1657)<sup>952</sup>

**Barranco de Abaiz** Epaiztik **Epaizaran**-a heldu den erreka da.

**Abaizbidea:**

Aipatu dugun **Camino de Abaiz**-en euskal ordaina da:

“otra p<sup>a</sup> en abayz bidea” (1601)<sup>953</sup>

---

951 PRA-San Martin, 84. k.

952 PRA-Oibar, 28. k.

953 Id., 10. k.

**Abaizgibel (barranco de), (paso de):**

García Larragueta *Avayçquivel* biltzen du:

“...item alia peça en Avayçquivel que se afronta a la peça de don Pero / Miguel de Sallinas” (1276)<sup>954</sup>

Guk ordea, **Abaizgibel** (1592) edo **Abayzguibela** (1593) aurkitu dugu beti, gaurko **Abaizibel** [aβaïθiβél] adierazteko, hau da, txistukariaren atzean herskari ahostuna duen aldakia:

“una pieca...en abayzguibel” (1592)<sup>955</sup>

“otra pieça en abayzguibela” (1593)<sup>956</sup>

Toponimo honetan, erakutsian dagoenez, **Abaiz** ‘Epaiz’ herri-izena eta **-gibel** ditugu. Harrigarriena zera da, alderdi hau Eslabatik ikusita **Abaizgibel** despoblatuaren aitzinean dagoela, ez giblean.

**Barranco de Abaizgibel** Lergan **Barranco del Molino** deitzen den erreka da, **Barranco de Lergabidea**-rekin batu ondoren **Barranco de Presaldea** sortzen duena. **Paso de Abaizgibel**-ez ikus **Abaiz** sarreran esandakoa.

**Abaizgibel Aldea**, Lerga eta Epaizko muga dago, eta **Santuzabal**, **Lizardui**, **Uxubidea**, **Euntzeberri**, **Arrizutaga** eta **Presaldea**-rekin mugatzen du.

**Abaizko pausua:**

Esan bezala, **Paso de Abaiz** erdaldunaren euskarazko ordaina da (ikus **Abaiz** sarrera):

“otra pieza en abayzcopausua” (1594)<sup>957</sup>

**Adobería, la:**

**Egungo Subterráneo de Bariain** (ikus sarrera hau) deitu lur-azpiko soto modukoan zegoen Eslabako adobería. Toki hau oso hezea da, eta ura sapaiko harrizko arkuen artean iragazi ondoren, lurrera erori eta hemen baltsatu gabe desagertzen da. Esan denez (ikus Lergako **Adobería** sarrera), larruak lantzeko ubide, iturri edo putzu bat behar zen, eta Eslabako lurrarazpiko honek oso egokia dirudi zeregin horretarako.

**Aitzuloa (barranco de):**

**Haitz** ‘harkaitz’ eta **zuloa** ditugu hemen. Aldaera barutzat **tz**-dun aldakia aukeratu dugun arren, [c] soinuaren adierazle garbia den **ch** bezalako grafemarik ez dugu sekulan aurkitu. 1633an<sup>958</sup>, dena den, **tz**-ren adierazle datekeen **-zc-** multzoa duen **ayzculua** agertzen da.

954 *El Gran Priorado*, 469-470. orr.

955 PRA-Oibar, 6. k.

956 Id., 7. k.

957 Id., 8. k.

958 Id., 33. k.

Erdal azentuaketaren ondorioz jatorrizko **Aitzulua Aitzulua** [ajćúlwa] ahoskatua seguruenik. Cf. aipatu 1633ko **ayzculua** edo 1787ko **ayzulua**<sup>959</sup>) bilakatuko zen, eta hau gero **Aizulba** (cf. Iruñe ondoko **Mutiloa** > **Mutilva**, Eslabako bereko **Bideburua** > **Bideburba** edo **Gezariburua** > **Gezariburba**):

“una p° en el termjo llamado ayzulua” (1576)<sup>960</sup>

“otra pieza...en...aizulba” (1752)<sup>961</sup>

**Aizulba**-tik egungo **Izurba** [iθũřba] aldaeraren aitzindaria den **Yzulba** sortu zen 1780rako:

“otra pieza en yzulba” (1780)<sup>962</sup>

**Izulba** > **Izurba** aldakuntza ohizkotzat jo daiteke, Eslabako bereko eta inguruko herrietakoak aintzat hartzen badira: **Zabalzigar** > **Zabarzigar** Eslaban bertan, **Valmayor** > **Marmayor**, **Valmenor** > **Marmenor** San Martinen, edo **Valcervera** > **Varcevera** Oibarren.

Zubitzan Jimeno Juríok dokumentazioko **Ayçulua** (1598), **Aizçulua** (1601), eta **Aichulua** (1691)-ren ondorengoa den **Atxulba** [aćúlba] bildu du<sup>963</sup>. Autore honen arabera, **Aitzulua** harpe edo hartzulo artifiziola da:

“En la roca se abre la «Cueva» o «Casa Aculba», concavidad artificial, al parecer, de unos 2’50 ms. de fondo. Se asciende por una corta senda entre encinas. Sirvió de refugio a labradores y pastores. Está frente a Tiebas y a la «Cueva la Lecea» (sic) de Aláiz”

Gure informatzaileek diotenez, **Aitzulua**-n ez dago harperik, eta etimologia gardena bada ere, ez du euskarririk errealitatean. Dermioko erreka oso sakona da, eta ez dakigu honek hein batez behintzat ez ote duen izena justifikatzen.

Reta Janárizek oraingo forma desitxuratu hutsean oinarrituz (arrisku handiz beraz), leku-izen honen etimologia egiten saiatzen da, eta esperatzekoa zen bezala ondorio okerrak ateratzen ditu: autore honen arabera izura ‘izaia’, eta **-be**, **-pe** ‘behe’-ren aldaera omen den **-ba** dira toponimoaren bi osagaiak.

Masu Nittak ere egungo forma besterik ez bide du ezagutzen, eta Retak bezala ondorio faltsuak ateratzen ditu. Honela diosku autore honek<sup>964</sup>:

“Según creo, este toponimo debe de consistir en el vasc. ISURI, ISURKI, ‘vertiente’ y BE(H)E ‘suelo, parte inferior’ con art. -A. Compárese con *Ichuribebere* (Michelena, *Apellidos*, n° 341)”

959 Id., 75. k.

960 Id., 2. k-bis.

961 Id., 57. k.

962 PRA-Kaseda, 30. k.

963 TCPCG, 377. or.

964 *Notas lingüísticas sobre vasquismos léxicos y topónimos de la zona de Eslava*, Nafarroako Foru Aldundia, Burlata, 1980, 19-20. orr.

**Barranco de Aitzuloa egungo Barranco de Zabalzigar-en hasiera zen:**

“ytten...En el camino en la endręera llamada sabalcigar...asta el barranco de ayzculoa” (1587)<sup>965</sup>

**Aitzuloa Tastaran, Larrasoil, Zabalea, Zabalzigar eta Juandelusaiets-en artean dago.**

**Alburruxina:**

1591n ediren dugu aurren eta azken aldiz, eta ez dakigu ez zer izan daitekeen, ez eta non zegoen ere. Badirudi **Algunjina** itxuraz agertzen den izen bera dela:

“otra pieęa en...alburruxina” (1591)<sup>966</sup>

**Aldea (junto al prado de):**

Aldea despoblatur Lerga eta Eslabaren artean dago, azpiko aldetik (ia) Epai-zeraino iristen dela, eta beraz ez da harritzeko Eslaban ere, Lergan ezezik, Aldea osagarria duten toki-izenak ediretea. Hauen artean, **Aldeko Prado de Aldea** edo **Aldeko euntzea**-rekin mugatzen zuen **Junto al Prado de Aldea** dermioa dugu **Lergabidea** eta **Euntzeluzea** aldean, eta **Aldearekiko** mugalde osoa aditzera ematen duen **Aldemuga** edo **Aldeko muga**:

“otra pieza en el termino llamado Junto al prado de aldea” (1633)<sup>967</sup>

**Aldeko muga:**

Beste batzuetako **Aldemuga**-ren adierakidea da:

“otra pi<sup>a</sup> en la endrecera llamada erbiņaga u aldecomuga que affrenta con el tero de aldea” (1593)<sup>968</sup>

Lekuko honek erakusten duen moduan, **Aldeko muga**-k despoblatuarekiko mugalde guztia hartzen zuen, **Aldeko euntze-tik Erbiņaga**-raino.

**Aldemuga:**

**Aldea** herri-izena eta **muga** izen arrunta ditugu hemen. 1632an **Aldeamuga** agertzen da<sup>969</sup>, baina garbi dago, Eslaba eta Lergako gainontzeko lekukotasunak ikusita, **Aldea** izenaren azken -a hori artikulua zela (ikus **Aldeko Aldea** sarrera):

“otra pi<sup>a</sup> en...aldemuga...que affrenta con el camino que ban a Lerga y con el mojon de aldea” (1602)<sup>970</sup>

---

965 PRA-Oibar, 3. k-bis.

966 Id., 5. k.

967 Id., 23. k.

968 Id., 7. k.

969 Id.

970 Id., 10. k.



**Algunjina:**

Hiru modu ezberdinetara aurkitu dugu izen hau (lauetara aipatu **Alburuxina** kontuan hartzen bada), eta nabartasun honek zail egiten du aldaera batua auke-ratzea. Badakigu alderdi honetan lihatzeak zeudela:

“otro linar en algunjina” (1589)<sup>971</sup>

1593an eta 1594ean tarteko sudurkaririk ez duten aldaerak edireten ditugu:

“ytten otra pi<sup>a</sup> en...algogina” (1593)<sup>972</sup>

“otra pi<sup>a</sup> en...alguJina...que afrenta con cequia Regadera” (1594)<sup>973</sup>

Baliteke izen honen jatorrian ligu ‘liho’ eta osuina (\*usuina?) ‘putzua’ (cf. Eslabako bereko **Lixuñeta** eta Zareko **Ligusuñeta**) izatea, lihoa garbitzeko ura ezinbestekoa zenez gero, **Ligubutzueta**-ren tankerako toponimoak ugariak baitira Nafarroako herrietan. Lehen elementua **harri**-ren elkarketako aldaera ohi den **har**-en desitxuraketa arintzat har daitekeen **al**- izan liteke (cf. **Alberróa** Abaurrepean orain, **Arberroa** 1916ko katastroan eta 1781ean<sup>974</sup>).

**Alto, el:**

Herri ondoan dagoen gaina da berez **El Alto**, baina honen inguruko lurra-  
ere halakotzat hartuak dira. **Atalaiondo**a (ikus hau aztertzean dioguna), **La Revuelta**,  
eta **Bidezaret**a-rekin mugatzen du.

**Alto de Jandua, el:**

Orain **Alto de Janduba** [xaɾdúba] deritzan gaina herri ondoan dago, **Zabal-**  
**zigar**-ko muga. **Janduba** bertan lur zerbait (zortzi-hamar erreguneurri) zuen Eslabako  
etxe baten izena da, eta ez du zerikusirik **Reta Janárizek** proposatzen duen **Jaun + an-**  
**dua** ‘mahatsondoa’ + **ba** ‘behe’-rekin<sup>975</sup>.

**Janduba** lehengo **Jandua** deituratik atera da (cf. **Aitzuloa** > **Izurba** Es-  
laban, edo **Andua** > **Anduba** Lergan. Ikus **Camino de Bidezarra** sarrera), eta hau bere  
aldetik **Sandua**-ren aldaki bustia (bustidura arrunta da izengoitietan, jakina denez) den  
**Xandua**-tik (cf. **Xurio** > **Jurío**, **Xubiri** > **Jubiri**<sup>976</sup> edo **Xabat** > **Jabat**<sup>977</sup>). **Sandua** edo  
**Jandua** **Urraulgoitiko** etxe baten izena zen 1785 inguruan, **Jimeno Jurío** ikerlariak dioe-  
nez<sup>978</sup>.

971 Id., 49. k.

972 Id., 7. k-bis.

973 Id., 8. k.

974 PRA-Auritz, 49. k. Mitxelena (AV, 56. or.) **al**-disimilazioz atera dela dio **Alkorta** eta **Alberro**-ren gisa-  
ko izenetan, baina **Abaurrepeko** dokumentazioa aztertuta garbi ikusten da mende honen hasiera arte ar-  
dun aldaera izan dela forma bakarra, eta beraz susmagarria da, euskara ahuldu eta eritu ahala, disimilazioa  
gertatzea.

975 EHZE, 483. or.

976 Cf. **Jubiriko** borda Garraldan.

977 Aezkoako Orbara herrian **Xabatenbelon** izena dugu orain, **Sabatenvelauna** 1916ko katastroan, eta **Casa**  
**de Jabat** 1781az geroztik (PRA-Auritz, 49. k.). Ezkarozen **Xandua** ([sandua] seguru asko) dugu 1654ean  
(PRA-Otsagabia, 3. k.): “pieza en Mandruñe, en el bordal que llaman Xandua”.

978 “El Vasconce en Urraul alto”, FLV, 58, 1991, 227-245. orr.

**Alto grande, el:**

**Zaldinaga-n dago orain lerrez estalita dagoen gain hau, Epaizaran-eko mugan.**

**Amikarren (balsa del monte de), (balsas del monte de), (cantera de), (fuente de), (monte de):**

Leku-izen honen sorburua, 1637ko lekukoa aintzakotzat hartzen bada, **ha-maikagarren** ordinalean bilatu behar dela irudi du. *Ei > i* laburketa *ai > i* baino gertaerazagoa dela kontuan edukirik<sup>979</sup>, **Amikarren hameikagarren** batetik atera dela pentsatu behar genuke:

“otra pieza en amicagarren” (1637)<sup>980</sup>

Etimologia honek, halaz guztiz, baditu bi arazo: lehena dokumentatzen den lehen aldaera **amicagarren** gabe **amicarren** edo **amicarrena** dela, eta bigarrena **ha-maikagarren** bezalako ordinal bat zeri dagokiokeen ez dakigula:

“una p<sup>a</sup> de pan llebar en...amicarren” (1565)<sup>981</sup>

“otra pieza en...amicarrena” (1593)<sup>982</sup>

Uxuen **Los Cuatro Cuartos** dugu (ikus sarrera hau), baina kasu honetan ordinal baten ordezkio bat dugula garbi dago. Eslabako izenaren kasuan ere **Amicarena** dugu 1647an<sup>983</sup>, baina hau, geroko eta lehenagoko lekuko guztiak ikusita, **Amikarrena** besterik ezin daitekeela izan segurua da. Dokumentazioan, gainera, *r / rr* nahasketa ohizkoa da.

**Amikarren** [ámikâen] Loiako muga aldean dago, baina ez da auzo herriko lurretara iristen, tartean **Larrasoil** eta **Azterain** sartzen dira eta:

“subiendo desde el mojon antezedente (Artetako mugan) en drechura a la Cantera de Amicarren...hazia Loja, sirbe de dibision de dho therno de Eslaba y fazeria de esta villa, y Loya” (1776)

**Amikarren-ek Zabalea, Sagarraga, Arangaitz** eta **La Virgen-ekin** mugatzen du, **Larrasoil** eta **Azterain-ekin** ezeze.

Lehen bi idoi zeuden bertan, baina orain **Fuente de Amikarren-en** ura bilatzen duen idoi bakarra dago. Iturri hau 1593rako agertzen den bera dela dirudi<sup>984</sup>.

**Apeztegiabaratzea:**

**Apeztegi** ‘apezetxe’ eta **baratzea** ditugu hemen (cf. Uxue eta Galipentzuko **Apeztegi**alorra):

979 FHV, 104. or. Cf. adibidez **Argeinzokoa** edo **Arginzokoa** Aezkoa-Hiriberrin, aurreko \***Argainzokoa** batetik.

980 PRA-Oibar, 23. k.

981 Id., 2. k-bis.

982 Id., 7. k.

983 Id., 25. k. Ikus Zareko **Ameka** sarreraren dioguna.

984 Id., 7. k.

“otro linar...en la endreçera llamada en apeztegui baracea” (1589)<sup>985</sup>

Ikusten den moduan, **Apeztegiabaratzea**-n lihatze bat bazen gutxienez, eta egungo **Huerto del Cura Los Linares**-en dagoenez gero, ez dago arazorik bat-bertzat hartzeko.

#### **Aramendia:**

**Haran**-en elkarketako aldakia den **ara-** eta **mendia-**z osatuta dagoela ematen du, baina behin bakarrik dokumentatzen da, eta **Aranandia** edo **Arranomendia** (cf. azken honen aldaera den 1712ko **Arnamendia**)-ren itxuratxartzea dela uste dugu:

“una carga de tierra en Aramendia” (1781)<sup>986</sup>

#### **Aranandia (barranco de), (monte de), (portillada de):**

**Haran** izena eta **handia** izenondoa ditugu hemen. Oraingo **Barranco de Elkea**-ren (**Barranco de Aranandia** lehen) inguruko harana zen, **Erbifiaga** eta **Larra-soil**-en artekoa (cf. beheitiago dagoen **Arangaitz**):

“otra pieza en la portillada de aranandia” (1645)<sup>987</sup>

“senda que ban desde la fuente de erbiñaga al monte y parte llamada aran andia” (1658)<sup>988</sup>

**Zalduako haran handia** ere deitu izan zaio haran honi (ikus **Zaldua** eta **Zalduako haran handia** sarrerak).

#### **Arangaitz (barranco de), (paso de), (saleras de), (salares de):**

**Haran** izena eta **gaitz** ‘zaila’, ‘gaiztoa’, ‘oso handia’ izenondoa ditugu hemen. **Arangaitz** [arangaíθ] **Barranco de la Virgen** izeneko erreka-errekaren jarraipena den **Barranco de Arangaitz**-en inguruan dago, errekek zulatu duen haran sakon-zabalean, ubideak ur handirik ekartzen ez badu ere. Artikuluaz horniturik ere ediren dugu dokumentazioan:

“la una (pieza)...en el termino de Arangaiza” (1727)<sup>989</sup>

Orain **La Virgen**, **El Chaparro**, **Iguzkun** (errekaz beste aldean dago), **Zubialdea**, **Los Linares**, **Sagarraga** eta **Amikarren**-ekin mugatzen du, baina antzina **El Chaparro** edo **Txaparra Arangaitz**-en barrukotzat hartzen zela kontu egin daiteke (cf. **Arangaizko Txaparrondo**)

**Paso de Arangaitz Camino de los Linares**-en dago, **Barranco de Arangaitz**-ekiko elkargunean. **Saleras** edo **salares de Arangaitz** deizioa galdua da, baina artzainek ardiei gatza emateko erabili harriak oraindik ere bertan daude, errekatik hurbil:

985 Id., 4. k.

986 PRA-San Martin, 55. k.

987 PRA-Oibar, 25. k.

988 Id., 28. k.

989 Id., 40. k.

“començando desde çubialdea asta los salares de arangayz” (1587)<sup>990</sup>

Hemen zegoen, gure informatzailearen ustetan, **Arangaitz herria**.

#### Arangaizko txaparrondoa:

**Arangaitz** toki-izena eta **txaparrondoa** dira honen bi osagaiak. **Txaparrondoa** ‘txaparra’ izan daiteke, alegia, **txapar** zuhaitz-izena gehi ‘zuhaitz’ adiera duen ondo morfema, baina badaiteke, orobat, **-ondo** hori ‘alboa’ esanahia duen posposizioa izatea, bereziki ondo lehen adiera horrekin gure eskualdean sekulan aurkitu ez dugulako (cf. **Txaparra** Eslaban, **Txaparrarana**, **Txaparbazterra** eta **Txaparburua** Morionesen). Horrela bada, **Txaparrondoa** **Txaparra** edo **El Chaparro**-ren alboko eremua dateke:

“ytten otra piª en arangayzCochaparondoa” (1593)<sup>991</sup>

#### Ardil (monte), (pinar de), el:

Egungo **El Ardil** [elārdíl] edo **Monte Ardil** ez dugu sekulan agirietan ediren. Eslaba udalerriaren goiko puntan dago, Lerga, Oleta eta Julioko mugetan.

Masu Nittak<sup>992</sup> **ilar**, **illar** ‘txilar’ izena, **-doi**, **-dui** atzizki multzokariaren aldaera den **-di**, eta **-il** atzizkia ditugula uste du. Hona hemen bere hitzak:

“El **Ardil** (Eslava). Explicado como del vasc. ARDI ‘oveja’ y suf. rom. *-il*. Se trata, en realidad, de un orónimo que oigo pronunciar regularmente a los naturales de la zona en cuestión en esta forma: *Lardil*, en la que según creo, cabe reconocer el vasc. IL(H)AR, ILLAR, ‘brezo’ (Para la áferesis vocálica, cfr. Reta, 509<sup>993</sup>) y *-DI* ‘suf. derivativo que denota abundancia’, variante de *-DOI*, *-DUI*..., más suf. *-IL*... (Para este último, comp. *Lizardil*, topónimo menor también de Eslava). Compárese con *Lardia*, términos respectivos de Sánsoain y Garinoain (Cruchaga, *Valdorba*, 26 y 49), *Lardi*, caserío de Lizarza (Guipúzcoa), *Lardia*, término de Subiza (Navarra), etc. (Eleizalde, *Listas*, RIEV, 22, 1931, 299).

Respecto a la forma *El Ardil*, se explica por deglutinación de un supuesto artículo románico: *Lardil* > *L' ardil* > *El ardil*. Cfr. *El Arrinzal*<sup>994</sup>”

**Ilar** edo **illar** oso arrunta da Nafarroako toponimian, eta alde honetatik ez dago Masu Nittaren proposamena onartzeko oztopo gehiegi (ikus Aldeko Saso de las Ilarrerías aztertzean dioguna). Dena den, Eslaban bertan **Larduia** dugu 1692an, eta aldi bakar batez agertzen bada ere, lahar ‘sasia’<sup>995</sup> eta **-duia**-z osaturik dagoela irudi du. Hemen aferesia burutu dela pentsa ere dezakegu, hots, hasierako bokala galdu dela, baina Uxueko **Larziaga** ongi dokumentatua dago, eta 1602az geroztik beti forma beraz edireten dugu (ikus sarrera hau). Hirugarren posibilitatea **\*Ardui** bezalako izen batez

990 Id., 3. k-bis.

991 Id., 7. k.

992 *Notas lingüísticas*, 18. or.

993 EHZE.

994 Ikus Epaizko Larraizar sarrera.

995 Jakina denez, laharrek eta sasiak ez dira zeharo berdinak, lehenek marzuzak ematen baitituzte, eta bigarrenek ez.

pentsatzea litzateke (cf. Ardui gaina Uxuen), baina kasu honetan hasierako artikulua erromantzearen presentzia azaltzea zailago litzateke, nahiz ez ezinezkoa.

Oinarria edozein delarik ere, atzizkiaren formari dagokionean Masu Nitta oker dagoela uste dugu, eta Eslaban eta inguruetan nagusi den -dui proposatu behar dela, ez -di, aldaera hau ez baita inguruko herrietan azaltzen<sup>996</sup>: cf. Eslabako bereko Lizardui izena Lizardil [liθārdíl] bilakatua egun (ikus sarrera hau) edo Lezkadui(a), Lezcaduil 1791n.

#### Areatzea:

**Harea**<sup>997</sup> 'legarra' eta -tzea ugaritasunezko atzizkia ditugu hemen. Erreka baten ondoan behar zuen, baina ez dakigu non. **El Arrenal**, **Los Arenales** erdaldunaren ordaina den hau oso arrunta da toponimian: gure alderdian **Areatzea** eta **Los Arenales** ditugu Lergan (Eslabako mugan bertan), **Areatzea** Eslaba eta Ezporogin, eta **Areatzeta** Uxuen.

Baliteke Lergako (Eslabako mugako) gaurregungo **Los Arenales** bera izatea:

"...compraron dos robadas en la misma pieza de areacea..." (1756)<sup>998</sup>

#### Ariztaga:

Honen lehen lekukoa (**Aristaga**, 1647<sup>999</sup>) ikusita, **haritz** + **-aga**-z osaturik dagoela kontu egin daiteke, **Ariztaga** interbersioz sortu ahal izan delako (cf. **Aitzondo** > **Aiztondo** arrunta). Guztiarekin ere, XVIII. mendeko aldaera gehienek **-rr-** daukate (**Arristaga**<sup>1000</sup>, **Arrestaga**<sup>1001</sup> 1718an, **Arrasttiaga** 1765ean<sup>1002</sup>, baina **Arasttraga** 1764ean), egungo **Arrastraga**-k [ãraštãga] bezalaxe, eta honek proposatu etimologia hori zalantzakotzat jotzera garamatza.

Gainera, XVI. mendean **Arrizutaga** aurkitzen dugu, eta aipatu XVIII. mendeko **Arristaga**, **Arrestaga** horiek lehenagoko **Arrizutaga**-ren aldaki itxuragaiztotuak besterik ez direla irudi luke, azken izen hau 1647az gero berriz agertzen ez denez (ikus **Arrizutaga**).

1647ko **Aristaga**, beraz, **Arrizutaga**-tik ateratako **Arriztaga** [ãristãga] seguruenera, azentuaren aurreko bokalaren galeraz) litzateke.

996 Oibar haraneko Bizkaian bai ordea. Ikus gure DAON.

997 Azkuek **Hare**, **are**, eta **hariñ** biltzen ditu, eta Mitxelena (AV, 52. or.) **hare(a)**. Azken autore honek OEH-n **hare(a)** ematen du berriz, eta honela esaten: "Parece que (*b*)*area* conserva su *-a* final en zonas vizcaínas y alto-navarras (cf. LE), con inclusión de Aezcoa y Salazar". Ibon Sarasolak **harea** biltzen du HLEH-n, eta Nafarroako toponimian **area-** azaldu ohi da.

998 PRA-San Martín, 43. k.

999 PRA-Oibar, 25. k.

1000 PRA-Kaseda, 18. k.

1001 Id.

1002 PRA-Oibar, 62. k.

**Arranomendia:**

**Arrano** hegazti-izena eta **mendia** ditugu Uxue, Pitillas<sup>1003</sup>, Kaseda<sup>1004</sup>, San Martin<sup>1005</sup>...eta abarretako **Aguilar**-en, eta Agezako **Aguilar**-en (cf. Uxueko **Aguilar** ondoko **Akirazabal** eta Galipentzuko **Bartaquilar**) adiera duen honetan. **Arranomendia**-ren antzekoak dira beste toki batzuetako **Arranotegi** edo **Arranoarria**-ren<sup>1006</sup> modukoak:

“otra piª en arranomendia” (1615)<sup>1007</sup>

Izen honen aldaki desitxuratu bar baino gehiago aurkitu dugu: **Arranomendia** (1691n<sup>1008</sup> eta 1717an<sup>1009</sup>), **Arremendia** (1699an<sup>1010</sup>), eta **Arnamendia** (1712an<sup>1011</sup>).

**Arranomendiondoa:**

Aurrekoaren alboko alderdia adierazten zuen:

“otra pieza en arrano mendia ondoª” (1637)<sup>1012</sup>

**Arriukuruetak:**

**Harri**, **mukuru** ‘mordo’, ‘pila’ eta **-eta** ditugu hemen (cf. Galipentzuko **Pedrocal** toki-izena eta **pedregal** izen arrunta). **Mukuru**-ri dagokionez<sup>1013</sup>, latineko **cumulu**-tik atera da, tarteko **\*kumuru** baten bidez<sup>1014</sup>:

“una biña en ArimuCurueta” (1612)<sup>1015</sup>

1003 PRA-Kaseda, 53. k., 1832.

1004 Id., 12. k., 1705.

1005 PRA-Oibar, 14. k., 1611.

1006 R. Ciérbide, ICT-II, 126. or.

1007 PRA-Oibar, 20. k.

1008 PRA-Kaseda, 6. k.

1009 Id., 18. k.

1010 Id., 9. k.

1011 Id., 16. k.

1012 PRA-Oibar, 23. k.

1013 FHV, 331. or., eta AV, 130. or.

1014 Iruñerrian **Arri muscullua** dugu **Arlegin** eta **Musculoetan** **Espartzan** (J. Jurío, TCPCG, 35 eta 179. orr.), **Armucullueta** eta **Arri muscullucua** **Azterainen**, **Muscullu ondoª** **Muru-Azterainen** (J. Jurío, TCPCC, 58-59 eta 365. orr.)...eta abar. **Arakil-Uharten** **Armokilloa** izena dugu, eta honekin batera **Arboton** bat baino gehiago aurkitzen dugu antzeko adieraz (hauek, halaz ere, haitzak izan daitezke). **Beuntzan** **Muskilleta** dugu, eta **Garaioan** **Arriuruskualdea**. **Artaxon** **Eslabakoaren** **berdina** den **Armicurueta** agertzen da 1594ean (PRA-Urrotz, 4. k-bis), eta **Ameskoetan** aipatu **Arboton**-en **ahaide** **hurbila** **dirudien** **Arrimotto** **macurra** dokumentarzen da 1666an (J. M. Sarrústegui, EETE, 109. or.). **Honen** **izen** **zaharra**, **dena** **den**, **Larramendico** **arria** **zen**, eta **beraz** **mottoa**-k **ale** **bakarra** (**harri** **bakarra**, **alegia**) **adierazten** **duela** **dirudi**. **Ikus**, **hala** **ere**, **Corominasek** **DCECH**-ko **muga** **sarreran** **dioena**.

1015 PRA-Oibar, 17. k.

**Arrizabalagaña:**

Hemen **harri** izena, **zabala** izenondoa, eta **gaina** posposizioa ditugu, edo nahiago bada, **Arrizabala** toponimoa eta **gaina** posposizioa. Dena den, badaiteke honen azpian dokumentatu ez dugun \***Arrizabalagagaña** egotea eta **Arrizabalagaña** haplologiaz atera izana (cf. **Aricutagagaña** 1593an, **Arriçutagaña** 1614ean), bestela seguraski \***Arrizabalagaña** izanen bait genuke, baina, dena den, ez dugu honen frogarik.

XVI. mendean oso-osorik edireten dugu:

“una pieça...en la endreçera llamada arricabala gaña” (1584)<sup>1016</sup>

1683an aldiz **ar-** dugu **arri-**ren ordez:

“otra pieza en arzabalagaña”<sup>1017</sup>

Eta hurrengo mendean artikulurik gabe agertzen da:

“una pieza...en el q lllaman Arzabalagain” (1756)<sup>1018</sup>

**Arrizertangorte:**

Hasierako **harrize-** hori **harritze** ‘hardia’ izan daiteke, eta bukaerako **-gorte** ‘korrale’ adiera duen izena, baina toponimoa bere osotasunean hartua ez da gardena:

“otra pieça en arricertangorte”<sup>1019</sup>

Nolanahi ere, badirudi **Sortengoeuntzeta**, **Sortengortea** eta **Sortengorteta**-rekin (**cortengorteta** 1612an) zerikusia duela, alegia, izen bera izan daitekeela (ikus sarrera horiek).

**Arrizutaga:**

**Harri** izena, **zut(a)** izenondoa, eta **-aga** leku-atzizkia ditugu hemen:

“...otra pieça...en la endreçera llamada arriçutaga” (1587)<sup>1020</sup>

Gaurregun, ordea, alderdi honetan ez omen dago horrelako harri edo haitz zutik. Esan bezala (ikus **Ariztaga** sarrera), XVIII. menderako **Arastraga** (1764)<sup>1021</sup> edo **Arrastiaga** (1765)<sup>1022</sup> bilakatu zen, eta gaurregun **Arrastraga** [ãraštrãga] dugu.

---

1016 Id., 3. k.

1017 PRA-Kaseda, 2. k.

1018 PRA-Oibar, 59. k.

1019 Id., 15-bis.

1020 Id., 3. k-bis.

1021 Id., 65. k.

1022 Id., 62. k.

Arrizutaga Abaizbidea edo Camino de Abaiz-en alboan dago, La Venta (Artadualdea lehen, irudiz), Euntzeberri, Abaizgibel eta Presaldea-ren artean, Zurban-etik hurbil.

#### Arrizutagagaña:

Arrizutaga dermioko 513 metroko mendikoa bide zen 1593ko aRicutagagaña eta 1614eko haplologiaz laburtutako (ikus Arrizabalagaña) arriCutagagaña:

“ytten otra pi<sup>a</sup> en aRicutagagaña”<sup>1023</sup>

“otra pieca en arriCutagagaña”<sup>1024</sup>

1703an honen itxuragaiztotua dirudien Errastagaña ageri da<sup>1025</sup>.

#### Arrizutagarana:

Itxuraz Arrizutaga leku-izena eta harana ditugu hemen, eta lehena (Arrizutaga) Barranco de Presaldea ondo-ondoan badago ere<sup>1026</sup>, badaiteke Arrizutagarana aztertu Arrizutagagaña-ren aldaera baizik ez izatea:

“otra pieza en arriçutaga arana” (1647)<sup>1027</sup>

#### Arrizutagartea:

Arrizutaga toponimoa eta artea posposizioa ditugu hemen. Arrizutaga-ren erdiko aldea edo adierazten du (cf. Irigoiena / Iriarte / Iribarrena):

“una pi<sup>a</sup>...en arrizcutaga artea” (1594)<sup>1028</sup>

#### Artadua (ermita de):

Gure ustez Artadua lehenagoko \*Artaduia batetik atera da, eta osagaiak arte-ren elkarketa-eratorketako aldakia den arta- eta -dui atzizki multzokariaren aldaera den -du dira (ikus atzizkiari eskainitako atalean dioguna). Azken honen -dui > -du pau-soa \*Artadui posposizioz lagundurik agertzeari zor bide zaio. Zernahi gisaz, hor dugu Lergako Zamakidu (< \*Zamakidui), Ameskoako Ezpeldu<sup>1029</sup>, eta Artzibarko Aristu herri izena, besteak beste<sup>1030</sup>. Alderdi honetan arteak nonahi sortu eta azkar handitzen dira.

Artadua erdal La Lecinosa-ren baliakidea zen. Bertan gaztelua izan zen lehenik eta Ama Birjinari eskainitako ermita gero, egungo La Venta-n (ikus sarrera hau):

1023 Id., 7. k.

1024 Id., 14. k.

1025 PRA-Kaseda, 11. k.

1026 Haranak esan bezala erreka edo azekia baten inguruan hedatu ohi dira.

1027 PRA-Oibar, 25. k.

1028 Id., 25. k.

1029 L. Lapuente, TAM, 408. or.

1030 Ikus DAON-en dioguna.



“en la endrecera llamada artaduguibela... afrontada con Senda Real que ban de la dca villa a la ermita del dicho artadua o lejinossa ermita de la dca villa” (1584)<sup>1031</sup>

Toponimo hau artikulurik gabe ere aurkitu dugu:

“ytten en otra piª en la misma endreçera de artadu” (1593)<sup>1032</sup>

#### Artadualdea:

Artadua-ren alboko alderdia zen, **Abaizbidea** edo **Camino de Abaiz**-en ondokoa, itxuraz:

“en el termjo de artadualdea...affr con senda que ban de la lezinosa a Abaiz” (1570)<sup>1033</sup>

Artikulurik gabe ere azaltzen da:

“una viña...en...Artadualde” (1704)<sup>1034</sup>

Dirudienez, **Artaduondoa**-z beste zerbaite ematen zuen aditzera (Ikus **Der-mio baten zatiketa** atalean dioguna).

#### Artadubarren:

**Artadubarren**-ek (**Otubarren** [õtuβãren] bilakatua orain) antzinako **Artadua**-ren beheko alderdia izendatzen du. **Artadubarren** > **Otubarren** desitxuraketa prozesuaren barruan, 1827ko **Artubarren**<sup>1035</sup> (cf. 1681eko **Artagibel**, **Artadugibel**-etik, edo 1761eko **Arttaburua**, **Artaduburua**-tik), eta 1831ko **Altodubarren**<sup>1036</sup> kokatu behar genituzke. XVI. mendean mugatzailez nahiz mugatzailek gabe edireten dugu:

“...en los terminos de dho lugar deslaba temjo llamado artadubarrena” (1553)<sup>1037</sup>

“situada la dha biña en el terno llamado Artadubarren” (1559)<sup>1038</sup>

Azken lekukotasun honetan ikusten den gisan, **Artadubarren**-en ardantzeak izan dira XVI. mendez geroztik. Orain lur gehiena landua dago, baina arteak erraztasun handiz sortzen omen dira alderdi honetan.

**Artadubarren**-ek **La Venta**, **Artxilabe**, **Los Pozos**, **Baluriaran**, **Xauzgun**, **Ezpondabe**, **Presaldea** eta **Zurbaran**-ekin mugatzen du.

1031 PRA-Oibar, 3. k.

1032 Id., 7. k-bis.

1033 Id., 2. k-bis.

1034 Id., 30. k.

1035 PRA-San Martin, 85. k.

1036 Id., 87. k.

1037 PRA-Oibar, 2. k.

1038 Id.

**Artaduburua:**

**Artadua**-ko gain bat (erdaraz **Alto de la Lecinosa** deitzen zena) izendatzen zuen (Ikus **Camino de la Lecinosa** eta **La Lecinosa** sarrerak):

“una p<sup>a</sup> en artaduburua” (1570)<sup>1039</sup>

1761erako **Arttaburua** bilakatua zen:

“Mas otra (viña) en Arttaburua...”<sup>1040</sup>

Gure ustez egungo **Alto de la Venta**-rekin identifika liteke, alderdi honetan beste gainik ez dago eta (ikus **Venta** sarrera).

**Artadugibela:**

Ikusi dugun bezala, herritik **Artadua**-ko ermitara zihoan bidea **Artadugibela**-tik igarotzen zen, baina, dena den, ez dakigu zein zen azken honen kokaleku zehatza. Badakigu, hala ere, **gibela**-k herria erreferentzia hartuta eransten zaizkiela oinarrii, salbuespen azalgaitz bat edo beste gorabehera (cf. **Abaizgibel**):

“otra p<sup>a</sup> faitia en el temjo llamado artaduguibela” (1570)<sup>1041</sup>

“Ms otra biña...en Artaduguibel” (1755)<sup>1042</sup>

1681eko **Artagibel Artadugibel**-etik atera dela dirudi:

“una viña en artaguibel” (1681)<sup>1043</sup>

**Artaduondoa:**

**Artaduondoa**, esan bezala, **Artadualdea**-tik bereizi behar da, behialako **Camino de Iturrizabalaga**-ren (gaurko **Camino de Otubarren**, antza) inguruan baitzegoen, **Artadualdea**-tik urrunxko hortaz:

“la otra mitad...en el terno de Artaduondoa theniente a...Camino de Yturizabalaga” (1718)<sup>1044</sup>

**Artamaldeta (barranco de), (fuente de):**

**Arte** zuhaitz-izena, **malda** ‘aldapa’, eta **-eta** atzizkia ditugu gaur **Artamaleta** [ãrtamalétra] bilakatu den honetan.

Reta Janárizek eta Masu Nittak oraingo aldaeran oinarri harturik etimologia okerrak egiten dituzte: lehenak<sup>1045</sup> **arte** ‘encina’, **abar** ‘ramaje, residuo’ eta **-eta** atzizkia

1039 Id., 2. k-bis.

1040 PRA-San Martin, 54. k.

1041 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1042 PRA-San Martin, 43. k.

1043 PRA-Kaseda, 1. k.

1044 Id., 18. k.

1045 EHZE, 481. or.

proposatzen ditu toponimo honen osagaitzat, eta toponimoari “residuos o ramaje de encima” adiera ematen dio. Bigarrenak etimologia hau arbuiazen du, tarteko izentako **abar**-en ordez **mail(l)a** proposatzen duelarik<sup>1046</sup>:

“En cuanto al segundo elemento, por mi parte optaría por identificarlo como (sic) el vasc. MAIL(L)A ‘grada o peldaño; pisos de las montañas’ o ‘cuesta’, más bien que el sugerido ABAR”

**Artamaldeta** lehen aldiz 1593an dokumentatu dugu:

“otra pieza en...artamaldeta” (1593)<sup>1047</sup>

Egungo aldaera goiz aurkitu dugu, 1632rako:

“otra pieza en artamaleta”<sup>1048</sup>

1637ko **Arrata maleta** jatorrizko **Artamaldeta**-ren desitxuraketa baizik ez da:

“y otra pieza en arrata maleta”<sup>1049</sup>

**Barranco de Artamaldeta Zaldinaga**-tik datorren eta **Barranco de (el carasol) de Abaiz**-ekin bat egin ondoan **Barranco de Presaldea**-ra ura isurtzen duen errekarari esaten zaio. **Fuente de Artamaldeta** errekan dugun **Fuente del Moro** bera da (ikus sarrera hau).

**Artamaldeta**-k **Epaizaran**, **Zaldinaga**, eta **Santa Criz**-ekin mugatzen du. **Barranco de Abaiz**-ek hurbil dagoen **Bizkarda**-tik bereizten du.

#### **Artatzea:**

**Artatzea**-n [ārtaθéa] arte zuhaitz-izena eta -tzea ugaritasunezko atzizkia ditugu, eta **Artadu(i)**-ren adierakidetzat jo daiteke (cf. **Lezkatztea / Lezkadui**), toki diferenteak izendatzen badituzte ere:

“otra (pieza)...en Arttazea que afronta con el mismo camino” (1767)<sup>1050</sup>

**Artatzea Etxeberrri**, **Txirria**, **Santa Ana**, **Zubialdea**, **Los Linares** eta **Zabalea**-ren arteko goi-lautada da. Jatorriak jatorri, egun ez omen dago arterik bertan.

#### **Artatzealdea:**

**Artatzealdea**-k **Artatzea**-ren alboko alderdia izendatzen zuen, hain zuzen ere **Agezatik Lergara Zubialdea**-n barrena zihoan bidearen ondokoa:

1046 *Notas lingüísticas...*, 17. or.

1047 PRA-Oibar, 7. k.

1048 Id., 23. k.

1049 Id.

1050 PRA-San Martin, 48. k.

“una pieça...en la endreçera llamada artaci aldea...afrentada...con el Camino Real que ban de la dca villa a la dca villa de Lerga” (1584)<sup>1051</sup>

### Artatzegaña:

Itxuraz Artatzea-ko gain bat, mendiko bat, adierazi behar luke, baina Artatzea goi-lautada izaki, -gaña hori dermioa toki gora izateari leporatu beharko diogu:

“una pieca con su corral y artegua en (la) endrecera llamada artacegaña” (1616)<sup>1052</sup>

Gerla zibilaren aitzinetik hemen egin zen Eslabako lehen futbol-zelaia, eta Ageza, Zare eta inguruko beste herrietakoen kontra jokatzeko zuten eslabarrek. Goi-lautada honek badu isuri pixka bat, eta hau zela medio baloiek maiz herri aldera ihes egiten omen zieten jokalariei.

### Arteta, barranco de, portillo de:

Erreka Eslaba eta Artetaren arteko mugatik Barranco de Elkea-ra jaisten den erreka izan zitekeen, eta ataka dokumentazioko Iruinportillua:

“ytten otro mojon caminando acia loya a la mitad de la cayda de yrunportillo al barranco de arteta” (1642)<sup>1053</sup>

### Artezabalaga:

Arte zuhaitz-izena, zabal izenondoa eta -aga atzizkia ditugu hemen. Artezabalagaña eta Artezabalaondoa-rekin alderatuz gero badirudi hemen berriz ere -aga / Ø-ren arteko txandaketa (ikus honetaz -aga atzizkiari eskainitako atalean dioguna) dugula, baina Artezabalagaña \*Artezabalagaña-tik ere atera zitekeen, haplogiaz:

“En los termos del dho lugar termjo llamado artezabalaga” (1571)<sup>1054</sup>

Eslaban oso ugariak izan dira zuhaitzok, eta horren ondorio dira arte osagaia duten toki-izenak: Artadu eta eratorriak, Artamaldeta, Artezabalaga eta eratorriak, Artatzea eta eratorriak...Inguruko herrietan ere ugariak dira, Bizkaiko Arteta herri-izena frogatzen.

### Artezabalagaña:

\*Artezabala edo Artezabalaga-ko burua zatekeen dokumentazioko Artezabalagaña (1613)<sup>1055</sup>, Artazabalagaña (1687)<sup>1056</sup>, edo Artezabalagain<sup>1057</sup>.

---

1051 PRA-Oibar, 3. k.

1052 Id., 19. k.

1053 Id., 24. k.

1054 Id., 2. k-bis.

1055 Id., 17. k.

1056 PRA-Kaseda, 4. k.

1057 Id., 14. k.

**Artezabalaondoa:**

Aipatu \*Artezabala edo Artezabalaga-ren aldameneko eremua ematen zuen ezagutzera:

“otra pieça en artucabalaondoa” (1644)<sup>1058</sup>

**Artigas, las:**

Euskaraz, eskualdeen arabera, ordain bat baino gehiago du erdal artiga-k: **labaki**, **luberri**, **nobare**...Gure eskualdean, **berro** izena ibiltzen zen (ikus Eslaba eta Galipentzuko **Berago** eta Uxueko **Berage**), Aezkoan bezalaxe<sup>1059</sup>:

“ytten otra pi\* en donde las artigas” (1593)<sup>1060</sup>

**Artxilabe:**

Toki-izen honetan **Artxila** + **be** nahiz **Artxi** + **labe** izan dezakegu. Lehen kasuan esanahi ezezaguneko oinarria genuke<sup>1061</sup> gehi **-be** ‘behe’, ‘azpi’ posposizio arrunta. Bigarrenean aldiz **Artxi**- dudazkoa eta **-labe** ezaguna (cf. **Labeaga** Lergan).

Reta Janárizek<sup>1062</sup> **Artxi**- **harri** eta **etxe**-z osaturik dagokeela dio, **labe** ‘horno’ delarik. Masu Nittak berriz Retaren etimologia arbuaitzen du<sup>1063</sup>, eta hasierako elementua **harri** eta bukaerakoa **labe** direla onartu arren, ugaritasunezko atzizki bat (**-zu**, **-tsu** edo **-tze**) proposatzen du tarteko osagaitzat:

“ARCHILABE (Eslava): Según Reta, «tal vez de ARRI ‘piedra’, ETXE ‘casa’ y LABE ‘horno’, lo que daría ‘horno de la casa de piedra’».

En cambio, a la vista de las voces vascas como (H)ARTSU ‘lugar pedregoso’, a.-nav. ARSU ‘roca’, me parece más verosímil tratar de desglosar el primer componente en (H)ARRI ‘piedra’ más suf. abundancial **-ZU**, **-TSU** o **-TZE**, sin tener que reconocer en él la presencia de **ETXE**”

Proposamen hau, gure ustez, ezin da erabat baztertu, bertan kaskailu asko baitago, baina urrun dago segurua izatetik. Izan ere, \***har(ri)zu** edo \***har(ri)tsu**-tik **artxi** eratorri nahi izatea zail samarra da, batez ere dokumentazioan beti **Artxilabe(a)** dugula kontuan hartzen bada. Beste aukera, oinarrian \***har(ri)tze** dugula suposatzen duena, egiantz handiagokoa iruditzen zaigu, baina hemen ere ez dago bat ere garbi izen

1058 PRA-Oibar, 24. k.

1059 Ikus Azkueren APIM, 290. or.

1060 PRA-Oibar, 7. k.

1061 Abaurreginean **harri** eta zilo-ren elkarketatik **Arziloburualdea** dugu 1782an (PRA-Auritz, 51. k.), **Artzilaburua** orain, eta xiloa ere balio beraz ibiltzen denez gero, ez litzateke miresteko Aezkoan \***Artxiloa**-ren modukoren bat ediretea (cf. **Urtxiloa** [ũřčilóa] Abaurrepean. Honetan, dena den, erdararen eragina ere ikus dezakegu). Eslaba aldean, halaz guztiz, beti **zuloa** aurkitu dugu (cf. Eslabako bereko **Aitzuloa** arestian aztertua), eta honek **Artxilabe harri**, xilo edo zilo eta behe-ren bidez azaltzea galarratzen du.

Guztiarekin ere, Eslabaldea baino mendebalderago dagoen Ameskoan **Artxiloa** aurkitu du Luciano La-puente (TAM, 400. or.), eta hau, errore bat ez bada behintzat, kontuan edukitzekoa izan daiteke gure eskualdeko toponimoa azaltzeko orduan.

1062 EHZE, 481. or.

1063 *Notas lingüísticas...*, 17. or.

hori artxi (edo \*hartzi- nahiago bada) nola bilakatu den. Guk Uxueko Larziaga \*Lar-tzeaga-tik eratorri dugu, eta herri bereko Aristuziaga \*Ariztutzeaga-tik, eta bi izen hauek ere oinarrian ugaritasunezko -tze dutela suposatu arren, testuingurua diferentea da, atzizkiaren ondoan bokala dagoelarik, ez kontsonantea Eslabako kasuan bezala.

Zernahi gisaz, izen hau beti itxura bertsuaz aurkitzen dugula esan daiteke, artikulua- ren presentzia itxura aldaketatzat ezagutzen ez bada bederen:

“en el temjo llamado archilabe” (1573)<sup>1064</sup>

“ytten otra piª en Archilabea” (1593)<sup>1065</sup>

Artxilabe [ãřčilábe] La Venta (antzinako Artadua, Artadualdea eta Artaduondoa-ren ordezkatzaila dena, itxuraz), El Llano, Los Pozos eta Artadubarren-ekin mugatzen duen alderdi txikia da. Bertan, gaurregun behinik behin, ez dago laberik ez labe aztarnarik.

#### Atalaiiondoa (paso de):

Atalaia ‘gaina’ eta ondoa toponimian ongi ezagunak (cf. Atalaiasaietsa Moriesen, eta Atalaieta edo Atalayal Zaren<sup>1066</sup>) dira leku-izen honen bi osagaiak, eta egon ere La Revuelta-ko gain baten aldamenean dago.

Euskaraz badirudi gaurregun Talaia-z besterik ibiltzen ez dela: Azkuek, esaterako, talaia baizik ez du biltzen bere hiztegi ezagunean:

“atalaya, semáforo...son por lo regular humildes tejavanas y aún la cumbre pelada de alguna colina”

Sarasolak<sup>1067</sup> atalai baztertu beharrekotzat jotzen du, eta hitz batutzat talai ematen du. Mitxelenak<sup>1068</sup> Atalai edo Talai ‘atalaya’ dakar:

«Nom que sur la côte du Labourd on donne à des petites tours où les vigies montent le jour, et où l’on place des fameux pendant la nuit, quand les pêcheurs sont en mer» (Duvoisin); «observatoire, lieu élevé d’où l’on observe au loin» (Harriet)

Eslabako izenaren lehen lekukoa hasieran a- duela ageri da (Atalaya ondoa, 1572<sup>1069</sup>); hurrengo biek genitibo singularraren hondarkia izan lezakete (Atalayanondoa 1690ean<sup>1070</sup>, Atalaianondoa 1691n<sup>1071</sup>). 1800eko lekukotasunean, azkenik, a + o > o la- burketa aurkitzen dugu (Atalaiiondoa<sup>1072</sup>):

“una pª...en el termjo llamado atalaya ondoa” (1572)

1064 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1065 Id., 7. k-bis.

1066 Kortesen La Atalaya historiaurreko despoblatua dugu. Ikus Javier Gárriz Ayanzen *Despoblados*, Temas de cultura popular, 186. zkia., 8. or.

1067 HLEH.

1068 OEH.

1069 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1070 PRA-Kaseda, 5. k.

1071 Id., 6. k.

1072 PRA-Oibar, 86. k.

Gaurregun **Talaionda** [talayónða] esaten da, hasierako bokalaren aferesiaz eta posposizioaren ustelketa eta desitxuraketaz (cf. **Balatuenda** Leatxen, **Nobeletaiondo**-tik).

Masu Nittak<sup>1073</sup> 1696ko **Atalaicondo**a eta 1753ko **Atalaicondo**a aipatzen ditu, eta hauetan oinarri harturik **atalai** eta **ondo**-ren artean leku-denborazko genitiboaren **-ko** morfema dagoela uste du:

“TALAYONDA (Eslava): Explicado como «TALAI (< cast. *atalaya*....) y -ONDA, var. de -ONDO ‘junto a’».

Pero para ser más exacto en el análisis del mismo, habrá que partir de sus testimonios antiguos como *Atalaicondo* (año 1753) y *Atalaicondo* (1696), compuesto del arabismo *atalai*, suf. genitivo vasco -KO y -ONDO ‘lado; fondo; raíz; etc.’ con art. -A”

Guk ez dugu sekulan autore honek aipatzen dituenen antzekorik aurkitu, eta egungo aldaera ere horren kontra mintzo da. Edozein modutan, eta aldaera horiek nahasketara edo desitxuraketaren fruitu ez badira, tarteko **-k-** hori euskal elkarketa-erartoketan aldika ageri den kontsonante epentetikotzat hartu behar genuke<sup>1074</sup>, **ondo** posposizioa duten toponimoek ez baitute sekulan **-ko** hartzen (cf. **Artaduondo**a, **Arranomendiondo**a, **Azterainondo**a...) <sup>1075</sup>, Hegoaldean bederen.

**Atalaiondo**a eta **Bidezarreta**-ren erdian, **Lergako** errepidearen ondoan **El Alto** izeneko gain eta dermioa dago (ikus sarrera hau), eta badirudi hau dela mintzagai dugun toponimoko **atalaia** hori. **Paso de Atalaiondo**a **Camino de Atalaiondo**-k eta **Barranco de Lergabidea**-k bat egiten duten gunean dago.

**Atalaiondo**-k aipatu **El Alto**-rekin ezeze, **Bidezarreta**, **Euntzeberri**, **Euntzeluzea**, **Lergabidea** eta **La Revuelta**-rekin ere mugatzen du.

**Ayuntamiento**, el:

Herria gurutzatzen duen errepidearen ondoan dago, beheko aldean. Oraingo eraikuntza berria da, eta Eslabako bereko arkitekto batek zuzendu zituen eraikitze lanak. Lehengo herriko etxea ere bertan zegoen, baina baliteke, gure informatzaileek dioten moduan, behinola beherago egotea (**Barrio de abajo**-n).

**Azterain** (fuente de), (monte de), (montes de):

Izen honen etimologiaz ikus **-ain** atzizkiari eskainitako atalean dioguna<sup>1076</sup>. Egungo **Astirain** [aštírājn] Moriones eta Loiaiko mugan dago, mendian beraz, eta hortik **monte(s)** generikoa:

1073 *Notas lingüísticas...*, 22. or.

1074 L. Villasante, PVCD, 36-37. orr.

1075 Guztiarekin, aldea posposizioa dutenek ere ez dute **-ko** hartu ohi, eta Galipentzun Erbiñako aldea daukagu.

1076 **Azterain** edo **Astrain** Zizur zendeako herri bat ere bada. Barasoainen ere aurkitu dugu, **Astrain** itxurapean, 1760an (PRA-San Martin, 45. k.).

“de ay en Riba hasta el monte de azterayn y endreçera de sampelay” (1587)<sup>1077</sup>

“en...ayzçuloa...començando desde sagaraga hasta los montes de aztirayn” (1587)<sup>1078</sup>

**Azterain** eta **Aztirain**-ekin batera, **oztirayn** (1584<sup>1079</sup>), **Aztiran** (1587<sup>1080</sup>), **Astrayn** (1681<sup>1081</sup>), **Astiriain** (1690<sup>1082</sup>), **Astriain** (1709<sup>1083</sup>), **Asttreain** (1764<sup>1084</sup>), **Ass-terain** (1765<sup>1085</sup>), eta **Asttirain** (1776<sup>1086</sup>) dokumentatu ditugu.

**Fuente de Azterain** alderdiko iturria da, eta **Camino de Moriones**-en ondoan dago.

**Azterain**-ek **Larrasoil**, **Amikarren**, **Juandelusaiets** eta **Tastaran**-ekin mugatzen du, aipatu bi herri horiekin ez ezik:

“otra pieça en...amicarren afrontada...con el monte de oztirayn” (1584)

“en el mesmo camino y barranco de ayzçuloa arriba hasta aztirain por la parte de Ayesa” (1587)

### **Azterainbidea:**

**Azterain**-a doan bidea zen, egun **Camino del Monte (de Azterain)** deritzen bera, antza:

“la otra (pieza?) en azteraynbidea” (1608)<sup>1087</sup>

### **Azterainondoa:**

**Azterain**-en ondoko alderdia genuen, parean zegoena seguruenik. **Baltsa** edo **idoia** ere bazen bertan:

“una pieça...en la endreçera llamada aztirayn ondoa u balsaldea” (1609)<sup>1088</sup>

“otra pieza en astiriainondoa” (1763)<sup>1089</sup>

### **Bakundi:**

**Irixarra**-tik hurbil zegoen estraineko aldiz 1591n ageri den hau:

1077 PRA-Oibar, 3. k.-bis.

1078 Id., 25. k.

1079 Id., 3. k.

1080 Id., 25. k.

1081 PRA-Kaseda, 1. k.

1082 Id., 5. k.

1083 Id., 14. k.

1084 PRA-Oibar, 62. k.

1085 Id., 66. k.

1086 Id., 70. k.

1087 Id., 16. k.

1088 Id., 13. k.

1089 Id., 65. k.



“otra pieça en bacundi...que afuenta...con el barranco concegil de yrixarra y con la senda de bacundi”<sup>1090</sup>

Badakigu Camino de Erbiñaga (ikus sarrera hau) alderdi honetan gaindi zihola.

#### Bal(t)alde:

Bal(t)sa ‘idoia’ eta aldea dira honen bi osagaiak. Gure eskualdean bal(t)sa-ren adierakidea den idoia ere aurkitzen dugu (cf. Cruz de Idoia Galipentzun edo Idoi-txiki Uxuen), baina bal(t)sa oso sartua zegoen, soto eta bezala.

Egun Aezkoan Balxaldea dugu Abaurregainean, Kukuluko balsaldea Garraldan, Bordaberriko baltsa Oskotzen, Olderizgo baltsa Urban<sup>1091</sup>... Beraz Nafarroako eskualde handi samar batean onartua zegoela eta dagoela esan daiteke, erdaratikako beste izen batzuk bezalaxe.

Bal(t)alde Azterainondoa-n zegoen.

#### Baluriaran (altico de), (hoyo de):

Izen honen etimologiaz ikus -ain atzizkiari eskaini atalean dioguna. Baluriaran (Baluriain [bálorjáin] gaur) Barranco de los Pozos eta Artadubarren-en arteko zuloa da (horregatik erdarazko hoyo generikoa), eta Xubingoa, La Calera, Lezkadui, eta Xauzgun-ekin mugatzen du, aipatu Los Pozos eta Artadubarren-ekin ezezik. Zuloan badira azekia batzuk, eta ezbaierik gabe hauetan bilatu behar da izenaren jatorria, haranak erreken edo azekien inguruan egoten baitira (cf. Arangaitz eta Zurbaran).

Hemen barna igarotzen zen errotarako (Molino de Unzue eta agian Galipentzuko Aragoa ertzeko errotarako) bidea:

“viña dela religion de san Juan en Baluriain teniente al Camino para el molino” (1723)<sup>1092</sup>

Mugatzaileaz horniturik ageri da lehen lekukotasunean, bai eta gero ere, behin edo beste:

“otra p<sup>a</sup> en baluriarana” (1534)<sup>1093</sup>

1090 Id., 5. k.

1091 Mendi honetan idoia ere aurkitzen dugu: Olaberriko idoia, Saibarrengo idoia...Baltsa eta idoia izenek Urbanas duten presentziaz ari dela honela dio J. M<sup>a</sup> Sarrústegui euskaltzainak (“Planteamiento...”, 58. or.): “Los mismos restigos coinciden, sin embargo, en la apreciación de que las pozas de Urbasa se llamaban *idoias*, y que el vocablo castellano *balsa* es moderno. Tuvo buena acogida la denominación *Margarita balsa* en las nuevas generaciones, pero seguía siendo *Saibarrengo balsa* en el recuerdo de las personas mayores...No se puede negar, sin embargo, la generosa acogida que ha tenido la palabra *balsa*, en la población vascofona de la zona, lo que se refleja en nombres como *Baltsaundi*, *Igelbalsa*, *Baltsasoil*, de general aceptación incluso después de la desaparición de las aguas a las que aluden”.

Gure alderdian, ordea, eta Eslabako 1609ko izen honetan ikus daitekeen moduan, bal(t)sa-ren sartzea aspaldiko kontua da.

1092 IEA, 1765, 8, 872. or.

1093 PRA-Oibar, 2. k.

**Altico de Baluriaran** alderdiko muinoa da.

**Barranco, el:**

**Fuente vieja**-n sorburua duen errekastoa da.

**Barranco de los Lobos, el:**

**Elkea**-tik **Portillo de Arteta** edo **Iruinportillua**-ra doan bidearen pareko errekastoa dugu. Antza denez, bertan otso franko izatean du sorburu da dokumentazioan sekular ediren ez dugun izen honek, eta Agezako Otsazuloa, Galipentzuko **Portillo de los Lobos**, eta **Uxueko Otsalarraña** eta **Lopera**-rekin lotu beharra dago.

**Barranco grande, el:**

Beste batzuetako **El Río** bera bide zen, alegia, **Barranco de Presaldea** edo **Barranco de Ezpondabe**:

“El barranco grande desde errotajarra asta el puente de los linaires” (1612)<sup>1094</sup>

Agezako **Errekandia**-ren bizkia da **Eslabako** hau (cf. gainera, Ezporogiko **Baserrekandia**).

**Barrenginda:**

**Barren** ‘beheko’ (‘behereneko’?) eta **ginda** ‘inda’, ‘dinda’, ‘drinda’-z osatua dago (cf. Agezako **Gindartea**). Badakigu auzo baten izena zela:

“un casal en el barrio llamado assi bien barrenginda” (1529)<sup>1095</sup>

\***Iribarren** azaltzen ez denez gero, **Barrenginda**-k horren balioa duelako susmoa dugu, erdaraz **Barrio bajo** edo **Barrio de abajo** ongi dokumentatzen baita. Dakigunez, agirietan maiz **barrio** eta **calle** ez dira ongi bereizten, eta daitekeena da minzagai dugun hau kale bat besterik ez izatea, **barrio** deizioa gorabehera.

**Barrio alto, el:**

**Irigoiena** edo **Barrio de arriba** bera da (ikus bi sarrera hauek):

“una casa vecinal...en el paraxe que llaman el Varrío alto devaxo de la basilica de Santa barvara” (1735)<sup>1096</sup>

**Barrio bajo, el:**

Egungo **Barrio de abajo** (= **Barrenginda**?)-ren adierakidea da:

“en la dca villa deslaba en el barrio baxo” (1612)<sup>1097</sup>

---

1094 Id., 14. k.

1095 Id., 2. k-bis.

1096 Id., 44. k.

1097 Id., 17. k.

**Barrio de abajo, el:**

Herria gurutzatzen duen errepideaz beheiti luzatzen da (ikus **Barrenginda** sarrera):

“una cassa...en dha villa y barrio de abajo” (1779)<sup>1098</sup>

**Barrio de arriba, el:**

Euskarazko Irigoiena-ren baliokidea dugu. Errepideaz goiti hedatzen da:

“La Casa principal...con su Escudo de armas perteneziente a dho Apellido de Barriain, sita en el barrio de arriba” (1784)<sup>1099</sup>

**Barrio de Barriain, el:**

**Barrio de arriba**-ren adierakidea da (ikus aurreko sarrera).

**Beloso:**

Behin bakarrik dokumentatu dugu, eta ez dakigu non zegoen:

“una bina...en el termo llamado beloso” (1549)<sup>1100</sup>

Etimologiari dagokionez, **elorri**-ren eratorri baten aurrean gaudela garbi dago, beste herri batzuetan ere agertzen delako, noiz edo noiz **Elorzu**-tik atera den **Elosu** edo **Eloso**-rekiko txandaketan: Atetz ibarreko Osinaga herrian, adibidez, alderdi bera izendatzen duten **Beloso**<sup>1101</sup>, **Eloso**<sup>1102</sup>, eta **Elosu**<sup>1103</sup> ditugu, Urrotzen<sup>1104</sup> tartekoa den **Beloso** daukagu, eta Iruñea eta Burlataren artean **Cuesta de Beloso** ezaguna dago. Gulibarko Aginaga herrian, azkenik, **Belordi** dugu<sup>1105</sup>, arrunta den **Elordi**-ren ordez (cf. **Elordia** Leatxen).

\***Elorzu elorri** eta ugaritasunezko adiera duen **-zu** atzizkiak osaturik dago. Hemendik, **Elosu** aterako zen (cf. **Orzaize** > **Osés**<sup>1106</sup>, **Gorza** > **Güesa**)<sup>1107</sup>, eta azken honetatik **Eloso** lortzea erdararen eraginez azal liteke<sup>1108</sup>, edo hobe bokal-asimilazioz. Ha-

1098 Id., 72. k.

1099 Id., 73. k.

1100 Id., 2. k.

1101 PRA-Ihaben, 10. k., 1646.

1102 Id., 19. k., 1695, egun ere bizirik, [elóso] itxuraz.

1103 Id., 9. k., 1638, egun ere bizirik, [elósu] formaz.

1104 Agoizko hipotekak, 3, 719. or., 1852.

1105 1945eko katastroan azaltzen da, eta gaur egun ere bizirik dago ([belórdi] ebakitzen dute).

1106 Izen erdaldundu hau gaur arrunta den **Ortzaize**-tik baino errazago azaltzen da **Orzaize**-tik abiatuta. Izen honen bilakaeraz ikus J. Baptiste Orpustanen *Toponymie basque* liburua, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele, 1990, 99-100. orr.

1107 **Elosu**, dena den, zahar samarra dela dirudi: cf. **Elhossu** baina **Zuhazu** 1025eko Donemiliagako “Reja” ezagunean. TAV, 26. or. Mitxelena dioenez izen honek ongi frogatzen du erdarazko ursu > oso-ren kidekoa den \*elhor(i)-zu > Elhossu pausuaren aspaldikotasuna. Id., 107. or.

1108 Dena den, -o hori XVII. mendean erdararen eraginari leporatzea zaila da, batez ere oraindik ere (hein batean bederen) euskaldun dirauen Atetz bezalako eskualde batean. Imotz ibarrean **Elóso** edo **Elúso** dugu Muzkitzen eta Zarrantzen, azken honetan **Elórđi** toponimoa ere bizirik dagoelarik. Oskotzen berriz, **Elúsu** dugu.

sierako b- hori sekundarioa da, eta gure hizkuntzan arrunta den hitz hasierako herskaria / Ø txandaketaren barruan kokatu beharra dago (cf. *uztarri* / *buztarri*; *ustel* / *bustel*...).

**Beragu (monte), (parcelas de):**

Izen honen jatorriaz ikus Uxueko **Berage** eta Galipentzuko **Beragu** sarrerak. Eslabako **Beragu** [berágu] Galipentzuko mendiaren jarraipena da, eta **Zaldinaga** eta **Dorreta**-rekin mugatzen du. Aski harrigarriro, ez dugu sekulan dokumentazio zaharrenean ediren.

**Berro, el:**

**Berro**-k 'labakia', 'nobarea' adiera du, eta oso hedatua dago gure eskualdean eta hemendik kanpo:

“en el propio termino (Chaparro-n) y parage llamado el verro” (1818)<sup>1109</sup>

**Bidaburua:**

**Bide**-ren elkarketako aldakia den **bida**- eta **burua** ditugu 'bidearen goreneko alderdia' adiera dukeen toki-izen honetan (cf. Lergako **Bidaburua**):

“otra pieca en bida burua...que afruentan (sic) con el camino” (1591)<sup>1110</sup>

**Bidaburua** 'bidagurutzea' ere izan daiteke, Iparraldean bereziki (ikus Sarasolaren HLEH), baina ez dirudi hau denik gure alderdian duen esanahia. **Bidaburua** edo **Bideburua**-k oso ugariak dira euskal toponimian (cf., adibidez, Atondo eta Eritzeko **Bidaburua**<sup>1111</sup>).

1783rako **Bideburba** bilakatua zen, erdal azentuaketa azkarraren ondorioz, antza:

“una Huerta...en Bideburba” (1783)<sup>1112</sup>

Bertan baratzeak bazirenez, herritik hurbil zegoela kontu egin dezakegu (ikus gainera **Camino del Saso** sarrera).

**Bidapea:**

**Bida**- eta **-pea** ditugu hemen. Alderdi honetan lihatzeak bazeudela besterik ez dakigu:

“otra piª linar en...bidapia” (1593)<sup>1113</sup>

1109 PRA-Oibar, 98. k.

1110 Id., 5. k.

1111 Jimeno Jurío, TCP CI, 119 eta 150. orr.

1112 PRA-Oibar, 73. k.

1113 Id., 7. k.

**Bidertxia:**

**Bide** eta **ertxia** 'estua'<sup>1114</sup> dira honen osagaiak. Mitxelenak dioenez<sup>1115</sup>, **ertxi** dugu aezkera eta goi-nafarreraz, eta gure eskualdean dokumentazioko **-ch**-ren azpian ere [č] egon zitekeen, nahiz [č] zegoelako ustea ezin den osotara baztertu (ikus **Grafia kon-tuak** atala). Lizarraga Elkanokoak ere **erchia** erabiltzen du<sup>1116</sup>, **ertxia**, antza:

"...otra pieça en videerchia...que afuenta...con el camino q ban al saso" (1591)<sup>1117</sup>

**Bidertxi** dugu, orobat, Zare eta Agezan, azken herri honetan **Bidertxibu-rua**-rekin batera, eta Ezporogin hauen adierakidea den **Bidemearra** ageri da<sup>1118</sup>. Itxuren arabera, herritik hurbil zegoen (ikus **Camino del Saso** sarrera).

**Bidezarra:**

**Bide** izena eta **zaharra** izenondoa ditugu **Bidezarra** nahiz **Bidazarra** itxurez agertzen den honetan:

"en la endreçera llamada vidaçarra" (1593)<sup>1119</sup>

"otra pi<sup>a</sup> en...bideçarra" (1602)<sup>1120</sup>

Dirudien bezala **Bidezarreta** bera bada (cf. 1709ko **Videzarras**), **-eta / Ø** al-dizkatze eta baliokidetasunaren beste froga bat genuke hemen.

**Bidezarreta:**

**Bide** izena (edo honen aldaera apofaniaduna den **bid-**), **zahar** izenondoa eta **-eta** atzizkia ditugu egun **Bizarretas** [biθaṛétaś] bilakatu den honetan. Oraingo izenak, beste toponimo asko eta askoren kasuan bezala, pluralgile erromantzea hartu du hiz-kuntz ordezkapenaren ondorioz (cf., adibidez, **Errakinetas** Orbaran, **Muskildetas** Aez-koa-Hiriberrin, **Zubietas** Or baitzetan...). Pluralgilea lehendabiziko aldiz 1779ean aur-kitzen dugu, euskara galdua zegoenean, eta gaurko **Bizarretas** 1831n azaltzen da aurrenekoz dokumentazioan<sup>1121</sup>:

"una p<sup>a</sup>...en el termjo llamado bidazarreta" (1560)<sup>1122</sup>

"una pieza...en...Videzaretas" (1779)<sup>1123</sup>

"otra pieza...en...bizaretas" (1806)<sup>1124</sup>

1114 Mitxelenak er(t)si izenondoa 'estua' adieraz oso erabilia dela dio. "Notas fonológicas sobre el salacenco", PT, 221-234. orr.

1115 Id.

1116 "Escátzen eztút nic/justicia erchia,/ez baicic doaiic/misericordia...". *Koplak*, 65. or.

1117 PRA-Oibar, 5. k.

1118 Zuriainen ere 1897ko katastroan **Biderchi** azaltzen da, eta Agezako **Bidertxi** aztertzean esan bezala, Or-  
baran **Bidertxia** [biðéřja] dugu, eta Olatzagutian hauen adierakidea den **Bidestu**.

1119 PRA-Oibar, 7. k.

1120 Id., 10. k.

1121 PRA-San Martin, 87. k.

1122 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1123 Id., 72. k.

1124 Id., 91. k.

Reta Janárizek etimologia zuzena proposatzen du<sup>1125</sup>, baina Masu Nittak<sup>1126</sup> oraingo aldaeraren bizarr-en azpian bizkar ikusi uste du, honetarako Eslabako bereko **Bizkarda**, Morionesko **Bizkarra** eta benetan **bizkar** izena duten beste toponimo batzuetan oinarritzen delarik. Garbi dago ordea, lekuko zaharrak ikusita, hizkuntzalari ja-pondarraren usteak ez duela funtsik.

**Bidezarreta** hasiera batean erdaraz **Camino bajo para Lerga** bazen ere, egun bide horren zati bat eta inguruko lurak izendatzen ditu. **Santa Ana, La Revuelta, El Alto, Atalaiondoa, La Venta (Artadua, Artadualdea, Artaduondoa), El Llano, La Fuente, El Pocico** eta herriarekin berarekin mugatzen du.

**Bitarteko harana:**

**Bitarte** 'arte', -ko eta **harana** 'ibarra' ditugu hemen. Etimologia aintzat har-tuta, bi errekaeren arteko harana zela kontu egin dezakegu, eta Galipentzuko muga-ze-goela badakigunez gero, **Barranco de Gezari** eta **Barranco del Lezcal**-en artekoa, edo azken honen eta **Barranco del Soto**-ren artekoa zela ondoriozta daiteke (cf. Lergako **Ubitarte**):

"Mas otra pieza (sic) en la muga de galipienço y parte llamada vitartecoarana" (1637)

**Bizkarda (alto de), (barranco de):**

**Mitxelenak**<sup>1127</sup> -do atzizkia aztertzean **Bizkardo** eta **Legarda** aipatzen ditu, eta azken hau **Legarreta**-ren aldaera erdaldundua delako susmoa duela dio. Gure izena-ren kasuan ere paralelotasuna gertatzen da, esate baterako, Erroibarko herriaren izena den **Bizkarreta** (alderdiko euskaldunen artean **Gerein** < **Gerendiain** dena)-ren eta az-tergai dugun **Bizkarda**-ren artean. Bilakaera hau izan zitekeen: **\*Bizkarreta** > **\*Bizká-rreda** > **Bizkarda**.

Nolanahi ere, behin azentu ondoko bokala galduz gero dardarkariaren atzeko herskari ahoskabera ozendu egin zela ere pentsa dezakegu, era honetara bokal arteko aho-suntzea azaltzeko erromantzeraz jotzeko beharrik ez dugularik: **\*Bizkárreta** > **\*Bizkárta** > **Bizkárda**, Lizarraga Elkanokoaren hordik 'hortik'-en bide beretik<sup>1128</sup>. Alabaina, **Biz-karda** dugu lehen lekukotasunetik:

"otra piª en la endreçera llamada vizcarda" (1593)<sup>1129</sup>

Angel Elortegik<sup>1130</sup> Eslabako izenaren anaia bizkia irudi duen **Bizkardo** do-kumentatzen du Pasaian, bai eta **Araneta** (hots, **haran** + **eta**) arruntaren kide diruditen **Aranda** (1596) eta **Arandoa** (bizirik oraindik) ere. Eslaban **Bizkarda**-z gainera, **Ze-roda** ere badugu, baina hondar hau ez da oso argia. **Araneta**-tik **Arando** eratortzea, hala

1125 EHZE, 481. or.

1126 *Notas lingüísticas...*, 17-18. orr.

1127 AV, 78. or.

1128 Alabaina, Aezkoan adibidez -rreta > -rta laburketaren adibide mordoxka dugu, baina ez dugu sekulan -da-ren gisakorik aurkitzen. Cf., esaterako, Garaioako **Garagárta** (< **Garagarreta**), **Itúrta** (< **Iturreta**). Arakilen ere berdin gertatzen da: cf. Uharteko **Azkonárta** (< **\*Azkonarr(i)eta**). Hauek, halaz ere, oso aldakuntza berriak dira.

1129 PRA-Oibar, 7. k.

1130 *Pasaiaiko toponimia*, 68-69. eta 86. orrialdeak.

ere, zail samarra da, eta aparteko atzizkitzat aitortu beharko dugu, **-do-ren** kasuan bederen, Mitxelena<sup>1131</sup> eta Irigoyenek<sup>1132</sup> uste duten moduan.

Nolanahi ere, garbi dago mintzagai dugun izena **bizkarra**-rekin lotu beharra dagoela, **Bizkarda**-k Epaizko Alto de **Abaiz**-en jarraipena den gaina (Alto de **Bizkarda** [biθkárda] egun) eta inguruko lurrak izendatzen dituelako.

**Bizkarda Barranco de Abaiz, Barranco de Errotaxar** eta **Barranco de Presaldea**-ren erdian dago, **Presaldea**, eta **Epaizaran**-eko mugan. Errekez beste aldean **Artamaldeta, Santa Criz, Errotaxar** eta **Ezpondabe** ditugu.

**Barranco de Bizkarda Barranco de Abaiz** bera da.

#### **Bizkardondoa:**

**Bizkarda**-ren ondoko eremua zatekeen:

“otra pieza en vizcardondoa” (1705)<sup>1133</sup>

#### **Bizkarra:**

Behin bakarrik aurkitu dugu, oso berandu (1818an), eta badaiteke **Bizkarda**-tik errorez<sup>1134</sup> ateratako forma izatea:

“en el termino de vizcarra se ha introducido en una roveda”<sup>1135</sup>

#### **Bodega, la:**

**San Miguel** izena duen ardandegia **Txirria**-n dago, herriaren alboan.

#### **Boiuartea:**

**Boiu** ‘poiú’, ‘gain’ eta **arte** ‘bitarte’ ditugu egun **Boarte** [boãrtéa] bilakatu den honetan. Dirudenez, **Boiugain** (**Bongain** orain) eta aurkitu ez dugun **\*Boiupe**-ren arteko eremua ematen du aditzera:

“otra pieça en...boyuerte” (1587)<sup>1136</sup>

“una pieza...en...Boyoarte” (1690)<sup>1137</sup>

1793an **Boyartea** dugu<sup>1138</sup>, eta 1801ean **Boiorte**a<sup>1139</sup>.

1131 AV, 78. or.

1132 STPVN, 37. or.

1133 PRA-Kaseda, 12. k.

1134 Herri-etimologia batez ere pentsa liteke, baina fetxa honetarako Eslaban euskaraz ez zela egiten uste dugu (ikus **Euskararen mugak** atala).

1135 PRA-Oibar, 98. k.

1136 Id., 25. k.

1137 PRA-Kaseda, 5. k.

1138 PRA-Oibar, 77. k.

1139 Id., 87. k.

Artiedan<sup>1140</sup> eta Undion<sup>1141</sup> **Poiu** agertzen da, azken herri honetan **Puiu**-reki-ko txandaketan. **Puiu** edo **Puio**, esan bezala, Orbako **Pueyo** herriaren euskal izena da, eta **Zaren** ere azaltzen da, **Puio** eta **Puieta** izenetan (latineko **podiu**-ren eratorrien inguruan ikus Galipentzuko **Puyalato** sarrera). Eslabako **Boiu** euskaraz jatorra den hasierako kontsonantearen ahostuntzea nozitu duen **Artieda** eta **Undioko Poiu** horien aldakia da.

**Boiuartea Camino de Gezari, Alto de Boiugain, Gezari eta Xubingoa**-ren artean dago.

**Boiugain (alto de), (cuesta de):**

**Boiu** (ikus aurreko sarrera) eta **gain**-ez osatua dago, eta goian lautadatxo bat duen **gain** edo mendikoa izendatzen du, ideia bera bi aldiz errepikatuz<sup>1142</sup>. **Cuesta de Boiugain** muinoko aldapa izanen zen, beharbada egun **San Pedro** deritzan eremu bera (cf. **Lergako Burlon / Burlonaldapa**):

“otra pieça en la questa de boiugai” (1644)<sup>1143</sup>

Artikuluaz nahiz artikulurik gabe aurkitzen dugu dokumentazioan:

“ytten otra piª en boiugaña” (1613)<sup>1144</sup>

“la una (pieza) en el termino de bojugayn” (1656)<sup>1145</sup>

1717an **Baygaña** dugu<sup>1146</sup>, 1768an **Boigain**<sup>1147</sup>, eta 1834ean **Boygan**<sup>1148</sup>. Egun **Bongain** [boŋájn] esaten da.

**Boiuartea, San Pedro, La Tejería eta Gezari de arriba**-ren artean dago.

**Boiuondoa:**

**Boiu**-ren ondoko alderdia zen:

“una viña...en la endreçera llamada boyondo” (1596)<sup>1149</sup>

1140 “una pieza...en el termino de Poyu”, Agoizko hipotekak, 3, 329. or., 1850. Honen ordaina den **Pueyo** ere azaltzen da, liburu bereko 332. orrialdean. Dermio hau Erdi Aroan bertan izan zen herririk baten udalerraren parte da. J. Gárriz honela mintzo zaigu *Despoblados* laneko 24. orrialdean: “Pueyo o San Gregorio, lindante con Artieda, fue repartido entre los próximos lugares de San Vicente, Grez y Artieda”.

1141 J. Jurío, TCPCC, 447. or. **Poyu gaña** edo **Puyu gaña** da azaltzen den toponimoa.

1142 Daitekeena da, alabaina, **-gain** kasu honetan **Boiuartea** biziarekiko eta ustezko **\*Boiuepa** (cf. **Boiuondoa**) batekiko kontrajarpenez sortu izana. Gaurregun eslabarrek ez dute izenaren esanahia ezagutzen eta erdarazko **alto de gaineratzen** diote, errepikapena (honelakorik bazegoen) areagotuz.

1143 PRA-Oibar, 24. k.

1144 Id., 13. k.

1145 Id., 27. k.

1146 PRA-Kaseda, 18. k.

1147 PRA-Oibar, 67. k.

1148 PRA-Kaseda, 53. k.

1149 PRA-Oibar, 9. k.



Behin edo beste genitiboaren morfema duela dirudi (ikus **Atalaiondoa** aztertzean esan dena):

“una viña...en...(la) endreçera llamada boyonondoa” (1608)<sup>1150</sup>

### Boiuportillua:

**Boiu** alderdiko portilua zen:

“otra pieça en bojportillua” (1652)<sup>1151</sup>

### Bueltagunea:

**Buelta** ‘bihurgunea’ eta **gunea** ‘tokia’ osaturik dago ‘bihurgunea’ adiera duen hau (cf. erdarazko **La Revuelta**):

“Ms otro (linar)...en Bueltagunea” (1778)<sup>1152</sup>

1801erako itxuragaiztotuxea zegoen:

“una pieza en...Bueltabunea”<sup>1153</sup>

Eta gaurregun zeharo ezezaguna da. Kokagunearen gainean ikus **Linares bajos** sarrera.

**Buelta**-ren euskal toponimiako beste lekuko bat **Arakil-Ekain** bizirik dagoen **Bueltabidea** da. Orbaran aldiz **Biurguneta** dugu 1916ko katastroan.

### Burugain:

Behin bakarrik ediren dugu, 1687an, eta baliteke **Boiugain**-en aldaera (desitxuratu?) bat besterik ez izatea:

“otra pieza en burugain” (1687)<sup>1154</sup>

Guztiarekin, **buru-** **muru-** ‘gain’-en (cf. **Lergako Muru**, **Murubitarte**, **Murugibel**, **Muruguti**) aldaera ere izan liteke, **buno muno** ‘muino’-rena den bezala.

### Butzuandia:

**Butzu** eta **handia** ditugu hemen:

“Mas otra (pieza) en Buzuandia de quatro Rovas afra a Barranco Concegil” (1771)<sup>1155</sup>

Honen kokagunearen inguruan ikus hurrengo sarrera.

1150 Id., 16. k.

1151 Id., 26. k.

1152 PRA-San Martin, 53. k.

1153 PRA-Oibar, 87. k.

1154 PRA-Kaseda, 4. k.

1155 PRA-San Martin, 50. k.

**Butzuandialdea:**

Butzuandia-ren inguruko eremua zen, **Barranco de Lergabidea**-ren eta **Atalaiondoa**-ren aldamenekoa:

“otra pieza...en buzuandialdea teniendo a...Barranco concegil” (1684)<sup>1156</sup>

“Mas otra pieza de siete quartales en Buzuandialdea o atalaiondoa” (1753)<sup>1157</sup>

**Butzueta:**

**Butzu** izena eta **-eta** atzizkia ditugu beste batzuetan **Butzuketa** edo **Butzuetan** ohi den honetan:

“otra viña en buçueta” (1656)<sup>1158</sup>

**Butzuketa:**

**Butzu** eta **-eta** atzizkiaren aldakia den **-keta** ditugu hemen. Lehen lekukoak **-keta**-ren aldaera den **-kieta** du (ikus **-eta** atzizkiari eskainitako atala):

“una pieza...sita en...buchuquieta...q affrenta con...camino q ban a chirria y el ssasso” (1642)<sup>1159</sup>

“otra pieza en buchuqueta” (1644)<sup>1160</sup>

XIX. menderako zeharo itxuragaiztotua ageri da:

“otra pieza...en el termino de Bechiqueta” (1801)<sup>1161</sup>

“otra pieza...en Vichequetas” (1834)<sup>1162</sup>

Kasu honetan garbi dago agerietako **-ch-** horiek euskarazko [c] ordezkatzeko ari direla (cf. **Buçueta** eta **Uxueko Andrebutxo**, **Andrebutzu**-tik aterea azken hau).

Kokalekuari dagokionez, badakigu, 1642ko lekukotasunari esker, ez dela egungo **Los Pozos** bera, **Butzuketa** herriaz beste aldean baitzegoen.

**Buztiña; Buztiñaga:**

Izen hauetan **Ø** / **-aga** txandaketa ezaguna dugu. Esanahia beste toki batzuetan **Buztintza**-ren (cf. **Buztintza Ezporogin**, **Barrio de Buztintza Leatxen**) parekoa da:

“...de la parte de ayessa en buztifña o buztifñaga una pieza” (1705)<sup>1163</sup>

1156 PRA-Kaseda, 2. k.

1157 PRA-San Martin, 2. k.

1158 PRA-Oibar, 27. k.

1159 Id., 24. k.

1160 Id.

1161 Id., 87. k.

1162 PRA-Kaseda, 53. k.

1163 Id., 12. k.

**Buztiñea, barrio de:**

Aurreko toponimo bera dela ematen du. Eslabako auzo baten izena zen:

“un casal...en el barrio llamado buztinea...que se atiende con casales de Ju” de buztina” (1537)<sup>1164</sup>

**Juan de Buztina** Eslabako bizilagunen bat izanzen zen, baina **Buztiña**, **Buztiñaga** eta **Buztiñea** aldaerak ikusita gizonak hartu duke izena auzotik, ez auzoak gizonagandik. Halaber hutsa ere izan daiteke, baina zail da hau sinesten.

**Calera (barranco de), la:**

**La Calera** itxuren arabera toponimoa berria da, guk miatu ditugun agirieta azaltzen ez delako. Hasiere batean kisulabe bat besterik izendatzen ez zuenak inguruko lurak ere adierazten ditu orain, toponimian ohizkoa den hedaketaren ondorioz (cf. Aldeko **La Calera**). Bertan ez dago galtzinalabe-aztarnarik, eta gure informatzaileek alderdi honetan ez dute sekulan horrelakorik ezagutu.

**Barranco de la Calera** **Barranco de Los Pozos** eta **Barranco de Xubingoa**-ren batzetik sortzen da, eta **La Calera** batik bat erreka honen **Errepidea** aldean luzatzen da. Azken honekin ezezik, **Gezari**, **Lezkaduia**, **Baluriaran**, **Xubingoa**, eta **Los Pozos**-ekin ere mugatzen du.

**Calvario (cruz de), el:**

Herri ondoan dago, **Santa Ana**-n, ermita zegoen alderdian. Gurutzea ere bada bertan, **Lergara** doan errepidearen alboan. Aurreneko aldiz 1632an azaltzen da dokumentazioan:

“otra pieza Junto al calbario”<sup>1165</sup>

**Calle baja, la:**

Euskarazko **Barrenginda**-ren ordaina dela dirudi:

“una cassa...en...la endreçera llamada la calle baja” (1596)<sup>1166</sup>

**Calle de medios:**

**Iriarte** euskaldunaren baliokidea dukegu:

“un patio de casa...en la endreçera llamada la calle de medios” (1596)<sup>1167</sup>

**Egun Barrio de arriba** eta **Barrio de abajo** ditugu Eslaban, baina ez dago **Barrio de medios**-ik.

1164 PRA-Oibar, 2. k.

1165 Id., 23. k.

1166 Id., 17. k.

1167 Id., 9. k.

**Calle del Aire, la:**

**Barrio de arriba**-ren adierakidea da gure informatzaileen arabera. Izena, bistan denez, toki haizetsuari izatearen ondorea da. Oibarren oihezkiari dagoen **El Paco**-ren ondoko **El Cierzo** edo **El Barrio del Cierzo** dugu, eta euskaraz haize osagaia duten leku-izenak ez dira ezezagunak.

**Calle Mayor, la:**

Eslabako kale nagusia **Barrio de abajo**-n dago. Taberna ondoan hasi, eta **Los Maingos**-en barrena “**Casa del Zapatero**” izeneko etxearen azpiko alderaino luzatzen da.

**Camino bajo de Lerga, el:**

Eslabatik Lergara joateko bi bide ziren: **Bidezarra** edo **Camino bajo de Lerga** izena zuen hau (**Camino de Atalaiondoa** bera), eta oraingo errepidearen ibilbide bertsua zuen **Lergabidea** goragotik. Goitik, **Zubialdea**-tik, bazen hirugarren bat, baina hau Agezakoei erabiltzen zuten, ez Eslabakoei.

**Camino bajo de Lerga**-k **Barranco de Sortengortea** gurutzatzen zuela dirudi, hau da, **Aldeko muga**n hasi eta **Barranco de Lergabidea**-ra doan erreka toa:

“ytten...en el barranco de satengortea començando el camino baxo que ban a Lerga” (1587)<sup>1168</sup>

**Camino de Abaiz, el:**

Euskarazko **Abaizbidea**-ren baliakidea da:

“otra pieca en la endrecera llamada Camino de abayz” (1601)<sup>1169</sup>

**Camino de Abaiz a Caseda:**

Euskaraz **Errepidea** esaten zitzaion bide honi, eta **Camino de Abaiz a Sangüesa** bera izan zitekeen, zati batean bederen:

“...en el termino de Repidia...thente a camino real de Abaiz para Caseda” (1820)<sup>1170</sup>

Epaiztik **Kasedara** joateko biderik laburrena **Galipentzuko Camino de los Molinantes**-ekin bat egiten duena da, baina mintzagai dugun hau beste bat zela dirudi.

**Camino de Abaiz a Sangüesa:**

Aurreko bera zen, Eslabako zatian behinik behin. **Errepidea**-rekin identifikatzeko arazorik ez dago:

1168 Id., 3. k-bis.

1169 Id., 10. k.

1170 PRA-San Martin, 82. k.

otra viña en..ezpondabea...que afrenta...con el Camino Real que ban para Sangüesa desde Abayz” (1589)<sup>1171</sup>

Lergan Txutxu-tik San Gines-a doan eta Camino de Tafalla deritzan bera da.

#### Camino de Altxirria, el:

Lerga eta Uxueko Altxunbidea bera da hau, alegia, Bizkaitik Lerga eta Eslabaren arteko fazeriaren albotik Lergara lehenik eta Uxuera gero sartzen den ardibidea (cf. Zareko Altxirribidea):

“un pedaço tenían façeria entre las villas de Lerga y eslab a cara sol agua vertiente del camino de alchirria” (1611)<sup>1172</sup>

#### Camino de Arangaitz, el:

Beherago Camino de los Linares eta gorago Camino de la Virgen edo Camino de Elkea deritza.

#### Camino de Artadubarren:

Egun Camino de Otubarren bilakatu da. Honen eta Camino de Gallipienzo-ren erdian Ezpelketa zegoen (ikus sarrera hau).

#### Camino de Artamaldeta:

Camino de Gallipienzo-tik, Barranco de Artamaldeta-ren paretik, Zaldinaga eta Galipentzura doa, eta hemendik Uxueko Zaldunaga-ra. 1613an ediren dugu aurrenekoz:

“otra pieza en el camino de artamaldetta” (1613)<sup>1173</sup>

#### Camino de Arteta:

Bizkaiko herrira doa, Larrasoil-en zehar:

“una pieza en el terno de Larrasoil q afronta a...camino de Arteta” (1772)<sup>1174</sup>

Baliteke Camino de Pamplona bera izatea, baina hau Julion gaindi ere joan zitekeen.

#### Camino de Atalaiondoa, el:

Bidezarra, Bidezaretta, edo Camino bajo de Lerga-ren zati bat da, hain zuzen ere Bidezaretta-tik Atalaiondoa eta Euntzeberri-renartetik (ikus Camino de Euntzeberri sarrera) Aldea eta Lerga aldera doana.

1171 PRA-Oibar, 4. k.

1172 IEA, 515. kart., 29. zkia., 44. org.

1173 PRA-Oibar, 17. k.

1174 PRA-San Martin, 50. k.

**Camino de Ayesa, el:**

El Sasico eta La Tejería-n barrena doa, Tastaran eta Gezari-ren artetik. Orain ezezaguna den Karkareta-tik igarotzen zen<sup>1175</sup>:

“una pieça en la endreçera llamada carcarea afrontada...con camino rreal que ban desde la dca villa al lugar de Ayessa” (1584)<sup>1176</sup>

**Camino de Ayesa a Lerga:**

Zazuburua, Etxeberri, Artatzealdea eta Zubialdea-n barna doa egun ezabatuxe dagoen hau:

“ytten otra piº en echaberri... que afrenta con camino que los de Ayessa ban a Lerga” (1602)<sup>1177</sup>

**Camino de Ayesa a Tafalla:**

Aurreko bera izan zitekeen, baina Artadua-n zehar Epaiz eta Tafallara zihoa-na ere bai (ikus Senda de Ayesa a la Lecinosa):

“otra pieza...en el Cabezo del Saso, teniente al monte del termino, y camino que de Ayesa dirige á tafalla” (1797)<sup>1178</sup>

**Camino de Azterain, el:**

Gaurko Camino del Monte (de Azterain) (Camino de Moriones aurrerago) bera da:

“un linar en los lineares de arriua teniente con camino que ban a Zaldua y camino que ban a Astiriain” (1690)<sup>1179</sup>

**Camino de Baluriaran, el:**

Artxilabe-n gaindi doa mando-bidexka hau. Ez du irtenbiderik, eta La Cale-  
ra-ra iritsi aitzinetik amaitzen da.

**Camino de Bidaburua, el:**

Bidaburua bera zen:

“y pasando mas adelante por del dco Camino de bidaburua” (1612)<sup>1180</sup>

---

1175 Carcareta berezko leku-izena edo Kaskallueta-ren desitxuraketa den ez dakigu (ikus Karkareta sarre-ra).

1176 PRA-Oibar, 3. k.

1177 Id., 10. k.

1178 Id., 82. k.

1179 PRA-Kaseda, 5. k.

1180 PRA-Oibar, 14. k.

**Camino de Bidezarra:**

**Zerradogibeleta-n** zehar zihoan:

"...un oilvar...en el termino llamado zerradogibeleta que alinta a cerrado de Joseph Jandua y Camino real de Videzarra" (1756)<sup>1181</sup>

Bide honen inguruan ikus **Bidezarra**, **Bidezarreta** eta **Camino bajo de Lerga** sarreretan dioguna.

**Camino de Elkea, el:**

Beherago **Camino de la Virgen** deitzen dena da.

**Camino de Epaizaran, el:**

Epaizen barrena Tafallara doan bidetik ezkerretara hartu behar da, **Fuente de las Tercianas** deitu iturrian. Esklar batzuk bide honetatik joaten ziren Uxuera.

**Camino de Erbiñaga, el:**

**Paso de Zubialdea-tik** goiti egiten du, **Iguzkun** eta **Erbñaga-rantz**. Badakigu antzina **Bakundi** zeharkatzen zuela:

"otra pi\* en bacundi camino de erviñaga" (1593)<sup>1182</sup>

**Camino de Errepidea:**

**Errepidea Zangozatik Oibarren** zehar Tafallara zihoan bidea zen (ikus **Errepidea** sarrera), hots, **Gezari**, **Errepidea**, **Lezkadui**, **Xauzgun**, **El Soto**, **Ezpondabe**, **Lixuñeta** (?), **Bizkarda** eta **Epaizaran-en** barrena Epaiza zihoana. Herrixka honetatik, **Lergako Txutxu** eta **San Ginesondoa-tik San Gines-a** zihoan, eta hemendik **San Martin** eta **Tafallara**:

"...desde El passo de errotajarra asta la fuente de ezpondabe...asta el Camino rreal de Repidea" (1612)<sup>1183</sup>

Beraz, **Camino de Sangüesa a San Gines** (y **Gallipienzo**) deitu bidearekin identifikatu behar da.

**Camino de Errepidea la alta, el:**

**Zangozabidea** edo **Camino de Gezari** zen:

"en...boyondoa para effetto de abrir y Rettomar la senda que los se Ayessa bana la leçinossa començando en el Camino Real de Repidea la alta se abrio..." (1574)<sup>1184</sup>

1181 PRA-San Martin, 43. k.

1182 PRA-Oibar, 7. k.

1183 Id., 14. k.

1184 Id.

Izenondoak beheragotik zihoan Errepidea-tik bereizten zuen.

**Camino de Euntzeberri, el:**

Camino de Atalaiondoa-ren hastea dugu, alegia, Bidezaretatik hurbile-neko zatia.

**Camino de Euntzeluzea, el:**

Itxuraz Camino bajo de Lerga edo Bidezarra bera zen Larruzkibel-en zehar zihoan hau:

“otra pieça en...LaRuzguibel...que afrenta con el Camino Real que ban a eunçeluzea” (1589)<sup>1185</sup>

**Camino de Gallipienzo, el:**

Camino de Gallipienzo Camino de Artamaldeta-tik Santa Criz eta Dorreta-n zehar Galipentzu aldera doan bideari esaten zaio. Badakigu lehen Errotaxar-etik gertu zegoen Lixuñeta-ko zatiari ere hala esaten zitzaiola:

“Otra pieça...en Lixuñeta...afuerta...con pieca de rroncesballes...y con camino puco q ban los deslaba a gallipienço” (1591)<sup>1186</sup>

Bigarren bide bat Lezkadui-n gaindi zihoan, Galipentzuko Camino de los Molinantes-a (ikus Camino de Lezkadui sarrera).

**Camino de Gallipienzo a Abaiz, el:**

Galipentzun Camino de Abaiz eta Eslaban Camino de Gallipienzo deritza. Dorreta, Santa Criz eta Artamaldeta-ren artetik Bizkarda-n barrera Epaizko Epaizaran-a sartzen da, herrixka honetan Camino de Gallipienzo deitzen denaren bila:

“en el mismo termino...un corral...teniente al Camino que van los de Galipienzo a Abaiz” (1688)<sup>1187</sup>

Bizkarda-n Zangozatic Epaiz, San Gines, eta Tafallara zihoanarekin bat egingen zuen neurri batez oraindik gordetzen den honek.

**Camino de Gezari, el:**

Zangozabidea edo Errepidea la alta-ren Gezari-ko zatia da hau (ikus Camino de Sangüesa sarrera).

---

1185 Id., 4. k.

1186 Id., 5. k.

1187 PRA-Kaseda, 4. k.



**Camino de Iturrizabalaga, el:**

Iturrizabalaga Errepidea aldean zegoen. Bertara joateko bidea Camino de Artadubarren edo Camino del Soto (dokumentazioko Camino del Molino) izan zitekeen (ikus Artaduondoa eta Camino de Sangüesa a San Gines sarrerak):

“otra p<sup>a</sup> en el camino de Yturriçabalaga” (1613)<sup>1188</sup>

**Camino de Julio, el:**

Camino de Los Linares eta Camino de la Virgen-en jarraipena da Bizkaiko Juliora doan hau. Paso de Elkea-tik eskuinetara hartzen da Julioko mugako Portillo de Julio aldera:

“el dho amojonamiento en el terno de Larrasoil...en el camino que se ba a Julio” (1692)

**Camino de la Ermita de Santesteban:**

Jaun Done Eztebe edo Santesteban-i eskainitako ermitara zihoan hau orain Camino de Los Linares deritzana da, antza:

“...termino llamado San Esteban...qe afronta al Monte...y camino antiguo qe se usaba para la Ermita de dho Santo” (1812)<sup>1189</sup>

**Camino de la Fuente, el:**

Herri ondoko La Fuente aldera doa.

**Camino de la Lecinosa:**

Herritik La Fuente eta El Llano-ren erditik, Bidezarreta-n barna gaurko La Venta (lehengo Artadua edo La Lecinosa)-ra doan bidea da dokumentazioko hau. Artaduburua edo Alto de La lecinosa-tik La lecinosa (Artadua)-ra zihoan:

“una viña en...Artaduburua...tteniente a Camino que ba a la enzinoso” (1764)<sup>1190</sup>

**Camino de la Lecinosa a Abaiz, el:**

Camino de Abaiz edo Abaizbidea bera genuen:

“...camino que ban a Abaiz de la lezinossa” (1753)<sup>1191</sup>

**Camino de la Lecinosa a Baluriaran, el:**

La Venta aldetik Baluriaran eta La Calera-rantz doan bidea izan zitekeen, edo agian Camino de Artadubarren:

1188 PRA-Oibar, 17. k.

1189 PRA-San Martin, 77. k.

1190 PRA-Oibar, 65. k.

1191 PRA-San Martin, 42. k.

“los dcos mojones haçen dibision del camino que ban de la leçinosa a baluriarana”  
(1587)<sup>1192</sup>

#### Camino de la Lecinosa a Lerga, el:

Camino bajo de Lerga edo Bidezarra zen, itxuraz:

“...camino Real que ban para Lerga de la leçinosa...” (1587)<sup>1193</sup>

#### Camino de la Lecinosa a Sarga:

Artadugibela-tik abiatzen edo igarotzen zen:

“una p<sup>a</sup> faitia en...artaduguibela...affr con camjo q ban de la lezinosa a Sarga”  
(1570)<sup>1194</sup>

Dena dela, Sarga non zegoen ez dakigu<sup>1195</sup>.

#### Camino de la Virgen:

Camino de Arangaitz eta Camino de Elkea bera da:

“...camino que va a la Virgen” (1831)<sup>1196</sup>

#### Camino de Lardua, el:

Zaldinaga barruko bidexka zen, Lardua dermio horretan baitzen:

“en el camino que se va a Larduya en el termino de Zaldinaga” (1692)<sup>1197</sup>

#### Camino de Larrasoil, el:

Monte de Zaldua eta Elketxipia-tik Larrasoil-a zihoan:

“prosiguiendo el dho Amojonamiento en elquechiquia teniendo al monte de Zaldua...y Camino que ba a Larrasoll” (1692)<sup>1198</sup>

#### Camino de las Fuentes, el:

Herritik, Las Fuentes-en erditik, Hoyo del Saso aldera doan bidearen hasiera dugu hau, herritik Barranco de Zabalzigar-aino doana.

---

1192 PRA-Oibar, 3. k-bis.

1193 Id.

1194 Id., 2. k-bis.

1195 Sarga aldi bakar batez ediren dugu, eta Lergan izen bereko dermioa izan arren, baliteke Eslabakoa nahasketaren fruitu izatea, alegia, irakurketa faltsu baten ondorea. Izan ere, Sangüesa sarritan Sanga laburtua azaltzen da agirietan, eta erraza da n-ren ordeztu irakurtzea, aipatu Lergako izenaren eraginez edo.

1196 PRA-San Martin, 87. k.

1197 PRA-Kaseda, 6. k.

1198 Id.

**Camino de las Parcelas, el:**

**Fuente del Serenado**-tik goiti, mende honen hasieran **Los Fayales** aldean ziren partzeletara zihoan. **Portillo de Julio** aldetik beheragoko beste partzela batzuetarako bide-zigorra abiatzen zen. Orain dena lerrez estalia dago.

**Camino de Lerga, el:**

**Camino de Ayesa a Lerga** bera da (ikus **Artatzealdea** sarrera).

**Camino de Lezkadui, el:**

El **Lezcal** eta **Xauzgun** aldera doan **Camino del Molino** zen, irudiz. Errotan Galipentzuko **Camino de los Molinantes**-ekin lot zitekeen:

“desde la fuente de yturricabalaga asta el mojón de gallipienzo...que es el camino y senda que ban a lezcaduya y deaya la billa de gallipienzo” (1612)<sup>1199</sup>

**Camino de los Linares, el:**

**Herritik Los Linares** eta **Arangaitz** aldera doa.

**Camino de Moriones, el:**

**Camino del Monte** (de **Azterain**) bera da.

**Camino de Ozteriz, el:**

**Ozteriz**-en barrena **Xubingoa**-ra doa.

**Camino de Pamplona, el:**

**Camino del Monte** edo **Camino de Arteta** bera da, alegia, **Arangaitz** eta **La Virgen**-en gaindi **Artetara**, eta hemendik, **Getadar** eta **Sabaitzan zehar**<sup>1200</sup>, **Abintzaora** doana:

“campo del monasterio de S.Bernardo de Marcilla en termino de Arangaiz teniente con camino real para la ciudad de Pamplona y con el monte de la villa” (1723)<sup>1201</sup>

**Camino de Presaldea, el:**

**La Venta**-tik **Zurbaran**, **Artadubarren**, **Presaldea** eta **Ezpondabe**-ren artetik antzinako beheko **Zubialdea** edo **Puente de Los Linares**-a (**Lixuñeta**-ra) doa.

1199 PRA-Oibar, 14. k.

1200 Herri honetako **El Fayal** (mendia) eta **Portillope** dermioetan gaindi zihoan, azken honetatik **Abintzaora**.

1201 IEA, 1765, 8, 869. or.

**Camino de Sangüesa (cruz de), (debajo de), el:**

Dokumentazioko **Zangozabidea** edo **Errepidea la alta** da egungo hau. Herri ondoan **Camino de Sangüesa** esaten zaio, eta aurrerago **Camino del Puente viejo**, **Camino de Xauzgun** eta **Camino de Gezari** izenak hartzen ditu:

“la dha pieza...en el terno llamado cascalleueta...teniente a Camino que se ba a Sangüessa” (1695)<sup>1202</sup>

Gurutzea herriko irteeran zegoen. Oraingo **La Cruz** toponimoak horretan du sorburu:

“la pieça...Juntto a la cruz del camino de sangüesa” (1639)<sup>1203</sup>

**Debajo del Camino de Sangüesa**, esan beharrik ez dago, aztertzen ari garen bidearen azpiko aldea zen, eta seguru asko dokumentatzerik izan ez dugun **\*Zangozabidepea** baten erdaratzearen fruitu zen (cf. **Bidapea**). Herri ondoan zegoela dirudi:

“una era en la endrecera llamada debaxo el camino de sangüessa” (1614)<sup>1204</sup>

**Camino de Sangüesa a San Gines, el:**

**Errepidea** bera zen (ikus **Iturrizabalaga** sarrera).

**Camino de Santa Criz, el:**

**Errotaxar-etik Santa Criz** aldera doan **Camino de Gallipienzo** zen:

“en el mismo barranco de Rotaxarra para el camino de San Criz y el monte” (1587)<sup>1205</sup>

**Camino de Santesteban:**

**Zubialdea-tik Los Linares (altos)-en** zegoen **Santesteban** edo **Jaun Done Eztebe-ko** ermita eta dermiorako bidea zen:

“...en Zubaldea, qe afronta a...camino de San Esteban, y otro qe baja de la virgen para la Fuente” (1831)<sup>1206</sup>

**Camino de la Ermita de Santesteban** bera zatekeen.

**Camino de Tafalla, el:**

**Errepidea-ren** esanahikidea da, hots, dermio honetan barrena (**Errepidea-n** barrena) **Epaiza**, eta herrixka honetatik, **Txutxu** gurutzatu ondoan, **Lergako San Gines-a**, **San Martin** eta **Tafallara** (ikus **Lergako Camino de Tafalla** sarrera) doan bidea.

1202 PRA-Kaseda, 8. k.

1203 PRA-Oibar, 23. k-bis.

1204 Id., 14. k.

1205 Id., 3. k-bis.

1206 PRA-San Martin, 87. k.

**Camino de Txirria, el:**

El Saso-ra doa, Txirria-n zehar (ikus Butzuketa sarrera).

**Camino de Ujué, el:**

Uxubidea euskaldunaren itzulpena zen:

“otra pieza en la endreçera llamada en el camino de Uxue” (1593)<sup>1207</sup>

**Camino de Uxubidea:**

Camino de Ujué edo Uxubidea bera zen (ikus azken sarrera):

“otra pieza en el camino de ussubidea...teniente a Camino que ba a la lezinossa” (1681)<sup>1208</sup>

**Camino de Xauzgun, el:**

Camino de Artadubarren edo Camino del Soto-tik ezkerretara doa, Xauzgun aldera.

**Camino de Xubingoa, el:**

Herriaren ondoan Camino de Sangüesa eta Agezako muga aldean Camino de Gezari deritza.

**Camino de Zaldinaga, el:**

Camino de Gallipienzo-tik Zaldinaga aldera egiten duen bidea da hau, Camino de Artamaldeta bera:

“...camino que ban a Zaldinaga” (1711)<sup>1209</sup>

**Camino de Zaldua, el:**

Arangaitz eta behialako Zaldua-ra doan Camino de Elkea da. Antzinako Irizarra eta Los Linares (altos)-etik igarotzen da (ikus Camino de Azterain sarrera):

“una pieza...en la endreçera llamada yricarrea que esta afrontada con Camino que ban a Caldua” (1584)<sup>1210</sup>

**Camino de Zubialdea, el:**

Camino de Ayesa a Lerga-ren Zubialdea-ko zatia da.

---

1207 PRA-Oibar, 7. k.

1208 PRA-Kaseda, 1. k.

1209 PRA-Oibar, 32. k.

1210 Id., 3. k.

**Camino del Castillo, el:**

Herrian bertan zegoen **El Castillo** edo **Gaztelu(zarra)-ra** zihoan:

“una Hera...thente al comun del Castillo y calle publica y Camino para dho castillo”  
(1784)<sup>1211</sup>

**Camino del Chaparro:**

**Arangaitz-etik El Chaparro** (lehengo **Txaparra** edo **Arangaizko Txaparr(ondo)a-ra** zihoan:

“...en el termino de Arangaiz teniente a...camino para el Chaparro” (1820)<sup>1212</sup>

**Camino del Hoyo del Saso, el:**

**Barranco de Zabalzigar-aino Camino de las Fuenticas** deritzan bide bera da, hots, **Hoyo del Saso-ra** doana.

**Camino del Molino, el:**

**Los Pozos de Aguar Lino** (oraingo **Los Pozos?**) eta **Baluriaran-en** gaindi **Galipentzuko** mugan zegoen **Molino de Unzue-ra** zihoan:

“viña de la religion de san Juan en Baluriain teniente al camino para el molino”  
(1723)<sup>1213</sup>

“Ms otra pieza...junto a la lecinosa que afronta a...camino del Molino...y con pozos de aguar lino” (1756)<sup>1214</sup>

Oraingo **Camino del Molino Faitía de San Juan** deitu larratzean hasten den **Camino de Xauzgun-en** jarraipena da, eta **Galipentzuko** mugako errotaraino doa.

**Camino del Monte:**

**Camino del Monte** izenaz Eslabako mendi ezberdinetara zihoazen bideak ematen ziren aditzera antzina, eta hau dela kausa deizio hau nahasgarria izan daiteke: **Camino de Pamplona**, **Camino del Monte de Zaldua**, edo **Camino de Zaldua** (ikus bi sarrera hauek) izenda zezakeen, baina **Camino de Azterain** edo **Camino del Monte de Azterain**, **Camino de Zaldinaga** edo **Camino del Monte de Zaldinaga** (ikus **Errotaxar sarrera**), eta **Camino del Monte de Xaugizabal** ere bai (ikus **Xaugizabal sarrera**).

Hau dela eta, behin baino gehiagotan ez dakigu zein mendi den halako agiritan azaltzen dena, duda gehienetan **Monte de Azterain** eta **Monte de Zaldua-ren** artean sortzen delarik, **Zaldinaga-koa** beste muturrean egonik errazagoa baita testuinguruan oinarrituta bereizten:

---

1211 Id., 73. k.

1212 PRA-San Martin, 82. k.

1213 IEA, 1765, 8, 872. or.

1214 PRA-San Martin, 43. k.

“pieza en el termino nombrado de San Esteban que se atiene al camino para el monte”  
(1723)<sup>1215</sup>

**Egungo Camino del Monte Camino de Azterain da.**

#### **Camino del Monte de Tastaran:**

**Camino de Ayesa-tik Tastaran aldera abiatzen zen bidexkaren bat izan behar zuen:**

“...camino qe ba al monte de Trastan...” (1831)<sup>1216</sup>

#### **Camino del Monte de Zaldua:**

**Camino de Zaldua bera zen:**

“...en el termino llamado los linares...teniente a...camino que ban al monte de zaldua”  
(1681)<sup>1217</sup>

#### **Camino del Prado, el:**

**Errepidea zen (ikus Prado sarrera).**

#### **Camino del Puente viejo, el:**

Izen bereko dermiotik doan bidea dugu hau, alegia, **Camino de Sangüesa** edo **Camino de Xubingoa**.

#### **Camino del Saso, el:**

**Bide honen ondoko alderdiari Bidaburua zeritzan:**

“Mas otra pieza en videburua que afronta a...camino del Sasso” (1753)<sup>1218</sup>

**Bideari berari Bidertxia esaten zitziola dirudi, baina hau ez da segurua (ikus sarrera hau).**

**El Saso-ra Butzuketa (ikus sarrera hau) eta Txirria-n barna ere joan zitekeen.**

#### **Camino del Soto, el:**

**Camino de Artadubarren-en jarraipena da, hots, Artadubarren-en zehar, Ezpondabe eta Xauzugun-en artetik, El Soto-ra (lehengo Zaldua-ra) doan bidea. Camino del Soto izena behinolako Ezpelketa-n dagoen Faitía de San Juan-en hartzen du normalean, baina batzuetan Camino de Artadubarren-i berari ere Camino del Soto izena ematen zaio.**

1215 IEA, 1765, 8, 871. or.

1216 PRA-San Martin, 87. k.

1217 PRA-Kaseda, 1. k.

1218 PRA-San Martin, 42. k.

**Caminos de Entreviñas, los:**

Artadubarren-en zehar, alderdi honetako ardantzeen artetik, Alto de Ezpondabe edo Ezpondabeburua aldera doazen bidexkak dira hauek.

**Campo de Reta:**

“Casa de Reta”-ren ondoko landa da. Zalantzarik gabe hau da azken katastroko Campocasa asmatua. Herriaren, Etxeberri-ren eta Alto de Jandua-ren artean dago.

**Castillo (barrio de), (común de), (cuesta de), (junto a), el:**

El Castillo edo Gazteluzarra herriaren goreneko alderdian zegoen, Irigoiena edo Barrio de arriba-n. Barrio del Castillo elizaren ondoko auzoa zen:

“una casa vezinal...en el barrio del Castillo enfrente a la Yga” (1717)<sup>1219</sup>

Común del Castillo gazteluaren inguruko auzalurrea zen (ikus Camino del Castillo sarrera), Cuesta del Castillo<sup>1220</sup> bertara igotzeko aldapa, eta Junto al Castillo, azkenik, gazteluaren aldameneko alderdia. Euskarazko Gazteluondoa-ren ordaintzat jo daiteke:

“una casa...en la endreçera llamada Junto al castillo” (1593)<sup>1221</sup>

**Castillo viejo, el:**

Gazteluzarra-ren ordaina dugun El Castillo viejo elizaren ondoan zegoen, dirudienez Casa de Don José deitu etxean. Eraikuntza eta toponimoa galdu dira, eta egun eslabarrek ez dute gazteluaren oroitzapenik:

“una casa...situado(sic) en el dho lugar deslaba Junto al castillo biejo” (1569)<sup>1222</sup>

**Cementerio, el:**

Santa Bárbara ondoan dago, gibelego aldean, lerdin baten alboan.

**Cerrado, el:**

Abaizbidea-ren ondoko ardantze baten izena zen, eta Cerrado de Patricio-rekin ezin identifika badaiteke ere, ez zen oso urruti egonen:

“una vina...que llaman el Zerrado teniente a...Camino que se ba a...Abaiz” (1763)<sup>1223</sup>

Zerradogibela edo Zerradogibeleta-n dugun zerrado bera izan zitekeen.

1219 PRA-Kaseda, 18. k.

1220 PRA-San Martin, 43. k.

1221 PRA-Oibar, 7. k.

1222 Id., 2. k-bis.

1223 Id., 65. k.



**Cerrado de Bariaín, el:**

Ikus hurrengo sarrera.

**Cerrado de Patricio, el:**

**Cerrado** edo **zerradoa**-ren adieraz ikus Morionesko **Cerrado** sarreran dioguna. Eslaban zerraki horiek gogora dakarzkiguten bi dermio txiki ditugu orain herri ondoan: "Casa de Patricio"-rena zen **Cerrado de Patricio Fuente vieja** eta **El Pocico** aldean, eta Bariaín deiturako norbaitek lurrak zituen **Cerrado de Bariaín Camino de Gezari** eta errepidearen artean.

Lehenbiziko zerradoan zegoen **La Fuente vieja La Venta**-n bizi omen ziren fraileena zen; bertan harri pikatuko putzua eta zeramikako hodia daude, "lehenengo zaharren esanetan".

**Cerrados, detrás de los:**

Euskarazko **Zerradogibela** edo **Zerradogibeleta**-ren erdarazko ordaina da hau. Testuinguruak erakusten duen moduan, **Prado de Euntzeberri** ondoan zegoen:

"una Pieza...en el termino que llaman detras de los cerrados Juntto al prado de Eunzeberri" (1758)<sup>1224</sup>

**Cerro de la Villa (parcelas de), el:**

Herri-mendia den hau **Elkea** eta **Elketxipia**-tik hurbil dago, eta dokumentazioko **Monte de la Villa**-ren adierakidea dela dirudi (ikus sarrera hau eta **Camino de Pamplona**), antzinako **Monte de Zaldua** alegia.

**Corral redondo, el:**

Dokumentazioan ez dugu aurkitu, eta izen berria dela uste dugu (ikus **Laruzkain** sarrera). Herri ondoan dago, **Santa Ana**, **La Revuelta**, eta **Lergabidea**-ren artean.

Izena lehen bertan zegoen gorte biribilari zor zaio.

**Corraliza:**

Bi "Corraliza" daude Eslaban: behekoa eta goikoa. Bien arteko muga Lergako errepideak egiten du lehenik eta **Zangozabidea**-k gero.

**Coseras, las:**

Herri baten inguruko lurrak izendatzeko erabili izan da **Coseras** edo **Corseras** (ikus Agezako **Coseras** eta Lergako **Co(r)seras**). Eslaban, **Uxue** eta **Agezan** bezala, **Coseras** agertzen da, **Galipentzuko Corseras**-ren ordeztu.

1224 PRA-San Martín, 44. k.

“otro Huerto...en...las Coseras” (1791)<sup>1225</sup>

Gure informatzaileek toponimoa ezagutzen zuten, baina ez zekiten zehazki kokatzen. Edozein modutan, herri ondoan egon behar zuela zioten.

**Costera, la:**

La Virgen-eko aldapa da. Beste batzuetan La Costera de la Virgen esaten zaio (cf. Galipentzuko Las Costeras).

**Costera de la Virgen, la:**

Ikus aurreko sarrera.

**Cruz, la:**

Herri ondo-ondoan dago alderdi hau, Camino de las Fuentes eta Camino de Ayesa-ren artean. Izena Zangozabidea edo Camino de Sangüesa-n zegoen gurutzetik hartu du (ikus Camino de Sangüesa sarrera). Egun Eslaban dagoen gurutze bakarra El Calvario-koa da (ikus sarrera hau), eta badirudi Zangozabidea-koa gure mende honetarako desagertua zela, hirurogei urtetik goiti dituzten gure informatzaileek ez baitute ezagutu.

Campo de Reta, Las Fuentes, El Saso, El Sasico, Kaskallueta eta El Llano-rekin mugatzen du.

**Chaparro, el:**

Behialako Txaparra edo Arangaizko Txaparr(ondo)a euskaldunaren balio-kidea da, eta honek bezala txapardi oso bat ematen du aditzera, ez txapar bakarra. Gauza bera gertatzen da Morionesko Txaparra, Txaparrarana, eta Txaparbazterra-rekin (ikus sarrera hauek)<sup>1226</sup>:

“una pieza...en el termino q llaman el Chaparro” (1760)<sup>1227</sup>

El Chaparro (El Chaparral itxuraz ere azaltzen da behin edo beste azkeneko katastroan) Barranco de Elkea edo Barranco de la Virgen eta Barranco de Erbiñaga-ren artean dago, Erbiñaga, Xaugizabal eta Arangaitz-eko mugan (ikus azken toponimo hau).

**Depósito, el:**

Alto de Santa Bárbara-n dago, herriaren goreneko alderdian beraz, ermitaren ondoan. Paso de Arangaitz-en urbiltegi berria eraiki zuten orain urte gutxi batzuk, idorte-urteetan herrian ura izateko.

1224 PRA-Oibar, 76. k.

1225 Aezkoa-Hiriberrin oihan oso bat izendatzen duen Ezpelea dugu.

1226 PRA-Oibar, 60. k.

**Don Pedoren saratsa; Donpedrorensaratseta:**

Hemen berriz ere Ø / -eta baliokidetasuna dugu, bi izen horiek alderdi bera adierazten zutela ia segurua baita. Osagaiak **don** aposizioa, **Pedro** pertsona-izena, **saratsa** zuhaitz-izena, eta -eta (edo Ø) dira. Ez dakigu dokumentazioan sekulan ediren ez dugun egungo **San Pedro**-rekin zerikusirik ba ote duten:

“un pedaco de pi<sup>a</sup>...en la endreçera llamada donpedroren sarasa” (1592)<sup>1228</sup>

“ytten otra pi<sup>a</sup> en donpedrorensaroseta” (1593)<sup>1229</sup>

**Dona Milia:**

1276an dokumentatzen da lehen eta azken aldiz, eta ez dakigu hagonimo baten aurrean gauden ala **dona** “doña” eta **Milia** emakume izenaren aurrean. **Milia** “Emilia” dateke (cf. l > r pausoaz \***Done Emili** batetik atera bide den **Oletako Donemiri** toponimoa<sup>1230</sup>):

“...alia vinna que se tiene/a la pieça de dona Milia”<sup>1231</sup>

**Dorreondoa (barrio de):**

**Dorre** eta **ondoa**-z osaturik dago XVIII. mendearen bukaera alderako **Rondondua** (1780)<sup>1232</sup> edo **Rodondoa** (1793)<sup>1233</sup> bilakatua zen hau (cf. Uxueko **Dorrondiaga** > **Redondiaga**). **Dorreondoa** auzoa **Zangozabidea** eta **Camino del Saso**-ren artean zegoen:

“una Cassa...en esta dha Va y Varrío q llaman Dorrondoa thente a cassa del Cabildo” (1764)<sup>1234</sup>

“una casa...en la endreçera llamada Doreondoa con un Guerto alado y Calles publicas” (1766)<sup>1235</sup>

Kokalekua aintzat harturik egungo **Casa de Reta**-rekin identifika liteke apika.

**Dorreta (barranco de), (fuente de), (juncal de), (portillada de), (portillo de):**

Gaur **Dorretas** [dořétaš] bilakatu den honetan **dorre** izena eta -eta ditugu. Aurkitu txanpon, gezi eta harriek bertan despoblatua izan dela idarokitzen dute:

“...temjo llamado dorreta” (1570)<sup>1236</sup>

1228 Id., 6. k.

1229 Id., 7. k-bis.

1230 **Donemjri** aldaera dugu 1535ean (PRA-Oibar, 2. k.). Cf. **Millia de Aranarax** Iturgoienen, 1568. urtean. PRA-Lizarra, 1. k.

1231 *El Gran Priorado*, 469-470. orr.

1232 PRA-Kaseda, 30. k.

1233 PRA-Oibar, 77. k.

1234 Id., 62. k.

1235 Id., 63. k.

1236 Id., 2. k-bis.

**Barranco de Dorreta Zaldinaga-n sortu eta Barranco del Soto-raino doan ubidea da:**

“...asta el barranco de dorreta y para ello pusieron mojones de la parte de çaldinuaga” (1587)<sup>1237</sup>

**Fuente de Dorreta dermioko errekan dago, Barranco del Soto-tik hurbil. Juncal de Dorreta Camino de Gallipienzo-ren ondoko alderdia bide zen:**

“y por la parte del monte asta el juncal de dorreta” (1587)<sup>1238</sup>

**Portillada edo Portillo de Dorreta, azkenik, euskarazko Dorretako portillua edo Dorretaportillua-ren erdal ordaina da. Aipatu Camino de Gallipienzo horretan dago, auzo herriko mugan:**

“una pieca en la portillada de dorretta” (1602)<sup>1239</sup>

**Dorreta-k El Soto, Santa Criz, Zaldinaga, Beragu eta Galipentzurekin mugatzen du.**

**Dorretako portilua:**

**Dorreta toponimoa, -ko leku-genitiboa, eta portilua ‘atea’ ditugu hemen. Esan bezala, erdal Portillada de Dorreta bera da:**

“otra piª...en la endrecera llamada dorretaco portillua” (1601)<sup>1240</sup>

**Dorretaportillua:**

**Aurreko bera dugu:**

“...y en dorretaportillua otra pieça” (1587)<sup>1241</sup>

**Elkea (balsa de), (barranco de), (hoyo de):**

**Elkea-k ‘alor landua’, ‘alor iraulia’ adiera dauka (cf. Galipentzuko La Elka toponimoa). 1602an beste toki batzuetan arrunta den Elgea aldaera aurkitzen dugu (cf. Gipuzkoako Elgeta herri-izena):**

“otra piª en elguea...que afrenta con camino puco y con el montte”<sup>1242</sup>

**Dena dela, Elkea eta Elketxipia ere badugunez, 1602ko belare ahostuna nahasketa baten fruitu ez ote den pentsa dezakegu. 1596an, gainera, kontsonante ahoska-bedun aldaera agertzen da:**

---

1237 Id., 3. k-bis.

1238 Id.

1239 Id., 10. k.

1240 Id.

1241 Id., 3. k-bis.

1242 Id., 10. k.

“otra pi<sup>a</sup> en elquea” (1596)<sup>1243</sup>

**Elkea** 1850erako **Arkea** bilakatua zen, eta egun ere **Arkea** [ārkea] esaten da:

“otra (pieza)...en el termino de Arquea” (1850)<sup>1244</sup>

**Barranco de Elkea** beheragoko **Barranco de la Virgen** edo **Barranco de Arangaitz** bera da; **Fuente del Serenado**-n du hasiera.

**Elkea**-k ehun bat erreguneurritako hedadura dauka, eta lehen partzelak baziren ere, egun behiak larretzeko prestatua dago. Orain urte batzuk Julioko mugako **Fuente de los Fayales** iturriaren uraz hornitzen den idoi berria egin zuten bertan, aziendentzat.

Dermio honek **Pinar de los Cerros**, **La Virgen** eta **Larrasoil**-ekin mugatzen du.

**Elkea** > **Arkea** pausoa desitxuraketa baten fruitu da, eta ez dago bilakaera hau zehazten duen araurik. **Hoyo de Elkea Elkea** bera da, dermio hau errekek sortu zulo moduko harana baita.

#### **Elketxipia (paso de):**

**Elke** izena eta **txipia** izenondoa (**txikia** ere dokumentatzen da, ikusiko dugunez) ditugu hemen. **Elketxipia** eta **Elkea** dermio diferentek dira (cf. Uxueko **Lerbeltz / Lerbelztxiki**), baina alderdi berean daude, **Barranco de Elkea**-ko **Zaldua** aldean, **Larrasoil**-etik gertu:

“prosiguiendo el dho Amojonamiento en elquechiquia teniente al monte de Zaldua...y Camino que ba a Larrasoll” (1692)<sup>1245</sup>

“el mismo Lerga en el termino de Arquichipia ó Larrasuil se ha introducido...” (1818)<sup>1246</sup>

Pausua **Barranco de Elkea**-n dago, **Camino de Pamplona**-rekiko el-kargunean, **Barranco de los Lobos** baino pixka bat beherago.

Gure informatzaileek **Sarkitxipia** [šārkičǐpja] eman digute, eta seguru kokatzen jakin ez badute ere, **Larrasoil** eta **Elkea**-ren arteko errekastaren ingurua dela diote. Guk ez dugu dudarik egiten aztertzen ari garen **Elketxipia** bera dela, hasierako s- gorabehera (cf. 1818ko aldaera). Ondoan, dokumentazioan ikusten den bezala, itxuraz agiritako **Monte de la Villa** edo egungo **Cerro de la Villa** bera zen **Monte de Zaldua** zegoen.

#### **Enebezkiz (caracierzo de):**

Ez dakigu zein izan daitekeen lehenengoz oso berandu ediren dugun honen etimologia:

1243 Id., 9. k.

1244 Agoizko hipotekak-3, 314. or.

1245 PRA-Kaseda, 6. k.

1246 PRA-Oibar, 98. k.

“en el termino de enebezquiz se introduzco en dos rovasdas” (1818)<sup>1247</sup>

Egun Enebezki [ɛneβéθki] Aldemuga-ko oihezki bati esaten zaio, hain zuzen ere Barranco de Erbiñaga eta Aldeko San Clemente-ren artean dagoenari. Erbiñaga eta Xaugizabal-ekin mugatzen du.

#### Eode (campo de):

Toponimo honen etimologia iluna da guretzat, baina garbi dago euskaraz erabilia izan zela (cf. Eodezelaia, Eodeondoa). Aurrenekoz 1276an ageri da:

“...et una vinna/ que se tiene al Campo de Ode...” (1276)<sup>1248</sup>

Itxura ezberdinak hartzen ditu dokumentazioan, baina zaharrena eta jatorrizkoa irudi duena aldaera batutzat aukeratu duguna da<sup>1249</sup>:

“...en el termino llamado Eode” (1572)<sup>1250</sup>

Hasierako e- i- eta y- bilakatu zen, euskaraz ezaguna den joera bati jarraikiz (cf. jakin < \*e-aki-n, joan < \*e-oa-n...<sup>1251</sup>), antza:

“otra pieça en yodea” (1590)<sup>1252</sup>

Eyode (1593<sup>1253</sup>), Ayode (1635<sup>1254</sup>), eta Diode aldaerak (cf. 1681eko Diodecelaya<sup>1255</sup>) ere dokumentatu ditugu.

#### Eodeondoa (campo de):

Eode izena eta ondoa posposizioa ditugu aurrekoaren aldamera adierazten zuen honetan:

“una p<sup>a</sup>...en el termjo llamado Eodeondoa” (1577)<sup>1256</sup>

#### Eodezelaia:

Eode toponimoaz eta zelaia izenaz osatua dago. Eode dermioko alderdi zelaia ematen bide zuen aditzera:

“ytten en eodeçelaya” (1644)<sup>1257</sup>

1247 Id., 98. k.

1248 *El Gran Priorado*, 469-470. orr.

1249 XIII. mendeko “de Ode” horren azpian “de Eode” zegoela uste dugu.

1250 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1251 FHV, 119. or.

1252 PRA-Oibar, 14. k.

1253 Id., 7. k.

1254 Id., 23. k.

1255 PRA-Kaseda, 1. k.

1256 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1257 Id., 24. k.

“una pieza en yodeçelaya” (1651)<sup>1258</sup>

**Eode** herrian bertan edo ondoan zegoen, eta **Eodezelaia** ere bai:

“otra pieza en dfozelaya devajo la cassa” (1703)<sup>1259</sup>

Honek oraingo **El Llano** bera izan daitekeela pentsa erazten digu. 1690eko lekukotasunak gure uste hori indartu baizik ez du egiten:

“una pieza...sita en el llano desta vi<sup>a</sup> enchocelaja”<sup>1260</sup>

**Epaizaran (barranco de):**

**Epaiz** herri-izena eta **haran** ‘ibar’ dugu orain **Paizaran** [pà̃θarán] deitu ohi denean (ikus **Epaizko Abaiz** sarrera). Eslabako **Barranco de Abaiz**, **Artamaldeta**, eta **Zaldinaga**-ren eta **Epaizko Epaizaran** eta **Monte de Abaiz** (edo **Monte marcado**)-en artean dago:

“otra pi<sup>a</sup>...en la endreçera llamada epayzarana” (1593)<sup>1261</sup>

Eslaban **Epaizen** bertan aurkitu ez dugun **Epaizarana**-ren aurreko urratsa izan daitekeen **Apaizarana** dokumentatzen da, baina hau beste hori baino beranduago azaltzen denez gero, erdarazko **Abaiz**-en eraginari zor zaiola ere suposa daiteke (cf. 1791ko **Bayzaran**<sup>1262</sup>). Kontuan eduki beharra dago **Abaiz** izen erdalduna euskarazko toponimoetan **Epaiz** jatorra bera baino usuago agertzen dela (cf. **Abaizbidea**, **Abaiz-pausua**, **Abaizmuga**):

“otra pieza en apayzarana...tente a...mojon de abayz” (1645)<sup>1263</sup>

**Gainera**, **gaurko Paizaran** errazago iritsiko dugu **Epaizaran**-etik abiatuz **Apaizaran**-etik abiatuz baino (cf. **Esatea** > **Satea**, **Etxorria** > **Txorria** **Uxuen**, nahiz **Abuñaga** > **Muñaga**-ren gisakoak ere badiren herri berean). Guztiarekin ere, sorburua abbas denez gero, **Epaizaran**-en aurreko pausoa **Apaizaran** dela pentsatzeaz beste biderik ez dugu ikusten.

Egungo aldaera 1614ean ediren dugu lehen aldikoz:

“una pieça en Payzarana...teniente a...barranco” (1614)<sup>1264</sup>

**Barranco de Epaizaran** Epaiztik heldu den **Barranco de Abaiz** izan daiteke, baina **Aldeko Epaizaran**-en sortu eta Eslabako izen bereko eremua gurutzatu ondoan **Barranco de Abaiz**-a doan erreka bat ere bada, eta badirudi honi deitzen zitzaiola **Barranco de Epaizaran**:

1258 Id., 26. k.

1259 PRA-Kaseda, 11. k.

1260 Id., 5. k.

1261 PRA-Oibar, 7. k.

1262 Id., 76. k.

1263 Id., 25. k.

1264 Id., 18. k.

“ytten se allo que en el barranco de epayzarana asta el monte de çaldinuaga...” (1587)<sup>1265</sup>

Bertatik aipatu despoblatu horretara zihoan bide bat (ez Camino de Abaiz edo Abaizbidea) igarotzen zen, seguru asko Galipentzutik Santa Criz-en barna datorrena:

“la referida pieza...sitta en...epaizaran...theniente con...Camino que se ba a Abaiz” (1762)<sup>1266</sup>

#### Epaizko harana:

Epaizaran edo Epaizarana-ren adierakidea da hau:

“endrecera llamada apayz coarana” (1605)<sup>1267</sup>

#### Eras(bajas), las:

Herri ondoko larrainak ziren. Ez dakigu Larrainzarra eta Larrainzarrondoa-rekin zerikusirik baduten:

“en la endreçera llamada Las heras Junto a la dca villa” (1585)<sup>1268</sup>

“una huerta...en las eras baxas” (1615)<sup>1269</sup>

Ikus toponimo honetaz Galipentzuko Eras bajas eta Eras altas sarrerak.

#### Erbiña, barranco de:

1612an aurkitu dugun Erbiña Erbiñaga orokorraren baliokidea dela dirudi, eta hortaz hemen Ø / -aga-ren beste adibide baten aitzinean gaudeke:

“en el dco barranco de erbiña acia la ermita de santa madalena” (1612)<sup>1270</sup>

Galipentzun ere Erbiña dugu, Aragoa ibaiaren ondoan.

#### Erbiñaga (barranco de), (fuente de), (dos barrancos de), (paso de), (sierra de):

Erbiñaga herri-ren elkarketako aldaera den her- (cf. Ergoiena eskualde izena, Erburu toponimo arrunta...), biña ‘ardantzea’ erdaratikako izenez, eta -aga atzizkiaz osaturik egon liteke, baina hau ez da inondik ere segurua (ikus atzizki honi eskaini atalean dioguna):

“otra piª...en el termjo llamado Erbiñaga” (1566)<sup>1271</sup>

1265 Id., 3. k-bis.

1266 Id., 61. k.

1267 Id., 15. k-bis.

1268 Id., 3. k-bis.

1269 Id., 20. k.

1270 Id., 14. k.

1271 Id., 2. k-bis. Odieta-Erripan Viñadia eta Viñacea toki-izen hibridoak ditugu: “una viña... en la parte llamada Viñadia afrontada... con vina de Garaycoechea... y con vina de Yribarren” (PRA-Uharte, 43. k., 1614); “una viña... en la endreçera llamada Viñacea afrontada... con vina del palajo de ripa y... con viña de beunçarena” (id.).



Galipentzun Eslabakoaren anaia bizkia dirudien **Erbiña** dugu, eta **Zaren Biñaru** edo **Biñeru**, lehena herri eta **biña** izenez osaturik, antza, eta bigarrena gaztelaniazko **viñero**-ren euskaratzearen ondorioz sortua (ikus bi sarrera hauek).

Iruñerrian **Erbiña**, **Erbinburua** dugu Olatz Nagusian<sup>1272</sup>, **Ermin(a)** eta **Elermin**-ekiko txandaketan; Atetz ibarreko Eguarats herrian **Ermin**, **Erminaldea** eta **Ermimbidea** daukagu<sup>1273</sup>, baina hemen **Erbiña**-rik ez izateaz gainera, **ermin** 'etxarte' adiera duen izen arrunta omen da<sup>1274</sup>. Orotz-Betelun **Ermin**, **Ermineco-errecaldea** eta **Ermineco-Chocoa** ditugu<sup>1275</sup>, Izaban bide baten izena den **Erminea** dokumentatzen da<sup>1276</sup>, eta Iturgoienen **Erbiña** etxe-izena<sup>1277</sup>.

1587ko **Barranco de Erviñaga**, 1612ko **Barranco de Erbiña** (ikus **Santa María Magdalena** sarrera), eta gaurko **Barranco de Arbiñaga** [ārbiñága] erreka bera dira, hots, **Aldeko El Chaparral**-en parean sortu ondoan **Arangaitz**-en **Barranco de Arangaitz** (**Barranco de Elkea** eta **Barranco de la Virgen** lehenago)-ekin batzen dena:

“desdel monte de Juanguicabal asta el barranco de erviñaga” (1587)<sup>1278</sup>

**Erbiñaga**-ko erreka honi beste erreka bat elkartzen zaio, “**Corral de Barriain**”-etik gertu. 1658ko agiria honetaz ari dela dirudi:

“Mas abajo a donde se Juntan los dos barrancos de erbiñaga”<sup>1279</sup>

**Fuente de Erbiñaga Barranco de Erbiñaga**-n dago, **Iguzkun**-eko mugan. **Iturri** honetatik ateratzen zen lehen **Aranandia** aldera zihoan bide-zigorra:

“senda que ban desde la fuente de erbiñaga al monte y parte llamada aran andia” (1658)<sup>1280</sup>

**Paso de Erbiñaga**-k **Barranco de Erbiñaga**-ko pausu bat izan behar zuen (Ikus **Erbiñagapausua** sarrera). 1648ko **Sierra de Erbiñaga** Aldearekiko mugaldea zen:

“caminando por la sierra que dicen de orbiñaga se allo otra piedra...” (1648)<sup>1281</sup>  
“otra pieza en el paso de Erbiñaga” (1763)<sup>1282</sup>

**Erbiñaga**-k **Los Fayales**, **Aldea**, **Pinar de los Cerros**, **Enebezkiz** eta **Xaugizabal**-ekin mugatzen du.

1272 J. Jurfo, TCPCG, 307-308. orr.

1273 1893ko katastroa.

1274 Larramendiren arabera (Mitxelenak aipatzen du, OEH-ko **Bazter** sarreran), **ermiña** 'orilla' da.

1275 TOB, 343. or.

1276 B. Estornés Lasa, DTR, 384. or.

1277 PRA-Lizarra, 1. k., 1568.

1278 PRA-Oibar, 3. k-bis.

1279 Id., 28. k.

1280 Id.

1281 PRA-Kaparroso, 43. k.

1282 PRA-Oibar, 65. k.

**Erbiñagabarrena:**

**Erbiñaga**-ren beheko alderdia adierazten zuen, **Xaugizabal** eta **Iguzkun**-etik hurbilenekoa edo:

“otra pieca en erbiñaga barrena” (1602)<sup>1283</sup>

**Erbiñagaburua:**

**Erbiñaga**-aren goiko aldeko gaina zen, **Eslaba**, **Lerga**, eta **Aldearen** arteko muga elkargunekoa:

“Ytten llegado en erbiñaga burua...” (1612)<sup>1284</sup>

“En los terminos y mugas de las billas de lerga y Aldea quel termino se llama orbinaga burua” (1648)<sup>1285</sup>

**Erbiñagagoiena:**

**Erbiñaga**-ren goreneko alderdia zen, lehengo **Lerga** eta **Eslabaren** arteko **Los Fayales** elkarrekikoaren ondokoa:

...y la otra pieça en...erbiñagagoyena” (1589)<sup>1286</sup>

**Erbiñagaondoa:**

**Garbi dago Erbiñaga**-ren aldamera adierazten zuela, baina aldamen hau luzea izaki eta, zaila da zehazki zein eremu zen esaten:

“otra pieza en erbiñaga ondoa” (1632)<sup>1287</sup>

**Erbiñagapausua:**

**Paso de Erbiñaga** erdaldunduaren kide euskalduna dugu hau:

“ytten otra pi\* en erbiñaga pausua” (1593)<sup>1288</sup>

**Eriturria:**

**Eri** ‘gaixo’ eta **iturria**-z osaturik dago. Lihatzek baziren bertan, eta errepede bat ere igarotzen zen alderdi honetatik:

“yttem mas otro linar en eryturia...que afrenta con...el Camino Real” (1589)<sup>1289</sup>

---

1283 Id., 10. k.

1284 Id., 14. k.

1285 PRA-Kaparroso, 43. k.

1286 PRA-Oibar, 4. k.

1287 Id., 23. k.

1288 Id., 7. k-bis.

1289 Id., 4. k.

**Err(i)-** duen aldaerarik ediren ez dugun arren, aintzat hartu behar da hasiera-ko **er(i)-** hori **err(i)-** 'herri' ere izan zitekeela, disimilazioz dardarkari anizkuna bakun bilaka baitzitekeen (cf. **Eriturri**<sup>1290</sup> Etxarrenen, **Fuente del Pueblo Lergan**). Guztiarekin ere, ezaguna da zenbait iturritako urak gaixotasunak sendatzeko duen boterea (cf. **Fuente de las Tercianas** Eslaban berean eta **Leatxen**, **Fuente de Lezkairu Uxuen...**), eta badirudi **Eriturria** horietako bat zela. Gainera, eta esan bezala, beti **eri-** dugu:

“una pieça linar...en la endrecera llamada eriyturri” (1584)<sup>1291</sup>

Iturri, putzu, eta antzekoekin agitu ohi den moldean, hasieran toponimo puntuala zena zabaldu eta inguruko lurak ere adieraztera igaroko zen.

#### **Eriturrimendigaña:**

**Eriturri**, **mendi** eta **gaina** ditugu hemen. **Eriturria** zegoen alderdiko mendia-**ren gaina** adieraziko zuen:

“dos pias ffaytias en eryturrimendigaña” (1615)<sup>1292</sup>

#### **Errepidea (alto de):**

**Errege** eta **bidea** ditugu hasiera batean errepideaz besterik adierazten ez bide zuen honetan:

“ytten otra pi<sup>a</sup> en errepidea...afrenta con camino puco” (1593)<sup>1293</sup>

“Mas otra Pieza...en Repidea que afrontta con...Camino Real que se va al Prado” (1754)

Geroago inguruko lurak ere hartu zituen, eta egungo egunean **Repidia** ([repídĕa], [repídĭja] ebakia) dermio izen hutsa da, eslabarrek inongo biderekin lotzen ez dutelarik. Alderdiko **gaina** Zangozara doan errepide berriaren azpiko aldean dago.

Goragotik zihuan beste **Errepide** bat ere bazen Eslaban (ikus **Camino de Errepidea la alta** sarrera).

#### **Errezazua:**

Hemen ere **errege**-ren elkarketako aldakia den **erret-** bide dugu, eta ‘goi lautada kaskailutsua’ adiera duen **zazu** ‘saso’. **Errezazu** hau Agezako bidearen ondoan zegoenez gaurko **El Saso** eta antzinako **Zazu**-rekin identifika dezakegu:

“otra Pieza en Errezazua” (1702)<sup>1294</sup>

Euskara galdu ondoren beste toponimo euskaldun batzuek (cf. **Andua** > **Anduba Lergan**) nozitu desitxurakera bera jasan zuen honek:

1290 1894eko katastroa. Herri honetan bertan **Eriturri**-ren kontrakoa irudi duen **Sanitturri** [šaniṭūri] iturria dugu.

1291 PRA-Oibar, 3. k.

1292 Id., 20. k.

1293 Id., 7. k-bis.

1294 IEA, 1366, 10.

“otra (pieza) en Rezazuba...teniente á...Camino para Aiesa” (1825)<sup>1295</sup>

#### Errotabidea:

Behin bakarrik aurkitu dugu, eta ez dakigu zer errotatara zihoan:

“Ms otra (pieza) en errotavidea” (1755)<sup>1296</sup>

#### Errotaldea:

Galipentzuko mugan zegoen **Molino de Unzue** deitu errotaren inguruko alderdia zen:

“una pieza en errota aldea...theniente a la muga de Gallipienzo” (1705)<sup>1297</sup>

Badakigu Galipentzura eta herri honetako Aragoako errotara zihoan **Camino de los Molinantes**-en ondoan zegoela:

“campo de la religion de San Juan en el termino llamado Rotaldea; se atiene a barranco y camino para Gallipienzo” (1723)<sup>1298</sup>

**Errotaldea Errotaxar**-en ondoko eremua ere bazen (ikus **Molino viejo sarre**-ra), eta beraz bi erroten aldameneko alderdiei **Errotaldea** esaten zitzaiea ondorioztatu beharko dugu:

“una pieza...termjo llamado Rotaldea...affr...con el Rio Conzejil” (1574)<sup>1299</sup>

#### Errotaxar (barranco de), (paso de):

**Errota** ‘eihera’ eta **xar** ‘xahar’ ditugu orain **Rotasiar** [ròtasjâ] ebakitzen den toki-izen honetan.

Izenondoari dagokionez, behin baino gehiagotan **-zar**, **-carra** dokumentatzen da, baina XVI. menderako azaltzen den **-xarra-k**, geroagoko **-jarra** aldakiek, antzeko beste kasu batzuek (cf. Lergako **Errotaxar** > **Rotasiar**), eta batez ere egungo formak aldaera batutzat **-xar** aukeratzera eraman gaituzte<sup>1300</sup>:

“termjo llamado eRotacarra” (1575)<sup>1301</sup>

1295 PRA-Oibar, 106. k.

1296 PRA-San Martin, 43. k.

1297 PRA-Kaseda, 12. k.

1298 IEA, 1765, 871. or.

1299 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1300 Nafarroako beste toki batzuetan ere sabaiaurreko txistikari igurzkaria edireten dugu, bustidura ez asimilaziozkoa ez adierazgarria delarik. Cf., adibidez, Imotz-Latasako **Errotaxár** toponimoa. Izko herrian ere **Errotaxar** edo **Errotaxarra** genuen dokumentazioko **Errotajarra** (PRA-Oibar, 25. k., 1648), **Rotaxarra** (id., 42. k., 1730), **Rotasar** edo **Rotasarra** (PRA-Kaseda, 26. k., 1774) eta **Rotagara** (PRA-Oibar, 97. k., 1817)-ren azpian.

1301 Id., 2. k-bis

“en la endreçera llamada errotaxarra” (1587)<sup>1302</sup>

Errota hau dagoen errekarari antzina **Barranco de Errotaxar** esaten zitzaion:

“en el mismo barranco de Rotaxarra para el camino de sancriz y el monte” (1587)<sup>1303</sup>

**Errotaxar** eta **Molino viejo**-ren arteko identifikazioa, beste aldetik, argia da<sup>1304</sup>:

“una pieça...en la endreçera llamada errotaJarra con su molino biejo” (1616)<sup>1305</sup>

Egun, **Errotaxar**-en ez dago errotaren aztarnarik, baina inskripzio batzuk aurkitu omen dira bertan. **Errotaxar**-etik ez oso urruti oraingo **El Soto** edo **aspaldiko (Monte de) Zaldua** dugu:

“començando desde la endreçera de Rotaxarra asta el monte de caldua” (1582)<sup>1306</sup>

**Monte de Zaldua** hau ez dugu **Elkea** eta **Elketxipia** aldean zegoen izen bereko dermioarekin nahastu behar, eta kontua aski nahaspilaturik dagoenagatik, uste dugu bi **Errotaxar** genuela pentsatu baino hobe dugula bi **Zaldua** zeudela pentsatu, **Barranco de Errotaxar** **Barranco de Ezpondabe** bera baitzen<sup>1307</sup> (ikus 1581eko leku-koa. Cf. gainera **Zaldua / El Soto** bikotea).

**Paso de Errotaxar** Galipentzu, **Artamaldeta**, **Zaldinaga** eta **Santa Criz** aldera doan bideko pausuari esaten zitzaion:

“amojonamos el Rio y barranco dezpondabe desde el Passo de errotajarra asta la fuente de ezpondabe...asta el camino rreal de Repidea” (1612)<sup>1308</sup>

**Errotaxar Santa Criz** ondoan dago; errekez beste aldean **Presaldea**, **Ezpondabe**, **Bizkarda** eta **Artamaldeta** ditu.

Toponimo honen azterketa bukatzeko ohartarazi nahi dugu 1575erako zaharra zen honek oso aspaldikoa behar duela izan, 1276rako edireten dugun **Molino de Unzue** baino are zaharragoa agian.

#### **Errotaxarbidea:**

**Errotaxar** aldera zihoan. Ez dakigu **Errotabidea**-rekin identifikatu behar den, esan bezala errotak eta errotarako bideak bat baino gehiago baitziren (ikus **Errotabidea** sarrera):

1302 Id., 25. k.

1303 Id.

1304 Alabaina, **Molino viejo** Galipentzuko mugakoari ere esaten zitzaionez gero, kontu guzti hau aski nahasia dago, lekuko bat noiz ari den bat az eta noiz besteaz bereiztea zaila delarik. Izan ere, biak ziren zaharrak, biak zeuden **El Río**-ren ondoan (bata bestea baino hurbilago), eta bien ondotik igarotzen zen **Camiño de Gallipienzo** bana.

1305 PRA-Oibar, 19. k.

1306 Id., 25. k.

1307 **Errotaxar**-en ondoko **Barranco de Artamaldeta**-ren bukaeraldea ere izan zitekeen, baina 1612ko lekukotasuneko **Barranco grande**-k **Presaldea** eta **Ezpondabe**-koa bera zela idarokitzen du: “el barranco grande desde errotajarra asta la puente de los lináres” (PRA-Oibar, 14. k.).

1308 Id., 14. k.

“otra viña en errotajarbidea” (1613)<sup>1309</sup>

#### Errotaxarburua:

Errotaxar-en ondoko gain bat izendatzen bide zuen honek:

“otra viña en errota zarra burua” (1656)<sup>1310</sup>

#### Errotaxarreko bidea:

Errotaxarbidea-ren baliakide genuen:

“y mas una pi\* digo viña...en la endrecera llamada errotaJarreco bidea” (1599)<sup>1311</sup>

#### Eslaba:

Ez dakigu zein izan daitekeen herri-izen honen etimologia. 1059an **Estelaba** dugu<sup>1312</sup>, 1087an **Stelava**<sup>1313</sup>, 1095ean **Stelaba**<sup>1314</sup>, eta 1145ean **Estellaba**<sup>1315</sup>. 1670ean, harrigarriro, **Estalaba** agertzen da Zaren:

“termino llamado la salz que afronta con camino que van los de Estalava a Sanguesa”<sup>1316</sup>

Ezlava 1183rako azaltzen da<sup>1317</sup>, eta Eslaua 1198rako<sup>1318</sup>, eta hortik aurrera Eslaba (edo Eslava)-z besterik ez da dokumentatzen, aipatu 1670eko salbuespen hori alde bat utziz gero:

“Debita vero de Arbones talis est: Ad Sancho d'Eslaua. XII. solidos...” (1204)<sup>1319</sup>

“Estas son las heredades que don Miguel Lopeiç devandito dio al Hospital (San Juan de Jerusalem ordenari, alegia) en Eslava...” (1276)<sup>1320</sup>

Eslaba -ba-z bukatzen diren beste toponimo batzuekin erlaziona daiteke (**Ez-kaba**, **Orba**, **Sadaba**, **Araba**), baina hau zer izan daitekeen ez dakigu, eta halaberharrezko kontu hutsa ez dela segurtatzeko frogarik ere ez dugu.

Reta Janárizek aztergai dugun izen honen osagaitzat latineko **stella** ‘izarra’<sup>1321</sup> eta -ba ‘behe’ proposatzen ditu. Azken hau arraro samar iruditzen zaigu, -be-ren orde

1309 Id.

1310 Id., 27. k.

1311 Id., 9. k.

1312 NHI, 190. or.

1313 R. Ciérbide, ICT-III, 301. or.

1314 Id.

1315 NHI, 190. or.

1316 NAO, Iratxeko Monastegia, 18. kart., 468. zkia.

1317 NHI, 190. or.

1318 Id.

1319 Ostolaza, 115. or.

1320 *El Gran Priorado*, 469-470. orr.

1321 Autoreak ez du zehazten zein den stella honen adiera, baina pentsatzekoa da ‘izarra’ dela.

ez baitugu sekulan **-ba** aurkitu (cf. **Ezpondabe** Eslaban bertan), baina **stella**-ren eratorriak ugariak dira toponimian (cf. **Estella** / **Lizarra** Nafarroan):

"*Izarbe*, en término de Arzánigo, p. j. de Jaca, documentado por A. Ubieto desde el s. XI como *Içarbe*, etc. Tiene su homónimo en Navarra: *in termino de Yzarbe...Val d'Içarue*...El primer elemento es comparable al de *Izarra*, localidad alavesa, forma con *-a* final, artículo o contracción de *-aga*, es decir, *izar* 'estrella'...Considérense también los topónimos románicos paralelos de la provincia de Huesca *Estrellas*, en Atarés, p.j. de Jaca, *Estrellas Altas*, en Lanaja, p. j. de Sariñena, así como también *Estella*, en Navarra, con forma culta latinizante, cuyo nombre vasco era *Lizarrara*...el cual no es su equivalente"<sup>1322</sup>

Bitxia da, dena dela, gure eskualdeko beste herri-izen gehienak toponimoetan azaltzen diren bitartean (**Agezabidea**, **Aldeko muga**, **Beiremuga**, **Epaizarana**, **Kasedabidea**, **Leatxearana**, **Lergabidea**, **Loiaerregua**, **Oibarbidea**, **San Martinmuga**, **Santakaramuru**, **Usunbelzbidea**, **Uxu(e)bidea**, **Zarebidea**...) Eslaba sekulan ez agertzea, hau halabehar hutsa izan badaiteke ere.

**Etxeberri** (altico de), (portillo de):

Toponimo argi hau **etxe** izenaz eta **berri** izenondoaz osaturik dago. Egungo **Etxeberri**-k [ěčěbēri] lehengo gardentasuna atxiki duela garbi dago, ikusten den moduan ez baita den gutxiena ere itxuragaiztotu. Guztiarekin, aurreneko lekukotasunetan apofoniatuak aurkitu ohi ditugu:

"ytten otra pi<sup>a</sup> en echaberri...que afrenta con Camino que los de Ayesa ban a Lerga" (1602)<sup>1323</sup>

Egungo **Etxeberri** aldakia ere oso goiz azaltzen da:

"y la tercera pieca en la endreçera llamada Echeberri" (1608)<sup>1324</sup>

**Campo de Reta**, **Txirria**, **Artatzea**, **Zabalea**, **El Ginebro** eta **Zabalzigar**-ekin mugatzen du. **Alto de Etxeberri** Agezatik **Lergara** doan bidearen eskuinaldean dago. Ataka ere bertan dago.

**Etxeberriburua**:

**Etxeberri**-ko gaina izendatzen zuen (cf. **Errotaxarburua**, **Ezpondabeburua**...), oraingo **Alto de Etxeberri**:

"otra pieza...enm echeverriburua" (1681)<sup>1325</sup>

**Euntzea**:

Izen honen etimologiaz ikus Agezako **Euntzeberri** sarreran dioguna. Badaiteke **El Prado**, **El Prado de Gezari** edo **El Pradillo de Lezkadui** bera izatea, baina ez dugu honen frogarik:

1322 A. Irigoyen, "Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica", ETTVC, 214-215. orr.

1323 PRA-Oibar, 10. k.

1324 Id., 16. k.

1325 PRA-Kaseda, 1. k.

“dos pias en la endreçera llamada en eunçea” (1596)<sup>1326</sup>

### Euntzeberri (prado de):

Euntze ‘larre’, eta berri ditugu egun Onzeberri [õnθeβ̃eri] bilakatu den honetan (cf. Lergako Onzeberri, Euntzeberri-tik):

“una p<sup>a</sup> en eunzeberria” (1537)<sup>1327</sup>

“otra pi<sup>a</sup> en la endreçera de eunçeberri” (1593)<sup>1328</sup>

Oraingo aldaera lehen aldikoz XVIII. mendearen bukaeran agertzen da:

“otra pieza...en...onceverri” (1791)<sup>1329</sup>

Hauetaz gainera, Unzeberri dugu 1711n<sup>1330</sup>, Euzeberri 1754ean<sup>1331</sup>, eta Erinzeberria 1763an<sup>1332</sup>.

Alderdi honetan, izenaren jatorria ezagututa susma zitekeenez, neguan ura baltsatu, bildu egiten omen da, eta udaberria arte ez omen da lehortzen.

Euntzeberri-k Atalaiondoa, Uxubidea, Abaizgibel, Arrizutaga, La Venta eta Bidezarreta-rekin mugatzen du.

### Euntzegutia:

Euntze ‘larre’ eta gutia ‘txikia’-z osaturik dago 1530ean baizik ediren ez dugun hau:

“una p<sup>a</sup> en el termjo llamado eunzegutia...affr con el zerrado de palazio”<sup>1333</sup>

Cerrado de Palacio hau non zen, ordea, ez dakigu, eta Euntzegutia non zen ere ez. Lergan ere Euntzeguti dugu.

### Euntzeluzea (barranco de), (fuente de):

Euntze ‘larre’, eta luzea dira gaur Intuluzea [ĩntuluθéa] deitu ohi den honen jatorrizko osagaiak. Alderdi hau, hurbil dagoen Euntzeberri bezala, oso toki urtsua da, eta iturbegiak ugariak dira.

Reta Janárizek egungo forma desitxuratuaz besterik ezagutzen ez duelarik egiten du toponimo honen etimologia, eta beraz ez da miresteko esaten duena esatea: au-

1326 PRA-Oibar, 17. k.

1327 Id., 2. k.

1328 Id., 7. k.

1329 Id., 76. k.

1330 Id., 32. k.

1331 PRA-San Martin, 42. k.

1332 PRA-Oibar, 62. k.

1333 Id., 2. k-bis.



tore honen arabera indu 'yezgo', eta luze dira aztergai dugun honen bi osagaiak, eta ize-nondoaren kasuan asmatu badu ere, ezin da gauza bera esan izenez.

Masu Nittak<sup>1334</sup> Retaren etimologia gaitzesten du, baina lekuko zaharrak ongi ezagutzen ez dituzenez gero, berak ere etimologia okerra proposatzen du:

"INTULUCEA(Eslava): Analizado como «de INDU 'yezgo' y LUZE 'largo, alto'». Como acabo de señalar, ignoro INDU 'yezgo' como voz vasca. Si se tiene en cuenta *Untuluzea*, forma documentada en 1774, quizá se explique como compuesto vasco de UNTZ(I) 'hiedra' o UNTZI 'receptáculo, vaso, olla' más LUZE con art. -A, en el que la vocal palatal se convertiría en velar por asimilación"

Hemendik igarotzen bide zen Lergatik Galipentzura zihoan errepide bat (ikus **Bidezarra**, **Bidezarreta** eta **Camino bajo de Lerga** sarrerak), hain zuzen ere gaur **Camino de Atalaiondo** deritzana:

"otra pieza...en...Antuluzea thente a...Camino real de Lerga para Gallipienzo" (1784)<sup>1335</sup>

**Barranco de Euntzeluzea** beste batzuetako **Barranco de Sortengortea** (cf. **Sortengoeuntzeta** izena) izan zitekeen, hots, **Euntzeluzea** gurutzatu ondoren **Barranco de Lergabidea**-rekin bat egiten duen erreka:

"...por dibision del barranco y senda de unzeluza" (1587)<sup>1336</sup>

"campo en el termino llamado unzeluzea, teniente al barranco concegil" (1723)<sup>1337</sup>

1711n **Unzeluzea** dugu<sup>1338</sup>, 1723an bezala, 1774ean **Unzuluzea**, eta 1780rako egungo **Intuluzea**-ren aitzindaria den **Untuluzea**:

"otra (pieza)...en unzuluzea"<sup>1339</sup>

"otra pieza...en Untuluzea"<sup>1340</sup>

Aipatu aldaera hauekin batera **Tuluzea** (1764)<sup>1341</sup>, **Andaluzea** (1778)<sup>1342</sup>, eta **Alteluzea** (1824)<sup>1343</sup> ere aurkitzen ditugu.

**Euntzeluzea**-k lehengo **Aldemuga** (**Muga de Aldea**)-rekin, **Lergabidea**, **Atalaiondo** eta **Lizardui**-rekin mugatzen du.

### Ezpeleta:

**Ezpel** zahaitz-izena eta **-eta** ditugu hemen. **Ezpelketa** bera dela dudarik ez da:

1334 *Notas lingüísticas...*, 19. or.

1335 PRA-Oibar, 73. k.

1336 Id., 3. k-bis.

1337 IEA, 1765, 8, 871. or.

1338 PRA-Oibar, 32. k.

1339 Id., 70. k.

1340 PRA-Kaseda, 30. k.

1341 PRA-Oibar, 65. k.

1342 PRA-San Martin, 53. k.

1343 Id., 84. k.

“otra viña en la endrçera llamada ezpeleta” (1596)<sup>1344</sup>

### Ezpelketa:

**Ezpel** eta **-eta**-ren aldakia den **-keta** (edo **-kieta**, franko lekukotasunetan) dira aldaera ezberdin mordoxxa aurkezten dituen toponimo honen osagaiak<sup>1345</sup>:

“otra viña en ezpelqueta” (1635)<sup>1346</sup>

“otra viña en ezpelquieta” (1684)<sup>1347</sup>

Hauekin batera **Azpilqta** (sic) (1683)<sup>1348</sup>, **Azpiliquieta** (1703)<sup>1349</sup>, **Ezpeliquieta** (1735)<sup>1350</sup>, eta **Ezpicueta** (1817)<sup>1351</sup> dokumentatzen dira.

**Camino de Gallipienzo** eta **Camino de Artadubarren**-en artean zegoen:

“una vina...en...ezpeliquetas...afrenta con el camino de Gallipienzo, y Camino de Artadubarren” (1784)<sup>1352</sup>

Ikusten denez, ardantzeak ugariak ziren alderdi honetan, gaur **Artadubarren**-en diren bezala.

### Ezpelketaburua:

**Ezpelketa** alderdiko gaina bide genuen:

“otra viña...en...ezpelquetaburua” (1711)<sup>1353</sup>

### Ezpelkoa:

**Ezpel** zuhaitz-izenaz eta **-koa** atzizki txikigarriaz osatua dago (cf. toponimian ugaria den **harizkoa** ‘haritz txikia’, **mendikoa**...). **Artadubarren**-en egoki eta, **Ezpelketa**-ren esanahikidea zela pentsa daiteke. Ardantzeak ere baziren bertan:

“ytten otra viña en la endrçera llamada artadubarrena dicho ezpelcoa” (1591)<sup>1354</sup>

### Ezpondabe (alto de), (barranco de), (fuente de):

**Ezponda** ‘aldapan dagoen lur-zatia, bereziki harresi baten behaldean edo ubide baten ertzean gertatzen dena, edo lurak behehantz lerra ez daitezen harriz edo,

1344 PRA-Oibar, 17. k.

1345 Ezpelko ‘ezpel txikia’ eta **-eta**-z osaturik dagoela ere kontu egin daiteke (cf. **Ezpelkoa** eta 1817ko **Ezpelicueta**).

1346 PRA-Oibar, 23. k.

1347 PRA-Kaseda, 2. k.

1348 Id.

1349 Id., 11. k.

1350 PRA-San Martín, 42. k.

1351 PRA-Oibar, 98. k.

1352 Id., 73. k.

1353 Id., 32. k.

1354 Id., 5. k.

egiten dena<sup>1355</sup> eta **-be** 'behe' dira egun [eθpondáβe] ebakitzen den izen honen osagaiak. Izan ere, **Ezpondabe Artadubarren** eta errekaen artean dagoen ezponda edo maldaren beheko aldean dago, eta hortik izena (ikus **Camino de Abaiz a Sangüesa** sarrera):

"...y la pieza en el terno llamado ezpondabe" (1559)<sup>1356</sup>

**Alto de Ezpondabe** berriz, ezpondaren goiko aldea da, euskarazko **Ezpondabeburua**-ren "erdal" ordaina:

"otra (pieza)...en lo alto de ezpondave" (1771)<sup>1357</sup>

**Barranco** (edo **Río**, noiz edo noiz) de **Ezpondabe Barranco de Presaldea**-ren jarraipena da, alegia, beheago **Barranco del Soto** deitzen den erreka:

"...amojonamos el Rio y barranco dezpondabe" (1612)<sup>1358</sup>

**Fuente de Ezpondabe**, azkenik, bertako iturria zen, **Paso de Errotaxar**-etik urrun ez zegoena, antza (ikus **Errotaxar** sarrera).

**Ezpondabe**-k **El Soto**, **Xauzugun**, **Artadubarren**, eta **Presaldea**-rekin mugatzen du. Alderdiko errekek beste aldean dagoen **Santa Criz**-etik banantzen du.

#### **Ezpondabeburua:**

**Alto de Ezpondabe** erdaldunduaren kide erabat euskalduna dugu hau:

"otra viña en ezpondabe Burua" (1637)<sup>1359</sup>

XVIII. mendearen bigarren erdian **Ezpondabarrua** eta **Ezpondaberria** aurkitzen ditugu, baina hauek jatorrizko **Ezpondabeburua**-ren euskal irudia duten itxuragaiztoz besterik ez dira:

"una biña...en el llamado ezpondaberria" (1758)<sup>1360</sup>

"mas ôtra en el termino que llaman Ezpondabarrua" (1763)<sup>1361</sup>

#### **Ezpondaburua:**

Hemen **ezponda** eta **burua** ditugula dirudi, baina aurkitu ditugun bi lekukoak XVIII. mendearen bigarren erdikoak direnez, **Ezpondabeburua**-tik haplogiaz edo desitxuraketaz ateratako formak direla uste dugu:

"dos peonadas...en...ezpondaburua...theniente a Senda q se ba a Ezpondabe" (1762)<sup>1362</sup>

1355 Sarasola, HLEH.

1356 PRA-Oibar, 2. k.

1357 PRA-Kaseda, 23. k.

1358 PRA-Oibar, 12. k.

1359 Id.

1360 PRA-San Martin, 44. k.

1361 PRA-Oibar, 65. k.

1362 Id., 61. k.

“una vina sita en el termino de Ezpondaburu” (1797)<sup>1363</sup>

### **Facería de Eslava y Loya:**

Eslaba, Loia eta Artetaren arteko mugan dago, **Azterain** mendiko elutsean:

“desde el primer mojon...es termino comun de la villa de Eslava y lugar de loja...asta este mojon llegaba dha faceria” (1691)<sup>1364</sup>

“...en drechura a la Cantera de Amicarren...hazia Loja, sirbe de dibision de dho ttherno de Eslaba y fazeria de esta villa y Loya” (1776)<sup>1365</sup>

### **Facería de Lerga y Eslava:**

Lerga eta Eslabako udalerrien goreneko alderdia zen, egun Eslaban **Los Fayales** deitzen dena. Ez dakigu Lergako oraingo lurrik hartzen ote zuen; honela bazen, **Monte de arriba**-ren zati bat izanzen zen.

“un pedaço tenian faceria entre las villas de Lerga y Eslava a carasol agua vertiente del camino de alchirria” (1611)<sup>1366</sup>

### **Fayales (facería de), (fuente de), (pinar de), los:**

**Los Fayales** [fayáleś] Eslabako udalerriaren goiko puntan dago, Julio, Oleta eta Lergako mugan. Lehen hondar herri honekiko fazeria genuen **Los Fayales** (ikus aurreko sarrera eta Lergako **Facería de Fayales** sarrera):

“las facerias que tienen...entre el lugar deslaba y lerga llamada fayales que afrenta con el termino de Julio” (1611)<sup>1367</sup>

Iturria Julioko mugan dago, lehenik herririka honetara eta gero Artetara sartzen den errekan. Iturria hartua dago, eta ura beharra dagoenean ekartzen da herrira. Bestela **Elkea**-n egin berri den idoia hornitzeko erabiltzen da.

**Los Fayales**-ek Lerga (ikus herri honetako **Facería de Lerga y Eslava** sarrera), Oleta eta Julioko lurrekin mugatzen du, bai eta Eslabako bereko **Erbifiaga** eta **Larasoil**-ekin.

Mende honen hasieran partzelak zeuden bertan (cf. **Camino de las Parcelas**), baina hirurogei bat urte duela lerrak landatu ziren eta orain pinudia dago. Gaurregun pago bat edo beste egon daitekeen arren, haritzak ugariagoak izan dira orain lerra nagusi den eremu honetan, gure informatzaileen arabera. Eslabatik Iruñerako bidea Bizkaiko Sabaitza herriko **El Fayal** deitu mendian zehar zihoan, eta badirudi eskualde honetan antzina pagoak ugariak zirela (cf., gainera, **Leatxeko El Hoyo del Fayal**). Sabaitzako lurretan oraindik ere ba omen dira pagoak.

1363 PRA-San Martin, 66. k.

1364 PRA-Kaseda, 6. k.

1365 PRA-Oibar, 70. k.

1366 IEA, 515, 29, 44. or.

1367 Id., 70. or.

**Frontón, el:**

Behinolako Irigoiena-n dagoen plaza (**La Plaza**) da.

**Fuente (donde), la:**

**La Fuente vieja** deritzan alderdiko lehengo iturria zela uste dugu, hots, euskarazko **Iturraldea**-n azaltzen den iturri:

“ytten un cerrado Junto y apegante a la fuente de la dca villa” (1602)<sup>1368</sup>

**Donde la Fuente** euskarazko aipatu **Iturraldea**-ren kide erdalduna izan daiteke:

“una huerta en la endrecera llamada donde la fuente” (1614)<sup>1369</sup>

Egun **La Fuente La Venta** aldera doan bidean (**Camino de la Fuente**-n) dagoen iturriari esaten zaio, alegia, **La Fuente vieja**-tik ura eramaten den bideko iturriari.

**Fuente de la Teja, la:**

**Barranco de Zabalzigar**-en dago (cf. Uxue).

**Fuente de las Tercianas, la:**

**Epaizaran**-en dago, Epaizko mugan, erreka batean. Hidronimo honen jatorriaren inguruan ikus Leatzeko izen bereko sarreran dioguna. Iturri honetako ura sendagarri ona omen da, eta mende honen hasiera alde arte Erriberatik etortzen omen zen jendea ur bila.

**Fuente del Corral de Sagüés, la:**

**Dorreta**-n dago, “**Corral de Sagüés**”-en, **Zaldinaga**-ko mugan. Gure informatzaile batek dioenez<sup>1370</sup>, lehen jario handikoa zen, baina orain udan ahitu egiten da, bere ustez **Zaldinaga** aldean landatu zituzten pinuen eraginez.

**Fuente del Moro, la:**

**Barranco de Artamaldeta**-n dago, **Camino de Gallipienzo**-tik ez urrun, **Zaldinaga** eta **Santa Criz**-ko muga aldean. Azken dermio honetan despoblatu eta ermita zeuden lehen, eta jendeak hauek mauruek eginak direla uste duelako eman bide zaio izen hori iturriari.

**Fuente vieja, la:**

Herriaren sarreran zegoen iturri gaur desagertu hau, **El Cerrado de Patricio**-n, eta dokumentazioko **Iturraldea** bera izan daiteke. Iturburuko ura, “puntido” (draina-

1368 PRA-Oibar, 10. k.

1369 Id., 14. k.

1370 Rafael Barriain jaunak dioenez.

tze) baten bidez bide ondora eramaten zen aziendek edan zezaten. Arropa-garbitoki bat ere bazegoen.

Gure informatzailearen arabera, iturria **La Venta**-n bizi ziren tenplarioena zen.

#### Fuenticas, las:

**Zabalzigar** eta **La Cruz**-en arteko, **Alto de Jandua**-ren azpiko aldeko eremu txiki bat da hau. Izena, Galipentzuko **Las Fuenticas** bezala, bertan iturri (txiki) franko izateari zor zaio.

#### Gallipienzo, soto de:

Galipentzuko mugako alderdia da. Eslaban **Kaskallueta** ere esaten zitzaion zati honi:

“otra pieza en cascallueta...que affrenta con el soto de galipienzo” (1635)<sup>1371</sup>

#### Gazteluondoa:

Erdarazko **Junto al Castillo**-ren euskal ordaina da (ikus **Castillo** sarrera):

“Primeramente una cassa...en gazteluondoa” (1606)<sup>1372</sup>

#### Gazteluzargaña:

**Gazteluzarra**-ren gaineko aldea edo **Gazteluzarra** zegoen gaina adierazten zuen honek, bistan denez:

“...la (pieza) de seis quartaladas de Gasteluzar gaña” (1756)<sup>1373</sup>

#### Gazteluzargibela:

**Gazteluzarra**-ren atzeko aldea zen:

“otra pieza en gazteluzar guibela” (1652)<sup>1374</sup>

#### Gazteluzarra:

Erdal **Castillo viejo**-ren baliakidea zen:

“otra pieça en...gaztelucarra” (1593)<sup>1375</sup>

---

1371 PRA-Oibar, 23. k.

1372 Id., 12. k.

1373 PRA-San Martin, 43. k.

1374 PRA-Oibar, 26. k.

1375 Id., 7. k.

**Gezari (abajo), (alto de), (arriba), (barranco de), (fuente de), (prado de):**

Izen honen etimologiaz ikus Agezako Gesaliturria eta Gezari sarrerak. Ageza eta Galipentzuko Gezari bezala, Eslabakoa ere gatz asko duen eremua da, eta hau dela medio orain arte uzta kaskarrak bildu izan dira bertan. Esan moduan, Gezari eta Gaizari dokumentatzen ditugu:

“...en el termjo llamado guezari” (1541)<sup>1376</sup>

“otra pieza faytia en gaicari” (1652)<sup>1377</sup>

Izen bereko erreken (hasieran **Barranco de Tastaran** denaren) inguruko lurrak adierazten ditu, Ageza, Eslaba eta Galipentzun.

**Alto de Gezari [geθáři] Camino de Gezari**-ren ondoko gaina da, euskarazko Gezariburua-ren balikokidea:

“otra pieza en el Alto de Guezari” (1766)<sup>1378</sup>

**Fuente de Gezari** errepidetik hurbil samar dagoen iturria da; **Prado de Gezari** Gezari abajo-n dago, Agezako mugan, erreken inguruan, **Zangozabidea** eta Zangozako errepedearen artean:

“otra pieza Junto al prado de guezari” (1633)<sup>1379</sup>

**Gezari** aski alderdi luzea da, eta hau dela eta, bereizketa egiten da: **Tastaran-etik Camino de Gezari**-raino **Gezari** arriba (**Gezarigoiena** euskaraz) deitzen zaio, eta bide horretatik errepederaino **Gezari** abajo (**Gezaribarrena** behiala).

**Gezari-k Tastaran, La Tejería, Boiugain, Boiuartea, Xubingoa, Errepi-dea** eta **Lezkaduia (El Lezcal)**-rekin mugatzen du.

**Gezaribarrena:**

**Gezari**-ren beheko aldea zen, orain **Gezari** abajo deitzen denaren kide euskalduna (ikus **Gezari** sarrera. Cf. Agezako **Gezari** bajo). Antza duenez, Zangozatik Epaiza zihuan bidearekin (**Errepidea**-rekin) mugatzen zuen:

“otra piª en gezaribarrena...que afrenta con Camino Real” (1602)<sup>1380</sup>

**Gezariburua:**

**Alto de Gezari**-ren euskal baliokidea da (ikus **Gezari** sarrera):

“una vina...en...guezari burua” (1592)<sup>1381</sup>

1376 Id., 2. k.

1377 Id., 26. k.

1378 Id., 63. k.

1379 Id., 23. k.

1380 Id., 10. k.

1381 Id., 6. k.

1765ean Guezabiburua dugu<sup>1382</sup>, eta 1791n Guezariburba<sup>1383</sup> (cf. Andua > Anduba Lergan).

#### Gezarigoiena:

Erdarazko Gezari arriba-ren ordain euskalduna da (ikus Gezari sarreran esan duguna. Cf. Agezako Gezari alto):

“otra pieça en gueçarigoyena” (1587)<sup>1384</sup>

#### Gezariondoa:

Gezari-ren aldamera adierazten zuen:

“una p<sup>a</sup>...en el termjo...llamado guezari ondoa” (1564)<sup>1385</sup>

#### Ginebro (hoyo de), el:

Izen hau ez dugu sekulan aurkitu dokumentazioan, eta berri samarra dela uste dugu (ikus Zabalea eta Zabalzigar sarreretan dioguna. Cf., dena den, Agezako izen bereko sarrera). Ipuru asko sortzen da alderdi honetan, eta hemendik izena.

Zabalea, Zabalzigar eta Etxeberri-rekin (lehengo Etxeberriburua-rekin) mugatzen du.

#### Gristioburua:

Gristio Joakin Lizarraga Elkanokoaren liburu baten tituluan<sup>1386</sup> errepikaturik aurkitzen dugun *christioa* ‘kristaua’-ren kidea izan daiteke, euskaraz arrunta den moduan hasierako herriak ahostundu delarik (cf. Axularren *gristino*)<sup>1387</sup>. Jakinaenez, gaureraino *kristau* ‘pertsonek’ adieraz ere ibiltzen dugu, lagunarteko hizkeran, eta daitekeena da Eslabako Gristioburua hau Leatzeko Gizaiduri edo Arakilgo Gizairudiaga (Izardiaga egun)<sup>1388</sup> toponimoen parekoa izatea (cf., dena den, Eslabako bereko Gristioburua izena):

“ytten otra pieça...en gristio burua” (1591)<sup>1389</sup>

---

1382 Id., 62. k.

1383 Id., 76. k.

1384 Id., 25. k.

1385 Id., 2. k-bis.

1386 DCC.

1387 *Kristioa* edo *Gristioa* lortzeko, \**Kristiano*, \**Gristiano*-tik abiatu behar genuke; hemendik bokalarteko sudurkariaren galeraz \**kristioa* edo \**gristioa* aterako zen (cf. \**ardano* > *ardao*), eta forma hauetatik, toki-izenetan behintzat ongi dokumentatua dagoen *ao* > *o* laburketaren ondorioz, *kristio* eta *gristio* (cf. *ardao* > *ardo*, edo *Cipriano* > *Zipirio*). Ikus honetaz FHV, 150-153. orr.

1388 Ikus NHI, 78-79. orr.

1389 PRA-Oibar, 5. k.



**Gristiodiaburua:**

**Gristiodiaburua**-n aurreko sarrerako **gristio** bera dugu, **hodia** 'errekasto txikia', eta 'gaina' esanahia duen **burua**. Aitortu behar da, dena dela, **hodia** horrek ez diola mesederik bat ere egiten guk **Gristioburua**-n proposatutako etimologiari:

"otra piª en la endrecera llamada gristiodia burua" (1593)<sup>1390</sup>

**Horno, el:**

Udal-labea berria da, eta bertan ogia, pastak eta beste egiten dituzte. San Francisco Javier izena du.

**Huerto del Cura, el:**

Los Linares dermioan dago, **Txirria**-ra ura jaisten zen azekiaren ondoan. Euskarazko **Apeztegi**baratzea-ren erdarazko ordaina dela dudarik ez dago.

**Iglesia, la:**

**San Miguel** sailduari eskainia dago. Ohi bezala, **Irigoiena**-n dago, antzinako **Gazteluzarra**-ren alboan.

**Iguzkun (alto de):**

Egungo **Elizkun** [eliθkún] (**El Lizkun** interpretatua) Aldeko **Monte de Aldea** eguzkialdearen jarraipena da, baina oihezkiari ere **Elizkun** esaten bide zaio.

**Iguzkun** edo **Iguzkunea** beste toki batzuetako egutera, **eguzkialdea**, **eguzkiagerri**, **iguzpegi** edo **iguzkibegi**-ren esanahikidea da, hots, eguzkiak jotzen duen aldea ematen du aditzera:

"...en el mismo termino de Yguzcun" (1541)<sup>1391</sup>

"aber prendeado el ganado de pedro Armendariz en yguzcunea" (1587)<sup>1392</sup>

XVI. mendeko **-g-dun** aldakien ondoan, **-r-dunak** ditugu XVIII.ean: **Yruz-cun** (1704)<sup>1393</sup>, **Altto de yruzcun** (1771)<sup>1394</sup>, **Iruzcun** (1774)<sup>1395</sup>, eta hemen ere **iguzki** / **iruzki** izenean ohi den txandaketa bera dugula esan daiteke (cf., adibidez, **Leatxeko Ygusqui agerria** 1654ean, **Yruzquiagerria** 1708an):

"Ms otra (pieza) en el altto de yruzcun" (1771)

1390 Id., 7. k.

1391 Id., 2. k.

1392 Id., 3. k-bis.

1393 Id., 30. k.

1394 PRA-San Martin, 50. k.

1395 PRA-Oibar, 70. k.

Izen hau Nafarroako beste herri batzuetan ere aurkitzen dugu: **Iguzkun**, **Iguzkunea** dugu Morionesen, **Iguzkun** Ibargoitikiko Zilegietan<sup>1396</sup>, **Iruzkun** Ollakarizketan (Xulapainen), eta **Iguzkun** bailara bereko Gartziriainen<sup>1397</sup>.

**Iguzkun**-ek **Arangaitz**, **El Chaparro**, **Xaugizabal**, **Erbifiaga**, **Aldemuga**, eta **Zubialdea**-ren mugatzen du. **Alto de Iguzkun Aldea** eta **Eslabaren** arteko muga-mugako gaina da (784 m.). Dokumentazioan ikusten den bezala (cf. 1587ko lekukoa), mendi “debekatua” izan zela dirudi, isun-tokia, alegia.

#### **Iguzkunondoa:**

**Iguzkun** ondoko alderdia zen, hau ere itxia behinola:

“aber prendado el dco ganado...en yguzcunondoa” (1590)<sup>1398</sup>

#### **Iriarte:**

**Irigoiena** eta **\*Iribarrena** edo **Barrenginda**-ren arteko auzoa zen, itxura guztien arabera erdarazko **Calle de medios**-en eta **Mediavilla**-ren kide:

“una Cassa situada en...la endreçera llamada yriarte” (1583)<sup>1399</sup>

#### **Irigoiena (barrio de):**

**Barrio alto**-ren euskal ordaina genuen:

“en dho lugar de Eslaba en el barrio de Yrigoyena” (1554)<sup>1400</sup>

#### **Irizarra (barranco de):**

**Hiri ‘herri’** izena eta **zaharra** izenondoa ditugu toponimo honetan. Gure irudiz, antzina bertan zegokeen despoblaturari zor zaio (cf. Uxueko **Villantigua** despoblaturaren izena):

“...termjo llamado yrizarra” (1541)<sup>1401</sup>

**Badakigu** bertatik erreka bat igarotzen zela:

“...otra pieça en bacundi que afuerta...con el barranco Concegil de yrixarra...y con la senda de bacundi” (1591)<sup>1402</sup>

Eta **La Virgen** eta **Elketxikia** aldean zegoela, **Camino de Zaldua**-ren ondoan:

1396 Id., 25. k., 1647.

1397 Eleizaldeek **Iguzkun** ematen du bi herri horietarako, eta **Iruzkun** gainera bigarrenerako, **Iguzkun**-en alderatzat edo.

1398 PRA-Oibar, 49. k.

1399 Id., 3. k.

1400 Id., 2. k.

1401 Id.

1402 Id., 5. k. Esan bezala, **Bakundi**-n barrena **Camino de Erbiñaga** (ikus sarrera hau) bat (oraingo bera?) zihuan.

“una pieca...en la endrecera llamada yricarrea que esta afrontada con camino que ban a Caldua” (1584)<sup>1403</sup>

Morionesen ere **Irixarra** eta **Irixarburua** dugu (ikus sarrera hauek), eta Irangoten **Irixarra**.

#### **Iruinportillua (portillada de):**

**Iruñe(a)** edo **Iruña**-ren elkarketako aldaera den **Iruin-** eta **portillua** ‘atea’-z osatua dago:

“otra piª en yruinportillua” (1616)<sup>1404</sup>

Hasierako **Iruin-** hori bi aldiz dokumentatu dugu, XVII. mendean. Honekin batera **Iruñ-** dugu 1593an, eta **Irun-** 1587an. Leatxeko **Irunbidea** toponimoaren lekuko bakarrean **Irun-** aurkitzen dugu, eta **Iruñerriko** toponimian (cf. J. Jurforen lanak) **Irun-** / **Iruin-** / **Iruñ-** txandaketa ikusten da, maiztasunaren aldetik ordena hori jarraitzen delarik.

**Iruinportillua Camino de Pamplona**-n zegoen, Artetako mugan, eta beraz egungo **Portillo de Arteta**-rekin identifikatzeko arazorik ez dago:

“ytten otra piª en Yruñportillua...que affrenta con pª de Joan de Aldunate y con camino” (1593)<sup>1405</sup>

“ytten otro mojon caminando acia loya a la mitad de la cayda de yrunportillo al barranco de arteta” (1642)<sup>1406</sup>

1587ko **Portillada de Yrunportillua** errepikapen hutsa da:

“y mas de la cantera derecho a la portillada de yrunportillua” (1587)<sup>1407</sup>

#### **Iturburumendigaña:**

**Iturburu** ‘iturraho’, mendi eta **gaina** ditugu **Iturrimendigaña**-ren baliokide dirudien honetan:

“otra pieça...en yturburumendigaña” (1587)<sup>1408</sup>

#### **Iturrialdea (eras de):**

Bertan baratzek eta larrainak zeudenez gero, herri ondoan zegoela kontu egin daiteke. Erdarazko (**Donde**) **la Fuente**-ren euskal ordaina irudi du:

“ytten otra huerta en yturrialdea” (1602)<sup>1409</sup>

1403 PRA-Oibar, 3. k.

1404 Id., 14. k.

1405 Id., 7. k.

1406 Id., 24. k.

1407 Id., 3. k-bis.

1408 Id.

1409 Id., 10. k.

**Fuente vieja-ren adierakidea dateke.**

**Iturrimendigaña:**

**Iturri, mendi eta gaina** ditugu toponimo honetan. **Zaldinaga-n** egoki eta, agian **Fuente de Zaldinaga**ondua-rekin identifikatu behar genuke:

“otra pieza en Zaldinaga en iturrimendigaña” (1690)<sup>1410</sup>

1774ean **Yturimendigain** dugu<sup>1411</sup>, eta 1784ean **Altomendigain**<sup>1412</sup>. Azken aldaera honek badu **Zaldinaga**-ko egungo **El Alto grande**-ren eitea, eta baliteke bat eta bera izatea, alegia, oraingo hau aipatu 1784eko aldaera (herri-etimologiaz) de-sitxuratuaren “erdalduntzea” izatea.

**Iturrizabalaga (fuente de):**

**Iturri, zabala eta -aga-z** osaturik dago:

“yt. otra piª en yturizabalaga” (1534)<sup>1413</sup>

**Errepidea** aldean zegoen, Zangozatik Epaiz, **San Gines**, eta **San Martina** doan bidearen alboan:

“ytten en la endreçera de yturriçabalaga començando del camino que ban de Sanguesa a Sangines y gallipienço de la parte de la leçinosa” (1587)<sup>1414</sup>

**Artadua** edo **La Lecinosa** eta **Galipentzuko** mugaren artean:

“...ytten mas Passada la fuente de yturizabalaga en piezas de la leçinosa” (1658)<sup>1415</sup>

**Iturrizabalagaondua:**

**Aurrekoaren** ondoko alderdia zen:

“ytten otra piª en yturriçabalagaondua” (1593)<sup>1416</sup>

**Itzaurmakurra:**

**Itzaur** ‘intxaurrondo’ eta **makurra** ‘okerra’ ditugu hemen<sup>1417</sup>. Pentsa daitekeenez, toponimo honen aldaketan ez dugu sekulan **-tz-** aurkitu, **-c-**, **-ç-** edo **-z** baizik, eta beraz ezin dugu frogatu azken grafema hauen azpian soinu afrikatua zegoela. Gure ustez,

1410 PRA-Kaseda, 5. k.

1411 PRA-Oibar, 70. k.

1412 Id., 73. k.

1413 Id., 2. k.

1414 Id., 25. k.

1415 Id., 28. k.

1416 Id., 7. k.

1417 Cf. Orba-Santsoaingo **Artemakur** (PRA-San Martin Unx, 87. k., 1830), Olatzagutiko **Arizmakur**, edo **Urbasako Urkimakur**.

hala guztiz, **Itzaurmakurra** ebakitzen zuten Eslabako euskaldunek (ikus **Grafia kon-  
tuak** atalean txistukariez esan dena):

“ytten otra pi<sup>a</sup> en yçaurr macurra” (1601)<sup>1418</sup>

Mitxelenaren arabera [c] soinua da zaharrena izen honetan<sup>1419</sup>:

“Las variedades orientales muestran una predorsal en sul. *intzáur* ‘nuez’..., ronc. *etzagur*, *itzagur*, sal. *giltzagur* (aezc. *etxabur*), b.-nav., lab. *eltzaur*. Las occidentales tienen en tiempos modernos *intxaur*, que es ambigua, pero la toponimia y los textos antiguos documentan (t)s: *ynsaur* ‘nuez’ en RS 226 y 344 (*ynsaurpe* 366), mer. *unsaar* (Oñate *untxaur*). Se trata acaso de un compuesto con (h)ur ‘avellana’ como último miembro. La apical ha podido nacer por asimilación...en el derivado *in(t)sausti* ‘nogueral’ cuyo primer miembro llevaría el suf.-tze, como sul. *intzáurtze* ‘nogal’. La serie habrá sido: *in(t)zaur-tze* + -di > \**in(t)zaur-s-ti* > *in(t)sausti*”.

Eslabako euskara, beraz, ekialdeko euskalkiekin batera zihoan. Morionesen berriz **Dorreco ichaurraldea** dugu 1719an eta **Dorreko ichaurrealdea** 1730ean, eta sabaiaurreko afrikatua zeukala kontu egin daiteke, Eslabakoak ez bezala<sup>1420</sup> (ikus Morioneko **Dorreko itxaurraldea** sarrera), baina [ç] ere izan zezakeen.

### Itzaurmakurraldea:

**Itzaurmakurra**-ren ondoko eremua genuen hau:

“otra pieça...en içaurmacur aldea” (1644)<sup>1421</sup>

### Jaun Done Belaio:

**Jaun Done** segidaz ikus **Lergako Jaundonejoanizgibel** sarreran dioguna. Azpimarratzekoa da **Belaio** (< **Pelayo**)-ren hasierako kontsonante ahostuna, dakigunez euskal fonetikaren ezaugarri jatorrenetakoa baita, aspaldikotasun seinalea ezezik:

“en la misma endreçera de Joanderebelayo” (1593)<sup>1422</sup>

“otra pieza en Joandenebelayo” (1637)<sup>1423</sup>

**Undion Joan deno Belay aldea** dokumentatzen da 1601ean<sup>1424</sup>, eta Oskotzen **San Belario** [šámbelárjo] dugu bizirik orain. Burgin, aldiz, **Doneplayo** azaltzen da 1849an<sup>1425</sup>.

1418 PRA-Oibar, 10. k.

1419 FHV, 285-286. orr. Izen honen aldaerek Nafarroan duten banaketaz ikus Echaideren EENEL, 100-101. orr.

1420 Eloko **Ichaustia** izenak (PRA-Elo, 4. k., 1660) bertan **itxaur** genuela erakusten du; Orbako Santsoain herrian **Ichaurreta** dokumentatzen da (PRA-San Martin, 87. k., 1830); Eguesibarren ere (J. Apecechea, IBCNJL, 77-93. orr.) **itxaur** bide genuen, toponimoetako -ch- euskara batuko tx-tako hartu behar bada behintzat: **Ychaurradenecoa**, **Ychaustia**, **Ychaurzabalecoa** (Elkano), **Ychaustia** (Sagaseta), (PRA-Erriberri, 1. k., 1540). Antsoain, Itza, Galar, Oltza eta Zizur zendeetan ere **itxaur** da jaun eta jabe (Cf. Jimeno Juríoren lanak), baina inoiz edo behin **iltxaur**, **eltxaur** ere aurkitzen dugu.

1421 PRA-Oibar, 24. k.

1422 Id., 7. k.

1423 Id., 23. k.

1424 J. Jurío, TCPCC, 172-173. eta 444. orr., hurrenez hurren.

1425 Agoizko hipotekak-3, 64. or.

1587an aztergai dugun izenaren erdal ordaina den **Sanpelay** ageri da, azken bokalaren apokopez (cf. gaurko Barañaingo **San Makai** ‘San Macario’).

### Jaun Done Eztebe:

Hagionimo honetan nabarmendu beharrekoa da **Eztebe** izenaren hortz-hobie-tako bizkarkaria, beste leku batzuetan apikaria baitu<sup>1426</sup>:

“ytten otra pi” en Juandone eztebe” (1593)<sup>1427</sup>

Kokaguneaz ikus Santesteban sarrera.

### Jaundonebelaiosaietsa:

**Jaun Done Belaio**-ren saihets aldea adierazten bide du honek, baina ermitak (eta daitekeena da behinola hemen bat izana) gainera egon ohi direnez gero, saietsa-k hemen ‘aldapa’ adiera izan zezakeen, gure alderdiko beste herrietan bezala:

“Otra pieça en Joanderebelayo sayessa” (1593)<sup>1428</sup>

“otra pieça en Joandenebelayo sayeça” (1650)<sup>1429</sup>

### Jaundoneztebegibela:

**Jaun Done Eztebe**-ren atzeko aldea zen:

“un linar...en (la) parte llamada Joan doneztebe guibela, teniente a...pieza de la lecinossa” (1644)<sup>1430</sup>

### Juandelusaiets (alto de):

Dokumentazioan izen hau sarritan azaltzen da, modu ezberdin askotara. Ez dakigu, hala badirudi ere, **Jaun Done** + **izena**-ren aurrean gauden ala ez, hots, ez dakigu hagionimo bat den ala ez, **Done** aposizioaren aldakiak izan ohi diren **dene**, **dere**, **dele** aurkitu ez ditugulako lehenik (1681ean, ordea, aipatu **dere** horren laburketa izan daitekeen **dre** dugu, **Juandrezaiza** aldaeran<sup>1431</sup>), eta tarteko **-lu-** edo **-lo-** hori zer den ongi ez dakigulako bigarrenik.

Daitekeena da, itxuraz, **Luis** izenaren laburketa izatea, alegia, **Luis** + **saihetsa**-tik **Lusa(i)etsa** atera izana, baina **Jaun Done Luis**-en antzekorik ez dugu sekulan aurkitu, ez alderdi honetan eta ez Nafarroako beste eskualdeetan ere, eta horregatik etimologia hau aski zalantzakoa iruditzen zaigu:

1426 Ikus honetaz K. Mitxelena eta A. Irigarainen “Nombres vascos de persona”, SHLV, 581-594. orr. Eslabela-ko lekukotasun guztiek, zerrrendetan ikus daitekeen moduan, -z- daukate, Malerrekako izen bereko herriak bezalaxe.

1427 PRA-Oibar, 7. k-bis.

1428 Id., 7. k.

1429 Id., 26. k.

1430 Id., 24. k.

1431 PRA-Kaseda, 1. k.

“otra pieza en Juandelusaecha” (1690)<sup>1432</sup>

“otra pieza en Juan de Losaysa” (1692)<sup>1433</sup>

Egungo Alto de Juandelusaiets-ek (Juandelosaires [xwándełosáíreś] bilakatu) bukaeran saiets ikustarazten digu, esan bezala (ikus Jaundonebelaiosaietsa sarrera eta Dermio baten zatiketa atalean -saietsa-z dioguna) izen honek ‘aldapa’ adiera baitu.

1765eko aldaera gaurrengungo formaren aitzindari garbia da:

“otra pieza en el termino que llaman Juan de Lusais” (1765)<sup>1434</sup>

Eta 1810eko Juan de los aies<sup>1435</sup> are gertuago dago oraingo aldakitik. Hauetaz gainera, honako aldaerok ere ediren ditugu: Juan de Luzecha (1688)<sup>1436</sup>, Juan de Lussa echa (1702)<sup>1437</sup>, Juan de Lusaisa (1717)<sup>1438</sup>, Juan de Ursais (1752)<sup>1439</sup>, Juan de Lugain (1778)<sup>1440</sup>, Jandulusais (1820)<sup>1441</sup>, eta Juandalusain (1829)<sup>1442</sup>.

Dermio honek Azterain, Aitzuloa, Zabalzigar eta El Hoyo del Saso-rekin mugatzen du.

#### Kalboren korralesarraldea:

Calvo deitura (ikus Agezako Calvo sarrera) zuen norbaiten gortearen sarrera ingurua adieraz zezakeen Lezkadui (El Lezcal orain) barruan edo ondoan zegoen honek:

“otra pieza en lezcaduy ô Calvoren corrale sarraldea” (1692)<sup>1443</sup>

Korral(e) gure eskualdean behin baino gehiagotan aurkitu dugu (adibidez, Leatxeko Auntzenkorraleta edo Uxueko Korralandia izenetan), agertzen ere den gorte edo korte-rekin batera eta balio beraz.

Sarraldea erdal entrada arruntaren ordaina izan daiteke, baina hau dugun lekuko bakarra izaki eta, baliteke s- dokumentazioan hainbestetan ageri den z / s nahasketaren beste adibide bat besterik ez izatea, eta orduan sarraldea ‘sarrera’ gabe, zarraldea (alegia, zahar aldea, ‘korrale zaharraren ingurua’ edo) genuke.

Gainera, erdarazko entrada-ren ordaintzat sartzeara edo sarrera edireten dugu han-hemenka, ez sarraldea: Ibero herrian adibidez, Oreya toponimoa dugu, eta honekin

1432 Id., 5. k.

1433 Id., 6. k.

1434 PRA-Oibar, 62. k.

1435 PRA-San Martin, 76. k.

1436 PRA-Kaseda, 4. k.

1437 IEA, 1366, 10. zkia. \*

1438 PRA-Kaseda, 18. k.

1439 PRA-Oibar, 57. k.

1440 PRA-San Martin, 52. k.

1441 Id., 82. k.

1442 PRA-Kaseda, 53. k.

1443 Id., 6. k.

batera **Entrada de Oreya** eta **Oreya sarçea**<sup>1444</sup>. Aezkoako mendietan osagai bera duen **Sariozarsartzea** toponimoa dugu bizirik oraindik, eta Burundan **sarrera** erabili izan da, azken bi mendeotan erdarazko **entrada** franko sartu bada ere: **Epeltxikiko sarrera** edo **Epeltxikiko entrada**, **Oporoko entrada** edo **Oporoko sarrera** (Bakaiku).

### Kapardoia:

Dokumentatzen dena **Capardoya** (1706) denez gero, \***Txaparduia**-ren aldaera baten aurrean ez ote gauden pentsa daiteke (\***Zapardoia**-ren aurrean, alegia. Eslaban **Txaparra** 'txaparduia' dugu), baina beste aldetik, Galipentzuko **Kapalarraña** eta **Kaparreta**-n aurkitzen dugun **kapar** belar-izena ere izanenez gero <sup>1445</sup>:

"la otra mitad...en el terno de Capardoya" (1706)<sup>1446</sup>

Atzikiari dagokionez, Eslabako eta inguruko herrietako aldaera **-dui** da, eta **-doi** normalean **-dui**-ren aldaera berantiarra baizik ez da izaten, ez diakronikoki **-dui**-ren aitzinekoa den **-doi** (cf. **Lezcaduya** 1529an, **Lezcadoy** 1804ean)<sup>1447</sup>.

### Karkareta:

Ez dakigu zer izan daitekeen. **Kaskallueta**-ren itxuragaiztotze bat ematen du, baina hau ez da inola ere segurua, **Karkareta** oso goiz agertzen baita:

"la pieza que tengo en el termino de carcareta" (1584)<sup>1448</sup>

"una pieza...en...carcarreta" (1647)<sup>1449</sup>

### Kaskallueta (barrio de):

**Kaskailu** izena eta **-eta** atzikia ditugu hain hedatua dagoen toponimo honetan. Eslaban hiru **Kaskallueta** izan dira: lehena egungo **Kaskalletas**-en ([kaškałétaš]) aitzindaria, bigarrena Galipentzuko mugakoa, eta bestea herrikoa bertakoa:

"dos casas...en el barrio de cascallueta" (1571)<sup>1450</sup>

"otra pieza en cascallueta...que affrenta con el soto de galipienzo" (1635)<sup>1451</sup>

Ez dakigu 1276ko **Cascayleta** aipatuetako zein izan daitekeen:

"...item la pieça de Cascayleta que se afronta con (la) de Garçia Er/dalduna"<sup>1452</sup>

1444 J. Jurío, TCPCO, 142. or.

1445 Urraulbeitiko Arripodas herrian **Caparibar** agertzen da (PRA-Irunberri, 39. k., 1710). Aezkoa-Hiriberriin **Kaparduia** [kapařdúya] dugu orain, **Capardoya** 1916ko katastroan (cf. **Korostuia** orain / **Corostoya** 1916ko katastroan), eta **Abaurregainean Kaparrea** [kapařéa].

1446 PRA-Kaseda, 13. k.

1447 Eslabako toponimoaren kasuan, dena dela, **-idoia** 'baltsa' ere izan dezakegu, baina ez dugu uste hala den. Ikus **-idoia** > **-doia** pausoaz eta atziki multzokari honen banaketa geografikoaz **DAON**-en dioguna.

1448 PRA-Oibar, 3. k.

1449 Id., 25. k.

1450 Id., 2. k-bis.

1451 Id., 23. k.

1452 *El Gran Priorado*, 469-470. orr.



Herriko **Kaskallueta** 1613ko **Cascaxo de Santa Ana** izan zitekeen (ikus **Santa Ana** sarrera), egungo **Kaskalletas** (< **Kaskallueta**) herritik hurbil bai, baina auzotzat joa izateko urrunxko gelditzen denez gero.

**Kaskallueta** dermioa **Camino de Sangüesa** edo **Zangozabidea**-ren hastapeanean dago, **El Llano**, **Los Pozos**, **El Puente viejo**, **La Cruz**, eta **El Sasico** edo **Zazutxi-pia**-ren artean, eta XVII. mendearen bukaera aldean azaltzen dena ere alderdi horretan zegoen:

“la dha pieza..en el terno llamado cascallueta...teniente a Camino que se ba a Sangüessa” (1695)<sup>1453</sup>

1566an gaztelaniaren eragina erakusten duen aldaera ageri da:

“en la p<sup>a</sup> q tenemos junto al lugar llamado cascajueta” (1566)<sup>1454</sup>

Eta 1769an, euskara galdutakoan, euskal toki-izenek hartzen duten -s plural-gilea aurkezten duena:

“otra viña...sita en el ttermino de Cascalletas” (1769)<sup>1455</sup>

Egun bizirik dagoen **Kaskallueta** kaskailuz beterikako eremua da, espe-ratzekoa zen bezala.

#### Laboz:

Behin bakarrik ediren dugu, eta ez oso modu argian. Dirudienez, **Artadu** aldean zegoen:

“una pieza...en la endrecera llamada la lecinosa afrontada con el camino que ba a laboz” (1583)<sup>1456</sup>

#### Landalarratza:

**Landa** izena eta **larratza** izenondoa ditugu hemen. Lehena oso arrunta da euskal toponimian (ikus Eleizalderen zerrendak), eta duen esanahia ‘campo’, ‘pieza de terreno’ (Azkue) edo ‘champ’, ‘pièce labourable’ (Lhande) da. **Alfonso Irigoyenek**<sup>1457</sup> zelaia-rekin parekatzen du eta ‘campo’ adiera ematen dio. Pello Salabururen arabera<sup>1458</sup>, **landa** zerbait landatzeko erabiltzen den lekua da, baina ez baratzea. Iruñerrian eta beste alderdi batzuetan ‘vega’-ren errankidea ere izan da.

Gure eskualdean zeukan adiera zehazki zein zen ez dakigu, baina lagun egi-ten dion izenondoa ikusita, **Tafalla** aldean<sup>1459</sup> duen ‘lantzen ez den eremu zelai antza’ esanahia zuelako susmoa dugu.

1453 PRA-Kaseda, 8. k.

1454 PRA-Oibar, 2. k.-bis.

1455 PRA-Kaseda, 22. k.

1456 PRA-Oibar, 3. k.

1457 IG.

1458 Id.

1459 Ikus Jimeno Juríoren THET-ko 124-125. orr.

Bigarren osagaia larre-ren eratorri bat da, Mitxelenaren arabera<sup>1460</sup> 'terreno baldío' adiera duena, hau da, lieco, lleco, faitía, faitío:

"otra pieza en landa larraza" (1645)<sup>1461</sup>

"otra pieza en landa laracea" (1648)<sup>1462</sup>

#### Landasuña (barranco de):

Hemen berriro ere landa izena dugu, eta aurren eta atzen aldiz edireten dugun suina. Azkuek<sup>1463</sup> eta A. Irigoyenek<sup>1464</sup> zuin biltzen dute, baina Eslabako toponimoan beti s- aurkitu dugu. Euskaltzainburu izan zenak honela definitzen du hitz hau:

"trazado, traza que se hace en un campo antes de la siembra. Consiste en una serie de ramillas, papeles ú otras señales que se colocan en filas. Algunos, quizá con más propiedad, llaman zuñ á cada una de estas filas"

Irigoyenen arabera (Satrústeguirengandik jasotako informazioa ematen digu, izen honen Urdiango adiera, alegia) 'lurrean egon ohi den ezaugarria' dugu zuina, eta aurreko sarreran landa-ri eman diogun adiera aintzat hartuta, balirudike Irigoyenek biltzen duena egokiagoa dela.

Toponimo hau azaltzeko landa eta osuin 'osin'-en ere pentsa liteke (ikus Lixuñeta), baina bi izen hauen elkarketatik \*Landosuin espero genuke, ez Landasuin.

Nolanahi ere, mintzagai dugun izenaren lehen lekukotasuna nahikoa nahasgarria da:

"...item alia peça de Leindassayn que/ se afronta a la de Sancho Eçquerra" (1276)<sup>1465</sup>

Hau, dena den, izenaren desitxuraketa bat besterik ez dela garbi dago (cf. 1276ko Kaskallueta-ren cascaylleta forma), XVI eta XVII. mendeko aldaerak bat baitatoz:

"...en el barranco de Landasuyn" (1587)<sup>1466</sup>

"otra pieza en landasuña" (1684)<sup>1467</sup>

Ez dakigu non zegoen; bai ordea bertan erreka bazela:

"...en el barranco de landasuña" (1587)<sup>1468</sup>

1460 AV, 120. or.

1461 PRA-Oibar, 25. k.

1462 Id.

1463 DVEF.

1464 IG.

1465 *El Gran Priorado*, 469-470. orr.

1466 PRA-Kaseda, 3. k-bis.

1467 Id., 2. k.

1468 PRA-Oibar, 25. k.

**Landazubi:**

**Landa** eta **zubi**-z osatuta dagoela irudi du, baina, dokumentazioko desitxuraketa bitxiak ikusirik, baliteke aurrekoaren itxuragaiztotze hutsa izatea:

“otra pieza en landa çubi” (1633)<sup>1469</sup>

**Larduia:**

**Lahar** izena eta **-duia** atzizki multzokaria ditugu hemen, antza (cf. **Lardia** Gazolatzen<sup>1470</sup>, **Saguesen**<sup>1471</sup> eta **Mezkiritzen**<sup>1472</sup>). Behin bakarrik aurkitu dugu, eta **\*Ilar-duia**-ren moduko batetik atera dela ere kontu egin daiteke (cf. **Ilardia** Deierrin<sup>1473</sup> edo **Illardia** Lizarran<sup>1474</sup>), hasierako bokalaren aferesia jasan ondoren.

Badakigu **Zaldinaga**-n zegoela:

“en el camino que se va a Larduya en el termino de Zaldinaga” (1692)<sup>1475</sup>

**Larrainzar:**

**Larrain** izena eta **zahar** izenondoa ditugu hemen:

“Mas otra (pieza) en larrainzar de cinco Robas” (1753)<sup>1476</sup>

Eslabatik Epaizerako bidean zegoen, **Artadua** edo **La Lecinosa** aldean (Epaizko **Larrainzar** bera ote da?):

“la una (pieza) en larrainzarr...affr...con senda conzejal q ban de la lezinosa a Abaiz” (1570)<sup>1477</sup>

“otra pieça...en la endreçera llamada larraynçarra...que afronta con...el Camino Real que ban los deslaba a abayz” (1590)<sup>1478</sup>

**Larrainzarrondoa:**

Aurrekoaren ondoko eremua genuen hau:

“un pedaço de pieça...en la endreçera llamada larayncarondoa” (1585)<sup>1479</sup>

1469 Id., 23. k.

1470 J. Jurío, TCPCC, 289. or.

1471 Id., 418. or.

1472 Orreaga Ibarra, MT, 338. or.

1473 Ez dakigu bailara honetako zein herritakoa den toponimo hau. Ikus L. Lapuente, TAM, 404. or.

1474 J. Jurío, “Toponimia de Estella”, lan argitaragabea.

1475 PRA-Kaseda, 6. k.

1476 PRA-San Martin, 42. k.

1477 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1478 Id., 14. k.

1479 Id., 3. k-bis.

**Larrasoil:**

**Larre**-ren elkarketako aldaera apofoniatuna den **larra**- izena eta **soil** izenon-doa dira herri-mendi honen izenaren bi osagaiak:

“ytt mas otra pieça en la endrecera llamada larrasoyl” (1584)<sup>1480</sup>

“otra pieza en larrasoll” (1685)<sup>1481</sup>

Reta Janárizek<sup>1482</sup> oraingo **Larrasuil** aldaera **larratz** ‘terreno baldío’ izenez, -dui ugaritasunezko atzizkiak eta erromantzearen -il-ez osaturik dagoela uste du. Masu Nittak<sup>1483</sup>, aldiz, 1752an dokumentatzen duen **Larrosil**-en oinarrituta **larra** ‘larre’ eta **osin** proposatzen ditu. Hona hemen bere hitzak:

“En cambio (Retaren azalpena arbuiatzen du), en base al testimonio del año 1752: *Larrosil*, cabría pensar en una composición vasca como de LARRA ‘pastizal’ más (H)OSIN ‘pozo, sima’, con alteración de -n en -l quizá por asimilación con las líquidas no nasales que le preceden”

Lekukotasun zaharrak eta egungo aldaera ezagututa, ordea, garbi dago hemen **osin** osagaia ez dela azaltzen (gainera bertan ez dago, dakigula, osinik), ez eta Retak proposatu -dui + -il ere.

**Larre** Azkueren arabera<sup>1484</sup> ‘pastizal’, ‘dehesa’ edo ‘tierra inculta’ da, eta hemendik, hedaduraz, ‘soledad, desierto’. A. Irigoyenek **pentze / euntze** eta **landa**-ren esanahikidetzat jo ondoan ‘pastizal y prado’ adiera ematen dio<sup>1485</sup>, eta Mitxelenak ere erdal **prado**-ren adierakidetak hartzen du<sup>1486</sup>. Baztanen eta Goizuetan (eta tarteko herrietan ere bai, irudiz) **larrea** belarra dagoen tokia da, baina ez da **belaie** (Baztan), **belagia** (Ituren) edo **belaso(r)o** (< **belar** + **soro**, Goizueta)-rekin nahastu behar: azken hauek belarra urtero ebakitzen den toki hertsia dira; **larrea**, aldiz, ez dago hertsia, eta ez da belarra ebakitzen.

Gure eskualdean, **prado**, **larrea** eta **euntzea** elkarren errankideak dira (ikus Agezako **Euntzeberri**, Galipentzuko **Prado seco** eta Uxueko **Prado de Laku** toponimoak), etaazienda xeheentzat oso egokia den **belar** finaz estalitako toki urtsua eman ohi dute aditzera. Ur ugaritasunak lurroko lantzetik gibelatu izan ditu laborariak, baina aspaldi honetan “puntido”-en (drainaketen) eraikuntzak nolabaiteko konponbidea eman dio arazo honi (ikus Uxueko **Laku** sarrera).

Guztiarekin ere, Eslabako **Larrasoil** uretan pobre samarra da eta gainera bertan ez dago iturririk, eta hortaz **larre**-rako eman definizioari ez zaiola egokitzen esan daiteke. Dena den, zenbaitetan **larreak** belarra duten mendi mazalak izaten dira<sup>1487</sup>, eta badirudi bigarren sail honetan sartu behar dugula Eslabako toponimoa.

1480 Id., 3. k.

1481 PRA-Kaseda, 3. k.

1482 EHZE, 484. or.

1483 *Notas lingüísticas...*, 20. or.

1484 DVEF.

1485 IG.

1486 “Aski zaharra da, Iruñeko eremuetan, *El prado de Iruinlarrea* (prado eta larre, larre eta prado bateratsu da biltza noski)...”, “Iruñea”, PT, 187-193. orr.

1487 Eritzeko **Larre**raundi kasu, oihezki bar da, Jimeno Juríoren arabera (TCPCI, 161. or.): “Al NO. del pueblo;

Soila zuhaitzik gabeko lur eremua da, alegia, erdaraz raso esango genukeena, eta Larrasoil horrelakoa da, oteak eta izpikua bai, baina zuhaitzik ia ez baitago bertan. Honela hitz egiten digu J. M<sup>a</sup> Satrústeguik toponimoaren bigarren osagaiaz<sup>1488</sup>:

“Raso. Es la expresión más generalizada para indicar en estos momentos el concepto de estos claros en el arbolado. El más significativo de ellos es el *Raso de Urbasa*. Raso es además un préstamo que ha pasado al vocabulario de las últimas generaciones vascofonos (sic) de la región: *Eskizako rasua*. Es una realidad que no deja lugar a dudas... Soil. La localización del componente residual *soil* en términos referentes a estos lugares desprovistos de vegetación, *Baizasoil*, *Eskizasoil*, constituye la aportación más novedosa de este apartado. *Soil*, además de raso, significa también pelado, *lepasoil* se dice de las aves de cuello desplumado, y calvo, *burusoil*. Figura como nombre en algunas voces de la zona estudiada: *Soilbelz*, *Soilburu*, sinónimo de *Zelaiburu* que recogí en Iturmendi, y de *Soilgain*, proceden de Ciordia, cuyo informante puntualizó que en castellano era cabeza de raso”

Egungo Larrasuil [lãraswíl] aldaera 1704erako aurkitzen dugu:

“otra pieza...en el termino de larrasuil” (1704)<sup>1489</sup>

Eta geroztik aldaki nagusia (bakarra?) izan da:

“un corral..en el terno de Larasuil y muga de Arteta” (1769)<sup>1490</sup>

Larrasoil Arteta eta Loiako muga aldean dago, Arangaitz, El Chaparro, eta Azterain-en artean.

#### Larrasoilburua:

Larrasoil-eko gaina adierazten zen izen honen bidez:

“otra faytia en larrasoil burua” (1633)<sup>1491</sup>

“otra pieca en larrasoll burua” (1647)<sup>1492</sup>

#### Larruzgibel:

\*Larruz dermioaren atzeko aldea zen, Larruzkain-en azpia (ikus sarrera hau). Larruzkain-en ez bezala, gibel posposizioaren hasierako herskari ahostuna bakan-ka baizik ez da ahoskabetu<sup>1493</sup> (ikus hurrengo sarrera):

ángulo formado por la carretera de Irurzun (NE) y la muga de Ochobi (O). Ladera del monte expuesta al N. y plantada de pinos, salvo una pieza”.

Zendea bereko Otxobiko Larratxos ere mendi puska bat da:

“Llaman «los Larrachos» a un espacio del monte arriba, al N. del pueblo, situado entre Txarakadi (O), el Portillo (E) y el camino de Erroz a Pamplona (S). Era «larre» desarbolado, pastizal verde donde «gozaban las ovejas». Se ha poblado de encinos” (Id., 270. or.).

1488 “Los grupos humanos en la prehistoria de Encia-Urbasa”, 58. or.

1489 PRA-Oibar, 30. k.

1490 PRA-Kaseda, 27. k.

1491 PRA-Oibar, 23. k.

1492 Id., 25. k.

1493 Zenbait agiritan g / q bereizketa egitea ez da erraza, eta badaiteke behin baino sarriago nahastu izana.

“...en el termino llamado Larruzguibel” (1552)<sup>1494</sup>

Mugatzaileak lagundurik ere behin baino gehiagotan eriden dugu:

“ytten mas otra pieça...Junto a Laruzguibela” (1587)<sup>1495</sup>

**Barranco de Larruzgibel gaurko Barranco de Zubialdea edo Barranco de Lergabidea zela uste dugu, Larruzgibel Larruzkain-en atzeko aldean baitzegoen, alderdi horretan:**

“en el barranco de Larruzguibel se pusieron dos mojones” (1612)<sup>1496</sup>

**Larruzkain (bajada de):**

**Larruz osagai opakuz<sup>1497</sup> eta gain posposizioaz osaturik dago. Mugatzailez horniturik ere ediren dugu:**

“...la una (pieza) de siete coartaladas en arriçutaga...y la segunda en laruzcaña” (1587)<sup>1498</sup>

**Larruzgibel-en ondoan zegoen, Lergako errepidearen alboan:**

“de baxo de la senda que ban de larruzcayn al barranco de larruzquibel” (1612)<sup>1499</sup>

“Mas tres piezas en la bajada de Larruzcayn a larruzquibel q affrentan con camino q ban a Lerga” (1656)<sup>1500</sup>

**Hau ikusita Larruzkain egungo Corral redondo izeneko eremua izan zitekeela uste dugu, aipatu dermio hau berria izateaz landara gaina baita, eta Lergabidearaino (Lergako errepideraino) iristen baita.**

**Larruzkaingibel:**

**Aurreko bi izenen gurutzaketa dirudi oraingo honek. Aldi bakar batez ediren dugu:**

“En el termino de laruzcanguibel” (1760)<sup>1501</sup>

**Lecinosa (alto de), (cabe), (castro de), (ermita de), (linares de), (Nuestra Señora de), (pieza de), la:**

**Lecinosa lecino ‘artea’-ren eratorria dugu<sup>1502</sup> ezbairik gabe euskal Artadu(a) (< \*artadi)-ren ordain erdalduna den hau.**

1494 PRA-Oibar, 2. k.

1495 Id., 3. k-bis.

1496 Id., 14. k.

1497 Baliteke toponimian maiz azaltzen den Larrutu, narrutu-rekin zer ikusia izatea: cf. Larrutu Etxarri-Aranatzen, Larrutuko malda Lesakan, Lurlarrutu Aezkoan (NTEM-XII, 50. or.), Barganarrutua Lokizen (PRA-Artabia, 7. k., 1694).

1498 Id., 3. k-bis.

1499 Id., 14. k.

1500 Id., 26. k.

1501 Id., 60. k.

1502 Izen honen adieraren inguruan ikus Galipentzuko lecino sarrera. Ledean La Lezinosa dugu 1726an (PRA-Oibar, 39. k.), eta La Lecinera 1730ean (id., 42. k.)

**Alto de la Lecinosa** euskarazko **Artaduburua** bera zen (ikus sarrera hau), **Cabe la Lecinosa** euskal **Artaduondoa** edo **Artadualdea**-ren baliokide, eta **Tras la Lecinosa** gure hizkuntzako **Artadugibela**-rena:

“...en el alto de la Lecinosa...y camino de dho (sic) lecinosa” (1810)<sup>1503</sup>

“...en la endreçera llamada cabe lalecinosa” (1587)<sup>1504</sup>

“una viña...tras la leçinossa” (1657)<sup>1505</sup>

**Ermita de la Lecinosa** edo **Nuestra Señora de la Lecinosa** egungo **La Venta**-n zegoen, gaztelua bera bezala (ikus **Artadua** eta **La Venta** sarrerak):

“una vina...en artadubarrena digo en artaduguivela que afrenta con la vasilica de nuestra señora de la leçinossa y Camino Real” (1637)<sup>1506</sup>

Ulertzekoa da **La Lecinosa**-n ermita izatea, Erdi Aroan hustu bide zen jatorri erromatarreko herrixka izan baitzen bertan. Honela mintzo zaigu J. Gárriz<sup>1507</sup> honetaz:

“La Encinosa, en Eslava, de ascendencia romana, fue sede de un monasterio de Templarios, despoblándose durante la Edad Media”

Autore honek dioenez, Jupiterri eskainitako “ara” bat aurkitu zuten bertan.

**Linares de la Lecinosa** **Los Linares altos**-en (egungo **Los Linares**-en, alegia) zegoela suposa daiteke, **Artadua**-ko ermitak alderdi honetan gutxienez alor bat baitzuen (ikus **Jaundoneztebegibela**), baina **Los Pozos de aguar lino** delakoa (**Los Pozos** orain, itxuraz) **La Lecinosa** ondoan zegoela aintzat hartzen badugu, **Artadua**-ko lihatzeak bertan zeudela ondorioztatu beharko dugu:

“una pieça linar...en los linares que afrenta con linares de la leçinossa” (1615)<sup>1508</sup>

**Castro de la Lecinosa** 1276an dokumentatzen da, eta itxura guztien arabera **Alto de la Lecinosa** edo **Artaduburua**-n zegoen gaztelua adierazten du (egungo **La Venta** bera, irudiz):

“...item alia pieça que se afronta con la de San/ Salvador en el Castro de l’Alcinosa”<sup>1509</sup>

**Lergabidea (barranco de), (puente de):**

Lergara zihoan goiko errepidea zen. Egun **Argabidea** ([a̞rgabídja] edo [a̞rgabídĕa] ebakia) errepidearen ondoko eremua da, behialako **Larruzgibel** eta **Larrazkain** bera, antza:

“otra pieza...en Larruzgibel o Lergavidea” (1753)<sup>1510</sup>

1503 PRA-San Martin, 76. k.

1504 PRA-Oibar, 3. k-bis.

1505 Id., 28. k.

1506 Id., 23. k.

1507 *Despoblados*, 21. or.

1508 PRA-Oibar, 18. k.

1509 *El Gran Priorado*, 469-470. orr.

1510 PRA-San Martin, 42. k.

1756an oraingo aldakiaren aitzindaria izan daitekeena edireten dugu:

“una pieza...en el termino de Lergavidia” (1756)<sup>1511</sup>

**Barranco de Lergabidea** gorago **Barranco de Zubialdea** deritzan erreka da, errepidean dagoen **Puente de Lergabidea**-tik beheiti.

**Lezcal (barranco de), el:**

Ikus hurrengo sarrera.

**Lezkadui (barranco de), (pradillo de):**

**Lezka** landare-izenaz eta **-duia**-z osatua dago toponimian oso ezaguna den hau<sup>1512</sup>. XIX. mendean **Lizcadoy**<sup>1513</sup> eta **Lezcadoy**<sup>1514</sup> agertzen da, jatorrizkoa esan bezala **-dui**-**dun** aldaera bada ere (cf. Galipentzuko **Zamakidoi** eta **Uxueko Ardui, Ardoi** zenbaiten hizkeran):

“una p<sup>a</sup>...en el termjo llamado lezcaduya” (1529)<sup>1515</sup>

“(otra pieza) en el termino de lezcaduy” (1692)<sup>1516</sup>

1791n **Lezcaduil** aurkitzen dugu, **-l**-ren eransketaz, **Lizardui** > **Lizarduil** > **Lizardil**-en bezala:

“otra (pieza) en el termino de Lezcaduil” (1791)<sup>1517</sup>

Egun **El Lezcal** esaten zaio. **La Calera, Baluriaran, Errepidea, Xauzgun** eta **Galipentzuko** mugaren artean dago. Toki urtsua da, eta hortik 1612ko **Pradillo de Lezcaduya**:

“y mas abaxo en el pradillo de lezcaduya...”<sup>1518</sup>

**Alderdi honetatik** gorago **Barranco de la Calera** deitu erreka igarotzen da, **Galipentzuko** lurretan sartu aitzinean, eta esperatzekoa zenez **Barranco del Lezcal** izena hartzen du.

**Linar, el:**

**Oraingo Los Linares**-en ganean dago, **Arangaitz**-eko mugan, baina dermio diferenteak omen dira.

---

1511 PRA-Oibar, 59. k.

1512 **Lezcaduia** dugu Ezporogin, **Lezcadia** Artaxonan, **Amatriainen** (Jimeno Jurío, THET, 130. or.), **Sagasetan** (PRA-Erriberri, 1. k., 1540), **Muru-Azterain** (Jimeno Jurío, TCPCC, 363. or.), **Barbarinen** (1895eko katastroa), eta **Murginduetan** (1894eko katastroa). **Hauetaz gainera, lezka** osagaia duten **Lezkairu** dugu **Uxuen**, eta **Lezkatzea** **Ageza**, **Galipentzu** eta **Uxuen**.

1513 PRA-San Martin, 71. k., 1804

1514 Id., 76. k., 1810.

1515 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1516 PRA-Kaseda, 6. k.

1517 PRA-Oibar, 76. k.

1518 Id., 14. k.



**Linares (acequia de), (puente de), los:**

Egungo Los Linares bakarra dokumentazioko **Los Linares de arriba** da, eta aspaldiko **Linares de abajo** edo **Lixuñeta** erabat ezezagunak dira orain:

“...en la endrecera llamada los linares” (1593)<sup>1519</sup>

**Acequia de los Linares Arangaitz**-etik ura **Txirria**-ra jaisteko zegoen bidearen ondo-ondoko azekia zen:

“campo de la religion de San Juan en los linares teniente a la acequia regadera de dichos linares” (1723)<sup>1520</sup>

Dokumentazioko **Puente de los Linares** beheko lihatzeetan zegoen, **Camino de Gallipienzo**-n, **Errotaxar**-etik hurbil, **Lixuñeta** (ikus sarrera hau) eta **Bueltagunea** aldean:

“El barranco grande desde errotajarra asta la puente de los linares” (1612)<sup>1521</sup>

**Linares bajos, los; Linares de abajo, los:**

**Barranco de Errotaxarra**-n zeuden, **Lixuñeta**-n, **Camino de Gallipienzo** eta **Bueltagunea** alderdian:

“un linar...en los linares de abajo y termino de Bueltabunea” (1817)<sup>1522</sup>

Bertan zubia ere bazen (ikus **Linares sarrera**).

**Linares de arriba, los; Linares de la parte alta, los:**

Zubialdea ondoko **Los Linares** dira dokumentazioko **Los Linares de arriba**, **Los Linares de la Parte alta**, edo **Los Linares de Santesteban**, eta **Errotaxar** aldean zeuden **Los Linares**-i eta **Artadua**-ren ondokoei<sup>1523</sup> kontrajartzen zaizkie<sup>1524</sup>. Antzinako goiko **Zaldua**-ko eta **Azterain**-eko bidearen ondoan daude:

“un linar en los linares de Arriua teniente con camino que ban a Zaldua y Camino que ban a Astiriain” (1690)<sup>1525</sup>

Dermio honek **Zubialdea**-rekin ezezik, **Arangaitz**, **Sagarraga**, **Zabalea**, eta **Artatzea**-rekin ere mugatzen du.

1519 Id., 7. k.

1520 IEA, 1765, 8, 872. or.

1521 PRA-Oibar, 14. k.

1522 PRA-Kaseda, 44. k.

1523 Itxura denez, beste toki batzuetan (**Zazu** aldean, kasu) ere baziren lihatzeak, baina ez bide zuten aipatu hiru **Linares** horiek adinako garrantzirik.

1524 Cf., euskaraz, Goldarazko 1829ko **Liacebeyticoa** / **Liacegoycoa** (Indice de Gravámenes, Goldaratz), **Liatze** [l'íacé] nahiz [l'jáce] gaurregun.

1525 PRA-Kaseda, 5. k.

**Lixuñeta:**

**Liho**, osuin 'osin'<sup>1526</sup> eta **-eta** ditugu (ikus Leatxeko Usunbiribila sarreran dioguna) **Linares de abajo** erdaldunaren baliokidea den honetan. Eslaban \***liho** [lio] bide zen erabiltzen zen aldaera (ikus, alabaina, **Algunjina** sarreran dioguna), Galipentzun bezala (cf. **Liazeta** toponimoa), Zareko **ligu-ren** (cf. **Ligusuñeta**) ordez<sup>1527</sup>:

“otra pieça...en Lejuneta” (1587)<sup>1528</sup>

“otra pieça faytia en Lixuñeta” (1591)<sup>1529</sup>

Dokumentazioan garbi azaltzen da **Camino de Gallipienzo-ren** ondoan zegoela (ikus sarrera hau), errekaen aldamenean, eta beraz **Linares de abajo**-rekiko (cf. **Puente de los Linares**) identifikazioa seguru samarra da:

“en el terno llamado lesuñeta se allo que a Roçado el dco barranco...tocante al camino que ban a gallipienço” (1612)<sup>1530</sup>

**Lizardui (fuente de):**

**Lizar** zuhaitz-izena eta **-dui** atzizki multzokaria ditugu egun **El Lizardil** [eliθardíl] edo **Lizardil** [liθardíl] bilakatu den honetan. Bukaerako -l hori XVIII. mendearen amaiera aldetik aurrera azaltzen da, euskara galduz geroztik (cf. **Lezcaduil** 1791n, **Lezkadui-tik**). Egund bertan ez dago lizarrik, baina bai ondoko dermioetan:

“temjo llamado lizarduya” (1573)<sup>1531</sup>

“una pieza...en el termino de Lizarduy” (1711)<sup>1532</sup>

1791n jatorrizko eta oraingo izenaren arteko pausoa den **Lizarduil** idiren dugu:

“una pieza...en el terno llamado Lizarduil”<sup>1533</sup>

Iturria ere bada alderdi honetan, baina guk dakigula ez du izen berezirik.

**Lizardui-k Euntzeluzea, Euntzeberri, Uxubidea, Abaizgibel eta Santuzabal-ekin** mugatzen du, Aldeko lurrekin ez eze.

1526 Cf. Usunbeltz herrixkaren izenaren lehen lekukotasuna den **Osinbelz** (Yanguas, DARN). Itza zendeko Iharte despoblaturan idoi baten aldamenean zegoen **Arqueta** osuynna aurkitu du Jimeno Jurfok 1549an (TCPCI, 178. or.). XVIII. mendean, ordea, **Osinondoa** azaltzen da herri berean: «antiguamente se llamaba *Osinondoa* que quiere decir junto al pozo» (lan bereko 183. or.).

1527 Zigandan (Aterzen) **Luxiñeta** bildu du F. de Leizaolak TVA-n, AIO, 405-421. orr., eta **Luxiniarte** dugu bizirik orain. Lusatretan **Lisoñetaco vizcarra** dugu 1773. urtean (PRA-Auritz, 43. k., 66. zkia.).

1528 PRA-Oibar, 3. k-bis.

1529 Id., 5. k.

1530 Id., 14. k.

1531 Id., 2. k.

1532 Id., 32. k.

1533 Id., 76. k.

**Loya, ermitica de:**

Loiako mugatik hurbil dago eremu hau, dirudienez despoblatura doan xendaren ondoan, **Azterain**-en. Izena bertan zegoen ermitari zor zaio:

“el mojon q dibide los thermos de dha villa de Eslaba y lugares de Loja, y Moriones, q se alla en...Asttirain, hasta la Ermita derruida de dho lugar de Loya” (1776)<sup>1534</sup>

Edozein modutan, eta pentsa daitekeenaren kontra, eremu hau Eslaba barruan dago, Loiaiko mugatik gertu bada ere.

**Lurrurdina (barranco de):**

**Lur** izena eta **urdina** izenondoa ditugu toponimo honetan (cf. beste toki askotako **Lu(r)beltz**<sup>1535</sup> edo **Lu(r)gorri**<sup>1536</sup>). Arrunta ere den **Arriurdina**, **Arriurdinaga** (cf. **Lerga**), edo **Arriurdiñeta**-ren kidea da, eta lur mota berezi bat izendatzen duela dirudi:

“la una (pieça)...en la endreçera llamada lur urdin” (1584)<sup>1537</sup>

Ez dakigu oraingo zein eremuri dagokion, baina bai bertan erreka zegoela:

“...pasado el barranco de lur urdin” (1612)<sup>1538</sup>

**Llano (de abajo), el:**

Herriaren azpiko aldean dagoen zelaia ematen du aditzera. XVIII. mendean azaltzen da aurren aldiz, behin jatorrizko izen euskalduna zen **Eodezelaia** desagertuz gero (ikus sarrera hau eta **Plaondoa**):

“Ootra pieza...en el llano de abajo de la dha villa de Eslava” (1717)<sup>1539</sup>  
“campos de la Religion de San Juan en el llano” (1723)<sup>1540</sup>

Bertan hasten zen **La Lecinosa** edo **Artadu** izenaz ezagutzen zena.

**Magdalena (alto de), (campo de), (ermita de), (rincón de), la:**

Pérez Ollok dioenez<sup>1541</sup>, 1802an Igual de Soria apezpikuak Magdalenari eskainitako ermita bota, eta **Ermita de la Virgen** izenekoa sanda horren irudia jartzeko agindua eman zuen. Eslabarrek, ordea, ez zuten jaramon handirik egin, eta Magdalena-

1534 Id., 70. k.

1535 Azterainen ageri da, adibidez. Jose María Jimeno Jurío, TCPCC, 119. or.

1536 Urraulbeitiko Geretz herrian, kasu, **Lugorrieta** agertzen da (PRA-Oibar, 10. k., 1826); Arakil-Uhartan **Lurzuita** (< **Lurzurieta**) dugu. Erdaraz hauen kideak diren **Tierras blancas** dugu Tafalla eta Artaxona-ren arteko mugan, eta **Tierras royas** Iratxetan (Jimeno Jurío, THET, 202. or.).

1537 PRA-Oibar, 3. k.

1538 Id., 14. k.

1539 Id., 35. k.

1540 IEA, 1765, 8, 869. org.

1541 EN, 89. or.

koa eraitsi behar bidean, Andre Dona Mariari eskainitakoa eraitsi zuten, eta bestea berriztatu.

Autore beraren arabera, **La Magdalena** Loiaiko bidean zegoen, herritik hiru ordu laurdenetara. Hau aintzat harturik, oraingo eta dokumentazioko **Ermita** edo **Ermitica de Loya**-rekin identifika liteke agian. Gure informatzailearen ustez, ordea, **La Magdalena Erbiñaga**-n zegoen, eta dokumentazioak ere eritzi hau baieztatzen du (ikus **Erbiña** sarrera):

“ytten una pieça Junto a la ermita de madalena” (1614)<sup>1542</sup>

“Primeramente una pieza...sita en el terno del rincon de la Magdalena” (1799)<sup>1543</sup>

### Maingos, los:

**Los Maingos** [máingoś] **Patxape**-ren beste izen bat da. Lehen bertan jostazen omen ziren herriko umeak, eta ez dakigu euskarazko **maingu**-rekin zerikusirik ez ote duen (cf. **andar al chingle** ‘txingilka ibili’ haur-josteta Eslaban berean<sup>1544</sup>).

### Matxinarmendola; Matxinen armendola:

**Matxin** ‘Martin’ pertsona-izena eta **armendola** ‘almendrondoa’<sup>1545</sup> izen arrunta ditugu lehenean, eta elementu horiek eta genitiboaren morfema den **-en** bigarrean.

Ez dakigu non kokatu behar den, baina bai ardantzeak bazirela bertan:

“otra biña en la endreçera llamada machinen armendola” (1596)<sup>1546</sup>

“otra vina en la endrecera llamada machinarmadola” (1606)<sup>1547</sup>

### Matxinen armendolaldea:

Aurrekoaren aldameneko alderdia zen hau, bistan denez:

“una biña...en la endreçera llamada machinen armendola aldea” (1594)<sup>1548</sup>

### Mediavilla:

**Euskal Iriarte**-ren erdal baliokidea da:

“una cassa...en la endrecera llamada mediabilla” (1602)<sup>1549</sup>

1542 PRA-Oibar, 18. k.

1543 PRA-San Martin, 68. k.

1544 Reta Janáriz, EHZE, 175. or.

1545 **Armendola** euskaraz ezezik erromantzez ere erabiltzen zen gure alderdian, Zarrakazteluko 1605eko **El Armendolar**-ek (PRA-Kaparroso, 5. k.) eta Oibarko izen bereko 1715eko (PRA-Oibar, 34. k.) toponimoak erakusten duten moduan. Azken herri honetan **El Armendolar**-ekin batera **La Almendra** (id.) ere aurkitzen dugu, urte berean.

1546 PRA-Oibar, 17. k.

1547 Id., 12. k.

1548 Id., 8. k.

1549 Id., 10. k.

**Mina de Garro, la:**

Kobre-meatzea izan omen zen hau **Artamaldeta**-n dago, alderdiko errekatik hurbil, **Santa Criz**-etik ez urruti. Gure informatzaileak erromatarrekin erlazionatzen du.

**Garro** meatze-zuloa dagoen landaren nagusiaren deitura da.

**Mojón de Abaiz, el:**

Epaiz herrixkarekiko muga zen, bistan denez (cf. Lergako **Abaizmuga**):

“otra piª en el mojon de Abayz” (1593)<sup>1550</sup>

**Mojón de Aldea, el:**

**Erbiñagaburua**-tik **Santuzabal**-aino luzatzen den Aldea herrixka despoblaturako muga genuen hau. Euskaraz **Aldemuga** edo **Aldeko muga** deitzen zitzaion (ikus bi sarrera hauek):

“otra piª en el mojon de aldea” (1593)<sup>1551</sup>

**Mojón de Ayesa, el:**

Agezako muga aldea zen, hots, **Tastaran** eta **Gezari**:

“otra pieça...en el moJon de ayessa” (1593)<sup>1552</sup>

**Mojón de Gallipienzo, el:**

**Gezari**, **Lezkadui**, **Kaskallueta** (antzina), **Errotaldea** (antzina), **Bitarteko harana** (antzina), **El Soto**, **Dorreta** eta **Beragu**-n luzatzen da edo zen Galipentzurekiko muga.

**Molino (barranco de), el:**

**Presaldea**-ko errekan zegoen **Errotaxar** zen hau, itxuraz:

“otra pª en presaldea Junto al molino” (1592)<sup>1553</sup>

“otra pieza en el barranco del Molino” (1817)<sup>1554</sup>

**Molino farinero, tras del:**

**Aurreko bera** zen:

“ytten otra piª en tras del molino farinero de la dca villa” (1602)<sup>1555</sup>

---

1550 Id., 8. k.

1551 Id., 7. k-bis.

1552 Id., 7. k.

1553 Id., 6. k.

1554 PRA-Kaseda, 44. k.

1555 PRA-Oibar, 10. k.

**Molino viejo (acequia de), el:**

**El Molino viejo** oraingo **Errotaxar** eta **Galipentzuko** mugako **Molino de Unzue** izan zitekeen (ikus **Errotaxar** eta **Errotalde**a sarreretan dioguna):

“Otra pieca en el termino llamado Rotaldea...que afuenta con el rrio y molino viejo” (1592)<sup>1556</sup>

**Molino viejo**-ko azekia<sup>1557</sup> **Presaldea**-tik **Ezpondabe**-n zehar **Galipentzuko** mugako errotara zihoana zen (ikus **Tajadera** sarrera). Azekia honek **San Clemente**-rekin mugatzen zuen:

“una pieça en... San Clemente...teniente con el Rio...y con la çequia del molino viejo” (1705)<sup>1558</sup>

**Monte (de la villa), (balsa de), el:**

Mendi honek **Eslabako** udalerriaren iparralde guztia hartzen du, **Ageza** eta **Morionesko** mugatik, **Julio** eta **Lergakoraino**. Dokumentazioan batzuetan **El Monte** hutsa aurkitzen dugu eremu ezberdinak adierazteko. 1602an, kasu, **Elkea** eta **Zalduako haran handia** aldeko mendia ematen du aditzera:

“otra piª en elguea...que afrenta con camino puco y con el montte” (1602)<sup>1559</sup>

1723an **Arangaitz** aldeko herri-mendia dugu, aurreko bera, alegia:

“campo del monasterio de S.Bernardo de Marcilla en termino de Arangaiz teniente con camino real para la ciudad de Pamplona y con el monte de la villa” (1723)<sup>1560</sup>

Egun **La Balsa del Monte**-k **Amikarren**-eko idoia ematen du ezagutzera.

Beste batzuetan **el monte** generikoa da, eta espezifiko bati lagun egiten dio, **Monte de Azterain** (ikus **Azterain** sarrera) edo **Monte de Zaldinaga** deizioetan, esaterako. Beste mendi bat **Xaugizabal** da (ikus **Camino del Monte** sarrera).

**Mora, la:**

Behin bakarrik ediren dugu, 1687. urtean, eta ez dakigu zer mora mota dugun hemen: masusta (edo laharra), mairu emea (cf. **Morionesko Mauruiria** toponimoa edo **Eslabako bereko** eta **Uxueko Fuente del Moro**), **harmora** hitzean azaltzen dena, edo besteren bat.

Nolanahi ere, hidronimo baten aurrean egon gintezke, bertan **lihatzeak** bazi-relako, eta beraz badirudi egokiena **morea**-ren aldaera edo desitxuraketa arina litzateke **en mora**-rekin lotzea litzatekeela (cf. **Uxueko Moratea** eta **Morape**):

1556 Id., 6. k.

1557 Arakil aldeko herrietan **azekia** bizirik dago, baina bakarrik errotetako ubideak izendatzen ditu, eta ez du gure alderdiko erdarazko **acequia**-k zenbaitetan duen ‘errekastoa’ adiera.

1558 PRA-Kaseda, 12. k.

1559 PRA-Oibar, 10. k.

1560 IEA, 1765, 8, 869. or.

“otro linar...en donde la mora” (1687)<sup>1561</sup>

**Moriones, portillo de:**

Azterain-en dago, Camino de Moriones-en, auzo-herriko muga.

**Muga de Abaiz:**

Mojón de Abaiz-en errankidea da, eta honek bezala Abaizgibel, Presaldea, Epaizaran eta Zaldinaga-n luzatzen den muga dierazten du (ikus hondar sarrera hau).

**Muga de Aldea:**

Mojón de Aldea, Aldemuga edo Aldeko muga bera da:

“una pieza...En la muga de aldea” (1570)<sup>1562</sup>

**Muga de Arteta, la:**

Bizkaiko despoblataurekiko muga da, Larrasoil aldea. Garai batez auziak izan ziren Oleta, Lerga, Eslaba, Julio, eta Artetako mugak zirela eta, Oleta, Julio eta Artetaraino hedatzen zen Lerga eta Eslabaren arteko fazerian (Facería de los Fayales delakoan):

“...las mugas de la dicha façeria (Fayales) desde la muga deslaba asta la muga de olleta quedando a la parte baxa la muga de arteta y la muga de Julio” (1611)<sup>1563</sup>

**Muga de Ayesa, la:**

Tastaran eta Gezari-n barrena luzatzen da auzo-herri horrekiko muga:

“otra pieza en tratan...theniente a la muga de Ayesa, camino que se ba a Ayessa y Barranco...” (1705)<sup>1564</sup>

**Muga de Gallipienzo, la:**

Ikus Mojón de Gallipienzo eta Bitarteko harana sarrerak.

**Mugandia:**

Muga eta handia-z osaturik dago. Galipentzuko muga zegoen, agian Beragu mendian:

“Mas otra pieza en muga andia...teniente al termino de la villa de Gallipienzo” (1699)<sup>1565</sup>

1561 PRA-Kaseda, 4. k.

1562 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1563 IEA, 515, 26, 70. or.

1564 PRA-Kaseda, 12. k.

1565 Id., 9. k.

**Munotxikia:**

**Muno** ‘muino’ izena eta **txikia** izenondoa ditugu hemen, antza (ikus izen bereko Galipentzuko sarrera).

**Nabarana:**

**Naba** eta **harana**-z osaturik dago. Lehen elementua, J. Corominesen arabera<sup>1566</sup>, ‘euri-ura bildu ohi den eta muinoz inguratua ohi dagoen goi-lautada elkorra’ da. Hitz honen jatorriaz, berriz, honela mintzo zaigu:

“Palabra arraigada en todo el territorio español de lengua castellana y vasca, de origen prerromano; como aparece en ciertos dialectos de los Alpes orientales, no parece ser de origen vasco”<sup>1567</sup>

**Gero naus** ‘itsasontzi’-ren eratorriren bat izan daitekeela dio, honek eta **naba**-k duten eitearengatik<sup>1568</sup>.

Gure alderdian, Eslabako **Nabarana**-z gainera, **Nabeta** dugu **Leatxen** eta **Naba** eta **Nababarrena** Zaren. Erdaraz **Las Navas** dugu Galipentzun, **Valdenava Uxuen**, **Navaseca Kasedan**<sup>1569</sup>, **Navafría**<sup>1570</sup>, **Navajimute**<sup>1571</sup> eta **Navasentero**<sup>1572</sup> San Martinen. Gure eskualdetik urrunxeago, **Tafallan**, **La Navilla** eta **La Nava** ditugu. Honela deskribatzen digu azken alderdi hau Zidakosko hiriko toponimia bildu eta aztertu duen Jimeno Jurfok<sup>1573</sup>:

“LLanura sedimentaria, abierta, sin más alturas periféricas que el cabezo de San Gregorio (N), aunque al poniente se alza, un tanto alejado, el Monte Plano. Tierra de regadío desde la Edad Media. El concejo designaba cada año un guarda para su vigilancia (SS.XV-XVI).

Los yermos o escayes alternaron con los espacios cultivados, siendo aprovechados para pasto del ganado de la Carnicería municipal...o era dada en arriendo a los ganaderos...”

**Nocedo, pieza del:**

**Euskal Itzaurmakurra** edo **Itzaurmakurralde** izan daiteke:

“y de la otra partte en la pieza del nocedo de Sancho Sengariz” (1612)<sup>1574</sup>

**Nuestra Señora (bajada de), (del prado), (ermita de), (iglesia de), (junto a la ermita de), (junto al prado de), (prado de), (tras de):**

Beste gisaz **La Virgen** deitzen zen ermita eta ermitaren ingurukoak adierazten dituzte izen hauek (orain ere **La Virgen** deritza alderdi honi, baina ez dago ermi-

---

1566 DCELC.

1567 Id.

1568 Ikus, halaber, ETC-I, 69-71. orr.

1569 PRA-Kaseda, 37. k., 1801.

1570 PRA-Oibar, 4. k., 1588.

1571 Id., 15. k., 1614.

1572 PRA-Kaparroso, 57. k., 1631.

1573 THET, 151-152. orr.

1574 PRA-Oibar, 14. k.



tarik bertan). Pérez Ollok dioenez<sup>1575</sup>, 1802an eslabarrek, Igual de Soria apezpiku bisitatzailerean aginduei entzungor eginik, hondatzen hasia zen ermita hau osotara desegin zuten, berriztatu beharrez.

**Nuestra Señora** euntze baten ondoan zegoen, eta hortik **del Prado** deizioa:

“otra pi<sup>a</sup> en la endreçera llamada nra Señora del Prado tras de la Yglesia” (1602)<sup>1576</sup>

Aurreko lekuko **Yglesia** hori bertako ermita zen<sup>1577</sup>:

“una pieça...en la endreçera llamada Junto a la ermita de nra Señora” (1615)

Badakigu, halaber, erromerian joaten zela bertara:

“en la procesion de nra Señora del Prado...” (1592)<sup>1578</sup>

Ermitaren ondotik igarotzen zen orain ezezaguna den **Camino de Pamplona**. Ermitaren ondoan edo inguruetan **Zaldua** edo **Monte de Zaldua** zegoen, itxuraz:

“otra pieza...junto a la ermita de Nuestra Señora teniente al Camino que van a ppa y al monte de Zaldua” (1688)<sup>1579</sup>

Antzina **La Virgen Arangaitz**-en barrukotzat jotzen zela dirudi, orain aparteko dermioak direnagatik:

“ytten en la baxada de arangayz digo de nra señora en Arangayz” (1612)<sup>1580</sup>

#### Oianondoa:

**Oihan** ‘mendi arbolatua’ eta **ondoa** ditugu toponimian hedadura handikoa den leku-izen honetan (cf. **Oianondoa** Morionesen eta **Zaren**, **Uxueko Oihanondoa** Lergan...). Ez dakigu zein zen oihan hau, baina agian aipaturikako **Monte de la Villa**-rekin identifika liteke:

“otra pieça en oyanondoa” (1606)<sup>1581</sup>

#### Olibeta:

**Olibo** ‘olibondoa’ eta **-eta** ditugu hemen:

“una viña...en el terno que llaman olibeta” (1764)<sup>1582</sup>

1575 EN, 89. or.

1576 PRA-Oibar, 10. k.

1577 Orain, esan bezala, ez dago ermitarik bertan. Jendeak, alabaina, gogoan du oraindik antzina bat izan zela.

1578 PRA-Oibar, 6. k.

1579 PRA-Kaseda, 4. k.

1580 PRA-Oibar, 14. k.

1581 Id., 12. k.

1582 Id., 62. k.

**Olibeta** Ageza, Galipentzu, eta Morionesen ere ageri da, herri hauetan oliboak antzina ere oso ugariak ziren seinale. Uxuen **La Oliveta** dugu, baina kasu honetan **La Oliva** monastegiaren izenaren txikigarri baten aitzinean gaude (ikus sarrera hau Uxuen), eta Galipentzuko izenaren kasua ere bera izan liteke (ikus sarrera hau).

Ustezko oliboek lekora ardantzeak ere baziren alderdi honetan:

“un plantado...en el terno de olibetas tente â pieza de los Erederos de la Casa de Uncitiar y camino p<sup>a</sup> Sanguesa” (1791)<sup>1583</sup>

Ikusten denez, **Olibeta Zangozabidea** edo **Camino de Sangüesa** ondoan zegoen, **Ozteriz-en**:

“otra viña en Osteriz u olibeta” (1687)<sup>1584</sup>

**Olivar de José el de Abaiz, el:**

Epaizko bizilagun batena zen olibadi hau, eta hortik izena. **Camino de Ayesa-n** dago.

**Opakoegia:**

**Opako** ‘oihezkia’, ‘iparragerria’ eta **hegia** ‘mendi mazela’-z osatua dago **Iguzkun-en** kontrakoa den hau. Aldi bakar batez aurkitu dugu, eta gure eskualdeko zenbait herritan eta ekialderagoetan erabiltzen den **paco**-ren esanahikide eta jatorriki-dea dela dudarik ez da (< **opacu**. Cf. **Ubagua** Nafarroan, **Opakua** Araban...):

“otra pieça en la endrecera llamada opacoeguiâ” (1591)<sup>1585</sup>

**Opakoegia** edo **Opakuegia** Eslaban ezezik Leatxen eta Zaren ere aurkitu dugu (ikus sarrera hauek), azken honetan **Iparragerria**-rekin batera.

Ez dakigu zein eluts zen **Opakoegia**, baina harrigarri samarra da toponimia euskaldun zaharrean ediretea eta egungo erdaraz ez erabiltzea<sup>1586</sup>. Cf. Arabako aipatu **Opakua**.

**Ozteriz (alto de):**

Honen etimologiaz ikus **-as/-az**, **es/-ez**, **-iz**, **-us/-uz** atzizkiei eskainitako atalean dioguna. Dokumentazioa ikusita garbi dago izen honen jatorrizko forma herskari horzkariaren aitzinean **-z-** bizkarkaria duena dela:

“en los temjos del dho lugar deslaba temjo llamado ozteriz” (1540)<sup>1587</sup>

1583 Id., 76. k.

1584 PRA-Kaseda, 4. k.

1585 PRA-Oibar, 5. k.

1586 **Paco** Uxuen, Lergan, Eslaban, Agezan, Zaren eta Leatxen ez da ibiltzen, baina bai Galipentzun, hemen aipatu herri horietan ohizkoa den **caracierzo**-rekin batera.

1587 PRA-Oibar, 3. k.

**Ozteriz** (**Osteriz** [ostériθ] gaur) goi-lautada bat da; **Camino de Gezari** eta **Zangozabidea**-ren erdian dago, **Los Pozos**, **Xubingoa** eta **El Puente viejo**-ren artean. Esan bezala, **Olibeta** genuen antzina alderdi honen barruan.

**Alto de Ozteriz Puente de los Pozos**-tik **Xubingoa**-ra doan bidearen inguruko gaina da (ikus hurrengo sarrera).

#### **Ozterizgaña:**

**Ozteriz**-ko mendikoa (504 m.) da, erdarazko **Alto de Ozteriz**-en baliakide euskalduna:

“otra piª en la endreçera de ozterizgaña” (1593)<sup>1588</sup>

#### **Palacio, cerrado del; pieza del:**

Zerradoa **Euntzegutia**-n zegoen:

“una piª en...eunzegutia...affr...con el zerrado del palazio” (1530)<sup>1589</sup>

Alorra ere bertan izanen zen, ausaz:

“otro mojon nuevo al extremo de la pª del palacio” (1612)<sup>1590</sup>

#### **Parral, el:**

Herrian bertan dago, gure informatzailea izan den **Jesús Barriain** jaunaren etxearen gibelego aldean, eta euskarazko **Parralea**-ren erdarazko ordaina dela dudarik ez da. Orain ardantze bat dago bertan, baina larraina eta alorra ere egon dira:

“Primeramente una pieza en el parral” (1687)<sup>1591</sup>

Parralak gure eskualdean herrietan egoten dira (cf. Agezako **Parrala** bizia).

#### **Parralea:**

Esan bezala, erdarazko egungo **El Parral**-en baliakidea da (ikus Agezako **Parrala** sarrera):

“una hera en la endreçera llamada parralea” (1593)<sup>1592</sup>

#### **Paso de arriba, el:**

Ez dakigu zehazki zein zen goiko pausu edo ataka hau, baina **Portillo de Julio**, **Portillo de Arteta** edo **Portillo de Moriones** izan zitekeen, bai eta **Tastaran-pausua** edo **Portillo de Tastaran** ere, besteak beste:

1588 Id., 7. k.

1589 Id., 2. k-bis.

1590 Id., 14. k.

1591 PRA-Kaseda, 4. k.

1592 PRA-Oibar, 7. k.

“una pieza...Junto al paso de arriba” (1797)<sup>1593</sup>

### Patxape:

**Patxape** [pačápe] **Plaza de abajo**-ra ateratzen den pasabidea da (cf. Uxueko **pasadizo** ugariak). Izen honen jatorria garbia da: **pasa**(tu) ‘igaro’ eta **-pe** ‘behe’-z osatua dago. **-S-** > **-x-** pausoa ez da bitxia euskaraz (cf. aipatu dugun Abaurregaineko **Balxaldea**, **Balsaldea** 1785ean), eta **-x-** > **-tx-** bilakaera are gutxiago (ikus Agezako **Motxiturria** sarreran ematen ditugun adibideak).

### Pinar de los Cerros, el:

Izen hau ez dugu sekulan dokumentazioan aurkitu, eta ez dirudi oso aspaldikoa denik. **Lerdiak Los Fayales**, **Elkea**, **La Virgen**, **El Chaparro**, **Xaugizabal** eta **Erbiñaga**-rekin mugatzen du.

### Piperraritza:

Itxuraz **piper** eta **haritza** ditugu behin baizik dokumentatu ez dugun honetan:

“otra pieza en piper ariça” (1602)<sup>1594</sup>

### Plaondoa:

Aurrekoa bezala aldi bakar batez aurkitu dugu, eta beraz etimologia zein zen zuzen esatea ez da lan erraza. Itxuraz latineko **planu** ‘llano’-ren gure alderdiko ondorengoa den **Plau** ‘lau’, ‘zelai’ eta **ondoa** dira bi osagaiak. **Hasierako pl-**ren mantentzea ez da ohizkoa euskaraz (cf. **planu** > **lau**, **placet** > **laket**, **planca** > **langa**...), eta alderdi honetan hasierako ezpainbiko ahoskabea desagertzen ez bada, nafarreraren eraginarengatik izan daiteke, hizkera honetan, gaztelaniaz agitzen denaz bestalde, ez baita sabaikaltzen: **Plandeoliva** (Galipentzu), **La Plana**<sup>1595</sup>, **Las Planas**<sup>1596</sup>, **El Planaz**<sup>1597</sup>, **El Plano**<sup>1598</sup> (Kaseda), **La Plana**, **El Planillo** (Oibar), **La Plana**<sup>1599</sup>, **El Plano**<sup>1600</sup> (San Martin), **Pla(n)menor**, **La Plana**, **El Plano romeral** (Zarrakaztelu<sup>1601</sup>). Dena den, goragokoa zen Lizarraga Elkanokoak **plau** darabil, erdarazko ‘llano’ adieraz:

“Doctrina Christioarén Cathechima euscarás: Credoarén, Mandaméntuen, eta Sacraméntuèn erabaquiera **plau**, sencill, claro, euscaldún-erri chipietán provechadeza-queña, laguntzecó Apez-Aitéi eracústen beren menecoéi labúrqui ta erráz”<sup>1602</sup>

1593 Id., 82. k.

1594 Id., 10. k.

1595 Id., 11. k., 1603.

1596 PRA-Kaseda, 42. k., 1813.

1597 Id., 1. k., 1681.

1598 Id., 4. k., 1687.

1599 PRA-Oibar, 3. k.-bis, 1587.

1600 PRA-San Martin, 43. k., 1755.

1601 R. Ciérbide, TCO-II, 63-64. orr. Honela mintzo zaigu autore hau: “Frente a la solución castellana de palatalización del grupo inicial latino PL > /l/ es característica del navarro-aragonés la conservación del mismo. En este aspecto, la toponimia de esta comarca se ha mantenido fiel al dialecto, pues sólo en un caso se registra la solución castellana”.

1602 DCC-ko sarrera. Letra beltza gurea da.

Eta Axularrek **plaundu**<sup>1603</sup>:

“...Eta Catonec (principalenetatic bat baitcen) erran çuen, guztiac deseguin, **plaundu** eta lurrarequin berdindu behar çuela...”

Eslabako hau ez da gure alderdian dugun bakarra: **Plau** daukagu **Zaren**, euskaraz ohizkoa den bokal arteko hortz-hobietako sudurkariaren erortzeaz, eta **Pelau** (**Pelaubidea**, **Pelaumuga**) **Leatxen**, bokal anaptitiko batez hornitua.

Herrian bertan zegoen dermio gaur desagertu hau, apika egungo **El Llano**-ren ondoan (ikus, dena den, **Eode** eta honen eratorriak aztertzean esan dena):

“un guerto cercado de pared en la dha vª y parage llamado plaondoa” (1716)<sup>1604</sup>

**Platería**, calle de la:

Aldi bakar batez ediren dugu, iragan mendearen bukaera aldean:

“...casa en la calle de la Platería” (1884)<sup>1605</sup>

**Calle Mayor**-etik **Barranco** aldera jaisten den karrika da.

**Plaza**, la:

**Barrio de arriba**-ko plaza da, pilota-jokua.

**Plaza de abajo**, la:

**Barrio de abajo**-n dago.

**Plaza de los Toros**:

**Barrio de abajo**-n zegoen:

“una casa vecinal...sita en esta villa y varrio de avajo confinante á la de Eusevio Sola, plaza de los toros y calle publica” (1836)<sup>1606</sup>

Cf. **Uxeko El Toril** edo **Oibarko La Plaza de los Toros**<sup>1607</sup>.

**Pocico**, el:

Oso berandu azaltzen da, eta badakigu ez dela ez **Butzuandia** (bistan denez) ez herriaz beste aldean zegoen **Butzuketa** ere (ikus sarrera hau):

1603 Gero, Bordele, 1643, 30. or. Letra beltza gurea da.

1604 PRA-Kaseda, 17. k.

1605 PRA-Barasoain, 229. k.

1606 PRA-Kaseda, 54. k.

1607 Barasoainen ere **La Plaza en que corren los novillos** aurkitu dugu 1826an (PRA-Oibar, 108. k.). Badi-rudi egun baino zezen-zaletasun handiagoa zegoela antzina.

“otra (pieza) en el termino del pocico” (1835)<sup>1608</sup>

Herri ondoan dago, **El Parral (Parralea lehen), La Fuente eta Bidezarreta**-ren artean..

**Portillo de Julio, el:**

**Camino de Julio**-n dago ataka hau, despoplatu horretako muga.

**Pozos (de aguar lino), (de aguar los linos), (barranco de), (fuente de), (puente de), los:**

Egungo egunean **Los Pozos** deritzan dermioa dateke dokumentazioko **Los Pozos de aguar lino**. Putzu hauek lihoaren lanetarako beharrezkoak ziren, eta alde honetatik **Eslabako bertako Lixuñeta** (ikus sarrera hau) edo **Zareko Ligusuñeta**-ren ki-dekoa da (adieraz, ez tokiz):

“Ms otra pieza...junto a la lecinosa que afronta a...camino del Molino...y con pozos de aguar lino” (1756)<sup>1609</sup>

**Los Pozos** lehengo **Los Linares** (erdi aldekoak, hau da, **Artadu** edo **La Lecinosa** aldekoak) zeuden tokian daude, **Fuente vieja**-ren urak sortzen duen **Barranco de los Pozos** izeneko erreka-stoaren inguruan, **Xubingoa, Ozteriz, Artadubarren** eta **Artxilabe**-ren artean. **Puente de los Pozos** ibarra alderen alde gurutzatzen duen errepidean dago, aipatu errekan.

**Prado, el:**

Euntze hau beste batzuetako **Prado de Gezari** bera dela dirudi, hau da, **Galipentzu** eta **Agezako** mugako euntzea:

“Mas otra Pieza...en Repidea que afrontta con...Camino Real que se va al prado” (1754)<sup>1610</sup>

**Presaldea (barranco de), (fuente de):**

**Presa ‘uharka’** (cf. **Agezako La Presa** eta **Zareko Uarka**) eta **aldea-z osaturikako** toponimo hibrido ugarietako baten aitzinean gaude hemen (cf. adibidez, **Sototxikia Epaizen**)<sup>1611</sup>. Bertan zegoen errotako uharkari (**Errotaxar-koari**) zor bide zaio lekuzen hau:

“otra piª en presaldea Junto al molino” (1592)<sup>1612</sup>

1608 PRA-Kaseda, 53. k.

1609 PRA-San Martin, 43. k.

1610 Id., 42. k.

1611 Honelako toponimo hibridoak gure alderdia hizkuntz-muga egoteari zor zaizkiola pentsa daiteke, baina gogoratu behar da barrukalderago, Iruñerrian adibidez, honelakoak pilaka aurkitzen direla (ikus J. Jurio-ren lanak). Oror-z-Betelun ere **Presaldea** azaltzen da 1903ko katastroan (Urtasun, TOB, 342. or.), eta Imotz bailarako Urritza herrixkan **Presaldéko** soróak toponimoa dugu bizirik. Gipuzkoako Irunen, Probintziako adibide bat ematearren, **Presaco sabala** (hots, **Presako zabala** egungo grafiaz) agertzen da (ikus J. A. Loidi Bizkarrondoren “Aingeru Irigaraien omenez”, AIO, 429. or.).

1612 PRA-Oibar, 6. k.

Dena den, alderdi honetan hasten zen **Acequia del Molino** delakoa, hots, Galipentzuko mugako **Molino de Unzue**-ra ura zeraman ubidea (ikus **Tajadera** sarre-**ra**), eta daitekeena da **presa** azekia hori urez hornitzeko sortu izana, bai eta azekia **Errotaxar**-ko uharkak moldatu aintzira modukoaz baliatzea. Gure informatzailearen arabera, uharka “**Corral de Aranchetas**” edo “**Corral de Presaldea**” baino pixka bat beherago zego-keen, **Camino de Presaldea**-ra iritsi aitzinetik, beti ere **Errotaxar** baino zertxobait goi-**tiago**.

Egun **Pisaldea** [p̄isajd́ea] bihurtu den hau **Barranco de Lergabidea** eta **Barranco de Abaizgibel**-en elkargunearen inguruan dago, Epaizko muga, **Abaizgibel**, **Arrizutaga** (**Arrastraga** orain), **Zurbaran**, **Bizkarda** eta **Epaizaran**-en artean.

**Barranco de Presaldea** aipatu bi erreka horien batzetik sortzen den erregua dugu, aurrerago **Barranco de Ezpondabe** eta **Barranco del Soto** deritzana:

“Mas en el barranco de Presaldea...” (1658)<sup>1613</sup>

Iturria ere bada bertan, eta orain gutxi arte sekulan ahitu ez bazen ere, azken urte hauetan ez du urik ematen, uda aldean.

#### **Puente, cabo la:**

Euskarazko **Zubialdea**-ren baliokidea da, itxuraz (ikus sarrera hau):

“...temjo llamado Cabolapuente” (1536)<sup>1614</sup>

#### **Puente viejo (barranco de), el:**

**El Puente viejo Zangozabidea**-n zegoen zubia besterik ez zen hasiera batean, baina orain zubia beraz landa erreka eta inguruko lurrak ere adierazten ditu.

**El Puente viejo**-k **El Sasico** edo **Zazutxipia**-rekin, **El Saso** edo **Zazu**, **Xubingoa**, **Ozteriz**, **Los Pozos** eta **Kaskallueta**-rekin mugatzen du.

**Barranco del Puente viejo** goragoko **Barranco de Zabalzigar** edo **Barranco del Saso** bera da.

#### **Rebote de pelota, el:**

Beste batzuetako **El Rebote** edo **El Juego (largo) de Pelota**-ren kidekoa dugu hau<sup>1615</sup>:

“una casa...qe afrenta al Rebote de pelota” (1816)<sup>1616</sup>

1613 Id., 28. k.

1614 Id., 2. k-bis.

1615 Ikus Agezako **Juego de Pelota** sarrera.

1616 PRA-Oibar, 96. k.

**Religión de San Juan,viña de:**

**San Juan de Jerusalem** deitu ordenak Oibar haranean ondasun ugari zituen (ikus **Leatxeko Ordenakoa** sarrera). Eslaban gutxienez aztergai dugun ardantze hau, alderdi berean (ondoan?) dagoen **Faitía de San Juan** (ikus sarrera hau), eta **Eodezelaia**-ko alor batzuk (ikus **El Llano**) zeuzkan:

“viña de la religion de san Juan en Baluriain teniente al camino para el molino” (1723)<sup>1617</sup>

**Revolta, la:**

Toponimo berria da, eta Lergara doan errepideak egiten duen bihurtu (cf. **Bueltagunea** toponimoa) du iturburu.

Herriaren alboan dago, **Santa Ana**, **El Corral redondo**, **Lergabidea**, **Ataiaiondo**, **El Alto** eta **Bidezaretta**-ren artean.

**Río, el:**

Galipentzun **El Riacho** deitzen duten ubidea da dokumentazioan ageri den Eslabako **El Río**, alegia, oraingo **Barranco del Soto**, dermiok ubiderik handiena hau baita (ikus **El Molino viejo**):

“una pieza...temj llamado Roraldea affr con el Rio Conzejil” (1574)<sup>1618</sup>

**Roncesvalles (barranco de), (pieza de):**

Antza denez, **Orreagako** monastegi ezagun eta boteretsuak bazituen lurtsail batzuk eremu honetan, eta hortik dokumentazioko izen horiek. **Zangozako** 1258ko agiri batean garbi ikusten da aipatu monastegiak ondasunak bazituela **Agezan** eta **Eslaban**:

“...nos possessions de/ l’eglize de Ayuair, aux honorables et chers fils en Jesus/ Christ, et prieur et au couvent de l’hospital de Roncesvaux/ durant et pendant la vie de Dn. Sans Peric chevalier de Subiza/ nous faisons cecy parce que i ceux donnerent à notre priere/ au dit Dn. Sanz Peric sa vie durant tout l’heritage que le dit hospital/ à en Ayessa et en Eslaua... Donné a Sangousse au chateau...”<sup>1619</sup>

**Erreka Barranco de Presaldea** edo **Barranco del Soto** izan zitekeen:

“Mas otra Huerta...que afronta al varranco de Roncesvalles” (1804)<sup>1620</sup>

**Alorra Lixuñeta**-n zegoen, **Galipentzuko** bidean (ikus **Camino de Gallipienzo** sarrera).

1617 IEA, 1765, 8, 872. or.

1618 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1619 Ostolaza, 242-243. orr. Autore honek dioenez, Ordena honen barrutietako bat **Zangozako** izan zen hasiera-hasieratik, eta beraz ulertzekoa da inguruko herrietan lur eta ondasunak izatea:

“La organización del dominio de la Orden de Roncesvalles en Navarra, se hace en forma de encomiendas y claverías... Las primeras fueron las de Sta M<sup>a</sup> de Gilveti, Alzuza, S.Nicolás de Sangüesa y Cataláin, agrupadas en torno a iglesias regidas por la Orden...”

1620 PRA-San Martin, 71. k.



**Sagarraga:**

Sagar ‘sagarrondo’ izena eta -aga ditugu hemen:

“...en el termjo llamado sagarraga” (1570)<sup>1621</sup>

Eskualde honetan ugariak ziren fruitu-zuhaitz hauek, Lergan ere **Sagarraga** azaltzeak erakusten duen gisan.

**Sagarraga** [sàgarāga] Arangaitz, Amikarren, Zabalea eta Los Linares (dokumentazioko Los Linares de arriba)-en artean dago.

**San Clemente:**

**Barranco de Presaldea** edo **Barranco de Ezpondabe** aldean zegoen, **Acequia del Molino viejo** deitu azekiaren ondoan (ikus **Molino viejo** sarrera).

**San Damián, basílica de:**

Ez dakigu non zegoen. Bakarrik 1573an aurkitu dugu:

“yt...En la basilica de San damian cinco libras de zera...”<sup>1622</sup>

**San Juan, faitía de:**

Behialako Ezpelketa-n dago San Juan Ordenarena zen hau, oraingo **Camino de Xauzugan** eta **Camino del Soto** bereizten diren tokian. Puntailu itxura du:

“Mas una Biña...en la faitia de San Juan o Ezpeliquetta” (1755)<sup>1623</sup>

Lur meharra da alderdi honetakoa, eta horregatik alorra larratza egon da luza-roan gure mendean ere.

**San Miguel (barrio de), (junto a):**

**San Miguel** Eslabako elizaren patroia edo zaindaria da; **Barrio de San Miguel** elizaren inguruko etxeek osatzen dute:

“en la endrecera llamada la una Junto a San Miguel...” (1587)<sup>1624</sup>

“una cassa...en el barrio q llaman Sn Miguel” (1779)<sup>1625</sup>

**San Pedro:**

**Boiugain**-eko hegian dago, **El Saso** aldera, **Barranco de Xubingoa**-ren aldamenean. Gure informatzailearen arabera, bertan ez dago eraikuntza aztarnarik bat ere (ikus **Don Pedroren Saratsa** sarrera).

1621 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1622 Id.

1623 PRA-San Martin, 43. k.

1624 PRA-Oibar, 3. k-bis.

1625 Id., 72. k.

**San Pelai:**

**Monte de Azterain**-en zegoen euskarazko **Jaundonebelaio** orokorraren kide erdalduna zen hau (ikus azken sarrera hori):

“hasta el monte de aztirayn...y endreçera de Sanpelay” (1587)<sup>1626</sup>

**San Salvador, pieza de:**

**San Salvador** herriko ermita bat izan zitekeen (cf. **Lergako Jaundone-salvatore / San Salvador**), Pérez Ollok biltzen ez duen arren, baina **San Salvador de Leire**-ren ordezkari ere egon zitekeen. Honela izatekotan, Leireko monastegiak Eslaban zituena ondasunak lirateke hauek. Alorrak bi ziren: bata **Castro de la Lecinosa** ondoan zegoen (ikus **La Lecinosa** sarrera); bestea Galipentzuko mugan, **Molino de Unzue**-ren gibelan:

“...alia pieça/ tras el molino de Unçe que se afronta con la de San/ Salvador” (1276)<sup>1627</sup>

**Santa Ana (cascajo de), (ermita de):**

**Santa Ana**-ko ermita<sup>1628</sup> **Lergabidea**-n zegoen, oraingo **Santa Ana** dermionan, herri ondoan:

“una piª... Junto a la hermita de Santana que afrenta...con...camino puco que ban a Lerga” (1594)<sup>1629</sup>

Ermitaren inguruko kaskailua ere (dokumentazioko hiru **Kaskallueta**-etako bat) **Santa Ana** zen:

“otra piª en el cascajo de santa ana” (1613)<sup>1630</sup>

Orain ez dago ermitaren arrastorik, baina hemen daude **El Calvario** eta errepide ondoko **La Cruz del Calvario**.

**Santa Bárbara (alto de), (basílica de), (ermita de):**

Herriaren goreneko alderdian dago ermita, **Barrio alto**-ren gainean:

“una casa vecinal...en el paraxe que llaman el Varrío alto devaxo de la basilica de santa barvara” (1735)<sup>1631</sup>

Bertara igotzeko aldapari **Cuesta de Santa Bárbara** deitzen zaio dokumentazioan:

1626 Id., 25. k. Oskotzen ere **San Pelai** dugu 1594ean (PRA-Ihaben, 1. k.): “...la pieça...afronda con...la pieça llamada la trasera de Sanpelai”.

1627 *El Gran Priorado*, 469-470. orr. **San Salvador** Galipentzuko eliza ere izan zitekeen.

1628 Pérez Ollok ez du biltzen EN-n.

1629 PRA-Oibar, 8. k.

1630 Id., 17. k.

1631 Id., 42. k.

“un casal...tente...á la cuesta de Sta barbara” (1792)<sup>1632</sup>

**Santa Criz (alto de), (caracierzo de), (cuesta de), (ermita de), (fuente de):**

**Santa Criz** [sàntakríθ] Nafarroako poblatu erromatarren artean sartzen du J. Gárrizek *Despoblados* lanean<sup>1633</sup>. Honela dio autore honek:

“Santacris (sic), en Eslava. Un camino romano importante ganaba el puerto de Lerga por el vallecito de Abaiz. Estuvo señalado con un miliario del año 238, siendo emperador Maximino, emplazado en Santacris, donde hubo una población crecida, denunciada por muros de viviendas, capiteles, tambores de fustes de columnas y otros elementos. Procedente de aquí un idolillo de ágata, una fíbula de bronce y pilastras pertenecientes a un gran sepulcro. En la cresta del monte, dando vista a Eslava, se alza un torreón cuya cimentación parece romana”<sup>1634</sup>

Dokumentazioan **Santa Criz** edireten dugu gehienetan, eta **San Criz** eta **Santa Cruz** batzuetan, azken hau herri etimologiaz seguru aski:

“yt otra pª en SanCriz” (1573)<sup>1635</sup>

“otra pieza Junto a Santa Criz...teniente al Camino que van los de Galipienzo á Abayz” (1688)<sup>1636</sup>

Euskaraz beti **Santa-** dugu, **Santakrizgibela**, **Santakrizko aldapa**, eta **Santakrizportillua** izenetan (ikus aurrerago).

**Criz**-en modukoak historiaurreko edo erromatar garaiko poblatuekin loturik azaldu ohi dira Nafarroan. Honela mintzo zaigu gai hau aztertu duen J. Jurío<sup>1637</sup>:

“Varios poblados prehistóricos o de la época romana llevan nombres de santos o con apariencia de tales: Sancris, San Kiris o Santacris, en yacimientos de la Edad del Hierro de Echauri y Pueyo (Orba) y de la época romana en Eslava y Garísoain (Guesalaz)...”

Izen honen etimologiaz ikus **-as / -as, -es / -ez, -iz...** bukaerei eskaini atalean dioguna.

**Santa Criz** udalerriko hegoaldean dago, **Barranco de Ezpondabe** edo **Barranco del Soto**-z beste aldean, **Errotaxar**, **Artamaldeta**, **Zaldinaga**, **Dorreta**, eta **El Soto** (lehengo **Zaldua**)-ren artean. Aipatu erreka herri aldera dagoen **Ezpondabe**-tik bereizten du, eta **Barranco de Abaiz** eta **Barranco de Artamaldeta**-ren bat egitetik sortzen den erreka **Bizkarda** eta **Artamaldeta**-tik, azken dermio honek erreka igaro eta, esan bezala, tarte batez **Santa Criz**-ekin mugatzen badu ere.

1632 Id., 27. k.

1633 11. or.

1634 **Santa Criz**-en ondoan dagoen **Artamaldeta**-n ere ediren omen da miliartiren bat (cf. Uxueko **Los Cinco Miliars** sarrera).

1635 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1636 PRA-Kaseda, 4. k.

1637 “Sustitución de topónimos por hagiónimos en Navarra”, *Euskera*, XXX, 1985-2, 619-626. orr.

Gauza bera gertatzen da **Santa Criz**-en mugakidea den **Dorreta**-rekin ere: kasu honetan dermio gehiena **Barranco de Dorreta**-z haraindian, Galipentzuko mugan dago, baina errekez honaindian ere bada **Santa Criz**-ekin mugatzen duen zati bat.

**Alto de Santa Criz** 544 metroko gain luze zabala da, eta **Cuesta de Santa Criz** bertara igotzeko dagoen aldapa, hain zuzen ere euskaraz **Santakrizko aldapa** deitu izan dena (ikus sarrera hau):

“una pieça faytia en la cuesta de San Criz” (1593)<sup>1638</sup>

**Caracierzo de Santa Criz** iparrera ematen duen isuria da, alegia, erreka eta **El Soto**-rekin muga egiten duena. **Dorreta** ere ukitzen du, tarte txiki batez:

“otra pieza en el caracierzo de Santa Cruz o dorreta” (1683)<sup>1639</sup>

**Fuente de Santa Criz** oraingo **Artamaldeta**-ko **Fuente del Moro** bide zen:

“otra pieça Junto a la fuente de SanCriz” (1601)<sup>1640</sup>

“...donde la fuente de Santa Cruz una pieza” (1682)<sup>1641</sup>

**Santa Criz**-en ermita ere izan da:

“...bajo en la ermita de Santa Criz” (1590)<sup>1642</sup>

Pérez Ollok **Santa Cruz** dakar, baina garbi dago, **Santa Criz**-en **Santa Cruz** aldaerak ikusita, biak bat eta bera direla, hots, egun zutik paretez besterik ez duen **Ermita de Santa Criz** delakoa. Aipatu autoreak dioenez, 1802an Igual de Soria apezpiku bisitatzailak “profanatze” agindua eman zuen, hondatua zegoelako seinale.

**Santakrizgibela (barranco de):**

**Santa Criz**-en atzeko aldea zen hau, dirudienez **Artamaldeta** aldea. **Barranco de Santakrizgibela** beraz **Barranco de Artamaldeta** izanen zen, baina **Barranco de Dorreta** ere izan zitekeen:

“...el barranco de santa crizgibela” (1612)<sup>1643</sup>

**Santakrizko aldapa:**

Esan bezala erdarazko **Cuesta de Santa Criz**-en euskarazko baliakidea da (ikus **Santa Criz** sarrera):

“otra piª en la endrecera llamada Santacrizcoaldapa” (1593)<sup>1644</sup>

---

1638 PRA-Oibar, 7. k.

1639 PRA-Kaseda, 2. k.

1640 PRA-Oibar, 10. k.

1641 PRA-Kaseda, 1. k.

1642 PRA-Oibar, 4. k.

1643 Id., 14. k.

1644 Id., 7. k.

**Santakrizportillua:**

**Santakrizportillua** Camino de Gallipienzo-ko (Camino de Abaiz, Galipentzun) atea izan zitekeen, baina hau Dorreta-n dago, eta Dorretaportillua edo Dorretako portillua esan izan zaio euskaraz, eta orain Portillo de Dorreta deitzen zaio:

“otra pieca...en Santa Crizportillua” (1606)<sup>1645</sup>

**Santa María Magdalena:**

Beste batzuetako **Magdalena** bera da (ikus sarrera hau):

“...en el dco barranco de erbiña acia la ermita de santa madalena” (1612)<sup>1646</sup>

**Santesteban (cabe), (ermita del señor), (linares altos de), (prado de):**

**San Esteban** edo **Santesteban** euskarazko **Jaundoneztebe**-ren ordain erdalduna dugu (cf. Malerrekako burua den **Doneztebe** / **Santesteban** herri-izena):

“otra pieça delante las puertas de la ermita del Señor Santestevan” (1605)<sup>1647</sup>

**Cabe Santesteban** euskaraz ediren ez dugun \***Jaundoneztebe**ondoa baten baliokide erdalduna da:

“una pieça...en la endrecera llamada cabesantesteban” (1587)<sup>1648</sup>

**Linares Altos de Santesteban** gaurko **Los Linares** bera da, eta **Los Linares (Artadua)** eta **Los Linares bajos (Lixuñeta)**-i kontrajartzen zaie:

“una pieza linar...en los linares altos de San Esteban” (1718)<sup>1649</sup>

**Zubialdea**-rekin mugatzen zuen, egungo **Los Linares**-ek bezala:

“la Segunda (pieza)...en...Sn Esteban ó Zubialdea” (1825)<sup>1650</sup>

bai eta **Camino del Monte** deitu bidearekin ere:

“pieza en el termino nombrado de San Estevan que se atiene al camino para el monte” (1723)<sup>1651</sup>

**Santesteban** hagianimoa 1276rako agertzen da, eta beraz ermita ordurako zutik zegoela suposa daiteke, toponimoa (hagianimoa) ermitari zor izaten baitzaio, ez alderantziz:

1645 Id., 12. k.

1646 Id., 14. k.

1647 Id., 15. k-bis.

1648 Id., 3. k-bis.

1649 Id., 35. k.

1650 Id., 106. k.

1651 IEA, 1765, 8, 871. or.

“...item alia pieça que se afronta al prado de San stephan”<sup>1652</sup>

### Santuzabal:

Lehen agiritetatik ia beti **Santo-**, **Santu-** edo **Sandu-** aurkitu dugu, eta gaur ere **Santuzabal** [s̄antuθábal] deitzen zaio alderdi honi:

“...en la endreçera llamada Santuzabal” (1582)<sup>1653</sup>

“otra pieza en santoçabal” (1590)<sup>1654</sup>

“otra pieza en sanduçabal” (1645)<sup>1655</sup>

Guztiarekin ere, **Santu-**, **Santo-** edo **Sandu-** herri etimologia baten ondorena izan liteke, eta jatorrizko \***Sautu** baten ordeztu egon<sup>1656</sup>. Izan ere, dermio hau Aldeko eta Epaizko mugan dago, despoblatu honetako **Barranco de Aldea** eta **Lergako** (Epaizko?) **Barranco del Molino** (**Barranco de Abaizgibel** Eslaban)-ren elkargunetik hurbil, **Lergako** (Epaizko?) **Los Arenales** edo **Areatzea**-ren ondoan, eta honek aipatu \***sautu** horren alde hitz egiten du. 1688an **Satuzabal** ediren dugu, baina hau desitxuraketa arin bat ere izan daiteke:

“otra pieza en satuzabal...teniente al termino de Abaiz” (1688)<sup>1657</sup>

**Santuzabal**-ek Eslabako **Lizardui** (**Lizardil** orain) eta **Abaizgibel**-ekin (**Abaizibel** gure egunotan) mugatzen du, **Lergako** (Epaizko?) **Areatzea** edo **Los Arenales**-ekin ezezik.

### Santuzabalaga:

Aurreko toponimo bera da, oraingoan **-aga** atzizkia lagun duela. Ø / **-aga** txandaketaz ikus atzizkiari eskainitako atala:

“otra pieça...en Santuçabalaga” (1594)<sup>1658</sup>

### Sarga:

Izen honen gainean ikus **Camino de la Lecinosa a Sarga** sarreran esan duguna.

### Sarioederra:

**Sario** ‘sarohe’ izenaz<sup>1659</sup> eta **ederra** izenondoaz osaturik egon daiteke 1601ean aski nahasirik aurkitzen dugun hau:

1652 *El Gran priorado*, 469-470. orr.

1653 PRA-Oibar, 3. k.

1654 Id., 14. k.

1655 Id., 25. k.

1656 Jimeno Juriforen iritziz Saratsan 1725ean azaltzen den **Sandu aldea** orokorra den **Zaldualdea**-ren kopia-errore bat besterik ez da (TCPPI, 346. or.). Eslabakoa, ordea, herri-etimologia dateke, orokorra baita.

1657 PRA-Kaseda, 4. k.

1658 PRA-Oibar, 8. k.

1659 **Sare** eta **ohe** ‘ohatze’-z osaturik bide dago (ikus FHV, 120-121. orr.). Bilakaera, berriz, \***sarone** > **sarohe** > **saroi** > **sario** izan dela dirudi (id., 148. or.). Mitxelenak ‘majada’ esanahia ematen dio, baina Azkuek Erroibarko hegoaldeko goi-nafarreraz **sario** ‘pastizal’ dela dio, eta Echaidek **sarioa** ‘prado’ bildu du

“otra pi<sup>a</sup> en Sauederra”<sup>1660</sup>

#### Sarioederreta:

Aurreko bera da, baina -eta atzizkiaz horniturik dago oraingoan (ikus hone-taz atzizki horri eskainitako atala):

“otra pieca en sario edereta” (1647)<sup>1661</sup>

#### Sariozabal:

Sario izenaz eta zabal izenondoaz osaturik dago. 1831n aurkitu dugu baka-rrik, eta lihatze bat zegoela garbi ageri arren, ez dakigu non kokatu behar den, ligue-rriak gutxienez Eslabako udalerriko lau alderdi ezberdinetan baitzeuden (ikus Los Lina-res osagaia duten sarrerak):

“un linar...en Sariozaval” (1831)<sup>1662</sup>

#### Sasico, el:

Dokumentazioko El Saso pequeño edo Zazutxipia, Zazutxipieta-ren ba-liokidea da (cf. Eslaba bereko Elkea eta Elketxipia edo Uxueko Lerbeltz eta Lerbeltz-ixiki). Esperatzekoa zen bezala, Kaskallueta-ren ondoan dago, La Cruz, El Puente viejo, eta El Saso-ren artean.

#### Saso (barranco de), (cabezo de), (hoyo de), el:

Goi-lautada kaskailutsua da gaur El Saso deitzen den hirurehun eta be-rrageita bat erreguneurritako herri-lur puska hau. Dokumentazioko Zazu edo Errezazua-ren adierakidea da (ikus sarrera hauek).

Barranco del Saso dermioa zeharkatu ondoan Las Fuentes-en Barranco de Zabalzigar-ekin batzen den erreka da, eta Cabezo del Saso euskarazko Zazuburuaren ordain erdalduna, egungo Altico de la Tejería seguru aski:

“otra pieza...en el Cabezo del Saso, teniente al monte del termino y camino que de Ayesa dirige á tafalla” (1797)<sup>1663</sup>

Hoyo del Saso aztergai dugun dermiotik Camino de Moriones-a igotzen den bide-zigorraren inguruko zuloa da.

El Saso-k La Cruz, Las Fuentes, Zabalzigar, Juandelusaiets, La Tejería, Xubingoa, El Puente viejo eta El Sasico (antzinako Zazutxipia edo Zazu-txipieta)-rekin mugatzen du.

---

Aezkoa-Hiriberri eta Garraldan, eta Saroia Aintzioan, beste herrietako belai, euntze, pentze, soro...eta abarrekin batera (EENEL, 102. or.). Andia eta Urbasa aldean Saroi eta sare erdarazko majada, majadal-en kide ohi da.

1660 PRA-Oibar, 10. k.

1661 Id., 25. k.

1662 Id., 103. k.

1663 Id., 82. k.

**Saso grande, junto al:**

Gure ustez euskarazko **Zazualdea** edo **Zazuondoa**-ren kidekoa zen, gaurko **El Saso**-ren aldamera, alegia. Garbi dago **El Saso pequeño** edo **Zazutxipieta**-ri kontrajarria zegoela:

“una pieça...en la endreçera llamada Junto alsaso grande” (1593)<sup>1664</sup>

**Saso mayor, el:**

Aurreko sarreran ageri den zazu bera da:

“mas adelante entre el Saso mayor y la viña faytia de...” (1612)<sup>1665</sup>

**Saso pequeño, el:**

Euskarazko **Zazutxipia**, **Zazutxikia**, **Zazutxipieta** edo **Zazutxikieta**-ren ordain erdalduna dugu. **El Saso grande**-ren ondoan zegoen, Agezako bidearen alboan:

“otra vina...en el terno llamado saso pequeño que afronta con Camino de Aiessa” (1787)<sup>1666</sup>

Gaur **El Sasico** esaten zaio.

**Senda de Artadubarren:**

**Camino de Artadubarren** izan daiteke, **Artadubarren**-en barruko **Camino de Entreviñas**-etako bat, edo beste zerbait:

“en la endrecera llamada artadubarrena afrontada...con la senda que ban ad artadubarrena” (1585)<sup>1667</sup>

**Senda de Ayesa, la:**

**Tastaran**-en barrena auzo-herri horretara doan **Camino de Ayesa** zatekeen:

“otra pi<sup>a</sup>...en tastaran que afruenta con la senda puca que ban a Ayessa” (1601)<sup>1668</sup>

**Senda de Ayesa a la lecinosa, la:**

**Boiuondoa**-n barna zihoan, **Boiugain**-en paretik:

“en el termino llamado boyondoa para efetto de abrir y Rettomar la senda que los de ayessa ban la leçinossa...” (1612)<sup>1669</sup>

---

1664 Id., 7. k-bis.

1665 Id., 14. k.

1666 Id., 75. k.

1667 Id., 3. k-bis.

1668 Id., 10. k.

1669 Id., 14. k.



**Senda de Azterain, la:**

Zazuburua-tik, El Saso-ren goiko aldetik, Azterain-eko mendira igotzen den bidea dugu:

otra Pieza en çaçuburua...teniente a...senda que suben a aztirayn" (1645)<sup>1670</sup>

**Senda de Bakundi, la:**

Bakundi-ren barruko bide-zigorra zela irudi du (ikus Irizarra).

**Senda de Elkea, la:**

Elketxipia-tik Elkea (cf. gaurko Barranco de Arkea)-ra zihoan:

"en el passo de elquea chiqui...y caminando mas aRiba por la senda de elquea" (1612)<sup>1671</sup>

**Senda de Erbiñaga a Aranandia:**

Erbiñaga-tik Aranandia aldera (Zaldua-ra alegia) zihoan:

"senda que ban desde la fuente de erbiñaga al monte y parte llamada aran andia" (1658)<sup>1672</sup>

**Senda de Euntzeluzea:**

Euntzeluzea (Intuluzea gaur)-ren barruko bide-zigorren bat zatekeen hau:

"...barranco y senda de eunçelucea" (1587)<sup>1673</sup>

**Senda de Ezpondabe:**

Ezponda(be)burua-tik (ikus Ezpondabeburua eta Ezpondaburua sarrere-tan esan duguna) Ezpondabe-ra zihoan.

**Senda de Gezari:**

Lezkadui-tik Gezari-ra zihoan (ikus Lezkadui).

**Senda de la Ermita de Artadua, la:**

Herritik Artadua edo La Lecinosa-ko ermitara zihoan (ikus Artadua).

---

1670 Id., 45. k.

1671 Id., 14. k.

1672 Id., 28. k.

1673 Id., 3. k-bis.

**Senda de la Ermita de Santesteban:**

**Jaundoneztebe** edo **Santesteban** ermitara zihoan. Ez dakigu gaurko **Camino de los Linares**-ekin identifikatu behar den:

“abriendo la senda a la ermita de san esteban...y delante de la puerta de santesteban” (1612)<sup>1674</sup>

**Senda de la Lecinosa a Abaiz, la:**

**Camino de Abaiz** edo **Abaizbidea** bera da. Ditugun lekukotasunetan ikusten den moduan, **Artadualdea** eta **Larrainzar**-en zehar zihoan (ikus sarrera hauek).

**Senda de Larruzkain a Larruzgibel:**

Ikus **Larruzkain** eta **Larruzgibel** toponimoak aztertzean esan duguna.

**Senda del Monte de Azterain:**

**Juandelusaiets**-etik **Azterain**-eko mendira igotzen den bide-zidorra dugu hau:

“en el termino de Jandulasais...thente a...senda que usan para subir al monte de Aستيرain” (1820)<sup>1675</sup>

**Serenado (hoyo de), (fuente de), el:**

Izen hau ez dugu sekulan agirietan ediren, eta berria dela uste dugu. **Serenado** hitzak gorte bateko estali gabeko artegi-zatia adierazten du.

**Elkea** edo **Hoyo de Elkea**-ren goreneko alderdian dago, **Pinar de los Cerros** ondoan. **Barranco de Elkea** bertako iturrian sortzen da.

**Sierra, alto de la:**

Eslaba eta Arteta banatzen dituen mendia da. Hemen ikusten den bezala, **Amikarren**-en barrukotzat jotzen zen aipatu mendi hori, orain Artetako mugaren eta **Amikarren**-en artean **Larrasoil** sartzen bada ere. Honek argi adierazten digu denboraren joanaren poderioz dermioen hedadura aldatu egin dela:

“se allo el tercer mojon...en el alto de la sierra y paraje llamado amicarren” (1691)<sup>1676</sup>

Nolanahi ere den, dokumentazioan **La Sierra** ez da gehiago agertzen, eta egun ere ezezaguna denez gero, 1691ko **la sierra** hori izen arruntzat hartu beharko dugu.

1674 Id., 14. k.

1675 PRA-San Martin, 82. k.

1676 Eslaba eta Arteraren arteko mugarren berrikusketa. PRA-Kaseda, 6. k.

**Sortengoeuntzeta:**

Gehienetan dokumentatzen den **Sortengortea** eta **Sortengorteta**-ren aldaki itxuratxartua izan daiteke 1596an baizik aurkitu ez dugun hau. Guztiarekin, **Sorten** edo **Sortengo** deitu dermioko euntzeak edo euntze-tokia ere adieraz zitzakeen:

“otra pi” en sortengoeunceta” (1596)<sup>1677</sup>

**Sortengortea (barranco de):**

1587an **Sorten gortea** dugu, **Satengortea**-rekin batera, eta 1590ean **Sortengoertea**<sup>1678</sup>:

“dixeron haver puesto en el barranco de sorten gortea comenzando el camino baxo que ban para Lerga” (1587)<sup>1679</sup>

Hauekin batera, **Sortengorteta** agertzen da 1605ean<sup>1680</sup>, **Sortangorteta** 1606an<sup>1681</sup>, eta **Çortengorteta** 1612an:

“Rettomamos El passo y barranco antiguo de çortengorteta questa apegante al mojon de Aldea” (1612)<sup>1682</sup>

Guzti hauetatik jatorrizko forma zein den jakitea ez da erraza; hasierako txistukariari dagokionez badirudi zaharrena *s-* dela, eta 1612ko *ç-* *s* / *z*-ren arteko nahasketa ugarien beste erakutsi bat besterik ez dela.

Tarteko *-go-* hori zer den ere ez dago bat ere garbi: leku-genitiboaren morfema izan daiteke, ohizkoa denez ozen baten gibelean ahostundu delarik, baina etimologia iluneko izen horren zati ere izan daiteke. Era berean, *-go- gortea* ‘korrale’ ezagunaren parte izan daiteke, baina 1590eko **Sortengoertea**-n oinarri harturik **Sortengo** dermioaren *er*tea edo *ar*tea (hots, ez goiena, ez barrena)-ren aitzinean gaudela ere pentsa daiteke.

Zernahi gisaz, *-gortea* / *-gorteta* txandaketak izen honen azken elementuan *gortea* ikustera bultzatzen gaitu, ikusi den moduan Ø / *-eta* aldizkatzea erakusten duten leku-izenak ugariak dira eta.

**Barranco de Sortengortea** gaurko **Barranco de Uxubidea** izan zitekeen, **Bidezarra** edo **Bidezarreta** (**Camino bajo de Lerga**) gurutzatzen duena, edo **Euntze-luzea** alderdiko errekastoa. Pausua **Bidezarreta**-ren eta aipatu errekastoaren elkar-gunean egon zitekeen.

**Sortengorteta:**

Ikus aurreko sarrera.

1677 PRA-Oibar, 17. k.

1678 Id., 14. k.

1679 Id., 25. k.

1680 Id., 12. k.

1681 Id.

1682 Id., 14. k.

**Soto (barranco de), el:**

**El Soto Galipentzuko mugan dago, Barranco del Soto-ren bi aldeetan.** Dokumentazio zaharrean **Zaldua** itxurapean azaltzen da.

**Subterráneo de Bariain, el:**

Lurrazpiko gela moduko bat da, dena arkuz betea dagoena. “Casa de la Doina” deitu etxearen gainean dago, **Calle del Aire-n**, eta duen izena “Casa de Bariain”-en jabegoa izateari zor zaio. Hemen gorde izan da mahats-txertoa, euria hasten duenean ura iragazi eta hezetasun handia izaten baita bertan. Herriko **Adobería** ere hemen zen (ikus sarrera hau).

**Subterráneo de Casa de Don José, el:**

Aurrekoa baino lurrazpiko handiagoa dugu hau. Gure informatzailearen arabera, berrogei bat maila daude jaisteko, dena harri pikatuz egina, eta putzu ikaragarri handi bat, berau ere harri pikatuz moldaturikakoa. Aurreko guzti honek, etxea eta lurrazpikoa eliza ondoan egotearekin batera, dokumentazioko **Castillo (viejo)** edo **Gazteluzarra**-ren arrastoa dela pentsarazten digu.

**Tajadera (campo de), la:**

**Tajadera**, Iribarrenen arabera<sup>1683</sup>, gure alderdian ibiltzen den izen arrunta da. Honela definitzen du autore honek:

“compuerta, plancha de madera o de hierro que, deslizándola por correderas, se pone para cortar el paso del agua en acequias, para detener la salida del grano de cereal del depósito, etc.”

Badakigu errepede baten ondoan zegoela:

“...en la tajadera...afrenta con...Camino RI” (1771)<sup>1684</sup>

**Lezkadui-n (El Lezcal-en):**

“...pieza en Tajadera o Lezkadui” (1884)<sup>1685</sup>

Dudarik gabe oraindik ezaguna den errotatik hurbileko **El Lezcal-eko Campo de la Tajadera** delakoan zegoen. Azekia **Presaldea-n** hasten zen, **Camino de Presaldea** baino goitiago, eta **Ezpondabe-n** gaindi, errekaaren paretik, **Campo de la Tajadera**-raino zihuan, Galipentzuko mugako **Molino de Unzue-ra**<sup>1686</sup>. Errotan eho nahi zutenean ireki egiten zuten, eta beharrik ez zegoenean itxi, ura berriz erreka itzul zedin.

---

1683 VN.

1684 PRA-San Martin, 50. k.

1685 PRA-Barasoain, 229. k.

1686 1926an sortu zen Clemente Barriainek aitarengandik bildu zuen informazio hau; azekiak mende honen hasiera arte iraun zuela esan daiteke.

**Tastaran (barranco de), (fuente de), (paso de), (piedra de):**

**Tastaran** (**Trastan** [t̪raʃtán] gaur) Eslaba eta Agezan erabiltzen da, mugaz bi aldeetan, lehen herrian bigarrenean baino hedadura handiagoa duelarik.

Etimologia ez da argia, baina bukaerako **-aran** hori **haran** 'ibar' besterik ez dela uste dugu, 1587ko den lehen lekukotasunean **Tasteran** gure irudiz forma disimilatua aurkitu arren. 1644eko **Trastarain-ek**<sup>1687</sup> guk proposatzen dugun etimologia-aren alde hitz egiten du, **Baluriaran** aztertzean esan den gisan<sup>1688</sup>:

"en el barranco de tasteran como corta el camino que ban para ayessa" (1587)<sup>1689</sup>  
 "otra pieça faytia en tastaran" (1593)<sup>1690</sup>

Izenaren bilakaerari dagokionez, esan beharra dago jatorrizko forma **Tastaran** bazen ere **Trastaran** aski goiz sortu zela (erreperkuzioz?):

"Ytten otras dos pi's Juntas en trastaran" (1593)<sup>1691</sup>

Zernahi gisaz, jatorrizko forma aipu honetan ageri den **Trastaran** dela pentsa ere daiteke, eta hemendik **Tastaran** dardarkari disimilazioz sortua dela. Egungo izena 1593ko horretatik aterako zen, haplologia moduko batez, 1636rako<sup>1692</sup>.

**Tastaran** dermio menditsua da, eta izenaren zergatia bertako **Barranco de Tastaran-en** bilatu beharko dugu, beste ezertan baino areago, jakina den bezala haranak erreka ondoak izaten baitira (cf. Eslabako bertako **Arangaitz** eta **Aranandia**).

Eslabako **Tastaran-ek** Agezako izen bereko dermioarekin eta Morionesko lurrekin ezezik, **Gezari**, **La Tejería**, **El Saso**, **Juandelusaiets**, eta **Azterain-ekin** mugatzen du.

**Paso de Tastaran** Agezako bideak eta **Barranco de Tastaran-ek** elkar gutzatzen duten puntuan dago:

"otra pieza en el paso de trasttran" (1790)<sup>1693</sup>

Badakigu euskaraz **Tastaranpasua** esaten zitzaiola. Dermioko erreka **Fuente de Tastaran-en** sortzen da; **Piedra de Tastaran**, azkenik, dermio aldapatsu honetako haitz garai bat da. Bertan, kontatzen dutenez, Jaun Done Jakueren zaldiak utzitako az-tarnak daude.

**Tastaranpasua:**

Aurreko sarreran esan bezala, **Tastaranpasua** erdarazko **Paso de Tastaran-en** kide erabat euskalduna da:

1687 Id., 24. k.

1688 Ikus **-ain** bukaerari eskainitako atala.

1689 PRA-Oibar, 25. k.

1690 Id., 7. k.

1691 Id., 7. k.-bis.

1692 Id., 23. k.-bis.

1693 Id., 76. k.

“otra pieza...en Trastan paussua” (1718)<sup>1694</sup>

**Tejería (altico de), (balsa de), (fuente de ), (prado de), la:**

Gure alderdian ez dugu sekular aurkitu beste eskualdeetan (Iruñerrian, kasu) azaltzen den eta tejería eraldunaren kideko euskalduna den Telleria, Telladi edo Telegi-ren modukorik.

La Tejería lehenengoz 1593an ediren dugu, eta beraz aski zaharra dela esan daiteke. Bertan bazen euntzea:

“otra piª Junto a la tegeria” (1593)<sup>1695</sup>

“...el prado de la tegeria” (1612)<sup>1696</sup>

La Tejería toponimoa bizirik dago oraindik, eta El Saso, El Puente viejo, Xubingoa, San Pedro, Boiugain, Gezari eta Tastaran-en arteko eremua adierazten du. Teileria Fuente de la Tejería-ren ondoan zegoen, eta gerla zibilaren ondoren desagertu zen, orain hondakinak baizik gelditzen ez direla. Teilak egiteko beharrezko zen egurra egun labakitu dagoen El Saso-tik ateratzen zen.

Altico de la Tejería duela urte gutxi batzuk arte oihana izan zen muino txiki bat da, eta El Saso-n dagoenez gero (Camino de Ayesa ondoan), dokumentazioko Cabezo del Saso edo Zazuburua-rekin identifikatu behar dela irudi du. Balsa de La Tejería alderdi honetako idoi handitu berria dugu.

**Tipulatze:**

Tipula eta -tze-z osatua dago erdarazko “El Cebollar”-en baliokidea den hau (cf. Moriones). Tipulatzea-k (Dipulatzea batzuetan, lekukorik zaharretan, nahiz ez Eslaban) herriaren ondoko lur eremu bat izendatu ohi du, eta oso ezaguna da toponimian. Gure alderdian Ageza, Galipentzu eta Morionesen ere aurkitu dugu:

“una piª...en la endreçera llamada tipulace” (1602)<sup>1697</sup>

**Trabeseraerreka; Trabeserreka:**

Hidronimo honen bi osagaiak gardenak dira eta osotasunak ‘saihetsetik heldu den erreka’ adierazten du, hots, erdaraz “el barranco (que viene) de través” esango genukeena (ikus Lhande)<sup>1698</sup>. Izan ere, erreka hau Zangozako errege bideari, Zangozabidea-ri, saihetsetik zetorkion:

“campo teniente a camino real que ba a la ciudad de Sanguesa en el termino llamado Travesserreca” (1723)<sup>1699</sup>

1694 Id., 35. k.

1695 Id., 7. k.

1696 Id., 14. k.

1697 Id., 10. k.

1698 Santakaran La Trabiesa del sequero dugu 1557an (PRA-Kaparroso, 2. k.), eta Erriberrin Valtraviesa.

1699 IEA, 1765, 8, 870. or.

Hortaz, gaurko **Barranco del Puente viejo** edo **Barranco de Xubingoa** (biotako bat) zela pentsatu beharko dugu, izen hori har ere zezakeen **Barranco de Gezari-k** aski izen zaharra baitu.

**Trabeseraerreka** edo **Trabeserreka-k** ubidearen inguruko lurak ere izendatzen zituen. Ardantzeak eta alorrak zeuden bertan:

“una viña en trabesera erreca” (1634)<sup>1700</sup>

#### Tunbuladuia:

Aldi bakar batez aurkitu dugu izen hau, 1606an, eta hasierako letra zein den ez da garbi ageri. Hortaz, ezin esan etimologia zein den, bukaerako **-duia** hori gure alderdian nagusi azaltzen den atzizki multzokariarekin identifika badaiteke ere. Honela balitz, oinarria landare bat edo lur-motarekin lotu izen bat litzateke:

“otra pieça en tunbuladuya”<sup>1701</sup>

#### Txaparra:

Gaurko **El Chaparro**-ren ordain erdalduna da (ikus sarrera hau). 1593ko **Arangaizko txaparr(ondo)a**-rekin identifikatu beharra dagoela dirudi, eta beraz gaurko **El Chaparro** eta dokumentazioko **Txaparra** behiala **Arangaitz**-en barrukotzat jotzen zela garbi samar dago:

“otra pieza en chaparra” (1645)<sup>1702</sup>

“en el terno...llamado chaparra una pieza...” (1705)<sup>1703</sup>

#### Txirria (balsa de), (barrio de):

**La Txirria**-k [lačřija] ‘chorro’ adiera duen euskal izena dela garbi dago (cf. **Txirrialdea Lergan**<sup>1704</sup>). Izan ere, duela hogeitamar bat urte arte **La Fuente de la Virgen**-etik erreten baten bidez<sup>1705</sup> ura ekartzen zen herrira, eta **Txirria**-n zegoen txirrian (“un churruto” gure informatzailearen arabera. Cf. Agezako **Txurruta** toponimoa) betetzen zituzten emakumeek kubo eta pitxerrak. Iribarrenek<sup>1706</sup> dioenez, inguruko herrieta-koek **chirrios** edo **chirriosos** deitzen diete eslabarrei, adarra jo nahian edo.

1700 PRA-Oibar, 23. k.

1701 Id., 12. k.

1702 Id., 25. k.

1703 PRA-Kaseda, 12. k.

1704 **Elon Corral de Chirria** dugu 1790ean (PRA-Kaseda, 33. k.), eta **Elkartan** (TCPCI, 324. or.) eta **Gulian** bizirik dago oraindik **Txirriaga** [čřřjaga] toponimoa. **Alfonso Iriгойen** jaunak **Artaxonako** “cognomina” aztertzen ari delarik **Garcia Yturrico** eta **Garcia Chirriacoa** aipatzen ditu, eta azken hau **Pascoal de Chirria** “erromantze”-aren ordaintzat jotzen duen arren, ez du deus esaten bi **Garcia** horien artean izan daitekeen baliokidetasunaz (ikus “Las hablas vascas de Tierra Estella y su onomástica”, in DRPLV-III, 163-192. orr.). **Eslabako Txirria** iturri baten izena dela eta iturrietan txirria dagoela aintzat harturik, beharbada ez litzateke arriskugarriegi aipatu **Artaxonako** bi biztanle horiek bat eta bera baizik ez zirela pentsatzea.

1705 **Eslabarrek** auzalanean (“de centena”) garbitzen zuten urtero ubide hau.

1706 VN.

Nolanahi ere den, izen honen 1583ko lehen lekukoak y- nahasgarri bat du hasieran:

“...con calle publica que ban para ychirria”<sup>1707</sup>

Gainerantzeko agerraldi eta eratorri guztietan, ordea, ch- aurkitzen dugu lekune horretan: 1586an Chirria da<sup>1708</sup>, eta 1784ean (ikus aurrerago) eta 1820an egungo La Chirria ageri da:

“Mas un Huerto tras el Castillo ó la Chirria” (1820)<sup>1709</sup>

Iturritik jaisten zen uraren soberakina orain urte batzuk estali zuten Balsa de Txirria-n biltzen zen. Barrio de Txirria Irigoiena edo Barrio de arriba-n zegoen, eta txurrutaren ondoko etxeek osatzen bide zuten:

“otra casa en dha villa y barrio que llaman de la Chirria” (1784)<sup>1710</sup>

Txirria herriaren aldameneko eremua ere bada, hain zuzen ere Artatzea eta Etxeberri-rekin mugatzen duena.

#### Txirriaburua:

Alderdiko gaina (Artatzea-ren ondoko eremu gora) bide zen hau:

“otra piª en...chirriaburua” (1602)<sup>1711</sup>

“una pieza en chirriaburua” (1696)<sup>1712</sup>

#### Txirrialdea:

Txirria-ren ondoko alderdia zen:

“una pieca...en la endrecera llamada chirrialdea” (1584)<sup>1713</sup>

#### Unziti, casa de:

Untzitin sortutako norbaiten etxea bide zen hau, Casa de Unciti-rekin batera Casa de Unzitiar edo Casa de Unzitiarra ere azaltzen baita:

“...la casa que llaman de Unciti” (1790)<sup>1714</sup>

---

1707 PRA-Oibar, 3. k.

1708 Id., 3. k-bis.

1709 PRA-San Martin, 82. k.

1710 PRA-Oibar, 73. k.

1711 Id., 10. k.

1712 PRA-Kaseda, 8. k.

1713 PRA-Oibar, 3. k.

1714 Id., 76. k.



**Unzitiarra, pieza de la casa de:**

Etxe honek ondasun gehiago ere izanen zituen, baina guk bakarrik bi alor aurkitu ditugu dokumentazioan, bara **Zabalzigar-en**:

“otra pieza en Zabalzigar...tente a pieza de la casa de uncitiarra” (1753)<sup>1715</sup>

eta bestea **Ozteriz-ko Olibeta-n, Zangozabidea** ondoan:

“un plantado...en el terno de Olibetas tente a pieza de los Erederos de la Casa de Uncitiar y Camino p<sup>a</sup> Sanguesa” (1791)<sup>1716</sup>

**Unzue (molino de), (pieza de):**

**Unzue** izena errotaren nagusiaren deitura izan zitekeen (cf. **Molino de Ugarr**a Ezporogi eta Zaren), baina ezin bazter dezakegu **huntz** landare-izena<sup>1717</sup> osagarri duen toponimoa delako ustea, XVI. mendeko lekukoa honen alde mintzo baita (errota zegoen bertan). Honela izatekotan, aipatu **huntz** izenaz gain, ugaritasunezko -zu atzizkia eta -(g)une ‘tegia’, ‘tokia’ atzizkitik bokal arteko sudurkaria erori ondoan atera den -ue genituzke<sup>1718</sup>.

Zernahi gisaz, badakigu Eslaba eta Galipentzuren arteko mugan zegoela:

“un molino...en el dho tero del lugar deslaba en el tero llamado Unzue...que afronta...con el tero de Galipienzo” (1547)<sup>1719</sup>

Bertan oraindik ere jendearen gogoan dagoen errota egon zen, **Barranco del Lezcal**-etik gertu. Hirurogei urteak igaroak dituzten gure informatzaileen gurasoek errota lanean ezagutu zuten, eta beraz bizi luzea izan zuela esan daiteke, gutxienez XIII. mendetik XX.era bitarte iraun zuelako. Eraikuntzaren zaharkinak oraindik ere ikusgai daude aipatu alderdian.

**Pieza de Unzue** errotaren gibelean zegoela dirudi:

“...item la pieça de Unçue que se afronta con la de dona Milia...” (1276)<sup>1720</sup>

“...alia pieça/tras el molino de Unçue que se afronta con la de la abadia” (1276)<sup>1721</sup>

**Uxubidea (barranco de), (fuente de):**

**Uxubidea** Uxuerako bidea zen hasiera batean, gero inguruko lurrak adieraztera ere pasatu zelarik. Uxueko erromeria aspaldidanik egiten da, eta gure alder-

1715 PRA-San Martin, 42. k.

1716 PRA-Oibar, 76. k.

1717 ‘Landare-igokaria, zurtoinetan sortzen zaizkion sastraitxoek bidez horma eta zuhaitz-enborrei itsastean zaiena eta hostoak beti berdin dituen’, HLEH-ren arabera.

1718 Ikus **Etxague** eta antzekoentzat Mitxelena FHV-ko 305. orrialdean eta AV-ko 157.ean ematen duen azalpena

1719 PRA-Erriberri, 3. k.-bis.

1720 *El Gran Priorado*, 469-470. orr.

1721 Id.

diko herri gehienetan aurkitzen dugu (aldeak alde) **Uxuebidea** izeneko bidea eta dermioa.

Eslaban izen honen lehen agerraldian **Uxue** oso-osorik azaltzen da:

“otra pieça en Uxuebidea” (1644)<sup>1722</sup>

**X** horrek gure ustez sabaiareko igurzkari ahoskabea ordezkaten du, ez belare igurzkari ahoskabea. Zentzu berean mintzo dira 1688ko **Ussobidea**, gainontzeko forma dokumentatuak, eta gaurko **Subidia** ([šubídja] edo [šubíděa]) aldaera desitxuratua (cf. **Jubidea** Murillo el Fruton, XVII. mendearen erdialdean<sup>1723</sup>):

“otra pieza en ussobidea...tenientea...camino que se ba a Ujue” (1688)<sup>1724</sup>

**Uxue** elkarketan **Uxu-** edo **Uxo-** bilakatzen da<sup>1725</sup> (**Usu-** eta **Uso-** ere bai. Azken honetan ez dakigu herri-etimologiak ez ote duen eraginik izan. Izan ere, **Uxueko Ama Birjina** **Usoaren Ama Birjina** da, elezaharrak dioenez, **Andre Maria** uso-itxuran agertu baitzitzaion gaur elizan adoratzen den irudia ediren zuen artzainari), eta egungo **Subidia** aldaera hauetakoa lehenetik atera dela dirudi (1829an ediren dugu aurren aldiz<sup>1726</sup>), **Agezan** agitu denaz bestalde, hemen **Sobedea** (< **Usobidea** < **Uxobidea**) baita ohizko forma (ikus sarrera hau):

“una viña...en el terno de usobidea” (1705)<sup>1727</sup>

“otra (pieza) en el terno de Usubidea” (1768)<sup>1728</sup>

Gaurko **Uxubidea Barranco de Lergabidea**-ren **Eslabako** aldean dago, **Lizardui**, **Euntzeberri**, eta **Abaizgibel**-en artean. Antzina, ordea, **Abaizbidea** edo **Camino de Abaiz**-eraino iristen zen, orain bide hau ez ukituagatik:

“otra (pieza)...en el terno de Usobidea afronta con...camino de Abaiz” (1765)<sup>1729</sup>

Izan ere, **Abaizbidea** eta **Uxubidea** bide bera zen, hau da, **Eslabatik** **Epaiza** eta herri honetatik **Facería**-n barna **Uxueko** lurretara sartzen zena. Gaurregun **Uxuera** joateko **Fuente de las Tercianas** eta **Epaizaran**-en zehar joaten dira **Uxueko Sarria** (de **Zaldunaga**)-ra, edo bestela **Artamaldeta** eta **Zaldinaga**-tik **Uxueko Zaldunaga**-ra. **Erromerian** berriz **Lergara** doaz, eta gero **San Gines** eta **Txutxu**-n zehar **Uxuera**.

Iturria ere bazen **Uxubidea** dermioan, errekaen aldamenean:

“yt en Usubidea sobre la fuente...afronta â barranco del termino (1817)<sup>1730</sup>

1722 PRA-Oibar, 24. k.

1723 PRA-Kaparroso, 46. k., 1654.

1724 PRA-Kaseda, 4. k.

1725 Ikus **Uxueko Uxue** sarreran dioguna.

1726 PRA-Kaseda, 53. k.

1727 Id., 12. k.

1728 PRA-Oibar, 67. k.

1729 Id., 66. k.

1730 Id., 97. k.

**Valdecontienda:**

Eslaba eta Lergaren arteko fazeria edo **Facería de los Fayales** zen hau, Lerga, Oleta, Julio, Arteta eta Eslabako mugak bar datozen alderdikoa:

“...que ssabe assi bien que tienen las villas de lerga y eslabá en termino llamado bal de contienda echas sus facerías...” (1611)<sup>1731</sup>

Izen honen balioaz ikus Lerga eta Uxueko **Valdecontienda** sarrerak.

**Venta (alto de), (casa de), la:**

La **Venta** toponimo berria da eta bertan zegoen benta eta ostatuari zor bide zaio. Gure informatzaile baten arabera, Done Jakuera zihoazen erromesak bertan pausatzeko omen ziren. Jendeak dena den, mauruek eraiki zutela uste du. Etxea orain hondatua dago, eta paretek zutik dirauten arren teilatua eroria da.

Antzinako **Artadua** edo **La Lecinosa**, **Artadualdea**, **Artadugibela** eta **Artaduondoa**-ren eremua beretu du, guttieneko kontuan. Antza denez, bertan zegoen **Castro de la Lecinosa**, **Nuestra Señora de la Lecinosa** edo **Ermita de Artadua** deitu izan den eraikuntza (ikus **Artadua** eta **Lecinosa** sarrerak); egungo egunean oraindik inskripzio batzuk ikus daitezke bertan, eta aldareko mahaia ere bai. Hilerria ere bazen<sup>1732</sup>.

**Alto de la Venta** alderdiko muinoa da, eta itxura guztien arabera dokumentazioko **Artaduburua** edo **Alto de la Lecinosa**-rekin identifikatu beharra dago.

Dermio honek **El Llano**, **Bidezarreta**, **Euntzeberri**, **Arrizutaga**, **Presaldea**, **Zurbaran**, **Artadubarren** eta **Artxilabe**-rekin mugatzen du.

**Vicaría, piezas de la:**

**Piezas de la Abadía de Abaiz** berak dirateke, **abadía** eta **vicaría** adierakideak izateaz landa alor guzti hauek **Euntzeluzea**-n baitzeuden, **Aldeko muga**-n:

“Mas en Untelucea otra (pieza)...que afronta á piezas de la Bicaría” (1831)<sup>1733</sup>

**Villa, junto a la:**

Euskal **\*Iriondo** baten itzulpena izan daiteke hau:

“una uerta...en (la) endrecera llamada Junto a la villa” (1606)<sup>1734</sup>

1731 IEA, 515, 29, 72. or.

1732 Hemengo hilobi batzuetako harriak ganbelatako daude orain herrian. Gorpuak ateratzean ezproinak aurkitu omen zituzten, hezurrekin batera.

1733 PRA-San Martin, 87. k.

1734 PRA-Oibar, 12. k.

**Virgen (barranco de), (barranco de la ermita de), (costera de), (fuente de), (hoyo de), la:**

Pérez Ollok dioenez<sup>1735</sup>, 1802an Igual de Soria apezpiku bisitatzailak ordurako hondatuxe zegoen ermita berritzatzeko agindua eman zuen, baina eslabarrek kasurik egin ez, eta zeharo eraitsi zuten (ikus **Nuestra Señora sarrera**).

Gaurko **La Virgen** izen bereko erreka alboan dago (**Barranco de Elkea** deitua gorago), **Arangaitz**, **Amikarren** (?) eta **Larrasoil**-eko mugan. **La Virgen** izena 1779an aurkitu dugu lehendabizikoz, eta erreka aipamena 1781ean egiten da es-traineko aldiz:

“otra pieza en el terno que llaman la virgen” (1779)<sup>1736</sup>

“Ms otra (pieza)...en Arangaiz qe afronta con Barranco de la Hermita de la virgen” (1781)<sup>1737</sup>

**Costera de la Virgen El Pinar de los Cerros** baino pixka bat beheago dago, eta **El Hoyo de la Virgen**-ek erreka bi aldeak hartzen ditu, harana, alegia. **La Fuente de la Virgen**, azkenik, **Barranco de la Virgen**-en dago. Esan bezala, erreka baten bidez (dokumentazioan **Acequia de los Linares** izenpean ageri denaren bidez) eramaten zen ura herrian bertan dagoen **Txirria**-ra. Orain hodi baten bitartez eramaten da ura herrira, beharra dagoenean.

**Xaugizabal (monte de):**

Leku-izen honen lehen agerraldietan **-g-** aurkitzen dugu, eta hurrengo mendeko bi lekukoek **-r-** dute. Txandaketa hau ezaguna da euskaraz; Eslaban bertan aipatu **Iguzkun / Iruzkun** dugu. Aztergai dugun toponimoan ere jatorrizkoa **-g-** dela dudarik ez da:

“una pieza en Jaugiçabal...teniente al monte de la dca villa” (1614)<sup>1738</sup>

“otra pieza en Jaurizabal...theniente al Camino del monte” (1717)<sup>1739</sup>

Etimologiari dagokionez, **Jauregi**-ren laburketaren ondorio izan daitekeen **Jaugi** izenaz eta **zabal** izenondoaz osaturik dagoela pentsa daiteke, baina hemen Morioneko **Jaugia**-n bezala (ikus **sarrera** hau) ‘aterea’, ‘irtena’ (‘gaina’, ‘burua’, alegia) adiera duen **Jalgi** aditzaren aldaera baten (\***Jaugi** edo \***Xaugi**-ren) partizipioa dugula uste dugu, bai Eslaban eta bai Morionen **Xaugizabal** eta **Jaugia** mendi-izenak baitira (cf., gainera, **Alto de Jaugia** edo **Jaugiburua** azken herrian).

Beste aldetik, gaurko aldaera desitxuratuaren hasierako **s-**ak (**Sabizabal** [šáβiθáβal] esaten da) XVI eta XVII. mendeetako **j-** grafiaren azpian [š] sabaiaurreko igurzkaria genuela pentsarazten digu (cf. **Xauzkunea**, **j-**z idatzia XVII. mendean, eta **s(i)-z** XVIII.ean). Badirudi aldakuntza hau Eslaban (cf. **Xaizgun** > **Sirgun**, **Xubingoa**

1735 EN.

1736 PRA-Oibar, 72. k.

1737 PRA-San Martin, 55. k.

1738 PRA-Oibar, 18. k.

1739 PRA-Kaseda, 18. k.

> **Siringua**-ren aldamenean), **Agezan** (ikus **Arrixauzkuneta sarrera**)<sup>1740</sup>, eta **Leatxen** (ikus **Done Xurio**) burutu zela.

**Xaugizabal** mendi-bizkarra da, eta **El Chaparro**-rekin, **El Pinar de los Cerros**-ekin, **Enebezkiz** eta **Erbifiaga**-rekin mugatzen du.

### Xauzugun:

Izen honen XVII. mendeko lekukoek j- aurkezten dute, eta XVIII.ekoek, kasu batean ez beste guztietan, s-, **Agezako Arrixauzkuneta**-k bezalatsu. Hau ikusita XVII. mendean j- horren azpian [y] sabaikari ahostuna genuela kontu egin daiteke (bestela [x] > [š] nola gertatu den ez baita ulertzen), eta soinu hau hurrengo menderako ahoskabetu egin zela (> [š]), jakina den bezala beste euskalki batzuetako bilakaera hau izan baita.

Guzti hau azaltzeko egiantz handiagoko beste bide bat XVII. mendeko j-ren eta hurrengo mendeko s-ren azpian sabaiaurreko igurzkari ahoskabea dagoela kontu egi-tea da, eta [y] > [š] aldakuntza lehenago gauzatu zela. **Zubingoa**-tik atera den **Xubingoa** toponimoaren kasuan ere j- aurkitu ohi dugu XVII. mendean, eta s- XVIII. ean (salbuespenak aztergai dugunean baino ugariak badira ere), eta izen honentzat (**Xubingoa**-rentzat, alegia) [y] ezin da inolaz ere proposatu<sup>1741</sup>.

Esanahiari dagokionez, toponimo hau gaurregun bizirik dauden luizia, **erortza**-ren adierakidea dela uste dugu, edo bestela **Agezako Arrixauzkuneta**-rena. Izenaren osagarriak beraz, \***xauzi** (edo \***xautzi**) 'erori' eta **gunea** 'tokia' (cf. **Iguzkun** edo **Bueltagunea** Eslaban bertan) dira.

Lehenari dagokion bezainbatez, **Lizarraga Elkanokoak** darabilen **jautsi** 'erori', 'jautsi'-ren aldaera dela irudi du<sup>1742</sup>:

"Cer cé icústea S. Francisco Xavierbát bére sotána iguetzearequi manátzen iruzquiái gueldidaiéla, eta guelditzen? Sú jautsidaiéla cerutic, eta jautsizen?"<sup>1743</sup>

"Jesu Christo...Iltze..., Orcizute, enténda, gorpúza. Jautsice limboétara, enténda, arima, librátzera salvaciocó videan zeuden arimac"<sup>1744</sup>

XVIII. mendearen erdirako bukaerako **-ea** gabe aurkitzen dugu ia beti: **Saizgun** (1748)<sup>1745</sup>, **Siaizgun** (1752)<sup>1746</sup>, **Siauzgun** (1753)<sup>1747</sup>... (baina **Sausgunea** 1756an).

1740 Aldakuntza honek ez bide zuen eraginik izan ongi finkatuta zeuden hagonimoetan, hots, **Jaun**-en aldaera den **Juan**-en, eta ez dugu aposizioak sabaiaurrekoa izan duelako frogarik (cf. **Juandepetri** [xwãndepétr̥i], **Juandemikandi** [xwãndemikãndi] orain Lergan).

1741 Grafia arazoez ikus **Grafia** kontuak atalean dioguna.

1742 **Xau(t)zi**-ren bustiduraz ikus **Oñederra**, 249. or. Ana M<sup>a</sup> Echaidek sauntsi 'bajar' bildu du **Espartza** eta **Itzaltzun** eta **sautsi** **Ihaurrieta** eta **Aezkoan** (EENEL, 277. or.). **Juan de Beriaynek** jayci, jaytci edo jaytzi erabiltzen du: "...noy z jayci baycen cerutic Aynguerubat ematera berria ayn dichosoa...", "...eta gurucebatean yl yçanducinala gure Saluaceagatic, eta jaytcicinala iffernuetara...", "...Aytaren, eta Semearen, eta Espiritu Sanduaren bedeycioa jaytzidedila çuen gana, eta gueldidedila beti,..." (TCOM 42., 57., eta 98. orr.).

1743 UIGPL, 66-67. orr.

1744 DCC, 36. or.

1745 PRA-Oibar, 56. k.

1746 PRA-San Martin, 41. k.

1747 Id., 42. k.

Adibide hauetan ikusten denez, **xaiz-** ebakina duten aldaerak arruntak dira XVIII. mendean, eta hurrengo silabak bokalak eragindako disimilazioaren aurrean gaudela pentsatu beharko dugu (cf. **mauru** > **mairu**; **caucus** > **kaiku...**<sup>1748</sup>), XVII. mendeko aldaera gehienek **-au-** baitute:

“una p<sup>a</sup> en Jauzcunea” (1610)<sup>1749</sup>

“otra pieça en Jauzgunea” (1652)<sup>1750</sup>

Hasierako hots palatalaren eraginez ere pentsa liteke. Egun **Sirgun** [sírgún] bilakatu den hau (cf. **Xubingoa** > **Siringua**, **Xaugizabal** > **Sabizabal**, **Errotaxar** > **Rotasiar**) **Baluriaran**, **Lezkadui** (El Lezcal orain), **El Soto**, **Ezpondabe** eta **Artadubarren-en** artean dago. Antzina alderdi honetan zehar **Galipentzuko Camino de los Molinantes-ekin** lotzera zihoan **Camino de Gallipienzo** bat igarotzen zen (**Camino de Xauzgun** eta **Camino del Molino**), gaurko izen bereko bidetik berezi behar dena:

“una viña en el therno q llaman Saizgun...theniente...a Camino Real que ban los de esta villa a la de Gallipienzo” (1748)<sup>1751</sup>

Seguraski **Molino de Unzue-ra** edota **Galipentzuko Aragoaren** ertzeko errortara zihoana (ikus **Camino del Molino** sarrera) zen.

### **Xubingoa** (barranco de):

**Xubingoa** (**Siringua** [síringwa] bihurtua egun) gure alderdian eta hegoaldeko goi-nafarrera mintzatzen zen beste toki batzuetan **zubi** izen arruntaren txikigarria da<sup>1752</sup>. 1648an **Zubingoa** ediren dugu, baina izen honen agerraldi gehienetan **s-** edo **j-**

1748 FHV, 90-91 eta 94. orr.

1749 PRA-Oibar, 21. k.

1750 Id., 26. k.

1751 Id., 56. k.

1752 Orba ibarreko **Leotz** herrian **Subingoa** (PRA-Oibar, 23. k., 1634) edo **Puente de Subingua** (id., 103. k., 1830) dokumentatzen da: “ytem pasado el puente de Subingua una pieza...que la divide el Camino de Sabaiza, que confina por abajo con el rio que baja de Echabacoiz...”.

Aezkoako **Orbaitzetan Xuringoa** dugu gaurregun, **Abaurregainean Xubingoak** nahiz **Zubingoak** derizten zubiak ditugu bizirik, eta Aezkoako mugan dagoen **Orotz-Betelu** herrian **Xubingoeta** dokumentatzen da (ikus **Urtaşunen TOB**, 343. or.).

**Nafarroako** beste eskualde batzuetan **xubiko**, **xubitto** eta **xubindo** / **txubindo** / **Zubindo**, **xubintto** aurkitzen ditugu: **Xubiko** [šubíko] dugu **Galar-Ezkirotzen** “puente por el que los caminos de Pamplona y Cordobilla salvaban la regata que baja de Noain” **Jimeno Jurfioren** arabera (TCPCG, 235. or.7), **Xubitto** **Itza** zendeako **Lete** herrian, eta **Xubindo** zendea bereko **Saratsan** (TCPCI, 237 eta 325. orr.). **Orbako Untzuen Zubindoa** dugu 1793an (**J. Jurfok** bildua, **THET-ko** 167. orrialdean)

**Xubindo-ak** ugariak dira **Nafarroako** alderdi bateko toponimian, eta inoiz edo behin **Zubindondo-ren** aldaerak direla pentsa liteke. Cf., adibidez, **Zizur zendeako Gendulain** herriko (TCPCC, 326. or.) **Subi ondo**, **Subindo**, **Xubindo** eta **Xuindo**. **Honela** deskribatzen du **Jimeno Jurfok** dermio hau: “Paraje al N. del antiguo puente, del que restan los estribos de sillería, por el que el camino de Santiago salvaba la regata”.

**Guztiarekin** ere, **garbi dago gutiz** gehienetan **Xubindo Xubingo-ren** aldaera dela. **Bion** artean dagoen erlazioa **Zaraitzuko gorringo** ‘gorringoa’ eta **gorrindo** ‘gorrixka’-ren artean edo **erdarazko hongo** eta **euskarazko onddo**, **ont(t)-ren** artean dagoen bertsua izan daiteke (ikus honetaz **Oñederraren EFP**, 214. or.), alegia, **Xubindo** lehenagoko **Xubinddo** batetik atera ahal izan da, azken hau **xubingo-ren** aldaera **bustia delarik** (ikus **Oñederra, EFP**, 81. or. eta **Gavel**, 414-415. orr.).

**Azalbide** honekin bar dator **Imotz-Muzkitzen** bizirik dagoen **Xufntto** (< \***Xubintto**) aldaera. **Ibar honetan**, **gainera**, **hasieran** duen **tx-dun** aldaera aurkitzen dugu: **Txufndo** dugu **Oskotz** eta **Zarrantzen** orain, **Chubindo** 1893ko **katastroan** azken herri honetan. **Erroibarko Mezkitzen** **xubikoa** dagoen eta

daukagu, gure iduriz x [s] sabaiaurreko igurzkari ahoskabear genuelako seinale garbia, eta gaurko forma desitxuratuaren hortz-hobietako txistukari igurzkariak ere gauza bera idarokitzen du (ikus **Grafia kontuak** atala eta **Xauzgun** sarrera):

“ytten otra pi<sup>a</sup> en Jubingoa” (1593)<sup>1753</sup>

“una pieza en Zubingoa” (1648)<sup>1754</sup>

“...en el termino que llaman Subingua” (1765)<sup>1755</sup>

**Xubingoa Zangozabidea-n** zegoen:

“otra pieza...en el camino de Sanguesa y paraxe q llaman Jubingoa” (1735)<sup>1756</sup>

Zalantzarik ez dago gaurko **Barranco de Siringua**-k eta aipatu bide horrek elkar gurutzatzen zuten puntuan zegoela, lehengo **Trabeseraerreaka** izan daitekeen ubidean alegia (ikus sarrera hau), baina gaurregun ez dago zubirik ez xubitorik bertan (cf. zubirik ez dagoen oraingo **El Puente de la Sierra** edo lehengo **Zubia Uxuen**). Egungo aldaera 1773an ediren dugu aurren aldikoz:

“otra (pieza)...en Siringua”<sup>1757</sup>

Aipatu aldaerez gainera **Surringoa** dugu 1769an<sup>1758</sup>, **Suringua** 1777an<sup>1759</sup>, eta **Sirungua** 1784ean<sup>1760</sup>.

**Xubingoa-k Los Pozos, La Calera, Gezari, Boiugain, Boiuartea, La Tejería, El Saso, El Puente viejo** eta **Ozteriz**-ekin mugatzen du gure egunotan. Lehen agian **Boiuondoa** ere sartzen zen multzo horretan.

**Xubingoarana:**

Behin bakarrik aurkitu dugu, eta ez oso modu garbian. Osagaiak **Xubingo** eta **harana** dirateke:

“otra pieza en Jubingoarana” (1692)<sup>1761</sup>

---

dermio baten izena den **Txubindoa** daukagu orain, **Subindoa** 1568az geroztik, **Chubindo** 1704ean, **Cibindo** 1807an (Orreaga Ibarra, MT, 352. or.).

Ikusten den bezala, **Xubitto**, **Xubiko**, **Xubindo**, **Txubindo** eta **Xubingo** forma indartuak edo tautologikoak dira, txikigarritasuna hots sinbolismoz ezezik bilakabide morfologiko baten bidez (atzizki txikigarriaren bidez) ere adierazten delako. Kasu berean daude **Morionesko Elizatto** aztertzean aipatu dugun **Berriobeitiko Elixattoa** eta **Lergako Iguraimendikoa** ikustean aipatzen dugun **Aezkoa-Hiriberriko Menddikoa**.

Hauen kide erdaldunetako bat **Zarrakazteluko 1633ko El Pontete** (PRA-Kaparros, 64. k.), 1664eko (id., 72. k.) eta egungo **El Puentete** da (ikus Galipentzuko **El Pontarrón**-en dioguna).

1753 PRA-Oibar, 7. k-bis.

1754 Id., 25. k.

1755 Id., 62. k.

1756 Id., 44. k.

1757 Id., 69. k.

1758 PRA-Kaseda, 22. k.

1759 PRA-Oibar, 71. k.

1760 Id., 73. k.

1761 PRA-Kaseda, 6. k.

**Zabalagaña:**

Zabalea-ren goiko aldea bide zen hau, Amikarren eta Aitzuloa partea:

“otra pieza en Zabalagaña...theniente a Camino Rl que se ba a Astriain” (1705)<sup>1762</sup>

**Zabalea:**

Zabalea, beste eskualde batzuetako toponimo asko bezala, inesiboaren zati-keta faltsu baten ondorena dateke, alegia, “Zabalean alor bat...” edo antzeko esaldi bate-tik Zabalea aterako zen, **etxean - a = etxea**-ren irudikoetan oinarrituz, jatorrizko forma Zabala bazen ere (cf. Zabala Lergan eta Agezan):

“...en la misma endreçera de cabalea” (1593)<sup>1763</sup>

Edozein moduz, Zabalea ihartu zela garbi dago, egun Zabalea [θaβaléa] esaten baita.

Zabalea-k Etxeberri, Artatzea, Los Linares (altos), Sagarraga, Amika-  
rren, Larrasoil, Aitzuloa, Zabalzigar eta El Ginebro-ren arteko eremu laua (goi-lau-  
tada) izendatzen du.

Erditik Camino del Monte de Azterain igarotzen da:

“otra (pieza?)...en el terno de Zabalea thente a Camino q ba a assterain” (1765)<sup>1764</sup>

**Zabaleondoa:**

Esan bezala, Zabalea-ren aldameneko alderdia izendatzen zuen, baina ez da-  
kigu zehazki zein:

“otra pieza en Zabaleondoa” (1702)<sup>1765</sup>

**Zabalzigar (barranco de), (portillo de):**

Zabalzigar Zabalea-ren ondo-ondoan dago, eta gaurko El Ginebro to-  
ponimo berria dela kontuan hartuz, bi zabal horien arteko mugaldea handiagoa zela  
kontu egin daiteke. Zabalzigar ere eremu zabala da, eta dudarik ez dago zabal izenon-  
doarekin lotu behar dela, edo hobe esan, izenondo honen eratorria den zabaltza ‘zabal-  
dia’-rekin (cf. Agezako Zabaltza eta Mugetako 1591ko Zabaltzea<sup>1766</sup>), 1644eko Sabal-  
ca igar-ek idarokitzen duen moldean:

“otra peça en sabalça igar” (1644)<sup>1767</sup>

---

1762 Id., 12. k.

1763 PRA-Oibar, 7. k.

1764 Id., 66. k.

1765 PRA-Kaseda, 11. k.

1766 Cabalçea dokumentatzen da. PRA-Urrotz, 3. k.

1767 PRA-Oibar, 24. k.



Toponimoaren bigarren osagaia 1584eko Sabalcibar aldaeran aurkitzen dugun *ibar* 'haran' izan daiteke, *Zabalzigar Barranco de Zabalzigar*-en bi aldeetatik luzatzen denez gero:

“en la endrecera llamada sabalcibar...afrentada con...el camino Real” (1584)<sup>1768</sup>

Guztiarekin ere, *-ibar* behin bakarrik ediren dugu, aipatu urte horretan, eta bai lehenago eta bai geroago *-igar* azaltzen da ia beti:

“termjo llamado zabalzigarr...” (1570)<sup>1769</sup>

“ytten pasado En el camino en la endreçera llamada sabalcigar” (1587)<sup>1770</sup>

Bigarren elementua argitzeko beste bide bat 1584eko *Cabalciaga*-k idarokitzten duena da, hots, toponimoaren oinarrian *zabaltze* eta *-aga* dugula suposatzea:

“la una (pieza)...en la endrecera llamada lur urdin y las otras dos en cabalciaga”<sup>1771</sup>

Kasu honetan, haatik, ez da garbi ikusten nondik atera den *Zabalzigar* aldaera ia orokorra. *Zabalzibar*-etik, aldiz, ezpainbiko disimilazioz aise atera zitekeen dokumentazioko eta oraintsu arteko *Zabalzigar*. Egungo egunean *Zabarzigar* [θābārθigār] ebakitzen da, inplosioan ohizkoa den *l > r* aldakuntzaz (cf. *Zabalgaña* 1878an, Aritzen, *Zabargaña* egun<sup>1772</sup>).

Masu Nittak<sup>1773</sup> *zabal* 'ancho, ensanche' eta *-tza*, *-tze* ugaritasunezko atzizkia proposatzen ditu toponimo honen hasierako elementutzat. Bukaera *i(h)ara* edo *igara* 'eihera' izan liteke autore honen arabera, azken bokala mugatzailatzat hartua izatearen ondorioz erori delarik. Amaiera *ibar* 'vega, ribera'-ren aldaera ere izan litekeela uste du, “ohizko *-b- > -g-* txandaketaz”:

“ZABARCIGAR (Eslava): Reta se limita a señalar que en el catastro de 1915 figura *Zabalcigar*.

Probablemente corresponda al vasc. ZABAL 'ancho; ensanche; plazoleta' con suf. abundancial -TZA, -TZ(E), más I(H)ARA, IGARA, 'molino' (Michelena, *Apellidos*, nº 305), con caída posterior de la -A por falsa separación del supuesto artículo vasco. Pero también cabría la posibilidad de que *-igar* fuera una variante de IBAR 'vega, ribera' con la acostumbrada alteración de *-b-* en *-g-*”

Bukaera *eihara* izatea oso zaila da, eskualde honetan beti errota aurkitzen dugulako, baita Eslaban bertan ere, ikusteko aukera izan dugunez<sup>1774</sup>. *Ibar* izan daitekeela nola bururatu zaion ez dakigu, lekukotasun zaharrik ez baitu aipatzen. “Ohizko aldaketa” hori berriz, toponimian bederen horren “ohizkoa” ez dela esaten ausartuko ginatke.

1768 Id., 3. k.

1769 Id., 2. k-bis.

1770 Id., 3. k-bis.

1771 Id., 3. k.

1772 J. Jurío, TCPCI, 99. or.

1773 *Notas lingüísticas...*, 22. or.

1774 Honek, hala ere, ez du erabat baztertzen *eihara* izan zitekeelako hipotesia. Irufean, konparaziorako, biak dokumentatzen dira, errota (gehienetan) eta *eihera* (toponimo batean), alegia.

**Portillo de Zabalzigar** euskarazko **Zabalzigarportillu**-ren erdarazko or-daina da; ez dakigu Agezatik Lergara doan bideko **Portillo de Etxeberri**-rekin (ikus **Etxeberri** sarrera) identifikatu behar den:

“una piª...en la endreçera llamada çabalçigar Junto al portillo” (1594)<sup>1775</sup>

**Zabalzigar**-ek **Etxeberri**, **El Ginebro**, **Zabalea**, **Aitzuloa**, **Juandelusaiets**, **Tastaran** eta **El Saso**-rekin mugatzen du.

**Zabalzigarportillu**:

Esan bezala, **Portillo de Zabalzigar**-en aldaera erabat euskalduna da:

“ytten otra piª en cabalçigar Portillu” (1602)<sup>1776</sup>

**Zaldinaga (monte de), (pinar de)**:

**Zaldinaga**, esan denez, **Uxueko Zaldunaga**-ren mugakidea da, eta do-kumentazioari esker badakigu XVI. mendearen bukaera aldean jatorrizko **Zaldinoaga**-tik atera zirela bi izen hauek:

“por la arrendaçion de los dos pedaços del monte de Zaldinoaga” (1587)<sup>1777</sup>

“por el herbage de la yerba de çaldinaga” (1591)<sup>1778</sup>

Bi auzo herritan ageri den toki-izen ber baten bilakaera ezberdinak oso eza-gunak dira toponimian, sarri berezi nahia baitago tartean: cf. Oibarko **Mendixuri** / **Le-atxeko Mendixuri**.

Elementu osagarriak, esan moduan, **zaldi**-ren txikigarria dirudien **zaldino** ‘zaldiko’ eta **-aga** leku-atzizkia dira, eta esanahia beraz ‘zaldi txikiak dauden tokia’ edo antzerako zerbait da, gaurregun ez **Eslaban** eta ez **Uxuen** horrelako askorik ez dagoena-gatik, are gutxiago mintzagai dugun eremuan, **Eslaba** aldeko dermioaren zati handi bat duela hogeita bost bat urte lerrez estali baitzuten.

**Zaldinaga Eslaba**, **Uxue** eta **Epaizen** arteko mendia da, eta horri zor zaio dokumentazioko eta egungo **Monte de Zaldinaga** deizio arrunta. Azken izen honek **Uxueko** mugako dermioaren gorenko alderdia adierazten du.

**Gaurko Zaldinaga**-k [θaldinága] aipatu herri horiekin ezezik, **Eslaba** barruko **Epaizaran**, **Artamaldeta**, **Santa Criz**, **Dorreta** eta **Beragu**-rekin mugatzen du (azken hau **Zaldinaga**-ren barrukotzat jo ohi da). **Zaldinaga**-n, gainera, **Larduia** izeneko azpi-dermioa genuen (ikus sarrera hau) antzina.

**Zaldinagalde**:

**Zaldinaga**-ren ondoko alderdia zen, zein zehazki ez badakigu ere:

1775 PRA-Oibar, 8. k.

1776 Id., 10. k.

1777 Id., 3. k-bis.

1778 Id., 5. k.

“otra pieza en Zaldinagalde” (1688)<sup>1779</sup>

### Zaldinagaondoa (junto a la fuente de):

Aurrekoaren antzeko esanahia (ez bera, hor barnako toponimian -alde eta -ondo duten izenek eremu ezberdinak adierazi ohi baitituzte) izan behar zuen honek Dorreta-ko muga aldea izendatzen zuela uste dugu. Iturria ere bazen bertan, 1601eko lekukoa frogatzen:

“una pieza...termjo llamado Zaldinoaga ondoa” (1572)<sup>1780</sup>

“otra pieza en la endredera llamada Junto a la fuente de Caldinagaondoa” (1601)<sup>1781</sup>

Aipatu aldakiez lekora, 1633an Çaldinaondoa dugu<sup>1782</sup>, 1691n Zaldinondoa<sup>1783</sup>, eta 1825ean Zalinondoa<sup>1784</sup>, besteak beste.

Kokalekuarengatik baliteke iturria egungo Zaldinaga-ko mugan dagoen Dorreta-ko Fuente del Corral de Sagüés izeneko izatea (ikus Iturmendigaña sarrera).

### Zaldua (monte de), (portillada de):

Zaldua latineko saltu-ren eratorria da, eta ubideen ondoko landaretza aberatseko eremua adierazten du. Eslaban, ikusi dugun bezala, zaldu-ren adierakidea den sautu ere izan genezake Santuzabal toponimoan.

Zaldua, ditugun lekukotasunek argitzen dutenez (ikus Aranandia eta Zalduako haran handia), Erbiñaga eta Larrasoil-en artean zegoen, Elketxipia (eta beraz Elkea)-ren ondoan (ikus sarrera hori).

Portillada de Zaldua Aranandia edo Zalduako haran handia-n zegoen:

“asta la portillada de caldua en aranandia” (1587)<sup>1785</sup>

Itxura duenez, Zaldua-ko mendia isun-tokia zen:

“aber prendiado en el dco monte de çaldua al hijo de...” (1587)<sup>1786</sup>

Gure ustez mendi hau Elketxipia-ren ondoko (ikus sarrera hau) Monte de la Villa edo Cerro de la Villa zen, bestela isun-mendia ezin izan zitekeelako.

1779 PRA-Kaseda, 4. k.

1780 PRA-Oibar, 2. k-bis.

1781 Id., 10. k.

1782 Id., 23. k.

1783 PRA-Kaseda, 6. k.

1784 PRA-Oibar, 106. k.

1785 Id., 25. k.

1786 Id., 3. k-bis.

**Zalduako haran handia, portillada de:**

Aurreko toponimoa aztertzean ikusi dugun **Portillada de Zaldua**-ren baliakidea zen hau. Itxura guztien arabera, **Barranco de Elkea** (gaurko **Barranco de Arkea**)-ko **Aranandia**-n zegoen:

“Ytten nos dixeron haberpuesto començando desde el dco barranco asta la portillada de çalduacarandia” (1587)<sup>1787</sup>

**Zangozabidea:**

**Zangoza** hiri-izena eta **bidea** izen arrunta ditugu hemen. Gure eskualdeko dokumentazioan hiri-izenaren bukaera (-**oza** alegia) inoiz edo behin ç-z idatzirik aurkitzen dugu (ikus beheago), baina honetaz landa ez dugu afrikatuz ebakitzen zela pentsatzeko inolako arrazoirik, eta egungo egunean igurzkariz ematen da Zaraitzu eta Aezkoan. Etimologiari dagokionez, ikus -**as** / -**az**, -**es** / -**ez**...atzizkiei eskaini atalean dioguna.

**Zangozabidea Camino de Sangüesa**-ren baliokide euskalduna zela dudarik ez da<sup>1788</sup>:

“ytten otra pi” en la endrecera llamada Cangoçabidea de Junto a la cruz” (1602)<sup>1789</sup>

“Ms otra (pieza)...en Zangocavidea que afronta a Camino de Sanguesa” (1755)<sup>1790</sup>

**Zapataginmendia:**

Hemen **zapatagin** ‘zapata-egile’, ‘zapatari’ eta **mendia** ditugu. **Zapatagin Galipentzun** ere azaltzen zaigu, **Zapatagindegia** toponimoan (ikus sarrera hau):

“ytten mas otra pieca en la endrecera llamada capataguin mendia” (1584)<sup>1791</sup>

Azkeneko aldiz 1712an aurkitu dugu, aski itxuratxartua ordurako:

“otra pieza en zapatarmendia”<sup>1792</sup>

**Zazu:**

1644ean ediren dugun el **çaço**, **Zazualdea**, **Zazutxipia**, **Errezazua** eta **bes-tetan** dugun **zazu** eta erdarazko **El Saso**-ren arteko forma da (cf. **Sasuburua** 1648an, **Sasoburua** 1831n):

“otra pieza Junto al çaço” (1644)<sup>1793</sup>

---

1787 Id.

1788 **Zangozabidea** Oibar haranean ezezik Orba ibarreko Uzkitan ere aurkitu dugu. Hemen herri honetakoak Leoztik Getadarra eta hemendik Loia, Moriones eta Zaren barrena, edo Arteta eta Eslaban zehar, Zangozara zihozten bidea adierazten zuen: “otra (pieza)...en el termino de Zangozavidea, que afronta con barranco y camino de Leoz para Guetadar” (PRA-Oibar, 100. k., 1823).

1789 Id., 10. k.

1790 PRA-San Martin, 43. k.

1791 PRA-Oibar, 3. k.

1792 PRA-Kaseda, 16. k.

1793 PRA-Oibar, 24. k.

**Zazualdea:**

**Zazu** izena eta **aldea** ditugu hemen. Lehenaren adieraz ikus **Saso** eta **Errezazua** sarrerak. **Zazuburua** edo **Cabezo del Saso**-ren ondoan bide zegoen:

“...endrecera llamada çaçuburua afrontada...de la tercera parte de çacualdea” (1584)<sup>1794</sup>

**Zazuartea:**

**Zazu** ‘saso’ eta **artea**-z osaturik dago. Izen honetan ere **artea** / **ertea** txanda-keta aurkitzen dugu:

“yt la otra biña en zazu ertea...affr con barranco concejil” (1569)<sup>1795</sup>  
 “una pieza...en la endrecera llamada çaçu artea” (1612)<sup>1796</sup>

**Zazuartea** erreka baten (**Barranco del Saso**-ren?) aldamenean zegoen:

“...endrecera llamada çaçuerte...que afruen\* con camino puco y con el saso y barranco” (1607)<sup>1797</sup>

**Zazubarrena:**

**Zazu**-ren beheko aldea adierazten zuen izen honek, eta **\*Zazugoiena** eta **Zazuartea**-ri kontrajartzen zaie. Dirudenez, gaurko **El Puente viejo** eta **La Tejería**-ren ondoko eremua zen:

“otra viña en...zazubarrena” (1779)<sup>1798</sup>

**Zazuburua:**

**Zazu** eta **burua** ‘gaina’ dira erdarazko **Cabezo del Saso**-ren adierakidea den honen bi osagaiak (ikus **Tejería** sarrera):

“otra Pieza en çaçuburua...teniente...a senda que se ba a aztirayn” (1645)<sup>1799</sup>

1692an gaztelaniaren eraginari zor zaion **Zazoburua** dugu<sup>1800</sup>, 1801ean **Zazeburba**<sup>1801</sup>, eta 1831n aurreko agiriren batean oinarritzen ahal den **Sasoburua**<sup>1802</sup>:

“Mas en Sasoburua otra (pieza)...qe afronta á...el Saso”

---

1794 Id., 3. k.

1795 Id., 2. k-bis.

1796 Id., 17. k.

1797 Id., 13. k.

1798 Id., 72. k.

1799 Id., 25. k.

1800 PRA-Kaseda, 6. k.

1801 PRA-Oibar, 87. k.

1802 PRA-San Martin, 87. k.

**Zazuondoa:**

**Zazu**-ren ondoko alderdia zen, baina ez dakigu zehazki zein:

“una viña en çazuondoa” (1593)<sup>1803</sup>

**Zazutxipia:**

**Zazutxipia** edo **Zazutxipieta** erdal **Saso** **pequeño** edo **Sasico**-ren ordain euskaldunak ditugu. Izenondoari dagokionean, esan beharra dago **-chiquia** eta **-chiquieta** ere ediren dugula behin baino gehiagotan, aldaera baturako hobetsi **-chipia** eta **-chipieta**-ren ondoan. Aldizkatze hau berau agertzen da gure alderdiko beste toponimo batzuetan (cf. Eslabako bertako **Elquechiria** 1692an, **Elquechiquia** urte berean, **Sar-kitxipia** orain):

“dos pas...la una en...zazuchipia” (1567)<sup>1804</sup>

“en la endrecera llamada cacu chiquia” (1582)<sup>1805</sup>

**Zazutxipieta:**

Esan bezala, aurreko toponimo bera da, oraingo honetan **-eta** leku-ugaritasunezko atzizkia ere ageri delarik. Kokaguneaz ikus **Saso** **pequeño** eta **Sasico** sarre-rak:

“otra pieça en çauchipieta” (1606)<sup>1806</sup>

“una pieza en zazuchiquieta” (1691)<sup>1807</sup>

**Zeroda:**

Ez dakigu zein izan daitekeen izen honen jarorria. Ditugun lekukoak zahar-rak dira, eta ez dirudi **zerrado** (**zerado** idatzia)-rekiko nahasketa baten fruitu denik. Bukaerak **Bizkarda**-renarekin izan dezake zerikusia (ikus sarrera hori):

“otra pieça enceroda” (1587)<sup>1808</sup>

**Zerodagoiena:**

**Zeroda** dermioaren goreneko alderdia zatekeen:

“la una (pieça) en la endreçera llamada en çerodagoyena” (1610)<sup>1809</sup>

---

1803 PRA-Oibar, 7. k.

1804 Id., 2. k-bis.

1805 Id., 3. k.

1806 Id., 12. k.

1807 PRA-Kaseda, 6. k.

1808 PRA-Oibar, 3. k-bis.

1809 Id., 13. k.

**Zerradogibela:**

**Zerrado** (ikus honen esanahiaz Morionesko **El Cerrado** aztertzean dioguna) baten atzeko aldea zen, **Zerradogibeleta** bezal-bezala (ikus egun bizirik dauden **Cerrado**-ak aztertzean esan dena):

“ytten otra pi<sup>a</sup> en çerradoguivela” (1593)<sup>1810</sup>

**Zerradogibeleta:**

**Zazutxipia / Zazutxipieta**-n dagoen txandaketa bera dugu **Zerradogibela / Zerradogibeleta**-n. **Camino bajo de Lerga** edo **Bidezarreta**-ren ondoan zegoen:

“otra pieca en Cerrado guibeleta” (1614)<sup>1811</sup>

“en el camino que ban para lerga en Cerrado guibeleta” (1692)<sup>1812</sup>

“ytem en el cerrado de Jibeletas se apeo un campo...afronta a camino de abajo para Lerga” (1817)<sup>1813</sup>

Hondar aldiz 1825ean aurkitu dugu, oso itxuratxarturik:

“otra (pieza) en el termino de Cerabileta”<sup>1814</sup>

Badirudi, ditugun lekukotasunak ikusita, **La Fuente vieja** zegoen gaurko **Cerrado de Patricio** aldean zegoela.

**Zubialdea (barranco de), (barranco grande de), (fuente de), (paso de), (puente de):**

Osagai gardenak ditu egun **Zubaldea** [θuβa]déa ebakitzen den honek:

“una pieza de pan llebar...en (el) termino llamado zubialdea” (1556)<sup>1815</sup>

Alabaina, agiritako **Zubialdea**-k bi toki ezberdin izendatzen zituela dirudi (argitasuna ez da erabatekoa, halere); gaurko **Zubaldea** lehenik:

“Mas un linar...en Zubaldea, qe afronta a...camino de San Esteban, y otro qe baja de la virgen para la Fuente” (1831)<sup>1816</sup>

Eta **Barranco de Errotaxar** eta **Barranco de Presaldea** (**Barranco de Ezpondabe**, **Barranco del Soto**) elkartzen diren gunekoa bigarrenik, beste gisaz **Puente de los Linares** deitzen zena:

“el dco barranco (Zubialdea-koa) desde errotajarra asta el puente de çubi aldea” (1612)<sup>1817</sup>

---

1810 Id., 7. k.

1811 Id., 14. k.

1812 PRA-Kaseda, 6. k.

1813 PRA-Oibar, 97. k.

1814 Id., 106. k.

1815 Id., 2. k.

1816 PRA-San Martin, 87. k.

1817 PRA-Oibar, 14. k.

Hau berau izan zitekeen 1658an ageri dena:

“Mas avajo de la Puente de Zubialdea”<sup>1818</sup>

Bizirik dagoen **Zubialdea Barranco de Zubialdea (Barranco de Lergabidea beherago)**-ren bi aldeetan hedatzen da, **Los Linares** partean batez ere, eta **Aran-gaitz, Artatzea, Santa Ana, El Corral redondo, Lergabidea** eta **Iguzkun**-ekin mugatzen du, aipatu **Los Linares (Jaun Done Eztebe antzina)**-ekin ezeze:

“mas aRiba en el barranco de çubialdea” (1612)<sup>1819</sup>

Beheko **Zubialdea** aldeari ere **Barranco de Zubialdea** esaten zitzaiola dirudi, bikoiztasun hau espejismo hutsa ez bada bederen:

“...en çubi al dea en el barranco grande...” (1587)<sup>1820</sup>

1834eko lekuko baten arabera **Zubialdea Lergako** errepideraino iristen zen:

“una pieza...en Zabaldea que afronta...á camino para Lerga” (1834)<sup>1821</sup>

Egun **Lergabidea**-raino ailegatzen ez denez gero, Agezakoek **Lergara** joateko ibiltzen zuten **Camino de Zubialdea**-rekin identifikatu beharko dugu aipatutako bide hori.

**Fuente de Zubialdea** alderdiko errekan dauden bi edo hiru iturri txikierako edozeini esaten zaio orain, eta **Paso de Zubialdea Camino de Zubialdea-k** eta **Barranco de Zubialdea-k** elkar gurutzatzen duten gunean dagoen pausua da.

#### Zumaduieta:

Zume ‘zumarika’, -dui eta -eta dira izen honen osagaiak. **Zumadui**a eta **Zumadia** oso arruntak dira Nafarroako toponimian (cf. **Zumadui**a Zaren), baina -dui (edo -di) multzokaria eta -eta leku-ugaritasuneko atzizkiak elkarren segidan (-eta beti azkenean. Ikus honi eskainitako atalean esan dena) dituzten toponimoak ez dira horren ugariak, ezagunak badira ere (cf. **Burdinsagastoieta** Izaban<sup>1822</sup>).

Ez dakigu zehazki non zegoen, baina zumarikak gehienbat erreken alboan hazten dira:

“otra pieça...en la endrecera llamada çumaduieta” (1590)<sup>1823</sup>

#### Zurbaran:

Toponimo hau pintore ezagunaren deitura bera bide da, dokumentazioan zenbaitetan erakusten duen bukaerako -a hori euskal artikulua delarik. Hasierako elementua zer den ez dakigu, baina bukaerakoa **harana** ‘ibarra’ dela irudi du:

1818 Id., 28. k.

1819 Id., 14. k.

1820 Id., 3. k-bis.

1821 PRA-Kaseda, 53. k.

1822 J. C. López Mugartza, *Anso-Erronkari mugaldeko toponimia erkatua*, argitaratu gabeko lana.

1823 PRA-Oibar, 14. k.



“otra pieza en Zurbarana” (1684)<sup>1824</sup>

Honekin erlazionatua egon daiteke Arabako **Zurbano** herria edo Iturgoiengo **Zurbano** despoblatua<sup>1825</sup>, bai eta, orobat, honen euskarazko ordaina den Iturgoiengo be-reko **Zurbao**<sup>1826</sup>, eta Iberoko **Zurbao**, **Zurbau**<sup>1827</sup>. Baliteke, honen frogarik ez dugun arren, **Zurbaran Zurbao** + **haran**-en moduko zerbait izatea.

Reta Janárizek<sup>1828</sup> gure ustez funtsik ez duen etimologia proposatzen du: honen arabera **izura** ‘izaia’ ba ‘behe’, pe’, eta **aran** ‘haran’ dira toponimoaren elementu osagarriak. Masu Nittak Retaren etimologia gaitzesten du, eta **zume** izenean oinarritu nahiago du<sup>1829</sup>:

“Explicado como «de IZURA ‘abeto’, BA, var. de BE, PE, ‘debajo de’, y ARAN ‘valle’».

Pero como ya se apuntó (cfr. supra sobre *Izurba*), no parece existir tal palabra como IZURA en vascuence.

Tal vez compuesto de ISURI, ISURKI, ‘vertiente’ y BE(H)E ‘suelo, parte inferior’ con o sin art. -A (cfr. *Izurba*), más ARAN. No obstante, quizá tampoco habría que desechar la posibilidad que se tratara de ZUR ‘madera’ y BE, ME(H)E ‘delgado’ (< \*BENE, cfr. Michelena, *Fonética*, 269)- composición que se corresponde con ZUME ‘mimbre’- mas ARAN. En efecto, Narbarte interpreta el apellido *Zurbarán* como ‘valle de mimbre’. Compárese con *Zumaran* (*Sumaran*) que recoge Michelena (*Apellidos*, nº 629).”

**Zurbaran**, **Baluriaran** bezala, zulo moduko bat da, eta bertatik azekia txiki bat igarotzen da.

**Zurbaran** [θũr̃barán] **Camino de Presaldea** ondoan dago, **Artadubarren**, **La Venta** (**Artadualdea** lehen, antza), **Arrizutaga**, eta **Presaldea**-ren artean.

1824 PRA-Kaseda, 2. k.

1825 “otra huerta en çurbano...afrentada...con la basilica de San pedro...y de la otra parte con guerta de los de esparça”, PRA-Lizarrá, 1. k.

1826 Çurbao ondoa toponimoan azaltzen da: “otra pieça En çurbao ondoa afrontada...con el camyno puco. q ban a erreçumendia”, Id., 2. k., 1559.

1827 J. Jurío, TCPCO, 149. or.

1828 EHZE, 22. or.

1829 *Notas lingüísticas...*, 22. or. Eibarren Eslabako toponimoarekin eite foniko handia duen **Zumaran** bildu du J. San Martinek (“Toponomástica eibarresa medieval”, *Symbolae-II*, 995-1006. orr.).



## 12. EZPOROGIKO TOPONIMIA

**Abad, pieza del:**

1591n azaltzen diren apez-alorretako bat Zareko mendiaren ondoan zegoen, eta besteak Sariogunea-n (ikus sarrera hau):

“otra piª...afrenta con piª del abbad y con el monte de sada”<sup>1830</sup>

**Abadía (casa de), (piezas de), (plantado de), (viñas de), la:**

**Casa de la Abadía** elizaren ondoan zegoen. Orain urte batzuk desagertu zen:

“otra huerta...que afronta â la casa de la Abadia de este lugar” (1785)<sup>1831</sup>

Alorrak bat baino gehiago ziren: bat **Elizondoa**-n zegoen, herriaren alboan beraz:

“... otra piª en elizondoa...afrenta con pª de la abadía” (1591)<sup>1832</sup>

Kokaguneetatik egungo Campos de la Iglesia direlakoetako batekin identifikatu daiteke.

Bigarrena **Elizapea**-n zegoen (ikus sarrera hau), hirugarrena **Korraleta**-n, eta besterik ere bazen (ikus **Baserrekandia** eta **Sariogunea** sarrerak).

**Plantado de la Abadía** 1894eko katastroan baizik ez da agertzen, eta euskaraz arruntak diren **nobela**-etako bat zela dirudi. **Viñas de la Abadía** direlakoak **Lizar-duia**-n zeuden (ikus sarrera hau).

**Abejar, el:**

**Erlategitxar** euskaldunaren ordain izan zitekeen:

---

1830 PRA-Oibar, 5. k.

1831 Id., 74. k.

1832 Id., 5. k.

“otra Pieza en el abejar” (1661)<sup>1833</sup>

### Acequia, la:

Ezporogin Azekialdea dugu XVI. mendean (ikus sarrera hau), eta azekia-horren itzulpena datekeen La Acequia 1894eko katastroan.

Galipentzuz **Zequiasarra** (1691) izena dugu, ikus daitekeenez hasierako bokalaren aferesiaz, erdaraz ohizkoa den bezala (cf. **Cequia del Molino viejo** Galipentzuz, 1591n). Orba ibarreko Santsomainen **Azekieta**<sup>1834</sup> genuen.

Azekiak sarri errotenak izaten dira, hots, errotetara ura eramateko egiten diren ubide bereziak. Gure alderdian, alabaina, erreka txiki eta sakontasun gutxikoei ere azekia izena ematen zaie.

### Aldaiondoa:

Galipentzuz eta Lergan ere ageri den toki-izen hau aldai ‘aldapa’<sup>1835</sup> eta ondoa-z osatua dago. Aldai Mitxelena arabera<sup>1836</sup> alde-ren eratorria da, eta garai izenean (ikus honetaz Agezako **Ategaratea**-n dioguna) ere azaltzen den -i atzizkia darama.

Alfonso Irigoyenen eritziz<sup>1837</sup>, **aldai**<sup>1838</sup> alde-rekin lotu beharra dagoela gauza segurua da. Izen honen jatorriaz zera diosku, erronkaria eta zubererazko **alte** eta **althe** formetan oinarriturik latineko **\*altana** proposatzen ahal dela **aldai** (cf. gainera **Aldana** eta **Alda** toponimoak)-ren sorburutzat, bilakaera **campana(m)** > **\*kanpanea** (artikuluz) > **kanpaea** > **kanpae** (artikularik gabe) > **kanpai**-n dugin bera delarik.

Gure ustez etimologia hau ez da egokia, **aldai** ‘aldapa’ Nafarroan oso zabaldua dagoelako (bi muturretan ageri da, Amekoetan eta Oibar haranean, Iruñerrian...), herrialde honetan mendebaldeko **kanpana** + **a** > **\*kanpanea** pausoa gertatzen ez delarik<sup>1839</sup>. Hortaz, Irigoyenen hipotesia onartzeko bide bakarra izen hau Mendebaldetik Nafarroara hedatu dela pentsatzea litzateke, baina honi zail samarra deritzagu, batik bat Erresuma zaharreko **aldai**-ren antzintasuna eta zabalkundea aintzakotzat hartzen badira<sup>1840</sup>.

**Aldaiondoa** herriaren eta **Baserrekandia**-ren artean egon zitekeen, baratzeak ere baibaitziren bertan:

1833 PRA-Elo, 3. k.

1834 “otra pieza en la endrecera de zirieta ô azequieta”, PRA-Oibar, 96. k., 1816.

1835 Ikus Uxueko **Aldabea** eta **Aldailarrea** sarreretan dioguna.

1836 AV, 43 eta 100. orr.

1837 “Sobre el origen de las palabras vascas *alde, oste, garai y usa*”, DRPLV-II, 155-166. orr.

1838 Murelagako **álda**[dz]è izena hartzen du erreferentzi-puntutzat.

1839 Salbuespena Burundako euskara da. Urdiainen **patatia** ‘parata’ (<\*patatea < patata + a) eta **jotia** (<\*jotea < jota + a) bezalakoak erabiltzen dira (*Nafarroako euskaldunen mintzoak*, Euskalerrria Irratia-Matías Múgica, Nafarroako Gobernuak argitaratua, Iruñea, 1990, 44-49. orr.); Bakaikun **Donbekia** [dómbekjá] dugu, hots, **dombeka** ‘domeka’, ‘igande’ + a artikulua, (erreparatu, gainera, azken izen honetan gertatu den **m** > **mb** aldaketari. Ikus honetaz Uxueko **Lakumulatu** eta **Santakaramuru** sarrerak), tipulia ‘tipula’, **inaria** ‘enara’, eta **lixibia** ‘lixiba’, ‘lixua’, eta Ziordian **kipulea** ‘tipula’, eta **lixibarie** ‘lixiba’, ‘lixua’ (A. M<sup>a</sup> Echaide, EENEL, 54., 87., 111., eta 192. orr.). Ikus, orobat, Eslabako **Kalboren korrale-sarralde**-n aipatzen diren adibideak.

1840 **Aldaiondoa**-ren inguruan ikus Galipentzuko eta Lergako izen bereko sarreretan dioguna.

“una uerta en...aldayondoa” (1609)<sup>1841</sup>

#### Alto de los Ladrones, el:

Ezporogiren gainean dago, herri ondoan.

#### Andalubios, barranco de:

Lekukotasun bakar berantiarra dugu, eta honek etimologia argitzea oztopatzen du. Erreka honen alboan **Pieza del Portillo** izeneko alorra zegoen:

“...varranco de andalubios en medio y tambien con la pieza del Portillo” (1773)<sup>1842</sup>

#### Arana:

**Arana** izenaren adieraren inguruan ikus Agezako eta Galipentzuko izen bereko sarrerak, eta azken herri honetako **Ibarra**. Moriones aldetik heldu den erreka inguruko harana zatekeen hau:

“otra pieça en arana” (1604)<sup>1843</sup>

#### Areatzea:

**Areatzea**-n harea ‘hondarra’, ‘legarra’ izena eta **-tzea** ugaritasunezko atzizkia ditugu. Ezporogiko bereko **El Arenal** edo **Los Arenales**-en baliokide euskalduna dela dirudi:

“otra piª en areaça” (1591)<sup>1844</sup>

Bai **Areatzea** edo **Areatzeta** eta bai **El Arenal** edo **Los Arenales** arruntak dira toponimian, eta erreka ondoko toki hareatsuak izendatzen dituzte (cf. **Areatzea** / **Los Arenales** Lergan, **Areatzeta** Uxuen...).

#### Arenal, el:

Zaretik Morionesa zihoan bidean zegoen, erreka ondoan:

“otra pieza llamada el arenal...afrenta con...el camino de sada a Moriones” (1773)<sup>1845</sup>

Esan bezala, euskal **Areatzea** eta erdal **Los Arenales**-en kide dirudi.

#### Arenales, los:

Aurreko **Areatzea** eta **El Arenal**-en baliakidea bide da, esan gisan:

1841 PRA-Oibar, 13. k.

1842 Id., 69. k.

1843 Id., 11. k.

1844 Id., 5. k.

1845 Id., 69. k.

“En el termino de Ezporogui en los arenales” (1530)<sup>1846</sup>

#### Azekialdea:

**Azekia** (ikus **Acequia** sarreran dioguna) eta **aldea** ditugu hemen:

“... otra piª...en açequaldea que afrenta con... y con la çequia”(1591)<sup>1847</sup>

#### Azpilkueta:

Izen honen osagaiak Mitxelena<sup>1848</sup> **Azpileta**-rako ematen duen **haitz** ‘arroka’, eta aipatzen ez dituen **bil** ‘biribil’, **-ko** txikigarria, eta **-eta** leku-ugaritasunezko atzizkia izan daitezke, alegia, ‘haitz biribil txikia dagoen tokia’ edo ‘haitz biribil txikiak dauden tokia’ adiera izan dezake.

Guztiarekin ere, ez dugu ahantzi behar Eslabako **Ezpelketa** (< **ezpel** + **-eta**-ren aldaera den **-keta**), **Azpilqta** (sic) dela 1683an, **Ezpelquieta**<sup>1849</sup> 1684ean, **Azpiliquieta** 1703an, eta **Ezpeliquieta** 1753an, besteak beste, eta beraz Ezporogiko toponimoaren kasuan ere horrelako nahasketa zerbait gerta zitekeela, hitz barruko u [w] horrek azken bide hau aski zailtzen duen arren. \***Ezpelkoeta** batez ere pentsa liteke, hots, **ezpelko** txikigarriaz eta **-eta**-z osatutako toponimoaz (cf. **Ezpelkoa** Eslaban, **Arizkomendia** Lergan. Cf., gainera, Ezporogiko bereko dokumentazioko **Los Bojales** eta gaurrungo **El Bojeral**):

“tres pieças...en la endreçera llamada azpilcueta...la tercera piª...en el camino de la fuente” (1609)<sup>1850</sup>

Nolanahi ere, **Azpilkueta Camino de la Fuente**-ren ondoan zegoenez gero badirudi ez dela oraingo **El Bojeral**-ekin lotzen ahal, zuzenean bederen.

#### Balsa, la:

**Bal(t)aldea** izenean ageri den baltsa izan zitekeen:

“... otra piª Junto a la balsa” (1591)<sup>1851</sup>

#### Bal(t)aldea:

**Bal(t)sa** ‘idoia’<sup>1852</sup> eta **aldea** ditugu leku-izen honetan (ikus Eslabako **Bal(t)aldea** sarreran dioguna). Badakigu **Soto pequeño** edo **Sototxia** ondoan zegoela:

1846 Id., 2. k-bis.

1847 Id., 5. k.

1848 AV, 40. or.

1849 Bukaerako **-kieta** hau ere **-eta**-ren aldakia da. Ikus atzizki honi eskaini atalean dioguna.

1850 PRA-Oibar, 13. k.

1851 Id., 5. k.

1852 Ez dugu tarteko soinu afrikatua zelako frogarik. Guztiarekin, 1717ko lekukotasuneko **-ss-k** hala zela idarokitzen du.

“La otra (pieza) en el termino que llaman la balsaldea Juntto al Sotto Pequeño” (1717)<sup>1853</sup>

**Bal(t)sa**-rekin batera idoi ere aurkitzen dugu gure alderdian, esanahi beraz (ikus Galipentzuko **Cruz de Idoia** eta **Uxueko Idoitxiki** sarrerak).

**Bal(t)sarara:**

**Bal(t)sa** eta **harana** dira izen honen osagaiak. Aurreko toponimoetako idoia zegoen ibarra adierazten bide zuen honek. Ez dakigu **Arana** hutsarekin lotu behar den:

“... otra pi<sup>a</sup> en...balsa arana” (1591)<sup>1854</sup>

**Barranco de la Muga de Sada, el:**

Auzo-herri horretako mugaren hurbiletik jaisten den erreka da.

**Barranco de los Olmos, el:**

**El Regacho** edo **El Barranco de los Olmos** Agezako mugako **El Monte-tik Camino de Ayesa**-ren ondotik jaisten den erreka da.

**Baserrekandia (barranco de):**

**Baserreka** (< baso + erreka)<sup>1855</sup> ‘erregu’ izena eta **handia** izenondoa ditugu toponimo honetan. Bizkaiko erreken batzearen ondorena da **Morionestik (Río de la Magdalena** deritza herri honetan) jaisten den erreka handi (Ezporogiko gainerako errekaen aldean handi) hau:

“devajo del Camino (de Moriones) otra pieza...afta con piezas de Ana Maria Torrea y de la Abadia con el barranco de Baserreca-Andia y con el camino de Ezprogui a Moriones” (1795)<sup>1856</sup>

Ezporogiko gure informatzaileak **Río de Moriones** izena eman zigun, baina zalantzan bezala, eta ez zaigu oso fidagarri iruditzen.

**Baztan, pieza de casa de:**

**Santa Elena** azpian zegoen alor hau, **El Parral** edo **Parralea**-ren aldamenen. **Baztan** etxearen nagusiaren deitura izanen zen, ez etxearen berezko izena, esan bezala gure eskualdean etxeek berezko izenik ez dutelako, salbuespenak salbuespen (ikus **Lea-txeko Zarkume** sarrera):

“otra pieza...devajo de Santa Elena teniente a...pieza de la casa de Baztan llamado el parral” (1681)<sup>1857</sup>

1853 PRA-Oibar, 35. k.

1854 Id., 5. k.

1855 ‘Torrente’ Baztanen, A. Irigoyenek IG-en dioenez.

1856 PRA-Kaseda, 35. k.

1857 Id., 1. k.

**Benegorri (casa de), (piezas de):**

Ezporogiko XVII. mendeko etxe baten izena zen (ikus **Chaparral**, **Trenboleta**, eta **Val** sarrerak).

**Bidemearra:**

**Bide** izena eta **meharra** izenondoa ditugu hemen (cf. Agezako **Bidertxi**):

“una pieça...en...(la) endreçera llamada bide mearra” (1615)<sup>1858</sup>

**Bojacaies, los:**

**Bojagal** hitzak Iribarren<sup>1859</sup> arabera ‘matorral de boj’ adierazten du Zaraitzu aldean. Ezporogi ondoko Morionesen **Descenso del Bojacar** toponimoa dugu, -r-**ez**, **manzanal** / **manzanal**, **roble**dal / **roble**dar...eta besteren moduko txandaketaz, eta Oibarren jatorri berekoa den **Buxagar** (1703)<sup>1860</sup>, **Busagar** (1703)<sup>1861</sup> edo **Bujagar** (1719)<sup>1862</sup> dokumentatzen da. Iribarrenek aurrekoaren eta honen arteko zerbait den **Bujacar**-**ez** ‘ezpelak ugariak diren alderdia’ dela dio.

Guzti hauen ordain euskalduna **Ezpeleta** edo **Ezpelketa** (cf. **Eslaba**) da, bai eta agian Ezporogiko bertako **Azpilkueta** ere. Uxuen ordea, \***Boxagar** batetik hartu bide den **Boxagarea** euskaldundua dugu (ikus sarrera hau):

“otra pieça en los bojacaies” (1610)<sup>1863</sup>

Gaurregun **El Bojeral** dugu bizirik, **Camino de Ayesa**-ren ondoan, **Korraleta**-ren azpian.

**Bojeral, el:**

Ikus aurreko sarrera.

**Bural, el:**

**Buro** ‘arcilla’, ‘tierra negra impermeable’, ‘barro arcilloso de color ocre’<sup>1864</sup> ugari dagoen tokia adierazten du honek. Gure alderdiko toponimian franko arrunta da, bai erdal itxuraz, eta bai **Buraleta** formapean ere (cf. Moriones), eta euskarazko bete beteko **Buztintzea** (edo **Buztintza** Ezporogin berean)-ren baliakidea da:

“...en el termino que llaman el bural” (1728)<sup>1865</sup>

---

1858 PRA-Oibar, 18. k.

1859 VN.

1860 PRA-Oibar, 30. k.

1861 PRA-Irunberri, 1. k.

1862 PRA-Oibar, 36. k.

1863 Id., 16. k.

1864 Iribarren, VN.

1865 PRA-Oibar, 41. k.



**Buztintza:**

**Buztin** 'buro' izenaz eta **-tza** ugaritasunezko atzizkiak osatua dago aurreko **El Bural**-en euskarazko ordaina dirudien hau. Harrigarria da hemen **-tza** aldakia aurkitzea, gure alderdiko gainontzeko ia toponimo guztietan (cf. Agezako **Zabaltza**) **-tze** baitugu<sup>1866</sup>:

"Mas una pieza en Buztinça afrontada con...camino" (1661)<sup>1867</sup>

**Camino de Ayesa:**

Dokumentazioan ikusten denez, **Errengoa**-n barrena zihoan (ikus Agezako **Camino de Ezprogui**), izen horretako erreka<sup>1868</sup>aren ondotik:

"otra pieza en el mismo termino (Errengoa-n)...en el camino que se ba a Ayessa" (1681)<sup>1868</sup>

**Camino de la Fuente:**

**Iturrigibela** toponimoan ageri den **iturri**-rako bidea da (ikus **Fuente** sarre-  
ra), egungo **El Soto de la Fuente**-ko iturrira doana. Aurren aldiz 1591n aurkitu dugu:

"una hera en la endreçera llamada camino de la fuente"<sup>1869</sup>

**Camino de los Cerrados:**

**Cerrado** izenaz eta bere ordain euskaldunaz ikus **Morionesko Cerrado** sarre-  
ra. Bide honek **Apeztegiarekin** eta **El Conjuratorio**-rekin mugatzen zuen:

"una pieza... llamada el conjuratorio...afronta á camino para los zerrados, a cerro comun, y a la dha cassa de la abadia" (1785)<sup>1870</sup>

**Camino de Moriones:**

**Baserrekandia**-ren ondotik zihoan, **Garatea**-n zehar:

"otra pieza en...garatea...teniente a...camino R1 que se ba a Moriones" (1681)<sup>1871</sup>

Dena dela, auzo-herri horretara joateko bide bat baino gehiago zegoen (cf. **Caminos de Moriones** sarrera). Usu agitzen den gisan, bidearen inguruko lurrek berez-  
ko dermioa osatzen zuten:

1866 Zalantzakoa da, esan bezala (ikus atzizki honi eskainitako atala), **-tza** / **-tze** beti atzizki ber' baten aldaerak ote diren. Honela mintzo zaigu Mirxelena (FHV, 500. or.) gai honetaz:

"Es para mí dudoso si **-tza** / **-tze**, que en algún caso (cf. *bizitza* / **-tze** 'vida', *eriotza* / *beriotze*) son variantes de un mismo sufijo, occidental y oriental, respectivamente, lo son siempre. Tal vez haya que contar, en parte, con sufijos de origen distinto".

1867 PRA-Elo, 3. k.

1868 PRA-Kaseda, 1. k.

1869 PRA-Oibar, 5. k.

1870 Id., 74. k.

1871 PRA-Kaseda, 1. k.

“una piª...en...la endrèçera llamada camino de moriones” (1594)

#### Camino de Sada:

Cuesta de la Iglesia-tik atera eta Los Olivares-en barrena zihuan, ugaldera. Oraingo ibilbidea aldatuxe dago, kotxeen igarotzea errazte aldera.

#### Camino de Sada a Moriones, el:

Areatzea-n gaindi zihuan, erreka ondotik beraz (ikus Arenal sarrera). Morionesen Zarebidea edo Camino de Sada, eta Zaren Camino de Moriones deitzen den edo zen bidea da.

#### Camino del Soto:

Erreka baten ondoan (Baserrekandia-ren ondoan?) egon behar zuen El Sotora zihuan bide honek (ikus Korraleta eta Puntallo sarrera).

#### Camino del Soto de abajo, el:

Camino de Sada bera dugu.

#### Camino del Soto de la Fuente, el:

Camino de la Fuente bera da.

#### Caminos de Moriones, los:

1610eko lekukoak auzo-herri horretara joateko bide bat baino gehiago zegoe-la garbi erakusten digu:

“otra pieça entre los caminos que ban a moriones”<sup>1872</sup>

Egungo Camino de Moriones Garatea-ren ondotik doa, Río de Moriones-a, ubide hau gurutzatzeko zubirik ez badago ere.

#### Campo ancho, el:

Izena erabilia da gaurregun, baina ez dakigu non kokatu behar den.

#### Campo de la Encomienda:

Toponimo hau behin bakarrik ediren dugu, 1894ean, eta ez oso era argian gainera. Encomienda-k, dirudienez, zenbait ordena erlijiosok beren ondasunak hobe antolatzearren edo egiten zituzten zatiketa administratiboetako bakoitza zen<sup>1873</sup>. Gure al-

1872 PRA-Oibar, 16. k.

1873 Isabel Ostolaza (*Colección Diplomática...*, 56. or.) honela mintzo zaigu gai honetaz:

“La organización del dominio de la Orden de Roncesvalles en Navarra, se hace en forma de encomiendas y claverías. Ahora bien, si entendemos por encomienda una dependencia administrativa de la Orden, formada por unas posesiones además de una iglesia que debe ser regida por miembros de la Orden, resulta que en los dominios de Roncesvalles no hay una distinción funcional entre ambos conceptos, sino que in-

derdian bi erakunde erlijioso (San Juan de Jerusalem eta Roncesvalles, alegia) izan ziren ondasun-jabe, eta ez dakigu Ezporogiko hau bietako zeinena zen.

#### Campo de la Peña:

1894eko katastroan ediren dugu aurren eta azken aldiz.

#### Campo de la Pomera, el:

Ikus Pomeras sarrera.

#### Campo del Huerto:

Iragan mendearen bukaerako katastroan (1894ekoan) aurkitu dugu lehen eta hondar aldiz.

#### Campo del Olivo de Txibarro, el:

Zareko Txiberro etxeko alorra zen. Bertan olibondo bat zegoen, eta hortik izena. Dokumentazioan Campo de Txibarro eta Viña de Txibarro edireten ditugu, eta beraz, Zareko aipatu etxeak Ezporogiko lurretan ondasunak aspaldixkotik zituela esan daiteke.

#### Caracierzo, el:

Euskarazko antzinako **Iparraga** edo **Iparragerria**-ren kidea da Agezako muga aldeko oihezkoa izendatzen duen hau (ikus azken herri honetako **Caracierzo** sarrera):

“otra pieza...llamada el Caracierzo” (1756)<sup>1874</sup>

Zehaztu nahi denean **El Caracierzo de la Muga de Moriones, El Caracierzo de la Muga de Ayesa**...esan ohi da.

#### Carasol, el:

El Carasol Zareko eta Morionesko eguzkialdea da. Ezporogin aurkitu ez baditugu ere, ez litzateke harritzeko alderdi hau izendatzeko halako batean Morionesko **Iguzkun** edo Zareko **Iguzkiagerria** azaltzea, esan bezala hiru izenok eremu bera adierazten baitute:

“otra (pieza)...en el...carasol” (1814)<sup>1875</sup>

#### Casa, debajo:

Bi ziren Ezporogiko etxe “nagusiak”: **Casa de Otano** beheko aldean (bota egin zuten) eta **Casa del Cuco** goikoan. Herriko karrika bakarra zen **Calle de San Juan**

---

distintamente algún centro como el de Atarrabía, a pesar de tener un oratorio a su cargo, va a ser denominado encomienda o clavería, según las personas que la regenten”.

1874 PRA-Oibar, 59. k.

1875 Id., 94. k.

izenekoa bien artetik igarotzen zen. Bi etxe hauetaz gainera Casa de la Abadía zegoen, eta artzaintzako etxe batzuk.

Debajo Casa-z ikus hurrengo sarrera.

**Casas, bajo las:**

Euskal \*Etxepea baten ordaina irudi du (cf. Elizapea / Bajo la Iglesia; Elizondoa / Junto a la Iglesia, Etxeondoa / Junto a las Casas Ezporogin bertan, edo Zareko antzinako Etxepea / oraingo Debajo de las Casas) 1894eko katastroan aurkitu dugun honek. Egungo egunean Debajo Casa esan ohi da.

**Casas, junto a las:**

1604eko Echeondoa-ren erdal baliokidea da (ikus aurreko sarrera). Aurrekoa bezala 1894eko katastroan azaltzen da.

**Cementerio, el:**

Eliza ondoan dago, hertsirik orain.

**Cerrado grande, el:**

Ez dakigu Los Cerrados-etako bat zen edo besteren bat:

“en el paraje llamado el cerrado grande dos rovs de tierra” (1795)<sup>1876</sup>

**Cerrados, los:**

Cerrado izenaz ikus Morionesko toponimia aztertzean dioguna. Los Cerrados non zegoen ez dakigu, baina herri ondoan egoten dira honelakoak eskuarki (cf. Uxueko Rincón de los Cerrados edo Eslabako Zerradogibeleta):

“un cerrado...en el paraje llamado los Cerrados” (1702)<sup>1877</sup>

**Cerro de Basilio, el;**

Muga de Ayesa-ren azpiko gaintxo bat zen hau, orain urte batzuk arte lantzen zena. Aldamenean El Otaberal dauka.

Gure informatzaileak ez daki Basilio izena zergatik ematen zaion, baina bistan da toponimoa antroponimo batetik atera dela.

**Cerro de Folías, el:**

Aurrekoan bezala oraingoan ere gure informatzaileak ez digu Folías [folías] horren berri eman ahal izan. Eslaban ba omen da izen hori duen etxea, baina ez dakigu mintzagai dugun honekin zerikusirik ba ote duen.

1876 PRA-Kaseda, 35. k.

1877 Id., 119. k.

**Cerro helado:**

1894eko katastroko toponimo hau **cerrado** izen arrunta gaizki interpretatzearen ondorena izan liteke, baina egun ere **Cerrolau** [θ̄eroláɥ] esaten da, eta badaiteke katastroko forma hori jatorrizkoa izatea (cf. -otz 'hotz' osagaia duten euskal toponimoak).

Agezako bidearen ondoan dago, eskuinaldean gorakoan, herri horretako mugaren eta herriaren artean, mendi mazelean.

**Conjuratorio, el:**

Ikus izen honen inguruan Leatxeko **El Conjurador** sarreran dioguna. Herrian bertan zegoen, apeztegiaren alboan (ikus **Camino de los Cerrados** sarrera):

"otra pieça en la endreçera llamada Conjuratorio...que afuenta con...uerta de..."  
(1604)<sup>1878</sup>

**Corralachos:**

1894eko katastroan agertzen da **Morionesko Corralachos**-en kide (jatorriz, ez eremuz) den hau. Ez dakigu **Korraleta** eta **Los Corrales**-ekin identifikatu behar den.

**Corrales, los:**

**Los Corrales** Agezabideko **Korraleta**-ren ordain euskalduna zela dirudi:

"otra pieza...en el termino llamado los corrales" (1681)<sup>1879</sup>

**Costera, la:**

Alorra aldapan egoteari zor zaio izena (cf. **Galipentzuko Costeras**):

"otra pieza...en el Barranco del Monte llamado(sic) la costtera" (1785)<sup>1880</sup>

**Cuadro (de Garatea), el:**

1894ean azaltzen den **El Cuadro 1773**ko **El Cuadro de Garatea** bera izan daiteke:

"otra pieza llamada el quadro de Garatea"<sup>1881</sup>

Izenak alorraren itxura karratuan du sorburu. **Morionesko bide** inguruan zegoen, **Garatea** bezala (ikus sarrera hau).

1878 PRA-Oibar, 11. k.

1879 PRA-Kaseda, 1. k.

1880 PRA-Oibar, 74. k.

1881 Id., 69. k.

**Chaparral, el:**

Alderdi honetan ugariak diren txapardietako bat zen hau (cf. Morionesko El Chaparral edo Txaparra eta Lergako Txaparduia):

“otra Pieza...junto al chaparral afrontada con Pieza de Pº Bastan y Cassa de Venegorry” (1661)<sup>1882</sup>

**Chopo, el:**

Makal baten ingurua izendatzen bide zuen (cf. Txipueta Agezan, Txipueta baratzea Ezporogin bertan, El Chopo de Clavillo Galipentzun, El Tiemblo Uxuen):

“otra pieça en la endreçera llamada el chopo” (1604)<sup>1883</sup>

**Dorregibela:**

Dorre etxe-izena eta gibela ‘atzea’ ditugu hemen (cf. Dorreondoa Eslaban, Dorreko alorra Morionesen, Dorreberria Uxuen...):

“una Huerta...detras de las dos casas llamada de Dorreguibela” (1773)<sup>1884</sup>

**Elizapea:**

Elizaren azpiko aldea zen (cf. Bajo la Iglesia, 1894ean). Apeztegiak alor bat zuen hemen:

“otra pieza...en el termino de Elizapea teniente...a pieza de la Abadia” (1681)<sup>1885</sup>

**Elizondoa:**

Elizaren ondoko eremua zen. Hemen beste alor bat zuen apeztegiak (ikus Abadía sarreran dioguna):

“una piª en eliza ondoa” (1604)<sup>1886</sup>

**Era, campo de la; Eras (campos de), las:**

Herri ondoan zeuden:

“una pieça tras de las eras dezprogui” (1610)<sup>1887</sup>

**Campo de la Era** 1894eko katastroan aurkitu dugu.

---

1882 PRA-Elo, 3. k.

1883 PRA-Oibar, 11. k.

1884 Id., 69. k.

1885 PRA-Kaseda, 1. k.

1886 PRA-Oibar, 11. k.

1887 Id., 16. k.

**Erlategitxar, pieza del:**

Hemen **erlategi** ‘erlekofoina’, ‘erlauntza’ izen ezaguna dugu **batetik**, eta zar ‘zahar’ izenondotik atera den **-txar** bestetik. Azkueren arabera<sup>1888</sup>, **-txar** ‘zahar’ elkartuaren bigarren osagaian behenafarrera eta lapurteraz azaltzen den aldaera da, baina Nafarroan barrena ere sarritan aurkitzen dugu: Gulian, adibidez, **Errotacharra** dokumentatzen da 1795ean<sup>1889</sup>, eta gaurregun **Errotatxar** [ēṛōtačār] esaten da, sabaiko afrikatuz. Osinagan behinolako **Odikozar**<sup>1890</sup> **Odikotxar** [odīkočār] da orain, beharbada \***Odikotxar**-en bitartez.

Leatxeko toponimoaren **-char** hori **zahar** izenondo arruntaren aldakia zela garbi dago, 1795eko agirian itzulpena ere ematen baitzaigu:

“otra pieza pequeña entrando en el mismo zerro al abrigo llamada Erlateguichar que quiere decir pieza del abejar viejo” (1795)<sup>1891</sup>

Azpimarratzekoa da 1773ko lekukoan azaltzen den artikulua, izen arruntzat hartzen zelako froga baita:

“otra pieza pequeña entrando en mismo zerro (sic) (**Korraleta**-ko gainean, alegia), alabrigo llamada pieza del Erlateguichar”<sup>1892</sup>

Lekukotasun honetan ikusten den moldean, **Erlategitxar Korraleta**-ko gaineko berokian zegoen.

**Errakina:**

Beste toki batzuetako **Errekina**-ren aldaera da (Cf. Lergako **Errekina**. Ikus Agezako **Errekineta** sarreran esan duguna), erdarazko **La Quemada** edo **El Quemado**-ren ordaina beraz (cf. Agezako eta Aldeko **La Quemada**). Ez dakigu non zen, baina oihan edo mendia behar zuen **errekina** izateko:

“otra pieca en la endrecera llamada erraquina” (1604)<sup>1893</sup>

Lekuko hau aspaldi samarrekoa izaki, tarteko **-a**- hori apofoniaren ondorena dela uste dugu. Itxuren arabera i silabikoaren ondoren kontsonante sudurkaria ez zen bustitzen, baina adibide bakarra dugu, eta ezin segurtasun osoz mintzatu.

1888 Mitxelenak aipatzen du, FHVko 191-192. orrialdeetan:

“La distribución de *ř* y *č* en posición inicial constituye uno de los rasgos diferenciales de los dialectos vascos. En b.-nav. y lab. de una parte, no hay más que *ř*:- la única excepción, según Azkue, es *txar* ‘malo, de mala calidad, gastado, viejo’ en segundo miembro de compuesto”.

1889 PRA-Asiain, 175. k.

1890 **Odicoçar** 1638an (PRA-Ihaben, 9. k.).

1891 PRA-Kaseda, 35. k.

1892 PRA-Oibar, 69. k.

1893 Id., 11. k.

### Errekattoa:

Ezporogiko bereko **Baserrekandia**-ri kontrajarria dago, irudiz behintzat. Osagaiak, bistan denez, erreka izena eta -ttoa txikigarria dira. Guztiarekin ere, dokumentazioan ez dugu **Recatoa** (1604) eta **Recachoa** (1756) baizik aurkitzen:

“otra vina...en...Recatoa” (1604)<sup>1894</sup>

“Mas una pieza...en el therno llamado Recachoa thenite a...Rio” (1736)<sup>1895</sup>

-Ttoa txikigarria erdal grafiaz ematea ez zen notariantzat bat ere erraza izan, eta batzuetan (1604ean) -toa idazten bazuten ere, beste batzuetan -choa nahiago izaten zuten, euskal [tʰoa]-tik hurbilen dauden grafiak hauek baitziren. Morionesko 1530eko **Elizatoguibela** eta 1703ko **Elizatoa** ere -ttoa-ren alde mintzo zaizkigu. 1736ko **Recachoa** aldaerak, beste aldetik, garbi uzten du atzizkia sabaikaldua zegoela<sup>1896</sup>.

### Errengoa:

Toponimo honek bata bestetik hurbil dauden aldaera mordoxka aurkezten ditu: **Errengoa** (1604)<sup>1897</sup>, **Arrangua** (1604)<sup>1898</sup>, **Rengoa** (1610)<sup>1899</sup>, **Rengua** (1661)<sup>1900</sup>, **Arrengoa** (1681)<sup>1901</sup>. Etimologia garbi ez dagoenagatik, baliteke hemen Morionesen eta beste herri batzuetan edireten dugun **erregua** ‘erreka’-ren desitxuratzearen aurrean egoitea<sup>1902</sup>. Baliteke, halaber, txikigarri bat izatea, ez desitxuraketa bat, alegia, \***erregu** izenaz eta -ngoa txikigarriaz (cf. **Xubingoa** herri batean baino gehiagotan, **Butzuungoa** Morionesen. Ikus azken sarrera hau) osatutako \***erregungoa** baten laburketa izatea, baina ez dugu honen frogarik bat ere.

1894 Id.

1895 Id., 59. k.

1896 Mitxelena gurearen antzeko kasu bat aztertzean (“Notas sobre las lenguas de la Navarra medieval”, PT, 73-85. orr.) honela dio:

“En efecto, ante grafías como *Guti(a)* / *Guchi(a)* de un mismo nombre claramente vasco, cabe sospechar que t / ch no sea mas que una manera de representar algo así como una t palatalizada”

Lizarraga Elkanokoak ere -tto erabiltzen du:

“Náies eguín cerbaitto ene Nausi onarén zervitzután itzaréqui berére, eta eztáien águi díóna Profetac,- «Parvuli petierunt panem, et non erat qui frangeret eis»: Chipitroéc ógui escátu, ta ez izátea norc emán-escrivitutut itzgái urréngoac...” (DCC, 29. or.).

1897 PRA-Oibar, 11. k.

1898 Id.

1899 Id., 16. k.

1900 PRA-Elo, 3. k.

1901 PRA-Kaseda, 1. k.

1902 Morionesko toponimoa **loia erregua** (1530) edo **loia erreca** (1823) da, erdarazko **Rio de loia** bera. **Erregua** latineko **riuus**-etik atera den \***regu** baten euskal ordaina da, ezbairik gabe. Ricardo Ciérbide (“Toponimia del Becerro antiguo de Leyre (Siglos XII-XIII)”, FLV, 23, 1973, 237-283. orr.) honela mintzo zaigu sobera garbi ez dauden zenbait toki-izenez:

“Tal vez tengamos el elemento *arri* en los top. *Arrarian...Arrauia...Arripiesa...* Tal vez pueda pensarse en el rom. *rigo, rigu* < lat. *riuus* para explicar *Arriego* (top.m. en Guendulain, f.91, 1099), *Arriegu de arbe* (f.9,1032), más que en *Arri*”.

Gure alderdian aztergai dugun **Errengoa** eta Morionesko **Loiaerregua**-z gainera, **Erregumaiorea** ‘El Río mayor’ ediren dugu **Leatxen** (El Riacho, El Reacho, El Rigacho...eta antzekoei kontrajarria edo), eta **Regandia** (< \***Erreguandia**?) eta **Errengaitz** (< \***Erregugaitz**?) Zaren. Gure eskualdetik kanpo ere agertzen da: Galar-Getzen, esaterako, **Guesal erregua** eta **Guessal herregua** biltzen ditu J. Jurfok (TCPCG, 342. or.), **Guesal erreca**-rekin batera. Ikus gai honetaz gure IGL.



Badakigu Camino de Ayesa alderdi honetatik igarotzen zela, eta hortaz Errengoa egungo Barranco de los Olmos zela kontu egin daiteke, benetan erreka bazen bederen.

#### Etxeondoa:

Gorago esan moduan Junto a las Casas (ikus sarrera hau) erdaldunaren euskarazko ordaina zen:

“otra pi<sup>a</sup>...en...echeondoa” (1604)<sup>1903</sup>

#### Ezporogi:

XVI eta XVII. mendeetako dokumentazioan, gutiz gehienetan, Ezporogui aurkitzen dugu, eta batzuetan Ezperogui. XVII.etik aitzina, ordea, Ezprogui sinkopatua nagusitzen da:

“Don Lope Garcia de moriones abbad que fue de los lugares de ezporogui y moriones” (1669)<sup>1904</sup>

Aspaldikotasuna eta maiztasuna hartzen baditugu aintzat, beraz, badirudi Ezporogi aldaera hobetsi behar dela, ez Ezprogi, eta izan ere, hau da Euskaltzaindiak ontzat hartu duena<sup>1905</sup>. Ezperogi disimilazioaren fruitu izan liteke, baina jatorrizko forma ere bai.

Toponimo honen etimologia zeharo iluna da guretzat; izena bitan bana daitekeela pentsa daiteke: **ezper-** batetik, eta **-ogi** bestetik. Lehena zer den ez dakigun arren (ezpel beti bukaerako **-l**-ez azaltzen da), Elortzibarko Ezperun [eθpérun] (< \*Ezper + une, Iguzkun, Iruzkun toponimoa iguzki edo iruzki + unea den bezala?<sup>1906</sup>) herri izenean dugula suposa dezakegu, eta bukaerako **-ogi** hori **-oki** ‘toki’-ren aldakia dela (cf. Udabe eta Beramendiko txertogi eta Mezkirizko<sup>1907</sup> zerratogi ‘aserradero’, **-(t)egi** eta **-(t)oki**-ren nahasketaren ondorioz), edo 1280ko Esperegui-n oinarri harturik **-egi** ‘tegi’ dugula. Formarik zaharrena, dena den, 1059ko Ezporogui edo Ezporoguy da.

#### Ezporogi, molino de:

Errota hau 1060. urtean dokumentatzen da<sup>1908</sup>. Geroko Baserrekandia-ko Molino de Ugarrá izan daiteke.

#### Ezporogi, monte de:

Ageza eta Zareko mugaldeko oihana zatekeen:

1903 PRA-Oibar, 11. k.

1904 IEA, 1257. kart., 13. zkia.

1905 Ikus NHI-ko 185 eta 190-191. orr.

1906 Ez dirudi. NHI-k Esperon, Ezperon, Ezperun biltzen ditu; Jimeno Juríoren *El libro rubro de Iruñza*, PV, Iruñea, 1970, delakoaren 238. orrialdean **-uyn** bukaera duen Lop Diez de Ezperuyn Muruko “collazo”-aren izena ageri da.

1907 Orreaga Ibarra, MT, 355. or.

1908 Lacarra, VM, 35. or.

“otra pieça junto al monte de ezporogui” (1604)<sup>1909</sup>

**Faitía, la:**

1894eko katastroan agertzen den hau Morionesko bidean zegoen 1604eko Larraca-ren adierakidea izan daiteke (ikus sarrera hau)<sup>1910</sup>.

**Fondura:**

Behin bakarrik ediren dugu, eta ez oso modu garbian:

“una viña en la endreçera llamado (sic) fondura” (?)(1604)<sup>1911</sup>

**Fresno, campo del; pieza del:**

Soto-ko bide ondoan zegoen, erreka aldean itxuraz:

“otra pieza...llamada la del fresno...afronta a...camino pa el soto” (1785)<sup>1912</sup>

Lizarrekoa eta aztergai dugun hau alor bat-bera zirela irudi du (cf. gainera, Lizarduia).

**Fuente (acequia de), (pieza de), (soto de), la:**

La Fuente behialako Iturrigibela-ren iturri-a dela dudarik ez dago:

“la una (pieza)...sita en iturrigibela thenientre...a zequia de la fuente” (1715)<sup>1913</sup>

Ez dakigu zequia hau aztertu ditugun La Acequia eta Azekialdea-rekin zeri-rikusirik bazuen, baina garbi dago Agezako muga aldetik heldu den erreka-stoa dela. Egungo El Soto-ko La Fuente “hartua” dago, hau da, herrira bideratu dute, bertan ura izateko. Baserrekandia-tik hirurehun bat metrotara dago, El Monte aldera.

**Fuente del Campo del Huertico, la:**

Barranco de la Muga de Sada-n dago. Euri asko botatzen duenean baizik ez du jariorik izaten.

**Fuente del Molinero, la:**

Zareko muga dago, Ezporogiko errotatik hurbil.

1909 PRA-Oibar, 11. k.

1910 Ikus IGI-en dioguna.

1911 PRA-Oibar, 74. k.

1912 Id.

1913 Id., 34. k.

**Garatea (campos de), (cuadro de), (pieza de):**

Egun **Garatea** [gàratéa] deritzana **Camino de la Fuente** eta **Camino de Moriones**-en artean dago. Bertan, esperatzekoa zenez, gaintxo bat eta ateka txiki bat ditugu (ikus Agezako **Ategaratea**-n dioguna):

“una pieza...que es la que llaman de Garatea sita en el Camino de Moriones” (1731)<sup>1914</sup>

**Cuadro de Garatea**-z ikus **Cuadro sarrera**. Dermio honek **Soto de la Fuente**-rekin ere mugatzen du, bi bide horiekin ezezik.

**Gizairudigaña:**

Hau **Licuridigaña** da 1591n, eta **Cirudigaña** edo **Lirudigaña** 1604ean, azken kasu honetan lehen letra C nahiz L izan daitekeela, eta **Yzurdigaina** 1661ean, oraingoan **Guisu** ere azaltzen delarik, gainmarratua bada ere. Gauza bera gertatzen da dermio beraren beste alderdi bat den **Cirudiondoa** edo **Lirudiondoa**-rekin (< \***Lizuridiondoa**):

“otra piª...en licuridigaña” (1591)<sup>1915</sup>

“otra pieça...en Cirudigaña” (1604)<sup>1916</sup>

“pieza en Guisu/Izurdegaina afrontada con yermos concejiles” (1661)<sup>1917</sup>

Etimologiari dagokionez, **Leatxeko Gizaiduri** toponimoaren kopia bat izan liteke Ezporogiko hau, esan bezala lekukoak nahi bezain argiak ez direnagatik.

**Gizairudiondoa:**

Esan bezala, dugun lekukotasuna ez da bat ere argia (ikus aurreko sarrera):

“otra pieça...en la endreçera llamada Cirudiondoa” (1604)<sup>1918</sup>

**Iglesia (bajo), (campos de), (cuesta de), (junto a), la:**

Euskarazko jatorrizko **Elizapea** eta **Elizondoa**-ren itzulpenak (ikus bi sarrera hauek) ziren **Bajo la Iglesia** eta **Junto a la Iglesia**:

“una piª en la endreçera llamada Junto a la yglesia” (1591)<sup>1919</sup>

**Cuesta de la Iglesia** elizaren ondoko aldapa da, eta **Campos de la Iglesia** elizak han hemenka zituen alorrak ziren, antza (ikus **Abad** eta **Abadía** sarrerak).

---

1914 Id., 42. k.

1915 Id., 5. k.

1916 Id., 11. k.

1917 PRA-Elo, 5. k.

1918 PRA-Oibar, 11. k.

1919 Id., 5. k.

**Iparraga:**

Izen honen inguruan ikus Morionesko **Iparraga** eta **Iparragerria** sarrerak. **Caracierzo**-ren ordaina izango zen, baina lekuko bakar-nahasixez besterik ez dugu:

“yppen mas otra pi\* en ypagaraga” (1591)<sup>1920</sup>

**Irigoién, barrio de:**

Ez dakigu honelako herrixka nimiño batean nola egin zitekeen gure alderdiko herrietan eta beste batzuetan ere ohizkoa den auzo banaketa (ikus **Dermio baten zatiketa** atala), **Irigoién**-ek, gutxienez, \***Iribarren** bat eskatzen duelako, eta \***Iriarte** bat ere bai, agian:

“un pedaço de huerta...en el barrio de yrigoyen” (1594)<sup>1921</sup>

**Iturrigibela:**

\***Iturria** edo **La Fuente**-ren atzeko aldea ematen zuen aditzera (ikus **La Fuente** sarrera).

**Juego de Pelota:**

Honetaz ikus Agezako izen bereko sarreran dioguna. 1894eko katastroan **El Rebote** itxurapean ageri da (ikus sarrera hau):

“otra casa...que afta...con el juego de pelota” (1795)<sup>1922</sup>

**Korraleta (cerro de):**

**Korral(e)** ‘gorte’ izena eta -eta ditugu egun **Korraletas** [kòraléatás] ebakitzen den honetan (cf. **Auntzenkorraleta** eta **Korraleta Leatxen**). Agezako bidearen alboan dago, ezkerretan gorantz goazelarik, **El Bojeral**-en gainean:

“una pieza...en...corraleta...theniente...a...Camino Real q ban al lugar de Ayesa” (1748)<sup>1923</sup>

**Cerro de Korraleta Camino del Soto-tik gertu zegoen:**

“camino del soto con senda que cruza á el cerro de corraleta” (1795)<sup>1924</sup>

1814erako pluralgile erromantzea duela azaltzen da:

“otra (pieza)...en...corraletas” (1814)<sup>1925</sup>

---

1920 Id.

1921 Id., 8. k.

1922 PRA-Kaseda, 35. k.

1923 PRA-Oibar, 56. k.

1924 PRA-Kaseda, 35. k.

1925 PRA-Oibar, 94. k.

**Larratza:**

Izen honen balioaz ikus Zareko Iribarren sarreran dioguna. XVI. mendeko **Larratza XIX.** mendeko **La Faitía** bera izan zitekeen:

“otra pieça...en la endrecera llamada larraCa...q afrenta...con camino puco q ban a Moriones” (1604)<sup>1926</sup>

**Larreleuna (cerro de), (debajo de):**

Lehen osagaiaren inguruan ikus Eslabako **Larrasoil** toponimoa aztertzean dioguna. Izenondoari dagokionez, notatzekoa da lehen lekukoek **-leuna** aldaera aurkezten duten bitartean beranduagokoek **-leguna** dutela (cf. Galipentzuko **Larreleguna**):

“otra pieza que llaman debajo de larreleuna” (1649)<sup>1927</sup>

“Mas adelante hacia larreleguna otra pieza llamada la pieza del soto grande” (1773)<sup>1928</sup>

Txandaketa bera edireten dugu Artiedako **Eguncechiquía / Euncechiquía** toponimoan<sup>1929</sup>, eta arrunta da **Liazeta / Ligazeta**-ren irudikoetan, eta gehienetan sekundarioa dela uste dugu<sup>1930</sup>. Azken adibidean liho-ren aldakia den **ligu** ere izanenez (ikus Eslabako **Lixuñeta** eta Zareko **Ligusuñeta** sarrerak), baina aipatu eunce > egunce-ren moduko zerbait ere bai.

1894erako **Larrauna** bilakatua aurkitzen dugu, eta egun **Larreuna** [lãreúna] esaten da. Desitxuraketek araurik ez izanagatik, forma honen sorburua **Larreleuna** (eta ez **Larreleguna**) dela egingo genuke.

Gure informatzailearen arabera aski toki gora da hau, eta ez bat ere urtsua, **larre** osagaia ikusita pentsa litekeenaren kontra (ikus, halere, Eslabako **Larrasoil**-en dioguna). Morionesko mugan dago, **Carasol de Martxela** eta **Campos de la Fuente**-ren gainean, malda hasten den eremuan.

**Lezkaduia:**

XVIII. mendetik aurrera **Tiracuero(s)** izena hartu zuen:

“otra viña llamada tira cueros...que antes mas aquel paraje se llamaba lizcaduya” (1773)<sup>1931</sup>

Garbi dago erreka baten ingurua edo behintzat toki urtsua behar zuela, lezkak era horretako lekuetan hazten baitira, eta hortaz, baliteke **Tiracuero(s)** izena larrua lantzen zen eremua izatea, hau da, beste herri askotako **Adobería**-ren kide.

**Lezkaduia**-ren balioaz ikus **-duia** atzizkiari eskaini atalean dioguna.

1926 Id., 11. k.

1927 Id., 26. k.

1928 Id.

1929 Bi aldaerok 1850. urtean azaltzen dira (Agoizko hipotekak., 3. zkia, 331. or.).

1930 Ikus Mitxelena FHV-ko 371-372. orrialdeetan dioena.

1931 PRA-Oibar, 69. k.

**Linares, los;**

Dokumentazioan lihatze hauek non ziren zehazten ez bada ere, erreka aldean zeudela (ikus **Molino** sarrera) suposa dezakegu, honelakoak beti ubide baten alboan egoten baitira (cf. **Linares de Arana** Lergan, edo **Linares de Txorria** Uxuen):

“una pieza linar...en la endreçera llamada Los Linares” (1591)<sup>1932</sup>

**Linarico viejo, el:**

Aurreko **Los Linares** horietako bat izan zitekeen:

“otro linar llamado el linarico viejo” (1795)<sup>1933</sup>

**Lizarduia:**

**Lizar** zuhaitz-izena eta -dui berrekailu multzokaria ditugu hemen. **El Soto**-n zegoen **Zareko El Fresnal** edo **El Fresnal de Ezprogui**-ren errankidea dela dirudien hau (cf. Ezprogiko bereko **Fresnal** sarrera):

“mas un linar...en...licarduia” (1589)<sup>1934</sup>

“otra viña...con sus alamos en el termino...de Lizardoya” (1681)<sup>1935</sup>

Artikulturik gabe ere azaltzen da:

“Otra Viña...en el termino llamado Licarduy afrontada con viñas de la Abbadia” (1661)<sup>1936</sup>

**Lizarrekoa:**

Hau gorago aipatu dugun **Pieza del Fresno**-ren ordain euskalduna bide zen:

“otra pieza en lizarrecoa...teniente a...Camino Real” (1702)<sup>1937</sup>

Toponimo honetan **lizarra** izena dugu, leku-genitiboaren morfema singularra den -(e)ko, eta artikulua. Azken honek azpian, isildua edo ezabatua, **alor** edo horrelako beste izen bat dagoela ematen digu aditzera. Kasu berean daude, adibidez, **Leatxeko Galtzadakoa** edo **Zarebidetxoa**.

**Llanos (campos de), los:**

Errepidearen eta ugaldearen arteko eremu zelaia da, **Sotilla de abajo**-tik **Sotilla de arriba**-raino.

---

1932 Id., 5. k.

1933 PRA-Kaseda, 35. k.

1934 PRA-Oibar, 4. k.

1935 PRA-Kaseda, 1. k.

1936 PRA-Elo, 3. k.

1937 PRA-Kaseda, 11. k.

**Martxela, carasol de:**

Morionesko **Martxela**-ren alboko eremua da auzo herri horretan bezala hemen ere [mařčéla] ebakitzen den hau. Etimologiaren inguruan ikus Morionesko **Martxela** sarrera.

**Mojón de Moriones:**

**Muga de Moriones**-en adierakidea zen:

“otra pieza en el soto y mojon de moriones” (1610)<sup>1938</sup>

**Mojón de Sada, el:**

**La Val** edo **Arana** aldeko **Zareko** muga zen:

“otra Pieza...en la Balle Junto al mojon de Sada afrontada con Piezas de Venegorry” (1661)<sup>1939</sup>

**Molino (acequia de), el; Molino de Ugarra, el:**

**Baserrekandia**-n zegoen, **Zerradogibela** ondoan, **Zareko** mugatik hurbil. Inguruetan lihatzeak eta ardantzeak zeuden:

“Mas una pieza linar...Junto al molino de Ugarra” (1681)<sup>1940</sup>

“otra vina hacia el molino de Ugarra, llamada viña de Larripa” (1773)<sup>1941</sup>

**Ugarra** errotaren jabearen **Zareko** etxearen izena zela badakigu (ikus **Zareko Molino de Ugarra**), eta hortaz, ez da toponimian ezaguna den **ugarra**-rekin lotu behar<sup>1942</sup>. Dirudienez, halabehar hutsa da **Molino de Ugarra** (**u(h)arre**, **ugarre** ‘agua turbia’, ‘agua torrencial’) **Baserrekandia**-n (**baserreka**-k ‘torrente’ adiera du zenbait tokitan<sup>1943</sup>) egotea. Urraulbeitiko Tabar herrian ere **Casa de Ugarra** dokumentatzen da 1827an<sup>1944</sup>.

Orain urte batzuk arte **Molino de Ezprogui** ere deitzen zitzaion, baina izan **Zarekoa** zen, **Zareko Ugarra** etxekoa.

**Monte (barranco de), el:**

**El Monte** Ageza eta **Zareko** mugetako alderdi menditsua da (cf. **El Monte** bi herri horietan), eta **Barranco del Monte Baserrekandia**-ra jaisten den **Regacho** edo **Barranco de los Olmos** deitu erreka<sup>stoa</sup>.

1938 PRA-Oibar, 16. k.

1939 PRA-Elo, 3. k.

1940 PRA-Kaseda, 1. k.

1941 PRA-Oibar, 69. k.

1942 A. Irigoyenek La Puebla de Castroko **Ugarreta** aipatzen du ETTVC-eko “Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica”-ko 229. orrialdean. Autore honek Azkuek ubar ‘agua de riadas, crecida de aguas’ Baztango hitza biltzen duela gogorarazten du, eta ez du uste Mitxelenak proposatzen duen **ugar** = \*ubar = ibar ekuazioa zuzena denik.

1943 Itza zendeako Atondo herrian **Ugarra** dugu, erreka ondoan (J. Jurfo, TCPCL, 141. or.).

1944 PRA-Oibar, 102. k.

**Monte de Sada:**

Ikus Abad eta Monte sarrerak.

**Montico de Sada:**

Zaren orain La Corona eta lehen Koroagaña deitzen zen Ezporogiko mugako mendikoa izan daiteke:

“otra pieza Junto al montico de ssada” (1649)<sup>1945</sup>

**Muga de Ayesa, la:**

Agezako mugako oihana da. Bi herrion arteko muga oihezian dago, ez gailurrean.

**Muga de Moriones, la:**

Auzo-herri horretako Mugarana, Zubieroria (ikus sarrera hau), Iguzkun, El Soto, Zarebidea, Martxela eta Gorrio-rekin mugatzen zuen Ezporogik (edo hobeki esan Gorrio-ren barrukotzat jotzen ziren Iparraga edo Iparragerria, Jaun Done Julio...eta besterekin). 1681eko lekukoa zehazki non kokatu behar den ez dakigu:

“otra pieza...en la muga de Muriones” (1681)<sup>1946</sup>

Gaurregun Muga de Moriones Larreleuna-ren gaineko aldeari esaten zaiola dirudi, ez mugalde guztiari, hau ere Morionesko muga denagatik.

**Muga de Sada:**

Ezporogik Zareko Mugarana, La Corona (Koroagaña antzina), El Carasol (Iguzkiagerria lehen), Uarka eta El Monte-rekin (\*Oiana behinola, antza) mugatzen du. Auzo-herri horretako eremu bati Ezporogimuga deitzen bide zitzaion (ikus sarrera hau):

“Mas una pieza en el therno de ezprogui muga de Sada” (1669)<sup>1947</sup>

“una pieza...en el mesmo termino (Muga de Sada-n) que llaman de la Parra” (1669)<sup>1948</sup>

Orain Muga de Sada, dena den, Agezako mugatik Baserrekandia-rainoko eremuari deitzen zaio, ez erreguaz beste aldekoari, antza.

**Mugarana:**

Morionesko eta Zareko izen bereko dermioen arteko eremua bide zen Ezporogiko Mugarana, baina gure informatzailearen arabera gaurregun ez da erabiltzen herrixka honetan.

---

1945 Id., 26. k.

1946 PRA-Kaseda, 1. k.

1947 IEA, 1257. kart., 13. zkia., 35. or.

1948 Id., 35. or.



**Mugarana**-ren ordez, zenbaiteran, **Muruarana** edireten dugu dokumentazioan, agian **Koroagaña** edo **La Corona**-ren eta **Alto de Mugarana**-ren artean dagoelako.

#### Olivares, los:

**Barranco de los Olmos**-en ondoan zeuden olibadi hauek. Ez dakigu seguru izena toponimotzat jo daitekeen.

#### Ormaxarreta:

**Horma** ‘muru’, ‘parea’, ‘zerrado’ (ikus Morionesko **El Cerrado** sarreran dioguna), **zahar** izenondoaren **-xar**<sup>1949</sup> aldakia, eta **-eta** ditugu hemen:

“otra pieza...en orma jarreta” (1661)<sup>1950</sup>

#### Otaberal, el:

**Otabera**<sup>1951</sup> ugari zegoelako deitzen zaio **El Otaberál** [ðtaberál] alderdi honi (cf. **Otabera** Leatxen, **Otaraz** < **Otaberaz** < \***Otaberatze** Mezkitzen<sup>1952</sup>). **Camino de Ayesa** eta **Muga de Moriones**-en artean dago, **Muga de Ayesa**-ren azpiko aldean.

#### Parra, campo de la, pieza de la:

**Zareko muga**n zegoen (ikus **Muga de Sada** sarrera). Ez dakigu zerikusirik ba ote duen, izendatzen duen tokiari dagokionez, **Parralea** edo **El Parral**-ekin.

#### Parral, el:

**Parral** erdalduna eta **Parralea** euskaldunaren balioaz ikus Agezako **Parrala** sarreran dioguna. Ikus gainera Ezporogiko bereko **Baztan** sarrera:

“otra pieza...en el parral” (1604)<sup>1953</sup>

#### Parralea:

**Aurrekoaren** baliokidea den hau **Santa Elena** eta **El Soto**-ren artean zegoen:

“Mas una pieza llamada Parralea...q confronta con el Soto de dho lugar dezprogui” (1756)<sup>1954</sup>

1949 Bustidura oso arrunta da hortz-hobietako bizkarkariaz hasten diren izenondoetan, elkartuaren bigarren osagaia direnean. Batzuetan [ç]-raino iristen da (cf. Ezporogiko bereko **Erlategitxar**).

1950 PRA-Elo, 3. k.

1951 Otea-ren antzeko erro lehorreko landarea da. Bere idortasun hau zela eta, lehenago eskuzko olio-dolareetan ibiltzen zen, sua izekitzeko.

1952 Orreaga Ibarra, MT, 345. or.

1953 PRA-Oibar, 11. k.

1954 Id., 59. k.

**Perera, la:**

Zareko mugan zegoen udaredia bide zen hau:

“otra pieça en donde la perera...teniente de todas partes con el camino y monte de sada” (1610)<sup>1955</sup>

**Pieza ancha, la:**

Euskarazko \*Alorzabala (cf. Leteko Alorzabalena<sup>1956</sup>) baten ordaina da:

“pieza...llamada la pieza ancha” (1795)<sup>1957</sup>

**Pieza de los Fresnos:**

Pieza del Fresno edo Lizarduia-ren ondoko alorra izan zitekeen:

“otra pieza...llamada la de los fresnos” (1814)<sup>1958</sup>

**Pieza del Nogal, la:**

Ez dakigu non zegoen. Baliteke \*Itxaurreko alorra baten itzulpena izatea (cf. Pieza del Fresno eta Lizarrekoa):

“otra pieza llamada la pieza del nogal” (1773)<sup>1959</sup>

**Pieza grande, la:**

Aurkitu ez dugun Alorrandia baten itzulpena izan daiteke (cf. Leatxeko Alorrandia):

“otra pieza...llamada la pieza grande” (1785)<sup>1960</sup>

**Pieza makurra, la:**

Oraingo honetan ia segurua da notariak euskal \*alor(ra) itzuli duela, izenon-doa zegoen-zegoenean utziz (cf. Morionesko Alormakurra):

“otra pieza llamada la pieza macurra” (1773)<sup>1961</sup>

**Pomeras, las:**

Ez dirudi 1894eko katastroan azaltzen den hau euskarazko Ukaranduiarekin identifika daitekeenik, Okarana ‘harana’ baita (ikus Azkue), ez ‘gurbea’ (cf. halaz

---

1955 Id., 16. k.

1956 J. Jurfo, TCPCI, 209. or.

1957 PRA-Kaseda, 35. k.

1958 PRA-Oibar, 94. k.

1959 Id., 69. k.

1960 Id., 74. k.

1961 Id.

ere Uxueko **arangurbe** izen arrunta). Leatxen bizirik dugu oraindik **Las Pomer**as toponimoa, eta Ezporogin berean **Campo de la Pomer**a.

**Portillo, pieza del:**

**Barranco de Andalubios** aldeko atekaren ondoko alorra zen (ikus **Andalubios** sarrera).

**Portillua:**

Aurreko toponimoan azaltzen den **portillo** bera zatekeen:

“(una) pieza en Portillua” (1661)<sup>1962</sup>

**Pozo, pieza del:**

Morionesko bidearen aldamenean zegoen:

“una pieza...q llaman del Pozo...confrota con...Camino que se ba â dho lugr de Moriones” (1756)<sup>1963</sup>

**Puente, el; Puente, junto a la:**

**Zubieroria** edo **Xubingoa**-ren ordaina izan zitekeen:

“otra vina...en la endrecera llamada Junto a la puente...” (1604)<sup>1964</sup>

Engungo zubi bakarra, ordea, errotaren ondoko zubi itxuraz berria da, hots, oraingo **Río de Moriones** edo antzinako **Baserrekandia**-n dagoena.

**Puntallo, el:**

Izen honetaz ikus Agezako **Puntallua** sarreran dioguna. **Camino del Soto**-n zegoen:

“otra pieza...en el Camino del sotto que llaman el Puntallo” (1728)<sup>1965</sup>

**Puntidos, los:**

Toki urtsuak drainatzeko lur azpian egiten diren ur-ihesbideak ditugu **puntido**-ak. 1894eko katastroan aurkitu dugu lehen eta hondar aldiz.

**Rebote, el:**

Iragan mendearen bukaerako katastroan ageri da. Izen honetaz ikus Leatxeko **El Rebote** eta Zareko **El Rebote viejo**.

1962 PRA-Elo, 3. k.

1963 PRA-Oibar, 59. k.

1964 Id., 11. k.

1965 Id., 41. k.

Ezporogin azken hamarkadetan behintzat **Casa de la Abadía**-ko pareta batean aritzen ziren pilotan, apeztegia hondatu ondoren ere zutik gelditu zen horman.

**Riachuelo:**

Euskal **Errekattoa**-ren ordain erdalduna dirudi:

“otra pieza...en Riachuelo teniente...al Riachuelo concexil” (1728)<sup>1966</sup>

**Ribazos, los:**

Erreka ertzeko erripak ziren hauek (ikus Galipentzuko **Ripas, Ripazos** eta **Ripodas** sarrerak):

“otra vina en La endrecera llamada Los Ribazos...afrentada Con el Rio” (1661)<sup>1967</sup>

**Rincón, el:**

Ez dakigu zein zoko zen. 1894eko katastroan azaltzen da.

**Río, el:**

Morionesko **Río de la Magdalena** eta Ezporogiko dokumentazioko **Baserrekandia** da (ikus **Zerradogibela** sarrera):

“otra Pieza...Junto al Rio” (1661)<sup>1968</sup>

**Ripa, viña de la:**

**Ripa** edo **erripa**-ren inguruan ikus Galipentzuko **Ripas, Ripazaletas, Ripazos** eta **Ripodas** sarrerak eta **Uxueko Erripazarreta. Molino de Ugarra** aldean zegoen ardantze hau, **Baserrekandia**-ko ertz aldapatsu batean, irudiz (ikus **Molino de Ugarra** sarrera).

**Saleras, las:**

Herriaren eta **El Otaberal**-en artean dago, zabalditxo batean. Bertan ardiertzako gatzarriak zeuden, eta hortik izena:

“Junto a las saleras del dho lugar de ezprogui” (1703)<sup>1969</sup>

**San Juan, calle de:**

Herriko karrika bakarra da, lehengo bi etxe nagusiak (orain bat hondatua dago. Ikus **Casas** sarrera) bereizten zituena.

---

1966 Id., 1. k.

1967 PRA-Elo, 3. k.

1968 Id.

1969 PRA-Oibar, 30. k.

**Santa Cruz (costalada de):**

Ez dakigu non kokatu behar den. **Costalada**-k 'aldapa' adiera du (cf. **Costalada de Balora Zaren**):

"otra p<sup>a</sup>...en la endreçera llamada Santa Cruz" (1591)<sup>1970</sup>

"otra pieça en la endreçera llamada la Costalada de Santa Cruz" (1604)<sup>1971</sup>

**Santa Elena (alto de), (ermita de), (pieza de), (viñas de):**

Lehengo **El Parral** edo **Parralea** ondoan dago (ikus **Baztan** sarrera) orain ermita den hau. Ezporogiko eliza bakarra da, eta beraz erdarazko **Iglesia** eta euskarazko **Elizapea** eta **Elizondoa**-ko eliza-rekin identifikatu beharra dago:

"una pieza Junto a Santelena" (1649)<sup>1972</sup>

**Alto de Santa Elena** Ezporogiren aurreko gaintxoa da, **Barranco de los Olmos**-ez haraindian dagoena.

**Sariogunea (soto de):**

Toponimo honetan **sario**<sup>1973</sup> eta **gunea** 'tokia' izenak ditugu:

"ytten otra pi<sup>a</sup> en Sareogunea" (1591)<sup>1974</sup>

**Bigarren** izenaz honela dio **Aita Villasantek**<sup>1975</sup>:

"se emplea también como palabra suelta, significando «instante, espacio, trecho, ocasión». Como sufijo da origen a variedad de palabras: **Hutsune** = espacio vacío, **Argiune** = espacio de luz, **Okerrune** = espacio torcido, etc"

**Mitxelena**<sup>1976</sup> antzeko zerbait dio, denboraz hitz egiten ez badu ere:

"**une** «espacio, trecho», var. de **gune**. Hoy empleado como sufijo, aparece en apellidos en la forma **-un** y probablemente **-ue** (de **-une**)"

Guk aztergai dugun toponimo honetan ezezik, **Eslabako Bueltagunea**-n (= bihurgunea) eta **Eslaba** eta **Morionesko Iguzkun**-en (< **iguzki** + **unea**) aurkitu dugu,

1970 Id., 5. k.

1971 Id., 11. k.

1972 Id., 26. k.

1973 Ikus honetaz **-eta**-ri eskaini atalean **Eslabako Sarioederreta**-n dioguna. Ikus, orobat, **Morionesko Sario**-ko eta **Sariozarreta** sarrerak. **Sario** eta **soto** gauza bera izan zitezkeen hemen. Izan ere, **Nafarroako** zenbait tokitan **sario** 'larrea' da (**Aezkoan** edo **Erroibarren**, kasu. Ikus **Ana María Echaideren EENEL**, 102. or.), eta beste batzuetan **soto euntze**-ren baliakidetzar jo daiteke (ikus **Agezako Euntzeberri** sarreraren dioguna, **-tze**, **-tza**-ri eskaini atalean). **Eskuarki**, alabaina, adiera bana dute **sario**-k eta **soto**-k, **sarioak** zalduetan egoten badira ere usu (ikus **Morionesko Sariozarreta** aztertzean dioguna, **-eta** atzizkiari eskainitako atalean).

1974 PRA-Oibar, 5. k.

1975 PVCD 139. or.

1976 AV, 157. or.

bai eta gure eskualdetik kanpo baina hurbil dauden Orbako Leozko<sup>1977</sup> eta Ibargoitiko Iz-koko<sup>1978</sup> Urgunea-n ere, besteak beste.

Zalduak ubideen ondoan egoten direnez, ia segurua da **Sariogunea** errekal-dean zegoela:

“otra pi\*...que afrenta con pias del abad y con el soto de sariogunea” (1591)<sup>1979</sup>

Egungo Soto de la Fuente urtsua izan liteke dokumentazioko hau, baina Soto bajo edo Soto de abajo ere bai.

#### **Senda del Cerro de Korraleta:**

**Korraleta**-ra zihoan:

“...senda que cruza al zerro de corraleta” (1773)<sup>1980</sup>

#### **Solana, la; Solano, el:**

Bi izenok egungo El Carasol adierazten bide dute:

“otra pi\*...en el solano” (1591)<sup>1981</sup>

“una pieza en la solana” (1649)<sup>1982</sup>

#### **Sotilla de abajo, la:**

Morionesko errepidearen eta erreken artean dago, Zareko mugaren alboan.

#### **Sotilla de arriba, la:**

Aurrekoa bezala errepidearen eta ubidearen erdian dago, baina Morionesko muga.

#### **Soto (barranco de), el:**

Erreka hau Ezporogiko zalduak dauden **Baserrekandia** izan zitekeen, baina Martxela-ren ondoko Soto de la Fuente-ra doan erreka ere bai:

“otra pieza...en el varranco del soto” (1814)<sup>1983</sup>

---

1977 PRA-Oibar, 25. k., 1634.

1978 Id., 25. k., 1648.

1979 Id., 5. k.

1980 Id., 69. k.

1981 Id., 5. k.

1982 Id., 26. k.

1983 Id., 94. k.

**Soto bajo, el:**

Erreguaren ondoan, Zareko mugaren alboan dagoen egungo **Soto de abajo** bera da. **Bajo** izenondoak Morionesko mugako **El Soto de la Fuente**-tik eta honen alboan dagoen **El Soto**-tik bereizten du:

“otra pieza Junto el soto baxo” (1649)<sup>1984</sup>

**Soto de abajo, el:**

Ikus aurreko sarrera. **Barranco de los Olmos** eta **Barranco de la Muga de Sada**-ren artean hedatzen da, **Baserrekandia**-z honaindian<sup>1985</sup>.

**Soto de la Fuente, el:**

**La Fuente**-ren inguruko zaldia dugu. Toki urtsua da berez, eta goitik jaisten den erreka<sup>1986</sup> ere bertan isurtzen du ura.

**Soto grande (pieza de), el:**

Zaldu hau Morionesko mugan zegoen, erreka ondoan, **Larreleuna**-ren alboan (ikus sarrera hau):

“otra pieza Junto al Soto grande teniente al soto y al mojon de Muriones” (1702)<sup>1986</sup>

**Soto pequeño (cabezal de), (junto a), el:**

Aurrekoari kontrajartzen zaio **Sototxipia** itxuraz ere azaltzen den hau (cf. Epaizko **Sototxikia** eta Uxueko **Zautelu**). Zaldia zen aldetik erreka ondoan behar zuen:

“la una (pieza) en el termino que llaman Junto al Sotto Pequeño” (1717)<sup>1987</sup>

**Sototxipia:**

Erdaratikako **Soto** ‘zaldu’ izena, eta **txipia** izenondoa ditugu **Soto pequeño**-ren baliakidea den honetan (cf. Epaizko **Sototxikia** eta Eslabako **Elketxipia**):

“otra pieza sobre el Soto chipia” (1649)<sup>1988</sup>

**Tiracuero(s):**

**Lezkaduia**-ren ordezkatzaila izan dela dirudi (ikus sarrera hau):

“una viña en el term...que llaman tiracuero” (1728)<sup>1989</sup>

---

1984 Id., 26. k.

1985 Herria hartzen dugu erreferentzi-puntutzat.

1986 PRA-Kaseda, 11. k.

1987 PRA-Oibar, 35. k.

1988 Id., 26. k.

1989 Id., 41. k.

**Torrea, casa de:**

Ezporogin **Dorregibela** izeneko etxea dokumentatzen bada ere, **Torrea** deitura zela uste dugu, hasierako herskari ahoskabeak (cf. Uxueko **Dorreberria** / *La Torre nueva*) eta testuinguruak hori idarokitzen baitute:

“...a la Casa llamada de Zabaleta y a la casa llamada de torrea” (1785)<sup>1990</sup>

**Trenboleta:**

Ez dakigu zein izan daitekeen izen honen etimologia. Bere kokalekuaren berri ere ez dakigu:

“Una Pieza...en trenboleta afrontada con Piezas de Venegorry y Camino” (1661)<sup>1991</sup>

**Txipuetabaratzea:**

**Txipueta** ‘txipudua’, ‘txipua dagoen lekua’ (cf. Agezako **Txipueta** eta Ezporogiko bertako **El Chopo**) eta **baratzea**-z osatua dago. Alorrak ere baziren bertan, 1605eko lekukoa frogatzen du:

“la una (pieça) en la endreçera llamada chipuetabaraçea”<sup>1992</sup>

**Uarka:**

**Ur** eta **arka** ‘uharka’ izenak ditugu hemen. Agezako bidean zegoenez, ez dirudi Zareko **Uarka** (ikus sarrera hau)-rekin identifika daitekeenik:

“Mas otra pieza...llamada Uarca thente al camino q se ba a Ayesa” (1756)<sup>1993</sup>

Lekukotasun hau aintzat harturik, **Camino de Ayesa**-ren (**Camino de Ezprogui** Agezan) ondoko errekan (**Errengoa**-n) zegoela ondoriozta daiteke.

1894eko katastroan **Uarka** edo **Ugarka**-tik atera ohi den **Ubarca** (**Ubarca** idatzia)<sup>1994</sup> dugu (cf. **Zare**).

**Ukarandua:**

Izen honen adieraz ikus **Las Pomeraz** sarrera eta **-dui** berrekailuari eskaini atalean dioguna:

“... otra piª en...Ucaranduya” (1591)<sup>1995</sup>

---

1990 Id., 74. k.

1991 PRA-Elo, 3. k.

1992 PRA-Oibar, 12. k.

1993 Id., 59. k.

1994 Cf. Nafarroako hainbat tokitan **ugalde**-tik atera den **ubalde**, **ubelde**.

1995 PRA-Oibar, 5. k.



**Val, la; Valle, la:**

**Baserrekandia**-ren inguruko **Arana**-ren ordain erdalduna izan zitekeen (ikus **Mojón de Sada** sarrera):

“otra pi<sup>a</sup> mas aRiba en la bal” (1610)<sup>1996</sup>

**Mugarana** adierazteko beste modu bat ere bai, ordea.

**Vinicio, corazón del:**

**Vinicio** hau erdal **viña**-rekin lotu beharra dagoela uste dugu (cf. **Biñaru Zaren**, **Erbiña Galipentzun**, **Erbiñaga Eslaban...**), **Corazón del Vinicio**-k ardantzeen erdialdea ematen baitzuen aditzera, irudiz:

“una viña llamada la viña grande en el corazon del binicio” (1773)<sup>1997</sup>

Edozein modutan, itxura handiagoa du izen arruntarena, izen bereziarena baino.

**Viña de Txibarro:**

Ikus **Campo del Olivo de Txibarro** sarrera.

**Viña grande, la:**

Euskal toponimian oso zabaldua dagoen **Ardantzeandia**-ren kide da (ikus Galipentzuko **Ardantzeandia**).

**Xubingoa:**

**Zubi**-ren txikigarria da (ikus Eslabako **Xubingoa** sarrera). Erreka edo erre-kasto batean behar zuela ageriko gauza da (ikus **El Puente** sarrera):

“la una (pieça)...en la endreçera llamada xubingoa” (1587)<sup>1998</sup>

Moriones eta **Zare** auzo-herrietan ere azaltzen da.

**Zabaleta, casa de:**

Herriko etxe bat zen. **Zabaleta** etxearen jabearen deitura izanen zen (ikus **Torrea** sarrera).

**Zabaltza:**

**Zabal** izena eta **-tza** atzizkia ditugu ‘alderdi zabal’ adiera dukeen honetan (ikus Agezako **Zabaltza**). Behin bakarrik aurkitu dugunez gero, badaiteke oker baten ume izatea eta **labalsa** (hots, **La Balsa**)-ren ordezkitea:

1996 Id., 16. k.

1997 Id., 69. k.

1998 Id., 3. k-bis.

“otra pieça en cabalsa” (1610)<sup>1999</sup>

### Zerradogibela:

**Zerrado** ‘harriz hesiturikako lurtsaila’ (ikus Morionesko **Cerrado** sarrera) eta **gibela**-z osaturik dago (cf. Eslabako **Zerradogibela** eta **Zerradogibeleta** toponimoak). **Baserrekandia** ondoan zegoen, errotako azekiaren alboan:

“Mas una Huerta...en el termino llamado Zerrado guibela tente a Huerta de los herederos de Juan Bastan y el Rio y Zequia del Molino” (1661)<sup>2000</sup>

“la ottra (pieza)...en el thermino que llaman Zerradoguibela theniente...a... zequia que baja la agua al Molino de Ugarra” (1715)<sup>2001</sup>

### Zubieroria (barranco de):

Egun **Barranco de Zabiruria** [θaβiruría] esaten zaio Ezporogin, eta **Barranco de Ziruria** [θiruría] Morionesen (ikus sarrera hau). Jatorrizko osagai gardenak zubi eta eroria dira (cf. Leatxeko lehengo **Zubieroria**, **Zibidoria** [θiβiðórja] bilakatua egun), bertan azken mende honetan gutxienez zubirik egon ez denagatik.

Erreka Leatxe, Ezporogi, eta Morionesen arteko mugan (**Mugarana**-an alegia. Ikus sarrera honetan dioguna) sortzen da, eta **Baserrekandia**-n (**Río de la Magdalena** Morionesen, **Río de los Huertos** edo **Río de la Tejería Zaren**) isurtzen du ura, Zarebi-dea gurutzatu ondoren. Zubi eroria bertan zegoen, bidean:

“... otra pi\*...en cubieroria que afrenta con...camino puco que ban a sada” (1591)<sup>2002</sup>

“ottra pieza...en...Zubieroria en la muga de ezprogui y Moriones” (1721)<sup>2003</sup>

### Zurdo, campo del; faja del:

1894eko katastroan aurkitu ditugu izenok. **Zurdo** ezkerre zen norbaiten ezi-zena zen. **Faja**-ren balioaz ikus Agezako **Fajetas** sarrera.

---

1999 Id., 16. k.

2000 PRA-Elo, 3. k.

2001 PRA-Oibar, 34. k.

2002 Id., 5. k.

2003 Id., 37. k.

### 13. GALIPENTZUKO TOPONIMIA

#### Abaiz, casa de:

Abaiz-en etimologiaz ikus Epaizko izen bereko sarrera. Kasu honetan ez dakigu Abaiz deitura zuen norbaiten etxea zen ala orain Lergakoa den herrixka izendatu nahi den:

“...la casa llamada de Abaiz...” (1804)<sup>2004</sup>

#### Agezabidea:

Toponimo hau Galipentzun eta Morionesen baizik ez dugu aurkitu, bietan XVII. mendearen erdialdean. Hau harrigarri samarra da, batik bat kontuan hartzen bada gaurregungo gaztelaniaz bezala XVII. mendean (XVI.ean ere bai) **gu** digramaz [g] belare herskari (nahiz igurzakari) ahostuna eman ohi zela aditzera<sup>2005</sup>, eta gure ustez Ayesa euskaraz **Ageza** esaten zelako froga garbia da<sup>2006</sup>.

Agezabidea gaurko Camino de Ayesa zela irudi du:

“otra pieça en agueçabidea...se atiene al Camino Real” (1641)<sup>2007</sup>

#### Alboz:

Alboz-en etimologiaren inguruan ikus **-os/-oz** atzizkiari eskainitako atala. Egun Alboz galdua bada ere, honen eratorria den **Albozko harana** bizirik dago oraindik (ikus sarrera hau). Lehen aldiz 1335ean aurkitu dugu, eta gero berriz XVI. mendean azaltzen da:

“otra viña en aluuec...” (1335)<sup>2008</sup>

---

2004 PRA-Kaseda, 38. k.

2005 Ikus Grafia kontuak atala.

2006 Ikus Agezako Ayesa sarreraren dioguna.

2007 IEA, 387. kart., 12. zkia., 9. or.

2008 Id., 15. or.

“otra pieza en alboz...” (1597)<sup>2009</sup>

**Albozko harana (artatzea de), (caracierzo de), (solano de), (val de):**

Behiala Albozko harana zena El Aval de Lazkorana [làθkorána] da egun, euskararen galeraren ondorioz. Oraingo aldaera desitxuratuak etimologia faltsua ikusarazi dio Galipentzuko toponimiaz arduratu den Reta Janáriz jaunari<sup>2010</sup>. Autore honen ustez, aztergai dugun toponimoa Pirinioetako bailara ezagunaren izenari zuzenki lotua dago:

“De «Aezkoa», valle del norte de Navarra, «aran» «valle», y art.«a»”

Eta oinohar batean:

“Este topónimo confirma la repoblación, en la época medieval, por parte de aezcoanos, de la parte de Aibar, localidad lindante con Gallipienzo”

Alabaina, dokumentazioko aldaerak ikusita, ez dago dudarik leku-izen honek ez duela zerikusirik bat ere Aezkoa-rekin, Albozko harana Alboz dermioko harana besterik ez baita (ikus toponimo honetaz -os / -oz bukaerari eskaini atalean dioguna):

“otra piª en albozcoarana” (1596)<sup>2011</sup>

“Mas en albozcorona una pieza...teniente a...Camino que se ba al termino de punta-rron” (1770)<sup>2012</sup>

Alboz oraingo Paco de las Minas izan zitekeen, toponimo honek izendatzen duen eremua Albozko harana-ren ondo ondoan egoki eta. XIX. mendearen hasieran, gainera, Alboz desagertu ondoren, egungo Paco de las Minas besterik ezin izan zitekeen Caracierzo de Albozko harana azaltzen da:

“otra pieza...en el caracierzo de Albozcoarana” (1806)<sup>2013</sup>

**El Solano de Albozko harana oraingo Las Ripas zatekeen:**

“otra piª en el solano de albozcoarana” (1596)<sup>2014</sup>

**Artatzea de Albozko harana zehazki non zegoen ez dakigu, baina esan bezala, arteak gure eskualdean oso ugariak izan dira eta dira:**

“otra pieza en Lastazea de Albozcoarana” (1692)<sup>2015</sup>

“otra pieza en lastazea de alvozcoarana” (1712)<sup>2016</sup>

---

2009 PRA-Oibar, 9. k.

2010 EHZE, 489. or.

2011 PRA-Oibar, 9. k.

2012 Id., 68. k.

2013 PRA-Kaseda, 39. k.

2014 PRA-Oibar, 9. k.

2015 PRA-Kaseda, 6. k.

2016 Id., 16. k.

**Albozko haranbarrena:**

Albozko haranbarrena-k Albozko harana-ren beheko alderdia ematen zuen aditzera, **Melenas** ondokoa edo. Badakigu Albozko haranbarrena-n ipurudia eta gatzarriak (gesala ez bazen) zeudela, orain urte batzuk arte “puntido’-ak zeuden tokian:

“otra pieza...en el terno de albozcoaranabarrena tenite a...Genebral de las saleras” (1721)<sup>2017</sup>

**Alcaz, el:**

El Alcaz [èlalkáθ] 1775ean aurkitu dugu lehenengoz, eta beraz ez dirudi oso zaharra denik. Reta Janárizek<sup>2018</sup> **alka** ‘larre-olo’ eta ugaritasunezko -tz(e) atzizkiak osaturik dagoela dio, baina gure ustez arca izenaz eta -az handigarriaz (cf. **El Portalaz** Kasedan<sup>2019</sup>, **El Fornaz**, **El Molinaz** Oibarren<sup>2020</sup>, **El Ornaz**, **El Fornaz** eta **Palomaraz**<sup>2021</sup> San Martin Unxen...) osaturik legokeen \*Arcaz batetik atera ahal izan da, inplosioan l/r nahasketa ezaguna baita erromantzez<sup>2022</sup>. Hau seguru samarra da Aragoa ugaldearen alboan zegoen dokumentazioko El Alcaz-en kasuan:

“otra pieza...en el ter de Alcaz qe afronta al Rio Aragon” (1775)<sup>2023</sup>

Baina ez da horren argia oraindik bizirik dugun **Bardena baja**-ko, **El Saso de Vicentón** eta **El Orzagal**-en arteko dermioaren izenarenean.

Ricardo Ciérbidek aztergai dugun toponimoarekin zerikusia izan dezaketean Murilloko **El Alcaz** edo **El Arcalaz** eta **Zarrakazteluko Alcalete(s)** eta **Arcaletes** biltzen ditu Olibaldean<sup>2024</sup>. Lehena autore honen arabera erregadio eremua da, eta orobat bigarrena, azken hau gainera herriaren eta zubiaren artean dagoelarik, ubide baten aldameanean beraz. **El Alcaz**-ek arca-rekin zerikusia izan dezakeela dio irakasle tafallarrak, baina ez dago erabat seguru honetaz, nonbait:

“A juzgar por la forma Arcalaz, la más antigua registrada este toponimo estaría relacionado con *arca*, pero dada la fecha tardía de la documentación (1799), podría ser una deformación, por disimilación, de un primitivo *Alcalaz*, palabra cuya etimología tal vez hubiera que buscar en el árabe vulgar AQLI «sosa», de donde procede el castellano *Alcalí*”

Gure iritziz, hala ere, leku-izen hau arca ‘uharka’-ren eratorria den **Arcal** (cf. **Moriones** eta **Zare**) eta -az (< -ace) atzizkiak osaturik dago, eta **Arcalete(s)**, bere aldetik,

2017 PRA-Oibar, 37. k.

2018 EHZE, 487. or.

2019 PRA-Kaseda, 3. k., 1686.

2020 PRA-Oibar, 15. k., 1595 eta 1596, hurrenez hurren.

2021 PRA-San Martin Unx, 4. k., 1752; PRA-Oibar, 4. k., 1588; Id., 3. k-bis, 1587.

2022 Euskaraz ere gertatu da, Iturmendiko 1618ko **Arkazar** > 1714eko **Alkazar** (**Alkazar** egun)-en ikus daitekeen moduan. Honela deskribatzen du toponimo hau Nicolás Arbizuk (TI, 264. or.): “hondonada junto a la presa del molino de Iturmendi hacia la vía”.

2023 PRA-Kaseda, 27. k.

2024 TCO-II, 140. or.

arcál izenez eta -ete txikigarriaz (cf. **El Pontete**<sup>2025</sup>, **El Puentete** Zarrakaztelun, **El Cho-pete**<sup>2026</sup> Melidan).

#### Aldaiondoa:

Honen osagaiak **aldai** 'aldapa' eta **ondoa** dira. **Mitxelenak**<sup>2027</sup> **aldai alde**-ren eratorritzat jotzen du, **aldats**, **aldabe** (cf. **Uxueko Aldabea**) edo **Aldape**-rekin batera<sup>2028</sup>.

**Aldaiondoa** Galipentzun ezezik, Ezporogin eta Lergan ere agertzen zaigu. Zaren **Aldeondoa** dugu, eta **Uxuen Aldaidarrea**.

Toponimo hau mapan non kokatu behar den ez dakigu, baina dena dela, gauza jakina da Galipentzu udalerrri aldapatsu samarra dela, **Melenas**-etik beheiti **Plandeoliva**-raino gutxienez:

"otra pieza...en el termino que llaman Aldaiondoa" (1723)<sup>2029</sup>

#### Altxubidea:

Izen honen adieraren inguruan ikus Eslaba eta Lergako **Altxonbidea** eta **Za-reko Altxirribidea**. **Altxubidea** Zaretik Galipentzura heldu den ardibideari esaten zitzaien, hots, **Pollungu** eta **Larreta**-ren artetik lehenbizi, eta **Bartasteka** eta **La Elka**-ren erditik gero, **Melenas**-a (**Melenas**-ko zubira), eta hemendik, **Paco de Melenas** zeharkatu ondoren, **Valeciera** eta **Cruz de Idoia**-n barrena, herrira doanari:

"otra pieza en Alchubidea...que afrontta con Camino que ban los de Gallipo a Sada" (1770)<sup>2030</sup>

Galipentzun bertan sartu gabe, aldirietan zehar, **La Cueva**-raino jaitsi eta bitan banatzen da: adar bat **Las Suertes** eta **Ondallu**-n barna, (oraingo) **Valescura** eta **Zabaleta**-ren artetik, **Uxueko** lurretan sartzen da, **Aristuziaga**-tik. Bigarren adarra **La Cueva**-tik atzera egin, **Aragoako** zubia gainditu, eta (behialako **Urrutia**-n edo) **Kaseda**-tik datorren beste ardibide batekin batzen da. Hemendik **Zarrakaztelurantz** abiatzen da, **Aragoaren** pare-paretik.

#### Alveo (de Cumba), el:

Galipentzun gaurregun **El Alveo** [albéo] edo **El Alveo de Cumba**<sup>2031</sup> deitzen dena **Corominasek**<sup>2032</sup> biltzen duen **álveo** 'cauce de una corriente de agua' bera dela dirudi, Galipentzuko dermioa **Aragoa** ugaldearen ertzean baitago, **Plandeoliva**-ren goiko aldean, **El Alto del Castillar** eta **Las Peñas de Marradas**-en artean. Dokumentazioan,

2025 PRA-Kaparroso, 64. or., 1653.

2026 Id., 71. k., 1663.

2027 AV, 43. or.

2028 Bukaera ai 'aldapa' (AV, 38. or.) dela dirudi.

2029 PRA-Oibar, 38. k.

2030 PRA-Kaseda, 22. k.

2031 Cumba Galipentzuko deitura da.

2032 DCELC.

hala ere, Alveo bat baino gehiago azaltzen da, beti ere Aragoaren **Bardena** aldeko ertza aditzera ematen duelarik (ikus **Labekoaldea**).

El Alveo-ren ondoan antzina **Grazietaren ardantzea** zegoen (ikus sarrera hau).

#### Amolate (plana de):

Toki-izen honen lehen lekukotasuna 1335ekoa da, aspaldi samarrekoa beraz. Agirian **plana de Amolat** azaltzen da, generikoak nafarreraz eta aragoieraz arrunta den pl-ren multzoa duela, eta espezifikoak azken bokalaren apokopea jasan duela:

“otrossi en la plana de amolat dos pieças... la una deillas a por afrontaçion de la una part la pieça de domingo arçaya et de la otra part la pieça de filla de martin verete-rra”<sup>2033</sup>

Euskal osagaiaren etimologiaz den bezainbatean, **amore** ‘maitasun’, ‘maitale’ (cf. Mitxelena<sup>2034</sup> aipatzen duen Aralarko **Amorleku** < **amore** + **leku**) eta **ate** ‘harrate’ ezagunak izan daitezke hemen ditugunak. Izan ere, elkarketa eta eratorketan ohizkoa da azken bokalaren erortzea eta lehen osagaiaren azken dardarkariaren “albokaritzea” (cf. **amoltsu** < **amore** + **-tsu**)<sup>2035</sup>:

“yten otra piª en amolate” (1546)<sup>2036</sup>

Kokaguneari doakionez, badakigu gaur ezezaguna den honek **Camino de Bardena**-rekin mugatzen zuela, eta beraz ibaiaz beste aldean zegoela:

“ytem una viña...en el termino de Amólaté, afrontra a...camino de Bardena” (1799)<sup>2037</sup>

#### Antón, barranco de; fuente de:

**Antón** inguru honetan lurrak zituen galipentzuar baten izen edo deitura zela garbi dago. **Barranco de Antón** erreka-stoa **Plandeoliva**-n dago, **Bardena**-n beraz, eta **Fuente de Antón** “Corral de Antón” deritzanetik hurbil, erreka ondoan.

#### Antoñanzas (balsa de), (barranco de):

**Antoñanzas** toponimo berri-berria da, bertan ondasun ugari zituen familia baten deituran oinarritua dagoena.

**Antoñanzas Bardena baja**-n dago, eta **El Saso de Vicentón**-etik **Zarrakazteluko** mugaraino hedatzen da, saiherretatik **Kasedarekin** eta **Aragoa** ugaldearekin mugatzen duela. Bere baitan beste dermio txikiago batzuk biltzen ditu, hala nola **El Llano de la Noria** eta **Puyalato**. Itxura guztien arabera, behinolako **Olibeta** eta **Landederra** ordezkatu ditu, besteak beste.

2033 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. or.

2034 AV, 45. or.

2035 Arakil-Uharteko **Amorleku** [ãmořlẽku] **harmora** ‘harri-meta’-rekin ere lot liteke, agian (cf. **Armokilloa** ‘harri-pila’ Uhartan bertan).

2036 PRA-Oibar, 2. k.

2037 PRA-San Martin, 68. k.

**Barranco de Antoñanzas** Kasedan sortu, eta **Antoñanzas** alderik alde gurutatu ondoan, Aragoan (baina Zarrakazteluko lurretan) amaitzen den erreka dugu. **Balsa de Antoñanzas El Publico**-tik hurbil dagoen idoia da.

#### Apeztegiatorra:

**Apeztegia** ‘apez-etxea’, ‘erretore-etxea’ eta alorra ditugu hemen (cf. Uxueko **Apeztegiatorra**). Badakigu **Solano de Valescura**-n zegoela, gaurko **Barranco de (la Muga) Ujué**-ren (antzina **Barranco de Valescura** zen hau) ondoan, Uxue eta Galipentzuren arteko berrogeita hamalagarren zedarrian, behetik gora joanez:

“se allo el cinquenta y cuatro mojon en balde escura apezteguia alorra al qual se le renobo la cruz” (1688)<sup>2038</sup>

Hau dela eta, gaurregungo **Cabaña de Ferrer** deitu gortearen inguruko alorren bat izan zitekeela uste dugu.

#### Aragón, río (mayor):

Dokumentazioan eskuarki **Río (de) Aragón** edo **Río mayor** gisa azaltzen dena \***Urandia** zen euskaraz, 1704eko **Urandididea** toponimoak salatzen duen bezala (ikus sarrera hau)<sup>2039</sup>.

#### Arana, acequia de; barranco de:

**Arana** [arána] hizkera arrunteko **harana** ‘ibarra’ dugu, eta horregatik ez da harritzeko **barranco** (edo **acequia**) azaltzea, haranak eskuarki ubide baten inguruan hedatu ohi baitira. Erreka, Agezako **Arana** dermiotik, Galipentzuko **Meazu** eta **La Elka**-ren tartetik, **Melenas** eta **Las Ripas** artera doa, **El Riacho**-ra.

Daitekeena da **Arana** honek (**Balsa de Aranbegia** orain ezezagunarekin zerkusirik izatea, eta ez bakarrik forma (etimologia)-ren aldetik.

#### Aranbegia (balsa de):

Hemen, dirudienez, **haran** izen ezaguna dugu, eta gure alderdian beste inon aurkitu ez dugun **begia**:

“otra pieza en Aranbeguia” (1692)<sup>2040</sup>

Arrunta da toki bati metaforikoki **ahoa**, **bizkarra**, **burua**, **mazela**, **zintzurra**... eta beste deitzea, orografiaren arabera, baina guk dakigula **begia** ez da horren arrunta, eta beste zerbait dugula pentsatu behar genuke, agian:

“otra pieza...en el termino de Aranbegia Junto a la Balsa” (1730)<sup>2041</sup>

2038 Id., 5. k.

2039 Ikus honetaz gure IGI.

2040 PRA-Kaseda, 6. k.

2041 PRA-Oibar, 42. k.



## Arazagi

Toponimo hau, hurrengo bezala, 1335ean baizik ez dugu ediren. Etimologia ilun samarra da: **haran** 'ibar'-en eratorri bat izan daiteke, eta **Arazu**-rekin zer ikusia eduki, baina ez dakigu horrela den:

"Yten en Araçagui tres pieças..."<sup>2042</sup>

## Arazu, río de:

**Haran** izena eta -zu atzizkia izan genezake hemen, baina berrekailua toponimian bestelako oinarriekin agertu ohi da: **Artazu**, **Aritzu**, **Urkizu**, **Meazu** (ikus sarrera hau)... **Harea** 'legarra' hitzaren aldakia izan daitekeen<sup>2043</sup> **ara**-rekin ere lot genezake, erreka baitago, eta -zu atzizkia ustezko oinarri horri ongi baitagokio. Guztiarekin ere, gure alderdian beti **area**-dugu (cf. **Areatzea** Ezporogi eta **Lergan**, **Areatzeta** Uxuen...).

Aurrekoa bezala, hau ere 1335ean aurkitu dugu:

"otra pieça cabo el Rio de arazu..."<sup>2044</sup>

## Ardantzeandia (fuentes de), (paco de), (prado de):

Hemen **ardantze** izena eta **handia** izenondoa ditugu. Gaurrengungo ebakera dantzaria izen honek nozitu duen desitxuraketa bortitzaren ondorioa da: **Rezendia** [rèθeɲdía], **Rozendia** [ròθeɲdía], **Arrozendia** [aròθeɲdía] eta **Arrezandia** [arèθaɲdía]. Dokumentazioan, aldiz, bere jatortasun osoan ageri zaigu:

"otra pieza...en el mismo termino (Larrañetako iturria-n) yendo â ardanzeandia" (1696)<sup>2045</sup>

Lekukotasun honek zera idarokitzen digu, **Larrañetako iturria**-k ez zuela zerikusirik **Larrañetako mendia**-rekin, edo **Ardantzeandia** bat baino gehiago zegoela, **Larrañetako mendia** eta **Ardantzeandia** bi muturretan baitaude, bata bestetik urruti, alegia.

Orain bizirik dagoen **Ardantzeandia** (aipatu aldaeretan bizirik) Eslabako mugan dago, **Bartabustu**, **Peñazamala**, **Saso** eta **Paco de Lunberri**, **Larregureneta**, **San Babil**, **El Soto**, eta **Gezari**-ren artean.

Lehen aldikoz 1798an ediren dugun **Prado de Ardantzeandia**<sup>2046</sup> alderdiko elutsetik (**Paco de Ardantzeandia**-tik) eta **Paco de Lunberri**-tik Eslabako bidearen inguruetaraino hedatzen den larrea da. Honen bi alderdietan, aipaturiko **Paco** horietatik hurbil (**Nicolás Arbeloaren** gortearen ondoan), lehen **Fuente de Ardantzeandia** dugu, eta Eslabako bidetik gertu bigarren **Fuente de Ardantzeandia**. Beheko iturrian (Esla-

2042 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. or.

2043 AV, 51. or.

2044 IEA, 387. kart., 14. org.

2045 PRA-Kaseda, 8. k.

2046 PRA-San Martin, 67. k.

bako bidearen ondokoan) orain dela gutxi idoi berria egin dute, aipatu bidearen aldamean.

Garai batean artetan aberatsa zen aztergai dugun eremua, 1710eko agiri batean **astazea** (< **artatzea**) bazela esaten baita:

“otra pieza de una carga en lastazea de Ardanzandia” (1710)<sup>2047</sup>

**Arenal, el:**

El **Arenal** euskarazko **Areatzea**-ren ordaina da (ikus Eslabako edo Ezporogiko **Areatzea**), eta harea asko dagoen tokia adierazten du, normalean erreka edo ibai baten ondoko alderdi bat. Galipentzuko **El Arenal** Aragoa ugaldearen ertzean dago, **La Cueva** eta **La Central de la Cueva**-ren artean.

**Aristuzia (monte de), (portillo de):**

Gaur ezezaguna den leku-izen honen etimologiaz ikus Uxueko **Aristuziaga** sarrera, **-aga-ri** eskaini atalean.

Uxueko **Aristuziaga**-rekin mugatzen zuen alderdi bat izan zitekeen Galipentzuko **Aristuzia**, baina, dena den, ez dago bat ere garbi dokumentazioko izen hau Uxuekoa ez ote den. **Aurino**-tik hurbil zegoela dirudi, atea edo portilua ere bazelarik bertan:

“mas adelante antes de llegar al Portillo de Aristucia, en Peña firme mirando a las viñas de Zabaletta de Gallipienzo” (1801)<sup>2048</sup>

Portilu hau, **Zabaleta**-tik hurbil zegoenez gero, egungo **Portillo de Chinchón** izan liteke.

**Arrondoa:**

**Harri** ‘haitz’ eta **ondo**a ditugu hemen. Murilloko bidearen ondoan zegoela badakigu, baina ez zehazki non:

“començando desde el mojon y camino de murillo beniendo ençia a la dca viª...en la endreçera llamada arrondoa” (1593)<sup>2049</sup>

Baliteke **El Peñisco de los Cuervos**-etik ugalderraino amiltzen den harri edo haitzaren ondoko alderdia izatea, baina baliteke, berebat, **Molino de Ujué** deitu errota-  
ren ondokoa izatea. Izan ere, J. Urangak dioskunez<sup>2050</sup>, errota (“errotak” dio autore honek) **Aldarrondo**-n zegoen, eta honen eta aztergai dugun **Arrondoa**-ren artean bada berdintasunik (cf., gainera, **Larrondoa** sarrera).

2047 PRA-Kaseda, 15. k.

2048 Id., 37. k.

2049 PRA-Oibar, 7. k-bis.

2050 UM, 79. or.

**Artaxogoiena (corraliza de):**

Orain ezezaguna den izen honen aldaera desitxuratu mordoxka ediren dugu dokumentazioan, XVIII. mendearen erditik aitzina gehienak. 1546an, ordea, jatorrizko forma azaltzen da:

“Ytten una pieza en artasso goyena”<sup>2051</sup>

Aldaera honek, urte bereko **Artassoyturria**-k eta aurreraxeago aztertuko ditugun **Artaxo / Artajo / Artaxona / Artajona**-rekiko harremanek -ss- horren azpian sa-baiaurreko igurzkari ahoskabea ([š]) dugula pentsarazten digute.

**Artaxogoiena** 1335ean aurkitu dugun **Somo de Artaxona**-rekin lotu beharra dago, bokal arteko sudurkaria erori, eta -oa > -o gertatu baita (Cf. **Aramaiona** > \***Aramaioa** > **Aramaio**). Bukaerako -ona hori oso zabaldua dago, eta ez bakarrik Euskal Herrian. Julio Caro Barojaren iritziz, latineko -onem bukaeraren femeninoa den -onam-etik atera da<sup>2052</sup>, eta Mitxelena itxuraz horrekin ados dago, argitzeko puntu asko izanagatik.

Alfonso Irigoyen ere bat dator Caro Barojaren iritziarekin, autore honen aipamenik egiten ez badu ere:

“...los diversos topónimos vascos terminados en *-ona*, tales como *Arrona* > *Arroa* > *Arrua*, etc. que en general proceden del caso oblicuo de nombres declinados en latín en *-o*, *-onis*, correspondan éstos a antropónimos o a topónimos antiguos, es decir, de *-one(m)*, cuyas formas dieron a menudo *-ona*, sobre todo en áreas pirenaicas del sur y concretamente en área vasca, igual que en el conocido *Barcelona*, de *Barcino*, *-onis*, o que *Narbona*, de *Narbo*, *-onis*, que ya para el siglo IV se declinaba en latín como *Narbona*, *-ae...*”<sup>2053</sup>

Dena den, **Baiona** toponimoa aztertzen ari delarik, **Baio** pertsona-izenaz eta **ona** izenondoaz osaturik egon litekeela dio, **Artaxona**-ko **Emazteona**-ren antzera<sup>2054</sup>.

Horrela bada, Galipentzuko **Artaxogoiena**-ko **Artaxo** lehenagoko **Artaxona** batetik atera da, eta beraz Tafalla ondoko herriaren izenarekin identifikatu beharko dugu, azken honen **Artaxo** aldaerarik ez dagoen arren, dakigunez. Longidako **Artajo / Artaxo**<sup>2055</sup> herri izenak ere etimo bera izan lezake, baina halaz guztiz, -zu, -tsu-ren aldaera den -so atzizkiak<sup>2056</sup> ere egon daiteke osaturik, **Urkizu / Urkixo** > **Urkijo** bezala, oinarria **arte** zuhaitz-izena delarik. Azken etimologia honen alde mintzo da izen honen lehen lekukoa 1076ko **Artasso** izatea<sup>2057</sup>.

2051 PRA-Oibar, 2. k.

2052 Ikus HGPV, 254-265. orr., eta *Materiales*, 85-95. orr.

2053 STPVN, 39. or.

2054 Id., 52-53. orr.

2055 Ikus NHI, 178. or. Menéndez Pidalek Jakerriko **Artaso** bat aipatzen du. *Orígenes*, 174. or.

2056 AV, 150. or.

2057 **Artaxona**, bere aldetik, esan dugun bezala (ikus Agezako Erauso sarrera) **Artaxo** eta -ona-z osaturik egon liteke, baina ez dirudi azken hau **ona** izenondo arruntarekin identifikatzen ahal denik, horrela izan balitz bokal arteko sudurkaria eroriko ez baitzatekeen.

Alfonso Irigoyenek Aragoako Artaso eta Artasona Nafarroako Artaxo / Artajo eta Artaxona / Artajona-ekin lotzen ditu<sup>2058</sup>:

“En relación con los *Artaso* y *Artasona* puestos de relieve está claro que se trata de topónimos análogos a los que se registran en Navarra como *Artaxo* (1366, PN-XIV, F. Sang., p. 464), en *Val de Liçoin*, hoy *Artajo*, y *Artaxona* (1330, PN-XIV, F. Est., p. 291), hoy *Artajona*, ambos con sibilante palatal, lo que se refleja en la evolución de la pronunciación hasta nuestros días, mientras que en la zona aragonesa no triunfó la palatalización, como tampoco en Alava en el caso de *Artasobarrena*, término de Contrasta, con *-barrena* ‘(el) de la parte baja’, pero sí en el de *Artajona*, término de Labastida, AEF, XVII (1957-1960), p. 127.”

Autore honen arabera, **Artaso Artazu**-ren ebakera erdalduntzailearen ondorena da; **Artasona** izen honen deklinabide latinoaren akusatibotik aterako zen, esan bezala:

“Con toda probabilidad en *Artaso* estamos ante una pronunciación romanizante de *Artazu*, del mismo significado que *Artatza*, y formado igualmente de *arte*, en primer miembro *arta-*, más el sufijo colectivo *-zu*, de pronunciación fricativa, la cual en latín se habría representado con *s*, declinándose vulgarmente como *Artaso*, *-onis*, acusativo *Artasone(m)*, de donde *Artasona*, que en las formas navarras, así como también en una alavesa, aparecen con palatalización expresiva. No tenemos referencias sobre la pronunciación del topónimo procedente del caso oblicuo latino entre hablantes vascos, pero evidentemente debía ser *\*Artaxoa* / *\*Artasoa*, según los casos”.

Alegia, Irigoyenen arabera jatorrizko **Artazu**-tik **Artaso** aterako zen, eta honen deklinabide latinoaren akusatibotik **Artasona**. Azken honetatik, bokal arteko sudurkariaren erortzeaz, *\*Artasoa* / *\*Artaxoa* aterako zen, bigarren hau bustidura adierazgarritz. Galipentzuko datuak ikusita, garbi dago, dokumentazioa aintzat hartzen badugu, **Artaxona** dela jatorrizko forma, eta hemendik atera dela **Artaxogoiena** eta **Artaxoiturria** toponimoen **artaxo-**. Hemen, Irigoyenen arabera, *\*Artaxoa*- behar genukeen, baina elkarketan azkeneko bokal irekia desagertu zitekeen, eta artikulutzat ere jo zitekeen.

Bilakaera honen kontrako puntuak Longidako herriaren kasuan **Artaxo** 1076rako azaltzea da, bai eta egun **-so** duten beste toponimo batzuen kasuan (**Lizaso**, **Itsaso**<sup>2059</sup>) **-zu**-**dun** aldakirik sekulan ediren ez izana. Itzuleta, Mañeruibarko **Artazu**-ren dokumentazioan aurkitzen ez dugun *\*Artaxo* edo *\*Artaso*-ren bat espero genuen, bai eta Tafalla ondoko **Artaxona**-n sudurkaririk gabeko *\*Artaxoa* edo *\*Artaxo*, baina inguruko herrietan ere ez bide da honelakorik azaltzen<sup>2060</sup>.

Kokaguneari buruz, ditugun lekukotasunak aztertu ondoren, toponimo gaur ezezagun honek izendatzen zuen alderdia **Paso de San Babil**-en ondokoa zela esan dezakegu:

“...en el que llaman Saboiana el uno...en el paso de San Babil” (1772)<sup>2061</sup>

2058 “Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica”, 203-204. orr., ETTVC.

2059 Ikus NHI, 67 eta 77. orr.

2060 Honela jakinarazi digu eskualde horretako eta Nafarroako beste askotako toponimia sakonki ezagutzen duen J. M. Jimeno Jurjo jaunak.

2061 PRA-Oibar, 69. k.

Eslaba eta Agezako mugetaraino hedatzen zela ere badakigu, bai eta “somo” edo gain bat eta iturri bat (**Artaxoiturria**) ere bazirela, eta itxuraz, baina hau ez da segurua, **La Elka** “corraliza”-rekin (ez dermioarekin) mugatzen zuela, bera ere “corraliza” zelarrik:

“...las yerbas y aguas de las corralizas de la elca y aratasogoyena (sic)...” (1689)<sup>2062</sup>

Datu guzti hauekin egungo **Las Fuentes** dela ondorioztatu behar dugu, Eslaba eta Agezako mugan egoteaz gain iturritan aberatsa baita, eta gaina edo **cantón** ere bai baitu (**Cantón** edo **Canterica las Fuentes**).

Beste aldetik, **Las Fuentes** izen erdalduna 1730 arte ez dugu dokumentatu, eta berri samarra dela esan daiteke. Izen euskaldunaren -**goiena** posposizioak, gainera, Galipentzu udalerriaren goiko aldean zegoela ematen du aditzera, bestela alderdi laua baita, aipatu **Cantón** hori salbu<sup>2063</sup>. Ordezkapen prozesua hau izan zitekeen: \***Las Fuentes** de **Artaxo(goiena)** (Cf. **Artaxoiturria**) > **Las Fuentes**, Uxueko **Los Berros de Berage** > **Los Berros**-en, edo **Lergako Los Linares de Arana** > **Los Linares**-en bezalatsu.

#### Artaxoiturria:

**Artaxo-** eta **iturria** izenak ditugu hemen:

“yten una pi\* en artassoyturria” (1546)<sup>2064</sup>

Aurreko sarreran esan moduan, gaurko **Las Fuentes** oso alderdi urtsua da, eta beraz **Artaxoiturria** agertzea ez da miresteko, iturriak alderdi honetan edonon azaleratzen baitira.

#### Artaxona, somo de:

Behin bakarrik aurkitu dugu bere horrela, 1335ean<sup>2065</sup>:

“yten otra pieça alSomo de artaxona”

Somo hau latineko **summu**-tik aterea da<sup>2066</sup>, eta esan dugun gisan oraingo **cantón** edo **cantera** (**de las Fuentes**)-ren balioa du. **Artaxo**-rekiko hartuemanaz ikus **Artaxogoiena** sarreran esan duguna.

#### Atajo pico, el:

Herritik zubira jaisten den bide-zigor xuta da. Gure informatzaileak dioenez, mando bat sabelminez zegoenean lasterbide honetatik jaisten zuten, “tripak nahas zekiz-kion”. Euskaraz honen irudikoa den **Askalasko bide pikua** dugu gaurregun **Arbizun**<sup>2067</sup>.

2062 PRA-Kaseda, 5. k.

2063 **Goiena** ez da **cantón**, **cantera** edo **somo**-ren adierakidea, **burua** edo **gaina** ez bezala. Ikus honetaz **Dermio baten zatiketa** atala.

2064 PRA-Oibar, 2. k.

2065 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. or.

2066 Ikus **DCELC**-ko **somero** sarrera.

2067 **NTEM-XII**, 68. or.

**Aurino (alto), (bajo), (collado de), (monte de):**

Honen etimologiaren inguruan ikus Uxueko **Aurino** aztertzean dioguna.

**Aurino** [aurino] Uxue eta Galipentzuren arteko muga aldeko dermio txiki menditsu bat besterik ez da lehen herrian, baina bigarrenean **Cantón de Zabaleta**-tik Aragoa ibairaino luzatzen da. Bere luzera hau dela medio, bi **Aurino** bereizten dira, goikoa edo **Aurino alto** (**Zabaleta**-n hasi eta **Barranco de las Aguas saladas**-aino luzatzen da, alde batean Uxueko lurrak eta bestean **El Ferial** duelarik), eta behekoa edo **Aurino bajo** (aipatu erreka horretatik Aragoa ibairaino doa, ekialdean **Zamakidoi** eta ugaldea, eta mendebaldean Uxue duela).

Esperatzekoa zenez, bi dermio zabal hauetan<sup>2068</sup> beste dermio txikiago batzuk daude: **Aurino alto**-n, esaterako, **El Cantón del Moyo**, **El Paco del Carpintero** eta **El Pedrocal** ditugu. **Aurino bajo**-n, besteak beste, **El Carasol de Ijita**, **El Hoyo de Catachoán**, eta **El Saso de Atanasio**. Antzina izen bereko despoblata zegoen alderdi honetan, eta hau dela eta, toponimo honen jatorria antroponimo latino bat izan daitekeela uste dugu (ikus Uxueko **Aurino** sarrera)<sup>2069</sup>.

**Aurino**-n (Uxueko mugan) zegoen **Kapanandia** toponimoak bertan XVII. mendean ardantzeak bazeudela erakusten digu:

“Mas en Aurino o capanandia dos cargas de tierra” (1691)<sup>2070</sup>

Dokumentazioko **collado de Aurino** Uxueko mugako **Monte (de) Aurino** zen:

“se allo el octavo mojon en el collado de aurino cerca del portillo de yjita” (1688)<sup>2071</sup>

Goikoa eta behekoa batera aditzera emateko **Los Aurinos** esaten da (cf. Uxueko **Los Aguilares** edo **Las Aldabeas**).

**Aurinos, los:**

Ikus aurreko sarrera.

**Ayesa, paso de:**

**Paso de San Juan** edo **Paso de Pontarrón** izan liteke:

“otra pieza...en el paso de Aiesa tenite a..barranco que baja al portillo de Balarata” (1723)<sup>2072</sup>

2068 “Corraliza” eré badira, baina hemen **Aurino**-z beste dermio batzuk ere sartzen dira.

2069 J. Gárriz, *Despoblados*, 21. or.

2070 PRA-Kaseda, 6. k.

2071 Id., 4. k.

2072 PRA-Oibar, 38. k.

**Azkonobieta:**

Aldaera batutzat aukeratu duguna dokumentazioan aurkitu ez badugu ere, ditugun aldakien azpian **Azkonobieta** ezkututzen dela uste dugu, hots, **azkon + hobia + eta**:

“ytten otra pieça en azcanobieta” (1608)<sup>2073</sup>  
 “otra pieza en azquen obieta” (1635)<sup>2074</sup>

Jakina denez, **azkona** edo **azkonarra** osagaia duten toponimoak ugariak dira: Leotzen **Azkonobieta** dugu 1629an<sup>2075</sup>, Aroztegin **Azkoneta**<sup>2076</sup> egun, eta Arakil-Uharten **Azkonarta** (< \***Azkonarreta**), beste anitzen artean.

**Azkon**-en erromantzezko kidea ere frankotan agertzen da toponimian. Gure eskualdean **Tajudos** dermioa aurkitu dugu 1894eko katastroan Gardelainen, eta Galipentzun bertan **La Peña Tajubera** dugu<sup>2077</sup>.

**Azkon(a)**, Sarasolaren arabera<sup>2078</sup>, batez ere Iparraldean ibiltzen da (baina ez bakarrik, adibideetan ikusteko aukera izan dugun bezala); Mitxelenak dioenez<sup>2079</sup>, latineko **taxo**, **taxonem**-ekin erlazionatua izan da.

**Hobia**, bere aldetik, latineko **fōvĕa** ‘zuloa’-tik atera da (erdal **hoya**-ren etimokidea da beraz<sup>2080</sup>), zenbaitetan gertatzen den **f > Ø** aldakuntzaz. Mitxelenak dioenez<sup>2081</sup>, latineko **f-ri** mailegurik zaharrenetan gure hizkuntzan **b-** badagokio ere, zenbait adibide zaharretan **Ø** ere azaltzen da, mintzagai dugun izen honetan bezala.

**Azute, el:**

Iribarrenen arabera<sup>2082</sup>, **azut** (<**as-ssudd**) izenak ‘uharka’ adiera du Zintruenigon; Corominasek **azud** ‘ugaldeetatik ura hartzeko uharka’ biltzen du<sup>2083</sup>, eta arabierako **sudd** ‘oztopoa’, ‘traba’, ‘uharka’-tik eratortzen<sup>2084</sup>.

Esperatzekoa zenez, **El Azute Zareko** lurretatik datorren eta **Kaseda** eta **Galipentzuren** arteko muga markatzen duen erreka ondoan dago. Lehen herri horretako **El Azute**-rekin eta bigarreneko lurrekin mugatzen du iparraldetik eta ekialdetik, **Errekagaitza**-rekin mendebaldetik, eta **La Recueja**-rekin hegoaldetik. Aspaldian Oibarra zihoan bidea (edo bide bat behintzat) bertatik igarotzen zen:

2073 Id., 13. k.

2074 Id., 23. k.

2075 PRA-Barasoain, 5. k.

2076 Fermin de Leizaola, TVA, 414. or.

2077 Bertako haitzuloan **azkon** edo **tajugo**-ak ezkututzen zirelako deitzen zaio honela haitzari.

2078 HLEH.

2079 Mitxelena, OEH.

2080 Corominas, DCELC.

2081 CF. **ficu > iko, filu > iru...** FHV, 264-265. orr.

2082 VN.

2083 DCELC.

2084 J. Gárrizek dioenez (*Despoblados*, 13. or.), **Azut** Erdi Aroan hustu zen mairuek Ebro ugaldearen ibarrean sortutako herrixketako bat ere bazen.

“...en el termino que llaman el Azute que afronta con...camino que se va a Aybar” (1764)<sup>2085</sup>

### Badina de Andigarra, la:

**Andigarra**, itxuren arabera, Galipentzuko edo inguruko herriren bateko norbaiten ezizena zen (cf. **Bastilgorra**). **Badina**, esan bezala, ibaiaren mehargune bat edo uharka bat dela medio ura baltsatzen den alderdiari esaten zaio, eta ez bakarrik Galipentzun, Izaban<sup>2086</sup>, Tafallan<sup>2087</sup> eta bestetan ere erabiltzen baita.

**Badina de Andigarra**-n, informatzaileak dioskunez, Erronkaribarreko almadiek arazoak izaten zituzten, seguru asko beherago dagoen Murillo eta Zarrakazteluko uharkarengatik. **Badina** baino pixka bat gorago portu moduko bat zegoen, gure osabarena den Uxueko “Corral del Cuadrado”-ren parean. Gorte honetan maiz ematen omen zuten gaua aipatu ibarreko almadiariek.

**Badina de Andigarra Llano de la Noria**-ren parean dago, ibaian. **Badina**-n eremu lauari izena ematen dion “noria” dago.

**Balarata (acequia de), (barranco de), (barranco del portillo de), (fuente de), (juncar de), (liscar de), (portillo de), (prado de):**

Leku-izen honen lehen lekukoa (**Balarata**, 1645. Cf., gainera, 1597ko **Balaratarrena**) -ata-z amaitzen bada ere, 1704 eta 1705ekoek<sup>2088</sup> -ate dute bukaeran:

“otra pieza en balarata” (1645)<sup>2089</sup>

“una pieza...sita en el termino del Portillo de Balaratte theniente...a senda ô camino que ban los de Aiessa â Gallipienzo” (1705)

Etimologia ilun samarra da, baina hasierako **bal-** hori **val** ‘ibarra’, ‘harana’ dela suposa daiteke, beste toponimo askotan azaltzen den izen bera, alegia: **Valescura**, **Valeciera**, **Valdarras**.... -**Arata** edo -**arate** segidan, berriz, **haran** ‘ibarra’ (askotan laburtua azaltzen da: **Araeta**, **Araluze**...) eta **ate** ‘portilua’ egon daitezke, nahiz azken honi dagozkionak sobera garbi ez dauden.

Beste posibilitate bat azpian **ara + ate** gabe, **\*Araeta**-ren moduko bat<sup>2090</sup> dugula kontu egitea da. Hemendik, asimilazioz lehenik **\*Araata** aterako zen, gero bokal berdinen laburketaz **\*Arata**, eta azkenean disimilazioz **Arate**. Alabaina, eta **Portillo de Balarata** ongi dokumentatua dagoenez gero, badirudi aipaturiko **Balarate** har litekeela jatorrizko formatzat. **Balarata**, hortaz, **Acequia** edo **Barranco de Balarata**-ren inguruko harana izan zitekeen hasiera batean, gero ondoko lurak ere izendatzera lerratu zelarik.

2085 PRA-San Martín, 46. k.

2086 Estornés Lasa, DTR, 388. or. Honela definitzen du izen hau: “explanada de agua en un río o balsa en un cruce de caminos”

2087 J. Jurío, THET, 50. or. Autore honek honela deskribatzen du Tafallako **Las Badinas** dermioa: “Depresión muy húmeda, con manantiales y juncas, cruzada por el «Barranco de las Badinas» que desagua en el Lavaco y, a pocos metros, en el Zidacos”.

2088 PRA-Oibar, 30. k.

2089 Id., 25. k.

2090 Ikus AV, 51. or.



**Balarata** [bàlaráta]-k Agezako lurrekin eta **Las Fuenticas**, **Meazu** eta **La Elka**-rekin mugatzen du. **Acequia de Balarata** lehengo **Prado de Balarata**-n sortu eta **El Riacho**-n (**Pontarrón** dermioan) bukatzen den erreka da:

“otra pieca...en pontarron teniente a cequia que vaja de Balarata” (1686)<sup>2091</sup>

**Prado de Balarata** Agezako mugari hurren zegoen, eta Agezako mugaren ondoko **Fuente de Balarata** beheko herrira (**Galipentzu Berri**-ra) ura eramateko hartu ondoan labakitu zuten. **Juncar de Balarata** edo **El Liscar Prado de Balarata**-n zegoen, azekiaren ondoan.

Aipatu dugun **Portillo de Balarata Camino de Ayesa** batean zegoen, agian **Acequia de Balarata** oraingo **Camino de Ayesa**-k gurutzatzen duen puntuan. **Cantón de Balarata**, azkenez, alderdiko muinoek osatzen duten xerrattoari esaten zaio, **Cantón de las Fuenticas-en Balarata**-ko zatiari, alegia.

**Balarata**, inguruko lurren antzera, toki urtsua da (cf. **Las Fuenticas**), eta esan moduan orain gutxi arte larrea izan da bertan, **Pollungu**-n bezalaxe. Hortaz, ez da miresteko lezkak eta ihiak (cf. **El Juncar**) ere ugariak izatea (ikus **Lezkatzea** eta **El Liscar** sarrerak):

“...en el termino de Galipienzo que llaman Balarata ô el Liscar...afronta con el termino de Ayesa” (1788)<sup>2092</sup>

#### **Balaratabarrena:**

**Balarata** eta **barrena** ditugu hemen, bistan denez. **Meazu** aldeko zatia izan zitekeen:

“otra pieca en balaratabarrena” (1597)<sup>2093</sup>

#### **Balarrengu (barranco de):**

Leku-izen honen lehen lekukoak (**Balarengu**, 1617) -e- badu ere, 1691koak -ai- dauka (**Balarraingu**), eta ai > e pausua e > ai baino anitzez azaltzen errazagoa denez gero, **Balarraingu** aldaerarik zaharrena eta jatorrena dela kontu egin daiteke:

“una biña en balarrengu” (1617)<sup>2094</sup>

“Mas una carga de tierra...en balarraingu” (1691)<sup>2095</sup>

Alabaina 1691ko aldaera hori da -ai-dun bakarra, eta ez dirudi aspaldikoena hau denik. Gainera, Lergako **Jaun Done Mikendi** toponimoan agitzen den bezala<sup>2096</sup>, zenbaitetan e / ai txandaketa ageri da toki-izen berean, arrazoiak garbiegi ez badaude ere. Beste aldetik, egungo **Barrelengu** [bàreléngu] \***Balarengu**-tik atera dateke, me-

2091 PRA-Kaseda, 3. k.

2092 PRA-Oibar, 75. k.

2093 Id., 9. k.

2094 Id., 19. k.

2095 PRA-Kaseda, 6. k.

2096 Joandremiquendiberoquia dugu 1588an, Juan de Micaendi 1768an, eta Juandemicaindi edo Juan de micaindi 1805 eta 1840an.

tatesiz. Azken hau, bere aldetik, ongi dokumentaturik dugun **Balarrengu**-tik aterako zen, asimilazio edo disimilazioz.

Leku-izen honen etimologia ilun dago guretzat: hasierako **bal**- hori beste toponimo batzuetan ere agertzen den **val** 'harana'-tzat har genezake, den bezain malkar eta aldapsua ez balitz<sup>2097</sup>. -**Arrengu** berriz, Morionesko **Loiaerregua** (= **Loiaerreka**, ikus bi sarrera hauek) eta Ezporogiko **Errengoa** (**Arrangua**, **Errengoa** 1604ean, **Rengoa** 1610ean) bera izan daiteke, **erregua** 'erreak'<sup>2098</sup> alegia. Izan ere, **Balarrengu**-n bi erre-kasto daude: **La Peña de los Ladrones**-etik **Zenboroz** eta **Balarrengu**-ren arteko mugatik jaisten den **Barranco de Barrelengu** edo **Barranco de Zenboroz**, eta **El Arenal**-en (eta ibaian, beraz) bukatzen den **Barranco de Tras la Concepción**:

"ottras puestos...en el Barranco de Barilengu" (1767)<sup>2099</sup>

**Balarrengu** herri ondoan dago, **El Peñisco de los Cuervos**-etik **Aragoa** ugalderraino amiltzen den haitzak **Iribarren**-etik bereizia. Goiko aldetik **Uxueko** bidea eta **Beragu**-koa banatzen dituen **Las Salericas** eta **La Balsa** alta-rekin mugatzen du, mendebaldetik **Zenboroz**-ekin, eta ekialdetik **Malpaso** eta herriarekin. Behean, azkenez, **El Arenal** dauka, lehengo **Molino de Ujué** (**Central de la Cueva** orain) aldetik:

"una viña...en el termino de Barrelengu; theniente â Camino Real, y proximo al Molino de Uxue" (1765)<sup>2100</sup>

#### **Balsa, la:**

Egungo idoietakoa bat izan daiteke:

"una pieza Junto a la valssa" (1713)<sup>2101</sup>

#### **Balsa alta, la:**

Hau 1852an ediren dugu dokumentazioan lehen aldikoz, eta ez dirudi oso zaharra denik. Gaurregun **La Balsalta** [bal'sá]ta edo **La Basalta** [ba'sá]ta esan ohi zaio, azken hau albokari-disimilazioz sortu delarik:

"una hera...en la balsa alta junto al camino de baldeoscura"<sup>2102</sup>

**La Balsa** alta-k idoia eta inguruko lurak izendatzen ditu. Herriaren ondoan dago, **Uxueko** bidean.

2097 Reta Janárizek, Oibarko **Varilengua**-n eta dokumentazioan azaltzen den **Vadum longum**-en oinarrituz erromantzezko \***Vadoluengo** baten ondorengoa izan daitekeela dio (EHZE, 487. or.), baina azaltzen diren aldaerak uste honen kontra mintzo dira argi eta garbi. **Balarrengu**-n, gainera, ez dago inolako ibirik, tokia, esan bezala, erabat malkorra baita. Oibarko **Varilengua** horren osagaiak, beste aldetik, **valle** eta **luenga** dira, ez **vado** eta **luenga**, Retak uste duenez bestalde. Cf. **Valli luenga** 1610ean (PRA-Oibar, 22. k.), **Vallituenga** 1703an, eta **Ballilengua** 1743an (id., 53. k.); **Ballimagra** 1596an (id., 15. k.) eta 1840an (id., 22. k.), **Mallimagra** [mà]jimágra] 1741ean (id., 52. k.) eta orain.

2098 Guztiarekin, **erreguak** handiak izaten dira, eta **Balarrengu**-ko errekaostako oso txikiak dira.

2099 PRA-Oibar, 67. k.

2100 Id., 66. k.

2101 PRA-Kaseda, 16. k.

2102 Id., 59. k.

Garraldan Galipentzuko honen kidea den **Goenbasaldea** edo **Goenbalsaldea** dugu (< \***Goienbal(t)saldea**), eta honen ondoan **Barrenbalsaldea** edo **Barrabasaldea**.

**Balsa de los Artos, la:**

**Valescura**-n dago idoi hau, **Cabaña** eta **Paco de Ferrer** aldera doan bidexkaren ondoan, **Balsa de Manuel** delakotik ez urrun. **Arto**-a patxaranak ematen dituen landarea da, eta **Oibar** haran, **Galipentzu** eta **Uxuen** ezagutzen da, gutieneko kontuan (cf. **Uxueko Fuente del Arta**)<sup>2103</sup>.

**Balsa de Manuel, la:**

**Galipentzuko** norbaiten izenari zor bide zaio hidronimo hau. Esan bezala, **Balsa de los Artos**-etik gertu samar dago, **El Solano**-ren azpiko aldean, **Uxueko** bidea eta **Paco de Ferrer** aldera doana elkarrengandik aldentzen diren gunean.

**Balsas, las:**

**Las Balsas** lehen aldiz 1804. urtean azaltzen da dokumentazioan:

“otra pieza...debajo de las Balsas del Pueblo”<sup>2104</sup>

**La Tejería** ondoan dauden idoei (ikus **San Salvador** sarrera) eta hauen inguruko lurri deitzen zaie **Las Balsas**.

**Balsas de Facerías, las:**

**Boyer**-eko idoiak dira, **Balsa de Manuel** eta **Balsa de los Artos** deriztenak.

**Baranditurri (fuente de):**

Leku-izen honek aldaki asko baditu ere, guk lehen agerraldiko (1610eko) **Baranditurri** hobetsi dugu aldaera batutzat:

“dos pieças...la un en la endreçera llamada baran diturri” (1610)<sup>2105</sup>

**Beranduago**, **Balen-**, **Balin-**, **Valein-** hasiera duten lekukotasunak dira ugarrienak, eta **Balain-** dutenak ere badira: **Barandeyturri** (1635)<sup>2106</sup>, **Balainturri** (1682)<sup>2107</sup>, **Balinduturri** (1686)<sup>2108</sup>, **Balenditurri** (1691)<sup>2109</sup>. Hauen artean, eta toponimoaren lehen zatiari dagokionez, ez dirudi jatorrizkoa **balen-** denik, aipatutako 1610eko **Baran** diturri edo 1635eko **Barandeyturri**-n ageri den **Barand(e?)** baizik. Iturriek izen bitxiak dituzte maiz (**Esneiturri**, **Polboraiturri**, **Txakurriturri**...), eta agian erdarazko **baranda** ‘baranda, eskudela’ proposa liteke lehen elementu horren jatorritako.

2103 Ikus Iribarrenek VN-n dioena.

2104 PRA-Kaseda, 38. k.

2105 PRA-Oibar, 16. k.

2106 Id., 23. k.

2107 PRA-Kaseda, 1. k.

2108 Id., 3. k.

2109 Id., 6. k.

Nolanahi ere, segurua da azken osagaia -iturri ezaguna dela, gaurko **Balenturri** [bàlentúri], **Balinturri** [bàlentúri], **Baliturri** [bàlitúri] edo **Baleturre** [bàletúre] iturri baten (eta honen inguruko lurren, ohi denez) izena delako.

**Baranditurri Pila**-n barrena **San Juan**-era doan bidean dago, herritik hurbil. Alderdiari izena eman dion iturritik ateratzen den ura **Valeciera**-ra jaisten da, dokumentazioan **Barranco de Valeciera** izenpean azaltzen den latsari sorrera emanez. Hemendik beheiti doa (**Barranco de Ibarreko harana** deritza), eta **El Mayo** gurutzatu ondoan **Aragoa** ugaldean isurtzen du ura.

**Baranditurri**-k **Las Balsas**, **Bartikilar**, **Pila** eta **Valeciera** eta **Cruz de Idoia**-rekin mugatzen du.

#### **Bardazeta:**

Behin bakarrik aurkitu dugunez gero, zail da bere jatorriaz deus esatea. Toponimian hain ugaria den **Baratzeta**-ren desitxuratzeta izan liteke, edo **barda** 'zuhaitz-adarra'<sup>2110</sup>, 'sastraka', 'sasia', 'egur-pila'-z<sup>2111</sup>, -tze ugaritasunezko atzizkiaz, eta -eta-z osatutakotzat jo liteke.

#### **Bardena (saso de), Bardena media, Bardena baja (corraliza de):**

Hitz honen etimologiaz honela mintzo zaigu **Iribarren**<sup>2112</sup>:

“En cuanto a la etimología de la voz *Bardena*, se dan las opiniones más dispares. Unos la derivan del vasco «abardena» que significa todo lleno de ramas y árboles. Otros la relacionan con el vocablo aragonés «pardina» o «paradina», monte bajo de pasto, donde suele haber corrales para el ganado lanar. Otros, sin salir del vocabulario navarro, la emparentan con «barda», viéndola como un campo, prado o bosque con abundancia de zarzas y matorrales. Otros, en fin, dejándose de etimologías, le dan un contenido semántico complejo, mezcla de desierto, páramo, barranco y cañada, cabezos, planas y valles, yeso blanco y roja arcilla, pastizal verde y ocre labrantío, y a más a más (sic) matorral leñoso, a modo de resto fósil de antiguo gigantesco bosque”

Autore berak **Bardena Kasedan**, **Oteitza** eta **Faltzesen** ezaguna dela dio, baina **Galipentzuko**a ez bide du ezagutzen, aipamenik txikiena ere ez baitu egiten. Azken herri honetan **Bardena Aragoa** ugaldeaz haraindian, **Kasedako** mugan dagoen eremu lauari (gain batzuk badiren arren) esaten zaio, **La Sierra** eta **Barranco del Palomar**-etik hegoaldera dagoen alderdiari, alegia. **Plandeoliva**-n (erreparatu **Plan** < **Plano** eta **Bardena** batera doazela) hasi, eta **Zarrakazteluko** mugaraino hedatzen da, **Kaseda** udalerriaren eta **Aragoa** ibaiaren artean. Aurrenekoz 1592an aurkitu dugu:

“una pieza en los comunes de la bardena”<sup>2113</sup>

2110 Azkue, DVEF.

2111 Iribarren, VN.

2112 VN. Euskaraz honetatik atera den **Bardea** erabili izan da, singularrean.

2113 PRA-Oibar, 6. k.

**Plandeoliva-ri Bardena** esaten zaio, **La Torraza** aldeari **Bardena media**<sup>2114</sup>, eta **Antoñanzas-i Bardena baja**. Azken deizio hau, dena den, 1840an aurkitu dugu lehenengoz:

“...se vendiese en arriendo la Corraliza de Bardena vaja”<sup>2115</sup>

**Bardena** [bārdéna] oso handia denez, azpi-dermio ugari daude barruan. Inportanteenak hauek dira: **Plandeoliva-n Paco del Palomar**, **Alto del Castillar** eta **Valdarras** (ikus sarrera hau); **Antoñanzas-en Plandeoliva-rekiko mugako La Cruceta**, **Alto de la Gudilla**, **Labekoaldea**, **El Orzagal**, **El Alcaz**, **El Saso de Vicentón**, **El Llano de la Noria** eta **Puyalato**.

Izen hauetako batzuk oso berriak dira; **Antoñanzas**, kasu, bertan ondasun asko zituen familiaren deitura baizik ez da. **El Saso de Vicentón** (orain **Vicentón** zein zen inork ez daki), **El Saso** da 1645ean:

“Mas en el saso en bardena” (1645)<sup>2116</sup>

Beste aldetik, **Landederra** bezalako toponimo zaharrak (ikus sarrera hau) erabat desagertu dira.

Orain gutxi arte herriak zituen lau igurietako bati **Mano de Bardena**-ren ardura zegokion, hots, ugaldeaz haraindiko lur guztiak zaindu behar zituen. Beste hiru, diogun bidenabar, **Mano alta** (herritik Eslaba eta Agezako mugaraino, alde batek, eta altxonbideraino bestetik), **Mano baja** (altxonbidetik Aragoa ugalderraino) eta **Mano de Aurino** (**Aurino** biak, **Zabaleta** eta **Valescura**) zegokien, hurrenez hurren.

#### **Bardena llamada Carrascal:**

Ez dakigu **Bardena**-ko zein alderdiri zegokion:

“En la bardena llamada carrascal un corral” (1842)<sup>2117</sup>

#### **Bardenica (paco / paquizo de), la:**

**Bardena**-ra iritsi aitzinean dago, **Engubelea**-ren beheko aldean, **Barranco de Castillo** edo **Barranco de Morate** eta **Los Ripazos**-en artean, ibai ondoan. Alderdi lau samarra da, baina inola ere ez beheragoko **Bardena** bezain zelaia. Izen hau berria bide da, dokumentazioan ez baita agertzen; seguruenera orain galdurik dagoen toponimoren baten ordezeko berria dugu (cf. **Plana de Amolate** desagertua).

**Paco** edo **Paquizo de la Bardenica** alderdiko oihezki txiki-xutari esaten zaio, **Cantera de Torrea** deitu hegiaren azpiko aldeari. Beste batzuetan **Paquizo de Torrea** izena eman ohi zaio (ikus **Torrea** sarrera).

2114 **Bardena baja** erabiltzen dela segurua da, baina seguritate hori asko gutxitzen da **Bardena media**-ren kasuan.

2115 PRA-Kaseda, 55. k.

2116 PRA-Oibar, 25. k.

2117 PRA-Kaseda, 56. k.

**Barranco de Castillo, el:**

**Barranco de Morate**-ren errankide dugu (ikus **Bardenica** sarrera). **Castillo** erreka-ondoa lurrak dituen galipentzuarraren deitura da.

**Barranco de las Abejas:**

**Bardena**-n zegoen:

“otra pieza...en Bardena y su barranco de las abejas” (1840)<sup>2118</sup>

**Barranco de las Aguas saladas, el:**

**Aurino**-n dago, **Aurino alto** eta **Aurino bajo**-ren arteko mugan. Aragoara baino lehen **Barranco del Moyo**-rekin elkartzten da. Bere ibilbidearen azken zatian, gorgo **Aurino alto** eta **Aurino bajo** bezala, **El Ferial** eta **Zamakidoi** bereizten ditu.

Burutara **Eslaba**, **Galipentzu** eta **Agezako** mugako **Barranco de Gezari** daskarkigun hau aspaldikoa da, itxuraz bestela ematen badu ere:

“otra pieza en aurino sobre el barranco de las aguas saladas” (1696)<sup>2119</sup>

**Barranco del Horno, el:**

**La Sierra**-n sortu eta **Paco de los Ripazos**-en barrena Aragoa ugaldan bukatzen da. Izena bertan laberen bat izateari zorko zaio (cf. **Labekoaldea Bardena**-n).

**Barranco del Huerto de Recané, el;**

**Recané** erreka ondoan baratzea zutenen izengoitia da.

Erreka **Peña de los Huevos** inguruan jaio, **Aurino bajo** aldean beste zeharkatu, eta Aragoarekin bat egiten du.

**Barranco del Nieto, el:**

**El Nieto**, itxuren arabera, erreka honen inguruetan ondasun zerbait zuen norbaiten izengoitia zen (cf. **El Barranco de Antón**, **La Fuente del Fiero**...). Honelako toponimo gehienak bezala, leku-izen berriztat hartzen ahal da.

Erreka **Kasedako** mugako **Portillo de los Lobos**-etik Aragoa ugaldara doa, **Plandeoliva**-ren beheerenero alderditik.

**Barrera, barranco de la; fuente de la; paco de la; paso de la:**

**Barrera** gure eskualdean eta Nafarroako beste eskualde batzuetan<sup>2120</sup> Oibar haraneko dokumentazioan izen arruntzat eduki ohi den **artegia**-ren esanahikidea da.

2118 PRA-Oibar, 115. k.

2119 PRA-Kaseda, 8. k.

2120 Ikus Iribarrenen VN.

Erreka Uxueko Aristuziaga-n sortu, eta El Pozo grande-n Barranco de (la Muga de) Ujué-rekin bat egiten duen ubidea da, behinolako Barranco de Larrañetako mendia (ikus Larrañetako mendia sarrera). Iturria errekan bertan dago, eta beste modu batez La Fuente del Fiero esan ohi zaio. Dokumentazioko Larrañetako iturria izan zitekeen, baina hau ez da inondik ere segurua (ikus Ardantzeandia sarrera).

Paco de la Barrera antzinako Larrañetako mendia-ko iparragerria da, ziur asko dokumentatzerik izan ez dugun \*Paco de Larrañetako mendia baten ordezkatzailea. Pausua, azkenez, Barranco de (la Muga de) Ujué eta Camino de la Barreraren elkargunean dago.

**Barrio alto, el:**

El Barrio alto (antzinako Irigoien) Barrio de Medios-en gainean dago; Cantón de la Natalia izenekoan hasten da:

“una cassa en el Barrio Alto” (1787)<sup>2121</sup>

**Barrio bajo, el:**

Barrio bajo edo Barrio de abajo Barrio de San Pedro-ren azpikaldean dago, herriaren beheerako alderdian:

“un huertto...en el Varrío baxo” (1720)<sup>2122</sup>

Euskaraz Iribarren esaten zitzaion, baina gaurregun horren ondorengo itxuragabetua den Libarren [libāren] herriaren azpiko eremua izendatzeko ibiltzen da, herritik ugalderrainokoa, beheko auzoari Barrio bajo esaten zaiolarik orain. Aldaketa honetan eragina izan du, gure ustez, herri ondoko Dandaldea bezalako toponimoen desagertpenak.

**Barrio de la Concepción, el:**

La Concepción ermitatik hurbil dagoen auzoa da:

“una cassa sitra en el dho lugar de Gallip<sup>a</sup> en el varrio de la Concepcion” (1769)<sup>2123</sup>

**Barrio de la Fuente, el:**

Iparrera begira dagoen auzoa da, iturria dagoena.

**(Barrio de) Mediavilla, el:**

Dokumentatzerik izan ez dugun euskarazko \*Iriarte(a) baten ordaina dateke:

“una cassa...en la dca villa de gallipienço y endrecera llamada mediabilla” (1605)<sup>2124</sup>

2121 PRA-Oibar, 75. k.

2122 Id., 36. k.

2123 PRA-Kaseda, 22. k.

2124 PRA-Oibar, 15. k-bis.

“una cassa...en el varrio que llaman de Media villa” (1790)<sup>2125</sup>

**Barrio de medio(s), el:**

**Barrio de San Pedro** eta **Barrio alto**-ren artean dago, **Barrio de la Fuente**-ren parean:

“una casa en el Barrio de medios” (1797)<sup>2126</sup>

**Calle de medios** ere deitzen zaio orain, eta dokumentazioan (**Barrio de Mediavilla** itxuran ere azaltzen da. Hau da, diotenez, Galipentzuko auzorik “hoberena”. Bertan daude udaletxea eta **Placeta de la Carnicería** deritzana.

Esan moduan, aurkitzerik izan ez dugun **\*Iriarte(a)** euskaldun baten bai-liokidea dirudi.

**Barrio de San Pedro, el:**

Ikus **Barrio bajo**, **Barrio de medio(s)** eta **San Pedro** sarrerak.

**Barrio de San Salvador, el:**

Ikus **San Salvador** sarrera.

**Barrios, los:**

Ez dakigu zein auzo adierazi nahi ziren 1810ean baizik aurkitu ez dugun izen honen bitartez:

“otra hera...en los barrios”<sup>2127</sup>

**Bartabustu:**

**Bartabustu** aski toponimo iluna da guretzat. Itxuraz Galipentzukoak ere diren **Bartaquilar** eta **Bartasteka**-rekin hasierako elementua eduki dezake amankomunean, baina hau ez da segurua. **-Bustu**-k aragoiera zaharreko **busto** ‘behi edo idi-taldea’-rekin lot liteke, ‘bustal, bustaliza, boyeral’ adiera zuela onartzen bada<sup>2128</sup>:

“Mas otra pieza en bartebustu” (1651)<sup>2129</sup>

“la una (pieza)...sitta en el thermino de Bartabustu theniente a...Camino Real que se ba á Eslaba” (1729)<sup>2130</sup>

Hiruek amankomunean bide duten **bart(a)**- osagaia zer den ez dakigu, baina **Aguilar** edo **Aquilar** dermioak eskuarki mendi edo gainak izaten direnez gero, baliteke

2125 PRA-Kaseda, 33. k.

2126 PRA-Oibar, 82. k.

2127 Id., 115. k.

2128 Ikus Corominas, DCECH, **Busta** sarrera.

2129 IEA, 417. kart., 6. zkia., 10. or.

2130 PRA-Oibar, 41. k.



**bart(a)**- hori muino, mendiko, gain, edo horrelakoren batekin erlazionatua egotea, 1335eko **Puyo de Vartasteca** eta 1645eko **Cantera de Bartaguilar**-ek idarokitzen duten moduan. Guztiarekin ere, **Llano de Bartasteka**-ren modukoak ere azaltzen dira, eta gure uste hori erdi (edo erabat) ustela izan daiteke.

Galipentzuren mugakidea den **Kaseda** herrian itxuraz **bart(a)**- eta **loma** (?)<sup>z</sup> osaturik dagoen **Bartthaloma**<sup>2131</sup> edo **Barttoloma**<sup>2132</sup> azaltzen da, eta hau aipatu etimologia horren aldeko argudioa izan daiteke. Auzo-herri honetan, gainera, **bart(a)** elementua izan dezakeen **Bartullo** [bãrtũlo] mendia dugu<sup>2133</sup>.

Egun disimilazioz edo agian herri etimologiaz **Bartagusto** [bãrtagũsto] bilakatu den hau **Camino de Abaiz**-en bi aldeetan hedatzen da, **El Saso de Lunberri**, **Be-ragu**, **Ardantzeandia**, **Muga de Eslava** eta **Peñazamala** dituelarik mugakide. Gaurrengungo aldaera 1703rako agertzen da:

“una pieza en el terno de Barta gusto”<sup>2134</sup>

Honen ondoren, halaz ere, **Bartabustu** dugu 1721ean<sup>2135</sup> eta 1729an (ikus gorago), gutxieneko kontuan. 1768an **Martta Busto** ageri da<sup>2136</sup>, eta 1795ean **Bartagustu**<sup>2137</sup>.

**Bartaquilar** (artatzea de), (cantera de), (fuente de):

**Bartaquilar**-en (**Bartaguilar** edo **Bartaquilar** hasieran, **Bartiguilar** edo **Bartiquilar** [bãrtikilãr] gero, asimilazioz) **-aquilar** edo **-aguilar** elementu ezagun-hedatua dugu, alegia, beste toki batzuetako **Arranoarria**, **Arranomendia** edo **Arranotegi(a)**-ren<sup>2138</sup> adierakidea.

**Bartaquilar** dokumentazioan beti **-g**-rekin aurkitu badugu ere, daitekeena da inoiz edo behin **-q**-rekin nahastu izana, gaurko **Bartiquilar**-ek lehenago **\*Bartaquilar** bat suposatzen baitu (cf. Agezako **Aquilar** eta Uxueko **Akirazabal**. Ikus sarrera hauek). Nolanahi ere, **Bartaguilar**-en adibideak ere garbiak dira, eta ez dago zalantzarik [g]-dun aldakiak ere dokumentatzen direla:

“...en la endrecera llamada bartaguilar” (1587)<sup>2139</sup>

2131 Id., 65. k., 1764.

2132 PRA-Kaseda, 25. k., 1773.

2133 1692an aurkitu dugu lehen aldikoz (PRA-Kaseda, 6. k.). Beste posibilitate bat hauerako batzuk aipatu **val**-en elkarketako aldakia izan daitekeen **var**-ekin erlazionatzea da (cf. **Varcervera** < **Valcervera** Oibarren), baina inplosioiko **-l**- > **-r**- aldakuntza oso berria da.

2134 PRA-Kaseda, 11. k.

2135 PRA-Oibar, 37. k.

2136 PRA-Kaseda, 21. k.

2137 PRA-Oibar, 80. k.

2138 Ziraukin 1283an **Arranotegui**a azaltzen da. Ikus Lacarraren “Documento de Irache (1283) referente a Cirauqui”, FLV, 17, 1974, 165-182. orr. Luciano Lapuentek **Peña de Arranotegui** biltzen du Ameskoan. Ikus TAM, 401. or.

2139 PRA-Oibar, 3. k-bis.

Alderdi hau herritik hurbil samar dago, La Tejería ondoan. Baranditurri, Pila, Pasalobos, Peñazamala, Beragu, Las Balsas eta La Balsa alta-rekin ere mugatzen du.

1645eko Cantera de Bartaquilar Valescura-ra doan bide ingurua dateke, alegia, La Balsa alta-tik Portillo de Beragu-raino zihoan bidez eskuin aldeko eremua, Bartaquilar-eko alderdirik gorena:

“otra pieza en la cantera de bartaguilar” (1645)<sup>2140</sup>

Hemen ere artea franko zegoen, Artatzea de Bartaquilar-ek erakusten duenez:

“otra pieza...en lastacea de Bartaguilar” (1713)<sup>2141</sup>

Iturria ere bazen antzina:

“dos piezas Junto a la fuente de Bartaguilar” (1713)<sup>2142</sup>

1773an gaurko bokal sabaikaridun formaren aitzindaria den Barteguilar<sup>2143</sup> ediren dugu, eta hogeit urte geroago Bartiguilara<sup>2144</sup>. Bartiguilar (edo Bartiquilar agian) aurren aldiz 1826an agertzen da<sup>2145</sup>.

**Bartasteka (alto de), (cantera de), (cantón de), (llano de), (prado de), (puyo de):**

Toponimo honen lehen osagaia, esan moduan, Bartabustu eta Bartaquilar-en aurkitzen dugun bera dateke:

“otra piª en bartaçeca” (1596)<sup>2146</sup>

“otra pieça en la endrecera llamada en bartasteca” (1601)<sup>2147</sup>

Bigarren osagaia -aka, -eka, eta -ika-z amaitzen diren izenekin lot daiteke, hauen jatorria inola ere garbi ez dagoenagatik, Mitxelena dioen bezala:

“Pentsa daiteke Apodaka ez dagoela bakarrik gure leku izenen artean. Ezagunak dira, izan ere, bukaeran -aka (*Mundaka* eta), -eka (*Erkoreka*, horrela ageri da, *kk* eta *guzti*, XIgn. mendean), eta -ika (*Gernika*, etc.) bukaeran dituzten izen sailak. Atzizkia, atzizki baldin bada, -ka litzateke, -a, -e, -i aurreko «erroari» datxezkiola. «Erroak», egia esan, eta ene usteak balio baldin badu, ez dira euskal etorki garbikoak, ez hurrik eman ere. Nondikakoak diren, ordea, ez nuke nik esango”<sup>2148</sup>

2140 Id., 25. k.

2141 PRA-Kaseda, 16. k.

2142 Id.

2143 Id., 25. k.

2144 PRA-Oibar, 79. k.

2145 Id., 106. k.

2146 Id., 9. k.

2147 Id., 10. k.

2148 Koldo Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak VII. Hizkuntzalaritza II*, Euskal editoreen elkarte, Zarautz, 1988, 112. or.

Alfonso Irigoyenen arabera, erro horiek ez dira, usu asko, horren ilunak. Euskaltzain bizkaitarraren arabera, antroponimo bana proposa daiteke **Gabika** (**Gabi**), **Gatika** (**Cato**), **Albonica**, **Albóniga**, **Almóike** (**Alboni(us)**), eta **Gernika** (**Granius?**)-en moduko toponimoen oinarritako<sup>2149</sup>. Autore honek dioenez, **-ka** edo **-ika** berrekailua genuke hemen, baina ez du honen nondik norakoaren azalpenik ematen<sup>2150</sup>.

**Bartasteka** [bãrtaístéka] altxonbidean hasi eta **Larreta**, **Errekagaitza**, eta **Santitisi**-raino hedatzen da, Aragoa ugaldearen hurbileraino. Goiko aldetik **Pollungu**, **Larreta**, eta **Errekagaitza**-rekin mugatzen du, ibai aldetik **Santitisi**-rekin, eta beheko aldetik **El Saso** eta **Melenas**-ekin.

Dokumentazioan agertzen diren **Alto**<sup>2151</sup>, **Cantón**<sup>2152</sup> edo **Puyo de Bartasteka** gaurko **Cantera** edo **Cantón de Bartasteka** bera dira. 1335eko **Puyo de Vartasteca**-k leku-izena oso zaharra dela frogatzen du:

“otra pieça en el puyo de Vartasteca”<sup>2153</sup>

**Llano de Bartasteka**-k hegoaldeko lautada izan zitekeen, **Santitisi**-ren ondokoa, eta alde honetatik **Bartastekabarrena**-ren erdarazko baliakidetzat jo daiteke:

“otra (pieza)...en el llano de Bartasteca” (1796)<sup>2154</sup>

**Portillo de Bartasteka Camino de los Molinantes**-en dago, **Altxubide**-ren aldamenean. Euskarazko **Bartastekaportillua**-ren ordain erdalduna dela ageriko kontua da:

“otra pieça en el portillo de Bastarteca...thenienttea...Camino Real que se ba a Sada” (1715)<sup>2155</sup>

Orain urte batzuk desagertu zen **Prado de Bartasteka Camino de los Molinantes**-en inguruan zegoen, **Cantón** edo **Puyo de Bartasteka** eta **El Saso**-ren artean:

“otra pieça en bartasteca en elprado” (1645)<sup>2156</sup>

### **Bartastekabarrena:**

**Bartastekabarrena** edo **Llano de Bartasteka**-k **El Prado**-ren alboko hegoaldeko lautada izan behar zuen, **Santitisi**-ren ondokoa:

“otra pieça en bartasteca barena...se atiene al camino Real y pieça de los Raçoneros” (1641)<sup>2157</sup>

2149 LVRLOCM, 15-18. orr.

2150 Guk erabili dugun tesiaren laburpenean bederen.

2151 PRA-Oibar, 81. k., 1796.

2152 PRA-Kaseda, 16. k., 1713.

2153 IEA, 387. kart., 15. org.

2154 PRA-Oibar, 81. k.

2155 Id., 34. k.

2156 Id., 25. k.

2157 IEA, 387. k., 12. zkia., 8. org.

“otra pieza en bartasteca barrena...teniente a prado” (1691)<sup>2158</sup>

### **Bartastekagoiena:**

Hau dermioaren goreneko alderdia izanen zen, **Pollungu** eta **Larreta**-ren ondokoa, eta dirudienez **Alto**, **Cantera**, **Cantón** edo **Puyo de Bartasteka**-tik bereizi beharra dago (ikus **Dermio baten zatiketa** atalean dioguna):

“otra pieza en bartasteca gojena” (1645)<sup>2159</sup>

### **Bartastekaportillua:**

Esan bezala, **Camino de los Molinantes**-en dagoen gaurko **Portillo de Bartasteka**-ren izen euskalduna dugu:

“otra (pieza) en bartasteca portillua” (1645)<sup>2160</sup>

### **Basatea (barranco de):**

Gaurko **Basatea** [bàsátéa]-n baso ‘oihan’-en elkarketako aldaera den **basate** eta **atea** ‘portilua’, ‘harratea’ dituzkegu, Reta Janárizek idarokitzen duen moldean<sup>2161</sup>. Toponimoa euskalduna dela zalantzarik ez dago, baina harrigarria da XX. mende arteko dokumentazioan ez agertzea (cf., halere, kasu berean dagoen Uxueko **Makarreta**).

**Basatea** gaurrengungo **Iribarren**-en azpian dago, ibai ondoan. **Barranco de Basatea La Concepción** ermitatik jaisten den, eta gorago **Barranco de la Concepción** izena ematen zaion erreka dugu.

### **Bastiligorra, paco de:**

**El Paco de Bastiligorra** [bástiligōra] **Paco de la Barrera** eta **Paco de Ondallu**-ren artean dago, mendi-hegal berean, **El Modrojal**-en aurkezean. Ez dugu sekulan dokumentazioan aurkitu, eta egun galbidean dago, gutxi batzuek baizik ez dutelarik go-goan, irudiz.

Izenaren sorburua zein den ez dakigu. Ezizen itxura du, baina Galipentzun mende honetan horrelako izengoitirik ez da izan, gure informatzaileen arabera. Eite euskaldun nabarmena du, eta beste forma argiago baten desitxuraketa izan daiteke.

### **Beneficio, pieza del:**

Dugun lekukotasun bakarrean ikusten denez, **Casa del Gallego**-ren alor(ar)en ondoan zegoen:

2158 PRA-Kaseda, 6. k.

2159 PRA-Oibar, 25. k.

2160 Id., 25. k.

2161 EHZE, 487. Baliteke, alabaina, beste zerbaiten desitxuraketa izatea, dokumentazioko **Larrasatea**-rena, adibidez (ikus sarrera hau). Urbasan ere **Basate** toponimoa dugu bizirik.

“en...Melenas...una pieza...afrenta á piezas de la Casa que llaman del Gallego y del Beneficio” (1797)<sup>2162</sup>

### Beragu (alto de), (monte de), (monte demarcado de), (portillo de):

Eslaban agertzen ere den izen honen etimologia ez da xoil argia, baina Uxueko **Berau** eta **Monte de Berage** dakarkigu burutara (ikus herri honetako **Berage** sarre-ra), eta hau bezala **berro** ‘rotura’ izenarekin zerikusia izan dezakeela uste dugu:

“dos pedazos de cerros en Beragu...mugante a la fuente de Longas y suerte de Anselmo Matheo en puyaraso” (1777)<sup>2163</sup>

“otra pieza en el monte roturado de Berogu” (1777)<sup>2164</sup>

**Beragu** [berágu] dermioa **Portillo de Beragu** deitu aurkientzan hasten da, eta Eslabako mugaraino hedatzen, **El Solano**-z beste alde guztia, oihezki guztia, hartzen duelarik<sup>2165</sup>. Hortaz, ez da harritzeko dokumentazioan “monte” deitzea, izan ere, mendia baita:

“...y el monte demarcado llamado Berau” (1772)<sup>2166</sup>

**Alto de Beragu** beste gisaz **Alto del Solano** deitzen den hegia da, **San Pelayo**-tik Eslabako mugaraino doana.

J. Gárrizen arabera<sup>2167</sup>, **Beragu** (berak **Beraga** aipatzen du) Galipentzuko Erdi Aroko despoplatuetako bat da, **Aurino**, **Valdarras** eta **Valescura** bezala.

### Bideberria (camino de):

Hemen, bistan denez, **bide** izena eta **berria** izenondoa ditugu:

“la una (pieza)...en el terno que llaman Bideberria tenite a Camino Rl que ban al termino de cruzidoia” (1723)<sup>2168</sup>

Euskara galtzarekin desitxuratuz joan zen, gaurko **Birbiria** [bīrbīría]-ra iritsi arte: **Bibiguerra** (1793)<sup>2169</sup>, **Biriverri** (1795)<sup>2170</sup>, **Bidabirria**, **Bidibirria** (1797)<sup>2171</sup>, **Bidirivia** (1804)<sup>2172</sup>. Desitxuraketa honek **bide**, **bi** eta iri ‘hurbil’-ez osatua zegoela pentsarazi zion Reta Janárizi<sup>2173</sup>.

2162 PRA-Kaseda, 36. k.

2163 Id., 29. k.

2164 Id.

2165 Mendi gailurrari **San Pelayo** deritza.

2166 PRA-Kaseda, 24. k.

2167 *Despoblados*, 21. or.

2168 PRA-Kaseda, 38. k.

2169 PRA-Oibar, 79. k.

2170 Id., 80. k.

2171 Id., 82. k.

2172 PRA-Kaseda, 38. k.

2173 EHZE, 487. or.

Kasu honetan ere euskal toponimoak erromantzez erabiliak izatean jasan ohi duten -rr- > -r- pausoa (cf. Larregureneta > Larreguneta > Laragoneta; Ibarreko harana > Barikorana...) gauzatu da.

**Bideberria Cruz de Idoia**-tik ardanegi ondoraino, **El Mayo** (behinolako Ibarreko zabala)-raino doa, bidearen inguruko lurak ere hartuz:

“una pieza...en los terminos de la dha vª y en el llamado videberria... theniente al Camino Real” (1688)<sup>2174</sup>

Bide honetatik lehen gurdiak igotzen omen ziren Galipentzura.

**Billakukuru** (barranco de):

Hasierako **billa**- erdarazko **villa**-rekin lot genezake (cf. Uxuen **Billeta**, **Los Villares**) eta **-kukuru** latineko **cucullu** ‘capucho’<sup>2175</sup>-ren eratorritakotzat har genezake (cf. **kukulin** ‘galdurra’, **kukulu** ‘tallo superior del maiz’, ‘cogollo’<sup>2176</sup>), baina latineko **-ll**-tik **-l**-dugu gure hizkuntzan (cf. **cella** > **gela**, edo **Vallatu** > **Balatua** Leatxen) eta gure ustez etimologia onartzeko modukoa den arren (cf. erdarazko **San Millan de la Cogolla**, eta euskarazko Burgiko **La Kukula**, edo Garraldako **Kukuluko pikatzea** haizak eta **Kukuluko balsaldea** dermioa), garbi dago zailtasun fonetikoak badirela. Hau gainditzeko modu bat albokari disimilazioa burutu dela suposatzea da:

“una bifa...en la endreçera llamada billa CuCuru” (1615)<sup>2177</sup>

**Gaurko Billakukuru** [b̥ɨjakukúru] edo **Billakukuro** [b̥ɨjakukúro] **Zabaleta** barruko eremu txiki eta erabat laua izendatzeko ibiltzen da, eta hau ere proposatutako etimologia horren kontra mintzo da. Zabalgunek honek **Lejua**, **Barranco el Rojo**, **Paco de Zabaleta** eta **Aurino** alto-ko bidearekin mugatzen du.

1687an azaltzen den **Barranco de Villacucuru** gaurko **Barranco de Zabaleta** da:

“un cerrado en...mugazuria...que afrenta...con el Camino que ban a Uxue y de la otra parte con el Barranco que llaman de Villacucuru” (1687)<sup>2178</sup>

-O-dun forma aurrean aldiz 1772an aurkitu dugu:

“otra (pieza)...en...Villacucuro” (1772)<sup>2179</sup>

**Bizarrubia**:

Toponimo hau (bitan) XVIII. mendearen bukaera aldean ediren dugu, euskara Galipentzun galdua zegoenean. Hau dela eta, ordurako desitxuratua edo desitxuratzen hasia ez ote zen galde diezaiokegu geure buruari. Itxuraz **-arrubia** horren azpian **arrobia**

2174 PRA-Kaseda, 4. k.

2175 Corominas, DCELC.

2176 Azkuek DVEF-en bilduak.

2177 PRA-Oibar, 18. k.

2178 PRA-Kaseda, 4. k.

2179 Id., 24. k.

egon daiteke, baina ez dugu honen frogarik. Badakigu Aragoa ugaldearen ondoan zegoela:

“un corral... con su cavaña... afrontan al...Rio Aragon...en el tero de Bizarrubia”  
(1777)<sup>2180</sup>

**Bodega, la:**

El Mayo-n dago, antzinako Ibarreko zabala-n (ikus sarrera hau).

**Bollo, el:**

Herri ondoan dagoen ogi edo “bollo” itxurako haitza dugu hau. Bertan La Cueva del Cura deritzan lexettoa dago, lur arras.

**Boyerál, el:**

Idi-larre bat baino gehiago izan da Galipentzun, beti ere herri lurretan: bat **Kaparreta**-n zegoen, ahuntzentzat altxatua, eta bestea **Valescura**-n, **Balsa de los Artos** eta **Balsa de Manuel** aldean.

**Boyerál** gure eskualdean herriko azienda larriak (ahuntzak ere eramaten ziren maiz) larretzen diren herri lur zatia da. Hau bat dator Iribarrenek Erronkari eta Zaraitzurako ematen duen definizioarekin<sup>2181</sup>.

**Buztinzuloa:**

Buztin eta zuloa ditugu hemen. Behin bakarrik ediren dugu, 1693an:

“otra pieça en bustin çuloa”<sup>2182</sup>

**Cabaña, la:**

Behin bakarrik ageri da, eta ez dakigu izen arruntetako ala berezitako hartu behar den. Agian Uxueko mugan zegoen **Kapana**-rekin identifikatu behar litzateke (ikus sarrera hau):

“otra pieça en la cabaña...que tiene senda por medio azia la sarda” (1608)<sup>2183</sup>

**Calera, la:**

Reta Janárizek biltzen duen hau non dagoen ez dakigu<sup>2184</sup>. Euskaraz **Gisutzea**, **Kisuetá** eta **Labekoaldea** ditugu Galipentzun.

2180 Id., 29. k.

2181 Ikus VN.

2182 PRA-Kaseda, 7. k.

2183 PRA-Oibar, 13. k.

2184 EHZE, 489. or.

**Calle de medios, la:**

Ikus **Barrio de medio(s)** sarrera.

**Calle del Norte, la:**

Seguru asko **Barrio de la Fuente** adierazteko beste bide bat zen hau. Izan ere, auzo honek iparrera ematen du, eta **calle** eta **barrio**, agiritan batez ere, nahikoa nahasirik azaltzen dira (cf. **Barrio de medios / Calle de medios**):

“la casa...sita en la calle del Norte” (1860)<sup>2185</sup>

**Camino de Abaiz, el:**

**Pila** eta **Bartaquilar**-en artetik, **Balsa de Pasalobos**-en ondotik, **Prado de Peñazamala**-ra doa. Hemendik, **Bartabustu**-n zehar, **Eslabako** lurretan sartzen da, **Puyarraso**-ren albotik:

“Mas otra pieza en puyarraso...en la muga de Eslaba tenite a camino que se ba a Abayz” (1691)<sup>2186</sup>

**Camino de Abaiz a Sangüesa:**

Gaur izen honekin ezezaguna den bidea **Balarata**-n gaindi zihohan, eta garbi dago **Eslabako** izen bereko odonimoarekin lotu beharra dagoela:

“una pieza...en...balarata...theniente a Camino R1 q ban a Abaiz los de Sanguesa y una calera a lado” (1711)<sup>2187</sup>

**Camino de Aibar, el:**

**Orain**<sup>2188</sup> **Oibarra** altxonbidetik joaten da, **Zaren** barrena. Dokumentazioan, ordea, bide hau **El Azute**-tik zihovala ikusten dugu (ikus sarrera hau), eta beraz **Oibarra** joateko gaurkoaz beste biderik bazela garbi xamar ageri da.

**Camino de Aibar y Sangüesa, el:**

**Aurrekoarekin** lot liteke **Errekagaitza**-n barrena zihohan hau:

“ottra pieza...en el camino de Aibar y sanga llamado Reaiza” (1724)<sup>2189</sup>

**Guztiarekin** ere, kontua ez dago zeharo garbi, **Camino de Sangüesa** ere izan daitekeelako, edo aipatzen den alorra lehenago **Camino de Aibar** eta **Camino de Sangüesa** bereizi aitzinean egon zitekeelako.

2185 PRA-Kaseda, 62. k.

2186 Id., 6. k.

2187 Id., 15. k.

2188 "Orain" honekin "duela urte mordoxka" adierazi nahi dugu, kotxeak oraindik ere urriak ziren garaia, alegia.

2189 PRA-Oibar, 38. k.



**Camino de Ardantzeandia, el:**

**Ardantzeandia**-ra **Pila** eta **Bartaquilar**-en tartetik nahiz **Baranditurri** eta **Paco de las Minas**-etik joan daiteke. Bigarren bide hau hartzen bada, Juan Ariveren gortetik ezkerretara hartu behar da, **Larregureneta**-ra. Hemen, lehenarekin bat egingakoan, Eslaba aldera jarraitzen du, beheko **Fuente de Ardantzeandia**-ren ingurutik igaro ondoren:

“otra pieza en larraguneta camino de ardanzeria” (1635)<sup>2190</sup>

Lecino izeneko dermiotik ere igarotzen zen lehen:

“otra pieza...en...Lenzino, teniente a...Camino para Ranzandia” (1840)<sup>2191</sup>

**Camino de Ayesa, el:**

**Agezabidea** euskaldunaren baliokide erdalduna da:

“otra pi<sup>a</sup> en el camino de ayesa” (1596)<sup>2192</sup>

**Camino de Ayesa a Gallipienzo:**

**Ikus Senda de Ayesa a Gallipienzo.**

**Camino de Bardena:**

Antzinako **Urrutia**-n barrera zihuan (ikus sarrera hau). **Camino de Carcastillo** bera da. **Kaparreta** eta **La Sierra**-n zehar ere joan daiteke **Bardena**-ra.

**Camino de Bartaquilar:**

Epaiz eta Eslaba aldera doan bera da:

“otra pieza camino de vartaguilar...” (1608)<sup>2193</sup>

**Camino de Beragu:**

Gauregun lerrez estalia dagoen **Camino de Beragu Las Salericas** pasatu eta berehala hasten zen, eta Eslabako mugaren inguruetaraino luzatzen. 1843an azaltzen dena **El Soto**-tik igotzen zena da:

“otro (campo)...en dho termino (El Soto-n) afronta a camino de Beragu” (1843)<sup>2194</sup>

**Camino de Bideberria, el:**

**Cruz de Idoia**-tik **El Mayo**-ra doa (ikus **Bideberria** sarrera).

---

2190 Id., 23. k.

2191 Id., 115. k.

2192 Id., 9. k.

2193 Id., 13. k.

2194 PRA-Kaseda, 56. k.

**Camino de Caseda, el:**

“Puente romano” delakoa zeharkatzen du lehenik, eta **Kaparreta** gero, **Kasedaranzko** bere ibilian:

“otra pieza en Caparreta Juntto el camino de Casseda” (1720)<sup>2195</sup>

**Camino de Dandaldea:**

Herri ondoan dauden bidexka ugarietako bat zatekeen:

“otra casa camino de Anda Aldea teniente a guerto...” (1686)<sup>2196</sup>

**Camino de Ekarra:**

**Cruz de Idoia** igaro ondoren, **Tximarra** eta **Ibarreko harana**-n zehar, **Cantón de Ekarra**-raino doa:

“en el ttermino llamado barricorana que afronta a...camino qe va al ttermino llamado Ecarra” (1816)<sup>2197</sup>

**Camino de Engubelea, el:**

**Camino de la Sierra**-ren lehen zatia da:

“otra pieza en el Boyeral, de Capareta...qe afronta â el camino, que se ba â en Gubelea” (1769)<sup>2198</sup>

**Camino de Erbiña, el:**

**Camino del Puente**-ren jarraipena da, hau da, zubitik **Erbíña** aldera doana:

“(una pieza?)...camino que se va a Erbiña” (1752)<sup>2199</sup>

**Camino de Errotazarra, el:**

Dokumentazioko **Camino de Errotazarra** gaurregungo **Camino del Molinaz** bera izan daiteke, **El Molinaz** eta **Errotazarra**, jatorriz behintzat, gauza bera baitira:

“una pieza...en el camino que bajan al puentte, teniente al camino Ra y Camino que ban al termino llamado Rottazarra” (1727)<sup>2200</sup>

“una biña...en la fuente Bieja...theniente a Camino que se ba a Rotazarra” (1767)<sup>2201</sup>

**Guztiarekin** ere, egungo **Camino de Errotazarra** eta **Camino del Molinaz** diferenteak dira, **Errotazarra** eta **El Molinaz** diferenteak diren bezalaxe.

2195 PRA-Oibar, 36. k.

2196 PRA-Kaseda, 3. k.

2197 PRA-San Martin, 79. k.

2198 PRA-Kaseda, 22. k.

2199 PRA-San Martin, 41. k.

2200 PRA-Oibar, 40. k.

2201 Id., 63. k.

**Camino de Eslava, el:**

Eslabara joateko bi bide nagusi ditugu: lehena **Pila** eta **Bartaquilar**-en arte-tik doa, **Peñazamala**, **Larregureneta**, **Ardantzeandia** eta **Gezari**-n gaindi; bigarrena **Paco de las Minas**-etik **San Juan**-era doa, eta hemendik **Kaskallu** eta **Gezari**-ra, lehenarekin elkartzera:

“una pieza sobrealenditurri...tente con...camino que se ba a Eslava” (1705)<sup>2202</sup>

“otra pieza...en...Ardanzeandia teniente a...Camino Real que ban â eslava” (1727)<sup>2203</sup>

Epaizko bidetik ere joaten zela dirudi.

**Camino de Eslava al Molino, el:**

Bide honi beste modu batez **Camino de los Molinantes** deitzen zaio, eta Eslabako mugatik **Ripodas**-ko errotara doa. **Camino de Pamplona** izena ere eman izan zaio (ikus **Meazukoerreket**a sarrera):

“una pieza...en...Meazu...theniente al Camino que ban al molino de Estta Villa, los de Eslava” (1732)<sup>2204</sup>

**Camino de Garandako harana, el:**

**Garandako harana**-tik **Paso de Melenas**-a (gaurko **Puente de Melenas**-a) zihoan. **Melenas**-etik herri berrira joateko dagoen errepidearen aintzindaria dela irudi du:

“otra pieza...Junto al paso de Melenas tenite a Camino RI que sube de Garandacoarana” (1721)<sup>2205</sup>

**Camino de Ibarreko harana, el:**

**Ekarra**-ra doana izan daiteke, alderdi horretara joateko **Ibarreko harana** gurutzatutako behar delako. **Cantera de Melenas**-a doana ere izan daiteke:

“otra pieza...teniente a...camino de Barricorana” (1765)<sup>2206</sup>

Oraingo **Camino** edo **Carretil de Ibarreko harana** berria da.

**Camino de Ibarreko zabala, el:**

**El Mayo**-ra doazen bideetako batek izan behar zuen orain ezezaguna den **Ibarreko zabala**-ra zihoana. Izan ere, badakigu gaurko **El Mayo** eta antzinako **Ibarreko zabala** bat eta bera direla:

2202 PRA-Kaseda, 12. k.

2203 PRA-Oibar, 40. k.

2204 Id., 43. k.

2205 Id., 37. k.

2206 PRA-San Martin, 47. k.

“Mas otra (pieza)...afrentta con...camino real del termino de Barricozabala” (1799)<sup>2207</sup>

#### Camino de Kapalarraña, el:

Dokumentazioan ediren dugun **Camino de Kapalarraña** dermio orain ezezagun honetatik **Pillastrupa**-ra jaisten zen, itxuraz:

“otra pieza en el mismo terno (**Pillastrupa**-n) teniete a Caminos Rls q bajan de las eras bajas y de Capalarraña” (1721)<sup>2208</sup>

#### Camino de Kaskallu:

Eslabara doan goiko bidea da, lehen “bigarren” deitu duguna. 1612ko lekukotasunean ikusten den bezala, **Lakuarana** edo **Lakuko harana**-n gaindi zihoan:

“otra pieca en Lacucoarana...que affrenta con...camino que ban a cascallu”<sup>2209</sup>

#### Camino de la Barrera, el:

Bi **Camino de la Barrera** ditugu Galipentzun: bata **Camino de Ujué**-tik atera, eta **Paco de Valizarza**-ren albotik, **Paco de la Vaquera** eta **La Barrera** aldera doa. Bestea berriz, **Paso de la Barrera**-tik **La Barrera** aldera doa.

#### Camino de la Cañada, el:

Zaretik **Valeciera**-n zehar Galipentzura heldu den altxonbide eta errepidea da:

“otra pieza en...Baleziera theniente al Camino de la Cañada” (1730)<sup>2210</sup>

#### Camino de la Casa vieja, el:

Ondoan duen etxe zahar hondatutik datorkio izena bide honi (ikus **Casa vieja** sarrera). Altxonbidetik zubira doan bidera jaisten da.

#### Camino de la Cruz de Idoia, el:

**Cruz de Idoia**-ra joateko biderik erabiliena altxonbidea zen. Bestela errepidetik ere joan daiteke. 1723an aurkitzen dugun **Camino de Cruzidoia**, ordea, **Bideberria** da (ikus sarrera hau).

#### Camino de la Cueva, el:

Herritik **La Cueva**-ra jaisten da. Galipentzuko aldirietatik igarotzen den altxonbidea ere bide honetatik doa.

---

2207 Id., 68. k.

2208 PRA-Oibar, 37. k.

2209 Id., 17. k.

2210 Id., 42. k.

**Camino de la Fuente de Ardantzeandia:**

Ez dakigu zehazki zein zen. Izan ere, **Ardantzeandia**-n orain bi iturri daude, bata Eslabako bidearen ondoan, eta bestea Nicolás Arbeloaren gortearen aldamenean:

“otra pieza...en el Camino Que se ba a la fuente de Ardanzeandia” (1730)<sup>2211</sup>

**Camino de la Fuente de Baranditurri, el:**

Herritik hurbil dagoen iturrira doa. Aurrenekoz 1816an aurkitu dugu:

“...camino que se va a la Fuente de Balenturri”<sup>2212</sup>

**Camino de la Fuente de Iturrizarra:**

**La Fuente vieja**-ra doan bidea dela dirudi:

“otra pieza en el mismo terno (**Erbiñako ordokia**-n)...thenientea... camino q se ba a la fuente de yturrizarra” (1706)<sup>2213</sup>

**Camino de la Fuente vieja:**

Aurreko bera da, hots, **Revueltica de la Virgen**-etik atera, eta iturritik pasatu ondoren, **El Mayo**-ra doana. **Iturrizarra**-ra **Camino del Molinaz**-etik ere joan daiteke. 1765eko lekukotasunean ikus daitekeen bezala, **Iturraldea** deitu parajeen zuen abiapuntu:

“una pieza...en Torraldea tente a camino q baja á la fuente bieja” (1765)<sup>2214</sup>

**Camino de la Montaña a la Ribera:**

Gure informatzaileak dioenez, menditarrak altxonbidetik jaisten ziren, Zareko bidetik. Galipentzura sartu nahi ez bazuten, **Melenas**-etik **Garandako harana**-n barna **Santa Elena**-ra joaten ziren, eta hemendik, **Erbiña** eta **El Molinaz**-tik, zubira. Zubitik aukeran zeukaten **Murilloko bidea** edo **Zarrakaztelukoa** hartzea.

1814eko lekukoan ageri dena **Erbiña**-n barrena doana da:

“(una pieza) sita en el termino de herbiña...afrota de parte del oriente a Camino que se transita de la Ribera p<sup>a</sup> la Montaña...y del Norte a Camino del Pueblo p<sup>a</sup> el Molino” (1814)<sup>2215</sup>

**Camino de la Peñaza, el:**

**Camino de Ujué**-tik **La Peñaza**-n zehar **El Modrojal** aldera doa.

2211 Id., 42. k.

2212 PRA-San Martin, 79. k.

2213 PRA-Kaseda, 13. k.

2214 PRA-San Martin, 47. k.

2215 PRA-Kaseda, 42. k.

**Camino de la Sierra, el:**

**Kaparreta eta Engubelea-tik La Sierra-ra doa (ikus Kaparreta). Mutxarka-n Camino de Bardena edo Camino de Carcastillo-rekin bat egiten du**

**Camino de Larreta, el:**

**Portillo de Larreta-tik Larreta eta Zarera doa:**

“...camino q se ba a Larretta” (1767)<sup>2216</sup>

**Camino de las Cruces:**

Gaurregun Camino del Calvario deitzen zaio. Bide hau San Pedro elizatik atera ondoren, Calle de medios eta Barrio de la Concepción-en gaindi La Concepción ermitara doa, El Bollo deitu ogi-itxurako haitzaren gainetik, amildegiaeren goiko aldetik, xendra arriskugarrietan zehar Irigoiena edo Barrio de arriba-ra, eta hemendik, azkenik, San Salvador elizara. Bidezigor arriskutsu horien bazterretan ikusgai daude oraindik ere harrizko gurutzeak:

“dos huertos...lindantes con camino de las cruces” (1840)<sup>2217</sup>

**Camino de las Cuevas, el:**

Ikus Camino de Ujué sarrera.

**Camino de las Eras bajas:**

Bide hau Pillastrupa-ra zihoan (ikus Camino de Kapalarraña sarrera), gaurko Eras bajas (edo Eras de abajo) eta orain ezezaguna den Kapalarraña-n barna.

**Camino de las Fuentes, el:**

Camino de Ayesa bera da.

**Camino de las Ripas:**

Albozko harana-tik Las Ripas-a doazen bideetako bat da dokumentazioko hau:

“otra pieza...en el termino de Albozcoarana teniente por âmbas parttes â Caminos que se ba a las Ripas y Liazettas” (1727)<sup>2218</sup>

**Camino de Lerga al Molino:**

Lergakoek, Galipentzuko Ripodas-ko errotara joateko, Eslabako udalerrria gurutzatu eta Camino de los Molinantes hartzen zuten:

2216 PRA-San Martin, 48. k.

2217 PRA-Oibar, 115. k.

2218 Id., 40. k.

“una pieza...en...el Ponttarron teniente a...Camino que baxan los de la villa de Lerga al molino de esta villa” (1729)<sup>2219</sup>

#### Camino de Liatzeta:

Albozko harana-tik abiatzen edo igarotzen zen, Camino de Las Ripas aztertzean ikusi bezala. Egun Liatzeta ezezaguna denez gero, ez dakigu dermio honetara zihoan bidea eta Las Ripas-a zihoana bera zen ala ez. Nolanahi ere, lihatze edo ligueerriak ugaldetara eta erreken ondoan egoten ziren, eta hau dela eta, Galipentzuko Liatzeta El Riacho-n zegoela uste dugu, Las Ripas-etik hurbil.

#### Camino de los Molinantes, el:

Eslabako mugatik Central de arriba edo Ripodas-ko errotara doa. Esan moduan, bide honetan barrena etortzen zen Lerga eta Eslabako jendea alea ehotzera, eta hortik izena:

“otra pieza...en bartasteca theniente a...Camino de los molinanttes” (1732)<sup>2220</sup>

Iruñerako bidea (edo bideetako bat behintzat) ere bazen, berriki arte.

#### Camino de los Ripazos, el:

Camino de Carcastillo-n (Los Ripazos-en) hasi, eta bide berean baina Muxarria-n amaitzen den bihurtuz beteriko bidexka da. Camino de la Sierra-rekin ere badu lotura.

#### Camino de Melenas, el:

Gaurregun Melenas-a joateko hiru bide daude: errepidea, altxonbidea, eta Tximarra-ko bidelasterra. 1591ko lekukotasunean aipatzen den Camino de Melenas, ordea, Ekarra-tik abiatzen dena da:

“una pieza...en...Ecarra...que afuenta...con el Camino q ban a melenas” (1591)<sup>2221</sup>

#### Camino de Murillo, el:

Ibaiaren paretik doa, Aurino aldetik. Uxueko errotatik Ondallu, San Zoilo, Lejua, El Ferial, Zamakidoi, eta Aurino bajo-n barrena Uxueko lurretan sartzen da lehenik, eta Murillokoetan gero. Antzina orain ezezaguna den Arrondoa-tik igarotzen zen (ikus sarrera hau):

“dos cargas de tierra...en el terno de Zamaquidoy que afronttan al camino de Murillo y al Rio” (1773)<sup>2222</sup>

2219 Id., 41. k.

2220 Id., 43. k.

2221 Id., 5. k.

2222 PRA-San Martin, 51. k.

**Camino de Ormakieta, el:**

**El Puntallo-tik Ormakieta-ra** zihoan bidea zen, orain **Pila-tik San Juan** aldera doana, alegia:

“una pieza en Pila llamado (sic) el puntallo...theniente a...camino que se ba a ormaquieta” (1705)<sup>2223</sup>

**Camino de Pamplona, el:**

Galipentzutik Nafarroako hiriburura zihoan, bistan denez:

“ottra viña...en el Camino que se ba â Pampna” (1720)<sup>2224</sup>

Ikus hurrengo sarrera.

**Camino de Pamplona y Sada a Gallipienzo, el:**

1771ko lekukoa aintzat hartzen bada (ez dago aintzat ez hartzeko arrazoirik), Galipentzura Iruñetik Zaren barna etortzen zirela pentsatu beharko dugu:

“y finalmente sirven de mugas para esta corraliza (La Elka) las mismas que dividen los terns desta vª y lugar de Ayessa, hasta el Camino Rl que viene de Pamplona y Sada para esta villa”<sup>2225</sup>

Dena den, orain gutxi arte **Camino de Pamplona Camino de los Molinantes** izan da.

**Camino de Peñazamala, el:**

**Camino de Eslava** eta **Camino de Pila** bera da.

**Camino de Pila, el:**

**Valeciera-tik Pila-n** barrena **Las Minas**-aino doa.

**Camino de Pontarrón:**

**Albozko harana-tik, San Juan** eta **Las Ripas**-en artetik, **El Riacho**-ra doa:

“mas en albozcorona una pieza...teniente a...Camino que se ba al termino de puntarron” (1770)<sup>2226</sup>

**Camino de Sada, el:**

**Altzubidea** bera da, 1770eko lekukoak garbi erakusten duenez:

---

2223 PRA-Kaseda, 12. k.

2224 PRA-Oibar, 36. k.

2225 PRA-Kaseda, 23. k.

2226 PRA-Oibar, 68. k.



"otra pieza en Alchubidea...que afrontta con...Camino que ban los de Gallip<sup>o</sup> a Sada"<sup>2227</sup>

#### Camino de Sada y Aibar, el:

Mende honetan Zare eta Oibarrera altxonbidetik joaten zen. 1705eko dokumentuan aurkitu duguna bide hori berori dela dirudi (ikus, dena den, **El Azute** sarreran esandakoa):

"otra pieza en Garandaco Zavala...theniente con...pieza de la Cofradia de Santiago y camino RI que se ba a Sada y Aybar" (1705)<sup>2228</sup>

#### Camino de San Babil, el:

Eslabako bidea da, **Larregureneta-tik Ardantzeandia-ra** doana:

"otra pieça en el camino de san babil" (1617)<sup>2229</sup>

#### Camino de San Juan, el:

**Paco de las Minas-en** zehar **San Juan-a** doa.

#### Camino de Sangüesa, el:

**El Mayo** eta **Santa Elena-n** barna, **Santitisi-ren** ondotik, **La Recueja-ra** doa, eta hemendik **Kasedara**. Gure lekukotasunean ikus daitekeen moduan, **Ibarreko zabala-tik** igarotzen zen:

"otra pieza en..Berricozabala thenientte â Camino Que se ba al Molino desta villa y Camino que se ba a Sanguesa" (1730)<sup>2230</sup>

Honek gaurko **El Mayo** eremua antzina **Ibarreko zabala** zela frogatzen du.

#### Camino de Sopenas:

Ez dakigu non barrena zihoan, ez eta **Sopenas** non zegoen ere. 1840an aurkitu dugu aurren eta azken aldikoz<sup>2231</sup>.

#### Camino de Tximarra, el:

**Tximarra-ra** joateko biderik aproposena, gaurregun, altxonbidetik **Cruz de Idoia-rakoa** da. Hemen **Cantera de Melenas-eraino** doan lasterbidea hartu behar da:

"Ms otra pieza en chimarra al cabo alto del camino" (1655)<sup>2232</sup>

2227 PRA-Kaseda, 22. k.

2228 Id., 12. k.

2229 PRA-Oibar, 19. k.

2230 Id., 42. k.

2231 Id., 115. k.

2232 Id., 27. k.

**Camino de Ujué, el:**

Galipentzutik Uxuera eta Uxuetik Galipentzura Valescura-n zehar joaten da orain, baina **Aristuziaga, Zabaleta, eta Larrañetako mendia eta Ondallu-ren arteko** altxonbidea edo **Camino del Molino** ere erabili izan dute bi herrietakoek:

“otra pieça en çabaleta...se atiene a los caminos que ban para Uxue y a pedrocal”  
(1335)<sup>2233</sup>

Badirudi Galipentzutik Uxuera **Camino de las Cuevas**-etik ere joan zitekeela, hots, gaurko **La Cueva del Pozo grande** eta **La Cueva de la Marta**-ren albotik, **Fuente de Pío**-raino<sup>2234</sup>. **El Modrojal**-etik **Pozo grande**-rainoko bidea harriztatua egon da duela denbora gutxi arte:

“...en el camino de Ujue y senda de Baldescura y ttermino llamado las cuebas”  
(1816)<sup>2235</sup>

**Camino de Valescura**

**Ondallu**-tik **Valescura**-n gaindi Uxuera zihuan. Ez dakigu altxonbidearekin identifikatu behar den ala **El Modrojal**-etik zihoaena zen:

“otra viña...en Undallo afrenta á...Camino para Baldeoscura” (1852)<sup>2236</sup>

**Camino del Molinaz, el:**

Herritik **El Molinaz** aldera jaisten da.

**Camino del Molino:**

Itxuraz (**Cruz de**) **Idoia**-tik **Bideberria**-n barrena **Ibarreko zabala** (gaurko **El Mayo**)-ra jaisten zen, eta alderdi honetatik, **Santitisi**-ren ondotik, errotara zihuan (zabalgune honetatik aurrera **Camino de Sangüesa** zeritzan):

“otra pieza...en...Ydoia...que afrontta con...Camino Real que se ba a el Molino”  
(1765)<sup>2237</sup>

**Camino del Monte:**

Ez dakigu zein zen 1767an<sup>2238</sup> agertzen den hau.

**Camino del Palomar, el:**

**El Palomar** dermiora doan **Camino de la Sierra** bera da.

2233 IEA, 387. kart., 12. zkia., 9. org.

2234 Beste posibilitate bar “Cabaña del Fiero”-tik Uxueko **Mugazuria**-ra sartzea da, “Corral de Carraña”-ra. Bide honetatik joanez gero, **La Cueva de la Marta** eskuin aldean gelditzen da.

2235 PRA-San Martin, 79. k.

2236 PRA-Kaseda, 59. k.

2237 Id., 66. k.

2238 PRA-San Martin, 48. k.

**Camino del Pedrocal:**

Zabaleta-tik, El Pedrocal-en albotik, Aurino alto-ra doa (ikus Camino de Ujué sarrera).

**Camino del Puente, el:**

Herritik Aragoa gainditzen duen zuberaino doa. Antzina Portaletxikia-tik abiatzen zen:

“Mas dos huertos en Portalchiquia...teniente a Huerto de...y Camino Rl que bajan al puente” (1691)<sup>2239</sup>

**Camino del Río (mayor), el:**

Dirudienez, euskal Urandibidea-ren (ikus sarrera hau) ordain erdalduna da. Galipentzutik Aragoa ugaldera joateko bi bide nagusi daude: Camino de la Cueva eta Camino del Puente:

“una pieza...en el terno de la fuente bieja, q afronta a...camino q se baja al Rio” (1787)<sup>2240</sup>

**Camino del Río de la Fuente, el:**

Ez dakigu zein zen:

“ytten en el camino del Río de la fuente...” (1645)<sup>2241</sup>

**Camino del Solano, el:**

Camino de Ujué-tik San Pelayo-ra igotzen den bidexkari esaten zaio Caminico del Solano.

**Camino del Soto del Pontarrón:**

Lekukoa nahasgarria da, eta bi interpretazio ezberdin izan ditzake: El Soto-tik Pontarrón-era doan bidez mintzo dela pentsa dezakegu, nahiz Pontarrón aldeko zalduaz mintzo dela:

“otra pieza en...Legastui theniente a...Camino que se baxa al sotto del Pontarron” (1730)<sup>2242</sup>

**Camino viejo de Melenas:**

1651rako zahartzat jotzen den hau gorago ikusi dugun Camino de Melenas bera da, antza (ikus sarrera hau):

---

2239 PRA-Kaseda, 6. k.

2240 Id., 75. k.

2241 PRA-Oibar, 25. k.

2242 Id., 42. k.

“Mas otra pieza en Ecarra...teniente a...Camino Viejo que ban a Melenas” (1651)<sup>2243</sup>

#### **Caminos de la Cruz de Idoia:**

Herritik **Cruz de Idoia**-ra zihoazen bi bideak ziren hauek:

“una cassa...enttre dos caminos que baxan a la Cruz de Ydoia” (1730)<sup>2244</sup>

#### **Campo de Domingaz, el:**

**La Cruceta** eta **Alto de la Gudilla**-ren artean dago, **Plandeoliva**-n. **Domingaz** lehengo norbaiten izen, deitura edo izengoitia dateke.

#### **Campo de la Villa:**

**Legaztui** (ikus sarrera hau) eta **San Juan** ondoan zegoen. **Ikus Zareko Auza-lor** eta **Villa** sarrerak. **Ikus, berebat, Uxueko Berro de la Villa.**

#### **Campo de las Ondas, el:**

**Kaparreta**-n dago, **Morate** ondoan, **Camino de Carcastillo** (altxonbidea) eta ugaldearen artean. Alor honen ondoan badira ibaian “uhin” moduko batzuk sortaraz-ten dituzten harriak, eta honi zor bide zaio toponimoa (ikus **Ondallu** sarreraren dioguna).

#### **Campo del Santo, el:**

**Aurino** alto-n dago, **Cantón de Zabaleta**-ren ondoan. leku-izen hau ez dugu sekulan aurkitu dokumentazioan, eta ez dakigu zeri zor zaion.

#### **Cantón de Cumba, el:**

Bi **Cantón de Cumba** ditugu herrian, bat **Cumba**-ren<sup>2245</sup> etxearen gaineko aldean, eta bestea azpian, biak **Barrio de medios**-en, **Casas de la Concepción** aldera.

#### **Cantón de la Natalia, el:**

Herrian bertan dago, **Calle de medios** eta **Barrio** alto-ren artean. **Natalia** emazteki-izena da, bistan denez.

#### **Cañada, la:**

**Ikus Altxubidea** sarrera.

2243 IEA, 417. kart., 6. zkia., 10. or.

2244 PRA-Oibar, 42. k.

2245 Gorago esan moduan, **Cumba** Galipentzuko deitura da.

**Carasol de Narciso, el:**

**Paco del Palomar**-en pareko egutera da, hots, aurkez aurke dagoena. **Narciso** galipentzuar baten izena dugu, aise antzeman dakiokkeen bezala.

**Carnicería, barrio de la; placeta de la; plaza de la:**

Dokumentazioko **Barrio de la Carnicería** egungo **Calle de medios**-en dagoen **Plaza** edo **Placeta de la Carnicería**-ren inguruko etxeek osatuko zuten. Plaza honetan lehen hiltzari-harategia zegoen, eta hemendik izena:

“otra casa...en la misma villa y Barrio que llaman de la Carniceria” (1795)<sup>2246</sup>

**Carretil de Ibarreko harana, el:**

Ikus **Camino de Ibarreko harana**.

**Casa vieja, la:**

Galipentzuko aldirietan, **Camino del Puente**-n dagoen etxe zahar hondatua dugu hau (ikus **Camino de la Casa vieja** eta **Etxezarra sarrerak**).

**Casas de la Concepción, las:**

**La Concepción**-etik hurbilen dauden etxeak dira. Beste gisaz **Barrio de la Concepción** deritza.

**Castillar (alto de), el:**

**El Castillar Plandeoliva**-ren goiko aldeko gaina da, Kasedako mugatik **El Alveo**-raino luzatzen dena. **El Paco del Palomar** gain honen oihezkoa baizik ez da.

**El Castillar**-en seguraski gazteluren bat izanzen zen antzina, jakina den moduan honelako gotorlekuak toki goretan kokatuak egoten baitira usuenik<sup>2247</sup>. Formari dagokionez, Uxueko **El Castillazo**-rekin aldera daiteke (cf. **El Molinar** eta **El Molinaz**).

**Cementerio, el:**

**Cruz de Idoia**-n dago, gurutzetik **Melenas**-a jaisten den bidexkaren eta **Bideberria**-ren artean.

**Central de arriba, la:**

Behinolako **Molino de Ripodas** edo **Errotaberria**-n dagoen argindarretxea dugu hau. Egun zeharo hondatua dago, harpearen ondokoa ez bezala.

2246 PRA-Oibar, 80. k.

2247 Despoblatu aztarnarik ez dago, guk dakigula. Xabierren **El Castellar** despoblatur dugu (J. Gárriz, *Despoblados*, 11. or.), eta **Castejón** despoblatur bat baino gehiago dira Nafarroan barrena (id., 13. or.).

**Central de la Cueva, la:**

Lehengo **Molino de Ujué**-n dagoen zentral elektrikoa da. **Central de la Cueva** izena goraxeago, herri alderago dagoen haitzuloagatik ematen zaio.

**Cofradía de Santiago, pieza de:**

Zare eta Oibarko bidearen ondoan zegoen, **Garandako zabala**-n (ikus sarrera hau). **Cofradía**-ren inguruan ikus **Agezako Cofradía del Santo Rosario** sarrera.

**Cofradía mayor, pieza de la:**

Ez dakigu obraria hau aurreko sarrerako bera zen, ez eta alorra non zegoen ere:

“...pieza de la cofradia mayor” (1767)<sup>2248</sup>

**Concepción (atajo de), (barranco de tras de), (barranco de), (barrio de), (ermita de), la:**

**Ermita de la Concepción** dokumentazioko **Ermita de Nuestra Señora** edo **Nuestra Señora de la Peña** da, alegia, **El Peñisco de los Cuervos** deitu haitzaren azpiko aldean dagoen ermita hondatua. **Barranco de la Concepción** ermitaren ingurutik **Aragoa** ugalderraino doan errekastoa da (ikus **Basatea**), eta **Barranco de tras de la Concepción** ermitaren gibelego aldetik **La Cueva** eta **El Arenal** aldera jaisten den latsa.

**Atajo de la Concepción** ermita ingurutik altxonbidearen (**Camino de la Cueva**-ren) eta **Malpaso**-ren artetik, **El Arenal**-aino doan bide-zigorra da. **Barrio de la Concepción**, esan bezala, ermitaren inguruko etxeek osatzen dute.

**Corraliza:**

**Corraliza** ‘azienda-hazkuntzarako erabili ohi den eta larreak eta gorrea dituen lur puska eskuarki handia’, ‘sekero-lurra, non ereiten duenak belarrak ardi-larretako saltzen baititu’ adierak dituen Nafarroako berezko hitza da<sup>2249</sup>. Jimeno Juriok ere antzeko definizioa ematen du Tafallako toponimia aztertzean<sup>2250</sup>:

“De *corral*. Cada una de las porciones de terreno, dotada de corral, en que se divide el término municipal, y cuyas hierbas y aguas son gozadas por el ganado”

Galipentzun berriki arte “corraliza” hauek zeuden:

**Aurino alto:** Aurino alto eta **El Ferial** sartzen ziren.

**Aurino bajo:** Aurino bajo eta **Zamakidoi** hartzen zituen.

**Valescura:** badirudi dermio osoa idi-larrea zela, eta beraz ez zela “corraliza”-tako saltzen. **El Modrojal** ere “boyeral”-a zen. **El Paco de la Barrera** eta **El Paco de la Vaquera** berriz **Zabaleta** barruan sartu eta saltzen ziren. Gaurregun Galipentzuko biz-

2248 PRA-San Martin, 48. k.

2249 VN.

2250 THET, 89-90. orr.

tanlegoaren gutxitzea dela medio, **Valescura** “corraliza”-tzat saltzen omen da, eta aipatu bi eluts horiek (**Paco de la Barrera** eta **Paco de la Vaquera** alegia), **Valescura**-ren barrukotzat jotzen dira.

Alorrak ereiten ziren urtean altxonbidetik goiti bi korraliza zeuden, bien arteko muga **El Riacho**-k egiten zuelarik: errekatik **Beragu**, **Pila** eta herri aldera **San Juan-Ardantzeandia** korraliza zen, eta errekaaren, altxonbidearen, eta **Eslaba** eta **Ageza**-ko mugen arteko eremua berriz **La Elka**, honetan besteak beste **Gezari**, **Las Fuentes**, **Balarata**, **Pollungu**-ren erdia eta **Meazu** sartzen zirelarik.

Erein gabe uzten zen urtean gurutzaturik egiten zituzten, alegia, **El Riacho** gurutzatzen zuten hiru korraliza estu-luze antolatzen zituzten: **Ardantzeandia** (**Ardantzeandia**, **Gezari**, **Bartabustu**, **Beragu** erdia, eta **El Saso de Lunberri** erdia), **San Juan** (**Beragu** erdia, **Peñazamala**, **Larregureneta**, **Kaskallu**, **San Juan** eta **Saso de Lumberri**-ren erdia), eta **La Elka** (**Balarata**, **Pontarrón**, **Meazu** eta **Pollungu**).

**Ekarra** eta **Pila**: **Portillo de Beragu**-tik **Balsa de Pasalobos**-aino zihoan, tartean **Bartaquilar**, **Valeciera**, **Baranditurri**, **Pila** eta **Pasalobos** hartuaz. **Ibarreko harana**, **El Carasol de Ekarra**, **El Paco de Ekarra**, **Erbiña**, **El Saso de la Cruz de Idoia**, **Tximarra**, **Bideberria**, **El Mayo**, **Monda**, **La Fuente vieja**, **Errotazarra** eta **El Molinaz** ere (hots, zubirainoko dermio guztiak) korraliza honetan sartzen ziren. Hemendik zuzenean herrira igotzen zen muga.

**Iribarren** “boyeral”-a zen, **Valescura** bezala, baina martxoan **Barranco de la Concepción**-ez beste aldean dagoenarekin eta **Balarrengu**-rekin batera korraliza honetan sartzen zen.

**El Saso**: altxonbidetik ugalde alderantz hedatzen zen, **El Riacho**-tik goiti. **Garandako harana**, **Santitisi**, **Inbilos** eta **Bartasteka** hartzen zituen bere baitan, **Barranco de Errekagaitza** eta **Cantón de Bartasteka**-raino.

**Larreta-Errekagaitza**: **Larreta** eta **Errekagaitza**-z gainera, **Pollungu**-ren erdia, **El Saso de la(s) Roza(s)**, **El Azute**, eta **La Recueja** sartzen ziren.

**Kaparreta** “boyeral”-a zen, eta ahuntzentzat altxatua zegoen, baina azken aldiari **Engubelea**-rekin batera zihoan<sup>2251</sup>. **Alto de Kaparreta**-tik behera **Engubelea-Morate** zabaltzen zen, **Las Peñas altas** eta **Portillo de Jares**-etik **Barranco de Ibón**-eraino (azken hau barne), **Engubelea**, **Morate** eta **La Bardenica** hartuaz.

**La Sierra-Mutxarka**: **Los Ripazos** eta **Paco de Jandua**-n hasi eta **Barranco del Palomar**-eraino iristen zen, tarteko guztiak harrapatzen zituelarik.

**Plandeoliva**: **Paco del Palomar**, **El Castillar**, **Valdarras** eta **Paco de Valdarras** hartzen zituen, **Portillo de los Lobos** (hau barne) eta **La Cruceta**-raino (honen zati bat hartzen zuen).

**Antoñanzas**: **El Alto de la Gudilla**-tik **Kaseda** eta **Zarrakazteluko** mugetaraino hedatzen zen, tartean **La Cruceta**-ren zati bat, **El Orzagal**, **Labekoaldea**, **El Saso de Vicentón**, **Antoñanzas**, **Puyalato** eta **El Llano de la Noria** hartuz.

2251 Orain lerrak landatu dituzte, eta beraz ez dago hau “belar” moduan saltzerik.

Azken urteotan korralizak taiutzeko modua aldatu da, orain Galipentzuko udalerrria sei zatitan banatzen delarik, honela:

Ugaldeaz haraindian bi korraliza daude: lehena **Engubelea-k** (**Kaparreta** le-  
rrez estalia dagoela gogoratu behar da), **La Sierra-k** eta **Plandeoliva-k** osatzen dute, eta  
bigarrena hortik beheitiko dermioek.

Bi **Aurino-ek** eta **Zabaleta-k** (azken honetan **Ondallu** eta **El Paco de la Ba-  
rrera** sartzen dira) hirugarrena osatzen dute. **Valescura-k** (hemen **El Paco de la Va-  
quera** sartzen da, besteak beste), **Ekarra-k**, eta **Pila-k** (**Bartaquilar** honetan sartzen da)  
laugarrena osatzen dute; altxonbidetik Ageza eta Eslaba aldera dauden dermio guztiak  
bostgarrenean sartzen dira, eta altxonbidetik ugalderaino seigarren eta azkena hedatzen  
da. **Melenas** azken biotan banatua dago.

**Corseras, las:**

**Las Corseras** edo **Las Coseras** herri ondoan zeuden (ikus **Monda** sarrera.  
Ikus, berebat, Agezako **Coseras** eta Lergako **Co(r)seras**):

“un pajar con una era...sita en las corseras” (1638)<sup>2252</sup>

**Costeras, las:**

Herriaren inguru aldapatsuak dira (cf. **Costera** Ezporogin), martxoan izan  
ezik herriko aziendentzat (ahuntz, behi...eta abarrentzat) altxatzen zituztenak. Uxueko  
**Los Villares-en** adierakidea dela dirudi (cf., halere, **Aldabea** toki-izena). Gure infor-  
matzaileak sarri askotan **El Mayo** eta **La Fuente vieja**-ren arteko maldak izendatzeko  
erabiltzen du, baina izen arruntetako ere ibiltzen du beste askotan.

**Cruce, el:**

**Reta Janárizek** bildutako<sup>2253</sup> toponimo honek **Oibar** harana zeharkatzen duen  
errepideak eta Galipentzura doanak bat egiten duten tokia izendatzen duela dirudi, hau da,  
Galipentzura (berrira eta zaharrera) doan bidea errepide nagusira ateratzen den puntua.

**Cruceta, la:**

**Bardena-n** dago, **Camino de Carcastillo**-ren inguruan, **Plandeoliva**, **La  
Gudilla**, eta **Labekoaldea**-ren artean. Izena bidean zegoen gurutze txikiari zor bide  
zaio.

**Crucillada, cruz de la; ermita de la:**

Gure eskualdeko **Crucillada** izenak gaztelaniako **encrucijada** ‘bideguru-  
tzea’-ren adierakidea da. Ikus daitekeenez, nafarrerak gordetzen duen alboko sabaikaria  
dauka, gaztelaniaren belarearen ordez (cf. **Los Cascallos**<sup>2254</sup>, **El Cascallo**, 1570ean<sup>2255</sup>,

2252 PRA-Oibar, 23. k-bis.

2253 EHZE, 488. or.

2254 PRA-Oibar, 2. k-bis.

2255 Id.



Los Cascaxos 1652an<sup>2256</sup>, Los Cascajos 1710ean<sup>2257</sup> Oibarren, edo El Modrojal Galipentzun / El Modrollar Uxuen. Ikus azken sarrera hau).

Toponimo hau Galipentzun ezezik Oibarren (Las Crucilladas 1596an<sup>2258</sup>, La Crucicada 1759an<sup>2259</sup>) eta San Martin Unxen ere (La Cruzijada, 1758an<sup>2260</sup>) aurkitzen dugu. Euskal ordainak Leatzeko Bidegurutzatua eta Bidegurutzea dira.

Ermita de la Crucillada Santa Elena-ko ermita zela dirudi. Cruz de la Crucillada ermita ondoko bidegurutzeko gurutzea zatekeen:

“...asta la cruz y ermita questan a la cruzillada de los dos caminos” (1593)<sup>2261</sup>

**Cruz de Idoia (saso de), la:**

Honen osagai argiak erdarazko cruz ‘gurutze’, eta euskarazko idoia ‘baltsa’ dira. Orain bertan idoirik ez badago ere, gurutzea zutik dago, Galipentzutik gertu.

Gauregungo Cruzidoia [krùθidóya] Idoia hutsa zen 1596an, eta Cruz de Ydoya 1787an:

“otra viña en la endreçera llamada ydoya....que afrenta con caminos pucos”<sup>2262</sup>  
 “una pieza...en la Cruz de ydoya”<sup>2263</sup>

Hortaz, hasiera batean Idoia zena Cruz de Idoia bilakatu zen aurrena, eta Cruzidoia gero. Ikusten denez, bertako elementurik nabarmenenak, gurutzeak alegia, beretu du dermio osoaren izena, antzina zati txiki bat besterik ez baitzen, nonbait. Gaurko Saso de la Cruz de Idoia Idoia hutsa zen antzina, itxuren arabera.

La Cruz de Idoia-k Bideberria, Ibarreko harana, Tximarra eta Valeciera-rekin mugatzen du.

**Cueva, la:**

Aragoa ugaldearen ertzean dago haitzulo hau, bide ondoan. Orain artegitako erabiltzen da. Handia izateaz landara herritik hurbilen dagoena denez gero, La Cueva deitu ohi zaio, antonomasiaz, Galipentzuko udalerrian haitzuloak ugariak izanagatik.

**Cueva de San Sebastián, la:**

Kaparreta-n dago haitzulo txiki hau, Zarrakazteluko bidearen alboan. Ez dakigu zergatik deitzen zaion honela.

---

2256 Id., 26. k.

2257 Id., 32. k.

2258 Id., 15. k.

2259 Id., 60. k.

2260 PRA-San Martin, 44. k.

2261 PRA-Oibar, 7. k-bis.

2262 Id., 9. k.

2263 Id., 75. k.

**Cueva del Alemán, la:**

El Alemán goitzeneko batek inguru honetan alor bat zuelako eman zaio izen hau haitzuloari. Zubitik **El Hoyo del Abejar** aldera igotzen zen (orain lerrak aldatu eta ezabatu egin da) bidexkan dago.

Toponimo hau ere berria da, izen, deitura, eta izengoitietan oinarritutako gehienak bezala.

**Cueva del Cura, la:**

Ikus **Bollo** sarrera.

**Cuevas, las:**

**Camino de Ujué** izeneko bideetako batean (**Camino de las Cuevas**-en hain zuzen) dauden harpeak ditugu hauek (ikus **Camino de Ujué** sarrera).

**Chopo de Clavillo, el:**

**Clavillo** ezizena duen familiako batek landatu zuen txipua zen hau, bai eta inguruko lurrak ere, itxuraz. Zuhaitza erauzi zuten, baina toponimoak eutsi egin dio. **Valescura**-n dago, **El Pozo de Portal** eta **El Paso de la Marta** aldean.

**Dandaldea:**

Honen etimologia azaltzerakoan tentagarriena 1703ko **Landaldea** aldakia oinarri hartuta, **landa** eta **aldea** elementuez osatua dagoela esatea da, baina 1335ekoa den aurren lekukotasunean **Dandaldea** dugu, eta badirudi hau dela jatorrizko forma, asimilazio-prozesua oso goiz burutu dela suposatzen ez bada behinik behin:

“yten un guerto en dandaldea” (1335)<sup>2264</sup>

Bigarren osagaia **aldea** ‘alderdia’, ‘ondoa’ dela seguru samarra da, baina zer ote da zorienerako **danda** hori?, ezkil-soinua agian?. Beste posibilitate bat **dinda**, **drinda**, **dronda**, **drunda**, **ginda** (herri edo hiri baten ondoko) bidexka’-rekin erlazionatzea da, **dinda**-tik, asimilazioz, **danda** atera zitekeelako, baina 1335erako **Danda**- aurkitzea honen kontra mintzo da.

Esan bezala, herri ondoan zegoen, **Co(r)seras**-en:

“un aposento de cassa..en la endreçera llamada dandaldea” (1608)<sup>2265</sup>

“una pieza..en las coseras desta vª y termino llamado landaldea theniente a casa de...” (1703)<sup>2266</sup>

**Baratzeak** ere baziren bertan:

2264 IEA, 387. kart., 12. zkia., 1641, or.

2265 PRA-Oibar, 16. k.

2266 PRA-Kaseda, 11. k.

“una huerta en la endrecera llamada andaldea” (1596)<sup>2267</sup>

### Dekumazarra:

Izen interesgarri hau behin baizik ez dugu aurkitu, 1597. urtean:

“otra cassa en decumazarra”<sup>2268</sup>

Interesgarria dela diogu orain arte **dekuma** hitza Aezkoa, Zaraitzu (tekuma zen bailara honetako aldakia<sup>2269</sup>), eta Erronkariko berezko hitzetako hartzen zelako. Hemen ikus daitekeen moldean, gure alderdian ere erabilia zen.

**Dekuma**-ren adiera ‘hamarrena’ da, alegia, ‘lurraren emaitzetatik Elizari (edo Erregeri, jaunari...) eman behar zitzaion zatia’, Sarasolaren<sup>2270</sup> hitzez esateko. Iparraldeko aldaera **dekuma** edo **tekuma**-ren jatorrikidea den (bi maileguak garai ezberdinetan hartu dirateke) **dexema** omen da, hiztegitik beraren arabera. Aitzinago, **dekuma** hamarrenak gordetzen ziren tokia ere adieraztera igaroko zen<sup>2271</sup>.

Jatorria latineko *dēcima*-n bilatu beharra dago. Euskal hitzean ageri den **-u**-hori, Mitxelenaren arabera, ondoko kontsonante ezpainkariaren eraginari zor zaio, latineko bereko arkaismo bati baino gehiago<sup>2272</sup>:

“Será, pues, preferible pensar en coloración por la consonante siguiente dentro del vasco mismo, antes que en la conservación de un arcaismo latino, por lo que hace a la **-u-** de aezc. ronc. **dekuma**, sal. **tekuma** ‘diezmo’ (Leiz. **dexema**, pero d’urte **dexuma**)...”

1974eko “El elemento latino-románico en la lengua vasca” artikuluan, ordea, ez da horren seguru azaltzen bokal belarearen euskal etorkiaz:

“Cf. también, como ejemplos de la vacilación *i - u* en contexto labial o palatal, *V akillo*, *L akillu*, por *akbulo*, *akullu* ‘aguijada’ (*S aküllü*), sin duda de *aculeu*.... En estas condiciones, no cabe determinar si el or. *dekuma*, *tekuma* (Roncal, Salazar) ‘diezmo’ conserva un vocalismo latino arcaico (*decuma*) o si su *u* supone un desarrollo secundario, vasco, de la vocal átona de *decima*” (201.or.).

**Dekumazarra** berez eraikuntza baten izena den arren, badirudi dekumaren hurbileko etxeei ere horrela esatzen zitzaie, 1597ko lekukoari jaramon egin behar ba-diogu<sup>2273</sup>.

2267 Id., 9. k.

2268 PRA-Oibar, 9. k.

2269 Ikus “Un Catecismo salacenco”, FLV, 39, 1982, 21-42. orr.

2270 HLEH.

2271 Beste toki batzuetan garaietan gordetzen ziren **dekuma** edo **hamarrenak**. Cf. Leatxeko **Garaizarra** eta **Morionesko Garaiondo**.

2272 FHV, 78. or.

2273 Orotz-Betelun **dekuma**-ren adierakidea zatekeen **Cobra** echea azaltzen da 1903an (B. Urtasun, TOB, 344. or.):

“«Cobra echea». «En la endrezera llamada...junto a la iglesia parroquial donde dixeron lo an de costumbre de se juntar y congregar»...Esta «Cobra echea» probablemente es la casa de los diezmos u horreo benéfical».

Uztarrozen berriz **kobretxe**-a udaletxea zen (FHV, 157. or.).

Dokumentazioko **Dekumazarra** egungo **Diezmo de Zubiri** deitu erai-kuntza zahar erdi hondatua dela uste dugu. Izan ere, **Diezmo** honek etxe-itxura baino gehiago biltegi itxura du, eta gainera **San Salvador** elizaren ondoan dago, Elizari zor zitzaizkion hamarrenak biltzeko toki egokian hortaz.

Iturri ondoan bazen **El Diezmo de Baztán** edo **El Diezmo de Alfonso** deitzen zen beste etxe bat, **San Pedro**-tik hurbil. Hau dokumentatzerik izan ez dugun **\*Dekumaberria** izan liteke.

**Depósito, el:**

**El Depósito Las Erachas**-en dagoen urbiltegia dugu. Izen berria da, herrian ur korrontea paratuz geroztikakoa.

**Diezmo de Alfonso, el:**

Ikus **Dekumazarra** sarrera.

**Diezmo de Baztán, el:**

Ikus **Dekumazarra** sarrera.

**Diezmo de Zubiri, el:**

Ikus **Dekumazarra** sarrera.

**Dorronditu:**

**Dorre** izen arruntaren eratorria izan daiteke, baina beste osagaiak zein diren ez dago bat ere garbi. Tarteetan **haundi** egon liteke (cf. **Dorrundi** toponimoa). **Barranco de Gezari**-ren ondoan zegoela badakigu (ikus **Gezari** sarrera):

“otra pieca en...dorronditu” (1597)<sup>2274</sup>

**Dorrundi:**

**Dorre** eta **haundi** izan genitzake oinarrian, hemendik lehenik **\*dorraundi** eta gero **dorrundi** (cf. **arraultze** > **arrultze**) atera delarik. **Dorre** eta **handi**-tik **\*dorrondi** atera dela ere kontu egin daiteke, eta gero, kontsonante sudurkariaren eraginez, -o- itxi eta u bilakatu dela (cf. **Ipar-Ekialdeko** **honek** > **hunek** adibidez, edo **Galipentzuko bereko** **Pontarrón** > **Puntarrón**).

Behin bakarrik aurkitu dugu, eta honek proposa daitezkeen etimologia guztiak dudazko bilakatzen ditu:

“Yten una pª en dorrundy” (1546)<sup>2275</sup>

---

2274 PRA-Oibar, 9. k.

2275 Id., 2. k.

**Ekarra (alto de), (cantera de), (cantón de), (caracierzo de), (carasol de), (paco de), (solana de):**

Ez dakigu zein den orain **Ikarra** [iká̃ra] bilakatu den toponimo honen jatorria, ez eta euskarazko **elkar**-ekin zerikusirik baduen ere. Dena den, ez dugu dudarik egiten Galipentzuko izena Garaioako **Ekarrea** [èkãréa] bera dela, bukaera gorabehera (cf. **Arana / Aranea, Zabala / Zabalea**...eta beste). Aezkoako herriko toponimoaren aurrean lekukotasuna 1781eko **Elcarrea** dugu<sup>2276</sup>, eta hau dela eta, **elkar**-ekin loturik egon daitekeela kontu egin daiteke, 'fazeria' zentzuan apika<sup>2277</sup>, baina 1783rako<sup>2278</sup> **Ecarrea** azaltzen da aipatu herrian<sup>2279</sup>.

Galipentzuko **Ekarra** ez dago beste herri bateko mugan<sup>2280</sup>, eta ez dugu sekulan **\*Elkarr(e)**-ren modukorik edireten. Lehen lekukoa 1591koa da (ikus **Camino de Melenas** sarrera), eta geroztik eten gabe agertzen da dokumentazioan (ikus **Camino viejo de Melenas**).

Egungo **Carasol de Ekarra 1616ko Solana de Ekarra** da:

"otra Pieça en la solana de hecarra"<sup>2281</sup>

**Oraingo Cantón de Ekarra Alto de Ekarra edo Cantera de Ekarra** da agirietan:

"una pieça...en (la) endreçera llamada en la cantera de ecarra" (1617)<sup>2282</sup>  
 "otra (pieza) en el alto de Ecarra" (1767)<sup>2283</sup>

eta **Paco de Ekarra Caracierzo de Ekarra**:

"la una (pieza) en el termino del Caracierzo de Ecarra" (1765)<sup>2284</sup>

1816ko **Costado de Ekarra Santa Elena** aldea izan liteke, baina **costalado** eta **saihetsa**-ren gure alderdiko 'aldapa' balioa ikusita, hemen ere adiera hori duela uste dugu. Kasu honetan **Paco de Ekarra**-ren esanahikidea litzateke:

"...en el costado de Ecarra afrontta al soto Riacho" (1816)

**Ekarra-k Tximarra, Melenas, Garandako harana, Ibarreko harana eta Santa Elena**-rekin mugatzen du.

2276 PRA-Auritz, 49. k.

2277 Azkuek **Elkarkiko** 'facería' biltzen du hiztegiaren eranskinean.

2278 PRA-Auritz, 51. k.

2279 Orotz-Betelun **Ecarre(a)** oikonimoa dugu (B. Urtaşun, TOB, 335. or.), eta Ihabarren **Ycarrea** toponimoa dokumentatzen da 1565ean (PRA-Arakil-Hiriberri, 2. k.).

2280 Fazeriak bi edo herri gehiagoren arteko mugan egoten direla gauza jakina da, baina behin edo beste barnekaldean ere aurkitzen ditugu (ikus Uxueko **Abuñaga** sarrera).

2281 PRA-Oibar, 19. k.

2282 Id.

2283 Id., 67. k.

2284 Id., 62. k.

**Elka, la:**

**La Elka** toponimian oso hedatua dagoen **elke** edo **elge** 'landutako alorra'-tik atera dela dirudi, agian aurkitu ez dugun \*(**La**) **Elkea** baten bidez<sup>2285</sup>. Izan ere, 1689an azaltzen da aurrenekoz (ikus **Ormakieta**), Galipentzuko euskara indargabetzen ari zenean, eta ez da harritzeko ordurako desitxuratuxea egotea (cf. **Eslabako Elkea** > **Arkea**, **Elketxipia** > **Sarkitxipia**):

"una pieza en la muga de Aiessa llamada la elca" (1720)<sup>2286</sup>

Gaurregun, jasan duen itxuragabetzearen ondorioz, modu ezberdin askotara ebakitzen da. Guk aldaki hauek bildu ditugu: **Elka** [élka], **Elaika** [eláika]; **Eleika** [eléika], **La Elka** [laélka], **Laika** [láika]<sup>2287</sup>. Zernahi gisaz, dokumentazioan ia beti agertzen dena **Elkea**-ren aldakia den **La Elka** da. Izen honen lehen lekukotasunean ikusten denez, "corraliza" ere bazen, dermioa ezezik (ikus **Corraliza** sarrera).

Egun alderdiaren erdi aldean dagoen muinoari **Cantera de la Elka** esaten zaio; orain dela urte batzuk desagertu zen larreari **Prado de la Elka**<sup>2288</sup> edo **Prado de Balarata** esaten zitzaion:

"Mas otra (pieza) en el mismo termino (Meazu-n) teniendo á...prado de la Elca" (1799)<sup>2289</sup>

**Melenas, Las Ripas, Pontarrón, Meazu, Balarata** eta **Pollungu**-rekin mugatzen du.

**Engubelea:**

Toponimo honen bi aldaki ezberdin ditugu: **Yngubela** 1767an eta **Engubelea** 1775ean. Dena dela, eta esan moduan, euskara galdua zegoen garai honetan, eta toponimo bat baino gehiago itxuragabeturik. Hortaz, honen etimologia argitzeko agiri zaharragoak behar genituzke. Segurua dena zera da, gaurko **Gunbelea** [gùmbeléa] aldaera ez dagoela, inondik ere, egun 'día' hitzarekin erlazionatua, Reta Janárizek nahi duen moduan<sup>2290</sup>.

**Engubelea**-k **Kaparreta**-rekin mugatzen du iparraldetik, **Morate** eta **La Bardenica**-rekin mendebaldetik, **Kasedarekin** ekialdetik, eta **La Sierra**-rekin hegoalde-tik. **Barranco de Engubelea Camino de La Sierra**-tik hurbil jaio eta **La Bardenica** zeharkatu ondoren **Aragoa** ibairaino doan erreka<sup>2291</sup> esaten zaio. Berriki arte **Morate**-rekin batera "corraliza" berezia osatzen zuen aztergai dugun honek (ikus **Corraliza** sarrera).

2285 Ez nahitaez, **olka** (**oka**-ren aldaera) ere izan daiteke eta. Ikus A. Irigoien, "Los Topónimos *oca* y su entorno", *Symbolae*, 1007-1016. orr.

2286 Id., 36. k.

2287 Hauetaz gain, Diputazioaren 1975eko mapetan azaltzen den **La Eca** aipa daiteke.

2288 1799an aurkitu dugu aurren aldiz.

2289 PRA-San Martin, 68. k.

2290 EHZE, 489. or.

**Era, la:**

Herri inguruan nagusiaren izena (edo deitura, izengoitia) daraman larrain mordoxka dago: **las Eras de Barrio, la Era de Catirón, la Era de Cumba, la Era de Zubiri...**

**Erachas, las:**

**San Salvador eta La Balsa** alta-ren arteko eremua izendatzen du. Toponi-  
moak garbi erakusten du garai batez bertan larraintoak bazeudela<sup>2291</sup>.

**Eras altas, las:**

**La Balsa** alta aldean daude:

“una hera en la endrecera llamada en las heras altas” (1596)<sup>2292</sup>

**Eras bajas, las:**

Zubiaren gaineko aldean daude batzuk, eta **Erbiña** alderago bestek<sup>2293</sup>:

“una hera...en la endrecera llamada en las eras baxas” (1597)<sup>2294</sup>

**Erbiña:**

Esan den gisan, herri-ren elkarketako aldaera den **her-** eta **biña** ‘ardantzea’ izen mailegatuz osaturik egon liteke<sup>2295</sup> (cf. **Erbiñaga** Eslaban, **Biñaru** Zaren). Izan ere, badakigu ardantzeak bazirela bertan:

“ytem una vina en erbiña en el regadio” (1546)<sup>2296</sup>

Etimologia hori, halaz ere, ez da inondik ere segurua (ikus Eslabako **Erbiñaga** eta Galipentzuko **Erbiñako** aldea).

**Erbiña** [er̥bĩɲa] herritik hurbil samar dagoen Aragoa ugaldearen ondoko zelaia da, eta **Barranco de Errotazarra, El Mayo, Inbilos**, eta **Santitisi**-rekin mugatzen du. Badakigu bertan liguerrak eta intxaurrak bazirela:

“otra pieça En erbinna cabo las nogueras” (1641)<sup>2297</sup>

“una pieza...sita en los linares altos de erbiña” (1710)<sup>2298</sup>

2291 Cf. Arakil-Uharteko Larreintto [laɾéiɲto] leku-izena, zalantzarik gabe \*Larraintto-tik aterea. NTEM-XII, 151. or.

2292 PRA-Oibar, 9. k.

2293 Arakil-Uharten Eras de arriba eta Eras de abajo agertzen dira 1893ko katastroan. Egungo egunean Goiko larrainek [gójko laɾánek] erabiltzen da. NTEM-XII, 143. or.

2294 PRA-Oibar, 9. k.

2295 Reta Janárizek (EHZE, 489. or.) proposatzen duen Erbi-oña ‘pie de liebre’ etimologiak ez du ez hankarik ez bururik. Iturgoienek Erbiña izeneko etxea dokumentatzen da 1568an (PRA-Lizarra, 1. k.).

2296 PRA-Oibar, 2. k.

2297 IBA, 387. kart., 12. zkia., 47. org.

2298 PRA-Kasada, 15. k.

**Erbiñako aldea:**

**Erbiña, -ko** leku-genitiboa, eta aldea ditugu hemen. Nabarmentzekoa da -ko-ren presentzia, normalean aldea zuzenean lotu ohi baitzaio oinarriari:

“otra pieza en erbiñecoaldea” (1616)

Erbiñeko hau gorago aipatu herri + biña-ren kontra mintzo da, bigarren izenak bukaerako -a ez bailuke galduko. Erbiñako ordokia-ren lekuko batzuk ere aipatu interpretazio horren aurkakoak dira (ikus beheraxeago), eta beharbada **erbin**, **ermin** ikusi behar genuke hemen, baina ‘etxarte’, ‘etxekarte’ adiera ez da oso egokia Galipentzuko leku-izen honentzat. Izabako **Erminea** bide-izenarekin lot liteke (ikus Eslabako **Erbiñaga** sarrera), **Erbiña**-n barrena **Santa Elena**-rako bidea igarotzen denez gero.

**Erbiñako ordokia:**

**Erbiña** esan bezala alderdi zelaia da, eta ez da harritzeko dokumentazioan **Erbiña** hutsarekin batera eremu bera aditzera ematen zukeen **Erbiñako ordokia** ‘**Erbiña**-ko zelaia’ ere azaltzea:

“En el termo...llamado erbinacordoquia...afrenta...con...Camino Real que va de ervina para el puente de la villa” (1584)<sup>2299</sup>

“otra biña en erbineco ordoquia” (1645)<sup>2300</sup>

**Errekagaitza (barranco de), (corraliza de), (portillada de), (saso de):**

**Erreka** izena eta **gaitza** ‘txarra’, ‘zaila’, ‘oso handia’ izenondoa ditugu hemen. Gaurregun **Rekadaiza** [rèkadaj̥θa], **Rekadeiza** [rèkadej̥θa] edo **Rekadiza** [rèkadíθa] esaten da, toponimoak ohizkoa den hasierako bokalaren aferesia jasan duelarik. Oraingo izenaren bokal arteko -d- hori 1720an<sup>2301</sup> ediren dugu aurrenekoz:

“otra piª en Recagayza...que afrenta con...Camino Real” (1596)<sup>2302</sup>

“una pieza en Errecagayza” (1712)<sup>2303</sup>

**Errekagaitza**-k **Larreta**, **Saso de la(s) Roza(s)**, **Zare**, **El Azute**, **La Recueja**, **Aragoa** ugaldearekin, **Santitisi**, eta **Bartasteka**-rekin mugatzen du.

**Gaurko Saso de la(s) Roza(s)** antzina **Errekagaitza**-ren barruan zegoela dirudi, dokumentazioko **Saso de Errekagaitza** bera baita:

“otra pieza en el Sasso de Recagaiza” (1705)<sup>2304</sup>

**Saso de Larreta** izena ere eman izan zaio.

2299 PRA-Oibar, 3. k.

2300 Id., 25. k.

2301 Id., 36. k.

2302 Id., 9. k.

2303 PRA-Kaseda, 16. k.

2304 Id., 12. k.



**Errekagaitza**-n, toponimoaren etimologiak idarokitzen duen moduan, erreka ere bada. Erreka hau Zare eta Agezako Lausitu dermioetatik heldu diren erreken batzearen ondorena da. Galipentzun, Aragoara heldu aitzintxeago, Agezan jaiotako eta Galipentzun bide gehiena egiten duen **Larreta**-ko errekaekin bat egiten du:

“la ottra (pieza)...en el termino de Recagaiza affrontada a los dos Barrancos que bajan por un lado el dela Retta y del otro lado de Recagaiza” (1765)<sup>2305</sup>

Dokumentazioko **Portillada de Errekagaitza** non zen ez dakigu:

“otra pieza en las portillada de Recagayca” (1645)<sup>2306</sup>

#### **Errotaberria:**

**Errota** izena eta **berria** izenondoa ditugu hemen. **Errotaberria** gaurko **Molino de arriba** bera da, Lerga eta Eslabakoak bihia ehotzera **Camino de los Molinantes**-en barrena joaten zirena, **Barranco de Bartasteka** edo **Barranco del Molino**-k ura Aragoara isurtzen duen gunekoa, alegia:

“otra huerta...en...herrotaverria que afuenta con el soto” (1597)<sup>2307</sup>

**Berria** izenondoak errota hau lehenagokoa den **Errotazarra**-tik bereiztea du helburu (ikus sarrera hau). Bi errota hauetaz gainera **Molino de Ujué** genuen antzina, gaurko **Central de la Cueva**-n, eta laugarren bat ere bai, Eslabako muga (ikus herri honetako **Unzue** sarrera).

#### **Errotaberriko aldapa:**

**Errotaberria** toponimoaz eta **aldapa**-z osatua dago. Orain ezezaguna den honek **Errotaberria**-ren ondoko aldapa ematen zuen aditzera, hau da, **Camino de Sangüesa**-tik errotara jaisteko dagoena:

“una pieza en errotaverria aldapa...afuenta...al Camino Real” (1608)<sup>2308</sup>

#### **Errotazarra (barranco de):**

**Errota** izena eta **zaharra** izenondoa ditugu hemen. Esan bezala, izenondoak **Errotaberria**-tik bereiztea zuen xede.

**Errotazarra Iturrizarra** edo **La Fuente vieja** eta **Camino de Erbiña**-ren artean dago, aipatu iturri horretatik Aragoa ugaldara jaisten den **Barranco de Errotazarra**-ren inguruan. Errota zaharra gaurko **El Molinaz** bera da, baina bi leku-izen hauek, orain, elkarren aldamenean egon arren bereizi egiten dira, eta ezberdintzat hartzen (cf. oraingo **Barrio bajo** eta **Libarren** < **Iribarren**).

2305 PRA-Oibar, 62. k.

2306 Id., 25. k.

2307 Id., 9. k.

2308 Id., 13. k.

1775erako **Dotazara** bilakatua zen, eta gaurregun **Botazarra** [bòtaθāra]<sup>2309</sup> esaten da:

“otra pieza en dotazara...afta a...Camino RI” (1775)<sup>2310</sup>

Errota 1730erako hondatua zegoen, eskualdeko euskararen historia eza-gutzeko baitezpadakoa den Aingeru Irigaraik aurkitu agirian ikusten den moldean:

“Don José de Mateo, natural de la villa de Gallipienzo, que profesó en la Real Colegiata de Roncesvalles el 14 de septiembre de 1730, dice en el folio 2000 del inventario por él ampliado:

«Del molino de Errota zarra sólo hay vestigios; el apeo q. se descubrió de heredades en Gallipienzo aún no lo hallo y quisiera encontrarlo, y aunque en la arrendación dice Galipenzu que sería en lengua vascongada, que yo he conocido a todos los viejos hablar vascuence y al maestro que fué causa se perdiese la lengua primitiva, que obró mal»

De modo que en el siglo XVIII aún se hablaba vascuence en Gallipienzo”<sup>2311</sup>

### **Etxezarra:**

Herriaren aldirietan, zubira jaisten den bidetik hurbil dagoen gaurregungo **La Casa vieja** zatekeen:

“un cerrado en essezaara” (1546)<sup>2312</sup>

### **Ezpelondoa:**

Leku-izen honetan **ezpel** ‘boj’ eta ‘zuhaitz’ adiera duen **-ondo** ditugula irudi du, baina azken honen adiera ‘aldamena’ dela uste dugu, ez ‘zuhaitza’ (cf. **Dorreko Itxaurraldea** Leatxen), gure eskualdeko gainerako zuhaitz-izen guztiak elementu hori gabe agertzen direlako (cf., adibidez, Lergako Udareluzea edo **Urretako erreka**):

“una pieça...en la endreçera llamada ezpelondoa” (1591)<sup>2313</sup>

**Ezpelondoa Bideberria**-ren gaineko aldean zegoen, herritik hurbil beraz:

“otra pieza...en...ezpelondoa con una espueda en medio sobre el camino de bideberria” (1721)<sup>2314</sup>

### **Facería con Caseda:**

Antza duenez, **Kasedarekiko** fazeria hau oso aspaldikoa da, eta 1710erako desagertua zen, artean gogoan bazuten ere:

2309 Reta Janárizek biltzen duen **Mutazarra** honen beste desitxuraketa (grafikoa) besterik ez da.

2310 PRA-Kaseda, 27. k.

2311 UGDEN, 73-74. orr. Ikus **Euskararen muga** atala.

2312 PRA-Oibar, 2. k.

2313 Id., 5. k.

2314 Id., 37. k.

“y tambien se le añade de gozo ala corraliza de Larreta y Recagaiza el terno que era antes fazeria con la vª de Caseda”<sup>2315</sup>

Fazeria honek, seguruenera, gaurko **El Azute** eta **La Recueja** hartuko zituen, **Errekagaitza**-ren alboan eta **Kasedako** mugan dauden dermioak, alegia.

#### Facerías:

Kasu honetan, eta aski harrigarriro, facería hitzak, pluralean erabilia izateaz gainera, ez du beste herri guztietan duen esanahi bera, oraingo honetan **El Boyeral**-eko auzalurrak izendatzen dituelako, ez beste herri batekikoak, itxuraz behintzat. **Facerías Valescura**-n dago<sup>2316</sup>.

#### Ferial (cuesta de), (portillo de), el:

**El Ferial Aragoa** ugaldearen ertzean barrena hedatzen da, **Lejua**-tik **Zamaki**-doi-raino. Mendebaldetik **Zabaleta** eta **Aurino** alto-rekin mugatzen du.

**Ferial feria**-ren eratorria dela garbi dago, baina hala ere, ez dugu bertan feriarik egiten zelako lekukotasunik. **El Ferial** herritik ordu eta erdira dago, oinez joanez gero, inguruko herrietatik urrun, eta ez dugu uste feriak egiteko oso toki egokia denik<sup>2317</sup>. Guztiarekin ere, **Lergako San Gines** ere mendian dago, eta **XVIII.** mendearen erdi aldera arte bertan egiten ziren feriak (ikus **Lergako sarrera** hau).

**Cuesta del Ferial Camino de Murillo**-tik **Aurino** alto eta **Portillo de Chinchón**-era doan bideko aldapa da; **Portillo del Ferial Lejua** bukatu eta **El Ferial** hasten den gunean dago, **Murillo**ko bidean.

#### Fermín, campo de; fuente de; hoyo de; paco de:

**Campo de Fermín** Reta **Janárizek** biltzen du<sup>2318</sup>, baina gure informatzaileek ez zuten ezagutzen. **Iturria Camino de la Sierra**-tik hurbil dago, **Barranco de Engubelea** deitu errekaetan; **Paco de Fermín** erreka honetako iparragerria da. **Hoyo de Fermín** apartexego dago, **Las Peñas altas**-en alboan.

**Fermín Galipentzuko** etxe batekoen izena da, seguraski etxe horretako lehengo norbaitek izen hori zuelako.

#### Ferrer, cabaña de; paco de:

**Ferrer galipentzuar** baten deitura da. **Cabaña de Ferrer** gorte txiki bat da<sup>2319</sup>, eta **Paco de Ferrer** etxola dagoen oihezkoa. **Biak Valescura**-n daude, **Uxueko** mugatik hurbil.

2315 PRA-Kaseda, 15. k.

2316 Valescura despoblaturia izan zela badakigu (ikus **sarrera** hau), eta **Facerías** izenaren arrazoia apika honetan bilatu behar genuke.

2317 Bardean ere **Fuente del Ferial** (eta **El Ferial**, dirudienez) dugu (*Las Bardenas Reales*, mapa), eta hau ere ez da feriak egiteko leku aproposa.

2318 EHZE, 488. or.

2319 Gure informatzailea izan den **Marcelino Ferrer Zubiategi** eraiki zuen **harrizko** etxola hau.

**Fuente, la:**

Galipentzuko sartzean dagoen iturri handia dugu hau. Dagoen auzoari **Barrio de la Fuente** esaten zaio (ikus sarrera hau).

**Fuente de Longas, la:**

**Longas** deitura dela dirudi (Oibarren gaurregun bada **Casa de Longas** izeneko etxea, eta Aragoan **Longas** herria). Badakigu **Beragu**-n zegoela, **Puyarraso** ondoan, Eslabako mugan:

“dos pedazos de cerros en Beragu...mugante a la fuente de Longas y suerte de Anselmo Matheo en puyaraso” (1777)<sup>2320</sup>

**Fuente de Lópiz, la:**

**Balarrengu**-n dago, **Malpaso** deitu bidearen ondoan. Galipentzun gaurregun ez dago **Lópiz** deitura duenik inor (cf. Uxueko **Fuente de Juan de Igal**).

**Fuente de Pinaki, la:**

**Fuente de Penaki** [penáki] **Fuente de Larreta** bera da, Zare eta Galipentzuren arteko mugan dagoen iturria, alegia. Zaren **Fuente de Peneke** [penéke] deitzen diote (ikus herri honetako **Fuente de Pinaki** sarrera).

**Fuente de Pío, la:**

Uxueko mugan dago, **Valescura**-n. **Pío** giza-izena dela garbi dago.

**Fuente del Fiero, la:**

“Cabaña del Fiero”-tik hurbil dago. Hidronimoa gortearen nagusiaren izen-goititik atera dela dudarik ez da. **El Fiero** Galipentzuko etxe batekoen izengoitia da.

**Fuente del Rey, la:**

Beste gisaz **Fuente de las Ripas** deitzen zaio. **El Rey** Galipentzuko familia baten goitizena da.

**Fuente vieja, la:**

**Fuente vieja**, orain, **Barranco de Errotazarra**-ri ura ematen dion iturria da. Honi euskaraz **Iturrizarra** deitzen zitzaiola badakigu (ikus **Camino de la Fuente de Iturrizarra** sarrera):

“ytten otra piª Junto a la fuente bieja” (1596)<sup>2321</sup>

**Fuente vieja**-n garbileku bat zegoen non ibaia nahasirik jaisten zenean Galipentzuko emakumeek arropa garbitzen baitzuten. Bestela, ibaiko ura ohi bezala ba-

2320 PRA-Kaseda, 29. k.

2321 PRA-Oibar, 9. k.

zetorren, ugaldean berean garbitzen zuten, **El Molinaz-en**, zubitik hurbil, eta **La Cueva-n**.

**Fuenticas, (barranco de), (cantera de), (cantón de), (fuente de), las:**

**Las Fuenticas** Galipentzu, Eslaba eta Agezako mugak bat datozen alderdian hasten da, eta **Gezari, Balarata, La Elka, Kaskallu** eta **San Juan-ekin** mugatzen du. Lehen lekukoa 1730ekoa da:

“otra pieza...en las fuentticas” (1730)<sup>2322</sup>

Bertan dauden muinoek **Cantón, Cantera**, edo **Canterica de las Fuenticas** izenekoa osatzen dute. **Barranco de las Fuenticas** **Barranco de Balarata** edo **Acequia de Gezari** izan zitekeen, biotako bat. 1766ko lekukotasunean badirudi azken honekin identifikatzen dela:

“una pieza..en..las fuentticas ttheniente a Barranco de dho ttermino el que se ba a la muga de Eslaba”<sup>2323</sup>

**Fuente de las Fuenticas** lehengo euntze orain labakituan zegoen; **Prado de las Fuenticas** **Camino de los Molinantes** eta **Cantón de las Fuenticas-en** artean zegoen, **Agezako** bidearen ondoan.

Gure ustez, izen honek lehenagoko **Artaxogoiena** ordezkatu zuen. Ordezkapen hau bi izenok elkarren ondoan bizi ziren garai baten ondoren gertatuko zen, XIX. mendean, 1834ean izen zaharra oraindik ere bizirik zegoela bai baitakigu (ikus **Artaxogoiena** sarrera).

**Las Fuenticas** izena bertako iturrixko ugariei zor zaie. Galipentzun bertan, **Agezako** muga, eta auzo-herri honetan ere, **Las Fuenticas-en** ordain euskalduna izan daitekeen **Iturrieta** aurkitu dugu, eta **Eslaban Las Fuenticas** dugu.

**Galipentzu / Gallipienzo:**

Herri-izen honen etimologia zein den ez dakigu. Masu Nittak<sup>2324</sup> 1980 arte **Galipentzu / Gallipienzo**-rentzat proposatu etimologiaren laburpena egiten du lehenbizi, eta daitezkeen etimologia berri batzuk ematen ditu gero. Interesgarrienak J. Corominasena eta B. Vigónena dira, Nittak berak proposatzen dituzenez landara.

Hizkuntzalari kataluniarraren iritziz toponimo zeltiarra da **Gallipienzo**, eta jatorria **kal(l)io** ‘harria’, eta **quando** ‘zattia’-ren eratorria den **pend** izenez osaturik lego-keen **\*Kallipendion** edo **\*Kalipendion** bilatu behar genuke:

“Luego *Gallipienzo* (partido de Aoiz), llamado *Gallipienzo* en 1135 (Albon, *Cartulaire du Temple*, n° 100), quizá una **\*KALLIPENDION**, compuesto de **KAL(L)IO**- ‘piedra’ (Stokes-Bzz. 72, fr *caillou*) y **PEND**- de **QUEND**- ‘fragmento’ (*arapendis* en galo) im-

2322 Id., 42. k.

2323 Id., 66. k.

2324 *Notas lingüísticas...*, 22-23. orr.

portante por ser un nombre dado por celtas de  $P = QU$ ; tal vez más bien \*KALIPENDION (con // por etim. pop.) pues es *Garipenzu* en vasco (Campión, *Zigor* I,II,11)<sup>2325</sup>

B. Vigónek Gallipienzo Asturiasko Cruz de Pienzo, La Parea de Pienzo, Pico de Pienzo-ren jatorrikidea dela uste du, eta latineko \*pendicem (\*pendius beste autore batzuen arabera) 'pendiente'-tik eratorzen du<sup>2326</sup>.

Masu Nittak, bere aldetik, euskaraz *pendiz* 'malda zuta', *pendoitz* 'erroitza, malda zuta, lepoa' eta *phendaitz* 'puntadun haitza' dugula gogorarazten du, eta *gara* edo *garai* 'gaina' dela. Dena den, latineko \*pendius-en gain eraiki etimologia ez du gaitzesten, itxuren arabera Galipentzuzen maldan dagoelako, eta lehen elementutzat, hipotesi huts gisa bada ere, latineko *callis* 'bide-zigorra'-ren eratorria litzatekeen *galli*-proposatzen du.

Nolanahi ere den, egungo euskal izena Galipentzu [galipéncu] da Aezkoa eta Zaraitzuko azken euskaldunen ahotan<sup>2327</sup>, Agezan 1592an dokumentatzen dugun *Galipençu* videa toponimoko eta A. Irigarayk ezagutzera eman zuen dokumentuko (ikus Errotazarra sarrera) *Galipenzu* forma bera alegia.

Ikus daitekeen bezala, euskal izenaren hortz-hobietako albokariari sabaiko albokaria dagokio erromantzez (cf. *Oleta* / *Olleta*...); euskarazko bokalari -ie- diptongoa (cf. *Lede* / *Liedena*; *Errezu* / *Riezu*...), eta bukaerako -u-ri -o (cf. *saso* / *zazu*, *puntallu* / *puntallu*...).

Antza denez, *Galipentzu*-ren antzeko zerbaitek egon behar zuen 1100eko *Galipenço*<sup>2328</sup> eta 1287ko *Calipencu*-n<sup>2329</sup>. Gainerako beste aldaki zaharretan -ll-, -o, eta -ie-ren presentziak erromantzearen eragin handia salatzen du<sup>2330</sup>.

Ez dugu ahantzi behar Kaseda eta inguruko beste herri batzuek oso goiz erromanizatu zirela, eta honek derrigorrez eragina izan zuela *Galipentzu*, *Zare* eta inguruko beste herri euskaldunetako toponimian. Arrazoi beragatik sortuko ziren herri euskaldunon izenen erdarazko baliakideak.

**Galipentzu Berri / Gallipienzo nuevo:**

**Gallipienzo nuevo** Aragoa ugaldearen ertzean eraiki zuten duela hamarkada batzuk, *Santitisi*-n. Euskaltzaindiak Nafarroako herri izendegia prestatzean *Galipentzu Berri* izen euskaldunaz bataiatu du.

**Gallego casa de; huerto de:**

**Etxea Casa** edo **Pieza del Beneficio**-ren ondoan zegoela besterik ez dakigu (ikus **Beneficio** sarrera).

2325 "Sobre las lenguas hispánicas prerromanas", in *Tópica hispérica-II*, 1972, 236-282. orr.

2326 *Vocabulario dialectológico del Concejo de Colunga*, Madril, 1955, 577. or.

2327 NHI, 192. or.

2328 *El Gran Priorado*, 10. or.

2329 Id., 534-535. orr.

2330 Izen honen aldaerak NHI-ko 192. orrialdean daude bilduak. Reta Janárizek ere mordoxka biltzen du EHZE-ko 474-475. orrialdeetan. Uxuen guk beti *Galipiénzo* aditu dugu, hortz-hobietako albokariz ebakia.

**Gambella, la:**

La Cueva ondoan, ugaldean sartua dagoen haitz txiki samarra da. Pentsa daitekeenaren kontra, harri honek ez du ganbela itxura handirik, eta ez dakigu zergatik deitzen zaion horrela<sup>2331</sup>.

**Garanda, corrales de:**

**Garanda** zer izan daitekeen ez dago oso garbi, baina agian Uxuen XVI. mendetik aurrera azaltzen diren **Bagara** (1537), **Bagarana** (1537), **Balgaran** (1634), **Balgarandega** (1701) eta **Balgrande** (1593)-rekin erlazionatu behar genuke, Uxueko izen guzti horiek (ez da bar ere segurua) jatorri bera balute. Daitekeena da, gure iritziz, **Garanda** erdal **grande** izenondotik atera izana<sup>2332</sup>. Izan ere, **Garanda**-ren eratorria den **Garandako harana** Galipentzuko haranik handienetakoa da, handiena ez bada.

Izen honen etimologia argitzeko beste bide bat **haran**-en eratorritzat hartzea da (cf. 1615eko **Arandaco çabala**), hasierako lekunea, jakina denez, inseguritate handikoa baita euskaraz (cf. **altzairu** / **galtzairu**, adibidez). Bukaerako **-da** hori Eslabako **Bizkarda**-n (ikus sarrera hau) aurkitzen dugun bera izan daiteke, eta Pasaiaiko toponimian<sup>2333</sup> azaltzen diren **Arando** eta **Bizkardo** toponimoen amaieraren kideztat jo liteke agian.

**Garanda** huts-hutsa 1641ean baizik ez dugu ediren:

“otra pieca en los corrales de garanda” (1641)<sup>2334</sup>

**Garandako harana (artatzea de), (val de):**

**Garanda** toponimoa, **-ko** leku genitiboa, eta **harana** ‘ibarra’ ditugu hemen, eta hortaz, Reta Janárizek<sup>2335</sup> **Garandako harana**-ren gaurko aldaera desitxuratua den **Landikorana** [lãndikorána]-rentzat (berak **Andikorana** biltzen du) proposatzen duen **harandi** + **ko** + **harana** ‘el valle del otro lado’ interpretazioa guztiz oinarririk gabea dela garbi dago. Lehen aldikoz 1596an aurkitu dugu toponimo hau:

“otra viña en garandacoarana...que afrenta con...Camino Publico” (1596)<sup>2336</sup>

2331 **Ganbela**-k toponimian duen presentzia ugariak ikus Uxueko **Aizkanbela** sarreran dioguna.

2332 Cf. gainera **Grandequarana** 1717an, eta antzekoak XVIII. mendean zehar. Forma hauek, dena dela, herri etimologiaren ondorio izan litezke.

2333 Angel Elortegi, PASO, 68-69. eta 86. orr. Alfonso Irigoyenen arabera, ordea, **Arando**-k ez du zerikusirik **haran**-ekin. Euskaltzain bizkaitarraren iritziz antroponimo baten aurrean gaude:

«En relación con el nombre de persona **Arano**, así como del probable **Arando** y **Ara**, se dice en otro lugar del mismo texto [Euskera, XXII (1977), 574-575. orr.]: “Curiosamente Luis Murugarren en una comunicación que mandó con fecha 27 de enero de 1977 a la Academia de la Lengua Vasca, donde ofrece un resumen de los diversos nombres que viene anotando en la lectura de diversos archivos parroquiales de Guipúzcoa, señala para 1583 a **Arano de Echaniz**, es decir **Ara** más el sufijo **-no**, lo que autoriza a pensar que **Arano**, **Arando**, etc., con sufijo **-no** y **-ndo**, eran simples nombres de persona que han perdurado en toponimia”», STPVN, 40. or.

2334 IEA, 387. kart., 12. zkia., 47. org.

2335 EHZE, 468. or.

2336 PRA-Oibar, 9. k.

Eta horrez geroztik eten gabe azaltzen da, gero eta aldaki itxuratxartuagoak aurkezten dituelarik: **garandacuarana** (1687)<sup>2337</sup>, **Grandequarana** (1717)<sup>2338</sup>, **Grandacoarana** (1719)<sup>2339</sup>, **Grandicorana** (1767)<sup>2340</sup>, **Andicorana** (1793)<sup>2341</sup>.

Gaurregun **Landikorana** [lãndikorána] edo **El aval de Landikorana** esan ohi zaio **Melenas**-tik **Santitisi**-raino, eta **Paco de Ekarra**-tik **El Saso**-raino zabaltzen den lur-eremu lau honi. Erditik **El Riacho** igarotzen da, \***Urandia**-ranzko bere ibilbidean.

Dermio honetan arteak ugariak ziren antzina, ediren dugun **Artatzea de Garandako harana** froga:

“otra pieza en la stezea (sic) de garandacoarana” (1692)<sup>2342</sup>

**Garandako zabala (portillada de), (portillo de):**

**Garandako zabala**-k, itxura duenez, **Santitisi** eta **Camino de Sangüesa**-ren ondoko alderdi zabala ematen zuen aditzera. Cf. **Ibarreko zabala** eta **Ibarreko harana / Garandako harana** parekotasuna:

“otra pieza en Garandaco Zavala...theniente con...pieza de la Cofradia de Santiago y Camino RL que se ba a Sada y Aybar” (1705)<sup>2343</sup>

1767an aski desitxuratua edireten dugu:

“Ms otra (pieza) en Andicozabala” (1767)<sup>2344</sup>

**Garandako zabala**-n portilua ere bazen, **Zangozako bidetik** ez urrun, 1596 eta 1641eko lekukoek salatzen duten bezala:

“otra piª en la portillada de garandacoçabala” (1596)<sup>2345</sup>

Dirudienez, **El Saso**-ra igotzeko dagoen portilu modukoa zen hau.

**Garandako zubia (puente de):**

**Garandako zubia Ripodas**-ko errotara eta **Zangozara** zihoan bideko zubia zen, hau da, beste batzuetan **Puente** edo **Pontarrón de Santa Elena** izenaz azaltzen den berbera:

---

2337 PRA-Kaseda, 4. k.

2338 PRA-Oibar, 35. k.

2339 Id., 36. k.

2340 Id., 63. k.

2341 Id., 79. k.

2342 PRA-Kaseda, 6. k.

2343 Id., 12. k.

2344 PRA-San Martin, 48. k.

2345 PRA-Oibar, 9. k.



“una pieza...junto a la puente de Garandaco zubia theniente a Camino Rl que ban a Sanguessa” (1710)<sup>2346</sup>

“Mas otra (pieza) en el camino del molino terno de Grandecozubia” (1754)<sup>2347</sup>

Azken aldiz 1814ean aurkitu dugu, desitxuratuxea:

“una pieza...en grandico Zubia afronta al Puente de dho termino y soto”<sup>2348</sup>

Zubiaren pareta oraindik ere zutik dago **El Riacho-n**, baina lurrak estali du, eta ez da ikusten ahal.

#### Gelera:

**Nevera, Pozo de la Nieve** edo **Pozo del Hielo-ren** adierakidea da:

“otra biña en gelera” (1645)<sup>2349</sup>

Iribarrenek Erriberakotzat jotzen duen **helera** ‘nevera’ dakar<sup>2350</sup>. Hasierako g-hori ([x] ?) Jakerrian ere azaltzen da<sup>2351</sup> (cf. gainera, Gipuzkoako zenbait tokitako euskaraz ibiltzen den **jela** ‘izotza’).

**Gelera** herritik hurbil zegoen, **Camino del Puente-ren** ondoan:

“otra viña en guelera...teniente a Camino Real que se ba al puente” (1691)<sup>2352</sup>

Egungo egunean guztiz ezezagunak dira **Gelera** eta **Nevera** Galipentzun.

#### **Gezari (acequia de), (barranco de), (fuente de), (prado de):**

**Gezari-ren** etimologiaz ikus Agezako **Gesaliturria** eta **Gezari** aztertzean dioguna. Gaurregungo **Lezari-k** [leθári] Eslaba eta Agezako muga ondoko eremua izendatzen du. **Barranco** edo **Acequia de Gezari**<sup>2353</sup> Eslabatik datorren eta **El Riacho-n** amaitzen den dermio honetako errekaosta da:

“otra pieza...en Dorronditu en el barranco que vaja de guezari teniente a piezas de vecinos de Eslava” (1691)<sup>2354</sup>

Alderdi honetan larrea edo **prado** ere bazen antzina:

2346 PRA-Kaseda, 15. k.

2347 PRA-San Martin, 42. k.

2348 PRA-Kaseda, 42. k.

2349 PRA-Oibar, 25. k.

2350 Honela dio: “Nevera. Depósito donde antiguamente guardaban la nieve [Ribera tudelana]. En Tudela hay un término llamado «Las Heleras», donde aún se conservan depósitos de esta especie que ya no se utilizan” (285. or.).

2351 M. Alvarrek Jakako agiri bateko **geladas** ‘heladas’ aipatzen du. Ikus ESDA-II, 158. or.

2352 PRA-Kaseda, 6. k.

2353 “Acequia” esan ohi zaio orain.

2354 PRA-Kaseda, 6. k.

“una pieza...en...el (termino) que llaman Guezari theniente...a pieza de Joseph Perez de Izco vezino de la villa de Eslaba y por la ôtrra a Prado de Guezari y yermos....” (1764)<sup>2355</sup>.

Fuente de Gezari errekaetan dago, Eslabako mugatik hurbil.

Gezari-k Eslaba eta Agezarekin ezezik, Las Fuenticas, Kaskallu, San Babil eta Ardantzeandia-rekin mugatzen du.

#### Gezaribarrena:

Gezaribarrena-k El Riacho-ren aldameneko eremua adierazten bide zuen, Camino de los Molinantes-en ondokoa:

“otra pieza en lo de galipienzo...en gaçianbarrena (?) q affrenta con senda q ban los de lerga a Ripodas” (1635)<sup>2356</sup>

“...en el termino de Gallipienzo llamado Gezaribarren (1783)<sup>2357</sup>

Eslaban ere Gezaribarrena genuen antzina, Gezari abajo bilakatua egun, eta Agezan Gezari bajo (ikus sarrera hauek) dugu.

#### Gisutzea:

Gisu ‘karea’ izena eta -tzea ugaritasunezko atzizkia ditugu toponimo honetan. Ez dakigu non zegoen:

“una pieza...en el terno...llamado guisuzea” (1708)<sup>2358</sup>

#### Grazietaren ardantzea:

Grazieta emazteki-izena dugu hemen, genitibo mugagabearen -(r)en morfema, eta ardantzea ‘mahastia’ izena.

Badakigu Aragoa ugaldearen ondoan zegoela:

“yten otra (pieza) en graçietaren ardança se atiene al albeo del rio mayor” (1641)<sup>2359</sup>

Alabaina, ez dakigu gaurko Alveo-ren (ikus sarrera hau) ondoan zegoen, dokumentazioan horrelako bat baino gehiago azaltzen baita.

#### Gudilla (alto de), (costado de), (paco de), la:

Izen hau \*La Agudilla-ren zatiketa faltsu baten ondorioa izan daiteke. Izan ere, arrunta da toponimian agudo, zorrotza eta antzekoak mendi, muino, eta besterekin agertzea (cf. Monteagudo, Mendikute, Mendizorrotza, Munikotxorrotx, Punta-zorrotz...), eta La Gudilla ere mendi ttiki baten izena da (cf. Fustiñañako Cabezo agu-

2355 PRA-Oibar, 65. k.

2356 Id., 23. k.

2357 Id., 73. k.

2358 PRA-Kaseda, 14. k.

2359 IEA, 387. kart., 18. zkia., 8. org.

dillo)<sup>2360</sup>. Guztiarekin ere, mendiko honen gailurra ez da punta zorrotza, gain luzeantza baizik, erdaraz Galipentzun “cantón” deitu ohi dutena.

Kasedan \***La Acutilla**-tik atera ahal izan den **La Cutilla**<sup>2361</sup> aurkitu dugu, Nafarroako erromantzez zenbait aldiz agitzen denez, bokal arteko herskari ahoskabeak zeuden-zeudenean gorde direlarik. Leatxen **Cotilla** dermioa dugu, eta honen barruan **Corral de Cotilla** deritzana, baina honen eta Galipentzuko toponimoaren arteko lotura ez dago bat ere garbi.

Engungo egunean **Alto la Gudilla** [á|tolagudí|ja] deitzen dena **Bardena**-n dago, **Plandeoliva** eta **Antoñanzas**-en artean, Kasedako mugatik hurbil:

“una pieza...en el terno de la Bardena y paraje q llaman lagudilla thente a...portillo de Baldarras” (1765)<sup>2362</sup>

1712ko **Costado de la Gudilla** gaineko aldapa zela uste dugu:

“tres piezas arrimadas al costado de la gudilla”<sup>2363</sup>

#### Gurutzea:

Bide baten bazterrean zegoela besterik ez dakigu:

“otra pieza en gurutzea...theniente a...Camino” (1710)<sup>2364</sup>

Gure ustez, **Santa Elena** ermitan zegoen gurutzea izan daiteke, Zangoza eta errotako bidekoa, alegia. Halarik ere, herri ondoan dagoen **Cruz de Idoia** edo beste gurutzeren bat ere izan zitekeen, jakina den bezala gurutzeak oso ugariak baitziren (eta baitira) gure herrietan.

#### Herrería, la:

**Plaza de la Verdura**-ren ondoan zegoen:

“la cassa vecinal...sita junto á la herreria del pueblo y plaza de la berdura” (1856)<sup>2365</sup>

Engungo zein plazari dagokion seguru ez dakigu, baina baliteke **Plaza de la Carnicería** izatea.

Mende honetan **La Herrería La Concepción** aldera zegoen, baina “brabana” etortzen hasi zirenean ezin hara sartu eta tokiz aldatu behar izan zuten, plazaren azpira. Dena den, **Barrio de San Pedro**-n ba omen zen lehenago beste aroztegi bat, eta bertan plazatxoa (“placeta” erdaraz) bada.

<sup>2360</sup> Nafarroako Diputazioaren 1975eko mapen arabera 532 metroko garaiera du.

<sup>2361</sup> PRA-Kaseda, 4. k., 1687.

<sup>2362</sup> PRA-Oibar, 66. k.

<sup>2363</sup> PRA-Kaseda, 16. k.

<sup>2364</sup> Id., 15. k.

<sup>2365</sup> Id., 60. k.

**Hoyas, las:**

El Solano-n dauden sei zuloei esaten zaie **Las Hoyas**. Lehena **Barranco de Valizarza** aldean dago, eta azkena **Eslaba**, Galipentzu eta **Uxueren** arteko mugan.

**Hoyo de Catachoán, el:**

**Catachoán** Galipentzuko familia baten gaitzizena da. Inguru horretan lur zerbait zutenez gero, alderdiko zuloari ere **Catachoán** izena eman zaio. **Barranco de las Aguas saladas** sortzen duten bi errekaetako batean dago zuloa, ubideaz bi aldeetan, **Aurino bajo-n**.

**Hoyo de Catirón, el:**

**Catirón** galipentzuar baten ezizena da. El Hoyo de Catirón El Hoyo de la **Gertrudis**-en errankidea da.

**Hoyo de la Gertrudis, el:**

**La Gertrudis** aspalditxoan hil zen Galipentzuko emazteki bat zen. Aurreko kasuan bezala, andre horrek ondasun zerbait izanen zuen alderdi honetan, eta hortik xuloaren<sup>2366</sup> izena.

**El Hoyo de la Gertrudis Barranco de las Aguas saladas** deitu ubideari sorrera ematen dioten latsetako batean dago, **Aurino bajo-n**. Dokumentazioko **Carasol** eta **Caracierzo de Zubialdaia**-k aztergai dugun xulo honen bi aldeak har zitzakeen.

**Hoyo de la Maestra, el:**

**Barranco del Huertico de Recané** deitu errekaetaren goiko alderdian dago, **Aurino bajo-n**, ubideaz bi aldeetan. **La Maestra** Galipentzuko maistra zen.

**Hoyo del Abejar, el:**

Kasedako mugan dago zulo hau, **Portillo de Jares** eta **Las Peñas altas**-en artean. Azken mendean edo ez da erlategirik izan bertan.

**Ibarra:**

Izen hau ezaguna eta erabilia da gaurko euskara bizian, toponimian ezezik, eta 'vega', 'vallée' esanahia du Azkueren<sup>2367</sup> arabera, 'vallon', 'vallée' Lhanderen<sup>2368</sup> arabera, eta 'vega' Mitxelenaren iritziz<sup>2369</sup>. Alfonso Irigoyenen ustez ere 'valle, vega' da. Euskal Herriko eta inguruetako toponimiaren gain-azterketa bat egin ondoan honela dio:

2366 "Xuloa" diogu, gure informatzailearen erdarazko "una mieja de foyo" aditzera emateko.

2367 DVEF.

2368 DBF.

2369 AV, 102. or.

“se trata, por tanto, de uno de los elementos más abundantes registrado en la toponimia vasca de todas las áreas y de uso bastante antiguo según todas las apariencias”<sup>2370</sup>

Corominasek gaztelaniazko *vega*<sup>2371</sup> *ibarra*-rekin zerikusia izan lezakeen *ibai*-rekin eta Galipentzun ere azaltzen den *Ibón*-ekin lotzen du. Hona bere hitzak:

“‘huerta, tierra baja, llana y fértil’, 919. Antigua voz común al cast. con el portugués (*veiga*, 757) y el sardo (*bega*, h.1115). Procede probe de una palabra prerromana BAIKA ‘terreno regable y a veces inundado’, deriv. de IBAI ‘río’, hasta hoy conservado en vasco; con otra formación el alto-arag. *ibón* ‘lago’. Se trata seguramente de un deriv. formado por medio del sufijo vasco *-ko*, *-ka* que indica pertenencia”

A. Irigoyenek ere *Ibón* eta *ibai*-rekiko lotura aipatzen du:

“No pueden dejar de recogerse aquí *Ibars*, *Mas*, en Zaidín, p. j. de Fraga, *Ibarz*, en Calasanz, p. j. de Fraga, y en Lascarre, p. j. de Benabarre, cuyas formas parece que contienen *ibar* más otro elemento. Hay también *Ibert*, *Casa*, en Bielsa, p. j. de Boltaña, y numerosos *Ibón*, ‘laguna formada con las aguas de manantiales o de arroyos causados por las nieves’, cuya palabra ha sido comparada con *ibar* e *ibai*, así como también *Ibort*, *Pon*, en Calvera, p. j. de Benabarre, *Ibort*, en Navasa, unido a Guasa, *Ibor*, *Viña*, en Espuéndolas, unido a Guasa, p. j. de Jacas. La *-t* final de *Ibert* y de *Ibort*, situados al este de Huesca, puede acaso deberse a la diferenciación de *-rr* final...”<sup>2372</sup>

Galipentzuko *Ibarra* 1546an aurkitu dugu aurren eta hondar aldez:

“ytem una biña en Ybarra” (1546)<sup>2373</sup>

Horrez geroztik *Ibarreko harana*, *Ibarreko zabala* edo *Ibarreko zubia* agertuko zaizkigu, baina sekulan ez *Ibarra* hutsa. Gure egunotan *Ibarreko harana*-ren aldaki desitxuratua den *Barikorana* [barikorána] erabiltzen da.

Galipentzun *ibarra* honetaz besterik ez dugu, *harana*-k bat baino gehiago diren bitartean: *Ibarreko harana*, *Garandako harana*, *Albozko harana* eta *Zuzuarana* (<\**Zazuarana* seguruenara). Hemendik bi ondorio atera ditzakegula uste dugu: lehen, *Ibarra* antonomasiatzko *ibarra* zela, apika herritik hurbilenik dagoena delako; eta bigarrena, *ibarra* eta *harana* ez direla osotara gauza bera, bestela *Garandako harana* bezalako bat \**Garandako ibarra*-rekin aldizka baitzitekeen, baina gure alderdiko toponimian ez dugu horrelako txandakatzerik sekulan edireten, ez Galipentzun ez inguruko herrietan. Egia esan, *haranak* ugariak dira eskualde honetan, baina *ibar* bakarra Galipentzuko hauxe da.

Gainera, *ibarra* eta *harana* zeharo esanahikideak badira, ez da garbi ikusten zergatik zeuden, *Ibarra*-ren barruan, bi zati: Tximarra aldea izendatzen duen *Ibarreko harana*, eta gaurko El Mayo adierazten zuen *Ibarreko zabala*<sup>2374</sup> (*Ibarra* ihartua zegoelako?).

2370 “Cuestiones de toponimia vasca y circumpirenaica”, 212-214. orr, ETTVC.

2371 DCELC.

2372 Id.

2373 PRA-Oibar, 2. k.

2374 *Ibarreko harana* / *Ibarreko zabala* bereizketak hurbil dagoen bailarako *Garandako harana* / *Garandako zabala* bereizketarekin batera, *harana* eta *zabala* bereizteko bide ematen digu. Izan ere, bi kasu hauetan *harana*-k erreka ondoko mendi edo mendixka arteko lur lauak adierazten dituen bitartean, *zabala*-k bailara horiek zabaltzen, hedatzen diren alderdia izendatzen du, alegia, gainek hersten ez dutena.

Era berean, **Ibarra**-ren aipatu eratorrietan izen arruntetako hartua zela ikusten da, beste hainbeste leku-izen bezala. Bestela **\*Ibarrako harana** eta **\*Ibarrako zabala** izanen genuke.

Mitxelena<sup>2375</sup> **le(i)ze** eta **osin**-en arteko aldea azpimarratu ondoren, **haran** eta **ibar** ere ez direla gauza bera dio, hau frogatzen zaila bada ere. Honela dio:

“casi seguramente, *Le(i)ze* y *osin* no eran sinónimos (aun ahora, creo, cuando se habla de simas profundas *en el agua* no se emplea más que *osin* y Azkue añade, dato que no he podido confirmar, que *osin* es «mar» en Iciar. Del mismo modo que, aunque esto es más difícil de probar, *haran* e *ibar* no significaban ambos «valle» a secas”<sup>2376</sup>

Guztiarekin ere, Nafarroako toponimian **Artzibar**, **Esteribar**, **Erroibar**, **Elortzibar** eta **Ibargoiti** bezalako bailara izenak ditugu<sup>2377</sup>, erdarazko **Valle de Arce**, **Valle de Esteribar**, **Valderro**, **Valle de Elorz** eta **Valle de Ibargoiti**-ren aldamenen. Hauekin batera, **Bertizarana** eta **Aranguren** dauzkagu, erdarazko **Valle de Bertizarana** eta **Valle de Aranguren** tautologikoen ondoan. Hortaz, maila administratiboan behintzat, argia da **ibarra** eta **harana**-ren arteko kidesuna. Zenbait aldiz, gainera, erdarazko **val harana** nahiz **ibarra**-ren bidez adierazten da: **Valdeollo** / **Ollaran**, **Olloibar**.

#### **Ibarreko harana (barranco de):**

**Ibarreko harana**-k, orain, **Paco de Melenas**, **Valiciera**, **Tximarra**, **Saso de la Cruz de Idoia**, **El Mayo** eta **Carasol de Ekarra**-rekin mugatzen du. Dermioa gurutzatzen duen **Barranco de Ibarreko harana** (**Barranco de Barikorana** orain) **Baranditurri**-tik jaisten den urak sortzen du, eta Galipentzuko erreka guztiek bezala, (beste erreka batean ez bada) **Aragoa** ugaldean amaitzen da, **Erbiña** aldean:

“una viña cerrada en ivarrecoarana q afrenta...con...el varranco” (1615)<sup>2378</sup>

**Ibarreko harana** izenaren desitxuratzea XVIII. mendearen lehen laurdenean hasi zen, eta mende honen bukaerarako sortuak ziren oraingo izenaren gurasoak diren aldakiak: **Barricorana** (1720)<sup>2379</sup>, **Ybarrecoarana** (1721)<sup>2380</sup>, **Barricorana** (1790)<sup>2381</sup>, **Baricorana** (1793)<sup>2382</sup>.

#### **Ibarreko zabala:**

**Gaurko El Mayo** aldea zen, errotara eta **Zangozara** zihoan bidearen inguruko alderdia:

2375 FLV, 54, 1989, 274. or.

2376 Azpimarra gurea da.

2377 Ikus NHI.

2378 PRA-Oibar, 18. k.

2379 Id., 36. k.

2380 Id., 37. k.

2381 PRA-Kaseda, 33. k.

2382 PRA-Oibar, 79. k.

“otra viña en ybarrecoçabala” (1596)<sup>2383</sup>

“otra pieza en...Berricozabala thenientte â Camino Que se ba al Molino y Camino que se ba a Sanguesa” (1730)<sup>2384</sup>

### Ibón, barranco de; paco de:

Aragoako Pirinioetako toponimian hain ezaguna den izena dugu, alegia, elurraren urtzeak eragindako iturburu eta errekek sortzen duten aintzira<sup>2385</sup>. Galipentzuko **Ibón** [iβón], dena dela, Aragoa ugaldean bukatzen den **Engubelea** eta **La Sierra**-ren arteko erreka baten izena da jatorriz, ez aintzira batena, eta gero hedaduraz ondoko lurrak izendatzera ere igaro da. Izaba herrian **Ibón** izeneko harpea dugu<sup>2386</sup>.

**Paco de Ibón** erreka baten ondoko oihezkoa da, eta **Camino de la Sierra**-tik Aragoa ugalderaino luzatzen da.

Diogun bukatzeko toki-izen hau, irudiz zaharra bada ere, ez dugula dokumentazioan sekulan aurkitu.

### Ierraxeta, fondon de:

**Ierraxeta** behin bakarrik ediren dugu, 1335ean, eta ez oso modu argian. Etimologia iluna da guretzat:

“yten alfondon de yerraxeta dos pieças”<sup>2387</sup>

**Fondón** hitza, berriz, erabat gardena da, gaztelaniaz arruntak diren **fondo** eta **hondón**-en jatorrikidea (cf. Leatxeko oraingo **El Hondo**). Galipentzuko toponimoak gaztelaniaz galdu ohi den hasierako ezpain-horzkariari eutsi dio, gure alderdiko beste leku-izen batzuek bezalaxe: **Fondon de Cenera** (Oibar, 1587)<sup>2388</sup>, **El Fornaz** (Oibar, 1595)<sup>2389</sup>, **Foja de Puyon** (Oibar, 1656)<sup>2390</sup>; **Foya de Bal de Murillo** (Oibar, 1656)<sup>2391</sup>; **El Fornaz** (Kaseda, 1687)<sup>2392</sup>; **El Fornaz** (San Martin Unx, 1588)<sup>2393</sup>; **Foya de la Mora** (San Martin Unx, 1609)<sup>2394</sup>.

2383 Id., 9. k.

2384 Id., 42. k.

2385 J. Borao, *Diccionario de voces aragonesas*, Reta Janárizek aipatua, EHZE, 488. or. Ikus, orobat, *Ibarra* sarrean esan duguna.

2386 B. Estornés, DTR, 384. or.

2387 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. or.

2388 PRA-Oibar, 3. k-bis.

2389 Id., 15. k.

2390 Id., 29. k.

2391 Id.

2392 PRA-Kaseda, 4. k.

2393 PRA-Oibar, 4. k.

2394 Id., 13. k. Galipentzun bertan bizirik daude, adibidez, ez Iribarrenek ez Reta Janárizek biltzen ez dituzten **foyo** eta **refoyo** f-dun hitzak.

**Ijita (barranco de), (barranco del carasol de), (carasol de), (portillo de):**

Gaurregungo Ejito [exíto] Ijita da XVII. eta XVIII. mendeetan; XIX. aren hasieran (1801. urtean) herri etimologiaren ondorea datekeen **Ygippto** dugu, eta oraingo forma XIX. mendeko horretatik atera zitekeen, edo horren eragina jasan zezakeen.

**Ijita Aurino** bajo-n dago, Uxueko mugan, Aragoa ugaldearen alboan. **Carasol de Ijita** (agiritako Solano de Ijita) Uxueko mugako eguterari esaten zaio:

“...en mitad del Solano de Yjita a la vista de la oliveta” (1688)<sup>2395</sup>

“...en el solano de ygippto...y Peña elebada á la vistta del Rio Aragon y Bardenas de Caseda” (1801)<sup>2396</sup>

**Barranco de (el Carasol de) Ijita Peña de los Huevos** edo **Peña de los Cojones** delakotik hurbil sortu, eta dermioa gurutzatu ondoren **Urandia**-ra doan erre-kasto txikiari esaten zaio.

“se allo el segundo mojon (Uxue-Galipentzu) en el barranco de Yxita” (1688)<sup>2397</sup>

**Portillo de Ijita** orain ez da erabiltzen, baina dokumentazioan behin baino gehiagotan azaltzen da, dirudenez **Aurino** mendiaren ondoko portiluren bat aditzera emateko, seguruen duela urte batzuk **El Campo de la Muga de Ujué** deitzen zenekoa:

“se allo el octavo mojon (Uxue-Galipentzu) en el collado de aurino cerca del portillo de Yjita” (1688)<sup>2398</sup>

“...cerca del Portillo de Ygippto...se hallo el Mojon Cinquentta y Cinco” (1801)<sup>2399</sup>

**Inbilos (ezpuenda de), (paso de), (soto de):**

Gaurregungo **Enbilos**-ek [èmbilós] aldaki asko aurkezten ditu XVI. mendetik hona: **Unbilos** (1593)<sup>2400</sup>, **Jnbilos** (1645)<sup>2401</sup>, **Soto de Ynbilos** (1685)<sup>2402</sup>, **Ymilos** (1732)<sup>2403</sup>, **Vilos** (1754)<sup>2404</sup>, **Emilos** (1764)<sup>2405</sup> eta 1804<sup>2406</sup>, **Embilos** (1767)<sup>2407</sup>, **Bilos** (1772), **Biloch** (1772)<sup>2408</sup>, **Milos** (1772)<sup>2409</sup>.

---

2395 PRA-Kaseda, 4. k.

2396 Id., 37. k.

2397 Id., 4. k.

2398 Id.,

2399 Id., 37. k.

2400 PRA-Oibar, 7. k.

2401 Id., 25. k.

2402 PRA-Kaseda, 3. k.

2403 PRA-Oibar, 43. k.

2404 PRA-San Martin, 42. k.

2405 Id., 46. k.

2406 PRA-Kaseda, 38. k.

2407 PRA-San Martin, 48. k.

2408 PRA-Kaseda, 24. k.

2409 Id.



Aldaera guzti hauetan lehenak baizik ez du u hasieran, baina aurrerago ikusi-konez, hau da gure iritziz jatorrizko forma. Gainerakoen artean zaharrena **Inbilos**-ek (1645 eta 1685) irudi du; hemendik **Ymilos** (**mb** > **m** gertatu ondoren), eta **Enbilos**, (disimilazioz) sor zitezkeen, baina bilakabidea alderantzizkoa ere izan zitezkeen, **m** > **mb** pausoa behin baino gehiagotan edireten baitugu euskal toponimian eta hizkuntza arruntan (ikus Uxueko **Santakaramuru** sarrera). Gainerantzeko aldaki aferesi jasandakoak “una pieza en Enbilos, Inbilos” bezalako testuinguruetatik atera zitezkeen.

1772ko **-ch** dun aldaera (**Biloch** alegia) bat dator beste tokietako **Ibilos** eta antzekoen **-ch**-dun aldaerekin, eta badirudi joera zegoela bukaeran afrikatua ebakitzeko, euskaraz ohizkoa den gisan. Honekin bat dator Orreagako sarohetako bat den 1284eko **Hegança Ubilotssa**-ren grafia<sup>2410</sup>.

Etimologiari dagokionez, uste dugu Galipentzuko toponimo hau beste toki batzuetako **Ibilos**<sup>2411</sup>, **Ibillos**, **Ebillos**, **Ubillo**, **Ubillos** edo **Ubilla**<sup>2412</sup> bera dela, **ur** eta **bil**-ez osaturikako toki-izena<sup>2413</sup>, bi erreka edo ubide biltzen diren gunea adierazten duen toponimoa alegia, Galipentzuko oraingo **Enbilos** udalerriko bi ubide nagusien arteko lur-eremua baita, hau da, **El Riacho** eta \***Urandia** edo **Aragoa** ugaldaren artekoa (ikus mapa).

Jimeno Juríok Iberoko **Urbillos** aztertzean honela dio:

“Espacio entre los ríos Arga y Araquil en el punto de confluencia. Actualmente le llaman «los dos ríos»”<sup>2414</sup>

Aldaban berriz **Ubilloa** eta **Ubillo zuloa** bildu ditu ikerle ezagunak<sup>2415</sup>. Hau ere erreka ondoan zegoen, eta dokumentazioan bat bakarra aipatu arren, izenaren etimologiatik bi ubideren arteko lur zatia zela antzeman daiteke:

2410 Mitxelena, TAV, 37. or.

2411 Orrotz-Betelun **Ibilos**, **Ibilosko** iturria dugu (Benito Urtasun, TOB, 343. or.), Lintzoainen **Ibilos**, **Arakil-Etxarren** **Ibillos** (PRA-Arakil-Hiriberri, 61. k., 1710), eta **Ebillos** (PRA-Asiain, 142. k., 1733). **Arakil-Hiriberrin** **Ibilos** dugu 1586an (PRA-Arakil-Hiriberri, 2. k.), **Ebillos** 1894ean (katastroa), **Ebillos** [eβ[os] egun. **Arakil-Ekain** eta **Arakil-Urritzolan** adiera bera izan dezakeen **Ubillegi** dugu, eta **Arbizun** **Ubillarte** eta **Ubillarteko** zubia (NTEM-XII, 86. or.). Itzagaondoko Idoate herrian **Ibilos** eta **Ibilosguibela** genituen 1596an (PRA-Urrotz, 5. k.). Bi hauetako lehenak bertako zalduarekin mugatzen zuen.

Esteribarko **Inbuluzketa** herri-izenak ere jatorri bera duela salatzen digute aspaldiko aldaerek: **Yuillosqueta** (1428), **Ybilosqueta** (1591), **Villozqueta** (1532). Izen honen aldaerez ikus NHI, 49. or.

2412 Azken toponimo hau A. Irigoyenek aipatzen du, “Sobre toponimia de las Encartaciones” lanean, ETTVC-ko 79. orrialdean. Autore honek dioenez, Enkarterrietan honelako bat baino gehiago dago, eta itxuraz bat behintzat ibai batean dago edo honen ondoan. Alderdia ezagutzen ez badugu ere, autore honek proposatzen duen etimologiaz duda egiteko adinako adibide baditugula uste dugu:

“**Ubilla**, término de Carranza, 1860”, “idem del Valle de Mena”; para el último A.N.G. en 1925, p. 649, da **Ovilla** o **Ubilla**, señalando también la **Torre de Ovilla**, y habla de la existencia de una “fuente ‘de abundantísima agua’”, pp. 649 y 650. **Urberuaga de Ubilla** es conocido en Vizcaya por sus aguas, y pienso que **Ubilla** está relacionado con ur, ‘agua’, en composición u(b/g)-, + el adjetivo **biribil**, ‘redondo’, + el artículo -a en posición final, por formar el río un meandro”.

2413 Ikus AV, 155. or.

2414 TCPPO, 148. or. Cf. **Leatxeko Las Dos Aguas** eta **Lergako Ubitarte** toponimoak.

2415 TCPPI, 65. or.

“De las piezas mencionadas en esos docs., una afronta «con el camino real que ban a Pamplona y con el regacho»”

Oloibar-Anotzen oraingo **Iboros**-ek [iβóroś] ere<sup>2416</sup> Arakil ugaldearen eta ibarra gurutzatzen duen errekaen elkargunetik hurbil dagoen eremua izendatzen du. Lakuntzako **Ubillos**-ek [uβi̯loś] ibaiaren eta azekia baten urek bat egiten duten gunea ematen du aditzera. Goizuetan berriz, **Urgurutza** erabiltzen bide dute ideia bera adierazteko<sup>2417</sup>; Zuberoan antzeko adiera izan behar duen **Hurjüntá** dugu Andozen<sup>2418</sup>.

U- > i- ezaguna da euskaraz, batez ere ur hitzaren eratorrietan: **Ibero** herri izena (cf. **Uberoaga**, **Urberoaga** ugaria), **igarabera** / **ugadera**...<sup>2419</sup>. Hemen aintzat hartu beharra dago Galipentzuko toponimoaren lehen lekukoak, gorago esan moduan, u- duela, gero i- edo disimilazioz e- agertzen den arren.

Dermio honek aipatu bi ubideekin ezezik, **Santitisi**, **Santa Elena** eta **Erbiña**-rekin ere mugatzen du. Dokumentazioan aurkitzen dugun **Soto de Inbilos El Riacho**-ren bi aldeetan zegoen (ikus **El Soto** sarrera); agiritako **Ezpuenda de Inbilos Santitisi** eta **Inbilos**-en artean dagoen aldapattoa dateke, eta **Paso de Inbilos**, azkenik, **Erbiña**-tik Galipentzu Berrira eta **Santitisi** aldera doan bideak eta **El Riacho**-k elkar gurutzatzen duten lekuko pausua da.

#### Iribarren (barrio de):

Gaurregun **Libarren** [liβāren] bilakatu den hau (ikus **Lunberri** sarreran dioguna) herri azpian dago, baina kanpoan, eta beraz lerraketa bat burutu dela esan daiteke, antzina erdal **Barrio bajo**-ren ordain euskalduna zenak orain horren ondoko eremu bat ematen baitu aditzera:

“una cassa...en el barrio llamado Yribarren” (1691)<sup>2420</sup>

Izen honen itxuragaiztotzea XVIII. mendearen bigarren erdian hasi zen: **el Ybarren** (1769)<sup>2421</sup>, **ylibarren** (1770)<sup>2422</sup>... Egungo aldaera 1797rako azaltzen da:

“otro huerto en la endrezera que llaman Libarren”<sup>2423</sup>

2416 **Ebilloch** dugu 1596an (PRA-Asiain, 6. k.), **Ibidoch** 1710ean (PRA-Arakil-Hiriberri, 71. k.), **Ybillos** 1796an (PRA-Asiain, 176. k.), **Eviloch** 1846an (Atarrabiako hipotekak), **Yboroz**, **Ybros** 1903ko katas-troan.

2417 L. F. Echeverría, “Goizuetako toponimia...”, 90. or.

2418 Txomin Peillen, “Andoze ibarreko leku izen...”, 99. or. orr. Honela dio autore honek Zuberoako Andoze ibarreko tokien erdalduntzeaz ari delarik:

“Jadanik hasia da erdalduntze prozesua, Andozeko muga dagoen *Hurjünta* delakoari, gazteek -eta Ligin gehienak erdaldunak dira- *Jonction* itzulpena darabilate”

2419 Ikus FHV, 75. or. eta hurrengoak. Gure alderdian **Utsaskietarana** dugu Zaren (ikus sarrera hau).

2420 PRA-Kaseda, 6. k.

2421 Id., 22. k.

2422 Id.

2423 PRA-Oibar, 82. k.

**Irigoien (barrio de):**

Erdarazko **Barrio alto**-ren baliakide euskalduna zen:

“una casa...en esta villa y Barrio que llaman de Yrigoyen” (1795)<sup>2424</sup>

**Iribarren**-en kasuan ez bezala, gaur ez dago toponimo honen aztarnarik.

**Iturraldea:**

**Iturri** eta **aldea**-z osaturik dago. **Errotazarra**-ren ondoko eremuari (eta beraz **Iturrizarra**-ren ondokoari) esaten zitzaion:

“una pieza en yturraldea Junto al molino viexo...teniente al Camino Real y al Rio” (1641)<sup>2425</sup>

**Iturriardantzea:**

**Iturri** eta **ardantzea** izenak ditugu hemen:

“otra pi<sup>a</sup> en yturriardança” (1596)<sup>2426</sup>

**Iturriberia:**

**Iturri** izenaz eta **berria** izenondoaz osaturik dago. Izenondoa **Iturrizarra**-tik bereizi nahiari zor zaio. Badakigu larrain bat behintzat bazela alderdi honetan, eta agian herrian berean dagoen oraingo **La Fuente**-rekin identifikatu behar genuke:

“una era suya que esta en la endreçera llamada yturriberia” (1617)<sup>2427</sup>

**Iturrieta:**

**Iturri** izena eta **-eta** atzizkia ditugu hemen. Agezako toponimia aztertzean ikusi dugun **Iturrieta** bera da, hots, bi herrion arteko mugako alderdia:

“en una esquina en yturrieta y en meaçuquerreta” (1614)<sup>2428</sup>

Galipentzuko **Las Fuentes**-etik oso gertu zegoen, baina **Balarata**-ren (**Galipentzu**) eta **Arana**-ren (**Ageza**) barruan.

**Izkagaztea:**

Ez dakigu zein den toponimo honen jatorria. Behin bakarrik aurkitu dugu, 1335ean<sup>2429</sup>:

2424 Id., 80. k.

2425 IEA, 417. kart., 6. zkia., 9. org.

2426 PRA-Oibar, 9. k.

2427 Id., 19. k.

2428 Id., 15. k.

2429 IEA, 387. kart., 12. zkia., 9. org.

“otra pi<sup>a</sup> en izcagaztea...se atiene al camino”

### Jandua, hoyo de; paco de:

Reta Janárizek **El Hoyo Jandúa** aipatzen badu ere, gaurrengungo forma **Jan-duba** [xañdúba] da, -b- eta guzti<sup>2430</sup>. **El Hoyo de Janduba Barranco de Ibón**-ek egin-dako zulo luzea da, **Portillo de Jares**-etik **Camino de la Sierra**-raino luzatzen dena. **Paco de Janduba**, berriz, zuloko elutsa dugu, **Camino de la Sierra**-tik beheiti **Paco de Ibón** deritzan iparragerrri bera.

### Jares, portillo de; val de:

Izen honen etimologiaz ikus -as / -az, -es / -ez, -iz... bukaerei eskaini atalean dioguna.

Egun bizirik duguna **Kasedako mugako Portillo de Jares** da, alegia, **Galipentzuko San Pedro**-ren eta **Kasedako San Pedro**-ren arteko harratea adierazten duen izena. Dokumentazioko **Valdejares** orain **El Hoyo del Abejar** deitzen den zuloa izan zitekeen, aipatu portilu horren ondokoa, **Peñas altas** eta **Kasedako mugaren** artekoa, baina ez dakigu egiazki hala zen:

“abajo, pasada la Bal de Jares” (1770)<sup>2431</sup>

### Juanica, balsa de la; carasol de la balsa de la; fuente de la:

Toponimo guzti hauen oinarrian, aise igar daitekeenez, ernazteki baten izena dugu, hain zuzen ere inguru horretan lurrak zituenarena. Iturria **Barranco de Zabaleta** amaitzen den alderdian dago, **Aragoa** ugaldetik hurbil, **Lejua**-n. Idoia “corral de la **Juanica**” deitu gortearen alboan dago, **Aurino alto**-ko bidean.

### Juego (largo) de pelota, el:

Ikus izen honen inguruan **Agezako Juego de pelota** eta **Leatxeko El Rebote** sarrerak. **Pilota-jokua** edo **Juego de pelota** gaur, antzina bezala, **Barrio bajo**-rekin mugatzen duen **Barrio de la Plaza**-n dago, plaza ondoan:

“una cassa en la dha villa junto al juego largo de pelota” (1695)<sup>2432</sup>

“una casa...en el barrio bajo....afrenta al juego de pelota en la plaza” (1855)<sup>2433</sup>

### Kapalarraña:

Hemen **Eslabako Kapardoia**-n (ikus sarrera hau) genuen **kapar** ‘sasia’<sup>2434</sup>, eta **larraña** ezaguna ditugu. Herri ondoan zegoen, **Eras bajas**-en alboan:

2430 **Janduba** Galipentzuko deitura edo izengoitia da orain, eta **Eslabako etxe** baten izena ere bai. Azken herri honetan lehen **Jandua** zena **Janduba** da orain, Galipentzun bezalaxe. Ikus **Eslabako Alto de Jandua** sarreran dioguna

2431 PRA-Oibar, 68. k.

2432 PRA-Kaseda, 8. k.

2433 Id., 60. k.

2434 **Mitxelenak** dioenez (FHV, 296. or.), **kapar** hau **Leizarraga**, **Axular**, **Oihenart** eta bestek erabiltzen duten **sapar** ‘zarza’ hitz bera da, bustitze adierazkor baten bidez **kapar** > **sapar** pausoa gertatu delarik. Autore

“una hera con su pajar en Capalarraña y una pieza contigua” (1704)<sup>2435</sup>

**Kapana, solano de:**

**Kapana** izenaren adieraz ikus Leatxeko **Kapana** sarrera. **Kapana** edo **Kapanandia** Uxueko mugan zegoen, **Aurino**-n:

“ytt mas adelante pasado el Visso del solano de Capana...” (1743)<sup>2436</sup>

**Kapanandia (solano de):**

**Kapana** izena eta **handia** izenondoa ditugu hemen. Esan bezala, Uxueko mugan zegoen, **Collado de Aurino**-ren ondoan, ugaldetik kontatzen hasita bi herrion mugako hemeretzi, hoge, eta hogeitabatgarren mugarrietan. Dirudenez, gaurko **Peña de los Huevos**-en azpiko **Hoyo de la Maestra**-ko egutera zen:

“se allo el veinteno mojon en el Solano de Capana andia” (1688)<sup>2437</sup>

“Mas en Aurino o capanandia dos cargas de tierra” (1691)<sup>2438</sup>

**Kaparreta (alto de), (boyeral de), (fuente de):**

**Kapar** (ikus **Kapalarraña**) izena eta **-eta** atzizkia ditugu hemen:

“otra pieza...en el thermينو de Caparreta ttenente con...Camino que se ba a la Sierra” (1738)<sup>2439</sup>

**Kaparreta**-k [kàpārēta] Kasedako lurrekin, Aragoa ugaldearekin, **Morate** eta **Engubelea**-rekin mugatzen du. Bertan bi harpe ditugu (**La Cueva del Alemán** eta **La Cueva de San Sebastián**), bi zulo (**El Hoyo del Abejar** eta **El Hoyo de Fermín**), eta orain **La Peña agujereada** eta lehen agian **Arrizulata** deitzen zen haitz zulatua (ikus, alabaina, azken sarrera horretan dioguna).

Horietaz gainera, **Alto de Kaparreta**, **La Peña Tajubera**, **La Peña del Cubilar**, **Las Peñas altas** eta **San Pedro** deitu gainak ditugu, **Fuente de Kaparreta** (zubitik hurbil, Zarrakazteluko bidean), eta **Campo de las Ondas** (**Las Suertes**-en pareko bihugunean. Ikus **Ondallu** sarrera). Hauetaz landa, zubi ondoan behar zuen **Urrutia** izenekoa ere (ikus sarrera hau) bagenuen.

**Kaparreta** herri-lurra denez, bertan alatu izan dira (orain lerrez betea dago) galipentzuarren aziendak:

---

beraren arabera, **sapar** sekundarioa da, eta **kapar**-etik zuzenean atera den \***txapar** ordezkatu du, s- “primibotzar” hartua izatean. Hau ikusita, geure buruari egiten diogun galdera hau da: gure eskualdean hain arrunta den **txapar** ‘chaparro’ hitza, tarteko ustezko \***txapar** hori bera ote da? (ikus **Corominas**, **DCECH**, **Chaparro** sarrera). Abaurregainean **kapar** osagaia duten **Kaparrea**, **Kaparrebizkarra** eta **Kaparro** errekarre ditugu, eta ibar bereko Hiriberri herrian **Kaparduia** [kàpārđúya].

2435 PRA-Kaseda, 12. k.

2436 PRA-San Martin, 38. k.

2437 PRA-Kaseda, 4. k.

2438 Id., 6. k.

2439 PRA-Oibar, 51. k.

“otra pieza en el boyeral de Capareta...que afronta â el camino, que se ba â en Gu-belea” (1769)<sup>2440</sup>

Zerazienda mota zen XVIII. mendean bertan bazkatzen zena seguru ez dakigu, nahiz “boyeral” izenak abelgorria zela idarokitzen duen. Mende honetan ahuntzentzat zegoen altxatua (ikus Corraliza sarreran dioguna). Udalak bertan hiltegi-harategia zuen, eta animaliak bertan hil ondoren herrira igotzen zituzten, saltzeko.

### Kaskallu (fuente de), (paso de), (puente de):

Kaskallu-k (Kaskallo [kašká]o orain) San Juan, Larregureneta, Las Fuentes, eta Gezari-rekin mugatzen duen El Riacho ondoko eremu bat izendatzen du:

“otra pieza en cascullu” (1635)<sup>2441</sup>

Fuente de Kaskallu errekan dago, Eslabako “goiko” bideak ubidea gurtzatzen zuen<sup>2442</sup> gunean:

“...otra pieza donde la fuente de cascullu” (1615)<sup>2443</sup>

Gaurengungo Paso de Kaskallu-n zubia zegoen behiala:

“ottras quatro y media Juntto al puente de Cascallo” (1785)<sup>2444</sup>

1812an oraindik ere bukaeran -u duela azaltzen da:

“...afronta a los dos Costados â caminos que se transitan al Lugar de Aiessa, y termino de Cascallu” (1812)<sup>2445</sup>

### Kisueta:

Kisu ‘karea’<sup>2446</sup> izena eta -eta atzizkia ditugu hemen. Ikusten denez, Gallipentzun ‘galtzina’ edo ‘karea’ adiera duen izenak herskari ahoskabe eta ahostuna duten aldaerak aurkezten ditu: Kisueta / Gisutzea.

Ez dakigu non zegoen:

“en el termino de Gallipienzo y en el paraxe que llaman Quisueta” (1720)<sup>2447</sup>

2440 PRA-Kaseda, 22. k.

2441 PRA-Oibar, 23. k.

2442 Orain aldatuxe dago.

2443 PRA-Oibar, 18. k.

2444 Id., 73. k.

2445 PRA-Kaseda, 42. k.

2446 Ikus -eta atzizkiari eskainitako atalean dioguna.

2447 PRA-Oibar, 36. k.

**Labekoaldea:**

Hemen **labe** izena (cf. Lergako **Labeaga**), **-ko** leku-genitiboa eta **aldea** posizioa izan ditzakegu nahiz **labe**-ren txikigarria izan litekeen **labeko** (cf. **Ychaurcoaldea**, Itzagaondoko Indurainen<sup>2448</sup>, **Areamendikoa**, **Iguraimendikoa** Lergan...) eta **aldea**:

“Mas otra pieza sobrelabecoaldea” (1691)

Egungo **Labikaldea** [laβikaɫdɛa]<sup>2449</sup> **Bardena**-n dago, **Antoñanzas** “**corraliza**”-n, **Zarrakazteluko** bidearen eta **ugaldearen** artean, **La Cruceta** eta **El Paco de Vicentón**-en erdian. Bertan orain **laberik** baden **galdetu**, eta ezezko erantzuna jaso dugu **Galipentzuko** lurrak sakonki ezagutzen dituen **Demetrio Arive** jaunarengandik.

Antzina larrea zegoen dermio honen eta **Aragoa** **ugaldearen** ondoan:

“las que no estan sin senbrar en bardena en laberco aldea...afrenta al prado y al beo (sic) del Rio” (1645)<sup>2450</sup>

**Lakuarana:**

**Laku** (ikus hurrengo sarrera) eta **harana** izenak ditugu hemen:

“otra pieça en lacoarana” (1596)<sup>2451</sup>

**Lakuko harana (alto de):**

**Laku** ‘eremu urtsua’ (ikus **Agezako Lakuaga** izena aztertzean dioguna), **-ko** leku-genitiboa, eta **harana** ‘ibarra’ ditugu:

“otra piª en la endreçera llamada lacuçoarana” (1597)<sup>2452</sup>

“una pieça...en el termino...y parte llamada laqucarana” (1646)<sup>2453</sup>

Orain ezezaguna den hau **Eslabara** zihozen bi bideen artean zegoen:

“Mas otra (pieza)...en el termino de cucorana afrontada con...caminos... para la villa de Eslava” (1798)<sup>2454</sup>

Dirudienez, bi bideren artean dagoen **gaurko Prado de San Juan** izeneko larrea da hemen aztergai duguna, **Eslabako** bi bideen artean egoteaz gainera, bertako lurrari ere ur franko baitario, “**puntido**”-ak (drainaketak) egin behar izan dituztelarik urari bide emateko.

2448 “Otra pieza..en el termino llamado Ychaurcoaldea”, PRA-Irunberri, 3. k., 1709.

2449 Forma honetan oinarri hartuaz, Reta Janárizek (EHZE, 489. or.) toponimo hau bi zenbakiaz, **ika** ‘etxea’-z (sic) eta **alde** ‘ondo’-z osaturik dagoela dio. Hasierako **La-** hori erromantzezko artikulua da autore honen iritziz.

2450 PRA-Oibar, 25. k.

2451 Id., 9. k.

2452 Id., 9. k.

2453 Id., 25. k.

2454 PRA-San Martin, 67. k.

1725ean azaltzen den **Alto de Lacuquarana-k Prado de San Juan**-en ondo-ko muinoa izendatzen duela ematen du. Honela balitz, desagertu den dermioaren (**Lakuko harana**-ren) eremua iraun duenak (**San Juan**-ek) irentsi, beretu duela esan genezake, beste batzuetan agitzen den antzera<sup>2455</sup>:

“otra piª...en el alto de lacuquarana” (1725)<sup>2456</sup>

#### Landederra:

**Landa**<sup>2457</sup> izena eta **ederra** izenondoa ditugu hemen:

“otro corral...en landederra con una pieza” (1691)<sup>2458</sup>

Badakigu orain ezezaguna den hau **Kaseda** eta **Zarrakazteluko** mugan zegoe-la, gaurko **Antoñanzas**-en barruan, **Puyalato** aldean edo, eta “corraliza” ere bazela. Hona 1717ko agiri batek dioena:

“Primeramente las yervas y Aguas de las dos Corralizas del termino de la bardena llamadas Landederra y La Oliveta thenientes a los ternos de las vas de Caseda y Carcastillo”<sup>2459</sup>

#### Larrañetako iturria:

Izen honen osagaiak **Larrañeta** toponimoa (< **larrain** + **-eta**, jakina) eta **iturria** dira:

“yten una piª en Larraynetaquo yturria” (1546)<sup>2460</sup>

Itxura denez, altxonbide-errepidearen ondoan zegoen, baina Uxuera zihuan **Camino de las Cuevas**-en ondoan ere egon zitekeen. Honela balitz, egungo **Fuente de la Barrera** edo **Fuente del Fiero**-rekin identifikatu behar genuke (ikus halere **Ardantzemandia** sarreran esan duguna):

“una pieza en Larrayntaco mendia<sup>2461</sup> yturria...teniente a Camino RL” (1696)<sup>2462</sup>

**Larrañeta**-ren inguruan ikus hurrengo sarrera.

#### Larrañetako mendia (alto de), (barranco de), (portillo de), (solano de):

Hemen **Larrañeta** toponimoa, **-ko** leku-genitibo singularra, eta **mendia** izen arrunta ditugu, edo nahiago bada, **larrain** izen arrunta, **-etako** leku-genitibo plurala, eta **mendia**:

2455 **Ondallu** eta **Las Suertes**-en kasuan, esaterako. Bigarrenak izendatzen duen eremua lehen **Ondallu**-kotzat jotzen bide zen.

2456 PRA-Oibar, 39. k.

2457 Izen honen inguruan ikus **Eslabako Landalarratza** sarrera.

2458 PRA-Kaseda, 6. k.

2459 Id., 18. k.

2460 PRA-Oibar, 2. k.

2461 Izen hau gainmarratua dago, baina irakur daiteke, halere.

2462 PRA-Kaseda, 8. k.



“...termino de larraintacomendia” (1688)<sup>2463</sup>

**Alto de Larrañetako mendia** tautologia bat da, baina beharrezkoa **Barranco de Larrañetako mendia**, **Portillo de Larrañetako mendia** eta bestetik bereizteko. Toponimo tautologiko honen kide euskalduna behin baizik ediren ez dugun **Larrañetako mendiako mendia** izan daiteke:

“...en el alto de la rayntacomendia” (1688)<sup>2464</sup>

“Ytem prosiguiendo el dho amojonamiento seallo Elquarentaycuatreno mojon arriba en el alto de larayntacomendiaComendia” (1688)<sup>2465</sup>

**Larrañeta** bakarrik 1546ko **Larraynetaquoyturria**-n azaltzen zaigu<sup>2466</sup>. Gainerako guztietan **Larraintaco** (XVII. mendean) edo **Larranitaco** (XIX.ean) edireten dugu.

**Larrañetako mendia** Uxueko mugan zegoela badakigu, Aragoatik hasita berrogeigarren mugarritik berrogeitabostgarrenera, alegia, Uxuetik errotara zihoan bidea (altxonbidea) igaro eta **Valescura**-raino.

XVI. mendeko agiriei eta gure informatzaileari esker, **Barranco de Larrañetako mendia** gaur **Barranco de la Barrera** deitzen den bera dela jakin ahal izan dugu:

“se allo el quarenta mojon debajo el camino (errotakoa)...en medio de la quenta que baja al barranco de Larraintacomendia” (1688)<sup>2467</sup>

**Solano de Larrañetako mendia**<sup>2468</sup> orain izen berezirik ez duen erreka horetako eguzkiagerritxikia da. **Alto de Larrañetako mendia** edo **Larrañetako mendiako mendia** aipaturiko **La Barrera**-ko egutera txiki horren eta egun **Paco de la Vaquera** deitzen den opakuaren arteko **cantón** edo hegi gaur izen gabea dugu, eta **Portillo de Larrañetako mendia** **Valescura**-ren bistan dagoen portiluttoa (orain **Bernabelena** den alorraren ondokoa), **Paco de la Vaquera** hasten den tokikoa, alegia:

“...en el portillo de Larraintacomendia y Valescura” (1688)<sup>2469</sup>

“mas arriba antes de llegar al portillo de Larranitacomendia y Balescura, en el dia llamado Mugazuria...se hallo el Mojon diez” (1801)<sup>2470</sup>

Dokumentazioan azaldu ez arren, orain **Paco de la Barrera** deitzen duten elutsak **\*Caracierzo** edo **Paco de Larrañetako mendia** izan behar zuen, baina bertan mugarririk ez zegoenez, ez da agirietan aipatzen.

2463 PRA-San Martin, 5. k.

2464 Id.

2465 PRA-Kaseda, 4. k.

2466 **Larrainetako** ([in]-ez) ere izan liteke, ordea.

2467 PRA-Kaseda, 4. k.

2468 Id.

2469 Id., 4. k.

2470 Id., 37. k. Uxue-Galipentzukoa, baina oraingo honetan Eslaba aldetik kontatzen hasita.

**Larrañetako mendiako mendia:**

Ikus aurreko sarrera.

**Larrasatea:**

Hemen **larre**-ren eratorria den **larratza** 'lantzen ez den eta belarrez estalirik dagoen lurra'<sup>2471</sup> eta **atea** 'portilua' izan dezakegu, dokumentuetan maiztasun handikoa den **z / s** nahasketa gertatu bada behinik behin. Alabaina, eta **Esatea** edo **-satea** behin baino gehiagotan eriden dugunez gero (cf. **Martisatea** Zaren, **Esatea** Uxuen...), **larre** gehi **-(e)satea** 'atea'-z (ikus Uxueko **Esatea** sarreran dioguna) osaturik ez ote dagoen pentsa dezakegu:

"otra piª en...larrasatea" (1597)<sup>2472</sup>

Gaurko **Basatea**, esan dugun moduan, ez da dokumentazioan agertzen eta beharbada **Larrasatea**-ren itxurtxartzetzat hartu behar genuke, \***Labasatea** bezalako forma baten bitartez. Hau, hala ere, balizkako kontu hutsa da.

**Larregureneta (acequia de), (saso de):**

Toponimo hau XVII. mendean **Larreguneta** (1601)<sup>2473</sup>, **Lareguneta** (1641)<sup>2474</sup>, eta **Larraguneta** (1635)<sup>2475</sup> da, eta hurrengo mendean, itxuragabetuxea, **La Regunetta** (1717)<sup>2476</sup>, **La Ragoneta** (1769)<sup>2477</sup>, eta **La Regonetta** (1773)<sup>2478</sup>.

Hau ikusita, forma guzti hauen azpian **larre** 'euntze', **gune** 'toki' eta **-eta** dau dela kontu egin liteke, baina 1335eko lekukotasunak garbi erakusten du hau ez dela erabat horrela. Izan ere, urte horretan **Larregureneta** aurkitzen dugu, hots, bigarren osagaitzat **guren** 'ederra', 'nagusia'<sup>2479</sup> duen aldaera, eta beraz toponimoaren jatorrizko adiera 'larre ederraren edo nagusiaren tokia' nahiz 'larre on ugari dagoen alderdia' zatekeen:

"otra pieça en larregureneta" (1335)<sup>2480</sup>

2471 Ikus Zareko Iribarren eta Uxueko Busa.

2472 PRA-Oibar, 9. k.

2473 Id., 10. k.

2474 IEA, 387. kart., 12. zkia., 47. or.

2475 PRA-Oibar, 23. k.

2476 Id., 35. k.

2477 PRA-Kaseda, 22. k.

2478 PRA-San Martin, 51. k.

2479 Mitxelenak (AV, 98. or.) 'muga' adiera duela dioen arren zenbaitetan 'ona', 'ederra' 'emankorra' izan daitekeela uste dugu. A. Irigoyenek (ETTVC, 80. or.) Egiguren-dik haplogiaz atera bide den Eguren izena 'ladera principal' itzultzen du (cf. **Andrauren** < **andre** guren 'dama principal'). Autore honek beronek Murelagako Iturriguren erdal Fuente hermosa-ren baliokidetzat ematen du, Iturrandurra 'fuente pobre, escasa'-ren kontrakortzat joaz (id., 200. or.).

Julio Caro Barojak (HGPV, 170-171. orr.), López Mendizabal eta Mitxelenaren lanetan oinarri harturik, **guren** batez ere 'muga' dela dio:

"Algunos elementos que aparecen casi siempre como sufijos, expresan, sobre todo, la idea de lindes, límites, términos acotados de una clase u otra. Entre ellos cabe recordar, por ejemplo, a «-guren»".

Dena den, antroponimoekin ere ager daitekeela dio (**Monioguren**) eta badirudi autore honen ustez **guren** beste zerbait ere izan daitekeela, baina hau ez dago garbi.

2480 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. org.

Gaurko **Laragoneta** [laràgonéta]-n ez dago larrerik, baina alderdi urtsua dela ezin uka, inguru horretan **Prado de Ardantzeandia**, **Prado de San Juan** (behinolako **Lakuko harana**, antza), eta **Prado de Peñazamala** ditugunez gero. **Larregureneta-k Kaskallu**, **San Babil** eta **Paco de Lunberri**-rekin ere mugatzen du.

Dokumentazioko **Acequia de Larregureneta** (1773) gaurko **Barranco de Peñazamala** dela dirudi, eta dermioko zazua<sup>2481</sup> gaurrengungo **Saso de Lunberri**.

#### Larreleguna:

**Larre** izenaz eta **leguna** izenondoaz osatua dago orain ezezaguna den hau:

“...en el terno de Larreleguna...” (1765)<sup>2482</sup>

Ezporogin **Larreleuna** dugu (ikus sarrera hau).

**Larreta** (barranco de), (corraliza de), (fuente de), (portillo de), (prado de), (saso de):

Hemen **larre** ‘euntze’ izena dugu berriz, eta -eta atzizkia. Agezako **Lakuaga** eta **Zareko Mandaputia** aztertzean diogun moduan, alderdi guzti hau (hots, **Eslaba**, **Galipentzu**, **Ageza**, eta **Zareren arteko muga aldea**) oso eremu urtsua da, aipatu herri horietako bakoitzean **larre** bat baino gehiago egoteak frogatzen duen gisan: **Prado de Gezari Eslaba** eta **Galipentzun**, **Prado de La Elka**, **Prado de Pollungu** eta **Prado de Larreta Galipentzun**; **Prado de Arana** eta **Prado de Lakuaga Agezan**, **Prado de Mandaputia** eta **Larreandia** edo **El Prado grande Zaren**...

1335ekoa den toponimo honen lehen lekukotasunean **Larreta** gabe, **Larrieta** dugu, hau da **Larre** + eta-tik, e + e > ie aldakuntzaren bidez atera den forma:

“otrosi dos pieças en Larrieta afrenta la una de la una part la pieça de migl echeverrico et de la otra part a pieça de garçia oreyna”<sup>2483</sup>

**Barranco de Larreta** [lařéta]-k dermioa gurutzatu, eta **Aragoatik hurbil Barranco de Errekagaitza**-rekin bat egiten du. Bi dermiok (**Larreta** eta **Errekagaitza**-k) batzuetan **Larreta** izenpean eta beste batzuetan **Errekagaitza** izenpean azaltzen den “corraliza” osatu izan dute<sup>2484</sup>:

“...Las yerbas y aguas de las corralizas de la elca y aratasogoyena puya **Raso** y Ormaquieta el **Saso** y **Larreta** y **Recagayza**” (1689)<sup>2485</sup>

“y mas las yervas y Aguas de las corralizas del **Saso** y **Larreta**, thenientes al Rio Aragon y muga de **Sada**” (1717)<sup>2486</sup>

2481 PRA-Kaseda, 16. k.

2482 PRA-San Martin, 47. k.

2483 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. org.

2484 Berriki arte gutxienez. Ikus **Corraliza** sarreran dioguna.

2485 Hemendik **Larreta** eta **Errekagaitza** aparteko “corraliza”-k zirela ondorioztatzen ahal da. Hala ere, eta beste lekuko batzuk ikusita, normalean behintzat “corraliza” bakar bat osatzen zutela uste dugu.

2486 PRA-Kaseda, 18. k.

1730ean azaltzen den **Saso de Larreta**, itxuraz, 1687az geroztikako **Saso de Errekagaitza** bera da, alegia, **Larreta** eta **Errekagaitza**-ren arteko oraingo **Saso de la(s) Roza(s)** zazua:

“otra pieza...en el Sasso de Larreta” (1730)<sup>2487</sup>

Honi **Santxoteuntzea** ere deitu ohi zitzaion (ikus sarrera hau).

**Camino de Larreta-n, Cantón de Bartasteka-n** dagoen portiluari **Portillo de Larreta** esaten zaio:

“otra pieza...en el termino de Portillollarreta” (1730)<sup>2488</sup>

Bide honetan eta **Zareko** mugan dagoen iturriari **Fuente de Larreta** edo **Fuente de Penaki** izena ematen zaio. Hautetaz landa, gorago aipatu **Prado de Larreta** dugu **Zareko** mugaren ondoan, altxonbidearen aldamenean:

“otra pieza...en el prado de larreta” (1608)<sup>2489</sup>

**Larreta-k Errekagaitza, Saso de la(s) Roza(s), Pollungu eta Bartasteka**-rekin mugatzen du.

#### Larrondoa:

Toponimo honen jatorrian **larre** eta **ondoa** bide ditugu. Ez dakigu zehazki non zen, baina badirudi herri ondoan behar zuela:

“tengo mios amas de la viña de Larrondoa y la de Yturrialdea guerto de Andaldea...y ocho almutadas en Tipulazea” (1710)<sup>2490</sup>

Gorago aztertu **Arrondoa** eta **Aldarrondoa**-rekin ere identifika daiteke, koka-guneak laguntzen duenez gero.

#### Lecino (alto de), (paco de):

**Lecino (encino edo lencino)** ‘artea’ da Galipentzun eta Oibar ibarreko beste herrietan (ikus Eslabako **La Lecinosa** sarrera). Gure informatzaileak **lecino** eta **chapparro** gauza bera direla dio batean (lehen izena bigarrena baina aise gutxiago ibiltzen omen da), baina hurrengoan txikiak direnean txaparrak direla eta handiak direnean **lecino**-ak direla segurtatzen du.

Zuhaitz honek (edo hauek) ematen ditu(zt)en ezkur ez garratzei **lecina** esaten zaie, eta **coscojo**-ek ematen dituzten **coscollina** direlakoetatik ongi bereizten dira, azken hauek garratzak baitira. Uxuen ordea **coscojo / coscollina** eta **lecino / lecina** hitzak ezezagunak dira, eta hauen ordez **carrasco** eta **ancina** ibiltzen dira, lehena zuhaitza eta bigarrena ezkurra adierazteko (**arte**a eta **artazia** euskaraz). **Ancina**-k, dena dela, txapar eta haritzarenak ere izan daitezke, ez bakarrik **carrasco**-arenak.

2487 PRA-Oibar, 42. k.

2488 Id.

2489 Id., 13. k.

2490 PRA-Kaseda, 15. k.

Lergako gure informatzailearen arabera, berriz, arte gazteak coscojo-ak dira, eta haritz gazteak chaparro-ak. Arte handiak carrasco-ak nahiz encina-k dira, eta artaziei, arte-ezkurrei ere encina deitzen zaie.

Lecino dokumentazioan dermio eta gaintzat azaltzen da:

“otra pieza...en el termino del alto de Lecino” (1804)<sup>2491</sup>

“otra pieza...en Lenzino, teniente a...camino para Ranzandia” (1840)<sup>2492</sup>

Egungo egunean, ordea, El Paco de Lecino baizik ez da erabiltzen, Pasalobos eta San Juan-en artean kokaturik dagoen oihexkittoa aditzera emateko.

### Legaztui:

**Legar** ‘harea’, ‘ibaien ertzetako harkoskorra’ izena, -tze ugaritasunezko atzizkia (ikus Eslabako Itzaurmakurra aztertzean dioguna), eta -dui atzizki multzokariaren existukari ondoko aldaera den -túi dira toponimo honen osagaiak:

“otra pieça en Legaztuy” (1597)<sup>2493</sup>

Badakigu San Juan ondoan zegoela, Agezabidea eta Campo de la Villa orain ezezagunaren ondoan, Pontarrón-etik hurbil:

“otra pieza en Legastui...thenienttea...Camino que se baja al sotto del Punttarron” (1730)<sup>2494</sup>

“una pieza...en...Legastui debajo de Sn Juan tthenientte a Camino que se ba al lugar de Ayesa, Campo de la villa y yermos” (1767)<sup>2495</sup>

### Lejua (fuente de):

Honen oinarrian \*Lejona-ren moduko bat egon liteke. Hemendik bokal arteko n leunaren erortzeaz \*Lejoa aterako zen, eta hemendik Lejua (cf. Nafarroan Olexo > Olejua).

\*Lejona hori zer den ez dakigu, baina badirudi Artaxogoiena aztertzean (ikus sarrera hau) aipatu dugun -ona bukaera hemen ere azaltzen dela. Azentuaketa ere proposatzen den iturriarekin bat dator, gaurregun, belare epentetiko batez, Lejuga [lexúga] esaten baita (cf. Lejóna, Leióa)<sup>2496</sup>:

“otra piª ffaytia en lejua” (1597)<sup>2497</sup>

“una viña en...Lejuga...tente a...Camino de Murillo” (1787)<sup>2498</sup>

2491 Id., 38. k.

2492 PRA-Oibar, 115. k.

2493 Id., 9. k.

2494 Id., 42. k.

2495 Id., 67. k.

2496 Honek ez du asko frogatzen, gaztelaniaz azentua hondar-aitzineko silaban jartzeko joera dagoelako. Joera hau areagotu baizik ez da egiten gure alderdian eta Nafarroako Erriberan.

2497 PRA-Oibar, 9. k.

2498 Id., 75. k.

Lejua ibai ondoko, Camino de Murillo-ren inguruko lur-zerrenda luze eta estu bat da, Sanzolportilua-tik El Ferial-eraino hedatzen dena. Mendebaldetik Zabaleta eta Billakukuru-rekin mugatzen du:

“otra viña...en...Lexua theniente...al Rio Maior” (1719)<sup>2499</sup>

Hemen bukatzen dira Aragoa ugaldere ura isurtzen duten Barranto del Rojo eta Barranto de Zabaleta (Barranto de Aristuziaga Uxuen). Azken honen ondoan, Camino de Murillo-tik hurbil, Fuente de Lejua dago. Orain urte batzuk aipatu Barranto del Rojo-n egun ahiturik dagoen Fuente de Marradas zegoen.

#### Lentiscar, el:

Izen hau lentisco landare-izenaren eratorria da, hau, bere aldetik, latineko lentiscus-etik atera delarik<sup>2500</sup>. Iribarrenen arabera<sup>2501</sup>, Bardean bada El Lentiscar izeneko eremua; R. Ciérbide eta H. Herreroek ere dokumentatu dute<sup>2502</sup>, Melidan.

Galipentzuko El Lentiscar Bardena-n zegoen; oraindik ere lentisco asko omen dago alderdi honetan, ugalde ertzean dauden Labekoaldea, La Cruceta, El Llano de la Torraza eta El Alveo (de Cumba) aldean:

“una pieza en el termino de Bardena llamado el Lentiscar” (1828)<sup>2503</sup>

Mutxarka-n ere ugaria omen da zuhamuxka hau.

#### Lezkatzea:

Lezka izenez eta -tze ugaritasun-atzizkiaz osatua dago (ikus Agezako izen bereko toponimoa):

“otra pieza en lezçaça” (1596)<sup>2504</sup>

Zehazki non dagoen ez dakigunagatik, badirudi, lezkek hala behar eta, toki heze batean, ubide edo putzu baten ondoan izan behar zuela, eta seguru asko Balaratako El Liscar<sup>2505</sup> edo El Juncar-ekin identifikatu beharko dugu.

#### Liatzeta:

Liho, -tze eta -eta ditugu hemen, edo hobe esan, lihatze ‘liguerri’ eta -eta<sup>2506</sup>. Zehazki non zegoen ez dakigu, baina lihatzeak herritik hurbil egoten dira (ez beti

2499 Id., 36. k.

2500 Corominas, DCELC.

2501 VN.

2502 TCO-II, 102. or.: “Paraje situado al S. O. del pueblo, mugando con el término de Murillo el Cuende, en el que hay lentiscos, coscojos y otros arbustos”.

2503 PRA-Kaseda, 50. k.

2504 PRA-Oibar, 9. k.

2505 Eslabako gaurko El Lezcal antzinako Lezkadui-ren erdalduntzearen ondorena dela zalantzarik ez dago (ikus bi sarrera hauek).

2506 Longida ibarreko Meotzen Ligacea azaltzen da 1849an (Agoizko hipotekak, 3. liburua, 22. or.), eta bailara bereko Ekain izen bereko toponimoa dugu 1851n (Id., 323. or.). Itzagaondoko Erretan Liaça dugu

hala ere), ubide baten aldamenean. Nolanahi ere, badakigu *Liatzeta* bide baten ondoan zegoela:

“otra pieça en liaçeta...afrentada con...la senda publica” (1596)<sup>2507</sup>

“...en el termino de ligazetas...” (1764)<sup>2508</sup>

**Liscar, el:**

Ikus **Balarata** sarrera.

**Lunberi (costado de), (paco de), (portillo de), (saso de):**

Toponimo honen lehen agerraldietan *-r-dun* aldaerak ediren ditugu: **Lunberi** (1597)<sup>2509</sup>, **Costalado de Lunberi** (1723), **Portillo de Lunberi** (1767); hurrengo bietan dardarkari anizkuna ageri da: **Lumberri** (1793)<sup>2510</sup>, **Lumberriz** (1828)<sup>2511</sup>

Gaurko aldaerak **Lunberiz** [lumbériθ] eta **Gunberiz** [gumbériθ] dira. Bigarren aldaera honen hasierako belarea nahasketa baten fruitua da, hain zuzen ere **Gezari** > **Lezari**-n aurkitzen dugunaren kontrakoa.

Izen honen etimologia, lehenengo begiratuan, Galipentzutik hurbil dagoen **Lumbier** herriaren euskal izenarekin (**Irunberri**-rekin) erlazionaturik dagoela irudi du. Honetatik abiatzen bagara, **Iribarren** > **Libarren**-en dugun aldakuntza edo desitxuraketa bera genuke, iturburutzat **Lunberri** onartzen bada, baina **Irunberri**-ren aurrekoa datekeen **Ilunberri**-tik ere abia gintezke.

**Mitxelena**<sup>2512</sup>, **Iruñea** izena aztertzen ari delarik, iragaitzaz **Moret** nafarraren hitz hauek aipatzen ditu:

“del nombre de aquella villa, que el libro de la Regla [de Leyre] llamó Lumberri, y es el antiguo, y el que oy retienen los Vascongados”

eta honela jarraitzen:

“Ez ote zekien (Moretek) euskaldunek, **Los Vascongados**, euskaraz egiten zutenek, bera barne, **Irunberri** (Erronkarin, gero bederen **Urunberri**) esaten zutela? Hor ere

1593an (PRA-Urtroz, 4. k.), eta Urbikainen “pieza linar llamada Liace andia” 1594ean (id., 4. k-bis.). Untzitin, berriz, \***Ligatzeta**-ren itzulpen kaskarra den **Los Ligaces** agertzen da (Agoizko hipotekak, 4. liburua, 538. or.).

Pirinio aldean ere aurkitzen dugu: Abaurrepean, adibidez, **Ligatzeta** dugu bizirik egungo egunean, eta Mezkiritzen **Ligezta** eta **Ligeztakolarre** ditugu orain, **Ligacea** XIX. mendean (Orreaga Ibarra, MT, 341. or.).

Zalantzarik ez dago azterketa sakon batek lihoa edo **ligua** izena osagaitzat duten makina bat toponimo emango lituzkeela argitara, landare hau garai batez gure herrialdeko herri guztietan aurki baitzitekeen, zuen garrantziarengatik.

2507 PRA-Oibar, 9. k.

2508 PRA-San Martin, 46. k.

2509 PRA-Oibar, 9. k.

2510 Id., 79. k.

2511 PRA-Kaseda, 50. k.

2512 “Iruñea”, PT, 189. or.

erdi bidetik, «zubigintzan», ingelesen *compromise*-an, ibili zen Moret, euskararen eta erdararen artean”

Halarik ere, daitekeena da gure ustez Moretek dioena egia izatea, hots, eskualede honetako euskaldunek, mugakoak izanik, eta erdararen eraginez seguraski, gure hizkuntzan **Lunberri** ibiltzea, Erronkarikoek lehen **Urunberri**, eta Zaraitzu eta Aezkoakoek oraino **Irunberri** [irumbé̃ri] esan arren<sup>2513</sup>. Hortaz, baliteke Galipentzuko **Lunber(r)**i-k eta hurbil dagoen **Irunberri** herriaren izenak jatorri bera izatea, hau inola ere argi ez dagoenagatik.

Caro Barojaren ustez<sup>2514</sup>, bukaerako **-berri** osagaia ez da beti ‘nuevo’, Menéndez Pidalek nahi zuen moduan<sup>2515</sup>, **Ilunberri**-ren moduko toponimoa **Ilunb-** eta **-erri** ‘herri’ ere zatika baitaiteke. Reta Janárizek, bere aldetik, **ilun** ‘villa’, ‘pueblo’ eta **berri** ‘nuevo’-ren bidez azaltzen du<sup>2516</sup>.

**Lunberi-k Bartabustu, Peñazamala, Larregureneta, eta Ardantzeandia**-rekin mugatzen du. Dermio honen barruan **Saso de Lunberi, Paco de Lunberi, eta Portillo de Lunberi** ditugu. Lehena Epaizko bidearen ondoraino hedatzen den goi-zelai kaskailutsua da, bigarrena **Ardantzeandia**-rekin mugatzen duen ospela, eta hirugarrena **Bartabustu, Peñazamala eta Lunberi**-ren beraren muga dagoen harrartea.

**Costado de Lunberi**, azkenik, **Ardantzeandia**-ren aldameneko alderdia zen, agian **Paco de Lumberri** bera:

“otra pieza...en...Arduandía en el costado de Lumberi” (1723)<sup>2517</sup>

#### Malacuesta:

**Mal** edo **mala** izenondoak arruntak dira toponimia erromantzean, eta euskarazko **gaitz, gaizto, txar**-en kide dira (cf. **Malpaso / Pausugaizto**)<sup>2518</sup>. **Malacuesta** erre-pide baten ondoan zegoen:

“una pieza en malacuesta...afrenta...con Camino Rl” (1635)<sup>2519</sup>

#### Malpaso:

**La Concepción** ingurutik **Balarrengu-n** zehar **La Central**-era doan bidexka adierazten du. Aipatu ermitatik atera eta berehala dagoen pausu gaiztoan du iturburu

2513 Ikus NHI, 183. or.

2514 “Observaciones sobre el vascuence y el Fuero general de Navarra”, FLV, 1969, 1, 84. or. Reta Janárizek aipatua, EHZE-ko 490. orrialdean. **Ilunbe-ri** buruz ikus *Leatzeko Sombras* sarrera.

2515 Azken autore honek *Toponimia prerrománica hispana* deitu laneko 10-15. orrialdeetan ukitzen du gai hau. A. Irigoyen ere arduratu da honetaz “Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica” laneko 193-194. orrialdeetan, ETTVC-n.

2516 EHZE, 490. or. Autore honek **Lumbé̃riz**-en etimologia egitean “cf. «Lumbiarra», *Lerga*” sartzen du, baina *Lergako gaurko Lunbiarra-k* ez du zerikusirik aztergai dugunarekin, horren jatorria *Alormearra delako* (ikus *Lerga*).

2517 PRA-Oibar, 38. k.

2518 Adibidez, *Murillo el Fruton Malpontaz* dugu 1615ean (PRA-Kaparroso, 26. k.), eta *Melidan Malpasso* 1634ean (id., 53. k.).

2519 PRA-Oibar, 23. k.



izen honek. Euskaraz, esan bezala, **Pausugaiztoa** aurkitzen dugu beste herri batzuetan, toponimo erdaldun honen ordainetan (Itza zendeako Izu herrian, adibidez<sup>2520</sup>). **Pausugaitz** (Galar-Espartzan<sup>2521</sup>) eta **Pausutxar** (Orbaitzetan) ere azaltzen dira balio beraz.

**Mano:**

Ikus **Bardena** sarreran dioguna.

**Marradas, fuente de; huertico de; peñas de:**

**Marradas** Galipentzuko familia baten izengoitia da egun. Familia honek baratzeara zuen **Billakukuru** eta **Lejua**-ren artean, eta hau dela medio inguru horretako iturriari ere izen bera eman zaio. **Peñas de Marradas**, aldiz, **Barranco de Antón** ondoan dauden harriak dira, lehen **Marradas**-ena zen gortetik gertukoak.

**Marta, cueva de la; paso de la:**

Inguru horretan gordea zuen **Marta** zeritzanak ("Corral de la Marta"), eta hor-tik harpearen eta pausuaren izena. Haitzuloa **Barranco de (la Muga de) Ujué**-n dago, **Cueva del Pozo grande**-tik ez urruti, eta pausua **Camino de la Barrera**, **Barranco de (la Muga) de Ujué**, eta **Barranco del Pozo de Portal** bat datozen tokian.

**Mayo, el:**

**Ibarreko zabala** aztartzerakoan esan moldean, **El Mayo** izen berriak XVIII. mendearen erdi aldera arte bizirik iraun zuen gaurko **Ibarreko harana**-ren ondoko **Ibarreko zabala** ordezkatu zuen.

**El Mayo**-ren jatorria maiatzaren batean Nafarroako hainbat herritan jarri ohi den zuhaitzean bilatu behar genuke agian, gehienetan zuhaitz hori (pagoa, txipua...) plazan jartzen den arren (Atondo bezalako herri batean **La Sierra** edo **Bizkai**-ko **La Peña del Mayo**-n jartzen da pago-adarra<sup>2522</sup>). Alabaina, Galipentzuzun zuhaitza jartzeko ohitura ezezaguna da orain.

**Meazu:**

**Meazu** [meáθu] latineko *vena*-tik atera den *mea* 'mineral', 'vena de mineral' eta ugaritasunezko *-zu* atzizkiak osaturik dago:

"la otra pieça en meazu" (1594)<sup>2523</sup>

Galipentzutik hurbil samar dagoen Urraulbeitiko Arripodas herrian **Meatza** dugu<sup>2524</sup>, itxuren arabera mintzagai dugun **Meazu**-ren jatorrikide eta adierakidea dena, atzizkia formaz (baina ez esanahiz) ezberdina bada ere. Galipentzuzun bertan, berria diru-

2520 Jimeno Jurío, TCPCI, 204. or.

2521 Jimeno Jurío, TCPCG, 181. or.

2522 Informazio hau Jimeno Juríori zor diogu.

2523 PRA-Oibar, 8. k.

2524 "otra pieça..en el paraje llamado Eslaia teniente a senda que ba a Meaza", PRA-Irunberri, 4. k., 1712. Larraian berriz, **Meaz** dugu (Jimeno Jurío, TCPCC, 338. or.).

dien (Paco de) **Las Minas** toponimoa daukagu, **Meazu**-tik hurbil (ikus sarrera hori). 1532an **Meazu** eta mina-ren arteko nahasketaren fruitu den **Minazu** aurkitu dugu<sup>2525</sup>.

Igeltsu-meatze edo hobiak ugariak ziren (cf., adibidez, **La Minas**<sup>2526</sup> edo **Las Minas del Yeso**<sup>2527</sup> Kasedan), eta ez bakarrik gure eskualdean (Tafallan **Cantera de la gesera de Santa Marina**, **Gesera de la villa**, **Yesera real** edo **Mina de yeso de Santa Marina** agertzen dira<sup>2528</sup>).

**Meazu Camino de los Molinantes**-en bi aldeetan hedatzen da, **El Pontarrón**-etik **Acequia de Balarata**-raino. **La Elka** eta **Las Ripas**-ekin ere mugatzen du.

**Meazuko erreka:**

**Meazu** toki-izena, **-ko** leku-genitiboa, eta **erreka** ditugu hemen:

“mas otra pieza en meazuco erreca” (1651)<sup>2529</sup>

**Meazukoerreketa (barranco de):**

Dokumentazioko **Meazuko erreka** eta **Agezatik** heldu den egungo **Acequia de Arana** bera da hau:

“ytem una piª en meazuco errequeta....afronta con...termjo de Ayesa” (1546)<sup>2530</sup>

**Melenas (nava de), (paso de), (puente de), (saso de):**

**Melenas** [melénaš]-en etimologiaren inguruan ikus **-as / -az, -es / -ez...** bukaerei eskainitako atalean dioguna. **Melenas**-ekin batera **Melena** eta **Melera** ere azaltzen dira noiz edo noiz:

“otra viña en meleras” (1596)<sup>2531</sup>

“otra pieza en melena” (1635)<sup>2532</sup>

2525 PRA-Oibar, 2. k. Alfonso Irigoyen Bilbo aldeko toponimia aztertzen ari delarik honela mintzo da **Meazabal** toponimoaz:

“Se ha citado más arriba también *Meazabal*, ‘llana del mineral’, seguramente en relación con lo que después se conoce como *Mena*, barrio de Abando, variante romanizante de *mea*, ‘mineral’, cuya forma carece de *-n* - intervocálica por pérdida de la misma entre hablantes vascos. No debe olvidarse la existencia de minas de hierro en la zona, a las cuales hacen alusión los venaderos mencionados por Iturriza”.

Ikus “*Bilbao y Askao*, topónimos vascos de formación paralela y contrapuesta. (Área metropolitana de Bilbao-Ibaizabal)”, in DRPLV-III, 297-306. orr.

2526 PRA-Kaseda, 24. k., 1772.

2527 Id., 1818.

2528 Jimeno Jurío, THET, 191. or.

2529 PRA-Oibar, 26. k.

2530 Id., 2. k.

2531 PRA-Kaseda, 9. k.

2532 Id., 23. k.

Toponimo hau aski zabaldua dagoela dirudi: Galipentzun ezezik, Burgin (Melena)<sup>2533</sup>, Kadreitán (Melenas)<sup>2534</sup> eta Baltierran (Melenas)<sup>2535</sup> ere aurkitu dugu.

Melenas-ek Paco de las Minas (Alboz), Albozko harana, Las Ripas, Meazu, La Elka, El Saso, Garandako harana, eta Ekarra-rekin mugatzen du. Antzina Bartasteka-rekin ere mugatzen zuen, orain berezko dermioa den El Saso El Saso de Melenas (1641)<sup>2536</sup> bide zelako. 1335ean Naba de Melenas dugu<sup>2537</sup>.

1646an agertzen den Paso de Melenas Zareko bidean zegoen, erreka batean, eta Zareko bide hori Altxubidea zela kontutan hartuta, pausua gaurko Puente de Melenas dagoen toki berean egon zitekeela uste dugu, alegia, Altxubidea-errepideak eta El Riacho-k elkar jotzen duten lekuan:

“una viña...en...el Passo de melenas...teniente...a Camino Real que van a sada”<sup>2538</sup>

#### Melenasko landa:

Melenas toponimoa, -ko leku-genitiboa eta landa<sup>2539</sup> ditugu hemen. 1617an bokal arteko n-ren erortzea aurkezten duen Meleasco landa azaltzen da<sup>2540</sup>; 1681ean, berriez, Melenascolanda ageri da<sup>2541</sup>.

Itxura denez, Camino de los Molinantes-ekin mugatzen zuen landa honek:

“una pieza...en los tterminos de dha villa de Gallipienzo, y en el que llaman Menoscolanda ttheniente...al Camino Real que ban los de esta villa (Eslabakoak) al Molino de Gallipienzo” (1766)<sup>2542</sup>

#### Mendiebakia:

Mendi eta ebakia-z osatua dago. Goiko errotaren ondoko errekek (Barranco del Molino edo Barranco de Bartasteka-k) ebakitako mendia ematen du aditzera (cf. alderdi honetan dagoen Ripodas):

“una pieza en rripodas...tente a...pieças de mendimaquia” (1633)<sup>2543</sup>

“dos piezas la una en el barranco del molino que baja de bartasteca que se llama mendimaquia...theniente al barranco y Camino RI que se va a Sanga” (1704)<sup>2544</sup>

2533 Agoizko hipotekak, 4. liburua, 555. or.: “otro bordal en Melena”. Hau, ordea, Belena erdaldunarekin (Pelena ‘etxartea’ euskaratua Arakil-Uharten) ere lot liteke.

2534 Ostolaza, 422. or.: “...la pieza mayor que es en el dito termino de Melenas de parte de Sierço”. Egun oraindik ere bizirik dago, Galipentzun bezala ahoskatzen delarik.

2535 Bizirik dago. Ebakera Kadreitako bera da.

2536 IEA, 387. k., 12. zkia., 8. or.

2537 Id., 14. org.

2538 PRA-Oibar, 25. k.

2539 Honetaz ikus Eslabako Landalarratza toponimoa.

2540 PRA-Oibar, 19. k.

2541 PRA-Kaseda, 1. k.

2542 PRA-Oibar, 63. k.

2543 PRA-Kaparroso, 57. k.

2544 PRA-Kaseda, 12.. k.

Toponimo hau oso goiz desitxuratu zen, baina 1546an bere jatortasun osoan azaltzen zaigu:

“ytem una p<sup>a</sup> en mendiebaquia”<sup>2545</sup>

#### Minas (paco de), las:

**Mina** hitzak Oibar herrian ‘harria’ adiera du, eta toponimo hau izen horretan oinarrituta dagoela kontu egin daiteke. Hala ere, **Las Minas**-tik hurbil **Meazu** dugu (ikus sarrera hau), eta badirudi, toponimo euskalduna aintzat hartzen bada, meatzeak zaharrak direla Galipentzun. Gure informatzailearen arabera, bertatik kobrea atera nahi izan zuten, eta horretarako egin ziren orain dauden meatze-zuloak. Hortaz, garbi dago **Las Minas** toponimoa bertako meatzeetan izan duela sorrera.

(El Paco de) **Las Minas** Galipentzutik **San Juan**-a eta **Eslabara** doan bidean dago, **San Juan**, **Albozko harana**, **Melenas**, **Valeciera**, **Pila** eta **Pasalobos**-en artean. **Albozko harana** aztertzean esan bezala, antzinako **Alboz**-ekin identifika daitekeela uste dugu.

#### Mirador, el:

Herritik hurbil dago, errepidearen aldamenean<sup>2546</sup>. Leku-izen berria da, atzekotan dagoen **Monda** ordezkatuz doana (ikus sarrera hau).

#### Modrojal (barranco de), el:

**El Modrojal**-ek **modrojo** ‘arbutus unedo’<sup>2547</sup> asko dagoen tokia adierazten du, eta izen arrunta den **modrojera**-ren errankidea da.

**Modrojo**-a, bere aldetik, **modrollo** (gurbitz?) deitu pikorrak ematen dituen landarea da. Hemen ikus daitekeenez, landarearen eta fruituaren izenek bilakaera diferentea izan dute, lehenaren belarea gaztelaniaren eraginari zor bide zaiolarik (cf. **Los Cascillos** 1570ean / **Los Cascajos** 1710ean Oibarren<sup>2548</sup>, edo Galipentzuko bereko **coscojo** / **coscollina**<sup>2549</sup>). Uxuen berriz **modrollo** esaten zaie bai fruituari eta bai landareari, nafarreraz eta aragoieraz ohizkoa zen alboko sabaikariaz. Herri honetan aztergai dugun **El Modrojal**-en kide zeharza den **El Modrollar** dermioa ere bada, Galipentzuko mugan (ikus sarrera hau), **Aurino**-n.

**Barranco del Modrojal** beherago **Barranco de Ondallu** deitzen den ubide bera dugu.

#### Mojón de Sada, el:

1747an ageri da:

2545 PRA-Oibar, 2. k.

2546 Pasai-Donibanen **Miradorea** dugu orain, **Mirador** dokumentazioan. A. Elortegi, PATO, 141. or.

2547 Ikus Iribarrenen VN-ko **modrollo** sarrera.

2548 PRA-Oibar, 2. k-bis, eta 32. k.

2549 Ikus **Lecino** sarreran esan duguna.

“una pieza...en...Recagaiza theniente...a Mojon de la dha Villa de Sada”<sup>2550</sup>

**Molinar, el:**

El Molinaz edo Errotazarra bera zen. Hemen, dirudienez, -ar eta -az(-o,-a) atzizkien aldizkatzea dugu (cf. Galipentzuko El Castillar / Uxueko El Castillazo):

“Mas otra (pieza) en el molinar” (1754)<sup>2551</sup>

**Molinaz, el:**

Ikus aurreko sarrera. Gaurko El Molinaz eta Errotazarra ez dira gauza bera, eta El Barrio bajo eta Iribarren-en artean burutu den espezializazio semantikoaren antzeko bat gertatu dela esan dezakegu. Izan ere, El Molinaz ibai ertzean dago, eta lehengo errota zaharra zegoen tokia ematen du aditzera. Errotazarra, berriz, La Fuente vieja-tik El Molinaz-en hurbiletik ugaldere jaisten den erreka eta honen inguruko lurra izendatzera igaro da (ikus Errotazarra sarrera).

**Molino, alto del:**

Mendiebakia-ren adierakidea da:

“otra pieza en el alto del Molino” (1769)<sup>2552</sup>

**Molino, barranco del:**

Barranco de Bartasteka-ren errankide dugu (ikus Mendiebakia sarrera).

**Molino, el:**

Ripodas-ko errota da, gaur Molino de arriba deitzen den bera:

“una pieza...en mendimaquia Junto al Molino” (1722)<sup>2553</sup>

**Molino de Ripodas:**

Orain Molino de (la Central de) arriba esaten zaio. Ripodas ez da deitura bat, Mendiebakia-ren ondoko eremu bat baizik, hain zuzen ere goiko errota dagoena (ikus Ripodas sarrera):

“y mas el molino farinero que tienen dhos vezos en el Rio Aragon llamado Ripodas que es propio de la dha viª y vezos conzejantes” (1717)<sup>2554</sup>

**Molino de Ujué, el:**

Egungo Central de la Cueva-n zegoen (ikus Uxueko Molino de Ujué sarrera):

2550 PRA-Oibar, 54. k.

2551 PRA-San Martin, 42. k.

2552 PRA-Kaseda, 22. k.

2553 PRA-Oibar, 38. k.

2554 PRA-Kaseda, 18. k.

“una viña...en el termino de Barrengü; theniente â Camino Real, y proximo al Molino de Uxue” (1765)<sup>2555</sup>

Uxuekoak altxonbidean barrena etortzen ziren errotara, Zabaleta eta Larrañetako mendia eta Ondallu-ren artetik. 1800 arte Uxueko auzoa izan zen Pitillasko bizilagunak ere (ondoko herrietakoak ere bai?) etortzen ziren alea ehotzera, **Santa María la Blanca, Zapaiz, Erlosiana, Portillo de Chinchón** eta **Aurino**-n zehar.

#### Molino farinero, el:

Aurreko bera da:

“el molino farinero...situado...encima de la puente del dicho lugar en el Rio llamado de Aragon...” (1563)<sup>2556</sup>

#### Molino viejo (junto a la acequia de), el:

**El Molinar, El Molinaz** edo **Errotazarra**-ren errankidea da (ikus **Iturraldea sarrera**):

“una pieça...en la endrecera llamada Junto a la çequia del molino biejo” (1591)<sup>2557</sup>

#### Monda (corseras de):

Toponimo hau aztertzerakoan nahitaezkoa da **San Martin Unxeko Monda** eta **Lergako Monda** eta **Mondakieta** kontuan hartzea. Hiru herriotan **Monda** alderdi menditsua eta aldapatsua adierazteko erabili izan da: Galipentzun herriaren ondokoa, **Lerga** eta **San Martinen Alto de Lerga** deitu gain aldea.

Aurreko hori aintzat hartuta, aztergai dugun honen oinarrian latineko **mons-**en eratorriren bat izan dezakegula pentsa liteke, beharbada latin bulgarreko ustezko **\*montanea**-ren<sup>2558</sup> antzeko zerbait, **\*montana** edo, baina hau ez da inola ere segurua. **Mitxelenak**<sup>2559</sup> Arabako **Mandojana** herri-izena aztertzerakoan honela dio:

“preferiría pensar que ese nombre no es sino el equivalente de **Montañana**, formado sobre **Montanus**, conocido en zona románica. Es cierto que hay que aceptar una metátesis de **\*Monda-** en **Mando-**, pero opino que este inconveniente queda compensado por la seguridad que nos ofrece **Montanus** frente a **Mandonius**, sin contar el paralelo de **Montañana** de origen nada discutible”

Gure izena azaltzeko, **\*Montana**-ren antzeko bat behar genuke; hemendik sudurkariaren atzeko horzkari ahoskabea ahostundu (>**\*Mondana**), bokal arteko sudurkaria erori (> **\*Mondaa**), eta bokal berdinak bakundu ondoren **Monda** lortuko genuke<sup>2560</sup>.

2555 PRA-Oibar, 66. k.

2556 PRA-Erriberri, 6. k.

2557 PRA-Oibar, 5. k.

2558 Corominas, DCELC.

2559 “Nota marginal sobre la huella latina en la lengua vasca”, SHLV, 121-137. orr.

2560 Fco. Javier Zubiaurrek “Toponimia de San Martin de Unx (Navarra)” artikuluan (CEEN, IX, 1977, 415-462. orr.) Berraderen etimologia biltzen du: “terreno cultivable localizado entre las Mugas de Lerga y Ujué. En 1816 aparece documentado como valle en el Archivo Parroquial, «Bal de Monda». Según Be-

Egia da egun **Monda** [mónɔda] ebakitzen dela<sup>2561</sup>, ez [monɔdá] etimologikoki legokiokoen bezala (cf. *montaña*), baina hemen erdal azentuaketarekiko egokitzea burutu dela pentsa daiteke. Elon **Monda** osagaia bide duen **Mondain** despoblata dugu<sup>2562</sup>, eta antxoritzen **Mondaburu** toponimoa edireten dugu<sup>2563</sup>.

Galipentzuko **Monda**, esan bezala, herriaren ondoan dago, **La Fuente**-ren azpiko eremuan, etxeei hurrán, lehengo **Corseras**-en barruan:

“un Huertecillo...en las progsimidades (sic) del Pueblo parage llamado Monda en las corseras” (1815)<sup>2564</sup>

Etxeak ere baziren lehen **Monda** barruan:

“una casa que es la que vibía el dho vicario situada en la dca villa de Gallipienço y en la endrezero que llaman Monda” (1651)<sup>2565</sup>

1366an<sup>2566</sup> **Martin de Monda** izeneko laguna bizi zen Galipentzún, eta ba-daiteke “deitura” gizonak auzotik hartua, bai eta alderantziz gertatua ere.

**Mondela (barrio de), (noguera de), la:**

Ez dakigu aurreko toponimoarekin zerikusirik baduen, baina badirudi baietz. Lehen begiratuan bukaeran latineko *-ella* atzizki txikigarriaren euskaratzearen aurrean gaudela ematen du (cf. *Uxueko Zautelu* < \**Sautellu* < \**Saltellu*), oinarria agian **Monda**-n dugun bera delarik:

“otra casa en bario que fue de la Mondela” (1641)<sup>2567</sup>

**Mondela** Zareko auzo baten izena (ikus sarrera hau) ere bada, eta **Urraulbeitiko Santsoain** herriko dermio bat (despoblata bat, antza) ere izan zen:

“otra (pieza) en el mojon de ozcoidi... afronta con pieza de Navaci de ozcoydi, mojon de Mondela y cerros comunes”<sup>2568</sup>

Egun **Lergan Mondela**-k deitura gisa korritzen du.

---

rrade, viene del latín «munda», virgen, limpia. Alude a un término limpio de zarzas. En tiempos recientes fue «cascajera» o depósito de piedras procedentes de las piezas de labor. Tiene altos, pero la tierra de las hoyas se presta a la producción agrícola” (443. or.).

2561 Toponimo hau galbidean dago gaurregun.

2562 Jimeno Jurfo, “Topónimos navarros con sufijo -ain”, FLV, 48, 1986, 251-281. orr.

2563 1892ko katastroa.

2564 PRA-Kaseda, 43. k.

2565 IEA, 417. kart., 6. zkia., 9. or.

2566 Carrasco, 454. or.

2567 IEA, 387. kart., 12. zkia., 7. or.

2568 PRA-Kaseda, 46. k., 1819.

**Montekilate, hoya de:**

**Montekilate** izenean monte ezaguna bide dugu batetik, eta zer den ez daki-gun -kilate bestetik. Azken honetan -ate 'portilua' dagoela suposa dezakegu, baina hau ez dago batere garbi.

**Montekilate** [móntekiláte] Eslabako mugan dago, **Beragu-n**, **La Peña del Cuco** eta **Puyarraso-ren** artean:

“desde la muga de la vª de Eslaba llamado Puiaraso asta el alto de la vista de la oya de Monte quilarte” (1771)<sup>2569</sup>

**Montekilate** oihezkoa da. Alderdiko zuloa Epaizko bidea igarotzen dena zate-keen.

**Morate (barranco de):**

Izen honen inguruan ikus Lergako **Moraga** eta Uxueko **Morape** eta **Moratea** sarreretan dioguna:

“un campo...sito en el termino de Morate” (1852)<sup>2570</sup>

Oraingo **Morate** [moráte] zubiaz beste aldean dago, **Kaparreta**, **Engubelea** eta **La Bardenica**-ko mugan, Aragoa ugaldearen ertzean. **Engubelea**-rekin batera **Gunbelea-Morate** izenaz saltzen den “corraliza” osatu du orain gutxi arte (ikus **Corraliza** sarrera).

**Barranco de Morate** dermioa zeharkatu ondoren Aragoa ibaian amaitzen den erreka txikia da, beste gisaz **Barranco de Castillo** ere deitzen dena (ikus **La Bardenica** sarreran honetaz dioguna).

**Moyo, barranco del; cantón del; fuente del:**

**Moyo** [móyo] Galipentzuko etxe baten izena da (“los del moyo” esan ohi zaie etxe horretakoei), eta deitura edo izengoiti batean oinarriturik dagoke. Etxe honetakoek ondasun zerbait izanen zuten alderdi honetan, eta hortik erreka, gain, eta iturriaren izenak.

Erreka **Camino de Aurino**-tik hurbil sortu, eta **Aurino alto** zeharkatu ondoan **Barranco de las Aguas saladas**-ekin batzen da, **Aurino bajo** eta **Zamakidoi**-ko mugan, \***Urandia**-tik gertu. **Cantón del Moyo** aipatu erreka eta **Murilloko** bidearen arteko gaina da, eta hauek bezala iparraldetik hegoaldera luzatzen da. **Iturria**, azkenik, errekan berean dago, **Cuesta del Ferial**-en gaindi doan bidetik ez urruti.

**Muga de Ayesa, la:**

**Gezari**, **Las Fuentes**, **Balarata** eta **Pollungu**-n barrena luzatzen da auzo herriarekiko muga. **La Elka** ere mugaren hurbileraino iristen da.

2569 Id., 23. k.

2570 Id., 59. k.



**Muga de Carcastillo, la:**

Zarrakazteluko muga aldeari deritza honela, **Puyalato eta El Llano de la Noria**-ren artekoari.

**Muga de Caseda, la:**

Auzo-herriko muga inguru luzea ematen du ezagutzera toponimo honek.

**Muga de Eslava (molino de), (paso de), la:**

Errota Galipentzuko zaldia hasten den alderdian zegoen, eta aspalditxo desagertu zen arren, jendeak oraindik ere gogoan dauka, eta toponimo gisa erabiltzen du (ikus Eslabako Errotaldea eta Unzue sarrerak).

Pausua dokumentazioko **Paso de San Babil** bera dela dirudi, hau da, **Camino de Eslava-k El Riacho** gurutzatzen duen gunekoa.

**Muga de Sada, la:**

**Larreta, Saso de la(s) Roza(s), Errekagaitza, eta El Azute**-n zehar hedatzen da.

**Muga parda, la:**

Euskarazko **\*Muganabar** baten kidea dirudi (cf. Galipentzuko mugako Uxueko **Mugazuria**). **Bardena**-n zegoen, Zarrakaztelu edo **Kasedako** mugan:

“otra (cruz) en el lado que mira a Murillo y ambos se renobaron confesando se denomina la Muga Parda” (1802)<sup>2571</sup>

Auzo-herri horietako leku-izena ere izan liteke.

**Mugaleta (val de):**

Izen hau berandu aurkitu dugu, eta ordurako itxuragabetuxea zegoen toponimo baten aldakia dela uste dugu, agian **\*mugarrieta** batena (cf. **Mugarria** Zarrakaztelun<sup>2572</sup>):

“a la bistra de la bal de mugaleta” (1770)<sup>2573</sup>

Toponimo honek Kasedako mugako alderdi bat adierazten zuen:

“otra pieza...en el termino de Mugaleta, que afronta con moxones de la villa de Caseda” (1772)<sup>2574</sup>

2571 PRA-Kaseda, 37. k.

2572 1684ean (PRA-Kaparroso, 84. k.), eta 1807an (PRA-Kaseda, 40. k.).

2573 PRA-Oibar, 68. k.

2574 PRA-Kaseda, 24. k.

Bi herrien arteko muga oso luzea da, eta datu gehiagorik ezean ez dago zehazki non zegoen esaterik.

### Mugazuria:

**Muga** eta zuria-z osatua dago. **Mugazuria** gaurregun Uxuekoa bakarrekoa da, baina Galipentzun ere behin baino gehiagotan aurkitu dugu, auzo-herri horretako mugan (ikus **Billakukuru** sarrera). Dena den, Galipentzuko dokumentazioan gutxitan ediren izanak eta egun zeharo ezezaguna izateak izen honen "galipentzutartasuna" zailantzan jartzera garamatza.

### Munotxikia:

Bitan baizik ez dugu aurkitu, aski berandu gainera<sup>2575</sup>. Hasierako elementua 'muino', 'gain' adiera duten muno zein muru izan daiteke. Badakigu hau muinoa zela:

"dos cargas en el terno del sotto de la villa de Gallipieno q afronttan a la Muga de Eslava y a Zerro llamado Mumuchiquia" (1767)<sup>2576</sup>

"Mas otra (pieza)...en el Soto de la villa de Gallipienzo, qe afronta a la muga de Eslaba, y cerro llamado Muguchiquia" (1831)<sup>2577</sup>

El Riacho-ren ondoan zegoen, Eslabako mugan. Gaur ez du izenik.

### Mutxarka:

Bukaerako **-arka** horrek Ageza eta beste toki askotako **uharka** dakarkigu burutara, baina hasiera iluna denez, ezin dugu izen hori dugula segurtatu. Dena den, **Mutxarka** [mučárka] Aragoa ugaldearen ondo-ondoan dago, eta hau bukaeran arka 'uharka' ikustearen alde mintzo da.

Masu Nitta japonarrak ere<sup>2578</sup> arka ikusi uste du toponimo honen amaieran, eta putzu edo butzu hasierako Much- horretan, arrunta den b- (< p-) > m- aldakuntzaz. Ez dakigu lehen osagaia autore honek proposatzen duena den (egun bertan ez dago putzurik), baina honela izatekotan butzu aldaera proposatu behar genuke, hau baita gure eskualdeko aldaera orokorra. Gainera m- lortzeko b-tik abiatu beharko dugu, ez p-tik.

**Mutxarka Zamakidoi**-ren aurkezean dago, **Bardena** aldean:

"otra pieza en Cemaquidoy en frente de Mucharca...que afronta con el Rio Aragon y montes comunes" (1777)<sup>2579</sup>

Goitik **Los Ripazos**-ekin mugatzen du, behetik **Barranco** eta **Paco del Palomar**-ekin, mendebaldetik Aragoa ugaldearekin, eta ekialdetik **La Sierra** eta **El Pinar del Pepo**-ekin. **La Sierra**-ekin batera **La Sierra-Mutxarka** izena duen "corraliza" osatzen du (ikus **Corraliza** sarrera).

2575 1767an **Mumuchiquia** dugu, eta 1831n **Muguchiquia**.

2576 PRA-San Martín, 48. k.

2577 Id., 87. k.

2578 *Notas lingüísticas...*, 21. or.

2579 PRA-Kaseda, 29. k.

**Navas, las:**

**Nava**-ri buruz ikus Eslabako **Nabarana** eta Leatxeko **Nabeta** sarrerak. Behin bakarrik aurkitu dugu, 1647an, eta ez dakigu izen berezi ala arruntetako hartu behar den. Non zegoen ere ez dakigu:

“...ayan de entrar a gozar las dhas navas” (1647)

**Noguera, la:**

**Erbiña** sarreran aipatu dugun **Nogueras de Erbiña** izan zitekeen, bertan **Erbiña**-n bezala lihatze bat behintzat bazelako:

“un linar en la Nogera” (1845)<sup>2580</sup>

**Noria, llano de la; saso de la:**

Guk Aragoa ugaldearen ondoko **Llano de la Noria** baizik ez dugu bildu; zuzua Reta Janárizek aipatzen du<sup>2581</sup>. Azken hau gure **Saso de Vicentón** izan liteke (ikus sarrera hau). Toponimoaren oinarrian ibaitik ura ateratzeko dagoen “noria” dugu.

**Nuestra Señora, ermita de:**

Fdo. Pérez Olloren<sup>2582</sup> arabera, hauek ziren Galipentzuko eliza eta ermitak:

“Nuestra Señora de la Peña, en la parte alta del pueblo; Nuestra Sra. de la Torraza, S. Babil, S. Juan Bautista, S. Pelayo, S. Salvador, S. Sebastián, Sta. Elena, S. Tirso, S. Zoilo y Sta. Elena”

Guk 1599an aurkitu dugun **Ermita de Nuestra Señora Pérez Olloren Nuestra Señora de la Peña** izan zitekeen nahiz **Nuestra Señora de la Torraza**:

“ytten ordenoy dxo a la ermita de nra señora de gallipienço...”<sup>2583</sup>

**Nuestra Señora de la Peña** zalantzarik gabe gaurko **Ermita de la Concepción** da, alegia, **Peñisco de los Cuervos**-etik ibairaino amiltzen den haitzeko ermita hondatua.

**Nuestra Señora de la Torraza** egun **La Torraza** deritzan eremuan zegoen, Aragoa ugaldearen ertzean, **Barranco de Valdarras**-en bukaeran. Bertan dagoen gortean oraindik ere ur-bedeinkatu harriak ikusi omen daitezke. **Valdarras** Erdi Aroan hustu ziren Galipentzuko despoblaturtako bat zen<sup>2584</sup>, eta **La Torraza** ermita horren aztarrena izan zitekeen (ikus **Uxueko Torraza** sarrera).

2580 Id., 57. k.

2581 EHZE, 488. or.

2582 EN, 100. or.

2583 PRA-Oibar, 14. k.

2584 J. Gárriz, *Despoblados*, 21. or.

**Nuestra Señora de la Peña:**

Ikus aurreko sarrera.

**Nuestra Señora de la Torraza:**

Ikus Nuestra Señora sarrera.

**Oiangibela:**

Oihan ‘mendi arbolatua’ eta **gibela** ‘atzeko aldea’ ditugu hemen:

“otra pieza en oyanguibela” (1635)<sup>2585</sup>

**Ojo, campo del; fuente del:**

San Juan-en daude, landa **Barranco de Peñazamala** ondoan, eta iturria errekan berean, Eslabako bi bideen artean. Ez dakigu zergatik eman zaion izen hau, baina agian San Martindik Uxuerako errepidean dagoen **Puente de los Dos Ojos**-en antzerako azalpena izango du: xubingo honek bi zulo ditu, bi arku bezala, bi “begi” azken batez.

**Olibeta, corraliza de la:**

Olibo ‘olibondo’-z eta -eta atzizkiaz osatua egon daiteke, Agezako **Olibeta**-ren antzera, edo monastegiaren izenaren txikigarria izan daiteke, Uxueko **La Oliveta** bezala.

Badakigu **La Olibeta Bardena**-n zegoela, gaurko **Bardena baja**-n, Zarrakazteluko muga aldean, **Corraliza de Landederra**-ren ondoan (ikus **Landederra** sarrera).

**Olmo, el:**

1845ean aurkitu dugu lehen eta azken aldikoz:

“otra pieza...en el termino del olmo”<sup>2586</sup>

Izen honen gure alderdiko ordainaz ikus **Leatxeko Zugarketa / Los Zugarrres**.

**Ondallu (barranco de), (cueva de), (paco de), (paso de), (pedregal de), (soto de):**

Reta Janárizen arabera<sup>2587</sup>, latineko **fundus** ‘hondoa’, ‘ibia’-tik atera den **onda** eta erromantzezko atzizki batez osatuta dago toponimo hau. Autore honek P. de Zabalak aipatzen duen<sup>2588</sup> **ondajo** ‘ibia’ biltzen du, eta badirudi **Ondallu (Ondallo [oŋdá]o)** orain) izen honekin erlaziona daitekeela, Aragoa ugaldearen ertzean dagoelako lehenik,

2585 PRA-Oibar, 23. k.

2586 PRA-Kaseda, 57. k.

2587 EHZE, 491. or.

2588 BRSVAP, XIII, 1957, 296. or.

eta **ondallo** (erdaraz) > **ondallu** (euskaraz), **ondajo** (erdaraz) pausoak inolako zailtasun fonetikorik aurkezten ez duelako gero (cf. **Puntallo** erdaraz > **Puntallu** euskaraz, **Puntajo** erdaraz. Cf., orobat, **El Modrollar Uxuen / El Modrojal Galipentzun**, edo herri honetan erabiltzen den **coscollico** baina **coscojo**):

“una bina...en el termino...q Dizen hondallo” (1593)<sup>2589</sup>

“otra viña en la endreçera llamada hondallu” (1596)<sup>2590</sup>

**Ondallu**-ren etimologiari dagokionez, Retaren **fundus** baino egokiago iruditzen zaigu erromantzeko **onda**-ren sorburua den latineko **ūnda** ‘olatua’, ‘zurrunbiloa’, fonetikoki arazorik ez dagoelako (ez dago garbi **fundus**-etik **onda** nola atera daitekeen. Dudarik gabe, egokiagoa litzateke \***funda** bezalako zerbait. Beste aldetik, **fundu** ‘hondo’, ‘sakona’ bada ez da garbi ikusten ‘ibi’ adiera nola hartu duen), eta **Ondallu**-ren pare-parean, ugaldeaz beste aldean dagoen **El Campo de las Ondas** delakoak hauxe idarokitzen digulako<sup>2591</sup> (ikus sarrera hau). 1697an, gainera, **San Zoilo** ondoan zegoen **Las Ondas** dokumentatzen da:

“otra pieza...en las ondas...teniente al recial (?) de Sn Zoilo”<sup>2592</sup>

Honen arabera, **Las Ondas Ondallu** ondoan zegoen, **Ondallu**-ren beraren ordain erdalduna ez bazen bederen. Atzizkiari dagokionez, latineko **-aculu**-n jatorria duen erromantzeko **-allo** bera izan liteke (cf. Uxueko **El Serrallo**. Toponimo honetan, dena den, **-allo**-k balio txikigarria duela dirudi) euskarazko **-allu** aurrekoaren euskaratzearen ondorena delarik (cf. **puntallo** > **puntallu**).

**Ondallu** oso goiz agertzen da (**Ondalluburua** 1335ean), eta honekin batera, baina beranduago, **Undallu**, **Undallo** eta **Ondallo** ere aurkitzen ditugu:

“una vina...en...Undallu” (1730)<sup>2593</sup>

“...en el termino de Undallo...” (1765)<sup>2594</sup>

Formarik zaharrena **Ondallu** denez gero, hasieran **u-** duten aldaerak ondoko sudurkariaren eraginez hasierako erdiko bokala itxi duten formak direla pentsa daiteke (cf. **on** > **un** Iparraldeko euskalkietan. Erromantzez **Pontarrón** > **Puntarrón** dugu Galipentzun berean, eta **El Ontinar** > **El Untinar Zaren**).

Gaurregungo **Ondallo**-k **Las Suertes**, **El Modrojal**, **Paco de la Barrera**, **Zabaleta**, **San Zoilo** eta ibaiarekin mugatzen du.

2589 PRA-Oibar, 7. k-bis.

2590 Id., 9. k.

2591 Oltza zendeako Izkuze herrian **Ondatea**, **Ondategi** eta **Ondatika** aurkitu ditu J. Juríok (TCPCO, 175. or.), azken hau **Undatica** delarik 1819an (cf. **Undallu**). **La Ondática**-k erreka baten bi aldeak izendatzen ditu aipatu autorearen arabera:

“Paraje al NE. del pueblo, a los lados de la regata que baja de la Tejería de Artázcoz, donde la llaman «Regata grande». Desagua en el Araquil”.

Ergoienean **Ondatz** despoblau-izena eta honen eratorriak ditugu (EAE, 283. or.); Lesakako **Ondalatz** dermio baten eta erreka baten izena da (J. Esparza, DTN, 200. or.).

2592 PRA-Kaseda, 8. k.

2593 PRA-Oibar, 42. k.

2594 Id., 66. k.

Cuesta de Ondallu ugaldetik Paco de la Barrera-raino luzatzen den Uxueko altxonbideko aldapa da; Cueva de Ondallu ibai ertzean dago, San Zoilo-tik hurbil; Paco de Ondallu oraingo Paco de Bastiligorra-ren ondoko oihezkoa da; Paso de Ondallu Barranco de Ondallu-k (Barranco del Modrojal) eta Camino de Murillo-k elkar jotzen duten lekuan dago, Aragoatik gertu. Pedregal de Ondallu erreka (Barranco de Ondallu) Aragoa ibaiarekin batzen den alderdiko harridia da, eta Soto de Ondallu, azkenik, Sanzol-eko mugan dago, ugalde ondoan.

Gaurko Las Suertes, beste aldetik, lehen Ondallu bide zen, 1774eko agiri batean ikusten den moduan Molino de Uxue zeritzana Ondallu-n, edo Ondallu ondolan bederen, baitzegoen:

“una viña en ondallu donde el Molino de Uxue” (1774)<sup>2595</sup>

#### Ondalluburua:

Altxonbidea igarotzen den gaina da 1335ean azaltzen den hau:

“yten una p<sup>a</sup>...en ondalluburua”<sup>2596</sup>

#### Ormakieta (corraliza de):

Hemen horma ‘murrua, pareta’ izena (ikus Morionesko Cerrado sarrera), eta -kieta leku-atzizkia ditugu:

“una pieca...en el termino...llamado ormaquieta” (1584)<sup>2597</sup>

“Corraliza” ere bazen:

“...las yerbas y aguas de las corralizas de la elca y aratasogoyena puya Raso y Ormaquieta el Saso y Larreta y Recagayza” (1689)<sup>2598</sup>

#### Orzagal, el:

Iribarrenek<sup>2599</sup> Leringotzat jotzen duen orzaga deitu sastraka franko dagoen tokitako har daiteke hau (cf. escobizo / escopizo pareia, eta honen eratorria den Zareko El Escopizar), \*orzaca aldaera bazegoela onartzen bada. Cf. Olzagal (Orzagal 1892ko katastroan) eta Olzagalillo Kabanillasen.

El Orzagal Bardena-n dago, Kasedako mugan, El Portillo de los Lobos, La Gudilla eta El Alcaz-en artean.

2595 Id., 70. k.

2596 IEA, 387. kart., 12. zkia., 9.org.

2597 PRA-Oibar, 3. k.

2598 PRA-Kaseda, 5. k.

2599 VN.

**Otazeatzte:**

Izen honen etimologiaren inguruan ikus -tze atzizkiari eskainitako atalean dioguna. Daukagun lekuko bakarrean ikusten den gisan, Agezakoak Kasedara joaten ziren bide-zigorraren ondoan zegoen:

“otra pieça en otaceçe...que afruenta con...senda puca q ban los de ayessa a caseda”  
(1597)<sup>2600</sup>

**Paco de la Vaquera, el:**

La **Vaquera** Galipentzuko etxe batekoen izengoitia da (“los de la Vaquera” esaten zaie), dirudienez lehen behi asko eduki eta behizain ibiltzen zirelako. **Barranco de Ujué**-ko elutsean dago, **Valescura** handiaren barruan.

**Paco del Carpintero, el:**

**Aurino alto**-ko, Uxueko mugako opaku txikia da. **El Carpintero** Galipentzuko familia baten goitizena da, orain zurginak ez diren arren.

**Paco pico, el:**

**El Paco pico** **Paco de Zabaleta**-ren bukaera da, **Lexua** eta **El Ferial** aldeko oihezkoa. **Pico** izenondoa oso xuta izateari zor zaio, aise igar daitekeenez.

**Palomar (barranco del), (paco del):**

**Palomar** eta **Barranco del Palomar** oso berandu aurkitu ditugu (XIX. mendean), eta **Paco del Palomar** ahoz baizik ez dugu bildu. 1546an hauen ordain euskalduna izan daitekeen **Usadorrezarra** azaltzen da (ikus sarrera hau).

Erreka **La Sierra** eta **Plandeoliva**-ren arteko mugan dago, bigarrenaren barruan.

**Pasalobos (balsa de), (cantera de), (cantón de):**

Otsoak oso ugariak ziren eskualde honetan XIX. mende arte, eta ugaritasun honek islada izan du toponimian:

“otra pieza en pasalobos” (1648)<sup>2601</sup>

**Pasalobos**-ek **Bartaquilar**, **Peñazamala**, **San Juan**, **Paco de las Minas**, **Paco del Lecino**, eta **Pila**-rekin mugatzen du. 1691ko **Cantera de Pasalobos**-i **Cantón de Pasalobos** esan ohi zaio orain:

“dos piezas en la cantera de pasalobos” (1691)<sup>2602</sup>

2600 PRA-Oibar, 9. k.

2601 Id., 25. k.

2602 PRA-Kaseda, 6. k.

**Pasalobos**-en euskarazko baliakideak **Otsopasaje** [òçopaśáxe] (Arakil-Uharre, Imotz-Larasa...) eta **Otsopasaketa** [òçopaśakéta] (Etxaleku) dira.

### **Paso de Echandi, el:**

Echandiren gortearen ondoan, errekan, enbor batzuk jarri ohi zituzten ubidea bulartua eta hazia jaisten zenean azienda xeheek **El Riacho** igaro ahal izateko, eta honi esaten zioten orain urte batzuk arte **El Paso de Echandi**. Eslabako mugaren eta **Kaskallu**-ren artean zegoen, **El Riacho** eta **La Acequia de Gezari** batzen diren tokitik oso gertu.

### **Pedrocal (caracierzo de), (monte de), (valle de):**

Hemen, lehen begiratuan atera litekeen inpresioa goitibeheiti, ez gaude **Pedro** pertsona izenaz eta beste zerbaitetaz osaturikako toponimoaren aurrean (cf. **Zareko Pedrotxiki**), **piedra**-ren eratorri baten aurrean baizik:

“otra pieça en çabaleta...se atiene a los caminos que ban para Uxue y a pedrocal” (1335)<sup>2603</sup>

“un corral...en el ttherno de Pedrocal” (1787)<sup>2604</sup>

Iribarrenek<sup>2605</sup> **Pedrocal**-en ahaide hurbilak diren **pedrugal** (San Martin Unx) eta **pedruncal** (Zaraitzu, Erribera) biltzen ditu, baina Galipentzuzun egungo egunean **pedruguero** eta **pedregal** baizik ez dira ibiltzen; Uxuen **pedrusquero** erabiltzen da, eta Tafallan **pedroguero** eta aztergai dugunaren anaia bizkia den **pedrogal**<sup>2606</sup>.

**Pedrocal** [pèðrokál] oraindik ere bizirik dago (bertan, gure informatzaileak dioenez, badira haitz batzuk, eta hortik atera bide da toponimoa), baina hil hurren, Uxueko **Zarabandoa** (< **Zabalondoa**) bezalatsu, kasu. Uxueko muga dago, **Aurino** alto-n, **Portillo de Chinchón** eta **Aurino bajo**-tik hurbil.

1688ko muga-berrikusketa agiriaren arabera<sup>2607</sup>, Uxue eta Galipentzuzun arteko mugako hogeitasei eta hogeitazazpigarren mugarriak (Aragoatik hasita) hartzen ziotuen dermio honek, eta **Beltranlarratza** alto eta **Monte de Aristuziaga**-ren erdian zegoen. Uxueko oraingo **Mentangarraz** (< **Beltranlarraz**) eta Galipentzuzuko **Pedrocal** elkarrengandik bereiz samar daude, nahiz ez urrun, eta neke da oraingo datuak eta dokumentuetakoak bateratzea. Ikusten den bezala, oraingo dermioak eta antzinakoak izenean bai, baina hedaduran ez dira bat etortzen (cf. **Ondallu / Las Suertes**).

**Pedrocal** edo **El Pedrocal** hutsaz gain, **Balle del Pedrocal** (1688)<sup>2608</sup>, **Monte de Pedro Cal** (1743)<sup>2609</sup>, eta **Caracierzo de Pedro Cal** (1802)<sup>2610</sup> ere dokumentatzen dira.

2603 IEA, 387. kart., 12. zkia., 9. org.

2604 PRA-Oibar, 75. k.

2605 VN.

2606 Jimeno Jurío, THET, 157. or.

2607 PRA-Kaseda, 4. k.

2608 Id.

2609 PRA-San Martin, 38. k.

2610 Id., 70. k.



**Peña agujereada, la:**

Alto de Kaparreta-ren ondoko haitza da. Bertan harpe ttiki bat dago, eta hortik **agujereada** (**agujerada** galipentzuarren hizkeran) partizipio-izenon doa. Izen hau Zareko Aitzulatu edo Arrizulatuaren ordain erdaldun zehatza da (ikus Galipentzuko Arrizulatu sarreran esan duguna).

**Peña de los Cojones, la:**

Ikus hurrengo sarrera.

**Peña de los Huevos, la:**

Galipentzu eta Uxueren arteko mugako haitza da, lehen herriko **Aurino** bajo-n dagoena. Uxuen kontaktzen dutenez, Galipentzukoek arraultzekadaka hautsi nahi izan zuten harria, eta hortik izena. Galipentzun berriz, **los huevos** ‘potroak’, ‘barrabilak’ bezala interpretatu dute, eta gaztelaniaz bi hitz horiek izan dezaketen adierakidetasuna dela medio atera da aurreko **La Peña de los Cojones**.

**Peña de los Ladrones, la:**

Uxueko bidean dago, **El Solano**, **La Peñaza** eta **Zenboroz**-en artean. Gure informatzailearen arabera, bertan lapurrak biltzen omen zirelako ematen zaio izen hau haitzari. Uxueko **Cueva de los Ladrones**-ekin (**Barranquilla de los Ladrones**-en dauden haitzuloekin) erlazionatzen du, ohoinak batetik bestera ibiltzen zirelako edo<sup>2611</sup>.

**Peña del Cubilar, el:**

Corominasen arabera **cubilar** Aragoan erabiltzen da, eta **cubil** ‘basapiztiak lotarako biltzen diren lekua’-ren eratorria da. Iribarrenek “corral de acubilar ganado” dela dio.

Gure alderdiko dokumentazioan ‘azienda hersteke lekua’ adiera duen izen arrunta ohi da. Ez dago garbi, halaz ere, zer azienda mota hersten ziren honelakoetan. **Boyer de Kaparreta**-n dago, herri-lurrean, eta balirudike **cubilar** abelgorrientzako tegia dela<sup>2612</sup>.

Galipentzuren ondoko **Kasedan Los Cubilares** toponimoa azaltzen da 1766an<sup>2613</sup>.

**Peña del Cuco, la:**

**La Peña del Cuco** izeneko haitza **Beragu** barruan dago, Eslabako mugatik ez oso urruti. Gure informatzaileak dioenez haitz honetatik kantatzen zuen kukuak udaberria hastean, eta hortik izena.

2611 Cf. Arbizuko Lapurren xenda.

2612 Dena den, eta esan bezala, azken garaietan **Kaparreta** ahuntzentzat altxatua zegoen, ez azienda gortientzat. Orain lerez estalia dago, eta beraz ez batzurentzat ez besterentzat da on.

2613 PRA-Oibar, 66. k.

**Peña tajubera:**

**Peña agujereada**-tik hurbil dago, **Morate** aldera, **Central de la Cueva**-ren aurkez. Bertan bada azkon edo **tajugo**-ak ezkututzen ziren haitzuloa, eta honi zor dio haitzak izena. Cf. Galipentzuko bereko **Azkonobieta**.

**Peñas altas, las:**

Ez dugu behin ere aurkitu dokumentazioan. Haitzak **Kaparreta**-n daude, **Kasedako San Pedro**-ren aitzinean.

**Peñaza, la:**

Ez da agirietan azaltzen, eta ez dirudi tradizio handiko toponimoa denik. Bertan haitz txiki bat dago, eta hemendik datorkio izena dermioari. Ikusten den bezala, kasu honetan ere atzizki handigarriak, aski harrigarriro, txikitasuna adierazten du, **El Pontarrón** toponimoaren bukaerak bezalaxe.

La **Peñaza**-k **Valizarza**, **Zenboroz**, eta **El Modrojal**-ekin mugatzen du.

**Peñazamala (barranco de), (prado de):**

Itxuraz **peña**-ren eratorria den **peñaza** (< **peña** eta **-aza** atzizki handigarria) izena eta **mala** izenondoa ditugu hemen:

“otra pieza en Peña camala...afrenta con...Camino R1” (1635)<sup>2614</sup>

Izenondoa toponimian aurrejarria azaldu zaigu gure alderdian aurkitu dugun beste hiru toponimoetan (**Malacuesta** Galipentzun eta **Malpaso** herri honetan eta **Arte-tan**<sup>2615</sup>). **Peñazamala** ([peṅaθamála])-n badira haitz txiki gutxi batzuk, eta agian horri zorko zaio izena.

1765ean **Peñazabala** aurkitu dugu<sup>2616</sup>, baina zaharrena eta maizkoena **Peñazamala** da, eta ez dugu oinarri nahikorik **peña** eta **zabala** elementuez osaturikako toponimo hibridoaren aurrean gaudela esateko (cf. **Peñape** Zubitzan orain, lehengo **Aizpea**-ren ordez<sup>2617</sup>).

**Peñazamala**-k **Larregureneta**, **San Juan**, **Pasalobos**, **Bartaquilar**, **Beragu**, **Bartabustu** eta **Saso de Lunberi**-rekin mugatzen du. Bertan, **Balsa de Pasalobos**-etik hurbil, **Prado de Peñazamala** dago. Larre honetan **Beragu**-tik jaisten den ura biltzen da, eta hemendik **El Riacho**-ra doa, **Barranco de Peñazamala** sortuz.

2614 Id., 23. k.

2615 1894eko katastroa.

2616 PRA-San Martin, 47. k.

2617 Jimeno Jurfo, TCPCG, 415. or.

**Peñisco de los Cuervos, el:**

La Concepción ermitaren gaineko aldean dago. Antzina beleak eta putreak pausatzan omen ziren bertan, eta hortik izena. Ugalde barreneraino iristen den haitz luze baten goreneko muturra da (ikus Arrondoa eta Sopenas sarreretan esan duguna).

**Pepo, pinar del; badina del:**

El Pepo galipentzuar baten goitizena da. Jaun honek **Mutxarka**-n gordea du, eta hau erreferentzi-puntutzat harturik, hurbil dagoen pinudiari **Pinar del Pepo** deitzen zaio, eta Aragoa ibaian egiten den urangilari **Badina del Pepo**. **Badina** honi beste gisaz **Badina de Zamakidoi** ere deitzen zaio, ubideaz beste aldean, **Mutxarka**-ren aurkezean, **Zamakidoi** dagoelako.

**Pieza de los Racioneros:**

**Bartastekabarrena**-n zegoen, errepide baten alboan, Zangozako bidearen ondoan seguruenera:

“otra pieza en bartasteca barena...se atiene al camino Real y pieza de los Raçoneros” (1641)<sup>2618</sup>

**Pieza del Beneficio**-ren esanahikidea izan liteke.

**Pieza del Pino, la:**

XIX. mendearen erdialdean azaltzen da. Badakigu **Errekagaitza**-n zegoela:

“otra (pieza) en termino de Recadaiza llamada la del pino” (1845)<sup>2619</sup>

**Pila (artatzea de), (cantera de), (val de):**

Lehen agerraldietan orain bizirik dagoen aldaera (**Pila** [píla]) edireten dugu, baina beranduago **Epila** ere azaltzen da:

“una piª...en...pila que affrenta con...Camino Real(1598)<sup>2620</sup>

“una pieza...en...Epila” (1730)<sup>2621</sup>

Izen honen jatorria ez dago bat ere garbi guretako. Beharbada, **pila** ‘ura botatzeko harrian egiten den zuloa’, ‘harrizko ganbela’-n bilatu behar genuke, Uxueko **Portillo de las Pilas**-en ildotik (cf. hor barnako **Ganbela**, **Ganbeleta**, **Arganbela**...eta Galipentzuko bereko **La Gambella**. Ikus honetaz Uxueko **Aizkanbela** sarrera), baina honela balitz erdarazko artikulua agertu behar luke, eta ez dugu honelakorik aurkitzen. **Epila** [épila] Zaragozako herri baten izena ere bada<sup>2622</sup>.

2618 IEA, 387. kart., 12. zkia., 8. org.

2619 PRA-Kaseda, 57. k.

2620 PRA-Oibar, 7. k.

2621 Id., 42. k.

2622 J. A. Frago, “Problemas, métodos y enseñanzas de la toponimia”, *I Jornadas de Onomástica/ I Onomastika Jardunaldiak*, Gasteiz, 1986, Bartzelonan argitaratua 1991. ean, *Onomasticon Vasconiae* 4. liburukia, 207. or.

Pila herritik hurbil dago, Baranditurri, Valiciera, Beragu, Peñazamala, Paco de las Minas, Pasalobos eta Bartaquilar-en artean. 1635ean ediren dugun *Cantera de Pila* Alejandro Mateo eta Antonio Amatriainen gorreak dauden gaina dateke:

“otra pieza en la cantera de Pila” (1635)<sup>2623</sup>

Dokumentazioko Val de Pila<sup>2624</sup> Valeciera eta Paco de las Minas-en ondoko zabalgunea nahiz Pasalobos-en ondokoa izan daiteke. Artatzea<sup>2625</sup> non zen ez dakigu, baina Pila-n arteak ez dira urriak.

Pillaestrupa-rekin zerikusia izan lezake, Pila-ren sabaiko albokaridun aldakirik sekulan aurkitu ez badugu ere.

#### Pillaestrupa:

Jatorri ilunekoa da leku-izen hau guretzat. 1585eko lehen agerraldian Pillastrupa dugu<sup>2626</sup>, baina 1597an Villaestrupa (herri etimologiaz?; cf. Billakukuru) dokumentatzen da<sup>2627</sup>, eta 1767an Pellaestrupa<sup>2628</sup>.

Hasierako Pilla- hori aurreko sarrerako Pila-rekin egon liteke erlazionatua, baina esan bezala ez dugu \*(E)pilla-ren modukorik. Bigarren osagaitzat har litekeen -estrupa zer den ere ez dakigu, ez eta toponimoa bi zati horietan bana daitekeen ere. Nolanahi ere, hitz barruko -tr- multzoak ez du euskal itxura handirik<sup>2629</sup>.

#### Pinareondoa:

Pinare ‘pinudi’ erdaratikako izena eta ondo ‘alboa’ ditugu hemen. Pinareondoa herritik hurbil zegoen:

“ytten mas ençia casa en pinareondoa...” (1645)<sup>2630</sup>

#### Plandeoliva (altico de):

Plan izena nafarreraz eta aragoieraz ohizkoa den hasierako pl- multzoa gorde duen latineko planu-ren eskualde honetako ondorengoa da. Proklisian egotearen ondorioz bukaerako sudurkariaren ondoko bokal belarearen (-o-ren) apokopea jasan du<sup>2631</sup>:

“...al subir, el alttico de plan de oliba se allo la muga beintte” (1770)<sup>2632</sup>

2623 PRA-Oibar, 23. k.

2624 Id., 16. k., 1610.

2625 PRA-Kaseda, 6. k., 1691.

2626 PRA-Oibar, 3. k-bis.

2627 Id., 9. k.

2628 Id., 67. k.

2629 Beste zerbaiten aldaera sinkopatua ere izan liteke (cf. atera > atra Aezkoan eta bestetan). Ikus gainera Uxueko Mostrakas edo Otrillos edo Iruñerriko Itza zendeen eta Arakil gutzian gutxienek dokumentatzen den Ostraka, besteak beste.

2630 PRA-Oibar, 25. k.

2631 Ikus Ricardo Ciérbideren PDNR, 36-37 eta 39. orr. Menéndez Pidalek Benasquetik mendebaldera dagoen Plan bat ere aipatzen du (ikus *Orígenes*, 175. or.). Autore honen arabera, -o-ren galera aragoieraren ezaugarria izan zitekeen, toponimia aintzat hartu behar badugu.

2632 PRA-Oibar, 68. k.

Oliva monastegi famatuaren izenarekin lotu behar dugula irudi du, baina ez Uxueko **La Oliveta**-ren kasuan bezala monastegi horretako fraile batzuk hor finkatu zirelako. Amankomuneko jatorria seguraski latin bulgarreko *olivus* 'olibondoa'-n baino gehiago latin klasikoan azaltzen den *oliva* 'olibondoa', 'oliba'-n bilatu behar genuke. Alderdi honetan olibondoak beti oso ugariak izan dira, eta honek arrastoak utzi ditu toponimian, normala denez. (cf. Ageza eta Eslabako **Olibeta**).

Edozein modutan, eta **La Oliva**-rekiko harreman posibleen berri ez izanik ere, **Plandeoliva**-n ermita izan zen **La Torraza** dagoela gogoratu behar da<sup>2633</sup>, eta honek agian zerikusia izan zuela aipatu monastegiarekin. Gainera hor dago gorago aztertu dugun **Bardena**-ko **Corraliza de la Olibeta** desagertua, Zarrakazteluko mugan.

Gaurregun, albokari-disimilazioz (herri-etimologiaz?), **Pandeoliba** [pãndjo-*líba*] esaten da, duela bi mende eta erdi bezala:

“otra pieza...en el termino de Pandoliba” (1730)<sup>2634</sup>

Aldaera hau, ordea, ez zen berehala nagusitu, 1793an oraindik ere -l-etimologikoari eusten dion forma agertzen baita:

“otra pieza...en Plandoliva pegante al termino de Caseda” (1793)<sup>2635</sup>

**Plandeoliva Bardena**-n dago, Aragoa ibaiaren eta Kasedako mugaren artean. **La Sierra**-tik bereizten duen **Barranco del Palomar**-en hasi, eta **La Cruceta** eta **Alto de la Gudilla**-raino luzatzen da. “Corraliza” ere baden dermio honek **El Paco del Palomar**, **El Castillar**, **El Barranco de Valdarras**, **El Paco de Valdarras** eta **El Portillo de los Lobos** ditu bere barruan. 1770ean dokumentatzen den **Altico de Plan de Oliba** (ikus gorago) Kasedako mugako mendiko bat zen, **El Portillo de los Lobos** eta **Paco de Valdarras** aldeko bat seguruenara.

**Plaza, barrio de la:**

**Barrio de la Plaza** plaza eta pilota-jokuaren ingurukoari esaten zaio, **Barrio de San Pedro** eta **Barrio bajo**-ren artekoari. Lehen aldiz 1718an aurkitu dugu:

“una casa vezinal...en el barrio llamado la plaza”<sup>2636</sup>

**Plaza de la Verdura:**

Ez dakigu herriko zein plazari deitzen zitzaien horrela, baina bai **La Herrería**-ren ondoan zegoela (ikus sarrera hau). Uxuen Galipentzuko toponimo honen kide dirudien **Plaza de la Fruta** azaltzen da.

Badaiteke oraingo **Plaza de la Carnicería** bera izatea (ikus sarrera hau), baina ez dugu honen frogarik.

2633 Ikus **Nuestra Señora** sarreran esan duguna.

2634 PRA-Oibar, 42. k.

2635 Id., 79. k.

2636 PRA-Kaseda, 18. k.

**Pollungu (alto de), (portillo de), (prado de):**

Reta Janárizek **Pollangu** gure ustez okerra biltzen du, eta **pollianicus** proposatzen zalantzazko jatorritako. Oinohar batean **-ango** bukaerarekin lotu nahi du, Mitxelena AV-en aipatzen duen euskal amaiera honen eta erromantzearen **-anco**-ren arteko itxurazko baterortzean oinarrituz.

Egungo egunean ordea, **Pollungu** [pojúngu] edo **Pullungu** [pujúngu] esaten da, eta dokumentazioan **Pollungo** (1546)<sup>2637</sup>, **Pollongo** (1596)<sup>2638</sup>, **Pollungu** (1608)<sup>2639</sup>, **Pollungoa** (1616)<sup>2640</sup>, eta **Pollongu** (1691)<sup>2641</sup> aurkitzen dugu, baina sekulan ez **Pollangu**-ren modukorik.

Egungo **Pollungu** 1335ean ediren dugun **Poyluengo** (< pōđtu löngu)-ren euskalduntzea baizik ez da:

“otra pieça en poyluengo”<sup>2642</sup>

Dermio honen zati bat bederen (herritik hurbilen dagoena) muino edo boiu (ikus Eslabako **Boiuarte**a eta **Boiugain**-en eta Galipentzuko **Puyalato**-n dioguna) luze bat da.

1798ko **Alto de Pollongu**-n kontzeptu bera dugu, errepikatua (cf. **Boiugain**):

“otra pieza en el alto de pollongu...afrenta al camino que se ba al molino” (1798)<sup>2643</sup>

**Entrada de Pollungu** Agezako **Kanpobarrena**-ren alboko eremua zen, baina ez dirudi zeharo finkatutako leku-izena denik:

“ytten...a la entrada de canpobarrena de ayessa y Pollungo de gallipienço” (1614)<sup>2644</sup>

**Pollungu**-k Agezako lurrekin, **Larreta**, **Bartasteka** eta **La Elka**-rekin mugatzen du. **Portillo de Pollungu** altxonbidearen eta **Camino de los Molinantes**-en arteko bidegurutzean dago, **Portillo de Bartasteka**-ren ondoan.

**Pontarrón (paso de), (soto de):**

**Puente**-ren eratorria dugu hau, bistan denez. G. Rohlfen ustez<sup>2645</sup> **Pontarrón** ‘pont grossièrement construit’ da aragoieraz, eta Nafarroan “zakarki” eraikia izateaz

2637 PRA-Oibar, 2. k.

2638 Id., 9. k.

2639 Id., 13. k.

2640 Id., 19. k.

2641 PRA-Kaseda, 6. k.

2642 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. org.

2643 PRA-Oibar, 84. k.

2644 Id., 15. k.

2645 Xavier Ravierrek aipatua, in “Toponymes gascons en R final sensible. Un fait de substrat aquitano-pyrénéen”, *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1985, 741-752. orr.

gain txikia ere bada, Iribarrenen arabera<sup>2646</sup>. Ciérbidek biltzen duen **El Pontarrón** ere Xubingoa da, zakarki ala dotore eraikia izan den zehazten ez badu ere:

“**El Pontarrón** (C y EP), Mérida. En las proximidades del pueblo hay un lugar donde se reúnen todos los desagües del regadio antes de ir a parar al *Aragón*. Sobre esa especie de arroyo hay un pequeño puente que da origen al topónimo”

Hau berau da, gure irudiz, izen honek Galipentzun duen adiera. Euskarazko gure alderdiko eta bestetako **Xubingoa**-ren kide erdalduna izan daiteke (ikus, honetaz, Eslabako **Xubingoa**).

Tafallan eskuarki erreka, erreka-stoa edo erretena gainditzeko begi bakarreko zubiari esaten zaio “pontarrón”:

“Normalmente lo aplican a puentes de un solo ojo adintelado, formado por grandes losas horizontales, sobre pies derechos de mampostería, por el que un camino, real o vecinal, salva un barranco, arroyo o canal de riego [...] hubo puentes de esas características y nombre en distintos puntos del término. Los tafalenses conocedores del campo designan así un paraje al SE. de la ciudad, entre el camino (carretera) de San Martín (N), el primer tramo del camino cañada de Valmayor (S) y el prado de este nombre (E), espacio en que hubo dos pontarrones”<sup>2647</sup>

Galipentzun XVI. menderako azaltzen da:

“otra piª en pontarron...” (1596)<sup>2648</sup>

**Pontarrón Puntarrón** [pũntarũn] bilakatu da, euskaraz eta erromantzez eza-guna den sudurkari aurreko o > u hersketaz. Aldakuntza hau 1790ean azaltzen da aurrenekoz, eta ez dirudi oso zaharra denik:

“otra (pieza)...en el termino de Puntarron”<sup>2649</sup>

**Pontarrón El Riacho**-ren bi aldeetan hedatzen da, baina bertan gaurregun ez dago zubirik<sup>2650</sup>. 1730ean **El Pontarron** dokumentatzen da, artikulu eta guzti:

“otra pieza en...Legastui thenientea...Camino que se baja al sotto del Pontarron”<sup>2651</sup>

Galipentzun bertan **Pontarrón** honetaz landa, **Puente** edo **Pontarrón de Santa Elena** zeritzana aurkitu dugu (ikus **Santa Elena** sarrera). **Soto del Pontarrón**-ek alderdi honetako zaldu-zatia izendatzen du<sup>2652</sup>.

**Pontarrón**-ek **San Juan**, **Meazu** eta **Las Ripas**-ekin mugatzen du.

2646 VN. **El Pontarron** Erriberrin (PRA-Kaparroso, 27. k., 1620), **Elon** (PRA-Kaseda, 33. k., 1790), eta **Leten** (TCPIC, 233. or., 1630) ere azaltzen da.

2647 Jimeno Jurfo, THET, 160. or.

2648 PRA-Oibar, 9. k.

2649 PRA-Kaseda, 33. k.

2650 Hau ez da harritzekoa: Uxuen, adibidez, orain **El Puente de la Sierra** eta antzina **Zubia** deitu **Aitzandietako** erreka-stoaren ertzeko eremuan ere ez dago zubirik.

2651 PRA-Oibar, 42. k.

2652 Ikus **Soto** sarrera.

**Portal, el:**

Galipentzuko portaleetako bat zen hau, hain zuzen ere euskaraz **Portaletxikia** deitzen zena:

“una casa sita en esta villa en el Portal de ella” (1686)<sup>2653</sup>

**Portalaz, el:**

Dokumentatu ez den **\*Portaleandia**-ren ordain erdalduna izan zitekeen, duen atzizki handigarriak benetan handiera ematen badu aditzera (cf. **Peñaza** eta **Ponarrón**):

“pieza...llamada del Portalaz” (1682)<sup>2654</sup>

**Portaletxikia:**

**Portale** izena eta **txikia** izenondoa ditugu hemen. Mitxelenak<sup>2655</sup> honela hitz egiten du lehenaz:

“aunque esta voz no figura en Azkue, es corriente entre nosotros para referirse a las «puertas» de una población amurallada”

Portalea herriaren aldirietan zegoen (inguruan ahoztegiak eta baratzeak zeuden), **Camino del Puente**-ren hastean edo. Egun ez dago horren aztarnarik bat ere:

“guerto en portale chiquia” (1645)<sup>2656</sup>

“Mas dos huertos en Portalchiquia teniente a Huerta de...y Camino Real que baja al puente” (1691)<sup>2657</sup>

**Portillo de Chinchón, el:**

Uxue eta Galipentzuren arteko mugan dago, lehenaren barruan (ikus Uxueko **Portillo de Chinchón** sarrera). **Chinchón** norbaiten gaitzizena zatekeen, baina gaurregun ez Galipentzun ez Uxuen dago horrelakorik. Baliteke dokumentazioko **Portillada de Beltranlarraza** alto edo **Portillo de Aristuziaga** (ikus Uxueko **Beltranlarratz** eta **Aristuziaga** sarrerak) izatea, kokapen-arazoak badiren arren. Inguru honetan **Barranco de las Aguas saladas** deitu erreka sortzen da.

**Portillo de los Lobos, el:**

Kasedako mugan berean dago, bidean, **El Orzagal** eta **Valdarras**-en artean, **La Gudilla**-tik gertu. Antza duenez, dokumentazioko **Portillo de Valdarras**-en adierakidea da (ikus sarrera hau). Toponimo hau beste toki batzuetako **Otsoportillu**-ren ordain erdalduna dugu (cf. Gerla zibilaz geroztik famatu egin den **Urbasako Otsoportillo**).

2653 PRA-Kaseda, 3. k.

2654 Id., 1. k.

2655 AV, 146. or.

2656 PRA-Oibar, 25. k.

2657 PRA-Kaseda, 6. k.



**Pozea:**

Izen hau latineko *fauce* 'zintzur'-en eratorriren batetik (\*foce-tik, antza) atera den *potxe*-ren ahaide hurbila dela ematen du<sup>2658</sup>. Izen ere, egungo egunean Orotz-Betelun<sup>2659</sup> (eta lehen beste toki batzuetan<sup>2660</sup>) ibiltzen duten *poche* 'portilua', 'pausua', 'altxonbidea', 'zintzurra' (erdarazko *foz* alegia) lehenagoko \**potze* baten ondorengoa izan daiteke, eboluzio fonetikoa *fauce* > *foce* > \**foz* (cf. *cruce* > *gurutze*) > \**potze* izan bide delarik euskaraz, azken hau dokumentatua ez egonagatik (geroko \**Potze* > *potxe* pausoa Iruñeko eta Mendialdeko erdaraz ibiltzen den *el chinchur*-en gertatu den bera dateke, euskarazko *zintzur*-etik atera dela gauza argia baita<sup>2661</sup>). Aztergai dugun *Pozea* horren azpian, hortaz, \**Potzea* egon zitekeen<sup>2662</sup>.

Edozein modutan, Galipentzuko toponimoa behin bakarrik ediren dugu, eta testuingurua ez dago oso garbi:

"un pajar...en la pre. llamado en pocea" (1553)<sup>2663</sup>

Hortaz, *pozea* hau guk proposatzen duguna balitz, Aragoa ugaldean legoke, herritik hurbil, dugun erreferentzia bakar horretan lastategi bat bazela ikusten baita, eta jakina denez, lastategiak herrien ondoan egoten baitira gehienbat. Hala ere, Galipentzuren inguruak ikusita, ez dirudi herriaren hurbilean horrelako *zintzurrik* dagoenik<sup>2664</sup>, eta hau da proposatzen den etimologiak duen oztoporik handiena, gaindiezina, agian.

**Pozo de Capelón, el:**

Kasedatik heldu den altxonbidearen ondoan dago putzu hau, Aragoa ugaldean berean, *Kaparreta*-n. *Capelón* izengoiti batean oinarriturik dirudien *Izabako* borda baten izena da orain. Bertan uharka baten hondakinak daude.

**Pozo de Portal (barranco de), (fuente de), el:**

*Portal* norbaiten izengoitia izan liteke. Erreka *El Solano* aldetik heldu da, eta putzua dagoen tokian Uxuetik datorren *Barranco de Ujué* edo *Barranco de la Muga de Ujué*-rekin (*Barranco de Zaldunaga Uxuen*) batzen da. Iturria ere bertan dago, putzuaren aldamenean.

2658 Corominas-ek, DCELC-ko hoz sarreran honela dio: "Deriv. *Hocino* 'instrumento de cortar leña', 1220-50. *Hocino* 'angostura', 1611, deriva del antiguo *foz* 'angostura de un valle' del lat. FAUX,-CIS, 'garganta' que por vía culta dio *fauces*, 1624, y su derivado *faucal*".

2659 B. Urtasun, TOB.

2660 Ikus Iribarrenen VN-ko *Pocha* eta *Poche* sarrerak. Ibargoitiko El-n *La Pocha* aurkitu dugu 1651n urtean: "en el termino llamado ambera y en la endrecera del Camino de Herviaín que ban a la pocha" (PRA-Elo, 2. k.), Ibiltzietan *Bochea* dugu 1687an (PRA-Otsagabia, 5. k.), eta Igarin *Masclapochea* 1700. urtean (id., 27. k.).

2661 *El Chinchur*-en soinu bustiak, dena den, adierazgarritasun nahiaren ondorena izan zitekeen hastean. Euskarazko aipatu adibideak aspaldiko *Botxea* (cf. *Boiu*-Eslaban) edo *Potxea*-ren alde mintzo direla dirudi.

2662 Iku gure IGI.

2663 PRA-Oibar, 2. k.

2664 Hurbilena *El Salto del Ciervo*-ko hersgunea da, baina hau herritik urrun dago. *Pedregal de Ondallu*-n ere bada horrelako mehargune bat, baina ezin esan daiteke *potxea* denik.

Dermio hau Valescura zabalagoaren barrukotzat jotzen da.

**Pozo grande (cueva de), (fuente de), el:**

El Pozo grande Barranco de (la Muga de) Ujué eta Barranco de la Barrera elkartzen diren tokiko putzua da. Putzuaren ondoan iturria dago, eta goraxeago haitzuloa. Putzua lehen handia zen, eta horregatik eman zaio **Pozo grande** izena, baina orain errekek arrastaka eramandako harriek franko estali dute.

**Prado, el:**

Dirudienez Prado de Balarata edo Prado de La Elka da 1706an azaltzen den hau:

“una pieza en meazuquerqueta...theniente al prado y pieza...llamada la Roza”  
(1706)<sup>2665</sup>

**Prado seco, el:**

Galipentzun prado edo larrea-k toki urtsuak izaten dira, eta hau nonbait idorra zenez edo idortua zegoenez, seco izenondoa erantsi zaio. Behin bakarrik aurkitu dugu, 1840an:

“otro campo Junto á el prado seco”<sup>2666</sup>

Agezako toponimia aztertzean esan dugun bezala (ikus herri honetako Euntzeberri sarrera), prado euskarazko euntze edo larre-ren esanahikidea da, eta gure eskualdean toki urtsu eta belar fina duena adierazi ohi du. Tafalla aldean ere lur urtsuak bide dira, landu gabeak gehienetan:

“El contenido de la voz (prado) en Tafalla es similar al de «euntze» y «soto» (ésta utilizada rarísimas veces en la documentación tafallesa manejada): tierras incultas y frondosas, generalmente próximas a corrientes de agua, cuyas hierbas se reservan para pasto del ganado mayor”<sup>2667</sup>

**Presa molinar, la:**

Aragoa ugaldoko Ripodas-ko errotako uharka bide da hau. Dokumentazioan ikusten den moduan, urak behin baino gehiagotan hautsi eta hondatu zuen. 1731n Gipuzkoako Ibarrao semea zen Miguel de Barrenechea maisu harginak konpondu zuen, eta 1800. urtean berriz ere berritu behar izan zuten:

“se concedio facultad a la vª...para executar barrias obras en el Puerto, y Manguarda, que existe en la Presa Molinar del Rio Aragon”<sup>2668</sup>

---

2665 PRA-Kaseda, 13. k.

2666 Id., 55. k.

2667 THET, 164. or.

2668 PRA-Kaseda, 37. k.

**Pueblo, el:**

El **Pueblo** lehen (mende honetan) **Antoñanzas**-en zeuden gorte batzuei esaten zitzaien.

**Puente, el:**

Aragoa ugaldea gaintzeko herriaren azpikaldean dagoen zubia dugu. In-guruko lurrak izendatzeko ere erabili izan da:

“otro olivar...en el termino llamado del Puente” (1840)<sup>2669</sup>

**Puerto, el:**

Arestiko **Presa molinar**-eko “portua” da (ikus sarrera hau).

**Puntallo, el:**

Izen honen balioaren inguruan ikus Agezako **Puntallua** sarreraren dioguna. Galipentzuko **El Puntallo Pila**-n zegoen, **Valeciera**-tikako eta **Baranditurri**-tikako bi-deek bat egiten duten gunean, antzinako **Ormakieta**-ko bidearen hastapenean, antza:

“una pieza en Pila llamado (sic) el puntallo...theniente a...camino que se ba a or-maquieta” (1705)<sup>2670</sup>

**Puyalato (barranco de), (pueyo de), (saso de):**

Latineko **podiu**-ren eratorri ugarietako bat da. Ricardo Ciérbide eta Gra-ciliano Herrero<sup>2671</sup> Zarrakastelun ere azaltzen den toponimo hau aztertzean honela min-tzo zaizkigu:

“*El Puyalato*, Carcastillo. Es uno de los pocos topónimos que se pueden registrar en documentos medievales y cuya vigencia se mantiene en la actualidad. Se trata de un monte situado al N.O. del término municipal, cerca de *La Presa*, donde confluyen los términos de Carcastillo, Cáseda y Gallipienzo. Su altitud es de 435m. y efectivamente es alargado, respondiendo a su calificativo de LATUM<sup>2672</sup>.”

Se documenta en 1319: «...ala falda insana que esta enta puylato». Esta forma *Puylato* es más etimológica que la moderna *Puyalato*. Tal vez al producirse la apócope de -o de *Puyo*, esta partícula siguiera pronunciándose *Púy*, introduciéndose entonces una -a, por atracción de la á tónica de -lata, para deshacer el hiato que tanto repugna al aragonés”.

Galipentzun toponimo hau berandu azaltzen da:

“...en lo alto del Pueyo llamado Puilalto se allo el mojon y muga de los thernos de ambas villas (Galipentzu eta Kaseda), y la de Carcastillo” (1770)<sup>2673</sup>

2669 PRA-Oibar, 115. k.

2670 Id., 12. k.

2671 TCO-I, 58-59. orr.

2672 Cf. Oibarko **Piedralata** (PRA-Oibar, 15. k., 1596), **Peña de Piedralatta** (id., 32. k., 1710), **Piolata** (id., 59. k., 1758), **Piedra Piolata** [pioláta] edo **Peolata** [peoláta] egun.

2673 Id., 68. k.

Egungo eguneko **Puyalato** [pùyaláto]-ren **Puya**-ren azken **-a**-ren presentzia aipatu bi autore horiek idarokitzen duten **-lato**-ren á tonikoaren erakargarritasunari zor dakiok, baina ez dugu ahaztu behar Galipentzun bertan **Puyarraso** dugula (**Pujo rasso** 1615eko den lehen lekukotasunean) eta honen eragina handia izan zitekeela. Azken toponimo honetan ere, Ciérbide eta Herrerok proposatzen dutena onar daitekeela dirudi, esan bezala lehen agerraldian **Pujo rasso** baitugu. Edozein modutan, ez dugu atzentzen ahal, orobat, Galipentzu XVIII. mende arte euskalduna izan zela, eta apofonia, elkarke-tan, arrunta dela euskaraz, toponimoaren etorkia gorabehera.

**Puyalato Antoñanzas** deitu “corraliza”-ren barruan dago, Zarrakaztelu eta Kasedako mugan (= herri honetako **Pueyo de las Tres Mugas**). Antzina ordea, herri hauetako muga aldean **La Oliveta** eta **Landederra** “corraliza”-k zeuden, eta ez dakigu zer erlazio zegoen hauen artean, alegia, maila bereko toponimoak ziren ala batzuk beste-en barruan zeuden. Nolanahi ere, garbi dago **Puyalato** eta **Puyarraso** toponimo zahar-rak direla.

**Barranco de Puyalato** alderdiko erreka txikia da, Zarrakazteluko muga-ren eta **Antoñanzas**-en artekoa (≠ **Barranco de Antoñanzas**). Reta Janárizek **Saso de Puyalato** ere biltzen du<sup>2674</sup>.

#### **Puyarraso:**

**Puio** ‘mendiko’ eta **raso** ‘soila’ ‘soildua’ ditugu hemen. **Puyarraso** [pùyarásó]-ren lehen **-a**- hori euskal elkarketa-eratorketan ohizkoa den apofoniari zor le-kioke, baina **Puyarruego**-ren modukoetan ere agertzen da, adibidez<sup>2675</sup>. 1752ko leku-koak<sup>2676</sup> duen bukaerako bokal belarea (-u alegia) beste hainbat toponimotan aurkitzen den **-o** / **-u** txandaketa bera dateke (cf. **Ondallu** / **Ondallo**). Gainerakoetan beti **-o** dugu (**pujo Rasso**, 1615<sup>2677</sup>, **Puioarraso**, 1730<sup>2678</sup>,...).

**Puyarraso** Eslabako mugan dago, **Paco de Ardantzeandia** eta **Monte-kilate**-ko opakuaren artean, Epaizko bidearen ondoan. Esperatzekoa zenez, gain soil baten izena da.

#### **Ratiluconzea:**

Dokumentatu ditugun formak **Ratiluconzea** (1686)<sup>2679</sup> eta **Ratulucuncea** (1692)<sup>2680</sup> dira. Aldaki hauen azpian **erratilu** ‘zurezko edo lurrezko plater handia, zenbait la-gunek batera jateko erabiltzen zena’, ‘plater handia, platerak betetzeko mahian ezartzen dena’<sup>2681</sup>, leku genitiboaren singularreko -ko morfema, eta **euntzea** ‘larrea’ izan genitizake<sup>2682</sup>.

2674 EHZE, 488. or.

2675 Zaragozako Sigüés herrian ere badugu **Puyarraso** bat, Nafarroako mugan, baina toponimia erabat erro-mantzea den eskualde batean (informazio hau Mikel Velascori zor diogu). Boltaña aldeko **Puyarruego** M. Pidalek aipatzen du (*Orígenes*, 406. or.).

2676 PRA-San Martin, 41. k.

2677 PRA-Oibar, 18. k.

2678 Id., 42. k.

2679 PRA-Kaseda, 3. k.

2680 Id., 6. k.

2681 I. Sarasola, HLEH. Autore honek **erretilu** dakar soil-soilik. Azkuek (DVEF) **Erratilu** eta **Erretilu** bildu ditu, eta Lhandek (DBF) **Erratilu** edo **Erratuilu**.

2682 Azken izen honen adieraren inguruan ikus **Agezako Euntzeberri** sarrera.

Erratilu bezalako izen bat agertzea bitxia dela badakigu, baina honelakoak gure mitologiako zenbait elezaharretan ere aurkitzen ditugu (cf. Leitzako barkiloaren gainekoa<sup>2683</sup>), eta nolabaiteko isla eduki ahal izan dute toponimian. Nolanahi ere den, guk aurkitu ordurako leku-izen hau itxuratxartua zegoela bistako gauza da, eta beraz ezin da segurtasunez mintzatu bere jatorriaz.

#### Recueja, la:

1915eko katastroan **Recueja** aldaera azaltzen da, baina gaur forma bakarra **La Recuaja** [ˈrekwáxa] da, guk dakigula. Aragoaren bihurgune batean dago, **El Azute**, **Errekagaitza** eta **Santitisi**-ren artean.

Kasedan **La Recueja**<sup>2684</sup> edo **La Requexa** ediren dugu<sup>2685</sup> eta Esa herrian ere bada izen bereko dermioa, Galipentzun bezala Aragoa ugaldearen ertzean. Korellako **Recueja** Alhama ugaldearen bihurgune batean dago, bihurgune hori Kaseda eta Galipentzun Aragoak egiten duena bezain itxia ez delarik. Tafallan ere **La Recueja** biltzen du Jimeno Jurfo jaunak:

“Llano sobre la margen izquierda del Zidacos, frontero al Quiñón, desde Larrain (N) hasta el meandro del río al llegar a San Gregorio y Gerón, espacio denominado «Rincón de la Recueja»”<sup>2686</sup>

Hortaz, badirudi **Recueja**-k aski zabalduak daudela Nafarroan, eta beti ugaldeetako bihurguneetan egoten direla, honetaz erabat ziur egoteko beste **Recueja** gehiagoren kokalekuaren berri izan behar bagenu ere. Jatorriari dagokionez, gaztelaniako *cojo*-rekin loturik egon daiteke (< *coxu*. Cf. euskarazko oker-en adierak: betoker ‘tuer-to’, hankoker...), eta sorburutzat \**rivačoxa* (cf. Uxueko **Retuerta**) proposa daiteke.

García Larraguetak **Recueissa** eta **Recueissa de Cahues** biltzen ditu, biak Vergalijo ondoko Cahues despoplatuan<sup>2687</sup>, eta Lacarrak **Recuysa** aurkitu du Milagron XIII. mendean<sup>2688</sup>.

#### Revueltica de la Virgen, la:

Herritik ateratzean dagoen bihurgune bat da hau. Bertan bidea bitan banatzen da: adar bat zubirantz abiatzen da, eta bestea **La Cueva** aldera.

#### Riacho (paso de), el:

Lergako **Indusi**-n sortu, eta herri honetako eta Eslabako erreka eta erreka mordoxka baten ura bildu ondoan, Galipentzun sartzen da. Hemen udalerrria mendebalde-ekialde norabidean gurutzatu eta, Aragoa ugaldean amaitzen da. Euskaraz honelako

2683 J. M. Barandiaran, DIMV, aztikeri sarrera.

2684 PRA-Oibar, 63. k., 1770: “en el mismo mojon debisorio del therno de la Recueja de las villas de Gallipienzo y Caseda”.

2685 Id., 41. k., 1729.

2686 THET, 172. or. Azpimarra gurea da.

2687 *El Gran Priorado*, 208. eta 209. agiriak.

2688 OV.

errekei urtxikia izena eman izan zaie<sup>2689</sup>, beste handiago batetik bereiztearren (cf. **Uran-dibidea**). Gure eskualdean **erregu** deitu izan zaie honelakoei euskaraz, eta río (handia-gorik ez dagoenean) edo **riacho**, **regacho** erromantzez.

**El Paso del Riacho Garandako** harana eta **Santa Elena**-ren arteko mugan dago, aztergai dugun ubidean.

**Río (mayor), el:**

Aragoa ugaldea izendatzeko modu arrunta zen hau Galipentzun, **El Riacho** eta beste ubide txikiago batzuekiko kontrajarpenez<sup>2690</sup>. Euskaraz **\*Urandia** esaten zitzaion, **Urandibidea** toponimoak frogatzen duen bezala (ikus sarrera hau):

“otra viña...en el thermino de Lexua theniente...al Rio Maior” (1719)<sup>2691</sup>

**Ripalazetas:**

1731 urtean aurkitu dugu aurren aldiz. Garai honetarako Galipentzuko eus-kara galdua zegoela badakigu<sup>2692</sup>, eta toponimoetako franko, galtze horren ondorioz, itxuragabetuak edo itxuragabetzen hasiak:

“otra pieza...en...Ripalazettas” (1731)<sup>2693</sup>

Jatorrizko forma zein zen ez dakigu; daitekeena da, alabaina, hasierako e-ren aferesia (cf. **Repidea** < **Errepidea** Eslaban, **Rotasiar** < **Errotaxar** Lergan...) eta -s pluralgile erdaldunaren eransketa (cf. **Turruzales** < **Iturrizar(ra)** Uxuen) gertatu izana. Honek, aurreikusiezinezkoak diren beste desitxuratze-aldaketa batzuekin, ustez jatorrizko forma izan daitekeen **\*Erripazabaleta** edo **\*Erripazarreta** (cf. Uxueko **Erripazarreta**) batetik dokumentatu dugun forma sortaraziko zuen.

**Erripa** aldapa pikoa da, Sarasolaren arabera<sup>2694</sup>. Jakina den bezala, latinetikako hitza da (< **ripa**), toponimian oso zabaldua dagoena. Galipentzun **Las Ripas** edo **Ribazos de las Ripas** eta **Los Ribazos** edo **Los Ripazos** dugu, lehena **El Riacho** ondoan, eta bigarrena Aragoa ugaldean.

**Reta Janárizek**<sup>2695</sup> **Replacetas** forma biltzen du, eta **errege**, **baratz** eta **-eta-z** osaturikakotzat jotzen. Masu Nittak, aldiz<sup>2696</sup>, aragoieraz ere arrunta den **replaceta** ‘plazatxo’ ikusi uste du izen honetan, baina 1731ko **Ripalazettas** aintzat hartuta azken etimologia gaitzestekoa dela garbi dago. Retak proposatzen duena ere alde bat utzi behar genuke, esan bezala **erripa**-rekin lotu behar baita gure iritziz. Edozein modutan, eta Retaren etimologia zuzena balitz ere, **baratze** behar litzateke, ez **baratz**, gure eskualdean edireten duguna **-e-dun** aldakia delako (cf. Eslabako **Apeztegibaratztea**).

2689 Ikus gure IGI.

2690 Ikus IGI-en honetaz dioguna.

2691 PRA-Oibar, 36. k.

2692 Ikus Euskararen muga atala.

2693 PRA-Oibar, 42. k.

2694 HLEH.

2695 EHZE, 491. or.

2696 *Notas lingüísticas...*, 21. or.

**Ripas (fuente de), (paso de), (recodo de), (ribazos de), las:**

Latineko *rīpa* 'margen de un río'-n du sorburua izen honek. Erripa euskaldunaren bitartekotasuna ez da segurua, zerbaiten susmoak izateko arrazoiak badiren arren. Nafarreraren bitartekotza ere ez litzateke harritzekoa, erromantze horretan (aragoieraz bezala) bokal arteko ezpainbiko ahoskabeak, batzuetan bederen, bere gortasunari eutsi dionez gero (cf. euskarazko Erripabe-ren ordaina den Sorripas, beste eskualde batzuetako Sorribas-en aldean<sup>2697</sup>).

Las Ripas ez da toponimo berria, baina oso zaharra ere ez da. Lehenengoz 1729an ageri da, Galipentzuko euskara galdua zenean:

“una pieza en el termino de las rripas...qe afrontta con...Soto Conzejil” (1766)<sup>2698</sup>

El Riacho-ren inguruko lurrak izendatzen ditu, Acequia de Arana-k (Ara-neko erreka Agezan) ura isurtzen duen gunetik Pontarrón eta San Juan-aino. Hego aldetik Albozko harana eta Melenas-ekin mugatzen du, eta iparraldetik Meazu eta zertxobait La Elka-rekin. Melenas-ko zubitik hurbil, errekan, Recodo de las Ripas deitu bihurgunea bukatzen den tokian, La Fuente de las Ripas edo La Fuente del Rey<sup>2699</sup> dago, eta pixka bat gorago, Camino de los Molinantes-a ateratzen den lasterbi-de batean El Paso de las Ripas izeneko pausua, El Riacho-n.

**Ripazos (paco de), los:**

Izen honen adierari buruz ikus Las Ripas, Ripalazetas eta Ripodas sarrere-tan esan duguna.

Los Ripazos bi dira Galipentzuan, eta biak La Sierra-n daude, elkarrengandik hurbil: bata ugaldearen ertzean, goitik jaisten den izen berezirik gabeko errekastorearen bukaeran, eta bestea errekastu hau hasten den gunean, Camino de la Sierra-tik gertu. Paco de los Ripazos, beste alde, ugaldearen ertzean dago, Camino de Carcastillo-ren gaineko aldean, Los Ripazos eta Mutxarka-ren artean.

**Ripodas:**

Aztertu diren Las Ripas, Los Ripazos eta Ripalazetas-ekin lotu beharra dago toponimo hau. Caro Barojak<sup>2700</sup> “Reja de San Millán” deritzan agiriko Ripa ota eta gaurko Arabako Ripodas batentzat hartzen ditu, eta ripa eta ota-z (< alta) osaturik daudela dio. Urraulbeitiko Arripodas-ekin (Ripodas erdaraz) ere identifika daitezke Arabako eta Galipentzuko izenak.

Etimologia horren arabera Ripodas, Zaraitzun dugun Erripalda (Ripalda erdaraz, honelakoetan ohizkoa den aferesiaz)<sup>2701</sup> bera genuke (< ripa + alta), baina bertio erromantzez, antza. Mintzagai dugun izen horren bukaerako -s-ak ez du arazorik

2697 AV, 86. or.

2698 PRA-Oibar, 63. k.

2699 “El Rey” familia baten izengoitia (“los del Rey”) da.

2700 HGPV, III. alea, 196. or.

2701 Oso goiz erdaldundu zen Erriberrin La Ripalda azaltzen da 1552an: “una viña...situada en la Ripalda” (PRA-Erriberti, 3. k.-bis).

sortzen, baina bai bokal arteko herskari horzkariak. Izan ere, eta Mdez. Pidalek dioenez<sup>2702</sup>, *alt-* > *aut-* > *ot-* arrunta den arren (cf. *altariu* > *otero*; *salto* > *soto*...), bokal arteko herskari ahoskabeen ozenketa l + *kontsonante* multzoetako albokariaren bokaltzea baino lehenagokoa da<sup>2703</sup>, eta aipatu *alt-* > *aut-* > *ot-* pausoa bakar-bakarrik l-ren atzean kontsonante ahoskabea dugunean gertatzen da. Beraz, eta Barojaren etimologiaren arabera, Mdez. Pidalek proposatu ordena aldatu behar genuke, lehenik *alta* > *alda*, eta gero *alda* > *\*auda* > *oda* gertatu delarik.

Hau mugako eskualde elebidunetan ontzat har liteke agian, pentsatzen badugu, lehenbizi, euskararen eraginez albokariaren ondoko herskari ahoskabea ahostundu egin dela, eta gero erromantzearen eraginez l-ren bokaltzea eta *au* > *o* gauzatu direla. Azalpen hau, halaz guztiz, oso bortxatua iruditzen zaigu, eta gainera ez dator bat "Reja"-n ageri den *Ripa ota*-rekin, hemen ongi ikusten den bezala lehenik *alta* > *auta* > *ota* gertatu baita, Mdez. Pidalek zioenez.

Nolanahi ere den, egun ezezaguna den *Ripodas* Aragoa ugaldearen ondoan zegoen, orain *Central de arriba* delakoa (lehen errota zena) dagoen eremuan, *Mendiebakia*-ren ondo-ondoan (ikus sarrera hau). Honek, orografiak bezala, *ripa* + *alta* etimologiaren alde jokatzeko du:

"y mas el molino farinero que tienen dhos vezinos en el Rio Aragon llamado Ripodas que es propio de la dha vi<sup>a</sup> y vezos conzejantes" (1717)<sup>2704</sup>

**Rocetas, las:**

*Roza* 'berro', 'labaki'-ren txikigarria dugu hemen, *ereta*, *fonteta*... eta bestetan bezalaxe. Orain ezezaguna da eta ez dugu kokatzerik izan:

"otra pieza en las rrozetas" (1704)<sup>2705</sup>

**Rojo, barranco del; cabaña del:**

El *Rojo Galipentzuko* etxe batekoen izengoitia da. Suposa daitekeenaren kontra, ez da Espainiako Gerla zibilean sorturikako ezizena, gatazka armatu horren aurretik ere "los del rojo" esaten baitzitzaien etxe horretakoei.

*Rojo* horrekin zer adierazi nahi den ez dakigu zehazki; Uxuen kaskagorri bati (eta bere familiari) el rojo esaten zaio, eta Galipentzun ere gauza bera espero genuke.

Etxola *Billakukuru* ondoan dago; erreka Uxueko mugan sortu, eta *Zabaleta* zeharkatu ondoan Aragoa ugaldean bukatzen da, *Lejua*-n.

2702 MGHE, 28 eta 139. orr.

2703 Id., 172. or.

2704 PRA-Kaseda, 18. k.

2705 Id., 12. k.



**Roza (alta), la:**

Roza edo berro hau non zegoen ez dakigu. Egun behialako Santxoteuntzea bera aditzera ematen duen **Saso de la(s) Roza(s)** dugu, **Larreta** eta **Errekagaitza**-ren artean (ikus, gainera, **Beragu** sarreran dioguna):

“otra pieza en la Roza alta” (1710)<sup>2706</sup>

**Rueda de Roncesvalles, la:**

1335ean baizik aurkitu ez dugun ‘rueda’ edo errota hau non zen ez dakigu, ez eta, orobat, ezagutzen ditugun hiru eihoretatik bat zen<sup>2707</sup>:

“yten otra pieça cabo la Rueda de Ronçasvalles et afrontaçion de la una part la pieça q fo de miguel aznarîç et de la otra part a pieça de toda arçeiz Unçundoco”<sup>2708</sup>

**Saleras, Ginebral de las:**

Albozko haranbarrena-n zegoen, **Las Ripas** eta **Melenas** aldean, antza:

“otra pieza...en el terno de albozcoaranabarrena tenitea...Genebral de las saleras” (1721)<sup>2709</sup>

**Salericas, las:**

Leku-izen honek bertanazienda zuriei gatza emateko harrietan, gatzarrietan, du sorburua. Eremu aldapatsua eta txikia da, gehienez ere hogeit bat gatzarri jartzeko aukera ematen duena.

**Las Salericas**-en **Uxuera** eta **Valescura**-ra doan bidea, **Beragu**-ra doana, **El Solano** eta **San Pelayo**-ra igotzen den xendra, eta **Uxueko** errotara doan **Camino de Zenboroz** bereizten dira. **Zenboroz**, **Balarrengu**, **Beragu** eta **Bartaquilar**-ekin mugatzen du.

**Salericas de Urbín, la:**

**Urbín** norbaiten deitura edo izengoitia bide da, baina Galipentzun azken garai hauetan ez da izan izen hori zuenik inor. **Salericas** toponimoaren jatorria ardiei gatza ematen zitzaien harrietan bilatu beharra dago.

**Salobre, el:**

**Reta Janárizek** aipatzen duen toponimo hau<sup>2710</sup> **gesal** eta **Gezari**-rekin lotu beharra dela irudi du. **Uxuen El Salobrar** dugu, eta **Zaren Salobreta** hibridoia (ikus sarrera hau).

2706 Id., 15. k.

2707 Guztiarekin ere, baliteke García Larraguetak biltzen duen “ruedas del hospital de Jerusalem” edo “ruedas de Santa Maria de Uxue” (Uxueko errota hortaz) bera izatea. Urangak aipatua, UM-eko 78. orrialdean.

2708 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. org.

2709 PRA-Oibar, 37. k.

2710 EHZE, 488. or.

**Salto del Ciervo, el:**

**El Ferial eta Mutxarka**-ren artean, ibaian dagoen hersgunea da. Toponimoak tokia oreinen pausua izatean bide du sorburu (cf. **Pasalobos** eta **Otsopasaje** edo **Otsopasaketa**):

“otra pieza de Antonio Jbañez en el salto del ciervo teniente al camino y al Rio” (1696)<sup>2711</sup>

Garai batean eskualde honetan orain erabat suntsitu diren animalia eta piztiak oso ezagun eta arruntak ziren. Hau da, adibidez, otsoaren kasua, bai eta oreinarena ere, azken hau lehen hori baino gutxiagotan azaldu arren<sup>2712</sup>. Fustiñanan honen irudikoa den **Salto de las Yeguas** dugu.

**San Babil (basílica de), (delante de), (ermita de), (paso de), (tras de):**

**San Babil** aurren aldiz 1546an azaltzen da Galipentzuko dokumentazioan:

“yten una p<sup>a</sup> delantesanbabil” (1546)<sup>2713</sup>

**San Babil** eta **San Juan** ermita edo “basilica”-en hondatze prozesua 1683rako nahikoa aurreratua zegoen:

“que bien saven que en los terminos de la dha vi<sup>a</sup> ay algunas hermitas y respecto de que se alla casi derroyda la que llamamos Sn Juan y tambien otra de Sn Babil la que se alla con muy poca decencia y que se puede presumir sino se acude a la Reedificación de ellas, an de quedar las dos del todo derruydas...”<sup>2714</sup>

1721eko lekukotasunean ez da ermitaren egoeraz deus esaten, eta ez dakigu osotara hondatua zegoen edo berritu zuten:

“otra pieza... Junto a la Basilica de Sn Babil” (1721)<sup>2715</sup>

**San Babil**-ek **Larregureneta**, **Kaskallu**, **Ardantzeandia**, eta **Gezari**-rekin mugatzen du. Dokumentazioan ikusten den bezala, gaurko **Las Fuentes**-ek ordezkatu bide duen **Artaxogoieta** ere mugakide zuen (ikus azken sarrera hau). **Paso de San Babil El Riacho** gurutzatzeko pausua izanen zen, agian egungo **Paso de la Muga de Eslava** bera.

2711 PRA-Kaseda, 8. k.

2712 Morionesko **Oreingaña**, **Oreingibela** eta **Oreingibelgaña**-n azaltzen dela dirudi. Ibargoitiko Izkon orein eta zuloa-z osatutako **Oreinguloa** (PRA-Oibar, 25. k., 1648) dugu (cf. **Otsazuloa** Agezan), eta Itzagaondoko Idoaten **Oreyn** arbea (Artaizko eliz artxibategia, kontuak, 6. org., 1541): “Pieza en el camino que ban a Oreyn arbea”.

Erdaraz aztertzen ari garen Galipentzuko toponimoa eta Oibarko **Valcervera** ditugu behinola ugariak ziren animalien oroikarri bakarrak.

2713 PRA-Oibar, 2. k.

2714 PRA-Kaseda, 2. k.

2715 PRA-Oibar, 37. k.

**San Juan (basílica de), (ermita de), (iglesia de), (paso de), (prado de):**

**San Juan Bautista** ermita gaurko **San Juan** dermioan zegoen, Juan Arive “el Pepo”-ren gorteko larrinean, **Agezabidea**-n. Indusketa lanetan ihardun zuen Demetrio Arive jaunak honela deskribatu zigun bertan aurkitu zutena:

“En **San Juan** habíamos encontrado dos fosas como esta mesa (0’50 x 1 m.), no eran de hombres, eran de críos, a un metro de profundidad o así. En el mismo corral de Juan Arive, en la era. Encima del corral (había) unos agujeros de unos dos metros, igual podían ser doce, que catorce, que diez. Arriba tenían una boca como una tinaja, arriba eran estrechos, lo demás todo era ancho. Encontramos allá un rinconico, en el camino de Ayesa, había como una aguabenditera, y como unas piedras, bien trabajadas”

Ermitaren lehen lekukotasuna 1335ekoa da:

“yten otra pieça dola yglessia de SantJohan et apor afrontaçion de la una part la pieça de xemen ferrero, et de la otra parte el camino publico”<sup>2716</sup>

1683rako egoera tamalgarrian zegoen (ikus **San Babil** sarrera), baina 1713<sup>2717</sup> eta 1729an<sup>2718</sup> berriz dokumentatzen da. Honek, ordea, ez du ezinbestez artean zutik zegoela esan nahi.

J. Gárrizek<sup>2719</sup> erromatarren garaiko **Casquilletes de San Juan** despoblaturia aipatzen du:

“Además de abundantes restos cerámicos, proceden de aquí grandes sillares decorados con motivos vegetales, que debieron formar parte de un mausoleo monumental”

Nolanahi ere, despoblaturaren izena **San Juan** izanzen zen, eta **casquilletes** hori (“partículas o trocitos que se dispersan al romperse un objeto de vidrio, barro o porcelana”, Iribarren arabera, **San Martín Unxen**) nondik atera duen ez dakigu<sup>2720</sup>.

Gaurregungo **San Juan** dermio hutsa da, eta **Las Fuentes, Kaskallu, Larregureneta, Peñazamala, Paco de Lecino, Pasalobos, Albozko harana, Las Ripas** eta **Pontarrón**-ekin mugatzen du. Antzina, orain ezezaguna den **Legaztui**-rekin ere mugatzen zuen.

Egungo **Prado de San Juan** behialako **Lakuarana** edo **Lakuko harana** bera dela dirudi (ikus azken sarrera hau); **Paso de San Juan**, azkenik, **Agezabidea** edo **Camino de Ayesa**-n dago, **El Riacho**-n.

**San Martín, valles de:**

1335ean aurkitu dugu aurren eta atzen aldiz:

2716 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. or.

2717 PRA-Kaseda, 16. k.

2718 PRA-Oibar, 41. k.

2719 *Despoblados*, 11. or.

2720 Autore honek biltzen dituen beste bi despoblaturen izenak ere oker emanak daude: **Baldeoscasa** eta **Beraga** aipatzen ditu, **Valdeoscuro** (gure **Valescuro**, ikus sarrera hau) eta **Beragu**-ren ordez.

"otra pieça en las vaylles de Sant Martin"<sup>2721</sup>

### San Pedro:

Kasedako muga ondoan dago gain hau, ermita dagoen herri horretako **San Pedro** gainaren aurkezean, **Las Peñas altas**-en gaineko aldean, **Portillo de Jares**-etik hurbil. Bitxia bada ere, ez dugu dokumentazioan behin ere aurkitu.

### San Pedro (barrio de), (calle de), (parroquia de), (placeta de):

**San Pedro** lehen aldiz 1596an dokumentatu dugu<sup>2722</sup>; 1695ean auzotako hartzen da<sup>2723</sup>, eta 1787an parrokiatako<sup>2724</sup>. 1856ko **Calle de San Pedro**<sup>2725</sup> gaurko eta dokumentazioko **Barrio de San Pedro**-ren adierakidea da; auzo honetan, eliza ondoan, **Placeta de (el Barrio de) San Pedro** deritzan plazatxoa dago.

### San Pelayo:

**El Solano (de Valescura)** eta **Beragu**-ren arteko hegi luzearen hasiera da **San Pelayo**, hots, **Portillo de Beragu** eta **Las Salericas**-en ondoko zatia, lehenbiziko bi edo hiru hoyaren parekoa. Gainerakoari, Eslabako mugaraino **Alto del Solano** edo **Alto de Beragu** esan izan zaio. Bertan ermita egon zela kontu egin daiteke, baina orain ez dago horren arrastorik. Dokumentazioan ez dugu behin ere ediren.

### San Salvador (balsas de), (barrio de), (eras de), (parroquia de):

**San Salvador** 1719an parrokiatzat jotzen da, **San Pedro**-rekin batera, eta 1720an auzotzat<sup>2726</sup>. Azken hau **Barrio alto** edo **Irigoi**en izan zitekeen edo **San Salvador**-etik hurbilen zeuden etxeek osa zezaketen; **Eras de San Salvador** ermitatik hurbileneko larrainak ziratekeen, dokumentazioko **Eras altas** edo egungo **Las Erachas** agian, eta **Balsas de San Salvador** gorago aipatu **Las Balsas** berak dira (hiru dira orain, bi lehen).

### San Zoilo (basílica de), (portillo de), (viña de la ermita de):

**San Zoilo** ermita hondatuaren zaharrikak oraindik ere ikusgai daude Aragoa ugaldearen ertzean, **Ondallu** eta **Lejua** artean, **Camino de Murillo**-ren alboan. Dugun lehen albistea 1335ekoa da:

"Otro si dos pieças dola yglessia de Sançol et a por afrontacion de la una part las pieças que fueron de domingo ariçco et de la otra part el camino publico"<sup>2727</sup>

2721 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. org.

2722 PRA-Oibar, 9. k.

2723 PRA-Kaseda, 8. k.

2724 Id.

2725 Id., 60. k.

2726 PRA-Oibar, 36. k. Alabaina, lehenago ediren ez izana dokumentazioan ez azaltzeari (edo guk ez aurkituari) zor zaio, eta ez du inola ere esan nahi **San Salvador** data horiek baino anitzez lehenago parrokia eta auzo ez zela.

2727 IEA, 387. kart., 12. zkia., 14. or.

Ermitak izena eman die inguruko lurrei, eta gaurko **San Zoilo-k Ondallu**, **Lejua** eta **Zabaleta**-ren arteko alderdi bat ematen du ezagutzera. Ermitaren aldamenean antzinako **Sanzolportilua** (ikus sarrera hau) edo gaurko **Portillo de San Zoilo** dago, **Camino de Murillo** eta **Camino de Aurino** alto bereizten diren gunean:

“una viña en el portillo de San Zoylo...afrota á...Camino Real” (1812)<sup>2728</sup>

Ermitak ardantzeta bat zuen antzina ondoan dagoen **Ondallu**-n:

“una viña que tiene la hermita de Sn Zoilo en el termino de Undalu” (1812)<sup>2729</sup>

Larogei urte hurbil dituen gure informatzaileak ez du sekulan teiltuarekin ezagutu ermita, baina bai paretak zutik zituela.

#### Sanbabilbidea:

Gaztelaniazko **Camino de San Babil**-en euskal ordaina da:

“otra piª en Sanbabilbidea” (1596)<sup>2730</sup>

#### Sanbabilgibela:

Erdal **Tras San Babil**-en euskarazko baliakidea dugu:

“otra pieza en...sanbabilguibela” (1597)<sup>2731</sup>

#### Santa Elena (cruz de), (ermita de), (pontarrón de), (puente de):

**Santa Elena** zeharo hondatua dago orain, eta harri txar batzuk besterik ez da gelditzen lehen ermita zegoen tokian, **El Mayo**-tik datorren bideak eta **Erbiña**-tik datozenak bat egiten duten alderdian<sup>2732</sup>:

“otra pieza en la misma endrecera (**Ekarra**-n) Junto a la hermita de Santa elena” (1596)<sup>2733</sup>

Antzina ermitaz landa zubia ere bazen (**Puente**<sup>2734</sup> edo **Pontarrón**<sup>2735</sup> de **Santa Elena**), aipatu bidea **El Riacho**-rekin gurutzatzen den gunean. Bertan berriki arte ikus zitekeen harrizko pareta orain lurrez estalia dago.

**Cruz de Santa Elena** **Camino de Sangüesa**-n zegoen, ermita ondoan (ikus **Crucillada** sarrera), bidegurutzean:

2728 PRA-Kaseda, 42. k.

2729 d.

2730 PRA-Oibar, 9. k.

2731 Id.

2732 Demetrio Arike jaunak dioskunez lehen paretak zutik zeuden, baina berak ez du teiltua bazuela ezagutu.

2733 PRA-Oibar, 9. k.

2734 PRA-Kaseda, 39. k.

2735 PRA-Oibar, 7. k-bis.

“otra (pieza)...en Erbiña afronta â Camino Real de Sanguesa, hermita y cruz de Santa Elena y cequia regadera” (1801)<sup>2736</sup>

#### Santa Margarita:

San Salvador elizaren azpian dago, soto moduko batean. Lehen norbait gorteren batean hiltzen zenean edo ugaldean itotzen zenean hona ekartzen zuten gorpua, autopsia egiteko.

#### Santiago, linar de:

Linar de Santiago 1705ean dokumentatu dugu. Badakigu *Cofradía de Santiago*-k Erbiña-n zuen lihatzea zela:

“un linar...en Erbiña Junto al linar de Santiago”<sup>2737</sup>

#### Santitisi:

Santitisi erdarazko San Tirso-ren ordain euskalduna da<sup>2738</sup>, hagianimo guztien kasuan bezala, jatorria latinean bilatu behar bada ere. Ermitarik bazelako frogarik ez dugu, baina gure irudiz uste izatekoa da antzina bazela bat alderdi honetan.

Galipentzuko Santitisi, Sanditisi eta Bernedoko Santitis edo Santutis \*(monasterium edo ecclesia) Santi Tirsi-ren moduko genitibo batean bilatu beharra dago (cf. Jaun Done Petri, Jaun Done Mikendi, Sandiandore eta Sanditume Lergan, eta Sandiandore Leatxen). Hemendik euskaraz ohizkoa den ozen ondoko herskari ahoskabearen ahoskuntza burutuko zen, 1597tik aitzina<sup>2739</sup> agertzen den Sanditisi eta antzeko aldakien hasierako sandi- hori sortuz (Sanditizi 1635ean<sup>2740</sup>, Sanditirse 1774ean<sup>2741</sup>). 1596rako rs > s aldakuntza nozitutako aldaera aurkitzen dugu (Santitisi<sup>2742</sup>), baina hala ere San Tirso-rekiko lotura garbi zegoen oraindik 1774ean, urte honetako Sanditirse aldaki disimilatuan somatzen ahal den moldean.

Guztiarekin ere, baliteke hagianimo hauetan genitibo gabe nominatiboaren dobleteak diren -i(us)-ez bukatuturikako formen oinordekoak besterik ez izatea, Alfonso Irigoyenek proposatzen duen moduan:

“...Esto no quiere decir que en la Edad Media, sobre todo en los nombres de santo, los escribanos no utilizaran el genitivo. Mejor dicho, como en estos casos el nominativo de un dolete y el genitivo tradicional del otro tenían la misma forma adquirió gran extensión entre aquellos la costumbre de realizar en los escritos concordancias basadas puramente en la forma de genitivo y circularon hasta tarde fórmulas del tipo señalado,

2736 PRA-Kaseda, 37. k.

2737 Id., 12. k.

2738 Arabako Bernedoko udal artxibategiko dokumentuetan Santitis edo San Tutis toponimoa azaltzen da 1593tik 1636 arte, eta San Tirso 1656az geroztik gaurdaino. Informazio hau herrialde honetako toponimia biltzen diharduen J. Antonio González Salazar jaunari zor diogu.

2739 PRA-Oibar, 9. k.

2740 Id., 23. k.

2741 Id., 70. k. Bukaearako -e hori bilakaera erromantzearen eraginaren ondorioztat har liteke agian, baina orduarteko aldaera guztiek eta egungo formak ere -i dutenez, disimilazioaren ondorea dela uste dugu.

2742 PRA-Oibar, 9. k.

aunque en la lengua hablada la distinción del genitivo basada en la declinación latina estuviera agotada, ya que se impuso como sistema más generalizado el de hacerlo con la preposición *de*. Este estado de cosas contaminó también algunos nombres de santo, los cuales adquirieron forma de genitivo, como sucede con *Sancti Felices* del cual quedaron en la toponimia por vía eclesiástica *San Felices*, *Santelices*...<sup>2743</sup> En cualquier caso, esta ambigüedad de los escribanos no perjudicaba en absoluto a la perduración de los dobles en *-us / -i(us)* que en latin existían con anterioridad en lo que se refiere a nombres de persona, y así, continuaban en la Edad Media en las terminaciones *-u > -o / -i > -e*.<sup>2744</sup>

**Santitisi** [sàntitísi] herritik hurbil dagoen Aragoa ondoko lautada da, orain dela urte batzuk eraiki zuten **Galipentzu Berri** herri berria dagoena. **La Recueja**, **Errekagaitza**, **Bartasteka**, **El Saso**, **Garandako harana**, **Erbifia** eta **Inbilos-ekin** mugatzen du.

**Ermita Paso de Inbilos-tik** hurbil zegokeen, inguru horretan eraikuntza baten zaharkinak izan daitezkeenak baitaude.

#### Santuluzea:

Toponimo honen osagaiak **Eslabako Santuzabal** aztertzerakoan aipatu ditugun **Santu** (< \**sautu* < *salu*) 'zaldú' izena eta **luze** izenondo ezaguna dirateke. Eslabako leku-izenaren jatorria ikertzean esan moduan, \**sautu* > **santu-** pausoa herri etimologia baten ondorena dateke, eskualde honetako aldaera **sandu** zela uste dugun arren. Guztiarekin, ezin dugu zeharo baztertu begien aurrean duguna **santu** 'saindu' delako ustea.

"una pieza en Santeluncea...teniente a...senda q se ba a Ayessa" (1705)<sup>2745</sup>

"otra pieza en santuluzea" (1713)<sup>2746</sup>

1705eko lekukotasunean ikusten den bezala, **Santuluzea** Agezako bide-zigorraren zegoen, **Agezabidea** edo **Camino de Ayesa-n** seguru asko, bideak eta bide-zigorrak tamainaz eta garrantziz ezberdinak izanagatik, agiritan antz aldiz elkarren ordaintan edireten baititugu. Honela bada, gaurko **Paso de San Juan** aldean egon zitekeen, **El Riacho-ko** zalduan (ikus **El Soto** sarrera)<sup>2747</sup>.

#### Santxoteuntzea (barranco de), (saso de):

**Santxot** edo **Santxote** (cf. hasieran **Gartxot** edo **Gartxote** batena behar zuen **Casa Garchotena** Mezkitzen, 1833an<sup>2748</sup>) izeneko baten euntzea dugu hemen (cf. **Jose Miguel Barandiaranek** biltzen duen **Erroibarko mugako Xantxoten harriak** trikuarri-izena<sup>2749</sup>).

2743 Oibarren ere aurkitzen dugu **San Felices** [sànfelíθes].

2744 LVRLOCM, 19-20. orr.

2745 PRA-Kaseda, 12. k.

2746 Id., 16. k.

2747 Guztiarekin ere, aitortu behar dugu "senda que se ba a Ayessa" delako hori Agezatik Kasedara, eta Kasedatik Agezara joateko bidea izan zitekeela, eta **Santuluzea Santxoteuntzea**-ren desitxuraketa hutsa.

2748 **Orreaga Ibarra**, argitaratu gabeko lizentziatura-memoria. Etxe-izenetan sarri **-arena** > **-erena**, **-ena** aldakuntza burutu izan da. Cf., adibidez, **Çamarguinarena** (1627), **Zamarquiñarena** (1723), **Zamarquiñerena** (1795), **Zamarquiñena** (1811) Leten. Jimeno Jurfo, TCPCI, 239. or.

2749 DIMV, **Trikuarri** sarrera.

1703ko lekukotasunean ikusten denez, oraingo **Saso de la(s) Roza(s)** bera da hau:

“prosiguiendo el dho amojonamiento por el dho sasso que Refiere el amojonamiento antiguo llamarse el sasso de sancho teunzea por gallipienzo y devaxo del terno que llaman el Cascaxo los de Sada”<sup>2750</sup>

Dermio honetatik jaisten zen erreka **Barranco de Errekagaitza** da:

“enzima del barranco que baxa del sasso de Sacho teuncea...” (1703)<sup>2751</sup>

**Sanzol, iglesia de:**

**Sanzol** erdarazko **San Zoilo**-ren euskarazko ordaina da Galipentzun, esan bezala **Basílica de San Zoilo** eta **Iglesia de Sanzol** batetik, eta **Portillo de San Zoilo** eta **Sanzolportillua** bestetik, entitate bera izendatzen duten toponimoak baitira.

Aspaldikotasunari dagokionez, badirudi errazago dela **San Zoilo**-tik **Sanzol** ateratzea alderantzizkoa baino, azken hau 1335erako aurkitu dugun arren. Hasiera batean **Sanzol** Nafarroako erromantzearen eraginez sortutako forma dela pentsa daiteke (garbi dago **Sanzol** dela gure hizkuntzan ibili den forma), gure eskualdean, eta Galipentzun bereziki, bertako erromantzearen eragina nabaria denez gero. Guztiarekin ere, askoz iparralderago dagoen **Muru-Azterainen Jimeno Juríok** oraindik ere bizirik dagoen eta **San Zoilo**-ren ordaina den **Sansol** bildu du. Honela dio autore honek:

“Alto (530 m.) en cuya falda suroriental está el pueblo. Poblado del Bronce y de la I y II Edad del Hierro. Ermita de Sansol con ábside semicilíndrico, vano central y signos lapidarios, sin techumbre y convertida en cementerio. El obispo Igual de Soria la llamó «*San Zoilo*» y así otros después. En Muru siguen llamándolo Sansol. La parroquia daba una colación a los vecinos el día del santo”<sup>2752</sup>

**Sanzol** forma lehenagoko \***Sanzol** batetik atera zitekeen, ezaguna baita euskaraz hitz berean bi txistikari ageri direnean biak artikulagune bereko egiteko dagoen joera (cf. **frantses, sinetsi**...). Izaban **San Zolo** edo **Sanzol** dugu<sup>2753</sup>.

Euskal elkartuetan bigarren osagaiaren azentuaketa nabarmenagoa da lehenarena baino<sup>2754</sup>, eta honengatik aurkitzen ditugu azken bokala galdu duten **Larlutx** (< **Larreluze**), **Egiluz** (< **Egiluze**)...eta beste. Hagionimoetan ere badira azken bokala galtzen dutenak: **Barañainen**, kasu, **San Macay** ‘**San Macario**’ (**San Macari** gisa ere azaltzen dena) dugu<sup>2755</sup>, eta **Eslaban bertan Jaun Done Belaio** edo **San Pelai**. Dena den, azken bokalaren galtzea azentuaketari ezezik elkarketan ardura azaltzeari ere zor dakioke.

2750 PRA-Oibar, 30. k.

2751 Id.

2752 TCPCC, 369. or. Azpimarra gurea da.

2753 B. Estornés, DTR, 386. or.

2754 “...Tout ceci fait penser que le premier élément des composés n’était que faiblement accentué, bref, qu’il était presque proclitique.....La situation est très différente dans le second membre. Tout y suggère que nous avons affaire à un fort contraste entre syllabe accentuée et non-accentuée plutôt qu’à une uniformité dans l’atonie”, Mitxelena, “A propos de l’accent basque”, SHLV, 236. or.

2755 Jimeno Jurío, TCPCC, 172-173. orr.



Hortaz, badirudi aztergai dugun toponimoaren bilakaera hau izan dela: **Sanzoilo** > \***Sanzoil** > **Sanzol**<sup>2756</sup>. Honetan, esan bezala, elkartuaren bigarren osagaia izateak eta aldi berean atzean portilua duela sarritan azaltzeak izango zuen eragina.

#### Sanzolportillua:

Erdarazko **Portillo de San Zoilo**-ren kide euskalduna dugu, esan moduan (ikus aurreko sarrera):

“otra viña en Sanzolportilloa teniente a...Camino Real” (1691)<sup>2757</sup>

#### Sarda, la:

**Sarda** Iribarrenen arabera<sup>2758</sup> ‘zuhai-xka-oihana’ da Erribera aldean, eta **sardal** ‘errekina’ ‘erretako sastraka-aldea’ Lergan (cf. herri honetako **Errekina**, **Errekinbazterra**, **Mondako errekina**). Galipentzun ez dugu erretako lurtsailen berririk, eta agian Erriberako adierari eman behar genioke lehentasuna.

Edozein modutan, **sarda** aldi bakar batez aurkitu dugu Galipentzuko dokumentazioan, eta ez dakigu toponimoa den ala izen arrunta:

“otra pieza en la cabaña...que tiene senda por medio azia la sarda” (1608)<sup>2759</sup>

#### Saso (caída), (corraliza), (valle):

**Saso**-ren balioaren inguruan ikus Agezako **El Saso** sarrera. **Melenas**, **Bartasteka**, **Santitisi** eta **Garandako harana**-rekin mugatzen du:

“y mas las yervas y Aguas de las corralizas del Saso y Larreta, thenientes al Rio Aragon y muga de Sada” (1717)<sup>2760</sup>

Galipentzun orain antonomasiatz **El Saso** (antzinako **El Saso de Melenas** edo **Nava de Melenas**. Ikus **Melenas** sarrera) deitzen den honetaz gainera, beste zazu hauek ere baditugu: **Saso de Atanasio**, **Saso de la Cruz de Idoia**, **Saso de la(s) Roza(s)** (behialako **Santxoteuntzea**), **Saso de Lunberi**, **Saso de Vicentón**, **Saso de la Noria** eta **Saso de Puyalato**<sup>2761</sup>.

1608an dokumentatzen den **la valle del saso**<sup>2762</sup> 1633ko **cucuarana**-ren ordain erdalduna izan zitekeen, azken hau dirudien bezala \***Zazuarana**-ren itxuratxartzea bada. **Caída del Saso** **El Saso** eta **Bartasteka**-ren arteko aldattoa zatekeen:

2756 Agian \***Sanzoll** bar ere proposatu beharko da. Cf. kontsonante aurreko **Iruñ-** / **Iruin-** / **Irun-** txandakatzea.

2757 PRA-Kaseda, 6. k.

2758 VN.

2759 PRA-Oibar, 13. k.

2760 PRA-Kaseda, 18. k.

2761 Azken bi hauek Reta Janárizek biltzen ditu; guk ez dugu aurkitzerik izan. Egia da **Puyalato**-n zazu txiki bar dagoela, eta beharbada bakarren batek **Saso de Puyalato** deituko dio.

2762 PRA-Oibar, 13. k.

“otra pieza...en la caída del sasso azia la parte de Bartasteca” (1730)<sup>2763</sup>

**Saso de Atanasio, el:**

**Aurino bajo-n, Barranco de las Aguas saladas eta Barranco del Huertico de Recané-ren arteko zazua dugu hau. Izena bertan dagoen “Corral de Atanasio”-tik hartu du, eta ez da dudarik berria dela.**

**Saso de la(s) Roza(s), el:**

**Larreta eta Errekagaitza-ren artean dago, Zareko mugan. Santxoteuntzea, Saso de Errekagaitza eta Saso de Larreta ere deitu izan zaio, gorago esan bezala.**

**Sekeroa (cantera de):**

**Erdarazko Sequero-ren euskalduntzea dugu hemen (cf. Buraleta, Puntallua, Sotoeta...). Izen hau Iribarrenen arabera<sup>2764</sup> secano-ren baliakidea da<sup>2765</sup>:**

“equivale a *el secano*, es decir, al conjunto de tierras de secano o de monte, en contraposición con el *campo* o *regadío*”

**Toponimo honen kokalekuaren berri ez dugu, baina garbi dago \*Urandia-ren edo erreka baten ondoan ez zegoela. Bardena aldean zegoelako susmoa dugu. Frogarik ez, ordea:**

“otra viña...en la endrecera llamada Sequeroa” (1597)<sup>2766</sup>

**Badakigu gain bat ere bazela alderdi honetan, 1691ko lekukoan cantón ‘hegia’, ‘mendi luzea’-ren adierakidea den cantera bat zegoela ikusten baita:**

“una (pieza?) en la Cantera de Sequeroa”<sup>2767</sup>

**Senda de Abaiz:**

**Ardantzeandia-n barna zihoan, eta hortaz Camino de Abaiz-etik bereizi behar dela segurua da, azken hau esan moldean Bartabustu-tik baitoa, Saso de Lunberriren hurbiletik:**

“otra (pieza en dicho termino (Ardantzeandia-n), tthenientea...senda para Abaiz” (1767)<sup>2768</sup>

2763 Id., 42. k.

2764 VN.

2765 Murillo el Fruton ere **El Sequero** ageri da 1614ean (PRA-Kaparroso, 20. k.): “una viña en el sequero...que afrenta...al camino que ban a la mendilaza”.

2766 PRA-Oibar, 9. k.

2767 PRA-Kaseda, 6. k.

2768 PRA-Oibar, 67. k.

**Senda de Ayesa:**

Santuluzea aztertzean esan den moduan (ikus sarrera hau), **Senda de Ayesa**<sup>2769</sup> **Camino de Ayesa** edo **Agezabidea**-rekin identifika daiteke, baina Agezatik Kasedarako bidea ere izan daiteke.

**Senda de Ayesa a Gallipienzo:**

**Portillo de Balarata**-n gaindi zihuan bide(zigor) hau, eta apika **Agezabidea** edo **Camino de Ayesa**-rekin identifikatu behar genuke:

“una pieza...en el termino del Portillo de Balaratte theniente...a senda ô camino que ban los de Aiessa â Gallipienzo” (1705)<sup>2770</sup>

**Senda de la Peña agujereada, la:**

**Camino de Engubelea**-tik **Peña agujereada** aldera doa.

**Senda de Lerga a Ripodas:**

**Gezaribarrena** sarreran esan gisan, **Camino de los Molinantes**-en adierakidea da.

**Senda de Lunberi, la:**

**Peñazamala**-tik **Lunberi**-ra igotzen zen:

“otra pieza en peña Zamala..thenientea prado Conzejil y Senda que se sube a Lunberi” (1710)

**Senda de Valescura:**

**Las Cuevas**-etik **Valescura** aldera zihuan bidezigorren bat izanen zen hau. Badaiteke **Uxuerako** hirugarren bide orain ia zeharo ezabatua izatea, baina ez dugu uste hala den:

“en el camino de Ujue y senda de Baldescura y ttermino llamado las cuebas” (1816)<sup>2771</sup>

**Senda del Paso de Carcastillo:**

Ez dakigu zein pausu zen, baina bitxia da **Kaskallu**-n, Ageza eta Eslabako mugetatik hurbil, **Paso de Carcastillo** bat aurkitzea. Baliteke hemen nahasketa baten-gatik **Paso de Carcastillo** hori **Paso de Kaskallu** edo **Paso de Cascallo**-ren orde zego-tea, esan dugun bezala **Kaskallu**-n Eslabako goiko bideak **El Riacho** gurutzatzen baitu:

“Mas otra (pieza) en el termino de Cascallu, que afrontta a...senda de el Paso de Carcastillo” (1798)<sup>2772</sup>

2769 PRA-Kaseda, 12. k.

2770 PRA-Oibar, 30. k-bis.

2771 PRA-San Martin, 79. k.

2772 Id., 67. k.

**Senda del Puente de Melenas:**

**Tximarra eta Vuelta de la Cantera-n** barrena doana izan daiteke:

“...senda que se ba al puentte de Melenas” (1730)<sup>2773</sup>

**Sequero:**

**Sekeroa** euskaldunaren kide erdalduna da:

“una viña en la endreçera llamada sequero” (1601)<sup>2774</sup>

**Sierra (común de), la:**

**Engubelea-tik Plandeoliva-ra** eta Kasedako mugatik Aragoaren ertzeko **Mutxarka-ra** hedatzen den alderdi menditsua dugu **La Sierra**:

“treinta y quatro Robadas de tierra...en el termino de la Sierra” (1767)<sup>2775</sup>

Gure eskualdeko beste herri askotan ere (Eslaba, Kaseda, Leatxe, Loia, San Martin, Uxue...) azaltzen da toponimo hau, beti eremu menditsua aditzera ematen duelarik. Honen euskarazko ordaina hain zabaldua dagoen **Bizkaia** izan daitekeela uste dugu (ikus Leatxeko **Bizkaia** eta **La Sierra** sarrerak). Aldean **mendia** aurkitzen dugu balio beraz (ikus herri honetako **Aldeko mendia** sarrera).

**Mugakide** duen **Kaparreta-n** bezala, **La Sierra-ren** zati bat gutxienez herri-lurra zen eta da<sup>2776</sup>:

“otra pieza en el comun de la Sierra” (1770)<sup>2777</sup>

**Solano (alto de), el:**

**Gauregungo El Solano** dokumentazioko **El Solano de Valescura** izan daiteke, baina hau ez da segurua (ikus **Valescura** sarreran esandakoa). **El Alto del Solano** beste era batez **Alto de Beragu** deritzan mendi gailur luzearen Eslaba aldeko zatia da (ikus **San Pelayo**). Alderdi guzti hauazienda gorrientzat altxatua zegoen herri-lurra da.

Puiu herrian izen honen euskaratzearen fruitu den **Solanoa** dugu 1816an<sup>2778</sup>, **Solanóa** egun.

**Sopenas:**

Toponimo honetan euskal **-pe** posposizioaren baliokidea den **so-** (<šǔb) erro-mantzea dugu, eta **peñas-en** (<ǫ́nna ‘almena, luma’<sup>2779</sup>) aldaera den **penas** (cf. Uxueko

2773 PRA-Oibar, 42. k.

2774 Id., 10. k.

2775 Id., 67. k.

2776 Orain jabeto pribatuko lurra ere bada bertan, baina gehiena auzalurra da oraindik.

2777 PRA-Oibar, 68. k.

2778 Id., 96. k.

2779 Corominas, DCECH.

**Aizpeaga**). Hondar elementu hau ez ahostuntzea erdarari lepora dakiok<sup>2780</sup>, baina euskararen eraginari ere bai (cf. latineko *capanna*-ren eratorria den euskarazko *kapana* eza-guna)<sup>2781</sup>. Hona hemen gai honetaz A. Irigoyenek dioskuna:

"Azpe, en Secorún, que ahora se llama Laguarda, p.j. de Boltaña, documentado desde el s. XII. Es variante de la forma navarra *Ayzpe* (1366, PN-XIV, F. Sang., p. 461), en *Val d'Uncit*, y de *Aizpe* (1109, *Leire*, f. 46), cast. *Sopeña*, en Huesca *Sopena*, sin palatalización de *-nn-*, fenómeno fonético que también se da en lengua vasca, documentado en el *Rep. Huesca* en ocho localidades como forma exclusiva"<sup>2782</sup>

Lehen aldikoz 1619an aurkitu dugu:

"...en la endreçera dca sopenas"<sup>2783</sup>

Aipu honek ez digu garbitasunik ematen "haizpe" honen kokaguneaz. 1851ko lekukoa argiagoa da alde horretatik:

"...sobre el rio Aragon en termino de esta villa de Gallipienzo denominado el Molino de Uxué mas abajo de Sopenas"<sup>2784</sup>

Hortaz, eta kokaleku zehatza ez ageri arren, badakigu **Central de la Cueva**-tik hurbil zegoela, goraxeago, eta honek **El Peñisco de los Cuervos**-etik ugalderraino jaisten den haitzaren azpiko alderdia izan zitekeela pentsarazten digu, bidearen aldameneko eremua edo, eta agian gorago aipatu dugun **Arrendoa**-rekin lotu behar genuke, so- eta -ondo elkarren ordain ez izanagatik.

**Soto, el:**

El Soto Eslabako mugatik Aragoa ibairaino doan **El Riacho**-ren bi aldeei (erripei) esan izan zaie (ikus **Munotxikia** sarrera):

"otra huerta...en la endreçera llamada herrotaverria que afruenta con el soto" (1597)<sup>2785</sup>

Azken aldi honetan, alabaina, bakarrik Eslabako mugatik **Melenas**-ainoko zatiari deitu zaio **El Soto**. Mende honen lehen erdian labakitu zen garai batez fazienda omen zen hau<sup>2786</sup>.

**Suertes, las:**

**Suerte** Galipentzuz oraindik ere izen arrunta da, eta udalak egiten duen zozketan herrikoei zortzi edo hamabi urtetarako (tokien arabera) suertatzen zaizkien lur-

2780 Angeles Líbanok *El Romance Navarro* laneko 98. orrialdean latineko -LL- eta -NN- sinpletu eta busti egiten direla dio, *ll* eta *ñ* emanez, hurrenez hurren. Ikus, orobat, R. Ciérbideren PDNR, 24. or. Nolanahi ere, Irigoyenek ematen dituen Huescako adibideak garbiak dira (ikus behehixteago).

2781 FHV, 305. or.

2782 "Cuestiones de toponimia vasca y circumpirenaica", ETTVC, 206. or.

2783 PRA-Oibar, 20. k.

2784 PRA-Kaseda, 59. k.

2785 PRA-Oibar, 9. k.

2786 Honela dio gure informatzailea den Demetrio Aribe jaunak.

puskak adierazten ditu<sup>2787</sup>. Dena dela, eta oraingo **Las Suertes**-en herri-lurrik ez dagoen arren, dermioaren izenak garbi adierazten du garai batean eremu hau udalarena, hots, herriarena, zela (cf. **El Monte**-ren barruko **Las Suertes viejas** Oibarren). Mende honetan olibadiak izan dira bertan.

**Las Suertes**-ek **Zenboroz, Ondallu et Molino de Ujué (Central de la Cueva)**-rekin mugatzen du, baina **Ondallu** aztertzean esan bezala, alderdi guzti hau behinola **Ondallu**-ren barruan egon zitekeen.

Norbait hiltzen zenean **Las Suertes**-en garbitzen zuten hildakoaren arropa, ez ohizko garbitokietan (cf. **Uxueko Pozo de los Muertos**), eritasunik ez kutsatzeko besteak beste.

#### **Tejería, la:**

Herri ondoan dago, **Las Balsas**-en alboan. Azken hogeitabost urte honetan edo hondatua egon da. Orain urte batzuk **Melenas**-ko zubiaren ondoan beste teileria bat eraiki zuten, baina hau ere laster desagertu zen.

#### **Típulatzea:**

**Erbíña**-n zegoen hasieran behintzat tipulerria izango zen hau:

“otra pieza linar...en el mismo terno (**Erbíña**-n) y paraje llamado tipulacea” (1721)<sup>2788</sup>

#### **Torraza (llano de), la:**

Ikus **Nuestra Señora** sarreraren dioguna. Itxura guztien arabera, **La Torraza** despoblatu baten zaharkina izan daiteke (**Valdarras**-ena?), **torraza** edo **torre** asko antzianako herrixka abandonatuen zaharkinak baitira (ikus **Uxueko Torraza** sarrera). Egun exxe handi bat da, oraindik ere zutik eta estalia dagoena. **La Torraza**-rekin batera herri etimologiaz sortutako **La Terraza** ere bildu dugu.

1856az geroztik gutxienez jendeztatua egon da:

“...domiciliados en la casa denominada torraza situada en la jurisdicción de la villa de Gallipienzo” (1856)<sup>2789</sup>

Bertan maizter zeudenei **los torraceros** deitzen zitzaien. Herri-tradizioak dioenez, fraileak bizi ziren hemen antzina.

<sup>2787</sup> Euskarazko **suerte**-ren ordainetako bat toponimian azaltzen den **txotxa** izan daiteke, esan bezala **txotx** egiten baitzen. Beuntzan, adibidez **Txotxalabakiet**a dugu bizirik, antza denez **txotxa**, labaki ‘roza’, eta -eta-z osatua. Oztopo nagusia **txotxa**-ren bukaerako -a izan daiteke, hau artikulua baita, eta beraz elkarretan desagertu behar bailuke. **Suerte** eta **txotxa** lotzea toponimia bilketan ari izan den **Juantxo Urdir**oren ideia da.

**Larraun-Aldazko sortak (Arregiko sortak)** erdarazko **suerte**-ren euskaratzearen emaitza izan daiteke, eta nolana ere, ez dago inolako zalantzarik **Esteribar** eta **Erroi**barren aurkitzen dugun **zorte** (**Beitico zortea**, **Gerendiain**, 1733, **PRA-Auritz**, 42. k., **Obrarizortea**, **Irotz**, 1892ko kat., **Zorteandia**, **Tirapegi**, 1901eko kat.) erdarazko aipatu hitzaren (**suerte**-ren) nahiz honen aitzindaria den latineko **sörte**-ren ondorengo eta baliakidea dela.

<sup>2788</sup> **PRA-Oibar**, 37. k.

<sup>2789</sup> **PRA-Kaseda**, 60. k.

La Torraza Aragoa ugaldearen ertzean dago, Plandeoliva-n, Valdarras ondoan.

#### Torre de Gabriel, la:

Herriko edo aldirietako dorretxe bat zen hau, Urandibidea edo Camino del Río-ren alboan zegoena:

“otra (pieza)...donde dicen la torre de Gabriel que afronta a...Camo que se ba al rio” (1777)<sup>2790</sup>

Honelako torre edo dorre-ak arruntak ziren. Cf., adibidez, Leatxeko Dorreko itxaurraldea edo Uxueko Dorreberria / La Torre nueva.

#### Torrea, cantera / cantón de; paco / paquizo de:

Torrea Galipentzuko norbaiten deitura dela dirudi (ez dakigu honela den). Cantera edo Cantón de Torrea La Bardenica eta Engubelea-ren arteko gain luzea dugu, eta Paco edo Paquizo de Torrea beste gisaz Paquizo edo Paco de la Bardenica deritzan opaku ttiki-xuta.

#### Tximarra:

Ez dakigu toponimo honen etimologia zein izan daitekeen. Tximarra [çimãra] herritik hurbil dago, Cruz de Idoia, Saso de la Cruz de Idoia, Ibarreko harana eta Valeciera-ren artean. 1651ko lekukotasunean ikusten den bezala, Ibarreko zabala-rekin mugatzen zuen antzina:

“Mas otra viña En el termino llamado Chimarra o ybarreçoçabala” (1651)<sup>2791</sup>

Guztiarekin ere, eskribauak Ibarreko zabala Ibarreko harana-ren ordeztu zuela uste dugu, lehen horrek gaurko El Mayo aldean behar baitzuen, Tximarratik aparte samar beraz. Beste posibilitate bat Tximarra lehen orain baino zabalagoa izatea da, gaurregungo El Saso de la Cruz de Idoia berria izan daitekeelako<sup>2792</sup>.

#### Urandibidea:

Garbi dago toponimo honek ur handira zihoan bidea izendatzen zuela. Ur handia zer ote zen asmatzea ez da zaila, Galipentzuren magaletik Aragoa ugaldea igarotzen dela kontuan hartzen badugu. Gainera hor ditugu erdarazko Río mayor eta Camino del Río mayor (ikus sarrera hauek) izenak:

“quatro Rovadas...en diferentes piezas en Urandividea theniente a Camino RL” (1704)<sup>2793</sup>

2790 Id., 29. k.

2791 IEA, 417. kart., 6. zkia., 15. or.

2792 Idoia eta Cruz de Idoia, ordea, aski zaharrak dira.

2793 PRA-Kaseda, 12. k.

Honen alderantzizkoa Oltza zendeako **Ur txikia** da: honek ibai nagusira, ur handira, ura isurtzen duen erreka txikia ematen du aditzera<sup>2794</sup>.

**Urandi** 'ibai' adieraz bizirik dugu oraindik Iparraldean<sup>2795</sup>.

### Urrutia:

Toponimian aurkitzen dugun **Urrutia** izenak erdarazko 'allende' esanahia izan ohi du<sup>2796</sup>, Garesko **Zubiurrutia** auzoaren kasuan bezala, hau zubia igarota baitzegoen. Erronkari ibarreko Urzainki herrian ere **Urrutea** (< \***Urrutia**) auzoa **Eska** ugaldiaz beste aldean dagoena da<sup>2797</sup>, eta berdin beste herri batzuetan.

Hortaz, zubia igarota egon behar zuen **Urrutia-k**, **Kaparreta-n**, **Zarrakaztelu** eta **Bardena-ko** bidearen inguruan:

"otra pieza...sita en Urrutia teniente a...Camino real que ban a la Bardena de esta billa" (1737)<sup>2798</sup>

Gure eskualdean Galipentzun ezezik, **Leatxen** (ikus **Urrutia**, **Urrutiko oihana** sarrerak) eta **Morionesen** (**Urrutiko oihana**) ere ageri zaigu; Kasedan erromantzezko ordaina den **Campo de allende** dugu 1533an<sup>2799</sup>, **Campo de Allen** 1549tik aurrera<sup>2800</sup>.

### Usadorrezarra:

**Uso-aren** elkarketako aldakia den **usa-**, **dorre**, eta **zaharra** ditugu 'usategi zaharra' adiera zuen leku-izen garden honetan (ikus hurrengo sarreran dioguna):

"yten otra p\* en usadorrezarra" (1546)<sup>2801</sup>

### Usatarraña (barranco), (val):

**Sotarrana** edo **Usatarraña** lehenengoz 1770ean aurkitu dugu, berandu beraz, eta beste zerbaiten desitxuratzea delako susmoa dugu. Gaurregun ezezaguna da, eta daitekeena da, sarritan agitu ohi bezala, izen "berri" batek ordezkatua izatea. Bada-

2794 Jimeno Juríok (TCPCO, 21. or.) honela hitz egiten digu toponimo honetaz:

«El actual Araquil fue denominado antiguamente **Arga** en el tramo entre Osquía e Ibero, mientras que el actual "Arga" fué llamado **Runa** a su paso por Pamplona. La documentación suele designarlos de forma genérica: "río caudal" ("Río caudal que viene de Pamplona; Río caudal que viene del valle de Araquil"), diferenciándolos de los afluentes principales, llamados "Ur txikia", "agua chiquita" o "río pequeño».

Garbi dago beraz euskaraz ura ibaia, erreka, ubidea, adierazteko erabili izan dela, erdarazko **agua** bezala (cf. **Leatxeko Las Dos Aguas**). Ikus honetaz gure IGI.

2795 Ikus EAEL, 120. sarrera.

2796 Mitxelena, AV, 160-61. orr.

2797 Tomás Urzainqui Mina, "Aplicación de la encuesta etnológica en la villa de Urzainqui", CEEN, 19, 1975, 51-82. orr.

2798 PRA-Oibar, 46. k.

2799 Id., 2. k., 1533.

2800 1848an **Campo Allende** aurkitzen dugu: "un huerto...en el termino de Campo Allende a la parte allá del Molino, afrontado á la balsa, camino de Sada y..." (PRA-Kaseda, 58. k.).

2801 PRA-Oibar, 2. k.



kigu Kaseda eta Galipentzuren arteko mugan zegoela, eta beraz erreka Kasedan sortzen zela:

“...la espueda q se baja al barranco de la Sottarrana” (1770)<sup>2802</sup>

“...pasado el varranco llamado Ussatarrña” (1770)<sup>2803</sup>

“...siguiendo a la vista de Baldesotarrana” (1802)<sup>2804</sup>

Hau kontutan hartuta dauzkagun hautagaiak franko murrizten dira, aukera **Barranco del Palomar**, **Barranco de Antón**, eta **Barranco de Valdarras**-en artean egin behar dugularik. Hiru hauetatik **Valdarras** alde bat utzi behar da, 1696rako dokumentatzen delako, eta hortaz **Barranco del Palomar** eta **Barranco de Antón**-en artean hautatu beharko dugu.

Puntu honetan gogoratu behar da Galipentzuz **Barranco del Palomar**-en kidea den **Usadorrezarra** kokatu gabea daukagula, eta **Val de Ussatarrña** (1770) \***Val de Usadorrezarrarana**-ren, edo hobe \***Val de Usatorrezarrarana**-ren desitxuraketa izan daitekeela, erdarazko **val** eta euskarazko **harana**-ren bidez kontzeptu bera errepikatzen delarik.

**Usatarrña** edo **Sotarrana**-k -t- bat eskatzen dute jatorrizko hitzean, eta **Usadorrezarra**-n honelakorik ez badago ere, euskara galtzearekin edo ahultzearekin erdal izenak euskalduna ordezkatu zuela suposa dezakegu, **gurutze / kurutze, kruze, cruz**-ekin gertatzen den modu berean (ikus adibidez, Uxueko **Gurutzegibela** sarreraren dioguna).

#### Usubidea:

**Camino de Ujué**-ren baliokide euskalduna dugu hemen. Dokumentuan ez dago sobera garbi **Usubidea** den ala **Usobidea**, eta inguruko herrietan biak azaltzen direnez gero (cf. Agezako **Usobidea** eta Eslabako **Usubidea**), zaila da bataren edo bestearen alde erabakitzea:

“ytten otra piª en usubidea” (1597)<sup>2805</sup>

#### **Valdarras (barranco de), (facería de), (fuente de), (paco de), (portillo de):**

-**Arras** zer izan daitekeen ez dakigu; hasierako **val**- hori, erdarazko **val** ‘ibarra’ dela dirudi. Izan ere, **Plandeoliva**-ren barrukotzat jotzen den **Valdarras** [ba]dáraš] dermioa Kasedako lurretatik Aragoa ibairaino doan **Barranco de Valdarras**-en inguruko lurrek osatzen dute:

“ytten en el barranco de Baldarras una pieza” (1696)<sup>2806</sup>

“otra pieza...en el Barranco de Bardena titulado Baldarras” (1840)<sup>2807</sup>

2802 Id., 68. k.

2803 PRA-Kaseda, 22. k.

2804 Id., 37. k.

2805 PRA-Oibar, 9. k.

2806 PRA-Kaseda, 8. k.

2807 PRA-Oibar, 115. k.

J. Gárrizen arabera<sup>2808</sup>, **Valdarras** Galipentzuko Erdi Aroko despoblaturako bat da. Gure ustez, baliteke bertan dagoen **La Torraza** antzinako herrixkaren aztarna izatea (ikus **Torraza** eta **Nuestra Señora** sarrerak).

**Facería de Valdarras** aipatu erreka-eremu ondoko Kasedako mugako eremu zabala da<sup>2809</sup>; **Fuente de Valdarras** Zarrakaztelura doan bideak eta errekek elkar gurutzatzen duten puntuan dago, bihurtune txiki batean, eta **Paco de Valdarras** erreka-eremu ondoko elutsa da. Hauetatik hurbil, Kasedako mugako bide batean, **Portillo de los Lobos** izeneko portilua dago, 1765eko **Portillo de Valdarras** bera, antza:

“una pieza...en el terno de la Bardena q llaman lagudilla thente a...portillo de Valdarras” (1765)<sup>2810</sup>

**Valeciera (balsa de), (barranco de), (cantón de), (paco de):**

Leku-izen honetan, berriro ere, **val** dugu, eta lehen begiratuan oso iluna den **-eciera**. Toponimo honen lehen lekukoan eta geroko ia guztietan izenburuko forma agertzen denagatik, 1608koa den bigarren lekukoan izen honen etimologia pittin bat argi diezagukeen **Valeciela** aldakia dugu<sup>2811</sup>. Honek jatorrizko **\*Valleciella** batetik, **\*Valeciella**-ren moduko baten bitartez, lehenik **Valeciela** eta gero **Valeciera** atera dela pentsarazten dugu. Honela bada, ‘haran txikia’, ‘ibar txikia’ dateke aztergai dugun honen jatorrizko esanahia (cf. Leatxeko **Arankoeta**, **Arankoetakoa**<sup>2812</sup>):

“una viña...en la endrquera llamada baleciera” (1598)<sup>2813</sup>

**Valeciela**-tik, alboko disimilazioz, **Valeciera** atera zitekeen, bi aldakiak agertzen ziren txandaketa-garai baten ondoren forma disimilatua nagusitu zelarik. 1703ko **Valdeiziera**<sup>2814</sup> aldaera analogiazko forma dela uste dugu (cf. **Valescura**-ren aldaerak diren **Valdoscura** eta **Valdescura**). **Valliciera** (1771)<sup>2815</sup>, eta **Baliziera** (1787)<sup>2816</sup> ere dokumentatu dugu.

Azpimarratu behar da orografia proposatzen dugun etimologiaren alde mintzo dela, **Valeciera Barranco de Valeciera** txikiaren inguruko haran txikia delako. Erreka hau **Baranditurri**-tik jaisten den urak sortzen du, eta beheago **Barranco de Ibarreko harana** deritzan berbera da:

2808 *Despoblados*, 21. or.

2809 Auzo herri honetako dokumentazioan ere askotan azaltzen da **Valdarras** toponimoa.

2810 PRA-Oibar, 66. k.

2811 Id., 13. k.

2812 San Martin Unxen **Badecillos** (PRA-Oibar, 3. k-bis, 1587), **Los Brecillos**(id.), **Los Ballecillos** (id.), **Ballecillas** (id., 14. k., 1611), **Valecillas** (PRA-Kaparros, 57. k., 1633), eta **Barazillas** (PRA-San Martin Unx, 38. k., 1747) dugu. Fco. Javier Zubiaur oraingo **Varecillas** aldaera aztertzean honela mintzo zaigu:

“En 1695 se cita como «Barezillas». Para Berrade puede ser el diminutivo de «vara». Es buen terreno de cultivo, con viña sobre todo”, “Toponimia de San Martín de Unx (Navarra)”, 452. or.

Dokumentazioak, ordea garbi erakusten du valle ‘haran’-en ondorengoa dela.

2813 PRA-Oibar, 7. k.

2814 UEA, 13. kap-lib., 314. or.

2815 PRA-Kaseda, 24. k.

2816 PRA-Oibar, 75. k.

“otra pieza en el barranco de baleziera” (1705)<sup>2817</sup>

Gaurko Valciera [bàliθjéra] Galipentzutik hurbil samar dago, **Puente de Melenas** eta herriaren artean. Inguruan dituen beste dermioak hauek dira: **Baranditu-ri, Pila, Paco de las Minas, Paco de Melenas**, eta **Tximarra**.

**Balsa de Valeciera**-k ez du zahar itxura handirik. Lehen aldiz 1845ean aurkitu dugu dokumentazioan:

“otra (pieza)...en la balsa de Valciera”<sup>2818</sup>

**Cantón de Valeciera Las Minas** eta **Cantón de Ekarra**-ren arteko gaina da.

**Valescura (barranco de), (cuesta de), (monte de), (solano de), (subida de):**

Toponimo honen lehen lekukoa 1335eko **Vayllescura** da:

“otrosi en Vayllescura çinco pieças...”<sup>2819</sup>

Honen azpian, dirudienez, [bà]léskúra] zegoen, hots, geroke ia agerraldi guztietan<sup>2820</sup> edireten dugun [l] hortz-hobietako apikariaren ordez [j] sabaikaria duen aldakia.

**Escura** latineko **obscura**-tik heldu da; **Menéndez Pidalen** arabera<sup>2821</sup>, s- urkariz hasten ziren hitzek latin bulgarrean e- protetiko bat hartzen zuten gehienetan, eta i-batzuetan. Honek bokal + s + kontsonantea zuten beste hitz batzuk erakarri zituen, hala nola (ob)scuru, oscuro eta oscuro sortaraziz. Gaur egungo **Valescura** [bà]léskúra] val / valle baliokidetasunaren ondorea da, eta **Valdescura** [bà]ldéskúra] edo **Valdoscura** [bà]ldoškúra] aldakiak **Valdarras**, **Valdejares** eta bestetan azaltzen den preposizioaren eraginari leporatu behar zaizkio. Azken aldaki horretan -o- agertzeak, jendeak, herri etimologiaz edo bestela, oraingo **oscura**-rekin lotzen duela salatzen du.

Galipentzuren mugakide den **Zarrakaztelu** herrian ere **Valoscura** bildu du **R. Ciérbidek**. Ikerlari honek honela azaltzen du izenondoaren presentzia:

“El especificativo oscura obedece a que, en otro tiempo, los pinos y monte bajo eran tan espesos que dificultaban el paso de la luz”<sup>2822</sup>

Dirudienez, Peñan ere bada **Valoscura** izeneko dermioa. Orba ibarreko **Makirriainen** honen ordain euskalduna den **Aranilun** edireten dugu 1759an<sup>2823</sup>.

**Valescura El Solano**-tik **Zabaleta**-raino hedatzen da, **Uxue** eta **Eslabako** mugatik **Ondallu**, **El Modrojal** eta **La Peñaza**-raino. Dokumentu zaharretan aurkitu

2817 PRA-Kaseda, 12. k.

2818 Id., 57. k.

2819 IEA, 387. k., 12. zkia., 14. or.

2820 Izan ere, 1647an **Balle escura** dokumentatu dugu.

2821 MGHE, 126. or.

2822 TCO-I, 67. or.

2823 PRA-San Martin, 45. k.

ditugun datuetan oinarrituz ondoriozta daitekeen moldean, dermio honen zabalera handitu egin da, mugakide zuen **Larrañetako mendia** (oraingo **Paco de la Barrera**. Ikus sarrera hauek) irentsi duelarik.

Dokumentazioan **Valescura** hutsaz gain, **Barranco de Valescura**, **Cuesta de Valescura**, **Monte de Valescura** eta **Solano de Valescura** azaltzen zaizkigu. Lehenari Uxuen **Barranco de Zaldunaga** esaten diote, eta Galipentzun **Barranco de (la Muga de) Ujué** lehen zatian, **Barranco del Modrojal** gero, eta **Barranco de Ondallu** Aragoa ugaldara iritsi aitzintxean. **Barranco del Pozo de Portal**-i ere **Barranco de Valescura** deitzen diote, hau ere **Valescura**-n barrena igarotzen delako:

“...a la bista del barranco de Valoscura...” (1802)<sup>2824</sup>

**Monte de Valescura** Galipentzu, Uxue eta Eslabako mugako mendia da, alegia, dokumentazioko **Cuesta de Valescura**, **Subida de Valescura** edo **Solano de Valescura**<sup>2825</sup> bera:

“...se allo el sesenta moxon arrimado ala Cuesta de balde escura...y desde este mojon asta lo mas alto del monte de balde escura no se allo mojon y en lo mas alto en el paraje llamado çaldinaga se allo mojon mobedico elqual dibide los termos de anbas villas y el dela villa de eslaba que es el ultimo mojon...” (1668)<sup>2826</sup>

**Valescura**-ren barruan azpi-dermio bat baino gehiago daude, honako hauek besteak beste: **El Solano**, **Paco de Ferrer**, **Paco de la Vaquera**, **Paco de la Barrera** (lehengo **Larrañetako mendia**), **La (Cueva de la) Marta**... Iturriak ere ugariak dira: **Fuente de Pío**, **Fuente del Pozo de Portal**, **Fuente del Fiero**, **Fuente del Pozo grande**...

Izen horietako gehienak berriak dira, oraindik ezagunak diren galipentzuarren izen-deituren edo goitizenetatik aterreak: **Ferrer**, **Pío**, **El Fiero**... (ikus aipatu toponimo horiei dagozkien sarrerak), eta itxuren arabera izen zahar galduen tokia hartu dute (cf. **Apeztegia alorra**, **Larrañetako mendia**...).

**Valizarza**, **barranco de**, **carasol de**, **paco de**:

Leku-izen hau ez dugu sekulan aurkitu dokumentazio zaharrean, eta izen berritzat hartu behar dela irudi du. Lehen osagaia **valle** ‘haran’-en aldaera (edo desitxuraketa) den **vali**- (cf. **Valeciera**, **Valiciera** bilakatua egun) izan daiteke, eta bigarrena erdarazko **zarza** ‘sasia’ edo ‘laharra’.

**Val** gehienetan bezala, alderdi honetan ere bada erreka bat, hain zuzen ere **Barranco de Ondallu**-n amaitzen den **Barranco de Valizarza** [baliθãrθa] deritzana. Ubide honen eguterari **Carasol de Valizarza** esaten zaio, eta elutsari **Paco de Valizarza**. Dermio honek **El Modrojal**, **La Peñaza**, **El Solano** eta **Valescura**-rekin mugatzen du.

2824 Id., 70. k.

2825 Oraingo **El Solano**?

2826 PRA-Kaseda, 4. k.

**Vicentón, paco de, saso de:**

Gauregungo Saso de Vicentón ez dugu inoiz aurkitu dokumentazioan, eta berri-itxura ukazina du. Alabaina, Vicentón ez da oraingo izena, Galipentzun ez baitago honelakorik, eta badirudi lehengo norbaiten izenetik (**Vicente** handi batenetik, jakina) eratorri behar dugula. Paco de Vicentón zazuaren ondoan dago, Zarrakazteluko bi-dearen aldamenean.

**Bardena baja**-n dago, Kasedako mugaren eta Aragoa ibaiaren artean, **Antoñanzas**-ko "corraliza"-n, **Labekoaldea**, **El Alcaz**, eta **Antoñanzas**-ekin berarekin mugatzen duela.

**Villa, campo de la; corral de la:**

Honen euskarazko baliakidea den **Auzalorra** dugu Zaren 1606an (honen eratorria den 1594eko **Auzalorburua**-rekin batera), eta Aldean 1648an. Honen irudikoak diren **Auzaberro** eta **Auzasoro** ugariak dira Nafarroan barrena<sup>2827</sup>.

**Badakigu Campo de la Villa Legaztui**-n zegoela, **San Juan**-en azpian, **Agezabidea** ondoan:

"una pieza...en...Legastui debajo de Sn Juan theniente a Camino que se ba al lugar de ayesa, campo de la villa y yermos" (1767)<sup>2828</sup>

**Corral de la Villa** bat baino gehiago daude: bat **Valescura**-n, **Camino de Ujué**-n, eta beste bat herrian. **Monda**-n bazen ahuntzentzako eta "dula"-rentzako hiru-garren bat.

**Vuelta de la Cantera, la:**

**Cantera de Melenas**-en errepideak egiten duen bihurgunea da.

**Zabaleta (barranco de), (cantón de), (paco de):**

**Zabal** 'zabaldia' eta -eta ditugu hemen (ikus **Agezako Zabala** eta **Eslabako Zabalea** eta **Zabalzigar** sarrerak). Uxueko mugaren eta **Lejua**-ren artean dago, **Paco de la Barrera** (lehengo **Larrañetako mendia**), **Paco de Bastiligorra** eta **Paco de Ondallu**-ren eta **Aurino alto**-ren erdian. Aurreneko aldiz 1335ean ediren dugu (ikus **Pedrocal**), eta XVI. mendetik aurrera sarritan aurkitzen dugu dokumentazioan:

"otra viña en Zavaleta devajo el Camino que se ba a Ujue" (1692)<sup>2829</sup>

**Zabaleta** [θàBaléta]-ren barruan honako azpi-dermio eta erreka hauek ditugu, besteak beste: **Billakukuru**, **Barranco de Zabaleta** (**Barranco de Aristuziaga** Uxuen), **Barranco del Rojo**, **Cantón de Zabaleta** (alderdiko gaina), **Paco de Zabaleta** (elutsa) eta **Paco pico**.

2827 **Auzasoro** bizirik dago Larunben; Irañetan **Auzasoro** agertzen da 1717an (PRA-Arakil-Hiriberri, 62. k.), eta Orbara eta Abaurregainean **Auzaberro** dugu egun.

2828 PRA-Oibar, 67. k.

2829 PRA-Kaseda, 6. k.

**Zalduberria:**

**Zaldu** izena eta **berria** izenondoa ditugu hemen. Ez dakigu oraingo **El Soto** bera zen, **Errotaberria**-ren ondokoa, edo beste bat:

“otra pi\* en calduberria” (1596)<sup>2830</sup>

**Zamakidoi (Badina de):**

Reta Janárizek **zama** ‘carga’ edo ‘desfiladero’, **-oki** ‘toki’ eta **-doi** ‘-di’ proposatzen ditu toponimo honen osagaitzat, baina gure ustez etimologia hau okerra da, bigarren atzizkian asmatu badu ere (ikus **-di**, **-doi**, **-dui-ri** eskaini atalean honetaz dioguna).

Egungo **Zamakidoi** [θamakidó:] Aragoa ibaiaren ondoko lur zerrrenda luze bat da, **El Barranco de las Aguas saladas**-etik **Barranco del Palomar**-en bukaeraren aurkezearaino doana. Behetik eta mendebaldetik **Aurino bajo**-rekin mugatzen du:

“otra pieza en Camaquidoy en frente de Mucharca...que afronta con el Rio Aragon y montes comunes” (1777)<sup>2831</sup>

Ugaldea **Mutxarka** eta **Zamakidoi**-ren artean igarotzerakoan baltsatu egiten da, eta honi **Badina de Zamakidoi** edo **Badina del Pepo** (ikus **Pepo** sarrera) deitzen zaio.

**Zapatagindegia:**

Hemen **zapatagin** ‘zapataria’, ‘zapatagilea’ (cf. Eslabako **Zapataginmendia**) eta **-tegia** ‘tokia’, ‘etxea’-ren n-ren ondoko aldakia den **-degia** ditugu<sup>2832</sup>. Herrian bertan zegoen:

“ytten otra cassa en capataguin deguia” (1597)<sup>2833</sup>

“un aposento de cassa..en la endreçera llamada çapataguindeguia” (1608)<sup>2834</sup>

Gaurregun bada **Casa del Zapaterillo** izeneko etxea, baina ez dugu uste mintzagai dugunarekin zerikusirik duenik.

**Zekiazarra:**

**Zekia** ‘erretena’ izena eta **zaharra** izenondoa ditugu hemen. Lehen osagaiak erdarazko **acequia**-k sarritan jasaten duen aferesia jasan du. Ezporogin **La Acequia** erdaldunarekin batera (ikus sarrera hau) **Azekialdea** euskalduna ere azaltzen da.

**Zekiazarra Bardena**-n zegoen, eta badaiteke egungo **Barranco de Antoñanzas** bera izatea:

2830 PRA-Oibar, 9. k.

2831 PRA-Kaseda, 29. k.

2832 Azkuek eta Lhandek ez dute izen hau biltzen.

2833 PRA-Oibar, 9. k.

2834 Id., 16. k.

“Mas en la Bardena y termino llamado zequia sarra quatro cargas de tierra” (1691)<sup>2835</sup>

#### Zenborain:

Oraindik ere bizirik dagoen **Zenboroz**-en kidea ematen du:

“una viña en cenborayn” (1635)<sup>2836</sup>

Etimologiaz ikus **-ain** atzizkiari eskainitako atalean dioguna

#### Zenboroz (barranco de):

Izen honen etimologiaz ikus **-ain** eta **-oz** atzizkiei eskainitako atalak. Maiz azaltzen da dokumentazioan:

“una pieza en Zemboroz” (1692)<sup>2837</sup>

Gaurko **Zenbroz** [θemb̄r̄oθ] herritik hurbil dago, **Las Salericas**, **La Peña-za**, **Las Suertes** eta **Balarrengu**-ren artean, malda xutak nagusi diren alderdi batean. **Barranco de Zenboroz** beste gisaz **Barranco de Balarrengu** deitzen den errekastoa da, ekaitza dagonean baizik urik ez dakarrena:

“otro olibar...en el Barranco de Zemboroz” (1767)<sup>2838</sup>

#### Zubialdaia (alto de), (caracierzo de), (solano de):

**Zubi** eta **aldaia** ‘aldapa’ ‘mendi-hegia’ (ikus Uxueko **Aldaidarrea** sarrera) izenez osatua dago. **Zubialdaia** beraz ‘zubiaren aldapa’ edo da (cf. Leatxeko **Zubibizkarr**a toponimoa). Espezifikoarekin batera azaltzen diren **alto**, **caracierzo** eta **solano** generikoek garbi adierazten dute mendi edo gain baten aurrean gaudela.

Uxue eta Galipentzuren arteko mugan zegoen orain ezezaguna den hau, ibaitik hasita hogeitamabigarren mugarrarian:

“se allo el veinte y dozeno mojon en lo alto de Zubialdaya” (1688)<sup>2839</sup>

**Caracierzo de Zubialdaia** alderdiko oihezkoa zen:

“en mitad del caracierzo de Zubialdaja” (1688)<sup>2840</sup>

Erreka ere bazen, eta berau gainditzeko zegokeen zubia dukegu toponimoaren iturburu:

“ytt mas adelante antes de pasar el Barranco en el solano de Zubialdaia” (1743)

2835 PRA-Kaseda, 6. k.

2836 PRA-Oibar, 23. k.

2837 PRA-Kaseda, 6. k.

2838 PRA-Oibar, 63. k.

2839 PRA-Kaseda, 4. k.

2840 Id.

**Zuloko kortea:**

Itxuraz zulo, -ko eta kortea ‘gortea’, ‘korrarea’ dira toponimo honen hiru osagaiak. Lehen lekukoa ez da oso argia:

“otra pieza en Zulucuertea” (1686)<sup>2841</sup>

Bigarrenak, berriz, garbi erakusten du alderdi honetan gorte bat bazela, eta beraz proposatu etimologia onargarria behintzat badela, segurua ez denagatik:

“una pieza..en el terno de Zuluco Cortea...con un corral” (1710)<sup>2842</sup>

**Zuzuarana:**

Oraingoan ere dokumentaziorik ezak ez digu uzten toponimo honen oinarrian zer dagoen garbi ikusten. Itxuraz, eta Galipentzun zazuak ugariak direnez (lau bederen badira), \*Zuzuarana baten desitxuraketaren aitzinean gaude. Kontutan hartu behar da, gainera, Valdelsaso erdalduna ere azaltzen dela (ikus Saso sarrera):

“otra pieca en çuçarana” (1633)<sup>2843</sup>

---

2841 Id., 3. k.

2842 d., 15. k.

2843 PRA-Kaparroso, 57. k.



## 14. LEATXEKO TOPONIMIA

**Abejar (debajo de), el:**

Erle-kofoinak oso ugariak ziren eta dira gure alderdian, eta horregatik azaltzen da hainbestetan toponimo hau. Euskarazko ordaina Ezporogiko **Erlategi(txar)** da (ikus sarrera hau).

El **Abejar** 1894eko katastroan ediren dugu lehen aldikoz, eta ez dakigu egungo **Río oscuro**-ren ondoko **El Abejar** bera den ala ez.

**Abejar de Manuel:**

1894eko katastroan dokumentatu dugu. **Manuel** herriko norbait izanen zen, erlauntzaren jabea, noski (cf. gaurregungo **Olivar de Manuel**).

**Abejar de Román, junto al:**

Hau ere joan den mendearen amaierako katastroan baizik ez dugu aurkitu. **Román**, aitzineko **Manuel** bezala, erlategiaren jabearen izena izango zen.

**Abeta:**

Behin bakarrik aurkitu dugu eta ez modu argian<sup>2844</sup>. Etimologiaz ikus **-eta-ri** eskaini atalean dioguna eta Uxueko **Santa María la Blanca** sarrera.

**Agua de los Linos:**

Toponimo honek, herri bereko **Los Linos**-ek bezala, lihoa bustitzeko beharrezkoak ziren putzuak ematen ditu aditzera. Erdaraz **Pozos de Aguar los Linos** azaltzen da, eta euskaraz **Lixuñeta** dugu **Eslaban**, **Ligusuñeta Zaren**, eta **Usuñeta** **Leatxen** berean (ikus sarrera hau).

---

2844 PRA-Oibar, 23. k., 1634.

Herri honetan lihatze franko zeuden, udalerrian barrena sakabanatuak, eta zaila da 1894eko hau<sup>2845</sup> non zegoen zehazten. Dena den, badaiteke gaurko Fuente de los Linos bera izatea (ikus sarrera hau).

#### Alorbiribil:

Behin ediren dugu, eta ez oso era argian. Alabaina, eta testuingurua aintza-kotzat hartuz, izenburutako aukeratu dugun horren desitxuraketa dela uste dugu:

“otra pieza...llamada la redonda, ó Alorvivil(?) en el termino del Calbario que afronta a rio Concejil y a dos Caminos”<sup>2846</sup>

#### Alorrandia:

Alor izen toponimian ugaria eta handi izenondoa ditugu hemen. Herri ondoan zegoen, larrainetako eta Morionesko bidearen gaineko aldean:

“otra pieza...debajo de alorrandia en el camino de las eras” (1807)<sup>2847</sup>  
 “otra pieza...en el camino de Moriones, debajo alorandia” (1807)<sup>2848</sup>

1894eko katastroan **Rolandia** eta **Rodandia** dokumentatzen dira, eta orain **Larroandia** [lãroãndja] edo **Larrodandia** [lãrođãndja] ditugu bizirik. Alabaina, egungo dermioa **Debajo de las Eras**-en ondoan bai, baina Morionesko bidetik urrunxko dago. Gainera, ondoan **Prado de Zaldu** edo **Zalduko euntzea** du, eta **Larreandia** etimologia ere proposa daiteke (cf. **Larreandia** Zaren antzina, **El Prado grande** orain).

#### Alorrandipea:

Aurrekoaren azpiko aldea zen:

“Mas otra pieza...en aloraundipea” (1723)<sup>2849</sup>

#### Alorzar:

Alor izena eta zahar izenondoa ditugu hemen. Herrian zegoen, aurkitu dugun lekukotasun bakarrak erakusten digun gisa:

“un huerto...en el paraje que llamamos Alorzar que afronta por todas partes con calles publicas” (1774)<sup>2850</sup>

#### Amaia (barranco de), (canto del río de), (paso de):

Izen honen etimologia zein izan daitekeen ez dakigu, baina ez dugu uste mendebaldeko amaitu (< hamabi + tu<sup>2851</sup>) ‘bukatu’ aditzarekin zerikusirik duenik. Lehen aldiz 1584ean ediren dugu:

2845 Katastroa.

2846 PRA-Oibar, 92. k.

2847 Id., 91. k.

2848 Id.

2849 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 924. or.

2850 PRA-Oibar, 70. k.

2851 FHV, 496 eta 539. orr.

“una p<sup>a</sup> linar...en la endreçera llamada amaja”<sup>2852</sup>

Urrotz eta Lizoain herrietan azaltzen den Amaia ere, Leatxekoa bezala, ubide baten ertzean zegoen:

“otra pieza en el termino de Amaya...afta con el soto” (1850)<sup>2853</sup>

Egungo Lamaia [lamáya]-k herri ondoko, El Calvario eta Cuesta de la Magdalena-ren arteko alderdi bat ematen du aditzera. Barranco edo Río de Amaia<sup>2854</sup> Puente del Calvario-koa da, hots, Río oscuro bera:

“otra pieza...a la parte de alla del barranco de Amaia” (1719)<sup>2855</sup>

Canto del Río de Amaia hilerri ondoan dagoen gainttoa zatekeen, adierazi nahi zena urbazterra bera ez bazen behinik behin:

“un linar...en canto el rrio de amaya” (1634)<sup>2856</sup>

Paso de Amaia gaur zubia dagoen tokian egon zitekeen, baina Los Zugarres-en aldameneko El Paso ere izan zitekeen:

“otra pieça en el passo de Amaja” (1605)<sup>2857</sup>

Egungo forma 1849an azaltzen da aurreneko aldiz:

“un linar...en el parage que llaman la Maya”<sup>2858</sup>

#### Andurra, monte de:

Andurra izenondoak ‘doilorra’, ‘zikoitza’, ‘zekena’ adiera du<sup>2859</sup>. Euskal Herri guztian hedaturik egon da, Mitxelenaren arabera<sup>2860</sup>, bai eta antzina euskaldun izan zen Aragoagoienean ere<sup>2861</sup>. Gure alderdian 1257an baizik ez da azaltzen:

“...avemos vendido el nostro mont de Andurra por / diez mil sueldos de la moneda corrient en Navarra, al concello de Leach...”<sup>2862</sup>

2852 PRA-Oibar, 3. k.

2853 Agoizko hipotekak, 3, 185. or. Hauen ondoko Lerrutzen ere Amaya dugu: “Mas un prado... afrontado con el soto de Amaya” (id., 233. or). Herri honetan Amayabizcarra eta Amayaburua ere aurkitu ditugu (id., 233. eta 234. orr.). Sorauenen Amayarena dugu 1606an (PRA-Uharte, 42. k.), eta Zabaldikan Amayagayña eta Amayagaña 1611n (id., 44. k.).

2854 Amaia-tik Río oscuro-ra jaisten den erreka txiki bat ere bada, baina dokumentazioko río-k Barranco de Amaia edo Río de Amaia gaurko Río oscuro bera dela pentsarazten digu.

2855 PRA-Kaseda, 19. k.

2856 PRA-Oibar, 23. k.

2857 Id., 15. k.

2858 Id., 120. k.

2859 HLEH.

2860 OEH. Gure eskualdetik hurbil samar, Orba ibarreko Barasoain herrian Guttiandur toponimoa ediren dugu 1581ean (PRA-Barasoain, 2. k.-bis), eta Ibargoiti-Getzen Butzuandurkoa dugu 1652an (PRA-Elo, 2. k.-bis).

2861 Ikus A. Irigoyenen “Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica”, 199-200. orr., ETTVC.

2862 García Larragueta, *El Gran Priorado*, 379. or.

**Arankoeta:**

-**Eta** atzikiari eskaini atalean diogun moduan, **haran** 'ibar' izena, **-ko** atziki txikigarria<sup>2863</sup>, eta **-eta** dituzkegu hemen.

**Arankoeta** ediren ez dugun **\*Aranekoeta** batetik atera dela ere suposa daiteke, alegia, azentu azkarraren aurreko bokala erori dela, toponimo hau [aran<sup>kwéta</sup>] ahoskatzen zela onartzen bada. Gure ustez, ordea, **Arankoeta** San Martingo **Vallecillas**<sup>2864</sup> edo **Vallecillos**<sup>2865</sup>-en kide euskalduna da, eta 'haran txikia' edo 'haran txikiak' adiera du (ukus Galipentzuko **Valeciera**):

"Otra viña...en el termino llamado Arancoeta" (1723)<sup>2866</sup>

**Arankoetakoia:**

"**Arankoeta**-ko ardantzea" edo antzeko sintagma bateko izenaren ezabaketaren ondorio da hau (cf., adibidez, Morionesko **Dorreko alorra / Dorrekoa**):

"una viña...en el termino de Arancoetacoa" (1723)<sup>2867</sup>

**Aranzulo (altico de), (barranquillo de), (carasol de):**

**Haran** 'ibar' eta **zulo** izenak ditugu hemen, eta itxuraz dermioaren erditik igarotzen den larsean (**Silekua**-n hasten den **Barranquillo de Aranzulo**-n) bilatu behar da bi osagai horien zergatia. **Carasol de Aranzulo** [aran<sup>θúlo</sup>] **El Monte**-ko eguterari esaten zaio.

Dokumentazioan ikus daitekeen antzera, lehen txaparduia zegoen alderdi honetan, gutxienez lau mende lituzkeen **Balsa nueva**-ko bidearen alboan:

"la una (pieza?) en Aranzuloa... afrontada con el Chaparral...y ...con la senda que ba para la balssa nueva" (1588)<sup>2868</sup>

**Aranzulobidea:**

**Camino de Aranzulo**-ren euskarazko ordaina zen:

"otra pieza...en aranzulobidea" (1765)<sup>2869</sup>

Bidearen inguruak ere ematen zituen aditzera, honelakoetan ohizkoa den bezala.

2863 Txikigarri hau duten toponimoak ugariak dira. Adibidetzat honako hauek aipa daitezke, besteak beste: **Aiscogayna** (Artaitz, herriko eliz-artxibategia, kontuak, 12. or.), **Lizarcoa** eta **Oyancoa** (Idoate, 1594, PRA-Urrotz, 4. k.-bis, 182. zkia.), **Liçarcoeta** (Untzu, 1650, PRA-Asiain, 89. k.), **Sagarcoeta** (Indurain, id., 180. zkia.), **Ychaurcoeta** (Ezkabarte-Makirriain, id., 89. k., 1651), **Zabalcoa** (Ibiltzieta, PRA-Otsagabia, 5. k., 1696).

2864 PRA-Oibar, 14. k., 1633.

2865 Id., 3. k.-bis, 1587.

2866 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 916. or.

2867 Id., 915. or.

2868 PRA-Oibar, 4. k.

2869 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 934. org.

**Aritzandieta (monte de):**

Izen honen osagarriak, **haritz** zuhaitz-izena, **handi** izenondoa, eta **-eta** dira. Oihana zen (**monte = oihana**, maiz askotan), haritz-oihana ziurrenik:

“Mas de encima de la fuente de Elordea una pieza...que afronta con monte de Aritzandieta” (1772)<sup>2870</sup>

Zalantzarik ez dago **Monte de Aritzandieta** gaurko **El Monte**, **El Roblar** edo **El Robledal**-ren adierakidea dela (ikus sarrera hauek). 1802ko “Diccionario Geografico-Histórico” delakoak honela hitz egiten du Leatxez:

“(Leache) Está colocado en llanura al o. de la villa de Aibar, de la qual dista 3 quartos de hora, por n. la domina un monte poblado de robles, el qual tiene comunicación con la montaña que cierra el valle por la misma banda.”<sup>2871</sup>

**Aritzederra:**

**Haritz** zuhaitz-izena eta **ederra** izenondoa ditugu hemen:

“otra pieza linar...en el término de arizederra” (1614)<sup>2872</sup>

**Camino del Monte** ondoan zegoen orain ezezaguna den hau, **Río oscuro-n**, **Linares de Amaia**-tik gertu, itxuraz:

“yten otra pieza en el termino de arizedera afrontada...con el Rio y... con el Camino que ban al monte de dho lugar” (1614)<sup>2873</sup>

**Artica nueva, la:**

**Monte de Itxudur** ondoan zegoen:

“otra Pieça en la artica nueba...que affrenta con...el Monte de ychudur” (1634)<sup>2874</sup>

Gorago, **El Soto** aldean, bazen beste **Artica nueva** bat (ikus **El Soto** sarrera), eta garbi dago honelako bat baino gehiago zegoela. Bigarren hori **Berroberrieta**-rekin identifika liteke, etimologiaren aldetik arazorik ez izateaz gainera kokaguneak ere laguntzen duenez gero.

**Artica vieja, la:**

Ez dakigu **Articas viejas**-ekin identifikatu behar den, alegia, horietako bat zen ala ez:

“otra Pieça en la artica vieja” (1634)<sup>2875</sup>

2870 PRA-Oibar, 69. k.

2871 Madril, 1802, lehen liburukia, 425. or. Azpimarra gurea da.

2872 PRA-Oibar, 18. k.

2873 Id., 14. k.

2874 Id., 23. k.

2875 Id.

**Articas viejas, las:**

Erreka baten ondoan zeuden, mendi edo oihan baten aldamenean:

“pieza en las articas biejas afrontada con barranco; otra en el mismo paraje, afrontada con el monte del dicho lugar” (1683)<sup>2876</sup>

Ez dakigu euskarazko **Berrozarreta**-ren kide erdalduna den. Arazoak kokalekuak sortzen ditu.

**Auntzenkorraleta:**

Izen honen etimologiaz ikus **-eta-ri** eskaini atalean dioguna. Lehen aldiz 1720an aurkitu dugu, berandu beraz, eta ez da harritzeko itxuraldatuxea egotea:

“una pieza...sita en Aunzancorraleta”<sup>2877</sup>

Dirudienez, gaurregungo herri ondoko **Korraleta** [kōraléta]-rekin identifikatu behar da **Auntzenkorraleta**. Aintzat hartu behar da ahuntz-korraletako edo gaztelaniaz **cabrería** deitzen direnak herrien ondoan izaten direla (ikus, adibidez, Uxueko **Cabrería sarrera**)<sup>2878</sup>.

**Balatua:**

**Balatua** gure ustez latineko **vallatu** ‘hesitua’, ‘murriz itxia’-ren ondorengo jatorra da, **Mitxelena**k<sup>2879</sup> bizkaierazkotzat jotzen duen **palatua**-ren aldakia. Azken hau sekundarioa da, horrela dei badiezaiokegu, eta **barkatu** / **parkatu** edo **bekatu** / **pekatu** dauden erlazio berean dago gure alderdiko aldaerarekiko (cf. **Eslabako Boiu** < **poiu** < **pōdiu**):

“ytten otra piª en...balatua” (1593)<sup>2880</sup>

**Balatua**-n ohizko latineko **l** geminatua > euskarazko **L** gertatu da, ikusten denez.

Egungo **Balatua** [balátwa] **Balsa vieja** eta **Magdalena**-ren artean dago, eta **Oibarko** mugaraino iristen da. Bertatik **Camino de Nardués** igarotzen da.

2876 PRA-Elo, 10. k.

2877 PRA-Oibar, 36. k.

2878 Cf., gainera, Artaxonako **Auntzegia** herrian bertan edo ondoan, **La Hostería** bilakatua egun (J. M. Jimeno Jurío, EETA, 375. or.). Ahuntzak oso ugariak izan dira gure herrietan, eta erraz ulertzen da toponimian hainbat aztarna utzia. Adibide moduan Arruazuko **Aunzsare** ‘ahuntz-sarioa’, Arakil-Uharteko **Auntzaldapa**, Urbasako **Aunzkorlak** (< \*auntz-korralak), Iturmendiko **Auntzetxe** (“borda para las cabras sobre Mauguia”, Nicolás Arbizu, TI, 265. or.) eta **Auntzetxalde**, eta Tafallako erdarazko **Las Cabriteras** (J. M. Jimeno Jurío, THET, 60. or.) aipa daitezke, besteak beste.

2879 FHV, 320. or.

2880 PRA-Oibar, 7. k-bis.

**Balsa (debajo de), (encima de), (tras de), la:**

**La Balsa** herri ondoan zegoen, **Camino de los Zugarres**-en alboan (ikus sarrera hau). 1653ko **Tras de la Balsa**<sup>2881</sup> eta 1773ko **Detrás de la Balsa**<sup>2882</sup> egungo **Detrás de la Balsa vieja** zirela dirudi.

**Debajo de la Balsa** eta **Encima de la Balsa** 1894eko katastroetan agertzen dira.

**Balsa nueva, la:**

Izenondoa ikusita pentsa litekeenaren kontra, idoi hau aski zaharra zen, lehen aldiz 1588an edireteak frogatzen duenez (ikus **Aranzulo sarrera**. Cf. Galipentzuko **Bi-deberria** edo **Leatxeko bereko Berroberrieta**).

**Nueva** hori beste idoi zaharrago bat (**La Balsa vieja**) izateari zor zaio, hau da, bereizteko zegoen beharrari (cf. Galipentzuko **Errotaberria / Errotazarra** edo **Leatxeko bereko Berroberrieta / Berrozarreta**).

**La Balsa nueva El Monte** (de **Aritzandiet**a)-n zegoen, **El Berro**, **La Balsa vieja** eta **Balatua**-ren artean. Gaurregun idoia desagertu da, baina alderdiari oraindik ere horrela deitzen zaio.

**Balsa vieja (corral de), (detrás de), la:**

**La Balsa vieja** aurren aldiz 1683an ediren dugu, baina askoz lehenagokoa dela segurua da, honen aldean berria zen **La Balsa nueva** 1588rako azaltzen baita:

“pieza en la Sierra tras de la balsa vieja”<sup>2883</sup>

**Corral de la Balsa vieja Camino de Nardués** ondoan dago; **Detrás de la Balsa vieja** Oibarko mugako alderdiari esaten zaio, herritik ikusita **La Balsa vieja**-ren gibelego aldean dagoenari. Azken hau **Gabaran**-eraino luzatzen da.

**La Balsa vieja Los Cerros viejos**, **Gabaran** eta **Balatua**-ren erdian dago, **La Balsa nueva** eta Oibarko mugaren artean. Esperatzekoa zenez, bertan bada idoia.

**Balsica de Pepe, la:**

Gardelaingo mugan egon zen orain urte batzuk arte, **Las Fajas largas**-en ondoan. **Pepe**, esan beharrik ez legoke, **Leatxeko lagun** baten izena zen.

**Barazula, llano de la:**

Gaurko **Llano de la Barazula** [bàraθúla] ez dugu sekulan dokumentazioan aurkitu, eta badirudi beste zerbaiten desitxuraketa dela, apika bigarren osagaitzat **zulo(a)** izena zuen toponimo batena, alderdi honen nolakoak interpretazio honen alde

2881 Id., 64. k.

2882 Id., 69. k.

2883 PRA-Elo, 10. k.

sobera egiten ez badu ere, **El Monte**-ren barruko eremu zelai-soila ematen baitu aditze-ra.

**Barranco, junto al:**

1894eko katastroan dokumentatu dugun hau Leatxeko udalerriko edozein erreka izan daiteke.

**Barranquizo, el:**

Eleizalderen zerrendetan<sup>2884</sup> azaltzen da estraineko aldiz. Egun herritik **El Chopal**-era (errekara) jaisten den azekiari esaten diote **El Barranquizo**.

**Barrera, la:**

**Barrera** Iribarrenen arabera<sup>2885</sup> aziendek (xeheek dirudienez) lo egiten duten artegia edo zerratua da Nafarroan. Erribera aldean harriz egindako hesia da, eta Mendialdean haga moduko batzuz antolatutakoa. Oibar haranean (Leatxe barne)<sup>2886</sup> ere harriz hesitutako lekua adierazten da **barrera** izenaz, zerrakia, alegia.

La **Barrera** Gardelaingo mugan dago.

**BarrERICA (de Jaime), (campo de), la:**

Balatua-n dago, La Balsa vieja-ren alboan. Jaime Leatxeko deitura da.

**Barrio alto, el:**

Herriaren goreneko auzoa zen, euskarazko **Irigoiena**-ren ordain erdalduna, gauregungo **Barrio de la Fuente**-ren adierakidea, antza:

“una casa...en el varrio alto” (1723)<sup>2887</sup>

**Barrio bajo, el:**

Herriaren beheko auzoa zen, gaurko **Barrio de la Plaza** edo:

“(Una) casa en el Barrio bajo” (1725)<sup>2888</sup>

**Barrio de la Fuente, el:**

Auzoaren izena bertan dagoen iturriari zor zaio. **Barrio de la Plaza** baino goraxeago dagoenez, **Barrio alto** edo **Irigoiena**-ren baliakidetzat eman daiteke.

---

2884 LVTV.

2885 VN.

2886 Uxuen, ordea, ezezaguna da hitz hau.

2887 PRA-Oibar, 69. k.

2888 PRA-Elo, 10. k.



**Barrio de la Plaza, el:**

La Plaza-ren ingurukoa da, itxuraz dokumentazioko **Barrio bajo** bera.

**Berdeaga:**

Berde 'berde' eta -aga dira izen honen osagaiak (ikus honetaz -aga-ri eskaini atalean dioguna).

Orain **Berdiaga** [bẽrdjága] deitu ohi dena Leatxeko udalerrriaren goiko aldean dago, **Las Cuatro Mugas**, **El Alto de Izco** eta **El Alto del Pinar**-en artean. 1683an La Sierra-ren barrukotzat jotzen da, egunean bezalaxe:

"otra (pieza) en la Sierra llamada Berdeaga con una cabaña"<sup>2889</sup>

**Berro, el:**

Izen honen adieraz ikus hurrengo bi sarrerak. **El Berro El Monte**-ren barruan dago, gailur-gailurrean, **El Gorrillonar**-en ondoan.

**Berroberrieta:**

**Berro** 'labakia' izena, **berri** izenondoa, eta -eta ditugu (cf. Izkoko **Berroberria**<sup>2890</sup> eta Galipentzuko **Saso de la(s) Roza(s)**) egun **Borborieta** [bõrbõrjéta] bilakatu den honetan. Aurrenekoz 1715ean aurkitu dugu:

"otra pieza...en el termino llamado Berroberrieta"<sup>2891</sup>

1773an **Berrioberrieta** formapean azaltzen da, eta aitzinago **Verrovarieta** dugu 1833an<sup>2892</sup>, **Berrogorrieta** 1852an<sup>2893</sup>, eta **Berrobortieta** 1894ean<sup>2894</sup>.

Leatxeko **La Artica nueva**-rekin identifikatu behar balitz hemen **Berrioberrieta**-k balio singularra izango luke (cf., hala ere, **Berrozarreta** / **Las Articas viejas**). Itxura guztien arabera parekatze hori egin egin behar da, **Berrioberrieta** egun **El Soto**-ren eta **Idozabal**-en artean baitago, eta **El Soto**-k orain ezezaguna den **La Artica nueva**-rekin (izen hau zutenetako batekin bederen) mugatzen baitu (ikus **El Soto** sarrera).

**Berrozarreta:**

**Berro**, **zahar** eta -eta-z osatua dago erdarazko **Las Articas viejas**-en euskarazko ordaina dirudien hau (arazoak badira, halaz ere, identifikazioa burutzeko. Ikus **Las Articas viejas**). Esan denez (ikus aurreko sarrera), **Berrioberrieta**-ri kontrajarria dago.

---

2889 Id.

2890 PRA-Kaseda, 27. k.

2891 PRA-Oibar, 14. k.

2892 Id., 113. k.

2893 Agoizko hipotekak, 3, 712. or.

2894 Katastroa.

Dugun lekukotasun bakarrean **Camino de Pamplona** edo **Irunbidea** ondolan zegoela ikusten da, gaurko **Berroberrieta** (**Borborieta** bilakatua, esan moduan) bezala, eta beraz badirudi elkarren aldamenean zeudela biak:

“otra (pieza) en Berrozareta...que afronta con...Camino Real para Pamplona” (1769)<sup>2895</sup>

### Bidegurutzatua:

**Bide** izena eta **gurutzatua** partizipio adjetiboa ditugu ‘bidegurutze’ adiera bide duen honetan (cf. **Bidegurutzea** toponimoa). 1602ko **Bideguruchatua**-k garbi erakusten digu [ç]-z ebakitzen zela, gaurko euskaraz bezalaxe:

“ytten otra piª en bideguruchatua...que se atiene al camino Real que ban a Sada”<sup>2896</sup>

Zareko errepidean zegoenez gero, bide honen eta **Camino de Moriones**-en bidegurutze aldea zela kontu egin daiteke.

### Bidegurutzea:

Leku-izen garden honek ‘bi bidek elkar jotzen duten gunea’ adiera du, eta aurreko bera dela irudi du:

“otra pieza...en el termino de Bideguruzea” (1730)<sup>2897</sup>

### Bidezarra:

**Bide** izena eta **zaharra** izenondoa ditugu hemen. **Balatua** eta **La Magdalena**-ra doan bidea izendatzen zuen, 1723ko lekukoa frogatzen:

“otra pieza.. en el terno llamado bidezarra tente á...Camino que ban á Balatua”<sup>2898</sup>

Bidea ezezik inguruko lurrak ere adierazten ziren honen bitartez, **bide**-dun gehien bitartez bezalatsu. Izenondoak beste bide berriago bat zegoela idarokitzen du, \***Bideberria**-ren modukorik ez aurkituagatik.

### Bizkaia:

**Bizkaia bizkar** izenarekin lotu ohi da, eta toponimian hedadura handia duenez, antzina apelatiboa zela pentsa daiteke<sup>2899</sup>.

Leatxen gaurregun ez da izen hau ibiltzen, eta dokumentazioan behin bakarrik ediren dugu, **Sierra**-ren balio beraz, antza<sup>2900</sup>:

2895 PRA-Oibar, 67. k.

2896 Id., 10. k.

2897 Id., 42. k.

2898 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 920. org.

2899 AV, 75-76. orr.

2900 Honela mintzarzen zaigu Jimeno Jurío Atondoko Bizkai toponimoaz: “Coloquialmente suelen llamarlo «La Sierra». Monte que va desde Oskia (O) hasta el portillo de Erice-Sandaña (E). La vertiente N. es término de Erroz, y de Atondo la meridional. La crestería culmina en la peña Santa Cruz (825 ms.), que tiene más al E. la «Peña de Mayo» (799 ms.)” TCPCI, 122. or.

"ytten otra pi<sup>a</sup> en la viscaya...que afrenta...con el monte llamado elordia" (1593)<sup>2901</sup>

Herri honetako **Bizkaia-k Elordia** eta **Monte de Aritzandieta** aldea hartzen zuen, eta Oibar herriko **Bizkaia** edo Oibar haraneko **Bizkaia**-rekin alderatzen ahal da, hiruek 'alderdi menditsua', 'mendia' ematen baitute aditzera, zelaia goa den beste alderdi batekiko kontrajarpenez<sup>2902</sup>. Esan bezala (ikus Galipentzuko **Sierra sarrera**), erdarazko **La Sierra**-ren euskal ordaintzat har daitekeela dirudi<sup>2903</sup>.

#### Bural, el:

**Bural buro** 'buztina' dagoen tokia da gure alderdian, euskarazko **Buraleta**, **Buztiñ(e)a**, **Buztinea** edo **Buztintz(e)a**-ren kidea (cf. **El Bural / Buztintza** Ezporogin; **El Bural / Buraleta** Morionesen. Eslaban **Buztiñaga** dugu).

Dokumentazioko **El Bural Zaldu**-n zegoen, **Kasedatik Iruñera** zihoan bi-dearen alboan (ikus **Buztinea**, **Buztintzea** eta **Camino de Caseda** sarrerak):

"mas otra pieza q se alla en el paraje Saldu (sic) q llaman el Bural thente al Camino Real q ba â Pamplona" (1750)<sup>2904</sup>

Egun bada **El Bural** izeneko lurtsail bat **Mendibil**-en, alderdiko buruaren aldamenean, eta beste bat **Zalduzarreta**-n, **El Jardín**-en ondoan, **Camino de Sabaiza** edo **Sabaitzabidea** azpian.

#### Butzuandia:

**Butzu** izena eta **handia** izenondoa ditugu toponimo honetan. Beste anitzetan bezala, Ø / -**eta** txandakatzea agertzen da **Butzuandia / Butzuandieta** bikotean, irudiz. Izen honen lekuko bakarrak hizkuntza batuaz -**tz**- idatziko genukeena aditzera ematen duen -**ch**- digrama aurkezten du.

**Butzuandia** egungo **El Paso**-ren ondoko **Los Linares**-en zegoela uste dugu, eta **Agua de los Linos**-ekin identifika daitekeela:

"una pieza...theniente de la una parte con dha cassa y.. de la otra...con camino que ban al passo y al thermino que llaman Buchuandia" (1704)<sup>2905</sup>

2901 PRA-Oibar, 7. k-bis.

2902 **Bizkaia(a)** toponimoa Erronkaritiko Bidankoze herrian ere azaltzen da; bailara bereko Izaban **bizkaia** osagaia duen 1656 metrotako **Orbizkaia** mendia dugu (B. Estornésen DTR, 386. or.). Lizoainen ere **Bizkaia** dokumentatzen da (PRA-Urrotz, 2. k., 1609).

2903 Ixura denez, **mendia** ere erdarazko **sierra**-ren baliakidea izan daiteke. Cf., esaterako, **Aldeko Sierra de Aldeko mendia**, edo **Andimendi / Sierra de Andia**.

2904 PRA-Oibar, 57. k.

2905 Id., 30. k.

**Butzuandieta:**

**Butzu**, **handi** eta **-eta-z** osaturik dago. Esan moduan, aurreko **Butzuandia** bera dela dirudi; honek bezala **-ch-** aurkezten du 1721eko agerraldian:

“otra pieza...en...buchuandieta”<sup>2906</sup>

**Buztinea:**

Euskarazko **Buztintzea**-ren kide dukegu. Bukaerako **-ea** hori oso ezaguna den inesihoaren zatiketa faltsu baten ondorena dateke (cf. **Zabala Agezan / Zabalea Es-laban**).

Herrian berean zegoen, errepide (**Irunbidea?**) baten ondoan:

“una pieza...en la endrecera llamada buztinea...afrentada con...Camino Real” (1592)<sup>2907</sup>

**Buztintzea (barrio de):**

**Antza** duenez, aurrekoaren esanahikidea da **buztín** izenaz eta **-tzea** ugaritasun atzizkiak osaturik dagoen hau. Auzo baten izena ere bazen:

“un sirtio de Casa...sitta en el Varrio que llaman Bustincea” (1730)<sup>2908</sup>

**Cabaña de Casa de Olleta, la:**

**Casa de Olleta** etxearen jabearen deituratik ateratako izena dateke:

“Mas en el therno llamado la Cabaña de Casa Olleta” (1773)<sup>2909</sup>

**Cabaña de los Niños, la:**

**Altico de Aranzulo**-n zegoen etxola, **Korraleta** gainean. **Los Niños** horrek garbi adierazten du toponimo berri baten aitzinean gaudela.

**Calle de la Fuente, la:**

Herriko iturri aldera doan kalea da.

**Calle mayor, la:**

1825ean ediren dugu lehen aldiz:

“una casa situada en la calle mayor”<sup>2910</sup>

---

2906 Id., 37. k.

2907 Id., 6. k.

2908 Id., 42. k.

2909 Id., 69. k.

2910 Id., 108. k.

Herrian kontatzen dutenez, karrika hau lehen hirigunez kanpotik ere luzatzen zen, orain etxerik ez dagoen alderdi batean barrena.

**Calle nueva, la:**

**Barrio de la Plaza-tik El Frontón edo El Rebote-raino doa.**

**Calvario (puente de), el:**

Bertan orain gutxi arte gurutzebidea egiten zelako ematen zaio izen hau. Elizatik atera eta **San Pedro**-n zehar **El Calvario**-ko hiru gurutzetara joaten ziren leatxearrak, eta gero hemendik berriz ere atzera elizara etortzen ziren.

Leatxeko **El Calvario** herritik gertu dago, **San Pedro** ondoan. **Puente del Calvario** behinolako **Errekaldea**-n dago, **Río oscuro (Barranco de Zaldu** beheago) deitu errekaaren ginean, Oibarko errepidean (ikus **Alorbiribil** sarrera):

“otra pieza...en errecaldea tente al camino que ban â Aibar y calbario” (1723)<sup>2911</sup>

**Camino de Abinzano, el:**

1894eko katastroan baizik ez dugu aurkitu, eta ez dakigu zein bide zen. Abintzaora **Camino de Izco** edo **Camino de Pamplona-Irunbidea**-tik (biotako bate-tik) joango zen, **Fuente de la Losa** eta **Berdeaga** aldean ezkerretara hartuz<sup>2912</sup>.

**Camino de Aibar (debajo de), el:**

Dokumentazioko **Camino de Aibar** edo **Oibarbidea** gaurko errepidearekin bat zetorren ibilbide gehienez, itxuraz. Bide inguruak, gaur bezala, ardantzez galkatuak zeuden:

“una viña...en la endrecera llamada el camino de oybar” (1589)<sup>2913</sup>

“una bina...en la endrecera llamada debaxo del camino de Aybar” (1592)<sup>2914</sup>

**Camino de Amaia, el:**

**Puente del Calvario**-tik hilerri eta **Amaia**-ra doa. 1634ean ageri da aurreneko aldiz:

“mas otra hera en el camjo de amaya”<sup>2915</sup>

**Camino de Aranzulo, el:**

Herritik **Aranzulo** eta **Silekua** aldera doa.

<sup>2911</sup> IEA, 1765. kart., 9. zkia., 923. or.

<sup>2912</sup> Abintzaon **Camino de Leache** dokumentatzen da 1688an (PRA-Elo, 11. k.).

<sup>2913</sup> PRA-Oibar, 4. k.

<sup>2914</sup> Id., 6. k.

<sup>2915</sup> Id., 23. k.

**Camino de Balatua:**

Balatua-ra doan bidea da, antzinako Bidezarra bera. Balatua-tik aitzina Camino de Nardués izena hartzen du.

**Camino de Butzuandieta:**

Oraingo Senda del Paso-ren hurbiletik zihoan, Los Linares aldera gure ustez:

“una cassa...theniente a Caminos que ban al Passo y Buzuandietta” (1720)<sup>2916</sup>

**Camino de Caseda (puente de), el:**

Zaldu eta Las Dos Aguas-en gaindi doa, Zarera lehenik eta Kasedara gero, Oibarko mugaren aldamenetik. Inguruko lurri ere Camino de Caseda esaten zaie:

“otra piª... Junto al Camino de Caseda” (1592)<sup>2917</sup>

Zaren Camino de Caseda a Pamplona deitzen zitzaion (ikus sarrera hau), eta antza denez, Leatxeko Irunbidea-rekin batzen zen auzo-herri honetan (ikus El Bural sarrera). Euskarazko Kasedabidea-ren kide erdalduna dugu.

Egungo Puente del Camino de Caseda (dokumentazioko Puente de Zaldua) bidearen eta Barranco de Zaldu-ren elkargunean dago.

**Camino de Gaiu:**

Camino de Pelau-ren jarraipena da, Camino de Sabaiza edo Sabaitzabidea bera alegia:

“otra pieza...en el Camino de Gaiu devaxo del camino que ban a Gardalain” (1710)<sup>2918</sup>

**Camino de Garaizarra:**

Camino de Aibar-ekin identifikatu behar da. Herriaren eta Errekaldea-ren artean zegoen Garaizarra-ra (ikus sarrera hau) zihoan:

“una Huerta... Junto al Camino que ban a Aibar tente â dho Camino que ban â Garrizar” (1723)<sup>2919</sup>

**Camino de Gardelain, el:**

Puente de Zubieroria-raino beste modu batera Camino de Pelau (behialako Pelaubidea) deitzen zaio bide honi. Zubitik aitzina Camino de Gardelain edo Gardelainbidea deitzen zitzaion XVI-XVII. mendeetan, eta Camino de Gardalain edo Gardalainbidea gero:

2916 Id., 36. k.

2917 Id., 6. k.

2918 Id., 32. k.

2919 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 924. or.

“ytten otra pi<sup>a</sup> Junto al Camino que ban para gardelayn” (1593)<sup>2920</sup>

Bide hau **Gizaiduri** eta **Itxudur**-en barrena zihoan; orain Leatxeko azken zati honetan ezabaturik dago, eta bakarrik **Piedras de Jaime**-raino iristen da. **Gizaiduri** eta **Itxudur**-etik Irangotera zihoan, eta hemendik **Gardelaina**:

“una pieza sita en el termino de tras ichudur devaxo del camino que ban a Gardalain” (1704)<sup>2921</sup>

#### **Camino de Gardelain a Sada:**

Zaren **Camino de Gardelain** edo **Gardelainbidea** deitzen dena da (ikus sarrera hori), hots, **Iguzkiagerria**-n gaindi (**Camino de Iguzkiagerria**-n gaindi) **Portillo de Gaiu** edo **Gaiuportillua**-ra, eta hemendik **Piedras de Jaime**-n Leatxeko **Gardelainbidea**-rekin bat egitera doana.

#### **Camino de Gatzarrieta, el:**

Dokumentazioan **Senda de Gatzarrieta** itxuran agertzen da gaurrengungo **Camino de Katxarr(i)etas. El Monte** aldera doa.

#### **Camino de Gesalaga, el:**

Hastapenean **Camino de Zaldu** deitzen dena bitan banatzen da aitzinago, **Gesalaga**-ra doan **Camino de Gesalaga**-ri eta **Kapana**-ra doan **Camino de Kapana**-ri sorrera emanez. Aurrerago bi bidexkek berriz bat egiten dute **Nobeletaondo**-ko gortean.

#### **Camino de Guetadar, el:**

**Camino de Sabaiza** edo **Sabaitzabidea** dugu. Gaur **Santa Finia**-n akitu arren, lehen hortik Irangotera eta hemendik **Getadar** eta **Sabaitzara** zihoala irudi du.

#### **Camino de Idolba, el:**

Ez dakigu seguru zein bide zen, baina **Itxudurbidea**-rekin bat etor zitekeen neurri batez:

2920 PRA-Oibar, 7. k-bis.

2921 Id., 30. k.

“ytten otra piª Junto al camino de Yldonba” (1594)<sup>2922</sup>

#### Camino de Iguzkiagerria, el:

Egun Camino de Izkaerdia esaten zaion hau **Gaiuportillua** edo **Portillo de Gaiu-tik**, hots, **Sabaitzabidea-tik**, **Iguzkiagerria** aldera doa. Zareko **Gardelainbidea** bera da, hein batez.

#### Camino de Irangote, el:

**Camino de Sabaiza** edo **Sabaitzabidea** bera da. Azken bi mendeotako dokumentazioan eta oraingo mapetan **Irangoiti** azaltzen da, baina Morionesko jendeak **Irangote** esaten dio oraindik despoblatu honi, eta hau da, izan ere, dokumentazioan ia orokorra dena, lehen begiratuan **Irangote Irangoiti-tik** atera dela pentsa badaiteke ere:

“otra piª debaxo del camjo de yrangote” (1634)<sup>2923</sup>

#### Camino de Itxudur:

Euskarazko **Itxudurbidea**-ren baliokidea dugu.

#### Camino de Izco, el:

Leatxeren mugakidea den **Izko** herrirantz doa. **Portillo de las Cuatro Mugas** deitu harratean **Oibarko Camino de Pamplona**-rekin batzen da, hemendik **Izkoren** hurbiletik **Zangozatik Iruñera** doan errepide aldera abiatzeko. Beste gisaz **Camino de las Cuatro Mugas** esaten zaio<sup>2924</sup>.

#### Camino de Kapana, el:

1894az geroztik **Camino (de) Campana** deritza bide honi, hemen ere beste leku anitzetan bezala herri etimologiaz **kapana** > **campana** pausoa burutu delarik. Lehen esan moduan (ikus **Camino de Gesalaga**), hasieran **Camino de Zaldu** dena bitan banatzen da, **Gesalaga**-ra doan **Camino de Gesalaga**-ri eta **Kapana**-ra doan **Camino de Kapana**-ri sorrera emanez.

#### Camino de Korteko euntzea, el:

**Camino de Kapana**-ren jarraipena da lehen aldiz 1715ean ediren dugun hau:

“otra pieza...en el camino que ban a corttecunzea”<sup>2925</sup>

2922 Id., 8. k.

2923 Id., 23. k.

2924 Izkon **Camino de Aibar** eta **Camino de Leache** dokumentatzen ditugu, 1688. urtean (PRA-Elo, 11. k.).

2925 PRA-Oibar, 34. k.



**Camino de la Ermita de Santa Magdalena, el:**

Balatua-n Camino de Balatua bitan banatzen da: Camino de Nardués iparrera doa, Gabaran aldera, eta Senda de la Magdalena beste aldera, ermitarantz:

“otro (campo?)...en el camino que se ba á la Hermita de Sta Magdalena” (1800)<sup>2926</sup>

**Camino de la Magdalena:**

Aurreko bera da. 1894eko katastroan aurkitu dugu.

**Camino de la Nevera:**

Nevera-tik Zaldu-ko zubira (Puente del Camino de Caseda-ra) zihoan, eta beraz badirudi Kasedabidea edo Camino de Caseda-rekin identifika daitekeela, baina hau ez da segurua:

“otra pieza...sobre el camino de la nevera para el puente de zaldua” (1797)<sup>2927</sup>

Egungo La Nevera El Monte aldean dago (ikus La Nevera sarrera).

**Camino de la Tejería, el:**

Gauregun Camino de Tejería deritza herritik La Tejería aldera doanari.

**Camino de las Cuatro Mugas, el:**

Las Cuatro Mugas-a doan Camino de Izco da hau:

“...en el Camino, ô senda que ba â las quatro mugas se allo otro mojón” (1770)<sup>2928</sup>

**Camino de las Eras, el:**

Herri ondoko \*Las Eras-a (cf. gaurko Bajo las Eras dermioa) zihoan, Alorrandia-ren azpiko aldetik (Ikus sarrera hau).

**Camino de los Piélagos:**

Butzuandietara zihoan bidea (Senda del Paso) edo Usufietako bidea izan zitekeen hau, piélago euskarazko butzu edo osuin, \*usuin ‘osin’-ekin lotzen badugu (cf. Camino de los Piélagos Zaren. Ikus Usufieta sarrera):

“...camino que ban a los pielagos” (1650)<sup>2929</sup>

**Camino de los Zugarres, el:**

Los Zugarres edo Zugarketa-ra zihoan, La Balsa-n zehar:

2926 Id., 86. k.

2927 Id., 82. k.

2928 Oibar eta Leatxeren arteko mugarria zen hau. Id., 68. k.

2929 Id., 26. k.

“Una porción de campo...en el termino de la Balsa ô Camino de los Zugarres de este lugar” (1786)<sup>2930</sup>

#### Camino de Mendixuri, el:

Oibarko errepidetik **Mendixuri** aldera doa.

#### Camino de Moriones, el:

Herri ondoan zegoen **Iriondoa**-tik (gaurko **Casa de Orden** dagoen alderdi-tik), **Bidegurutzatua**-n barna, **Barranco de Ugarka** eta **Barranco de Erregumario**-rea gainditu ondoren, **Iguzkiagerria**-n zehar **Leatxe**ko lurretara doa. Azken herri honetan, esperatzekoa zenez, **Camino de Leatxe** esaten diote:

“...otra piª en Erregumajorea...que afrenta con Camino Real que ban al lugar de moriones” (1591)<sup>2931</sup>

“pieza en Iriondoa teniente a camino que ban a Moriones” (1723)<sup>2932</sup>

#### Camino de Nardués, el:

Hasieran **Camino de Balatua** deritzanak **Camino de Nardués** izena hartzen du **Balatua**-tik goiti. Bide hau orain **Gabaran**-en bukatzen da, baina izenak garbi erakusten du lehen **Nardozeraino** zihoala:

“pieza en Balatua afrontada con camino para Nardues” (1725)<sup>2933</sup>

#### Camino de Otabera:

**Otabera**-tik igarotzen den **Camino de Pamplona** (ikus beherago) izan zitekeen:

“otra pieza...en el camino de otavera” (1831)<sup>2934</sup>

#### Camino de Pamplona, el:

**Camino de Pamplona** edo **Irunbidea Pelau**, **Sandiandore**, eta **Komunburua**-n barrena **Gardelaingo** mugara doa gure informatzaile baten arabera, eta **Camino de Izco**-rekin identifikatu behar da beste informatzaile baten ustez<sup>2935</sup>.

Bide harriztatua zen, galtzada, eta gaurregun erdi ezabatua egonagatik badira oraindik ere harridun zenbait zati (ikus **Galtzada** eta **Galtzadakoa** sarrerak). 1752ko ai-

2930 Id., 74. k.

2931 Id., 5. k.

2932 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 933. or.

2933 PRA-Elo, 18. k.

2934 PRA-Oibar, 103. k.

2935 Bi muturrak batzeko posibilitatea ere bada: izan ere, **Gatzarrieta**-tik igarotzen den **Camino de Izco**-tik bada **Camino de Pamplona**-ra doan bidexka bat, eta agian batetik bestera pasatzen zela suposatu behar dugu. Alabaina, **Camino de Izco** Oibarko **Camino de Pamplona**-rekin elkartzen da **Las Cuatro Mugas**-en, eta nahikoa hipotesi erakargarria da bi **Irunbidea**-k batera zihoazela pentsatzea.

puan **Gatzarrieta**-tik igarotzen zela ikusten dugu, eta hortaz lekukotasun honetakoa **Camino de Izco** zela ondorioztatu behar da:

“otra pieza...en Gacharrieta teniente al Chaparral y camino q se va a Pamplona”<sup>2936</sup>

1634eko **Camino de Pamplona** berriz **Komunburua** (oraingo **Komulga**)-n gaindi doana dela irudi du, erreka beste aldean behar zuen **Urrutia**-tik igarotzen baita (ikus sarrera hau). 1683ko lekukotasuneko aipatu bi bideen artean dagoen **Pelau**-n zehar zihoan:

“linar en Pelau afrontado con camino que ban a Pamplona”<sup>2937</sup>

**Camino de Pelau**, el:

**Pelau**-n barrena **Zubieroria**-raino doa. **Zalantzarik** gabe euskarazko **Pelau**-bidea-ren ordain erdalduna da:

“una pieza...sita a la parte de Arriva del camino que ban â Pelau” (1721)<sup>2938</sup>

**Camino de Sabaiza**, el:

**Zubieroria**, **Zalduzarreta** eta **Gaiuportillua**-n barna **Bizkaia** aldera doan **Camino de Guetadar** bera da (ikus sarrera hau. **Ikus**, orobat, **Zubieroria**-n dioguna):

“otra pieza...en el termino de Gaiuportilloa...theniente...a camino que ban a Savaiza” (1722)<sup>2939</sup>

**Sabaitzabidea** itxurapean ere aurkitu dugu.

**Camino de Sada**, el:

**Zarebidea** formaz ere azaltzen den hau behialako **Opakoegia**-n gaindi doa (ikus sarrera hau), **Facería alta** eta **Facería de Sada**-ren artetik.

Dokumentazioan **Zalduzarreta**-n barna zihoala ikusten dugu, eta agian **Zarera** herri honetatik (**Zaretik**) **Gardelaina** zihoan **Gardelainbidea**-tik ere joan zitekeelako ondorioa atera beharko dugu:

“pieza en Salsarreta afrontada con camino que ban a Sada” (1686)<sup>2940</sup>

**Zareko Camino de Leatxe**-ren jarraipena da.

**Camino de Sada a Gardelain**, el:

**Ikus Camino de Gardelain a Sada** sarrera. 1705eko lekukotasunean garbi ikusten da bide hau igarotzen den **Iguzkiagerria**-k ‘**carasol**’ balioa duela:

2936 PRA-Oibar, 64. k.

2937 PRA-Elo, 10. k.

2938 PRA-Oibar, 37. k.

2939 Id., 37. k.

2940 PRA-Elo, 10. k.

“otra pieza en el Carasol...con su artteguia theniente...a Camino que ban los de Sada a Gardalain”<sup>2941</sup>

#### Camino de Sada a Pamplona:

**Camino de Sada** edo **Zarebidea**-ren baliakidea da, itxuraz:

“una pieza en la fazeria teniente...con Camino RI que ban los de Sada a Pamppna” (1710)<sup>2942</sup>

#### Camino de San Martín, el:

Herri barruan (aldirietan, antza) zegoen **San Martín** ermitara zihoan:

“otra pieza...en la parte llamada Sanmin tente...a camino q ban a san main.” (1641)<sup>2943</sup>

#### Camino de Sandiandore, el:

**Zubieroria**-tik **Ugarka**-rantz doa, **Sandiandore**-n zehar.

#### Camino de Tras de la Magdalena:

**Tras de la Magdalena** **La Magdalena**-ren gibekeko aldeari, Oibarko muga inguruari, esaten zaio. Horrako bidea **Zirikuzabal**-en barna zihoan eta doa, azken zatia gaurregun aski ezabatua dagoenagatik:

“otra pieza...en dho termino (**Zirikuzabal**-en) tente â piezas de J<sup>a</sup> Salaberri y camino que ban â detras de la Madalena” (1723)<sup>2944</sup>

#### Camino de Zaldu, el:

**San Pedro**-n barna doa. 1719ko lekukotasunean ikusten denez, saildu honi eskainitako ermitaren atzeko aldetik igarotzen zen:

“otro huerto...tras de la Hermita de Sn Pedro theniente al Camino q se ba a Zaldu” (1719)<sup>2945</sup>

#### Camino de Zirikuzabal, el:

**Zirikuzabal**, **El Rebote** eta **Tras de la Magdalena**-ra doa. Bidearen inguruari ere **Camino de Zirikuzabal** deitzen zaie, dokumentazioan bederen:

“Otra pieza...en el terno llamado el camino de Ziricuzabala tente a senda que ban a dho terno” (1723)<sup>2946</sup>

<sup>2941</sup> PRA-Oibar, 30. k-bis.

<sup>2942</sup> Id., 32. k.

<sup>2943</sup> Id., 24. k.

<sup>2944</sup> IEA, 1765. kart., 9. zkia., 925. or.

<sup>2945</sup> PRA-Kaseda, 19. k.

<sup>2946</sup> IEA, 1765. kart., 9. zkia., 919. or.

Gurregun bidea bakarrik **El Rebote**-raino iristen da, hortik aurrera ezabatua dagoelarik. Euskaraz **Zirikuzabal(a)**bidea esan zaio (ikus sarrera hau).

#### Camino del Campo de la Era:

Ez dakigu zein den 1894eko katastroan ageri den hau.

#### Camino del Campo del Agujero, el:

**El Campo del Agujero**<sup>2947</sup> **Entrepeñas** ondoan dago, izenak berak erakusten duen bezala zulo batean, **San Juan** eta **El Soto**-tik hurbil, **El Llano de Idozabal**-en azpiko aldean. Bertara joateko bidea **San Juan**-etik atera eta aipatu goiko zabaldi horretara zihoana zen.

#### Camino del Caracierzo, el:

**San Juan**-etik **El Caracierzo de la Fuente de la Losa** aldera doa.

#### Camino del Carasol, el:

**Barranco del Carasol**-en paretik Oibarko mugaraino igotzen da.

#### Camino del Cementerio, el:

**Camino de Amaia** bera dugu **Puente del Calvario**-tik hilerrira doa-n hau.

#### Camino del Molino, el:

**Zarebidea** edo **Camino de Sada** zen, nahiz ez ibilbide guztian (ikus **Errotaxar** eta **Errotaxarreta** sarrerak):

“otra (pieza?) en el camino del molino” (1634)<sup>2948</sup>

#### Camino del Monte (mayor), el:

**El Monte (de Aritzandieta)** edo **El Monte mayor**-a doan oraingo **Senda del Monte** zatekeen dokumentazioko hau. Tarte batez **Aritzederra**-n barrena zihoan, **Río oscuro**-ren paretik (ikus **Aritzederra** sarrera):

“otra pieza...en el Camino que ba al Montre maior” (1730)<sup>2949</sup>

**Gatzarrieta**-tik ere joan zitekeen **El Monte**-ra, bai eta **Aranzulo**-n zehar doan **Camino de Aranzulo** edo **Aranzulobidea**-tik ere.

#### Camino del Paso:

Oraingo **Senda del Paso** da, euskarazko **Pausubidea** bera (ikus sarrera hau). **Butzuandia** edo **Butzuandieta**-ra ere bide honetatik joaten zen (ikus sarrera hauek).

2947 1894eko kat.

2948 PRA-Oibar, 23. k.

2949 Id., 42. k.

**Camino del Río, el:**

Río oscuro-ra doan Senda del Paso-ren adierakidea da 1807ko hau (ikus Iturrinagusia sarrera).

**Camino llamado Pausua:**

Pausua El Paso erdaldunaren ordain euskalduna da. Behin bakarrik ediren dugu, diptongoaren ordeztu -a- bokal hutsa duela, beharbada erdararen eraginez:

“otra (pieza) en el camino llamado pasua afrontada con yermos concejiles” (1686)<sup>2950</sup>

Aztergai dugun honekin batera Pausubidea erabat euskalduna ere azaltzen da (ikus sarrera hau).

**Campo de Dios, el:**

Santa Finia eta Gizaiduri-ren artean dago, Río de Gaiu-ren alboan (cf. Galipentzuko Campo del Santo).

**Campo del Agujero, el:**

Ikus Camino del Campo del Agujero sarrera.

**Cantera redonda, la:**

Santa Finia-ren barruan, Morionesko mugan dagoen mendiko biribila adierazten du toponimo berri honek, eta hortaz euskarazko Mendibil-en parekoa dela esan daiteke, alderdi bana izendatzen badute ere (cf. Morionesko Alto redondo).

**Caracierzo, el:**

El Caracierzo edo El Caracierzo de la Fuente de la Losa oraingo El Carasol-ez beste alderdiari esaten zaio. Mendebal-iparraldera begira dago, eta ez da oso oihez-  
kia.

Dokumentazioan ‘oihez-  
kia’ adiera duen Opakoegia aurkitzen dugu, baina honek Facería-ko iparragerria ematen zuen aditzera, ez gaurko El Caracierzo.

**Carasol (barranco de), el:**

Esan moduan, El Carasol El Caracierzo-z beste aldeari esaten zaio, eta balidike izenak trukatuak daudela, hein batez behinik behin. Izan ere, El Carasol hegoekialdera begira dago, eta ez da oso eguzkialdea, honetan ere mailak bai baitaude.

Dokumentazioko El Carasol, ordea, Iguzkiagerria da (gaurko Izkaerdia), hots, Moriones eta Zareko mugako egutera, Opakoegia-z beste aldeko isuria:

“otra pieza...sitta en el termino que llaman Carasol y muga de Moriones” (1706)<sup>2951</sup>

2950 PRA-Elo, 11. k.

2951 PRA-Oibar, 30. k-bis.

Gaurko **El Carasol San Juan-etik Elordia-raino** iristen da. **Barranco del Carasol Fuente de Elordia** aldetik **San Juan-a** jaisten den erreka da.

**Carretera (debajo de), (sobre), la:**

1894eko katastroan agertzen da.

**Cascajo:**

**Los Cascajos** edo **Kaskallueta**-ren adierakidea izan zitekeen (ikus sarrera hauek). 1723an dokumentatzen da<sup>2952</sup>.

**Cascajos (tras), los:**

Euskarazko **Kaskallueta**-ren erdarazko ordaina da, antza:

“otra pieça en el termino detras los cascaxos” (1647)<sup>2953</sup>

**Castillo, el:**

Herriaren sartzean dagoen dorre huntzez estali eta erdi hondatua da.

**Cementerio (puente de), el:**

**Río orcuro**-z beste aldean dago, **Amaia**-n. Ikus **Pausuamaia** sarreran dioguna.

**Cerros viejos, los:**

1894eko katastroan ediren dugu aurrenekoz, eta beraz ez dirudi oso zaharra denik. **Los Cerros viejos**-ek **El Monte (de Aritzandiet)**, **Gabaran** eta **La Balsa vieja**-ren artean dago, **La Sierra**-ren barruan. Udalerriko mendirik gorena da, gure informatzaileen arabera.

**Clavería (casa de), (pieza de), la:**

**Clavero** handiki eta agintariek herrietan beren etxeen zaindari edo beren zerbitzurako zituzten pertsoneri esaten zitzaien<sup>2954</sup>. Ikusten den gisa, **clave** ‘giltza’-ren eratorria da, **clavero**-a giltzaria, giltzazaina baitzen. **Clavero** hauek ez zeuden, herritar gehienak ez bezala, zergak ordaintzera behartuak.

**Clavería**, bistan denez, **clavero**-ri estuki lotua dago, eta handikiek beren menpekoen zergak biltzeko (labore eta ardoa askotan, oilo, oilasko eta antzekoak beste anitzetan) zuten etxeari esaten zitzaion. **Asiango Clavería**-n, kasurako, inguruko herrietako **Leringo** kontearen menpekoen zergak biltzen ziren<sup>2955</sup>.

2952 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 930. org.

2953 PRA-Oibar, 25. k.

2954 DARN.

2955 Informazio hau Jimeno Jurfori zor diogu.

Leatxeko Clavería Orden de San Juan de Jerusalem izenekoaren bilketa-etxea zen, antza, Leatxen eta inguruko herrietan<sup>2956</sup> ordena honek hondasunak bazituenez<sup>2957</sup>. Euskaraz (Casa de) Ordenakoa esaten zitzaion antzina, eta erdaraz Casa de Orden esaten zaio orain (ikus sarrera hau. Erreparatu artikulurik ezari).

Casa de orden lehengo Iriondoa-n dago; ordenak zituen alorrak, edo alorre-tako batzuk behintzat, herri ondoan zeuden, Sanpedroaldea-n (ikus sarrera hau):

“Mas una torre que llaman de Yriondoa teniente con Casa y guerra de Ordenaoca que es la Casa de la Claberia de Este lugar” (1730)<sup>2958</sup>

**Cofradía (campo de), la:**

Honen balioaz eta euskal ordainez ikus Agezako izen bereko sarrera.

La Cofradía herriaren aldirietako etxe bat zen:

“una huerta en la endreçera debaxo la confradia” (1593)<sup>2959</sup>

Alorrak ere bazituen orain gutxi arte (ikus hurrengo sarrerak), baina egun ja-bego pribatukoak dira.

**Cofradía de la Vera Cruz, piezas de:**

Aurreko kobraria bera da. Alorrak herri ondoan zeuden, Camino de Zirikuzabal-en (bidearen alboan):

“Otra pieza...en el dho terno (Camino de Zirikuzabal-en) tente a piezas de...la co-fradia de la Vera cruz” (1723)<sup>2960</sup>

**Cofradía de la Virgen del Rosario, la:**

Kobraria hau oraindik “bizirik” dago eta Agezan duen xede bera du hemen ere (ikus Ageza).

**Conjurador, el:**

Izen hau aski zabaldua dago toponimian eta beste herri batzuetan ere azaltzen da (cf. *El Conjuratorio* Ezporogin). Tafallan, kasu, J. Juríok dioskunez<sup>2961</sup>, San Cristobal ermita hautatu zen konjuratokitizat, hiriaren goialdean izaki oso egokia baitzen landak bedeinkatu eta ekaitzak “konjuratzeko”, uxatzeko, alegia. Leatxeko *El Conjurador* ere hiri barruan zegoen, plazan edo plaza ondoan:

2956 Ikus García larraguetaren *El Gran Priorado*.

2957 Leatxen bertan *Pieza de la Encomienda de San Juan* azaltzen zaigu 1730. urtean.

2958 PRA-Oibar, 42. k.

2959 Id., 7. k-bis.

2960 IEA, 1765. karr., 9. zkia., 919. or-org.

2961 THET, 183-185. orr.



“otra casa...theniente al conjurador y a la plaza” (1719)<sup>2962</sup>

Arakil bailarako Ihabar herrian toponimo honen euskarazko ordaina den **Konjurategi** edo **Konjuratoki**<sup>2963</sup> dugu.

**Corral, junto al:**

1894eko katastroan ageri da, eta Leatxen korrale edo gorte mordoxka dagoenez gero, ezinezkoa da horietako zein zen esatea.

**Corral de Castillo, el:**

**Camino de Balatua** bukatu eta **Camino de Nardués** hasten den eremuan dago.

**Corral de Sarijuán, el:**

**La Sierra**-n dagoen gortea eta inguruko lurrak sartzen dira dermio txiki honetan. **Gabaran** eta **Las Parcelas** (de la Balsa, de los Cerros viejos) ondoan dago. **Sarijuán** antroponimoa da.

**Cotilla (campo de), (corral de):**

**Cotilla Elordia**, **Gabaran** eta **Oibarko** mugaren artean dagoen alderdi txiki bat da. 1894eko katastroko **Corral de Cotilla** orain alde guztiz hondatua dagoen auzo herri horretako mugako gortea da.

Izen honen jatorria antroponimo batean dugula irudi du, baina hau ez da segurua (ikus **Galipentzuko Gudilla** sarrera).

**Cruces (junto a), las:**

**El Calvario**-ren adierakidea da 1894eko katastroan ageri den hau (cf. **Uxueko El Calvario** eta **El Camino de las Cruces (viejas)**).

**Crucetas:**

**Itxuraz** erdarazko **cruz**-en txikigarria da, baina ez genuke osotara baztertu nahi euskarazko **gurutze**-rekin zerikusia izan dezakeelako ustea (cf. **Gurutzeta** Leatxen bertan), bereziki alboan artikulurik ez duelako:

“otra pieza faitia sita en el paraxe que le llaman el Carassol ô Cruzetas” (1706)<sup>2964</sup>

Honen kokaguneaz ikus **Carasol** sarreran esan duguna.

2962 PRA-Kaseda, 19. k. Kontuan eduki behar da, dena den, **Leatxen Plaza** herriaren aldameneko eremu baten izena ere badela (ikus **Plaza** sarrera).

2963 **Konjurategi** 1894 eta 1915eko katastroetan azaltzen da, eta **Conjuratoqui** 1894ekoan.

2964 PRA-Oibar, 30. k-bis.

**Cuatro Mugas (portillo de), las:**

Las Cuatro Mugas Leatxe, Oibar, Irunberri-Olatz eta Izkoren arteko mugak bat datozen eremua da, **Berdeaga, Elordia eta Alto de Izco**-ren artekoa:

“...el ultimo mojon llamado las quatro mugas, el que dibide los terminos de ambas Republicas (Oibar eta Leatxe), y de los lugares de Olaz y Yzco” (1770)<sup>2965</sup>

Leku-izen hau Irunberri-Olatz<sup>2966</sup>, Oibar<sup>2967</sup> eta Tafallan<sup>2968</sup> ere ageri da. Zenbatzailea eta **muga** izenaz osaturikako toponimoak ugariak dira han-hemenka, erdaraz nahiz euskaraz, hiru edo lau muga elkartzen diren gunea izendatzeko. Gure eskualdean eta inguruetan, aipatutakoez lekora, hauek ditugu: **Las Tres Mugas Kaseda**<sup>2969</sup>, **Oleta**<sup>2970</sup>, eta **Uxuen**, eta **Tres Mojones Lergan**<sup>2971</sup>.

**Chaparral, el:**

Dokumentazioan bi **Chaparral** ezberdin azaltzen dira, bata **Gatzarrieta** eta **Camino de Pamplona** aldean (ikus sarrera hau), eta bestea hurbil samar, **Aranzulo**-n, **Camino de la Balsa nueva** inguruan:

“La una (pieza?) en Aranzuloa...afrentada...con el Chaparral...y con la senda qe ba para la balssa nueva” (1588)<sup>2972</sup>

**Chaparral de Moriones, el:**

Leatxeko mugaraino iristen den **Morionesko El Chaparral** edo **Txaparra** da 1594eko hau:

“ytten otra piª en el chaparral de moriones”<sup>2973</sup>

**Chopal, el:**

**El Chopal**<sup>2974</sup> edo **El Chopar**<sup>2975</sup> **Ugarka**-ko errekan, **Puente de Moriones** eta **Puente de Sada**-ren artean dagoen txipudia da.

---

2965 Id., 68. k.

2966 Id., 25. k. 1648.

2967 Id., 68. k., 1770. Bizirik dago oraindik.

2968 J. M. Jimeno Jurfo, THET, 94. or.

2969 PRA-Kaseda, 51. k., 1830.

2970 PRA-Oibar, 25. k., 1646. Honen ordain euskalduna den **Irumugeta** (-r- eta guzti) ere aurkitu dugu (PRA-Barasoain, 3. k-bis, 1609). Zenbatzailearen dardarkariaren presentzia ulertzen erraza da, Juan de Beriaynek (“yurgarren gauza, cerengatic egon bearbaytugu atenciorequi, eta deuociorequi...” TCOM, 30. or.); eta Lizarraga Elkanokoak (“Irun lagún bearrtu, errán becala...”, UIGPL, 34. or.) ere irur erabiltzen dutela (ez beti, alabaina) aintzat hartzen bada. Artaxonako toponimian ere irur- dugu **Iuridoia**, **Iuridoita** toponimoetan (Lacarra, VM, 46. or.).

2971 Arakil-Ekain ere **Tres mugas** dugu, Iltzarbe, Ekai eta Urritzolako lurrak bat datozen alderdian. Arbizun berriz aipatu Oletako **Irumugeta** horren kidea den **Irumugeta** daukagu.

2972 PRA-Oibar, 4. k.

2973 Id., 8. k.

2974 1894eko katastroa.

2975 Orain.

**Depósito, el:**

Lehen iturria zegoen alderdian dago egungo urbiltegia (ikus **La Fuente** sarre-  
ra).

**Done Xurio (detrás de), (zaga de):**

Toponimo honen lehen osagaia **Done** ezaguna da (ikus honetaz Lergako **Jaundonejoanizgibel** sarrera), eta aitzinean sarri askotan **Jaun** (**Juan** bihurtua eskuarki) apozizioa izaten badu ere, hemen **Done** hutsa ageri zaigu.

Bigarren osagaiari dagokionez, XVI. mendeko aldakiek j dute beti, baina 1602rako **donexurio** dugu (ikus aurrerago), **Donejurio**-rekin batera<sup>2976</sup>, eta hortik aurrera frankotan azaltzen dira s edo x grafemadun aldaerak, j dutenen aldean: **domisurio** (1702)<sup>2977</sup>, **Domensurio** (1705)<sup>2978</sup>, **domenxurio** (1710)<sup>2979</sup>, **Domixurio** (1715)<sup>2980</sup>. 1683an, gainera, **domissurio** dugu<sup>2981</sup>, eta 1775ean **dimussurio**<sup>2982</sup>. Honek grafia guzti horien azpian sabaiurreko igurzkarri ahoskabea ([š]) ezkututzen dela esan nahi du, gauza bera gertatzen baita, ikusi den bezala, beste leku-izen mordoxkarekin (ikus **Grafia kontuak** atala).

1723an **Domijurioa** ageri da, bukaeran artikulua izan daitekeena duela (cf. **Sandiandore** eta **Samazio**-ren artikuludun aldakiak **Leatxen** bertan), baina mugatzaile-rik gabeko aldaerek dute nagusitasun osoa:

“otra pieza...en el terno llamado Domijurioa” (1723)<sup>2983</sup>

Hau arrunta izan da zenbait hagianimorekin, eta gure egunotan ere edireten dugu mugatzailea forma zaharkitu batzuetan<sup>2984</sup>.

**Xurio**-n beste batzuetan aurkitzen dugun bokal arteko l > r pausoa ere burutu da (cf. **Akirazabal Uxuen** < **Akila** < **Aquila**; **Donemiri Oletan** < **Done Emili**<sup>2985</sup>), izen honen jatorria, erdarazko ordaina azaldu ez arren, **Julio** baita<sup>2986</sup>:

“una pieza...en la endrecera llamada doneJulio” (1584)<sup>2987</sup>

Kokalekuaz den bezainbatez, badakigu **Irunbidea** eta **Camino de Gatzarrieta** bereizten diren gunean zegoela, **Ugarka**-ko erreka-aldamenean:

2976 "otra pi\* en doneJurío que alinda con el Camino Real que ban a pampa", PRA-Oibar, 10. k.

2977 PRA-Kaseda, 11. k.

2978 PRA-Oibar, 30. k-bis.

2979 Id., 32. k.

2980 Id., 34. k.

2981 PRA-Kaseda, 2. k.

2982 PRA-Oibar, 70. k.

2983 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 914. or.

2984 TAV, 143-144. orr.

2985 PRA-San Martin, 48. k, 1767.

2986 Morionesen jatorri bera duen **Jaun Done Julio** 'San Julio', 'San Julián' dugu, eta Bizkaian **Julio** despo-  
blatua.

2987 PRA-Oibar, 3. k.

“otra pieza...sita en el thtermino de Domensurio theniente...al dho Camino que ban â Pampna y...a Rio Conzexil” (1705)<sup>2988</sup>

### Dorreko itxaurraldea:

Hemen dorre izena, -ko leku-genitiboa, itxaur zuhaitz-izena eta aldea posizioa ditugu. Behialako **Encomienda de San Juan-en** (= **Orden de San Juan**) alorraren ondoan zegoen dorre hau, **Iriondoa-n**, **Casa de Ordenakoa** edo **Casa de Orden-en** alboan:

“otra pieza...en el q llaman Dorreco ichaurraldea teniente a...pieza de la Encomienda de Sn Juan” (1730)<sup>2989</sup>

### Dos Aguas, las:

**Las Dos Aguas** Zareko mugaren ondoko **La Facería** eta **Mendixuri**-ren arteko eremua da. Izena bertan **Barranco del Puente de Sada** eta **Barranco de Nobeleta** ondoan elkartzeari zor zaio<sup>2990</sup>, eta garbi dago hemen **agua-k** ‘erreak’ esanahia duela, euskarazko **ur-ek** bezalaxe<sup>2991</sup> (cf. **Urandibidea** ‘Aragoa ugaldoko bidea’ Galipentzun, eta **urandia** ‘ugaldea’ izen arrunta euskaraz<sup>2992</sup>):

“Mas otra pieza en el therno q llaman las dos Aguas ô Rios” (1750)<sup>2993</sup>

### Elordia (balsa de), (barranco de), (carasol de), (fuente de), (monte de):

**Elorri** ‘zuhaixa arantzatsu mota bat’ izena, -di atzizki multzokaria eta artikulua dira toponimian oso arrunta den honen osagaiak. **Elorri-k**, elkarketa-eratorketan ohizkoa den bezala, azken bokala galdu du; -**dia**-ren presentzia, bestalde, harrigarri samarra da -**dua** jaun eta jabe den alderdian (ikus atziki honi eskainitako atala), baina bat dator ondoan mugakide dituen **Ibargoiti** eta **Bizkaiko** toponimiarekin<sup>2994</sup>. Gure informatzaileak dioenez **illaga** ‘ote’ ausarki dago bertan.

**Elordia La Sierra** edo **Bizkaia-n** dago (ikus hondar sarrera hau), **El Monte** (de **Aritzandieta**), **El Odiko**, **El Carasol**, **Cotilla** eta **Oibarko** mugaren artean:

“una pi<sup>a</sup>...en la endreçera llamada elordia en la sierra del dco lugar” (1592)<sup>2995</sup>

**Barranco de Elordia Cotilla**-tik jaisten da, eta alderdiko idoia (**Balsa de Elordia**)-ren ondoan **Barranco del Odiko**-rekin bat egiten du, **Barranco del Carasol** deritzanari sorrera emanez. **Carasol de Elordia** aipatu bi erreka horien arteko egutera da; **Fuente de Elordia Barranco de Elordia-n** dago, **Barranco del Odiko-ri** hurren (ikus **Aritzandieta sarrera**).

2988 Id., 30. k-bis.

2989 PRA-Oibar, 42. k.

2990 Ikus Lergako **Ubitarte** sarreraren dioguna.

2991 Ikus gure IGI. Leatxen toponimia-galdeketa egiterakoan **agua** ‘ubide’ adieraz erabiltzen entzun genuen.

2992 Ikus Galipentzuko aipatu sarrera horretan dioguna.

2993 PRA-Oibar, 57. k.

2994 Ikus gure DAON.

2995 PRA-Oibar, 6. k.

Orain erabiltzen den **Lordia** [lórðja] aferesia jasandako aldaera 1752an<sup>2996</sup> ediren dugu lehen aldikoz.

#### **Encomienda de San Juan (casa de), (pieza de):**

**Casa de la Encomienda** oraindik ere ezaguna da **Leatxen** (**Casa de Doncel** berriki arte), baina uste genuenaren kontra gure informatzaileak ez du **Casa de Orden** edo **Casa de Ordenakoa**-rekin identifikatu. Alorraren kokalekuaz ikus **Dorreko itxaurraldea** sarrera.

#### **Entrepeñas (las):**

Toponimo hau lehen aldiz 1894ean azaltzen da, eta hortaz berria dela esan daiteke. Bertan harri asko dago, baina ez, pentsa litekeenaz bestalde, zintzur edo harrate-rik.

Dermio honen kokagunea ez da arazorik gabea: batzuek (gazteenek) **Santa Finia** eta **Gaiu**-ren artean dagoela diote, eta **Piedras de Jaime** aldean kokatzen dute, **Otabera** eta **Sandiandore**-ri hurbil, **Camino de Gardelain** inguruan. 1908an sortu-tako **Justo Sola** jaunak, aldiz, **Idozabal**, **Komunburua** eta **Berroberrieta**-ren artean kokatzen du.

Arazo honen konponketa erraza da, izen bereko bi dermio daudela pentsatzen badugu. Guztiarekin ere, ez dugu uste horrela den.

#### **Era, junto a la:**

Herri ondoan zegoela suposa daiteke<sup>2997</sup>.

#### **Era vieja, la:**

Herri ondoko larrainen bat izanen zen 1894eko katastroan ageri den hau.

#### **Eras (bajo), (debajo de), las:**

**Las Eras** deitu eremua **Camino de Caseda** eta **San Pedroaldea**-ko baratzeen alboan zegoen:

“otra huerta...que afronta...a camino que se ba a Caseda y...al terno que llaman las heras” (1775)

**Gaurko Bajo las Eras** edo **Debajo de las Eras** lehengo **Las Eras**-en azpiko alderdia da, bistan denez. Herritik **Barranco del Puente de Sada**-ren inguruetaraino luzatzen da, **Kasedabidea** (**Camino de Caseda** orain) eta **Zarebidea** (**Camino de Sada** orain)-ren artetik.

2996 Id., 64. or.

2997 1894eko kat.

**Erica, la:**

La Erica herritik hurbil dago, Aranzulo eta Korraleta-ren erdian, Aranzulobidea-ren ondo-ondoan.

**Erregumaiorea (barranco de):**

Leku-izen honek jasan duen itxuraldaketa izugarria izan da, baina halaz ere segurua da gaurko Romario [romárjo] aurrenekoz 1588an Erregumayorea itxurapean azaltzen den bera dela:

“una pa...en el termino del lugar llamado Erregumayorea”<sup>2998</sup>

Jatorrizko forma horren eta egungoaren artekoak diren Erregumayor, Regu mayor (1650)<sup>2999</sup>, Erromaria (1723)<sup>3000</sup> Erramayora (1807)<sup>3001</sup>, Erramayoa (1808)<sup>3002</sup> bezalako aldaera hein handi edo txikian itxuratxartuek zubi-lana egiten dute lehenbiziko formaren eta gaurko aldakiaren artean. Edozein moduz, Romario 1704erako dokumentatzen dugu<sup>3003</sup>, eta honekin batera alde zerbait duten antzeko beste forma batzuk ere azaltzen dira: Romerio (1708)<sup>3004</sup>, Rumario (1720)<sup>3005</sup>, Romadio (1772)<sup>3006</sup>, Romoria (1894)<sup>3007</sup>, eta hortaz itxuragaiztotzea aspaldian burutu zela esan daiteke.

Erregumaiorea-ren etimologiari dagokionez, lehen osagaia ‘erreka’ (‘erreka handia’ ‘río’ gure alderdian) adiera duen erregua<sup>3008</sup> da (cf. Loiaerreka = Loiaerregua = Río de Loya Morionesen)<sup>3009</sup>, eta bigarrena erdarazko mayor ‘handiena’ izenondo konparatiboaren euskaratzearen ondorena dugu (cf. El Río mayor dokumentazioan ohizkoa), 1650eko Erregumayor edo Regumayor-ek erakusten duten moduan.

Toponimoa ulertzeko aintzat hartu behar da Erregumaiorea alderdia Barranco de Ugarka eta Barranco de Erregumaiorea-ren artean dagoela, eta bi errekon batzetik ubide are handiagoa sortzen dela.

Erregu hitzaren jatorriaz den bezainbatez, rīvus ‘ibaia’-ren eratorria den erromantzezko rigo, rigu-ren aldaera batez pentsatu behar da, \*regu-z itxura guztien arabera. Honetan oinarriturik sort zitekeen, gainera, Ciérbide irakasleak Leireko dokumentazioan aurkitu duen Arriego, Arriego de arbe<sup>3010</sup>.

2998 PRA-Oibar, 4. k.

2999 Id., 26. k.

3000 IEA, 1765. karr., 9. zkia., 932. or.

3001 PRA-Oibar, 91. k.

3002 Id., 92. k.

3003 Id., 30. k.

3004 Id., 31. k.

3005 Id., 36. k.

3006 Id., 69. k.

3007 Karastroa.

3008 Ikus izen honetaz IGI-en dioguna.

3009 Cf. Erreguarana (PRA-Urrotz, 1591, 3. k.), Erregucoa eta Erregua (id., 1594, 4. k-bis, 37. zkia.) Longidako Meotz herrian: “viña en Erreguarana afrontada con el rigachuelo”, “viña en Erregucoa afrontada con el regachuelo”, “Endreçera llamada Erregua afrontada con el regacho”.

3010 Ikus Ricardo Ciérbide “Toponimia del Becerro Antiguo de Leire”, 242. or.

**Erregumaiorea-k** El Saso, Zalduzarreta, Facería alta de Leatxe, Bajo las Eras, eta El Chopar-ekin mugatzen du. Antzina, gainera, Zubibizkarra-rekin ere mugatzen zuela dirudi (ikus sarrera hau)

#### Errekaldea:

Leku-izen arrunt honen osagai argiak erreka eta aldea dira. Río Oscuro-ren inguruak adierazten zituen toponimo orain ezezagun honek, El Calvario eta Oibarbi-dea-ren aldamera:

“otra pieza...errekaldea tente al camino que ban â Aibar y Calbario” (1723)<sup>3011</sup>

“Pieza en el termino llamado Recaldea teniente al camino que se va a Aibar y a rio conzejil” (1723)<sup>3012</sup>

Badakigu bertan lihatze bat behintzat bazegoela, eta hori dela eta, gaurko Los Linares-aino iristen zela kontu egin daiteke.

#### Errotaxarra:

1593ko Errotajarra-k<sup>3013</sup>, 1721eko Herrotasar-ek<sup>3014</sup>, eta baliokide duten Errotaxarreta-ren 1710eko Errotassarreta eta 1723ko Errotaxarreta aldaerek (ikus Grafia kontuak atala) izen hau sabaiaurreko igurzkariz ebakitzen zela erakusten digute argi eta garbi. Guztiarekin ere, alderdiko honen eiteko beste toponimo batzuen antzera (ikus, adibidez, Eslaba eta Lergako Errotaxar sarrerak), hau ere aldika -z-z idatzirik aurkitzen dugu, 1708an<sup>3015</sup> adibidez:

“una pieza...en el terno de Rotazarra” (1708)

Errota zahar hau Zarebidea-n zegoen, Barranco de Ugarka eta Barranco de Erregumaiorea batzen diren gunean, gaurko Puente de Sada ondoan (ikus Errotaxarreta sarrera):

“otra pieza...en el Camino de Sada y paraxe que llaman herrotasar” (1721)

**Zaharra** izenondoa agertzeak beste errota berriago bat bazela idarokitzen digu, baina ez dugu honen lekukotasunik bat ere.

**Errotaxarra** edo **Errotaxarreta**-ren erdal ordaina 1807ko Los Molinazos dugu:

“otra pieza en el termino de los molinazos ó rotazarra”<sup>3016</sup>

#### Errotaxarreta:

Aurreko izen bera da, -eta atzizkia goiti-beheiti. **Errotaxarreta** ia beti sabaiaurreko igurzkariz ahoskatzen zela dirudi, dokumentazioan soinu horren adierazle

3011 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 914. org.

3012 Id.

3013 PRA-Oibar, 7. k-bis.

3014 Id., 37. k.

3015 Id., 31. k.

3016 Id., 91. k.

diren grafien nagusitasuna ikusita: **errotajarreta** (1605)<sup>3017</sup>, **Erota gareta** (1647)<sup>3018</sup>, **errotassarreta** (1710)<sup>3019</sup>, **Rotassareta** (1719)<sup>3020</sup>, **errotacharreta** (1723)<sup>3021</sup>. 1807an, ordea, **Barranco de Rotazarreta** ageri da:

“otra pieza entre el Camino de Sada y barranco de rotazarreta que afronta Con el mismo río”<sup>3022</sup>

Errotaren kokaguneaz ikus aurreko sarrera.

#### Etxateaizina:

Izen honen bi osagaiak **Etxate** toponimoa eta **aizina** posposizioa dira. Bigarren honi dagokionez, notatzekoa da XVI. mendearen amaierako bi lekukotasunetan -aycina edo -ayçina dugun bitartean 1614ean -alzinea dugula<sup>3023</sup>:

“ytten otra piª en echate aycina” (1594)<sup>3024</sup>

“ytten otra pieça...en el termino de echatalzinea” (1614)<sup>3025</sup>

Etxate-z den bezainbatez, etxe eta ate-z osaturik dagoela kontu egin daiteke, baina **Esate** hedatuaren (ikus Uxueko **Esatea** sarreran dioguna) aldaeratzat hartu nahiago dugu, harrartetik ba ote zen ez dakigunagatik. [š] > [ç] ezaguna da toponimian, hasierako lekunean bereziki, baina hitz barruan ere edireten dugu (ikus Agezako **Motxiturria** sarreran dioguna).

#### Euntzekoa:

Hau 1720an baizik ez dugu aurkitu<sup>3026</sup>, **unchequa** itxuraz, eta ez dakigu azpian dagoena **\*euntzekoa** den ala beste zerbait. Azken hau, bere aldetik, ‘euntzean, laurrean dagoena’ izan daiteke nahiz ‘euntze txikia’.

#### Facería (barranco de), la:

Sarri askotan **facería** hutsa azaltzen da, eta gaurregun ere **La Facería** esan ohi da, bestelako zehaztapenik gabe:

“otra pieza...en la fazeria thente a...camino real q se ba â Pamppa” (1752)<sup>3027</sup>

3017 Id., 15. k.

3018 Id., 25. k.

3019 Id., 32. k.

3020 PRA-Kaseda, 19. k.

3021 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 927. org. Hemen egun -txarreta idatziko genukeena ere izan genezake.

3022 PRA-Oibar, 91. k.

3023 Ikus **Dermio** baten zatiketa atalean posposizio honetaz dioguna.

3024 PRA-Oibar, 8. k.

3025 Id., 18. k.

3026 Id., 36. k.

3027 Id., 57. k.



1807ko **Barranco de la Facería, Barranco de Erregumaiorea** izan daiteke, baina antzinako **Barranco de Errotaxarreta** (ikus sarrera hau) edo oraingo **Barranco del Puente de Sada**-rekin identifikatu nahiago dugu:

“otra pieza...en el barranco de la faceria”<sup>3028</sup>

**Facería alta (alto de la):**

**Facería alta**<sup>3029</sup> edo **Facería de arriba**<sup>3030</sup> **La Facería**-ko **Iguzkiagerria**-ren aldameneko eremua zen, eta **Alto de la Facería** egungo **La Facería**-ko gaina:

“otra pieza...en el alto de la faceria alta” (1752)<sup>3031</sup>

**Facería baja, la:**

**Facería de abajo**<sup>3032</sup> edo **Facería baja**<sup>3033</sup> **Leatxe** eta **Zareren** artekoa zen, hau da, orain **Leatxeren** barrukotzat jotzen den bi herrien arteko mugakoa. **Baja** izenondoak **Las Dos Aguas** aldekoa zela adierazten du argi eta garbi.

**Facería de abajo, la:**

Ikus aurreko sarrera.

**Facería de arriba, la:**

Ikus **Facería alta** sarrera.

**Facería de medio:**

**Baja** eta **alta**-ren artekoa zen:

“otra pieza en la faceria de medio tocante al termino de la villa de sada” (1752)<sup>3034</sup>

Fazeria guzti hauek oihezki daude, dokumentazioan **Opakoegia** deitzen den mendi mazelean, iparrera begira. Beste isuriari **Iguzkiagerria** deitzen zitzaion lehen, eta **Izkaerdia** orain.

**Facería de Salaverri:**

1894ean<sup>3035</sup> dokumentatu dugu, eta ez dakigu aipatu hiru fazeria horietatik zein izan daitekeen. **Salaverri** **Leatxeko** deitura izan da, eta bada oraindik ere **Casa de**

---

3028 Id., 91. k.

3029 Id., 34. k.

3030 Id., 37. k.

3031 Id., 64. k.

3032 Id., 37. k.

3033 Id., 64. k.

3034 Id.

3035 Katastroa.

**Salaverri** deritzan etxea, nagusiak lehengo **Salaverri**-tarrekin zerikusirik ez duen arren<sup>3036</sup>.

**Faja larga, la:**

Ikus hurrengo sarrera.

**Fajas largas, las:**

**Faja** izenaren inguruan ikus Agezako **Las Fajetas** sarrera. Gardelaingo mugan dago, **La Balsica de Pepe** deitu alderdiaren alboan.

**Fayal, hoyo del:**

**El Monte**-ren barruan dago, **San Juan** aldera. Bertan badira pago batzuk, baina zuhaitz gehienak haritzak dira.

**Frontón, el:**

Ikus **El Juego de Pelota** eta **El Rebote** sarterak.

**Fuente (junto a), la:**

Herri ondoan, **Camino de los Zugarres**-en zegoen iturria zen hau (cf. **Barrio de la Fuente**). Harraska ere bazen bertan, zamariak edan ahal zezaten<sup>3037</sup>.

**Junto a la Fuente**-k (ediren ez dugun **\*Iturr(i)aldea** baten ordaina dela dirudi) oraingo urbiltegiaren inguruak izendatuko zituen:

“una vina...en el dco lugar y endrecera llamada Junto a la ffuente” (1596)<sup>3038</sup>

**Fuente de la Losa (barranco de), (caracierzo de), (fuente de), la:**

**Fuente de la Losa** lehen aldiz 1894ean ediren dugu<sup>3039</sup>, eta hortaz aski toponimo berria dela esan daiteke. Iturria errekan dago, **Camino de Izco**-n. Antza denez, bertan noizbait lauza bat egon zelako hartu dute izen hau iturriak berak, errekek, eta inguruko lurrek (cf. **Fuente de la Teja Uxuen**).

**Fuente de la Losa**-k **Berdeaga, Muga de Gardelain, Komunburua, Pollizar** eta **El Alto del Pinar**-ekin mugatzen du.

**Fuente de las Tercianas, la:**

**La Fuente de las Tercianas** joan den mendearen bukaera aldean agertzen da lehenengoz. **Tercianas** “fiebres tercianas” (“fiebres maltas” gure informatzailearen hitze-

3036 Morionesen sortu eta gure informatzaile izan den Elicio Ojer Beorlegui da etxe honen oraingo jabea.

3037 Iturrian “1905” data zegoen idatzia, urte horretan berriztatu zutelako ziurrenik.

3038 PRA-Oibar, 9. k.

3039 Kat.

tan) sintagmaren laburketa da, eta iturriak izen hau hartu badu sukar mota honek joak zeudenek sendatzeko hemengo ura edaten zutelako izan da<sup>3040</sup>. El Paso-n dago, ermitako bidean. Baliteke antzinako Iturrinagusia izatea.

#### Fuente de Leoz, la:

La Fuente de Leoz edo La Fuentica Camino de Gardelain (behalako Gardelainbidea) ondoan dago, Gaiu-n. Leoz Leatxeko norbaiten deitura zela dirudi.

#### Fuente de los Linos:

Barranco del Soto-n dago, Paso de San Juan-etik ez oso urrun. Izenak garbi adierazten du inguru honetan ere bazirela lihatzeak.

#### Fuente de Otano, la:

Otano Leatxeko norbaiten deitura zen, antza.

#### Fuente del Boj (balsa de), la:

“Corral de Larraga”-ren ondoan dago, Barranco de Detrás de la Magdalena-n, Gabaran aldera, Oibarko mugatik hurbil. Idoia orain urte batzuk egin zuten, iturriaren alboan.

#### Fuente del Piojo:

1894eko katastroan aurkitu dugu lehen eta hondar aldikoz gaurregun ezezaguna den hau. Izena bertan zorri ugari izateari zorko zitzaion, agian iturrian garbitzera eramaten zen arropa mamutx horietaz mukuruz zegoelako. Beste posibilitate bat El Piojo ezizenaz ezaguna zen norbaitengandik hartu izana da (cf. Los Pulga eta antzeko gaitzizanak, Uxuen).

#### Fuente fría, la:

Barranco del Carasol-en dago (cf. Lergako Iturriotz).

#### Fuentica, la:

Beste modu batez La Fuente de Leoz deitzen zaio. Itxurak itxura, ez dirudi dokumentazioko euskarazko Iturritxiki-rekin identifika daitekeenik.

#### Gabaran:

Leatxe eta Oibarren arteko muga kokatua dago, aurren herriko La Sierra (lehengo Bizkaia)-ren ondoan, Oibarko Bizkaia-ren barrukotzat jotzen den izen bereko alderdiaren aldamenean:

<sup>3040</sup> Leotzen ere agertzen da Fuente de las Tercianas bat, 1830ean (PRA-Oibar, 103. k.), eta Eslaban oraindik ere ezaguna da izen bereko iturria.

“en los terminos que llaman los comunes de la Vizcaya y therno de Gabaran de la villa de Aibar” (1755)<sup>3041</sup>

Leatxen **Gaberan** edireten dugu lehen agerraldian (1647an), **Gabaran** bigarrean (1659an), eta hauen laburketa den **Gabran** sinkopaduna aurrerantzean. Gaurregun **Gabran** [gabrán] esaten dute, baina dokumentazioan behin edo beste **San** aposizioaren laguntasunean agertzen da, Oibarren bezala (hemen **San Gabrán** esaten dute):

“otra pieza...en...Sn Cabran teniente a la muga de Aybar” (1730)<sup>3042</sup>

Ohizkoa, halaz ere, **Gabaran** da:

“otra pieza en gabaran...teniente a la muga de aibar” (1659)<sup>3043</sup>

**Gabran** aldaera sinkopatua 1768an agertzen da aurrenekoz:

“otra (pieza)...en el termino de Gabran”<sup>3044</sup>

Izen honen etimologia ez dago bat ere garbi: daitekeena da bukaerako elementua **haran** ‘ibar’ arrunta izatea, baina daitekeena da, orobat, **Cabran** erdaldunaren aldaera euskaldunaren aitzinean egotea, hasierako herskari belarearen ahostuntzeaz (cf. gaurregun oraino ere **gostatu** < **kostatu** Basaburua aldean) eta bokal anapititiko baten sartzeaz (cf. Pelau).

Alabaina, Aragoagoienean ere azaltzen den **Gabaran** toponimoan oinarrituaz, jatorrizko forma hauxe dela uste dugu, izenaren iturburua Manuel Alvarrek proposatzen duen **gave** ‘erreka’ apelatibo arrunta eta **haran** ‘ibarra’ ote den<sup>3045</sup> ez jakinagatik. Nola-nahi ere, bertan bada erreka, eta harana ere bai, honen inguruan:

“**Gauarana**. Creo que este nombre se puede identificar con alguno de los dos riachuelos franceses que llevan el nombre de *Arana* (uno en el departamento de los Bajos Pirineos y otro en el de los Altos). Me inclino, por estar en una zona de gran inmigración hacia Jaca, por el afluente del Gave de Aspe, que confluye con él en Sarrance”

1647koa den **Gaberan** aldaera<sup>3046</sup> honen alde mintzo da, baina beste toki batzuetako aldakiak ikusita forma disimilatua dela dirudi. Iruñerriko Zubitza herrian ere **Gabaran** aurkitu du Jimeno Jurfok 1598. urtean<sup>3047</sup>.

3041 PRA-Oibar, 58. k.

3042 Id., 42. k.

3043 Id., 28. k.

3044 Id., 67. k.

3045 *Onomástica*, 104 eta 113. orrialdeak. Gatzen Lacastak ere etimologia bera proposatzen du toponimo honentzat, eta **haran** osagarria duten **Basaran**, **Escaran**...eta besterekin sailkatzen du. *El euskera en el Alto Aragón* argitaragabeko lana, 60-61. orr.

3046 PRA-Oibar, 25. k.

3047 TPCPG, 399. or. Araban ere dokumentatzen da, 1855ean, Korresen. TA, 212. or.

**Gai(t)ze:**

Toponimo hau aldi bakar batez ediren dugu, **Gayçe** itxurapean (1693)<sup>3048</sup>. Etimologia argia ez bada ere, segur aski Leatxeko bereko **Gatzarrieta**, **Gesalaga**, eta **Las Saleras** leku-izenekin erlazioan behar genuke, bai eta Ageza, Eslaba eta Galipentzuko **Gezari** eta antzekoekin<sup>3049</sup>, beste zerbaiten itxuragaiztotua ez bada behinik behin.

**Gaiu(portillada de), (portillo de):**

Ez dakigu zein izan daitekeen izen honen etimologia (**Cayo**, **Cayu** izena?), baina, itxuraz, Zizur zendeako Larraiako **Cayo** eta **Cayugaña**-rekin eta honen mugakide den Muru-Azteraingo **Cayo**, **Cayu** eta honen eratorriekin lotu beharra dago<sup>3050</sup>:

“ytt. otra pieca en el termino de Leache En la endrecera llamada gaju” (1530)<sup>3051</sup>

Dokumentazioan sarri -o duen aldaera aurkitzen dugu:

“otra piª en gayo” (1634)<sup>3052</sup>

**Gaiu** [gáyu] **Zalduzarreta**, **Iguzkiagerria**, **Santa Finia** eta **Sandiandore**-ren artean dago.

**Barranco de Gaiu** Morionesko **Barranco de Leatxearana** edo **El Regacho** bera da. **Portillada** edo **Portillo de Gaiu** **Sabaitzabidea**-k eta **Zaretik Gardelaina** doan (edo “zihoan”, zatika ezabatua dagoenez gero) bideak elkar gurutzatzen duten gunean dago:

“ytten otra piª en la portillada de gayu...que afrenta con...camino que ban a Sabayça” (1592)<sup>3053</sup>

**Gaiuportillua:**

**Portillo de Gaiu**-ren ordain euskalduna zen:

“una pieca...en...gayuportillua” (1614)<sup>3054</sup>

“Mas otra pieza...en el terno llamado Gaiuportilloa tente a...camino que ban â Savaiza” (1723)<sup>3055</sup>

3048 PRA-Oibar, 8. k.

3049 Cf. **Getze** Ibargoiti eta **Galarren**, erdarazko **Salinas**-en baliokide, eta **Jaitz Gesalaten**, izen beraren ordain.

3050 J. M. Jimeno Jurío, TCPCC, 332 eta 353-353. orr.

3051 PRA-Oibar, 2. k-bis.

3052 Id., 23. k..

3053 Id., 6. k.

3054 Id., 18. k.

3055 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 926. org.

**Galtzada:**

**Galtzada**, Ibon Sarasolak dioenez<sup>3056</sup>, ‘harriz, bereziki harri landuz egindako bidea, bide lauzatua’ da. **Bidea** gure alderdian bide estu meharrak<sup>3057</sup> eta bide zabalak<sup>3058</sup> adierazteko erabiltzen zen; honen ondoan **Errepidea** edireten dugu herri batzuetan erdarazko **Camino Real**-en ordaintzat, **Galtzada**-ren antzeko adieraz<sup>3059</sup>.

**Galtzada**-ren jatorria latin bulgarreko \***calciata**-ren eratorria den gaztelaniazko **calzada**-n bilatu beharra dago. Mailegu zaharretan ohizkoa den gisa, hasierako herskari ahoskabea ahostundu da (cf. halere, **Calchadaqua**, **Calchadacoa** 1722 eta 1807an, 1723ko **Galchadacoa**-ren parean<sup>3060</sup>), eta albokariaren ondoko igurzkaria afrikatu (agerraldi guztietan **-ch-** dugu. Cf., adibidez, Uxueko **Andremucho**, **Andrebucho** < \***Andrebutzu**. Ikus **Grafia kontuak** atala).

**Galtzada Camino de Pamplona edo Irunbidea zen:**

“otra pieza en el terno Galchada...que afronta...con...camino que se ba a Pamplona” (1775)<sup>3061</sup>

**Galtzadakoa:**

**Galtzada** izena, **-ko** leku-denborazko genitiboaren morfema, eta artikulua ditugu toponimo honetan. Dirudienez, \***Galtzadako** alorra-ren moduko sintagma baten laburketa da:

“otra Pieza...en el terno de Calchadaqua theniente a...camino que ban a Pamppna” (1722)<sup>3062</sup>

“otra pieza...en Galchadacoa” (1723)<sup>3063</sup>

**Garaizarra:**

Honen osagai gardenak **garai** ‘lau haberen gainean eta erxetik berex egiten den aletegia’<sup>3064</sup> izena eta **zaharra** izenondoa dira:

---

3056 HLEH.

3057 Uxuen, kasu, **Bidemakurra**-k gaurko errepidetik teileriaraino doan bidexka izendatzen zuen. Gainera hor daude **Bidertxi**, **Bidertxiburua** (Ageza...) bezalako toponimo adierazgarriak.

3058 Esaterako, herri batetik bestera zihoazen bideak, edo Iruñera zihoan **Irunbidea** Leatxen bertan.

3059 Honela dio Jimeno Juríok (THET, 62. or.):

“En el reino de Navarra los caminos eran de tres clases: reales, vecinales y senderos. Los **Caminos reales** iban de pueblo a pueblo y su cuidado corría a cargo del Patrimonio real; el concejo solía convocar auzalanes en los que participaba «de cada casa uno, según costumbre, para dreçar caminos reales y malos pasos»... Los **Caminos vecinales** y **sendas** o **senderos** conducían a los parajes del término local. Unos y otros debían tener determinada anchura”.

3060 Honetan erdarazko **calzada**-ren eragina egon dela suposa dezakegu, baina euskararen barruko bilakaera ere izan zitekeen: cf. Arizkungo **Kostartzua** < **Gorostartzua** baserri-izena.

3061 PRA-Oibar, 70. k.

3062 Id., 37. k.

3063 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 934. org.

3064 Ibon Sarasola, HLEH. Garai hauek Elizaren dekuma edo hamarrenak gordetzeko erabiltzen ziren toki askotan. Baliteke Leatxen eta Morionesen ere hala izatea.

“ytren una huerta...en el termino de garayzarra” (1614)<sup>3065</sup>

Morionesen **Garaiondoa** toki-izena dugu, eta Orba auzo-ibarrean oraindik ere zutik dago Iratxetako garai eder famatua.

Testuinguruek erakusten duten moldean, **Garaizarra** Oibarko bidearen ondo-ondoan zegoen, herriaren aldirietan:

“otro Huerto en Garaizar...theniente al Camino que se ba a Aybar” (1719)

### Garziaginenkorraleta:

Ikus leku-izen honetaz -eta atzizkiari eskainitako atalean esan dena:

“Ytten otra piª en el camino de yldonba y garcia ginen corraleta” (1602)<sup>3066</sup>

**Garziaginenkorraleta** egungo **Korraleta**-ren aitzindaria izan daiteke, dokumentazioko **Auntzenkorraleta** bera agian.

### Gardelainbidea:

Erdarazko **Camino de Gardelain**-en baliakide euskalduna zen hau:

“otra pieza...en el terno de gardelainbidea tente a...camino de Gardelain” (1723)<sup>3067</sup>

Hemen **Gardalain** dugu, baina esan moduan, **Gardelain** azaltzen da dokumentazio zaharrean:

“otra piª en el camino de gardelaynbidea” (1602)<sup>3068</sup>

### Gatzarrieta:

**Gatzarri** (< **gatz** + **harri**) izena eta -eta atzizkia ditugu hemen:

“Mas otra pieza...en el termino de Gacharrieta” (1730)<sup>3069</sup>

**Gatzarrieta**-ren lekuko gehienek euskarazko [c] bizkarralbeolare afrikatuaren adierazle den -ch- digrama aurkezten dute. Notatzekoa da, bestalde, hasierako herskari ahostuna ahoskabe dela zenbaitetan:

“otra pieza...en el terno de Cacharreta” (1722)<sup>3070</sup>

Hau **Galtzada(koa)** / **Kaltzada(koa)** bikotean aurkitzen dugun gertakari bera dela uste dugu (ikus sarrera horiek)<sup>3071</sup>.

3065 PRA-Oibar, 18. k.

3066 Id., 10. k.

3067 IEA, 1765, 9. zkia., 929. or.

3068 PRA-Oibar, 10. k.

3069 Id., 42. k.

3070 Id., 37. k.

3071 **Galtzada** > **kaltzada** bilakaeran erdarazko **calzada**-ren eragina soma genezakeen moduan, hemen ca-

Gaur **Katxarrietas** [kãčãrjétaš] edo **Katxarretas** [kãčãrétaš]<sup>3072</sup> bilakatua den hau **San Juan, Otabera, Ugarka, Aranzulo** eta **El Monte**-ren artean dago, eta antzina **Done Xurio** ere mugakide zuen. **Gatzarrieta** ondoan **Las Saleras** dermioa dugu.

#### Gesalaga:

**Gesal** ‘ur gazia’, ‘gatza’ izenez eta **-aga** atzizkiak osaturik dago 1193rako dokumentatzen den hau<sup>3073</sup>. **Gesalaga**-rekin batera **Gezalaga** ere agertzen da<sup>3074</sup>.

Esan bezala, **gesala** oso izen arrunta da toponimian, eta erdarazko **salera** edo **salobre**-ren ordain izan daiteke (ikus aurreko sarrera). Zaren azken izen hau dugu **Salobreta** toponimoan (ikus sarrera hau).

Egun **Salaga** [sãlága]<sup>3075</sup> deritzanak **Korteko euntzea, El Hondo, Kapana** eta **El Prado de Zaldu**-rekin mugatzen du, eta beraz **Las Saleras** eta **Gatzarrieta**-tik berezi beharra dago. Hasierako silabaren galtzea **Gesalaga** > **Desalaga** desitxuraketaren (edo disimilazioaren?) ondorea da, hasierako **De-** hori, nonbait, erdarazko preposizioztat hartu baitzen “termino de salaga”, “camino de salaga” eta antzekoetan:

“en el tterno...llamado Desalaga” (1767)<sup>3076</sup>

“una viña...en...Salaga” (1770)<sup>3077</sup>

#### Gesalagabidea:

**Gaurko Camino de Salaga**-ren kide euskalduna zen:

“otra pieza...en el terno llamado desalagabidea tente a la dha senda...” (1723)<sup>3078</sup>

#### Gizaiduri:

**Giza** (< **gizon**, elkartetan) eta **iduri** ‘irudi’ izenak ditugu **Iziduri** [iθidúri] bilakatu den honetan, eta bitxia irudi balezake ere, hor dugu antzina **Gizairudiaga** zen<sup>3079</sup> **gaurko Izurdiaga**, Irurtzun ondoan:

“ytten otra pi\* en la endreçera llamada guiçaiduria” (1593)<sup>3080</sup>

---

**charro**-rena ere soma liteke, azken garai honetan gutxienez: cf. **Gazarricoa** 1837an Azterainen, **Gacharricos** 1880an, **Cacharricos** orain (Jimeno Jurío, TCPCC, 103. or.). Hasierako lekuean herskari ahoztun / herskari ahoskabe txandakatzea dugunean zaharrena, orohar, lehena izaten da, baina ahoskabea ere oso goiz azaltzen da batzuetan (cf. **Korteko euntzea**). Bestalde, oso arrunta da euskal toponimian aurreko **g-** batetik atera den **k-** aurkitzea gure egunotan.

3072 Jatorrizko formatik hurbilago dagoen lehen aldaera informatzailerik zaharrenak eman zigun.

3073 **Guesalagua** itxurapean azaltzen da. Lacarra, VM, 36. or.

3074 PRA-Oibar, 28. k.

3075 Herri etimologiak ere zerikusirik eduki izanen du hasierako silabaren galeran. Izan ere, garbi dago jendeak erdarazko sal ‘gatza’-rekin lotzen duela, bertan honetatik bada eta.

3076 PRA-Kaseda, 21. k.

3077 PRA-Oibar, 68. k.

3078 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 918. or.

3079 Lacarra, OV, 253. or., FHV, 116. or., NHI, 78-79. orr. Bizkaian berriz, **Gizaburuaga** herria dugu. Honelako toki-izenen funtsaz, alegia, hauen sorreran egon daitekeen arrazoiak ikus PT, 127-128. orr.



Arakilgo herri-izenean bezala hemen ere azkar asko galdu zen hasierako belare ahostuna, eta Yziduria (1705)<sup>3081</sup>, Yziduri (1715)<sup>3082</sup>...bezalako aldaerak sortu ziren. 1768ko Ychiduri<sup>3083</sup> Itxudur-ekiko nahasketatik aterako zen. Azpimarratzekoa da izenaren d-r segida<sup>3084</sup>.

Gizaiduri Camino de Gardelain-en inguruan dago, Sandiandore eta Gaiuren artean, Otabera-tik gertu.

#### Gorrillonar, hoyo del:

Iribarrenek dioenez<sup>3085</sup>, gorrillón 'elorri zuria' da Orotz-Betelu eta Aezkoan, eta 'basarana' Nabaskoze aldean. Guk Leatxen eta Bizkaian ere aurkitu dugu, 1894eko katastroan aurrenekoz.

Hoyo del Gorrillonar (Hoyo del Gurrillonar ere aditu dugu) El Monte-ren barruan dago, El Berro eta Silekua-ren artean. Dermio honetatik ez oso urruti Elordia eta El Odiko daude.

#### Gurutzeta:

Gurutze izena eta -eta atzizkia ditugu hemen. XVIII. mendean baizik ez da agertzen, eta ez dakigu non kokatu behar den:

"y la otra (pieza) en el termino de Gurucheta" (1720)<sup>3086</sup>

Morionesko mugan Guruzeta-ren aldaera izan daitekeen Crucetas dugu, eta herritik gertu beste herriren batean (Uxuen, adibidez) El Camino de las Cruces-en baliokidea den El Calvario.

Ditugun lekukoek ch digramak, Agezako gaurko Brutzeta-ren [č]-k bezala, izen hau [c]-z ahoskatzen zela segurtatzen digu:

"otra pieza en el termino de Gurucheta cerca de la peña" (1752)<sup>3087</sup>

#### Hondo, el:

3080 PRA-Oibar, 7. k-bis.

3081 Id., 30. k-bis.

3082 Id., 34. k.

3083 Id., 67. k.

3084 Sarasolaren arabera iduri batez ere Iparraldean erabiltzen da. Beste izen batzuek bezala, honek ere Nafarroako ekialdea hartzen zuela dirudi, Iparraldea ezezik. Lizarraga Elkanokoak ere iduri erabiltzen du: "premiotán guieldituomenzé Jesus onarén idúria imprimituric oialgártan...", UIGPL, 51. or. Zaraitzun ere iduri dute. Ikus Mitxelenaen "Un Catecismo salacenco", 37. or.: "Aren iduri, edo semejanabat...".

3085 VN.

3086 PRA-Oibar, 36. k.

3087 Id., 64. k.

Ez dugu sekulan dokumentazioan aurkitu, eta toponimo berria dela dirudi. Oibarko errepidearen alboan dagoen zuloa adierazten du, **Larreandia**, **Las Pomerias**, **El Puente viejo**, **Nobeletaondo**, **Korteko euntzea**, **Kapana** eta **Gesalaga**-ren artekoa.

**Idolba:**

Ez dakigu zein izan daitekeen izen honen etimologia. **Irunbidea** eta **Camino de Itxudur** bertatik igarotzen ziren (ikus bi sarrera hauek).

**Idozabal (llano de):**

**Idoi** ‘baltsa’ eta **zabal** ‘zabal’, ‘zabaldia’ ditugu hemen:

“Ytten otra pi<sup>a</sup>...en Ydocabal” (1592)<sup>3088</sup>

Lehen osagaiak elkarketa-erartoketan bokalerdia gal dezake (**Idoate**, **Idoeta**...); bigarrena toponimo honetan izena dela uste dugu, ez izenondoa:

“otra pieza...en el llano de ydozaval” (1719)<sup>3089</sup>

Egun **Irozabal** [iɾoθáβal] esan ohi da, **d** / **r** nahasketa arruntaz. Azken hau, dena den, aspaldiko gertakaria da (ikus **Komunburua** sarrera).

**Idozabal** Gardelaingo mugan dago, eta **Las Raboseras**, **Tras de Itxudur**, **Otabera**, **Berroberrieta**, eta **Komunburua** (cf. **Llano de Komunburua**) ditu mugakide. Herriko zaharrenek ere ez dute idoirik ezagutu bertan; baltsarik hurbilena gorago aipatu **Balsica de Pepe** izenekoa zen, baina hau **Komunburua**-ren barruan zegoen, nahiz **Idozabal**-eko mugan.

**Igaraz (monte de):**

Leku-izen hau **igara** ‘eihera’ (< **igo** ‘eho’, **eihera** < **eiho**, **eho** bezala)-ren eratorria izan daiteke<sup>3090</sup>, baina gure eskualdean beti errota ediren dugu. Gainera **igara** eta **-tz(e,a)** atzizkiaren elkarketa bitxi samarra litzatekeela ezin daiteke uka. Etimologia azaltzeko beste bide bat **igaro**-rekin lotzea da, **\*igaratze** ‘pausua, pasabidea’ moduko aditz-izen batekin (cf. **igaran** ‘igaro’ aditza eta **iragaitze**, **iragaitza** izena)

**Igaraz monte** generikoaren ondoan ageri da 1719an:

“otra pieza...sobre el monte de ygaraz” (1719)<sup>3091</sup>

eta **-burua**-rekin elkartua 1634ean:

“otra pieza en ygarasburua”<sup>3092</sup>

3088 Id., 6. k.

3089 PRA-Kaseda, 19. k.

3090 AV, 100. or.

3091 PRA-Kaseda, 19. k.

3092 PRA-Oibar, 23. k.

Leatxetik hurbil dagoen Abintzaon **Ygalas** dugu 1788an<sup>3093</sup>, eta **Ygalacha** 1824 eta 1827an<sup>3094</sup>.

#### Igarazburua:

**Igaraz** toponimoaz eta **burua** 'gaina'-z osaturik dago. Aipatu dugun **Monte de Igaraz**-en euskal baliokidea izan daiteke.

#### Iglesia, barrio de cabe la:

Eliza ondoko auzoa zen:

"una cassa...en el barrio llamado cabolayglessia" (1596)<sup>3095</sup>

#### Iguzkiagerria:

Gaurrengungo **Izkaerdia** [iθkaẽrdja] Moriones, Ezporogi eta Zareko muga dago, eguteran, eta ez da dudarik dokumentazioko **Iguzkiagerri(a)**-rekin identifikatu behar dela:

"La una (pieça)...en el termino que llaman Ygusqui agerria" (1654)<sup>3096</sup>

"Mas otra (pieza)...en Eguzquiagerria, que afronta con la Muga de Moriones y dho Camino" (1768)<sup>3097</sup>

1783ko **Yzcaguerria-k**<sup>3098</sup> eta 1797ko **Yruzcagueria-k**<sup>3099</sup> bitartekari lana egiten dute. Behin gutxienez -g-ren ordeztu -r- duen aldaera aurkitzen dugu:

"otra pieza...en el terno de yruzquiagerria" (1708)<sup>3100</sup>

**Iguzkiagerria-k** aipatu auzo herriekin ezezik, **La Facería** (alta), **Zalduzaretta**, **Gaiu** eta **Santa Finia**-rekin ere mugatzen du. Mendiaren beste isuraldeari (faze-riari, alegia) **Opakoegia** deitzen zitzaion antzina.

#### Irigoiena (barrio de):

Erdarazko **Barrio alto**-ren ordain euskalduna da:

"...en el barrio llamado yrigoyen" (1587)<sup>3101</sup>

3093 Id., 75. k.

3094 Id., 100. eta 109. karpetak.

3095 Id., 9. k.

3096 Id., 26. k.

3097 Id., 67. k. **Eguzki-** lekuko honetan baizik ez da ageri. Gainerakoetan beti **Iguzki-** (edo **Iruzki-**) dugu, desitxuraketak bazter batera uzten baditugu behinik behin. Hau, Mitxelenaren arabera, ekialdeko euskalkietan eta berak "meridional" deitzen duen barietatean azaltzen da (FHV, 64-65. orr.).

3098 PRA-Oibar, 73. k.

3099 Id., 82. k.

3100 Id., 31. k.

3101 Id. 25. k.

Inguruko alorrak ere **Irigoiena**-n sartzen ziren:

“otra pieza...en el terno llamado Yrigoiena” (1723)<sup>3102</sup>

**Iriondoa (barrio de), (eras de):**

Agezako Coseras aztertzean esan dugun moduan, **Iriondoa** erdal izen horren ordain euskalduna izan zitekeen:

“assi bien otra pª en yriondoa” (1533)<sup>3103</sup>

**Iriondoa** herriaren goiko aldean zegoen, lehenago **San Martín** ermitaren alboan, eta beraz **Barrio de San Martín** eta **Barrio de Iriondoa** auzo bera zirela garbi samar dago. Dokumentazioan ikusten denez, errekaraino iristen zen:

“pieza en el term de Iriondoa teniente a las eras de Iriondoa y al varranco” (1723)<sup>3104</sup>

Larrain hauek egungo **Debajo de las Eras** sarrerako **Las Eras** izan zitezkeen, **Iriondoa**-k **Camino de Moriones**-ekin ere mugatzen zuenez gero (ikus sarrera hau). **Torre de Iriondoa**, esan gisan, **Dorreko itxaurraldea**-n dugun **Dorre** bera bide da (ikus sarrera hau eta **Clavería**).

**Irunbidea:**

**Camino de Pamplona** erdaldunaren ordain euskalduna da. Osagai gardenak **Iruñ(e)**-aren elkartetako **Irun-** (**Iruin-**, **Iruñ-** beste barzuetan<sup>3105</sup>. Cf., adibidez, **Eslabako Iruinportillua**-ren aldaerak) eta **bidea** dira.

**Irunbidea Done Xurio**-n barrena zihoan:

“otra piª en yrunbidea en donejulio...que afronta con...camino puco” (1605)<sup>3106</sup>

Zernahi ere den, badirudi bi **Irunbidea** edo **Camino de Pamplona** zeudela, nahiz Izkoko mugatik hurbil biek bat egiten zuten: bata **Idozabal** eta **Komunburua**-n gaindi zihoan (egungo **Camino de Pamplona**), eta bestea **Done Xurio**, **Gatzarrieta**, **San Juan** eta **Fuente de la Losa**-n zehar. Biotako bat **Galtzada** zen.

**Iturrinagusia (fuente de):**

**Iturri** izenaz eta **ngusia** ‘handiena’ izenondoaz osaturik dago. Non zegoen ikusita, gaurko **Fuente de Otano**-rekin identifika daitekeela uste dugu:

“otra pieza...en el termino de Amaya teniente al Camino del paso a la fuente de yturriausea al rio Concegil” (1807)<sup>3107</sup>

3102 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 919. or.

3103 PRA-Oibar, 2. k-bis.

3104 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 930. or.

3105 Ikus Jimeno Jurfok “Pamplona y sus nombres” artikuluan (FLV, 57, 1991, 55-76. orr.) aipatzen dituen aldaerak.

3106 PRA-Oibar, 15. k-bis.

3107 Id., 91. k.

Aipu hau berandu samarrekoa da, eta ez dakigu belarearen galtzapena euskararen barruko gertakaria den. 1605ean -g- dun aldaera azaltzen da:

“otra pieça en yturinagusia” (1605)<sup>3108</sup>

#### Iturritxikia:

Hasiera batean erdarazko **La Fuentica**-ren (= **La Fuente de Leoz**) euskarazko ordaina zela pentsatu bagenuen ere, testuinguruak garbi erakusten du Morionesko bidean zegoela, ez **Sabaitzabidea**-n, erreka baten ondoan, antza, bertan liguerrriak bai baitziren. Aurreneko lekukoa 1593koa da:

“una piª...en yturrichiqui...que afrenta...con...camino que ban a moriones”<sup>3109</sup>

XVIII. mendearen azken aldean desitxuraketa itzela nozitu zuen, euskararen desagertzearen ondorioz: **urtichiqui** dugu 1782an<sup>3110</sup>, **urtuchiqui** 1790ean<sup>3111</sup>, **ortuchiqui** 1833an<sup>3112</sup>... Azkenekoz Eleizalderen zerrenda ezagunetan aurkitzen dugu, 1919an, euskal grafiaz idatzia, **Urtitxiki** itxuraz. Egun ezezaguna da.

#### Itxudur (monte de), (detrás de), (tras de):

**Itxudur**-en etimologia ilun dago guretako. 1683an **Ysudur** dugu<sup>3113</sup>, 1718an **Ychudurra**<sup>3114</sup>, 1841erako **Itxidur** bilakatua zen, eta 1894ean<sup>3115</sup> eta 1919an<sup>3116</sup> **Echidur**, **Etxidur** itxuran azaltzen da. Gaurregun **Tras de Txidu(r)** [tràsdečídu(r)] da toponimo honen forma.

**Tras de Itxudur** lehengo **Monte de Itxudur**-en atzeko aldea da, alegia, Irangoteko muga ondo. Aurkitu ez dugun **\*Itxudurgibela** baten itzulpena dirudi:

“una pieza sita en el termino de tras ichudur devaxo del camino que ban a Gardalain” (1704)<sup>3117</sup>

**Monte de Itxudur**<sup>3118</sup> **Idozabal** edo **Komunburua**, **Tras de Itxudur**, **Sandiandore**, **Ugarka** eta **Otabera**-ren arteko mendia zen.

---

3108 Id., 15. k.

3109 Id., 7. k-bis.

3110 Id., 72. k.

3111 Id., 76. k.

3112 Id., 133. k.

3113 PRA-Kaseda, 2. k.

3114 Id., 18. k.

3115 Katastroa.

3116 LVTV.

3117 PRA-Oibar, 30. k.

3118 Id., 8. k., 1594.

**Itxudurbazterra:**

Aurreko dermioko bazter bat zen, baina ez dakigu zein:

“la pieça...en la endrecera llamada ychudur bazterra” (1592)<sup>3119</sup>

**Itxudurbidea:**

**Itxudurbidea Camino de Pamplona** edo **Irunbidea**-ren zati bat zela dirudi:

“otra pieza...en el terno de Ychudurbidea tente a Rio Concejil” (1723)<sup>3120</sup>

**Izco, alto de:**

1827an ageri da aurrenekoz:

“un campo...en el alto de Yzco”<sup>3121</sup>

Izkoko mugalde menditsua izendatzen du, **Muga de Gardelain**-etik Oibar, Olatz, Izko eta Leaxeko bereko mugak bat datozen **Cuatro Mugas** eta **Berdeaga**-raino.

**Jardín, el:**

**Barranco de Zalduzarreta** ondoan dago, **El Bural**-en aldamenean. Ez dugu sekulan dokumentazioan ediren, eta berri itxura nabarmena du. Baliteke beste toki askotako toponimian oso arrunta den **Ber(t)xera** edo **Berjera** baten ordezkotzat izatea (cf. **El Vergel Uxuen**). Dena den, Euskaraz (t)**xardina** ere erabili da: cf. Ihelzko 1596ko **Char-din alorra**<sup>3122</sup> eta honen ondoko Azpa herriko egungo **Txardinalor** [čārđinalōr].

**Juego de Pelota:**

Gaurko **El Frontón** edo **El Rebote**-ren baliokidea da:

“una cassa vezinal con su Huertta...en el paraje que llaman Juego de pelota” (1770)<sup>3123</sup>

**Kaltzinalabea:**

Izen hau beste toki batzuetako **kisulabea**<sup>3124</sup> edo **karobia**-ren kidea da, eta **kalzina** ‘gal(t)zina’ eta **labea**-z dago osaturik. Lehen elementua gaztelaniako **calcina**-tik hartua da, eta hau, bere aldetik, katalaneratik<sup>3125</sup>. Behin bakarrik ediren dugu, hasieran belare ahoskabea eta dardarkariaren ondoan z duela:

“otra pieza...en Calzina labea” (1719)<sup>3126</sup>

3119 Id., 6. k.

3120 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 928. or.

3121 PRA-Oibar, 109. k

3122 PRA-Urrotz, 5. k.

3123 Id., 68. k.

3124 Cf., adibidez, Etxarrego **Kisulabe** toponimoa. Ikus honetaz Agezako **Motxiturria** sarreran esan duguna.

3125 Corominas, DCELC.

3126 PRA-Kaseda, 19. k.

Gure eskualdean Leatxeko toponimo honetaz landara 1849ko Artetako **Cantinalabe** desitxuratua besterik ez dugu.

#### **Kapana:**

Izen honek ardantzeen ondoko muinoetan zuhaitz-adar eta sastrakaz egiten ziren aldi baterako etxola modukoak adierazten zituen. Bertan ardantzezainak babesten ziren, mahatsa heltzen zenetik harik eta bilketa-garaia bukatzen zen arte, zelatan zeuden bitartean<sup>3127</sup>.

Leatxen bi aldiz dokumentatu dugu **Kapana** eta behin honen jatorrikidea den **Cabaña**. Lehen lekukotasunean **Capana** dugu, baina bigarrenean, herri-etimologiaz edo, **Campana** agertzen da<sup>3128</sup>:

“otra viña...en el terno de Campana...afrenta con vinas” (1763)<sup>3129</sup>

1919ko katastroan **Campana** azaltzen da, eta egun ere **Kanpana** [kampána] esaten da. **Gesalaga** eta **Zaldu**-ren arteko gain batean dago, **Korteko euntzea**-ren alboan.

#### **Kasedabidea:**

Izen honetaz gaurko **Camino de Caseda** adierazten zen, 1723ko agerraldian argi eta garbi ikusten den bezala:

“Ms otra pieza...en el terno de Caseda videa tente. al camino q ban á Caseda”<sup>3130</sup>

Honek garbi uzten du **Caseda** herriaren izena euskaldunen ahotan **Kaseda** zela, hots, erdaraz erabiltzen den berbera, ebakitzeko moduan alde zerbait egon bazitekeen ere.

1807an oraindik ere bizirik zegoen **Kasedabidea** / **Camino de Caseda**-ren arteko baliokidetasuna:

“otra pieza...en el termino de Casedavidea o camino de Caseda”<sup>3131</sup>

Bertan **San Pedro** ermita egun desagertua zegoen.

3127 Jimeno Jurío, THET, 56-7. orr. Honela jarraitzen du:

“En la zona vascofona han sido conocidas hasta nuestros días como «kapana», «la capana», que ha quedado como topónimo aplicado al cabezo donde fue costumbre colocarla. La choza provisional quedó en muchas partes reducida a una rama de árbol, o a un palo con unas matas en la punta, colocados por los guardas en lo alto del cabezo, como señal de prohibición de acceso de personas y animales a las viñas”.

3128 Hau arrunta da beste eskualde batzuetako toponimian; Jimeno Jurío (THET, 56-57. orr.) dioenez: “En algunos casos (kapana) ha dado «campana» por asimilación a una voz muy conocida: **Campana del guarda** (olleta); **La campana** (Maquirriain, El Pueyo), **Campanita** (leoz)”.

3129 PRA-Oibar, 62. k.

3130 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 915. or.

3131 PRA-Oibar, 91. k.

**Kaskallueta:**

**Kaskailu** ‘cascajo’ izena eta **-eta** atzizkia ditugu toponimian oso hedatua dagoen honetan:

“una pieza...en el terno de Cascallueta” (1731)<sup>3132</sup>

Esan bezala, erdarazko **Cascajo** edo **Los Cascajos**-en ordaina izan daiteke (ikus bi sarrera hauek). 1647ko **Detras de los Cascaxos** 1719ko **tras de Cascallueta**<sup>3133</sup>-ren baliokidea dela dirudi. 1894ean bizirik zegoen, baina orain ezezaguna da.

Honen (eta **Los Cascajos**-en) kokaguneaz ikus **Mendibil** sarrera.

**Komunburua (cerros de), (llano de):**

**Komun** ‘común’, ‘herri-lurra’ eta **burua** ‘gaina’-z osaturik dago<sup>3134</sup>:

“una pieza...en el termino de Yrozabal ô Comonburua theniente â Camino Rl que se ba a Pampna” (1732)<sup>3135</sup>

1769an **Comun borua** eta **Conmunburua** ditugu<sup>3136</sup>, 1775ean **Comunmurua**<sup>3137</sup>, 1833an **Comomura**<sup>3138</sup>, eta 1894eko katastroan egungo **Komulga** [komúlga] aldaera desitxuratua (herri-etimologiaz?).

**Komunburua Barranco de la Fuente de la Losa, El Pollizar** eta **Gardelaingo** mugaren artean dago. **Cerros de Komunburua** bertako gainak dira, “**Corral de Chibarro**” aldea, eta **Llano de Komunburua Idozabal** eta aipatu **Cerros de Komunburua**-ren arteko zelaia da.

**Korostia:**

1894eko katastroan baizik ez dugu ediren izen hau.

**Korraleta:**

**Korral(e)** ‘gortea’ izena eta **-eta** atzizkia ditugu hemen:

“otra (pieza)...en Corraleta” (1752)<sup>3139</sup>

---

3132 Id., 42. k.

3133 PRA-Kaseda, 19. k.

3134 Cf. Kasedako 1692 eta 1807ko **Baldecomun** (PRA-Kaseda, 6. eta 40. karpetak, hurrenez hurren). **Bernardo M<sup>e</sup> Garro** auza-lurrek euskaraz dituzten izenak aztertzen ari dela Bizkaiko Ereñoko **Mendi-komune** toponimoa aipatzen du, berria dela gaineratuz (BRSVAP, 1957, XII, 214-219. orr.). Aztergai dugun **Leatxeko toki**-izena ordea, zaharra da, hemen ikus daitekeen moduan.

3135 PRA-Oibar, 43. k.

3136 Id., 67. k.

3137 Id., 70. k.

3138 Id., 113. k.

3139 Id., 64. k.



**Auntzenkorraleta** aztertzean idaroki den moduan (ikus sarrera hau), badaitke bi leku-izenok bat eta bera izatea, ahunztegiak herrien alboan egoten direnez gero.

**Korraleta** [kõraléta] herriaren ondo-ondoan dago, **Aranzulo** eta **Camino de Balatua (Bidezarra)**-ren artean.

#### Korteko euntzea:

Honen osagai gardenak korte 'korrale', -ko leku-genitiboa, eta euntzea 'larrera' dira.

Lehen osagaiaren hasierako kontsonanteari dagokionez, Uxuen belare ahostuna edireten dugu<sup>3140</sup>, eta Artaxonan ere bai<sup>3141</sup>, gutxienez XVI. mendetik aitzina, Erdi Aroan, c-dun aldakiak azaltzen baitira azken herri honetan. Leatxen ordea, beti belare ahoskabeara duten aldaerak aurkitu ditugu<sup>3142</sup>:

"ytten otra vina en Cortecoeunça" (1592)<sup>3143</sup>

"una viña...en corteco unça" (1650)<sup>3144</sup>

Izen honen usteltze prozesua euskara galdu baino aise lehenago hasi zen, eta 1634erako **Cortecuncea** eta **Cortecunça** aurkitzen ditugu<sup>3145</sup>. Gaurregun **Kortikunzia** [kõrtikúnθja] edo **Kortikuenzia** [kõrtikwénθja] esaten dute leatxearrek, diotenaren jatorrian zer dagoen ez dakitelarik.

**Korteko euntzea Kapana** dagoen gainean barna hedatzen da batez ere, beste aldetik **Barranco de Nobeleta** ondoaren inguruetaraino iristen delarik. **Camino de Caseda** eta **Las Dos Aguas**-ekin ere mugatzen du.

#### Larreandia:

Egungo egunean **Larroandia** [lãrõãndja] edo **Larroandia** [lãrõdãndja] deitzen den hau ez dugu sekulan dokumentazioan ediren, baina begi bistan dago izen zahar euskaldun baten desitxuraketa besterik ez dela. Osagaiak **Larre** 'euntze' izena eta **handia** izenondoa izan daitezke, larre eta euntze asko bezala erreka baten ondoan baitago (**Barranco de Zaldu**-ren ondoan), **Prado de Zaldu** (antzinako **Zalduko euntzea**)-ren alboan.

Guztiarekin ere, bitxia da toponimo euskaldun zaharrak dokumentazioan ez agertzea, eta badirudi gaurko **Larroandia** ustezko **\*Larreandia** batekin lotu ordez agerietan behin baino gehiagotan ediren dugun **Alorrandia**-rekin identifikatu behar dugula (ikus sarrera hau; cf. Lergako egungo **La Lunbiarra**, **Alormearra** dokumentazioan). Bertan, gainera, ez dago larrerik.

3140 Gorte 1608an, Gortederreta 1605ean, eta Gorte erreta 1608an.

3141 J. Jurío, "«Zendeak», «gorreak»...".

3142 Hitz hasierako herskari ahostun eta ahoskabearen arteko txandaketa arrunta da euskal toponimian, leku-izen baten beraren barruan ere, aldaera berriek, orohar, ahostuna aurkezten dutelarik eta zaharrek ahoskabeara.

3143 PRA-Oibar, 6. k.

3144 Id., 26. k.

3145 Id., 23. k.

Dermio hau San Pedro, Zaldu, Gesalaga eta El Hondo-ren artean dago.

#### Latorreanda:

Aldi bakar batez aurkitu dugu, 1852an, eta zalantzakoa da:

"un huertecillo...en el término de Latorreanda teniente á piezas de la Capellania y de la encomienda"<sup>3146</sup>

\*Alto redondo (cf. egungo Cantera redonda) edo (La) Torre edo Dorre izena duen toponimo baten desitxuraketa izan daiteke, baina aipatu Alorrandia-ren ondorengo den Larro(d)andia-rekin ere lot dezakegu.

#### Leatxe:

Ricardo Ciérbide irakasleak Leatxe lea 'grava'-ren gain moldatua dagoela dio<sup>3147</sup>, baina gure ustez herri-izen honen etorkiaren bilaketa beste nonbaitetik bideratu beharra dago. Izan ere, lihoa Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala, oso landare arrunta izan da gure alderdian, bertatik ateratzen baitzen ehuna egiteko lehengaia. Horregatik, erdarazko El Linar, Los Linares, El Pozo de aguar los linos... eta euskarazko Liatzeta, Ligusufieta, Lixufieta, Usufieta eta antzekoak ugariak dira herri hauetako toponimian.

Gure iritziz, Leatxe euskarazko lihatze 'linar', 'liguerri'-ren erdaratzearen ondorena besterik ez da (cf. Iratxe < \*Iratze; Iratxeta < \*Iratzeta<sup>3148</sup>). 1120an Liaxe dugu eta 1035ean Ligixi, latinez idatzitako testu batean hondar hau<sup>3149</sup>. Geroko agerrialdi gehienetan -ea- dugu, arrunta den ia / ea nahasketaren ondorioz (ikus Galipentzuko Liatzeta).

#### Linares, los:

Los Linares ez da sekulan azaltzen dokumentazioan, baina honen kidea izan daitekeen Los Linos 1894 eta 1919an aurkitu dugu. Bi hauek lihoa garbitzeko beharrezkoak ziren putzuak aditzera ematen dituzten Butzuandia, Butzuandietta eta Usufieta toponimoekin lot ditzakegu.

Gaurko Los Linares Rio Oscuro eta Camino de Balatua-ren artean dago, Iturrinagusia izan zitekeen Fuente de las Tercianas-etik gertu. Dena den, dokumentazioari esker badakigu lihatzeak udalerriko alderdi frankotan barreiatuak zeudela (Kasedabidea-n, Iturritzikia-n...).

3146 Agoizko hipotekak, 3, 709. or.

3147 *Toponimia navarra: historia y lengua*, Nafarroako Foru Aldundia, Burlata, 1980, 15. or.

3148 A. Irigoyen Pirinioez harandiko toponimia euskalduna aztertzen ari dela ("Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica", ETTVC, 186. or.) honela mintzo da orain erdalduna den eskualde bateko *Yrache* toponimoaz:

"...en el mismo mapa tenemos, además, *Yrache*, por Seignosse, semejante al conocido *Irache* y a *Yracheta* (1366, PN-XIV, F.Sang., p. 456) en Navarra, seguramente relacionado con vasco *iratze* 'helecho', con base en *ira* más sufijo colectivo *-tze*, por lo que se podría interpretar también como *belechal*".

3149 Ikus NHI, 191. or.

**Linos (fuente de), los:**

Gure alderdiko herrietan 'liho-landa(k)', 'liguerria(k)' adiera duten **El linar** edo **Los linares** aurkitzen dugu maizenik. **Los Linos** Leatxen baizik ez da agertzen, oso berandu (1894ean) gainera. Gorago esan dugunez, euskaraz **Liatze** eta **Liatzeta** erabiltzen ziren.

Eleizalde<sup>3150</sup> biltzen duen **Fuente de los Linos** 1894eko katastroko **Agua de los Linos-en** adierakidea dela dirudi.

**Llano, el:**

**Llano de Idozabal-en** laburketa da (ikus **Idozabal sarrera**).

**Magdalena (basílica de), (cantera de), (costalado de), (cuesta de), (debajo de), (barranco de), (detrás de), (ermita de), (ladera de), (paso de), (portillo de), (tras de), la:**

1594ean aurkitu dugu lehen aldiz:

“otra piª en Junto a la ermita de la magdalena”<sup>3151</sup>

1722an “basílica” izenpean azaltzen da:

“otra pieza...devajo de la basilica de la Madalena”<sup>3152</sup>

**Cantera de la Magdalena** 1659an ediren dugu aurrenekoz<sup>3153</sup> eta gaur ere erabiltzen da, ermita dagoen gaina aditzera emateko. Dokumentazioko **Costalada de la Magdalena**<sup>3154</sup> edo egungo **Costalado** edo **Cuesta de la Magdalena** beste batzuetako **Ladera de la Magdalena**<sup>3155</sup>-ren eta euskarazko **Madalenasaietsa-ren**<sup>3156</sup> adierakidea da, eta ermita dagoen mendiaren herri aldeko mazela adierazten du. **Debajo de la Magdalena-k** ere antzeko zerbait adierazi behar zuen, eta **Junto a la Magdalena** ermitaren ondoko eremua zen. **Detrás de la Magdalena** edo **Tras (de) la Magdalena-k** ermitaren atzeko aldea ematen du ezagutzera, hau da, Oibarko muga aldea:

“Mas otra pieza...tras de la Madalena tente a...rio Conzejil” (1723)<sup>3157</sup>

**Barranco de Detrás de la Magdalena Fuente del Boj-etik** jaisten den erreka dugu, beheitiago **Barranco de Olibeta** izena hartzen duen berbera. **Paso de la Mag-**

3150 LVTV.

3151 PRA-Oibar, 8. k.

3152 Id., 37. k.

3153 Id., 28. k.

3154 Id., 24. k., 1642.

3155 Id., 28. k., 1657.

3156 Ikus **saihetsa-z Dermio baten zatiketa** atalean dioguna.

3157 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 924. or.

dalena<sup>3158</sup> edo Paso debajo de la Magdalena<sup>3159</sup> Camino de Balatua eta Río Oscuro-ren elkargunekoa da (cf. Senda del Paso). Oibarko mugaren ondoan bada beste Paso de la Magdalena bat, Barranco de Olibeta-ren goiko aldean. Portillo de la Magdalena, azkenik, ermitatik hurbil dagoen harrarte modukoa da.

#### Magdalenasaietsa:

Harrigarria izanagatik, hau da Magdalena hagianimoa posposizio euskaldun batez lagundurik azaltzen den toponimo bakarra. Guztiarekin ere, antzeko beste kasu anitz ikusita, lasai esan daiteke aurkitu ditugun erdarazko **Detrás de, Junto a...** eta abarren kide euskaldunak ere bazirela, guk ez ediren arren. Esan moduan, erdarazko **Costalada, Costalado, Cuesta** edo **Ladera de la Magdalena**-ren ordain euskalduna da hau:

“otra pieza...en el termino que llaman Madalena Saecha” (1705)<sup>3160</sup>

#### Matxutxagaña:

Toponimo honetan bigarren zatia argia da, baina ez lehena:

“otra pieza en el paraxe que llaman Machuchagaña”<sup>3161</sup>

#### Mazuela, la:

**Mazuela** mahats mota bat da Iribarren<sup>3162</sup> arabera. Dokumentazioan oso arruntak dira “una viña mazuela...”-ren moduko sintagmak, barietate hau oso hedatua egon zen seinale (cf., gainera, **Barués** Ageza eta Zaren, eta **Garnach** Oibarren).

**La Mazuela** Oibarko errepidearen inguruan dago, bi aldeetan, **La Muga**, **Olibeta**, eta **Mendibil**-en artean. Itxuraz leku-izen berria da.

#### Mendibil (cascajos de):

Honen osagaiak mendi izena eta **-bil** ‘biribil’ izenondoa dira:

“...en la endreçera llamada mendivil” (1587)<sup>3163</sup>

1723rako **Vendibil** bilakatua zen<sup>3164</sup>, egungo **Bindibil** [bĩndĩbil]-erako bi-dean.

3158 PRA-Oibar, 6. k.

3159 Id., 69. k., 1772.

3160 Id., 30. k-bis.

3161 Id., 42. k.

3162 VN.

3163 PRA-Oibar, 3. k-bis.

3164 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 918. org.

**Mendibil**-ek **La Mazuela**, **Mendixuri** eta **Nobeleta**ondoa-rekin mugatzen du. Bertan bada, **El Bural** aldean, dermioari izena ematen dion 562 metroko mendiko biribil bat.

Oso lur kaskailutsua da, eta agian **Los Cascajos** eta **Kaskallueta** hemen kokatu behar genituzke:

“otra pieça en los cascajos de mendibil” (1605)<sup>3165</sup>

### **Mendixuri:**

Gaurregun **Mendijuri** [mɛ̃ɲdixúri] ebakitzen den toponimo hau lehenagoko **Mendixuri** batetik atera da, elkartuaren bigarren osagaian gauzatu ohi den [š] > [x] aldakuntzaren ondorioz. Bigarren osagaian **-xuri** eta **-juri** adierazten ahal duten grafiak ditugu batez ere:

“otra pieça en la endreçera llamada mendiJuria” (1593)<sup>3166</sup>

“otra pieza en el mismo termino de mendisuria” (1691)<sup>3167</sup>

**-Zuri** pare bat aldiz agertzen da (cf. **Eslaba** eta **Lergako Errotaxar**-en **Errotazar** aldaerak), 1647<sup>3168</sup> eta 1752an<sup>3169</sup>, eta 1705eko **Mendichuri**-n<sup>3170</sup> **-txuri** ere izan genezake, baina hau ez da segurua, horren azpian **Mendixuri** [mɛ̃ɲdišúri] ere ezkuta zitekeelako. Leatxeren mugakide den **Oibarren Mendixuri** [mɛ̃ɲdičúri] dugu, beste bilakaera batez, nahiz hemen ere XVI eta XVII. mendeetako grafiek sabaiurreko igurzariaren alde mintzo diren. Honela bada, toponimo euskaldun beretik bi bilakabide ezberdin ditugu: [š] > [x] Leatxen (cf. **Usobidea** Agezan, **Usubide** Eslaban, **Jubidea** Murillon), eta [š] > [č] Oibarren (ikus Agezako **Motxiturria** sarrera).

**Mendixuri**-k **Oibarko Mendixuri**-rekin eta **Leatxeko bereko Las Dos Aguas**, **Nobeleta**ondoa, **Mendibil** eta **La Muga**-rekin mugatzen du.

### **Mojón de Aibar, el:**

Oibarrekiko muga luzea adierazten zuen:

“viña en el mojon de Aibar afrontada con camino real que ban a la villa de Aibar” (1683)<sup>3171</sup>

### **Mojón de Irangote, la:**

Bizkaiko despoblatuko muga aldea zen, **Santa Finia** eta **Tras de Itxudur** alderdietakoa:

3165 PRA-Oibar, 15. k-bis.

3166 Id., 7. k-bis.

3167 PRA-Kaseda, 6. k. Hau **Mendizuria**-ren ordezkartzaile ere izan daiteke, s / z nahasketak dokumentazioan ugariak izaki eta.

3168 PRA-Oibar, 25. k.

3169 Id., 57. k.

3170 Id., 30. k-bis.

3171 PRA-Elo, 10. k.

“ytten otra pi\* en el mojon de yrangot” (1594)<sup>3172</sup>

**Molinazos, los:**

Euskarako Errotaxarra edo Errotaxarreta-ren erdarako kidea zen egun ezezaguna den hau (ikus bi sarrera hauek).

**Monte, el:**

Oraingo El Monte (antzinako El Monte (de Aritzandiet)) Aranzulo-tik Elordia eta La Balsa vieja-raino luzatzen den mendia da:

“pieza en la Articas viejas afrontada con Monte del lugar” (1683)<sup>3173</sup>

Aritzandiet sarrera aztertzean esan dugunez, antzina haritzez galkatua zegoen, eta txaparrak ere ez ziren gutxi.

**Muga, la:**

La Muga Oibarrekiko mugaren zati bati esaten zaio, hain zuzen ere Oibarren La Muga de Leache deitzen dutenaren parean dagoenari, Olibeta, La Mazuela eta Mendixuri-ren ondokoari.

**Muga de Aibar, la:**

Auzo herri horrekiko muga guztia adierazten du honek, Mojón de Aibar-ek bezala. 1659ko lekukotasunean, dena den, Gabaran aldea ematen du aditzera:

“otra pieza en gabaran...teniente a la muga de aybar”<sup>3174</sup>

**Muga de Gardelain, la:**

Muga de Gardelain, berez, Bizkaiko Gardelain despoblatuarekiko muga osoa zen, Itxudur-etik Alto de Izco-raino:

“una pieza...en yrazabal tenite...con la Muga de Gardelain y...con el Monte de este lugr de Leache que llaman Ychudur” (1708)<sup>3175</sup>

Zernahi gisaz, Agezako Muga de Sada-rekin edo Leatxeko bereko La Muga-rekin agitzen den moduan, oraingoan ere Muga de Gardelain-ek muga osoaren puska bat (goi aldekoa) eta puska horren inguruko lurrak ematen ditu aditzera. Azken zati honek Alto de Izco du gainean, eta Komunburua azpian. Mendebaldean berriz Gardelaingo lurrak daude, eta ekialdean Fuente de la Losa eta Berdeaga.

---

3172 PRA-Oibar, 8. k.

3173 PRA-Elo, 10. k.

3174 PRA-Oibar, 28. k.

3175 Id., 31. k.

**Muga de Irangote, la:**

**Mojón de Irangote**-ren kidea da. 1894eko katastroan **Muga de Irangoiti** itxuraz azaltzen da, baina dokumentazioan ohizkoa **Irangote** da, eta Morionesen oraindik ere horrela esaten zaio:

“una pieza...en la muga de yrangote” (1684)<sup>3176</sup>

**Muga de Izco, la:**

Izkorekiko muga txikia da, udalerriaren iparraldeko mutur bat baizik ez, **Cuatro Mugas-etik Alto de Izco**-raino:

“otra pieza...en la muga de Yzco” (1719)<sup>3177</sup>

**Muga de Moriones, la:**

**Iguzkiagerria, Gaiu, eta Santa Finia** alderdiak hartzen ditu. 1593ko lekukotasuneko **Muruaran** toponimoa Morioneskoa da (ikus sarrera hau):

“ytten otra piª en la muga de moriones terª llamado muruaran” (1593)<sup>3178</sup>

**Muga de Sada, facería de la:**

**Gaurko Facería** da

“otra pieza...en la fazeria de la Muga de Sada” (1722)<sup>3179</sup>

**Nabeta:**

Aldi bakar batez ediren dugu. Osagaiak **naba**<sup>3180</sup> ‘lur behe zelaia, aldika zingiratsua eta maizenik menditartekoa’<sup>3181</sup> edo ‘mendi ondoko lautada handia’<sup>3182</sup> eta lekugaritasunezko **-eta** atzizkia bide dira:

“una biña...en la endreçera llamada nabetta” (1589)<sup>3183</sup>

**Alabaina**, ezin dugu osotara baztertu **-eta** hori txikigarri erromantzea delako ustea.

---

3176 Id., 25. k.

3177 PRA-Kaseda, 19. k.

3178 PRA-Oibar, 7. k-bis.

3179 Id., 37. k.

3180 Ikus Eslabako **Nabarana** sarreran honetaz dioguna. Ikus gainera **Zareko Naba** eta **Nababarrena**.

3181 DRAE.

3182 DCECH.

3183 PRA-Oibar, 4. k.

**Nevera (pozo de), la:**

Dokumentazioan oinarritzen bagara, **La Nevera San Pedro** aldean zegoelako ondorioa atera behar genuke (ikus **Camino de la Nevera** sarrera), baina egungo **La Nevera El Monte**-n dago, **El Berro** eta **San Juan**-en erdian, elutsean.

**Nobeletaondoa (barranco de):**

**Nobeleta** toponimoa eta **ondoa** posposizioa ditugu hemen. **Nobeleta**, Agezan esan denez, latineko **novella** 'ardantze berria' eta **-eta** atzizkiaz osatua dago. Ardantzeak ugariak diren Leatxeren moduko herri batean honelako leku-izenak izatea aise konprenitzen da (cf., gainera, **Uxueko Nobeleta**).

Esan dugun gisa, **Nobeleta** > **Nobleta** pausoa aski goiz burutu zen gure alderdian eta Nafarroako beste eskualde batzuetan, seguru asko azentu azkarraren ondorioz. Leatxen **Nobeleta**- agertzen da 1594<sup>3184</sup> eta 1647an<sup>3185</sup>, baina 1602rako **Nobleta**-dugu<sup>3186</sup>:

"otra piª en nobletaondoa teniente con el Rio conçeçgil" (1602)

Egungo egunean oso desitxuratua dago, eta **Balatuenda** [bàlatwénda] edo **Baratuenda** [bàratwénda] esaten da. Itxuratxartze prozesua oso goiz hasi zen<sup>3187</sup>: 1704erako **Robletondoa** azaltzen da<sup>3188</sup>, herri-etimologiaz apika, eta 1708rako **Dobletondoa**<sup>3189</sup>. Urte honetatik aitzina forma ustelduez besterik ez dugu aurkitzen: **Obletondoa** (1723)<sup>3190</sup>, **Deblotondua**, **Debeletaondua** (1773)<sup>3191</sup>, **Dobalatuenda** (1790)<sup>3192</sup>, **Bulutuenda** (1817)<sup>3193</sup>, **Balatuonda** (1830)<sup>3194</sup>, **Balatuenda** (1894eko katastroa).

**Barranco de Nobeletaondoa** gorago **Barranco de Olibeta** deritzan erreka da, **Las Dos Aguas** izenaren sorreran dauden bi ubideetako bat, alegia.

**Nobeletaondoa Korteko euntzea**, **Mendibil**, **Mendijuri**, eta **Las Dos Aguas**-en artean dago.

**Nobelondoa:**

Aurreko bera da, baina oraingoan **-eta** atzizkirik gabe ageri da:

---

3184 Id., 8. k.

3185 Id., 25. k.

3186 Id., 10. k.

3187 Itxuragaiztotu goiztiar hauek euskararen galtzearen edo ahultzearen adierazletzat jo behar direla uste dugu. Iritzi honek egiantz handia hartzen du desitxuraketa toponimo askotan gertatzen dela ikusten denean.

3188 PRA-Oibar, 30. k.

3189 Id., 31. k.

3190 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 920. or.

3191 PRA-Oibar, 69. k.

3192 Id., 76. k.

3193 Id., 97. k.

3194 Id., 112. k.



“otra piª en noble hondo...que afrenta...con el Rio” (1593)<sup>3195</sup>

### Nogueras, las:

Behin bakarrik aurkitu dugu:

“otra piª Junto a las nogueras...” (1593)<sup>3196</sup>

Daitekeena da **Dorreko itxaurraldea**-ren ordain erdalduna izatea, baina ez dugu honen frogarik.

### Odiko (barranco de), el:

Gaurregungo **Elodiko** [èlođíko] izena lehenengoz 1776an ediren dugu, **Lodico** formapean:

“tres Robadas en el terno llamado Lodico”<sup>3197</sup>

Izen honen osagaiak **elordia** (ikus gorago) ‘arantzadia’ eta **-ko** atzizki txiki-garria izan litezke, baina alderdi honetan erreka edo hodi bat badela kontuan hartzen bada, **hodi**-z eta **-ko** atzizki txikigarriaz osaturikako izenaren aurrean gaudela ere onar daiteke, hasierako **El** hori artikulua erromantzetzat hartzen bada, jakina (cf. **Odicoçar** Otsakarren 1638an<sup>3198</sup>, **Odikotxar**, **Odikotxartxiki** orain).

Dermio hau **Elordia** eta **Berdeaga**-ren artean dago. **Barranco del Odiko Fuente de Elordia**-tik gertu **Barranco de Elordia**-rekin batzen den ubideari esaten zaio. Bien artean **Barranco del Carasol** sortzen dute.

### Oibarbidea (camino de):

**Oibar** ‘Aibar’ herri-izena eta **bidea** arrunta ditugu hemen:

“otra viña...en Oibarbidea” (1763)<sup>3199</sup>

**Aibar**-en euskal izena bizirik dago oraindik **Zaraitzu** aldean, artzaingoa zela medio harreman franko baitzituzten Mendialdekoek eskualde honetakoeekin. **Zaraitzun Oibarre** [oj̥b̥āre] nahiz [ój̥b̥āre] esaten dute, baina bukaerako **-e** horrek, gaztelaniazko izena eta dokumentazioko **Oibarbidea** eta **Oibarbidegaña** ikusirik, paragogikoa dirudi, hau da, **Oibarren**, **Oibarrerik**, **Oibarrera**...eta antzekoetan erabilitzearen ondorioz sortua<sup>3200</sup>.

**Oibar**-en etimologia guk nahi genukeen bezain gardena ez den arren, ia segurua da bukaerako **-ibar** hori ‘harana’ dela, **Artzibar**, **Erroibar**, **Esteribar**...eta beste-

3195 Id., 7. k-bis.

3196 Id..

3197 Id., 70. k.

3198 PRA-Ihaben, 9. k.

3199 IEA, 1765. kart., 917. or.

3200 Ikus NHI, 190. or. Dena den, **Oibarbidea** eta irudikoak ez dira sobera fidagarriak, elkarketan lehen osagaiaren bukaerako bokala galtzen delako: cf. **Usubidea**, **Usubidea**.

tan bezala. Erdarazko Valdeaiabar tautologia bat dugu beraz, Valle de Ibargoiti edo Valle de Esteribar-en modukoa.

Aztergai dugun izenaren lehenengo lekukotasunak<sup>3201</sup> Aibar-en alde mintzo dira, eta balirudike euskarako izena erdarazkotik eratorri behar dela, erdarazko hori ere jatorriz euskalduna denagatik, baina Oiuarr 1074erako azaltzen da<sup>3202</sup>, eta XI edo XII. mendean García Oivarco aurkitzen dugu<sup>3203</sup>.

Hortaz, formarik zaharrena Aibar ala Oibar den ez dago zeharo garbi, dokumentazioan bateratsu azaltzen direlako. Guztiarekin ere, eta beste eskualde batzuetako toponimia ikusita, badirudi jatorrizko forma Oibar dela, eta Aibar horretatik atera dela<sup>3204</sup>: Orban Oibar despoblata daukagu<sup>3205</sup>, Imozko Erason Oibar toponimoa dugu 1893ko katastroan, Oibar [ó̄j̄bār̄] (cf. Gipuzkoako Eibar herri-izenaren ebakera) egun<sup>3206</sup>, eta Malerrekako Zubietan ugalderekin eta errotarekin mugatzen zuen Oybar dugu 1668an<sup>3207</sup> eta 1712an<sup>3208</sup>, Oibar 1716<sup>3209</sup>, 1780<sup>3210</sup> eta 1824ean<sup>3211</sup>. Eleizalde (LVTV) Ori ibaiaren ertzeko baserri-izena den Oibartzoko biltzen du Zarautz-Aian. Hortaz, garbi samar dago hemen -ibar 'haran' dugula<sup>3212</sup>. Cf., gainera, Gizaburuagako Okamika auzoko harpea den Oarri edo Oibar<sup>3213</sup>.

Oibarbidea eta Camino de Aibar-en arteko baliokidetasuna, bestalde, seguru da:

“Otra viña...en el Camino de Oibarbidea tente al Camino que ban â Aibar” (1723)

### Oibarbidegaña:

Oibarbidea-ren gaineko aldea zen:

“otra viña...en el terno de Oibarbidegaña teniente...al camino de Aibar” (1723)<sup>3214</sup>

3201 Ikus NHI, 190. or.

3202 Id.

3203 Lacarra, VM, 46. or.

3204 Gehienetan erdarazko izena euskarazkoa baino kontserbatzaileagoa da (cf. Ochagavía / Otsagi, Olazagutía / Olazti, Labiano / Labio...), baina hau ez da nahitaz horrela izan behar.

3205 F. Idoate, “Poblados y despoblados o desolados en Navarra (en 1534 y 1800)”, PV, 108-109, 309-338. orr.

3206 “Cantar de la batalla de Beotibar” delakoan (TAV, 66-69. orr.) nafar ozteen buruzagia (edo buruzagieta-bat) Martín de Ayuar (erdaraz) edo Martín de Oybar (euskaraz) zen (“Beotibar, Beotibar, hic diadutac Martin de Oybar”):

“En cuanto a *Oybar*, baste recordar que el nombre vasco de la villa de Aibar es *Oibarre*, y así se ha conservado hasta hoy en el valle de Salazar por lo menos. Y no se olvide que los copistas tenían que inclinarse a cambiarlo en *Aibar*, nombre oficial, o *Eibar*, familiar para un guipuzcoano”.

3207 PRA-Donetztebe, 57. k.

3208 Id., 86. k.

3209 Id.

3210 Id., 129. k.

3211 Donetztebeko hipotekak, 126. liburua.

3212 Datu guzti hauek Andrés Iñigo iturendarrari zor dizkiogu.

3213 DIMV, 39. or.

3214 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 916. or.

**Olibeta (barranco de), (pozo de):**

**Olibo** ‘olibondo’ izena eta **-eta** atzikia ditugu toponimo honetan:

“otra viña...en el termino llamado olibeta” (1723)<sup>3215</sup>

**O + e > e** pausorako cf. Agezako **Erresoreta** (< errege + soro + eta) edo **Oi-barko Soreta** (< soro + eta).

Oliboak ugariak ziren eta dira gure alderdian, eta hau dela kausa, **Olibeta** toponimoa ere arrunta da (guk Ageza, Eslaba, Galipentzu eta Morionesen aurkitu dugu). Uxuen **La Oliveta** dugu, baina hau **La Oliva** monastegi-izenaren txikigarria da.

**Olibeta-k** [ðlibéta] Oibarrekin, **El Rebote**, **La Mazuela** eta **La Muga**-rekin mugatzen du.

**Barranco de Olibeta La Sierra** eta **Gabaran** aldetik heldu dena da, hots, gorago **Barranco de Detrás de la Magdalena** eta beheago **Barranco de Nobeleta** ondo deitu ohi den erreka. **Pozo de Olibeta** errekan dago, **Puente de las Viñas** eta **Oi-barko errepidetik** hurbil.

Dokumentazioko 1723ko **Las Olibetas**<sup>3216</sup> eta 1783ko **Olibetas**<sup>3217</sup> funtsik gabeko aldakiak dira, egungo izenak salatzen duenez, eta notarien gogo erdalduntzaileari leporatu beharko dizkiogu.

**Oliva, la:**

Alor baten izena zen hau. Herri ondoan behar zuen, **San Martín** ermitaren eta **Camino de Pamplona** edo **Irunbidea**-ren alboan:

“otra pieza detras de la Hermita de Sn Martin qe llaman la Oliba...q afronta con dho Camino q ban â Pampna” (1761)<sup>3218</sup>

**Olivar (bajo), (junto a), el:**

1593an aurkitu dugu aurrenekoz, eta badaiteke **Olibeta**-rekin zerikusia izatea:

“otra piª en la endreçera llamada el ollibar”<sup>3219</sup>

**Bajo el olivar** eta **Junto al olivar** 1894eko katastroan azaltzen dira.

3215 Id., 916. org.

3216 Id., 917. or.

3217 PRA-Oibar, 73. k.

3218 Id., 61. k.

3219 Id., 7. k-bis.

**Olivar de Manuel, el:**

1894eko katastroan (cf. urte bereko **Abejar de Manuel**) dokumentatu dugu oraindik bizirik dagoen hau. **Barranco de Ugarka**-ren ertzean dago, **Pelau-n**, **Zubieroria**-ren ondo-ondoan.

**Olivares, los:**

**Los Olivares** 1593an ediren dugu, eta ez dakigu gaurko **Los Olivares**-ekin identifikatu behar den, euskarazko **Olibeta**-ren itzulpen hutsa den, edo beste eremu bat izendatzen duen:

“otra vina...en los olibares”<sup>3220</sup>

Egungo **Los Olivares** Oibarko errepidearen ondoan dago, **Camino de Zirikuzabal**-etik gertu. Aspaldi honetan olibadirik ez dagoen arren, badirudi, izena aintzakotzat hartu behar badugu, lehen olibondoak ugariak zirela orain ardantzez mukuru dagoen honetan.

**Opakoegia:**

Latineko **opācu** ‘sombrió’, ‘cubierto de sombra’<sup>3221</sup>-ren eratorria den **opako** edo **opaku** ‘elutsa’, ‘oihezkoa’, eta **hegia** ‘mendi-mazela’ ditugu hemen. Lehen elementu horren bukaerako -o bokalak latinetik zuzenean hartu beharrez erromantzetik hartu dela (edo honen eraginez ireki dela) salatzen duke (cf. **paco** ‘caracierzo’ Oibar-Galipentzutik ekialderantz, eta **Barrio de Opaco**, **Calle de Opaco** Oibarren).

Gure eskualdean **Opakoegia** Eslaban ere aurkitu dugu (ikus sarrera hau); **Zaren Opakuegia** eta **Opakoegia** agertzen da, **Iparraggerria**-rekin batera<sup>3222</sup>.

Leatxeko **Opakoegia**, esperatzekoa zenez, **Iguzkiagerria**-z beste aldeko mendi-mazela zen, iparrera ematen duen isurialdea, **Facería** alegia:

“una p<sup>a</sup>...en la endrecera llamada opacoegua que afronta con camino puco que ban a sada” (1592)<sup>3223</sup>

**Ordenakoa, casa de, huerta de:**

Izen hau erdarazko **Clavería**-ren kidekoa da (ikus sarrera hau). Etorkiari dagokionez, garbi dago erdarazko orden-etik heldu dela, eta **Casa de Ordenakoa** oraingo **Casa de Orden** bera dela (erreparatu erdal izenaren artikulurik ezari). Lehen agerraldian (1730ean) **ordenacoa** dugu (ikus **Clavería** sarrera), eta 1807an **ordenecoa**:

3220 Id.

3221 Corominas, DCELC.

3222 Eleizalde dioenez (LVTV) **Opakua** Entzia mendiko portu baten izena eta Metauten eta Zufiako dermioa da. Harrigarría da Eslaba, Leatxe eta Zaren euskaraz **Opaku**- edo **Opako**- azaltzea, bertako erdaraz ibiltzen den izen arrunta **caracierzo** (eta ez **paco**) delarik.

3223 PRA-Oibar, 6. k.

“Casa llamada ordenecoa situada en este lugar”<sup>3224</sup>

Jatorrizko forma **ordenakoa** da, erromantzezko **-en** bukaera **-ena** bilakatu baita euskaraz maizenik, tarteko sudurkaria behin edo beste bokalartekotzat joa izan bada ere (cf. **ordea** ‘orden religiosa, sacerdotal’, Durangon)<sup>3225</sup>. Leatxen, **ordea**, **Ordenakoa** dugu<sup>3226</sup>, **Pelau** (< **planu**)-ren aldamenean.

**Otabera** (alto de), (cantera de):

**Otabera** [òtabÉra] izena alderdi honetan zegoen **otabera** ugariari zor zaioke (cf. Ezporogiko **El Otaberal**), baina gaurregun, gure informatzailearen arabera, bertan ez dago horrelako landaririk<sup>3227</sup>:

“otra pieza...en el terno de Otabera” (1763)<sup>3228</sup>

**Otabera ote**-ren eratorria da, hemen balio multzokaria duela (ikus **Eslabako El Chaparro** sarreran dioguna<sup>3229</sup>). Iribarrenek honela deskribatzen du landare hau<sup>3230</sup>:

“Planta espinosa, distinta de la aliaga, que utilizan para encender el horno”

**Azkuek**<sup>3231</sup> **otar** eta **oteme** biltzen ditu bere hiztegi ezagunean. Honela diosku:

“argoma dura, lit.: argoma macho, á diferencia de oteme, argoma blanda, lit.: argoma hembra”

Nafarroako **Otabera oteme** bera izan liteke, hots, **ote bera** edo “argoma blanca” (cf. **gaztanbera**). Ageza, **Eslaba**, **Ezporogi**, **Leatxe** eta **Zaren** izen arrunta da.

**Otabera Llano de Idozabal**, **Ugarka** eta **Sandiandore**-ren artean dagoen aldapa handia dugu; goiko aldeari **Cantera de Otabera** esaten zaio orain, **Alto de Otabera** dokumentazioan<sup>3232</sup>. **Otabera**-k **Idozabal**, **Itxudur**, **Ugarka** eta **Sandiandore**-rekin mugatzen du. **Entrepeñas** ere aztergai dugun honen mugakidea bide da, baina dermio horren kokagunea ez dago xoil garbi, gorago esan moduan.

3224 Id., 91. k.

3225 Ikus FHV, 146. or.

3226 **Ordenakoa** Altutzako etxe baten izena ere bazen: “Yten otra (pieza) de seis rovasdas en el término de Alzuza que antes fué biña, afronta con piezas (de) Zabalena y Ordenacoa” (J. Apecechea, IBCNJL, 88. or.).

3227 Berdin gertatzen da, adibidez, **Zareko El Chaparral**-ekin. Honek ez du esan nahi toponimoa sortu zenean horrelakorik ez zegoenik.

3228 PRA-Oibar, 62. k.

3229 Mezkiritzen **Otaraz** dugu orain, **Otabera**(t)z XVIII eta XIX. mendeetan, dudarik gabe aurreko \***Otaberatze** batetik. Orreaga Ibarra, MT, 345. or.

3230 VN.

3231 DVEF.

3232 1894eko katastroan.

**Otaxarreta:**

Hemen berriz ere **ote** (*ota-*, apofoniaz) izena dugula dirudi, eta honekin batera **-xar** ‘zahar’ izenondo<sup>3233</sup>, eta **-eta** leku-ugaritasunezko atzizkia:

“otra pieça en el termino de otajarreta” (1614)<sup>3234</sup>

Dena den, **Errotaxarreta**-ren desitxuraketa ere izan daiteke.

**Palacio, el:**

Egungo El Castillo hondatua, dokumentazioko **Torre de Iriondoa** edo **Dorreko itxaurraldea** izenetan dugun **torre** edo **dorrea** nahiz **Casa de Ordenakoa** izan zitekeen hau:

“una casa llamada el palacio...” (1589)<sup>3235</sup>

**Parcelas (de la Balsa), (de los Cerros viejos), las:**

Herri-lurretan zozketaz egiten diren zatiketei deitzen zaie **parcela** (= **suerte**). Aparteko dermio bat baino gehiago bere barruan alderdi ezberdinak (hots, dermio desberdinak) hartzen dituen eremua da.

**Parral (debajo de), el:**

**Parral** edo **Parrala**-ren balioaz ikus Agezako **Parrala** sarrera. Leatxeko El **Parral** (lehenago **Parralea**) herri ondoan dago, **Camino de Pelau** eta **Camino de Izko**-ren artean, **Los Huertos de la Plaza**-tik hurbil. Antzina lihatzeak ere baziren bertan:

“una Pieza linar...en...el Parral” (1721)<sup>3236</sup>

Orain ordea landa batzuk besterik ez dago.

**Parralea:**

Erdarazko **El Parral**-en euskal ordaina zen:

“otra Pieza...en...Parralea” (1722)

**Paso (sobre), el:**

**Magdalena** sarreran ikusi ditugun **El Paso de la Magdalena** direlakoetako bat dugu hau, hain zuzen **Camino de Balatua** eta **Río oscuro**-ren elkargunean dagoena:

3233 Ikus Leatxeko bereko **Mendixuri** eta **Eslaba** eta **Lergako Errotaxar** sarrerak.

3234 PRA-Oibar, 18. k.

3235 Id., 4. k.

3236 Id., 37. k.

“otra pieza en el paraje q llaman sobre el passo...theniente a...Camino que ban a bala-tua” (1704)<sup>3237</sup>

Gaurregun **El Paso** esaten bazaio ere, bertan bada xubingo bat. Dermioa xubingo honetatik **El Pozo de las Adobas**-aino luzatzen da, **Río oscuro**-ren albotik, **Los Zugarres** edo **Zugarketa**-ren paretik. Euskaraz **Pausua** esaten zitzaion pasagune honi.

#### Pausua:

Ikus Camino llamado Pausua, Pausuamaia eta Pausubide sarrerak.

#### Pausuamaia:

Aurreko bera izan bazitekeen ere, hau beste pausu bat dela uste dugu, aurreko horretatik gertu samar zegoena. Izan ere, eta ikusi dugun moduan, **Amaia** hilerriaren ondoko alderdia da, eta **Pausuamaia** dermio honetako pausua izan zitekeen, alegia, gaurko **Puente del Cementerio** aldean zegokeena, erdarazko **Paso de Amaia** bera.

Toponimo honen osagaien ordena oso bitxia da, geure hizkuntzan \***Amai(a)pausua** espero baigenuen, lehenik zehaztua eta gero zehaztailea, alegia (cf., halere, San Martin Unxeko Bide- elementua duten toponimoak<sup>3238</sup>, edo Iruñe ondoko **Mendillorri** < **Mendielorri**). Honen arrazoa **Paso de Amaia** erdaldunaren eraginean bilatu behar dela dirudi.

Edozein modutan, pausua errekan zegoen, lihatze baten (edo batzuen) alboan:

“una pieza linar...sita en el termino que llaman Pausuamaya theniente...a Rio concejil” (1705)<sup>3239</sup>

#### Pausubidea:

Dokumentazioko **Camino llamado Pausua** edo oraingo **Senda del Paso**-ren adierakidea da:

“un lieco...en Pausuvidea” (1807)<sup>3240</sup>

#### Pelau:

**Pelau** (**Pelao** [peláo] edo **Pelau** [peláu] orain) herriaren ondoko eremu laua da, eta Ageza, Eslaba, Lerga eta bestetako **Zabala**, **Zabalea**-ren kidea dugu. Jatorria, Eslabako **Plaondoa** aztertzean esan dugunez, latineko **planu**-n bilatu beharra dago. Leatxeko izenaren berezitasuna, hasierako multzoaren iraupenaz landara (cf. **laua** ‘zelaia’ hitz arrunta), bokal anaptitikoaren eransketan datza (cf. **Plau** Zaren). Bokal arteko sudurkariaren erortzea, jakina den gisa, arrunta da gure hizkuntzan (cf. Galipentzuko **Melenas** / **Meleas**).

3237 Id., 30. k.

3238 Euskararen mugak atalean.

3239 PRA-Oibar, 30. k-bis.

3240 Id., 91. k.

Garbi dago, dokumentazioa ikusita, egungo aldaera horietako baten amaierako -o hori bokalismo erdaltzailez edo herri-etimologiaz sortu dela, eta jatorrizkoa -u dela, etimologiaz dagokion moduan:

“linar en Pelau afrontado con camino que ban a Pamplona” (1723)<sup>3241</sup>  
 “otra (pieza)...debajo de domejuro o pelau” (1807)<sup>3242</sup>

1602an **Palau** forma agertzen da<sup>3243</sup>, beharbada asimilazioz. Hau, alabaina, kasu isolatua da, eta ez oso fidagarria. 1773an herri-etimologiaren ondorena dirudien **Pelado** dugu<sup>3244</sup>.

**Pelau**-k **El Sasico**, **Aranzulo**, **Done Xurio** (lehen), **Sandiandore**, **Zubieroria** eta **La Plaza**-rekin mugatzen du.

#### **Pelaubidea:**

Erdarazko **Camino de Pelau**-ren euskal baliakidea da hau. **Pelau**-ra doan bidea bitan banatzen da, **Camino de Gardelain** (**Gardelainbidea**) eta **Camino de Sabaiza** (**Sabaitzabidea**)-ri sorrera emanaz, eta horregatik hartzen dira batentzat dokumentazioan **Pelaubidea** eta **Camino de Sabaiza**:

“otra pieza...en el terno llamado Pelaubidea teniente al camino que ban â Sabaiza” (1723)<sup>3245</sup>

#### **Pelaumuga:**

**Pelau**-ko muga bat ematen du aditzera, baina ez dakigu zein beste dermiorekikoa:

“otra Piª en Pelaumuga” (1634)<sup>3246</sup>

#### **Peña, la:**

Gaurregun **La Peña** deritzana behin bakarrik ediren dugu, 1708an<sup>3247</sup>. Izen honekin **La Revuelta** eta **El Abejar**-en arteko gain bat<sup>3248</sup> ematen da aditzera.

#### **Piedras de Jaime, las:**

**Entrepeñas** barruan dago dermio hau, Zareko eta Leatxeko bi **Gardelainbidea**-k batzen diren alderdian (ikus, halaz ere, **Entrepeñas** sarreran esan duguna). Toponimo berria da, eta oraindik bizirik dagoen **Jaime** deituran dago oinarritua.

3241 IEA, 1765, 9. zkia., 914. or.

3242 PRA-Oibar, 91. k.

3243 Id., 10. k.

3244 Id., 69. k.

3245 IEA, 1765. kart., 9, 927. or.

3246 PRA-Oibar, 23. k.

3247 Id., 31. k.

3248 **Canto** hitza erabili du gure informatzaileak.



**Piélagos, los:**

Los **Piélagos**-ek gure alderdian eta hemendik lekora ere ‘los pozos’ adiera izaten du, eta liho-butzuekin zerikusia izan dezakeela dirudi, nahiz hau ezinbestekoa ez den:

“Otra pieza Junto a los pielagos...tenite...con...los pielagos” (1708)<sup>3249</sup>

Tafallan Jimeno Juríok beste era batez **El Pozo redondo** itxurapean agertzen den **El Piélago de la Presa** aurkitu du<sup>3250</sup>. Autore honek dioenez, Zidakos ugaldean egindako zuloa zen hau.

Leatxen **Butzuandia**, **Butzuandieta** eta **Pozo** bat baino gehiago daukagu, eta badaiteke hauetako bat eta aztergai duguna bera izatea. Guztiarekin ere, **Los Piélagos**-en ordain zehatzena **Usuñeta** (< osuin, \*usuin ‘osin’ + -eta) dela uste dugu.

Los **Piélagos** Leatxen ezezik, Zaren eta Oibarren<sup>3251</sup> ere agertzen da.

**Pieza redonda, la:**

Ikus alorbiribil sarrera.

**Pinar, alto del:**

Leku-izen honek bertan dagoen pinudian du oinarri, eta ez dirudi osotara finkatua dagoenik. **Caracierzo de la Fuente de la Losa** eta **El Carasol**-en arteko gaina da.

**Pirrina, pieza de:**

Azkueren arabera<sup>3252</sup> **pirrina**-k ‘txinparta’ edo ‘elur-maluta txikia’ adierak ditu Erronkarin, eta ‘ipurterre’ eta ‘(ogi) apurra’ bizkaieraz. Guk toponimo hau 1719an baizik ez dugu aurkitu, eta ez dakigu antroponimo bat den edo beste zerbait:

“otra pieza...tras de la Magna llamada la pieza de pirrina”<sup>3253</sup>

**Plaza (huerta de), (huertos de), la:**

1719ko **La Plaza** herriko plaza da:

“otra casa...theniente al conjurador y a la plaza” (1719)<sup>3254</sup>

3249 PRA-Oibar, 31. k.

3250 THET, 158. or.

3251 PRA-Oibar, 36. k, 1720.

3252 DVEF.

3253 PRA-Kaseda, 19. k.

3254 Id.

Herritik kanpo ere, baina honetatik hurbil, bada **La Plaza** deritzan eremu bat zelaianza, herriaren eta **Ugarka**-tik heldu den errekaaren artean. Ez dakigu seguru izena zeri zor zaion (plaza itxurari? Cf. **El Rebote**)<sup>3255</sup>; baratzek herri ondoan daude, **La Plaza**-ren hastapenean.

**Pollizar:**

1894eko katastroan aurkitu dugu lehenengoz egungo (**El**) **Pollizar** [èlpoʝiθáɾ]. Katastro honetan, ordea, **Pollivar** ere azaltzen da, eta **Barranco de la Fuente de la Losa**-ren ondoan dagoenez, ez dakigu jatorrizko forma **-ibar** osagaia duena<sup>3256</sup> ez ote den.

**Pollizar Cerros de Komunburua**-ren azpian dago, **El Soto** eta **La Fuente de la Losa**-ren artean.

**Pomeras (campo de), las:**

1772an ediren dugu lehen eta hondar aldiz dokumentazioan:

“ottra (viña)...en el terno llamado las Pomeras”<sup>3257</sup>

Bizirik dago, halaz ere, eta **Zirikuzabal** eta **El Hondo**-rekin mugatzen duen Oibarko errepidearen alboko eremu bat adierazten du. Lehen gurbeondo errenkada batzuk zeuden bertan, eta hortik hartu du alderdi honek izena (cf. Ezporogiko izen bereko toponimoa).

**Pozo, el:**

1894eko **El Pozo**<sup>3258</sup> gaurko **El Pozo de las Adobas** bera izan zitekeen, baina ez dugu horren frogarik. Lehen zeuden putzuak (**El Pozo de Jaime**, **El Pozo de Campando**<sup>3259</sup>, **El Pozo de Sarijuán**...) estalita daude gaurregun.

**Pozo de las Adobas, el:**

Herri ondoan dago, **El Paso**-ra iritsi aintzinxeago, bidearen alboan. **El Pozo de las Adobas**-en, irudi duenaren kontra, ez dago putzurik, eta ez dakigu beste herri batzuetako **Adobería** ezagunaren kide dugun (ikus **Lergako** sarrera hori) ala beste zerbait berriagoa den, alegia, etxeak egiteko buztinezko zohi-itxurako zatiak (“adobes” gaztelaniaz) ateratzen ziren tokia.

3255 Egues-Olatzen **La Plaza** egurra kargatzen duten oihaneko eremu txiki bati esaten diote.

3256 Hala ere, Galipentzuko **Ibarra**-n esan den bezala, **ibar** bakanka baizik ez da azaltzen gure alderdian.

3257 PRA-Oibar, 69. k.

3258 Kat.

3259 Herriko familia baten izengoitia bide zen hau.

**Pozo grande, el:**

Euskarako **Butzuandia** edo **Butzuandieta**-ren kide erdalduna dela argi samar dago (ikus bi sarrera hauek):

“otra pieza en el terno llamado el pozo grande” (1775)<sup>3260</sup>

**Pozos, los:**

Behialako **Los Piélagos** edo **Usuñeta** bera izan zitekeen. Oibarbidea-ren az-piko aldean zegoen, erreka batean seguruena (**Río oscuro**-n ala **Barranco de Olibeta-Barranco de Nobeleta** ondoa-n?. Cf. **Pozo de Olibeta**):

“una viña...en el terno q llaman los pozos debajo del Camino q se ba a Aybar” (1764)<sup>3261</sup>

**Prado, debajo del:**

Behin bakarrik dokumentatu dugu, eta ez dakigu zein larre edo euntze zen. Agian **Zalduko euntzea**-rekin identifikatu behar genuke.

**Prado concejil, el:**

1723an ageri den hau **Zalduko euntzea** edo **Prado de Zaldu** bera dela dirudi (cf., halere, **Alorrandia** eta **Larreandia** sarrerak)<sup>3262</sup>:

“otra pieza...en Usuñetacobidea tente al Camino de Desalaga y al prado Concejil” (1723)<sup>3263</sup>

**Prado que van a Sada:**

Zarebidean zegoen euntze orain desagertu hau, **Debajo de las Eras**-en seguru-  
rueirik:

“pieza en el termino del Prado que ban a Sada teniente a senda o camino que ban a la villa de Sada” (1723)

**Primeras viñas, las:**

Herritik atera eta lehen ardantzeak ziren hauek:

“otra viña...en el paraje que llaman las primeras viñas” (1708)<sup>3264</sup>

3260 PRA-Oibar, 70. k.

3261 Id., 65. k.

3262 Bada, hala ere, **Amaia**-tik **Río oscuro**-ra doan halako erreka nimitxo bat, baina dokumentazioko **Río de Amaia**-k **Barranco de Amaia Río oscuro**-rekin identifikatzera bultzatzen gaitu.

3263 1765. kart., 9, 923. or.

3264 PRA-Oibar, 31. k.

**Primiziakarrera:**

**Primicia**, Iribarrenek dioenez<sup>3265</sup>, elizari emandako «primiziak» gordetzen ziren etxeari esaten zaio Nafarroan. Galipentzuko **dekuma**-ren adierakidea dateke (ikus herri honetako **Dekumazarra**).

**Carrera** ere erdaratiko hitza da. Tafallan, J. Juríok dioskunez<sup>3266</sup>, edozein bideri deitzen zitzaion “carrera”; Uxuen ‘karrika’ adieraz erabilia aurkitu dugu<sup>3267</sup>, eta Oibar haranean, Oibar herrian ez bada<sup>3268</sup>, oso gutxitan azaltzen delako inpresioa dugu. Nolanahi ere, eta bi osagaiak erdaratikakoak diren arren, euskal elkarketaren ordenari jarraituz zaionez itzulika euskalduna dela esan daiteke, “espejismo” huts baten aitzinean ez bagaude bederen, behin bakarrik aurkitu baitugu:

“otra pieça en primicia carera” (1647)<sup>3269</sup>

**Puente (debajo de), (junto a), (río de), (sobre), (viña de), el:**

Beste zehaztapenik ez dugunez gero, askotan ez dakigu zein zubi adierazi nahi den. Herritik hurbilen dagoena **El Puente del Calvario** da, eta agian hau dateke dokumentazioan azaltzen diren “zubi” ugarien oinarrian duguna:

“una viña...q llaman del Puente theniente a Rio Conzejil” (1763)<sup>3270</sup>

**Puente de hierro, el:**

Oibarko errepidean, **Olibeta** ondoan dagoen **Puente de las Viñas** (ondoan dauden ardantzeengatik deritza honela) bera da.

**Puente de las Viñas, el:**

Ikus aurreko sarrera.

**Puente de Sabaiza, la:**

1614ean ageri den hau **Sabaitzabidea**-ko zubia zen, gaurko **Puente de Zibidoria** edo lehengo **Zubieroria**:

---

3265 VN.

3266 THET, 22-24. orr.

3267 Carrera del Halda, Carrera de la Bizkarra.

3268 La Carrera del Molinaz (IEA, 1765. kart., 9, 901. or., 1723), La Carrera del Saso (PRA-Oibar, 15. k., 1596)...

3269 Id., 25. k.

3270 Id., 62. k.

“ytten otra pieca Junto a la puente que ban a Zabayza”<sup>3271</sup>

**Puente de Sada (barranco de), el:**

**Zarebidea-n** dago. **Barranco del Puente de Sada** (antzinako **Barranco de Errotaxarra**) zeharkatzeko eraiki zen.

**Puente de Zaldua, el:**

Ikus **Zaldua sarrera**.

**Puente del Calvario, el:**

Oibarko errepideak eta **Río oscuro-k** elkar gurutzatzen dutenekoa da hau, **El Calvario-ren** alboan dagoena, alegia.

**Puente del Camino de Caseda, el:**

**Kasedabidea** eta **Barranco de Zaldu-ren** elkargunean dago. Antza duenez, **Paso de Zaldu** zegoen toki berean dago, eta hortaz, dokumentazioko **Puente de Zaldua-rekin** identifika daitekeela uste dugu (ikus **Zaldua sarrera**).

**Puente del Camino de Moriones, el:**

Morionesko bidean, **Barranco de Ugarka** gainditzeko dagoen zubia da. Honen ondoko alderdiari lehen **Zubibizkarra** esaten bide zitzaion (ikus **sarrera hau**).

**Puente que se va a Aibar (junto a), el:**

Oibarko errepidean dagoen **Puente del Calvario** bera dela dirudi:

“Otra pieza...en el terno llamado Junto el puente que ban â Aibar tente a... camino que ban â Aibar” (1723)<sup>3272</sup>

**Puente viejo, cantera del:**

**Camino de Pamplona** edo **Irunbidea-n** zegoen, eta hori dela eta, **Zubieroria** zela suposa daiteke (ikus halere, **Camino de Pamplona** aztertzean esan duguna):

“otra pieza...en el terno llamado la Cantera del puente Viejo teniente al Camino que se ba â Pamp” (1692)<sup>3273</sup>

**Puntallo:**

Izen honen balioaz ikus **Agezako Puntallua sarrera**<sup>3274</sup>.

3271 Id., 18. k.

3272 IEA, 1765. kart., 9, 922. or.

3273 PRA-Kaseda, 6. k.

3274 1894eko katastroan agertzen da **Puntallo**.

**Raboseras, las:**

Las Raboseras toponimoa ez dugu dokumentazioan aurkitu, eta berri itxura nabarmena du. Rabosera Iribarrenek<sup>3275</sup> biltzen duen raboso 'azeria'-ren eratorria da (Leatxen ere raboso esaten zaio azeriari), eta euskaraz hain hedatua dagoen Azerizuloa, Azerizuloeta-ren ordaina dela garbi dago (cf. conejera, lobera...), nahiz honelakorik Leatxen ez dugun ediren.

Las Raboseras Tras de Itxudur-en zati bat da, El Llano de Idozabal alde-  
ra dagoena. Hemen hasten da Barranco de Santa Finia delakoa.

**Rasca, la:**

Rasca, Iribarrenek dioenez<sup>3276</sup>, 'abrevadero' da Ageza, Eslaba eta Zaren, eta badirudi Leatxen ere hala dela. Guk aurkitu duguna La rasca da:

"otra huerta encima de la rasca" (1794)<sup>3277</sup>

La Rasca honetan erdarazko la artikulu femeninoa eta harri eta aska elementuez osaturikako harraska ditugu, gero, zatiketa faltsu baten ondorioz, jatorriz la harraska zena la rasca bilakatu bada ere (larraska [lărăška] ebakia egun).

**Rebote (de Salaverri), (campo de), el:**

El Rebote-k 'pilota-jokua', 'frontoia' adiera ohi du, eta Leatxen ere horrela da, bertako frontoia bitxi samarra denagatik. Izan ere, lehengo Ermita de San Martín hondatutik zutik gelditu den horma bakarrean ari izaten dira (edo ari izaten ziren) leaxe-  
arrak pilotan.

Oibarko mugatik hurbil dagoen beste El Rebote (de Salaverri), ordea, herri-  
tik urrunko dagoen alor piku xuta da, eta duen izena metafora baten ondorea dela garbi dago, bertan ez baita sekulan pilota-jokurik izan.

La Plaza ere herritik kanpo dago, hurbil hala ere, eta bion artean erlazio zerbait dagoela pentsa daiteke, kontuan hartzen bada Larunboko Plaxa (< Plaza) edo Plaxa (< Plaxa)<sup>3278</sup> eta Arakil-Ekaiko eta bestetako Pelotaxuko, Pelotaxuku (< \*Pelotaxoku), edo Bardeako El Juego de Pelota<sup>3279</sup> toponimoek artzainak mendian pilotan aritzen ziren tokiak adierazten dituztela (ikus Uxueko Juego de Pelota sarrera). Honek, dena den, La Plaza-rentzat balio lezake (alabaina, Leatxeko La Plaza herritik sobera hurbil dago horretarako), baina ez El Rebote-rentzat, honelakoetan horma ere izaten baita. Honek, esan bezala, dermio zut eta malkorra izateari zor dio izena, Magdalena-ko maldan kokatua dagoenez nolabaiteko horma-itxura baduelako.

3275 VN.

3276 Id.

3277 PRA-Oibar, 77. k.

3278 B. Estornés Lasak Platzaberri eta Platzabizkarra toponimoak biltzen ditu Izaban, eta biak plazak direla dio (DTR, 386. or.).

Mitxelena plaza ematen du erronkarierako (ikus Uxueko Placeta sarreran dioguna), eta ez dakigu Estornésen plaza nahasketa baten ondorioz izen beretik ateratako zerbait den ala beste aldaera bat. Arakil-Uhartan ere plaza dugu Ageriko plaza toponimoan.

3279 *Las Bardenas Reales*, mapa.

El Rebote-k Zirikuzabal, Magdalena eta Olibeta-ko errekarakin mugatzen du.

**Regadío:**

1894eko katastroan baizik ez da agertzen. Errekaren baten ingurua adieraziko zuen, agian herri ondoko baratze aldean.

**Religión, piezas de la:**

El Parral-en zeuden, herri ondoan:

“...otro linar...en el parral afrontado...con piezas de la Religion” (1614)<sup>3280</sup>

**Religión de San Juan de Rodas (casa de), (viñas de), la:**

Etxea<sup>3281</sup> Casa de Ordenakoa edo Casa de la Clavería zen, eta ardantzeak etxe horren jabegoa. Azken hauek Gesalaga-n zeuden:

“otra biña...en...guezalaga afrontada con biñas...de la Religion de San Ju<sup>a</sup>” (1614)<sup>3282</sup>

**Revuelta (carasol de), la:**

La Revuelta La Balsa nueva-ra doan bideko bihurgunea da (cf. Eslabako Bueltagunea eta La Revuelta), eta Carasol de la Revuelta ondoko egutera.

**Río concejil, el:**

1723ko lekukotasuneko “río concejil” delakoa Río oscuro da:

“pieza en el termino llamado recaldea teniente al camino que se va a Aibar y a rio concejil”<sup>3283</sup>

**Río oscuro, el:**

La Sierra-n sortu eta herriaren albotik igaro ondoan, Barranco de Errotaxarra edo Barranco del Puente de Sada-rekin elkartzen den erreka da. Río oscuro izena, dena den, herri aldean baizik ez du hartzen, ez gorago, ez beherago (Barranco de Zaldu).

Izena uraren iluntasunari zor lekiok, baina ez dirudi hau udalerriko beste errekek baino ilunagoa denik. Iluntasuna ertzetako zuhaitziei ere lepora dakieke (cf. Galipentzuko Valescura), hots, zuhaitzek egiten duten itzalari zor dakioke (Zugarketa edo Los Zugarres errekararen ondo-ondoan dago). Cf. Goizuetako Errekailluna, Errekailluneko malda<sup>3284</sup>.

3280 PRA-Oibar, 18. k.

3281 Id., 23. k., 1634.

3282 Id., 18. k.

3283 IEA, 1765. kart., 9, 914. or.

3284 Echeverría Salaverría, “Goizuetako toponimia...”, 105. or.

Hidronimo hau aurrenekoz 1894eko katastroan aurkitu dugu, oso berandu beraz.

**Roblar, el:**

**El Monte** edo **El Monte de Aritzandieta**-ren adierakidea da. Izenak, pentsa daitekeenez, bertan dagoen hariztian du oinarri (ikus **El Monte** eta **Aritzandieta** sarre-rak). Alabaina, egun **El Roblar** edo **El Robledal El Monte**-ko oihanari baizik ez zaio deitzen, eta beraz ezin esan zeharo elkarren bete direnik. **El LLano de la Barazula**, ka-surako, **El Monte**-en dago, baina ez **El Robledal**-en, soila baita.

**Elordia** eta **Los Cerros viejos**-etik **Aranzulo** eta **El Gorrillonar**-aino luza-tzen da.

**Robledal, el:**

Aurrekoaren aldaera da.

**Rúa, la:**

Herri barruko karrika bide zen orain zeharo ezezaguna den hau (ikus izen honen inguruan **Uxueko Rúa** sarreran dioguna).

“una casa...en la endrecera llamada la Rua” (1591)<sup>3285</sup>

**Sabai(t)zabidea:**

**Gaurko Camino de Sabaiza**-ren ordain euskalduna da:

“otra pieza...en Sabaizabidea” (1723)<sup>3286</sup>

Honen osagaiak, ikusten denez, **Sabai(t)za** herri-izena eta **bidea** ezaguna dira. Lehen **Isabaica** zen XIII. mendean<sup>3287</sup>, eta badaiteke **Erronkariko Izaba** herri-ize-narekin zerikusirik izatea, hau mende berean **Isava**, **Issava**, **Ysaua**, **Ysava** baitzen<sup>3288</sup>.

**Saleras (barranco de), (paso de), las:**

**Las Saleras Ugarka**-n dago, erreka eta **Gatzarrieta**-ren artean. **Barranco de las Saleras Barranco de Ugarka** bera da, eta **Paso de las Saleras** erreka gurutzatzeko dagoen pausua, **Fuente de las Tercianas**-en ondokoa.

3285 PRA-Oibar, 5. k.

3286 Id., 933. or.

3287 G. Larrageta, *El Gran Priorado*, 379-381. orr., 1257: “...fiadores don Martin...grant abat de Aybar et don Martin yenneguiz abat de Sada...et Miguel Garceyz fillo del avat de Isavaica...testigos qui fueron presentes en el lugar...de Aybar...de Yrangot, de Moriones...”

3288 NHI, 123. or.



**Samazio:**

**Samazio San Mateo**-ren euskarazko ordaina izan da **Leatxen**. **Samazio San Mazio**-ren euskaratzearen fruitua dugu (cf. **San Mazio Zangozan** 1693an<sup>3289</sup>), hau, bere aldetik, \***San Matio**-ren moduko batetik atera delarik, gaztelaniaz ty-k z [θ] ematen baitu: (cf. **lutea** > **loza**<sup>3290</sup>), eta Nafarroako erromantzez ty, ky bezala, hortz-hobietako afrikatu ahostun bihurtu baita<sup>3291</sup>. Euskarak hurbilen zuen fonemari (hortz-hobietako bizkarkariari, agi denez) egokituz beretuko zuen hagonimo hau, **Leatxeko Samazio** [s]-z ebakitzen zela dudarik ez baitugu egiten. Artikulua 1683an baizik ez dugu aurkitu, baina esan bezala, behin baino gehiagotan ediren dugu izen berezi bati lagun eginez (cf. 1723ko **Done Xurio**-ren **Domijurioa** eta **Sandiandore**-ren **Saniandorea** aldaerak).

Hagonimo honek aldaera asko ditu: **San Mazio** (1614)<sup>3292</sup>, **Camaçio** (1634)<sup>3293</sup>, **Samaçio** (1658)<sup>3294</sup>, **Samazioa** (1683)<sup>3295</sup>, **Samazio** (1708)<sup>3296</sup>, **Samazea** (1752)<sup>3297</sup>. 1730ean **Samazio**-ren eta **San Mateo**-ren arteko nahasketa izan daitekeen **San Mattoa** dugu<sup>3298</sup>.

Kokagune zehatzaren berri ez badugu ere, badakigu errepide baten alboan zegoela, eta ardantzeak ugariak zirela bertan:

“una viña en Samazioa...teniente a...Camino RI” (1683)

**San Adrián:**

Aldi bakar batez aurkitu dugu, 1691n, eta ez dirudi **San Andrés**-ekiko nahasketaz sortu den toponimo berri faltsuaz besterik ezer izan daitekeenik:

“una pieza en...San Adrian”<sup>3299</sup>

**San Andrés (encima de), (ermita de), (puente de):**

**San Andrés**<sup>3300</sup> euskarazko **Sandiandore** bera da. Beste batzuetan agitzen den bezala oraingoan ere gaurregungo leatxearentzat ulertezina den euskal hagonimoak iraun du bizirik, nahiz itxuratxartuxea (**Saniandore** [sànjaɲdóre] edo **Sanandore** [sànaɲdóre] esaten dute), erdal saildu-izen gardena galdu den bitartean.

**Ermita Camino de Pamplona** edo **Irunbidea**-n zegoen:

3289 PRA-Kaseda, 7. k.

3290 MGHE, 47. or. eta hurrengoak.

3291 R. Ciérbide, PDNR, 44. or.

3292 PRA-Oibar, 18. k.

3293 Id., 23. k.

3294 Id., 18. k.

3295 PRA-Kaseda, 2. k.

3296 PRA-Oibar, 31. k.

3297 Id., 57. k.

3298 Id., 42. k.

3299 PRA-Kaseda, 6. k.

3300 PRA-Oibar, 6. k., 1592. Hurrengo mendean, 1614ean, **Santandres** aldaera azaltzen da, id., 18. k.

“otra (pieza)...en la Ermita bieja llamdo (sic) San Andres que afronta con el Camino de Pamplona” (1768)

Ikusten denez, urte honetarako “vieja” deitzen zaio, eta hondatua zegoela kontu egin daiteke. 1640ko lekukoan, berriz, ez da ermitaren “adina”-z ezer esaten:

“una pieza..en sorguin Eunçea...en trueca y permuta de otra pieza...en la misma endreza...que afronta con...ermita del Sr San andres”<sup>3301</sup>

### San Cabrán:

Ikus **Gabaran** sarrera.

### San Juan (alto de), (cerro de), (paso de):

Hagionimo hau lehen aldikoz 1894eko katastroan aurkitu dugu, eta ez dugu bertan ermitarik bazelako berririk. Dena den, Pérez Ollok<sup>3302</sup> Learteko **San Juan, San Martín**, eta **Santa María Magdalena** (hondar hau zutik eta osorik dago oraindik) ermitak aipatzen ditu, eta beraz ermita bazela pentsatu beharko dugu, agian **Alto** edo **Cerro de San Juan**-en<sup>3303</sup>, Iruñeko bidearen alboan (ikus **Camino de Pamplona** sarrera).

**Barranco de San Juan Fuente de Elordia** aldetik heldu den **Barranco del Carasol**-en jarraipena da, eta **Paso de San Juan** bidea eta errekaen elkarguneko pausua.

### San Martín (barrio de), (basílica de), (ermita de), (junto a), (sobre), (tras de):

**San Martín** ermita herrian zegoen, oraingo **El Rebote** dagoen tokian (ikus sarrera honetan dioguna). Lehen auzo bati ematen zion izena, desagertu ere den **Barrio de Iriondoa**-ri seguruenik:

“una casa...en el Barrio, llamado San Martin” (1790)<sup>3304</sup>

Jendeak badaki ermita edo eliza izan zela hemen, oraingo horma ezezik arkuak ere ezagutu dituztelako. Dokumentazioaren arabera, ermitaren hurbiletik **Camino de Pamplona** igarotzen zen:

“Mas otra pieza...cerca la Basilica de Sn Marn teniente al Camino que ban a Pamppna” (1730)<sup>3305</sup>

**Junto a San Martín**<sup>3306</sup> ermitaren ondoko alderdia zatekeen, eta **Sobre San Martín**<sup>3307</sup> elixattoaren gaineko aldea. **Tras de San Martín**-ek, azkenez, ermitaren atzeko aldea adierazten zuen<sup>3308</sup>.

3301 Id., 23. k-bis.

3302 EN, 141. or.

3303 1894eko kat.

3304 PRA-Oibar, 76. k.

3305 Id., 42. k.

3306 Id., 7. k-bis eta 67. k., 1593 eta 1769, hurrenez hurren.

3307 IEA, 1765. kart., 9, 915. org., 1723.

3308 PRA-Oibar, 25. eta 31. k., 1645 eta 1723.

**San Mateo:**

Samazioa-ren erdarazko kidea zen aldi bakar batez dokumentatu dugun hau:

“una viña en el terno de Sn Matheo” (1708)<sup>3309</sup>

**San Pedro (basílica de), (ermita de), (junto a), (ladera de):**

San Pedro herritik hurbil dago, Bajo las Eras eta El Calvario-ren ondoan. Gaurregun alderdi guzti hau landua dago, baina jendeak gogoan du oraindik ere bertan ermita izan zela. **Kasedabidea** edo **Camino de Caseda-n** zegoen:

“otra pieza...Devajo la Basílica de Sn Pedro sita en el Paraje que llaman Casedabidea” (1721)<sup>3310</sup>

**Camino de Zaldu** edo **Zaldubidea** ermitaren atzeko aldetik zihoan:

“otro huerto...tras de la Hermita de Sn Pedro theniente al camino q se ba a zaldu” (1719)<sup>3311</sup>

**Junto a San Pedro**<sup>3312</sup> euskarazko **Sanpedroaldea**-ren baliokidea izan daiteke, **Ladera de San Pedro**<sup>3313</sup> bezala, hemen **ladera-k** ‘ondokoa’ adiera duela iduri baitu, ez ‘aldapa’.

**Sanpedroaldea:**

Erdarazko **Junto a San Pedro**-ren euskarazko ordaina izan daiteke, arestian esan moduan:

“Otra pieza...en Sn Pedro tente a pieza de la Claberia” (1723)<sup>3314</sup>

**Sandiandore:**

Esan bezala, **Saniandore** [sãnjãndóre] edo **Sanandore** [sããnjãndóre] ebakitzen da gure egunotan **San Andrés**-en ordain euskalduna den hau. Oso berandu ageri denez, ez da harritzeko aldaera itxuratxartuak erruz ediretea. 1722ko lekukoak, halaz ere, ongi eutsi dio jatorrizko formari:

“otra pieza...en el termino de Sandiandore”<sup>3315</sup>

**Sandiandore** \*ecclesia Sancti Andrei-tik ateratako **Santi Andree** baten euskaratzearen ondorio izan daiteke<sup>3316</sup>, baina Galipentzuko **Santitisi** sarreran esan

3309 Id., 31. k.

3310 Id., 37. k.

3311 PRA-Kaseda, 19. k.

3312 IEA, 1765. kart., 9, 914. or.

3313 Id., 921. or.

3314 Id., 934. org.

3315 PRA-Oibar, 37. k.

3316 “nos R(emigius). Dei gratia Pam- / -pilonensis episcopus, concedimus uobis S(ancio) priori hospitalis Rocideuallis...saluis decimis et primitiis et omnibus aliis iuribus ecclesie/ Sancti Andree de Bilava...” Ostolaza, 156. or. Azpimarra gurea da.

dugun gisa, baliteke honelakoetan genitiboa gabe nominatiboaren dobletea den -i-dun (-i(us)-etik) forma izatea.

**Sancti** > **Santi** sinpletzearen ondoren herskari horzkari ahoskabea ahostundu da, euskaraz hortz-hobietako sudurkariaren ondoan ohizkoa den moduan (cf. **Sandian-dore** Lergan, **Sanditume**-rekin batera, **Sanditisi**, Galipentzun 1597an, **Sanditizi** 1635ean, **Sanditirse** 1774ean...<sup>3317</sup>).

**Andree**-k metatesia jasan ondoan bokal disimilazioa nozituko zuen, hau da, \***Andere** bilakatuko zen lehenik, eta dokumentatzen den **Andore** gero. Nolanahi ere, **Santi Andree**-ren laburketaren fruitu litzatekeen \***Santi Andre** batez ere pentsa liteke (cf. **Sandiandre** Larraintzizen 1595ean<sup>3318</sup>). Hemendik, bokal anapititiko baten eransketaz \***Andere** aterako zen, eta honetatik, bokal disimilazioz, **Andore**<sup>3319</sup>.

1723an artikuludun aldaera agertzen da (**Saniandorea**<sup>3320</sup>). Lekuko hau, ikusten denez, itxuragaiztotuxe zegoen; urte bereko **Sandorea**-n<sup>3321</sup> desitxuraketa bortitzagoa ageri da. 1740an, ordea, oraingo forma bera dugu:

“la una (pieza)...en el terno de Saniandore...y la otra...en el mismo terno thenite...a camino que se ba â Sabaiza”<sup>3322</sup>

1772an **San Andore** azaltzen da<sup>3323</sup>, eta 1807an, azkenez, **Sn Andoren**<sup>3324</sup>.

**Santa Bárbara, viña de:**

**Mendibil**-eko ardantze baten izena zen:

“una viña en...mendivil...llamada la de Santa Barbara” (1702)<sup>3325</sup>

3317 **Sandi**-dun hagianimo mordoxka aurkitzen ditugu Nafarroan: Igarin, adibidez, **Sandigusti** dugu 1677an (PRA-Otsagabia, 17. k., 11. zkia.), Urrotzen (Hirian) **Sandi Angeli** 1593an (PRA-Urrotz, 4. k., 119. zkia), Etxalatzen **Sandilaurendi** 1702an (IEA, 1204. kart.), Galarren **Sandi Justi Gayña** (eta **San Justo**. TCPCG, 282. or.)...

3318 PRA-Asiain, 5. k.

3319 Labion **San Adrián** eta **Ermite de San Adrián** ditugu egun, eta dokumentazioan **Sanctadrian** (1543, IEA, 77. kart.) eta **Sandi Andore** (1587, PRA-Iruñea, 6. k.). Azken hauek elkarren ordain diren ez dakigu, baina aski irudikoak dira, susmorik ez izateko. Leatxen ere, ikusi moduan, **San Adrián** dugu, **San Andrés** eta **Sandiandore**-rekin batera.

3320 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 929. or.

3321 Id., 933. or.

3322 PRA-Oibar, 52. k.

3323 Id., 69. k.

3324 Id., 91. k.

3325 PRA-Kaseda, 11. k.

**Santa Bárbara** herri ondoan dago, Gardelain aldera, lehengo **Ermita de San Martín**-en azpiko aldean. Ez dakigu bertan ermitarik bazen ala ez, baina baietz pentsa daiteke.

**Santa Finia (barranco de), (fuente de):**

**Santa Finia** Irangote eta Morionesko mugan dago. Bertatik Sabaitza, Gardelaina eta Irangotera doazen bideak igarotzen dira. **Barranco de Santa Finia Tras de Itxudur** aldean hasi, eta **Santa Finia** gurutzatu ondoren Morionesko lurretan sartzen da. **Fuente de Santa Finia** erreka honetan dago.

Morionesko eta Zareko sarrerak aztertzean ikusten den moduan, **Santa Finia** **Santa Eufemia**-ren aldaki euskalduna da.

**Santa María Magdalena:**

Ikus **Magdalena** sarrera.

**Sasico, el:**

Izen hau lehen aldikoz 1894eko katastroan ediren dugu. **Gardelainbidea** azpian dago, herritik hurbil. Esperatzekoa zenez, kaskailu asko duen lurra da **El Sasico**-koa.

**Saso, el:**

Honen adieraz ikus **Agezako El Saso** sarrera. Aurrekoa bezala, ez dugu dokumentazioan aurkitu, eta berria dela dirudi. **El Saso** goi-lautadatxo batean dago, **Barranco de Zubieroria**-ren ondoan, **Zalduzarrera** eta **El Bural**-en alboan.

**Secano:**

Izen hau, "kontrako" duen **Regadío** bezala, 1894eko katastroan ediren dugu lehen eta hondar aldiz, eta ureztatzen ez den alderdia ematen bide du aditzera<sup>3326</sup>. Dena den, gaur ezezaguna da (**Regadío** bezala), eta ez dugu uste ez bata ez bestea benetako toponimotzat hartu behar direnik.

**Senda de Gatzarrieta:**

**Egungo Camino de Katxarr(i)etas** bera da, alegia, herritik **Gatzarrieta**-ra, eta hemendik **El Monte** aldera doana:

3326 Alabaina, honen adierakidea izan daitekeen **Sequero** (**Sekeroa** euskaraz, Galipentzun) ez da toki guztietan ureztatzen ez den alderdia. Tafallan, adibidez, Jimeno Juríok dioenez (THET, 196. or.), lur ureztatua eta ureztatugabeak batera dauden eremua da.

“otra pieza en...Domijurio theniente á Camino que ban de dho lugar â Pampna y con senda qe ban al terno que llaman Gazarrietta” (1762)<sup>3327</sup>

#### Senda de Irangote:

Santa Finia-n barrena (ikus sarrera hau) auzo herrixka horretara zihoan Camino de Irangote da, seguru asko Sabaitzabidea bera, baina Gardelainbidea ere izan zitekeen.

#### Senda de Korraleta:

Herritik hurbil dagoen Korraleta-ra zihoan orain ezabatua dagoen hau. 1894eko katastroan ediren dugu.

#### Senda de la Balsa nueva, la:

Aranzulo-ren saihetsetik La Balsa nueva eta El Monte-ra doa:

“La una en Aranzuloa...afrentada...con el Chaparral, y con la senda que ba para la balsa nueva” (1588)<sup>3328</sup>

#### Senda de la Magdalena:

Camino de Balatua-tik Magdalena-ko ermitara doa.

#### Senda de Moriones, la:

Erregumaiorea, Zalduzarreta eta Iguzkiagerria-n zehar doan Camino de Moriones bera da:

“otra pieza en çalduçarreta...teniente a Camino o senda q ban a moriones” (1641)<sup>3329</sup>

#### Senda de Nardués, la:

Camino de Nardués-en adierakidea izan zitekeen, dokumentazioan camino eta senda nahasirik azaltzen baitira:

“ytten otra piª...en la endrecera de la senda de nardues...” (1592)<sup>3330</sup>

#### Senda de Nobeletaondo:

Antza denez, Nobeletaondo-rako bidea zen, hots, Gesalagabidea edo Camino de Kapana, biok Nobeletaondo-ko gortean batzen baitira:

“una viña...en la Senda que ban a Nobletondo” (1730)<sup>3331</sup>

---

3327 PRA-Oibar, 61. k.

3328 Id., 4. k.

3329 Id., 24. k.

3330 Id., 6. k.

3331 Id., 42. k.

**Senda de Sabaiza, la:****Camino de Sabaiza edo Sabai(t)zabidea zen:**

“una pieza...en...Zalduzarreta thenientte...con...Camino Real o Senda que ban a Sabaiza” (1710)<sup>3332</sup>

**Senda de Sada, la:****Camino de Sada edo Zarebidea zen (ikus Zarebidekoa sarrera).****Senda del Monte, la:**

Bi Senda del Monte ezberdin ditugu: gaurkoari hasieran Senda del Paso, gero Camino de Balatua eta Senda de La Balsa nueva, eta azkenean Senda del Monte deritza. Dokumentaziokoa, ordea, Camino de Izco (lehen zatia gutxienez genuen)<sup>3333</sup>.

**Senda del Paso, la:**

Aurrerago Camino de Balatua izena hartzen duen bidea da. Fuente de Las Tercianas-en ondoko pausura doalako deitzen bide zaio honela, eta euskarazko Pausubidea-ren ordaino erdalduna dela zalantzarik ez dago (ikus Camino llamado Pausua, Pausubidea eta Pausuamaia sarrerak):

“otra pieza...en la senda del paso” (1708)<sup>3334</sup>

**Senda del Río:**

Nobeletaoandoa-tik erre kara zihoan bide-zigorren bat zen hau<sup>3335</sup>.

**Sierra, la:**

La Sierra euskarazko Bizkaia-ren adierakidea da zenbaitetan, eta honek bezala alderdi menditsuak ematen ditu ezagutzera:

“otra (pieza) en la Sierra llamada Berdeaga con una cabaña” (1683)<sup>3336</sup>

Gure informatzailearen arabera, Izko, Olatz-Irunberri, eta Oibarko muga inguruak sartzen dira La Sierra-n, hau da, El Llano de Idozabal, El Alto de Izco, Cuatro Mugas, Berdeaga, Elordia, El Odiko, Gabaran, Los Cerros viejos eta La Balsa vieja.

3332 Id., 32. k.

3333 IEA, 765. kart., 9, 914. or., 1723.

3334 PRA-Oibar, 31. k.

3335 Id., 42. k., 1730.

3336 PRA-Elo, 10. k.

**Silekua:**

Beste zerbaiten desitxuraketaren fruitu dirudien **Silekua** [šilékwa]-k **El Monte, Aranzulo** eta **Gatzarrieta**-ren arteko gain baten izena da. Aurrenekoz **Eleizalderen** zerrendetan dokumentatzen da.

**Sitozar:**

1730. urtean ediren dugu lehen aldiz, aski berandu hortaz. **Bukaeran -zar** 'zahar' izenondoa duela irudi badu ere, ez dakigu hasierako **sito-** hori zer izan daitekeen.

Badakigu herritik hurbil zegoela eta baratzeak bazirela bertan, eta hau dela medio herriaren eta **El Calvario**-ren arteko baratze aldearekin, edo **Los Huertos de la Plaza** delakoarekin identifika liteke:

“un Guertto...en el Paraje que llaman Sittosar” (1730)<sup>3337</sup>

1752an **Sitasar** dugu<sup>3338</sup>, eta 1894eko katastroan **Sitosar** eta **Situsar**.

**Sombras (al lado de las):**

**Opakoegia** edo **Caracierzo** bera izan zitekeen, baina hau uste hutsa besterik ez da. Dena den, dermioa zela ezin uka, izenaren itxurazko bitxitasuna gorabehera<sup>3339</sup>:

“otra (pieza) en el termino llamado Sombras” (1782)<sup>3340</sup>

“quatro Robadas en el terno llamado alado de las sombras” (1790)<sup>3341</sup>

**Sorgineuntzea; Sorginen euntzea:**

Leku-izen hau, izenburuan ikus daitekeen gisa, genitiboaren morfema pluralaz jantzirik nahiz morfema hori gabe agertzen da. Genitibodun eta genitiborik gabe-ko aldakiek alderdi bera adierazten dutela ia segurua den arren, 1642ko lekukoak zalan-tza izpi bat sortarazten du:

“una pieza... Junto a Sorguineneunçea... que llaman sorguin Eunçea”<sup>3342</sup>

Izenaren osagaiak, bistan denez, **sorgin** 'belagile' eta **euntzea** 'larrea' dira. **Sorgina** izena arrunta da euskal toponimian, **Barandiaran** zenak zioen bezala<sup>3343</sup>.

3337 PRA-Oibar, 42. k.

3338 Id., 64. k.

3339 Orba ibarreko Leotz herrian **La Sombra** ediren dugu 1830ean (id., 103. k.). Beharbada Nafarroan barna azaltzen diren **Ilunbe** (Artariain, id., 100. k., 1824), **Ilunbeta** (Erroz, PRA-Arakil-Hiriberri, 71. k., 1715), **Illunbeta** (Izurdiaga, bizirik)...eta antzekoen baliokide erdalduna izanen da, **Opakoegia**, **Iparragerria**, **Iparraga** eta antzekoen kide ez bada behinik behin.

Aintzat hartu beharra dago, orobat, zenbait tokitan ibiltzen den eta **eguzkialdea** 'egutera'-ri kontrajar-tzen zaion **itzalaldea** 'elutsa'. Cf., adibidez, Irañetako **itzelaldie** [icèlajdié] / **iruzkialdie** [irùskjaldié].

3340 PRA-Oibar, 72. k.

3341 Id., 76. k.

3342 Id., 24. k.

3343 DIMV. **Sorgin** hitzaren balioaz honela mintzo zaigu: “Alrededor de este nombre aparecen agrupados di-



Gure eskualdean Leatxeko izen orain desagertu hau dugu euskaraz, eta Uxueko **La Piedra de las Brujas** erdaraz (ikus sarrera hau).

Toki-izen honen lekukotasunek ez dute sekulan sabaiko sudurkariaren isla izan daitekeen seinalerik aurkezten, eta hau hortz-hobietako sudurkaria i bokalaren ondoan bustitzen ez zelako seinalea da. Bokalardiaren atzean sabaikaltzea gauzatzen zela segurua da (cf. **Txurrustagaña**).

**Sorgin(en)euntzea San Andrés** edo **Sandiandore** ermitaren ondo-ondoan zegoen, **Irunbidea** edo **Camino de Pamplona**-tik hurbil<sup>3344</sup>.

**Soto (barranco de), el:**

**Berroberrietta, San Juan, Komunburua** eta **El Pollizar**-en artean dago, gorago **Barranco de La Fuente de la Losa** deritzan **Barranco del Soto**-ren inguruan. XVIII. mendean **La Artica nueva**-ren barrukotzat jotzen zela ikusten dugu:

“una pieza en la artica nueba llamada el soto” (1655)<sup>3345</sup>

Erdarazko soto eta euskarazko **zaldu** elkarren ordain izaten badira ere, **Leatxeko El Soto**-k eta **Zaldu**-k alderdi bana ematen dute aditzera, eta **Zalduzarreta** bi horietatik bereizi behar da.

**Tejería (debajo de), la:**

**La Tejería San Juan** eta **Gatzarrieta** aldera doan bidean dago, **Aranzulo** eta **Pelau** artean, herritik ez urruti. Aurren aldiz 1894eko katastroan agertzen da.

**Torre, casa de la; noguera de la:**

Hauetako lehenaren baliokide euskaldunik ez dugu aurkitu, baina bigarrena **Dorreko itxaurrealdea**-ren ordain erdalduna dela dudarik ez dago (ikus azken sarrera hau):

“otra Piª en do la nogera de la torre” (1634)<sup>3346</sup>

“la casa y torre que llaman de la torre” (1807)<sup>3347</sup>

Agirietan ikus daitekeen gisan, dorre hau **Iriondoa** izeneko auzoan zegoen, **Clavería** edo **Casa Ordenakoa**-ren ondo-ondoan.

---

versos temas, de los que unos -los más- suponen que **sorguin** es genio que desempeña funciones extraordinarias, mientras que en otros relatos se trata de personas embrujadas, generalmente mujeres, que toman parte en reuniones nocturnas nada normales, en maleficios de varias clases - **beguizko** «aojo», **birao** «maldición» y otros - y asisten a las ceremonias que preside el diablo de figura de cabrón en **Akelarre**, en **Petralanda** y en **Eperlanda**”.

3344 Ikus **San Andrés** sarrera.

3345 PRA-Oibar, 27. k.

3346 Id., 23. k.

3347 Id., 91. k.

**Traizioa:**

Izen hau erdarazko **traición** hitza gure hizkuntzari egokitzearen ondorea dela irudi du, baina hala ere, ez da garbi ikusten zeri zor dakioken:

“Mas otra pieza en el therno Traizioa” (1753)<sup>3348</sup>

“tres rovasdas en el parage llamado traicio, afronta al camino que dirige a Pelado o Gardalain” (1797)<sup>3349</sup>

Interesgarri deritzogu, aipatu jatorri hori balu erdal -ción atzizkiaren gure eskualdeko ordain euskalduna -zioa zela erakutsiko lukeelako (cf. Iruñeko oraingo **Cruz de Barkazio**, Etxagueko 1604eko **Añadizioa**<sup>3350</sup>, Eloko 1657ko **Conparacioa**<sup>3351</sup>, eta Ozkoidiko 1826ko **Sacrazioa**<sup>3352</sup>).

Ikusten den gisan, herritik hurbil zegoen, **Pelaubidea-ren** (**Gardelainbidea**, **Sabaitzabidea**) azpiko aldean.

**Txurrustagaña:**

**Txurrusta**<sup>3353</sup> izena eta **gaina** posposizioa ditugu hemen. Iruñeko bidearen alboan zegoen:

“Mas otra pieza...en el terno de Churrustagaña tente â Camino que ban a Pampna” (1723)<sup>3354</sup>

Itxuraz **Ugarka**-ko errekan zegoen txurruta hau, **Otabera**-ren parean, bertan ura txirrian erortzen den gunen bat baitago, ekaizta delarik.

**Txurruta:**

Aurreko toponimo bera da, baina posposiziorik gabe oraingoan. Ikusten denez, **Leatxen txurrusta** eta **txurruta** aldakiak elkarren aldamenean ageri dira. Dugun lekuko bakarrean artikulu erdalduna ez azaltzeak euskal formaren aitzinean gaudela idarokitzen du:

“otra pieza...en Churruta theniente al camino que se ba a Pamp<sup>a</sup>” (1719)<sup>3355</sup>

**Ugarka (barranco de), (río de):**

**Uharka**-k ugalde eta erreketan errotetara eta “regadío”-etara ura desbideratzeko egiten diren presak dira<sup>3356</sup>. Osagaiak ur hitzaren bokal aurreko u- edo ug-

3348 Id., 58. k.

3349 Id., 82. k.

3350 PRA-Barasoain, 3. k.

3351 PRA-Elo, 3. k.

3352 PRA-Oibar, 10. k.

3353 Ikus honetaz Agezako **Txurruta** sarrera aztertzean dioguna. Gure informatzaileak dienez, Bizkaiko Sabaitza herrixka orain despoblatuan ere bazen **Txurruta** izeneko dermia.

3354 IEA, 1765. kart., 9, 928. org.

3355 PRA-Kaseda, 19. k.

3356 THET, 165-167. orr. Ikus gainera, Morionesko **Uarka** sarrera.

aldaera eta erdaratikako arka 'presa' dira (cf. Zareko El Arcal eta Galipentzuko El Alcaz-en dioguna).

Leatxen orain ibiltzen den **Ubarka** [uḅārka] 1773an ediren dugu lehenbiziko aldiz<sup>3357</sup>; lehenago **Uarca** agertzen da 1614ean<sup>3358</sup>, eta **Ugarca** XVIII. mendearen lehen erdian<sup>3359</sup>.

**Ugarka Barranco de Ugarka**-ren inguruko alderdiari esaten zaio, hau da, **Gatzarrieta**, **Otabera** eta **Sandiandore**-ren artekoari.

#### Urrutia:

Toponimiako **urrutia**-k 'uraz beste aldea', 'errekaz haraindia' balioa izaten du, eta gure alderdian ere adiera hori du, Aragoa ugaldea igarota dagoen Galipentzuko **Urrutia** aztertzean ikusi den bezala (ikus, gainera, **Morionesko Urrutiko oihana**). **Urrutia**-ren eratorria den **Urrutiko oihana**-n ikusten ahal den moduan, bukaerako -a artikulua besterik ez da, toponimoak izen bereziak izanagatik euskaraz maiz izen arruntetako hartuak izaten baitira, apika jatorrizko balioa oraindik ere agerian dutelako.

**Urrutia Zubieroria**-z beste aldean egon zitekeen, erreka igarota, **Irumbidea** ondoan, **Sandiandore**-tik gertu beraz:

"otra pi<sup>a</sup> en urrutia...que affrenta...con el camino que ban a pamp" (1634)<sup>3360</sup>

#### Urrutiko oihana:

**Urrutia** alderdiko oihana zatekeen, edo erreka (zein erreka?) beste aldeko oihana (edo bi gauzak batera, jakina). Badakigu txapardia zela:

"otra pieza en Urrutico oyana...que afrenta...con...el Chaparral del dho lugar" (1634)<sup>3361</sup>

#### Usunbiribila:

**Osuin** (\***usuin**?) 'osin' izena eta **biribila** izenondoa ditugu hemen. Dugun lekukotasun bakarrean **usun**- agertzen denagatik garbi dago, bailarako beste herrietako toponimoak (cf. **Lixuñeta** Eslaban, **Liguxuñeta** Zaren, **Usunbeltz** herri-izena, **Osuinbelz** dokumentazioan...<sup>3362</sup>) eta Leatxeko **Usuñeta** eta **Usuñetako bidea** ikusita, izen honen jatorrizko forma \***usuin** (< **osuin**) dela, eta **usun**- elkarketan sortu dela (cf. Nafa-

3357 PRA-Oibar, 69. k.

3358 Id., 18. k.

3359 Id., 30. k-bis, 1705, eta id., 64. k., 1752.

3360 Id., 23. k.

3361 Id., 23. k.

3362 Egungo **Osinaga** herri-izena **Osuinaga** zen 1366an. L. Urabayen, "Sobre cambios en los nombres de pueblos de Navarra", RIEV, 16, 1925, 289-297. orr.

rroako hiriburuaren izenaren elkarketako Iruin-, Irun-, Iruñ- aldaerak, adibidez Eslabako Iruinportillua toponimoan)<sup>3363</sup>:

“en la endrecera llamada...usun biribila” (1585)<sup>3364</sup>

Badaiteke Usunbiribila eta Usuñeta putzu bera izatea, behin baino gehiagotan ikusi bezala -eta atzizkia ager dadin pluraltasuna derrigorrezkoa ez denez gero. Badaiteke, orobat, Usunbiribila eta Pozo de Olibeta bat eta bera izatea, orain drainatua egon arren lehen putzu handi-sakon-biribila baitzen (ikus hurrengo sarrera).

**Usuñeta:**

\*Usuin (< osuin) ‘osin’, ‘putzu’ izena eta -eta leku-ugaritasunezko atzizkia ditugu toponimo honetan. Esan denez, erreka batean bide zegoen Los Piélagos-ekin identifika daitekeela uste dugu<sup>3365</sup>, Usuñeta ere erreka batean baitzegoen:

“ytten otra piª en Uxuñeta que afuenta con el rio concejil” (1594)<sup>3366</sup>

Badakigu Camino de Aibar edo Oibarbidea ondoan zegoela:

“otra viña...en el termino llamado de Usuñeta tente...al camino de Aibar” (1723)<sup>3367</sup>

Hortaz, baliteke gaurko Pozo de Olibeta eta antzinako Usunbiribila batera izatea, baina hau balizko kontu hutsa da. Baliteke, halaber, Agua de los Linos eta Los Linos -en esanahikidea izatea.

**Usuñetako bidea:**

Camino de Gesalaga (Gesalagabidea) eta Prado concejil-en (Zalduko euntzea-ren) albotik zihoan:

“otra pieza...en Usuñetacobidea tente al Camino de Desalaga y al prado Concejil” (1723)<sup>3368</sup>

**Zaldu (barranco de), (paso de), (prado de), (puente de):**

**Zaldu**, jakina denez, latineko saltu-ren eratorria da, euskaraz ohizkoak diren s- > z- eta lt > ld aldakuntzak burutu direlarik.

3363 Izaban usun- aldaera duten Usunondoa eta Usunukaltea ‘osinugaldea’ ditugu. Ikus DTR, 387. or.

3364 PRA-Oibar, 3. k-bis.

3365 Mitxelena dioenez leize eta osin-en arteko aldea zera da, bigarrena uretan dagoen putzua dela, lehena ubideetatik at egoten den bitartean: “Casi seguramente *le(i)ze* y *osin* no eran sinónimos (aun ahora, creo, cuando se habla de simas profundas *en el agua* no se emplea más que *osin*...)”. “Materiales para la colección epistolar de Luis Mitxelena”, J. Mª Sarrústegui, FLV, 54, 1989, 243-275. orr.

3366 PRA-Oibar, 8. k.

3367 IEA, 1765, 9, 916. org.

3368 Id., 923. or.

Gaur Zaldu [θá]du]-k Barranco de Zaldu-ren inguruko alderdia ematen du aditzera, hots, gorago Río oscuro izena duen errekaen albokoa. Prado de Zaldu (Zalduko euntzea antzina) ubidearen ondoan dago, Alorrandia-ren aldamenean (ikus Prado concejil sarrera); Paso de Zaldu Kasedabidea-n egon zitekeen, behinolako Puente de Zaldua edo egungo Puente del Camino de Caseda dagoen tokian:

“otra pieça en el passo de çaldu” (1605)<sup>3369</sup>

“otra pieza...sobre el camino de la nevera al puente de zaldua” (1797)<sup>3370</sup>

Zaldu-k Alorrandia, Kapana, eta Bajo las Eras-ekin mugatzen du.

#### Zalduarana:

Zaldu eta harana ditugu hemen. Errekaren inguruak adieraziko zituen:

“otra pieza...en el termino de Zalduarana” (1735)<sup>3371</sup>

#### Zaldubidea:

Camino de Zaldu-ren kide euskalduna zen:

“otra pieza...en el terno de Zaldubidea” (1723)<sup>3372</sup>

#### Zalduko euntzea, prado de:

Erdarazko Prado de Zaldu-ren aldaera tautologikoa da:

“otra pieza...en el terno del prado llamado zalducunzea” (1723)<sup>3373</sup>

Gorago esan bezala, Zalduko euntzea edo Prado de Zaldu Prado concejil delakoa izan daiteke, baina hau ez da segurua, ondoan Larreandia egonik<sup>3374</sup> hau ere izan baitzitekeen auzolarrea.

#### Zalduzarreta (barranco de), (puente de):

Honen osagai gardenak zaldu izena, zahar izenondoa, eta -eta atzizkia dira. XVI. mendeko gerraldietan itxuraldaketa handirik gabe azaltzen da:

“en la endreçera llamada Salducarreta afrontada con...camino que ban a Guetadar y Sabayca” (1585)<sup>3375</sup>

“una piª...en...çalduzarreta” (1588)<sup>3376</sup>

3369 PRA-Oibar, 15. k-bis.

3370 Id., 82. k.

3371 Id., 44. k.

3372 IEA, 1765, 9, 923. or.

3373 Id., 919. org.

3374 Esan bezala hau Alorrandia-ren desitxuraketa izan liteke, baina kokaguneak ez du asko laguntzen.

3375 PRA-Oibar, 3. k-bis.

3376 Id., 4. k.

XVII. mendearen lehen erdiko lekukoek izena aski ongi islatzen dute: **Sal-dusarreta** (1634)<sup>3377</sup>, **Saldusarreta** (1650)<sup>3378</sup>. 1686rako ordea **Salsarreta** ageri da<sup>3379</sup>, eta 1692rako egungo **Zanzarreta** [θànθārēta], ebakera ezberdina izan zitekeenagatik<sup>3380</sup>.

XVIII. mendean jatorrizko forma islatzen duten aldaerak baditugu, baina hauek dokumentazioari zor dakizkioke, antzinako agirietan **Zaldusarreta** azaltzeari, alegia:

“una pieza en el termino de Zaldusarreta theniente...con...Camino Real o Senda que ban a Savaiza” (1710)<sup>3381</sup>

1775ean forma herrikoi eta idatziaren arteko nahasketa dirudiena edireten dugu:

“...cinco Robadas en el terno de Zaldusalzerreta”<sup>3382</sup>

Garai honetan desitxuraketa ezberdin mordoaz azaltzen da: **Zalzarreta** (1753)<sup>3383</sup>, **Zazarreta** (1773)<sup>3384</sup>, **Calcareta** (1773)<sup>3385</sup>, **Zanzarrete** (1779)<sup>3386</sup>, **Zalzareta** (1790)<sup>3387</sup> eta **Zunzarreta** (1791)<sup>3388</sup>. 1827rako<sup>3389</sup> lehen aldiz 1692an aurkitu dugun **Zanzarreta** (ikus gorago) finkatu zela dirudi.

**Zaldusarreta Sandiandore-n** sortzen den **Barranco de Zaldusarreta-ren** (**Barranco de Erregumaiorea** gero) ingurua da, **Sandiandore**, **Gaiu**, **La Facería**, **Erregumaiorea**, eta **El Saso-ren** arteko alderdia.

### Zandandorre:

Lehen begiratuan **Sandiandore-ren** forma desitxuratu baten aitzinean gaude-la ematen badu ere, kokagunea aintzat hartuta beste toponimo bat dela ondorioztatu behar dugula irudi du. Izan ere, mintzagai dugun hau **San Pedro-ren** azpiko aldean zegoen, **Sandiandore-tik** urrunxko beraz:

“otra pieza...debajo de San Pedro ó Zandandorre” (1807)<sup>3390</sup>

Berandu dokumentatzen da (1723an aurrenekoz), eta beste zerbaiten desitxuraketaren fruitu dela argi samar dago. Iturburua zein den, ordea, ez dakigu.

---

3377 Id., 23. k.

3378 Id., 26. k.

3379 PRA-Elo, 11. k.

3380 PRA-Kaseda, 6. k.

3381 PRA-Oibar, 32. k.

3382 Id., 70. k.

3383 Id., 58. k.

3384 Id., 69. k.

3385 Id., 69. k.

3386 Id., 72. k.

3387 Id., 76. k.

3388 Id., 76. k.

3389 Id., 109. k.

3390 Id., 91. k.

**Zarebidea:**

Zare 'Sada' (ikus Zareko Sada sarrera)-eta bidea ditugu hemen:

"otra pi<sup>a</sup>...en...Çarebidea" (1602)<sup>3391</sup>

Zarebidea erdarazko Camino de Sada-ren ordain euskalduna zela zalantzarik ez dago:

"Otra pieza...en el terno llamado Zarebidea tente al Camino que ban â Sada" (1723)<sup>3392</sup>

**Zarebidekoa:**

Hemen Zarebide dugu, leku-genitiboaren morfema singularra den -ko eta -a mugatzailea. Beste batzuetan bezala, izen sintagma laburtu baten aitzinean gaude oraingoan ere:

"otra pieza...en el paraje que llaman senda de Sada termino de Zarebidekoa" (1807)<sup>3393</sup>

**Zarikieta:**

Leku-izen honen etimologiaz ikus -eta-ri eskaini atalean dioguna. Behin bakarrik dokumentatu dugu egun ezezaguna den toponimo hau, 1594ean:

"ytten otra pieça en Cariquieta...que afuenta con el camino que ban a moriones" (1594)<sup>3394</sup>

**Zarkume, casa de, corral de, piezas de, piezas de la Capellanía de:**

Izen guzti hauek antroponimo batetik eratorriak irudi dute, izengoiti batetik seguruenera. **Xarkume** sabaikaldua<sup>3395</sup> Mitxelenaren arabera<sup>3396</sup> 'azken umea' da Zaraitzuko euskaraz. Leatxen, aldiz, beti hortz-hobietako igurzkarri bizkarkaria (z- [s]) dugu. Aezkoa-Hiriberrin ere z-dun aldaera aurkitu dugu:

"En Buzttinzuri una pieza...afrentada con el comun y piezas de arozarena y Zarcume"<sup>3397</sup>

3391 Id., 10. k.

3392 IEA, 1765, 9, 927. or.

3393 PRA-Oibar, 91. k.

3394 Id., 8. k.

3395 Ikus honetaz Oñederraren EFP, 232-233. orr.

3396 "Notas fonológicas sobre el salacenco", PT, 221-234. orr.

3397 PRA-Oibar, 78. k., 1796. Ez dakigu seguru, baina Leatxe eta Hiriberriko etxean artean zerikusirik badaula uste dugu, alegia, badirudi azken herri honetako Zarkumerena-ko norbait Leatxera jaitsi zela bizitzera. Honen alde mintzo da Aezkoa-Hiriberriko etxearen inguruko datuak Oibarko notarian aurkitua, nahiz hau erabateko froga ez den, jakina.

Ardaitz herrian Zarcumarena izeneko etxea dokumentatzen da 1808. urtean (PRA-Auritz, 42. k.); Ibargoitiko Sengaritzen izengoitizat erabilia azaltzen da Zarcume: «Sebastian de Ripalda dho Zarcume y Cathalina de Ayanz su muger vecinos del lugr. de Sengariz» (PRA-Elo, 11. k., 1687). Naxurietan (Untzitibar), Leatxen bezala, Casa de Zarcumerena dugu: "otra pieza... en el mismo paraje (Larrarandian) que afronta con pieza de la casa de Zarcumerena de Najurieta..." (Altzorritz, PRA-Elo, 16. k., 1715).

Zarkume beraz antroponimo batetik ateratako oikonimoa zen. Casa de Zarkume edo Zarkumerena etxe aberatsa zela uste dugu, “capellanía” ere bazuelako:

“una casa que es la que llaman de Carcumerena” (1730)<sup>3398</sup>

“una pieza...en cortecunzea theniente a piezas de Juan de Yzco y de la Capellania que llamamos de Zarcume” (1770)<sup>3399</sup>

Zarkumerena, bistan denez, Zarkume-ren etxea da, eta hau Leatxen azaltzea aski harrigarria da, gure alderdian, esan dugun bezala (ikus Dermio baten zatiketa atala), etxeek ez baitute berezko izenik. Casa de Zarkume eta Zarkumerena-ren arteko erlazioa, Ibargoiti-Zabaltzako Casa de Biurrun<sup>3400</sup>/Biurrunena<sup>3401</sup> edo Izkoko Casa de Lucas<sup>3402</sup>/Casa de Lucasena<sup>3403</sup> bikoteetan azaltzen den bera da.

Zarkumerena-k alor bat baino gehiago zeukan. Aipatu Korteko euntzeakoaz gainera, Zareko Leatxkaratea-ren ondoko dermioan ere bazuen beste bat:

“una pieza en lo de Leache...mugantte a el terno de Leaxaratea mojonantte a pieza de Manuel Belasquain y a pieza de Zarcume” (1775)<sup>3404</sup>

Alor horietako batean gutxienez gortea ere bazen:

“Mas en el therno Corral de Zargume” (1773)<sup>3405</sup>

Gaurregun Leatxen ez dago Casa de Zarkume edo Casa de Zarkumerenarik, baina bai Oibarren (Casa de Zarkume), eta hau aintzat hartuta, dokumentazioko izena egungo oikonimo bera ez ote den galde diezaiokegu geure buruari. Honela balitz, Leatxeko dokumentazioan azaltzea bertan ondasunak izateari zorko litzaioke, baina izan, etxea Oibarkoa litzateke.

**Zarkumerena, casa de:**

Ikus aurreko sarrera.

**Zirikuzabal:**

Leku-izen honen osagaiak **ziriku** eta **zabal(a)** dira:

“ytten una pieça en la endrecera llamada Ciricuçabala” (1591)<sup>3406</sup>

Zabala-ren esanahia ezaguna da, baina ez da garbi ageri ziriku zer izan daitekeen. Izan ere, ziriku ‘zeta’ adieraz biltzen dute euskal hiztegiek, baina ez dugu uste oraingoan esanahi hori duenik.

3398 Id., 42. k.

3399 Id., 68. k.

3400 PRA-San Martin, 45. k., 176.

3401 Id.

3402 PRA, Kaseda, 26. k., 1774.

3403 Id.

3404 PRA-Oibar, 70. k.

3405 Id., 69. k.

3406 Id., 5. k.



Guk ziriku-ren jatorritako latineko circu-ren eratorri bat proposatuko genuke, hitz honek ondorengo franko utzi baititu toponimia erromantzean<sup>3407</sup>, bai eta bar edo beste euskal toponimian ere: Kirku (lehen), Girku (orain), Araban<sup>3408</sup>. Ziriku-k Arabako izen horrek ez bezala, asibilazio-prozesu bat nozitu (cf. zeru < coelu<sup>3409</sup>), eta bokal anapititiko bat garatuko zuen, urkari + herskari multzoari itzuri egitearren<sup>3410</sup>.

Toponimo honen desitxuraketa goiz hasi zen, eta 1634erako Ciricozabala dugu<sup>3411</sup>, eta 1683rako Zirica zabala<sup>3412</sup>. Hurrengo mendean itxuragaiztotzea areagotu egiten da (salbuespenik bada, hala ere. Ikus beherago 1723ko lekukoa): Zirucozabala (1712)<sup>3413</sup>, Zericozabala (1722)<sup>3414</sup>, Zubicozabala (1735)<sup>3415</sup>, Ziriacozabala (1752)<sup>3416</sup>, Ciricozabal, Circozaval (1790)<sup>3417</sup>, eta berebat hurrengoan: Zircozabal (1807)<sup>3418</sup>, Cicorzabal (1833)<sup>3419</sup>, Cicozaval edo Cicozabal 1894eko katastroan, egungo egunean bezala ([θikoθáβal] ebakitzen da orain).

Zirikuzabal herritik hurbil samar dago. Tras de la Magdalena-rako bidea bertatik igarotzen da:

“pieza en Ziricu zabala...teniente a camino que ban a detras de la Madalena” (1723)<sup>3420</sup>

Amaia eta Cuesta de la Magdalena-tik Barranco de Olibeta-raino luzatzen da.

#### Zirikuzabalabidea:

Erdarazko Camino de Zirikuzabal-en kidea zen:

“Mas ottra pieza...en Ziricuzabalabidea” (1723)<sup>3421</sup>

3407 Esaterako, Cherch (Alikanten), Chercos (Almerian), Rohlf, *Studien*, 22. or., Mitxelena aitua “Estratos en la toponimia alavesa”, SHLV, 612. or.

3408 FHV, 240. or. Cf., gainera, Itzalleko 1770eko Guirgupea. PRA-Otsagabia, 43. k.

3409 Mitxelena (FHV, 288. or.) honela mintzo zaigu:

“Lat. c + e,i en palabras introducidas por mediación romance, después de la asibilación, aparece representado por vasc. z: zeru ‘cielo’, zimendu ‘cimiento’, etc. Esto no significa necesariamente que conservaran al principio en vasc. su pronunciación africada, y que luego se debilitara ésta en fricativa. Es muy posible, por el contrario, que ya desde el principio se reprodujeran por la fricativa z por acomodación al tipo normal en la lengua”.

3410 Guztiarekin ere, badugu arazo bat: bokal anapititikoa, mailegetan, herskari + urkari multzoa desegiteko agertu ohi da, ez urkari + herskari elkarketa saihesteko. Adibidez: gracia > garazia, libra > libera, apricu > apiriku. FHV, 158. or.

3411 PRA-Oibar, 23. k.

3412 PRA-Elo, 10. k.

3413 PRA-Oibar, 33. k.

3414 Id., 37. k.

3415 Id., 44. k.

3416 Id., 64. k.

3417 Id., 76. k.

3418 Id., 91. k.

3419 Id., 113. k.

3420 IEA, 1765, 9, 925. or.

3421 Id., 924. or.

**Zubibizkarra:**

Dokumentazioko aldaera z / s nahasketa arrunta aurkezten duen 1593ko **Su-bibizcarra** da (cf. **Zalduzarreta**-ren aldaerak):

“ytten otra pi<sup>a</sup>...en la endreçera llamada subibizcarra” (1593)<sup>3422</sup>

Osagaiak argiak dira: **zubi** ‘ugaldea, erreka, erretena edo zeinahi ubide zeharkatzeko eraikuntza’<sup>3423</sup>, eta **bizkarra** ‘mendi baten gainaldea, bereziki zabala denean’<sup>3424</sup>. **Zubibizkarra**-ren esanahia, dena dela, ‘zubiko aldapa’, ‘zubi ondoko malda’ edo horrelako zerbait dela uste dugu<sup>3425</sup>, agian Morionesko bidean, **Erregumaioerea**-n, zubia igarota dagoena.

**Zubieroria (barranco de), (puente de):**

**Zubi** izena eta **eroria** partizipio-adjetiboa ditugu toponimo honetan:

“otra pieza...en el termino de Zubieroria theniente a Rio Conzexil y Camino Rl que ban los de Sada a Pamppna” (1729)<sup>3426</sup>

**Gaurko Puente de Zibidoria** [θiβiðórja] (**Ziruria** Morionesen, **Zabiruria** Ezporogin) **Barranco de Ugarka** edo **Barranco de las Saleras** zeharkatzeko dagoen zubia da, eta izenak adierazten duenaz bestalde, zubia osorik dago eta egoera onean. **Barranco de Zubieroria** zubiak gaintitzen duen erreka da, gorago **Barranco de Ugarka** eta **Barranco de las Saleras** deritzana.

1764<sup>3427</sup> eta 1768an **Zubidoria** forma desitxuratua dugu:

“otra (pieza)...en Zubidoria, que afrontta con camino que se ba al lugar de Zabaiza”<sup>3428</sup>

**Eguno Zibidoria** lehenengoz 1771ean agertzen da<sup>3429</sup>; 1782 **Cebidoria** dugu<sup>3430</sup>, 1800ean **Civiroria**<sup>3431</sup>, eta 1894ean<sup>3432</sup> oraingo forma bera.

**Zubiondoa:**

**Zubi** eta **ondoa** ditugu hemen. Esanahi argia ‘zubiaren aldamera’ da, baina zubiak mordoxka izaki eta, ez dakigu zein den hemen adierazi nahi dena:

3422 PRA-Oibar, 7. k-bis.

3423 J. Jurío, THET, 167. or.

3424 I. Sarasola, HLEH.

3425 Arripodas herrian Leatxeko honen adierakidea dirudien **Zubibular** azaltzen da (PRA-Irunberri, 3. k., 1710), eta Galipentzun **Zubialdaia** dugu (ikus sarrera hau).

3426 PRA-Oibar, 4. k.

3427 Id., 65. k.

3428 Id., 68. k.

3429 Id.

3430 Id., 72. k.

3431 Id., 86. k.

3432 Kat.

“Ms otra pieza...en Zubiondoa” (1723)<sup>3433</sup>

### Zugarketa:

**Zugarketa** behin bakarrik ediren dugu. Gure irudiko, gaurrengungo **Los Zugarres**-en euskarazko ordaina da:

“otra pieza...sita en el terno de sugarqueta” (1708)<sup>3434</sup>

Osagaiak **zugar** zuhaitz-izena eta **-keta** atzizkia dira<sup>3435</sup>.

### Zugarres, los:

**Los Zugarres**, dakigula, 1827an ageri da aurren aldiz:

“un linar...en el termino de los zugarres” (1827)<sup>3436</sup>

Arestian esan bezala, **Zugarketa**-ren kide “erdalduna” da hau, aztergai dugun honetan ere **zugar** zuhaitz-izena agertu arren. **Los Zugarres** euskarazko toponimoaren erdalduntzearen ondorea da, ez **zugarro** izen arruntean oinarritutako toki-izena, bestela **Los Zugarres** izan ordez **Los Zugarros** baigenuke<sup>3437</sup>. Bertan badira oraindik zugar batzuk, baina zoritxarrez ihartuz doaz.

**Río Oscuro**-ren ertzean dago, **Amaia** ondoan, hilerritik gertu.

3433 IEA, 1765, 9, 924. org.

3434 PRA-Oibar, 31. k.

3435 Urraulbeitiko Tabar herrian **Zugarreta** dugu, **Zugarretako alorra** toponimoan. Id., 102. k., 1827.

3436 Id., 109. k.

3437 Leatxen **olmo** esaten da, ez beste toki batzuetan bezala **zugarro**.



## 15. LERGAKO TOPONIMIA

**Abadía (pieza de), la:**

Uxue eta Galipentzuko Apeztegiatorra-ren ordaina da. Dokumentazioan apezalor bat baino gehiago azaltzen da: bat Iturloiagoa-n (ikus sarrera hau), beste bat (bera?) Junto a San Andrés-en, Gurutzealdea-n (ikus sarrera hau), Camino de Es-lava-ren alboan, eta hirugarrena Tafallako bidean, Anderenobela-n.

Egungo egunean La Abadía herri ondo-ondoan dago, garbilekua dagoen eremuan, Los Llanos aldean.

**Abaizmuga:**

Toponimo honetan Abaiz herri-izena dugu, eta muga izen arrunta. Pentsa daitekeenez, Lerga eta Epaizen arteko muga aldea adierazten zuen (cf. oraindik bizirik dirauen Aldea despoplatuarekiko mugako Aldemuga):

“otra pieza en abaimuga (sic)...afta a...muga de Abaiz” (1800)<sup>3438</sup>

**Abaizpaua (prado de):**

Abaiz ‘Epaiz’ herri-izena eta paua ‘erreka gurutzatzeko sakontasun gutxi-ko tokia’ ditugu toponimo honetan. Errotarako bidean zegoen, eskuarki Camino de Abaiz deitu ohi denean:

“una pieza...en el termino de Abaizpaua que afronta...a camino que se va al molino” (1754)<sup>3439</sup>

Hortaz, badirudi errotara iritsi aitzin egon behar zuela, eta gure irudiz Urre-tako erreka-k eta bideak elkar gurutzatzen duten gunekoa izan zitekeen. Gainera, ondoan Prado del Molino dugu orain, Prado de Abaizpaua antzina<sup>3440</sup>. Azkeneko aldiz 1897ko katastroan ageri da (Abaizpasu).

---

3438 PRA-Oibar, 86. k.

3439 PRA-San Martin, 42. k.

3440 PRA-Oibar, 93. k.

**Adobería, la:**

**Adobería** izenak, Jimeno Juríok dioen moduan<sup>3441</sup>, larruak ontzen eta lantzen ziren etxea adierazi ohi zuen. Lan horietarako ura beharrezkoa zenez gero, “adoberiak” iturri, erreka edo ugaldereen baten ondoan egoten ziren<sup>3442</sup>. Lergakoa **Iturrizarra**-ren alboan zegoela badakigu, bai eta aldamenean putzu batzuk zituela ere:

“un guertto...en el thermo de ytturzarra ô Adoberia” (1766)<sup>3443</sup>

“...en la pieza que llaman los pozos ô la doberia” (1771)<sup>3444</sup>

La **Adobería** bizirik dugu oraindik Lergan, bi gazteluen arteko **Barranco de los Linares** edo **Barranco de Iturralde**-n, lehengo (ez gaurko) **Las Corseras**-en, herriaren goiko aldean, eskuineko gazteluaren kontra. Bi edo hiru landaz osatua dago.

**Adobería vieja, la:**

Aurreko bera izan zitekeen, baina izenondoak antzinagoko bat zela pentsarazten digu:

“otra pieza...en la adoberia bieja” (1713)<sup>3445</sup>

**Aitzetako aldapa:**

Izen honetan **haitz** ‘harri’, **-etako** leku-denborazko genitiboaren pluraleko hondarkia eta **aldapa** ditugu, edo, nahiago bada, **Aitzeta** toponimoa, **-ko** singularreko hondarkia, eta **aldapa**. Oinarriaren izaera, halere, ez dago xoil garbi. Izan ere, 1760 agerrialdian **Arizetaco aldapa** dugu, eta honen arabera **haritz** zuhaitz-izena genuke, ez **haitz**. Gainera, ondoko herrietan bezala Lergan ere ugariak ziren **haritzak** (cf. **Arizko-mendia**). Guztiarekin ere, eta **Ayceta** osagaia lehenago azaltzen dela kontuan harturik, **Aitzeta** nahiago izan dugu aldaera barutzat.

Dirudenez, **Aitzetako aldapa** eta **Jaundonejoanizgibel** edo **Tras San Juan** elkarren ondoan zeuden, Epaizko muga biak:

“una pieza en Aycetaco aldapa” (1695)<sup>3446</sup>

“una pieza...en Arizetaco aldapa o tras de San Juan” (1760)<sup>3447</sup>

3441 THET, 47. or.

3442 Tafallan, esaterako, **Zidakos** ugaldereen ondoan zegoen. Id., 47. or.

3443 PRA-Oibar, 66. k.

3444 Id., 68. k.

3445 Id., 33. k.

3446 PRA-Kaseda, 8. k.

3447 PRA-San Martin, 45. k.

**Aitzetako errealdapa:**

Aldi bakar batez aurkitu dugu, nahikoa era nahasian:

“y la otra pieça...en aycetacoeRecaldapa...que afronta...con...el mojon de Abayz”  
(1589)<sup>3448</sup>

Itxura denez, aitzinekoaz beste toponimo bat da hau, hain zuzen ere dermio bereko (Aitzeta-ko) erreka adierazten duena. Gaurko **Barranco de Errotaxar** izan zitekeen.

**Akelarre:**

Toponimo ezagun honen osagaiak **aker** animali-izena eta **larre** ‘euntzea’ dira:

“una faitia en el termino llamado aquelare (1550)”<sup>3449</sup>

Daitekeena da sineste zaharrekin lotua egotea<sup>3450</sup>; J.M. Barandiaran<sup>3451</sup> Zugarramurdiko **Akelarre**-z ari delarik honela mintzo da:

“«prado del macho cabrío».- Es una planicie situada delante de la entrada de la caverna llamada **akelarren-leze** «cueva de Akelarre» en Zugarramurdi. Se cree que en aquel paraje y en aquella caverna se reunían antiguamente los brujos...”

Guztiarekin ere, **Akelarre** behin bakarrik aurkitu dugu, eta ez oso modu garbian, eta **Akerregi**-ren orde z dagoela ere kontu egin daiteke.

**Akerregi:**

Hemen berriz ere **aker** oinarria dugu, eta **-egi** ‘tokia’ atzizkia:

“otra piª...en aquerregui” (1593)<sup>3452</sup>

Azken elementua **hegi** ‘mendi hegala’ ere izan liteke, **Akerregi Industrialzina**, **Euntzeberri**, **Zalduburu** eta **La Virgen**-en artean dagoen sei edo zortzi erre-guneurritako mendiko bat baita.

Orain ibiltzen den **Akerregi**-ren **Akarregi** [àkaṛégi] aldaera 1800erako azaltzen da<sup>3453</sup>.

3448 PRA-Oibar, 4. k.

3449 Id., 2. k.

3450 Cf. Ibargoiti-Getzeko **Heransuguea** (PRA-Elo, 2. k., 1647), **Erensugue** (PRA-Oibar, 61. k., 1761):  
“otra pieza en Erensugue...q. afronta con el mojon de Ydozin”

3451 DIMV, 20 or. eta hurrengoak.

3452 PRA-Oibar, 7. k.

3453 Id., 86. k.

**Akerregiberokia:**

Egun ezezaguna den **Akerregiberokia**-n **Akerregi** toponimoa eta **berokia** 'babesa', 'leku babestua' ditugu. Ezbairik gabe **Akerregi** dermioko alderik babestuen, beroena, ematen zuen aditzera :

"una pieza en el tero llamado aquereguiberoquia" (1588)<sup>3454</sup>

**Aldaiondoa:**

Toki-izen honetan **aldai** 'aldapa'<sup>3455</sup> oinarria dugu, eta **ondo** posposizioa:

"comenzando en aldayondoa asta el barranco que baga de sansoainzabal" (1545)<sup>3456</sup>

1800erako **Aldaiandoba** agertzen da<sup>3457</sup>, hau da, beste toponimo batzuetan bezala (cf. **Aitzuloa** > **Aizulba**; **Bideondoa** > **Biandoba**...) behin euskara galduz gero gaztelaniaz erabiliak izatean bukaerako -oa > -oba (-ba, l- ondoan. -Ua > -uba ere arrunta da: **Andua** > **Anduba**) pausoa jasan duen aldakia (cf. **Zerkondoa** > **Zerkondoba** Artaxonan)<sup>3458</sup>.

**Camino de Ujué** eta **Camino de Euntzeberri** (**Camino de Ikaiburu**)-ren artean zegoen, itxuraz herritik ez urruti:

"otra pieza en Aldayondoa...theniente al Camino que se bá a Uxue, y a Camino que se bá a Eunzeberri" (1768)<sup>3459</sup>

Alderdi honetan bada aldapa xut bat **Camino de Ikaiburu**-n, **Cuesta de Ikaiburu** izenez ezagutzen dena, eta **Aldaiondoa** honekin identifika daiteke. Malda hau **Barranco de Ikaiburu**-tik herriraino igotzen da.

**Aldako aldapa:**

Behin bakarrik ediren dugu, oso berandu, eta **Aranaldapa**-ren kidea zatekeen **\*Araneko aldapa** baten (cf. **Aldemuga** / **Aldeko muga**; **Iturrotzaldapa** / **Iturrozko aldapa**...) desitxuraketaren fruitua izan daitekeela uste dugu:

"...en el terno de Aramasterra ó aldacoaldapa" (1801)<sup>3460</sup>

3454 Id., 2. k.

3455 Gure eskualdean **Aldaiondoa** **Lergan** ezezik, **Ezporogi** eta **Galipentzun** ere aurkitzen dugu, eta gure eskualdetik hurbil, **Murillo el Fruto**-n, **La Aldayonda** dugu 1593an (PRA-Oibar, 7. k.) eta **Aldayonda** 1613an (PRA-Kaparroso, 19. k.). **Uxuen**, **Aldaidarrea** dugu, **Aldabea**-z gainera (ikus bi sarrera hauek)

3456 PRA-Oibar, 2. k.

3457 Id., 86. k.

3458 J. Jurío, EETA, 376.

3459 PRA-Kaseda, 21. k.

3460 PRA-Oibar, 87. k.



**Aldeko muga; Aldemuga:**

**Muga** generikoa espezifikoki eskuarki zuzenean lotzen bazaio ere<sup>3461</sup>, behin edo beste, hemen bezala, -ko leku-denborazko genitiboaren laguntza izan dezake:

“otra pieza...en la endrecera llamada aldequo muga” (1587)<sup>3462</sup>

**Gaurko Aldemuga**-k [aldemúga] **Biguri** eta **El Saso**-ren arteko eremu txiki bat adierazten du, hain zuzen ere **Lerga** Aldetik bereizten zuen **Barranco de Aldea**-ren ondoan dagoena.

**Alormearra:**

**Alor** ‘lantzen den lur-zati mugatua’ eta **meharra** ‘mehea’, ‘estua’-z osatua dago<sup>3463</sup>. **Alormearra**-k Eslabako bidearekin mugatzen zuela badakigu, eta zortzi erre-guneurrirako alorra zela ere bai:

“...otra pieza de 8 robadas llamada alor miarra” (1740)<sup>3464</sup>

“Mas otra pieza...en Alormiarra, afrona con...camino para Eslava” (1800)<sup>3465</sup>

**Gaurregun** herri ondoan, **Zabala**-n, **Barranco de Iturralde**-ren alboan, **La Lunbiarra** [l̥alumbj̥ḁ́ra] deritzan alor luze-estua dago, eta gure ustez hau artikulua erro-mantzea erantsi zaion **Alormearra**-ren itxuratxartzea besterik ez da (\***La** (a)lormiarra bide da oraingo izenaren iturria), bai hotsen aldetik eta bai kokalekuaren aldetik biak bat datozelako. 1897ko katastroan **Lumbierra** aldaera dugu, baina 1919an<sup>3466</sup> **Lunbiarra** erabiltzen zen.

**La Lunbiarra** ardanegi ondoko alorra da, luzean 400 bat metro eta zabalean 50 bat dituena. Neurri hauek garbi azaltzen dute jatorrizko izenaren zergatia.

**Reta Janárizek**, **Oibar** haraneko euskararen historia egiten ari delarik, **Menéndez Pidal**ek erromantzearen sarreraren antzinatasuna neurtzeko ezaugarritzat erabili zuen diptongatzea ikusi uste du toponimo honetan, itxuragaiztotze berri baten aitzinean egon gaitzkeela aintzat hartu gabe<sup>3467</sup>. Honela dio **Retak**:

“En efecto, la toponimia confirma la tesis de Menéndez Pidal (alegia, Tafallerri eta Estellerri erromantzearen sarrera berantiarra dela dioena). Solamente encontramos un caso de diptongación, «Lunbiarra» (topónimo de Lerga), debido tal vez a importancia del área oriental superior. En los restantes topónimos y en todos los antropónimos en que entra como compuesto «berri», éste se mantiene sin diptongar”

Ikusi dugunez, ordea, izen honen -biarra hori ez da **berri** izenondoaren diptongatzearen ondorioa, **meharra** ‘estua’-ren desitxuraketaren fruitu baizik.

3461 Ikus **Dermio** baten zatiketa atala.

3462 PRA-Oibar, 3. k-bis.

3463 Toponimo hau arrunt samarra da; adibidetzat Untzuen 1574ean ageri den **Cavo alormearra** aipa daiteke (UEA, 14. kap-lib., 31. or.).

3464 PRA-San Martin, 36. k.

3465 Id., 69. k.

3466 Eleizalde, LVTV.

3467 EHZE, 447-448. orr.

**Altico de la Guarda, el:**

**Zabala** eta **Lizardua**-ren artean dago, **La Cruz** eta **Santa Bárbara**-ren erdian. Kokagunean eta esanahian oinarri harturik segurtasunez esan dezakegu mintzagai dugun hau eta dokumentazioko **Iguraimendia** edo **Iguraimendikoa** bat eta bera direla (cf. **Areamendikoa** oraindik bizia). **Iguraiak** bertara igotzen ziren ardantzeak zaintzera, eta zuhaitz txiki bat paratzen zuten, dena harriz inguratua, jendeak ardantzeetan ezin sar zirekeela jakin zezan (cf. **Uxueko Alto de los Guardas**).

Toponimo hau 1897ko katastroan aurkitu dugu aurreneko aldiz, **Alto de guarda** itxurapean.

**Altico de Pío, el:**

Herrira sartzean, errepidean bertan dagoen gaintxo da. “**Casa de Pío**” delakoak lur zerbait izanzen zuen alderdi honetan, eta hortik izena.

**Alto, el:**

**El Alto Puerto de Lerga** edo **Alto de Lerga**-ri esaten zaio, hau da, **Lergatik San Martina** doan errepidearen alderdirik gorenari.

**Altxunbidea:**

**Altxunbidea** (**Lerga** eta **Uxue**), **Altxubidea** (**Galipentzu**) eta **Altxirribidea**-k (**Zare**) (cf. hondar honen itzulpena den **Eslabako Camino de Altxirria**) ‘ardibidea’ adiera dute, eta erdarazko “cañada”-ren euskal baliakideak dira. **Lergako altxonbidea San Gines, Monda, Santa Agata** eta **Errekina**-tik igarotzen da, **Oletako lurretara** sartu aitzinean, eta lehengo **Camino de Pamplona** bera dela garbi dago:

“...dibission de los dcos terminos aRiba asta el Camino que ban a Pamp<sup>a</sup> y por otro nombre que se dize Alchunbidea” (1611)<sup>3468</sup>

**Anderenobela (barranco de), (puente de), (río de):**

**Andere** ‘emakumea’ eta **nobela** ‘ardantze berria’ ditugu hemen:

“en la endreçera llamada anderenobela Junto a apegante a la...pieça de San Gines del camino en baxo” (1588)<sup>3469</sup>

**Nobela** oso ezaguna da **Nafarroako** toponimian (cf. **adibidez**, **Ageza** eta **Uxueko Nobeleta** toponimoak), eta gauza bera esan daiteke **andere** (edo **andre**) osagaiaz. Baliteke azken hau **Ama Birjina** edo **Andre Dona Maria** izatea, baina ez dugu honen froga sendorik (ikus **beherago**). **Azpimarretzekoak** dira, orobat, **andre**, **andere**, eta

3468 IEA, 515. kart., 29. zkia., 87. org.

3469 PRA-Oibar, 4. k.

azken honen laburketa den **ande** (cf. **Andesoro** Uxuen, **Andresoro**-tik, baina **Andrebutxo**, **Andremutxo**, **Andrebutzu**-tik).

**Anderenobela** Tafallako bidearen ondoan zegoen (ikus **Pieza de Beneficio** sarrera), zubi baten ondoan (**El Puente grande**-ren ondoan?), dirudienez gaurko **La Virgen**-etik hurbil, eta honek **andere** = **Ama Birjina** ekuazioa baieztatu lezake:

“otra pieza...en andrenobela Junto al puente” (1693)<sup>3470</sup>

“Mas una Huerta...en Andrenobla que afronta a dho Camino (Tafallakoa) y a pieza de la Abadia” (1761)<sup>3471</sup>

**Andua** (alto), (**barranco de**), (**paso de**):

Mitxelenaren arabera<sup>3472</sup>, **andua**-k ‘mahatsondoa’ adiera du, baina ez dakigu hori den hemen duguna, gure eskualdean ardantzeak, nobelak...eta beste oso ugariak direla ezin uka badaiteke ere:

“...en la endrecera llamada andua” (1593)<sup>3473</sup>

Toponimo honen eratorrietan ikus daitekeen bezala, **Andua**-ren bukaerako -a hori kendu-utzizkoa da.

Egun **Anduba** [aɲdúβa] ebakitzen den hau (Ikus -oa > -oba, -ba eta -ua > -uba-z **Aldaiondo**a sarreran esan duguna) **Santsoainzabal**, **Txirrialdea**, **Los Castillos**, **Errekina** eta **Errotabidea**-ren artean dago, herritik ez oso urruti. **Anduba** aldakiaren lehen lekukoa 1793koa da<sup>3474</sup>, eta beraz tarteko ezpainbikoa erdararen eraginari zor zaiola segurua da.

Dokumentazioko **Andua alto**<sup>3475</sup> euskarazko **Andugoiena**-ren ordain eralduna da (ikus azken sarrera hau), eta **Barranco de Andua Errekina**-tik gertu sortu eta **Barranco de Ikaiburu**-raino doan erreka:

“una pieza...en Andua theniente a camino q se ba a tafalla y al barranco de Andua y Camino de olleta” (1718)<sup>3476</sup>

**Paso de Andua**<sup>3477</sup> euskarazko **Anduko** pausua edo **Andupausua**-ren ordaina zen, eta errepideak edo **Oletabidea**-k eta **Barranco de Andua**-k elkar gurutzatzen duten guneko pausua adierazten bide zuen. Egun ez da erabiltzen.

3470 PRA-Kaseda, 7. k.

3471 PRA-San Martin, 45. k.

3472 AV, 47. or.

3473 PRA-Oibar, 7. k.

3474 PRA-Kaseda, 35. k.

3475 PRA-San Martin, 52. k.

3476 PRA-Kaseda, 18. k.

3477 Id., 18. k., 1718.

**Andugoiena:**

**Andua**-ren goreneko alderdia izendatzen zuen. Esan bezala, aldi bakar batez aurkitu dugun **Andua alto**-ren kide euskalduna da:

“Mas otra pieza...en el termino de Andu Goyena que afronta por el Castellano con paso a la requina” (1782)<sup>3478</sup>

**Anduko mendia:**

**Andua** dermioko mendi hau zein zen zehazki ez dakigu:

“una pieza...sita en el terno desta vª llamado Anducomendia” (1701)<sup>3479</sup>

**Anduko pausua, Andupausua:**

Esan moduan, erdarazko **Paso de Andua** eta euskarazko **Andupausua** bera da (ikus **Andua sarrera**):

“la tercera pieza...en anduco paussua” (1604)<sup>3480</sup>

“...en los termos del dho lugar de Lerga termo llamado Andupausua” (1541)<sup>3481</sup>

**Aporpari:**

Izen honen etimologia iluna da guretzat. Lergarrek gaurregun **Apopariz** [ãpoɾpáriθ] ahoskatzen dute (1897ko katastroan agertzen da aldaera hau aurrenekoz), Uxueko **Ardui** toponimoa zenbaitetan **Arduiz** ahoskatzen den modu berean, gaztelania-  
ren eraginez [θ] bat erantsiz. **Alporpari** [ãlpoɾpári] ere aditzen omen da. Lehen aldiz 1593an ediren dugu:

“la una en...çalduburu...y la otra piª en aporpari”<sup>3482</sup>

**Aporpari**-k **Bideondoa**, **Euntzezar**, **Irazar**, **Lizarrandia** eta **El Saso**-rekin mugatzen du. Dermio honen eta **Euntzezar**-en artean **La Torresa** txikia dugu (ikus **sarrera** hau).

3478 PRA-San Martin, 55. k.

3479 PRA-Kaseda, 10. k.

3480 PRA-Oibar, 11. k.

3481 Id., 2. k.

3482 Id., 7. k.

**Arana (linares de):**

Arana gaurko Los Linares-i deitzen zitzaion, 1704eko los linares de Arana-k salatzen duenez. Alegia, Barranco de los Linares izenekoak gurutzatzen duen ibarra<sup>3483</sup> zen:

“un linar...en los linares de arana” (1704)<sup>3484</sup>

Arana, beraz, Los Castillos (Las Arcas) eta Sarga bitarteko ibarra zen, eta egun toponimoa ezezaguna bada ere, hor dugu oraindik ere bizirik (baina eri handi, antza) Los Linares-ko iparragerriko Aranbazterra-ren desitxuratzea den Lanbasterra (ikus behe-rage). Los Linares de Arana > Los Linares pausoa Uxuen los Berros de Berage > Los Berros-en burutu denaren parekoa da, hau da, espezifiko euskalduna galdu, eta generiko erdalduna<sup>3485</sup> gorde da.

**Aranaldapa:**

Aranaldapa edo Araneko aldapa Arana alderdiko aldapa zen (cf. iturriotz / Iturriozko aldapa), Aranbazterra aldea, ezkerreko Castillo-ren mazelakoa, alegia:

“la tercera pieza en la endrecera llamada aranaaldapa” (1611)<sup>3486</sup>

**Aranbazterra:**

Esan bezala, Aranbazterra egungo Los Linares-ko Lanbasterra-ren [lambaštēra] iturburu da (cf. Alormearra > (La) Lunbierra > La Lunbiarra):

“otra pieza...en...Aranbazterra...theniente...a Camino q se ba al Montte” (1704)<sup>3487</sup>

Egungo aldakia 1897ko katastroan azaltzen da lehenengoz.

**Araneko aldapa:**

Aranaldapa bera da (cf. Iturrotzaldapa / Iturrozko aldapa):

“dos pedacos de piezas...en la endrecera llamada araneco aldapa” (1587)<sup>3488</sup>

**Arantzeduia:**

Arantze ‘elorri’ izena<sup>3489</sup> eta -duia atzizki multzokaria ditugu hemen. Dena den, Arantze ‘elorri’-z gainera ‘haranondoa’ ere izan liteke (cf. Arantzia < Arantzea ‘haranondoa’, eronkarieraz<sup>3490</sup>):

3483 Harana eta ibarra-ren arteko antz-aldeez ikus Galipentzuko Ibarra sarrera.

3484 PRA-Oibar, 30. k.

3485 Erdalduna pluralgile erromantzea hartzen duen aldetik, baina ez jatorriari dagokionez: cf. berro ‘labaki’, Azkueren arabera (APIM, 290. or. Ikus Uxueko Los Berros eta Berage sarrerak).

3486 PRA-Oibar, 13. k.

3487 Id., 30. k.

3488 Id., 3. k-bis.

3489 Lizarraga Elkanokoarentzat ere arantzea-k ‘elorri’, ‘arantza’ esanahiak zituen:

“O Virgin Ama soberána, ori dá Adánen humeén ártean nola aranceén artean azuzéna”, “ondórean oráño ez asperturic Demónioen ta guizón gaichstoficátuen errábia, Onec presumitzen ciá Errégue, cióte, coronazágun: eta forjaturic aranceés uztaí guisabát frincatucióte búruan indárrea” (DCC, 142 eta 162. orr.).

3490 K. Mitxelena, “Contribución al conocimiento del dialecto roncalés”, SHLV, 246-272. orr.

“ytten mas otra pieça...en la endreçera llamada arançeduya” (1587)<sup>3491</sup>

Indusi-ko bidea bertatik pasatzen zela badakigu, eta **Pieza de los Beneficiados** hemen zegoela ere bai (ikus sarrera hau). Beraz, aztertutako **Anderenobela**-ren ondoan behar zuen, Tafallako bidetik hurbil samar, **Indusigibel** aldean:

“una pª...en la endreçera llamada Jndusiguibela o arançeduya” (1597)<sup>3492</sup>

**Arcas, las:**

**Las Arcas** herritik hurbil dago, bi **Castillo**-en artean, lehengo **Arana**-ren eta oraingo **Los Linares**-en hasieran, errekan. Bertan bada izen berezirik ez duen iturri bat (**La Fuente del Pueblo** izena eman ziguten)<sup>3493</sup>, harrizko arku handi-ederrez egina, eta hortik hartu omen du eremu honek izena. Badaiteke dokumentazioko **Iturritzarra** bera izatea (ikus sarrera hau).

**Areamendikoa (altico de), (carasol de):**

Toponimo honetan **harea** ‘hondarra’ eta **mendikoa** ‘mendi txikia’ osagaiak ditugu<sup>3494</sup>. Bigarren lekukoak (**Aremendikoa**, 1594) **are-** duen arren<sup>3495</sup>, lehenak **area-** dauka, eta gainerakoak ere honen alde mintzo zaizkigu. Lergako bertako eta inguruko herrietako **Areatzea** (Eslaba) eta **Areatzeta-k** (Uxue) ere uste hori baieztatzen dute:

“en la endreçera llamada en areamendikoa” (1586)<sup>3496</sup>

“Ms otra (pieza) en Ariamendikoa...” (1761)<sup>3497</sup>

**Bukaerako -ko** hori, leku-genitiboa gabe, zenbait hitz (**mutiko, neskatiko...**) eta toponimotan (**Arizkomendia, Iguraimendikoa...**) azaltzen den atzizki txikigarria dugula zalantzarik ez dago.

**Reta Janárizek**<sup>3498</sup> guk aurkitu ez ditugun **Aramendicoz** eta **Arramendicoa** aipatzen ditu, eta hauetan oinarrituta etimologia okerra egiten du. Honela mintzo da autore hau:

“*Aramendicoz* (var. «Arramendicoa»). De «aran» «valle», «mendiko» «montículo» (de «mendi» «monte» y suf. diminutivo «-ko»), y «otz» «frío», es decir, «montículo frío del valle». La variante «Aramendicoa» significa «el montículo del Valle»”

Egun **Aramendikoa** [aràmendíkwa]<sup>3499</sup> deitu ohi dena **Lizarduia, Biguri** eta **Aldemuga**-ren arteko gaintto bat da. **Carasol de Areamendikoa** mendiko honen eguzkialdea izango zen<sup>3500</sup>.

3491 PRA-Oibar, 3. k-bis.

3492 Id., 9. k.

3493 Lehen hemengo ura herriko plazan dagoen iturrira joaten zen. Ikus **Fuente** sarreran dioguna.

3494 Ikus **Iguraimendikoa** sarreran dioguna.

3495 PRA-Oibar, 8. k.

3496 Id., 9. k.

3497 PRA-San Martin, 45. k.

3498 EHZE, 492. or.

3499 Gure informatzaileak (Juan Iriarte jaunak) **Aramendikoa** [aràmendíkóa] ere eman zigun, baina **Rotabidea** [ròtabidéal], **Rotabidia** [ròtabidja], eta **Sanginesondoa** / **Sanginesandoba** bezalako pareak ere eman zizkigunez, ez dakigu zein neurritan diren herrikoiak izen euskaldunetik hurbilen dauden aldaera horiek. Berak esan zigunez, aitarengandik ikasiak zituen.

3500 PRA-Kaseda, 54. k., 1836.

**Areatzea:**

**Harea** ‘legarra’ izena eta **-tzea** ugaritasun-atzizkia ditugu toponimo honetan. Egun bizirik dagoen **Los Arenales**-en baliokidea izan daiteke:

“...en la pieça de areaça” (1589)<sup>3501</sup>

**Arenales, los:**

**Bideondoa** eta **Barranco de Errotaxar**-en jarraipena den **Epaiz** eta **Aldeko mugako Barranco del Molino**-ren artean dago, despoblatu honetako **Caracierzo de la Torre**-ren aurrean. Izenak, pentsa daitekeenez, bertan harea asko izatean du oinarri, eta badaiteke euskarazko **Areatzea**-ren bete-beteko (esanahiz eta kokalekuz) ordaina izatea.

**Arizkomendia:**

**Harizko** ‘haritz txikia’ eta **mendia** ditugu hemen. Desagertutako toponimo hau non zegoen ez dakigu, baina garbi dago mendi baten izena zela:

“una faitia...en el terno llamado arizcomendia” (1550)<sup>3502</sup>

**Arrakoaberoki:**

Egun **Rokaberoki** [ŕokaβeróki] deitzen dena **Detrás de San Juan**-ez beste aldeko egutera da, **Barranco de Errotaxar**-en ondokoa. Hau dela eta, hainbeste aldaera dituen izen honen hasierako **arrecaga**- (**arrecagaña** 1746)<sup>3503</sup>, **arraca** (**arraca veroquia** 1704ean)<sup>3504</sup>, **arraque**- (**arraqueberoquia** 1715ean)<sup>3505</sup>, **reca**- (**recaberoqui** 1788an)<sup>3506</sup>, **Rekaberoki** 1919an<sup>3507</sup>)... horiek erreka arruntaren desitxuraketak besterik ez direla pentsa daiteke:

“Mas otra pieza en Arraca beroquia...teniente al rio concejil” (1704)

**Gainera**, kontuan eduki behar da hasierako bokal protetikoaeren aferesia ohizkoa dela **erreka**, **errot** eta antzeko elementuak dituzten toponimoetan, eta [r]-ren ondoan e > a pausoa ere ez dela inondik ere ezezaguna gure hizkuntzan (cf., **gainera**, **Lergako bereko Akerregi** > **Akarregi**), dokumentazioan behin edo beste **Recaberoqui** azaltzen dela, eta egun ere batzuek horrelaxe (**Rekaberoki** [ŕekaβeróki]) ebaki ohi dutela.

Guztiarekin ere, hemen erreka gabe beste zerbait dugula uste dugu, zeren espezifiko beraren gainean eraikitako **Arrakoagaña**-ren lekukorik goiztiarrenek (**arracoa gaña** 1593an, **arracua gaña** 1654ean) frogatzen duten moduan, hasierako osagai guretako iluna **Arrakoa** edo **Arrakua** da, goiz samar desitxuratu eta aldaera ugari sor-

3501 PRA-Oibar, 4. k.

3502 Id., 2. k.

3503 PRA-San Martin, 38. k.

3504 PRA-Oibar, 30. k.

3505 PRA-Kaseda, 17. k.

3506 PRA-San Martin, 58. k.

3507 Eleizalde, LVTV.

tzeko aukera eman bazuen ere. **Berokia** elementua gardena da, eta errealitateari ongi dago-kio, alderdi hori berokia delako, eguteraz gain. Aztergai dugun toponimoaren lehen leku-koak XVIII. mendearen hasierakoak dira, eta arraca, arraqui- aldaerak aurkezten dituzte:

“otra pieça en arraca veroquia” (1704)<sup>3508</sup>

“otra pieza...con su corral en Arraquiaboroquia teniente al barranco Concegil” (1708)<sup>3509</sup>

Gaurregun 1767rako dokumentatzen den (nahiz aldi berean bestelakoak ere aurkitzen ditugun) **Rokaberoki**<sup>3510</sup> ibiltzen da, beharbada herri-etimologiaz<sup>3511</sup>, eta aipatu ere dugun **Rekaberoki**.

Dermio honek, **Barranco de Errotaxar** eta **Detrás de San Juan**-ekin ez ezik, **Las Avellaneras**, **Zamakidu** eta **Prado del Molino**-rekin ere mugatzen du.

#### Arrakoagaña:

Izen honen jatorriaz ikus aurreko sarrera. Esan bezala, lehen lekukoek arracoa-, arracua- dute:

“ytten otra pieça en arracoa gaña” (1593)<sup>3512</sup>

“una pieza...en el termino de arracua gaña” (1654)<sup>3513</sup>

1746rako ordea hasierako elementua **Arreca**- bilakatua zen<sup>3514</sup>, eta 1767an berriz itxura beraz aurkitzen dugu<sup>3515</sup>.

#### Arridokieta:

Toponimo honetan **harri** izena, **idoki** ‘aterea’ partizipioa, eta **-eta** atzizkia ditugu<sup>3516</sup>:

“y otra pi\* en arriydoquieta de dos robadas” (1558)<sup>3517</sup>

Jatorrizko **Arridokieta**-tik 1708ko **Ardoquieta**<sup>3518</sup> edo **Ardioqueta**<sup>3519</sup> ateratzen da, **Ardoquietas** bilakatua 1800erako<sup>3520</sup> eta **Arduquetas** 1836rako<sup>3521</sup>. Gaur bi-

3508 PRA-Oibar, 30. k.

3509 IEA, 1456, 2. zkia., 6. or.

3510 PRA-San Martin, 48. k.

3511 Lergako gure informatzaileetako barek honela adierazi zuen dermio honen nolakoa:

“es un abrigo que hay unas rocas; hay como una roca y al carasol de la roca, el carasol que es abrigo. Pegau a Rotasiar, se llama al otro lau, baja el barranco, de Caiburu...bajando hacia Abaiz”

Dena den, ez dugu uste arroka Nafarroako toponimian asko azaltzen denik, **haitz**, **harri**, **malkor**, **barga** eta beste ugariak badira ere.

3512 PRA-Oibar, 7. k.

3513 Id., 27. k.

3514 PRA-San Martin, 38. k.

3515 PRA-Kaseda, 21. k.

3516 Ikus Mitxelena PT-eko 150-152. orrialdeetan egiten duen Zumaiako oraingo **Arritokieta**-ren (**Arridokieta** lehen) azterketa.

3517 PRA-Oibar, 2. k.

3518 IEA, 1456, 2, 9. or.

3519 Id.

3520 PRA-Oibar, 86. k.

3521 PRA-Kaseda, 54. k.



zirik dagoen aldaera azken hori da, eta ikusten denez pluralgile erromantzea itsatsi zaio ([lãrðukétaš] ebakitzen da), tokian tokiko euskara galdu ondoren beste hainbat toponimo desitxuratu(xe)ri bezala.

Reta Janárizek<sup>3522</sup> Orduquetas<sup>3523</sup>, Arduquetas eta Arduquetas biltzen ditu, eta ardo izenez, -keta “ugaritasunezko atzizkia”-z eta -s pluralgileaz osaturik dagoela uste du. Interpretazio honek, bistan denez, ez du inolako funtsik.

Arridikoieta-k Indusi, Zamiki eta Txirrialdea-rekin mugatzen du, eta errepidea eta Camino de Indusialzina-ren artean dago, azken hau ukitzera iristen ez delarik.

#### Arriurdina; Arriurdinaga:

Harri izena eta urdina izenondoa ditugu lehen aldaeran<sup>3524</sup>, eta bi elementu horiek eta -aga atzizkia bigarrenean.

Arriurdina-k (Arriurdinaga, Arriurdineta, Aitzurdina...) harri mota bat ematen du aditzera (ikus -aga-ri eskaini atalean dioguna), eta oso zabaldua dago toponimian. Itxuren arabera, Punchico, Zamakidu eta Uxueko bidearen ondoko eremua zen:

“una p<sup>a</sup>...en la endreçera llamada arriurdinaga u camino que ban a Uxue” (1615)<sup>3525</sup>

“...terno de Ardiurdinaga, ó Punttico” (1769)<sup>3526</sup>

“una porcion de tierra...en el terno que antiguamente llamavan Ardiurdinaga y aora Zamaquidu” (1791)<sup>3527</sup>

Zamakidu Urretako erreka (Takurreka orain) aldean dago, eta beraz, Arriurdina edo Arriurdinaga inguru horretan zegoela pentsatu behar da. Gaintxo batean badago orain “buro blanco” deitzen dutenetik ausarki, eta agian lur mota honekin lotu beharko dugu Arriurdina edo Arriurdinaga.

#### Arrizabala:

Harri izena eta zabala izenondoa ditugu toponimo honetan, erakutsian dagoenez. Piezas de San Gines-en ondoan zegoen:

“otra pi<sup>a</sup> en arriçabala...que afrenta con pas de San Gines” (1594)<sup>3528</sup>

#### Arroia (portillo de):

Hemen Arroia ‘arroila’, ‘mendi tarteko zintzurra’, ‘bide bazterretan egiten edo gertatzen den ildo-modukoa’, ‘erretena’, ‘ur-jasak eratzen duen ubidea’<sup>3529</sup> dugula di-

3522 EHZE, 495. or.

3523 Hau da azken katastroko aldaera bakarra.

3524 PRA-Kaseda, 7. k., 1693.

3525 PRA-Oibar, 18. k.

3526 PRA-San Martin, 49. k.

3527 Id., 61. k.

3528 PRA-Oibar, 8. k.

3529 Sarasola, HLEH eta Mitxelena, OEH.

rudi. Mitxelena dioenez, \***Arroia Arrugia**-tik atera da, erdarazko **arroyo** bezala, eta aldaki horren eta **arroila**-ren arteko erlazioa erdoi eta erdoil, edo **gaiendu** eta **gailendu**-ren artean dagoen berbera da<sup>3530</sup>.

**Arroia**-ren formari dagokionez, Lergan, elkartuetan, 1591ko lehen lekukotasunean **aroya**-dugu (r / rr txandaketak maizkoak dira, grafia kontu hutsak gehiengotan), eta 1593koan **aroy**-<sup>3531</sup>. Oletan eta San Martinen oinarri hutsa dokumentatzen da, beti -a duelarik: **Larroya** (Oleta, 1535<sup>3532</sup>), **Arroya** (San Martin, 1536<sup>3533</sup>), **Arroya** (Oleta, 1537<sup>3534</sup>), **La Roya** (Oleta, 1801<sup>3535</sup>).

Gaur **Larroia** [laˈrɔja] deitzen den alderdia Oleta, San Martin eta Lergaren arteko mugan dago, eta mendi baten gailur aldea izendatzen duenez gero, badirudi 'mendi tarteko zintzurra' esanahia duela, bertan ateka (cf. **Arroiaportillua**) bai baitaigo<sup>3536</sup>:

"y començando en el portillo de arroja de la parte de Sangines asta Junto la muga de Sanmn" (1611)<sup>3537</sup>

Lergako **Arroia**-k **Indusigibel**, **Santa Agata** eta **Monda**-rekin mugatzen du.

#### **Arroiaportillua:**

**Arroia**-ko harratea zen hau, alegia, egun **Puerto de Lerga**-ren goiko aldetik Oletara joateko dagoen bigarren mailako errepideko atea. **Arroia** Lergako dermioa den duda egiten dute Lergako gure informatzaileek, arrazoirekin agian, baina beste horrenbeste gertatu zaigu, adibidez, Uxuekoa dela segurua den **Larrageta** toponimoarekin Uxuen:

"cada sendas arinçadas de tierra blanca en la piª aRojaportillua" (1591)<sup>3538</sup>  
 "ytten otra piª en aRoyportillua" (1593)<sup>3539</sup>

Oletan 1611n<sup>3540</sup> **Arroiaportillua**-ren ordain erdalduna den **Portillo de Arroja** aurkitu dugu.

#### **Artealdea (carasolico de), (caracierz de):**

**Artea** zuhaitz-izena eta **aldea** 'ingurua' ditugu hemen:

3530 Mitxelena, AV, 57. or. Izen honen etimologiaz ikus DEV-II-ko **Arroil** sarrera.

3531 Mitxelena (OEH) **arroila** eta **arroi** ematen du, lehena -a itsatsiaz, eta bigarrena -a-rik gabe. Gure kasuan ez dakigu seguru zein den oinarritzko forma, baina ditugun lekukoak ikusita -a itsatsia duena dela irudi du. **Aroyportillua**-ren **aroy**- hori elkarketan egoteari zor dakioko.

3532 PRA-Oibar, 2. k.

3533 Id., 2. k.-bis.

3534 Id., 2. k.

3535 Id., 87. k.

3536 Mitxelena (OEH) **arroi harrobia**-ren aldaera ere izan daitekeela dio, eta hau toponimo honen jatorria bilatzeko beste bide bat izan daiteke. Gure ustez, dena den, **arroila**-rekin lotu behar da, gorago esan gisan.

3537 IEA, 515. kart., 20. zkia., 104. org.

3538 PRA-Oibar, 5. k.

3539 Id., 7. k.

3540 Id.

“ytten otra pi<sup>a</sup> en artealdea...que afrenta con el termino de aldea” (1592)<sup>3541</sup>

Gaurregun, halere, gure informatzaileen arabera **Artialdea** [ãrtja]déa] deitzen duten alderdian ez dago arterik. Hau ez da harritzeko, askotan zuhaitzak bota eta lurrak labakitu egiten direlako. Gainera, **Artealdea** izenak **arte** bakarra suposatzen du, **Leatxe**-ko **Dorreko Itxaurrealdea**-k itxaur bakarra suposatzen duen bezalaxe (ikus, dena den, Eslabako **El Chaparro**-n honetaz dioguna).

**Artealdea** Lergan dago, **Aldeko Santa Coloma**-ren aurkezean, **Monte de arriba** eta **Murugibel**-en artean:

“otra pieza en artealdea...teniente al termino de aldea y monte” (1704)<sup>3542</sup>

Elutsa eta egutera denez, zenbaitetan **Carasolico de Artealdea** (txikia izaki) eta **Caracierzo de Artealdea** erabiltzen dira, baina dokumentazioan horrelakorik ez da azaltzen.

#### Arzuloa:

1727an baizik dokumentatzen ez den izen hau **harri**-ren elkarketa-erakortetako aldakia den **har**- eta **zuloo**-z bide dago osatua, agirian aurkitzen duguna **Arzuloa** bada ere. Adiera ‘hartzuloa’, ‘haitzuloa’, ‘harpea’ izan daiteke, baina ez dakigu honelakorik Lergan baden (cf. Eslabako **Aitzuloa**):

“unos quiñones en el paraxe de arsuloa de dicho monte (Monte de arriba) para los vecinos”<sup>3543</sup>

#### Avellanera, la; Avellaneras, las:

1897ko katastroan agertzen da lehen aldikoz, eta berria dela dirudi. Esperatzekoa zen bezala, hurritzetan aberatsa den **Barranco de Urretako erreka**-n dago, honen eta **Arrakoaberoki**-ren artean.

#### Bakuiturri:

Toki-izen hau oso zalantzazkoa da; behin bakarrik ediren dugu, 1588an:

“yttem otra p<sup>a</sup> en bacuyturri” (1588)<sup>3544</sup>

Amaierako iturri osagaia argia da, baina ez dakigu hasierako **bacu**- hori zer izan daitekeen (**bucu** ‘butzu’ agian? Cf. Eslabako **Bakundi**), ez eta **-c**- grafemak [k], [s], [c] edo beste zerbait adierazten duen ere.

#### Baratzeandia:

**Baratze** izena eta **handia** izenondoa ditugu hemen. Herri ondotik pasatzen den erreka (**Barranco de Iturralde**?)-ren alboan zegoen:

3541 Id., 6. k.

3542 IEA, 1209, 28, 6. or.

3543 LEA, G. Sarasa, 117. org.

3544 PRA-Oibar, 4. k.

“ytten una huerta...en baraçiandia...que affrenta con...el Rio” (1593)<sup>3545</sup>

#### **Barranco, paco del:**

Herri ondoko erreka oihezki bat izendatzen bide zuen honek (cf. **Iparaggerria** sarrera). Dena den, Lerga ondoan ez dago honelakorik, eta gainera **Paco** ez da hemen erabiltzen, Uxuen eta Eslaban erabiltzen ez den bezala. Horregatik, daitekeena dela uste dugu **\*Paso del Barranco**-ren gaizki ulertze baten aurrean egotea, hau da, erreka (**Iturralde** edo **Ikaiburu**-koa) zeharkatzeko sakontasun gutxiko gunea izatea:

“un sitio...qe llaman la hera de yturralde...junto al Pueblo, afronta a paco del barranco” (1811)<sup>3546</sup>

#### **Barrio alto; Barrio de arriba:**

Herriaren goiko aldeko auzoa da, beste modu batera (**Barrio de**) **la Calzada** edo (**Barrio de**) **Irigoiena** izenpean azaltzen den berbera. Orain **Barrio de arriba** izenaz ezagutzen da:

“la casa principal...en el Barrio alto en el parage llamado la calzada” (1693)<sup>3547</sup>  
 “una casa vecinal, en el barrio de Arriba llamado de Calzada” (1827)<sup>3548</sup>

#### **Barrio bajo; barrio de abajo:**

Herriaren behe aldeko auzoa da, gure hizkuntzako (**Barrio de**) **Iribarrena** bera.

#### **Barrio de la Iglesia:**

Aurrekoaren adierakide dugu:

“la casa...en el Barrio de la Yglesia” (1816)<sup>3549</sup>

#### **Barrio de la Plaza:**

Plaza inguruko etxeek osatzen dute. Aurren aldiz 1790ean aurkitu dugu<sup>3550</sup>.

#### **Barrio de San Pablo:**

**Barrio bajo**-ren errankidea da:

“una casa vecinal...en el barrio de Sn Pablo” (1822)<sup>3551</sup>

---

3545 Id., 7. k.

3546 Id., 93. k.

3547 PRA-Kaseda, 7. k.

3548 PRA-San Martin, 85. k.

3549 Id., 79. k.

3550 Id., 60. k.

3551 PRA-Oibar, 100. k.

**Barrio de Sancho Martín:**

Barrio de San Pablo-n orain urte batzuk bazen Casa de Sancho izeneko etxea, eta gure ustez hau dokumentazioko Barrio de Sancho Martín-en ondorengo izan zitekeen. Honen arabera, Barrio de Sancho Martín orain Barrio de San Pablo deitzen dena izango zen, edo agian honen barruko zati bat, Casa de Sancho horren ingurukoa:

“la casa...sita en esta viª de Lerga en el barrio llamado Sancho Martín teniente a camino RI” (1697)<sup>3552</sup>

**Barrio de Santo Tomás:**

Santo Tomás edo Sanditume ermitako bidearen inguruko auzoa zen:

“una casa...situada..en el barrio llamado Santo Tomas q affr...con camjo q ban a Santotomas” (1579)<sup>3553</sup>

Ermita Lergatik hurbil zegoen, gaurko Santo Tomás alderdian, Coseras eta Los Femorales artean. Barrio de Santo Tomás gaurko “Casa del Zapatero” eta inguruko etxeei deituko zitzaien, oraingo Altico de Santo Tomás etxe horren ondoan baitago.

**Basasagarra:**

Aldaera batuztat herskari ahostunez hasten den forma hobetsi badugu ere, dokumentazioan ez dugu sekulan horrelakorik ediren. Azaltzen direnak aldaki osoa den Pasasagarra (1693)<sup>3554</sup>, eta haplologiaz sortuak irudi duten Passagarra (1715)<sup>3555</sup> eta Pasagarra (1719)<sup>3556</sup> dira. Guztiarekin ere, eta Oletako Bassasagarra<sup>3557</sup> eredu harturik, Lergako izen horien jatorritzat Basasagarra proposa daitekeela uste dugu<sup>3558</sup>. “Camino Real” edo errepede baten inguruan zegoela besterik ez dakigu.

**Bidaburua:**

Bide-ren elkarketa-erartorketako aldaera ohi den bida- eta burua ditugu hemen. Dokumentazioan beti -s pluralgile erromantzeaz lagundurik aurkitu dugu, baina Eslaban bezala hemen ere Bidaburua aukeratu dugu aldaera batuztat<sup>3559</sup>.

3552 PRA-Kaseda, 8. k.

3553 PRA-Oibar, 2. k.-bis.

3554 PRA-Kaseda, 7. k.

3555 Id., 17. k.

3556 Id., 19. k.

3557 PRA-Oibar, 25. k, 1646.

3558 Cf. Nafarroan hain ezaguna den patxaran(a) hitza, \*baxaran(a)-ren bitartez basaran(a)-tik aterea.

3559 Lehenago esan bezala, arrunta da, behin euskara galduz gero, euskal toponimoei -s (edo -z) bat eranstea (cf. Arridikieta > Arduketas Lergan bertan, Iturrizarra > Yturzarras > Turruzales Uxuen, besteak beste), baina ez da horren arrunta 1556rako azaltzea. Kasu honetan, dena dela, bide bat baino gehiago egoteari zor dakioko pluralgilea.

**Bidaburua** Julio, Lerga, Eslaba eta Oletako mugan zegoen, eta Uxuetik Lerga eta Julion gaindi Zabaltza, Elo eta Iruñera zihoan bidearen zati bat (edo honen inguruko alderdi bat) izendatzeko ibiltzen zela irudi du, hots, **Altxunbidea** bera edo honen hurbileko eremu bat:

“y amojonamientos que se abia echo de los dhos termos que los de Lerga y en su lugar los de Olleta tenian que se llaman bidaburuas los cuales eran comunes de los dos pueblos” (1556)<sup>3560</sup>

### Bideondoa:

**Bide eta ondo**-z osaturik dago:

“...en el termino llamado bideondoa” (1552)<sup>3561</sup>

1743an **Bidondoa** dugu<sup>3562</sup>, 1800. urtean **Videandova**<sup>3563</sup>, eta 1815ean<sup>3564</sup> **Videandoba**. Azken aldaera hauetan oinarritzen da egungo **Biandoba** [biandóba]. Hemen ere, beste batzuetan bezala -oa > -oba urratsa dugu, euskal toponimoa gaztelaniaz erabilia izatean gertatu bide zen azentu-aldaketaz. 1897ko katastroan, halere, **Viaondoa** eta **Viaondua** dugu, tarteko ezpainbiko hori ez duen aldakia, alegia.

**Bideondoa**, Camino de Euntzezar ondoan dago, Lizarrandia eta Prado del Molino-ko mugan.

### Biguri (puentico de):

Izen honen etimologia ilun dago guretzat. 1585ean mugatzailez horniturik agertu arren, lehenago eta geroago beti elementu hori gabe aurkitu dugu, egun ibiltzen den modu berean (**Biguri** [bigúri] da orain):

“una biña...en el termjo llamado biguri” (1543)<sup>3565</sup>

“en la endrecera llamada viguria” (1585)<sup>3566</sup>

Izen honek Eslaba eta Zangozara doan bidearen ondoko alderdi bat adierazten du, hots, Aldea aldetik jaisten den erreka gaintzeko dagoen xubingoa eta inguruko alorrak, Aldeko mugaraino:

“en...viguri afrontada con el camino Real que ban de la dha villa de Lerga para la de sanguesa y con el rio comun que passa junto la dha villa” (1609)<sup>3567</sup>

Gesalutzen itxuraz Lergako toponimo bera den **Biguria** izeneko herria dugu<sup>3568</sup>.

3560 PRA-Oibar, 2. k.

3561 Id..

3562 Id., 53. k..

3563 Id., 86. k.

3564 Id., 95. k.

3565 Id., 2. k.

3566 Id., 3. k-bis.

3567 Id., 16. k.

3568 Ikus NHI, 164. or.

**Burlon (alto de):**

Etimologia ilunekoa da. Gaina dela aintzat harturik **buru**-rekin zerikusia duela kontu egin liteke:

“una pieza en burlon” (1636)<sup>3569</sup>

Itxura erromantze nabarmena du, baina euskaraz erabilia izan zela dudarik ez dago, **Burlonaldapa** elkartua froga. Izaban **Murlón** dugu bizirik egun.

**Burlon** [buṛlón] Lergako portuko alderdi gorena da, eta zenbaitetan **Alto de Burlon** ere esaten da, gaina baita. **Monda**, **Indusi**, **Murubitarte** eta **San Gines** artean dago, **El Alto** edo **El Puerto de Lerga**-ren ondoan.

**Burlonaldapa:**

Errepidearen ondoko malda zen:

“otra pieça faytia en burlonaldapa...que afren<sup>a</sup> con...camino publico que ban a Sanmyn” (1609)<sup>3570</sup>

**Buztineko aldapa:**

**Buztin** ‘batez ere aluminio silikatoz osatzen den lurra, gehienetan zurixka edo gorrixka, uretan bustita oso biguin eta malgu bihurtzen dena eta, horregatik, ontziak, teilak, adreiluak... egiteko erabiltzen dena’<sup>3571</sup> izena, **-eko** leku-denborazko genitibo singularra, eta **aldapa** ‘malda’ ditugu toponimo honetan. Behin bakarrik ediren dugu, 1613an:

“otra pieça...en la endreçera llamada buztinecoaldapa”<sup>3572</sup>

**Cabañetas, las:**

**Las Cabañetas** (‘etxolak’) **Sarga** eta **Monte de arriba**-ren arteko zuloa da.

**Calvario, el:**

Orain urte batzuk elizatik **Calle Mayor**-en barrena **Las Coseras**-en dagoen hilerrira joaten zen, eta hemendik berriz atzera kale nagusira. Antzina, ordea, ibilbidea ezberdina zela irudi du:

“Ms junto al Calvario otra pieza...que afronta a...Camino Real de Tafalla” (1761)<sup>3573</sup>

3569 PRA-Oibar, 23. k-bis.

3570 Id., 13. k.

3571 Sarasola, HLEH.

3572 PRA-Oibar, 14. k.

3573 PRA-San Martin, 45. k.

**Calzada (barrio de), la:**

Calzada-ren adieraren inguruan ikus Leatxeko **Galtzada** aztertzean dioguna. **Barrio de la Calzada Barrio alto**, **Barrio de arriba** (ikus sarrera hau) edo **Irigoiena** zeritzan auzoa zen, edo hobe esan, horren zati bat.

**Calle Mayor, la:**

Heria goitik behera zeharkatzen du karrika honek, **Barrio de arriba-tik Camino de Errotaxar-eraino**.

**Caminico de Iturralde:**

**Barrio de abajo-n** dagoen **Calle de Santa Bárbara-tik** herri ondoko **Barranco de Iturralde-ra** doa.

**Camino de Abaiz, el:**

Lergatik **Santa Bárbara-n** zehar **Abaiz** edo **Epaiz** despoblatura doa. Behinola orain ezezaguna den **San Andrés** edo **Sandiandore** ermita ere bide honen bazterrean genuen (ikus bi sarrera horiek). **Camino del Molino** ere deitu izan zaio, bide honetatik **Barranco de Errotaxar-en** zegoen errotara ere joaten baitzen.

**Camino de Aldeko harana:**

**Murugibel-en** gaindi zihohan, tarte batez behintzat **Camino viejo de Artealdea-ren** albotik. Gaurko **Camino de Murugibel** izan zitekeen:

“una pieza en...Murubiguel...afta...a camino viejo que ba á Artealdea, y a camino q va a Aldequarana” (1798)<sup>3574</sup>

**Camino de Altxirria:**

**Altxirria** edo **Alzirria** ‘ardi-gorotza’ izena oraindik bizirik dago Oibar haranean eta Uxuen gutxienez, eta toponimian ere behin baino gehiagotan ediren dugu. **Camino de Altxirria-k** ardibidea adierazten zuen, eta **Altxunbidea-ren** kidea zela dudarik ez dago (cf. Zareko **Altxirribidea**. Ikus gainera **Lergako Altxunbidea** sarreran dioguna). Eslaba eta **Lergaren** arteko faziaren ondotik zihohan:

“un pedaço tenian façeria entre las villas de Lerga y eslabo a carasol agua vertiente del camino de alchirria” (1611)<sup>3575</sup>

**Camino de Amatriain, el:**

**Santagataberokia-ko** portilutik **Orbako Amatriain** aldera zihohan, antza:

“y començando en el dco camino que ban de lerga para Olleta, asta el portillo grande de Sandagataveroquia y el camino que pasan de Lerga a amatriayn” (1611)<sup>3576</sup>

3574 PRA-Oibar, 84. k.

3575 IEA, 515. kart., 29. zkia., 44. org.

3576 Id., 104. org.



**Santa Agata-ra Zamiki-n** barrena iristen zen.

**Camino de Andua, el:**

**Andua, Munikotxorrotx eta Errekina-n** zehar Oletara doazen bideetako bat dugu hau.

**Camino de Artealdea:**

**Artealdea-ra** joateko bi bide ziren, nonbait: **Camino viejo de Artealdea** (ikus **Camino de Murugibel** sarrera), eta **Camino de Artealdea**. Azken hau non barrena zihoan ez dakigu:

"otra piª en el camino que ban a artealdea" (1593)<sup>3577</sup>

**Egun Artealdea-ra** joateko **Camino de Murugibel** erabiltzen da.

**Camino de Eslava, el:**

**Gaurko errepidea** da:

"...en el terno de gruzaldea theniente a...pieza de la Abadia...y camino qe se ba a Eslava" (1767)<sup>3578</sup>

**Camino de Euntzeberri, el:**

**Camino de Ikaiburu** bera da. Orain ezezaguna den **Aldaiondoa-tik** edo hurbiletik igarotzen zen (ikus sarrera hau):

"la una (piª) en la endreçera llamada aldayondoa...que affrenta...con camino que ban a unçeberri" (1594)<sup>3579</sup>

**Camino de Euntzezar, el:**

Herritik datorren bidea **Santa Bárbara** ermitan bitan banatzen da: adar bat **Epaiz eta Barranco de Errotaxar** aldera doa, eta bestea **Aporpari**, eta **Bideondoa-ra**, eta hain zuzen ere bigarren hau da **Camino de Euntzezar** deitzen dena (**Camino de Onzezar** egun). **Euntzezar** dermioa aipatu bi bide horien artean dago, bereizgunearen ondoan (ikus sarrera hau).

**Camino de Gallipienzo:**

**Cascajo** edo **Kaskallua-n** gaindi zihoan, gaur **Los Cascajos** izenaz ezagutzen denean barna, eta **Camino de Abaiz-ekin** identifikatu beharra dagoela irudi du. Orain **Camino de Gallipienzo**, **Lergan**, **Epaiztik** Eslaban barna **Galipentzu** aldera doanari esaten zaio:

3577 PRA-Oibar, 7. k.

3578 PRA-San Martin, 48. k.

3579 PRA-Oibar, 8. k.

“...terno del casajo...que afronta con camino que se ba a Gallipienzo...” (1774)<sup>3580</sup>

#### Camino de Ikaiburu:

**Barrio de abajo** (behialako Iribarren) auzotik abiatzen da. Hasieran **Camino de Errotaxar** bera da, baina gero, **Coseras** eta **Santo Tomás** igarota, eskuinaldera doa, **Ikaiburu-rantz**. Dermio hau gurutzatu eta **Euntzeberri** eta **Iturrotz**-aino iristen da (lehen **Txutxu-raino** ere bai, antza). **Camino de los Corrales** ere esaten zaio (ikus sarrera hau).

#### Camino de Indusi:

**Gaur Camino de la Sancina** (< **Indusialzina**) erabiltzen dute lergarrek **Indusi-ra** joateko. Bide hau orain galdua dagoen **Arantzeduia**-tik igarotzen zen, **Pieza de los Beneficiados** deitu alorraren albotik (ikus sarrera hau).

#### Camino de Indusigibel, el:

**Errepidetik**, **Indusigibel-en** zehar, **Alto-ra** igotzen da (ikus **Pieza de Beneficio** sarrera). Antzina **Camino de Indusigibel Txirrialdea**-n gaindi zihoala badakigu, eta beraz oraingo errepidea bera edo berttua zela esan daiteke:

“...en el terno de Chirrealdea q afronta al camino q va á Yndusiguivel...” (1777)<sup>3581</sup>

#### Camino de Iturrotz, el:

**Camino de Ikaiburu** da, alegia, aurrerago **Camino de los Corrales** deritzana. Dena den, dokumentazioan edireten duguna **Camino de Txutxu** identifika daitekeela dirudi:

“term que llaman de San Pelayo que se atiene con camino que baja a Iturroz” (1723)<sup>3582</sup>

#### Camino de Jaun Done Salvatore:

**Camino de Eslava**-tik (**Carretera de Eslava** orain) **Jaun Done Salvatore** eta **Sagarraga** aldera doa:

“otra pieza en el camino de Juan de Salvatore” (1773)<sup>3583</sup>

#### Camino de Jauregizar:

**Euntzeguti**-tik igarotzen zen, baina hau non zegoen ez dakigu:

“otra pieza en Euntzeguti...teniente a...camino llamado Jauregizar” (1682)<sup>3584</sup>

3580 PRA-San Martin, 51. k.

3581 Id., 53. k.

3582 IEA, 1765, 8, 886. or.

3583 PRA-San Martin, 51. k.

3584 PRA-Kaseda, 1. k.

**Camino de (la ermita de) San Gines, el:**

**Camino de Indusialzina** bera da, **Indusi-tik** Uxueko muga bitartean. Orain galdurik dagoen **Iturriskoa**-n zehar zihoan:

"ytten otra pi<sup>a</sup> en yturriscoa...que affrenta con camino que ban a la hermita de Sangines" (1593)<sup>3585</sup>

**Camino de la Venta:**

**Camino de Indusialzina** bera da herritik **El Puente** pequeño-raino. **Venta de San Gines**-a zihoalako jarriko zioten duen izena.

**Camino de los Corrales, el:**

**Camino de Ikaiburu**-ren adierakidea da. **Ikaiburu** eta **Iturrotz**-en barna "Corral de **Txutxu**"-raino doa. Badaiteke **Uxuera** zihoan hirugarren bidea izatea (ikus **Txutxu** sarrera).

**Camino de los Linares, el:**

Herritik, bi **Castillo**-en artetik, **Los Linares**-a doa. **Sarga**-ra ere hemendik joaten da.

**Camino de los Olivares, el:**

Ikus **Camino del Cascajo** sarrera.

**Camino de Maquirriain, el:**

Egun **Makirriaina** joateko biderik aproposena **Oletabidea** dela irudi duen arren, antzina **Zamiki**-n zehar joaten zen, **Mondakieta**-tik (ikus sarrera hau) **Santa Agata**-ra ziurrenera, eta hemendik, **Santa Agataberokia**-ko portilutik, **Oleta**, **Amatrain** eta **Makirriaina**:

"otra pieza en Zamiqui...teniente al camino que se ba a Maquirriayn" (1704)<sup>3586</sup>

**Camino de Monreal:**

**Arana** eta **Sarga**-n barna zihoan. Irudi duenez, goiko bidearekin, **Uxuetik** Elora zihoanarekin (**Altxunbidea** edo **Camino de Pamplona**-rekin), bat egiten zuen **Oleta**, **Eslaba** eta **Julioko** mugar:

"un linar...en arana...qe affrenta con Camino Real que ban a monReal" (1594)<sup>3587</sup>

---

3585 PRA-Oibar, 7. k.

3586 Id., 30. k.

3587 Id., 8. k.

**Camino de Monreal a Ujué:**

**Altxunbidea** edo **Camino de Pamplona** bera zen. **Txutxu, San Gines, Arroiaportilua** eta **Bidaburua**-n gaindi zihoan, **Julio** eta **Oleta**-ren arteko mugatik:

“...por la esquina abajo Junto al camino que ban de monReal para Uxue, en el portillo questa delaparte de hacia Lerga, se pusso otra muga...” (1611)<sup>3588</sup>

**Camino de Murugibel, el:**

Bi gazteluen arretik doa, **Alto de Murugibel**-en barrena:

“yttem otra pª en muruguibelportillua...afuenª con el camino q ban a muruguibel” (1588)<sup>3589</sup>

**Camino de Olleta:**

**Euskarazko Oletabidea**-ren baliakide erdalduna da; **Andua** eta **Errekina**-n barna doa **Oletarantz, Munikotxorrotx**-en aldamenetik. Dena dela, oraindik ere bada **Oletara** joateko bigarren bide bat: **Errotabidea**-koa, **Andua** eta **Sarga**-ren artekoa, mendi gainetik doana:

“una pieza...en Andua theniente a camino q se ba a tafalla y al barranco de Andua y Camino de olleta” (1718)<sup>3590</sup>

Orain ezaguna ez denagatik, dokumentazioan hirugarren bat bazela garbi ageri da. Azken hau **Amatriaín** eta **Makirriaina** ere bazihoan, **Oletara** ez ezik, **Zamiki**-n barna. Honek **Santsoaina** joateko ere bide hau ibiltzen ahal zela pentsarazten digu, eta ezein saildurekin zerikusirik ez duen gaurko **Sanzinzabal** (ikus **Santsoainzabal** sarrera) bide honen ondorioz edo sortua dela, hau da, **Santsoainzabal** **Santsoaina** zihoan bideko zabaldua zela.

**Camino de San Juan:**

1592rako agertzen da:

“otra piª en la loma de donde SanJuan...que afrenta con...camino que ban a San Juan”<sup>3591</sup>

Gaur bizirik dagoen **Tras San Juan**-a **Camino de Txutxu**-tik joaten da erreka igaro arteraino, eta gero ezkerretara hartzen da. Xenda txar bat da, ez bide zabala.

**Camino de San Martín:**

**Camino de Indusialzina** bera zen (ikus **Burlonaldapa** sarrera):

3588 IEA, 515, 29, 104. org. Ibarzabaltzan Ujuebidea deitzen zitzaion bide honi: “...la pieza del Camino de Ujue bidea... afronta... con la pieza de Martina y con la pieza de biurrunena, PRA-Elo, 17. k., 1718.

3589 PRA-Oibar, 4. k.

3590 PRA-Kaseda, 18. k.

3591 PRA-Oibar, 6. k.

“entrando...del lado de la texeria, desde la Basilica de Nra Sra por el camino arriba que se ba a S Martin abajo de la balsa de Murubitarte contra el camino Real” (1788)<sup>3592</sup>

#### Camino de Sangüesa:

Eslabako bidea da, errepidea (ikus **Biguri sarrera**).

#### Camino de Santa Coloma, el:

Camino de Murugibel bera da:

“...camino que se ba al termino qe se llama Sta Coloma” (1789)<sup>3593</sup>

#### Camino de Santo Tomás, el:

Gaur ezezaguna da. Dirudienez, **Barrio de San Pablo**-ren azpitik, **Coseras**-en gaindi, **Altico de Santo Tomás**-a zihoan (ikus **Barrio de Santo Tomás sarrera**).

#### Camino de Sarga, el:

**Las Arcas** eta **Los Linares**-en barna doa. Beste gisaz **Camino de los Linares** deritza.

#### Camino de Tafalla, el:

Bi ziren **Camino de Tafalla** izena zutenak: **Epaiztik**, **Txutxu**-n barrena **San Gines** eta **San Martina** zihoana, eta **Lergatik** **San Martin** eta **Tafallara** zihoana (**Camino de San Martín**). 1765ekoa bigarren hau zen:

“una pieza...en el terno, llamado Linduialzina (sic) thente...al Camino Real q se ba a Tafalla” (1765)<sup>3594</sup>

#### Camino de Txutxu, el:

**Camino de Errotaxar** bera da, baina erreka igarota **Camino de Txutxu** izena hartzen du:

“Dos piezas en...yturroz...theniente la una...con Camino Rl que se ba â chuchu y camino que se ba a Zaldiburu” (1722)<sup>3595</sup>

#### Camino de Ujué:

Euskarazko **Uxuebidea**-ren adierakidea da. **Uxerako bideak**, dena dela, bi dira orain: bata **La Virgen**, **Indusi** eta **San Gines**-en gaindi doana da, eta bestea **Malliturri**-n zehar doan **Camino de Txutxu** (**Camino de Andiaga Uxuen**):

3592 PRA-San Martin, 58. k.

3593 PRA-Kaseda, 32. k.

3594 PRA-Oibar, 66. k.

3595 Id., 37. k.

“ytten otra p<sup>a</sup> en Suchuportillua...afruenta con el Cam<sup>a</sup> q ban a Uxue...” (1588)<sup>3596</sup>

Bi hauetaz gain hirugarren bat bazegoelako susmoa dugu (honetaz ikus Txutxu sarrera).

#### Camino de Ujué a Pamplona:

Uxuetik Txutxu, Monda, Arroiaportillua eta Bidáburua-n zehar, Julio eta Zabaltzan barrena<sup>3597</sup> Elora zihoan, alegia, Camino de Monreal a Ujué edo Altxunbidea berbera (ikus sarrera hau) zen. Hemendik, seguruenara, Aranguren gurutzatu eta Iruñera sartuko zen:

“otra pieza en Monda...theniente a Camino q ban los de Ujue a Pamp<sup>a</sup>” (1715)<sup>3598</sup>

#### Camino de Urretako erreka, el:

Santa Bárbara ermitatik eskuinetarantz hartzen da, erreka aldera:

“una biña...en...çuloaga...que afrenta con...el Camino y senda que ban a Uretaco erreca” (1592)<sup>3599</sup>

#### Camino de Zalduburu, el:

Camino de Ikaiburu, Camino de Euntzeberri edo Camino de Iturrotz bera dugu. Zalduburu-ren goiko aldera, dena dela, Camino de Indusialzina-tik ere joan daiteke.

#### Camino de Zamiki:

Zamiki-ra zihoan:

“una pieza en...el llamado chirrialdea...que afrenta a...camino de Zamiqui” (1754)<sup>3600</sup>

#### Camino del Barranco:

Irigoiena-tik herri ondoko Barranco de Iturralde-ra zihoan (ikus Caminico de Iturralde eta Barrio de la Calzada sarrerak).

#### Camino del Cascajo:

Orain Camino de los Cascajos deritzana Camino de Abaiz bera da, eta Camino de los Olivares izenaz ere ezagutzen da.

3596 Id., 4. k.

3597 “Ms otra pieza...en el mismo camino de Ujue que afrontta con el Rio Ciroz...”, Zabaltza, PRA-San Martin, 45. k., 1760.

3598 PRA-Kaseda, 17. k.

3599 PRA-Oibar, 6. k.

3600 PRA-San Martin, 42. k.

**Camino del Molino:**

Epaiza (eta Galipentzura) doana da. Gurregun ezezaguna den Sandiandore edo San Andrés-etik igarotzen zen:

“una viña en Sn diandore...q afronta con viña...y Camino q se ba al Molino” (1763)<sup>3601</sup>

Epaizko mugan **Barranco de Errotaxar**-en jarraipena den **Barranco del Molino** dugu, eta hauen eta **Barranco de Urretako erreka**-ren elkargunean **Prado del Molino** (ikus **Molino** sarrera). Nolanahi ere, itxuraz Oletako errotaren batera zihoan **Errotabidea** ere badugu **Lergan** (ikus **Errotabidea** sarrera).

**Camino del Monte:**

**Camino del Monte de Indusi**-ren laburketa da. 1594eko agerraldikoa, ordea, **Camino del Monte de arriba**-ren laburketa dugu:

“otra piª en araneco aldapa...que afrenta con...camino que ban al monte”<sup>3602</sup>

**Camino del Monte de arriba, el:**

**Aranbazterra**-n (**Lanbastera** orain) gaindi zihoan, **Los Linares** eta **Sargatik**. Egun **Camino de los Linares** deritza:

“otra pieza en...aramasterra...afta a...camino nuevo q va á el Monte de Arriba” (1795)<sup>3603</sup>

**Camino del Monte de Ujué:**

**Iturrozko aldapa**-n zehar (ikus sarrera hau) **Txutxu**-ra doan oraingo **Camino de Txutxu** nahiz **Camino de los Corrales** izan zitekeen **Uxueko oihan**(ondo)-a-**ra** zihoan hau (ikus **Txutxu** eta **Uxueko Oihanondoa** sarrerak).

**Camino viejo de Artealdea:**

**Murugibel**-en zehar zihoan, **Aldeko harana**-ko bidearen paretik, antza:

“una pieza en...Muruguibel...afta...a camino viejo que bá a Artealdea, y a camino que va a Aldequarana” (1798)<sup>3604</sup>

**Cañada, la:**

Oleta eta **Lergaren** arteko mugan barrena doa **Juliotik** heldu den **altxonbide** hau. Hemendik, **San Gines**-en gaindi, **Uxueko lurretan** sartzen da, **Txutxu**-ra (ikus **Altxunbidea** sarrera).

3601 PRA-Oibar, 62. k.

3602 Id., 8. k.

3603 PRA-Kaseda, 35. k.

3604 PRA-Oibar, 84. k.

**Casa Sancho:**

Ikus **Barrio de Sancho Martín** sarrera.

**Cascajera, la:**

**Burlon-en dago, Indusi-ren goiko alderdian, Altxunbidea-tik hurbil. Cf. Los Cascajos bizia eta El Cascajo edo Kaskallu(a) desagertua.**

**Cascajo, el:**

Euskarazko **Kaskallu(a)**-ren erdal ordaina da dokumentazioko **El Cascajo** (1765)<sup>3605</sup>; egungo **Los Cascajos**-ekin identifikatu behar dela uste dugu (ikus **Txaparduia**).

**Cascajos, los:**

**Camino de Abaiz** aldean dago eremu kaskailutsu hau.

**Castillo (costalada de), (detrás de), (tras de), el:**

**Castillo** hutsa euskaraz ez dokumentatu arren, hor dago 1594eko **Costalada del Castillo**<sup>3606</sup> erdaldunaren ordaina den **Gaztelusaetsa** 'gazteluko aldapa' euskalduna. Erdaraz, gainera, euskaraz aurkitzen ez dugun **Detrás del Castillo** (1760)<sup>3607</sup> edo **Tras del Castillo** (1761)<sup>3608</sup> dugu, eta euskaraz erdaraz agertzen ez den **Gazteluondoa**.

Gaur **Los Castillos** plurala erabiltzen da, izan ere bi direlako: **Castillo de Urniza** (**Castillo de Reta** deizioa ere jaso dugu) eskuinekoa, eta **Castillo de Subiza** ezkerrekoa (herritik ikusita jakina). Izenok herriko lehengo bi etxe aberatsetako nagusiei zor zaizkie, bertan lurrak zituztelako edo. Gailurretan ez dago, nonbait, gaztelu aztarnarik. Dokumentazioan singularrean agertzen da beti izen hau:

"...otra pieça en el castillo..." (1593)<sup>3609</sup>

"otra pieza...detras del castillo, y lado de Sagarraga" (1793)<sup>3610</sup>

Bi gazteluon artetik **Barranco de los Linares** deitu erreka igarotzen da, herrian **Barranco de Iturralde**, eta beheiago **Barranco de Urretako erreka** (**Barranco de Takurreka** egun) deitzen den bera. Herri ondo-ondoan daude, goiko aldean.

**Castillos, los:**

Ikus aurreko sarrera.

---

3605 Id., 2. k-bis.

3606 Id., 8. k.

3607 PRA-San Martín, 45. k.

3608 Id., 45. k.

3609 PRA-Oibar, 7. k.

3610 PRA-Kaseda, 35. k.



**Cerrada, la:**

Ardantze baten izena den hau 1897ko katastroan aurkitu dugu. Baliteke 1793ko **El Cerrado** bera izatea (ikus sarrera hau).

**Cerrado, el:**

**Urretako erreka-n zegoen:**

“una viña llamado el cerrado...en el termino de utacurreca” (1793)<sup>611</sup>

Lergan bertan honekin zerikusia izan dezakeen **Zerradopea** toponimoa dugu.

**Corraliza:**

Honen adieraz ikus Galipentzuko izen bereko sarreran dioguna. Lergako lur guztiak “corraliza” bakar batean sartzen dira, baina Aldea eta Epaizko belarra batera eta Lergakotik aparte saltzen da oraindik, lehengo usadioari (hots, despoblatuak erosi aurrekoari) jarraikiz.

**Co(r)seras, las:**

Izen honekin, Agezako Coseras sarreran esan bezala, herriaren inguruko alderdia eman ohi da aditzera:

“...terno que llaman la Adoberia dentro de las coseras” (1767)<sup>612</sup>

Jimeno Juríok<sup>613</sup> honela definitzen du:

“afueras acotadas de una población. Territorio que rodea un núcleo urbano. Sus límites y derechos jurisdiccionales estuvieron señalados por los fueros, en Tafalla y otras partes”

Lergako oraingo Coseras [koséraś], alabaina, Santo Tomás eta Los Femorales aldeko zatia baizik ez da, Camino de Errotaxar-en hastea, eta garbi ikusten da hedadura-murrizketa gaitza jasan duela, lehen anitzez ere zabalagoa baitzen (ikus Adobería sarrera).

**Cruz (de Eslava), (pieza de), la:**

La Cruz dermioa Eslabako bidean dago; lehen bertan zegoen gurutzea duela gutxienez berrogei urte desagertu zen. Zabala eta Sagarraga-ren artean dago, Iguraimendia edo Altico de la Guarda-ren parean:

“una pieza Junto a la cruz que ban a Eslaba llamado eguramendia” (1684)<sup>614</sup>

3611 Id., 35. k.

3612 PRA-San Martin, 48. k.

3613 TEHT, 90-91. orr.

3614 PRA-Kaseda, 2. k.

“En el terno de Zavala, cerca del camino que dirige de esta villa á la de Eslava que le llaman la Pieza de la Cruz” (1789)<sup>3615</sup>

Euskarazko **Gurutzealdea**-ren ordaina den **Cabo la Cruz** 1593ko lekukotasunean azaltzen da<sup>3616</sup>.

**Diezmo, el:**

Eliza ondoko etxea da, **La Primicia** izenaz ere ezagutzen dena.

**Era, la; Eras, las:**

1897ko katastroan agertzen dira. Herriaren ondoko larrainak izendatzen dituzte.

**Erlaskiaga (peña de):**

Izen honen etimologiaren gainean ikus **-aga** atzizkiari eskainitako atalean dioguna<sup>3617</sup>. 1545eko dokumentu batean ikusteko aukera izan dugun bezala, haitza ere bazen alderdi honetan:

“comenzando en la fuente asta la peña de erlasquiaga” (1545)<sup>3618</sup>

**Errekagaña (cantera de):**

Itxuraz, **erreka** ‘erregua’ eta **gaina**-z osaturik dago, baina kokaguneagatik lehenago ageri den **Arrakoagaña**-rekin identifikatu behar dela uste dugu (ikus sarrera hau). Ditugun lekukoak, dena den, garbiak dira:

“una viña...en el terno de Zamaquidu ô errekagaña” (1697)<sup>3619</sup>

“...por la cantera de Errekagaña...” (1788)<sup>3620</sup>

**Errekaldea:**

**Erreka** eta **aldea** gardenak ditugu hemen. Erreka baten ondoko alderdia izendatzeko erabiltzen zela garbi dago, baina ez dakigu zein alderdi zen hori:

“una pieça...en...errekaldea” (1605)<sup>3621</sup>

**Errekina (alto de), (esquina de):**

**Errekina erre** aditzaz, **-kin** atzizkiaz, eta artikuluz osaturik dago (ikus Agezako **Errekineta** sarreran dioguna). Lergan bertan eta Agezan honen baliokokide erdal-

3615 PRA-San Martin, 59. k.

3616 PRA-Oibar, 7. k.

3617 Barasoainen ere **Erlasquiaga** edireten dugu 1826. urtean: “un linar...en...Erlasquiaga...confinante a...cequia de Arispeleta” (id., 108. k.).

3618 Id., 2. k.

3619 PRA-Kaseda, 8. k.

3620 PRA-San Martin, 58. k.

3621 PRA-Oibar, 15. k-bis.

duna den **La Quemada** dugu (ikus sarrera hauek). Reta Janárizek<sup>3622</sup> **Requina** eta **Larrequina** biltzen ditu, eta azken honetan oinarri harturik etimologia okerra egiten du. Autore honen arabera, toponimo hau **larre** ‘pastizal’ eta **-oki** leku-atzizkiak osaturik dagoke.

Gaurregun artikulu erdalduna erantsitakoan **Larrequina** [lãrekína] deitzen duten hau **Oleta** eta **Lergaren** arteko muga dago, mendian, eta hemendik **Alto de Errekina** deizioa. Erditik **Camino de Olleta** (behinolako **Oletabidea**) igarotzen da.

**Errekina-k Santa Agata, Jaun Done Mikendi, Zamiki, Andua eta Monte de arriba**-rekin mugatzen du.

Egungo aldaera 1801erako aurkitzen dugu:

“en la (pieza) de Zamiqui junto a la requina”<sup>3623</sup>

**Esquina de Errekina** edo **Errekinbazterra** galdua **Lerga** eta **Oletaren** arteko muga aldea zen:

“...empieza desde el mojon que dibide los ternos de esta villa, y lugar de olletta, que esta en la esquina de la enderezera que llaman Erraquina...” (1788)<sup>3624</sup>  
 “otra pieza en Requinmasterra” (1815)<sup>3625</sup>

#### **Errekinbazterra:**

Erdarazko **Esquina de Errekina**-ren baliakidea zen<sup>3626</sup> (ikus aurreko sarrera).

#### **Errepresabarrena:**

Erdaratikako **errepresa** ‘uharka’ izena, eta **barrena** ditugu hemen:

“En el termino llamado errepresa barrena” (1550)<sup>3627</sup>

Antza denez, errekan egindako uharka bat zen **errepresa** hau, behar bada errotatik hurbil zegoena, honelakoak errotetara edo erretenetara ura desbideratzeko erakitzen zirenez gero. Honela baten, **Urretako erreka** eta **Barranco de Errotaxar**-en elkargunean zegoela kontu egin dezakegu, **Barranco del Molino**-ren hasieran, alegia.

#### **Errotabidea:**

**Errota** eta **bidea** izen gardenak ditugu hemen:

“otra (pieza)...en Rotavidea” (1840)<sup>3628</sup>

3622 EHZE, 494. or.

3623 PRA-Oibar, 87. k.

3624 PRA-San Martin, 58. k.

3625 PRA-Oibar, 95. k.

3626 Lergan Errekinbazterra eta Esquina de Errekina bat eta bera zirela irudi badu ere, bazterra eta esquina ez dira beti elkarren ordain: Cf. Urdiango Erburubaztarra / Erburuiskiñea (NTEM-X, 92. or.).

3627 PRA-Oibar, 2. k.

3628 Id., 115. k.

Egun **Rotabidea** [ròtaβidéa] edo [ròtaβídja] ebakitzen den honek<sup>3629</sup> **Camino del Molino** erdaldunaren ordain euskalduna dirudi, baina hala ere, ez du zerikusirik honekin, **Andua** eta **Sarga**-ren artetik Oletara doan bide bat adierazten baitu. Oletan errota zegoela badakigu, **Camino de Tafalla**-ren ondoan:

“otra pieza llamado (sic) Junto al molino...teniente a...camino que ban a Tafalla”<sup>3630</sup>

Euskaraz, esperatzekoa zenez, **errota** esaten zitzaion:

“tres piezas...la una...en el temjo llamado errotaldea”<sup>3631</sup>

#### **Errotaxar (barranco de):**

**Errotaxar** ere aurkitu dugun arren (1769<sup>3632</sup> eta 1801ean<sup>3633</sup>), aldaera baturako **Errotaxar** hobetsi dugu, 1740an **erota siar** eta **Errota siarra**<sup>3634</sup> agertzen baitira, eta egungo egunean ere **Rotasiar** [ròtašjár] esaten baita (cf. gainera **Eslabako Errotaxar**). Kasu honetan, aski harrigarriro, ditugun lekukotasun gehienek e- protetikolari eutsi diote, gaurregun ohizkoa denez aferesidun aldakia nagusitu bada ere. Notatzekoa da euskal sabaiaurreko igurzkari ahoskabearen ondorengo den erdal -sj- multzoa.

**Barranco de Errotaxar Arrakoaberoki** eta **Detrás de San Juan**-en artetik igarotzen den erreka da, hots, gorago **Barranco de Zalduburu**, eta beherago **Urretako erreka**-rekin bat egindakoan **Barranco del Molino** deritzana.

#### **Errotaxarraldea:**

**Errotaxar**-en inguruko lurrak izendatuko zituen aldi bakar batez ediren dugun honek:

“otra pieca en errotaxarraldea” (1609)<sup>3635</sup>

#### **Euntzeberri (prado de), (soto de):**

**Euntze** ‘larrea’ izena eta **berri** izenondoa ditugu gaurregun **Onzeberri** [òñθeβéri] bilakatu den honetan (Eslaban eta Agezan ere **Onzeberri** dugu<sup>3636</sup>):

“...afuenta con...el soto de eunzeberri” (1611)<sup>3637</sup>

3629 1897ko katastroan ere bi ebakera ezberdin hauen islatzea irudi duten **Rotavidea** eta **Rotavidia** aurkitzen ditugu.

3630 PRA-Oibar, 25. k., 1646.

3631 Id., 2. k-bis.

3632 PRA-San Martin, 49. k.

3633 PRA-Oibar, 87. k.

3634 PRA-San Martin, 36. k.

3635 PRA-Oibar, 13. k.

3636 Beste toki batzuetan ere euntze-ren desitxuraketa hau berau izan da. Galar zendean, adibidez, **Onzeberri** dugu Arlegi eta Galar herrietan (J. M. Jimeno Jurío, TCPCG, 47 eta 267. orr.).

3637 PRA-Oibar, 13. k.

Larrea zela garbi ikusten da 1723ko lekukotasunean; egun ere toki urtsua da:

“pieza en unzeberri que se atiene con el prado concegil” (1723)<sup>3638</sup>

1746an **Uncheberria** aldaera azaltzen da<sup>3639</sup>, **ch** horren bitartez ezberrik gabe [c] soinua ematen delarik. **Unziberria** (1763)<sup>3640</sup>, **Unceberri** (1775)<sup>3641</sup>, eta **Unciberri** (1798)<sup>3642</sup> ere ediren ditugu.

**Euntzeberri-k** **Indusialzina**, **Akerregi**, **Ikaiburu** eta **Zalduburu**-rekin mugatzen du. Bertan behinola **San Gines** ermitak alorra zuela badakigu:

“otra pª Zabala en frente de eunzeberria...afrota con pª de Sangines” (1544)<sup>3643</sup>

### Euntzeguti:

**Euntze** ‘larre’ izena eta **guti** ‘txiki’ izenondoa ditugu toponimo honetan. Egun ezezaguna da:

“en la pieça de eunçeguti de cara a los perales” (1589)<sup>3644</sup>

Agian gaurko **Camino** edo **Senda de Indusigibel**-eko **El Pradico**-rekin identifikatu behar genuke. 1779an **Unzeguiti** dugu<sup>3645</sup>.

### Euntzezar (prado de):

**Euntze** ‘larre’ izenaz eta **zar** ‘zahar’ izenondoaz osaturik dago orain **Onzezar** [õnθeθar] bilakatu den hau. 1613an **eunche car** dugu<sup>3646</sup>, eta 1740an **unchezar**<sup>3647</sup>, **ch** aipatu euskal [c]-ren ordezkatzailerik. Bilakaera, hortaz, hau izan dela esan daiteke: **Euntzezar** > **Untzezar** > **Unzezar** > **Onzezar**.

Reta Janárizek<sup>3648</sup> **Onzezar** eta **Unzezar** aldakiak biltzen ditu, eta **huntz** landare-izenaz eta **zar** ‘zahar’ izenondoaz osaturik dagoela uste du. Interpretazio hau, izenaren aipatu aldaera zaharrak eta dermioaren intzura-izaera ezagututa, zeharo okerra dela esan beharrik ez dago. Gainera hor daude **Lerga**, **Eslaba** eta beste leku askotako lehengo **euntze**-ak, egun askotan **onze** bilakatuak.

**Euntzezar** **Lizarduia**, **Lizarrandia**, eta **Urretako erreka**-ren artean dago.

3638 IEA, 1765. kart., 8. zkia., 887. or.

3639 PRA-San Martin, 38. k.

3640 PRA-Oibar, 62. k.

3641 PRA-San Martin, 52. k.

3642 PRA-Oibar, 84. k.

3643 Id., 2. k.

3644 Id., 4. k.

3645 PRA-San Martin, 54. k.

3646 PRA-Oibar, 14. k.

3647 PRA-San Martin, 36. k.

3648 EHZE, 495. or.

**Facería de Lerga y Eslava:**

Fazeria hau Eslabako mugatik Oletako mugaraino hedatzen zen (ikus Valdecontienda), beheko aldean (baina iparraldean) Arteta eta Julioko mugak zeudela:

“...las mugas de la dicha faceria desde la muga deslaba asta la muga de Olleta quedando a la parte baxa la muga de arteta y la muga de Julio” (1611)<sup>3649</sup>

“un pedaço tenían faceria entre las villas de Lerga y eslaba a carasol agua vertiente del camino de alchirria” (1611)<sup>3650</sup>

Izen hau orain sobera ibilia ez izanagatik ere, bada, dirudienez, oraindik Monte de arriba-ri (zati bati behintzat bai) La Facería deitzen dionik. Dena den, Los Fayales orain Eslabako udalerriaren goiko punta da, eta ez dakigu Eslabak beretu zuen amankomuneko dermio osoa edo bitan zatitu zuten, herri bakoitzak puska bat gelditzen zuela.

**Facerías de Fayales:**

Lerga eta Eslabaren arteko fazeria zen, aurreko bera alegia. Valdecontienda izenez ere ezaguna zen (ikus sarrera hau):

“las facerías que tienen...entre el lugar deslaba y lerga llamado fayales que afrenta al termino de Julio” (1611)<sup>3651</sup>

**Fajas, las; Fajetas, las:**

Faja eta fajeta hitzaren balioaz ikus Agezako Las Fajetas sarreran dioguna. Egun La Fajas deitu eremua Txirrialdea-n dago, Tafallako errepidetik eta errekatik hurbil:

“otra pieza en la misma endrecera (Txirrialdea-n) y paraje que llaman las fajas” (1798)<sup>3652</sup>

**Femorales, los:**

Fiemo ‘ongarria’-ren eratorria da, eta ‘ongarri-tokia’ adierazten du. Iribarren arabera<sup>3653</sup>, femera, femeral eta femoral ibiltzen dira Nafarroan barna ideia hori adierazteko<sup>3654</sup>. Herritik hurbil dago, Las Coseras eta Santo Tomás-en artean. Ez dugu uste zaharra denik.

3649 IEA, 515. kart., 26. zkia., 44. or.

3650 Id.

3651 Id., 70. or.

3652 PRA-Oibar, 84. k.

3653 VN.

3654 Jimeno Juríok Galar-Ezkirozzen Femorales ‘ikuiluetako gorotza uzten den tokia’ biltzen du (TCPCG, 219. or.); Uxuen Iribarrenek aipatzen ez duen Fimeral erabiltzen da.

**Ferial:**

1897ko katastroan baizik ez da azaltzen. Itxuraz, San Ginestik Lergara toki aldatu zen merkatuarekin izan dezake zerikusia. Galipentzun ere **El Ferial** dugu (ikus sarrera hau), ugalde ondoan, herritik urrunxko, feriak egiteko toki desegokian.

**Fuente, la:**

Ez dakigu **Iturria** bera ote zen (ikus sarrera hau):

“una era...en la dha villa Junto a la fuente” (1586)<sup>3655</sup>

1585eko **Junto a la Fuente**-k<sup>3656</sup> euskarazko **Iturraldea**-ren baliakidea eman du (ikus sarrera hau). Egungo **La Fuente** herriko plazan dago (ikus **Fuente del Pueblo**).

**Fuente de la Alubia, la:**

**Barranco de Iturralde**-ko herri ondoko iturri ugarietako bat da.

**Fuente de Olcoz:**

1897ko katastroan aurkitu dugu bakarrik. **Olcoz Lergako** etxe baten izena da, eta iturriari izen hori eman bazitzaion, etxe horretakoek bertan lur zerbait zutelako izango zen.

**Fuente del Herrero:**

Hau ere aurrekoa bezala 1897ko katastroan baizik ez dugu aurkitu. Hemen ere izena etxe bati zor zaiola dirudi.

**Fuente del Pueblo, la:**

Lehen ura **Las Arcas**-etik ekartzen zen plazan dagoen iturri honetara, baina orain goragotik dator, **Sarga**-tik. Ikus **Arcas** eta **Iturrizarra** sarreretan dioguna.

**Fuente vieja:**

Euskarazko **Iturrizarra**-ren esanahikidea da (ikus sarrera hau). Herri ondoan zegoen, **Adobería** eta **Camino de Artealdea**-ren alboan, baratze tartean:

“otra piª en la endrecera de ffuente vieja” (1593)<sup>3657</sup>

**Gazteluondoa:**

**Castillo** sarreran esan moduan, **Gazteluondoa**-ren ordain erdaldunik ez dugu ediren, **Detrás del Castillo** erdaldunaren kide euskaldunik ediren ez dugun beza-

3655 PRA-Oibar, 3. k-bis.

3656 Id., 3. k-bis.

3657 Id., 7. k.

la. Halaz ere, **Gazteluondoa-k** oraingo **Los Castillos-en** ingurua adierazten zuela garbi dago:

“una pieça...en la endrecera llamada gazteluondoa” (1587)<sup>3659</sup>

#### **Gaztelusaetsa:**

**Gaztelusaetsa** erdal **Costalada del Castillo-ren** adierakidea da (ikus **Castillo** sarrera):

“la segunda pieça en...gaztelussaessa” (1604)<sup>3660</sup>

**Eguno Los Castillos** nolakoa den ikusita ez dugu dudarik egiten **saetsa-k** hemen ‘aldapa’ adiera duela, (gure alderdian) gehienetan bezalaxe (ikus **Zare** eta **Dermio** baten zatiketa atala).

#### **Gurutzealdea:**

**Gurutze** eta **aldea** gardenak ditugu hemen. Dokumentazioko erdarazko **Cabo la Cruz (de Eslava)** bera da, alegia, **Eslabako** bideko lehengo gurutzearen ingurua adierazten du (ikus sarrera hori):

“...en el terno de gruzealdea theniente a...pieza de la Abadia...y camino que se ba a Eslava” (1767)<sup>3661</sup>

“term. que llaman Gurutzealdea” (1723)<sup>3662</sup>

**Gurutze** osagaia duten toponimo anitzetan agitu ohi den moldean, honetan ere erdal **cruz-en** interferentzia dugu 1697ko **Cruzaldea**<sup>3663</sup> eta 1740ko **Cruze aldea**<sup>3664</sup> aldakietan (cf. **Uxueko Gurutzegibela**).

#### **Hospital, el:**

Herriaren aldirietan zegoela irudi du, ondoan baratze bat gutxienez baze-goelako:

“una guerta Junto al Hospital” (1704)<sup>3665</sup>

Badaiteke hospital hau behartsuentzako babes-etxe moduko bat izatea, **Lergak** ez baitu izan, dakigula, eritetxe bat izateko adinako biztanlegorik. Halaber, badaiteke izen honekin alderdi honetan ondasunak zituzten **Orreagako** monastegi ezaguna edo **San Juan Ordena** aditzera ematea, hauei agiritan sarritan “hospital” deitzen baitzaie (ikus, adibidez, **Eslabako Roncesvalles** sarrera).

3659 Id., 3. k-bis.

3660 Id., 11. k.

3661 PRA-San Martin, 48. k.

3662 IEA, 1765, 8, 887. or.

3663 PRA-Kaseda, 8. k.

3664 PRA-San Martin, 36. k.

3665 PRA-Kaseda, 12. k.



**Hoyo del Aguila, el:**

Sanginesondoa eta Alto de San Gines-en arteko zuloa da. Jakina denez, águila edo arrano hegazti-izena oso arrunta da toponimian (cf. **Aguilar** eta **Akirazabal** Uxuen, **Aquilar** Agezan, **Arranomendia** Eslaban, **Bartaquilar** Galipentzun).

**Huerto del Trujal:**

Ez dakigu zein zen. 1897ko katastroan azaltzen da.

**Huertos, los:**

Zehazki non zegoen ez dakigu, baina badirudi erreka aldean behar zuela. Ez dakigu, orobat, **Baratzeandia**-rekin identifikatu behar den:

"...en el termjo llamado los guertos" (1537)<sup>3665</sup>

**Iguraimendia; Iguraimendikoa:**

Bi izen hauek alderdi bera adierazteko ibili izan dira Lergan. Lehenik azaltzen dena **Iguraimendikoa** da (1593an aurren aldiz), baina XVII. mendearen bigarren erditik aurrera **-koa**-dun aldakiak **-koa**-rik ez dutenekin aldizkatzen dira (ikus **Cruz** sarrera):

"ytten otra pieça en yguraymendicoa" (1593)<sup>3666</sup>

"Mas otra viña...en el termino de Yguramendi" (1790)<sup>3667</sup>

Osagaiak **igurai** 'basozaina'<sup>3668</sup> eta **mendia** izenak, eta **-koa** atzizki txikigarria dira. Azken bi elementuez osatutakoaz honela mintzo da Koldo Mitxelena<sup>3669</sup>:

"...hay razones para pensar que **Mendico** en varios ejemplos medievales es 'montecillo'"

Eta oinoharretan honela jarraitzen du:

"El nombre **Mendico** çorroça...dificilmente puede ser otra cosa que un equivalente de **Mendizorrotz**...rom. **Montagut**, **Monteagudo**, etc: se ha usado simplemente un diminutivo en vez de **mendi**. Esto permite explicar la conocida mención de Leire (uineam qui est in loco quem bascones uocant Ygurai Mendico, 1085, Lizasoain) como 'monte(cillo) de meseguro(s)' mejor que 'del monte'".

**Antzinako Iguraimendi(ko)a** egungo **Altico de la Guarda** deitu mendikoa dugula dudarik ez da (ikus sarrera hau).

3665 PRA-Oibar, 2. k.

3666 Id., 7. k.

3667 PRA-San Martin, 60. k.

3668 Mitxelenaren arabera **igurai(n)** izenak oinarri batez eta \*zani-tik atera den **zai(n)** bukaeraz osaturik dagoke, **artzai(n)**, **itzai(n)**, **mandazai(n)** edo urdain 'urdezain' bezala (FHV, 293-294. orr.), azken hone-tan agitu moduan txistukaria galdu delarik.

3669 "Notas lingüísticas a «colección diplomática de Irache»", PT, 96. or.

**Iguraimendia** aski izen ezaguna da, eta Lerga eta Lizasoainen ezezik, Itza zendeako Leten eta Zizur zendeako Azterainen ere agertzen da<sup>3670</sup>, gutxieneko kontuan. Toponimo hau (**Altico de la Guarda** bezala) bertan iguraiak edo “guarda”-k inguruko lur eta ardantzeak zaintzen ari izaten zirelako sortu da.

**Ikaiburu (alto de), (barranco de), (barrio de), (cuesta de):**

**Ikai-** Azkuek aipatzen duen **ikai** ‘aldapa’ (**ika** + **ai**)<sup>3671</sup> izan daiteke, **Ikaiburu** gain baten izena baita, **-buru** euskaldunak eta **alto** erdaldunak argi erakusten dutenez:

“...y la suerte comun en la pieca de Ycayburu” (1589)<sup>3672</sup>

Oltza herrian<sup>3673</sup> Lergako toponimoaren kidea izan daitekeen **Içaiburu** dugu (ç hori ez da nahitaez z edo tz baten adierazle), eta Altutzan **Kaiburu** bildu du Eleizalde<sup>3674</sup>, Lergako toponimoak bezala honek ere lehen bokalaren aferesia jasan duelarik (**Kaiburu** [kajibúru] esaten da orain Lergan). Autore beronek **ikai** bide duen **Ikaiturri** biltzen du Deierriko Lezaun herrian, eta **Ikopuru** edo **Ikapuru** Mañarian. Azken honek mendi xut bat izendatzen duela dirudi.

Lergan, esan bezala, **Cuesta de Ikaiburu** errekatik herritaino igotzen den aldapa da, dokumentazioko **Aldaiondoa** toponimoan aurkitzen dugun **aldaia** bera (ikus **Aldaiondoa** sarrera), eta bistan denez, honek ere ez dio bat ere kalterik egiten proposatu etimologiari.

Uxue eta Pitillasen arteko muga **ikai**-ren aldaera bide den **ika**, **pika**<sup>3675</sup> azaltzen zaigu **Pikarana** toponimoan. Hemen ere aldapa xuta dago, eta harana.

**Ikaiburu Jaun Done Petri (Juandepetri egun) eta Sanditume** edo **Santo Tomás**-en ondoan dago:

“...en el tterno llamado Ycaiburu, alado de dcha Hermita derruida de Santo Thomas” (1788)<sup>3676</sup>

**Euntzeberri, Los Llanos** eta **San Pelayo**-rekin ere mugatzen du.

**Barranco de Ikaiburu** **Barranco de Zamiki** eta **Barranco de Andua** elkartu ondorengo erreka da; **Barrio de Ikaiburu**<sup>3677</sup> mintzagai dugun dermiotik hurbileneko auzoa izanzen zen, **Barrio de Santo Tomás** apika.

3670 Jimeno Jurío, TCPCL, 225-226. orr. eta TCPCC, 146. or., hurrenez hurren.

3671 Mitxelena **igan’igo’**-rekin lotzen du (FHV, 232. or.). Cf. **galdu** / **kalte**, **edeki** ‘kendu’ / **etekin**... Cf., gainera, Oihenarten 164. atsotitza: “Ezt’ikaia non eztuen bere iztaia” ‘ez dago gorako aldaparik beherakorik gabe’.

3672 PRA-Oibar, 4. k.

3673 Jimeno Jurío, TCPCO, 246. or.

3674 LVTV. Ardatzen Ycaburu dokumentatzen da 1805ean (PRA-Auritz, 42. k.).

3675 Ikus AV, 146. or.

3676 PRA-San Martin, 58. k.

3677 Id., 38. k., 1746.

**Ikaiburuondoa:**

**Ikaiburuondoa Ikaiburu-ren aldameneko alderdia zen:**

“otra pieça en...ycayburuondoa” (1598)<sup>3678</sup>

**Indusi (boyerál de), (monte de), (paso de), (soto de):**

Toponimo hau XVI. mendean -s-, -ss-, nahiz -ç-z idatzia aurkitzen dugu, baina mende honetatik aitzina aldi batean ez beste guztietan -s-dun aldaera azaltzen da, hots, egun erabiltzen den berbera (**Indusi** [iñdúsi] alegia). Galar Getzen **Inducia** eta **Indusia**, **Inducia gaña**, **Inducia guibela**, **Induciaga**, **Induçeaga**, eta **Indusiaga** agertzen dira<sup>3679</sup>, eta Adoainen **Indusi**, itxuraz toponimo beraren aurrean gaudelarik hiru herriotan, adiera zein izan daitekeen ez badakigu ere<sup>3680</sup>. Saratsan **Inducin** dugu eta Atondon **Induzpe** edo **Induspea**<sup>3681</sup>. **Induzpe**, Eleizalderen arabera<sup>3682</sup>, Arabako Zi-goitiako erreka baten izena da, eta **Indusi** Dimako auzo bat eta Arabako **Iturrisiku**-n sortzen den erreka. Lergan behiala zaldia ere izan zen mintzagai dugun hau:

“mas otra pieza en el Soto de yndusi” (1643)<sup>3683</sup>

**Indusi** edo **Monte de Indusi Arridokieta**, **Zamiki**, **Indusigibel**, **Burlon**, **Murubitarte**, **Zaldiburu** eta **Indusialzina**-ren artean dagoen oihanari (hariztiari) esan ohi zaio.

**Indusi** eta **Monte de arriba** herri-mendiak idi-larreak ziren, etaazienda gorria bakarrik ala zitekeen bertan, ardientzat debekatua zegoelarik, hauek belarra hondatzen baitute, nonbait. Abelgorriak **Indusi**-n maiatzetik uztaile bitarte egoten ziren; gero freskuago den **Monte de arriba**-ra igotzen ziren.

**Indusialzina:**

Egungo **Lasalzina** [lašalθína] edo **Sanzina** [sanθína], **Lasanzina** [lašanθína] aldaera desitxuratuak dokumentazioko **Jndusialcina** (1587)<sup>3684</sup>, **Yndusayçinea** (1588)<sup>3685</sup>, edo **Yndusiaizina** (1692)<sup>3686</sup>-ren ondorengoak dira, eta **Indusi** mendiaren aurrekaldea (herritik begiratuta, jakina) adierazten dute. Notatzekoa da posposizioaren bustidurarik eza.

3678 PRA-Oibar, 7. k.

3679 Jimeno Jurío, TCPCG, 347. or.

3680 Ez dakigu loturarik baduen Azkuek mendebaldekorzat jotzen duen **industu**, **induztu**, **induzkatu** ‘murturkatu’ aditzarekin. Honela balitz, partizipio honen forma zaharra izan liteke (cf. **ahantzi** / **ahaztu**...).

3681 TCPCI, 129 eta 335. orr.

3682 LVTV.

3683 PRA-Oibar, 24. k.

3684 Id., 3. k-bis.

3685 Id.

3686 PRA-Kaseda, 6. k.

Reta Janárizek Losancina aldaera biltzen du, eta erdarazko Los Encinos-en desitxuraketatzat hartzen, oker, bistan denez.

**Indusialzina-k Indusi, Zalduburu, Euntzeberri, Akerregi, La Virgen, eta Arridokieta-rekin mugatzen du.**

**Indusigibel (aborral de), (boyerál de), (paso de):**

Gaurrengongo **Indusimigel** [ĩndüsímigél] lehengo **Indusigibel(a)**-tik atera da, herri etimologiaz, jatorrizko formatik metatesiz jaiotako **Yndusiviguel**-en (1829) bitartez:

“una pieza en Yndussiguibela” (1544)<sup>3687</sup>

“ytten otra p<sup>a</sup> en Ynduçiguibel” (1588)<sup>3688</sup>

**Indusigibel Indusi** mendiaren atzeko aldea da, eta **Indusi, Monda** eta **Zamiki**-rekin mugatzen du. Antzina egun ezezaguna den **Arantzeduia** ere mugakide bide zuen:

“una pi<sup>a</sup>...en la endreçera llamada Jndusiguibela o arançeduya” (1597)<sup>3689</sup>

**Boyerál** (alokatzen ez den auzamendia) eta **Aborral** (alokatzen den auzalurra) ere izan zen, bi gauzak batera nola izan daitekeen ulertzen ez badugu ere, non ez den bitan zatituz edo **boyerál** izatetik **aborral** izatera urte gutxiren buruan igaroaz:

“...yerbas y Aguas del terno Boieral de Yndusiguibel desde la Yerba de San Jines ondoa asta el paso de Zamiqui...” (1709)<sup>3690</sup>

“...aborrales de Sanginesondoa y Indusi guibel” (1740)<sup>3691</sup>

Erdaraz ibiltzen den **Paso de Indusigibel**<sup>3692</sup> euskarazko **Indusigibelpausua** edo **Indusigibeleko pausua**-ren ordaina da.

**Indusigibelaldapa:**

**Indusiko aldapa Monte de Indusi**-ko malda zen bezala, **Indusigibelaldapa** mendi honen **Indusigibel** aldeko aldapa izan zitekeen, baina alderdiko beste edozein ere bai:

“ytten otra pi<sup>a</sup> en Jndusiguibel aldapa” (1592)<sup>3693</sup>

**Indusigibeleko pausua:**

**Indusigibelpausua**-ren adierakidea da:

---

3687 PRA-Oibar, 2. k.

3688 Id., 4. k.

3689 Id., 9. k.

3690 PRA-Kaseda, 14. k.

3691 PRA-San Martin, 36. k.

3692 1592an ediren dugu aurrenekoz, PRA-Oibar, 6. k.

3693 Id.

“otra pieca en yndusiguibelecopassua...que afrun<sup>a</sup> con el Rio y Senda que ban a ssami-  
qui” (1609)<sup>3694</sup>

### Indusigibelpausua:

**Indusigibelpausua edo Indusigibeleko pausua Indusigibel-eko erreka-  
pausua zen:**

“otra pieza en indusiguibelpausua” (1681)<sup>3695</sup>

### Indusiko aldapa:

**Monte de Indusi-ko aldapa zen:**

“una pieca...en...Yndusico aldapa Junto y debaxo de San Miguel” (1585)<sup>3696</sup>

### Indusiko sarga:

**Indusi-z eta sarga** ‘sasitza’, ‘lahartza’<sup>3697</sup> izen arruntaz osatua dago 1727an aurkitu dugun hau<sup>3698</sup>. **Sarga**, egun, Lergako dermio baten izena ere bada (ikus sarrera hau).

### Indusiturria:

Alderdiko iturriren bat izanen zen hau, baina ez dakigu zein. Nolanahi ere, **Indusi** ez da alderdi urtsua:

“otra pieza en Yndusiturria” (1686)<sup>3699</sup>

### Iparragerria:

**Paco del Barranco-ren** ordain euskalduna izan daiteke (ikus sarrera hau). Frogarik, ordea, ez dugu:

“otra pieca en ypar aguerria” (1613)<sup>3700</sup>

### Iribarren (barrio de), (calle de):

**Erdarazko Barrio de abajo-ren** ordain euskalduna genuen:

“...en la endreçera y baRio llamada yribarren” (1587)<sup>3701</sup>

“una Guerta...en esta villa y Paraje de Yribarren que afronta a...era de la casa que llaman de yturralde” (1764)<sup>3702</sup>

3694 Id., 13. k.

3695 PRA-Kaseda, 1. k.

3696 Id., 3. k-bis.

3697 Iribarren, VN.

3698 LEA, G. Sarasa.

3699 PRA-Kaseda, 3. k.

3700 PRA-Oibar, 14. k.

3701 Id., 3. k-bis.

3702 PRA-San Martin, 46. k.

**Irigoiena (barrio de):**

**Barrio alto** edo **Barrio de arriba**-ren euskarazko baliakidea zen:

“una casa vezinal en dha villa y barrio de Arriba llamado Yrigoyen” (1805)<sup>3703</sup>

**Iturgaña:**

**Iturri**-ren elkarketako forma ohi den **itur-** izena eta **-gaina** ditugu hemen. **Iturri**-ren gaineko aldea izendatzen bide zuen:

“yt la otra pieza en el term llamado yturgaña...aff...con el Rio” (1537)<sup>3704</sup>

**Iturgutiagoa:**

**Iturri**, **guti** ‘txiki’, eta **agoa** ‘ahoa’<sup>3705</sup> ditugu gaurregun ezezaguna den honetan (cf. **Iturloiagoa**):

“una pª linar en yturgutiagoa” (1529)<sup>3706</sup>

-**Agua** Itxuraz konparatiboaren morfema izan litekeen arren, hau bitxia litza-teke toponimian, **ahoa** oso arrunta den bitartean<sup>3707</sup>.

**Iturri** eta **dermio** hau non zegoen zehazki ez dakigu, baina bai bertan li-hatzeak zeudela, eta beraz, herri ondoko **Los Linares** alderdian zegoela kontu egin daiteke (**Las Arcas** edo **La Fuente del Pueblo**-rekin identifikatu behar da?).

3703 PRA-Oibar, 90. k.

3704 Id., 2. k.

3705 Taxoaren **El Puente nuevo** dugu egun, eta zubi bera den ez dakigun **Çuiverriagua** 1246an (*El Gran Priorado*, 304. or.). Kasu honetan ere **-agua** ‘ahoa’ da, **Orreagako** saroheen artean azaltzen den **Bideederriagua** **Arburua**-n bezala (TAV, 37. or.). Cf. Pitillasko 1640ko **Vocal de la carrera veyre** (PRA-Kaparroso, 38. k.). Dena den, azken toponimo honetan latineko **baucalis**-etik atera den **bocal**-ek **Erriberako** ‘uharka’ adiera izan dezake, edo **Olibaldean** duen “boca de riego” (ikus R. Cierbideren TCO, 73. or.). **Mitxelena**k, **Arabako** toponimia aztertzen ari delarik (“Toponimia, léxico y gramática”, PT, 165. or.) honela dio:

“Pero ‘boca’ a secas se anota repetidamente *agua* en ese vocabulario (Landuccirenean). Ahora bien, en las listas de López de Guereñu, junto a un *Iurrao* en Jugo, se hallan *Iturragoa* (1719) en San Vicente Arana..., *Iturragua* en 1723. Aunque no aparezca en los diccionarios, \**iturrao*, probablemente ‘manantial’, es más frecuente en nombres de lugar que el *iturbegi* o *iturburu* de los textos. En este caso la coincidencia entre el léxico de Landucci y la toponimia alavesa no es demasiado probativa, ya que *ago*, det. *agoa*, *agua* nos es conocido también de otras zonas dialectales: ya *Betolaza* (1596) escribe *agoan*, *agoagaz*”.

**Ahoa** edo **agoa** zenbaitetan **sartzea** ‘entrada’-ren (ikus **Eslabako Kalboren korralesarralde**a sarrera) ordaina izan zitekeela irudi du: cf. **Ameskoazarrago** eta **Ameskoazargaina** **Ameskoan** (L. Lapuente, TAM, 404. or.), baina seguru egoteko adibide gehiago behar genituzke. J. Lizarraga **Elkanoko**ak eta **Juan de Beriaynek** ere **ago** ‘aho’ erabiltzen dute.

3706 PRA-Oibar, 2. k-bis.

3707 **Zizur zendeako Atondon**, esaterako, **Yturberriagua** edo **Yturriberriagua** bildu ditu **Jimeno Jurfok** (TCPCI, 129-130. orr.) eta **Zizur zendeako Baternain herrian Buzuagua** (TCPCC, 391. or.), dirudienek **Elkanoko Lizarragaren butzupocale**-ren adierakidea dena:

“Ellegatucé bein butzupocalerá, ta icusizitue árrian erréca inzituenac sócac” (DCC, 60. or.).

**Iturloiagoa:**

Hidronimo honetan berriz ere itur- dugu, lohi 'lokatza, zikina' eta agoa 'ahoa'. Lohi-ri dagokionez, badirudi hemen izenondoa dela, hots, 'iturri zikinaren ahoa' edo adierazi nahi dela. Lohi honen arrazoa iturriko uraren arretasunean bilatu behar genuke, iturriaren beraren zikintasunean baino areago.

Badakigu **Pieza de la Abadía** baten ondoan zegoela, baina Apeztegiak alor bat baino gehiago zuenez, ez dugu zehazki kokatzerik izan:

"...en el temjo llamado yturloyagua...affr con p<sup>a</sup> de la abadía" (1529)<sup>3708</sup>

**Iturralde (barrio de), (barranco de), (era de), (era de la casa de):**

Era de Iturralde edo Era de la Casa de Iturralde ikusita pentsatzen den lehenengo gauza zera da, izen hauek Casa de Iturralde baten larraina ematen dutela aditzera, eta Iturralde, orain ohizkoa denez, etxearen nagusiaren deitura dela. Alabaina, Iturria eta Iturraldea hidronimoak aurkitu ditugula kontuan edukirik, uste dugu etxe horri Casa de Iturralde deitzen zitzaiola ez nagusiaren deitura hori zelako, Iturralde dermioan zegoelako baizik, hau da, Iribarren auzoko iturritik (Iturri-tik?) hurbil zegoelako (ikus Iribarren sarrera), eta Barrio de Iturralde-z gauza bera esan daiteke, hau iturriaren inguruko etxeek osatuko baitzuten:

"un sitio de casa derruida...en el barrio de yturralde" (1804)<sup>3709</sup>

"un sitio...qe llaman la hera de yturralde...junto al Pueblo, afronta a paco del barranco" (1811)<sup>3710</sup>

Gogoan hartzekoa da, berebat, egun oraindik ere bizirik dagoen eta herri ondotik igarotzen den **Barranco de Iturralde** [iturá]de erreka-izena. Ubide hau **Barranco de los Linares** bera da, eta **Barranco de Iturralde** izena bakarrik herritik Santa Bárbara bitartean ematen zaio.

**Iturri:**

Ez dakigu zein iturri den hau, baina badakigu **Camino de Txutxu**-rekin mugatzen zuela:

"mas otra pieza...en el termino de yturri que afronta con camino de Chuchu" (1764)<sup>3711</sup>

**Iturrigibel:**

Seguru asko Iturri-ren atzeko aldea adierazten zuen:

"otra pieza en el terno de iturriguibel" (1769)<sup>3712</sup>

3708 PRA-Oibar, 2. k-bis.

3709 Id., 89. k.

3710 Id., 93. k.

3711 PRA-San Martin, 46. k.

3712 Id., 49. k.

**Iturriskoa:**

Toponimo orain galdu hau iturri izenaz eta -sko (edo -xko) atzizki txiki-garriaz osaturik dagoela dirudi<sup>3713</sup>:

“ytten otra pª en yturriscoa...afrona...con el camino que ban a Sangines” (1588)<sup>3714</sup>

Zaraitzu-Espartzan **Iturrisko** herriko iturria da, eta Lergako toponimoa Espartzako horrekin identifikatu behar dela dirudi. Esan bezala, **Camino de San Gines**-en zegoen. Ikus **Camino de (la ermita de) San Gines** sarrera.

**Iturrizarra:**

**Iturri** izena eta **zaharra** izenondoa ditugu toponimo honetan, bistan denez. **Corseras**-en zegoen, **Camino de Artealdea**-ren alboan:

“un linar en...yturrizarra...theniente a...Camino que ban a Artealdea” (1716)<sup>3715</sup>

1771<sup>3716</sup> eta 1800ean<sup>3717</sup> euskara galdutakoan gaztelaniaz erabiliak izatean beste hainbeste toponimok hartzen duten -s pluralgile erdalduna erakusten du (cf. Uxueko **Iturrizarra** > **Turrzales**). Honen ordain erdalduna gorago aztertutako **Fuente vieja** (ikus sarrera hau) da.

**Camino de Artealdea Camino de Murugibel** bera da, eta hau **Las Arcas**-etik hurbil igarotzen denez gero, badaiteke hondar hau eta **Iturrizarra** bat-bera izatea.

**Iturrotz (alto de), (fuente de):**

Gaurregun **Iturroz** [ituṙóθ] ebakitzen den honetan **itur-** izena eta **hotz** izenondoa ditugu, azken honen arrazoia uraren frekutasunean bilatu beharra dagoelarik<sup>3718</sup>:

“...hasta la Ermita de San Miguel desde esta pr la misma calle de la villa, bajando hasta Ycaiburu, de alli pr el camino hasta la Fuente de Yturroz” (1788)<sup>3719</sup>

**Alto de Iturroz-ek**<sup>3720</sup> alderdiko gaina adierazten zuen.

3713 Cf. Irisko ‘herrixka’ Erronkarin Azkueren arabera.

3714 PRA-Oibar, 4. k.

3715 PRA-Kaseda, 17. k.

3716 PRA-Oibar, 68. k.

3717 Id., 86. k.

3718 **Iturrotz**-k oso arruntak dira toponimian. Lergaren mugakidea den Oletan, adibidez, **Yturrioz** dokumentatzen da 1767an (PRA-San Martin, 48. k.), eta Urraulbeitiko Tabar herrian **Yturrioch** edo **Yturrocha** (PRA-Oibar, 120. k.) 1848an.

3719 PRA-San Martin, 58. k.

3720 Id., 85. k., 1827.



**Iturrotzaldapa; Iturrozko aldapa:**

**Iturrotzaldapa** edo **Iturrozko aldapa**-k **Camino de Txutxu**-ko **Iturrotz**-ko malda ematen zuen aditzera, **Alto de Iturrotz**-a igotzeko igaro beharrekoa:

“ytten otra pi<sup>a</sup> en yturrozaldapa” (1592)<sup>3721</sup>

“ytten otra pi<sup>a</sup> en yturrozco aldapa...que afrenta con camino que ban al monte de Uxue” (1592)<sup>3722</sup>

**Jaun Done Mikendi:**

Hagionimo hau, bere horretan, ez dugu inoiz ediren. Agirietan **Jaun**-en ordez beti **Juan** (behin **Joan**) aurkitu dugu, eta **Done**-ren lekuan **de** edo **dre**. Izenari dagokionez, **Mikendi** 1588ko **Joandremiquendiberoquia** aldakian baizik ez da ageri; gainontzeko gutzietan **Micaendi**, **Micaindi** dugu edo egungo **Micandi**:

“...terno que llaman Juan de Micaendi...que afronta con Camino q se ba a Maquiriain” (1768)<sup>3723</sup>

“otra pieza en Juandemicaindi” (1805)<sup>3724</sup>

**Mikendi Bikendi**-tik atera da, sudurkari asimilazioz (cf. **uagina** > **magia** ‘vaina’; **balneu** > **mañu**...<sup>3725</sup>), eta **Bikendi Vicentius**-etik eratorri behar da, azken honek, **Mitxelenak** dioenez, **-us** bukaera galdu duela suposatzen badugu (cf. **marti** ‘martxoa’ < **martius**; **Laurendi**, **Laurenti** < **Laurenti(us)**....)<sup>3726</sup>. Sudurkari ondoko belare ahoskabearen ahostuntzea ere burutu da.

1588ko **Miquendi**-ren ondoren, **Micaendi** dugu 1768an, eta honen ondorengo den **Micaindi** XIX. mendean. Azken honetatik gaurko **Mikandi** (**Juandemikandi** [xwãndemikãndi]) aterako zen, bokal disimilazioz.

Lekukorik zaharrena eta sorburuari hobekien egokitzen zaiona **Mikendi** denez, jatorrizko forma hau dela pentsatu beharra dago, eta XVIII. mendeko aipatu **Mikaendi** hori honetatik atera dela, eta ez alderantziz. **E** > **ai** pausoa, bitxia bada ere, inoiz edo behin agertzen da, euskara galdu ondoren (baita galdu aitzinean ere, euskara ahultzearekin batera edo), euskal toponimoak erdaraz erabiliak direnean (cf. Galipentzuko gaurko **Barrelengu**, **Balarrengu** 1617an, baina **Balarraingu** 1691n).

3721 PRA-Oibar, 6. k.

3722 Id.

3723 PRA-San Martin, 48. k.

3724 PRA-Oibar, 90. k.

3725 FHV, 268-269. orr.

3726 Id., 135. or. Mitxelenak, halaz guztiz, honako hau gaineratzen du:

«No debe excluirse la posibilidad de que alguno de estos nombres de persona provenga del genitivo latino, como sin duda proviene vasc. **Bet(i)ri**, **Pet(i)ri** ‘Pedro’». Ikus honetaz Galipentzuko **Santitisi** sarrean dioguna.

Alderdi hau Errekina-tik Zamiki eta errepiderraino luzatzen da, bi dermio horiekin ez ezik, Santa Agata-rekin ere mugatzen duelarik. Gure informatzaileen arabera bertan bada zer baiten zaharkina, baina jendeak ez daki, antza, ermita izan dela.

### Jaun Done Petri:

Dokumentazioan, aurreko toponimoan bezala, beti **Juan** dugu **Jaun**-en ordeztu, eta **deno**, **dere** edo **de**, **Done**-ren lekuan. **Petri** zuzenean latineko **Petri** genitibotik heldu dateke, baina honen itxura duen nominatiboaren dobletea ere izan liteke (ikus Galipentzuko Santitisi sarrera). Gaurregun 1788rako agertzen den **Juan de Petri** aldaera (lxwãndepétiril) ibiltzen da, Lergarrek San Pedro ezezagunarekin ezertarako lotzen ez dutelarik:

“Mas quince Robadas...en el terno de Sn Pedro, o Juan de Petri” (1788)<sup>3727</sup>

Hasierako j- [x] ebakitzen zela dirudi, egun bezalaxe.

**Jaun Done Petri La Virgen** dagoen xerrattoko (“serreta” esaten dute erdaraz) mendiko bat da. Egun ez omen dago ez ermitarik eta ez geldikinik ere bertan.

### Jaundonejoanizgibel:

Aurkitu duguna **Juandeanizgibel** (1761) da, baina **Jaun** > **Juan** eta **Done** > **Dene** > **de** urrats eta laburketak ohizkoak direnez, aldaera batuztat forma osoa hobetsi dugu:

“Ms una Pieza...en Juandeanizgibel...”<sup>3728</sup>

Mitxelena **Joaniz** aldaera biltzen du, **Joanes**, **Joane** eta besterekin batera, eta latineko **Iohannes**, **Iohannem**-etik eratorritzen. Guk dokumentatu dugun **Juaniz** forman erdal **Juan** izenaren eragina ikus daiteke, euskararen barruan bertan gertatu ohi den **-oa**- > **-wa**- pausoarena (cf. Basaburuan **Juan** [xwán] < **joan**), nahiz biona. Agezan, ikusi dugun bezala (ikus herri honetako **Jaundonejoanizgibela** sarrera), **Joani**- dugu 1592an, eta **Juanis**- urte batzuk beranduago (1631n)<sup>3729</sup>.

3727 PRA-San Martin, 58. k.

3728 Id., 45. k.

3729 **Juan de Beriaynek Iuan Done Iuaniz**- erabiltzen du: “Iuandone Iuaniscen E[ban]gellioan erraten denean, *Et verbum factum est*” (TCOM, 125. or.); “bearda jarri belaurico Iuan [Iua]niscen Euangelioan, ytz ayec [...] diradenean...” (Id., 124. or.).

98. orrialdean **Iuan Done Juaniseen** dugu, itxura guztien arabera c eta e nahastu direlarik:

“...eta arrazio da, ez titecen atra ariqueta Iuandone Iuaniseen Euangelioa azquenean leycendena ençun arterayno”.

Dena den, behin gutxienez **Iuan Done Juanes** darabil: “Mezaren azquenean erratenda Iuan doneIuanes Euangelistaren Euangelioa non baytaude escriuaturic, ytz ohec” (113. or.).

Lehen elementuari dagokionez, normalean **Iuan** erabiltzen du, baina bitan **Iaun** edireten dugu:

“...eta andic aurrera aren ceruizuan vicizeco, eta cumpliceço Christioac dituen obligaciohequi, onetaco escacenduela Virgina Andredona Mariari, eta Iuandone Miquel Ayngueruari, eta sandu guciey, eta Sacerdoteari otoytz eguin dezaten Iaun goycoaren aurrean”, “... daquitela onlacohec ece Iaungoycoac ceruan dagonac eguinenduela ayessas burla, eta Virgina Mariac Iaun done Miquel Arcangelec, eta Sanduec...” (40. or.).

Galar-Espartzako **Joan Remiriz** edo **Joanes Ramirez**-en eta Taxoareko **Maria**-ren ezkontzaren lekukotasunetan (ikus TAV, 152-154. orr.) **Joanis** edo **Joannis** da **Joanes**-en aldaera euskalduna, alegia, Agezan aurkitzen dugun bera:

Gaurregun Jaundonejoanizgibel ezezaguna denagatik, **Tras San Juan** oraindik ere bizirik dago, eta **Iturrotz** eta **Epaiz**-en arteko alderdi menditsua adierazten du. Bai izen euskaldunak eta bai erdaldunak orain galdurik dagoen eta dokumentazioan ageri ez den **\*Jaun Done Joaniz** (edo **\*Juan Dene / Dere Juaniz**) bat suposatzen dute. Toponimo honen goiti-beheitiko kokagunea zein zen badakigu, egungo **Tras San Juan**-ek horren gibelesko aldean behar baitu.

Notatzekoa da puntu honetan Lergan batzuetan sainduaren izen erdaldunak iraun duela, eta euskalduna desagertu dela: **Sanditume** eta **Jaundonejoanizgibela** galdu dira, baina ez **Santo Tomás** eta **Tras San Juan**; eta beste batzuetan alderantziz gertatu dela, hau da, izen euskaldunak iraun duela eta erdalduna galdu dela: **Jaun Done Mikendi**, **Jaun Done Petri**, (**Jaun Done**) **Salbatore** eta **Sandagata** bizirik ditugu; hauen kide erdaldunak diren **San Vicente**, **San Pedro**, **San Salvador** eta **Santa Agueda**, ordea, zeharo ezezagunak dira gaurregun.

Beste zenbait aldiz izen erdalduna baizik ez dugu dokumentatu (**Santa Bárbara**, **Santa Coloma**, **San Miguel**, **San Pablo**, **San Pelayo**<sup>3730</sup>) hauek ere euskaraz ibili izan diren arren, **San Gines**-en eratorria den **Sanginesondoa**-n ikusten den moduan. Beste batzuetan bi izenak (euskalduna eta erdalduna) galdu dira (**Sandiandore / San Andrés** bikotea, adibidez).

#### Jaundonemikendiberokia:

Behin bakarrik aurkitu dugu **Jaun Done Mikendi**-ko eremu babestua adierazten zuen:

“ytten ottra p<sup>a</sup> en Joandremiquendiberoquia” (1588)<sup>3731</sup>

#### Jaundonepetriberokia:

**Jaun Done Petri**-ko eremurik babestuen adieraziko zuen honek:

“una p<sup>a</sup>...en la endrecera llamada Joandenopetriberoquia” (1588)<sup>3732</sup>

#### Juan Done Salbatore:

Egungo **Salbatori** [šalbatóri] aurreko **Jaun Done Salbatore**-ren (ikus **Camino de Jaun Done Salbatore** sarrera) itxuratxartzearen fruitua da eta ez, lehen begiratuan irudi dezakeen bezala, genitibotik ateratako forma (cf. Lergako bertako **Jaun Done Petri**, **Jaun Done Mikendi** eta **Sandiandore** edo **Galipentzuko Santitisi**), **Reta Janári**-zen eritzia gorabehera<sup>3733</sup>. Izan ere, 1897ko katastroan **Salbatore** dokumentatzen da, hau da, bukaerako -e horri ongi eusten dion aldakia.

“Alaber çuc arçen duçu Joanis ori çure senarçat?...Joannis, çuc arçen duçu Mari ori çure emazteçat...bayez. Alaber, çuc, Maria, arçen duçu Joannis ori çure çenarçat...bayez”.

3730 Cf. **Jaun Done Belaio** Eslaban.

3731 PRA-Oibar, 4. k.

3732 Id., 4. k.

3733 EHZE, 496. or.

Gure alderditik atera gabe, **Jaun Done Salbatore**<sup>3734</sup>, **Jaundonesalbatoreanzina**<sup>3735</sup> eta **Jaundonesalbatorearana**<sup>3736</sup> dugu Bizkaiko Irangoten, eta hemendik kanpo ere leku askotan azaltzen da **Salbatore** izena, **Jaun Done** edo **San** elementu alboratuz lagundurik<sup>3737</sup>.

**Jaun Done Salbatore** Eslabako errepidearen gainean dago, **Sagarraga** eta **Castillo de Urniza**-ren artean, Aldeko bidean. Gure informatzaileen arabera bertan ez dago ermita-aztarnarik.

#### Jauregizar:

**Jauregi** izena eta **zahar** izenondoa dira toponimo honen bi osagai gardenak:

“un pedaço de una (viña?)...en el terno llamado Jaureguiçar” (1609)<sup>3738</sup>

Orain ezezaguna da, eta ez dakigu zehazki non zegoen, baina badakigu 1682an agertzen den **Camino de Jaureguizar Euntzeguti**-n gaindi zihoala (ikus bi sarrera hauek). 1587ko **Erguirizarr** dirudien bezala **Jauregizar** bera bada, Oletako bideetako batean zegoela pentsatu beharko dugu:

“y la otra pieça en...erguirizarr...afron<sup>a</sup> con el camino que van a ollera”<sup>3739</sup>

#### Kaskallua:

Kaskailu asko dagoelako deitzen zitzaion eremu honi **Kaskallua** antzina eta **Los Cascajos** orain (ikus sarrera hau):

“otra biña en la endreçera llamada cascallu...” (1588)<sup>3740</sup>

#### Labeaga (alto de):

**Labe** izena eta **-aga** atzizkia ditugu egun **Labiaga** [laβjága] ebakitzen den toponimo garden honetan:

“una pieca en Labeaga” (1543)<sup>3741</sup>

**Labeaga Murubitarte** eta **Iturrotz**-en artean dago, **Zalduburu**-ren aurkez, hondar dermio honetako errekaen ondoan, elutsean. **Alto de Labeaga** alderdiko gaina zen.

3734 **Juan de Salbatore** 1721ean. PRA-Oibar, 37. k.

3735 **Juan de Salbatore ancina** dugu 1772an. PRA-Kaseda, 24. k.

3736 **Joandone Salbatore arana** agertzen da 1616an. PRA-Oibar, 19. k.

3737 Cf. **San Salbatore** Azterain eta Gazolatzen (J. M. Jimeno Jurío, TCPCC, 136. eta 299. orr.) **Juan Dene Salbatore** eta **Juan Done Salbatore**-ren aldamenean (113. eta 288. orr.), adibidez.

3738 IEA, 462. kart., 21. zkia., 11. or.

3739 PRA-Oibar, 3. k-bis.

3740 Id., 4. k.

3741 Id., 2. k.

**Lerga:**

P. de Zabalaren arabera<sup>3742</sup> **Lerga** ‘pinu-lekua da’, eta garbi azaltzen ez bada ere, **ler** edo **leher** ‘pinua’ eta **-aga**-z osatutakotzat hartzen duela dirudi. 1104eko<sup>3743</sup> eta 1270eko lekukoak aintzat harturik, **Lerga**-k **leher**, **ler** ‘pinua’-rekin zerikusia izan deza-keela onar liteke (cf. **Lerbez** Uxuen):

“Ego P. orticii rector ecclesie de leerga hiis interfui et subscripsi” (1270)<sup>3744</sup>

Horrela balitz, **Lerga** Nafarroan XI. menderako gauzatua zen<sup>3745</sup> haspe-renketaren galtzearen ondoko tinbre bereko bokalen laburketaren ondorio litzateke.

Bukaera iluna da, eta **-aga** atzizki ezagunaren laburketatzat jo baliteke ere, ez dugu inoiz **-aga** > **-ga**-ren modukorik aurkitu, eta ez dugu uste laburketa hori ontzat har daitekeenik. Azalbide hau, alabaina, erakargarri samarra da, jakinik eta alderdi hone-tako azentua intentsitate handikoa izan zitekeela (cf. Galipentzuko 1688ko **Larrainta**-comendia, ezbairik gabe, \***Larrainetako mendia**-tik aterea). Hortaz prozesua hau izan zitekeen: \***Lehér**raga > \***Leérraga** > **Leérga** > **Lérga**, Euskal Herriaren beste muturre-ko **Galárreta** > **Gallárta**-rekin gertatu den antzera<sup>3746</sup>.

Oroz Arizkurenek Euskaltzaindiak Lizarran antolatu zituen hirugarren Ono-mastika Jardunaldietarako prestatu txostenean **ilerca**, **ilerga**, **ilerda**, **ilumberritani** eta antzeko izenekin lotzen bide zuen **Lerga**, baina lan honek oraindik ez du argia ikusi eta ez dakigu zer arrazoinamendu erabiltzen dituen.

L. Mendizabalek hasierako l- protetikotzat hartu ondoren<sup>3747</sup>, gainerakoa **arga**, **alga**, **elga** ‘pasto’-rekin identifikatzen du, eta ‘pastizal’ adiera ematen dio. Etimologia honek, bistan denez, ez du funts handirik, hasierako l-ren presentzia ez azaltzeaz gainera bertako aldaera elkea (cf. **Elkea**, **Elketxikia** Eslaban), edo **elka** (cf. **La Elka** Galipentzun) baitira.

**Lizarduia:**

**Lizar** zuhaitz-izena eta **-duia** atzizki multzokaria ditugu toponimo honetan:

“una viña...en la endreçera llamada liçarduy” (1615)<sup>3748</sup>

3742 “Toponimia vasca”, BRSVAP, 1952, VIII.

3743 NHI, 191. or.

3744 Ostolaza, 304. or.

3745 Mitxelena, FHV, 205-206. orr. Honela dio:

“Es altamente probable que la pérdida (de la aspiración) comenzara por la Alta Navarra, en contacto con el romance aragonés que no tenía h, y en la mayor parte de esa región era ya un hecho consumado en el siglo XI”.

Kontuan hartu behar da aztertzen ari garen eskualde hau bete-betean zegoela Nafarroako eta Aragoako erromantzeekiko ukipenean.

3746 Era berean, gure eskualdetik hurbilago, **Ibilzieta** > **Ibizta** [iβsta] dugu, edo **Iaurrieta** > **Iaurta** [jáurta]. Laburketa hauen antzinatasuna, ordea, oso dudazkoa da, gure ustez.

3747 Reta Janárizek aipatzen du, EHZE-ko 475. orrialdean.

3748 PRA-Oibar, 18. k.

**Lizarduia** [liθaɾdúya] herritik hurbil samar dago, **Santa Bárbara**, **Altico de la Guarda** (**Iguraimendi(ko)a**), **Aldemuga**, **El Saso**, **Euntzezar** eta **Aporpari**-ren erdian, azken alderdi honetan zegoen **La Pieza del Fresno** (ikus sarrera hau) eta **Lizarrandia**-tik hurbil. Egungo egunean ere badira lizarrak bertan.

#### Lizarrandia:

**Lizar** izenaz eta **handia** izenondoaz osatua dago:

“una pieza...en el terno de Lizarrandia q afrontta a...camino que se ba a Abaiz y cequia concegil” (1772)<sup>3749</sup>

**Lizarrandia** [liθaɾaɲdía] **Camino de Abaiz** eta **Camino de Euntzezar**-en artean dago, **Lizarduia** eta behinolako **Pieza del Fresno**-tik gertu. Hondar bi hauetan bezala, hemen ere badira lizarrak.

#### Llanos, los:

**Los Llanos Ikaiburu** eta **Camino de Indusialzina**-ren erdian dagoen herri ondoko zabaldua da. Herriaz beste aldean, **Eslaba** aldean alegia, izatez eta adieraz berdina den **Zabala** euskalduna dugu. Toponimo hau 1897ko katastroan aurkitu dugu lehen-dabiziko aldiz, eta beraz ez dirudi oso zaharra denik (cf. **Eslabako El Llano / Zabalea**).

#### **Malliturri (abrigo de), (acequia de), (barranco de), (fuente de), (prado de):**

Leku-izen honen bigarren osagaia argia da, **Malliturri**-k iturria eta horren inguruko lurrak izendatzen dituenez gero. Lehen osagaia, aitzitik, duda-iturburu izan daiteke.

Lergarrek egun **Maiturri** [majtúri] esaten diote dokumentazioan orokorra den **Malliturri**-ri (1692an **Maliturri** dugu, halaz ere):

“una pieza en chuchu que se llama Maliturri” (1692)<sup>3750</sup>

“otra pieza en Malliyturri” (1693)<sup>3751</sup>

Hasierako elementu horretarako **maila** (cf. **harmaila**) proposa daiteke, **Mallabia**, **Mallagaray** eta bestetarako bezala<sup>3752</sup>, iturrian mailaren bat bazegoela suposatzen bada. Uxuen **Maniturri** [mànitúri] esaten zaio orain, eta Lergan ere **Maniturri** aurkitzen dugu 1897ko katastroan eta 1919ko Eleizalderen zerrendetan, baina kontsonante sudurkari hau XIX. mendean azaltzen da aurren aldiz, eta beraz ezin dugu jatorrizkotzat jo. **Maiturri** aldaera, bere aldetik, XX. mendean sortu dateke.

Beste posibilidadate bat **maila** gabe, **Mari** pertsonaia mitologikoaren izena dugula pentsatzea da. **Mari**-ren aldakia adierazkorra den **Mayi**-tik **Malli** atera zitekeen<sup>3753</sup>,

3749 PRA-San Martin, 50. k.

3750 PRA-Kaseda, 6. k.

3751 Id., 3. k.

3752 AV, 124. or.

3753 Baita zuzenean ere: cf. **bero** / **bello**; **Peru**, **Pero** / **Pello**.

gaztelaniaren historian ere ezaguna izan den y / Il nahasketaren ondorioz. Euskaraz ugarria ez bada ere, badira nahasketa honen adibideak: **Oiarko / Ollarko** Saratsan; **Ollargain**, **Ollargibela**, **Ollarnausi** Eritzen...<sup>3754</sup>, denak oihan-en elkarketa-erortketako aldakia den **oiar**-etik aterak.

**Mauru** (cf. Morionesko **Maururia**) edo **mairu** izen ezaguna (cf. gainera, Eslaba eta Uxueko **Fuente del Moro**) eta **iturri** ere izan ditzakegu toponimo honen oinarrian, Nafarroan mordoxka baitira aurreko **Mair(u)iturri** batetik, **Mariturri**-ren bitartez, **Maiturri** (eta **Maniturri** behin edo behin) bilakatu diren **iturri**-izenak<sup>3755</sup>. Azalbide honek duen oztopo nagusia **Malliturri** formaren aspaldikotasun handia da (1543rako agertzen da, ikusi moduan).

**Malliturri** **iturria** Uxuen sortzen da, **Txutxu**-n, **Lergako** mugatik hurbil. **Dermioa** herri horretako muga dago, **Camino de Txutxu**-ren bi aldeetan:

“otra pieza...en el thermينو de Malliturri teniente al thermينو de Uxue” (1713)<sup>3756</sup>

**Abrigo de Malliturri** oraingo zeri dagokion ez dakigu:

“otra pieza en el abrigo de malliturri” (1593)<sup>3757</sup>

**Lergan beroki** izena arrunta dela kontuan hartuta (**Arrakoaberoki**, **Jaundonepetriberokia**, **Txutxuberokia**...), XVI. mendeko **abrigo** hau euskarazko izen horren itzulpena besterik ez dela kontu egin daiteke.

**Acequia de Malliturri** Uxueko **Txutxu** Alto-n sortu, eta **iturri**ko urarekin nahastu ondoan, **Lerga** eta **Epaiz**-en arteko mugatik **Barranco de Txutxu**-ra doan erreka dugu. **Chopera de Malliturri** erreka honetako txipudia da; **Hoyo de Malliturri** aipatu ubidearen alboko zuloari esaten zaio, eta **Prado de Malliturri** Uxueko muga dagoen euntze txikia da. **Malliturri** **Txutxu**-ren barrukotzat jotzen da **Lergan**.

#### Mediavilla:

Aurkitzerik izan ez dugun **\*Iriarte**-ren kidea zatekeen:

“una casa...en la endrecera llamada media vi” (1594)<sup>3758</sup>

3754 J. M. Jimeno Jurfo, TCPCI, 343 eta 164. orr.

3755 **Mairu** edo **mauru** oso ugarria da toponimian, honen baliakidea den **moro** erdalduna bezalaxe (ikus honetaz Morionesko **Maururia** sarrera). Jimeno Jurforen arabera izen honen eratorria den Arizko **Mairu** **iturri** (**Mari yturria** eta **Maryturria** ere dokumentatzen dira) **Maiturri** [majtúri] da gure egunetan, **Lergako** forma bera, alegia (Jimeno Jurfo, TCPCI, 94. or.). Halaber, Mezkirizko egungo **Mariturri** edo **Maniturri** **Mauri** **iturri** zen 1729an (**Mauro** erreka ere azaltzen da urte berean. **Orreaga Ibarra**, MT, 342. or.). Autore honen arabera bi toponimo horiek Mezkiritzen erabiltzen den **mauri** 'marrubia-ren eratorriak dira. Gure eritziz, ordea, garbi dago **mauru** dugula oinarrian. Garraldako egungo **Maiturri** [majtúri] **Mauriturria** zen 1781ean (PRA-Auritz, 49. k.), eta **Mauriturri** edo **Moroiturri** 1914eko katastroan, eta Urzainkiko lehengo **Mauriturria** (Tomás Urzainqui, “Aplicación de la encuesta...”, 59. or.) **Maiturria** da egun. Otsakarren **Marimendi** dugu orain, **Marimendi** 1695ean (PRA-Ihaben, 39. k.), **Mayrumendia** 1638an (id., 9. k.).

3756 PRA-Oibar, 33. k.

3757 Id., 7. k.

3758 Id., 8. k.

**Mojón de Abaiz, el:**

Euskarazko **Abaizmuga**-ren baliakidea da. **Aitzetako aldapa** hementxe zegoen (ikus **Aitzetako erreka**dapa sarrera).

**Mojón de Aldea, el:**

Oraindik bizirik dugun **Aldemuga** euskaldunaren itzulpena zen:

“una pieça...en la endreçera llamada el mojon de aldea” (1610)<sup>3759</sup>

**Mojón de Olleta, el:**

Auzo-herriko muga aldea zen:

“otra piª en el mojon de olleta” (1594)<sup>3760</sup>

**Mojón de San Martín, el:**

**Monda**-ko muga zen:

“otra piª en el mojon de San myn” (1594)<sup>3761</sup>

**Mojón de Ujué:**

**San Gines, Sanginesondoa** edo **Txutxu**-ko muga zen:

“ytten otra piª en el mojon de Uxue” (1594)<sup>3762</sup>

**Molino (barranco de), (prado de); Molino viejo, el:**

**El Molino viejo Barranco de Errotaxar**-en bukaeran zegoen, **Urretako erreka**-rekin batzen den tokitik hurbil, **Prado del Molino** deitzen denaren eta **Las Avellaneras**-en ondoan. Bertan oraindik ere badira harri ederreko paretak. Badakigu XVI. mendearen bukaerarako “zaharra” zela:

“y la quarta piª en la endrecera del molino biejo” (1592)<sup>3763</sup>

Ikus, dena den, **Errotabidea** sarreran dioguna. Errotatik beheiti aipatu bi erreka horien bat egitetik sortutakoari **Barranco del Molino** esaten zaio.

---

3759 Id., 16. k.

3760 Id., 8. k.

3761 Id.

3762 Id.

3763 Id., 6. k.



**Monda (alto de), (portillo de), (val de):**

**Monda**, esan denez (ikus Galipentzuko izen bereko sarrera), \***montana** bate-tik atera ahal izan da, bai Galipentzuko **Monda** eta bai Lergakoa mendian, eta aldapan, kokaturik baitaude, baina hau ez da inondik ere segurua.

"...en el thermino de Monda teniente al thermino de San Marttin y muga de olleta" (1713)<sup>3764</sup>

**Alto de Monda** [mónða] Burlon-en ondoko gainari esaten zaio; **Portillo de Monda** edo **Mondaportillua** egungo **Alto de Lerga**-ko errepideko ate modukoa izan daiteke:

"...portillo de Monda...que afronta a Camino Real que se ba a Tafalla" (1774)<sup>3765</sup>

**Valdemonda**, apika, **Lergako Monda**-tik San Martingora jaisten den erre-kastoaren harantxoari esanen zitzaion:

"yt otra pieza en baldemonda" (1544)<sup>3766</sup>

**Monda**-k **Arroia**, **Burlon**, eta **San Gines**-ekin mugatzen du, **San Martin** eta **Oletarekin** ez ezik. Bi herri hauetan ere bada **Monda** izeneko dermioa, **Arroia** ere baden bezala, **Lergakoaren** alboan. **Monda Alto de Lerga**-tik **San Martin** alderako isuria, al-dapa da.

**Mondakieta:**

**Mondakieta**, itxura guztien arabera, **monda** oinarriaz eta **-eta** atzizkiaren al-dakia den **-kieta**-z osatua dago. **Monda** 'mendi' edo 'aldapa'-ren baliokidea bada, **Mondakieta** 'mendieta' edo 'aldapeta' izanen da:

"...en el terno de Mondaquietta" (1767)<sup>3767</sup>

**Mondakieta**-tik **Makirriaingo** bidea igarotzen zen:

"... en Mondaquietta q afronta a... camino de maquirriain" (1773)<sup>3768</sup>

Bide hau **Sandagataberokia**-ko portilu handitik zihoan, gaurko **Sandagata**-n barna, ez **Monda**-tik.

**Mondako errekina:**

**Monda**-n bertan zegoen, **San Gines** aldean:

"ytten otra piª en mondacoerrequina... que afrenta con pieças de Sangines" (1594)<sup>3769</sup>

3764 Id., 33. k.

3765 PRA-San Martin, 51. k.

3766 PRA-Oibar, 2. k.

3767 PRA-San Martin, 48. k.

3768 Id., 51. k.

3769 PRA-Oibar, 8. k.

Izen honen adiera garbi dago: **Monda** dermioko lur-zatiren bat, basoren bat agian, erre egin zen, eta geroztik errekin izena eman zitzaion (cf. **Errekina** eta **La Quemada**, **Lergan** bertan. Ikus **Agezako Errekineta** sarreran dioguna).

#### **Mondaportillua:**

**Portillo de Monda**-ren euskarazko ordaina zen:

“yttem otra p<sup>a</sup> en mondaportillua” (1588)<sup>3770</sup>

#### **Monte de arriba, el:**

**Monte de arriba** deizioa oso zaharra da, eta euskarazko **\*Goiko** edo **Goitiko** oihana-ren antzeko zerbaiten itzulpena izan daiteke:

“otrossi... en el monte de arriba...” (1545)<sup>3771</sup>

Mendi hau **Errekina**, **Sarga**, **Las Cabañetas** eta **Artealdea**-tik **Oleta**, **Julio** (nonbait ez da herri honetaraino iristen) eta **Eslabako** mugetara hedatzen da, barruan oraingo **Muga de Julio** eta **La Quemada** biltzen dituelarik, bai eta behinolako **Bidaburua** ere (ikus **Aldeko Santa Coloma**).

Lehen **Lerga** eta **Eslabaren** arteko fazeria zen hau, beste izen batez **Facería de los Fayales** gisa azaltzen den bera (ikus **sarrera** hau).

#### **Monte de Ujué (cabo), el:**

**Uxueko Txutxu**-ko oihezki oihana da **Monte de Ujué**, beste batzuetan agertu ohi den euskal **Uxueko oihan(ondo)a**-ren ordaina:

“otra pieza... Junto al Monte de Uxue o San Gines ondo” (1609)<sup>3772</sup>

#### **Moraga:**

**More** ‘idoi’, eta **-aga**-z osatua egon daiteke (ikus atzizki honi eskaini atalean dioguna). 1545ean eta 1723an<sup>3773</sup> aurkitu dugu, bietan **Moraga** itxuraz:

“...asta...el camino q ba de moraga...” (1545)<sup>3774</sup>

#### **Muga de Abaiz, la:**

**Mojón de Abaiz** eta **Abaizmuga**-ren kidea da. **Carasol de Txutxu** edo **Txutxuberokia**-n zegoen, alderdi honetatik **Uxuera** joaten zen bidean:

---

3770 Id., 4. k.

3771 Id., 2. k.

3772 Id., 13. k.

3773 IEA, 1765. kart., 8. zkia., 887. or.

3774 PRA-Oibar, 2. k.

“otra pieza en el termino de chuchuberoquia...afronta con la muga de Abaiz y Camino que se ba a Ujue” (1767)<sup>3775</sup>

#### Muga de Arroia:

Mojón edo Muga de Olleta-ren zati bat zen 1768an ageri den Muga de la Roya<sup>3776</sup>.

#### Muga de Eslava, la:

Eslabarekiko muga osoari deitzen zaio honela, bereziki Eslabako errepidetik Aldeko “Corral del Ginebral”-erainoko puskari.

#### Muga de Julio, la:

Gaur pinuz estalia dagoen Bizkaiko despoblatuarekiko muga da. Mendi gailurretik doa.

#### Muga de las Tabernas de San Gines:

San Gines-ko monastegiaren ondoan zeuden taberna hauek. Tabernak izatearen arrazoia, nonbait, XVIII. mendearen erdialdera arte bertan egiten zen merkatuan bilatu beharra dago:

“En un sitio llano y espacioso á distancia de media legua por la parte del n. hay una basílica dedicada á S.Gines, y á pocos pasos una casa que amenaza ruina, y un sitio rodeado de paredes demolidas, cuyo pavimento está enlosado, y antiguamente fué convento de templarios... En este sitio se celebraba la feria de Lerga en los dias 25, 26, 27 y 28 de agosto hasta mitad del siglo pasado, que por representación de la villa se trasladó á su centro para evitar las incomodidades que sufrían los concurrentes”<sup>3777</sup>

Honen arabera, toponimoa dokumentatu ordurako merkatua Lergara tokialdatua zen

“...y desde esta se passo a la veintte y cinco (muga) q laman la muga de las tabernas de Sn Gines, cerca de la ventta” (1773)<sup>3778</sup>

#### Muga de Olleta, la:

1709ko lekukoaren arabera Oletako muga Sarga-n zegoen, ez orain bezala Errekina-n:

“Primte el Monte llamado Santa Coloma y Sarga....theniente a las mugas de olleta y Aldea”<sup>3779</sup>

3775 PRA-Kaseda, 21. k.

3776 PRA-San Martin, 48. k.

3777 DGH, 436. or.

3778 PRA-San Martin, 51. k.

3779 PRA-Kaseda, 14. k.

**Muga de San Martín, la:**

Monda-tik Txutxu-raino luzatzen da (ikus Arroia).

**Muga de Ujué, la:**

Ikus Mojón eta Monte de Ujué.

**Munikotxorrotx:**

Egungo **Mundotxokorro** [mũndoçokořó] Andua eta Errekina-ren artean, Oletako bidearen ondoan dagoen mendiko baten izena da. Gure ustez **muno**-ren txikigarria datekeen **muniko** (cf. Itzagaondoko zuhartzuko **Munico yturria**<sup>3780</sup>) eta **zorrotz** izenondoaren aldaera adierazgarria (txikigarria) den **txorrotx** izan ditzakegu hemen: Cf. Abaurregaineko **Mendizorrotz**, honen kide erdalduna den **Monteagudo** herri-izena, bien arteko zerbait den **Mendikute** deitura, Iberoko **Muruzorrotz**<sup>3781</sup>, Arripodaseko 1710eko **Moco zorroz**<sup>3782</sup> edo Agezako **Puntazorrotza**. Izenondoaren aldaera adierazkorri dagokionez, berriz, cf. Bidankozeko **Txorrotxarria** toponimoa.

**Muno** + **ko** elkarketatik **munoko** espero genuen, edo **muino** [múño]-n oinarritzen bagara (cf. 1609ko **Muñuquicorroz**), **muñoko**, ez 1565eko **Muniquozoroz** eta 1668ko **Municochorroch**-en dugun **muniko**:

“otra pi<sup>a</sup> en muniquozoroz”<sup>3783</sup>

“ytten otra pieza...en el termino de municochorroch”<sup>3784</sup>

\***Munoko** > **muniko** pausoan \***munoko**-ren baliokidea den **mendiko**-ren (cf. 1827ko **Mendicochorroch** aldaera<sup>3785</sup>, edo Lergako bertako **Areamendikoa** edo **Iguraimendikoa** toponimoak) eragina egon zitekeen, bai eta, ausaz, gaztelaniako -ico txikigarriarena ere. Modu berean, ezin da ahaztu lekuko batzuetan behintzat sabaiko sudurkaria azaltzen dela, eta lehen lekukotasunen artean **muñoki**- (edo honen desitxuraketa arina dirudien **muñuki**-) aurkitzen dugula<sup>3786</sup>:

“una peça...en la endreçera llamada muñuquicorroz” (1585)<sup>3787</sup>

“otra peça...con su corral y arteguia en muñuquicorroz que afuenta con...la senda que ba a olleta” (1609)<sup>3788</sup>

**Txorrotx** izenondoaz den bezainbatez, lehen lekukoaren artean -**zorro(t)z** azalduagatik ere, aldaki adierazkor-txikigarria 1644erako edireten dugu, eta gero sarritan agertzen da<sup>3789</sup>.

3780 PRA-Agoitz, 18. k., 1629, 135. or.

3781 TCPCO, 141. or.

3782 “otra pieza en el mismo paraje de celaya llamada moco zorroz”. PRA-Irunberri, 3. k.

3783 PRA-Oibar, 2. k-bis.

3784 UEA, 14. kap-lib., 4. or.

3785 PRA-Oibar, 109. k.

3786 **Muñoki**- > **Muñiko**- pausoa metatesiz azal daiteke. Tarteko -ki- hori Burlarako **Idoikikoa**-n (Jimeno Jurío, ETB, 67. or.) edo Amekoako **Zalduki**, **Kortaki**, **Iturriki** edo **Mendiki**-n azaltzen den hizki identifikatugabea izan liteke (ikus Luciano Lapuente, TAM, 407-408. orr.). Cf. Lergako bereko **Zamiki**.

3787 PRA-Oibar, 3. k-bis.

3788 Id., 13. k.

3789 Id., 24. k.

“otra pieza en munduqui chorroch” (1644)

Toponimo honen desitxuraketa oso goiztiarra izan zen, euskara galdu baino aise lehenagokoa. Dokumentazioan makina bat aldaki ezberdin ditugu, aipaturikakoez landara: **Munducochorroch** (1690)<sup>3790</sup>, **Munduco chorroz** (1708)<sup>3791</sup>, **Munduco chorroz** (1714)<sup>3792</sup>, **Munducuchurruch** (1718)<sup>3793</sup>, **Mundachochorroc** (1771)<sup>3794</sup>, **Mundicochorrot** (1836)<sup>3795</sup>, **Mondocochorrot** (1897)<sup>3796</sup>.

**Muru** (alto de):

**Muru**, Mitxelenaren arabera<sup>3797</sup>, ‘gaina’, ‘murrua’ eta ‘mukurua’ da. Honela dio autore honek:

“De creer a Echave, 25 rº, *murru* significaba ‘cabezo de montaña’ y además ‘colmo’: «también se toma esta palabra *Murú*, en mi lenguaje por colmo o colmar, y lo mismo significa Mucuru». También Larramendi traduce ‘colmo’ por *murua*, *morua*, *mucurua*. En guip. y vizc. literario es ‘collado’”

Manuel Lekuonaren ustez<sup>3798</sup>, **murru** latineko **murus** ‘harresia’, ‘defentsa murrua’-tik atera da, eta **gatzelu**, **guardia**, **bastida**, **segura** eta beste bezala, euskaldunon lehengo antolakuntza militarren aztarna da. Autore honek berak **murru**-ren eratorriak diren **Murua**<sup>3799</sup>, **Murumendi**, **Murueta**, **Muruzabal**, **Murugarren** (< **Murubarren**) eta **Murelaga** Nafarroako eta Errioxako **Muro** eta **Murillo**-rekin lotzen ditu.

Latineko jatorria ez gaitzetsi arren, garbi utzi nahi genuke **murru**-k euskarazko **buru**-k duen balio bera duela, eta batetik besterako urratsa azaltzen erraza dela, m- eta b- maiz aldizkatzen baitira euskaraz<sup>3800</sup>. Alabaina, gure eskualdean Lergako 1708ko **Buruguti**-n baizik ez dugu ediren txandakatze hori, eta banaketa osagarrian daudela suposa baliteke ere (**murru**- baina **-buru**), ez dugu honen aldeko argumentu gehiegi.

3790 PRA-Kaseda, 5. k.

3791 IEA, 1456, 2. zkia., 6. or.

3792 PRA-Kaseda, 16. k.

3793 Id., 18. k.

3794 PRA-Oibar, 68. k.

3795 PRA-Kaseda, 54. k.

3796 Katastroa.

3797 FHV, 332. or.

3798 “Contribución a la toponimia vasca. Toponimia de tipo militar” eta “Léxico latino en la toponimia militar vasca”, in *Hizkuntza eta literatura*, Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de sección, lehen alea, 1982, 31-36. eta 37-42. orr., hurrenez hurren.

3799 Arabako toponimoa. Izaban ere azaltzen da, baina ez dakigu gain baten izena den ala ez (ikus B. Estornésen DTR, 386. or.). Gipuzkoako **Murumendi**, bere aldetik, aski adierazgarria da. **Muru** oso hedatua dago Nafarroako toponimian, eta dirudienez beti toki gorak, mendiak edo, izaten dira. Adibidez, hor ditugu Orotz-Beteluko **Muru**, **Murupe**, **Murondo** (< \***Muruondo**), **Muruchuqui** (< \***Muruxiki**?), **Murugaña** eta **Murubiscar** (Urtasun, TOB, 338-339. orr.).

3800 Cf. **Muno** / **buno** (aurrekoa baino zaharragoa, antza denez)/ **puno** (Burlatan, ETB, 85. or., eta Elon, **Punocoa** toponimoan, PRA-Elo, 11. k., 1688, esaterako). M. Lekuonak multzo berean sailkatzen ditu **muno**-ren eratorriak (**Munoa**, **Munaundi**...) eta **Munio** antroponimoa dutenak (**Munian** adibidez, **seguru** asko **Munain**-ekin duen eite fonikoarengatik), denak latineko **munire** ‘perttrechar’, ‘municionar’-etik helarazten dituelarik (ikus aipatu bi artikulua). Hau gure ustez ez da zuzena.

Lergan garbi dago, dokumentazioan azaltzen diren izenetan eta oraindik ere bizirik daudenetan oinarri hartuz, **mur** ‘mendia’ edo ‘gaina’ dela. Honen froga bat 1708an baizik ageri ez den **Alto de Muru** dugu:

“una pieza en el Alto de Muru” (1708)<sup>3801</sup>

Iruñerrian ere azaltzen da **mur** izena, adiera beraz, antza. Iberoko **Murubea** leku-izenaz ari dela honela dio J. Jurío jaunak<sup>3802</sup>:

“Llanura en la margen izquierda del Arga, al NE, del puente de Esterrea y debajo (al E) del cerro de Iridia y del alto de las Tres Cruces”

### Murualdapa:

**Murualdapa**-k **Muru** gaineko malda adierazten zuen, **Burlonaldapa**-k **Burlon** mendikoa edo **Iturrozko aldapa**-k **Iturrotz** dermiokoa adierazten zuten bezala:

“otra p<sup>a</sup> en muru aldapa” (1593)<sup>3803</sup>

### Murubitarte (balsa de):

**Muru** eta **bitarte**-z osatua dago mendi-izen hau:

“otra pieza en Murubitarte” (1815)<sup>3804</sup>

Bigarren elementu horrek ‘bitartekoa’ esan nahi duela dirudi, hots, beste muren artean dagoena (ikus beherago), baina ez handia ez txikia dena ere adieraz zezakeen, nahiz berez altu samarra (Lergako beste gainen aldean) den (751’5 metro. Cf. **Muruguti**, **Murugibel**).

Eguno **Murubitarte** [múruβitárte] **Alto de Burlon** eta **Monte de Indusi**-ren ondoko mendia da. **Hoyo del Aguila**, **Labeaga** eta **Sanginesondoa** ere mugakide ditu. Antzinako **Balsa de Murubitarte Indusi** eta **Murubitarte**-ren artetik igarotzen den **Camino de Indusialzina**, **Camino de San Gines** edo **Camino de San Martín** bidean zegoen:

“...entrando...del lado de la texeria, desde la Basilica de Nra Sra por el camino arriba que se ba a S.Martin abajo de la balsa de Murubitarte contra el Camino Real...” (1788)<sup>3805</sup>

### Murugibel (alto de), (esquina de), (portillo de):

Egun **Murumigel** [múrumigél] bilakatu dena **Los Castillos** direlakoetako baten gibelean dago, gaztelu honen eta **Artealdea**-ren artean, eta badirudi **mur** izena

3801 PRA-Kaseda, 14. k.

3802 TCPCO, 141. or.

3803 PRA-Oibar, 7. k.

3804 Id., 95. k.

3805 PRA-San Martin, 58. k.

gaztelu-gainari dagokiola, **Murugibel**, esan bezala, horren atzeko zuloa baita. Alto de **Murugibel** eskuineko **Castillo**-aren atzeko aldean dago, **Camino de Murugibel**-en, **Murugibel** bistaritzen den tokian.

Izen hau lehen agerraldietan itxuraldatuxe aurkitzen dugu: **murguiguibela** (1537)<sup>3806</sup>, **murguibel** (1587)<sup>3807</sup>, baina osagaiak argiak dira:

“tres robadas de tierra en muruguibel” (1543)<sup>3808</sup>

Metatesia jasandako aurren lekukoa 1795ekoa da:

“una pieza en el termino de Muruviguel” (1795)<sup>3809</sup>

Hemendik, sudurkari asimilazioz (herri etimologiak ere zerikusia izango zuen), gaurko **Murumigel** atera zen.

**Esquina de Muruguibel** Aldeko mugan zegoen:

“ytten otra pieca en la esquina de muruguibel en la muga...” (1593)<sup>3810</sup>

Antza denez, **Artealdea** eta **Santa Coloma**-ren artean sartzen den **Murugibel**-en adarra dugu bazter hau, **Camino de Murugibel** edo **Camino de Artealdea**-ren eta **Barranco de Santa Coloma**-ren arteko lur zerrenda. **Portillo de Murugibel**<sup>3811</sup> edo **Murugibelportillua** **Camino de Murugibel**-en zegoela dirudi.

**Murugibelgoiena:**

**Murugibelgoiena**, **Murugibel**-en goiko aldea izan zitekeen, agian “**Corral de Ibañez**”-en parean dagoen gainaldea:

“ytten otra pieça en muruguibelgoyena” (1593)<sup>3812</sup>

**Murugibelportillua:**

Esan bezala, **Portillo de Murugibel** “**erdalduna**”-ren ordain erabat euskalduna zen (ikus **Murugibel** sarrera):

“ytten otra piª en muruguibelportillua...afrunª con el camino q ban a muruguibel” (1588)<sup>3813</sup>

3806 PRA-Oibar, 2. k-bis.

3807 Id., 3. k-bis.

3808 Id., 2. k.

3809 PRA-Kaseda, 35. k.

3810 PRA-Oibar, 7. k.

3811 Id., 2. k., 1543. Data honetatik aitzina behin baino gehiagotan aurkitzen dugu.

3812 Id., 7. k.

3813 Id., 4. k.

**Muruguti:**

Muru 'gain' eta guti 'txiki' ditugu hemen:

"otra pieza en muruguti..." (1763)<sup>3814</sup>

1708ko **Buruguti** aldaerak herri-etimologiaz sortutako forma ematen du, gainerako lekuko guztiek, baita zaharrenek ere, m- baitute (ikus, halaz ere, gorago esan duguna).

Gaur ezezaguna den hau **Camino de Olleta**-ren ondoan zegoen:

"...en el termino de Murubuti, afronta...al camino de Olleta" (1786)<sup>3815</sup>

Andua, Santsoainzabal eta Txirrialdea-ren artean, **Camino de Olleta**-ren alboan dagoen mendiko egun izengabea izan zitekeen.

**Murugutigaña:**

**Murugutigaña**-k **Muruguti**-ren gaineko alderdia adierazten zuela dirudi, baina dermioa gaina zela ere adieraz zezakeen:

"otra piª en murugutigaña" (1593)<sup>3816</sup>

**Nevera, la:**

**San Gines**-en zegoen elurputzu hau, komentu zaharretik hurbil seguru asko:

"siete rovasdas...en el termino de Sn Jines proximas a la Nevera" (1836)<sup>3817</sup>

**Nuestra Señora (del Camino), (alto de la ermita de), (puente de):**

**Ermita Camino de San Martín** ondoan zegoen. 1723an berriztatu zuten:

"se compuso la Hermita de Nuestra Señora que esta junto al camino que se ba a San martin...Por adentro se dibujaron los pasos de la pasion de Nuestro Señor para que sirba de Via Crucis" (1723)<sup>3818</sup>

1802rako egoera eskasean zegoen berriz ere, eta hori zela kausa urte horretan **Igual de Soriak** botatzeko agindua eman zuen<sup>3819</sup>.

**Egungo La Virgen** edo **Altico de la Virgen** da dokumentazioko hau:

"otra pieza donde Nra Señora...teniente al Camino que va a tafalla" (1704)<sup>3820</sup>

3814 PRA-San Martin, 46. k.

3815 Id., 57. k.

3816 PRA-Oibar, 7. k.

3817 PRA-Kaseda, 54. k.

3818 LEA, G. Sarasa, 47. or.

3819 Ikus Pérez Olloren EN.

3820 IEA, 1209. kart., 28. zkia., 6. or.



**Puente de Nuestra Señora**<sup>3821</sup>, itxura guztien arabera, 1782az geroztik guxtienez **El Puente grande** deitzen den **Barranco de Txirrialdea**-ko (eta **Camino de Indusialzina**-ko) zubia zen, **Ermita de Nuestra Señora**-tik hurbilen zegoena, alegia.

**La Virgen**-ek **Arridokieta**, **Monte de Indusi** eta **Indusialzina**-rekin mugatzen du.

#### Odiaga:

**Hodi** 'errekastoa' (ikus **Agezako Odialdea** sarrera) izena eta **-aga** ditugu hemen. Orain ezezaguna den hau errepide baten ondoan zegoen, herritik hurbil seguruenera:

"una huerta en la endrecera llamada odiaga...afrenta con...Camino Real" (1592)<sup>3822</sup>

#### Oletabidea:

Izen honen lehen lekukotasunean **Olleta** badugu ere<sup>3823</sup>, gainerantzeko agerrialdi guztietan **Oleta**- daukagu, eta itxuraz haxe da **Lergaren** mugakidea den **Orbako** herriaren euskarazko izena:

"un pedazo de pieza...en el terno de Oletabidea" (1716)<sup>3824</sup>

Etimologia ola 'artzain-etxola' eta **-eta** da gure eritziz, eta euskaldunen artean hortz-hobietako albokoa bere horretan gorde zenagatik (cf. **Longida** ibarreko **Oleta** herri-izena), erromantzez sabaikaldu egin zen, herriaren izen ofizialak garbi erakusten duen bezala.

**Mitxelena**k **AV**-en<sup>3825</sup> **Olleta**, **Ollo**, **Olloki**, **Ollokiegi** eta beste bezala, oilo-rekin lotua egon daitekeela dio, baina garbi aitortzen du duda asko dituela. **Alfonso Irigoyen**ek dokumentazioan aurkitzen duen **Oillo** pertsona-izenarekin lotzen ditu aipatu izen horiek<sup>3826</sup>, nahiz antroponimoak jatorriz **oilo** hegazti-izenarekin zerikusia izan dezakeen:

"Parece claro que todos ellos (arestian aipatu ditugun toki-izenak) pueden proceder del nombre de persona **Oillo** que hemos documentado. Otra cuestión es la de que el nombre de persona esté relacionado con **oilo** 'gallina' o no, pero en cualquier caso es evidente que cualquier hablante vasco lo identificaría así tanto en la Edad Media como en la actualidad"

**Aztergai** dugun **Oletabidea**-ren **Oleta**-n eta honen kide erromantzea den **Olleta**-n, alabaina, **ola** dugula garbi dago gure iritziz, eta **Oillo** antroponimoarekiko lotura baztertu beharrekoa da.

**Oletabidea Camino de Olleta** zela, beste aldetik, segurua da:

3821 PRA-Oibar, 6. k., 1592.

3822 Id.

3823 **Olleta** videá, id., 13. k., 1609.

3824 PRA-Kaseda, 17. k.

3825 136. or.

3826 LVRLOCM, 36. or.

“otra pieza en Oletavidea...afta...a camino que ban á Olleta” (1798)<sup>3827</sup>

Gure irudiz, Oletabidea Errekina-tik zihoana zen, egungo Camino de Olleta bera.

Olivares, los:

Camino de Abaiz-en ondoan dago, Los Cascajos-en alboan, Euntzezar aldean. Izenaren zergatia bertako olibadi ugarietan bilatu behar da.

Pasaje, el:

Barrio de arriba-ko pasabide baten ondoko etxeari deitzen zaio honela (cf. Eslabako Patxape):

“una casa vezinal en el barrio de Arriba llamado el pasaje” (1801)<sup>3828</sup>

Peñaandia:

Toponimo honen lekuko bakarrean **Peñaandia** dugu, a bikoitzaz. Osagarriak gardenak dira: erdaratikako **peña** ‘haitza’ izena (cf. oraindik ere bizirik dagoen Aezkoako **peina** ‘haitza’, Uxueko **Aitzandia** edo **Aitzandieta** toponimoak, eta Lergako bereko **Txutxu**-ko Epaizko mugako **Aitzetako aldapa**), eta **handia** izenondoa:

“otra pieza en Peñaandia” (1815)<sup>3829</sup>

Peral de las Monjas, el:

Ez dakigu non zegoen udareondo hau, baina garbi dago garai batez frutondo hauek ugariak izan zirela Lergan, **Udareaga**, **Udarelurreta**, **Udareluzeta**, **Udareluzea**, eta **Udareluzekoa** toponimoak frogatzen. Baliteke aztergai duguna horietako batekin identifikatu behar izatea:

“otra pi<sup>a</sup> cabo el peral de las monjas” (1558)<sup>3830</sup>

Mojak, itxuren arabera, **San Gines**-koak ziren, hau, Pérez Ollo-k dioenez<sup>3831</sup>, emakume-monastegia baitzen.

Perales, los:

Euntzeguti-n edo Euntzeguti ondoan zeuden udare hauek:

“...en la pieza de eunçeguti de cara a los perales” (1589)<sup>3832</sup>

---

3827 PRA-Oibar, 84. k.

3828 Id., 84. k.

3829 Id., 95. k.

3830 Id., 2. k.

3831 EN, 143. or.

3832 PRA-Oibar, 4. k.

Izen honen euskal ordaingaien ikus aurreko sarrera. Kokaguneari dagokionez, egungo **El Pradico** eta antzinako **Euntzeguti** dermio bera badira, **Los Perales Indusigibel**-en zegoela kontu egin beharko dugu. 1897an oraindik ere indarrean zegoen toponimo hau gaurregun zeharo ezezaguna da.

#### **Pieza de Beneficio:**

**Anderenobela**-n zegoen, **Indusigibel**-eko bidearen ondoan:

“Ms otra pieza...en el termino de Andrenovela...que afrontta con pieza de Beneficio...y camino que se ba a Yndusigibel, y Barranco...” (1779)<sup>3833</sup>

#### **Pieza de los Beneficiados:**

**Arantzeduia**-n edo **Arantzeduia**-ren alboan zegoen, **Indusi**-ko bidearen ondoan:

“ytren otra pi<sup>a</sup> en arañgeduya...que afronta con pi<sup>a</sup> de los veneficiados y con camino que ban a Yndusi” (1594)<sup>3834</sup>

**Pieza de Beneficio**-ren esanahikidea izan daiteke, baina kontua ez dago garbi.

#### **Pieza del Artillón:**

Ez dakigu **artillón**<sup>3835</sup> hori zer izan daitekeen. Ez dakigu, orobat, urte berean (1611n) azaltzen den **Pieza del Tantillon**-ekin (Bizkaiko Julio eta Usunbeltzen ere dokumentatu dugu<sup>3836</sup>) identifikatu behar den. Morionesen **Faitía de la Casa de Antillón** dugu (ikus sarrera hau), eta baliteke **Artillón** horren itxuratxartze arina izatea.

#### **Pieza del Fresno, la:**

**Aporpari**-n zegoen:

“una pieza...que llaman la del fresno en el termino de Aporpari” (1771)<sup>3837</sup>

**Aporpari**-n behiala lizarrak izatea ez da harritzeko, gaurregun ere horrelako zuhaitz ugari baitaude dermio honen ondoko **Lizarrandia** eta **Lizarduia**-n.

#### **Pieza del Ginebro:**

**Txutxu**-n zegoela besterik ez dakigu:

“otra pieza que lé llamamos la del Jinebro en dho termino de chuchu” (1693)<sup>3838</sup>

3833 PRA-San Martin, 54. k.

3834 PRA-Oibar, 8. k.

3835 IEA-515. kart., 29. zkia., 42. org.

3836 1894eko katastroan.

3837 PRA-Oibar, 68. k.

3838 PRA-Kaseda, 7. k.

Aldean **El Ginebral** dugu, baina hau Eslabako mugan dago, **Txutxu**-tik urruti.

**Pieza del Tantillón:**

Ez dakigu **tantillón** zer den, ez eta **Pieza del Artillón** bera dugun, baina ba-dirudi baietz (ikus azken sarrera hori):

“...pieça que estaba llamada de tantillon” (1611)<sup>3839</sup>

**El Cantillón** Julio eta Eslabaren arteko mugan dago orain, lehen herrixka horretako lurretan.

**Plaza, la:**

**Barrio de arriba** eta **Barrio de abajo**-ren artean dago, elizatik hurbil. Lehen aldikoz 1583an aurkitu dugu

“una cassa...en la endreçera llamada La placa”<sup>3840</sup>

**Pozo, el:**

1897ko katastroan ediren dugu aurren eta azken aldiz, eta ez dakigu zein putzu zen.

**Pozos, los:**

**Adoberia**-ren errankidea dela dirudi (ikus sarrera hau). Putzu hauek **Barranco de Iturralde**-n zeuden, eta beharrezkoak ziren, esan bezala, larruak garbitu eta lantzeko.

**Pradico, el:**

“**Corral de Claudio**”-tik hurbil dago, **Camino de Indusigibel**-en. Antzinako Euntzeguti bera dela pentsa daiteke, bata bestearen itzulpen zehatza izaki eta.

**Primicia, la:**

Eliza ondoan dagoen **El Diezmo**-ren adierakidea da, irudiz (ikus, halaz ere, Leatxeko **Primiziakarrera** sarreran dioguna).

**Puente (pieza de):**

**Gaurko Puente grande** edo **Puente pequeño** izan zitekeen, edo agirietao **Zubingoa**:

“ytten otra piª Junto a la puente” (1593)<sup>3841</sup>

3839 IEA, 515. kart., 29. zkia., 50. org.

3840 PRA-Oibar, 3. k.

3841 Id., 7. k.

Zubi ondoko alorrari **Pieza del Puente** zeritzan:

“otra pieza que llaman del Puente” (1795)<sup>3842</sup>

**Puente chiguito; Puente pequeño, el:**

**Camino de Indusialzina**-n dago, **Andua**-ko errekan. Ez dugu dokumentazioan sekulan aurkitu. Agirietan honen ordaina ohi den **Zubingoa** ageri da, baina xubiko hau herrian bertan zegoen, **El Puente pequeño** ez bezala.

**Puente grande, el:**

Antzinako **Puente de Nuestra Señora** bera bide da (ikus sarrera hau).

**Puente grande** deizioa ere zaharra da:

“Ms otra pieza...en el terno de Chirrealdea junto al Puente Grande” (1782)<sup>3843</sup>

**Puente que se ba a San Martín, cabo el:**

San Martingo bidean dauden bi zubietako bat (txikia edo handia) zen 1723an azaltzen den hau.

“pieza en el termino de cabo el puente que se ba a San Martin, teniente con el barranco concegil”<sup>3844</sup>

**Punchico:**

**Gaurko Punchico** [pùñčíko] **Puntico** formapean aurkitzen dugu dokumentazioan:

“...terno de Ardiurdinaga, ó Punttico” (1769)<sup>3845</sup>

“otra pieza en puntico...que afronta con...Camino de Uxue” (1803)<sup>3846</sup>

Izen honen oinarrian **Puentico** ‘xubingoa’-ren emaitza euskalduna litzatekeen **\*Punttiko** [pùñčíko] bat izanenez. Hemendik errazago azalduko litzateke **puntico** > **punchico** pausoa (cf. euskara galdu den toki askotan gertatu den **itxurri** > **itxurri** aldakuntza).

Gure egunotako **Punchico**, **Barranco de Errotaxar**-en ondoan dago, erreka honen, **Arrakoaberoki**, **Zamakidu**, **Camino de Errotaxar** eta **Urretako erreka**-ren artean.

3842 PRA-Kaseda, 35. k.

3843 PRA-San Martin, 55. k.

3844 IEA, 1765, 8, 887. or.

3845 PRA-San Martin, 49. k.

3846 PRA-Oibar, 88. k. Hemen garbi ageri da **Camino de Errotaxar** edo **Camino de Txutxu** deitzen den bidea **Camino de Ujué** edo **Uxuebidea** zela.

Quemada, la:

La Quemada Aldeko El Chaparral-ekin mugatzen duen Monte de arriba herri-mendiaren barruko eremu bat da. Izen honek, Errekina-k bezala (ikus Agezako Errekina eta La Quemada sarreretan dioguna), erretako oihan zati bat ematen du aditzera. Kasu honetan (cf. Errekina) erreketeta aspaldi samarrekoa da, 1911n sortua den Lergako gure informatzaileak ez baitu sekulan errea ezagutu.

Sagarraga (barranco de), (cabezo de), (fuente de), (río de):

Sagar 'sagarrondo' izena eta -aga atzizkia ditugu hemen. Egun bertan ez dago sagarrik, eta Lergako beste lurretan ere gutxi daude.

Sagarraga [sagaɾaga] Aldeko muga dago, Jaun Done Salbatore, Barranco de Aldea, La Cruz, Biguri, eta Cadenas-en artean. Barranco de Sagarraga, Artealdea-n sortu eta Murugibel gurutzatu ondoren Sagarraga-ra heldu den erreka dugu; dermio honetan Barranco de Aldea-rekin elkartzen da:

“una pieza...en muruguibel que afronta con barranco de sagarraga...” (1763)<sup>3847</sup>

1594eko Río de Sarraga Barranco de Sagarraga izan zitekeen, baina Sarga gurutzatzen duen Barranco de los Linares ere bai, agian:

“ytten mas otra pi"...que afrenta con pi"...y con Río de sarraga” (1594)<sup>3848</sup>

Cabezo de Sagarraga<sup>3849</sup> Los Castillos eta Barranco de Aldea-ren arteko gaina zen, eta Fuente de Sagarraga<sup>3850</sup>, azkenez, alderdiko iturria.

Saleras (era de), las:

1611ko gatzarriak Bidaburua-n zeuden, Lerga, Oleta eta Julioaren arteko muga:

“mugaron y dividieron los terminos llamados vida buruas como se sigue. Primeramente comenzando en el principio de las vidas buruas, en el cabo de arriba acia Julio donde estan unas saleras” (1611)<sup>3851</sup>

1771ko Las Saleras, berriz, Oletako bideetako baten ondoan zegoen:

“otra (pieza) en las saleras...q afrontta con camino de Olletta”<sup>3852</sup>

Azken hau oraingo Errotabidea-ko Peña de San Miguel-eko Las Saleras da (Ikus San Miguel sarreretan dioguna), toponimian hain ugaria den gatzarri-ren euskarazko baliakidea (cf. Gatzarrieta Leatxen). Gatzarri hauen funtzioaz ikus Galipentzuko Las Salericas.

3847 PRA-San Martin, 46. k.

3848 PRA-Oibar, 8. k.

3849 PRA-Kaparroso, 43. k., 1648.

3850 PRA-Oibar, 3. k-bis., 1587.

3851 IEA, 515, 29, 104. or.

3852 PRA-Oibar, 68. k.

**San Andrés (ermita de), (junto a la ermita de):**

Ermita Camino de Gallipienzo edo Camino de Abaiz-en ondoan zegoen, Barranco de Errotaxar eta Urretako Erreka-ren topagunean bide zegoen errotara baino lehen, Apeztegiaren alorretako baten aldamenean:

“una biña...en la endreçera llamada Junto a la hermita de San Andres...que afrenta con pi<sup>a</sup> de la abadia y con camino Publico” (1601)<sup>3853</sup>

**Junto a la hermita de San Andres** hori euskal \*Sandiandoreondoa baten itzulpena izan daiteke (cf. Sanginesondoa), Sandiandore ongi dokumentatua baitago.

**San Gines (alto de), (basílica de), (casa de), (casa derruída de), (cuesta de), (iglesia de), (pieza de), (pieza de la venta de), (puente de), (val de), (venta de):**

San Gines, Pérez Olloren arabera, emakume-monastegia izan zen lehenik, eta ermita gero:

“Acaso la ermita más ilustre fuera la de S.Gines monasterio femenino sobre el paso del camino viejo. En él ingresó en 1934 Theresa, madre de Godofre, hijo de Carlos III el Noble... A S.Gines pertenecía Toda Martiniz, monja, peregrina y romera de la infanta Juana, la hija mayor del mismo rey. Aún era monasterio en 1417 cuando los de S. Martin de Unx acusan a los de Lerga de haberse anexionado algún término de ellos”<sup>3854</sup>

Autore honek dioenez, 1802an Igual de Soriak San Gines, San Miguel eta Nuestra Señora del Camino botatzeko agindua eman zuen, materialekin Santa Bárbara-ko ermita berrizatzeko. 1811rako hondatua zegoela segurua da:

“otra pieza dencima de la casa derruida de Sn Gines”<sup>3855</sup>

Ermitatik hurbil etxea (benta) zegoen; 1684ean bazen honetaz arduratzen zen maizter bat:

“...la yglesia de Santgines y casa que esta cerca della” (1592)<sup>3856</sup>

“Pedro de Ucar vecino de el lugar de Olleta y Casero en la Casa de San Jines de esta v<sup>a</sup>” (1684)<sup>3857</sup>

Bentari beste era batera Tabernas de San Gines (ikus Muga de las Tabernas de San Gines sarrera) deitu ohi zitzaion. Bertan, esan dugunez, merkatua izaten zen, sortzen zituen traba eta eragozpenengatik 1712an<sup>3858</sup> Lergara tokialdatu zen arte.

Ermitak alor bat baino gehiago zeukan Lergako lurretan. Bat Euntzeberri ondoan zegoen, Anderenobela-n:

3853 Id., 10. k.

3854 EN, 143. or.

3855 PRA-Oibar, 93. k.

3856 IEA, 89. kart., 15. zkia., 21. org.

3857 PRA-Kaseda, 2. k.

3858 LEA, G. Sarasa, 117. org.

“en la endreçera llamada Anderenobela Junto y apegante a la...pieça de San Gines del camino en baxo” (1588)<sup>3859</sup>

eta beste batzuk **Arrizabala-n**:

“otra pi<sup>a</sup> en arriçabala...que afrenta con pas de San Gines” (1594)<sup>3860</sup>

**San Gines**-eko bentak ere bazuen alor bat, **Monda-n** bertan:

“...otra pieza en el mismo thermينو (**Monda-n**)...teniente a...Pieza de la Benta de Sn Gines” (1713)<sup>3861</sup>

**Alto de San Gines** 1829an azaltzen da bakarrik<sup>3862</sup>, eta **San Gines** ondoko, baina itxuraz Uxue barruko, gaina ematen du aditzera<sup>3863</sup>. **Cuesta de San Gines** Uxueko bidean dago, “Corral de Zapata” eta auzo herri horretako mugaren artean; **Puente de San Gines** (1704)<sup>3864</sup> **Barranco de Txirrialdea**-ko zubia izan zitekeen, **San Gines**-a doan bideko **Puente grande** edo **Puente de Nuestra Señora** bera, eta **Val de San Gines** (1713)<sup>3865</sup> agian egungo **Hoyo del Aguila** aldea.

**San Gines** [s̄anxínes] (cf. **Santa Agata** [s̄antagáta]) Uxue, **San Martin**, eta **Lergako** mugek bat egiten duten alderdian dago, **Pérez Ollok** “camino viejo” deitzen duen **Camino de Tafalla**-ren ondoan (ikus sarrera hau), **Monda**, **Burlon**, **Indusi**, **Murubitarre**, eta **Sanginesondoa**-ren artean, azken honetatik orain **Hoya del Aguila** zu-  
loak bereizten badu ere.

**Sanginesondoa (aborral de):**

**Sanginesondoa San Gines**-en ondoko eremua da, Uxueko **Txutxu**-ko oihezkiarekin mugatzen duen alderdia:

“...desde la yerba de San Jines ondoa hasta el paso del terno de zamiki y de alli pr el barranco al portillo de Sta Agueda y terno de olleta” (1709)<sup>3866</sup>

1798rako egungo **Sanginesandoba** [s̄anxin̄es̄andóba]-ren aitzindaria den **San Jines ondova** azaltzen da:

“otra pieza en San Jines ondova”<sup>3867</sup>

3859 PRA-Oibar, 4. k.

3860 Id., 8. k.

3861 Id., 33. k.

3862 PRA-Oibar, 103. k.

3863 Nafarroako Diputazioak 1975ean argitaratutako mapan **Alto de San Gines** ermitaren ondoko gainari deitzen zaio, **Burlon**-en ondokoari.

3864 PRA-Oibar, 30. k.

3865 Id., 33. k.

3866 PRA-Kaseda, 14. k.

3867 PRA-Oibar, 84. k.



**San Juan (alto de), (caracierzo de detrás de), (detrás de / tras de), (ermita de):**

Euskarazko \*Jaun Done Joaniz-en erdal ordaina da, Jaundonejoanizgibela aztertzean esan dugun moduan. Azken hau, zalantzarik ez dago, gaurko **Detrás de San Juan**-en adierakidea da; euskaraz gibela posposizioa duen aldaeraz besterik ez aurkituak egun bakarrik **Detrás de San Juan** zergatik gorde den azaltzen laguntzen digu.

Alderdiari izena ematen dion ermitak inguru horretan behar zuen, **Camino de San Juan**-etik gertu edo:

“otra pieza...detras de la Hermita de Sn Juan” (1713)<sup>3868</sup>

**San Juan** behialako **Aitzetako aldapa**-ren ondoan zegoen (dermio bera ez bazen bederen), **Epaizko mugatik hurbil** (ikus **Aitzetako aldapa** sarrera):

“una pieza...en Arizetaco aldapa o tras de San Juan” (1769)<sup>3869</sup>

1767ko **Alto de San Juan**<sup>3870</sup> aipatu herrixka horretako mugako gaina izan zitekeen; egungo **Caracierzo de Detrás de San Juan** **Detrás de San Juan** bera da.

**San Miguel, ermita de; peña de:**

1725ean konpondu zuten ermita hau 1802rako hondatua edo hondatzeko zorian zegoen, urte horretan Igual de Soriak botatzeko agindua eman baitzuen, materialekkin **Santa Bárbara** berriztatzeko. Dokumentazioan ikusten denez, **Errekina**-tik jaisten den bidearen alboan zegoen, **Oletako bidean** (**Errotabidea**-n):

“otra huerta Junto a la hermita San Miguel...teniente a Camino que se ba a Olleta” (1684)<sup>3871</sup>

Egungo egunean **Peña de San Miguel** toponimoa dugu bizirik, urbiltegiaren aldamenean, **Errotabidea**-n, eta gure irudiz ermita zegoen haitza adierazten du. Bertan gatzarri asko daude, eta baliteke hauek antolatzeke ermitaren geldikinez baliatu izana.

**San Pedro:**

**Jaun Done Petri**-ren (**Juandepetri** egun) erdal ordaina da bitan baizik ediren ez dugun hau. Esan bezala, kasu honetan euskal izena atera da garaile:

“otra pieza en San Pedro” (1795)<sup>3872</sup>

**San Pelayo:**

**Camino de Errotaxar** ondoan dago, **Ikaiburu**, **Euntzeberri**, eta **Iturrotzen** artean. Ez dakigu ermitarik ba ote zen, baina pentsatzekoa da baietz. Lergan izen er-

3868 Id., 33. k.

3869 PRA-San Martin, 45. k.

3870 PRA-Kaseda, 21. k.

3871 Id., 2. k.

3872 Id., 35. k.

dalduna besterik ez dugu; Eslaban berriz, Jaun Done Belaio eta Jaundonebelaio-saietsa azaldu ohi dira:

“otra pi\* en Sanpelajo” (1588)<sup>3873</sup>

**San Salvador (delante de), (ermita de):**

Gaur Salbatori [sàlbatóri] bilakatu da (ikus Jaun Done Salvatore sarrera). Hemen ere, Jaun Done Petri edo Jaun Done Mikendi-ren kasuan bezala, euskal izena atera da garaile, erdarazko aldaera baztertua izan delarik. 1543-ko delante San Salvador, \*Jaundonesalbatorealzina baten itzulpena dateke (cf. Jaundonejoanizgibela / Detrás de San Juan):

“...ms una pieza en el termino llamado delante San Salvador” (1543)<sup>3874</sup>

Bertan ermita zegoela badakigu:

“otra pieza Junto a la ermita de San Salvador” (1681)<sup>3875</sup>

**San Vicente:**

1592ko Senda de San Vicente eta 1593ko San Viçent dira Jaun Done Mikendi-ren baliokide erdaldunaren lekuko bakarrak:

“otra pi\* en San Viçent”<sup>3876</sup>

**Sandagata:**

Hagionimo hau gainerako guztiak bezala latinetikakoa den arren, bi bila-kaera ezberdin nozitu ditu, zer hizkuntzatan izan den erabilia. Euskal aldaera gaur bizi-rik dugun Santagata [sàntagáta] (cf. Ageza, Moriones eta Zareko izen bereko sarrera) da, oraingo izenak euskaraz ohizkoa den (eta dokumentuetan argi eta garbi ageri den) sudurkari ondoko ahostuntasuna galdu badu ere, seguruenera erdarazko santa-ren eraginez (cf. Sandagataberokia eta Sandagataoন্দো):

“Mas en Sandagata otra pieza” (1684)<sup>3877</sup>

Erdal forma, berriz, dokumentazioan behin baino gehiagotan azaltzen den Santa Agueda da (cf. Abrigo de Santa Agueda eta Portillo de Santa Agueda)<sup>3878</sup>.

3873 PRA-Oibar, 4. k.

3874 Id., 2. k.

3875 PRA-Kaseda, 1. k.

3876 PRA-Oibar, 7. k.

3877 PRA-Kaseda, 2. k.

3878 Gazolatzen ere Santagatalarrea, Santagatapea dugu, Santa Agueda bide, Santa Aguedapea eta bes-teren aldamenean (Jimeno Jurfo, TCPCC, 299-300. orr.). Herri honetan, ikusten denez, ez da sudurka-riaren ondoko horzkari ahoskabearen ahostuntzea burutu, seguraski aipatu santa erdaldunaren eraginez. Urraulgoitiko Ezkanitz herrian ere Sandagata agertzen da: “(una pieza en) Sandagata afronta con una ermita que esta al lado”, PRA-Otsagabia, 21. k., 1699. Elkanoko Lizarragak sanda femeninoa ibiltzen du, sandu maskulinoarekin batera: “sánduac eta sándac, ta guizaguendearén flórea gure anái arréba...”, “Significatzen dñre alabér Jerusalem Sandarén amábi cí-méndu, ta amábi atariétán”, DCC, 73. eta 105. orr.

**Sandagata** Oletako mugan dago, **Errekina**, **Jaun Done Mikendi**, eta **Indu-sigibel**-en artean, eta Orbako herrian ere dokumentatzen da, bai **Sandagata bezala**<sup>3879</sup>, bai **Santa Agueda bezala**<sup>3880</sup>. Dermio honetan gaindi zihoan, esan moduan (ikus **Camino de Olleta**), Oletako eta Amatriaingo bidea (bera ote?).

**Sandagataberokia (portillo grande de):**

**Sandagata** alderdiko eremu babestua zen, erdarazko **Abrigo de Santa Agueda**-ren adierakidea. **Portillo de Sandagataberokia** erdarazko **Portillo de Santa Agueda**-ren kide euskalduna zen, agian Oletako bidea igarotzen den atea:

“y comenzando en el dco camino que ban de Lerga para Olleta, asta el portillo grande de Sandagata veroquia y el Camino que pasan de lerga a amatrayn” (1611)<sup>3881</sup>

**Sandagataondo:**

**Sandagata**-ren inguruko alderdia zen:

“ytten otra piª en la endreçera de Sandagatahonda” (1593)<sup>3882</sup>

**Sandiandore:**

**Sandiandore**-ren ondoan **Sandeandore** ere agertzen da, baina gure ustez zaharrena lehena da, beste toponimo askotan bezala **Sandi**- hori latineko **Santi** (< **Sancti**)-ren euskalduntzearen ondorena baitugu (cf. Galipentzuko **Sanditirsi** edo **Santitirsi** ‘San Tirso’, Lergako bertako **Sanditume** ‘Santo Tomás’, Leatxeko **Sandiandore** ‘San Andrés’, edo **Sancta**-ren laburketa den **Santa**-tik atera den Lergako bertako **Sanda**- osagarria, **Sandagata** toponimoan).

**Sandiandore**-ren jatorria, hortaz, \*(ecclesia) **Santi Andrei** genitibotik<sup>3883</sup> edo nominatiboa izan zitekeen \***Santi Andrei**-tik ateratako \***Santi Andree**-n bilatu behar genuke (ikus Leatxeko **Sandiandore**-n dioguna. Ikus, halaber, Galipentzuko **Santitisi** sarrera). 1587ko **Sandeandre**<sup>3884</sup> eta 1767ko **Sandeandore**-ren<sup>3885</sup> hasierako **Sande**-, **Sandi**-ren aldaera gabe, latineko **San(c)ti**-ren ondorengoa den erdal **Sante**-ren euskalduntzetat har daiteke (cf. **Santesteban**, **Santander**...gaztelaniaz<sup>3886</sup>), baina ondoko bokalaren eragina ere ikus daiteke irekitze horretan (cf. Galipentzuko 1596ko **Liaçeta** / 1635eko **Leaçeta**).

Nolanahi ere, ez dago dudarik erdarazko **San Andrés**-en euskarazko ordaina dela, hau bezala **Camino de Abaiz**, **Camino de Gallipienzo** edo **Camino del Molino**-n baitzegoen (ikus **San Andrés** sarrera):

3879 PRA-Oibar, 25. k., 1646.

3880 PRA-San Martin, 57. k., 1786.

3881 IEA, 515, 29, 104. org.

3882 PRA-Oibar, 7. k.

3883 Ikus Mdez. Pidal, MGHE, 207. or.

3884 PRA-Oibar, 3. k-bis.

3885 PRA-San Martin, 48. k.

3886 Id., 123. or. Euskal -de- (< **Done**, **Jaun Done**-ren itxuraldaketa den **Juandre**, **Juande**...testuinguru)-ren eragina ere ikus daiteke (cf. **Jaun Done Petri** > **Juandepetri** edo **Jaun Done Mikendi** > **Juandemikandi** Lergan bertan).

“una viña en Sn diandore...q afronta con viña...y camino q se ba la Molino” (1763)<sup>3887</sup>

### Sanditume (basílica de):

**Sanditume** erdal **Santo Tomás**-en ordain euskalduna da. **Sanditume**-ren jatorria latineko genitiboan bilatu behar genuke, baina esan bezala nominatiboa ere izan liteke (ikus Galipentzuko **Santitisi**-n dioguna)<sup>3888</sup>.

**Tome** > **Tume** pausoa euskaraz ezaguna da (cf. **mutxurdin** < **motz** + **urdin**; **mover** > **mugitu**, edo **decima** > **dekuma**. Ikus Galipentzuko **Dekumazarra** sarreran honetaz dioguna), eta beraz, euskal azalpena eman diezaiokegu. Burgiko 1849ko<sup>3889</sup> **Done Tomo** (< **Done Tome**, **Doletomo** egun) hagianimoan **Sandi**-ren ordez **Done** elementu alboratua dugu.

Kasu honetan, beste batzuetan ez bezala (cf. **Jaun Done Petri**, **Jaun Done Mikendi**), erdal izena atera da garaile, eta gaurregun **Santo Tomás** esaten da. Herri alboan dago, **Camino de Errotaxar** eta **Barranco de Iturralde**-ren (**Urretako erreka** aurrerago) artean. Gain bar ere bada, herri ondo-ondoan, **Altico de Santo Tomás** izenaz ezagutzen dena, eta gure ustez ermita muino honetan egon zitekeen:

“una pieza...temjo llamado santo tomas...o sanditume...affr de la una parte con la basílica de Sanditume” (1570)<sup>3890</sup>

Badakigu 1788rako ermita hondatua zegoela:

“...en el terno llamado Ycaiburu, alado de dha Hermita derruida de Santo Thomas” (1788)<sup>3891</sup>

### Santa Agueda (abrigo de), (delante de), (portillo de):

Esan moduan, **Santa Agueda** euskarazko **Sandagata**-ren ordain erdalduna da. 1543ko **Delante de Santa Agueda**<sup>3892</sup> aurkitu ez dugun **\*Sandagatalzina** baten erdaratzea zen, antza, eta 1681eko **Abrigo de Santa Agueda**<sup>3893</sup> gorago ikusi **Sandagataberokia**-ren erdarazko baliakidea zen. **Portillo de Santa Agueda** aurkitzerik izan ez dugun **\*Sandagataportillua**-ren baliokide zatekeen (ikus **Sandagataberokia**):

“...desde la yerva de San Jines ondo a sta el paso del terno de Zamiqui y de alli pr el barranco al portillo de Sta Agueda y terno de Olleta” (1709)<sup>3894</sup>

3887 PRA-Oibar, 62. k.

3888 Jakerrian *ecclesia Sancti Tome* dugu 1093an (ikus “Nombres de núcleos de población en el alto valle del río Aragón”, M. Alvar, *Actas de la primera reunión de toponimia pirenaica*, Zaragoza, 1949, 32. or.).

3889 Agoizko hipotekak, 3, 65. or.: “un bordal en el temno llamado Donetomo”. Elo herrian *Santitume* dugu 1649an (PRA-Elo, 2. k.): “La otra pieza...en el termino LLamado santitume afrontada...con camino que ban a equisoayn”.

3890 PRA-Oibar, 2. k.-bis.

3891 PRA-San Martin, 58. k.

3892 PRA-Oibar, 2. k.

3893 PRA-Kaseda, 1. k.

3894 Id., 14. k.

**Santa Bárbara:**

Ermita hau Camino de Abaiz-en dago, Camino de Euntzezar-en hasieran, zutik oraindik:

“una viña llamado (sic) el cerrado...en el termino de utacurreca afrontada a barranco..., á camino que se ba á el molino, y cerca de la Basilica de Sta Barbara” (1793)

Hemen aurkitu zen euskararen historiarako garrantzi handikoa den Lergako inskripzio ezaguna<sup>3895</sup>.

**Santo Tomás (alto de), (barrio de), (ermita derribada de), (iglesia de):**

Ikus Barrio de Santo Tomás eta Sanditume sarrerak.

**Santsoainbidea:**

Orbako Santsoain herrira zihoan, Oletatik, eta hortaz herri honetara joateko hirugarren bidea (ez Oletabidea edo Errotabidea) zela suposa daiteke:

“otra pieza en el termino de Sansoainvidea...afronta...al termino de Olleta” (1793)<sup>3896</sup>

**Santsoainzabal (barranco de):**

Gaurko Sanzinzabal [s̺anθinθáβal] herri ondoan dago, Zamiki, Andua, Munikotxorrotx eta Txirrialdea-ren artean. Izenak aditzera ematen duenez, alderdi zabalada hau<sup>3897</sup>.

Dokumentazioan behin baino gehiagotan San Juan-ekin nahastu da saildu izenekin zer ikusirik ez duen hau (San Juan zabal 1740an<sup>3898</sup>, Sn Juan Zabar 1763an<sup>3899</sup>), eta Pérez Ollok<sup>3900</sup> ere Lergako gainerako hagianimoen artean aipatzen du, hau ere hagianimo bat delakoan.

Reta Janárizek Sancinzábal eta Sanzizabal aldaerak biltzen ditu, eta Sanzi-“Sancho” antroponimoaz, eta zabal ‘plazatxoa’-z osatutakotzat jotzen du:

“Sancinzábal. Probablemente de «Sanzi» «Sancho», y «zabal» «plazoleta», es decir, «plazoleta de Sancho»”<sup>3901</sup>

3895 Honetaz ikus K. Mitxelenaren “Los nombres indígenas de la inscripción hispano-romana de Lerga (Navarra)” *Lengua e historia*-n berriro argitara emana, 446-457. orrialdeetan. Ikus, orobat, Alejandro Marcos Pouren “Una nueva estela funeraria hispanorromana procedente de Lerga (Navarra)” (PV, 80-81, 1960, 319-333. orr.) eta P. Germán de Pamplonaren “De nuevo sobre la lápida hispano-romana de Lerga (Navarra)” (PV, 84-85, 1961, 213-216. orr.).

3896 PRA-Kaseda, 35. k.

3897 Ez nahitaez laua, zelaia. Cf. Uxueko Akirazabal.

3898 PRA-San Martin, 36. k.

3899 PRA-Oibar, 62. k.

3900 EN, 143. or.

3901 EHZE, 496. or.

Toponimo honen jatorria, ordea, Orbako herriaren izenarekin lotu behar dela uste dugu, **Santsoain**-ekin alegia, **Santsoainbidea**<sup>3902</sup> hemendik igarotzen baitzen **Indusigibel**-a baino lehen, antza:

“otra pieza en el term de Sansoain caual de una carga” (1648)<sup>3903</sup>

“...una pieza que tenian en el terno de ella (Lergako lurretan alegia) llamado Sansoain Zavala afrontada a camino q se va a Yndusiguivel” (1782)<sup>3904</sup>

1804ean **Sansuinzabal** agertzen da<sup>3905</sup>, eta 1836an **San soyzabal**<sup>3906</sup>. 1545eko **Barranco de Sansoainzabal**<sup>3907</sup> **Barranco de Txirrialdea**-n amaitzen den errekaoa zen.

### Santsoainzabalberokia:

**Santsoainzabal**-eko eremurik babestuena izendatzen zuen 1565ean ediren dugun honek:

“...en el temjo llamado sansozabalberoquia”<sup>3908</sup>

### Sarga:

**Gaurko Sarga** [sár̥ga] 1545ean azaltzen da estraineko aldiz:

“la yerba de murugibel comenzando en el lugar por el camino que ban al monte de aldea y comenzando en el lugar a sarga...”<sup>3909</sup>

Itxura guztien arabera, **sarga** ‘sasitza’, ‘lahartzea’ izen arrunta dugu hemen<sup>3910</sup>. **Sarga** hutsa ezezik, **sarga** generikoa den **Indusiko sarga** ere aurkitu dugu (ikus sarrera hau).

**Sarga**-k **Las Cabañetas** eta **Monte de arriba**-rekin mugatzen du goitik, eta (**Los lineros de**) **Arana**-rekin behetik. Antzina, dena den, **Oletako** mugaraino iristen zela dirudi, baina lekuko bakarra dugu, eta ezin seguritatez hitzegun (ikus **Muga de Olleta** sarrera).

### Sarrizabal:

**Sarrizabal** (1544)<sup>3911</sup> edo **Sarzabal** (1587)<sup>3912</sup> aurkitzen dugu agirietan, lehena ez oso modu argian. Jatorrizko osagaiak **sarri** eta **zabal** direla irudi du, baina bali-teke **Santsoainzabal**-en desitxuraketa bat besterik ez izatea:

3902 Ez dugu ebakera afrikatuaren frogarik.

3903 UEA, 14. kap-lib., 4. org.

3904 PRA-San Martin, 55. k.

3905 PRA-Oibar, 89. k.

3906 PRA-Kaseda, 54. k.

3907 PRA-Oibar, 2. k.

3908 Id., 2. k-bis.

3909 Id., 2. k.

3910 Iribarren, VN. Agezan eta Eslaban ere bizirik dago.

3911 PRA-Oibar, 2. k.

3912 Id., 3. k-bis.

**Senda de Olleta, la:**

**Oletabidea edo Camino de Olleta bera da:**

“otra pieça...con su corral y arteguia en muñuquicorroz que afrenta con...la senda que ban a olleta” (1609)<sup>3913</sup>

**Senda de San Vicente, la:**

**Indusigibelpausua-tik Jaun Done Mikendi-ra zihoan:**

“...otra p<sup>a</sup>en yndusigibelpausua...que afrenta con...la senda que ban a ssan viçente” (1592)<sup>3914</sup>

**Senda de Santa Coloma, la:**

Santa Coloma-ko iturriraino doan **Camino de Murugibel** bera zen (ikus Aldeko Santa Coloma).

**Senda de Urretako erreka:**

Gaur **Camino de Urretako erreka Santa Bárbara**-tik dermio horretara doan bidexkari esaten zaio. 1592ko lekukotasuneko, ordea, beheitiago dagoen **Zuloaga-tik Urretako erreka**-ra doana da:

“una biña...en...çuloaga...que afrenta con...el Camino y senda que ban a Uretaco erreca” (1592)<sup>3915</sup>

**Senda de Zamiki, la:**

Senda de San Vicente bera genuen hau, antza (ikus sarrera hau eta Indusigibeleko pausua).

**Sendero de Olleta:**

Itxuraz **Andua**-n gaindi doan **Camino de Olleta**, **Senda de Olleta** edo **Oletabidea** zen:

“...(en el) termino de Andua, q afrontta con...sendero q se ba a Olleta” (1769)<sup>3916</sup>

**Sotoeta:**

Hemen soto ‘zaldu’ izena eta -eta ditugu. Soto, diogun bidenabar, oso sartua zegoen euskal toponimian, sarritan euskal atzizki edo posposizio batez horniturik agertzen delarik (cf. Tabarko Sotoaldea eta Sotoburua<sup>3917</sup>):

---

3913 Id., 13. k.

3914 Id.

3915 Id., 6. k.

3916 PRA-San Martin, 49. k.

3917 PRA-Oibar, 10. k, 1826, eta PRA-Irunberri, 1. k., 1703, hurrenez hurren.

“en la endrecera llamada sotoera” (1585)<sup>3918</sup>

**Sotos, los:**

Aurrekoaren erdal kidea izan zitekeen:

“una pieza en los sotos” (1617)<sup>3919</sup>

**Tejería, la:**

Euntzeberri-n zegoen, **Basílica de Nuestra Señora** (gaurko **La Virgen**)-etik hurbil:

“...en el terno de la tejeria q llaman unceberri” (1775)<sup>3920</sup>

**Torresa, la:**

Oraingo **La Torresa** [làtořésa] ez dugu sekulan agirietan aurkitu. Uxueko eta beste toki askotako **La Torraza**-ren aldaera disimilatua dela kontu egin daiteke (cf. Galipentzuko **La Torraza**-ren **La Torreza** aldakia). Hortz-hobietako apikaria euskal ebakeraren ondorena izan liteke.

**Tres Mojones:**

Altzunbidea ondoan zegoen, Julio, Oleta eta Lergaren arteko mugan. Oletako **Tres Mugas**<sup>3921</sup> edo **Irurmugeta**<sup>3922</sup> bera izan zitekeen hau (ikus Leatxeko **Cuatro mugas**-en dioguna):

“...adelante por arriba por alchun bidea asta la era de las saleras y tres mojones” (1611)<sup>3923</sup>

**Txaparduia:**

**Txapar** ‘chaparro’ eta **-duia** atzizki “multzokaria”-z osatua dago (ikus atzizki honi eskainitako atala). **Txaparduia** eta **El Cascajo** (edo **Kaskallua**) dermio bera ziren:

“una viña...en la endrezera que llaman el Cascajo ô chaparduja” (1711)<sup>3924</sup>

**Txirrialdea (barranco de):**

**Txirria** ‘chorro’<sup>3925</sup> izena (ikus **Eslabako Txirria**, **Txirrialdea** eta **Txirriaburua**) eta aldea ditugu hemen:

3918 PRA-Oibar, 3. k-bis.

3919 Id., 19. k.

3920 PRA-San Martin, 52. k.

3921 PRA-Oibar, 25. k., 1646.

3922 PRA-Barasoain, 3. k., 1609.

3923 IEA, 515, 29, 42. org.

3924 PRA-Kaseda, 15. k.

3925 Cf. Juan de Beriaynen pasarte hau: “...eta billosiric ytcées ofietan, eta escuetan atrauesaturic, crueldade andiarequi, odola chirriaca ceriola goytituçutena...”, TCOM, 9. or. Elo herrian **Txirria** dugu 1649. urtean (PRA-Elo, 2. k.): “una pieza...en la endreera LLamada chirria que afrenta con el Rio de Uredena y con camino que ban a equisoayn y con piezas de la basilica de san Pº”.



“...en el tterno de Chirrialdea, que afronta al camino que se ba a Yndusiguibel”  
(1789)<sup>3926</sup>

**Barranco de Txirrialdea** [čīrja]déa] Indusigibel, Zamiki eta Santsoainzabal-etik jaisten diren errekaetako sortutako erreka da. **Ikaiburu-n Andua-tik** jaisten den **Barranco de Andua**-rekin batzen da, **Barranco de Ikaiburu-ri** hasiera emanaz. Bi erreken arteko lurrari **Ubitarte** esaten zitzaion (ikus sarrera hau).

**Txirrialdea** dermioa errekaen inguruko lurra dira, **Zamiki** eta **Santsoainzabal-etik**, **El Puente grande-raino**, **Arridokieta-tik Andua-raino**.

**Txutxu** (abrigo de), (barranco de), (caracierzo de), (carasol de), (hacia), (monte de), (portillo de):

**Txutxu-n** su izen arrunta eta **-tsu** atzizkia izan genitzake, agian (ikus Uxueko izen bereko sarreran dioguna):

“la una (pieça) en la endrecera llamada suchu” (1589)<sup>3927</sup>

**Txutxu** [čúču] Uxueko mugan dago, herri honetako **Txutxu-ren** eta **Lergako** bertako **Iturrotz-en** erdian. Bi herrion arteko muga **Caracierzo de Txutxu-ko** oihanean barrena luzatzen da; egutera aldeari, hots, **Sanginesondoa-tik** heldu den erreka beste aldeari, **Carasol de Txutxu** esan ohi zaio. **Abrigo de Txutxu** (1761)<sup>3928</sup> alderdiko eremurik babestuenaren zen; **Epaizko** mugan zegoen, **Uxuebidea** ondoan (ikus **Txutxu-berokia** sarrera).

1788ko **Hacia Txutxu**<sup>3929</sup> euskarazko **\*Txutxualdea** baten itzulpena dela dirudi, baina dokumentatzen den **Txutxuondoa-rena** ere izan liteke; **Portillo de Txutxu** edo **Txutxuportillua Camino de Ujué** edo **Uxuebidea-n** zegoen, eta beraz badirudi ez dagokiola **Uxuen Portillo de Txutxu** deitzen den **Camino de Lerga-ko** portiluari, non eta agirieta **Camino de Ujué** hau **Uxuera** joateko hirugarren bidea ez den, alegia, **Camino de los Corrales-en** zehar portilura, eta hemendik **Uxueko Txutxu** eta **Ardui-n** barrena **Uxuera** doana:

“Mas una pieza en el portillo de chuchu...teniente a camino que ban a Uxue”  
(1636)<sup>3930</sup>

**Monte de Txutxu**, azkenik, 1587ko (**Cabo el Monte de Unxue** bera da (ikus **Monte de Ujué** sarrera), alegia, euskarazko **Uxueko oihan(ondo)a**, **Caracierzo de Txutxu-ko** hariztia (ikus **Uxueko oihanondoa** sarrera).

**Txutxuberokia; Txutxuko berokia:**

**Abrigo de Txutxu-ren** baliakide euskalduna da. Euskarazko izen hau erdarazkoa baino anitzez arruntagoa da dokumentazioan. **Epaizko** mugan zegoen, **Uxuebidea-n:**

3926 PRA-San Martin, 59. k.

3927 Id., 4. k.

3928 Id., 45. k.

3929 PRA-Kaseda, 18. k.

3930 PRA-Oibar, 23. k-bis.

“Mas otra pieza en susuveroquia” (1697)<sup>3931</sup>

“otra pieza en el ttermino de chuchuberoquia...afrenta con la muga de Abaiz y Camino que se ba a Ujue” (1767)<sup>3932</sup>

### Txutxuondoa:

Esan moduan, erdarazko **Hacia Txutxu**-ren ordain euskalduna izan daiteke (ikus **Txutxu** sarrera):

“una piª...en la endreçera llamada suchu ondoa” (1603)<sup>3933</sup>

### Txutxuportillua:

**Portillo de Txutxu**-ren kide euskalduna da (ikus **Txutxu** sarreran esandakoa):

“otra pieca en suchuportillua” (1609)<sup>3934</sup>

“una pieza en chuchuportilloa...que afronta con...camino de Uxue” (1761)

### Ubitarte:

Ur eta bitarte ditugu 1761ean azaltzen den honetan. Leatxeko **Dos Aguas** eta beste toki batzuetako **Ambasaguas**<sup>3935</sup>, **Entredosaguas**<sup>3936</sup>, **(En)tram(b)asaguas**<sup>3937</sup> eta antzekoen kide euskalduna da<sup>3938</sup>. **Camino de Tafalla**-n (Lergatik San Martin eta Tafallara doanean, ez Epaiz eta **Txutxu**-n barrena doanean) egoki eta, garbi dago **Barranco de Andua** eta **Barranco de Txirrialdea**-ren arteko zatia zela, hots, **El Puente pequeño** eta **El Puente grande**-ren artekoa:

“Ms otra (pieza)...en Ubitarte que afronta con...Camino de tafalla...”<sup>3939</sup>

---

3931 PRA-Kaseda, 8. k.

3932 Id., 21. k.

3933 PRA-Oibar, 11. k.

3934 Id., 13. k.

3935 Enkarterrietan. A. Irigoyenek biltzen du, “Las Lenguas de los vizcainos: antroponimia y toponimia medievales”, ETTVC, 10-11. orr.

3936 Kaparroson aurkitu dugu, 1635ean (PRA-Kaparroso, 18. k.): “En el termino De la villa de Caparroso llamado entredos aguas orillo del Rio Aragon”.

3937 Ledean **Entramas aguas** eta **Ugarte** adierakideak ditugu 1634ean (PRA-Oibar, 23. k.), **Huarte** aurrerago (1779an, kasu. Id., 72. k.), eta Jakerriko Panlo herrian **Tramasguas** dugu bizirik orain (A. Irigoyen, “Cuestiones de Toponimia vasca y Circumpirenaica”, 227. or., in ETTVC). Cf., gainera, Galipentzuko **Inbilos** azttertzean dioguna, eta A. Irigoyenek aipatu artikulu horretan biltzen dituen **Ubiart**, **Ubieta**, **Urbietta**, **Ubieta**. Imozko Urritzan bi ugaldere arteko eremua adierazten duen **Biureta** dugu, baina dirudienez toponimo hau eskrituretan baizik ez da gorde.

3938 Toki-izen hau aski zabaldua dago: **Gazolatzen Urbitarte**a dugu (1593an, **Ubitarte** edo **Ubiterte** 1880an, **Ubiterte** orain. J. Jurío, TCPCC, 303. or.), eta **Gulibar-Aginagan Ubitarte** (PRA-lhaben, 1799, 132. k. **Erreka**-izena da). **Iturmendin** bi errekaen arteko eremua adierazten duen **Ubitarte** edo **Errekabitarte** dugu (N. Arbizu, TI, 266 eta 272. orr.).

3939 PRA-San Martin, 45. k.

**Udareaga:**

Udare ‘udareondo’ izena eta -aga ditugu hemen:

“pieza en Udareaga q es de quatro robadas...” (1550)<sup>3940</sup>

**Udarelurreta:**

Udare, lur eta -eta ditugu leku-izen honetan. Udareluzeta-ren itxuraldaketa bat (agian herri etimologiaz sortua) ere izan zitekeen:

“ytten otra pieça en udare lurreta” (1593)<sup>3941</sup>

**Udareluzea:**

Udare izenaz eta luzea izenondoaz osaturik dago Udareluzeta eta Udareluzekoa bera dela irudi duen hau:

“en el termjo...de lerga termjo llamado udareluzea” (1530)<sup>3942</sup>

**Udareluzekoa:**

Udareluzea toponimoaz eta -koa leku-denborazko genitiboaz osaturik dago. “Udare luzeko alorra, ardantzea...” edo antzerako sintagma baten laburketa da:

“otras dos piezas...la una en Malliturri y la otra en Udarelucecoa” (1708)<sup>3943</sup>

**Udareluzeta:**

Udare izena, luze izenondoa, eta -eta atzikia ditugu hemen (ikus Perales sarrera):

“una pª...en...termjo llamado Udareluzeta” (1534)<sup>3944</sup>

**Urkabegaña, alto de:**

Urkabe ‘urka’ eta gaina ‘kaskoa’ ditugu Uxueko Urkamendia-ren balio bera duen Lergako leku-izen honetan. Nafarroako toponimian bata zein bestea oso ugariak dira<sup>3945</sup>.

Urkabegaña Camino de San Martín edo Camino de Tafalla izenez eza-gutzen zen bidearen ondoan zegokeen, Murubitarte aldean:

3940 PRA-Oibar, 2. k.

3941 Id., 7. k.

3942 Id., 2. k-bis.

3943 IEA, 1456, 2, 6. org.

3944 PRA-Oibar, 2. k-bis.

3945 **Urkabezarreta** dugu Bidankozen (PRA-Irunberri, 2. k., 1706), **Urkabedenea** Saratsan (J. M. Jimeno Jurío, TCPCI, 350. or.), **Urkamendia** Elon (PRA-Kaseda, 33. k., 1790), **Oletan** (PRA-Barasoain, 3. k., 1609), **Puiun** (id., 1604), **Santsomainen** (PRA-Oibar, 96. k., 1816), **Asiain** eta **Lizasoainen** (J. M. Jimeno Jurío, TCPCO, 11 eta 228. orr.), besteak beste.

“...abajo de la balsa de Murubitarte contra el camino Real, y de allí a el alto de Urca-begaña Aguas bertientes, corriendo por el corral de Matthias Pernaut á el alto de Labiaga” (1788)<sup>3946</sup>

### Urretako erreka (barranco de):

Orain Takurreka [takuřeka] deritzan errekan ugariak dira hurritzak; lehengo errota zegoen alderdian, Urretako erreka eta Barranco de Errotaxar batzen diren tokian, gainera, Las Avellaneras izeneko dermioa dugu (ikus sarrera hau). Toponimoaren osagaiak, beraz, hur ‘hurritza’, leku genitiboaren pluraleko morfema den -etako eta erreka, nahiz Urreta toki-izena, -ko eta erreka (cf. Aitzetako aldapa) dira, 1588ko Urrettacoerreca lekuko:

“ytten otra p<sup>a</sup> en urrettacoerreca...”<sup>3947</sup>

Hasierako ur hori, zuhaitz honen fruitua gabe zuhaitza bera da, alegia, beste toki batzuetako hurritza (< hur + haritza, antza<sup>3948</sup>) bera. Lacoizquetak urra eta basaurra ematen ditu erdal avellano eta avellano silvestre-ren euskarazko kidezat<sup>3949</sup>, ez hurritza, eta beste leku batzuetan ere hurra erabiltzen da (cf. erronkarieraz<sup>3950</sup> unr-kaxala ‘corteza de avellano’, edo Arakil-Uharteko urre [ũřé] ‘avellano’).

Urretako erreka 1588an bertan<sup>3951</sup> Urtacoerreca-rekin txandakatzen da (1783an ere Urtacoerreca dugu<sup>3952</sup>), tarteko -e- hori, itxuraz, bi elementuak batera ebakitzean azentu nagusia hondar-aitzineko silaban joatearen ondorioz erori delarik. 1763ko Urtacoreca (Urtakorreka, alegia)<sup>3953</sup> ahoskatze azkarrari zor zaiola dirudi (cf. hainbeste tokitako Etxeondoa > Etxondoa; Uxueko Etxeandietza > Etxandietza...eta beste); gero, dardarkari disimilazioz, lehen dardarkari anizkuna galduko zen (Utacorreca dugu 1814ean<sup>3958</sup>), eta hemendik, bokal asimilazioz, 1793rako dokumentatzen den Utacurreca (ikus Santa Bárbara sarrera. Cf. 1801eko Ytacurreca<sup>3954</sup>) aterako zen. Hasierako bokal azentugabearen erortzea arrunta da (cf., esaterako, Esatea > Satea, Etxorria > Txorria Uxuen, edo Bizkaiko Usunbeltz herri-izena, Sunbel [šumbél] ebakia orain).

Urretako erreka herrian Barranco de Iturralde deitzen dena dugu, hau da, Barranco de Errotaxar-ekin bat egiten duen erreka. Urretako erreka-k, erreka ezezik, ubidearen eta Camino de Abaiz-en (edo Camino del Molino lehen) arteko lurra ere ematen ditu aditzera, Santa Bárbara-ko ermitatik Zuloaga-raino.

3946 PRA-San Martin, 58. k.

3947 PRA-Oibar, 4. k.

3948 Ikus honetaz Alfonso Irigoyenen “Las metátesis consonánticas de Larristar / Ral(l)istar, Larriti / Ralliti(z), y la voz vasca de Alava *errexal* ‘árbol’”, in DRPLV-III, 195-197. orr.

3949 DNEP, 152. or.

3950 K. Mitxelena, “Contribución al conocimiento del dialecto roncalés”, SHLV, 269. or.

3951 PRA-Oibar, 4. k.

3952 Id., 73. k.

3953 Id., 62. k.

3954 Id., 94. k.

3955 Id., 87. k.

**Uxuebidea:**

Harrigarria bada ere, behin bakarrik ediren dugu izen hau Lergan, eta ez oso modu garbian gainera:

“una p<sup>a</sup> faitia en uxuebidea” (1550)<sup>3956</sup>

Esan bezala, Uxueko bideak bi dira orain (San Gines eta Malliturri-n barna doazenak), baina hirugarren bat ere izan zitekeen (ikus Txutxu sarrera) antzina.

**Uxueko oihanondoa:**

Erdarazko Cabo el Monte de Ujué-ren baliakide euskalduna da; Sangine-sondoa eta Txutxu-ko oihezko oihanaren aldamera (Uxue izenez ikus Uxueko Uxue sarrera) izendatzen du:

“ytten otra pi<sup>a</sup> en usueco oyanondoa” (1592)<sup>3957</sup>

“...en la referida pieza...que se alla sitta en dho terno de Chuchu y paraje que llaman Uxuecooyondoa” (1786)<sup>3958</sup>

**Valdecontienda:**

Lerga eta Eslabaren arteko Facería de Fayales bera zen:

“entre el dho termino de Julio y los terminos de la villa de lerga dos terminos...separados el uno llamado val de contienda, q es fazeria...” (1611)<sup>3959</sup>

“...que ssabe assi bien que tienen las villas de Lerga y eslava un termino llamado bal de contienda echas sus facerias...” (1611)<sup>3960</sup>

Elkarrekikoa zenez, baliatzen zuten bi herrietako bizilagunen arteko borrokak eta liskarrak (‘contienda’-k alegia) ugariak izango ziren, eta hortik alderdi honetan (eta beste batzuetan) fazeriei eman ohi zitzaien izena<sup>3961</sup>.

**Viña llamada las Guinderas, la:**

Gaurregun ezezaguna da:

“ocho pies...en la viña llamada las guinderas” (1804)<sup>3962</sup>

3956 Id., 2. k.

3957 Id., 6. k.

3958 PRA-San Martin, 57. k.

3959 IEA, 515, 29. zkia., 25. or

3960 Id., 72. or.

3961 Valdecontienda ziren Uxue, Murillo eta Santakararen arteko fazeria, Uxue eta Epaizen artekoa, eta Lerga eta Eslabaren artekoa. Melidan ere bal de contienda dugu 1624ean (PRA-Kaparroso, 49. k.):

“un abexar cerrado...en los terminos de la dca villa Junto a la bal de contienda que es termino comun de la dca villa (Melida) y el marques de Cortes”

Bidankozen La Contienda agertzen da 1898ko katastroan, eta Izaban oraindik ere bizirik dagoela dirudi. Ikus B. Estornésen DTR, 387. or.

3962 PRA-Oibar, 89. k.

Virgen (del Camino), (altico de), (ermita de), la:

Orain La Virgen deitzen denari La Virgen del Camino edo Nuestra Señora del Camino esan izan zaio, ermita, itxuraz, Camino de Indusialzina-n zegoelako (ikus Nuestra Señora sarrera). Altico de la Virgen bide ondoko gaintoari esaten zaio.

Zabala:

Herriaren ondoko eremu laua da Zabala ([θaβála]); La Cruz (cf. Gurutze-aldea) eta Altico de la Guarda (Iguraimendikoa lehen)-raino hedatzen da. Agirietan behin baino gehiagotan artikulurik gabe azaltzen da:

“otra pieza...en el termino de Zabal” (1693)<sup>3963</sup>

Zalduburu (barranco de), (fuente de):

Gaurko Zaldiburu [θaldibúru] Zalduburu-tik atera dela segurua da, Zalduburu Barranco de Zaldiburu-ren bi aldeetatik hedatzen baita, eta dokumentazioa ere Zalduburu-ren alde mintzo baita:

“una pieza...en la endreçera llamada çalduburu...afrentada...con soto concejil” (1584)<sup>3964</sup>

Alabaina, Zaldiburu ere maiz aurkitu dugu, 1545ean aurrenekoz, Zalduburu baino lehenago hortaz:

“...y de aya (sic) a zaldiburu” (1545)<sup>3965</sup>

Zaldi-dun aldakiak herri-etimologiaren emaitza dirateke.

Zalduburu-k Labeaga, Iturrotz, Euntzeberri, Indusi eta Murubitarte ditu mugakide. Bertan dermioaren izena hartzen duten bi iturri daude gutxienez.

Zalduburuportillua:

Zalduburuportillua Zalduburu-ko atekari esaten zitzaion:

“tres rovasas...en...Zaldiburu portilloa” (1826)<sup>3966</sup>

Zamakidu (caracierzo de), (portillo de):

\*Zamakidui baten ondorena da, beste toki batzuetako Zamakidi(a)-ren kide zehatza<sup>3967</sup>, beharbada \*zamaki ‘sauco’, ‘sabuco’ ugari zegoen tokia<sup>3968</sup> (ikus -dui-ri eskaini atalean dioguna):

3963 PRA-Kaseda, 7. k.

3964 PRA-Oibar, 3. k.

3965 Id., 2. k.

3966 Id., 108. k.

3967 Zamaquidi dugu Lizarran 1310ean (J. M. Jimeno Jurfo, “Toponimia de Estella”, Euskaltzaindiak Lizarran antolatu III. *Onomastika Jardunaldiak* direlakoetan irakurritako hitzaldia), Çamaquidea Mañerun 1213an (Lacarra, VM, 49. or.), eta Zamaquide Olatz, Izko eta Zilegietako mugan (PRA-Oibar, 102. k., 1827).

3968 Aezkeraz eta zaraitzueraz samuka da sureau-ren euskal ordaina. Ikus K. Mitxelaren “Un vocabulario

“...mas una pieza en el terno llamado zamaquidu” (1543)<sup>3969</sup>

Egungo **Zamakido** [θàmakído] **Zamaquido**, **Zamaquidú** eta **Zamaquirú** da iragan mendearen bukaeran<sup>3970</sup>; azken katastroan **Zamaquidu** aurkitzen dugu.

**Zamakidu Urretako erreka** eta **Punchico-ren artean dago**, **Arrakoaberoki-ko mugan**. Egungo aldaeraren bukaerako -o horretan erdararen eragina ikusi behar da. Lehendabiziko aldiz 1693an agertzen da, -d- > -r- pausua aurkezten duela:

“otra pieza...en Zamaquiro” (1693)<sup>3971</sup>

Azken aldaketa hau present dago toponimo honen aurren lekukoa den 1529ko **Zamaquiru-n**, eta esanak esan, baliteke jatorrizko forma hau izatea, guk beste-lako eritzia izanagatik ere (cf. **Lezkairu Uxue** eta **Iruñean**):

“en el temjo llamado zamaquiru” (1529)<sup>3972</sup>

Guztiarekin, Eslaban **\*Artadui-tik** atera den **Artadu** dugu, eta **Zudairin**<sup>3973</sup> **Ezpeldui-ren** ondorengoa den **Ezpeldu**, eta gure irudiko gisakoena -dui atzizkiaren elkarketako ondorengo batez pentsatzea da<sup>3974</sup>. Hauen parekoa da **Aritzui** batetik heldu den<sup>3975</sup> **Urraulgoitiko Aristu** herriaren izena (cf. **Aristuziaga Uxuen**).

1761ean azaltzen den **Caracierzo de Zamaquidu**<sup>3976</sup> dermioa elutsean egoteari zor bide zaio; 1779ko **Portillo de Zamaquido-k**<sup>3977</sup> alderdi honetako harrateren bat izendatuko zuen, baina ez dakigu zein.

**Zamiki (barranco de), (paso de), (puente de):**

Ez dakigu Lergako bereko **Zamakidu** eta **Galipentzuko Zamakidoi-n** agertzen den **\*zamaki-rekin** zerikusirik baduen. Izen honen etimologiaz ikus **Zamakidu** sarrera, hemen eta -dui atzizki multzokariari eskaini atalean. Ikus, orobat, **Galipentzuko Zamakidoi** aztertzean dioguna, aipatu atzizkiari eskaini kapituluan.

aezcoano, salacenco y ronalés preparado por el Príncipe Bonaparte”, SHLV, 289-319. orrialdeak, baina Orbaitzetan 1784ean (PRA-Auritz, 53. k.) azaltzen den **Zamucaduia** ikusita, badirudi hortz-hobietako bizkarkaridun aldaera proposatu behar dela, **zamuka**, alegia.

Lapurterarako Lacoizquetak sabuka ematen du (DNEP, 101. or.), eta Luzaiden **Sabukadi** toponimoa dugu (Luzaideko hipotekak, 1861). Edozein modutan, erdarazko **Zumaque** landare izenarekin ere lot daiteke euskarazko **Zamaki** hau, Larramendik DT-n **zumakia** ematen baitu. Azken hau fidagarria ote den, ordea, ez dakigu (ikus Lacoizqueta, DNEP, 67. or.).

3969 PRA-Oibar, 2. k.

3970 1897ko katastroan agertzen dira aldaerok.

3971 PRA-Kaseda, 7. k.

3972 PRA-Oibar, 2. k-bis.

3973 L. Lapuente, TAM, 408. or.

3974 Ikus honetaz Eslabako aipatu **Artadu** sarrera.

3975 Ikus gure DAON. **Aritzui**a zen 1068an, **Aritzoy** 1174ean, eta **Aritzoy** 1268an.

3976 PRA-San Martin, 45. k.

3977 Id., 54. k.

**Zamiki** [θamiki] Errekina, Jaun Done Mikendi, Indusigibel, Arridokietan, Santsoainzabal eta Munikotxorrotx-en artean dago. Camino de Makirriain alderdi honetatik igarotzen zen.

Antzinako **Paso de Zamiki** edo **Zamikipausua Barranco de Zamiki** zeharkatzeko leku aproposa zatekeen; oraingo errepide aldean edo Orbako herrietara zerman bidean (bideetako batean) egon zitekeen (ikus **Sanginesondoa**):

“lo que dice del paso de Zamiqui y Unceberri en riba” (1706)<sup>3978</sup>

Egun **Puente de Zamiki** dagoen alderdia leku malkartsua da, pausu bat egoteko guztiz desegokia.

#### **Zamikigoiena:**

**Zamikigoiena**-k **Zamiki**-ren goreneko alderdia adieraziko zuen, **Errekina**, **Jaun Done Mikendi**, eta **Indusigibel**-ekin mugatzen duena edo:

“otra pieza en Zamiquigoiena” (1697)<sup>3979</sup>

#### **Zamikipausua:**

Esan moduan, erdarazko **Paso de Zamiki**-ren euskarazko kide dugu (ikus **Zamiki** sarrera):

“...en la pieza de samiquipausua” (1605)<sup>3980</sup>

#### **Zerradopea:**

**Zerrado** ‘harriz hesitutako lur-zatia’ (ikus **Morionesko Cerrado** sarrera. Cf. **El Cerrado Lergan** bertan), eta **-pea** ditugu hemen:

“una pieza en Cerradopea” (1714)<sup>3981</sup>

#### **Zerradoxarra:**

Toponimo honen aldaera bakarrean ageri den **-si-** grafiaren azpian [š] sa-baiurreko igurzkari ahoskabea (edo honen ondorengo bat) ezkututzen dela uste dugu (cf. **Errotaxar**, **Rotasiar** bilakatua egun):

“...pieza llamada cerado siarra” (1740)<sup>3982</sup>

#### **Zubingoa:**

Gure alderdiko (eta gure alderdiz kanpoko) beste herri batzuetan aurkitzen dugun **Xubingoa** ‘zubi txikia’-ren aldaera da (ikus **Eslabako Xubingoa**-n dioguna).

3978 LEA, G. Sarasa.

3979 PRA-Kaseda, 8. k.

3980 PRA-Oibar, 12. k.

3981 PRA-Kaseda, 16. k.

3982 PRA-San Martin, 36. k.



Xubitto hau ez da gaurko **El Puente pequeño**, herrian bertan, plaza ondoan zegoen bat baizik:

“una casa...en la endreçera llamada çubingoa que afronta con casa de...y con la plaça”  
(1594)<sup>3983</sup>

**Zuloaga:**

Egungo **Zulaga** [θulága] Urretako erreka-ren bukaeraren eta Camino de **Abaiz**-en arteko xuloa da. Osagaiak, esan beharrik ez legoke, **zulo** izen arrunta eta **-aga** dira<sup>3984</sup>:

“...del dho lugar de lerga llamado culoaga” (1559)<sup>3985</sup>

---

3983 PRA-Oibar, 8. k.

3984 Itza zendeako Aritz herrian ere antzeko bilakaera dugu: Çuluaga azaltzen da 1610ean, Zuluaga 1794ean, eta Zulaga 1700ean eta XIX. mendean, eta hauxe da gaurregungo aldakia (Jimeno Jurío, TCPCI, 100-101. orr.). Urraulbeitiko Arripodas herrian ere Zulaga dokumentatzen da 1826an (PRA-Oibar, 101. k.).

3985 Id., 2. k.



## 16. MORIONESKO TOPONIMIA

Abadía, pieza de la:

Izen hau oso arrunta da gure alderdiko toponimian; honekin batera **Pieza del Abad**, **Pieza del Prior**, **Pieza del Priorado** eta beste azaltzen dira erdaraz, eta **Apezalorra** eta **Apeztegi**alorra euskaraz. **Jaun Done Julio** deitu alderdian zegoen, **Gorrio-n**, Ezporogiko mugan dirudienez:

“otra piª en...joandanenJulio...que afrenta con pª de la abadía” (1616)<sup>3986</sup>

Agezabidea:

**Agueça bidea** Galipentzuan eta Morionesen aurkitu dugu bakarrik, biak XVII. mendearen erdialdean. Tarteko -gue- hori harrigarria da, aintzat hartzen bada gaurregungo gaztelaniaz bezala XVII. mendean (XVI.ean ere bai) **gu** digramaz [g] belare ahostuna eman ohi zela aditzera<sup>3987</sup>.

Ç grafemaz hortz-hobietako bizkarkari ahoskabea ordezkatzen zen XVI. eta XVI. mendeetan, soinu hau igurzkaria nahiz afrikatua izan zitekeela. Hemen, eta hainbeste leku-izenetan ageri den s / z txandaketa kontuan harturik, [s]-ren ordezkoa dela uste dugu, izen ofiziala den **Aiesa-k** izen euskalduna bide zen **Ageza**-rekiko aipatutako s / z paralelotasun edo erlazio hori gordetzen baitu<sup>3988</sup>:

“otra pieza en agueça bidea” (1650)<sup>3989</sup>

Agezabidea edo Camino de Ayesa Berriko eta Martxela-ren artetik doa, antzina **Barranco de Oreingibela** edo **Barranco de Makirriain** zeritzan eta orain **Barranco de la Fuente de Carlos** deritzan erreka-ondotik Soroko-ra, eta hemendik Ezporogi eta Agezako mugetara.

---

3986 PRA-Oibar, 19. k.

3987 Ikus Grafia kontuak atala.

3988 Ikus Agezako Ayesa sarreran izen honetaz dioguna. Cf. Sada / Zare, Isaba / Izaba...

3989 PRA-Oibar, 26. k.

**Aiareta:**

Izen honen etimologia ez dago bat ere garbi: bukaeran **-eta** atzizkia dugula irudi du, baina oinarria ilun dago. Arakilen **Aiereta** dokumentatzen da, eta badaiteke **Aioro**, **Aiora** antroponimoekin zerikusirik izatea. Antza denez, Morionesko "oihan"-aren ondoan zegoen, Loiaiko mugan:

"otra pieza...en Aiareta que se atiene al monte del dicho lugar de Moriones y muga de Loia" (1723)<sup>3990</sup>

**Akala:**

**Acala** aldi bakar batez aurkitu dugu, 1530. urtean. Hortaz, aldaera batutzat aukeratu duguna segurua ez dela esan beharrik ez dago, **-c-** grafia gaurregun **z**, **tz** edo **k** idatziko genukeenaren ordezkoa izan baitaiteke. **Loiabidea** ondoan zegoen, edo hobe esan, Loiaiko bidea bertatik igarotzen zen, dugun lekuko bakarrak argitzen duen bezala:

"ytten en acala una pieza...afrentada con...y de la parte del Camino de Loja y con el rrio que viene de parte irangote" (1530)<sup>3991</sup>

Gaurregun alderdi honetan **El Arcal** dugu, eta hau dela eta, **Akala** toponimo erdaldun horren euskaratzetzat, hots, **\*Arkala** baten laburketa edo itxuratxartzetzat jo liteke.

**Alormakurra:**

**Alor** 'lantzen den lur-zati mugatua'<sup>3992</sup>, eta **makurra** 'okerra' ditugu hemen (cf. Ezporogiko **Pieza makurra**). **Beltzuntzea-n** zegoen, Bizkaitik jaisten den errekaaren alboan. **Gaurko Pozo de Zabaleta**-ren ondoko eremua izan zitekeen.

**Altico, el:**

1894eko katastroan baizik ez da agertzen. Agian gaurko **El Alto redondo** bera zen.

**Alto redondo (barranco de), (llano de), el:**

Egungo **Altorredondo** [a]ltoɾeðoŋdo] Loiaiko mugako gain biribila da, eta alde honetatik **Leatxeko Mendibil**-en adierakidea dugu. Morionesen bertako **Mendizabala**-rekin lotu behar genuke, apika.

**Barranco del Alto redondo** mintzagai dugun gainaren azpiko aldetik **Loiaerreka**-ra jaisten den erreka da; **El Llano del Alto redondo** gainaren ondoko zelaia dugu, **Loiabidea**-ren aldamenekoa. Toki-izen hau estraineko aldiz iragan mendeko azken katastroan aurkitu dugu.

---

3990 Id., 49. k.

3991 Id., 2. k-bis.

3992 Sarasola, HLEH.

**Antillón, faitía de la casa de:**

**Antillón**, bistan denez, Morionesko etxe baten izena zen, ziur aski nagusiaren deiturari zor zitzaiona (ikus Lerga). Izan ere, 1808. urtean Nafarroako handikien artean **Don Tadeo Antillón** azaltzen da, Frantzia hezitako “gizon azkarra” eta “eragin handikoa” bere kideen artean<sup>3993</sup>. Larratza Irangoteko mugan zegoen, Bizkaitik datorren erre-karen ondoan:

“una pieza...en la muga de yrangote...afrentada...con el Rio que viene de gardelayn...y con una faytia de la casa de antillon” (1641)<sup>3994</sup>

**Aranguren (barranco de):**

Hitz honen osagaiak, Mitxelolari jarraikiz<sup>3995</sup>, **haran** ‘ibar’ eta **guren** ‘muga’ dira. Alabaina, Galipentzuko **Larreguren** eta aztertzerakoan azaldu dugun moduan (ikus sarrera hau), **guren**-en balioa ‘ona’, ‘ederra’ edo antzerako zerbait ere izan daitekeela dirudi.

**Aranguren Camino de Gorrio** ondoan zegoen, **Barranco de Makirriain**-etik (egungo **Barranco de la Fuente de Carlos**-etik) gertu, eta baliteke egungo **Barranco de medio(s)** izatea, oraingo deizioa berria izaki eta:

“Mas en aranguren una pieza...tenente con la barranca y...con camino que ban agorio” (1530)<sup>3996</sup>

“paso entre los dos barrancos de Marquiriain y Aranguren, que es el paso que se le da para que puedan pasar al monte” (1680)<sup>3997</sup>

**Arbolera (de Marco), la:**

Toki-izen berri honek izendatzen duen eremua Soka barruan bide zegoen antzina. Azken hau orain **Camino de Irangote**-ren inguruko alderdia baizik ez da, eta ez du lehen mugakide zuen **El Chaparral** ukitzen, tartean **La Arbolera** sartzen baita. Hondar honek, beraz, **El Chaparral**-ekin mugatzen du, bai eta **Astalorra**-rekin ere. **Marco** Morionesko etxe baten izena da<sup>3998</sup>.

**Arcal (junto a), el:**

Morionesen, gure informatzailearen arabera, **arc**al erreketako uharkei esaten zaie (cf. **Uarka** sarrera). Herri honetan bi **arc**al daude: bata behialako **Ermita de la Magdalena**-ren ondoan, errekez haraindian, **La Caseta** eta **Loiabidea**-ren alboan (ikus **Akala** sarrera):

3993 Idoia Estornés, “Un informe francés sobre Navarra (1808)”, PV, 186, 1989, 217-219. orr.

3994 PRA-Oibar, 24. k.

3995 AV, 50-51 eta 98. orr.

3996 PRA-Oibar, 2. k.-bis.

3997 PRA-Elo, 8. k.

3998 Morionesko beste etxe batzuk honako hauek dira: **Casa de Aldunate**, **Casa de Egües**, **Casa de Pérez**, **Casa de Sinforiano**, eta **Casa de Sola**. Ikusten den bezala, denak pertsona-izenak edo deiturak dira, ez berezko etxe-izenak. Ikus **Dermio** baten zatiketa atalean dioguna.

"...en la endreçera llamada.. Junto a larrcal afrontada con.. Camino Real y cequia Regadío del conçejo" (1584)<sup>3999</sup>

Bestea Ezporogiko mugan, behinolako **Baserrekandia-n**.

### Ardantzexarra:

Hemen **ardantze** 'mahastia' izena dugu, eta **zaharra** izenondoaren aldaera den **xarra**. Azken hau bi aldiz -j-z idatzia ediren dugu, eta -r- bakunaz (cf. Morionesko bertako 1650eko **Erotajara**, edo Ezporogiko 1661eko **Orma jarreta**, besteak beste). **Ardantze**, bere aldetik, **ch-z** idatzia dokumentatu dugu 1530. urtean, [c]-z ebakitzen zen seinale.

Zaldu baten aldamenean zegoen, erreka ondoan:

"ytten otra pieca en ardanzegara...afrontada con soto concegil" (1530)<sup>4000</sup>  
"otra pieca en ardanchezarra" (1610)<sup>4001</sup>

### Argizabala:

Izen honen osagaiak **argi** eta **zabala** dira itxuraz, baina bitxi deritzagu izenondo hori toponimo baten oinarri izateari. Baliteke **Aritzabalegia**-rekin erlazionatu behar izatea, nolabaiteko itxuratxartzearen ondorengotako hartuaz:

"ytten una pieza...en arguizavala...que afuerta con el rio" (1610)<sup>4002</sup>

Erreguarekin mugatzen zuenez, \***Jaugizabala** ez ote den ere pentsa deza-kegu, hau da, gaur **La Caseta** toponimo berriaren bitartez izendatzen den alderdi zabala (cf. **Jaugia**, **Jaugibarrena**, **Jaugiburua**).

### Aritzabalegia:

Toki-izen honetan, esan moduan, **haritz** izena, **zabal** izenondoa eta (h)egia 'mendi mazela', 'tokia' ditugu:

"otra pieca...en...arizabaleguia" (1642)<sup>4003</sup>

### Aritzandieta:

**Haritzak** ugariak ziren Morionesen, toponimian utzi zituzten aztarnak froga. Oraingo honetan **haritz** zuhaitz-izena dugu, **handi** izenondoa, eta -eta atzizkia. Aurrekoa bezala aldi bakar batez aurkitu dugu, eta ez dugu zegokion lekuan kokatzerik izan:

"...en la endreçera llamada arizandieta" (1587)<sup>4004</sup>

3999 PRA-Oibar, 3. k.

4000 Id., 2. k-bis.

4001 Id., 16. k.

4002 Id.

4003 Id., 24. k.

4004 Id., 25. k.

**Artea:**

**Artea** zuhaitz-izena dugu hemen, itxuraz:

“otra pieza...en el terno que llaman Artia” (1726)<sup>4005</sup>

**Artealdea:**

Aurrekoaren aldameneko alderdia zatekeen hau (cf. Lergako **Artealdea**):

“otra pieza...en el termino de Artialdea” (1732)<sup>4006</sup>

**Artegibela:**

**Artea**-ren atzeko aldea bide zen:

“otra pi<sup>a</sup> en arteguibela” (1616)<sup>4007</sup>

**Arteko aldea:**

Itxuraz **Artealdea** bera genuen. Beste batzuetan bezala hemen ere -ko / Ø al-dizkatze arrunta dukegu (cf., adibidez, Lergako **Aldemuga** / **Aldeko muga**):

“otra faytia en arteco aldea” (1659)<sup>4008</sup>

Dena den, ‘arte txiki’-tzat ere har daiteke (cf. **Arizkomendia Lergan**, **Ezpelkoa Eslaban**).

**Articas nuevas, las:**

Leatxeko **Berroberrieta**-ren ordain erdalduna da:

“Mas otro quiñon en las articas nuevas” (1659)<sup>4009</sup>

**Arugai:**

Ez dakigu etimologia zein den. **El Chaparral**-etik hurbil egon zitekeen, baina hau ez da segurua:

“la una (endrecera) en el çerro del Cahaparral...y las otras en arugay” (1602)<sup>4010</sup>

**Astalorra:**

**Asto** animalia-izena, eta **alorra** ditugu toponimo honetan (cf. **Uxueko Asta-bidea**):

---

4005 Id., 39. k.

4006 Id., 43. k.

4007 Id., 19. k.

4008 Id., 28. k.

4009 Id.

4010 Id., 10. k.

“pieza en Elizatoa, que llaman astalorra” (1679)<sup>4011</sup>

Hemen ere, Uxueko **Aristuziaga**-ren aldaerak diren **Astuziaga** / **Estuziaga**-n bezala, a-z eta e-z hasten diren aldaeren txandaketa dugu, esan **Astalorra** [âstâlôra], **Lastalorra** [lâstâlôra], edo **Estalorra** [êstâlôra] esaten baita. **Arbolera de Marco** eta **Alto de Leatxearana**-ren artean dago.

#### Astalorraldea:

**Astalorra**-ren alboko eremua zen:

“otra pieza en Astalorraldea” (1687)<sup>4012</sup>

#### Astalorraldeta:

Aurreko bera da. Beste batzuetan bezala, Ø / -eta txandaketa ezaguna edireten dugu:

“otra pieza...en Astalorraldetta” (1721)<sup>4013</sup>

#### Atalasietsa:

Aldi bakar batez dokumentatu dugu. Bigarren osagaia **saihetsa** ‘aldapa’ ezaguna da (ikus **Dermio baten zatiketa** atalean dioguna), eta lehenbizikoa **Eslabako Atalaiondo**-n eta **Zareko Atalaieta**-n dugun **atalaia** (ikus aipatu bi sarrera horiek) izan zitekeen, baina hau ez da segurua. Izan ere, gorago aztertu dugun **Akala**-rekin (**Acala** idatzirik ageri da) ere identifika liteke, agian:

“otra pieça en atala sayessa”<sup>4014</sup>

#### Ayesa, monte de:

Agezako mugako mendia da, herri honetan **El Caracierzo** deritzan berbera (ikus **Iparraga** eta **Iparragerria** sarrerak).

#### Barranco de la Fuente, el:

**Camino de Eslava**-ren paretik jaisten da, **Las Saleras** aldetik, eta **Loiaerre-gua** eta **Irangoteko erreka**ekin bat egiten du.

#### Barranco de medio(s):

**Gaur Barranco de medio(s)** deritzana **Corralachos**-etik jaisten da, eta **La Fuente de Juancena** deitu iturrian **Gorrio**-tik datorren **Barranco de Gorrio**-rekin elkartu ondoren, **Río de la Magdalena**-ra doa. Dokumentazioko **Barranco de Arangu-ren** (ikus sarrera hau) izan daiteke aurren aldiz iragan mendeko hondar katastroan agertzen den hau.

4011 PRA-Elo, 8. k.

4012 PRA-Kaseda, 4. k.

4013 PRA-Oibar, 37. k.

4014 Id., 9. k.



**Barrankoa:**

Hemen erdarazko **barranco** arruntaren euskaratzea dugu, bistan denez (cf. **Errekandia** orokor eta biziarekin batera dokumentazioan behin edo beste ageri den Agezako **Barrankoandia**). Dirudenez, **Gorrio**-n sortzen den **Barranco de Makirriain**-en (**Barranco de la Fuente de Carlos** orain) esanahikidea zen:

“pieza en la parte llamada Maquirrián y Gorrioa, afrontada con barrancoa y con monte llamado Joan dene Sulio” (1680)<sup>4015</sup>

**Barrera, la:**

**Barrera** Oibar aldean paretaz hesitutako lurtsaila da, hots, beste askotan **cerrado** edo **zerradoa** deitu ohi dena. Azken katastroko **Las Barreras** izan daiteke 1894ean<sup>4016</sup> azaltzen den hau.

**Barreras, las:**

Loaiako mugaren ondoan dago, **Las Saleras**-en gainean, **Camino de Eslava**-ren inguruan. Ikus aurreko sarrera.

**Barrio de abajo, el:**

Beheko etxeek osatzen dute.

**Barrio de allá, el:**

**Barranco de Leatxearana**-tik hurbilen dagoen auzoa da hau<sup>4017</sup>; Irangotetik jaisten den **Río de la Magdalena** aldeko **Barrio de aquí** delakoari kontra jartzen omen zaio. Hau azken auzo honetakoa den gure informatzailearen arabera; beste auzoek segurasko **Barrio de aquí** erabiliko zuten beren auzoa izendatzeko.

**Barrio de aquí, el:**

Ikus aurreko sarrera.

**Barrio de arriba, el:**

Elizaren ondoko auzoa da.

**Beltzuntzea:**

Mitxelenak dioenez<sup>4018</sup>, **beltz** izenondoa eta **une** edo **gun**e ‘tartea’-ren eratorria den **untze(a)** ditugu hemen. **Río de la Magdalena**-ko butzu beltz-sakona (gaurko **Pozo de Zabaleta**) ematen du aditzera:

4015 PRA-Elo, 8. k.

4016 Katastroa.

4017 Miguel Artoletaren arabera.

4018 AV, 65 eta 157. orr.

“una pieza.. que llaman alorMacurra en el termino que llaman belzunzea Junto al Rio que baxa de la bizcaia” (1703)<sup>4019</sup>

Ildo beretik, Bizkaian **Usunbeltz** ( < **usuin** + **beltz** ) herria dugu, itxuraz **Beltzuntzea**-k adierazten duen antzeko errealitatean oinarriturik sortu dena<sup>4020</sup>. Arruizten **Beltzúntzeko** zubí dugu; Artikutzan **Beltzuntza** dugu orain, **Belzunze** 1792an<sup>4021</sup>.

### Bereterbide:

Estraineko aldiz gure alderdian, **bereter** ‘apez’ izena dugu hemen, eta toponimian oso ugaria den **bide**<sup>4022</sup>. Honekin lotu behar genuke Morionesen bertan azaltzen den **Beretermendia**.

Sarasolaren arabera<sup>4023</sup>, **Bereter** Iparraldeko hitz zaharra da; Mitxelena<sup>4024</sup> Zairaitzu eta Erronkarikotzat ere jotzen du. Toponimian oinarrituta, ordea, mendebalderago ere erabiltzen zela ikus daiteke. Etimologiari dagokionez, hizkuntzalari errenteriarrek latineko **presbyter** izenean iturria duen erromantzetikako mailegua dela dio.

Badakigu **Bereterbide Gorrio**-n zehar zihoala, **Loiako** mugaren hurbiletik, eta hau dela medio **Camino de Eslava** ez ote den pentsa dezakegu:

“otra pieza...en Gorrio y en el termino llamado bereterbide que afronta...con el termino y mojon de loaia” (1703)<sup>4025</sup>

### Beretermendia:

Esan bezala, toponimo hau aurrekoarekin lot genezake, gutxienez etimologiaren aldetik, biek **bereter** oinarria baitute. Bigarren osagaia **mendia** ezaguna da:

“otra pieca en beretermendia...con su cabaña” (1530)<sup>4026</sup>

Ez dakigu non zegoen, dugun lekuko bakarrak horren berri ematen ez baitugu. Nolanahi ere, baliteke **Bereterbide** bezala **Gorrio**-n egotea, **Loiako** mugan.

### Berjera:

**Berjera** ‘lore eta fruitu-zuhaitz asko dagoen baratza’ ohi da euskal literaturan<sup>4027</sup>, eta oker ez bagaude, horixe da toponimian izaten duen esanahia<sup>4028</sup> (ikus **Uxueko El Vergel**). Morionesen behin bakarrik ediren dugu, izen arrunt itxura handia duela:

4019 PRA-Oibar, 30. k.

4020 Usunbeltz ondoan, errekan, **Butzuandia** (**Buziandia** [buθjánd̪a] gaur) izeneko osin edo butzu sakonak daude. **Beltz** izenondoa arrunta da honelakoetan, osinei sakontasunak beltz itxura ematen baitie.

4021 Mikel Erriondo, “Artikutza, toponimia...”, 122. or.

4022 Cf. Mutiloagoitiko gaurregungo Senda del Cura toponimioa.

4023 HLEH.

4024 OEH.

4025 PRA-Oibar, 30. k. Hemen ikusten denez, **Gorrio** **Loiako** mugaraino hedatzen zen, eta argi dago gaur baino aise eremu handiagoa hartzen zuela bere baitan (ikus **Gorrio**).

4026 Id., 2. k-bis.

4027 HLEH.

4028 “Yten otra guerta en la endrezera llamada Berjera o Bercherape, de una rovada y media poco mas o

“Hera de trillar con su bergera cubierta de hazes” (1679)<sup>4029</sup>

#### Berriko:

Beste zerbaiten itxuragabetzea dela irudi du, agian 1704eko Urruticoiana-rena, baina hau ez da bat ere segurua. **Berriko** [beřiko] **Barranco de Medios** eta **Barranco de la Fuente de Carlos**-en arteko aldapa da; **Río de la Magdalena** aldean dago, **Sotilla del Puente**-tik hurbil.

#### Biroetako alorra:

Izen honen osagaiak **Biroeta** ezezaguna, leku-genitiboaren morfema singularra den **-ko**, eta **alorra** arrunta dira. **Biroeta** zer den ez badakigu ere (\***Mirueta** baten itxuratxartzea?), badirudi bukaerako **-eta** hori leku-ugaritasunezko atzizkia dugula. Edozein modutan, notatzekoa da **Biroeta** Agezan ere azaltzen dela:

“y la otra (pi\*) en la endreçera llamada biroetaco alorra” (1592)<sup>4030</sup>

#### Bizkarra:

**Bizkarra-k**, Sarasolaren arabera, ‘mendi baten gainaldea, bereziki zabala de-  
nean’ adiera du. Oso ezaguna da toponimian; gure alderditik atera gabe **Bizkarraran-**  
**portillua** dugu Agezan, **Bizkarra**, **Bizkarda** eta **Bizkardondoa** Eslaban, eta **Calle de la Bizkarra** Uxuen.

**Bizkarra** [biθkářa] **El Carasol de las Viñas** (Iguzkun antzina), **Alto de Mugarana** eta **Leatxeko bidearen** arteko aldapa da.

#### Bojacar, descenso del:

**Bojacar** izenaren esanahiari buruz ikus **Uxueko Boxagarea** sarrera. Badakigu **Gorrio-n** zegoela:

“un campo...en...Gorrio y paraje del descenso del bojacar” (1848)<sup>4031</sup>

#### Bosque, el:

Agezako mugako ler eta haritzez osatutako oihana da hau. Dirudienez, ez da osotara **El Monte marcado**-ren ordain, hau hariztia besterik ez den bitartean aztergai dugunak lerdia eta hariztia baita batera.

menos, afrontada con guerta del Palacio, pieza de Orbarena, con el arroyo y camino que ban a la fuente”.  
Juan Apecechea Perurena, IBCNJL, 82. or.

Aipu honetan **bergera** eta **bercherape**-ren azpian **berjera**, **berxera** eta **Bertxera** izan genezake. Izan ere, hauek dira han-hemenkako toponimian edireten ditugun bi aldaerak, aztergai dugun **Berjera**-rekin batera. Zaharrena **Berxera** da, eta hemendik atera dira **Berjera** (cf. **Leatxeko Mendijuri**) eta **Bertxera**.

4029 PRA-Elo, 8. k.

4030 PRA-Oibar, 6. k.

4031 Id., 120. k.

**Bural, el:**

Herri ondoko eremu buztintsua da<sup>4032</sup>; Zaretik datorren bideberriak (ez Zare-bidea zaharrak) bitan banatzen du (ikus **Buraleta**). Dena den, Morionesko lurretan **Bural** bat baino gehiago dago, Zaren bezala. Aurrenekoz 1894eko katastroan aurkitu dugu.

**Buraleta:**

Dokumentazioan ediren dugun **Bulareta** (1650)<sup>4033</sup> **\*Buraleta**-ren metatesiaren ondorioa dela uste dugu, eta ez **\*Bularreta**-ren adierazlea (cf. Zareko **Los Burales / Buraleta** baliokidetasuna).

**Butzugaña:**

Hemen butzu oinarria dugu, eta gaña posposizioa:

“otra peça en buçugaña” (1616)<sup>4034</sup>

**Butzuungoa:**

Behin bakarrik aurkitu dugu, eta duen forma bitxi samarra den arren, oso ongi irakurtzen da. Hasierako **butzu** hori argia da, baina zoritxarrez bigarren osagaiaz ezin da gauza bera esan. Gure ustez baliteke alderdi honetan arrunta den **xubingo** izenean ageri den atzizki txikigarria (-ngo alegia) izatea. U errepikatu hori errore baten emaitza litzateke kasu honetan, azalpen morfologikorik behintzat ez duena:

“una pieça...en (la) endreçera llamada buçuungoa” (1605)<sup>4035</sup>

**Camino de Ayesa, el:**

Gorrio-ren hurbiletik zihoan, **Oreingibela**-ko erreka-ondotik:

“otra pieza...de la parte de Gorrio theniente con camino que ban a Ayessa y Barranco que baja a orenguibela” (1680)<sup>4036</sup>

Orain **Berriko**-n zehar doa, **Campos largos** ondotik **Soroko**-ra, Agezatik Artetara doan bidearekin elkartzera. Euskarazko **Agezabidea**-ren ordain erdalduna da.

**Camino de Ayesa a Arteta, el:**

Behiala **Sarioxarreta**-n barna zihoan:

“otra pieza en sareo sarreta que afrontta...al camino que ban de Aiessa a Artteta” (1680)<sup>4037</sup>

4032 Bi edo hiru alorrek osatzen dute.

4033 PRA-Oibar, 26. k.

4034 Id., 19. k.

4035 Id., 15. k.

4036 PRA-Kaseda, 1. k.

4037 Id., 1. k.

Orain Ezporogiko mugatik **Gorrio**, **El Bosque** eta alderdiko erreken gai-  
netik **Loiako** mugara doa. Dirudenez, **La Senda** ere deitzen zaio.

#### Camino de Eslava, el:

**Loiabidea**-tik ezkerretara egiten du, **Barranco de la Fuente** izeneko erreka-  
ren aldamenetik **Eslabako** lurretarantz (ikus **Senda de Eslava**). Aurren aldiz iragan  
mendearen amaierako katastroan aurkitu dugu.

#### Camino de Ezprogui:

**Senda de Ezprogui** izenpean ere azaltzen zaigun hau **Gorrio**-n zehar zihoan,  
errekaren paretik antza, zatiren batean gutxienez:

“otra pieza...en Gorrio Juntto al Rio y Camino o Senda que se ba a ezprogui”  
(1721)<sup>4038</sup>

Ezporogiko **Camino de Moriones** sarrerako bideetako bat zen, itxura guz-  
tien arabera egungo **Camino de la Fuente**, ez **Camino de Ezprogui**.

#### Camino de Gardelain, el:

**Camino de Irangote** bera da (ikus sarrera hau).

#### Camino de Gorrio:

**Aranguren**-en gaindi zihoan, alderdi honetako errekaren paretik (ikus **Aran-  
guren**). **Gorrio**-ra **Eslabako** bidetik nahiz **Barranco de la Fuente de Carlos**-etik joan  
daiteke egun, baina dokumentazioko **Camino de Gorrio** edo **Gorriobidea** **Eslabako**  
bidea zela uste dugu.

#### Camino de Irangote, el:

**Irangoteko** bidea errekaren aldamenetik doa, **Soka**-n barna, **El Chaparral**-en  
ingurutik. **Camino de Usunbelz** edo **Camino de Gardelain** ere deitzen zaio.

#### Camino de Jaun Done Julio:

**Jaun Done Julio Gorrio** aldean zegoela badakigu, **Ezporogiko** muga,  
antza:

“otra faytia...en el camino que ban a Juan dre Julio” (1659)<sup>4039</sup>

#### Camino de la Ermita de Elizattoa:

**Camino del Chaparral** bera zen (ikus **Elizattoa** sarrera):

4038 PRA-Oibar, 37. k.

4039 Id., 28. k.

“otra faitia en...Astalorra...que afronta...con camino que ban al Chaparral y a la hermita derruida llamada elizatoa” (1703)<sup>4040</sup>

#### Camino de la Ermita de Santa Madalena, el:

Oraingo Camino del Río da dokumentazioko hau:

“otra pi\* en el camino de la ermita de santa madalena” (1616)<sup>4041</sup>

#### Camino de la Iglesia, el:

Herri barruko bidea zela dirudi:

“una guerta cerrada en el camino de la yglesia” (1650)<sup>4042</sup>

Alabaina, eliza hori **Magdalena** edo **Elizattoa** ere izan zitekeen.

#### Camino de la Vizcaya:

Badakigu **Santa Finia**-ko erreka-errekaren paretik igarotzen zela, eta beraz, egungo **Camino de Irangote**-rekin identifikatu beharko dugu:

“otra (pieza)...sobre el Barranco de Santafinia...thente a...Camino que se ba a la Bizcaia” (1770)<sup>4043</sup>

Bide hau **Morionesko** eta **Irangoteko** mugan bitan zatitzen da: adar bat **Usunbeltz** eta **Sabaitzara** doa eta bestea **Gardelaina**. **Camino de Loia** edo **Loiabidea** ere **Bizkai** aldera doa (**Loia**, **Arteta**, **Getadar** eta **Juliora**), eta badaiteke dokumentazioko **Camino de la Vizcaya** batzuk horren ordezkari egotea.

#### Camino de Leache, el:

**Leatxearana**-n zehar doa, **Leatxeko Iguzkiagerria**-ra. Antzina **Elizattoa**-ren albotik igarotzen zen (ikus sarrera hau).

#### Camino de Loya, el:

**Morionestik Loia** eta hemendik **Arteta** eta **Getadar** aldera edo **Juliora** doa (ikus **Akala** eta **Camino de la Vizcaya** sarrerak). **Loiabidea** itxurapean ere azaltzen da agiritan (ikus sarrera hau).

#### Camino de Moriones a Sabaiza, el:

**Irangotera** doan bide bera da, baina ermitara sartu ordez **Usunbeltz** aldera egiten du, eta hemendik **Sabaitzara**.

---

4040 Id., 30. k.

4041 Id., 19. k.

4042 Id., 26. k.

4043 Id., 68. k.

**Camino de Mugarana, el:**

Leatxeko bidetik eskuinetara, **Mugarana** aldera doa.

**Camino de Muruarana:**

Hemen, ohi ez bezala, **Camino a Muruarana** aurkitu dugu, alegia, a preposizioa (cf. honelakoetan arrunta den euskarazko adlatiboa) duen aldaera, gure alderdian hau oso bitxia bada ere. Dokumentuan ikusten den moduan, bide hau Ezporogiko mugan zehar zihoan:

“ytt una faytia en la muga de ezporogui camo...a muruarana” (1530)<sup>4044</sup>

**Camino de Sada, el:**

Gure hizkuntzan **Zarebidea** esaten zitzaion (ikus sarrera hau), behin baino gehiagotan ikusteko parada izan dugunez. Zaretik Morionesa igotzen den bideberriarekin bat zetorren ibilbide gehiengan, baina Ezporogiko mugatik Morionesaino lehengo errepidea baino goragotik zihoan.

**Camino de Usumbelz, el:**

**Camino de Irangote** edo **Camino de la Vizcaya** bera da. Morionesen beti erdaraz aurkitu dugun arren, Irangote despoblatuan **Usunbelzbidea** dokumentatzen da 1659. urtean<sup>4045</sup>, **Camino de Usunbelz**-ekin batera.

**Camino del Corral viejo, el:**

Gardelaina doa, **Santa Finia** eta Irangoteko **Corral viejo**-n zehar. Itxuren arabera, dokumentazioko **Camino viejo**-ren (ikus sarrera hau) adierakidea da.

**Camino del Chaparral, el:**

**Astalorra**-ren gaineko aldetik **El Chaparral**-a doan bideari esaten zaio **Camino del Chaparral**. Antzina **Elizattoa**-ren ondotik igarotzen zen (ikus **Elizattoa** sarrera).

**Camino del Monte, el:**

Eslabako bidea da.

**Camino del Monte Chaparral, el:**

**Camino del Chaparral** edo **Camino llamado Txaparra**-ren adierakidea zen:

“en...soca...que afrenta con...el monte del chaparral y camino publico que ban al monte” (1603)<sup>4046</sup>

4044 Id., 2. k-bis.

4045 Id., 28. k.

4046 Id., 11. k.

**Camino del Río, el:**

Herritik **Río de la Magdalena**-ra doa. **Camino de Loya** edo **Loiabidea** berada, Morionestik errekarara bitarte:

“Ytten otro guerto en Errotajarra...afrontado con el camino que ban alrío...y de la parte baja con rrio” (1530)<sup>4047</sup>

**Camino llamado Txaparra, el:**

**Camino del Chaparral**-en errankidea da:

“una pieza en...soca...afrontada...con el camino que ban a yrangote y...con el camino congegil llamado Chaparra” (1641)<sup>4048</sup>

**Camino viejo, el:**

Irangoteko **Las Larrazas**-erako bidea zela ikusten dugu dokumentazioan (1770)<sup>4049</sup>. Despoblatu honetako lurretan gaindi Gardelaina doan **Camino del Corral viejo**-rekin identifikatu behar dela dirudi.

**Campo de Bernardo, el:**

Herriaren eta Leatxeko bidearen ondoan dago, **Bizkarra**-ren alboan. **Bernardo** lurtsail honen behialako jabea izanen zen. Lehendabiziko aldiz 1894eko katastroan ediren dugu.

**Campo de cara cara, el:**

Gorrio ondoan dago, herriaren aurkezean, eta hortik izena. Euskaraz **Aurkez, Aurkaz, Aurkas**...aurkitzen dugu aztergai dugun honen ordaintzat<sup>4050</sup>.

**Campo de las Piedras, el:**

Erreka ondoan dago, **Soka**-z beste aldean. 1894ean azaltzen da lehendabizikoz.

**Campo del Roble:**

**La Arbolera**-ren aldamenean dago, **Camino de Irangote**-tik hogeitamar edo berrogei metrotara. Aurrenekoz iragan mendearen amaierako katastroan agertzen da.

---

4047 Id., 2. k-bis.

4048 Id., 24. k.

4049 Id., 68. k.

4050 Cf., adibidez, Itzagaondoko Erreta herriko 1593ko **Aurcascoa** (PRA-Urrotz, 4. k.), Leteko 1765eko **Aurcaceco alorra** (Jimeno Jurío, TCPCI, 212. or.), Galar-Ezkirozko 1604eko **Aurcasco ardancea** eta 1615eko **Aurcazco ardanceac** (TCPCG, 205. or.), edo Etxarrentxuloko **Aurcascosoroa** (PRA-Lizarrá, 1. k-bis, 1578).



**Campos largos, los:**

Agezabidea-ren eta Soroko-tik jaisten den **Barranco de la Fuente de Carlos-en** artean dago, **Martxela**-ko mugan.

**Carasol, el:**

El **Carasol** euskarazko **Iguzkun**-ekin identifikatu behar dela dirudi. Gaur **El Carasol de las Viñas** esaten zaio:

“un canpo...en el termino del Carasol, debajo del camino de Sada” (1812)<sup>4051</sup>

Zenbaitetan, ordea, **Carasol de Loia** deritzan eguzkialdea ere izan daiteke, 1721eko agerraldian, kasurako:

“otra pieza...en el mismo Carassol y tocante a la Muga de Loia” (1721)<sup>4052</sup>

**Carasol de Eslava:**

Eslaban **Tastaran** deritzana izan daiteke. 1894ean azaltzen da aurren aldiz.

**Carasol de las Viñas, el:**

**Zarebidea**, **Zubieroria** eta **Alto de Mugarana**-ren arteko eguzpegia da (ikus **Carasol** eta **Iguzkun** sarrerak).

**Casa; Caseta de Alzueta:**

**Loiabidea**-ren gainean (eguteraan) dauden bi alorrek osatzen dute dermioa. **Alzueta** bertan zegoen etxolan bizi izandako ehizi eta arrantza zaindari baten deitura da. Lehen aldiz 1894eko katastroan agertzen dira izenok.

**Cebollar:**

Euskal **Tipulatzea**-ren ordain euskalduna da (ikus sarrera hau):

“una guertica çerada que llaman cebollar” (1610)<sup>4053</sup>

**Cementerio, el:**

**Antzinako Ermita de la Magdalena**-n dago, erreka ondoan.

**Cerrado (de Cumba), el:**

**Cerrado** izenak, J. Juríoren arabera<sup>4054</sup>, ‘atedun harrizko murru batez hesitutako lantze-eremua’ adierazten du. Agiritan ikus daitekeenez, lantze-eremu hori bara-

4051 PRA-Oibar, 93. k.

4052 Id., 37. k.

4053 Id., 16. k.

4054 THET, 79-80. orr.

tzea, ardantzea, olibadia...eta beste izan daiteke. Euskaraz izan duen erabilpenari buruz honela diosku aipatu ikerleak:

“la voz romance fué aceptada sin reservas en medios euskaldunes navarros, descubriéndola frecuentemente con artículo (zerradoa), postposiciones de distinta índole (zerradokoa, zerrado guibela, zerrado ondoa, zerradopea), o adjetivos (zerrado be-rezi)”<sup>4055</sup>

Hitz honek izan zuen harrera ona, autore beraren arabera, lur-jabeen aberastasuari (eta honek ematen duen botereari) zor dakiokete. Gure eskualdean, euskaraz, **Zerradogibela** dugu Eslaba eta Ezporogin, **Zerradogibeleta** Eslaban, eta **Zerradopea** eta **Zerradoxarra** Lergan. Erdaraz, besteak beste, (El) **Cerrado** dugu Arteta, Eslaba, Kaseda, Lerga, Moriones, Sabaitza eta Uxuen, eta **Los Cerrados** Eslaba, Ezporogi, Oibar, Uxue eta Zaren.

**Cerrado**-ren beste baliokide euskaldun jator bat Xulapaingo Nabatz herrian dugun **Ormetxi** izan daiteke (Ormaerchia 1629an<sup>4056</sup>); honekin zerikusia izan dezakete, adibide bakan batzuk ematearren, Galipentzuko **Ormakieta**, Uxueko **Ormaizkieta**<sup>4057</sup>, Ezporogiko **Ormaxarreta**, Eulzko **Ormaketa**, eta Olaiabarko **Ormakibere-k**<sup>4058</sup>. Arestian aipatu dugun **zerradoa**-ren kide “euskaratuago” ere edireten dugu, Errezuko **Zerratugibela** toponimoan<sup>4059</sup>, esaterako.

**El Cerrado de Cumba**<sup>4060</sup> errepide ondoan dago, goiko aldean, herrira iritsi aitzinxeago. Honen parean, errepidearen azpiko aldean, **La Mazuela** dugu.

---

4055 Id.

4056 PRA-Ihaben, 8. k.

4057 Dena den, hau Orba-ren eratorri bat ere izan daiteke. Ikus -eta atzizkiari eskaini atalean honetaz dioguna.

4058 Eleizalde, LVTV. J. P. Duvoisinek **zerradoa**-ren esanahikidea izan daitekeen **zerrakia** darabil:

“Ez dut erran nonnahi erein behar dela. Larreki asko bada arbola ondo bat gabe. Bertze hainitz toki ere phezoinetz ingura daizteke. Eta balio du segurki zenbait urthez halako zerrakietan aziendarik ez alharaztea, ezen arbolak laster nausituko dira eta orduan izanen da bazka eta oihan ona”, *Laborantzako liburua*, Euskal editoreen elkarteak, Zarautz, 1986, 170. or.

Zuberoan, berriz, **zerrategia** erabiltzen da, baina hauek egurrezkoak bide dira. Honela mintzo da Zuberoako Andoze ibarreko leku-izenak aztertzen ari delarik Txomin Peillen euskaltzaina (“Andoze ibarreko leku izenak”, FLV, 1991, 57, 89-105. orrialdeak. Idazkera etzana gurea da):

“Gero etxetik goitik iratze (garo) egiteko leku bat, itxia zegoena aintziña *Oixteneko zerrategia* da” (93. or.) eta aitzinago:

“Gero etxe horrek (*Axtégi*-k) badu hesiz inguratutako garotegia *Axtégiko zerrategia* deritzaiona” (95. or.)

Autore honek izen arruntzat ere ibiltzen du:

“Etxe horren inguruan zeuden “gaztañaztoia” “etxapea, eta etxabürü” erosi zituzten gure askazgoako Dordarragatarrek, denbora berean etxetik goiti zen zerrategia, eta *Burigiariako bordaltea*” (97. or.).

Edozein moduz, kontua ez dago erabat garbi, eta izen arrunt eta berezien arteko mugan hobe kokaturik legoke, agian:

“Izen arrunten eta berezien muga ez da errez ikusten. Esate baterako etxalde zelaia denean beti *okbólü* belardia edo soroa bada, erdizka artoz landatzen zena: norbaitek esan lezake “gure okholü txipia” izen arruntetz edo besteak *Bentaberriko okbólü handia* izen bereiziz. Izen horien artean sar genezake “*zerrategia*” etxe alboan den iratze edo garo-lekua, itxia eta etxeko ardien bazka izan ditekena, halaber “*larre*” zerratua ez den bazka lekua” (100. or.).

4059 PRA-Artabia, 6. k., 1689.

4060 **Cumba** Morionesko deitura da.

**Corral de la Muga, el:**

Irangoteko mugaren alboan dago, erreka eta **Jaugia**-ren artean. Bertan bada gorte bat, eta hemendik izena.

**Corralachos:**

Izen honek 'korrale, gorte txikiak' adiera duela dirudi<sup>4061</sup>. **Corralachos** [kõraláços] **Camino de Eslava, Río de la Magdalena** eta **Gorrio**-ren artean dago, **Barranco de Gorrio** eta **Barranco de medios**-en erdian. Lehen, halaz ere, **Gorrio**-ren barrukotzat jotzen zen:

"en el termino de Gorrio y paraje de corralachos" (1858)<sup>4062</sup>

**Chaparral (alto de), (cerro de), (monte de), el:**

**El Chaparral** (dokumentazioko **Monte del Chaparral** bera. Ikus **Camino del Monte Chaparral** sarrera) **Soka**<sup>4063</sup> eta **Alto de Leatxearana**-ren artean dago, **Astallorra** eta **Leatxeko** mugaren erdian; egungo **Alto del Chaparral** eta dokumentazioko **Cerro del Chaparral**<sup>4064</sup> **Leatxeko** mugako gaina da, agiritako **Txaparralburua** edo **Txaparburua** (ikus bi sarrera hauek).

**Chaparral** euskarazko **Txaparra**-ren kide erdalduna da. **Chaparro** edo **txaparra** toki batzuetan harizkoa da, baina beste batzuetan bestelako esanahia du (ikus **Galipentzuko Lecino** sarreran dioguna)<sup>4065</sup>.

**Dorreko alorra:**

Hemen **dorre** izena, leku-genitiboaren singularreko morfema, eta **alorra** arrunta ditugu:

"otra pieza en dorreco alora" (1642)<sup>4066</sup>

**Dorre** hau erromantzeko **Torre de San Juan** edo **Torre de San Juan de Rodas**-en ordain euskalduna da. Agiritan ikusten denez, dorrea herrian zegoen, aldirietan, **Camino Real** baten ondo-ondoan (ikus aipatu **Torre** sarrera).

Herriaren alboan, **Camino de Río**-ren aldamenean kantoirik gabeko (alegia, ezkina biribileko) eraikuntza eder baten zaharrik ikus daitezke oraindik, eta baliteke dokumentazioko **Dorre**- edo **La Torre** hau izatea. **Alorra** (edo alor bat behintzat) **Gorrio**-n zegoen, **Senda de Eslava**-ren alboan, **Loiako** mugari hurren:

4061 Cf. eraikuntza baten hondakin edo zaharrik ikus ezagutzera emateko Uxuen erabiltzen den corraleta.

4062 PRA-Kaseda, 61. k.

4063 Orain **El Chaparral**-ek ez du **Soka**-rekin mugatzen, **La Arbolera**-rekin baizik. Azken toponimo hau, ordea, berria da, eta itxuren arabera izendatzen duen eremua lehen **Soka**-ren barruan zegoen.

4064 PRA-Oibar, 10. k., 1602.

4065 Ikus, orobat, A. Irigoyenen "Cuestiones de toponimia vasca circumpirenaica", 210. or., ETTVC.

4066 PRA-Oibar, 24. k.

“Pieza en la endrecera de Gorrio, llamada Orreco alorra, con su cabaña, que afronta con senda que ban a Eslaba y mojon de Loya” (1679)<sup>4067</sup>

### Dorrekoa:

Aurreko bera dela segurua da, nahiz dugun lekuko bakarrean hasierako d-hori gabe ageri zaigun:

“Pieza llamada orrecoa con su cabaña bieja, que afronta con sendero que ban a Eslaba; Otra en la misma endreçera, debajo del corral de Juan de Moriones” (1679)<sup>4068</sup>

Aipatzen den gortea egungo **Corral de Gorrio** izan daiteke.

### Elizattoa:

Atzizki txikigarriaren formaz ikus Ezporogiko **Errekattoa** aztertzean dioguna eta **Grafia kontuak** atala. **Elizattoa** Leatzeko bidearen gaineko, **Txaparra**-ko bidearen alboko ermita baten izena zen. Perez Ollok<sup>4069</sup> desagertu den **Santa Maria Magdale-na**-ri eskainitakoa da aipatzen duen bakarra, baina beste hau ere ermita zela segurua da, nori zegoen eskainia ez badakigu ere. Segurua da, orobat, 1703rako hondatua zegoela:

“otra faitia...en...Astalorra...que afronta con camino que ban al Chaparral y a la hermita derruida llamada elizattoa” (1703)<sup>4070</sup>

**Elizatto** edo **Elixatto** (cf. **Zubingo / Xubingo**) ermita esateko beste bide bat da. Izan ere, eta aztergai dugun toponimoaz landa, Antsoain zendeako Berriobeitin Jimeno Juríok **Elizattoa** (1641), **Elijattoa** (1652) eta **Elisattoa** (1829) bildu ditu<sup>4071</sup>, eta XIX. mendeko lekukotasunean ermita zela garbi ikusten da:

“Una pieza en elisattoa afronta con camino que se va a la ermita”

Lakuntzan **Elixéto** edo **Elíxeto** dugu, irudiz atzizkiaren despalatalizazioa jasan duen aldakia. Ibon Sarasolak **elizatxo** biltzen du adiera horrekin HLEH-n, eta Mitxelenak **eliztxo** eta **elixato** OEH-n.

### Elizattogibela:

**Elizatto** ermitaren atzeko aldea zen:

“Mas en Elizattoguibela otra faytia...” (1530)<sup>4072</sup>

### Era(s), la(s):

Herri ondoan larrain asko dira, eta 1894eko katastroan ageri dena horietako edozein izan zitekeen. Larrainok etxearen izena hartzen dute: **La Era de Marco**, **La Era**

4067 PRA-Elo, 8. k.

4068 Id.

4069 EN, 167. or.

4070 PRA-Oibar, 30. k.

4071 TCPA, 209. or.

4072 PRA-Oibar, 2. k-bis.

de Aldunate, La Era de Sinforiano, La Era de Cumba... Bizkarra aldean, Leatxeko bidean, La Era de Alzueta izeneko dago, herri ondoko beste larrain horietatik aparte.

#### Errotaxarra:

Hemen errota 'alea ehotzeko tresna dagoen etxea' izena, eta zaharra-ren el-karketako aldaera den -xarra ditugu. Ohizkoa den bezala, Morionesko errota ere erre-kan (Río de la Magdalena-n) zegoen, Camino del Río bukatzen den alderdian:

"Ytten otro guerto en Errotaxarra...afrentado con el camino que ban alrío...y de la parte baja con río" (1530)<sup>4073</sup>

#### Ezpondapea:

Toki-izen honetan ezponda 'aldapan dagoen lur-zatia, bereziki harresi baten behealdean edo ubide baten ertzean gertatzen dena'<sup>4074</sup> eta -pea 'azpia' ditugu (cf. Eslaba-ko Ezpondabe). Bertan lizatze bat egoteak dermio hau Los Linares edo Los Linares de la Magdalena aldean zegoela pentsatzeko bide ematen digu:

"ytten un linar junto a ezpondapea" (1610)<sup>4075</sup>

#### Ezprogui, soto de:

Moriones eta Ezporogiren arteko mugan dago, azken herri honetako lurretan.

#### Fuente, la:

Río de la Vizcaya ondoan zegoen, Txindilatzea-ren alboan:

"Pieza llamada Chindilacea, que pasan a Yauguia, enfrente la fuente, que afronta con el rio caudal" (1679)<sup>4076</sup>

Dokumentazioko Fuente del Camino de Irangote bera izan zitekeen.

#### Fuente de Carlos (barranco de la):

El Huerto de Carlos deritzan baratzean egoteari zor dio iturri honek izena. Soroko aldean sortzen den Barranco de la Fuente de Carlos-en dago, Río de la Magdalena-tik hurbil. Errekaren izen zaharraz ikus Makirriain eta Oreingibela sarrerak.

#### Fuente de Juanzena, la:

Barranco de Gorrio eta Barranco de Medios batzen diren gunean dago. Juanzena hau norbaiten deitura dugu, itxuraz.

4073 Id.

4074 Sarasola, HLEH.

4075 PRA-Oibar, 16. k.

4076 PRA-Elo, 8. k.

**Fuente del Camino de Irangote, la:**

Fuente vieja bera da:

“otra pieza...sobre la fuente que esta en el camino de yrangote” (1610)<sup>4077</sup>

**Fuente del lugar, la:**

La Fuente lugar [lafwéntelugár] deitzen den iturria La Viña del lugar-en ondoan dago, errekan. Orain “hartua” dago, ura herriko etxeetara eramateko.

**Fuente vieja, la:**

Irangoteko bidean zegoen; izena bizirik badago ere, iturria desagertu da. 1894eko katastroan aurkitu dugu.

**Garaiondoa:**

Garai ‘lau haberen gainean eta etxetik berex egiten den aletegia’<sup>4078</sup> eta ondoa ditugu hemen:

“otra pi\* en garayondoa” (1616)<sup>4079</sup>

Garaiak ezagunak ziren gure alderdian, Leatxeko Garaizarra-k erakusten duenez. Hau bezala, Garaiondoa (La Garaionda [lāgarayōnda] gaur) ere herri ondoan dago, Zarera doan errepedearen eta El Bural-en aldamenean.

**Gardelain, río de:**

Erreka hau Gardelaindik jaisten da, eta Morionesko lurretan sartu aitzin, Irangoten, Usunbelztik datorrenarekin batzen da (ikus Antillón sarrera).

**Gorrio (barranco de), (corral de):**

Toponimo hau gorri izenondoaren eratorri ugarietakoan artean (cf. Gorriaran, Gorritxo, Gorriño, Gorriz...<sup>4080</sup>) sartu behar dugula dirudi. -O bukaerari dagokionez, Mitxelenak<sup>4081</sup> izenondoei lagun egiten dien atzizkia dela (nabaro, Garaio, Garaioa, Txurio, Zabalo...), eta etimologia iluneko deitura anitzetan maiztasun handikoa dela (Areitio, Bakio, Elorrio...) dio. -Ano, -anu atzizkiaren laburketaren ondorena ere izan liteke (Aramaiona > Aramaio, Galdeano, Galdiano > Galdio<sup>4082</sup>, Otxandiano > Otxandio...). Gehienetan artikulurik gabe agertzen da, baina 1679an Gorrioa dokumentatzen da (ikus Jaun Done Julio sarrera).

4077 PRA-Oibar, 16. k.

4078 HLEH.

4079 PRA-Oibar, 19. k.

4080 Ikus Mitxelenaren AV, 97. or. eta A. Irigoyenek Bermeo Bizkaiko herriaren etimologia egitean dioena, ETTVC, 45-46. orr.

4081 AV, 133. or.

4082 Allin eta Ameskoetako hipotekak, 12. liburua, 85. or., 1826: “Yten otra (pieza)...en el termino de Galdividea”.

**Barranco de Gorrio** dermio honetatik jaisten den errekarari esaten zaio; **Corral de Gorrio** Eslabako bidearen ondoan dago, gaintxo batean, bidez beste aldeko **Las Saleras**-en parean (ikus **Dorrekoa** sarreran esan duguna). Teilatua hondatua du, baina paretek zutik diraute oraindik.

**Gorrio El Bosque** eta **Corralachos**-en artean dago, **Las Saleras** eta **Camino de Ayesa**-ren erdian. Lehen, alabaina, **Loiako** mugatik (ikus **Bereterbide** sarrera) Ezporogiko mugaraino (ikus **Iparragerria** sarrera) luzatzen zen, eta **Río de la Magdalena**-tik (ikus **Camino de Ezprogui** sarrera), Eslabako mugaraino (hots, mendi gailurreraino), bere barruan beste dermio txikiago mordoxka bat biltzen zuela:

“Pieza en la parte de Gorrio que afronta con el camino que ban a Ayesa y con el barranco y yermos concejiles, con una cabaña en medio de ella y tres pies de robre” (1679)<sup>4083</sup>

Hau ikusita behinolako despoblatur baten aurrean ez ote gauden susma daiteke. Honen frogarik, ordea, ez dugu.

#### **Gorrioaldea:**

**Gorrio**-ren ondoko eremua bide zen, baina beste batzuetako **Gorriondoa**-tik bereizi behar dela uste dugu, **-ondoa**-k eta **-aldea**-k dermio ber baten alderdi ezberdinak adierazi ohi baitituzte (ikus Eslabako **Artadualdea** eta **Artaduondoa** sarrerak). Ikus, berebat, **Dermio baten zatiketa** atalean dioguna):

“ytten en gorrio aldea una pieza...” (1610)<sup>4084</sup>

#### **Gorriobidea:**

Eslabako bidea dela irudi du, hau **Corral de Gorrio**-tik hurbil igarotzen baita (ikus, halaz ere, **Aranguren** sarrera):

“otra pieza...en Gorriobidea” (1723)<sup>4085</sup>

#### **Gorriondoa:**

**Gorrio**-ren hurbileko eremua zen, baina ez dakigu zehazki zein:

“ytten otra piª...en gorriondoa” (1592)<sup>4086</sup>

#### **Hoyo (viña de), el:**

**Carasol de las Viñas**-ko zuloa da. **Bertan Viña del Hoyo** izeneko ardantzea zegoen duela urte batzuk.

4083 PRA-Elo, 8. k.

4084 PRA-Oibar, 16. k.

4085 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 1029. or.

4086 PRA-Oibar, 6. k.

**Huerto, el:**

Herri ondoko baratze ugarietako bat izan zitekeen 1894ean dokumentatzen dugun hau.

**Iglesia vieja:**

Elizattoa euskaldunaren ordain erdalduna izan zitekeen, ditugun lekukoek erakusten duten bezala biak franko hurbil baitzeuden. **Iglesia vieja** delakoa **Leatxe**arena-tik jaisten den errekaaren ondoan zegoen:

“una viña olibar en el termino llamado regacho ó yglesia bieja confinante...a regacho que vaja de la charana” (1821)<sup>4087</sup>

eta **Elizattoa** erreka horren ondotik doan Camino de **Leache**-ren gaineko aldean, **Camino del Chaparral**-en alboan (ikus hiru sarrera hauek).

**Iguzkun:**

Morionesko bereko **El Carasol (de las Viñas)**-en eta **Zareko Iguzki**gerriaren baliokidea bide zen hau, alegia, **Zare**bidea igarotzen den eguzkialdea ematen zuen aditzera:

“la otra (pieza?) en la endreçera llamada yguzcunea” (1592)<sup>4088</sup>  
 “otra pieca en yguzcun” (1596)<sup>4089</sup>

Honen adieraz ikus **Eslabako** izen bereko sarreran dioguna.

**Indurainzabala:**

Honen etimologiaz ikus -ain atzizkiari eskaini atalean dioguna. **Indurainzabala** **Gorrio**-ko eremu laua zen (ikus **Llano** sarrera):

“otra p<sup>a</sup> en Indurainçabala” (1616)<sup>4090</sup>  
 “otra pieza en el mismo thermino (**Gorrio**-n) y paraxe que llaman **Undurain Zabal**” (1721)<sup>4091</sup>

**Iparraga:**

**Iparraga**-ren osagaiak, esan bezala, **ipar** izena eta -aga atzizkia dira. Izen honekin **Ezporogi** eta **Agezako** mugako elutsa (hots, egungo **Agezako El Caracierzo**) ematen zen aditzera, eta beste batzuetan dokumentatu dugun **Iparragerria**-ren bete-beteko baliokidea dela dirudi:

“ytt en iparraga...afrentada..con...mojon de Ezporogui” (1530)<sup>4092</sup>

---

4087 Id., 99. k.

4088 Id., 6. k.

4089 Id., 9. k.

4090 Id., 19. k.

4091 Id., 37. k.

4092 Id., 2. k-bis.



**Iparragaburua:**

**Iparraga-ko gaina zen:**

“...otra pi” en...yparraga burua” (1592)<sup>4093</sup>

**Iparragagoiena:**

**Iparraga-ren** goreneko alderdia zen, Agezako muga aldea. Gure iritziz **Iparragaburua**-tik berezi behar genuke, **burua-k** eta **goiena-k** toponimo bati atzejarririk daudenean eremu ezberdinak adierazten baitituzte (ikus **Dermio baten zatiketa** atalean dioguna).

Badakigu Agezako bidea edo xenda **Iparragagoiena-n** gaindi zihoala, eta honek **Iparraga-k** eta Morionesko bereko **Iparragerria-k** alderdi bera izendatzen zutela pentsarazten digu, **Iparragerria** ageri den dokumentuetan ikus daitekeen bezala Agezako bidea bertatik igarotzen baitzen:

“Mas en iparragagoiena una pieza...afrentada a...senda q ban a ajesa” (1530)<sup>4094</sup>

“otra pieza...en el termino que llaman yparraguerri afrontada con camino que ban a Aiessa y barranco de maquiriain y Monte conzexil” (1703)<sup>4095</sup>

Esan bezala, Agezan **Caracierzo** deitzen duten Ezporogi eta Morionesko mugako oihezkoa adierazten zuten **Iparraga** eta **Iparragerria-k**.

**Iparragerria:**

Morionesko bereko **Iparraga-ren**, **Zareko Iparragerria** eta **Opakuegia-ren**, eta Eslabako **Opakoegia-ren** baliakide da **iparr** eta **agerria** izenez osaturik dagoen hau. Toponimoaren adiera ‘iparraldera begira dagoen mendi-isuria’ da, eta alde honetatik gure eskualdeko **Iguzkiagerri** eta **Iguzkun-i**, eta beste toki batzuetako **iguzpegia**, **egutera**, **eguzkialdea** ...eta abarri kontrajartzen zaie.

**Irixarburua:**

**Irixarra-ren** ondoko gaina zen:

“otra pieça en yrijarburua” (1610)<sup>4096</sup>

**Irixarra:**

**Hiri-izena** eta **-xar** ‘zahar’ izenondoa (cf. **Ardantzexarra** eta **Errotaxarra**) ditugu hemen. Itxuraz alderdi honetako antzinako despoblaturen baten aztarrena da (cf. Eslabako **Irixarra**, Uxueko **Villantigua** eta Oibar eta San Martin Unxeko **Los Casales**):

“otra pieça en YriJarra” (1610)<sup>4097</sup>

4093 Id., 6. k.

4094 Id., 2. k-bis.

4095 Id., 30. k.

4096 Id., 21. k.

4097 Id.

**Iturburua:**

'Iturraho' esanahia izan lezake gaur ezezaguna den izen honek. Baliteke azaltzen diren **fuelle** horietako baten kide euskalduna izatea, baina ez dugu honen frogarik:

"otra pieça...en...yturburua" (1596)<sup>4098</sup>

**Izpikudua:**

Honen etimologiari buruz ikus -dui berrekailu multzokariari eskainitako atalean dioguna:

"otra pieca...en izpicudua" (1642)<sup>4099</sup>

**Jaugia (alto de):**

Gaurko zenbait tokitako ebakeran oinarriz **jauregia**-ren laburketa baten aurrean gaudela kontu egin liteke, baina ibar bereko Lergan **Jaureguicar** aurkitzen dugunez gero, badirudi **Jaugia**-ren azalpena beste nonbaitetik bideratu beharra dagoela. Gainera **Jaugia** (**Auria** [aʊria] gaur) herritik aparte dago, Loia eta Irangoteko muga, **La Caseta** eta **El Corral de la Muga**-en artean<sup>4100</sup>, eta hortaz ez dirudi ustezko **\*Jauregia**-tik erator daitekeenik (cf., alabaina, Agezako **Palacio**).

Gure iritziz toponimian ugariak diren partizipioetako batez pentsatu behar da kasu honetan: cf. Uxue aldean horren arrunta den **Sarria**, edo Nafarroako herri eta leku-izenetan ditugun **Errea** (Esteribarren. Cf. Iruñe ondoko **Burlata**), **Igoa** (Basaburua)...eta beste.

**Jaugia ja(u)lki, jalgi** 'atera' aditzarekin lot liteke, adiera honekin, guk daki-gula, **\*jaugi**-ren modukorik dokumentatu ez bada ere. Alabaina, proposatu etimologia-rekin bat dator Morionesko **Jaugia** (cf. oraingo **Alto de Auria** eta dokumentazioko **Jaugiburua**) eta Eslabako **Xaugizabal** (ikus sarrera hau) mendiak izatea ('atreak' alegia).

Dokumentazioan j-z nahiz y-z idatzirik aurkitu dugu, eta beraz bi grafia horien azpian [y] genuela ondorioztatu beharko dugu, ez Eslabako [s]:

"Mas en jauguia...un abrigo aqui bajo" (1530)<sup>4101</sup>

"...en la endrçera llamada yauguia" (1592)<sup>4102</sup>

Egungo forma lehenengoz iragan mendeko erdi aldean ediren dugu<sup>4103</sup>.

**Jaugibarrena:**

**Jaugi**-ren beheko alderdia zen, Irangoteko muga aldea:

4098 Id., 96. k.

4099 Id., 24. k.

4100 Dena den, Euskal Herriko beste toki batzuetan **Jauri Jauregi**-ren laburketa "herrikoia" da (cf. Eleizalde, LVTV).

4101 PRA-Oibar, 2. k-bis.

4102 Id., 6. k. Altzorritzen **Yaugui** ageri da 1715ean (PRA-Elo, 16. k.).

4103 PRA-Oibar, 117. k., 1844.

“ytt en la muga de irangote en jauguibarrena...” (1530)<sup>4104</sup>

### Jaugiburua:

Gaur **Alto de Auria** deitzen dena da, alegia, Irangote eta Loiako mugako gaina. Hemen berriz ere erdal alto eta euskal -buru-ren arteko baliokidetasuna dugu:

“otra pª en Jauguiburua” (1616)<sup>4105</sup>

### Jaun Done Julio (monte):

Toponimo hau Leatxeko **Done Xurio**-ren kide zehatza da, herri bakoitzean izenaren lehen soinuaren bilakaera diferentea izan den arren. Nabarmentzakoa da, orobat, **Jaun** aposizioa bakarrik Morionesko izenean ageri dela, ez Leatxekoan.

Morionesko izena Leatxekoarekin alderatzen badugu, badirudi lehen herrian bilakaera [y]-tik [x]-raino joan dela, bigarreneko [ʃ]-n gelditu gabe, eta bokal arteko l, beharbada erdararen eraginez, zegoen-zegoenean gorde dela, beste batzuetan gertatu ohi den l > r aldakuntza burutu ez delarik. Dena den, eta izenaren lehen hotsari dagokionez, badugu Morionesen [ʃ]-ren adierazlea dirudien s-dun lekuko bat, 1679an:

“Pieza en la parte llamada Maquirriain y Gorrioa, afrontada con barrancoa y con monte llamado Joan Dene Sulio”<sup>4106</sup>

**Jaun Done Julio** erdaraz ageri den **San Julián**-en euskarazko ordaina da; Ezporogiko mugako eremu bat adierazten zuen, **Makirriain** eta **Gorrio** aldekoa:

“otra piª en...joandanenJulio...que afrenta con pª de la abadia” (1616)<sup>4107</sup>

“una pieza...en el termino llamado JuandoneJulio de la Partte de Gorrio” (1703)<sup>4108</sup>

Burgi herrian **\*Done Julio** batetik atera den **Donojulio** dugu egun. Morionestik hurbil, Bizkaian, jatorri bera izan dezakeen **Julio** herria dugu.

### Larreandia:

**larre** ‘euntze’ izena eta **handia** izenondoa ditugu hemen (cf. Zareko izen bereko toponimoa). Erreka baten ondoan (**Río de la Vizcaya?**, **Río de la Magdalena?**) zegoela besterik ez dakigu:

“Pieza en el paso que ban a larre andia, afrontada con el rio caudal y yermos comcejiles” (1679)<sup>4109</sup>

### Leatxe, val de:

Arrunki **Leatxearana** itxuraz aurkitzen dugunaren baliokide erdalduna da:

4104 Id., 2. k-bis.

4105 Id., 19. k.

4106 PRA-Elo, 8. k.

4107 PRA-Oibar, 19. k.

4108 Id., 30. k.

4109 PRA-Elo, 8. k.

“una pieza...en la endrecera llamada Val de Leache” (1641)<sup>4110</sup>

**Leatxearana (alto de), (barranco de):**

Leatxe herri-izena eta **harana** ditugu egungo **Latxarana** [lãčarána]-ren oinarrian:

“ytt en Leachearana una pieza...” (1530)<sup>4111</sup>

Leatxearana El Chaparral eta Mugarana-ren artean dagoen Leatxeko mugako harana da, eta Alto de Leatxearana Leatxearana eta El Chaparral-en arteko gaina. Alderdiko errekarari El Regacho edo Barranco de Leatxearana deritza Morionesen, eta Barranco de Gaiu Leatxen. Iglesia vieja izeneko ermita errekastu honen magalean zegoen (ikus sarrera hau).

**Linar (de Cumba), el:**

Errepide ondoan dago, El Cerrado-ren alboan, Barranco de Leatxearana-n (ikus Odialdea sarrera).

**Linar, huerto del:**

Herri ondoan zegoen.

**Linares, los:**

Linares de la Magdalena-rekin identifikatu behar da.

**Linarico, el:**

Ezporogiko mugan dago, Sotilla oscura-ren ondoan, herri alderago, errekan. Egun baratzeak daude bertan.

**Loya, cabeza del carasol de; río de:**

Loya Moriones, Irangote, Arteta eta Eslabaren arteko herrixka orain despoblata da, eta Río de Loya hortik heldu den ubidea (Loiaerregua edo Loiaerreka):

“otra (pieza)...en el Rio de Loia” (1770)<sup>4112</sup>

Dokumentazioko Cabezo del Carasol de Loya (1775)<sup>4113</sup> oraingo Alto de Jaugia eta lehengo Jaugiburua bera da.

---

4110 PRA-Oibar, 24. k.

4111 Id., 2. k-bis.

4112 Id., 68. k.

4113 Id., 70. or.

**Loiabidea:**

Hemen **Loia** (< *lohia* 'lokatza', antza), herri-izena eta **bidea** ditugu. Erdarazko **Camino de Loya**-ren ordaina da:

“Mas una pieca en Loiabidea...” (1530)<sup>4114</sup>

**Loiaerregua:**

**Loia** herri-izenaz eta **erregua** 'erreka handia'-z osaturik dago<sup>4115</sup> (ikus Leatxe-ko **Erregumaiorea** eta Zareko **Regandia** eta **Errengaitz** sarrerak). Erdal **Río de Loya**-ren ordain euskalduna da:

“Mas en Loja Erregua...una pieca...afrentada...con el Camino de loja...y de la parte baja al rrio q biene de loaia” (1530)<sup>4116</sup>

**Loiaerreka:**

Aurreko hidronimoaren errankidea zen:

“otra pieza...en el termino que llaman Loia erreca” (1723)<sup>4117</sup>

Ubidea handi samarra izaki eta, **erregua** azaltzen da gutiz gehienetan dokumentazioan.

**Loiasaietsa:**

**Jaugiburua** edo **Cabezo del Carasol de Loya**-ko aldapa, hegia zen hau, antza. **Saihetsa** 'lado', 'costado' da hizkera arruntean, baina gure eskualdeko toponimian erdarazko 'costalado', 'costalada'-k duen 'aldapa' adiera zuen (cf., Zareko **Costalado de Dolareta** / **Dolaretasaietsa** pareta, besteak beste. Ikus **Dermio** baten zatiketa atala):

“Mas en lojasaiesa...” (1530)<sup>4118</sup>

**Llano, el:**

**Gorrio**-ko alderdi lau bat izendatzen zuen honek, behialako **Indurainzabala** seguru asko:

“otro campo...en el mismo termino de Gorrio y paraje del llano” (1858)<sup>4119</sup>

4114 Id., 2- k-bis.

4115 Atondo herrian **Erregua** edo **Uerregua** (< *ur* + *erregua*) dugu (J. Jurío, TCPIC, 128. or.), eta Longida ibarreko Meotzen **Erregua**: “Mas otra viña...en Erregua...que afronta con el regacho” (Agoizko hipotekak, 3. liburua, 39. or.). **Erregua** beste batzuetan neurria da ('robo' edo 'robada'), ez erreka, batez ere zenbatzaile batek lagundurik dagoenean.

4116 PRA-Oibar, 2. k-bis.

4117 IEA, 1765. kart., 9. zkia., 1029. or.

4118 PRA-Oibar, 2. k-bis.

4119 PRA-Kaseda, 61. k.

Llanos, los:

Los Llanos herriaren eta errekaen arteko alderdi lauari esaten zaio. Dokumentazioko **Zabala**-ren baliakidea izan daiteke.

**Magdalena (basílica), (ermita), (junto a la), (linares de la), (río de la):**

Ermita hau XVI. mendean dokumentatzen da lehen aldiz, eta geroztik eten gabe aurkitzen dugu agirietan. 1802rako aski egoera kaskarrean zegoen, eta hau zela eta, Igual de Soria apezpiku bisitatzailleak "profanatzeko" agindu zuen (hots, "ermitatasuna", sakratutasuna kentzeko), auzoek berriztatu ezean<sup>4120</sup>. **Río de la Magdalena (Río Madalena)**-ren ondoan dago, Gardelain, Irangote eta Usunbelztik jaisten diren erreken bat egitetik sortzen den erreka handiagoaren aldamenean. Ermitatik hurbil ubide hau **Río de Loya** (behinolako **Loiaerreka** edo **Loiaerregua**)-rekin elkartzen da, eta honi ere **Río Madalena** deritza Morionesen (**Baserrekandia** Ezporogin lehen):

"una pieza en el camino de loya y Junto al Rio de la madalena" (1641)<sup>4121</sup>

**Junto a la Magdalena** ermitaren ondoko alderdia zen, euskarazko **Magdalenaldea** bera:

"dos piezas...en la endrçera llamada Junto alamadalena afrontada...con el Camino Real que ban para Loya" (1584)<sup>4122</sup>

**Linares de la Magdalena** (1530)<sup>4123</sup> beste batzuetan agertzen den **Los Linares**-ekin identifikatu behar da.

Antzina ermita zen hau hilerria da orain.

**Magdalenaldea:**

Esan bezala, erdarazko **Junto a la Magdalena**-ren euskal ordaina zen:

"un linar en la endrçera llamada magdalena aldea Junto al Rio" (1596)<sup>4124</sup>

**Makirriain (barranco de):**

Izen honen etimologiaz ikus **-ain** atzizkiari eskainitako atalean dioguna. Aldaera bat baino gehiago aurkitzen ditugu agirietan: **marquiriayn** (1592)<sup>4125</sup>, **maquirriayn** (1596)<sup>4126</sup>, **marquelayn** (1616)<sup>4127</sup>..., baina arruntena egun **Makirriain** idatziko genukeena da (ikus **Barrankoa**):

4120 Pérez Ollo, EN, 167. or.

4121 PRA-Oibar, 24. k.

4122 Id., 3. k.

4123 Id., 2. k-bis.

4124 Id., 9. k.

4125 Id., 6. k.

4126 Id., 9. k.

4127 Id., 19. k.

“otra pi” en la endrecera llamada maquirriayn...” (1596)<sup>4128</sup>

Dauzkagun lekukoek **Makirriain Gorrio**-n edo **Gorrio** ondoan zegoela erakusten digute, **Iparragerria**-ren alboan, **Agezabidea** edo **Camino de Ayesa**-ri hurrantzen (ikus **Iparragagoiena** eta **Jaun Done Julio** sarrerak), **Martxelaren** gaineko aldean beraz.

Itxura guztien arabera **Barranco de Makirriain** gaurko **Barranco de la Fuente de Carlos** bera zen, edo honen zati bat bederen (ikus **Oreingibela** eta **Oreingibelgaña** sarrerak).

#### Martxela (llano de):

**Martxela** [mařčéla] Ezporogiko mugan dago, eta errekatik **Soroko**-raino hedatzen da. Izen honen etimologia iluna da guretzat, baina agian antroponimoren batekin (**Marcelo**? Cf. **Makirriain**-en 1616ko aldaera) lotu behar genuke<sup>4129</sup>. Ditugun datuetan ikus daitekeenez, behin gutxienez bukaerako -a hori gabe (artikuluaren ez dakigu) azaltzen da, 1610. urtean:

“otra pieza en marchel...y su arboleda” (1610)<sup>4130</sup>

“Mas otra faytia en el termino...y parte llamada Marchela” (1659)<sup>4131</sup>

**Llano de Martxela** (1703)<sup>4132</sup> errekatik hurbileneko alderdia izan zitekeen.

#### Maururia:

Toponimo honetan, beste batzuetan bezala, lekukorik zaharrena aukeratu dugu aldaera batuztat, azaltzen den ia aldi bakoitzean forma zertxobait aldatzen denez gero zaila baita bestelako erabakirik hartzea. 1530ean **Maururia**-rekin<sup>4133</sup> batera **Mauria** disimilatua<sup>4134</sup> eta **Maruria** sinpletua<sup>4135</sup> ere edireten ditugu; aurrerago gardena irudi duen **Maurueroria** azaltzen da (1610)<sup>4136</sup>, gardena irudi ere duen **Mauru yria** (1641)<sup>4137</sup> edo **Mauruyria**-ren<sup>4138</sup> (1650) aldamenean. Azken bi izen hauek herri etimologiari zor dakizkioke, baina jatorrizko formaren ondorengo leialak ere izan daitezke; 1642an aurrekoetatik pittin bat saihesten diren **Marueria**<sup>4139</sup> eta **Maureria**<sup>4140</sup> ditugu.

4128 Id., 9. k.

4129 Oskorzen jatorri bera izan lezakeen **Marquela** dugu 1893ko katastroan, **Markéla** egun. Urraulgoitiko Zabaltzan **Donamarchel** agertzen da 1852an (Agoizko hipotekak, 3, 714. or.): “otra pieza...en el termino denominado Donamarchel”.

4130 PRA-Oibar, 16. k.

4131 Id., 28. k.

4132 Id., 30. k.

4133 Id., 2. k-bis.

4134 Id.

4135 Id.

4136 Id., 16. k.

4137 Id., 24. k.

4138 Id., 26. k.

4139 Id., 24. k.

4140 Id.

Forma guzti hauen azpian **mauru** 'mairu' oinarria egon daiteke eta **eroria** edo **hiria**. Euskaraz ezaguna den **au** > **a** pausoaren ondorioz<sup>4141</sup> (cf. **aulki** > **alki**; **auspo** > **aspo**...) sorturikako **Maru-** ere frankotan agertzen da. **Mauru**, **maru**, **mairu** edo **mairi**-ren presentzia ugaria da euskal mitologian, J. M. Barandiaranen lanak lekuko:

"con este nombre (**mairu**) son designados generalmente tipos de hombres de otro tiempo, no cristianos, es decir, paganos. Hoy todavía **mairu** es uno que no está bautizado, no es cristiano: así, en la región de Garazi llaman **mairu-beso** al brazo de un niño no bautizado o que ha muerto sin bautismo..."<sup>4142</sup>

Toponimian ere ugariak dira **mairu**, **mairi** edo **maru** osagaia duten izenak; Barandiaranek biltzen dituenen artean **Mayrumendia** (Artaxona), **Mairubide** (Maurga), **Mairubaratz** (Oiartzun), **Mairuetxe** (Mendibe), **Maumendi** (Ataun), edo **Maruetxe** (Nabarriz) aipa daitezke (ikus, gainera, Lergako **Malliturri**).

Alfonso Irigoyenek Bizkaiko **Maruri**-rentzat eta Mena ibarreko **Marure**-rentzat **Mauru** 'Mauro' antroponimoa eta **huri** 'hiri' proposatzen ditu, eta daitekeena da aztergai dugun toponimoan ere pertsona-izen hori eta uri-ren ekialdeko kidea den **hiri** izatea. Honela dio euskaltzain bizkaitarrak:

«"Marure, caserío del Valle de Mena, s. XIX", seguramente como **Maruri**, localidad vizcaina, así como también "barrio y torre de Zalla", "tér. de Avellaneda (Sopuerta)", seguramente de **Mauru** + **uri** 'villa de Mauro'»<sup>4143</sup>

**Maururia** eliza baten aurrean zegoen:

"Mas otra pieza en mauru yria enfrente de la yglesia" (1641)

Hau dela eta, egungo **Mugarana** (eta dokumentazioko **Muruarana**) aldean zegoela kontu egin daiteke (cf. **Maururiarana**), baina hau ez da inolaz ere segurua (ikus hurrengo sarrera).

**Maururiarana:**

**Maururia**-rekin batera **Maruriarana** ere azaltzen da:

"otra pieza en maruriarana...que afuenta el mojon de ezporogui" (1596)<sup>4144</sup>

Ezporogiko mugan zegoenez gero, **Muruarana** eta **Mugarana**-rekin identifi-ka daiteke. Kasu honetan, agian, **Maururia** aztertzean ikusirikako eliza Zareko dermioan, Ezporogi eta Morionesko mugan zegoen **Koroagaña**-ko **San Salvador** izan liteke, baina hau Morionesko mugatik urrunxko geldituko zen. Ezporogiko mugan, erreka beste aldean zegoen **Joan Done Julio** ere izan zitekeen aipatu eliza hori. Hemen behialako **Barranco de Oreingaña** edo **Barranco de Makirriain** (egungo **Barranco de la Fuente de Carlos**) dago, eta hortaz, **haran** bat aurkitzea ez da harritzekoa. Ermita ego-teak, beste aldetik, **mauruak** diren izaki mitologikoen presentzia justifika lezake (ikus, dena den, aurreko sarreraren dioguna).

4141 AV, 127. or.

4142 DIMV, 152-155 eta 169. orrialdeak.

4143 "La Lengua de los vizcainos...", ETTVC, 79. or.

4144 PRA-Oibar, 9. k.



**Mazuela, la:**

**La Mazuela** [lâmaθwéla] **Los Llanos** eta herriaren artean dago, errepidearen aldamenean. Jakinaenez, "mazuela" mahats mota bat da (ardantzeta mota bat ere bai), eta dokumentazioan "una viña mazuela..."-ren modukoak ugariak dira. Agezan eta Zaren beste mahats (eta ardantzeta) mota baten izena den **Barués** dermioak ditugu, eta Oibarren **Garnach**.

**Mendizabala:**

Agian erdarazko **Alto redondo**-ren ordaina zen, honetarako Leatxeko **Mendibil** bezalako batek egokiagoa irudi badu ere. Ez dakigu non zegoen:

"Mas en mendiçabala una pieça..." (1530)<sup>4145</sup>

**Mojón de Ezprogui:**

**Muga de Ezprogui**-ren errankidea zen (ikus **Maururiarana**). Bertan **Ollarmendia** zegoen, besteak beste (ikus sarrera hau):

"una faytia...en el termino que llaman mojon de ezprogui" (1659)<sup>4146</sup>

**Mojón de Irangote, el:**

**Santa Finia** eta **Jaugia** dira auzo herri honetako mugako dermioak. Antzina, ordea, **Soka** orain murriztua ere mugaraino iristen zen, 1596ko lekukoa frogatzen:

"otra pi\* en...soca Junto al mojon de Yrangot"<sup>4147</sup>

**Mojón de Leache:**

**Muga de Leache**-ren kidea da (ikus sarrera hau):

"otra pieza en el Chaparral...tente...a mojon del lugar de leache" (1641)<sup>4148</sup>

**Mojón de Loya:**

Oraingo **Muga de Loya** bera da. Dokumentazioan ikusten den bezala, Eslabako bidearekin eta Gorriorekin mugatzen zuten (ikus **Dorreko alorra** sarrera), erreguarekin ezezik:

"la una (pi\*) en la endreçera llamada el mojon de Loya que afrenta...con el Rio" (1592)<sup>4149</sup>

---

4145 Id., 2. k-bis.

4146 Id., 28. k.

4147 Id., 9. k.

4148 Id., 24. k.

4149 Id., 6. k.

**Monte marcado, el:**

Agezako mugako oihana den **El Bosque**-ren zati bat da (ikus sarrera hau). Behetik **Gorrio**-rekin mugatzen du. Toponimo honen inguruan ikus Epaizen dioguna, izen bereko sarreran.

**Monte de Ayesa, el:**

Agezarekiko mugako mendia da, **Gorrio**-ren gaineko aldea (ikus **Iparraga** eta **Iparragerría** toponimoak):

“otra faytia debaxo el monte de ayessa” (1659)<sup>4150</sup>

**Moriones:**

Ez dakigu izen honen azpian zer ote dagoen, herriaren izen euskalduna **Moriones** edo besteren bat zen ez dakigun bezala. Nolanahi ere, ez dugu uste Reta Janárikzek dioen gisan arabiarrek eskualde honetan egon zirelako seinale eta aztarna denik<sup>4151</sup>. Alabaina, eta ildo honetatik, kontuan hartu beharrekoa da **Maururia** (< **Mauru** + **hiria** seguraski) eliza baten aurrean zegoela (ikus sarrera hau), eliza herrikoa ez bazen ere, itxuraz.

Masu Nittaren arabera<sup>4152</sup> **Maurius** edo **Maurus**-en eratorria datekeen **\*Mauriones** izan liteke **Moriones**-en jatorria, eta hau ere bat datorke **Moriones**-ek **Maururia**-rekin zerikusia izan dezakeelako ustearekin. Edozein moduz, ikerlari japonarrak **Moriones morro** ‘saliente que forman los labios abultados’, ‘monte o peñasco saliente pero de una (sic) punta chata’-ren eratorria ere izan daitekeela uste du, Salamankako **morrión** ‘teso prominente en una montaña o sierra’ eta Asturiasko **morrón** ‘señal de piedra para fijar términos’ bezala.

Herri izen honen 1257ko lehen lekukotasunean **Moriones** dugu<sup>4153</sup>, baina 1279rako<sup>4154</sup> geroko dokumentazioan sarritan agertzen den **Muriones** aurkitzen dugu. Aldaera honen bokal itxia agian aurreko herskari ezpainbikoari zorko zaio.

**Muga de Ayesa, la:**

Agezako mendia da, **Moriones**ko dokumentazioko **Iparraga** edo **Iparragerría**, Agezako egungo **El Caracierzo**.

4150 Id., 28. k.

4151 EHZE, 60. or. Honela dio autore honek:

“la toponimia de la zona ha dejado constancia del paso y posiblemente de la presencia momentánea de los árabes en la zona; al norte del valle hay un pueblecito llamado Moriones; en Eslava existe una fuente - muy cerca del antiguo poblamiento romano- llamada «Fuente del Moro», y en Sada se conserva el topónimo árabe «el azute»”.

Toponimian azaltzen diren **maru**, **mauru**, **mairi**... eta hauen zentzukidea den **moro**, **Maruria** aztertzean ikusi dugun moldean, euskal mitologiako pertsonaia ezagunei zor zaizkie, ez arabiarrei berei, izaki mitologiko horien sorreran mauruekiko kontaktua garrantzizkoa izan zela suposa badaiteke ere.

Masu Nittak ere (*Notas lingüísticas...*, 30-31. orr.) Eslabako **Fuente del Moro** aztertzean Retaren ustea gaitzesten du, alegia, ez du uste honelako toponimoak arabiarren presentziari zor zaizkionik.

4152 *Notas lingüísticas...*, 29-30. orr.

4153 Id., 30. or.

4154 NHI, 191. or.

**Muga de Ezprogui, la:**

**Mugarana-tik, Barranco de Zubieroria-ren ondotik, Río de la Magdalena-ra doa, eta hemendik, Martxela-n barrena, Muga de Ayesa-raino:**

“otra pieza en la muga de ezporogui” (1610)<sup>4155</sup>

Antzina orain ezezaguna den dermio bat baino gehiago zegoen alderdi honetan: **Iparraga edo Iparragerria, Oreingaña, Makirriain, Jaun Done Julio...**

**Muga de Irangote, la:**

**Alto de Jaugia-tik (behialako Jaugiburu-tik), Santa Finia-n zehar, Leatxe-ko mugaraino luzatzen da. Ikus, dena den, Mojón de Irangote sarreran esan duguna.**

**Muga de Leache, la:**

**Muga de Irangote eta Barranco de Santa Finia-tik, Ezporogiko mugaraino iristen da, tarte honetan El Chaparral, Leatxearana eta Mugarana daudelarik.**

**Muga de Loya (canto de), la:**

**Alto de Jaugia-tik, Alto redondo-ren paretik, Loiako Barranco de la Fuente de Oneca-ko zuloan barna Eslabako Azterain eta Tastaran-en erdira doa. Canto de la Muga de Loya muga ondoko gainari esaten zaio. Behinola alderdi honetan Udareeztiaga izeneko dermioa zegoen (ikus sarrera hau).**

**Mugarana (alto de), (portillo de):**

**Muga eta harana-z osaturik dagoen toponimo honek Leatxe eta Ezporogiko mugen eta Leatxearana-ren arteko alderdia ematen du aditzera. Leatxe-ko bidea Leatxearana-n zehar doa, baina Mugarana [mugarána]-tik ere igarotzen da, alderdiko atekatik, antza.**

**Mugarana-rekin batera Muruarana ediren dugu, eta gorago aztertu dugun Maururiarana ere (ikus sarrera hau) toponimo beraren aldaera izan liteke. Mugarana-n Alto de Mugarana gaina izateak Mugarana-ren ondoan Muruarana ere agertzea azal dezake, ikusi dugun bezala muru ‘mendia’ edo ‘gaina’ baita (ikus Lerga).**

**Mugaranaportillua:**

**Mugarana alderdiko portilua izendatzen du honek, erdarazko Portillo de Mugarana-k bezalaxe (ikus aurreko sarrera):**

“otra pieza...en el mismo camino que ban los de muriones a leache llamado mugarana Portilloa” (1687)<sup>4156</sup>

4155 PRA-Oibar, 16. k.

4156 PRA-Kaseda, 4. k.

**Muruarana:**

**Mugarana** oraindik biziaren aldaera zen:

“otra pieca en muruarana que afruenta con mojon de leach” (1596)<sup>4157</sup>

**Muruaranbidea:**

**Muruarana** edo **Mugarana**-ra doan bidea izendatzen zuen. Garbi dago **Camino de Muruarana**-ren kidea zela (**Camino de Mugarana**-rena ere bai, antza):

“mas otra pieca en muruarābidea” (1530)<sup>4158</sup>

**Odialdea:**

Izen honetan **hodi** ‘errekastoa’ eta **aldea** ditugu<sup>4159</sup>. **Hodi(a)**, **Mitxelenak** dienez<sup>4160</sup>, latineko **fodere**-ren eratorri baten ondorengoa da, **fodina**-rena ziur asko. **Morionesen Odialdea Zabala**-ko lihoerri bati esaten zitzaion, egungo **Barranco de Leatxearana**-ren ondoko **El Linar**-i seguruenara:

“Primeramente en Cavalea un linar llamada (sic) odialdea” (1610)<sup>4161</sup>

**Oianondoa:**

**Oihan**<sup>4162</sup> eta **ondoa** ditugu hemen. Baliteke **Monte de Ayesa**-ren kidea izatea:

“otra pieca en oyanondoa” (1642)<sup>4163</sup>

**Olibeta:**

Behin bakarrik aurkitu dugu, 1610. urtean, **Alibeta** itxuraz:

“una guerta sobre el lugar llamado Alibeta”<sup>4164</sup>

Irudi duenez, **Olibeta** dugu forma horren azpian, hau da, **olibo** ‘olibondoa’ izena eta **-eta** atzizkia, **Ageza**, **Eslaba** eta **Leatxen** bezala.

Dugun lekukoa zeharo argia ez bada ere, badirudi herriaren ondoko eremu bat zela **Olibeta**, agian dokumentazioko **El Olivar** edo **Los Olivares** bera. **El Cerrado**-n baziren **oliboak**, eta badaiteke aztergai duguna hemen egotea.

4157 PRA-Oibar, 9. k.

4158 Id., 2. k-bis.

4159 Ikus Agezako **Odialdea** sarrera.

4160 AV, 135. or.

4161 PRA-Oibar, 16. k.

4162 Jimeno Juríoren arabera (THET, 144. or.) **oihan** erdarazko **monte** ‘terreno elevado, total o parcialmente cubierto de árboles’ (Tafalla)-ren zentzukidea da (cf. gure alderdian, **Monte de Uxue** / **Uxueko Oihanondoa** Lergan, eta **El Monte** / **Oianondoa** Zaren)...

4163 PRA-Oibar, 24. k.

4164 Id., 16. k.

**Olivar, el:**

Esan moduan, Olibeta-ren kide izan daiteke 1894eko katastroan agertzen den hau.

**Olivares, los:**

Herri ondoan zegoela badakigu:

“huerta con pared en los olivares, y encima de la casa y hera de Aldunate” (1679)<sup>4165</sup>

Esan bezala, Olibeta euskaldunaren ordain izan zitekeen.

**Ollarmendia:**

Hemen, itxuraz, ollar hegazti-izena eta mendia dugu, baina hau ez da inola ere segurua, ollar- hori sarritan oihan izenaren elkarketa-erartoketako aldaera den oihar-en (cf. Oiarzabal, Oiarkoa...) aldakia delako: cf. Itza zendeako Ollargibela, Ollarnausi eta Ollarko, ezbairik gabe Oiargibela, Oiarnagusí eta Oiarko-ren aldakiak direnak<sup>4166</sup>. Abaurrepean ere Oiarkoa eta Ollarkoa erabiltzen dira batera gaurregun, alderdi bera izendatzeko. Aintzat hartu behar da, halaber, aipatu oihan eta mendi edo erdal monte-ren arteko kideatasuna<sup>4167</sup>. Zernahi gisaz, Nafarroako Erriberan El Alto del Gallo ere aurkitzen dugu, eta beraz, Ollar hegazti-izena delako ustea ezin da erabat baztertu.

Ollarmendia Ezporogiko mugan zegoela badakigu, baina ez zein mendi zen:

“Pieza en Ollarmendia afrontada con mojon del termino se Ezperogui” (1679)<sup>4168</sup>

**Oreingaña (barranco de):**

Hemen orein animalia-izena izan genezake, aurrekoan oilarra (ikus, hala ere, sarrera honetan esandakoa) eta beste batzuetan motxilua ‘mozolua’ (Motxilukantoa Agezan), otsoa (Otsazulua, herri berean), astoa (Astabidea, Uxuen), Azkona (Azkonobieta Galipentzun)...eta beste ditugun era berean. Azken herri honetan, gainera, El Salto del Ciervo toponimioa daukagu orain, eta Oibarren Valcervera. Leatxeren muga-kidea den Izkon Oreinzulua aurkitzen dugu 1648an<sup>4169</sup>, eta Lerga eta Bizkaia-ekin mugatzen duen Orbako Oletan Oreinate azaltzen da 1530az geroztik<sup>4170</sup>:

“Mas en oreingaña En la bista del pueblo...” (1530)<sup>4171</sup>

4165 PRA-Elo, 8. k.

4166 Jimeno Jurío, TCPGI, 164 eta 343. orrialdeak. [J] sabaikoa duten aldaerek berri samarrak dirudite, eta lleismoaren ondorioz sortuak dirateke (cf. *oiluke [af]uke[d]ago* Gaintzan. Ikus J. M. Etxebarriaren “Gaintza-zako euskeraren alderdi fonetiko batzuk”, AIO, 125-142. orr.). Eguratsen Ollanko ‘oiharko’ dugu orain. Ikus F. de Leizaolaren “Toponimia del valle de Atez”, liburu bereko 405-421. orr.

4167 Cf. Juan de Beriaynen pasarte hau: “*ceyney eçarri bayçioten buruan coroa errenes eguimicacoa eguitençutela harças escarnio, eta burla, yduquituric burasco Erreguea cela, eta bere soñetan eraman cuena gurutzeta Calvarioco oyane-ra...*”, TCOM, 8-9. orr. Azpimarra gurea da. Toponimian ere maiz aurkitzen dugu, esan bezala, oihan / monte baliokidetasuna.

4168 PRA-Elo, 8. k.

4169 PRA-Oibar, 25. k.

4170 Id., 2. k.

4171 Id., 2. k-bis.

**Gorrio** ondoan (edo barruan) zegoen, Agezako bidearen eta **Barranco de Oreingibela**-ren alboan:

“Pieza en Orengaña afrontada con monte concejil; otra con cuatro pies de fresno en el mismo paraje, afrontada con barranco que baja del lugar de Ayesa” (1679)<sup>4172</sup>

**Oreingibela** (barranco de):

**Orein** eta **gibela**-z osatua dago. Aurreko toponimoarekin zerikusi handia du, dermio beraren beste alderdi bat adierazten baitu. Hemendik igarotzen bide zen **Barranco de Oreingibela** edo **Barranco de Oreingibelgaña** (beheitiagoko **Barranco de Makirriain**, irudiz), gaurko **Barranco de la Fuente de Carlos** bera (ikus **Oreingibelgaña**):

“otra pieza...de la parte de Gorrio que afrontta con camino que ban a Aiessa y...con Barranco que baxa de oranguibela” (1703)<sup>4173</sup>

**Oreingibelgaña**:

**Oreingibela** alderdiko buru edo gaina adierazten bide zuen honek, erreka-ondoko bat:

“Mas en oreinguibelgaña...una faytia...afrontada con el barranco de oreinguibela” (1530)<sup>4174</sup>

**Orozki**, punta de:

**Orozki** izenean, Mitxelenak “zehaztugabekotzat”<sup>4175</sup> jotzen duen \*oro (cf. Oro, Oronoz, Orokieta, Orotz, Orozko, Orozketa...) oinarria izan dezakegu (cf. Zareko Balora), eta atzizki itxura duen -ki (cf. Lergako Zamiki) bukaera (Etxalarren Orizki dugu<sup>4176</sup>). **Punta** generikoak, bere aldetik, ‘puntan bukatu-rikako gaina’ adiera du, Agezako **Puntazorrotza** toponimoan bezala (ikus sarrera honetan dioguna).

**Badakigu Iparraga**-n zegoela, Ezporogiko eta Agezako mugan:

“ytten otra pieça...en la punta de orozqui y endrecera llamada yparaga” (1596)<sup>4177</sup>

**Pajar**, el:

Hau 1894eko katastroan baizik ez dugu aurkitu, eta ez dakigu non zen. Herrian lastategi bat baino gehiago dago gaur.

4172 PRA-Elo, 8. k.

4173 PRA-Oibar, 30. k.

4174 Id., 2. k-bis.

4175 AV, 141. or.

4176 Esparza, DTN, 198. or.

4177 PRA-Oibar, 9. k.

**Pinosaietsa:**

Hemen, itxuren arabera, pino 'leherra' eta saihetsa 'aldapa' dugu. Badakigu **Mugaranaportillua** aldean zegoela, Leatxeko bidearen ezker aldean:

“ytten otra pieca en pino saessa” (1596)<sup>4178</sup>

“otra pieza...en el termino de Pino ssaeza a la izquierda del camino que ban los de moriones a leache llamado mugarana Portilloa” (1687)<sup>4179</sup>

**Plaza, la:**

Beste herri askotan bezala plaza eta pilota-jokua bat-bera dira.

**Portillua:**

Portillua gure alderdian (eta hemendik kanpo ere bai<sup>4180</sup>) erdarazko portilloren ordaina da, beste toki batzuetako ateka, ataka, harrataka, harrate, harrarte (> he-rrarte)...eta besteren kidea, aldeak alde. Jimeno Juríok honela definitzen du:

“Depresión más o menos leve, entre dos alturas, donde un camino ascendente cambia de vertiente e inicia el descenso”<sup>4181</sup>

Ez dakigu **Portillua** (1616)<sup>4182</sup> non zen, baina badaiteke **Mugaranaportillua** bera izatea (ikus sarrera hau eta **Pinosaietsa**).

**Pozo de Zabaleta, el:**

**Pozo de Zabaleta** [θabaléta] **El Arcal** eta **Soka**-ren artean dago, **Camino de Irangote**-n (ikus **Beltzuntzea** sarrera). **Zabaleta** Morionesko norbaiten deitura izanzen zen, edo etxe-izena agian.

**Pozo redondo, el:**

**Sotilla oscura** ondoan dago, **Río de la Magdalena**-n, **El Linarico** eta **El Arcal**-en aldamenean.

**Puente, el:**

Mende honetan bi ziren Morionesko zubiak, biak egur eta lurrez eginak: bata (behialako **Xubingoa** edo **Zubia**) **Loiabidea**-n zegoen, **Río de la Magdalena**-n, eta bestea ondo-ondoan, **Río de Loya**-n. Orain urte batzuk lehena hormigoiz berregin zuten.

Antzina egungo **La Sotilla del Puente** ondoan hirugarren zubi bat zegoela dirudi, **Río de la Magdalena**-n, eta laugarren bat **Agezabidea**-n:

4178 Id.

4179 PRA-Kaseda, 4. k.

4180 Ameskoako San Martin herrian **Bidarmino** portillua dugu 1688. urtean (PRA-Artabia, 4. k.), adibidez.

4181 THET, 161-162. orr.

4182 PRA-Oibar, 19. k.

“cerrado con muchos frutales junto al rio y puente que van a Ayesa” (1679)<sup>4183</sup>

### Quiñones viejos, los:

**Quiñón**-en euskarazko ordainaz eta adieraz ikus Zareko **Kiñueta** aztertzean dioguna (-eta atzizkiari eskainitako atalean eta Zareko toponimiari eskainitakoan). Ki-noak non ziren ez dakigu:

“otra pieza en los quiñones biejos” (1659)<sup>4184</sup>

### Rebote, el:

**La Plaza**-ko herriko pilota-jokua da. Zutik dago oraindik.

### Regacho, el:

**El Regacho** edo **El Rigacho**<sup>4185</sup> **Leatxearana**-ko erreka da, alegia, dermio horretatik **Iglesia vieja** aldera (ikus sarrera hau) jaisten dena, **Odialdea** toponimoan aipatzen den bera (cf. Galipentzuko **El Riacho**).

### Río, el:

Dokumentazioko **El Río** Loiatik heldu den **Loiaerregua** edo **Río de Loya**, **Irangote**-tik heldu den **Río de la Magdalena**, edo bion batzetik sortzen dena (**Río de la Magdalena** hau ere) izan daiteke:

“en los terminos del lugar de moriones llamado camino de loya y Junto al Río” (1641)<sup>4186</sup>

### Río caudal, el:

**Río de la Vizcaya**-ren adierakidea dela dirudi (ikus **Fuente sarrera**).

### Saleras (de Irangote), las:

**Las Saleras Barranco de la Fuente**-ren hasieran dago, **Camino de Eslava** eta erreka-ren artean. **Salera** hauek beste toki askotako euskal **Gatzarrieta**-ren baliokide ditugu (cf. **Leatxeko Gatzarrieta**), ez **Gesal**-enak. 1679an dokumentatzen diren **Saleras Jaugia** aldean zeuden, **Irangote** eta **Morionesko** mugan:

“Pieza en la endrçera llamada Yauguia y Saleras, afrontada con yermos concegiles y cantera de Irangote”<sup>4187</sup>

4183 PRA-Elo, 8. k.

4184 PRA-Oibar, 28. k.

4185 1894eko katastroa.

4186 PRA-Oibar, 24. k.

4187 PRA-Elo, 8. k.



**San Juan (de Rodas), torre de:**

**Dorreko alorra** aztertzerakoan esan bezala, badirudi **torre** hau aipaturiko izen horrek adierazten duenarekin identifikatu behar dela. Herritik hurbil zegoen, erre-pide baten ondoan:

“otra piª Junto la torre de San Juan...afrenta con camino Real” (1592)<sup>4188</sup>

**San Julián:**

Aldi bakar batez aurkitu dugu. Gorago aztertutako **Jaun Done Julio**-ren kidea dateke (ikus sarrera hau):

“ytt en Sanjulian dos faytias de una carga, con su montico q el dho monte es de cinco cargas de tierra en ancharia y largaria” (1530)<sup>4189</sup>

**Santa Agata:**

Agezako udalerriko **Santa Agata** mendi-gailurra da. Morionestik hurbil dago, begi bistan, eta horregatik ezagutzen dute herri honetan. Ohizko forma **Santagata** [sãntagáta] da (cf. Lerga), ez Zaren erabili ohi duten **Santagata** [sãntágata]. Agezan berri-z bi ebakerak bildu ditugu, hiztunaren arabera.

**Santa Finia (barranco de):**

Hagionimo hau **Leatxen** ere erabiltzen da, Irangote eta Morionesen ez ezik, hiru herri hauetako muga aldea adierazten duelarik. Antza denez, lehen alderdi honetan zegoen ermitan du oinarri izenak. Errekari **Barranco de Santa Finia** esaten diote Moriones eta **Leatxen** (ikus **Saleras** sarrera).

Zareko dokumentazioan ere maiz aurkitzen dugu **Santa Finia**, gaurregungo **Santa Eufemia**-ren orde-z (ikus **Zareko** bi sarrerok).

**Santa Magdalena, ermita de:**

**Loiabidea**-ren ondoan zegoen, Usunbeltz, Irangote eta **Leatxetik** jaisten diren errekek sortzen duten **Río Madalena**-ren alboan (ikus **Magdalena** sarrera). Badakigu 1802rako hondatua zegoela<sup>4190</sup>:

“otra pieça Junto a la hermita de santamadalena” (1616)<sup>4191</sup>

**Sarioxarra:**

**Sario** ‘sarohe’ izena eta **zaharra** izenondoa dira beste batzuetan **Sarioxarreta** gisa azaltzen den honen osagaiak. Izenaren balioaz ikus **-eta-ri** eskaini atalean **Sarioxarreta** aztertzean dioguna:

4188 PRA-Oibar, 6. k.

4189 Id., 2. k-bis.

4190 Pérez Ollo, EN, 167. or.

4191 PRA-Oibar, 19. k.

“otra pi\* mas aRiba acia Sario çarra” (1616)<sup>4192</sup>

**Sarioxarreta:**

Aurrekoaren baliakidea da. **Z(arra) / s(arra) / j(arra)** grafien azpian txistukari bizkarkaria eta sabaiurrekoa ditugu. Aldizkatze hau arrunta da elkartuaren bigarren osagaian:

“otra pi\* en sareocarreta” (1596)<sup>4193</sup>

“ytten otra pi\*...en Sario Jarretta” (1616)<sup>4194</sup>

Agezatic Artetara zihoan bidearekin mugatzen zuen, **Soroko-k** bezalatsu, eta beraz **Gorrio** aldean zegoen:

“una pieza en Sareo sarreta...afrentada con el camino de Ayessa al lugar de Arteta” (1680)<sup>4195</sup>

**Senda, la:**

**Ikus Camino de Ayesa a Arteta.**

**Senda de Ayesa, la:**

Gorago ikusi dugun **Camino de Ayesa** edo **Agezabidea**-ren errankidea da, **Iparragaoiena** eta **Soroko-n** gaindi doan bidexka alegia:

“mas en iparragaoiena...una pieza...afrentada a...la senda q ban a ajesa” (1530)<sup>4196</sup>

**Senda de Eslava:**

**Camino de Eslava** edo **Sendero de Eslava** bera da. Antzinako **Dorreko** alorra edo **Dorrekoa-n** barna doa, **Corral de Gorrio-ren** (**Corral de Juan de Moriones** dokumentazioan, itxuraz) paretik (ikus **Dorrekoa** sarrera).

**Senda de Ezprogui, la:**

**Martxela-n** barrena **Ezporogiko** mugara doan bide-zigorra izan daiteke dokumentazioko hau:

“otra pieza...en Gorrio Junto al Rio y Camino o Senda que se ba a ezprogui” (1721)<sup>4197</sup>

---

4192 Id., 19. k.

4193 Id., 9. k.

4194 Id., 19. k.

4195 PRA-Kaseda, 1. k.

4196 PRA-Oibar, 2. k-bis.

4197 Id., 37. k.

**Senda de los Linares, la:**

**Camino del Río** edo **Loiabidea** izan zitekeen, edo honen paretik zihoan xendaren bat. Badakigu, dena den, **Magdalenaldea** edo **Junto a la Magdalena**-n gandi zihoala, eta lihatzeak, ohizkoa denez, erreka ondoan zeudela:

“...en la endreçera llamada Junto a la madalena...afrentada...con el Camino Real que ban para Loya...y...con la senda que ban a los Linares” (1584)<sup>4198</sup>

**Soka:**

Ez dakigu egun [sóka] ebakitzen den honen etimologia zein izan daitekeen, baina XVI. menderako agertzen da:

“Mas en Soca una pieca...” (1530)<sup>4199</sup>

**Río de la Magdalena** eta **La Arbolera**-ren artean dago. Nonbait, antzina Irangoteko mugaraino iristen zen (ikus **Camino** eta **Mojón de Irangote** sarrerak).

**Soroa:**

**Soroa**-k Morionesen ‘alorra’ adiera zuen, Uxuen (ikus herri honetako **Soroandia** sarrera) eta Nafarroako beste toki askotan bezala (cf. **euntze** / **larre** parea). **Agezabidea** ondoan zegoenez gero, oraindik ere bizirik dagoen **Soroko**-rekin identifikatu behar dela irudi du (cf. Lergako **Iguraimendia** / **Iguraimendikoa** baliakideak):

“Pieza en el termino que llaman soroa teniente a camino que ban al lugar de Aiesa” (1723)<sup>4200</sup>

**Soroko:**

Izen honetan soro’ alorra’ (cf. Morionesko bereko **Soroa** eta **Uxueko Soroandia** sarrera) eta -ko txikigarria (cf. Lergako **Areamendikoa**) dituzkegu:

“otra (pieza) en dho termino y paraje que llaman soroco” (1844)<sup>4201</sup>

Zernahi ere den, aipatu hori da toponimo honen dugun lehen lekukoa, eta beraz badaiteke beste zerbaiten desitxuraketa izatea, \*sarioko batena, esaterako.

Egungo **Sorokos** [sórókoś] (1894eko katastroan azaltzen da lehenengoz -s-ez horniturik) Ezporogiko mugan dago, Agezakotik gertu, azken herri honetako bidea (antzinako **Agezabidea**) bertatik igarotzen delarik. Beheko aldetik **Martxela**-rekin mugatzen du. Alderdi honetan **Barranco de la Fuente de Carlos** erreka jaiotzen da, honek, **Martxela** gurutzatu ondoan **Río de la Magdalena**-rekin bat egiten du, **Fuente de Carlos** igaro eta berehala.

4198 Id., 3. k.

4199 Id., 2. k-bis.

4200 IEA, 1765, 9, 1029. or.

4201 PRA-Oibar, 117. k.

**Sotilla, la:**

Erreka ondoko zaldua da, hots, **Río de la Magdalena**-ren bi aldeetako zuhaitzez betetako eremua.

**Sotilla del Puente, la:**

**Fuente de Juanzena**-tik jaisten den erreka **Río de la Magdalena**-rekin batzen den gunean dago xaldutxo hau. Lehen bazen hemen behiak, ardiak eta bestelako aziendak pasatzeko zubia.

**Sotilla oscura, la:**

**Zarebidea** eta **Río de la Magdalena**-ren artean dago, Ezporogiko mugatik hurbil. Zuhaitz, sasi eta laharrez beterik zegoen alderdi hau, eta hortik, agian, iluntzat jotzea (cf. Galipentzuko **Valescura** eta Leatxeko **Río oscuro**). **Sotilla** izen arrunta da Morionesen eta Ezporogin, eta zaldu txikia ematen du aditzera (cf. Epaizko **Sototxikia**, Ezporogiko **Sototxipia** edo Uxueko **Zautelu**).

**Soto:**

**Ardantzexarra** aldean zegoen (ikus sarrera hau).

**Soto de Ezprogui, el:**

Ezporogiko mugan zegoen, herri honetako lurretan:

“Ytt. otra pieça junto al soto de ezporogui” (1530)<sup>4202</sup>

**Tipulatzea:**

**Tipula** edo **dipula** barazki-izena eta **-tzea** ugaritasunezko atzizkia ditugu hemen:

“ytten otro guerto en dipulaça” (1530)<sup>4203</sup>

“un pedaçillo de patio...en la endrecera llamada tipulaça...que afuenta.. con patio y tipulaça de Juan marco” (1591)<sup>4204</sup>

Ikusten den bezala, **tipulatzea** izen arruntzat hartua dago (bigarren aldirian behintzat bai), erdarazko **cebollar** bezala, eta baliteke izen horren pean alderdi ezberdin bat baino gehiago ezkutatzea.

**Torre, la:**

1650eko **Torre** hau<sup>4205</sup>, irudiz, beste batzuetan **Torre de San Juan (de Rodas)** edo euskaraz **Dorreko alorra** toponimo barruan ikusten dugun **Dorre**-ren kidea da (ikus sarrera hau), dorre bera alegia.

---

4202 Id., 2. k-bis.

4203 Id.

4204 Id., 5. k.

4205 Id., 26. k.

**Txaparbazterra:**

**Txapar** ‘chaparro’ eta **bazterra** ditugu leku-izen honetan. Lehenak normalean zuhaitzaz besterik adierazten ez badu ere, hemen beste toki batzuetako **Txaparduia** edo **Txapardia**-ren balioaz erabilia dago, toponimian behin baino gehiagotan agitzen den antzera (cf. **Legarra**, **Kaskallua** eta antzeko toponimioen erabilera). Gauza bera idarokitzen digu zuhaitziko gaina izendatzen duen **Txaparburua** toponimoak (ikus Eslabako **Chaparro** sarreran dioguna):

“otra pieca en la endrecera llamada chapar bazterra” (1596)<sup>4206</sup>

**Txaparburua:**

Erdarazko **El Chaparral** deitu alderdiko gaina adierazten du. **Alto** edo **Cerro del Chaparral** erdaldunen baliokide euskalduna dela garbi dago:

“ytten otra piª...en chaparburua” (1592)<sup>4207</sup>

**Txaparra:**

**El Chaparral**-en ordain euskalduna da (ikus aurreko toponimoak eta **Camino llamado Txaparra** sarrera).

**Txaparralburua:**

**Alto del Chaparral**, **Cerro del Chaparral** eta **Txaparburua**-ren arteko nahasketa dugu hemen:

“otra piª en el chaparral burua...que afuenta con el dco chaparal y mojon del lugar de leach” (1596)<sup>4208</sup>

**Txaparrarana:**

**Txapar** eta **harana**-z osaturik dago. **Soka** eta **gaurko El Chaparral**-en arteko alderdia zen, Irangoteko bidearen aldamenekoa:

“Pieza llamada Soca y Chapar arana afrontada con camino real que ban a Irangote y chaparral” (1679)<sup>4209</sup>

**Txindilatzea:**

**Txindila** ‘dilista’, eta **-tzea**-z osaturik dago (ikus **Fuente** sarrera. Cf. **Zarrakazteluko Txindilamendia**):

“Pieza llamada Chindilacea, que pasan a Yauguia, enfrente la fuente, que afronta con el rio caudal” (1679)<sup>4210</sup>

---

4206 Id., 9. k.

4207 Id., 6. k.

4208 Id., 9. k.

4209 PRA-Elo, 8. k.

4210 Id. Beste leku batzuetan **Zindilatzea** genuen. Cf., esate baterako, Galdioko 1572ko **Çindilaça**, PRA-Lizarra, 4. k.

**Uarka:**

Izen honen osagaiak **ur** eta **arka** dira; erreketan edo erretenetan izaten diren presa modukoak adierazten ditu. Alde honetatik gure eskualdeko euskarazko **Uarka**-k endarazko **Arcal** edo **Azute**-ren baliakideak direla uste dugu:

“ytt en huarca una pieça..afrentada con la barranca” (1530)<sup>4211</sup>

Leatxen eta Zaren ere **Uarka** dugu; Eslaban berriz, **presa** aurkitzen dugu **Presaldea** toponimoan, eta **Lergan errepresa Errepresabarrena**-n.

**Udareztia:**

Toponimo honetan **udare** ‘udareondo’ izena dugu, eta **eztia** ‘goxoa’ izenondoa. Ezbairik gabe **Udareztia**-ren esanahikidea da:

“otra pieza...en Gorrio y termino llamado Udare estia...que afronta...con camino que ban a Eslava” (1703)<sup>4212</sup>

**Udareztia:**

Aurreko bera dela dudarik ez dugu egiten, atzizkia gorabehera. Ikus **Ø / -aga** txandakatzeaz berrekailu hau aztertzen dugun atalean dioguna. **Udareztia** **Loiako** muga zegoela badakigu:

“ytt en udareestiaga en la muga de loa una pieca” (1530)<sup>4213</sup>

**Urrutiko oihana:**

Leku-izen honetan **urruti** oinarria dugu, leku-genitiboaren **-ko** hondarkia, eta **oihana** ‘zuhaiztun mendia’ generikoa. **Urrutia**-k toponimian ‘erreka edo ugaldeaz beste aldea’, ‘urez haraindia’ adiera izan ohi du (ikus Galipentzuko **Urrutia** eta **Leatxe**ko **Urrutiko oihana** aztertzerakoan dioguna); **Morionesen** ere **Urrutiko oihana** erreguaz (**Río de la Magdalena**-z) beste aldeko oihana izanen zen, **Monte de Ayesa** apika:

“otra pieza en el termino llamado Urruticoiana” (1704)<sup>4214</sup>

**Viña de Juanzena, la:**

**Antzinako Ardantzexarra** izan daitekeen hau **Fuente de Juanzena** ondoan dago. **Juanzena** deitura dateke, baina azken hamarkadetan behintzat ez da horrelakotarik izan **Morionesen**.

**Viña de Martín, la:**

**Viña del lugar** ondoan dago; **Martín** pertsona-izena dela bistan dago.

4211 PRA-Oibar, 2. k-bis.

4212 Id., 30. k.

4213 Id., 2. k-bis.

4214 Id., 30. k.

**Viña del lugar, el:**

Gaurregun **La Viña** lugar deitzen den eremua **La Sotilla del Puente**-ren alboan dago. Orain bertan ardantzerik ez dagoen arren, badirudi noizbait horietako bat izan zela. Beste herri askotako **Auzalor** edo **Auzaberro**-ren parekotzat jo behar da **Morionesko** hau, euskaraz **\*Auzardantze**-rik inon aurkitu ez dugunagatik.

**Vizcaya, río de la:**

Bizkaitik jaisten diren errekek bi dira: Irangotetik datorren **Río de la Magdalena** (Usunbeltz eta Gardelaindik datozenen batzetik sortua da), eta Loiatik heldu den **Río de Loya (Loiaerregua)**, eta beraz testuinguruarengatik ez balitz, 1703ko lekukotasunean hauek zein aipatzen den ez genekike. Testuinguruak, alabaina, Irangotetik jaisten dena dela idarokitzen du (ikus **Beltzuntzea** sarrera).

**Xubingoa:**

Izen hau zubi hitz arruntaren txikigarria da, garai batez hedadura handikoa gure alderdian (ikus **Eslabako Xubingoa** aztertzean dioguna) eta hemendik kanpo. Antza duenez, **Loiabidea**-ko xubirtoa izendatzen zuen:

“mas otra piª Junto a Subingoa...afrentada con..el Camº Real que ban a Loja” (1584)<sup>4215</sup>

**Zabala:**

**Zabala**-k eremu zelaia, laua, adierazten du, zelaitasun-maila batetik bestera asko alda badaiteke ere. Egungo **Los Llanos**-en adierakidea dela dirudi:

“otra pieza en moriones en zabala” (1530)<sup>4216</sup>

**Zarebidea:**

Hemen **Zare** herri-izena eta **bidea** ditugu. Garbi dago erdarazko **Camino de Sada**-ren baliakidea dela:

“mas otra pieca en carebidea...afrentada con...camino q ban a Sada y con el rrio de la parte baja” (1530)<sup>4217</sup>

**Zarebidea** edo **Camino de Sada** oraingo errepide bera zen hein handi batez, baina ez osotara. Izan ere, gorakoan, Ezporogiko muga igaro eta berehala **bidea** oraingo **bideberria** baino pixka bat goragotik zihoan (eta doa, ezabatuxe egonagatik ere).

**Zarebidegaña:**

**Zarebidea**-ren gaineko aldea izendatzen zuen:

---

4215 Id., 3. k.

4216 Id., 2. k-bis.

4217 Id.

“ytt otra pieca en çarebidegaña afrontada de parte baja con camino que ban a Sada” (1530)<sup>4218</sup>

### Zubialdea:

Leku-izen honetan zubi arrunta eta aldea ‘alderdia’ ditugu, erakutsian dagoenez (cf. Eslabako Zubialdea). Xubingoa-ren ondoko alderdia zen:

“Pieza que llaman Zubi aldea, afrontada con camino real que ban a Loya” (1679)<sup>4219</sup>

### Zubieroria (barranco de):

Zubi izen arrunt toponimian ugaria, eta eroria partizipio adjetiboa ditugu hemen:

“ytten una pieza...en çubieroria” (1610)<sup>4220</sup>

Barranco de Zubieroria (**Barranco Ziruria** [θiruría] orain Morionesen, **Zabiruria** [θab̄iruría] Ezporogin) Leatxe, Ezporogi eta Morionesen arteko mugan hasten da, eta antzinako **Baserrekandia**-n amaitzen. Leatxen (**Puente de**) Zubieroria ((**Puente**) zibidoria [θ̄iβ̄id̄órja]) dugu<sup>4221</sup>.

---

4218 Id.

4219 PRA-Elo, 8. k.

4220 PRA-Oibar, 16. k.

4221 Beste alderdi bat adierazten du honek, halaz ere.



## 17. UXUEKO TOPONIMIA

### Abadía, pieza de la:

1537an dokumentatzen den alor hau<sup>4222</sup> non zegoen ez dakigu. Agian **Piezas de la Abadía** direlakoetako batekin identifikatu behar genuke.

### Abadía, piezas de la:

Hauetako bat **Paso de Apeztegi**alorra-ren ondoan dagoen oraingo **Pieza de los Curas** da. Euskaraz **Apeztegi**alorra esaten zitzaiola garbi ikusten da lekukotasun honetan:

“unas piezas..en apeztegui alorra...afrentada...a piezas de la Abadia” (1593)<sup>4223</sup>

### Abaiz (rincón de):

Epaiz edo **Abaiz** herrixkarekiko fazeriatzat har liteke, baina agiriak garbi adierazten dute **Uxuekoa** dela:

“un olibar...en el termino de la dha villa y en el llamado Abaiz” (1618)<sup>4224</sup>  
“mas las piezas del rincon que llaman abaiza” (1696)<sup>4225</sup>

Bi lekukotasun hauek fazeria ez dela argi samar adierazten dute, fazeria edo fazeroak normalean aziendak larretzeko erabiltzen diren larre-lurrak izaten direlako. 1667ko lekukoak **Busa** aldean zegoela erakusten digu:

“una viña en el termino de Bussa o Abaiz”<sup>4226</sup>

---

4222 PRA-Oibar, 2. k.

4223 UEA, 14. kap-lib., 126. or.

4224 PRA-Kaparroso, 21. k.

4225 PRA-San Martin, 7. k.

4226 UEA, 13. kap-lib., 160. or.

Beste batzuetan bezala, mugatzailez hornituriko nahiz mugatzailek gabeko aldaerak aurkitu ditugu oraingoan ere (cf. **Aquirra cabala** (1609) / **Aquiraçabal** (1588); **Artabacoyza** (1633) / **Artebacoiz** (1677))...

**Abaiz(a)**-ren jatorria latineko **abbas**-en bilatu beharra dago, batetik bestera-ko pausoa arazorik gabea ez izenagatik ere (ikus **Epaizko Abaiz** sarreran dioguna).

#### **Abaizko zuloa:**

**Abaiz** toponimoa, -ko leku genitiboaren hondarkia eta **zuloa** generikoa bide ditugu hemen. Alabaina, behin bakarrik aurkitu dugu, eta ez oso modu argian:

“ytten otra p<sup>a</sup> en abayzcuculoa” (1602)<sup>4227</sup>

Ongi irakurria badago aurreko **Abaiz(a)** horrekin erlaziona liteke, edo agian **Epaiz** herriaren eta **Uxueren** arteko **Fazeria**-rekin. Hondar hau ikusi duenak badaki mendiz inguratutako zuloa dela, eta beraz **Abaizko zuloa** izen egokia izan daiteke. **Epaiz** barruko baina **Uxueko** mugako egungo **Hoya de Burunda** ere izan liteke.

#### **Abejera, la:**

**Aldabea de Aitzandieta**-n dagoen erlategi zaharra da hau.

#### **Abengoa:**

Behin bakarrik ediren dugu, 1630ean<sup>4228</sup>, eta **Abuñaaga**-ren desitxuraketa izan daitekeela uste dugu.

#### **Aborral:**

**Uxuen Aborral** eta **Corraliza** hitzek kontzeptu ezberdinak bideratzen dituzte: lehenean artaldeak irailan sartu eta maiatzaren azken egunetan ateratzen dira; bigarrenean, aldiz, hilabete gehiago luza dezakete egonaldia. Egun saltzen diren belar guztiak “corraliza”-k dira, baina duela urte batzuk arte “aborral” eta “corraliza”-tan banatuak zeuden. “Aborral”-ak hauek ziren: **Txutxu alto** eta **Txutxu bajo**, **Andiaga**, **Cuartochiguito**, **Aristuziaga**, **Carasolalto**, **Carasolbajo**, **Sulue**, **Urteaga**, **Santa Fe**, **Santakaramuru**, **Medios**, **Bigas**, **El Pinar**, **Los Berros**, **Lakumulatu** eta **Lerbeltz**.

“Corralizak” garestiagoak ziren, eta zezaketen abeltzainek erosten zituzten. Hautan belarra finagoa zen, eta aziendak bertan beste hilabete batez egon zitezkeenez gero, axuriak haziago egoten ziren Mendialdera (**Zaraitzu** aldera bereziki) abiatzeko garaia iristen zenerako. “Aborral”-a hartzen zuten Mendialdeko artzain batzuk ekainean **Bardeara** jaisten ziren, goiti igotzeko goizegi izaki eta.

4227 PRA-Oibar, 10. k.

4228 PRA-Kaparroso, 33. k.

**Abuñaga (alto de), (balsa de), (pueyo de), (val de):**

Izen honen etimologiaz ikus **-aga** atzizkiari eskainitako atalean dioguna. Gaurregungo **Muñaga-k** [muñága] **La Sierra**-ko eremu txiki bat izendatzen du. Muri-lloko bideberriaren ondoan dago, **Santa Maria la Blanca**-tik ez oso urrun, **Urteaga-n**, **Basandia**-ko mugan, **Portillo de los Bojes-i** hurrean:

“ytten en Abuñaga dos pedaços...tenientes a piezas de Pedro desparca y Camino de Sulue” (1634)<sup>4229</sup>

Usteltze prozesua zein izan den 1622ko **Buñaga**<sup>4230</sup> aldakiak erakusten digu: lehenik hasierako **a**-ren aferesia burutu dateke, eta gero **b > m** pausua (edo nahasketak)<sup>4231</sup>.

1766ko **Alto de Abuñaga** idoiria iritsi aitzinetik **Carretera de la Sierra**-n dagoen **Portillo de los Bojes**-koa izan zitekeen, inguruetan ez baita besterik, eta 1594eko **Pueyo de Abuñaga**-rekin identifikatu behar dela dudarik ez da (ikus **Camino del Pueyo de Abuñaga** sarrera). Nolanahi ere, ez dakigu bertan agertzen den fazeria zer izan daitekeen (**Abuñaga** bera?):

“una pieza...sitta en el alto que llaman de Abuñaga, que afronta a pieza de...y fazeria” (1766)<sup>4232</sup>

Gaurregungo **Balsa de Muñaga Balsa de Abuñaga** zen 1588an, eta hortaz, beldurrik gabe esan dezakegu idoi zaharra dela, gutxienez lauhun urte bai baititu:

“otra pieça en la balsa de abuñaga”<sup>4233</sup>

**Val de Abuñaga** zein zen ez dakigu, baliteke **Basandia** aldera dagoen zulo modukoa (errepidea gainetik igarotzen da) izatea, baina hau ez da inolaz ere segurua:

“ytten en abuñaga dos pedazos de dos robadas teniente a piezas de Pedro desparza y Camino de su bal” (1634)<sup>4234</sup>

**Adobería, la:**

**Adobería**-ren esanahiaren inguruan ikus **Lergako** izen bereko sarrera. Herriaren aldirietan zegoen, **Aitzandiet**a eta **La Sierra**-ko bideen ondoan:

“otra pieça.. debajo de la Adoberia en la aldabea que afronta con caminos q. se ba a la sierra y Anzandiet” (1768)<sup>4235</sup>

4229 IEA, 345. kart., 13. zkia.

4230 PRA-Kaparroso, 28. k.

4231 1892ko katastroan **Anmuniaga** dugu, baina hemen azaltzen diren izenetako asko erabat itxuragoiztorurik daude, eta ez dugu uste aldaera hau aintzakotzat hartu behar den.

4232 PRA-San Martin, 47. k.

4233 PRA-Oibar, 4. k.

4234 IEA, 345. kart., 13. zkia.

4235 PRA-San Martin, 48. k.

Herriko Coseras-en barruan zegoen:

“una cassa que es doberia...situada en la dicha villa y dentro de las cosseras de ella”  
(1617)<sup>4236</sup>

**Adoberías (barrio de), las:**

**Barrio de las Adoberías** dokumentazioan beste batzuetan **Barrio** edo **Calle del Buzakao** itxurapean azaltzen den bera da, hots, eskolen ondoko etxe zaharrek osatzen dutena:

“media casa...en esta villa, y varrio de las Adoverias” (1791)<sup>4237</sup>

**Aguilar (aborral de), (aldabea de hacia), (aldabea de la parte de), (alto de), (balsa de), (barranco de), (cantera de), (monte de), (portillo de), (vedado de):**

Nafarroako toponimian oso arrunta da leku-izen hau, eta gure alderdian ere behin baino gehiagotan aurkitu dugu<sup>4238</sup>. **Aguilar**-en izen euskaldunaz ikus **Akirazabal** sarrera:

“...en la endrecera llamada aguillar” (1588)<sup>4239</sup>

Esperatzekoa zenez, **Aguilar** mendia da, zehazkiago esan, mendi baten gailurra eta isuralde bat. Mendi hau herriari begira dagoen oraingo **Alto del Guarro**-ren<sup>4240</sup> (behinolako **Urkamendia**, itxura guztien arabera) eguzkialdea da.

XVIII. mendez geroztik **Aguilar alto** eta **Aguilar bajo** bereizten dira, lehenak **La Cruz**-etik hurbilen dagoen eremua adierazten duela, eta bigarrenak hegoaldekoa, **Santa Fe** aldera dagoena. Bi zati hauek “corraliza” edo “aborral”-tzat hartzen dira XIX. mendean (ikus oraingo egoeraz **Corraliza** sarreran dioguna). **Aguilar alto** auzoen azientzat altxatua zegoen, **Dorrondiaga** eta **Erripazarreta**-ren arteko **El Vedado** bezala:

“yt una biña a. affr. con...el bedado de Aguilar” (1569)<sup>4241</sup>

“el aborral de la parte alta de aguilar que es sotto Boyeral de los vecinos” (1794)<sup>4242</sup>

**Portillo de Aguilar** **alto** **Alto del Guarro**-ren aldamenean dago, **Carretera de la Sierra**-n, **Sulunbatezoko** (**Zonbolozoko** orain) gainean. **Portillo de Aguilar bajo** **Santa Fe**-ra iritsi aitzin, **Makarreta** aldera doan lasterbidea hartzen den puntuan dago, **Carretera de la Sierra**-n hau ere. 1828an hauetako edozein izan zitekeen **Portillo de Aguilar** dokumentatzen da<sup>4243</sup>.

4236 PRA-Kaparroso, 2. k.

4237 PRA-San Martin, 61. k.

4238 Agezan **Aguilar** [äkilár] dugu, eta Galipentzun elementu honetaz beronetaz horniturik dagoen **Bartiquilar** [bärtikilár]. Erromantzeko **Aguilar**-en ordain euskaldunetz ikus aipatu bi sarrera horietan dioguna.

4239 PRA-Oibar, 4. k.

4240 1894eko katastroan azaltzen da lehen aldiz.

4241 PRA-Oibar, 2. k-bis.

4242 PRA-San Martin, 63. k.

4243 Id., 86. k.

1717ko Aldabea de la parte de Aguilar<sup>4244</sup> edo Aldabea de hacia Aguilar<sup>4245</sup> Aitzandieta-ko Aldabea da, Larziaga aldea, Aguilar-ez beste aldeko mendi mazelaz, iparragerria. 1708ko Alto de Aguilar<sup>4246</sup> gaurko Alto del Guarro eta behinolako Urkamendia bera da, itxuraz (ikus sarrera hau). Alderdiko idioia orain Balsa del Veterinario deitzen dena dela dirudi. Lehen, halere, bazegoen orain desagertu den beste idoi bat Aguilar-en, eta agian azken hau izanen zen dokumentazioan aipatzen dena<sup>4247</sup>.

**Barranco de Aguilar**<sup>4248</sup> Aguilar-en sortu, eta Santa Fe eta Pipiratu dermioetako errekaekin bat egin ondoren Akirazabal, Busa eta Otrillos gurutzatu eta Pitillasko lurretan sartzen den erreka da. Erreka honek zeharkatzen dituen dermio guztien izenak hartzen ditu, aldian bat, jakina: **Barranco de Akirazabal, Barranco de Busa, Barranco de Otrillos**.

1743ko Cantera de Aguilar ezezaguna da orain<sup>4249</sup>, baina Aguilar-en goiko aldea adierazten duela kontu egin daiteke. Monte de Aguilar izenarekin Aguilar osoa, goikoa eta behekoa, ematen da aditzera orain, lehen bezalaxe:

“ytten que en dho Monte de Aguilar asi en la parte alta como en la Baja Puedan llenar conforme ba el camino de Olite asta el Portillo de Sto Domingo...” (1748)<sup>4250</sup>

Urangaren arabera 1817an labakitu zuten mendi hau, Txutxu, Pipiratu eta besterekin batera<sup>4251</sup>. Gure egunotan biak izendatzeko Los Aguilares ibili ohi da, Galipentzun Aurino alto eta Aurino bajo aditzera emateko Los Aurinos esaten den era berean (ikus Galipentzuko Aurino sarrera).

**Aguilar alto (corraliza de), (aborral de), (portillo de); Aguilar bajo (corraliza de), (portillo de); Aguilares, los:**

Ikus aurreko sarrera.

#### Aitzandia:

**Haitz eta handia** ditugu leku-izen honetan. Behin bakarrik aurkitu dugu, 1606an, eta Aitzandieta-ren kide dela irudi du:

“la una (pieça) en la endreçera llamada de ayçandia...y la otra pieca en aycandiera”<sup>4252</sup>

4244 Id., 31. k.

4245 Id.

4246 Id., 28. k.

4247 Id., 6. k., 1690.

4248 Id., 50. k.

4249 Cantera, canto edo cantón ez dira ibiltzen Uxueko gaurko toponimian. Halarik ere, cantera hitza ezaguna da herri honetako hizkera arruntean.

4250 IEA, 1618. kart., 10. zkia.

4251 UM, 81. or.

4252 PRA-Oibar, 12. k.

**Aitzandieta (aldabea de), (barranco de), (barrio de), (caracierzo de), (carasol de), (fuente de), (puente de), (rincón de):**

**Haitz, handi eta -eta-z** osaturik dago aurrekoaren kide zehatza bide den hau. Toponimo honen arrazoi **Barrio de la Peña**-n dagoen haitza dela uste dugu: hastean herri ondoko alderdi bat eta auzo bat zena, alde horretako, hego-mendebaldeko **Aldabea** osoa izendatzera igaroko zen gero:

“ytten otra pi<sup>a</sup> en çubi chiqui o aycandieta” (1593)<sup>4253</sup>

“una viña en el termino de aycandieta” (1632)<sup>4254</sup>

1854ean **Aldavea de Arizandieta** aurkitzen dugunez gero<sup>4255</sup>, **Aitzandieta**-ren oinarrian **haitz** ‘harkaitz’ gabe, **haritz** zuhaitz-izena daukagula kontu egin daiteke. **Arizandieta**, alabaina, behin bakarrik azaltzen da eta oso berandu, eta gure ustez proposaturako etimologia da zuzena. Gainera, bat baino gehiago dira **Aldabea** honetan **haitz** edo **peña** osagaia duten toki-izenak (**Aizketa, Arteko haitz...**). **Haritz-dunik, ordea, ez dago.**

**Aspaldi samarretik, egun bezala, erreperkusioz sortutako Anzandieta** [ànθandjéta] erabili izan da, jatorrizko **Aitzandieta** gardenaren kaltetan:

“otra pieza donde la puente de anzandieta” (1680)<sup>4256</sup>

1771n agertzen den **Anchandieta** euskal ebakeraren isla garbia da, alegia, **Antzandieta** baten gutxi gorabeherako transkribaketa. Ahoskera honek, antza duenez, XIX. mende arte iraun zuen, 1805eko **Barrio de Anchandieta**-n ikus daitekeen moduan:

“un pagar...sito estramuros de esta villa, y debajo del barrio de Anchandieta” (1805)<sup>4257</sup>

**Anzandieta eta Antzandieta**-rekin batera, **Azandieta** ere erabili izan da aspaldi samarretik, eta egun ere bizirik dago ([àθandjéta] ebakitzen da):

“ytten una pieza en el tiemblo varranco de Azandieta” (1786)<sup>4258</sup>

(**Aldabea de**) **Aitzandieta**-k **Tejeria** edo **Bidemakurra**-tik **Basandia**-raino luzatzen den erreka sakona eta honen bi aldeetako mendi mazelak ematen ditu aditzera, hots, iparragerria (**Caracierzo de Aitzandieta**) eta eguzkialdea (**Carasol de Aitzandieta**); **Barranco de Aitzandieta Fuente de la Tejería**-n hasi eta **Basandia** eta **Sulue**-ko erreken ura jaso ondoren **Turtunbera, Txorria, Aliaga, Ollatu** eta **Dorrondiaga**-tik heldu denarekin elkartzen da, **Aragoa** ugaldean ura isuri aurretik. Dena den, hasierako zatiari **Barranco de Larziaga** esan ohi zaio eskuarki (ikus **Larziaga** sarrera).

4253 Id., 7. k.

4254 PRA-kaparroso, 57. k.

4255 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 63. or.

4256 PRA-San Martin, 4. k.

4257 Id., 72. k.

4258 Id., 57. k.

**Barrio de Aitzandieta** izena gaur ez da ibiltzen, baina **Barrio de la Peña** delakoaren bertsio euskalduna izan zitekeen (ikus gorago); **Fuente de Aitzandieta** errekan dago, herritik **Santa Fe**-ra doan bidearen alboan. Aurrerago ikusiko den bezala, bide honi **Camino de la Fuente** izena ematen zaio. Euskaraz **Iturria**, **Iturrialdea** eta **Iturriberri** dugu, **Iturritzarra**-z landara, eta daitekeena da hauetako bat **Aitzandieta**-ko iturri hori izatea, **Iturriberri** agian:

“Dos piezas en la aldabea en yturriberri” (1667)<sup>4259</sup>

“Enzima de la fuente de anzandieta” (1714)<sup>4260</sup>

**Puente de Aitzandieta** **Puente de (el Camino de) la Sierra** bera dela dirudi, hots, euskarazko **Zubia** edo **Zubitxikia** (ikus bi sarrera hauek). 1730eko **Rincón de Anzandieta**<sup>4261</sup> herri ondoan, **Camino de la Fuente** eta **Camino de la Sierra** bereizten diren gunean dagoen izenik gabeko zokoa dateke. Guztiarekin ere, **Rincón de los Cerrados**, **Rincón de Muelas** edo **Rincón de Sulunbatezoko** ere izan liteke, baina hauek zaharrak dira<sup>4262</sup> eta izendunak, eta beraz errazagoa deritzogu proposatu dugun hori izateari.

Dermio handia izaki, bere barruan bazituen eta baditu beste azpidermio batzuk, txikiak gehienak: **Arteko haitz**, **Iturriberri**, **Sulunbatezoko**, **Zubia**... baina horren txikia ez den bat edo beste ere bai, hala nola **Larziaga (Aldabea, Barranco, Caracierz, Carasol, Fuente, Paso**... Ikus sarrera hau).

**Aizkanbela (barranco de), (fuente de), (paso de):**

Izen honen 1604eko **Ayzcanbela** aldaerak garbi erakusten du lehen osagaia **haitz 'harri'** dela. Elementu hau behin **Aez-** idatzia aurkitzen dugu:

“una pieza en ayzcanbela” (1604)<sup>4263</sup>

“otra pieza...en el termino de Aezcambela, Junto a la dha villa” (1694)<sup>4264</sup>

XVIII. mendeko agerraldi guztietan **Aiz-** dugu, aipatu lehen lekuko horretan bezala:

“ytten una pieça...en el barranco de aizcanbela” (1725)<sup>4265</sup>

“Mas otra pieza...en el termino de aizcanbela qué afronta con...fuente que llaman de aizcanbela” (1730)<sup>4266</sup>

**Ai-** diptongoaren monoptongaketaren ondorioa den **Es-** edo **Ez-** ere oso goiz agertzen da (cf. **Hayzquieta** 1602an, **Esqueta** 1605ean, **Ezqueta** 1631<sup>4267</sup>): **Escanbela**

4259 IEA, 13. kap-lib., 161. or.

4260 Id., 194. or.

4261 PRA-San Martin, 33. k.

4262 Berriena aurrenekoz 1797an azaltzen den **Rincón de los Cerrados** izenekoa da.

4263 PRA-Oibar, 11. k.

4264 IEA, 1343. kart., 5. zkia.

4265 PRA-San Martin, 32. k.

4266 Id., 33. k.

4267 Monoptongaketa hau bakarrik herskari belare ahoskabearen aitzinean burutu dela dirudi, **Aitzandieta**-n adibidez, ez baitugu sekulan horrelakorik aurkitu. **Aizpeaga**-ren kasuan ere ez dugu **\*Ezpeaga** edo **\*Espeaga** bezalako ezer ediren, hemen murrizketa **aiz-** > **az-**, **as-** izan delarik. Hitz barruan ere ez da agertzen: **Arteko haitz** > **Artokaiz**; **Zapaiz**...

(1618)<sup>4268</sup>, **Ezcanbela** (1688)<sup>4269</sup>. Es-dun aldaera erromantzearen eraginari zor dakioko, ezaguna baita honek herskari ahoskabeen aurrean (k eta t-ren aitzinean) z > s egiteko duen joera (cf. **Badoztain** > **Badostain**, **Ezkirotz** > **Eskiroz**), baina kasu honetan euskararen barruko bilakabidea izan daiteke, hizkuntza hau Uxuen oraindik bizirik zegoelarik aurkitzen baitugu. Bigarren osagaia toponimian oso hedatua dagoen **ganbela** 'aska' dugu, eta beraz, **Aizkanbela** 'harrizko aska', 'harraska' besterik ez da: cf. Ameskoako limitazioetako **Arganbela** (< **harri** + **ganbela**<sup>4270</sup>), Itza zendeako **Ganbelatxo** (Atondo)<sup>4271</sup>, **Ganbela** (Lete)<sup>4272</sup> eta **Ganbelazoko** (Otxobi)<sup>4273</sup>... **Ganbela** hitzean mb multzoa sekundarioa dela garbi ikusten da, jatorria latineko **camēlla** 'escudilla, game-lla'-n<sup>4274</sup> baitu (ikus **Lakumulatu** eta **Santakaramuru sarrerak**<sup>4275</sup>. Cf. Galipentzuko **La Gambella**)

**Gaurko Eskanbela** [èškambéla] edo **Ezkanbela** [èθkambéla] **Aldabea de Turtunbera**-ren bukaeratik **Txorria**-tik datorren errekaekin biltzen den guneraino hedatzen da. **Barranco de Aizkanbela**-k berriz, aipatu pausu horretatik **Aliaga**-rainoko zatia ematen du aditzera.

Dokumentazioko **Fuente de Aizkanbela** ezezaguna da egungo egunean, eta badirudi noizbait ahitu egin zela. **Paso de Aizkanbela** alderdiko errekan dago, Uxuetik **Mugazuria**, **Aristuziaga**, **Zaldunaga** eta **Galipentzura** doan bidean. Antzina **Barranco de Villantigua**-n, pausuan bertan edo pausutik hurbil, zubia zegoen (ikus **Villantigua sarrera**).

#### Aizketa:

Hemen **haitz** 'harkaitz' izena eta -eta leku-ugaritasunezko atzizkiaren aldaera den txistukari ondoko<sup>4276</sup> -keta dirugu. Aurreko izenean bezala, **Aiz-** > **Ez-** > **Es-** bilakera gertatu da, eta lehen lekukoa 1602ko **Hayzquieta** bada<sup>4277</sup>, 1605erako **Esqueta** dugu<sup>4278</sup>, 1631n **Ezqueta**<sup>4279</sup>, eta 1634ean **Ezquieta**<sup>4280</sup>.

4268 PRA-Kaparroso, 21. k.

4269 IEA, 956. kart., 6. zkia.

4270 B. García de Albizu, "toponimia de las limitaciones", III. *Onomastika Jardunaldiak*, argitarara gabeko lana.

4271 J. M. Jimeno Jurfo, TCPCI. Honela dio autoreak: "Al S. del pueblo y de Soto chiqui. Debe el nombre a una fuente y «aska» situadas junto a la carretera de acceso al lugar" (128. or.).

4272 Id., 224. or.

4273 Id., 266. or.

4274 Corominas, DCECH.

4275 Gauza bera gertatzen da, esaterako, latineko **camara**-tik heldu den **ganbara** 'gela', 'sabaia' hitzean. Honek, **ganbela**-k bezala, badu erromantzeko mb-dun baliokiderik.

4276 Alabaina, ez da derrigorrezkoa txistukari bat izatea -keta edo -kieta ager dadin. Ikus honetaz -eta atzizkiari eskaini atala.

4277 PRA-Oibar, 10. k.

4278 Id., 12. k.

4279 PRA-Kaparroso, 34. k.

4280 IEA, 345. kart., 13. zkia.



Aizketa Lakumulatu eta Kastillu-ren artean zegoen, Basandia eta Sulue-tik datorren bidearen inguruan. Bertan badira haitz handi batzuk, egun Canterica de las Piedras deritzan gaintxoan (ikus sarrera hau), Basandia-tik Sulue-ra zihoan bide zahar oraindik ezagunean, eta gure ustez ez dago arazorik Canterica de las Piedras hori Aizketa-rekin identifikatzeko:

“ytten una pieza en Ayzquieta...afrentada...a camino que ban a la sierra” (1631)<sup>4281</sup>  
 “seis Rovadas de tierra...en el terno de lacunbelatu, donde dicen Ezquetta” (1781)<sup>4282</sup>  
 “ytem en el termino de castillu, ó Ezqueta un corral...” (1791)<sup>4283</sup>

#### Aizpeaga (rincón de):

Hemen haitz ‘harkaitz, harri’, -pe- ‘behe’, ‘azpi’, eta -aga ditugu:

“ytten otra pieça...en ayzpeaga” (1588)<sup>4284</sup>

Orain ezezaguna den honek Turtunbera eta Galaputzu artean behar zuen, Lergako bidea eta Altxunbidea bertatik igarotzen baitziren<sup>4285</sup>:

“Mas otra Pieza...en el Rincon de Azpiaga...que afrontan...al camino de Lerga, a la cañada” (1789)<sup>4286</sup>

#### Akirazabal (barranco), (barranquilla de la torre), (carasol de la torre), (corraliza):

1534eko Uxueko despoblatuen zerrendan<sup>4287</sup> Equyra cabal ageri da, geroko dokumentazio ia guztian Akirazabal(a) edireten dugunagatik:

“una viña...en el termino llamado aquira cabala” (1609)<sup>4288</sup>  
 “Mas una viña...en el termino de Aquira Cabal...” (1654)<sup>4289</sup>

Egun Lakilazaba [lakilaθáβa] edo Lagilazaba [lagilaθáβa] esaten zaio.

Dorrea duela urte batzuk arte aise bereizten zen, baina orain lur arras dago, bere harri ederrez ondoko gorteak egiteko edo berritzeko baliatu baitira uxuetarrak. Dorrearen inguruan “corraletto”-ak (zaharkinak) ikus daitezke, bai eta inguruko ar-dantzeetan harri mukuru handiak. Despoblatua zegoen tokiari La Torraza esaten zaio oraindik, gaurregun dorrea zeharo hondatua dagoen arren.

4281 PRA-Kaparroso, 34. k.

4282 PRA-San Martin, 55. k.

4283 Id., 61. k.

4284 PRA-Oibar, 4. k.

4285 Lergako bide eta altxonbide horiek ez dira gaurregun Lergakoak Uxuera etortzen diren Txutxu-ko bidea, Turtunbera-tik, Portillo de las Pilas-en barrera, Paso de las Pilas-a doan altxonbidea baizik. Hemendik goiti egingo zuten uxuetarrek Lergara joateko, Andiaga-n barrera (ikus Camino de Lerga sarrera).

4286 San Martin, 59. k.

4287 NAO-Comptos, 550. zkia.

4288 PRA-Oibar, 13. k.

4289 UEA, 14. kap-lib., 17. or.

Etimologia garbia da: latineko aq(u)ila 'arrano'-tik atera den **akira**<sup>4290</sup> (l > r pausoa arrunta da gure hizkuntzan) dugu, eta **zabala** ezaguna, hau da, **Aguilar** (cf. **Aguilar** [akilār] Agezan eta **Bartiquilar** < **Bartaquilar** Galipentzun) dermio menditsua zabaltzen eta zelaitzen (neurri batez behinik behin) den eremua adierazten du. Honek, diogun bidenabar, **Aguilar** euskaraz **Akira**- zela esan nahi du.

**Akirazabal**-ek **Aguilar**, **Makarreta**, **Santa Fe**, **Pipiratu** eta **Busa**-rekin mugatzen du.

**Barranco de Akirazabal Aguilar**-etatik heldu diren bi errekek bat egiten duten tokian hasten da, eta **Busa**-raino luzatzen; dermio honetan **Barranco de Busa** izena hartzen du<sup>4291</sup>. **Barranquilla de la Torre de Akirazabal**, **Carasol de la Torre de Akirazabal** zeritzanetik errekaraino jaisten den izen berezirik gabeko erreka da. Errekasto honen eta erreka nagusiaren elkargunean **Fuente de la Cortadora** izeneko iturria dago. **Torre**-a egun **La Torraza** deitzen den bera da, hots, **Akirazabal** herriko dorrea:

"Mas otra Pieza...en el mismo termino (Akirazabal), que afronta con...Barranquilla que baja de la Torre" (1824)<sup>4292</sup>

**Carasol de la Torre** dorrea dagoen eguzkialdea zen:

"Ms una viña...en Aquirazaval...sitta en el Carasol de la torre" (1780)<sup>4293</sup>

Bukatzeko diogun toponimo hau, beste batzuk bezala, desagertzeko arriskutan dagoela, ondoan duen **Busa** dermio eta "corraliza"<sup>4294</sup> zabala irensten hasia baita.

**Alamera, la:**

**Barranco de Txorria**-n dago, errota eta **Linares de Txorria**-ren ondoan. Izen itxuraz berri hau bertan dauden txipuetatik hartu du dermioak, eta harrigarria da, Uxueko eta inguruko izen herrikoia **chopo** delako, ez **álamo**<sup>4295</sup>. Toponimoaren bukarari dagokionez cf. Morionesko **La Arbolera**.

**Aldabea** (de abajo), (de Aitzandiet), (de arriba), (de Turtunbera), (del carasol de Drinda), (del mediodía), (rincón de la):

**Mitxelenak AV**-en<sup>4296</sup> alde 'lado', 'región' izenaren eratorritzat jotzen du hitz hau, **Aldape** eta **Althabe** bezala, baina ez du 'aldapa' adiera izan dezakeela esaten (alde-

4290 Mdez. Pidal honela mintzo da (MGHE, 146. or.) latineko qu- multzoaz:

"el grupo qu-, es decir, la velar *c* seguida de la fricativa labial *v*, pierde su fricativa ora en la escritura y pronunciación: **quattuordecim catorce**...ora se pierde en la pronunciación, aunque se siga escribiendo la *u* por seguir *e* o *i*: **quaero quiero**..." (127-128. orr.), eta aurrerago: "ante *o*, *e*, *i* la *u* desaparece en la pronunciación, aunque se conserve en la escritura...**aquila águila** "

4291 Ikus **Aguilar** sarreran **Barranco de Aguilar**-ez mintzatzerakoan esan dena.

4292 PRA-San Martin, 84. k.

4293 Id., 54. k.

4294 "Corraliza" honetan **Akirazabala** ere sartzen da. Ikus **Corraliza** sarrera.

4295 Cf., halarik ere, Traibuenasko 1625eko **La Alameda** (PRA-Kaparros, 49. k.) eta Santakarako 1721eko **Pieza del Alamo** (id., 112. k.). Edozein moduz, Uxueko **La Alamera** ez da sekulan dokumentazioan agertzen, eta leku-izen berria dela dirudi.

4296 43. or.

ren eratorritzat **aldats** ‘malda’ aipatu arren). Autore berak OEH-n **aldabe** ‘berokia’, ‘etxe ondoko landa hesitua’ biltzen du, eta toponimian ugaria dela azpimarratzen. Azken adiera hau Azkueren “Aezkera edo Petriberro-inguruetako mintzaera”<sup>4297</sup> deitu lanean bil zezakeen hizkuntzalari errenteriarak.

Gure ustez, Oibar aldean eta Nafarroako beste toki askotan (ikus **Aldaidareea** sarrera) aurkitzen dugun eta hiztegiek biltzen ez duten **aldai** ‘malda, mendi-hegala’-rekin ere erlazionatu beharra dago, alde eta **aldapa**-rekin ezezik<sup>4298</sup>. Hauekin lot daiteke, orobat, **aldatz** ‘aldats’-en eratorria dirudien **alda(i)zkia**<sup>4299</sup>:

“otra pieza en aldabea...afrota con pi<sup>a</sup> del palazio” (1537)<sup>4300</sup>

**Aldabea**-k [à]daβéa bi dira Uxuen: **Turtunbera**-koa, eta **Aitzandiet**a-koa. Lehena 1780ko **Aldabea de arriba** da<sup>4301</sup>, eta bigarrena 1814eko **Aldabea de abajo**<sup>4302</sup>. **Aldabea del Carasol de Drinda**-ren inguruan ikus **Drinda** sarreran dioguna. 1828ko **Aldabea del Mediodía**<sup>4303</sup> zein den seguru ez dakigu, baina hegoaldekoa **Aitzandiet**a-koa denez gero, honekin identifika daiteke. Egun **Aldabea de A(n)zandiet**a (ikus **Aitzandiet**a sarreran dioguna) eta **Aldabea de Turtunbera** izenak erabiltzen dira, eta biak batera eman nahi direnean **Las Aldabeas**. Lehena **La Tejería**-tik **Basandia**-raino (hau kanpo) hedatzen da, eta bigarrena **Ardui**-tik **Ollatu**-raino (hau kanpo).

1767ko **Rincón de la aldabea** gorago aipatu dugun **Rincón de Aitzandiet**a orain ezezaguna zatekeen (ikus **Aitzandiet**a sarrera):

“otra pieza en el rincón de la Aldabea, mas arriba del puente de Anzandiet”<sup>4304</sup>

Gaurregun eguzkialdea eta oihezkoa bereizten dira bi **Aldabea**-etan, alegia, **Carasol de Anzandiet**a eta **Caracierzo de Anzandiet**a, eta **Carasol de Turtunbera** eta **Caracierzo de Turtunbera** ibiltzen dira hego-mendebaldera (**carasol**) eta ipar-ekialdera (**caracierzo**) ematen duten hegala adierazteko.

**Aldabeas, las:**

Ikus aurreko sarrera.

4297 *Euskera*, 1927, Bagila-Lotazila, 179-300. orr. Gaurregun **Aldabea** [à]daβéa toponimioa Orbaran eta Abaurregainean dugu bizirik, gutxieneko kontuan.

4298 Orba ibarreko Amatriain herrian ere azaltzen da **Aldabea** (PRA-Oibar, 2. k-bis, 1537), baina ez dakigu **aldapa** den ala ez. Esteribarko Urdaitzen aztergai dugun izenaren kontrakoa dirudien **Aldagora** agertzen da 1852. urtean (Agoizko hipotekak, 3. lib., 632. or.).

4299 Ikus **Txorria** sarrera.

4300 PRA-Oibar, 2. k.

4301 PRA-San Martin, 54. k.

4302 Id., 78. k.

4303 Id., 86. k.

4304 Id., 48. k.

**Aldaidarrea (barranco de), (barranquillos de), (paso de), (sotillos de):**

Izen honek aldaera ezberdin franko aurkezten ditu: 1698an **Aldaydarrea**<sup>4305</sup> dugu, **Aldayderrea** bilakatua bi urte beranduago<sup>4306</sup>; hemendik, azken bokalaren aferesiz<sup>4307</sup> 1767ko<sup>4308</sup> **Aldaidar** atera zen, eta hemendik 1771ko<sup>4309</sup> **Aldeidar**, 1786ko<sup>4310</sup> **Aldidar**, eta XIX. mendeko<sup>4311</sup> **Aldigar**, azken hau horzkari-disimilazioz. **Aldaidarrea** lehenengoz berandu samar azaltzen da, eta jatorrizko **\*Aldailarrea** batetik atera zitekeela uste dugu, horzkari-asimilazioz edo agian albokari-disimilazioz. Bukaerako **\*-larrea** hori dudazkoa den arren, garbi dago aurreneko osagaia Ezporogiko eta Lergako **Aldaiondo**-n eta Murillo el Fruto-ko **La Aldayonda**<sup>4312</sup>-n dugun bera dela, **aldai** 'aldapa', 'mendi mazela' alegia<sup>4313</sup>.

**Basandia** eta **Sulue**-ren beheko aldean, errekan zegoela irudi du, **El Vedado**-ren ondoan, "Corral de Caparroso"-ren inguruan:

"se le ace cargo aver rezivido de los arrendadores de los Montes de Sulue y Capiz...y del monte de dorrondiaga propio del comun de vec de dha villa con los Sotillos y Aldayderrea" (1700)<sup>4314</sup>

**Barranco de Aldaidarrea**-rik bazen ez da segurua:

"...diez Rovas de tierra en el terno de Aldeydar que afronta a...Barranco, y passo del terno" (1771)<sup>4315</sup>

**Barranquillo de Aldaidarrea** (1789)<sup>4316</sup> zein zen zehazki ez dakigu, baina **Barranco de Sulue**-ra ura isurtzen duen errekastoa izan zitekeen; **Sotillos de Aldaidarrea** (1832)<sup>4317</sup> **Barranco de Aitzandiet**a eta **Barranco de Zapaiz**-en inguruko eremu xabal antxak izan zitezkeen. Oihezkia hasten den tokian malda xutak daude, eta honek **aldai**-ren presentzia azalduko luke.

---

4305 Id., 7. k.

4306 Id., 8. k.

4307 Cf., esaterako, **Artabillar**, **Artabillar ondo** eta **Artabillarrea**, **Artabillarea** **Atondon**, edo **Kapanalarrea** eta **Kapanalar Aldaban** (J. Jurío, *TCPCI*, 48-49 eta 117-118. orr.).

4308 PRA-San Martin, 48. k.

4309 Id., 50. k.

4310 Id., 57. k.

4311 1892ko katastroan oraindik ere bizirik zegoela ikusten dugu.

4312 PRA-Kaparroso, 19. k.

4313 J. M. Satrústegui "Planteamiento general de la etnografía de Urbasa" (*Los grupos humanos en la prehistoria de Encia-Urbasa*, Eusko Ikaskuntza; José Miguel Barandiaran beka bildumako 6. zkia, 56. or.) lanean honela hitz egiten digu izen honetaz:

"**Aldaya**. Ladera o falda de los montes. Vocablo usual entre los amescoanos. Luciano Lapuente en uno de sus meritorios trabajos, refiriéndose a Urbasa, describe el panorama hidrográfico como «un sin fin de chortillos que forman las fuentes frescas de nuestras **Aldayas**»".

4314 PRA-San Martin, 8. k.

4315 Id., 50. k.

4316 Id., 59. k.

4317 Id., 88. k.

Beste aldetik, badakigu **Aldaidarrea** herri-lurra zela, auzo-lurra, gaurko **El Vedado** bezala:

“el pasto de encina y robre de los Montes del comun de vec de la dha villa llamados Aldaidarrea” (1698)<sup>4318</sup>

Datu guzti hauek **Aldaidarrea El Vedado** eta **Sulue-Zapaiz**-en arteko erre-karen aldameneko alderdia zela pentsarazten digute.

**Aldamara (barranco de), (cabeza de), (corraliza de), (pinar de), (portillada de), (sarría de), (val de):**

Etimologia iluneko izen honetan **alde**-ren elkarketako aldakia den **alda**- (cf. **Aldabea**) izanenezake, eta zer den ez dakigun **-mara** (edo **-amara**). 1778an **Aldabara** aurkitzen dugu, baina hau funtsik gabeko aldaera dela uste dugu, egun, 1593an bezalaxe, **Aldamara** [ãldamára] erabiltzen delako:

“ytten otra piª en aldamara” (1593)<sup>4319</sup>

**Aldamara** dermio handi samarra da, laua, Murilloko mugako **Sierra de Ur-tanda**-ren ondoko **Caracierzo de las Pilas** alde bat uzten badugu. Hemen dago, itxuren arabera, 1802an agertzen den **Cabezo de Aldamara** delakoa:

“En el Alto de Santta Agueda, y cavezo de el termino de Aldamara, donde se halla la muga que divide los terminos de las villas de Uxue, Murillo el frutto y Pitillas”<sup>4320</sup>

**Barranco de Aldamara**-k, **El Pinar**-en sortu eta **Barranco de Bigas**-ekin batu ondoan, tarte batez Murillo eta Uxue-ren arteko muga egiten du, Aragoa ugaldean amaitu aitzinetik:

“esta muga que cae a la orilla del dho barranco de aldamara que assi lo llaman los de la billa de Uxue y los de murillo lo llaman el baranco de uxue” (1647)<sup>4321</sup>

**Pinar de Aldamara Bigas**-ko mugatik hurbil dago, **El Pinar**-etik gertu, baina ez da azken honekin nahastu behar. Iragan mendean pinudi hau “debekatua” zegoen:

“...hallandose recorriendo el Monte demarcado del Pinar que está en el termino de Aldamara...” (1828)<sup>4322</sup>

**Portillada de Aldamara** (1622)<sup>4323</sup> **Bigas** aldean dagoen portilua izan daiteke; **Sarría de Aldamara** (1778)<sup>4324</sup> dermioaren iparraldean zegoen (**sarría**-ren adieraz eta

4318 Id., 7. k.

4319 PRA-Oibar, 7. k.

4320 PRA-San Martin, 70. k. Pitillas aipu honetan agertzea Uxueko auzoa izateari zor zaiola uste dugu, beste-la Murillok ez baitu Pitillasekin mugatzen, Santakarekin baizik. Dena den, 1802rako elkarrekiko lurren banaketa burutua zegoela dirudi.

4321 PRA-Kaparroso, 42. k.

4322 PRA-San Martin, 86. k.

4323 PRA-Kaparroso, 28. k.

4324 PRA-San Martin, 53. k.

ugaritasunaz ikus **Berage** eta **Larrageta** sarrerak), **Los Berros** (antzinako **Berage**) eta **Bigas**-ko muga (gaur **El Pinar** tarreen sartzen da). **Val de Aldamara** (1612)<sup>4325</sup> Muri-lloko muga zegoen, beharbada **Barranco de Aldamara**-ren inguruan.

**Aldamara**-k **Murillo**, **Motelarana** (**Aldamara** “**corraliza**”-ren barrukotzat jotzen da), **Lerbeltz**, **Los Berros**, **El Pinar** eta **Bigas** ditu mugakide.

**Aliaga** (**aldabea de**), (**barranco de**), (**caracierzo de**), (**cruceta de**), (**paso de**), (**paso de arriba de**), (**paso de abajo de**), (**val de**):

Egungo **Aliaga** [aljága] gehienetan **Aliaga** da dokumentazioan, baina 1602ko lehen lekukoa **Aleaga** da<sup>4326</sup>, eta 1608an **Alliaga**<sup>4327</sup> eta **Baldealeaga**<sup>4328</sup> ditugu. Formarik zaharrena **-ea**-duna edo **-ia**-duna den ez dakigu; agertze-data aintzat hartuz gero badirudi lehena dela aspaldikoena, baina ultrazuzenketa baten aitzinean ere egon gitezke (cf. **Liazeta** > **Leazeta** Galipentzun). 1603an **Alciaga** dugu<sup>4329</sup>, ez dakigu errore baten ondorioz edo bestela. Benetako forma hau balitz, **haltz** zuhaitz-izena har liteke oinarritako. **-Ci**- ebakina ere ez litzateke gaintitu ezinezko oztopoa (cf. **Aristuziaga** eta **Larziaga** sarrerak). Arazoak **Alziaga** > **Aliaga** pausoa azaltzerakoan sortuko litzazkiguke<sup>4330</sup>.

Jatorrizko forma **Aleaga** edo **Aliaga** bada, ez dakigu zer izan daitekeen hasierako **ali**-hori, bukaerako **-aga**-k garbia irudi duen arren. **Gasen Lacastak**<sup>4331</sup> bi **Aliaga** bildu ditu **Huescan**, eta **Corominasi** jarraikiz, toki-izen euskalduntzat jotzen du:

“**ALIAGA**. Topónimo menor recogido por **ARIÑO**, p.29, en término de **Panzano**, “**La Pay de ALIAGA**”...y en **Sena**, ambos en p.j. **Huesca**. Es fundamentalmente la opinión de **Joan Corominas** lo que induce a ver en los topónimos en **ALIAGA** un posible origen vasco. Al analizar este autor la etimología de **AULAGA/ALIAGA** descarta su origen tanto árabe como romance, para afirmar a continuación: “Es sabido que **-AGA** es sufijo colectivo de nombres de planta, cuyo origen ibérico y afinidades vascas han sido señaladas repetidamente; además de los infinitos colectivos vascos formados con este sufijo (del tipo **ARTEAGA** «bosque de encinas», llamadas en vasco **ARTE**)... Teniendo esto en cuenta, he aquí cómo me figuro la historia de **ALIAGA** y su familia. Un ibérico o protovasco **\*AIELAGA** dio por una parte **\*AYILAGA** y luego **ALIAGA**”

Guztiarekin ere, **Uxuen** toponimoa **Aliaga** da, eta landare-izena **ilaga** [ilága], eta hau metatesi eta aferesi baten bidez aurreko horretatik atera ez bada (hots, **aliaga** > **\*ailaga** > **ilaga** gertatu ez bada), **Aliaga** toponimoa izen arruntetik berezi behar genuke, etorki ezberdinekotako hartuz.

**Alderdi**ko oihezkoa **Alto de Santa Cruz**-en azpiko hegia da, eta **Cruceta** de **Aliaga Aliaga**, **Ollatu**, eta **Dorrondiaga** aldera doan bide ondoko gurutzeta. **Pozo de los Muertos** baino ehun bat metro gorago dagoen **Paso de Aliaga Barranco de Aliaga** gurutzatzeko dagoen pausua da (ikus **Idoitxiki** sarrera). Hau **Paso de Aliaga de abajo**

4325 PRA-Kaparros, 19. k.

4326 PRA-Oibar, 15. k.

4327 Id., 13. k.

4328 Id.

4329 Id., 11. k.

4330 Gainera gure eskualdean haltzik izan delako zantzurik ez dugu.

4331 *El euskera en el Alto Aragón*, argitaratu gabeko lana.

da, baina bada **Paso de Aliaga** de arriba deritzana, aurrekoa baino gorago, garai batez, astoz eta mandoz ibiltzen zenean, denbora aurreratzeko erabiltzen zena.

1608an agertzen den **Baldealeaga**-k antzinako **Villantigua**-ren ondoko zabalala izan behar du, alegia, **Barranco del Molino** edo **Barranco de Txorria** eta **Barranco de Turtunbera**-k bat egiten duten alderdia.

Diogun bukatzeko **Aliaga Aldabea**-tzat hartu eta hartzen dela:

“Mas una pieza...en el termino de la aldavea de la parte de Aliaga que afronta con...Camino de las vinas” (1709)<sup>4332</sup>

**Aljibe, el:**

Gazteluaren ondoan, **El Castellazo**-n dagoen putzu sakona da. Ur korrontea jarri arte Uxueko emakumeak bertara joaten ziren ur bila, batik bat **Aldabea**-etako iturrietara joateko zamaririk ez zutenak. Tradizioak dioenez, putzura zenbat harri bota, hainbat ume izaten dira. **DGH**-k<sup>4333</sup> honela deskribatzen du:

“En la parte mas elevada y á espaldas de la iglesia hay una pared de almendron y un aljibe de extraordinaria magnitud, que siempre mantiene bastante agua, y de ella usan los vecinos sin embargo de la situación eminente en que se halla. A toda esta parte de terreno llaman el Castellazo, por el castillo que hubo antiguamente”

**Almendros, los:**

**La Sierra**-tik **El Pinar**-en barna Murillo aldera doan errepide berriaren ondoran, Nicanor Ausejoren gortearen alboan landatu dituzten armendoletan du oinarri izen berri baino berriago honek.

**Alto de Abaurre, el:**

Dokumentazioan 1861ean azaltzen da aurreneko aldiz. **Abaurre** Uxueko deitura da:

“otra (pieza)...en el alto llamado de Abaurre” (1861)<sup>4334</sup>

**Mostrakas**-en dago, Murilloko mugan, Santakarako lurretatik hurbil.

**Alto de los Guardas, el:**

**Alto de Santa Cruz**-en errankidea da (ikus **Santa Cruz** sarreran dioguna).

**Alto de Matute, el:**

**El Alto de Matute Zaubio** ondoan dago, **Santakaramuru**-n. Hemendik Eustasio Salaverriren gortearaino **El Serrallo** mendia luzatzen da. Azken izen hau,

4332 PRA-San Martin, 29. k.

4333 Lehen alea, 423. or.

4334 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 117. org.

mintzagai dugun gainarena bezala, berria da, eta ez da dokumentazioan behin ere azalzen. **Matute** Uxueko familia baten izengoitia da.

#### Alto de Medio, el:

**Alto de Medio** Aldamara-n dago, errepide berriaren eskuinaldean, **Motelara**-tik hurbil. Izena, gure ustez “erdian” egoteari zor zaio, Morionesko **Barranco de Medios** aztertzerakoan esan bezala (ikus, era berean, Uxueko bertako **Medios** sarrera)

#### Alto de Pena, el:

**Alto de Pena** [péna] **Aguilar**, **Akirazabal** eta **Busa**-ren artean dagoen mendiko zorrotz samarra da. Bere itxura dela eta, behialako **Mutxurromendi**-rekin identifikate liteke, agian. **Pena** Uxueko deitura da.

#### Alto del Camposanto, el:

Ikus **Camposanto** sarrera.

#### Alto del Cementerio, el:

**Alto del Cementerio** hilerria dagoen **Ardui**-ko gaina da. **Alto del Camposanto** ere deitzen zaio, **Castillazo**-koari bezala.

#### Alto del Guarro, el:

**Alto del Guarro** izen berria da (1892ko katastroan azaltzen da aurrenekoz, **alto el guaro** formapean), behinolako **Urkamendia**-ren ordezkatzaila, itxuren arabera. **El Guarro** edo **El Guarrico** izengoitia zuen bati zor zaiola dirudi (oraindik bizirik ditugu **Pieza del Guarro** eta **Corral del Guarro** izenak).

Gain hau **La Cruz**, **Aitzandieta**, eta **Aguilar**-en artean dago, herritik kilometro batera, errepidez joanda.

#### Alto del Púlpito, el:

**Kulpitu** antza duen mendiko zorrotza da **Lerbeltz**-ko hau. Jendeak dioenez (ez dugu egiaztatzerik izan), gailurrean gotorleku edo defentsa eraikuntza baten arrastorak daude. Mendiko honen azpiko aldean, **Lerbeltz** edo **Lerbeltxiki** (batarenak edo bestearenak) despoblatuaren zaharriak daude, gorte batzuen ondo-ondoan (ikus **Lerbeltz** sarrera). Izen hau ere berria da, eta XIX. mendeko **Alto de Lerbeltz**-ekin identifikatu behar da gure ustez.

Olloibarko **Ultzurrun** herrian **Los Púlpitos** dugu bizirik<sup>4335</sup>, eta **Bidankozen** Uxueko ahaide hurbila den **La Pulpitera**, biak seguru aski gainak direla. Euskaraz **Pulpitu** bat baino gehiago daude: **Arakil-Uharten**, kasu, **Pulpitu** [púlpitu] toki-izena dugu, **Itzagaondoko Zuhatzun Pulpitocoa** ageri da 1844. urtean<sup>4336</sup>, eta **Pasai-San Pedron** harri-izena den **Purpituá** [púrputuá] dugu orain:

4335 NTEM-XI, 130. or.

4336 Agoizko hipotetak, 2. lib., 49. org.



"Harria. Herriaren mendebaldean, hegomendebaldeari begira dagoen maldaburuan (...) Informatzaileek diotenez, inguru honetan badira zenbait izen ehiztariak jarriak direnak, nork bere ehizalekoa zuelako. Hemen, bere esanetan, Herrerako apaiza ari izaten zen ehizan"<sup>4337</sup>

### Alto redondo, el:

Orain ezezaguna den hau **Mostrakas-en** zegoela badakigu:

"ytem otra (pieza) en dho terno (**Mostrakas-en**) en el Alto redondo" (1798)<sup>4338</sup>

1861eko eta egungo **Alto de Abaurre** izan liteke. Euskaraz nahi adina **Mendibil** agertzen da toponimian (cf. Leatxe. Morionesen **Alto redondo** dugu, Uxuen bezala, eta **Kasedan Puyo redondo**).

### Altxunbidea:

Erdal **cañada**-ren euskal ordaina da hau (ikus **Lergako Altxunbidea**, **Galipentzuko Altxubidea** eta **Zareko Altxirribidea**)<sup>4339</sup>. Uxueko altxonbide "nagusiak" bi dira: bat **Irunberri**, **Bizkaia**, **Oleta**, eta **Lergan** barrena dator, eta **Txutxu**-tik sartzen da Uxueko lurretan. Hemendik, **Ardui**, **Larziaga** eta **San Blas**<sup>4340</sup> gurutzatu ondoren, **Urteaga** eta **Basandia**-ren erditik, **Medios** eta **Los Berros-en** artetik, **Bigas-en** zehar, **Murillora** doa. Altxonbide hau ibilbide gehienez Uxuetik **Murillora** doan errepide (ez oraingo bideberria, honekin ere hein handiz bat etorri arren) bera da.

Beste altxonbidea **Irunberri**tik **Oibar** eta **Zaren** gaindi **Galipentzura** doa, eta **Zabaleta**, **Ondallu** eta antzinako **Larrañetako mendia**-ren artetik, Uxueko **Aristuziaga**-n sartzen da. Gero goiti egiten du **Mugazuria**-rantz, eta hemendik, **Txorria** eta **Cuartochiguito**-ren artetik, mendi gailurretik, **Portillo de Esatea**-n barna, **Ardui**-ra doa, gorago aipatu lehen altxonbidearekin bat egitera.

**La Sierra**-n zehar doan ardibide honen adar bat **Balsa de Matxaz** deitu idoiaren paretik **Pitillas** aldera desbideratzen da, **Santakaramuru**-tik **Pikarana**-rantz. Lergatik heldu den altxonbidetik ere adar bat **San Martin Unx** aldera ateratzen da, **Txutxu**-tik.

1605ean azaltzen den altxonbidea ez dakigu aipatu horietako zeini dagokion:

"otra pieça en la endrecera llamada alchun videa"<sup>4341</sup>

4337 PATO, 159. or.

4338 PRA-San Martin, 67. k.

4339 Abaurregainean ere **Alchunbidea** azaltzen da (PRA-Auritz, 50. k., 1782). Kontzeptu bera adierazteko **Elibidea** ediren dugu Iruxo herrian: "un pedaço de yermo...En la parte y Endereçera llamada elibidea que quiere dezir la Cañada afrontada...con el Camjno de la dca Cañada...", PRA-Lizarra, 1. k., 1547.

4340 Azken honetan gain-gainetik doa, lehengo ermitaren ondotik.

4341 PRA-Oibar, 12. k.

**Andiaga (alto de), (barranco de), (barranco de la fuente de), (cabezo de), (cuarto de):**

**Handi** izenondoaz eta **-aga** atzizkiak osatua dago (cf. **Andia, Andimendi...**<sup>4342</sup>).

Mendi honen Epaizko isuriari **Mendiandia** esaten zaio, eta izan ere mendi galanta da, ingurukoekin alderatuz gero. **Andiaga**-k **Aristuziaga, Mugazuria** eta **Zaldunaga**-rekin **Los Cuatro Cuartos** deitu herri-dermioa osatzen zuen lehen (ikus **Cuartochiguito** eta **Cinco Millares** sarrerak), **Uxue** eta **Pitillas** bereizi ziren arte. Aurreko lau zatitako banaketa horren arrastoa den **Cuartochiguito** dugu bizirik orain:

“Mugas que dividen los dos Quarttos llamados Zaldunaga y Andiaga” (1800)<sup>4343</sup>

**Andiaga**-k [andjága] Epaizko **Mendiandia, Hoyo de Burunda** eta **La Facería**-rekin mugatzen du goiko aldetik, eta **Uxueko Txutxu, Cuartochiguito** eta **Carasolalto**-rekin (**Txorria**-rekin) saihets aldetik eta behetik.

1800eko **Alto de Andiaga**<sup>4344</sup> **La Facería**-ren ondoko gaina dateke (Epaizko **Mendiandia** bera), dermioko alderdirik garaiena hau baita. 1593ko **Cabezo de Andiaga**<sup>4345</sup> hau berau izan zitekeen, edo alderdiko mendikoren bat; **Barranco de Andiaga** dermioko errekaetok eta **La Facería**-tik jaisten denak osatzen duten erreka da. Aurrerago, **Cuartochiguito, Mugazuria** eta **Zaldunaga**-tik datozen errekaetok elkartu ondoan, **Barranco de Zaldunaga** izena hartzen du. Erreka hau **Aragoa** ugaldean bukatzen den **Galipentzuko Barranco de Ujué** edo **Barranco de Valescura** bera (ikus bi sarrera hauek **Galipentzun**) da:

“...una Pieza de dho Sendoa en peña viva proxima al Barranco qe baja de Andiaga, y se une con el de Zaldunaga, y de esta pasando dho Barranco pa Villantigua....” (1800)<sup>4346</sup>

**Barranco de la Fuente de Andiaga** gaur **Fuente de Sala** (ikus sarrera hau) deritzan iturria dagoen errekaetok izan daiteke, hau da, **Txutxu** aldetik jaisten den eta **Fuente de(l) Tejedor** dagoenarekin elkartzen dena, biok **Barranco de Andiaga** osatzen dutelarik.

**Andrebutzu:**

**Gaurregungo Andrebutxo** [ãndrebutxo] edo **Andremutxo** [ãndremutxo] **Andrebutzu** hidronimo gardenaren itxuragabetzea dela dudarik ez da. **Gardentasun** horri XIX. mende arte atxiki zitzaion, 1823ko **Andrebutxu** aldaerek islatzen dutenez. **Egun-go [ç]** sabaikaria aurreko [c] hortz-hobietako bizkarkaria erdaratzearen ondorena da. **Elementu osagarriak**, beraz, **andre** eta **butzu** izenak dira (cf. **Uxueko bereko Andresoro**)<sup>4347</sup>.

4342 AV, 62. or.

4343 PRA-San Martin, 69. k.

4344 Id.

4345 PRA-Oibar, 7. k.

4346 PRA-San Martin, 69. k.

4347 Galar-Getzen ere **Andrebutzua** agertzen da (Jimeno Jurío, TCCPG, 328-329. orr.). **Gaurregun**, autore beraren arabera, **Andribúcho** esaten zaio.

**Andrebutzu** herriaren aldirietan dago, **Morape** eta pilota-jokuaren alboan, orain ezezaguna den **Barriozar**-en azpiko aldean (ikus sarrera hau). Gaur bertan ez dago putzurik, baina hauek oso arruntak izan dira herriko etxe askotan ur korronea jarri arte<sup>4348</sup>, eta toponimoaren jatorria orain estalita egon ohi diren putzu hauetako batean egon daiteke, beharbada aztergai dugun auzo horretako “María de la Marta” delakoaren etxean, hemen “tinaja” erako butzu sakon beldurgarria baitago.

**Andrebutzu**-k azpiko aldean egun galduta dagoen **Drinda** zeukan:

“Mas dos piezas en Andrebuchu..que afrontan por la parte baja a casa de Santiago Marco y con el Rabal que llaman drinda” (1823)<sup>4349</sup>

**Andresoro (monte de):**

**Andre** eta soro ‘alor’ izenak ditugu hemen (cf. Uxueko bereko **Andrebutzu** eta Lergako **Anderenobela**). Egun **Andesoro** [ãndeśóro] bilakatu da, dardarkari di-similazioz<sup>4350</sup>. Galdutako kontsonante hori erabilia zen oraindik XIX. mendean:

“quarenta robadas de tierra en quatro tablas en...Basandia; qe la primera afrontta con..., la segunda con pieza del nombrado ochoa y Monte de Andresoro” (1811)<sup>4351</sup>

**Andresoro Abuñaga**-tik hurbil, **Sulue**, **Basandia** eta **Urteaga**-ren artean dagoen **La Sierra**-ko oihezki bat da. Egun maiz **Sule**-**Andesoro** deitzen zaio, **Sulue**-ren barrukotzat jotzen delarik. Dena dela, **Andresoro** jabego pribatua da orain, **Sulue** auzalurrea den bitartean.

**Apezalorra:**

**Apez** eta **alorra** ditugu 1811ko **Apezalorra** eta 1816ko **Apezalorra**-n<sup>4352</sup>. Hala ere, eta XIX. mende arte agertzen ez denez gero, ez dakigu **Apeztegi**alorra zaharra-goaren itxuragabetzea ez ote den, halaberharrez edo bestela **apez** eta **alorra**-z osaturikako toponimotako har badaiteke ere. Egungo **Pieza de los Curas** bera dela gauza segurua da:

“una pieza en el termino de Apezalorra...qe afronta a dos barrancos concegiles, y al Boyeral” (1811)<sup>4353</sup>

“Boyerál” delako hori gaurko **El Vedado** herri-mendia da, eta bi errekek gaurko **Pieza de los Curas**-en ondoan, **Paso de Apeztegi**alorra-n bertan elkartzen diren **Zapaiz** eta **Dorrondiaga**-koak dira.

**Apeztegi**alorra (alto de), (paso de):

Erromantzeko **Pieza de la Abadia**-ren ordain zehatza den honen bi osagaiak **apeztegi** ‘apezetxe’ eta **alorra** ‘lantzen den lur-zati mugatua’ dira:

4348 Euri-ura biltzen zutenak ziren batzuk, lur azpiko uraz baliatzen zirenak besteak.

4349 PRA-San Martin, 83. k.

4350 Cf. Guliako 1592ko **Andreberro** (PRA-Asiain, 77. k.), **Andeborro** orain, edo **Etxalekuko** egungo **Andrealorra**.

4351 PRA-San Martin, 76. k.

4352 Id., 79. k.

4353 Id.

“una pieça...en...apeztegui alorra” (1605)<sup>4354</sup>

Antzeko esanahia dute aipatu dugun **Apezalorra**, **Pieza de los Curas**, **Pieza(s) del Priorato**, **Pieza del Prior** eta **Pieza Prioral** toponimoek, eta hauetako bazuk, gainera, aztergai dugunaren erreferentziakideak dira. Galipentzun Uxueko izen honen anaia bizkia den **Apeztegi alorra** agertzen da (ikus sarrera hau).

**Apeztegi alorra**-k gaurko **Paso de Pistalorra** [piʃtalõra] toponimoan iraun du bakarrik. Pausu honen ondoan **Pieza de los Curas** deritzan alorra dago, eta hau, dokumentazioko erreferentziekin batera, aski da **Pistolorra** hori **Apeztegi alorra**-ren desitxuraketa besterik ez dela frogatzeko (ikus **Abadía** sarrera). 1609an **Apeztegi alorra** dugu<sup>4355</sup>, 1748an **Apestalorra**<sup>4356</sup>, 1753an **Apectialorra**<sup>4357</sup>, 1756an **Apeztegi alorra**<sup>4358</sup>, 1825ean **La Pistolorra**<sup>4359</sup>, eta 1892ko katastroan egun bizirik dagoen **Pistolorra** aldea. Desitxuraketa prozesua, gutxi gorabehera, hau izan da: **Apeztegi alorra** > **Apestalorra** edo **Apeztegi alorra** > **Lapistolorra** > **Pistolorra**.

**Paso de Apeztegi alorra** Murilloko bidea eta **Zapaiz** eta **Dorrondiaga**-ko errekak batzen diren guneko pausua da<sup>4360</sup>; **Alto de Apeztegi alorra** **Dorrondiaga**-ko mendia izan zitekeen edo agian **Aurino**.

#### **Aragón, río:**

Ugalde honek Galipentzu eta Uxueren arteko muga egiten du tarte handi samar batez, lehen herriko **Aurino** bajo-tik bigarreneko **Aldamara**-raino. Galipentzun **\*Urandia** (cf. **Urandibidea** toki-izena) izena ere hartzen zuen, baina Uxuen ez dugu horrelakorik aurkitu. Zaraitzuko azken euskaldunen ahotan **Aragoa** [arágwa] da oraindik.

#### **Arbolaga (carasol de):**

Gaurregun ezezaguna den leku-izen hau **Arbolaga** nahiz **(H)erbolaga** da agerrietan. Lehenik azaltzen dena eta etimologiarik garbienekoa **Arbolaga** denez gero, jatorrizko forma hau dela pentsatu beharko dugu, eta **Erbolaga** (ikus **Portal** sarrera) bokal disimilazioaren ondorena dela (cf. **Astabidea** > **Esta** bidea 1892an, edo **Akirazabal** > **Equiraçabal** 1677an). Osagaiak **-aga** atzikia aztertzean esan den moldean, arbola ‘zuhaitza’ eta **-aga** dira (cf. **Zuaizkieta** Uxuen bertan).

**Arbolaga** herritik hurbil zegoen, **Aldabea de Aitzandieta**-ko eguzkialdean (cf. 1771ko **Carasol de Arbolaga**<sup>4361</sup>), **Camino de Lakubeli** eta **Camino de la Sierra**-ren artean edo:

4354 PRA-Oibar, 12. k.

4355 Id., 13. k.

4356 PRA-San Martin, 40. k.

4357 Id., 42. k.

4358 Id., 43. k.

4359 Id., 84. k.

4360 1892ko katastroan aurkitu dugu aurren aldiz.

4361 PRA-San Martin, 50. k.

“Mas otra pieza en la Aldavea qe se vá a la Sierra y parage qe llaman Arbolaga” (1790)<sup>4362</sup>

“Mas otra (pieza) en dho termino (Aldabea de Aitzandietan) u paraje que llaman erbolaga que afronta por arriva con el camino que se va a Lacubeli” (1793)<sup>4363</sup>

Zubia edo Puente de la Sierra-ren ondoan, Barranco de Aitzandietan-ertzean zegoen beraz.

**Ardui (barranco de), (fuente de), (paso de):**

Harri-ren elkarketako aldaera izan ohi den **har-** eta **-dui(a)** atzizki multzokaria ditugu hemen<sup>4364</sup>:

“otra pieza en arduia q es de tres robadas...” (1537)<sup>4365</sup>

Gaurregun gehienetan Ardui [ãrdwí] edo bukaera erromanizatzailez Arduiz [ãrdwíθ] ebakitzen den hau herritik hurbil dago, Txutxu eta bi Aldabe-en eta San Martingo mugaren artean. Ardoi [ãrdó:] ere aditu dugu<sup>4366</sup>.

Iragan mendeko Ardui alto (1847) eta Ardui bajo-k (1847)<sup>4367</sup> euskal \*Arduigoiena (dokumentatugabea) eta Arduibarrena-ren erdal ordainak irudi dute, eta beharbada Txutxu aldeko (alto) eta Aldabe-en aldeko (bajo) eremuak bereizteko erabiltzen ziren, ezker-eskuineko banaketa egiten ez bazen behintzat, Txutxu-n bezala (cf. oraingo Txutxu alto / Txutxu bajo). Dokumentazioko Fuente de Ardui (1725)<sup>4368</sup> egungo Fuente de Bartolo izan daiteke, baina hau ez da segurua, iturri batzuk ahitu eta beste batzuk sortu ahal izan direlako. Paso de Ardui (1798)<sup>4369</sup>, azkenik, “Corral de Burgui”-ren azpiko erreka dagoena izan daiteke, aipatu iturri horren ondokoa, Txutxu bajo-tik datorren bidean dagoena.

**Ardui alto, Ardui bajo:**

Ikus aurreko sarrera.

**Arduibarrena:**

XIX. mendeko Ardui bajo-ren euskarazko ordaina dela uste dugu. Aldi bakar batez ediren dugu, 1537an:

4362 Id., 60. k.

4363 Id., 63. k.

4364 Ikus atzizki honi eskaini atala. Ikus, halaber, gure DAON.

4365 PRA-Oibar, 2. k.

4366 Lucio Berraderi bakarrari ordea.

4367 PRA-Kaseda, 57. k.

4368 PRA-San Martin, 32. k.

4369 Id., 67. k.

“otra piª en ardui barrena que es de tres robadas”<sup>4370</sup>

**Areartzeta:**

**Harea** ‘legarra’ izena, -tze ugaritasunezko atzizkia eta -eta leku-ugaritasunezko bukaera ditugu toponimo honetan. Beste herri batzuetan **Areartzeta** edo **Areatokia** azaltzen dira euskaraz, eta **El Arenal** edo **Los Arenales** erdaraz, aztergai dugun honen baliakidetzat<sup>4371</sup>:

“ytten otra piª en areaçeta” (1593)<sup>4372</sup>

Gaurregun galdurik dagoenagatik, badakigu **Beiremuga**-n zegoela, **Barranco de Otrillos**-en, Pitillasko bidearen ondoan:

“ytten otra piª en ariaçeta...qe affrenta con...mojon de beyre” (1593)<sup>4373</sup>

**Oraingo Otrillos**-ko **El Salobrar** bide da antzinako **Areartzeta**. Toki-izen hau bizirik zegoen iragan mendearen bukaeran, 1892ko katastroko **Alacieta** desitxuratuak erakusten duenez. **Pieza del Gesal** izeneko alorra ere hemen zen (ikus sarrera hau).

**Aristuziaga (barranco de), (corraliza de?), (cuarto de), (monte de), (portillo de):**

Izen honen etimologiaz ikus -aga atzizkiari eskaini atalean dioguna. XIX. mende arteko **Aristuziaga**<sup>4374</sup> **Astuziaga** [ãstuθjága] edo **Estuziaga** [ẽstuθjága] bilakatu da orain, baina badirudi laburketa ez dela berria, **Astuziaga**, aurrenekoz 1766an ageri baita<sup>4375</sup>.

Dermio hau Galipentzuko muga dago, eta Aragoa ugaldetik hurbil dagoen **Erlosiana**-tik (gaurko **Rusiana**-tik) **Mugazuria**-raino luzatzen da, mendebaldetik **Beltranlarratz** eta **Capaburros**-ekin mugatzen duelarik. **Aristuziaga** lehen Uxuek eta **Pitillasek** amankomunean zituzten lau “cuarto”-etako bat zen, **Andiaga**, **Mugazuria** eta **Zaldunaga**-rekin batera (ikus **Cuartochiguito** eta **Cinco Millares** sarrera), eta dirudieenez Aragoa ibairaino iristen zen, bere barruan **Erlosiana** eta **La Comuna** hartzen zituela. Hortaz, badirudi **Cuarto de Aristuziaga**<sup>4376</sup> “aborral” edo “corraliza” zela, eta **Aristuziaga** dermioak baino hedadura handiagoa zuela, korralizekin behin baino gehiagotan agitzen den moduan (cf. **Busa** eta **Corraliza** sarrerak).

**Barranco de Aristuziaga** Galipentzun **Barranco de Zabaleta** deitzen dutena da, eta Uxuen jaiogatik ere ibilbide gehiena auzo herri horretan egiten du, Aragoa

4370 PRA-Oibar, 2. k.

4371 Cf. Iturmendiko **Ariazetas**-ez Nicolás Arbizuk dioena: “sembrados de tierra arenosa junto al río, tanto en la parte de Bacaicoa como en la de Urdiain”, TI, 264. or.

4372 PRA-Oibar, 7. k.

4373 Id.

4374 1801ean **Aristuziaga** dokumentatzen da, PRA-Kaseda, 37. k.

4375 PRA-San Martin, 47. k.

4376 Id., 69. k.

ugaldean amaitu aitzinetik. Dokumentazioko **Monte de Aristuziaga**<sup>4377</sup> **Beltranlarratz**-en hasi eta **Aurino**-raino luzatzen den mendia da; **Portillo de Aristuziaga** (1743)<sup>4378</sup>, azkenik, Uxueko **Erlosiana**-ren eta Galipentzuko **Aurino**-ren artean dagoen **Portillo de Chinchón** izango zen, edo bestela goian, **Capaburros** eta **Beltranlarratz**-en artean, **Marcelianoren** gortearen gaineko aldean dagoen **Portillo de (lo de) Marceliano**.

#### Arraskutzea (cruz de):

Gure egunotan **Cruz de Basandia** deritzana **Aldabea de Aitzandieta** eta **Basandia**-ren arteko mugako gurutzea da. **Camino de (el puente de) la Sierra**-n dago:

“otra pieza en el terno de la Aldabea, camino de la Sierra...q afronta...con la cruz de Arrasucea” (1779)<sup>4379</sup>

Toponimo honen bi lekukoak XVIII. mendearen amaierakoak dira, berandu samarrekoak, eta beraz, ez da harritzekoa ixuraldatuak aurkitzea. 1771ko **Arrasucea**-k eta 1779ko **Cruz de Arrasucea**-k \***Harrizko gurutzea**-z pentsarazten digute, gurutze hau, gehienak bezala, harrizkoa delako. Gurutzearen inguruko lurrei ere **Arraskutzea** esaten zitzaien:

“Ms otra pieza...en el terno que llaman Arrasucea...” (1771)<sup>4380</sup>

#### Arributza:

Hemen **harri** eta **butzua** izenak ditugula dirudi, 1714ko **Arreibuzu** aldaera gorabehera<sup>4381</sup>. Egun galdurik dago, baina badakigu **Pitillasko** bidearen alboan zegoela, erreka baten ondoan:

“...y dos piezas en arributza...que afrontan con camino de Pitillas y Barranco conzejil” (1720)<sup>4382</sup>

**Barranco de Otrillos**-en bada izenik ez duen putzu handi bat eta ondoan harritzea, **Camino de Pitillas**-ekin gurutzatzen den gunean, auzo herri horretako muga-tik hirurehun bat metro tara. Gure irudiz hau da antzinako **Arributza**.

#### Arriluzea:

**Harri** izena eta **luzea** izenondoa ditugu hemen<sup>4383</sup>. Dugun lekukotasun baka-rean ikusten den bezala **Villantigua**-n zegoen:

“Primeramente un linar en la endreçera llamada villantiga u arriluzea” (1605)<sup>4384</sup>

4377 PRA-Kaseda, 4. k., 1688.

4378 PRA-San Martin, 38. k.

4379 Id., 54. k.

4380 Id., 50. k.

4381 Id., 30. k.

4382 Id., 31. k.

4383 Cf. Santakarako 1626ko **La Piedra larga**: “una pieza en los comunes en la piedra larga” (PRA-Kaparroso, 60. k.). Egun ere bizirik dago toponimo hau.

4384 PRA-Oibar, 12. k.

**Barranco del Molino**-n bada harlauza handi bat, **Paso del Molino**-ren ondoan, eta hau izan zitekeen behialako **Arriluzea**, alderdi honetan lihatzeak ere bai baitziren.

#### Arritzea:

Hasiera batean **Arriluzea**-ren desitxuraketa zerbait izan zitekeela pentsatu arren, kokagune ezberdinek leku-izen banaren aurrean geundela ikusarazi ziguten. Izan ere, 1768ko **Arrizea La Sierra**-n zegoen, dugun lekuko bakarra nahasixe badago ere:

“ytten otra pieza en Arrizea llamada la sierra...”<sup>4385</sup>

Hemen, esan dugun bezala (ikus **-tze** atzizkiari eskainitako atala), **Ardui**-ren adiera bera duen **harri** izenaz eta **-tze**-z osaturikako toponimoa dugula dirudi.

#### Artabakoitz (barranco de), (carasol de), (sarría de):

Egun galdurik dagoen toponimo hau mugatzailez horniturik aurkitu dugu pare bat aldiz XVII. mendean, eta mugatzailerik gabe gainontzeko agerraldi gutzietan:

“otra pieza de dos Rovadas en artebacoyza afrontada a camino Real que ban de Piti-llas a berague por leña” (1625)<sup>4386</sup>

“una p<sup>a</sup>...en...Artabacoyza” (1633)<sup>4387</sup>

Txandaketa gertatzen ere da, baina intentsitate handiagoz, lehen osagaitzat **arta**- eta **arte**- duten lekukoaren artean. XIX. menderako **Artabakoitz** nagusitu zela argi ikusten da:

“Mas una pieza en el Carasol de Artabacoiz...afronta con barranco...y camino” (1829)<sup>4388</sup>

Osagai gardenak **arte** zuhaitz-izena, eta **bakoitz(a)** ‘bakarra’ izenondoa (cf. **Arte bacoiza** Barasoainen, 1564ean<sup>4389</sup>) dira.

#### Artabakoitz Urteaga eta Caracierzo de Zaubio-ren artean zegoen:

“Mas una pieza..en el termino de Urriaga, tente al carasol de Arttabacoiz...y Caracierzo de Zaubio” (1814)<sup>4390</sup>

Badakigu **Barranco de Artabakoitz Zaubio**-ra jaitsi eta **Rincón de Zazu**-ren ondotik igarotzen zela:

4385 PRA-San Martin, 48. k. Honen ordez, bistan denez, “ytten otra pieza en la sierra llamada Arrizea” behar zuen, **La Sierra** oso mendi zabala baita, bere barruan dermio diferente asko hartzen dituena.

4386 PRA-Kaparroso, 29. k.

4387 Id., 57. k.

4388 PRA-San Martin, 86. k.

4389 J. M. Jimeno Jurfo, THET, 98. or.

4390 PRA-San Martin, 78. k.



"...otra pieça...en...Caubio que afrenta con barranco de Artebacoiz" (1677)<sup>4391</sup>

"Mas una pieza en la entrada de el rincon de Zazu...afrenta con Barranco de Artabacoiz" (1790)<sup>4392</sup>

Badakigu, halaber, **Sarria de Artabakoitz Urteaga**-ren azpiko aldean zegoela, eta dermioan barrena Pitillastik **Berage**-rako (gaurko **Los Berros**-erako) errepidea zihoala (**sarria**-ren adiera eta ugaritasunaz ikus **Berage** eta **Larrageta** sarrerak):

"Ms dos corrales en dho termino (Urteaga-n)...q afrontan á...Prado Concegil y por abajo con la Sarrea de Artabacoiz" (1781)<sup>4393</sup>

Guzti honek **Artabakoitz**-ek gaurko **Medios**-en behekaldea eta **Carasol de Urteaga** (**Carasol de Artabakoitz** lehen) hartzen zuela idarokitzen du. **Barranco de Artabakoitz** egungo **Barranco de Medios** (hau da, **Medios**-tik heldu diren bi erreka) sortu eta **Barranco de Zaubio**-ra doan erreka) izango zen, eta Pitillastik **Berage**-rako errepidea **Otrollos**, **Zaubio**, **Urteaga** eta **Medios**-en barrena **La Sierra**-ko bidera (eta antzina seguraski **Santa María la Blanca**-ra) ateratzen dena<sup>4394</sup>. **Medios**, gainera, ez da 1892 arte dokumentazioan azaltzen; urte honetan, alabaina, **Artabakoitz**-ekin batera ageri da (ikus **Medios** sarrera).

#### Artazabal:

Uxueko 1534ko despoblatuen zerrendan<sup>4395</sup> **Artasabel** azaltzen da, eta 1608an **Artassabal**:

"ytten en artassabal otra pieça..."<sup>4396</sup>

Jakina denez, s / z nahasketak ez dira inola ere arraroak euskal toponimoak transkribatzerakoan, eta hortaz, badirudi **arte** eta **zabal**<sup>4397</sup> elementuez osatutako herri-izen baten aitzinean gaudela. Egun uxuetarrek ez dute herri ohi honen oroitzapenik bat ere, eta ulertzekoa da, bitan baizik ez baitugu dokumentzerik izan.

#### Arteandia:

Hemen berriz ere **arte** zuhaitz-izena dugu, eta **handia** izenondoa. Badakigu **Andiaga**-ko **Lergako** bidean zegoela:

4391 UEA, 14. kap-lib., 255. or.

4392 PRA-San Martin, 60. k.

4393 Id., 55. k.

4394 Bide honi jarraikiz, **Zapaiz**, **Erlosiana** eta **Portillo de Chinchón**-en zehar, Uxuek Galipentzuko lurretan Aragoa ondoan zuen errotara joaten ziren pitillastarrak alea ehotzera. Pitillas Uxueko auzoa izaki eta, errotan parte zerbait, edo behintzat bihia xehertzeko eskubidea, izan zezakeen.

4395 NAO-Comptos, 550. zkia.

4396 PRA-Oibar, 13. k.

4397 **Zabal** ez da beti izenondoa honelako toponimoetan; artea edo artadia dagoen zabaldia edo eremu zabala ere izan liteke. Ikus NTEM-X, 72. or.

"ytem mas en arteandia...mas un pedaço en el Camino de Lerga qs el mesmo termino"  
(1628)<sup>4398</sup>

### Arteesai:

Behin bakarrik ediren dugu garbiro. Artisar arruntagoaren aldaera dateke:

"...tres robadas en la endrecera de Arteesay" (1679)<sup>4399</sup>

### Arteko haitz (aldaizkia de), (caracierzo de), (carasol de), (pozo de):

Arte 'tarte', -ko leku-genitiboa, eta haitz 'malkor'-ez osatua dago. Hasierako Arte hori zuhaitz-izena ere izan liteke, baina arte-ren ondoan azaltzen diren arte-dun aldakiak arte 'tarte', 'bitarte'-ren alde mintzo dira:

"...otra pieza...en el termino de la aldabea llamado ertecoayz" (1654)<sup>4400</sup>

Gauregungo Pozo de Artokaiz-ek (lãrtokájθl) espezializazio semantiko moduko zerbait jasan du, egun aipatu putzu horretara murriztua baitago ia erabar<sup>4401</sup>. Gaurko putzuaren ondoko oihezki eta eguzkiagerria adierazten duten caracierzo de Artokaiz (1802)<sup>4402</sup> eta carasol de Artokaiz (1786)<sup>4403</sup> dira dokumentazioan agertzen direnak, putzuaren aipurik sekulan aurkitu ez dugularik.

1618ko aldaizquia zer izan daitekeen seguru ez dakigu; gure ustez euskal aldai 'aldapa' eta aldabea-rekin du zerikusia (ikus Aldabea eta Txorria sarrerak). Txorria-n, Lakubeli-n eta Santa Cruz-en ere aldazquia eta yldarquia (yldazquia seguruenara) genuen:

"unas pieças...termino llamado en la aldaizquia llamado artequayça" (1618)<sup>4404</sup>

Arteko haitz Aitzandieta-ko aldabea-n dago; Barranco de Arteko haitz Barranco de Aitzandieta nahiz Rincón de Balsalarraña-tik jaisten den erreka zatekeen.

### Artisar:

Bitan aurkitu dugu, bietan forma beraz:

"Mas otro corral...en el termino de Artisar" (1799)<sup>4405</sup>

Baliteke 1679ko Arteesai Artisar bilakatu izana, baina ez dakigu Arteesai hori zer izan daitekeen, arte zuhaitz-izena osagai izan dezakeenagatik. Zernahi ere den,

4398 PRA-Kaparroso, 31. k.

4399 PRA-San Martin, 3. k.

4400 UEA, 14. kap-lib., 17. or.

4401 Hau kontuz hartu behar da, putzuaren inguruko lurrek ere izen hori baitute.

4402 PRA-San Martin, 70. k.

4403 Id., 40. k.

4404 PRA-Kaparroso, 21. k.

4405 PRA-San Martin, 68. k.

gaur ezezaguna zaigun Artisar hau La Sierra-n zegoen, Santa María la Blanca-ko bi-dearen ondoan:

“Mas en Artisar quarentta y seis rovasdas de tierra...afrota todas al Camino, que con-  
duze a Santa Maria la Blanca” (1819)<sup>4406</sup>

#### Artzegarraz:

Dokumentatzen den forma bakarra **archegarrace** denez gero, gaitz da forma idatzi horren azpian zer dagoen esaten:

“...et ab illo podio usque ad terminum [...] dicto termino usque ad Archegarrace, et ab  
hic usque ad [...] Aragon...” (1299)<sup>4407</sup>

Lehen osagaia **hartze** ‘harridia’ izan liteke, eta bigarrena **larratze**-ren desi-  
txuraketa arintzat har liteke (cf. **Beltranlarratz** > **Mentangarraz**), baina Uxuen beti  
**Larratz(a)** edireten dugu.

Kokaguneari dagokionez, **Artzegarraz Podio de Larrage**-ren (geroagoko  
dokumentazioko **Alto** edo **Monte de Larrageta**, **Alto de Abaurre** orain. Ikus **Larrage**-  
ta sarrera) eta **Aragoa** ugaldearen artean zegoen.

#### Astabidea (portillo de):

**Asto**-ren elkarketako aldaera ohi den **asta**- eta **bidea** ditugu hemen:

“y mas en astavidea otra pieza...” (1605)<sup>4408</sup>

1840an **Esta bidea** azaltzen da<sup>4409</sup>, alegia, **Aristuziaga** > **Astuziaga** > **Estu**-  
**ziaga** toki-izenean edo **astigarra** > **estigarrón** izen arruntean agertzen den **a-** > **e-** alda-  
kuntza<sup>4410</sup> jasandako aldakia, eta 1892ko katastroan forma horixe aurkitzen dugu.

Bide hau **Carasol de Villantigua**-tik **Mugazuria** eta **Aristuziaga**-n barrena  
Uxueren **Aragoa** ertzeko errotara zihoana izan daiteke, **garia** eta **bestelako laboreak** erro-  
tara ehotzera eramateko **astoak** erabiltzen baitziren maiz:

“Ms otra pieza...en dho termino (**Mugazuria**) donde dicen **Astavidea**” (1781)<sup>4411</sup>

Guztiarekin ere, ez dago zeharo garbi errotarako **bidea** eta **Astabidea** bera  
ote ziren. 1782ko lekukoa identifikatzearen kontra mintzo da:

4406 Id., 82. k.

4407 UM, 258. or.

4408 PRA-Oibar, 12. k.

4409 PRA-San Martin, 90. k.

4410 José María Satrustegik ere aldaketa hau jasan duen toponimoa bildu du Urbanan (“Planteamiento general  
de la etnografía de Urbasa”, 59-60. orr.):

“La inestimable ayuda del animal de carga, como es el burro, exige otra concepción del camino con vere-  
das más espaciosas que los usuarios llaman *Astobide*, *Astabide*: *Eziturriko estabidia*. Al desaparecer los bur-  
ros ya no tiene sentido la palabra que empieza a ser sustituida por *lasterbide*, atajo”.

4411 PRA-San Martin, 55. k.

“una pieza...en el carasol de villantigua, afrenttan (sic) a los caminos del Molino y Astavidea”<sup>4412</sup>

**Portillo de Astabidea** (1797)<sup>4413</sup> egungo **Portillo del Señor**<sup>4414</sup> izan daiteke, alegia, “Corral del Señor”-etik hurbil Galipentzuko bidean dagoen atea, Carasolalto, Cuartochiguito eta Mugazuria-ren arteko mugakoa.

#### Astrakastilu:

Egun ezezaguna den hau era batera baino gehiagotara dokumentatzen da. Al-daketak batez ere hasierako astra osagai ezezagunari eta kastillu ‘gatzelu’-ren bukaerako bokalari dagozkio:

“otra (pieza) en astracastillo” (1628)<sup>4415</sup>

“mas otra pieza endrecera (sic) llamada astracastillu” (1693)<sup>4416</sup>

Lehen elementuaren jatorrizko forma, maiztasuna hartzen badugu aintzat, itxura arrotzeko -tr- multzoa duen astra- dela dirudi (cf. **Mostrakas** Uxuen bertan, multzo beraz). Bigarren osagaia Uxuekoa ere den **Kastillu** (**Castillo** gaur; **Castillu** edo **Castillo** dokumentazioan. Ikus sarrera hau) dugu.

**Santa María la Blanca**-tik hurbil zegoen, **La Sierra**-n. Aurreko **Burniziriet**a dermioa “irentsi” bide zuen:

“...en el termino que antes llamaban Burnizurrieta y aora Astra Castillo” (1746)<sup>4417</sup>

Ez dakigu, halarik ere, **Kastillu**-ren baliakidea den ala ez:

“una porcion de piedra para fabricar un corral en el termino llamado astra Castillu que afronta con...camino que se ba a Santa maria lablanca” (1710)<sup>4418</sup>

Izan ere, badakigu Santakarako bidea bertatik igarotzen zela, baina ez dakigu bide hau Pitillastik **Kastillu** eta **Portillo de Chinchón**-en barna Aragoa ugaldearen errezeko errotara zihoana ote zen:

“otra pieza en astacastillo que afronta con Camino real que van a santacara” (1628)<sup>4419</sup>

#### Atajo de Eslava, el:

**Cuartochiguito**-n baina **Zaldunaga**-ko muga dagoen “Corral de Berumbe”-ren ondotik doa.

---

4412 Id.

4413 Id., 66. k.

4414 “El Señor” uxuetar baten izengoitia da.

4415 PRA-Kaparroso, 33. k.

4416 PRA-San Martin, 6. k.

4417 Id., 38. k.,

4418 Id., 29. k.

4419 PRA-Kaparroso, 31. k.

**Atajo de la Fuente de Turtunbera, el:**

Era de la Sixta-ren azpiko aldetik, **Caracierzo de Turtunbera**-tik doan lasterbidea da. Duela urte batzuk arte erabili zen, baina Uxuen ur korrontea paratu zutene-tik osotara utzia dago. **La Nevera**-ren hurbil samarretetik zihoan:

“una pieza...devajo de la Nevera que afronta...(con) el Atajo que baja a la fuente de turtunbera” (1831)<sup>4420</sup>

**Atajo de Mugazuria, el:**

**Mugazuria**-tik herrira joateko zegoen bidezigorren bat genuen:

“y la otra (tabla)...entre dos caminos el uno llamado de villantigua, y Atajo qe baja de Mugazuria” (1801)<sup>4421</sup>

**Atajo de San Martín, el:**

Egun bi lasterbide daude San Martina joateko: lehena behialako **Gurutze-gibela**-n hartzen da, **La Cruz**-en atzeko aldean. Hemendik **Ardui** eta **Beskos**-en artetik San Martingo **Barbachete**-ra (?) doa. Bigarrena “**Corral del Aragonés**” delakotik kilo-metro batera hartzen da, errepideko bihurgune batean.

Lehena bide malkartsuagoa da, eta ibiltzen zailago, eta hau dela medio nahi-koa utzirik dago gaurregun. Alabaina, dokumentaziokoa hau dela segurua da:

“(unas piezas?) en el termino que llaman Cruze guibela que afrontan...por otra parte con...senda que llaman el atajo para San Martin” (1742)<sup>4422</sup>

**Atajo para Tafalla, el:**

Aurreko bera zen, Tafallara joateko lehenago San Martina joan behar baita:

“otra (pieza)...detras de la cruz que se halla entre los caminos de Tafalla y Olitte q afronta a camino del atajo para tafalla” (1767)<sup>4423</sup>

**Aunzkortea:**

Dugun lekuko bakarra ez da zeharo gardena, baina lehen osagaia **ahuntza** izan daiteke. Bigarrena **artea** ‘bitartea’-ren aldaera izan ohi den **artea** edo beste batzue-tan agertzen den **kortea** edo **gorrea** ‘korrare’ izan daiteke. Tarteko erdiko bokala, halere, ez da azken izen honen alde mintzo:

“una pieca en la endrecera llamada aunzcoertea...que afrenta con...barranco” (1605)<sup>4424</sup>

4420 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 25. org.

4421 PRA-San Martin, 69. k.

4422 Id., 37. k.

4423 Id., 48. k.

4424 PRA-Oibar, 12. k.

Aunzkortea egungo La Cabrería-ren errankidea izan zitekeen, eta honek bezala lehen ugariak ziren ahuntzak hersten zituzten gorre edo tegia adieraz zezakeen (cf. Leatxeko Auntzenkorraleta).

**Auria, hoya de:**

Behin bakarrik agertzen da, latinez idatzirikako 1299ko agiri batean. Tes-tuinguruak garbi uzten du oraingo Aurino bera dela. Etimologikoki ere (ikus Aurino sarrera) ez dago Auria eta Aurino lotzeko arazorik:

“...de Uxue, herbagia seu pastutagia que habebimus [...] contiguo termino ville de Santacara, et a dicto podio [...] dicti de Larague, et ab illo podio usque ad terminum [...] dicto termino usque ad Archegarrace, et ab hinc usque ad [...] Aragon, et a dicto termino usque ad fueam dictam de Auria et [...] locum que dicitur Çaldinuaga, tenenda habenda in perpetuum...”<sup>4425</sup>

Ikusten denez, Uxueko mugak aipatzen dira, **Podio de Larrage-tik** (geroko **Alto de Larrageta-tik**) **Artzegarraze-n** barrena Aragoa ugalderaino lehenik, eta hemendik **Zaldunaga-raino** gero, tartean dagoen **Hoya de Auria-n** (**Rincón de la Comuna?**) barrena.

**Aurino (alto), (bajo), (carasol de), (collado de), (monte):**

Hau ia beti Aurino da dokumentazioan (Auria behin azaltzen da. Ikus aurreko sarrera), eta orain ere Aurino [aurino] erabiltzen da. Jatorria Aur-dun antroponi-mo batean bilatu behar genuke; Rohlfsek Aurós toponimoa aztertzerakoan honela dio:

“Aurós...peut être rapproché de *Aurac* (Haute-Loire), *Auriac* (Cantal, Dordogne, Aveyron) et *Orago* (Lombardie). Le radical Aur- est très fréquent dans l’onomastique ancienne: Aurus, Aurius, Aurilla, Aurina, Auronius, Aursusius”<sup>4426</sup>

Aurino Rohlfsek aipatzen duen Aurina horren maskulinoa izan liteke (cf. Auria), baina Aurus edo Aurius eta -inu atzizkiak<sup>4427</sup> osaturik ere egon daiteke, eta \*Auriano-ren gisako baten laburketaren ondorea ere izan daiteke (cf. Paterniana > Paternina<sup>4428</sup>). Mitxelenak<sup>4429</sup> Nafarroan XI. menderako azaltzen den Auria (< Aurea) antroponimoa biltzen du.

Aurino Uxue eta Galipentzuren arteko mendi baten izena da lehen herrian, eta bigarreanean mendi-mazela ezezik, Uxueko mugatik Aragoa ugaldearen inguruetaraino hedatzen den dermio handia ere bada (Ikus Galipentzuko Aurino sarrera), eta badakigu bertan izen bereko despoilatua egon zela<sup>4430</sup>. Uxuen, gainera, Aurino-ren be-

4425 UM, 258. or., 1299.

4426 Aipatutako lana, 230. or.

4427 Caro Baroja, HGPV, 270-271. orr. Honela dio ikerle honek:

“El sufijo «-inus», con su femenino «ina», juega un papel importante en la onomástica latina. Tienen varios valores: es primordial el denominativo («divinus» de «divus») con un matiz adjetivo”.

4428 Ikus J. Caro Barojaren HGPV, 225-226. orr.

4429 FHV, 93. or.

4430 J. Garriz, *Despoblados*, 21. or.

heko aldean bukaerarengatik jatorri latinokotzat jo daitekeen **Erlosiana** (> **Rusiana**) dago, Aragoatik hurbil, **Aurino bezala**<sup>4431</sup>.

**Carasol de Aurino Dorrondiaga**-ren ondoko egutera zen:

“dos robadas...en el terno llamado Dorrondeaga...que afrontan con el Barranco Concegil y al cara sol de Aurino” (1796)<sup>4432</sup>

**Collado de Aurino** gaurko **Monte Aurino**-ren adierakidea da; bertan dago Galipentzu eta Uxueren arteko muga:

“...se allo el octavo mojon en el collado de Aurino cerca del portillo de yjita” (1688)<sup>4433</sup>

**Ayuntamiento, casa del:**

**Herriko Plaza** **pequeña**-n dago, **Calle de la Rúa** eta **Calle del Cuerno**-ren artean, gutxienez 1622. urteaz geroztik (ikus **Casa de la Villa** sarrera):

“...cassa derruida...en esta villa sitta en la Plaza pequeña y esquina de la calle de la Ruga frente la Casa del aiuntamiento” (1760)<sup>4434</sup>

**Azpieta, rincón de:**

Izen honen etimologiarako bi interpretazio egon daitezke: **haitz** + **bi** + **eta** eta **haitz** + **pe** + **eta**. Gure ustez, **Mitxelenak** dionari jarraikiz<sup>4435</sup>, hemen **haitz** + **-pe** + **-eta** dugu. **Aiz-** > **az-** pausua arrunta da (cf. **Aizpeaga** > **Azpiaga** Uxuen bertan), eta bukaerako **-ieta** segmentua **-eeta**-tik atera ahal izan da, disimilazioz (cf. **Larreta** Galipentzun, **Larrieta** 1335. urtean. Uxuen, gainera, metatesia gauza zitekeen: **Aizpeta** > **Azpieta**). Hortaz, formaz eta zentzuz aipatu **Aizpeaga**-rekin lot daiteke. Izen honen lekukotasun bakarra dugun arren, badakigu **Aldabea de Aitzandieta**-n zegoela, **Camino de la Sierra**-ren ondoan:

“Mas en la Aldabea y Rincon de Azpieta una pieza...que afronta con...camino que se ba a la sierra” (1771)<sup>4436</sup>

Zokoa **Rincón de los Cerrados** izan zitekeen, **Camino de la Sierra** bertatik igarotzen baita, baina etimologia aintzakotzat hartuaz **Lopera** edo **Barrio de la Peña**-ren azpian dagoen xokottoa zela pentsatu nahiago dugu, hots, **Camino de la Fuente** (de la Bomba) eta **Camino del Puente de la Sierra**-ren artekoa. **Rincón de los Cerrados**-en euskal izena **Rincón de Errekazarra** zela dirudi (ikus sarrera hau).

**Bagarana; Balgarandega:**

Lehen begiratuan **bago** eta **harana**-z osatua dagoela suposa badaiteke ere, ez dakigu hala den, Uxue ez baita, oker ez bagaude, pagoetarako oso toki egokia (cf. halere,

4431 Galipentzuko **Aurino** ugalderraino bereraino luzatzen da.

4432 PRA-San Martin, 64. k.

4433 PRA-Kaseda, 4. k.

4434 PRA-San Martin, 46. k.

4435 AV, 64. or. **Azpiazu** eta **Azpiolea**-n **azpi**-k **aizpe**-ren aldaera izan behar duela dio

4436 PRA-San Martin, 50. k.

**Facería de los Fayales** izenaz 1611n dokumentatzen den Lerga eta Eslabaren arteko fageria. Txutxu-n ere, San Martingo partean baina Uxueko mugan, ba omen zeuden pagorak lehen. Ikus Txutxu sarrera). Dena dela, 1537ko **Bagarana**-ren<sup>4437</sup> ondoan urte bereko zalantzazko **Bagara**<sup>4438</sup> (agian **Bagaran**-en laburketa grafikoa) dugu, eta 1634ko **Balgaran**<sup>4439</sup>. Azken honetan hasierako **ba**-segmentua val 'ibar'-tzat hartu dela dirudi, seguraski bukaerako **-aran**-en oinarrituta. Itxura guztien arabera, **Balgaran** hau 1701eko **Balgarandega**-rekin lotu behar dugu, eta hau, bere aldetik, 1593rako azaltzen den **La Balgrande**-rekin (ikus **Valgrande** sarrera), soinu-eiteaz bestalde bietan lihatzeak bazirenez gero:

“Mas otro linar de una rovada en el termino de Balgarandega” (1701)<sup>4440</sup>

Lihatzeak **Txorria**-n eta inguruetan (**Aliaga** eta **Ollatu**-n ere bai, gutxieneko kontuan) izan dira Uxuen, eta toponimo hau 1593rako aurkitzen dugun arren, badirudi **Balgaran**, **Balgarandega** edo **Valgrande**-ren ordezkatzailea izan zela, 1814eko lekukoa aintzakotzat hartu behar badugu:

“un linar en el termino de Balgrande que ahora llaman Chorra”<sup>4441</sup>

Honen arabera, bi toponimook elkarren ondoan mendetan bizi ondoren, azkenean batak (**Txorria**-k) bestea (**Valgrande**, **Balgaran** edo **Balgarandega**) irentsiko zuen.

Daitekeena da, orobat, **Balgaran(dega)** 1540rako azaltzen den **Zabala**-ren ordain erdaldun batzuetan euskaldundua izatea, biak **Txorria** eta **Villantigua**-ren artean baitzeuden (ikus **Zabala** sarrera). Zernahi gisaz, **Balgaran** erdal **Valgran**-etik atera dela irudi du, eta **Valgarandega** **Valgrande**-tik, bukaerako **-ga** hori zer den sobera garbi ez badago ere (**-aga**-ren laburketa apika?). **Bagarana** **Balgaran**-etik atera ahal izan dela kontu egin daiteke, baina albokariaren galtzea justifikatua ez egoteaz gainera, **Bagarana** **Balgaran**, **Balgarandega** eta **Valgrande** baino lehenago aurkitzen dugu.

**Balgaran** eta **Balgarandega**-k Galipentzuko **Garanda**, **Garandako** harana, **Garandako** zabala eta beste dakarzkigute burutara. Azken toponimo hauek aztertzerakoan esan moduan, **Garanda** Galipentzutik hurbil dauden haranik handienetakoa da, handiena ez bada behinik behin.

**Balsa**, debajo de la:

**Balsa vieja**-ren azpiko aldea zatekeen:

“...una pieza...en la parte que llaman debaxo la balsa” (1723)<sup>4442</sup>

4437 PRA-Oibar, 2. k.

4438 Id.

4439 IEA, 345. kart., 13. zkia.

4440 PRA-San Martín, 10. k.

4441 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 6. or.

4442 UEA, 14. kap-lib., 33. or.



**Balsa de la Villa, la:**

Idoi honen aurren lekukotasuna 1588koa da. Bertan esaten denez, **Ermita de San Andrés**-en ondoan zegoen:

“otra pieça... Junto a la balssa de la villa de la una parte y de la otra parte (afronta) con la ermita de Santandres”<sup>4443</sup>

Ezbairik gabe gaurko arandegia egiteko estali zen idoiarekin identifikatu behar da hau, **Ermita de San Andrés** ere alderdi horretan zegoelako (ikus **San Andrés** sarrera). Idoi honi **Balsa vieja** deitzen zitzaion, berriagoa den (nahiz urte franko dituen) hurbileko **Balsa nueva**-tik bereizteko.

**Balsa de los Pastores, la:**

Ardui-n dago, **Txutxu** alto-ko mugan, errepidetik gertu, altxonbidean. Gure informatzaileetako baten arabera<sup>4444</sup> Uxueko artzainek idoi berria egiteko eskaera luzatu omen zioten Uxueko udalari, eta honek ez entzun irudi egiten zuenez gero, artzainak **Ardui**-ra igo, eta auzalanean orain dagoen idoia moldatu zuten.

**Balsa de Martín José Zubiri:**

**Zubiri** Uxueko deitura jatorra da:

“Mas en...Santa-Cara-Muru (sic) siete rovasdas...que afrontan con Balsa de Martin Josef Zuviri” (1817)<sup>4445</sup>

**Balsa de Medios, la:**

Ikus **El Vedado** sarrera.

**Balsa del Veterinario, la:**

“El Veterinario” Uxueko etxe baten izena da (albaitariak izan dira eta dira), eta irudi duenez, etxe hau izan da **Aguilar**-ko idoia bataiatu duena, arrazoia sobera garbi ez dagoenagatik, alderdi hori herri-lurra izaki eta.

**Balsa nueva, la:**

Herritik hurbil dago. **Nueva** izenondoa oraingo arandegia dagoen alderdiko **Balsa vieja**-tik bereizteko erabili izan da. Guztiarekin ere, eta izenondoak izenondo, idoi berria aski zaharra da dagoeneko, hirurogeita hamar urteko gure informatzaileek ez baitute egiten ikusi.

4443 PRA-Oibar, 4. k.

4444 Lucio Berrade artzain ohiaren arabera.

4445 PRA-San Martin, 80. k.

**Balsa vieja, la:**

Esan bezala, oraingo arandegia dagoen tokian zegoen idoi hau. Mendetan erabilia izan ondoan, estali eta gainean aipatu arandegia eraiki zen, Gerla zibilaren ondoren. **Balsa de la Villa** ere deitu izan zaio (ikus sarrera hau).

**Balsalarraña:**

Gauregungo **Balsarraña** [bálsaṙáṙa] **Balsalarraña** da 1634an, eta lehenagoko eta geroagoko agerraldi guztietan **-larraña** dugu, 1748 arte. Urte honetan **Rincon de Balsarraña** aurkitu dugu, eta beraz, gauregungo aldaera laburtua aspaldixkoa dela esan daiteke:

“ytten en tres pedacos de piezas en balsalarraña...teniente al camino real y yermos...” (1634)<sup>446</sup>

“Mas otra pieza en la Aldabea en el rincon de Balsarraña” (1748)<sup>447</sup>

Bigarren osagaia garbia da, baina lehendabizikoaz ezin esan daiteke gauza bera. Izan ere, 1634ko, XVIII. mendeko eta egungo eguneko **Balsa-** horrek toponimo hibrido ugarietako baten aitzinean gaudela idaroki arren, 1598ko **Bazalarraña**<sup>448</sup> eta XVII. mendeko lekuko gehienak **Baza-**ren alde mintzo dira, elementu hau zer izan daitekeen ez dakigunagatik. XVIII. menderako XVII. ean seguraski herri etimologiaz sorturikako **Balsa-**dun aldaera nagusitu zen, eta horixe da guregana iritsi dena.

**Balsalarraña Aldabea** de Aitzandietan baina **Basandia**-ko mugatik hurbil egoki, bi izenon hasierako elementua bat eta bera dela pentsa daiteke, baina hala ere ez dirudi hau honela denik, **Basandia**-ren kasuan **-z-** grafema ez baita sekulan azaltzen, eta **Balsalarraña**-renean ez baitugu **-s-** hutsa duen aldaerarik aurkitu (**basa-**, alegia).

Gauregun **Rincón de Balsarraña** ibiltzen da komunzki, ez dokumentazioko **Bazalarraña** edo **Balsalarraña** hutsa. Zokoa, esan gisan, **Aldabea de Aitzandietan** dago, **Camino de la Fuente** eta **Camino del Puente de la Sierra**-ren artean, gainean **Santa Fe**, azpian **Arteko haitz**, eta hegoaldean **Basandia** duela. **Caracierzo de Balsalarraña** azken dermio honetako mugako oihezkoa da:

“una pieza...en la Aldavea y caracierzo de Balsalarraña” (1760)<sup>449</sup>

**Barallas:**

Herriaren hegoaldeko auzoa da **Barallas** [bará]a[s], **San Miguel**-etik hurbil dagoena, eta hau dela medio zenbaitetan dokumentazioko **Barrio de San Miguel**-ekin identifikatu behar dela irudi du. **Lopera** eta **Pirolarraña** auzoak ditu mugakide.

Toponimoa zaharra da, eta ez du euskal itxura handirik (ikus **-az** / **-as** atzizkiari eskaini atalean dioguna):

“ytten un guerto en Varallas teniente a piezas de la cofradia...” (1634)

4446 IEA, 345. kart., 13. zkia.

4447 PRA-San Martin, 49. k.

4448 PRA-Oibar, 1. k.

4449 PRA-San Martin, 46. k.

**Barranquilla de los Ladrones, la:**

Espondón del Soto-n zehar, Galipentzutik Murillora doan bidea gurutzatu ondoren Aragoa ugaldean amaitzen den erreka da. Antzina lapurrak altxatzen omen ziren haitzulo batzuk, zulodun harri batzuk ditugu alderdi honetan (ikus Galipentzuko Peña de los Ladrones).

**Barranquilla de Romero, la:**

Ikus Fuente de Romero sarrera.

**Barrio alto, el:**

Elizatik hurbil dagoenez gero, 1829ko **Barrio de la iglesia**-rekin identifikatu behar dela ematen du:

“una cassa...en el barrio alto” (1605)<sup>4450</sup>

1606an **Iribarren** azaltzen da, eta beste herri batzuetan bezala Uxuen ere \***Irigoiena** bat bazela esan daitekeela uste dugu, dokumentazioan horrelakorik ez agertuagatik.

**Barrio bajo, el:**

Herriaren beheko aldeko auzoak izendatzen ditu honek, alegia, **Pirolarraña**, **Lopera** eta beste. Dokumentazioan honen ordaina datekeen **Iribarren** ageri da.

**Barrio de la Fuente de la Peña:**

**Barrio** edo **Calle del Buzakao** bera da, eskolaren ondokoa. Izan ere, **Buzakao** eta **Fuente de la Peña** gauza bera ziren (ikus **Buzakao** sarrera):

“una cassa en la endrecera llamada barrio de la fuente de la pena que afrenta con casas de...” (1605)<sup>4451</sup>

**Barrio de la Peña, el:**

**Buzakao**-tik **La Plaza** aldera luzatzen da. Bertan haitz handia dago, “Casa de Ticiano”-ren azpian. Esan bezala, auzo honetako malkorrean bilatu behar da **Aitzandia** eta **Aitzandieta** toponimoen iturburua (ikus azken sarrera hau). **Barrio de la Peña** dokumentazioko **Barrio de Aitzandieta**-ren esanahikidea dateke.

**Barrio de las Escuelas, el:**

**Barrio del Buzakao**-ren adierakidea da. Eskolak eraiki zirenetik pixkanaka izen zaharra galdu eta berria nagusituz doa.

4450 PRA-Oibar, 12. k.

4451 Id.

**Barrio de Medios:**

**Barrio alto** eta **Iribarren**-en artekoa zen, baina gaurregun erabiltzen ez denez, neke da zehazki nondik nora zihoan esaten. Gure irudiko plazen ingurukoa zen:

“una cassa...en...(la) endrecera llamada barrio de medios” (1605)<sup>4452</sup>

**Barrio de San Antón, el:**

Behin bakarrik aurkitu dugu; egungo **Calle de San Antón** izan daitekeela uste dugu:

“yt otra casa en el barrio de Sn Anton...” (1840)<sup>4453</sup>

**Barrio de San Miguel:**

Ikus **San Miguel** sarrera.

**Barrio del Cuerno, el:**

**Oraingo Calle del Cuerno** edo **Calle Carnicería** da, hots, **Plaza pequeña**-tik, **udaletxearen** ondotik, **San Miguel**-en ondoan dauden gorteetaraino luzatzen dena. Izenak **udaletxean** bertan (etxe berean) harategia egotean izan dezake oinarri, denda hau antzina orain gutxi arte egon den tokian bazegoen behintzat:

“una casa en el barrio llamado del cuerno” (1831)<sup>4454</sup>

**Barrio del Rincón, el:**

Orain **Casa del Rincón** deitzen den hau eskolen parean dago, **Barrio del Buzakao** ondoan, **Lifonsoren** etxearen inguruan. Lehen aldikoz 1802an ediren dugu:

“una Casa que actualmente vive, en el Barrio del Rincon” (1802)<sup>4455</sup>

**Barrio del Sol, el:**

**Buzakao**-tik **La Tahona** aldera luzatzen den eguterako auzoa da (cf. dokumentazioko **Belena del Sol**).

**Barriozar (barrio de), (calle de):**

**Barrio 'auzo'** (cf. **barride Baztanen**) izena eta **zahar** izenondoa ditugu hemen. Gaur ezezaguna den honek herriko auzorik zaharrena adierazten zuela irudi luke. Dokumentazioan ikus daitekeenez, antzinako pilota-jokuaren ondoan zegoen (ikus **Juego de Pelota** sarrera), **Andrebutzu**-ren gaineko aldean:

---

4452 Id.

4453 PRA-San Martin, 90. k.

4454 Id., 87. k.

4455 Id., 70. k.

“Primeramente una casa vecinal en esta villa...en el varrio llamado varrio zar” (1764)<sup>4456</sup>

“la casa...en el barrio sar, afronta a...Patio de juego de Pelora...y a...huerto” (1813)<sup>4457</sup>

Zenbaitetan karrikatzen hartzen da:

“Primeramente una casa Principal en que viven, sita en la calle que llama (sic) Varriozar, que afronta a casa de Babil Ayesa, y otra de Jose Ramon Berrade, y por la parte baja a Andrebuchu” (1823)<sup>4458</sup>

Hortaz, auzoa udaletxearen inguruko etxeek osatzen zutela ematen du, **Andrebutzu** eta **Calle del Cuerno**-ren artekoek edo.

**Basandia** (alto de), (barrancos de), (fuente de), (monte de), (portillo de), (torre de):

**Baso** izena eta **handia** izenondoa ditugu hemen. 1534ko despoblaturen zerrendan<sup>4459</sup> **Vasendia** ageri da, baina hau, 1603 eta 1605eko **Basandia** aldakiek erakusten duten gisa, notariaren errakuntza besterik ez da. Egun ere **Basandia** [başandía] esaten da:

“...en el monte de sulue o basandia” (1603)<sup>4460</sup>

**Basandia** herria “Corral de Ausalón” dagoen tokian zegoen, oraindik ere garbi ikus daitezkeen zaharkinek erakusten dutenez. Aipatu gortea (eta ingurukoak) eraikitzeko despoblaturako etxeen harriez baliaturako ziren segurasko. 1605ean dokumentatzen den **Fuente de Basandia** herrixkatik gertu dagoen **Iturrizarra** zatekeen:

“otra pieça en la endrecera llamada fuente de basandia” (1605)<sup>4461</sup>

**Alto de Basandia**, **Aldabea** eta **Basandia**-ren arteko gaina dateke, hots, **Cruz de Basandia**-ren aldeko gaina:

“Mas en el Alto de Basandia...” (1817)<sup>4462</sup>

Alderdiko errekak bi dira: bata zuzenean **Aitzandietatik** datorren errekara doa, eta bestea (**Iturrizarra** dagoena) beheago **Barranco de Sulue** deritzanean amaitzen da; **Portillo de Basandia** (1786)<sup>4463</sup> **Camino de la Sierra**-n dago, **Cruz de Basandia**-ren alboan; **Cruz de Basandia Aldabea de Aitzandietatik** eta **Basandia**-ren arteko muga-mugan zegoen, **Camino de la Sierra**-n, **Portillo de Basandia**-n bertan. Gurutzearen oinarria (harmailak) oraindik ere bertan dago, botata. Hirurogeita hamar urte inguru

4456 Id., 46. k.

4457 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 15. org.

4458 PRA-San Martin, 83. k.

4459 NAO-Comptos, 550. zkia.

4460 PRA-Oibar, 11. k.

4461 Id., 12. k.

4462 PRA-San Martin, 80. k.

4463 Id., 57. k.

ruko gure informatzaileek ez dute zutik ezagutu, eta beraz aspalditxoan erori zela (edo bota zutela) esan daiteke. **Torre de Basandia** herrixkako eliz-dorreari esan zekiokkeen, edo etxeen hondakinei (ikus **Torraza** sarreran dioguna). Zernahi ere den, garbi dago do-  
 rrea **Ermita de San Sebastián**-en ondoan zegoela:

“una pieza...en el termino de basandia con una torre y dos corales y era afrontada a la hermita del Sr Sansebastian” (1631)<sup>4464</sup>

#### Beiremuga:

Erdarazko **Mojón** edo **Muga de Beire**-ren euskal ordaina zen:

“ytten otra pieca en beyremuga u mojon de beyre” (1608)<sup>4465</sup>

#### Belena del Sol, la:

**Belena**-k ‘kalexka’, ‘etxarte’ adierak ditu<sup>4466</sup>. **Belena del Sol** egungo **Barrio del Sol** auzoa izan zitekeen (ikus sarrera hau):

“una casa sita en Ujue y vlena del Sol” (1860)<sup>4467</sup>

#### Beltranlarratz (alto), (carasol de), (portillada de), (solano de):

**Beltran** pertsona-izena eta **larratz** ‘lehen bai baina orain lantzen ez den belar ugariko lurtsaila’<sup>4468</sup> ditugu toponimo honetan. Gure egunotan **Mentangarraz** [mèntáj-garáθ] edo **Montagarraz** [mòntàngaráθ] esan ohi da, 1688an zeharo argia den izenaren itxuragaiztotzearen ondorioz.

Gaurregun **Capaburros**-etik Galipentzuko muga aldera luzatzen den **Aristuziaga**-ko gain bat izendatzen du. Gain izateari zor zaio, ezbairik gabe, 1688ko **Beltran larraza alto** aldaerako izenondoa:

“seallo el Veynte y Cinqueno moxon en beltran laRaça alto en la portillada alaparte del sol saliente”<sup>4469</sup>

1778rako **Beltranlarratz(a) Beltrangarraz**<sup>4470</sup> bilakatua zen; 1801eko leku-koaren arabera **Beltranlarratz Zubialdaia** zen antzina, baina gure iritziz zera gertatu

4464 PRA-Kaparroso, 34. k.

4465 PRA-Oibar, 13. k.

4466 Ikus Iribarrenen VN eta Bonifacio de Echegarayren “Nombres vascos de los espacios intermedios entre casas” artikulua, *Euskera*, 1930, 72-87 eta 179-191. orr.

4467 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 110. org.

4468 Zaren **larratza**-k herri ondoan zeuden, larrainen ondoan: “una huertta...teniente a las eras o larrazas que llaman de Yrigoién” (1730). Ikus herri honetako **Iribarren** sarrera. B. Estornés Lasak Izabako izen arruntetako jotzen du **larraza**, eta ‘terreno baldío’ adiera ematen dio (DTR, 388. or.).

4469 PRA-Kaseda, 4. k.

4470 PRA-San Martin, 53. k.

zen, alegia, Galipentzukoa zen Zubialdaia galdu zen bitartean Uxueko Beltranlarratz-ek bizirik iraun zuela:

“antes de llegar al alto del viso llamado antteriomte Zubialdaia y haora Beltran-garaz”<sup>4471</sup>

XIX. mendeko lehen urtean mugariak berraztertu zituztenek aurreko agi-riak ikusita nahastu, eta izen-ordezkapena burutua zela pentsatuko zuten. Izan ere, 1668an garbi ageri da Zubialdaia-k hogeita hiru eta hogeita laugarren mugariak har-tzen zituela, eta Beltranlarratz-ek, aldiz, hogeita bostgarrena:

“Ytten prosiguiendo eldho amoxonamito. seallo el Veynte y treseno moxon en Mitad del Caracierzo abajo de Cubial daya en peña fija al qual se le renobo la Cruz. Ytten prosiguiendo eldho amoxonamito. seallo el Veynte y quatreno mojon en mitad del So-lano de Cubialdaya enpeña fija alqual se le renobo la cruz. Yttenprosiguiendo eldho amoxonamto. se allo el Veynte y Cinqueno moxon en beltran laRaça alto en la portil-lada ala parte del solponiente...”<sup>4472</sup>

Carasol (1840)<sup>4473</sup> edo Solano (1801)<sup>4474</sup> de Beltranlarratz Vicente Juríoren gortearen azpiko aldeko zokoko iguxkUNETXOA izan zitekeen.

Nolanahi ere den, 1688ko Galipentzu eta Uxueren arteko mugen berri-kusketako datuak ez datoz bat oraingo mugekin, eta hau dela eta, Beltranlarratz hego-alderago, Portillo de Chinchón alderago luzatzen zelako susmoa dugu.

Berage (berros de), (corraliza de), (monte de), (rinconada del monte de), (sarría de):

Toponimo hau Mitxelenak aipatzen duen elkartuetako belar hitzaren bera-ldaerarekin lot liteke (Cf. Beralde, Beramendi, Beraun...), baina gure eskualdean hierba ‘corraliza’, ‘aborral’<sup>4475</sup> hitza arrunta den eta izan den arren, ez dugu sekulan belar-en eratorririk aurkitu<sup>4476</sup>, eta honek Mitxelenak aipatu bera- ‘belar’ horrekin lotzea zailtzen du gure ustetan.

Leku-izen honen etimologia azaltzeko beste bide bat berro hitzarekin erla-zionatzea da. Izan ere, berro edo labakiak ugariak ziren alderdi honetan, dokumentazioan ikus daitekeen gisara, eta izen horretan oinarriturik sortuko zen 1698an ediren dugun berros de Berage aldakia:

“un berro que...actualmente la tiene (sic) afrenta en los berros de Berague Simon Ni-colay”<sup>4477</sup>

Gero, beste batzuetan agitzen den antzera (cf. Lergan Los linares de Arana > Los Linares, baina Lanbasterra < Aranbazterra lihatze horien ondoan, bazterrean),

4471 PRA-Kaseda, 37. k.

4472 Id., 4. k.

4473 PRA-San Martin, 90. k.

4474 PRA-Kaseda, 37. k.

4475 Corraliza eta aborral hitzak ez dira zeharo elkarren bete, gorago ikusi moduan.

4476 Galipentzuan Beragu dugu, baina Uxueko kasu berean gaude hemen (ikus sarrera hau). Belar-ekin zer ikusia izan dezakeen Beraiz ere badugu Uxuen.

4477 PRA-San Martin, 7. k.

espezifikoa ahaztu eta generikoari atxikiko zitzaion, egun ibiltzen den **Los Berros** hutsean geldituz<sup>4478</sup>. **Berro de la Villa** delakoa (**Auzaberroa** Aezkoan eta bestetan) 1778an<sup>4479</sup> **Los Berros**-en barrukotzat eta 1780an<sup>4480</sup> **Berage**-ren barrukotzat jotzeak garbi erakusten du oraingo **Los Berros** eta antzinako **Berage** gauza bat-bera zirela.

**Monte de Berage** eta **Sarria de Berage** elkarren ordain zirela irudi duen arren, hau ez da zeharo segurua. Izan ere, **Monte** delakoa **Camino de Murillo**-ren ondoan zegoen, baina herri horretara bi bide ezberdinetatik joan zitekeen (ikus sarrera hau):

“otros dos Pedacos..en burgaloqui...que afrentan con el monte de berague y camino de murillo” (1605)<sup>4481</sup>

**Sarria** bere aldetik, **Lerbeltz**-en alboan zegoen, **Berage**ondoa-n edo aldamean, **Camino de Murillo** bat igarotzen den alderdian:

“Mas en el termino de lervez desde el barranquizo que baja de las piezas de Terzero asta la cabana bieja de Pedro Gorria en la Sarrea de berague treinta basos vivos” (1729)<sup>4482</sup>

Hortaz, ler edo pinuz osatua zegoela kontu egin daiteke. Gogoan hartu beharra dago, gainera, gaurko **Los Berros**-ek **El Pinar**-ekin mugatzen duela. Dena den, egun ezagutzen dugun **La Sarria** ikusita badirudi **sarria** zuhaitzez osatutako oihana baino gehiago zuhamu eta zuhaixkaz osaturikakoa dela. Beste aldetik, **Uxuen baso** dugu **Basandia** toponimoan, baina oihan duen leku-izenik ez da azaltzen, eta hau halabehar hutsa izan badaiteke ere, **sarria** izen horren ordezkotzat jo liteke apika<sup>4483</sup>.

**Rinconada del Monte de Berage** (1706)<sup>4484</sup> gaurregungo **Barranco de los Berros** osatzen duten bi errekaetako baten ingurua zatekeen.

**Berage Uxue** eta **Pitillasek** elkarrekiko zituzten dermioetako bat zen. Bertatik igarotzen zen herri honetarako bidea:

“En el termino de Uxue y Pitillas llamado berague” (1622)

“ytten otras dos piecas...afrentadas...con la carretera que ban a pitillas por berau y...con pieça...ques termino y endreçera llamada satacaraburu” (1588)

Azken lekuko honetako **Berau**-k **Uxue**ko jatorrizko forma **Beragu** zela pentsarazten digu (cf. Galipentzuko 1772ko **Berau**), dokumentazioan ugariena **Berage**

4478 Irangoten ere **Los Verros** dugu 1818an (PRA-Oibar, 98. k.), **Berro, Berro** arriba, eta **Alto del Berro** 1894ko katastroan.

4479 PRA-San Martin, 53. k.

4480 Id., 54. k.

4481 PRA-Oibar, 12. k.

4482 PRA-San Martin, 33. k.

4483 Inguruko herrietan **oihan** aurkitzen dugu baina ez **sarria**. Edozein moduz, **sarria** gure eskualdetik urrun samar ere azaltzen da: Ameskoagoieneko Larragoa (Larraona) herrian adibidez **Sarria** ageri da 1826an (Allin eta Ameskoetako hipotekak, 1. lib., 16. or.).

4484 IEA, 1462. kart., 31. zkia.



bada ere. **Beragu**, esan bezala, Eslaba eta Galipentzuko mendi baten izena da, labakiak egiteko toki aproposa hortaz, eta Uxuekoa ere mendia zen, ikusi dugunez. Aezkoan Azkueren arabera **berro** 'labakia' da<sup>4485</sup>, **berrosko** 'labaki txikia' eta **berrotu** 'labakitu', eta bailara honetan ere **Beragu** edireten dugu Garaioan eta Hiriberrin. Lehen herrian **Beragua** dugu 1781ean<sup>4486</sup>, **Beragua** edo **Berague** (ez dago bokal-armoniarik) 1916ko kastroan, eta **Beragua** [berágwa] orain<sup>4487</sup>. Hortaz, badirudi jatorrizko forma **Beragu** dela, eta hau **berro**-tik atera dela. Bukaerako **-gu** hori Azkuek<sup>4488</sup> "sufijos derivativos nominales locales" izenpean sartzen duen **-gi**, **-gio**, **-go** eta **-gü** izan liteke:

"Gu (R,S). Hermoso sufijo que denota lugar en que algo se ejecuta, alguna operación designada por el tema verbal al que se agrega. Como se ha visto ya, es un elemento que en variedades dialectales contiguas sufre variantes que le debilitan: *gi*, *gio*, *go* y el suletino *gü*: *Alagu* dehesa, lugar de pasto, *Bazkagu* como *Alagu*, *Bilgu* lugar de reunión, *Edangu*, *eradangu* abrevadero..."

**Bera** + **-gue** (< **gune**) ere proposa liteke, XIX. mendeko **Berague**-n ([beragwe], antza) oinarri harturik (cf. **Etxague**...). **Beragu**-ren oinarria aipatu **berrotu** aditza izan daiteke, gure hizkuntzan **r** / **rr** txandaketa ezaguna denez gero. Honela mintzo da Mitxelena gai honetaz:

"Hay bastantes ejemplos de alternancia *r* / *R*, en que la vibrante es generalmente (ez beti beraz) secundaria"<sup>4489</sup>

Tarteko pausua Mezkiritz eta Aurizberriko **Berragu**-n izan genezake, hau **Berregu**-tik atera ez bada bederen<sup>4490</sup>. Uxueko **Berage** 1588rako azaltzen den **Berau**-tik (< **\*Beragu**) atera dateke, aldakuntzaren arrazoiak garbi ez badaude ere.

#### Berageondoa:

**Berage** toponimoa eta **-ondoa** ditugu hemen. Honek egungo **Barranco** de los **Berros**-en alboko alderdia izendatzen zuen, **Lerbeltz**-ko muga, **Camino** de **Murillo**-ren aldamera (ikus **Camino** de **Berageondoa** eta **Camino** de **Murillo** por **Berageondoa** sarrera):

"ytten otra pi\* en beraga ondoa...que affrenta con barranco conçegil" (1594)<sup>4491</sup>

"Mas en beraondoa muga de Lervez una pieza" (1729)<sup>4492</sup>

4485 APIM, 290. or.

4486 PRA-Auritz, 49. or.

4487 Irurtzunen **Berroz** [beřós] dugu orain, **Berroz** edo **Berrauz** 1710ean (PRA-Arakil-Hiriberri, 61. k.), **Berroz** 1717an (Id., 67. k.), baina ez dakigu zer ikusirik baduen aztertzen ari garen izenarekin.

4488 MV, 101-102. orr.

4489 FHV, 331-332. orr.

4490 Orreaga Ibarra, MT, 319. or. Mezkiritzperro toponimoak (343. or.) garbi erakusten du herri honetan **berro** erabiltzen zela.

4491 PRA-Oibar, 8. k.

4492 PRA-San Martin, 33. k.

Ez dakigu **Monte de Beragu**-rekin identifikatu behar den.

#### Beraiz, puente de:

Behin bakarrik aurkitu dugu, 1674an<sup>4493</sup>. Osagaiak arestian aipatu dugun bera- 'belar' eta haitz izan litezke, baina hau ez da inolaz ere segurua.

Kokagunearen berri ere ez dakigu. Haitza osagaia duten toponimoak **Al-dabea de Aitzandiet**a-n oso ugariak direnez gero, agian **Aldabea** horretako zubiren batekin (**Puente de la Sierra** edo **Zubia**-rekin ausaz?) identifika liteke. **Beraiz** Otsakain eta Olabereren ondoko herriska baten izena ere bazen<sup>4494</sup>, eta **Beraiz** [berájs] eta honen eratorriak diren **Beraizko pagadie**, **Beraizko iturrieta**, eta **Beraizko bidia** ([bídja]) bizirik daude Etxalekun. Herri honetako toponimoa -z-z amaitzea proposatu dugun -haitz etimologiaren aurka mintzo dateke<sup>4495</sup>.

#### Berro, el:

Oraingo **El Berro Sulue**-n dago, herri lurrean, **Barranquilla** eta **Fuente de Romero**-tik hurbil. **Berro** izenaren adieraz ikus **Berage** sarrera.

#### Berroandia:

Ikus **Camino de Berroandia** sarrera.

#### Berro de la Villa, el:

Oraingo **Los Berros**-en zegoen, oihezki, baina ez dakigu zehazki non. Beti erdal itxuraz aurkitu dugun hau Orbaran eta Abaurregainean edireten dugun euskarazko **Auzaberro(a)**-ren ordaina da, eta herriak diru-iturri bat izateko zeukan berro edo labakia adierazten du (cf. beste toki askotako **Auzalor**, **Auzasoro**, **Auzasaroi**...toponimoak).

#### Berro grande de la Villa, el:

**Berro** izenaren esanahiaz ikus **Berage** sarreran dioguna. Espero genuenez, berro hau (**Los Berros de**) **Berage**-n zegoen:

"Mas un berro...en Berague...que afronta con...el verro grande de la villa" (1708)<sup>4496</sup>

4493 Id., 2. k.

4494 *Catálogo Documental de la Real Colegiata de Roncesvalles (1301-1500)*; J. J. Martinena Ruiz, Príncipe de Viana-CSIC, Iruñea, 1979, 70. or.

4495 Z hori aipatu eratorrietan **Beraiz** toponimoa leku-denborazko genitiboaren morfemaz lagundurik joatearen ondorioa ere izan liteke, agian.

4496 UEA, 14. kap-lib., 323. or.

**Berros (caracierzo de), (carasol de), los:**

Izen honen jatorriaz ikus **Berage** sarrera. **Los Berros-ek** Altxunbidea, **Medios**, **Lakumulatu**, **Lerbeltz**, **Aldamara** eta **El Pinar-ekin** mugatzen du. **Carasol de los Berros** hegoaldera ematen duen erreka ondoko alderdia da, eta **Caracierzo de los Berros** iparrera ematen duena.

**Beskos (alto), (bajo), (aborral de), (alto de), (alto grande de), (barranco de), (canta-  
ra de), (corraliza de), (paso de), (pontecilla del barranco de), (portillo de), (presa  
de), (saleras de):**

Izen honen etimologiaz ikus -os / -oz bukaera duten izenei eskainitako atalean dioguna. 1583koa den lehen agerralditik (ikus aitzinxeago) beti **Bescos** edo **Vescos** dugu dokumentazioan.

**Beskos** [béskoš] **Ardui-tik** **Busa-raino** luzatzen da, **Retuerta** eta **Aguilar** ere mugakide dituelarik. XIX. mendeko **Bescos alto** (1854)<sup>4497</sup> / **Bescos bajo** (1847)<sup>4498</sup> izenek "corraliza"-k bereizteko moduak dira, toponimo ezberdinak baino gehiago (ikus **Mesta** sarrera). Izan ere, 1854ko lekukotasunean ikusten den antzera, **Bescos-alto** (gaur ez da erabiltzen) eta **Retuerta** gauza bera ziren, edo elkarren ondoan zeuden behintzat.

Dokumentazioko **Alto (grande) de Beskos** (1802)<sup>4499</sup> Benitoren gorrea dagoen gaina dateke; **Barranco de Beskos Ardui** eta **Retuerta-tik** jaisten diren errekaetok sortzen dutena da; **Cantera de Beskos** 1802an egindako San Martin eta Uxueren arteko mugarrien berrikusketa-agirian baizik ez dugu aurkitu. Gain honetan zegoen bi herrion arteko hogeita hamabostgarren mugarrria, **Portillo de Beskos-en**:

"se halló la Muga treintta y Cinco...en medio del Portillo, y Canttera de los terminos de Bescos y Zaramandil a dos vertientes"<sup>4500</sup>

Aipu honetako portiluari **Portillo de Beskos** esaten ote zitzaion ez dago bat ere garbi. Egun behintzat, ez da izen hori ibiltzen. **Paso de Beskos Camino de Olite-k** eta **Barranco de Beskos-ek** elkar gurutzatzen duten tokian dago, Beireko lurretan, San Martin eta Uxueko mugetatik hurbil, hau da, zenbaitetan gutxienez **Las Tres Mugas** deitu ohi den alderdian. **Pontecilla del Barranco de Beskos** Erriberriko bidetik hurbil zegoen, **Barranco de Beskos-en** berean, San Martin, Beire eta Uxueren arteko muga-mugan, eta ez dakigu inguru honetan behar zuen **Puendelazapata** bera ez ote zen:

4497 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 65. or.

4498 PRA-Kaseda, 57. k.

4499 PRA-San Martin, 70. k.

4500 Id., 70. k.

“...y de esta pasando el dho camino (Erriberrikoa) sobre la Pontecilla del Barranco de Bescos se hallo la sesentta y una Muga” (1802)<sup>4501</sup>

**Saleras de Beskos** (1829)<sup>4502</sup> non zegoen ez dakigu, ez eta gatzarriak ziren ala gesalak; **Presa de Beskos** (1583)<sup>4503</sup> alderdiko errekan zegokeen.

#### Besolaga:

Honen etimologiaz ikus **-aga** bukaerari eskaini atalean dioguna. **Beskos-en Saleras** (ikus aurreko sarrera) eta **Areatzeta-n** (gaurko **Otrollos-en**) **Barranco del Salobral** (Salobral bizirik dago) eta **Pieza del Gesal** genituenaz gero<sup>4504</sup>, ez dugu uste **Besolaga** \***Gesalaga** (cf. Leatxeko **Gesalaga**) baten itxuratxartzea besterik ez dela pentsatzea zentzugabekeria denik. Gogoan eduki behar da, gainera, behin bakarrik azaltzen dela:

“ytten otra pieza en Vesolaga” (1629)<sup>4505</sup>

#### Bidemakurra:

**Bide** izena eta **makurra** ‘okerra’ izenondoa ditugu hemen. Gaur **Camino de la Tejería** deritzan bide okerra eta ondoko eremua izendatzen zituen toponimo deskribatzaile honek:

“otra pieza en la otra aldavea (Aitzandietan)...en la parte que llaman vide macurra” (1725)<sup>4506</sup>

#### Bidezabala:

**Bide-z** eta **zabala-z** osaturik dago. Ez dakigu zein bide zen:

“otra piª en la endrecera llamada videocabala” (1605)<sup>4507</sup>

#### Bigas (alto de), (corraliza de):

Izen ilun honen etimologiaz ikus **-as**, **-az** amaieraz mintzatzerakoan dioguna. Hau ere, **Barallas**, **Beskos** edo **Mostrakas** bezala beti itxura beraz azaltzen da, hots, aldaketa (foniko, zeren grafiaren aldetik batzuetan **v-z** eta bestetan **b-z** idatzia aurkitzen baita)-rik gabe, 1680ko **Bias** alde batera uzten badugu. Egun ere **Bigas** [bígas] erabiltzen da.

**Bigas** Murillora doan altxonbidearen bi aldeetan barna hedatzen da, **Mostrakas**, **Zabalondoa** eta **El Pinar-etik Aldamara** eta **Murilloko** mugaraino:

4501 Id.

4502 Id., 86. k.

4503 PRA-Oibar, 3. k.

4504 Hauetako bat **Petringesala** dela uste dugu, edo agian biak, **Barranco del Salobral** eta **Pieza del Gesal** diferentek zirela pentsatzeko inolako arrazoirik ez baitugu. Izatekotan, bat eta bertzat hartzea genuke. Ikus aipatu hiru sarrera hauek. Uxueko dokumentazioan **Pozo de Sagalea** ere aurkitzen dugu, \***Pozo de Gesalea** baten desitxuraketa agian.

4505 PRA-Kaparroso, 32. k.

4506 IEA, 13. kap-lib., 276. or. Longida-Ekain ere ageri da, 1615. urtean (PRA-Agoitz, 15. k., 52. org.).

4507 PRA-Oibar, 12. k.

“...dha muga questa en el termino de la dha villa de Uxue llamado bigas y por la de murillo llamado la arega” (1647)<sup>4508</sup>

**Alto de Bigas Uxueko La Sierra**-ko dermioak baino baxuago dagoen arren, gaina da Murillotik ikusita, eta agian hortik etorriko zaio “gain” deitze hori. Orain ezezaguna den **Boxagarea**-rekin ere mugatzen bide zuen antzina (ikus sarrera hau).

**Bigas** ez da 1534eko zerrendako despoblatuen artean azaltzen, baina 1861eko agiri batean **Bigas**-ko **La Torraza** aipatzen da, eta badirudi **Bigas**-en ere herrixka hustu bat genuela (ikus **Torraza** sarrera):

“otro corral...en el termino de vigas debajo del parage llamado la torraza”<sup>4509</sup>

#### **Bikuaga (alto de), (rincón de):**

**Biku** ‘bikuondo’ izena eta **-aga** atzizkia ditugu gaurregun zeharo ezezaguna den honetan. Gaurko (**Los Linares**) de **Txorria**-n zegoela pentsa dezakegu, bertan liharzueak bazeudenez gero. Gainera, badakigu **Acequia de Valgrande**-ren ondoan zegoela:

“una p<sup>a</sup> linar de panllebar...en el temjo llamado bicuaga” (1574)<sup>4510</sup>

“un linar en bicoaga...afrenta a linar...y cequia de balgrande” (1628)<sup>4511</sup>

Badakigu, orobat, **Valgrande** edo **Balgarandega Txorria**-n zegoela, **Txorria** bera ez bazen behintzat (ikus **Bagarana**, **Valgrande** eta **Txorria** sarrerak). Datu guzti hauek ikusita, garbi samar gelditzen da dokumentazioko **Rincón de Bikuaga** egungo (1771)<sup>4512</sup> **Rincón de Fausto** zela, eta **Alto de Bikuaga** (1793)<sup>4513</sup> altxonbidea igarotzen den **Andiaga** eta **Carasol de Txorria**-ren arteko gain gaur izengabea.

#### **Billeta (barrio de), (esquina de):**

Aldaera batutzat egungo **Billeta** [bijéta] aukeratu badugu ere, lehen lekukoa 1593ko **Villitta** da<sup>4514</sup>, eta **-ita** bukaera duten aldakiak ugariak dira dokumentazioan. Izen honen etimologiari dagokionez, badirudi **villa**-tik eratorri behar dela, **Villeta** honen txikigarri bat besterik ez delarik<sup>4515</sup>. Guztiarekin ere, eta **Villita**-ren bigarren **-i**-hori aurreko kontsonante sabaikariaren eraginari zor dakiokkeenagatik, lekukorik zaharrena honen alde mintzo da, eta hau dela medio Deierriko Ugarren azaltzen den **Bilita arana**-rekin lot daitekeela dirudi<sup>4516</sup>. Alabaina, gaurko aldaera ere goiz aurkitzen dugu:

4508 PRA-Kaparroso, 42. k.

4509 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 117. or.

4510 Id.

4511 PRA-Kaparroso, 31. k.

4512 Id., 50. k.

4513 PRA-San Martin, 63. k.

4514 UEA, 14. kap-lib., 98. or.

4515 Ikus Corominasen DCECH, **villa** sarrera.

4516 Lacarra, VM, 25. or.

“una cassa...en la endreçera llamada billetta” (1602)<sup>4517</sup>

**Billeta** herriko kale luze bat da, antzinako portalearen ingurutik plaza txiki-raino doana. 1705eko barrio de Vilita-k gazteluaren azpiko auzoa adierazten zuen, portalera zihoan **Billeta** karrikaren ondokoa edo:

“...en el barrio llamado Vilita devajo el claustro de dicha iglesia que afrenta con calle que se va al portal”<sup>4518</sup>

1759ko **Esquina de Villetta**<sup>4519</sup> zehazki zer den ez dakigu, baina Angel Alcuazen etxeke ezkina edo zokoa izan zitekeen, goraxeago dagoen “Casa de la Martina”-ko kantoia, edo “Esquina de la Iso” deritzana.

**Bodega, la:**

Lehenko **Balsa vieja**-ren gainean eraiki zen oraingo ardandegia, Gerla zibilaren ondoren, 1950 inguruan.

**Boxagarea (alto de), (barranco de), (pozo de):**

Zaila da era ezberdin askotara agertzen den izen honen aldaera batua taiutzea. Guztiarekin, aldatzen den segmentua hasierakoa da bakarrik (**boxa-**), bukaerakoa (**-garea**) aldioro berdin azaltzen delarik<sup>4520</sup>: **Boga garea** (1691)<sup>4521</sup>, **Boja garea** (1701)<sup>4522</sup>, **Bosagarea** (1722)<sup>4523</sup>, **Bossagarea** (1778)<sup>4524</sup>, **Busagarea** (1780, 1794)<sup>4525</sup>... Guzti hauen azpian gure ustez **Boxagarea** [bošagarea] (edo **Buxagarea** agian) dago. 1691ko **Boga garea**<sup>4526</sup> edo 1701eko **Boja garea**<sup>4527</sup> aldaeretan sabaiaurreko igurzkarri ahoskabea egon zitekeen (ikus **Grafia kontuak** atala), baina -j- [x] belarearen ebakeraren isla ere izan daiteke.

Itxura guztien arabera, ‘ezpeldia’ esanahia duen erdal **bojagal**, **bujagal**-en aldaera baten euskaratzearen ondorea da toki-izen hau (\***boxagar**, \***bojagar**-ena, antza. Cf. **El Busagar** Oibarren 1703an<sup>4528</sup>, **El Buxagar** urte berean<sup>4529</sup>, **El Bujagar** 1719an<sup>4530</sup>). 1778 eta 1794ko **Busagarea** erdal **Bujagar**-en eraginari zor dakiok, baina ezin dugu

4517 PRA-Oibar, 10. k.

4518 UEA, 14. kap-lib., 96. or.

4519 Id., 98. or.

4520 Irunen -garea antroponimo bati erantsia aurkitzen dugu **Azubelegarea** toponimoan (J. A. Loidi Bizkarondo, “Aingeru Irigaraien oroimenez”, in AIO, 423-434. orr.), baina itxuren arabera, eta Uxueko izenarentzat proposatzen dugun etimologia zuzena bada, Irungo toponimoarekin loturarik ez luke.

4521 PRA-San Martin, 6. k.

4522 Id., 8. k.

4523 Id., 31. k.

4524 Id., 53. k.

4525 Id., 54. eta 63. karpetak.

4526 Id., 6. k.

4527 Id., 8. k.

4528 PRA-Irunberri, 1. k.

4529 PRA-Oibar, 30. k.

4530 Id., 36. k.

baztertu Uxueko toponimoa den **Busa**-rekiko nahasketa. Uxueko udalerrri osoan ezpelak oso ugariak izatea proposatzen dugun etimologia honen aldekoa da.

### Boxagarea Bigas ondoan zegoen:

“Ms en la sierra, y parage q llaman Vigas un cuvierto con su Pajar, cavaña y dos corrales...q afronttan con piezas de...cerca del camino de Sta Maria la Blanca... Berro de la villa...y llegan hasta el barranco de Busagarea” (1794)

Honen arabera, **Barranco de Boxagarea** oraingo **Barranco de Bigas**-en goiko zatia zatekeen, eta **Pozo de Boxagarea** (1780) altxonbidetako egungo **Pozo de Bercero**. **Alto de Boxagarea** oraingo **Alto de Bigas** genukeen.

### Boyerál, carasol del:

Boyerál, Galipentzuko izen bereko toponimoa aztertzean esanenez, herriko aziendentzat altxatzen den mendia ohi da (azienda larriak nahiz azienda xeheak alazen ziren bertan). Uxuen toponimo hau 1892ko katastroan ediren dugu estraineko aldiz, eta **Carasol del Vedado**-rekin identifikatu daitekeela dirudien arren, **Aguilar** ere izan daiteke, hondar hau eguzkialdea ezetik “boyerál”-a ere bazenez gero.

### Burgaloki:

Toponimo hau tarteko herskari belarez aurkitu ohi dugu, baina behin gutxienez herskari horzkaridun aldaera azaltzen da, 1726an. Hortaz, duda egin dezakegu jatorrizko forma zein ote den erabakitzerakoan. Antzinatasunak **Burgaloki**-ren alde jokatzen du, baina Puiun **Burdaloquis** aurkitzeak<sup>4531</sup> jatorrizko forma horzkariduna dela pentsatzera eramán gaitzake. Hala ere, Araban<sup>4532</sup> **burgu** ‘burgo’-ren eratorria den **burgari** ‘vecino que gratuitamente turna como guarda de campo en los lugares pequeños’ bizirik egoteak, Itza zendeako Lete herrian **Burgaburu** eta **Burgaria** (**Burgadi**, **Burgadia**, **Burgari**...) agertzeak<sup>4533</sup>, Uxuen bertan belaredun aldaerak lehenago dokumentatzearekin batera, **Burgaloki** aldaera hobestera eramán gaitu<sup>4534</sup>:

“la segunda Piª en la endrecera llamada burgaloqui” (1603)<sup>4535</sup>

**Burgaloki**, hortaz, esanahi garbiegirik ez duen **burgari** eta **-oki** ‘toki’-z osatua egon liteke. Toponimo honen adiera, **Lerga** eta beste herri batzuetako **Iguraimendia** edo **Iguraimendikoa**-ren parekoa izan liteke, alegia, ‘igurua ardantze, alor edo basoak zaintzen izaten den tokia’ (gaina normalean) adiera izan lezake. Beste herri batzuetan **kapaná** toponimoa aurkitzen dugu horrelako muinoak adierazteko; hurbilena Uxue eta

4531 Id., 96. k., 1816.

4532 Mitxelena aipatua, AV, 77. or.

4533 Jimeno Jurfo, TCPCI, 214. or. **Burgaria**-ren kasuan bukaerako **-di** hori **Lizardi**, **Pagadi**...eta bestetan ageri den atzizki multzokaria dela pentsa liteke, baina lehen lekukoa 1543ko **Burgaria** izatea uste honen kontra joan liteke apika. Aipatu atzizki hori balitz, \***burgu** landare, harri edo lur motaren bat dela kontu egin liteke, **-di** honelako oinarriari erantzen baitzaie.

Mitxelena **Burgu**-rekin erlazionatzen duen (nahiz seguritate gutxiz) **Burgi** (**Murgia**...)-rekin ere lot liteke agian.

4534 Puiuko aipatu toponimoa oso berandukoa da, eta Uxueko **Burdaloki** bezala nahasketa baten fruitu izan daiteke. Bukarako **-s** hori erdararen eraginari zor zaiola zalantzarik ez dago. Ziraukin **Marquelaín** toki-izenarekin batera **Marquelaín burgaria** ere ageri da (PRA-Zirauki, 2. k., 1573, 1574).

4535 PRA-Oibar, 11. k.

Galipentzuren arteko mugako **Kapana** edo **Kapanandia** da (ikus bi sarrera hauek, Galipentzun).

**Burgaloki La Sierra**-n zegoen, Pitillastik **Berage**-ra igotzen zen bidearen alboan:

“y otra (pieza) en burgaloqui...que afrenta a la carretera que ban a pitillas...” (1651)<sup>4536</sup>  
 “Mas otra pieza...en el mismo termino de la sierra llamado burdaloqui” (1726)<sup>4537</sup>

**Monte de Berage** (Berageondoa?) eta **Camino de Murillo**-ren ondoan:

“otros dos Pedacos...en burgaloqui...que afrentan con el monte de berague y camino de murillo” (1605)<sup>4538</sup>

### Burnizirieta:

Oraingo honetan ere izen batua aukeratzea lan gaitza da, dagoen aldaera kopuru handi nabarrarengatik. Guk 1588ko lehen lekukoa hautatzea erabaki dugu, gardena honek irudi duelako:

“...en la endreçera llamada burniçirieta”<sup>4539</sup>

1605eko **Burnizorreta**<sup>4540</sup> eta 1634ko **Burnierreta**<sup>4541</sup> desitxuraketak dira, eta 1727ko **Burruna zubieta**<sup>4542</sup> herri-etimologiaz sortu dela dirudi, 1724ko **Burniazurieta**<sup>4543</sup> (cf. gainera 1746ko **Burnizurrieta**<sup>4544</sup>) bezala, eta honetatik edo honen pareko batetik abiatuta<sup>4545</sup>, antza. 1629ko **Brunicarieta**<sup>4546</sup> edo 1704ko **Burniçarieta**<sup>4547</sup>, 1631ko **Burnicerieta**<sup>4548</sup> eta 1688ko **Burnicieta**<sup>4549</sup> jatorrizko 1588ko **Burniçirieta**-ren itxuratxartze arin samarrak dirateke.

Osagaiak **burnia** ‘burdina’, **ziri** ‘cuña’, ‘clavija’, ‘haga’ eta **-eta** izan litezke, baina hau ez da inola ere segurua. Izan ere, bigarren elementua toponimian hain ezaguna den **zuri**, edo honekin aldizkatu ohi diren **zubi** eta **zahar** (-**zurieta** / -**zubieta** / -**zarreta** segidan) izan zitekeen.

4536 PRA-Kaparroso, 45. k.

4537 UEA, 14. kap-lib., 330. or.

4538 PRA-Oibar, 12. k.

4539 Id., 4. k.

4540 Id., 12. k.

4541 IEA, 345. k, 13. zkia.

4542 PRA-San Martin, 32. k.

4543 PRA-Oibar, 49. k.

4544 PRA-San Martin, 38. k.

4545 Egun ezeguna den **Erripazarreta** izenaren bigarren osagaiak ere antzeko aldakiak aurkezten ditu: **Erripacarreta** 1601ean, **Ripacurieta** 1685ean, **Ripa zubieta** 1708an. Ikus sarrera hau.

4546 PRA-Kaparroso, 32. k.

4547 PRA-San Martin, 9. k.

4548 PRA-Kaparroso, 34. k.

4549 UEA, 13. kap-lib., 39. or.



Azpmarratzekoak dira hemen ‘burdina’ adiera duen izenaren aldaerak: **burni-** da gehienetan, baina 1724an **burnia-** dugu, eta 1727an **burruna**. Cf. Zaraitzuko **burña**, **burruña** Erronkarin, Mitxelenaren arabera<sup>4550</sup>. Autore honek dioenez, u-i > u-u asimilazioa jasan duen **burdun-**, **burrun-** elkarketako aldaera ekialdeko euskalkietatik kanpo ere aski hedatua dago<sup>4551</sup>. **Burnizirieta La Sierra-n** zegoen:

“Mas otra pieza en la sierra en la enderecera llamada Burniçarieta” (1704)

Badirudi Astrakastillu-k ordezkatu zuela, 1746ko lekukoa aintzat hartu behar badugu behinik behin (ikus sarrera hori). Hortaz, **Astrakastillu bezala**, Santakarako bidearen ondoan zegokeen, **Santa María la Blanca-tik** ez urruti.

**Busa (barranco de), corraliza de), (cubiertos de), (larratza de), (paso de):**

Etimologia iluneko izena da hau guretzat. Ez dugu uste Iribarrenek San Martin Unxekotzat jotzen duen<sup>4552</sup> **busa** ‘lastoak botatzen duen hauts modukoa’-rekin erlazioatu behar denik, toponimian honelakorik ez baitugu sekulan opatu. Izen hau beti itxura beraz aurkitu dugu, batzuetan b-z idatzia, bestetan v-z, 1588ko **Gussa**<sup>4553</sup> alde batera uzten badugu bederen, eta egun ere **Busa** [búsa] esaten da. Alabaina, **Busa**-ren eratorria den **Busazarra** toponimoa 1627an **Usazarra** idatzia ageri da, eta honek euskaraz hain arrunta den hasierako lekuneko kontsonanteen “dantza” dakarkigu burutara (cf., esaterako, Azteraingo **Bustazuriko errekaldea / Ustazuriko errekaldea**<sup>4554</sup>). Forma horretan oinarri harturik usa ‘zilegi’ ‘herri-lurra’<sup>4555</sup> ikus liteke toponimo honen jatorrian, baina batetik **usa** hori urrutikoa (Oñatikoa) da, eta bestetik **Busa** aipatu 1627ko lekuko horretaz beste guztietan agertzen da.

Mintzagai dugun toponimoa 1534ko despoblaturen zerrendan azaltzen da<sup>4556</sup>, eta garbi dago izen zaharra dela. **Busa** herriaren zaharrik Beireko bideko Ayesa, S. Be-

4550 FHV, 162. or.

4551 Id., 80. or.

4552 VN.

4553 PRA-Oibar, 4. k.

4554 J. Jurío, TCPCC, 66. or.

4555 AV, 166-167. orr.

4556 NAO-Comptos, 550. zkia. Idoatek bere “Poblados y despoblados o desolados en Navarra (en 1534 y 1800)”-n **Vusa** ongi irakurtzen du. Jacinto Clavería uxuetarrak (*Historia documentada de la Virgen, el Santuario y Villa de Ujué*, Iruñea, 1953, Urangak UM-eko 44. orrialdean aiparua) berriz **Unsanava** biltzen du, eta Fco. J. Zubiaurrek (“Estelas discoidales de la villa de Ujué (Navarra)”, CEEN, 1978, 30, 493-520. orr.) **Unsaba** dakar. Azken bi despoblaturik hauek ez dira sekulan existitu, eta **Vusa**-ren gaizki ulertzearen ondorenak dira. Toponimo-hurrenkerak ere garbi adierazten du **Vusa**-ren ordez dagoela, aurrean **Otrollos el chico** eta atzean **Aquirazabal** baitu.

Beste despoblaturik izen batzuk ere gaizki traskribaturik daude, eta honelako izen zaharrak ongi ulertzeko oraingo aldaerak ezagutu behar direla garbi ikusten da, nahiz hau ere ez den beti aski (cf. Claveríaren **Unsanava**). **Zaubio**-ren kasuan, adibidez, Idoatek **Zambro** eta Zubiaurrek **Zambrio** dakarte, baina Claveríak **Zaubio**.

rrade, B. Berrade, eta S. Iriarteren gorteen inguruan daudela uste dugu. Hemen ere, beste despoblatu batzuetan bezala, gorreak egiteko herrixkako etxeetako harriez baliatuko ziren.

**Busa** dermio zabala da, eta **Besos**, **Akirazabal** eta **Pipiratu**-tik San Martin eta Beireko mugetaraino hedatzen da, hegoaldean **Otrollos** (behinolako **Otrollostxiki**) daukalarik. **Barranco de Busa** gorago **Barranco de Akirazabal** deitzen den erreka da; **Busa** gurutzatu ondoren **Otrollos**-en (lehengo **Otrollostxiki**-n, esan bezala) sartzen da, **Pipiratu**-tik jaisten den errekaekin bat egin aitzinetik:

“en el termino de otrollos chiqui, tente al barranco concegil que baja de Busa” (1800)<sup>457</sup>

**Corraliza de Busa** oso zaharra da (1588an azaltzen da aurrenekoz<sup>458</sup>). Gaurregun “corraliza” honek beste dermio batzuk ere hartzen ditu (**Akirazabal**, **Santa Fe**, **Pipiratu**, **Otrollos** eta **Besos**. Ikus **Corraliza** sarrera), horietako batzuk desagertzeko arriskutan jarriaz (ikus **Akirazabal** sarreran dioguna). **Cubiertos de Busa** zehazki non ziren ez dakigu, baina lehen aipatu gorreak izan zitezkeen, hauek **Paso de Busa**-tik gertu daudenez gero, dokumentazioko estalpe horiek bezala:

“...asta el Passo de Busa y de alli a los cubiertos de Busa” (1748)<sup>459</sup>

**Larratza de Busa** gorteen inguruan zegoeken. **Larratza** izen arruntzat bakkarik **Uxuen** eta **Zaren** (ikus herri honetako **Iribarren** sarrera) aurkitzen dugu; lehenean **Larratza de Drinda**, **Larratza de Lerbeltz**, **Larratza de Otrollosandi**, eta **Larratza de Otrollostxiki** ditugu, besteak beste:

“otro pedaço en la larraza de vussa” (1628)<sup>460</sup>

#### **Busazarra:**

**Busa** toponimoa eta **zarra** ‘zaharra’ izenondoa ditugu hemen. Esan dugun bezala (ikus **Busa**), 1627an hasierako herskari ezpainbikoaz gabetua aurkitu dugu:

“una viña sita en usazarra...afrentada con...barranco concegil” (1627)<sup>461</sup>

**Busazarra**-k gure ustez **Busa** herrixka zaharra zegoen alderdia adierazten zuen. Ditugun lekukotasunetan oinarriturik **Barranco de Busa** eta **Pitillasko** (**Otrollos**-ko) bidearen alboan zegoela ondoriozta dezakegu, alegia, despoblatuaren ondoko eremua zela:

“unas piecas en busaçara...que atiene a...camino que ban a Pitillas” (1618)<sup>462</sup>

4557 PRA-San Martin, 69. k.

4558 PRA-Oibar, 4. k.

4559 IEA, 1618. kart., 20. zkia.

4560 PRA-Kaparroso, 31. k.

4561 PRA-Oibar, 30. k.

4562 Id., 21. k.

**Butzubidea:**

**Butzu** eta **bidea** izenak ditugu toponimo honetan. Badakigu putzu batera zihoan bidea zela, baina ez zeinetarakoa:

“otra pieza en bucu bidea que afuerta con...Camino Real” (1604)<sup>4563</sup>

Uxuetik hurbilen daudenak, herrian bertan dagoen **El Aljibe-z gain**, **Pozo del Molino**, **Pozo de Galaputzu** eta **Pozo de Arteko haitz** dira<sup>4564</sup>. Idorte urteetan jendea **Arteko haitz**-eko putzura joaten zen ur bila, eta badaiteke aztergai dugun **Butzubidea** putzu horretaranzko bidea izatea.

Toponimo honetan, **Butzume**ar eta **Andrebutzu**-n bezala, hasieran ez-painbiko herskari ahostuna dugu, Oibar ibarreko (eta seguraski Iruñera arteko) herri gutzietan bezala. Salbuespen bakarra aipatu Uxueko bertako **Galaputzu** da; hemen agian erdal izenaren eraginaz pentsa daiteke, gehienetan **Pozo (de) Galapuz**u esaten baita<sup>4565</sup>.

**Butzume**ar:

**Butzu**<sup>4566</sup> izena eta mehar ‘mehe, estu’ izenondoa ditugu toponimo honetan. Badakigu **Aldabea de Aitzandieta**-n zegoela, **La Sierra**-ra zihoan bide-zigorraren ondo-ondoan, errekan seguruenara, baina ez dakigu oraingo zein putzu izan daitekeen. Posibilitate gehien dituen **Pozo de Arteko haitz** da, hau aipatu alderdi horretan dagoelako, **Camino del Puente de la Sierra**-tik hurbil. Gainera **Pozo de Arteko haitz** ez da dokumentazioan ageri:

“otra (pieza) en el termino de buzumiari...que afronta con pieza de Juan Jurio y senda que cruza a la sierra” (1707)<sup>4567</sup>

Zernahi ere den, badakigu bi errekaen topagunean zegoela, eta beraz **Pozo de Arteko haitz** bera ez bada<sup>4568</sup>, **Basandia** eta **La Sierra**-ra doan **Camino de San Jerónimo**-n (**Camino de Lakubeli** edo antzinako **Camino de Arbolaga**-ren jarraipena da) egon zitekeen, hemen **Aitzandieta**-tik datorren erreka (**Barranco de Lakubeli** izena hartzen du hemendik beheiti) eta **Rincón de Muelas**-etik jaisten den erreka<sup>4569</sup> batzen baitira:

“Ytten otra (pieza) en la misma Aldabea (Aitzandieta-koan) en Buzume

4563 Id., 11. k.

4564 **Aizkanbela (Villantigua)**-ko **Pozo de las Aguas** berria da, herrian ur korrontea jarri zen garaikoa, gerla zibilaren ondokoa alegia (ikus sarrera hau).

4565 Herskari ezpainbiko ahoskabea, dena dela, XVI. menderako agertzen da.

4566 Hortz-hobietako afrikatu bizkarkariari dagokionez cf. gaurko **Andrebutxo**, **Andremutxo**, **Andrebutchu** XIX. mendean, \***Andrebutzu**-tik (ikus sarrera hau).

4567 PRA-San Martin, 29. k.

4568 Hemen **Rincón de Balsalarraña**-tik jaisten den erreka<sup>4569</sup> **Aitzandieta**-ko errekaekin elkartzen da.

4569 PRA-San Martin, 48. k.

**Buzakabe, fuente de:**

1693ko **Fuente de Buzacabe** informatzaileak euskaraz esan zuena notariak erdarara gaizki itzultzearen fruitua besterik ez dela uste dugu. Izan ere, **-be** horrekin batera “parte baja” azaltzen da erdaraz:

“...lo que inportare el pajar que esta a la parte baja de la fuente de buçacabe” (1679)<sup>4570</sup>

Iturria aipatuko ez balitz, **Buzakabe Buzakao**-ren beheko (azpiko) aldea zela suposa genezake (cf. **Drinda / Drindabe**), baina iturriaren aipuak aztergai dugun izen hori itzulpen kaskar baten ondorela dela pentsarazten digu.

**Buzakao (barrio de), (calle de), (fuente de), (lavador de), (lavador de la fuente de), (pozo de):**

Egungo **Buzakau** [bùθakáũ] herriko eskoletako patioko iturria da. Etimologia garbi ez badago ere, 1731n **Pozo de Buzacau**-n oinarri harturik hasieran **butzu** izen arrunta dugula kontu egin daiteke, hortz-hobietako bizkarkari afrikatuaren seinale ohi den **-ch**-ren antzeko grafiarik ez izanagatik ere:

“...limpia del camino de Turtunbera y la fuente de turtunbera como tambien la de andandieta por dos vezes y el pozo o labador de Buzacau”<sup>4571</sup>

**Bukaeran Iturrao** ‘iturburu’, ‘iturbegi’-n aurkitzen dugun **aho** izena izan genezake (cf., alabaina, **Lergako Iturgutiagoa; Iturloiagoa**), tarteko **-k-** hori elkarketa-erartorketan zenbaitetan agertzen den kontsonante epentetikoa (cf. **umekondo** < **ume** + **ondo**) nahiz leku genitiboaren **-ko** morfemaren aztarna delarik. Hortaz, **Buzakao (Buzacau 1773**<sup>4572</sup> eta **1783an**<sup>4573</sup>) edo **Buzakau**-ren azpian **butzu** + **k** + **aho** edo **butzu** + **ko** + **aho** genuke<sup>4574</sup>.

**Buzakao** dokumentazioan iturritzat hartua da (ikus **Ardui sarrera**), eta **Fuente de la Peña** izenaz ere agertzen da:

“y mas una huerta en la endreçera llamada la fuente de la peña u buçacau...que afruenta con la Adoberia” (1605)<sup>4575</sup>

**Adobería** ere **Buzakao**-ren ondoan<sup>4576</sup> zegoen, esan bezala larruak lantzeko ura ezinbestekoa zelako. Hortaz, **Barrio del Buzakao** eta **Barrio de las Adoberías** bat eta bera zirela dirudi:

“Ms una cassa sitta en el Barrio llamado Buzacau junto al Labadero” (1773)

4570 Id., 3. k.

4571 Id., 33. k.

4572 Id., 51. k.

4573 Id., 56. k.

4574 **Butzuko aho** bitxi samarra da. Honen ordez **Butzuao** (cf. **Iturrao** eta Elkanoko Lizarragak erabiltzen duen **Butzupokale**) edo **Butzuaren aho**-ren antzeko zerbait espero genuke.

4575 PRA-Oibar, 12. k.

4576 Azpian zegoen: “un vago o sitio que llaman Adoberia sitto en estta vª que afrontta por la parte de arriva con el Labador de la fuente de Buzacau” (PRA-San Martin, 56. k., 1783).

**Barrio del Buzakao** oraindik ere erabilia da; gaurregun gehiago erabiltzen den **Barrio de las Escuelas**-en eta dokumentazioko **Barrio de la Fuente de la Peña**-ren kide dugu.

Arropa garbitzeko tokia ere bazen iturri edo putzu hau, dokumentazioako **lavadero** edo **lavador**-ek salatzen duen gisa<sup>4577</sup>. Ur korrontea jarri aurretik, ordea, Uxueko **lavadero**-a **Txorria**-n zegoen, **Galaputzu** ondoan<sup>4578</sup>. Azken hau, halere, eta orain hondatua dagoen arren, berri samarra dela uste dugu. **Villantigua**-ko erreka **Pozo del Molino**-n ere egiten zuten Uxueko etxeoandreek lisiba.

**Cabaña de los Guardas, la:**

1892ko katastroan aurkitu dugu. Orain urte batzuk arte iguraien etxola **Alto de los Guardas** (ikus sarrera hau) edo **Alto de Santa Cruz**-en zegoen, bertatik ongi ikus baitaiteke Uxueko udalerrriaren puska eder bat, herri-lurra den **El Monte** barne.

**Cabrería, la:**

Herri ondoan dago, **San Miguel** aldean, eta izenak berak erakusten duenez, ahuntzak herstekeo tegia zen. Euskaraz **Auntzegia** dugu Artaxonan, egun **La Hostería** bilakaturia<sup>4579</sup>, eta **Auntzenkorraleta** Leatxen.

**Calle:**

Uxueko kale askok gaurregun jendeak ozta-ozta ezagutzen dituen baina erabiltzen ez dituen izenak dituzte (**San Isidro**, **La Virgen Blanca**...). Dokumentazioan ez dira agertzen, eta berritatz jo litezke. Guk lan honetan bakarrik tradizio handikoak direnak hartu ditugu aintzakotzat.

**Calle baja, la:**

**Calle baja de San Miguel**-en adierakidea zela dirudi:

“la casa es en la calle vaja...” (1765)<sup>4580</sup>

**Calle baja de San Miguel, la:**

**San Miguel**-a zihoan karrika hau, baina ez dakigu zehazki zein zen:

“la cassa...en la endrecera llamada la calle baxa que ban a san miguel” (1602)<sup>4581</sup>

1765eko **Calle vaja** eta 1691ko **Carrera de abajo** kale edo bide bera izan daitezke.

4577 1934-35ean eskolak eraiki zirenean estali zuten. Ordurako, dena dela, ez zen erabiltzen eta hondarrez betea zegoen harrizko garbitoki hau.

4578 Eraikuntzaren hondakinak oraindik ere ikusgai daude.

4579 J. Jurío, EETA, 375-385. orr.

4580 PRA-San Martin, 47. k.

4581 PRA-Oibar, 10. k.

**Calle de la Rúa, 1a:**

Ikus **Rúa** sarreran dioguna.

**Calle de Medio:**

**Barrio de Medio**-ren errankidea dateke (ikus sarrera hau):

“una casa...en dha villa de Uxue y Calle nominada de medio de Lugar frente a...”  
(1847)<sup>4582</sup>

**Calle de San Antón, 1a:**

**Calle de la Rúa**-ren zeharkalea da. Dokumentazioan hau berau izan zitekeen **Barrio de San Antón** agertzen da XIX. mendean.

**Calle del Cuerno, 1a:**

**Plaza pequeña**-tik, udaletxearen paretik, **San Miguel**-a doan bide berriraino luzatzen da beste gisaz **Calle Carnicería** deritzan hau (ikus **Barrio del Cuerno** sarrera). Ditugun erreferentzia guztiak iragan mendekoak dira, eta ez dirudi oso zaharra denik:

“la casa en que viven sita en dha villa y su calle del cuerno” (1856)<sup>4583</sup>

**Calle larga, 1a:**

**San Miguel**-etik, **Pirolarraña** eta **Lopera**-n barrena, **Billeta**-raino igotzen da. Dokumentazioko **Carrera de abajo** karrika hau bera izan zitekeen.

**Calle Mayor, 1a:**

Ez dakigu zein zen. Gaurregun ez da horrelako izenik erabiltzen, eta baliteke **Calle larga** bera izatea, baina hau ez da segurua:

“Media casa...en la Calle Mayor” (1861)<sup>4584</sup>

**Calvario (calle de), el:**

Galbarioa **San Miguel**-en zegoela irudi du, 1803ko agiri batean **La Sierra**-ra doan bidearekin mugatzen duela esaten da eta:

“un Huertto... Junto al Calbario, afronta con...camino que ba á la Sierra”<sup>4585</sup>

4582 PRA-Kaseda, 57. k.

4583 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 74. org.

4584 Id., 123. org. Lizarran **Carrera luenga** izan zena **Calle Mayor** da orain. Jimeno Jurfo, “Toponimia de Estella”, *III Jornadas de Onomástica / III. Onomastika-Jardunaldiak*, (1990), *Onomasticon Vasconiae* 7.

4585 PRA-San Martin, 71. k.

**Calle del Calvario** (1781)<sup>4586</sup> lehenbizi **Drinda** eta gero **Camino de las Cruces viejas** deitzen zena zela uste dugu, hau da, **Era de la Sixta**-tik, herriaren azpiko aldetik, **Caracierzo de Turtunbera**-n zehar **San Miguel**-eraino doan bidea. Gurutzebidea, gure iritziz, eliza nagusitik **San Miguel**-eraino egiten zen, aipatu bidetik. **Era de la Sixta**-ra nondik joaten zen ez dakigu seguru, baina biderik laburrena elizaren gibealeko aldetik (hots, **Turtunbera**-ra ematen duen aldetik) doana da.

#### **Camino de Abuñaga a Sulue:**

Egun ez dago, guk dakigula, **Abuñaga**-tik **Sulue**-rako biderik, baina bi dermiook elkarren ondo-ondoan egoki eta, ulertzekoa da lehen batetik besterako igarobidea izatea:

“ytten en Abuñaga dos pedaços...tenientes a piezas de Pedro desparca y Camino de Sulue” (1634)<sup>4587</sup>

#### **Camino de Aguilar, el:**

Erriberriko bidetik ezkerretarantz hartzen da, gurutzetik seirehun bat metro-tara, **Portillo de Santo Domingo**-n. Orain erdi ezabatua dagoen bide hau **Aguilar**-ko bereko **Balsa del Veterinario** deitu idoiraino doa. 1715eko dokumentuan azaltzen den bidea, ordea, **Aitzandietako Aldabea**-n barna zihoan, eta agian oraingo **Camino de Larziaga**-rekin identifikatu behar genuke:

“otra (pieza) en dco termino (Aldabea-n)...que afronta con el Camino de Aguilar y pieza de Simon Marco”<sup>4588</sup>

#### **Camino de Aitzandietako, el:**

**Camino de la Fuente de Aitzandietako** edo **Camino de la Fuente de la Bomba**-ren errankidea da, hots, behialako **Adobería**-ren azpiko aldetik **Aitzandietako** erreka iturrira doan bidea ematen du aditzera. Bidea, erreka gurutzatu eta, **Santa Ferantz** doa:

“Mas otra pieza...que afronta con pieza de Juan Jurio y con camino de anhandietako” (1729)<sup>4589</sup>

#### **Camino de Akirazabal, el:**

**Cruz del Yugo**-tik **Akirazabal**-a doa:

“y sobre otra viña camino de aquirazavala...” (1621)<sup>4590</sup>

4586 Id., 55. k.

4587 IEA, 345. kart., 13. zkia.

4588 PRA-San Martin, 30. k.

4589 Id., 33. k.

4590 UEA, 14. kap-lib., 176. or.

**Camino de Aldamara, el:**

Beste modu batera **Camino de Murillo** deitzen dena da dokumentazioko **Camino de Aldamara**. Herritik hurbil zegoen **Erripazarreta**-n zehar zihoan lehenik, eta **El Vedado** eta **Berage**-tik gero.

**Camino de Aliaga, el:**

**San Miguel** ondotik **Aliaga**, **Ollatu** eta **Dorrondiaga**-ra doa. Orain "carretil" bilakatua da, hots, traktoreak (eta kotxeak eguraldia ona bada) pasatzeko moduan paratu dute.

**Camino de Andiaga, el:**

**Balsa nueva** eta **El Pinar**-en artetik, **Portillo de las Pilas** eta **Paso de las Pilas**-en gaindi (**Galaputzu**-tik beraz), **Txutxu bajo** eta **Andiaga**-ra doa. Bestela, "Corral de Puñales" eta "Corral de Ugalde"-ren hurbiletik ere joan daiteke **Andiaga**-ra.

**Camino de Arbolaga, el:**

**Oraingo Camino de Lakubeli** edo **Camino de San Jerónimo** bera zen (ikus **San Salvador sarrera**).

**Camino de Ardui a Retuerta:**

Bi dermio hauek elkarren ondoan daudenez gero, 1771n ageri den bidea<sup>4591</sup> batetik bestera zihoan edozein bidexka izan zitekeen. Gaurregun ez dago honelakorik.

**Camino de Aristuziaga:**

**Aristuziaga**-ra joateko biderik egokiena **Galipentzura** doan altxonbidea da.

**Camino de Artabakoitz, el:**

**Itxura guztien arabera**, egungo **Camino de Urteaga** edo **Camino de Medios** bera zen (ikus **Camino de Urteaga sarrera**), baina dena den, dermiook elkarren ondoan zeuden, eta batetik bestera joateko beste bideren bat ere izan zitekeen:

"Ms en el terno de Urtriaga sesenta y quatro Rovas de tierra...q afrontan a piezas de...y camino de Arttebacoiz" (1771)<sup>4592</sup>

**Camino de Arteko haitz, el:**

**Arbolaga**-n zehar zihoan. Seguru asko **Camino de la Sierra**-ren adierakidea zen:

"Ms en dho terno (**Arbolaga**-n) otra pieza...que afronta al camino de Ortocaiz" (1793)<sup>4593</sup>

4591 PRA-San Martin, 50. k.

4592 Id., 50. k.

4593 Id., 63. k.



**Camino de Astabidea:**

**Txorria-n** zehar zihoan:

“Ms otra (pieza) en el terno de chorria...qe afronta con...camino de Astabidea” (1772)<sup>4594</sup>

Ikus **Astabidea** sarreran esan duguna.

**Camino de Astrakastillu a Sta. María la Blanca:**

Ikus **Astrakastillu** sarrera.

**Camino de Basandia:**

**Basandia-ren** barruko bidea zen, **Camino de la Sierra-tik** hurbil zegoena:

“En el termino de Basandia treinta y seis rovasdas de tierra...qe afna al camino que se va a la sierra...y por avaxo con camino de Basandia” (1805)<sup>4595</sup>

Beharbada **Basandia** herrixkara zihoan bideren bat zen hau.

**Camino de Basandia a Urteaga y Pipiratu:**

**Basandia-tik** (altxonbidearen aldameneko behinolako **Soroandia-tik**) **Pipiratu** eta **Urteaga-ra** doa (ikus **Soroandia** sarrera). **Camino de la Sierra** igaro ondoan, baina honetatik gertu, bitan banatzen da: adar bat **Pipiratu** aldera doa, eta bestea **Urteaga** aldera.

**Camino de Beire, el:**

**Otrollos-en** barrena doa, **La Hoya** eta **El Chaparrero-ren** artetik. Haraino, orde, **Busa-tik** **Pitillasa** doan bide bera da. Dokumentazioan ageri dena **Otrollos** barruko **Otroperitzu-n** zehar zihoan:

“una (pieza)...en el termino llamado otro perizu...afronta con camino que pasan a Beire” (1705)<sup>4596</sup>

**Camino de Beltranlarratz, el:**

**Beltranlarratz-a** **Llano de Mugazuria-tik**, **Aliaga-tik** (**Portillo de (lo de) Marceliano-n** barna) nahiz **Portillo de Chinchón-etik** joan daiteke:

“Mas otra pieza...encima del camino de Beltrangarraz” (1799)<sup>4597</sup>

---

4594 Id., 50. k.

4595 Id., 72. k.

4596 UEA, 13. kap-lib., 83. or.

4597 PRA-San Martin, 68. k.

**Camino de Berage a Aldamara:**

Oraingo Los Berros-en (antzinako Berage-ren) beheko aldetik doan Camino de Murillo da hau. Herri honetako lurretara sartu aitzinean Aldamara gurutzatzen du, eta hortik izena:

“...una pieza en...berague afronta a Camino bezinal que se ba a Aldamara” (1709)<sup>4598</sup>

**Camino de Berageondoa:**

Lakumulatu-tik Berageondoa-ra zihoan bide hau Camino de Murillo edo Camino de Aldamara bera dela dirudi:

“una pieza...en el termino de lacunbelatu que afronta con camino que se va a Murillo y beragondoa” (1744)<sup>4599</sup>

**Camino de Berroandia, el:**

Berroandia berro izenaz (honen adieraz ikus Berage sarrera) eta handia ize-nondoaz osatua dago<sup>4600</sup>. Azpimarkatzekoa da hemen ere, izenondo hau agertzen den Uxueko beste toki-izen guztietan bezala, handia aldaera dugula, ez XVIII. edo XIX. mendeetan<sup>4601</sup> hedatzen den haundia. Seguru aski erdarazko Berro grande de la Villaren euskarazko ordaina zen:

“..por el camino camino que seva a Murillo el fruto asta la muga de dho Murillo y de alla por la muga de Aldamara al orno de Phelipe Exea y despues por el Camino que sube a berro andia y de alli por la barranquilla..y despues por el Camino de Santa Maria lablanca” (1733)<sup>4602</sup>

**Camino de Bigas, el:**

Murilloko altxonbidea da, dokumentazioan beste era batez Camino de Santa María la Blanca deitzen dena. Aurren aldiz 1819an aurkitu dugu<sup>4603</sup>.

**Camino de Bigas a Mostrakas:**

Bigas eta Mostrakas elkarren mugakideak dira, eta erraz ulertzen da batetik besterako bidea izatea:

“otra pieza...en...Bias afrontada...con camino que se va a Mostracas” (1680)<sup>4604</sup>

---

4598 Id., 29. k.

4599 Id., 38. k.

4600 Cf. Berroandia Garraldan.

4601 Mitxelena, FHV, 488. or.

4602 PRA-San Martin, 34. k.

4603 Id., 82. k.

4604 UEA, 14. kap-lib., 350. or.

**Camino de Busa, el:**

Gurutzetik Santo Domingo-ra, eta hemendik Beskos-en zehar Cruz de Yugo-ra doa lehenik, eta Alto de Pena-ren eskuinetatik El Caserío-raino gero. 1634an, halere, Aitzandieta-tik Busa-ra zihoan bidea zela ikusten dugu:

“otrasis (sic) quartaladas en ayçandieta afrontada con camino que ban a busa”<sup>4605</sup>

Lur horiek gurutzearen ondoan zeudekeen, oraingo Tejería-ren alboan edo, bestela ez baita ulertzen nondik joan daitekeen Aitzandieta-tik Busa-ra (ikus, alabaina, Camino de Aguilar sarrera).

**Camino de Busa a Pitillas, el:**

Bide hau Busa-tik Zaubio eta Otrillos-a doa, eta hemendik Pitillasa. Lehen Busa-ren barrukortzat jotzen zen Petringesala-tik (edo albotik) igarotzen zen.

**Camino de Dorrondiaga, el:**

Camino de Aliaga eta Camino de Ollatu-ren errankidea da.

**Camino de Drinda a la Fuente de Turtunbera:**

Camino de la Fuente de de Turtunbera-ren baliakidea da. Izan ere, San Miguel-en paretik ateratzen den Camino de la Fuente de Turtunbera Drinda-tik (eta seguraski Drindabe-tik) igarotzen zen:

“una pieza...en drinda extramuros de la dcha villa que afrenta con camino becnal de drinda que ban a la fuente de turtunbera” (1685)<sup>4606</sup>

**Camino de Erlosiana, el:**

Ikus Camino de la Oliveta sarrera.

**Camino de Eslava, el:**

Eslabako batzuk Sarria-tik etorri ohi ziren Uxuera, Berumberen gortetik, Zaldunaga eta Mugazuria-n barrena. Beste batzuk Facería-tik etortzen ziren, Fuente del Moro dagoen erreka-tik paretik “Cabaña de Valencia”-ra, eta hemendik, Cuarto-chiguito-n zehar, altxonbideko izenik gabeko portilutik Txorria eta El Molino-ra sartzen ziren. Bigarren hau zen Eslabako Usubidea eta Agezako Usubidea-tik (ikus sarre-ra hauek) zetozenek jarraitzen zutena.

**Camino de Galaputzu:**

Portillo de las Pilas-etik Galaputzu-ra doan bidea zen.

4605 IEA, 345. kart., 13. zkia.

4606 PRA-San Martin, 5. k.

**Camino de Gallipienzo, el:**

Aizkanbela, Txorria, Mugazuria eta Aristuziaga-n zehar doa Galipentzura, altxonbidetik behin Mugazuria-n sartuz gero. Egun ezezaguna den Aizkanbela baino lehenagoko Zautelu-tik ere igarotzen zen antzina (ikus sarrera hau):

“otra (pieza)...en çautelu afrontada a camino real que ban a galipienzo” (1625)<sup>4607</sup>

Galipentzura beste bide batetik ere joan zitekeen (orain honetatik joan ohi da), hain zuzen ere galipentzuarrak Uxuera etortzen diren (lehen beste bideren bat ere bazen. Ikus Galipentzuko Camino de Ujué sarrera) bidetik, hots, (Zautelu), Aizkanbela, (Villantigua), Mugazuria eta Zaldunaga-tik.

**Camino de Iturrizar, el:**

Itxuraz Basandia-n dagoen Iturrizarra-rako bidea zen hau, baina Larziaga-ko Fuente vieja-rakoa ere izan zitekeen (ikus Camino de la Fuente de Iturrizar sarrera):

“un sitio...en el paraje que llaman las adoberias, bajo el Labadero de Buzacao, afrontado...por arriba al camino de yturizar que intermedia á dho sitio” (1788)<sup>4608</sup>

**Camino de Kaltxista a Otrillos:**

Busa-tik Otrillos-a doana zen, Kaltxista Akirazabal eta Busa-ren artean baitzegoen, Camino de Olite-ren alboan:

“yten un corral...en el termino de Calchista que afronta con...Camino que seva a Otrillos” (1715)<sup>4609</sup>

**Camino de la Balsa:**

Itxuraz Villar-etatik zihoan (ikus Balsa vieja sarrera):

“una pieza en los villares...que afronta a...Camino de la Balssa” (1771)<sup>4610</sup>

**Camino de la Basílica de San Miguel:**

Herriaren aldirietatik San Miguel-era zihoan.

**Camino de la Ermita de San Blas:**

Lakumulatu eta Kastillu-ren arteko Aizketa-tik Ermita de San Blas-era zihoan. Egun ere, Kastillu-ra doan bidetik Camino del Puente de la Sierra-ra joan daiteke, eta hemendik, altxonbidean zehar, ermitaren geldikinetaraino.

4607 PRA-Kaparroso, 29. k.

4608 PRA-San Martin, 58. k.

4609 Id., 30. k.

4610 Id., 50. k.

**Camino de la Fuente:**

Bide hau **San Andrés**-en azpiko aldean barna zihoan; **Turtunbera**-ko iturrirako bide-zigorren bat zela irudi du.

**Camino de la Fuente (de Aitzandieta), el:**

Herriaren azpiko aldetik errekan dagoen iturrira jaisten da, **Pieza del Prior**-en hurbiletik. Hemendik, **Rincón de Balsalarraña** gurutzatu ondoren, **Santa Fe**-ra ateratzen da, altxonbide eta **Carretera de la Sierra**-ra.

**Camino de la Fuente de Iturrizar:**

**Basandia**-n dagoen **Fuente de Iturrizarra**-rako izan liteke hau, baina herrietik iturri horretara dagoen tartea kontuan hartuta, **Larziaga**-ko **Fuente vieja**-ra (**Fuente de Larziaga**?) zihoan bideren bat zela uste dugu:

“...dos caminos que ban á la fuente de Anzandieta y fuente de Yturizar” (1828)<sup>4611</sup>

**Camino de la Fuente de Juandeigal:**

Behinolako **Villantigua**-tik **Linares de Txorria**-n dagoen iturrira zihoan.

**Camino de la Fuente de la Bomba, el:**

**Camino de la Fuente de Aitzandieta**-ren adierakidea da (ikus **Fuente de la Bomba** sarrera).

**Camino de la Fuente de la Peña:**

Esan dugun moduan, **Fuente de la Peña** eta **Buzakao** bat eta bera ziren. 1700eko agirian aurkitzen duguna<sup>4612</sup>, ordea, **Petringesala** aldean zegoen, **Busa** eta **Akirazabal** aldean.

**Camino de la Fuente de Turtunbera, el:**

Lehendabiziko zatian behintzat **Drinda** edo **Camino de Drinda** zen:

“una pieza..en drinda extramuros de la dcha villa que afronta con camino becal de drinda que ban a la fuente de turtunbera” (1685)<sup>4613</sup>

**Camino de la Oliveta, el:**

**Carasol de Lezkairu**-tik **La Oliveta**-ra doa; **Camino de Erlosiana** ere deitzen zaio.

4611 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 8. org.

4612 PRA-San Martin, 8. k.

4613 Id., 5. k.

### Camino de la Sierra, el:

Izen honen azpian bide ezberdinak ezkututzen dira. 1605eko lekukotasuneko<sup>4614</sup> **San Nicolás**-etik **La Sierra**-ko beste alderdi batera zihoan (**Santa María la Blanca**-ra?), **San Nicolás** bera **La Sierra**-n baitago. 1631koa berriz, antzinako Aizketatik **Lakumulatu** eta **Kastillu**-ren artetik **La Sierra**-ra doana da:

“ytten una pieza en Ayzquieta...afrentada...a camino que ban a la Sierra” (1631)<sup>4615</sup>

1690ekoak, azkenez, gaurregun **Camino del Puente de la Sierra** izenaz eza-gutzen dena adierazten du<sup>4616</sup>.

Duela urte batzuk arte **Camino de la Sierra** herritik edo **La Cruz**-etik **Murillora** zihoan<sup>4617</sup>, hots, ia ibilbide guztian altxonbidearekin bat zetorren. Egun, konpondu eta asfaltatu zutenetik, **Carretera de la Sierra** (edo **Carretera del Río**) deitzen zaio, aipatu guruzetik aitzina. Dena dela, **Camino de la Sierra** eta **Carretera de la Sierra** ez dira erabat berdinak: ibilbidea aldatu da, eta **Bigas** aldera joan beharrez, errepide berria lehen oihana zen **El Pinar** eta **El Pinar de Aldamara**-n barrena **Aldamara**-ra ateratzen da, eta hemendik, **Berage** eta **Lerbeltz**-en artetik datorren **Camino de Murillo**-rekin bat egin ondoan, herri honetako lurretan sartzen da.

Dokumentazioko **Camino de la Sierra** zenbaitetan **Santa Fe**-ra ateratzen den **Camino de la Fuente** izan liteke, **La Sierra**-ra hemendik ere joaten baitzen.

### Camino de la Sierra al Portal:

**El Portal** herriaren sarreran zegoen, gaurko **La Tahona**-tik hurbil seguru asko (ikus **Billeta** eta **El Portal** sarrera), baina **Camino de la Sierra**-tik horra nondik joaten zen zehazki ez dakigu. Baliteke **La Pieza del Prior**-en ondotik doan bidea horraino luzatzea, baina baliteke, berebat, hiriaren hegoaldean beste portale bat izatea:

“(Buzakao-n)(un sitio que afronta)...por abajo...al camino de yturrizar y por arriba á camino puco que sube de la sierra al portal” (1788)<sup>4618</sup>

Lekukotasun honetan aipatzen den portalea ez zen **Ermita de San Andrés** aldean (gaurregungo herriaren sarreran) zegoena, **Arbolaga**-ko beste bat baizik (ikus **Portal** sarrera).

### Camino de la Val de Abuñağa:

**Abuñağa**-ren barruko bidea zen. **Val de Abuñağa** zehazki zer izan zitekeen ez dakigu (ikus **Abuñağa** sarrera).

4614 PRA-Oibar, 12. k.

4615 PRA-Kaparroso, 34. k.

4616 UEA, 14. kap-lib., 273. or

4617 Hau da, esaterako, 1975ean egina den Diputazioaren mapan azaltzen dena.

4618 PRA-San Martin, 58. k.

**Camino de Lakubeli, el:**

San Miguel ondotik ateratzen da, eta **Balsa de Muelas**-en azpiko aldetik **Lakubeli**-ra doa; **Barranco de Lakubeli**-tik aurrera **Camino de San Jerónimo** izena hartzen du. Antza duenez, hau berau da dokumentazioko **Camino de Arbolaga**.

Behinolako **Tejería**-ren ondotik igarotzen zen, **Arbolaga**-n zegoen teile-riaren<sup>4619</sup> albotik, alegia:

“un cerrado viña en el termino de la tejeria...afrentado a Camino vezinal que ban a la cubeli” (1629)<sup>4620</sup>

**Camino de Lakumulatu a Berageondoa:**

**Camino de Murillo** edo **Camino de Aldamara** bera dela dirudi (ikus bi sarrera hauek), bi dermio horiei dagokien zatian:

“una pieza...en el termino de lacunbelatu que afronta con camino que se ba a Murillo y a beragondoa” (1744)<sup>4621</sup>

**Camino de Larziaga, el:**

Oraingo arandegiaren aurreko aldetik atera, **Larziaga**-ko eguzkialdetik erre-kara jaitsi, eta alderdi bereko oihezkitik igotzen da, **Carretera de la Sierra**-ra. Hau izan zitekeen **Aldabea**-n zehar **Aguilar**-a (eta **Busa**-ra?) zihoan bidea. Aurren aldiz 1701ean opatu dugu<sup>4622</sup>.

**Camino de las Cruces (viejas), el:**

Dokumentazioko **Camino de las Cruces** (1725<sup>4623</sup>, 1767<sup>4624</sup>...) eta oraingo **Camino de las Cruces Viejas** bat-bera dira, eta dudarik ez dago beste batzuetako **Camino del Calvario**-rekin identifikatu behar dela. Bide hau elizatik atera, eta **El Castillazo** eta **Caracierzo de Turtunbera**-n gaindi, **Ermita de San Salvador** eta **San Miguel**-era zihoan.

**Camino de las Pilas, el:**

**Portillo de las Pilas**-etik **Paso** eta **Fuente de las Pilas** aldera doa (ikus **Pilas** sarrera).

<sup>4619</sup> XVIII. mendean **Tejería de abajo** deitua, oraindik ere zutik dagoen **Tejería de arriba**-tik bereizteko.

<sup>4620</sup> PRA-Kaparroso, 32. k.

<sup>4621</sup> PRA-San Martin, 38. k.

<sup>4622</sup> Id., 10. k.

<sup>4623</sup> Id., 32. k.

<sup>4624</sup> Id., 48. k.

**Camino de Lauzatea:**

Lauzatea (ikus sarrera hau) **Busa** eta **Akirazabal**-en artean zegoen, eta **Camino de Lauzatea** dermio honetatik (**Lauzatea**-tik) **Busa**-ra jaisten zen, antza, **Pe-tringesala**-n barrena:

“Mas una viña en el terno de Busa...que afrontta...a comunes de la villa y Camino de Lauzatea” (1786)<sup>4625</sup>

**Camino de Lerga, el:**

1817ko lekukoak garbi adierazten digu Lergako bidea **Aldabea de Turtunbera**-tik abiatzen dena dela:

“Mas otra pieza en la Aldavea de turtunvera, afronta a...camino para Lerga” (1817)<sup>4626</sup>

Bide hau **Ardui**, **Txutxu bajo** eta **Andiaga**-n zehar **Malliturri**-ra doa, eta hemendik **Lergara**<sup>4627</sup>. Bada altxonbidez **Ardui** eta **Txutxu alto**-n barna **Pocico del Herrero**-ra eta **Lergara** doan bigarren bide bat; **Camino de Pamplona**-n zehar ere joan zitezkeen, **San Gines**-a lehenik, eta hemendik **Lergara**, baina inguru handi samarra egiten da honela, eta ez dakigu inoiz erabili ote zen.

**Camino de Lopera:**

**Calle larga** edo 1861eko **Calle mayor** izan zitezkeen, baina ez dugu honen frogarik:

“...por havajo (afronta) á camino que llaman de Lopera” (1812)<sup>4628</sup>

**Camino de Lopera a San Miguel:**

**Calle larga** izan zitezkeen (ikus sarrera hau):

“Mas un guerto en el termino de lopera...afrontado a Camino que ban a Sanmiguel” (1629)<sup>4629</sup>

**Camino de los Berros:**

**Berage**-ren barruko bidea zen hau.

**Camino de los Linares, el:**

**Esatea**-tik zihoan, **Santa Agueda**-n barna (ikus **Camino de Santa Agueda a los Linares** eta **Esatea** sarrerak).

---

4625 Id., 57. k.

4626 Id., 80. k.

4627 Ikus **Aizpeaga** sarrera.

4628 PRA-San Martin, 77. k.

4629 PRA-Kaparroso, 32. k.



**Camino de Medios, el:**

Medios aldera doa. Ikus honetaz **Camino de Artabakoitz** eta **Camino de Urteaga**-n esan duguna.

**Camino de Mikelenzabal a Zaubio:**

Gaurregun **Camino de Zaubio Urteaga**-tik **Zaubio**-ra doan bideari esaten zaio. 1736an azaltzen den **Camino de Zaubio**<sup>4630</sup> **Mikelenzabal**-en barrena zihoan, eta hau **Zaubio**-ren gaineko aldean, **Otrillos** eta **Busa**-tik hurbil zegoenez gero, badirudi gaurkoaz beste biderik adierazi nahi dela agirian, beharbada **Camino de Busa**-ren jarraipena.

**Camino de Morape:**

**Morape** auzotik **Placeta**-ra doana zatekeen. Gaurregun errepide bilakatu da.

**Camino de Muelas, el:**

**Santa Cruz** eta **El Vedado**-ra doan bera da. Aurrenekoz 1816an aurkitu dugu<sup>4631</sup>.

**Camino de Murillo (el Fruto), el:**

**Camino de Murillo Erripazarreta**, **El Vedado**, **Lakumulatu**, **Los Berros** (**Berageondoa**), **Lerbeltz** (antzinako **Lerbelztxiki**). Ikus sarrera hau) eta **Aldamara**-tik (ikus **Camino de Aldamara**) doa, **Murillo**ko lurretarantz. **La Sierra**-n gaindi ere joaten zen **Murillora**, altxonbideari jarraituz.

**Camino de Murillo por Berageondoa:**

**Murillora** bi tokitatik joan zitekeenez, "por **Berageondoa**" sartu dute, kontua argitze aldera:

"una pieza...en el termino de Lacumulatu que afronta con camino que se va a murillo por Berageondoa" (1725)

**Camino de Olite, el:**

**Gurutzetik Beskos** eta **Busa**-n zehar doa, **San Martin**, **Beire** eta **Uxue**-ren arteko **Las Tres Mugas**-a. **Uxue**ko azken zatia labakitua dago, eta bidea tarteka baizik ez da ikusten ahal.

**Camino de Ollatu, el:**

**Aizkanbela** eta **Aliaga**-tik **Ollatu**-ra doa, eta hemendik **Dorrondiaga** eta **Apeztegi**alorra-ra. **Aliaga**-n zegoen **Pieza del Priorato**-ren albotik (ikus **Priorato** sarrera) igarotzen zen antzina.

4630 PRA-San Martin, 35. k.

4631 Id., 79. k.

**Camino de Opelamendi:**

**Opelamendi** herri ondoan zegoen, **Aldabea de Turtunbera-n**, baina ez dakigu oraingo zein mendi zen (ikus **Opelamendi** sarrera):

“yppen otra..pieça en el mismo termino (**Aldabea de Turtunbera-n**) que affronta con Camino Vecinal que ban a opelamendi y barranco” (1593)<sup>4632</sup>

**Camino de Osinaga:**

Ez dakigu **Osinaga** dermioa zein zen, ez eta bertara nondik joaten zen ere. Aldi bakar batez aurkitu dugu izen hau, artikuluz hornitua (**Camino de la Osinaga**)<sup>4633</sup>.

**Osinaga osin** ‘putzu’ eta **-aga-z** osatua egon daiteke (cf. **Usunbeltz** < **osuin** edo **\*usuin** + **beltz**). Azkuez dioenez ugaldeek sakontasun gehien duten gunea izan ohi da **osina**; honen arabera, Aragoa ibaian zegoela pentsatu beharko dugu, baina ezin baztertu erreka batean zegoelako ustea. Beste posibilitate bat **osin** ‘asun’-tzat hartzea da; kasu honetan **Osinaga** asunak dauden tokia litzateke. Alabaina, Uxurekin mugatzen duen Lergan **asun** ibiltzen dute oraindik ere<sup>4634</sup>, eta gisakoena bi herriotan antzeko aldaerak ibiltzen zituztela suposatzea da.

Beste aldetik, **Usunbeltz** herri-izena **\*usuin** (< **osuin**) ‘putzu’-ren izenaren gain dago eraikia, eta aldaera bera bide dugu Eslabako **Lixuñeta-n** (< **liho** + **\*usuin** + **eta**. Ikus sarrera hau). Honek Uxueko **osin** ‘putzu’-tzat hartzearen kontra jokutzen du, bi herriotan aldaera bera espero zitekeelako. Guztiarekin ere, izen beraren aldaki ezberdinak aurkitzea ez da arraroa, batez ere tarte handi samarra dagoen kasuetan.

**Camino de Otrollos, el:**

1772an agertzen den **Camino de Otrollos**<sup>4635</sup> dermio honetatik hurbil behar zuten **Txindilotxaga-tik** jaisten zen.

**Camino de Otrollostxiki a Otrollosandi:**

**Otrollostxiki Barranco de Busa**-ren ondoan zegoen, eta **Otrollosandi Barranco de Zaubio**-ren alboan. Hortaz, batetik bestera **Busa-tik Otrollos-a** doan bide-tik joango ziren seguraski, baina hau ez da inola ere segurua:

“una pieza en...otrollos chiqui...afrentada a...camino vezinal que ban a otrollos andi” (1630)<sup>4636</sup>

**Camino de Pamplona, el:**

**Camino de San Gines-en** adierakidea zen:

---

4632 PRA-Oibar, 7. k.

4633 PRA-San Martin, 2. k.

4634 Iribarren, VN.

4635 PRA-San Martin, 50. k.

4636 PRA-Kaparroso, 33. k.

“ytten mas otra pieza en el Camino de Sangines...afrentada con...el Camino real que ban a pamp...” (1588)<sup>4637</sup>

Bide hau **San Gines-etik**, Lerga eta Oletaren arteko mugatik, Juliora zihoan, eta hemendik, Orba gurutzatutakoan, Ibarzabaltza eta Elora. Herri honetatik Aranguren ibarreko Labiora joango zen, Iruñera sartu aitzin.

1714ko lekukoaren arabera<sup>4638</sup> **Camino de Pamplona Esatea**-n zehar zihoan, eta hemendik seguraski **Andiaga** eta **Lergara**. Herri honetan **Oletabidea** izenekoa hartuz lehengo bide berera atera zitekeen, hots, Lerga eta Oletaren arteko mugatik doanera (**Altxunbidea**-ra, alegia). Guztiarekin, **Esatea**-tik altxonbidetari jarraikiz **San Gines**-a ere joan zitekeen, eta hemendik, aipatu bidetik, Iruñera.

#### Camino de Pipiratu, el:

**Urteaga** eta **Medios** aldera doan bidetik ateratzen den adarra da. **Pipiratu**-tik, **Urteaga**-ren albotik, **Otrollos**-a doa (ikus hurrengo sarrera).

#### Camino de Pipiratu a la Ribera:

**Otrollos**-a jaisten den bidea izanen zen hau, hemendik Beire eta Erriberrira joan baitaiteke **Busa**-tik, eta **Pitillasa Otrollos**-tik:

“una pieza...sita en el termino de Pipiratu...que afrona...con...camino que sale del Monte de dho termino y otra(sic) que va a la Rivera” (1800)<sup>4639</sup>

#### Camino de Pitillas:

**Busa** eta **Otrollos**-tik **Pitillasa** doa. Orain galdurik dagoen **Busazarra** zeharkatzen zuen (ikus sarrera hau).

#### Camino de Pitillas a Berage:

**Berage** edo **Los Berros** **Pitillasen** eta **Uxueren** amankomuneko dermioa zen (ikus **Cinco Millares** sarrera), eta horregatik igotzen ziren **Pitillaskoak** bertara egur egitera (cf. hor barnako **Egurbidea** toponimoa):

“otra Pieza...en artebacoyza afrontada a camino Real que ban de Pitillas a berague por leña” (1625)<sup>4640</sup>

Bide hau **Pikarana**-tik **Zazu** eta **Artabakoitz**-a joango zen, eta hemendik **Berage**-ra.

#### Camino de Puendelazapata:

**Gaurko Camino de Beskos**-ekin identifika daiteke:

4637 PRA-Oibar, 4. k.

4638 PRA-San Martin, 30. k.

4639 Id., 69. k.

4640 PRA-Kaparroso, 29. k.

“Ms otra (pieza) en el mismo termino (Gurutzegibela-n)...q afronta a...camino que se ba por medio a compelazapata” (1733)<sup>4641</sup>

**Camino de San Andrés, el:**

**Gazteluondoa-tik (gaurko El Castellazo-tik) arandegiaren ondoko behiala-ko Ermita de San Andrés-a zihloan:**

“otro huerto en la misma endreçera (Gazteluondoa-n)...que affrenta con camino real que ban a Santandres” (1593)<sup>4642</sup>

**Camino de San Blas, el:**

**Camino de la Fuente (de Aitzandietea) zela dirudi, alegia, lehenik iturrira eta hemendik San Blas eta Santa Fe aldera doana:**

“Ms otra pieza devajo del camino de San Blas” (1718)<sup>4643</sup>

Guztiarekin, 1603an azaltzen dena<sup>4644</sup> **La Sierra-ko Aizketa-tik** ermita orain zeharo hondatura doana da.

**Camino de San Gines, el:**

Uxuetik Ardui eta Txutxu-n barna **San Gines-a** doan bidetari esaten bide zitzaion **Camino de San Gines. Camino de Pamplona** ere deitzen zitzaion<sup>4645</sup>.

**Camino de San Jerónimo, el:**

**Camino de Lakubeli-ren** jarraipena da. Erreka gurutzatu eta **Basandia** alde-  
ra abiatzen da.

**Camino de San Martín:**

Oraingo errepeidea zen:

“las piezas de tras la cruz...que afrentan con...Camino q ban a Sanmyn” (1607)<sup>4646</sup>

**Camino de San Martín al Molino de Ujué:**

Bide honetaz dakigun bakarra **Txutxu-tik** igarotzen zela da:

“una pi\*...en...chuchu...lintero camino q ban los de San mn al molino de Uxue” (1635)<sup>4647</sup>

4641 PRA-San Martin, 51. k.

4642 PRA-Oibar, 7. k.

4643 PRA-San Martin, 29. k.

4644 PRA-Oibar, 11. k.

4645 Baina ez zen **Camino de Pamplona** bakarra. Ikus sarrera hau.

4646 PRA-Oibar, 12. k.

4647 PRA-Kaparroso, 57. k.

**Molino de Uxue** ez da herriaren ondokoa<sup>4648</sup>, Galipentzu ondoan, Aragoa ugaldearen ertzean zegoena baizik<sup>4649</sup>. San Martindik horra joateko biderik egokiena Txutxu-tik sartzen den altxonbidea da; hemendik **Ardui** eta **Esatea**-n zehar, **Cara-solalto** eta **Cuartochiguito**-ren artetik **Mugazuria**-ra joango ziren, eta hemendik, **Aris-tuziaga** igaro eta, Galipentzuko lurretan sartuko ziren.

#### Camino de San Nicolás:

Ez dakigu zein zen 1685ean agertzen den bide honen abiapuntua<sup>4650</sup>. **San Ni-colás**-en iturri ederra dago, eta ulertzekoa da inguruetatik horra ur bila joatea.

#### Camino de San Nicolás a Kastillu:

Bide hau Pitillastik eta inguruko herrietatik **Matxaz**-en zehar **Santa María la Blanca**-ra, eta hemendik **Lakumulatu**, **San Nicolás**, eta **Laku**-n barrena, **Kastillu**-ra zihoan duela urte batzuk arte, eta gure egunotan oraindik ez dago osotara ezabaturik. **Kastillu**-tik **Zapaiz** eta **Sulue**-ren arteko muga dagoen “**Corral de Pedro San Martín**”-a zihoan, eta hemendik, **Zapaiz**-ko **Rincón del Horno**-n zehar, **Paso de Apeztegia-lorra**-ra. Pausu honetatik, **Erlosiana** gurutzatu ondoan, Galipentzuko **Aurino**-ra sartzen zen **Portillo de Chinchón**-etik.

#### Camino de Santa Agueda a los Linares:

**Esatea** eta **Santa Agueda**-ren hurbiletik, **Portillo de las Pilas**-en barna, **Txorria**-ren goiko aldeko lihatzeetara zihoan:

“otra piª en aldabea...que affrenta con Camino real que ban de Santa Agueda a los lina-res” (1593)<sup>4651</sup>

#### Camino de Santa Cruz:

**Camino de Muelas** eta **Camino del Vedado** bera da, alegia, **San Miguel**-etik atera eta **Aldamara** eta **Murillo**-ra doana. Lehen aldikoz 1817an aurkitu dugu<sup>4652</sup>.

#### Camino de Santa Engracia:

**Santa Engracia** edo **Alto de Santa Engracia**-k gurutzearekin, **Atajo para San Martín** eta **Camino de Tafalla**-rekin mugatzen zuenez gero, gaur hilerria dagoen alderdia zela ondoriozta daiteke. **Camino de Santa Engracia**, hortaz, **Camino de Tafalla**-tik ermitara (hilerrira dagoen alderdian egongo zen hau) igotzen zen bideren bat za-tekeen:

“una pieza...en el camino de Stta Engracia, q afronta a este y á el q dirige pa tafa-lla...” (1772)<sup>4653</sup>

4648 Hau XVIII. mendearen bukaeran eraiki zuten.

4649 Orain Central de abajo edo Central de la Cueva deitzen dena.

4650 PRA-San Martin, 5. k.

4651 PRA-Oibar, 7. k.

4652 PRA-San Martin, 80. k.

4653 Id., 50. k.

**Camino de Santa Fe, el:**

Bide hau **Aldabea**-n barna **Santa Fe**-ra ateratzen den **Camino de la Fuente** zela irudi du:

“Mas otra (pieza)...en dho termo de la Aldavea...afrona a....camino que se va a Santa Fe” (1805)<sup>4654</sup>

Egungo egunean **Carretera de la Sierra**-tik, alderdiko idoiaren ondotik, **Santa Fe** eta **Pipiratu** aldera doan bideari esaten zaio **Camino de Santa Fe**.

**Camino de Santacara:**

Itxuraz **Camino de la Sierra**-tik **Mostrakas**-en barrena zihoan **Santakarara**:

“una pieza...en el terno de la sierra baja que afronta al camino de Stta Maria la Blanca, al otro que se ba a Santra cara...” (1767)<sup>4655</sup>

**Camino de Sulue, el:**

Dokumentazioan azaltzen den izen honen pean **Sulue**-ra zihoazen hiru bide ezberdin ezkutatzen dira: **Abuñaga**-tikakoa, **Iturrizarra**-tikakoa, eta **Muñukukulua**-tikakoa (ikus hiru sarrera hauek).

**Camino de Sulueburu a Kastillu:**

Altxonbidetik **Basandia** eta **Sulueburu**-n (gaurko **Alto de Sule**) barrena **Kastillu**-ra doana da 1688rako aurkitzen dugun hau:

“ytten otra pieza en Suluburu...que afrenta a camino que ban a castillu”<sup>4656</sup>

**Camino de Sulunbatezoko, el:**

Gaurko **Rincón de Zonbolozoko**-ra doan **Camino de Larziaga** da.

**Camino de Tafalla (collado de), el:**

**Camino de San Martín**-en errankidea zen, oraingo **Carretera de Tafalla** bera.

**Camino de Turtunbera, el:**

**Camino de la Fuente de Turtunbera**-ren adierakidea da (ikus sarrera hau).

**Camino de Txindilotxaga a Otrollos:**

**Txindilotxaga Otrollos** eta **Urteaga**-ren artean zegoen (ikus **Txindilotxaga** sarrera), eta erraz ulertzen da batetik besterako bidea izatea:

---

4654 Id., 72. k.

4655 Id., 48. k.

4656 UEA, 13. kap-lib., 40. or.

“Mas Zinqta robadas de tierra blanca en el termino llamado chindorochaga... que afronta al camino bezinal que se ba a otrollos y barranco” (1710)<sup>4657</sup>

#### Camino de Txorria, el:

Camino de Txorria gaurko bihitegi eta Balsa nueva-ren artetik doa, Caracierzto eta Carasol de Turtunbera-n barrena. 1723ko lekukotasunean<sup>4658</sup> azaltzen den Camino de Txorria Aizkanbela-n zehar zihoan.

#### Camino de Txutxu, el:

Dokumentazioko bide hau Santa Agueda eta Ardui-tik Txutxu (bajo)-ra doana zela dirudi, Mantxiriturrieta-ra doana alegia, baina altxonbidea ere izan zitekeen:

“Mas una pieza en sta agueda...que afronta a pieza de Ignazio Aguerre y el camino que se va a chuchu” (1712)<sup>4659</sup>

#### Camino de Urteaga, el:

Camino del Puente de la Sierra-ren jarraipena dela esan daiteke. Izan ere, bide hau altxonbidearekin eta oraingo Carretera de la Sierra-rekin elkartzen da, eta aztergai duguna bilgune honen oso hurbiletik abiatzen da. Aurrerago bitan banatzen da: Urteaga aldera doan adarrari Camino de Urteaga esaten zaio, eta Medios aldera doanari Camino de Medios. Hauetako edozein izan zitekeen dokumentazioko Camino de Artabakoitz.

#### Camino de Urteaga y Pipiratu:

Ikus Camino de Urteaga, Camino de Pipiratu eta Soroandia sarrerak.

#### Camino de Valgrande, el:

Santa Agueda-tik, Portillo de las Pilas-en gaindi, Galaputzu, Txorria eta Valgrande-rantz zihoan:

“otra pieza...en yturri car mas alla de Santa agueda...afrenta con camino que ban a balgrande y barranco conçegil” (1603)<sup>4660</sup>

#### Camino de Villantigua, el:

Aizkanbela eta errotara doan Camino del Molino bera da. Bide hau orain ezezaguna den Zautelu-n zehar zihoan:

“otra pieza en dicha aldabea (Turtunbera-n) y endrezera llamada Cautelu...afronta al Camino de Villantigua y del molino” (1702)<sup>4661</sup>

4657 PRA-San Martin, 29. k.

4658 Id., 31. k.

4659 Id., 29. k.

4660 PRA-Oibar, 11. k.

4661 PRA-San Martin, 8. k.

**Camino de Zaldunaga:**

Zaldunaga-ra doan hau itxuraz Astabidea-ren adierakidea da (ikus sarrera hau).

**Camino de Zapaiz, el:**

Ez dakigu honen abiapuntua non zen:

“se puso otra muga en Peña firme y a su izquierda a distancia de Treinta pasos, esta el camino de Zapaiz” (1821)<sup>4662</sup>

**Camino de Zapaiz a Lakumulatu:**

Pitillaskoek Uxuek Aragoaren ertzean zuen errotara (orain Central de abajo deitzen zaio) joateko ibiltzen zutena izan daiteke, baina Camino de Murillo edo Camino de Aldamara ere bai:

“En el termino de Zapaiz y afronttan con Barranco...y camino que se ba a la Combelatu” (1806)<sup>4663</sup>

**Camino de Zaubio, el:**

Urteaga-tik Zaubio-ra doa.

**Camino de Zazu a Pikarana:**

Orain ezezaguna den Zazu-tik Uxueko mugan baina Pitillasen dagoen Pikarana-ra zihoan (1722)<sup>4664</sup>. Zazu Artabakoitz-en ondoan zegoen, Pitillasko mugan (edo agian Pitillasko egungo dermioaren barruan. Ikus Cinco Millares eta Zazu sarrerak), Pikarana-tik hurbil.

**Camino de Zubia, el:**

Egungo Camino del Puente de la Sierra-ren adierakidea zen, antza (ikus Zubia sarrera):

“...para apañar el camino de Zubia...” (1683)<sup>4665</sup>

**Camino del Barranco de Ollatu:**

Camino de Ollatu izan zitekeen, edo errekarra jaisten zen bidexkaren bat (1802)<sup>4666</sup>.

---

4662 Id., 83. k.

4663 Id., 73. k.

4664 IEA, 13. kap-lib., 256. or. Pitillaskoa da dermio hau orain. XIX. mende arte, ordea, herrilurren banaketa egin arte Pikarana Uxuekoa ere bazen (ikus Cinco Millares sarrera).

4665 PRA-San Martin, 4. k.

4666 Id., 70. k.



**Camino del Calvario:**

**Drinda-n** barrena zihoan:

“Mas en drinda una pieza...que afronta con el camino del Calvario” (1711)<sup>4667</sup>

El Calvario-k, esan denez (ikus sarrera hau), **San Miguel** aldean behar zuen, **Aldabea de Aitzandiet**a-ko mugan. **Camino del Calvario El Castellazo** edo **Gazte-luondo**a-n hasi (ikus **Camino de las Cruces**), eta **Camino de las Cruces Viejas** edo **Drinda** (**Drinda**-ren zati bat, **San Miguel**-etik hurbilenekoa)-n gaindi luzatzen zen.

**Camino del Camposanto, el:**

**Camino del Cementerio**-ren errankidea da.

**Camino del Cementerio, el:**

Herritik **La Cruz** eta **San Martin** aldera doan errepidetik eskuinetara desbideratzen den hilerrirako bidea da.

**Camino del Molino, el:**

**Antzinako Sanmiguel**aldea-tik (ikus sarrera hau) eta lehengo eta oraingo **Aizkanbela**-tik doa.

**Camino del Monte, el:**

**El Monte Aliaga** eta **Lakubeli**-tik **Apeztagi**alorra-raino hedatzen den mendia da. Elutsari **Redondiaga** deitzen zaio egun (< **Dorrondiaga**), eta eguterari **El Vedado**, herri-lurra izanik itxia egoten zelako, auzoez beste inork sarbiderik ez zuela (ikus sarrera hau).

**Camino del Monte Aurino, el:**

**Gaurko Carasolbajo**-n barna **Portillo de Chinchón**-era doan bidea izan zitekeen:

“...en el termino de Dorrondiaga seis robadas de tierra...que afronta...al camino que ba al Monte de Aurino” (1817)<sup>4668</sup>

**Camino del Paso de Txorria, el:**

**Camino de los Linares** bera zen (ikus sarrera hau).

---

4667 Id., 29. k.

4668 PRA-San Martin, 70. k.

**Camino del Pinar:**

Pinudia **Dorrondiaga**-tik hurbil zegoela irudi du, eta beraz ezin dugu identifikatu ez **El Pinar**-ekin, ez eta **El Pinar de Aldamara**-ekin ere. **Dorrondiaga**-tik hurbil dagoen **Lerbeltz**-en beti pinu edo ler asko egon da, baina ez dugu uste 1820ko **Camino del pinar** dermio horretara zihoan bide bat zenik:

“otra Pieza...sita en el Monte demarcado de Redondiaga, que afronta por el costado de arriba a...camino que se va al Pinar...” (1820)<sup>4669</sup>

Aintzat hartu behar da **Uxuen** pinuak oso ugariak direla orain eta oso ugariak izan direla beti, eta pinudi bat edozein alderditan egon zitekeela, gero desagertu bada ere<sup>4670</sup>.

**Camino del Portal, el:**

Ikus **Coseras** eta **Portal** sarrerak.

**Camino del Pueyo de Abuñağa, el:**

**Abuñağa**-ko boiu edo gainera zihoan. **Harrigarri** samarra da, dena dela, gainari “pueyo” deitzea, **Uxuen** horrelako beste adibiderik ez baitugu. **Galipentzu**, **Zarrakaztelu**, **Oibar** eta bestetan, aldiz, arrunta zen izen hau (ikus **Galipentzuko Puyalato** sarrera):

“y mas otra pi” en **Abuñağa**...que affrenta con camino real que ban al pueyo” (1594)<sup>4671</sup>

**Camino del Río:**

**Apeztegi**alorra-ko **Pieza de los Curas**-etik **Erlosiana**-n zehar ugaldera doan bidea da, **Camino de Erlosiana** edo **Camino de la Oliveta** bera.

**Camino del Soto, el:**

**Camino del Soto** **Camino de Erlosiana**-ren azken zatiari esaten zaio, **Erlosiana**-tik **El Soto**-ra doanari, alegia.

**Camino del Vedado, el:**

Ikus **Caminos del Vedado** sarrera.

**Camino del Villar, el:**

**Pieza del Prior**-en hurbiletik **Camino de la Fuente (de Aitzandiet)** eta **Camino del Puente de la Sierra**-ra doa.

---

4669 Id., 82. k.

4670 Alderantziz, herri ondoan (**Ardui**-n) dagoen pinudiak berri samarra dirudi, dokumentazioan ez baita horren aztarnarik aurkitzen.

4671 **PRA-Oibar**, 8. k.

**Camino viejo del Viacrucis, el:**

1793rako<sup>4672</sup> zaharra zen gurutzebide hau gaur ibiltzen ez den Camino de las Cruces viejas deitu bidea da.

**Caminos de Kastillu:**

Ez dakigu nondik abiatzen ziren bideok; 1688an aurkitzen ditugu<sup>4673</sup>.

**Caminos de la Sierra, dos:**

Hauetako bat Camino de la Fuente de Aitzandietra edo Camino de San Blas (ikus sarrera hau) izan zitekeen, eta bestea Camino del Puente de la Sierra:

“ytten la pieza que llaman la de la peña en dcha aldavea (Aitzandietra-n)...que afronta a los dos caminos que se va a la sierra” (1725)<sup>4674</sup>

**Caminos de Pitillas:**

Orain ezezaguna den Otroperitzu-n zehar zihoazen:

“En el termino llamado otroperizu...que afronta con...caminos que van a Pitillas” (1680)<sup>4675</sup>

**Caminos de San Miguel, dos:**

Etxeandietra-tik San Miguel-era zihoazen bi bideok (ikus Etxeandietra sarrera).

**Caminos del Portal, dos:**

Ez dakigu zein ziren portalera zihoazen bi bide hauek. Ikus, dena dela, Camino de la Sierra al Portal sarreraren esan dena:

“(una casa)...que afronta a los dos Caminos que se va al portal” (1712)<sup>4676</sup>

**Caminos del Vedado, dos:**

Hauetako bat Aldamara aldera doan Camino de Murillo da, eta bestea gailur-gailurretik doan bidea izan zatekeen. Badakigu Erripazarreta-n barrena zihoazela:

“Mas otra (pieza) en termino de repazurieta que afronta con dos caminos publicos que se ba a aldamara y al bedado” (1718)<sup>4677</sup>

4672 PRA-San Martin, 63. k.

4673 Id., 5. k.

4674 Id., 32. k.

4675 Id., 4. k.

4676 Id., 30. k.

4677 IEA, 13. kap-lib., 244. or.

**Camposanto (alto de), el:**

1829an agertzen den kanposantua<sup>4678</sup> XIX. mendean **El Castellazo** edo **Gazteluondoa**-n egindako hilerria da. Orain "ibiltzen" den hilerria, berriz, herritik urruneko dago, kilometro batera edo, **Ardui**-ko gain batean, lehengo **Ermita de Santa Engracia**-tik gertu, antza<sup>4679</sup>. Bigarren kanposantu hau zehazki noiz eraiki zen ez dakigu, baina herriko zaharrek honetaz besterik ez dute ezagutu.

**Alto del Camposanto** hilerri zaharra zegoen **El Aljibe** aldeari nahiz hilerri berria dagoen gainari esaten zaio.

**Canterica de las Piedras, la:**

**Canterica de las Piedras Caracierzo de Lakumulatu**-n dago, **Basandiatik Sulue**-ra zihoan bide galdu baina oraindik zenbaiten gogoan dagoenean. Ditugun erreferentziengatik ia segurua da behinolako **Aizketa dela** (ikus sarrera hau). Gain honen azpian, **Lakumulatu**-ko errekan, **Fuente de la Peña** dago.

**Cantonera, la:**

Kantoiari zegoen herriko etxe baten izena zen. Zeinena, ordea, ez dakigu:

"una cassa sita en la dha villa llamada la cantonera..." (1667)<sup>4680</sup>

**Cañada, la:**

**Aristuziaga** eta **Txutxu**-tik sartzen dira **Galipentzu** eta **Lergatik** heldu diren altxonbideak (hauen ibilbideez eta adarrez ikus **Altxunbidea** eta **Urkamendia** sarre-rak).

**Capaburros (alto de), (rincón de):**

**Mugazuria**, **Aristuziaga** eta **Carasolbajo**-ren artean dagoen gailur zapaleko gain soila da hau. Hemendik beheiti **Beltranlarratz** dugu lehenik, eta **Portillo de Chinchón** eta **Aurino** gero.

**Capaburros** toponimo berria da (ez dugu dokumentazioan aurkitu); mendia-ren izen zaharra kokatu gabe ditugunetakoa bat izan zitekeen (**Mutxorromendi**, **Mendi-gorria**, **Opelamendi**...). **Rincón de Capaburros Carasolbajo**-ko zokoa da, **Paso de Ollatu**-ren parean dagoena, beste gisaz **Rincón de Ollatu** deitzen dena.

**Capellanía, linar de la:**

**Galaputzu**-n zegoen:

4678 PRA-San Martin, 86. k.

4679 Hilerriak barzuetan lehenagoko ermitetan eraiki izan dira, Morionesen, kasurako.

4680 UEA, 13. kap-lib., 160. or.

“...una pieza linar...en Galapuzu que afrenta con...linar de la capellania de D. Juan Zuria” (1694)<sup>4681</sup>

### Caracierzo de las Hostias, el:

Caracierzo de Basandia-ren errankidea da.

### Carasolalto:

Carasolalto, osagarri duen Carasolbajo bezala, 1892ko katastroan aurkitu dugu estraineko aldiz, eta beldurrik gabe esan dezakegu toponimo berria dela. Carasolalto Carasol de Txorria baino luzeagoa da, eta antzinako Carasol de San Vicente ere hartzen du bere baitan. Azpimarratu behar da bai Carasolalto eta bai Carasolbajo artikulurik gabe erabiltzen direla, “izenberezitu” direlako seinale.

### Carasolbajo:

Ikus aurreko sarreran dioguna. Carasolbajo-k Aliaga-tik Aurino eta Erlosiana bitarteko egutera guztia da; gure irudiz lehenagoko leku-izen batzuk ordezkatu ditu.

### Carnicería (barrio de), (calle de), (corraliza de), la:

Barrio edo Calle de la Carnicería Calle del Cuerno-ren beste izen bat da (ikus sarrera hau):

“...cassa en que bibe diego Abaurre en la calle de la carniceria de la dha...villa” (1696)<sup>4682</sup>

Corraliza de la Carnicería Turtunbera eta Aitzandieta-koak izan dira, txandaka, urte batean bata eta hurrengoan bestea. Hemen herriko aziendak eta haragitarako izaten zen udal-artaldea edo “rebaño del pique” (ikus Galipentzuko Kaparreta sarrera) sartzen zituzten.

Euskal baliakideei dagokienez, Aezkoako mendietan Arakindegia toponimoa dugu bizirik egun, baina ezin dugu segurtatu gure eskualdeko Carnicería-ren ordaina den, leku-izen horren erabilera eta historiaren berri ez baitakigu.

### Carrera de abajo, la:

Ez dakigu zein karrika zen, baina Calle larga-rekin (ikus sarrera hau) identifikatu daitekeela uste dugu, hau baita beheenetik doana (ikus hurrengo sarrera).

### Carrera de la Bizkarra, la:

Honetaz ikus hurrengo sarrera eta Leatxeko Bizkaia-n esan dena. Karrika hau elizara doana izan liteke, goreneko errepeida hau izaki eta.

<sup>4681</sup> IEA, 1345. kart., 5. zkia.

<sup>4682</sup> UEA, 14. kap-lib., 283. or.

**Carrera de la Halda, la:**

**Carrera de abajo eta Carrera de la Bizkarra-ren artekoa dela ematen du:**

"...son necesarias para la Carrera de la bizcarra y Carrera abajo y para la Carrera de la Alda" (1691)<sup>4683</sup>

**Halda-k**, Iribarren-en arabera<sup>4684</sup>, 'gona' edo 'mendi-mazela' adierak ditu, azken hau Uxuen, hau da, gaztelaniazko **falda-k** dituen berberak (cf. euskarazko **malda**). Alde honetatik erdiko bidetzat jotzen ahal da, goiko **Carrera de la Bizkarra** eta beheko **Carrera de abajo-ren** artekotzat alegia. Guztiarekin ere, Uxueren inguruko mendi mazolei **Aldabea** esaten zaiela eduki behar da kontutan, eta agian azken toponimo hau eta aztergai dugun **halda** ez genituzke zeharo bereizi behar.

**Carretera de Areatzeta a Zazu, la:**

**Beiremuga-ko Areatzeta-tik Pikarana eta Artabakoitz-en artean zegoen Zazu-ra** igotzen zen (1702)<sup>4685</sup>.

**Carretera de la Sierra, la:**

**La Cruz-etik La Sierra** eta Aragoa ugalde aldera doa. Orain urte batzuk asfaltatu gabe zegoen, eta neurri handi batean altxonbidearekin bat zetorren. Gaurko errepidea berria da **El Pinar-etik** ugalderainoko zatian (lehen bidea zen, ez errepidea). Bidea **Murillora** doa, **Bigas-en** barrena.

**Carretera de Pitillas, la:**

**Berage-ko** mendira joateko **Pitillaskoek** ibiltzen zuten bidea zen, irudiz (ikus honetaz **Burgaloki** sarrera).

**Carretera de San Martín, la:**

**Antzinako Camino de San Martín** bera da, beste gisaz **Carretera de Tafalla** deitzen dena.

**Carretera de Tafalla, la:**

Ikus aurreko sarrera.

**Carretera del Río, la:**

Esan bezala, ugaldera doan **Carretera de la Sierra-ren** adierakidea da (ikus sarrera hau).

4683 PRA-San Martin, 6. k.

4684 VN.

4685 PRA-San Martin, 8. k.

**Carretera nueva, la:**

Ardandegitik eskoletarantz doan errepidea da.

**Casa de la Villa (placeta de), la:**

Dokumentazioko Casa de la villa gaurko udaletxea da:

“una cassa..en la plaza pequeña de ella afrontada con cassa de la villa” (1622)<sup>4686</sup>

**Placeta de la Casa de la Villa** (1630)<sup>4687</sup> herriko etxea dagoen oraingo **Plaza pequeña** (behinolako **Plaza chica** edo **Plaza menor**) da; gaur **La Placeta** gaztelu ondo-koari esaten zaio bakarrik, dokumentazioko **Plazuela de la Iglesia** edo **Plazuela de la Parroquial** delakoari. Orain gehiago erabiltzen da **ayuntamiento** izena, baina berriki arte udaletxeari **Casa de la Villa** deitzea zeharo arrunta izan da.

**Casa del Rincón, la:**

Ikus **Barrio del Rincón** sarrera.

**Cascajo, el:**

Egun ezezaguna da, baina badakigu herriaren aldirietan zegoela, 1602ko lekuoak **San Martín** ermitaren azpiko aldean zegoela erakusten baitu:

“una pieça...en...la endreçera llamada el cascaxo debaxo de la hermita del señor Sanmartín”<sup>4688</sup>

Ermita hau (ikus **Jaun Done Martia** eta **San Martín** sarrerak) **Pirolarraña** auzoan zegoen, eta beraz alorrek ere inguru horretan behar zuen. Gaurregungo **El Cascajo** edo **La Gravera** “**El Falsico**”-ren gortetik hurbil dagoen **Txutxu** alto-ko alderdi harritsu da.

**Caserío, el:**

Herrixka modukoa osatzen duten **Busa**-ko lau gorteei deitzen zaie honela. Bertan zegoen, gure ustez, **Busa** despoblaturia.

**Castelmunio, Castillo Munio:**

Gaurregungo **Oliveta**-n egon zen herrixkari **Castel munio** edo **Castillo Munio** zeritzan, hots, “**Munio**-ren gaztelua”. **Munio** antroponimoa oso ezaguna da, eta ondorengo ugari utzi ditu toponimian, horien artean Nafarroako **Muniain** izeneko hiru herriak<sup>4689</sup>.

García Ramirez erregeak Olivako monastegiari eman zion 1150. urtean:

4686 PRA-Kapatroso, 28. k.

4687 Id., 33. k.

4688 PRA-Oibar, 10. k.

4689 Ikus J. C. Baroja, *Materiales*, 74-75. orr., eta Mitxelena, AV, 130. or.

“In dei nomine. Ego Garsias, Dei gratia Pampilonensium rex hoc facio scriptum gratuite donationis, vobis domino Bertrando, abbati Olive, vestrisque fratribus tam presentibus quam futuris; dono vobis... Similiter dono vobis ad honorem Dei et beatissime Virginis Marie, et pro remedio anime mee et parentum meorum, locum quem incolae dicitur Castellummunio et villam que vocatur Encisa...”<sup>4690</sup>

García Ramirezen semea izan zen Antso Jakintsuak berretsi zuen aipatu emaitza, 1162. urtean:

“Ego Sancius Dei gratia navarrorum rex...offero et concedo et dono omnipotenti Deo et beate Marie Olivensis et Bertrando eiusdem loci abbati et fratribus...villam que dicitur Carcastellum...Confirmo etiam huic donationi quicquid pater meus eis dedit, locum videlicet de Oliva, Encisam et Castellum Munium, cum omnibus terminis et pertinentiis suis integriter et potenter”<sup>4691</sup>

XIII. menderako **Castelmunio** hustu eta Olivako monastegiaren jabegoko baserri bilakatua zen; bi mende beranduago **Castelmunio**-ko hamarrenak zirela eta, fraileak auzitan sartu ziren Uxueko apezaitarekin. Badakigu mende berean despoblatuko lurrrak errentan jartzen zirela, eta maizterrak bertan zegoen uharkaz arta hartzera behartuak zeudela<sup>4692</sup>.

**Castillazo, el:**

Egun zutik dagoen gazteluaren inguruari (atzeko aldeari batez ere) esaten zaio **El Castillazo**. 1605ean aurkitu dugu estraineko aldiz:

“otra uerta debaxo del castillaço en el villar” (1605)<sup>4693</sup>

Jimeno Jurío honela mintzo da aztergai dugun honetaz *Ujué* lanean<sup>4694</sup>:

“El primitivo castillo de Ujué coronó la montaña, al norte de la actual iglesia. El paraje es conocido con el nombre de «El Castillazo». Confiada su custodia a Iñigo Sánchez en 1011, y rendido al rey Sancho Ramírez en 1076, no fue sustituido por la iglesia, ni sirvieron de defensa fortificada los altos paramentos que hoy resguardan los ábsides de los vientos orientales”

**El Castillazo** beste batzuetako erdarazko **El Castillo** eta euskarazko **Gaztelu** edo **Gazteluondoa** da (ikus sarrera hauek). Herrikoentzako altxatuak dauden “Villares”-en barruan sartzen da.

**Castillo, el:**

1623an eraitsi zen gaztelu zaharra zen:

4690 Munita, 40. or.

4691 Id., 49. or.

4692 Uranga, UM, 73-74. orr.

4693 PRA-Oibar, 12. k.

4694 6-7. orr.



“un corral con su pajar...en la endreçera llamada el castillo afrenta con cassas de nos otros los bendedores” (1602)<sup>4695</sup>

Esan bezala, euskaraz **Gaztelu** esaten zitzaion, eta inguruari **Gazteluondoa**. Oraingo **El Castellazo**-k aspaldiko gazteluaren aldameneko eremua ematen du aditzera, jatorriz **Castillo** edo **Gaztelu**-ren adierakidea bazen ere, eta beraz **Gazteluondoa**-ren esanahikidetzat har daiteke. Egungo gaztelu-elizari “iglesia” esan ohi zaio Uxuen, ez “castillo”.

**Cementerio, el:**

Ikus **Camposanto** sarrera.

**Cerrado, el:**

Izen honen adieraz eta euskal ordainez ikus Morionesko **El Cerrado** sarrera. 1702ko zerratua<sup>4696</sup> **Aizkanbela**-ko alor bat zen.

**Cerrados (debajo de), (rincón de), los:**

**San Miguel**-etik gertu dago **Rincón de los Cerrados**, **Camino del Puente de la Sierra** eta **Camino de Lakubeli**-ren artean, herritik hurbil beraz, Eslabako antzinako **Zerradogibela** edo **Zerradogibeleta** eta oraingo **Cerrado de Patricio** eta **Cerrado de Barriain** bezala. Honen izen zaharraz ikus **Errekazarra**-n dioguna.

Lucio Berrade jaunak kontatu zigunez, aitonari aditua zion karlistadetako batean (bigarreanean izango zen) etsaia Uxuera etorri zenean herriko berrehun edo hirurehun gizon zoko honetan zegoen artatzean ezkutatu zirela, kamuflatuak eta “itxirik” egon zirela, eta horregatik deitzen zitzaiola **Rincón de los Cerrados**. Dena dela, toponimoa karlistaden aurrekoa dela dudarik ez dago, 1797rako azaltzen baita:

“una pieza...en el term de la Aldabea, en el Rincon de los zerrados”<sup>4697</sup>

1847ko **Los Cerrados** hutsa edireten dugu<sup>4698</sup>, ‘**Rincón de los Cerrados**’ adieraz, antza. **Debajo de los Cerrados**-ek **Rincón de los Cerrados**-en azpiko aldea adierazten zuen:

“Mas otra (pieza) en la dha Aldavea (Aitzandieta-koan) y paraje que llaman devajo los cerrados” (1790)<sup>4699</sup>

**Cinco Millares, los:**

Pitillas herria Uxueko auzoa izan zen, eta horrela agertzen da dokumentazioan 1800. urte arte. J. Claveriaren arabera<sup>4700</sup>, Pitillas Uxueko jendeak sortuko zuen,

4695 PRA-Oibar, 10. k.

4696 PRA-San Martin, 8. k.

4697 Id., 66. k.

4698 PRA-Kaseda, 57. k.

4699 PRA-San Martin, 60. k.

4700 *Historia documentada de la Virgen, el Santuario y Villa de Ujué*, Urangak aipatua, UM-eko 83. orrialdean.

Uxuekoak ziren lurretan finkatu zirenean. Honela azaltzen du R. Ciérbide irakasleak herri horren sorrera<sup>4701</sup>:

“Al amparo de la fortaleza se fué constituyendo la villa (Uxue), especialmente cuando Sancho Ramírez concedió en 1076 a sus habitantes en agradecimiento a la acogida favorable que le hicieron a su entrada en el reino, el fuero,...poco antes de que transcurriese medio siglo desde ese acontecimiento, cambiaría la suerte de Ujué al conquistar Alfonso el Batallador Zaragoza y Tudela (1118), perdiendo su antigua función militar y quedando aislada en la montaña, a distancia de las principales vías de comunicación. Ante estas perspectivas y dadas las escasas posibilidades que la sierra ofrecía para la agricultura, los vecinos emprendieron la roturación de las tierras bajas en el piedemonte de aquella. Algunos de ellos acabaron por asentarse en estos campos más propicios para el cultivo, poblando posiblemente a finales del siglo XI el lugar de Pitillas, que en un principio mantendría una dependencia directa de Ujué, aunque progresivamente fué emancipándose hasta convertirse en municipio independiente a finales de la Edad Media, promovándose por esta causa ruidosos pleitos que tuvieron lugar en el siglo XIV”

Uxueren eta Pitillasen arteko auziak etengabeak izan ziren Erdi Aroan zehar<sup>4702</sup> eta geroago ere, “auzoa”-ren jaiotzetik XVIII. mendearen bukaeran behin-betikoa banandu ziren arte. DGH-k dioen gisara<sup>4703</sup>, Uxuek Pitillasko alkatea aukeratzeko ahalmena izan zuen garai batez, aurkezten zitzaizkion hiru alkategaien artetik bat hautatuz, baina gero erregeak ezeztatu egin zuen uxuetarren ahalmen berezi hori.

Uxue eta Pitillasen amankomuneko dermio batzuei (ez denei) “millar” esaten zitzaien; izen honek adierazten duen bezala, lur guzti hauek bi herrion arteko oraingo mugan zeuden<sup>4704</sup>, Beire eta Murillo el Frutoren artean. Hauek ziren: **Juangarziarana** (Otrolos-en zegoen<sup>4705</sup>), **Cascajo** (Pitillaskoa da orain), **Santo Domingo**, **Pikarana** (Pitillaskoa orain) eta **La Covaza** (hau ere Pitillaskoa).

Bost “millar” hauetaz gain, baziren bi herrion amankomuneko beste dermio batzuk ere. Hona hemen:

a-Común de arriba delakoan Cuatro cuartos edo Cuartos de Mugazuria sartzen ziren<sup>4706</sup>, hau da, **Andiaga**, **Aristuziaga**, **Mugazuria** eta **Zaldunaga**. **Beskos**, **Retuerta** eta **Txutxu** ere goiko “común” honen barrukotzat jotzen ziren.

4701 “Ujué, evocación histórica y mariana”, in *Cuadernos de cultura safallesa*, 1990eko abendua, 5. zkia, 33-47. orr.

4702 Ikus honetaz Urangaren UM, 82-88. orr.

4703 Lehen alea, 422-424. orr.

4704 Santakaran bat zerozen bideetako “milarri” direlakoekin erlazonaturik daude Uxue eta Pitillasen arteko hauek. J. Gárrizek honela dio *Despoblados* laneko 9. orrialdean: “Infinidad de poblaciones navarras incluida su capital, tienen ascendencia romana e incluso anterior. Sobre el solar donde moraron los más primitivos pobladores ha venido manteniéndose la vida hasta hoy... Santacara, importante población en una encrucijada de caminos señalizados con miliarios, y capital de los Carenses citados por Plinio”

4705 1738an **Otrolosandi** (ikus **Otrolos** sarrera) ere Uxue eta Pitillasen amankomuneko dermiotzat ageri da; ez dakigu **Juangarziarana**-rekin identifikatu behar den ala ez.

4706 Ikus bi sarrera hauek eta **Cuarto chiguito**.

b-Común de abajo izenekoan, aipatu bost “millar”-ez beste, **La Sierra**, **Mostrakas** (Larrageta barne, gure irudiko) eta **Aldamara** (Zabalondoa barne) sartzen ziren.

Partiketa egiterakon Pitillasek laurden bat gelditu zuen, eta Uxuek beste hiru laurdenak:

“..queda la quarta parte de dhos terminos comunes p<sup>a</sup> la refda. villa de Pitillas a la mano drecha desde el espresado paraje del Mojon de Beire y San Marttin (hots, Beire, Pitillas eta Uxueren arteko mugatik) astta el divisorio del de Murillo el frutto Compuestta de quatro de los cinco Millares (alegia, **Santo Domingo**, **Cascajo**, **Pikarana** eta **La Covaza**) parte del quintto de Garciarena (beste zatia Uxueko gaurko **Otrollosen** zatia da), **Mosttracas** (hots, **Mostrakas**-en zati bat; horregatik dago bizirik gaurregun toki-izen hau Pitillasen) y parte de la Sierra (**Berage** edo oraingo **Los Berros** eta **San Nicolás** ziren amankomuneko dermio horiek. Lehena, dirudienez, hasiera batean bi herrientzako zatitu zen; egun, ordea, Uxuerena bakarrarena da. Bigarrena ez da banaketa agiri honetan espreski aipatzen, baina elkarrekiko dermioa zela badakigunez gero<sup>4707</sup>, gisakoa da **La Sierra**-ren barruan sartzen zela pentsatzea), y las tres partes para la enunciada de Ujue a la mano yzquierda compuestta de porcion de lo resttante de dho Millar de Garciarena, **La Sierra** y **Aldamara** (hau ere, alabaina, erabat Uxuerena da egungo egunean), y ttodo el comun de arriva en que se contiene **Bescos**, **rettuertta**, **Chucho**, y los quatro (sic) de **Mugazuria**”<sup>4708</sup>

Ez da ongi ikusten egun Pitillasena den **Costolina** elkarrekikoa zen ala ez. Egia esan, Uxueko dermiotzat ez da sekulan hartzen, baina gauza bera gertatzen da, esaterako, **Cascajo** edo **Santo Domingo**-rekin, guk dakigula behinik behin. Uxuen **Zazu** izenaz ezagutzen zen bera dela dirudi, edo behintzat honen ondoan zegoena:

“...en el alto que hace frente por la parte del Nortte al Corral llamado de la Abadia de esos dos Pueblos (San Marttin eta Beire) sitto en el Millar de Garciarena..., siguiendo desde el linea rectta por la parte del medio dia ttrebesando por dho Millar de Garciarena al alto llamado de **Zazu** sitto en el paraje de **Costolina**”<sup>4709</sup>

Uxueko dokumentazioan beti **Zazu** edireten dugu, **Costolinas** ezertarako azaltzen ez dela. Amankomuneko lur horien zatiketa finkatzen duen 1800eko aipatu dokumentuan batzuetan amankomunekotzat jotzen da, eta beste batzuetan ez, eta hortik zalantzak.

Seguru dakigu, beste alde, **La Comuna** elkarrekikoa zela, eta horren segurua ez den arren, **Sarrondoa** ere bi herriona izan zitekeen, bi herriotako dokumentazioan agertzeak idarokitzen duen moldean.

**Clérigos, corral de los; pieza de los:**

**Pieza de los Clérigos** (1729)<sup>4710</sup> XIX. mendiaz geroztik **Pieza de los Curas** deitzen dena da, **Apeztegiatorra** alegia. Gortea berriz, Uxue eta Pitillasen arteko muga zegoen, ez dakigu lehen herrian ala bigarrenean:

4707 Ikus **San Nicolás** sarrera.

4708 PRA-San Marttin, 69. k., 1800.

4709 Id.

4710 Id., 33. k.

“...por dho Millar de Garciaarena al alto llamado de Zazu sitto en el paraje de Costolina, dejando a la mano yzquierda hacia Uxue el Corral llamado de Rodriguez, y desde dho alto à otro alto denominado de Santa Cara muro proximo al corral derruido llamado de los Clerigos” (1800)<sup>4711</sup>

#### Cobertizo, el:

Cubertizo izenaz arkupea eman ohi da aditzera Uxuen. Arkupeok etxe partikularren aitzinaldean daude, baina izan, udalarenak dira.

#### Cofradía de Nuestra Señora de Monsarrate, viña de:

Cofradía-ren inguruan ikus Agezako Cofradía del Santo Rosario sarreran dioguna. Uxuen honelako hiru elkarte azaltzen zaizkigu: mintzagai duguna, Cofradía de Santiago, eta Cofradía mayor. Azken hau, dena den, aurreko bi horietako bat izan zitekeen.

Ardantzea Aliaga-n zegoen:

“mas otra bina...en dho term (Aliaga-n) que afronta con vina de la Cofradia de Nra Señora de Monsarrate” (1746)<sup>4712</sup>

#### Cofradía de Santiago, pieza de:

Gobrarria honen alorra Txutxu-n zegoen:

“...y por la parte de abaxo (afronta) con pieza de la Cofradia de Santiago” (1746)<sup>4713</sup>

#### Cofradía mayor, pieza de la:

Honen bi alor azaltzen dira dokumentazioan: bata Barallas-en zegoen (1631)<sup>4714</sup>, eta bestea Rincón de los Cerrados-en (1808)<sup>4715</sup>. Bi alderdi hauek elkarren ondoan egoki eta, daitekeena da alor bakarra izatea.

#### Común de abajo; Común de arriba; Común demarcado:

Ikus Cinco millares sarrera.

#### Comuna (rincón de), la:

Honen jatorria erdal común ‘amankomuneko’-n bilatu beharra dagoela uste dugu. Izan ere, gaurregun Uxuerena baizik ez izanagatik, 1648an Pitillasena ere bazela ikusten da<sup>4716</sup>, Comuna bat baino gahiago ez bazen bederen<sup>4717</sup>.

4711 Id., 69. k.

4712 Id., 38. k.

4713 Id.

4714 PRA-Kaparroso, 34. k.

4715 PRA-San Martin, 75. k.

4716 PRA-Kaparroso, 43. k.

4717 1800.eko aipatu lur komunaren banaketa-agirian Comuna edo La Comuna ez da inon ageri. Hau, alabaina, ez da kasu bakarra, eta gure ustez daitekeena da 1648ko agiriko la comuna eta oraingoa bat eta bera izatea.

Gaurko **La Comuna** [lâkomúna] Galipentzuko mugan dago, **Erlosiana**-n, eta **Piedra de los Huevos** eta **El Modollar**-etik ibairaino luzatzen da. **Rincón de la Comuna** deizioa dermioa zokoa izateari zor zaio.

#### Cón de los Ladrones:

**Barranquilla de los Ladrones**-en alboan dago, oihezkiari, eta **\*Rincón de los Ladrones**-en (baina ez omen da zokorik bertan), **\*Cueva de los Ladrones**-en, edo antzeko zerbaiten laburketatzat hartu behar da.

#### Coronación, la:

**La Coronación** herritik hurbil dago, **San Miguel** eta **Alto de Muelas**-en artean, lehen **Era del Herrero** deitzen zuten larrainean. Bertan Ama Birjina koroatu zuten 1952. urtean, eta geroztik, oroigarri bezala, hiru arku daude oinarri baten gainean<sup>4718</sup>.

#### Corral de la Dula, el:

**La Tahona** ondoan zegoen gorte hau, herriaren sarreran, errepidearen alboan. Bertan herriko "dula" hersten zen, eta hortik izena.

#### Corral de la Villa, el:

Uxuen bi **Corral de la Villa** daude, biak **San Miguel** ondoan. Hauetako batean herriko ahuntzak hersten ziren (**La Cabrería**-n), eta bestean udal-artaldea edo "reño del pique" delakoa.

#### Corral de las Vacas, el:

**El Vedado**-n zegoen.

#### Corraliza:

**Corraliza**-ren adieraz ikus Galipentzuko izen bereko sarreran dioguna. Uxuen hurrengo "corraliza" hauek izan ditugu orain gutxi arte:

**Txutxu alto**, **Txutxu bajo**, **Beskos**, **Busa** (**Busa**, **Akirazabal**, **Makarreta?** eta **Aguilar alto** dermioak hartzen zituen), **Otrillos**, **Zaubio**, **Medios** (**Santa María la Blanca** inguruak, **Medios** eta **El Prado**-ren erdia), **Santakaramuru**, **Urteaga**, **Pipiratu** eta **Santa Fe** (**Santa Fe** eta **Aguilar bajo**), **Mostrakas**, **Aldamara** (**Motelarana** eta **Aldamara**), **Bigas** (**Bigas** eta **Zabalondoa**-ren erdia), **El Pinar** (**El Pinar** eta **Zabalondoa**-ren erdia), **Los Berros**, **Lakumulatu** (**Lakumulatu**, **Laku**, **San Nicolás**, **Kastillu** eta **El Prado**-ren erdia), **Lerbeltz** (**Lerbeltz** eta **La Oliveta**), **Erlosiana** (**Lezkairu**, **Aurino**, **La Comuna**, **Zapaiz**-en zati bat, **El Soto** eta **Erlosiana** hartzen ditu), **Carasolbajo** (**Carasolbajo** eta **Dorrondiaga**), **Carasolalto** (**Txorria**), **Basandia** (**Basandia** eta **El Vedado** orain), **Sulue**, **Turtunbera** (**Turtunbera** eta **Aliaga**), **Aitzandietra** (**Lakubeli** eta **Ollatu**), **Zaldunaga** eta **Mugazuria** ("corraliza" bakarra osatzen dute), **Aristuziaga** (**Aristuziaga** eta **Beltranlarratz**), **Cuartochiguito** (hemen **Sarria de Zaldunaga**-ren zati bat ere sartzen da), **Andiaga** eta **Ardui**.

<sup>4718</sup> Ikus honetaz, Jimeno Juríoren *Ujue*, 31. or.

Orain **Santa Fe-ri Aguilar bajo** kendu diote larrerako, eta **Pipiratu**-rekin batera saltzen da **Busa-ri ere Aguilar alto** kendu diote azienden alapiderrako. **Sulue**, beste aldetik, hesitua dago, larrerako ere, eta ez da “corraliza”-tzat saltzen.

#### Coseras, las:

Coseras edo corseras-en adieraz eta euskal ordain izan daitekeenaz ikus Agezako eta Lergako izen bereko sarrerak. 1617an **Adobería** zegoen eremuari deitzen zaio horrela, hots, **Buzakao** eta **Camino del Puente de la Sierra**-ren artekoari (ikus **Adobería** sarrera); **Billeta**-ren zati bat ere “cosera”-tzat hartua zen (1629)<sup>4719</sup>.

#### Covaza (Millar de), la:

Orain Pitillaskoa den hau 1800 arte Pitillas eta Uxueko amankomuneko lurra zen:

“en el reconocimnto de los mojones y divisiones del termino Comun denominado los Millares de Garciaarena, Santto Domingo, Cascajo, Picarana y Covaza” (1800)<sup>4720</sup>

#### Cruces, carasol de las:

1892ko katastroan agertzen den hau **Camino de las Cruces** edo **Camino del Calvario**-k zeharkatzen duen **San Miguel** ondoko eguteratxoa da.

#### Cruz (portillo de), (tras / detrás de), la:

Herrira iritsi baino kilometro bat lehenago, **Ardui** eta **Alto del Guarro** (behinolako **Urkamendia**, antza)-ren artean dagoen harrizko gurutze eder handia da. Euskaraz **gurutzea** hutsa azaltzen ez bada ere, erdal **Detrás / Tras (de) la Cruz**-en ordaina den **Gurutzegibela** asko eta askotan dokumentatzen da (ikus sarrera hau):

“una pieça...en la endreçera llamada tras la cruz que ban a San Martin” (1607)<sup>4721</sup>

Gurutzea portilu moduko batean dago (cf. 1802ko **Portillo de la Cruz**<sup>4722</sup>), aipatu **Urkamendia** eta **Ardui**-ren (**Alto de Santa Engracia** lehen) artean, altxonbidea, eta **San Martin**, **Tafalla** eta **Erriberriko** errepideak bereizten diren gunean<sup>4723</sup>.

Gurutze zaharra puskatu egin bide zen, eta 1763. urtean<sup>4724</sup> **Makeako** **Juan de Santesteban** izeneko harginak beste berri bat eraiki zuen. Hargin honek eta Uxueko

4719 PRA-Kaparroso, 32. k.

4720 PRA-San Martin, 69. k. Ikus honetaz **Cinco Millares** sarrera.

4721 PRA-Oibar, 12. k.

4722 PRA-San Martin, 70. k.

4723 Egun “carretera”-k bakarrik altxonbidea (**Carretera de la Sierra**, **Carretera del Río**), eta **San Martin** eta **Tafallara** doazenak dira. **Erriberriko**a antzina erregebidea izan arren orain bide bat besterik ez da, herriko beste hainbesteren tamaina eta mailakoa.

4724 Id., 46. k. Hurrengo urtea ere ona izan zen Uxuerentzat, arraildua zegoen ezkila nagusia urtu eta berregiteko agindua eman baitzitzaion **Francisco Antonio Mier** ezkilagile eta urtzaileri. Jaun hau, agiri nahasian ikusten denez, **Islakoa** zen:

“...y de la otra **Franco Antonio Mier** vecino de el lugar de **Ysla**, obispado de **Santander** de la **Provincia de Vizcaya** de oficio **campanero y fundidor**”.

Francisco Pitillasek Kasedako Juan Jose Nabarro aukeratu zuten gurutzearen baliozta-pena egiteko:

“...Parecio pres.te Juan Jph Nabarro mro de Obras Vec. de la Villa de Caseda y dijo que abiendose fabricado de nuebo y Puesto una Cruz sobre la columna antigua de la que se quebro en el collado del Camino de tafalla sobre la fuente de la tejeria de esta Villa por Juan de Santesteban Cantero natural del lugar de macaia del Reino de Francia a sido nombrado por el dho Santesteban y por Juan Franco Pitillas Deposita. de esta villa con comunicacion y consentimientto delos de su rejimto. de conformid. Para ver y reconocer dha Cruz y Valuar y tasar su Costte por aberla fabricado dho Santesteban con esta Condicion...”

Egindako lana ez bide zen izan aztertzaileen gogobetekoa eta balio zezakeen hogeitabederatzi “peso”-etatik berrehun erreale tara jaitsi zuten egileari eman beharreko lansaria:

“(Juan Jose Nabarro)...a visto y reconocido dha Cruz y que en ella se alla de medio reliebe el crucifijo, Nra Señora con su niño una Paloma sobre ella, dos serafines San Juan y la Magna y que aunq estando con toda Perfeccion Valdrian Veintte y nueve Pesos y medio, Pero por qu. el Crucufijo, San Juan y la magna. se allan imperfectos regula y tasa baler toda la dha fabrica Doscientos reas.”

Lekukoen artean Hazparneko Martín de Lorda zurgina zegoen:

“Tes. Martin Percaz Vec. de esta Villa y Marttin Lorda Carpintero natural del lugar de Azparren en Francia y firmo dho Nabarro con uno de los tse. y no el otro que dijo no sabia...”<sup>4725</sup>

**Cruz de Liberal, el:**

1815ean **Cruz de Liberal** zenari **Cruz de Libral** [librál] esaten zaio orain. Gurutzea **Medios**-en dago, **Carretera de la Sierra**-tik **San Nicolás**-ko iturrira doan bi-dearen hasieran:

“el segundo (guarda) de la cruz de Liberal a San Nicolas”<sup>4726</sup>

Izen honek **Liberal** deituran izan lezake oinarria.

4725 PRA-San Martin, 46. k. ?. Juan de Santesteban 1790eko urriaren 17an hil zen, Uxuen bertan, eta oinordekotzat bere anaia Pedro de Santesteban izendatu zuen “Nafarroko erresumak”, harginak ez baitzuen testamenturik egin:

“parecio Pedro de Santesteban, nral qe dijo se del Lugar de Macaya, y Domiciliado en el de Alzu, del Rno de francia, obispado de Baiona. Y dijo qe pr la Rl corte de este Rno, sele ha declarado Heredero y sucesor, en los vienes, y Herencia intestada de Juan de Santesteban su Hermano, soltero nral que fue de dho Lugar de Macaya, qe succediò su fallecimto, en esta villa, el dia diez y siete de Octubre ultimo, quedandosele à dever en los Pueblos de esta circunferencia, y Reyno, varias cantidades, procedidas de obras ejecutadas en su oficio de cantero” (PRA-San Martin, 60. k?).

Pedro de Santestebanek esku eman zion Uxueko benefiziadua zen Patricio de Munarriz zorrak bere izenean kobratzeko. Munarriz hau Arizkungo erretorea izana zen, eta beharbada hizkuntzan bilatu beharko dugu aipatu botere-ematearen arrazoia.

4726 PRA-San Martin, 79. k.

**Cruz del Yugo, la:**

**La Cruz del Yugo Busa**-ko eta **Akirazabal**-eko bideak bereizten diren gu-  
neko gurutxettoa da, **Beskos** eta **Aguilar**-en artekoa. Orain hautsia dago.

**Cuartel, el:**

Gerlaren ondoren eraiki zen, eta 1970eko hamarkadan hutsik gelditu, guar-  
dia zibilak San Martina jaitsi zirenean. Geroago, zenbait urtez itxita egon ondoan, pate,  
txorizo eta antzekoak egiteko lantegi bilakatu zen, arrakasta handirik gabe ordea, enpre-  
sak azkar egin baitzuen porrot. **La Tahona** ondoan dago, lehengo **Balsa vieja** eta **Ermi-  
ta de San Andrés**-i hurren, herriaren sarreran.

Lehenagoko kuartela udaletxean zegoen, sarrera **Calle de la Rúa** deitu karri-  
kan zuelarik.

**Cuarto alto, carasol del:**

**Cuarto alto**, **Andiaga**-ren beste izen bat izan zitekeen. Halarik ere, ez daki-  
gu erabat elkarren kideak ziren ala ez (cf. **Cuartochiguito**):

“una pieza...en el termino de Andiaga y parte del carasol de el Quarto alto” (1760)<sup>4727</sup>

**Cuarto**-en inguruan ikus **cuarto**-dun sarrerez gainera, **Andiaga**, **Aristuzia-  
ga**, **Mugazuria** eta **Zaldunaga**.

**Cuartochiguito:**

**Cuarto** hau lehen aldikoz 1818an ediren dugu, berandu samar beraz. Esan  
bezala, **Los Cuatro Cuartos Andiaga**, **Aristuziaga**, **Mugazuria** eta **Zaldunaga** ziren;  
**Cuartochiguito** lau horietako hiruren bizkar (**Aristuziaga**-z beste hiruen bizkar, batez  
ere **Mugazuria**-ren bizkar) egindako zatiketa berri baten ondorena dela irudi du:

“..los quatro Aborrales ó Quartos, llamados Astuciaga, Mugazuria, Quarto Chiquito y  
Andiaga” (1818)<sup>4728</sup>

Aipu honetan **Zaldunaga** falta da; hau ez da harritzeko alderdi horretako  
belarra gaurregun ere **Mugazuria**-rekin batera saldu ohi baita. Hortaz, baliteke 1818ko  
lekukotasun horretan **Zaldunaga Mugazuria**-ren barruan sartua egotea. **Andiaga**  
(< **handi** + **aga**, ikus sarrera hau) ere azaltzen denagatik, badirudi **Mugazuria**, **Zaldu-  
naga** barruan zuela seguruenera, “cuarto”-rik handiena zela, eta horregatik 1800eko<sup>4729</sup>  
“quattro quarttos que llaman de Mugazuria”.

Egungo **Cuartochiguito**-k ([kwãrtoçigító]) **Andiaga**, **Zaldunaga** (**Zalduna-  
ga** eta **Sarria**) eta **Carasolalto** edo **Carasol de Txorria** ditu mugakide, goitik **Zalduna-  
ga** eta **Andiaga**-ren artean sartzen da, **Uxue** eta **Epaizen** elkarrekiko **Fazería**-raino.

4727 Id., 45. k.

4728 Id., 81. k.

4729 Id., 69. k., 1800



1800. urtean ordea<sup>4730</sup>, lau “cuarto”-en mugarriketa egiten denean zera ikusten dugu, **Cuartochiguito** ez dela inon ere ageri, **Andiaga-k Mugazuria**-rekin mugatzen duela (gaur **Cuartochiguito**-rekin mugatzen du), eta **Mugazuria** eta **Zaldunaga**-ren arteko muga **Fazeria** aldean bide dagoela (gaur **Cuartochiguito** eta **Zaldunaga**-ren arteko muga dugu hor).

#### Cuartos, los:

Ikus honetaz aurreko bi sarreretan esan dena. 1805ean argiegia ez den **Comun** otera baten baliokidetzat jotzen da:

“otra pieza en el termino de Uxue..en el termino que llaman comun otera o los quartos”<sup>4731</sup>

Izan ere, lau “cuarto” hauek auzodermioak ziren, Uxueko eta Pitillasko biztanleak, nahiz ez neurri berean, baliatzen ahal zirenak<sup>4732</sup> (ikus **Cinco Millares** sarrera).

**Cuarto** izenak ‘laurdena’ adiera du, eta alderdia lau zatitan banatua egoteari zor zaio. Lau puskatan zergatik banatzen den jakitea besterik da<sup>4733</sup>, baina badirudi Uxue eta Pitillasen amankomuneko lur guztietan egiten zen zatiketa zela, alegia, Uxuek (handiagoa zelako, garrantzizkoagoa zelako edo beste zerbaitengatik) lau zatitatik hiru gelditzen zituen, eta Pitillasek bat bakarra. Hau da, izan ere, bi herriak behin eta betiko elkarrengandik bereizi zirenean nagusitu zen jokamoldea. Ez dakigu amankomuneko beste dermioei zergatik ez zitzaien **cuarto** izena eman.

#### Cuatro Cuartos (alto de), los:

**Cuatro Cuartos**-ez ikus aurreko sarreretan dioguna. **Alto de los Cuatro Cuartos** zein den ez dakigu, baina itxuraz “cuarto” edo laurden horietako gainik gorena zen, **Andiaga** edo **Sarria de Zaldunaga** seguru asko:

“Estando en la maior elebacion de el Alto de los Quattro quarttos qe confinan con las villas de Gallipienzo, eslabá y Abaiz” (1800)<sup>4734</sup>

#### Cuatro Cuartos de Mugazuria, los:

Lau “cuarto”-ak batzuetan horrela izendatzen dira, nagusitasuna, nolabait, **Mugazuria**-ri ematen zaiola. Hau gure ustez (ikus **Cuartochiguito**), eta **Andiaga**-ren

4730 Id. Zernahi gisaz, kontua ez dago erabat garbi, agiriak honela jarraitzen baitu:

“...de suerte que de esta Muga a la de Gallipienzo abrá como ciento y cinquenta pasos”

Honen arabera, mugarriketa Galipentzuko mugatik, hots, **Barranco de Zaldunaga** aldetik hasi zela pentsatu beharko dugu.

4731 PRA-Oibar, 90. k.

4732 Uxuek lau zatietatik hiru zituen bere; Pitillasek bat bakarra:

“Y dijeron que con motivo de haver quedado por entero para esta villa los quatro quarttos que llaman de Mugazuria, en los cuales era Jnteresada la villa de Pittillas en una Quartta parte, y antes qe se hiciera la division de Terminos, acordo dha villa de Uxue, y su veintena que para maior conveniencia de los Arrendadores Se arrendase separadamente cada Quarto, y se Amojonasen...” (PRA-San Martin, 69. k., 1800).

4733 Valtierren **El Cuarto** dugu gaur, eta Cadreitan Uxueko **Cuarto chiguito** / **Andiaga**-ren kideko izan litekeen **Cuarto chico** / **Cuarto grande** pareá.

4734 PRA-San Martin, 69. k., 1800.

etimologia gorabehera, **Mugazuria** laueta handiena izateari zor zaio, lehengo **Mugazuria**-k oraingo **Mugazuria** osoa eta **Cuartochiguito** hartzen baitzuen bere barruan, nahiz azken "cuarto" berri hau eratzeko **Andiaga** eta **Zaldunaga**-ri ere zertxobait kendu zaiekeen<sup>4735</sup>:

"y dijeron que con motivo de haber quedado por enttero para esta villa los quatro quarttos que llaman de Mugazuria, en los quales era Ynteresada la villa de Pitillas en una Quarta parte..."<sup>4736</sup>

#### Cueva de los Ladrones, la:

Galipentzuko gure informatzaileak Uxuekotzat jotzen zuen toponimo hau, eta lehen herri horretako **Peña de los Ladrones**-ekin lotzen. Uxuen **Barranquilla de los Ladrones** eta nondik atera den ez dakigun **Cón de los Ladrones** (ikus sarrera hau) ditugu, eta esan moduan bertan badira haitzulo moduko batzuk, zulodun harri batzuk.

#### Chaparrero, el:

**Camino de Beire** eta **Barranco de Otrillos** aldean dagoen txapardia da. Bertan, bide ondoan, dorre baten zaharkinak daude, **Otrillostxiki** despoplatuarenak agian.

#### Chiricantón, el:

Iribarrenek<sup>4737</sup> 'montón de escombros' adiera ematen dion Uxueko hitz hau izen arrunt eta berezien artean dagoela esan daiteke, lehen horietatik **Aldabea** bezalako bat baino gertuago dagoelarik. Uxuen **Chiricantón** bat baino gehiago dago: bat **Billeta**-n, beste bat **Lopera**-n.... eta beti zaborrak eta hondarrak botatzen diren herri ondoko malda xutak, ezpondak dira. Horregatik, hasierako **chiri**- hori **alzirria**, **altxirria** hitzaren bigarren osagaia den **zirri**, **txirria** izan daitekeela uste dugu<sup>4738</sup>, hau da, 'azienda xeh-heen kaka' adiera duen izena. Honela balitz, euskal elkarketaren arabera sorturiko hitz hibrido baten aurrean geundeke (**ziri** + **cantón** 'ezkina')<sup>4739</sup>.

Malda xuta denez, Zaraitzuko **chirristarse** 'irristatu', edo Oibar haraneko adiera bereko **terristarse**, **cerristrarse**-ekin<sup>4740</sup> ere lot liteke mintzagai dugun izena, baina Uxuen **furrustrarse** eta **furrustra** esaten da, eta beraz, bestela ere zalantzakoa litzatekeen lotura saihestu beharrean gaude.

4735 Dena dela, badirudi, 1800eko "cuarto"-en mugarriketa agirian oinarrituz, **Andiaga** eta **Zaldunaga** oraingo bertsuak zirela.

4736 PRA-San Martin, 69. k., 1800.

4737 VN.

4738 Ikus VN. **R** / **rr** txandaketa ezaguna da euskaraz (cf. **orantza** / **orrantza** 'legamia'), baina arazoa zera da, **r** anizkuna gehienetan sekundarioa dela (ikus FHV, 330-332. orr.). Cf., gainera, Uxueko bereko **txirikote** 'gatzak botatzen duen ura' edo euskaraz arrunta den **zirina**.

4739 **Billeta**-ko **Chiricantón** gutxienez ezkina moduko batean dago, kaleak egiten duen bihurtune moduko batean, alegia. Oibarren egungo **El Barrio de las Cuatro Esquinas** **El Barrio de los Cuatro Cantones** da dokumentazioan (PRA-Oibar, 34. k., 1715), eta Zaren gaurregun ezkinan dagoen **Calle del Cantón** dugu. Iturmendiko **Irukantonekoa** **Argain** deitu alderdian dago, herritik kanpo dirudienez (N. Arbizu, TI, 267. or.).

4740 Masu Nitta, *Notas lingüísticas sobre vasquismos léxicos y topónimos de la zona de Eslava (Navarra)*; Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea, 1980.

**Depósito de las aguas, el:**

Elizaren eta El Aljibe-ren ondoan dago, El Castillazo-n, XIX. mendean eraiki zen hilerria zegoen tokian berean. Uxuen ur korrontea jarri zenean egin zen urbiltegi hau, gerla zibilaren ondoren.

Orain Ardui-n beste urbiltegi berri bat eraiki dute, egungo hilerritik hurbil samar, Mairagako urtegitik datorren ura biltzeko, Uxueko udalerriko iturriak herriak dituen beharrak asetzeko aski ez direlako, idorte-urteetan bereziki. Urbiltegi berritik herriera ura ekartzeko luebaki zabal bat egin dute, lehen zegoen bidexkaren ibilbideari jarraituz, eta estali ondoan bide zabal-xuta gelditu da Ardui-tik La Balsa nueva-raino.

**Dorreberria:**

Dorre-z eta berria-z osaturik dago, bistan denez. Badakigu larrain eta erre-pide baten ondoan zegoela, baina ez zehazki non:

“una era...en la endrecera llamada dorreberria que afrenta con la era...y con el Camino Real” (1598)<sup>4741</sup>

Baliteke San Miguel-etik hurbil zegoen Etxeandieta-ren beste izen bat izatea, inguru horretatik Murilloko errege bidea abiatzen zenez gero. Nolanahi ere den, dorreari “berria” itsasteak “zahar” bat ere bazela esan nahi du (cf. Iturriberria / Iturrizar, Iturrizarra).

Honen erdarazko ordaina den Torre nueva ere aurkitu dugu (ikus sarrera hau).

**Dorrondiaga (barranco de), (monte de), (olivares de), (paso de), (sarría de):**

Dorrondiaga, gure irudiz, dorre-z, handi-z eta -aga-z osatua dago. Izan ere, leku-izen hau azaltzen den lehen aldian (1593an) Dorrondiaga dugu<sup>4742</sup>, baina 1594an Dorandiaga (hots, Dorrandiaga) ageri da<sup>4743</sup>, eta 1701ean Doraondiaga<sup>4744</sup>.

Izenaren bilakaera hau izan zitekeen: \*Dorreandiaga > Dorrandiaga (cf. Etxeandieta > Etxandieta Uxuen bertan) > Dorrondiaga (bokal asimilazioz). Bukarant -eaga duten aldakiak (1604ko Dorrondeaga edo 1819ko Derrondeaga, adibidez) ultrazuzenketaren fruitu dira (cf. Aliaga / Aleaga; Urteaga / Urtiaga<sup>4745</sup>, eta Galipentzu eta beste herri batzuetako Leazeta < Liatzeta). Izan ere, Dorrondiaga da dokumentazioan usuenik edireten dugun aldakia.

Gaur ibiltzen den Redondiaga [rèðonðjága] metatesia jasandako aldaera 1808an aurkitzen dugu aurren aldiz<sup>4746</sup> (cf. Zareko Dorrondeta > Redondeta), eta

4741 PRA-Oibar, 7. k.

4742 Id.

4743 UEA, 14. kap-lib., 293. or.

4744 Id.

4745 Kasu honetan, hala ere, -eaga-dun aldakia da zaharrena.

4746 PRA-San Martin, 74. k.

**\*Derrondiaga**-ren antzeko batean oinarritu behar dela dirudi (cf.1604ko **De-r-rondiaaga**<sup>4747</sup> eta 1819ko **Derrondeaga**<sup>4748</sup>).

**Dorrondiaga**, esan bezala (ikus **Camino del Monte** sarrera), **El Monte** deitu auzo-mendiaren ospela da, eta beraz, ez da miresteke 1700eko **Monte de Dorrondiaga**<sup>4749</sup> (ikus **Zapaiz** sarrera) eta 1820ko<sup>4750</sup> **Monte demarcado de Redondiaga**-ren modukoak aurkitzea. **Barranco de Dorrondiaga Aliaga** eta **Ollatu**-tik datorren erreka da (= **Barranco del Monte**).

**Gaurregungo Carasolbajo \*Carasol de Dorrondiaga** izan zitekeen, oraingo izena oso berria baita (belarren zatiketaren ondorea itxuren arabera), eta eremu hori adierazteko beste izenik azaltzen ez baita.

**Paso de Dorrondiaga** errekan dago, “**Corral de Berrade**” eta **Fuente de Berrade**-tik hurbil; **Sarria de Dorrondiaga** (1678)<sup>4751</sup> alderdiko oihezko oihera zen, agian (cf. **Monte de Dorrondiaga**). 1756an agertzen den **Dorrondia**<sup>4752</sup> -aga-rik gabeko **Dorrondiaga**-ren aldakia izan daiteke (cf. **Larziaga / Larzia Uxuen, Arriurdinaga / Arriurdina** Lergan...), baina oker hutsa ere bai.

**Dorrondiaga**-k **Ollatu, Carasolbajo, Zapaiz**, eta **El Vedado**-rekin mugatzen du.

**Drinda** (aldabea del carasol de), (cerro de), (debajo de), (larratza de):

Euskal Herriko beste eskualde batzuetako inda, **drinda, drunda, ginda** ‘bidxka’, ‘bide-zigorra’ da Uxueko hau<sup>4753</sup>:

“ytten mas un çerrado pieça olibar en la endrecera llamada drinda” (1599)<sup>4754</sup>

**Drinda Aldabea de Turtunbera**-n zegoen, **San Miguel** ondoan, eta **Camino de las Cruces viejas**-ekin identifikatu beharra dago, gutxienez bide honen **San Miguel**-en ondoko zatiarekin, bai eta **Turtunbera**-ko bidearen hasierarekin:

“una pieza que ellos tienen y poseen...en drinda extramuros de la dcha villa que enfrenta con camino becnal de drinda que ban a la fuente de turtunbera” (1685)<sup>4755</sup>

**Aldabea del Carasol de Drinda** (1706)<sup>4756</sup> aztertu dugun **Carasol de las Cruces** bera zen, hau da, **Caracierzo de Turtunbera** aldean dagoen baina hego-ekialdera ematen duen **San Miguel**-en ingurua. **Debajo de Drinda** (1699)<sup>4757</sup> izena **Drindabe**-ren ordain erdaldundua da.

4747 PRA-Oibar, 11. k.

4748 PRA-San Martin, 82. k.

4749 Id., 8. k.

4750 Id., 82. k. Egun ere **Monte de Redondiaga** esaten zaio zenbaitetan.

4751 Id., 3. k.

4752 Id., 43. k.

4753 Ikus Agezako **Gindertea** sarreran dioguna.

4754 PRA-Oibar, 9. k.

4755 PRA-San Martin, 5. k.

4756 UEA, 14. kap-lib., 317. or.

4757 PRA-San Martin, 8. k.

**Larratza de Drinda** iturriko bidearen ondoan zegoen:

"otra pieza...en el mismo termino (Senda de Turtunbera-n) afronta a la larraza de drinda y dho camino (Turtunbera-koa)" (1786)<sup>4758</sup>

1648ko **Cerro de Drinda**<sup>4759</sup>, azkenik, Epaiz eta Uxueren arteko mugako mendi garai baten izena zen, Epaizko egungo **Hoyo de Burunda**-ren ondokoa (ikus sarrera hau).

**Drindabe:**

Honen bi osagai gardenak **Drinda** toponimoa eta **-be** 'behe', 'azpia' posposizioa dira, eta adiera '**Drinda**-ren azpiko alderdia'. Esan bezala, **Debajo de Drinda**-ren baliokide osotara euskalduna da:

"Ytten una huerta en el termino de esta villa llamada drindave..." (1633)<sup>4760</sup>

**Era:**

Jabearen izena, deitura, edo izengoitia izaten dute Uxueko larrainek: **La Era de Arana** (desagertua), **La Era de Isidro**, **La Era del Herrero**, **La Era de la Sixta**... Gorte edo korraleetan ere izaten dira larrainak, hemen ere egiten baitzen eultzia.

**Erlosiana (carasol de), (monte de), (monte demarcado de), (vedado de):**

Etimologia iluneko toponimoa da hau; Caro Baroja-ren arabera **-ana**-n bukatutako toki-izenak "villa" garrantzizkoak izan ziren lekuak adierazten dituzte, **-ano**-z amaitutakoak "fundi"-etan oinarrituak dauden bitartean<sup>4761</sup>. Lehen elementua zein izan daitekeen ez dakigu. Aipatu autore horren arabera<sup>4762</sup> antroponimo bat izan ohi da, "villa"-ren lehen jabearen izena hain zuzen, baina bestelakoak ere aurki daitezke, leinu-izenak esaterako.

Ustezko etimologia latino honen alde egiten duten bi faktore daudela uste dugu: lehena beste "villa" asko bezala ugalde batetik (Aragoatik) hurbil egotea, eta bigarrena ondoan itxura latinoaren duen **Aurino** izatea (ikus sarrera hau). Zernahi ere den, toponimo hau berandu aurkitu dugu, **Erlosiana** itxurapean 1767an<sup>4763</sup>, eta **Erlosana** bilakaturia 1805ean<sup>4764</sup>; orain itxuragaiztotzeak aurrera egin du eta **Rusiana** [rušjána] esaten zaio.

1760ko **Carasol de Erlosiana**<sup>4765</sup> eta 1819ko **Carasol de Erlosana**-k<sup>4766</sup> **Erlosiana** hutsak adierazten duena adierazten du, dermio hau eguzpegia baita. Iparragerrian

4758 Id., 40. k.

4759 PRA-Kaparroso, 43. k.

4760 UEA, 14. kap-lib., 92. or.

4761 *Materiales*, 85-95. orr.

4762 HGPV, 254. or.

4763 PRA-San Martin, 48. k.

4764 Id., 72. k.

4765 Id., 46. k.

4766 Id., 82. k.

Zapaiz eta Lerbeltz ditugu. Barranco de Erlosiana Apeztegiatorra-tik heldu dena da, Barranco de Zapaiz eta Barranco de Dorrondiaga-ren bat egitearen ondorena.

Erlosiana isun-mendia zen, eta ugalderraino iristen zela dirudi, La Oliveta ere barruan hartuaz (ikus Lezkairu sarrera):

“..el Montte demarcado de Erlosiana...por haverle hallado en dho Montte y paraje q llaman la olivetta” (1783)<sup>4767</sup>

“Mas el bedado llamado Erlosiana...” (1828)<sup>4768</sup>

Ermita, la:

Santa María la Blanca ermitari deitzen zaio egun honela, San Miguel eliza-ermita hondatua alde batera utziz gero hau baita gelditzen den bakarra.

Errekazarra (rincón de):

Erreka izena eta zaharra izenondoa ditugu egun ezezaguna den honetan<sup>4769</sup>. Gehienetan hasierako bokal protetikorik gabe aurkitzen dugu, eta batzuetan bukaeran -ea duela: Reçacarra (1675)<sup>4770</sup>, Errecazarra (1706)<sup>4771</sup>, Recazarea (1806)<sup>4772</sup>...

Errekazarra Aldabea de Aitzandietan zegoen, Camino de la Sierra-ren eta erreka-errekaren ondoan:

“una pieça...en la endreçera llamada la aldabea termino de dicha villa llamado Reçacarra...que se atiene...con...ssenda y barranco conçejiil” (1618)<sup>4773</sup>

“Yttem las piezas de recazar...que afrontan con el Camino Real que va a la sierra” (1644)<sup>4774</sup>

Badakigu zokoa ere bazela alderdi honetan:

“ytten una pieza...en el rincón de errecazarra...” (1725)<sup>4775</sup>

Ez dakigu seguru zein erreka eta zein zoko ziren Errekazarra-koak, baina itxura guztien arabera, egungo (Rincón de) los Cerrados-ekin identifikatu behar da.

4767 Id., 56. k.

4768 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 13. or.

4769 Ez da aise ulertzen, ordea, zaharra horren esanahia. Iturrizarra-ren moduko batean ulergariagoa da, iturriak sortu eta ahitu egiten direlako, eta bertan arkuak, mailak eta abar egiten direlako maiz. Errekak, berriz, ez dakigu zein aldetatik izan daitezkeen zaharrak.

Kasu berean dago, gutxienez, Errekazarra-tik hurbil zegoen Erripazarreta. Egungo egunean Rincón Nuevo toponimoa dugu Otrrollos-en, antzinako Nobeleta eta Mikelenzabal-en artean, antza. Kasu honetan, alabaina, izenondoa zokoa labakitu berria izatearen ondorena izan daiteke (cf. Zareko Zokozarra). Zernahi gisaz, honelako izen “azalgaitzak” arruntak dira toponimian eta sarri edireten ditugu han-hemenka. Cf., adibidez, Orotz-Beteluko (Urtasun, TOB, 341. or.) eta Orisoaingo (THET, 127. or.) Errekazar.

4770 UEA, 14. kap-lib., 275. or.

4771 PRA-San Martin, 28. k.

4772 Id., 73. k.

4773 PRA-Kaparroso, 21. k.

4774 UEA, 13. kap-lib., 250. or.

4775 PRA-San Martin, 32. k.

Alderdi honetan gurregun ezezagunak diren **Arbolaga** eta **Rincón de Azpieta** ere ba-genituen, besteak beste.

### Erripazarreta:

**Erripa** ‘aldapa xuta’, ‘erreka edo ugalde baten ertzeko aldapa xuta’ (ikus honetaz Galipentzuko **Ripas**, **Ripalazetas** eta **Ripodas** sarrerak) izena, **zahar** eta **-eta** ditugu hemen. Aldaki bat baino gehiago aurkezten du, eta forma batutzat zaharrena aukeratzea erabaki dugu, 1601eko **Erripacarreta**<sup>4776</sup>, alegia, aurreragoko **Ripacurieta** (1685)<sup>4777</sup> eta **Ripa zubieta** (1708)<sup>4778</sup> baztertuz.

Lehen osagaiak, aurreko sarrerako **erreka**-k bezala, hasierako bokal protetikoren aferesia jasan du maiz. Bigarrenak **Burnizirieta**-ren bigarren osagaiak aurkezten zituen aldaera bertsuak aurkezten ditu (ikus sarrera hau). Oraingo honetan ordea, eta esan bezala aurrean lekukoa hautatuz, **-zarreta** nahiago izan dugu forma batutzat.

Guztiarekin ere, erdarazko “tierra blanca” sintagmak dokumentaturikako forma guzti hauen azpian **-zurieta** ez ote dagoen pentsarazten digu:

“tres pedaços de tierra blanca en rripacurieta...lintero a Camino Real”<sup>4779</sup>

**Erripazarreta Lakubeli**-ren ondoan zegoen, **Aldamara** eta **Murillora** eta **El Vedado**-ra doazen bideen artean:

“Mas otra (pieza) en termino de repazurieta que afronta con dos caminos publicos que se ba a Aldamara y al bedado” (1718)<sup>4780</sup>

**Barranco de Lakubeli**-ren ondoko alderdi honen pikotasunak, errekaen alboan egotearekin batera, **erripa** izena justifikatzen duela dirudi.

### Esatea (alto de), (esquina de), (paso de), (portillo de):

Leku-izen honen bigarren osagaia **-atea** ‘harrartea’ dela dudarik ez dago, gaur (**portillo de**) **Satea** [sátea] esan ohi baita. Lehen elementua, dokumentazioko **Esatea** aintzat hartzen badugu (eta aintzat hartu behar dela uste dugu), **Es(a)**- dela irudi du. Hau **etxea** (edo **etsea**) izenaren elkarketako aldaera den **etxa-** (edo **etsa-**) izan liteke, zenbaitetan **esa-** (\***exa**-ren bidez seguraski) bilakatu baita (cf. **Etxeberrri** edo **Etseberri** > **Eseberri** deitura), baina etimologia honek ageriko bi oztopo ditu: batetik hasierako osagaia **esa-** ote den seguru ez dakigu, **es** + **atea** bezala ere zati daitekeenez gero, eta bestetik Uxuen beti **etxe** azaltzen da (cf. **Etxeandieta** oikonimoa). Beste posibilitate

4776 PRA-Oibar, 10. k.

4777 PRA-San Martin, 5. k.

4778 Id., 28. k.

4779 PRA-Kaparroso, 57. k. Ziraukin ere **Erripazurieta** (**Ripaçurieta**) aurkitu du J. M. Lacarra historiagileak. Ikus “Documento de Irache (1283) referente a Cirauqui” artikuluko 168. orrialdea. Autore beronek Ziraukiko horren erdarazko ordain zehatza den **Riba alua** biltzen du Los Arcosen XIII. mendean (OV, 254. or.). Cf., gainera, Murillo el Cuendeko 1704ko **Riva roya** toki-izena.

4780 UEA, 13. kap-lib., 244. or.

bat, hasierako es- horretan hesi 'valla', 'seto' ikustea da (cf. **harrespila**, **Espuru**, **Estar-te...**<sup>4781</sup>), baina azalpen hau ere ez da gure gogobetekoa<sup>4782</sup>:

“una pi en el termino de essatea...que afronta con el Camino de los linares” (1633)<sup>4783</sup>

**Harrate** edo **harrarte** bizirik dugu han-hemenka generiko gisa, baita euskara galdu den zenbait herritan ere. Sakana aldean, adibidez, **harrarte**, **harrate** edo honetatik disimilazior atera den **herrate** erabiltzen dira ‘harri tarteko bidea’ adieraz<sup>4784</sup>. Toponimian **Esatea** eta **-satea** oso hedatua dagoela kontuan hartzen bada, etimologia argitzeko bide bat **esatea** eta **harrate** / **errate**-ren artean, **esan** eta **erran** aditzen artean dagoen erlazio bera dagoela pentsatzea litzateke, baina **errate** sekundarioa izatea honen kontra mintzo da argi eta garbi.

**Esatea Ardui** eta **Txorria**-ren artean dago, **Turtunbera**-ren goiko zokoan, eta honengatik dokumentazioko **Esquina de Esatea**. **Alto de Esatea** portiluaren ondoko gaina zatekeen; **Portillo de Esatea** dokumentazioko **Portillo de Santa Agueda** bera da.

Hemen barna zihoazen **Camino de Galaputzu**, **Camino de los Linares** eta **Camino de Pamplona** izeneko bideak:

“ytten una pieza...en la aldavea en la esquina de esatea que afronta...con camino de galapuzu” (1727)<sup>4785</sup>

#### **Escuelas, las:**

**Buzakao**-ko eskolak gerla aurreko urteetan eraiki ziren, 1934 inguruan, eta ordu arte udaletzeko goiko solairuan zegoen eskola zaharra ordezkatu zuten. Antzina **Pirolarraña** auzoko **Jaun Done Martia** edo **San Martín** ermitan zegoen herriko ikastetxea (ikus **San Martín** sarrera).

#### **Eskobarea (paso de):**

Eskualde honetan isatsa oso ugaria da, eta **Eskobarea** toponimoa erdarazko **escobar** izenaren euskalduntzearen fruitu dela dudarik ez dago (cf. Santakarako **El Escobar**<sup>4786</sup>, San Martingo **Escobares**<sup>4787</sup>, Zareko **El Escopizar** dermioa eta honen ondoan da-

4781 AV, 86. or.

4782 Gure alderdian aztergai dugun honekin zerikusia dukeen **Etateaitzina** dugu **Leatxen**, **Larrasatea** Galipentzun, eta **Atesatekoa** (cf. Agezako **Ategarate**) eta **Martisatea** Zaren. Hemendik kanpo **Esate** bizirik dugu **Nabatzen** eta **Beltzuntzen**, **Artesate** (< arte + (e)sate) **Arakil-Ekain**, eta **Esatea** **Orbaitzetan**.

Zudairin **Esateria** (< esate + iria, antza) dugu 1668an (PRA-Artabia, 2. k.), **Esatari** (Allin eta Amesko-erako hipotekak, 1. lib., 3. or. / 3. org.) 1830ean; **Munetan Essarte** (cf. **harrate** / **harrarte**) dugu 1668an (PRA-Artabia, 2. k.), **Esarte** 1830ean (id., 46. org.): “otra (pieza) en el camino que van al monte, y parage llamado Esarte”. **Aranatzen** (**Aranaratzen**) **Belaunesarte** dugu 1687an (PRA-Artabia, 4. k.).

1290ean **Esateaga** agertzen da **Zai** herrian: “Item / esto es de Toda Goyenechea, una vinna en Essateaga que se afronta con la vinna de Furtuyanno, una pieça en Essateaga que...” (Ostolaza, 417. or.).

4783 PRA-Kaparroso, 57. k.

4784 J. M<sup>a</sup> Satrústegui, “Vocabulario popular”, 258. or.

4785 PRA-San Martín, 32. k.

4786 PRA-Kaparroso, 35. k., 1633.

4787 Id., 56. k., 1785.



goen **Utsaskieta** edo **Utsaskietarana**. Cf., orobat, eta formari dagokionez, Uxueko bereko **Boxagarea**).

Egun ezezaguna den toki-izen hau zehazki non zen ez dakigu, baina badirudi **El Vedado** eta **Zapaiz**-en artean zegoela, **Apeztegi**alorra-tik hurbil edo:

“..el monte de Zapaiz y los sotillos que ay pegantes al monte desde el paso de Sulue asta el paso de escobarea” (1709)<sup>4788</sup>

**Paso de Sulue** hori **Aitzandieta-Basandia**-tik eta **Sulue**-tik jaisten diren erreken elkarguneko pausua izan daiteke, “Corral de Puñales”-en ondokoa alegia. **Paso de Eskobarea** erreka bereko **Camino de Murillo**-ko pausua zatekeen, aipatu **Paso de Sulue** eta **Paso de Apeztegi**alorra-ren artean dagoena. Pausu baten izena ezezik, dermio oso batena ere bazen:

“yten en el termino de Escobarea una pieza...” (1815)<sup>4789</sup>

**Eslava, paso de; portillada de:**

Pausua **Senda de Eslava**-n zegoen, agian **Zaldunaga** aldean:

“ytten en el passo y senda deslava dos avexas viejas y seis vasos” (1634)<sup>4790</sup>

**Portillada de Eslava** (1608)<sup>4791</sup> ordea, eta aski harrigarriro, **Txutxu**-n zegoen (ikus, dena den, **Eslabako Uxubidea** sarreran dioguna).

**Etxeandiet**a (barrio de):

Hemen **etxe**, **handi** eta **-eta** ditugu. **Etxeandiet**a auzo baten izena ere bazen, hain zuzen ere **etxe** **handi** hori kokatua zegoenarena:

“un corral...en dha villa y varrio de Ochandiet

1778rako etxean ez zen inor bizi, eta ahoztegi bilakatua zen:

“Primte una cassa llamada Echeandietta q aora es dos Pajares con su Hera, q afronttan a los dos Caminos q se va a Sn Miguel”<sup>4793</sup>

1803an paretak zutik zeuzkan, baina ez teilatua, irudiz:

“...un casal con sus Paredes sitto en el Barrio de Sn Miguel qe llaman de Echandietta...cuio casal afrontta a cassa de Graciosa Lopez viuda, y con dos calles Publicas que bajan a la Basilica de San Migl”<sup>4794</sup>

4788 PRA-San Martin, 29. k.

4789 Id., 79. k.

4790 IEA, 345. kart., 13. zkia.

4791 PRA-Oibar, 13. k.

4792 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 75. or.

4793 PRA-San Martin, 53. k.

4794 Id., 71. k.

Hemen ikusten den bezala, **San Miguel**-etik hurbil zegoen, elizara jaisten ziren bi bide edo karriken artean, izen bereko auzoan. Baliteke **Etxeandiet**a 1597ko **Dorreberria** bera izatea. Honen frogarik, ordea, ez dugu.

#### Ezkabiazuloa:

Toponimo desagertu honen bi osagaiak **ezkabia** eritasun-izena<sup>4795</sup> eta **zuloa** dira:

“yten en ezcabia çuloa una pieça” (1628)<sup>4796</sup>

Lehen begiratuan bitxia irudi duen arren, **Murillo el Cuende** herrian **Uxueko ezkabia** horren erdal ordaina den<sup>4797</sup> **La Tiña** izena aurkitu dugu<sup>4798</sup>.

**Ezkabiazuloa Aldabea de Aitzandiet**a-n zegoen, erreka ondoan, baina ez dakigu zehazki non:

“y mas un cerrado en escabiaculoo...que afrenta con...barranco concegil” (1604)

#### Ezkirriaga:

Izen honen etimologiaz ikus **-aga** atzizkiari buruzko atalean esan zena. Behin bakarrik aurkitu dugu, eta ez dakigu non zegoen:

“otra pieça en la endreçera llamada ezquirriaga...que afuenta con Camino Real y barranco...” (1604)<sup>4799</sup>

#### Ezpeleta (barranquilla de), (fuente de), (pozo de):

**Ezpeleta** oraingoan ez da toponimo bat, alderdi honetan lurak zituen herri-tarraren deitura baizik. Errekastoa **Capaburros** aldetik **Barranco de Zaldunaga**-ra doan **Barranco de Mugazuria** da; iturria errekastoa dago, **Llano de Mugazuria**-tik gertu. Putzua ere hodian dago, baina beste muturrean, **Barranco de Zaldunaga**-tik hurbil.

#### Facería (alto de), la; Facería de Ujué y Pitillas, barranco de la:

**Facería** edo **Facero** larretako dagoen bi herriren (edo gehiagoren) elkarrekiko lur-puska da. Egun **La Facería** Epaiz eta **Uxueren** arteko mugako erronbo moduko alderdi bati baizik ez zaio esaten; lehen, ordea, baten **Uxue** eta **Pitillasen** arteko beste faze-

4795 'Larruazaleko eritasun kutsakorra, bizkarroi batek sortua, ezkata eta ilearen erortzea eragiten dituen', HLEH. Sarasolak 'aihen zuri' esanahia ere biltzen du, baina gure ustez eritasuna da hemengo **ezkabia**.

4796 PRA-Kaparroso, 31. k.

4797 Alfonso Irigoyenek (LVRLOCM, 37-38. orr.) **amore** eta **amorr**-ren arteko nahasketaz ari dela, **Andrés de Poza** lizentziatuak biltzen duen **Amorebieta**-ren **Amorrobieta** aldaera aipatzen du, eta **Amorro** eta **bieta**-z (< **bi** + **-eta**) osatutzat jotzen, ondoan ematen dituen adibideetan ikus daitekeenez. **Uxueko** toponimoa ikusita, alabaina, baliteke **amorro** + **obieta**-ren antzeko zerbait izatea, hobi eta **zulo**-ren adierak oso gertu baitaude bata bestetik.

4798 PRA-Kaparroso, 45. k., 1652: “otra pieza en la tiña”.

4799 PRA-Oibar, 11. k.

ria bat<sup>4800</sup> **La Sierra-n, Abuña**ga-tik hurbil, orain Uxuerenak bakarrarenak diren lurretan:

“una pieza...sitta en el alto que llaman de abuña, que afronta a pieza de...y fazeria” (1766)<sup>4801</sup>

Erreka ere bazen fazeria honetan:

“y a la parte de Avajo está el varranco de la fazeria de Uxue y Pitillas” (1805)<sup>4802</sup>

Ez dakigu zein izan zitekeen hau; Pitillas eta Uxueren amankomuneko **La Sierra**-ko dermioa **Berage** zen (gaurko **Los Berros**. Ikus **Cinco Millares** sarrera), eta badakigu 1800eko bereizkuntzaren ondoren ere bi herrientzat gelditu zela. **Berage**, halaz ere, ez dago **Abuña**ga-ko mugan, eta beste dermio bat zela pentsatu beharra dago, oraingo **Urteaga** beharbada, aipatu **Abuña**ga-ko mugan egoteaz landa hemen ere erreka baitago.

**Facero, el:**

**Facero facería**-ren adierakidea da; agertu zaigunaldi bakarrean aipatu Epaiz eta Uxueren arteko elkarrekiko zatia izendatzen du:

“assi en el dho monte como en el facero que esta billa de Abayz tiene con la billa de Uxue” (1652)<sup>4803</sup>

**Figueraza (rincón de):**

Hemen **figuera** ‘bikua’, ‘bikuondoa’ eta atzizki handigarria den **-aza** (cf. **La Fuentaza** Zaren. **Higueraza** ‘pikutzarra’ izen arrunta ere aditu dugu Uxuen) ditugu. Nabarmenezkoa da nafarreraz eta aragoieraz arrunta den hasierako kontsonante ezpainhorzkaria (cf. **Las Figueretas** Oibarren 1719an<sup>4804</sup>). Zenbaitetan ageri den **Figaraza** aldaera (1608an, kasu)<sup>4805</sup> asimilazioari zor zaiola dirudi.

Dermio desagertu hau Uxue, Pitillas eta Murillo el Frutoren arteko mugan zegoen, Pitillasek eta Uxuek amankomunean zuten **Aldamara-n, Bigas-i** hurren:

“en los terminos de las dhas villas de Uxue y Pitillas y murillo el fruto llamados por las dhas villas de Uxue y Pitillas el rincon de figueraza y por la dha de murillo el fruto el Rincon de Santagueda” (1647)<sup>4806</sup>

4800 Euskaraz ere fazeria eta fazero maileguak erabili izan dira, Zizur zendeako **Faceria gaña, Faceria goiti** (**Faceria** arriba-ren ondoan), **Faceria legarreta, Faceria ondoa, Facero gaña, Facero muga, Facero pea, Faceriaco euncetoa** eta bestek frogatzen digutenez (J. Jurfo, TCPCC). Erdaraz **Facería** eta **Facero-z** gainera, **Valdecontienda** aurkitzen dugu, seguraski bi herri lur zati beraz baliatzeak sortzen zituen sesio eta ardalengatik (ikus **Valdecontienda** sarrera).

4801 PRA-San Martin, 47. k.

4802 Id., 72. k.

4803 PRA-Kaparroso, 45. k.

4804 PRA-Oibar, 36. k.

4805 Id., 13. k.

4806 PRA-Kaparroso, 42. k.

**Fresnales, los:**

Euskal **Lizarduia**-ren (ikus sarrera hau) ordain erdalduna da hau adieraren aldetik, baina ez izendatzen duen eremuaren aldetik, **Los Fresnales Txorria**-n bide zirenez gero, eta **Lizarduia** berriz **La Sierra**-ko **Barranco de San Nicolás**-en, hau da, **San Nicolás** iturria dagoen eta **Barranco de los Berros**-a doan erreka-stoan:

“Ytten dos linares en los fresnales” (1709)<sup>4807</sup>

Alabaina, **San Nicolás** aldean ere lihatzeak bazirela onartzen bada (ez dugu honen lekukotasunik), **Lizarduia** eta **Los Fresnales** batentzat har litezke. **Txorria**-n ere, ordea, lizarrak ugariak izan dira beti.

**Frontón, el:**

**Juego de Pelota** edo **Rebote**-ren (ikus bi sarrera hauek) baliakidea da. Duela hogeitamar bat urte arte eskuinean zuen horma, ez orain bezala ezkerrean. Honek, esan beharrik ez dago, kanpotik etorri pilotariei arazo ugari sortzen zizkien, herrikoen kontra aritzean.

**Fuente de Alberto, la:**

**Barranco de Andiaga**-n dago, Zabaletaren gorte hondatutik ez urrun. **Alberto**, bistan denez, giza-izena da. **Urteaga**-n bada beste **Fuente de Alberto** bat (ikus **Urteaga** sarrera).

**Fuente de Aldunate, la:**

**Pipiratu**-n dago, **Aldunate**-ren gortetik hurbil samar.

**Fuente de Baigorri, la:**

**Santa Fe**-n dagoen dagoen iturri honi beste moduz **Fuente de Berrade** esaten zaio. **Baigorri** norbaiten deitura edo izengoitia izan zitekeen, baina gaurregun ez dago horrelakorik **Uxuen**<sup>4808</sup>. **Fuente de Berrade** deizioa arruntagoa omen da orain.

**Fuente de Bartolo, la:**

**Ardui**-n dago, alderdi honetako pausutik hurbil, erreka-stoan. Kasu honetan, iturri-izen berri gehienetan bezala, ondoan alorren bat, gorteren bat edo ondasun zerbait duen pertsonaren izena (**Alberto**, **Fausto**...), deitura (**Berrade**, **Moriones**) edo izengoitia (**El Chulo**) erabiltzen da iturria bataiatzeko edo birbataiatzeko, iturri hauetako batzuek gutxienez izen zaharra izan behar baitzuten. Beste batzuetan etxe-izena (hots, etxe horretakoen ezizena) edo lanbide-izena (**Fuente de los Guardas**) izan ohi dute.

4807 UEA, 13. kap-lib., 122. or.

4808 Ez dugu uste toponimo bat den, **Baigorri** ongi ezaguna izanagatik. Cf., adibidez, **Aranatzeko** (**Aranaratxeko**) 1687ko **Baigorria** eta **Baigorrigibela** toponimoak. PRA-Artabia, 4. k.

**Fuente de Berrade, la:**

**Barranco de Dorrondiaga**-n dago, **Paso de Dorrondiaga**-tik hurbil, **Berraderen** gortetik gertu, eta hortik izena.

**Fuente de Berunbe, la:**

**Berunbe** Uxueko etxe baten izena da, eta iturria “**Corral de Berunbe**”-ren ondoko iturria dateke (= **Fuente de Forzana**?).

**Fuente de Borrascas, la:**

**Fuente de Borrascas** “**Corral de Borrascas**”-en ondoan dago, **Aguilar alto**, **Aguilar bajo** eta **Makarreta** aldetik jaisten diren bi errekaetako elkartzaren lekuan. **Borrascas** Uxueko familia baten ezizena da.

**Fuente de Cernando, la:**

**Lakumulatu**-n dago, **Los Berros**-ko mugan, **Fuente de San Nicolás**-etik jaisten den **Barranco de los Berros**-en. **Cernando Fernando**-tik disimilazioz atera dela dirudi, \***Fuente Fernando** testuinguruan (cf. **Fafería** zenbaiten ahotan egun, **Fafería**-ren ordez).

**Fuente de Fausto, la:**

**Txorria**-n dago, **Rincón de Fausto**-ren ondoan. Ikusten denez, antroponimo batean oinarritua dago.

**Fuente de Forzana, la:**

**Zaldunaga**-n dago, **Sarria**-ren ondoan, **Berunberen** gortetik gertu samar. **Forzana** [fōrθána] zer den ez dakigu, baina orain bederen ez dago ez honelako deiturarik ez izengoitirik. Itxura duenez, ez da oso iturri emankorra<sup>4809</sup>.

**Fuente de Frascuelo, la:**

**Pipiratu**-n dago. **Frascuelo** izen edo izengoitiko batek gordea zeukan inguruetan.

**Fuente de Gerardo, la:**

**Urteaga**-n dago. **Gerardo** bertan gortetto bat (barreiatua dago orain) zuen uxuetarraren izena zen.

**Fuente de la Bomba, la:**

**Fuente de Aitzandieta**-ren errankidea da; izena ura ateratzeko bertan zegoen esku-bomba handitik datorkio. Herrira ur korrontea ekartzearekin iturriak utzi, eta urte batzuk igarota ura ateratzeko bomba hautsi eta erabat galdu zen.

<sup>4809</sup> Iturriaren andurkeriari zor zaio herrian korritzen duen esaera: “La Fuente Forzana, cuando llueve mana”.

**Fuente de la Cortadora, la:**

Akirazabal-en dago, **Barranquilla de la Torre de Akirazabal-ek** eta **Barranco de Akirazabal-ek** bat egiten duten tokian (ikus **Akirazabal sarrera**). Izena zeri zor zaion ez dakigu, baina badirudi lanbide zaharren batekin zerikusia izan dezakeela (cf. **Fuente del Cucharetero**).

**Fuente de la Oliveta, la:**

La Oliveta-n dago.

**Fuente de la Teja, la:**

Arrunta da mendiko iturrietan ura eskuragarriago egon dadin teila paratzea, eta ezbaierik gabe ohitura honi zor zaio mintzagai dugun iturriaren izena. Guk bi **Fuente de la Teja** bildu ditugu: bat **Zaubio-n** dago, bestea **Zapaiz-en**. Nafarroako beste herri askotan ere arrunta da izen hau.

**Fuente de la Tejería, la:**

Egun dagoen teileria bakarraren ondoko iturria da. Hemendik abiatzen da **Barranco de Larziaga** edo **Barranco de Aitzandieta** deritzana.

**Fuente de la(s) Peña(s), la:**

Egungo **Fuente de la Peña** Kastillu azpian dago, **Barranco de Lakumulatu-n**, haitz handi baten azpiko aldean, harpe batean (ikus **Canterica de las Piedras sarrera**). Dokumentazioko **Fuente de la Peña**, ordea, **Buzakao**-rekin identifikatu behar da (ikus **Buzakao sarrera**), eta **Fuente de las Peñas** ere iturri hori bera zela uste dugu:

“yten...el grosal...devajo de las heras de la fuente de las peñas que afronta a Camino vezinal” (1717)<sup>4810</sup>

**Fuente de los Bojes, la:**

**Lakumulatu-n** dago; bertan dagoen ezpelditik hartu du izena (cf. **Portillo de los Bojes**).

**Fuente de los Guardas, la:**

**Aliaga-n** dago, alderdiko **Cruceta**-tik berrehun bat metrora, **Alto de Muelas** eta **Alto de Santa Cruz-en** azpiko aldean, elutsean. **Alto de Santa Cruz-en** igurriak egoten ziren zelatan (cf. **Altico de la Guarda** edo **Iguraimendi(ko)a Lergan**), hemendik Uxueko udalerrriaren puska handia ikusten baita. Igurriak, egarria berdintzeko, gain horretatik iturrira jaisten omen ziren ur bila, eta hortik izena.

4810 PRA-San Martin, 31. k.

**Fuente de Luciolo, la:**

**Pipiratu**-n dago; **Luciolo** iturritik hurbil gorrea zuen uxuetarraren izena da.

**Fuente de Marceliano, la:**

Bi **Fuente de Marceliano** ditugu Uxuen: bata **Zaldunaga**-ko errekan, Galipentzuko muga aldean, **Marceliano**ren gorteari hurren, eta bestea **Aguilar**-en, agian jaun honen alor edo ardantzeren baten ondoan.

**Fuente de Maulón, la:**

**Laku**-n dago, **Barranco de Lakumulatu**-ren hastean, **Maulón** izengoitiko baten gortearen alboan. Lehengo izen zaharra dokumentazioko **Fuente de Laku** da (ikus sarrera hau), eta agian **Fuente de Kastillu** ere bai.

**Fuente de Melilla, la:**

**Barranco de Aristuziaga**-n dago, Galipentzuko mugatik ez urruti. **Melilla** herriko lagun baten ezizena zela uste dugu.

**Fuente de Moriones, la:**

**Retuerta**-tik eta **La Cruz**-etik jaisten diren errekaetako elkargunean dago, **Beskos**-en.

**Fuente de Pedro, la:**

**Andiaga**-n dago; **Pedro** herriko jaun aberats bat zen.

**Fuente de Pincholas:**

**Pincholas** Uxueko familia baten goitizen zahar samarra da:

“otra (pieza)...afta a la fuente y senda de Pincholas” (1862)<sup>4811</sup>

Egun ere **Fuente de Pinchola(s)** [pinčóla(ś)] deitzen den hau **Retuerta**, **Ardui** eta **Beskos**-en arteko muga dago, **Sandalio Martincorenaren** gortetik hurbil. **Pincholas** zer izan daitekeen ez dakigu; guri **Pinzolas** deitura (Uxuen ez dago hone-lakorik) dakarkigu gogora.

**Fuente de Poeta, la:**

**Poeta** Uxueko familia baten goitzena da. Dirudenez, poetarrek lur zerbait zuten inguru honetan, eta hortik hartuko zuen iturriak izena. **Barranco de Aldamara**-n dago, “**Corral de Baltasar**”-etik gertu.

<sup>4811</sup> Uxueko hipotekak, 180. liburua, 134. or. g.

**Fuente de Romero, la:**

Preposizioak artikulurik ez izateak **Romero** norbaiten deitura zela idarokitzen du, baina honelakorik, dakigunez, ez dago orain Uxuen, eta lehen ere ez da egon. Beste aldetik, erromero landare usaitsua ugaria da Uxueko udalerrian, eta baliteke hidronimoa hemendik atera izana, aipatu oztopoa (preposizioa artikulurik gabe azaltzea, alegia) gorabehera (cf. Eulateko **Erromeroiturria**<sup>4812</sup>).

**Barranco de Sulue**-n amaitzen den **Barranquillo de Romero**-n dago, **El Berro**-ri hurrán.

**Fuente de Sala, la:**

**Andiaga**-n dago, Salaren gortetik jaisten den erreka-stoan. Estraineko aldiz 1892ko katastroan ediren dugu.

**Fuente de San Vicente, la:**

**Barranco del Pinar**-en abiapuntua da iturri hau. Ez dakigu hagianimoa nondik atera den, **San Vicente** (ikus sarrera hau) errota zaharreko bidean baitzegoen, errota berriaren ondoan.

Dokumentazioko **Fuente de Zabalondoa** izan daiteke, iturria alderdi honetan egoki eta.

**Fuente de Teadora, la:**

Teadora etxe-koek inguruan lurak zituztelako deitzen zaio **Fuente de Teadora** iturri honi. Txutxu alto-tik **Mantxiriturrieta**-ra jaisten den erreka-stoan dago.

**Fuente de Zanzarrán, la:**

**Basandia**-n dago. **Zanzarrán**-ek Uxueko norbaiten goitizena dirudi (cf. **Pozo de Zanzarrán**), baina egun ez dago horrelakorik herrian<sup>4813</sup>.

**Fuente del Artal, el:**

**Artal**-ek arto edo basakaran-zuhamuxka asko dagoen tokia adierazten du. Uxuen gaurregun **artal** ibiltzen ez bada ere, **arto** hitza arrunta da, aipatu adieraz.

Iturria (1780)<sup>4814</sup> **Andiaga**-n zegoen, erreka batean, eta beraz oraingo **Fuente de Tejedor**, **Fuente de Sala** edo **Fuente de Alberto** izanen zen, iturri ahitu eta desagertu bat ez bada behintzat.

**Fuente del Capitán, la:**

**Aldamara**-n dago; **Capitán** ezizena da.

4812 PRA-Artabia, 4. k., 1687.

4813 Olloibarko Itzarbe herrian Uxueko toponimoarekin nolabaiteko soinu-eitea duen **Txantxalanbide** dugu egun, **Chanchalanbidea** edo **Chacharanbidea** 1794an (PRA-Asiain, 174. k.).

4814 PRA-San Martin, 54. k.



**Fuente del Chulo, la:**

Iturri honen izenak, beste anitzenak bezala, gaitzizen berri batean izan dezake oinarri, baina gure informatzaileek ez dute ezagutu **El Chulo** zeritzanik. **Txorria**-n dago, **Fuente de Fausto** eta **Fuente de Juandeigal**-en artean. Herria urez hornitzeko hartua dago, baina kisu franko izaki eta, urte euritsuetan kendu egiten dute.

**Fuente del Manantío, la:**

Pipiratu-n dago.

**Fuente del Moro, la:**

**Cuartochiguito**-n dago. **Moro** edo euskaraz **mairu**, **mauru** oso arruntak dira toponimian (ikus **Moriones**-ko **Maururia** eta **Moriones** sarreretan esan duguna), eta **Fuente del Moro** edo **Mairuturri** bat baino gehiago daude bazterretan (cf. Eslabako **Fuente del Moro** eta Lergako eta Uxueko **Malliturri** toponimoak).

**Fuente del Polido, la:**

**El Polido** Uxueko familia baten goitizena da. Iturria **Santa Fe**-n dago.

**Fuente del Puente de la Sierra, la:**

**Camino del Puente de la Sierra**-k eta errekek elkar gurutzatzen duten gunean dago, behinolako **Zubia**-n.

**Fuente del Tejedor, la:**

**Txutxu bajo**-tik **Andiaga**-ra jaisten den erreka batean dago, "Corraletto de Valero"-ri hurren. **Tejedor** hori lanbidez ehuntzailea zen norbaiten izengoitia bide da.

**Fuente vieja, la:**

1780rako zaharra zen iturri hau<sup>4815</sup> ez da ez **Basandia**-ko **Iturritzarra**, ez eta **Galaputzu** aldean behar zuen **Iturritzar** ere. Dugun lekuko bakarraren arabera **Aldabea de Aitzandieta**-n zegoen, **Larziaga**-n, eta seguru asko egun oraindik ere ezaguna den **Fuente de Larziaga**-rekin identifikatu behar genuke .

**Fuenticas de las Monjas, la:**

**Ardui**-n dago, **Camino del Cementerio**-n. Behin baino gehiagotan galdegin arren, ez dugu izena zeri zor dakioken jakiterik izan, Uxuen ez baita, dakigula, monja-komenturik egon (cf. Galbarrako **Monjabaratzea**<sup>4816</sup>).

4815 Id.

4816 "Otra pieza en Monja baracea...tente a...Regajo Conzejil", PRA-Artabia, 4. k., 1688.

**Gabacho, el:**

El **Gabacho Aldabea de Turtunbera**-n dago, herriaren aurkez, eguzkialdean. Dermio txiki hau “Corral del Gabacho” edo “Corral de Isidro”-k eta inguruko lurrek osatzen dute, eta jatorria antroponimo batean bilatu behar dela irudi badu ere (gaitzizen batean, alegia. Cf. Oibarko **La Fuente del Gabacho** eta Zareko **Franzesa**. Ikus sarrera hau), egungo uxuetarrek ez dute, oker ez bagaude, izen hori zuenik inor ezagutu.

**Galaputzu (acequia de), (alto de), (barranco de), (esquina de), (paso de), (portillo de), (pozo de), (presa de), (rincón de):**

**Galaputzu-n (Galapuzu [gàlapúθu])** garbia da bigarren osagaia, baina ez horrenbeste lehendabizikoa:

“un linar en el termino de Galapuzu” (1622)<sup>4817</sup>

Bigarren osagai hori beti c edo z-z idatzia azaltzen da, afrikatuaren arraizarik ez dagoelarik. Harrigarria da, beste alde, **Andrebutzu**, **Butzubidea**, **Butzumear** eta **Buzakao**-n aurkitzen dugun ezpainbiko ahostuna hemen ez agertzea. Jakina denez, kontsonante hau oso arrunta da (orokorra?) hegoaldeko goi-nafarrera mintzatzen zen eskualdearen zati handi batean<sup>4818</sup>, baina behin edo beste p-dun aldaera ere azaltzen da, orokorra beti ere ezpainbiko ahostuna izanagatik. Ahoskabea erromantzearen eraginari zor dakioko; Uxuen adibidez, egun **Pozo de Galapuzu** [gàlapúθu] esan ohi da, eta dai-tekeena da **pozo**-k **Galapuzu**-n eragina edukia, eta berdin besteetan.

Beste posibilitate bat elkarketan burututako ahoskabetzetzat hartzea da, hots, lehen osagaiaren amaieran gelditu den kontsonante gor edo gortuak eragindako ahoskabetzetzat (cf. **begiburu** > **bepuru**). Halaz guztiz, lehen elementuak Mitxelenak<sup>4819</sup> biltzen duen **galar** ‘leño muerto en el árbol mismo’ dateke, hau da, **Galardi**, **Galarreta**, **Galarraga**, **Galartza**... eta bestetan azaltzen den izena. Bukaerako -r-ren galtzea arrunta da, eta dardarkari anizkunez amaitzen diren **adar**, **behor**, **hezur**, **lur**... eta abarretan ere gertatzen da elkarketa-erartoketan<sup>4820</sup>.

**Galaputzu** dokumentazioan zenbaitetan **Galapuz** itxurapean edireten dugu (1588an, adibidez<sup>4821</sup>), bukaerako bokala falta duela (cf. Lizarrako **Zaraputzu** > **Zarapuz**), baina orain -u-z ebakitzen denez gero, kontu grafiko hutsa ez ote den susma dai-teke.

**Zaraputzu** edo **Zarapuz**-ez Alfonso Irigoyen jaunak dioena aldatuko dugu hona, Uxueko toponimoa argitzeko baliagarri delakoan:

“Es evidente que *Zarapuz* es el resultado de la caída de la vocal final, pronunciándose en lengua vasca con toda probabilidad como *Zaraputzu*, y, naturalmente, el segundo

4817 PRA-Kaparroso, 28. k.

4818 Gure alderdian **Butzuandia** eta **Butzueta** edo **Butzuketa** ditugu Eslaban, **Butzuandia** Leatxen, **Butzuandi** Getadar eta Usunbeltzen, eta **Butzugaña** Morionesen. Ibargoitin **Butxukoa** (PRA-Elo, 2. k-bis, 1654), **Butzunagusia** (id., 1655), eta **Butzuandurkoa** (id., 1652) ditugu Getzen, **Butzuaga** Elon (id., 3. k., 1658); Elortzibarren **Butzuaga** dugu Iharnotzen (id., 2. k., 1647).

4819 AV, 91. or.

4820 FHV, 337-338. orr. Cf. Zudairiko **Adamakurrasakanbarrena**, PRA-Artabia, 2. k., 1665.

4821 PRA-Oibar, 4. k.

elemento del topónimo era *butzu* o *putzu*, 'pozo', voz vigente también en la actualidad y que procede directamente de la forma evolucionada del latín *puteu(m)*, que a través de *\*putju(m)* asibiló tempranamente, conservando el vocablo vasco la sibilante africada que surgió en latín del grupo *-tju*, así como también el vocalismo primitivo<sup>4822</sup>

Egungo Galaputzu Txorria-ren goiko aldean dago, Ardui-ko mugan. Eskuarki Pozo de Galaputzu edo Fuente de Galaputzu esan ohi da, baina iturri edo putzu honen inguruko lurrei ere Galaputzu deitzen zaie orain, antzina bezalaxe. Dokumentazioko Cequia (1630)<sup>4823</sup> edo Barranco de Galaputzu (1698)<sup>4824</sup> Ardui-tik eta Txutxu-ko Mantxiriturrieta-tik heldu diren errekek osatzen duten ubidea da, Barranco de Txorria edo Barranco del Molino, alegia.

Alto de Galaputzu (1765)<sup>4825</sup> Portillo de las Pilas eta iturriaren arteko gaina izan zitekeen, eta Esquina (1743)<sup>4826</sup> edo Rincón de Galaputzu (1733)<sup>4827</sup> alderdi honetako zoko modukoa. Agrietako Paso de Galaputzu egungo Paso de las Pilas da, Barranco de Galaputzu-k eta altxonbideak elkar gurutzatzen duten guneko pausua, alegia:

"ytten otro linar mas arriva del paso de Galapuzu..." (1709)<sup>4828</sup>

Portillo de Galaputzu (1772)<sup>4829</sup> dermio honetara doan bideko atea zatekeen, egun Portillo de las Pilas deritzan bera; Presa de Galaputzu (1847)<sup>4830</sup>, azkenez, Andiaga-ko bidearen ondoko uharka zen. Honen zaharrikak ikusgai daude oraindik ere Paso de Galaputzu-n.

#### Gaztelu:

Gaztelu beste batzuetako Castillo bera zela uste dugu (ez egungo Castillo edo lehengo Kastillu), hau da, 1623an eraitsi zena (ikus Castellazo eta Castillo sarreak). Behin bakarrik aurkitu dugu, 1634an:

"ytten otra pieza en gaztelu..."<sup>4831</sup>

#### Gazteluondoa (eras de), (villar de):

Gaztelu eta ondoa gardenak ditugu hemen. 1593an<sup>4832</sup> eta 1634an<sup>4833</sup> oso-osorik azaltzen bada ere, gainerako guztietan u + o > o laburketa jasandako aldakia dugu:

4822 "Las hablas vascas de Tierra de Estella y su onomástica", in DRPLV-III, 163-192. orr.

4823 PRA-Kaparroso, 33. k.

4824 PRA-San Martin, 7. k.

4825 Id., 47. k.

4826 Id., 38. k.

4827 Id., 34. k.

4828 UEA, 13. kap-lib., 122. or.

4829 PRA-San Martin, 50. k., 1772.

4830 PRA-Kaseda, 57. k.

4831 IEA, 345. kart., 13. zkia.

4832 PRA-Oibar, 7. k.

4833 IEA, 345. kart., 13. zkia.

“ytten una Era en Gaztelondoa teniente a Era de Juan Garate” (1634)<sup>4834</sup>

**Gazteluondoa** **Gaztelu** edo **El Castillo**-ren ondoko eremua zen, dokumentazioko eta gaurrengungo **El Castellazo**-ren ordain euskalduna:

“una casa...en la subida de la yglesia mayor...en troque de otra cassa...a las eras de gaztelondoa” (1601)<sup>4835</sup>

#### **Gesal, pieza del:**

**Gesal**-en esanahiaren gainean ikus Agezako **Gesaliturria** eta **Gezari** sarrere-tan dioguna. Uxueko alor hau **Areatzeta**-n zegoen, **Otrollos**-en, **Beireko** mugan, eta gure ustez gaurko **El Salobral**-ekin identifika daiteke, azken hau ere alderdi horretan baitago (ikus gainera **Besolaga** eta **Petringesala** sarreretan dioguna):

“Mas una pieza que llaman del guesal en el mesmo termino (**Areatzeta**-n)” (1701)<sup>4836</sup>

#### **Gorte:**

Latin berantiarreko *cōrte*-tik atera da euskaraz oso zabaldua dagoen izen hau. Azkuek **gorta** edo **korta** ematen du bizkaiera eta gipuzkerarako, baina ez du hegoaldeko goi-nafarrera mintzatzen zen eskualdeko **gortea** (cf. **Gortetxikia**, **Gortetxipieta**, **Ferrangorrea**, **Gaztelugorrea**, **Gilingorrea**<sup>4837</sup>) biltzen. Sarasolak ere ‘korrare’ adieraz ez du **korta**-z besterik aipatzen HLEH-n.

**Gorte** hau behin bakarrik aurkitu dugu, eta oker ez bagaude beste batzue-tako **Gortederreta**-ren kidea da. Huts baten ondorioa ere izan daiteke:

“Primeramente en gorte una pieza en gorte erreta” (1608)<sup>4838</sup>

#### **Gortederreta:**

**Gorte**, **eder** eta **-eta**-z osatua dago. Orain ezezaguna da, baina badakigu **Mostrakas**-en zegoela:

“ytten mas en la endrecera llamada mostracas o gortederreta” (1605)<sup>4839</sup>

#### **Granero, el:**

Herriko bihitegia **Balsa nueva** eta ardandegia-aren artean dago, herriaren sartzean. 50. hamarkadaren azken urteetan eraiki zuten, eta duela bost bat urte handitu.

4834 Id.

4835 PRA-Oibar, 10. k.

4836 PRA-San Martin, 10. k.

4837 J. Jurío, EETA.

4838 PRA-Oibar, 13. k.

4839 Id., 12. k.

**Gravera, la:**

Ikus **El Cascajo** sarrera.

**Gurutzegibela:**

**Gurutze** eta **gibela**-z osatua dago. Erdal **Tras / Detrás (de) la Cruz**-en ordain euskalduna zen, hots, gurutzearen (gaurko **La Cruz**-en) atzeko aldea izendatzen zuen.

Lehen osagaia, oinarria, era ezberdin askotara aurkitu dugu, euskal **gurutze**-ren isla garbia den **guruche**-tik (**Guruche guivela**, 1717)<sup>4840</sup> erdarazko **cruz**-eraino (**Cruz guibel**, 1716)<sup>4841</sup>, **guruze** (**Gurutzeguibela**, 1736)<sup>4842</sup>, **gruze** (**Gruzeguibela**, 1717)<sup>4843</sup>, **gruzi** (**Gruziguibela**)<sup>4844</sup> eta **cruze**-n (**Cruze guibela**, 1742) barrena<sup>4845</sup> igarotzen.

Dermio honetan barna zihoan oraindik ere ezaguna den gurutzearen gibeletako aldeko **Atajo para San Martín**:

“(las piezas) sitas en el termino de Cruze guibela que afrontan...con senda que llaman el atajo para San Martin” (1742)

1757an<sup>4846</sup> “aborral”-tzat jotzen da (ikus **Mesta** sarrera).

**Gurutzezabala:**

**Gurutze** izena eta **zabala** izenondoa ditugu hemen. **Camino de (la Fuente de) Aitzandieta** eta **Camino del Puente de la Sierra** bereizten ziren gunea adierazten zuen:

“una pieza...sitta en la Aldabea y Paraje de Gurutzezabala entre los caminos de la sierra y Anzandieta que afronta a ambos caminos” (1753)<sup>4847</sup>

**Tejería de abajo**-ra zihoan bide-zigorrarekin ere mugatzen zuen gaineko aldetik:

“Mas una pieza...en el termino de aldabea en la endrezero llamada Guruze zabala que afronta...por la parte de arriba con senda que se va a la texeria y camino que se va a la sierra” (1732)<sup>4848</sup>

4840 PRA-San Martin, 31. k.

4841 Id., 30. k.

4842 UEA, 13. kap-lib., 288. or.

4843 PRA-San Martin, 48. k.

4844 Id.

4845 Id., 37. k.

4846 Id., 44. k.

4847 Id., 42. k.

4848 Id., 33. k.

**Herrería, la:****Plaza pequeña-n zegoen**

“una casa con su corral sita en la plaza pequeña q afronta a...la Herreria de esta villa” (1769)<sup>4849</sup>

**Hoya, la:**

Beireko mugan dago zulo moduko hau, **Busa-ren** eta **Otrolos-en** artean, antzinako **Otroperitzu-n** (ikus sarrera hau), antza.

**Idoixiki, balsa de:**

**Idoi** izenaz eta **txiki** izenondoaz osaturik dago. Erdarazko **balsa-k** garbi adierazten du euskarazko **idoi-ren** adiera zein den:

“ytem que en tiempos de lluvias y humedad pueda salir dicho ganado de la carniceria de la ierva al vedado pero no pueda pasar del paso de Aliaga abajo y de ali en derecha a la Balsa de la balsa de Ydoychiqui y de alli por el otro lado a la viña grande que tiene Simon Nicolay...” (1796)<sup>4850</sup>

Testuingurua ikusita oraingo eta lehengo **Balsa de Muelas-ekin** identifika liteke, baina hau balizkako kontu hursa da.

**Igaziroa:**

Ez dugu sekulan dokumentazioan ediren, eta egun ezezaguna da. Halaz ere, **Zaldunaga-n** zegoela badakigu, orain Manuel Sola Ibañezenak diren lurretan<sup>4851</sup>.

**Iglesia, barrio de la:**

Elizaren ondoko auzoa zen, egungo **Barrio alto** bera:

“una Casa sita en esta villa, en el varrio de la Iglesia” (1829)<sup>4852</sup>

**Iglesia mayor, subida de la:**

Elizara doazen karriketako bat zen (ikus **Gazteluondoa** sarrera).

**Iribarren:**

Izen honen inguruan ikus **Dermio baten zatiketa** atala; kokalekuaz berriz, ikus **Barrio alto** sarrera. Behin bakarrik aurkitu dugu, 1606an:

“un pajar...en la endrecera llamada yribarren que afrena con calles publicas” (1606)<sup>4853</sup>

---

4849 Id., 49. k.

4850 UUA, LA, 1793-1816. Toponimo hau herrikide eta adiskide dugun Mikel Burgiri zor diogu.

4851 Honen berri ere Mikel Burgiren bitartez jakin dugu.

4852 PRA-San Martin, 86. k.

4853 PRA-Oibar, 12. k.

**Iturria:**

Aldi bakar batez ediren dugu, 1605ean, ez oso modu argian, eta errepede baten ondoan zegoela besterik ez dakigu:

“otra pieca en sagun(?) de la yturria...que afrena con Camino Real”<sup>4854</sup>

**Iturrialdea:**

**Iturri-z eta aldea-z osatua dago.** Ez dakigu non zen, baina aurreko bera edo horren inguruko eremua izan zitekeen:

“otra pieza en yturraldea” (1537)<sup>4855</sup>

**Iturriberri:**

**Iturrizar edo Fuente vieja bat baino gehiago zegoela badakigu, eta beraz iturri berri bat izatea ez da arraroa, toponimian “zahar” eta “berri” izenondoak sarri kontrajarrita agertzen direnez gero.** Badakigu **Aldabea** batean zegoela, baina ez zeinetan:

“Dos piezas en la aldabea en yturriberri” (1667)<sup>4856</sup>

Eta iturriaren inguruko lurrei ere **Iturriberri** deitzen zitzaizela:

“ytten mas otra pieça en yturriverri...afrentada con la misma fuente” (1588)

**Aitzandieta-n Fuente vieja (agian Iturrizar ere deitua) genuen Larziaga-n, eta Iturriberri ere agian Aldabea honetan zegoen.**

**Iturrizar:**

**Santa Agueda** igarota zegoen orain ezezaguna den iturri hau, erreka baten ondoan, **Galaputzu**-koan seguruenik, eta badaiteke oraingo **Fuente de las Pilas** bera izatea:

“otra pieça...en yturri car mas alla de Santa agueda...afrenta con camino que ban a bal-grande y barranco” (1603)<sup>4857</sup>

Nolanahi ere, garbi dago **Iturrizar** bat baino gehiago zegoela: **Galaputzu**-koaz gain, oraindik ere bizirik dugun **Basandia**-ko **Iturrizarra** eta **Aitzandieta** aldean (**Buzakao** bera?) behar zuen beste **Iturrizar** bat genituen:

“Mas otra (pieza) en Yturizar, afronta a...caminos de Anzandieta y la sierra” (1806)<sup>4858</sup>

---

4854 Id.

4855 Id., 2. k.

4856 UEA, 13. kap-lib., 161. or.

4857 PRA-Oibar, 11. k.

4858 PRA-San Martin, 73. k. Ikus Adobería sarrera.

Hauetaz gainera **Larziaga-n Fuente vieja** bat azaltzen da, euskaraz dudarik gabe **Iturrizar(ra)** deituko zena.

**Iturrizarra (barranco de), (fuente / fuentes de):**

**Iturri** izena eta **zaharra** izenondoa ditugu hemen. XVIII. mendearen bukaera arte eutsi zion izenak jatorrizko gardentasunari:

“Ms en Basandia siete tablas de piezas...bajando por el Barranco de yturzarra en el Carasol, y afrontan a dho Barranco y yermos” (1782)<sup>4859</sup>

1793an **Iturrizarras** dugu<sup>4860</sup>, 1808an **Yturrizarres**<sup>4861</sup>, eta horrez geroztik ia beti hasierako bokalaren aferesia jasandako aldakia azaltzen da: **Turrizares** (1811)<sup>4862</sup> eta 1826<sup>4863</sup>), **Turrizales** (1813)<sup>4864</sup>, **Turruzales** (1829)<sup>4865</sup>.

Egungo egunean **Fuente de Turruzales** [tũruθáles] esan ohi zaio **Barranco de Sulue-n** bukarzen den **Basandia**-ko erreketako batean (bi dira) dagoen iturri honi. Plural erromantzea oso arrunta da euskara galdu den tokietako euskal toponimoetan.

**Iturrondoa:**

**Iturri-z** eta **ondoa-z** osatua dago. 1534eko Uxueko despoblaturen zerrendan<sup>4866</sup> azaltzen da, eta beraz, herrixka baten izena zela garbi dago. Alabaina, eta despoblaturen izenekin gertatu ohi denaren kontra, ez da toponimo bezala gorde<sup>4867</sup>.

**Itzaga, alto de:**

**Itza** ‘ihitza’, ‘ihi asko dagoen alderdia’ eta **-aga** ditugu hemen<sup>4868</sup>. Behin bakarrik aurkitu dugu, 1800. urtean, eta ez dakigu seguru Uxueko (edo Pitillasko) gain baten izena den, ala Untzitibar, Ibargoiti, Urraulbeiti eta Itzagaondoaren artean dagoen **Itzaga**-ko haitz ezaguna dugun.

Eloko **Iga** Uxuetik garbi asko ikusten da, baina ez Uxue eta Pitillasen arteko mugatik, eta **Iga**-ren aurkezean dagoen Itzagako haitza ez da ezta herritik ere ikusten. Hortaz, badirudi 1800eko agiriko **Alto de Izaga** Uxue edo Pitillasen arteko mugako gain baten izena zela:

4859 Id., 55. k.

4860 Id., 63. k.

4861 Id., 74. k.

4862 Id., 76. k.

4863 Id., 85. k.

4864 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 15. org.

4865 PRA-San Martin, 86. k.

4866 NAO-Comptos, 550. zkia.

4867 Kasu berean daude, gutxienez, **Artazabal**, **Sandimas** eta **Zabartu**. Hiru hauetako lehena, dena dela, 1608an berriz agertzen da, eta beraz, tarte batez dermio-izentzat gorde zela pentsatu beharra dago.

4868 AV, 99. or.



“y de esta (peña viva) à distancia de noventa pasos se señalo con cruz la Muga sesentta y seis (Uxue eta Pitillasen arteko hirurogeitaseigarrena) en Peña viba qe esta Mirando à el Alto llamado yzaga”<sup>4869</sup>

### Jaun Done Martia, barrio de:

Honen lekuko euskaldun bakarra 1774koa da:

“una casa recientemente fabricada de Nueva Plantta, sitta en esta v<sup>a</sup> y Barrio que llaman Juan de Marttia”<sup>4870</sup>

Izen hau 1797ko **Barrio de San Martin**-en baliakidea da, alegia, **Ermita de San Martín** zegoen auzoa adierazten du. Egun ezezaguna da, baina badakigu ermita **Pirolarraña**-n zegoela, eta hortaz, **Barrio de Jaun Done Martia Pirolarraña** bera edo honen zati bat zela pentsatu beharko dugu:

“Primeramente la casa que al presente viven con su corral en el Barrio de Pirolarraña que affrontava al tpo con casa de Bernardino terzero y con Pajar de Simon Jurio y hermita de San Martin” (1732)<sup>4871</sup>

Bukaerako -a horrek, lehen begiratuan pertsona-izenetan behin baino gehiagotan azaltzen zaigun artikulua (cf. Leaxkeko **Done Xurio**, **Sandiandore** edo **Samazio**-ren mugatzailedun aldaerak) ematen du, baina **Martia**-ren jatorria **\*Martina** dela kontuan harturik, -a berezkoa dela ondorioztatu beharko dugu, ezaguna baita latinez -ine(m) edo erromantzez -en, -én, -in bukaera duten izenak euskaraz -ena, -ina (-ea, -i(ñ)a gero) amaitzeko dagoen joera<sup>4872</sup>.

### Juandeigal (fuente de ), (olivar de):

**Juan de Igal XVII.** mendearen hasieran Uxueko apeza izan zenaren izen-deiturak dira. Badakigu 1626rako hila zegoela:

“...por muerte de don Juan de Ygal vaco (“vicario”) que fue en el”<sup>4873</sup>

Jaun honek ondasunak izan zituen **Txorria** eta **Aliaga**-n gutxienez, eta horretan du oinarri gaurko lehen dermioko **Fuente de Juandigar** [xwàndigãr] ezagunak:

“En el terno de Chorria, cerca de la fuente de Juan de Ygal” (1790)<sup>4874</sup>

### Juangarziarana:

Hemen ere izen-deitura batzuk ditugu (**Juan García**), eta lehen begiratuan zalantzazkoa izan daitekeen **arana** (ikus honetaz -ain atzizkiatz mintzatzerakoan esan duguna):

4869 PRA-San Martin, 69. k.

4870 Id., 51. k.

4871 Id., 34. k.

4872 FHV, 146. or.

4873 PRA-Kaparroso, 30.

4874 PRA-San Martin, 60. k.

“Mas en el termino de Juangarziarana una pieza...” (1722)<sup>4875</sup>

“En el Paraje y Sittio llamado de los tres cubiertos de otoollos que esta sitto en el Millar de Garciarena” (1800)<sup>4876</sup>

Ameskoan<sup>4877</sup> **Garziarana** edo **Garziaraina**<sup>4878</sup> azaltzen da; ibar honetako San Martin herrian **Juangarziarosoeta** dokumentatzen da<sup>4879</sup>, eta Ziraukin **Garzeabi-dea**<sup>4880</sup>. **-Garziarana** > **-garziarena** pausoa disimilazioari zor zaioke, edo erdararen eraginari<sup>4881</sup>.

Pitillasko dokumentazioan haranaren ondoko buru edo gainen bat izendatzen bide duen **Cabezo de Juangarzia** edireten dugu 1633an<sup>4882</sup>. Edozein moduz, garbi dago oinarri bera (hots, **Juan García** izen-deiturak) dutela bi toponimook.

Kokalekuaz eta bestez ikus **Cinco millares** sarrera.

### Juego de Pelota, el:

1803ko lekukoaren arabera, gaurko **Plaza mayor**-en zegoen pilota-jokua, ez orain dagoen tokian (ikus **Patio** eta **Patio del Juego de Pelota** sarrerak):

“una casa que confina con la Principal en que vive, y tiene en la Plaza maior del Juego de Pelota”<sup>4883</sup>

**Juego de Pelota** edo **rebote** erabili izan da frontoia izendatzeko, gazteen artean egun aski ezezaguna bada ere.

### Jupitari (alto de), (rincón de):

**Jupitari** [xùpitáři] izena ez dugu sekulan dokumentazioan aurkitu, eta itxuraz behintzat, alderdi honetako gainaren eta zokoaren artean dagoen “Corraletto de Jupitari”-ri zor zaio. Hortaz, goitizen batetik ateratako toponimo berri baten aurrean gaudeke oraingoan ere.

4875 Id., 31. k.

4876 Id., 69. k.

4877 Luciano Lapuente, TAM. Toponimo hau Zudairin 1830ean aurkitu dugun **Graciana** bera da (Allin eta Ameskoetako hipotekak, 1. lib., 4. org.): “una pieza...en (el) parage llamado Graciana tenente a piezas de D. Martin Garcia de Baquedano”.

4878 Cf. Lacarrak (VM, 50. or.) aipatzen duen **Garziarain** (oraingo **Garzirain**).

4879 PRA-Artabia, 3. k., 1686.

4880 Lacarra, “Documento de Irache...”, 174. or.: “En Garçeauidea una pieça que se atiene con la pieça de Garcia Muturro et con la pieça de Semeno Verria. Otra pieça que se atiene con la pieça de Domingo Arlaussa et con la carrera de conceio”. Toponimian pertsona-izena + izena elkartuek duten presentziaz ikus Mitxelenaen “Notas sobre los nombres de persona en la Navarra oriental”, PT, 127. or.

4881 “El bilingüismo va creando en el vocabulario toponomástico distintas situaciones que van desde la caída de letras, *Elordi* / *Lordi*, o el simple cambio de una vocal por otra *Aguarana* / *Aguarena* (letrakera etzana gurea da), hasta el resultado castellanizado sin más relación con la forma original, que la sugerencia caprichosa de una falsa etimología popular: *Dos pelos*” (J. M. Satrústegui, “Planteamiento general..”, 55. or.).

4882 PRA-Kaparroso, 35. k.

4883 PRA-San Martin, 71. k.

Alto de Jupitari Aristuziaga-ko “Carraña”-ren gortetik Galipentzura doan mendia da, eta Rincón de Jupitari alderdiko zokoa.

#### Kaltxista (portillo de):

Ez dakigu zein den toponimo honen etimologia:

“Ms una viña en el termino de Calchista...qe afronta con Villar (viña?) de Juan franco Phelipe...” (1769)<sup>4884</sup>

Gaur galdua da, baina badakigu Akirazabal aldean zegoela, Otrollos eta Erriberriko bideen inguruan:

“yten un corral...en el termino de Calchista que afronta con...Camino que se va a Otrollos” (1715)<sup>4885</sup>

Portilua ere bazen bertan, Erriberriko bidean, antza:

“una pieza...con su corral...sitto en el Portillo de Calchistta, q afrona á el camino q se ba á Olitte” (1782)<sup>4886</sup>

#### Kastillu (caracierzo de), (fuente de):

Izen hau castillo erdaldunaren euskalduntzearen ondorioa da. Hau hein batez harrigarri gerta daiteke Uxuen bertan Gaztelu eta Gazteluondoa ditugulako, baina erdaratikako izen euskaldunak Uxueko toponimian bat baino gehiago dira, Boxagarea eta Eskobarea, adibidez. Zenbaitetan, bokalismo erromanizatzailez -o-z bukatua edireten dugu, Txutxu > Txutxo edo Laku > Lako-n bezala. Aztergai dugun toponimoaren kasuan, gainera, erdal castillo euskal izenetik hurbil zegoen:

“una pieza...en el terno de Castillo donde dicen Lacu, afrontada por la parte de S.Nicolas...” (1782)<sup>4887</sup>

Baina:

“quatro rovasdas...en...San Nicolas que afrontan...con senda que seva de dicho San Nicolas a Castillo” (1712)<sup>4888</sup>

1534ko zerrendan<sup>4889</sup> Castillo Uxueko despoblatuetako bat zela ikusten dugu. Gaurko Castillo [kaštíʎo] muino batean dago, eta gaztelu arrastorik opatu ez dugun arren, lehengo eraikuntzen zaharrikak (“corraletto”-ak) oraindik ere ikusgai daude “Corral de Sanz” eta “Corral de los de la Tuerta” izeneko gorteen alboan.

Kastillu-k Zapaiz, Sulue, Laku eta Lakumulatu ditu mugakide. 1712an azaltzen den Senda de San Nicolás a Castillo delakoa Santa María la Blanca-tik (eta

4884 Id., 49. k.

4885 Id., 30. k.

4886 Id., 55. k.

4887 Id., 55. k.

4888 Id., 30. k.

4889 NAO-Comptos, 550. zkia.

lehenago Pitillastik) datorren bidearen zati da. Hemendik San Nicolás, Lakumulatu, Laku, Kastillu, Zapaiz, Erlosiana eta Portillo de Chinchón-en zehar Galipentzuko Aurino-ra zihoan, eta hemendik Aragoaren ertzean Uxuek zeukan errotara. 1608ko Fuente de Castillu<sup>4890</sup> zein den ez dakigu; hurbileneko iturria Laku-ko Fuente de Maulón da (ikus Fuente de Maulón eta Laku sarrerak); Caracierzo de Kastillu (1778)<sup>4891</sup> alderdiko oihezkoa zen.

### Korbarana:

Hirutan ediren dugu, hiru modu ezberdinetara. Honek toponimoaren etimologiaren azterketa zailtzen du, eta bukaerako **-oran** edo **-arana** **harana** 'ibarra' dela irudi badu ere, zalantza horiek direla medio ezin seguru egon gaitzke. Hasierako belareta ere dudazkoa da: 1634ean (**Corboran**)<sup>4892</sup> eta 1768an (**Corbarana**)<sup>4893</sup> c- azaltzen da ([k] itxuren arabera), baina 1685ean g-z idatzia edireten dugu (**Gorgoran**)<sup>4894</sup>. Bestalde, hitz barruan **b / g** txandaketa gertatzen da, bai eta **o / a** zalantza<sup>4895</sup>.

### Korralandia, pieza de:

**Korral(e)** 'gortea'<sup>4896</sup> izenaz eta **handia** izenondoaz osatua dago. Behin bakarrik agertzen da dokumentazioan, eta ez dakigu non zegoen:

"yten...se le hace cargo aver cobrado de Joseph de Salaverri por la arrendacion dela pieza de corralandia" (1727)<sup>4897</sup>

### Kotxusko gurutzea:

Aurrekoa bezala aldi bakar batez aurkitu dugu, eta ez modu zeharo garbi batean. Izan ere, hasierako **q** hori dudazkoa da, gainerakoa grafiaren aldetik behintzat argi baino garbiago dagoen arren.

Lehen osagaiaren amaierako **-co-k** leku-genitiboaren hondarkia dirudi; bigarren osagaia **gurutzea** da:

"unas piezas...sitas en el termino que llaman qochusco Guruzea" (1744)<sup>4898</sup>

4890 PRA-Oibar, 13. k.

4891 PRA-San Martin, 53. k.

4892 IEA, 345. kart., 13. zkia.

4893 PRA-San Martin, 48. k.

4894 Id., 5. k.

4895 Borboran antroponimoa izan da Nafarroan: cf. **Borboran de Erbiti** (1587, Jauntsarats, PRA-Ihaben, 5. k.), **Borboran de Ozcoz** (1606, Oskotz, id., 1.k.), **Borboranena** Etxalekuko etxea (1601, id.).

4896 **Korral** ere proposa liteke, baina **korralea** [koñálea]bizirik dugu oraindik Beuntzan. Mezkiritzen Corralea azaltzen da 1850ean (Orreaga Ibarra, MT, 322. or.) eta Olloibarko Beasoainen aurreko \***Korraleberri**-tik atera den **Kolarrebérris** dugu orain (NTEM-XI, 64). Gure alderdian **korrale** dugu Eslabako **Kalboren korralesarralde**-n.

4897 PRA-San Martin, 32. k.

4898 Id., 38. k.

**Kurzegi:**

Behin bakarrik ediren dugu, 1593an. Osagaiak gurutze eta **-egi** 'tokia'<sup>4899</sup> izan litezke, baina lekuko bakarra izateak hau garbi ikustea eragozten digu. **Zurzegi** ere izan genezake grafia horren azpian:

"ytten tres pedaços en curçegui"<sup>4900</sup>

**Laku (fuente de), (prado de):**

1534ko Uxueko despoblatuen zerrendan<sup>4901</sup> **Laco** agertzen da. Leku-izen hau latineko *lacu* 'urmaela', 'laku', 'idoia', 'likido-biltegia'<sup>4902</sup>-ren eratorria da, eta jatorriari ohore eginez, 'toki urtsua', 'ura darion lurra', 'lintzura' balioa du<sup>4903</sup> Uxuen eta inguruko herrietan:

"...pieza en el termino de lacu...que afronta con S Nicolas" (1688)<sup>4904</sup>

Uxuen **Laku**, **Lakubeli**, **Lakumulatu** ditugu, Agezan<sup>4905</sup> **Lakuaga**, **Lakuagabarrena**, **Lakuagagoiena**, Galipentzun **Lakuarana** edo **Lakuko harana**, Irunberri<sup>4906</sup> **Lakua**, Tafallan<sup>4907</sup> **El Laco**, Urzainkin<sup>4908</sup> **Lakuaga**... Iruñerrian ere agertzen da, itxuraz Uxue aldean duen balio berarekin: **Lacoa** edo **Laqua** dugu Beriainen, **Lacoa**, **Lacoa guibela**, **Lacondoa**, **Lacopea**, **Lacu aldea Getzen**<sup>4909</sup>, eta **Laco uncea** Zizur Nagusian<sup>4910</sup>, besteak beste.

Oso alderdi urtsua denez gero ez da harritzeko bertan **Prado de Laku** aurkitzea, larre eta euntzeak, esan bezala, toki uretan aberatsak izaten baitira gure eskualdean:

4899 **Hegia** 'mendi-mazela', 'gailur luzea' ez dugu Uxuen sekulan ere aurkitu. Nafarroako beste eskualde batzuetan ordea arrunta da: cf., adibidez, **Berokiko hegia** Zudairin 1665ean (PRA-Artabia, 2. k.), **Elo-rrietako hegia** 1668an San Martinen (id.), **Ardantzako hegia** 1686an herri berean (id., 3. k.)

4900 PRA-Oibar, 7. k.

4901 NAO-Comptos, 550. zkia.

4902 Corominas, DCELC.

4903 Ikus IGI-en dioguna.

4904 UEA, 13. kap-lib., 39. or.

4905 Hau oso toki urtsua da, Uxueko **Laku** bezala. Ikus Agezako **Lakuaga** sarreran dioguna.

4906 "otra viña en el tero de Lardin y paraje llamado laqua...que afronta a senda que pasa a Refuentes...." (PRA-Kaseda, 27. k., 1775).

4907 «Viña en la parte llamada *el Laco*, afrontada con la cequia que ba junto al sendero del laco». J. Jurío, THET, 123. or. Honela mintzo da ikerlari hau toponimo honen jatorriaz:

"Del lat. *lacus*, -us 'balsa', depósito de líquidos', 'estanque', 'lago' (DCECH). También con el significado de *lako*, 'lagar para pisar uva', conservado en Lapurdi, Baja Navarra y Sule (DCECH), en nuestra comarca hasta tiempos recientes. En Tafalla fue un hidrónimo".

4908 Tomás Urzainqui Mina, "Aplicación de la encuesta etnológica...", 59. or.

4909 J. Jurío, TCPCG, 350. or. Honela mintzo da autorea **Lacoa**-z:

"Pieza en **Lacoa** afrontada «con los caminos que ban a Subiça y al de Beriayn» (1608). Falda de un altozano (483 ms.) que domina el camino de Beriáin, la laguna de Morea (Salinas) y «Morea luzea» (Beriain)". **Lacopea** bere aldetik, auzolarre baten ondoan zegoen, **Andre buzua**-ren parean, **La Laguna** edo **Morea**-ren ondoan. Hortaz, **Laco** edo **Lacu** hau toki urtsua dela ezin daiteke uka.

4910 J. Jurío, TCPCC, 198. or. Honela mintzo zaigu autorea dermio honetaz: "Al SO. del término, junto a la regata de Arloy. En una finca fue descubierto hace años un pozo o balsa circular, relleno de tierra con restos de animales".

“Mas otra pieza...en el prado de lacu, que afronta...por avajo a...(la) fuernte del terno” (1778)<sup>4911</sup>

Hemen aipatzen den iturria oraingo **Fuente de Maulón** izan daiteke (ikus sarrera hau), bai eta dokumentazioko **Fuente de Kastillu** ere.

**Laku-k** [láku] **lakumulatu**, **Kastillu** eta **Sulue**-rekin mugatzen du.

**Lakubeli** (aldabea de), (aldazkia de), (barranco de), (caracierzo de), (paso de), (rincón de):

**Lakubeli**-ren lehen osagaiak **Laku** eta **Lakumulatu**-rekin zerikusia duela irudi du; bigarrena A. Irigoyenek aipatzen duen<sup>4912</sup> -**beli** antroponimoa izan liteke:

“ansi bien dejo dos piezas en Lacubeli y que me perdone de lo poco” (1598)<sup>4913</sup>

Euskaltzain bizkaitarrak, **Axular** euskal idazle famatuaren goitizena aztertzen ari delarik, honela dio:

“El nombre del famoso escritor vasco **Axular**, que corresponde al de su casa natural de Urdax, portaría el nombre de persona **Axu-** que como **Atxu-**, cfr. el apellido **Achútegi**, era variante expresiva de \***Atzu**, escrito en documentación antigua como **Açu-**, o **Azu-** y procedente de **Attius**, doblete latino de **Attus**, cfr. **dompno Azubeli** (1046, Leire, f.190), **domno Axubele** (1068, Leire, f.193), campuesto de dos nombres...”

Guztiarekin ere, ezin ahantz dezakegu **Laku** eta **Lakumulatu** ondoan dagoen **Santa María la Blanca** ermita eta despoblatuan **Lacubegi** jainko-zezen izena azaltzen dela “ara” erromatar batean:

Coelii Te / sphoros / et Festa / et Telesi / nus, Lacu / begi, Ex voto<sup>4914</sup>

Honekin batera, toki berean, Jupiterri eskainitako beste “ara” bat agertu zen, bigarren honen eskaintzaileak lehen horretan agertzen diren berak direlarik:

Coelii / Tespho / ros et / Festa / et Tele / sinus, Io / vi sacrum<sup>4915</sup>

Erabilitako kaligrafia ere bera omen da bietan, eta honek **Lacubegi** eta **Iovi**-ren artean zerikusi zuzena izan daitekeela idarokitzen du.

Urangak UM-en<sup>4916</sup> Elorzak, J. M<sup>a</sup>. Iraburuk eta Caro Barojak jainko-izen honen jatorriaz esan dituztenak laburbiltzen ditu:

4911 PRA-San Martin, 53. k.

4912 STPVN, 48. or.

4913 IEA, 221. kart., 5. zkia.

4914 Carmen Castillo, Joaquín Gomez-Pantoja, María Dolores Mauleón, *Inscripciones romanas del Museo de Navarra*, PV, Iruñea, 1981, 59-60. orr.

4915 Id.

4916 39-42. orr.

Elorzaren arabera **Lacubegi lacu** hidronimoaz eta **behg** 'olatua', 'zaparrada' elementuez osaturikako datibo zeltiar bat izan daiteke, eta iturri-jainkoren bat izenda dezake.

J. María Irabururen ustez hasierako **Laku** hori **Lakumulatu**-ren barrukotzat jotzen den **Laku** toponimo bera izango da, eta **-begi** 'behi' izan liteke, harrian zezenburu bat azaltzen denez gero, edo 'begi', bigarren kasu honetan jainko-izenaren esanahia '**Laku** dermioaren zaintzailea' litzatekeelarik. Autore honek gogorarazten duenez, **Laco** (berak **Luco** dio, oker, dudarik gabe) 1534ko despoblaturerendandaz azaltzen da, baina garbi dago, berak dioenaren aurka, ezin dela **Santa María la Blanca** despoblatuarekin identifikatu, 1534ko zerrenda horretan biak azaltzen direlako. Gainera, **Laku**-ren geldikinak gaurko **Laku** dermioan daude, alderdiko iturriaren ondoan, Tomás Lezaren gortearen aldamenean, zuhaitzez estalitako muino batean, eta **Santa María la Blanca**-renak, aldiz, **Carretera del Río**-ren bazterrean, ermitatik oso hurbil.

Caro Barojarentzat hasierako **Lacu**- hori euskal elkartu askotan azaltzen den eta latineko **lacus**, Nafarroako **laco** eta gaztelaniako **lagar**-ekin identifikatzen den **laco** bera da.

Urangarentzat berarentzat, azkenez, izen hau ezin da, Elorzak dioenaren kontra, inongo ur edo iturri jainkorekin lotu, honek aipatzen dituen Aragoa ugaldea eta **Lezkairu**-ko erreka **Laku**-tik oso urrun daudelako. Honela dio hitzez-hitz:

"Frente a las tesis de Elorza hay que señalar que el río Aragón pasa a 6 km. del lugar en que se encontraron las aras y el torrente Ezcairu es un riachuelo muchas veces seco. Mal clima para divinidades acuáticas..."

Ikusten denez, Urangak ez daki, nonbait, **Laku** oso toki urtsua izan dela eta dela, eta "puntido"-ak egin behar izan direla lurrok landu ahal izateko.

Nolanahi ere, nabarmendu nahi genuke **Laku** alderdia oso poblatua egon zela behiala, oso eremu txikian gutienez despoblaturak hauek biltzen baitziren: **Laku**, **Santa María la Blanca**, **Munos**, **San Nicolás** (ikus sarrera hau), **Kastillu**, **Urteaga** (la alta), eta pixka bat Uxue alderago **Basandia** (ikus sarrera hau). Hau ez da miresteko, lurren lautasuna, ontasuna eta ur-ugaritasuna aintzat hartzen baditugu.

Guztiarekin ere, **Santa María la Blanca** (inskripzioa ediren zen dermioa) eta **Laku Lakubeli**-tik urrunxko daude (bost kilometro?), eta ez dugu uste, eiteak eite, zeri-kusi zuzenik dutenik, biek **Laku** amankomuneko elementua izanagatik.

**Lakubeli** [làkuβéli] **Aldabea de Aitzandietra**-ko eguteran dago, **Rincón de Muelas**-en eta orain ezezagunak diren **Erripazarreta** eta **Arbolaga**-ren artean, **El Vedo**-ren hastearen azpiko aldean. Toki aldapsua da (Uxueko dermio gehienak bezalaxe) eta hortik 1791ko **Yldarquía** (hots, **Aldazkia**<sup>4917</sup> edo **Aldaizkia**) de **Lacubeli**:

"Ytem en la Yldarquía de Lacubeli una pieza..." (1791)<sup>4918</sup>

4917 Ikus honen inguruan **Aldazkia de Txorria**-z dioguna, **Txorria** sarreran.

4918 PRA-San Martin, 61. k.

**Barranco de Lakubeli Aitzandieta**-ko errekaen jarraipena da; 1768ko **Caracierzo de Lacubeli**<sup>4919</sup> egun ez da ibiltzen, esan bezala, **Lakubeli** bakarrik eguterari esaten baitzaio, eta gaurko **Caracierzo de Basandia**-rekin identifika daitekeela uste dugu. **Paso de Lakubeli** (1791)<sup>4920</sup> **Basandia**-ra doan **Camino de San Jerónimo**-k (antzinako **Camino de Arbolaga**-k) eta **Barranco de Lakubeli**-k elkar gurutzatzen duten guneko pausua da, eta **Rincón de Lakubeli** (1772)<sup>4921</sup>, azkenik, alderdiko zokoa, eskuarki **Rincón de Muelas** deitu ohi dena.

**Lakumulatu** (barranco de), (caracierzo de), (carasol de), (entrada del monte de), (monte de), (paso de) (portillo de):

Egungo **Lakumulatu** [lækumulátu] bere hola aurkitu dugu 1594koa den aurreneko lekukotasunean:

“y mas otra piª en lacumulatu...que affrenta al barranco de la peña grande”<sup>4922</sup>

Hala ere, etimologia argitzeko derrigorrezkoa dugu sarritan azaltzen den (1688an, adibidez)<sup>4923</sup> **Lacunbalatu** aldaerara jotzea, honek, itxuraz bederen, toki-izenaren jatorria garbiago islatzen duelako: kontuan eduki behar da **Lakumulatu Laku**-ren ondoan dagoela (egun, esan bezala, **Laku Lakumulatu**-ren barrukotzat jo ohi da), eta **-balatu** Leatxeko **Balatu**-k duen etorki bera izan dezakeela, hau da, latineko **vallare** ‘egurrezko murrux itxi’<sup>4924</sup>-ren partizipioa den **vallatu**-tik atera ahal izan dela.

**Lacumbalatu**-tik disimilazioz 1725eko **Lacumbelatu**<sup>4925</sup> atera zatekeen, eta **mb** > **m** laburketa ezagunaren bitartez, 1603<sup>4926</sup> eta 1605eko<sup>4927</sup> **Lacumalatu** (cf. Akitaniako inskripzioetako **sembe**- gaur **seme**, edo **ombe**- gaur **ume**, itxuraz<sup>4928</sup>. Cf., halaber, Uxueko bereko **Santa caranburu** 1534, 1602 eta 1608an, **Santacaraburu** 1588an, **Santacara buro** 1628an, **Santacaramuru** 1622an eta honez geroko lekuko gehiengotan<sup>4929</sup>). 1729ko **Lacumelatu**<sup>4930</sup> **Lacumalatu**-tik aterako zen, disimilazioz, edo aipatu 1725eko **Lacumbelatu**-tik **mb** > **m** laburketaz (gure eskualdean ez zegoen bokal armoniarik), eta 1608ko **Lacubalatu**-n<sup>4931</sup> aipatu **Santacaranburu** > **Santacaraburu**

4919 Id., 48. k.

4920 Id., 61. k.

4921 Id., 50. k.

4922 PRA-Oibar, 8. k.

4923 IEA, 956. kart., 6. zkia.

4924 Corominas, DCELC.

4925 UEA, 14. kap-lib., 346. or

4926 PRA-Oibar, 11. k.

4927 Id., 12. k.

4928 Hala ere, Lergan **ombe**-ren eratorria den **\*umbe**-ren (cf. **on** > **un**) eta oraingo **ume**-ren artekoa izan daitekeen **vm.me** azaltzen da. Ikus Mitxelenaen “Los nombres indígenas de la inscripción hispano-romana de Lerga (Navarra)”, PV, 82-83, Iruñea, 1958, 65-74. orr., berriz *Lengua e historia* (Paraninfo, Madril, 1985, 446-457. orr.) liburuan argitaratua. Honetan, era berean, “De onomástica aquitana” (409-445. orr.) izeneko artikulua ikus daiteke, akitanierazko **sembe**-, **ombe**- eta bestez.

4929 Itza zendeako Atondon **Anbilleta** dugu 1568an eta orain, eta **Amilleta** XVIII, XIX eta XX. mendeetan (J. M. Jimeno Jurfo, TCPCI, 115. or.). Hizkera arruntean **mb** > **m** pausua arrunt samarra da; Zaraitzuko euskaraz, kasu, lemeziko, zomat eta zomait ditugu (K. Mitxelena, “Notas fonológicas sobre el salacenco”, PT, 221-233. orr.), eta Nafarroako toponimia erromantzean ere sarri azaltzen da **mb** / **m** aldizkatzea.

4930 PRA-San Martin, 33. k.

4931 PRA-Oibar, 13. k.



(edo **Santacaramuru**)-n dugun emaitza bera genuke. Guztiarekin ere, **Lacubalatu** oso goiz azaltzen da (1608rako, esan moduan), eta jatorrizko formatzat ere onar liteke.

Beste aldetik, **lakumulatu** bezalako forma batetik **Lakunbalatu** ere atera zitekeen, **m** > **mb** pausoa ezaguna baita (cf. Arbizuko **Utzuarcanbiyua** < **Utzuarcamioa**, edo **ganbara** < **camara**, **ganbelu** < **camellu**). Honela balitz, ordea, **-mulatu** hori zer den ez genekike.

Zernahi gisaz, **Lakunbalatu** ere ez da arazorik gabea, zeren **Laku** dermioko balatua bazen **\*Lakuko balatu** espero baikenuke, dokumentatzen den **Lakubalatu**-rekin batera (cf. Galipentzuko **Lakuarana** eta **Lakuko harana**). Honela bada, **Lakunbalatu** 'Lakuren balatu' edo litzateke (cf. **Petringesala**), agian **Laku** izena zuen norbaiten (cf. **Lacubegi** jainko-izena) balatua.

Hasierako **la-** artikulu erromantzetzat hartu izan da, eta honen ondorio dira 1688ko **La Cunbalatu** (idazteko modua bederen), 1748ko **El Acomulato**<sup>4932</sup>, 1806ko **La Conbelatu**<sup>4933</sup>, eta 1808ko **Acumulato**<sup>4934</sup>.

**Barranco de Lakumulatu** alderdi honetan sortzen da, eta **Erlosiana**-n **Apeztegi**alorra-tik jaisten den **Barranco de Erlosiana** edo **Barranco de Lezkairu**-rekin elkartzen. 1594an erreka honi **Barranco de la Peña grande** deitzen zaio:

"y mas otra pi" en lacumulatu que affrenta al barranco de la peña grande"<sup>4935</sup>

Egun, esan bezala, **Barranco de Lakumulatu** deituagatik bertan 1605erako azaltzen den **Fuente de la Peña** dugu, aspaldiko izenaren oroigarri<sup>4936</sup> (alderdi honi euskaraz **Aizketa** deitzen zitzaion antzina). **Caracierzo de Lakumulatu** alderdiko oihezkiari esaten zaio, eta **Carasol de Lakumulatu** errekez beste aldeko eguzpegiari.

**Monte de Lakumulatu** (1603)<sup>4937</sup> **Caracierzo de Lakumulatu** izan zitekeen, alderdiko oihana, eta **Entrada del Monte de Lakumulatu** (1605)<sup>4938</sup> oihansartzea (**entrada**-ren euskal ordainez ikus **Eslabako Kalboren korralesarraldea**-n dioguna). **Portillo de Lakumulatu** "Corral de Florencio"-tik gertu dagoen bideko ataka izan zitekeen, baina hau **Laku**-n dago, ez **Lakumulatu**-n:

"Mas dos corrales Juntos en el portillo de Lacumulatu con su cavaña y hera" (1729)<sup>4939</sup>

**Paso de Lakumulatu** **Lerbeltz**-ko **Alto del Pulpito**-ren parean dago, **Camino de Murillo** edo **Camino de Aldamara** eta alderdiko errekaen arteko gurutzaguan.

4932 PRA-San Martin, 40. k.

4933 Id., 73. k.

4934 Id., 74. k.

4935 PRA-Oibar, 8. k.

4936 Dena dela, **Barranco de Lakumulatu** deizioa ere zaharra dela ezin daiteke uka. Guk, 1621ean bildu dugu aurreneko aldiz.

4937 PRA-Oibar, 11. k.

4938 Id., 12. k.

4939 PRA-San Martin, 33. k.

Lakumulatu-k Zapaiz, Lerbeltz, Sulue, Medios, Laku, San Nicolás eta Los Berros (behalako Berage)-ekin mugatzen du<sup>4940</sup>.

Larrage, podio de:

Behin bakarrik aurkitu dugu, 1299an, baina segurua da geroagoko Alto de Larrageta eta egungo Alto de Abaurre bera dela:

“...herbagia seu pastulagia que habimus /.../ contiguo termino Ville de Santacara, et a dicto podio /.../ dicti de Larague...”<sup>4941</sup>

Ikusten denez, testua latinez dago, eta hau izan daiteke toponimo honen bukaerako -e horren arrazoa. -Aga > -age aldaketaz ere pentsa liteke, baina hau zeharo gauza arraroa litzateke. Ø / -eta txandakatzea arrunt samarra da (cf. Uxueko bereko Mantxiriturria / Mantxiriturrieta), eta Murillo herrian gaurregun oraindik ere bizirik dagoela esan daiteke. Hemen, dugun informazioaren arabera, Larregeta [lãregéta] (< Larrageta) deitzen diote Uxueko Larrageta-ren ondoko eremuari, eta Larrega [lãrega] edo [lãréga]<sup>4942</sup> beheitxegokoari. Santakaran berriz, Larrageta esaten omen diote.

Murilloko -eta-rik gabeko forma hori zaharra da:

“...en el termino que llaman los de Uxue Larragueta y los de Murillo la Arrega” (1683)<sup>4943</sup>

Larrageta Larraga dermio-izenaz eta -eta atzizkiak egon daiteke osaturik, baina ezaguna denez, -aga eta -eta banaketa osagarrian egoten dira, eta ez dira elkarrekin agertzen. Hortaz, Larrageta-n Larraga toponimoa eta erromantzezko -eta atzizki txikigarria dituzkegu, Ricardo Ciérbidek<sup>4944</sup> dioen gisan.

Antzeko kasu bat Antsoain zendeako Larrageta herri-izena dugu. Hau -eta-rik gabe azaltzen zaigu XVI. mende arte<sup>4945</sup>, eta atzizki txikigarri erromantzea bide denaren eransketak Tafalla ondoko Larraga handiagotik bereiztea izan zezakeen xede. Aldae-

4940 Berageondoa-rekin ere mugatzen zuela uste dugu.

4941 UM, 258. or.

4942 Bigarren ebakera hau aurreneko horretatik atera dateke, ezaguna baita eskualde honetan proparoxitonoak paroxitono egiteko dagoen joera. Alabaina, eta ultrazuzenketaz, paroxitonoak proparoxitono bilaka ere daitezke (cf. pántano).

4943 PRA-San Martin, 4. k.

4944 TCO-II, 104. or. Autore honen arabera Murilloko Lárrega (ez du Lárrega biltzen) Larre-ren eratorria datekeen \*Larraga-tik atera da, disimilazioz, azentu proparoxitonoari azalgaitza baderitza ere:

“Más difícil de explicar me parece el traslado de acento (\*Larrága > Lárrega alegia), pues ni en el euske-  
ra, ni en el navarro-aragonés, ni en el castellano, encontramos razones fonéticas que pudiesen haber inducido al cambio acentual, máxime teniendo en cuenta que el navarro-aragonés -a cuyo ámbito lingüístico pertenece esta comarca- tiene precisamente a lo contrario, es decir, a convertir los proparoxítonos en paroxítonos”.

Murilloko Larregueta Lárrega-z eta -eta-z osaturik dagoela uste du irakasle tafallarrak, eta Santakarako Larragueta berriz, \*Larraga-z eta -eta-z. Santakarako toponimo honek Murilloko Lárrega-n \*Larraga dugula baieztatzen du, Ricardo Ciérbideren iritziz.

4945 NHI, 148. or.

ra disimilatuak ere azaltzen dira: **Lerraga** 1268, 1350 eta 1366an, eta **Lerrageta** 1592 eta 1606an, gutieneko kontuan.

**Larraga**-ri dagokionez, ez dugu uste, Mitxelena dioenaren aurka<sup>4946</sup>, **larre** 'euntze' eta **-aga**-z osaturik dagoenik, hemendik, eskuarki bederen, **Larreaga** baikenuke, eta egokiago iruditzen zaigu elementu osagarritzat **lahar** landare-izena eta **-aga** proposatzea (cf. **Larziaga Aitzandietako Aldabea**-n, **Larduia Eslaban**).

**Larrageta (alto de), (monte de), (portillo de), (sarría de):**

Izen honen etimologiaz ikus aurreko sarrera eta **-aga** atzizkiari eskainitako atala.

1768<sup>4947</sup> eta 1788ko<sup>4948</sup> **Alto de Larrageta** oraingo **Alto de Abaurre** zatekeen (ikus sarrera hau eta **Alto Redondo** toponimoa); **Monte de Larrageta** (1788)<sup>4949</sup> aurrekoaren ondoko mendia zen, orain **Mostrakas**-tzat hartzen dena. **Portillo de Larrageta**, **La Sierra**-tik heldu den bidekoa dateke, alegia, bi herrion arteko mugan dagoena:

"Ms seis Rovas...en dho terno (Murilloko mugan) q afronttan con piezas de franco oger y Portillo de Larragueta" (1772)<sup>4950</sup>

**Sarría de Larrageta** (1594)<sup>4951</sup> **Monte de Larrageta**-rekin identifikatu behar dela dirudi. **Sarría sartu** aditzaren lehengo partizipioa bide da (cf. **bidali / bidaldu, estali / estaldu...**) eta 'espesura', 'zona de arbolado espeso' adiera du, seguru asko \*oihan **sarri** edo **baso sarri** sintagmako lehen osagaiaren ezabaketaz<sup>4952</sup>. Uxuen egun **La Sarría** [lašárja] bakarrik **Sarría de Zaldunaga**-ri esaten bazaio ere, dokumentazioan **sarría** mordoxka opatzen dugu, beti izen arrunt moduan: **Sarría de Aldamara**, **Sarría de Artabakoitz**, **Sarría de Berage**, **Sarría de Dorrondiaga**, **Sarría de Larrageta**, **Sarría de Pipiratu**, **Sarría de San Nicolás**, **Sarría de Sulue**, **Sarría de Villantigua**, eta **Sarría de Zaldunaga**.

**Larrageta** [lãragéta], esan gisan, **Murillo** eta **Santakarako** mugan dago. Izen hau galbidean dago Uxuen, eta honen orde **Mostrakas** erabiltzen da gero eta gehiago. Adineko nekazari batzuek izena aditu badute ere, ezaguna egiten bazaie ere, ez dute zehazki kokatzen jakiten, eta hau galtzen ari delako seinale tako hartu behar da. **Rageta** [ragéta] ere aditu dugu, hasierako **la-** gaztelaniazko artikulutzat jotzearen ondorioz.

Bukatzeko diogun hau izan daitekeela Uxue, **Murillo** eta **Santakararen** artean zegoen **Valdecontienda** izeneko faseria.

4946 AV, 120. or.

4947 PRA-San Martin, 48. k.

4948 Id., 58. k.

4949 Id.

4950 Id., 50. k.

4951 PRA-Oibar, 8. k.

4952 AV, 149. or. Oibarko (La) **Valespesa Sarría** hauen adierakidea izan daiteke, gaurregun bertan zuhaitzirik ez egonagatik.

**Larratzandia:**

**Larratz** 'belarrez estalitako eremu landugabea'<sup>4953</sup> izenaz eta **handia** izenondoaz osaturik dago. Mitxelenak Iratxeko 1397ko **Larrace Andia** aipatzen du<sup>4954</sup> eta J. Jurfok Iruñerrian ere jaso du. Azken autore honek biltzen dituen lekuko gehienak **Larratze**-ren alde mintzo dira, Iratxeko aipatu lekukoa bezala, baina badira halaber **Larratz**-en alde hitz egiten dutenak (**Larraz**, **Larrazas**...). Nolanahi ere, Uxuen beti **Larraz**a dokumentatzen da, eta bertako aldaera jatorra hau zela dudarik ez dago: **Larraz**a de Vussa (1628), **Larraz**a de Drinda (1789), **Larraz**a de Otrillos chiqui (1780).

**Larratzandia Aldabea de Aitzandieta-n zegoen, Camino de San Blas edo Camino de la Fuente (de Aitzandieta)-n:**

"ytem otra pieza en la endrezero que llaman Larraz andia (Aitzandieta-n)...que afronta a...Camino que se va a San Blas" (1716)<sup>4955</sup>

**Larzia:**

Aldi bakar batez aurkitu dugu, orokorra den **Larziaga**-ren ordez, eta ez daki-gu **-aga** atzizkia ez azaltzea Ø / **-aga** txandakatzearen adibidea den, ala eskribauaren erratu hutsa:

"una pieza...sita en el termino de Larzia y Aldavea que afronta a...barranco concegil y senda que se va por la balsa a Aguilar" (1713)<sup>4956</sup>

**Larziaga (aldazkia de), (barranco de), (caracierz**o de), (carasol de), (fuente de), (paso de):

Izen honen etimologiaren inguruan ikus **-aga**-ri eskainitako atalean dioguna. Aurreneko aldiz 1602an ediren dugu:

"ytten otra pieça en larçiaga" (1602)<sup>4957</sup>

**Larziaga** [laɾθjága] Aldabea de Aitzandieta-ren goiko aldean dago, eta Aitzandieta bezala oso toki aldapatsua da. **Barranco de Larziaga** (1680az geroztik)<sup>4958</sup> **Barranco de Aitzandieta** bera da, **La Tejería**-tik **Fuente de la Bomba**-raino. Alderdi aldapatsua izateari zor zaio 1698an edireten dugun **Aldaizquia de la Arciaga** delakoa:

"otra pieza en la aldaizquia de la arciaga" (1698)<sup>4959</sup>

4953 Ikus gure IGI eta Zareko Iribarren sarreran dioguna.

4954 AV, 120. or.

4955 PRA-San Martin, 30. k.

4956 Id., 30. k.

4957 PRA-Oibar, 10. k.

4958 PRA-San Martin, 4. k.

4959 Id., 7. k.

**Caracierzo de Larziaga** ipar-ekialdera ematen duen alderdia da, (oraingo) **Carretera de la Sierra**-ren azpikoa alegia, eta **Carasol de Larziaga** hego-ekialdera ematen duen hegia. **Fuente de Larziaga Barranco de Larziaga** edo **Barranco de Aitzandietan** dago, ardanegiaren parean, errekan; **Paso de Larziaga**, azkenez, **Camino de Larziaga**-k eta errekek elkar gurutzatzen duten puntuan dago.

#### Lauzatea (portillo de):

Honen osagaiak **lauza** ‘hartzabala’ eta **atea** ‘portilua’ bide dira (ikus, hala ere, **Lezkatztea** sarreraren dioguna). **Lauzatea Akirazabal** ondoan zegoen:

“Mas una viña en el termino de aquirazaval o lauzatea...” (1723)<sup>4960</sup>

#### Busa-ko mugan:

“una pieza...en el termino de Busa, y parte qe llaman Petringasalea, afrontada pr la parte vaja con...camino qe va de Busa á Pitillas, pr la de arriva a...y pr la parte de Lauzatea...a...” (1791)<sup>4961</sup>

**Barranco de Aguilar** edo **Barranco de Akirazabal** eta **Barranco de Santa Fe** batzen diren alderdian:

“una pieza...en el terno de Lauzatea qe afronta a los varrancos de Aguilar y Sta Fe...” (1796)<sup>4962</sup>

**Portillo de Lauzatea** (1815)<sup>4963</sup> **Busa**-ko “**Corral de Valencia**”-ren ondoko atea izan zitekeen.

#### Lauzatzea:

**Lauza** izena eta **-tzea** izan ditzakegu hemen, baina aurreko toponimoaren aldaera ere izan daiteke. **Lezkatztea**-ren aldaera edo honekin nahastearen emaitza ere izan daiteke<sup>4964</sup>:

“otra viña...en el termino llamado laucaça” (1625)<sup>4965</sup>

#### Lavadero, el:

Ikus **Buzakao** sarrera.

#### Lavador, el:

Ikus **Buzakao** sarrera.

4960 Id., 31. k.

4961 Id., 61. k.

4962 Id., 64. k.

4963 Id., 79. k.

4964 Kontu hau ez dago batere garbi. Garbi dago, halarik ere, **Lauza**-z osaturiko toponimoak ez direla inola ere bitxiak: Galar Espartzan **Lauzazuloeta** dugu (TCPCG, 172. or.), Aizkorben **Lauza** azaltzen da 1699an (PRA-Arakil-Hiriberri, 50. k.)...

4965 PRA-Kaparroso, 29. k.

**Lerbeltz (alto de), (barranco de), (corraliza de), (larratza de), (paso de):**

**Lerbeltz** ia beti<sup>4966</sup> **Lerbez** itxurapean aurkitu dugun arren, osagaiak ler 'leher', 'pinu', eta **beltz** izenondoaren sinpletzetik atera den **bez**<sup>4967</sup> direla garbi dago. Izan ere, ler beltzak ugariak dira orain eta ugariak bide ziren antzina alderdi honetan.

**Lerbeltz (Lerbez [lērβéθ] orain), Lerbeltziki-rekin batera, 1534ko despo-  
blatu zerrendan<sup>4968</sup> azaltzen da estraineko aldiz. Despoblatur oraingo Alto del Pulpito  
azpian zegoen, Camino de Aldamara edo Camino de Murillo-n. Etxeetako harriekin  
bertan dauden gorreak (L. Sanz, J. Sara, eta C. Goienecherenak) eraiki ziren, baina zahar-  
kinak oraindik ere ikusgai daude korrale hauen inguruan. Alto del Pulpito-n, jendeak  
dioenez, badira defentsa eraikuntza baten aztarnak, eta honek agian behiala herria hemen  
zegoela esan nahi luke (egia balitz behinik behin. Guk ez dugu egiaztatzerik izan).**

Nolanahi ere, aipatu zaharkin hauek **Lerbeltz-koak** edo **Lerbeltziki-koak** ote diren ez dago garbi, azken herrikka hau ere Murilloko bidearen ondoan baitzegoen, herri-arrastoak bezalaxe:

“...con el pedazo de cubierto cabaña y era son sitas en el termino de Lerbez chiqui y afrontan al camino que se va a Murillo el fruto” (1704)<sup>4969</sup>

1827<sup>4970</sup> eta 1840ko<sup>4971</sup> **Alto de Lerbez** aipatu oraingo **Alto del Pulpito** da-  
teke (ikus sarrera hau); **Barranco de Lerbeltz** goragoko **Barranco de los Berros**-en ja-  
rraipena da, **Motelarana** gurutzatu ondoren Aragoa ugaldere doan erreka, alegia.  
1628ko lekukoak erakusten digunez, aztergai dugun dermio hau “corraliza” ere bazen,  
baina ez dakigu bakarrik **Lerbeltz** sartzen zen edo hau eta beste zerbait:

“Ytem mas otra (peca) en la corraliça de Lerbez...que afrenta a la pieza de anton bur-  
gui i a la laraça” (1628)<sup>4972</sup>

**Lerbeltz-ko larratza** non zegoen ez dakigu; **Paso de Lerbeltz**<sup>4973</sup>, azkenik,  
**Camino de Aldamara** edo **Camino de Murillo-k** eta **Barranco de Lerbeltz-ek** elkar  
gurutzatzen duten gunean dago.

**Lerbeltz-ek Zapaiz, Lakumulatu, Erlosiana (Lezkairu), El Soto, Aragoa**  
ugaldea, **Motelarana, Aldamara** eta **Los Berros** (behialako **Berage** eta **Berageondoa**)  
ditu mugakide.

4966 1631n **Elerbez** da: “otro pedazo de pieza en elerbez”, PRA-Kaparroso, 34. k., 1631.

4967 Garaioan **Aranbeltz** [àrambélc] ebakitzen duten toponimoa **Aranbez** [àrambéθ] bilakatzen da Arriben, euskaraz ez dakien (eta toponimoa erdal modura ebakitzen duen) jendearen ahotan.

4968 NAO-Comptos, 550. zkia.

4969 PRA-San Martin, 9. k.

4970 Id., 85. k.

4971 Id., 90. k.

4972 PRA-Kaparroso, 31. k. Berriki arte aparteko “corraliza” izan da, baina gaurregun **Aldamara**-rekin bate-  
ra saltzen da.

4973 PRA-San Martin, 49. k.

**Lerbeltxiki:**

**Lerbeltxiki** **Lerbeltz** toponimoaz eta **txikia** izenondoaz osatua dago, eta **Otrollosandi / Otrollostxiki** bezalako banaketa bati erantzuten dio, aztergai ditugun izenen kasuan **handi** inon ere ageri ez den arren:

“ytten otra piª en lerbezchipi” (1593)<sup>4974</sup>

**Txiki** izenondoa 1534an **-qu-z** idatzia azaltzen da<sup>4975</sup>, eta mugatzailez hornitua, baina aurrerago **-p-z** idatzia ere edireten dugu<sup>4976</sup>, eta sarri artikulurik gabe.

**Lerbeltxiki**-ren kokalekuaz ikus aurreko sarreran dioguna.

**Lezkairu (barranco de), (carasol de), (fuente de), (monte de), (riachuelo de):**

**Lezka** ‘lezca’, ‘anea’ oinarria dugu, eta zer den ez dakigun **-iru** bukaera:

“Mas otra pieza en lezcayru” (1629)<sup>4977</sup>

**Lezkairu Lezkadui (Lezkadi)** edo **Lezkatzea**-ren esanahikidetzat har daiteke, beti erreka aldeak edo toki urtsuak (cf. **Soto de Lezkairu** Iruñean) ematen dituelarik aditzera. Uxueko **Ezkairu** [eskájiru] edo **Eskairu** [eskájiru]<sup>4978</sup> errekek (**Barranco** edo **Riachuelo de Lezkairu-k**)<sup>4979</sup>, iturriak eta inguruko lurrek (cf. **Carasol de Lezkairu**) osatzen dute.

**Lakumulatu, Lerbeltz** eta **Erlosiana**-ren arteko muga dagoen iturria oso ezaguna da Uxuen eta ondoko herrietan (Murillo, Zarrakaztelu...), lehen orain baino gehiago seguru aski. Izan ere, Donibane goizean jendea “Sanjuanatzera” igotzen zen, eguzkia atera aitzinean<sup>4980</sup>. “Sanjuanatzea” iturri honetan biluzik bainu hartzea zen, larru-eritasunetatik askatu eta sendatzeko. DGH-k<sup>4981</sup> ere ematen digu honen berri, eta ohitura zaharra dela garbi dago:

“En el término llamado Lezcayru hay una fuente que produce buenos efectos en varias enfermedades”

**Carasol de Lezkairu-k** (1729)<sup>4982</sup> erreka-erren ondoko eguzkialdea adierazten du, **Camino de la Oliveta** igarotzen dena; **Monte de Lezkairu-k** ere gauza bera edo

4974 PRA-Oibar, 7. k.

4975 Florencio Idoatek “Poblados y despoblados o desolados en Navarra (en 1534 y 1800)” (PV, 108-109, 1958) izeneko lanean **Lerbezchipia** dakar, baina jatorrizko agiria aztertutakoan q bat dela uste dugu, ez p.

4976 Txandaketa bera ageri da, adibidez, Artaxonako **Gortechipieta / Gortechiquia**-n (J. Jurio, EETA, 376. or.).

4977 PRA-Kaparroso, 32. k.

4978 **Ezkairu** berria da (1829an aurkitu dugu lehenengoz), I- artikulua erdalduntzat hartua izatearen ondorea.

4979 **Lezkairu** erreka Uxueko handiena da, bertan biltzen delarik beste erreka askoren ura. **Barranco grande** izena ere aditu dugu, baina ez gara toponimo finkatutzat jotzen ausartzen.

4980 Gaurregun ohitura hau galdua da, bakarren batek oraindik igotzen segitzen badu ere. “Igotzen” diogu behezagoko herrietatik joaten direlako iturrira. Uxuetik jaitsi egin behar da, baina herriko jendeak ez dio eman, itxura duenez, auzo herrietakoek adinako garrantzirik.

4981 Lehen alea, 423. or.

4982 PRA-San Martin, 33. k. Orain gutxi erabiltzen da.

bertsua adieraziko zuen. Dugun lekukotasunean ikusten ahal den moldean, isun-lurra zen, herriko aziendendako altxatua bide zegoena, **Erlosiana** bezalaxe:

“Y desde cerca de la Villa hasta el Rio Aragon que tiene dos leguas de longitud con enorme latitud y a mas contiguas a estas yerbas reservadas hay dos grandes partidas de montes que llaman lezcairuz y Orlasaraña<sup>4983</sup> donde tienen libertad de pacer” (1779)<sup>4984</sup>

### **Lezkatzea:**

**Lezka** izena eta **-rzea** ditugu toponimo honetan. 1724an, dena den, **Lezcatea** azaltzen da, eta beste batzuetan agertzen den **Lauzatzea** edo **Lauzatea**-ren adierakidea dela uste dugu, azken hauek bezala **Akirazabal**-en edo **Akirazabal** ondoan baitzegoen:

“Mas una viña el termino (sic) de aquirazabal o Lezcazea...” (1726)<sup>4985</sup>

1711ko **Lazcazea Lauzatzea-Lauzatea** eta **Lezkatzea**-ren arteko forma da:

“una pieza...sita en el termino llamado lazcazea” (1711)<sup>4986</sup>

Jatorrizko forma **Lezkatzea** izan zitekeen, **Akirazabal** eta **Santa Fe**-ko erreken elkargunean zegoenez gero, baina, **Lauzatzea** ere bai, hau 1588rako azaltzen baita. **Lauzatea** berriena da, eta bukaerako **-atea** portilua izateari zor zaioke.

### **Linar del Sauco, el:**

Uxuen gaztelania estandarreko **sauco** agertzen da, ondoko herrietako **sabuco** aldaeraren orde. Dena den, dauzkagun lekukoak XIX. mendekoak dira, berandukoak beraz:

“otro mas arriba que llaman el Linar del Sahuco” (1830)<sup>4987</sup>

Zuhaitz hauek ur franko behar dute eta erreka ondoetan hazi ohi dira. Uxueko **Linar del Sauco** (1828)<sup>4988</sup> ere uhertzean zegoen, **Ollatu**-n.

### **Linares, los:**

Uxueko lihatzeak **Galaputzu**, **Txorria**, **Aliaga**, **Villantigua** eta **Ollatu**-n zeuden, elkarren segidan dauden dermioetan.

4983 Bigarren hau ez da garbi irakurtzen, baina dudarik ez dago **Lezkairu** ondoko **Erlosiana** (**Rusiana** egun) dela.

4984 UUA, 144. k., LA, 1779

4985 UEA, 14. kap-lib., 338. or.

4986 PRA-San Martin, 29. k.

4987 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 23. or.

4988 PRA-San Martin, 86. k.



**Lizarduia:**

**Lizar** zuhaitz-izena eta **-duia** atzizkia ditugu hemen. **Lizarduia San Nicolás** iturriko errekan zegoenez, ez dirudi 1709ko **Los Fresnales**-ekin identifika daitekeenik, azken hau, itxura guztien arabera, **Txorria** aldean zegoelako (ikus **Fresnales** sarrera):

“Ms Josef Ayesa, y franco Yzura, en una pieza que tienen a medias en Lizarduia y dho Barranco” (San Nicolás-koan, antza)(1780)<sup>4989</sup>

Gaurregun ere badira lizarrak aipatu errekan.

**Lopera (barrio de):**

**Eguno Lopera**-k [lupé<sup>ra</sup>], dokumentazioko **Lopera**-k bezala, **Calle** largaren azpiko auzoa eta inguruko lurrak ematen ditu aditzera:

“un grosal de tierra blanca extramuros de dcha villa en la endrezera llamado lopera” (1704)

**Lopera**, etimologiari dagokionez, gaur **lobera** esango genukeenaren kidea da (cf. **Agezako Otsazuloa**)<sup>4990</sup>, eta garbi dago latineko **lŭparia**-tik atera dela. Bokal arteko herskariaren mantentzea Nafarroako erromantzeari zor zaioke (ikus **Agezako Aquilar** sarreran dioguna), baina euskarak ere eragina eduki duke honetan (cf. **lupie** ‘lobanillo’ **Baztanen**, dirudienez latineko \***lŭpĕa**-tik<sup>4991</sup>, edo **lupu** ‘otsoa’<sup>4992</sup>).

Otsoak, esan dugunez (ikus **Agezako Otsazuloa** sarrera), ugariak ziren gure alderdian; Uxuen XIX. mende arteko udal-kontuetan urtero-urtero hildako otso, otseme eta otsokumeengatik otso-ehiztariei horrenbesteko kopuru bat ematen zitzaie la ikusten da. Zernahi ere den, eta **Lopera lobera**-rekin identifikatzeak egoki irudi duenagatik, aintzat hartu behar dugu **Lopera Uxuen XVII. mendean** agertzen den **Otsalarraña**-ren erabateko kidea dela<sup>4993</sup>, **Lopera** horretan ‘lobera’ ikusi ordez **Lop(e) + era** ‘larraina’ ikusten badugu (cf. **Pirolarraña**). **Lope** pertsona-izena izan zitekeen<sup>4994</sup>, baina ezin dugu baztertu pizti-izenaren aurrean gaudelako posibilitatea<sup>4995</sup>. **Otxoa**, **Otsoa** izena, euskal-dunon artean gutxienez, **Lopo** edo **Lope** horren baliokide zehatza zen.

4989 Id., 54. k.

4990 J. M. Jimeno Jurfok dioenez (THET, 131. or.), gaurregungo Tafallako **Lobera Lopeira** zen XVI. mende arte. Honela mintzo da gai honetaz:

“la abundancia de lobos en Tafalla y su comarca está sobradamente atestiguada por la documentación y por los topónimos, romances y vascuences, que aluden a ellos: «Valdelobos» (Tafalla, El Pueyo); «Amanalobos» (Uzquita); *Ochandua* (Garinoain); *Osoportilloa* (El Pueyo, 1758); *Ozandua* (Sáonsoain); *Ossando* (c. 1110), *Ossanda*, *Oxando* (S.XII), *Ochando* (S.XIII-XVI), *Osondoa* (Desde el XVII, hoy «Osondoba», Artajona)”.

4991 Ikus Corominas, DCELC.

4992 FHV, 323. or.

4993 **Otsalarraña**-n baziren etxeak, **Lopera**-n bezala, eta beraz, alde honetatik ez dago arazorik identifikazioa burutzeko. Erreparatu, era berean, **Otsalarraña**-k eta **Lopera** ondoan dagoen **Pirolarraña** auzo-izenak duten antz eta eiteari. Hiruek daukate, itxuraz, animal-izen bana oinarrian (**piroa** ‘ahatea’ agian **Pirolarraña**-ren kasuan. Ikus sarrera hau).

4994 **Lopo**-tik atera da; deituraren aurrean bukaerako bokala galdu ohi zuen izenak, eta hau dela era, **Martin** eta **Lope** bezalako batzuen kasuan, forma laburtua nagusitu eta bakartzat gelditu zen (ikus Mdez. Pidal, MGHE, 81. or.). **Lopo**-ren aitzindarien **Lupus** eta honen eratortriak diren **Lupinus**, **Lupianus**, **Lupulus**...arruntak bide dira inskripzio erromatarretan, Caro Barojak (HGPV, 225. or.) dioenez.

4995 Hau, halaz guztiz, korapilotsuagoa da. Izan ere, **Lopera** lortzeko **lope + era** behar dela dirudi, ez **lopo + era**, eta piztiaren izenak derrigorrez **lopo** izan behar zuen, ezer izatekotan.

Bigarren azterbide hau hobesten bada, argi utzi beharko da **Lope** eta **era** elementuak erromantzeak izanik ere elkarketa-bidea osotara euskalduna dela, lehenik mugatzailea eta gero mugakizuna ageri baitira, euskaraz ohizkoa den moduan.

**Losado, el:**

Eliz-atariko lauzatuari esaten zaio **El Losado** (cf. **Lauzatzea** toponimoa).

**Luzea (huerto de), (pozo de):**

Putzua **Buzakao** bera zela ematen du:

“un paxar...camino en medio debaxo del pozo llaman de Luzea” (1733)<sup>4996</sup>

“Mas un sittio o cassa en el varrio llamado Buzacao que afrontta con...huertto de luzea y al labadero del varrio” (1786)<sup>4997</sup>

Egun zeharo ezezaguna da. Lehen begiratuan euskarazko izenondoa (izengoiti edo bilakatua) dirudi aztergai dugun toponimoak, baina Milagron adibidez **Pieza de la Luzea** dokumentatzen da XIII. mendean<sup>4998</sup>.

**Llano de Don Pascual, el:**

Leku-izen hau ez dugu sekulan aurkitu dokumentazioan, eta beraz, berria dela esan daiteke. **Don Pascual**-ek egun ezezaguna den jaun edo jauntxoren baten izena irudi du.

**Zaubio**-n dago, **Santakaramuru** ondoan, Pitillasko mugan; behialako **Zazu**-rekin identifikatu behar genuke, agian.

**Madonalorra (pieza de); Madonao, piezas de:**

Bigarren osagai argia **alorra** ‘soroa’ da; **Madonao** antroponimo bat dateke (cf. **Petiriberro**, Aezkoan). **Otrollotxiki**-ko eremu bat izendatzen zuen:

“otra pieza en el termino de Otrollos chiqui...que afronta a pieza que llaman mado-nalorra” (1688)<sup>4999</sup>

“yten otra pieza en el termino de otrollos chiqui...que afrontaba con piezas que llaman madonao” (1732)<sup>5000</sup>

**Madre de Dios, olivar de la:**

**Villantigua**-n edo **Villantigua** ondoan zegoen. Egungo eguneko **Pieza de la Virgen**-en (edo ondoan) zegoeken:

4996 UEA, 14. kap-lib., 379. or.

4997 PRA-San Martin, 57. k.

4998 Lacarra, OV, 254. or.

4999 PRA-San Martin, 5. k.

5000 Id., 33. k.

“un linar...sito en el termino de villa antigua que afronta con olivar de la Madre de Dios...” (1727)<sup>5001</sup>

### **Makarreta (balsa de):**

Izen hau ez dugu sekulan dokumentazioan aurkitu, baina hala ere, ez dago bere euskal etorkiaz duda egiterik. Etimologiari dagokionez, ikus -eta atzizkiari eskaini atalean dioguna.

**Makarreta Aguilar** mendiko aldapen azpiko aldean, **Aguilar bajo-n**, **Santa Fe** eta **Akirazabal**-etik hurbil dagoen eremu txikia da. Bere kokalekua ikusita, **malkor** ‘erroitz’, ‘amildegi’-rekin lotu behar dela pentsa daiteke, baina ez dugu ahaztu behar aurreko honekin batzuetan nahasten den **malkar** ‘lur meharra’, ‘lur antzua’-rekin ere zer ikusia izan dezakeela<sup>5002</sup>.

**Makarreta**-ko idoa berria da; Diputazioak egin zuen orain urte batzuk, aziendentzako ura biltzearen.

### **Malliturri (alto de), (caracierzo de), (fuente de):**

Izen honen etimologiaren inguruan ikus Lergako **Malliturri** sarreran dioguna. Uxueko egungo **Fuente de Maniturri** [mānitūrī] (Lergan **Maiturri** da) **Txutxu bajo-n** dago, **Épaiz**, **Lerga** eta **Uxueren** arteko mugan. Azken herri honetan lehen (eta Lergan oraindik ere) inguruko lurrak ere izendatzen zituen:

“(unas piezas?)...en el terno de Chuchu, affrontadas a...y tamn por la parte del alto de Malliturri” (1780)<sup>5003</sup>

“...y a la fuente de Maliturri que dista como doce pasos...” (1812)<sup>5004</sup>

**Alto de Malliturri** **Alto de Andiaga** izan zitekeen; **Caracierzo de Malliturri** (1827)<sup>5005</sup> deizioa iturria iparragerrian egoteari zor zaio. Azken generiko hau, dena den, Lergakoa dela dirudi, ez Uxuekoa.

### **Mantxiriturria:**

**Mantxiriturria** pare bat aldiz aurkitu dugu dokumentazioan, eta dudarik ez dago **Mantxiriturrieta** orokorraren kidea dela:

“quatro pieças...en...(la) endrecera llamada manchiriyturria” (1606)<sup>5006</sup>

5001 Id., 32. k.

5002 Jimeno Jurfok **Maskar** aurkitu du Eritzebeitin (TCPCI, 162. or), **Mascarres** zendea bereko Saratsa herrian (340. or), eta aurreko toponimo honen baliokide osotara euskalduna den **Maskarreta** Artitza des-poblaturan (132. or.). Uxuek ia mugakide duen Orbako Oletan **Maskarra** dugu 1646an (PRA-Oibar, 25. k.). Honelakoak lur harriztuak izaten dira, oker ez bagaude.

5003 PRA-San Martin, 54. k.

5004 Id., 77. k.

5005 Id., 85. k.

5006 PRA-Oibar, 12. k.

-eta-z gabeturik azaltzea, kasu honetan, ez da beste batzuetan edireten dugun Ø / -eta txandakatzearen beste adibide soil bat, **Mantxiriturrieta**-n elkarren ondoko bi iturri daudelako. Guztiarekin ere, dokumentazioan **fuelle** generiko singularra azaltzen da, eta gaurregun ere singularrean erabiltzen da (**Fuelle de Mantxintxurreta...**), bi iturriak entitate bakar batentzat hartzen direlako seinale, gure ustez.

#### **Mantxiriturrieta (fuelle de):**

Izen hauen etimologiaren inguruan ikus -eta atzikiari eskaini atalean esan dena.

Leku-izen honek, duen luzera eta izaera fonikoarengatik, aldaera mordo handia aurkezten du lehen agerralditik, eta gaurregun ere aldaki bat baino gehiago du: **Mantxintxurreta** [mànčĩncũrẽta], **Mantxantxurreta** [mànčancũrẽta]... Dokumentazioan XVII. mendean eta XVIII.aren lehen erdian jatorrizko forma bide dena aurkitu ohi dugu:

“otra pieca en manchiriyturrieta” (1605)<sup>5007</sup>

“otra pieza sobre la fuente de manchiliturrieta” (1685)<sup>5008</sup>

XIX.ean, ordea, itxuraldatua azaltzen da, makina bat forma ezberdinez: **Machariturrieta** (1802)<sup>5009</sup>, **Manchiturrieta** (1803)<sup>5010</sup>, **Machiturrieta** (1847)<sup>5011</sup>, **Manchanturrieta** (1857)<sup>5012</sup>...

**Mantxiriturrieta Txutxu bajo**-n dago, **Carasolalto**-ko muga.

#### **Matxaz (balsa de):**

Izen honen etimologiaz ikus -az bukaeraz mintzatzean dioguna. **Matxaz** [mačáθ] **El Pinar** eta **Santakaramuru** mugakide dituen **La Sierra**-ko dermio txiki bat da; **Bigas** eta **Los Berros** ere hurbil ditu. Idoia I. Aldunateren gortearen ondoan dago, Murilloko alxonbidean, **Santakaramuru**-n barrena Erriberara doan adarra ardibide nagusitik bereizten den puntuan:

“...pieza en el termino de Machaz...que afronta...con su corral y cavaña y valssa de Machaz” (1672)<sup>5013</sup>

Idoi honetako ura behar-beharrezkoa zitzaien Uxue bezalako udalerrri luze idorra gurutzatzen zuten artaldeei. **Abuñaga**-ko idoiak ere funtzio bera bide zuen, hau ere alxonbidean baitago, **Matxaz**-koa baino lau bat kilometro gorago.

5007 Id.

5008 PRA-San Martin, 5. k.

5009 Id., 70. k.

5010 Id., 71. k.

5011 PRA-Kaseda, 57. k.

5012 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 80. or.

5013 UEA, 13. kap-lib., 168. or.

**Medios (barranco de):**

Izen honen bukaera ikusita **Beskos** eta **Otrollos**-ekin (eta apika **Bigas** eta **Mostrakas**-ekin) zer ikusia duela pentsa daiteke. Guztiarekin ere, aitortu beharra dago itxura erromantze garbia duela, agian oharkabean **medio** ‘erdia’, ‘erdikoa’ erdaldunarekin sortzen den loturarengatik.

**Medios** leku-izenaren eta erdarazko **medios**-en arteko zerikusia eitetik harantzago doalakoan gaude, **Medios** 1892ko katastro arte dokumentazioan sekulan ediren ez dugulako, eta beraz izen berritzat har daitekeelako<sup>5014</sup>. Honela balitz, erdal \***Corraliza** edo **término de medios** bezalako sintagma baten laburketa litzateke, eta **La Sierra**-ren erdi aldean egoteari zorko litzaiok (cf. **Alto de Medios** edo **Balsa de Medios**, azken hau **El Monte**-ren erdi-erdian, Uxuen bertan, edo **Barranco de Medios** Morionesen).

**Medios** [médjos] **La Sierra**-n dago, **Santa María la Blanca**-ren ondoan. Mugakide **San Nicolás** (**Lakumulatu**-ren barrukotzat jotzen da orain), **Lakumulatu**, **Los Berros** (antzinako **Berage**), **Santakaramuru**, **Zaubio** eta **Urteaga** ditu.

**Barranco de Medios** bertan bat egiten duten bi errekastoei esaten zaie (elkartu ondoko zatia **Barranco de Artabakoitz** zen lehen). **Medios**-en puska baten ohizko izena **Artabakoitz** izan da iragan mendearen hasiera arte (ikus sarrera hau).

**Mendigorria (alto de):**

**Mendi** izena eta **gorria** izenondoa ditugu toponimo honetan. **Gorria** mendia-**ren** koloreari zor zekiokkeen, edo agian mendi soila, soildua izateari.

Badakigu **Aldabea**-n zegoela, **Aitzandieta**-koan seguraski:

“ytt otra pi<sup>a</sup> en la aldabea en la endreçera llamada mendigorria” (1593)<sup>5015</sup>

“la una (pieza)...sita en la aldavea y paraje que llaman el alto de Mendigorria” (1746)<sup>5016</sup>

**Mesta (aborral de la), (corraliza de la):**

**Mesta** ‘jabe baten baino gehiagoren azienda-taldea’, ‘jabe ezagunik ez duen azienda taldea’, antzina ‘artzain eta azienda-jabe bilkura’ latineko *mīxta-tik mīscēre* aditzaren partizipio pasiboa da) atera da<sup>5017</sup>.

1800 arte **Gurutzegibela** deitu alderdian alatzen zen **mesta**, eta urte honetatik aurrera, **Pitillas** eta **Uxueren** lur komunaren banaketaren ondorioz, **Santakaramuru**, **Artabakoitz** eta **Zaubio**-tik **Busa** eta **Pipiratu**-rainoko tartean:

“...en el terno de tras de la cruz en el aborral de la Mesta, cerca del Aborral de Beskos” (1789)<sup>5018</sup>

5014 Alabaina, behin ere azaltzen ez diren toponimo zahar horietako bat ere (cf. **Makarreta**) izan daiteke. Dena den, dagoen tokian egonez eta den bezalakoa izanez, bitxia litzateke, oso, agiritan sekulan ez azaltzea.

5015 PRA-Oibar, 7. k.

5016 PRA-San Martin, 38. k.

5017 DCECH.

5018 PRA-San Martin, 59. k.

**Mikelenzabal (corraliza de):**

Toki-izen hau, toki-izen luze gehienak bezala, modu ezberdin frankotara idatzia agertzen da, aldaeren arteko aldea handia ez bada ere. Aldaki guzti horien azpian dagoen jatorrizko forman **Mikel(e)** pertsona-izena, genitiboaren morfema den **-en-**, eta **zabal(a)** 'eremu irekia' ditugu (cf. **Petringesala**): **Miquelacaval** (1629)<sup>5019</sup>, **Miqueracabal** (1631)<sup>5020</sup>, **Miquelencabal** (1634)<sup>5021</sup>, **Micalazabala** (1667)<sup>5022</sup>, **Micalazabal** (1733)<sup>5023</sup>, **Michilizaval** (17180)<sup>5024</sup>.

Antroponimoari dagokionez, **Mikel** nahiz **Mikele** izan daiteke hemen duguna, euskaraz biak agertzen baitira<sup>5025</sup>. Genitiboaren morfema aintzat hartuz gero badirudi **Mikel** behar duela, bestela **Mikeleren** izango baikenuke, baina hizkuntza batuarentzat balio duen arauak ez du, noraezean, gure alderdiko euskararentzat balio behar (cf. gorago aipatu **Petringesala** 'Petriren gesala').

Orain galdurik dagoen izen hau Uxueko despoblatu baten izena zen hasiera batean, 1534ko zerrendak<sup>5026</sup> erakusten digunez. Geroago toponimo huts bilakatu zen, eta XIX. menderako erabat desagertu. 1687an<sup>5027</sup> "corraliza"-tzat azaltzen da.

**Zaubio, Otrillos eta Busa**-ren artean zegoen, errepide baten ondoan, **Zaubio** baino gorago (**Busa** alderago):

"...de Zaubio...arriba asta las Piezas de Joseph Sendoa de Miquirazabal y de alli...asta el Passo de Busa y de alli a los cubiertos de Bussa" (1748)<sup>5028</sup>

**Otrillos-en** eta **Lezkatzear**-ren arteko **Nobeleta** galduarekin ere mugatzen zuen, eta beraz, Pitillasko errepidearen ondoko alderdia zela ondorioztatu beharko dugu, Lucio Solaren gortearen azpiko aldekoa, alegia.

**Miravalles:**

**Miravalles Aldabea de Aitzandiet**a-n zegoen, **Lakubeli** ondoan, goiko aldean seguruenik. Dena den, ditugun lekukotasunetako batean altxonbidearekin mugatzen zuela esaten zaigu, eta **Lakubeli**-tik, dakigula, ez da ardidiberik igarotzen:

"ytten otra pieza...llamada Miraballes que afronta con la cañada" (1768)<sup>5029</sup>

5019 PRA-Kaparroso, 32. k.

5020 Id., 34. k.

5021 IEA, 345. k., 13. zkia.

5022 UEA, 13. kap-lib., 160. or.

5023 PRA-San Martin, 33. k.

5024 Id., 54. k.

5025 Ikus Mitxelena "Nombres vascos de persona", SHLV, 581-594. orr.

5026 NAO-Comptos, 550. zkia.

5027 PRA-San Martin, 5. k.

5028 IEA, 1618. kart., 10. zkia.

5029 PRA-San Martin, 48. k.

**Miravalles** izena oso arrunta da Nafarroako toponimian, baita oso berandu arte euskaldun izan diren herrietan ere, eta modaren baten ondoriotako hartu behar dela dirudi. Izen hau duten dermioak eskuarki toki gorak, mendiak edo gainak izaten dira. Iruñe ondoko Uhartan adibidez mendi baten izena zen lehen, eta futbol-talde batena orain. J. Juríok argitaratu dituen Iruñerriko toponimia lanetan ere ageri da, bost zendeetan<sup>5030</sup>.

#### Modollar, el:

Uxuen **modrollo** 'arbutus unedo' edo gurbitzak hain ugariak dira ezen inguruko herrietan **modrolleros** izengoitiaz baikara ezagutuak uxuetarrok.

El **Modollar**-ek pikor hauetan bereziki aberatsa den **Aurino** azpiko **Erlosiana**-ko alderdi bat izendatzen du; Galipentzun honen kide zehatza den **El Modrojar** (ikus sarrera hau) dugu. Uxueko izenak nafarreraren alboko sabaikaria gorde du, Galipentzukoak, gaztelaniaren eraginez seguru asko, azken hizkuntza honetan burutu den -ll- > -j- pausoa jasan duen bitartean<sup>5031</sup>.

#### Mojón de Beire:

Beste batzuetako **Muga de Beire** edo **Beiremuga** da hau, Beireko muga aldea alegia (**Areatzeta, Busa, Otrollos...**):

"ytten otra piª en ariaçeta...que affrenta con...mojon de beyre" (1593)<sup>5032</sup>

#### Mojón de Gallipienzo, el:

**Zaldunaga, Mugazuria, Aristuziaga, Aurino** eta **Erlosiana**-n zehar luzatzen da bi herrion arteko muga. 1603ko agirian aipatzen dena **Zaldunaga**-koa da:

"ocho Robadas de tierra en çaldinoaga...que afrenta con el mojon de galipienço" (1603)<sup>5033</sup>

#### Mojón de San Martín:

Beste zenbaitetako **Muga de San Martín** edo euskarazko **Sanmartinmuga**-ren esanahikidea da. **Gurutze**-ren eratorria ematen duen **Kurzegi** (ikus sarrera hau) bertan zegoen.

5030 Gure eskualdetik hurbilago, Orba ibarreko Amatriain herrian ere aurkitzen dugu: "otra pª en el temjo llamado miraballes" (PRA-Oibar, 2. k-bis, 1537).

Honen antzekoak izan behar dute beste toki batzuetako **Mirabueno** (Oibar), **Mirabuena** (Oibar, Elortzibar-Dorre), **Mirabuenos** (Zare...) edo **Miracielos**-ek (Aranguren, Lakidain). Ikus Zareko toponimoa aztertzerakoan dioguna.

5031 Herri honetan, dena den, aldakuntza funtzionala izan dela dirudi, zuhaitz edo zuhamuxka eta pikorra, fruitua, bereizteko balio izan duenez gero. **Coscojo**, esaterako, zuhaitza da, eta **coscollina** honek ematen duen fruitua, ezkurra, hots, Uxueko **anzina** edo Artaxonako **artazi**-a (ikus Galipentzuko Lecino sarrera). Era berean, **modrojo** gurbitz-zuhamuxka da, eta **modrollo** berriz, pikorra.

5032 PRA-Oibar, 7. k.

5033 Id., 11. k.

**Molino (nuevo), (balsa de), (barranco de), (paso de), (pozo de), el:**

Hau 1792rako eraiki zen errota berria da, lehen **Barranco de Txorria**, **Barranco de los Linares**, edo **Barranco de Villantigua** deitzen zen errekan eraikitakoa, alegia:

“Maestros y oficiales encargados de la fabrica del nuevo molino, q se ha construido para la villa, en el Barranco de Villantigua” (1792)<sup>5034</sup>

Errota berri honek ehun bat urtez funtzionatu zuen, azkeneko errotari okina Zangozara bizitzera joan zen arte, iragan ehunkadaren amaiera aldean. Eraikuntza oraindik ere zutik dago, nahiz teilaturik gabe, eta uharka gotorra ere oso ongi gorde da, orain sasiz eta laharrez beterik dagoen arren.

**Balsa del Molino** errotako uharka zatekeen:

“Otra pieza...que afronta...á la Muralla de la Balsa del Molino...” (1811)<sup>5035</sup>

**Paso del Molino Barranco de Txorria** edo **Barranco del Molino**-n dago, **Mugazuria** aldera doan **Camino del Molino**-n. **Pozo del Molino**, azkenik, arropa garbitzeko erabiltzen zen erreka bereko putzua da.

**Molino de Ujué, el:**

Errota hau Uxuek aspaldidanik<sup>5036</sup> Galipentzuko lurretan, egungo **Central de abajo** edo **Central de la Cueva** izeneko argindar-etxea dagoen tokian, Aragoa ugaldearen ertzean zuena da. XV. mendearen lehen erdian Doña Blanca de Navarrak, Carlos III el Noble hiltzean Nafarroako erregina bihurtu zenean, honen ohoretan Uxueko Ama Birjinaren aurrean gau eta egun argizari bat pizturik egon zedila agindu zuen, eta horretarako akordio batera iritsi zen uxuetarrekin: hauek argizaria izekirik egoteaz arduratuko ziren, eta honen truke erreginak Galipentzuzun zuten errotarengatik ordaindu beharreko zazpi “cahiz” gariak barkatuko zizkien<sup>5037</sup>.

Eraikuntzak zutik iraungo zuen errota berria eraiki zen arte. Beranduago ere, 1851n, **Molino de Uxue** esaten zitzaion Galipentzuzun oraingo **Central de la Cueva**-ri (ikus sarrera hau):

“..sobre el rio Aragon en termino de esta villa de Gallipienzo denominado el Molino de Uxué mas abajo de Sopenas”<sup>5038</sup>

Egungo egunean ere errotaren oroitzapen garbia dute bi herriotan. Bertara joateko errota berriko bidea hartu eta **Zautelu**, **Villantigua**, **Mugazuria** eta **Aristuziaga**-n barrena Galipentzura sartzen zen, **Zabaleta**-ren eta **Larrañetako mendia**-ren artean (ikus Galipentzuko sarrera hauek). Bide hau oraingo **Portillo del Señor** deitu atetik errotaraino altxonbidea ere bazen.

5034 PRA-San Martin, 62. k.

5035 Id., 76. k.

5036 Urangak dioenez (UM, 78-80. orr.) errota honen lehen albistea 1232. urtekoa da, eta beraz, garai horretarako eraikia behar zuen.

5037 J. M. Jimeno Jurío, *Ujué*, 17. or.; UM, 273-274. orr.

5038 PRA-Kaseda, 59. k.



Gogora dezagun, bukatzeko, errota honetara San Martin eta Pitillaskoak ere joaten zirela alea ehotzera.

**Monte (carasol de), (caracierzo de), (barranco de), el:**

Ikus El Vedado eta Dorrondiaga sarrerak.

**Monte chiguito:**

Aldi bakar batez aurkitu dugu, 1832an<sup>5039</sup>, eta ez dakigu zer mendiko zen.

**Morape (barrio de), (junto a):**

Egun El **Morape** [èlmorápe] edo herri-etimologiaz El **Morapié** [èlmorapjé] deitzen den auzoa pilota-jokuaren eta **Andrebutzu**-ren gaineko aldean hedatzen da, plaza txikitik azken etxeetaraino.

**Morape**-ren osagaiak Nafarroako toponimiako ia eskusibotzat jo deza-kegun<sup>5040</sup> **morea**-ren elkarketako aldaera izan daitekeen **mora**- eta **-pea** posposizioa dirateke, baina ezin bazter dezakegu **mora**- horrek **Almora**, **Armura**, **Armor-kora**... 'jentilarri', 'trikuarri'<sup>5041</sup>-n azaltzen den **mora**, **mura**, **morkora** 'harri mukuru' elementuarekin zer ikusia duelako (edo bera delako) ustea<sup>5042</sup>. Edozein moduz, hau ez da alderdi urtsua:

"...tienen como suyo propio extramuros de la dicha villa en la parte llamada junto la morapea..." (1693)<sup>5043</sup>

"un trozo de Corral en el barrio de Morape" (1850)<sup>5044</sup>

**Moratea:**

**Mora**- dugu berriz ere hemen eta **-atea** 'portilua' datekeena. Beharbada aurreko horrekin duen hots-eiteagatik azaltzen da 1706an **La Morapea** itxuraz, baina kokaguneak ezberdinak izanik, **Morape** eta **Moratea** dermio diferentetako hartu behar direla irudi du, auzia zeharo garbi ez dagoenagatik. Egun ezezaguna den **Moratea Camino de la Sierra**-ren gaineko aldean zegoen, **Buzakao** eta **La adoberia**-ren azpian:

"un alcacer...en la endreçera llamada moratea que afruenta con la cassa de la adoberia del dicho Saldias y calle publica..." (1601)<sup>5045</sup>

"una pieza que llaman la morapea devajo de el lugar...que afronta...por la otra (parte) de avajo con camino real que se va a la sierra" (1706)<sup>5046</sup>

5039 Id., 88. k.

5040 Mitxelena, "Notas lingüística a «Colección Diplomática de Irache»", PT, 87-118. orr.

5041 J. M. Barandiaran, DIMV.

5042 Ikus gai honetaz J. M<sup>a</sup> Iraburu Mathieuren "En torno al topónimo «Morea», FLV, 127, 1972, 321-343. orr. Gure alderdian **Moraga** dugu Lergan eta **Morate** Galipentzun, eta gure alderditik hurbil **Moraldea** Leotzen (PRA-Oibar, 23. k., 1634) eta Geretzen (id., 101. k., 1826).

5043 PRA-San Martin, 6. k.

5044 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 48. or.

5045 PRA-Oibar, 10. k.

5046 UEA, 14. kap-lib., 318. or.

**Buzakao** eta **Pozo de Luzea**<sup>5047</sup>-ren azpiko aldean zegoenez, **mora**-honek ‘idoia’, ‘toki urtsua’... adiera duela suposa daiteke, hots, **morea**-ren aldakia dela<sup>5048</sup>.

**Moratea**-ren bukaerako **-atea** ‘portilua’ den ez dakigu; gaurrengungo **Buzakao**-n eta lehengo adoberien azpian horrelakorik ez dago. Bestelako “ateek” **portal** (er-daraz) edo **portale** (euskaraz) izena hartzen zuten gure alderdian (cf. **El Portal Uxuen**, **Portaletxikia Galipentzun**).

**Mostrakas** (**barranco de**), (**cabezo de**), (**llano de**), (**rincón de**), (**torraza de**), (**val de**):

Etimologia iluneko izen honen inguruan ikus **-as** bukaerari eskaini atalean dioguna. 1534an Uxueko despoblatuen artean **Muestracas** edireten dugu<sup>5049</sup>, eta 1633an<sup>5050</sup> ere diptongodun aldaera hau azaltzen da.

**Mostrakas Uxue** eta Pitillasen dermio komuna zen, eta bi herriok 1800ean lurak banatu zituztenean erdibiturik gelditu zen, zati bat Pitillasen, eta bestea Uxuen:

“En la villa de Uxue digo en el termino de Uxue y Pitillas llamado mostracas” (1622)<sup>5051</sup>

**Valdecontienda** izena ere hartzen zuen (ikus sarrera hau), Uxue, Murillo eta Santakararen arteko muga aldean (ikus **Larrageta**-n dioguna):

“En los terminos de las villas de Uxue y murillo el fruto y Santacara y en el llamado mostracas y por otro nombre baldecontienda” (1612)<sup>8</sup><sup>5052</sup>

**Barranco de Mostrakas La Sierra**-n sortu eta **Mostrakas** (eta **Larrageta**) gurutzatu ondoren Santakaran sartzen da, Murilloko mugaren hurbiletik; **Cabezo de Mostrakas** (1647)<sup>5053</sup> egun **Alto de Abaurre** deitu Murillo eta Uxueren arteko mugako gaina izanen zen, beste batzuetako **Alto de Larrageta** edo **Podio de Larrage** bera (ikus **Larrage** eta **Larrageta** sarrerak). **Rincon de Mostracas** (1612)<sup>5054</sup> zehazki zein zen ez dakigu, baina erreka ingurua izan zitekeen; **Torraza de Mostrakas** despoblatuaren geldikina zen. Badakigu erreka baten ondoan zegoela:

“Ms otra pieza...en dho termino (**Mostrakas**-en) alado de la torraza que afrontta con dha torre y Barranco Concejil” (1780)<sup>5055</sup>

Antzinako despoblatuetako etxeen harriak gorteak eraikitzeko erabili izan direnez gero, **torraza** eta despoblatua gaurko M. Murillo eta I. Ostaren gorteak dauden to-kian egon zitekeen, hauek ere **Barranco de Mostrakas**-en alboan baitaude. Dena den, Uxueko egungo **Torraza**-koak bezalako zaharrik ez omen dago bertan.

5047 Ez dakigu entitate bera adierazten duten ala ez.

5048 Orbaitzetan **Morate** daukagu.

5049 NAO-Comptos, 550. zkia.

5050 PRA-Kaparroso, 57. k.

5051 Id., 28. k.

5052 Id., 19. k.

5053 Id., 42. k.

5054 Id., 19. k.

5055 PRA-San Martin, 54. k.

**Val de Mostrakas** (1612)<sup>5056</sup> Uxue, Murillo eta Santakararen arteko mugen berrikusketa-agiri batean opatu dugu; agian hiru herrien arteko mugako egungo **Llano de Mostrakas** bera zen.

**Mostrakas**-ek [moštrákaš] Pitillas, Santakara eta Murillorekin mugatzen du mendebalde eta iparraldetik, bere barruan azken bi herriotan ere azaltzen den **Larrageta** (ikus sarrera hau) hartzen duelarik. Honetaz landara, goian, iparraldean, **Santakaramuru** du mugakide, eta ekialdean altxonbideak **El Pinar**-etik bereizten du. Aurrerago **Bigas**-ekin ere mugatzen du.

**Motelarana** (alto de), (caracierzo de):

Gain hau **Aldamara**-ren barruan dago, **Lerbeltz** eta **Olibeta**-ko mugan. Egun herri-etimologiaz **Montelana** [mòntelána] deitzen bazaio ere, 1593an jatorria argi islatzen duen **Motel arana** aurkitu dugu<sup>5057</sup>. 1791rako gaurko aldaeraren oinarritzat har dezakegun **Motelana** agertzen da:

“ytem en el dho termino (Olibeta-n) una caseta...qe afronta...al Monte Demarcado (Erlosiana) y por otra parte con el Barranco qe vaja de Lerbez, y caracierzo de Motelana al otro lado”<sup>5058</sup>

Gaurko aldaera dermioa mendia izateari zor zaio, baina hitzaren etimologiak garbi adierazten digu **Motelarana** lehenago zabalagoa zela, eta gaina eta ospela ezezik, **Barranco de Lerbeltz**-en inguruak (harana) ere hartzen zituela bere baitan. Honenbestez esanik dago gure iritziz hitz honen bukaerako **-arana** hori **harana** besterik ez dela, eta **Juangarziarana** bezala (ikus sarrera hau) antroponimo baten gain eraikitako toponimoa dugula. Antroponimo hori **Motel** ‘motela’, ‘geldoa’ izengoitia da gure irudiki (cf. Goizuetako 1552ko *Joanes Arano alias motel*<sup>5059</sup>)

**Muelas** (alto de), (balsa de), (cruz de), (pozo de), (rincón de), (rinconada de):

**Muelas** [mwélaš] herri ondoko mendixka bati eta inguruko lurri esaten zaie. Izen honen jatorria **muela** ‘hagina’ erromantzean bilatu behar dela dirudi<sup>5060</sup>, izan ere mendikoak hagin baten itxura baitu.

Izena, erromantzea denagatik (cf. **Retuerta**) zaharra da (1611)<sup>5061</sup>, eta ez dirudi beste izen euskaldunago baten ordezkatzaileria izan denik. Hau ezin da erabat frogatu, mordoxka baitira zeri dagozkion ez dakigun mendi-izenak, **Mendigorria** adibidez. Azken hau, ‘mendi soila’-ren pareko bada, ez litzateke bat ere desegokia **Muelas** izendatzeko, honen gailur zabalean dagoen pinuditxo zaharra ez izaki.

5056 PRA-Kaparroso, 19. k.

5057 PRA-Oibar, 7. k.

5058 PRA-San Martin, 61. k.

5059 PRA-Arakil-Hiriberri, 5. k.

5060 **Muela** hauek oso zabalduak bide daude Penintsulan barrena. Uxueko toponimoa beti bukaeran -s duela aurkitzen dugu, eta Cascanten ere **Muelas** agertzen da (1891ko katastroan). Salamankan **Muelas** herria genuen izenez aldatu arte, kakofonia zela eta **Florida de Liébana** paratu bide baitzioten. Ikus A. Frago, “Problemas, métodos y enseñanzas de la toponimia”, *I. Jornadas de Onomástica/ I Onomastika Jardunaldiak* (1986), 211. or.

5061 PRA-Oibar, 13. k.

**Balsa de Muelas** 1694an azaltzen da lehen aldiz, eta egun ere onik eta osorik dago, gainaren ondoan, Murilloko errepidearen ezker aldean:

“ytten sobre una pieza cerrada junto a la valssa de muelas que afronta con el camino real...”<sup>5062</sup>

1802ko<sup>5063</sup> **Cruz de Muelas**-en arrastorik ez dago orain, ez eta oroitzapenik ere jendearen gogoan; **Portillo de Muelas**<sup>5064</sup> gaurregun ez da ibiltzen, baina badirudi aipatu Murilloko bideko portilu modukoa izan daitekeela. Duela urte batzuk arte uxue-tarrak urketa joaten ziren **Pozo de Muelas**<sup>5065</sup> idoian bertan zegoen (hondakinak oraindik ere bistan daude); **Rincón** edo **Rinconada de Muelas**-ek, azkenez, **Alto de Muelas**-en azpiko zokoa ematen du aditzera, **Rincón de los Cerrados** eta **Lakubeli**-ren artekoa<sup>5066</sup>.

### **Muga de Abaiz:**

**Txutxu**-tik **Eslabako** mugaraino luzatzen zen:

“...en el termino llamado chuchu...que afronta con la muga de Abaiz” (1632)<sup>5067</sup>

### **Muga de Aldamara:**

**Aldamara** aldeko Murilloko muga izan zitekeen 1698an azaltzen den hau, baina **Aldamara** eta **Zabalondoa**-ren artekoa ere bai:

“habiendo llegado al monte encinar de Cabalondoa bieron que avia cortados muchos encinos y en la endrecera que llaman la muga de Aldamara allaron...” (1698)<sup>5068</sup>

### **Muga de Beire:**

**Antzinako Beiremuga** edo **Mojón de Beire**-ren adierakidea da:

“ytten otra pi\* en la muga de byre” (1593)<sup>5069</sup>

### **Muga de Berageondoa y Lerbeltz:**

Ikus **Berageondoa** sarrera.

5062 IEA, 1345. kart., 5. zkia.

5063 PRA-San Martin, 70. k.

5064 Id., 86. k.

5065 Id., 2. k.

5066 UEA, 14. kap-lib., 340. or.

5067 PRA-Kaparroso, 57. k.

5068 PRA-San Martin, 7. k.

5069 PRA-Oibar, 7. k.

**Muga de Murillo, la:**

Aragoatik **Mostrakas**-eraino luzatzen da, **Aldamara**, **Bigas** eta **Larrageta**-n barrena. Ibai ondoko zatian **Barranco de Aldamara** da bi herriok bereizten dituen. Antzina **Santxotoria** genuen alderdi honetan (ikus sarrera hau).

**Muga de San Martín, la:**

Antzinako **Sanmartinmuga** edo **Mojón de San Martín**-en errankidea da. **Txutxu** (alto), **Ardui**, **Beskos** eta **Busa**-n barrena luzatzen da.

**Muga de Santacara, la:**

**Larrageta** eta **Mostrakas**-en barna hedatzen da.

**Mugas de Aguilar, las:**

1631ko<sup>5070</sup> **Mugas de Aguilar** toponimoak **Urkamendia** (gaurko **Alto del Guarro**, itxuraz. Ikus sarrera hau) eta **Aguilar**-en arteko muga izendatzen zuen.

**Mugazuria** (alto de), (barranco de), (caracierzo de), (carasol de), (llano de), (solano de):

**Muga** izena eta **zuria** izenondoa dira honen osagaiak<sup>5071</sup>. 1688ko **Mugazurieta**-k hemen ere beste batzuetan azaltzen den Ø / -eta aldizkatzea gertatzen zela erakusten du:

“Mas en Mugaçurieta en un orillo...” (1688)<sup>5072</sup>

**Mugazuria**-k [mugàθuría] (edo **Mazuria** [màθuría] laburtua batzuetan) harelere, ez du ia Galipentzurekin mugatzen, **Zaldunaga** eta **Aristuziaga** tartean sartzen baitira:

“mas arriba antes de llegar al Portillo de Larraintacomendia y Bal escura, en el dia llamado Mugazuria...se allo el Mojon diez” (1801)<sup>5073</sup>

Dena den, **Mugazuria** eta **Zaldunaga**-ren arteko harremanak eta banaketa nahikorik daude gaurregun, eta hau dela medio ez dugu argitasunik ateratzerik izan<sup>5074</sup>.

Beste aldetik, eta esan bezala, badirudi **Cuartochiguito** berriak lur puska bat kendu ziola **Mugazuria**-ri. Handiena izateari zor bide zaio lau “laurden”-ei **Cuatro Cuartos de Mugazuria** deitzea (ikus sarrera hau).

5070 PRA-Kaparroso, 34. k.

5071 Cf. Iruñearen eta Burlataren arteko muga aldean dagoen **Mugazuri** dermioa (**Mugazuria** da 1762an), gaur industriagune bilakatua. Ikus Jimeno Jurioren ETB, 80. or.

5072 PRA-San Martin, 5. k.

5073 PRA-Kaseda, 37. k.

5074 Nahasketa, beste batzuetan bezala, dermioa eta “corraliza” ongi ez bereizterik heldu da, alegia, “corraliza” bakarrean bi dermio (**Zaldunaga** eta **Mugazuria**) sartzetik.

1800eko **Alto de Mugazuria** egungo **Alto de Capaburros** berria da gure irudiko:

“Primeramente allandonos en el Altto que llaman de Mugazuria...a la Mano drecha queda el quartto que llaman de Astuziaga el qual llega hasta el Rio de Aragon, y el de la Yzquierda es el citado de Mugazuria”<sup>5075</sup>

**Carasol** (orain) edo **Solano** (dokumentazioan) de **Mugazuria Barranco de Zaldunaga**-n amaitzen den **Barranco de Mugazuria**-ren ondoko egutera da, eta **Caracierz** de **Mugazuria Zaldunaga** aldera doan **Camino de Gallipienzo**-ren alboko elutsa. **Llano de Mugazuria**, azkenik, altxonbideak zeharkatzen duen zabaldua dugu.

**Mugazuria**-k **Cuartochiguito**, **Carasolbajo**, **Aristuziaga**, **Zaldunaga** eta **Txorria** ditu mugakide.

**Mugazurieta**:

Ikus aurreko sarrera.

**Munos (torre de)**:

Izen honen etimologiaz ikus **-as / -az, -es / -ez...** atzizkiei eskaini atalean dioguna. Modu ezberdin frankotara aurkitzen dugu, baina denetan zaharrena eta arruntena **Munos** dela esan daiteke: **Munos** (1534<sup>5076</sup>, 1699<sup>5077</sup>, 1780<sup>5078</sup>, 1829<sup>5079</sup>4...), **Munus** (1606)<sup>5080</sup>, **Muñoz** (1628)<sup>5081</sup>, **Munus** (1733)<sup>5082</sup>, 1783<sup>5083</sup>.

**Munos** 1534ko Uxueko despoblaturen zerrendan agertzen da aurrenekoz; geroko erreferentziei esker badakigu **Santa María la Blanca**-ri hurren zegoela, erreka baten ondoan:

“una pieza...sita en el termino llamado Santa Maria la blanca o munos” (1711)<sup>5084</sup>

“Mas un corral pegante á Munos de la Sierra cerca de Santa Maria la Blanca” (1829)

1783ko **torre de Munos** edo **torre de Munus** despoblatuaren zaharkina zen<sup>5085</sup>:

“...en el terno de la sierra y parage que llaman la torre de Munus en siete tablas juntas....que afrontan...con la dha torre de Munos”

5075 PRA-San Martin, 69. k.

5076 NAO-Comptos, 550. zkia.

5077 PRA-San Martin, 8. k.

5078 Id., 54. k.

5079 Id., 86. k.

5080 PRA-Oibar, 12. k.

5081 PRA-Kaparroso, 33. k.

5082 PRA-San Martin, 34. k.

5083 Id., 56. k.

5084 Id., 29. k.

5085 Torre edo Torraza de Akirazabal, Torre de Basandia, Torre de Villantigua, Torraza de Mostreakas...ere baditugu. Haueratik bakarrik Akirazabal-eko La Torraza dugu bizirik orain.

**Munuzuleta:**

Honen etimologiaz ikus **-eta** atzizkiari eskaini atalean dioguna eta **Muñukukulua** eta **Muñurumeta** sarrerak. Behin bakarrik aurkitu dugu, 1603an:

“ytren una vina...en la endrecera llamada munuzuleta”<sup>5086</sup>

**Muñukukulua:**

Toponimo hau **Muñucuculua** da 1605ean<sup>5087</sup>, **Muñu cuculo** 1622an<sup>5088</sup>, eta **Mainu cucullo** 1670ean<sup>5089</sup>. Bukaerako **-culo**, **-culua** hori orain zulo edo zuloa idatziko genukeena dela kontu egin daiteke, batez ere ondoan **Munuzuleta** bezalako izen bat dugulako.

Dena dela, ez dugu sekulan **z-z** edo **ç-z** idatzirik aurkitu, eta 1670ean **-cullo**-dun aldaera dokumentatzen da. Guzti honek hemen **-kukulua** (< **cucullu** ‘cogollo’). Ikus Galipentzuko **Billakukuru** sarrera) dugula pentsarazten digu, alegia, **muñokukulua**, ‘mendikoa’, ‘muñoa’ edo horrelako zerbait dela.

Guztiarekin ere, aipatu **Munuzuleta** horretaz gainera **Munos** (**Munos**, **Munus**, **Muñoz** idatzia) despoblatu eta dermio-izena ere izateak aldaera guzti horien azpian **Munosko zuloa** edo dugula idarokitzen du. Gainera, **Muñukukulua La Sierra**-n zegoen, **Munos** bezala, itxuraz honetatik hurbil:

“ytem una viña en muñu Cuculo...afrentada con Camino Vezinal que ban a Sulue”  
(1622)

**Muñurmeta:**

Etimologia iluneko izena da hiru aldaera ezberdin (**Mumirumeta**, 1605<sup>5090</sup>, **Minurumeta**, 1628<sup>5091</sup>, **Muñurmeta**, 1629<sup>5092</sup>) aurkezten dituen hau. Badaiteke **Munuzuleta** bera izatea, baina kontua ez dago garbi. Ez dakigu non zegoen.

**Mutxurromendi:**

Hemen **mutxurro** eta **mendi** izenak ditugu. Lehen osagaiak **mutur** hitz arruntaren aldera adierazkorra ematen du, baina **tuturru**, **txutxurro**, **txutxurru**, **tutur** ‘punta’, ‘muturra’, ‘gailurra’, ‘mendi-erpina’, ‘hegazti-gailurra’ dugula ere pentsa daiteke<sup>5093</sup>, batik bat **txutxurro** eman adiera horiekin Uxue ondoko Lergan bizirik dagoela kontuan hartzen badugu. Beste alde, aipatutako aldaera guzti horiek loturik egon

5086 PRA-Oibar, 11. k.

5087 Id., 12. k.

5088 PRA-Kaparroso, 28. k.

5089 PRA-San Martin, 2. k.

5090 PRA-Oibar, 12. k.

5091 PRA-Kaparroso, 33. k.

5092 Id., 32. k.

5093 Cf. **Txurumurru** eta **Txurumurrutziki** mendi izenak Oiartzunen. *Oiartzun bailarako mapa*, Obie, 1988. Lehena Lesakako dermioa ere bada. Beran **Tunturro** agertzen da (Esparza, DTN, 197. eta 212. orr.). Cf., orobat, Baigorri aldeko **Tutulua** (u + a > ia) mendia (Orpustan, TB, 135. or.).

daitezke, alegia, izen beretik ateratakotzat jo daitezke, m- zenbait kontsonanteren bustidura adierazgarriaren ondorea izan baitaiteke:

“Hay, sin embargo, pruebas claras de que  $\xi$  ( $\xi$  en ciertos dialectos) es el resultado de la palatalización expresiva de varias consonantes, sobre todo en posición inicial, háyase o no pasado por *t'* como etapa intermedia”<sup>5094</sup>

Ziraukin **Muturromendi** azaltzen da 1283an<sup>5095</sup>, Etxalekun **Mutxúrro** dugu egun bizirik, eta Oskotzen 639,3 metroko gaina den **Mutxúrro** (mendiko bera?). Ibar bereko Goldaritzen **Ttutturru** deitzen zaio **Ollondo** dermioko tontorrari.

**Mutxurromendi** (**Muchurrimendi**, **Muchuromendi** 1711n<sup>5096</sup>, **Muchulumendi** 1714an<sup>5097</sup>) non zegoen ez dakigu, baina baliteke gaurko **Alto de Pena** (ikus sarrera hau), **Alto del Pulpito** edo **Capaburros** izatea, hauek duten itxurarengatik.

#### **Nava, val de:**

Izen honen adieraz ikus Eslabako **Nabarana**, Leatxeko **Nabeta** eta Galipentzuko **Melenas** sarrerak. Uxuen behin bakarrik aurkitu dugu, 1608an<sup>5098</sup>, eta ez dakigu non zegoen, ez eta benetan Uxueko leku-izena zen ere, egiaztatzerik izan ez dugulako.

#### **Nevera, la:**

Izen hau, **Gelera**, **Pozo de la Nieve**, **Pozo del hielo**... eta besteren esanahikidea da, eta elurra eta horma gordetzen den zuloa adierazten du. Uxuekoa estalita dago, baina jende helduak gogoan du oraindik **La Tahona** aurreko larrainean zegoela, errepi-dea igarota, **Turtunbera** aldera, oihezki.

Antzina “teilatua” ere bazuen, baina toki agerrian egoki eta, haizeak teilak mugitu eta euria botatzen zuenean ura sartzen zen, barruko elurra eta horma gesalduz:

“...a visto...la Nevera...para efecto de declarar el modo de componerla, a causa de que pr hallarse cubierta de texa y muy baja, y estramuros del Pueblo causan mucho daño los Aires remobiendolas de su puesto siguiendo q con lluvias entra agua y se desace el yelo” (1806)<sup>5099</sup>

#### **Nobeleta (barranco de):**

**Nobela** ‘ardantze berria’ izena eta -eta ditugu (ikus Agezako **Nobeleta** sarre-ran dioguna) hemen. 1602an<sup>5100</sup> **Nobeleta** ageri da, baina gero beti aldaera sinkopatua (**Nobleta**, alegia) dokumentatzen da (cf. Agezako toponimoa).

5094 FHV, 187. or.

5095 Lacarra, VM, 39. or.

5096 PRA-San Martin, 29. k., eta UEA, 13. kap-lib., 127. or., hurrenez hurren.

5097 PRA-San Martin, 30. k. Cf., bestalde, Agezako **Motxilu** kantoa-ren aldaerak.

5098 PRA-Oibar, 13. k.

5099 PRA-San Martin, 73. k.

5100 PRA-Oibar, 10. k.



**Nobeleta Lezkatzea, Busa, Otrollos, eta Mikelenzabal-en artean zegoen:**

“ytten...se les Proibe el termino de Aguilar como en el termino de lezcacea puedan acer leña en termino de Nobeleta entendiendose desde la cruzeta que llaman de el essne, asta los cubiertos de otrollos por el Barranco Barranco por el Amojonamiento de la reserva asta...Zaubio y de alli...arriba asta las Piezas de Joseph Sendoa de Miquirazabal y de alli...asta el passo de Busa y de alli a los cubiertos de Busa” (1748)<sup>5101</sup>

**Barranco de Nobeleta Barranco de Otrollos-en goiko aldea bide zen, seguru asko Barranco de Busa eta Barranco de Pipiratu elkartu ondoko zatia:**

“unas piezas en el termino de otrollos...con su corral cabana y era en medio de ellas, cubierto en la larraza...que afrontan con...Barranco concejil que llaman nobleta” (1736)<sup>5102</sup>

**Nuestra Señora (era de), (iglesia de), (olivar de), (pieza de), (viña de):**

Ardantzea, larraina eta olibadia Villantigua-n zeuden, **Pieza de la Virgen-en** inguruan (ikus **Madre de Dios** sarrera), errota berritik hurbil. **Pieza de Nuestra Señora Aldabea-n** zegoen, eta **Villantigua** eta **Txorria Aldabea-tzat** hartzen zirenez gero, badirudi egun **Pieza de la Virgen** deritzan alorrarekin identifikatzen ahal dela (ikus sarrera hau). Izenok lur hauek Elizaren jabego izatean dute oinarri:

“...en el termino q llaman la Aldavea...afrontada á otra que perttenece a la Yglesia Parroql de esta villa, y le llaman la pieza de Nra Señora” (1795)<sup>5103</sup>

**Iglesia de Nuestra Señora**, esan beharrik ez legoke, Uxueko gaztelu-elizada, beste modu batez **Nuestra Señora la Real de Ujué** deitu izan dena<sup>5104</sup>:

“Lino Salaberri Pro Beneficiado de la Yglesia parroquial de Nra Sra la Real de Uxue” (1851)<sup>5105</sup>

**Odia, la:**

**Hodi** izenaren adieraz ikus **Agezako Odialdea** sarrera. **La Sierra-n** zegoen, **Santa María la Blanca-tik** hurbil:

“Ms otra pieza en la Odia...q afrontta a...camino de Stta Maria la Blanca” (1771)<sup>5106</sup>

**Oliveta (pinar de), la:**

Esan dugunez (ikus **-eta** atzizkiari eskainitako atalean dioguna, eta **Ageza**, **Eslaba** eta **Galipentzuko Olibeta** sarrerak), **Oliveta-n** (ðliβéta) **Oliva-ko** monastegi famatuaren izena eta txikigarri erromantzea ditugu, ‘Oliva txikia’, alegia, itxuraz gure eskualdeko beste herri batzuetan aurkitzen dugun **olibo** ‘olibondo’-z eta **-eta** atzizkiaz osa-

5101 IEA, 1618. kart., 10. zkia.

5102 PRA-San Martin, 35. k.

5103 Id., 64. k.

5104 Eliza honen historiaz J. J. Urangaren UM ikus daiteke.

5105 PRA-San Martin, 64. k.

5106 Id., 50. k.

turik egon litekeenagatik. Izan ere, **Oliveta** aipatu monastegi horren jabetza izan zen (ikus **Castelmunio** sarreraren esandakoa):

“Et presentes adrant qui adierunt et viderunt omne hoc factum Roderico genero del alcalde, Lop pelitero, Lop filio de Lop Curia, Semeno filio de Lop d’Oliva, frater A. d’osqua, frater Eneco granger de Oliveta...” (1230)<sup>5107</sup>

“...quod damnus et concedimus bono animo et spontanea voluntate, quoddam sotieillum quod adiacet inter vineam de Oliveta eta fluminum quod vocatur Aragon” (1230)<sup>5108</sup>

La **Oliveta** Aragoa ugaldearen ondoan dago, Galipentzutik Murillora doan bidean, **Lerbeltz**-en, “Corral de la huerta” deritzanean. Gortearen jabeak esan zigunez, paretetan saindu-irudi batzuk daude pintatuak.

Eskualde honetan ler beltzak oso ugariak dira (esan moduan **La Oliveta Lerbeltz**-en barrukotzat jotzen da), eta ugaritasun horren ondorena da 1800ean aurkitzen dugun **Pinar de la Oliveta** izena:

“una pieza en el term de la Olibetta, y dentro del Pinar...que afronta pr la partte baja a Barranco conzegil qe llaman de Lezcairu...” (1800)<sup>5109</sup>

**Ollatu** (aldabea de), (barranco de), (fuente de), (linares de), (paso de), (rincón de):

Toponimo hau anitzetan eta anitzetara agertzen da (**Ollatio**, **Oliatio**, **Oliatu**, **Oliattu**...). Aldaera batutzat agiritan goizdanik azaltzen den eta gaurrengungo **Ullatu**-ren (lujátul) jatorrian dagoen **Ollatu** aukeratu dugu:

“...una viña...sita en el termino desta villa que llaman oliatu...teniente...al barranco y Camino de la fuente y Linares de dho termino” (1657)<sup>5110</sup>

Hasierako **olia**-, **olla**- horien azpian hortz-hobietako alboko apikaria eta bokal sabaikaria nahiz honen oso antzekoa den sabaiko albokoa egon daiteke (cf. **lieco** / **lleco** egungo egunean). Bukaerako -tio horren azpian [tɔ] bustia egon zitekeen; hemendik bustidura galdutakoan -to [to] aterako zen.

Bukaerako erdiko bokala jatorrizkoa izan daiteke, bera baita nagusi toponimo honen lehen agerraldietan, baina **Txutxu** > **Txutxo** edo **Laku** > **Lako**-n edireten dugun gertakariaren emaitza ere izan liteke, hots, zenbaitek “vocalismo romanizante” deitu izan dutenarena:

“...y un linar en ollatio debajo del guerto de M Unçiti...” (1598)<sup>5111</sup>

Hasierako **olla**- honek toponimo batzuetan agertzen den **ollo**-, **olla**- osagaia dakarkigu burutara (cf. Itza zendeko **Lete** herrikoj855 **Olladi**, **Olladialdea** edo **Ollariko artadia**<sup>5112</sup>). Bukaerako -tio (edo honen azpian egon daitekeen -tto) edo -tu hori zer

5107 Munita, 61. or.

5108 Id.

5109 PRA-San Martin, 69. k.

5110 UEA, 14. kap-lib., 9. or.

5111 IEA, 225. kart., 5. zkia.

5112 J. M. Jimeno Jurfo, TCPCL, 231-232. orr.

den ez dakigu (ba al du txikigarriarekin zerikusirik?), baina Uxueko **Pipiratu** (< **Bipe-ratu**), **Zabartu** eta besteren bukaeraz oroitarazten gaitu<sup>5113</sup>.

**Ollatu Aliaga** ondoan dago, **Dorrondiaga** eta **Carasolbajo**-ren artean. 1768ko lekukoak erakusten duenez, lehen **Aldabea**-tzat hartua zen:

“(una pieza?)...en aldabea terno de Oliatu”<sup>5114</sup>

**Barranco de Ollatu** gorago **Barranco de Aliaga** eta beheago **Barranco de Dorrondiaga** deitzen den erreka dugu; **Fuente de Ollatu** (1657)<sup>5115</sup> ezezaguna da orain. Erreka gainditzeko **Paso de Ollatu** dokumentazioan aurkitu ez arren, bizirik dago eta osasun onez. Honetaz landara, **Ollatu** eta **Dorrondiaga**-ren artean **Paso de Garate** dugu, erreka berean, beheitixeago, P. Garateren gortera iritsi aitzinxeago. Dokumentaziozko **Rincón de Ollatu** (1729)<sup>5116</sup> gaurko **Carasolbajo**-ko **Rincón de Capaburros** da.

### Opelamendi:

XVII. mendean o-z hasten diren aldaerak ditugu, eta XIX.ean a-z hasten direnak. Kasu hauetan garbi dago fidagarrienak, eta beraz toponimoaren etorkia (hau dena den) zehazkien islatzen dutenak, lekuko zaharrak direla:

“...y la terçera en la endreçera llamada aldabea de dos Robadas u opelamendi” (1603)<sup>5117</sup>

Etimologiari dagokionez, **mendia** osagaia argia da, baina ez hasierako **Opel-hori**.

**Aldabea**-ko gain bat adierazten zuen; zein, ordea, ez dakigu (**Muelas?**, **Alto de Santa Cruz?**):

“Mas otra pieza en el termino llamado Apelamendi junto al lugar...” (1849)<sup>5118</sup>

### Ormaizkieta:

Honen etimologiaren gainean ikus **-eta** atzizkiari eskaini atalean dioguna. Dokumentazioan hiru aldiz ediren dugu:

“otra pieca...en ormaizquieta” (1604)<sup>5119</sup>

“Ms quatro pedazos de piezas...en el terno de Orbizquetra, ô Carasol de Villantigua, afronttan...por abajo...al camino del molino” (1780)

Azken aipuan ikusten den gisa, **Ormaizkieta Carasol** edo **Solano de Villantigua**-n zegoen. Hau zehazki zein zen, ordea, ez dakigu: **Carasol de Turtunbera**-ren

5113 Ikus AV, 53. or.

5114 PRA-San Martin, 48. k.

5115 UEA, 14. kap-lib., 9. or.

5116 PRA-San Martin, 33. k.

5117 PRA-Oibar, 11. k.

5118 Uxueko hipotekak, 180. lib., 46. or.

5119 PRA-Oibar, 11. k.

beheko aldea izan zitekeen, baina **Barranco de Villantigua** oraingo **Barranco del Molino** eta **Paso de Villantigua** egungo **Paso del Molino** zirenez, uste izatekoa da **Carasol de Villantigua** errotako (alegia, Aragoa ugaldoko errotako) bidearen ingurua zela, egun **Carasolalto** deitu eguzkialdearen beheko aldea.

Guztiarekin ere, 1771ko agiri batean **Carasol de Villantigua Aldabea de San Miguel**-en zegoela esaten zaigu (ikus **San Miguel** sarrera), eta beraz baliteke aipatu egutera hori, hemen aztergai dugun **Ormaizkieta** bezalaxe, **Turtunbera**-n egotea, nahiz guk ez dugun horrela uste.

**Osinaga:**

Ikus **Camino de Osinaga** sarrera.

**Otrollos (barranco de), (cubiertos de):**

**Otrollos** ilunaren inguruan ikus **-as / -az, -es / -ez...** bukaerez mintzatzean dioguna. Toponimo honen tarteko **-tr-** multzoak ez du euskal itxura handirik (cf. **Mostrakas**). Bestalde, hasierako **otro-** hori aztergai dugun honen ondoko **Otroperitzu** lekuzenean errepikatzen dela dirudi.

Gaurko **Otrollos** [otrólɔs] bakarraren barruan bi **Otrollos** genituen antzina, lekutu diren bertako edo inguruko beste izenez (**Beiremuga, Juangarziarana, Mike-lenzabal, Nobeleta...**) landara: **Otrollosandi** eta **Otrollostxiki**. Noiz edo noiz, halaz ere, **Otrollos** hutsa ere opatzen dugu:

“y mas una pieça...en otrollos” (1603)<sup>5120</sup>

**Otrollosandi** Uxueko despoblatuen zerrendan<sup>5121</sup> **Otrollos el grande** da, eta **Otrollotxiki Otrollos el Chico**, baina geroko dokumentazioan ia beti (1620an berriz ere **Otrollos grande** dugu<sup>5122</sup>) aipatu **Otrollosandi** eta **Otrollostxiki** (ch-ez eta c-z idatzia, noski) aurkitzen ditugu, eta garbi dago 1534ko horiek itzulpen hutsak direla, ez uxuetarek ibiltzen zituzten aldakiak.

**Otrollosandi** Uxue eta Pitillasen dermio komuna zen:

“En el termino de otrollos Andi comun de las villas de Uxue y Pitillas” (1738)<sup>5123</sup>

1764ko lekukoari esker badakigu **Barranco de Zaubio**-ren inguruko **Pitillasko** muga aldea zela:

“una pieza en el termino de otrollos Andi que confina con el Varranco que baja de Zaubio” (1764)<sup>5124</sup>

5120 Id.

5121 NAO-Comptos, 550. zkia.

5122 PRA-Kaparroso, 27. k.: “tres piezas sitas en el termino de otrollos grande”.

5123 PRA-San Martin, 36. k.

5124 Id., 46. k.

Badakigu, berebat, **larratza** ere bazela bertan, **Busa-n**, **Drinda-n** eta bestetan bezala:

“...en la larraza de Otrollosandi...” (1691)<sup>5123</sup>

**Otrollostxiki Camino de Pitillas-en** ondoko zatia zen, **Busa (Otroperitzu)**, **Mikelenzabal** eta **Nobeleta-ren** mugakoa<sup>5126</sup>, eta **Barranco de Otrollostxiki gaur Barranco de Otrollos** deitzen denaren erdiko zatia ziurrenik, goikoa **Barranco de Nobeleta** baitzen, eta behekoa, **\*Barranco de Otrollosandi**, antza (ez dugu dokumentazioan aurkitu).

Hortaz, eta laburtuz, **Otrollostxiki gaurko Otrollos-en** goiko (iparraldeko) aldea zen, eta **Otrollosandi** behekoa, **Pitillasko** mugako zatia<sup>5127</sup>:

“una pieza en otrollos Chiqui que afrenta a Camino que va a Pitillas” (1686)<sup>5128</sup>

“Ms otra (pieza)...en el terno de otrollos chiqui, que afrontta con la larraza y a piezas...q llaman la pieza de la peña” (1780)<sup>5129</sup>

**Otrollos grande**, **Otrollos pequeño**, **Otrollosandi (larratza de)**, **Otrollostxiki (barranco de)**, **(larratza de)**:

Ikus aurreko sarrera.

**Otroperitzu:**

Orain galdua den leku-izen hau modu ezberdin askotara azaltzen da dokumentazioan, formarik arruntena **Otropeizu** delarik: **Otropuyçu** (1593)<sup>5130</sup>, **Otropeyz** (1628)<sup>5131</sup>, **Otropeizu** (1680)<sup>5132</sup>, 1702<sup>5133</sup>, 1800<sup>5134</sup>), **Otroperizu** (1690)<sup>5135</sup>, 1705)<sup>5136</sup>, **Otropeichu** (1733)<sup>5137</sup>...

**Otropeizu** beste batzuetako **Otroperizu-tik** atera dela dirudi, eta 1733ko **Otropeichu-rekin** zuzenki lotua dagoela. Hiru aldaera hauek ikusita jatorrizko forma **Otroperitzu** zela ondorioztatu dugu. Hasierako **otro-** hori zer den ez dakigu, baina honen alboan zegoen **Otrollos-en** ere ageri dateke, gorago esan bezala. Bukaerako **-pe-**

5125 Id., 6. k.

5126 **Camino de Beire-ren** ondoan, **El Chaparrero-n** badira dorre edo “torraza” baten aztarnak, eta ez dakigu behinolako **Otrollostxiki** despoblatuaren zaharकिनak ez ote diren.

5127 Dermioaren bi alderdi ezberdin ezagutzera emateko toponimo ber bati **handi / txiki** izenondoak eranstea ez da gauza bitxia euskaraz. Adibidez **Arruazun Mutioa** dugu 1893ko katastroan eta **Mutio andia / Mutiochiquia** 1915ekoan. Ikus, gainera, **Lerbeltz** sarreran esan duguna.

5128 PRA-San Martin, 5. k.

5129 Id., 54. k.

5130 PRA-Oibar, 7. k.

5131 PRA-Kaparroso, 31. k.

5132 PRA-San Martin, 4. k.

5133 Id., 8. k.

5134 Id., 69. k.

5135 UEA, 13. kap-lib., 46. or.

5136 Id., 83. or.

5137 PRA-San Martin, 34. k.

ritzu ere iluna da guretzat. Toponimo honen lehen agerraldiko **Otropuyçu**-n **-putzu** dugula kontu egin liteke, baina honela balitz ez genekiko geroko lekuko gutzietan agertzen den tarteko **-i-** hori nola azaldu.

Amaierako **-tzu** hori txistukari baten eta **-zu** ugaritasunezko atzizkiaren el-karketaren ondorena izan daiteke (cf. **Otazu** < **ote** + **zu**, baina **Zuhatzu** < **zuha(i)tz** + **zu**), baina zerena? \***Otroperi(t)z** + **zu**-rena agian? (cf. 1628ko **Otropeyz** aldaera).

Nolanahi ere den, badakigu **Camino de Beire**-ren ondoan zegoela:

“otra (pieza)...en el termino llamado otroperizu...afrenta con camino que pasan a Beire” (1705)<sup>5138</sup>

**Otrollos(txiki)**-ren alboan edo barruan:

“una pieza...sitta en el term de otropeizu, û, otrollos” (1800)<sup>5139</sup>

eta iparraldetik San Martingo mugaraino hedatzen zela:

“la una (pieza) en el termino que dicen otropeizu que afronta a pieza del dicho Martin Jurio y muga de S Martin de Unx” (1702)<sup>5140</sup>

Badakigu, orobat, **Pitillasko** bideak bertatik edo ondotik igarotzen zirela (ikus **Caminos de Pitillas** sarrera).

**Otsalarraña:**

**Otso**-ren elkarketako aldaera den **otsa-** eta **larraina** izenez osaturik dago (ikus Agezako **Otsazuloa** sarreran dioguna). Esan dugunez, erdal jatorria duen **Lopera**-ren baliokide euskalduna zatekeen hau (ikus **Lopera** sarrera), **Otsalarraña** ere Uxueko auzo bat baitzen, **Lopera** eta pare-parekoa bide den **Pirolarraña** (ikus sarrera hau) bezala:

“yten una hera q la dca Cassa tiene en ossa laraña, que afronta con la hera de Juanes de jcura y camino real” (1628)<sup>5141</sup>

**Palacio (pieza de), el:**

**El Palacio** Uxueko etxe bat zen, eta **Pieza del Palacio** etxe honek **Aldabea**-n (zeinetan?) zuen alorra. **Palacio** oikonomoa oso arrunta da, eta herri askotan agertzen da:

“una Cassa que el dho Graçian Sendoa vendio a la dha de Uxue en la misma villa dha el palacio” (1622)<sup>5142</sup>

5138 UEA, 13. kap-lib., 83. or.

5139 PRA-San Martin, 69. k.

5140 Id., 8. k.

5141 PRA-Kaparroso, 31. k.

5142 Id., 28. k.

Uxuen **Dorreberria** edo **La Torre nueva** eta **Etxeandiet**a (ikus sarrera hauek) ditugu, eta daitekeena da denek eraikuntza bera aditzera ematea, nahiz honen frogarik ez dugun.

**Pasadizo:**

Uxuen pasagune (edo Eslabako izena erabiliz, "pa(t)xape") bat baino gehiago dago, baina denek izen berria dute, gehienetan hurbilen zuten etxearen jabearen izena edo deitura hartzen baitzuten: **Pasadizo de Bartolo** (bi plazen artean), **Pasadizo de Tomás**, **Pasadizo de la Sixta**, **Pasadizo de Zubiri**, **Pasadizo de Osta**, **Pasadizo de la Iglesia**...

**Paso de Carraña, el:**

**Barranco de Erlosiana**-n dago, **Zapaiz**-en dagoen "Corral de Cayo"-tik hurbil. **Carraña** herriko familia baten goitizena da.

**Paso de Garate, el:**

**Barranco de Ollatu**-n dago, **Dorrondiaga**-tik hurbil, **Pedro Garateren** gortetik kilometro erdi batera edo.

**Paso de los Tres Nogales, el:**

**Txorria**-n zegoen, bertako lihatzeen ondoan:

"un linarcico en el paso de los tres nogales en chorria" (1702)<sup>5143</sup>

Gaurregun **Paso de las Pilas** (lehengo **Paso de Galaputzu**. Ikus **Galaputzu** sarrera) eta **Paso del Molino** ditugu, **Txorria**-ren bi muturretan, eta hauetako edozein izan zitekeen 1702ko agirian aipatzen den hori.

**Paso del Olmo, el:**

**Barranco de Otrillos**-en dago, **El Salobral** ondoan, Beire aldera doan bidezka batean. Izenak orain urte mordoxka bertan zegoen zugarrean du oinarri. Pausuaren ondoko alorrari **La Pieza del Olmo** deritza.

**Patio, calle del:**

Ikus **Patio del Juego de Pelota** sarrera.

**Patio de Porta, el:**

Ikus **hurrengo sarrera**.

---

5143 PRA-San Martin, 8. k.

**Patio del Juego de Pelota, el;**

**Juego de Pelota** eta **el Rebote**-k bezala (ikus Leatxeko **El Rebote** sarrera) lehengo pelota-joku edo frontoi zaharra izendatzen zuen. "Patio" hau **Plaza mayor** ondoan zegoen:

"un huerto tocante a la dicha casa...que afronta a calles publicas y a la Plaza Mayor de dicha villa y patio que se juega a la pelota y huerta de ered. de anton Sendoa" (1701)<sup>5144</sup>

1957-1958an zinea eraiki zen arte **Patio de Porta**<sup>5145</sup> zeritzana zen aztergai dugun hau, **Calle de la Rúa** eta **Plaza Mayor**-en artean zegoena.

**Peña de los Huevos, la:**

Haitz hau ezaguna da Uxuen, baina egon Galipentzuko lurretan dago, Uxueko mugan berean (ikus Galipentzu).

**Peña grande, barranco de la:**

Oraingo **Barranco de Lakumulatu**-ren adierakidea zen (ikus **Aizketa** eta **Lakumulatu** sarrerak).

**Petringesala:**

Egun galdurik dagoen hau modu ezberdin anitzetara dokumentatzen da, baina XVI. mendeko **Petringesala** aldaera gardena da, eta gure irudiz toki-izen honen jatorria garbi islatzen du:

"ytten mas una landa yplantado en petringesala" (1588)<sup>5146</sup>

Osagaiak **Petrin** (< **Petriren**; Cf. **Mikelenzabal**) eta **gesala** (ikus Agezako **Gesaliturria** eta **Gezari** sarrerak) dira. -Ea-z akitutako aldakiak (**Petringasalea** 1690<sup>5147</sup> eta 1791n<sup>5148</sup>; **Petrincasalea** 1725ean<sup>5149</sup>...) inesiboa gaizki zatikatzearen ondorena dirateke. Metatesia nozitutako aldaerak ere ez dira gutxi (**Pretinga sala** dugu 1679an<sup>5150</sup>, **Pretinga salea** 1690ean<sup>5151</sup> eta **Pretincasalea** 1708an<sup>5152</sup>), baina ikusten den moduan berandu samar azaltzen dira. **Petri** izena, bestalde, ezaguna da gure alderdian (cf. **Jaun Done Petri Lergan**) eta beste makina bat tokitan. Genitibo laburtua, bere aldetik, egungo egunean ere hizkera azkar eta arduragabe koan ohizkoa den aldakia dukegu.

**Petringesala Busa-n zegoen, Camino de Pitillas-en aldamenean:**

5144 Id., 8. k.

5145 **Porta** herriko etxe baten izena zen.

5146 PRA-Oibar, 4. k.

5147 UEA, 14. kap-lib., 273. or.

5148 PRA-San Martin, 61. k.

5149 UEA, 14. kap-lib., 331. or.

5150 PRA-San Martin, 3. k.

5151 UEA, 14. kap-lib., 273. or.

5152 PRA-San Martin, 29. k.



“una pieza...en el termino de Busa, y parte qe llaman Petringasalea, afrontada pr la parte vaja con...camino qe va de Busa a Pitillas” (1791)<sup>5153</sup>

Baliteke gaurko **El Salobral** eta dokumentazioko **Petringesala** edo **Pieza del Gesal** (ikus azken sarrera hau) bat eta bera izatea, **El Salobral Otrollo**-en baitago, **Busa** ondoan.

**Piedra de las Brujas, la:**

**Camino de Murillo**-n, **Balsa de Muelas** eta **Balsa de Santa Cruz**-en artean dagoen harlauza naturala da. Hemen, tradizioak dioenez, sorginak gauz dantzan egitera etortzen ziren.

**Pieza:**

Asko dira izen berezia (gehienetan berria) duten alorrak. Honako hauek aipa daitezke, besteak beste: **Pieza de la Higuera** (**Aldamara**), **Pieza de la Muga** (**Aldamara**), **Pieza de las Maderas** (**Lerbeltz**), **Pieza del Cantinero** (**Aldamara**), **Pieza del Carrasco** (**Erlosiana**), **Pieza del Molino** (errotaren eta **Pieza de la Virgen**-en artean), **Pieza del Tempranillo** (**Carasolbajo**), **Pieza larga** (**Erlosiana**)...

**Pieza de la Peña, la:**

Bi **Pieza de la Peña** ezberdin zeuden Uxuen: bata **Otrollostxiki**-n (1780)<sup>5154</sup>, bestea (1725)<sup>5155</sup> herri ondoan, **Carasol de Aitzandiet**a-n, **Camino de la Fuente** eta **Camino del Puente de la Sierra** bereizten diren tokian, **Gurutzezabala**-n. Alderdi honetan haitz handia dago (ikus **Barrio de la Peña** sarrera), eta badirudi toponimo honek (**Aitzandia** edo **Aitzandiet**a-k berak bezala) aipatu haitz horrekin duela zer ikusia.

**Pieza de la Virgen, la:**

**Pozo de las Aguas**-en parean dago, errota ondoko eguzkialdean (ikus **Madre de Dios** eta **Nuestra Señora** sarrerak).

**Pieza de los Curas, la:**

**Apeztegi**alorra edo **Pieza de los Clérigos**-en adierakidea da:

“Mas una pieza, llamada de los curas...que afronta al Barranco conzegil, y camino que se vá al Río” (1825)<sup>5156</sup>

**Pieza de los Pinos, la:**

**Ardui**-n zegoen, **Retuerta**-tik hurbil:

---

5153 Id., 61. k.

5154 Id., 54. k.

5155 Id., 32. k.

5156 Id., 84. k.

“Ms otra (pieza) en dho termino (Ardui-n) llamada la de los pinos que afrontta a...camino de Retuertta” (1771)<sup>5157</sup>

**Pieza del Ginebro, la:**

Egun ezezaguna da, baina badakigu **Astabidea-n** zegoela (1694)<sup>5158</sup>.

**Pieza del Olmo, la:**

Ikus **Paso del Olmo** sarrera.

**Pieza del Pino, la:**

Ez dakigu non zen 1847an ageri den hau<sup>5159</sup> (cf. **Pieza de los Pinos**).

**Pieza Prioral, la:**

**Aldabea de Aitzandieta-ko** oraingo **Pieza del Prior** bera genuen:

“yten una pieza...en aldabea devaxo la pieza prioral” (1717)<sup>5160</sup>

1723ko lekukotasunekoa, ordea, lehengo **Balsa vieja-ren** inguruan zegoela dirudi:

“Mas una pieza de quatro Rovadas devajo la pieza prioral en la parte que llaman devajo la balsa...”<sup>5161</sup>

**Pikarana (corraliza de), (millar de):**

1800. urteaz geroztik Pitillasena bakarrarena den dermio hau Uxuerena ere izan zen, urte horretan bi herriok lur komunak banatu arte (ikus **Cinco Millares** sarrera).

Osagaiak **pika** ‘malda zuta’<sup>5162</sup> eta **harana** dira, eta egon ere aldapa handia dago bertan, eta haran modukoa ere bai, beheko aldean. “Corraliza” ere izan zen:

“...que junta con la corraliza de picarana...bajando acia el barranco de santacaramuru...” (1622)<sup>5163</sup>

5157 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 50. k.

5158 PRA-San Martin, 7. k.

5159 PRA-Kaseda, 57. k.

5160 PRA-San Martin, 31. k.

5161 Id., 31. k.

5162 Mitxelena (AV, 146. or.) honela dio **piko** ‘pikua’, ‘pikuondoa’-ren eratorriak izan daitezkeen **Pikabea**, **Pikamendi**, **Pikarte**...eta beste: “tanto *pika*- como *-ika* podrían representar también a *ika*, *ik(b)e*, *pika* «cuesta muy pendiente»”. **Pika**, **mika** hegazti-izena ere izan genezake izen hauetan, baina guk behintzat ez dugu sekulan toponimian aurkitu, Uxuen eta inguruetan aipatu hegaztiak oso ugariak izan arren. Goldaratzan adieraz tautologikoa den **Pikaldápa** dugu bizirik.

5163 PRA-Kaparroso, 28. k.

**Pilas, alto de las; caracierz de las:**

**Aldamara**-n dago, Murilloko mugan, herri honetan **Mendi** deitzen bide dutenaren ondoan.

**Pilas, fuente de las; paso de las; portillo de las:**

**Pilas** izena bertan **pila** 'aska', 'harrizko aska' batzuk izateari zor zaio. Hiruetan zaharrena **Galaputzu**-n dagoen **Fuente de las Pilas** da, eta hemendik atera bide dira bertara joateko igaro beharreko **Turtunbera**-ko **Portillo de las Pilas**, eta iturriaren ondoan, **Mantxiriturrieta**-tik jaisten den errekek eta altxonbideak elkar gurutzatzen duten guneko **Paso de las Pilas**.

**Pinar (barranco de), el:**

Uxuen pinudi bat baino gehiago egon da eta dago. 1730ean azaltzen denak ez du zer ikusirik oraingo **El Pinar** izeneko dermioarekin, ez **La Sierra** edo **Aldamara**-n dauden lerdiekin, ez eta herri ondoko **Ardui**-koarekin ere:

"una pieza, en el termino de chuchu Junto al pinar"<sup>5164</sup>

Oraingo **El Pinar** pinuz mukurua dagoen **Caracierz de los Berros**, **Santakaramuru**, **Mostrakas**, **Bigas** eta **Aldamara**-ren arteko eremu menditsua da. Auzo duen **Pinar de Aldamara**-tik bereizi behar da.

**El Pinar** neurri batez bat dator atzenekoetan dagoen **Zabalondoa**-rekin, baina ez dakigu zehazki zein toponimo ordezkatu dituen. Oraingo **Barranco del Pinar** lehengo **Barranco de Zabalondoa** bera da.

**Pinar, monte demarcado del:**

**Mendi** hau isun-lurra zen, eta ezin bide zitekeen egurrik egin bertan:

"una pieza...en el termino de Lervez y dentro del Monte demarcado, que llaman del Pinar" (1820)<sup>5165</sup>

Ikusten denez, pinudia **Lerbeltz**-en zegoen (ikus **Lerbeltz** sarrera).

**Pipiratu (llano de), (monte de), (rincón de), (sarría de):**

Etimologia iluneko izena da hau. Baliteke 1534ko<sup>5166</sup> lekukoaren hasierako **biper**- hori **pipir**<sup>5167</sup> izen arrunta izatea (cf. **Dipulatzea** edo **Tipulatzea** gure eskualdeko herri batzuetan, **Txindilatzea** Morionesen), baina hau ez da segurua.

5164 PRA-San Martin, 33. k.

5165 Id., 82. k.

5166 NAO-Comptos, 550. zkia.

5167 **Piparra** [pipáŕa] 'pipermin handia' esaten da gaur egunean Uxuen.

Beste aldetik, aditz-partizipio itxura duela ezin daiteke uka (cf. Eslabako **Xaugizabal**, Morionesko **Jaugia**, Uxuen hain ugaria zen **sarría** izen arrunt orain toponimo bilakatua...<sup>5168</sup>), baina ez dakigu, horrela bada, zerekin erlazionatu behar den.

Toki-izen hau, **Viperatu** itxuraz, 1534ko despoblatuen zerrendan aurkitu dugu bakarrik. 1602an **Piperatu** da, asimilazioz, 1603an **Pipiratu**<sup>5169</sup>, eta hortik aurrera beti aldaera hori edireten dugu, gaurregun arte ([pìpirátu] ebakitzen da).

**Pipiratu** esan bezala despoblatua zen, eta guk horren aztarnarik aurkitu ez badugu ere, uste izatekoa da azterketa sakonago batek antzinako herrixka horren zahar-kinak aise aurkituko lituzkeela gaurko **Pipiratu**-n. **La Sierra**-ko mendebaldeko isurian dago, **Urteaga**, **Santa Fe**, **Akirazabal**, **Busa** eta **Otrollos (Zaubio?)**-en artean. **Carretera de la Sierra** eta altxonbideak **Basandia**-tik bereizten dute.

**Llano de Pipiratu** (1786)<sup>5170</sup> orain **La Tostonera** deritzan xelaittoa izan daiteke; **Monte de Pipiratu** (1618)<sup>5171</sup> edo **Sarría de Pipiratu** (1602)<sup>5172</sup> Urangaren arabera XIX. mendearen hasieran (1817an) labakitu zen dermio honen oihanaldea dateke<sup>5173</sup> (bertan oraindik ere bada zuhaiztia, hariztia); **Rincón de Pipiratu** (1815)<sup>5174</sup> alderdiko zein zokori esaten zitzaion ez dakigu.

**Pirolarraña (barrio de), (calle de), (placeta de), (plazuela de):**

Gaurko **La Pilarraña** [lápilaráña] auzo-izena modu anitzetara agertzen da idatzia dokumentazioan, baina beste leku-izen frankorekin agitzen den antzera, oinarri beraren aldaketa xumeak baizik ez dira gehienetan. Aldakirik zaharrena **Pirolarraña** da:

“...en la endrecera llamada pirolarrayña” (1602)<sup>5175</sup>

“una cassa...en el barrio llamado piro larraña” (1630)<sup>5176</sup>

5168 Mitxelena, **Tirapu / Biriatu** bikotea aztertzen ari delarik (“Toponimia, léxico y gramática”, PT, 141-167. orr.), honela dio:

“Ante un nombre vasco en *-tu* se piensa en un participio, pero, dejando a un lado algún caso claro como *Igartu(a)*, *-iartu* (con otra terminación, acaso *Ibeni* o *Igoa*, etc.), es un hecho que no se dejan explicar cómodamente de esta manera”.

5169 PRA-Oibar, 11. k.

5170 PRA-San Martin, 57. k.

5171 PRA-Kaparroso, 21. k.

5172 PRA-Oibar, 10. k.

5173 UM, 81. or.

5174 PRA-San Martin, 79. k.

5175 PRA-Oibar, 10. k.

5176 Kaparroso, 33. k.

Geroko **Pelolarraña** (1634)<sup>5177</sup>, **piolarraña** (1635)<sup>5178</sup>, **Piollarraña** (1672)<sup>5179</sup>, **Piro laraña** (1696)<sup>5180</sup>, **Pilolarraña** (1724)<sup>5181</sup>, **Pilalarraña** (1767)<sup>5182</sup>, **Pi-ularraña** (1779)<sup>5183</sup>... eta abar honen aldaerak besterik ez dira.

Gaurko aldakia 1733rako ageri da, eta XIX. mendean forma bakarra izango da, batzuetan metatesia jasaten badu ere:

“...que afronta con casa de Marn Nicolay Chusa y calle Publica que llaman Pilarraña” (1733)<sup>5184</sup>

Oraingo aldaera horren sorburutako 1767ko **pilalarraña** har daiteke, hemendik haplologiak **Pilarraña** erraz asko atera baitzitekeen. **Pilalarraña**-ren oinarrian, besalde, aldaera batutzat aukeratu dugun **Piolarraña**-tik irten den **\*Piralarraña** bat da goela pentsatu behar da.

Toponimo honen osagaiak **Piro** ‘ahatea’ eta **larraina** izan daitezke, gorago esan gisan, nahiz **piro** gure alderdian beste inon aurkitu ez dugun. Dena den, etimologia hau oso erakargarria da, orainsu arte piroak Uxuen, beste herrietan bezala, arruntak izan baitira, eta **Piolarraña**-ren ondoan **Lopera**-ren baliokide zehatza dirudien **Otsalarraña** baigutu, hau da, animalia-izen baten gain (antroponimoa ere izan liteke baina) taiututako toponimoa. Guztiarekin, **Pero** antroponimoaren aldaera batez ere pentsa daiteke. **Larraina**, gure ustez, **Piolarraña**-n dagoen plazatxoan zegoen.

1829an agertzen den **placeta de pilarraña**<sup>5185</sup> 1862ko **plazuela de pilarraña**<sup>5186</sup> bera da, hau da, aipatu larraina zegokeen tokia. Esan dugun bezala, **Placeta de los Olmos**-en errankidea izan zitekeen (ikus sarrera hau). Gaurregun oso arraroa litzateke plazatxo honi **placeta** deitzea, orain **placeta** bakarra eliz ondoko **La Placeta** baita. XIX. mendean, alabaina, izen hau ihartu gabe zegoen, eta izen arruntzat ibiltzen ahal zen, ‘plazatxoa’ adieraz.

**Piolarraña Barallas** eta **Lopera**-ren artean dago, udal plazara doan **La Rúa**-ren bukaeran. Bertatik igarotzen da **San Miguel**-etik **Billeta**-raino doan **Calle larga** izeneko karrika (ikus sarrera hau).

**Placeta, la:**

Aurreko sarreraren esan moduan, **La Placeta** egun elizaren ondoko plaza baizik ez da. Antzina, ordea, izen arrunta zen, gaurko **plaza** edo bezala.

5177 IEA, 345. kart., 13. zkia.

5178 PRA-Kaparroso, 57. k.

5179 UEA, 13. kap-lib., 168. or.

5180 Id., 283. or.

5181 PRA-San Martin, 32. k.

5182 Id., 48. k.

5183 Id., 54. k.

5184 Id., 34. k.

5185 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 15. or.

5186 Id., 133. or.

**Placeta de los Olmos, la:**

Ez dakigu zein plazatxo zen hau. Testuingurua ikusita baliteke **Pirolarraña**-koa izatea, hemendik, **Calle de la Rúa**-n barrena, udal plazara joan baitaiteke:

“...fueron por las calles a la plazeta de los olmos y de alli por otra calle binieron a la placeta de la cassa de la villa” (1630)<sup>5187</sup>

**Plaza (barrio de), la:**

1603an azaltzen den hau **Plaza mayor** edo **Plaza pequeña** zen ez dakigu, baina egun la **Plaza** hutsaz plaza nagusia eman ohi da aditzera, eta daitekeena da orain laurehun urte ohitura bera izatea:

“un patio y pedaço de cassa...en la endrecera llamada laplaza que afrenta con...la torre dyCura”<sup>5188</sup>

**Barrio de la Plaza** (1798)<sup>5189</sup>, hortaz, plaza nagusiaren inguruko etxeek osatuko zuten, eta beharbada **Barrio de medios**-en baliakidea zen (ikus, dena den, **Plazas** sarrera).

**Plaza chica, la:**

1711ko toponimo hau<sup>5190</sup> beste batzuetako **Plaza menor** edo **Plaza pequeña** da.

**Plaza de la Fruta:**

Ez dakigu oraingo zein plaza zen. Berran fruta saltzen zelako deituko zioten honela (1752)<sup>5191</sup>.

**Plaza de la Iglesia:**

Dokumentazioko **Plazuela de la Iglesia** bera da. Egund eskuarki **Placeta** deitu ohi zaio.

**Plaza grande, la:**

Beste gisaz **Plaza mayor** deitzen zaio:

“una cassa...en la plaça llamada la plaça grande” (1633)<sup>5192</sup>

**Plaza mayor, la:**

Aurreko bera da:

5187 PRA-Kaparroso, 33. k.

5188 PRA-Oibar, 11. k.

5189 PRA-San Martin, 67. k.

5190 UEA, 13. kap-lib., 127. or.

5191 PRA-San Martin, 41. k.

5192 PRA-Kaparroso, 57. k.

“una cassa...sita en la endrecera llamda Plaça mayor” (1601)<sup>5193</sup>

### Plaza menor, la:

Oraingo **Plaza pequeña** da:

“un pajar...que afrenta con cassa de franco Ybañez y Simon de Lerga a la plaza menor” (1711)<sup>5194</sup>

### Plaza pequeña (portal o puente de), la:

**Placeta de la Casa de la Villa**-ren adierakidea da:

“una cassa...en la plaza pequeña de ella afrontada con cassa de la villa” (1622)<sup>5195</sup>

**Portal** edo **Puente de la Plaza pequeña** plaza nagusitik plaza txikira igarotzeko dagoen “paxapea” (ikus Eslaba) da:

“la casa sita en la Plaza qe llaman grande, ó mayor, y portal ó puente qe pasa a la Plaza pequeña” (1813)<sup>5196</sup>

### Plazas, barrio de las:

Plazen inguruko etxeek osatuko zuten auzo hau:

“una casa sita en esta villa y Barrio de las plazas” (1789)<sup>5197</sup>

### Plazuela de la Iglesia, la:

Elizaren ondoko gaurko **La Placeta** bera dugu. Orain ez zaio “de la iglesia” edo “de la parroquial” erantsi behar, **La Placeta** herriko **placeta** bakarra baita<sup>5198</sup>:

“...la plazuela de la iglesia y calle publica en medio...” (1714)<sup>5199</sup>

### Plazuela de la Parroquial, la:

Aurreko sarrerako plaza bera da:

5193 PRA-Oibar, 10. k.

5194 PRA-San Martin, 29. k.

5195 PRA-Kaparroso, 28. k.

5196 Uxueko hipotekak, 180. lib., 15. or.

5197 PRA-Kaseda, 32. k.

5198 Mitxelena (“Notas lingüísticas...”, 116-117. orr.) erronkarietaz ‘plaza’ adieraz **plazta** esaten zurela dio, izen honen jatorri zehatza ikusi gabe, antza. Gure ustez, Erronkariko **plazta** ([pláθta] edo [plásta] seguruenara) hori **placeta** erromantzetik atera da: erronkarietaz **plázeta** ebakiko zen, euskalki honek proparoxitonoak egiteko duen isuriagatik (cf. **bézino**), eta hemendik, azentuaren ondoko bokalaren galtzeaz, aipatu **plazta** hori aterako zen. Guztiarekin ere, Iribarrenek biltzen duen **plazta** ‘pilota-lekua’-tik ere atera zitekeen, interbersioz, toki askotan frontoia eta plaza bat eta bera direnez gero.

5199 PRA-San Martin, 30. k.

“la Plazuela de la Parroql de esta villa” (1772)<sup>5200</sup>

**Portal (balsa de), (calle de), el:**

**El Portal** herriaren sarreran zegoen, **Ermita de San Andrés**-en alboan, ardandegia dagoen tokian (ikus **Balsa de la Villa** eta **Balsa vieja** sarrerak):

“un corral...en los villares, alado del Porttal q afrontta a la Hermita de S Andres” (1772)<sup>5201</sup>

**Balsa del Portal** portalearen ondoko idoia zen, ardandegia eraiki arte **Balsa vieja** zeritzan berbera. Dena den, dokumentazioa ikusita balirudike bi idoi ezberdin zeudela, hau bitxi samarra denagatik: lehena egungo ardandegia dagoen eremuan, eta bigarrena **Aitzandieta**-ko **Aldabea**-n, **Arbolaga** gainean:

“otra pieza debajo de la balsa del portal que afronta Pieza de Diego Phelipe en la endrepera llamada erbolaga” (1686)<sup>5202</sup>

**Calle del Portal La Placeta**-tik portaleraino luzatzen zen karrikari esaten bide zitzaion (ikus **Billeta** sarrera). **El Portal** hondar aldiz 1892ko katastroan ediren dugu.

**Portal de la Balsa, el:**

**Balsa del Portal** bera zela dirudi:

“...dos corrales sitios junto al portal de la balsa” (1727)<sup>5203</sup>

**Portillo de Chinchón, el:**

**Chinchón** izena zeri zor zaion ez dakigu, baina egingo genuke norbaiten izengoitian oinarritua dagoela. Galipentzuko mugan dago, **Aristuziaga**-n, **Aurino** eta **Erlosiana**-tik hurbil. Ez dakigu dokumentazioko **Portillo de Aristuziaga**-rekin identifikatu behar den.

**Portillo de la Moza, el:**

Ez dakigu non zegoen. Lekuko bakarra 1708ko honako hau da:

“...dejo a mi hija Ana de Ygal la viña...sita en el Portillo de la moza”<sup>5204</sup>

**Portillo de (lo de) Marceliano, el:**

Ikus **Portillo de Aristuziaga**-z esan dena, **Aristuziaga** sarreran.

5200 Id., 50. k.

5201 Id.

5202 Id., 5. k.

5203 Id., 32. k.

5204 Id., 29. k.



**Portillo de los Bojes, el:**

**Carretera de la Sierra** igarotzen den **Urteaga**, **Basandia** eta **Abuñaga**-ren arteko portilua da. Izena inguruko ezpel ugarietatik hartu du.

**Portillo del Gordo, el:**

**Retuerta**-ren eta **Ardui**-ren artean dago, San Martindik Uxuera doan erre-pidearen eta altxonbidearen ondoan, **Ardui**-ko Romualdo Solaren gortera doan bidearen hasieran. **El Gordo** uxuetar lodi baten izengoitia zen.

**Portillo del Señor, el:**

**El Señor** portiluaren ondoan gorrea duen Uxueko familia baten izengoitia da; antzina **Portillo de San Vicente** deitzen zitzaion (ikus **San Vicente** sarrera). Altxonbidean dago, errota zaharreko bidean, **Mugazuria**, **Cuartochiguito** eta **Carasolalto (Txorria)**-ren arteko mugan.

**Posada, la:**

1803an alkate eta epailea zen José de Leza jaunarena zen Uxueko ostatua:

“En la villa de uxue y en la Posada de el Sr Josef de Leza Alte y Juez de ella”<sup>5205</sup>

**Pozo de Bercero, el:**

Altxonbidean dago, **Bigas**-en, behinolako **Boxagarea**-n, antza (ikus sarrera honetan esandakoa). **Bercero** Uxueko familia baten ezizena da.

**Pozo de la Nevera, el:**

**Nevera**, **Pozo de la Nieve** edo **Pozo del Hielo**-ren errankidea da (ikus **Nevera** sarrera):

“...en la aldavea, afronta â el pozo de la Nevera” (1788)<sup>5206</sup>

**Pozo de la Nieve, el:**

**Pozo de la Nieve** (1690)<sup>5207</sup> **Nevera** eta **Pozo del Hielo**-ren adierakidea da.

**Pozo de las Aguas, el:**

Herrian ur korrontea paratu zenean ura igotzeko egin zen putzua da **Aizkanbela**-ko hau. Orain urbiltegi berria egin dute **Ardui**-n, **Mairagako** urtegitik datoren ura biltzarren.

---

5205 Id., 71. k.

5206 Id., 58. k.

5207 Id., 5. k.

**Pozo de los Carros, el:**

**Zaubio-n** dago, errekan. Ez da sekulan dokumentazioan agertzen, eta ez dugu uste toponimo zaharra denik.

**Pozo de los Muertos, el:**

**Aliaga-n** dago, errekan. Herriko norbait hiltzen zenean bertan garbitzen zen arropa, galdara batean irakinaraziz.

**Pozo de Ortxa:**

Ez dakigu orcha zer den<sup>5208</sup>. **Santakaramuru-n** zegoen (egungo **Fuente de Santakaramuru?**).

**Pozo del Hielo, el:**

**Nevera, Pozo de la Nieve** edo **Pozo de la Nevera**-ren adierakidea da:

“Ms otra (pieza) en la Aldabea...que afronta con el pozo de recojer yelo” (1768)<sup>5209</sup>

**Pozo de Sagalea:**

**Gesala**-ren aldaera den **gesalea** (cf. **Petringesala**-ren aldakiak) izan liteke<sup>5210</sup>:

“una pieza...en el termino de los Berros que afronta con el Pozo de Sagalea” (1802)<sup>5211</sup>

Honen arabera, **Los Berros**-ko errekan dagoen gaurko **Pozo del Cucharetero**-rekin identifikatu behar genuke, baina bertan ez dago gesalik. Hau jatorritzat proposatu den **\*gesalea** baztertzeko arrazoi ona da.

**Pozo de Zanzarrán, el:**

**Busa-n** dago, **Otrolos**-etik hurbil, antzinako **Nobeleta-n** edo, **Barranco de Pipiratu** eta **Barranco de Busa** batzen diren tokian (ikus **Fuente de Zanzarrán** sarra-ra).

**Pozo del Cucharetero, el:**

**Barranco de los Berros**-en (behialako **Berage-n**) dago. **El Cucharetero-k** koilarak egiten zituen norbaiten goitizena izan behar du. Izan ere, inguruan ezpel asko dago, eta goilareak egur honekin egiten zituzten.

---

5208 Id., 69. k., 1800.

5209 Id., 48. k.

5210 Guztiarekin, ez dugu **Pieza del Gesal**-eko **gesal**-ekin identifikatu behar, elkarrengandik urrunxko baitzeuden.

5211 PRA-San Martin, 70. k.

**Pozo del Herrero, el:**

Lergako mugatik hurbil dago, herri honetara doan bidearen ondoan, "Corral del Herrero" hondatuaren alboan, Txutxu alto eta Txutxu bajo-ren arteko mugan.

**Pozo del Paso, el:**

**Barranco de Zaldunaga**-n dago, erreka honek eta Galipentzura doan bideak bat egiten duten **Paso de Zaldunaga**-ren ondo-ondoan.

**Pozo grande, el:**

**Ardui**-n zegoen:

"yten otra pieza tras el cubierto de Arduy y paraje llamado el Pozo grande" (1798)<sup>5212</sup>

**Prado, el:**

**Fuente de San Nicolás**-etik **Cruz de Liberal**-eraino luzatzen da larre hau, **Carretera de la Sierra**-ren aldamenetik. **Prado de Laku**-tik hurbil dago.

**Presa, la:**

**Beskos**-en zegoen uharka hau, errekan seguruenera (ikus **Beskos** sarrera).

**Primicia (junto a), la:**

1588an ediren dugu estraineko aldiz:

"una casa...en la andreçera llamada Junto a la primicia" (1588)<sup>5213</sup>

Egun jendeak ez daki **Primicia** non zegoen, baina **Placeta**-n orain komunak dauden tokian biltegia zegoen lehen, eta **Pasadizo de Osta** delakoan ere bazen horrelako beste bat.

**Prior, linar del; pieza del:**

Lihatzea **Villantigua**-ko **Zabala**-n edo **Zabala**-ren aldamenean zegoen, **Aizkanbela**-ko **Pieza** edo **Piezas del Priorato**-tik hurbil:

"un linar...sitto en el terno de Billantigua, q afrontta con Huertta cerrada, y linar de dho sr Prior, con la Zabala de Martin Andres, y Camino del Molino" (1769)<sup>5214</sup>

Alorra beheko errepidearen ondoan dago, **Aldabea de Aitzandietta**-n (cf. **Apezalorra** eta **Apeztegi**alorra sarrerak).

**Priorado, huerta del:**

Ez dakigu non zen apez-baratze hau (cf. Eslabako **Apeztegi**baratzea).

5212 Id., 67. k.

5213 PRA-Oibar, 4. k.

5214 PRA-San Martin, 49. k.

**Priorato, pieza(s) del:**

Aizkanbela-ko erreka aldean zeuden, Camino de Ollatu-ren alboan, Linar del Prior-etik gertu hortaz:

“otra pieza...en Ayzcambela que afronta con pieza del Priorato El Barranco y Camino a Oliatu” (1720)<sup>5215</sup>

**Puendelazapata:**

1605eko puen de laçapata<sup>5216</sup> edo 1657ko puen dela çapata<sup>5217</sup> pondelazapata da 1713an<sup>5218</sup> (cf. fuente-ren elkarketa-erartoketako aldaerak diren fuen- eta fon- laburdurak), eta condelazapatta 1732an<sup>5219</sup>.

Osagaiak puen (< puente), de preposizioa, la artikulua eta zapata dira, azken honen adiera zein den ez badakigu ere. Zapata ‘oinetakoa’-rekin baino hobe Uxueko deitura den Zapata-rekin erlazionatuko genuke guk, baina la horrek ere ez dio mesede handirik egiten interpretazio honi. Deituraren jatorria zein den, dena dela, ez dakigu, ez eta noiztik agertzen den gure herrian.

Beskos-en zegoen, erreka aldean seguraski:

“...una pieza...en el termino que llaman Vescos, o, Puen dela çapata” (1657)

1605ean Udareaga-rekin nahasia aurkitzen dugu:

“otra pi\* en la endrecera llamada udaraga puen de laçapata”<sup>5220</sup>

**Puente, carasol del:**

Zubia-ren ondoko egutera zen, 1727ko Carasol de la tejería de abajo bera:

“Ms otra pieza...en el carasol del Puente” (1771)<sup>5221</sup>

**Puente del Camino de la Sierra, el:**

Puente de la Sierra-k Aitzandieta-ko erreka inguruko alderdi bat adierazten du, baina gaurregun bertan ez dago zubirik. Izenak, alabaina, dokumentazioarekin batera, garbi adierazten digu antzina horrelako eraikuntza bat bazela:

“Mas otra pieza en el Puente del Camino de la Sierra” (1743)<sup>5222</sup>

“una pieza en el terno del Puente de la sierra que es la Aldavea...” (1794)<sup>5223</sup>

5215 UEA, 14. kap-lib., 323. or.

5216 PRA-Oibar, 12. k.

5217 UEA, 14. kap-lib., 6. or.

5218 PRA-San Martin, 30. k.

5219 Id., 34. k.

5220 PRA-Oibar, 12. k.

5221 PRA-San Martin, 50. k.

5222 Id., 38. k.

Zubi honi gure hizkuntzan **Zubia** esaten zitzaion:

“yten en Zubia otra pieza...que afronta con camino que se ba a la Sierra” (1716)<sup>5224</sup>

Esan bezala, zubia **Barranco de Aitzandiet**a-n zegoen, **Rincón de los Cerrados**-en azpiko aldean, **Camino de la Sierra**-n<sup>5225</sup>, **Tejería (de abajo)**-ren ondoan:

“...termino de Zubia que afronta con barranco conzejil y la tejeria” (1662)<sup>5226</sup>

**Rebote**, el:

**Patio del Juego de Pelota**-ren adierakidea da:

“yten desde el Referido Francisco Ungay asta la buelta de la plaza mayor contra el Rebote ynportara...” (1780)<sup>5227</sup>

**Retuerta (balsa de), (fuente de), (portillo de)**:

**Retuerta** [retwérta] etorki erromantze garbiko toponimoa da: jatorrizko osagaiak r̄va izena eta t̄or(c)ta izenondoa dira, eta euskarazko **Errekogeneta** (< erreka + ogen + eta)<sup>5228</sup>, **Errekamakur**<sup>5229</sup>, **Errekabiurreta**<sup>5230</sup> edo **Laspiur** (< lats + bihur)-en baliokidetzat har daiteke. **Retuerta**-ko errekastoak, jatorriak jatorri, ez dira Uxueko beste errekastoak baino bihurri edo okerragoak<sup>5231</sup>.

Toponimo hau 1628<sup>5232</sup> eta 1694an<sup>5233</sup> la artikulua horniturik azaltzen zaigu, bere etorkiaren oroitzapenetan edo. Gaurregun artikulurik gabeko aldaera erabiltzen da beti.

XVIII. mendeko **Balsa de Retuerta** ezezaguna da egun, baina badakigu **Camino de San Martín**-en ondoan zegoela, gaurko **Carretera de Tafalla**-ren alboan (**Atajo de San Martín**-en ere egon zitekeen ordea):

“Mas otra pieza...en el termino de Retuerta que afronta con...la Balsa de Retuerta” (1730)<sup>5234</sup>

5223 Id., 63. k.

5224 UEA, 13. kap-lib., 215. or.

5225 Beste **Camino de la Sierra** bat **Camino de la Fuente de Aitzandiet**a edo **Camino de San Blas** da.

5226 UEA, 13. kap-lib., 22. or.

5227 PRA-San Martin, 55. k.

5228 Mitxelena, “Toponimia, léxico y gramática”, PT, 141-167. orr., eta AV-eko 398. sarrera.

5229 Olarzagutian azaltzen da, 1915eko katastroan.

5230 Andrés Iñigok **Errecabiurrita** (PRA-Donztebe, 56. k., 1659) eta **Errecabiurreta** (Iturengo udal artxi-bategia, ezkontagiria, 1742) bildu ditu Iturenen.

5231 Valtieran ere **Retuerta** dugu 1746an (PRA-Kaparroso, 63. k.): “entre otras eredades...una pieza...sita en el termino de Retuerta q alinta al rio de tudela”.

Erriberrin **El Retuerto** dugu 1620an (id., 27. k.), **Cequia del Retuerto** 1636an (id., 36. k.).

5232 PRA-Kaparroso, 31. k.

5233 IEA, 1345. kart., 5. zkia.

5234 PRA-San Martin, 33. k.

**Fuente de Retuerta S. Martinicorenaren goiko gortetik hurbil dago; Portillo de Retuerta (1771)<sup>5235</sup> errepidearen ondokoa zatekeen, “la pieza de Fausto” delakoa-ren aldamenekoa.**

**Retuerta, orain, Ardui-n dagoen aipatu S. Martinicorenaren goiko gortetik Beskos eta La Cruz-eraino hedatzen da mendebalde eta hegoaldetik. Ekialdean, iparraldean bezala, Ardui du mugakide. Behiala, alabaina, La Cruz-en atzeko alderdiari Tras la Cruz esaten zitzaion, edo gure hizkuntzan Gurutzegibela, eta hau berezko dermioa zen, ez Retuerta-ren zatia. Denborarekin ordea, Gurutzegibela desagertu, eta Retuerta jabetu da lur horietaz.**

#### **Rincón de Carabina, el:**

**Carasolbajo-n dago, Juan Lezaren korralearen beheko aldean. Ez dakigu carabina izena zeri zor zaion, baina orain ez dago horrelako izengoitirik duen uxue-tarrik.**

#### **Rincón de Juan Gorriá, el:**

**Ez dakigu zein zoko zen; Juan Gorriá herriko norbaiten izen-deiturak zirela dirudi:**

“Mas en el Rincon de Juan Gorria una pieza...” (1812)<sup>5236</sup>

#### **Rincón de la Marianota, el:**

**Badakigu Aldabea-ko zoko bat izendatzen zuela; ez ordea zein Aldabea-tako zein zoko:**

“Mas otra (pieza)...en el terno de la Aldabea, donde dicen el rincon de la Marianota” (1791)<sup>5237</sup>

**Marianota Mariana izenaren handigarria da.**

#### **Rincón de la Zapata, el:**

**Behin bakarrik agertzen da dokumentazioan, 1789an. Puendelazapata-ren orde zegoen liteke, alegia, nahasketa baten fruitu izan liteke (cf. toponimo honen Condelazapata aldaera):**

“Mas otra (pieza)...en el Rincon de la Zapatta, afrontada a...camino Concegil” (1789)<sup>5238</sup>

---

5235 Id., 50. k.

5236 Id., 77. k.

5237 Id., 61. k.

5238 Id., 59. k.

**Rincón del Alpargatero, el:**

**Alpargatero** Uxueko familia baten izengoitia da. Antzinako **Gurutzegibela**-n dago.

**Rincón del Horno, el:**

**Zapaiz**-ko zoko handi samarra da, itxuraz 1776an **rincon grande de Zapaiz** izenpean dokumentatzen den bera. Bertan berriki arte hazteria sendatzeko ona omen den ipuru olioa egiteko labea zegoen, eta hortik izena.

**Rincón nuevo, el:**

**Otrollos**-ko zoko bat ematen du aditzera:

“una caseta en Otrollos y parage llamado rincón nuevo” (1862)<sup>5239</sup>

Zoko bat nola, zein aldetatik izan daitekeen berria ez dakigu, erreka bat edo erripa bat zaharra nola izan daitekeen ez dakigun modu berean (cf. **Errekazarra** edo **Erripazarreta**. Ikus hauetako lehena aztertzean esan dena). **Otrollos**-ko toki-izen honen kasuan dena den, **Pitillas** eta **Uxueren** lur komunaren banaketaren eraginez sortu zela kontu egin daiteke, edo oihana zena labakitu zela.

**Romeral (pieza de), el:**

Uxuen **erromeroa** landare usaitsua oso ugaria da, eta ulertzekoa da honelako toki-izen bat baino gehiago aurkitzea. **El Romeral**-etako bat **Otrollos**-en zegoen (**Otrollosandi** edo behin edo besteko **Otrollos bajo**-n):

“Ms otra pieza...en el termo del Romeral, afrontada al Barranco Concegil de Otrollos” (1781)<sup>5240</sup>

Bestea **Beskos**-en beheko alderdian, aurreko horretatik ez oso urrun (1847)<sup>5241</sup>.

**Rúa (barrio de la), (calle de la), (esquina de la calle de la):**

Karrika hau udal plaza edo **Plaza pequeña**-tik **Pirolarraña**-raino luzatzen da; lehen hemendik sartzen zen mendetan pelota-jokua izan den **Patio de Porta**-ra. Dokumentazioan, **Calle de la Rúa** eta **Calle de la Ruga** azaltzen dira, eta gaurregun ere bi aldaerak ditugu bizirik:

“...la dcha cassa...sita en la dha villa y barrio que llaman la rua...” (1688)<sup>5242</sup>

“...en esta villa sita en la Plaza pequeña y esquina de la calle de la Ruga frente la casa del aiuntamiento” (1760)<sup>5243</sup>

Erriberrin **La Rúa** dugu.

5239 Uxueko hipotekak, 180. lib., 7. or.

5240 PRA-San Martin, 55. k.

5241 PRA-Kaseda, 57. k.

5242 IEA, 1285, 10. zkia.

5243 PRA-San Martin, 46. k.

**Salobral (barranco de), el:**

El **Salobral Barranco de Otrillos** eta **Camino de Pitillas**-en artean dago, **Otrillos**-en. Izena, pentsa daitekeenez, lurrak duen gatzari zor zaio. Honen kide euskalduna inguru honetan zegoen **Petringesala** izan daiteke (ikus sarrera hau), bai eta **Pieza del Gesal** ere (ikus gainera **Besolaga** sarrera).

**San Andrés (eras de), (ermita de), (junto a):**

San Andrei eskainitako ermita hau **El Portal** ondoan zegoen, **Camino de Tafalla**-ren alboan. Badakigu 1816rako hondatua eta are zeharo eroria zegoela:

“un corral... extramuros de esta villa y en el paraje que llaman el Portal, que afronta a sitio de la Hermita qe antiguamente hubo de San Andres, camino de tafalla en medio”<sup>5244</sup>

**Eras de San Andrés** ermitaren inguruko larrainak ziren:

“la casa en q habitan y son las q hazen frente á la Ygª Parroqñ de esta villa q afronttan al Camino q sale de ella por las Heras de Sn Andres” (1770)<sup>5245</sup>

eta **Junto a San Andrés** (1709)<sup>5246</sup> ermitaren ondoko alderdia.

**San Blas (alto de), (basílica de), (ermita de), (rincón de), (viña de):**

**San Blas** ermita **Aldabea de Aitzandiet**a eta **Basandia**-ren artean dagoen **Alto de San Blas**-en egon zen, gutxienez 1815 arte. Gaurregun toponimotzat gorde da hagianimoa, baina jendeak ez daki bertan ermita izan zela. Eraikuntzaren hondakinak, lur arras bada ere, ikusgai daude oraindik mendiko honen gailurrean:

“una pieça...en el tero de sanblas...lintero con sendero que ban a la propia ermita” (1631)<sup>5247</sup>

**San Blas**-ek, ermita eta gailurraz landara, inguruko lurrak ere hartzen zituen bere baitan, 1776an **Rincon de San Blas**<sup>5248</sup> deiziopean ageri den **Rincón de Balsalarraña** barne. 1708an<sup>5249</sup> azaltzen den **viña de San Blas**, ordea, **Dorrondiaga** aldean zegoen.

**San Frutos (ermita derruida de):**

**San Frutos**, **San Fructos** edo **San Fructo** aldaerak dokumentatzen dira. Egun ez dago 1791rako hondatua zegoen ermitaren oroitzapenik, ez eta hagianimoarena ere, **San Frutos** ez baita gorde ezta leku-izen bezala ere<sup>5250</sup>:

5244 PRA-Oibar, 79. k.

5245 PRA-San Martin, 49. k.

5246 Id., 29. k.

5247 PRA-Kaparroso, 57. k.

5248 PRA-San Martin, 52. k. Dena den, muinoaz beste aldean, **Basandia** aldean dagoen xokoa ere izan zitekeen.

5249 Id., 29. k.

5250 Amatriainen ere **San Frutos** dugu (J. Jurfo, THET, 104. or.).



“...en el terno de Sn fructo (sic) una pieza...qe afronta pr la parte de arriba con camino de la Olibeta y pr la de avajo con la Hermita derruida de dho santo” (1791)<sup>5251</sup>

**Zapaiz-en, Camino de la Olibeta eta Camino de Murillo-ren artean zegoen ermita, erreka ondoan:**

“Ms en el terno de San fruttos una pieza...q afronta por arriba al camino de la olivetta y por abajo a el de Murillo” (1780)<sup>5252</sup>

**Zapaiz-ko egungo Rincón del Horno-ren azpiko aldean zegokeen, gaurko Ezpeletaren gorte aldean edo.**

**San Gines, portillada de:**

Lergako San Gines ermita eta monastegia Uxuetik Elo eta Iruñera zihohan bi-dean kokatua zegoen (ikus Lergako San Gines sarrera). Portillada Uxue eta Lergaren arteko mugako portilua da, eta dugun lekuko bakarrean aipatzen den **sabayca Abaiz** edo **Epaiz** da, Bizkaiko herrixka Uxuetik urruti baitago:

“...camino que de Uxe ban a Pamp y asta la portillada de Sangines...a la muga de los terminos de Sabayca y Uxue (sic)” (1621)<sup>5253</sup>

**San Martín (barrio de), (ermita de):**

**San Martín** edo euskaraz **Jaun Done Martia** (ikus sarrera hau) **Pirolarraña** auzoan zegoen ermitari eta honen ondoko etxeei esaten zitzaien:

“Primeramente la casa que al presente viven con su corral en el Barrio de Pirolarraña que afrontava al tpo con casa de Bernardino terzero y con Pajar de Simon Jurio y la hermita de San Martin...” (1732)<sup>5254</sup>

1780an ermita eskolatako zegoen:

“primte la casa en que al presente viven...en el Barrio de Pirolarraña, q afrontta a casa de la Cap de dn Geronimo tercero, á Pajar de Agustin Jayme, a la Hermita de San Marttin, q aora es Escuela de Niños y dos Calles pucas” (1780)

1810ean saltzea erabaki zuen herriak:

“...que se venda la ermita de S Martin que servia de escuela...”<sup>5255</sup>

**Sanmartinmuga:**

**Erdarazko Muga** edo **Mojón de San Martín-en** baliokide euskalduna da. 1729an **Txutxu-ko** muga ematen du aditzera:

5251 PRA-San Martín, 61. k.

5252 Id., 54. k.,

5253 PRA-Kaparroso, 27. k.

5254 PRA-San Martín, 34. k.

5255 Id., 9. k.

"...del camino del molino azia chucho comprendiendo San Martin muga"<sup>5256</sup>

1743ko lekukoak **Txutxu** aldeko muga nahiz beste alderdi batekoa (**Ardui, Beskos** edo **Busa**-koa) adieraz zezakeen:

"Mas una pieza con su corral viejo en el termino que llaman San martin muga..."<sup>5257</sup>

### Sanmiguelaldea:

**Sanmiguelaldea San Miguel** elizaren ondoko eremua zen, **Camino del Molino**-ren ingurua:

"yttem mas la pieça de ssanmiguelaldea...que afronta con...camino publico q ban al molino" (1608)<sup>5258</sup>

**San Miguel (aldabea de), (barrio de), (basílica del Señor), (calles de), (eras de), (ermita de), (iglesia de):**

**San Miguel** herriaren ondoko, **Barallas** eta **Pirolarraña**-ren aldameneko eliza hondatuari eta inguruko lurrei deitzen zaie. Elizaren aurrekalde ederrak garbi erakusten du ez zela ermita soila izan, beste zerbait izan zela baieztatzeko frogarik ez badugu ere<sup>5259</sup>:

"una pieça...Junto a la yglesia de San miguel" (1605)<sup>5260</sup>

Pérez Ollok<sup>5261</sup> honela hitz egiten du **San Miguel**-ez:

"De S. Miguel quedan los muros, la portada románica y la espadaña. El citado diccionario (DGH-k, alegia) dice que «merece particular atención por conservar todavía en sus costados muchos sepulcros que indican haber sido iglesia parroquial, de lo cual no hay noticia, o convencen la loable costumbre de enterrar fuera de poblado»".

Aipatu DGH-k 1802an herriko bost ermiten artean aipatzen du, eta badirudi artean osorik zegoela. Urangak<sup>5262</sup> eliza erromanikoa dela dio.

Herrian kontaktzen denez, bada elizatik (gaztelutik) **San Miguel**-eraino doan eta inork ikusterik izan ez duen lurrazpiko bidea, itxuren arabera arrisku-egoeretan (gerla-garaietan edo) gotorlekutik ihes egiteko.

**Aldabea de San Miguel Turtunbera** nahiz **Aitzandiet**a-koa izan zitekeen (eliza bien artean dago); 1771ko lekukotasunean **Turtunbera**-koa dela ikusten dugu:

5256 Id., 33. k.

5257 Id., 38. k.

5258 PRA-Oibar, 13. k.

5259 1605ean **Yglesia de San Miguel** dugu, baina ermitei dokumentazioan usu ermita, **basílica** eta **iglesia** esan ohi zaie.

5260 PRA-Oibar, 12. k.

5261 EN, 238-39. orr.

5262 UM, 44. or.

“Ms otra pieza en la Aldabea de Sn Miguel, en el Carasol de Villantigua”<sup>5263</sup>

Honek, bestalde, **Carasol de Villantigua Carasolalto**-ren beheko alderdiari gabe, **Carasol de Turtunbera**-ren beheko zatiari esaten zitzaiola frogazake.

**Barrio de San Miguel** ermitatik hurbilenik zeuden etxeek osatzen zuten, **Pirolarraña**-koek dirudienez:

“...una cassa...sita...en el barrio de san Miguel y en la endrecera que llaman pio larraña” (1657)<sup>5264</sup>

Hau berau izan zitekeen 1602an agertzen den **Calle de San Miguel**<sup>5265</sup>, jakinki eta agirietan **calle** eta **barrio**-ren artean bereizketa garbirik egiten ez dela. Gaurregun, dena den, ez da **Barrio** ez **Calle de San Miguel** deizioa erabiltzen. Eras de **San Miguel** (1776)<sup>5266</sup> **La Coronación** inguruko larrainak izango ziren.

**San Nicolás** (artatzea de), (barranco de), (casa de), (casas de), (ermita de), (fuente de), (hoya de), (junto a), (portillada de), (portillo de), (sarría de), (torre de):

**San Nicolás Santa María la Blanca** eta **Laku**-ren artean dagoen **La Sierra**-ko dermio txiki bat da. Gaurregun batik bat bertan dagoen **Fuente de San Nicolás** iturriarengatik da ezaguna. Antzina orain baino zabalagoa zela irudi du, **Portillada** (1601)<sup>5267</sup>, 1634<sup>5268</sup>) edo **Portillo de San Nicolás** (1602)<sup>5269</sup> altxonbidean edo **Murilloko La Sierra**-ko errepidean dagoen **Cruz de Liberal** aldeari esaten ziotenez gero.

**Barranco de San Nicolás** iturriaren urak sortu eta **Barranco de los Berros**-a doan erreka dela pentsa liteke, baina 1780ko agiri batean<sup>5270</sup> **Barranco de los Berros** osoa izendatzeko erabiltzen da; **Casas de San Nicolás Ermita de San Nicolás** eta honen ondoko eraikuntzaren bat izango ziren, **San Nicolás** 1534ko zerrendan Uxueko despoblaturaren artean ez baita azaltzen. Dena den, herriak izan ziren **Santa María la Blanca** eta **Laku**-ren artean dago, bigarren honetatik oso hurbil, eta itxura duenez **San Nicolás**-en ere despoblaturia izan zen. 1621eko **torre de San Nicolás**-ek **Casas de San Nicolás**-en adierakidea izango zen, eta honek ere **San Nicolás** despoblatutzat hartzera bultzatzen gaitu, **torre** edo **torraza** azaltzen den tokian eskuarki despoblaturia egon delako:

“otra pi<sup>a</sup> en Sanicolas que afrenta con pi<sup>a</sup> de myn viçent y con las casas de Sanicolas” (1593)<sup>5271</sup>

“otra muga...que esta enfrente de la torre de Sannicolas” (1621)<sup>5272</sup>

5263 PRA-San Martin, 50. k.

5264 UEA, 14. kap-lib., 9. or.

5265 PRA-Oibar, 10. k.

5266 PRA-San Martin, 52. k. Hortaz, hiru ermita zeuden alderdi honetan, elkarrengandik hurbil: **San Martin** edo **Jaun Done Martia Pirolarraña**-n, **San Salvador San Miguel**-i hurrán, **Camino de las Cruces viejas**-en, eta **San Miguel** bera.

5267 PRA-Oibar, 10. k.

5268 IEA, 345. 13. zkia.

5269 PRA-Oibar, 10. k.

5270 PRA-San Martin, 54. k.

5271 PRA-Oibar, 7. k.

5272 PRA-Kaparroso, 27. k.

Badakigu 1849an San Nicolás-en ermita bazegoela, baina ez hondatua, hondatzen hasia, edo sendorik eta salborik zegoen:

“...en el termino llamado Suleburu junto a la hermita de San Nicolas”

Harrigarria da, halaber, alderdi honetan bi ermita (Santa María la Blanca eta San Nicolás), bi despoblatu (Santa María la Blanca eta Laku, dudazko San Nicolás eta apartexeago zeuden Urteaga la alta eta Kastillu kontatu gabe), eta jainko-zezen berari zuzenduta bide dauden bi harri “erromatarrek” (Jupiter eta Lakubegi-ri zuzendutakoak) izatea, denen artean lotura berezirik ikusi gabe bederen.

1630eko Hoya de San Nicolás<sup>5273</sup> oraingo El Prado izeneko zulo modukoa da; 1732ko Junto San Nicolás<sup>5274</sup> euskal \*Sanikolasondoa-ren moduko baten itzulpena dateke:

“yten otra pieza en la sierra en el termino llamado Junto San Nicolas” (1732)

Artatzea de San Nicolás (1602)<sup>5275</sup> eta Sarria de San Nicolás-ek (1608)<sup>5276</sup> entitate bera izendatzen zuketean, hain zuzen ere La Sierra-ko alderdi honetan hain ugarriak diren arteek osatutako basoa.

San Nicolás Pitillas eta Uxueren dermio komunetako bat izan zen, 1800eko banaketa agirian izendatzen ez denagatik.

**San Salvador (eras de), (ermita de):**

1776rako hondatua zegoela badakigu<sup>5277</sup>; San Miguel ondoan zegoen, Camino de las Cruces viejas-en (ikus San Miguel sarrera). Camino de Murillo eta Camino de Arbolaga ingurutik igarotzen ziren:

“una pieza alcaceral, sita en los villares bajo de la Ermita de Sn Salvador, q afronta p el cierzo al camino de Murillo, p el Bochorno a otra de Juan de Moriones, y p el castellano al camino de Erbolaga” (1794)<sup>5278</sup>

**Orobat Camino de Aliaga:**

“... Junto a la Hermita de Sn Salvador...que afronttan álos villares por la parte de arriba y por la de abajo al camino de Aliaga” (1766)<sup>5279</sup>

**Eras de San Salvador (1778)<sup>5280</sup> ermitaren inguruko larrainak ziren, Eras de San Miguel berak gure asko.**

5273 Id., 33. k.

5274 PRA-San Martin, 33. k.

5275 PRA-Oibar, 10. k.

5276 Id., 13. k.

5277 PRA-San Martin, 52. k.

5278 Id., 63. k.

5279 Id., 47. k.

5280 Id., 53. k.

**San Sebastián, ermita del señor:**

**Basandia** despoblaturan zegoen (ikus sarrera hau):

“una pieza...en el termino de basandia con su torre y dos Corrales y era afrontada a la hermita del Sr Sansebastian” (1631)<sup>5281</sup>

**San Vicente (alto de), (carasol de), (portillo de):**

Egun ezezaguna den dermio hau **Camino del Molino**-ren ondoan zegoen, hau da, Aragoako errotara doan bidean, 1792rako eraiki zen errota berria igaro eta, honetatik hurbil, goraxeago.

“mas en el termino de San Bicente una carga de tierra blanca...que afronta al camino Real que van al molino” (1708)<sup>5282</sup>

**Alto de San Vicente** (1686)<sup>5283</sup> **Portillo de San Vicente** (1800)<sup>5284</sup> (gaurrengungo **Portillo del Señor**) dagoen gaina zen; **Carasol de San Vicente** (1771)<sup>5285</sup> **Carasolalto**-ren zatia genuen.

Ez dakigu ermitarik ba ote zen, baina hemendik hurbil **Villantigua** despoblaturia egotea aintzat hartzeko dela uste dugu.

**Sandimas:**

1534ko despoblaturaren zerrendan opatu dugu lehen eta hondar aldiz, aurrerago aztertuko dugun **Zabartu** bezalaxe. Etorkiari dagokionez, badaiteke hagianimo bat izatea, hasierako **sandi**- hori Leatxe eta Lergako **Sandiandore**-n, Galipentzuko **Santitisi**-ren aldaera den **Sanditisi**-n, edo Lergako **Sanditume**-n aurkitzen dugun eta latineko **san(c)ti**-ren euskaratzearen ondorena den **sandi**- bera bada. Bukarako **-mas** zer den, ordea, ez dakigu, eta honek eman interpretazioa oinarririk gabe uzten du.

**Santa Agueda (aldabea de), (caracierzo de), (ermita de), (portillo de), (rinconada de):**

Galbidean dagoen hagianimo hau **Aldabea de Turtunbera**-n, **Portillo de Esatea** aldean egon behar zuen ermitari zor zaio (ikus **Camino de los Linares** eta **Camino de Valgrande** sarrerak):

“El aderezo que ha hecho (hargin batek) en la ermita de Sta Agueda” (1691)<sup>5286</sup>

5281 PRA-Kaparroso, 34. k.

5282 UEA, 14. kap-lib., 323. or.

5283 PRA-San Martin, 5. k.

5284 Id., 69. k.

5285 Id., 50. k.

5286 Id., 6. k.

**Aldabea de Santa Agueda** (1818<sup>5287</sup>, 1832<sup>5288</sup>), beraz, **Aldabea de Turtunbera**-ren goreneko alderdia zen.

Iragan mendeko azken katastroko **Caracierzo de Santa Agueda** iparrera ematen zuen dermio honen zatia izango zen, eta **Rinconada de Santa Agueda** (1631)<sup>5289</sup> **Barranco de Turtunbera** hasten den **Ardui**-ren ondoko zokoa. **Camino de los Linares**, **Camino de Txorria** edo **Camino de Valgrande** izeneko bidea bertatik igarotzen zen.

Urangaren arabera<sup>5290</sup>, ermita errepidearen eskuinaldean zegoen, idoi baten ondoan (**Balsa nueva**-ren ondoan?). Orain berrogeita hamar bat urte arte bertan zegoen gurutze batek ermitaren kokagunea orotarazten zuen, aipatu autoreak dioenez, baina guk ez dugu gurutzearen berri lortzerik izan.

1612ko **Portillo de Santa Agueda Uxue** eta **Murillo el Frutoren** arteko mugako portilua zen, hau da, altxonbidekoa:

“..y caminando açia el portillo de Santa agueda Junto a la misma senda y camino que ban a murillo el fruto los de Uxue”<sup>5291</sup>

Azken hau, ordea, **Murillo**ko toponimoa da, ez **Uxue**koa.

*Diccionario Geográfico-histórico* delakoak 1802an bost ermita zeudela dio, horien artean aztergai dugun **Santa Agueda**. Honek ez du esan nahi artean zutik zegoela, baina kontrakoaren frogarik ere ez dugu. **Pérez Ollo**<sup>5292</sup> **DGH**-k dioena errepikatzerara mugatzen da.

#### **Santa Ana:**

**Santa Ana** [santána] **El Losado** era **Paseo de Ronda**-ren arteko gazteluko pasabide bat da. Dituen kristalik gabeko bere hiru leihoetatik **Uxue**ko udalerrriaren hegoaldeko puska handi bat ikusten da, **La Sierra**-tik **Aurino**-raino.

#### **Santa Bárbara**, ermita de:

Behin bakarrik aurkitu dugu, 1742an, eta ez dakigu non zegoen:

“...y dho escudero ofrecio 8R, p<sup>a</sup>, la ermita de Sta Barbara”<sup>5293</sup>

**DGH**-k 1802an zeuden bost ermiten artekotzat jotzen du, eta badirudi garai hartan zutik zirauela, nahiz, aurreko ermitaren kasuan bezala, hau ez den segurua.

---

5287 Id., 81. k.

5288 Id., 87. k.

5289 PRA-Kaparroso, 57. k.

5290 UM, 44. or.

5291 PRA-Kaparroso, 19. k.

5292 EN, 238-239. orr.

5293 PRA-San Martin, 48. k.

**Santa Cruz (aldazkia de), (alto de), (caracierzo de), (ermita de):**

**Santa Cruz** egun **Turtunbera**, **Aliaga**, **Rincón de Muelas** eta **Lakubeli**-ren artean dagoen gainaren izena da, bai eta mendi honen azpian (baina **Lakubeli**-ren gainean), **Camino de Murillo**-ren ondoan dagoen idoi biribil "agortu"-arena ere. 1788an ermita bazegoela badakigu, baina ez zer egoeratan zegoen:

"Ms otra (pieza) de dos Robadas bajo de la Hermita de Santta cruz"<sup>5294</sup>

Ermita idoiaren alboan zegoen (alderdiko gainean?):

"...quatro robadas de tierra blanca junto una ermita de Santa Cruz que afronta con la balsa" (1704)<sup>5295</sup>

**Aldazkia de Santa Cruz** ermita eta idoiaren aldameneko aldapa bide zen, **Rincón de Muelas** eta **Lakubeli** aldera ematen duena segurki, baina 1735ean ageri den **Caracierzo de Santa Cruz**<sup>5296</sup> ere izan zitekeen:

"sesenta Reales por un herbago en la aldazquia de Sta Cruz" (1729)<sup>5297</sup>

**Alto de Santa Cruz** dermioko gaina da, beste gisaz **Alto de los Guardas** deitu dena (iguraien etxola zegoen bertan. Cf. **Lergako Altico de la Guarda / Iguraimendikoa** eta **kapana** izena duten hainbeste toponimo).

**Santa Engracia (alto de), (caracierzo de), (cruz de), (ermita de):**

**Santa Engracia** ermita zegoen gaina egungo hilerria dagoena dela dirudi, **La Cruz**-en ondokoa, alegia:

"...en la cahida de el Alto de Santta Engracia se puso la muga siette en una peña viva y grande, y a la parte de arriba de el Atajo de San Martin" (1802)<sup>5298</sup>

"Mas otra (pieza) en el alto de Santa Engracia...afronta a...dha Ermita" (1806)<sup>5299</sup>

DGH-k 1802an Uxueko bost ermitetako bat dela dio, eta 1806an ere zutik zegoela dirudi.

**Caracierzo de Santa Engracia** (1796)<sup>5300</sup> **Balsa de la Tejería**-ren gaineko alderdia izango zen, Tafallako errepedearen albokoa; **Cruz de Sta Engracia** (1699)<sup>5301</sup>, azkenik, egungo **La Cruz** izan zitekeen, ermita hurbil baitzegoen. Alabaina, ermitaren ondoko beste gurutzeren bat ere izan zitekeen.

J. L. Urangak **Santa Engracia** Beire aldera zegoela dio, Uxuetik ordubetera, **La Torraza**-ren gaineko aldean, eta despoblatua zatekeela, etxe-hondakinak

5294 Id., 58. k.

5295 Id., 9. k.

5296 Id., 35. k.

5297 Id., 33. k.

5298 Id., 70. k.

5299 Id., 73. k.

5300 Id., 64. k.

5301 Id., 8. k.

badirelako<sup>5302</sup>. **La Torraza**-n dauden zaharrikak, ordea, ez dira **Santa Engracia** ermitarenak, **Akirazabal** (ikus toponimo hau eta **Torraza** sarrera) despoblatuarenak baizik.

Gure iritiz, baliteke ermita egungo hilerria dagoen tokian egotea, Nafarroako herri askotan maiz hilerriak ermita izandakoetan antolatu direnez gero (cf. Morioneko **Magdalena**).

#### **Santa Eulalia, ermita de:**

Pérez Ollok **Santa Eulalia** biltzen du, baina guk **Santolaria** besterik ez dugu dokumentatu:

“los tres pedacos...que estan Junto a la hermita de santolaria” (1604)<sup>5303</sup>

Urangaren arabera ermita hau Galipentzuko bidean zegoen, Uxuetik ordu erdi batera (oinez joanda, jakina)<sup>5304</sup>.

#### **Santa Fe (balsa de), (barranco de):**

Pérez Ollok dioen moduan, noizbait ermita izan zen hau toponimo hutsa da gure egunotan. **Santa Fe La Sierra**-ren hasieran dago, **Aguilar**, **Makarreta** eta **Pipiratu**-ren artean, **Alto de San Blas**-en ondoan.

1775erako azaltzen den **balsa de stta Fee**<sup>5305</sup> osorik eta onik dago oraindik, **La Cruz**-etik eta **El Puente de la Sierra**-tik heldu diren bi bideen elkargunetik **Busa** aldera abiatzen den bidearen hastapenean. **Barranco de Santa Fe** behialako **Lezkatzea**-n **Barranco de Akirazabal**-ekin bat giten duen erreka da.

#### **Santa María, plazuela de:**

Eliz-atariko plazatxoa dela dirudi, ondoan arkuia baitzegoen, egun bezala:

“una casa sitta en la Plazuela de Stta Maria, afrontada...á el arco, q llaman del Pavado” (1781)<sup>5306</sup>

#### **Santa María la Blanca (ermita de), (sierra de):**

Egun ermita dena despoblatutzat jotzen da 1534ko zerrendan<sup>5307</sup>. Herrixkaren azken hondakinak ermitatik hurbil ikus daitezke oraindik, **Carretera de la Sierra**-ren ondo-ondoan. Hemen aurkitu ziren **Jupiter** eta **Lakubegi**-ri eskainita dauden bi harri erromatarrak<sup>5308</sup>.

5302 Honela dio hitzez hitz: “Santa Engracia, con restos de edificios, a una hora en dirección a Beire, sobre la Torraza, otro posible despoblado”, UM, 44. or.

5303 PRA-Oibar, 11. k.

5304 UM, 44. or.

5305 PRA-San Martin, 52. k.

5306 Id., 55. k. Dena den, toki txarra da hau etxeak egoteko, eta agian gaurko **La Placeta**-rekin identifikatu behar genuke.

5307 NAO-Comptos, 550. zkia.

5308 *Inscripciones romanas*, 33-34. orr. **La Blanca**-ren inguruko elezaharrez J. M. Jimeno Juríoren *Ujué*, 7-9. orr., J. Gárrizen *Despoblados* laneko 12. or., eta J. J. Urangaren UM-eko 31-34. orr. ikus daitezke.



Ermitako Ama Birjinaren irudiaren oinarrian **Abeaga** inskripzioa irakur daiteke, beharbada **habe** ‘zutabe’, ‘zuhaitz’, ‘gapirio’, ‘zurkaitz’, ‘gurutzea’<sup>5309</sup>, eta **-aga** elementuez osaturik dagoena (cf. **Arbolaga**). Honen arrazoia, dena dela, ez dugu garbi ikusten.

Iturmendin galtzada baten izena den **Abeaga** agertzen da 1776an<sup>5310</sup> eta Unanun “futreak” (arranoak, alegia) egoten diren **Fruteko abeta** [frutéko abēta] toponimoa dugu orain<sup>5311</sup>. Zarautz eta Getariaren arteko barneko errepedean **Abeta** ikus daiteke idatzirik seinale moduko batean, baina ez dakigu **Abeta** hori baserria den, auzoa, mendia...edo beste zerbaite. Aezkoan (eta beste toki batzuetan) **habea** behiak eta izutzen dituen euli mota bat da.

**Santa María la Blanca**-k ermitaren inguruko lurak ere adierazi eta adierazten ditu:

“otra pieza...en la sierra de S<sup>a</sup> M la blanca” (1678)<sup>5312</sup>

**Santakaramuru** (alto de), (**barranco de**), (**fuentes de**), (**torraza de**):

1534an<sup>5313</sup> Uxueko despoblaturat jotzen den toponimo honen osagaiak **Santakara** herri-izena, eta **mur** ‘mendikoa’, ‘gaina’ bide dira. Halarik ere, XVI. mendean eta XVII.aren lehen urteetan **Santa Caranburu** (1602an<sup>5314</sup> eta 1608an<sup>5315</sup>, adibidez) itxuraz azaldu ohi da, eta baliteke jatorrizko forma hau izatea. Honela balitz, **Santakara** herri-izenaren ondoko kontsonante sudurkaria genitiboaren morfema izan liteke (cf. **Petringesala**), eta toponimoaren adiera **Santakararen burua** edo. Kasu honetan, geroko **-mur** **buru**-tik atera dela ondorioztatu behar genuke, baina gure eskualdean aurkitzen ditugun **mur**-ek, hemendik kanpo azaltzen direnek bezala, honen kontra hitz egiten dute. Gainera gogoratu behar da **mb** multzoa sekundarioa izan daitekeela (cf. **ganbara** < **camara**, **ganbela** < **camella**; **ganbelu** < **camellu**...), eta beraz multzo hau **m**-tik atera ahal izan dela.

Guztiarekin ere, Uxueko datuak garbi mintzo dira **nb**-ren jatortasunaren alde, eta beraz **m** multzo horretatik atera dela pentsatzeaz beste biderik ez dugu. Mitxelena, gai honetaz ari delarik, **senbe** > **seme** laburketa aipatu ondoren honela dio:

“Este ejemplo, casualmente documentado, nos enseña que también en otros casos vasc. *m* puede proceder de la reducción de un grupo que, dentro de la hipótesis antes expuesta de que el protovasco carecía del fonema /m/, era fonológicamente /nb/”<sup>5316</sup>

1588ko **Satacaraburu**-k **buru** hutsa du:

5309 Ikus Azkueren DVEF.

5310 Nicolás Arbizu, TI, 263. or.

5311 NTEM-VIII, 75. or.

5312 IEA, 345. kart., 13. zkia.

5313 NAO-Comptos, 550. zkia.

5314 PRA-Oibar, 10. k.

5315 Id., 13. k.

5316 FHV, 358. or. Honek **Santakaramuru**-ko **b**-ren aurreko **n** hori genitiboaren morfema gabe, **nb** fonema zaharraren zati dela pentsatzera eramán gintzake.

"...dos pieças...afrentadas con la carretera que ban a pitillas por berau y...con pieça...ques termino y endrecera llamada satacaraburu" (1588)<sup>5317</sup>

**Santakaramuru** [sàntakaramúru] **La Sierra**-n dago, altxonbidearen eta Pitillasko mugaren artean, eta **Zaubio**, **Medios**, **Matxaz**, **El Pinar** eta **Mostrakas** ditu mugakide. Alderdi garaia da (honengatik **-muru** edo **-buru** hori), eta Santakara ongi ikusten da bertatik, herri honekin muga egiten ez duenagatik.

1800eko **Alto de Santakaramuru**<sup>5318</sup> altxonbidearen ondoan, Uxueren eta Pitillasen arteko mugan dagoen muinoa (666 metro) bide da; 1622ko **Barranco de Santakaramuru**<sup>5319</sup> zein den ez dakigu; agian Pitillas auzo herriko **Barranco de Mostrakas**-en hasierako zatiari esango zitzaion. **Fuente de Santakaramuru**<sup>5320</sup> **Balsa de Matxaz**-en paretik Murillora doan altxonbide nagusitik Pitillas aldera ateratzen den adarrean dago, Nicolás Ugaldereen gorteari hurrean. Gure informatzaileetako batek dioenez, uxuetarrak **Santa María la Blanca**-n bizi zirenean ura bi iturritatik hartu ohi zuten: **San Nicolás**-kotik eta **Santakaramuru**-ko honetatik.

1880. urteko **Torraza de Santta Cara** muro despoblatuaren zaharkinekin erlazionatu behar dela ageriko kontua da, esan bezala despoblatuak izan ziren eremuetan **torre** edo **torraza**-k azaltzen baitira. Honela bada, badakigu **Santakaramuru** herria nontsu zegoen, aipatu urte horretako dokumentuak Pitillas eta Uxueren arteko mugan zegoela argitzen baitigu:

"...proximo al corral derruido llamado de los Clerigos, y siguiendo de este altto, a otro altillo cercano al corral de franco Yzura vezino de Uxue que antes era de Lucas de Ochoa, y hace frente ala Torraza quedando estta y aquel a mano derecha..."<sup>5321</sup>

**Santo Domingo (millar de), (portillo de):**

1800eko **Millar de Santo Domingo** Uxue eta Pitillasen arteko mugan zegoen, **Otrollos**-ko **Juangarziarana**-ren ondoan edo (ikus **Cinco Millares** sarrera). **Portillo de Santo Domingo**-k, ordea, ez du zerikusirik aitzinekoarekin, izendatzen duen eremuari dagokionez bederen, honek **Beskos** eta **Aguliar**-era doazen bideak bata bestetik aldentzen diren guneko portilua ematen duenez gero aditzera:

"...conforme ba el camino de Olite a el portillo de Santo Domingo..." (1715)<sup>5322</sup>

**Santodomingogibela:**

**Santodomingogibela**-k, itxuraz, aurreko sarreran aipatu portiluaren atzeko aldea adierazten zuen:

"ytten otra pieça...en la endrecera llamada Santodominguibela (sic)" (1588)<sup>5323</sup>

5317 PRA-Oibar, 4. k.

5318 PRA-San Martin, 69. k.

5319 PRA-Kaparroso, 28. k.

5320 PRA-San Martin, 48. k., 1768.

5321 Id., 69. k.

5322 Id., 30. k.

5323 PRA-Oibar, 4. k.

**Santxotoria (barranquizo de):**

Oinarrian **Santxo** edo **Santxote** antroponimoa dagoke (cf. Galipentzuko **Santxoteuntzea**); bukaera ez da argia (-**tegia?**). 1734ko **Chanchoteria**<sup>5324</sup> eta 1752ko **Chanchotoria**<sup>5325</sup> txistukari-asimilazioz azal daitezke (cf. **Santxiko**-tik atera den<sup>5326</sup> **Iz-koko Casa Txantxiko**, edo Olloibarko Egillorko 1795eko **Casa de Sancho** edo **Casa de Chancho**<sup>5327</sup>):

“otra pieza...en el termino de Berague...y otra...en el termino de chanchoteria” (1752)

**Barranquizo de Santxotoria** Murillo eta Uxueren arteko mugaldeko **Aldamara**-ko erreka bat zen:

“Yten mas en Sanchotoria una pieza...que afrenta con la muga de murillo y el barranco” (1628)<sup>5328</sup>

**Sarria:**

Izen honen adieraz ikus **Berage** eta **Larrageta** sarreretan esan duguna. Koka-gunearen eta besteren inguruan ikus **Zaldunaga**.

**Sarrondoak:**

**Sarri** ‘oihana’ izena eta **ondoa** ditugu hemen:

“una viña...en el termino desta villa llamado sarrondoak” (1624)<sup>5329</sup>

Orain ezezaguna den toponimo honek Pitillasko **Camino de Olite** eta **Camino de Ujué**-ren arteko eremua izendatzen zuen, gaurko Uxueko **Otrollos** aldea edo:

“...algunos vezinos de Pitillas, contrabeniendo ala dha senttencia arbitraria, y dejandose caer en las penas de aquella an labrado y Rozado de nuevo ciertas piezas y campos en el termino llamado sarrahondoa que es del dho camino de Olite hacia el camino de Uxue” (1706)<sup>5330</sup>

Beraz, bi herrion arteko mugan edo egongo zen dermio hau, gaurko egunean alderdi horretan horrelako **sarri**-rik ez dagoen arren. Bi herriotako dokumentazioan azaltzen denez, dermio hau ere elkarrekikoa zela ondoriozta daiteke, nahiz hau derrigorrezkoa ez den (cf. **Txutxu Lergan** eta **Uxuen**, edo **Aurino Galipentzu** eta **Uxuen**).

5324 PRA-San Martin, 34. k.

5325 Id., 41. k.

5326 “Barbara Senosiain Dueña de la Casa de Chanchico”, PRA-Kaseda, 26. k., 1774.

5327 PRA-Asiain, 175. k. Cf., gainera, Arbizuko 1652ko **Sanchorenlabaquiondoak**, **Chancholabaquia** 1699an (EAE, 275. or.). Guztiarekin, hipokoristikoa ere izan litezke.

5328 PRA-Kaparroso, 31. k.

5329 Id., 29. k.

5330 IEA, 1462. kart., 31. zkia.

**Senda de Abuñaga:**

**Santa Fe**-tik **Abuñaga**-ra doan bidea (altxonbidea) da (ikus **Santa Fe**).

**Senda de Aguilar:**

**Bidemakurra**-n gaindi **Balsa de la Tejería**-ren ondotik **Aguilar**-a zihoan, **La Cruz**-en aldamenetik seguruenik (ikus **Larzia** sarrera).

**Senda de Aldaidarrea:**

**Basandia** eta **Aldaidarrea**-ra zihoan 1768an ageri den hau<sup>5331</sup>. Apika gaurko **Camino de San Jerónimo**-ren baliakidea zen.

**Senda de Arbolaga:**

**San Salvador** ermitaren beheko aldetik **Zubia** ondoko **Arbolaga**-ra zihoan. Oraingo **Camino de Lakubeli**-rekin identifika daiteke:

“Mas otra Pieza...en los villares, bajo de San Salvador, que afronta con camino que ba a Murillo...y á senda que bá a Arbolaga” (1826)<sup>5332</sup>

**Senda de Areatzeta:**

**Senda de Areatzeta** (1781)<sup>5333</sup> **Otrollos** barruko bide-zigorra zen, **Areatzeta** bertan baitzegoen, **Barranco de Otrollos** eta **Beiremuga**-ren artean (ikus **Areatzeta** sarrera).

**Senda de Artabakoitz, la:**

**Urteaga**-tik **Artabakoitz**-a zihoan (1826)<sup>5334</sup>.

**Senda de Arteko haitz:**

**Zubia** ondoan zegoen teileriaren paretik **Arteko haitz**-a zihoan:

“Mas una viña...en el termino de la aldabea Junto a la tejeria afrontada a barranco...y senda de artecoaiz” (1732)<sup>5335</sup>

**Senda de Astabidea:**

Izen honen azpian bi bide ezberdin ezkututzen dira: **Andiaga**-tik **Astabidea**-ra zihoana (1790)<sup>5336</sup> eta **Astabidea** bera (1862)<sup>5337</sup>.

---

5331 PRA-San Martín, 48. k.

5332 Id., 85. k.

5333 Id., 55. k.

5334 Id., 85. k.

5335 Id., 33. k.

5336 Id., 60. k.

5337 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 3. or.

**Senda de Basandia:**

**Basandia-tik Aldaidarrea-ra** zihoan (ikus **Senda de Aldaidarrea** sarrera).

**Senda de Eslava:**

Uxuetik Eslabara zihoan bidea zatekeen 1621eko hau<sup>5338</sup> (ikus **Camino de Eslava** sarrera).

**Senda de Kastillu:**

**San Nicolás-etik Kastillu-ra** zihoan (1779)<sup>5339</sup>.

**Senda de la Fuente:**

**Apeztegiatorra-tik** inguru horretako iturriren batera zihoan, beharbada **Fuente de Lezkairu** ezagunera (1609)<sup>5340</sup>.

**Senda de la Sierra:**

**Aitzandieta-ko Butzumear-etik La Sierra-ra** zihoan (ikus **Butzumear** sarrera).

**Senda de la Tejería, la:**

Ikus **Gurutzezabala** eta **Tejería** sarrerak.

**Senda de la Torre de Mikelenzabal:**

**Aguilar-tik Mikelenzabal** despoblatuaren hondakina zatekeen dorrera zihoan (1768)<sup>5341</sup>.

**Senda de Lakubeli:**

**Oraingo Camino de Lakubeli** zen 1702ko<sup>5342</sup> hau.

**Senda de Lakumulatu:**

**Kastillu-ko oihezkitik Lakumulatu-ra** zihoan. **San Nicolás-etik Kastillu-ra** zihoan bera zatekeen (ikus **Kastillu**).

**Senda de Larziaga:**

**Pieza del Prior-en** azpiko aldetik zihoan (1711)<sup>5343</sup>.

5338 PRA-Kaparroso, 27. k.

5339 PRA-San Martin, 54. k.

5340 PRA-Oibar, 13. k.

5341 PRA-San Martin, 48. k.

5342 Id., 8. k.

5343 Id., 29. k.

**Senda de Lerga:**

**Camino de Lerga** bera zatekeen 1621eko hau<sup>5344</sup>.

**Senda de Lezkairu a Lerbeltz, la:**

**Lezkairu** iturritik **Lerbeltz-a** zihoan (1729)<sup>5345</sup>.

**Senda de Olite:**

Behinolako **Otroperitzu-n** barrena doan **Camino de Olite-ren** baliakide genuen 1772ko hau<sup>5346</sup>.

**Senda de Petringesala:**

**Akirazabal-etik Petringesala-ra** zihoan (1757)<sup>5347</sup>.

**Senda de Pincholas, la:**

**Ardui eta Retuerta-ren** arteko mugan dagoen **Fuente de Pincholas-a** joateko bidea izanen zen hau (ikus **Fuente de Pincholas** sarrera).

**Senda de San Martín al Molino:**

**Txorria** aldeko **Bikuaga-n** barna zihoan:

“otro linar en bicuaga que affrenta con...senda becin al que los de Sanmyn ban al molino” (1593)<sup>5348</sup>

**Senda de San Nicolás a Kastillu:**

Ikus **Kastillu** sarrera.

**Senda de San Nicolás a Sulue:**

**San Nicolás-ko** iturritik hurbil dagoen **Sulue-ra** zihoan (1730)<sup>5349</sup>.

**Senda de Santa Engracia:**

**Errepidetik (Tafallakotik seguraski) Santa Engracia-ra** zihoan (1713)<sup>5350</sup>.

---

5344 PRA-Kaparroso, 27. k.

5345 PRA-San Martin, 33. k.

5346 Id., 50. k.

5347 Id., 44. k.

5348 PRA-Oibar, 7. k.

5349 PRA-San Martin, 33. k.

5350 Id., 30. k.

**Senda de Santa María la Blanca a San Nicolás:**

Pitillastik Galipentzuko errotara zihoan bidearen zati zatekeen hau (1712)<sup>5351</sup>. Edozein modutan, bi alderdiok elkarrengandik hurbil daude, eta batetik besterako xenda izatea erraz ulertzen den kontua da.

**Senda de Sulue:**

Abiaturua zein den badakigu, baina ez dakigu abiapuntuaren berri<sup>5352</sup>.

**Senda de Txorria:**

Villantigua aldetik Txorria-ra zihoan (1704)<sup>5353</sup>.

**Senda de Valdecontienda:**

Facería-rako xenda zatekeen 1621eko hau<sup>5354</sup> (ikus Valdecontienda sarrera).

**Senda de Villantigua a Valgrande:**

Villantigua aldetik Txorria edo Valgrande aldera zihoan (1711)<sup>5355</sup>. Ares-tian ikusi dugun Senda de Txorria-rekin identifika daitekeela uste dugu.

**Senda del Barranco de Zaldunaga:**

Zaldunaga-ren barruko bide-zigorra zela dirudi (1800)<sup>5356</sup>.

**Senda del Linar de Santiago:**

Txorria-ko Linar de Santiago-ra zihoan (1770)<sup>5357</sup>.

**Sendas de la Torre de Akirazabal:**

Akirazabal barruko bidexkak genituen hauek, alderdiko ardantzeetatik edo dorrera zihozenak (1729)<sup>5358</sup>.

**Sendero de Pipiratu a Otrillosandi:**

Pipiratu-tik Zaubio eta Otrillos(andi)-ra zihoan (1696)<sup>5359</sup> eta doa.

---

5351 Id.

5352 PRA-Oibar, 13. k.

5353 PRA-San Martin, 9. k.

5354 PRA-Kaparroso, 27. k.

5355 PRA-San Martin, 29. k.

5356 Id., 69. k.

5357 Id., 49. k.

5358 Id., 33. k.

5359 Id., 7. k.

**Serrallo, el:**

Pitillasko mugako mendibizkarra da, **Alto de Matute** (ikus sarrera hau) dagoena. Bistan denez, erdarazko **sierra**-ren eratorri bat dugu hemen (cf. Oibar haraneko **serreta** arrunta eta Galipentzuko **Ondallu**)<sup>5360</sup>.

**Sierra (alta), (baja), (de Santa María la Blanca), la:**

**La Sierra** Uxueko mendirik luze-zabalena da, eta **Santa Fe**-tik Murilloko lurretaraino hedatzen da; bertan, esperatzekoa zenez, makina bat dermio txikiago dauzka. **La Sierra** mendi honen goi-lautadari eta inguruko lurrei esaten zaie. Beherago dauden bi hegietako alderdiak eskuarki ez dira **La Sierra**-kotzat jotzen, baina horrelako zatiketa erabatekorik ere ezin daiteke egin, dermio batzuk goian (**La Sierra**-n) hasi eta beheraino luzatzen direnez gero.

Dokumentazioan XVII. eta XVIII. mendeetan inoiz edo behin azaltzen den **La Sierra baja**-k (1715<sup>5361</sup>, 1767<sup>5362</sup>) Pitillasena ere bazen **Mostrakas** aldea ematen du aditzera, antza. **La Sierra alta** (1715)<sup>5363</sup> berriz, **San Nicolás**, **Berage** eta inguruko lur komunek osatzen bide zuten.

**La Sierra**-ren zati handi bat herri-lurra zen:

“y que ningun ganado de las tres dichas villas (Uxue, Pitillas, Santakara) quando bajase de las montañas o, Andia pueda entrar en las corralizas sino que...ayan de entrar en la sierra comun...” (1608)<sup>5364</sup>

**Soroandia, pieza de:**

**Soro** 'alorra' izenaz eta **handia** izenondoaz osaturik dago:

“Mas las piezas de vasandia...que afrontan con pieza de Maria Josepha Siron, que llaman la pieza de soro andia y con camino que se ba a Urriaga y pipiratu” (1732)<sup>5365</sup>

Itzako zendean J. Juríok izen bereko dermioa biltzen du, eta hor ere soroa 'alorra' da:

“Soro andia, pieza de. Mojón entre San Andrés y Lete en esta pieza (f.6), que el apeo de esta fecha describe como de catorce robadas...”<sup>5366</sup>

Gauza bera gertatzen da Nafarroa Garaiko beste eskualde batzuetan ere. **Honela** mintzo zaigu **Mitxelena** gai honetaz:

5360 Tafallako **El Serrallo** ere gaina da. Ikus Jimeno Juríoren THET-ko 196. or.

5361 PRA-San Martin, 30. k.

5362 Id., 48. k.

5363 Id., 30. k.

5364 PRA-Kaparroso, 28. k.

5365 PRA-San Martin, 34. k.

5366 Jimeno Jurío, TCPCI, 183. or.



“...Beste argibidea ordea, axola gehiagokoa da: Iruñerrian eta Lizarraldean behintzat, *soro* ez zela ‘belardi’, hainbat eskualdetan gertatzen denez, horri *Eunce-* baitzeritzan. Ez: *pieza* hori, *pieza de labrar* da, *labrantío*. Landuccik ere «heredad» iraultzen du *soroa*”<sup>5367</sup>

Soroandia, ikusi dugunez, **Basandia**-n zegoen, **Camino del Puente de la Sierra**-ren bukaera aldean, **Pipiratu** eta **Urtiaga**-ko bidearen ondoan, **San Blas**-etik gertu.

Sotillos, los:

1756ko sotillo-ak **Paso de Dorrondiaga**-tik **Lezkairu**, **Apeztegiatorra** eta **Paso de Sulue**-ra arterainokoak ziren. 1700 eta 1709ko sotillo-ak aldiz, **Paso de Sulue**-tik **Paso de Eskobarea** (**Camino de Murillo**-n zegoen, errekan) arteko “xaldu-ttoak” ziren, itxuren arabera **Sotillos de Aldaidarrea** berak (Ikus **Aldaidarrea**, **Dorrondiaga** eta **Eskobarea** sarrerak).

Urangak dioskunez<sup>5368</sup>, **Los Sotillos** 1817. urtean labakitu ziren, **Txutxu**, **Sulue**, **Pipiratu** eta **Aguilar**-ekin batera.

Sotillos del Monte chiguito, los:

Ez dakigu **Monte chiguito** hori zein zen. **Sotillo** izenak erreka baten inguruko eremua ematen du aditzera; euskaraz honen baliakidea den **Zautelu** dugu Uxuen:

“Mas un trozo de viña sito en los sotillos de monte chiguito” (1832)<sup>5369</sup>

Soto (espondón de), el:

El Soto-k lehen zuhaiztia omen zen Aragoa ugaldearen ondoko eremua ematen du aditzera, zaldua. Udalak hiru edo lau urtetarako saldu (alokatu) ohi du egun, baina duela urte batzuk arte partzelatan banatzen zuen herriko auzoen artean. Itxuraz toponimo berria da; dokumentazio zaharrean behintzat ez da inoiz azaltzen.

**Espondón del Soto Erlosiana** eta zalduaren arteko aldapa da (ikus **Barranquilla de los Ladrones** sarrera).

**Sulue** (aborral de), (alto de), (barranco de), (barranquilla de), (corraliza de), (monte de), (paso de), (sarría de):

Ez dakigu zein den antzinako **Sulue**-ren eta egungo **Sule** [súle]-ren jatorria. Bukaerako **-ue** horrek **-une** ‘gune’, ‘toki’-tik atera den **Olague**, **Etxague** eta antzekoen

5367 “Hitz eta izenen jatorriaz”, in *I Jornadas de Onomástica / I Onomastika Jardunaldiak* (1986) *Onomasticon Vasconiae* 4, Euskaltzaindia, 1991, 26-35. orr. Imotz bailarako Muskitz herrian **Soroandigoiena** izeneko aurkientza (alorrak zeuden bertan) dugu 1583an (PRA-Arakil-Hiritberri, 4. k.), eta Lana ibarreko Gastiainen Soroandia dermioa dokumentatzen da 1686an (PRA-Artabia, 3. k. Hemen ere alorrak zeuden). Azken haran honetan (eta ingurukoetan ere berdintsu) soro-z besterik ez da azaltzen, edo hobeki esan, **alorra** ez da behin ere dokumentatzen.

5368 UM, 81. or.

5369 PRA-San Martin, 88. k.

amaiera dakarkigu gogora, baina toponimo horietan beti **-gue** dugu (**-kue** txistukari ahoskabe atzean), sekulan ez **-ue**<sup>5370</sup>:

“otrapieça en la misma endrecera de abuñağa de la parte baja de Suluë” (1602)<sup>5371</sup>

Aipatu behialako eta oraingo bi forma horien artean azentuaketa erdaldu-naren nagusitzearen ondoriotako har dezakegun **Sulbe** dugu 1801ean<sup>5372</sup>.

**Alto de Suluë** (1722<sup>5373</sup>) euskarazko **Sulueburu(a)**-ren kidea izan daiteke, gain hori **San Nicolás-etik** hurbil baitago (ikus **Sulueburu** sarrera); **Barranco de Suluë**<sup>5374</sup> **Basandia**, **Andresoro** eta **Suluë-tik** jaisten diren errekaetako sorturikako erreka da; **Paso de Suluë-n** (ikus **Eskobarea** sarrera) **Aitzandieta** eta **Basandia**-ko errekek osatutakoarekin bat egiten du. **Monte de Suluë** edo **Sulumendi Basandia** eta **Zapaiz**-ko mugako oihezki orain pinuz betea da; **Sarria de Suluë-k** (1608)<sup>5375</sup>, azkenik, dermio honetako oihana adieraziko zuen, **Monte de Suluë** apika.

**Suluë-k Basandia**, **Abuñağa**, **Andresoro**, **San Nicolás**, **Laku**, **Lakumulatu**, **Kastillu**, **Zapaiz** eta **El Vedado**-rekin mugatzen du. Herri-lurra da.

**Sulueburu**:

**Suluë** toponimoa eta **buru** gaina ditugu hemen. 1605<sup>5376</sup>, 1688<sup>5377</sup> eta 1773an<sup>5378</sup> **Suluë**- osoa aurkitzen dugu, eta 1679<sup>5379</sup> eta 1849an<sup>5380</sup> oraingo **Sule**-:

“mas otras pias...en la endrecera llamada sulueburua” (1605)

“...en el termino llamado Suleburu junto a la hermita de San Nicolas” (1849)

Beste batzuetan azken bokala galdu duen aldakia dugu (cf. **Uxue** izenaren jokamoldea): **Çuluburu** (1608)<sup>5381</sup>, **Suluburu** (1688)<sup>5382</sup>, **Suruburu** (1702)<sup>5283</sup>.

1608ko **Çuluburu**-ren hasierako hortz-hobietako bizkarkari ustezko hori jatorrizkoa izan daiteke, lekukotasuna zahar samarra baita, baina bakarria izateaz gainera, apikari eta bizkarkariaren arteko nahasketa eguneroko ogia da dokumentazioan. Dena den, 1706an hots bera zukeen **Zuluë** agertzen da<sup>5384</sup>. 1702ko **Suruburu** ere lekuko ba-

5370 Ikus FHV, 305. or.

5371 PRA-Oibar, 10. k.

5372 Hipotekak, 180. zkia., 10. org.

5373 PRA-San Martin, 50. k.

5374 Id., 86. k.

5375 PRA-Oibar, 13. k.

5376 Id., 12. k.

5377 Id., 5. k.

5378 PRA-Kaseda, 25. k.

5379 PRA-San Martin, 3. k.

5380 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 46. or.

5381 PRA-Oibar, 13. k.

5382 UEA, 13. kap-lib., 40. or.

5383 PRA-San Martin, 9. k.

5384 IEA, 1462. kartoia, 31. zkia.

karra da, eta bokal arteko dardarkaria asimilazioari zor dakioke, euskaraz arrunta den l > r aldakuntzari baino hobea.

**Sulumendi:**

**Sulue** toponimoa eta **mendi** ‘gaina’ ditugu hemen:

“otra pieza en Sulumendi” (1631)<sup>5385</sup>

**Sulunbate, rincón de:**

Honek aldaera ezberdin asko aurkezten ditu: **Sulumbate** 1748an<sup>5386</sup>, **Zulum-beto** 1768an<sup>5387</sup> eta 1806an<sup>5388</sup>, **Zurunbettu** 1786an<sup>5389</sup>, **Zulumbettu** 1789an<sup>5390</sup>, **Zulu-betto** 1802an<sup>5391</sup>, eta ez da erraza nondik atera den argitzea:

“Mas otra pieza en la dha Aldabea en el rincon de Sulumbate...”

“...en el terno de la Aldabea, y paraxe llamado el Rincon de Zulumbettu”

Lekuko guztiak berandukoak dira (XVIII. eta XIX. mendeetakoak), eta honek toponimoaren jatorria garbi ikustea galerazten du. 1748ko lekukoa aintzat hartzen bada, bukaeran **-ate** ‘portilu’ dagoela kontu egin daiteke, baina geroko alda-kiak ikusita uste honek aski ustela dirudi. Zernahi gisaz, egungo **Rincón de Zonbolozoko** [θðmboloθóko] **Portillo de Aguilar**-en azpiko **Aitzandieta**-ko zokoa da, eta hau **-ate** horren alde mintzo da argi eta garbi.

Lehen osagaia are opakua da: **Sulu-** (lehen lekukotasunetan) edo **zulu-** dela dirudi. Baliteke **Sulue**-rekin zerikusia izatea, baina hau balizkako kontu hutsa da. Hasi-erako hortz-hobietako apikaria bizkarkari bilakatzea zoko-ren eraginari zor zaioke.

**Sulunbatezoko (rincón de):**

Aurrekoaren aldaera erabat euskalduna da, eta izan ere hau zen uxuetarrek erabiltzen zutena, aipatu egungo **Rincón de Zonbolozoko**-k berresten duenez. **Rincón de Sulunbate** beraz, itzulpentzat har dezakegu:

“Ms en el terno de la Aldabea y Rincon de Salamatazocoa seis robadas...que afrontan con piezas de...y Barranco que ba a Aguilar” (1771)<sup>5392</sup>

“ytten una Pieza en el termino de Zurumbettu zoco” (1786)<sup>5393</sup>

5385 PRA-Kaparroso, 34. k.

5386 PRA-San Martin, 40. k.

5387 Id., 48. k.

5388 Id., 73. k.

5389 Id., 57. k.

5390 Id., 59. k.

5391 Id., 70. k.

5392 Id., 50. k.

5393 Id., 57. k.

**Tahona, la:**

Lehengo **El Portal** eta **San Andrés**-en artean dago, **Nevera** estaliaren aitzinean, kuartelaren eta errepidearen ondoan. Duela urte batzuk zezen-plazatako ibili zen bestetan, arrakasta gutxiarekin ordea, betizuetako batek ihes egitea lortu baitzuen.

**Tahona** 'okindegia' adiera duen izen erdalduna da, eta orain jendeak zer adierazten duen ez badaki ere, lehen arruntagoa zela dirudi. Honen lehen albistea 1786koa da:

"ytten una Hera en el sitio qe llaman de Sn Andres, qe afronta ala raona y a los dos Caminos que salen a la Balsa del Porttal"<sup>5394</sup>

**Tapia; Tapiado, el:**

XVII. mendearen lehen erdian aurkitu ditugu (cf. **Ormaizkieta**):

"otra pieça en la endreçera llama (sic) tapia" (1604)<sup>5395</sup>

"otra pieca en el tapiado" (1605)<sup>5396</sup>

**Tejería (aldabea de), (balsa de), (carasol de), (cruz de), la:**

**Aldabea de la Tejería** (1820)<sup>5397</sup> **Aldabea de Larziaga**-ren goiko aldea da, eta **Balsa de la Tejería** (1759)<sup>5398</sup> **Bidemakurra**-ko idoia. **Carasol de la Tejería** (1777)<sup>5399</sup> **Carasol de la Tejería de abajo** edo **Carasol de Arbolaga** da (ikus beheago), eta **Cruz de la Tejería** (1633)<sup>5400</sup> eskuarki **La Cruz** deitu ohi dena. **Fuente de la Tejería** **Bidemakurra**-ko idoiaren ondoan dago:

"otra (pieza) en videmacurra...afronta con el camino de tafalla...y llega hasta muy cerca de la fuente de la tejeria" (1828)<sup>5401</sup>

Goiko teileria gerla aurretik 1945 inguruan H. Salaberrik berriztatu zuen arte gelditua eta are hondatua egon zen. Berrikuntzaren ondotik urte batez edo biz funtzionatu zuen, eta teilariak, itxi baino lehen, teila pila handiak metatu zituzten, herrian urte batzuetan teila beharrik izan ez zedin.

Gerla aurretik, gelditu eta hondatu aitzin, Valentzia aldeko teilariak etortzen ziren Uxuera teilak egitera. Buztina **Txutxu Alto**-tik eta teileriaren ondoko **Alto del Guarro**-tik hartzen zuten, eta ura **Fuente** eta **Balsa de la Tejería**-tik teiletxeraino egindako erretentxo batzuen bidez eramaten zen. Teilak egindakoan teileria ondoko larrinean uzten zituzten lehortzen.

---

5394 Id., 57. k.

5395 PRA-Oibar, 11. k.

5396 Id., 12. k.

5397 PRA-San Martin, 82. k.

5398 Id., 45. k.

5399 Id., 53. k.

5400 PRA-Kaparroso, 57. k.

5401 Uxueko hipotekak, 180. lib., 8. org.

Lehen udalarena zen eraikuntza hau partikularra da orain.

#### Tejería de abajo (carasol de), la:

XVII. mende arte teileria bakarra izan bide zen hau **Camino de Lakubeli** azpian zegoen<sup>5402</sup>, **Zubia** eta **Arbolaga** ondoan. 1718an **Tejería de abajo** bilakatu zen, orain bakarra den **Tejería (de arriba)**-tik bereizteko:

“ytten otra pieza junto a la tejeria de avajo...” (1718)<sup>5403</sup>

**Carasol de la Tejería de abajo** (1727)<sup>5404</sup> 1771ko **Carasol de Arbolaga** (egungo **Carasol de Lakubeli**-ren ondokoa) bera da.

#### Tejería de arriba, la; Tejería de junto a la cruz:

Gurutzearen azpiko teileria dugu hau. Esan bezala orain bakarra da, eta teila-rik egiten ez bada ere, zutik dago eta osorik, **Larziaga**-n, **Balsa de la Tejería**-ren alboan:

“una pieza...en la aldabea junto a la texeria de arriba” (1736)<sup>5405</sup>

#### Tejerías, cruz de las:

1819ko lekukoa nahasgarri samarra da, “tejerías” pluralean dagoelako. Gure iritiz erratu baten fruitu da, eta aipatu **Cruz de la Tejería**-ren orde zegoen:

“...en el Carasol tras de la Cruz de las tejerías”<sup>5406</sup>

#### Tiemblo, el:

**Arteko haitz**-en zegoen, **Camino de la Sierra**-ren ondoan, **Aitzandiet**a-ko errekan:

“...en el termino de la aldabea, y paraje llamado el tiemblo, y afronta p la parte de arriba a el camino de la sierra” (1789)<sup>5407</sup>

**Tiemblo**, jakina denez, txipua edo makalaren izen erdaldun zaharretako bat da, eta Uxuen egun denek “chopo” esaten dutenagatik, dokumentazioan antzina “tiemblo” hedatuago zegoela ikusten da (cf., gainera, egun bizirik dagoen **La Alamera** toponimoa). Euskaraz, Oibar aldean, **txipu** (edo **txipo**) esan izan zaio, Agezako **Txipueta** (ikus sarrera hau) eta Ezporogiko **Txipuetabaratz**ea-n ikus daitekeen moduan.

5402 Oraindik ere teila-puska ugari aurki omen daiteke lehen teileria zegoen alderdian.

5403 UEA, 13. kap-lib., 218. or.

5404 PRA-San Martin, 32. k.

5405 UEA, 13. kap-lib., 289. or.

5406 PRA-San Martin, 82. k.

5407 Id., 59. k.

**Toril, el:**

Gaurregun ere **El Toril** izenaz ezaguna den plaza nagusiko zoko honetan zezenkoak ixten ziren behinola, seguru asko toreatuak izan aitzinetik (ikus **Eslabako Plaza de los Toros**):

“Ms otra Casa sitta en el estremo de arriba de la Plaza grande, que hace esquina á ella, frente al toril donde se zierran los Novillos” (1788)<sup>5408</sup>

**Torraza (barranco de), la:**

Esan bezala, **Torraza** edo **torre**-ak despoblaturen azken hondakinak izaten dira maiz Nafarroan, eta Uxuen orobat. Hortaz, ia segurua da dorre bat azaltzen den alderdian despoblatur bat izan zela, baita 1534ko zerrendan agertzen ez denean ere (cf. **Torraza de Bigas**, **Bigas** sarreran, edo **Torre de San Nicolás**, **San Nicolás**-en). Jimeno Jurío Tafallako **Cabezo de la Torraza** toponimoa aztertzen ari delarik honela mintzo da:

“El hecho de que «el cabezo» sea una elevación contigua al río Cidacos y al camino real que de Olite y la Ribera tudelana sube hacia la capital, y esté situado en posición avanzada hacia los llanos meridionales y dominándolos, unido al primitivo nombre de «la Torraza», frecuentemente vinculado a poblados o «habitats» prehistóricos, permite deducir la existencia de algún poblamiento prerromano, del que será difícil hallar vestigios en la parte oriental del montículo”<sup>5409</sup>

1622ko **Barranco de la Torraza** Pitillas eta Uxueren arteko mugako **Santakaramuru** despoblaturaren ondoko erreka zen:

“...que junta con la corraliza de picarana...bajando acia el barranco de santacaramuru...y baxando al barranco de la torraza” (1622)<sup>5410</sup>

1770eko **Torraza**<sup>5411</sup> **La Sierra**-ko bat zen, **San Nicolás** edo **Basandia**-koa ausaz. Egun Uxueko **La Torraza** bakarra **Akirazabal**-ekoa da (ikus **Akirazabal** sarreran dioguna), baina antzina **Torraza** edo **torre** ugari zegoen udalerrian barna sakabanatuak.

**Torre nueva, la:**

**Dorreberria** euskaldunaren ordain erdalduna da (ikus sarrera hau):

“una media era...en los terminos de la dicha villa y endreçera llamada la torre nueva” (1598)<sup>5412</sup>

**Tostonera, la:**

Toponimo itxuraz berri honek **Pipiratu**-ren barruko eremu zelai bat adierazten du. Ikusten denez, **tostón** ‘gai biguin eta zapalaren zatia’, ‘behi-kaka’-ren<sup>5413</sup> eratorria da, beharbada behiak bertan larratu eta bekorrotzez ongi hornitua zegoelako.

5408 Id., 58. k.

5409 THET, 58. or.

5410 PRA-Kaparroso, 28. k.

5411 PRA-San Martin, 49. k.

5412 PRA-Oibar, 7. k.

5413 Iribarren, VN.

Tres mugas, las:

Beire, San Martin eta Uxueko mugak batzen diren alderdia da. Alabaina, ez dirudi zeharo finkatutako toponimoa denik, bakarren batzuek maiz erabili arren.

Turtunbera (aldabea de), (aldabea de junto), (alto de), (barranco de), (carasol de), (caracierzo de), (fuente de), (solana de):

Etimologia iluneko izena da hau. Gure ustez onomatopeia bat edo hitz adierazkorren bat izan daiteke, tradizionalki **Aldabea**-ra bota izan direlako balio ez zuten gauza guztiak. Ohitura honek herriaren inguru guztia zikinkeriaz bete du, eta herrira iristen diren bisitariak lehen begiratuan ez konturatuagatik, azterketa sakonxeago batek berehala azaleratzen ditu botatako hondakin piloak.

Dokumentazioan ia beti **Turtunbera** agertzen da, eta egun ere **Turtunbera** [tùrtumbé] esaten da, baina izen honen lehen lekukokoa euskal eredu fonologikoari estuago lotzen zaion 1602ko **Durtunbera** da:

“ytten otra pieca en durtunbera...que afruenta con barranco Concegil” (1602)<sup>5414</sup>

**Turtunbera** ere goiz azaltzen da:

“otra pieca...en turtunbera” (1605)<sup>5415</sup>

Geroko hasierako horzkari ahoskabea asimilazioz sortuko zen. Notatzekoa da puntu honetan t- eta d- euskal hiztegian mailegu, dermio adierazkor eta adizki “finito”-etan baizik azaltzen ez direla<sup>5416</sup>.

**Aldabea de Turtunbera** **Turtunbera** hutsaren adierakidea da<sup>5417</sup>, eta honek bezala herriaren ondoko sakanetako bat adierazten du (ikus **Aldabea** sarrera):

“Ytem en la Aldabea de turtunbera una pieza...qe afronta con la Hermita de Sta Agueda, y camino qe se va á chuchu” (1791)<sup>5418</sup>

**Alto de Turtunbera** (1807)<sup>5419</sup> **Aldabea** honen eta **Txorria**-ren arteko gaina zatekeen; **Carasol** (orain) edo **Solano** (dokumentazioan, 1697an<sup>5420</sup> adibidez) **de Turtunbera** hego-mendebaldera ematen duen hegia da; **Fuente de Turtunbera** (1608az geroztik<sup>5421</sup>) errekan dagoen harri-arkuz eraiki iturri zahar ederra da. Herrian ur korrontea jarri arte garrantzi handikoa zen, jendeak ur bila bertara jotzen baitzuen, **Aitzandietra**-ra ez ezik. Egun, erauntsien ondorioz, lohiek zeharo estalia dago.

5414 PRA-Oibar, 10. k.

5415 Id., 12. k.

5416 Ikus FHV, 254-255. orr. Muzkin **Turtunbera** dugu 1603an (PRA-Lizarra, 12. k.), Antxoritzen **Turtunbera** 1892an (kat.), eta Altzutzan **Tutunbera** 1914an (kat.), **Tutunbera** orain.

5417 Diferentzia zerbait egon liteke, agian.

5418 PRA-San Martin, 61. k.

5419 Id., 74. k.

5420 Id., 7. k.

5421 PRA-Oibar, 13. k.

**Txindilotxaga (alto de), (caracierzo de):**

Esan moduan (ikus **-aga-ri** eskainitako atala), toponimo hau \***Txindilatzeaga** baten desitxuraketaren fruitu izan liteke, **txindila** izenaren eratorriak ugariak baitira han-hemenkako toponimian<sup>5422</sup>, baina hau ez dago bat ere garbi. Bildu ditugun aldaerak hauek dira: **Chindilochaga** (1631<sup>5423</sup>, 1644<sup>5424</sup>, 1772<sup>5425</sup>), **Chindorochaga** (1710<sup>5426</sup>, 1732<sup>5427</sup>), **Cingolochaga** (1772<sup>5428</sup>, 1861<sup>5429</sup>), **Chogolochaga** (1815)<sup>5430</sup>, **Chimpolochaga** (1819)<sup>5431</sup>.

Badakigu **Urteaga** aldean zegoela, **Otrollos-etik** ez urruti:

“Mas Zinqta robadas de tierra blanca en el termino llamado Chindorochaga que afronta al camino bezinal que se ba a otrollos y barranco” (1710)

**Alto de Txindilotxaga** (1819) alderdiko gaina zen, eta **Caracierzo de Txindilotxaga** (1861) iparragerria.

**Txorria (acequia de los linares de), (aldabea de), (aldazkia de), (alto de), (barranco de), (cantón de), (carasol de), (paso de), (portillada de), (portillo de), (pozo de):**

Engungo **Txorria** [çõrja] **Echorria** da 1593an<sup>5432</sup>, eta badaiteke jatorrizko aldakia e-duna izatea (cf. **Esatea** > **Satea**). Etimologia iluna da guretzat.

**Txorria** aldaera ere goiz azaltzen da:

“un linar...en chorría” (1602)<sup>5433</sup>

Leku-izen hau garai batez **Bagarana**, **Balgarandega** edo **Valgrande**-ren ondoan bizi izan zen, baina denborarekin nagusitu eta auzo izana desagertarazi bide zuen. **Acequia de los linares de Chorría** (1715)<sup>5434</sup> beste batzuetako **Barranco de Chorría** da, hots, **Mantxiriturrieta**-tik jaisten den eta beheerago **Barranco del Molino** deitzen den erreka.

**Txorria Aldabea**-tzat hartzea harrigarri zaigu, gaurregun alde honetako **Aldabea** bakarra **Turtunbera**-koa baita, **Txorria Carasolalto**-n sartua dagoelarik. 1771ko lekukoa, alabaina, argia da:

“Ms otra (pieza) en dha Aldabea y Parage de chorría”<sup>5435</sup>

5422 Olloibarko Beasoain-Egillorren beste toki batzuetako **Txindilatzea**-ren (cf. **Chindilaçeco erreca Arlegin**, **Chindilaçea** edo **Chindilaçeta** Ezkirotzen. J. Jurío, TCPCG, 44. eta 213. orrialdeak, hurrenez hurren, **Txindilatzea** Morionesen) kide erdaldua den **La Lentejera** dugu bizirik (NTEM-XI, 65. or.).

5423 PRA-Kaparroso, 57. k.

5424 UEA, 13. kap-lib., 250. or.

5425 PRA-San Martin, 50. k.

5426 Id., 29. k.

5427 Id., 33. k.

5428 Id., 50. k.

5429 Hipotekak, 180. zkia., 124. org.

5430 PRA-San Martin, 79. k.

5431 Id., 82. k.

5432 PRA-Oibar, 7. k.

5433 Id., 10. k.

5434 PRA-San Martin, 30. k.

5435 Id., 50. k.



1727an beste leku-izen batzuei lagun eginez ere azaltzen den<sup>5436</sup> **alda(i)zkia** dugu:

“yttem en la aldazquia de chorria otra pieza de tres robadas...” (1727)<sup>5437</sup>

Gure ustez **aldazkia**-k ‘aldapa’, ‘aldaia’ adiera dauka<sup>5438</sup>, eta esanahi bereko **aldatz**-en eratorria da<sup>5439</sup>. Bukaerako **-ki** hori zehaztugabeko atzizki toponimikoa dela irudi du, beste herri batzuetako izenetan ere azaltzen dena: **Zalduki** Ekalan<sup>5440</sup> eta Eulaten<sup>5441</sup>, **Torreki**<sup>5442</sup> (< torre) Ekalan, **Zufitxarkia** (< zufi ‘zubi’ + txar ‘zahar’) Larragoan (Larraonan)<sup>5443</sup>, **Kortaki** (cf. gortea, kortea, korta ‘korralea’), **Iturriki** (< iturri), **Mendiki** (< mendi) eta **Zalduki** (< zaldu) Ameskoa aldean<sup>5444</sup>, **Intxaurkia** (edo **Intsaurkia** < intxaur edo intsaure), **Gurbeki**<sup>5445</sup> (< gurbe) Narkuen<sup>5446</sup>, **Louzako intxaurkiet**a eta **Zaldubiribilkia** Gastiainen<sup>5447</sup>, **Iturriki**a Galbarran<sup>5448</sup>, **Zalduki**a Antzinen<sup>5449</sup> eta **Legarian**<sup>5450</sup>, **Munokia** (1547) Abartzuzan<sup>5451</sup>...

Atzizki hau agian ‘gauzakia’ ‘zattia’ adiera ohi duen **-ki** ezagunarekin lotua egonen da<sup>5452</sup>. Kasu hauetan balio txikigarria izango luke, zenbait antroponimotan bezala (hemen balio hipokoristikoa gehiago du, txikigarria baino): cf. **Peruski** ‘Periko’ Saratsan<sup>5453</sup>, **Larunben**<sup>5454</sup>, **Etxalekun**<sup>5455</sup>, **Erbitin**<sup>5456</sup> eta **Muskitzen**<sup>5457</sup>, **Joangi** eta **Martiki** Pasai-San Pedron<sup>5458</sup>.

5436 Lakubeli eta Santa Cruz toponimoei lagun eginez ere aurkitu dugu.

5437 PRA-San Martin, 32. k.

5438 Behin **aldaizquia** dokumentatu dugu, baina lehen i hori bigarrenak eragindakoa izan daiteke. Cf., halore, honekin lotura zuzena duen **aldai** izena.

5439 Koldo Mitxelena **aldatz** ez dela existitzen dio, eta lekukotasun zaharrak **aldats**-en alde mintzo direla (AV, 43. or.). OEH-n ere **aldats**-ez besterik ez du biltzen, oker ez bagaude.

5440 PRA-Artabia, 6. k., 1692.

5441 Id., 5. k., 1689.

5442 Id., 7. k., 1693.

5443 Id., 6. k., 1691.

5444 Luciano Lapuente, TAM.

5445 PRA-Artabia, 6. k., 1691.

5446 Id., 4. k., 1688.

5447 Id., 3. k., 1686 eta 1685.

5448 Id., 16. k., 1694.

5449 Id., 9. k., 1696.

5450 Id., 1698. Cf. gainera **Oilo** / **Oiloki** herri-izenak.

5451 PRA-Lizarrak, 2. k.

5452 Ikus Azkueren MV-8, 99-100. eta 105-107. orr.

5453 PRA-Arakil-Hiriberri, 4. k., 1578. Etxe-izena zen herri honetan.

5454 Id., 1581. Hemen ere etxe-izena zen.

5455 Id., 5. k., 1587.

5456 Id.

5457 Id., 1. k., 1579. Tarteko **-s**- hori sabaiurreko soinu igurzaria izan zitekeen ([s] alegia), 1568ko **Martixa de Etxaleku**-n (id., 1. k., 1568) azaltzen den berbera (cf. oraingo **Martija** deitura). Cf., orobat, **mendiko** ‘menditxoa’ / **mendixka** ‘menditxoa’, **erixko** ‘eri antza’.

5458 PATO, 165. or. Itzagaondoko Ardanatz herrian osagaitzat **Mittelki** hipokoristikoa duen **Michelquirena** etxe-izena dokumentatzen da 1770. urtean (PRA-Auritz, 43. k.).

Dena dela, atzizki hau kendu-utzizkoa da batzuetan (cf. **Zaldubiribila** Gastiainen 1696. eta 1700. urteetan<sup>5459</sup>, maizkoagoa den **Zaldubiribilkia**-ren parean), eta ausaz beste balio bat duela kontu egin behar genuke, 'tokia' edo irudiko zerbait (cf. **-aga** / Ø edo **-eta** / Ø aldizkatzea aurkezten duten leku-izen ugariak). Cf. Mitxelenaren arabera oi(h)er 'okerra'-tik atera den **oihezki** 'ospela', 'opakua', **saihets-etik** atera den **saiheski** 'le champ qui est mis sur le coustaud' Oihenarten hitzez<sup>5460</sup>, edo Nafarroan hain arrunta den **beroki**.

**Alto de Txorria** (1749)<sup>5461</sup> **Turtunbera** eta **Txorria**-ren arteko gaina izan zitekeen<sup>5462</sup>, **Cantón de Txorria** bezala (1716)<sup>5463</sup>, baina baita altxonbidea igarotzen den **Txorria** eta **Cuartochiguito**-ren artekoa (ustezko **Alto de Bikuaga**) ere; **Caracierzo** eta **Carasol de Txorria**-k alderdiko ospel eta egutera adierazten dute, hurrenez hurren.

Uxueko lihatze gehienak **Txorria**-n zeuden, eta horren ondorio da dokumentazioko (1715)<sup>5464</sup> eta oraingo **Linares (de Txorria)** izena. **Paso de Txorria** (1713)<sup>5465</sup> beheko **Paso del Molino** nahiz goiko **Paso de las Pilas** izan zitekeen; **Portillada** (1717)<sup>5466</sup> edo **Portillo** (1772)<sup>5467</sup> **de Txorria** egungo **Portillo de las Pilas**<sup>5468</sup> bera zatekeen, hots, lihatzeetako bideko portilua, **Portillo de Esatea**-ren ondokoa. **Pozo de Txorria** (1806)<sup>5469</sup>, buruenik, "Corral de Fausto"-ko putzua dela dirudi, **Fuente de Fausto**-ren ondokoa.

**Txutxu (aborral de), (aborrales de), (barranco de), (barranco del riacho de), (fuente, fuentes de), (monte de), (portillada de), (presa de), (val de), Txutxu alto, Txutxu bajo; Txutxumantxiriturrieta:**

Toponimo hau XVII. mendearen hasieran s-z idatzia aurkitzen dugu (1605)<sup>5470</sup>, baina egungo **Txutxu** [čúču] aldaera asimilatua 1593rako azaltzen da<sup>5471</sup>.

Dermio hau oso menditsua da (932 metrotako **Alto de Txutxu** da Uxueko mendirik garaiena), eta neurri batez basoz estalia dago (antzina orain baino gehiago). **Su-chu su**-ren eratorri bat izan liteke (< **sutsu**?), su erraz hartzen duen tokia, oihana kasu honetan. Izan ere, **su** izena toponimian ez da ezezaguna (cf. **Sumendiaga, Suobietra, Sukia...**<sup>5472</sup>), eta gure alderdian honekin zerikusi zuzena duen **Errekina** edo **La Quemada** behin baino gehiagotan aurkitu dugu: cf. **Lergako Errekina, Errekinbazterra** eta **La Quemada, Agezako Errekineta** eta **La Quemada**, eta **Ezporogiko Errakina**.

5459 PRA-Artabia, 8. eta 9. karpetak.

5460 Ikus FHV, 235. or., 20. oinoharra.

5461 PRA-San Martin, 40. k.

5462 Turtunbera sarrera aztertzean ikusi dugun **Alto de Turtunbera** bera, alegia.

5463 PRA-San Martin, 30. k. Ikus **canto, cantón** eta **cantera**-ren inguruan **Aguilar** sarreran esan dena.

5464 Id., 30. k.

5465 Id.

5466 Id., 31. k.

5467 Id., 50. k.

5468 Hau berria da, **Fuente de las Pilas** izena zaharra den arren (ikus sarrera hau).

5469 PRA-San Martin, 73. k.

5470 PRA-Oibar, 12. k.

5471 Id., 7. k.

5472 AV, 150. or.

**Txutxu** asimilazioz sortuko zen, Zareko **Txantxiko** (< **Sanchico**) edo **Uxue**-ko bertako **Santxotoria**-ren aldakiak diren 1734ko eta 1752ko **Chanchoteria** eta **Chanchatoria** bezala. Dokumentazioan zenbaitetan azaltzen den **Chucho** aldaeraren bukaerako -o hori erdararen eraginari zor zaio, eta ikusi dugunez, -u-z amaitutako beste toki-izen batzuetan ere agertzen da (cf. **Astracastillu** / **Astracastillo**; **Castillu** / **Castillo**; **Lacu** / **Laco**; **Lacumulatu** / **El acumulado**...):

“yten otra pieza...en chucho en el camino que se va a Lerga” (1714)<sup>5473</sup>

**Gaurregun Txutxu** esaten da **Uxuen** eta **Lergan**, eta beraz agiritako -o horiek notarien erdal zaletasun ongi frogatuari leporatu behar zaizkiola irudi du. **San Martinen**, alabaina, **El Chucho** esan ohi zaio orain<sup>5474</sup>, eta **Txutxu** txantxetan baizik ez omen da erabiltzen:

“El Chucho...ha sido zona forestal con roble e incluso haya (según recuerdan los ancianos del pueblo), y se ha utilizado para acopio de leña. Se cuenta de él el siguiente dicho, alusivo al tiempo: «Boiras en el Chucho, no llovera mucho». Se le llama también «Chuchu», aunque en plan por lo general jocoso”

**XIX. mendean Txutxu** bi puskatan zatiturikako “aborrala” zen: **San Martin mugako alderdia** zegoen batetik (1828)<sup>5475</sup>, eta **Cuartos de Mugazuria**-ko mugakoa bestetik (1806)<sup>5476</sup>. Hau bat dator gaurko **Txutxu alto** eta **Txutxu bajo** banaketarekin.

Dokumentazioko **Barranco de Txutxu**, **Barranco de Andiaga**-ra doazen errekaetako bat da:

“...antes de llegar al barranco del rriacho que baja de chucho” (1688)<sup>5477</sup>

**Fuente** edo **Fuentes de Chuchu** (1771)<sup>5478</sup> **Fuente de Mantxiriturrieta** (bi dira) izango z(ir)en; 1619ko **Monte de Suchu**<sup>5479</sup> **Lerga** eta **Uxueren** arteko mendia izanzen zen (cf. **Lergako Uxueko oihanondoa**), mendi horretako gailurra den **Alto de Txutxu** ez bazen behintzat. Mendi hau 1817. urtean labakitu zen, **Urangak dioenez**<sup>5480</sup>, udalerriko beste batzuekin batera.

1628ko **Portillada de Suchu** **Lergako** mugako **Portillada de San Gines** bera da, **Camino de Pamplona** edo **Altxunbidea** igarotzen dena:

“dos pedazos de pieza..en el termino...llamado suchu en la portillada...que afrentan con...Camino Real que van de aqui a pamp”<sup>5481</sup>

5473 PRA-San Martin, 30. k.

5474 Fco. Javier Zubiaur, “Toponimia de San Martín de Unx (Navarra)”, CEEN, 1977, 27, 415-462. orr.

5475 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 14. or.

5476 PRA-San Martin, 73. k.

5477 Id., 5. k.

5478 Id., 50. k.

5479 PRA-Oibar, 20. k.

5480 UM, 81. or.

5481 PRA-Kaparroso, 31. k.

XVII. mendeko **Presa de Txutxu** (1602<sup>5482</sup>, 1634<sup>5483</sup>) **Mantxiriturrieta**-n zegokeen:

“Y Junto a la pressa de Suchu a donde se Juntan los dos barrancos” (1602)

1613ko **Baldechuchu**<sup>5484</sup> uharka aldean zegoen, erreken topagunetik hurbil beraz. 1602an, azkenez, berriz sekulan aurkitu ez dugun **Suchu machiriyturrieta** toponimo elkartua ageri zaigu:

“ytten en la endrecera llamada suchu machiriyturrieta”<sup>5485</sup>

Uxueko **Txutxu**-k **Ardui** eta **Carosalto**-rekin mugatzen du hegaldetik, eta **Andiaga**-rekin ekialdetik. Mendebaldean San Martin dago, eta iparraldean Lerga. Bukatzeko diogun **Pitillas Txutxu**-ren laurden baten jabe zela (ikus **Cinco Millares sarrera**)<sup>5486</sup>.

#### Udareaga:

**Udare** ‘udareondo’ izena eta **-aga** atzikia ditugu agirietako **Udaraga** nahiz **Udareaga**-n<sup>5487</sup>. Itxuraz **Beskos** aldean zegoen, **Puendelazapata**-n (ikus sarrera hau):

“ytten otra pieça...en udaraga” (1588)<sup>5488</sup>

#### Urkamendia:

**Urka** eta **mendia** izenez osatua dago; Lergako **Urkabegaña**-ren errankidea da, eta hau bezala arrunta da Nafarroako toponimian. Jimeno Juriforen arabera **Urkamendia** erdarazko **Cruz de la Justicia**-ren (Tafalla) euskarazko ordaina da; honela mintzo zaigu autore hau<sup>5489</sup>:

“Pieza en el termino de *la Cruz de la Justicia*, afrontada con piezas del Colejio de la Compañia de Jesus de Pamplona y camino para Miranda (1754, APSM: Censos). El paraje fue llamado también «La Justicia». A una realidad similar se refieren los tops. (sic) «Horca», «Monte de la horca», que en la comarca tuvieron estas concreciones: *Urcamendi* (Benegorri, Orba); *Urcamendi* (Siglos XVI-XVII); *Urcamendi andia* (1724), *Urcamendi bitartea* (S.XVI-XVII), *Urcamendi chipia* (S.XVI) (Artajona); *La Horca* (Olite)”.

**Urkamendia Aguilar** eta altxonbidearekin mugatzen zuen mendi baten izena zen:

5482 PRA-Oibar, 10. k.

5483 IEA, 345. kart., 13. zkia.

5484 PRA-Kaparroso, 34. k.

5485 PRA-Oibar, 10. k.

5486 UUA, LA, 1793-1816, 11.

5487 PRA-Oibar, 12. k.

5488 Id., 4. k.

5489 THET, 93-94. orr. Cf. Mendazako 1696ko **El Cerro de la Horca** (PRA-Artabia, 8. k.).

“una pieza sita en Urcamendia termino de esta villa...afrentada con las mugas de aguilary con la cañada” (1631)<sup>5490</sup>

Honen arabera, gaur **Alto del Guarro** deitzen den **La Cruz** ondoko gaina dela pentsa daiteke, batez ere bizirik dagoen izen hori estraineko aldiz 1892ko katastroan azaltzen dela aintzat hartzen bada (ikus sarrera hori).

**Urteaga (alto de), (cabezo de), (carasolde), (fuente de), (la alta), (la baja):**

Izen honen etimologiaz ikus **-aga-ri** eskaini atalean dioguna. **Urteaga La Sierra**-n dago: iparraldean **Pipiratu** du, mendebaldean **Zaubio**, eta hegoaldean **Medios**. Ekialdean, altxonbideaz gain, **Urteaga**-ren beraren barrukotzat jo ohi den **Abuñaga**, **Basandia** eta **Sulue (Andresoro)** ditu. Antzina, dena dela, **Artabakoitz** eta **Txindilotxaga**-rekin<sup>5491</sup> ere mugatzen zuen (edo ondoan zituen behintzat).

1534ko despoblalu-zerrendan<sup>5492</sup> izen bereko bi herri zeudela dakusagu: **Urteaga lalta** eta **Urteaga la baxa**. Izenondoak erdaraz daude, baina euskal beheiti / goiti edo horrelako pare baten itzulpena direla uste dugu (Ikus **Otrollos** sarreran dioguna. Cf. **Abaurregaina / Abaurrepea, Ollobarren / Ollogoien, Ziagoiti / Ziabietti...**).

Zernahi ere den, badakigu **Urteaga la alta** altxonbidetik hurbil zegoela, **San Nicolás**-ko iturrira doan bidea hasten den tokiaren parean, muino batean, hego-mendebaldera begira; zaharkinak oraindik ikusgai daude, bizitza laburra izan zuen harrobi berri batetik hurbil. **Urteaga la baxa** goikotik gertu zegoela uste dugu, beherago, “**Corral de Ausalón**”-i hurrantzen. Izen ere, **Abuñaga**-tik heldu den bidearen ondoan herri baten zaharkinak ikusi omen daitezke<sup>5493</sup>.

**Alto** edo **Cabezo de Urteaga** (1593)<sup>5494</sup> **Balsa de Abuñaga**-ren hurbileko gaina zatekeen, errepidea igarota dagoena; **Fuente de Urteaga** behin bakarrik agertzen da dokumentazioan (1788)<sup>5495</sup>, eta agian oraingo **Fuente de Gerardo** edo **Fuente de Alberto**-rekin identifikatu behar genuke.

Egun **Urtiaga** [ũrtjága] esaten zaio dermio honi, arrunta den **-ea- > -ia-** aldaketa jasan duelarik<sup>5496</sup>; fazeria izan ote zen ez dakigu, baina daitekeena da **Pitillasekikoa** izana (ikus **Facería** sarrera). Gaurko **Carasol de Urteaga** lehengo **Carasol de Artabakoitz** bera da, eta segurua da bizirik iraun duenak zati bat (egutera) kendu diola desagertu denari.

5490 PRA-Kaparroso, 34. k.

5491 Azken hau zehazki non, alabaina, ez dakigu. Badakigu **Urteaga** aldean zegoela, baina ez ondo-ondoan ala apartexego zegoen.

5492 NAO-Comptos, 550. zkia.

5493 Ez dugu geure begiz ikusteko abagunerik izan. Informazio hau gure osaba den Esteban Berraderi zor diogu.

5494 PRA-Oibar, 7. k.

5495 PRA-San Martin, 58. k.

5496 Cf. **Urteaga** Saratsaten 1780an (PRA-Atarrabia, 87. k.), **Urtiaga** 1684an (PRA-Asiain, 101. k.), **Urtiaga** [ũrtjága] gaurregun.

**Uxue:**

Ujué herri-izenaren jatorriaz arduratu diren autoreek esandakoa eta izen honetaz geronek pentsatzen duguna ikustera igaro aitzinetik, historian zehar aurkitzen ditugun aldaera ezberdin-nabarrak aztertuko ditugu, bi sailetan multzokatuz: herri-izen hutsa eraskuten duten lekukoak emanen ditugu lehenik, eta herri-izena elkartu baten barruan azaltzen den lekukoak gero. Honetaz ari garela, Euskaltzaindiak NHI-n izen honen aldaera gehienak bildu dituela aitortu behar dugu, baina, halarik ere, badira Akademiaren lanean azaltzen ez diren aldaki gutxi batzuk:

## 1-Izen soila:

XI. mendean: Usxue (1058)<sup>5497</sup>; Ossue (1062)<sup>5498</sup>, Ussue, Vssue, Hussue, Uxue (1064)<sup>5499</sup>; Unse (1076)<sup>5500</sup>; Ussua (1093)<sup>5501</sup>.

XII. mendean: Uxua (1102)<sup>5502</sup>; Ussoe (1111)<sup>5503</sup>; Uxuci (1136)<sup>5504</sup>; Iusua (1150)<sup>5505</sup>; Uisua (1155)<sup>5506</sup>; Uns, Uxue, Vxue (1162)<sup>5507</sup>; Ux (1171)<sup>5508</sup>.

XIII. mendean: Ussua (1230); Uxoa, Vxoa (1234)<sup>5509</sup>; Huyssue (1265)<sup>5510</sup>; Huissue, Uissue, Husse (1280)<sup>5511</sup>; Uxoe (1290)<sup>5512</sup>.

XIV. mendean: Huxue (1356)<sup>5513</sup>; Uyxue (1372)<sup>5514</sup>.

XV. mendean: Huxua (Xemeno de) (1412)<sup>5515</sup>; Ujue (1478)<sup>5516</sup>.

XVI. mendean: Utsue (1584)<sup>5517</sup>; Unxue (1587).

## 2- Elkartu baten barruan:

Uxue-: Uxue bidea (Ageza, 1547); Uxuebidea (Lerga, 1550), (Eslaba 1644).

Usue-: Usue bidea (Ageza, 1588); Usueco oyanondoa (Lerga, 1592).

Uxu-: Uxubidea (Ageza, 1570).

5497 R. Ciérbide, ICT-III, 307. or.

5498 Id., 289. or.

5499 Id., 307. or., NHI, 200. or.

5500 NHI, 200. or.

5501 ICT-III, 306. or.

5502 NHI.

5503 Id.,

5504 ICT-III, 307. or.

5505 NHI.

5506 J. M. Jimeno Jurío, "Cendea de Olza. Toponimia", FLV, 38, 1981, 175-220. orr.

5507 Munita, 50. or., NHI.

5508 NHI.

5509 Id.

5510 Campión, *Obras Completas*, XIV, 227. or.

5511 NHI.

5512 Campión, *Obras Completas*, XIV, 227. or.

5513 NAO, katalogoa, 12. kaxa, 183-XI.

5514 UM, 260. or.

5515 Id., 272. or.

5516 Id.

5517 Id., 208. or.

Ussu-: Ussubidea (Ageza, 1592).

Usu-: Usubidea (Galipentzu, 1597), (Eslaba, 1753).

Uso-: Ussobidea (Ageza, 1586), (Oleta, 1646), (Eslaba, 1688).

Uso-: Usobidea (Ageza, 1588), (Eslaba, 1705).

Lehen multzoan sailkatutakoak, agertze-dataren ordeaz azpian dagoen erre-alitate fonikoa kontuan hartuz beste modu honetara ere taldeka daitezke:

a- Uxue [ušue]: Usxue (1058); Ussue, Vssue, Hussue (1064); Uxue, Vxue (1162); Huyssue (1265); Huissue, Uissue (1280); Huxue (1356); Uyxue (1372); Utsue (1584)(?).

b- Uxua [ušua]: Uxua (1102); Uisua (1155); Ussua (1093, 1230); Huxua (1412).

c- Uxoa [ušoa]: Uxoa, Vxoa (1234).

d- Uxoe [ušoe]: Ussoe (1111); Uxoe (1290)

e- Ujue [uxue] edo [uxwé]: Ujue (1478-tik aurrera, nahiz ez beti)

f- Bestelakoak:

f.1-Bere baitan sudurkaria dutenak: Unse (1076); Uns (1162); Unxue (1587).

f.2-Aurreko azpimultzokoen laburketatik atera ziratekeenak: Ux (1171); Husse (1280).

f.3-Gainerakoak: Ossue (1062); Uxuci (1136); Iusua (1152).

Ikusten denez, zaharrenak eta ugariak Uxue [ušue]-ren adierazleak dira, eta 1478rako aldaera belaretua<sup>5518</sup> azaldu arren, segurua da, elkartuak aztertzean ikusiko den gisan, toponimo euskaldunetan sabai-aurrekoak iraun egin zuela, eta hortaz, euskaraz ere gorde zela pentsa daiteke. Egun ere herri-izen asko eta askok bi aldaera ezberdin (nahiz oso antzekoak zenbaitetan) dituzte, bata euskalduna (edo euskaraz mintzatzen denerako), eta bestea erdaldua (edo erdaraz mintzatzen denerako): **Errazu** [erásu] (gaztelaniaz) / **Erratzu** [erácu] (euskaraz); **Leiza** [léisa] (erdaraz) / **Leitze** [léiçe] (euskaraz)...

Bigarren multzoko elkartuak aztertzean igaroaz, diogun bakarrik euskara bizi zeneko lekukotasunak hartu direla aintzat, kasu bat (Eslabako 1753ko Usubidea) zailantzekoa bada ere, ordurako euskara bizirik zegoela duda egin daitekeenez gero.

Bigarren talde honetan ikusten den bezala, aldaerarik zaharrenak Uxue [ušue]-ren alde mintzo dira (Uxue bidea Agezan 1547an eta Uxuebidea Lergan 1550ean), forma laburtuak (hots, lehen osagaiaren bukaerako -e galdu dutenak) aski goiz azaltzen direnagatik, Agezan bereziki: Uxubidea (Ageza, 1570ean), Ussobidea (Ageza, 1586), Usobidea (Ageza, 1588), Ussubidea (Ageza, 1592), Usubidea (Galipentzu, 1597). Forma osoa XVII. mendean aldi bakar batez aurkitu dugu (Uxuebidea Eslaban, 1644an); gainerakoetan beti forma laburtu bat edo beste agertzen da: Ussobidea (Oleta, 1646)<sup>5519</sup>, Ussobidea (Eslaba, 1688), Usubidea (Eslaba, 1753).

Aldaki laburtuen erabilera ulergarria da, euskal elkartuetan lehen osagaiak hiru silaba edo gehiago dituen azkeneko bokala galdu ohi dela aintzat hartzen ba-

<sup>5518</sup> J-dun aldaki horiek, alabaina, engainagarriak izan daitezke, ez baita segurua [x] ordezkatzan dutela. Ikus Grafia kontuak atalean dioguna.

<sup>5519</sup> PRA-Oibar, 25. k.

dugu, eta gure kasuan, euskaraz bederen, **Uxue** izenak hiru silabatan ebakitzen zela irudi du, euskara tradizionalki goranzko diptongoei aiherriz izan baitzaie.

**Uxue** izenak bere baitan duen kontsonantearen izaerari dagokionez, garbi dago, bai lehen multzoko izenen artean eta bai bigarrenekoaren artean, sabaiaurreko igurzkari baten aurrean gaudela, eta -x-dun aldaerak garai batean behintzat nahasgarriak izan daitezkeen arren (kontuan hartu behar da XVI. mendearen hasierarako gaztelaniazko lehenagoko sabaiaurreko igurzkaria belaretzen dela<sup>5520</sup>), hauekin batera -ss-dun aldaerak azaltzeak -x-ren sabaiaurrekotasuna segurtatzen du. Lehen multzoko aldaeren artean, gainera, **Huissue**, **Uissue**-ren antzeko aldaeretan -i- horrek s (bikoitza)-ren sabaikaritasuna berresteko modu bat dela uste dugu.

**Uso-** edo **Usu-** formak **Uxo-** eta **Uxu-** bustien aldaerak izan zitezkeen, edo soinu busti horien ondorengoak, euskara galduz geroztik.

Orain etimologia aztertzeraz igaroaz, izen honetaz arduratu diren zenbait ikerlariren iritzia aldatuko ditugu hona, geronen iritzia azaldu aurretik:

*José Moret*-ek bere *Anales del Reino de Navarra* ezagunean<sup>5521</sup> Uxueko Ama Birjina agertu zeneko usoaren elezaharra kontatzen du lehenik, alegia, nola orain Uxue herria dagoen mendian uso batek artaldearekin bertan zegoen artzainari Ama Birjinaren irudia aurkiarazi zion haitzulo batean. Autore hau gero berak kontatutakoaz baliatzen da **Ujué** izena **Usua** 'usoa'-tik erakartzeko. Honela dio:

"...Y para memoria de la maravilla y de la paloma, que trajo ó descubrió el ramo de oliva, anunciadora de bonanza en aquella inundación de mahometanos, tomó el nombre de *Usua*, que en el idioma vascongado, vale lo mismo, que paloma, y se llama Santa María de Usua, aunque con el tiempo se ha alterado algún tanto, y se llama Ujué. Los privilegios antiguos Usua le llaman siempre..."<sup>5522</sup>

*Arturo Campiñón* idazle eta gramatikaria ere arduratu zen mintzagai dugun izenez<sup>5523</sup>. Autore honek Moretek ematen duen **usua** hitzean oinarritutako interpretazioa arbuaitzen du<sup>5524</sup>, eta honen ordeztu gorago aipatu elezaharrean agertzen den haitzuloa aukeratzen du gure izenaren sorburutako. Campiñónen arabera, **Huyssué**, **Hussua**, **Uxoe** edo **Uxua** euskarazko **huts** ('ikusmenaz nabari daitezkeen ezer ez duena; ohi duenaz, daukanaz edo dagokionez gabetua', **HLEH**-ren arabera) hitzarekin lotu beharra dago, alegia, elezaharreko haitzuloak bere baitan duen "hustasuna"-rekin. Honela mintzo da autore hau:

«Por recuerdo al papel que desempeñó la paloma, se supone que la virgen se denominó de *Usua*, que es el nombre de esa ave en vascuence, la cual, por tanto, se lo comunicó a la villa. Yo, sin embargo, opino, que el paraje o sitio se llamaba anteriormente al hallazgo con nombre derivado de *uts* y descriptivo de la gruta o resquebrajadura de la peña, aunque por influencia del que se dio a la imagen fue cediendo el puesto al segundo. El certificado de origen de la palabra parece que lo

5520 Mdez. Pidal, MGHE, 113-114. orr.

5521 1890ean Tolosan Eusebio Lópezen etxean egindako argitalpena erabili dugu.

5522 Aipatu idazlana, 163-164. orr.

5523 *Obras Completas*, XIV, 227-228. orr.

5524 Moret izena aipatu gabe ordea.



ostenta la supervivencia de la sibilante palatal fuerte de *uts* en la *x* y *ss* de las formas arriba colacionadas: *Huyssue*, *Hussua*, *Uxoe*, *Uxua* que, probablemente, en concepto de quienes las escribieron y pronunciaron, significaban ya “paloma” y no otra cosa”

**Fco. Javier Zubiaur** San Martin Unxeko toponimia aztertzen ari delarik<sup>5525</sup> herri izen honen **Unx** osagaiaren jatorrian sakontzen saiatzen da, eta zeharka bederen **Uxue** ere ukitzen du, bi izenok etorki bera izan baitezakete, zenbait autoreren iritziz<sup>5526</sup>. Zubiaurren arabera, **Unx**-ek euskarazko **huntza** landare-izenarekin izan lezake zerikusia:

“En ocasiones, la documentación sobre este pueblo (San Martín Unx) parece confusa en cuanto a la denominación de la Villa, ya que se la cita (sic) como «San Martín de Usué». El P. Clavería piensa que San Martín de Unx es lo mismo que San Martín de Ujué, pues le parece que en algún tiempo dependió de Ujué esta villa. En algunas cartas de privilegios reales, efectivamente, se le nombra como «Santo Martino de Uxue».....¿Cuál es el origen etimológico del topónimo «Unx»? En vasconce, «untz», «untzá» (sic) significa hiedra. Los Casales, antigua zona histórica del asentamiento del pueblo y hoy destruida, tiene gran cantidad de esta planta trepadora entre sus muros. Tal vez puede tener origen vascónico este topónimo”<sup>5527</sup>

Nafarroako toponimia sakonkien ezagutzen duen **Jimeno Jurío** historiagile eta ikertzailea ere arduratu da mintzagai dugun herri-izen honetaz. Autore honek, Oltza zendeako toponimia aztertzen ari delarik, **euntze** ‘larre’-ren Iruñerriko eta Nafarroako Erdialdeko egungo **Unze**, **Unzu**, **Onze** aldaera desitxuratuak aipatzen ditu, eta Alaitz eta Izko mendietatik hegoaldera azaltzen diren **Unsi**, **Unse** eta **Unzue**-rekin ez ote daitezkeen lot galdegiten dio bere buruari. **Unse** aztertzean zera dio, antzina orain baino eremu zabalagoa adierazten bide zuela (Beire ere hartuko zuen bere baitan), eta ondoan duen **Ussua**, **Ussue**, **Uxua**, **Uxue**, **Ujue** izena ere **Unse**, **Unsue**-tik atera zatekeela, egungo **Unx** bezala<sup>5528</sup>.

Jimeno Juríok eta Zubiaurrek dioten moduan, batzuetan ez bide dago **Unx** eta **Uxue** bereizterik, hau da, dokumentazioan nahasirik agertzen dira zenbaitetan, baina hala ere, **Uxue** izena segurua denetan sudurkaridun aldaerak oso gutxi dira (bi) eta zalantzarik gabe [ušue] ordezkatzen dutenak baino beranduagoak. Hortaz, ez dirudi **Uxue** **Unsue**-tik (noiz dokumentatzen da forma hau?) atera denik.

Jimeno Juríok idarokitzen duen **euntze**-rekiko loturari osotara baztertzekoa deritzogu, **euntze**-ren aipatu **unze**, **unzu**...eta beste aldaera desitxuratuak behin tokian tokiko euskara galdu ondoren azaltzen direlako, ez lehenago. Gure eskualdean, Nafarroako aipatu gainerako eskualdeetan bezala, jatorrizko forma **euntze** dela duda egiterik ez dago (ikus izen honen etorkiaz Agezako **Euntzeberri** sarreran dioguna, -tze-ri eskaini atalean).

Jendeak ahotan darabilen aspaldiko (Moretez geroztikako, gutxienez) **Uxue** = **Usua**, **Usoa** ekuazioak funtsik baduela ezin uka daiteke. Izan ere, **Uxua** 1102rako agertzen da lehen aldiz, eta **Uxoa** 1234rako, eta ikusi bezala **Uxue**-ren elkarketako al-

5525 “Toponimia de San Martín de Unx (Navarra)”, 450-451. orr.

5526 P. Clavería Arangua uxuetarraren ustez, adibidez. Azken autore honen iritziak *Iconografía y santuarios de la Virgen en Navarra* liburuan biltzen dira, Madril, 1942, II ale. Zubiaurrek aipatua, “Toponimia de San Martín de Unx...”-eko 439. orrialdean.

5527 Aipatu artikulua, 451. or.

5528 “Cendea de Olza. Toponimia”, 188-189. orr.

daera Uxo- edo Uso- da sarri, ez legokioken Uxu- (edo usu-). Egia da Usoa-ren jatorria ekialdeko euskalki batzuetako urzo-n bilatu beharra dagoela<sup>5529</sup>, baina egia da, berebat, -rz- > -s- aldaketa Nafarroako zenbait eskualdetan 1258rako burutua zela, urte honetako lekukoek hortz-hobietako igurzkari apikaria zegoela ezin segurta badezakete ere (Usoa idatzia azaltzen da XIII. mendean<sup>5530</sup>), eta agian aipatu pauso hori lehenago ere gertatuko zen.

-Oa / -ua txandaketa gaurregun oso azalerraza litzateke, baina ez dakigu gauza bera esan daitekeen duela bederatzi mendeko euskaraz. Beste arazo larri bat sabaiurreko igurzkariaren presentzia litzateke, bustidura adierazgarria bitxia baita gure ustez herri-izen batean. Dena den, Mitxelenak aipatzen dituen XIII. mendeko Usoa horiek aski nahasgarriak dira, eta bertan kontsonante bustia dugula esaten ausartzen ez bagara ere, ez dugu uste posibilitate hau zeharo zokora daitekeenik.

Guztiarekin ere, eta esan bezala, Usoa-tik abiatuta azalpen errazegirik ez duen Uxue da izen soiletan eta elkartu euskaldunetan dokumentatzen den lehen forma, eta berau da, zalantzarik gabe, azken horietan agertzen den Uxu-, Usu-ren iturburua. Uste izatekoa da, Campiónek idarokitzen duen gisan, usoaren elezaharra bizirik zegoela jendearen artean, eta honek uso- (uxo- ere bai?) agertarazi zuela, elkartuetan bederen. Zoritzarrez, Uxue-ren jatorria zein izan daitekeen ez dakigu guk, baina ez dugu uste, Campiónek pentsatzen duenaren aurka, huts-ekin lotu behar denik.

Ez dugu bukatu nahi 1785ean Murillo el Fruton Joaquín de Uxueta izeneko azaltzen dela<sup>5531</sup> esan gabe. Antza duenez, hemen Uxue {[uxwé] seguru aski ordurako) herri-izena dugu, eta -leku-ugaritasunezko -eta atzizkia. Jakina den bezala, bukaera hau izen arruntei erantsi ohi zaie (cf. Aitzandieta), eta honek agian Uxue horren azpian behiala horrelako bat zegoela pentsarazi behar liguke<sup>5532</sup>.

### Valdecontienda (facería de), (portillo de):

Esan dugunez (ikus Lergako Valdecontienda sarrera), Valdecontienda izena Facería-ren adierakidea da gure alderdian, eta bi auzo herri lur eremu beraz baliatzeak sortzen zituen auzi eta liskarrei zor zaiela dirudi. Uxuen bi Valdecontienda ezberdin agertzen dira: bat gaurko Epaizko fazeria da:

“las roturas que algunos vecinos de Uxue han echo en la fazeria de Baldecontienda con el Pueblo de Abaiz...” (1812)<sup>5533</sup>

Bestea Mostrakas-en zegoen, Santakara eta Murilloko mugan:

5529 Ikus FHV, 362. or. Mitxelenak ez du baztertzen Uxue uso-tik atera zitekeelakoa. Honela dio irakasle errenteriarrek: “Si *Ujué* en Nav., doc. *Usua*, *Ussua*, *Ussue*, *Ussue*, *Uxua*, *Uxue* tiene algo que ver con el vasc. *urzo*, *uso* «paloma», se trata de un grupo original -rz-” (“Introducción fonética a la onomástica vasca”, SHLV, 555-580. orr.).

5530 FHV, 362. or.

5531 PRA-San Martin, 56. k.

5532 Abere-izen soilekin ez da oso arrunta, baina hor dugu, adibidez, Aroztegiko Azkoneta toponimoa. F. de Leizaola, TVA, 414. or.

5533 PRA-San Martin, 77. k.

“En los terminos de las villas de Uxue y murillo el fruto y Santacara y en el llamado mostracas y por otro nombre baldecontienda” (1612)<sup>5534</sup>

Kontuan eduki behar da **Mostrakas** Pitillasena ere bazela, Uxuerena ez ezik, eta **Valdecontienda** izena hortik etor zitekeela. Hau, halaz guztiz, ez zaigu horrela dela iruditzen, zeren Uxueko auzoa izan zen herri horrekiko beste dermio komunak aipatzean ez baita sekulan **Facería** edo **Valdecontienda** azaltzen. Errazago deritzagu gaur **Larrageta** deitzen den alderdia izateari, hau Murillo, Santakara eta Uxueko mugan egoteaz gainera, hiru herriotan bizirik (nahiz ez denetan indar beraz, nonbait) dirauenez gero.

**Portillo de Valdecontienda** Epaizko fazeriako ate bat (zein?) zen (1741)<sup>5535</sup>.

**Valgrande (acequia de), (paso de):**

Esan dugunez (ikus **Bagarana** sarrera), **Valgrande Bagarana** edo **Balgarandega**-ren aldaera zen, eta **Txorria**-k adierazten duen eremu ber(tsu)a adierazten zuen:

“ytten se les hace cargo de un linarcico...sito en el termino llamado Valgrande...” (1634)<sup>5536</sup>

1628ko **Cequia de balgrande**<sup>5537</sup> oraingo **Barranco de Txorria** da, eta 1631ko **passo de balgrande**<sup>5538</sup> **Paso de Txorria** zatekeen.

**Vedado (balsas de), (carasol de), (monte de), el:**

Uxuetarrek aziendak (behiak, ahuntzak eta zamariak) larretzera eramateko altxatzen zen, eta ezin sal zitekeen “corraliza”-tzat. 1722an agertzen da aurren aldiz **El Vedado** izena<sup>5539</sup>.

Ricardo Ciérbideren arabera, **Vedado** ez da egungo Olibaldeko toponimian azaltzen, baina garai batez erabilia izan zen bertan, dokumentazioak garbi erakusten duen bezala. Honela dio:

“El Castellano *vedar* procede del latín VETARE «prohibir, vedar». Uno de sus derivados es *vedado* «campo o sitio acotado o cerrado por ley u ordenanza». Hoy es voz desusada en la toponimia de esta comarca (Olibaldean, alegia), pero, a juzgar por la documentación, fué activa en épocas pasadas, y, como algunos de estos topónimos hacen referencia a hierba y animales...”<sup>5540</sup>

Guztiarekin ere, Uxueko **El Vedado**-n XVIII. mendean baziren alorrak:

“Mas en el bedado una pieza zerrada...” (1722)

“ytem una pieza cerrada, en el terno del vedado o Dorrondiaga” (1791)

5534 PRA-Kaparroso, 19. k.

5535 PRA-San Martin, 37. k.

5536 IEA, 345. kart., 13. zkia.

5537 PRA-Kaparroso, 31. k.

5538 Id., 34. k.

5539 PRA-San Martin, 31. k.

5540 TCO-II, 136-137. orr.

El Vedado-k mendi osoa hartzen zuen, Dorrondiaga oihezkoa eta El Carasol del Vedado eguzkialdea. Orain anitz aldiz El Monte esaten da isuri bata zein bestea aditzera emateko, bereizteko beharrik ez dagoenean. Monte del Vedado 1781ean aurkitzen dugu<sup>5541</sup>.

Uxueko El Vedado-ren antzekoak izan behar dute, balioaz den bezainbatez, beste herri barzuetako El Acotado toponimoek (Olluibarko Egillor-Beasoain, Olló eta Senosiainen azaltzen da, adibidez<sup>5542</sup>) eta euskarazko isuin- osagaia dutenek (cf. Isuñña Burlatan; Isunlarre Untzun; Isunbizkar Usin<sup>5543</sup>, Isuina Narkuen<sup>5544</sup>). Aezkoan antzeko adiera dukeen Debekuberri dugu bizirik Abaurregainean, Debecuberria bezala dokumentatua 1782az geroztik<sup>5545</sup>, urte berean agertzen den El Vedado-ren ondoan<sup>5546</sup>.

Berriki arte idoi bakarra zegoen El Vedado-n (Balsa de Medios)<sup>5547</sup>, baina orain denbora gutxi beste bat egin dute, Uxuen arruntak diren idorteeetan aziendek nahikoa ur izan dezaten.

Vergel, el:

Vergel Corominasen arabera<sup>5548</sup> okzitanierazko vergier-etik atera da, hau bere aldetik latin bulgarreko viridiarium-etik (latin klasikoko viridarium 'zuhaitzi'-tik) atera delarik.

Izen honen euskal ordaina I. Sarasolaren arabera<sup>5549</sup> berjera 'lore eta fruitu-zuhaitz asko dagoen baratza' da, eta hauxe da Morionesen aurkitzen duguna. Elkanon, bestalde, berjera-ren ondoan berchera dugu, Bercherape toponimoan<sup>5550</sup>; Lakidainen Bertxera [beřčéra] dugu bizirik, eta Arangurenen la huerta llamada Bergera agertzen da 1675ean<sup>5551</sup>, eta Bertxera 1919an<sup>5552</sup>.

Olluibarren ere Bertxera [beřčéra] dugu Beasoainen (Vergera 1587an<sup>5553</sup>), Ollon (Bercheraguibela 1711n<sup>5554</sup>) eta Artetan<sup>5555</sup>, ibar honetako Senosiainen Berchera ageri da 1914ko katastroan. Aezkoa-Hiriberrin, aldiz, izen arrunten eta toponimoen arteko zerbait den<sup>5556</sup> Pertxera [peřčéra] erabiltzen dute orain.

5541 PRA-San Martin, 55. k.

5542 NTEM-XI, 54, 89 eta 114. orr.

5543 Jimeno Jurío, ETB, 69. or.

5544 PRA-Artabia, 4. k. Acotado eta Isuina, halarik ere, erdarazko Monte demarcado-ren kide izan litezke, ez El Vedado-renak, hots, euskaraz Basoitxi-ren bitartez bideratu den kontzeptua eman lezakete aditzera. Ikus Epaizko Monte demarcado sarrera eta NTEM-IX, 38.or.

5545 PRA-Auritz, 50. k.

5546 Id.

5547 Esan moduan El Vedado-ren erdian dagoelako hartzen du izen hau.

5548 DCECH.

5549 HLEH.

5550 J. Apecechea, IBCNJL, FLV, 22, 1976, 77-93. orr.

5551 IEA, 899. kartoia.

5552 LVTV.

5553 PRA-Asiain, 175. k.

5554 PRA-Arakil-Hiriberri, 27. k.

5555 NTEM-XI, 43, 57 eta 91.

5556 Eskuarki erromantzeko "la" artikuluz horniturik erabiltzen dute orain erdaraz.

Datu guzti hauek ikusita garbi dago jatorrizko forma **\*berxera** dela, eta hemendik atera direla, bilakaera ezberdinez, **berjera** eta **bertxera** (ikus Agezako **Motxiturria** sarreran dioguna).

Uxuen euskal ordainik ez dugu aurkitu; izenaren adiera, dena den, Sarasolak ematen duena dela dirudi, **Vergel** hauek (bi ziren gutxienez) errekan baitzeuden, elkarrengandik gertu, **Villantigua**-n bata:

“un linar... que llaman el vergel... sitto en el termino que llaman villa antigua” (1752)<sup>557</sup>

eta **Ollatu**-n bestea:

“Mas dos linares... que se llaman el Bergel, sitos en el termino de Oliatu” (1826)<sup>558</sup>

**Villantigua** (aldabea de), (barranco de), (carasol de), (casales de), (paso de), (puente de), (sarría de), (solana de), (torre de):

**Villantigua** 1534ko Uxueko despoblatuen zerrendan<sup>559</sup> azaltzen da aurrenekoz. Izen honen osagarri erromantze gardenak **villa** izena eta **antigua** izenondoa dira (cf. **Irizarra** Eslaban, **Irizarra** edo **Irixarra** Irangoten<sup>560</sup>, eta **Irixarra**, **Irixarburua** Morionesen), baina maiz dokumentatzen diren [w]-rik gabeko aldaerek izena euskarari egokitu zegoela salatzen dute (1588<sup>561</sup>, 1605<sup>562</sup>...).

**Villantigua Aldabea de Turtunbera**-n zegoen, **Aizkanbela** eta **Aliaga**-ren artean, **Camino del Molino** edo **Camino de Gallipienzo** aldean, errota berritik hurbil:

“...en el termino de Villa Antigua en el camino que van a Galipienzo” (1682)<sup>563</sup>

“otra pieza en Villa Antigua que afronta con el camino que va al molino” (1693)<sup>564</sup>

Despoblatuaren geldikinak ikusgai daude oraindik “**Corral de Porta**”-ren alboan, **Pozo de las Aguas**-i hurrar. Zaharkin horietatik dira 1593an azaltzen diren **Casales de Villa Antigua**<sup>565</sup>.

1849an **Aldabea de Villantigua** dugu<sup>566</sup>, eta 1728an **Barranco de Villantigua**<sup>567</sup>. Azken hau **Barranco del Molino** nahiz **Barranco de Aizkanbela** izan zitekeen, **Villantigua** herria bien artean baitago:

5557 PRA-San Martin, 41. k.

5558 Id., 85. k.

5559 NAO-Comptos, 550. zkia.

5560 “ytten una pieza...en yrizarra” (PRA, Oibar, 16. k.), “una pieca... en...yrangot...sita en yrejarra” (id., 20. k., 1619); “Otra pieza mas alla de la Hermita del dho lugar llamado (sic) Yrissarra” (id., 30. k., 1703).

5561 Id., 4. k.

5562 Id., 12. k.

5563 PRA-San Martin, 4. k.

5564 Id., 6. k.

5565 PRA-Oibar, 7. k.

5566 Uxueko hipotekak, 180. zkia., 47. or.

5567 PRA-San Martin, 32. k.

“...allandose todas las susodichas lavando paños en el barranco que llaman de villa antigua...” (1728)

**Carasol** (1771)<sup>5568</sup> edo **Solana** (1713)<sup>5569</sup> de **Villantigua**-k gaurko **Carasolalto**-ren beheko zatia izan zitekeen, errotako bidearen ingurukoa, dokumentazioko **Carasol de San Vicente** bera, baina hau ez da segurua; **Paso de Villantigua** (1729)<sup>5570</sup> gaurko **Paso del Molino** nahiz **Paso de Aizkanbela** izan zitekeen, baina azken izen hau zaharra denez gero, badirudi lehenarekin identifikatu behar dela. 1782rako hondatua zegoen **Puente de Villantigua Barranco de Villantigua**-n bide zegoen:

“...ha pasado a reconocer el Puente derruido del Barranco llamado villantigua y el paso, que llaman de Aizcambela” (1782)<sup>5571</sup>

1701ean konponketa zerbait egin zuten zubi honetan, baina irudi duenez ez zuen ondorio onik izan:

“...el reparo de la puente de villa antigua”<sup>5572</sup>

**Sarria de Villantigua** (1705)<sup>5573</sup> alderdiko oihana bide zen; **Torre de Villantigua** (1605)<sup>5574</sup>, azkenez, gaur zeharo barreiatua dagoen herrixka honetako dorrea (elizdorrea?) genuen (ikus **Torraza** sarreran dioguna).

#### Villares, los:

Corominasen arabera<sup>5575</sup>, **villar** latin klasikoko **vīlla** ‘bazterretxea, baserria’-tik atera den latin berantiarreko **villaris** ‘poblazioa’-tik eratorri behar da. Uxueko **Los Villares** izenak herriaren inguruko lur zerrenda ematen du aditzera, **El Castellazo** edo **Gazteluondoa** barne (ikus sarrera hau), hots, dokumentazioko **Las Coseras**-en edo Galipentzuko **Las Coseras**-en antzeko zerbait, erabat berdinak ez direnagatik. Jimeno Jurfok, Tafallako **Villar** aztertzen ari delarik, honela dio:

“En ambos textos forales *el Villar* es un paraje extraurbano, en el límite de las coseras que rodean la población. Es «arrabal», núcleo habitado periférico extramural. «El cuerno del Villar» está encima de una «regadera» (presa y bocal de la acequia de riego de San Andrés), en torno a la iglesia dedicada a este santo, contigua a la de San Sebastián...”<sup>5576</sup>

Zarrakaztelun lehengo **El Villar** herri ondoko lurra hartzen zuen udal-korraliza zen, eta oraingo **Villar de Estercoleros** herriaren alboko eremua da, non ikuiluak garbitzean ateratzen den ongarria botatzen baita<sup>5577</sup>.

5568 Id., 50. k.

5569 UEA, 13. kap-lib., 173. or.

5570 PRA-San Martin, 33. k.

5571 Id., 55. k.

5572 Id., 8. k.

5573 UEA, 13. kap-lib., 106. or.

5574 PRA-Oibar, 12. k.

5575 DCELC.

5576 THET, 213-214. orr.

5577 Ricardo Cierbide, TCO-II, 123. or.

Uxuen **Los Villares**-ko belarra ez da saltzen, eta herriko aziendentzat altxatzen da. Izen zaharra dela dudarik ez dago. Orain pluralean erabili ohi da, eta agirietan ere gehienbat horrela azaltzen da, baina inoiz edo behin singularra ere aurkitzen dugu, zati zehatz bat aditzera emateko (**El Villar de Gazteluondo**a, kasu. Cf. gainera aipatu Tafallako **El Villar**).

**Vínculo (calle de), el:**

Iribarrenek dioenez, el vínculo udal bihitegi moduko bat zen. Erakunde honek garai onean garia erosi, eta beharra zegoenean prezio egokian saltzen zuen, honela oinarritzko elikagaia zen ogia denen esku egon ahal zedin. Autore beronen arabera, lehen "vinculo"-a Iruñekoa izan zen, eta geroztik erakunde-mota hau erresuma zaharreko beste hiri eta herri handietara zabaldu zen, XVIII. mendetik aitzina. Horren handiak ez ziren herrietara ere hedatuko zen, Uxuen 1759rako sortu baitzen, egungo "Mesón Las Migas"-eko ataburuan irakur daitekeenez:

"Yt el edificio llamado el vinculo, afronta con casa de Pascual Salaberri" (1847)<sup>5578</sup>

**Vuelta de Ronda, la:**

Elizetxearen barruan dagoen igarabide modukoa da.

**Zabala:**

Adiera gardeneko izen honek **Villantigua**-ko eremu txiki bat adierazten zuen:

"...el linar... sito en el termino de Billantigua llamado Zabala en la parte baxa de el que afronta al camino que se va a aliaga y a la torre asta arriba" (1735)<sup>5579</sup>

Azkenekoz 1892ko katastroan azaltzen da.

**Zabalburua:**

**Zabal**-ez eta **burua**-z osaturik dago 1628an baizik ediren ez dugun hau<sup>5580</sup>. Aurreko **Villantigua**-ko **Zabala** aldeko gainen bat nahiz **Zabalondoa**-ko alderdirik gorenaren izan zitekeen.

**Zabalondoa (barranco de), (fuente de), (monte de):**

**Zabal** eta **ondoa** ditugu hemen. Izen honek **Barranco del Pinar** izeneko erreka ingurua, elutsa eta egutera, ematen du aditzera, eta gaur **El Pinar** izenak heriotzeko puntura eramanez ere, **Zabalondoa** dermio honen izen zaharra zela uste dugu, gutxienez alderdi handi batena. Orain pinua edo leherra da bertan ugariena, baina antzina arte eta haritzak ere baziren:

5578 PRA-Kaseda, 57. k.

5579 PRA-San Martin, 35. k.

5580 PRA-Kaparroso, 31. k.

“...encina y robre del Monte de la dicha villa (Uxue) y de la de Pitillas llamado Zabalondoa” (1698)<sup>5581</sup>

Aipu honetan ikus daitekeenez, Pitillas eta Uxueren alderdi komuna zen, 1800eko lur-bereizketa agirian behin ere aipatzen ez den arren. Urte honetan beronetan azaltzen den **Fuente de Zabalondoa**<sup>5582</sup> **Barranco del Pinar** errekarari hasiera ematen dion oraingo **Fuente de San Vicente** bide dugu, eta antzinako **Barranco de Zabalondoa** (1622)<sup>5583</sup> aipatu **Barranco del Pinar**. **Monte de Zabalondoa Bigas**-ekin mugatzen duen mendi partea da:

“una pieza en vigas...que afrenta a piezas de Juan Jurio y el monte de Zabalondoa” (1698)<sup>5584</sup>

Gaurregun herriko artzain eta nekazari zahar gehienek ez dute ezagutzen toponimo hau, eta hil hurran dela esan daiteke. Bada **Zabalondoa**-ren kokagunearen berri zehatza eman digunik, baina toki-izena azken hatsa ematen ari dela garbi dago.

**Zabalondoa** 1800erako **Zabalandoa** zen; hemendik metatesi baten bidez **\*Zalabandoa** aterako zen, eta hemendik 1892ko katastroko eta gaurregungo **Zalaman-doa** [θàlamandóa], eta aditu ere dugun **Zarabandoa** [θàrabandóa]. Nabarmentzekoa da **Zabalondoa** ez dela **\*Zabalondoba** edo antzeko ezer bilakatu (cf. **Zerkondoa** > **Zerkondoba** Artaxonan<sup>5585</sup>, **Bideondoa** > **Biandoba** Lergan...).

#### Zabartu:

1534ko Uxueko despoblatuen zerrendan<sup>5586</sup> azaltzen da. **Sandimas** eta **Iturrondo**a bezala toponimo bilakatu ez zen despoblatu-izena da.

**Zabartu**-k partizipio itxura handia duela ezin uka daiteke, Uxueko bereko **Pipiratu**-ren (**Lakumulatu**-k beste etorki bat duela uste dugu. Ikus sarrera hau) eta beste toki anitzetako **-tu**-z amaiturikako toponimo frankoren antzera. **Zabar** ‘utzi’, ‘traktets’-en eratorria den **zabartu** partizipioa izan genezake hemen, baina gure ustez adiera hau bitxia da toponimo batentzat.

**Zaldunaga** (alto de la sierra de), (barranco de), (cuarto de), (sarría de), (paso de):

Izen honen etimologiaz ikus **-aga** atzizkiari eskainitako atala. Uxueko gaurko **Zaldunaga** [θàldunága] oso luzea da, eta **Mugazuria**-n dagoen “Corral de Sara”-ren hurbiletik lehen **La Sarría de Zaldunaga** eta orain berezko dermioletzat jo ohi den (ez beti halere) **La Sarría**-raino hedatzen da, Eslabako mugaraino alegia, eta herri honetan segitzen duela esan dezakegu, hemen **Zaldinaga** [θàldinága] deitzen baitzaio Uxuekoaren jarraipena den eremu menditsuari (ikus sarrera hau). Bion iturburua, esan moduan, **Zaldinoaga** da: hemendik, bilakaera ezberdinez, **Zaldinaga** eta **Zaldunaga** atera ziren. 1299. urtean **Çaldinuaga** azaltzen da:

5581 PRA-San Martín, 7. k.

5582 PRA-Kaparroso, 69. k.

5583 Id., 28. k.

5584 Id., 7. k.

5585 J. M. Jimeno Jurío, EETA, 376. or.

5586 NAO-Comptos, 550. zkia.



“...et a dicto termino usque ad foueam dictam de Auria et [...] locum qui dicitur Çaldinuaga, tenenda habenda in perpetuum...”<sup>5587</sup>

Eta hiru mende beranduago Çaldinoaga:

“ocho Robadas de tierra en Çaldinoaga...que afrentan con el mojon de galipienço” (1603)<sup>5588</sup>

Zabalean ez da horrenbestekoa, eta oraingo Cuartochiguito-tik Galipentzuko mugaraino iristen da.

Alto de la sierra de Zaldunaga (1802)<sup>5589</sup> La Sarria-ren gainaldea da, la sierra hori La Sarria-tik herri-etimologiaz edo sorturikako aldaera besterik ez dela argi baino argiago baitago. Barranco de Zaldunaga Barranco de Andiaga-ren jarraipena da.

Cuarto de Zaldunaga-z ikus Cuatro Cuartos sarrera; Sarria de Zaldunaga (1629)<sup>5590</sup> egungo La Sarria da, gorago esan bezala, eta gaur bakarra denagatik, lehen Uxueko udalerriko Sarria ugarietako bat besterik ez zen (ikus Larrageta sarrera). Sarria hau Epaiz eta Eslabako mugetan barrena La Facería-tik Galipentzuko mugaraino luzatzen den Zaldunaga-ko iparraldeko mendia da. Paso de Zaldunaga, buruenik, Galipentzura doan bideak eta errekek elkar gurutzatzen duten puntuan dago, El Pozo del Paso-ren ondoan.

Zaldunaga-k, diogun bukatzeko, Galipentzuko Valescura, Eslabako Zaldunaga, Epaiz eta Uxueren arteko fazeriarekin, Cuartochiguito, Mugazuria eta Aristuziaga-rekin mugatzen du. Dermio zabal honetan azpidermio gutxi zeuden, seguru asko herri lurraz zirelako. Azpidermio hauetako bat gorago aipatu dugun Igaziroa dokumentuetan gordea da.

Zapaiz (alto de), (barranco de), (monte de), (rincón grande de):

Etimologia iluneko toponimo honek haitz ‘harria’, ‘arroka’ izan dezake bukaran, baina amaiera hau -i(t)z atzizki ‘nabarra’ ere izan daiteke. Mitxelenak<sup>5591</sup> honela dio gai honetaz:

“Quizá sea (haitz) el segundo elemento de apellidos que pueden también explicarse por el suf. -i(t)z: *Arraiz*, etc.”

Aintzat hartu behar dugu Zapaiz-ek [θapájθ] -anus, -ana latinetikako atzizkiez horniturik bide dauden Erlosiana (Rusiana orain) eta Aurino-rekin mugatzen duela, inguruan euskal jatorri “garbi”-ko beste leku-izen batzuk ere edukiagatik. Mitxelenaren arabera<sup>5592</sup>, Iruñeko Erdi Aroko Ceapeiz toponimoa latineko senape-ren eratorria den zeape (Zaraitzu), ziape (Erronkari) ‘mostaza’-rekin erlazioatu beharra

5587 UM, 258. or., 1299.

5588 PRA-Oibar, 11. k.

5589 PRA-San Martin, 70. k.

5590 PRA-Kaparroso, 32. k.

5591 AV, 41. or.

5592 “El elemento latino-románico en la lengua vasca”, PT, 195-219. orr.

bide dago, eta baliteke Uxueko **Zapaiz**-ek ere horrekin zerikusia izatea, baina hau balizkako kontu hutsa da.

**Alto de Zapaiz** (1786)<sup>5593</sup> orain idoi berria dagoen “Corral del Cubanico”-ren aldameneko gaina dateke, hau da, **Kastillu** despoblaturik gertu dagoen mendixka; **Barranco de Zapaiz** (1828az geroztik)<sup>5594</sup> **Aitzandiet**a, **Basandía** eta **Sulue**-ko erreken bategitetik sortzen den errekarari esaten zaio, **Paso de Sulue**-tik **Paso de Apeztegi**alorra-rainoko zatian. **Monte de Zapaiz**, **Sulue** eta **Apeztegi**alorra bitarteko oihezkoa da, alegia, **El Carasol del Vedado**-ren aitzinean dagoena (ikus **Eskobarea** sarrera):

“...aver rezivido de los arendadores de los Montes de Sulue y Capaiz... y del monte de dorrondiaga propio del comun de vec de dha villa con los Sotillos y Aldayderrea” (1700)<sup>5595</sup>

1776ko **rincon grande de Zapaiz**<sup>5596</sup> egun **Rincón del Horno** deitzen den zokoa da, antza.

**Zapaiz**-ek, goraxeago esan moldean, **Aurino**-ren azpiko aldean dagoen **Erlisiana**-rekin mugatzen du ekialdetik, **Apeztegi**alorra eta **El Vedado**-rekin iparraldetik, **Sulue** eta **Kastillu**-rekin mendebaldetik, eta **Lakumulatu** eta **Lerbeltz**-ekin hegoalde-tik.

**Zaubio** (**barranco de**), (**caracierzo de**):

Etimologia iluneko toponimo hau Uxueko despoblaturik baten izena da. 1534ko zerrendan<sup>5597</sup> **Caubio** azaltzen da, zerrenda hau erabili duten autore batzuek **Zambrio**<sup>5598</sup> edo **Zambro**<sup>5599</sup> irakurri badute ere<sup>5600</sup>. 1537an **Zaubio** da<sup>5601</sup> eta 1622an **Caubio**<sup>5602</sup>. 1631-n, ordea, **Caurio** dugu<sup>5603</sup>, eta 1724an **Zaurio**<sup>5604</sup>.

Mitxelenak dioen moduan<sup>5605</sup>, **-io** oso arrunta da herri-izenetan, mendebaldean bereziki, eta zenbaitetan gutxienez lehenagoko **-iano**-dun forma batetik atera da (cf., adibidez, **Zeberio** / **Zeberiano**)

**Barranco de Zaubio** [θáũβjo] **Santakaramuru**-n sortu eta, **Medios** eta **Urteaga**-ko erreken ura jaso ondoren, behinolako **Otrillosandi**-ren paretik **Pitillasko** lurretara sartzen den ubidea da:

5593 PRA-San Martin, 40. k.

5594 Id., 86. k.

5595 Id., 8. k.

5596 Id., 52. k.

5597 NAO-Comptos, 550. zkia.

5598 F. J. Zubiaur, “Estelas discoideas de la villa de Ujué (Navarra)”, 493. or.

5599 F. Idoate, “Poblados y despoblados...”, 325. or.

5600 Ikus **Busa** sarreran dioguna.

5601 PRA-Oibar, 2. k.

5602 PRA-Kaparroso, 28. k.

5603 Id., 57. k.

5604 PRA-Oibar, 49. k.

5605 AV, 133-134. orr.

“una pieza en el termino de otoolos Andi que confina con el Varranco que baja de Zaubio” (1764)<sup>566</sup>

**Caracierzo de Zaubio** alderdiko oihezkoa da, **Urteaga**-ren eta lehengo **Carasol de Artabakoitz**-en ondokoa:

“Mas una pieza...en el termino de Urtiaga, tente al carasol de Arttabacoiz y a...caracierzo de Zaubio” (1814)<sup>567</sup>

**Zautelu (aldabea de):**

Gaurregun ezezaguna den toponimo honek **Camino del Molino** edo **Camino de Gallipienzo** eta **Camino de Aliaga** bereizten ziren eremua izendatzen zuen, **Aliaga**-ko mugako **Aldabea**:

“otra (pieza)...en çautelu afrontada a camino real que ban a galipienzo” (1625)<sup>568</sup>  
 “yten otra pieza...en el termino llamado aldavea y endrecera llamada zautelu...” (1720)<sup>569</sup>

Etimologiari dagokionez, **Zautelu** Uxuen agertzen ere den **sotillo** erdalduaren baliokide eta jatorrikidea dela uste dugu (cf. **Los Sotillos, Los Sotillos de Monte chiguito, Los Sotillos de Aldaidarrea...**), **Zareko Jautu** (eta **Jautuarana** edo **Val de Jautu**) orokorra den **zaldu**-rena den bezalaxe. **Zautelu** saltëllu(m) eta **sotillo**-ren arteko forma batetik atera da, **Jautu** atera den **Sautu** (> **Xautu**) baino zaharrago batetik, hasierako **s-** > **z-** aldakuntzak erakusten duenez. **Mailegu** hau hartu zenean albo-koa bokaldua zen, baina diptongoa artean monoptongatu gabe zegoen. **-Ellu** atzizkiaren kontsonante geminatuak, ohizkoa denez, **L** eman zuen euskaraz<sup>5610</sup>.

Toponimoaren kokalekua proposatzen dugun etimologiaren alde mintzo da, **Zautelu Barranco de Aizkanbela**-ren ondoan bide zegoelako.

**Zazu(alto de), (barranco de), (entrada del rincón de), (horno de), (rincón de):**

**Zazu-k**, behin baino gehiagotan esan den gisan (ikus, adibidez, **Agezako Zazua** eta **Zazugibela** sarrerak), erdal **saso**-ren etorki bera dauka (latineko **saxu**), eta zuzenean azken hizkuntza honetatik nahiz erromantzetik hartu izanen du euskarak. Lehen kasuan (latinetik zuzenean hartu bada, alegia) **\*sasu** bat suposatu behar da, eta bigarrenean bukaerako **-o**-ren hersketa burutu dela (cf. **puntallu** < **puntallo**).

**Zazu-ak** kaskailuz betetako goi-lautadak izaten dira, eta Uxuen **Saso** edo **saso-rik** ez badugu ere (orain **Zazu** edo **zazu-rik** ez dugun modu berean), badugu goi-lautada bat izendatzen duen **Llano de Don Pascual** berria, **Zaubio-n, Santakaramuru**-ko muga, antzinako **Zazu** zegoen alderdi berean. Gure informatzaileetako batek dioenez<sup>5611</sup>, ordea, zelai honetan ez dago kaskailurik.

5607 PRA-San Martin, 46. k.

5608 Id., 78. k.

5609 PRA-Kaparroso, 29. k.

5610 UEA, 14. kap-lib., 323. or.

5611 Puiun erdarazko sotillo-tik atera den **Sotilua** agertzen da (PRA-Oibar, 96. k., 1816), eta gure alderditik atera gabe **Sototxikia** dugu Epaizen eta **Sototxipia** Ezporogin.

5611 Lucio Berrade Burgui jaunak dioenez.

Nolanahi ere, **Zazu** gaurko **Llano de Don Pascual** hori baino zabalagoa zen, egun **Zaubio**-kotzat jotzen den zati bat ere **Zazu** zelarik, **Barranco de Zaubio**-ra zihoan (eta doan, izena aldatu arren) **Barranco de Zazu**-ren ingurukoa hain juntu:

“Ms una pieza... en la entrada al rincón de Zazu que afronta con Barranco del terno” (1769)<sup>5612</sup>

**Alto de Zazu** Pitillas eta Uxueren arteko mugako gaina zen (501 m.), hau da, **Costolinas**-en ondokoa:

“...por la parte del medio día ttrabesando por dho Millar de Garciarena al alto llamado de Zazu sitto en el paraje de Costolinas” (1800)<sup>5613</sup>

**Rincón de Zazu** (1790)<sup>5614</sup> erreka horretako zokoa zen, **Barranco de Artabakoitz**-en (**Barranco de Zaubio** orain, zati honetan) ondokoa.

**Zazu**-n zehar zihoan, egun bezala, **Pikarana**-ko bidea:

“ytten otras quarenta Rovadas...en el termino de Zazu que afrontan con camino que se va a picarana” (1723)<sup>5615</sup>

1825ean azaltzen den **horno de zacu**-k<sup>5616</sup>, azkenik, ez du zerikusirik aztertzen ari garenaekin, **Zaldunaga**-n baitzegoen, Uxueko udalerraren beste muturrean.

#### Zuaizkieta:

Toponimo gaur ezezagun honen osagaiak **zuhaitz** ‘arbola’ izena eta **-kieta** ‘-eta’ atzizkia dira (cf. Uxueko bereko **Arbolaga**). Behin bakarrik dokumentatu dugu, eta ez dakigu non kokatu behar den:

“una pieza... en... la endreçera llamada cuayzquieta” (1598)<sup>5617</sup>

#### Zubia:

Egun **El Puente del Camino de la Sierra** deitzen dena da dokumentazioko

#### Zubia:

“yten en zubia otra pieza...que afronta con Camino que se ba a la Sierra” (1716)<sup>5618</sup>

“yten una viña...en el termino que llaman zubia que afronta con el barranco conzejil...y...con senda vecinal” (1732)<sup>5619</sup>

5612 PRA-San Martin, 49. k.

5613 Id., 69. k.

5614 Id., 60. k.

5615 Id., 31. k.

5616 Id., 84. k.

5617 PRA-Oibar, 7. k.

5618 UEA, 13. kap-lib., 215. or.

5619 PRA-San Martin, 33. k.

Gure egunotan zubirik ez den arren, garbi dago lehen bazela bat, **Camino de la Sierra**-n, **Aitzandieta**-ko errekan<sup>5620</sup>. **Zubia**-ren ondoan, esan denez, **Tejería de abajo** zegoen.

**Zubitxiki (aldabea de):**

**Zubitxiki Aldabea**-n zegoen, **Aitzandieta**-n. Ez dakigu **Zubia**-ren erranki-dea zen ala **txiki** izenondoa beste zubi handiago horretatik bereizteko eransten zitzaion izenari, baina erreka berean zeudela garbi dago:

“ytten otra piª en çubi chiqui o aycandieta” (1593)<sup>5621</sup>

Baliteke **Zubitxiki Fuente de Aitzandieta**-ren ondoko xubitto zahar-berri-tua izatea, gure informatzaileen arabera konpondu aitzinetik aski txiki eta kaskarra baitzen.

5620 Ikus **Puente de (el camino de) la Sierra** sarrera.

5621 PRA-Oibar, 7. k.



## 18. ZAREKO TOPONIMIA

### Abad, corrales del:

1591ko Corrales del Vicario bera da:

“en la endrecera llamada los corrales que dizen del abbad” (1585)<sup>622</sup>

### Abad de Ayesa, pieza del beneficio del:

Abad, abadía, cura, prior, apeza, apeztegia...eta antzeko izenak, orain baino lehen esan denez, oso ugariak dira toponimian. Alor hau **Puieta**-n zegoela besterik ez dakigu (1591)<sup>623</sup>.

### Abadía, pieza de la:

Uxue eta Galipentzuko **Apeztegi**alorra-ren baliokide erdalduna dugu hau. **Pieza de la Abadía** bat baino gehiago zegoen Zaren: bat **Dorrondeta**-n, Galipentzuko bidearen alboan (1641)<sup>624</sup>, beste bat **Balora**-n (ikus sarrera hau), **Pieza del Rey**-ren ondoan, eta hirugarren bat **Etxepea**-n (ikus sarrera hau), Agezako bidearen aldamenean. Ikus gainera, **San Vicente** sarreran dioguna.

### Abejar, el:

**Balora**, **Armillos** eta **Zazuburu**-ren artean dago, errekaen eta errepidearen artean.

### Aitzulaturua:

**Haitz** ‘harri’, ‘harkaitz’ eta **zulaturua** ‘zuloduna’, ‘zulo egina dagoena’ dira **Arrizulaturua**-ren baliokide zehatza dirudien honen osagaiak<sup>625</sup>. Halaz ere, gure infor-

---

<sup>622</sup> PRA-Oibar, 3. k-bis.

<sup>623</sup> Id., 5. k.

<sup>624</sup> Id., 24. k.

<sup>625</sup> Melidan honen ordain erdalduna den **La Piedra foradada** dugu 1619an (PRA-Kaparroso, 47. k.), **La Piedra oradada** 1663an (id., 71. k.).

matzaileen arabera bertan ez dago horrelako harri zulaturik (cf. Eslabako Aitzuloa-n dioguna). Badakigu **Camino del Prado**-ren ondoan zegoela, **Junto a Santa Eufemia**-n:

“una pieza...en el terno llamado aizulataua o Junto Santa Eufemia...tente con...Camino que van al prado los de esta v<sup>a</sup>” (1698)<sup>5626</sup>

#### Aldeondoa:

Honen osagaiak **alde** ‘inguru’ eta **ondoa** dirateke, baina lehen hori elkartuaren bigarren osagaien maiztasun izugarrikoa den arren, ez dugu sekulan oinarritzat aurkitu, **Aldea** herri-izenean izan ezik (ikus sarrera hau), eta baliteke beste toki batzuetako **Aldaiondoa**-ren (ikus Lerga) laburketa izatea, bereziki toponimo hau 1832an baikizik bildu ez dugulako, edo behintzat horren aldaera, kontua garbi ez dagoenagatik:

“un campo en el termino de Sada llamado Aldeondoa”<sup>5627</sup>

#### Alto, el:

**Alto de Leatxe**-rekin identifikatzeko arazorik ez dago:

“una pieza...en el terno que se llama el alto, ó muga de Leache” (1792)<sup>5628</sup>

#### Altxirribidea:

**Altxirria** ‘ardi-kaka’ eta **bidea** ditugu hemen. Lehena oraindik ere bizirik dago Oibar haranean<sup>5629</sup> eta Uxuen<sup>5630</sup>.

**Altxirribidea** itxuren arabera **ardibidea** edo **altxonbidea** adierazteko beste modu bat besterik ez da. Zaraitzutik Oibarren gaindi Zarera eta hemendik Galipentzura doan ardibidearekin identifikatu beharra dagoela uste dugu (ikus **Molino viejo** sarrera):

“en la endreçera llamada alchirria bidea...afrentada con...la senda Real” (1584)<sup>5631</sup>

Badakigu, berebat, gaur ezezaguna den **Larreberria**-tik igarotzen zela:

“un pedaço...en la endrecera llamada alchirribidea y Larreverria” (1587)<sup>5632</sup>

#### Ameka (barrio de), (calle de), (escaleras de):

Izen hau lehen aldiz 1783an ediren dugu, hasieran **a-duela**, geroko agerraldi guztietan bokal hori gabe azaldu arren. Gaurrengungo **Calle de Lameka** [laméka] (**Las Escaleras Mecas** ere aditu dugu) herriaren sarrerako karrika aldapatsu bat da:

5626 PRA-Kaseda, 9. k.

5627 PRA-Oibar, 113. k.

5628 Id., 77. k.

5629 Reta Janáriz, EHZE, 116. or.

5630 Herri honetan **alzirria** [alθĩrja] esaten da.

5631 PRA-Oibar, 3. k.

5632 Id., 3. k-bis.



“la casa...en el barrio que llaman de ameca” (1783)<sup>5633</sup>

“una casa...en el barrio que intitulan la calle meca” (1815)<sup>5634</sup>

Lehen begiratuak **hamaika**, **hameika** zenbatzailearekin lotzera eraman gaitzake (cf. **(h)améka** Erronkari eta Zuberoan<sup>5635</sup>), baina ez dakigu zer adieraz lezakeen zenbatzaile zehaztu horrek (Ikus Eslabako **Amikarren** sarrera). Antsoain zendeako Artika herrian **Amecarena** etxe izena dokumentatu du Jimeno Juríok 1732an<sup>5636</sup>, eta Donezteben Artikako izenaren Iparraldeko formatzat har daitekeen **Amecabaita** etxe-izena bildu du Andrés Iñigo ikertzaileak 1813an<sup>5637</sup>, eta beraz, **Ameka** antroponimo bat dela kontu egin daiteke. Arantzan **Amekaurrun** borda dugu egun<sup>5638</sup>.

**Arcal** (fuente de), (prado de), (soto de), el:

Izen hau, esan denez (ikus Morionesko izen bereko sarrera), **arca** ‘registro o depósito en acequia de riego para regulación del agua’<sup>5639</sup>, ‘uharka’-ren eratorri bat da. Zaren **arcal** bat baino gehiago izan dira; bat **Kasedako** mugan zegoen, erreka batean<sup>5640</sup>:

“otra pieza en el mojon de caseda Junto al arcal” (1596)<sup>5641</sup>

Gaurregungo **El Arcal** dermioa Agezako bidearen eta Ezporogin **Baserre-****kandia** zeritzan errekaen elkargunean dago, **Errotaldea**, **El Molino viejo**, **El Chaparral** eta **El Monte**-ren artean, eta aspaldi<sup>5642</sup> bertan izan zen uharkaren oroigarria da (cf. gainera Ezporogiko muga aldean, erreka berean dagoen **Ugarka**).

**Río de Balora**-n ere bazen hirugarren uharka bat; hemendik azekia baten bidez **El Arcal**-era eramaten zen ura, **Río de Armillos**-en zegoen **Molino viejo** edo **Errotaxarra**-n alea ehotzeko indarra izateko. 1584ko lekukotasunean azaltzen dena azken bi hauetako edozein izan zitekeen:

“princiando junto a la cruz asta el rrio o asta El arcal” (1584)<sup>5643</sup>

**Fuente del Arcal** beste batzuetan **Fuente de Pichón** deitzen den iturria da, eta **Soto del Arcal** erreka ondoko lur hareatsuko eremua, behialako **Soto de Zumaduieta** berbera (ikus sarrera hau).

5633 Id., 73. k.

5634 Id., 95. k.

5635 FHV, 117. or.

5636 TCPA, 179. or.

5637 Doneztebeko eliz artxibategia, matrikula liburua, 2, 17. or. Cf. Berako **Amurusbaita**, **Arotzabaita**, **Arrosabaita**, **Doloresbaita**, **Pablobaita**, **Txuriobaita**... *Bera lurraldeko mapa*, Obie, 1989.

5638 Emilio José Esparza, “De toponimia navarra”, PV, 94-95, 1964, 67-126. orr.

5639 J. M. Jimeno Jurío, THET, 49-50. orr.

5640 Gure informatzaileetako batek dioenez, dokumentazioko **El Arcal** hau **Kaseda**, **Galipentzu** eta **Zareko** mugak bat datozen puntuan zegoen, errekan.

5641 PRA-Oibar, 9. k.

5642 1918an sortua den gure informatzaileak ez du ezagutu.

5643 PRA-Oibar, 3. k.

**Armillos (puente de), (río de):**

**Río de Armillos** [ãrmĩloš] (edo **Armillo** [ãrmĩlo], zenbaiten ahotan) Leatxetik heldu den **Río de Balora** eta Ezporogitik heldu den **Río de la Tejería**-ren (**Baserrekandia** auzo herri honetan, esan bezala) batzetik sortzen den ubidea da. Hau dela eta, bestela ilun legokeen **Armillos** izena Galipentzuko **Inbilos** (ikus sarrera hau), eta beste toki batzuetako **Urbillos**, **Ebilots**, **Ubillos**...eta abarrekin erlaziona daitekeela uste dugu, **Armillos** bere horretan 1592rako dokumentatzen bada ere (ikus **-as / -az, -es / -ez, -iz, -os / -oz** eta **-uz / -us** bukaerei eskaini atalean dioguna):

“una vina...en armillos...afronta...con camino Real” (1592)<sup>644</sup>

**Puente de Armillos** alderdi honetan (baina **Río de Balora**-n), N-5140 errepidean, dagoen zubia da<sup>645</sup>. Badakigu 1799an konponketa zerbait egin zela bertan, zubia bera eraiki ez bazen bederen:

“...del estado de las obras del puente de Armillos” (1799)<sup>646</sup>

**Armillos** aipatu ubide horren inguruko lurak ere badira; **Bidatza**, **Campo de la Villa**, **Baratzeta**, **Errotalde**, **Molino viejo**, **Kiñueta**, **Zazuburu**, **Balora** eta **Plau** ditu mugakide.

**Armillosbidea (prado de):**

**Armillos** toponimoa eta **bidea** izen arrunta ditugu aurrenekoz 1593an ediren dugun honetan<sup>647</sup>. **Armillos**-a zihoan bidearen inguruko eremua adieraziko zuen, agian **Bideandia**-ren inguruko lurak, **Armillos**-a joateko hau baita, dakigunez, biderik laburrena. Larrea ere bazen bertan, eta badaiteke **Prado de Bidazparrena** bera izatea, egon ere bata bestearengandik gertu baitzeuden oso:

“otra piª Junto al prado de amullas bidea” (1634)<sup>648</sup>

**Arrizulatua:**

**Harri** izena eta **zulatua** partizipio izenondoa ditugu **Aitzulatua**-ren adierakidea (esanahiz eta lekuz) den honetan. Zorionez, eta dokumentazioari esker, badakigu **Arrizulatua** non zegoen, baina zoritxarrez inork ez digu eman harri zulatuaren berri:

“...En el termino de Arrizulatua que afronta...a Camino que ban al prado y...con camino que ban a Cascaxo” (1703)<sup>649</sup>

**Pikuetasaietsa** ere inguru horretan zegoen (ikus sarrera hau).

5644 Id., 6. k.

5645 El Puente nuevo zubian **Puente de Armillo** dioen errepide-seinalea paratu zuen Nafarroako Diputazioak, baina benetako **Puente de Armillos** esan duguna da.

5646 PRA-Oibar, 85. k.

5647 Id., 8. k.

5648 Id., 23. k.

5649 Id., 30. k.

**Arrobia (val de), (valle de):**

Izen honetan **harri** ezaguna eta **hobi(a)** ‘zulo’ (< \*foueam edo foueam<sup>5650</sup>) ditugu (cf. **Ikaztobia**, **hilobia**...). **Harrobia** ‘harria, bereziki eraikuntzarako, ateratzen den tokia’<sup>5651</sup> izena oso arrunta da euskal toponimian<sup>5652</sup>, baina gure alderdian hemen baik ez dugu aurkitu:

“otra pieca...en la endrecera llamada arrubia” (1582)<sup>5653</sup>

**Armillos**-ko zubia egiteko **harria** **Portillo de Martisatea** alderdiko **harrobi** batetik atera zuten, jendeak kontatzen duenez, bertan dagoen haranko (“vaguada” eman digute erdaraz) bateko haitzetatik, eta hau bat dator dokumentazioko **balle de Arrobia** (1606)<sup>5654</sup> edo **Bal de Arrovia** (1721)<sup>5655</sup> delakoarekin.

**Atalaieta:**

**Atalaia** izena (ikus Eslabako **Atalaiondo**a aztertzean honetaz dioguna) eta -eta ditugu hemen:

“otra pieza en atalayeta” (1634)<sup>5656</sup>

**Atalayal:**

Euskarazko **Atalaieta**-ren itzulpena irudi du 1594ko honek<sup>5657</sup>.

**Atesatekoa:**

**Atesate** toponimoa, **-ko** leku-genitiboaren morfema eta artikulua ditugu hemen. Lehen osagaian **ate** ‘harrate’, ‘portilu’ dugu batetik, eta **Zareko** bereko (**Portillo de**) **Martisatea**-n eta **Uxueko** (**Portillo de**) **Esatea**-n (ikus sarrera hau) ageri den (**E**)**satea** bestetik. **Arakil-Ekain Artesate** dugu 1706an<sup>5658</sup> eta orain. Egituraketaren aldetik Agezako **Ategarate**-rekin (ikus sarrera hau) aldera daiteke:

“dos p<sup>s</sup> de tierra...la una en atesatecua...” (1532)<sup>5659</sup>

5650 FHV, 133. or. Lizarraga Elkanokoak -a berezko duen **obia** erabiltzen du:

“arima sollic izan baice (juz)gátua, ez gorpútza, cein aguián eramanzúte honratuqui obiará” (UIGPL, 13. or.), “Admiraturíc ta seguraturíc edérqui itzulice bércea. Alabér S. Leocadiac obiatíc jaiquiric laudatu-zué...” (DCC, 142. or.).

5651 Sarasola, HLEH.

5652 Aratzuri, Oltza, Arlegi, Kordobilla, Espartza, Ezkirotz, Getze, Zubitza eta Letekoak aipa daitezke, besteak beste. J. Jurío, TCPCO, TCPCG eta TCPCL.

5653 PRA-Oibar, 3. k.

5654 Id., 12. k.

5655 Id.

5656 Id., 23. k.

5657 Id., 8. k.

5658 PRA-Arakil-Hiriberri, 71. k.

5659 PRA-Oibar, 1. k.

**Auzalorra:**

**Auzo** eta **alorra** izenak ditugu **Campo de la Villa**-ren (ikus sarrera hau) euskarazko ordaina den honetan:

“la segunda pieça en aualorra” (1606)<sup>5660</sup>

**Auzalorburua:**

Aurreko dermioko gaina adierazten zuen. **Kanpobarrena**-n zegoen, **Kasedatik Zaren** zehar Iruñera zihuan bidearen ondoan:

“la una (p<sup>a</sup>) en la endreçera llamada auçalor burua en el capobarrena...que afrenta con...camino que ban los de caseda a panp” (1594)<sup>5661</sup>

Oraingo **Campo de la Villa**-n ez dago gainik, baina egungo ardantzea landatzeko egin zen berdinketaren aurretik ba omen zen bertan muino bat, alorraren erdi aldean, orain urte batzuk arte, eta ez da duarik hauxe zela dokumentazioko **Auzalorburua**.

**Azute, el:**

Corominasek **azud** ‘uharka’ biltzen du<sup>5662</sup> eta Iribarrenek **azut**, esanahi beraz<sup>5663</sup>. Guk **El Azutte** (**Kaseda**<sup>5664</sup>, **Zare**), **El Azute** (**Galipentzu**), **Asut** edo **El Azute** (**Zare**), eta **Lazud** (**Kaseda**<sup>5665</sup>) aldaerak aurkitu ditugu, beti hiru herrioren arteko mugaldean:

“otra pieza en el termino que llaman el Azutte” (1774)<sup>5666</sup>

Antza duenez, **El Azute** beste batzuetako **El Arcal**-en (**Kasedako** mugakoa, ez gaurkoa) baliakidea da, gorago esan bezala bertan uharka (**arcal** bat alegia) baitzegoen, hiru herriotako muga, seguru asko uraz **Kasedakoak** baliatzen zirelarik. Egun ere **El Azute** esaten zaio alderdi honi, eta **Errengaitz**, **El Cerrado** eta **Muga de Gallipienzo** ditu mugakide, **Galipentzuko El Azute** ezezik. Errekak **Ordokia**-tik bereizten du.

**Balora (barranco de), (costalado de), (paso de), (puente de), (río de):**

Hemen **val** ‘harana’ eta **ora** zehaztugabea dituzkegu. Lehena segurua dela dirudi, **Balora**, azken katastroaren arabera behintzat, errekaen ertz batean zehar luzatzen baita, beste ertzean dagoen **Baluso**-ren antzera. Hor ditugu, gainera, **Galipentzuko Balarata**, **Balarraingu**, **Valescura**, **Valdarras**...eta agian **Eslabako Baluriaran**, besteak beste<sup>5667</sup>.

5660 Id., 12. k.

5661 Id., 8. k.

5662 DCELC.

5663 VN.

5664 PRA-Oibar, 71. k., 1778: “...en el terno de Caseda Junto al azutte...para hazer viña a Ondalan”.

5665 PRA-Kaseda, 58. k., 1849: “una pieza...en el termino de la villa de Caseda llamado Lazud afronta a...camino de Pamplona”.

5666 PRA-Oibar, 70. k.

5667 Kasedan aztergai dugun izenarekin zerikusia izan lezakeen **Val de la Orita** dugu 1770ean (PRA-Kaseda, 22. k.), eta Zarrakaztelun **Valoria** 1693an (PRA-Kaparroso, 87. k.).

\***Ora** hori zer izan daitekeen ez dakigu; Mitxelena<sup>5668</sup> \*oro "zentzu zehaztugabekoa" dela dio, baina ez du \*ora biltzen. Morionesen **Punta de Orozki** dugu (ikus sarrera hau).

**Balora** [balóra] dermio luze estua da, eta Leatxeko mugatik **Armillos**-aino hedatzen da, izen bereko errekaaren alde batetik. **Alto de Leatxe** edo **Leatxkaratea**, **Naba**, **Puieta**, **Plau**, **Zazuburu** eta **Mirabuenos**-ekin mugatzen du, aipatu **Armillos**-ekin ezeze.

**Río de Balora**-ri **Río de Baluso** ere esaten zaio gorago<sup>5669</sup>, eta Oibarko mugan dagoen **Baluso**-tik bereizten du **Balora**<sup>5670</sup>; ubide hau gainditzeko 1729an opatzen dugun **Puente de Balora** zegoen<sup>5671</sup> (oraingo **Puente de Armillos**?. Ikus **Armillos** sarrera). **Paso de Balora Camino de Plau**-ren bukaeran dago, bidearen eta errekaaren elkartuganean; **Costalado de Balora** alderdiko aldapa da<sup>5672</sup>, hau da, errekaaren eta errepidearen arteko malda dugu hemen:

"...en la endrèçera llamada costalado de balora" (1606)<sup>5673</sup>

**Balora**-n, esan dugunez, **Pieza de la Abadía** bat eta **Pieza del Rey** zeuden (1777)<sup>5674</sup>.

#### **Balsa, paso de la:**

**Gesaliturrieta**-n zegoen (ikus sarrera hau), idoi baten ondoan seguruenik (1609)<sup>5675</sup>. Engungo idoia errotan dago (ikus **Molino** sarrera).

#### **Baluso (río de):**

Honen lehen agerraldian **Baluso** (1591)<sup>5676</sup> dugu, baina **Baluso** aldakia ere oso goiz azaltzen da (1593)<sup>5677</sup>, eta engungo egunean ere **Baluso** [balúso] esaten da.

Lehen osagaia val 'harana' dela dudarik ez dugu egiten, gorago esan gisan (ikus **Balora**) **Río de Baluso**-ren ertz batean barna luzatzen baita (ikus, halaz ere, **Balora** sarreraren dioguna), haranak ohi direnez. Bigarrena **usu** dela dirudi, baina **uso** hegazti-izenarekin identifikatzea ezin daiteke zeharo bazter.

5668 AV, 141. or.

5669 1614tik aitzina agertzen da dokumentazioan, PRA-Oibar, 14. k. Bakarren batzuek hala esaten diote, baina komunzki **Río de Balora** izena hartzen du, Leatxeko mugatik **Armillos**-aino.

5670 Hau azken mapa katastralen arabera. Jendearen arabera, ordea, **Baluso** erreka bi aldeetan hedatzen da, **Balora**-ren gainetik, hots, Leatxeko muga alderik. Hortik beheiti, erreguaz bi aldeetan orobat, **Balora** dugu.

5671 PRA-Oibar, 41. k.

5672 **Saihetsak** ere 'aldapa' adiera izan zezakeen, gutxienez alderdi honetan. Cf. **Costalado de Dolareta / Dolaretasaietsa**. Ikus **Dermio** baten zatiketa atalean dioguna.

5673 PRA-Oibar, 12. k.

5674 Id., 71. k.

5675 Id., 13. k.

5676 Id., 5. k.

5677 Id., 7. k-bis.

Baluso Leatxe eta Oibarko mugetatik Puieta eta Balora-raino luzatzen da; Río de Baluso (1594az geroztik)<sup>5678</sup> Leatxeko Las Dos Aguas-etik heldu den erreka dugu, hots, Mirabuenos-tik beheiti Río de Balora izena hartzen duen bera<sup>5679</sup>.

#### Baratzeta:

Izen honen osagarriak gardenak dira: **baratze** 'lur-zati ez handia, gehienetan hesitua eta etxe ondoan dagoena, ardura bereziz zaintzen dena; jateko on diren landareak lantzen dira bertan'<sup>5680</sup> izena eta **-eta** atzizkia.

**Baratzeta** [bàraθéta] Río de la Tejería eta Barranco de Jautu-ren artean dago, herritik ez urrun, antzina Prado de Bidazparrena zeritzanaren ondoan. Bertan baratzeak ezezik, olibadiak eta lihatzeak ere bazeuden:

"un linar...sitta (sic) en el termino de Baratzeta theniente...a prado de Vidazparrena y a Río Concexil" (1710)<sup>5681</sup>

Baratzeta-k orain Biñaru, Barué eta Armillos-ekin mugatzen du.

#### Baratzetazokoa:

**Baratzeta**-n errekek egiten dituen bihurtugetako bateko zokoa zatekeen hau, zokoak, eskuarki, bestelakoak izaten badira ere:

"un linar...en baratzeta Cocoa" (1743)<sup>5682</sup>

#### Barón (de Beorlegui), casa del:

Yanguas y Mirandaren arabera<sup>5683</sup>, baroigoa Nafarroako Carlos III.ak sortu zuen, 1391n Lordako kapitaina zen Juan de Bearn Nafarroa Behereko Beorlegiko baroi izendatu zuenean. Itxura denez, honen ondorengoek etxe bat zuten Zaren XVIII. mendean:

"viña en el termino de Capanaondoa detras de la casa del Baron de Beorlegui" (1723)<sup>5684</sup>

Etxe hau orain erabat hondatua dagoen El Palacio zen (ikus sarrera hau eta Camino de Moriones).

#### Barrio alto, el:

**Barrio de arriba** da, antzinako Irigoien bera.

5678 Id., 8. k.

5679 Batzuek Río de Balora-z besterik ez dute ibiltzen, alderdi honetako erregua aditzera emateko.

5680 Sarasola, HLEH.

5681 PRA-Oibar, 32. k.

5682 Id., 53. k.

5683 DARN, 103-105. orr.

5684 IEA, 1765. kart., 8. zkia., 1020. org.

**Barrio bajo, el:**

Euskarazko **Iribarren**-en erdal baliokidea dugu (ikus **Iribarren** sarrera). Bertan **San Blas** ermita zegoen (ikus **San Blas**).

**Barrio de abajo, el:**

Aurreko bera dugu. Plazatik beheiti hedatzen da.

**Barrio de arriba, el:**

Euskarazko **Irigoi**-en ordaina da, eta elizatik goitiko auzoa izendatzen du. Mugak, ordea, ez daude xoil garbi.

**Barrio de medios, el:**

**Barrio de arriba** eta **Barrio de abajo**-ren arteko auzoa izendatzen du, eta dokumentazioko erdal **Barrio de Mediavilla**-ren eta euskal **Iriarte**-ren (ikus bi sarrera hauek) baliokidea da.

**Barués:**

Egungo **Bargüés** [baɾgwés] herritik gertu dago, **Campo de la Villa**, **Baratzeta** eta **Biñaru**-ren ondoan (ikus sarrera hau). Mahats mota bat aditzera ematen zuen (gaurregun ezezaguna da) **barués**-ekin<sup>5685</sup> lotu beharra dago. Orain ardantze bakarra eta alorrak daude bertan, baina lehen olibadiak omen zeuden<sup>5686</sup>.

**Berokia:**

1849an dokumentatu dugu<sup>5687</sup>; ez da dudarik **Egoaberokia**-ren (**Aborokia** orain) aldaera hutsa dela.

**Bidatza (nueva), (prado de), (puntal de):**

**Bida(t)za** Zaren 'bidea' (bide mota bat) adiera zuen izen arrunta zela dirudi (ikus **Bidazparrena**):

"haber gastado por mandado de los Jurados en labrar la pieza de la bidaça..." (1587)<sup>5688</sup>  
 "cuando andubo cabando en la vidaça nueba..." (1587)<sup>5689</sup>

Etimologiari dagokionez, garbi dago **bide** osagaia dugula oinarrian, baina ez dakigu seguru bukaerako **-(a)za** hori ote zer den. Izan ere, **puntal** dugula kontuan hartu-

5685 Agirietan oso arrunta da "una viña barues...en la endrecera...", "un vidado barues...en el termino..."-ren modukoak ediretea. Iribarrenek berriz, "un vidado garnacha" aipatzen du (ikus VN-ko **Vidado** sarrera), eta "garnacha" jakina denez mahats mota bat da. Cf., gainera, Oibarren 1767rako agertzen den (PRA-Oibar, 63. k.) eta egun ere bizirik dagoen Olazko mugako **Garnach** [gãrnáč].

5686 Olibadiak, dena den, ardantzeetan landatu ohi dira, usu askotan hauek zahartu eta desagertu ondoan ere irauten dutela haiek, oliboaren bizia mahatsondoarena baino aise luzeagoa baita.

5687 Agoizko hipotekak, 3, 28. or.

5688 PRA-Oibar, 3. k-bis.

5689 Id.

rik \***Bideaitza** baten aitzinean gaudela kontu egin daiteke (cf. haitz edo mendi izena zen **Punta de Orozki** Moriones eta Ezporogiren arteko mugan, eta **Puntazorrotza** Agezan), eta gauza bera idaroki diezaguke ongi dokumentatua dugun **Bidazparrena**-k.

Bigarren posibilitatea **Bidaza** izen hibridotzat hartzea da, hots, **bide** euskaldunaz eta **-aza** atzizki erromantze handigarriaz osatutakotzat jotzea, orain **La Biaza** [lãbiáθa] deritzana Zaretik Kasedara doan errepidearen ondoan baitago, oraingo **Camino grande** edo lehengo **Bideandia**-ren ondoan:

“otra pieza en el puntal de la vidaza...tenite a...Camino Real” (1721)<sup>5690</sup>

Beste posibilitate bat **bide**-ren aldaera apofoniatuna den **bida-** eta **-tz(a)** ugaritasunezko berrekailua dugula pentsatzea da (ikus atzizki honi eskainitako atalean esan duguna). Honen arabera, **Bidaza** \***Bidatza**-ren aldaera litzateke, eta bere esanahia ‘bideak’ bezalako zerbait. Dena den, **Aldatz** eta **Larratz**-en moduko izenek (**bide**) duten atzizki bera izan dezake (cf. **alde**, **larre**), eta kasu honetan **bide** (berezi?) bakarra adieraziko luke, **aldatza**-k aldapa bakarra eta **larratza**-k eremu bakarra aditzera ematen duten era berean<sup>5691</sup>.

**Bidatz** izena toponimiatik kanpo ere ezaguna da; Axularrek bere *Gero* entzuetzuan erabiltzen du:

“Ordea icussico ditutçu halaber, noiz eta gogoa cinezenic, hartan ibenia baitaducate, eta lasterrenic baitoaci, orduan berean, edo eritasunez, edo incontruz, edo estropuz, edo heriotceac atrapatuz, bere beccatu eguiteco gogoarequin, bidatz-erditan guelditcen direla”<sup>5692</sup>

### **Bidazparrena (prado de):**

Izen honen osagaiak, irudiz, **bide**, **haitz** eta **barrena** dira, eta toponimoaren adiera ‘bideko harriaren beheerenerako alderdia’. **Haitz** > **az** pausoa arrunta da elkarketan (cf. **Aizparren** > **Azparren**, **Aizpitarte** > **Azpitarte**...) eta **-parrena barrena**-ren txistukari ahoskabearen ondoko aldaera dugu. Guztiarekin ere, eta Zaren bertan **bidaza** izena ageri dela kontuan harturik, badirudi **Bidazparrena**-n **bidaz(a)** + **barrena** besterik ez dela. Kasu honetan **Bidaza** hibridotzat salatu ordez (hots **bide** euskaldun eta **-aza** erromanikoz osatutakotzat jo ordez), **bidatz** (< **bide** + **tz(a)**, cf. **Aldatz**, **Larratz**...) eta **barrena** elementuez osatua dagoela kontu egin daiteke. 1584ko lekukotasunak bigarren etimologia honen alde jotatzen du:

“en la endrecera llamada bidazparrena, afrontada con piecas y bidacas concejiles de la villa”<sup>5693</sup>

5690 Id., 37. k.

5691 Garraldan **Bidazeta** dugu orain, **Bidaceta** 1914ko katastroan, eta Labion **Biaçeta** azaltzen da 1587an (PRA-Iruñea, 6. k.). Antsoain zendeako Berriozar herrian **Orriobidaçea** aurkitu du Jimeno Juríok (TCPCA, 292. or.) 1653an, eta **Orriobidachea** 1697an. Hondar toponimo hau ‘Orrioko bidearen atzeko aldea’ dela pentsa liteke, baina zendea honetan **gibela** agertzen da atzetasuna adierazteko, ez atzea, eta beraz, toponimo hau ere, Aezkoakoa eta Arangurengoa bezala, **bidatz** izenarekin lotu beharra dago. Elortzibarko Zulueta herrian **Bidazpea** dugu 1602an (PRA-Asiain, 20. k.), **Bidagaina**-rekin batera.

5692 Bordele, 1643, 114-115. orr.

5693 PRA-Oibar, 3. k. Xulapaingo Osinagan **Bidazbarrena** ageri da 1582an (PRA-Arakil-Hiriberri, 4. k.): “la segunda (pieca) en la endrecera llamada bidazbarrena afron\* con p\* de adame de osinaga”.



**Bidazparrena-n bide-ren** ordez honen eratorria den (ikus gorago) **bidatza** dugula ia segurua da, toponimo honen lehen lekukoa ikusi dugun 1584ko **Bidazparrena** baita, ez herri-etimologiaz edo bestela gorago aipatu 1718ko **Videazparrena**.

**Bidazparrena Baratzeta-ren** ondoan zegoen (ikus sarrera hau), **Bidatza-ren** eta errearen artean; **Prado de Bidazparrena** ere bertan zegoen, urbidearen ondo-ondoan, eta egungo **Prado de la Bidatza**-rekin identifika daiteke.

#### Bideandia:

**Bide** izena eta **handia** izenondoa dira leku-izen honen bi osagai gardenak. Oraindik ere bizirik (baina atzenekotan) dagoen **Camino grande-ren** (ikus sarrera hau) euskarazko ordaina dugu:

“Mas otra pieza...en el terno de bideandia” (1723)<sup>694</sup>

#### Bidertxi:

Dokumentatu duguna **Bidrech** da, baina Agezako **Bidertxi** eta **Bidertxiburua**, eta Eslabako **Bidertxia** toponimoak ikusita, Zareko forma desitxuratuaren jatorria **Bidertxi** dela garbi samar dago. Badakigu **Los Piélagos** (= **Los Pozos**, seguras-ki **Ligusuñeta**-ren baliokidea)-en ondoan zegoela:

“otra viña...en...Bidrech Juntto a los pielagos” (1718)<sup>695</sup>

#### Biñaru:

Esan dugunez, **Biñaru** [biñáru] Galipentzuko **Erbiña**-rekin eta Eslabako **Erbiñaga**-rekin erlaziona liteke, nahiz hau ez dagoen xoil garbi (ikus sarrera hauek), hiruek, itxuraz bederen, **biña** ‘ardantzea’ erdaratikako izena baitute osagai. Egungo **Biñaru Biñero** zen 1582an<sup>696</sup>, **biñedo** 1592an<sup>697</sup>, **viñaru** 1634an<sup>698</sup>, eta **viñero** 1768an<sup>699</sup>.

**Biñero-tik**<sup>700</sup> **Biñero** lortzea erraza da, maileguetako bukaerako -o ixteko joera ezaguna denez gero (cf. **Puntallo** > **Puntallu**, adibidez). Tarteetan -a- duten aldaerak aski goiztiarrak dira (**viñarugoiena** 1530erako) eta badirudi erdal izenaren eragina (**viña**-rena, alegia) ikusi behar dela hauetan, disimilazioaren antzeko zerbait baino hobe (hots, **igesi** > **igasi**, **igeri** > **igari**-ren moduko zerbait baino hobe).

Proposatzen dugun etimologiaren alde daude, batetik, ardantzeak Zaren oso ugariak izatea antzina (ikus aipatu lekukoak) eta orain, eta bestetik honelako maileguak

<sup>694</sup> IEA, 1765, 9, 1011. org.

<sup>695</sup> PRA-Oibar, 35. k.

<sup>696</sup> Id., 3. k.

<sup>697</sup> Id., 69. k.

<sup>698</sup> Id., 23. k.

<sup>699</sup> PRA-Kaseda, 21. k. Orba-Oletan **Viñero** toponimoa agertzen da 1804an (PRA-Oibar, 89. k.), eta **Lede**-an ere **Viñero** dugu 1634an (id., 23. k.).

<sup>700</sup> **Viñedo-tik** ere erator genezake, errotazismoa oso arrunta delako euskaraz, baina azaltzen den lehena **Viñero** izateaz gainera, hor daude Oleta eta Ledeko aipatu leku-izenak.

gure alderdikotik eta Nafarroa osoko toponimian maizkoak izatea (cf. **Parrala** Agezan, **Puntallua** Zaren bertan, **Presaldea** Eslaban, **Sekeroa** Galipentzun...).

**Biñaru** herritik hurbil dago, **Barués** (ikus sarrera hau), **Baratzeta**, **Ugarka**, **Puntallu**, **Palacio** eta **Barranco**-ren artean.

#### **Biñarugoiena:**

1530eko **viñarugoiena**-n garbi ikusten da **Biñaru** erdaratik hartutako mailegua izanagatik euskaldundu eta gure hizkuntzan erabilia izan zela:

“en viñarugoiena una viña de quatro peonadas”<sup>5701</sup>

**Biñarugoiena**-k **Biñaru**-ren goreneko alderdia ematen bide zuen aditzera, errepidearen ondokoa edo.

#### **Bularreta:**

Honen osagaiak, itxuraz, **bular** ‘aldapa’<sup>5702</sup> eta **-eta** dira. Halarik ere, eta gure eskualdean **bular** beste inon aurkitzen ez dugunez gero, **Bularreta Los Burales** erdal-dunaren ordaina den **Buraleta** euskaldunetik metatesiz (edo herri etimologiaz) atera dela kontu egin daiteke<sup>5703</sup>. Gainera **Bularreta**-ren lekuko bakarra dugu, eta honek are susmagarriago egiten du:

“una viña...en la endrecera llamada bularreta” (1585)<sup>5704</sup>

#### **Bural (campo de), el:**

Izen honek **buero** ‘buztina’ asko dagoen eremua adierazten du (ikus **Morionesko Bural** sarrera), eta beraz, ez da harritzeko egun **Bural** bat baino gehiago aurkitzea. Dakigula, **Ugarka**-n dugu bat, eta **Dolareta**-n beste bat.

#### **Burales, los:**

Egungo **El Bural**-etako bat izan daiteke 1587ko hau<sup>5705</sup>, bai eta dokumentazioko **Buraleta** bera ere.

#### **Buraleta:**

Esan bezala, aurrekoaren ordain euskalduna da, **Morionesko Buraleta Los Burales**-ena den bezalaxe:

5701 PRA-Oibar, 2. k-bis.

5702 Jimeno Jurío, “Toponimia en Iruñerria: sistemas de denominación y localización”, *Euskera*, 1985-2, 527-532. orr.

5703 Kontuan hartu behar da XVI. mendean eta beranduago ere **r / rr** grafemen nahasketa ohizkoa dela.

5704 PRA-Oibar, 3. k-bis.

5705 Id.

“...en la endrecera llamada buraleta” (1583)<sup>5706</sup>

**Calera (cerca de), la:**

‘Karobia’, ‘galtzina-labea’, ‘kisolabea’ adiera duen izen hau<sup>5707</sup> arrunta da Oibar haraneko toponimian, Aldea, Eslaba eta Zareko **La Calera** eta Artetako **Kaltzina-labe-k** erakusten duten bezala (cf. gainera Galipentzuko **Gisutzea** eta **Kisueta**).

**La Calera Saratsea-n** (**Zarazea XVIII. mendearen hasieraz** geroztik) dago, Kasedako bidearen alboan. Galipentzuko mugan, **Camino del Prado** aldean bada **Calera** izeneko beste eremu bat, **El Prado grande** (lehengo **Larreandia**)-n.

**Calle Mayor, la:**

Herriko sartzetako batetik (ez errepidetik) plazaraino luzatzen den karrika da.

**Calvario (junto a), el:**

Izen honen adieraz ikus **Agezako Calvario** sarreran esan dena. Gurutzebidea egiteko elizatik atera eta **Naba-ko Santa Lucía** ermitaraino joaten ziren zaretarrak, eta gero berriz bide beretik etortzen ziren bueltan.

**Camino bajo de Caseda, el:**

Behinolako **La Salz-en** (lehengo eta oraingo **Saratsea-n**) zehar doa, **Río de Armillos-en** paretik, **San Miguel** ermitaren alorren hurbiletik.

**Camino de Abaiz:**

Eslabako **Camino de Abaiz a Sangüesa** eta Zareko **Camino de Sangüesa** bera da. **Mandaputia-n** barrena zihoan (1770)<sup>5708</sup>.

**Camino de abajo de Caseda:**

**Camino bajo de Caseda-ren** adierakidea da. Besteak beste, **Saratsea** eta **Ordokia** gurutzatzen ditu.

**Camino de Aibar, el:**

Auzo herri horretara joateko bi bide zeuden: egungo erreidea (Zangozako bidea ere bazena), eta **Camino de arriba** edo **Camino de Baluso** (ikus **Camino de Aibar a Sada** sarrera). Inoiz edo behin **Camino de Aibar a Tafalla-ren** laburketa ere izan zitekeen.

5706 Id., 3. k.

5707 J. M. Jimeno Jurío, THET, 61 eta 119. orr.

5708 PRA-Oibar, 68. k.

**Camino de Aibar a Gallipienzo, el:**

Oibartik Galipentzura joateko biderik egokiena ardibidea da, baina 1634an ageri dena<sup>5709</sup> Zaretik beretik igarotzen zen.

**Camino de Aibar a Olite y Tafalla, el:**

Oibartik Zazuburu-ren eta Egoaberokia-ren artetik datorren altxonbidea da:

“otra pieza...en...eguaberoquia devajo del camino que ban de aibar â Olitte y tafalla theniente a...camino que bajan de Leache a Casseda” (1723)<sup>5710</sup>

Egun bai Zaren eta bai Eslaba eta Lergan **Camino de Tafalla** deritza bide honi, eta Agezan **Camino Real** edo **Errepidea**. Azken herri honetan, **Camino de Gezari** hartu ordez, **Balarata** aldera egiten zuen, eta hemendik, Eslabako **Errepidea**-n barrena, Epaiza zihoan. Gero despoblatu honetatik Lergako **Txutxu** eta **San Gines**-en zehar San Martingo lurretan sartzen zen.

Zangozatik heldu zen Oibarko **Camino de Olite**-k (**Camino de Sangüesa Zaren**) ere honekin bat egiten bide zuen **Muga de Ayesa** aldean.

**Camino de Aibar a Sada:**

**Camino de arriba**-ren adierakidea da 1743an dokumentatzen dena (egungo **Camino de Baluso**).<sup>5711</sup>

**Camino de Aibar a Tafalla, el:**

**Camino de Aibar a Olite y Tafalla**-ren esanahikidea zen (ikus sarrera hau); 1723an aurkitu dugu<sup>5712</sup>.

**Camino de Armillos:**

**Armillos** aldera zihoan **Camino grande** edo **Bideandia** zen hau. Orain berrogeita hemeretzi urte errepide bilakatu zen, eta geroztik **Carretera de Armillos** izenaz ezagutua da.

**Camino de arriba:**

Ikus **Camino de Aibar a Sada** sarrera.

**Camino de arriba de Caseda:**

Ez dugu dokumentazioan aurkitu, baina bizirik dago orain. Antzinako **El Saso** edo **Zazu**-n (**Zazuburu** ondoan) bereizten da **Camino bajo** edo **Camino de abajo de Caseda**-tik, eta honen paretik (baina Oibarko mugaren hurbilagotik) **Kasedako** lurretara sartzen da. Hortaz, **Leatxeko Kasedabidea**-ren (ikus sarrera hau) eta **Zareko** aipatu **Camino bajo de Caseda**-ren artetik doala esan daiteke.

5709 Id., 23. k.

5710 Id., 38. k.

5711 Id., 33. k.

5712 Id., 50. k.

**Camino de Arrizulatua:**

Arrizulatua-ra zihoan, agian Dorrondeta-ren paretik (1591)<sup>5713</sup>.

**Camino de Ayesa, el:**

Baratzeta eta La Tejería-n (eta antzinako Oianondoa-n) barna San Miguel eta Ageza aldera doa.

**Camino de Ayesa a Aibar:**

Bailara zeharkatzen duen errepidea (Merkatubidea) da 1591ko hau. Martisatea-n Camino (alto) de Caseda-rekin gurutzatzen zen:

“...y la tercera piª en martisatea...que afrenta con camino que ban los de Ayesa ad Aibar y los de sada a caseda”<sup>5714</sup>

**Camino de Balora:**

Balora-ko pausura doan Camino de Plau dugu hau.

**Camino de Baluso, el:**

Baluso aldera doa. Esan gisa, Camino de arriba (de Aibar)-ren adierakidea zen (ikus Camino de Aibar). Badakigu antzina Puntallu-n gaindi zihoala:

“otra pieça en el camino de balusu dco puntallu” (1610)<sup>5715</sup>

Puntallu hau Camino de Baluso-ren eta Camino de la Nevera-ren arteko herri ondoko alorra zatekeen (cf. orain dauden Puntallo-ak. Izen honetaz ikus Agezako Puntallua sarrera).

**Camino de Baratzeta, el:**

Debajo de las Casas-etik (behialako Etxepea-tik) igarotzen den Camino de Ayesa da.

**Camino de Barué, el:**

Camino de Ayesa-tik Barué-en zehar El Arcal-eraino doa.

**Camino de Bidazparrena a Errotaxarra:**

Hurrengo sarrerako bide bera da:

“otra pieza en donde el molino...theniente al Camino q ban de Vidazparrena a errotaxarra” (1718)<sup>5716</sup>

---

5713 Id., 5. k.

5714 Id., 5. k.

5715 Id., 16. k.

5716 PRA-Kaseda, 18. k.

**Camino de Bidazparrena al Molino:**

Behinolako **Bidazparrena**-tik gertu dagoen **Molino viejo**-rako bidea zatekeen hau (1723)<sup>5717</sup>.

**Camino de Bideandia, junto al:**

Honekin ez da **Bideandia** izeneko dermiora doan bidea adierazten, izen hori duen bidea (eta inguruko lurrak) baizik, hots, oraingo **Camino grande** bera (ikus sarrera hau. Ikus, orobat, **Bidatza** eta **Bidazparrena**). **Bideandia**, hortaz, Zaretik altxonbide aldera doan bidea zen:

“Otra pieza...en el mismo terno Junto al Camino de bideandia” (1723)<sup>5718</sup>

**Camino de Biñaru:**

**Camino del Palacio** edo **Camino del Molino**-tik **Biñaru**-n zehar **Los Huertos**-a doa.

**Camino de Bizkaia, el:**

**Camino de Moriones** da behialako **Camino de la Bizkaia** (1591)<sup>5719</sup>, herri honetatik Loiara joan baitaiteke behetik (eta hemendik Arteta eta Juliora edo Getadarra), eta Usunbeltz, Irangote eta Gardelaina goitik. **Gardelainbidea**-n barrena, bestalde, Bizkaian dagoen Gardelain herrira joaten zen.

**Camino de Caseda, el:**

**Iribarren** edo **Barrio bajo**-tik atera, eta **El Saso** edo **Zazu**-n erdibitzen da, **Camino de arriba de Caseda** eta **Camino de abajo de Caseda**-ri sorrera emanaz (ikus bi sarrera hauek).

**Camino de Caseda a Pamplona, el:**

**Kanpobarrena** barruan zegoen **Auzalorburua**-ren (ikus sarrera hau) ondotik zihoan. Hortaz, ez dago dudarik Zareko **Bideandia** edo **Camino grande** bera zela hau.

**Camino de Dolareta, el:**

**Camino bajo de Caseda**-ren **Dolareta**-ko zatia da, **El Puente nuevo** deitu zubitik **Saratsea** bitarte.

**Camino de Dorrondeta, el:**

Ez dakigu alorrak bazirela besterik (1717)<sup>5720</sup>. **Camino de Tafalla**-tik “**Corral de Sixto**”-ra doan bidexka izan zitekeen.

5717 PRA-Oibar, 38. k.

5718 IEA, 1765, 1023. org.

5719 PRA-Oibar, 5. k.

5720 Id., 35. k.

**Camino de Egoaberokia, el:**

Camino de Zazuburu da, Egoaberokia-ri dagokion zatian.

**Camino de Errengaitz, el:**

Camino del Cascajo-ren eta Río de Ordokia-ren artetik Errengaitz-en zehar doazen bi bideei deitzen zaie honela.

**Camino de Eslava, el:**

Camino de Tafalla edo Merkatubidea bera zen 1705eko hau<sup>5721</sup> (ikus sarrera hauek).

**Camino de Eslaba a Aibar, el:**

Badakigu Zazuburu-tik zihoala (1685)<sup>5722</sup>. Hortaz, Camino de Tafalla lehenik (Ageza aldetik etorrita), eta altxonbidea (Altxirribidea) gero, zela esan daiteke.

**Camino de Eslaba a Sangüesa, el:**

Saratseta (Saratsea edo Zarazea) eta Utsaskietarana (egungo Uzkitarana)-n barna doan Camino de Sangüesa (Camino de Olite Oibarren) zen (1680<sup>5723</sup>, 1722<sup>5724</sup>).

**Camino de Gallipienzo, el:**

Santa Eufemia-ko ermitaren albotik doan altxonbidea da:

“otra pieza tocante a la ermita de Santa eufemia teniente...a...Camino Real que ban los de esta Billa a la de Gallipienzo” (1708)<sup>5725</sup>

Antza duenez, bat baino gehiago ziren Galipentzura zihoazen bideak (ikus Caminos de Gallipienzo sarrera).

**Camino de Gardelain, el:**

Jautu eta Regandia-n zehar doa, Leatxeko Iguzkiagerria-ra. Hemendik Gaiuportillua edo Portillo de Gaiu-tik Piedras de Jaime-ra doa, Leatxeko Gardelainbidea edo Camino de Gardelain-ekin bat egitera.

**Camino de Gardelainbidea, el:**

Aurrekoaren baliakidea da. Ikusten denez, camino eta bidea ditugu batera, Camino de Bideandia-n bezalaxe (1596)<sup>5726</sup>.

5721 Id., 30. k-bis.

5722 PRA-Kaseda, 3. k.

5723 Id., 1. k.

5724 PRA-Oibar, 37. k.

5725 Id., 31. k.

5726 Id., 9. k.

**Camino de Jautu, el:**

**Camino de Jautu Gardelainbidea** bera da, hasieran bederen. Iturriarteatik abiatzen zen (1642)<sup>5727</sup>.

**Camino de Kiñueta, el:**

**Camino grande** edo **Bideandia**-ren jarraipena da, alegia, **Camino de Casada de abajo**-ren **Kiñueta**-ko zatia.

**Camino de la Fuentaza, el:**

Herri ondoko **La Fuentaza**-ra doan bidea da, **Camino de Jautu** bera, iturrira bitarte.

**Camino de la Nevera, el:**

**La Nevera**, **Puieta** eta **Mirabuenos** aldera doa.

**Camino de la Puente:**

Zaretik Oibarrera zihoan bideko zubia (1594)<sup>5728</sup>, oraingo **Puente de Balora** izan zitekeen (behinolako **Xubingoa**?).

**Camino de la Tejería, el:**

**Camino de Baratzeta** edo **Camino de Ayesa** bera da.

**Camino de las Montañas a la Ribera, el:**

Oibartik Zaren gaindi Galipentzura eta hemendik Zarrakaztelu, Uxue eta Murillora doan altxonbidea da 1773ko hau:

“el paraje y Rio de Rotajarra y paso del Camino Real de las Montañas para la Ribera”<sup>5729</sup>

**Camino de Lausitu, el:**

Euskarazko **Lausitubidea**-ren erdarazko baliakidea da (ikus sarrera hau).

**Camino de Leatxe, el:**

**Leatxen Camino de Sada** (**Zarebidea** antzina) deitzen diote. **Santa Lucía**, **Naba** eta **Jautu**-ren artetik doana da, behialako **Leatxkaratea** (1591)<sup>5730</sup>. Egungo **Alto de Leatxe** gaintitzen duena, alegia.

---

5727 Id., 24. k.

5728 Id., 8. k.

5729 Id., 69. k.

5730 Id., 5. k.



**Camino de Leache a Caseda:**

Leatxeko **Las Dos Aguas**-etik **Baluso**, **Zazuburu Egoaberokia** (goiko murretetik. Ikus **Camino de Aibar a Olite y Tafalla** sarrera) eta **Franzesa**-n zehar **Kaseda**ko lurretara zihoan (1698)<sup>5731</sup>. Orain ezabatuxe dago), **Zare** eta **Oibarren** arteko muga-mugatik.

**Camino de los Piélagos:**

**Camino de Los Pozos**-en errankidea da, seguru asko **Baratzeta**-ko lihatzeen ondoan, Ezporogiko **Baserrekandia** edo **Zareko Río de la Tejería**-n zeuden putzuetara (ikus **Ligusñeta**) zihoana (egungo **Camino de Biñaru?**). Beorlegiko baroiaren etxearen alboan zegoen **Kapanaondoa**-tik igarotzen zen:

“una pieza...en...Capanaondoa theniente...a...camino que ban a los Pielagos” (1713)<sup>5732</sup>

**Camino de los Pozos:**

Aurreko bera zen (ikus **Kapanaondoa** sarrera).

**Camino de Loya:**

Morionesko errepidea zen, seguraski **Camino de Bizkaia** bera (1773)<sup>5733</sup>.

**Camino de Mandaputia, el:**

**Camino del Prado grande** dugu, **Mandaputia**-ri dagokion zatian.

**Camino de Martisatea, el:**

**Camino de arriba de Caseda**-ren **Martisatea** aldeko puska da.

**Camino de Moriones (sobre), el:**

Morionesa doan oraingo bideberriarekin bat zetorren erregebide hau **Zaren** eta **Ezporogin**, baina ibilbidea franko aldatzen zen **Morionesen** (ikus herri honetako **Zarebidea** sarrera). Beorlegiko baroiaren jauregiaren gibelego aldetik abiatzen zen, eta hasierako zatia egungo **Camino del Molino** zen:

“en la endrecera llamada tras el palacio Junto al camino de moriones” (1583)<sup>5734</sup>

**Camino de Naba:**

Herritik atera, eta **Naba**-ko eremu laua gurutzatu ondoan, **Alto de Naba**-raino doa.

5731 PRA-Kaseda, 9. k.

5732 Id., 33. k.

5733 PRA-Oibar, 69. k.

5734 Id.

**Camino de Nuestra Señora a Leache, el:**

Camino de Leatxe-rekin bat egiten duen Camino de Santa Lucía dateke (1593)<sup>5735</sup>.

**Camino de Olite, el:**

Camino de Aibar a Olite y Tafalla-ren kidea zen (ikus sarrera hau), egungo Camino de Tafalla bera (1703)<sup>5736</sup>.

**Camino de Olite a Sangüesa, el:**

Zaren Camino de Sangüesa eta Oibarren Camino de Olite deritzana da, alegia, Zangozatic Oibarko udalerrria gurutzatu ondoren Zareko Utsaskietarana-ra sartzen dena. Esan bezala (ikus Camino de Aibar a Olite y Tafalla), Muga de Ayesa aldean Camino de Tafalla-rekin bat egiten zuela dirudi:

“Ytten otra piª Junto al camino de Sanguesa que ban los de olite a sanguesa” (1594)<sup>5737</sup>

**Camino de Ordokia, el:**

Camino bajo de Caseda da, Ordokia-n sartzen denetik Kasedako lurretara iristen den arte.

**Camino de Pamplona, el:**

Zaretik Leatxera doan Camino de Leache-ren adierakidea da. Azken herriari Kasedatik Iruñera zihoanarekin batzen zen, eta hemendik Ibargoitira zihoan (ikus Leatxeko Camino de Pamplona, Camino de Sada a Pamplona eta Irunbidea sarrerak).

**Camino de Piketa, el:**

Ez dakigu zein bide zen 1594ko hau<sup>5738</sup>.

**Camino de Plau, el:**

Herri ondotik, errepidetik, Río de Balora-ko Paso de Balora-raino doa, Plau-n gaindi.

**Camino de Puieta, el:**

Camino del Cementerio bera da.

---

5735 Id., 7. k.

5736 Id., 30. k.

5737 Id., 8. k.

5738 Id.

**Camino de Regandia, el:**

**Regandia**-n barna, **La Corona** (antzinako **Koroagaña**) eta **Mugarana**-ren artetik, Ezporogi, Moriones eta Leatxeko muga aldera doa. **Camino de Larregandia** [laɾɛgandía] ere aditu dugu.

**Camino de Salobreta, el:**

**Camino del Cascajo**-ren hastetik **Saratsea** aldera doa; **Camino de Sangüesa**-ren zati bat da.

**Camino de Salobreta al río de Ordokia:**

**Errengaitz**-en barna zihoan, alderdi honetako errekaen aldamenetik, **Pieza del Rey**-ren ondotik (1723)<sup>5739</sup>.

**Camino de San Miguel, el:**

**Camino de Ayesa**-tik **San Miguel** ermitara doa.

**Camino de Sangüesa (debajo de), (saso de), el:**

**Mondela**-tik abiatzen zenez gero, uste izatekoa da tarte batean behintzat **Camino de Aibar**-ekin (behekoarekin, oraingo errepideekin) bat zetorrela. Orain behialako **Camino de Sangüesa a Olite**-ri deitzen zaio **Camino de Sangüesa**.

**Camino de Sangüesa a Olite, el:**

**Camino de (Olite a) Sangüesa** edo Oibarko **Camino de Olite** bera da (ikus **Gorena** sarrera):

“otra pieza...en el terminode Gorena theniente...a...Camino Rl que ban los de Sanga â Olitte y Camino que se ba a Cascaxo” (1717)<sup>5740</sup>

**Camino de Saratsea, el:**

**Camino bajo de Caseda** dugu, **Saratsea**-ri dagokion zatian.

**Camino de Tafalla, el:**

**Camino de Olite** edo **Merkatubidea** da:

“otra (pieza) sobre el Camino que se ba a tafalla” (1770)<sup>5742</sup>

**Camino de Ugarka, el:**

**Camino del Palacio**-ren jarraipena den **Camino de los Huertos** bera dugu.

---

5739 Id., 38. k.

5740 Id., 35. k.

5741 Id., 68. k.

**Camino(s) de Ujué:**

**Mandaputiarana**-n gairi Galipentzura doazen **Camino del Prado** eta ardi-bidea ziren 1592ko lekukoan azaltzen direnak:

“otra pi<sup>a</sup> en...mandaputiarana que afrenta con...los dos caminos que ban a gallipiengo y a Uxue”<sup>5742</sup>

**Camino de Utsaskietarana, el:**

**Camino de arriba de Caseda**-ren **Utsaskietarana**-ko zatia da.

**Camino de Zazuburu, el:**

Lehen Zaretik Zangozara zihoanaren zati bide da **Camino de Zazuburu** (ikus **Camino de Sangüesa**).

**Camino del Alto de Leache, el:**

**Camino de Leatxe** bera da.

**Camino del Arcal, el:**

**La Tejería**-ren hurbiletik, **El Arcal**-en zehar, **El Molino viejo**-raino doa.

**Camino del Calvario, el:**

Ikus **Calvario** sarreran dioguna.

**Camino del Cascajo, el:**

**Santa Eufemia** eta **Korkua**-tik, antzinako **Aitzulatua** edo **Arrizulatua**-n zehar (edo albotik), **Salobreta**-ren aldamentetik **El Cascajo**-ra doa lehenbizi, eta Galipentzuko lurretara gero.

**Camino del Cementerio, el:**

Hilerriko bidea da.

**Camino del Coscojar, el:**

**Camino de Ayesa**-tik **El Coscojar** aldera doa.

**Camino del Chaparral, el:**

**Camino del Arcal** bera dugu (ikus sarrera hau).

**Camino del Escopizar, el:**

**Camino de Utsaskietarana**-ren jarraipena da.

**Camino del Molino de Gallipienzo, el:**

**Camino del Prado** bera dela uste dugu. Hemendik Eslaba aldetik heldu den **Camino de los Molinantes**-a ateratzen da:

“otra pieza...en Mandaputia theniente...a... camino que se ba a Gallipienzo o su Molino” (1717)<sup>5743</sup>

**Camino del Molino de Ugarra, el:**

Ezporogiko **Baserrekandia**-n orain urte batzuk arte zutik egon den errotarako bidea **Morionesko** bidea zen:

“en un altico sobre el camino del Molino de Ugarra que se ba a Moriones se encontro otro Mojon” (1747)<sup>5744</sup>

**Camino del Monte, el:**

**Oianondoa**-n zehar zihoan, eta **monte** eta **oihana**-ren arteko baliokidetasuna argia denez gero, dokumentatu ez dugun **\*Oiana**-rako bidea zela suposa daiteke (ikus **El Monte** sarrera). Agezako errepidea zela dirudi:

“en...oyanondoa...que afrentan con el Camino Real que ban al monte” (1593)<sup>5745</sup>

**Camino del Palacio, el:**

Orain artegi bilakaturia dagoen lehengo jauregiaren ondotik errepidea gurutzatu, eta **Ugarka**-ko baratzetaraino doa.

**Camino del Prado, el:**

**Santa Eufemia**-ren ondoko behinolako **Arrizulaturia** edo **Aitzulaturia**-n zehar doa, **Camino del Cascajo**-ren paretik. **Prado** hau euskarazko **Larreandia** da, egun **Prado grande** deitzen den berbera.

**Camino grande, el:**

Herritik **Armillos** aldera doan errepidea da, **Camino** edo **Carretera de Armillos** bera. Euskarazko **Bideandia**-ren ordaina dela zalantzarik ez dago (ikus azken hau eta **Bideandia** eta **Camino de Bideandia** sarrerak). Egun ez dirudi sobera erabiltzen denik, 1918an sortu zen gure informatzaileak<sup>5746</sup> mutiko koxkorretan ikasitakotzat (dagoeneko atzenduxea zeukan) jotzen baitu.

---

5743 Id., 35. k.

5744 Id., 54. k.

5745 Id., 7. k-bis.

5746 Jesús Irigoien jaunak.

**Camino que llaman el viejo:**

**Biñaru**-n barna zihoan, nora ez dakigula. Baliteke **Caminos viejos** sarrerako bideetako bat izatea, edo **Camino viejo de Sangüesa**, baina ez dugu honen frogarik (1704)<sup>5747</sup>.

**Camino viejo de Sangüesa, el:**

**Camino de Sangüesa a Olite** edo **Zaretik Oibar** eta **Zangozara** zihoan **Camino de Sangüesa** (oraingo goiko errepidea) izan zitekeen (1608)<sup>5748</sup>.

**Caminos de Gallipienzo, los:**

Dugun lekuko bakarrean ez dago oso garbi Galipentzuko bideak bat baino gehiago ziren (ikus **Abadía** sarrera). Edozein moduz, eta bide edo bideak **Dorrondetan** gaindi zihoa(ze)nez gero, bat behintzat altxonbidearekin identifikatu behar da.

**Caminos viejos, los:**

Eslabako **Bidezaretan**-ren baliakide dugu **Zareko** hau (1771)<sup>5749</sup>. Ez dakigu zein bide ziren.

**Campo, el:**

Erdarazko **Campo bajo** eta euskarazko **Kanpobarrena**-ren kide izan zitekeen (**Campo de la Villa** bera, itxuraz. Ikus **Auzalorburua** sarrera). 1594an dokumentatu dugu<sup>5750</sup>.

**Campo bajo, el:**

Euskarazko **Kanpobarrena**-ren ordain erdalduna genuen (1632)<sup>5751</sup>, eta itxuren arabera **Auzalorra** edo **Campo de la Villa**-ren beheko alderdia adierazten zuen (ikus **Auzalorburua** sarrera), ez Agezan bezala (ikus herri honetako **Kanpobarrena**) udalerraren behealdeko eremua.

**Campo de la Torre, el:**

Ikus **Torre de Zabaleta** sarrera.

**Canales, los:**

Ez dakigu non zegoen 1768an azaltzen den hau<sup>5752</sup>, baina baliteke errotako azekiekin zerikusia izatea.

---

5747 PRA-Oibar, 30. k.

5748 Id., 13. k.

5749 PRA-Kaseda, 23. k.

5750 PRA-Oibar, 8. k.

5751 Id., 23. k.

5752 Id., 63. k. Euskaraz **Kanale** **ttikiko lepoa** dugu bizirik Goizuetan (L. F. Echeverría, "Goizuetako toponimia...", 88. or.).

**Cantón (barrio de), (calle de), el:**

Herriaren sarreran dago, **Barrio de abajo-n. Calle Mayor-en** hasieratik plaza-raino luzatzen da.

**Cañada, la:**

Zaraitzitik Oibarren barrena Zarera, eta hemendik Galipentzura doan ar-dibidea dugu (ikus **Altxirribidea** sarrera Zaren eta **Altxubidea** Galipentzun).

**Carasol, el:**

Morionesko bidearen gaineko aldeko egutera da, Zaren **Iguzkiagerria** eta Morionesen **Iguzkun (Carasol de las Viñas** orain) deitzen zen berbera.

**Carretera de Armillos, la:**

Ikus **Camino de Armillos** sarrera.

**Cascajo, el:**

El Cascajo aski alderdi zabala da, eta **Salobreta** eta **Mandaputia-tik, El Prado, Malabranka, El Cerrado** eta **Errengaitz-aino** hedatzen da. Antzina, dokumentazioak salatzen duen gisan, Galipentzuko mugaraino iristen zen, herri honetako **Santxoteuntzea (Saso de la(s) Roza(s)** egun) deitu zazaraino:

“...Refiere el amojonamiento antiguo llamarse el sasso de Sancho teunzea por gal-lipienzo y devaxo del terno que llaman el Cascaxo los de Sada” (1703)<sup>5753</sup>

**Cementerio, el:**

Herri ondoan dago, **Puieta-n, Mondela** eta **Nevera-tik** gertu.

**Cerrada de Francisquete, la:**

Altxonbidetik **Portillo de Martisatea-raino** luzatzen da dermio ttiki hau. Gure informatzailearen arabera, despoblatu baten aztarrenak daude bertan (eraztunak eta antzeko beste gauza batzuk aurkitu omen dituzte).

**Cerrado, el:**

**Cerrado** izenaz ikus Morionesko **El Cerrado** sarrera. Bat baino gehiago daude egun Zareko udalerrian: hauetakoa bat **El Cascajo-ren** beheko aldean dago, **Campo de San Martín** ondoan, eta badaiteke despoblatu baten arrastoa izatea (ikus **San Martín** sarrera).

**Cerrados, sobre los:**

Behin bakarrik ediren dugu (1718)<sup>5754</sup>, eta ez dakigu non zegoen.

5753 PRA-Oibar, 30. k.

5754 Id., 35. k.

**Cofradía (junto a), la:**

**Cofradía** izenaren inguruan ikus Agezako **Cofradía del Santo Rosario** sarrera. Zareko obrariak orain urte batzuk arte iraun zuen bizirik, eta agirietan ikusten denez, **Irigoi**en auzoan zeukan egoitza behiala, apezetxean apika:

“una pieza...en yrigoyen tras de la confraria” (1634)<sup>5755</sup>

**Junto a La Cofradía** (1586)<sup>5756</sup> euskarazko \*(G)obrariondoa moduko baten itzulpena zatekeen.

**Corona, la:**

**Corona** erdaldunak eta koroa, goroa euskaldunak ‘gaina, mendi biribila’ adiera izan ohi dute, eta horixe da Ezporogiko mugako **La Corona**-k duena (ikus **Koro-agaña** sarrera).

**Corral nuevo, el:**

**El Corral nuevo** 1782an opatu dugu lehen aldikoz<sup>5757</sup>, eta antzeko beste toponimo batzuekin agitu ohi den bezala (cf. **Bideberria** Galipentzun), zaharra da dagoneko, izenondoa gorabehera.

**Camino de Sangüesa, Saratsea, Ordokia, Saso de Sagüés** eta **El Escopizar** ditu mugakide.

**Corraliza:**

“Corraliza” bakarra osatzen du Zareko udalerriak, eta bere horretan saltzen da.

**Co(r)seras, las:**

Zaren **Coseras** nahiz **Corseras** itxurapean ageri den izen honen inguruan ikus Agezako **Coseras** eta Lergako **Co(r)seras** sarrerak. Herri ondo-ondoan zeuden, gainerantzeko **Co(r)seras** guztiak bezala:

“pieza devajo las casas teniente a las corseras de la villa” (1723)<sup>5758</sup>

1593ko agiri batean non hasten diren ere esaten zaigu:

“las corseras del pueblo que comiençan en la cruz del bicario por mondela aRiba”<sup>5759</sup>

Beste aldetik **Prado de Jautu-raino** iristen ziren (1584)<sup>5760</sup>.

---

5755 Id., 23. k.

5756 Id., 3. k-bis.

5757 Id., 72. k.

5758 IEA, 1765, 8, 1020. or.

5759 PRA-Oibar, 7. k.

5760 Id., 3. k.



**Coscojar, el:**

Coscojo izenaren balioaz ikus Agezako El Coscojar eta Galipentzuko Lecino sarrerak. Toponimo hau lehen aldiz gure mendean aurkitu dugu, eta ez dirudi zaharra denik.

El Coscojar Agezako mugako goi lautada bat da, eta El Monte, El Chaparral, El Molino viejo eta Lausitu-rekin mugatzen du.

**Cruz, la:**

Errepidean dago, herriaren sarreran, La Mondela ondoan. Agirietan azaltzen den Cruz del Vicario (ikus Vicario sarrera), Cruz del Camino de Aibar, eta Cruz del Camino de Sangüesa-ren errankidea da.

**Cruz del Camino de Aibar, la:**

Aurreko bera dugu hau (1633)<sup>5761</sup>.

**Cruz del Camino de Sangüesa, la:**

Aurrekoarekin identifikatu behar da, Zangozako bidea (ez oraingo Camino de Sangüesa) eta Oibarkoa bat eta bera baitziren (egungo errepidea):

“otra piª... Junto a la cruz Camino de sanguesa” (1594)<sup>5762</sup>

**Cuatro Esquinas (barrio de), (calle de), (plaza de), las:**

Bertan lau karrika biltzen direlako deritza honela. Barrio de medios-en dago, Calle de Irigoien-en hasieran.

**Chaparral (monte de), el:**

Txaparrak oso ugariak dira alderdi guzti honetan, eta ugaritasun horren onorio dira Eslabako Txaparra edo El Chaparro, Leatxeko El Chaparral, Lergako Txaparduia, Morionesko Txaparbazterra...eta beste. Zareko oraingo El Chaparral, dena den, labakitua dago, eta txapar gutxi ikus daiteke bertan<sup>5763</sup>.

El Chaparral-ek La Tejería-rekin, El Arcal, El Monte del Coscojar, El Molino viejo eta El Ontinar-ekin mugatzen du.

**Debajo de las Casas:**

Euskarazko Etxepea-ren ordain euskalduna da herriaren azpiko aldean dagoen hau<sup>5764</sup>:

5761 Id., 23. k.

5762 Id., 8. k.

5763 Lerrak ugariagoak dira orain.

5764 Antsoain zendeako Aitzoainen herri ondoan zegoen Echapea aurkitu du Jimeno Jurío ikerleak 1798an, eta honen ordaina den Debajo de Casa 1927an (TCPCA, 48. eta 50. orr.). Ikus Ezporogiko Casas sarre-ran dioguna.

“otra pieza...en el Paraje q llaman debajo las casas, teniente...a camino q ban a barazeta” (1713)<sup>5765</sup>

**Campo de la Villa eta Barué**s ditu mugakide.

**Depósito de las Aguas, el:**

**Oraingo Calle de Irigoien-ek eta Calle de Ameka-k** bat egiten duten alderdian dago, herriaren aldirietan.

**Dolareta (costalado de), (río de):**

Honen osagaiak **dolare** ‘mahats-aleak, sagarrak....beraien zukua ateratzeko zapatzen diren tresna’, ‘delako tresna dagoen tokia’<sup>5766</sup>, eta **-eta** atzizkia dira. Kasu honetan **dolare** mahats-aleak zapatzen diren tresna dela uste dugu, mahatsa baita (eta baitzen) eskualde honetan fruiturik arruntenetakoa. Sagardoa egiteko tresna dela pentsa ere daiteke, baina alderdi honetan lehen orain baino sagar gehiago izanagatik (cf. **Sagarraga Lerga** eta **Eslaban**), ez da izan, oker ez bagaude, sagardo tradizioirik. Olioa egiteko tresna ere izan zitekeen, olibondoak eskualde honetan ugariak (izan) direnez gero.

**Costalado de Dolareta-k** dermioaren alde bat adieraz zezakeen, baina oraingo **Costalado de Balora-k** eta **Costalado de Ordokia-k** aldapa adierazten dutenez gero, honek ere aldapa izendatzen zuela kontu egin daiteke. Honen ordain zeharo euskalduna den **Dolaretasaietsa-k** ere balio bera zukeen:

“pieza en el costalado de Dolareta” (1723)<sup>5767</sup>

“otra pieza en dolareta sayseza” (1680)<sup>5768</sup>

**Río de Dolareta** gorago **Río del Molino viejo** eta beheago **Río de Saratsea** deritzan erreka da.

**Dolareta [dòlaréta]** **Martisatea, Egoaberokia, Zazuburu, Kiñueta, Puente nuevo,** eta **Saratsea-ren** artean dago. Errekak **Korkua-tik** bereizten du.

**Dolaretasaietsa:**

Ikus aurreko sarrera.

**Dorreta, val de:**

Izen honen osagaiak **dorre** ‘eraikuntza garaia eta meharra, askotan eliza, gaztelu...bati buru ematen diona, edo babesgarri edo talaia bezala jasotzen dena’<sup>5769</sup>, eta **-eta** atzizkia dira. Erdarazko **Val de la Torre-ren** ordain euskalduna dugu (ikus sarrera hau):

“otra piª...en...baldedorreta” (1592)<sup>5770</sup>

5765 PRA-Oibar, 33. k.

5766 Sarasola, HLEH.

5767 IEA, 1765, 8, 1021. org.

5768 PRA-Kaseda, 1. k.

5769 Sarasola, HLEH.

5770 PRA-Oibar, 6. k.

Dorreak ugariak izan dira gure eskualdean: Zaren bertan mintzagai dugun honetaz gain **Dorrondeta** dugu, Ezporogin **Dorregibela**, Morionesen **Dorreko alorra**, Eslaban **Dorreondoa**, **Dorreta** eta **Dorretarana**, Galipentzun **Dorronditu** eta **Uxuen Dorreberria** eta **Dorrondiaga**. Nabarmenezkoak dira, guzti hauen artean, Zarekoaren berdina den Eslabako **Dorreta** eta honen eratorria den **Dorretarana** toponimoak.

#### Dorrondeta (barranco de):

Leku-izen honetan, itxuraz, **dorre**, **ondo** eta **-eta** ditugu. Hemen *eo* > *o* gertatu dateke, Eslabako 1768ko **Dorreondoa**-n edo Zareko 1582ko **Echondoa**-n bezala (**Echeondoa** 1596an), bai eta *oe* > *e*, euskaraz beste batzuetan agitu ohi den gisan (cf. **Aiztondeta** Lizarran<sup>5771</sup>).

1592an **Dorrondoeta** dokumentatu dugu<sup>5772</sup>, alegia, *oe* > *e* gertatu aitzineko egoera; 1787rako<sup>5773</sup> metatesi baten ondorena den **Redondeta** genuen (cf. Uxueko **Redondiaga** < **Dorrondiaga**), eta hau da, izan ere, egun bizirik dagoen aldaera (*frèdonédéta*). 1683. urtean **Barranco de dorrondeta** aurkitu dugu<sup>5774</sup>, **dorrondeta**-rekin batera, eta honetan oinarri harturik **dorre** + **ondo** + **eta** gabe **dorre** + **handi** + **-eta** genituela pentsa daiteke. Halarik ere, lehen bi agerraldietan **Dorrondeta** eta **Dorrondoeta** ditugu, eta hauek hasieran proposatu etimologiaren alde egitera bultzatzen gaituzte.

**Dorrondeta El Chaparral, Molino viejo, Muga de Ayesa**, eta **Santa Eufemia** artean dago, dokumentazioko **Arrizulatu**a edo **Aitzulatu**-ri hurren. **Barranco de Dorrondeta El Coscojar** aldean sortu eta dermioa gurutzatu ondoren **Río de Armillos**-a doa.

#### Egoaberokia (prado de), (saso de):

**Hegoa** eta **berokia** dira 'hegoaldera begira dagoen babeslekua' adiera duen toponimo honen bi osagaiak. Iruñerrian ere **Egoaberokia** edo **Egoaberokikoa** aurkitzen dugu<sup>5775</sup>, bai eta honen alderantzizkoa den **Iparberokia** edo **Iparberokikoa** ere<sup>5776</sup>.

Lehen lekukoak **Egua**- du (1599)<sup>5777</sup>, Iruñerriko aipatu toponimoek bezala, eta tarteka **Ego**- agertu arren (1769an, kasu)<sup>5778</sup>, itxuraz herri-etimologiaz aldatuxe ageri zaigun 1768ko **Aguaberokia** aldaerak<sup>5779</sup> **-a**- horren iraupena baieztatzen digu, euskarazko gaurko izen arrunta **hego** bada ere, ez **hegoa**. **Mitxelenak**<sup>5780</sup> **-a** horri eutsi dioten **Egoabil** eta **Hegoaburu** deiturak aipatzen ditu, eta agian hitz honek lehen **-a** itsatsia zeukala kontu egin behar genuke (cf. **hobi**-z esan duguna, **Arrobia** sarreran).

5771 Ricardo Ciérbide, *Estudio lingüístico de la documentación medieval en Lengua Occitana de Navarra*, 351. or.

5772 PRA-Oibar, 6. k.

5773 Id., 75. k.

5774 PRA-Kaseda, 2. k.

5775 Beriain eta Getzen. J. Jurío, TCPCG, 87 eta 339. orr.

5776 J. M. Jimeno Juríok Zarikiegi (TCPCC, 468. or.), Beriain, Getze eta Olatzen (TCPCG, 96., 339. eta 310. orr.) bildu du. Iturmendin **Ipurboki** dugu egun, **Iparberoki** 1599an (Nicolás Arbizu, TI, 267. or.), eta Olatzagutian **Ipurboróki** orain (NTEM-IX, 74. or.), **Iparberoqui** 1714an (PRA-Altsasu, 21. k.).

5777 PRA-Oibar, 21. k.

5778 PRA-Kaseda, 22. k.

5779 PRA-Oibar, 63. k.

5780 AV, 81. or.

Gaurregun **Aborokia** [àborokía] deitzen diote zaretarrek eremu honi, baina badakite (batzuek bederen) **Aguaborokia** [ágwaBORokía] “dela”, alegia, lehen forma hori azken honetatik atera dela<sup>5781</sup>.

**Prado de Egoaberokia** (1711tik aitzina)<sup>5782</sup> behinolako **Zazu**-ren ondoan dago, hots, 1705eko lekukoaren arabera<sup>5783</sup> **Egoaberokia**-ren barrukotzat jotzen zen zazuaren ondoan, **Camino de Egoaberokia**-ren eta **Franzesa**-ren artean. **Egoaberokia**-k **Zazuburu**, **Franzesa**, **Dolareta**, **Martisatea** eta **Utsaskietarana** ditu mugakide.

#### Era(s):

Zareko larrainak herriaren ondoan egon dira berriki arte, goiko eta beheko auzoen aldirietan, eta **Eras del Barrio alto** eta **Eras del Barrio bajo** deitu izan zaie. Bi multzo hauetako larrainek gero nagusiaren etxearen izena hartzen zuten. Hauetaz landara **Era del Palacio** zegoen jauregiaren ondoan, eta **Era del Palaciano** (**Casa del Palaciano** deitu etxekoa zen) hilerriaren aldamenean.

#### Errekazokoa:

Hemen **erreka** eta **zokoa** ezagunak ditugu. 1634ko lekukoak erakusten duenez, **Errekazokoa** Leatxeko errekek elkartzen ziren unean zegoen, gaurko **Baluso**-n, auzo herri horretako **Las Dos Aguas**-en ondoan:

“otra pieza en errecaçocoa...q afronta con Rios de leache” (1634)<sup>5782</sup>

#### Errengaitz (paso de):

Honen etimologia ez dago xoil garbi, opatu ditugun aldakiak asko baitira eta aski nabarrak. Horien arteko alderik nabarmenena, bukaerako artikuluz gainera, hasierako **g**- belarearen presentzia edo falta da: **Rengayza** (1634)<sup>5785</sup>, **Rengayz** (1634)<sup>5786</sup>, **Erren gaiça** (1650)<sup>5787</sup>, **Errengaiza** (1683)<sup>5788</sup>, **Gerrengariz** (1733)<sup>5789</sup>, **Guerrengaiza** (1762)<sup>5790</sup>, **Garrangariza** (1769)<sup>5791</sup>, **Guerrengariz** (1815)<sup>5792</sup>.

**G**-dun aldaerak besteak baino zaharragoak direla suposa daiteke, eta hasierako kontsonante hori belare-disimilazioz galdu dela (cf. **cagot** / **agot**(e,a), **kokotz** / **okotz**, **gonga** / **unga**...). Alabaina, dokumentazioa lekuko, **g**-rik gabeko aldakiak dira

5781 Gure informatzaileetako batek erdarazko **agua** ‘ura’-rekin lotzen zuen, bertan errekarik ez badago ere.

5782 PRA-Oibar, 32. k.

5783 PRA-Kaseda, 12. k.

5784 Id., 23. k.

5785 Id.

5786 Id.

5787 Id., 26. k.

5788 PRA-Kaseda, 2. k.

5789 PRA-Oibar, 50. k.

5790 Id., 61. k.

5791 PRA-Kaseda, 22. k.

5792 PRA-Oibar, 95. k.

goizen azaltzen direnak, eta beraz, zaharrenak. Jakina denez, euskarazko zenbait hitzek batzuetan herskari protetikoa bat hartzen dute (cf. **altzairu** / **galtzairu**) eta badirudi horixe dela hemen gertatu dena.

Etimologiari dagokionez, bigarren elementua **-gaitz**, **-gaitza** dela uste dugu, zenbaitetan aurkitzen ditugun **-r-dun** aldaerak oso berandu agertzen baitira. Lehen osagaia Morionesko **Loiaerregua**-n (= **Loiaerreka**), Leatxeko **Erregumaiorea**-n eta Zareko bereko **Regandia**-n (< **\*Erreguandia**-tik atera bada. Ikus sarrera hau) dugun **erregua** 'erreka handia' bera izan daiteke, **Errengaitz Salobreta** aldean baitago, **Río de Ordokia**-ren ondoan.

Egun **Garrangariz** [gãrangáriθ] deritzanak **Salobreta**, **El Cascajo**, **El Cerrado** eta **El Azute**-rekin mugatzen du, aipatu **Río de Ordokia**-rekin ezezik. Erreka aski bihurria da bertan, baina gorago ez da zuzenagoa, eta baliteke **gaitz** osagaia beste zerbaitei leporatu behar izatea, ez bere "bihurritasuna"-ri. **Paso de Errengaitz** errekan berean dago, **Río de Ordokia**-k eta **Errengaitz**-etik heldu den bideak elkar gurutzatzen duten puntuak.

#### Errotaldea:

**Errota** 'eihera' eta **aldea** ditugu gaurregun **Rotaldea** [ròta]déa bilakatu den honetan:

"otra viña...en el therno de Sada llamado Errotaldea" (1752)<sup>5793</sup>

**Errotaldea**-k **El Arcal** eta **El Molino viejo**-rekin (antzinako **Errotaxarra**-rekin) mugatzen du, errekarerekin ezezik.

#### Errotaxarra (paso de), (río de):

**Errota** eta **-xarra** 'zaharra' ditugu hemen. **Errotaxarra** gaurko **Molino viejo** bera zen (ikus sarrera hau):

"una pieza...en...Errotaxarra que afrontta...con Camino Rl que ban a Gallipienzo" (1703)<sup>5794</sup>

Alderditik igarotzen den errekareri **Río de Errotaxarra** esan izan zaio (**Río del Molino viejo** orain), eta altxonbidearen eta erreka honen elkarguneko pausuari **Paso de Errotaxarra** (ikus **Camino de las Montañas a la Ribera** sarrera).

Eleizaldeak **Rotajarra** biltzen du 1919an<sup>5795</sup>, eta gaurregun ezezaguna da.

#### Escopizar (pieza de), el:

Egungo **El Escopizar**-en (lěškopiθãrl) jatorria isatsak egiteko eta sua izekitzeko erabili izan den **escobizo** landare izenean bilatu behar dugu, inguruetan landare

5793 Id., 57. k.

5794 Id., 30. k.

5795 LVTV-en.

hau ugaria baita (cf. San Martin Unxeko **Escobares**<sup>5796</sup> eta Uxueko **Eskobarea**). Hau are garbiago ageri da Zaren **escopizo** aldera erabiltzen dela<sup>5797</sup> eta aztergai dugun dermioaren ondoan **Utsaskietarana** (**Uzkitarana** orain) dugula kontuan hartzen denean.

**El Escopizar Camino de Sangüesa**-tik Oibar eta Kasedako mugetaraino hedatzen da, eta **Utsaskietarana**, **Corral nuevo** eta **Ordokia**-rekin mugatzen du, auzo herri horiekin ezeze.

#### **Etxeondoa:**

**Etxe** eta **ondoa**-z osaturikako toponimo honek etxe zehatz baten aldamera adieraz zezakeen, baina baita zenbait tokitan **Iriondoa**-ren bidez adierazten dena ere (cf. **Etxepea** / **Debajo de las Casas**):

“otra pieça en echeondoa” (1596)<sup>5798</sup>

#### **Etxepea:**

Herriko etxeen azpiko aldea adierazten zuen, eta ez dago dudarik beranduagoko **Debajo de las Casas**-en kide euskalduna dela:

“otra pieza en echepea..theniente a...Huertos de Dn franco Leoz y Camino de Ayesa” (1718)<sup>5799</sup>

#### **Facería, cantería de la:**

Leatxeko **Facería**-ko gaina zela dirudi. 1656ko agiriko **canteria**<sup>5800</sup> **Facería**-ren eraginez sortutako **cantera**-ren behingo aldaera zatekeen.

#### **Facerías de Leatxe y Sada, las:**

Bi herrion arteko mugako fazeriok Leatxeoak dira orain (ikus herri honetako **Facería** sarrerak).

#### **Franzesa:**

Franzesa hau ‘frantsesa’, ‘frantziarra’ besterik ez da<sup>5801</sup>. Bukaerako -a hori erdal “genero femenino” delakoaren adierazlea izan daiteke nahiz euskal artikulua. Toponimoa berandu ediren dugu (1704ean lehen aldikoz), erdal artikulurik gabe:

5796 PRA-San Martin, 56. k., 1785.

5797 Iribarren, VN.

5798 PRA-Oibar, 9. k.

5799 PRA-Kaseda, 18. k.

5800 PRA-Oibar, 27. k. Lana-Iribarrin (Ulibarrin) ere **Cantería** dokumentatzen da, 1687an, kasu (PRA-Artabia, 4. k.).

5801 **Frantsesa** izan zitekeen nahiz asimilatutako **frantsesa**. Azken honetatik, **Saratsea**-tik **Zarazea** atera den bezala, dokumentazioko **franzesa** atera zitekeen. **Franzesa** ere izan zitekeen, nahiz guk ez dugun honela uste.

“otra pieza en el thermino q llaman franzessa...theniente...con pieza del Rey y sassó de Aibar”<sup>5802</sup>

Lau urte beranduago, halaz ere, erdal artikulua horniturik azaltzen zaigu<sup>5803</sup>.

Aintzat hartu behar da, leku-izen honen sorburua argitzeko, Oibarren, Zareko mugan, aztergai dugun dermiotik gertu **La Fuente del Gabacho** izeneko alderdia dugula, itxura guztien arabera **gabacho** hau Zareko **Franzesa**-ren ordain erdalduna besterik ez delarik<sup>5804</sup>.

**Franzesa** [franθésa] Utsaskietarana eta Egoaberokia-ren artean dago.

**Fresnal, el:**

El Soto-n zegoen, Ezporogiko mugan ziuurrenik (ikus **Fresnal de Ezprogui**), baina Soto de Zumadieta-n ere egon zitekeen (1633)<sup>5805</sup>.

**Fresnal de Ezprogui, el:**

Itxuren arabera Ezporogiko mugako lizardua zen 1647an agertzen den hau<sup>5806</sup> (cf. **Lizardua**, auzo herri honetan).

**Frontón, el:**

Frontoia elizaren aitzinean dago, **Ameka** auzoan, baina **Barrio de abajo**-n **El Rebote viejo** izeneko pilota-jokua egon da orain gutxi arte, “Casa de Pichón” deritzan etxearen aurrealdean.

**Fuentaza, la:**

Herritik gertu, larre batean, **Barranco de Jautu**-n dagoen iturria dugu hau. Inguruko lurri ere izen bera ematen zaie, ohi bezala:

“la primera (pieza)...en el termino de la fuentaza” (1798)<sup>5807</sup>

Kontatzen dutenez, iturri honetatik hartzen omen zuen herriko jauregiak (**Palacio delakoak**, alegia) behar zuen ura.

**Fuente (barrio de), (madre de), la:**

**Barrio de la Fuente** (1776)<sup>5808</sup> **Fuente de la Plaza**-ren inguruko etxeek osatzen zuten; **Madre de la Fuente Barranco de Jautu**-n dagoen iturria da (ez gorago

5802 PRA-Oibar, 30. k.

5803 Id., 31. k.

5804 Uxuen ere **Gabacho** dugu bizirik (ikus sarrera hau); Goizuetan **Frantsesan gurutzea** biltzen du L. F. Echeverriak (“Goizuetako toponimia...”, 97. or.).

5805 PRA-Oibar, 23. k.

5806 Id., 25. k.

5807 Id., 84. k.

5808 Id., 70. k.

ikusitako **La Fuentaza**). Hemendik herriko iturrira ura eramaten delako ematen bide zaio izen hau (cf. Iruñeko auzo baten izena den **Iturrama**, Elortzeko **Iturrama** eta **Fuente de Iturrama**, Tabarko **Iturrama**<sup>5809</sup> eta Dorraoko **Utsama**<sup>5810</sup>).

#### **Fuente de la Plaza, barranco de la:**

Herriko plazan dagoen iturri zahar-ederra eta honek sortzen duen erreka stoa dira dokumentazioan azaltzen direnak:

“una hera...sita en las larrazas de Yribarren teniente â camino que ban â Aibar, camino q ban a Casseda y â dhas larrazas y barranco que baja de la fuente de la plaza” (1715)<sup>5811</sup>

Orain alderdi hau pabimentatua dago eta ez dago errekastorik bertan, baina herriko zaharrek gogoan dute oraindik ur-soberakinak sortzen zuen lintzura modukoa.

#### **Fuente de los Estudiantes, la:**

**Los Huertos-en** dago, erreguaz haraindian.

#### **Fuente de Pichón, la:**

**Fuente del Arcal** bera da; “Pichón” Zareko etxe baten izena da.

#### **Fuente de Pinaki, la:**

**Hoyo del Prado grande-n** dago, Zareren eta Galipentzuren arteko mugan, erreka ren (**Barranco de Errekagaitza** Galipentzun) eta **Camino del Prado-ren** bategi-tean.

Galipentzun **Fuente de Penaki** izena eman ziguten, eta Zaren **Fuente de Peneke** [penéke], baina ez batean ez bestean jakin zuten izenaren nondik norakoaren berri ematen. Gure irudiko, **Penaki** edo **Peneke** horiek Iribarrenek VN-n biltzen duen **Pinaqui**, **Maquina de Pinaqui-ren** itxuragaiztotu arina besterik ez dira, alegia, hortz bakarreko golde baten izena.

#### **Fuente del Molinero, la:**

Ezporogiko mugan dago, errotaren ondoan.

#### **Fuente del Piojo, la:**

Beste modu batez **La Fuentaza** deitzen den iturria da.

5809 Id., 120. k., 1848.

5810 NTEM-VIII, 45. or.

5811 PRA-Oibar, 34. or.



**Gardelainbidea:**

Bizkaiko despoblatua den Gardelaina doa (ikus **Camino de Gardelain** eta **Camino de Gardelainbidea** sarrerak). XVI. mendeko lekukotasunetan arrunta den bezala, herrixka honen izenaren -e-dun aldaera dugu<sup>5812</sup>:

“otra pieça...en gardelayn bidea” (1590)<sup>5813</sup>

**Gazteluondoa:**

**Gaztelu** eta **ondoa** gardenak ditugu hemen:

“otra pieça en la endreçera llamada gazteluondoa” (1611)<sup>5814</sup>

Ez dugu **Gaztelua** edo **El Castillo** bezalako ezer aurkitu dokumentazioan, baina bai honen baliakidea datekeen **Zerkoa** (ikus sarrera hau).

**Gesaliturri:**

**Gesal** ‘ur gazia’, ‘gatza’-z eta **iturri**-z osatuta dago (cf. Agezako **Gesaliturria**). Ezbairik gabe 1609ko **Gesaliturrieta** bera dugu. Nabarmentzekoa da Zaren **gesal**-ez gainera honen ordain erdalduna (baina euskal toponimian erabilia) dugula **Salobreta** izenean. Dena dela, ez dakigu toki bera adierazten zuten, **Gesaliturri(eta)** ezezaguna delako egungo egunean. Badakigu **Paso de la Balsa**-n zegoela, errekan:

“en la endreçera llamada guesaliturri...afrentada...con el barranco concejil” (1587)<sup>5845</sup>

Hau kontuan edukita ur gazia ematen duen **Fuente de Pinaki**-rekin identifika liteke (ikus sarrera hau).

**Gesaliturrieta:**

Aurreko bera da:

“otra pieça en guessalyturrieta...que afr<sup>a</sup> con...paso de la balsa” (1609)<sup>5816</sup>

Ø / -eta txandaketaz ikus atzizki honi eskainitako atala.

**Gorena:**

Aldi bakar batez aurkitu dugu. Badakigu **Arrizulatu**a edo **Aitzulatu**a aldean zegoela, Zangozatik Erriberrira eta Zaretik **Cascajo**-ra doazen bideen elkargunean:

“otra pieça...en el termino de Gorena theniente...a...Camino Rl que ban los de Sanga â Olitte y Camino que se ba a Cascaxo” (1717)<sup>5817</sup>

5812 Zaren ere **Gardelain** esan ohi da oraindik. Ikus Leatzeko toponimia aztertzean honetaz dioguna.

5813 PRA-Oibar, 49. k.

5814 Id., 13. k.

5815 Id., 3. k-bis.

5816 Id., 13. k.

5817 Id., 35. k.

**Gurbitueta:**

**Gurbitueta** aldaera behin bakarrik opatu dugu (1611n)<sup>5818</sup>, baina gure irudiz haxe da gainerantzeko aldaera nabar guztiak hobekien biltzen dituen forma. Honetaz gain, beste aldaera hauek ere baditugu: **Guibitueta** (1593)<sup>5819</sup>, **Garbitueta** (1597)<sup>5820</sup>, **Gurpitueta** (1614)<sup>5821</sup>, **Urbitueta** (1692)<sup>5822</sup>.

Izen honen jatorria zein den argitzea ez da erraza. Bukerako **-eta** hori atziki ezaguna da, baina **gurbitu-**, **gurpitu-**, **garbitu-**, **urbitu-** zer izan daitekeen ez dago garbi<sup>5823</sup>. Gaztelaniazko **pulpito**-ren euskal ordaina den **kulpitu**, **kurpitu**-rekin lot genezake (cf. **pulpitu** itxura duen **Uxueko Alto del Pulpito**), 1614ko **Gurpitueta** eta 1604ko **Gurpituarana**-n oinarrituta, baina bide honetatik beste aldaeren tarteko ezpainbiko ahostuna azaltzen zaila da<sup>5824</sup>. Hasierako herskari ahoskabearen ahostuntzeak ez liguke arazo gehiegirik sortuko (cf. **Boiugain** Eslaban, edo **Goroabe** Iruñean, **Goroa** 'koroa' + **pe**-tik. Zaren, hala ere, **Koroagaña** dugu, **k-z**).

Beste posibilitate bat 1692ko **Urbitueta** jatorrizko forma dela eta **ur** eta **bi** elementuez osatua dagoela pentsatzea litzateke. Izan ere, badakigu **Gurpitueta**-k **Leatxetik** **Kasedara** doan bidearekin mugatzen zuela, bai eta bide honek **Zareko** muga dagoen **Leatxeko Las Dos Aguas** dermioa gurutzatzen duela ere (cf. **Lergako Ubitarte**):

"otra Pieza.en Gurbitueta theniente a Camino Rl que ban de leache a Casseda" (1721)<sup>5825</sup>

**Guztiarekin**, **Urbitueta** behin bakarrik aurkitu dugu, 1692an, eta beraz, ez dirudi jatorrizko formatzat har dezakegunik. Besteen iturburutzat hartuta ere lanak izanen genituzke tarteko **-tu-** hori azaltzeko.

**Gurpituarana:**

Hemen **Gurpitu** dugu berriz, eta **harana** 'ibarra':

"otra pieca en gurpituarana" (1604)<sup>5826</sup>

**Haranak** urbideen inguruan egoki eta, **Río de Baluso** aldean zegoela kontu egin daiteke.

---

5818 Id., 13. k.

5819 Id., 7. k-bis.

5820 Id., 9. k.

5821 Id., 14. k.

5822 PRA-Kaseda, 6. k.

5823 Jimeno Jurfo ikerleak honekin lot litekeen **Gurbitagaña** toponimoa aurkitu du **Artikan** 1770ean (TCPCA, 167. or.), baina hau **\*Gurbetagaña** (< **gurbe** + **-eta** + **gaina**) baten itxuracxartze arina (edo irakurketa okerra) ere izan liteke. Cf. **Gurbeta**, **Gurbeta ardancea** Otxobin, **Gurbealdea** eta **Gurbeondoa**-ren aldamenen (TCPCI, 267. or.).

5824 Elkanoko **Lizarragak** (DCC, 64. or.) **pulpito** erabiltzen du, ez **kulpitu** edo **kurpitu**, eta hau ere, neurri batez, aipatu etimologiaren kontra mintzo da: "**Baña óri**, diote, indezáque pulpitic predicatus obéqui". Edozein moduz, **Lizarragak Corona** ibiltzen du, ez **koroa** edo antzeko bat, Zaren **Koroagaña** eta Iruñean **Goroabe** dugun bitartean.

5825 PRA-Oibar, 37. k.

5826 Id., 11. k.

**Haitzeko mirua:**

Leku-izen polit honen osagaiak **haitz** ‘malkor’, ‘harri’, **-(e)ko** leku-genitiboa, eta **mirua** hegazti-izena dira. Azken hau latineko **mīlū(u)s**-etik atera da, lenizio prozesu baten ondorioz aspaldiko l leuna r bilakatu delarik bokal artean<sup>5827</sup>.

Hainbestetan bildu dugun **Miruaizeta**-rekin identifikatu beharra dagoela dirudi:

“ytten otra pi\* en ayçeco mirua” (1592)<sup>5828</sup>

**Huertas viejas, las:**

Ez dakigu zehazki non ziren baratze zahar hauek (1756)<sup>5829</sup>, baina pentsatzekoa da herritik hurbil zeudela (cf. **Baratzeta** eta **Los Huertos**).

**Huerto del Cura, el;**

Ikus **Vicario** sarrera.

**Huertos (río de), los:**

Baratzeak Ezporogitik heldu den antzinako **Baserrekandia**-ren inguruan daude, **Ugarka**, **Bifiaru** eta **Baratzeta**-n, **Río de los Huertos**-en inguruan.

**Iguzkiagerria:**

Morionesko **Iguzkun**-en jarraipena da. Osagaiak **Iguzki** (1732)<sup>5830</sup>, **iruzki** (1722)<sup>5831</sup> eta **agerria** dira, eta esan bezala (ikus Leatxeko **Iguzkiagerria** eta Eslabako **Iguzkun**) erdarazko **carasol**, **solana** edo **solano**-ren euskal ordaina dugu, eta euskal egutera, **iguzkun(e)a**, **eguzkialdea** edo **eguz(ki)begia** euskaldunen baliokide.

Zaren **Iguzkiagerria**-ren aldamenean aurkako adiera duten **Iparragerria** eta **Opakuegia** (cf. Eslabako **Opakoegia** eta erdarazko gure alderdiko beste herri batzuetako **paco** generikoa) dugu, eta Morionesen **Iparraga**, **Iparragerri**-z landara.

**Iparragerria:**

**Ipar**-ez eta **agerria**-z osaturik dago aurrekoaren alderantzizkoa eta **Opakuegia**-ren kide zehatza den hau. Aurren lekukotasunean **Iparraguirrea** (1614)<sup>5832</sup> badugu ere, beste agerraldietan **Iparragerri** izaten dugu (**Yparragerria** 1727an)<sup>5833</sup>, eta arrazoi honengatik aukeratu dugu hau aldaera batutzat<sup>5834</sup>.

5827 FHV, 311-312. orr.

5828 PRA-Oibar, 6. k.

5829 Id., 59. k.

5830 Id., 43. k.

5831 Id., 37. k.

5832 Id., 14. k.

5833 Id., 40. k.

5834 Jimeno Jurfok, Tafallako toponimia aztertzean, Barasoingo **Iparragerria** eta Etxagueko **Iparragerria** biltzen ditu, eta erdarazko **caracierzo**-ren baliakidetzat jotzen. Elkanon (J. Apecechea, IBCNJL, 80. or.) **Iparragerrikoa** genuen.

**Iriarte (barrio de):**

**Iriarte** erdal **Barrio de Mediavilla** edo **Barrio de medios-en** kide zehatza da (ikus **Dermio** baten zatiketa atalean dioguna):

“una cassa...sita...en el barrio q llaman de Jriarte” (1705)<sup>5835</sup>

**Iribarren (barrio de), (larrazas de):**

**Hiri** eta **barren** ditugu **Irigoi**en eta **Iriarte**-ri kontrajartzen zaien toponimo honetan. **Iribarren**-etik abiatzen ziren **Oibar** eta **Kasedako** bideak, eta **larrain** bat (gutxienez) eta **larratzak** zeuden bertan:

“una hera de trillar...sita en las larrazas de Yribarren teniente â camino que ban â Aibar” (1715)<sup>5836</sup>

Masu **Nittak**<sup>5837</sup> **Zareko Las Relazas** toponimoa aipatzen du, eta hau egun bizirik ez badago ere, dokumentazioko **Las Larrazas-en** itxuragoiztotu bat izan liteke. Ikerlari japonarrak **Irigaray Imazek Orba** ibarrean biltzen duen **relaza** ‘terreno inculto con hierba fina’-rekin identifikatzen du, eta **larre** eta **laza** ‘flojo, suelto, descuidado’-z osaturikakotzat jotzen. Autore beraren arabera, hasierako **la-ren** galtzea erdarazko artikulutako hartzearen ondorio litzateke. Gure ustez, ordea, euskarazko **Larratz**-ekin identifikatu behar guke<sup>5838</sup>, formaren aldetik arazo handirik ez izateaz gain adieran bat baitatatz<sup>5839</sup>.

**Barranco de La Fuente de la Plaza** zeritzana ere hemen barna igarotzen zen (ikus sarrera hau). **Iribarren**, esan bezala, **Barrio bajo**-ren euskarazko ordaina genuen.

**Irigoi (barrio de), (calle de), (eras de), (larrazas de):**

**Hiri** eta **goien** ditugu hemen. **Irigoi**en izenaz goiko auzoa ezezik inguruko lurrak (baratzeak, larrainak, larratzak eta alorrak zeuden) ere adierazten ziren:

“una huertta...teniente a las eras o larrazas que llaman de Yrigoi” (1730)<sup>5840</sup>

**Cofradía** izeneko etxea ere **Irigoi**en-en zegoen (ikus **Cofradía** sarrera).

5835 PRA-Oibar, 30. k-bis.

5836 Id., 34. k.

5837 *Notas lingüísticas...*, 21. or.

5838 Gainera larreak handiak, berriak, biribilak, leunak, meharrak, motzak...izan daitezke, baina ez, dakigula, laxoak.

5839 Cf. Lukingo 1570eko lekuko hau (PRA-Lizarrá, 8. k.): “la otra (pieça)...en...Amiça q se afrenta...con camino q ban de luquin a barbarin...y la dicha huerta...afrentada con uerta o casal de blanca de eulate y con prado/ o laRaça del dicho lugar...”, edo herri bereko 1571ko (id., 8. k-bis) beste hau: “una pieça...donde llaman morondoa q se afrenta...con prado o larraça del lugar”.

5840 PRA-Oibar, 42. k.

Gauregungo Calle de Irigoien-ek Barrio alto edo Barrio de arriba-ko karrrika bat da, baina ez dakigu seguru hau antzinako izen horren ondorengoa den edo kale bat bataiatzeko espreski berpiztutako hildakoa.

#### Iturraldea:

**Iturri**-ren elkarketa-eratorketako aldaera den **itur-** eta **aldea** ditugu hemen (1532)<sup>5841</sup>. Cf. Lergako izen bereko sarrera). Seguru asko **Iturri**-ren ingurua adierazten zuen.

#### Iturri:

**Iturraldea**, **Iturritea** eta **Iturzubia**-n agertzen den **iturria** izan daiteke 1775eko hau)<sup>5842</sup>, alegia, **Barranco de La Fuente de la Plaza** eta **Barrio de la Fuente**-n aurkitzen dugun bera, baina ondoan alor bat bazenez, badaiteke oraingo **La Fuentaza** edo **La Madre de la Fuente**-ren ordezkaria.

Egungo plazako **iturriaren** ondoan alor bat behintzat bazen antzina, eta alde honetatik ez dago **iturri** hori aztergai dugun **Iturri**-rekin identifikatzeko arazorik.

#### Iturriarte (barrio de):

**Itur(ri)** eta **arte**a ditugu hemen:

“otra pieça en yturri artea que afuenta...con la pieça de la torre de çabaleta” (1591)<sup>5843</sup>

Beste batzuetan bezala, oraingo honetan ere **-arte**a-rekin batera **-erte**a aurkitzen dugu:

“...en la endrecera llamada ytur erte” (1586)<sup>5844</sup>

Erdarazko **Barrio de la Fuente** bera da hau.

#### Iturzubia:

**Iturri**-ren elkarketako **itur-** aldaera eta **zubia** ditugu hemen:

“una hera en la endreçera llamada yturcubia teniente con caminos” (1616)<sup>5845</sup>

#### Jautu (barranco de), (fuente de), (prado de), (val de):

Egungo **Jautu** [xáytu]-ren jatorria latineko **salto** ‘larreak’, ‘basodun larreak’, ‘harrarte’-ren eratorri batean bilatu beharra dago, hain zuzen ere albokaria bokaldua zuen izen batean (cf. Uxueko Zautelu). Dokumentazioan **s-** grafema ageri ohi da aurren

5841 Id., 2. k.

5842 Id., 70. k.

5843 Id., 59. k.

5844 Id., 3. k-bis.

5845 Id., 19. k.

lekukoetan: **Sautu** (1584)<sup>5846</sup>, **Sautu arana** (1591)<sup>5847</sup>, **Sauta arana** (1594)<sup>5848</sup>, **Bal de Sautu** (1610)<sup>5849</sup>; aurrerago ere, noiz edo noiz, aurkitzen dugu s-dun forma (ikus **Jautuarana**). J-dun aldaerak ere goiz-goizetik edireten ditugu, hasieran sabaiaurreko igurz-kari ahoskabea ([š]) adierazten dutela gure iduriko (ikus **Grafia kontuak atala**), eta gero belare ahoskabea ([x]). Batetik besterako pausua noiz burutu zen ez dakigu: **Puntallo de Jauta** (1592)<sup>5850</sup>, **Jautu arana** (1643)<sup>5851</sup>.

S-dun aldaerak jatorrizko **sautu**-ren isladatzaile izan daitezke, baina j-dun formekin goizdanik aldizkatzen direnez gero, egun **Xautu(arana)** idatziko genukeenaren ordez daudela uste dugu<sup>5852</sup>. Gainera, oraingo **Jautu** [xáutu] erdiesteko aurreko **Xautu** [šáutu] bat suposatu behar da (cf. **Uxueko Uxue** sarreran dioguna).

Behin edo beste x- duen aldakia ere ageri da (**Xautuarana**, 1582<sup>5853</sup>), bai eta bukaeran gaztelaniaren eraginez (edo notari erdaldunek hala nahita) -o duena (**Jautto**, 1764<sup>5854</sup>). Sarritan **Jauta** (1845<sup>5855</sup>), **Sauta arana** (1594<sup>5856</sup>) edo **Jauta arana** (1592<sup>5857</sup>) dokumentatzen ditugu, alegia, -u > -a aldakuntza nozitu duten aldaerak, seguru asko ondoan **harana** izena dutelako.

**Jautu Barranco de Jautu**-ren alboan dago, gaurregungo **Regandia**-tik gertu, eta herri ondotik **Leatxe**ko mugako **Alto de Leatxe** (**Leatxkaratea** behinola, antza) eta **Mugarana**-raino zabaltzen da. Zalduetan askotan larre edo euntzeak aurkitzen ditugu, eta beraz, ez da harritzeko **Jautu**-n ere larrea izatea (ikus **Ezporogiko Sario-gunea** sarreran dioguna).

**Fuente de Jautu** gorago ikusi dugun **Madre de la Fuente** bera da.

**Jautuarana (prado de):**

**Jautu** toponimoaz (ikus aurreko sarrera) eta **harana**-z osaturik dago orain ezezaguna den hau. Erdal **Val del Soto**-ren (ikus **Soto** sarrera) euskal ordain garbia da (cf. 1610eko **bal de Sautu**).

**Jautuarana Barranco de Jautu**-ren ondo-ondoan zegoen:

---

5846 Id., 3. k.

5847 Id., 5. k.

5848 Id., 8. k.

5849 Id., 16. k.

5850 Id., 6. k.

5851 Id., 24. k.

5852 Ameskoagoieneko **Aranatz** (**Aranaratxe**) herrian **Jautu** barrena dokumentatzen da 1687an (**PRA-Artabia**, 4. k.).

5853 **PRA-Oibar**, 3. k.

5854 Id., 62. k.

5855 Id., 118. k.

5856 Id., 8. k.

5857 Id., 6. k.

“ytten otra piª...en la misma endrecera de Jauta arana que afrenta con...barranco” (1592)<sup>5858</sup>

1763an Eslabako **Santuzabal** (< \***Sautuzabal**?. Ikus sarrera hau) gogora dakarkigun **Santuarana** aldaera azaltzen da<sup>5859</sup>, eta 1721ean lehen aipatu dugun **Prado de Jautu**-rekin identifikatu behar den **Prado de Jautuarana**<sup>5860</sup>.

### Juego de Pelota:

Iturriaren azpiko aldean zegoenez gero, orain urte batzuk desagertu zen **El Rebote viejo**-rekin identifikatu beharra dago (ikus sarrera hau), ez oraingo **El Frontón** zaharberrituarekin:

“la casa principal...en el paraje del Juego de pelota y debajo de la fuente” (1774)<sup>5861</sup>

### Juncar, el:

Morionesko bidean zegoen alor baten izena zen (1717)<sup>5862</sup>. Sabaitzako **Junkadia**-ren<sup>5863</sup> eta beste toki askotako **Xunkadia**-ren<sup>5864</sup> kide erdalduna dugu hau.

### Kiñueta (cuesta de), (linares de):

**Kino** ‘quiñón’<sup>5865</sup> izena eta -eta (ikus berrekailu honi eskaini atalean dioguna) ditugu hemen. **Kiñueta** (**Kiñeta** [kiñéta] orain) Kasedako bidearen inguruan dago, **Armillos**, **Zazuburu**, **Dolareta** eta **Puente nuevo**-ren artean. Bertan lihatzeak zeudela badakigu:

“pieza en los linares de Quiñueta, que afronta con camino real que van a Caseda” (1670)<sup>5866</sup>

**Cuesta de Kiñueta Costalado de Balora**-ren jarraipena da, alegia, **Kiñueta**-ren eta **Zazuburu**-ren arteko aldapa.

### Kiñuetabarrena:

**Kiñueta**-ren behereneko alderdia bide zen hau (1721)<sup>5867</sup>, **Dolareta**-ko mugakoa edo.

5858 Id.

5859 Id., 62. k.

5860 Id., 37. k.

5861 PRA-Kaseda, 26. k.

5862 PRA-Oibar, 35. k.

5863 1894ko katastroa.

5864 Cf. Urizko 1914ko katastroko **Xunkadoi**.

5865 **Quiñón** hitza ezaguna da Zaren, baina galbidean dago orain. Izen honek zotz eginda banatzen diren auzaluz-sailak adierazten ditu. Sail hauetako bakoitza puskatan (suerte, parcela-tan) banatzen da; neurria aldakorra da, dermioen arabera.

**Quiñón**-ek Nafarroako beste toki batzuetan duen adieraz ikus Iribarrenen VN, Ricardo Ciérbideren TCO-II, 130-131. orr., eta J. Juríoren THET, 170-171. orr.

5867 NAO, Iratxeko Monastegia, 18. kart., 468. zkia.

5868 PRA-Oibar, 37. k.

**Kiñuetagoiena:**

Herritik hurbileneko alderdia genuen (1721)<sup>5868</sup>.

**Kanpobarrena:**

**Kanpo** 'alor' eta **barrena** 'behekoa', 'behereneko' dira 1594an baizik aurkitu ez dugun izen honen bi osagaiak (cf. Agezako **Kanpobarrena**). Esan bezala, erdal **Campo bajo**-ren ordain euskalduna da. Aldi bakar batez dokumentatuagatik ere, bada-kigu **Campo de la Villa** (antzinako **Auzalorra**) aldean zegoela, Kasedako bidearen ondoan (ikus **Auzalorburua sarrera**).

**Kapanaondoa:**

**Kapana** (ikus honetaz **Leatxeko Kapana sarrera**) eta **ondoa** ditugu hemen. 1634an **kapana** itzulia aurkitzen dugu, **Cabaña ondoa** aldaeran<sup>5869</sup>. Herri ondoan zegoen, Beorlegiko baroiaren jauregiaren gibekeko aldean (ikus **Barón sarrera**); **Camino de los Pozos** (= **Camino de los Piélagos**) bertatik igarotzen zen:

“otra pieza en...caparrondoa...theniente a...camino de los pozos” (1768)<sup>5870</sup>

**Korkua:**

Egungo **Korkuba** [kořkúba] (-ua > -uba) aldakuntzaz cf. **Lergako Andua** > **Anduba**) corcu da 1778an<sup>5871</sup>, **El Corcu**: hamar urte beranduago<sup>5872</sup>.

Izen honen etimologia Azkuek<sup>5873</sup> biltzen duen **gorko** (**Zaraitzu**), **gorkü** (**Zu-beroa**), **gorku** (**Erronkari**) 'babesa'-n bilatu beharra dagoela dudarik ez dago, **Zareko Korkua**, **Pirinioetako ibarretako gorkuak** bezala, ubide baten ondoan dagoelako (ikus beherago). Aipatu autoreak honela definitzen du mintzagai dugun hitza: «refugio del ganado. *Gorku egin dei egun gure aziendak* (R-uzt), hoy nuestro ganado se ha refugiado. *Kara kan ardi saldo bat gorkoan bildurik*, mirad allí un rebaño de ovejas refugiado». **Zaltu sarreran** berriz honela dio: «arboleda donde sesteaba el ganado. El refugio de esta arboleda se llama **gorku**».

Egun ibiltzen den aldaeraren aitzindaria (**Corcuga**. Cf. **Galipentzuko Lejua** > **Lejuga**) 1763rako<sup>5874</sup> sortua zen, beranduago ere jatorrizko forma agertu arren (**Corcua**, 1814<sup>5875</sup>).

**Korkua Río de Armillos** ondoan dago, **Santa Eufemia** (**Santa Finia** dokumentazioan, usu), **Salobreta** eta **El Puente nuevo**-ren artean. Errekaz beste aldean **Dolareteta** eta **Saratsea** ditugu.

---

5868 Id.

5869 Id., 23. k.

5870 Id., 63. k.

5871 Id., 71. k.

5872 Id., 75. k.

5873 DVEF.

5874 PRA-Oibar, 65. k.

5875 Id., 94. k.



**Koroagaña:**

Behin bakarrik aurkitu dugu erdarazko La Corona-ren ordain euskalduna den hau. Esan bezala, La Corona Ezporogiko mugako gaina da, eta Nafarroako beste toki anitzetan duen adiera bera du hemen ere ('gain biribila', 'mendi biribila'. Cf. Puerto de Las Coronas Burgi eta Nabaskoze artean, Coroneta Burgin, La Corona Orotz-Betelun<sup>5876</sup>, Urzainkin, Izaban<sup>5877</sup> eta Mendigorrian<sup>5878</sup>, edo gure alderdian, El Coronazo Kasedan<sup>5879</sup>):

"otra pi\* en coroagaña" (1610)<sup>5880</sup>

Euskaraz Goroabe dugu Iruñean, baina ez da, dakigunez, Iruñerrian berriz agertzen. Zaren koroa- dugu, euskaraz gaurregun ohizkoa (nahiz beste adiera batez) den forma bera alegia, eta toponimiako koroa horren irudikoa den gaina. Hortaz, ideia bera errepikaturik dagoela<sup>5881</sup> esan dezakegu, aurkitu ez ditugun \*Koroaondoa eta \*Koroapea-ren modukorik ez bazegoen bederen (cf. Eslaban Boiugain, Boiuondoa, Boiuartea...).

Gain honetan San Salvador ermita zegoen, eta hortaz, badirudi 1747ko Sierra de San Salvador gain honekin identifikatu behar dela. Oraindik zaharrikin ikusi omen daitezke gailurrean; gure informatzaileetako batek<sup>5882</sup> kontatzen duenez, aitatxik botoiak ekartzen zizkien San Salvador-tik, josta zitezen.

**Kostobaro:**

Kostobaro (< Chistophöro<sup>5884</sup>) erdal San Cristobal-en kide euskalduna da Nafarroako toponimian<sup>5884</sup>, eta Zaren orobat, Kostobaro-rekin (1632)<sup>5885</sup> batera San Cristobal ere dokumentatu dugunez gero.

Pérez Ollok ez du aipatzen, baina jatorriz ermita baten izena zela irudi du. 1712an<sup>5887</sup> Kostobaro eta (San) Cristobal-en artekoa den Costobal azaltzen da.

5876 B. Urrasun, TOB, 345. or. Izen zahar oraindik bizia Erratzu edo Eratzu da.

5877 B. Estornés, DTR, 387. or.

5878 PRA-Kaparroso, 28. k., 1623.

5879 "Un pajaro...en el termino de la cosera bajo el coronazo", PRA-Kaseda, 57. k., 1846.

5880 PRA-Oibar, 16. k.

5881 Gaztelaniazko Alto de la Corona-ren antzekoa da.

5882 Braulia Goñi andreak.

5883 Bilakaera hau izan bide da gaztelaniaz: Kristophöru > \*Kristobálo > Kristuébalo, Kristobal. Euskaraz berriz hau: Kristophöru > \*Kristobálo > \*Krostobaro > Kostobaro. Ikus MGHE, 229. or.

5884 Jimeno Juríok Kostobaro eta honen eratorriak (Kostobarogaña, Kostobaropea, Kostobarondoa, Kostobaroarrobietan...) San Cristobal-en ordainetan honako herriotan aurkitu ditu: Azterainen (TCPC), Ororbian (TCPCO), Espartzan eta Zubitzan (TCPCG). Olloibarko Egillorren ere Costobaro dugu 1627an (PRA-Asiain, 48. k.), baina kasu honetan ez da San Cristobal-ekin batera azaltzen.

5885 PRA-Oibar, 23. k.

5886 Id., 33. k.

**Larreandia (cabezo de):**

**Larre** 'euntze' izena eta **handia** izenondoa ditugu hemen. Esan bezala, oraingo **Prado grande**-ren euskal ordaina genuen azkenekoz 1790ean<sup>5887</sup> opatu dugun hau. 1713an **Cavezo de Larreandia** aurkitu dugu<sup>5888</sup>, alegia, egungo **Cabezo del Prado grande**-ren ordain ez zeharo euskalduna.

**Larreberria:**

**Larre** eta **berria** argiak ditugu hemen. **Altzirribidea**-ren (ikus sarrera hau) aldamenean zegoela badakigu, **Larreandia** aldean apika.

**Lausitu (barranco de):**

Ageza eta Zarerren arteko dermioa da, bi herriotan bizirik dagoena (**Ausitu** [aʊsítu], **Elausitu** [èlaʊsítu] Zaren, **Ausito** [aʊsító] Agezan). **-Z-** dun aldaera ere dokumentatu dugu, 1682<sup>5889</sup> eta 1698an<sup>5890</sup> Zaren eta 1642an Agezan, baina hala ere **-s-**duna lehenago ageri da bi herriotan, eta bakarra da elkartuetan (cf. Zareko 1608ko **Lausitu videa**<sup>5891</sup>).

**Mitxelenak -tu** ohizko bukaera dela dio<sup>5892</sup>, eta batzuetan horren azpian partizipioa dugula (cf. **Morionesko Jaugia**). **Lausitu**, aipatu **Lauzitu**-n oinarri harturik, **lauza** 'harlauza'-ren eratorri bat dela suposa daiteke (cf. **Lauzatzea** eta **El Losado Uxuen**), baina **\*Lauzatu** espero genuke<sup>5893</sup>, ez **Lauzitu**.

Izen honen etimologia azaltzeko beste bide bat **lau** 'zelai'-rekin lotzea litzateke, **Lausitu** Agezako mugako goi-lautada bat izaki eta<sup>5894</sup>. Bigarren bide honek, dena den, bi oztopo nagusi ditu, gutxieneko kontuan: batetik Zaren bertan **Plau** (< **Planu**) izatea, alegia, latineko hasierako herskari ahoskabea gorde duen aldaera azaltzea (**Pelau** **Leatxen**), eta bestetik **Lausitu**-ren bukaerako **-situ** azalpenik gabe gelditzea.

Esan bezala, alderdi hau Agezako mugan dago, **San Miguel**, **El Coscojar**, **El Molino viejo**, **Dorrondeta** eta **Muga de Ayesa**-ren artean:

"una pieza...en...Lauzitu...teniente a la muga del lugar de Ayessa "(1698)

**Barranco de Lausitu** **Lausitu**-n sortu eta **El Prado grande** gurutzatu ondoran, **Galipentzuko** mugan (**La Calera** edo **Fuente de Penaki** aldean) **Barranco de la**

5887 Id., 69. k.

5888 PRA-Kaseda, 16. k.

5889 Id., 1. k.

5890 Id., 9. k.

5891 PRA-Oibar, 13. k.

5892 AV, 153.

5893 1596ko *Refranes y Sentencias* delakoan **lauzatu** agertzen da: "Modernamente, *lauza* 'losa' no se conserva más que en dialectos orientales, y en Vizcaya sólo se conoce *losa*, pero en RS 210 hay todavía *lauçatu* 'tejado' (cf. arag. *losado* 'tejado de pizarra', cat. *llosat*)", Mitxelena, TAV, 74. or.

5894 Agezako José Egea jaunak Zaren **Llano de Lausitu** erabiltzen zutela esan zigun, baina Zaren bertan generiko hori (**llano** alegia) ez dutela erabiltzen erantzun digute behin eta berriz.

Muga de Ayesa-rekin batzen da. Bat egite honetatik Galipentzuz **Barranco de Errekagaitza** deritzan erreka sortzen da.

#### Lausitubidea:

Oraingo Camino de Lausitu-ren kide euskalduna zen (ikus aurreko sarrera), eta honek bezala Camino de Tafalla-tik Dorrondeta-n barrena Lausitu-ra doan bidea izendatzen zuen.

#### Leache, alto de:

Leatxen Facería deritzan alderdiko gaina da, antzinako (Alto de) Leatxkaratea bera, agian.

#### Leatxkaratea (alto de):

Goiz samar desitxuratzen hasi zen toponimo honen bi osagaiak Leatxe-ren aldaera den Leatx- eta ahoskabe ondoko garatea-ren aldaera den -karatea ditugu. Leatxe-ren bukaerako -e horren galtzapena herri-izena elkarketan agertzeari zor dakioke, baina ezin dugu atzendu garai batez leach aldaera agirieta ohizkoa dela:

“la pieca del corral de leachcaratea:...una pieca Junto al camino de leach” (1591)<sup>5895</sup>

Garate, Agezako Ategarate aztertzean esan dugun gisara (ikus sarrera hau), gara(i) ‘gaina’ eta ate ‘harrate’, ‘portilu’-z osaturik dagoke. Honekin bat dator Leatxkaratea-ri lagun eginez Alto de generikoa aurkitzea (1683)<sup>5896</sup>, bai eta Iruñeko (1756)<sup>5897</sup> eta Leatxeko (1790)<sup>5898</sup> bidea bertatik igarotzea, bideak, usu, portiluetan barna igarotzen dira eta. Alto de Leache erdalduaren ordain euskalduna zela dirudi.

#### Ligusuñeta:

Eslabako Lixusuñeta-ren kideko zehatza dugu Ligusuñeta, lihoa-ren izena batean eta bestean ezberdina den arren, itxuraz, eta Galipentzuko Liatzeta-rekin zuzenean lotua dago. Eslabako toponimoa aztertzean esan den bezala, liho + osuin (edo \*usuin) ‘osin’ + -eta dira herri honetako izenaren osagarriak, eta ligu + osuin (edo \*usuin) + - eta Zarekoarenak, liho-ren aldaera ezaguna den ligu (ikus Azkueren hiztegia) ageri bide delarik:

“otro linar...en... Ligucuñeta” (1726)<sup>5899</sup>

Hortaz, badirudi erdarazko Los Pozos (edo Los Piélagos; cf. Camino de los Piélagos)-en erdal ordaina dela. Guztiarekin ere, toponimo hau aldi bakar batez aurkitu dugu, eta ezin daiteke seguritatez mintza.

5895 PRA-Oibar, 5. k.

5896 PRA-Kaseda, 2. k.

5897 PRA-Oibar, 59. k.

5898 Id., 76. k.

5999 Id., 39. k.

Lihatzeak egungo **Baratzeta**-ren eta **Biñaru**-ren arteko mugako **Linar del Cerero**<sup>5900</sup> aldean zeuden, aipatu bi dermio horietan. **Kiñueta**-n ere baziren lihatzeak (ikus **Camino de Aibar a Tafalla** eta **Kiñueta** sarrerak).

#### Linar(es):

Ikus aurreko sarreran esan duguna.

#### Loberos:

Behin bakarrik aurkitu dugu, 1634an<sup>5901</sup>; itxuraz euskal otso-ren eratorri baten erdal ordainaren aurrean gaude (cf. **Lobera Tafallan / Otsondoa Artaxonan**<sup>5902</sup>).

#### Malabranka (saso de):

Ez dakigu zein den izen honen etimologia. Gaurko **Mara**-dun (**Marablanka** [màrablãŋka] esaten da) aldaera lehen aldikoz 1767an opatu dugu<sup>5903</sup>, eta metatesi baten ondorela dela dirudi, aurreko guztietan **mala**- baitugu.

**Mal**, **mala** 'gaiztoa', 'txarra' arrunta da erdal toponimian: **Malpaso** dugu hainbat herritan, **Malacuesta** Galipentzun, **Malacara** Julion, **Malcuerno** Kasedan<sup>5904</sup>... euskal toponimian honen ordainak diren **gaizto**, **gaitz** edo **txar** azaldu ohi direlarik (cf. **Pausugaizto**). Nolanahi ere, ez dago garbi **Mala**- hori zer den, eta **-blanca** zer den ere ez dakigu, gaur **-blanca** esaten denagatik lehen lekukoan **-brança** baitugu:

“en la endrecera llamada malabraŋca...” (1585)<sup>5905</sup>

Zareko **El Cascajo**-ren eta Galipentzuko **El Saso de la(s) Roza(s)**-en (behinolako **Santxoteuntzea**-ren) ondoan egoki, ez da harritzeko eremua kaskailutsua (zazua) izatea:

“una viña...que la llaman los Cascaxos sitta en el termino de Malablanca” (1717)<sup>5906</sup>

**El Cascajo**, **El Prado grande** eta **Muga de Gallipienzo** ditu mugakide.

#### Maldandia:

**Malda** 'aldapa' eta **handia** ditugu hemen. Daukagun lekuko bakarrean (1703)<sup>5907</sup> lehen izenaren azken **-a** eta izenondoaren hasierakoa batu gabe azaltzen zaizkigu.

5900 Beste izenik zuen liguerririk ere izan bide da oraintsu arte.

5901 PRA-Oibar, 23. k.

5902 J. M. Jimeno Jurío, THET, 131. or.

5903 PRA-Kaseda, 21. k.

5904 PRA-Oibar, 66. k., 1766.

5905 Id., 3. k-bis.

5906 Id., 35. k.

5907 Id., 30. k.

**Mandaputia (cabezal del prado de), (prado de), (valle de):**

**Mandaputia** [mãdaputiá]-ren bi osagaiak **mando** abere-izenaren elkarketa-ko aldaera den **manda-** (cf. **mandazain** izen arrunta) eta latineko **pũtĕu** ‘putzu’-ren ondorengoa datekeen **putia** izan litezke. **Pũtĕu**-tik **putia** ateratzeko **putiu** (> **pozo**, **putzu**) + **a**-z pentsa daiteke, hots, latineko izenaren eta euskal mugatzailearen bat egiteaz, baina kasu honetan laburketa nola burutu den ez legoke garbi.

Obanosko erdaraz<sup>5908</sup> **putiu**-tik atera datekeen **mutio** ‘gatzagetan gatza altxatzen duten putzua’<sup>5909</sup> erabiltzen da, eta Zareko aldaera azaltzeko **xitoxa** / **txitoxa** bezalako pareetan oinarri gintezke. Hasierako **p-** / **m-** txandakatzea azaltzea ez da zaila: Obanosko aldaera lortzeko \***butio** baterik abiatzen ahal gara (cf. **makar** < **bekar**; **marra** < **barra**...), baina hau ere ez da derrigorrezkoa (cf. **maru** < **palu**)<sup>5910</sup>. Alabaina, **-putia** horren azentuaketak ez dio laguntzen guk proposatu etimologiari, **pũtĕu**-tik ateraz gero **-putia** [pũtja] espero baigenuke<sup>5911</sup>. Dena den, euskara aihur izan zaie goranzko diptongoei, eta azentugune-aldaketa burutu dela ere kontu egin daiteke.

**Mandaputia**-tik Galipentzu eta Uxueko bidea (altxonbidea) eta Camino del Prado grande igarotzen dira, eta Tafalla eta Erriberritik Zangozara doan bidea (Camino de Sangüesa Zaren, Camino de Olite Oibarren) ere goiko aldetik pasatzen da, eta beraz, garai batez mandazainak eta mandoak aurkitzea ez zen oso zaila izanen (cf. Uxueko Astabidea).

Beste aldetik, Prado de Mandaputia ere badugu (Prado grande edo Larrendia-ren hastea da) hemen (Larreta dugu hurbil Galipentzun, Prado de Lakuaga Agezan...), eta esan dugunez, **larre** edo “**prado**”-ak gure eskualdean belar fina duten toki urtsuak dira, eta aise ulertzekoa litzateke bertan putzua izatea.

**Cabezal del Prado de Mandaputia** alderdiko burua edo gaina zen, oraingo **Cabezal del Prado**-ren goiko muturra, ezbairik gabe euskarazko **Mandaputiaburua**-ren ordaina:

“otra pieza...en el Cabezal del Prado de mandaputia” (1785)<sup>5912</sup>

5909 Iribarren, VN eta Mitxelena, FHV, 287. or. Orba ibarreko Santsoain herrian **Mutio** leku-izena azaltzen da 1619an (PRA-Barasoin, 4. k.).

5910 Mitxelenak, latineko **kj**, **tj**-en euskal ondorengoez ari dela zera dio (FHV-ko 287. or.), alegia, ekialdeko euskalkietan [č] sabaiko afrikatua izaten dugula (Bizkaian Luchana, Luciana-tik), baina ohizkoa z dela: **Domezain**, **Lepuzain** < **Domitiani**, **Nepotiani**. Txistukaritzetik ez duen “arrasto”-ren bat ere badago halere, irakasle errenteriarren ustez: **lakio**, **lakirio** < **laqueus**, **mutio** nafar erromantzez < **puteus**, toponimoren bat eta **-i(us)**-ez akiturikako mailegu zaharren bat (**Binkenti**, **Laurenti**...).

1974an FLV-en argitaratutako “El Elemento latino-romance en la lengua vasca” artikuluan (berrikiago PT-en argitara emana, 195-219. orr. Gure aipua hondar honetatik hartua da), ordea, ez dago bat ere seguru hemen mintzagai dugun **-putia**-ren aldaera datekeen **mutio** latineko **puteu**-tik atera den. Hona hemen bere hitzak:

“Oclusiva que no se ha asibilado ante yod sólo parece darse, en el léxico vasco, en **labio** ‘lazo’ < **laqueu**, junto a L ant. **latxio**, **latxigo**; es mucho menos seguro que nav. **mutio** ‘pozo donde guardan la sal en las salinas’ venga de **puteu**, como el general **butzu**, **phutzu**. Lo corriente es que de **kj**, **tj** tengamos vasc. z, pero también se halla **tx**, sobre todo en las hablas orientales, pero no sólo en ellas...” (211-212. orr.).

5910 FHV, 269. or. Cf. Mandaputzuko erreka eta Mandaputzusoroak Aroztegin. Azkena larrea da. Ikus F. de Leizaolaren TAV, AIO, 409-421. orr.

5911 Kasedan Zareko toponimoaren eite handia duen **Fonputia** eta Prado de Fonputia ditugu 1763an (PRA-Oibar, 62. k.), eta herri honetako toponimia goiz-goizetik zeharo erromantzea denez gero, badirudi izen hau (**Fonputia**, alegia) **Mandaputia**-ren **-putia** bukaerarentzat azalpen euskalduna ematearen aurka mintzo dela.

5912 PRA-Oibar, 74. k.

**Valle (1598)<sup>5913</sup> edo Val (1611)<sup>5914</sup> de Mandaputia** Zareko Barranco de Lausitu-ren inguruak izanen ziren, hots, euskarazko Mandaputiarana bera.

**Mandaputiaburua:**

Mandaputia-ko gaina genuen, erdaraz Cabezal del Prado de Mandaputia zeritzana:

“otra pieza en mandaputia burua” (1657)<sup>5916</sup>

**Mandaputiarana:**

Mandaputia alderdiko harana zen hau, esan bezala, Valle de Mandaputia bera:

“otra piª en mandaputia arana” (1597)<sup>5915</sup>

**Mañuelas (saso de):**

Ez dakigu zein den itxura ezberdin mordoxka (Manuelas 1592<sup>5917</sup> eta 1596an<sup>5918</sup>, Mañuela 1591<sup>5919</sup> eta 1705ean<sup>5920</sup>, Muñuelas 1608an<sup>5921</sup>, Mañolas 1632an<sup>5922</sup>, Mayolas 1633an<sup>5923</sup>) aurkezten duen izen honen etimologia, ez eta non katu behar den ere, zazua zela (edo zati bat zazua zela) garbi egonagatik.

**Martinico, casa de:**

Esan moduan, gure alderdiko etxeek ez dute berezko izenik, eta aparteko izenen bat agertzen bada jabearena izaten da, 1743ko<sup>5924</sup> honetan bezala (ikus Dermio baten zatiketa atala).

**Martisatea (portillo de), (saso de):**

Goiz samarretik desitxuratuxea azaltzen den toponimo honen bi osagaiak **Marti, Martia** (cf. Uxueko Jaun Done Martia) edo **Martie** ‘Martín’ pertsona-izena, eta ‘harrarte’, ‘ateka’ adiera bide duen (E)satea dira (cf. Zareko bereko Atesatekoa. Ikus, halaber, Uxueko Esatea aztertzean esan dena). **Martisatea** (1591<sup>5925</sup>, 1596<sup>5926</sup>...) **Martin-**

5913 Id., 7. k.

5914 Id., 13. k.

5915 Id., 9. k.

5916 Id., 28. k.

5917 Id., 6. k.

5918 Id., 9. k.

5919 Id., 5. k.

5920 Id., 30. k-bis.

5921 Id., 3. k.

5922 Id., 23. k.

5923 Id.

5924 Id., 53. k.

5925 Id., 5. k.

5926 Id., 9. k.

satea bilakatzen da XVII. mendearen hasieran (1611)<sup>5927</sup>; egungo **Marzatea** [mãrθatéa] 1632an (**Marçatea**)<sup>5928</sup> azaltzen da estrainekoz.

**Portillo de Martisatea Camino de Caseda**-n dago; dokumentazioko **Saso de Martisatea** (1608)<sup>5929</sup> oraingo **El Saso** edo **Zazu**-rekin identifikatu behar da, **Martisatea** altxonbideraino luzatzen baitzen.

#### **Matureta:**

**Bukaeran -eta** ezaguna dugula dirudi, baina ez dago garbi hasierako **matu(a?)** zer den. Antza duenez, **Altzirribidea** aldean zegoen, **Errotaxarra**-tik hurbil edo:

“...las tres piecécicas de matureta alchirriabidea y cabo el molino quedan para el yerno” (1591)<sup>5930</sup>

#### **Mediavilla, barrio de:**

Dokumentazioko (**Barrio de**) **Iriarte**-ren eta egungo **Barrio de medios**-en kide da (1616)<sup>5931</sup>.

#### **Mendiko etxea:**

**Itxuraz mendi, -ko** eta **etxea** ditugu hemen (1591)<sup>5932</sup>, baina **Espuenda de mendico**erte ere aurkitu dugu, eta daitekeena da bata edo bestea gaizkiulertze bat besterik ez izatea.

#### **Mendikoerte, espuenda de:**

**Mendi**-ren txikigarria den **mendiko** ‘menditto’ eta **arte**a ‘tarteko alderdia’-ren aldaera den **erte**a dirateke izen honen (1608)<sup>5933</sup> bi osagaiak. Ikus, hala ere, aurreko sarrera.

#### **Merkatubidea:**

**Camino de Tafalla** bera zen (ikus Agezako **Merkatu** eta **Merkatubidea** sarrerak). **San Gines**-en izaten zen merkatura zihoan bide hau, eta hemendik **San Martin**, **Erriberry** eta **Tafallara**:

“una pieza...en...Mercatubidea sobre la ermita de Sta Eufemia...afrota...con camino que se ba a Olite” (1703)<sup>5934</sup>

---

5927 Id., 13. k.

5928 Id., 23. k.

5929 Id., 16. k.

5930 Id.

5931 Id., 19. k.

5932 Id., 5. k.

5933 Id., 13. k.

5934 Id., 30. k.

**Mirabuenos:**

Naba, Balora eta Puieta-ren arteko gain zabal bat da hau, beste zenbait tokitako **Miravalles** (ikus Uxueko sarrera hau) eta **Miracielos**-en kide, orain modan dau-den **Bellavista** edo **Vistalegre**-ren antzeko zerbait alegia, bai **Mirabuenos** bai **Miracielos** eta bai **Miravalles** leku gorak izaten dira eta (ikus Uxueko **Miravalles**-en dioguna)<sup>5935</sup>.

**Miruaizteta:**

Esan bezala, **Miruaizteta**<sup>5936</sup> **Haitzeko mirua**-ren adierakidea da gure ustez. Osagaiak, hortaz, **miru** hegazti-izena, **haitz** 'harria', 'malkorra' eta **-eta** dira<sup>5937</sup>.

Badakigu **San Salvador**-etik (**Koroagaña** edo **La Corona**-tik) hurbil zegoela, herri alderago:

“otra pieça en miru ayçeta mas aca de San Salvador” (1641)<sup>5938</sup>

Seguru asko **El Carasol**-en gailurreko haitzen bat zen.

**Mojón de Aibar, el:**

**Baluso**-tik **Prado de la Muga**-raino luzatzen da; 1591n ediren dugu<sup>5939</sup>.

**Mojón de Ayesa, el:**

**El Monte**-tik (**San Miguel**-etik) **Larreandia** edo **Prado grande**-raino hedatzen da (ikus dena den, **Muga de Ayesa** sarrera). 1588an azaltzen da<sup>5940</sup>.

**Mojón de Caseda, el:**

**Prado de la Muga**-tik **El Azute**-raino doa. 1591z geroztik aurkitzen dugu<sup>5941</sup>.

**Mojón de Ezprogui, el:**

**El Monte**-tik **La Corona** edo **Koroagaña**-raino luzatzen da. 1608an ageri da<sup>5942</sup>:

“una pieça en oyanondoa Junto al mojon dezprogui” (1608)

5935 **Miracielos**, bere aldetik, **Altamira**-ren (cf. haitzulo entzutetsuen izena. Deizio hau Araba, Bizkai eta Gipuzkoan ere ezaguna da. Ikus A. Irigoyen, “Las Lenguas de los Vizcainos...”, ETTVC, 58. or.) antzekoa dela garbi samar dago. Nafarroan, adibide bat ematearren, Olatzagutian (NTEM-IX, 67) eta Urdiainen (Nicolás Arbizu, TI, 264. or.) aurkitzen dugu **Altamira**.

5936 Cf. hor barnako **Arranoarria** (ikus Agezako **Aquilar** eta Galipentzuko **Bartaquilar** sarrerak).

5937 Cf. **Mirueta** Arbizu, Lizarragabengoa eta Ergoienean (EAE, 274, 277, eta 282. orr.).

5938 PRA-Oibar, 24. k.

5939 Id., 5. k.

5940 Id., 4. k.

5941 Id., 5. k.

5942 Id., 16. k.



**Mojón de Gallipienzo, el:**

**Prado grande** edo **Larreandia**-tik **El Azute**-raino doa. 1594an aurkitu dugu<sup>5943</sup>.

**Mojón de Leache:**

Behinolako **San Salvador**-etik **Las Dos Aguas**-aino luzatzen da muga. Antzina orain ezezaguna den **Porbonzio** ere bertan zegoen (ikus sarrera hau).

**Mojón de Leache y Ezprogui, el:**

Leatxe, Ezporogi eta Zareko mugak **La Corona** eta **Mugarana** aldean datoz bat, **San Salvador** aldean:

“En el termino de la dicha villa y mojon de leache y ezprogui y endreçera que llaman San Salvador” (1647)<sup>5944</sup>

**Molino, el:**

**Molino viejo** edo **Errotaxarra** zen hau:

“una pieza Junto al molino y camino de alchirria videa” (1586)<sup>5945</sup>

**Molino, cabo el:**

Aurrekoaren aldamera adierazten du 1591n dokumentatu dugun honek; euskal **Errotaldea**-ren ordaintzat hartu beharra dago (ikus **Matureta** sarrera).

**Molino bajo, el:**

**Errotaxarra** edo **El Molino viejo** zen (1641)<sup>5946</sup>. Gorago zegoen Ezporogiko **Molino nuevo**-ri (**Molino de Ugarra** zaharrari) kontra jartzen bide zitzaion.

**Molino de Ugarra (presa de), el:**

Dokumentazioko **Molino de Ugarra** Ezporogiko errota da, antzinako **Basere**kandia-ren eta **Camino de Moriones**-en (oraingo errepidearen) artean zegoena:

“por lo tomado en el mojon de ezporogui de cara del molino de Ugarra” (1608)<sup>5947</sup>

**Molino nuevo, el:**

Ezporogiko **Molino de Ugarra** bera da, eta **Molino viejo** edo **Errotaxarra**-ri kontra jartzen zaio. Errota orain urte batzuk arte lanean ari izan zen, eta idoia oraindik ere onik dago. Guztiarekin, errota “berri” hau ere aspaldikoa da (ikus hurrengo sarrera).

---

5943 Id., 8. k.

5944 Id., 25. k.

5945 Id., 3. k-bis.

5946 Id., 24. k.

5947 Id., 13. k.

Ugarra Zareko etxe aberats baten izena zen (apezarena)<sup>5948</sup>, eta errota etxe honetakoa zenez gero, errotari ere **Molino de Ugarra** deitzen zitzaion.

Nolanahi ere, gure informatzaileen arabera **Molino de Ugarra Molino viejo** (antzinako **Errotaxarra**) zen, eta honi **Molino de Ugarra** deitzen ez bazaio ere, lehen etxe aberats horretakoa zen, bestea bezala. Hortaz, bi errotak etxe honen eskuetan egon zirela garbi dago, Ezporogikoa aspaldi samarretik, eta **Errotaxarra** ez dakigu noiztik.

**Molino viejo** (balsa de), (prado de), (río de), el:

Gaurregun **Molino viejo** deritzan errota aspaldiko **Errotaxarra** dugu, inoiz edo behingo **Molino bajo**.

Orain errota hondatua dago, eta **Molino viejo** izenak eraikuntza horren inguruko lurra ere ematen ditu aditzera. Larrea errotaren ondoan dago, eta erregua gorago **Río de Armillos** eta beheitiago **Río de Kiñueta** deitzen dutena da, dokumentazioko **Río de Errotaxarra**, alegia.

**Mondela** (barrio de):

Ikus izen honen inguruan Galipentzuko izen bereko toponimoa aztertzean esan dena.

**La Mondela** [moñdéla] **La Cruz** (**La Cruz del Vicario** antzina) deitu gurutzearen ondoan dago, herriaren sartzean, dokumentazioko **Las Corseras**-en alboan (ikus bi sarrera hauek). XVI eta XVII. mendeetako lekukotasunetan artikulurik gabe ageri da, baina XVIII. mendean mugatzailez horniturik opatzen dugu.

**Monte** (de San Miguel), el:

**San Miguel** ermita (ikus sarrera hau) dagoen Ageza eta Ezporogiko mugako mendia da. Dokumentazioan ageri den **Oianondoa**-rekin lotu beharra dagoela garbi dago, eta **El Monte**-ri euskaraz **\*Oiana** deitzen zitzaiola esan daiteke.

**El Monte**-k errekarekin, **La Tejería**, **El Chaparral**, **El Coscojar** eta **Lausitu**-rekin mugatzen du, Ezporogi eta Agezarekin ezeze.

**Muga de Aibar** (saso de), la:

**Muga de Aibar** berez auzo herriarekiko muga guztiari esan behar litzaioke, baina dermio bezala **Zare**, **Kaseda** eta **Oibarko** udalerriak bat datozen guneko zerrenda mehe estu bat izendatzen du, azkeneko katastroaren arabera bederen.

**Saso de la Muga** (de Aibar) **Prado de la Muga**-ren gainean dago, **Zokoza**-rra eta **El Escopizar** aldera.

<sup>5948</sup> Etxearen izena oraindik ere erabilia da, baina nagusiak beste batzuk dira.

**Muga de Ayesa (barranco de), la:**

Berez auzo herriarekiko mugalde guztia adierazi behar balu ere, **Muga de Ayesa** dermioak muga horren zati bat baizik ez du hartzen (cf. Agezako **Muga de Sada**). Alderdi hau Agezako mugan ere dagoen **Lausitu-tik**, **Larreandia** edo **El Prado grande-raino** luzatzen da, **Dorrondeta**, **Camino de Tafalla**, **Santa Eufemia** eta **Mandaputia-ren** artetik.

**Barranco de la Muga de Ayesa** bi herrion arteko muga-mugatik jaisten den erreka da; bestela esan, bi herrion arteko muga markatzen duena, Agezako **Barranco de la Muga** (de Sada) bera.

**Muga de Caseda (hoyo de), (prado de), (saso de), la:**

Kasedarekiko mugalde gehiena hartzen du honek, eta bertan larrea (**prado**), zuloa (**hoyo**) eta zazua (**saso**) bereizten dira. Halarik ere, ez du muga guztia harrapatzen, **El Azute** eta honen artean **Ordokia** sartzen baita.

**Muga de Ezprogui:**

Hemen zegoen, Morionesko bidean ziurrenik, **Pikotasaietsa** dermioa, eta seguru aski "justizia" egiteko erabiltzen zen pikota ere bai:

"una pieça en la muga de ezprogui y parte llamada picotasaieça" (1642)<sup>5949</sup>

**Muga de Gallipienzo, la:**

Ikus **Mojón de Gallipienzo**.

**Muga de Leache:**

Ikus **Mojón de Leache**.

**Mugarana:**

**Mugarana** [mùgarána] **Muga-z** eta **harana-z** osaturik dago, bistan denez. Moriones eta Ezporogiko **Mugarana**-ren jarraipena da, eta **La Corona** (**Koroagaña**) eta **Regandia**-ren artean zabaltzen da, Ezporogiko **Barranco de Zubieroria**-ren hasiera aldean.

**Naba (alto de), (cantera de), (costalada de):**

Izen honen adieraz ikus Eslabako **Nabarana** sarreran esan duguna. **Cantera de Naba** (1591)<sup>5950</sup> Leatzeko mugako mendia da, hots, behinolako **Leatzkaratea**-ren eta egungo **Alto de Leache**-ren jarraipena, orain **Alto de Naba** deitu ohi den gaina, eta **Costalada de Naba** (1594)<sup>5951</sup> cantera edo gailurraren eta lautadaren arteko malda.

5949 PRA-Oibar, 24. k.

5950 Id., 5. k.

5951 Id., 8. k.

**Naba** [ná̃ba] herritik Leatxeko mugaraino zabaltzen den mendien arteko lautada (haran modukoa) da; **Mondela** (bazter batean), **Puieta**, **Mirabuenos**, **Balora Alto de Leatxe**, **Jautu** eta **Santa Lucía** ditu mugakide.

1584koa den aurren lekukoak erdal artikulua darama:

“la una (pieça) sita...en la endreçera llamada lanaba” (1584)<sup>5952</sup>

Geroko agerraldi guztietan, ordea, artikulurik gabe edireten dugu.

#### **Nababarrena:**

**Naba**-ren **Balora** eta **Baluso** aldeko zatia izan zitekeen hau, agiritan “mano de Aibar” (hots, ‘Oibarraldea’) delakoan sartua aurkitzen baitugu, baina herriaren hurbileko alderdia ere izenda zezakeen:

“otra pieza en el terno de Navabarrena” (1721)<sup>5953</sup>

#### **Nevera, la:**

Elurra gordetzeko putzuak ziren neberak<sup>5954</sup> (ikus Uxueko izen bereko sarre-  
ra). Zarekoa beheko **Camino de Aibar**-en ondoan zegoen, **Naba** eta **Puieta**-ren artean, hilerrietik gertu, iparrera ematen duen alderdi hotz batean:

“otra (pieza)...en Nava cerca de la Nevera q alinda con...Camino q se va a la villa de Aybar” (1752)<sup>5955</sup>

Egun putzua ezezaguna da, eta jendeak izen hau elurra egiten duenean bertan metatzen delako ematen zaiola uste du.

#### **Nuestra Señora (del Camino), ermita de:**

Pérez Ollok<sup>5956</sup> ermita desagertu dela eta zaretarrek honen berririk ez dutela dio. 1772an<sup>5957</sup> zutik zegoela dirudi, baina hau ez da segurua.

**Gaurko Ermita de Santa Lucía** herritik hurbil dago, **Camino de Santa Lucía**-ren aldamenean, eta badaiteke **Nuestra Señora del Camino** bera izatea, ermitaren titularrak lehen eta orain diferenteak izanagatik ere. Honekin bat dator, bestalde, **Santa Lucía** dokumentazioan ez aurkitua.

---

5952 Id., 3. k.

5953 Id., 37. k.

5954 Euskaraz ere ibiltzen zen izen hau: **Nevera ondoa**, **Nevera zocoa** dugu Zarikiegin (TCPCC, 470. or.), eta **Neveraldea** Galar-Espartzan (TCPCG, 179. or.).

5955 PRA-Oibar, 64. k.

5956 EN, 211. or.

5957 PRA-Kaseda, 24. k.

**Oianondoa:**

**Oihan** ‘mendi arbolatua’ eta **ondoa** ditugu orain ezezaguna den honetan. Egungo **El Monte** aztergai dugun toponimoko oihana zen, **Oianondoa** Ezporogiko mugaraino iristen baitzen (ikus **Mojón de Ezprogi** sarrera).

Badakigu **Oianondoa**-n ardantzeak eta liguerriak zeudela, eta beraz badirudi **Río de la Tejería**-ren inguruak ere hartzen zituela (ikus **Vergal** sarrera).

**Olmo, debajo del:**

Herri barruan zegoen dermio hau (1609)<sup>5958</sup>.

**Ontinar, el:**

Gaur **El Untinar** [el̞ɯntinár] deritzana lehenengoz 1919an aurkitu dugu<sup>5959</sup>, eta izen berria dela irudi du. **Untinar** edo **Ontinar** Iribarrenen arabera **untina** edo **ontina** ‘artemisia aragonensis’<sup>5960</sup>, ‘artemisia herba alta’ ugari dagoen lekua da. Sudurkari aurreko o- > u- pausoz cf. Galipentzuko antzinako **Pontarrón**, **Puntarrón** orain, edo euskarazko zenbait euskalkitan gertatu den on > un, honek > hunek.... Oibarren, alabaina, herriaren aldirietako eremu bat izendatzen duen **La Ontina** dugu bizirik.

**El Ontinar**-ek **Molino viejo**, **El Chaparral** eta **El Coscojar**-ekin mugatzen du.

**Opakuegia:**

Eslabako **Opakoegia** aztertzean esan den moldean (ikus sarrera hau), **opaku** (edo **opako**, cf. 1592ko **Opacoegua**<sup>5961</sup> eta 1603ko **Opacoeguya**<sup>5962</sup>, **Opacueguia** 1610ean<sup>5963</sup>) ‘elutsa’<sup>5964</sup> eta **egia** ‘hegia’, ‘mendi-mazela’, ‘isuria’ dira toponimo honen bi osagaiak, eta Zareko bereko **Iparragerria**-ren (cf. **Iparragerria** eta **Iparraga** Morionesen) kidekoa dela esan daiteke, adieraz eta seguru asko eremuz. Badakigu Leatxeko mugan zegoela, eta uste izatekoa da **Alto de Leatxe**-ko iparragerria zela, **Leatxen Opakoegia** deritzana, alegia.

**Ordokia (cabezal de), (costalado de), (entrada de), (plano de), (río de):**

**Ordokia** [õr̞dokia] Kasedako mugaldeko lautada da, eta Zareko bereko **Plau**-ren eta Leatxeko **Pelau**-ren adierakidetzat aitortzen ahal da (cf. gainera, Eslabako **Plaondoa**).

5958 PRA-Oibar, 13. k.

5959 Eleizalde, LVTV.

5960 **Ontina**-ren jatorriaz ikus Corominasen DCELC eta ETC-I-eko 78. or.

5961 PRA-Oibar, 6. k.

5962 Id., 11. k.

5963 Id., 16. k.

5964 Zaren eskuarki **caracierzo** erabiltzen dute ez **paco**, eta harrigarri samarra da, alde honetatik **Opakuegia** edo **Opakoegia** euskalduna aurkitzea. Beste horrenbeste gertatzen da mendebalderago dagoen Eslaban (ikus herri honetako **Opakoegia** sarrera).

Lau izateari zor zaio 1614ko **Plano de Ordoquia**<sup>5965</sup>, baina deizio honek beronek lau ez den alderdi bat ere badagoela idarokitzen du, eta izan ere horrela da, ordokiaz lekora aldapa eta buru edo gaina (**Cabezal de Ordokia**<sup>5966</sup> / **Ordokiburua** dokumentazioan) ere bai baititugu. **Costalado de Ordokia** alderdiko erregua den **Río de Ordokia**-ren ondoko eremu lauaren eta goiko **Saso de Sagiús**-en arteko aldapa da; dokumentazioko **Entrada de Ordokia** (1599) dermioaren lehen zatiari esango zitzaion<sup>5967</sup>.

**Ordokia-k Saratsea, Corral nuevo, El Escopizar, Kasedako muga eta erreka** ditu mugakide.

Gure eskualdean Zareko **Ordokia-z** landara, **Erbiñako ordokia** dugu Galipentzun (ikus sarrera hau) eta hegoalderago **Ordokia** eta **Ordokilanda Melidan**<sup>5968</sup>.

#### **Ordokiburua:**

Esan bezala, erdarazko **Cabezal de Ordokia**-ren kide erabat euskalduna da. 1594an aurkitu dugu<sup>5969</sup>.

#### **Ordokigoiena:**

Erdarazko **Entrada de Ordokia**-ren kidekoa zatekeen (ikus **Ordokia** sarrera):

“otra pi\* en ordoquia goyena” (1594)<sup>5970</sup>

#### **Palacio (era de), (tras), el:**

**El Palacio** herriko jauregia zen. Orain zeharo hondatua dago, eta artegitzat erabiltzen da. Dokumentazioko beste batzuetako **Casa del Barón de Beorlegui** berbera dugu (ikus sarrera hau):

“en la endrecera llamada tras el palacio Junto al camino de moriones” (1583)<sup>5971</sup>

#### **Palomares:**

**Monte de San Miguel**-en dago, **Camino de Ayesa**-ren eta ermitaren artean. Izenak bertan uso-pasarako dauden postuetan bide du oinarri.

#### **Pedrotxiki:**

**Pedrotxiki** [pèðrɔčiki] izeneko bi dermio nimiño daude Zaren gutxienez: lehena **Puieta** eta **Balora**-ren arteko muga, eta bigarrena **El Cascajo**-n.

5965 PRA-Oibar, 14. k.

5966 Id., 32. k., 1711.

5967 Id., 21. k. **Entrada** erdaldunaren euskal ordainez ikus Eslabako **Kalboren korralesarraldea**-n dioguna.

5968 Ikus **Euskararen mugak** atala.

5969 PRA-Oibar, 8. k.

5970 Id.

5971 Id., 3. k.

Dokumentazioan ez dugu sekulan aurkitu, eta orain etxe-izena ere ez denagatik, uste izatekoa da antroponimo batean oinarritua dagoela, honen frogarik ez izanik ere<sup>5972</sup>.

#### Perongortea:

‘Peruren gortea’ izan dezakegu 1597an baizik dokumentatu ez dugun lekuzen honen oinarrian<sup>5973</sup>. Gortea argi samarra bada ere, Peron hori ‘Peroren’ (hots, ‘Peruren’) ote den ez dago horren garbi (ikus **Pikulangorteta** sarrera).

#### Piélagos, los:

Beste aldi batzuetako Los Pozos-en kidea dateke 1718ko hau<sup>5974</sup>.

#### Pieza del Duque de Alba:

Albako dukea Zareko jauna zen, eta hau zela kausa alkatea izendarzeko eskubidea zuen<sup>5975</sup>. Hortaz, ez da harritzeko bertan ondasunak izatea:

“otra (pieza linar)...tente â la pieza de la torre de Pedro Garcia, y a la otra â pieza del Duque de Alva” (1790)<sup>5976</sup>

#### Piketa:

Ez dakigu izen hau **pika** ‘aldapa xuta-z’ eta -eta atzizkiak osaturik dagoen (cf. Uxueko lehengo **Pikarana**), **Pikota**-ren desitxuratzea den (cf. **Pikotasaietsa**), edo Uxueko **Bikuaga**-n dugun **biku**-ren aldaera den **piku** ‘fiku’-z eta -eta-z taiututako toponimoaren aitzinean gauden (cf. **Pikuetasaietsa** sarrera):

“ytten otra pi<sup>a</sup> debaxo de piqueta” (1594)<sup>5977</sup>

#### Pikotasaietsa:

**Pikota** ‘picota’ eta **saihetsa** ‘aldapa’ ditugu hemen. **Pikotasaietsa**, esan moduan, Ezporogiko mugan zegoen (ikus **Muga de Ezprogui** sarrera).

#### Pikotazarra:

**Pikota**-z eta **zaharra**-z osatua egon daiteke, baina **Pikotasaietsa**-ren aldaera den **Picota** saeza (\***Picotazaiza**)-ren gaizkiulertze huts bat ere izan daiteke, ustezko **Pikotazarra** hau aldi bakar batez aurkitu dugunez gero:

“otra pieza en picotazarra” (1718)<sup>5978</sup>

5972 Ergoienean ere **Pedrotxiki** toponimoa dugu (EAE, 283. or.).

5973 PRA-Oibar, 9. k.

5974 Id., 35. k.

5975 DGH, 280. or.

5976 PRA-Oibar, 76. k.

5977 Id., 8. k.

5978 PRA-Kaseda, 18. k.

**Pikulangorteta:**

Aurreneko bi silabak zalantzakakoak dira. Bukaerako **gorteta gorte** 'korrale'-rekin lotu behar dela, ordea, garbi dago:

"ytten otra pi\* en piculangorteta" (1596)<sup>979</sup>

Garbi dago, halaber, toponimo hau **Perongortea**-rekin erlazionatu beharra dagoela, Ø / -eta txandakerak, behin baino gehiagotan ikusi dugunez, arruntak baitira (cf. Eslabako **Sortengortea** / **Sortengorteta**).

**Pikuetsaietsa:**

Lehen begiratuan **Pikotasaietsa**-ren aldaera dirudi 1605ean ediren dugun<sup>980</sup> **picuetassaessa**-k, baina testuinguruak garbi uzten du Ezporogiko mugatik urruti zegoela, **Santa Eufemia** ondoko **Arrizulatua**-n.

Etimologiari dagokionez, hemen beste pikota-saihets bat dugula pentsa daiteke, hau da, Zaren pikota bat baino gehiago (eta pikota-saihets bat baino gehiago) zegoela, baina -o- > -ue- pausoa zergatik gauzatu den ez dakigu, ez baitugu uste latinetik erromantzerara igarotzean gertatu diptongaketa arruntarekin zerikusirik duenik. Zernahi gisaz, Uxueko **Mostrakas** (orokorra dokumentazioan eta egun ere erabilia) / **Muestracas** (1534koa den toponimo honen lehen agerraldian eta 1633an)-en aurkitzen dugun aldizkatze bera izan genezake hemen ere.

Beste posibilitate bat **Pikueta piku** 'biku' + eta bezala interpretatzea da, baina gure eskualdean **biku** dugu Uxueko **Bikuaga**-n, fruitu honen izenaz osaturik aurkitu dugun toponimo bakarrean, eta aldaera hau da Nafarroako zati handi batean edireten duguna.

**Plantado, el:**

**Plantado** gure alderdian ardantze berri txertatuari esaten zaio (nobela-ri, alegia) egun. Dolaretan zegoen:

"otra viña...que llaman el plantado en el termino de dolareta" (1708)<sup>981</sup>

**Plau:**

Latineko **planu**-ren gure eskualdeko oinordekoetako bat dugu hau, euskaraz arrunta den bokal arteko sudurkariaren erortzea gertatu delarik, baina ez, ohi denaren kontra, hasierako **pl-** multzoaren sinpletzea<sup>982</sup>. Hondar honen arrazoia gure alderdian

5979 PRA-Oibar, 9. k.

5980 Id., 12. k.

5981 Id., 31. k.

5982 Honela dio Mitxelena ("El Elemento latino...", PT, 203. or.):

"El vasc. tenía sin duda sílabas trabadas, pero no sílabas que empezaran por un grupo de consonantes. En los préstamos, éstos se resolvieron por eliminación de la primera consonante (*eleiza* 'templo' < *eclesia*, *lama* 'ardor, llama' < *flamma*, *lau* 'llano' < *planu*...) o bien intercalando una vocal anapíptica: *apiriko* 'atrio, pórtico' < *apricu*, *erregela* 'regla'..."

Gure eskualdean, esan den bezala, **pl-tik pl-** dugu Zaren eta Eslaban (**Plau**, **Plaondoa**), eta **pel-** Leatxen (**Pelau**).



ugaria den erdal **plan**, **plana**, **plano**-ren eraginari zor zaioke (Zaren bertan **Plano de Ordokia** dugu, Galipentzun **Plandeoliva**, eta Leatxen Zarekoaren anaia bixkia den **Pelau**), baina euskal literaturan ere **plau** aurkitzen dugu (ikus Eslabako **Plaondoa** sarrera).

Zareko **Plau** [pláũ]-k **Puieta**, **Balora**, **Armillos** eta **El Campo de la Villa** (behinolako **Auzalorra**) arteko goi-lautada ematen du aditzera.

#### **Plaza (barrio de), la:**

Herriaren erdi aldean dago, plazaren inguruan, behinolako **Barrio de Media-villa** edo **Iriarte**-n, egungo **Barrio de medios**-en. Iturria bertan dagoenez gero, dokumentazioko **Barrio de la Fuente**-rekin identifika daiteke **Barrio de la Plaza** (1586)<sup>5983</sup>.

#### **Porbonzio (costalada de):**

Izen honen lehen lekukoak **Probonzio** edo **Porbonzio**-ren alde mintzo dira, XVIII. mendean beti tartean -e- duela aurkitzen badugu ere: **Proboncio** (1592)<sup>5984</sup>, **Porboncio** (1598)<sup>5985</sup>, **Porbonçio** (1641)<sup>5986</sup>, **Probencio** (1764)<sup>5987</sup>. 1692an mugatzailez hornitua azaltzen da (**Porbonzioa**)<sup>5988</sup> eta 1606an **San** aposizioarekin (**San porboncio**)<sup>5989</sup>, hagianimo bat balitz bezala, eta izan ere ez dakigu erdal (**San**) **Prudencio**-ren euskaratzearen emaitza ez ote den, izen erdalduna ediren ez izanak eta **Jaun Done** ohizko elementu alboratuak ez agertuak kontra hitz egiten duten arren<sup>5990</sup>.

Dermio hau Leatxeko muga egoki eta, **Costalado de Proboncio** (1592) gorago aipatu **Opakuegia**-rekin identifika daiteke:

“una pieça en...porbonçio en muga de leache” (1641)

#### **Pozos, los:**

Esan bezala, **Los Piélagos** eta **Ligusuñeta**-ren kidea dela uste dugu, hots, liho-putzuak izendatzen dituela (1848)<sup>5991</sup>.

#### **Prado de la Muga, el:**

**El Escopizar**-en azpian dago, **Oibar** eta **Kasedako** mugetan.

5983 PRA-Oibar, 3. k-bis.

5984 Id., 6. k.

5985 Id., 9. k.

5986 Id., 24. k.

5987 Id., 62. k.

5988 PRA-Kaseda, 6. k.

5989 PRA-Oibar, 12. k.

5990 **Jaun Done** aposizioa, dena den, ez da saildu-izen guztiekin azaltzen, eta badaiteke hau izatea **Porbonzio**-ri lagun eginez ez aurkitzearen arrazoia.

5991 PRA-Oibar, 120. k.

**Prado grande (cabezal de), (cabezo de), (hoyo de) (saso de), el:**

Euskarazko **Larreandia**-ren ordezkatzaille dugu egungo **El Prado grande**. Larreak, esan gisan, belarra franko hazten den eremu urtsuak dira (ikus Agezako **Lakua-ga**), gure informatzaileak dienez soto 'zaldu'-ak baino lur gizenagokoak (ikus, alabaina Agezako **Euntzeberri**-n dioguna).

El Prado grande-k **Muga de Ayesa, Mandaputia** (cf. **Prado de Mandaputia**), Galipentzuko (**Prado de**) **Larreta**-rekin, **Malabranka** eta **El Cascajo**-rekin mugatzen du. Hondar honen alboan **Saso del Prado grande** dugu.

**Cabezal** edo **Cabezo del Prado grande** dokumentazioko **Cabezo de Larreandia**-ren ordaina da, hots, aurkitzerik izan ez dugun **\*Larreandiburua** batena. Gain luze hau altxonbidearen paretik doa, eta gorago aipatu dugun **Cabezal del Prado de Mandaputiarana**-ren jarraipena da.

**Hoyo del Prado grande**, azkenez, Galipentzuko mugako zuloa da, **Saso de Malabranka**-ren aldamenekoa.

**Puente de Aibar (junto a), la:**

Oibarko bidean (oraingo errepidean) dagoen zubia izan daiteke XVI. mendean amaierarako azaltzen den hau (1589<sup>5992</sup>, 1597<sup>5993</sup>), gaurko **Puente de Balora**.

**Puieta:**

**Puio** edo **Puiu** 'gaina', 'muinoa' (cf. 1641eko **Pujueta**<sup>5994</sup>), eta **-eta** ditugu hemen (ikus Galipentzuko **Puyalato** eta **Eslabako Boiugain** toponimoak aztertzean dioguna).

**Puieta** [puyéta] (1586az geroztik<sup>5995</sup> dokumentatu dugu) herriaren albotik, **Mondela**-tik, **Mirabuenos** eta **Balora**-raino luzatzen den gaina da, bi aldeetan **Naba** (Leatxe aldera) eta **Plau** goi-lautada (hegoaldean) dituela.

**Puietasaietsa:**

**Puieta**-ko aldapa zen, baina ez dakigu zein aldetakoa:

"...la quinta pieça en puyeta ssayessa" (1606)<sup>5996</sup>

**Puio:**

Dokumentazioko eta oraingo **Puieta** dela uste dugu 1593ko hau<sup>5997</sup>, toponimian **Ø** / **-eta** txandaketa, ikusi denez, arrunta baita.

---

5992 Id., 4. k.

5993 Id., 9. k.

5994 Id., 24. k.

5995 Id.

5996 Id., 12. k.

5997 Id., 7. k-bis.

**Puntallu:**

**Puntallu(a)** erdarazko **puntallo**-ren euskal ordaina da, hots, ‘punta duen alorra’ ematen du aditzera, bi bideren bat egiteak edo bide baten eta aldapa baten elkartzek sortzen duen puntadun alorra (ikus Agezako **Puntallua**):

“una pi” en la endręera llamada puntallu” (1597)<sup>5998</sup>

Zaren orain **puntallo** bat baino gehiago dago: bat **Jautu**-n, beste bat errepi-dearen eta **Camino de arriba de Caseda**-ren artean... Antzinako **Puntallu** (edo **Puntallu**-etako bat behintzat) **Camino de Baluso**-n zegoen (ikus sarrera hau), ausaz honen eta **Camino de la Nevera**-ren artean.

**Rebote viejo, el:**

XIX. mendean eraiki bide zen egungo pilota-jokua baino lehenagokoa zen hau. Orain urte batzuk desagertu zen egungo “Casa de Pichón” zaharberriaren aitzinaldean zegoen frontoi zaharra.

**Regandia:**

**Regandia** [ręgandía] edo **Larregandia** [lařęandía] **Barranco de Jautu**-tik gertu dago, antzinako **Jautuarana**-n seguraski, eta irudiz **\*Erreguandia** baten desitxuraketa da, hots, **erregu** ‘erreka (handia)-z’ eta **handia**-z osaturikako toponimoaren desitxuraketa, **\*Erreguandia** oso-osorik sekulan aurkitu ez badugu ere (cf. **Loiaerregua** Morionesen eta **Erregumaiorea** Leatxen. Zaren deigarria da erdarazko río izenaren erabilpen ugaria: **Río de Tejería**, **Río de Armillos**, **Río de Saratsea**, **Río de Ordokia**, **Río de Balora**, **Río de Baluso**...).

**Erregu** baino askoz arruntagoa den **erreka**-z (‘barranco’ izan ohi da) ere pentsa daiteke (**\*Errekandia**-z, alegia), itxuragaiztotzeak legerik ez duenez gero. Gainera, mintzagai dugun urbide honi **Barranco de Jautu** esaten zaio egun, ez río, eta beraz, badiudi **erreka** dugula oinarrian, oraingo aldaeraren belare ahostuna gorabehera.

**Erregu**, esan bezala, latineko **rĭvu**-ren eratorri baten euskaratzearen ondorena da, eta oinarrian seguru aski **\*ręgu**-ren moduko zerbait (ikus Morionesko **Loiaerregua** eta Leatxeko **Erregumaiorea**-n dioguna) dagoke. Izan ere, eta Ricardo Cięrbide irakasleak dioenez<sup>5999</sup>, **rigo** ‘río’ arrunta zen nafarrera zaharrea eta Nafarroako okzitanez, eta **arriego**, **arriego**-ren moduko formak ere dokumentaturik daude<sup>6000</sup>.

**Relazas, las:**

Ikus **Iribarren** sarrera.

**Rey, corrales del; faitía del; linar del; pieza del:**

Itxuraz erregeak Zaren zituen lurrak ziren guzti hauek (cf. Agezako **Erreso-reta**, **Eslabako Errezazua**, eta oso zabaldua dagoen **Errepidea**). Gorteak (1606)<sup>6001</sup> non

5998 Id., 9. k.

5999 *Estudio lingüístico*, 272. or.

6000 Ricardo Cięrbide, “Toponimia del Becerro Antiguo de Leire (siglos XII-XIII)”, 242. or.

6001 PRA-Oibar, 12. k.

ziren ez dakigu; lihasoroak **Baratzeta**-n zeuden (1704<sup>6002</sup>, 1723<sup>6003</sup>), eta alorrak, azkenez, bi edo hiru alderditan (**Valdedorreta**-n, 1698<sup>6004</sup>, **Franzesa**-n, 1704<sup>6005</sup>, **Dolareta**-n, 1778<sup>6006</sup>).

**Río, el:**

Esan moduan, **Barranco de Jautu**-ri eta besteren bati ez gainerako guztiei "río" deitzen zaie (ikus **Regandia** sarrera) eta dokumentazioan ere río aurkitzen dugu.

**Río de Bizkaia, el:**

**Río de la Tejería** eta **Río Armillos**-i zenbaitek ematen dioten izena da. Erregu hau Bizkaitik jaisten da, Moriones eta Ezporogin barrena, eta hortik izena.

**Sada:**

Ezagutzen dugun Sada izenaren lehen lekukoa 1076ko *dompna Sancia de Sada*<sup>6007</sup> da, eta Sada-ren euskal izenarena, **Zare**-rena alegia, Mitxelena aitpatzen duen 1127ko **Garcia Çareco**<sup>6008</sup>. Autore honek dioenez, Sada / Zare-n mora / more-n aurkitzen dugun erromantzeko -a / euskarako -e txandaketa bera dugu. Bi izenen arteko hasierako s / z ezberdintasuna erraz da azaltzen, latineko eta erromantzeko s-ri euskaraz maiz z- dagokiola ezaguna denez gero (cf. saltu > zaldu / soto, zazu / saso...).

Bokal arteko d / r aldizkatzea ere arrunta da euskararen barruan (**Iriberry** > **Ideberry**, eta kontrakoa: edan > eran...), eta ez da harritzekoa izen ofizialak zuen horzaria euskaldunen ahotan dardarkari bilakatua. Lapurdiko Sara herri-izena erdarazko Sada eta euskarazko Zare-ren artekotzat har liteke, agian.

J. Giffordek<sup>6009</sup> Oibar haraneko Sada, Iruñeko Sadar erreka eta Galiziako Sada-ren arteko bat etortze bitxia azpimarratzen du, eta latineko satum 'ereina'-ren plurala den sata ematen du apikako iturburutzat<sup>6010</sup>.

Egungo izen honen ebakeraz honela mintzo zaigu Mitxelena aitatu lanean:

"A.Irigaray, *Yakintza* 16 (1935), 309, da Sare, pero J.Echaide, *Egan*, 1961, 222, fundándose en informadores de Esparza de Salazar que conozco bien y me merecen entera confianza, lo corrige en Zare"

6002 Id., 30. k.

6003 IEA, 1765, 8, 1012. or.

6004 PRA-Kaseda, 9. k.

6005 PRA-Oibar, 30. k.

6006 Id., 71. k.

6007 R. Ciérbide, ICT-III, 297. or.

6008 "Notas lingüísticas a «Colección diplomática de Irache», PT, 87-118. orr.

6009 Reta Janárizek aitatu, EHZE-ko 476. orrialdean.

6010 Sadar-en lekuko gehienek z- dute XVIII. mende arte, ez s-, eta 1291n Çaadarr itxurapean azaltzen da (*Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona*, Jimeno Jurío eta Patxi Salaberri, argitara gabeko lana). Hortaz, badirudi autore honen hipotesia arbuatu beharrekoa dela, erabat ez bada bai behintzat Sadar-i dagokionez.

Dokumentazioan garbi ikusten da gure eskualdean eta inguruetan ere **Zare** deitzen zitzaiola herri honi: **Zarebidea** dugu Morionesen, **Zarebidea**, **Zarebidegaña** eta **Zarebidekoa** Leatxen (ikus sarrera hauek), eta **Zarebidea** Orba ibarreko Oletan<sup>6011</sup>. Gero-  
nek ere forma hau (**Zare** [sárel, alegia] jaso dugu Zaraitzu-Espartzako D. Gárateren  
ahotik<sup>6012</sup>.

Orain gutxi arteko erdarazko izenaren "**de Sangüesa**" gehiagarria berria zen, eta  
Altadillek dioen bezala<sup>6013</sup>, 1908an erantsi zitzaion ohizko Sada-ri, Real Sociedad Geográfi-  
caren aginduz.

#### Sagüés, saso de:

Sagüés Zareko etxe bat zen, eta zazuaren izena etxe horri zor zaiola dudarik  
ez dago.

Saso de Sagüés-ek El Corral nuevo, Prado de la Muga, El Escopizar,  
Costalado de Ordokia eta Kaseda ditu mugakide.

#### Saleras, las:

Artzainek erreken ondoan jarri ohi zituzten gatzarriak eta hauen ingurua  
izendatzen dituzte honelakoek (1703)<sup>6014</sup>.

#### Salobreta (paso de), (prado de):

Ageza, Eslaba eta Galipentzuren arteko **Gezari**-ren edo **Leatxeko Gesalaga**-  
ren kideko dugu **Zareko Salobreta**, baina azken honetan euskarazko **gesal**, **gezal** edo  
**gezari** jatorraren (honen sorburua dena den. Ikus Agezako **Gesaliturri** eta **Gezari** sarre-  
rak) ordeztu, erdaratikako **salobre** dugu (cf. **El Salobrar** Oibarren, **El Salobral** Uxuen,  
**Salobres** Ledean<sup>6015</sup>, eta **Salobres** Erriberrin<sup>6016</sup>).

Gaurregun bokal anaptitikoa duen **Salabareta** [salàbaréta] ibiltzen da, hots,  
aurrenekoz 1733an aurkitu dugun **Saloberetta**-ren<sup>6017</sup> desitxuraketa arina dena. XVI. eta  
XVII. mendeetan, euskara **Zaren** bizien zegoenean (XVIII. mendean baino biziago bai  
behintzat), bokal anaptitikorik ez zuen aldaera ibiltzen zen, eta guk horixe hobetsi dugu  
aldaera batutzat:

"...en salobreta...afronª...con el Camino Real que ban para tafalla" (1587)<sup>6018</sup>

**Paso de Salobreta** (1610)<sup>6019</sup> **Camino del Cascajo**-n dago, **Prado grande**-  
tik **Prado de Salobreta**-ra doan bidearekiko elkargunean.

6011 PRA-Barasoain, 3. k-bis, 1609.

6012 Ikus NHI-ko 191. or.

6013 Id.

6014 PRA-Oibar, 30. k.

6015 "otra pieza en el thermino de salobres"; id., 30. k., 1704.

6016 "La veytena muga (Beire herriarekikoa) esta en la viña...q esta landa Junto al Rio llamado Salobres",  
PRA-Kaparroso, 27. k., 1620.

6017 PRA-Oibar, 50. k.

6018 Id., 3. k-bis.

6019 Id., 16. k.

Esan bezala, alderdi hau oso urtsua da (lehen orain baino areago ziurrenik) eta **larre** edo “**prado**”-ak ugariak dira Eslaba, Ageza, Galipentzu eta Zaren, eta ulertzekoa da **Salobreta**-n ere horrelako bat aurkitzea. “Corral de Sagüés” eta “Corral de Lacarra” aldean dago larrea:

“en la endrecera llamada salobreta y Junto al prado...que afrenta...con el mismo prado de Salobreta” (1594)<sup>6020</sup>

Gesal franko dago dermio honen zati batean, eta honi zor dio izena.

**Salobreta**-k **Korkua**, **El Cascajo**, **Errengaitz** eta **Saratsea**-rekin mugatzen du.

**Salz**, **la**:

**Salz** Iribarrenen arabera<sup>6021</sup> ugalde ertzetan sortzen den haltzaren izena da Li-zarrerrian. Zaren artikuluko maskulinoarekin (el **salz**, 1594)<sup>6022</sup>, femeninoarekin (**la** **salz**, 1723)<sup>6023</sup> nahiz artikulurik gabe (1594an)<sup>6024</sup> agertzen den hau ere erreka baten (**Río de Armillos-en**) alboan zegoen:

“otra pi\* en la endreçera llamada salz...que affrenta con el Rio y con camino que ban a Caseda” (1594)

**Corominasek**<sup>6025</sup> **salce** **sauce**-ren lehengo aldaera dela dio (< **saŕice**), eta garbi dago **salce** hau eta **Zareko salz** bat eta bera direla. **Sauce** euskaraz saratsa da<sup>6026</sup>, ez haltza, eta Zaren oraindik ere **Zarazea** (< **Saratsea**) bizirik dugula kontuan hartzen badugu, erraza da **salz** = **sauce** = **saratsa** berdinketa egitea. Gainera, kokagunea ere bera zuten (ikus **Saratsea** eta **Saratseta** sarrerak)<sup>6027</sup>.

Manuel Alvarrek ere **la salz** aurkitu du Jacako agiritan<sup>6028</sup>; aragoieraz (bai eta Nafarroako erromantzez ere gehienetan, antza) jatorrizko genero femeninoa atxiki du izen honek. Zare ondoko Oibarren **La Fuente de las Alces** ([laʃálθeʃ] ebakia) dugu orain, **Los Alzes** 1703an<sup>6029</sup>, **Las Alces** 1710ean<sup>6030</sup>, **Las Salzes** 1720an<sup>6031</sup>, eta honekin identifika daitekeen **Fuente de la Salçeta** 1652an<sup>6032</sup>.

6020 Id., 8. k.

6021 VN.

6022 PRA-Oibar, 8. k. Erriberrin ere **El Salz** aurkitu dugu 1620an (PRA-Kaparroso, 27. k.): “la octava muga (Beirekikoa) esta frontero el Salz dos pasos poco mas o menos del Retuerto”.

6023 IEA, 1765, 8, 102. org.

6024 PRA-Oibar, 8. k.

6025 DCECH.

6026 Jimeno Jurfok (THET, 108. or.) **saratsa** ematen du **salce**, **sauce**-ren ordaintzat.

6027 **Salzta** ‘haltza’ adieraz Silvain Pouvrak erabiltzen du, Mitxelenak FHV, 292. orrialdean dioenez. Autore honen arabera **s-dun** forma txistukaririk ez duenaren aldaera sekundarioa da. **Haltza**-ren beste hizkuntzetako kideez ikus hizkuntzalari errenteriarren OEH.

6028 “Documentos de Jaca”, ESDA-II, 166 eta 174. orr.

6029 PRA-Oibar, 30. k.

6030 Id., 32. k.

6031 Id., 36. k.

6032 Id., 26. k.

**San Blas (barrio de), (basílica de), (ermita de):**

Pérez Olloren arabera<sup>6033</sup> San Blas ermita 1802an aski egoera kaskarrean zegoen, eta hori zela kausa Igual de Soriak irudia eta aldea kentzeko agindua eman zuen. Autore honek gaurregun ermitarik ez dagoela dio, baina ez du lehen non zegoen zehazten. Guk, dokumentazioari esker, herrian bertan zegoela ikasi dugu, **Barrio bajo** edo **Iribarren-en** (1821)<sup>6034</sup>, eta ermitaren inguruko etxeek aipatu auzo horren barruko azpiauzo moduko bat (**Barrio de San Blas**, 1787<sup>6035</sup>) osatzen zutela. Badakigu, halaber, 1821erako zeharo hondatua zegoela:

“á la medicion y baluacion de una ermita derruida que fue de San Blas...sita en el Barrio bajo” (1821)

**San Cristóbal:**

Ez dakigu non zegoen 1572an dokumentatzen den hau<sup>6036</sup>, ez eta ermitarik bazegoen ere, baina uste izatekoa da baietz. Esan bezala, euskarazko **Kostobaro**-ren ordain erdalduna dugu (ikus sarrera hau).

**San Juan (ermita de), (ermita derruida de), (pieza de):**

**San Juan** ermita Agezako bidearen alboan zegoen, **La Tejería**-ren ondoan:

“una pieza...en un canton de una ermita derribada, que fue de Sn Juan y Junto de la Ermita un corral viejo, sita en el terno del camino de Aiesa cerca de la tegeria” (1790)<sup>6037</sup>

Agirietan ikusten den moduan, 1783rako<sup>6038</sup> hondatua zegoen, eta 1802an Igual de Soriak ez zuen ikusterik izango. Ermitak alor bat zeukan **Gurbitueta**-n (1614)<sup>6039</sup>.

**San Martín (campo de), (ermita de):**

**San Martín** ermita **El Cascajo** aldean zegoen, egun **El Cerrado** deritzan eremuan, eta badaiteke lehenagoko despoblatur baten geldikinen gainean altxatu izana, bertan, gure informatzaileak kontatzen duenez, eraikuntza-hondakin franko baitaude:

“una viña...en el cascajo que afronta...con viña de San vicent e yglesia parrochial...y con la senda que ban para la hermita del Senor Sanmytin” (1590)<sup>6040</sup>

Egun jendeak bertan ermitarik izan zela ez daki, baina ezaguna da oraindik 1641erako<sup>6041</sup> dokumentatzen den **Campo de San Martín** delakoa.

6033 EN, 211. or.

6034 PRA-Oibar, 99. k.

6035 Id., 75. k.

6036 Id., 6. k.

6037 Id., 76. k.

6038 Id., 73. k.

6039 Id., 14. k.

6040 Id., 4. k.

6041 Id., 41. k.

**San Miguel (cantera de), (ermita de), (monte de), (pieza de la basílica de), (piezas de la basílica de), (viña de):**

**San Miguel** ermita sendorik eta salborik dago oraindik, Agezako mugari hurrar, egun **El Monte** deritzen alderdian. 1592an ageri da estrainekoz:

“dos pieças...en...oyanondoa...que afrenta con el monte de Sanmiguel!”<sup>6042</sup>

1593ko<sup>6043</sup> **Cantera de San Miguel**-ek ermita dagoen gaina ematen du aditzera.

Ermitak alor bat baino gehiago zituen Zareko lurretan barreiatuak, eta arantzze bat ere bai, gutxieneko kontuan. Alor horietako batzuk **Saratsea** (1766)<sup>6044</sup> edo **La Salz-en** (1723)<sup>6045</sup> zeuden, eta beste bat **Jautuarana-n** (1692)<sup>6046</sup>. Ardantzea, azkenez, herri ondoan zegoen, **Plau-n** (1774)<sup>6047</sup>.

**San Pedro (basílica derruida de):**

Ermita hau herrian bertan zegoen, **Iribarren** edo **Barrio bajo-n**. Independentziaren gerla arte zutik eta osorik iraun zuen, baina ezin izan zuen gerlatearen gorabeheretatik onik atera:

“en el varrio bajo de la misma (villa) tiene una Basilica con el titulo de San Pedro, la cual al presente esta derruida enteramente, a causa de que en tiempo de la ultima guerra se arruino algun trozo de ella, á cuyas resultas se llebaron los soldados a mano real todos los maderos y el retablo que havia en ella, para quemarlos en la guardia...” (1821)<sup>6048</sup>

**San Salvador (costalado de), (ermita de), (junto a), (sierra de):**

**San Salvador** Ezporogiko mugako **La Corona-n** dago, eta esan dugun bezala ermitaren zaharriak oraindik ere ikusgai daude bertan. **Costalado de San Salvador** (1597)<sup>6049</sup> **Koroagaña** edo **La Corona-ko** aldapa zen, eta **Sierra de San Salvador** (1747)<sup>6050</sup> mendi hori berori (eta ingurukoak?).

**San Vicente (iglesia parroquial de), (pieza de), (viña de):**

Zareko **San Vicente** elizak alor bat baino gehiago zuen udalerrian barrena (ikus **Pieza de la Abadía sarrera**). Herriko lurretatik kanpoan ere bazuen ondasun zerbait, **Oibarko Nablas-en** adibidez (1570)<sup>6051</sup>.

6042 Id., 6. k.

6043 Id., 7. k.

6044 Id., 63. k.

6045 IEA, 1765, 9, 1021. or.

6046 PRA-Kaseda, 6. k.

6047 PRA-Oibar, 70. k.

6048 Id., 99. k.

6049 Id., 9. k.

6050 Id., 54. k.

6051 Id., 2. k-bis.



**Santa Agata:**

Agezako udalerriko mendi-gailurra dugu hau, hots, Ezporogi-Moriones eta Agezaren artean dagoena. Zaren [santágata] esaten diote, eta Morionesen [santagáta] (cf. Lerga). Agezan bi ahoskerak bildu ditugu.

**Santa Bárbara:**

Lekuko bakarra dugu (1780)<sup>6052</sup>, eta ez dakigu non zegoen.

**Santa Eufemia (basílica de), (ermita de), (junto a), (llano de):**

**Santa Eufemia** ermita osorik eta onik dago oraindik, Pérez Ollok dioenez "herritik ordu erdi batera, muino batean"<sup>6053</sup>. Oibar haranaren erdian dago, Oibartik eta Zangozatik Erriberrira eta Tafallara doazen erregebideen erdian, Zaretik Galipentzura doazen bi bideen artean. Bailararen erdian dagoelako egiten bide ziren bertan Oibar haraneko herrien batzarreak:

"En la Ermita de SSta Eufemia thermino y Jurisdiccion de la villa de Sada a Quinze de octubre del año Mill Settys y treze ante mí Escribano...fueron Junttados en la dha Ermita como lugr y puesto acostumbrado los señores alls Rexidores y diputados de la valle de Aibar" (1713)<sup>6054</sup>

1802ko agiri batean<sup>6055</sup> ermita honetan biltzen ziren herrien izenak azaltzen dira. Eserlekuak ordenatuak zeuden: aurrenekoa ibarburu den Oibarri zegokion, bigarrena Galipentzuri, eta hirugarrena Zareri. Azken herri honen ordezkariak protesta egin zuten Galipentzu aurretik zegoelako. Herriak, sailkaturik, hauek dira:

1-Oibar, 2-Galipentzu, 3-Zare, 4-Getadar, Julio, Arteta eta Usunbeltz (ordezkari bakarra zuten), 5-Ageza, 6-Ezporogi, 7-Moriones, 8-Rokaforte, 9-Eslaba, 10-Izko, 11-Lerga, 12-Epaiz, 13-Leatxe, 14-Sabaitza, 15-Peña, 16-Gardelain, 17-Xabier, 18-Loia.

Ez dakigu sailkatze hau egitean zer erizpide hartu zen aintzat, baina gaurko ikuspuntutik harrigarri samarra da, adibidez, Epaiz Leatxeren aurretik azaltzea.

1634ko **Junto a Santa Eufemia**-k<sup>6056</sup> euskal toponimo baten (ondo-dun baten) itzulpena dirudi. Aitzulaturia edo Arrizulaturia-rekin mugatzen zuen:

"Una pieza...en el terno...llamado aizulaturia o Junto Santa Eufemia...tente con...camino que van al prado los de esta vª" (1698)<sup>6057</sup>

**Llano de Santa Eufemia** ardibidearen ondoko eremu laua zen:

6052 PRA-Kaseda, 30. k.

6053 EN, 211. or.

6054 PRA-Oibar, 33. k.

6055 Id., 87. k., 1802.

6056 Id., 23. k.

6057 PRA-Kaseda, 9. k.

“otra pieza...en el llano de Sn Eufemia (sic) tente a camino RI que se ba a Galipienzo” (1723)<sup>6058</sup>

Egungo egunean **Santa Eufemia**-k ermita ezezik inguruko lurak ere izendatzen ditu, ohizkoa denez. **Molino viejo**, **Dorrondeteta**, **Camino de Tafalla**, **Muga de Ayesa**, **Mandaputia**, **Salobreta** (bazter batean) eta **Korkua** ditu mugakide.

Dokumentazioan, sarri askotan, **Santa Eufemia**-ren ordez **Santa Finia** azaltzen da (ikus sarrera hau), eta badirudi bigarren hau lehenaren kide euskalduna zela (cf. **Santa Agata** / **Santa Agueda Lergan**). Egun **Santafemia** [sàntafémja] ere entzuten da.

**Santa Finia** (ermita de), (iglesia de):

Esan bezala, **Santa Eufemia**-ren errankidea zen:

“en la endrecera llamada Santafinia entre los dos caminos que ban a Galipienzo” (1586)<sup>6059</sup>

“la segunda pi” en Santafinia...afrenta con la dca Yglesia de Santafinia” (1593)<sup>6060</sup>

Irudiz **Santa Finia** [fínja] edo honen aldaerak erabili izan dira euskaraz **Santa Eufemia** erdalduaren ordez. Markinako euskaraz **Zareko Santa Finia** bera den **Santapiñe** (< \***Santa Piña** < \***Santa Fiña** < \***Santa Finia**) erabiltzen da<sup>6061</sup>, eta hurbilago **Santa Finia** hagianimoa dugu **Morionesen** eta **Leatxen**, bi herrien arteko muga aldean (ikus sarrera hau).

**Santa Lucía**:

Esan moduan, **Nuestra Señora del Camino** izeneko ermita (ikus sarrera hau) bera izan daiteke oraindik zutik dagoen **Santa Lucía**, ermita hau **Camino de Leache**-n egoki eta. Izan ere, **Santa Lucía** ez dugu sekulan dokumentazioan opatu (Eleizaldek biltzen du aurreneko, dakigunez, bere zerrenda ezagunetan), eta baliteke ermita titularrez aldatua.

Inguruko lurrei ere **Santa Lucía** izena ematen zaie. **Naba**, **El Calvario** eta **Jautu**-ren artean dago.

**Santesteban** (barrio de):

Aldi bakar batez aurkitu dugu, 1843an<sup>6062</sup>. Egungo **Santesteban Barrio de medios**-en dagoen **Plaza de las Cuatro Esquinas**-etik goiti hedatzen den karrika da, eta ez dakigu espezializazio-prozesu bat pairatu duen (cf. **Irigoién**), antzina ere karrika soil bat zen, edo orain urte batzuk zaretarrek karririkak bataiatzeko izan zuten behar goriaren ondorea den<sup>6063</sup>.

6058 IEA, 1765, 9, 1019. org.

6059 PRA-Oibar, 3. k-bis.

6060 Id., 7. k-bis.

6061 Miren Lourdes Oñederra, EFP, 135. or. Dirudienez, autorea ez da ohartu hasiera batean **Santa Piñe**-n herskari sudurkaria bi i-ren artean zegoela.

6062 PRA-Oibar, 116. or.

6063 Orain urte batzuk Iruñetik herriko karrikei izena emateko agindua iritsi zitzairen zaretarrei, eta baliteke orain kale-izen diren hauetako asko antzinako agirietatik ateratako toponimo hilak besterik ez izatea. Nolanahi ere, karriken izenen erabilera telefono-liburura eta antzekoetara mugatzen da, eta ez dirudi Zarekoek beren usadioak aldatu dituztenik.

**Saratsea (prado de), (río de):**

Egungo **Zarazea** [θàraθéa] **Carachea** zen 1703an<sup>6064</sup>, eta **Sarassea** 1706an<sup>6065</sup>, -ch- eta -ss- digramak euskal ts-ren ordezkidatza daudela, antza. Oraingo aldaera 1756an<sup>6066</sup> ediren dugu lehen aldiz.

Esan dugun gisan, **Saratsea** beste batzuetako **Saratseta**-ren (Ø / -eta aldizkatze ezaguna ageri da berriz) eta erdarazko **La Salz**-en baliakidea da (ikus sarrera hau). Kidetasun hau bestela ere argi samarra zen, baina 1708ko agiri batean eskribauak **Carachea** idatzi ondoan berau marratu eta gainean horren itzulpena den **La Salz** jarri zuela ikusten dugu, eta honek izan genitzakeen zalantza arrasto guztiak deuseztatzen ditu.

**Prado de Saratsea** errepidearen ondoan zegoen; **Río de Saratsea** gorago **Río de Dolareta** (edo **Río de Armillos**) eta beheitiago **Río de Ordokia** deritzan ubidea da.

**Saratseta:**

**Saratsea** edo **La Salz**-en adierakidea da. Aski harrigarriro, **Saratseta**-ren lekukoak 1722 arte aurkitzen ditugu (**Saraseta** 1596<sup>6067</sup> eta 1640an<sup>6068</sup>, **Zarazeta** 1708an<sup>6069</sup>...), eta **Saratsea**-renak mende honen lehen urteetatik aurrera, eta beraz, banaketa kronologikoa dagoela esan daiteke, alegia, aurrena **Saratseta** eta gero **Saratsea** erabili zela.

Agirietako **La Salz** notarien kontua izan zitekeen, egun forma bizi bakarra **Zarazea** (< **Saratsea**) baitugu, baina hau ez da inolaz ere segurua (ikus **Salz** sarrera).

**Saso, el:**

Eslabatik **Oibarra** doan bidearen ondoan zegoen, **Zazuburua**-ren alboan (1586<sup>6070</sup>, 1590<sup>6071</sup>).

**Senda de Aibar:**

**Baluso**-n barna doan **Camino de Aibar** (**Camino de arriba**) da hau (1723)<sup>6072</sup>.

**Senda de Gardelainbidea, la:**

**Camino de Gardelain** edo **Gardelainbidea** bera dela irudi du (1594)<sup>6073</sup>.

---

6064 PRA-Oibar, 30. k.

6065 Id., 30. k-bis.

6066 Id., 59. k.

6067 Id., 9. k.

6068 Id., 23. k-bis, 1640.

6069 Id., 31. k., 1708.

6070 Id., 3. k-bis.

6071 Id., 4. k.

6072 IEA, 1765, 8, 1010. or.

6073 PRA-Oibar, 8. k.

**Senda de la Ermita de San Martín:**

Ikus **San Martín** sarrera.

**Senda de Muruarana:**

**Mugarana** aldera zihoan bidea izan zitekeen 1591ko hau<sup>6074</sup> (cf. Morionesko **Muruaranbidea**), baina ez dakigu seguru horrela zen. Izan ere, **Mugarana San Salvador-en** aldamenean dago, **La Corona** aldean, eta beraz ez litzateke mirestekoa, herri-etimologiaz edo bestela, **muga-ren** ordez **mur**u 'gaina' agertzea.

**Senda de San Martín, la:**

**Senda de la Ermita de San Martín** bera zen 1706an dokumentatzen den hau<sup>6075</sup> (ikus **San Martín** sarrera).

**Senda de Ugarka:**

**Río de Bizkaia-n** dagoen **Ugarka-ra** zihoan (1594)<sup>6076</sup>, **Kapanaondoa-n** berrera.

**Senda del Molino de Gallipienzo:**

Galipentzuko goiko errotara zihoan (1727)<sup>6077</sup>, eta gaurko **Camino del Prado** edo **Camino del Cascajo**-rekin identifika daiteke.

**Soto (val de), (fuente de), el:**

Dokumentazioan azaltzen diren soto guztiek ez dute zaldu bera izendatzen. 1774ko lekukoak **Errotaldea**-koa ematen du aditzera, eta uste izatekoa da **Soto de Zumadieta** bera dela (ikus sarrera hau):

"otra pieza...en...Errotaldea teniente a...soto comun"<sup>6078</sup>

**Valdeisoto** (1593<sup>6079</sup>, 1721<sup>6080</sup>), aldiz, euskarazko **Jautuarana**-ren ordain eralduna da.

**Iturria** (1599)<sup>6081</sup> ez dakigu zer zaldutan zegoen, eta **La Fuentaza** nahiz **La Madre de la Fuente** izan zitekeen, besteak beste.

---

6074 Id., 5. k.

6075 Id., 30. k-bis.

6076 Id., 8. k.

6077 Id., 40. k.

6078 PRA-Kaseda, 26. k.

6079 PRA-Oibar, 7. k-bis.

6080 Id., 37. k.

6081 Id., 21. k.

**Tejería (río de), la:**

La Tejería alderdia Río de la Tejería-z (Río Tejería orain) haraindian dago, Camino de Ayesa-ren alboan, behinolako San Juan ermitatik hurbil. Izena, bistan denez, bertan dagoen teileria egun hondatuari zor zaio. Hau orain mende bat inguru arte ari izan omen zen lanean. Berezko dermioa izan aitzinetik Oianondoa-ren barruan sartzen zela dirudi (1702)<sup>6082</sup>.

El Monte-rekin, El Chaparral-ekin eta ugaldearekin mugatzen du.

**Torre (de Zabaleta), (pieza de), la:**

Dorrea herrian zegoen, eta alorra dorretik hurbil, Iturriarte-n (oraingo herriko La Fuente aldean):

“otra pieça...en yturri artea que afuenta...con la pieça de la torre de çabaleta...” (1591)<sup>6083</sup>

Egun Campo de la Torre dugu herriaren aldirietan, Camino de Jautu, La Fuentaza eta El Calvario-ren artean, baina ez dakigu dokumentazioko bera den.

Zaren dorrea zen El Palacio genuen lehen (ikus sarrera hau), eta oraindik La Torre derizten bi etxe ditugu Calle Mayor-en, Barrio bajo-n. Bi Torre hauek elkarrengandik hurbil daude, harrizko arku handi batzuez lotuak, eta noizbait eraikuntza bakarra osatu zutela esan daiteke, egun etxe ezberdinak (eta jabe ezberdinenak) direnagatik. Badaiteke 1591ko agiriko dorrea hau izatea.

**Torre, val de la:**

Euskarazko Val de Dorreta-ren erdal ordaina da. Orain ezezaguna den hau Kasedako mugatik gertu bide zegoen:

“otra pieça en bal de la torre açia la parte de casseda” (1650)<sup>6084</sup>

**Tras de la Fuente, barrio de:**

Erdarazko Barrio de la Fuente eta euskarazko Barrio de Iturriarte-rekin lotu behar da 1706ko hau<sup>6085</sup>, baina ez dakigu zeharo elkarren bete ziren hiruok.

**Ugarka, regadío de:**

Leku-izen honen lehen agerraldian Huarca dugu (1587an<sup>6086</sup>), baina bi urte beranduago elkarketan bokal aurrean arrunta den ur hitzaren ug-dun aldaera (Ugarca alegia) azaltzen da<sup>6087</sup>. Egun ibiltzen den Ubarca [uḃārka] 1845. urtean opatu dugu lehenengoz<sup>6088</sup>.

6082 PRA-Kaseda, 11. k.

6083 PRA-Oibar, 5. k.

6084 Id., 26. k.

6085 Id., 30. k-bis.

6086 Id., 3. k-bis.

6087 Id., 4. k.

6088 Id., 18. k.

**Uarka, Ugarka > Ubarka** pausoa Nafarroako toponimian oso arrunta den **ur-en** eratorrietako **ugV-** > **ubV-** (**ugalde** > **ubalde**, **ubelde**, **Ugaran** > **Ubaran**, **Ubaran...**) aldakuntzaren beste adibide bat da.

Esperatzekoa zenez, **Uarka** erreka baten ondoan dago, hain zuzen ere Ezporogin **Baserrekandia** zeritzan ubidearen alboan (**Río de los Huertos** esaten zaio orain Zaren, bertan dauden baratzeengatik), auzo herri horretako muga dagoen **Molino nuevo** (hondatua dagoeneko) aldean, eta baliteke errota honen uharka besterik ez izatea hasieran (ikus Morionesko **Uarka** eta Zareko bereko **Arcal** sarrerak), gero honelakoetan ohizkoa denez hedatu eta inguruko lurrak izendatzera igaro zelarik.

Egun, alabaina, ez dago uharkarik bertan, honelako eraikuntzarik hurbilena Moriones eta Ezporogiren arteko muga dagoena delarik.

### Utsaskieta:

Dokumentazioan toponimo honen makina bat aldaera ezberdin agertzen dira, baina XVI. mendeko lekukoak bat datozela esan daiteke, denek antzeko grafia (**Uchaskieta** 1585ean<sup>6089</sup>, **Usasquieta** 1592an<sup>6090</sup>...) erakusten dutenez gero. XVII. mendean desitxuratuxea ageri da (**Eunçasquieta** 1634ean<sup>6091</sup>, **Eunsasquieta** 1655ean<sup>6092</sup>...).

Bigarren osagarria zein den garbi dago, -eta atzizkia aztertzean esan den bezala gure alderdian **-kieta -keta** eta **-eta**-ren aldakia baita, eta arazo-sortzailea hortaz, lehen osagaia den **utsas** izena da. **El Escopizar** sarreran esan moduan, **utsasa** gaurko euskarazko **isatsa**, **itsatsa** edo **itsasa** (cf. **Baztango isetsa**, **itsetsa**, **itsesa** 'erratza', eta **Arakil-Urritzolako isatsa** 'karririk garbitzeko erratza') landare-izena (hemendik 'garbitzeko tresna' adiera) dela uste dugu, hau da, **Lacoizquetaren arabera** 'hiniesta de escobar', 'retama' (**isaxa**) edo 'retama de olor' (**isatsa**) derizten belarretako bat, biekien egin izan baitira **erratzak**<sup>6093</sup>.

**Utsaskieta-z** eta **harana-z** osaturikako **Utsaskietarana**-ren ondorengo desitxuratua den egungo **Uzkitarana** [ũθkitarána]-k **El Escopizar**-ekin mugatzen du, eta **El Escopizar**, esan den gisan, **erratzak** egiteko "escopizo" ugari dagoen tokia da, hots, **isats ugari dagoena**<sup>6094</sup>. **Uzkitarana**-n bertan ere **isats ugari dago**, **labakitu** ez den eremuan.

**Itsas / utsas txandaketa i- / u-** duten hitzen multzoan sartu behar genuke (**hiri / huri**, **ile / ule**, **birao / bu(r)ro**, **Ubillos / Ibillos**<sup>6095</sup>, **idoi / udoi**, **iholde /**

6089 Id., 3. k-bis.

6090 Id., 6. k.

6091 Id., 23. k.

6092 Id., 27. k.

6093 DNEP, 68-69. orr. Orba ibarreko Amatriain herrian **Ychasgoytti** dugu 1759an (PRA-San Martin, 45. k.), **Bezkitzen Ychasgoitia** azaltzen da 1760an (Id., 45. k.).

6094 "Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el Principe Bonaparte" delakoan (K. Mitxelena, SHLV, 298-319. orr.) 'retama' adiera duen **genêt**-en sinonimotzat **Zaraitzuko sats** besterik ez zaigu ematen, eta honek aferesia jasan duenez, ez dakigu hasierako bokal hori zein zen, itxuren arabera **i-** bazen ere.

6095 Ikus **Galipentzuko Inbilos** sarreran esan duguna.

uholde, ugolde<sup>6096</sup>); Mitxelenak dioenez, txistukari aurreko lekunean aldakuntza horren adibide bat baino gehiago dago<sup>6097</sup>:

“hay finalmente varios casos de permutación ante sibilante y ante l o n más sibilante, precisamente donde la nasal o líquida puede ser secundaria”

**Utsaskietarana (prado de), (saso de):**

Gaur **Uzkitarana** [ùθkítarána] ebakitzen den toponimo honetan aztertu berria dugun **Utsaskieta** eta **harana** ‘ibarra’ ditugu: **Uchasquietarana** (1586)<sup>6098</sup>, **Uchasquita arana** (1633)<sup>6099</sup>, **Uchasquieta arana** (1680)<sup>6100</sup>.

Esan den bezala, alderdi guzti hau uretan oso aberatsa da, eta beraz ez da harritzeko **Utsaskietarana**-n ere larrea edo euntzea izatea (egungo **Prado de Uzkitarana**). Honi zor zaizkiola uste dugu XVII. mendean azaltzen diren **Eunçasquita arana** (1634)<sup>6101</sup>, edo **Eunsasquita arana**-ren (1650 eta 1655)<sup>6102</sup> modukoak, alegia, jendeak \***euntze**-rekin erlazionatu bide du, eta hortik XVI. mendeko lehen lekukoetan agertzen ez den hasierako e- hori.

Gaur ibiltzen den forma ere herri-etimologia baten ondorioz sortua da, alegia, zaretarrek Orbako **Uzkita** herri-izena ikusi bide zuten desitxuratzen hasia zen behialako izen gardenean. **Uzkitarana**<sup>6103</sup> aurrenekoz 1645ean ediren dugu, goiz samar hortaz, baina batez ere XVIII. mendean azaltzen da: **Uzquitarana** 1732<sup>6104</sup> eta 1752an<sup>6105</sup>, **Uzquitaran** 1769an<sup>6106</sup>. Tarteko formak ere ugari dira, toponimo honek ha maika aldaera diferente baititu: **Uncazqueta arana** 1632an<sup>6107</sup>, **Uzazquitarana** 1712an<sup>6108</sup>, **Unzazquitarana** 1719an<sup>6109</sup>, **Unzizquitarana** 1733an<sup>6110</sup>.

**Prado de Utsaskietarana Zokozarra**-tik hurbil dago, eta **Saso de Utsaskietarana Saso de la Muga**-tik gertu, antza.

6096 Alfonso Irigoyenek biltzen ditu azken bi txandakatzeak. Ikus autore honen “-Di < -Dui < -Doi berreakilu kolektivoaz eta *Lapurdi, Ilurdoz, Loidi, Lo(b)iola* toponymoen eta *idoia / udoia / iduia* hitzaren etymologiez”, in DRPLV-III, 47-63. orr.

6097 FHV, 75. or.

6098 PRA-Oibar, 3. k-bis.

6099 Id., 23. k.

6100 PRA-Kaseda, 1. k.

6101 PRA-Oibar, 23. k.

6102 Id., 26 eta 27. karpetak, hurrenez hurren.

6103 PRA-Oibar, 25. k. Uzkita ondoan dagoen Bizkaiko Sabaitza herriko **Uzkitarana** Uzkita-z eta **harana**-z osaturik dago, eta ez da, Zareko toki-izena ez bezala, beste zerbaiten desitxuraketa: “En los terminos y muga de la billa de Sabayza y lugr de Uzquita llamados el de Sabayza Uzquitarana y el de Uzquita Cucuariz”, PRA-Kaparoso, 43. k.

6104 PRA-Oibar, 43. k. \*

6105 Id., 57. k.

6106 Id., 67. k.

6107 Id., 23. k.

6108 Id., 33. k.

6109 Id., 36. k.

6110 Id., 50. k.

Utsaskietarana-k Franzesa, Zokozarra, Egoaberokia, Martisatea, Saratsea, El Escopizar, Muga de Aibar eta Prado de la Muga (de Caseda)-rekin mugatzen du.

Val, la:

Oibarko mugako val edo harana zen 1650eko hau<sup>6111</sup>, Baluso segurua asko.

Vergal, cabo el:

Vergal Iribarrenen arabera<sup>6112</sup> zume ugari dagoen tokia da, eta beraz, Zareko Vergal euskal Zumadua-rekin identifikatzeko arazorik ez dago (cf. Vergal / Zumadua Burlatan<sup>6113</sup>).

Gainera El Vergal-en bazeuden lihatzeak, eta hauek, ezaguna den bezala, erreka edo ubideren baten aldamenean egoten dira. El Soto de Zumadua delakoak ere erreka ondoan behar zuen, zalduak ubideen alboan egoten baitira:

“...y para Lope de oyça la (pieza?) de oyanondoa y el linar de cabo el bergal” (1591)<sup>6114</sup>

Vicario (corrales del), (cruz del), (huerto del):

Corrales del Vicario (1591)<sup>6115</sup> hasieran ikusi dugun Corrales del Abad-en adierakidea da (ikus Abad sarrera); Cruz del Vicario herriko behialako Corseras-en dago, Mondela ondoan:

“las corseras del pueblo que comiençan en la cruz del bicario por mondela aRiba” (1593)<sup>6116</sup>

Huerto del Vicario Casa de la Abadía-ren ondoko baratzea da, orain Huerto del Cura deitzen den bera (cf. Huerto del Cura egun, Apeztegibaratzea antzina, Eslaban).

Villa (acequia de), (barranco de), (campo de), la:

Acequia edo Barranco de la Villa herriko iturriko eta estoldetako urek sortu, eta El Arcal aldean Río de Armillos-en amaitzen den erreka da. Campo de la Villa dokumentazioko Auzalorra-ren ordain erdalduna dugu; herriaren ondoan dago, Debajo de las Casas (antzinako Etxepea), Barué, Camino grande (lehengo Bideandía), Bidatza eta Armillos-en artean.

Virgen del Camino (ermita de):

Beste batzuetako Nuestra Señora del Camino bera da:

6111 Id., 26. k.

6112 VN.

6113 J. M. Jimeno Jurfo, ETB, 96-97. orr.

6114 PRA-Oibar, 5. k.

6115 Id.

6116 Id., 7. k.



“otra (pieza)...Junto á la Hermita de la Virgen del Camino” (1773)<sup>6117</sup>

### Xubingoa:

Esan bezala (ikus Eslabako **Xubingoa** sarrera), **Xubingoa zubi** izenaren txikigarria da, oso arrunta Nafarroako alderdi zabal batean. Gure eskualdean, Zaren ezezik Eslaban, Ezporogin eta Morionesen ere azaltzen da; Lergan **Zubingoa** dugu<sup>6118</sup>.

1532ko lehen lekukoak<sup>6119</sup>, dena den, hasierako jatorrizko z-ri eutsi dio, atzizki txikigartiz hornitua egonagatik ere (cf. Lerga); 1591n<sup>6120</sup> sabaiaurreko igurzkaria ordezkatzan duen x-z idatzia aurkitzen dugu. Gero j-dun aldaerak agertzen dira gehienbat, baina behin edo beste s- (1633an<sup>6121</sup>) eta g- (1722an<sup>6122</sup>) ere aurkitzen dugu.

**Xubingoa Camino de Ayesa** edo **Camino de la Tejería-n** zegoen, Río de la Tejería-n seguru asko:

“Mas otra (viña)...en Jubingoa...teniente...a camino que van a la tejeria” (1719)<sup>6123</sup>

### Zaldunardantzea:

**Zaldun** ‘aitonen seme’ eta **ardantzea** ‘mahastia’ ditugu izen honetan (cf. Arroizko<sup>6124</sup> eta Tabarko **Zaldunbidea**<sup>6125</sup>). **Zaldun** hau Zaren jauregia zuen Beorlegiko baroia, bertako jauna eta zenbait ondasunen jabe zen Albako dukea (cf. **Pieza del Duque de Alba** sarrera) nahiz herriko beste edozein handiki izan zitekeen (cf. **Pieza de la Torre de Zabaleta**):

“...en la endrçera llamada caldun ardança” (1587)<sup>6126</sup>

### Zangozabidea:

**Zangoza** ‘Sangüesa’ eta **bidea** ditugu **Camino de Sangüesa-ren** euskarazko baliokidea den honetan (ikus Eslabako **Zangozabidea** sarrera):

“otra peca en Cangocabidea...teniente con...Camino Real” (1623)<sup>6127</sup>

### Zare:

Ikus **Sada** sarreran dioguna.

6117 Id., 69. k.

6118 Uxuen hauen kidea den Zubitxiki dugu.

6119 PRA-Oibar, 2. k.

6120 Id., 5. k.

6121 Id., 23. k.

6122 PRA-Kaseda, 24. k.

6123 IEA, 1748, 10, 72. org.

6124 Lacarra, OV, 254. or.

6125 PRA-Oibar, 102. k., 1827. Kasu honetan, ordea, ‘zaldiz ibiltzen direnen bidea’ izan daiteke, ez nahitaez ‘handikien bidea’, jakina den bezala zaldiz ibili ahal izatea (hots, zaldi baten jabe izatea), eta zalduna ‘handikia’ izatea garai batez loturik egon baziren ere. Cf. Erriberriko 1712ko **Via Cavallera** (PRA-Erriberri, 144. k.).

6126 PRA-Oibar, 3. k-bis.

6127 Id., 20. k.

**Zazu:**

Erdarazko El Saso-ren baliakide euskalduna da:

“otra pieca en çasu” (1614)<sup>6128</sup>

**Zazuburu (alto de):**

Gaur **Zaziburu** [θàθiβúru] deritzana zazu ‘saso’-z eta buru ‘gain’-ez osaturik dago. Hasiera batean alderdiko gaina (egungo Costalado de Balora eta Cuesta de Kiñueta-ren gaineko aldeko Alto de Zaziburu) besterik ez adieraztetik dermio guztia izendatzera igaro zela dirudi:

“otra pieza en zazuburu... Junto al camino que ba a Aybar” (1721)<sup>6129</sup>

Egungo forma 1919an<sup>6130</sup> aurkitu dugu aurreneko aldiz, eta disimilazioaren (edo desitxuraketaren) fruitua da, agi denez.

**Zerkoa:**

**Zerkoa** toki-izenak ‘harresia’ adiera du, eta arrunta da honelako defentsa-erakuntzak izan diren herrietan (cf. El (Barrio) del Cerco Oibarren, **Zerkondoa Artaxonan**<sup>6131</sup>...):

“otra pieza en el terno de Cercoa” (1733)<sup>6132</sup>

Egun El Cerco edo **Zerkoa** zeharo ezezagunak dira Zaren, eta ez dago, itxuraz, harresi-aztarrenik.

**Zokozarra:**

**Zoko** eta zaharra ditugu gaurregun **Zokozarra** [θòkaθá̃ra] ebakitzen den honetan, eta izan ere Oibarko mugako zoko bat da.

“otra pieza en zocozarra en la muga de aybar” (1693)<sup>6133</sup>

**Zumadua (soto de):**

**Zume** ‘zumitza, zarika’-z eta **-dua** arzizki multzokariaz osatua dago 1591ko El Vergal-en euskarazko ordaina den hau.

Zumadiak erreka inguruetan egoten dira, eta zalduak ere bai, eta hortaz ulertzekoa da 1766an Soto de **Zumadua** aurkitzea:

---

6128 Id., 14. k.

6129 Id., 37. k.

6130 Eleizalderen LVTV-en.

6131 J. M. Jimeno Jurío, EETA, 376. or. Mitxelena (AV, 165. or.) zerka aipatzen du, Landuchioren çerquea-n oinarrituz, baina Nafarroan zerkoa dugu.

6132 PRA-Oibar, 50. k.

6133 PRA-Kaseda, 7. k.

“otra Pieza...Junto al molino, que afronta a Camino que se transita por el therno, y Soto de Zumaduia” (1766)<sup>6134</sup>

Zaldu hau oraingo Soto del Arcal (dokumentazioko El Soto) bera zela dudarik ez dugu egiten. Hemen ikus daitekeen moduan, Zumaduia Errotaxarra ondoan zegoen, (Río de) Kiñueta-n:

“un linar en quiñueta...alinda con...termino comun de zumaduia” (1752)<sup>6135</sup>

---

6134 PRA-Oibar, 63. k.

6135 Id., 64. k.



## 19. GURE ALDERDIKO EUSKARA

Hasieran esan bezala, lan honen helburuetako bat “gure alderdia” deitu duguneko euskara deskribatzea, edo behintzat ahalik eta puntu gehien argitzea, izan da, eta horixe egiten saiatu gara herriz herriko toponimiaren azterketaren bidez, alde aurretik emaitzak sobera onak ez zirela izanen jakitun egonagatik ere. Ikusiko denez, gauza asko argitu gabe gelditu dira, eta joskera mailan ondorioak ezinago urriak izan dira. Guztia-rekin ere, toki-izenen azterketak bestela suposatu behar genituzkeen puntuak finkatzeko oinarri ematen digu, eta besterik ezean baitezpadako bidea da hau. Adibidez, gure alderdian Nafarroako beste eskualde gehienetan bezala **gatzelu** esaten zela suposatzen genuen, baina izen hau toponimian aurkitu ezik ez genuen segurtatzen ahal, esaterako, Erronkariko **gatzulu** asimilatua erabiltzen ez zela. Orain, leku-izenen azterketa burutu-takoan, lehen aldaera (**gatzelu**) erabiltzen zela esateko moduan gara.

Segidan datorrena, ez da, pentsa daitekeen bezala, tokian tokiko euskararen une bateko arakatzearen emaitza<sup>6136</sup>, alegia, ez da azterketa sinkroniko bat, honelakorik egiteko materialik ez dugulako, batez ere XVI. mendetik hona dokumentazioan azaltzen diren eta egun bizirik dauden toki-izenetatik atera ditugun hizkuntz-ondorioak baizik. Antzinagoko gauzak ere sartu ditugu hemen, mailegu zaharrek (latinetikakoek eta) nola-ko jokabidea zuten nabarmentzea interesgarri iruditu baitzaigu.

Jakina denez, toponimian fosil eta forma zaharkitu anitz gordetzen dira<sup>6137</sup>, eta leku-izenetan edireten den hitz oro ez da nahitaez azaltzen den garaiko hizkeraren erakusgarri. Hortaz, aurkitzen ditugun hitzetako batzuk aldi joaneko mintzairaren aztarna dirateke, ez, ezinbestean, XVI. mendeaz geroztikako formak.

Bestalde, egia da toponimian tokian tokiko hizkeraren berezitasunak agertzen direla, eta adibidez herri batean eskuarki bokal-armonia egiten bada bertako leku-izenetan ere sarri azalduko dela, agiritako tradizioak indar handia izan arren. Hortaz, toponimoetan edireten ditugunak hizkera arruntaren isla dira gehienetan, eta gure eskualdean aipatu bokal armonia aurkitzen ez badugu egiten ez zelako da, zeren bestela beti izaten

---

6136 Zoritxarrez ez dugu gure eskualdeko mintzairaz idatzitako testu txar bat ere.

6137 Forma zaharkitu hauek dira neurri handi batez azterketa etimologikoa oztopatzen, galgatzen eta are zeharo galerazten dutenak. Argi egiteko biderik egokiena, gure irudiz, leku askotako toponimia zehatz-mehatz aztertzea da, alde-eiteak ikusi eta ondorioak atera ahal izateko.

da, dokumentazioaren kontserbazaitetasuna gorabehera, eguneroko hizkeraren tantak isurtzen diren zirrikituren bat.

Gure alderdia ukipen eremua izan da aspaldidanik, eta euskararen galera XVIII. mendean burutu bazen ere<sup>6138</sup>, euskararen ahultzea eta eritzea lehenagoko kontua da seguru asko. Honek beranduago arte euskaldun iraun duten beste eskualde batzuetan gauzatu diren gertakari fonetikoak hemen gauzatzea galeraziko zuen, eta gure hizkuntzak mende bat gehiagoz eutsi izan balio beharbada agirietan azaltzen ez direnak azalduko lirateke.

Herrietako mintzairaren azterketa hizkuntz mailatan antolatatu dugu, gauzak argiago azaltze aldera, eta herriak alfabetikoki sailkatu ditugu. Hona hemen beraz:

## AGEZAKO EUSKARA

### 1-Fonetika-Fonologia maila:

#### 1.1-Bokalak:

##### 1.1.1-Irekitzea:

-Ez da e -> a / - ĩ betetzen, alegia, erdiko bokala dardarkari anizkunaren ([ĩ]-ren) aurrean dagoenean ez da irekitzen: **Aranbazterra**.

##### 1.1.2-Hersketa:

-[eč] > [ič] hersketa kasu batean burutu bide da (ikus 1.2 puntuko **Mochuelo**).

-Hitz bukaeran -o > -u gertatzen da komunzki maileguetan, erromantzearen eraginez euskaraz -o ere aurkituagatik: **portillo** > **portillu**, **puntallo** > **puntallu**, **txipo-** > **txipu-**<sup>6139</sup>, **paso**<sup>6140</sup> > **pausu**, **saso** > **zazu**<sup>6141</sup>.

-[loa] > [lua] (edo, [oá] > [wá]): **Joanjuibela** (1592)/ **juanisguibela** (1631).

##### 1.1.3-Elkartuaren lehen osagaiaren azken bokala:

Elkarketan lehen osagaiaren azken bokalak apofonia jasan du sarri gure eskualdean. Agezan dugun kasu bakarra 1605eko **Ossaçuloa** da.

##### 1.1.4-Asimilazioa:

-**Mochiturriaga** (1576) > **\*Motxuturriaga** > **Muchuturriaga** (1710, 1720)<sup>6142</sup>.

6138 Ikus **Euskararen mugak** atala.

6139 Hau, dena den, dudazkoa da, -o > -u hersketa -oe- > -ue- testuinguruan (**Txipueta** toponimoan azaltzen da zuhaitz-izena) ere burutu ahal izan delako.

6140 Ikus **Dermio baten zatiketa** atalean honetaz dioguna.

6141 **Zazu** zuzenean latineko saxu-tik atera bada ez da hersketarik gertatu. Kasu berean dago **pausu** (< **passu**?).

6142 Azken hau sorburuko **Mussiturria**-ren oinordekoa izan liteke, baina data uste honen kontra mintzo da.

## 1.1.5-Disimilazioa:

-Disimilazioa izanenezake **Onborduya** (1563az geroztik) / **Emborduya** (1820tik aitzina)-n, baina bigarren honetan desitxuraketa ikusi nahiago dugu, agertze-data aintzat harturik. Antza duenez, gertakari bera (disimilazioa, alegia) dugu **chopo** > \***txipo**- > **txipu**-n (**Txipueta** toponimoan).

## 1.2-Diptongo eta hiatoak:

-Diptongo hauek ditugu Agezako euskal leku-izenetan: [au] (**Arrixauzkieta**, **Arrixauzkuneta**<sup>6143</sup>, **Lausitu**), [eu] (**Euntzeberri**) (?)<sup>6144</sup>, [wa] (**Juandonejuanisguibelea**, 1631), [we] (**Txipueta**)<sup>6145</sup>.

-[au] > [wa] bide dugu \***Jaun Done Joanisgibela** > **Juandonejuanisguibelea**-n (1631).

-[wé] > [ú], [é] laburketa dugu **Motxuelokant(u)(a)** > **Mochulucanto** (1605), **Mochelucanta** (1657)-n. Hondar honetan -e- > -i- hersketa gauzatu ([č]-ren aitzinean beste batzuetan agitu ohi denez. Cf. **etxe** > **itxe** hedatua), eta 1597ko **Mochilo**- eta 1692ko **Mochilu**- atera direla dirudi.

## 1.3-Bokal batze, erortze eta garatzea:

## 1.3.1-Aferesia:

-**Erresorreta** (1593) > **Resoleta** (1782)<sup>6146</sup>.

## 1.3.2-Anaptisia:

-**Gurutzeta**<sup>6147</sup>.

## 1.3.3-Bokal bategitea:

-aa- > -a-: **Erreca andia** (1591), **Errecaandia** (1594) > **Errekandia** (**Rekandia** edo **Rakandia** orain); **Santa Marina aldapa** (1594) > **Santamarin aldapa** (1598).

-\*ae- > -e-: **Guindertea** (1614)

-ee- > -e-: **Biderchiburua** (1777), **Biderchi** (1830), baina -ee- > -ee- dugu 1736ko **Videerchiburua**-n.

-oe- > -e-: **Erresorreta** (1593); \***Oliboeta** > **Oliveta** (1788)...baina **Er-laiondoeta** (1538).

6142 Azken hau sorburuko **Mussiturria**-ren oinordekoa izan liteke, baina data uste honen kontra mintzo da.

6143 Ez dakigu nola ebakitzen ziren bi izenok, baina itxura guztien arabera [au] zuten, egungo jauzi-k bezala.

6144 Hau ez da segurua. Ikus, esaterako, **Echaidek** bildu dituen izen honen **Larraun** eta **Arakilgo** ebakerak, **EENEL**, 102. or.

6145 Jatortziko ebakera hiatoduna izan zitekeen, baina egungo **Txupéta** [čupéta] lortzeko **Txipueta** [čipwéta] suposatu behar dela uste dugu. Hau, halaz ere, euskara ahuldu zeneko ebakera izan daiteke.

6146 Hau erdararen eraginari zor zaio.

6147 **Gurutze** hitzaren anaptisia XVI. mendearen aurretikoa dela esan beharrik ez dago, beste herri batzuetako erreka-ren bokal protetikoa bezala, kasu.

## 1.3.4-Sinkopa:

-Itxuraz azentuaketa azkarraren eraginez, e-ren sinkopa dugu **Nobeleta** (1588) > **Nobleta** (horrez gerotzikako agerraldietan)-n<sup>6148</sup>. **Tastaran** > **Trastan** pausoa sinkopa (\***Tastran**) eta metatesia (**Trastan**) burutu bide dira.

## 1.4-j-ren bilakaera:

-Beste herri batzuetan bezala hemen ere [j]-dun eta [j]-rik gabeko aldakiak ditu saihets izenak: **Nobeleta saïssa** (1592) / **Nobletasaïssa** (1596).

## 1.5-Kontsonanteak:

## 1.5.1-Bustidura:

-Jatorrizko [in] ez da bustitzen: \***Errekineta** > **Raquineta** (1831); **Arguinen erreca** (1583), **Arginenerreca** (1596)... Azken toponimo honek, halere, baditu ñ-dun lekukoak (1720, 1774).

-[in] aldiz [iŋ] bilakatzen da [inV] testuinguruan: **Ariscotamendigaña** (1632).

-Horzkari ahostuna ez da sabaikaltzen [indV] segidan, dugun adibide bakarrean: **Gindertea**.

-[isV] testuinguruan txistukari bizkarkaria ez da bustitzen: **Gaicari** (1586). Alabaina, aldaera honetako diptongoa sekundarioa dela dirudi.

-[isC] > [isC] dugu Agezan: **Arizketa**, **Bizkarranportillua**.

-Herskari horzkari ahoskabea ez bide da sabaikaltzen [itV] segidan: **yurricarra** (1649), **Ituzarra** [ituθāra] edo **Utizarra** [ùtiθāra] orain.

-Hortz-hobietako igurzari bizkarkaria ([s]) sabaikaldu egin da elkartuaren bigarren osagaiaren hasieran zar 'zahar' izenondoan, **Kapanaxarra** (**Capanajarra** idatzia 1630ean)<sup>6149</sup> toponimoan.

-Jatorrizko [j] [š] bilakatzen da hitz (edo morfema) hasieran: **Arrixauzkietea**, **Arrixauzkuneta**. Ez beti, halere: **jaun** aposizioa [xáun] ebakitzen zela dirudi, Eslaba eta Lergan bezala. Hau berau gertatzen bide zen Nafarroako beste toki batzuetan, Arakilen, esaterako<sup>6150</sup>. Honetan, agian, Elizaren eta erlijoaren eragina ikusi beharko dugu.

-Erromantzetikako maileguetan [j] gorde egiten da: **Aranportillua** > **Aranportilla**, **Lanportilla**; **Gueçariportillua** (1594), **Lausitu portilloa** (1657)<sup>6151</sup>. [j] ere gordetzen da: **Puntallu** (1603), **Puntallua** (1695)...

## 1.5.2-Herskariak:

-Herskari ahostunak ditugu hitz hasieran: **Balarata**, **Gesaliturri**, **Gezari**, **Gurutzepea**...baina ahoskabeak ere bai: **Kanpobarrena**, **Kapanaxarra**, **Kostarangurbea**, **Parrala**, **Tipulatzea**, **Tipulatzeta**.

6148 Toponimo honen aurrean lekukoa den 1547ko **Nobleta**-n ere, ordea, sinkopa gauzatu dela ikusten dugu.

6149 [x]-z ere pentsa genezake, eta izan ere hau da Leatxeko **Mendixuri**-ren ondorengoa den **Mendijuri** [mèŋdixúri]-n izan duguna. Eslaba eta Lergan, ordea, [šj] dugu, lehenagoko [š] baten ordezkotzat: **Rotasiar** [ròtašjār] bi herrietan.

6150 Ikus FHV, 170. or. eta hurrengoak.

6151 1774an, ordea, **Lausitu portillua** dugu.

6152 Alabaina, honela balitz ez genekike -l- > -r- aldakuntza zergatik ez den burutu (cf. Uxueko **Akirazabal**). Ikus Agezako toponimia aztertzean dioguna.



-Bokalarreko jatorrizko belare ahoskabea gorde egiten da, euskararen eraginez agian<sup>6152</sup>: **Aquilar**.

-g / -k txandakatzea aurkitzen dugu txistukari ahoskabe ondoan: **ArriJausguneta** (1594) / **ArriJauscuneta** (1596).

### 1.5.3-Ezpainkariak:

-b- > m- pausoa dugu **Balarata** (1537) > **Malagatta** (1705)-n (**Balagata** edo **Malagata** egun. Cf. Galipentzuko oraingo **Balarata**).

-m-z hasten diren toki-izenak baditugu, baina **Mendi-z** beste guztiak maileguak dira: **Merkatu** edo **Merkatubidea**, **Mochuelo canta** (1585) edo **Motxilukantoa**, **Motxiturria** edo **Motxiturriaga**.

-f-z hasten den leku-izen euskaldunik ez dago.

### 1.5.4-Txistukariak:

-[ś], [s], [š], [ć], [c] eta [č] genituen Agezan.

-Hitz hasieran s- eta z- ditugu, baina tx- ere agertzen da: **Txipueta**, **Txurrua**. Hauetako lehena mailegu garbia da.

-Maileguetan hortz-hobietako igurzari apikaria bizkarkari bikakatzen da, bai hitz hasieran (**Zazugibela**), bai hitz barruan (**Gezari**<sup>6153</sup>).

-Jatorrizko \*[ś] [š] bilakatu da lehenik, bokal sabaikariaren aitzinean, eta [č] gero, beste anitzetan bezala: **Mussiturria** (1060) > **Mochiturriaga** (1576).

-[ś] eta [s] ditugu morfema beraren aldaki diren **gesal** eta **gezari**-n.

-[ś] / [s] zalantza dugu **Arrixauzkuneta**-ren aldaketan, herskari aitzinean: **ArriJausguneta** (1594), **ArriJauscuneta** (1596), **ArriJauscuneta** (1605), **Arrixauzkuneta** (1706).

### 1.5.5-Sudurkariak:

-n-z bakarrik **Nobeleta** eta honen eratorriak hasten dira.

## 2-Morfologia maila:

### 2.1-Deklinabidea:

#### 2.1.1-Leku-genitiboa:

-Singularrean -(e)ko dugu: **Araneko erreka**, **Ardantzebarrenetakoiturrieta**<sup>6154</sup>.

#### 2.1.2-Genitiboa:

-Singularrean -aren bide dugu (**Arguiñaren erreca**, 1774), eta honetatik atera diren -an (**Arguinanerreca**, 1710, **Arguiñanerreca**, 1720), eta -ain (**Aguinainerreca**, 1723). Guzti hau oso dudazkoa da, eta -aren / -ain batetik edo -aren / -an bestetik batera aurki badaitezke ere, zailago iruditzen zaigu jatorrizko forma (-aren) eta honetatik atera

6153 Azken honetan -s- > -z- gertatu dela onartzeko lehenik oinarrian -s- zegoela onartu beharko da. Ikus FHV-ko 560. orrialdean Mitxelenak dioena.

6154 Toki-izen mustro honetaz besterik ez bagenu, hemen **Ardantzebarrena**, leku-denborazko genitiboaren pluraleko morfema den -etako eta **Iturrieta** genuela pentsa liteke, baina **Ardantzebarreneta** ere azaltzen da, eta honek -etako gabe -ko dugula esan nahi du.

diren aldaera laburtuak (-an, -ain) toki berean azaltzea, bereziki pluraleko morfemaren (Arguinen erreca, 1583) eta forma elkartuaren (Arguinerreca, 1781) ondoan.

-Pluralean Arguinen erreca dugu 1583an eta Arguinerreca 1596an.

## 2.2-Elkarketa-eratorketa:

2.2.1-lehen osagaiaren azken bokalaren erortzea eta azken lekunean gelditu kontsonantearen aldatzea:

-Usuebide (1536)... > Uxubide (1570), Ussobidea (1586).

-Errepidea, Erresoreta.

-Iturritea, Iturzarra. Dena den, bigarren leku-izenean bi aldaerak (iturri eta itur-, alegia) ditugu, eta Iturritxiki-n izenaren forma osoa azaltzen da.

### 2.2.2-Atzizkiak:

-aga: Udareaga.

-ari (?): Gezari (cf. Berari, Erronkari, Igari...)<sup>6155</sup>.

-ar: Izkoarra.

-dui: Onborduia.

-eta: Tipulatzeta, Txipueta...

-iz (?): Garroiz.

-gin: Harginen erreka.

-gun(e): Arrixauzkuneta.

-kin dugu, ez -ki: Errekineta.

-ko: Artekoa<sup>6156</sup>.

-tza: Zabaltza<sup>6157</sup>.

-tze: Lezkatzea, Tipulatzeta, Tipulatzeta.

### 2.2.3-Hitzen forma:

-Agata, ez Agueda.

-handi dugu Agezan, ez haundi: Errekandia.

-erte eta arte ditugu, batera: Gindertea, Ardantzeartea, Iturriarte.

Arruntena artea da.

-ertxi dugu, ez itxi, eta ez, itxuraz (ezin dugu segurtatu), ertsi: Bidertxi.

-gesal eta gezari ditugu, batera: Gesaliturria, Gezari.

-ginda ageri da, ez inda, drinda, dinda...: Gindertea.

-Joanis, ez Joaniz...<sup>6158</sup>: Juandonejuanisguibelea.

-kanta eta kantoa<sup>6159</sup>: Mochilocantoa (1597), Mochelucanta (1657).

-onbor dugu, ez enbor...: Onborduia.

-txiki, ez txipi: Iturritxiki.

-zar eta -xar agertzen dira, azken hau elkartuaren bigarren osagaian bakarrik:

**Iturzarra, Kapanaxarra.**

-zorrotz, ez txorrotx: Puntazorrotza.

-zulo, ez zilo: Otsazuloa.

6155 Ikus, hala ere, Agezako Gezari sarreran dioguna.

6156 Ez dago garbi, halaz ere, toki-izen honetako -ko hori atzizki txikigarria den ala leku-denborazko genitiboa.

6157 Leku-izen bakarrean aurkitu dugu eta ez da segurua.

6158 Hagionimo honen lekuko gutxi ditugu, eta Joanis aurkitua halabeharreko kontu hutsa izan daiteke.

6159 Ez dakigu hauetako lehena izena den ala aditza.

## 3-Semantika maila (biztegia):

## 3.1-Izenak:

Agata 'Agueda', aldapa, ardantze, arte, ate 'portilua', bazter, bide, bizkar 'mendi-gainaldea', buru 'gaina', errege, erreka 'barranco', errekin<sup>6160</sup> 'erretako oihan puska', errepide 'camino real', euntze 'larrea', gesal, gezari 'gatz asko duen lurra', gurutze, haran, haritz, hargin, hiri 'herria', hodi(a) 'errekastoa', iturri, (Jaun Done) Joanis '(San) Juan', kanpo 'landa' 'alorra', kanto 'kantua', kapana 'etxola, igurai-etxola', kaskailu, laku 'lintzura', lezka, lezkatze, mendi, merkatu, motxelu, motxilu 'mozolo', nobela 'ardantze berria', olibo 'olibondoa', onbor 'enbor (ebaki)a', otso, parral, pausu, portilu, presa 'uharka'<sup>6161</sup>, punta, puntallu, soro 'alorra', tipula, tipulatzte 'tipula-soroa', txipu (edo txipo) 'makala', txurruta 'errekasto (xut?)a', udare 'udareta, udareondoa', Uxue, zabal 'zabaldia', zazu 'goi-lautada kaskailutsua', zulo 'sakan txikia'.

## 3.2-Izenondoak:

Berri, ertxi 'estua', handi, zar edo -xar 'xaharra', zorrotz.

## 3.3-Aditzak:

Erre, xau(t)zi, xau(t)si 'erori'.

## 3.4-Posposizioak:

Agerrri, alde, arte, barren, buru, gain, gibel, goien, ondo, pe, saihets.

## ALDEA, EPAIZ, ETA LERGA

## 1-Fonetika-Fonologia maila:

## 1.1-Bokalak:

## 1.1.1-Irekitzea:

[-eĩ] > [aĩ] gertatu da behin: **Aquerregui** (1593) > **Acarregui** (1800. urteaz geroztik). Dena den, ez dakigu hemen euskaraz arrunta den dardarkari anizkunen ondoko e-ren irekitzea dugun, edo halaberrez honekin bat datorren erdarazko desitxuraketa, egungo -a-dun aldakia lehen aldikoz 1800. urtean azaltzen denez gero.

Kasu berean dago, gure ustez, 1594ko **Mondacoerrequina** > 1761eko **Mondacoerraquina**, hemen apofonia jasandako aldaera ere izan genezakeen arren.

## 1.1.2-Hersketa:

-o > -u izan dezakegu pausu izenean, erromantzeko **paso-tik** hartu bada, eta ez latineko **passu-tik**. Hersketa hau garbiago ikusten da erdaratikako **portilu-n**.

<sup>6160</sup> Errakin ere izan genezake. Ikus Errekineta sarrera.

<sup>6161</sup> Ez dakigu seguru euskaraz erabiltzen zen. Cf., dena den, Eslabako **Presaldea**.

-Hersketa dukegu artikuluairen aitzinean: **Yturgutiagua, Yturloyagua** (1529).

-Sanditume hagianimoan ere o > u dugu, ziur asko ondoko herskari ezpain-kariagatik (cf. **Dekuma**. Ikus Galipentzuko **Dekumazarra**-n dioguna).

-[ea] > [ia] (> [ja])-ren kasu pare bat dugu. Ez dakigu lehena euskararen barrukotzat jo behar den, berandu azaltzen baita: **Alor + meharra > Alor miarra** (1700) > **Lumbierra** (1897) > **Lalunbiarra** (egun). Bigarrean [ia] edo [ja] dukegu: **Baraçandia** (1591) > **Baraçandia** (1593).

### 1.1.3-Elkartuaren lehen osagaiaren azken bokala:

Apofonia izan dezakegu 1648ko **Auçalorra**-ren azpian, alegia, leku-izen hau **auza-** + **alorra**-tik atera zitekeen. Kasu berean dago, 1693ko **Pasasagarra**, guk uste bezala **Basasagarra**-tik atera bada. Aldakuntza segurua da **Bidaburua** izenean.

### 1.2-Diptongo eta hiatoak:

-Honako diptongo hauek ditugu edo genituen euskal leku-izenetan: [au] (Auzalorra, Abaizpau), [eu] (Aldeko euntzea) (?), [aj] (Abaitzabal, Epaizaran, Ikaiburu), [je] (Arridokieta, Mondakieta), [wa] (Juandere Petre beroquia, 1708, Juandepetri [xwãndepétri] orain), [wi] (Liçarduy, 1615ean, Lizarduia [liθãrdúya] egun).

-Beste herri askotan bezala, hemen ere diptongo sekundarioa dugu **pausu** izenean.

-Jaun elementu alboratua duten hagianimo guztietan [au] > [wa] gertatu da.

### 1.3-Bukaerak:

-\*-ani > -ai dugu: **Iguraimendi(ko)a**.

### 1.4-Bokal batze, erortze eta garatzea:

#### 1.4.1-Aferesia:

-**Recaldea** (1593), **Requinmasterra** (1815)<sup>6162</sup>, **Rotavidea** (1840az geroztik)<sup>6163</sup>.

#### 1.4.2-Apokopea:

-\***Zamakidui** > **Zamakidu**.

#### 1.4.3-Anaptisia:

-**Gurutzealdea, Sandiandore** (ikus **Leatxe**).

6162 Hau euskara galdu ondorengo aldakia da, eta beraz aferesia ezin dugu gure hizkuntzaren barruko gertakartzat aitortu.

6163 Aurrekoaren kasu berean dago hau.

## 1.4.4-Bokal bategitea:

-aa > a: Auçalorra (1648)<sup>6164</sup>, Recaldea (1593), Errecaldea (1605), Sandagata, Txirrialdea (cf. Txirriaburua. Cf., gainera, Juan de Beriaynen chirriaca 'a chorros').

-ii > i: Yndusituria (1686).

## 1.4.5-Protesia:

-Errepresa barrena (1550).

## 1.4.6-Sinkopa:

Sinkopa dugu 1545 eta 1693ko **Andrenobela**-n. Honekin batera, ordea, **Anderenobela** ere agertzen da. Toponimo honen bigarren osagaia ere sinkopatua aurkitzen dugu 1715eko **Andenobla** eta 1761eko **Andrenobla**-n. Alabaina, hauek erdara-  
ren eraginari zor zaizkiola suposa ere daiteke (cf., dena den, Agezan eta Leaxen honetaz dioguna).

## 1.5-j-ren bilakaera:

Lergan saetsa dugu, alegia, [j] galdu duen aldaera.

## 1.6-Kontsonanteak:

## 1.6.1-Bustidura:

-[inV] zegoen-zegoenean gordetzen da, busti gabe: **Arriurdinaga** (1593), **Arriurdinaga** (1615), **Arriurdina** (1693), **Buztineco aldapa** (1613), **Erraquina** (1788), **La requina** (1801), **Larrekina** [lãrekína] egun, **Jndusialcina** (1587), **Yndusiayçinea** (1588), **Yndusiaizina** (1692), **Lasalzina** [lãsalθína], **Sanzina** [sãnθína] edo **Lasanzina** [lãsanθína] orain, **Mondacoerrequina** (1594), **Mondacoerraquina** (1761).

-[inV] > [ŋV] dugu: **Arrakoagaña**, **Errekagaña**, **Yturgaiña** (1537)<sup>6165</sup>, **Murugutigaña**, **Urkabegaña**.

-Horzkari ahostuna ez zen sabaikaltzen [indV] testuinguruan: **Indusi** [inðúsi], **Indusigibel**, **Indusialzina**...

-Horzkari ahoskabea ez da bustitzen [itV] segidan: **Iturralde** [ituřálde], **Malliyturri** (1693), **Maiturri** [majtúri]

-[s] ez da sabaikaltzen [isV], [jsV] testuinguruetan: **Epaizaran** (**Paizaran** [pãjθarãn] orain), **Lizarrandia** [liθarãndía], **Lizarduia** [liθarðúya].

-Hitz hasieran j [x] dugu 1682ko **Jaureguizar** eta 1761eko **Juandejuanizguibel**-en.

-Elkartuaren bigarren osagaian -xar aurkitzen dugu, -zar-ekin batera: **Errotaxaraldea** (1609), **Erota siar** (1740), **Errotazar** (1769), **Rotasiar** [rõtasjár] gaurregun.

6164 Auzaalorra-ren modukorik ez dugu opatu, eta beraz baliteke bategitea oa > a izana.

6165 Ez dakigu in grafia-  
ren azpian zehazki zer dagoen, baina [ŋ] hursa dugula kontu egin daiteke, nahiz hau ez den segurua, jakina.

-1565eko **Muniquozoroz Municochoroch** da 1668an; bigarren osagaia bustia duten aldaerak ugariak dira XVII. mendeaz geroztik, eta soinu sabaikaria dugu egungo **Mundotxokorro** [mũndočokořó] desitxuratuan. Tarteko **-ko** atzizki ustez txiki-garriak bustitze adierazgarri baten aitzinean gaudela pentsarazten digu.

-1594ko **Çubingoa**-n atzizki txikigarria agertuagatik hasierako txistukari bizkarkaria ez da sabaikaltzen, gure eskualdean eta hemendik kanpo ohizkoa denaren aurka.

-Erdaratikako maileguetan jatorrizko [j] bere horretan gordetzen da: **Aldeco cascallua** (1594), **Aldecocascallua** (1609), **Cascallu** (1588), **ARojaportillua** (1591)...

#### 1.6.2-Hasperenketa:

Bokal arteko **-h**-ren ordezkari belare ahostuna dugu **Lergan** aho izenean: **Yturgutiagua** (1529), baina ez **lohi**-n: **Yturloyagua** (1529)<sup>6166</sup>.

#### 1.6.3-Herskariak:

-Hitz hasieran herskari ahostunak aurkitu ohi ditugu: **Burunda**, **gaztelu**, eta kasu batean **b** -> **p**- bide dugu: **Basasagarra** > **pasasagarra**. Lehen aldaki hori, ordea, ez dugu **Lergan** opatu. Hasierako lekunean herskari ahoskabea ere agertzen da: **Jaun Done Petri**.

-Sudurkariaren ondoan herskari ahostuna dugu: **Andua**, **Indusi**, **Jaun Done Mikendi**, **Monda**, **Sandagata**<sup>6167</sup>, **Sandiandore**, **Sanditume**.

-l-ren ondoan ere herskari ahostuna ageri da: **zalduburu**.

-Hitz barruan herskari ahoskabea azaltzen da **Juan de Salvattore** (1773), **Salbatori** [šalbatóri]-n.

-Txistukari ahoskabe atzean belare ahostuna ez da ahoskabetzen **JuandeJuanizguibel** (1761) leku-izenean.

#### 1.6.4-Ezpainkariak:

-Sudurkari asimilazioz **b** -> **m**- dugu **Jaun Done Mikendi** hagianimoan.

-m-z hasten diren leku-izen euskaldun hauek ditugu: **Malliturri**, **Mikendi**, **Monda** eta eratorriak, **Moraga**, **Munikotxorrotx**, **Muru** eta eratorriak.

-f-z hasten den leku-izen euskaldunik ez dago.

#### 1.6.5-Txistukariak:

-[š], [s], [š], [č], [c] eta [č] genituen **Lergan**.

-[c] > [s] aldakuntza dugu herskari aurrean: **Arizkomendia**, **Iturrozko al-dapa**.

-Latineko s ([š]?) z [s] bilakatzen da euskaraz: **Gazteluondoa**, **Gaztelusaietsa**, **Jaun Done Joanizgibel**, **Zalduburu**. Ez beti hala ere: **Salbatore**. Azken hau besteak baino mailegu berriagoa dateke.

-Hitz barruan s [š] / z [s] aldizkatzea dugula irudi du **Jndusiguibel** (1587) / **Ynduçiguibel** (1588)-en. Arruntena, dena den, apikaridun aldakia da, eta egun ere apikariz ebakitzen da.

<sup>6166</sup> Cf. Bizkaiko Loia herri-izena.

<sup>6167</sup> Agirietan **Santagata** ere azaltzen da, hots, s egungo aldaera ([šantagáta]).

-Hitz hasieran [š] eta [s] agertu ohi dira: **Sarga**, **San(t)soain-**, hagianimo guztiak, **Zabal**, **Zalduburu**, **Zamiki...** baina [č] ere bai: **Txaparduia**, **Txirrialdea**, **Txutxu** (< **Sutxu-tik**). Azken honetan, jatorriak jatorri, garbi dago afrikatuak hitz hasierako igurzkaria asimilatu duela.

#### 1.6.6-Sudurkariak:

-Ikus 1.6.4 puntua.

-n-z hasten den leku-izen euskaldunik ez dago.

-Bokal arteko hortz-hobietako sudurkaria erori egin da **harea** izenean (**Areatzea** toponimoan).

#### 1.6.7-Albokoak:

Latineko l geminatua l da euskaraz: **gatzelu**.

#### 1.6.8-Dardarkariak:

Errotazismoa izan daiteke egungo **Irazar-en** erantzulea, alegia, **\*Ido(i)zar-**etik atera ahal izan da.

### 2-Morfologia maila:

#### 2.1-Deklinabidea:

##### 2.1.1-Leku-genitiboa:

-Singularrean -(e)ko dugu: **Aldeko euntzea**, **Aldeko harana**, **Aldeko kaskailua**, **Anduko mendia**, **Anduko pausua**, **Araneko aldapa**, **Buztineko aldapa**, **Indusigibeleko pausua**, **Indusiko aldapa**, **Indusiko sarga**, **Txutxuko berokia**, **Udare-luzekoa**, **Uxueko oihanondoa**.

-Pluralean -etako genuela dirudi: **Aitzetako aldapa**, **Urretako erreka**. Guztiarekin, hauen oinarrian **\*Aitzeta** eta **\*Urreta** toponimoak ere izan genitzake.

##### 2.1.2-Genitiboa:

-Singularraren morfema -aren zen: **Pikeroaren berroa**.

#### 2.2-Elkarketa-erartorketa:

##### 2.2.1-Lehen osagaiaren azken bokalaren erortzea:

-**Yturgaiña** (1537); **Yturgutiagua** (1529); **Iturloyagua** (1529).

##### 2.2.2-Lehen osagaiaren azken kontsonantearen erortzea:

-**Ubitarte**.

##### 2.2.3-Atzizkiak:

-**aga**: **Arriurdinaga**, **Odiaga**.

-**dui**: **Arantzeduia**, **Lizardui**.

- egi: Akerregi.
- eta: Arridokieta.
- ki (?): Zamiki.
- kin: Errekina, Errekinbazterra.
- ko: Areamendikoa, Arizkomendia.
- ngo: Zubingoa.
- oki (?): Akerregiberokia.
- sko (-xko?): Iturriskoa.
- tsu (??): Txutxu<sup>6168</sup>.
- tze: Aldeko euntzea, Areatzea.

#### 2.2.4-Hitzen forma:

-aizin edo alzin<sup>6169</sup>: Jndusialcina (1587), Yndusayçinea (1588).

-Aldea-ren azken -a artikulutako hartu izan da euskaraz: Aldeko kaskailua,

Aldeko muga.

-handi, ez haundi: Baratzeandia, Mendiandia,

-harea, ez hare: Areatzea.

-nobela eta nobla agertzen dira, lehena 1715 arte, eta bestea data horretatik aitzina (ikus Anderenobela).

-txiki, ez txipi: Sototxikia.

### 3-Semantika maila:

#### 3.1-Izenak:

Abaiz, Agata 'Agueda', aker, aldapa, Aldea (-a), alor, altxunbide, andere, andre, arantze 'elorria', arantzedui 'elordia', arroi(a) 'arroila', arte, auzo, baratze, baso (?), bazter, beroki, berro 'labakia', bide, bitarte, buru 'gaina', buztin, Epaiz 'Abaiz', erreka, errekin 'erretako oihan puska', errepresa 'uharka', errota, euntze, gurutze, haitz, haran, harea, hareatze, harizko 'haritz txikia', harri, hiri, hodi 'errekastoa', hotz, hur 'hurra, hurrirtza', igurai 'oihanzaina', ikai 'aldapa', ipar, iturri, iturrisko<sup>6170</sup>, (Jaun Done) Joaniz '(San) Juan', kaskailu, labe, larrain, lizar, lizardui, lohi, lur, mendi, mendiko 'mendittoa', Mikendi 'Bikendi', muga, muru 'gaina', nobela, oihan, Oleta 'Olleta', pausu, Petri, pikero 'udal-artzaina'(?), sagar 'sagarra, sagarrondoa', Salbatore, San(t)soain<sup>6171</sup> 'Sansoain', sarga 'sasitza' (?), soto<sup>6172</sup>, su (??), Tume 'Tomás', txapar, txapardui, txirria, urkabe 'urka', Uxue, zabal 'zabaldia', zaldu, zerrado, zubingo 'xubingoa', zulo.

#### 3.2-Izenondoak:

Berri, bitarte (?), guti 'txiki', handi, idoki 'aterea, erauzia'<sup>6173</sup>, hotz, lohi 'zikina', luze, mehar, txiki, urdin, zabal, zar eta -xar 'zaharra'.

6168 Ez dugu sekulan ss-z idatzia aurkitu, eta hau proposatu etimologiaren kontra mintzo dela garbi dago.

6169 Ez dugu soinu afrikatuz ebakitzen zelako frogarik.

6170 Behin bakarrik azaltzen da. Txistukaria sabaiurrekoa izan liteke.

6171 Ez dugu afrikatuz ahoskatzen zelako frogarik.

6172 Ez dakigu behin-behineko mailegua zen edo hizkuntzan sustraitutako hitza.

6173 Hau arkaismo bat izan zitekeen Lergan, egun Zumaian den bezala (ikus Lergako Arridokieta sarreran dioguna).



## 3.3-Aditzak:

Erre, idoki 'atera, erauzi'.

## 3.4-Posposizioak:

Agerri, aizin edo alzin, alde, barren, buru, gibel, goien, ondo, pe, saets.

## 4-Azentuaketa:

Sinkopa dateke gure alderdiko hizkeraren azentuaketa azkarra salatzen duten zantzuetakoa bat. Lergan *andre* izenean aurkitzen dugu, baina ez, espero genuenaren kontra, *nobela*-n, berandu (1715ean lehenengoz) ez bada.

## ESLABAKO EUSKARA

## 1-Fonetika-fonologia maila:

## 1.1.-Bokalak:

## 1.1.1-Irekitzea:

Ez da [eɾ] > [aɾ] gertatzen, antza: *Piper ariça* (1602)<sup>6174</sup>.

## 1.1.2-Hersketa:

-pausu arruntean izan genezake (ikus Aldea), eta segurua da *portilu*-n eta *kaskailu*-n.

-[e] > [j] bide dugu *Eode* (1572) > *Yode* (1586)-n.

-[a] > [e] dugu *Apaiz* > *Epaiz*-en. Hau disimilazioaren fruitu dela dirudi.

## 1.1.3-Elkartuaren lehen osagaiaren azken bokala:

Apofonia dugu honako leku-izen hauetan: *Artadu*, *Artamaldeta*, *Bidaburua*, *Bidapea*, *Bidazarreta* (1560), *Larrasoil*, *Echaberri* (1602), *Echaberria* (1609), *Zumaduieta*.

## 1.1.4-Disimilazioa:

*Apaiz* (*Apayz coarana*, 1605) / *Epaiz* (*Epayzarana*, 1593).

## 1.2-Diptongo eta hiatoak:

-[aj] (*Epaizaran*, *Arangaitz*), [aɥ] (*Erbifiñagapausua*, *Itzaurmakurra*...), [eɥ] (*Euntzeberri*) (?), [oj] (*Larrasoil*, 1584, *Larrasuil* [lãrašwíl] egun), [wa] (ha-

<sup>6174</sup> Uxuen *Viperatu* (1534) > *Pipiratu* dugu, eta honekin batera *piparra* 'pipermin handia' izen arrunta. Hurbil dagoen Muriillo el Fruton, halaz ere, *Johan Biperr* dugu 1366an (J. Carrasco, *La Población de Navarra en el siglo XIV*, 448. or.), eta gure ustez hau zen (*biper* alegia) Uxueko aldakia. *Piparra* mailegu berria dateke.

gionimoetako Juan < Jaun), [we] (Bueltagunea, Kaskallueta<sup>6175</sup>), [wi] (Iruinportillua, Landasuyñ, 1587, Lezcaduy, 1692...), [ja] (Elketxipia, Sarkitxipia ([s̺ãrkĩçĩpja] orain<sup>6176</sup>), [je] (?) (Buchuquieta, 1642), [jo] (sario, Gristioburua).

-Apaiz, Epaiz 'Abaiz'-en diptongoa ez da monoptongatu, baina hizkera arruntean apez erabiltzen zela badakigu (cf. Apeztegiaratztea), inguruko herrietan bezala.

### 1.3-Bukaerak:

-\*one > oe > oi > jo dugu sario 'sarohe' izenean.

### 1.4-Bokal batze, erortze, eta garatzea:

#### 1.4.1-Aferesia:

-Nahiz aldaera arrunta Epaizarana edo Apaizarana zen, aferesia nozitutako forma oso goiz aurkitzen dugu (Payzarana, 1614).

-Rotaldea dugu 1574an eta 1723an, baina Errota aldea 1705an<sup>6177</sup>.

#### 1.4.2-Apokopea:

-Arradui > Artadu (1593)-n dugu.

-1587an San Pelai daukagu, eta aldi bakar batez aurkituagatik ere, beste herri batzuetan joera bera somatzen da. Eslaban bertan Santa Criz dugu.

#### 1.4.3-Bokal bategitea:

-aa > a: Rotaldea (1574), baina Errota aldea (1705); Presaldea, Zaldinagalde.

-ae > e: Artamaldeta.

-ao > o: Atalaiondoa (1800)<sup>6178</sup>, Bizkardondoa. Gristioburua eta Gristiodiaburua lortzeko bokal arteko sudurkariaren erortzea eta [i] edo [j]-ren ondoko ao > o laburketa gauzatu dela suposatu behar da<sup>6179</sup>.

-au + o > ao: Plaondoa (1716)<sup>6180</sup>.

-eo > o: Dorrondoa (1764), (1768), baina Doreondoa (1766).

-ii > i: Eriturri.

-oe > e: Olibeta.

-uo > o: Boyondoa (1574), Boyondo (1596).

#### 1.4.4-Paragogea:

-Kalboren korralesarraldea.

6175 Egungo Kaskalletas [kaśka]éraš] lortzeko aurreko [kaśka]wéta] batez pentsatu beharra dago.

6176 Diptongo hau, halaz ere, azentu-aldaketaren fruitu dela dirudi.

6177 Aferesi hau kontu grafiko hutsa dateke; notarien erdaltzaletasun ongi frogatuari leporatu beharko zaio.

6178 Leku-izen honetan bokal batzea oso berandu azaltzen da, eta ez dirudi euskararen barrukotzat jo daitekeenik (cf. 1572ko Atalaya ondoa).

6179 Ikus FHV, 153. or.

6180 Aldi bakar batez aurkitu dugu.

## 1.4.5-Protesia:

Maileguetan aurkitzen dugu: erreka, errota, ezponda.

## 1.5-j-ren bilakaera:

Saihets posposizioak [j]-dun eta [j]-rik gabeko aldaerak ditu Eslaban, antza: Juandelusaecha (1690), Juande Losaissa (1693). Halaz ere, bigarrena ([j]-duna, alegia) ez da segurua, -ai- -ae-tik atera zitekeelako.

## 1.6-Kontsonanteak:

## 1.6.1-Bustidura:

-[inV] bustita aurkitzen dugu elkarri estuki loturik dauden bi toponimotan: **Buztiña, Buztiñaga** (1705), baina ez agerraldi guztietan: **Buztinea** (1537). Gainerako guztietan [inV] > [inV] dugu: **Lur urdina** (1590), **Matxinarmendola, Matxinen armendola, Matxinenarmendolaldea**.

-[in] bere horretan gordetzen da hitz bukaeran: **Lur urdin** (1584), (1612)...

-[inV] > [qV] dugu Eslaban: **Arrizabalagaña, Artatzegaña, Eriturrimendigaña, Iturburumendigaña**.

-[in] bere hola mantentzen da hitz bukaeran gure alderdian, eta Eslaban orobat, kontradibide bat edo beste baden arren: **Boiugañ** (1648), baina **Azterain, Bojugayn** (1656), **Larruzkain**...

-Hitz bukaeran [il] zegoen-zegoenean gordetzen bide zen Eslaban, baina oraingoan kontradibideak aurrekoan baino ugariagoak dira: **larrasoll** (1685), (1687), (1692). Guztiarekin, **Larrasoil** dugu izen honen lehen lekukotasunean (1584an), eta egun ere [il] ebakitzen da (**Larrasuil** [lãrašwíl]). Kontsonante aurrean dagoenean ere jorkamolde bikoitza bide du multzo honek Eslaban: **Larrasoil burua** (1633), **Larasoll burua** (1647).

-Maileguetan jatorrizko [ij] gorde egin da: **Boiuportillua, Kaskallueta**.

-Horzkari ahostuna bere horretan mantentzen da [indV]-ren dugun lekuko bakarrean: **Barrenginda**.

-Horzkari ahoskabea ere ez zen sabaikaltzen, itxuraz, [itV] segidan: **iturri mendigaña** (1614), **Yturrizabalaga** (1658).

-[isV] eta [jsV] ez dira aldatzen, antza, baina ditugun adibideak ez dira oso fidagarriak: **Gaicari** (1652) (diptongoa sekundarioa dela dirudi), **Arricabalagaña** (1584), **Arricutagaña** (1614)<sup>6181</sup>.

-[isC] bere horretan gordetzen da: **Bizkarda, Bizkarra**.

-Elkartuaren bigarren osagaian -xar dugu batzuetan, eta -zar bestetan.

-Hagionimoetan azaltzen den **Jaun**-etik ateratako **Joan** edo **Jan** elementu alboratuan beti J- dugu, [x] alegia, alderdiko gainerako herrietan bezalaxe, agian eliz-hizkeraren eraginez. Bestela, hitz hasierako [j]-ek [š] eman du Eslaban: **Xaugizabal** (< **Jaugizabal, [j]-z**), **Xauzugun. Xubingoa**-ren soinu sabaiaurrekoaren jatorria z- [s] da, eta bustidura adierazgarria dela zalantzarik ez dago, hots bustiarekin batera atzizki txiki-garria ere azaltzen delako. **Zaldinoaga** (1587)-n berriz, atzizki txiki-garria izan arren hasierako hortz-hobietako bizkarkaria ez da sabaikaldu (cf. **Lergako Zubingoa**).

-**Matxinarmendola** toponimoan ere bustitze adierazgarria daukagu.

6181 Bi toponimootan morfema-muga dugu bokal sabaikiaren eta hots bustigaiaren artean, eta honek bustidura izatea galeratzen du. Ikus Oñederraren EFP-ko 52-56. orrialdeak.

## 1.6.2-Herskariak:

-Hitz hasieran herskari ahostuna agertzen da: **Boiu-** (< **poiu** < **pōđū**), **Burugain**, **Belaio**, **butzu**, **dorre**, **gatzelu**, **gristio**...baina ez mailegu berrietan: **portilu**. Mailegu zahar batean **p-** dugu hitz hasieran, baina bigarren silaban soinu bera ageri da, eta honek eragina izan zezakeen hasierako lekunekoan: **Piperrarritza** (ikus **Uxueko Pipiratu**).

Herskari ahoskabea hitz hasieran hiru izenetan aurkitzen dugu: **Tastaran-en**, **Trabeseraerreka** edo **Trabeserreka-n** eta **Tunbuladuia-n**. Lehenarentzat **Piperrarritza-n** esandakoak balio lezake, baina jatorrizko balizko **d-** hori bitxia litzateke euskal sistema fonologiko zaharrear<sup>6182</sup>. Bigarrenaren aurren osagaia mailegu garbia da, eta **Tunbuladuia** behin baizik ez da agertzen.

-Hitz hasieran **b-** baten protesia dugu **Beloso** izenean.

-Txistukari ahoskabe ondoan posposizioen herskari ahostunak ez ohi dira ahoskabetu: **Abaizbidea**, **Abayzguibel** (1592), **Abayzguibela** (1593), **Larruzguibel** (1552), **Larruzguibel** (1586), **Santa Krizgibela**, baina bada ahoskabetzearen adibide isolatu bat edo beste: **Abayçquivel** (1276), **laruzquibel** (1593), eta sistematikoa dirudien kasu bat: **Larruzkain**.

-Sudurkari ondoan herskari ahostuna ohi dugu: **Bakundi**, **Sanduçabal** (1645), **Sanduzaval** (1690), **Zangozabidea**, baina ez beti: **santuzabal** (1582), **Santoçabal** (1590), **Santuçabala** (1635)... Azken toponimo honen **-n-**, halaz ere, sekundarioa izan liteke.

-Dardakari baten atzean herskari ahostuna dugu kasu batean: **Bizkarda**. Ozentasunaren arrazoia, halarik ere, atzizkiaren jatorrizko forman egon daiteke.

-Albokari ondoan herskari ahoskabea azaltzen da **Elkea** eta **Elketxipia** izenetan.

-Latineko herskari geminatu ahostuna herskari ahoskabe bilakatu da Eslaban: **Abbas** > **Apaiz** > **Epaiz**. **Abaiz** erdaratikakoa ere maiz edireten dugu, baita leku-izen euskaldunetan ere. Hau hizkuntza ofizialaren eraginari zor zaioke.

## 1.6.3-Ezpainkariak:

-**Burugain-en m-** > **b-** aldakuntza gauza zitekeen, **Buru-** hori **mur** 'gain' arruntaren aldaera izan daiteke eta. Ez dakigu **mur**-ren eta **buru**-ren artean lotura etimologikorik baden, baina agian hitz beraren aldaki ezberdinetako hartu beharko genituzke (cf. **muno** / **buno** / **puno**).

-**m-z** hasten den leku-izenik ere bada: **Matxin(en)** **armendola(aldea)**, **Mugandia**, **Munotxia**. Lehenaren aurren osagaia mailegu argia da.

-**f-z** hasten den euskal toki-izenik ez dago.

## 1.6.4-Txistukariak:

-Eslaban [ś], [s], [š], [ć], [c], eta [č] genituen.

-[c] + [s] > [c] genuela dirudi: **ayzuloa** (1576).

-Hitz bukaerako ustezko afrikatua igurzaritu egiten da ondoan herskari bat duenean: **Arangaizko txaparrondo**.

-Ez dakigu albokariaren ondoan igurzkariak afrikatzen diren: **Balsaldea** (1609).

6182 Ikus FHV, 254-255. orr.

-Latineko (eta erromentzeko, batzuetan) txistukari apikaria (?) [s] bilakatzen da Eslaban **gatzelu**, **ezponda**, **Eztebe**, **Ozteriz**, **Zaldu**-, **Zangoza** eta **Zazu**-n.

-Bokal artean kasu batean -s- > -x- > -tx- dugu: \***Pasape** > \***Paxape** > **Patxape**<sup>6183</sup>.

-Hitz hasieran [š] edo [s] ([θ] orain, jakina) aurkitzen dugu normalean, baina [č] ere pare bat aldiz azaltzen da: **Txaparra**, **Txirria** (eta eratorriak).

#### 1.6.5-Sudurkariak:

-Latineko bokal arteko -n- erori egin da harea (**Areatzea**) eta **plau** (**Plaondo**) maileguetan. Gertakari bera izan genezake **Unzue**-ren sorreran.

-**Gristioburua** eta **Gristiodiaburua**-n ere bokal arteko sudurkaria erori dela dirudi, kristianu edo cristiano-tik abiatzen bagara **gristio** lortzeko \***kristiao** edo \***gristiao** bat suposatu behar baita.

-n-z hasten den euskal toki-izen bakarra **Nabarana** dugu.

#### 1.6.6-Albokoak:

-Bokal artean -l- > -r- aldakuntza burutu da -**mukuru** (< *cūmūlu*) izenean, metatesiarekin batera.

-Latineko alboko geminatua l bilakatu da, beste edonon bezala: **gatzelu**.

#### 1.6.7-Dardarkariak:

-Metatesia izan dezakegu **Santa Criz**-en, irudi duen gisan **Santaquirce**-ren moduko batetik atera bada.

#### 1.6.8-Kontsonante-multzoak:

-Jatorrizko **pl-** gorde egin da latineko **planu**-ren ondorengoa den **Plaondo**-n (cf. Leatzeko **Pelau** eta Zareko **Plau**).

### 2-Morfologia maila:

#### 2.1-Deklinabidea:

##### 2.1.1-Leku-genitiboa:

-Singularrean -(e)ko dugu: **Abaizko pausua**, **Aldeko muga**, **Arangaizko txaparrondoa**, **Bitarteko harana**, **Dorretako portilua**, **Epaizko harana**, **Errotaxarreko bidea**, **Santakrizko aldapa**...

##### 2.1.2-Genitiboa:

-1690eko **Atalayanondoa**-n genitiboaren morfema laburtua izan genezake, baina hau ez da segurua, eta berdin gertatzen da 1608ko **Boyonondoa**-n eta 1691ko **Boyanondoa**-n.

<sup>6183</sup> Ikus Agezako **Motxiturria** sarrera.

-Mugagabeen -(r)en ibiltzen zela badakigu: **Don Pedroren saratsa, Donpedrorensaratseta, Kalboren korralesarraldea, Matxinen armendola, Matxinen armendolaldea.**

### 2.1.3-Inesiboa:

-Zabalea-ren bukaerako -ea hori inesiboaren hondarra, arrastoa, bide da.

## 2.2.-Elkarketa-erartorketa:

2.2.1-Lehen osagaiaren azken bokalaren erortzea eta azken lekunean gelditu kontsonantearen aldatzea:

**Errepidea, Errezazua, Uxubidea, Iturburumendigaña, Yturaldea** (1571)...

### 2.2.2-Atzizkiak:

-aga: Arrizutaga, Sagarraga...

-ain: Azterain.

-ari (?): Gezari<sup>6184</sup>.

-da: Bizkarda.

-du(i): Artadu, Larduia, Lezkadui...

-eta: Arrimukurueta, Butzuketa, Buchuquieta (1642)...

-gin: Zapataginmendia.

-gu (?): Beragu.

-gun(e): Iguzkun.

-iz (?): Ozteriz.

-ko: Ezpelkoa.

-ngo: Xubingoa.

-no: Zaldinoaga (1587).

-oza (?): Zangoza(bidea).

-tze: Areatzea, Artatzea,

-uz (?): Larruz-.

-zu (-so): Beloso.

### 2.2.3-Hitzen forma:

-Aldea herri izenaren azken -a hori artikulutako hartzen zen: **Aldeko muga.**

-arte eta erte batera aurkitzen ditugu: **Boyuertea** (1587), **Boyo artea** (1591); **Zazu ertea** (1569), **Çaçu artea** (1612).

-baratze, ez baratza: **Apeztegiabaratea.**

-elke, ez elge edo elka (cf. Galipentzu): **Elkea, Elketxipia.**

-ginda, ez drinda, drunda, inda...: **Barrenginda.**

-gristio, ez kristio, kristau...: **Gristioburua.**

-guti, ez gutxi: **Euntzegutia.**

-handi, ez haundi: **Aranandia.**

-harea, ez hare: **Areatzea.**

-iguzki edo iruzki, ez eguzki: **Yguzcun** (1541), **Yrucun** (1704).

---

6184 Ikus Ageza.

- itzaur, ez itxaur (cf. Leatxe), iltxaur...
- korrale, ez korral: Kalboren korralesarraldea.
- lio 'liho', ez ligu...: Lixuñeta.
- osuin edo \*usuin, ez osin: Lixuñeta.
- sario, ez sarobe, saroi, saure, sare...: Sarioederra, Sariozabal...
- txipi eta txiki: Elque chiquia (1612), (1633), (1692), Arquichipia (1818), Sarkitxipia (egun); Zazuchipia (1567), Cacuchiquia (1582)...

### 3-Semantika maila:

#### 3.1.-Izenak:

Abaiz, Aldea, altxirri, apeztegi, ardi (?), arrano, artadu(i), artatze, arte, atalaia, bal(t)sa 'idoia', baratze, Belaio 'Pelayo', berro, bide, bitarte, boiu 'gaina', bueltagune 'bihurgunea', buru, butzu, dorre, elke 'alor landua' (?), elorri (?), Epaiz, eri 'gaixoa' (?), errege, erreka, errepide 'camino real', errota, etxe, euntze, ezpel, ezpelko 'ezpel txikia', ezponda, gaztelu, gezari 'gesala', ginda 'inda', gorte 'korralea', haitz, haran, harea, haritz, harri, harrimukuru, herri (??)<sup>6185</sup>, hiri, hodi(a) 'errekastoa', Iruñ-, Iruin- edo Irun- 'Iruñea', iguzki edo iruzki, iguzkun(e) edo iruzkun(e) 'eguzkialdea', iturri, kapar 'sasi (mota bat)', kaskailu, korrale 'gorte', labe (?), landa 'lantzen ez den eremu zelai-antza', lar 'laharra' (?), larrain, larratz(a), Lerga, lezka, lezkadui, liho (?), lizar, lizardui, lur, malda, mendi, Milia 'Emilia' (?), muga, mukuru, muru (?), muno (?), oihan, olibo, opakoegi 'oihezkoa', osuin edo \*usuin 'osina', pa(t)xape 'pasaje, pasadizo', pausu, piper, piperraritz (?)<sup>6186</sup>, portilu, presa 'uharka', sagar 'sagarra, sagarrondo', sandu, santu 'saindua (?), sarats, sarga 'sasitza' (??), sario 'sarohea', soil 'soilunea', tipula, tipulatze, txapar, zabal, zelai, zazu, zubi, xubingo 'xubikoa', zaldi, zaldino 'xaldikoa', zaldu, Zangoza, zapata, zapatagin, zazu, zerrado, zulo, zume, zumadui.

#### 3.2.-Izenondoak:

Berri, eder, eri 'gaixoa', gaitz, guti 'txikia', handi, luze, makur, soil, txiki edo txipi, urdin, -xar eta zar 'zaharra', zabal, zut.

#### 3.3-Aditzak:

Pasatu<sup>6187</sup>, \*xaugi 'atera, irten', \*xauzi (edo \*xautzi) 'erori'.

#### 3.4-Posposizioak:

Be, alde, arte edo erte, barren<sup>6188</sup>, gain, gibel, goien, ondo, saiets edo saets 'saihetsa'.

### 4-Azentuaketa:

Eslabako azentuaketa azkarraren seinalea Arrizutaga > Arristaga (1718)... laburketa izan daiteke.

6185 Herri, biña eta -aga-z osaturik egon daitekeen Erbiñaga dugu Eslaban, baina etimologia hau oso zailantzekoa da.

6186 Piperraritz haritz mota bat izan zitekeen, baina ez dakigu benetan hala zen.

6187 Hemendik abiatu behar dugu Patxape erdiesteko.

6188 Barrenginda-n posposizio gabe, preposizioa dela esan behar genuke.

Euskara galtzearekin Ai(t)zuloa > Aizulba (1752) pausoa burutu zen, gure irudiz azentuaketa aldaketarengatik. Kasu berean dago **Lergabidea**-tik atera den **Argabidia** [ãrgabíðja] edo [ãrgabíðëa]. Hondar honek zaraitzueraz arrunta den eta baztaneraz eta Nafarroako beste eskualde batzuetan ere aditzen den azentua dakarkigu gogora.

## EZPOROGIKO EUSKARA

### 1-Fonetika-fonologia maila:

#### 1.1-Bokalak:

##### 1.1.1-Hersketa:

-o > -u dugu erdaratikako txipu-n.

-o > u- gertatu bide da behin hitz hasieran: okaran > ukaran (Ucaranduya, 1591). Honelako hersketak frankotan azaltzen dira han hemenka toponimian, silaba trabatuan gehienetan.

##### 1.1.2-Elkartuaren azken bokala:

Apofonia dugu Erlategitxar toponimoan.

#### 1.2-Diptongo eta hiatoak:

-Diptongo hauek genituen: [jo] (Sariogunea) eta [we] (?) (Azpilkueta).

#### 1.3-Bukaerak:

-\*one > oe > oi > jo dugu sario izenean, alegia, \*Sar(e)one > saroe > saroi > sario ([sárjo] seguruenera).

#### 1.4-Bokal batze, erortze, eta garatzea:

##### 1.4.1-Bokal bategitea:

-aa- > -a-: Açequialdea (1591); Balsaldea (1681. Cf. Balsa arana, 1591n), Mugarana.

-ae- edo -oe- > -e-: Baserreca (1649az geroztik).

#### 1.5-Kontsonanteak:

##### 1.5.1-Bustidura:

-[inV] segidan sudurkaria ez da bustitzen, antza: Erraquina (1604).

-[inV] segidaren ondorena, ordea, [ŋV] bide da: Liçuridigaña (1591), Cirudigaña (1604). 1661ean, dena den, Izurdegaina ageri da.

-[s] ez da bustitzen [isV] testuinguruan: Lizarduia, Lizarrekoa, Gizairudigaña.

-Dirudienez, horzkari ahoskabea ez zen bustitzen [itV] testuinguruan: Iturriguibela (1715).



-Atziziki txikigarriak soinu bustia zeukan: **Recatoa** (1604), **Recachoa** (1736). Honen azpian [t] zegoela uste dugu.

-ngo atzizki txikigarriarekin batera hasierako [s]-ren bustidura gertatzen da: **Xubingoa**.

-txar 'zahar' dugu **Erlategitxar** leku-izenean. Hau arrunta da beste leku askotako toponimian ere, beti ere izenondoa elkartuaren bigarren osagaia denean.

-Maileguetako kontsonante sabaikaria gorde egiten da: **Portillua**.

#### 1.5.2-Herskariak:

Hitz hasieran herskari ahostuna dugu: **Buztintza**, **Dorregibela**, **Garatea**, baina mailegu berrietan ahoskabea azaltzen da: **Korraleta**, **Portillua**.

#### 1.5.3-Ezpainkariak:

-m-z hasten diren bi leku-izen ditugu: **Martxela**, **Mugarana**.

-f-z hasten den euskal leku-izenik ez dago.

#### 1.5.4-Txistukariak:

-Honako soinu txistukari hauek seguruak ziren Ezporogin: [ś], [s], [š], [č] eta [c]. [č]-rik bazen seguru ez dakigu, baina 1717ko **balsaldea** honen alde mintzo dela dirudi.

-Elkartuaren bigarren osagaian -txar eta -xar 'zahar' dugu (ikus gorago).

-Hitz hasieran s- edo z- aurkitzen dugu, baina behin tx- dugu: **Txipue-tabaratzea**.

-Hitz hasieran behin x- dugu (**Xubingoa**). Hemen soinu sabaikariak adierazgarritasuna du xede, bistan denez.

#### 1.5.5-Sudurkariak:

-n-z hasten den toponimo euskaldun zaharrik ez dago.

### 2-Morfologia maila:

#### 2.1-Deklinabidea:

##### 2.1.1-Leku-genitiboa:

Singularreko morfema -(e)ko zen: **Lizarrekoa**.

##### 2.1.2-Inesiboa:

Kasu honen hondarra izan daitekeen -ea dugu **Parralea-n**.

#### 2.2-Elkarketa-eratorketa:

##### 2.2.1-Lehendabiziko osagaiaren azken kontsonantearen desagertzea:

-ur + arka > Uarka.

## 2.2.2-Atzizkiak:

- aga (?): Iparraga<sup>6189</sup>.
- dui: Lezkaduia, Lizardui.
- eta: Azpilkueta, Korraleta.
- gune: Sariogunea.
- ngo: Xubingoa.
- tegi: Erlategi.
- tto: Errekattoa.
- tz(a): Larratz(a)
- tza: Buztintza.
- tze: Areatzea.

## 2.2.3-Hitzen forma:

- baratze, ez baratza.
- harea, ez hare.
- leun eta legun ditugu dokumentazioan, baina egungo aldaera biziak lehena-  
ren alde egiten duela dirudi. Guztiarekin, hau ez da segurua.
- sario dugu, ez sarobe, sarobe, sare...
- txipia-z besterik ez dugu aurkitu.

## 3-Semantika maila (biztegia):

## 3.1-Izenak:

Aldai 'aldapa, mendi-mazela', atea 'portilua', azekia, bal(t)sa<sup>6190</sup> 'idoia', baratze, baso, baserreka (?), bide, buztin<sup>6191</sup>, buztintza, dorre, eliza, erlategi 'erlatokia', erreka, etxe, Ezporogi, haran, harea, hareatze 'hareadia', hiri, horma 'pareta' (?), ipar (?), iturri, korral(e) 'gortea', larratz(a), larre, lezka, lezkadui 'lezkatzea', lizar, lizardui, muga, otabera 'otearen antzeko landarea', parral, portilu, soto 'zaldua'<sup>6192</sup>, txipu 'makala', uharka, ukaran 'okarana, okaranondoa', ukarandui, ur, zabal (?)<sup>6193</sup>, zerrado 'hormaz hesiturikako lurtsaila', zubi.

## 3.2-Izenondoak:

Eroria, leun, makur 'okerra', mehar, -txar, -xar 'zaharra'<sup>6194</sup>, txipia, zabal (?).

## 3.3-Aditzak:

Erori.

---

6189 Toki-izen hau zalantzakoa da.

6190 Ez dugu afrikatudun aldaera erabiltzen zelako frogarik.

6191 Buztin aurkitu dugu, baina horren azpian buztin zegoela uste dugu.

6192 Ez dakigu zer neurritan beretua zuen hitz hau Ezporogiko euskarak, baina beste toki batzuetako toponimia ikusita ezin ukatu sarrera handia zuela euskaraz. Dena den, toponimo batean aurkituak ez du esan nahi, ezinbestean, bertako euskaraz erabiltzen zela.

6193 Behin bakarrik agertzen da eta dudazkoa da.

6194 Aldaera hau elkartuaren bigarren osagaitzat aurkitzen dugu, jakina.

### 3.4-Posposizioak:

Alde, gibel, gain, goien, ondo, pe.

## GALIPENTZUKO EUSKARA

### 1-Fonetika-Fonologia maila:

#### 1.1-Bokalak:

##### 1.1.1-Irekitzea:

-Kaskallu > Kaskallo<sup>6195</sup>.

##### 1.1.2-Hersketa:

-\*Ondallo > Ondallu<sup>6196</sup>.

-Poiluengo > Pollungo > Pollungu.

-[onC] > [unC] dugu bi kasutan. Lehena euskararen barrukotzat jo liteke agian (Hondallu, 1596 > Undallu, 1730), baina bigarrena 1790ean agertzen da es-traineko aldiz, euskara galdua zenean, eta gaztelaniari leporatu beharko diogu (Pontarron, 1596 > Puntarron, 1790).

#### 1.2-Diptongo eta hiatoak:

-Honako diptongo hauek edireten ditugu euskal leku-izen zaharretan: [aj] (Errekagaitza, Zenborain), [au] (Aurino), [eu] (?) (Santxoteuntzea), [oɨ] (Zamakidoi<sup>6197</sup>), [je] (?) (Azkonobieta, Grazietaren ardantzea, Ormakieta), [wi] (Legaztui).

-XIV. mendeko Poyluengo-tik Pollungo ateratzen da 1546rako (Pollungu, Pullungu egun), goranzko diptongoaren monoptongaketaren ondorioz.

-San Zoilo > Sanzol-en [oɨ] > [o] monoptongaketa burutu dela dirudi.

#### 1.3-Bukaerak:

-\*ani > -ai dugu Galipentzun, itxuraz: cf. 1335eko domingo arçaya.

#### 1.4-Bokal erortze eta garatzea:

##### 1.4.1-Aferesia:

-Errecagayza (1712) / Recagayza (1596)<sup>6198</sup>.

6195 Hau erdararen eraginez gertatu bide da.

6196 Euskal Ondallu sarritan Ondallo bilakarzen zen agirietan, erdararen eraginez, eta izan ere horixe da egun bizirik dagoen aldaera.

6197 Toponimoa 1773an opatu dugu aurrenekoz, eta ez dakigu lehenago zer forma zuen.

6198 Honelakoak notarien bizkar utzi beharko ditugu.

## 1.4.2-Anaptisia:

-Gurutzea.

## 1.4.3-Apokoea:

-Amolate &gt; Amolat (1335).

-San Zoilo &gt; Sanzol.

## 1.4.4-Paragoea:

-Pinareondoa.

-Portaletxikia.

## 1.4.5-Protesia:

-Erreka.

## 1.4.6-Sinkopa:

-Azentuaren aurreko bokala galtzen bide da **Larraynetaquo-** (1546) > **Larraintaco-** (1688)-n.

## 1.5-Kontsonanteak:

## 1.5.1-Bustidura:

-Kontsonante sabaikaria duen eta etorkiz euskalduna den adibide bakarra dugu: **Larrañetako** (iturria, mendia). Aldaera batua aukeratzean -ñ- sartu dugu, baina egia esan grafema hori duen aldakirik ez dugu sekulan aurkitu, eta beraz [ŋ]-z ebakitzen zen dudana dago. Kontua zera da, forma osoa 1546ko **Larraynetaquo** yturria-n baizik ez dela azaltzen, gainerako lekukotasunetan beti forma sinkopatua (**Larrainta-**) dugularik. Hemendik metatesiz 1801eko **Larranita** aterako zen.

**Larrainta-** [laɾajnetáko-] nahiz [laɾaŋetáko-]-tik atera zitekeen, eta beraz ez dakigu [inV] > [ŋV] genuen ala [iŋV] > [inV].

-Hitz bukaeran [in] > [iŋ] dugu: **Zenborain**.

-[iŋV]-ren emaitza zein zen garbi ez dakigu. Izan ere, **Pila** [píla]-rekin batera, **Pillastrupa** dugu 1585ean eta **Villaestrupa** 1597an. Mailegu bat ere izan daiteke, baina ez dugu jatorriaren berri.

-[iŋV]-tik [iV] dugu kasu batean: **Poyluengo** (1335) > **Pollungo** (1546). [V]-ren ordez agian [W] jarri behar genuke..

-Erdaratikako maileguk [j] gordetzen dute: **Ondallu**.-Ez da c -> č / ĵ - V betetzen: **Errekagaitza**.-[s] ez zen bustitzen, irudiz, [isV] testuinguruan: **Gisutzea**, **Kisueta**.

-Horzkari ahoskabea ez zen sabaikaltzen [itV] segidan: **Balenditurri** (1691), **Balenturri** [bàleŋtúri] edo **Baliturri** [bàlitúri] gaur.

## 1.5.2-Herskariak:

-Hitz hasieran herskari ahostunak eta ahoskabeak aurkitzen ditugu: **Dandaldea**, **Dekumazarra**, **Dorronditu**, **Gezari**, **Gurutzea**, **Kapalarraña**, **Kapana**, **Kaparreta**, **Tipulatzea**.

Behin izen beraren ahostundun eta ahoskabedun aldaerak dauzkagu: **Gisutzea /**

**Kisueta.**

-Bokalarteko jatorrizko herskari ahoskabea gorde egiten da: **Bartaquilar,**

**Kapana.**

-Txistukari ahoskabe ondoan herskari ahoskabea dugu kasu batean: **Legaztui.**

-n-ren ondoan t ahostundu egiten da **Santitisi**-ren aldaera frankotan: **Sanditisi** (1597), **Sanditizi** (1635)... eta **Zapatagindegia** izen politean.

#### 1.5.3-Ezpainkariak:

-m-z hasten den toki-izen mordoxka dugu: **Meazu, Melenas, Mendiebakia, Monda, Morate, Mugaleta, Mutxarka...**

-f-z hasten den leku-izen euskaldun zaharrik ez dago.

#### 1.5.4-Txistukariak:

-[ś], [s], [š], [č], [c] eta [č] erabiltzen bide ziren Galipentzun.

-[ś-] > [š-] > [x-] aldakuntza izan genezake gaurko **Jares**-en, **Sinares**-etik atera bada. Hau segurua da **Janduba**-n (< **Jandua** < **Xandua** < **Sandua**)<sup>6199</sup>. Azken pausoa **Lejua**-n ere edireten dugu: \***Lexua** > **Lejua**. Hala ere, jatorrizko soinu kasu honetan [j] izan liteke.

-Hitz hasieran [ś] edo [s] aurkitu ohi ditugu, baina behin [č] azaltzen da: **Tximarra.**

#### 1.5.5-Sudurkariak:

-Latineko sudurkari geminatua, beste euskalkietan ohi denez, n bilakatzen da gure eskualdeko euskaraz: **kapana.**

-Bokal arteko sudurkaria (n leuna, antza) erori egiten da: **Artaxona** > \***Artaxoa** > **Artaxo-**.

-\***one** bukaeratik -on bide dugu Galipentzuko **Azkonobieta**-n<sup>6200</sup>.

-n-z hasten zen euskal toki-izenik ez dago.

#### 1.5.6-Dardarkariak:

-Icxuraz [r̄] > [r] gertatzen da behin edo beste: \***Berragu** > **Beragu**<sup>6201</sup>.

#### 1.5.7-Disimilazioa:

-\***Billakukulu** > **Billakukuru.**

-**Dandaldea** > **Landaldea** (1703).

-\***Valeciella** > **Valeciela** (1608) / **baleçiera** (1598), **Baliziera** [bàliθjéra]

orain.

6199 Ikus Eslaba.

6200 Mailegu hau, nonbait, ez da oso zaharra (ikus FHV, 147-148. orr.).

6201 Aldakuntza hau burutu dela onartzeko lehenbizi proposatzen dugun etimologia onartu behar da. Ikus **Beragu**. Beste kasu batzuetan [r̄] > [r] aldakuntza toponimoaren desitxuraketaren barruan kokatu behar da (cf. **Larregu(re)neta** > **Laragoneta**).

## 2-Morfologia maila:

### 2.1-Deklinabidea:

#### 2.1.1-Leku-genitiboa:

-(e)ko da singularreko morfema: Erbiñako aldea, Errotaberriko aldapa, Garandako harana, Garandako zabala, Ibarreko harana, Ibarreko zabala, Lakuko harana.

#### 2.1.2-Genitiboa:

-(r)en da kasu honen mugagabeko morfema: Grazietaren ardantzea.

### 2.2-Elkarketa-erortorketa:

#### 2.2.1-Apofonia:

-Baso- > Basa- (Basatea).  
 -\*Berro- > \*Berra- (> Bera)<sup>6202</sup>.  
 -Uso- > Usa- (Usadorrezarra).

#### 2.2.2-Bokal bategitea:

-aa > a: Basatea (?).  
 -aa > a: Capanandia (1691n)<sup>6203</sup>.  
 -ae > e: Landederra<sup>6204</sup>.  
 -ee > e: Larreta<sup>6205</sup>.

#### 2.2.3-Lehen osagaiaren azken bokalaren erortzea eta kontsonantearen aldaketa:

-Amolate.  
 -Arrondoa.  
 -Usubidea.

#### 2.2.4-Atzizkiak:

-ain: Zenborain.  
 -as (?): Melenas.  
 -dui: Legaztui.  
 -eta: Iturrieta, Ormakieta...  
 -gin: Zapatagindegia.  
 -ko: Labekoaldea<sup>6206</sup>.  
 -o(t)s (?): Inbilos.  
 -oz (?): Zenboroz.

<sup>6202</sup> Hau dudazkoa da. Ikus Beragu sarrera.

<sup>6203</sup> Baina Capana andia 1688an.

<sup>6204</sup> 1775ean Landaederra dugu.

<sup>6205</sup> Leku-izen honen lehen lekukoa den 1335eko Larrieta-n, aldiz, ee > ie dugu.

<sup>6206</sup> Alabaina, ez dago guztiz garbi -ko atzizki txikigarria den oraingoan. Leku-genitiboa ere izan daiteke: cf. Erbiñako aldea.

- tegi: Zapatagindegia.
- tze: Ardantze, Lezkatzea...
- zu: Meazu.

### 2.2.5-Hitzen forma:

- altxubidea, ez altxunbidea<sup>6207</sup>.
- handi dugu, ez haundi.
- kortea izan genezake, gortea-ren orde: Zuluco Cortea (1710)<sup>6208</sup>.
- liho [lio] bide genuen Galipentzun, ez ligu (cf. Zare): Liatzeta.
- txiki dugu, ez txipi: Portaletxikia.

### 2.2.6-Laburketak:

1335eko Larregureneta Larreguneta bilakatu zen 1601erako, eta forma horrekin agertzen da XVII. mendean zehar.

## 3-Semantika maila (biztegia):

### 3.1-Izenak:

Ageza 'Ayesa', aldai 'aldapa, mendi-mazela', aldapa, alor, altxubide 'ardibide', apez, apeztegi 'apezetxea', ardantze, artatze 'artadia', artzai (?), ate 'portilua', azkon<sup>6209</sup>, baso (?), bereter 'apeza' (?), bidea, buru 'gaina', buztin, dekuma 'dekuma', 'hamarrena', 'dekuma edo hamarrenak gordetzen diren etxea', dorre, erreka, erripa (?), errota, etxe (?), euntze, ezpel, gezari 'gatz ugari duen lurra', gisu, kisu 'karea', Grazieta, gurutze, harana, harri, hiri, hobi 'zuloa', horma 'pareta' (?), ibar, idoi 'baltsa', iturri, kapar 'sasi', kapana, kaskailu, labe, laku 'lintzura', landa, larrain, larre, legar, lezka, lezkatze, lihatze 'liho-soroa', mea, mendi, muga, muru (?), muno (?), oihan, olibo (?), ordoki 'zelai', ote (?), pinare 'pinudia', portale 'herri-ataria', portilu<sup>6210</sup>, (Santi)Ti(r)si 'San) Tirso', Santxot(e), (San)Zol 'San) Zoilo', sekero 'sequero', tipula, tipulatze, ur, urandi 'ibaia' (= Aragoa), usadorre 'usatetgia', uso, Uxu- 'Uxue' (?)<sup>6211</sup>, zabal 'zabaldia', zaldu, zapatagin, zapatagindegi, zekia 'azekia', 'errekastoa', zubi, zulo.

### 3.2-Izenondoak:

Berri, ebaki, eder, gaitz, guren, handi, legun, luze<sup>6212</sup>, txiki, zabal, zar 'zaharra', zuri<sup>6213</sup>.

### 3.3-Aditzak:

Ebaki.

6207 Lekuko bakarra dugu, eta beraz ezin esan hau segurua dela.

6208 Dena den, lekukoa zalantzakoa da.

6209 Ditugun lekukoak ez dira, halaz ere, oso argiak.

6210 Portilloa-z besterik ez dugu aurkitu, baina beste herri batzuetako toponimia ikusita garbi dago euskarazko forma portillu(a) zela.

6211 Dudazko lekukoa dugu.

6212 Ez dakigu seguru Santuluzea berezko leku-izena zen ala Santxoteuntzea-ren desitxuraketa.

6213 Ikus Mugazuria sarreran dioguna.

### 3.4-Posposizioak:

Alde, barren, buru, gibel, goien, ondo.

#### 4-Azentuaketa:

Azentuaketa azkarra bide zen Galipentzuko euskararena, baina ez, halaz ere, gaztelaniarena bezain azkarra, eta itxuraz areagotze bat gertatu zen, bizirik dauden Nafarroako euskalkietan (barietate batzuetan bederen) azken bi mendeotan gertatu den antzerara<sup>6214</sup>. Indartze horren ondorea litzateke euskararen barruan burutu zen Larraynetaquo- (1546) > Larraintaco- (1688), Larrayntaco- (1696) pausoa.

Lejua > Lejuga aldakuntza ere gaztelaniaren eraginari zor zaioke, burutu ere euskara galdu zen garaian burutu baitzen (cf. beste herriak).

## LEATXEKO EUSKARA

### 1-Fonetika-fonologia maila:

#### 1.1-Bokalak:

##### 1.1.1-Irekitzea:

-Dardarkari anizkunak ez du aurreko bokala irekitzen: **Itxudurbazterra**.

-Normalean **-u** izaten dugu, baina batzuetan, erdararen eraginez, **-o** ere azaltzen da: **Gaju** (1530 eta egun) / **gayo** (1634). Hau agian notariaren gauza zen, errealitatean oinarritzen ez zena.

##### 1.1.2-Hersketa:

**-o** > **-u** dugu erdaratikako **portilu**-n. Honekin batera, eta erdararen eraginez, **-o**-dun aldakiak ere edireten ditugu, gehienetan **Gaiuportillua**-n.

##### 1.1.3-Elkartuaren azken bokala:

**Gizaiduri** toponimoaren lehen osagaiak apofonia jasan du<sup>6215</sup>.

##### 1.1.4-Asimilazioa:

**-Gardelain** > **Gardalain** pausoa asimilazioari zor zaiola dirudi<sup>6216</sup>.

<sup>6214</sup> Honetaz TDI-n mintzo gara. Bertan diogunez azken, bi mende honetan oraindik euskaldun diren herrietako toponimia laburketa prozesu azkar batean barrena abiatu da, eta honen arrazoia (edo arrazoietakoa bat) gure irudiz gaztelaniarekiko ukipenaren handiagotzea izan daiteke.

<sup>6215</sup> Bokalak apofonia jasan baino lehen azkeneko kontsonantea galdu behar izan zuen lehen osagai horrek. Ikus FHV, 309. or.

<sup>6216</sup> Dena den, **Gardalain** XV. menderako azaltzen da (ikus J. M. Jimeno Juríoren "El Libro del patronato de Santa María de Sangüesa (1300-1501)", PV, 132-133. zkiak., 1973, 281-283. orr.), eta beraz, asimilazio hori oso goiztiarra izan dela pentsatzeaz beste biderik ez dugu.



## 1.2-Diptongo eta hiatoak:

-Honako diptongo hauek agertzen dira Leatxeko toki-izen euskaldunetan: [aj̃] (Echate aycina, 1594, Garaizarra, Gardelainbidea), [oj̃] (?) (Oibarbidea), [aũ] (Alo-raundipea, 1723, Auntzenkorraleta, Pelau...), [eũ] (?) (Korteko euntzea), [je] (?) (Gatzarrieta), [we] (?) (Kaskallueta).

-Pausu izenak diptongo sekundarioa dauka.

-[wi] > [u] monoptongaketa dugu Usunbiribila-ren lehen elementuan, jatorria osuin edo \*usuin baita (cf. Usufieta toponimoa).

## 1.3-Bokal batze, erortze, eta garatzea:

### 1.3.1-Anaptisia:

-Planu > Pelau (cf. Zareko Plau).

-Andre(e) > \*Andere > Andore<sup>6217</sup>.

-Zirikuzabal-en lehen osagaian ere anaptisia egon daiteke, sorburuan latineko **cŷrcu** badugu.

### 1.3.2-Bokal bategitea:

-aa > a: Errekaldea.

-ao > o: Nobeletondoa (1647); beste batzuetan bategitea ez da gauzatzen: Nobeleta ondoa (1594).

-oe > e: Olibeta, baina Opacoegua (1592), Opacogua (1614).

### 1.3.3-Paragoea:

-Erregumaiorea.

### 1.3.4-Protesia:

-Erregumaiorea.

### 1.3.5-Sinkopa:

-Nobeleta ondoa (1594) > Nobletaondoa (1602).

## 1.4-j-ren bilakaera:

-Saihets posposizioa Leatxen [j]-ik gabe aurkitzen dugu: Madalena Saecha (1705).

## 1.5-Kontsonanteak:

### 1.5.1-Bustidura:

-[inV] segidan sudurkaria ez da bustitzen, antza: Echate aycina (1594), Echatalzinea (1614). 1719an Calzina labea dugu, baina honen lehen osagaia erdarazko izena izan daiteke. 1642an Sorguineneuncea eta Sorguin Euncea ditugu.

<sup>6217</sup> Jatorria Andreo ere izan zitekeen. Kasu honetan bilakaera hau izango zen: Andreo > \*Androe > Andore.

-[jnV] berriz [ŋV] bilakatzen da: **Matxutxagaña, Oibarbidegaña, Txurrustagaña.**

-[ilV] zegoen-zegoenean gordetzen da: **Usunbiribila**<sup>6218</sup>.

-[iI] hitz bukaeran dagoenean ere ez da bustitzen: **Mendibil.**

-Maileguetan [iI] edo [j] bere hola gordetzen da, beste herrietan bezala: **Gaiuportillua, Kaskallueta.**

-[s] ez da sabaikaltzen [isV] testuinguruan: **Guiçaiduria** (1593), **Yziduria** (1715), **Iziduri** [iθidúri] orain.

-[isC] bere horretan mantentzen bide zen: **Subibizcarra** (1593).

-Horzkari ahoskabea ez da sabaikaltzen [itV] segidan: **Iturrinagusia** (1605), **Yturrinausea** (1807).

-Hitz hasieran [j] > [š] dugu **Done Xurio** hagonimoan.

-Elkartuaren bigarren osagaian -xar 'zahar' agertzen da: **Errotajarra** (1593), **Errotassarreta** (1710), -z-rekin batera: **Rotazarra** (1720), **Alorzar, Zalduzarreta...**<sup>6219</sup>.

Lekune berean zuri izenondoaren bizkarkaria ere sabaikaltzen da: **Mendicuri** (1647) / **Mendijuria** (1593), **mendisuria** (1691). Bustiduratik, erdararen eraginez edo barne bilakaeraz, belarea ateratzen da: **Mendijuri** [mèɲdixúri] egun (**Mendixuri** Oibarren).

-Despalatalizazioa dugu **Usunbiribila** toponimoaren lehen osagaian.

#### 1.5.2-Herskariak:

-Hitz hasieran herskari ahostunak ditugu: **Balatusa, butzu, buztin, dorre, Gabaran, Gaiu, galtzada, gatz**<sup>6220</sup>, **gesal, gurutze...**baina k- ere azaltzen da: **Calzina labea** (1719), **Kapana, Kasedabidea**<sup>6221</sup>, **Kaskallueta, Komunburua**<sup>6222</sup>, **Korraleta, Korteko euntzea...**

-Herskari horzkari ahoskabea ahostundu egiten da n-ren ondoan, **Sandian-dore** hagonimoan. Gauza bera gertatzen da beste herri batzuetan (cf. **Sanditume** Lergan).

-Latineko saltu izena zaldu da **Leatxen** (**Jautu** < **Xautu** ere badugu), eta beraz, garbi dago albokoaren ondoan horzkaria ahostundu egin dela.

-Herskari txandakatzea dugu **Ugarca** (1705, 1752...) / **Ubarca**-n (1773az geroztik). Hemen zaharrena belarea dela dudarik ez dago<sup>6223</sup>.

#### 1.5.3-Ezpainkariak:

-m-z hasten diren euskal leku-izen hauek ditugu: **Magdalenasaietsa, Matxutxagaña, Mendibil** eta **Mendixuri.**

-f-z hasten den euskal leku-izen zaharrik ez dago.

#### 1.5.4-Txistukariak:

-[š], [s], [š], [č], [c] eta [č] genituen **Leatxen.**

6218 Hemen ere kontuan eduki behar da morfema muga dugula -l eta -a-ren artean.

6219 Azken leku-izenean ez dugu [š]-dun aldaeraren arrastorik. Honetan hasierako [s]-k zer ikusi handia eduki izanen du.

6220 1730eko **Gacharrieta**-ren ondoan 1722ko **Cacharreta** dugu. Garbi dago ordea jatortziko g- dela.

6221 Honetan herriaren izen ofizialak eragina izan zezakeen.

6222 **Komun** mailegu berria da.

6223 Ikus FHV, 259-260. orr.

-Albokoaren ondoan igurzkaria bide genuen, ez afrikatua, **alzina** posposizioan (**Echatealzinea**, 1614)<sup>6224</sup>, eta **Calzina** 'galtzina'-n (**Calzina labea**, 1719). Azken hau, dena den, itzulia egon daiteke, alegia, gaztelaniazko izena izan daiteke.

-**Galtzada**-n ordea garbia da [ls] > [lc] aldakuntza: **Galchadacoa** (1723), **Galchada** (1775)...

-[ś] eta [s] ditugu **Gesalaga** toponimoaren aldaketan; arruntena apikaria da.

-Hitz hasieran [ś] edo [s] aurkitzen dugu normalean: **Samazio**, **Sandiandore**, **Sitozar**, **Sorgineuntzea**, **Zarkumerena**, **Zirikuzabal**, **Zubieroria**...baina [č] ere azaltzen da: **Txurrustagaña**, **Txurruta**.

-Latineko s- gure hizkuntzan z- [s] bilakatu da: **salto** > **zaldu**. Zare auzo he- rriaren izenean ere txandakatze bera dugu: **Sada** / **Zare**.

#### 1.5.5-Sudurkariak:

-n-z hasten diren **Nabeta**, **Nobeletaondo**, eta honen aldaera datekeen **No- belondo** ditugu.

-Bokal arteko sudurkaria ez da erortzen **Ordenacoa** (1730), **Ordenecoa** (1807) oikonimoan (cf. Durangoko ordea 'ordena erlijiosoa'), baina bai **Pelau**-n.

#### 1.5.6-Albokoak:

-Latineko l geminatutik l (\*L, alegia) atera da: **Balatua**.

-Jatorrizko bokal arteko l albokoa r bilakatzen da **Done Xurio** toki-izenean; -l-dun aldakiak ere dokumentatzen dira.

#### 1.5.7-Dardarkariak:

-Errotazismoa izanenez **Zare**-n, jatorria erdarazko **Sada** bada. Edozein moduz, garbi dago euskaraz hain arrunta den bokal arteko d / r aldizkatzea dagoela hemen ere. Gertakari bera dugu **Ydozaval** (1719) / **Yrozabal** (1732)-en, baina ikusten denez, XVIII. mendeko lekukoak dira, eta aldakuntza agian desitxuraketa hasi berriari leporatu beharko diogu.

#### 1.5.8-Kontsonante-multzoak:

-pl- > pel- dugu **planu** > **Pelau**-n (cf. Zareko **Plau**).

### 2-Morfologia maila:

#### 2.1-Deklinabidea:

##### 2.1.1-Leku-genitiboa:

-Singularrean -ko dugu: **Arankoetako**, **Galtzadako**, **Usuñetako bidea**<sup>6225</sup>.

6224 Aizina aldaeran ere igurzkaria azaltzeak eragina izango zuen honetan.

6225 **Arankoetako** eta **Usuñetako bidea**-n pluraleko morfema dugula pentsa ere daiteke, baina hauekin batera **Arankoeta** eta **Usuñeta** agertzen direnez, singularreko morfema dugula garbi samar dago.

## 2.1.2-Genitiboa:

-Ez dakigu **Auntzenkorraleta** toponimoaren aldaketan dugun genitiboaren hondarkia singularrekoa ala pluralekoa den (ikus sarrera hau). Era berean, ez dakigu **Garziaginenkorraleta**-n dugun morfema zehazki zein den, baina mugagabeko **-en** dela irudi du.

-1642ko **Sorguineneunçea**-n genitibo plurala (**-en**) dukegu.

-1730eko **Zarcumerena**-n mugagabeko **-(r)en** morfema dugu.

## 2.1.3-Inesiboa:

-Kasu honen hondarra bide den **-ea** dugu **Buztinea** eta **Parralea** toponimoe-tan.

## 2.2-Elkarketa-eratorketa:

## 2.2.1-Lehen osagaiaren azken bokalaren erortzea:

-**Idozabal**.

-**Yturchiquia** (1594). 1593an **Yturrichiqui** ageri da.

## 2.2.2-Lehendabiziko osagaiaren azken kontsonantearen desagertzea:

-**Uarca** (1614).

-**Gizaiduri**.

## 2.2.3-Epentesia:

Belare epentetiko bat bide dugu **Zarkume** toponimoan<sup>6226</sup>.

## 2.2.4-Atzizkiak:

-**aga**: **Berdeaga**.

-**di**: **Elordia**.

-**egi** (?): **Opakoegia**<sup>6227</sup>.

-**eta**: **Abeta**, **Auntzenkorraleta**...

-**ko**: **Arankoeta**.

-**tze** (?): **Igaraz**.

-**tze**: **Buztintzea**.

-**zio**: **Traizio**.

## 2.2.5-Hitzen forma:

-**aizin** eta **alzin** 'aitzina' ditugu.

-**gesal** dugu gehienetan, baina behin **gezal** agertzen da.

-**handi** eta **haundi** aurkitzen ditugu; gehienetan lehen aldaera azaltzen da.

6226 Ikus FHV, 245-246. orr.

6227 Hemen **-egi** 'tegi' ezezik hegi 'mendi-hegala, mendi-mazela' ere izan genezake.

-iduri dugu, ez irudi.

-iguzki edo iruzki azaldu ohi da. Eguzki behin aurkitu dugu, 1768an, eta desitxuraketaren fruitu dela egingo genuke.

-itxaur, ez itzaur, intxaur, iltxaur....

-nagusi dugu 1605ean (Yurrinagusia), eta nausi izan daitekeena 1807an (Yturrinausea). Oraingoan jatorrizkoa lehena dela irudi du; bigarren forma desitxuraketaren ondorena dateke.

-osuin edo \*usuin azaltzen da, ez osin.

-txiki dugu, ez txipi.

-txurruta eta txurrusta aurkitzen ditugu.

### 3-Semantika maila:

#### 3.1-Izenak:

Ahuntz, alor, Andore 'Andrés', ate 'portilua', bazter, berro 'labakia', bide, buru 'gaina', butzu, done, elorri, elordi, erregu 'erreka (handia)', erreka, euntze, garai, Gardelain, gatz, gatzarri, gesal, giza-, gurutze, haran, haranko 'haranttoa', haritz, harri, hiri, hodiko 'errekastoa' (?), idoi, iduri 'irudia', iguzki edo iruzki, Irangote, Irun- 'Iruñea', iturri, kalzina 'galtzina'<sup>6228</sup>, kapana, karrera 'karrিকা'<sup>6229</sup>, Kaseda, kaskailu, komun 'herri-lurra', korostia, korte 'gortea, korralea', korral(e), larre, Madalena, Mazio 'Mateo', mendi, muga, nobela 'ardantze berria', Oibar, oihan, olibo 'olibondoa', opako edo opakoegi 'oihezkoa', otabera 'otearen antzeko landarea', parral, primizia 'dekuma-etxea'<sup>6230</sup>, Sabai(t)za<sup>6231</sup>, traizio, txurru(s)ta, Xurio 'Julio, Julián', ugarka, \*usuin<sup>6232</sup> 'osina', zabal, zaldu, Zare, zubi, zugar, zulo.

#### 3.2-Izenondoak:

Andur 'zikoitza, zekena', berde, berri, zar, bil 'biribila', biribil, eder, erori, gurutzatu, handi, nagusi, txiki, zabal, zar eta -xar 'zaharra', zuri eta -xuri.

#### 3.3-Aditzak:

Erori, gurutzatu.

#### 3.4-Posposizioak:

Agerri, aizin edo alzin, alde, buru, gain, goien, ondo, pe, saets edo saiets.

### 4-Azentuaketa:

Gure eskualdeko hizkeraren azentuaketa azkarra salatzen duten toponimoetako bat Nobeleta ezaguna da. Izen hau lehen lekukoetan Nobeleta itxurapean azaldu ohi

<sup>6228</sup> Ikus gorago esandakoa.

<sup>6229</sup> Aldi bakar batez dokumentatu dugu, eta irudipen hutsa izan daiteke.

<sup>6230</sup> Behin bakarrik azaltzen da eta espejismoa izan daiteke.

<sup>6231</sup> Ez dugu soinu afrikatuaren aztarnarik.

<sup>6232</sup> Osuin ere izan genezake Usunbiribila toki-izenaren oinarrian.

da, baina sinkopa goiz jasan eta **Nobleta** bihurtzen da. Beste horrenbeste gertatzen bide da Nafarroako beste eskualde batzuetan.

## MORIONESKO EUSKARA

### 1-Fonetika-fonologia maila:

#### 1.1-Bokalak:

##### 1.1.1-Hersketa:

-o > -u dugu erdaratikako **portilu**-n.

##### 1.1.2-Asimilazioa:

-Hagionimoetan azaldu ohi den **Done** elementu alboratuan burutu da: **JaundoneJulio** (1703) / **Joan Dene Sulio** (1679).

##### 1.1.3-Elkartuaren lehen osagaiaren azken bokala:

-Apofonia bide dugu **Astalarra** toponimoan.

#### 1.2-Diptongo eta hiatoak:

-Diptongo hauek agertzen dira Morionesko leku-izen zaharretan: [aj] (Garaiondoa, Gardelain), [ej] (Oreingaña), [au] (Maururia, Jaugia), [jo] (Gorrio ??, Sariozarreta), [wa] (JuandoneJulio, 1703).

-Maururi-ren aldakietan -au- > -a- dugu: **Maururia** (1530) / **Maruriarana** (1592), **Marueria** (1642)...

-Orein- osagaia duten toki-izenen zenbait agerralditan [ej] > [e] gertatzen da: **Orengaña** (1610), **Orenguibela** (1680)... Tartean agian \***Oreñgña** moduko bat egon da.

-Goranzko diptongo sekundarioa dugu sario (< saroi) izenean.

-au [au] > ua [wa] metatesia dugu **Jaun Done Julio** toponimoaren lehen elementu alboratuan: **JoandanenJulio** (1616), **JuandoneJulio** (1703)...

#### 1.3-Bukaerak:

-\*one > -oe > -oi > -jo dugu sario izenean.

#### 1.4-Bokal batze, erortze eta garatzea:

##### 1.4.1-Bokal bategitea:

-\*aa > a: **Astalarra**.

-ee > e: **Udareestiaga** (1530) / **Udareztiaga** (1592).

##### 1.4.2-Protesia:

-**Errotaxarra**, **Ezpondapea**.

## 1.5-j-ren bilakaera:

-[j]-dun eta [j]-rik gabeko aldaerak ditu saihets posposizioak: **Lojasaiesa** (1530), **Loyasaesa** (1592), **Pino saesa** (1596).

## 1.6-Kontsonanteak:

## 1.6.1-Bustidura:

-Erdaratikako **Pino**-n (cf. **Pinosaietsa**) jatorrizko [inV] multzoa bere horretan gordetzen da (cf. Galipentzuko **Pinareondoa**).

-[inV] > [ŋV] dugu **Oreingaña** toponimoan.

-Hitz bukaeran edo kontsonante aurrean [in] genuen: **Makirriain**, **Oreingaña**<sup>6233</sup>, **Indurainzabala**.

-[isC] bere horretan gordetzen zen: **Bizkarra** [biθkára], **Izpikuduia**<sup>6234</sup>.

-Antza duenez, horzkari ahoskabea ez zen bustitzen [itV] testuinguruan: **Yturburua** (1596).

-**Julio** izenean [x] dugu, ez **Leatxeko [s]**. 1679an ordea, azken soinu hau bide duen aldaera azaltzen da: **Jaun Dene Sulio**.

-Erdaratikako maileguetan jatorrizko [ij] mantendu egiten da: **Mugarana Portilloa** (1687), **Portillua**.

-**Zar** 'zahar' izenondoak -**xar** aldaera aurkezten du elkartuaren bigarren osagaia denean (-**zar** ere azaltzen da lekune honetan): **Ardanzejara** (1530), **Ardanchezarra** (1610), **Ardanzejara** (1642), **Errotaxarra** (1530), **Sareojarra** (1592), **Sario Jarretta** (1616).

-Hitz hasierako hortz-hobietako bizkarkaria sabaikaldua edireten dugu **zubi**-ren txikigarria den **xubingoa**-n. Ikusten denez, hots sinbolismoa baliabide morfologiko batez (-**ko** atzizki txikigarriaz) lagundua dago.

## 1.6.2-Herskariak:

-Hitz hasieran herskari ahostuna ohi dugu: **berriko**, **Bizkarra**, **butzu**, **dorre...** baina herskari ahoskabea ere agertzen da: **Pinosaietsa**, **Portillua**. **Tipulatzea** toki-izenean eskuarki t- ohi badugu ere, lehen lekukotasuna 1530eko **Dipulaçea** da.

## 1.6.3-Ezpainkariak:

-m-z hasten den leku-izen mordoxka dago: **Magdalenaldea**, **Makirriain**, **Martxela**, **Maururia**, **Mendizabala...**

-Ez dago f-z hasten den euskal leku-izen zaharrik.

## 1.6.4-Txistukariak:

-[ś], [s], [š], [ć], [c] eta [č] genituen Morionesen.

-Hitz hasieran [ś] edo [s] ohi dugu (**Soka**, **Soroa**, **Zabala**, **Zarebidea...**), baina [č] ere aurkitzen dugu, **txapar** osagaia duten leku-izenetan eta **Txindilatzea**-n. [ś] behin azaltzen da, **Xubingoa** txikigarrian.

6233 Ikus, hala ere, gorago esan duguna.

6234 Toponimo honen 1659ko lekukotasunean sabaikaltzearen islada izan litekeen **Izpikuduia** dugu, baina 1642an **Izpikuduia** ageri da, eta behin baino gehiagotan esan denez z / s txandakatzea arrunta da herskari aurrean, baita lehenago bokal sabaikaririk ez dagoenean ere.

-Latineko txistukari igurzkaria [s] bilakatzen da: **Ezpondapea**.

1.6.5-Sudurkariak:

-Ez dago n-z hasten den toponimorik.

1.6.6-Albokoak:

-Bokal arteko l bere horretan gordetzen da, r bilakatu gabe: **Jaun Done Julio** (cf. *Leatxe*).

*2-Morfologia maila:*

**2.1-Deklinabidea:**

2.1.1-Leku-genitiboa:

-Singularreko morfema **-ko** zen: **Arteko aldea**<sup>6235</sup>, **Dorreko alorra**, **Urrutiko oihana**.

-Plurala (**-etako**) **Biroetako alorra**-n izanenezake, baina **Biroeta** toponimoa ere egon liteke horren oinarrian.

**2.2-Elkarketa-eratorketa:**

2.2.1-Lehen osagaiaren azken bokalaren erortzea eta azken kontsonantearen truketzea:

-**Iturburua**.

-\***Oiarmendia** > **Ollarmendia**<sup>6236</sup>.

-**Ugarca** (1650)<sup>6237</sup>.

2.2.2-Atzizkiak:

-**aga**: **Iparraga**, **udareziaga**.

-**ain**: **Indurainzabala**.

-**dui**: **izpikuduia**.

-**egi** (?): **Aritzabalegia** (ikus beheraxeago).

-**eta**: **Aritzandieta**...

-**ki** (?): **Orozki**.

-**ko**: **Soroko**.

-**ngo**: **Butzuungoa** (?)<sup>6238</sup>, **Xubingoa**.

-**tto**: **Elizattoa**.

-**tze**: **Ardantzexarra**, **Txindilatzea**.

-**(g)un(e)**: **Beltzuntze** (?), **Iguzkun**.

6235 Adibide hau zalantzakoa da, arteko kasu honetan **arte** zuhaitz-izenaren txikigarria ere izan daitekeelako.

6236 Hau dudazkoa da, eta ezin zeharo baztertu hemen oilar hegazti-izena dugulako ustea.

6237 Normalean **Uarca** agertzen da, halaz ere.

6238 Leku-izen hau aldi bakar batez aurkitu dugu, eta beraz urruti dago seguru izatetik. Guztiarekin, **Xubingoa**-n azaltzen den atzizki txikigarri bera izanenezake hemen ere.



## 2.2.3-Hitzen forma:

- handi, ez haundi.
- iguzki, ez eguzki.
- sario, ez sarobe...

## 3-Semantika maila:

## 3.1-Izenak:

Agata, Ageza, alor, ardantze, arte, barranko<sup>6239</sup>, bazter, beltz, bereter 'apeza', berjera, bide, bizkar 'gaina', buru 'gaina', butzu, butzuungo 'butxuttoa' (?), eliza, elizatto 'ermita', erregu 'erreka (handia)', errota, ezponda, ezti, Finia 'Eufemia', garai, haran, haritz, hegia (?)<sup>6240</sup>, hiri 'herria', hodi(a) 'errekastoa', iguzki, ipar, iturri, izpiku, izpikudui, jaun<sup>6241</sup>, larre, Leatxe, Loia, mauru (?), mendi, muru 'gaina' (?)<sup>6242</sup>, muga, oihan, olibo 'olibondoa', oilar (?)<sup>6243</sup>, orein, portilu, sario, soro 'alorra', soroko 'alorkoa', tipula edo dipula, txapar, txindil(a) 'dilista', udare 'udare, udareondoa', xubingo, zabal, Zare, zubi.

## 3.2-Izenondoak:

Erori, ezti, guren 'ona, ederra...', handi, jaugi, makur, zabal, zar edo -xar 'zaharra'.

## 3.3-Aditzak:

Jaugi 'atera', erori.

## 3.4-Posposizioak:

Agerri, alde, buru, gain, gibel, goien, ondo, pe, saetsa edo saietsa.

## UXUEKO EUSKARA

## 1-Fonetika-fonologia maila:

## 1.1.-Bokalak:

## 1.1.1.Irekitzea:

Ikus hurrengo puntua.

6239 Hau behin-behineko mailegua dateke, alegia, hizkuntzan erroztatua ez zegoena (ikus Agezako Barrankoandia sarrean dioguna).

6240 Aritzabalegia-n dugun -egia 'tegia' ere izan liteke.

6241 Beti Joan edo Juan dugu, eta sorburua Jaun bada ere, ez Morionesen ez gure alderdiko beste herrietan opatu dugu hondar aldaki hau.

6242 Oso dudazkoa da.

6243 Hau, gure ustez, oihan izenaren elkarketako aldakia den oihar-etik lleismoz ateratako forma da.

## 1.1.2-Hersketa:

-**Astrakastillu, Kastillu**<sup>6244</sup>. Ollatio (1564, 1598, 1654) / **Oliatu** (1594, 1657, 1768), **Ullatu** (egun)-n hersketa gauza zitekeen, baina irekitze goiztiarra ere bai.

## 1.1.3-Elkartuaren lehen osagaiaren azken bokala:

Apofonia toponimo hauetan gauzatzen da: **Artabakoitz, Artazabal, Astabidea, Basandia**<sup>6245</sup>, **Otsalarraña**.

## 1.1.4-Asimilazioa:

-**Viperatu** (1534) > **Pipiratu** (1603az geroztik).

## 1.1.5-Disimilazioa:

-Disimilazioa bide dugu **Akirazabal**-en lekukotasun batzuetan: **Equyra cabal** (1634), **Equiraçabal** (1677)... Arruntena, halaz ere, a-dun aldakia da, eta gauregun azken honetatik ateratako forma erabiltzen da (**Lakilazaba**).

-Disimilazioaren ondorio da, halaber, **Arbolaga**-ren **Erbolaga** (1793) aldaera. Hau, alabaina, berandu azaltzen da, euskara desagertu ondoren.

## 1.2-Diptongo eta hiatoak:

-Uxueko euskal leku-izen zaharretan diptongo hauek ageri zaizkigu: [aj] (**Arteko haitz, Lezkairu, Zapaiz...**), [oj] (**Artabakoitz, Idoitxiki**), [aɥ] (**Aurino, Lauzatea, Zaubio...**), [ja] (?) (**Aliaga, Andiaga**)<sup>6246</sup>, [je] (?) (**Aitzandieta**), [wa] (**Juan de Marttia, 1774, Juangarziarana**), [wi] (**Ardui**).

-Monoptongaketa burutu da **Apezalorra** eta **Apeztegi**alorra-ren modukoetan.

-**Haitz** osagaia duten bi leku-izenetan [aj] diptongoaren monoptongaketa goiztiarra dugu: **Ayzcanbela** (1604) > **Escanbela** (1688), **Ezcanbela** (1688), **Ayzquieta** (1602, 1603) > **Ezqueta** (1631), **Ezquieta** (1634). Garai berean edo beranduago, halarik ere, ai-dun aldaera aurkitzen dugu: **Ayzquieta** (1631), **Aizcanbela** (1725, 1730), egun e-duna erabiltzen denegatik (**Eskanbela, Ezkanbela**).

-**Haitz** osagaia duen beste toponimo batean, aldiz, ai- > a- laburketa agertzen da, ez monoptongaketa: **Ayzpeaga** (1588), **Aizpiaga** (1722) > **Azpiaga** (1786, 1789). Laburketa hau, dena den, euskara galdutakoan gauza zitekeen.

-**Mear**-etik miar dugu 1707ko **Buzumiar**-en, baina 1768an **Buzumear** ageri da.

-**Jaun**-etik **Juan** dugu 1774ko **Juan de Marttia**-n, metatesiz.

6244 Erdararen eraginez bukaerako -o hori berriz ireki da, eta hortik **Astacrastillo** (1628), eta egungo **Castillo**.

6245 Bokal batzea burutu aitzinetik apofonia gertatu zatekeen.

6246 Ez dakigu izen hauen ahoskera zaharra zein den.

### 1.3-Bokal batze, erortze, eta garatzea:

#### 1.3.1-Aferesia:

-**Abuñaga** (1588) > **Buñaga** (1622)<sup>6247</sup> > **Muñaga** (egun); **Recacarra** (1618), **Recazar** (1644)...<sup>6248</sup>, **Essatea** (1633) > **Satea** (gero, gaur arte).

#### 1.3.2-Anaptisia:

-**Gurutzegibela, Gurutzezabala...**

#### 1.3.3-Apokopea:

-1698ko **Aldaydarrea Aldaidar** bihurtzen da 1767an, euskara galdua edo gal zorian zegoenean. Guztiarekin ere, apokope hau **-darre** (< **larre**, gure irudiz) elkartuaren bigarren osagaian egoteari zor zaio (cf. **Larluz, Kapanalar...**) eta azentuaketari loturik dago.

#### 1.3.4-Bokal bategitea:

-**aa** > **a**: **Basandia, Juangarziarana** (1772), **Lauzatea**,  
-**uo** > **o**: **Gazteluondoa** (1593) > **Gastelondoa** (1631), **Gaztelondoa** (1634).

#### 1.3.5-Paragoea:

-**Boxagarea, Eskobarea.**

#### 1.3.6-Protesia:

-**e**-ren protesia dugu erreka, erripa eta ezkabia izenetan.

### 1.4-Kontsonanteak:

#### 1.4.1-Bustidura:

-**[jnV]** > **[ŋV]** dugu Uxuen: **Balsalarraña, Otsalarraña, Piolarraña**.  
-Ez da **c** -> **č / ĵ** - **V** edo **c** -> **č / ĵ** - # gauzatzen: **Artebacoyza** (1625), **Artabacoyza** (1633), **Artebacoiz** (1677), **Ertecoyça** (1605), **Ertecoayz** (1654), **Artecoaiza** (1705)...

-**[s]** ez da sabaikaltzen **[isV]** testuinguruan: **Burnizirieta**<sup>6249</sup>.

-**[isC]** eta **[ĵsC]** bere horretan gordetzen zirela dirudi: **Bizkarra, Aizkanbela, Aizketa, Aizpeaga**<sup>6250</sup>.

-Horzkari ahostuna ez da sabaikaltzen **[indV]** testuinguruan: **Chindilochaga** (1631, 1634), **Chindorochiaga** (1710), **Chindorochaga** (1732).

6247 Ferxa hau baino franko beranduago ere aurkitzen dugu **a**-dun aldakia (1766an, kasu).

6248 Inausketa hau notarien bizkar utzi beharko dugu, itxura guztien arabera.

6249 Hemen berriz ere morfema muga dugu bokal sabaikariaren eta txistukari bizkarkariaren artean.

6250 Azkeneko hiru izen hauetan [s] sekundarioa da, eta [c]-tik atera da.

-Horzkari ahoskabea ez da bustitzen [itʰ] segidan: **Yturriberri** (1667), **Yturri car** (1603), **Yturrizar** (1806), **Yturrizarra** (1780), **Turruzales** [tũruθáleš] orain, **Malliturri** (1780), **Maniturri** [mànituĩri] gaurregun **Uxuen**<sup>6251</sup>.

-Maileguetan erdarazko [ij] zegoen-zegoenean gordetzen da: **Astrakastillu**, **Kastillu**.

-Beti **Juan** dugu, bai **Jaun**-etik heldu delarik, eta bai **Juan 'Jon'**-etik heldu delarik: **Juan Done Martia**, **Juandeigal**, **Juangarziarana**, eta ez dugu beste herri batzuetan azaltzen den [j] > [š]-ren adibiderik.

#### 1.4.2-Hasperenketa:

-Uxuen ez dugu jatorrizko hasperenketaren ordez zenbait tokitan azaltzen den belare ahostuna aurkitzen. **Aho** osagaia dukeen leku-izen bakar dudazkoa dugu, eta beraz, ezin baieztapen biribilik egin oraingoan ere: **Buzakao** (cf. **Lergako Iturgutiagoa**, **Iturloiagoa**).

#### 1.4.3-Herskariak:

-Hitz hasieran herskari ahostunak opatzen ditugu: **Balsalarraña**, **Barallas**, **Berage**, **Beraiz**, **Berroandia**, **Beskos**, **Bigas**, **Bikuaga**, **Billeta**, **Boxagarea**, **Burnizirieta**, **Busazarra**, **butzu**<sup>6252</sup>, **dorre**, **Galaputzu**, **gaztelu**, **gorte**, baina herskari ahoskabeak ere badira: **Kaltxista**, **Kastillu**, **Korralandia**, **Pirolarraña**, **Petringesala**, **Pikararana**... Batzuetan ahostuna eta ahoskabea azaltzen dira: **Corboran** (1634), **Corborana** (17168), baina **Gorgoran** (1685); **Durtunbera** (1602), baina **Turtunbera** horrez geroztik, **gaur arte** (cf. **Dipulaçea** Morionesen 1530ean, **Tipulaçea** edo **Tipulacea** gero).

-Latineko bokal arteko herskari belare ahoskabea bere horrela gordetzen da euskaraz: **aq(u)̃la** > **Akira(zabal)**, **lacū** > **Laku**...

-Txistukari ahoskabe ondoan herskari ahostuna ahoskabetu egiten da: **Aizkanbela**.

-Hortz-hobietako albokoaren ondoan **d** ohi dugu: **Aldabea**, **Aldaidarrea**, **Aldamara**.

-Hortz-hobietako sudurkariaren ondoan **d** dugu behin, **Sandimas** izenean.

-Latineko herskari geminatu ahostuna herskari ahostun bilakatu da **Uxuen** **Abaiz** (1618, 1667) edo **Abaiza** (1696) toponimoan. Dena den, ez dago zeharo garbi **Epaiz** herriarekiko fazeria den edo beste zerbait. Lehen kasuan hizkuntza ofizialaren eraginari zor lekiok **b**-dun aldakia (cf. **Eslaba** eta **Lerga**). Nolanahi ere, hizkera arruntean **apez** genuela segurua da (**Apeztegiatorra**, **Apezalorra**).

#### 1.4.4-Ezpainkariak:

-**Abuñaaga**-tik, hasierako bokalaren aferesiaren ondoren, **Muñaaga** atera da, hots, **b**- > **m**- aldakuntza burutu da, asimilazioz seguraski.

-**mb** / **b** / **m** aldizkatzea aurkitzen dugu hitz barruan (baina elkartuetan), **Lakumulatu** eta **Santakaramuru**-ren aldakietan (ikus bi sarrerok).

-Latineko **f**-tik **b**- atera dateke **Bagarana**-n, irudi duena (**bago**, alegia) bada. **Bikuaga**-n **f**- > **b**- segurua da.

6251 Orain **Mantxintxurreta** edo **Mantxantxurreta** dugu, baina bigarren [é] berria da, eta desitxuraketa prozesuan sortu da, lehenaren eraginez: **Manchiriyturria** (1606), **Manchi liturry** (1699), **Manchiliturrieta** (1685), **Manchariturrieta** (1802), **manchiturrieta** (1803), **Machiturrieta** (1847), **Manchanturrieta** (1857).

6252 Izen honek **b**- ohi du komunzki, baina kasu batean elkartuaren bigarren osagaian **p**- dauka: **Galaputzu**. Ikus honetaz Uxueko toponimiaren azterketa egitean dioguna.

-Oso ugariak dira m-z hasten diren leku-izenak: **Madonalorra, Makarreta, Malliturri, Mantxiriturrieta, Matxaz, Mostrakas...**

-Kasu batean b- > p- pausoa aurkitzen dugu: **Viperatu** (1534) > **Pipiratu** (horrez geroztik, egun arte). Hemen, irudiz, asimilazio bikoitza dugu.

-Ez dago f-z hasten den euskal leku-izenik.

#### 1.4.5-Txistukariak:

-[ś], [s], [š], [š], [č] eta [c] genituela segurua da.

-Herskari ahoskabe aurrean Uxuen, Nafarroako beste hainbat lekutan bezala, [s] > [ś] aldakuntza aurkitzen dugu: **Escanbela** (1618) / **Ezcanbela** (1688). Hau kontu grafiko hutsa izan liteke, edo notariak euskarazko hortz-hobietako apikaria eta bizkarkaria nahastearen ondorea. Zernahi gisaz, egun ere [ś]-z edo [s]-ren ondorengoa den [θ]-z ebakitzen da.

-**Aizkanbela-n [c] > [s]** gertatu da herskari aitzinean.

-Latineko (eta erromantzeko?) [ś] > euskarazko [s] dugu: **Ezkabiazuloa, Zautelu, Zazu**.

-Elkartuaren bigarren osagaian ere -zar 'zahar' edo -zuri dugu beti, ez beste toki batzuetako -xar edo -xuri<sup>6253</sup>.

-**Zoko** dugu gure alderdiko izen honen lekuko (toponimo) bakarrean. Azpimarratzekoa da elkartuaren bigarren osagaian egonik ere -z- ([s] lehenik, [θ] egun) aurkezten duela beti.

-**Santxotoria**-ren 1734ko **Chanchoteria** eta 1752ko **Chanchotoria** aldakietan txistukari-asimilazio arrunta dugu, eta gauza bera dugu **Suchu** (1602, 1605, 1619, 1628...) / **Chuchu** (1593, 1613, 1634...eta egun) aldizkatzean<sup>6254</sup>.

-Hitz hasieran eskuarki s- edo z- izan arren, tx- ere azaltzen da **Txindilotxaga, Txorria** (< **Etxorria**?) eta **Txutxu** (< **Sutxu**)-n.

-S- eta z- edireten ditugu **Sulunbate(zoko)** toponimoaren aldaeretan, eta zaharrena lehendabizikoa dela irudi duenagatik, kontua ez dago zeharo garbi. **Z**-dun aldakiak bukaerako zoko-ren eraginari (asimilazioari, alegia) zor zaizkioke.

#### 1.4.7-Sudurkariak:

-n-z hasten den toponimo zahar seguru bakarra dugu: **Nobeleta**. Honen oinarrian, agerian denez, **nobela** mailegua dago.

#### 1.4.8-Albokoak:

-Bokal arteko latineko hortz-hobietako albokoa dardarkari bakun bilakatu da euskaraz, alegia, -l- > -r- pausoa burutu da: **akila** (< **aquila**) > **Akira(zabal)**.

-Latineko alboko geminatua l bilakatu da Uxuen, beste edonon bezala: **Gaztelu(ondoa), Zautelu**.

#### 1.4.9-Dardarkariak:

-Jatorrizko **Piolarraña Pelolarraña** bihurtu da 1634an, **Piolarraña** 1724an, **Pilalarraña** 1767an, alboko asimilazioz edo dardarkari-disimilazioz. Gero, haplogiaz, egungo **Pilarraña** atera da.

6253 Beste toki horietan aldaera bustiak ez bustiekin batera azaldu ohi dira.

6254 Lergan **Sucho** dugu 1588an eta **Suchu** hurrengo urtean.

## 1.4.10-Kontsonante-multzoak:

-Uxuen bat baino gehiago dira **-tr-** multzo itxuraz arrotza duten leku-izen zaharrak: **Mostrakas, Otrillos, Otroperitzu, Petringesala**. Hauetan ez dugu sekulan tar-teko bokala duen aldakirik aurkitu.

## 2-Morfologia maila:

## 2.1-Deklinabidea:

## 2.1.1-Leku-genitiboa:

-(e)ko zen singularreko morfema: **Abaizko zuloa, Arteko haitz**.

## 2.1.2-Genitiboa:

-Badakigu mugagabeko morfema **-en zela**: **Mikelenzabal, Petringesala-n** kasu marka laburtua dago.

## 2.1.3-Inesiboa:

-**Errekazarra**-ren 1806ko **Recazarea** aldakian inesiboaren hondarra datekeen **-ea** dugu.

## 2.2-Elkarketa-eratorketa:

2.2.1-Lehen osagaiaren azken bokalaren erortzea eta azken lekunean gelditu kontsonantearen desagertzea:

-**Ardui**; **Galaputzu**; **Yturralde** (1537); **Yturzarra** (1782).

## 2.2.2-Atzizkiak:

-**aga**: **Abuñaga, Andiaga, Dorrondiaga, Zaldunaga...**

-**ana**: **Erlosiana**.

-**as** (?): **Bigas, Mostrakas...**

-**az** (?): **Matxaz**.

-**dui**: **Ardui, Lizardui**.

-**eta**: **Aitzandieta, Aizquieta** (1602), **Ezqueta** (1631)...

-**gu** (?): **Berau** (1588)

-**ino**: **Aurino**.

-**iru** (?): **Lezkairu**.

-**iz** (?): **Zapaiz**.

-**ki** (?): **Alda(i)zkia**.

-**oki** 'toki' (?): **Burgaloki**.

-**os** (?): **Beskos, Munos**.

-**tegi** 'etxe', 'toki': **Apeztegiatorra**.

-**tu** (?): **Pipiratu, Zabartu**.

-**tze**: **Areatzeta, Lezkatzea**.

## 2.2.3-Hitzen forma:

- andre, ez andere<sup>6255</sup>: Andrebutzu, Andresoro.
- arte eta erte: Ertecoayz (1654), Artecoaiza (1705).
- bakoitz, ez bakotx: Artabakoitz.
- drinda, ez drunda, ginda, inda...: Drinda, Drindabe.
- gesal, ez gezal edo gezari: Petringesala.
- handi, ez haundi: Aitzandia, Aitzandieta, Basandia, Berroandia, Etxeandieta, Korralandia...
- txiki edo txipi: Lerbezchipi (1593), Otrillos Chiqui (1686), Zubitxiki.
- zar dugu beti, sekulan ez-xar, ezta elkartuaren bigarren osagaian ere: Busazarra, Errekazarra, Erripazarreta.
- zuri dugu, ez-xuri: Mugazuria (cf. Leatxeko Mendixuri).

## 3-Semantika maila:

## 3.1-Izenak:

Aldabe '(herri ondoko) eremu aldapatsua', aldai 'aldapa, mendi-hegala', alda(i)zkia 'aldapa' (?), altxunbide 'ardibidea', alor, andre, apez, apeztegi 'apezterxea', arbol(a), ardui, arte, astabide, asto, ate 'harratea', bago (?), balatu 'toki hesitua' (?), bal(t)sa (?)<sup>6256</sup>, barrio 'auzoa'<sup>6257</sup>, baso, Beire, Beltran, berro 'labaki', bide, biku 'pikua, pikuondoa', bizkar, boxagare 'ezpeldia'<sup>6258</sup>, burni(a), buru 'gaina', butzu, done 'San'<sup>6259</sup>, dorre, drinda, erreka, erripa, eskobare 'isastia'<sup>6260</sup>, etxe, ezkabia, ganbela, gaztelu, gesal, gorte 'korralea', gurutze, haitz, harea, hareatze, haritz (?), harri, harritze (?), hiri, hodi(a) 'errekastoa', horma 'pareta' (?), idoi 'baltsa', iturri, jaun (?)<sup>6261</sup>, korral(e), kukulu 'menddikoa' (?), laku 'lintzura', lar 'laharra', lartze 'lahartzea' (?), larrain, larratz(a), lauz, lauzatze, ler 'pinua', lezka, lezkatze, lizar, lizardui, Martia 'Martín', mendi, Mikel(e), morea (?), muga, muno, muño 'muinoa' (?), muru (?), mutxurro, mutxurru, mutturru 'punta, gailurra' (?), nobela 'ardantze berria', osin 'asuna' (?), 'osina' (?), otso, Petri 'Pedro', pika 'malda zuta', piro 'ahatea' (?), San Martin, Santakara, sarri 'oihan'<sup>6262</sup>, soro 'alor', udare 'udarea, udareondoa', urka, zabal, zaldi, zaldino 'xaldikoa', zautelu 'xaldukoa', zazu, zuhaitz, zoko, zubi, zulo.

## 3.2-Izenondoak:

Bakoitz, beltz, berri, eder, gorri 'gorria, soila, soildua' (?), handi, luze, makur, mehar, motel<sup>6263</sup>, txiki edo txipi, zabal, zar 'zaharra', zuri.

6255 Osagai hau duten bi leku-izenak oso berandu agertzen dira, eta ez dakigu XVI. eta XVII. mendeetan zer aldaki erabiltzen zen.

6256 Ez dakigu seguru Balsalarraña toponimoan baltsa 'idoia' dugun. Edozein moduz, hots afrikatuaren frogarik ez dugu.

6257 Ez dakigu hitz hau hizkera arruntekoa zen edo toponimo bakar batera (Barrioazar-era, alegia) murriztua zegoen.

6258 Oraingoan ere ez dakigu aldi bakarreko mailegua den edo hizkera arruntean ere onartutakoa. Zernahi gisaz, gure alderdian ezpel osagaia duen leku-izen ugari ditugu.

6259 Uxuen de aurkitu dugu, baina garbi dago latineko done (< domne < dōmīne)-tik heldu dela, seguru asko dene asimilatuaren bitartez. Nolanahi ere, Jaun Done elementuak ez zaizkio edozein saildu-izeni alboratzen.

6260 Ikus Boxagarea-z esan duguna.

6261 Juan metatesia jasandakoa da agertzen dena, Uxuen eta beste herrietan, gehienetan Joan-ekin batera.

6262 Ez dakigu sarri hau zeharo oihan-en kide den, baina honen adieratik hurbil zegoela segurua da.

6263 Ez dakigu honen adiera zehatza zein zen.

### 3.3-Posposizioak:

Alde, arte, barren, be, gibel, ondo, pe (?).

#### 4-Azentuaketa:

Hizkuntz-aldaketarekin batera burutu azentu-aldaketak **Sulue**-ren 1801eko **Sulbe** aldaera sortarazi zuela dirudi. Azentuari berari leporatu beharko zaio, halaber, egungo **Sule** [súle] laburtua.

## ZAREKO EUSKARA

### 1-Fonetika-fonologia maila:

#### 1.1-Bokalak:

##### 1.1.1-Hersketa:

-Hitz bukaeran -o > -u dugu maileguetan, erromantzearen eraginez euskaraz -o ere aurkitu arren: **Viñedo** > **Biñeru**, **Biñaru**; **Puntallo** > **Puntallu**.

##### 1.1.2-Bokal-ezpainkaritzea:

-\***Itsaskieta** > **Utsaskieta**.

##### 1.1.3-Elkartuaren lehen osagaiaren azken bokala:

Apofonia dugu **Mandaputia**-n<sup>6264</sup> eta **Zumadui**-n.

##### 1.1.4-Asimilazioa:

-**Gardelain** > **Gardalain**<sup>6265</sup>.

##### 1.1.5-Disimilazioa:

-**Viñedo** > **Viñero** (1582) > **Viñaru** (1634an eta egun)<sup>6266</sup>.

-**YRebarren** (1587)<sup>6267</sup> / **Yribarren** (1592).

##### 1.1.6-Metatesia:

-**Yparraguerria** (1727) / **Yparraguirrea** (1614)

-\***Isats(kieta)** > \***Itsas(kieta)**.

6264 Ez dakigu seguru **mando** animalia-izena dagoen hemen, eta hortaz, dudazkotzat jotzeaz beste biderik ez dugu.

6265 Asimilazio hau, gorago esan bezala, XV. menderako gauzatu zen, nahiz **Gardelain** oraindik ere bizirik dagoen, izen ofiziala den **Gardalain**-en aldamenean.

6266 Gehienetan bezala, hemen ere zalantzak izan dira, eta bilakaera hau izan bada ere, **Biñedo** 1592an ere agertzen da, eta **Viñeru** 1760an.

6267 Hau aldi bakar batez aurkitu dugu, baina gaurregun ere gertatzen denez (cf. **Ireberri** 'Aezkoa-Hiriberri'. Ikus NHI, 43. or.), benetakoa formatzat har daiteke.



## 1.2-Diptongo eta hiatoak:

-Diptongo hauek agertzen dira Zareko euskal toki-izen zaharretan: [aj] (Aitzulatu, Gardelainbidea...), [au] (Auzalorra, Lausitu, Jautu, Plau...), [je] (Utsaskieta).

-Jatorrizko [oe] ([oé] ziur asko) [ue] ([wé] seguruenara) bilakatu da, azen-tuarengatik. Quiñoeta (1587) > Quiñueta (1670). Kinu [kiŋu]-tik abiatuko bagina [ué] > [wé] genuke, baina 1587ko aipatu aldaera kino [kiŋo]-ren alde mintzo da. Gero, [wé] > [é] monoptongaketa burutu da. Azken hau, gertatzen den garaia ikusita, desitxuraketa prozesuaren barrukotzat jo behar dela dirudi.

## 1.3-Bokal batze, erortze, eta garatzea:

### 1.3.1-Anaptisia:

-Salobretta (1610) > Saloberetta (1733). Ikusten denez, anaptisia jasandako aldaera berandu aurkitu dugu, eta badaiteke euskaraz kanpoko gertakaria izatea.

### 1.3.2-Bokal bategitea:

-aa > a: Errotaldea

-ee > e: Baratzeta; Bide + ertxi > Bidrech (1718)<sup>6268</sup>, Dolareta...

-eo > o: Echeondoa (1596) / Echondoa (1582)

-oa > a: Auzalorra. Hemen tarteko \*Auzaalorra bat izan dela kontu egin daiteke.

-oo > o: beroki eta ordoki izenean aurkitzen dugu: Egoaberokia, Ordokia.

Bi izen hauetan -oki dugun, ordea, ez da segurua<sup>6269</sup>.

-oe > e: Dorrondoeta (1592) / Dorrondeta (1591)<sup>6270</sup>, \*Puioéta > Puiueta

(cf. 1614ko Pujeta) > Puiéta.

## 1.4-j-ren bilakaera:

-[j]-dun eta [j]-rik gabeko aldaerak aurkezten ditu saihets posposizioak: Pu-yeta ssayessa (1606) / Picuetassaessa (1605).

## 1.5-Kontsonanteak:

### 1.5.1-Bustidura:

-Ez da c -> č / ĭ - V edo c -> č / ĭ - # gauzatzen: Erren gaiça (1650), Errengaiza (1683), Guerrengaiza (1762), Rengayz (1634), Garrangariz [gãraŋgáriθ] orain.

-Horzkari ahoskabea ez da sabaikaltzen [itV] testuinguruan: Guessalyturrieta (1609), Gurbitueta (1593, 1611), Gurbitutea (1721), Yturriarte (1723), Yturcubia (1616).

-Erdaratikako maileguetan [iŋ] dagoen-dagoenean gordetzen da: quiñón > kiño (Quiñoeta 1587an, Quiñueta 1670ean).

6268 Behin bakarrik ediren dugu eta dudazkoa da.

6269 Ikus Uxueko Txorria aztertzean dioguna.

6270 Hemen fetxak ikusita kontraesana dagoela irudi badu ere, aintzat hartu baharra dago leku-izen batek aldaera bat baino gehiago izan dezakeela, eta hortaz, badaiteke urte batzutan behintzat jatorrizko Dorrondoeta eta Dorrondeta laburtua elkarren alboan bizi izana.

-Erdaratikako **Puntallu-n [j]** bere horretan gordetzen da.

-**Zar** 'zahar'-en hortz-hobietako afrikatu bizkarkaria izenondoa elkartuaren bigarren osagaian dagoenean busti egiten da: **Rotaxarra** (1582), **Errotajarra** (1614), **Errotasarra** (1703). Bustitze honen helburua ez da, inondik ere, adierazgarritasuna lortzea (cf. Ezporogiko **Erlategitxar** eta **Ormaxarreta**). **Zar** ere badugu, ordea: **Zokozarra**.

-[š] > [s] > [x] pausoa dugu **Sautu** (1584, 1591...), **Jautu** (1643...)-n. Tar-teko sabaiaurreko igurzkaria ezinbestekoa da jatorrizko hortz-hobietako apikaritik belarera ([x]-ra) iristeko. **J-** grafema, gainera, [š]-ren ordezkatzaile izan daiteke (ikus **Grafia kontuak** atala). Hau ere ez da bustitze adierazgarria.

-[s] > [š] aldakuntza dugu **Xubingoa** txikigarrian. Ikusten den bezala, bustitzea atzikia agertzearekin batera gertatzen da.

#### 1.5.2-Herskariak:

-Txistukarien ondoko herskari ahostunak ahoskabetu egin dira **Bidazparrena** eta **Leatxkaratea** leku-izenetan, baina ez **Armillosbidea-n**.

-Hitz hasieran herskari ahostuna agertzen da batzuetan: **Dolareta**, **Dorreta**, **Dorrondeteta**, **Gazteluondoa**, **Gesaliturri**, **Gurpitueta**, eta ahoskabea beste batzuetan: **Korkua**, **Koroagaña**, **Kostobaro**, **Piketa**, **Pikotazarra**, **Pikulangortea**, **Pikueta-saietsa**, **Plau**, **Porbonzio**, **Puieta** (cf. **Eslabako Boiu**)...

-n-ren ondoan belare ahostuna dugu **Zangozabidea** toponimoan.

-g > b pausoa aurkitzen dugu **Ugarca** (1589) > **Ubarca** (1845)-n<sup>6271</sup>.

-Kasu batean Ø / K- aldizkatzea dauka: **Orcua** (1693) / **Corcu** (1778az geroztik, **Korkuba** [kořkúba] egun).

#### 1.5.3-Ezpainkariak:

-Mordoxka dira m-z hasten diren leku-izenak: **Malabranka**, **Maldandia**, **Mandaputia**, **Mañuelas**, **Martisatea**, **Matureta**...

-f-z hasten den leku-izen zahar euskaldun bat dugu: **Franzesa**. Mailegu garbia da hau, gure irudiz.

#### 1.5.4-Txistukariak:

-[š], [s], [š], [ć], [c] eta [č] genituen Zaren.

-Hitz hasieran [š], [s] ditugu eskuarki, eta [š] **Xubingoa** txikigarrian azaltzen da. Lekune honetan [č] duen leku-izenik ez dugu aurkitu.

-Hitz bukaerako [c] eta [č] afrikatuak igurzkaritu egin dira herskari aitzinean: **Bidazparrena**, **Leachcaratea** (1591) / **Lezcaratea** (1683), **Liascarate** (1756).

-Gorago esan bezala, [š] > [s] > [x] dugu **Jautu-n**.

-Erdarazko [š] / euskarazko [s] txandakatzea dugu hitz hasieran: **Sada** / **Zare**, **Sangüesa** / **Zangoza**.

-[c] + [s] > [c] bide dugu Zaren: **Aizulatu** (1698). **Grafia**, hau, halarik ere, ez da guztiz argia.

6271 Hau Nafarroako beste toki askotan ere edireten dugu, ur osagaia duten izenetan: **Ugalde** / **Ubalde**, **Ugaran** / **Ubaran**... Honelakoetan belaredun aldakiak ohi dira zaharrenak.

## 1.5.5-Sudurkariak:

-Bokal arteko sudurkariaren erortzea behin aurkitu dugu, 1610eko **Coroagaña-n**. Hau, jakina, XVI. mendea baino lehenago gauzatu da, euskarak mailegua latinetik edo erromantzetik hartzean.

-Jatorrizko bokal arteko -n-ren ordez Ø izaten dugu gure alderdian **linu**, **lino**-ren eratorrietan, baina Zaren -g- azaltzen da **Ligusuñeta** leku-izenean. **Plau**-n, ordea, Ø dugu.

-n-z hasten diren **Naba** eta **Nababarrena** ditugu.

## 1.5.6-Dardarkariak:

-Errotazismoa dugu **Viñedo** > **Biñero** (1582), **Viñaru** (1634), **Viñeru** (1760)-n, eta agian **Sada** / **Zare**-n.

## 1.5.7-Kontsonante multzoak:

-Hitz hasierako **pl-** multzoa bere horretan mantentzen da, euskaraz arrunta den sinpletzea (**pl-** > **l-**, alegia) pairatu gabe: **Plau** (< **planu**). Leatxeko **Pelau**-ren bokal anaptitikoak ez da **Zare**ko izenean azaltzen, erakutsian dagoenez.

## 1.5.8-Metatesia:

-\***Buraleta** > **Bularreta** (1585)<sup>6272</sup>.

-\***Malabranka** (cf. **Malabrança** 1585ean) > **Marablanka**.

-**Proboncio** (1592) > **Porboncio** (1598...)<sup>6273</sup>.

## 2-Morfologia maila:

## 2.1-Deklinabidea:

## 2.1.1-Leku-genitiboa:

-Singularrean -(e)ko dugu: **Atesatecua**<sup>6274</sup> (1532), **Ayçeco mirua** (1592).

## 2.2-Elkarketa-erortketa:

## 2.2.1-Lehen osagaiaren azken bokalaren erortzea:

-**Arrobia**.

-**Atalaieta**. Eslabako **Atalaiondoa**-ren lekukoak ikusita gure eskualdean **atalaia** dugula irudi luke, hau da, berezko -a duen aldakia.

-**Iturraldea** (1532); **Ytur** ertea (1723) (baina **Iturriarte**a agerraldi gehienetan); **Yturcubia** (1616).

6272 Esan bezala, toponimian arrunta den **bular** + -**eta** ere izan genezake hemen, baina ez dugu uste hala den. Bestalde, oker grafiko hutsa ere izan liteke.

6273 Leku-izen honetan bi aldaerok txandakatu egiten dira, eta metatesia gauzatu dela onartzeko **pro-**dun aldakien lehentasuna onartu behar genuke.

6274 Honen lekuko bakarra dugu, eta ez dakigu seguru bukaerako -**dua** hori leku-genitiboaren hondarkia den. Atzizki txikigarria ere izan liteke, edo beste zerbait.

-**Leatxkaratea**. Hala ere, hemen **Leatxe** dokumentazioan maiz **Leach** dela hartu behar da kontutan. Hau gertakari grafiko hutsa izan daiteke, baina ez dakigu segururik hala den.

### 2.2.2-Atzizkiak:

- as (?): **Mañuelas**.
- dui: **Zumaduia**.
- eta: **Baratzeta, Utsaskieta...**
- ko: **Mendikoertea**.
- ngo: **Xubingoa**.
- oki (?): **Egoaberokia, Ordokia**.
- os (?): **Armillos**.
- oza (?): **Zangoza(bidea)**.
- tu (?): **Lausitu**.
- tz(a): **Bidatza**<sup>6275</sup>.
- tze: **Zaldunardantze**.

### 2.2.3-Hitzen forma:

- altxirri** dugu, ez **al(t)zirri**<sup>6276</sup>: **Altxirribidea**.
- arte** eta **erte** batera azaltzen dira: **Yturriarte** (1593) / **Ytur erte** (1586).
- atalai(a)** dugu, ez **talai(a)**: **Atalaieta**.
- erreka** eta **erregu** (?) ditugu<sup>6277</sup>: **Errekazokoa, Errengaitz**.
- ertxi** 'estu' azaltzen da, ez **itxi**: **Bidertxi**<sup>6278</sup> (ikus **Ageza**).
- gesal**, ez **gezal**<sup>6279</sup> edo **gezari**: **Gesaliturri**.
- handi**, ez **haundi**: **Bideandia, Maldandia**.
- hegoa** eta **hego** batera ageri dira, izen berean: **Egoaberokia** (ikus sarrera hau).
- iguzki**, **iruzki**, ez **eguzki**: **Yruzquiaguerrria** (1722), **Yguzquiaberria** (1732).
- saiets** eta **saets** 'saihets' azaltzen direla dirudi: **Dolaretasayseza** (1680), **Picotasaesa** (1596), **Picuetassaessa** (1605).

### 3-Semantika maila (biztegia):

#### 3.1-Izenak:

**Agata** 'Agueda', **alor**, **agerri**, **altxirri**, **ardantze**, **atalai(a)**, **ate**, **auzalor**, **auzo**, **baratze**, **bero**, **beroki**, **bidatz(a)** 'bide (mota bat)', **bide**, **buru**, **dolare**, **dorre**, **erreka**, **erregu** (??), **errota**, **etxe**, **Finia** 'Eufemia', **Gardelain**, **gastelu**, **gesal**, **gorte** 'korralea', **haitz**, **haran**, **harrobi**, **harri**, **hegi** 'mendi-hegala', **hego(a)**, **hiri** 'herria', **hobi**, **iguzki**, **iruzki** 'eguzkia', **iguzkiagerri** 'eguzkialdea', **ipar**, **iparragerri** 'oihezkia', **iturri**, **kanpo** 'alorra' (?), **kapana**, **kino** [kiŋo] 'quiñón', **koroa** 'gaina', **Kostobaro**

<sup>6275</sup> Ikus Ezporogiko Larratza-n dioguna.

<sup>6276</sup> Ezin da erabat ziurtatu dokumentazioko alchirri-ren azpian [ç] genuela, baina ditugun lekukoek eta egungo aldaerak horrela zela idarokitzen dute.

<sup>6277</sup> Bigarren hau oso dudazkoa da. Ikus **Errengaitz** sarrera.

<sup>6278</sup> Behin bakarrik dokumentatu dugu, **Bidrech** itxurapean, eta beraz ez da segurua.

<sup>6279</sup> 1609ko **guessalyturrieta**-n [s] izan genezake, baina 1587ko **guesaliturri** argia da.

'Cristobal', larre, ligu, malda, mando (?), Marti(a, e) 'Martin', mendi, mendiko, miru, muga, oihan, opakuegi 'oihezkoa', ordoki, osuin edo \*usuin 'osina', pikota 'picota', plau 'zabala', puio 'boiu, gaina', puntallu, sarats, sautu 'zaldua'<sup>6280</sup>, uarka, ugarka 'uharka', utsas 'isatsa', zoko, zubi, xubingo 'xubittoa', zaldun 'aitonen semea', Zangoza, zazu, zerko 'harresia', zoko, zume, zumadui.

### 3.2-Izenondoak:

Berri, gaitz, handi, zar, -xar 'zaharra', zulatua.

### 3.3-Aditzak:

Zulatu.

### 3.4-Posposizioak:

Alde, arte edo erte, barren, goien, ondo, pe, saiets, saets 'saihets, aldapa'.

### 4-Azentuaketa:

Euskara galtzarekin gure alderdiko toki-izenek desitxuraketa gaitzak jasan zituzten. Hauetako sistematikoenetako bat -oa > -oba, -ua > uba dugu. Gure irudiko, hau azentuaketa aldarzearen ondorena da, alegia, erdal azentuaketa nagusitzearena:

-\*Korkua (cf. Orcua, 1633) > Corcuga (1763).

## ONDORIOAK

Herriz herriko azterketatik honako ondorio hauek atera daitezke, besteak beste:

### 1-Fonetika-fonologia maila:

#### 1.1-Bokalak:

##### 1.1.1-Irekitzea:

-Dardarkari anizkunak ez du, itxuraz, aurreko bokala ireki: bazterra, pipe-rra. Lergan, halaz ere Akarregi dugu orain (ikus sarrera hau).

-Euskal toponimoetan, batzuetan, jatorrizko -u-ren ordean -o aurkitzen dugu hitz bukaeran, dirudienez izenoi itxura erromantzea emate aldera.

##### 1.1.2-Hersketa:

-Ez da bokal-armonia gauzatzen.

-[č]-k ez du, beste hizkera batzuetan agitzen denaren aurka, e ixten: etxe, ez itxe; ertxi, ez itxi.

-u-k aurreko bokala itxi du kasuren batean: iguzki, iruzki.

<sup>6280</sup> Ez dakigu Zareko hizkerako hitz arrunta izan den inoiz.

-Kasu batean [o] > [u] pausoa burutu da hitz hasieran: **Ukaranduia** (Moriones).

-Hitz bukaeran arrunta da [o] > [u] erdaratikako maileguetan: **puntallu, kaskailu...**

-Hortz-hobietako sudurkariaren aurrean ere [o] > [u] aurkitzen dugu hiru izenetan, baina horietako bitan hersketa euskaratik kanpo gauzatu dateke: **Ondallu > Undallu** (1730), **Pontarrón > Puntarrón** (1790az geroztik), **biak Galipentzun, Ontinar > Untinar, Zaren.**

### 1.1.3-Ezpainkaritzea:

-Zaren Utsaskieta eta Utsaskietarana dugu. Ikusten denez, bokala txistukari aitzinean dago.

-Galipentzun **Dekumazarra** dokumentatzen da. Esan bezala, [i] > [u] pausoa ondoko kontsonante ezpainkariaren eraginez burutu dateke oraingoan.

### 1.1.4-Elkartuaren lehen osagaiaren azken bokala:

Arrunta da elkartuaren lehen osagaiaren azken -e eta -o -a bilakatzea, baina hau ez da beti gertatzen, eta frankotan txandakatzea dugu: **Echaberri** (1602), **Echaberria** (1609) / **Echeberri** (1608) eta egun [ěčěběři] ebakia, Eslaban.

### 1.1.5-Asimilazioa eta disimilazioa:

Behin baino gehiagotan aurkitzen dugu: **Viperatu** (1534) > **Piperatu** (1602) > **Pipiratu** (1603) Uxuen; **Gardelain** > **Gardalain** Leatxen, **Apayz(coarana)** (1605) / **Epayz(arana)** (1593) Eslaban, **Viñero** (1582) > **Viñaru** (1634 eta egun) Zaren...

## 1.2-Diptongo eta hiatoak:

-Oso zaila da egungo toki-izen maiz desitxuratueta eta agirietako lekuko idatzietan oinarriturik gai honetaz mintzatzea, baina toponimoen oraingo ebakerak eta euskara biziak argi pixka bat egiten laguntzen dute. Hortaz, eta zalantza ugari badago ere, gure eskualdean diptongo hauek genituela esan daiteke: [au], [eu] (?), [ai], [ei] (behin azaltzen da), [oi], [je] (sekundarioa da gehienetan. Erdararikako mailegu batean ere azaltzen da), [jo] (sekundarioa da), [wa] (sekundarioa da), [we] (sekundarioa da edo erdararikako izenetan agertzen da), [wi] (sekundarioa da).

Azentuaketa aldatzearekin goranzko diptongo berriak sortuko ziren, [ja], adibidez: **Elketxipia** > **Sarkitxipia** [šārkičipja] edo **Lergabidea** > **Argabidea** [ārgabíðja] edo [ārgabíðěa] (Eslaba).

-Behin edo beste diptongoaren bigarren elementua galtzen da: **Mauru-** > **Maru-**, **Orein-** > **Oren-** (Moriones).

-Hiatoei dagokienez, esan behar da elkarketan maiz bokal batzea ez dela burutzen: **Maldaandia** (Zare, 1703), **Videerchiburua** (Ageza, 1736), **Doreondoa** (Eslaba, 1766)... Inoiz edo behin hiatoa dugu diptongoa espero genuen tokian: **Mandaputia** [māṇdaputía] (Zare).

Azentu-aldaketarekin batera hiatoa segurtatzeko soinuak azaltzen dira -oa eta -ua bukaerak dituzten leku-izenetan: **Bideondoa** (1552) > **Videandova** (1800), **Videandoba** (1815) > **Biandoba** [biāṇdóḃa] egun Lergan, **Andua** (1593, 1718) > **Anduva** (1793), **Anduba** [aṇdúḃa] orain herri berean... Alabaina, hau ez da beti gertatu: **Zabalondoa** (1698) > **Zabalandoa** (1800) > **Zalamandoa** [θàlamāṇdóa] edo **Zarabandoa**

[θ̄araβ̄aŋd̄oa] Uxuen. Bestalde, **-ba, -be** amaiera berriak lehenagoko **-oa, -ue** hiatoen lehen elementuaren kontsonantetzaren ondorio izan daitezke, \*[wa], \*[we] goranzko diptongo sekundarioen bitartez: **Ayzuloa** (1576) > **Ayzulba** (1752) > **Yzulba** (1780) > **Izurba** [iθ̄ũr̄β̄a] orain Eslaban; **Sulue** (1694) > **Sulbe** (1801) > **Sule** [s̄ũle] egun Uxuen.

### 1.3-Bukaerak:

**-\*ani > -ai** bide dugu gure alderdian, baina, dena den, adibideak oso urriak dira. Toponimian **Lergako Iguraimendi(ko)a**-z besterik ez dugu.

### 1.4-Bokal batze, erortze eta garatzea:

-Oso arrunta da aferesia [ēr̄]-z hasten diren toponimoetan: **errota > rota, erreka > reka, errekin > rekin, errepide > repide...** Guztiarekin, gertakari hau euskaraz kanpokotzat jo behar dela uste dugu, eta notarien erdaltzaletasun ongi frogatuaren bizkar utzi behar dela. Aferesia jasan duten izen hauek berauek izan ohi dira, gutiz gehienetan, latinetik hartuak izatean bokal protetikoa hartzen dutenak: **rōta > errota, \*r̄egu > erregu**<sup>6281</sup>, **\*r̄eca > erreka, sp̄onda > ezponda...**

-Anaptisia ere aurkitzen dugu, inoiz edo behin: **plau > Pelau, (Leatxe), circu + zabal (?) > Zirikuzabal (Leatxe), cruce > gurutze**. Batzuetan ordea jatorrizko multzoa dugu euskaraz ere: **Plau (Zare)**.

-Apokopea euskarazko **-dui** atzizki multzokarian aurkitzen dugu, edo elkartuaren bigarren osagaiaren bukaeran, euskaraz ohizkoa den gisara: **Artadu (Eslaba), Zamakidu (Lerga), Aldaidar (Uxue, 1767)**... Aparteko multzoa osatzen dute erromantze(tika)ko hagianimoak: **San Pelai (Eslaba), Sanzol (Galipentzu)**.

-Paragoea erromantzetik hartutako maileguetan opatzen dugu, hauek [r̄] edo [l̄]-z akitzen direlarik: **Boxagarea (Uxue), Erregumaiorea (Leatxe), Eskobarea (Uxue), korrare, Pinareondoa (Galipentzu), Portaletxikia (Galipentzu)**.

-Sinkopa gure ustez azentu azkarrarekin lotu beharra dago; izan ere, zenbat beranduago hainbat sinkopa gehiago dago.

### 1.5-j-ren bilakaera:

**-[j] / Ø** txandakatzea saihesten izenean baizik ez da azaltzen. Herri ber baten barruan gertatu ohi da.

### 1.6-Kontsonanteak:

#### 1.6.1-Bustidura:

##### 1.6.1.1-Asimilazio bustidura:

-Itxura guztien arabera, gure eskualdea Garesko eta Elkanoko hizkerekin batera sailkatu behar da gai honetan<sup>6282</sup>, gutxienez sudurkariaren sabaikaltzeari dagokionez. **[inV] > [in̄V]** baina **[in̄V] > [ɲ̄V]** gertatzen zela seguru samarra da, herri batzuetan bederen, behin edo beste kontrabideren bat izanagatik ere. Hau nahikoa segurua da Ageza, Eslaba, Ezporogi, Leatxe eta Lergan.

6281 Hau latinetik ezezik erromantzetik ere har zezakeen euskarak.

6282 Ikus FHV, 198-199. orr.

Moriones eta Uxuen [inV] > [inV]-ren adibiderik ez dugu, baina [inV] > [ŋV]-renak ugariak dira. Galipentzun eta Zaren, buruenik, ez dugu ez bataren ez bestearen frogarik.

-Hortz-hobietako albokoaren anitzez adibide gutxiago dugu, eta ezin esan zehaztasunez zer gertatzen zen. Leatxen [ilV] > [ilV] genuela dirudi, baina esanplu bakarra (Usunbiribila) izateak seguritatez mintzatzea galeratzen digu. Galipentzun [ilV] > [ilV] dugu Pila (1546, 1598), Epila (1730, 1852), Pila [píla] (egun)-n, baina honen eratorria dirudien Pillaestrupa-n il daukagu beti: Pillaestrupa (1585), Villaestrupa (1597), Pellaestrupa (1767). [ilV] edo [ilW]-tik [V] dugu toki-izen batean: Poyluengo (1335) > Pollungo (1546), Pollungu [poɫungu] (orain).

-Hitz bukaeran [in] > [in] eta [in] > [in] ditugu: Lur urdin (1584, 1612), Arzabalagain (1756), Azterain, Baruriayn (1637), Yturimendigain (1774), Larruzkain... Eslaban, kontrabide bat edo beste baden arren: Boiugañ (1648); Zenborain (Galipentzu), Makirriain (Moriones).

-Hitz bukaeran [il] > [il] dugu Leatxeko Mendibil leku-izenean, eta [il] > [il] Eslabako Larrasoyl (1584), Larrasuil (1704), Larasuil (1769), Larrasuil (orain), baina azken toponimo honen bi aldaki -ll-z idatzirik daude: Larrasoll (1685), Larasoll (1687).

-Lekune berean, edo bokal aurrean, [ic] > [ic] dugu: Arangayz (1587), Arangaiza (1727), Arangaiz [arãŋãíθ] dugu orain Eslaban; Recagayza (1613), Errecagayza (1712), Rekadaiza [rèkadãíθa], Rekadeiza [rèkadéíθa] edo Rekadiza [rèkadíθa] Galipentzun...

-Kontsonante aurrean [il] > [il] nahiz [il] > [l] izan genezake: Larrasoil burua (1633), Larrasoll burua (1647).

-Lekune berean [is] > [is] eta [is] > [is] dugu gure alderdian.

-[s] eta [s] ez dira sabaikaltzen [isV], [isV], [isV] testuinguruetan<sup>6283</sup>.

-Ez dugu [indV] segida bustitzen zelako frogarik.

-Dokumentazioan ez dugu sekulan aurkitu [itV]-ren seinale izan ohi den ich grafiarik, eta egun iturri osagaiaren duten toponimoek ez dute soinu sabaikaririk.

-Maileguetako soinu bustiak dauden-daudenean gordetzen dira, eta bustiak ez direnak ere orobat: Aranportillua (1587), Aranportilla [arãmpõrtíɭa] orain Agezan; Cascallueta (1571), Arbiñaga [ãrbiñága], Kaskalletas [kãskãlétãs] orain Eslaban; Erbiña [erbiñã], Pinareondoa Galipentzun; Pinosaietsa Morionesen; Castillo (1608, 1780, 1782), Castillo [kastíɭo] Uxuen; Quiñoeta (1587), Quiñueta (1670), Kiñeta [kiñéta] gure egunotan Zaren...

-Batzuetan, zenbait herritan, elkartuaren bigarren osagaiaren hasierako hortz-hobietako igurzkarri bizkarkaria sabaikaldu egiten da: Kapanaxarra Ageza; Erotacarra (1575), Errotaxarra (1587), Rotasiar [rõtãsjãr] orain Eslaban; Errotaxaraldea (1609), Errotazar (1769), Rotasiar [rõtãsjãr] egun Lergan; Rotaxarra, Errotajarra (1614) Zaren.

Leatxen sabaikari igurzkaria belaretu egin da gero: Mendijuri [mèndixúri], eta Ezporogin kasu batean behintzat afrikatu: Erlateguichar (1773, 1795)<sup>6284</sup>, baina ez beti: Orma jarreta (1661). Uxuen ez dugu sekulan honelakorik.

-Hitz edo morfema hasieran [j] > [š] aurkitzen dugu Agezan: Arrixauzkuneta; Eslaban: Jauguicabal (1614), Jaurizabal (1717), Sabizabal [šãbiθãbal] orain, Jausgunea (1645), Saizgun (1748), Sirgun [širgún] gaurregun, eta Leatxen: Done Xurio, baina ez Morionesen: Yauguia (1592), Yaugui (1619), Yaurea (1811),

6283 Notariak ez zekiten euskarazko [š] nola eman, eta honek soinu sabaiaurrekoa detektatzea oztopatzen du.

6284 Ch igurzkariaren ordez egon liteke hemen, baina ez dugu uste hala den.



**Auria** [aʝría], **Jaun Done Julio** (cf., halere, 1679ko **Joan Dene Sulio**). Hau ez da gertatzen izen guztiakin, eta hagianimoetako **Jaun** elementu alboratuaren j-, kasurako, [x]-ren adierazlea da herri guztietan (cf. Lergako egungo **Juandepetri** [xwàndepétr̥i] edo **Juandemikandi** [xwàndemikáñdi]).

Ageza, Eslaba eta Leatxen aurkitu dugun aldakuntza honek Elkanoko hegoaldeko goi-nafarrerarekin lotzen du gure alderdiko hizkera, edo gutxienez gure alderdiko zenbait herritakoa, aipatu hiru herri horietaz kanpoko lekukorik ez baitugu, Morionesko 1679koa ez bada. Interesgarria litzateke, alde honetatik, Oibar aldearen eta Iruñerriaren arteko (Orba, Ibargoiti, Aranguren...) ibarretako toponimiaren azterketa egitea, isoglosa nondik nora doan zehaztearren.

#### 1.6.1.2-Bustidura adierazgarria:

-Eslabako **Matxinarmendola** edo **Matxinen armendola** eta honen eratorria den **Matxinen armendolaldea**-ren lehen osagaien agertzen da, **Matxin** antroponimoan, alegia.

-Gure eskualdeko sabaikaltze adierazgarriak arruntena, dena den, **Xubingoa** 'xubikoa' toponimoan aurkitzen duguna da. Ikusten denez, txikitasuna baliabide morfologiko batez (-ngo atzizki txikigarriaz) eta hots-sinbolismoaren bitartez (hortz-hobietako igurzkarri bizkarkariaren sabaikaltzeaz) adierazten da. Hau Eslaba, Ezporogi eta Zaren gertatzen da, hiru herriotan azaltzen baita **Xubingoa** leku-izena.

Morionesko 1584ko **Subingoa**-ren oinarrian **Xubingoa** zegoela uste dugu, baina ezin ahaztu Lergan **Çubingoa** dugula 1594an, hau da, atzizki txikigarria bai baina bustidura aurkezten ez duen aldakia, eta beraz Morionesko aipatu leku-izenean ere [s] egon daitekeela (cf., gainera, Leatxeko 1593ko **Subibizcarra**). Uxuen, bestalde, **Çubichiqui** edo **Çubi chiqui** dugu 1593an, baina **Subichiqui** 1630ean. Hondar honen hasieran [s] zegoela uste dugu, baina baliteke egun **Xubixiki** edo **Xubitiki** idatziko genukeena egotea.

-Eslaban eta Uxuen aurreko **Zaldinoaga** ongi dokumentatutik atera diren **Zaldinaga** (lehenean) eta **Zaldunaga** (bigarrenean) ditugu egun. Agirietan ez dugu sekulan s-z idatzitako aldaerarik aurkitu, gure ustez hemen **zaldi** animali-izenaren txikigarriaren aurrean (**zaldino**-ren aurrean, alegia) gaudenagatik.

#### 1.6.1.3-Ingurunez landako bustidura:

1.6.1.1-ean aipatu dugun elkartuaren bigarren osagaiaren hasierako bizkarkariaren bustitzea alde bat uzten badugu, ingurunez landako bustiduraren adibide gutxi ditugu gure alderdian.

Lergan **Punttico** dugu 1769an, **Puntico** 1803an, eta **Punchico** [pùñčiko] orain. Herri honetako toponimia aztertzean esan dugun gisan, **Punchico** erreka baten ondoan dago, eta pentsatzekoa da ez ote gauden **Xubingoa**-ren gaztelaniazko ordainaren aitzinean, alegia, aurkitu ez dugun **Puentico** baten ondorengoaren aitzinean. Honela baltiz, oraingo sabaiko afrikatua aurreko hortzetako herskari ahoskabe bustiaren ondorioztat hartu behar genuke (cf. Nafarroa deseuskaldunduan barrera **itturri**-ren ondorengoetan horren arruntak diren **itxurri**-ak), eta toponimoa bustidura adierazgarriaren multzoan sartu.

Zaren berriz, **sautu**-tik atera den **Jautu** [xáutu] dugu orain, **Sautu** edo **Jautu** dokumentazioan. Bistan denez, hasierako **sautu**-ren hortz-hobietako igurzkarri apikaria lehenik sabaiaurreko, eta gero, euskara galtzarekin seguru aski, belare bilakatu da. Agezako **Motxiturria** izena aztertzerakoan esan dugun moduan, hasierako hortz-hobietako txistukari bizkarkaria bustitzeko joera oso zabaldua egon da eta dago Nafarroan,

baita oraindik euskaldun dirauten tokietan ere, baina emaitzarik arruntena sabaiko afrikatua dela dirudi, ez belarea (cf. Leatxeko **Mendixuri** > **Mendijuri** / Oibarko **Mendixuri** > **Menditxuri**).

### 1.6.2-Hasperenketa:

Bokal arteko Iparraldeko euskalkietako hasperenketaren ordez herskari belare ahostuna dugu Lergako **Yturgutiagua** eta **Yturloyagua** (1529) izenetan. Uxueko **Buzakao**-n falta dela dirudi, baina ez dakigu seguru bukaerako -ao hori 'aho' den.

### 1.6.3-Herskariak:

-Hitz hasieran herskari ahostunak eta herskari ahoskabeak aurkitzen ditugu herri guztietan.

-Lekune horretan izen batzuek beti herskari ahostuna dute: **bal(t)sa**, **berro**, **bizkar**, **butzu**<sup>6285</sup>, **buztin**, **dorre**, **gesal**, **gurutze**, **gaztelu**. Beste batzuek beti herskari ahoskabea daukate: **kapana**, **kapar**, **kaskailu**, **korrale**, **parral**, **Petri** (bi toponimotan azaltzen da), **portilu**, **puntallu**... Hirugarren multzoan ahostunez nahiz ahoskabez hasten direnak sar daitezke: **boiu** / **puio**, **puiu**, **galtzada** / **kaltzada**, **gorte** / **korte**, **dipula** (behin) / **tipula** (gainerakoetan).

Kasu batean, eta herri berean, mailegu beraren bi aldaera ezberdin agertzen dira, lehena latinetik hartu delarik, eta bigarrena erromantzetik: **Gaztelu(ondoa)** / **Kastillu** Uxuen. Bi izenok alderdi bana adierazten zuten.

Beste batzuetan izena toponimo bakar batean ediren dugu, eta ez dakigu zehazki zer-nolako jokamoldea zuen: **balatu**, **Belaio**, **dekuma**, **gisu** edo **kisu**, **gristio**, **kanpo**, **koroa**, **Kostobaro**, **pino** edo **pinare**<sup>6286</sup>, **piper**...

-Bokalarrean, edo bokal eta *r*-ren artean, jatorrizko herskari ahoskabeak zeudenean gordetzen dira: **Akira-**, **dekuma**, **gorte** edo **korte**, **kapana**, **Mikendi**, **Petri**, **piper**, **tipula**...

-Txistukari ahoskabe ondoan ahostunak eta ahoskabeak neutraltzeko joera dago, baina hau ez da beti betetzen, bereziki posposizio bat edo esanahia bizi-bizia duen izena denean: **Arrijausguneta** (1594) / **Arrijauscuneta** (1596) dugu Agezan, **Juandeanizguibel** (1761) Lergan, **Larruzkain** baina **Santakrizgibela** Eslaban, **Legaztui Galipentzun**...

-Hortz-hobietako sudurkariaren ondoan ahostuna erabiltzeko joera dago: **Andua**, **Indusi**, **Jaun Done Mikendi** Lergan, **Zangozabidea** Eslaba eta **Zaren**, **Monda Galipentzu** eta **Lergan**, **Zapatagindegia** Galipentzun... Salbuespena hagianimo femeninoen **Santa** elementu alboratua izaten da, baina Lergan **Sandagata** dugu (**Santagata** egun), eta latineko **san(c)ti** genitiboa **sandi** ohi da gure alderdian eta hemendik kanpo: **Sandiandore** Lerga eta **Leatxen**, **Sanditume** Lergan, **Sanditisi** (1597), **Sanditizi** (1635) Galipentzun (**Santitisi** orain, asimilazioz)...

-Hortz-hobietako albokoaren ondoan ere ahostuna erabiltzeko joera nabarmentzen da: **zaldu**, **Aldabea**, **Aldaidarrea**, **Aldamara**... baina inoiz edo behin herskari ahoskabea ere opatzen dugu: **Elkea**, **Elketxipia** (Eslaba), **La Elka** (Galipentzu).

-Dardarkariaren ondoan herskari ahostuna daukagu Eslabako **Bizkardan** (ikus, halaz ere, gorago esandakoa).

-Latineko herskari geminatu ahostuna herskari bakun ahoskabe bilakatu da **Epaiz** herri-izenean eta **apez** izen arruntan.

6285 Ikus Uxueko **Galaputzu** aztertzean dioguna.

6286 Ez dakigu zein neurritan beretu zituen euskarak bi maileguok. Uxuen ler dugu **Lerbeltz** toponimoan.

## 1.6.4-Ezpainkariak:

-Ugariak dira gure alderdian m-z hasten diren toki-izenak, eta gehienetan maileguak badira ere (**Merkatu**, **Merkatubidea**, **Motxilukantoa**...Agezan, **Malliturri** (?), (**Jaun Done**) **Mikendi**, **Monda** (?) Lergan, **Matxinarmendola** Eslaban, **Martxela** (?) Ezporogin, **Meazu**, **Monda** (?), **Mutxarka** (?) Galipentzun, **Magdalenasaietsa** Leatxen, **Makirriain**, **Martxela** (?), **Maururia**...Morionesen, **Madonalorra** (?), **Malliturri** (?) Uxuen, **Malabranka** (?), **Mandaputia** (?), **Martisatea**...Zaren), badira euskarazko edo jatorri guretzat ezezaguneko toponimoak: **Moraga**, **Munikotxorrotx**, **Mugandia**, **Mugandia**, **Melenas**, **Morate**, **Mendiebakia**, **Matxaz**, **Mostrakas**...

-f-z hasten den euskal toponimo zahar bakarra aurkitu dugu gure alderdian, Zareko **Franzesa**, eta mailegua dela garbi dago. Uxuen latineko f-tik atera den b- dugu **Bikuaga** toki-izenean, eta beharbada **Bagarana**-n, baina bigarren hau zalantzazkoa da.

-Azken herri honetan kasu pare batean m / b / mb txandaketa aurkitzen dugu hitz barruan, baina morfema mugan: **Santacaranburu** (1602, 1608) / **Santacaranburu** (1588), **Santacara buro** (1628) / **Santacaramuru** (1622 eta egun); **Lacumulatu** (1594, 1603 eta orain), **Lacumalatu** (1605) / **La cunbalatu** (1688), **La Combelatu** (1806) / **Lacubalatu** (1608).

## 1.6.5-Txistukariak:

-[ś], [s], [š], [ć], [c] eta [č] genituen gure alderdian.

-Hitz hasieran [ś] eta [s] dira soinurik arruntenak, baina badira [č]-z hasten diren euskal toponimo zaharrak, maileguak eta bestelakoak: **Txipueta**, **Txurruta** Agezan; **Txaparrondoa**, **Txirria**, Eslaban; **Txipuetabaratzeta** Ezporogin; **Tximarra** Galipentzun; **Txurruta**, **Txurrustagaña** Leatxen; **Txaparduia**, **Txirrialdea**, **Txutxu** (< **Suchu**) Lergan; **Txindilatzea** Morionesen; **Txindilotxaga**, **Txorria**, **Txutxu** Uxuen. Zaren ez dugu sabaiko afrikatuz hasten den toki-izenik bat ere.

-[ś] edo [s]-tik ateratako [š]-k emaitza ezberdinak izan ditu:

1-[č]: **Mussiturria**, 1060, > **Muchiturriaga**, 1576rako Agezan; \***Pasape** > \***Paxape** > **Patxape** Eslaban.

2-[x]: **Sandua** > **Xandua** > **Jandua** > **Janduba** Eslaba eta Galipentzun; **Lexua** > **Lejua**<sup>6287</sup>, \***Sinares** > \***Siares** > \***Xares** > **Jares** Galipentzun<sup>6288</sup>; **Mendijuria** (1593), **Mendicuri** (1647), **Mendisuria** (1691) > **Mendijuri** Leatxen (cf. **Mendixuri** Oibarren); **Sautu** > **Xautu** > **Jautu** Zaren.

-Beste batzuetan [š] [s]-ren kide bustia da, txikigarrietan: **Xubingoa** (< **Zubingoa**), edo [j]-tik atera da hitz-hasieran edo elkartuaren bigarren osagaiaren hasieran: **Xaugizabal**, **Xauzugun** Eslaban, **Arrixauzkuneta** Agezan, **Done Xurio** Leatxen.

-Jatorrizko dirudien [š] batetik [ś] atera da, euskara oraindik bizirik zegoenean, Uxueren inguruko herrietako **Uxue** osagaia zuten toki-izenetan (ikus **Uxueko Uxue** sarrera). Hau herri-etimologiari zor zaioke (cf. Murillo el Frutoko **Jubidea**. Ikus **Euskararen mugak** atala).

-Behin edo beste [ś] / [s] txandakatzea dugu bokal artean: **gesal-** / **Gezari** Agezan, **Indusi** / **Induzi** Lergan. Hau heskari aitzinean ere gertatzen da: **Arrijauscuneta** (1596) / **Arrijauscuneta** (1605) Agezan; **Escanbela** (1618) / **Ezcanbela** (1688) Uxuen (**Ezkanbela** / **Eskanbela** egun).

6287 Ikus Galipentzuko toponimia eta euskara aztertzean dioguna.

6288 Ikus sarrera honetan dioguna.

-Maileguetan latin edo erromantzeko [s̄]-ri<sup>6289</sup> [s] dagokio maiz euskaraz hitz hasieran: **zazu**, **zaldu** (baina **Sautu**, 1584, **Zaren**), **Zangoza** (Eslaba, **Zare**), **Zare** (Leatxe), **Zautelu** (Uxue); bokal artean: **Ageza**<sup>6290</sup> (Galipentzu, Moriones), **Gezari** (Ageza, Eslaba eta Galipentzun, baina **gesal** lehen herrian); bokal eta kontsonante artean: **ezponda**, **gatzelu**, **Eztebe** (Eslaba), **Ozteriz** (Eslaba), **Ezkabiazuloa** (Uxue); edo hitz bukaeran: **Joaniz** (Lergan, baina **Joanis**, itxuraz, Agezan). Ez beti hala ere: **Sautu** (1584tik aitzina **Zaren**), **Salbatore** (Lerga), **Sandi- 'San'** (Galipentzu, Leatxe, Lerga, Uxue?), **Sanda-** (Lerga), **Sekeroa** (Galipentzu)...

-Deklinabide edo erator atzizkiak eranstea, afrikatua igurzkaritu egiten zen, atzizkia herskariz hasten zenean: **Arizkomendia**, **Iturrozko aldapa** (Lerga), **Arangaizko txaparrondoa** (Eslaba). Elkarketan orobat: **Bidazparrena**, **Leachcaratea** (1591) / **Lezcaratea** (1683), **Liascarate** (1756).

-Ez dakigu ozenen ondoan igurzkariak eta afrikatuak neutraltzen ziren. **Balsa** maileguaren afrikatzearen froga garbirik ez dugu, baina ezin esan, halaber, [č]-rik ez genuenik (cf. Ezporogiko 1717ko **Balssaldea**). Uxuen jatorrizko **Aitzandieta** (Aycandieta 1593an, **Ayçandieta** 1632an...) -ren eta gaurregungo **Anzandieta** -ren artekoa den **Antzandieta** dugu 1771ko eta 1805eko **Anchandieta** -ren azpian (**Anzandieta** 1680 eta 1702an).

Lergako **Indusialzina** -n, itxuraz, ez dugu sekulan izan soinu afrikaturik, eta Leatxeko 1614ko **Echatalzinea** -n ere ez da azaltzen. Alabaina, hemen albokoa sekundarioa da, eta -i-dun aldakiarekin (aizina-rekin, alegia) aldizkatzen da.

-Inoiz edo behin txistukari-asimilazioa gauzatzen da: **Txutxu** Lergan eta Uxuen, **Suchu** maiz dokumentazioan; **Sanchotoria** azken herrian 1628an, **Chanchoteria** 1734an eta 1752an, baina ez beti: **Santxoteuntzea** Galipentzun, **Franzesa** Zaren.

-Elkartuaren bigarren osagaian zar 'zahar' izenondoa -xar da maiz gure alderdian, eta behin -txar, Ezporogiko **Erlategitxar** toponimoan, baina Galipentzun eta Uxuen adibidez ez dugu sekulan aurkitu. Elkartuaren bigarren osagaian egotea dateke Leatxeko **Mendijuri** eta Oibarko **Mendixuri** -ko -juri eta -txuri horien sorreraren arrazoiak.

#### 1.6.6-Sudurkariak:

-n-z hasten den euskal toponimo zahar gutxi samar ditugu, eta denak maileguak dira: **Nobeleta** (Ageza), **Nabarana** (Eslaba), **Nabeta**, **Nobeletaondoa** (Leatxe), **Nobeleta** (Uxue), **Naba**, **Nababarrena** (Zare).

-Bokal arteko hortz-hobietako sudurkaria erori egin da latinetikako (edo erromantzetikako) mailegu zahar batzuetan: **Areatzea**, **Gristioburua**, **Gristiodiaburua**, **Lixuñeta**, **Plaondoa** (Eslaba), **Areatzea** (Ezporogi), **Pelau** (Leatxe), **Areatzea** (Lerga), **Areatzeta** (Uxue), **Koroagaña**, **Plau** (Zare).

-Behin toponimo bakar baten lekuko bakarrean galdutako -n-ren aztarna den -g- dugu: **Ligusuñeta** (Zare).

-Latinean n geminatua dugunean edo mailegua berria denean sudurkaria ez da galdu: **kapana**, **Ordenakoa** (Leatxe).

#### 1.6.7-Albokoak:

-Latineko l geminatua l (\*L) da euskaraz, eta ez da r bilakatzen: **gatzelu**, **Balataua** (Leatxe), **Zautelu** (Uxue).

6289 Ez dakigu latineko txistukariaren ebakera hau zen.

6290 Esan bezala, hau etorki euskalduneko hitza da, ez mailegua, baina **Ayesa** erdal izentzat hartuko zen, eta **Ageza** izen euskalduntzat (cf. **Leiza** / **Leitze**).

-Latineko bokal arteko l bakuna [r] bihurtzen da normalean: **Arrimukurueta** (Eslaba), **Done Xurio** (Leatxe), **Akirazabal** (Uxue), baina ez beti: **Aquilar** (Ageza), **Bartaquilar** (Galipentzu), **Jaun Done Julio** (Moriones). Azken-bigarrenean eta azken-hirugarrenean erdarazko **Aguilar** ugarien eragina ikusi behar genuke apika, edo honen sorreran dagoen **águila**-rena. Uxuen, hala ere, **Aguilar** erdalduna dugu, eta honen azpiko aldean **Akirazabal** euskalduna.

#### 1.6.8-Dardarkariak:

-Behin edo beste [d̥] > [r] dugu: **Irazar Aldean**<sup>6291</sup>, **Irozabal** egun Leatxen, aurreko **Ydozaval** (1706, 1719...) batetik.

-Eslabako **Santa Criz**-en dardarkari-metatesia dagoela dirudi; Zareko **Porbonzio**-ren aldakietan arrunta da: **Proboncio** (1592), **Porboncio** (1598)...

-Eslaba eta Galipentzuko **Beragu**-n eta Uxueko **Berage**-n [r̄] > [r] pausoa izango genuke, dirudien bezala **berro**- (edo **berra**-, apofoniaz, hau arrunta ez izan arren) badugu. Pauso bera izanenez Galipentzuko **Lumberri** (1793) / **Lunberi** (1597)-n, nahiz hemen aurren eta maizen azaltzen den eta egun bizirik dagoen aldakia [r]-duna den. Galipentzun bertan [r̄] > [r] aldakuntza segurua da **Larregu(re)neta** > **Laragoneta** (egun)-n, baina hau, **Ibarreko harana** > **Barikorana** (orain)-n bezala, desitxuraketaren fruitu da.

#### 2-Morfologia maila:

##### 2.1-Deklinabidea:

-Badakigu leku genitibo singularrean -(e)ko genuela. Pluralean agian -etako genuen, baina hau, esan moduan, ez da segurua.

-Genitibo singularrean -(a)ren genuen (**Pikeroaren berroa** Epaizen), pluralean -en (**Harginen erreka** Agezan, **Sorginen euntzea** Leatxen) eta mugagabea -(r)en (**Don Pedoren saratsa**, **Kalboren korralesarraldea**, **Matxinen armendola**...Eslaban, **Grazietaren ardantzea** Galipentzun).

Batzuetan segurua da genitiboaren hondarkia dugula, baina itxuraldatua azaltzen da, eta zenbaitetan ez dakigu azpian zehazki zer dagoen: **Arguinanerrec**a Agezan 1710ean, **Arguiñanerrec**a 1720an, **Aguinainerrec**a 1723an; **Aunzancorraleta**, Leatxen 1720an, **Uncencorraleta** 1790ean; **Petringesala** Uxuen (< **Petriren gesala**, itxura guztien arabera)...

Beste batzuetan, azkenez, ez dakigu genitiboaren hondarkia dugun ala ez: **Atalayanondoa** Eslaban, 1690ean, **Boyonondoa** herri berean 1608an, **Boyanondoa** 1691n...

-Inesiboa ez da sekulan osorik azaltzen, eta gehienez ere horren arrastoa datekeen -ea dokumentatzen da, -a duten aldakien ondoan eskuarki.

##### 2.2-Elkarketa-eratorketa:

Gure alderdian euskara orokorrean arruntak diren soinu-galtze, aldatze eta aldizkatzeak azaltzen dira. Atzizkiei dagokienez, lan honen lehen atalean ikusi berrekailuez landa, honako hauek nabarmen daitezke: -ar gentilizioa: **Izkoarra**; -gin 'egilea': **Harginen erreka** Agezan, **Zapataginmendia** Eslaban, **Zapatagindegia** Galipentzun; -gun(e) 'tokia': **Arrixauzkuneta** Agezan, **Iguzkun** Eslaba eta Morionesen,

<sup>6291</sup> Honen jatorria ez dago garbi.

**Xauzgun** Eslaban; **-kin** “derivativo nominal material” Azkueren arabera<sup>6292</sup>: **Errekine**-ta Agezan, **Errekina**, **Errkinbazterra** Lergan; **-ko** txikigarria: **Ezpelkoa** Eslaban, **Arankoeta** Leatxen, **Areamendikoa**, **Arizkomendia**, **Iguraimendikoa** Lergan, **Soroko** Morionesen; **-ngo** txikigarria: **Xubingoa** Eslaba, **Ezporogi**, **Moriones** eta **Zaren**, **Zubingoa** Lergan; **-no** txikigarria: **Zaldinaga** Eslaban, **Zaldunaga** Uxuen, **biak Zaldinoaga-tik**, **bilakaera** banaz; **-tto** txikigarria: **Errekattoa** Ezporogin, **Elizattoa** Morionesen; **-zu** edo **-so** ugaritasunezkoa: **Meazu** Galipentzun, **Beloso** Eslaban; **-zio** ‘-ción’: **Traizio** Leatxen.

### 3-*semantika maila*:

Hiztegiari dagokionez, hagianimoetan agertzen diren izen bereziak azpimarratu behar lirateke: **Agata** ‘Agueda’, **Andore** ‘Andrés’, **Belaio** ‘Pelayo’, **Joanis** edo **Joaniz** ‘Juán’, **Kostobaro** ‘Cristobal’, **Finia** ‘Eufemia’, **Julio** edo **Xurio** ‘Julio, Julián’, **Martia** ‘Martín’, **Mikendi** ‘Vicente’, **Petri** ‘Pedro’, **Salbatore** ‘Salvador’, **Tirsi** ‘Tirso’, **Tume** ‘Tomás’...

Hauekin batera badira bestelako izen arrunt, izenondo eta aditz interesgarriak: **altxirribide**, **alxu(n)bide** ‘ardibide’, **apez** ‘apaiz’, **bereter** ‘apez’, **berro** ‘labaki’, **drinda** edo **ginda** ‘inda’, **erregu** ‘erreka(handi)a’, **ertxi** ‘estua’, **errekin** ‘erretako oihan puska’, **errepide** ‘errege-bidea’, **euntze** ‘larre’, **ezkabia**, **galtzada**, **iguzki** edo **iruzki**, **laku** ‘lintzura’, **lihatze** ‘linar’, **mur** ‘gain’, **nobela** ‘ardantze berria’, **oihan** ‘mendi arbolatua’, **onbor** ‘enbor(ebaki)a’, **ordoki** ‘lautada’, **osuin** edo **\*usuin** ‘osin’, **parral** ‘parral’, **puntallu** ‘puntallo’, **sario** ‘sarohé’, **soro** ‘alor’, **txapar** ‘chaparro’, **uharka**, **urandi** ‘ibai’, **xaugi** ‘atera’, **xauzi** ‘erori’, **xubingo** ‘xubiko’, **zapatagin** ‘zapata-egilea’, **zazu** ‘saso’, **zald** ‘soto’...

### 4-*Joskera*:

Toponimian sarritan leku-izen bilakatu diren erlatibozko perpausak aurkitzen ditugu, batzuk laburrak: **Licerra denecoa** ‘lizarra denekoa’, **Urcabetenea** ‘urkabe(a) denea’ (Saratsa)<sup>6293</sup>, eta beste batzuk askoz luzeagoak: **Larrañagako txaraka txikitzen dena**, **Urdenazko ure sortzen dena** (Arakil-Uharte)<sup>6294</sup>...

-En erlatibotasun gain eraikitako leku-izen hauek Nafarroa gehianean azaltzen dira, maiztasun ezberdinez bada ere, eta erdarazko “**done** + **aditza**”-ren ordain dira (cf. San Martin Unxeko 1749az geroztikako **Donde murió el Mozo**<sup>6295</sup>). Hauekin batera, eta Nafarroako ekialdean bakarrik, **bait** subordinatzailearen bidez sorturikako erlatiboak opatzen ditugu: **Gurbebaita** Lusarretan<sup>6296</sup>, **Arizabaitacoa** Garaioan 1783an<sup>6297</sup>... Haue-tan oinarrituta isoglosa bat egin genezake, toponimia, eta honekin batera toponimiak islatzen duen hizkera, ekialdekotzat edo mendebaldekotzat joaz, erlatibo mota bat edo bestea azaltzen den aintzat harturik. Isoglosa nondik nora doan zehazki ikusten saiatzeko asmorik ez dugunagatik, derragun Bortziriak eta Malerrekatik Lizoainibar, Itzagaondoa, Longida eta Orbaraino luzatzen dela, Iruñerri guztia (Eguesibar, Aranguren eta Elortzi-bar barne) mendebaldean gelditzen delarik, hots, **-ena** erlatiboa dutenen artean.

6292 MV, 107-109. orr.

6293 TCPCI, 340 eta 350. orr.

6294 Honetaz TDI-n mintzo gara.

6295 PRA-San Martin, 40. k.

6296 Agoizko hipotekak, 4. liburua, 485. or., 1858.

6297 PRA-Auritz, 51. k.

Lizoainibarren Cugarra payta dugu Mendiorotzen 1594an<sup>6298</sup>, 'zugarra baita' alegia, Itzagaondoan Udarea bayta<sup>6299</sup> Idoaten 1592an<sup>6299</sup>, eta Longidan Espelea bayta Meotzen 1591n<sup>6300</sup>. Gure alderdian zoritxarrez ez dugu inoiz erlatibozko perpausa batean oinarritutako leku-izenik aurkitu, baina Bizkaiarekin mugatzen duen Orbako Leotzen Elorriabayta dokumentatu dugu 1634an:

"otra pieca...ensima (sic) de las tres fuentes que llaman elorriabayta"<sup>6301</sup>

Honetan oinarri harturik gure alderdia ekialdeko hizkeren artean sartu behar dela ondoriozta genezake, baina esan bezala, ez dugu lekukorik bat ere aurkitu, eta beraz, esan daitezkeen guztiak balizkako kontuak izango dira, frogarik ezean<sup>6302</sup>

#### 5-Azentuaketa:

Oso zaila da toponimia hutsaren azterketatik prosodia mailako berririk erdieste, baina bada leku-izenak diren zirrikitutik iragazten den argi-izipiño bat. Izan ere, eta herriz herriko azterketa burutzean esan gisa, zenbait toponimok laburketa nabarmenak pairatu zituzten gure eskualdeko euskara bizirik zegoenean, agian erdararekiko ukipenaren areagotzearen ondorioz: **Arriçutaga** (1590) > **Ariztaga** (**Arriztaga**, alegia) (1647) Eslaban, **andere** > **andre** Lergan, **nobela** > **nobla** nonnahi, **Larraineta-** (1546) > **Larrainta-** (1688) Galipentzun...

Dena den, euskara galdu zenean euskal toponimoek aldaketa gaitzak jasan zituzten, denek garai bertsuan (XVIII. mendearen bigarren erdian), eta hau gure irudiz euskal eta erdal azentuaketak ezberdinak zirelako gertatu zen. Aldaketa hau batez ere -oa eta -ua-z amaitzen diren leku-izenei dagokie: **Andua** dugu Lergan 1718an, **San Jines ondo**a 1709an, baina **Anduva** 1793an, **San Jines ondova** 1798an; **Ayzuloa** dugu Eslaban 1576an, **Bideburua** 1593an, **Gezariburua** 1592an, baina **Aizulba** 1752an, **Bideburba** 1783an, **Gezariburba** 1791n; **Sulue** dugu Uxuen 1694an, **Sulbe** 1801ean; **Orcua** daukagu Zaren 1633an, **Corcuga** 1763an...

Euskararen galtzea beranduagokoa izan zen Iruñerrian honelako aldaketak ere beranduago burutu zirela ikusten dugu Jimeno Juriforen lanetan, eta beraz, badirudi beste alderdian ere zerikusi zuzena dagoela euskara suntsitzearen eta aipatu bukaeren itxuraldatzearen artean<sup>6303</sup>.

#### 6-Laburtuz:

Laburbilduz, gure eskualdeko euskara ekialdekotzat jo behar dela dirudi, geografikoki hala dagokiolako batetik, eta toponimiaren bitartez jakin ahal izan ditugunek horrela erakusten dutelako bestetik. Egia esan, ez dugu hegoaldeko goi-nafarreraren barruan sartu behar dela esateko froga sendorik, baina Bonaparteren 1863ko mapan<sup>6304</sup> euskalki hau Itzarben, Orban eta Ibargoitin artean bizirik zegoela ikusten dugu, eta Urraul-

6298 PRA-Urrotz, 3. k-bis.

6299 Id.

6300 Id., 3. k.

6301 PRA-Oibar, 23. k.

6302 Beste alderdik, toponimia eta eguneroko hizkera zer neurritz datozen bat aztertu behar genuke. Ezbairik gabe ekialdekoa den Mezkititzen, konparaziorako, **Escortedenecoa**, **Escortedena**, **Tranpadena**, **Tranpadenea** ditugu (Orreaga Ibarra, MT, 328. eta 352. orr.).

6303 Ikus gure DTI.

6304 *Carte des sept provinces basques*, Londres, 1863.

beitiko euskara galdu berria ere dialektu beraren barruan egongo zen, itxura guztien arabera, eta horregatik ez zaigu zentzugabekeria iruditzen Oibar haran, Galipentzu eta Uxueko hizkera ere euskalki horren barruan kokatu behar dela pentsatzea.

Gainera, eta esan bezala, sudurkariaren bustidura bat dator Gareskoarekin eta Elkano aldekoarekin, eta Ageza, Eslaba eta Leatxen gutxienez aurkitu dugun hitz hasierako [j]-en garapenaren ondorea den [s̺] ere Elkano, Aezkoa, Zaraitzu eta beste alderdi batzuetako hizkeran ageri den bera da. Bestalde, leku hauetan agertu ohi den -io bukaera gure eskualdean ere azaltzen da, **sario** eta **gristio** ezagunak frogatzen, eta zeharo garbi ez badago ere, Eslaban **sandu** 'saindu' izan genezake bertako leku-izen baten zenbait aldaeratan.



## 20. EUSKARAREN MUGAK

### 1. SARRERA:

Lan honen hasieran esan dugun moduan, gure helburuetako bat euskararen eta erromantzearen arteko muga nondik nora joan den argitzea da, toponimiaren azterketan oinarri harturik. Honetarako orain arte "gure alderdia" deitu dugun eremuaren inguruko herrietako toponimoak bildu ditugu, bilketa honen sakontasuna batetik bestera franko aldatzen bada ere. Hemen tokian tokiko izen euskaldunak interesatzen zaizkigu bereziki, erromantzearen eta euskararen arteko muga nondik nora zihoan ikusi eta azken hizkuntza honen galtzearen gutxi gorabeherako data finkatzeko, hau gai korapilotsua dela ongi dakigun arren.

Kontua da toki-izen batzuk gardenak diren bitartean beste batzuk, denborearen joanaren poderioz, zeharo desitxuratuak daudela, eta itxura euskalduna badute ere sarri asko zaila dela azpian dagoena zer den esatea, alegia, zertaz dauden osatuak zehaztea. Beste aldetik, euskararen eta erdararen muga finkatzeko orduan ezinbestekoa da toponimia euskaldunaren arrastorik egon daitekeen herri guztiak miatzea, hizkuntz-mugan luzaroan egon den gure eskualdea baino beherago ere azaltzen baitira toponimo euskaldunak<sup>6305</sup>.

Gu, gorago esan moduan, Uxue, Galipentzu eta Oibar haranaren inguruko herriak arakatzera mugatu gara, eta beraz hemen Tafalla<sup>6306</sup>, San Martín Unx<sup>6307</sup>,

---

6305 Guzti hau Nafarroako ekialdera mugatuaz. Ikus Javier Velazak Bardean bildu dituen toki-izen euskaldunak, "De Toponimia del Valle del Ebro" artikuluan, FLV, 1991, 57, 77-87. orr. Honelakoetan, alabaina, oso kontuz ibili behar dugu, toponimo horietako batzuk gutxienez Bardean aspaldidanik neguak egiten dituzten Erronkari eta Zaraitzuko artzain berriki arte euskaldunek sortu ahal izan dituzte eta. Edozein moduz, autore honek aipatzen dituen hamabiez gain (ez dugu uste denak euskaratikakotzat jo daitezkeenik), Sardazuria eta Tximorra ere aipa daitezke, bigarrena antroponimo batean oinarriturik dagoela, itxuraz (*Las Bardenas Reales*, mapa).

6306 Herri honetako toponimiaren azterketa egiteko argitaratua dagoen Jimeno Juríoren THET lan mamitsuan oinarritu gara, alferrik baita egina dagoena berregitea.

6307 Herri honetako toponimiaren azterketarako Fco. Javier Zubiaur Carreñok CEEN-n argitaratu zituen bi artikulua interesgarriak ("Toponimia de San Martín de Unx (Navarra), 1977, 27, 415-462. orr., eta "Toponimia de San Martín de Unx según los amojonamientos de la villa en el siglo XVI", 1978, 29, 255-271. orr.) erabili ditugu, baina artxibategietara ere jo dugu, zer osatua bazenez.

Erriberri<sup>6308</sup>, Beire<sup>6309</sup>, Pitillas, Santakara, Melida, Murillo el Fruto, Zarrakaztelu<sup>6310</sup>, Kaseda eta Oibarko<sup>6311</sup> toponimiaz besterik ez dugu aipatuko, Ledeko adibide bakanen batez landara. Hurrengo baterako gelditzen da, hortaz, horren interesgarria dirudien Aragoako mugako herrietako (Zangoza, Ledea, Esa, Erromanzadoa...) toponimiaren azterketa.

---

6308 Herri honetako dokumentazio gutxi erabili dugu, eta beraz, garbi dago azterketa sakonagoa egin behar dela hemen, ondoko herrietan bezala.

6309 Erriberriren kasu berean dago, alegia, dokumentazio gutxi samar erabili dugu eta baliteke miaketa sakonago batek guk aipatzen ditugun baino toponimo euskaldun gehiago jartzea agerian.

6310 Azken lau herrietako azterketa egiteko Ricardo Ciérbidek Graciliano Herreroren laguntzaz idatzi zituen "Toponimia de la Comarca de la Oliva", CEEN, 1985, 46, 5-85. orr., eta "Toponimia de la Comarca de la Oliva. II parte", CEEN, 1986, 47, 91-164. orr. lanez baliatu gara. Guztiarekin, artxibategietara ere jo dugu, lau herri hauek hizkuntzaren aldetik oso interesgarriak direlako.

6311 Oibar, ezaguna denez, izen bereko bailararen burua da, eta bertako toponimiaren azterketa zehatzago bat egin ez badugu, eskualdeko euskararen ezagutzarako sobera baliagarria ez delako da, hots, bertako toponimia gehienbat erromantzea delako, ikusiko dugun bezala. Edozein moduz, arakatze sakon samarra egin dugu artxibategietan, eta toponimia bizia ere bildu dugu, lan honetan egoki deritzagunean baizik aipatzen ez dugunagatik.

## 2-HERRIZ HERRIKO AZTERKETA

## Tafalla:

**Araiz**<sup>6312</sup>: Mitxelenaren arabera haran 'ibar'-en eratorria izan daiteke, baina harea 'legarra'-rekin ere lot liteke<sup>6313</sup>.

**Beraxa**: Jimeno Juríok<sup>6314</sup> Caro Barojak<sup>6315</sup> Barasoain, Beasain eta Beasain-en oinarritako jotzen duen Beraxa antroponimoarekin lotzen du. Mitxelenak ere Beraxa ematen du Berasategi eta Berastegi-ren oinarritzat, eta bera 'bigun'-en eratorria den beratz, beratz-etik atera dela uste du<sup>6316</sup>.

**Berroeta**: izen honen dokumentaziorik ez dagoenez gero, zuhurrena antroponimo batetik atera dela pentsatzea dela uste dugu, Jimeno Juríorekin batera<sup>6317</sup>.

**Kandaraiz**: autore horrek dioenez<sup>6318</sup>, erromantzeko canto ('ertza')-z eta gorago ikusitako Araiz-ez osaturik legoke.

**Txibiri alto**: Artaxonako ikertzaileak Chibiri jatorri ezezagunekotzat jotzen du, eta onomatopeia bat edo euskal etorkikoa izan daitekeela dio. Izen honen jatorriaz ikus Erriberrin dioguna.

**Elizaxarra**: etimologia gardenekoa da, azalpenik behar ez duena, baina dirudienez Artaxonakoa da, ez Tafallakoa<sup>6319</sup>.

**Galindarte**: Jimeno Juríoren arabera Galindo antroponimoa eta arte euskal posposizioa ditugu hemen. Honela mintzo da lehen osagaiaz:

"La relativa abundancia de la voz «Galindo» en la microtoponimia de la zona, unida a su presencia, documentada desde el siglo XIV, con la sufijación «-arte», hace sospechar un contenido semántico toponímico peculiar"<sup>6320</sup>

6312 THET, 49. or.

6313 AV, 50-51. orr.

6314 THET, 53. or.

6315 *Materiales*, 69-70. eta 163-164. orr.

6316 AV, 71-72. orr.

6317 THET, 55. or.

6318 Id., 66. or.

6319 Id., 97. or.

6320 Id., 115. or. Cf., gainera, Tafalla ondoko Garinoain herri-izena, dirudienez Galindo-ren euskarazko aldaera den Garindo-z eta -ain atzizki ezagunaz osaturik dagoena. Ikus AV, 38-40. orr. Nolanahi ere, ez dugu uste antroponimo + posposizioa elkarketa arrunta denik toponimian, alegia, Petiriberro-ren antzerakoak aise aurkituko ditugu han-hemenka, baina ez, oker ez bagaude, \*Petiripe, \*Petiriondo, edo \*Petiriarte.

**Garbizu**<sup>6321</sup>: Mitxelena-ren irudiko **garbi**-ren eratorria da<sup>6322</sup>.

**Gaztelu**: oso izen berria da, eta seguru asko antroponimo batetik atera izanen da<sup>6323</sup>

**Gurrutxo**: gurutze-rekin lotzen du aipatu J. Juríok<sup>6324</sup>, baina bion arteko erlazioa ez dago garbi.

**Ibaiondo**: leku-izen berri sustrairik gabekotzat jotzen du Artaxonako ikerleak<sup>6325</sup>, eta beraz garbi dago ezin dela aintzakotzat hartu, guk dugun xederako.

**Landibar**: antroponimo batetik atera dela dirudi<sup>6326</sup>, eta ezin hartuko dugu aintzat.

**Larmalla**: aldi bakar batez agertzen da dokumentazioan<sup>6327</sup>, eta hortaz, ezin da segurtasunez mintzatu aipatu autoreak "toki-izen bitxitako" hartzen duen honetaz. Nolanahi ere, notatzekoa da euskaraz **harmaila** (< **harri** + **maila**) dugula, eta badaiteke bien artean lotura izatea, nahiz hau, gure irudiko, oso dudakoa den.

**Larrain**: euskarazko **larrain** 'era' izan liteke, baina aurreneko aldiz 1819an dokumentatu izana ez da honen alde mintzo.

**Lasterra**: euskarazko **laster** 'azkar'-ekin lot daiteke, baina aurreko izena bezala hau ere oso berandu azaltzen da, eta zuhurrena, gure irudiz, deituratik atera dela kontu egitea da.

**Latrain**<sup>6328</sup>: itxuren arabera -ain atzizkia duten eskualde honetako (Tafalla ondoko, alegia) leku-izen ugarietako bat da hau, oraingoan -gain-etik atera delako ustea bazter daitekeelarik, kasko baten izena ez izaki. Bigarren osagaia **haran** izan liteke, **Latrian** aldaera ere azaltzeaz landa<sup>6329</sup> **Barranquiel**-ekin mugatzen duenez gero. Antroponimo baten gain antolatua dagoela ere kontu egin daiteke, -ain bukaera duten toponimoentzat ematen den azalpena hau izan ohi baita. Kasu honetan **Latro** izena izan-go genuke oinarrian, eta ezinbestez genitiboa izan behar ez duen -ani atzizkia.

**Lezcal**: euskaratikako mailegua den **lezca** landare-izena (cf. gure eskualdeko **Lezkatzea**, **Lezkairu** eta **Lezkadua**) eta erromantzeko -al atzizkia ditugu hemen<sup>6330</sup>. Guztiarekin, eta gauzak estu hartuaz, ezin esan daiteke toponimo euskalduna denik.

**Lizoain**: behin bakarrik aurkitu du Jimeno Juríok, eta zalantzakotzat jo behar da. Baliteke -ain bukaera duten toponimoa izatea, baina gure ustez antroponimo batetik ateratako toki-izena dugu.

**Makotxa**<sup>6331</sup>: itxura euskaldun garbia dauka; bere sorburua zein izan daitekeen, ordea, ez dakigu. Euskara berandu arte bizirik egon den Puiun ere azaltzen da.

**Morreta**<sup>6332</sup>: bukaerak itxura euskalduna ematen badio ere, jatorriz hala den ez dakigu.

6321 THET, 116-117. orr.

6322 AV, 93. or. Beste toki barzuetako **Garbisu** (Lesaka) bera dela dirudi.

6323 THET, 118. or.

6324 Id., 118. or.

6325 Id., 122. or.

6326 Id., 125. or.

6327 Id.

6328 Id., 126. or.

6329 Cf. Olatzagutiko egungo **Erbitian** [erβítjan], **Erbitiain** 1915eko katastroan, **Erbitiarana** 1696an (PRA-Altsasu, 19. k.). Ikus, gainera, -ain atzizkia aztertzean dioguna.

6330 THET, 130. orr.

6331 Id., 132-135. orr.

6332 Id., 148. orr.

**Putzilun:** honen osagaiak, aurrekoarenak ez bezala, garbi-garbiak dira: **putzu** izena, eta **ilun** izenondoa<sup>6333</sup>.

**Rekarte:** antroponimo batetik atera dela dirudi<sup>6334</sup>.

**Sarrea:** ezbairik gabe Uxuen maiz agertzen den **Sarria** bera da (ikus herri horretako toponimia aztertzean dioguna). Dena den, Artaxonako mugako toponimoa da<sup>6335</sup>, eta honek herri honetako izena zela pentsarazten digu.

**Tafallamendi:** Jimeno Juríoren arabera Erriberriko toki-izena da hau, **Tafalla** osagaiak salatzen duen moldean. Irudiz, Erriberriko dokumentazioko **Mendeondoan** ageri den mendi bera da.

**Valgorra:** lehen osagaia erromantzeko **val** 'harana' dela garbi samar dago, baina bigarrenaren iturburua ez dago horren garbi, eta baliteke euskalduna izatea<sup>6336</sup>.

**Zidakos:** ez dakigu zein izan daitekeen izen honen etorkia. Jimeno Juríok dioenez<sup>6337</sup>, Urraulbeitiko Geretzen **Çidacoain** bat agertzen da, eta Sorian ere bada izen honetako ugalde bat. Oinarrian antroponimo bat dagoela suposa liteke, baina hau balizko kontu hutsa da.

### San Martin Unx:

**Amustil:** **Anbustil** (1609)<sup>6338</sup>, **Aymostil** (1636)<sup>6339</sup> nahiz **Amustil** (1776)<sup>6340</sup> dugu. Ez dakigu zein den izen honen jatorria; **mb** / **m** aldizkatzea euskaraz aski arrunta da (cf. **Santakaranburu** / **Santakaramuru** Uxuen), baina erromantzez ere ezaguna da (cf. hor barnako **Santa Coloma** / **Santa Coloma**). Ez dakigu, halaber, San Martingoa zen, Beirekoa (**Aymustil** dugu herri honetan 1627an<sup>6341</sup>) edo bietakoa.

**Arroia:** Javier Zubiaurrek izena alderdiko lur gorriari zor zaiola uste du (**Larroya** [laˈróya] esaten zaio orain)<sup>6342</sup>, baina garbi dago herri-etimologia bat egiten ari dela, toponimo honen formarik zaharrena **Arroya** (1536)<sup>6343</sup> delako (cf., gainera, **Lergako Arroiaportillua**. Ikus izen honen etimologiaz **Lergako Arroia** sarreran dioguna).

**Bidearagon:** aipatu autoreak (Javier Zubiaurrek) **Vidadaron** eta **Vidaragón** aldaerak biltzen ditu<sup>6344</sup>, eta honela azaltzen:

“camino de Aragón, cruzando Molineros y Turbil. Según el Señalamiento de la Hierba de la Carnicería de Beire (Pleitos de San Martín y Beire, 1566), el Camino de Aragón es el camino de San Martin de Unx a Pitillas”

**Bidearagon** bide baten izena dela garbi dago:

“ytten otra piª en bidearagon afronª con el camino de pitillas”(1588)<sup>6345</sup>

6333 Id., 170. or.

6334 Id., 171. or.

6335 Id., 193. or.

6336 Id., 210-211. orr. Ikus izen honen iturburuaren inguruan Jimeno Juríok dioena.

6337 THET, 215-216. orr.

6338 PRA-Oibar, 13. k.

6339 PRA-Kaparroso, 1636.

6340 PRA-San Martin, 57. k.

6341 PRA-Kaparroso, 30.k.

6342 "Toponimia...", 447. or.

6343 PRA-Oibar, 2.k-bis.

6344 "Toponimia de San Martín de Unx según los amojonamientos...", 263. or.

6345 PRA-Oibar, 49. k.

Eta beraz **bide**- hori euskarazko izen ezaguntzat aitortzeko oinarririk bada. Elementu hau berau dugu, gainera, **Bidefoz**, **Bidolite** eta **Bidupaso** edo **Bidapaso**-n, eta hauetan denetan ere **bid(e)**- 'bidea' da, segituan ikusiko dugun gisara.

Nolanahi ere, harritzekoa da euskaraz beti eta toki guztietan bigarren osagai moduan azaltzen dena (**Agezabidea**, **Galipentzubidea**, **Lergabidea**, **Uxuebidea**...) hemen izenaren hasieran aurkitzea, eta erromantzearen eraginari leporatzea da eman dakioken azalpen bakarra, **bid(e)** horietan euskarazko **bide** badugu, eta ez, adibidez, erdarazko **vía de**-ren laburpena (ugariak dira honelakoak Erriberan). Izan ere, aspaldi honetan toponimia erromantzea nagusi den Murillo el Fruto herrian, kasu, **Jubide** edo **Jubidea** edireten dugu dokumentazioan (< \*Ujuebide(a)), eta ez \*Bideujue<sup>6346</sup>.

**Bidefoz**: hemen, irudiz, **bide** (ikus aurreko sarrera), eta **foz** 'zintzur', 'potxe' ditugu. Dokumentazioan **Bidifoz** (1609)<sup>6347</sup> nahiz **Videfoz** (1636) agertzen da, eta garbi dago bide bat (eta honen ingurua, jakina) adierazten zuela:

"mas una pieza...en el termino de videfoz que afronta con...Camino Real que ban a Veyre"<sup>6348</sup>

**Bidolite**: hemen **vía de** sintagmaren laburketa den **vide** (ikus gorago) eta **Olite** hiri-izena dituzkegu. Dokumentazioan **Vidolite** (1608)<sup>6349</sup> eta **Vide Olitte** (1774)<sup>6350</sup> azaltzen dira:

"Ms otra (pieza)...en el termino de vidolite que afronta a Camino Real de Olite..."

**Bidupaso**: honek **Bidupaço** (1587)<sup>6351</sup>, **Bidupacu** (1611)<sup>6352</sup> nahiz **Bidumpaso** (1766)<sup>6353</sup> aldaerak aurkezten ditu guk miatutako dokumentazioan. Javier Zubiaurrek<sup>6354</sup>, gainera, **Vida-paso** aurkitu du XVI. mendean. Hemen ere, irudiz bederen, **bide** dugu, eta **paso** izan daitekeena, nahiz bigarren hau ere zeharo argia ez den:

"...en la endrecera llamada bidupaço...afronta con...Camino real que ban para Olite"(1587)

**Esparteta**: **El Espartal**-en aldamenean dago, eta dudarik ez dago oinarria latineko **spartu**-tik eratorri behar dela, **El Espartal**-en behintzat espartzua edo espartua baitzen lehen landatzen zena, Javier Zubiaurri sinetsi behar badiogu<sup>6355</sup>. Berraderi jarraikiz<sup>6356</sup> honela azaltzen du toponimoa autore honek:

"ESPARTETA: de similar significado al de Espartal, este topónimo -según Berraderi deriva de «spartum». Se diferencia del anterior en el sufijo «-eta», con valor abundancial, que conserva la «t» sorda intervocalica por influjo del romance navarro-aragonés

6346 Ikus Mitxelena AV-eko 74. orrialdeko 160. zenbakian dioena.

6347 PRA-Oibar, 13. k.

6348 PRA-Kaparroso, 36. k.

6349 PRA-Oibar, 13. k.

6350 PRA-San Martin, 51. k.

6351 PRA-Oibar, 3.k-bis.

6352 Id., 14. k.

6353 PRA-San Martin, 47. k.

6354 Toponimia de San Martín de Unx según los amojonamientos...", 263. or.

6355 "Toponimia...", 437-438. orr.

6356 *Toponimia del Municipio de San Martín de Unx (Navarra)*, Lizentziatura-txostena, argitara gabeko lana.

medieval. Según él, se trata de un topónimo de singular arcaísmo, pues en tiempo de la castellanización de Navarra no se emplea este sufijo con frecuencia”

Gu izen hau euskalduntzat jotzera makurtuko ginateke, erromantzea izan daitekeelako posibilitatea osotara arbuiatu gabe, ordea (cf., adibidez, Oibarren bizirik dugun **Frajineta**).

**Ezpelengua**<sup>6357</sup>: baliteke **ezpel** zuhaitz-izenaren txikigarria izatea (cf. Eslaba-ko **Xubingoa**), baina Eslaban adibidez **Ezpelkoa** dugu.

**Femate**: Javier Zubiaurrek biltzen du<sup>6358</sup>, eta antzinako **Ferrate** batetik eratorzten. Bigarren osagaia -ate ‘ataka’, ‘portilu’ dela dirudi, baina ez dakigu honelakorik baden bertan. Aipatu autoreak “lantzeko lur zelaia eta ona” dela besterik ez du esaten. Nafarroan barrena ezagunak dira **Ferratze** eta **Ferratz** leku-izenak; aztergai dugunarekin zerikusirik baduten, ordea, ez dago bat ere garbi.

**Frazkorana**: Javier Zubiaurrek **Frazcorana** eta **Franorana** biltzen ditu<sup>6359</sup>, eta honekin batera **Valle de Francorana**. Azken honek garbi samar uzten du toponimo honen bigarren osagaia **harana** ‘ibarra’ dugula, baina lehena zein den ez dago horren argi. Izan ere, **Franko** ‘libre’ izan genezake (cf. **Frankoa**, **Frankoandia** Erreniegan<sup>6360</sup>), baina **Frazco**-dun aldaera honen aurka mintzo da, eta guk bildu dugun **Fozeorona**<sup>6361</sup> ere bai, nahiz hau aldaera desitxuratua (edo gaizki irakurria) izan daitekeen (cf., halarik ere, **Bidefoz** toponimoa).

**Idoi, fuente de**: guk 1817an opatu dugu<sup>6362</sup>, eta Javier Zubiaurrek ere berandu dokumentatu duela dirudi, datarik ez emanagatik<sup>6363</sup>. Autore honek, Berraderi jarraikiz, euskarazko **idoi**-rekin lotzen du (ikus Galipentzuko **Idoia** sarreran dioguna), eta egia esan, honen eta **iturri**-ren adierak ez daude sobera urrun elkarrengandik. Guztiarekin ere, izenaren agerpenaren garaia kontuan edukita, antroponimo batetik atera dela pentsatzera makurtzen gara, lehen azalbidea zeharo saihestu gabe, ordea.

**Itur del Pozo**: hemen adierakideak izan daitezkeen **iturri** euskalduna eta **pozo** ‘putzu’ erdaldua izan ditzakegu, putzu batzuek berezko jarioa dutenez gero, jendeak “iturri” nahiz “putzu”-tako hartzen baititu. Alabaina, kontua ez dago garbi, 1632ko **Ytur del poço**-rekin batera<sup>6364</sup> 1611ko **Aytur del poço** ere badugulako<sup>6365</sup>. Beiren, gainera, **Aturillo** eta **Ayturillo** ditugu (ikus Beire).

**Lakar**: Mitxelenak ‘hartxintzar’ eta ‘latza’ adierak ematen dizkio morfema honi<sup>6366</sup>, eta Berradek bide honetatik azaltzen du San Martingo **Lakar** toponimoa, bertako txintzar ugarian oinarriturik. Javier Zubiaur, aldiz, ez dago ados azalpen honekin, izan ere lur ona delako (ez hartxintza, alegia)<sup>6367</sup>, bere informatzaileen arabera.

**Lupier**: Javier Zubiaurrek Berraderen eritzia beretzen duela dirudi<sup>6368</sup>, eta izen hau euskalduntzat jotzen duela. Berraderen arabera **lur** eta **berri**-z osaturikako **lupierri** ‘labaki’ litzateke honen sorburua, baina euskaraz ohizkoa **lu(r)berri** da<sup>6369</sup>.

6357 PRA-Oibar, 13. k., 1609, eta 15. k., 1614.

6358 "Toponimia...", 439. or.

6359 "Toponimia de San Martín de Unx según los amojonamientos...", 262. or.

6360 TCPCC, 100. or.

6361 PRA-Kaparroso, 30. k.

6362 PRA-San Martin, 80. k.

6363 "Toponimia...", 430. or.

6364 PRA-Kaparroso, 57. k.,

6365 PRA-Oibar, 14.k.

6366 AV, 118. or.

6367 "Toponimia...", 442. or.

6368 Id.

6369 Arakil-Uharren \***Lupérr**ietatik atera datekeen **Lupérta** dugu orain, eta Urbasako eremu bat izendatzeko **Luberri** eta **Lubierri** aldaerak erabiltzen dira (cf. **Zarategi** / **Zaratiegi**, **Zariki** / **Zariki**...).

Bukaerako bokalaren apokopea eta tartekoaren diptongatzea zeri zor zaion edo nola azaldu behar den aipatzen ez den arren, badirudi Berradek Menéndez Pidalek **Etxaberri** > **Javier**-erako proposatzen duen aldaketa<sup>6370</sup> zuela gogoan, hau horrela zen seguru ez dakigunagatik, pentsa daitekeenez.

**Monda**: Zubiaurrek, Berraderi jarraituz, latineko **munda** 'birjina', 'garbia' hartzen du honen sorburutzat<sup>6371</sup>. Gure ustez, ordea, \***montana** batetik atera zitekeen, hau segurua ez bada ere (ikus **-eta**-ri eskaini atalean Lergako **Mondakiet**a toponimoa aztertzean dioguna. Ikus, orobat, Lergako bereko **Mondako errekin**a eta Galipentzuko **Monda** sarrerak).

**Paso de Borgos**<sup>6372</sup>: gaurregun **Pasoburgos** bilakatua den honek aldaki bat baino gehiago aurkezten du historian zehar, izenburuan jarri dugunaz landara: **-bormos** (1739<sup>6373</sup>), **-borous** (1735)<sup>6374</sup>, **-borbus** (1772<sup>6375</sup>, 1776<sup>6376</sup>, 1814<sup>6377</sup>), **-borbues** (1785)<sup>6378</sup>, **-bobus** (1814)<sup>6379</sup>.

Etimologia zein den ez dakigu; Uxueko **Beskos**, **Otrollos**... eta beste darkezki burutara.

**San Martín de Unx**: autore batzuek **Unx** Uxue-rekin erlazionatu dute, baina kontua ez dago bat ere garbi (ikus Uxueko **Uxue** sarreran dioguna). Nolanahi ere, eta jatorria zein den ez jakinagatik, badirudi **Unx**-en sustraiak euskarari bilatu behar direla.

**Sordonamaria**<sup>6380</sup>: hemen, antza duenez, monja-izenekin erabili ohi den sor (< **soror**<sup>6381</sup>) eta euskarazko **Dona Maria** 'Ama Birjina' ditugu (cf. Muruko 1627ko **Dona maria** toponimoa<sup>6382</sup> edo Malerrekako herriaren izena). Zubiaurrek, alabaina, **Dona maria** San Martingo deiturarik zaharrenetakoa dela gogorarazten digu, eta argi esaten ez duelarik ere, badirudi leku-izena deituratik atera dela uste duela<sup>6383</sup>.

Zernahi gisaz, **San Martinen Valdesantamaria** dugu bizirik orain, eta ezin diogu itzuri egin egungo toki-izen hau aztergai dugun dokumentazioko **Sordonamaria**-rekin lotzeko tentazioari, azken hau **val**-ez lagundurik sekulan ez aurkitu arren.

**Turbil**: guk izen honen **Turbil** (1611)<sup>6384</sup> eta **Torbil** (1614)<sup>6385</sup> aldaerak ediren ditugu XVII. mendean, eta Zubiaurrek **Turril** ere bildu du XVI.ean. Autore honek Beireko izen bereko toponimotik bereizi behar dela dio, eta lanaren lagungarri sartu dituen mapetan ikus daitekeen moduan **Turrubio**-tik ere bereizi behar da, bi dermiook elkarrengandik aparte baitzeuden, nahiz ez urruti. Azken, hau, gainera, 1557rako azaltzen da (ikus

6370 *Toponimia prerrománica hispana*, Gredos, Madril, 1952, 10-15. orr. Bi toponimoen arteko lotura, dena den, Vinsoni bururatu bide zitzaion aurrena, aipatu lan horretan ikus daitekeenez.

6371 "Toponimia...", 443. or.

6372 PRA-Oibar, 14. k., 1611.

6373 PRA-San Martin, 36. k.

6374 Id., 35. k.

6375 Id., 50. k.

6376 J. Zubiaur, "Toponimia...", 445. or.

6377 Id.

6378 PRA-San Martin, 40. k.

6379 J. Zubiaur, "Toponimia...", 445. or.

6380 PRA-Oibar, 4. k.

6381 Corominas, DCELC.

6382 PRA-Erriberri, 31. k.

6383 "Toponimia...", 462. or.

6384 PRA-Oibar, 14. k.

6385 Id., 15. k.



beherago). Etimologiari dagokionez, **iturri**-z eta **bil** 'biribil'-ez osaturik egon liteke; bertan iturrik bazen, ordea, ez dakigu.

**Turrubio**: arestian esan moduan 1557rako aurkitzen dugu<sup>6386</sup>, eta hortaz, ez dirudi **Turbil**-ekin zerikusi zuzenik duenik. Zubiaurrek<sup>6387</sup> Berraderen etimologia ematen du: autore honen arabera latineko **turris** eta **rubens** dituzkegu hemen, baina ez da garbi ikusten bi elementu horien batuketatik **Turrubio** nola atera den. Baliteke **Iturri** izatea, baina aurrekoan bezala oraingoan ere ez dakigu bertan iturrik baden.

**Txutxu**: San Martingo izen honen ohizko aldaera **El Chucho** da, herri-etimologiaz seguraski, eta **Txutxu** txantxetan baizik ez da erabiltzen herri honetan, Javier Zubiaurren arabera<sup>6388</sup>. Lergan eta Uxuen, ordea, **Txutxu** da aldaki bakarra. Ikus Lergako **Txutxu**, **Txutxuberokia**, **Txutxuko berokia**, **Txutxuondoa** eta **Txutxuportillua** sarrerak, eta Uxueko **Txutxu**. Azken hau aztertzean diogun gisa, **Suchu** da jatorrizko forma, su-ren eratorri bat apika.

**Zaramendi**: egun **Zaramandil** bilakatu den hau **Caramendi** zen 1587an<sup>6389</sup> eta 1641ean<sup>6390</sup>, **Çaramendil** 1614an<sup>6391</sup>, **Çarimendi** 1619an<sup>6392</sup> eta **Zaramandil** 1753an<sup>6393</sup>. Javier Zubiaurrek zara 'jara'<sup>6394</sup>, **mendi** eta **bil** 'biribil'<sup>6395</sup>-ez osaturik dagoela uste du, baina mendia inolaz ere biribila ez izateaz gainera lehen lekukoa **Zaramendi**-ren alde mintzo da, eta bestalde -l-ren eransketa ezaguna da -di-z amaitzen diren euskal toponimoetan, sorrera eman zien hizkuntza galtzen denean (cf. Eslabako **Lizardui** > **Lizardil** eta **Lezkadui** > **Lezkaduil**).

**Zollin**: izen hau **Çolin** da 1633an<sup>6396</sup>, eta **Zollin** 1705ean<sup>6397</sup> eta 1752an<sup>6398</sup>. J. Zubiaurrek **zolle** 'txerritegia'-ren txikigarria izan daitekeela dio<sup>6399</sup>; guk behin edo beste **San** aposizioaz lagundurik ediren dugu, eta gure irudiko baliteke **San Zoilo**-ren aldaera den **Sanzol**-ekin zerikusia izatea (ikus Galipentzuko **Sanzol** sarrera)<sup>6400</sup>.

Beste aldetik, eta lehen lekukotasunean oinarri harturik, Aranguren ibarreko **Zolina**-rekin (**Zolia** euskaraz) ere lot liteke, bokal arteko -l- > -ll- aldakuntza ezaguna baita ukipen eremuetan (ikus Lergako **Oletabidea**-n dioguna). Hau, dena den, balizkako kontu hutsa da.

### Erriberri:

Gorago esan bezala, herri honetako dokumentazio gutxi erabili dugu, eta hortaz, hemen aipatuko diren izen euskaldun edo euskaldun ustekoen kopurua franko aberasten ahalko da, ziurrenik, agirien araketa sakona eginez.

6386 PRA-Erriberri, 3. k.

6387 "Toponimia...", 450. or.

6388 Id., 437. or.

6389 PRA-Oibar, 3.k.-bis.

6390 PRA-Kaparroso, 39. k.

6391 PRA-Oibar, 15. k.

6392 PRA-Kaparroso, 26. k.

6393 PRA-San Martin, 42. k.

6394 **Txara** toki batzuetan 'zuhaitz gaztea' da, oker ez bagaude.

6395 'Redondez' adiera ematen dio. "Toponimia...", 452-453. orr.

6396 PRA-Kaparroso, 57. k.

6397 J. Zubiaur, "Toponimia...", 453. or.

6398 PRA-San Martin, 41. k.

6399 Iribarrenek Erronkariko **Zuelle**-z besterik ez du biltzen.

6400 Traibuenasen ermita izan den **San Zolín** dugu egun.

**Mendendoa:** bi aldiz aurkitu dugu, XVI. mendean, eta itxatxarturik egonagatik ongi ikusten da jatorrizko forma \***Mendiondoa** dela:

“una p<sup>a</sup>...situada en mendendoa ter<sup>a</sup> de la villa dolite”<sup>6401</sup>

“una pieça...en el termino llamado mendendoa...afrentada...con camino de Santacita”<sup>6402</sup>

Tafallako toponimia aztertzean esan moduan, badirudi Jimeno Juríok biltzen duen Erriberriko bereko (baina Tafallako mugako) **Tafallamendi**-rekin lot daitekeela.

**Ripalda**, la<sup>6403</sup>: honen osagaiak latineko *rīpa* ‘uhertz’-etik hartu den euskarako **erripa** edo erromantzeko **ripa** (ikus Galipentzuko **Ripas**, **Ripazos** sarrerak) eta latineko **alta** ‘garai’-ren euskalduntzearen ondorea den **alda** (cf. Zaraitzuko **Ripalda**, Urraulbeitiko **Ripodas** herri-izena, eta Galipentzuko izen bereko toponimoa. Ikus azken sarrera hau) izan daitezke. Hasierako bokal protetikoaeren aferesia ohizkoa da honelakoetan, maiz ikusi dugun bezala.

**Serostarra:** aldi bakar batez ediren dugu, eta ezin dugu ezer segururik esan. Bukaeran **-tarra** atzizki gentilizioa izan genezake:

“una pieça...a la entrada de ballacuera termino de dca villa en serostarra q tiene una ffuente...”<sup>6404</sup>

**Txibiria:** Jimeno Juríok Tafallan opatu duen **Chibiri alto**<sup>6405</sup> Erriberriin azaltzen den bera dela dirudi, aipatu autore horrek dioen gisa bi herrion arteko mugan zegoenez gero:

“En el amugamiento de los términos de Tafalla y Miranda de Arga, figura un mojón en el Alto, llamado Costal del Rey en Miranda, y Chivirí alto en Tafalla. En acta de revisión de mojones entre Tafalla y Olite, del mismo año, aparece uno en el término del Saso de Tafalla y de *Chivirí alto* de Olite”

Ikertzaile artaxonarraren arabera **Txibiri** onomatopeia bat izan daiteke edo euskal etorkiko elementu bat. Gure ustez toponimo honen bigarren osagaia (bi elementuk osatzen dutela uste baitugu) euskarazko **-bidea**-ren desitxuraketa den **-biria** izan daiteke, honelakoetan errotazismoa ohizkoa izateaz landara dokumentazioan artikuluz eta artikulurik gabe azaltzen delako, beste euskal leku-izen anitz bezalaxe. Gainera, dugun lekukotasunak aski laguntzen dio gure uste horri:

“otra pieça...en chibiria afruenta...con el camino de falçes”(1579)<sup>6406</sup>

**Urtes:** behin bakarrik ediren dugu, 1549an<sup>6407</sup>, eta etimologia egiteko zimendu sendorik ez dugu (cf. Uxueko **Urteaga**).

**Zabaifoia:** aurrekoa bezala behin dokumentatu dugu:

“otra pieça...en la foya çabayffoya”(1567)<sup>6408</sup>

6401 PRA-Erriberri, 3. k-bis, 1551.

6402 Id., 8. k., 1571.

6403 Id., 5. k., 1552.

6404 Id.

6405 THET, 95. or.

6406 PRA-Erriberri, 10. k. **Chibiri** urte berean aurkitu dugu, artxibategi eta karpeta berean.

6407 Id.

6408 Id., 9. k.

Bukaerako -ffoya hori oraingo erdarazko hoya 'zuloa' dela dudarik ez da, baina hasierako **Çabay-** hori zer den ez dago garbi. Gaur hau berau izan litekeen **Zabatória** dugu bizirik, eta hortaz, artxibategiko aldaera dudazkotzat jo beste biderik ez dugu ikusten.

### Beire:

Hemen San Martinen ere azaltzen diren **Turbil** (< \***Iturbil**), **Aimustil**<sup>6409</sup> eta **Turrubio**<sup>6410</sup> aurkitu ditugu (ikus San Martingo sarrerok). Hauetaz gainera, jatorri euskaldun garbikoa den **Saimendia** (< **sai** 'putre,' + **mendia**) dugu:

"una pieca situada en...la endrecera llamada Saymendia"<sup>6411</sup>

### Pitillas:

**Pikarana:** **pika** 'aldapa xuta', eta **harana** 'ibarra' ditugu leku-izen honetan (ikus **Uxue**).

**Denekofila:** aldi bakar batez aurkitu dugu, 1646an<sup>6412</sup>, eta ezin ezer seguru esan honetaz. Bukaerako -**fila** hori eskualde honetan arrunta den erdarazko **fila** 'erreten txikia' izan liteke<sup>6413</sup>.

**Donemosdos**<sup>6414</sup>: honen hasierako **Done-** hagonimoetan arrunta den elementua izan daiteke, baina honetaz seguru egoteko -**mondos** zer den jakin behar genuke, eta zoritxarrez ez da honela (cf. San Martingo **Sordonamaria**). **Don mundos** (1542)<sup>6415</sup> eta **Dolomondos** (1832)<sup>6416</sup> ere opatu ditugu.

**Lakozarras**<sup>6417</sup>: Agezako **Lakuaga-n**, Galipentzuko **Lakuarana** edo **Lakuko harana-n** eta **Uxueko Laku** eta **Lakumulatu-n** dugun laku 'madura', 'sihatsa', 'lintsa', eta jatorri bereko **Tafallako Lako-rekin**<sup>6418</sup> lot daiteke toponimo honen lehen elementua. **Bigarrena zaharra** izenondoa izan daiteke, bukaerako -**s** hori toponimo euskaldunei erdaraz erabiliak izatean eransten zaien pluralgile faltsua litzatekeelarik.

**Mendikilles, los:** 1627an **Los Mendiquilles** dugu<sup>6419</sup>, eta 1640an **Los Mendiquillos**<sup>6420</sup>. Oinarrian **Mendiki**-ren moduko zerbait izan genezake (cf. **Mendiki, Iturriki...**<sup>6421</sup>), eta bukaerako -**es** hori aurreko sarreran aipatu joerari zor lekiok, artikulua bera bezala. Tarteko -(i)- zer den, ordea, ez dakigu.

-**Killo, -killu** atzizki txikigarritako har liteke (cf. -**til, -(s)kil** txikigarria duten izenak), hau balizkako kontu hutsa bada ere. Dena den, Zubietan **Berro** eta ustezko berrekailu horretaz osaturik egon daitekeen **Berraquillu** dugu 1621ean<sup>6422</sup>.

6409 PRA-Kaparroso, 27. k., 1620.

6410 Id., 26. k., 1619.

6411 PRA-Erriberri, 3. k-bis, 1559. Ameskoan **Saimendi** dokumentatu du Luciano Lapuentek XIX. mendean hasieran, TAM, 407. or. Lana ibarreko Gastiain herrian ere azaltzen da: "otra (pieza) en el alto de saimendia", PRA-Artabia, 3. k, 1685.

6412 PRA-Kaparroso, 42. k.

6413 Ikus Iribarrenen VN, eta R. Ciérbideren TCO, 75. or.

6414 PRA-Erriberri, 7. k., 1568.

6415 Id., 2. k., 1542.

6416 PRA-Kaseda, 53. k.

6417 **LacocaRas** dugu 1638an (PRA-Kaparroso, 37. k.), eta **Lacoçarras** 1640an (id., 38. k.).

6418 Jimeno Jurío, THET, 123. or.

6419 PRA-Kaparroso, 30. k.

6420 Id., 38. k.

6421 Ikus Uxueko **Txorria-n** dioguna.

6422 PRA-Donztebe, 21. k. Informazio hau Andrés Iñigo iturendarrari zor diogu.

Zizur zendeako Undion **Mendigilla**, **Mendikilla** dugu dokumentazioan, **Mendikilla** egun<sup>6423</sup>; Etxalekuko **Mendigilága Mendiquillaga** zen 1604 eta 1609an<sup>6424</sup>, **Mendiguillaba** 1770ean<sup>6425</sup>, **Mendiquillavidea** 1815ean<sup>6426</sup>. L. M<sup>a</sup> Mujikak Burgosko iparraldean (edo Errioxan?) **Mendegillo** biltzen du Valmalan, **Mendigillo** Santa Olallan, eta **Mendikillo** beharbada herri berean<sup>6427</sup>.

**Sarrondo**<sup>6428</sup>: sarri 'basoa' eta **ondo**a ditugu hemen (ikus Uxueko izen bereko sarrera). **Sarondo**<sup>6429</sup>, **SaRandoa**<sup>6430</sup> eta **Sarraondo**<sup>6431</sup> aldaerak ere ediren ditugu.

**Txagunetas**: aldi bakar batez dokumentatu dugu<sup>6432</sup>, eta gaur **Las Chaconetas** esaten da. Jatorrizko forma \***Etxaguneta** izan liteke.

**Uartetxipia**: u(g)**arte** izenaz ikus Lergako **Ubitarte** sarreran dioguna. **Txi**pi**a** gure eskualdean (eta hemendik kanpo ere toki frankotan, Nafarroan) **txikia**-rekin batera ageri ohi den aldaera da (cf. Eslabako **Elketxipia**):

"yten otra (pieza) en Guarte chipia afrontada a...vocal de la carrera veyre" (1640)<sup>6433</sup>

### Santakara:

**Aldapas, las**: oraindik ere bizirik dagoen izen hau 1638an aurkitu dugu aurren aldiz<sup>6434</sup>, eta ez dago dudarik euskarazko **aldapa** 'malda' dugula oinarrian:

"Se trata de un altozano, sito en el paraje llamado *Zabala* cerca del cementerio"<sup>6435</sup>

**Arasa**<sup>6436</sup>: ez dakigu zein den oraindik ere bizirik dagoen honen jatorria. Lehen elementua **haran**-en elkarketako aldaera izan daitekeen **ara**- izan liteke, egun erreka baten izena denez gero<sup>6437</sup>. Dermio eta muino baten izena ere bazen<sup>6438</sup>.

**Arizua**: itxuraz Anueko **Aritzu** herri-izenak duen etorki bera (< **haritz** + **-zu**) du, baina Aragoa ugaldearen ondoan egoki **harea**-ren eratorri batez ere pentsa daiteke (**harea** + **-zu**?<sup>6439</sup>), besteak beste:

6423 TCPC, 445. or.

6424 PRA-Ihaben, 1. k.

6425 Gravámenes, 7. l., 146. zkia.

6426 Id.

6427 Ikus Luis Maria Mujika: "El euskara en la toponimia de Burgos", *Luis Villasanteri omenaldia*, Iker 6, Bilbo, 1992, 341. or.

6428 PRA-Oibar, 8. k., 1594.

6429 Id.

6430 PRA-Kaparroso, 27. k., 1621.

6431 Id., 42. k., 1646.

6432 Id., 30. k., 1626.

6433 PRA-Kaparroso, 38. k. Urte berean **Guerto chipia** ere ediren dugu, baina 1628an **Guarte chipia** agertzen da (PRA-Kaparroso, 31. k.). 1892ko katastroan **Huerto chipia** da, eta orain **Uertotxupia** [wértočupía] esaten zaio.

6434 PRA-Kaparroso, 37. k.

6435 R. Ciérbide, TCO, 62. or.

6436 PRA-Kaparroso, 2. k., 1557.

6437 R. Ciérbide, TCO, 74. or.

6438 PRA-Kaparroso, 43. k.

6439 Cf. Olatzagutiko 1703ko **Areasuet**a (PRA-Altsasu, 19. k.), **Areasuta** 1714an (id., 21. k.), **Ariachota** 1893an (katastroa), **Areatxóta**, **Ariatxóta** egun.

“otra p<sup>a</sup> en ariçua q afrenta con el Rio mayor”(1557)<sup>6440</sup>

**Baiunga:** hidronimo hau 1552an ediren dugu aurrenekoz<sup>6441</sup>, **Rio de Bayunga** formapean. 1574an aldiz<sup>6442</sup>, **Cequia de Bayunga** azaltzen da, egun duen “status”-arekin beraz<sup>6443</sup>. Etimologiari dagokionez, lehenbiziko osagaia **ibaia** ‘ugaldea’ *vel simile* izan liteke, eta bigarrena, **ilunagoa** bada ere, latineko **concha**-ren eratorria den **gonga**, **onka**, **unga**<sup>6444</sup>.

**Cruz de Lizeru:** behin bakarrik azaltzen da, 1669an, eta **liçeru** nahiz **leceru** gisa interpreta daiteke<sup>6445</sup>.

**Itza:** hau 1634an aurkitu dugu, **Hiça** formapean:

“otra p<sup>a</sup> en el termino...llamado hiça...que afrenta con el Rio de Aragon”<sup>6446</sup>

Osagaiak **ih** fitonimoa eta **-tza** ugaritasunezko atzizkia dirateke.

**Mazkolanda:** egun **Maskolandas** bihurtu den hau **La Mazcolanda** da 1616an<sup>6447</sup>, **Mazcolandas** 1653an<sup>6448</sup> eta **Marcolandas** 1847an<sup>6449</sup>. Aldaera hauek ikusita honela mintzo da R. Ciérbide lehen osagaiaren etimologiaz:

“Ante estas fluctuaciones, y careciendo de documentación más antigua<sup>6450</sup>, parece difícil emitir un juicio sobre el primer elemento. Si tenemos en cuenta que la forma más frecuente es MARCO- podríamos suponer el antropónimo MARCOS, o bien el vasco MARKA, «marca, señal, frontera», pero tenemos que rechazar tal posibilidad si tenemos en cuenta que la primera forma registrada es MAZCO-”<sup>6451</sup>

Gure ustez **Mazko** horretan beste zerbaiten zati den **-Maz** dugu, eta leku-denborazko genitiboaren **-ko** morfema. **-Maz**, bere aldetik, **\*Imaz**-en moduko izen batetik atera ahal izan da, hasierako bokala aféresiz galdu duela. **\*Imaz**-en zehaztugabeko **Ima-** oinarria, eta ugaritasunezko **-tze**-tik atera ahal izan den **-(t)z** atzizkia genuke (cf. **Imoz**)<sup>6452</sup>.

**Landa**-ri dagokionez, Ricardo Ciérbidek campo’ adiera ematen dio, Mitxelernari jarraikiz, baina eskualde honetan **landa** ‘landu gabeko eremua, larratza’ da, Jimeno Juríok dioenez<sup>6453</sup> (ikus Eslabako **Landalarratza** sarrera). Tafallako irakasleak egiten duen deskribapenak ez dio kontra egiten aipatu adierari:

6440 PRA-Kaparroso, 2. k.

6441 PRA-Erriberri, 5. k.

6442 Id., 9. k.

6443 R. Ciérbide, TCO, 77. or. Autore honek dioenez, 1853an ere **Río de Bayunga** dokumentatzen da.

6444 Ikus FHV, 252. or. Aranguren ibarreko **Gongora** herri-izena **concha**-ren txikigarria den **conchula**-tik atera dateke. A. Irigoyen, “Gongora y Mañeru”, DRPLV-III, 193-194. orr. Ideia, dena den, Fdo. González Ollé irakaslearena bide da.

6445 PRA-Kaparroso, 76. k.

6446 Id., 53. k.

6447 Id., 47. k.

6448 PRA-Kaparroso, 46. k.

6449 Hipotekak, 172. zkia, 51. or.

6450 Dituen lekukorik zaharrenak XVIII. mendekoak dira.

6451 TCO, 65. or.

6452 AV, 62. eta 144. orr.

6453 THET, 124-125. orr.

“Corraliza de propiedad municipal que disfrutan los vecinos. Ocupa gran extensión mugando con Ujué y Murillo. Es terreno de secano”<sup>6454</sup>

**Larrageta:** oraindik ere bizirik dagoen leku-izen honen jatorriaz ikus Uxueko **Larrage** eta **Larrageta** sarrerak.

**Otxasa:** aldi bakar batez dokumentatu dugu, 1622an<sup>6455</sup>, eta **Ochasa** zein **Ochaso** irakur daiteke. Baliteke espejismo huts bat izatea, **Arasa** gaizki irakurtzearen ondorio, adibidez. Bestela, **Otso**-ren eratorri bat izan liteke apika, bukaera **Arasa**-n dugun berbera delarik.

**Zabala:** Santakararen ondoko eremu zabala bide da hau<sup>6456</sup> (cf. Ageza eta Lergako **Zabala** eta Eslabako **Zabalea**). Guk estraineko aldiz 1722an aurkitu dugu<sup>6457</sup>:

“una vejera...en los teros...y paraje que llaman Zavala”

**Zanzualda:** hau **Sançualda** zen 1625ean<sup>6458</sup> eta **Cancualda** 1632an<sup>6459</sup>. Ugaldearen ondoan zegoenez gero, **\*Zaldualdea**-ren desitxuraketa batez pentsa daiteke (**\*Zandualdea**-ren bitartez agian<sup>6460</sup>):

“una pieza ques cercada de la parte de alla del Rio Aragon en el termino llamado Cancualda que afrenta con el Rio de melida y camino Real que ban a la oliba”

**Zuton:** 1643an aurkitu dugu aurren eta atzen aldiz<sup>6461</sup>, **Çuton** itxuraz. Ez dakigu zer izan daitekeen.

**Melida:**

**Aldapea:** leku-izen hau **Aldape** da 1673an<sup>6462</sup>, eta **Aldapia** 1680an<sup>6463</sup>. Adieraz ikus Uxueko **Aldabea** eta **Aldaidarrea** sarrerak.

**Aria:** ibai ondoan egoki eta, harea proposa daiteke sorburutzat, egungo Nafarroako toki frankotan dugun **bidea** > **bídja**, **zokoa** > **zókwa**-ren ildotik<sup>6464</sup>:

“una pieza en aria que alinta a pieza de la yglessia y rios orillo el soto” (1652)<sup>6465</sup>

**Carazurio:** 1662an opatu dugu:

“otra cassa en caraçurio que alinta a...calle publica”<sup>6466</sup>

6454 TCO, 65. or.

6455 PRA-Kaparroso, 48. k.

6456 R. Ciérbide, TCO, 62. or..

6457 PRA-Kaparroso, 113. k.

6458 Id., 60. k.

6459 Id.

6460 Ikus Eslabako **Santuzabal** sarrera.

6461 PRA-Kaparroso, 40. k.

6462 Id., 78. k.

6463 Id., 82. k.

6464 [árja] ebakitzen da orain. Gehienetan **harea** beste zerbaitetaz lagundurik aurkitzen dugu: **Areatzea**, **Areatzeta**, **Areatsueta**, **Areatokia**...baina behin edo beste huts-hutsa ere azaltzen da (cf. legar asko dagoen Erasoko **Aréa**, **Arekoa** [arékwa] edo **Ariakua** [árjakúa] beste batzuetan).

6465 PRA-Kaparroso, 45. k.

6466 Id., 70. k.

Hasierako *cara-* hori alderdi honetan arrunta den *carra-*, *carrera-* 'bidea' izan liteke, baina etxea aipatzen dela kontuan edukirik, *casa-* dugula suposa ere daiteke, kasu honetan tarteko *-r-* hori irakurketa ustel bat besterik ez litzatekeelarik. *Çurio* antroponimo bat izan liteke, agian egungo *Jurío*-ren aitzindaria<sup>6467</sup>.

**Larraska:** hau 1652an aurkitu dugu<sup>6468</sup> **La Rasca** itxurapean:

"otra pieza en la rasca...que alinta a...rio de la rasca"

1771n berriz **Larasca** aldaera azaltzen da<sup>6469</sup>. Ricardo Ciérbidek **La Rasca** biltzen du 1799an<sup>6470</sup>, eta latineko *radere* 'raer', 'rascar'-en eratorritako hartzen:

"\***Rasicare**. Voz del latin vg. derivada de **RADERE** «raer, rascar». Uno de los derivados castellanos es *rasca*, que en Navarra tiene la acepción de «espátula de forma rectangular que se usa para desprender la masa de las paredes y del fondo de la artesa"

Gure iritziz adiera hau bitxi samarra da toponimian, eta badaiteke **harraska** izatea (**Larraska** [laɾáʃka] da orain), izen hau Oibar haranean (baina ez Uxuen) bizirik dagoenez gero<sup>6471</sup>.

**Libarria:** aurreko \***Iriberría** baten desitxuraketa izan liteke (cf. **Iribarren** > **Libarren** Galipentzun), baina etimologia hau onargaitz samarra da, dirudien bezala herriaren ondoan bazegoen:

"yppen otra pieza...en la puente Delibarria incluso el pedacillo de la carrera de los cerrados"(1659)<sup>6472</sup>

1662an ere **Libarria** daukagu<sup>6473</sup>, 1665ean **Ribaria**<sup>6474</sup> eta 1843an **Labaria**<sup>6475</sup>.

**Ordokia:** 'lautada', 'eremu zabala' da izen garden honen adiera (ikus Galipentzuko **Erbiñako ordokia** eta **Zareko Ordokia** sarrerak):

"sobre otra pieza...situada en ordoquia...que affrenta con...carrera de la oliva"  
(1601)<sup>6476</sup>

1843an **La Ordoquia** itxurapean aurkitzen dugu, artikulua eta guzti<sup>6477</sup>, eta egun ezezaguna da, Ricardo Ciérbidek dioenez<sup>6478</sup>.

**Ordokilanda:** honetan aurreko **Ordokia** bera dugu, eta **landa** 'landu gabeko lur puska', 'larratza' (ikus Santakarako **Mazkolanda**-n esan duguna). Honelakoetan ohizkoa den moduan, lehen osagaiaren bukaerako *-a* galdu egin da, artikulua izaki eta.

6467 Ikus Uxueko **Petringesala** sarrera.

6468 PRA-Kaparroso, 45. k.

6469 PRA-Kaseda, 23. k.

6470 TCO-II, 85. or.

6471 Guk Leatxen aditu dugu.

6472 PRA-Kaparroso, 68. k.

6473 Id., 70. k.

6474 Id., 73. k.

6475 Hipotekak, 172. zkia., 47. or.

6476 PRA-Kaparroso, 8. k.

6477 Hipotekak, 172. zkia., 46. org.

6478 TCO, 65. or.

**Rizabaletas:** hau **Riçavaletas** da 1630ean<sup>6479</sup>, **Reçabaletas** 1633an<sup>6480</sup>, **Ricabaletas** 1652an<sup>6481</sup>, **Rricabaletas** 1662an<sup>6482</sup>, **Las Cavaletas** 1667an<sup>6483</sup> eta **Las Zabaletas** 1769an<sup>6484</sup>. Bigarren osagaia **zabal** ezaguna dela garbi dago, eta bukaeran **-eta** atzizkia dugula ere bai, baina hasierako **Ri-** hori ez da oztoporik gabea. Baliteke **herri** izatea, zabalak sarri asko herrien aldamenean egoten baitira (Ageza, Eslaba eta Lergan, esaterako).

**Txikoraitza:** dokumentazioan **Chicorayça** (1538)<sup>6485</sup>, (1622)<sup>6486</sup> eta **Chicorajça** (1576)<sup>6487</sup> aurkitzen ditugu, eta toponimo garbia ez bada ere, bukaerako **-ayça** 'haitza' arrunta izan daitekeela irudi du.

**Txipalarrudia:** hiru aldaera ditu izen honek: **Chipalarrudia**, **Chipilarrudia** (1619)<sup>6488</sup> eta **Chipelarudia** (1634)<sup>6489</sup>. Etimologia iluna da guretzat, baina euskal itxura daukala ezin uka daiteke.

**Udaretza:** Ricardo Ciérbidek aurkitu du, 1538an, **Hudareceta** formaz<sup>6490</sup>. **Udare**-ren eratorri baten aurrean egon gaitzke, agian **udare** 'udareondoa'-z, **-tze** ugari-tasun-atzizkiaz (cf. Uxuen arrunta den **Artatzea**), eta **-eta**-z osatutako baten aurrean. Zarrakaztelun **Dudarecetas** dugu 1319an<sup>6491</sup>, baina ez dirudi bien arteko zerikusia soinu-eiteaz haratago doanik.

**Uzonda:** **Uconda** dugu 1630ean<sup>6492</sup>, **Uçonda** 1652an<sup>6493</sup> eta **Ozonda** 1843an<sup>6494</sup>. Gardena ez den arren, badaiteke bukaera **ondoa** posposizio arruntaren desituraketaren fruitu izatea (cf. Murilloko **Aldayonda**).

#### Arrada:

Herri honetako dokumentazio gutxi arakatu dugu, eta aurkitu dugun toponimo euskaldun bakarra **Tabacoiza** da:

"los ternos y montes de la dha villa de Rada...Reconocer la limpia...echa en las Balsas, de las ancas la de Tabacoiza y la de la estacada sitas en dho terno de Rada"<sup>6495</sup>

Hau antroponimo batetik atera ahal izan da, baina ez dugu horrela izan dela pentsatzeko arrazoi berezirik. **-Bacoiza** hori euskarazko **bakoitza** 'bakarra' dateke.

6479 PRA-Kaparroso, 51. k.

6480 Id., 53. k.

6481 Id., 45. k.

6482 Id., 70. k.

6483 Id., 75. k.

6484 Hipotekak, 172. zkia., 22. or.

6485 TCO, 76. or.

6486 PRA-Kaparroso, 48. k.

6487 Id., 3. k.

6488 Id., 47. k.

6489 Id., 53. k.

6490 TCO, 58. or.

6491 Munita, 140. or.

6492 PRA-Kaparroso, 51. k.

6493 Id., 45. k.

6494 Hipotekak, 172. zkia., 46. or.

6495 PRA-Kaparroso, 111. k., 1718.



**Kaparroso:**

Kaparrosoko dokumentazio gutxi erabili dugu, eta aurkitu ditugun toponimoen artean antz euskaldunik handiena duena **Usate** da. Hau antroponimo bat izan liteke, dugun lekukotasun bakarrean ikusten den bezala herrian bertan edo herri ondoan zegoelako, baina beste aldetik badirudi **-ate** euskarazko izen ezaguna dela:

“un corral que alinta a la casa de...y aze esquina a ellas y al porttal q llaman de Usate”(1714)<sup>6496</sup>

**Murillo el Fruto:**

**Aldaiondoa: La Aldayonda** da 1612 eta 1613an<sup>6497</sup>, **Aldayonda** 1618an<sup>6498</sup> eta **La Aldayolda** edo **La Alcayolda** 1661ean<sup>6499</sup>. **Aldaiondoa** aldakia ez dugu sekulan ediren, baina gure iritziz hau izan daiteke ditugun aldaera horien sorburua, egungo **Lalaionda** [lalaýonda] gain baten izena ere badelako.

**Andrenobia:** aldi bakar batez aurkitu dugu, 1615ean<sup>6500</sup>. Lehen osagaia toponimian arrunta den **andre** ‘emakume’ izena izan daiteke (cf. Uxueko **Andrebutzua**, **Andresoro**), eta bigarrena **nobla**, tarteko **-i-** hori gaizki irakurri dela eta **-l-** baten ordeztzako arrazoi berezirik, eta hortaz, bukaerako **-nobia** horrentzat beste etimologia bat proposatu beharko da. Agian **-n** aurreko zatiari itsatsi beharko genioke, eta **andre** genitiboan dagoela pentsatu. Kasu honetan bukaerako **-obi(a)** hori **harrobi** eta antzekoetan dugun **hobi** ‘zuloa’ litzateke.

**Andurkoa: Andurcua** itxurapean dokumentatu ohi den<sup>6501</sup> honen aurreneko elementua **iturri** eta **butzu** bezalako hidronimokin azaltzen den **andur** ‘zikoitza, zekena’-rekin identifika daiteke. Bukaerako **-kua** hori **-ko** atzizki txikigarria gehi artikulua izan liteke: cf. Ibergaiti-Getzeko **Pozo llamado Andurkoa**<sup>6502</sup> edo **Butzuandurkoa**<sup>6503</sup>.

**Arandui:** aldi bakar batez ageri da, 1281ean<sup>6504</sup>, eta **aran** ‘aranondo’ zuhaitzizenaz eta **-dui** atzizki multzokariatz osaturik dagoela dirudi. Atzizkiaren **-dui** aldaera bat dator ondoko Uxue herrian eta Oibar haran gehiengan azaltzen denarekin<sup>6505</sup>.

**Artecorregua:** izen hau **Artecorregua** da 1613an<sup>6506</sup>, **Articorregua** 1615ean<sup>6507</sup>, **Articorregua** 1774an<sup>6508</sup> eta **Alto de Regua** 1861ean<sup>6509</sup>. Azken hau herrietimologiaz sortutako aldaera da, baina garbi dago ondoan duen **Mendi-k** interpretazio hori bultzatzen eta bideratzen duela:

6496 Id., 109. k.

6497 Id., 19. k.

6498 Id., 26. k.

6499 Id., 69. k.

6500 Id., 20. k.

6501 1611n (PRA-Kaparroso, 19. k.) eta 1616an (id., 20. k.), adibidez.

6502 PRA-Elo, 3. k., 1659.

6503 Id., 2. k-bis, 1652.

6504 Ricardo Ciérbide, TCO-II, 101. or.

6505 Ikus gure DAON. Ikus, orobat, do.i-ren ondorengoei eskainitako atalean dioguna.

6506 PRA-Kaparroso, 19. k.

6507 Id., 26. k.

6508 PRA-Kaseda, 26. k.

6509 Murilloko hipotekak, 172. zkia., 115. or.

“una pieza...en el termino de Artticorregua teniente á...Mendi y la viña de la torre”(1774)

Honen oinarrian Leatxeko **Erregumaiorea**-n eta Morionesko **Loiaerregua**-n dugun **erregua** ‘erreka (handia)’ bera dukegu, hasierako elementua **arteko** ‘tarteko’ delarik (Cf. Galbarrako **Bengo erregua**<sup>6510</sup>). Alabaina, ez dugu alderdi honetatik ubiderik iragaten zelako frogarik bat ere.

**Astigarra**: behin bakarrik dokumentatu dugu, **estigarra** itxurapean<sup>6511</sup>. Jatorria **astigarra** zuhaitz-izena dela dudarik ez dago, gure alderdian **Aristuziaga** > **Astuziaga** > **Estuziaga**-ren moduko aldakuntza baitugu Uxuen, eta **Astalorra** > **Estalorra** Morionesen. Lehen herrian, gainera, euskaratikako **estigarrón** erabiltzen da oraindik<sup>6512</sup>.

**Barizizartas**: hau frankotan azaltzen da dokumentazioan: **Varizizartas** (1613)<sup>6513</sup>, **Barisciçartas** (1618)<sup>6514</sup>, **Puen de Baricicartas** (1624)<sup>6515</sup>, **Bariçartas** (1628)<sup>6516</sup>, **Barizarzas** (1771)<sup>6517</sup>, **Puente de Marizarza** orain. Forma guzti hauen azpian zer dagoen zehaztea zaila den arren, garbi ikusten da beste zerbaiten desitxuraketa dela, eta Murillon bertan azaltzen den **Barizibarretas**-ekin zerikusia duela.

Lehen osagaia **ibar** arrunta izan liteke, baina **baratze**-ren moduko bat ikusi nahiago dugu, toponimoa bere osatasunean aztertu ondoren. Gure irudiko **\*Baratzezarreta**-ren desitxuraketaren aitzinean egon gintezke oraingoan.

**Barizibarretas**: toki-izen honek hiru aldaki ezberdin aurkezten ditu: **Baricibarretas** (1619)<sup>6518</sup>, **Baricibaritas** (1645)<sup>6519</sup>, eta **Barizibarretas** (1649)<sup>6520</sup>. Hauen oinarrian gorago aipatu **-ibar** izena bide dugu bigarren osagaian, eta egia esan testuingurua ez da uste honen kontra mintzo:

“otra pieza en baricibaretas...afrentada a...camino de la cequia del pozo” (1645)

“otra pieza en barizibarretas que afrenta...al camino que ban al soto” (1649)

Nolanahi ere, honen oinarritzat aurreko izenari nolabait kontrajarrita legokeen **\*Baratzeberrieta**-ren moduko zerbait proposatu nahiago dugu (cf. Leatxeko **Berroberrieta** / **Berrozarreta**).

**Berango**: behin bakarrik dokumentatu dugu, 1860an<sup>6521</sup>, eta antroponimo batean oinarriturik egon daitekeela dirudi<sup>6522</sup>.

**Buztina**: izen honen bi aldaera aurkitu ditugu: **La Buztina** (1612)<sup>6523</sup> eta **La Agustina** (1673). Jatorria gardena da eta ez du inolako iruzkinen beharrik; 1673ko aldakia herri-etimologiari zor zaiola uste dugu.

6510 PRA-Artabia, 5. k., 1700.

6511 PRA-Kaseda, 26. k., 1774.

6512 Elon aurreko **\*Astigartze** batetik atera den **Astigartz** dugu (**Astigartzelaia** ere bai. PRA-Elo, 2. eta 4. karpetak, 1647 eta 1665); Irangoten **Astigar** azaltzen da (PRA-Oibar, 13. k., 1609), eta Arakil-Hiriberriin **Astigardia** (PRA-Arakil-Hiriberri, 2. k., 1596).

6513 PRA-Kaparroso, 19. k.

6514 Id., 23. k.

6515 Id.

6516 Id., 51. k.

6517 PRA-Kaseda, 23. k.

6518 PRA-Kaparroso, 26. k.

6519 Id., 41. k.

6520 Id., 44. k.

6521 Murilloko hipotekak, 172. zkia., 100. or.

6522 Ikus **-anga**, **-ango** / **-anco**-z Mitxelenak AV-eko 48. orrialdean dioena. Caro Barojak **Veranius** antropomotik atera dela dio, **\*Veranicu** baten bidez, antza. *Materiales*, 101. or.

6523 PRA-Kaparroso, 19. k.

**Elizalde:** behin bakarrik ediren dugu, **Lizalde** formapean, 1860an<sup>6524</sup>. Ricardo Ciérbidek **Elizalde** biltzen du<sup>6525</sup>, eta **eliza-z** eta **alde-z** osaturakotzat jotzen. Autore honek dioenez alderdi hau herritik hurbil dago, elizatik gertu samar. Guztiarekin ere, eta toponimo honen lekukotasun zaharrik ez dugunez gero, ezin da baztertu antroponimo batean oinarriturik dagoelako ustea.

**Galipienocuczaldo:** leku-izen honen bi aldaki aurkitu ditugu: **Galipienocruzaldo** eta **Galipiemcocuczaldo**, biak 1611n<sup>6526</sup>. Honen oinarrian, gure ustez, **Galipentzu**-ren erdarazko kidea dugu, eta zer den garbi ez dagoen **-coc(r)uzaldo**. Murilloko eta **Galipentzuko** udalerriak Aragoa ugaldeak bereizten dituela kontutan hartuta, \***Galipentzuko zaldu**-ren moduko zerbait proposa daiteke toponimo honen oinarritzat, gero herri-izenaren aldaera euskalduna erdaldunaz ordezkaturia izan delarik (cf. **Galipencu videa** 1592an, **Galipienço bidea** 1631n Agezan).

**Jubidea:** **Jubide** azaltzen da 1640an<sup>6527</sup>, **Jubidea** 1645ean<sup>6528</sup> eta 1654an<sup>6529</sup>, **Jubidia** eta **Jubiria** (cf. Erriberriko **Txibiria**) 1661ean<sup>6530</sup>. Toponimo honen oinarrian **Uxubidea** dugu, hots, 'Uxueko bidea', beste aldeko (Eslaba, Ageza, Galipentzu...) herrietan ez bezala hemen erromantzez arrunta den **-x- > -j-** burutu delarik, agian herri-izen ofizialaren (**Ujué**-ren) eraginez. Toponimo euskaldunen hasierako bokalaren aferesia ezaguna da, bereziki euskara galdu eta erdara nagusitzen denean (cf. **Usunbel(t)z** herri izena, **Sunbel** [šumbél] bilakatua inguruko herrietan).

**Jubide** edo **Jubidea** Uxueko bidea zela garbi dago:

"...y el termino se llama Jubidea camino de Santa agueda que afronta a...caminos de Uxue por Santagueda"(1654)

"un cerrado en los sequeros...en el termino de Jubidia...que afronta a camino Real que se ba a Uxue"(1661)

**La Arrega / Larrageta:** ikus Uxueko **Larrage** eta **Larrageta** sarreretan dioguna.

**Legazpia:** izen hau **Legazpia** da 1593an<sup>6531</sup> eta 1622an<sup>6532</sup>, **La gazpia** 1733an<sup>6533</sup>, **Gazpia** 1858an<sup>6534</sup>, **Lagazpia** [lagáspja] orain. Honen jatorria **legar** 'harea'-ren eratorria den **legartze** izan liteke (cf. Galipentzuko **Legaztui**), eta zer den ez dakigun **-pia** (< **-pea**?). Nolanahi ere, Mitxelena zalantzakotzat jotzen du etimologia hau, **le(i)a** oinarri arrunta ere badugulako (**Leaburu**, **Leyazkue / Leazkue...**)<sup>6535</sup>.

**Leskarbia:** hau **Leskarbia** da 1618an<sup>6536</sup>, **Las carbia** 1635ean<sup>6537</sup>, eta **La Escarbia** 1636an<sup>6538</sup>. Etimologia iluna da guretzat.

6524 Murilloko hipotekak, 103. org.

6525 TCO-II, 114. or.

6526 PRA-Kaparroso, 19. k.

6527 Id., 38. k.

6528 Id., 41. k.

6529 Id., 46. k.

6530 Id., 69. k.

6531 PRA-Oibar, 7. k.

6532 PRA-Kaparroso, 28. k.

6533 PRA-Kaseda, 25. k.

6534 Murilloko hipotekak, 87. org.

6535 AV, 121-122. orr.

6536 PRA-Kaparroso, 23. k.

6537 Id., 36. k.

6538 Id.

**Luzazu:** Lucaçu eta Luzazo aldaerak aurkitu ditugu, biak 1611n<sup>639</sup>. Ez daki-gu honen etimologia zein den, eta -zu bukaerak euskara aldera bultzatzen bagaitu ere, -azo (< -aceu) oso ezaguna da erromantzean (cf. **La Covaza**, **Ganazo**, **La Presaza Oli-baldean**)<sup>6540</sup>.

**Mendi:** Toponimo gardena da. Oraindik ere bizirik dago (ikus **Arteko erregua**).

**Mendilatza:** Ricardo Ciérbidek **La Mendilaza** eta **Mendilaça** dokumentatu du<sup>6541</sup> 1531n eta 1611n, eta guk **Mendilaza** aurkitu dugu 1528an<sup>6542</sup> eta 1614an<sup>6543</sup>, eta **La Mendilaça** 1614an<sup>6544</sup>:

“...que compraria en la mendilaça de la dca villa que es vedado dos mil pinos...”

Irakasle Tafallarrak **mendi** eta **latza** proposatzen ditu toponimo honen osa-gaitzat, eta guk ere ez dugu deus uste honen kontra. Halarik ere, aitortu beharra dago izenondo hori toponimian arrunta ez dela (cf., alabaina, Ezporogiko **Larreleuna**).

**Mungalate:** 1860an ediren dugu lehen eta azken aldiz, berandu samar beraz<sup>6545</sup>. Bukaerako -ate ‘harratea’, ‘ateka’ dela dirudi.

**Oillaizatara:** Ricardo Ciérbidek aurkitu du izen hau, 1311n<sup>6546</sup>, **Oillaizatara** itxuraz. Lekuko bakarrean oinarriturik etimologia egitea zaila da eta arrisksua, eta ohar batzuk egitera mugatuko gara. Hasierako **Oillai-** oso nahasgarria da, eta ollo-dun toponimoekin lot baliteke ere, tartean irakurketa-okor bat egon daitekeela uste dugu, eta -i- hori -r-ren baten orde ez egon daitekeela. Kasu honetan **Zarrakazteluko Ollarzaldua**-n dugun **ollar-** bera genuke lehen osagaien (ikus sarrera hau), eta zer den ez dakigun -**çatara** bigarrenean. Azken honen azpian -**çahara** ‘zaharra’ dagoela kontu egin liteke (cf. **Zarrakazteluko Calduca farra**), baina toponimo batean bi irakurketa-huts daudela supo-zaitea soberaxko iruditzen zaigu.

**Opermendia:** Ricardo Ciérbidek **Balsa de la Operuendia** bildu du 1566an<sup>6547</sup>, eta guk **Balsa de la Primienda** aurkitu dugu 1616an<sup>6548</sup>, **Balssa de la Primiendia** 1618an<sup>6549</sup> eta 1654an<sup>6550</sup>, eta **Monte y Balsa de lapremendia** 1670ean<sup>6551</sup>. Gure ustez Ciérbidek biltzen duen forma ez dago erabat ongi irakurria, eta horren orde ez, beranduagoko aipatu lekukoak aintzat harturik, **Opermendia** irakurri beharko da. Izan ere, eta hasierako **Oper-** hori zer den ez dakigunagatik, garbi dago bukaeran -**mendi** dugula (cf. **Uxueko Opelamendi**):

“una biña sita en el termino sequero desta villa llamado la balssa de la primendia Junto a la mendilaca”(1654)

“una viña...en el que llaman el monte y balsa de lapremendia”(1670)

6539 Id., 19. k.

6540 TCO-II, 148. or.

6541 TCO, 60. or.

6542 PRA-Erriberri, 1. k.

6543 PRA-Kaparroso, 20. k.

6544 Id., 20. k.

6545 Murilloko hipotekak, 106. or.

6546 TCO-II, 99. or.

6547 Id., 69. or.

6548 PRA-Kaparroso, 20. k.

6549 Id., 23. k.

6550 Id., 46. k.

6551 Id., 77. k.

**Peruzuria:** toponimo hau **Pençuria** da 1629an<sup>6552</sup>, **Pedrocuria** eta **Pedrocuria** 1659an<sup>6553</sup>, **Peluzeria(s)** egun. Antza duenez, antroponimo batean oinarriturik dago, gorago ikusi **Carazurio** bezala (ikus sarrera hau. Ikus, berebat, Zareko **Pedrotxiki**).

**Satia:** 1607an<sup>6554</sup> eta 1892an<sup>6555</sup> azaltzen da. Itxuren arabera, Uxueko **Esatea**-rekin (**Satea** bihurtua nahikoa goizetik) erlazionatu beharra dago (ikus sarrera hau), eta ez, Ciérbidek proposatzen duenaren aurka<sup>6556</sup>, **zattia** 'puska'-rekin, honelakorik euskal toponimian nekez aurkituko baitugu.

**Uarte:** leku-izen hau **Guarte** da 1611n<sup>6557</sup> eta 1614an<sup>6558</sup>, eta **Huarte** 1617an<sup>6559</sup>, 1798an<sup>6560</sup> eta 1892an<sup>6561</sup>. Osagai gardenak **ur**-en bokal aurreko aldaera den **u**-eta **arte** 'bitarte' dira (ikus Lergako **Ubitarte** sarreran dioguna. Cf. Pitillasko **Uartetxipia**):

"una viña situada en el termino de Guarte...que afrenta...con açequia de rregadio de la dca villa"(1611)

**Urtanda:** Ricardo Ciérbidek honela hitzegiten du oraindik bizirik dagoen Uxueko muga aldeko toki-izen honetaz:

"Terreno llano, de secano, situado bajo *El Alto de Sta. Agueda*. Podría ser el vasco Urdanda «cerda», «ramera», citado por MICHELENA?"<sup>6562</sup>

Gure irudiz toponimo hau **Urte**-rekin lotu beharra dago, Ciérbidek esan bezala alderdi hau sekeroa den arren (cf., halaz ere, 1613ko **Barranco de Urtanda**<sup>6563</sup>). \***Aldaiondo** **Aldaionda** bilakatu datekeen moduan, jatorrizko \***Urtondo** batek aztergai dugun hau eman duke. Osagaiak, beraz, hemendik ez urrun Uxueko **Urteaga**-n aurkitzen dugun **Urte**- eta **ondo**a posposizio arrunta dirateke. **Urte ur**-ekin dago loturik Mitxele-naren arabera (ikus Uxueko **Urteaga** sarrera, **-aga** atzizkiari eskaini atalean).

#### Zarrakaztelu:

**Andrenitalarraña:** aldi bakar batez azaltzen da, 1319an, **Andrenita la Rayna** formapean:

"...de aqui a la carrera que van a Dudarecctas, e de alli por la carrera que viene de Encisa a Oliva ata el Pueyo Blanco de Andrenita la Rayna, e de alli ata el muruyño<sup>6564</sup> que esta sobre el corral de Lope Sanz..."<sup>6565</sup>

6552 Id., 32. k.

6553 Id., 68. k.

6554 Id., 3. k.

6555 Kat.

6556 TCO-II, 142. or.

6557 PRA-Kaparroso, 19. k.

6558 Id., 20. k.

6559 Id., 26. k.

6560 PRA-Kaseda, 36. k.

6561 Kat.

6562 TCO-II, 142. or.

6563 PRA-Kaparroso, 19. k.

6564 Erreparatu hitz honi. Ohartu, orobat, **Larrateburu sarretako moruyño**-ri.

6565 Munita, 140. or.

Etimologiari dagokionez, badirudi hasieran **andre-** izen arrunta dugula (cf. Uxueko **Andrebutzu**, **Andresoro**), baina **-nita-** zer den ez dakigu. Guztiarekin ere, **Andre-Bita** emakume-izenaren usteltze arintzat ere har daiteke<sup>6566</sup>. **La Rayna**, beste aldetik, **larraña** arrunta izan daiteke, hots, 'uzta eultzitzen den leku laua, lurra irmoa eta askotan lauzatua duena'<sup>6567</sup>.

**Aperregi**, **sarda de**: honetan **Aper** pertsona izena dugu Mitxelaren arabera<sup>6568</sup>, eta oraingoan 'tegi', 'toki' adiera dukeen **-egi**. Guztiarekin, toponimo hau ez da, dakigula, dokumentazioan azaltzen, eta Ricardo Ciérbidek egungo egunekorizat jotzen du, lehenagoko lekukotasunik aipatzen ez duelarik<sup>6569</sup>. Hau dela eta, sorburua deitura batean izan dezakeela uste dugu (cf., beste aldetik, **Lergako Akerregi**).

**Arzizuloa**: aurrekoa bezala aldi bakar batez ageri da zaldu baten izena den hau, 1269an<sup>6570</sup>, **Arçiuloa** itxuraz. Bigarren osagaia **zuloa** da, Ricardo Ciérbidek dioenez, baina ez dugu uste hasierako **Arçi-** hori **hartz** animalia-izena denik, bukaerako bokala azaldu gabe gelditzeaz gainera **hartzak** toponimian sobera azaltzen ez direlako, otso, **azeri**, **azkon**, **orein**...eta beste ugariak diren arren<sup>6571</sup>.

Beharbada **hartz** 'harridi' ikusi behar genuke elementu horretan, baina bukaerako **-i** horrek ez dio sobera laguntzen interpretazio honi.

**Dudarectas**: etimologia ilunekoa da guretzat, eta jatorri euskalduna duen ez dakigu.

**Galzarras**, **las**: lehen eta hondar aldiz 1802an ediren dugu<sup>6572</sup>. Lana ibarreko Narkue herrian **Galzarra**<sup>6573</sup> eta honen eratorriak diren **Galzargaina**<sup>6574</sup> eta **Galzarrondo**<sup>6575</sup> azaltzen dira dokumentazioan, behin bakarrik ediren dugun **Galarza**-ren aldameanean<sup>6576</sup>.

**Larrate**: Alfonso Irigoienek Burgosko Mena ibarreko **Larrate** toponimoa aztertzean<sup>6577</sup> honela dio:

«"Larrate, llosa y térm. del Valle de Mena, 1863", seguramente de **larre**, vizc. **larra**, 'pastizal', 'dehesa', + **ate**, 'puerta' paso', a no ser que proceda de **Larrarte** por disimilación progresiva de **-rr-**, en cuyo caso el segundo elemento sería **arte** 'espacio intermedio'»

Zarrazkatzeluko toponimoan, ordea, **lahar** landare-izena ikusi nahiago dugu, bestela toponimo honen lehen lekukotasunetan seguru aski \***Larreate** izanen baikenuke (cf. Uxueko **Echeandietta** 1778an / **Etchandietta** 1803an). 1319an **Vedado de Larrat** dokumentatzen da<sup>6578</sup>, eta egun **Larrate** [laṙáte] esaten da.

6566 Alfonso Irigoienek aipatzen du izen hau, argitara gabeko *Exoanthroponymia gogoan izanik Elbuayar-koek bidali duten pertsona-izenen zerrendaz ene proposamena* laneko lehen orrialdean.

6567 I. Sarasola, HLEH.

6568 AV, 50. or.

6569 TCO, 63. or.

6570 Ricardo Ciérbide, TCO-II, 55. or.

6571 Ikus Mitxelena dioena, AV, 59. orrialdean.

6572 Hipotekak, 172. zkia., 27. or.

6573 PRA-Lana, 4. k., 1687.

6574 Id., 6. k., 1692.

6575 Id.

6576 Id., 3. k., 1685. **Galartza** seguruenara.

6577 ETTVC, 78. or.

6578 Munita, 138. or.

**Larrateburua:** 1319ko agirian **Arrateburua** aurkitzen dugu, baina honen alboan arestian aipatu **Vedado de Larrat** daukagu, eta 1-dun aldaera agertzen da ia beti dokumentazioan (**LaRat** 1607an<sup>6579</sup>, **Larrate** 1612an<sup>6580</sup>):

“...e de alli al moruyno que esta sobre la val de Sancho Carquet enta la villa, e de alli como los mojones estan asentados a la carrera de Arrateburua, e de alli ata el canto de las fuentes...”(1319)<sup>6581</sup>

**Mugarria:** **Mugaria** dugu 1614an<sup>6582</sup> eta **Mugarria** 1633an<sup>6583</sup>, 1807an<sup>6584</sup> eta egun. Dударik ez da ‘zedarria’ adiera duela.

**Muruzabal:** 1840an aurkitu dugu lehenengoz<sup>6585</sup>, eta beraz, antroponimo batean oinarritura dagoela pentsatzeko nahikoa arrazoi bada. Ricardo Ciérbidek, ordea, ez du posibilitate hau aipatzen, eta **mur** ‘gaina’ izenez eta **zabal** izenondoaz osatutakotzat hartzen du<sup>6586</sup>.

**Ollarzaldua:** irakasle tafallarrak dokumentatu du, **Oylarçaldua** (1269) eta **Oyllarçaldua** (1319) itxurez:

“...e el soto al monasterio de Santa Maria de Oliva en salvo con fruytos e con yerbas, e de alli por la carrera que van Oyllarçaldua al canto primero de la vinna del sagristan...”<sup>6587</sup>

Honela mintzo da autore hau toki-izenaren lehen osagaiaz:

“El primer elemento OYLLAR- parece corresponder a la raiz OLLAR «gallo», pues en un documento navarro de 1308 aparece el topónimo *Oyllar buru*, cuyo primer elemento MICHELENA identifica con OLLAR. En cuanto a YL e YLL no parecen ser otra cosa que las grafías navarras medievales de /j/”<sup>6588</sup>

Hasierako **Ollar** hori hegazti-izena izan daitekeela egia da, baina oihan arruntaren elkartetako oihar-en **ollar-** aldaera ere izan liteke (ikus Morionesko **Ollar-mendia** sarreran dioguna).

**Otxomil:** agiritan aurkitu duguna **Ochomil** da<sup>6589</sup>, agian otso-ren eratorri baten aitzinean gaudeke hemen.

**Relengua:** 1620an dokumentatu dugu<sup>6590</sup>:

“un corral...en los montes comunes...en la endreçera llamada Relengua q afrenta con...mugas de la encisa”

Etimologia iluneko da guretzat.

6579 PRA-Kaparroso, 5. k.

6580 Id., 19. k.

6581 Munita, 140. or.

6582 PRA-Kaparroso, 20. k.

6583 Id., 53. k.

6584 PRA-Kaseda, 40. k.

6585 Id., 55. k.

6586 TCO, 60-61.

6587 Munita, 141. or.

6588 TCO-II, 100. or.

6589 PRA-Kaparroso, 53. k.

6590 Id., 49. k.

**Sadabalanda:** behin bakarrik ediren dugu, 1634an<sup>6591</sup>:

“yten otra p<sup>a</sup> camino de sadabalanda q affrenta con el camino de sadaba”

Ikusten denez, Aragoako **Sadaba** herri-izena dugu hemen, eta ‘landu gabeko eremua, larratza’ adiera duen **landa** arrunta. Dena den, ez da segurua toponimoa **Sadabalanda** den, honela ere interpreta daitekeelako:

“yten otra p<sup>a</sup> camino de sadaba landa q affrenta con el camino de sadaba”

alegia, “otra pieza landa camino de Sadaba...”.

**Suduzandia:** bukaeran **handia** izenondoa dugula irudi du, baina hasierako elementua iluna da guretzat:

“Este es vedado de la ley<sup>na</sup> de la villa de Cascastiello, empecando en el canto de plan mayor de Carcastillo en dryt del corral de Meteri, e de alli al canto de Suduzandia aguas vertientes enta el rio de Encisa”(1319)<sup>6592</sup>

**Txindilamendia:** Ricardo Ciérbidek dokumentatu du, 1538an<sup>6593</sup>:

“...entre el puy de ladrones y puy de chindilamendia”

Ikusten denez, erromantzeko **puy** eta euskarazko **-mendia** elkarren ordain dira; hasierako **Chindila**- hori ‘dilista’ dela dirudi<sup>6594</sup>.

Egungo egunean **Txirimendia** izeneko mendikoa dugu Bardeako muga<sup>6595</sup>, eta badaiteke aztergai dugun **Txindilamendia**-ren desitxuraketa besterik ez izatea.

**Txirimendia:** ikus aurreko sarrera.

**Zalduzaharra:** Ricardo Ciérbidek dokumentatu du toponimo interesgarri hau, 1269an<sup>6596</sup>:

“...a villa q'dicitur Carcastiello [...] videlz Calduca farra, arçiculoa, Oylarçaldua et omnia alia loca...”

Autore honen arabera **zald**u izena eta **zaharra** izenondoa ditugu hemen. Bigarren osagaiaz honela dio:

“Pienso que el segundo elemento CAFARRA debe ser el vasco ZA(H)AR «viejo» en el que la -H- debió tener alguna aspiración, sintiéndose en romance como procedente de F-latina; de ahí que dicha particula aparezca separada indebidamente CA FARRA”<sup>6597</sup>

6591 Id., 53. k.

6592 Munita, 141. or.

6593 TCO, 59. or.

6594 Cf., adibidez, Jimeno Jurfok biltzen dituen Arlegiko **Chindila**, **Chindila arçeco bidea**, **Chindilaçeco erreca** (TCPCG, 44. or.) eta zendea bereko Ezkirozko **Chindilaçeta** (Id., 213. or.). Gure alderdian **Txindilatzea** dugu Morionesen.

6595 TCO, 60. or.

6596 TCO-II, 100. or.

6597 Id. Euskarazko hasperenketa f-ren bitartez ematea bat letorke Erdi Aroko Baiona eta Atturri aldeko gaskoien usadioekin (Ikus FHV, 205. or.). Edozein moduz, aztergai dugun toponimo hau XIII. mendean dokumentatzen da, eta Mitxelenaren arabera Nafarroa gehienez hasperenketa XI. menderako desagertua zen:

“Es altamente probable que la pérdida comenzara por la Alta Navarra, en contacto con el romance aragonés que no tenía *h*, y en la mayor parte de esa región era ya un hecho consumado en el siglo XI”(FHV, 206. or.).



**Zandubilla:** 1319an **Çanduvilla** dugu, eta 1708an **Zandubil**, eta beraz bukaerako -a hori artikulutzat jo daiteke:

“...las quales filas son a saber: la fila deçaga Sant Esteban, item la fila de los huertos, item la fila de Çanduvilla, item la fila de puent de don Martin...”<sup>6598</sup>

“otra pieza...en el terno de Zorzabala regadio que alinta a...camino de las correas y fila de Zandubil”<sup>6599</sup>.

**Bigarren osagaia -bil(a)** ‘biribil(a)’ dela dirudi, eta lehena Zarrakaztelun bitan bederen agertzen den **zald**u arruntaren itxuratxartze arina edo alboko disimilazioz sorturikako forma.

**-Bil(a)**, halaz ere, erromantzeko **fila** ‘azekia edo ugaldetik ureztatu behar den lurtsaileraino ura daraman erretentxoia’<sup>6600</sup>-ren euskalduntzearen ondorioa ere izan liteke, aipatu bi lekukotasunetan ikusten den bezala **Zandubil(a)**-ren ondoan beti **fila** azaltzen denez gero. Fonetikoki ere ez legoke arazorik, f > b aldakuntza jatorra izaki (cf. **ferme** > **berme**; **fortis** > **bortitz**; **fago** > **bago**...).

**Zorzabala:** hau **Çorcabala** da 1604an<sup>6601</sup>, **Corçabala** 1612an<sup>6602</sup>, **Çorcama** 1634an<sup>6603</sup>, **Sorcabala** 1653an<sup>6604</sup> eta **Zarabala** 1771n<sup>6605</sup>. Bigarren osagaia gardena da, baina ez hasierako **Zor-** hori (< soro?). Dorraon honen antz handia duen **Zarabala** dugu 1696az geroztik<sup>6606</sup>.

#### **Kaseda:**

Herri honetako dokumentazioaren araketa sakona egin dugu, baina euskal itxura duen toponimo bakarra antroponimo batean (izengoiti batean edo) oinarritua dagokeen 1763ko **Valsa de Zaburria**<sup>6607</sup> da. Honek garbi adierazten du **Kasedaren** erdalduntzea oso goiz eta oso sakonki burutu zela.

#### **Oibar:**

**Oibar** herriko toponimia ere oso erdaldundua dago gaurregun, eta egoera bera zen duela lauhun urte, eta hortaz, euskararen galera hemen ere oso goiztiarra izan zela esan daiteke. Guztiarekin, toki-izen euskaldun bat baino gehiago aurkitzen dugu herri honetan, segituan ikusiko dugun moduan:

**Artamendia:** **Artamendia** agertzen da 1570ean<sup>6608</sup>, **Arttamendia** 1731n<sup>6609</sup>, eta **Latermendia** [latērmendía] dugu egun. Honek **El Monte** deritzan beste alderdi zabalago baten zati bat izendatzen du, eta ez dago **dudarik arte** zuhaitz-izenaren elkar-etako aldaera den **arta-**z eta **mendia-**z osaturik dagoela.

6598 Munita, 137. or.

6599 PRA-Kaseda, 13. k.

6600 Iribarren, VN; Ricardo Ciérbidek aipatzen du, TCO-ko 75. orrialdean.

6601 PRA-Kaparroso, 5. k.

6602 Id., 48. k.

6603 Id., 53. k.

6604 Id., 46. k.

6605 PRA-Kaseda, 23. k.

6606 NTEM-VIII, 45. or.

6607 PRA-Oibar, 67. k.

6608 Id., 2. k.

6609 Id., 42. k.

**Bizkaia:** La Bizcaia dugu 1570ean<sup>6610</sup>, eta egungo egunean ere La Bizcaia [βiθkáya] erabiltzen da Oibarren, udalerrriaren goiko aldeko eremu menditsua aditzera emateko. Oibar haraneko Bizkaia eta Leaxeko antzinako Bizkaia-tik bereizi behar da, alderdi ezberdinak adierazten dituztenez gero. Egia da, ordea, hiruak elkarren segidan daudela, tartean beste dermio batzuk egonagatik.

**Castildollate:** aldi bakar batez dokumentatu dugu Oibarren, 1715ean<sup>6611</sup>, eta herri honetako leku-izena den ez da zeharo segurua. Erromantzeko Castillo de daukagu batetik, proklisian egoteagatik izenaren azken bokala galdu delarik (cf. Galipentzuko Valescura / Valdescura), eta Ollate bestetik. Azken honetan Ollo ezaguna dugu (cf. Ollo, Ollokiegi, Ollobarren...<sup>6612</sup>. Ikus Lergako Oletabidea-n dioguna) eta ate 'ateka'.

**Gabaran:** egungo San Gabran [gabrán] Bizkaia-n dago, Leaxeko mugan. Etimologiaz ikus azken herri honetako izen bereko sarreran dioguna.

**Iparra:** aldi bakar batez aurkitu dugu, modu argian hala ere:

"la otra pieça en la endreçera llamada yparaguerria terº de la villa de aybar" (1608)<sup>6613</sup>

Izen garden honen adiera 'oihezkoa, 'elutsa' da, orain baino lehen esan dugun moldean (ikus, adibidez, Morionesen dioguna).

**Iturri:** Yturri dugu 1703<sup>6614</sup> eta 1705ean<sup>6615</sup>, eta Auturri 1804an<sup>6616</sup>. Honen oinarrian iturri arrunta dugula uste dugu, baina XVIII. mendean agertzen denez gero, badaiteke antroponimo batetik (Iturri deituratik, alegia) atera izana.

**Jamenduriz:** Jamenduriz daukagu honen lehen lekukotasunean, 1715ean<sup>6617</sup>, bai eta geroko dokumentazioan ere. Egungo Jaminduriz [xàmiñdúriθ] itxuraldatuxea herriko auzo baten izena da, eta toponimoaren jatorria guretzat argia ez bada ere, -iz bukaerak patronimiko baten aitzinean ez ote gauden susmarazten digu (ikus -as / -az, -ez / -es, -iz, -os / -oz, -us / -uz atzizkiei eskaini atalean dioguna).

**Kaskallua:** jakina den bezala, erdarazko Cascajo-ren baliakidea da euskarazko izen hau:

"una viña...endreçera llamada cascallua"(1615)<sup>6618</sup>

Latineko \*quassicare-ren eratorri batetik atera da, eta euskarara erromantzeko Cascallo-ren bidez iritsi da (cf. puntallo > puntallu). Oibarko toponimoaren kasuan El Cascallo eta Los Cascallos ere dokumentatzen ditugu, 1570ean<sup>6619</sup>, eta hauek azaltzeko euskarazko formen eragina har baliteke ere aintzat, garbi dago gure eskualdeko erdaraz -ll- > -j- aldakuntza burutu dela, erabat (cf, herri guztietako egungo cascajo izena), edo neurri batez (cf. modrollo, El Modrollar Uxuen / El Modrojar Galipentzun; coscojo, El Coscojar, baina coscollica Galipentzun...).

**Liburko:** 1721ean aurkitu dugu aurren eta hondar aldiz<sup>6620</sup>:

6610 Id., 2. k-bis.

6611 Id., 34. k.

6612 Ikus AV, 136. or.

6613 PRA-Oibar, 13. k.

6614 Id., 30. k.

6615 Id., 30. k-bis

6616 Id., 89. k.

6617 Id., 34. k.

6618 Id., 18. k.

6619 Id., 2. k-bis.

6620 Id., 37. k.

“otra pieza en el terno de Liburco que el dia de oy lo llaman el rio de las valles sobre la tejeria”

Ez dakigu zein izan daitekeen izen honen etimologia. Oibarrekin pixka bat mugatzen duen Izko herrian Linbur toponimoa azaltzen da 1648an<sup>6621</sup>, eta baliteke bien artean zerikusirik izatea, hau oso dudazkoa iruditzen bazaigu ere:

“otra pieza Camino de Limbur...afrentada del camino Real”

**Lorte, río:** 1586an agertzen da, **Rio de Lort** itxurapean<sup>6622</sup>, eta egun **Río Lorte** [lóɾte] esaten zaio. Etimologia iluna da guretzat; **lurte**, **lurta** ‘lurjauzi’-rekin lot liteke, baina -u-dun aldaerarik ez dugu, eta erreka izatea ez da honen alde mintzo.

**Luzia, la:** 1610ean ediren dugu estraineko aldiz, **la Lucia** itxurapean, eta egun ere bizirik bide dago ([lalúθja] ebakitzen da) gure informatzaileek horren berri ematen jakin ez badute ere<sup>6623</sup>. Sorburua zein den ez dakigu, baina baliteke \***La Pieza luzea**-ren moduko sintagma baten laburketa izatea (cf. **La Pieza makurra** Ezporogin, **Alormakurra** Morionesen). Hau, dena den, oso zalantzazkoa da.

**Mendixuri:** egungo **Mendixuri** [mèndičúri] **Mendichuri** (1570)<sup>6624</sup>, **Mendi xuri** (1591)<sup>6625</sup> eta **Mendisuri** (1683)<sup>6626</sup> da dokumentazioan. Osagai gardenak mendi izena eta zuri izenondoaren elkartuaren bigarren osagaiko -**txuri** aldaera dira. Grafien eta besteren inguruan ikus **Grafia kontuak** atalean eta **Leatxeko Mendixuri** sarreran dioguna.

**Oibar:** ikus **Leatxeko Oibarbidea** sarreran dioguna.

**Pozoz:** 1595ean azaltzen da aurrenekoz<sup>6627</sup> egun **Pozoz** [poθóθ] ebakitzen den hau. Oinarria **pozo** ‘putzu’ dela dirudi, baina bertan ez dago errekarik (“barranko”-rik, alegia), eta guk dakigula putzurik ere ez. Bukaerarako asimilazio batez pentsa daiteke, hots, jatorrizko \***Pozos** batetik **Pozoz** atera dela, baina lehen aldaera hori ez edireteaz landara, harrigarria litzateke sekulan **Los Pozos** ez dokumentatua.

Oibarren bertan **El Fornaz** (**El Hornaz** orain?) eta **El Molinaz** ditugu, eta **Kasedan El Coronazo**<sup>6628</sup>, **El Planaz**<sup>6629</sup>...eta beste, alegia, latineko -ace eta -aceu atzizkien ondorengoak, eta baliteke hemen ere atzizki horietako baten aitzinean egotea (**El Fornaz** dugu hala ere, ez \***El Fornoz**). Artikulurik ez azaltzea ere etimologia honen kontra mintzo da. Cf., dena den, Santakarako 1577ko **Alboros**<sup>6630</sup>, Kasedako 1682ko **La Alborosa**<sup>6631</sup> (Eslaban **La Lecinosa** = **Artadua** dugu, Kasedan **Romerosso** 1763an<sup>6632</sup>).

**Soreta:** egun **Soreta** [sóréta] ebakitzen dena **Soreta** zen 1570ean<sup>6633</sup>, eta hortaz, azken laurehun urte honetan izenak aldaketarik izan ez duela esan daiteke. **Soro** ‘alorra-z’ eta -eta-z osaturik dagoela dirudi (cf. **Agezako Erresoreta**).

6621 Id., 25. k.

6622 Id., 3. k.-bis.

6623 Itxuraz zalantzakotzat jo beharko dugu toponimo hau, Kasedan ere agertzen baita: “una viña en el agunazo llamado la Luzia”, PRA-Kaseda, 4. k., 1688. Bi herrietan azal zitekeen, baina esan bezala kontua ez dago bat ere garbi.

6624 PRA-Oibar, 2. k.-bis

6625 Id., 5. k.

6626 PRA-Kaseda, 2. k.

6627 PRA-Oibar, 15. k.

6628 PRA-Kaseda, 12. k., 1606.

6629 Id., 1. k., 1681.

6630 PRA-Kaparroso, 3. k.

6631 PRA-Kaseda, 1. k.

6632 PRA-Oibar, 62. k.

6633 Id., 2. k.-bis.

**Txaparrandia:** Nardozerekiko muga-berrikusketa agiri batean aurkitu dugu, **Paco fondo**-ren adierakide moduan, eta itxura guztien arabera herri horretakotzat jo behar da:

“...en una esquina llamada chaparrandia o paco fondo se hallo otro mojon” (1798)<sup>6634</sup>

**Valcimarra:** orain **Vuelta (de) Macimarra** [màθimãra] bilakatu dena **Galci-marra** da 1655ean<sup>6635</sup>, **Buelta de Balzimarra** 1705ean<sup>6636</sup> eta **Buelta de Bacimarra** 1814an<sup>6637</sup>, azken hau seguru aski albokari disimilazioz sortua delarik.

Hasierako elementua val ‘haran’ arrunta izan daiteke (cf. **Valcervera, Valdemurillo, Valespesa...**Oibarren bertan), bertan erreka badelako, eta haranko txiki bat ere bai. Honen arabera lehen lekukotasuneko **Gal-** hori ezpainkari-disimilazioz jaiotako forma litzateke. Cf., hala ere, Iruñeko **Garcia Marra** toponimoa. **Marra** “cognomen” gisa dokumentatzen da Zarikiegin, eta Mitxelenaren iritziz **Barra** okzitanoaren (*Don Martín de la Barra*) izan liteke<sup>6638</sup>.

**Valladana:** egungo **Valladana** [bà]adána] **Balladana** da 1570ean<sup>6639</sup>, eta **La Balladana** 1652an<sup>6640</sup>, artikulua eta guzti. Hasierako **Vall-** hori harana dela begi-bistako kontua da, **Valladana** harana baita. Bukerako **-adana** euskarazko **harana** izan liteke, **-r- / -d-** txandakatzea oso ezaguna izaki gure hizkuntzan<sup>6641</sup>.

**Zoko:** XVIII. mendean azaltzen da, eta ez dakigu euskarazko **zoko** hitz arruntarekin lotu behar den edo eskualde honetan ezaguna den erdarazko **zoco** ‘(esertze-ko edo haragia zatitu eta txikitze-ko erabili ohi den) enbor puska’-rekin<sup>6642</sup>:

“otra pieza en el terno de la Vizcaya, y paraje llamado la fuente del Zoco con el monte de esta villa”(1783)<sup>6643</sup>

#### Lede:

Esan moduan, herri honetako agiri gutxi batzuk baizik ez ditugu erabili, eta ezin dugu esan zenbat toponimo euskaldun agertzen diren, edo toponimo euskaldunen eta erromantzeen proportzioa zein den, ikusi dugunean oinarrituz leku-izen gehienak erdaldunak direla egingo bagenuke ere. Zernahi gisaz, toponimo euskaldun odol garbiko bat badugu (**Huarte** edo **Ugarte**), euskalduna izan daitekeen beste bat (**Laeçeta** edo **Laezeta**), eta guretako ilun dagoen hirugarren bat (**Aspra**).

6634 Id., 84. k.

6635 Id., 27. k.

6636 Id., 30. k-bis.

6637 Id., 92. k.

6638 PT, 135. or.

6639 PRA-Oibar, 2. k-bis.

6640 Id., 26. k.

6641 Txandakatzeko honen arrazoa fisikoa da, Pello Salabururen arabera: “Ikusten ahal denez, frikapenaren aldeko joera bokalen arteko segmentuetan ematen da batipat. Bokalen arteko kontsonantea ahostuna baldin bada, igurzpena errazago lortuko dugu. Jakina, fenomeno honen azalpena fisikoa da: bokalak ditugu ahostun garbienak. Era berean, bokalak ahozkatzerakoan ez dugu hersketarik jartzen airearen pasan eta arteko kontsonantea libreago geratzen da. Hortik ahostun bihurtzera -ahoskabe bada- eta hersketa laxo bat egitera urrats bat baizik ez dago. Arrazoi beragatik ez da fenomeno hau kontsonante ondotik ematen eta baita arrazoi beragatik ere, /d/ eta /r/ nahasi egiten dira batzutan”, *Hizkuntz teoria...*, 2. alea, 137. or.

6642 Ikus VN, eta Reta Janárizen EHZE. Uxuen ere erabiltzen da.

6643 PRA-Oibar, 73. k.

1779an **Huarte** edo **Presa de Huarte** agertzen da<sup>6644</sup>, eta 1634an **Ugarte**<sup>6645</sup>:

“otra pieza sobre la pressa de Ugarte”

Ez dago dudarik izen hau Ledeko bereko **Entramas aguas**-en ordain euskalduna dela, seguraski Aragoa eta Irati batzen diren alderdia (ikus Lergako **Ubitarte** eta Galipentzuko **Inbilos** sarreretan dioguna).

**Laeçeta**: 1634an **Laeçeta** dugu<sup>6646</sup>, eta 1704an<sup>6647</sup> **Laezeta**. Lehen lekukotasun horretan erreka (“barranco”) baten izena dela ikusten dugu, eta honek bide ematen du oinarrian \***Liatzeta** ezaguna (Galipentzun agertzen da gure alderdian, eta beste leku anitzetan hemendik kanpo) izan dezakegula suposatzeke, lihatzeak sarri erreka bazterretan egoki.

**Aspra**: esan bezala, etimologia ilunekoa da guretzat. Dena den, **-pr-** multzo hori sinkopa baten ondorea izan daiteke.

### Zangoza:

Zangozako toponimia zeharo erromantzea da orain, eta zeharo erromantzea zen duela mende batzuk. Hala eta guztiz ere, 1597an badugu izen euskaldun garbi bat:

“en la bina de la dha Leonor q se dizen los plantados de aragoyti q esta sita en el termino de la villa llamado pastoriça o bal de Lanoguera”<sup>6648</sup>

**Aragoyti-n haran**-en elkarketako aldaera den **ara-** eta **goiti** ditugu. Nolanahi ere, antroponimo baten aurrean egon gintezke.

---

6644 Id., 72. k.

6645 Id., 23. k.

6646 Id.

6647 Id., 30. k.

6648 PRA-Kaparroso, 5. k.

### 3-HIZKUNTZA-MUGAK:

Gure ustez 1587ko agirian oinarri harturik Irigaraik egin zuen euskararen atzerakadaren mapa<sup>6649</sup> ez da zuzena, dokumentu horretan ematen diren datuak neurri batez faltsuak baitira. Datu faltsuak gure iritziz hauek dira: lehenbizi, Artaxona herri erdaldunen artean azaltzen da, baina badakigu XIX. mendearen hasieran hil zen bertako apez bat euskalduna zela<sup>6650</sup>. Honek, toponimiaren euskalduntasunarekin batera, garbi adierazten du Artaxonan euskarak berandu arte eutsi ziola.

Bestalde, herri euskaldunen artean Esa, Ledea, Zangoza, Oibar eta San Martin agertzen dira, eta toponimia aztertuta argi ikusten da herri hauek XVI. menderako zeharo erdaldunduta zeudela, garai honetarako oso leku-izen euskaldun gutxi gelditzen baitziren. Ez dakigu euskal toponimoen galtze-abiada nolakoa izan zen, baina badakigu, adibidez, Galipentzun 1730erako euskararen suntsitzea burutua zela, eta gaurregun ere, ia hiru mende beranduago, komunikabideak XI. eta XII. mendeetan baino anitzez hedatuago daudelarik, euskal toki-izen ugari aurkitzen ditugula bertan. Hau aintzat hartuta Tafalla, San Martin, Erriberri, Zangoza eta Kasedan gure hizkuntza XI. menderako lekutua zela uste dugu, bestela XVI. mendean ditugun baino askoz leku-izen euskaldun gehiago izango baikekituzke herri horietan<sup>6651</sup>. Tafalla-ri dagokionez honela mintzo zaigu J. Jurío<sup>6652</sup>:

“El romanceamiento es antiguo. Los testimonios recogidos en el fuero de 1157 revelan una profunda implantación. Ello choca diametralmente con lo que observamos en poblaciones limítrofes como Artajona y las de Valdorba, netamente vascongadas”

**Erriberri**-ren egoera Tafallakoa bezalatsukoa edo are txarragoa izango zen, baina azterketa sakonik burutu ez dugunez gero, ezin gaitzke seguritatez mintza.

Bi hirion eragina inguruko herrietara zabalduko zen laster, eta **San Martin Unx**-ek ere XI. menderako galduko zuen euskara. Beire sanmartindarren “asentamendua” izan zen<sup>6653</sup>, eta beraz oso goiz erdaldundu zela kontu egin daiteke. **Pitillas**-en eus-

6649 UGDEN, 97. or.

6650 J. M. Jimeno Jurío, EETA, 385. or.

6651 Honek ez du esan nahi, halaz ere, herri horietan euskaldunik ez zegoenik. Esan nahi duguna zera da, hizkuntza nagusia, sozialki nagusitasun osoa zeukana, erromentzea zela.

6652 THET, 33. or.

6653 UM, 86. or.

kal leku-izen garden batzuk azaltzen dira, eta itxuraz Tafalla, Erriberri eta San Martinen multzoan sailka dezakegu.


**Santakara** eta **Melida**-n euskal toki-izen kopurua aurreko herrietakoaren antzekoa da, eta euskara garai bertsuan galdu zela irudi du.

Santakara eta Melidaren ondoko **Zarrakaztelu** eta **Murillo**-n toponimo euskaldun franko aurkitzen ditugu, bigarren herrian bereziki, eta honek gure irudiz hizkuntzak aski berandu arte iraun zuela esan nahi du, XIII. mende arte edo. Honen froga dirateke XIV. mendearen hasieran Zarrakazteluko leku-izen euskaldun gardenak. Toponimo kopurua aintzat harturik hemen ere mailaketa bat egin liteke agian: lehenbizi Zarrakazteluk galduko zuen arbasoen hizkuntza, eta gero Murillok. Aurreneko herria ugaldiaz beste aldean egotea ere uste honen alde mintzo da.

**Kaseda**-n, esan moduan, ez dugu euskal toki-izenik topatu, eta erdalduntze azkar batez (zerk eragina, ordea?) pentsatzen ez bada, euskara XI. mendea baino lehenago desagertu zela kontu egin beharko da, San Martin, Tafalla edo Erriberrin baino lehenago, alegia. Hau harrigarria da Kaseda Galipentzutik kilometro pare batera dagoela eta Zarerekin ere mugatzen duela kontuan hartzen bada. Oraingoan Aragoaz haraindian egotea garrantzi handikoa izan zela dirudi, Zangozan ere egoera antzekoa baita, itxura duenez. **Oibarrek** Tafalla eta San Martinekin bateratsu galduko zuen euskara.

Esandakoak mapa batera bilduaz hau dugu:

## Euskara gure alderdian X - XIII. mendeetan





Ikusi ditugun herri hauetako toponimia eta polikiago eta sakonkiago aztertu ditugun gure alderdiko beste herrietakoa alderatzen baditugu, garbi ikusten da euskararen eta erdararen arteko muga luze egon dela eskualde honetan. Izan ere, Lerga, Eslaba, Ageza, Zare, Ezporogi, Moriones, Bizkaia, Leatxe, Galipentzu eta Uxueko toponimia XVIII. mende arte zeharo euskalduna izan den bitartean, inguruko herrietakoa oso erdaldundua azaltzen da XVI. menderako, osotara batzuetan (Kaseda bereziki), eta toponimo euskaldun hondar barzuekin gehienetan (Tafalla, San Martin...).

Guztiarekin, garbi utzi behar da ez talde bateko herri guztietako toponimia dela berdin euskalduna, ez bestekoetakoa dela berdin erdalduna, bai batean eta bai bestean herriz herriko aldeak ikusten baitira, euskararen desagertze-dataren arabera. Honela bada, eta talde euskaldunaren barruan, Galipentzu da diakronikoki toponimia erdaldun gehien azaltzen duena, alegia, ohizko toki-izenen desitxuraketa eta galtzea goizen eta bortitzen pairatzen duena. Hau euskara XVIII. mendearen lehen laurdenean desagertzearen ondorea dateke.

Aingeru Irigarai biltzen duen agiri batean ikusten denez<sup>664</sup>, Galipentzuko euskara galdu berria zen 1730ean, eta honek bide ematen digu gure hizkuntzak mende honen hasieran eman zuela azken hatsa pentsatzeko. Hona hemen euskaltzain zenaren hitzak:

«Don José de Mateo, natural de la villa de Gallipienzo, que profesó en la Real Colegiata de Roncesvalles el 14 de septiembre de 1730, dice en el folio 200 del inventario por él ampliado:

“Del molino de Errota zarra sólo hay vestigios; el apeo q. se descubrió de heredades en Gallipienzo aún no lo hallo y quisiera encontrarlo, y aunque en la arrendación dice Galipenzu que sería en lengua vascongada, que yo he conocido a todos los viejos hablar vascuence y al maestro que fué causa se perdiese la lengua primitiva, que obró mal”  
De modo que en el siglo XVIII aún se hablaba vascuence en Gallipienzo»

Autore berak beste lan batean<sup>665</sup> Galipentzuko bikarioa eskuratu nahi duten bi aurkariren arteko 1571ko auzi-agiria (edo hobeki esan, auzi-agiri horretatik ateratako zenbait puntu) biltzen du.

Jimeno Juríok argitaratu berria den artikulua batean 1571ko auzi-agiri hori berraztertu du<sup>666</sup>, bere ustez Irigarai argitara emandako aipatu artikuluan gauza interesgarri franko ahazten dituelako:

“El original presenta algunas palabras interpretadas y escritas con bolígrafo. Las transcripciones de los textos, hechas por Irigaray, no son literales, pese a los entrecomillados y omite muchos datos de interés. Por esta razón retomamos el proceso y damos cuenta de lo sucedido y de la situación del euskara en el Valle en esa fecha, según dicho documento”

Galipentzuko bikarioa lortu nahi zuten bi aurkariak Galipentzuko bereko Juan Mateo euskalduna eta Kasedako Lerga batxiler erdalduna ziren. Auzian ikusten den bezala, Galipentzu euskalduna zen garai hartan (geroago ere bai, arestian ikusi bezala):

«Salvador Pérez, de 65 años, “dixo que casi la lengoa que entre la gente de Galipienço se platica y tracta es vascuenz, y que por ello y hauer muchas gentes que no entienden sino muy poco Romance, es cosa cierta que para administrar los sacramentos y confessar a los tales, es neçessario que sea bascongado el vicario”»

Kasedako bikarioak lekuko honen esana berresten du:

664 UGDEN, 73-74. orr.

665 “El euskera en la comarca de Gallipienzo (s. XVII)”, FLV, 40, 1982, 493-500. orr.

666 “El Euskera en Gallipienzo y la Val de Aibar (1571)”. FLV, 60, 1992, 271-275. orr..

«El vicario de Cáseda precisó que “en la villa de Galipienço hay mucha gente vascongada, y entre ellos casi comunmente no se tracta otra lengoa sino la vascongada”

Eta orobat Bertol de Sada izeneko benefiziadoak:

«Según el beneficiado don Bertol de Sada, en “Galipienço hay mucha gente vascongada, y entre ellos algunos que no entienden el romance tan abiertamente ni de tal manera que en él se puedan confessar, y lo saue porque el testigo ha confessado y administrado el santo Sacramento a muchos de la dicha villa, a hartos en vascuenz por no sauer ni entender la dicha lengoa castellana, las quales saue y entiende muy bien el dicho don Juan Matheo”»

Auzi-agiri berean ikus daitekeenez, Galipentzuren ondoko Kaseda herria erdalduna zen ordurako, eta artean zeuden euskaldun bakanak herrira joandako artzainak (Zaraitzu eta Erronkarikoak seguruenik) ziren batik bar:

«Afirmó Joan Vicente, cirujano de 47 años que “en la villa de Galipienço son naturales vascongados y se tracta más comunmente la dicha lengoa vascongada que la castellana...y que en CASEDA, donde el dicho Bachiller es natural, no entienden la lengoa vascongada, y por no entenderla ha visto muchas vezes que bienen entre año pastores y otras personas vascongadas de Cáseda a Galipienço a confesarse”»

Edozein moduz, eta Galipentzuko hizkuntza nagusia garai horretan euskara zela garbi ikusten den arren, erromantze zerbait ere bazekiten batzuek, eta hau zela medio euskaldunagoak ziren Lerga eta Eslaba herrietako bizilagunek galipentzuarrak belarrimotzetako hartzen zituzten. Honela dio Jimeno Juríok:

«Uno de los testimonios más esclarecedores sobre la situación del euskara en la comarca es el del vicario de la parroquial de Eslava. Desde hacía 40 años “sin interpolación”, venía desempeñando el cargo en Eslava, “que es lugar bascongado”. Por experiencia personal sabía “que, si el cura no entiende la lengoa maternal, que nunca enteramente hará su descargo en lo que es obligación a su curazgo, porque muchos, haunque platiquen con los romançados, quedan muchos sin entender ni percibir lo que los Romançados quieren dar a entender, y haun de los muchos que sauen algo hablar, son muy pocos los que enteramente lo saben pronunciar ni dar a entender a los otros la lengoa que de su niñez no la dependieron, y que esto lo saue por experiencia que tiene”. Y añade a continuación “que saue de cierto que, como los de Eslaba y Lerga son tan vascongados, los tienen a los de Galipienço como (a) los de Aybar, Sangüesa y Cáseda, que no entienden vascuenz” Tiene entendido que don Juan Matheo “hace muy bien su ofiço en quanto a la plática, conforme al estilo de la tierra, y que lo ha oído de personas de Galipienço y Uxué”»

Hortaz, hemen garbi azaltzen da ordurako Oibar, Zangoza eta Kasedakoak erdaldunak zirela eta ez zutela euskara ulertzen. Guzti hau bat dator toponimiak erakusten digunarekin, ordurako hiru herri hauetako toki-izen gehienak (guztiak Kasedaren kasuan) erromantzeak baitziren.

Zareri dagokionez, badakigu 1605ean 62 urte zituen Martín Baztán jaunari testigantza hartu zitzaiola, horretarako adierazi beharrekoak euskaraz jakinarazi zizkiotelarik<sup>667</sup>. Gizon hau garai hartan elebakarra izateak erromantzearen sartzea herri honetan aise beranduago gertatu zela esan nahi du.

Leatxen 1787. urtean Rokaforteko Joaquín Blasco erdalduna zen herriko benefiziadoa (edo benefiziadoetako bat bederen). Jaun honek aipatu urtean Untzitiko bikarioa izateko beharreko botoak jaso zituen, baina herri horretako apeza izateko euskalduna izan behar zela ikasi zuen, nonbait, eta bere nahiari muzin egin behar izan zion. Honela dio agiriak:

667 A. Irigaray, UGDEN, 95. or.

“...dijo que hallandose Bacante la Vicaria De la Yglesia Parral. De el Lugar de Vnzitt, sus Vezinos propietarios que tienen Casa, y Voto, De Comformidad elijieron y nombraron por tal Vicario De dha Yglesia a dho Dn. Juaquin Otrogante, Cuyos Votos se presentaron en el tribunal Ecco. De este Obispado; Y por que à llegado à entender ser preciso i necesario para dha Vicaria el que el presentado deba saber, y entender la lengua bascongada, De Cuyo Requisito Careze el Otrogante, y por Ygnorarlo entro en la pretension...”<sup>6658</sup>

**Ezporogi eta Morionesen** berri askorik ez dakigu, baina beren kokagunearengatik euskarak berandu arte eutsiko ziola uste dugu. Iraupen honetan eragin handia izango zuten, gure irudiko, bi herri horiek (bigarrenak batik bat) Bizkaia euskaldunarekin zituzten harremanek.

**Bizkaiak**, bere aldetik, euskalduna irauin zuen berandu arte. Honetan zeri-kusi handia izango zuen goiko aldetik 1869ko Bonaparteren mapan oraindik ere euskaldun ageri diren Orba (neurri batez) eta Ibargoitirekin mugatzeak, mugakide izateak sortarazten dituen mota askotako harremanengatik. Leatxe eta Abintzaorekin mugatzen duen **Gardelain** herria 1720an euskalduna zela badakigu. Jimeno Jurío adiskideak ezagutarazi digun urte horretako agiri batean ikusten denez, apezpiku bisitatzailak herriko apezari eta bere ondorengoei Nierembergen katiximaren kapitulu bat irakurri, eta euskaraz edo erdaraz azalpen laburra egiteko agintzen die:

*“explicando aquel brevemente en lenguas bascongada o en castellano, segun hiziere juizio dicho cura pueden comprender sus feligreses”*<sup>6659</sup>

**Oleta eta Eslabarekin** mugatzen duen Bizkaiko **Julio** herrian antzeko agindua edireten dugu<sup>6660</sup> urte berean (1720an), baina oraingoan garbi ikusten da azalpena euskaraz egin behar zela. Halaber, garbi ikusten da **Lergan** sortua zen apeza euskalduna zela, eta hortaz, beldurrik gabe esan daiteke herri honek artean euskaldun ziruela:

“Mandamos que don Martin Pernaut, prbtero residente en la villa de Lerga, que sirve la abadía rural de esta iglesia de Julio, y los que le sucedieren, cumplan en explicar la doctrina christiana, como está mandado en la ultima visita, en virtud de orden expresa que tenemos de su Sria. Ilma. declaramos que dicho sirviente cumple con dicha obligacion leyendo su capitulo correspondiente al dia, inter missarum solemnna, por el catecismo romano del P. Eusebio de Nieremberg, *explicando aquel brevemente en lengua bascongada*”

**Martin Pernaut**, Huescan eta Iruñean ikasi ondoren, Faltzesen gramatika erakusten ibilia zen. Epaiz eta Eslabako apez interinoa ere izan zen, bai eta orobat, eta hau da guri interesatzen zaiguna, Zaragozako hospitaleko euskaldunen apeza ere. Honela dio agiriak<sup>6661</sup>:

“En una informacion sumaria de disculpa rezevida de orden y mandato de Umd de ynstancia de Dn Marn. Pernaute Presvit. y Beneficiado de la Yglesia Parral. de la Villa de Lerga y thinte de Cura de la de Abaiz; por las deposiciones de Diez y nueve ttes. examinados en ella resulta losigte: De los tsos. ezepto los 7. 8. y 19. Conviene todos los demas en q tienen y antenido por Sazerdote onrrado themeroso de Dios y de su Ym. a dho Dn. Marn. Pernaute [...] Los 1. 2. 3.10. 11. 12. 14. 15. 16. 17. y 18. Conviene y deponen de Cierta Ciencia q dho Don Marn. *asido Cura de Bascongados en el ospital Rl. de Zaragoza y en las Villas de Abaiz y Eslaua ynterin.* de Cura y q al pnte. lo es en Abaiz y el 17. anade q le auisto Estudiar Con grande Virtud y aprovechamiento en las Ciudades de Huoca y Pampna. Y q en la Villa de falzes a estado enseñando Gramatica...”

6658 PRA-Oibar, 75. k.

6659 Gardelaingo eliz-artxibategia, kontu liburua, 41. or.

6660 Agiri honen ezagutza (IEA, 17-4 kartoia, kontu-liburua, 23. or., 1720ko bisitaldia) ere Jimeno Jurío adiskideari zor diogu. Bihoazkio hemendik gure eskerrak.

6661 IEA, 1.139-3 kart., 1709.

Eslabaren egoerak ere antzekoa izan behar zuen garai berean, 1710eko agiri batek erakusten digun bertako euskara bizirik baitzegoen. Agiria Eslabako auzoak ziren Pedro de Aribe oihalgilearen, honen emaztea zen Graciosa Goyenaren eta Eslabako bereko nekazari eta kaparea zen Miguel de Yzcoren arteko auziarena da.

Gatazka Aribek Yzcorentzat ehundako oihal batzuen prezioa zela medio sortu zen, egileak hamalau erreal eskatzen zituen bitartean erosleak zortzi besterik eman nahi ez zizkiolako. Sesioa Yzcoren etxean hasi zen, eta kanpoan jarraitu, Aribe karrikatik intsultoka hasi omen baitzitzaion Yzcori, lapurra, mozkorra, "pikaroa", arraza gaiztokoa eta ordaintzale txarra zela esanez. Hori adituta, kaparea etxetik atera eta borrokan hasi omen zen ehulearekin, emaztea jaitsi eta bereizi zituen arte. Gero Ariberean andrea ere bertaratu eta batzuk kaltetik eta besteak etxeko leihotik elkarren kontra hasi ziren, hitzez eta egitez, tartean harrikada bat baino gehiago ere izan zelarik, dokumentuan ikus daitekeen moduan. Honen ondorioz Ariberean andrea zauritua suertatu zen, eta sendagilearen beharra ere izan zuen.

Yzco Eslaban jaioa zela garbi ikusten da agirian, bai eta Aribe herrian bizi arren bertakoa ez zela ere. **Galipentzun** Aribe deitura oraindik ere bizirik dagoela<sup>662</sup> eta Graciosa Goyenak Eslabako eta Galipentzuko sendagileen arta behar izan zuela kontuan edukitzeen bada, "maisu ehulea" azken herri honetakoa zela ondoriozta daiteke, nahiz honen erabateko frogarik ez dugun. Honek Galipentzun 1710ean oraindik ere euskaraz mintzatzen zela esan nahi luke, ikusiko dugun bezala Aribe eta Yzcoren arteko solasa euskaraz eta erdaraz burutu baitzen.

Lekukoak bost izan ziren: hogeita hamahiru urte zituen Iparraldeko Tristant Nimiño artzain euskaldun elebakarra (gaztelaniaz behintzat ez zekien), "Aragoako erre-sumako" Urries herriko Francisco Latorre hamabost urteko morroi elebakar erdalduna, Lapurdiko "Azparren"-go Pedro de Camusarri maisu zapatagin euskalduna (elebiduna, dirudienez), Eslabako Graciosa de Iriarte andrea (elebiduna, itxuraz), eta Nimiñoaren nagusia zen Eslabako Juan de Abaurrea (hau ere elebiduna, antza).

Iparraldeko artzainak ez zuen Aribek eta Yzcok elkarri esan ziotena ulertu, bera euskalduna izanik erdaraz mintzatu baitziren:

"Dixo...Que Pedro de Aribe partte Contraria estaua Gritando Con palabras mui descompuestas Segun su Modo de dezir de Injuria, Pero no pudo Comprender el tes. lo que dezia respecto de Ser bascongado Yno entender la lengua Castellana que es laque ablaba el dho Pedro de Aribe y esto responde"

Urriesko morroi gaztea erdalduna zen, esan bezala, eta ongi ulertu zuen bi aurkariak erdaraz esan zutena, baina ez euskaraz hitzeggin zutena. Lekuko honen testigantzan garbi ikusten da bi hizkuntzak erabili zituztela, aldizka:

"...llego Pedro de Aribe Parte Contraria a casa de Miguel de Yzco...y auiendo empezado â hablar...le pidio...le pagara Catorce Reales q le deuia de Vnas tezeduras de lienzo alo qual lerespondio el presentante (Miguel de Yzcok, alegia) q no eran Sino ôcho Rs. los que le deuia en Cuia diferencia tubieron Un altercado q *abeces ablaban de bascuenz* Yen otras de Castellano *Ynopudo Comprender el testigo lo que hablaban en la Ydioma bascongada*, si bien en la Castellana Al tiempo no setrabaron con palabras ofensibas"

Eta aurrerago:

"...q despues q cerraron lapuerta Como...empezo â Gritar laparte Contraria acuyas Voces salio a la bentana el Presentante Yalado del Sumu(je)r desde donde *empezaron â bablar enla Ydioma bascongada* Con la parte Contraria Que no pudo Comprender eltestigo Loque dezia Pono entender Lalengua..."

6662 Galipentzuko gure informatzaile nagusia Demetrio Arive Reta jauna izan da.

Agirian ikusten denez, Miguel de Yzco nekazari kaparea ere euskalduna zen, Tristant Nimiñoren arabera berarekin mintzatua baitzen, eta artzaina euskaldun peto-pettoa izanda hizkuntza honetan gauzatu behar izan baitzen bien arteko “komunikazioa”:

“...con el motivo de estar Sirbiendo (Tristant) Por Pastor en la Villa de Eslaba Con Juan de Abaurrea Vecino deella deestos Nuebe meses aesta parte Conoce de Vista, trato y Comunicacion â Miguel de Yzco...”


Uxueko berri zuzenik ez dugu, baina toponimiak eta aurkitu ditugun izen-goitiek, herriaren isolamenduarekin batera, euskara XVIII. mende aldera arte gorde zela sinestarazten digute. XVII. mendean euskalduna zela badakigu<sup>663</sup>.

Esan duguna mapa batera bilduz hau dugu:

---

6663 F. Idoate, *Rincones de Historia de Navarra*, A. Irigarayk aipatzen du, UGEN-ko 96. orrialdean.

### Euskara gure alderdian XVIII - XIX. mendeetan



## 21. BIBLIOGRAFIA

- Agud, M.: *Elementos de cultura material en el País Vasco*, L. Haranburu argitaratzailea, Donostia, 1980.
- Agud, M. / Tovar, A.: *Diccionario etimológico vasco (I-IV)*, ASJU, Gipuzkoako Foru Al-  
dunia, Donostia, 1989-1991.
- Alliéres, J.: "Basque et latin vulgaire", FLV, 15, 1973, 355-367.  
- "La place de la variation synchronique ponctuelle dans les monographies dialectales et la geolinguistique", Iker-7, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 179-196.
- Altube, S.: "De fonética vasca", RIEV, 14, 1923, 517-534.
- Alvar, M.: *Onomástica, repoblación, historia (Los «Establimentz» de Jaca del siglo XIII)*, Ins-  
titución «Fdo. el Católico»-CSIC, Zaragoza, 1971.  
- *Estudios sobre el dialecto aragonés-II*, Institución «Fernando el Católico», Zaragoza,  
1978.
- Andersson, L.: "Comentarios al artículo «Una clave para la Hidronimia Pirenaica»",  
FLV, 19, 1975, 87-88.
- Apecechea, J.: "Inventario de los bienes de la casa nativa de Joaquín de Lizarraga",  
FLV, 22, 1976, 77-93.  
- "Variantes del Avemaría en algunas variedades del euskara navarro", *Aingeru Iri-  
garayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 79-93.
- Apeztxea, P.: "Etxalarko etxe eta baserrien izenak (1623-1983)", FLV, 45, 1985, 183-  
203.
- Apraiz, O.: "Un caso de fonética histórica estudiado en la toponimia alabesa. La alter-  
nancia -l-:-r-", RIEV, 11, 1920, 81-94.  
- "De Fonética y Etimología. En Torno a la *n* caduca", RIEV, 14, 1923, 661-668.  
- "De toponimia histórica. Evolución de la raíz ZUBI", RIEV, 15, 1924, 306-312.
- Arana Martija, J. A.: "Bonaparte, Europako dialektologia eta euskalkiak", *Iker-7*, Eus-  
kaltzaindia, Bilbo, 1992, 3-16.
- Aranzadi, T.: "Nombres Vascos de Aves", RIEV, 3, 1909, 160-167.
- Aranzadi Zientzia Elkarte: *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa. Lehen zatia*, Donostia,  
1983.  
- *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa. Bigarren zatia*, Donostia, 1990.
- Arbizu, N.: "Toponimia de Iturmendi", FLV, 56, 1990, 261-275.
- Arocena, F.: "El topónimo GUIPUZCOA. Ensayo de interpretación", BRSVAP, 1949,  
3, 279-284.  
- "El «Castrum Montis Acuti» documentado como medieval", BRSVAP, 1957, 4,  
312-318.
- Arraiza, E.: "«Ain-»-ez bukatzen diren euskal toponimoak", FLV, 48, 1986, 225-249.

- Arraiza, J.: "Ibero. Viacrucis en bascuence de comienzos del siglo XIX", *FLV*, 51, 1988, 143-154.
- Arrarás, Fco.: "Acerca de la etimología de Arnotegui", *FLV*, 1971, 325-331.
- Artola, K.: "Ezkabarteko euskara. Iruñeko udal dermioaren ondokoa, Celedonia Zenoz andrearen ahotan", *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 96-112.
- "Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)", *FLV*, 60, 1992, 87-227.
- Axular: *Guero*, Bordele, 1643.
- Azkarate, M.: *Hitz elkartuak euskaraz*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1990.
- Azkue, R. M<sup>a</sup>: "El Artículo y la epéntesis en la toponimia", *Euskera*, 1928, 212-217.
- "La Epéntesis en la Toponimia", *Euskera*, 1928, 307-310.
- "Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera", *Euskera*, 1927, Bagilla-Lotazilla, 179-300.
- *Morfología vasca*, 3 ale, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.
- *Diccionario vasco-español-francés*, 2 ale, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.
- Azpiroz, J. M<sup>a</sup>: "Azkue jaunaren iztegia osatzeko, Nafarroako Leitze-n bildutako itz-bilduma", *Euskera*, XII, 1967, 5-24.
- Baraibar, F.: "Palabras alavesas", *RIEV*, 1, 1907, 141-147.
- "Palabras alavesas (continuación)", *RIEV*, 1, 1907, 340-368.
- Barandiarán, J. M.: *Diccionario ilustrado de mitología vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1972.
- Beriayn, J.: *Tratado de como se ha de oyr missa*, Iruñea, 1621.
- Berrade, J. A.: *Toponimia del Municipio de San Martín de Unx (Navarra)*, lizentziatura-txostena, argitarara gabeko lana (?), J. Zubiaurrek aipatzen du, "Toponimia de San Martín de Unx (Navarra)" artikuluan.
- Bidador, J.: "Noticias y restos del euskera de Val de Olló", *FLV*, 60, 1992, 277-295.
- Bonaparte, L. L.: *Carte des sept provinces basques*, Londres, 1863.
- *Opera Omnia Vasconice*, 4 ale, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991.
- Cabodevilla, I.: *Aetzen uskara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1991.
- Calero, C. / Martínez, J.: "Toponimia menor de Almuñecar (1491-1497)", *RFE*, LXX, 1990, 297-315.
- Camino, I.: "Aezkerazko testuak, I: Ariako dotrina", *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJU, 1991, 427-457.
- Campión, A.: *Obras completas*, 14. alea, Mintzoa, Iruñea, 1985, 227-231.
- Caro Baroja, L.: *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamancako Unibertsitatea, 1945.
- *Etnografía histórica de Navarra*, CAN, Iruñea, 1972.
- *Historia General del País Vasco*, 3. alea, La Gran Enciclopedia Vasca-Luis Haranburu, Bilbo, 1980, 111-287.
- "Toponimia y ecología", *I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 49-60.
- Carrasco, J.: *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Nafarroako Unibertsitatea, Iruñea, 1973.
- Castillo, C. eta beste: *Inscripciones romanas del Museo de Navarra*, PV, Iruñea, 1981.
- Ciérbide, R.: "El Romance Navarro Antiguo", *FLV*, 6, 1970, 269-370.
- *Primeros documentos navarros en romance (1198-1230). Comentario lingüístico*, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea, 1972.
- "Comentario lingüístico del Fuero de Tafalla de 1157", *PV*, 34, 1973, 27-45.
- "Notas lingüísticas a las Ordenanzas de Tafalla (1309)", *PV*, 35, 1975, 81-108.
- "Toponimia del Becerro antiguo de Leyre (siglos XII-XIII)", *FLV*, 23, 1973, 237-283.
- "Índice completo de topónimos citados en el Becerro Antiguo de Leyre-II", *FLV*, 25, 1977, 117-152.



-“Índice completo de topónimos en el Becerro Antiguo de Leyre-III”, FLV, 26, 1977, 281-310.

-“Índice completo de antropónimos citados en el Becerro Antiguo de Leyre-I”, FLV, 27, 977, 431-445.

-“Índice completo de antropónimos citados en el Becerro Antiguo de Leyre-II”, FLV, 28, 1978, 71-126.

-*Toponimia navarra: historia y lengua*, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea, 1980.

-“Onomasticon Vasconiae: Consideraciones metodológicas”, FLV, 45, 1985, 175-182.

-“Historia de la Lengua en Navarra: Artajona”, FLV, 50, 1987, 195-205.

-*Estudio lingüístico de la documentación en lengua occitana de Navarra*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1988.

-“En torno a las denominaciones de la ciudad de Estella”, FLV, 51, 1988, 53-57.

-“La scripta administrativa en la Navarra medieval en lengua occitana: comentario lingüístico”, *Zeitschrift für Romanische Philologie*, 105, 1989, 276-312.

-“Confusión grafemático-fonológica en las sibilantes, según documentación inédita de la Baja-Navarra (siglos XIV-XV)”, FLV, 53, 1989, 27-35.

-“De la Tafalla de nuestros antepasados a la Tafalla de hoy: semblanza histórica”, *Tafalla, 350 años como ciudad*, Tafallako kultur koadernoak, 1990eko abendua, 19-32.

-“Ujué. Evocación histórica y mariana”, *Tafalla, 350 años como ciudad*, Tafallako kultur koadernoak, 1990eko abendua, 33-47.

-“Plurilingüismo histórico en Euskal Herria”, FLV, 56, 1990, 149-164.

-“Notas de toponimia comparada: el valle de Ega y la comarca de La Oliva”, *I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 109-148.

-“Antropónimos de la Baja Navarra según el censo de 1350”, *Iker-6*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 127-142.

**Ciérbide, R. / Herrero, G.:** “Toponimia de la comarca de la Oliva”, CEEN, 46, 1985, 5-85.

-“Toponimia de la comarca de la Oliva-II”, CEEN, 47, 1986, 91-164.

**Clavería, J.:** *Historia documentada de la Virgen, el Santuario y Villa de Ujué*, Iruñea, 1935, Urangak Ujué medieval-eko 44. orrialdean aipatua.

**Commission de toponymie de Québec:** *Méthodologie des Inventaires Toponymiques*, Gouvernement du Québec, 1986.

**Contini, M.:** “Vers une géoprosodie”, *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 83-109.

**Coromines, J.:** *Estudis de toponímia catalana-I*, Barcino, Bartzelona, 1965.

-*Estudis de toponímia catalana-II*, Barcino, Bartzelona, 1970.

-*Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana*, Gredos, Madril, 1970.

-“De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos-Pirineos”, FLV, 12, 1972, 299-319.

-*Tópica Hespérica*, bi ale, Gredos, Madril, 1972.

-*Breve diccionario etimológico de la lengua castellana*, Gredos, Madril, 1976.

**Coromines, J. / Pascual, J. A.:** *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, Madril, Gredos, 1984.

**Corona Baratech, C.:** *Toponimia navarra de la Edad Media*, CSIC, Huesca, 1947.

**Dalbéra, J.P.:** “Dialectologie et morpho-phonologie”, *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 135-149.

**Deiker:** *Elementos para la fijación de una norma de standarización de la toponimia de uso cartográfico en la Comunidad Vasca*, argitaratua gabeko lana.

-*Euskal Herriko Autonomia Elkarteak kartografiarako toponimia*, argitaratua gabeko lana.

**Del Valle Lersundi, F.:** “Una forma del femenino y el valor de la letra «ch» como diminutivo en los nombres de los guipuzcoanos de los siglos XV y XVI”, RIEV, 24, 1933, 176-181.

- “El valor de la letra «Ch» como diminutivo en los nombres de los vascongados de los siglos XV y XVI”, RIEV, 25, 1934, 192-194.
- Duvoisin, J. P.: *Laborantzako liburua*, Euskal editoreen elkarte, Zarautz, 1986.
- Echaide, A.: “Algunos materiales para el estudio de los dialectos vascos en Navarra”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 113-123.  
-*El euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.
- Echegaray, B.: “Nombres vascos de los espacios intermedios entre casas”, *Euskera*, 1932, 72-86. eta 179-191.  
-“Origen de la voz Vizcaya y ámbito de su difusión”, BAP, 8, 1952, 323-343. orr.
- Echeverría, L. F.: “Goizuetako toponimia, Artikutzakoa ezik”, FLV, 51, 1988, 77-118.
- Egaña, M.: “Nafarroako Yerri ibarreko leku-izen nagusien zenbait berri”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 349-362.
- Eguskitza: “Los sufijos bel, pel: bil, pil, mil”, *Euskera*, 1930, 218-220.
- Eguskitza, A. / Palazio, G.: *Geografidatutegia*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1991.
- Eleizalde, L.: “Notas de toponomástica. La caída de las vocales iniciales en las voces toponímicas vascas”, RIEV, 13, 1922, 439-444.  
-“Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas”, RIEV, 1922-1923, 1927-1936; BRSVAP, 1963-1964.
- Elizalde, Fco.: *Apezendaco dotrina christiana uscaras*, Iruñea, 1735.
- Elortegi, A.: *Pasaiaiko toponimia*, Euskaltzaindia, Donostia, 1992.
- Elósegui, J. / Ursúa, C.: *Las Bardenas Reales*, liburua eta mapa, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1990.
- Enbeita, K.: “Urkabustaizko toki-izenak”, *Euskera*, XIX, 1974, 230-233.
- Equiza, B. eta beste: “Labiano: Estudio etnográfico-histórico”, CEEN, 43, 1984, 5-37.
- Erize, X.: “Euskararen egoera soziolinguistikoa Nafarroa Garaian, Bonaparte printzearen lanetan”, *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 699-707.
- Erkoreka, A.-González, N.: “Gatikako antroponimoak eta toponimoak”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 363-378.
- Erriondo, M.: “Artikutza. Toponimia actual y antecedentes históricos”, FLV, 51, 1988, 119-142.
- Esparza, J.: “De toponimia navarra”, PV, 94-95, 1964, 67-126.  
-“De toponimia navarra”, PV, 98-98, 1965, 161-227.
- Estornés, B.: *Erronkari'ko uskara*, Auñamendi, Donostia, 1968.  
-“El dialecto roncalés en la muga de Aragón y Bearne”, *Iker-2*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 215-229.  
-“De toponimia roncalesa”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 379-388.  
-“Zoiloren Uzta. Zaraitzu'ko uskara”, FLV, 45, 1985, 31-93.
- Estornés, I.: “Un informe francés sobre Navarra (1808)”, PV, 186, 1989, 217-219.
- Etxaide, Y.: “Uri eta toki-izen batzuen euskal-izendegia, orain arte bildutakoen osagarri”, *Egan*, 1961, 217-229.  
-“Euskal pontizen zahar batzuk aztarrikatuz”, *Euskera*, XXX, 1985-2, 513-525.
- Etxebarria, J. M<sup>a</sup>.: “Gaintzako euskeraren alderdi fonetiko batzuk”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 125-142.  
-“Léxico rural vasco de Amorebieta (Vizcaya)”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 143-194.  
-“1913ko Vienako euskal grabaketak, III. Erronkarieta”, *Iker-6*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 161-176.  
-“Euskalkietan egindako lehenengo grabaketak”, *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 607-618.
- Etxebarria, J. Manuel: “Etno-testuen beharrezana euskararen etorkizunean”, *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 727-735.

- Euskalerría irratia / Múgica M.:** *Nafarroako euskaldunen mintzoak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1990.
- Euskaltzaindia:** *Euskal Herriko udalen izendegia*, Bilbo, 1979.  
 -*Erizkizundi irukoitza*, Iker-3, Bilbo, 1984.  
 -*Euskal Gramatika. Lehen urratsak*, Iruñea, 1985.  
 -*Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I*, Bilbo, 1987.  
 -*Nafarroako herri izendegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1990.
- Fagoaga, B.:** "Datos para la geografía histórica del euskara en Navarra", *Euskera*, VII, 1962, 205-215. orr.
- Falcon, X.:** "Dialektologia eta linguistika teoriak", *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 69-82.
- Fossat, J. L.:** "Architecture d'une base de connaissance dialectale: contribution à la modélisation du fait dialectal occitan", *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 111-133.
- Frago García, J. A.:** "Toponimia de la raíz *Bur-* en el occidente del Aragón Medio: un punto de contacto léxico vasco-ibérico", *FLV*, 24, 1976, 323-331.  
 -"Relaciones de sustrato y de adstrato entre el léxico vasco y el del romance navarroaragonés", *FLV*, 27, 1977, 387-402.  
 -"Problemas, métodos y enseñanzas de la toponimia", *I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 199-220.  
 -"Toponimia navarroaragonesa del Ebro (V). Yermos y pastizales", *AFA*, 38, 89-121.
- Gallego, A.:** "Tres testimonios sobre el uso del vascuence en el siglo XVIII", *FLV*, 47, 1986, 167-170.
- Garate, J.:** "Interpretación de la toponimia vasca", *RIEV*, 22, 1931, 588-601.  
 -"Origen y expansión de las voces Navarra y Viamonte", *PV*, 52-53, 1953, 407-413.  
 -"Nombres vascos y caracteres de los seles", *Euskera*, VII, 1962, 121-130.
- García de Albizu:** "Toponimia de las limitaciones", Lizarran 1990eko irailean izan ziren III Onomastika Jardunaldietan irakurritako txosten argitara gabea.
- García Larragueta, S.:** *El Gran Priorado de la Orden de San Juan de Jerusalem. Siglos XII-XIII. Colección Diplomática*, PV, Iruñea, 1957.  
 -*Documentos navarros en lengua occitana*, Primera Serie. Anuario de Derecho Foral-II, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea, 1976-1977.
- Gárriz, J.:** *Despoblados*, Temas de cultura popular, 186, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea, 1973.
- Garro, B. M<sup>a</sup>.:** "Sobre algunas etimologías. Ensayo sobre la propiedad comunal en la toponimia vasca", *BRSVAP*, 1957, 4. kuadernoa, 200-219.
- Gavel, H.:** *Eléments de Phonétique Basque*, Miarritze, 1920, La Gran Enciclopedia Vascak berrargitaratua, Bilbo, 1969.
- Germán de Pamplona, P.:** "De nuevo sobre la lápida hispano-romana de Lerga (Navarra)", *PV*, 84-85, 1961, 213-216.
- Gifford, D. J. / Molho, M.:** "Un antiguo texto en Vascuence", *PV*, 66, 1957, 241-243.
- Gifford, D. J. / Mitxelena, K.:** "Notas sobre un antiguo texto vasco", *PV*, 70-71, 1958, 167-170.
- González González, M.:** "Metodología de los atlas lingüísticos en España", *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 151-177.
- González Ollé, Fdo.:** "El romance navarro", *RFE*, LIII, 1970, 45-93.  
 -*Vascuence y romance en la Historia lingüística de Navarra*, Ediciones y Libros, Iruñea, 1972.  
 -"El topónimo *Fila Ruuia* y la ultracorrección de *f-* en documentos navarros de 1215 y 1216", *FLV*, 24, 1976, 333-337.
- González Salazar, J. A.:** *Toponimia menor de Salvatierra*, Cuadernos de toponimia, 4, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1987.

- Toponimia menor de Vitoria-Gasteiz*, Cuadernos de toponimia, 5, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1988.
- Toponimia menor de Añana*, Cuadernos de toponimia, 6, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1989.
- Gorrochategui, J.:** "Lengua aquitana y lengua gala en la Aquitania etnográfica", *Symbolae Ludovico Mitxelena*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1985, 613-628.
- "Indígenas y romanos a través de la epigrafía", *RIEV*, XXXIV-1, 1989, 15-30.
- Goyheneche, E.:** "Notas sobre la onomástica y la historia medieval en Iparralde", *I Onomastika Jardunaldien agiria. Toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 291-305.
- Gutter, H.:** "Elementos de cronología del vascuence", *ASJU*, XXIII-3, 1989, 797-800.
- Hasse, M.:** "Bilinguisme basco-gascon en Basse-Navarre", *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 687-698.
- Hernandorena, V.:** "Goizueta'ko etxe eta baserri'en izenak: 1616 urtetik 1925'ño", *CEEN*, 10, 1978, 75-90.
- Hoffmann, N.:** "Interferencias léxicas del euskera en el habla de Navarra", *Eusko Ikaskuntza*, Cuadernos de Sección, Hizkuntza-literatura, 11, 1992, 9-80.
- Hualde, J. I.:** "Otro acento vizcaino: Gerxo", *ASJU*, XXIII-3, 1989, 809-817.
- Ibarra, O.:** "Mezquirizko Toponimiz", *FLV*, 58, 1991, 301-357.
- Idoate, F.:** "Poblados y despoblados o desolados en Navarra (en 1534 y 1800)", *PV*, Iruñea, 1958, 309-338.
- "Cendeas en Navarra", *PV*, 1973, 130-131, 5-25.
- Iñigo, A.:** "Santesteban de Lerín haraneko izengoitiak (XVI eta XVII. mendeak)", *Lizarran 1990eko irailean ospatu III Onomastika Jardunaldiak*-en irakurritako txosten argitaragabea.
- Iraburu, J. M.:** "En torno al topónimo «Morea»", *FLV*, 12, 1972, 321-343.
- "Notas sobre varias piedras de Navarra", *CEEN*, 19, 1975, 83-91.
- Iráizoz, P.:** "Versos euskéricos del siglo XVIII", *FLV*, 22, 1976, 65-75.
- "Nombre vasco de Pamplona: Iruñea, Iruña, Iruñe?", *FLV*, 12, 1980, 427-434.
- Iribarren, J. M.:** *Vocabulario navarro*, *PV*, Iruñea, 1984.
- Irigaray, A.:** "Etnología e Historia del Alto Aragón", *BRSVAP*, 1949, 4. kuaderno, 507-511.
- "Antropónimos medioevales de Navarra", *PV*, 61, 1955, 495-506.
- "Onomástica medieval de Navarra", *PV*, 78-79, 1960, 131-135.
- "Nuevos testimonios de la lengua vascónica en Navarra", *PV*, 80-81, 1960, 335-337.
- "Notas sobre la antigua lengua", *PV*, 82-83, 1961, 101-104.
- "Catecismo manuscrito en euskara alto navarro", *Euskera*, VI, 1961, 161-179.
- *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*, Ediciones y Libros, Iruñea, 1974.
- "El euskera en la comarca de Gallipienzo (S. XVII)", *FLV*, 40, 1982, 493-495.
- Irigaray, J.:** "Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (I)", *FLV*, 21, 1975, 375-387.
- "Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (II). Valle de Gueusalaz", *FLV*, 22, 1976, 99-141.
- "Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (III). Valle de Yerri", *FLV*, 23, 1976, 285-317.
- "Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (IV). Las Amescoas (Alta y Baja)", *FLV*, 24, 1976, 439-471.
- "Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (V). Valle de Allín", *FLV*, 25, 1977, 153-178.
- "Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (VI). Valle de Lana", *FLV*, 26, 1977, 329-348.
- "Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (VII). Valle de Ilzarbe", *FLV*, 27, 1977, 499-525.

- “Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (VIII). Valle de Orba”, FLV, 28, 1978, 169-199.
- “Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (IX). Ujué”, FLV, 29, 1978, 367-382.
- “Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (X). Artajona”, FLV, 30, 1978, 547-565.
- “Estado actual de la onomástica botánica en Navarra (XI). La Ribera”, FLV, 31, 1979, 177-207.
- “Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (XII). Valle de Mañeru”, FLV, 32, 1979, 339-360.
- “Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (XV). Petilla de Aragón”, FLV, 35-36, 1980, 475-490.
- “Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (XVI). Valles de Goñi y Olo”, FLV, 39, 1982, 273-296.
- Irigoyen, A.:** “Vocabulario baztanés de Juan Bautista Gorosurreta”, *Euskera*, VII, 1962, 135-194.
- “Formas de nombres de localidades vizcainas”, FLV, 11, 1972, 207-218.
- La lengua vasca en relación con la antroponimia y otras cuestiones medievales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1983.
- “Sobre los topónimos *Oca* y su entorno”, *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae. Pars altera*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1985, 1007-1016.
- En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1986.
- De re philologica linguae vasconicae-II*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1987.
- “Nafarroako leku izenen euskarazko formez”, *Euskera*, 33, 1988, 647-650.
- “Izen geografikoak”, *Euskera*, 33, 1988, 651-657.
- “*Los Arcos* Nafarroako hiriaren izena euskaraz *Urantzia?*”, *Euskera*, 34, 1989-2, 713-721.
- “*Bilbao* toponymoaz eritzi emaita”, *Euskera*, 35, 1990-1, 253-254.
- De re philologica linguae vasconicae-III*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1990.
- Sobre toponimia del País Vasco norpirenaico (observaciones en torno a la obra Toponymie basque de Jean-Baptiste Orpustan)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1990.
- “Problemas de nomenclatura en la elaboración de mapas topográficos en áreas vascofonas de administración romanizante hasta el presente”, *I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 159-171.
- “Miscellanea toponymica et anthroponymica (I, II, III, IV)”, argitara gabeko lanak.
- “Toponimia y onomástica”, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako 1992ko udako ikastaroetan irakurritako txostena.
- “*Idoia/ludoia/idoia* eta *aldaia* apellativo zaharren etimologiaz berriz ere”, argitara gabeko lana.
- Izeta, M.:** “Baztango hiztegi tipia”, *Euskera*, 30, 1985, 553-618.
- Jaurgain, J.:** “Toponymie basque”, RIEV, VI, 1912, 161-171.
- “Toponymie basque”, RIEV, VII, VIII, 1913, 1914-1917, 261-273, 398-418, 51-52, eta 267-281.
- Jimeno Jurío, J. M.:** “El euskera en la toponimia de Artajona”, FLV, 3, 1969, 375-385.
- El libro rubro de Iranzu*, PV, Iruñea, 1970.
- “Cendea de Olza. Toponimia”, FLV, 38, 1981, 175-220.
- “Nombres vascos de ermitas en Iruñerria”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 397-403.
- “Sustitución de topónimos por hagiónimos en Navarra”, *Euskera*, 30, 1985, 619-626.

- “«Zendeak», «gorreak» y otras realidades artajonesas del siglo XVI”, RIEV, XXXI, 1986, *Julio Caro Barojari omenaldia*, 747-757.
- “Nombres vascongados y romanceados de pueblos navarros”, FLV, 47, 1986, 171-182.
- Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1986.
- Ujúé*, Temas de cultura popular, 63, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1987, 3. argitalpena.
- “Topónimos navarros con sufijo -ain”, FLV, 48, 1986, 251-281.
- Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1987.
- “Informe sobre las denominaciones Lizarra-Estella y Atarrabia-Villava”, FLV, 51, 1988, 59-76.
- Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1989.
- Toponimia histórico-etnográfica de Tafalla*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.
- “Arrizabalaga (Campanas) y Artederreta (Carrascal)”, FLV, 53, 1989, 75-85.
- Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1990.
- “¿El nombre vasco de Los Arcos según el Fuero de Estella?”, FLV, 55, 1990, 55-63.
- “Toponimia de Estella”, Lizarran 1990ean ospatu *III Onomastika Jardunaldiak*-en egindako hitzaldi argitarara gabea.
- Estudio Toponímico de Burlada*, Burlatako udala, Iruñea, 1991.
- “Recogida de toponimia. Ambito, fuentes, metodología. La experiencia navarra”, *I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, Bartzelona, 1991, 99-110.
- “Pamplona y sus nombres”, FLV, 57, 1991, 55-76.
- “El Vasconce en Urraul alto”, FLV, 58, 1991, 227-245.
- Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoain*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1992
- “El vasconce en Aoiz (siglo XVII)”, FLV, 59, 1992, 71-96.
- “El Euskera en Gallipienzo y la Val de Aibar (1571)”, FLV, 60, 1992, 271-275.
- Jimeno Jurío eta beste:** *Nafarroa. Toponimia eta mapagintza*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1991.
- Nafarroa. Toponimia eta mapagintza*, 11 ale, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1992.
- Karasatorre eta beste:** *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia*, Altaffaylla Kultur Taldea, Tafalla, 1991.
- Knörr, E.:** “Sobre la recogida y el estudio de la toponimia en Alava: pasado y presente”, *I Jornadas de Onomástica / I Onomastika Jardunaldiak* (1986), Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 65-92.
- “Un sermón de Martin Joseph Marcotegui, de Goñi, predicado en Ollo (1777)”, *Luis Villasanteri omenaldia*, Iker-6, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 223-242.
- Lacarra, J. M.:** “Onomástica vasca del siglo XIII”, RIEV, 21, 1930, 247-254.
- Vasconia medieval. Historia y filología*, SJU, Donostia, 1957.
- “Documento de Irache (1283) referente a Cirauqui”, FLV, 17, 1974, 165-182.
- Lacasta, G.:** *El euskera en el Alto Aragón*, argitarara gabeko lana.
- Lacoizqueta, J. M.:** *Diccionario de los nombres eúskaros de las plantas*, Iruñea, 1888.
- Lapuenta, L.:** “Toponimia amescoana”, FLV, 21, 1975, 393-410.
- Larramendi, M.:** *Diccionario Trilingüe del castellano, basconce y latín*, Gipuzkoako Aldundia, Donostia, 1745.
- Larrasquet, J.:** “Phonétique du basque de Larrajá (quartier de Barcus)”, RIEV, 23, 1932, 153-191.
- Legarda, A.:** “Uterga, en su catastro de 1854”, FLV, 24, 1976, 419-438.
- Leizaola, F.:** “Toponimia del valle de Atez”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 405-421.

- Lekuona, M.:** "Textos vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella (Material para el estudio de la variedad dialectal del Alto Navarra Meridional de la zona estellesa)", *FLV*, 15, 1973, 369-390.  
 -"Contribución a la toponimia vasca. Toponimia de tipo militar", *Eusko Ikaskuntza, Hizkuntza eta literatura*, 1, 1982, 31-36.  
 -"Léxico latino en la toponimia militar vasca", *Eusko Ikaskuntza, Hizkuntza eta literatura*, 1, 1982, 37-42.  
 -"Euskalerriko toponimoak geografo klasikoetan", *RIEV*, XXXI, *Julio Caro Baroja jaiaren omenez*, Donostia, 1986, 905-907.
- Letamendia, J. A.:** "Hondarribiko hizkera Roque Jazinto Salazarren predikuan (1778)", *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 497-533.
- Lhande, P.:** *Dictionnaire Basque-Français*, Gabriel Beauchesne argitaratzailea, Paris, 1926.
- Líbano, A.:** *El Romance Navarro en los Manuscritos del Fuero Antiguo del Fuero General de Navarra*, PV-CSIC, Iruñea, 1977.
- Lizarraga, J.:** *Dotrina christioarén cathechima*, PV-Euskaltzaindia, Iruñea, 1979.  
 -*Koplak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.  
 -*Urteko igande guzietarako prediku laburrak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.
- Lizundia, J. L.:** "Euskal Komunitate Autonomo eta Nafarroan toponimoen ofizialtasun eta seinaleztapenez legeria eta beronen aplikazioa", *I Jornadas de Onomástica / I Onomastika Jardunaldiak*, (1986), Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 323-334.  
 -"Euskal exonimoez", *Iker-6*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 297-300.
- Lodares, J.:** "Las Monedas: una hipótesis toponímica", *RFE*, LXXI, 1991, 145-151.
- Loidi, J. A.:** "Aingeru Irigaraien oroimenez", *Aingeru Irigarayri omenez*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 423-434.
- López, T.:** "Contribución a un catálogo de ermitas de Navarra", *CEEN*, 21, 1975, 457-492.
- López de Guereñu, G.:** "Más voces alavesas", *Euskera*, XVIII, 1973, 119-149.  
 -"Toponimia de Contrasta", *Piarres Lafitte-ri omenez*, *Iker-2*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 415-423.  
 -*Toponimia alavesa seguido de mortuorios y despoblados y pueblos alaveses*, Euskaltzaindia, Bartzelona, 1989.
- López Mugartza, J. C.:** *Anso-Erronkari mugaldeko toponimia erkatua*, argitara gabeko lana.
- López Selles, T.:** "Contribución a un catálogo de ermitas de Navarra", *CEEN*, 21, 1975, 457-492.
- Llorente Maldonado de Guevara, A.:** "Topónimos salmantinos y repobladores vasconavarros", *Symbolae Ludovico Mitxelena*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1985, 721-734.  
 -"Las denominaciones correspondientes a las lexías de la lengua estándar *arroyo, torrentera, manantial*, y *terreno pantanoso* en Zamora, Salamanca y Avila (I)", *RFE*, LXIX, 1989, 253-275.  
 -"Las denominaciones correspondientes a las lexías de la lengua estándar *arroyo, torrentera, manantial*, y *terreno pantanoso* en Zamora, Salamanca y Avila (II)", *RFE*, LXX, 1990, 71-89.  
 -"Topónimos abulenses y repobladores vascos", *I Onomastika Jardunaldien agiria. Toponimia. Gasteiz*, 1986ko apirila, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 177-197.
- Marcos Marín, F.:** "Latín tardío y romance temprano", *RFE*, LXIV, 1984, 129-145.  
 orr.
- Marcos Pous, A.:** "Una nueva estela funeraria hispanorromana procedente de Lerga (Navarra)", *PV*, 80-81, 1960, 319-333.
- Martín, M.:** *Colección diplomática de los reyes de Navarra de la dinastía de Champaña. 1. Teobaldo I (1234-1253)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1987.
- Martinena, J. J.:** *Catálogo Documental de la Real Colegiata de Roncesvalles (1301-1500)*, PV-CSIC, Iruñea, 1779.

- Martínez, J.: "El topónimo *Jandaq* en las tahas de Fereyra, Poqueyra y Xubiles en 1527", RFE, LXII, 1982, 77-89.  
 -"Contribución al estudio de la toponimia menor mozárabe granadina", RFE, LXV, 1985, 1-24.
- Masu Nitta: *Notas lingüísticas sobre vasquismos y topónimos de la zona de Eslava*, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea, 1980.
- Menéndez Pidal, R.: *Orígenes del español*, Espasa-Calpe, Madril, 1950.  
 -*Toponimia prerrománica hispana*, Gredos, Madril, 1952.  
 -*Manual de gramática histórica española*, Espasa-Calpe, Madril, 1977.
- Menéndez Pidal, R. / Tovar, A.: "Los sufijos españoles en «-z», y especialmente los patronímicos", BRAE, 62, 1962, 371-460.
- Merino, J. J.: "La lengua vasca en la Rioja y Burgos", CSIC, Logroño, 1978.
- Meyer-Lübke, W.: "La desaparición de la *n* intersilábica en vascuence", RIEV, 15, 1924, 224-238.
- Mitxelena, K.: *Dictionarium linguae cantabrigae (1562)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1958.  
 -*Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madril, 1964.  
 -*Apellidos vascos*, Txertoa, Donostia, 1973.  
 -*Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1977.  
 -"Un catecismo salacenco", FLV, 39, 1982, 21-42. orr.  
 -"De onomástica aquitana", *Lengua e historia*, Paraninfo, Madril, 1985, 409-445.  
 -"Los nombres indígenas de la inscripción hispano-romana de Lerga (Navarra)", *Lengua e historia*, Paraninfo, Madril, 1985, 446-457.  
 -"Esaera zahar baten bigarren agerraldia", *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 209-217.  
 -*Palabras y textos*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1987.  
 -*Sobre historia de la lengua vasca*, 2 ale, SFVJU, Donostia, 1988.  
 -*Euskal idazlan guztiak. Hizkuntzalaritzaz-II*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988.  
 -"Hitz eta izenen jatorriaz", *I Jornadas de Onomástica / I Onomastika Jardunaldiak*, (1986), Euskaltzaindia, Bartzelona, 1991, 25-34.  
 -"Anotaciones para un curso de Lingüística general", FLV, 57, 1991, 5-27.  
 -*Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia - Desclée De Brouwer-Mensajero, Bilbo, 1987az geroztik.
- Moll, J. eta beste: *Toponimia i cartografia. Assaig de sistematització*, Institut Cartogràfic de Catalunya, Bartzelona, 1985.
- Moret, J.: *Anales del Reino de Navarra*, Tolosa, 1890.
- Moreu-Rey, E.: "Recogida, clasificación, normalización y oficialización de un corpus toponímico: consideraciones críticas sobre una problemática según nuestra experiencia en Catalunya", *I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 37-47.
- Moutard, N.: "Etude Phonologique sur les Dialectes Basques-I", FLV, 19, 1975, 5-42.  
 -"Etude Phonologique sur les Dialectes Basques-II", FLV, 20, 1975, 141-189.  
 -"Etude Phonologique sur les Dialectes Basques-III", FLV, 22, 1976, 9-54.
- Múgica, S.: "El vascuence en los archivos municipales de Guipuzcoa", RIEV, 2, 725-733.
- Mujika, L. M<sup>a</sup>.: *Latina eta erromanikoaren eragina euskarán (euskal lexikoaren azterketa bide-etan)*, Sendoa, Donostia, 1982.  
 -"Errenterriako toponimoak (Materiale zenbait eta oharrak)", *Bilduma*, 1987, 145-191.  
 -*Toponimia. Fonetika. Lexikoa. (Legazpi eta Bergarako toponimia)*, Kriselu, Donostia, 1987.  
 -"Longidako toponimoak (Iturriak eta ohar filologikoak)", CEEN, 51, 1988, 115-164.



- “Gipuzkoako euskal toponimiazko materialeak”, *Euskera*, 33, 1988, 633-646.
- “El euskara en la toponimia de Burgos”, *Iker-6*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 311-347.
- Mujika, N.: “Toponimiaren erabilera praktikoaz”, *Jakin*, 55, 1989, 133-144.
- Munárriz, E.: “El vascuence en la vieja Navarra”, *RIEV*, 14, 1923, 517-534.
- “El vascuence en la vieja Navarra”, *RIEV*, 15, 1924, 22-28.
- Munita, J. A.: «*Libro Becerro*» del monasterio de Sta. María de la Oliva (Navarra): colección documental (1132/1500)., Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1984.
- Muñagorri, M. A.: “Euskal Autonomia-Elkarteko 1: 2500 eskalako maparen toponimia-antolaketa”, *I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 335-341.
- N.A.G.: “Una carta de D. Pedro José Samper, Vicario de Jaurrieta, dirigida al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *PV*, 70-71, 1958, 165-166.
- Narbaiz, A.: *Eibarko gatzizenak*, Eibarko udala, 1990.
- Obie: *Oiartzun bailarako mapa*, 1988.
- Bera lurraldeko mapa*, 1989.
- Oihénart, A.: *Atsotitzak eta neurritzak*, Herri Gogoa, Donostia, 1971.
- Oyharçabal, B.: “Euskararen mugez egin lehen mapak (1806-1807)”, *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra*. Agiriak *Iker-6*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 349-366.
- “Lehenbiziko inkesta geo-linguistikoak Euskal Herrian frantses lehen Inperioaren denboran: ipar aldean bildu dokumentuak”, *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 285-298.
- Omaechevarria, I.: “Nombres propios y apellidos en Oñate. Consideraciones histórico-lingüísticas”, *BRSVAP*, 1957, 4, 114-136.
- Ondarra, Fco.: “Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga (Valdizarbe)”, *FLV*, 35-36, 1980, 173-221.
- “Primer sermón en vascuence navarro (1729)”, *FLV*, 38, 1981, 147-173.
- “Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi”, *FLV*, 39, 1982, 133-228.
- “Textos en vascuence navarro de Baztán, Nuin y Urdazubi”, *FLV*, 40, 1982, 387-401.
- “Apeo de Baztán”, *CEEN*, 44, 1984, 5-47.
- “Tuan de Beriain eta perpaus konposatua”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 219-235.
- “Textos en vascuence en el pueblo de Goñi”, *FLV*, 49, 1987, 117-140.
- “Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)”, *FLV*, 53, 1989, 97-144.
- “Nafarroako Bertitzaranean aurkitutako euskal testuak”, *ASJU*, XXIII-3, 1989, 701-755.
- “Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. m.)”, *FLV*, 55, 1990, 73-121.
- “Lantz hiriko mendietan edestiaurreko oroitarri berriak”, *CEEN*, 56, 1990, 335-340.
- “Goñerrin aurkitutako beste sei testu”, *FLV*, 57, 1991, 131-168.
- “Goñerrin aurkitutako testuak (IV)”, *FLV*, 60, 1992, 297-333.
- “Bizkaierazko testu berri bat (1778)”, *Luis Villasanteri omenaldia*, *Iker-6*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 367-391.
- Oñederra, Miren: *Euskal Fonologia: Palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 1990.
- Oregui, J.: “Textos antiguos vascos. Acotaciones”, *FLV*, 60, 1992, 263-270.
- Oroz, Fco.: “Toponimia menor de la cuenca”, *FLV*, 9, 1971, 311-323.
- “¿Tafalla era vascófona a fines del siglo XVII?”, *FLV*, 26, 1977, 315-325.
- Orpustan, J. B.: “Sur les noms et toponymes basques dans un compte bas-navarrais du XIII<sup>e</sup> siècle (1264-1265)”, *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, *Iker-2*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 503-515.
- “A propos de Etxenika: Y a-t-il en toponymie basque des traces du numéral archaïque \*ika?”, *Julio Caro Baroja-ri omenaldia*, *RIEV*, 31, 1986, 2. alea, 921-931.

- Toponymie basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele, 1990.
- “Arteko kontsonante bat”, *I Jornadas de Onomástica / I Onomastika Jardunaldiak*, (1986), Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 307-318.
- Ostolaza, I.:** *Colección Diplomática de Santa María de Roncesvalles (1127-1300)*, PV-CSIC, Iruñea, 1978.
- Pagola, R. M.:** “Euskal sistema fonetikoaren berrikusketaren beharraz”, *Iker-6*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 393-403.
- “Maila fonetikoa hizkuntz atlasgintzan”, *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 477-495.
- Pastor, V.:** “Toponimia menor de Los Arcos”, *FLV*, 54, 1989, 193-241.
- Peillen, Tx.:** “Andoze ibarreko leku izen nagusiak eta xeheak”, *FLV*, 57, 1991, 89-105.
- “Aintzinako zubereraren aztarna batzu”, *FLV*, 59, 1992, 97-117.
- “Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk”, *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 247-272.
- Peñarroja, L.:** “El árabe /kañisa/ ‘iglesia’ en la toponimia española”, *RFE*, LXXI, 1991, 363-370.
- Pérez de Villarreal, V.:** “Arráyo, un lugar del Baztán. Estudio etnográfico”, *CEEN*, 56, 1990, 261-305.
- Pérez Olló, Fdo.:** *Ermitas de Navarra*, CAN, Iruñea, 1983.
- Polge, H.:** “Réflexions sur l’hydronymie basque”, *FLV*, 18, 1974, 307-323.
- “Bakiak egin”, *CEEN*, 26, 1977, 173-178.
- Ravier, X.:** “Toponymes gascons en r final sensible. Un fait de substrat aquitano-pyrénéen”, *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1985, 741-752.
- “Sur la phénoménologie du nom de lieu”, *I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 281-290.
- Real Academia Española:** *Diccionario de la Lengua Española*, Madril, 1970.
- Real Academia de la Historia:** *Diccionario Geográfico-Histórico de España*, 2 ale, Madril, 1802.
- Rebuschi, G.:** “Du rôle des variations dialectales dans l’élaboration des théories linguistiques”, *I Jornadas de Onomástica / I Onomastika Jardunaldiak* (1986). Agiriak, *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 31-51.
- Reta Janáriz, A.:** *El habla de la zona de Eslava (Navarra)*, PV-CSIC, Iruñea, 1976.
- Riezu, C.:** “Tafalla era vascofona a fines del siglo XVII”, *FLV*, 24, 1976, 363-365.
- Rijk, R. de:** “Euskal morfologiaren zenbait gorabehera”, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1981, 83-101.
- Rohlf, G.:** “La influencia latina en la lengua y cultura vascas”, *RIEV*, 24, 1933, 324-348.
- “Sur une couche préromane dans la toponymie de Gascogne et de l’Espagne du nord”, *RFE*, 26, 1952, 209-256.
- Le Gascon, Etudes de philologie pyrénéenne*, Pabe, 1977.
- Rotaetxe, K.:** “Hizkuntz sistema eta dialektologia”, *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 53-68.
- Ruiz, R.:** “Los nombres vascos y el nombre vascón de Eneko-I”, *FLV*, 27, 1977, 473-493.
- “Los nombres vascos y el nombre vascón de Eneko-II”, *FLV*, 28, 1978, 139-168.
- Sabirón i Herrero, B.:** “Evolución de la toponimia en Catalunya: síntesis histórica y situación actual”, *I Jornadas de Onomástica / I Onomastika Jardunaldiak* (1986), Euskaltzaindia, Bartzelona, 1991, 225-235.
- Salaberri Muinoa, P.:** *Legutioko udalbarrutiko toponimia*, argitaratu gabeko lana.
- Salaberri Zaratiegi, P.:** “Nafarroan erabilzen diren zenbait toki-izenez”, *FLV*, 53, 1989, 55-59.
- “Izen geografikoen inguruan”, *FLV*, 55, 1990, 65-71.
- “Toponimia, euskararen irakaskuntzaren lagungarri”, *Zutabe*, 27, 1991, 35-40.
- “Do.i atzizkiaren ondorengoak Nafarroan”, *FLV*, 57, 1991, 33-53.

- “Toponimia, dialektologiaren ikerbide”, *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 619-645.
- Salaburu, P.:** *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: Fonetika eta Fonologia*, 2 ale, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1984.
- San Martín, J.:** “Usa leku-izena eta bere esanahia”, *Euskera*, XIX, 1974, 267-265. orr.  
 -“Relación de caseríos del término municipal de Eibar, con citas cronológicas”, *CEEN*, 9, 1977, 61-91. orr.  
 -“Puntualizaciones sobre el euskara de Urraul alto (Navarra)”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 237-244.  
 -“Toponomástica eibarresa medieval”, *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae. Pars altera*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1985, 995-1006.  
 -“Introducción a la toponomástica guipuzcoana”, *I Jornadas de Onomástica / I Onomastika Jardunaldiak*, (1986), Euskaltzaindia, Bartzelona, 1991, 249-277.  
 -“Botanika lexikoa Eibarren eta Toribio Etxebarriaren *Lexicón lanari gehigarriak*”, *Euskera*, 35, 1990-2, 336-365.  
 -“Erdi Aroko etxe-izenak Elgetan”, *Euskera*, 36, 1991-3, 1001-1012.  
 -“Repertorio toponomástico de Elgueta”, *Euskera*, 36, 1991-3, 1013-1049.  
 -“Frantzisko Arrateren sermoietarik bat, Eibarko euskaraz”, *Iker-6*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 435-449.
- Sánchez, M<sup>a</sup>:** “Sobre el reparto de algunas variantes vascas en la toponimia alavesa”, *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae. Pars altera*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1985, 1017-1022.
- Santamarina, A.:** “Problemas para la restauración de topónimos gallegos”, *I Jornadas de Onomástica / I Onomastika Jardunaldiak*, (1986), Euskaltzaindia, Bartzelona, 1991, 237-246.
- Saralegui, C.:** *El dialecto navarro en los documentos del Monasterio de Irache (958-1397)*, PV-CSIC, Iruñea, 1977.
- Sarasola, I.:** *Hauta-lanerako euskal biztegia*, Donostia, Gipuzkoako Kutxa, 1984az geroztik.  
 -“Exotoponimoen euskal formaz”, *Euskera*, 36, 1991-3, 1051-1079.
- Satrústegui, J. M<sup>a</sup>:** “Apellidos vascos en documentos de Baja Navarra”, *BRSVAP*, 1957, 4, 249-251.  
 -“Versos satíricos vascos del año 1619”, *PV*, 78-79, 1960, 137-144.  
 -“Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca”, *Euskera*, 1961, 209-229.  
 -“Vocabulario popular”, *Euskera*, VIII-IX, 1963-1964, 255-283.  
 -“Textos salacencos del año 1780”, *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae. Pars altera*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1985, 1023-1043.  
 -“Textos dialectales de documentos religiosos vascos”, *FLV*, 49, 1987, 97-115.  
 -*Euskal testu zabarrak*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1987.  
 -“Materiales para la colección epistolar de Luis Mitxelena”, *FLV*, 54, 1989, 243-275.  
 -“Planteamiento general de la etnografía de Urbasa”, *Los Grupos humanos en la prehistoria de Encia-Urbasa*, Eusko Ikaskuntza, 1990, 55-70.  
 -“Texto vasco del Padrenuestro en versión del s. XVI”, *FLV*, 55, 1990, 37-47.  
 -“El Credo en versión vasca del siglo XVI”, *FLV*, 56, 205-228.  
 -“El Avemaría y la Salve en un documento vasco del s. XVI”, *FLV*, 57, 1991, 107-129.  
 -“El Euskera en Tierra Estella. Evolución histórica”, *Euskera*, 36, 1991-1, 93-124.  
 -“Cuatro promesas matrimoniales inéditas, en euskera del s. XVI”, *FLV*, 59, 1992, 55-69.  
 -“Zaraitzuko euskararen lekukoak”, *Luis Villasanteri omenaldia*, *Iker-6*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 459-472.

- Schuchardt, H.: "Basque et roman", RIEV, 1, 1907, 329-339.  
 -"Sobre el vascuence de Sara (Labort)", G. Bähr-ek itzulia, *Euskera*, 37, 1992-1, 253-292.
- Seguroola, I.: "Notas de Toponimia Ameskoana", ASJU, XXI-1, 1987, 264-275.
- Sevilla, M.: *Toponimia de origen indoeuropeo prelatino en Asturias*, Instituto de estudios asturianos, Oviedo, 1980.
- Tibón, G.: *Diccionario etimológico comparado de nombres propios de persona*, Fondo de cultura económica, Mexiko, 1986.
- Torreblanca, M.: "La evolución /kl-, pl-, fl-/ > /j/ en español", RFE, LXX, 1990, 317-327.
- Tovar, A.: "El nombre de Pamplona", FLV, 25, 1977, 5-8.
- Txillardegi: *Euskal Fonologia*, Ediciones Vascas, Donostia, 1980.  
 -*Euskal azentuaz*, Elkar, Donostia, 1984.
- Ulyar, E.: "Juan Miguel Gastesiren bi «Mayatzeko Illabetia: Mariaren Illabetia» (Marie Santisimeren Devocioa) 1850-1854", FLV, 49, 1987, 53-63.
- Urabayan, L.: "Notas al gráfico de la extensión en Navarra de los nombres de pueblos terminados en *ain*", RIEV, 16, 1925, 150-152.  
 -"Sobre cambios en los nombres de pueblos de Navarra", RIEV, 16, 1925, 289-297.
- Uranga, J.: "Documentos sobre la población de Navarra en la Edad Media", PV, 84-85, 1961, 137-176.  
 -"Notas sobre topónimos navarros medievales", CEEN, 41-42, 1983, 39-95.  
 -*Ujué medieval*, Ediciones y libros, Iruñea, 1984.
- Urquijo, J. de: "Nombres vascos, RIEV, 25, 56-57.
- Urtasun, B.: "Toponimia de Oroz-Betelu", FLV, 9, 1971, 333-346.
- Urzainqui, T.: "Aplicación de la encuesta etnológica en la villa de Urzainqui (Valle de Roncal)", CEEN, 19, 1975, 51-82.
- Velaza, J.: "De Toponimia del Valle del Ebro navarro", FLV, 57, 1991, 77-87.
- Veny, J.: "Fronteras y áreas dialectales", *Iker-7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 197-245.
- Villasante, L.: *Graziano Anduaga aitonaren uzta*, Itxaropena, Zarautz, 1961.  
 -*Axular-en biztegia*, Jakin, Arantzazu-Oñati, 1973.  
 -*Palabras vascas compuestas y derivadas*, Aránzazu, Oñati, 1974.
- Vinson, J.: "Importances des noms topographiques, lieux-dites, etc., pour l'étude de la langue basque", RIEV, 3, 1909, 349-356.
- Wright, R.: "Latín tardío y romance temprano (1982-88)", RFE, LXVIII, 1988, 257-269. orr.
- Yanguas, J.: *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, 3 ale, PV, Iruñea, 1964.
- Yrizar, P.: "Aparición y desaparición de las formas verbales en *-ako-*, *-eko-*, en el Alto-navarro meridional", *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 257-290.
- Zabala, P.: "Toponimia vasca. Hidrografía" BRSVAP, 1953, 245. eta hurrengoak.  
 -"Toponimia vasca. Hidrografía (continuación)", BRSVAP, 1957, 4, 295-312.
- Zaldúa, L. M. / Barrio, L.: *Hernani udalerriko toponimia bilketa historikoa*, argitara gabeko lana.
- Zenbaiten artean: *Geografía histórica de la lengua vasca*, Auñamendi, Donostia, 1966.
- Zuazo, K.: "Euskararen egoera Bonaparte-ren garaian", *Jakin*, 66, 1991, 11-43.
- Zubiaur, Fco.: "Toponimia de San Martín de Unx (Navarra)", CEEN, 9, 1977, 415-462.  
 -"Toponimia de San Martín de Unx según los amojonamientos de la villa en el siglo XVI", CEEN, 29, 1978, 255-271.  
 -"Estelas discoideas de la villa de Ujué (Navarra)", CEEN, 30, 1978, 493-520.
- Zubillaga, J. M<sup>a</sup>: "Observaciones acerca del nombre de Pamplona en vascuence", *Euskera*, 40, 1982, 485-492.

## 22. LABURDURAK

- AIO: *Aingeru Irigarayri omenaldia*, artikulua bilduma.
- APIM: "Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera", Azkue.
- ASJU: Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo».
- AV: *Apellidos vascos*, K. Mitxelena.
- BRAE: *Boletín de la Real Academia española*.
- BRSVAP: *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*.
- CEEN: *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*.
- CSIC: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
- DAON: "Do.i atzizkiaren ondorengoak Nafarroan", P. Salaberri.
- DARN: *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, J. Yanguas.
- DBF: *Dictionnaire Basque-Français*, Lhande.
- DCC: *Dotrina christioarén cathechima*, J. Lizarraga.
- DCECH: *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, J. Coromines / J. A. Pascual.
- DEV: *Diccionario etimológico vasco*, M. Agud / A. Tovar.
- DGH: *Diccionario Geográfico-Histórico de España*, Real Academia de la Historia.
- DIMV: *Diccionario ilustrado de mitología vasca*, J. M. Barandiaran.
- DRAE: *Diccionario de la Lengua Española*, Real Academia Española.
- DRPLV: *De re philologica linguae vasconicae*, A. Irigoyen.
- DNEP: *Diccionario de los nombres éuskaros de las plantas*, J. M. Lacoizqueta
- DT: *Diccionario Trilingüe*, M. Larramendi.
- DTR: "De toponimia roncalesa", B. Estornés.
- DVEF: *Diccionario vasco-español-francés*, Azkue.
- EAE: *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia*, Karasatorre eta beste.
- EAEL: *Euskalerriko Atlas Etnolingüístikoa*.
- EENEL: *El Euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas*, A. Echaide.
- EETE: "El Euskera en Tierra Estella", J. M<sup>a</sup>. Satrustegui.
- EFP: *Euskal fonologia: palatalizazioa*, L. Oñederra.
- EN: *Ermitas de Navarra*, Pérez Ollo.
- EPB: *Éléments de Phonétique Basque*, H. Gavel.
- ESDA-II: *Estudios sobre el dialecto aragonés-II*, M. Alvar.
- ETC: *Estudis de toponimia catalana*, J. Coromines.
- ETB: *Estudio toponímico de Burlada*, Jimeno Jurío.
- ETTVC: *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, A. Irigoyen.
- FHV: *Fonética histórica vasca*, K. Mitxelena.

- FLV: *Fontes Linguae Vasconum*.
- HEE: *Hitz elkartuak euskaraz*, M. Azkarate.
- HGPV: *Historia general del País Vasco*, Caro Baroja.
- HLEH: *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, I. Sarasola.
- IBCNJL: "Inventario de los bienes de la casa nativa de Joaquín Lizarraga", J. Apecechea.
- ICT (II, III): "Índice completo de topónimos citados en el Becerro antiguo de Leyre", R. Ciérbide.
- Id.: Idem.
- IEA: Iruñeko eliz barrutiko artxibategia.
- IG: "Izen geografikoak", A. Irigoyen.
- IGI: "Izen geografikoen inguruan", P. Salaberri.
- K.: karpeta.
- Kap.: kapeilania.
- Kart.: kartoia.
- Kat.: katastroa.
- LA: Libro de arriendos.
- LEA: Lergako eliz artxibategia.
- LEEE: *Latina eta erromanikoaren eragina euskaraz*, L. M<sup>a</sup>. Mujika.
- Lib.: liburua.
- LVRLOCM: *La lengua vasca en relación con la antroponimia y otras cuestiones medievales*, A. Irigoyen.
- LVTV: *Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas*, L. de Eleizalde.
- MGHE: *Manual de gramática histórica española*, Mdez. Pidal.
- MT: "Mezkitrizko toponimiaz", O. Ibarra.
- MV: *Morfología vasca*, R. M. Azkue.
- NAO: Nafarroako Artxibategi orokorra.
- NHI: *Nafarroako herri izendegia*, Euskaltzaindia.
- NTEP: *Nafarroako toponimia eta mapagintza*, Jimeno Jurío eta beste.
- OEH: *Orotariko Euskal Hiztegia*, K. Mitxelena.
- Or.: orrialdea.
- Org.: orrialde ginberra.
- OV: "Onomástica vasca del siglo XIII", J. M<sup>a</sup>. Lacarra.
- PATO: *Pasaiaiko toponimia*, A. Elortegi.
- PDNR: *Primeros documentos navarros en romance*, R. Ciérbide.
- PRA: Protokolo artxibategia.
- PT: *Palabras y textos*, K. Mitxelena.
- PV: Príncipe de Viana, erakundea eta aldizkaria.
- PVCD: *Palabras vascas compuestas y derivadas*, L. Villasante.
- RFE: *Revista de Filología Española*.
- SHLV: *Sobre historia de la lengua vasca*, K. Mitxelena.
- STPVN: *Sobre toponimia del País Vasco norpirenaico*, A. Irigoyen.
- TA: *Toponimia alavesa seguido de mortuorios y despoblados y pueblos alaveses*, G. López de Guereñu.
- TAM: "Toponimia amescoana", L. Lapuente.
- TAV: *Textos arcaicos vascos*, K. Mitxelena.
- TCO: "Toponimia de la comarca de la Oliva", R. Ciérbide / G. Herrero.
- TCOM: *Tratado de como se ha de oyr missa*, J. de Beriayn.
- TCPCA: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoain*, Jimeno Jurío.
- TCPCC: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Jimeno Jurío.
- TCPCG: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Jimeno Jurío.
- TCPCI: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, Jimeno Jurío.

TCPCO: *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, Jimeno Jurío.

TDI: "Toponimia, dialektologiaren ikerbide", P. Salaberri.

THET: *Toponimia histórico-etnográfico de Tafalla*, Jimeno Jurío.

TI: "Toponimia de Iturmendi", Nicolás Arbizu.

TOB: "Toponimia de Oroz-Betelu", B. Urtasun.

TVA: "Toponimia del valle de Atez", F. Leizaola.

UEA: Uxueko eliz artxibategia.

UGDEN: *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*, A. Irigaray.

UIGPL: *Urteko igande guzietarako prediku laburrak*, J. Lizarraga.

UM: *Ujué medieval*, J. Uranga.

UUA: Uxueko udal artxibategia.

VM: *Vasconia medieval*, J. M<sup>a</sup>. Lacarra.

VN: *Vocabulario navarro*, J. M<sup>a</sup> Iribarren.

Zkia.: zenbakia.





## 23. IZEN-AURKIBIDEA

- Abad, Abadía 95, 177, 311, 577, 665, 709, 923  
Abaiz, Abaizbidea, Abaizgibel, Abaizko pausua, Abaizko zuloa, Abaizmuga, Abaizpau-  
sua, Abaitzabal 49, 50, 53, 94, 171, 177, 178, 343, 577, 709, 710  
Abeaga, Abeta 68, 485, 885  
Abejar, Abejera 95, 311, 485, 710, 923  
Abengoa 710  
Aborral 710  
Abuñaga 711  
Acequia 312  
Acotado 912  
Adamakurrasakanbarrena 814  
Adobería(s) 178, 578, 711, 712  
Ageza, Agezabidea 105, 106, 343, 663  
Agoitz 106  
Agua, Dos Aguas 476, 485, 512  
Aguilar(es), Aquilar 96, 712, 713  
Aho, ago 618  
Aiareta 70, 664  
Aiscogayna 69  
Aitzandia, Aitzandieta, Ayçandieta, Anchandieta 23, 24, 71, 713, 714, 715  
Aitzetako aldapa, Aitzetako errealdapa 70, 578, 579  
Aitzulatua, Aitzuloa 145, 178, 923, 926  
Aizkanbela, Arganbela 447, 715  
Aizketa, Aizkieta, Aizpeaga, Aiscogayna 35, 71, 473, 488, 716  
Akala 664  
Akelarre, Akerregi, Akerregiberokia 579, 580  
Akirazabal 94, 717  
Alameda, Alamera 718, 897  
Alboros, Alborosa 1087  
Alboz, Albozko harana, Albozko haranbarrena 51, 343, 345  
Alburuxina 180  
Alcaz, Alcalaz, Alcalete(s), Alkazar, Arcal, Arcalaz, Arcaletes, Arcas, Arkazar 345, 586,  
665, 925

- Aldabea(s), Aldagora, Aldaia, Aldaidarrea, Aldaiondoa, Alda(i)zkia, Aldako aldapa, Aldapa, Aldapea, Aldatz, Aldea, Aldeko euntzea, Aldeko harana, Aldeko kaskailua, Aldeko mendia, Aldeko muga, Aldemuga, Aldeondoa 56, 78, 91, 92, 163, 164, 165, 180, 312, 346, 580, 581, 712, 713, 714, 718, 719, 720, 734, 899, 900, 901, 913, 923, 932, 1072, 1074, 1075
- Aldamara 721
- Algunjina 181
- Aliaga 35, 722
- Aljibe 723
- Almendros 723
- Alorbiribil, Alormakurra, Alormearra, Alorrandia, Alorrandipea, Alorzar 486, 533, 581, 664
- Altamira 972
- Alto, Altico 181, 182, 248, 313, 582, 664, 723, 724, 725, 923
- Altxirribidea 346, 725, 924
- Altxu(n)bidea 346, 582, 725
- Alveo 346
- Amaia, Amayagaña, Amayarena 487
- Ameka, Amekaurrun, Amecabaita, Amecarena 925
- Amikarren 182
- Amolate, Amoreku 347
- Amorebieta, Amorrobieta 806
- A(i)mustil 1065
- Andalubios 313
- Andiaga, Andimendia, Andia 36, 174, 726
- Anderenobela, Andrealorra, Andreberro, Andrebutzu, Andrenitalarraña, Andrenobia, Andresoro 24, 582, 726, 727, 1077, 1081
- Andua, Andugoiena, Anduko mendia, Anduko pausua, Andupausua 91, 583, 584
- Andurkoa, Andurra, Butzuandurkoa, Gutiandur 487, 1077
- Anica 96
- Ansorena 81
- Antillón 665
- Antón 347
- Antoñanzas 347
- Añadizioa 566
- Aperregi 1082
- Apaiz, Apez, Apezalorra, Apezarrena, Apeztegiarra, Apeztegiaratzeta, Apeztegui 49, 82, 95, 96, 182, 245, 348, 727, 791
- Aporpari 584
- Aragón 348, 728
- Araiz 1063
- Aramendia 183
- Arana, Aranaldapa, Aranandia, Aranbazterra, Aranbegia, Aranbeltz, Aranea, Araneko aldapa, Araneko erreka, Arangaitz, Arangaizko txaparrondoa, Aranguren, Arankoe-ta(koa), Aranportillua, Aragoyti 69, 98, 99, 104, 183, 184, 222, 313, 348, 478, 488, 585, 665, 834, 1089
- Aranda, Arando, Arano 202, 403
- Arangurbe 133
- Arandui 1077
- Arantzeduia 61, 585
- Aranzulo, Aranzulobidea 488

- Arasa 1072  
 Arazagi 349  
 Arazu 349  
 Arberroa, Alberroa 181  
 Arbolaga, Arbolera 36, 665, 728  
 Ardantzako hegia, Ardantzeandia, Ardantzearte, Ardantzebarrena, Ardantzebarreneta, Ardantzebarrenetakoiturrieta, Ardantzexarra, Ardantzezarra, Ardanzetavidea 20, 24, 65, 77, 80, 91, 100, 349, 666, 825  
 Ardil 184  
 Ardui, Ardoi, Arduibarrena, 61, 62, 729  
 Aréa, Areamendikoa, Areasueta, Areatxóta, Areatzea, Areatzeta, Arékua, Ariakua 71, 78, 185, 313, 586, 587, 730, 1072, 1074  
 Arenal(es) 185, 313, 350, 587  
 Argeinzokoa, Arginzokoa 182  
 Arginerreka, Arguiñarena, Arguingorria 82, 100  
 Argizabala 666  
 Aria 1074  
 Aristuziaga, Aristuzia 32, 36, 49, 730  
 Arizketa, Arizketagibela, Arizketamendia, Arizketamendigaña, Arizketamendiondoa, Arizketamendipea 65, 94, 101, 102  
 Aritzabalegia, Aritzandieta, Aritzederra Arizkomendia, Arizmakur, Ariztu, Ariztuia, Aritçtoy 23, 36, 71, 119, 248, 489, 587, 659, 666  
 Ariztaga 185  
 Arizua 1072  
 Armendola, Armendolar, Almendrera 264  
 Armillos, Armillosbidea 56, 926  
 Arozarena 81  
 Arrakoaberoki, Arrakoagaña 587, 588  
 Arranoarria, Arranomendia, Arranomendiondoa, Arranotegia 186, 365, 972  
 Arraskutzea 731  
 Arrate, Harrarte, Herratea, Arributzua, Arridokieta, Arritokieta, Arriluzea, Arrimukurueta, Arboton, Armokilloa, Armucullueta, Arrimotto macurra, Arrimuruskaldea, Arri muscullua, Arri muscullucua, Arritzea, Arriurdina, Arriurdinaga, Arriurdiñeta, Arrixauzkietea, Arrixauzkuneta, Arrizabala, Arrizabalagaña, Arrizertangorte, Arrizutaga, Arrizutagaña, Arrizutagarana, Arrizutagartea, Arrastraga, Arrobia, Arrondoia, Aldarrondoia 25, 26, 32, 33, 34, 65, 66, 70, 80, 102, 185, 186, 187, 188, 263, 350, 588, 589, 731, 732, 927  
 Arrinzal (ikus Larrainzar)  
 Arrizulatua 926  
 Arroia, Arroiaportillua, Arroila 589, 590, 1065  
 Artabakoitz, Artadu(a), Artadualdea, Artadubarren, Artaduburua, Artadugibela, Artaduondoa, Artamaldeta, Artamendia, Artatzea, Artatzealdea, Artatzegaña, Artazabal, Artea, Arteaga, Artealdea, Arteandia, Arteesai, Artegibela, Arteko aldea, Artekkoa, Artemakur, Arteta, Artezabal(a)gaña, Artezabalaga, Artezabalaondoa 24, 32, 33, 36, 59, 66, 78, 103, 188, 189, 190, 191, 192, 193, 248, 258, 259, 590, 667, 732, 733, 734, 820, 1085, 1087  
 Artaso, Artaxogoiena, Artaxoiturria, Artaxona, Artazu 91, 351, 352, 353  
 Arteko haitz, Arteko erregua 734, 1077  
 Artesate, Atesatekoa, Ategarate 104, 109, 804, 927  
 Artica(s), Artiga(s) 104, 193, 489, 490, 667  
 Artisar 734

- Artola 172  
 Artzegarratze 735  
 Artxilabe 193  
 Artzilaburua 193  
 Arugai 667  
 Arzamuka 104  
 Arzizuloa 1082  
 Arzuloa 591  
 Aspra 1088  
 Astabidea, Astalorra, Astalorralde, Astalorraldeta 49, 71, 667, 668, 735  
 Astigar, Astigardia, Astigarra, Astigartz, Astigartzelaia 1078  
 Astrakastillu 736  
 Atajo 353, 736, 737  
 Atalaieta, Atalaiondoa, Atalasietsa, Atalalay 72, 194, 668, 927  
 Auntzaldapa, Auntzenkorraleta, Auntzetxalde, Auntzetxe, Aunzkorlak, Aunzkortea, Aunzsare, Aunztegia 69, 490, 737  
 Aurcaceco alorra, Aurcascoa, Aurcasco ardanza, Aurrcazco ardanceac, Aurcasosoroa 676  
 Auria, Aurino(s) 26, 354, 738  
 Auzalorburua, Auzalorra, Auzaberro, Auzesoro 165, 481, 928  
 Avellanera(s) 591, 656  
 Ayape 96, 137  
 Ayesa, Ai(h)erza, Aiesta, Aya, Aia, Aio 105, 106, 354, 668  
 Ayuntamiento 195, 739  
 Ayzperena, Aispe 81  
 Aytun aran, Aytunarana, Asturiain 41  
 Azekialdea 314  
 Azkoneta, Azkonobieta, Azkonárta 34, 67, 202, 355  
 Azpieta 71, 739  
 Azpilkueta 67, 314  
 Azterain, Azterainbidea, Azterainondoa 195, 196  
 Azute 355, 928  
 Badina de Andigarra, Badinas 356  
 Bagarana, Balgarandega 739  
 Bagobil (ikus Pagobil)  
 Baigorri(a), Baigorrigibela 808  
 Baiunga 1073  
 Bakuiturri 591  
 Bakundi 196  
 Balarata, Balaratabarrena 41, 107, 356, 357  
 Balarrengu, Barrelengu 357  
 Balatua 490  
 Balora, Baluso 928, 929  
 Balsa, Balsica, Bal(t)alde, Bal(t)sarana, Baltsa, Balxaldea 166, 197, 314, 315, 358, 359, 491, 740, 741, 742, 929  
 Balsalarraña 742  
 Baluriarana 41, 197  
 Barallas 742  
 Baranditurri 359, 360  
 Baratzeandia, Baratzeta, Baratzetazokoa 73, 591, 930  
 Barazula 491  
 Bardatzeta, Bardazeta 67, 360

- Bardena, Bardenica 360, 361  
 Barganarrutua 258  
 Bariaín 199  
 Barizizartas, Barizibarretas 1078  
 Barkazio 566  
 Barón 930  
 Barranco, Barrankoa, Barrankoandia, Barranquilla, Barranquizo 107, 198, 315, 362, 492, 592, 668, 743  
 Barrenginda, Barrendinda (ikus Dinda, Ginda)  
 Barrera(s), Barrerica 362, 492, 669  
 Barrio, Barriozar 108, 198, 199, 363, 492, 493, 592, 593, 669, 743, 744, 930, 931  
 Bartabustu, Bartaquilar, Bartasteka, Bartastekabarrena, Bartastekagoiena, Bartastekapor-tillua, Bartullo 364, 365, 366, 367, 368  
 Barués 108, 931  
 Basate(a) 368  
 Basandia, Basasagarra, Baserrekandia, Basoitxi 28, 315, 331, 593, 745, 912  
 Bastiligorra 368  
 Baztan 315  
 Beiremuga 92, 746  
 Beligaña 89  
 Belagia, Belaie, Belasoro 256  
 Belaunesarte 804  
 Belena 746  
 Beloso, Belosu 199  
 Beltranlarratz 80, 746  
 Beltz, Beltzuntzea 80, 669, 670  
 Bellope, Bellopéko erreka 87  
 Beneficio 368  
 Benegorri 316  
 Berage, Berageondoa, Beragu(a), Beraguarana, Beraguarria, Beraguarralde, Beraguarrondoa 92, 200, 369, 747, 748, 749  
 Beraiz 53, 750  
 Berango 1078  
 Beratxa 1063  
 Berdeaga 35, 493  
 Bereterbide, Beretermendia 670  
 Berjera, Bertxera, Berxera, Bercherape, Pertxera 670, 671, 912  
 Berokia, Berokiko hegia 825, 931  
 Berriko 671  
 Berro(s), Berroberrieta, Berroeta, Berroz, Berrauz, Berrozarreta, Berraquillu 53, 69, 200, 489, 490, 493, 747, 749, 750, 751, 1063, 1071  
 Beskos, Beskots, Bizkótsa 53, 54, 751  
 Besolaga 36, 752  
 Beuntza 77  
 Bidangoze 46  
 Bidaburua, Bidaceta, Bidagaina, Bidapea, Bidatza, Bidazbarrena, Bidazparrena, Bidazpea, Bideandia, Bideberria, Bidegurutzatua, Bidegurutzeta, Bidemakurra, Bide-mearra, Bideondoa, Bidertxi(a), Bidertxiburua, Bidezabala, Bidezarra, Bidezarreta 56, 108, 109, 200, 201, 316, 369, 494, 522, 593, 594, 752, 932, 933  
 Bidearagon, Bidefoz, Bidolite, Bidupaso 1065, 1066  
 Bidarmingo portillua 699

Bigas 54, 752  
 Biguri 594  
 Bikuaga 36, 753  
 Billeta 753  
 Billakukuru 370  
 Bintze 134  
 Biñaru, Biñarugoiena, Biñeru, Biñedo, Viñaru, Viñero 33, 933, 934  
 Biroeta, Biroetako alorra 65, 109, 671  
 Bitarteko harana 202  
 Biureta 654  
 Biurrun, Biurrunena 81  
 Bizarretas 201  
 Bizarrubia 370  
 Bizkai(a), Orbizkaia 91, 494, 495, 707, 1086  
 Bizkarda, Bizkardo, Bizkardondoa, Bizkarra, Bizkarranportillua 109, 118, 202, 203, 671  
 Bodega 203, 371, 754  
 Boiu, Boiuartea, Boiugain, Boiundoa, Boiuportillua 203, 205  
 Bojacales, Bojacar, Bojeral, Bujagar, Buxagar 67, 316, 671, 754  
 Bollo 371, 378  
 Bongain 203  
 Borboran, Borboranena 824  
 Bordaberriko baltsa 197  
 Borraz, Bornas 110  
 Bosque 671  
 Boxagarea 754  
 Boyeral 110, 371, 755  
 Bueltagunea, Bueltabidea, Biurguneta 205  
 Bularreta 934  
 Bural(es), Buraleta 71, 73, 316, 495, 672, 934  
 Burgaburu, Burgadi, Burgari, Burgaloki 755  
 Burlon, Burlonaldapa 595  
 Burnizirieta 71, 756  
 Burugain 205  
 Burunda, Brunda, Foronda, Furundarena 172  
 Busa, Busazarra 757, 758  
 Butzu(k)eta, Butzuaga, Butzuandia, Butzuandialdea, Butzuandieta, Butzuandurkoa, Butzubidea, Butzugaña, Butzumear, Butzunagusia, Butzupokale, Butzuungoa, Butxukoa 24, 66, 69, 205, 206, 487, 495, 670, 672, 759, 760, 814  
 Buzakabe, Buzakao 760  
 Buztin(e)a, Buztineta, Buztintz(e)a, Buztinzuloa, Buztiñ(e)a, Buztiñaga 32, 33, 78, 79, 206, 207, 317, 371, 496, 1078  
 Cabaña, Cabañetas 371, 496, 595, 761  
 Cabrería, Cabriteras 490, 738, 761  
 Cadena(s) 166  
 Calera 166, 207, 371, 935  
 Calle 207, 208, 372, 496, 497, 596, 761, 762, 935  
 Calvario, Calbarioaldea, Galbayoóta 110, 207, 497, 595, 762, 935  
 Calvo 111  
 Calzada 596

- Camino(s), Caminico 111, 166, 172, 208, 209, 210, 211, 212, 213, 214, 215, 216, 217, 218, 219, 220, 317, 318, 319, 372, 373, 374, 375, 376, 377, 378, 379, 380, 381, 382, 383, 384, 497, 498, 499, 500, 501, 502, 503, 504, 505, 506, 596, 597, 598, 599, 600, 601, 602, 603, 672, 673, 674, 675, 676, 763, 764, 765, 766, 767, 768, 769, 770, 771, 772, 773, 774, 775, 776, 777, 778, 779, 780, 781, 782, 783, 935, 936, 937, 938, 939, 940, 941, 942, 943, 944, 945, 946
- Campo(s), Camposanto 167, 173, 220, 319, 506, 676, 677, 946
- Canales 946
- Cantagallos 139
- Cantera, Canterica de las Piedras, Cantón, Cantonera 71, 384, 506, 713, 784, 798, 947
- Cañada 384, 603, 784, 947
- Capaburros 784
- Capellanía 784
- Caracierzo, Carasol 117, 270, 319, 385, 506, 677, 785, 947
- Carazurio 1074
- Carnicería 785
- Carrera, Carretera, Carretil 117, 385, 507, 785, 786, 947
- Casa(s), Casa vieja, Casasierra, Caserío...173, 319, 320, 385, 604, 665, 677, 787
- Cascajar, Cascajera, Cascajo(s), Cascallo(s) 117, 388, 507, 604, 787, 947
- Castellano 167
- Castillo(s), Castildollate, Castillar, Castellar, Castillazo, Castejón, Castelmunio 220, 385, 507, 604, 787, 788, 823, 1086
- Cebollar 677
- Cementerio, Camposanto 118, 220, 320, 385, 507, 677, 784, 789, 947
- Central 385, 386
- Cerrada, Cerrado(s) 220, 221, 320, 605, 677, 678, 789, 947
- Cerro (ikus Mandurro) 221, 320, 321, 507, 904
- Cinco Millares 789
- Clavería 507
- Clérigos 791
- Cobertizo 792
- Cofradía 118, 386, 508, 792, 948
- Común, Comuna 791, 792
- Cón de los Ladrones 793
- Concepción 386
- Conjurador, Conjurategui, Conjuratoqui, Conjuratorio 321, 508, 509
- Comparacioa 566
- Contienda 657
- Corona, Coronación, Coronazo 1087 793, 948
- Corral(es), Corralachos, Corralico, Corraliza 119, 221, 321, 386, 509, 605, 679, 793, 948
- Corseras, Coseras 120, 221, 388, 605, 794, 948
- Coscojar 119, 949
- Costera(s) 222, 321, 388
- Cotilla 509
- Cruz, Cruce(s), Cruceta(s), Crucillada 222, 388, 389, 509, 605, 794, 795, 796, 949, 1073
- Cuadro 321
- Cuartel 796
- Cuarto(s), Cuartochiguito 796, 797

- Cuatro Cuartos, Cuatro Esquinas, Cuatro Mugas 510, 797, 949  
 Cuesta 120, 167  
 Cueva(s), Covaza 389, 390, 794, 798  
 Curas 791  
 Chapar, Chaparral, Chaparrero, Chaparro 119, 167, 222, 322, 510, 679, 798, 949  
 Chiricantón 798  
 Chopal, Chopar, Chopera, Chopete, Chopo(s) 120, 322, 346, 390, 510  
 Dandaldea 390  
 Debajo de Casa, Debajo de las Casas 949  
 Debekuberri 912  
 Dekumazarra 391  
 Denekofila 1071  
 Depósito 120, 222, 511, 799, 950  
 Diezmo 392, 606  
 Dinda, Dindaerte, Drinda, Drindakoa, Drindabe, Drunda, Drundagaña 128, 172, 173, 198  
 Dolareta, Dolaretasaietsa 27, 73, 93, 950  
 Dona Milia, Donamarchel, Done Xurio, Donemiri 223, 511, 691  
 Donaya, Donayaldeco iruzquialdea 163  
 Donemondos 1071  
 Donpedrorensaratseta, Don Pedroren saratsa 66, 223  
 Dorreberria, Dorregibela, Dorreko alorra, Dorreko itxaurraldea, Dorrekoa, Dorreondoa, Dorreta, Dorretako portilua, Dorretaportillua, 66, 73, 223, 224, 322, 512, 679, 680, 799, 950  
 Dorrondeta, Dorrondiaga, Dorronditu, Dorrundi 36, 223, 392, 799, 951  
 Drinda, Drindabe 800, 801  
 Dudarecctas 1082  
 Egiguren, Eguren 422  
 Egoaberokia 951  
 Eguzkialdea 564  
 Ekarra, Ekarrea, Elcarrea, Elkarkiko 393  
 Elibidea 725  
 Elizalde, Elizapea, Elizarkieta, Elixattoa, Elixétto, Elizattoa, Elizattogibela, Elizaxarra, Elizondoa 74, 322, 680, 1063, 1079  
 Elka, Elkea, Elketxipia, Elgea, Elgeta 25, 224, 225, 394  
 Elordi(a), Elorrietako hegia, Elorzu, Eloso 61, 199, 512, 825  
 Enborduia (ikus Onborduia)  
 Enborretako lepoa 144  
 Encinal 173  
 Encomienda de San Juan 513  
 Enebezkiz 225  
 Engubelea 394  
 Entramas aguas, Entrepeñas 513, 654  
 Eode, Eodezelaia 94, 226  
 Epaiz, Epaizaran(a), Epaizko harana 49, 50, 174, 227, 228  
 Epila 447  
 Era(s), Erachas, Erica 121, 228, 322, 395, 513, 514, 606, 680, 801, 952  
 Erauso 121  
 Erbiña, Erbiñaga, Erbiñagabarrena, Erbiñagaburua, Erbiñagagoiena, Erbiñagaondoa, Erbiñagapausua, Erbiñako aldea, Erbiñako ordokia, Erbinburua, Ermin(aldea), Erminbidea... 32, 33, 228, 229, 230, 395, 396



- Erbitiarana, Erbitiain, Erbitian 41, 1064  
 Erengusue, Heransuguea 579  
 Eriturria, Eriturrimendigaña 230, 231  
 Erlaiondoeta 65, 121  
 Erlaskiaga 35, 606  
 Erlategitxar 311, 323  
 Erlosiana 801  
 Ermita(s) 121, 802  
 Errakina, Errekin(a), Errekinbazterra, Errekineta, Errekieta, Errea, Erreaburua, Errea-  
 pea... 65, 122, 323, 606, 607, 902  
 Erregosoro 123  
 Erregua, Erreguarana, Erregucoa, Erregumaiorea 324, 514, 689, 1077  
 Errekabitarte, Errekabiurreta, Errekagaña, Errekailluna, Errekailluneko malda, Errekal-  
 dea, Errekandia, Errekagaitza, Errekattoa, Errekazarra, Errekazokoa 20, 107,  
 121, 324, 396, 515, 555, 606, 654, 680, 950  
 Errengaitz 56, 802, 952  
 Errengoa 324  
 Errepresabarrena 607  
 Errepeidea, Erresoreta, Errezazua 28, 123, 211, 231, 983  
 Erripa, Erripalda, Erripazarreta, Erripazurieta 71, 458, 459, 802, 803  
 Erriturri 231  
 Errotaberria, Errotaberriko aldapa, Errotaldea, Errota(t)xa(r)a, Errotabidea, Errotaxarbi-  
 dea, Errotaxarburua, Errotaxaraldea, Errotaxarreko bidea, Errotaxarreta, Errotaz-  
 zar, Errotazarra 20, 25, 26, 69, 232, 234, 323, 385, 397, 515, 607, 608, 681,  
 953  
 Espligar 62  
 Esa 106  
 Esarte, Esate(a), Esateaga, Esatari, Esateria, Satea, Satia 422, 516, 803, 804, 1081  
 Escopizar 953  
 Eslaba, Eslava, Estelaba...23, 805  
 Espartal, Esparteta 1066  
 Etxateaizina 516, 804  
 Etxeandiet, Etxeberri, Etxeberriburua, Etxeondoa, Etxepea, Etxezarra 25, 71, 235, 325,  
 398, 805, 949, 954  
 Euntzea, Euntzeberri, Euntzeguti, Euntzekoa, Euntzeluzea, Euntzezar 24, 77, 78, 80,  
 104, 124, 235, 236, 256, 516, 608, 609  
 Ezkabiuzuloa 806  
 Ezkirriaga 36, 806  
 Ezpeldu, Ezpeleta, Ezpelketa(burua), Ezpelkieta, Ezpelkoa, Ezpelondoa 36, 66, 67, 101,  
 237, 238, 398, 806  
 Ezpelengua 1067  
 Ezperun, Ezporogi 325  
 Ezpondabe, Ezpondabeburua, Ezpondaburua, Ezpondapea 238, 239, 681  
 Ezprogui 681  
 Eztera 41  
 Facería(s), Facero, Fazeria, Fazero 174, 240, 398, 399, 516, 517, 610, 806, 807, 910,  
 954  
 Fadura 33  
 Faitía 326  
 Faja(s), Fajetas 124, 518, 610  
 Fayal, Fayales 240, 518, 740

- Femate 1067  
 Femoral(es), Femera, Femeral 610  
 Ferial 399, 611  
 Fermín 399  
 Fernandorena 82  
 Ferrer 399  
 Figaraza, Figueraza, Figueretas, Higueraza 807  
 Fondura 326  
 Fonputia 969  
 Fonteta, Fontaza 30, 124  
 Frailesoro 120  
 Frajineta 64  
 Franzesa, Frantsesan gurutzea 954, 955  
 Frazkorana 1067  
 Fresno, Fresnal(es) 326, 330, 808, 955  
 Frontón 124, 132, 241, 518, 808, 955  
 Fuentaza, Fuente, Fuentica(s) 124, 125, 241, 242, 326, 400, 401, 518, 519, 611, 681, 682, 808, 809, 810, 811, 812, 813, 955, 956  
 Gabaran, Gabran 519, 1086  
 Gabacho 814, 955  
 Gai(t)ze, Getze, Jaitz 79, 521  
 Gaiu, Gaiuportillua 521  
 Galaputzu 814  
 Galartza 1082  
 Galindarte 1063  
 Galipentzu, Galipentzu Berri, Galipentzubidea, Galipencocuzaldo 125, 401, 402, 1079  
 Gallego 402  
 Gallipienzo, Gallipienzo nuevo 242, 401, 402  
 Galloscantan 139  
 Galtzada, Galtzadako 104, 522, 524  
 Galtzina, Kaltzinalabea 67, 530  
 Galzarra(s), Galzargaina, Galzarrondo 1082  
 Ganbela, Ganbeleta, Ganbeletako idoye, Gambella...60, 403, 716  
 Ganalto 89  
 Garagarreta, Garagárta 202  
 Garaiondo, Garaizarra 391, 522, 682  
 Garanda, Garandako harana, Garandako zabala, Garandako zubia 94, 403, 404  
 Garate(a), Garategaina, Garai, Garaioa 104, 321, 327  
 Garbizu 1064  
 García Marra 1088  
 Gardel(a,e), Gardalain, Gardelain, Gardelainbidea, Gardelegi, Gardeleiz, Gardalamen-  
 dia, Gardelamendia, Kardelamendi, Kardiel 41, 42, 523, 682, 957  
 Garroiz, Garrués 49, 125  
 Garziaginenkorraleta, Garziarana, Garzeabidea 69, 523, 822  
 Gatzarrieta 69, 523  
 Gaztelu(a), Gaztel(u)ondoa, Gaztelusaietsa, Gazteluzargaña, Gazteluzargibela, Gaztelu-  
 zarra 93, 220, 242, 611, 612, 815, 957, 1064  
 Gelera 405  
 Gesalaga, Gesalagabidea, Gesaliturri(a), Gesaliturrieta, Guesal erregua 35, 73, 126, 324,  
 524, 957

- Gezari, Gaizari, Gezariagerria, Gezaribarrena, Gezaribide, Gezariburua, Gezarigoiena, Gezariondoa, Gezariporillua 83, 126, 127, 128, 243, 244, 405, 406
- Ginda, Gindertea 128, 198
- Ginebral, Ginebro 129, 167, 244
- Gisua, Gisutzea 67, 79, 371, 406
- Gizaiduri, Gizairudiaga, Gizairudigaña, Gizairudiondoa 244, 327, 524
- Gongora 1073
- Gorena 957
- Gorostartzua, Kostartzua 522
- Gorrillonar 525
- Gorrio, Gorriodaldea, Gorriobidea, Gorriiondoa 682, 683
- Gorte, Gortederreta, Kortaki 71, 816, 901
- Granero 816
- Gravera 817
- Grazietaren ardantzea 406
- Gristioa, Gristioburua, Gristiodiiburua, Kristioa 244, 245
- Gudilla, Cutilla 406, 407
- Gurbeki, Gurbeta 74, 901, 958
- Gurbitueta 73, 958
- Gurrutxo 1064
- Gurutzea, Gurutzealdea, Gurutzegibela, Gurutzepea, Gurutzeta, Gurutzezabala 65, 129, 407, 525, 612, 817
- Haitzeko mirua 73, 959
- Harana 409
- Harginen erreka 129
- Harizko 101
- Hegia 825
- Herrería 407, 818
- Hiri 82
- Hondo, Hondón, Fondón 411, 526
- Horno, Ornaz, Fornaz 245, 345, 411, 1087
- Hospital 612
- Hoya(s), Hoyo, Foya 408, 411, 613, 683, 818
- Huerta (s), Huerto(s) 245, 613, 684, 959
- Ibarra, Ibarreko harana, Ibarreko zabala 94, 408, 410
- Ibón, Ibai, Ibaiondo 409, 411, 1064
- Idoi(a), Idoikikoa, Idoitxiki, Idozabal 60, 197, 389, 526, 535, 632, 818, 1067
- Iexarreta 67, 411
- Igaratza, Igaraz, Igarazburua 53, 526
- Igaziroa 818
- Iglesia 130, 245, 327, 684, 818
- Iguraimendi, Iguraimendikoa 24, 613
- Iguzkiagerria, Iguzkun(ea), Iguzkunondoa, Iruzkun 245, 246, 527, 684, 959
- Ijita 412
- Ijurieta 140
- Ikaiburu, Ikaiburuondoa, Ikaiturri, Ikapuru, Ikopuru 614, 615
- Ilarrerías, Illarral, Illarregi, Ilarrerria 167, 168, 184
- Ilunbeta, Illunbeta 564
- Inbilos, Ibilos, Ibillos, Enbilos, Ubilla, Ubilloa, Ubilotsa, Ubillus... 52, 56, 412, 413
- Inda (ikus Dinda)
- Indura, Indurain, Indurainzabala, Undurein 43, 684

- Indusi, Indusialzina, Indusigibel, Indusigibelaldapa, Indusigibeleko pausua, Indusigibelpausua, Indusiko aldapa, Indusiko sarga, Indusiturria, Inducia, Induciaga, Induzpe 91, 615, 616, 617
- Iparberoki, Iparraga, Iparragaburua, Iparragagoiena, Iparragerri(ko)a 34, 35, 328, 564, 617, 684, 685, 951, 959, 1086
- Irazar 168
- Iratxeta 168
- Iriarte(a), Iribarren(a), Irigoien(a), Iriondoa, Irixarburua, Irixarra, Irizarra 83, 130, 246, 246, 247, 328, 414, 415, 527, 528, 617, 618, 685, 818, 913, 960
- Iruinportillua, Irunbidea, Iruñe(a), Iruña, Irunberri, Ilunberri 247, 427, 528
- Iruridoia, Iruridoita, Irurmugeta 510
- Isavaica 556
- Isuina, Isunbizkar, Isunlarre, Isuña 912
- Itur del Pozo, Iturburua, Iturgutiagoa, Iturloiagoa, Iturralde(a), Iturrandurra, Iturr(i)arte(a), Iturreta, Iturta, Iturri(a), Iturrialdea, Iturriardantzea, Iturriberrri(a), Iturrieta, Iturrigibel(a), Iturriguren, Iturriki, Iturrimendigaña, Iturburumendigaña, Iturrinagusia, Iturriskoa, Iturritxiki(a), Iturrizabalaga, Iturrizabalagaondoa, Iturrizar(ra), Iturzarra, Iturzarraldea, Iturrondoa, Iturrotz, Iturrotzaldapa, Iturzubia 24, 25, 33, 65, 67, 74, 131, 132, 202, 247, 248, 328, 415, 422, 528, 529, 618, 619, 620, 621, 632, 686, 819, 820, 901, 961, 961, 1067, 1086
- Itxudur, Itxudurbazterra, Itxudurbidea 529, 530
- Itza, Itzaga 36, 80, 820, 1073
- Itzaladea 564
- Itzaurmakurra, Itzaurmakurraldea, Ichaustia, Ychaurcoeta, Ychaurradenecoa, Ychaurzabalecoa, Intxaurki 69, 74, 248, 249, 488, 901
- Izkagaztea 415
- Izkoarra, Izco 132, 530
- Izpikuduia, Izpikudia, Izpiko, Izpika, Izpiliku 62, 686
- Izurba (ikus Aitzuloa)
- Jabat 181
- Jamenduriz 1086
- Jandua, Janduba 181, 416
- Jardín 530
- Jares 52, 416
- Jaugia, Jaugibarrena, Jaugiburua, Auria 26, 686, 687, 864
- Jaun Done Belaio, Jaun Done Eztebe, Jaun Done Julio, Jaun Done Martia, Jaun Done Mikendi, Jaun Done Petri, Jaun Done Salbatore, Jaundonebelaiosaietsa, Jaundonejoanigibela, Jaundonejoanizgibel, Jaundonemikendiberokia, Jaundonepetriberokia, Jaundoneztebegibela, Juandemikendi, Juandepetri 27, 132, 150, 249, 250, 281, 297, 511, 621, 622, 623, 647, 687, 821
- Jaundelusaiets 250
- Jauregizar 646
- Jautu, Jautu barrena, Jautuarana, Xautuarana 20, 25, 26, 34, 961, 962
- Joanes, Joanis 622
- Juandigal, Juanica, Juangarzia, Juangarziarana, Juangarziasoroeta 416, 821, 822
- Jubiri 181
- Juego (largo) de Pelota 132, 275, 328, 416, 530, 554, 822, 963
- Juncar 963
- Jupitari 822
- Jurío 181
- Kalboren korralesarraldea 251, 824

- Kaltxista 823  
 Kandaraz 1063  
 Kanpobarrena 132, 964  
 Kapana, Kapanandia, Kapanaoondoa, Kapanaxarra 133, 417, 531, 964  
 Kapardoia, Kaparduia, Kapalarraña, Kaparrea, Kaparreta, Caparivar... 59, 61, 67, 252, 416, 417  
 Karkareta 66, 252  
 Kasedabidea 531  
 Kaskallu(a), Kaskallueta 65, 66, 69, 133, 252, 418, 532, 624, 1086  
 Kastillu 823  
 Kiñueta, Kiñuetabarrena, Kiñuetagoiena 963  
 Kobretxe 391  
 Korbarana 824  
 Korkua, Gorkua 964  
 Korralea, Korralandia, Kolarrebérris 824  
 Kostarangurbea 133  
 Kotxusko gurutzea 824  
 Kiñoa, Kiñueta 73  
 Kisulabe, Kisueta 67, 79, 140, 371, 418  
 Komunburua 532  
 Koroagaña 948, 958, 965  
 Korostia 532  
 Korraleta 328, 532  
 Korteko euntzea, Kortaki 533, 632  
 Kostobaro, Kostobarogaña...965  
 Kurzegi 825  
 Kukuluko balsaldea 197  
 Labeaga, Labekoaldea 371, 419, 624  
 Laezeta 1088  
 Lakar 1067  
 Laku(a), Lakuaga, Lakuagabarrena, Lakuagagoiena, Lakuarana, Lakubegi, Lakubeli, Lakuko harana, Lakumulatu...134, 419, 825, 826, 827, 828, 829, 884, 1071  
 Landa, Landalarratza, Landasuña, Landazubi, Landederra, Landibar 253, 254, 255, 420, 857, 1064, 1073  
 Lapurren xenda 445  
 Larduia 255  
 Larmalla 1064  
 Larrage, Larrageta, La Arrega, Larraga, Lerraga, Lerragueta 24, 30, 36, 830, 831, 1074, 1079  
 Larrain, Larrainzar, Larrainzarrondoa, Larreintto, Larrenpe, Larrañetako iturria, Larrañetako mendia, Larrañetako mendiako mendia 68, 91, 126, 174, 255, 395, 420, 421, 422, 1064  
 Larramendiko arria, Larrasatea, Larrasoil, Larrasoilburua, Larre, Larreandia, Larreberria, Larregureneta, Larrele(g)una, Larreluze, Larlutx, Larreta, Larrondoa, 68, 186, 256, 257, 329, 422, 423, 424, 533, 687, 966  
 Larraska 1075  
 Larrate, Larrateburua 1082  
 Larratza, Larratzandia, Larrazas, Relazas 56, 78, 80, 329, 746, 832, 932, 960, 983  
 Larroandia, Larrodandia, Latorreanda 486, 533, 534  
 Larrutu, Larrutuko malda, Narrutu 258  
 Larruzgibel, Larruzkain, Larruzkaingibel 50, 257, 258

Larziaga, Larzia 32, 36, 80, 832  
 Lasterra 1064  
 Latrain 1064  
 Lausitu, Lausitubidea, Lausituportillua 135, 966, 967  
 Lauza, Lauzatea, Lauzatzea 80, 833  
 Lavadero, Lavador 135, 833  
 Leache, Leatxe, Leatxearana, Leatxkaratea 534, 687, 967  
 Lecino, Lecinosa, Lecinera 59, 258, 424, 1087  
 Legarda 202  
 Legazpia 1079  
 Legaztui 61, 425  
 Lejua, Lejuga, Lejóna, Leióa 21, 425  
 Lentiscar 426  
 Leonkoa 136  
 Lerbeltz, Lerbeltztxiki 834, 835  
 Lerga, Lergabidea 259, 625  
 Lescar, Lezcal, Liscar (ikus Lezkadui)  
 Leskarbia 1079  
 Lezkadui(a), Lezkairu, Lezkatztea...59, 78, 79, 136, 260, 329, 426, 835, 836, 1064  
 Liatze, Liatzeta...68, 261, 426  
 Libarria 1075  
 Liburko 1086  
 Linar(es), Linarico, Linos 137, 260, 261, 330, 485, 534, 535, 688, 836, 968  
 Ligobutzueta, Ligusuñeta, Liñoputzueta, Lixuñeta, Luxiñeta, Luxiniarte, Lisoñetaco vizcarra 66, 73, 262, 485, 967  
 Lizardui(a), Lizardil, Lizarcoa, Lizarrandia, Lizarrekoa 185, 262, 326, 330, 488, 625, 626, 837  
 Lizoain 1064  
 Llano(s) 93, 137, 168, 331, 535, 626, 689, 690, 838  
 Loberos, Lobos 145, 968  
 Loiabidea, Loiaerregua, Loiaerreka, Loiasaietsa, Loya 137, 263, 514, 688, 689  
 Lope, Lopo, Lopera, Lupera, Loperena 81, 97, 145, 837  
 Lorte 1087  
 Losado 838  
 Louzako intxaurkieta 901  
 Luberri, Lubierra, Lupérta, Lupier 1067  
 Lunberi, Lumberri 427  
 Lurlarrutu 258  
 Lurrurdina, Lu(r)beltz, Lu(r)gorri, Lurzurieta 263  
 Luzazu, Luzazo 1080  
 Luzea, Luzia 838, 1087  
 Madonalorra, Madonao 838  
 Madre de Dios 838  
 Madura 33  
 Magdalena, Magdalenaldea, Magdalenasaietsa 93, 263, 536, 690  
 Maingos 264  
 Makarreta 71, 839  
 Makirriain 43, 690  
 Makotxa 1064  
 Makurra 334  
 Malabranka 968

- Malacara, Malacuesta, Malpaso, 92, 428  
 Malagata (ikus Balarata)  
 Maldandia 968  
 Malliturri, Maniturri, Maiturri, Mariturri, Mauriturri 626, 627, 839  
 Manantíos 137  
 Mandaputia, Mandaputiaburua, Mandaputiarana, Mandaputzuko erreka, Mandaputzuso-roak 969, 970  
 Mandarro, Mandurro, Mendarro(goiti), Mendarrua, Menduro, Mendurre, Mendurro, Mundarro 109, 118  
 Mano 429  
 Mantxiriturria, Mantxiriturrieta, Mantxiturria, Manchobia, Mantxo, Mainchivarrea 71, 72, 839  
 Mañuelas 57, 970  
 Marradas 429  
 Marta 429  
 Marti, Martia, Martie, Martiki, Martinico, Martisatea, Martixa, Martija 422, 804, 901, 927, 970  
 Maskar(ra), Maskarreta, Mascarres 839  
 Matureta 73, 971  
 Matxaz 54, 840  
 Martxela 331, 691  
 Matxinarmendola, Matxinarmendolaldea, Matxinen armendolaldea 264  
 Matxutzagaña 536  
 Mairu, Mairumendia, Mauru, Maururia, Maururiarana, Mairiturri (ikus Malliturri)...627, 691, 692  
 Markela 691  
 Mayo 429  
 Mazkolanda 1073  
 Mazuela 536, 693  
 Meozena 81  
 Meazu, Meazuko ereka, Meazukoerreka, Meatza, Meaz, Meazabal 68, 429, 430  
 Mediavilla 264, 627, 971  
 Medios 54, 841  
 Meleas, Melena, Melenas, Melenasko landa 21, 52, 430, 431  
 Mendi, Mendiandia, Mendibil, Mendiebakia, Mendigorria, Mendijuri, Mendiki, Mendingilága, Mendigilla, Mendigillo, Mendikilla, Mendikilles, Mendikillo, Mendiko etxea, Mendikoertea, Mendilatza, Menditxuri, Mendiurru(n), Menyurru, Mendizabala, Mendendoa 20, 24, 74, 91, 111, 118, 137, 174, 431, 495, 536, 537, 693, 901, 971, 1070, 1071, 1072, 1080, 1087  
 Merkatu, Merkatubidea 138, 971  
 Mesta 841  
 Mezkirizperro 749  
 Miguelena, Mikelenzabal 82, 842  
 Mina(s) 265, 430, 432  
 Mirabuena, Mirabueno, Mirabuenos, Miracielos, Mirador, Miradorea, Miravalles 432, 842, 972  
 Miruaitzeta, Mirueta 73, 972  
 Mitxelki 901  
 Modrojal, Modrollar, Modrollo 389, 432, 843, 1086  
 Mojón 139, 265, 331, 432, 537, 628, 693, 843, 972, 973

- Molino, Molinar, Molinaz(os) 233, 265, 266, 331, 346, 433, 434, 538, 628, 844, 973, 1087  
 Monda, Mondako errekina, Mondakieta, Mondaportillua, Mondela 70, 434, 435, 629, 630, 974, 1068  
 Monja baracea 813  
 Monte, Monte demarcado, Montekilate 139, 175, 266, 331, 332, 436, 538, 630, 694, 845, 912, 974  
 Mora, Moraga, Moraldea, Morape, Morate(a), Morea 34, 266, 436, 630, 845  
 Morentin, Morentiain 40  
 Moriones 53, 267, 694  
 Morreta 1064  
 Mosquera 175  
 Mostrakas, Mostraca, Mostacas 54, 448, 846  
 Motelarana 847  
 Motxilukantoa 139, 1003  
 Motxiturria, Motxiturriaga, Musitu, Mussiturria 32, 33, 140, 141, 1002  
 Moyo 436  
 Muela(s) 55, 847  
 Muga(s) 141, 175, 267, 332, 436, 437, 538, 539, 630, 631, 632, 694, 695, 848, 849, 974, 975  
 Mugaleta, Mugandia, Mugarana, Mugaranaportillua, Mugarria, Mugazuri(a), Mugazurieta 68, 72, 267, 332, 437, 438, 695, 849, 975, 1083  
 Mungalate 1080  
 Munikotxorrotx 632  
 Muno, Buno, Puno, Munotxikia 268, 438, 633  
 Munos, Munoz, Muñoz, Munus, Bunus, Bunuze, Munuzuleta, Muñurmeta 55, 72, 850, 851  
 Muñukukulua 851  
 Muru, Murualdapa, Muruarana, Murubitarte, Murugibel, Murugibelgoiena, Murugibelportillua, Muruguti, Murugutigaña, Muruzabal...205, 633, 634, 635, 636, 696, 1083  
 Muskillera, Muscullu ondoa 186  
 Mutioa, Mutio andia, Mutiochiquia 857  
 Mutxarka 438  
 Muturromendi, Mutxúrro, Mutxurromendi, Mutxúrru 851, 852  
 Naba, Nababarrena, Nabarana, Nabeta, Nava(s) 69, 268, 439, 539, 852, 975, 976  
 Nevera 540, 636, 852, 976  
 Nobeleta, Nobeletabarrena, Nobeletaondoa, Nobeletasaietsa, Nobelondoa 27, 65, 69, 93, 98, 142, 540, 852  
 Nocedo, Nogal, Noguera(s), Nozal 118, 268, 439, 541  
 Noria 439  
 Nuestra Señora 268, 439, 440, 636, 853, 976  
 Obraria, Obrarizortea 119, 474  
 Odia, Odiaga, Odialdea, Odiko, Odikotzar, Odikozar 35, 143, 323, 541, 637, 696, 853  
 Oiangibela, Oianondoa, Oiarkoa, Oiarnagusi, Ollargibela, Ollarkoa, Ollarmendia, Ollarzaldua 69, 269, 440, 696, 697, 977, 1083  
 Oibar, Oibarbidea, Oibarbidegña 541, 542, 1087  
 Oillaizatara 1080  
 Ojo 440  
 Olaberriko idoia 197  
 Olcozena 81



- Olderizgo baltsa 197  
 Oletabidea 70, 637  
 Olibeta, Olibetako erreka, Oliveta 65, 66, 68, 72, 143, 269, 440, 543, 696, 853  
 Olivar(es) 270, 333, 544, 638, 696, 697  
 Olladi, Olladialdea, Ollariko artadia 854  
 Ollatu 854  
 Olmo 440, 977  
 Olzagal, Olzagalillo, Orzagal, Orzagal 442  
 Onbordi, Onbordiko erreka, Onbordua, Onborduiabarrena, Onbortegi 144  
 Ondajo, Ondallo, Ondallu, Ondalluburua, Ondalatz, Ondatea, Ondategi, Ondatika, Undatika 148, 440, 441  
 Ontinar 977  
 Opakoegia, Opakua, Opakuegia 91, 270, 544, 564, 977  
 Opelamendi 855  
 Opermendia 1080  
 Orba, Orbaibar, Orbe 72  
 Ordena, Ordenakoa, Ordenekoa 81, 104, 544  
 Ordokia, Ordokiburua, Ordokigoiena, Ordokilanda 977, 978, 1075  
 Oreinate, Oreingaña, Oreingibela, Oreingibelgaña, Oreinzuloa, Oreyn arbea 462, 697, 698  
 Ormaizkieta, Ormaketa, Ormakibere, Ormakieta, Ormaxarreta, Ormetxi 67, 68, 72, 333, 442, 678, 855  
 Orozki 698, 929  
 Osinaga 36, 856  
 Ostraka, Ostrakazelaia, Putraka, Sastraka, Utraka, Austraka 55, 448  
 Otabela, Otaberal, Otaberaz, Otaxarreta 69, 333, 545, 546  
 Otazeatze 79, 443  
 Otrillos, Otrillosandi, Otrillostxiki, Otroperitzu 14, 56, 856, 857  
 Otsalarraña, Otsazuloa, Otsogorrigaña, Otsopasaje, Otsopasaketa, Otsoportillu 27, 89, 144, 145, 452, 837, 858  
 Otxasa 1074  
 Otxomil 1083  
 Ozteriz, Ozterizgña 50, 270, 271  
 Paco 270, 443  
 Padul(es), Paduleta, Padulnueva, Padura 33  
 Pagobil, Pagobilla, Pagabillos, Pagavillos, Pagallus 52  
 Pajar 698  
 Palacio 145, 271, 546, 858, 978  
 Palomar, Palomaraz, Palomares 345, 443, 978  
 Parcelas 546  
 Parra(l), Parral(e)a, Parralaldea, Parralla 145, 146, 271, 333, 546  
 Patxape 272  
 Pausua, Pausoa, Pausuamaia, Pausubidea, Pausugaitz, Pausugaizto, Pausutxar, Pasadizo, Pasaje, Pasalobos, Paso 92, 146, 271, 443, 444, 546, 547, 859, 1068  
 Patio 859, 860  
 Paxakadíe, Patxakadíe, Paxakéta 140  
 Pedrocal, Pedrugal 146, 444  
 Pedrotxiki 978  
 Pelau, Pelaubidea, Pelaumuga, Plaondoa, Plau 91, 272, 547, 980  
 Pelotaxokua 554  
 Peña(s), Peñandia, Peñazamala, Peñisco 71, 147, 445, 446, 447, 548, 638, 860

- Pepo 447  
 Peral(es) 638  
 Perera 334  
 Perongortea 979  
 Perrería 175  
 Peruzuria, Peruski 901, 1081  
 Petringesala 752, 860  
 Piedra larga, Piedralata, Piedras de Jaime 455, 548, 731, 861  
 Piélagos 549, 979  
 Pierresena 82  
 Pieza 147, 334, 447, 549, 639, 640, 861, 862, 979  
 Pikaldápa, Pikarana 780, 862, 1071  
 Pikeroaren berroa 175  
 Piketa 73, 979  
 Pikotasaietsa, Pikuetasaietsa, Pikotazarra 27, 73, 979, 980  
 Pikulangortea 74, 980  
 Pila, Pilas 447, 863  
 Pillaestrupa 448  
 Pilotaxoku 140  
 Pinar, Pinareondoa, Pinosaietsa 27, 147, 272, 448, 549, 699, 863  
 Pirrina 549  
 Piperraritza 272  
 Pipiratu 863  
 Piolarraña, Pilarraña 864  
 Plana(s), Planaz, Plandeoliva, Plano (romeral) 272, 448, 1087  
 Plantado 980  
 Platería 273  
 Plaza, Placeta, Platza, Platzabizkarra, Plazta, Plazuela 30, 132, 147, 273, 449, 549, 554, 640, 699, 865, 866, 867, 981  
 Poiu (ikus Boiu)  
 Pollungo, Pollongo, Pollungu, Poiluengo 51, 450  
 Pomeraz 334  
 Portal, Portalaz, Portaletxikia, Portillo, Portillua 274, 335, 452, 699, 868, 869, 1002  
 Poche, Pocha, Bochea, Masclapochea, Pozea 453  
 Pollizar 550  
 Pomeraz 550  
 Porbonzio 981  
 Posada 869  
 Pozo, Pozos, Pocico 148, 273, 274, 335, 453, 454, 485, 550, 551, 640, 699, 869, 870, 871, 981  
 Pozoz 1087  
 Prado, Pradico 274, 454, 551, 871, 981, 982  
 Presa, Presaldea... 148, 274, 454, 871  
 Primeras viñas 551  
 Primicia, Primiziakarrera 552, 640, 871  
 Prior, Priorado, Priorato 871, 872  
 Puellico 455  
 Puendelazapata, Puente, Puentete, Pontete, Pontarrón, Puentarrón 147, 275, 299, 335, 346, 450, 451, 455, 552, 553, 640, 641, 699, 872, 982  
 Puerto 455  
 Puieta, Puietasaietsa, Puio, Puiu, Puyalato, Puyarraso 74, 204, 982

- Pulpitera, Púlpito, Pulpitu, Pulpitucoa, Purpitua 724, 958  
 Punchico 641  
 Punta, Puntazorrotza 149  
 Puntajo, Puntallo, Puntallu(a), 148, 335, 455, 553, 983, 1002  
 Puntidos 335  
 Putzilun 1065  
 Quemada(s), Quemado 65, 122, 149, 323, 642, 902  
 Quiñón, Quiñones 700, 963  
 Raboseras 554  
 Rasca, la 554  
 Ratilukuntzea 456  
 Rea 149  
 Rebote 275, 335, 554, 700, 873, 983  
 Recueja 457  
 Regadío 555  
 Regandia 983  
 Rekarre 1065  
 Relengua 1083  
 Religión 276, 555  
 Resiembra 176  
 Retuerta, Retuerto 873  
 Revuelta, Revueltica 205, 276, 457, 555  
 Rey 983  
 Rincón 336, 874, 875  
 Río, Riacho, Riachuelo, Rigacho, Reacho 276, 324, 336, 457, 487, 555, 700, 984  
 Ribazos, Ripa(s), Ripalda, Ripazaletas, Ripazos, Ripodas 51, 336, 385, 433, 454, 458, 459, 1070  
 Rizabaletas 1076  
 Roblar, Robledal 556  
 Rojo 460  
 Romario (ikus Erregua)  
 Romeral, Romerosso 875, 1087  
 Roncesvalles 276  
 Roza, Rocetas 460, 461  
 Rúa 556, 875  
 Rueda 461  
 Sabai(t)zabidea 556  
 Sabizabal 25  
 Sabuco, Sabuka, Sabukadi 61, 659  
 Sacracioa 566  
 Sada 984  
 Sadabalanda 1084  
 Sagarmin, Txagarmin, Sagarcoeta, Sagarraga 33, 35, 140, 277, 488, 642  
 Sagüés 985  
 Saibarrenge idoia 197  
 Saimendia 1071  
 Salado, Saleras, Salericas 127, 149, 336, 461, 556, 642, 700, 985  
 Salobral, Salobrar, Salobre, Salobreta 74, 461, 876, 985  
 Salto del Ciervo 462  
 Salutarana, Salutrain, Salutran 41  
 Salçeta, Salz, Salzes 986

## Samazio 557

San Adrián, San Andrés, San Belario, San Blas, San Clemente, San Cristóbal, San Damián, San Gabrán, San Cabrán, San Frutos, San Gines, San Juan, San Julián, San Justo, San Macay, San Macari, San Martín (de Unx), San Mateo, San Miguel, San Nicolás, San Pedro, San Pelai, San Pelayo, San Salvador, San Sebastián, San Vicente, San Zoilo, San Zolo, San Zolín, Sanbabilbidea, Sanbabilgibela, Sandi Angeli, Sandi Justi Gayña, Sandiandore, Sandilaurendi, Sanditume, Sanginesondoa, Santitisi, Santi Tirsi, Sanditisi, Sanmartinmuga, Sanmigelaldea, Sanpedroaldea, Santesteban, Santiago, Santo Domingo, Santodomingogibela, Santo Tomás 66, 91, 149, 150, 151, 152, 168, 249, 277, 278, 281, 336, 463, 464, 465, 466, 468, 520, 557, 558, 559, 560, 622, 623, 643, 644, 645, 646, 647, 648, 649, 701, 876, 877, 878, 879, 880, 881, 886, 987, 988, 990, 1068, 1069

Sandagata, Sandagataberokia, Sandagataondoa, Santa Agata, Santa Agueda, Santa Agueda bide, Santa Aguedapea, Santa (María) Magdalena, Santa Ana, Santa Bárbara, Santa Coloma, Santa Criz, San Criz, Santakrizgibela, Santakrizko aldapa, Santakrizportillua, Sanquirce, Santa Cruz, Santa Elena, Santa Engracia, Santa Eufemia, Santa Eulalia, Santa Fe, Santa Finia, Santa Lucía, Santa Margarita, Santa María, Santa Marina, Santamarinaldapa, Santamarinagibela 50, 51, 151, 152, 169, 278, 279, 280, 281, 337, 465, 560, 561, 646, 647, 648, 649, 701, 881, 882, 883, 884, 989, 990

Sandimas 56, 821, 881

Sanitturri 231

Santakaramuru 828, 885

Santuarana, Santuluzea, Santuzabal, Santuzabalaga 34, 282, 467

Santsoainbidea, Santsoainzabal, Santsoainzabalberokia 94, 649, 650

Santxoteuntzea, Xantxoten harriak 467

Santxotoria 887

Sanzol, Sansol, Sanzolphortillua 468, 469

Saratsea, Saratseta 74, 986, 991

Sarda 469

Sarga 650

Sarioederra, Sarioederreta, Sariogunea, Sarioko, Sarioxarra, Sarioxarreta, Sariozabal, Sariozarreta 66, 71, 282, 283, 337, 701, 702

Sarkitxipia 225

Sarraldea, Sartzea 251, 252

Sarria, Sarrizabal, Sarrea, Sarrondoa 176, 650, 733, 747, 887, 893, 913, 916, 1065

Saso, Sasico 152, 169, 283, 284, 469, 470, 561

Sastrearena 82

Satea, Satia (ikus Esatea)

Saukigaina, Saukieta 74

Sebillerena, Sebillenea, Txebillenea 140

Secano 561

Segureta 30

Seierena 153

Sekeroa, Sequero 470, 472, 561

Senda, Sendero 153, 154, 284, 285, 286, 338, 470, 471, 472, 561, 562, 563, 651, 702, 703, 888, 889, 890, 891, 991, 992

Serenado 286

Serostarria 1070

Sierra, Serrallo 81, 91, 176, 286, 495, 563, 732, 892

Silekua 564

- Sinares 52, 140  
 Sitozar 564  
 Soka 703  
 Solana, Solano, Solanóa 338, 472  
 Sombra(s) 564  
 Sopenas 35, 472  
 Sordonamaria 1068  
 Sorgineuntzea, Sorginen euntzea 79, 564  
 Soroa, Soroandia, Soroandigoiena, Soroko, Soreta 703, 892, 1087  
 Sortak, Arregiko sortak 474  
 Sortengoeuntzeta, Sortengorte(t)a 66, 287  
 Soto(s), Sotico, Sotilua, Sotilla, Sotillos, Sotoeta, Sototxikia, Sototxipia 70, 176, 288,  
 338, 339, 473, 565, 651, 652, 704, 893, 992  
 Subterráneo de Bariaín, Subterráneo de Casa de Don José 288  
 Suduzandia 1084  
 Suerte(s) 154, 473, 963  
 Sulue, Sulueburu, Sulumendi 91, 893, 894, 895  
 Sulunbate, Sulunbatezoko 94, 895  
 Tabacoiza 1076  
 Tafallamendi 1065  
 Tahona 896  
 Tajadera 288  
 Tapia, Tapiado 896  
 Tárraga 36  
 Tastaran, Trastaran, Trastan, Tasteran, Tastaranpausua 41, 154, 289  
 Tejería(s) 290, 474, 565, 652, 896, 897, 993  
 Tekerrenke, Tekerrenkle 176  
 Tiemblo 897  
 Tierras blancas, Tierras royas 263  
 Tipulatzea, Tipulatzeta, Tipulabaratzeta, Tipulasoro, Tipulerria 65, 78, 155, 290, 474,  
 704  
 Toril 898  
 Torraza, Torre(a), Torreki, Torresa, Terraza 66, 74, 155, 176, 340, 474, 475, 565, 652,  
 679, 704, 717, 898, 901, 993  
 Tostonera 898  
 Trabeseraerreka, Trabeserreka, Trabiesa 290  
 Traizioa 566  
 Tras de la Fuente 993  
 Trenboleta 67, 340  
 Tres Mojones, Tres Mugas 652, 899  
 Tunbaladuia 291  
 Turbil 1068, 1071  
 Turrubio 1069, 1071  
 Turtunbera, Tutunbera 899  
 Tutulia 851  
 Txagunetas 1072  
 Txapar, Txaparbazterra, Txaparburua, Txaparduia, Txaparra, Txaparralburua, Txapa-  
 rrandia, Txaparrarana 62, 222, 291, 417, 652, 705, 1088  
 Txares 52, 140  
 Txibiri(a) 1063, 1070  
 Txikoraitza 1076

- Tximarra 475  
 Txindil, Txindilamendia, Txindilatzea 36, 80, 705, 900, 1084  
 Txindilotxaga 36, 900  
 Txipalarrudia 1076  
 Txipu, Txipudi, Txipueta, Txipuetabaratzea, Txipuetabaratzea, Zipua, Zopadia...65, 67, 120, 155, 156, 340, 897  
 Txirimendia 1084  
 Txirria, Txirriaburua, Txirriaga, Txirrialdea 291, 292, 652  
 Txirrista 157  
 Txonbordo 144  
 Txorikantari(ko erreka), Choricantariaga 139  
 Txorria 900  
 Txorroka, Txorrokoa, Txorrota, Txurrokoa, Txurruta, Txurrustagaña, Zorroka, Zorrota...156, 566  
 Txotxa, Txotxalabakieta 474  
 Txustapea, Sustapea, Xustapea 140  
 Txutxu, Txutxuberokia, Txutxuko berokia, Txutxumantxiriturrieta, Txutxuondoa, Txutxuportillua 653, 654, 902, 1069  
 Txutxurro, Txurumurru, Txurumurrutxiki 851, 852  
 Uarka, Ubarka, Ugarka, Uarte, Uartetxipia, Ugarte, Ugalde, Ubalde, Ubelde, Uerregua 340, 566, 654, 689, 706, 993, 1072, 1081, 1088  
 Ubagua (ikus Opakoegia)  
 Ubitarte, Ubiart, Ubieta, Ubieta, Ubieta, Urbitarte 654  
 Udareaga, Udareagapausua, Udarelurreta, Udareluzeta, Udareluzeta, Udareztia, Udareztia 32, 33, 35, 37, 70, 157, 655, 706, 904  
 Udarezteta 1076  
 Ugarra, Ugarreta 331  
 Ukaranduia 340  
 Unziti, Unzitiarra 292  
 Unzue 293  
 Ur 512  
 Urandibidea 475  
 Urgurutzta, Hurjunta 414  
 Urkabedenea, Urkabegaña, Urkabazarreta, Urkamendia 91, 655, 904  
 Urkimakur 248  
 Urretako erreka 70, 656  
 Urrutia, Urrutiko oihana 476, 567, 706  
 Urtanda, Urtaza, Urtazarana, Urtazu, Urtadia 37, 1081  
 Urteaga, Urteagadanakogaña 37, 905  
 Urtes 1070  
 Urtxiloa 193  
 Usadorrezarra 476  
 Usatarraña, Sotarrana 476  
 Usate 1077  
 Usiturria 141  
 Usunbiribila, Usufieta, Usufietako bidea, Usunbeltz 36, 69, 485, 567, 568  
 Utsaskieta, Utsaskietarana 69, 74, 994, 995  
 Uxue, Uxuebidea, Uxubidea, Usuebide, Usobidea, Usubidea, Uxueko oihanondoa, Jubidea 26, 116, 158, 293, 477, 657, 906  
 Uzkitarana 995  
 Uzonda 1076

- Val, Val de la Orita, Valcervera, Valcimarra, Valdarras, Valdecañuelos, Valdecomun, Valdecontienda, Valdejares (ikus Jares), Valdemurillo, Valeciera, Valecillas, Ballecillos, Valescura, Valdescura, Valespesa, Valgrande, Valizarza, Valliluenga, Varilengua, Vallimagra, Mallimagra, Valoria, Valtraviesa, Valverde 28, 35, 52, 176, 290, 295, 341, 358, 365, 477, 478, 479, 480, 657, 697, 807, 910, 911, 928, 996, 1065, 1068
- Valladana, Ballarana 41, 1088
- Vedado 110, 159, 911
- Venta 295
- Vergal 996
- Vergel 670, 912
- Vía Cavallera 997
- Vicaría, Vicario 295, 996
- Vicentón 481
- Vinicio 341
- Villa, Villantigua, Villar(es), Villaverde 35, 295, 481, 913, 914, 996
- Vínculo 915
- Viniés, Viñés 134
- Viña, Viñadia, Viñacea 159, 228, 341, 657, 706
- Virgen 263, 268, 296, 658, 996
- Vuelta 481, 915
- Xabatenbelon 181
- Xandua 181
- Xaugizabal, Jauguizabal 25, 94, 296, 686, 864
- Xauzgun, Xauzkunea 25, 26, 297
- Xubingoa, Jubingoa, Xubingoarana, Xubingoeta, Xubiko, Xubindo, Txubindo, Xubinttoa, Zubingoa...25, 298, 341, 660, 707, 997
- Xubiri 181
- Xurieta 140
- Xurio 181
- Yesa 106
- Zabaifoia 1070
- Zabala, Zabal(a)gaña, Zabalburua, Zabalcoa, Zabalea, Zabaleondoa, Zabaleta, Zabalondoa, Zabaltza, Zabalzigar, Zabalzigarportillu 68, 69, 78, 159, 160, 300, 302, 341, 481, 488, 658, 707, 915, 1074
- Zabartu 820, 916
- Zaburria 1085
- Zagalesmendia 160
- Zaldua, Zalduako haranandia, Zalduarana, Zalduberria, Zaldubidea, Zaldubiribilkia, Zalduburu, Zalduburuportillua, Zalduki(a), Zalduko euntzea, Zalduzaharra, Zalduzarreta 23, 69, 74, 79, 303, 304, 482, 568, 569, 632, 658, 901, 1084
- Zaldunaga, Zaldinaga, Zaldinagalde, Zaldinagaondoa, Zaldinoaga, 30, 34, 37, 302, 303, 916
- Zaldunardantzea 80, 997
- Zamakidi, Zamakidoi, Zamakidu, Zamakido, Çamaquidea, Zamaquide, Zamuca arana, Zamucaduia, Zamuka 61, 62, 482, 658, 659
- Zamiki, Zamikigoiena, Zamikipausua 28, 632, 659, 660
- Zandandorre 570
- Zandua 1085
- Zangoza, Zangozabidea 51, 57, 117, 304, 997
- Zanzualda 1074

- Zapaiz, Ceapeiz 917  
 Zapatagindegia, Zapataginmendia 304, 482  
 Zaramendi 1069  
 Zaraputzu, Zarapuz 814  
 Zare, Zarebidea, Zarebidegafia, Zarebidekoa 104, 571, 707, 984, 997  
 Zariqueta, Zarikegi, Zarikegi 69, 70, 571  
 Zarkume, Zarkumerena, Xarkume 81, 571, 572  
 Zaubio 918  
 Zautelu 34, 435, 919  
 Zazu(a), Zazualdea, Zazuburu(a), Zazugibela, Zazuondoa, Zazutxiketa, Zazutxipia, Zazutxipietia, Zazusenbela(gibel) 23, 24, 25, 28, 67, 152, 160, 304, 305, 306, 919, 998  
 Zekiazarra 482  
 Zelaigibelea 37  
 Zenborain, Zenborrain, Zenboroz, Çambora 39, 42, 52, 53, 483  
 Zerkoa 998  
 Zeroda, Zerodagoiena 306  
 Zerradoa, Zerradogibela, Zerradogibelea, Zerradopea, Zerradoxarra, Zerrakia, Zerrategia, Zerratugibela 67, 220, 307, 342, 660, 678  
 Ziardoia, Ziaurritz, Ziaurritea 161  
 Zidakos 1065  
 Zipirio 244  
 Zirikuzabal, Zirikuzabalabidea 572, 573  
 Zoko, Zokozarra 802, 998, 1088  
 Zollin, Zolia 1069  
 Zonbolozoko (ikus Sulunbate)  
 Zonbordi 144  
 Zorte, Zorteandia, Obrarizortea 474  
 Zorzabala 1085  
 Zuaizketa 72, 920  
 Zubia, Zubialdaia, Zubialdea, Zubibizkarra, Zubibular, Zubieroria, Zubingoa, Zubiondo, Zubitxiki, Zufitxarki 74, 307, 342, 483, 574, 660, 708, 901, 920, 921  
 Zugarketa, Zugarres 70, 575  
 Zuloaga, Zuloko kortea 35, 484, 661  
 Zumadua, Zumaduieta 59, 62, 67, 308, 998  
 Zurbano, Zurbao, Zurbau, Çurbao ondo, Zurbaran 308, 309  
 Zurdo 342  
 Zuton 1074  
 Zuzuarana 484



## 24. AURKIBIDE OROKORRA

1. Gure eremua.....	9
2. Lanaren helburuak .....	13
3. Metodologia .....	15
4. Aldaera batuak aukeratzeko irizpideak.....	19
5. Grafia kontuak .....	23
6. Gure alderdian ohizkoen diren atzizkiak .....	29
6. 1. -Aga atzizkia .....	29
6. 2. -Aga atzizkia gure eskualdean.....	32
6. 3. -Ain atzizkia.....	37
6. 4. -Ain atzizkia gure eskualdean .....	40
6. 5. -As/-az, -es/-ez, -iz, -os/-oz, -us/-uz atzizkiak .....	44
6. 6. -As/-az, -es/-ez, -iz, -os/-oz, -us/-uz gure alderdian.....	48
6. 7. -Di, -doi/-tui/-du atzizkia.....	57
6. 8. -Eta atzizkia .....	63
6. 9. -Eta gure eskualdean .....	65
6.10. -Tze, -tza atzizkiak .....	76
7. Dermio baten zatiketa .....	81
-Artea/-barrena/-goiena .....	81
-Agerria.....	84
-Aizina/-gibela .....	84
-Aldapa .....	85
-Aldea .....	85
-Bazterra .....	86
-Bea,-pea .....	86
-Berokia .....	87
-Bidea .....	87
-Burua.....	88
-Erreka, erregua.....	88
-Gaina .....	88
-Harana .....	89
-Hegia.....	91
-Iturria .....	91
-Mendia.....	91
-Muga .....	91

-Ondoa.....	92
-Pausua.....	92
-Portilua.....	93
-Saihetsa.....	93
-Zabala.....	93
-Zelaia.....	94
-Zokoa.....	94
-Zuloa.....	94
8. Agezako toponimia.....	95
9. Aldeko toponimia.....	163
10. Epaizko toponimia.....	171
11. Eslabako toponimia.....	177
12. Ezporogiko toponimia.....	311
13. Galipentzuko toponimia.....	343
14. Leatxeko toponimia.....	485
15. Lergako toponimia.....	577
16. Morionesko toponimia.....	663
17. Uxueko toponimia.....	709
18. Zareko toponimia.....	923
19. Gure alderdiko euskara.....	1.001
20. Euskararen mugak.....	1.061
21. Bibliografia.....	1.099
22. Erabilitako laburduren zerrenda.....	10113
23. Izen-aurkibidea.....	1.117
24. Aurkibide orokorra.....	1.141
25. Mapak.....	1.143









ONOMASTICON VASCONIAE

Títulos publicados / Oraindanoko aleak:

1. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona  
Cendea de Cizur.*  
José María Jimeno Jurío.
2. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona.  
Cendea de Galar.*  
José María Jimeno Jurío.
3. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona  
Cendea de Olza.*  
José María Jimeno Jurío.
4. *Actas de las I Jornadas de Onomástica.  
Toponimia (Vitoria-Gasteiz, abril de 1986).  
I Onomastika Jardunaldien Agiriak.  
Toponimia (Gasteiz, 1986ko Apirila).*
5. *Toponimia alavesa, seguido de Mortuorios  
o despoblados y Pueblos alaveses.*  
Gerardo López de Guereñu Galarraga.
6. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona.  
Cendea de Iza.*  
José María Jimeno Jurío.
7. *Actas de las III Jornadas de Onomástica.  
(Estella, septiembre de 1990).  
III Onomastika Jardunaldien Agiriak.  
(Lizarrá, 1990ko iraila).*
8. *Pasaiaiko toponimia.*  
Angel M<sup>a</sup>. Elortegi Bilbao.
9. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona.  
Cendea de Ansodin.*  
José María Jimeno Jurío.
10. *Andoaingo toponimia.*  
Amaia Usabiaga Flores.
11. *Eslaba aldeko euskararen azterketa  
toponimiaren bidez.*  
Patxi Salaberri Zaratiegi

Próximos volúmenes / Hurrengo aleak:

*Onomastique du Pays Vasque Nord  
(XI-XVII<sup>e</sup> siècle).*  
Eugène Goyheneche



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE





OIBAR HARANEKO BIZKAIA

Oibar haraneko Bizkaia

